# Egungo Euskararen Hiztegia

## —I—

[bertsioa: 2024-01-09]

---

**i** **1** *iz* *i* letraren izena.

Mendira igotzeko ere modu alfabetikoa eskaintzen du, "A delakotik abiatu eta, B, D, E, F, G, H, **I**, J, K eta L izeneko lekuetatik pasatuz, mendiaren M alturaino iritsi". Iñaki Arranz

Bokalak, **i**-e-a-o-u hurrenkeran hartuta, [...]. Lourdes Oñederra

Bost **i** dituzten hitzak baditu euskarak: *kilimiliklik*, [...]. Iñaki Arranz

Zailagoa da, ordea, hitz batean bost bokalak behin bakarrik eta dagokien hurrenkeran (a, e, **i**, o, u) agertzea. Iñaki Arranz

Ezpainak luzaturik eta aurreko artikulazioaz ahoskatzen da **i**, ezpainak borobildurik. Isabel Arrigain

**I** eta o protetiko horiek areagotu baizik ez dute egiten sonante izate hori. Isabel Arrigain

Ken dezagun, lenengo, barrunbe-girodun "n" ori, eta ipiñi gero, tarteko "u" bokal illunaren ordez, **"i"** bokal argia. Iñaki Arranz

Bokal guztien antzera, **i**-ak u-ak ü-ak sudurkarizaturiko formak dituzte, bainan urri gertatzen dira eta alde batera utzi ditzakegu. Isabel Arrigain

Eskuak poltsikoan, erre **i** pearen azpian bere izen propioa berrirakurri zuen harrituta, eta data amatatu haietatik hilaren adina kalkulatu zuen. Joseba Sarrionandia

**2** ***i greko*** (*orobat* ***y greko***)

Euskaraz, letra-izen guztiek, ordezkatzen duten letra hartzen dute, nola edo hala, izenean, honakook izan ezik: ze, ku, uve bikoitza eta **i grekoa**. Iñaki Arranz

Arantzazun sortu zen, sortu ere, *Yakin,* **i grekoaz**. Berria - Harian

Ezpainak elkarrengandik bereizi gabe, eta **"y" grekoa** iksa edo "sh" bezala ahoskatuz. Jon Alonso

Gogoan dut *O Guarany,* **y grekoarekin**, Pery-ren irudiaz ilustratua, hori ere **y grekoarekin**. Karlos Zabala

---

**ia** **1** *adlag* dagokion hitzak adierazten duen nolakotasuna, egoera, modua edo egintza, erabatekoa izateko edo erabat gertatzeko edo betetzeko gutxi falta dela adierazten duen hitza. ik **abantzu**[2], **kasik.** (izen baten ezkerrean)

Belus purpurazko errezel multzo itzela, **ia** gela osoa hartzen zuena. Jon Muñoz

Gainerakoan, **ia** kolageno hutsa da hezurra. Irene Aldasoro

Eta titipuntak eta hauen inguruko koroak **ia** modu lizunean nabarmentzen ziren. Juan Martin Elexpuru

Lesioaren **ia** zama guztia. Xabier Olarra

Hildakoak, izan ere, **ia** urtebete eman zuen iruzurraren gainean datuak biltzen eta aztertzen. Migel Angel Mintegi

**-Ia** urtebete da hil zela. Koro Navarro

Ene!, **ia** zera ematen du-eta... tira, aktore miresgarria dela uste dut! Mirentxu Larrañaga

Benetako animaliez ari gara, jakina, ez **ia** gure hurko edo senide bihurtu ditugun animalia etxekotu eta etxe-barrukoez. Iñaki Segurola

**2** (izen baten ezkerrean)

Nahiko idazkera zabarra zuen, batzuetan **ia** ulertezina. Oskar Arana

Gau **ia** osoa edo agian oso-osoa autobusean eserita eman zuela. Oskar Arana

Larritasunak eragindako erantzun **ia** histerikoa. Oskar Arana

Baina, zer gaixotasun egon zitekeen emakume **ia** aingerutar haren psikean? Juan Kruz Igerabide

Hazkunde laster hori **ia** etengabea izan zen 1973 arte. Koro Navarro

Une honetan **ia** aberatsa naiz; emaztea ere aberatsa da... Koro Navarro

Hi **ia** mutua haiz, eta ni **ia** gorra. Jon Muñoz

Instante bateko zalantza izan nuen, odolarekin zorabiatzeko arrisku **ia** seguruak eragina. Anjel Lertxundi

Hitz egitea **ia** ezinezko bihurtzen zuen zarata izugarri haren erdian. Joxe Austin Arrieta

Joxe krakaxen historia **ia** ezin sinistuzkoa. Koro Navarro

**3** (adizlagun baten ezkerrean)

**Ia** larrugorri dagoen neskatila ttipi, pollit bat. Gotzon Garate

Larunbata zen, **ia** ziur nago. Juan Kruz Igerabide

Ezker muturreko mugimenduak **ia** erabat galdurik zeuden. Juan Kruz Igerabide

Burbuila bat formatzen zen, aski ederra begira eta **ia** perfektuki esferikoa. Juan Garzia

Trukeen hedapen espazialaren mito klasikoari, sekuentzia **ia** osorik alderantzizkoa kontrajartzen dio beraz Polanyik. Koro Navarro

**Ia** lozorroan sartzen ari nintzela. Josu Zabaleta

**Ia** erorian joan zen. Koro Navarro

Nirea **ia** inertziaz mugitu zen. Jon Muñoz

Baina **ia** oharkabean, lehentasunei buruzko hausnarrean hasi nintzen. Anjel Lertxundi

**Ia** egunero izaten zuten halakoren bat. Iñaki Iñurrieta

**Ia** sekula faltako ez zaizkizunak: arroza eta platanoa. Gotzon Garate

**Ia** noiz garbitzen duan. Iñaki Iñurrieta

Itsasoan, **ia** zeharo neutralizatuta dago grabitatea. Irene Aldasoro

Haien atzean Ega ibaiaren ur **ia** erabat geldia ageri zen, berdetsua eta arrea. Koro Navarro

Haragian zehar **ia** bestalderaino pasata. Josu Zabaleta

Harritzekoa zen nola ari ginen elkarrekin lagunarteko hizketa-moduan, **ia** hika. Joxe Austin Arrieta

Zabulondarrek, bai, **ia** hiltzeraino arriskatu zuten bizia. Elizen arteko biblia

**-Ia** bertan hil nintzen -esan zuen Tomek-. Oskar Arana

**4** (aditz baten ezkerrean)

Senarra ere **ia** erotu zait, hor bainabil beti jirabiraka, abesti hori ahopetik kantaka. Mirentxu Larrañaga

Burua erabat beroturik zeraman, **ia** kontrolatu ezinik. Migel Angel Mintegi

Lehen ere esan dugu Keralan **ia** ez dela analfabetorik. Gotzon Garate

· Hurbildu zaizkie, baina neskak **ia** ez dio kasurik egin irgarkiHausterri, kezka izpi bat du aurpegian. Iñaki Iñurrieta

Emakumea **ia** lurrera erori zen. Anjel Lertxundi

**Ia** bere burua hiltzera bultzatzeko moduko depresioak jota ibili zen. Xabier Olarra

Hain bizkor arraio **ia** galtzazpiak busti bainituen. Oskar Arana

Guatemalan, zioen, ugari bai ugari omen ziren maiar guneak, batzuk **ia** batere industu gabeak. Joxe Austin Arrieta

Eta uhinek txalupa **ia** azpian hartua zuten. Elizen arteko biblia

**5** (bestelakoen ezkerrean)

Ez du **ia** ezer esaten. Iñaki Iñurrieta

Gainera, Julio eta bion artean ez dago **ia** ezer; ulertzen? Juan Kruz Igerabide

Auto gutxi, **ia** denak zaharrak. Jon Muñoz

Izan ere, **ia** nahi duten edozein kolore sortzen dute artistek paleta mugatu batetik. Xabier Olarra

Duela hiru urte gertatu zen, **ia** lau. Koro Navarro

**Ia** zazpi tonelada ogi-irin garbi eta hamalau tonelada ogi-irin arrunt. Elizen arteko biblia

Banituen **ia** hirurogei urte, eta ez nekien zenbat denbora geratzen zitzaidan. Oskar Arana

Tomek Harryri buruz jakin uste zuen **ia** guztia gezurra zen. Oskar Arana

Atseden gutxi edo **ia** batere ez eta, berehala, ametsetan ere kezkati, egunez bezala. Elizen arteko biblia

**6** (dagokion hitzaren eskuinean)

Hamaika eta erdiak ziren **ia**. Migel Angel Mintegi

Ohean iraun zuen, mende laurden batez **ia**. Juan Garzia

Benetan diotsut, zin degizut, nireak egin zuen **ia**! Mirentxu Larrañaga

Saria jaso baino lehentxeago, "yiddishezko azken idazlea naiz **ia..."** zioen Singerrek. Koro Navarro

Pertsona bakarrarentzat ere ez dago lekurik **ia**. Oskar Arana

**7** ***ia-ia***

Itsas armadan nengoela, **ia-ia** epaiketa militarra egin zidaten itsas mapa sorta baten izen-etiketak nahasteagatik. Oskar Arana

Badira 2.400 milioi lagun, **ia-ia** biztanle guztien erdia, garbitasun sistemarik gabe bizi direnak. Pello Salaburu

Haren gorpuzkera: sasoitsu, **ia-ia** neskatila batena irudi, ileak urdin edo zuri ez balitu. Joxe Austin Arrieta

Intziri etenak, hasperen basatiak, orroeak **ia-ia**. Juan Martin Elexpuru

**Ia-ia** aurreko marrazkia bezain zorigaiztokoa atera zitzaion! Jon Muñoz

Indio haiek xamurregiak dira, baketsuegiak, **ia-ia** umeak bezalakoxeak. Joxe Austin Arrieta

Likatsua iruditzen zitzaidan, melenga, **ia-ia** lizuna. Juan Kruz Igerabide

Udako gau giro epelaz gozatua nintzen, hiri **ia-ia** hutsean barna ibiltari. Aingeru Epaltza

Nire plan guztietan, kazetari bilakatzea izan zen gauzatu nuen **ia-ia** bakarra. Aingeru Epaltza

Nire bagoia errailez aldatzen ari ziren, eta **ia-ia** ohetik erori nintzen. Koro Navarro

**Ia-ia** mina nabaritzen nuen erraietan. Txillardegi

Haren zango zolek nireak ukitzen zituzten **ia-ia**. Aingeru Epaltza

Adinaren lorean zegoen, eta, hala ere, emakumeen eta maitasunaren kontuaz den bezainbatean, **ia-ia** etsia hartua zuen. Oskar Arana

**Ia-ia** ederra egin zuen! Migel Angel Mintegi

Orain zaharra duk: hirurogeita bost urte baditik **ia-ia**. Txillardegi

Atzera eta aurrera ibili nintzen, eskuak patriketan, batzuetan haizearen alde, **ia-ia** airean eramana. Joxe Austin Arrieta

Haietako batzuk lokatzetan hondoratuak baitzeuden, lurrak irentsiak, **ia-ia**. Joxe Austin Arrieta

Palmondoek **ia-ia** estalitako etxe batean. Fernando Rey

**8** ***ia-ian egon*** azkenetan egon.

Tarteka-marteka, **ia**-ian daudenean ziur asko, gelditu egiten dira, beren atsegina eta emakumearen tortura luzatzeko. **Ia-ian** zeudenek amore eman dute, eta lo faltan zeudenek gaur, behintzat, lasai egingo dute lo. Juan Martin Elexpuru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**abertzaleak ia** (8); **arte ia** (20); **artean ia** (19); **aurten ia** (8); **azkenean ia** (9); **baina ia** (96); **baino ia** (44); **baita ia** (13); **baitzuen ia** (17); **bat ia** (32); **batean ia** (12); **batek ia** (23); **batera ia** (8); **batzuetan ia** (8); **batzuk ia** (14); **begiak ia** (11); **beste ia** (10); **bezala ia** (11); **bitartean ia** (8); **burua ia** (10); **da ia** (176); **da ia beti** (19); **da ia ia** (17); **dago ia** (36); **daude ia** (8); **dela ia** (18); **den ia** (13); **dio ia** (10); **dira ia** (52); **dira ia beti** (11); **diren ia** (12); **ditu ia** (12); **ditut ia** (9); **dituzte ia** (14); **du ia** (90); **duela ia** (60); **duen ia** (10); **dugu ia** (17); **dut ia** (25); **dute ia** (51); **duten ia** (12); **duzu ia** (10)

**edo ia** (97); **edo ia beti** (8); **egin ia** (9); **egin zuen ia** (9); **egitea ia** (11); **egiten ia** (11); **egun ia** (25); **ere ia** (52); **eta ia** (710); **eta ia berehala** (11); **eta ia beti** (22); **eta ia egunero** (9); **eta ia ez** (20); **eta ia ezinezkoa** (8); **eta ia ia** (50); **ez da ia** (34); **ez dago ia** (20); **ez du ia** (40); **ez dut ia** (12); **ez dute ia** (25); **ez genuen ia** (9); **ez ia** (9); **ez nuen ia** (12); **ez zegoen ia** (9); **ez zen ia** (39); **ez zuen ia** (37); **ez zuten ia** (16); **ezen ia** (13); **gabe ia** (22); **gara ia** (10); **gaur egun ia** (13); **genuen ia** (16); **gero ia** (12); **harry ia** (8); **harryk ia** (12); **hartan ia** (8); **hau ia** (9); **honetan ia** (14); **hori ia** (26); **horiek ia** (11); **horietatik ia** (12); **horrek ia** (15); **horretan ia** (9)

**ia ahapeka** (9); **ia ahaztu** (22); **ia ahaztua** (12); **ia ahaztuta** (14); **ia aho** (27); **ia aho batez** (27); **ia alderdi** (8); **ia aldi** (35); **ia aldi berean** (31); **ia amaitu** (9); **ia arnasarik** (11); **ia arrastaka** (9); **ia astebete** (11); **ia astero** (12); **ia atsedenik** (8); **ia aukerarik** (12); **ia azken** (11); **ia bakarra** (49); **ia bakarrak** (8); **ia bakarrik** (14); **ia bat** (25); **ia bat batean** (10); **ia batera** (10); **ia batere** (63); **ia batere ez** (16); **ia bederatzi** (10); **ia behin** (11); **ia bera** (13); **ia berdin** (15); **ia berdina** (9); **ia bere** (53); **ia berehala** (35); **ia berrehun** (11); **ia berrogei** (27); **ia berrogei urte** (15); **ia berrogeita** (10); **ia bertan** (13); **ia beste** (43); **ia beteta** (16); **ia beti** (359); **ia beti bezala** (11); **ia bi** (147); **ia bi hilabete** (10); **ia bi mila** (8); **ia bi milioi** (10); **ia bi ordu** (11); **ia bi urte** (20); **ia bigarren** (8); **ia bikoiztu** (15); **ia bikoiztu egin** (13); **ia biluzik** (12); **ia bizitza** (20); **ia bizitza osoa** (9); **ia bost** (42); **ia bost urte** (12); **ia bukatu** (11); **ia buruz** (11); **ia dena** (97); **ia denak** (120); **ia denbora** (19); **ia denbora guztian** (11); **ia denboraldi** (9); **ia denek** (51); **ia denok** (8); **ia desagertu** (12); **ia deus** (22); **ia deus ere** (8)

**ia edozein** (18); **ia edozer** (10); **ia egun** (42); **ia egun osoa** (10); **ia egun osoan** (12); **ia egunero** (151); **ia egunero egiten** (9); **ia ehun** (32); **ia ehun urte** (11); **ia elkar** (8); **ia entzun** (8); **ia erabakita** (17); **ia erabakita utzi** (9); **ia erabat** (122); **ia erabateko** (13); **ia erabatekoa** (20); **ia eraginik** (8); **ia erdia** (25); **ia erdiak** (32); **ia erori** (25); **ia erori zen** (12); **ia esan** (16); **ia eta** (12); **ia etengabe** (12); **ia etenik** (13); **ia etenik gabe** (8); **ia europa** (8); **ia euskaldunak** (10); **ia ez** (331); **ia ez da** (38); **ia ez dago** (15); **ia ez dira** (9); **ia ez du** (21); **ia ez dut** (8); **ia ez dute** (14); **ia ez nuen** (12); **ia ez zen** (28); **ia ez zuen** (28); **ia ez zuten** (9); **ia ezagutzen** (9); **ia ezer** (121); **ia ezer ere** (8); **ia ezer ez** (20); **ia ezer ikusten** (8); **ia ezezaguna** (11); **ia ezin** (65); **ia ezinbestekoa** (8); **ia ezinezko** (8); **ia ezinezkoa** (177); **ia ezinezkoa da** (47); **ia ezinezkoa dela** (14); **ia ezinezkoa izango** (20); **ia ezinezkoa zen** (12); **ia ezinezkotzat** (8); **ia gau** (8); **ia gauero** (24); **ia gauza** (15); **ia gehienak** (13); **ia guztia** (47); **ia guztiak** (103); **ia guztiek** (45); **ia guztien** (14); **ia guztietan** (24); **ia guztiz** (39); **ia hamar** (47); **ia hamar urte** (15); **ia harrapatu** (14); **ia hasi** (10); **ia hasieratik** (13); **ia herri** (21); **ia hil** (14); **ia hilabete** (29); **ia hilik** (8); **ia hiru** (92); **ia hiru ordu** (9); **ia hiru urte** (15); **ia hitz** (21); **ia hitzik** (27); **ia hogei** (38); **ia hogei urte** (17); **ia hogeita** (20); **ia hogeita hamar** (13); **ia hutsik** (41); **ia hutsik zegoen** (11)

**ia ia** (718); **ia ia ez** (16); **ia ikusezin** (12); **ia ikusezinak** (8); **ia ikusi** (13); **ia ikusten** (9); **ia inoiz** (82); **ia inoiz ez** (34); **ia inor** (41); **ia inor ez** (16); **ia inork** (47); **ia inork ez** (29); **ia iritsi** (14); **ia ito** (10); **ia itsu** (11); **ia itxita** (12); **ia jende** (10); **ia konturatu** (26); **ia konturatu ere** (8); **ia konturatu gabe** (15); **ia lan** (9); **ia lasterka** (9); **ia lau** (64); **ia lau urte** (22); **ia lau urtez** (8); **ia laurehun** (9); **ia lepogabeko** (40); **ia lepogabeko nick** (11); **ia lepogabeko nickek** (13); **ia liburu** (8); **ia lortu** (8); **ia lurrera** (8); **ia mende** (21); **ia mila** (24); **ia milioi** (21); **ia milioi bat** (13); **ia minutu** (9); **ia mugitu** (13); **ia mundu** (26); **ia nahi** (16); **ia nahi gabe** (9); **ia negarrez** (11); **ia nire** (12)

**ia oharkabean** (38); **ia ohartu** (20); **ia ohartu gabe** (13); **ia oihuka** (22); **ia ordu** (34); **ia ordu erdi** (8); **ia ordubete** (24); **ia osoa** (48); **ia osoan** (12); **ia osorik** (64); **ia partida** (31); **ia partida osoan** (14); **ia pentsatu** (8); **ia seguru** (31); **ia segurua** (9); **ia sei** (29); **ia sekula** (11); **ia ukitu** (18); **ia ukituz** (9); **ia une** (18); **ia une berean** (14); **ia urte** (37); **ia urte osoan** (8); **ia urtebete** (35); **ia urtebetez** (14); **ia urtero** (17); **ia zazpi** (22); **ia ziur** (36); **ia ziurra** (10); **ia ziurtatuta** (9); **ia ziurtzat** (22); **ia ziurtzat jo** (9); **ia zortzi** (15); **iaz ia** (10); **izan da ia** (8); **izan zen ia** (9); **kopurua ia** (8); **naiz ia** (14); **ni ia** (11); **nik ia** (18); **ninduen ia** (9); **nintzen ia** (17); **nion ia** (14); **non ia** (30); **non ia ez** (11); **nuen ia** (26); **orain dela ia** (8); **orain ia** (23); **oraindik ia** (8); **partida ia** (13); **talde ia** (8); **urte ia** (9); **zaio ia** (9); **zati ia** (9); **zegoen ia** (33); **zela ia** (8); **zen ia** (155); **zen ia beti** (12); **zeuden ia** (8); **zidan ia** (11); **zion ia** (25); **ziren ia** (44); **zituen ia** (16); **zituzten ia** (8); **zitzaion ia** (13); **zuen ia** (121); **zuten ia** (48)

---

iadanik ik **jadanik**.

## iaio *(orobat **jaio** g.er.)* **1** *izond* trebea.

Ulamen semeak gudari adoretsu izan ziren eta arkulari **iaio**. Elizen arteko biblia
Eunton gomazko atezaina, Carpiano erdilari **iaioa**. Aritz Gorrotxategi
Musikari **jaioek** musika-nota baten oihartzunetan konposizio oso bat aurreigarri ahal duten legez, [...]. Edorta Jimenez
Kontable **iaio** bihurtua baitzebilen ama azken aldian. Juan Kruz Igerabide
Zeure esanetara izanen dituzu borondate handiko gizonak, edozein lanetan **iaioak**. Elizen arteko biblia
Baziren gure artean, adibidez, bizpahiru jokalari, mihia ederki astintzen zutenak, ziria sartzen **iaioak**. Joan Mari Irigoien
-Benetako idazleak mozorroaren profesionalak dira, inposturaren maisuak, antzaldatzen **iaioak**. Joxean Agirre
Ehuna gorriz, gorriminez eta morez tindatzen **iaioa** den gizonen bat. Elizen arteko biblia
Entzuna denez euskaldunak **iaioak** baitira itsas kontuetan. Felipe Juaristi
Gainerako herriak baino **iaioagoak** baitira langintza horretan. Askoren artean
Mimikarako **iaioa** zen. Juan Garzia
Ez nintzen oso **iaioa** ez gogorraren plantak egiten, ez ironiaz baliatzen. Jon Muñoz
Hiram oso argi, trebe eta **iaioa** zen edozein brontze-lanetarako. Elizen arteko biblia
Izan ere, migratzaile **iaioak** dira abereok. Berria - Gaiak
Poeta **iaio** bat jaio da! Iñaki Arranz
Artzai ta zakur **iaioak,** ardien ondoan jaioak. Gotzon Garate
Salamanca eskarmentudun taldea da, **iaioa** partida zailetan. Berria - Kirola

**2** *hed*

Eta hilobi bat bertan oso esku **iaioaz** landurikoa. Patxi Ezkiaga
Lucyren ihes **iaio** eta setatiak. Oskar Arana
Ureztatze sistema guztiz **iaio** bat medio, fruitu eder eta barazki bikainetan 120 milioi jende taldea bazkatzeko beste lortzen omen. Pello Zabala

**3** (adizlagun gisa)

Gizonak *House of Commons*-ean ileordea zeraman soinean eta andreak **iaio** asko laguntzen zion atariko eskaileretan. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bezain iaioa** (3); **da iaioa** (4); **ehizean iaioak** (3); **ere iaioa** (4); **ere iaioa da** (3); **eta iaioa** (5); **etapa ehizean iaioak** (3); **iaio bat** (3); **iaio eta** (6); **iaioa da** (26); **iaioa da oso** (3); **iaioa dela** (3); **iaioa den** (6); **iaioa ez** (7); **iaioa izan** (4); **iaioa zen** (5); **iaioak dira** (5); **iaioak direla** (4); **iaioak direla erakutsi** (3); **oso iaioa** (9); **oso iaioak** (5)

---

## iaiotasun *iz* iaioa denaren nolakotasuna. ik **trebetasun.**

Gauza sotil horietarako **iaiotasun** naturala dut nik sortzez. Karlos Zabala
Mendebalde modernoaren **iaiotasun** teknologikoarekin. Iñaki Mendiguren
Ontzi batean loreak apailatzen aritzeko erakusten duten **iaiotasun** hori. Joxe Austin Arrieta
Enpresen kudeaketan **iaiotasuna** erakusteko aukera izan dute Deustuko Unibertsitateko 25 ikaslek lehiaketa batean. Berria - Ekonomia
Bere **iaiotasuna** agerian utzi du berriro Syriana-n. Berria - Kultura
Mimoa egiteko **iaiotasunari** esker. Monika Etxebarria
Galdutako **iaiotasunak** berreskuratzen laguntzen diegu. Berria - Harian
Aditu izan dugu zure jakituriaz eta **iaiotasunaz** mintzatzen, eta toki guztietan esan ohi da hoberena zarela erreinu osoan, jakintza handikoa eta guduetan miresgarria. Elizen arteko biblia
Lupinek **iaiotasunez** hartu zituen hirurak, eta barrurago sartu zen. Iñaki Mendiguren

---

## iatrogeno *izond* osasun egoeraren aldaketez eta kidekoez mintzatuz, medikuak eraginikoa.

Kalte **iatrogenoa** esaten zaio horri, "Medikuak edo botikak eragindako kaltea" dio *Lur Hiztegi Entziklopedikoa*k. Ramon Saizarbitoria

---

## iaz *(orobat **xaz** g.er. eta **jaz** g.er.)* **1** *adlag* oraingoa hastean bukatu zen urtean.

Horregatik joan nintzen **iaz,** abenduaren azken aldera, nire jaioterrira. Eskarne Mujika
**Iaz** ohartu zen. Aingeru Epaltza
**Iaz,** urrian, erostetxe bateko ilaran zain nengoela. Joseba Urteaga
Belar-dendako andre zaharra **iaz** hil zen eta suhiak etxea saldu zuen. Monika Etxebarria
Alemaniarraren begiak eta haren bideokamera herrien eraistearen lekuko izan ziren **iaz**. Edurne Elizondo
**Iaz** argazki batzuk egin nizkion SSetako ofizial bati. Alberto Ladron Arana
**Iaz** hirugarren saria irabazi genuen, eta aurten lehenaren bila goaz. Josu Landa
Hobe zian gauza bera erabaki izan balu **iaz** bere alaba hotzez akabatzen utzi zuenean. Anjel Lertxundi
17rekin hasi eta **iaz** utzi dio jotzeari, 72rekin. Pako Aristi
Ardietsi du **iaz** fabrikapen gastuen apaltzea, kasik utzia du goi mailako altzairuen egitea. Herria
1602 ikasle badabiltza aurten gela elebidunetan, **iaz** baino 207 gehiago. Herria
**Iaz** arte.Akaiakoek prestakizunak **iaztik** eginak dituztela esaten diet, eta zuen arreta bizia bizkorgarri gertatzen da gehienentzat. Elizen arteko biblia
Suerte pixka batez, txapeldun aterako gara, **iaz** bezalaxe. Josetxo Azkona
-Izan duna bertze mutil lagunik **iaztik** hona -galdetzen dio. Eneko Bidegain

**2** *iazko*

Ziri ederra, bai, Serranok **iazko** maiatzaren 24an sartu ziguna! Txillardegi
**Iazko** uda osoa hari idazten pasatu zuen. Iñaki Mendiguren
**Iazko** urte osoa Amazonian eman genuen lanean. Joseba Sarrionandia
**Iazko** esperientzia guziz ona kausiturik, Mina Agossi berriz dator aurten, festibalaren amatxi ezarriko dute arrunt Baionaz maitemindua baita. Herria
Prezioak **iazko** heinean egon dira aurten. Herria
Alor asko eta askotan, esaterako, **iazko** edozein argitalpen baino modernoago eta baliagarriago gertatzen da Aristoteles bera. Joxerra Garzia
Tomasek axola bera zuen bere kidekoen iritziaz eta **iazko** haizeaz. Aingeru Epaltza
Zeruak badaki **iazkoa** baino talde hobea behar dugula. Iñaki Mendiguren
Pixka bat barregarria ere bada manifestazio horrena: **iazkoan** ez ginen laurogeita hamar bilduko; kalea izugarri zabala iruditu zitzaidan, bete ezinezkoa. Iban Zaldua

Nahikoa izan genuen **iazkoarekin** , ez da hala? Irene Aldasoro

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

**aritu zen iaz** (9); **aurten iaz** (11); **aurten iaz baino** (9); **baina iaz** (50); **da iaz** (27); **dio iaz** (7); **dira iaz** (12); **ditu iaz** (7); **donostia iaz** (17); **du iaz** (25); **dute iaz** (7); **edo iaz** (7); **egin zen iaz** (10); **egin ziren iaz** (8); **egin zuen iaz** (27); **ere iaz** (10); **eta iaz** (206); **eta iaz baino** (8); **eusko jaurlaritzak iaz** (9); **genuen iaz** (11); **gobernuak iaz** (7); **hazi zen iaz** (21); **hil ziren iaz** (8)

**iaz araba** (8); **iaz araban** (9); **iaz arte** (27); **iaz atxilotu** (9); **iaz baino** (261); **iaz baino diru** (8); **iaz baino hobeto** (21); **iaz bere** (12); **iaz bezain** (10); **iaz bezala** (64); **iaz bi** (15); **iaz bigarren** (19); **iaz eaen** (9); **iaz egin** (26); **iaz egin zuen** (7); **iaz egindako** (23); **iaz eginiko** (9); **iaz emandako** (8); **iaz epe** (21); **iaz epe berean** (20); **iaz ere** (107); **iaz erredakzioa** (7); **iaz espainiako** (22); **iaz eta** (44); **iaz eta aurten** (7); **iaz europako** (12); **iaz euskal** (10); **iaz ez** (61); **iaz ez bezala** (11); **iaz ez zen** (15); **iaz ez zuen** (13); **iaz frantziako** (9); **iaz galdu** (7); **iaz garai** (8); **iaz gertatu** (9); **iaz hainbat** (8); **iaz hartu** (8); **iaz hasi** (17); **iaz hasi zen** (8); **iaz hasitako** (9); **iaz hego** (14); **iaz hego euskal** (13); **iaz hil** (8); **iaz hiru** (19); **iaz hirugarren** (12); **iaz ia** (10); **iaz ikusi** (7); **iaz irabazi** (12); **iaz izan** (19); **iaz izandako** (12); **iaz jokatu** (7); **iaz kaleratutako** (10); **iaz lan** (7); **iaz lehen** (13); **iaz lortu** (13); **iaz lortutako** (15); **iaz onartutako** (7); **iaz seigarren** (7); **iaz sortu** (14); **iaz urte** (11); **iaz utzi** (10)

**irabazi zituen iaz** (35); **irabazi zuen iaz** (42); **izan zen iaz** (51); **izan ziren iaz** (25); **izan zituen iaz** (21); **izan zuen iaz** (15); **jaitsi zen iaz** (9); **jaso zuen iaz** (8); **jaurlaritzak iaz** (9); **jokatu zuen iaz** (8); **lortu zituen iaz** (12); **lortu zuen iaz** (8); **sailkatu zen iaz** (8); **taldeak iaz** (9); **zen iaz** (167); **zion iaz** (16); **zioten iaz** (9); **ziren iaz** (106); **zituen iaz** (159); **zituzten iaz** (47); **zuela iaz** (7); **zuen iaz** (221); **zuen iaz eta** (7); **zuten iaz** (72)

---

# ibai 1 *iz* berezko ur-lasterra, aski handia, itsasora edo beste ibai batera doana.

Egiptoko **ibai,** erreka, zingira eta urtegi guztietara. Elizen arteko biblia

Uhin hormatuen artean, **ibaiak** lasto-gixon bat bezala ninderaman. Aingeru Epaltza

Eta horregatik ezinezkoa da **ibai** berean bi aldiz murgiltzea. Fernando Morillo

**Ibaian** urperatu zelarik, San Frantziskoren merituei esker libratu zen. Askoren artean

Ibai handia mundua da; **ibaian** itotzen ziren anaiak, Ebanjelioko bizimoldeari jarraitzen ez diotenak dira. Askoren artean

Hirurehun **ibaik** baino gehiagok hornitzen dute aintzira. Karlos Zabala

Beren urak berehala nahasi ordez, elkarren ondoan doaz bi **ibaiok** 80 kilometrotan barrena, nahaspilatu gabe. Jon Muñoz

**Ibaiak** ur handia zekarren urte sasoi hartan. Karlos Zabala

Eta **ibaia** handi eta lokatzez horituta zetorren. Koldo Biguri

Uhanditurik zetorren **ibaia** , azken euriteak zirela eta. Juan Kruz Igerabide

**Ibaia** bare zebilen, fusil baten kanoiaren urdin metalikoa bezain distiratsu. Lopez de Arana

**Ibaia** beti aurrera itsasora iritsi arte. Lopez de Arana

Rubendarren lurraldeak Jordan **ibaia** zuen muga. Elizen arteko biblia

Leku hartan, **ibaia** versta erdi zen zabal. Karlos Zabala

Ontziz ibiltzeko **ibaia** dela [Sena ibaia] Roueneraino. Josu Zabaleta

**Ibai** gaineko zubira iritsita. Pello Lizarralde

Geroxeago, faraoiaren alaba **ibaira** etorri zen bainatzera. Elizen arteko biblia

Eta **ibaira** bota du bere burua. Karlos Zabala

Gauerdia baino lehenago gorpua **ibaira** jaurtikitzeko. Migel Angel Mintegi

Pertsiarren inperioa Indo **ibairaino** hedatzen zen. Iñaki Iñurrieta

Belaze ederra zegoen Akizeko harresiaren aurrealdean, Aturri **ibairainoko** zelaian. Txillardegi

Atera ura **ibaitik** eta isuri lurrean: ura odol bihurtuko da. Elizen arteko biblia

Hurrengo goizean, su-hiltzaileek atera zuten motorra **ibaitik** . Juan Kruz Igerabide

Indietako salerosgaiak Oxus **ibaitik** pasatzen zirela Ponto itsasora. Iñaki Iñurrieta

Jordan **ibaiaz** bestaldera dagoen Kerit erreka inguruan. Elizen arteko biblia

Eufrates **ibaiaz** mendebaldeko lurralde eta hirietan barrena joan zen Jonatan. Elizen arteko biblia

Txalupa itzularazi eta **ibaiari** goiti jarri nuen. Josu Zabaleta

*ik beherago* 8.

## 2 (izenondoez)

Logroñon sartu aitzin, Ebro **ibai** ospetsuari so egon naiz. Piarres Aintziart

**Ibai** nagusietako urek gora egiten segitzen dute Europa erdialdean. Berria - Mundua

Munduko **ibai** handietatik herenaren urak baino ez dira aske mugitzen sorburutik itsasora. Berria - Gaiak

Ibilera bihurriko **ibai** txiki batek ilargiaren izpiak islatzen zituen han-hemenka. Karlos Zabala

Bakar-bakarrik aurkitu zen Rhin **ibai** zabalaren ertzean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pertsian ez dagoela **ibai** nabigagarririk, Kur ibaia izan ezik. Iñaki Iñurrieta

**Ibai** osasuntsua zer da? Berria - Gaiak

Zelaia amaitzen zen lekutik **ibai** hazia ikusi genuen. Koro Navarro

**-Ibai** hotzera salto egin zian, bai, salto. Koro Navarro

**Ibai** geldoetan hazten den landare bat. Berria - Gaiak

Etsipenaren **ibai** lohizko eta zurrunbilotsuan. Felipe Juaristi

Dublin aldera sigi-saga zihoan **ibai** gris distiratsuari begiratu zion. Irene Aldasoro

**Ibai** sigi-sagatsuaren ibilbideari jarraitzea. Patxi Zubizarreta

**Ibai** garbi baten ondoan. Felipe Juaristi

Hiri bat, **ibai** errauts-kolorea edo teilatuegaletatik erortzen den ura. Jon Alonso

Malkoak betzuloetatik behera erortzen zitzaizkion **ibai** mingotsaren metal ur tantak balira bezala. Felipe Juaristi

Sumatzen baitzuen **ibai** haserre batek ere ez lukeela haien mina garbituko. Felipe Juaristi

## 3 (aditzaren *nor* osagai gisa)

Edendik **ibai** bat sortzen zen; baratzea ureztatu eta gero, lau adarretan banatzen zen. Elizen arteko biblia

Aturri eta Errobi **ibaiak** bateratzen diren juntan. Janbattitt Dirassar

**Ibaia** bi aldeetara zabaltzen zen, muinoak gero eta leunagoak ziren *ik* ibaialde. Joanes Urkixo

**Ibaiak** oro itsasora doaz eta itsasoak ez du gainez egiten; **ibaiak,** nora doazen, harantz dira behin eta berriro joaten, bide bera eginez. Elizen arteko biblia

**Ibaia** bete-betea zetorren batean izan zen. Anjel Lertxundi

**Ibaiak** ziren Europa zaharraren zainetan zehar zebilen odol preziatua. Felipe Juaristi

Jordan **ibaia** itsasoratzen den tokiraino. Elizen arteko biblia

Jaso gonak, agertu izterrak, **ibaiak** oinez igarotzeko. **Ibaia** pasatzeko ibia aurkituko zutelakoan. Felipe Juaristi

Biduze **ibaia** zeharkatu genuen eta Nafarroako mugak gibelera utzi. Aingeru Epaltza

Hiritik atera eta Tobol **ibaia** igaro zuten gabarra batean. Karlos Zabala

Arraunean baitzebiltzan, **ibaia** txalupaz gurutzatzearren. Koro Navarro

Babiloniako **ibaiak** hustuko ditut, iturburuak agortuko. Elizen arteko biblia

Urumea **ibaia** bideratzeko proiektuaren egokitzapena. Berria - Euskal Herria

Mendiak zulatuz eta **ibaiak** desbideratuz. Koldo Biguri

Ibaira joan zen ur gazizko tanta bakar batez, **ibaia** ur-handitu zuen tanta txiki-txiki eta izartsu batez. Felipe Juaristi

Honela **ibaia,** euriteek uhertua, dikeen kontra indar izugarriz oldartzen da. Xabier Amuriza

Azken egunetako uhar nasaiek **ibaia** loditu eta lohitu zuten. Itxaro Borda

Gero, ur biziko **ibai** bat erakutsi zidan aingeruak, beira bezain distiratsua. Elizen arteko biblia

Uzta-aroa zen, eta urte-sasoi horretan Jordan **ibaia** gainezka etorri ohi da. Elizen arteko biblia

**Ibaia** handi samar zetorrela jokatu zen dema haietako bat. Juan Kruz Igerabide

**4** (-en atzizkiaz)

Jenisei **ibaiaren** igaroaldia. Karlos Zabala

Izan ere, litekeena da hilketa **ibaiaren** ertzean gertatu izana, edo ibaian bertan. Koro Navarro

*ik* ibaiertz.

Obi **ibaiaren** eskuineko ertzera zeraman bide zuzenari jarraitu zion. Karlos Zabala

**Ibaiaren** erditik ur ertzak ikusezinak ziren. Karlos Zabala

Urak bizi-bizi zihoazen bi adar horietatik aurrera [...] eta hainbat uharte inguratzen zituzten, beste hainbeste itsasontzi berdexka irudi zutenak, **ibaian** ainguraturik. Karlos Zabala

*ik* ibaiadar.

Abatskoieko geldilekuan, Irtish **ibaiaren** adar nagusietako bat zeharkatu beharra izan zuten, Ishim izenekoa. Karlos Zabala

Tinko lotu behar ziren berriz ere, Angara **ibaiaren** ur laster bizi-biziari eutsiko bazioten. Karlos Zabala

**Ibaiaren** ura mantsotu egiten zen bihurgunean, eta bere hotsa oso mehea zen, xuxurla bat. Bernardo Atxaga

Izotz puskak jaisten ziren, **ibaiaren** ur lasterrak garraiaturik. Karlos Zabala

Txalupak, **ibaiaren** korronteak eramana bezala, portuaren erdirantz jarraitu du geldiro. Koldo Izagirre

**Ibaiaren** bokalean egokitu zen Léa. Jon Muñoz

Niger **ibaiaren** deltan. Berria - Kultura

Oiartzun, Ibaizabal eta Deba **ibaien** itsasadarrak. Berria - Euskal Herria

Ur erreserba ikaragarri hori [...] Parana, Paraguai eta Uruguai **ibaien** arroetan barrena hedatzen da. Berria - Mundua

**Ibaiaren** isurgunearen aldera, gure nasatik urrun. Koldo Izagirre

**Ibaiaren** ibilbidean kokatuta dauden herriek ez dute isurtzen duten uren kalitatea bermatzen. Berria - Euskal Herria

Bostehun oin beherago, **ibaiaren** ibilgua zabaltzen zen berriro ere. Karlos Zabala

**Ibaien** iturburuak agorrarazi eta argitara ateratzen du ezkutuan zegoena. Elizen arteko biblia

Hori hala dela ikusteko, lekuko ederrak ditugu **ibaien** sorburuak, zeren eta munduko mapetan pintatuta eta idatzita ikusten denez, ibairik handienak eta ugarienak iparraldean jaiotzen baitira. Santiago Iruretagoiena

Nolanahi ere, **ibaien** goiko aldeak nahiko ondo egoten dira normalean. Berria - Gaiak

Laster galduko dituela erregeak Eufrates **ibaiaren** mendebaldeko lurraldeak. Elizen arteko biblia

Azken etxeak **ibaiaren** mailaraino beheratzen ziren. Karlos Zabala

Neguko elurra urtu ondoren, **ibaiaren** ur emariak urtero gora egiten du. Berria - Mundua

**Ibaiaren** oxigeno maila. Berria - Gaiak

Itsasbeherak agerian utziak zituen **ibaiaren** erraiak, basatza gris ilun ura. Koldo Izagirre

**5** (-ko atzizkiaz)

**Ibaiko** urek itsasora bidean segitu zuten. Edorta Jimenez

Zaldi zintzoa hilik zegoen **ibaiko** uretan. Karlos Zabala

Laugarren egunean Sena **ibaiko** uretan aurkitu zen gorpua. Koro Navarro

Egiptoar guztiek putzuak zulatu behar izan zituzten ibai-ertzean, **ibaiko** uretatik ezin baitzuten edan. Elizen arteko biblia

**Ibaietako** ura bezain naturala. Berria - Ekonomia

Senperenaren biriketan aurkitutako ura Bidasoa **ibaikoa** zela. Hasier Etxeberria

Gobernadoreak zehaztu zuen garaiotan Kelkit **ibaiko** urlasterra oso indartsua dela. Berria - Mundua

Dvina **ibaiko** izotzak urtu zain. J.M. Olaizola "Txiliku"

Tamesi **ibaiko** lainoa. Juan Garzia

**Ibaiko** haize gozoak bisaia ferekatzen zien. Lopez de Arana

**Ibaiko** harrabotsen artetik ezagutu zituen nire laguntza eskeak. Aingeru Epaltza

Ogi oso bat zatitua genuen, **ibaiko** arrainei botatzeko. Juan Kruz Igerabide

**Ibaiko** iturburuan bizi zen lamiarengana jo zuen. Martin Anso

Mundu bat biltzen da **ibaiko** bi aldeetan. Berria - Kirola

**Ibaiko** petrilean jesarri zen. Koldo Izagirre

Paseo luzea egin zuen **ibaiko** kaietan barrena. Karlos Zabala

Uholdeak **ibaiko** ezponda hautsi zuen. Koro Navarro

**Ibaiko** zokondo batean. Edorta Jimenez

Hizketan-hizketan, **ibaiko** errotaraino iristen ziren. Koro Navarro

Ohio **ibaiko** pinuzko mendixka batean. Anton Garikano

Arroza eta Siang **ibaiko** arrantzaleek emandako arrainak janez. Pako Aristi

Urumea **ibaiko** lanekin berehala hasiko dira, uholde arriskua gutxitzeko. Berria - Euskal Herria

**Ibaietako** pasabideez jabetu dira. Elizen arteko biblia

Irati **ibaiko** tunela itxi zuten. Edurne Elizondo

**Ibaietako** bidelapur zakarrak. Karlos Zabala

**6** *irud*

Zilarrezko **ibaiak** doaz Celostik Eruira. Agustin Otsoa

Suzko **ibai** bat ateratzen zen haren aurretik. Elizen arteko biblia

Ariannak, ilea ordurako solte, odolezko **ibaia** irudi, *Lamento d´Arianna*ko zati bat kantatu zuen. Felipe Juaristi

Nire burua, ileak, belarriak, gorputz osoa, zizarez inguraturik ikusi nuen, denak bihurrika: zizarezko **ibai** batean bainatzen ari nintzen. Juan Kruz Igerabide

Begira Esne Bidea, izarrezko **ibai** hori. Josu Zabaleta

Lehen gose zinen horrek garirik onena duzu orain janari, egarri zinen horrek atseginen **ibaian** edaten duzu. Askoren artean

Aita eta ama ikusten ditut, betiereko gaztetasunaren **ibaian**. Eskarne Mujika

**7** (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa)

Pertsona eta merkantzien **ibai**-garraiorako. Jon Alonso

Efesoko hiria [...] Kaistroaren bokalean hedatzen zen, bertako bi **ibai**-portuekin, Panormoko kairaino. Juan Garzia

Suitzak Basileako **ibai**-kaian duan itsasorako irtenbideaz. Anjel Lertxundi

Airea hotza zen, **ibai**-kanaleko itsasmuturretik baitzetorren. Anjel Lertxundi

Baina itsas eta **ibai**-uretako bizidunen artean, hegal eta ezkata gabeak debekatuak dituzue. Elizen arteko biblia

**Ibai**-eskurtsio hura zela eta. Joxemari Iturralde

**Ibai**-ibilaldi honek distraitzeko balioko zidan. Joxemari Iturralde

Zergatik ez zatoz gurekin **ibai**-bidaian? Joxemari Iturralde

Zaldia **ibai** azalean urpera gabe eduki zezaten. Karlos Zabala

Bere esklaboari askatasuna eta **ibai**-sakanean lur sail bat agindu zizkion. Pablo Sastre

Ez dago **ibai** ertzetik urruti, eta bi milia inguruko distantziara dago Madame Rogêten ostatutik, biderik zuzenena hartuta. Koro Navarro

**Ibai**-ezpondek mozturik duten ordoki honetan. Koldo Biguri

Etxe aitzineko pentzea zeharkatu zuen lasterka eta **ibai** hegira heldu zen. Itxaro Borda

Katu-haragiak ez du parekorik **ibai**-karramarroak harrapatzeko. Itziar Otegi

Halako **ibai** usain belaxka bat. Karlos Zabala

Bidasoa, Zadorra, Urumea, Arga, Irati, Urrobi, Errobi eta gainerako **ibai**-izenek. Iñaki Segurola

Kura-Araks/Araz **ibai** sistemak hiru herrialdeak hornitzen ditu. Berria - Gaiak

Hogei kilometroko **ibai** zatian. Berria - Euskal Herria

**Ibai** hondoan itotako maitalearen gorpua. Berria - Kultura

## 8 (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Ibaizabal itsas **ibairantz** gehiegi hurbildu, makurtu, gizon handia zelako gorputzak balantza egin, pisuak ibai aldera garaitu eta errekara erori zen. Gotzon Garate

· Orduan, ur-**ibaia** bota zuen ahotik emakumearen kontra, ibaiak emakumea eraman zezan. Elizen arteko biblia

Antzezpen mutu haren indarrez bihotz-damuz beterik, negar-**ibaiak** isuri zituzten Jainkoaren mirabeek. Askoren artean

Gaur arte hainbesterainoko tinta-**ibaiak** sortu eta jaitsarazi dituen jatorrizko testu polemikoaren originala. Santiago Iruretagoiena

· Alcoleako ardo-**ibaia** urre-**ibai** bihurtu zen laster. Josu Zabaleta

Modu bihurri hori da Tsíui PÍn zeharzaleak bere nobela-**ibai** ahitezinaren bihurgune bakoitzean hautatu zuena. Juan Garzia

Oh ilunbearen goxo eta epela, oh maitasun **ibai** sekretu bat bezala isurtzen dena. Juan Garzia

Ezin duzu imajinatu ere egin, aingeru maitea, nolako atsegin-**ibaian** murgildu nintzen horrela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 9 *ibai aho* ik **bokale.**

Bere lan eskergaren zigilu ere izan zitekeela otu zitzaion **ibai**-aho haiek emakume aho bihurtzea, artelana beraz. Felipe Juaristi

**Ibai**-ahoko adar batean utzi gintuzten. Joan Mari Irigoien

Beste nehork ez bezala ezagutzen baitzuen honek San Laurendiko **ibai** ahoa. Aurelia Arkotxa

## 10 *ibai-bazter*

**Ibai bazter** honetan eta beste aldekoan. Karlos Zabala

Beste **ibai-bazterrean** zaudete, iritsi ezin naizen bazterrean... Xabier Olarra

Duela bi egun, Lenako **ibai bazterretan** zeuden. Karlos Zabala

Ezagutzen duzu ondo belar hori, nonahi ateratzen da **ibai** eta erreka **bazterretan**. Hasier Etxeberria

· Obi **ibaiaren bazter** oparoetara heltzean. Karlos Zabala

Llobregat **ibaiaren bazter** emankorretan. Pello Zabala

Berriz ikusi ditugu Nil **ibaieko bazter**. Herria

## 11 *ibai ondo* (*56 esaldi, 28 liburu eta 4 artikulutan; orobat* ***ibaiondo*** *4 esaldi, 4 liburutan*)

Sacramentoko bailara eta **ibaiondoa** ziazerba-tarta handi bat bezala ageri ziren leihatilatik kanpo. Javi Cillero

**Ibai** ondoan oinez ibiltzen ginenean bezala. Harkaitz Cano

Bolada batek inarrosi du **ibai** ondoko zuhaiztia. Pello Lizarralde

Belardia bezala haziko dira, **ibai** ondoko sahatsa bezala. Elizen arteko biblia

**Ibai** ondoko herrietan. Koldo Biguri

Tigris **ibai** ondoan jarri zuten denda gaua igarotzeko. Jose Antonio Mujika

Berak bakarrik ezagutzen zuen **ibaiondoko** leku batera. Anton Garikano

**Ibai ondotik** igaro zen. Felipe Juaristi

## 12 *ibaian barrena/zehar*

Elkarrekin etorri ginen-eta Volga **ibaian** barrena. Karlos Zabala

Askotariko ontziak egiten dira: bai itsas zabalekoak, bai Nilo **ibaian** barrena joango direnak. Jon Muñoz

Orain egur hori Po **ibaian** zehar ekartzen da Ravennara. Santiago Iruretagoiena

Aurrerantzean, goizero, herri osoa ezkutatzera abiatzen zen **ibaian** zehar zeuden zuloetara. Juan Kruz Igerabide

## 13 *ibaian gora/goiti/behera/beheiti*

Gora joatea **ibaian** gora egitea da. Feluka batean ontziraturik, Nilo **ibaian** gora egin zuen Talesek. Iñigo Aranbarri

**Ibaian** goiti doana **ibaian** goiti galtzen da. Joan Mari Irigoien

Ur lasterraren eragin zuzena jasaten ari zen orduan eta agudo zihoan **ibaian** behera. **Ibaian** behera zetozen izotzek kolpekatzen zuten. Karlos Zabala

**Ibaian** behera zihoazen ontzietan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Azkenean, **ibaian** behera "ezkontzen dira", Manausetik urrun, bi ibaietako urak, eta kolore arre argi batean nahasten. Jon Muñoz

Sartzen zuten hilotza txalupa haietarik batean, eta **ibaian** beheiti egozten zuten. Joan Mari Irigoien

Istant batez, korrontea alkoholezkoa izan balitz bezala, gainalde osoa suak hartu zuen **ibaian** behera eta **ibaian** gora, argindarraren abiaduraz. Karlos Zabala

· Albistea jakin bezain azkar gosaltzeari utzi eta aztoraturik heldu zenion **ibaian** gorako bideari. Hasier Etxeberria

· Izokinak gure **ibaietan** gora edo enarak habiara xuxen gidatzen dituena bezalako indar bat. Juan Garzia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**baina ibai** (5); **bat ibai** (6); **bat ibai batera** (4); **beste ibai** (17); **beste ibai bat** (10); **bi ibai** (8); **da ibai** (11); **dago ibai** (5); **dituen ibai** (4); **du ibai** (6); **ebro ibai** (4); **edo ibai** (10); **eta beste ibai** (4); **eta ibai** (100); **eta ibai ederra** (4); **eta ibai ertzean** (4); **eta ibai ertzeko** (4); **eufrates ibai** (10); **ez ibai** (5); **ezkerreko ibai** (4)ibai adar (4); **ibai aiensa** (20); **ibai aiensa aske** (4); **ibai aldera** (19); **ibai bat** (60); **ibai bat dago** (4); **ibai bat zeharkatzeko** (4); **ibai batean** (12); **ibai batek** (12); **ibai baten** (29); **ibai batera** (7); **ibai bazter** (9); **ibai bazterrak** (5); **ibai bazterrean** (18); **ibai bazterreko** (12); **ibai bazterrera** (7); **ibai bazterretan** (5); **ibai berean** (5); **ibai bihurtu** (4); **ibai ederra** (18)

**ibai ertz** (19); **ibai ertza** (6); **ibai ertzean** (36); **ibai ertzeko** (30); **ibai ertzen** (5); **ibai ertzera** (19); **ibai ertzetan** (4); **ibai ertzetik** (9); **ibai ertzi** (4); **ibai esoain** (4); **ibai eta** (36); **ibai gainean** (5); **ibai gaineko** (11); **ibai gorri** (6); **ibai gorriti** (6); **ibai guridi** (9); **ibai guztiak** (5); **ibai guztien** (4); **ibai handi** (8); **ibai handia** (6); **ibai handiaren** (9); **ibai hark** (4); **ibai hau** (4); **ibai hori** (6); **ibai horiaren** (4); **ibai horren** (4); **ibai horretan** (5); **ibai hura** (4); **ibai inguruan** (7); **ibai ondoan** (26); **ibai ondoko** (25); **ibai txiki** (5); **ibai zabal** (5); **ibai zabala** (8); **ibai zabalaren** (4); **jordan ibai** (8); **kebar ibai** (5); **kebar ibai ondoan** (4); **laurent ibai** (4); **nilo ibai** (8); **zazpi ibai** (6); **zen ibai** (8); **ziren ibai** (5); **zuen ibai** (9); **zuten ibai** (4)

**arga ibaia** (4); **bidasoa ibaia** (4); **da ibaia** (10); **danubio ibaia** (7); **den ibaia** (6); **east river ibaia** (4); **ebro ibaia** (10); **eta ibaia** (27); **hudson ibaia** (5); **ibaia baino** (4); **ibaia**

**bere** (10); **ibaia bere bidetik** (4); **ibaia bezala** (4); **ibaia bideratzeko** (4); **ibaia da** (8); **ibaia ere** (7); **ibaia eta** (22); **ibaia euskal** (5); **ibaia ez** (7); **ibaia gainezka** (8); **ibaia igaro** (24); **ibaia igaro eta** (10); **ibaia igaro zuten** (8); **ibaia igaroko** (6); **ibaia igarotzeko** (6); **ibaia ikus** (4); **ibaia ikus entzunezkoen** (4); **ibaia ikusten** (8); **ibaia izoztuta** (4); **ibaia zeharkatu** (10); **ibaia zeharkatzeko** (5); **ibaia zeharkatzen** (10); **ibaia zen** (6); **jordan ibaia** (49); **jordan ibaia igaro** (13); **jordan ibaia igaroko** (6); **jordan ibaia igarotzeko** (4); **nerbioi ibaia** (4); **nilo ibaia** (7); **po ibaia** (5); **rhin ibaia** (5); **river ibaia** (4); **sena ibaia** (11); **tajo ibaia** (4); **urrezko ibaia** (4); **urumea ibaia** (7); **volga ibaia** (5); **zen ibaia** (7); **zuen ibaia** (10

**amazonas ibaian** (4); **arga ibaian** (5); **aturri ibaian** (5); **baztan ibaian** (5); **du ibaiak** (7); **ebro ibaiak** (7); **edo ibaiak** (4); **eta ibaiak** (26); **eta ibaian** (21); **eta ibaian behera** (4); **eta ibaian gora** (4); **ganges ibaian** (5); **ibaiak bere** (8); **ibaiak eraman** (4); **ibaiak ere** (4); **ibaiak eta** (15); **ibaiak gainezka** (14); **ibaiak gainezka egin** (7); **ibaiak ur** (4); **ibaiak zeharkatzen** (4); **ibaian barna** (5); **ibaian barrena** (6); **ibaian behera** (53); **ibaian eta** (5); **ibaian goiti** (8); **ibaian gora** (48); **ibaian gora eta** (4); **ibaian itota** (4); **ibaian sartu** (6); **ibaian zehar** (10); **irtish ibaian** (6); **irtish ibaian behera** (6); **jordan ibaian** (8); **laurent ibaian** (7); **nilo ibaian** (5); **oria ibaian** (9); **saint laurent ibaian** (7); **sena ibaian** (5); **tajo ibaian** (5); **tamesis ibaian** (9); **tigris ibaian** (5); **urdazuri ibaian** (5); **zen ibaian** (4); **zuen ibaian** (5)

**aturri ibaiaren** (9); **bidasoa ibaiaren** (6); **da ibaiaren** (6); **danubio ibaiaren** (7); **east river ibaiaren** (4); **ebro ibaiaren** (9); **errobi ibaiaren** (5); **eta eufrates ibaiaren** (4); **eta ibaiaren** (28); **eta ibaiaren beste** (4); **eufrates ibaiaren** (23); **eufrates ibaiaren mendebaldeko** (16); **hudson ibaiaren** (5); **ibaiaren adar** (8); **ibaiaren alde** (11); **ibaiaren aldetik** (5); **ibaiaren antzera** (4); **ibaiaren bazter** (5); **ibaiaren bazterrean** (5); **ibaiaren bazterretan** (6); **ibaiaren bertze** (4); **ibaiaren bestaldean** (6); **ibaiaren bestaldera** (4); **ibaiaren beste** (31); **ibaiaren beste aldean** (13); **ibaiaren beste aldeko** (5); **ibaiaren beste aldetik** (4); **ibaiaren bi** (12); **ibaiaren deltan** (6); **ibaiaren egoera** (4); **ibaiaren erdian** (13)

**ibaiaren ertzean** (41); **ibaiaren ertzeko** (6); **ibaiaren ertzera** (9); **ibaiaren ertzetan** (11); **ibaiaren ertzetik** (8); **ibaiaren eskuin** (8); **ibaiaren eskuineko** (6); **ibaiaren eta** (8); **ibaiaren ezker** (4); **ibaiaren ezkerreko** (4); **ibaiaren gainean** (15); **ibaiaren gaineko** (12); **ibaiaren gaineko zubi** (4); **ibaiaren gainetik** (4); **ibaiaren hegian** (7); **ibaiaren inguruan** (16); **ibaiaren inguruetako** (4); **ibaiaren inguruetan** (4); **ibaiaren inguruko** (5); **ibaiaren izena** (4); **ibaiaren maila** (5); **ibaiaren mendebaldeko** (16); **ibaiaren ondoan** (29); **ibaiaren ondoko** (6); **ibaiaren ondotik** (4); **ibaiaren ur** (22); **ibaiaren urak** (4); **ibaiaren uretan** (4); **irati ibaiaren** (7); **irtish ibaiaren** (15); **jenisei ibaiaren** (10); **jordan ibaiaren** (9); **larraun ibaiaren** (4); **niger ibaiaren** (6); **niger ibaiaren deltan** (5); **nilo ibaiaren** (14); **obi ibaiaren** (7); **oria ibaiaren** (7); **po ibaiaren** (20); **rhin ibaiaren** (7); **river ibaiaren** (4); **sena ibaiaren** (12); **tiber ibaiaren** (5); **tigris ibaiaren** (8); **tom ibaiaren** (6); **urdazuri ibaiaren** (4); **urola ibaiaren** (5); **urumea ibaiaren** (8); **zen ibaiaren** (4); **ziren ibaiaren** (5); **zuen ibaiaren** (5)

**eta ibaiari** (4); **eta ibaiek** (6); **eta ibaien** (8); **eta ibaietan** (6); **eta ibaiko** (7); **eta jordan ibaiaz** (4); **eufrates ibaiaz** (7); **ibaiari begira** (9); **ibaiari buruz** (4); **ibaiari jarraiki** (4); **ibaiaz bestaldean** (6); **ibaiaz bestaldera** (16); **ibaiaz beste** (12); **ibaiaz beste aldean** (7); **ibaiaz ekialdera** (4); **ibaiek gainezka** (6); **ibaien artean** (10); **ibaien egoera** (4); **ibaietako ur** (5); **ibaietako urak** (4); **ibaietan gora** (4); **ibaiko ur** (14); **ibaiko ur gainean** (4); **ibaiko ura** (17); **ibaiko urak** (21); **ibaiko uraren** (5); **ibaiko uretan** (11); **jordan ibaiaz** (13); **jordan ibaiaz bestaldera** (8); **po ibaiko** (4); **urumea ibaiko** (4); **zen ibaiko** (5); **zuen ibaiko** (5)

**aturri ibaira** (4); **barbadun ibaira** (4); **bat ibaira** (4); **bere burua ibaira** (4); **burua ibaira** (6); **burua ibaira bota** (4); **deba ibaira** (4); **ebro ibaira** (5); **eta ibaira** (18); **eta ibaira bota** (5); **eufrates ibairaino** (5); **gorpua ibaira** (7); **gorpua ibaira jaurtikitzeko** (4); **hartu eta ibaira** (5); **ibaira begira** (4); **ibaira bota** (27); **ibaira bota zuen** (5); **ibaira botatzea** (4); **ibaira egin** (4); **ibaira ematen** (5); **ibaira erori** (19); **ibaira erori zen** (7); **ibaira erorita** (7); **ibaira eta** (5); **ibaira isurtzen** (5); **ibaira itzultzen** (4); **ibaira jaurtikitzeko** (4); **ibaira jauzi** (6); **ibaira jauzi egin** (4); **ibaira joan** (7); **ibairaino jaisten** (4); **jordan ibaira** (4); **kadagua ibaira** (5); **lehenago gorpua ibaira** (4); **oria ibaira** (6); **rhin ibaira** (4)

**eufrates ibaitik** (8); **ibairik ez** (5); **ibaitik atera** (6); **ibaitik eta** (4); **ibaitik gertu** (4); **ibaitik zetorren** (6); **jordan ibaitik** (4)

---

## ibaiadar *(ETCn* ***1.022*** *agerraldi; orobat* ***ibai-adar*** *ETCn* ***53*** *agerraldi )* *iz* urak beste ibai batean isurtzen dituen ibaia.

**Ibai** -adarrak hamarka, eta iturbururik ez! Jon Muñoz

Golkoan aitzina gindoazen, Orinocoren **ibai** -adar bat hartzeko asmotan. Joan Mari Irigoien

Mississipiaren **ibaiadarrei** antzeman nien han behean, laino artetik, eguzki-dirdiran barrena. Joxe Austin Arrieta

Danubioren **ibaiadar** nagusia den Saveren ertzetan. Berria - Mundua

Bi ibaik, Alpehiosek eta Kladeos **ibaiadarrak,** hiri ondoan egiten dute topo. Berria - Kirola

Bihitegi eta soto ugari zegoen **ibai** -adarraren ezker-eskuin. Anjel Lertxundi

**Ibaiadarrean** gora abiatuko zen laurehun eta hirurogei verstako ibilbidea egiteko. Karlos Zabala

Hondoko geruza garbitzeko, Kadagua, Galindo eta Asua **ibai[a]darrak** aztertu eta dragatu dituzte. Berria - Euskal Herria

---

## ibaialde *iz* ibaia dagoen aldea.

Sethe izerditan hasi zen, lokaztuta iratzarri zenean bezalaxe, Ohio **ibaialdean** . Anton Garikano

**Ibaialdeko** belarretan luzetara jauzika. Mirentxu Larrañaga

**Ibaialdeko** behiak sakabanatu egin ziren. Mirentxu Larrañaga

**Ibaialde** batera begira dago, non errekasto bat baitoa maldan behera, ziri-ziri, zuhaizpean. Mirentxu Larrañaga

Eskutik helduta eta **ibaialdean** barrena ikusi nituen, nigandik urrun zihoazela. Mirentxu Larrañaga

Gure herria den **ibaialde** hau bizigarri izango bada, zubiak eraiki beharko ditugu. Joxerra Garzia

---

## ibaiarte *iz* ibaien arteko eremua.

Eta gero bertan behera utziko zuen mapa, atariko zoruan, alfonbratarako, **ibaiarte** ezkutu honetako biztanleen oinek munduaren kartografia desegin dezaten. Joseba Sarrionandia

---

## ibaibide *(ETCn* ***32*** *agerraldi; orobat* ***ibai bide*** *ETCn* ***11*** *agerraldi; )* *iz* ibaian eratzen den bidea.

Ibaiak «etxekotzeko» saioak nekazaritza bezain zaharrak dira, baina azken mendeetan salbuespen izatetik nagusitzera pasatu dira presak, **ibaibideak** eta bestelako oztopoak. Berria - Gaiak

Den-denek bazuten zeregina, baina almadia gidatzen gero eta zailagoa zen, **ibai** bidea ixten ari baitzen begien bistan. Karlos Zabala

---

## ibaiburu *iz* ibai baten iturburua.

Baliteke urtaro honetan euriak **ibaiburuan** mamiagoak izatea. Xabier Amuriza

---

## ibaidun *izond* ibaia duena; ibaiak dituena.

Paraje **ibaidun** batek izenik baldin badu, izen horrek ur-lasterra eta ur-lasterra ez den beste guztia harrapatzen du bere baitan. Iñaki Segurola

---

## ibaiertz *(ETCn* ***1.001*** *agerraldi; orobat* ***ibai ertz*** *ETCn* ***681*** *agerraldi)* *iz* ibai baten bi ertzetako bakoitza.

**Ibaiertzak** hondartza bat zirudien. **Ibai** ertzeko etxe batzuk miatu zituzten. Karlos Zabala

Ezkerreko **ibai** ertzera iristen bagara. Karlos Zabala

Emakume baten gorpua aurkitu zen Barrière de Roule-ko **ibai** ertzean. Koro Navarro

**Ibaiertzetik** paseoan. Irene Aldasoro

Egunsentiarekin **ibaiertz** ezkutu batera joan eta uretan bainatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Ibaiertz** bakarti batetik oinez zihoala. Bernardo Atxaga

Burdinbidea ageri zen, geltokitik zuzen-zuzen **ibaiertzean** barna zihoana, mendialdera jiratu aurretik. Juan Kruz Igerabide

Grattan zubia igarotzean, ibaian behera begiratu zuen, beheko **ibaiertzetara** . Irene Aldasoro

Gero, Nilo **ibaiertzeko** kanaberen artean utzi zuen saskia. Jose Antonio Mujika

Senaren eskuin-**ibaiertzaren** ikuspegia. Mirentxu Larrañaga

**Ibaiertz** zokoetako garo urdinen esporak igeri joaten dira uretarantz. Anton Garikano

---

**ibaika** *adlag* kopuru izugarrietan.

Hark harkaitza zulatu eta ura atera zen, eta **ibaika** joan basamortuan barrena. Elizen arteko biblia

**Ibaika** isuri zituen malkoak bi begietatik. Askoren artean

**Ibaika** heldutakoen hira, kantua eta gangarra ustezko erasotzaile oilartuaren kontra. Iñigo Aranbarri

Handik hamarraldi batzuetara, Malaysiako oihanetara aldatu zituztelarik, Wickhamen aleek hevea-sail handi-handiak sorrarazi zituzten, latexa **ibaika** ematen zutenak. Jon Muñoz

**Ibaika** etorriko zaizu urrea, **ibaika**. Jose Morales

**Ibaika** ekarriko diot Jerusalemi zoriona. Elizen arteko biblia

Ai nire aginduei jaramon egin izan bazenie! **ibaika** izango zenuke zoriona, uholdeka salbamena. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ibaika** (3); **ibaika isuri** (4); **ibaika isuri zituen** (3)

---

ibaiondo ik **ibai 11**.

---

**ibaiontzi** *(orobat **ibai ontzi**)* *iz* ibaibideetan ibiltzeko prestaturiko ontzia.

**Ibai** ontzia baino arinagorik ezer ere ez zegoen Permera edo Kazanera iristeko. Karlos Zabala

Zaldiak konfiskatu ondoren, **ibai** ontziak konfiskatuko dituzte, eta gero zalgurdiak, eta gero gainerako garraio bideak. Karlos Zabala

**Ibai** ontzi konpainiaren bulegoetara jo zuen. Karlos Zabala

Gameluak, astoak, **ibai** eta itsas ontziak, gurdiak. Karlos Zabala

-Eta nola doakizu **ibaiontziko** mutilarekin? -galdetu zion bat-batean. Joxemari Iturralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ibaiontziko mutila** (3)

---

**ibairatu,** ibaira(tu), ibairatzen da *ad* ibaira joan.

Kalkulua egin eta ziurtasunez esan zitekeen **ibairatzeko** puntutik bospasei versta beherago lehorreratuko zirela. Karlos Zabala

---

**ibaitxo** *iz* ibai txikia. ik **ibaixka.**

Limoiondoz eta eukaliptoz mugatutako **ibaitxo** baten ondoan zehar joan zen limusina. Jon Muñoz

Txalupan ibiltzeko **ibaitxo** bat dago Port Lauregais izenekoan, *évocation du Canal du Midi,* eta ontzi txiki bat ere har daiteke buelta bat emateko. Mikel Hernandez Abaitua

---

**ibaitzar** *izond adkor* ibai handia.

Han beheko zulo lanbrotsuan **ibaitzar** mehatxagarria sumatzen zela. Jon Arretxe

---

**ibaixka** *iz* ibaitxoa.

Hiri koxkor bat, harresi zaharrez inguratua, **ibaixka** baten hegian. Janbattitt Dirassar

Barkuz pasatzen **Urdazuri** ibaixkaren alde batetik besterat... Herria

Untxin **ibaixkak** egiten du zati on batean bi herrien arteko muga. Herria

Uhabiako ondartza kotsatua zen izen bereko **ibaixka** hala zelakotz. Herria

---

**ibar** **1** *iz* bi mendialderen arteko tarte aski luzea. ik**haran.**

Haren aurrean amildegi sakon bat irekitzen zen, eta hantxe hasten zen **ibarra**. Fernando Rey

Lotek, beraz, Jordan **ibar** osoa aukeratu zuen beretzat eta ekialderantz jo zuen. Jose Antonio Mujika

Sakanako **ibar** guzia ikusten da Iruneraino, gure aintzinean San Donato mendia. Herria

Baigorri, aspaldiko Baigorri, mendiz inguratua, **ibar** erditik doan ibai gorri hartaz aberastua. Herria

Longidako **ibarrean** eraikitako hormaren itzala zabalegia izan da **ibarreko** herritar gehienentzat. Edurne Elizondo

Hirugarren zutabe hori bat-batean agertu izan ez balitz hegoaldetik Jeniseiko **ibarrean** zehar. Karlos Zabala

Biduzeko **ibarrean** barna. Aingeru Epaltza

Zibilizazio Sinikoa Ibai Horiaren **ibarrean** sortu zen. Iñaki Mendiguren

Brigada hau gatazka latzak egina zen alemanen aurka Garonaren **ibarrean**. Koldo Izagirre

Handixe, 4.050 metroko garaiera hartatik, Sewasten herrixka igarri nuen arras gibelean, ia **ibar** osoa estaltzen zuen gandu batek erdi ezkutatua. Josetxo Azkona

Ibarrez **ibar** eta muinoz muino. Patxi Ezkiaga

· Orba **ibarreko** Barasoainen. Piarres Xarriton

Hirugarren zutabe hark, mendien oinak inguraturik, Jenisei **ibarrean** behera jo eta bide nagusia hartu zuen Alsalevsk parean. Karlos Zabala

Baztan **ibarra,** Bazuen bestalde anaia bat biziki trebea, esposatu zena Artze **Ibar** Hiriberriko Porkaxoinera. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** (izenondoekin)

**Ibar** aberatsak eta eskualde hartako guztiko malda emankorrak. Josu Zabaleta

**Ibar** sakon bat da, zintzur estu bat bi malda harkaiztsu, basoz bete, handiren artean. Josu Zabaleta

Andeen magaleko **ibar** galduren batean. Joseba Sarrionandia

Gure azpian harea, **ibar** lau bat muino artean, harkaitz-muinoak nonbait, dena erabat soildua, basamortu... Joxe Austin Arrieta

Noizean behin, **ibar** zabal bat, herri ketsu baten kokaleku. Karlos Zabala

Hilerri horretatik **ibar** zabal-zabal bat, paisaia atsegina eta artzain-tankerakoa ikusten da. Koro Navarro

**Ibar** luze-zabalak dirudite, ibai ondoko baratzeak, Jaunak ur-ertzean landaturiko aloe edo zedro arbolen antzeko dira. Elizen arteko biblia

**Ibar** beltz-ilunetan banabil ere, ez dut inolako gaitzen beldurrik, zu nirekin baitzaude. Elizen arteko biblia

Gure Erregek laguntzen dituela errentaz eta diru saritan, Pirinioetako **ibar** hertsiak zaintzen dituztelakotz luteranoen aitzi. Piarres Xarriton

**3** (hitz elkartuetan)

**Ibar** edo haran zola zabala delarik, "naba" deitzen dügü zübereraz. Herria

Mendi muinoetan errauts gaizto batek jotzen zituen, alabaina, gure ameztoiak, gaztaindegiak ala mahastiak, eta **ibar**-zelaietan hesten ziren ilagindegiak, oihalgindegiak eta larru-apaindegiak. Piarres Xarriton

Oasi xume batean bizi da gizateria osoa, **ibar**-zoko berde batean, eta beronen adar-atal bakanetan. Joxe Austin Arrieta

Bortziriak eta Malerreka inguruetan, Bidasoa ibaiaren **ibar** inguru horietan. Pello Zabala

**4** *irud*

Esadazue, anaiok, zer dela-eta etorri zarete hona, eta zergatik igo zarete hain azkar errukarrien **ibarretik** argitasunaren mendira? Askoren artean

Negar-**ibar** honetan negar egin dezaten. Imanol Unzurrunzaga

Apaltasun-**ibarrean** jaiotzen dira gozotasuna, norbera inoren esku jartzea, baretasuna, eramankizuna, ontasuna. Joan Mari Lekuona

**5** (eskuin(alde) eta ezker-ekin)

Badoaz orain nere begiak Basabürü alderaino, eta Altzai ezkerrean dagoela ikusten dut eta Ligi eskuinean, baina Altzai dagoen alderdiari **Ibar** Esküña deritza (Val Dextre) eta Ligi dagoenari **Ibar** Ezkerra (Val Senestre). Iñaki Segurola

Eta Egako **ibar** eskuinean, bide beretik, eta hauek ere aurreko egunetan eta bateratsu harturik, San Pedro auzoa, Rua zaharreko alderdi gotikoa, eta Ega eskuineko alderdia, hiriko hego-ekialdean. Txillardegi

Eta Milafrangaraino joan nintzen, oinez, Errobiren **ibar**-eskuinetik. Txillardegi

Itsas Etorbidean, hegi-hegian, Aturri ibaiaren **ibar** ezkerrean, hirugarren solairu batean. Txillardegi

Getxoko barrutiak **ibar** eskuinaldea hartuko du, Getxo, Leioa, Erandio eta Lemoizerainoko kostako partea. Berria - Euskal Herria

**Ibar** Ezkerreko boxeolari gazte eta etorkizun handikoek osatuko dituzte soirée honetako beste borrokaldiak. Josu Landa

**6** *ibar alde* ik **ibarralde**.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aspeko ibarrean** (5); **deba ibarrean** (5); **edo ibar** (3); **erronkariko ibarreko** (13); **erronkariko ibarreko batzarrak** (8); **eta ibar** (17); **eta ibarrean** (4); **eta ibarreko** (5); **eta ibarretan** (6); **exkol ibarrera** (4); **ibar aldera** (3); **ibar batean** (6); **ibar beltz ilunetan** (3); **ibar eta** (15); **ibar hartan** (3); **ibar honetan** (3); **ibar osoa** (8); **ibarrean behera** (7); **ibarrean bizi** (4); **ibarrean gora** (3); **ibarrean zehar** (3); **ibarreko batzarrak** (8); **ibarreko beila** (3); **ibarrera jaisten** (3); **ibarretan eta** (5); **longidako ibarrean** (5); **mendi eta ibarretan** (3)

---

# ibarbide *iz* ibarrean zeharko bidea.

Ez da nik ezagutzen ez dudan xoko, **ibarbide,** muino, ez iturririk... Elena Touyarou

---

# ibarralde *(orobat **ibar alde**)* *iz* ibarra dagoen aldea.

Morrontzan aritu eta gero, konde-tituluren bat eman ohi zieten, edo hala-holako probintzi edo **ibar alderen** bateko markes-titulua gehienez. Patxi Ezkiaga

Trintxeran zegoela, Elgetatik hirurehunen bat metro ekialdera, Uberako **ibar aldera** so, Loxeta baserriko sorora zehazki. Ramon Saizarbitoria

Soroaren ertzetik jo dute **ibar** aldera, eskuinean entzuten duten errekaren bila. gero bidea behera egiten hasi zen, **ibar** aldera. Pello Lizarralde

Eta Sodoma, Gomorra eta **ibarraldeko** lautada osora begiraturik, kea ikusi zuen labe batetik bezala lurretik altxatzen. Elizen arteko biblia

Hor baziren batzu Alzaziatik, Bretaniatik eta Kataluñatik etorriak, bai eta Aran **ibarraldetik**. Herria

---

# ibartar *izond/iz* Ibarrakoa, Ibarrari dagokiona; Ibarrako herritarra.

Azpeitiarrak 2009a arte luzatu du hitzarmena, eta **ibartarrak** 2008a arte. Berria - Kirola

Kartzela berberan dagoen Jon Mintegiaga **ibartarraren** lau lagunek auto istripua izan zuten larunbatean. Berria - Euskal Herria

---

# ibartxo *iz* ibai txikia.

Errekatxo mehea datorren **ibartxora** laguntzeko eskaini nintzaien; ibar sakon bat da, zintzur estu bat bi malda harkaiztsu, basoz bete, handiren artean. Josu Zabaleta

Hotsaren oihartzuna, duna arteko **ibartxoek** handitu, anitzez biderkatu eta guztiz zolitua. Josu Zabaleta

---

# iberiar 1 *izlag* Iberiakoa, Iberiari dagokiona. ik **iberiko**, **ibero**.

Judu-diasporak **Iberiar** penintsulan izandako historian. Iñaki Mendiguren

Sefarad deitzen zioten **iberiar** penintsulari. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Iberiar** deitu penintsulan, %17ra oxta-oxta iristen omen ziren alfabetoaren berri zutenak orduan. Pello Zabala

Andaluziako gudu-zelaietan andaluziar musulmanek eta mugaz harantzagoko **ibe[r]iar** kristau-barbaroek batzuetan kidetasun handiagoa sentitu zuten elkarrekiko **iberiar** kristauek Pirinioez harantzagoko erlijiokideekin edo **iberiar** musulmanek Ipar Afrikako erlijiokideekin sentitu zutena baino. Iñaki Mendiguren

Ez da batere zaila **iberiar** monarkiek babesturiko espedizio ugarien atzean italiar merkatarien arrastoa bilatzea. Koro Navarro

Sukaldaritza **iberiarra** zabarra dela eta ardoek ez daukatela Borgoña edo Chablis baten bouquet landua, esanen didate «ahozuriek». Berria - Kultura

Europako ugaztunen artean katamotz **iberiarraren** egoera da bakarrik bisoiarena baino larriagoa. Berria - Euskal Herria

Urdaiazpiko **iberiarrak** ez duela sarbiderik EEBBtan. Harkaitz Cano

• **2** *iz* erromatarren aurretik Hispaniako sortaldean eta Galiako hegoaldean bizi izan zen herriko kidea.

2500 urte Jesus aitzin, **iberiarren** eremua Languedoc-eko Herault ibaian hasten zen eta Mediterraneoa segituz hegoaldera, gaurko, Andaluziaraino heltzen. Herria

Akitaniarrak bai itxuraz eta mintzairaz, galiarretaz desberdinak direla, bainan eite dutela **iberiarrekin**. Herria

Ba ote dakigu zuzen nolako euskara mintzatzen zen **iberiarren** garaian [...]? Herria

**3** Iberiar penintsulako herritarra.

**Iberiarren** artean erabiltzen dugun portoñola -portugesa eta espainoalaren arteko mistura- ez baitakigu nori egiten zaion ulergarri eta nori ez. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta iberiar** (5); **iberiar penintsula** (8); **iberiar penintsula** (8); **iberiar penintsulako** (10); **iberiar penintsulako** (10); **iberiar penintsulan** (13); **iberiar penintsulan** (13); **iberiar penintsulara** (3); **iberiar penintsulara** (3); **iberiar penintsulatik** (3); **iberiar penintsulatik** (3)

---

## iberiera *(orobat **iberera** g.er.)* *iz* iberiarren hizkuntza.

Euskarak eta **iberierak** zer loturak zituzten. Herria

Euskara txikiak **iberiera** handiarekin lehian, latin handiarekin lehian, frantses eta gaztelania handiekin lehian, bentzitu egin du, hizkuntza txikiendako bentzitzea da-eta irautea bera. Koldo Zuazo

**Iberera** mintzatzen zutenak. Berria - Kultura

---

## iberiko 1 *izond* iberiarrei dagokiena.

Frantziara egin zuen gerra aurrean, eta Parisen ibili zen Arte **Iberikoko** erakusketan sartuta. Javi Cillero

**2** Iberiar penintsulari dagokiona.

Guk derrigorrez egin behar izan genuen espetxe bideetako turismo **iberikoa**. Bisigodoek jatorrizko substratu **iberiko** hori indartu baino ez zuten egin. Jokin Urain

Bilbon eginiko artista **iberikoen** erakusketak (1925). Berria - Kultura

Sei trenbide bilduko dira, abiadura handiko trenaren zabalera dutenak eta zabalera **iberikoa** dutenak. Berria - Harian

Frantses hiritartasuna duen euskal idazle batek badaki egoera konplexu batean bizi dela: lehenik, euskal komunitate **iberikoan** den euskarazko literatur sistema kanonizatuaren periferian; bigarrenik, frantses literatur sistema zentraletik [...] osoki eta definitiboki kanpo den basamortu batean; hirugarrenik, [...]. Ana Urkiza

Gizaki mota **iberikoari** arrazaren bertute sendo eta gudatiak esleitzen zizkion; gizaki mota semitikoari, lapurretarako, azpijokorako eta merkataritzarako joerak. Josu Zabaleta

Iturriozen sailkapena egiazkoa izatera, Montanerrek ere gehiago zuen izaera semitikotik **iberikotik** baino. Josu Zabaleta

• **3** *iz* Iberiar penintsulako herritarra.

Anjak eta Carstenek honen etxean afaltzera gonbidatu gura gaituzte **iberikoak**. Edorta Jimenez

---

## iberismo

**1** ***basko-iberismo*** *iz* Iberiar penintsula osoko lehen hizkuntza euskara izan zela dioen teoria.

Basko-**iberismoaren** aldekoa izan zen. Berria - Kultura

**2** ***eusko-iberismo*** *iz* basko-iberismoa.

Hark ez ditu ezagutzen eusko-**iberismoaren** teoriak ez antzinako hizkuntza guztiak euskararen bidez dezifratzen dituen Jorge Alonsoren liburuak. Berria - Kultura

---

## ibero *izond/iz* iberiarra.

Arraza **ibero,** afrikar [...] bisigodo, musulman eta enparauen influentziaz. Joxe Azurmendi

Godo eta **iberoen** saldo batzuk, mairuen zapalkuntzatik ihesi, Luisen lurretan onartuak izan ziren. Iñaki Iñurrieta

**Iberoen** euskotasuna. Joxe Azurmendi

---

## iberoamerikar *(orobat **ibero-amerikar**)* *izlag* Iberoamerikari dagokiona.

**Iberoamerikar** antzerkiaren Translatinoak jaia hilaren 19an hasiko da. Berria - Kultura

Bilera **Ibero-Amerikarra**. Berria - Mundua

Antzezlana berez Kixote **iberoamerikarren** erakustaldirako prestatu zuten. Berria - Kultura

---

## iberoar *izlag/iz* Iberokoa, Iberori dagokiona; Iberoko herritarra.

Barranban hasi da **Iberoarra** Gonzalezen eskuina miratuz sakean eta 7-0 ko abantaila hartuz. Herria

---

## iberoeszeptiko *izond*

Lan handia egin beharko da **iberoeszeptiko** horiei erakusteko hartu den bidea eraginkorrena dela, har zitekeen bakarra delako.

---

## ibi *(orobat **ubi** g.er.)* 1 *iz* ibai batean, uraren sakontasun txikiagatik oinez igarotzen ahal den tokia.

Jordan ibaia Efraimen lurralderantz igarotzeko **ibi** edo pasabideak hartu zituzten galaadtarrek. Elizen arteko biblia

**Ibiren** bat, zubirik gabe ere igarotzeko modukoa. Joxe Austin Arrieta

Artzainaren etxe parean **ibi** moduko bat zegoen, eta harri zapalekin egindako pasabide bat. Bernardo Atxaga

Gure oinezkoek **ibi** bat atzeman zuten noizbait. Aingeru Epaltza

Ur handia zekarren erreka bat pasatzeko behar beste pazientzia eduki ez eta, **ibi** egokitik abiatu beharrean, edonondik saiatu eta ito egin zen. Martin Anso

**Ibia** zeharkatu eta bidean aurrera zihoan zaldizkoen ilara kizkurra. Kibitkak **ibi** bat igaro zuen erraz aski, Kamsketik harago bidea mozten zuen ibaia zeharkatzeko. Agustin Otsoa

Ibaia pasatzeko **ibia** aurkituko zutelakoan. Felipe Juaristi

Grosrouvrek bakar-bakarrik aurkitu zuela **ibiaren** kokalekua. Jon Muñoz

Oinez edo bizikletaz ezin ibili ahal izango denez, **ibiz ibi** ibili beharko dugu ur geldietan. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

On Camillo uretara lerratu eta kontu handiz zeharkatu zuen ur-emana, **ibi**-hondoa aurkitu zuen arte. Koldo Biguri

Erreka-**ibi** bat zeharkatzen? Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ibi bat** (4)

ibiakoitz ik **ebiakoitz**.

---

## **ibil-tresna** *iz ipar* ibilgailua.

Pas-de-Roland aldean egiten diren lanen gatik, bidea debekatua izanen da **ibil-tresna** guziendako maiatzaren 9 tik haste hiru astez. Herria

Karrika batzuetan, autoak aise zalutasun handiegian dabiltzala, bi errotekilako **ibil-tresna** frangok arrabots gaitza egiten dutela, jendearen beharriak tutatuz. Herria

Behar litake [...] petrolakia erretzen duten **ibil-tresna** horietarik aise gutiago, auto, kamiun, hegaztin eta gaineratiko. Herria

---

## **ibilaldi** **1** *iz* ibiltzea, ibiliz egiten den bitartea edo bidea.

Izan zuen gure aitak **ibilaldi** haien berri eta sutan jarri zen: lehenbizi, bere alabek ez zutelako gizonekin ibili behar. Fernando Rey

Estaziotik at egiten zuten bigarren **ibilaldia** zen atzokoa bi astronautentzat. Berria - Gaiak

Jordan ibaia igaro eta basamortuan barrena hiru eguneko **ibilaldia** egin zuten. Elizen arteko biblia

Hamaika eguneko **ibilaldia** dago Horebetik Kadex-Barnearaino Seir mendialdeko bidetik. Elizen arteko biblia

Bi egunen **ibilaldia** beraz. Piarres Aintziart

Milia batzuetako **ibilaldia** pauso bizkorrean, eta gero atsedena. Agustin Otsoa

**Ibilaldiko** abiapuntu eta helmugak. Elizen arteko biblia

Jakinmina piztu zitzaidan, noski, eta bizilagunaren **ibilaldiak** jarraitzen hasi nintzen. Iban Zaldua

Bazkalondoan, **ibilaldia** egiten genuen biek elkarrekin. Aingeru Epaltza

Ibaiertzetik elurretan egindako **ibilaldi** atseginak. Irene Aldasoro

Handia da eguzkia egin duen Jauna, honen esanetara egiten du **ibilaldia**. Elizen arteko biblia

Zamudiotik Bilborainoko **ibilaldia** egin zuten goizetik hasi eta eguerdian bukatuta. Berria - Ekonomia

Nehork ez zuen hitz egin **ibilaldia** ia bukatu arte. Elena Touyarou

Orain Danimarkara itzultzekoa zen, eta bakearen aldeko **ibilaldiak** antolatu nahi zituen han ere. Fernando Rey

Mundu guztia joan zen zaldiz **ibilaldi** bat egitera. Karlos Zabala

"Demokrazia Euskal-Herriarentzat" lemapean iragan da **ibilaldia**. Patziku Perurena

Frango jendetsu izanak dira jadanik maiatzaren leheneko **ibilaldiak**. Herria

Askatasunaren **Ibilaldia** egin zen egunean. Joxerra Garzia

Zurrungaren bat ere bai, **ibilaldiaren** nekeak taldekideren bat lokarrarazi duelako marka. Aingeru Epaltza

Odol-lagin bat aztertuz gero, beti agertuko dira gorputzaren alde batetik bestera **ibilaldi** bat egitera sartu diren substantziak. Irene Aldasoro

**2** (izenondo edo izenlagunekin)

**Ibilaldi** luzea egin zuten sartaldeko bideetan barrena. Agustin Otsoa

Egunero oinez **ibilaldi** luzea egitea komeni zaiala. Txillardegi

Saria, ez nola nahikoa: itsasontziz **ibilaldi** lüze bat. Herria

Rousseauren zahartzaroko **ibilaldi** bakartiak zetozkion gogora. Imanol Zurutuza

Hiritar uholdeak ekin dio, arratsaldero bezala, dendarik dendako **ibilaldi** urduriari. Jon Arretxe

Une hartan, sorgortasun bitxi bat nabaritu nuen, lo-ibiltariak gaueko **ibilaldi** arriskutsuei ekiterakoan izaten duenaren antzekoa. Ander Irizar

**Ibilaldi** latza izan zen. Agustin Otsoa

Aurrera egin zuten **ibilaldi** neketsuan. Agustin Otsoa

Florent bazter batean zegoen eserita, goizez lan bila egindako alferreko **ibilaldiek** nekaturik. Karlos Zabala

Ilargi-gauetan, bakarkako **ibilaldi** luzeak egiten nituen sarritan Meatzeetako lurralde basatian gaindi. Juan Garzia

Kalez kaleko **ibilaldi** haien bukaeran. Karlos Zabala

Ez zigun uzten mendiko **ibilaldietara** koñaka edo azukre-koxkorrik eramaten. Fernando Rey

Hasi dugun **ibilaldi** honek azken ona izango duen ala ez jakin nahi dugu. Elizen arteko biblia

**3** (hitz elkartuetan)

Lehenengo **ibilaldi**-egunari amaiera emanez. Agustin Otsoa

Pauloren **ibilaldi**-asmoak. Elizen arteko biblia

· Heta erdiak aldera sartu nintzen Anboto kafetegian, gau-**ibilaldiari** hasiera eman aurretik, ostiralero bezala, kafea eta kopatxo bat hartzera. Migel Angel Mintegi

Kale **ibilaldia** mozorroekin. Joseba Sarrionandia

Mendi-**ibilaldiak** antolatzen zituen. Joan Mari Irigoien

Taxi **ibilaldiak** iraun zuen bitartean. Joxemari Iturralde

Auto-**ibilaldi** bat egin aurretik. Xabier Olarra

Itsas **ibilaldi** honek kalte eta galera handiak ekarriko dituela. Elizen arteko biblia

Ibai-**ibilaldi** honek distraitzeko balioko zidan. Joxemari Iturralde

Iparraldeko lurraldeetan gudu-**ibilaldia** egitera joan zenean. Elizen arteko biblia

Afaldu orduko, negozio-**ibilaldi** bati ekin behar zion Artek. Mirentxu Larrañaga

Askatasun **Ibilaldia** polizia nazionalaren eraso basatiarekin amaitu zenez, urduri ginen oso. Joxerra Garzia

Bundesligako klubetan egin du bere kirol **ibilaldia**. Berria - Kirola

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aldeko ibilaldi** (3); **bere ibilaldi** (8); **bi ibilaldi** (8); **da ibilaldi** (8); **da ibilaldi bat** (3); **da ibilaldi hori** (3); **da oinezko ibilaldi** (3); **dituen ibilaldi** (3); **duen ibilaldi** (4); **dugun ibilaldi** (4); **dute ibilaldi** (7); **egindako ibilaldi** (12); **elgarretaratze eta ibilaldi** (3); **eta ibilaldi** (20); **eta ibilaldi bat** (3); **gaitzeko ibilaldi** (3); **hiru ibilaldi** (5); **holako ibilaldi** (5)

**aldeko ibilaldia** (3); **apainduen ibilaldia** (3); **bateko ibilaldia** (4); **beila ibilaldia** (4); **bere ibilaldia** (4); **beren ibilaldia** (3); **bigarren ibilaldia** (3); **bizikleta ibilaldia** (5); **da ibilaldia** (11); **dantzarien ibilaldia** (3); **dute ibilaldia** (7); **egin zuten ibilaldia** (4); **eguneko ibilaldia** (6); **eguneko ibilaldia egin** (3); **erdi bateko ibilaldia** (3); **ere ibilaldia** (3); **eta ibilaldia** (7); **gaindi ibilaldia** (4); **gaitzeko ibilaldia** (3); **gauazko karro ibilaldia** (3); **gure ibilaldia** (3); **hasiko da ibilaldia** (3); **haurren ibilaldia** (3); **hiru kasko ibilaldia** (3); **huntako ibilaldia** (9); **huntako ibilaldia bururaturik** (3)

**ibilaldia antolatu** (10); **ibilaldia antolatu dute** (6); **ibilaldia bururatu** (5); **ibilaldia bururaturik** (3); **ibilaldia bururatzean** (4); **ibilaldia egin** (22); **ibilaldia egin dute** (3); **ibilaldia egin zuten** (5); **ibilaldia eginen** (8); **ibilaldia eginen da** (3); **ibilaldia egingo** (10); **ibilaldia egingo dute** (7); **ibilaldia egiteko** (3); **ibilaldia egiten** (4); **ibilaldia eta** (9); **ibilaldia ez** (6); **ibilaldia hasi** (3); **ibilaldia iragan** (3); **ibilaldia iragan da** (3); **ibilaldia iraganen** (3); **ibilaldia izan** (4); **ibilaldia karrikaz** (3); **ibilaldia karrikaz karrika** (3); **ibilaldia karriketan** (10); **ibilaldia karriketan eta** (3); **ibilaldia liburuan** (3); **ibilaldia sarako** (6); **ibilaldia uztailaren** (3); **ibilaldia zen** (3)

**ihiztarien ibilaldia** (3); **inguruko ibilaldia** (3); **iragan da ibilaldia** (3); **karrika ibilaldia** (3); **karro apainduen ibilaldia** (3); **karro ibilaldia** (11); **karro ibilaldia karriketan** (4); **kasko ibilaldia** (4); **kilometroko ibilaldia** (5); **kilometroko ibilaldia egin** (3); **kofradien ibilaldia** (3); **larunbateko ibilaldia** (3); **lur huntako ibilaldia** (4); **mediterraneoko beila ibilaldia** (4); **mendi ibilaldia** (18); **mundu huntako ibilaldia** (3); **oinezko ibilaldia** (12); **orduko ibilaldia** (3); **oreneko ibilaldia** (3); **pantzarren ibilaldia** (4); **san pantzarren ibilaldia** (4); **treinbide ibilaldia** (6); **udaberriko ibilaldia** (6); **urteko ibilaldia** (4); **zen ibilaldia** (3); **zuen ibilaldia** (6); **zuten ibilaldia** (7)

**aldeko ibilaldiak** (4); **bakearen aldeko ibilaldiak** (4); **bere ibilaldian** (3); **bere ibilaldietan** (4); **dute ibilaldiaren** (3); **egindako ibilaldian** (6); **eta ibilaldiak** (5); **ibarretxe lehendakariaren ibilaldiak** (3); **ibilaldiak egiten** (6); **ibilaldiak egitera** (6); **ibilaldiak eta** (6); **ibilaldiak ez** (4); **ibilaldiak iraun** (3); **ibilaldiak iraun zuen** (3); **ibilaldiak zaldi** (3); **ibilaldiak zaldi karrosaz** (3); **ibilaldian parte** (8); **ibilaldian parte hartu** (3); **ibilaldian zehar** (3); **ibilaldiaren abiatzea** (3); **ibilaldiaren ondotik** (3); **ibilaldiari ekin** (4);

**lehendakariaren ibilaldiak** (3); **makea oinez ibilaldiak** (3); **mendi ibilaldiak** (3); **mendi ibilaldietan** (3); **mendiko ibilaldietara** (3); **oinez ibilaldiak** (3); **oinezko ibilaldiak** (4); **zuen ibilaldiaren** (3)

---

**ibilaldiño** *iz ipar* ibilalditxoa.

Leizen ondotik pasatuz eta Zugarramurdiri buruz **ibilaldiño** bat eginik. Herria

Gero, **ibilaldiño** bat Segurako karrika xaharretan gaindi. Herria

---

# ibilalditxo *iz* ibilaldi txikia.

**-Ibilalditxo** bat baino ez duk izan. Koldo Biguri

Datorren astean deitu egin beharko diozu […] eta esan Rolls Royce horretan nahi duzula **ibilalditxo** bat egin... Joxemari Iturralde

Athletic taldeko atezainak beste **ibilalditxo** bat egin behar izan baitzuen ateko sarearen hondoraino. Joxemari Iturralde

Goizero egiten omen zuten **ibilalditxoa,** medikuak agindutako moduan. Joxemari Urteaga

Ordu erdiko **ibilalditxoak** mesede handia egiten die haurrei. Eskarne Mujika

Oihanera egin zuen **ibilalditxo** hartatik etengabe izan zituen sastadak. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**ibilalditxo bat** (19); **ibilalditxo bat egin** (6); **ibilalditxo bat egiten** (3); **zuen ibilalditxo** (3)

---

# ibilarazi, ibilaraz, ibilarazten 1 du *ad* ibiltzera behartu. (pertsonak)

Ez dut Israel bere arbasoei eman nien lurraldetik urrun **ibilaraziko**. Elizen arteko biblia

Ezaguna dut zuen borondate ona, eta horrek harro **ibilarazten** nau Mazedoniakoen aurrean. Elizen arteko biblia

Berrogei urtez **ibilarazi** zaituzte Jaunak basamortuan. Elizen arteko biblia

Klara martiniak ez bezala, ni garagardoak bixi-bixi **ibilarazten** nau, mozkortzeraino gabe. Aingeru Epaltza

Montgommeryk bazekien bere gizonak zalu **ibilarazten**. Aingeru Epaltza

Pauline eskutik hartu eta trostan **ibilarazi** zuen urdaitegiraino. Karlos Zabala

Berak heltzen zien uhalei, laguntza-zaldia itzulika **ibilaraziz**. Jose Morales

**2** (besteloakoak)

Petroliontzi kaxkarrok batetik bestera gai kutsagarriz beteta **ibilarazteak**? Joxerra Garzia

Zoazte erreginaren gelara eta **ibilarazi** ezazue gorua. Juan Kruz Igerabide

Eugin bildu esperientzia baliatu zuten arras ontsa Orbaizetako olaren eraikitzeko eta **ibilarazteko**. Polizia zein Justizia arloetako elkarlan egiturak modu eraginkorragoan **ibilarazteko** erabakia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Konstituzioa «beharrezkotzat» dauka «Europa **ibilarazteko»**. Berria - Euskal Herria

Inork esango du premia ekonomikoak eragindako jarrera dela, baina ni nago alderantzizko logika baten gurpilak **ibilarazten** duela jokabide hori. Anjel Lertxundi

Eskuko behatzak 22 soken artean **ibilaraziz** ateratzen zaio bere soinu elektrikoa *electrocor*ari. Berria - Kultura

Errimaren mekanismoa atzekoz aurrera **ibilaraziko** bagenu bezala. Iñaki Arranz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**barrena ibilarazi** (3); **bide zuzenetik ibilarazten** (3); **ibilarazten nau** (3); **ibilarazten zuen** (3)

---

# ibilbide 1 *iz* ibiltzeko bidea; bidea.

Erdialdean, lorategiaren ardatz, **ibilbidea** zegoen, harri txintxar zuriz hornitutakoa. Bernardo Atxaga

**Ibilbidearen** bi aldamenetako arbola garaien adar guztiak hosto txiki berde argiz beterik zeuden. Irene Aldasoro

Kaleetan aldarrika dabil Jakinduria, **ibilbideetan** oihuka. Elizen arteko biblia

Duda-mudarik gabe zihoan, **ibilbide** ezagunean dabilen bidaztia legez. Karlos Zabala

Zabaldi hori zurezko etxez josia zegoen orduan, den-denak simetrikoki kokatuak eta haien artean **ibilbide** zabalak utziaz. Karlos Zabala

Bi **ibilbidek** gurutzatzen zuten [baratzea], erdian plazatxo bat eratuz eta lau sail berdinetan banatuz. Josu Zabaleta

Piazza San Marcora daraman **ibilbide** jendetsutik aparte. Anjel Lertxundi

**Ibilbidean** apenas hitz egin genuen. Jesus Mari Mendizabal

· Champs-Elysées **ibilbidean** gora. Josu Zabaleta

*ik* pasealeku.

Union **ibilbideko** tiloak. Lutxo Egia

Pergolako **ibilbidea** xaharra zen, iluna eta zikina. Herria

Cervantes, Unamuno, Sabino Arana, Gabriel Aresti, Koldo Mitxelena, Foruen, Askatasunaren, Independentziaren, Konstituzioaren edo Autonomiaren kaleak, plazak, **ibilbideak,** pasealekuak eta etorbideak. Iñaki Segurola

**2** zerbaitek edo norbaitek ibiltzen duen bidea.

Bide zirkular batean barrena egin nahi baldin baduzue **ibilbidea,** luzeagoa izango da. Jon Muñoz

Mila kilometro edo gehiago dituzten munduko 177 ibaietatik soilik 64k dute oztoporik gabeko **ibilbidea**. Berria - Gaiak

**Ibilbidearen** luzeraz harrituta. Jon Muñoz

**Ibilbide** luze bat, arkupez, iturriz, parkez inguratua, eta, parke horietan, hegoaldera egindako espedizioetatik ekarritako animalia mordoa; pintura-galeria bat, estatua-bildumak. Jon Muñoz

Ahalegindu nintzen Angelaren gordelekuraino eginiko **ibilbideaz** gogoratzen. Alberto Ladron Arana

Mekatik Medinarako **ibilbidea**. Patxi Zubizarreta

Palenquetik plantaziorainoko **ibilbidea,** airez zuzenean neurturik, eta luze jota, hirurogeita hamar bat miliakoa-edo izango zen. Joxe Austin Arrieta

Mendira zihoan **ibilbideko** atea itxita zegoen. Pako Aristi

Izanen dire bi **ibilbide**; bat frango luze eta bortitza, kirolzale trebe horientzat; bertze bat hasi berrien heinekoa. Herria

Mendiaz ari garela, arratsalderako **ibilbide** bat prestatu dut. Javi Cillero

Bostongo **ibilbide** turistiko-historikoa oso modu errazean egin daiteke. Patxi Zubizarreta

Harrapaka etxeratu nintzen, **ibilbidea** behin baino gehiagotan erratuz. Javi Cillero

Matson andreak tranbia-**ibilbide** alderantz egin zuen, etxera eramango zuen trolebusari hantxe itxaroteko asmoz. Mirentxu Larrañaga

**Ibilbideko** herri bakoitza. Koro Navarro

**Ibilbide** berezia prestatu du Tourreko antolakuntzak. Berria - Kirola

**Ibilbidea** bederatzi kilometrokoa izango da. Berria - Kirola

Luzea da Tipperary-rako bidea, luzea da **ibilbidea** . Mirentxu Larrañaga

197 autobus gehiago jarri dituzten martxan, eta baita 16 **ibilbide** berri ere. Berria - Gaiak

Euskaldunak hartutako trenak Hendaia-Paris **ibilbidea** egiten zuen. Alberto Ladron Arana

**Ibilbide** luzeko trenetan bakarrik. Harkaitz Cano

Hiru **orenen** ibilbidea Argentinako Hiriburu gaitzeraino. Herria

**3** (-en atzikiaren eskuinean)

Amazonasen **ibilbidean** han-hemen ageri ziren meandro zabalak. Jon Muñoz

Afrikatik zetorren urrea, eta merkatari musulmanek menderatzen zuten urrearen **ibilbidea** . Koro Navarro

Karabanen **ibilbide** handia herriaren ondo-ondotik pasatzen zen. Fernando Rey

Erlojuaren gezien **ibilbide** geza. Sonia Gonzalez

Isiltasun bareak inguratzen zuen dena eta, gaua bere **ibilbidearen** erdian zegoela [...]. Elizen arteko biblia

Bulegoak Euskal Y-aren **ibilbidearen** aldaketa aztertzeko eskatu du. Berria - Euskal Herria

Madril eta Sevilla arteko bidea egiten duen AHT Abiadura Handiko Trenaren **ibilbidean** lehergailu bat indargabetu zuten atzo goizean.

Gero trenaren **ibilbideak** aintzira-bazterrean egiten zuen aurrera. Fernando Rey

Grafikoetan trenaren **ibilbideari** segitzen. Fernando Rey

Siberiako petrolioa Ozeano Bareko kostaldera eramango duen hodi sistemaren **ibilbidea** aldatuko dute, Baikal aintziratik urruntzeko. Berria - Gaiak

**4** zerbaitek, espazioan higitzean, egiten edo gauzatzen duen bidea. ik **traiektoria.**

Eguzkiaren **ibilbide** eta ilargiaren mugida aldakorrak zer indarrek eta kausak eragiten dituen eta nola. Xabier Amuriza

Planeten **ibilbidea** zirkulartzat jotzen badu. Ibon Uribarri

Ez naiz hasiko elektroiaren gorabeherekin, ez naiz ariko haren **ibilbide** ezin determinatuzkoaz. Iñaki Segurola

Bi jaurtigairen **ibilbidea** . Jon Muñoz

Argi sumatu baitzuen hark kanoi-bola baten **ibilbidea** ez zela zuzena, parabolikoa baizik. Jon Muñoz

**Ibilbide** parabolikoko Tartagliaren kanoi-bolak zubian lehertzen ziren. Jon Muñoz

Zenbat eta lasterrago joan, hala ere, orduan eta gutxiago du kurbatua **ibilbidea** . Jon Muñoz

**5** *irud*

Begien urdinarekin batera, iritsi ote zait niri ere, geneen **ibilbide** sigi-sagatsuan, haien zoro-ukiturik? Xabier Mendiguren Elizegi

Belaunaldiz belaunaldiko **ibilbidea** egin ondoren. Patxi Altuna

Euskal literaturaren **ibilbide** osoa kurritu dugu luze-zabalean, hasieratik beretik oraintsu arte. Iñaki Arranz

Sarrera honen lehenengo zatian XX. mendeko filosofiaren sistema postidealisten **ibilbidea** aztertzen da. Askoren artean

1224ko irailean, gailurra jo zuen Frantziskoren **ibilbide** espiritualak. Askoren artean

Oroit naiz bere **ibilbide** intelektualaz hitz egin zidala. Piarres Aintziart

Lau urratseko **ibilbide** hori abstrakziorantz hurbiltzen ari da. Askoren artean

**Ibilbidea:** Eskolarteko Txapelketetan hainbat sari irabazi ostean, 2000n parte hartu zuen lehengo aldiz Bizkaiko Bertsolari Txapelketan. Berria - Kultura

Hirugarren ikasturtean, aldiz, bi **ibilbide** espezializatuen artean hautatu beharko dute ( **ibilbide** tekniko-profesionala eta **ibilbide** zientifiko-humanista), eta **ibilbide** bakoitzak bere edukiak landuko ditu. Berria - Euskal Herria

**Ibilbide** pedagogikoak. Herria

Ikertzaileen prestakuntza: **ibilbide** akademikoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ibilbide** bitxia izan du liburuak. Joxerra Garzia

Nire lan- **ibilbidearen** berri ematen duen agiri bat. Joxerra Garzia

Norberak bere **ibilbidea** egitea askoz onuragarriago baita erosotasuna baino. Lourdes Oñederra

Porrotez porrot, garaipeneraino, horra Apple konpainiaren **ibilbidea** deskribatzen duen lelo ez-ofiziala. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**arteko ibilbide** (7); **baina ibilbide** (9); **bere ibilbide** (81); **bere ibilbide luzean** (5); **bere ibilbide osoko** (5); **bere ibilbide politikoa** (9); **bere ibilbide profesionala** (5); **bere kirol ibilbide** (7); **bi ibilbide** (10); **da ibilbide** (9); **du ibilbide** (8); **duen ibilbide** (14); **egindako ibilbide** (7); **entzun ziren ibilbide** (6); **ere ibilbide** (8); **eta ibilbide** (64); **eta ibilbide horretan** (6); **haren ibilbide** (11)

**ibilbide akademikoa** (8); **ibilbide artistikoan** (5); **ibilbide bat** (28); **ibilbide bera** (14); **ibilbide berri** (9); **ibilbide berria** (5); **ibilbide bihurria** (7); **ibilbide bikaina** (13); **ibilbide eta** (12); **ibilbide gorabeheratsua** (7); **ibilbide guztia** (7); **ibilbide guztiak** (7); **ibilbide guztian** (9); **ibilbide hori** (16); **ibilbide horrek** (6); **ibilbide horren** (10); **ibilbide horretan** (23); **ibilbide ikusgarria** (8); **ibilbide laburra** (8); **ibilbide luze** (24); **ibilbide luze eta** (8); **ibilbide luzea** (49); **ibilbide luzea egin** (11); **ibilbide luzeagoa** (6); **ibilbide luzean** (12); **ibilbide luzeko** (13); **ibilbide ona** (5); **ibilbide oparoa** (21); **ibilbide oparoa egin** (5); **ibilbide oso** (6); **ibilbide osoa** (35); **ibilbide osoan** (37); **ibilbide osoan zehar** (7); **ibilbide osoko** (11); **ibilbide politiko** (13); **ibilbide politikoa** (26); **ibilbide profesional** (6); **ibilbide profesionala** (12)

**kilometroko ibilbide** (6); **kirol ibilbide** (18); **nire ibilbide** (11); **oso ibilbide** (5); **taldearen ibilbide** (9); **urteko ibilbide** (16); **zen ibilbide** (5); **ziren ibilbide** (9); **ziren ibilbide osoan** (6); **zuen bere ibilbide** (6); **zuen ibilbide** (7); **zuten ibilbide** (7)

**antzeko ibilbidea** (10); **arteko ibilbidea** (28); **arteko ibilbidea egiten** (6); **azken urteetako ibilbidea** (5); **bakarkako ibilbidea** (5); **baten ibilbidea** (8); **bere ibilbidea** (53); **bere kirol ibilbidea** (27); **beren ibilbidea** (5); **da ibilbidea** (11); **den ibilbidea** (7); **du bere ibilbidea** (5); **du ibilbidea** (9); **duen ibilbidea** (21); **duten ibilbidea** (7); **egin duen ibilbidea** (5); **egindako ibilbidea** (9); **eginiko ibilbidea** (5); **eta ibilbidea** (23); **gabeko ibilbidea** (8); **gure ibilbidea** (7); **haren ibilbidea** (10); **hesiaren ibilbidea** (7)

**ibilbidea aldatu** (10); **ibilbidea aldatzea** (7); **ibilbidea aldatzeko** (9); **ibilbidea bera** (5); **ibilbidea bukatutzat** (7); **ibilbidea da** (13); **ibilbidea du** (7); **ibilbidea egin** (45); **ibilbidea egin du** (13); **ibilbidea egin ondoren** (10); **ibilbidea egin zuten** (5); **ibilbidea egingo** (11); **ibilbidea egingo dute** (6); **ibilbidea egiteko** (11); **ibilbidea egiten** (21); **ibilbidea egiten ari** (5); **ibilbidea egiten duen** (5); **ibilbidea ere** (16); **ibilbidea eta** (29); **ibilbidea ez** (16); **ibilbidea ez da** (7); **ibilbidea hasi** (6); **ibilbidea ikusita** (6); **ibilbidea izan** (10); **ibilbidea laburbildu** (5); **ibilbidea nahiko** (5); **ibilbidea osatu** (17); **ibilbidea osatu beharko** (7); **ibilbidea oso** (11)

**kilometroko ibilbidea** (29); **kilometroko ibilbidea egin** (5); **kilometroko ibilbidea osatu** (6); **kirol ibilbidea** (67); **kirol ibilbidea bukatutzat** (5); **literatur ibilbidea** (6); **metroko ibilbidea** (9); **metroko ibilbidea osatu** (5); **nire ibilbidea** (9); **nire kirol ibilbidea** (8); **ohiko ibilbidea** (5); **orain arteko ibilbidea** (10); **ren ibilbidea** (6); **taldearen ibilbidea** (12); **urteetako ibilbidea** (6); **urteko ibilbidea** (26); **urteko ibilbidea egin** (6); **z ibilbidea** (6); **zazpi kilometroko ibilbidea** (5); **zen ibilbidea** (6); **zuen bere ibilbidea** (6); **zuen ibilbidea** (12); **zuten ibilbidea** (7)

**bere ibilbideak** (5); **bere ibilbidean** (49); **bere kirol ibilbidean** (24); **duen ibilbidean** (5); **eta ibilbideak** (9); **eta ibilbidean** (7); **ibilbideak ere** (6); **ibilbideak eta** (11); **ibilbideak ez** (5); **ibilbidean aurrera** (7); **ibilbidean beste** (10); **ibilbidean beste mugarri** (9); **ibilbidean egin** (5); **ibilbidean eta** (5); **ibilbidean ez** (5); **ibilbidean zehar** (14); **kilometroko ibilbidean** (5); **kirol ibilbidean** (38); **kirol ibilbidean beste** (5); **literatur ibilbidean** (6); **manifestazioaren ibilbidean** (5); **nire ibilbidean** (14); **nire kirol ibilbidean** (5); **taldearen ibilbidean** (5); **urteko ibilbidean** (13)

**bere ibilbidearen** (23); **bere ibilbidearen erdian** (7); **bere ibilbideari** (9); **bere ibilbideko** (32); **bere kirol ibilbideko** (45); **eta ibilbidearen** (7); **gaua bere ibilbidearen** (7); **ibilbidearen berri** (5); **ibilbidearen erdian** (10); **ibilbidearen erdian zegoela** (6); **ibilbidearen eta** (7); **ibilbidearen hasieran** (5); **ibilbideari ekin** (5); **ibilbideari jarraitu** (7); **ibilbideko azken** (9); **ibilbideko garaipen** (11); **ibilbideko garaipen garrantzitsuena** (7); **ibilbideko lehen** (6); **ibilbideko une** (13); **ibilbideko unerik** (7); **ibilbidetik atera** (6); **kirol ibilbideari** (6); **kirol ibilbideko** (63); **kirol ibilbideko azken** (5); **kirol ibilbideko garaipen** (9); **kirol ibilbideko une** (6); **kirol ibilbideko unerik** (5); **nire ibilbideko** (6); **nire kirol ibilbideko** (7); **urteko ibilbidearen** (7)

---

# ibildaun **1** *izond* alde batetik bestera dabilena, nora ezean dabilena.

Lekaide **ibildaun** batek jakinarazi zion Dante destainaz mintzo zela berari buruz. Juan Garzia

Antzezle **ibildaun** behartsuak gara. Juan Garzia

Botadeo izeneko Judu **ibildaun** hura. Juan Garzia

Iragarpenak zekartzaten ontzi hegalariak aipatzen baitziren, espiritisten espirituak bezala **ibildaun** eta eragingabeak. Juan Garzia

**2** (adizlagun gisa)

Inor izateko aukera duzun bakoitzean fantasma bihurtzen zara, arima bakartua, espiritisten espirituak bezala **ibildaun** eta eragingabe. Juan Luis Zabala

---

# ibilera *(ETCn 3.472 agerraldi; 746 agerraldi, 169 liburu eta 66 artikulutan)* **1** *iz* hara-hona ibiltzea; ibiltzea. ik **ibilketa**.

Basamortuan barrena egin zuen hiru eguneko **ibilera**. Bernardo Atxaga

-Broadway, Radio City, Central Park... ez dakit ba, turista baten **ibilera** egingo duzula iruditzen zait. Bernardo Atxaga

Galduak ditut hainbat eta hainbat orri ere hara-hona egindako **ibileretan**. Anjel Lertxundi

Soinujoleari batetik besterako **ibileretan** laguntzen zietenak. Iñigo Aranbarri

Erraz jakin zitekeen haien **ibileraren** nondik norakoa. Felipe Juaristi

**Ibileran** txanpon bat galtzen denean bezalaxe, aztertu egin beharko duzue bidea, hasieratik bukaeraino, tarterik tarte, ea non egin ziren hutsak. Bernardo Atxaga

Espezie osoa desagertuko balitz ere, aireak ez luke bere garbitasuna galduko, eguzkiak ere ez bere distira, ezta unibertsoaren **ibilerak** ere bere zehaztasuna. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Giza espezie osoa desagertu ondoren ere naturan ez dela ezer aldatzen eta astroen **ibilera** ez dela gelditzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Andreak bere **ibilera** gelditu gabe eta kitxua doinuko gaztelaniaz erantzun dit: [...].Izotzak zailtzen du **ibilera**. Joseba Sarrionandia

**2** ibiltzeko modua. ik **pausaje**.

Hasieran hire **ibilerak** erakarri ninduela uste dinat. Anjel Lertxundi

Kantuan hasi ginen guztiok eta abestiaren erritmoak gure **ibilera** berdindu zuen eta militartu. Anjel Lertxundi

Begira nolako **ibilera** duen. Lopez de Arana

Oihantxora hurbiltzerakoan, zaldien **ibilera** mantsotzen hasi zen. Karlos Zabala

Joxek, **ibilera** batere moteldu gabe, burua bihurtu du. Pello Lizarralde

Ostatuko bidea hartu eta **ibilera** arindu nuen. Anjel Lertxundi

**Ibilera** bizkortu zaio. Anjel Lertxundi

Burua tente eta militar baten **ibileran**. Anjel Lertxundi

Ahotsean eta **ibileran** eta elkarri begiratzeko moduan antzematen zitzaien egonezina. Anjel Lertxundi

**Ibileran** eta sasoian makaltzen doa, beheraka, poliki-poliki. Xabier Etxabe

Pauso sendoak, erabaki garbi bat hartu duenaren **ibilera**. Lourdes Oñederra

Del Valle zutitu eta automata baten **ibileraz** hurbildu zen ateraino. Alberto Ladron Arana

**Ibilera,** ordea, tente eta arina zuen. Anjel Lertxundi

**Ibilera** kementsua zuen Nathanielek. Anjel Lertxundi

Ezkerrera jo zuen, **ibilera** baldarrez, eskuinaldera nabarmen balantzaka, zurezko hankaren gainera. Ramon Saizarbitoria

Apala zuen begiratua, urduria **ibilera**. Anjel Lertxundi

Txakur makilatuaren **ibilera** abailduarekin desagertu zen gure bistatik. Anjel Lertxundi

Haren **ibilera** artagabea zen, inora iristeko axolarik ez duen horietakoa. Anjel Lertxundi

**Ibilera** gogorik gabea du, irribarre behartua, begirada galdua... Anjel Lertxundi

Uniformedun guztiek **ibilera** patxadatsua zuten: ematen zuen paseatzea zutela lanbide. Anjel Lertxundi

Hegazti xurinabar gorrixta haren **ibilera** bildurtia. Patziku Perurena

Arrotz erdi galdu baten itxura ematen dio darabilen pauso luzeko **ibilera** urduriak. Anjel Lertxundi

Zaldiari **ibilera** arin beti-berdina eraginez. Karlos Zabala

**Ibilera** arinez zebilen, estekatzen zuen sokak ia tiratzen ez ziola. Karlos Zabala

**3** *hed*

Letra letrari jarraitzen zitzaion, lerroa lerroari, atala atalari, liburua liburuari: **ibilera** hark goxoki eramaten ninduen loaren mugara. Bernardo Atxaga

Eulien **ibilerari** begira ere zentza liteke beraz, jendea. Patziku Perurena

**Ibilera** bihurriko ibai txiki batek ilargiaren izpiak islatzen zituen han-hemenka. Karlos Zabala

Alemaniarrak egurra baino patxadatsuagoak dira, bai, baina odolaren **ibilera** astiro eta mantsoari zor diote hori. Jose Morales

Espezie osoa desagertuko balitz ere, aireak ez luke bere garbitasuna galduko, eguzkiak ere ez bere distira, ezta unibertsoaren **ibilerak** ere bere zehaztasuna. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Giza espezie osoa desagertu ondoren ere naturan ez dela ezer aldatzen eta astroen **ibilera** ez dela gelditzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gurdiaren **ibilera** zuzentzeko ardura zuena. Karlos Zabala

Ilargiaren **ibilera** distiratsua. Elizen arteko biblia

Honi esker ezarri da Natur Zientzia lehen-lehenik zientziaren **ibilera** seguruan. Ibon Uribarri

Norak, burutazioen **ibilera** herratu hartaz jabeturik, lepondora eraman zuen eskua. Anjel Lertxundi

Gauzak bere izen zuzenez izendatzeko beldurrak bezala, zenbat imintzio eta zehar-**ibilera,** zenbat itzulika eta inguruka. Iñaki Segurola

**4** *pl* abenturak, gorabeherak.

Modu askotara saiatu nintzen aitaren gerrako **ibileren** berri izaten. Anjel Lertxundi

Haren **ibilera** libertinoak, haren eskandaluak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Istillagak kontatzen zituen bere anaiaren **ibilera** noragabeak. Pako Aristi

Aldean ditut Bargotako apaizaren **ibileren** bertso berriak, Vianako itsuak jarriak. Anjel Lertxundi

Marinel ausarten **ibilerak** eta kontakizunak dituzte entzunenak eta estimatuenak. Horren ordez, bere soldadu-**ibilerei** buruz galdetzen nion. Anjel Lertxundi

Anarekikoa, ostiral-larunbatetako gau **ibileren** haritik etorria zen. Iñaki Iñurrieta

Beharbada Miren nire **ibileren** jakitun zen. Migel Angel Mintegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baten ibilera** (11); **bere ibilera** (34); **beren ibilera** (7); **den ibilera** (3); **du ibilera** (3); **eta bere ibilera** (4); **eta haren ibilera** (3); **eta ibilera** (29); **gure ibilera** (4); **haien ibilera** (4); **haren ibilera** (22); **ibilera arina** (4); **ibilera arinez** (6); **ibilera baldarrez** (3); **ibilera berezia** (3); **ibilera bizkortu** (5); **ibilera ere** (3); **ibilera eta** (9); **ibilera ez** (3); **ibilera guztiak** (5); **ibilera jarraitu** (3); **ibilera lasaiaz** (3); **ibilera mantsotu** (5); **ibilera mantsotzen** (3); **ibilera segurua** (6); **ibilera zuen** (3); **joxeren ibilera** (3); **neure ibilera** (3); **nire ibilera** (5); **odolaren ibilera** (3); **zaldiaren ibilera** (3); **zen ibilera** (3); **zientzia baten ibilera** (3); **zientziaren ibilera** (7); **zientziaren ibilera segurua** (3); **zuen bere ibilera** (3); **zuen ibilera** (8); **zure ibilera** (3)

**baten ibilerak** (3); **baten ibilerarekin** (3); **bere ibilerak** (6); **bere ibileran** (4); **ditu ibileran** (3); **eta ibilerak** (9); **gure ibilerak** (4); **haren ibilerak** (5); **hasieran hire ibilerak** (3); **hire ibilerak** (3); **hire ibilerak erakarri** (3); **ibilerak erakarri** (3); **ibilerak erakarri ninduela** (3); **ibilerak ere** (3); **ibilerak eta** (14); **ibilerak kontatzen** (4); **ibileran eta** (4); **pertsonaien ibilerak** (3)

---

# ibilerraz **1** *izond* bideez eta kidekoez mintzatuz, bertatik erraz ibiltzekoa.

Beste bide guztiak baino zabalagoa eta **ibilerrazagoa** da, eguzkitsua, gauez makina bat argiontzik argitua. Jose Morales

**2** eraikinez eta kidekoez mintzatuz, ibiltzeko eragozpenik ez duena.

2010erako **ibilerrazak** izango dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren eraikin gehienak. Berria - Euskal Herria

Lau motatako eraikinak daude egun: **ibilerrazak,** lege guztiak betetzen dituztenak, oztoporik gabeak, 1983ko legea bai baina 1997 eta 2000koa betetzen ez dituztenak, iragangarriak, irizpide guztiak betetzen ez dituztenak, eta ez iragangarriak, lege bakar bat ere betetzen ez dutenak. Berria - Euskal Herria

---

# ibilerraztasun *iz* ibiltzeko eragozpenik ez izatea.

Asteartean onartutako planaren arabera, administrazioek euren eraikinetara sartzeko **ibilerraztasuna** bermatu beharra daukate. Berria - Euskal Herria

**Ibilerraztasun** plana onartu du Gipuzkoako Diputazioak.

**Ibilerraztasun** Legeak agindutakoa betearazteko. Berria - Euskal Herria

---

# ibilgailu **1** *iz* lurrean, uretan edo airean higitzen den eta pertsonak edo gauzak garraiatzeko balio duen edozein tresna.

Bidaiariez gain, baina, 220 **ibilgailu** auto, kamioi eta autobus zeramatzan Al-Salam Boccaccio 98 ontziak. Berria - Mundua

4.000 kilo lehergai zituzten bi kamioi eta **ibilgailu** bat.

Zartaka ekiten zion **ibilgailuko** saihets metalikoari, eskua leihatilatik at inarrosiz. Aingeru Epaltza

**Ibilgailuen** gas isurketak. Berria - Euskal Herria

**Ibilgailuek** isurtzen duten oxido nitrosoa. Berria - Harian

**Ibilgailuaren** gidaria. Berria - Mundua

Begira-begira egon ziren biak, harako zuzi **ibiltari** haien hura zer izan ote zitekeen. Patxi Ezkiaga
Kaleko teilatuek nire gainean zeruan ebakitzen zuten ibai beltz izarrez beteari begira nengoen, egiazko ibai batek bezalaxe birarazten eta mugitzen baitzuen argizagien erreka **ibiltari** hark. Josu Zabaleta
Apar zurizko hodei **ibiltari,** sakon, arin bat ari zen jaisten inguruan, hotsik gabe. Josu Zabaleta

**3** (gauza abstraktuak)

Etxolatik hurbil, gurdi eskerga bat ikusi zuen, motxaile edo tsigane jende horren ohiko bizileku **ibiltaria**. Karlos Zabala
Israelen arbasoak [...] beren familiak hartu eta bizimodu **ibiltaria** zeramaten artzainak izan ziren, herririk eta etxerik gabeak. Jose Antonio Mujika
Badago bakardade **ibiltari** bat ere. Anton Garikano

**4** jarduerez minzatuz, egoitza finkorik gabe egiten dena

Mexikoko eta Brasilgo haurren %18k egінkizun ekonomikoren bat dute birziklatze-lanetan, salmenta **ibiltarian** edota etxeko lanetan. Koro Navarro
Zortzi film labur emango dituzte bihar Donostian, 15/15 Film Laburren Nazioarteko Jaialdi **Ibiltariaren** barruan. Berria - Kultura
Hasi, zirko **ibiltari** bateko emankizuna hasten den bezala hasi zen. Ander Irizar
Madril eta Salamanca [...] hirietan ikusgai izan ostean, iritsi da Gasteizera erakusketa **ibiltaria**. Berria - Kultura
*Kantuketan* **erakusketa** ibiltariak sekulako arrakasta du zazpi euskal herrietan. Herria
Italiako merkatu **ibiltari** tipiko horietako bat dago zentrora bidean. Anjel Lertxundi

**5** egiturez mintzatuz, jarduera ibiltari batean aritzeko erabiltzen dena.

Zenbait txerpolari beren postu **ibiltariak** antolatzen ari ziren. Karlos Zabala
Bulego **ibiltari** bat ibiliko da herriz herri, kaltetutako bezeroek kexak aurkeztu ahal izateko. Berria - Euskal Herria
GURE IRRATIAren **estudio** ibiltaria etorriko da Sarako plazara programa berezi baten hedatzeko tokitik beretik. Herria
Autoa diskoteka **ibiltari** bilakatu duten parrandero horietako batek. Pako Aristi
Aralarrek, garabi **ibiltari** bat baliatuz, ikurrina zintzilikatu zuen atzo Nafarroako Gobernuaren egoitza aurrean. Berria - Euskal Herria

**6** pertsonez mintzatuz, aritzeko leku finkorik gabe aritzen dena.

Komediante **ibiltariak,** Shakespeareren dramak jokatzen, ikusle ugarien gusturako egokitu ondoren. Karlos Zabala
Eskulangile **ibiltarien** mundu hartan egindako lagunak ote ziren etxean hartu zutenak? Iñaki Iñurrieta
Birbirraitonak artista **ibiltari** horien biktima izan ziren. Xabier Olarra
Dendari **ibiltari** gaskoi batek. Aingeru Epaltza
Pentsatu zuen ez zuela merezi saltzaile **ibiltari** laguna horrelako txikikeriagatik iraintzea. Bego Montorio
Hari-saltzaile **ibiltari** baten laguntzarekin. Pello Lizarralde
Ura saltzeko saltzaile **ibiltarien** gurditxoak. Jon Muñoz
-Aizu, zu oso morroi xelebrea zara ordezkari sindikal **ibiltaria** izateko. Lopez de Arana
La Barraca antzerki talde **ibiltariaren** zuzendaritzan ibili zen Ugarte. Berria - Kultura
Lehergailuak hiru lagunez osatutako komando **ibiltari** batek jarriak dira. Berria - Euskal Herria

**7** (adizlagun gisa)

Gauez **ibiltari** nenbilenetan, bilkuraz bilkura zehazkiago. Itxaro Borda
Mozoloak gauean zehar ihes dagi, orban beltz espazio beltzean **ibiltari**. Gustatzen zitzaion, bularralde hunkigarrian Wernerren ezpainak **ibiltari** nabaritzea. Josu Zabaleta

• **8** *iz* ibilian dabilen pertsona.

Niri autoak ez zaizkidak axola, ni oinezko **ibiltaria** nauk. Fernando Rey
Ibilera hori Euskal Herriko mendiak gogoan hartu eta **ibiltari** bati jarraituz burutuko dugu. Bernardo Atxaga
Santiagorainoko bidean **"ibiltari",** erraiten den bezala. Piarres Aintziart
Bizpahiru hitz egin ditut **ibiltari** batekin: alemana da eta, Suisan gaindi ibili ondoan Frantzia zeharkaturik, honaratua. Bi **ibiltari** motxiladun. Piarres Aintziart
Zaldun trebea eta **ibiltari** nekaezina. J.M. Olaizola "Txiliku"
Berrogeigarren etapari lotuak direla gaur erraiten didate Alemaniatik aspaldi abiatu **ibiltari** gazteek. Piarres Aintziart
1056an, Liège hiritik Santiagora erromes batzuek 36 egunez egin omen zuten bidea; horrek frogatzen baitu [...] Waloniarrak Alemanak bezain **ibiltari** onak zirela. Piarres Aintziart
Joanean, bada, zihoalarik, honela zioen gure **ibiltari** gartsuak bere baitan bakarrizketan: [..]. Patxi Ezkiaga
Europar askok imitatu dituzte ekialdeko txingar gaineko **ibiltariak,** minik hartu gabe. Irene Aldasoro
Baina izan zen garai bat [...] gezurrik esan ez nuena, soka gaineko **ibiltaria** saioaren erdian zorabiatuta bezala, eskua luzatu nuena. Ander Irizar
**Ibiltari** nekaezina da Lepic jauna. Itziar Otegi

**9** (kirolaria)

Denis Nizhegorodov **ibiltari** errusiarrak 50 kilometroko probaren marka berria hobetu zuen igandean. Berria - Kirola
**Ibiltari** errenteriarrak Atenasko Olinpiar Jokoetan izan nahi du, bere bigarren Olinpiar Jokoetan. Berria - Kirola
Jose Antonio Gonzalez, nire ordez Atenasera joan zen atleta, Maria Vasco **ibiltariaren** mutil-laguna da. Berria - Kirola

**10** (hitz elkartuetan)

Ene ohizko **ibiltari** egoerari plegatu nintzaion. Itxaro Borda

· Gau- **ibiltari** bakartia nintzen, zokoetan gustura egoten den horietakoa. Koro Navarro

Mota bateko eta besteko jendearekin topo egitera ohitua dagoen kale **ibiltariaren** lasaitasunaz. Karlos Zabala

### 11 *eskola ibiltari*

Gasteizen, esaterako, herri eskola **ibiltaria** egin zuten: hiriburutik ibilaldia egin zuten, hiria eta historia bertatik bertara ezagutzeko. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriko eskola **ibiltaria** abiatu zen atzo Orreagatik (Nafarroa), eta Pirinioak zeharkatuz, bihar Donibane Garazi izango dute helmuga. Berria - Euskal Herria

### 12 *lo-ibiltari*

Bat-batean esnatutako lo- **ibiltari** baten moduan hitz egingo nuen ziur asko. Ander Irizar

Baina banekien, lo- **ibiltariaren** ziurtasunarekin, gezurrezkoa zela. Ander Irizar

Lo- **ibiltari** baten antzean zebilen nora ezean jauregian, ezpata biluzia eskuan. Fernando Rey

### 12 *zaldun ibiltari*

Bai bere izen onaren handirako eta bai herriaren zerbitzurako, zaldun **ibiltari** egingo zela. Patxi Ezkiaga

Sekula ez dela borrokaizunik ikusi edo entzun, munduan zaldun **ibiltariren** batek egin izan duenik, Don Kijote Mantxakoak burutu zuena bezalakorik. Patxi Ezkiaga

Ez zuten ulertzen ahuntzainek, ezkutari eta zaldun **ibiltari** tarteko nahaste-borraste hura guztia. Patxi Ezkiaga

Eta bertan emango dio hasiera bere zaldun **ibiltari** zereginari. Patxi Ezkiaga

Holaxe joan ziren argudio-argudio zaldun **ibiltaria** eta ezkutari ibiltari txarra. Patxi Ezkiaga

### 13 *zalduneria ibiltari*

Hara bada, Santxo lagun, ez biezat damu izan niri gogozko zaidana, eta ez mundua berritu nahian hasi, ezta zalduneria **ibiltaria** bere errotik ateratzen ere. Patxi Ezkiaga

Zalduneria **ibiltariaren** bizilege latza. Patxi Ezkiaga

Zalduneria **Ibiltari** Ordenan sartzen direnek. Patxi Ezkiaga

Jauna, Mantxako Don Kijote egiazkoa zara zu inondik ere, zalduneria **ibiltariaren** artizar gidaria. Patxi Ezkiaga

Ahaztuta utzia zegoen zalduneria **ibiltaria** berpiztu duzun jaun berezi horri. Patxi Ezkiaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bi ibiltariak** (6); **bi ibiltariek** (6); **bizimodu ibiltaria** (3); **brigada ibiltaria** (4); **da ibiltaria** (3); **den ibiltaria** (3); **duen ibiltaria** (3); **dute bi ibiltariek** (3); **erakusketa ibiltari** (5); **erakusketa ibiltari bat** (3); **erakusketa ibiltaria** (14); **erakusketa ibiltariak** (3); **eskola ibiltaria** (11); **eskola ibiltariak** (4); **eskola ibiltarian** (4); **eta ibiltaria** (3); **ibiltari bat** (16); **ibiltari batek** (3); **ibiltari baten** (10); **ibiltari baten moduan** (4); **ibiltari bati** (4); **ibiltari errenteriarra** (3); **ibiltari errenteriarrak** (4); **ibiltari eta** (8); **ibiltaria eta** (4); **ibiltaria izan** (3); **ibiltariak ere** (4); **ibiltariak eta** (3); **lo ibiltari** (5); **lo ibiltari baten** (3); **munduan zaldun ibiltariak** (3); **pub ibiltaria** (17); **saltzaile ibiltari** (8); **the pub ibiltaria** (17); **zaldun ibiltari** (26); **zaldun ibiltaria** (5); **zaldun ibiltariak** (8); **zaldun ibiltariei** (4); **zaldun ibiltariek** (8); **zaldun ibiltarien** (9); **zaldun ibiltariren** (4); **zalduneria ibiltariaren** (5); **zalduneria ibiltariaren** (5); **zalduneria ibiltariari** (3)

---

## **ibiltoki** 1 *iz* ibiltzeko prestaturiko tokia.

Beroki bila kamarotera jaisterakoan, berriro igaro behar gainaldeko **ibiltokian** barrena. Joxe Austin Arrieta

**Ibiltoki** eta hiribideetan poliki paseatzen zuten. Xabier Olarra

**Ibiltoki** zabalago batera iritsi zen. Karlos Zabala

Taberna eta arraunketa taldeak nahasten ziren ibai ondoko **ibiltokian** barrena. Lutxo Egia

Goizeko ordu txikietan hiriburuan galtzaile sentimental eta gautxorientzat dauden **ibiltokietan** . Joxean Agirre

Ohatze handiaren eta metalezko paretaren arteko pasabide estua **ibiltoki** eginik, ate hertsiaren ondoraino desfilatu zen, ohe gainetik begiesten nuen bitartean. Aingeru Epaltza

Ortziko izarrak ere borrokatu ziren, beren **ibiltokietatik** borrokatu Siseraren aurka. Elizen arteko biblia

### 2 (presondegi batean)

Zeldan bakarrik, **ibiltokian** bakarrik, zeldatik ateratzen nintzelarik beste zelda guziak hetsiak ziren eta pasabideak hustuak. Filipe Bidart

Diziplina gutxieneko bat ezarriko dio bere buruari: **ibiltokiko** promenadetan huts ez egitea, ahal izanez gero, paseoak eta ariketa fisikoak uztartzea... Filipe Bidart

Ate aldetik isiltasuna, leihatila aldetik presoaren urratsak **ibiltokian** . Filipe Bidart

**Ibiltokirako** ateraldiak arratsalde hastapen-hastapenean metatzen zituzten. Filipe Bidart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ibiltokian sartu** (3)

---

## **ibiltokiratu**, ibiltokira(tu), ibiltokiratzen da *ad* ibiltokira joan.

Begiak ingurumenaz ase ondoan, erdi burtxoraturik, **ibiltokiratzen** naiz berritz eta hoztu gabe sobera -otsailean gira-, berritz lotzen naiz egungo ene ekimen nausiari, joan-jinka ibiltzeari. Filipe Bidart

---

## **ibiltzaile** *(orobat* ***ibiltzale****)* 1 *izond* ibiltzen dena.

Maddalen Erreka **ibiltzaile** ona zen, biltzaile hobea naski. Itxaro Borda

Gero **ibiltzale** guziak heldu dira plazarat. Herria

Bere baitaratua, lo- **ibiltzaile,** jan gabe, deus egin gabe... bere aitak ez zuen Ahmet inoiz libre utziko. Fernando Rey

*ik* ibiltari 10.

### 2 ibiltzen duena, erabiltzailea.

Auto **ibiltzale** guzier galde eginez emeki ibiltzea, argi gorria ere emanik zenbait egunez. Herria

Ariko bide dira lege eta erregelamenduen zorrozten, aireko guziek, Charter ala ez, segurtamen bertsua eskain diezoten **ibiltzaileari** . Herria

Dominique Cachenaut Oihanartekoa saristatua izan da berriki bandera **ibiltzaile** bezala 28 urtez lan hori eginik. Herria

---

## **ibiltze** 1 *iz* gorputzaren zatiren batek beti lurra ukitzen duela higitzea.

Multxo balios batekin emanak diren kurtsuak batetik, herri barnean eta kanpoan aldizkatuak diren ikasketa, **ibiltze** , pidaiak bestetik. Herria

Atsegin handia ematen zion kalez kale **ibiltze** horrek. Karlos Zabala

### 2 jardutea, aritzea.

Jolas-lagunik ez zitzaidan geratzen orduko, Itsasondon, eta jendartean bakarka **ibiltze** hori zein barregarria izan litekeen ohartzeko bezain heldua izango nintzen seguru asko. Xabier Mendiguren Elizegi

Hondarrean, urrun-hurbil **ibiltze** hori bere naturan da; garesti ordaindu izanagatik ere ez du bestela nahi. Jose Angel Irigaray

Kendu ez ezik, eman ere egin baitizkit gozatu eder askoak bertsolarien artean **ibiltze** horrek. Berria - Kultura

Bere barneko berri, bere zaintzaleen izaiteko manerak, bere zeldako bizi hertsia edo kanporateko **ibiltze** bakanak aipatzen dituelarik, iduritzen zaitzu hor berean zaudela. Herria

Gogorrena: beti arineketan eta presaka **ibiltze** itogarria. Xabier Montoia

Ez zuen ezagutzen nire alda-maldaka **ibiltze** oinazez bete hura. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ibiltze hori** (11)

---

# ibilzale *(orobat **ibilizale**)* *izond* aipatzen den eran ibiltzea atsegin duena.

Atzerazale, geldizale edo astiro **ibilzale** horietakoa zinela idatzi zenuen behin batean; neurriz, tamainaz, zuhur (xuhur?), zentzuz, kontuz, tentuz... zen zure eskola, eta delako amets hura egin zuenari ez egiten onik, nonbait, erretolika horiek. Iñaki Segurola

Aranok, ordea, zinez maite ditu arrastotik kanpo dabiltzanak, beharbada bera ere ez delako ohiko bidetik **ibilizalea**. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta holako jendajeak, nola edo hala, beste inork baino aisego egiten ditu harremanak alderrai samar **ibilizale** den beste jendaje orotariko horrekin. Patziku Perurena

Beti itsumustuan **ibilzale** baitzen, / otordua prestatu zuen, jan ondoren. Xabier Olarra

---

# ibis *iz* hegazti zangaluzea, mokoa mehea, luzea eta kakoduna duena*(Threskiornis aethiopica)*.

Hontza, **ibisa,** zisnea. Elizen arteko biblia

Gero, bat-batean modurik makurrenean paperak trukaturik, Bocaille jauna, farmazialaria, **ibis** endekatu bat baizik ez zela esaten zuen, zeren tresneria berezia behar izaten baitzuen [...] hegazti sakratu horrek, behar izanez gero, bere moko luzeaz bere kabuz eta erraz sartzen zuen erremedio berbera sartzeko. Josu Zabaleta

Nork eman dizkie jakinduria eta sena **ibis** hegaztiari eta oilarrari? Elizen arteko biblia

---

# ibitu, ibi, ibitzen **1** du *ad* indarra galdu.

Nik esperantza neukan, gure arteko solasaldi lasai eta gizabidetsu haren ostean, zure irrikak ere lasaitu eta gizabidezkotu egingo zirela, inoiz zure "nahi eroak" izendatzen zenituen haiek **ibitu** eta ematuko zenituela, zure irrikaren alferrikakotasunaz ohartuko zinela. Xabier Mendiguren Elizegi

Hor zegoen uneoro zure irrika, zure desira isil baina ozena, aurrerabiderik ematen ez nizunez **ibitua** baina ez amatatua. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** ibitik igaro.

Han nindoan errekari beherantz jarraiki, doi bat arroketan gaindi, doi bat -ahal zelarik- **ibituz,** ehiza zakur bat bezala, begiak lurrean josirik. Juan Garzia

---

# iceberg *(**16** agerraldi, **8** liburu eta **3** artikulutan; ETCn **312** agerraldi; orobat **izeberg** **8** agerraldi, **3** liburu eta **3** artikulutan, ETCn **155** agerraldi; eta **izeber** **7** agerraldi, **2** liburutan, ETCn **7** agerraldi)* *iz* izozmendia.

Hurrengo egunean ababorretik bi izotz tontor ikusiko dira itsaso ilun samarrean, lehenengo **iceberg** biak. Joseba Sarrionandia

Sateliteek bidalitako azken datuen arabera, Antartikako glaziarren abiadura azkartu da, 2002. urtean Larsen B izotz plaka hautsi eta **iceberg** bilakatu zenetik. Berria - Gaiak

Itsas txakurrek koipezko geruza baten babesa dutenez, beti daude bero, **iceberg** baten gainean eserita egonez gero ere.Antartikoko **izebergetan** ere mikrobioak aurkitu dituzte ikertzaileek. Lopez de Arana

**Icebergen** artean ibili gira, Upsala, Spegazzini eta Perito Moreno izotz mendien bazterrez bazter. Herria

Azpiak jandako **izeberra**. Xabier Mendiguren Elizegi

“Hau **izebergaren** punta besterik ez da”, esan zuen Erresuma Batuko zientzialariak. Berria - Gaiak

Nire kasuan, **izebergaren** punta pisu berriko paperak egiten hasi nintzenean ikusi nuen. Jon Alonso

Whisky koloreko itsasoan **izeberg** pusketa nanoak zirudien izotz zatiek. Jasone Osoro

Titanic aipatzen da, baina zenbat eta zenbat naufragio izengabe, hitzen **icebergetan** erpina baizik ez ikustearren. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta iceberg** (3)

---

# idaroki ik **iradoki**.

---

# idatzaldi *iz* testu bat idazten den aldietako bakoitza.

Petrarcak ez zituen mespretxatzen italierazko poesia hauek: aitzitik, oso maite zituen, eta hauxe da honen frogarik hoberena gaurko filologoek bildumaren bederatzi **idatzaldi** oso bereizi ahal izan dituzte orain arte. Berria - Kultura

Gutun honen kronologiari buruz, hau bakarrik esan daiteke: lehen **idatzaldia** bigarrena baino lehenagokoa dela. Askoren artean

Kode Zibilaren **idatzaldiak**. Andres Urrutia

Gombrichek, bere liburuan (1956koa da lehen **idatzaldia),** posizio konstruktibista hartzen du ikusmenezko pertzepzioaren aurrean. Josu Zabaleta

---

# idatzarazi, idatzaraz, idatzarazten du *ad* idaztera behartu.

Alter Vishkowerrek behin-behineko kontratu bat **idatzarazi** zuen ezkon hitzarmenerako, Ansheli dote handiagoa, opari gehiago, eta Avigdorri eskaini ziona baino mantenualdi luzeagoa aginduz. Koro Navarro

Idazten ere ozta-ozta daki, baina bazuen alabari **idatzaraztea,** edo mutikoari, premian zeudela esateko! Josu Zabaleta

Eta Henne herriko maisuarengana joan zen eta gutun bat **idatzarazi** zion, alabak gaitzesten zituela esanez. Koro Navarro

Gero, bertze karta bat **idatzarazi,** zigilatu eta sinatu baizik ez zuen egin beharko, ondasun horiek Migelen esku jartzeko. Aingeru Epaltza

Frantziskok Piratroko anai Benitori diktatu eta **idatzarazi** zion Sienako Testamentu hau. Askoren artean

Hau **idatzarazi** zuen behin arau orokor bezala:[...]. Askoren artean

Eta egundaino damu naun ez zitzaidalako bururatu den-dena **idatzaraztea:** Pike Agurgarriak esandakotik nik aditutako guztia. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bat idatzarazi** (4); **idatzarazi nuen** (3); **idatzarazi zion** (4); **idatzarazi zuen** (13)

## idatzeder *iz* ik **idatzedergintza**.

Dena den, Anaia Jean François eta Anaia Louis beti prest daude nork edo nork, jende, herriko-etxe, parropia, elkarte... nahi balin badu tapizeria berezi bat edo **idatzeder** urrestatu bat eginarazi. Herria

---

## idatzedergintza *iz* ik **idatzeder**.

Obra horietarik andana bat, bai tapizagintzan, bai **idatzedergintzan**, ikusten ahal da Belokeko fraileltxearen sartzean muntatua den erakusketan. Herria

Azken urte hautan, bertze sail batek du haatik Belokeren omena haunditzen: mintzo gira tapizaginzaz eta **idatzedergintzaz**. Herria

---

## idatzi,idatz, idazten *(15.715 esaldi, 281 liburu eta 2.475 artikulutan)* **1** du *ad* zerbait ikurren bidez paperean edo kideko gairen batean irudikatu; bereziki, hitzak letren bidez irudikatu. ik **izkiriatu**.

**Idatziko** al didazu? Mirentxu Larrañaga

Legean, hain zuzen, honela dago **idatzirik:** [...]. Elizen arteko biblia

Etxeratu orduko, Fermati **idatzi** zion Pascalek *Jokaldien problema* proposatzeko. Jon Muñoz

Baina hor **idatzia** irakurriko dizut eta esanahia azalduko. Elizen arteko biblia

Austria eta Alemanian ere ospetsua zen, ametsei buruz **idatzitako** tesiagatik. Felipe Juaristi

Han **idatzita** zegoen telefono-zenbakia irakurtzeko. Jon Muñoz

Amodioaz **idatzi** nahi zenuke. Lourdes Oñederra

1494an **idatzitako** liburua! Jon Muñoz

Honako hau jende helduarentzat **idatzi** nuen. Patxi Zubizarreta

William Faulkner-ek zinemarako **idatzitako** istorioan oinarritua. Jon Muñoz

"Ostatua" hitza irakurri nuen, esku ez oso trebe batek **idatzita**. Alberto Ladron Arana

Maite dut harean idatzi eta gero itsasoak **idatzitakoa** ezabatzea. Jose Angel Irigaray

Berak sekula **idatzi** gabeko liburuak. Bernardo Atxaga

*ik* idatzigabe.

Ez da falta izan, haatik, gizaki txit bikainik […] bizitzeko modu zuzenaz gauza miresgarri asko **idatzi** duenik. Piarres Xarriton

Bestela irudi badezake ere, gutxi **idatzi** dugu euskaldunok 36ko gerrari buruz, oraintsu arte bederen. Xabier Mendiguren Elizegi

Hala utzi zuen **idatzia** Einsteinek: "Tontoen nagusitasuna saihestu ezina da, eta segurtatua dago garai guztietarako". Iñaki Segurola

-Hitz horiek ere zuk **idatziak** dira? -galdetu dit Aiorak. Xabier Mendiguren Elizegi

Benetan **idatzi** nahi duena musika da. Oskar Arana

· Parez pare geneukan Roth, eta nik ez nion begirik kentzen, oso intrigatuta nindukan-eta haren **idatzi**-behar sukartsuak. Anjel Lertxundi

Alde hark arrazoitzen zuen nire **idatzi** nahia, baina haien ondoan bizi izan nuen bakardadearen amildegian ezartzen ninduen berriro. Joxan Elosegi

Hitzok **idatzi** hutsarekin kopeta argitzen zait. Jesus Mari Mendizabal

**2** (zer adieraziz)

Hobe nuen nobela bat **idatzi** Rollebon markesari buruz. Monika Etxebarria

Ipuin gogoangarri bat **idatzi** zuen zikoinari buruz. Patxi Zubizarreta

Cabo Jubyko garaiaz **idatzitako** kontaketa batzuk. Patxi Zubizarreta

Poema bat **idatzi** nahi nizun horretaz, baina ez naiz gauza izan. Juan Kruz Igerabide

Gutun bat **idatzi** dio idazleari, lanei buruz. Jose Angel Irigaray

Eskutitz horiek nik **idatzi** nituen. Ander Irizar

Ez zen ausartzen deklaratzera; maitasun-gutunak **idatzi,** eta ez zituen bidaltzen. Juan Garzia

Ohartxo bat **idatziko** diot, egoera azalduz. Iñaki Mendiguren

Emakumeaz gogaiturik, dibortzio-agiria **idatzi,** emakumeari eman eta etxetik bidaltzen badu. Elizen arteko biblia

Sei orrialde **idatzi** ditut, nolabaiteko atseginaz. Monika Etxebarria

Hogeita hamar esaera **idatzi** ditut zuretzat, irakaspen eta aholkuak dituztenak. Elizen arteko biblia

Hipokrates Kiosekoak matematikaren historiako lehenengo *Elementuak* **idatzi** zituen. Jon Muñoz

Davidek berak **idatzitako** hileta-otoiaren hasiera zen. Bernardo Atxaga

Ez, gau hartan [...] ez zituzten grafiti lizun eta erasokorrak **idatziko**. Patxi Zubizarreta

Gero, **idatzi** egin zuen ametsa. Elizen arteko biblia

Azken zuzenketak egin, ohiko klabea **idatzi** eta behar baino indar handiagoaz zanpatu nuen itzulera-tekla. Aingeru Epaltza

Historia ezin da berriz **idatzi**. Jon Muñoz

Dataren azpian "deus berririk ez" **idatzi** dudanean harrak barrenak jaten zizkidan. Monika Etxebarria

"Ez noa argirantz, iluntasunak bultzatzen nau", **idatzi** zuen pintore aleman batek. Bernardo Atxaga

**Idatzi** zenizkidaten galderei erantzunez, hau diotsuet: ongi dago ez ezkontzea; [...]. Elizen arteko biblia

**3** (non adieraziz)

Eta, brontzezko oholetan **idatzirik,** gutuna igorri zuten Jerusalemera. Elizen arteko biblia

Jaunak ituna iragarri zizuen, bete behar zenituzten hamar aginduak, eta bi harlosatan **idatzi** zituen. Elizen arteko biblia

Maite dut harean **idatzi** eta gero itsasoak idatzitakoa ezabatzea. Jose Angel Irigaray

Izen bat darama bere jantzian eta bere izterrean **idatzia:** "erregeen Errege eta jaunen Jaun". Elizen arteko biblia

Galeoiaren brankako saihetsean **idatzirik** zegoena ikusi zuen, *Ainhoa*. Felipe Juaristi

Liburu honetan **idatzirik** dauden xedapen guztiak. Elizen arteko biblia

Paper batean **idatzitako** zenbaki batzuk besterik ez. Sonia Gonzalez

Izena eta ordua kaiertxo batean **idatzi** zituen lehendabizi. Hasier Etxeberria

Egunkariaren titulu nagusiaren alboan **idatzia** zegoen mezuari erreparatu zion. Patxi Zubizarreta

Tobiasek idatzi egiten du, idazlumarik eta arkatzik gabe, buruan **idazten** du dena. Eskarne Mujika

**4** (modua adieraziz)

Anaia leialtzat daukadan Silbanoren eskuz **idatzi** dizuet gutun labur hau. Elizen arteko biblia

Berak eskuz **idatzitako** testu bat. Jon Muñoz

Xabiren eskutitz bat zen, lumaz **idatzia**. Iban Zaldua

Letra lodiz **idatzi** zuen orri batean emaitza. Jon Muñoz

Lerro gutxi batzuk ziren, letra luze-dotorez **idatziak**. Iban Zaldua

Zirilikoz **idatzitako** hitz batzuekin. Iban Zaldua

Hantxe aurkitu nuen hitza, letra beltzez **idatzita:** Mitxirrika. Bernardo Atxaga

Pintzelik finenetako batez, kaligrafiarik loretsuen eta katramilatsuenez **idatzi** zuen dekretua. Felipe Juaristi

Ekuazio guztiak hitzez hitz **idatziak** dira, esaldien bidez. Jon Muñoz

Beren lana arabieraz **idatzi** zuten matematikariak. Jon Muñoz

Mezu kriptikoren bat bidaliko ote zidan, morsez **idatzia**? Joan Mari Irigoien

Tinta ikusezinez **idatzitako** eskutitzen bat, agian? Iñaki Mendiguren

Txartel moduko bat atera zuen azaletik, makinaz **idatzita** zegoena. Bernardo Atxaga

Kontratu serioa zen, esamolde juridikoz betea, testamentu edo ezkontza-kontratuetarako erabiltzen den hizkera tekniko eta hanpatuaz **idatzia**. Ander Irizar

Eta hori... euskara bikainaz, estilo indartsuaz **idatzita**. Jenaro Garate

Bero-beroan **idatzitako** testamentua... Jon Muñoz

Etsi-etsian **idatzitako** eskutitza da. Ander Irizar

## 5 (era burutua izenondo gisa)

Paper-mutur **idatzi** bat eta giltza bat ikusi nituen mahai gainean. Anjel Lertxundi

Gauza bat dela arau **idatzia** eta bestelakoa botere faktikoa. Markos Zapiain

Lege zibilaren zatiketa: **idatzia** eta idatzi gabea. Esteban Antxustegi

Badirudi, lekukotasun **idatziei** eta gaiaz arduratu direnen hitzei kasu egitera, nahiko arrunta dela. Jon Alonso

Zuzendaritzak dituen asmoen berri **idatzia** ez duela eman salatu du lan batzordeak. Berria - Ekonomia

Ezinezko dut judu batekin harreman **idatziak** edukitzea. Ramon Etxezarreta

Lege naturalak ez dira lege **idatziak**. Esteban Antxustegi

Beraz, ez da idazkera baizik hitza lege **idatziari** ezinbesteko zaiona. Esteban Antxustegi

Kissoff jeneralak ez zion agindu **idatzirik** eman. Karlos Zabala

Horregatik izan ote da beti hizkuntza **idatzia** elizgizonen pribilegioa, [...]? Karlos Zabala

## 6 (era burutua izen gisa) ik **idazki**.

Elias profetak **idatzi** hau bidali zion: [...]. Elizen arteko biblia

Salomonen **idatzietan** agindua dagoenez. Elizen arteko biblia

Egiptoko antzinako **idatzietan** kontatzen da diamante leundu gabea dugula gizakiok barruan. Juan Kruz Igerabide

Dostoievskiren bizitzan eta **idatzietan**. Xabier Olarra

Nire papera hartu zuen, baina begiak **idatzian** pausatu beharrean haren eskuin eskuak atxikitzen zuen bolaluma zirriborroak egiten hasi zen nik txukun lerrokatutako hitzen gainean. Aingeru Epaltza

Hala eta guztiz ere **idatziari** tonu objektibo bat eman nahi zion. Iban Zaldua

-Nola doaz zure **idatziak**? Harkaitz Cano

Eskolako hormetan, **idatziak** agertu ziren: "Julio, kabroia; prest daukak paredoia". Juan Kruz Igerabide

**Idatzi** sainduak irakurri behar zituen Josefina, hinki-tinki igo zen aldarera. Itxaro Borda

## 7 ***idatziz*** *adlag*

Kontakizunak ahoz aho eta **idatziz** hedatu ziren, aldaera askorekin. Juan Kruz Igerabide

Guztia zenbatu eta pisatu ondoren, **idatziz** jasoa gelditu zen. Elizen arteko biblia

Egoki baderitzo, eman beza **idatziz** erregeak halako horiek suntsiarazteko agindua. Elizen arteko biblia

**Idatziz** azalduko dizut guztia bihar. Mirentxu Larrañaga

Horregatik erabaki dut hona **idatziz** aldatzea. Matías Múgica

## 8 ***idatzizko*** *izlag*

Haren idazketa, edo **idatzizko** aldarrikaldia, profeta deabru-suhar batena zen bete-betean. Juan Garzia

Hitz batean: ez zuen xahutu ele bat bera ere, ez ahozkorik ez **idatzizkorik,** biatiko gisa balia zekigukeenik. Juan Garzia

Arratsaldero egunean-eguneango berri-emate **idatzizko** bat egin behar zen. Juan Garzia

Zer motatako ekintza (ahozkoa edo **idatzizkoa)** burutzen den eurak eratzeko. Xabier Arregi

## 9 ***idatz-arau*** *(orobat **idatzarau**)* idazteko araua.

**Idatz-arau** zein askatasunerako, ez da hauen parekorik. Juan Garzia

Esaldiak edozein puntutan mozten zituen, **idaztarauak** errespetatu gabe. Joxemari Urteaga

## 10 ***idatzi eta idatzi***

Ondokoak bitartean **idatzi** eta **idatzi** ari dira, arnasarik hartu gabe. Jokin Muñoz

Bi ordutik gora zeramatek **idatzi** eta **idatzi**. Jokin Muñoz

## 11 ***idazteko makina*** ik **idazmakina**.

**Idazteko makinak** eta kalkulatzeko makinak bulego nagusiko kaxa beltzean gordeta. Josu Zabaleta

**Idazteko makinaren** laguntzaz idatzitako bakarra. Antton Olano

**Idazteko makinaren** tekla-hotsa eteten den bakoitzean. Rafa Egiguren

Ez dirudi lanerako gela denik, ez dago **idazteko makinarik,** ez paperik, ez telefonorik. Agurtzane Juanena

**Idazteko makinaren** teklatua ez da enuntziatu bat. Xabier Arregi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**agiria idatzi** (9); **aldiz idatzi** (9); **arte idatzi** (8); **artean idatzi** (11); **artikulu bat idatzi** (11); **artikuluak idatzi** (8); **asko idatzi** (45); **baina idatzi** (14); **bana idatzi** (12); **bat ere idatzi** (13); **bat idatzi** (287); **bat idatzi behar** (14); **bat idatzi du** (15); **bat idatzi eta** (14); **bat idatzi nion** (10); **bat idatzi nuen** (16); **bat idatzi zion** (17); **bat idatzi zuen** (66); **bat idatzi zuten** (8); **batean idatzi** (45); **batean idatzi zuen** (14); **batek idatzi** (20); **batzuk idatzi** (25); **batzuk idatzi zituen** (10); **behin idatzi** (8); **berak idatzi** (62); **berak idatzi du** (9); **berak idatzi zuen** (12); **bertan idatzi** (12); **besterik idatzi** (9); **bezala idatzi** (15); **bitartean idatzi** (9); **buruz idatzi** (94); **buruz idatzi du** (11); **buruz idatzi zuen** (12); **da idatzi** (16); **dela idatzi** (19); **dela idatzi zuen** (8); **dena idatzi** (8); **dira idatzi** (9); **du idatzi** (15); **dut idatzi** (13)

**edo idatzi** (19); **egunkarian idatzi** (8); **ek idatzi** (15); **eleberria idatzi** (9); **ere idatzi** (125); **ere idatzi du** (14); **ere idatzi zituen** (17); **ere idatzi zuen** (16); **esan eta idatzi** (17); **eskutitz bat idatzi** (12); **eskuz idatzi** (8); **eta hau idatzi** (8); **eta idatzi** (165); **eta idatzi behar** (9); **eta idatzi ere** (13); **eta idatzi zuen** (14); **euskaraz idatzi** (35); **ez idatzi** (20); **ezer idatzi** (22); **ezer idatzi gabe** (9); **frantsesez idatzi** (12); **gabe idatzi** (17); **gainean idatzi** (9); **gaztelaniaz idatzi** (13); **gehiago idatzi** (19); **gero idatzi** (11); **gutun bat idatzi** (54); **gutuna idatzi** (31); **gutunak idatzi** (11); **gutxi idatzi** (14); **guztia idatzi** (8); **haiek idatzi** (9); **hainbat liburu idatzi** (8); **hala idatzi** (11); **hark idatzi** (10); **hartan idatzi** (9); **hau idatzi** (92); **hau idatzi zion** (8); **hau idatzi zuen** (36); **hauek idatzi** (25); **hauxe idatzi** (42); **hauxe idatzi zuen** (30); **historia idatzi** (14); **hitza idatzi** (8); **hona zer idatzi** (8); **honako hau idatzi** (24); **honela idatzi** (43); **honela idatzi du** (8); **honela idatzi zuen** (20); **hori idatzi** (38); **horiek idatzi** (20); **horregatik idatzi** (14); **horrela idatzi** (13); **horretan idatzi** (10); **hura idatzi** (11)

**idatzi ahal** (28); **idatzi ahal izan** (8); **idatzi ahala** (14); **idatzi al** (16); **idatzi al duzu** (8); **idatzi arren** (8); **idatzi baino** (14); **idatzi baitzuen** (27); **idatzi bat** (58); **idatzi batean** (20); **idatzi baten** (11); **idatzi behar** (174); **idatzi behar da** (11); **idatzi behar dute** (8); **idatzi beharko** (49); **idatzi beharra** (14); **idatzi beharreko** (9); **idatzi berri** (24); **idatzi berria** (8); **idatzi bezala** (14); **idatzi da** (22); **idatzi den** (31); **idatzi dio** (24); **idatzi diot** (15); **idatzi dira** (17); **idatzi diren** (21); **idatzi dit** (14); **idatzi ditu** (97); **idatzi ditudan** (14); **idatzi dituen** (34); **idatzi dituenak** (8); **idatzi ditut** (30); **idatzi dituzte** (20); **idatzi du** (321); **idatzi du eta** (14); **idatzi dudan** (32); **idatzi duela** (9); **idatzi duen** (94); **idatzi duena** (17); **idatzi duenez** (14); **idatzi dugu** (16); **idatzi dut** (89); **idatzi dute** (42); **idatzi duten** (20); **idatzi duzu** (27); **idatzi edo** (18); **idatzi egin** (48); **idatzi egin behar** (12); **idatzi egingo** (8); **idatzi egiten** (38); **idatzi egiten dut** (12); **idatzi ere** (43)

**idatzi eta** (284); **idatzi eta argitaratu** (12); **idatzi eta gero** (21); **idatzi eta idatzi** (19); **idatzi eta zuzendu** (9); **idatzi ez** (45); **idatzi gabe** (38); **idatzi gabeko** (26); **idatzi genuen** (13); **idatzi hau** (8); **idatzi horiek** (8); **idatzi horren** (9); **idatzi horretan** (17); **idatzi izan** (61); **idatzi izan du** (8); **idatzi izana** (19); **idatzi nahi** (78); **idatzi nion** (27); **idatzi nituen** (38); **idatzi nuen** (159); **idatzi nuenean** (17); **idatzi ohi** (19); **idatzi omen** (16); **idatzi omen zuen** (12); **idatzi ondoren** (21); **idatzi ote** (13); **idatzi zen** (25); **idatzi**

**zenuen** (21); **idatzi zian** (8); **idatzi zidan** (26); **idatzi zien** (25); **idatzi zigun** (10); **idatzi zion** (111); **idatzi zioten** (16); **idatzi ziren** (9); **idatzi zituela** (9); **idatzi zituen** (304); **idatzi zituen bere** (12); **idatzi zituena** (8); **idatzi zituenak** (9); **idatzi zituenean** (10); **idatzi zituzten** (24); **idatzi zizkion** (15); **idatzi zuela** (48); **idatzi zuelako** (9); **idatzi zuen** (1059); **idatzi zuen behin** (9); **idatzi zuen bere** (32); **idatzi zuen bezala** (21); **idatzi zuen eta** (10); **idatzi zuen lehen** (9); **idatzi zuena** (54); **idatzi zuenaren** (10); **idatzi zuenean** (24); **idatzi zuenez** (22); **idatzi zuten** (76)

**inguruan idatzi** (17); **inoiz idatzi** (14); **ipuinak idatzi** (8); **izena idatzi** (10); **lan idatzi** (10); **lan idatzi zituen** (8); **lanak idatzi** (8); **lehenago idatzi** (8); **liburu bat idatzi** (38); **liburu idatzi** (36); **liburu idatzi ditu** (12); **liburua idatzi** (66); **liburua idatzi du** (12); **liburua idatzi zuen** (19); **liburuak idatzi** (12); **liburuan idatzi** (13); **moduan idatzi** (9); **n idatzi** (8); **nik idatzi** (18); **nola idatzi** (33); **nola idatzi behar** (10); **nork idatzi** (16); **nuen idatzi** (10); **obra idatzi** (11); **poesia idatzi** (9); **sekula idatzi** (11); **txostena idatzi** (14); **ugari idatzi** (18); **urte idatzi** (12); **urterekin idatzi** (8); **zela idatzi** (15); **zenbakia idatzi** (8); **zer idatzi** (62); **zer idatzi zuen** (20); **zera idatzi** (12); **zerbait idatzi** (34); **zerbait idatzi zuen** (13); **zergatik idatzi** (16); **zertarako idatzi** (10); **zituela idatzi** (9); **zuela idatzi** (11); **zuen idatzi** (14); **zuk idatzi** (11)

**bat idatzia** (17); **batean idatzia** (12); **batek idatzia** (22); **dago idatzia** (25); **du idatzia** (10); **erdaraz idatzia** (8); **eskuz idatzia** (11); **eta idatzia** (19); **euskaraz idatzia** (21); **frantsesez idatzia** (11); **idatzia aurkeztu** (11); **idatzia baita** (8); **idatzia da** (76); **idatzia dago** (20); **idatzia dagoen** (13); **idatzia dela** (18); **idatzia den** (24); **idatzia du** (25); **idatzia duen** (9); **idatzia dut** (10); **idatzia ere** (8); **idatzia eta** (41); **idatzia ez** (13); **idatzia izan** (31); **idatzia zegoen** (22); **idatzia zen** (27); **idatzia zuen** (60); **lehenago idatzia** (9); **leloa idatzia** (15); **leloa idatzia zuen** (13); **liburuan idatzia** (11); **prentsa idatzia** (11); **zegoen idatzia** (15); **zuen idatzia** (14)

**batek idatziak** (8); **berak idatziak** (12); **daude idatziak** (55); **dio idatziak** (19); **ditu idatziak** (8); **du idatziak** (9); **eskuz idatziak** (8); **eta idatziak** (10); **idatziak dio** (12); **idatziak dira** (42); **idatziak direla** (8); **idatziak eta** (26); **idatziak ez** (9); **idatziak izan** (18); **idatziak zeuden** (12); **idatziak ziren** (14); **idatziak zituen** (10); **liburuan daude idatziak** (44); **prentsa idatziak** (12)

**bat idatziko** (46); **bat idatziko dut** (8); **bere idatzietan** (11); **ere idatziko** (10); **historia idatziko** (8); **idatzian ere** (8); **idatziaren arabera** (20); **idatziko banu** (10); **idatziko diot** (8); **idatziko dizut** (14); **idatziko du** (45); **idatziko duen** (9); **idatziko duena** (8); **idatziko dugu** (18); **idatziko dut** (35); **idatziko dute** (10); **idatziko duzu** (9); **idatziko nuke** (13); **idatziko zuen** (26); **literatura idatzian** (8); **poetika idatziaren** (8); **prentsa idatzian** (11); **prentsa idatziari** (8); **zer idatziko** (10)

**arabieraz idatzitako** (8); **aspaldi idatzitako** (10); **aurretik idatzitako** (10); **batean idatzita** (11); **batean idatzitako** (11); **batek idatzitako** (22); **berak idatzitako** (49); **buruz idatzitako** (32); **buruz idatzitakoak** (9); **dago idatzirik** (8); **dago idatzita** (18); **dena idatzita** (8); **emakumezkoek idatzitako** (9); **eskuz idatzita** (17); **eskuz idatzitako** (44); **eta idatzita** (10); **euskaraz idatzita** (9); **euskaraz idatzitako** (33); **frantsesez idatzitako** (14); **gainean idatzitako** (14); **gaztelaniaz idatzitako** (9); **hark idatzitako** (16); **idatzirik dago** (12); **idatzirik dagoena** (10); **idatzirik utzi** (19); **idatziriko gutun** (8); **idatzita dago** (35); **idatzita dagoen** (20); **idatzita dagoena** (12); **idatzita daude** (20); **idatzita dauden** (13); **idatzita egon** (9); **idatzita eta** (8); **idatzita utzi** (37); **idatzita utzi zuen** (11); **idatzita zegoela** (10); **idatzita zegoelako** (8); **idatzita zegoen** (29); **idatzita zegoena** (10); **idatzita zeuden** (15); **idatzita zeukan** (11); **idatzita zuen** (12); **idatzitako artikulu** (10); **idatzitako artikuluak** (9); **idatzitako azken** (8); **idatzitako beste** (9); **idatzitako bi** (8); **idatzitako eskutitz** (8); **idatzitako eta** (11); **idatzitako gutun** (29); **idatzitako gutuna** (12); **idatzitako gutunak** (19); **idatzitako guztia** (9); **idatzitako hainbat** (11); **idatzitako hitz** (13); **idatzitako hitzak** (17); **idatzitako ipuin** (14); **idatzitako ipuina** (8); **idatzitako lanak** (8); **idatzitako lehen** (9); **idatzitako lerro** (12); **idatzitako liburu** (23); **idatzitako liburua** (18); **idatzitako nobela** (9); **idatzitako obra** (8); **idatzitako ohar** (9); **idatzitako oharrak** (13); **idatzitako olerki** (8); **idatzitako orri** (10); **idatzitako poema** (30); **idatzitako poemak** (8); **idatzitako testu** (18); **idatzitako testu bat** (8); **idatzitako testua** (8); **idatzitako testuak** (18); **idatzitako zenbait** (11); **idatzitakoa da** (16); **idatzitakoa irakurri** (8); **lehenago idatzitako** (12); **leloa idatzita** (12); **leloa idatzita zuen** (8); **nik idatzitako** (17); **omenez idatzitako** (8); **urte idatzitako** (8); **zegoen idatzita** (25); **zeuden idatzita** (9)

**ahoz eta idatziz** (8); **ahozko eta idatzizko** (18); **edo idatziz** (10); **eta idatziz** (34); **eta idatzizko** (28); **idatziz eman** (15); **idatziz eta** (8); **idatziz jarri** (17); **idatziz jaso** (9); **idatzizko zereginetan** (9); **nahiz idatziz** (10)

**bat idaztea** (53); **bat idaztea erabaki** (9); **bat idazteari** (12); **bat idazteko** (87); **berria idazteko** (9); **buruz idazteko** (12); **da idaztea** (9); **da idazteko** (12); **eta idaztea** (18); **eta idazteari** (11); **eta idazteko** (56); **euskaraz idaztea** (20); **euskaraz idazteko** (14); **ez idaztea** (16); **ez idazteko** (18); **gabe idaztea** (11); **hau idaztean** (8); **hau idazteko** (67); **hau idazteko garaian** (43); **hauek idaztean** (8); **hauek idazteko** (45); **hauek idazteko garaian** (8); **hauek idazteko unean** (25); **hauk idaztean** (13); **idaztea baino** (10); **idaztea da** (16); **idaztea edo** (9); **idaztea erabaki** (28); **idaztea erabaki zen** (13); **idaztea ere** (15); **idaztea eta** (22); **idaztea ez** (15); **idazteak ez** (8); **idazteari ekin** (45); **idazteari ekin nion** (8); **idazteari ekin zion** (16); **idazteari ekiten** (8); **idazteari utzi** (26); **idazteaz gain** (18); **idazteko agindu** (9); **idazteko asmoa** (20); **idazteko aukera** (11); **idazteko beste** (9); **idazteko denbora** (9); **idazteko era** (8); **idazteko eskatu** (17); **idazteko eta** (34); **idazteko gai** (19); **idazteko garaian** (53); **idazteko gauza** (14); **idazteko gogoa** (18); **idazteko makina** (11); **idazteko makinak** (8); **idazteko modu** (9); **idazteko modua** (13); **idazteko ohitura** (9); **idazteko orduan** (38); **idazteko unean** (27); **lerro hauek idazteko** (41); **lerro hauk idaztean** (13); **liburu bat idaztea** (9); **liburu bat idazteko** (16); **liburua idaztea** (9); **liburua idaztean** (9); **liburua idazteko** (31); **lotuta idaztea** (10); **nire idazteko** (8); **nobela idazteko** (9); **zerbait idazteko** (10); **zuen idazteko** (9)

**ari da idazten** (9); **ari naiz idazten** (14); **artikuluak idazten** (11); **baina idazten** (12); **bat idazten** (119); **bat idazten ari** (19); **bat idazten hasi** (13); **batean idazten** (26); **bera idazten** (9); **berak idazten** (11); **bezala idazten** (22); **buruz idazten** (24); **da idazten** (23); **dela idazten** (9); **du idazten** (13); **dut idazten** (16); **edo idazten** (17); **elkarri idazten** (9); **ere idazten** (19); **eta idazten** (135); **eta idazten hasi** (13); **euskaraz idazten** (54); **ez dut idazten** (11); **ez idazten** (8); **ezer idazten** (9); **frantsesez idazten** (9); **gabe idazten** (9); **gutunak idazten** (35); **hasi zen idazten** (12); **hau idazten** (61); **hau idazten ari** (22); **hauek idazten** (21); **honela idazten** (14); **horrela idazten** (9)

**idazten ari** (301); **idazten ari da** (19); **idazten ari den** (25); **idazten ari naiz** (15); **idazten ari naizela** (9); **idazten ari naizen** (40); **idazten ari nintzela** (9); **idazten ari nintzen** (11); **idazten ari zela** (13); **idazten ari zen** (52); **idazten aritu** (8); **idazten da** (30); **idazten den** (29); **idazten dio** (11); **idazten dira** (14); **idazten diren** (14); **idazten ditu** (27); **idazten ditudan** (11); **idazten dituen** (13); **idazten ditut** (12); **idazten dituzte** (10); **idazten dizuet** (12); **idazten dizut** (18); **idazten du** (144); **idazten dudala** (10); **idazten dudan** (40); **idazten dudana** (8); **idazten dudanean** (16); **idazten duela** (10); **idazten duen** (71); **idazten duena** (14); **idazten duenean** (15); **idazten dugu** (9); **idazten dugun** (13); **idazten dut** (94); **idazten dute** (34); **idazten dutela** (8); **idazten duten** (22); **idazten dutenak** (8); **idazten duzu** (35); **idazten edo** (10); **idazten eman** (10); **idazten ere** (15); **idazten eta** (63); **idazten eta irakurtzen** (20); **idazten ez** (43); **idazten hasi** (166); **idazten hasi aurretik** (11); **idazten hasi nintzen** (25); **idazten hasi zen** (44); **idazten hasiko** (10); **idazten hastea** (9); **idazten hasteko** (21); **idazten hasten** (27); **idazten ikasi** (9); **idazten jardun** (10); **idazten jarraitu** (22); **idazten jarraitu zuen** (8); **idazten jarraitzen** (19); **idazten nituen** (15); **idazten nuen** (27); **idazten omen** (9); **idazten zen** (19); **idazten zion** (14); **idazten zituela** (9); **idazten zituen** (74); **idazten zituzten** (19); **idazten zizkion** (8); **idazten zuela** (13); **idazten zuen** (106); **idazten zuten** (22)

**ipuinak idazten** (14); **irakurtzen eta idazten** (37); **lerro hauek idazten** (12); **liburu bat idazten** (12); **liburu hau idazten** (12); **liburua idazten** (16); **naiz idazten** (22); **nobela bat idazten** (10); **nobela idazten** (8); **nola idazten** (19); **ondo idazten** (15); **orain idazten** (9); **poemak idazten** (26); **poesia idazten** (16); **zen idazten** (24); **zer idazten** (27); **zerbait idazten** (11); **zergatik idazten** (20); **zuen idazten** (11)

**bat idaztera** (8); **euskaraz idaztera** (10); **hau idaztera** (8); **hauek idazterakoan** (9); **idaztera bultzatu** (17); **idaztetik bizi** (8); **lerro hauek idazterakoan** (8); **lerrook idazterako** (23); **lerrook idazterakoan** (12)

---

# idatzigabe *(corpusean **idatzi gabe** soilik)* **1** *izond* idatzia izan ez dena.

«Arau **idatzi gabea»** zen erakunde gehienetan. Berria - Euskal Herria

Leku bakoitzeko usadio idatziak zein **idatzi gabeak** lagatzera. Iñaki Iñurrieta

Lege zibilaren zatiketa: idatzia eta **idatzi** gabea. Esteban Antxustegi

**Idatzi** gabea, aldarrikatu ahal izateko naturaren ahotsa edo arrazoi naturala besterik behar ez duena da. Esteban Antxustegi

Hondarrean, **idatzi** gabeak dit interesa pizten. Jose Angel Irigaray

**2** ***idatzigabeko*** *izlag* idatzigabea.

Idatzitako edozer, **idatzi** gabeko beste zeozeren zirriborroa besterik ez da. Patziku Perurena

Arauak ditu gidari, eta ez ditu aldatzen, **idatzi gabeko** kode deontologiko larderiatsu bati egiten dio men. Jon Alonso

**Idatzi gabeko** papera baino zurbilago. Joseba Sarrionandia

Gauean, **idatzi gabeko** etxeratze-agindua dago. Pako Aristi

---

# idatzizkotasun *iz* idatzizkoa denaren nolakotasuna.

Ahozkotasunaren eta **idatzizkotasunaren** kontzeptuak, zurrunegi erabiltzen dira sarri, ahozkotasuna eta **idatzizkotasuna** muturreko bi eredu ideal balira bezala. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Euskararen kultur unibertsoak, izan ere, [...] bere estrategia propioak garatzen ditu; oreka propioak ditu, adibidez, ahozkotasun-**idatzizkotasun** binomioan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

# idatzondoko *iz* bukatu ondoan idatzi bati ezartzen zaion eranskina.

**Idatzondokoa:** (Iruñeko Eliz Artxibo Handiko Katalogotik, 1677an: [...]. Leitzako herri liburutegian J. L. Huartek emandako oharra). Patziku Perurena

---

idazburu ik **idazpuru**.

---

# idazgai *iz* idazten denaren gaia.

Zergatik aukeratu dituzu **idazgai** horiek? Berria - Kultura

## idazgailu *iz* idazteko gailua.

Zer behar diat gehiago? **idazgailu,** paper, gutun-azal, zigilu... erdi ametsetan nagoelarik ene mahai aitzinean jarririk, berritz ere, klaska!, entzuten dut urrunera […]. Filipe Bidart

Baina Mourinho gaiztoak luma berezia erabiliko du Herculesen semeak azpiratzeko: dragoien odolaz hornituko du **idazgailua,** jarrera oldarkorra erakusteko. Berria - Kirola

## idazgarritasun *iz* idazgarria denaren nolakotasuna.

[Idaztea gauzak diren baino xinpleago etitea da] **idazgarritasun** eroso batera ekartzea. Iñaki Segurola

## idazgela *iz* idazteko gela, idazten den gela.

Eta dena erakutsi zioten: kiroldegia, irakurgela, **idazgela,** eta liburutegira heldu zenean [...]. Koldo Biguri

Ezin dut hemen ikasi, jangelan; **idazgelara** joan beharra daukat, lanpara irismenetik kanpo dudan leku batera. Xabier Olarra

Labana-arrastoz beteta zeuden Bennetten **idazgelan** zedrozko hormak. Xabier Olarra

Goian **idazgela** zuen, [...] eskuizkribu eta liburuz gainezka; liburuak nonahi, **idazgelatik** isurtzen etxeko beste gela guztietara. Xabier Olarra

## idazgintza *iz* idatziak egitea.

Zenbat erakarri zituen euskal **idazgintzara**! famatuenak bakarrik aipatzearren: Lauaxeta, Jon Mirande, Txomin Peillen, Bingen Ametzaga, Martin Ugalde. Berria - Harian

## idazkari 1 *iz* erakunde, elkarte, batzorde edo bulego batean, bilera agiriak idazteko, gainerako izkribuak prestatzeko eta haietaz arduratzeko egitekoa duen kidea.

Aita erregearen administrazioko **idazkaria** zuen. Jon Muñoz

Andres etxetik atera eta Girondeko prefeturako **idazkari** orokor ohiak. Josu Zabaleta

Udaletxeko **idazkariari** [...] bisita egitera joan zen. Josu Zabaleta

*ik beherago* 9. Askoren artean

Eguerdi aldera, alkatea eta **idazkaria** hamaiketakoa hartzen ikusi zituen betiko tabernan. Eider Rodriguez

Eskaria Navyko **idazkari** Frank Knoxen bitartez egin da. Edorta Jimenez

Karlos Santamaria "Pax Christi" kristau mugimenduaren **idazkari** zintzoarentzat. Piarres Xarriton

Sauveur Harruguet uxer edo auzitegiko **idazkariak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Espanyolen aritu ostean, Pitermanen alboan arituko da Rafael Monfort **idazkari** tekniko lanetan. Berria - Kirola

Elkartearen **idazkari** Fitzpatrick jaunari. Irene Aldasoro

Konpainia-buruaren **idazkaria**. Josu Zabaleta

Udaleko heriotz-epailearen **idazkari** egin zuten. Irene Aldasoro

**Idazkari** berri bat etorri da bere sailera. Oskar Arana

Lanean ari zen, berrogeita hemezortzi urterekin, Manhattan erdialdeko abokatu-bulego batean **idazkari**. Oskar Arana

Berehalaxe aurkitu zuen lana bulego batean **idazkari** gisa. Joxemari Iturralde

Ni sekzioko **idazkaria** naiz, ez maitasun-artekaria! Koldo Biguri

Hoteleko **idazkariak** izen-deiturak eta bertze hainbat xehetasun galdegin zizkion. Eneko Bidegain

*Berria*ko zuzendari Martxelo Otamendi eta EKTko Administrazio Kontseiluko **idazkari** Joan Mari Larrarte. Berria - Kultura

**2** norbaiti eskutitzak idazten dizkion eta bulego arazoetan laguntzen dion enplegatua.

Titleyri bidalitako gutuna haren **idazkariak** irekitzean lehertu zen. Berria - Mundua

Gizon ordenatua naiz; horregatik neure **idazkariari** eman izan dizkiot kontuari dagozkion helbide guztiak. Matías Múgica

Printzearen **idazkari** pertsonala zen. Matías Múgica

Apeztu aintzin jadanik apezpikuaren **idazkari** zen. Xipri Arbelbide

Kontseilariaren **idazkariak** deitu berri dik. Aingeru Epaltza

Telefonoan zuzendariaren **idazkariaren** ahotsa entzun zuenean. Jon Alonso

Jendarmeen sarjentu baten **idazkari** izendatu ninduten. Edorta Jimenez

Behin testua **idazkariak** osatuz gero, Frantziskok bere eskuz izenpetzen zuen. Askoren artean

Esan ohi da Frantziskok herri-hizkuntzan diktatzen zuela, eta **idazkariak** une berean latinez jartzen. Askoren artean

Batzuetan, **idazkariak** eskribau hutsak ziren. Askoren artean

Beste batzuetan, **idazkariek** esku-hartze handiagoa izan zuten testua idazten, berrikusten eta birlantzen. Askoren artean

Idazkera aldetik, Frantziskoren beste idazkiak baino dotoreagoa da eta, beraz, **idazkari** on baten eskua nabari da. Askoren artean

**3** zenbait herrialdetako ministroen izena; gobernu bateko goi kargua.

Madeleine Albright, Estatu Batuetako Estatu **Idazkariak** gaur bilera izango du. Joseba Sarrionandia

Ameriketako Estatu Batuetako Estatu **idazkari** Colin Powellek. nabarmentzekoa da ere John Ashcroft Justizia **idazkariak** jasoriko gaitzespen oldea.

Bennett Alexander Defentsa-**idazkaria** zeru gorri piztuari begira geratu zen. Fernando Morillo

Gero estatu-**idazkari** baten eskutitza atera zuen paper-zorrotik, non goi mailako funtzionarioak Lajosi jakinarazten baitzion jasoa zuela hark igorri zion gutuna. Ander Irizar

Irlandako eta Erresuma Batuko estatu **idazkariekin** bilera egin dute alderdi politikoek Belfasten.

EIE Euskal **Idazleen** Elkarteko lehendakaria. Berria - Kultura

**2** (izenondoekin)

**Idazle** handiak beti izango dira handi, ez beren famaren indarrez, ezpada beren lanaren merituz. Xabier Mendiguren Elizegi

Zenbat idazle egin ote ditu kritikak ez-dakit-nongo edo badakit-noizko **idazlerik** handiena? Xabier Mendiguren Elizegi

**Idazle** nagusien maisulan onetsiak. Iñaki Arranz

Europan, kazetaritzak **idazlerik** onenak ditu bere lan taldean, politikorik onenak, zientzialaririk prestuenak. Iñigo Aranbarri

**Idazle** bikaina da Bonabentura, hitzaren eta konposizioaren artista, hizkera aberatsa eta idazkera oso landua duena. Askoren artean

Errusiako **idazlerik** gogoangarrienetako bat. Jose Morales

**idazle** peto--peto baten literatur eraikuntza bikaina. Juan Garzia

Beldurrezko istorioen **idazle** ospetsuenetako bat. Xabier Olarra

Xalotasun handiko zerbait esan zuen, gure **idazle** munduzaleen eleberrietako damek eta jaunek esan ohi dituztenen tankerakoak. Jose Morales

Remo Chiti **idazle** futuristak. Anjel Lertxundi

Ezaugarri horien guztien arabera, argi dago Carver **idazle** minimalista dela. Koro Navarro

Hiruetatik inor ez da **idazle** oparoa izan. *París no se acaba nunca,* hein batean, **idazle** gazte eta hasiberri baten nolabaiteko kronika sentimentala da. Anjel Lertxundi

**Idazle** merkea eta manipulatzaile nazkagarria iruditzen zitzaiolako txekiar frantziartua. Xabier Mendiguren Elizegi

Zola eta D'Annuntzio bezalako plebeioek eta **idazle** traketsek egina da literaturaren parterik handiena. Koro Navarro

Ingeles txarraren kontrako borroka ez da soilik **idazle** profesionalena. Iñigo Aranbarri

**Idazle** juduengan ere maiz ageri dira ezkutalekuak. Joxean Agirre

Bere laguna zen George Sand **idazle** andreari. Bernardo Atxaga

Gogoan daukat, honi buruz, **idazle** lagun batek esan ohi zidana: [...]. Bernardo Atxaga

Mania literarioz jositako **idazle** deformatzaile guztiekin. Bernardo Atxaga

**Idazle** ideologikoak atsegin ez dituela dioenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Borgesek [...] **idazle** eskuindar intelijente hark. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (izenlagunekin)

Ideologia jakin bateko **idazleak** . Xabier Mendiguren Elizegi

Irakurle handia izan beharra dago hirugarren mailako **idazle** izateko ere. Anjel Lertxundi

Puntako **idazle** izateaz gainera. Anjel Lertxundi

Mundu mailako **idazle** punta-puntako asko ezagutu ditu Carlosek. Joxerra Garzia

**Idazle** ustekoak. Hasier Etxeberria

Egungo euskal literaturaren kanonaren barruan sartzekoak diren emakumezko **idazleak** badaudela. Ana Urkiza

Emakumezko **idazlearen** rola, aurrerantzean, zein izango da? Ana Urkiza

Alberto Moravia italiar **idazle** entzutetsuak esandako hitzek zirrara handia egin izan didate beti. Gotzon Garate

Denek ezagutzen dugu Charles Perrault frantses **idazlearen** "Le Petit Poucet" ipuina. Herria

Jose Artetxe gipuzkoar **idazleak** . Askoren artean

Ingelesezko **idazle** handienetakoa bihurtu zen [Conrad]. Xabier Mendiguren Elizegi

· Nolanahi ere, herr Öchlerrek apenas aipatzen zituen erregimenak zigortutako edo debekatutako **idazleak** . Anjel Lertxundi

Ezagutzen dut laudatutako **idazlearen** irribarre eztia, gutxietsi nuen **idazlearen** begiradako altzairu zorrotza ezagutzen dudan bezala. Pako Aristi

"Yiddishezko azken **idazlea** naiz ia..." zioen Singerrek. Koro Navarro

**4** (izenondo gisa)

Neure emaztegai izandako neska gazte **idazle** bat. Joxean Agirre

Zumarragan izan da euskaltzain **idazlea** Jean Mixel Bedaxagar urdinarbetar kantari ezagutuarekin. Herria

Ez dut ordea **idazleegi** izan nahi: jendea ez da hiriez maitemintzen, jendea pertsonekin maitemintzen da. Harkaitz Cano

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garibairen ikasle garaiko gorabeheren narrazioak gaztetako **idazle** -gogoa berritu diolako. Anjel Lertxundi

Lizentzia hori hartu izanak [...] **idazle** -sena hauspotu dio. Anjel Lertxundi

Argi ikuste horretan izango zuen zerikusia nire **idazle** -dohain deskubritu berri hark, noski. Xabier Mendiguren Elizegi

Hemen hasten da nire **idazle** -etsipena. Juan Garzia

**Idazle** titulua eman ohi didaten arren, ni irakurlea naiz beste ezer baino gehiago. Xabier Mendiguren Elizegi

**Idazle** jende honekin ez dago giro. Patxi Zubizarreta

**Idazle** ofizioa desmitifikatze aldera idatzitako nobela bat zen. Joxean Agirre

**Idazle** -izen goratsuak dituzten kalez osatutako auzo batean. Anjel Lertxundi

Izango zuen zoritxar sentimentalen bat, edo sendiartekoa, edo bere **idazle** lanarekin lotua... *Jakintzaren arbola* Barojaren **idazle** -bizitzaren betearen beteko eleberria da. Pako Aristi

"Belaunaldi Galdua" **idazle** -taldeko gainerako kideak. Lopez de Arana

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskuizkribu- **idazlea** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Fikzio- **idazlea** naiz ni funtsean. Xabier Mendiguren Elizegi

Ulertzekoa da halaber nobela- **idazleen** jarrera. Xabier Mendiguren Elizegi

Alegia- **idazle** errusiarra (1769-1844). Jose Morales

Ez da neurtitz- **idazlerik,** txiripazko eta ezteusena izanik ere, bere soneto perfektoa zizelkatu [...] ez duenik. Juan Garzia

Hemeretzigarren mendeko drama- **idazle** alemanik handiena. Oskar Arana

Orain Bere buruari galdezka ea Dursleytarrak oroituko ote ziren batere eta eskutitz- **idazlea** non ote zegoen orduan. Iñaki Mendiguren

[Nire gidari holistikoa] ataletan, zelula, kromosoma, DNA, gene eta abarretan gertatzen diren guztien hasierako, funtsezko gidaria, arau **idazle** nagusia. Jenaro Garate

**7** ***idazle lan*** *(orobat* ***idazlelan*** *g.er.)*

Kadirlira itzulita, idazmakina zahar bat erosi eta orduantxe hasi zen handik aurrera bere ogibide bihurtuko zen horretan, **idazle lanetan** . Fernando Rey

Ez zion inoiz **idazle** lanari muzin egin Vernek, ezta irakurleek Verneren narrazioei ere. Berria - Harian

Alfontso Martinez Lizarduikoaren irakasle eta **idazle lanak** aski ezagunak dira. Berria - Euskal Herria

Lanbide askotan aritu zen (mekanikari, taxista, saltzaile, jornalari, kazetari, gidoigile, etab.), baina beti ere **idazle lanekin** tartekatuz. Egun batez hartu baitzuen S autobusa nire **idazlelan** neketsuetako heroi hilezkor bihurtuko zelako susmo izpirik ere gabe. Fernando Rey

Danik gustua hartu dio zutabe- **idazle** lanari. Jokin Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**andolin eguzkitza idazle** (9); **antzerki idazle** (6); **artean idazle** (7); **baina idazle** (22); **baita idazle** (6); **bat idazle** (12); **bere idazle** (10); **beste hainbat idazle** (6); **beste idazle** (72); **beste idazle bat** (8); **beste idazle batzuek** (6); **beste idazle eta** (6); **bi idazle** (17); **bost idazle** (12); **da idazle** (44); **da idazle izatea** (6); **dela idazle** (8); **den idazle** (22); **dira idazle** (14); **diren idazle** (12); **dituen idazle** (9); **du idazle** (38); **duen idazle** (25); **dut idazle** (9); **dute idazle** (11); **duten idazle** (14); **edo idazle** (12); **egungo idazle** (6); **eguzkitza idazle** (9); **eguzkitza idazle eta** (6); **ere idazle** (14); **eta beste idazle** (8); **eta idazle** (166); **euskal idazle** (93); **euskal idazle bat** (6); **euskal idazle eta** (8); **ez idazle** (7); **ez naiz idazle** (6); **frantses idazle** (15); **frantziar idazle** (6); **gure idazle** (23); **hainbat idazle** (30); **hainbat idazle eta** (6); **handiko idazle** (6); **herriko idazle** (6); **hiru idazle** (12)

**idazle andana** (6); **idazle asko** (16); **idazle askok** (20); **idazle askoren** (15); **idazle bakarra** (7); **idazle bakoitzak** (7); **idazle bakoitzaren** (6); **idazle bat** (86); **idazle bat eta** (7); **idazle batek** (75); **idazle batekin** (7); **idazle baten** (57); **idazle batentzat** (9); **idazle bati** (25); **idazle batzuek** (26); **idazle batzuekin** (7); **idazle batzuen** (13); **idazle batzuk** (19); **idazle berriak** (7); **idazle bezala** (22); **idazle bihurtu** (6); **idazle edo** (11); **idazle errusiarraren** (7); **idazle eta** (308); **idazle eta artista** (11); **idazle eta euskaltzain** (7); **idazle eta euskaltzaina** (8); **idazle eta intelektual** (6); **idazle eta irakasleak** (9); **idazle eta irakurle** (7); **idazle eta itzultzaileak** (6); **idazle eta kazetari** (11); **idazle eta kazetariak** (8); **idazle ez** (12); **idazle ezagun** (19); **idazle ezaguna** (10); **idazle ezagunak** (10); **idazle ezagutua** (7)

**idazle fina** (7); **idazle frantsesak** (7); **idazle frantziarrak** (8); **idazle gazte** (17); **idazle gaztea** (8); **idazle gazteak** (32); **idazle gehienak** (7); **idazle gehienek** (17); **idazle gisa** (31); **idazle gutxik** (7); **idazle guztiak** (7); **idazle guztiek** (7); **idazle handi** (23); **idazle handia** (32); **idazle handiak** (13); **idazle handiaren** (8); **idazle handien** (6); **idazle hau** (11); **idazle hauek** (13); **idazle honek** (12); **idazle honen** (8); **idazle hori** (9); **idazle horiek** (22); **idazle horien** (15); **idazle horren** (16); **idazle italiarrak** (8); **idazle izan** (32); **idazle izan nahi** (23); **idazle izatea** (29); **idazle izateak** (6); **idazle izateko** (26); **idazle klasiko** (6); **idazle klasikoak** (7); **idazle klasikoen** (7); **idazle moduan** (7); **idazle nagusia** (6); **idazle on** (6); **idazle ona** (16); **idazle onak** (12); **idazle oparoa** (8); **idazle ospetsu** (11); **idazle ospetsua** (10); **idazle presoen** (9); **idazle profesionala** (12); **idazle zenaren** (6)

**iparraldeko idazle** (7); **izeneko idazle** (7); **jon kortazar idazle** (6); **kortazar idazle** (6); **mendeko idazle** (15); **naiz idazle** (6); **nire idazle** (10); **oso idazle** (23); **zen idazle** (18); **zenbait idazle** (10); **zer da idazle** (7); **ziren idazle** (6); **zituen idazle** (8); **zortzi idazle** (8); **zuen idazle** (32); **zuten idazle** (9)

**anjel lertxundi idazlea** (7); **atxaga idazlea** (13); **bernardo atxaga idazlea** (12); **da idazlea** (23); **den idazlea** (6); **du idazlea** (7); **duen idazlea** (16); **emakumezko idazlea** (6); **eta idazlea** (83); **eta idazlea da** (8); **euskal idazlea** (22); **ez naiz idazlea** (10); **felipe juaristi idazlea** (7); **idazlea bera** (19); **idazlea bere** (9); **idazlea da** (45); **idazlea dela** (9); **idazlea ere** (26); **idazlea eta** (68); **idazlea euskal** (7); **idazlea ez** (19); **idazlea hil** (13); **idazlea hil da** (6); **idazlea irakurle** (48); **idazlea irakurle x** (47); **idazlea izan** (29); **idazlea izan nahi** (7); **idazlea izan zen** (6); **idazlea izango** (8); **idazlea izatea** (6); **idazlea naiz** (14); **idazlea zara** (10); **idazlea zen** (8); **itxaro borda idazlea** (6); **juaristi idazlea** (8); **koldo izagirre idazlea** (6); **mendiguren elizegi idazlea** (6); **naiz idazlea** (11); **x idazlea** (50); **zen idazlea** (20); **zuen idazlea** (14)

**anjel lertxundi idazleak** (8); **behar du idazleak** (10); **beste idazleak** (9); **bi idazleak** (6); **da idazleak** (6); **dio idazleak** (16); **diren idazleak** (10); **ditu idazleak** (17); **du idazleak** (86); **duten idazleak** (17); **emakume idazleak** (7); **emakumezko idazleak** (13); **eta idazleak** (91); **eta idazleak ere** (6); **euskal idazleak** (41); **ez idazleak** (6); **gure idazleak** (10); **idazleak berak** (31); **idazleak bere** (70); **idazleak bere burua** (6); **idazleak beti** (8); **idazleak dira** (6); **idazleak egiten** (6); **idazleak ere** (23); **idazleak eta** (60); **idazleak euskal** (6); **idazleak ez** (32); **idazleak ez du** (10); **idazleak ezin** (8); **idazleak izan** (7); **irakasle eta idazleak** (8); **jimenez idazleak** (6); **kazetari eta idazleak** (10); **kirmen uribe idazleak** (7); **lertxundi idazleak** (9); **zion idazleak** (6); **ziren idazleak** (6); **zituen idazleak** (9); **zuen idazleak** (41)

**bi idazleek** (11); **da idazlearen** (17); **dio idazleari** (8); **eta idazlearen** (35); **eta idazleari** (8); **eta idazleek** (12); **euskal idazleei** (7); **euskal idazleek** (15); **idazlearekin batera** (9); **idazlearen arabera** (12); **idazlearen beraren** (12); **idazlearen eta** (17); **idazlearen heriotzaren** (7); **idazlearen lana** (6); **idazlearen obra** (6); **idazleari buruzko** (7); **idazleei buruzko** (7); **idazleek ere** (6); **idazleek ez** (9); **zaio idazleari** (10); **zen idazlearen** (7); **zuen idazlearen** (7)

**bi idazleen** (7); **burua idazletzat** (6); **dauden idazleen** (7); **diren idazleen** (6); **duten idazleen** (15); **eie euskal idazleen** (7); **emakume idazleen** (7); **eta idazleen** (18); **euskal herriko idazleen** (6); **euskal idazleen** (99); **euskal idazleen elkartea** (9); **euskal idazleen elkarteak** (20); **euskal idazleen elkartearen** (8); **euskal idazleen elkarteko** (18); **euskal idazleen pen** (6); **euskal idazleren** (7); **hainbat idazlek** (22); **hainbat idazleren** (12); **herriko idazleen** (6); **idazleen artean** (35); **idazleen arteko** (17); **idazleen biltzarra** (22); **idazleen elkartea** (14); **idazleen elkarteak** (29); **idazleen elkarteak eie** (9); **idazleen elkartearen** (11); **idazleen elkarteko** (27); **idazleen eta** (15); **idazleen kasuan** (6); **idazleen lanak** (17); **idazleen nazioarteko** (11); **idazleen pen** (8); **idazleetako bat** (8); **idazleetako batzuk** (6); **idazlek eta** (7); **idazleren lanak** (7); **katalanezko idazleen** (10); **sarako idazleen** (10); **zenbait idazlek** (12)

---

# idazleburu *iz* aldizkari bateko idazle taldearen burua.

1937an, izana zen euskara hutsez behinere agertu lehen egunkariaren **idazleburu** . Herria

Senperen arrastatu dute joanden astean Garikoitz Mujika gaztea, *Xirika* aldizkariaren **idazleburua** . Herria

[*Manex* deitzen zutena] luzaz erakasle egonik, gero Baionako katedralean kalonje, denbora berean mende laurden batez nunbait han *Eskualduna* astekariaren **idazleburu** ... Herria

---

# idazlegai *iz* idazle izateko bidean dagoen pertsona.

Aldizkari horiek ematen dute oraindik publikatzen ahal ez duen **idazlegai** bati publikatzeko, eta, beraz, testuarekin irakurleekiko distantzia bat hartzeko aukera. Ana Urkiza

Lagun asko jarri ditu Zavalak bere bizialdia kontatzen, eskola gutxiko jendea ia beti, eta maisu arretatsu baten antzera ibili izan da jesuita gurea idazlan hori sortarazteko: aurrena, hitz-aspertu luzeak, **idazlegaiaren** kontalari-sena eta kontatu beharrekoaren interesa neurtzeko; gero [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# idazlekume *iz adkor* idazlea.

Ez nuen uste **idazlekumeak** hain negarberak zirenik. Edorta Jimenez

---

idazlelan ik **idazle 7**.

## **idazlerro** *iz* lerro idatzia.

Kilometroen ordez **idazlerroak** kurrituko ditut, perpausak ezin moldatuz, ideiak iheska doazkidala, Piarres Aintziart

## **idazlesa** *iz* andre idazlea.

Euskal **"idazlesen"** rola. Ana Urkiza

## **idazletxo** *iz adkor* idazlea.

Behin baino gehiagotan entzun diot nire **idazletxoari**. Jose Morales

## **idazletza** *iz* idazteko jarduera.

**Idazletza** gaixotasun kronikoa da. Berria - Kultura

Bestetik, dena ez azalduta, egungo idazleak muzin egiten dio Ahots Handiari, dogmatismoari, **idazletzaren** boterear i. Iñigo Aranbarri

**-Idazletzatik** erretiratzen haizela, alegia? -Xerealek-. Iñaki Iñurrieta

Egundoko jeinu-tropela batu zen mende hasierako Viena hartan, bai **idazletzan,** bai musikan, bai pinturan. Berria - Kultura

## **idazluma** 1 *iz* idazteko luma. ik **luma 3.**

**Idazluma** hartu, [...] tintontzi batean sartu, eta idazten hasi zen. Jose Morales

**Idazluma** eta papera hartu eta idazteari ekin diok. Pedro Alberdi

Tobiasek idatzi egiten du, **idazlumarik** eta arkatzik gabe, buruan idazten du dena. Eskarne Mujika

Liburuak, koadernoak, arkatzak, **idazlumak,** borragoma, papera. Eskarne Mujika

Luma berria, garaiko **idazlumen** antz handia zuen bolaluma sendoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kapelarik gabeko enplegatu batzuek, **idazluma** belarrian, begiz jarraitzen zioten, aspertuak, nonbait. Karlos Zabala

Punta lodiko **idazlumaz** baizik ez baitakit letra polita egiten. Josu Zabaleta

**Idazluma** eskuan, hatzak eta ezpainak tintaz zikindurik. Jose Morales

Ganibet bat **-idazlumak** zorrozteko erabiltzen diren labanak bezain mehea eta hezurrezko kirtena horizkaturik zeukana-. Jose Morales

**Idazluma** estilografikoa mahaian geratu zen. Josu Zabaleta

Armen eta **idazlumaren** bitartez eragindako gerrak etengabeak direla. Esteban Antxustegi

Jose Antonio Arana Martijari (Gernika, 1931) eman dio Bilboko Liburu Azokak aurtengo Urrezko **Idazluma**. Berria - Kultura

2 ***idazluma estilografiko*** (*orobat* ***luma estilografiko***) barnean tinta depositu bat daukan idazluma.

Hamar urte bete nituenean, **idazluma estilografikoa** eskolara eramaten utzi zidaten, eta andereñoak idazteko erabiltzen utzi zidan. Josu Zabaleta

Eta, emakumeari begiratu ostean, **idazluma estilografikoarekin** jolasean hasi zen, txalekoaren poltsikora kateatuta baitzuen. Mirentxu Larrañaga

Eta, emakumeari begiratu ostean, **idazluma estilografikoarekin** jolasean hasi zen, txalekoaren poltsikora kateatuta baitzuen. Mirentxu Larrañaga

**Idazluma estilografikoa** mahaian geratu zen, erabili gabe; haren jabeak, hasperen eginez, mahai bazter txiki-txiki batekin konformatu behar izan zuen, eta babarrunak igurtzen hasi zen. Josu Zabaleta

Sonbreirua mahaiaren gainean utzi zuen, eta gazte falangistak eskaintzen zion **luma estilografikoa** hartu. Bernardo Atxaga

Antzara-lumaren erabilera hau zaharkitua da, baina haren gaurko baliokidea, **luma estilografikoa**, betiereko erabiltzaile berdinaren eskuetan dago. Xabier Olarra

Gainerako idazleek inguratu eta **luma estilografiko** zorrotzekin mehatxatu dute. Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta idazluma** (3); **idazluma aipamena** (3); **idazluma atera** (3); **idazluma bat** (3); **idazluma eskuan** (3); **idazluma estilografikoa** (3); **nire idazluma** (4); **urrezko idazluma** (5)

## **idazmahai** *iz* idazteko erabiltzen den mahaia; bereziki, idazteko egokituriko mahaia.

Gelako bazter batean intxaurrondo-zurezko **idazmahai** sabel-handi bat zegoen. Jose Morales

Oinak kaobazko **idazmahai** berriaren gainean. Lopez de Arana

Liburuen lerro txukunak, egongela langela bihurtzen zuen **idazmahai** apaina, zutikako erloju distiratsua. Koro Navarro

**Idazmahaia** giltzatu zuen. Karlos Zabala

Banuen laboratorioan **idazmahai** herren bat, [...] txokotxo batean. Juan Garzia

Baldwin, **idazmahaian** eserita, arkatz baten puntari ausikitzen ari zen. Lopez de Arana

Lanpara batez kargaturik itzulitakoan, **idazmahaian** jarri eta ohar batzuk zirriborratu nituen sortu ahala. Joxan Elosegi

Gauza izango zela garbiketako andreari **idazmahaiaren** gainean larrua jotzeko. Bego Montorio

Bulegoko mutil bat sartu zen eta txartel bat utzi zuen **idazmahaiaren** gainean. Lopez de Arana

Kutxazainaren **idazmahai** gaineko erlojuan hirurak ziren. Lopez de Arana

Zigarreta pakete zimurtu bat hartu zuen **idazmahai** gainetik. Alberto Ladron Arana

Bere **idazmahai** leporaino betean jarri zituen bi liburuak Ruche jaunak. Jon Muñoz

Beherago, eserleku garai batzuetan, ukabilak **idazmahai** meharretan jarririk, bi emakume zeuden jesarrita, salmenta oholtxoak aldean. Karlos Zabala

Nellie kulunka ari zen **idazmahaiko** aulki birakariaren gainean. Lopez de Arana

**Idazmahaiko** tiradera bat zabaldu eta gutunazal ireki bat atera zuen. Alberto Ladron Arana

**Idazmahaiko** xukapaper bat astintzen zuen bitartean. Lopez de Arana

**Idazmahaiko** giltza eskatu zidan. Jon Muñoz

Zangoak **idazmahai** azpian ezkutatu zituen. Migel Angel Mintegi

Dumbledore McGonagall andereñoaren **idazmahaira** joan zen, zilarrezko ezpata odoldua hartu eta Harryri eman zion. Iñaki Mendiguren

Harry jaiki egin zen **idazmahaitik** eta orroka hasi zen. Oskar Arana

Eta ez da falta eskolako gela bat: arbelak, **idazmahaiak,** tintontziak, mapa zaharrak... Berria - Kultura

**Idazmahaitzat** erabiltzen zuen ohetik beso bat altxatu eta konketaraino iristen zen. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere idazmahaian** (9); **bere idazmahaian eserita** (4); **bere idazmahaiaren** (11); **bere idazmahaiaren atzean** (3); **bere idazmahaiko** (3); **bere idazmahaira** (4); **eta idazmahai**

(4); **eta idazmahaia** (4); **eta idazmahaian** (4); **eta idazmahaiaren** (11); **eta idazmahaiaren gainean** (4); **eta idazmahaiko** (3); **eta idazmahaira** (3); **haren idazmahaia** (3); **idazmahai bat** (5); **idazmahai baten** (5); **idazmahai gainean** (5); **idazmahai gaineko** (3); **idazmahai gainetik** (3); **idazmahai handi** (6); **idazmahai handi bat** (3); **idazmahaia eta** (3); **idazmahaian eserita** (6); **idazmahaiaren atzean** (5); **idazmahaiaren aurrean** (5); **idazmahaiaren gainean** (24); **idazmahaiko tiradera** (7); **idazmahaiko tiradera bat** (4); **idazmahaiko tiradera batean** (3); **idazmahaiko tiraderan** (3); **idazmahaira hurbildu** (9); **idazmahaira hurbildu zen** (3); **idazmahaira itzuli** (5); **idazmahaira joan** (4); **nire idazmahaiaren** (5); **zuen idazmahai** (4); **zuen idazmahaiaren** (3); **zuen idazmahaiaren gainean** (3)

---

# idazmahaitxo *iz* idazmahai txikia.

Gure gelako **idazmahaitxoa** nik erabiltzeko ados egongo ote zen galdetu nion Dusseli. Josu Zabaleta

Gelan halako argi-ilun bat nagusi zen, **idazmahaitxoetan** piztutako estalki berdeko lanparek uxatu ez, areagotu egiten zutena. Matías Múgica

---

# idazmakina *iz* idazteko makina.

Iluntasuna zen nagusi bulego handi hartan; idazmahai horien ilarak eta **idazmakina** estaliak zeuden bertan. Lopez de Arana

Beste bulegoetatik **idazmakinen** eta ahotsen zarata zetorren. Lopez de Arana

Prentsen usaina artean sudurrean, **idazmakinen** tintina artean belarrietan. Lopez de Arana

Erpuruek bortizki jotzen zituzten **idazmakinetako** teklak. Pedro Alberdi

Bi **idazmakina** joka hasi ziren, bizi-bizi. Anton Garikano

**Idazmakinako** praktikak egiten zituen Sarak. Joan Mari Irigoien

Altzairuzko **idazmakinak**. Harkaitz Cano

**Idazmakina** edo ordenagailuetako klabierrak ematen digu bereizketa horietako baten arrazoia. Iñaki Arranz

Ez ahaztu nire Olivetti **idazmakina** noizean behin olioztatzea. Bego Montorio

Errege Beltza lapurretaz salatzen zuen eskutitz bat, aitaren **idazmakinaz** idatzia. Alberto Ladron Arana

Han aritu ginen denok geure testuak **idazmakinaz** jotzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Paper zuria hartu, eta **idazmakinaren** aurrean eseri nintzen igaro-baimena idaztera. Inazio Mujika Iraola

Gutunen batzuk **idazmakinaz** mekanografiatu nahi bazituen. Mirentxu Larrañaga

**Idazmakina** txiki batean, bere aitabitxiak fakturak egiteko erabili ohi zuena, nola hasi zen poesia idazten. Berria - Kultura

**Idazmakinaren** mahaitxoaren azpitik maleta handi bat atera zuen. Alberto Ladron Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta idazmakina** (3); **eta idazmakinaren** (3); **idazmakina aurrean** (3); **idazmakina bat** (8); **idazmakina erraldoi** (3); **idazmakinaren aurrean** (3)

---

# idazmen *iz* idazteko ahalmena.

**Idazmenak** aldatu egin zuen ahozko istorioen mundua. Ispilu hori, niretzat, kultura idatzia da, alegia, istorio hau **idazmenaren** aurreko istorio bat dela, ahozko kultura batean sortutako istorioa. Pako Aristi

Irakurmena, **idazmena** eta kalkulua lantzea. Imanol Unzurrunzaga

Ahozko eta idatzizko ulermena eta **idazmena** neurtzeko. Berria - Euskal Herria

---

# idazmolde **1** *iz* norbaitek idazteko ikurrak marrazteko duen moldea. ik **idazkera 2**.

Helbidea ezartzeko neure **idazmoldea** aldatu nuen, eta aski ontsa imitatu nuen, azalaren gainean, Dijon-eko zigilua. Jon Muñoz

Zera aurkitu nuela arbelean **idazmolde** ederrez idatzirik: [...]. Juan Garzia

**2** idazteko moldea. ik **idaztankera**.

Horretarako, 1973ko lehenengo argitalpena oinarritzat hartu dute eta gaurko **idazmoldeetara** egokitu dute. Berria - Kultura

**3** estiloa. ik **idazkera**.

Lapurdiko XVII. mendeko idazleak denak antzera idazten ahalegindu ziren, eta zuberotarrek ere kontuan hartu zuten haien **idazmoldea**. Koldo Zuazo

Testu zuzenak, italianismoak tartean dituztenak, sinpleak **idazmoldeari** eta esaldien loturari dagokienez, aipamen bibliko gutxikoak eta eliz autoreen aipamenik gabeak. Askoren artean

**Idazmolde** biluzi eta zuzena darabil, apaingarri askorik gabea, narratibatik oso hurbila. Berria - Kultura

---

# idazpen **1** *iz* idaztea, idazketa.

**Idazpena** jatorriz asmazio majikoa da, magoek egin eta zabaldua. Patziku Perurena

Gilermo Etxebarria erakasleak koordinatu du testuaren **idazpena**. Herria

**2** (kontu liburu batean)

Gure txartelak ere koadratu beharra zeukan, noski, eta hala berak ere han ezarriko zuen diru-ateratzea, baina **idazpen** faltsu bakoitzaren aldamenean lapitzez marratxo bat egiten zuen, ikusi nuen nik, eta horrek adieraziko zion balantze zuzenak zenbat behar zuen, aurrezleak galderaren bat egiten bazuen. Xabier Olarra

Willy Eisnerren eginbeharra zortzietatik hamabi eta erdietara eta ordu bietatik bost eta erdietara gela baten barruan egotea zen, beste zortzi lankideren ondoan, kontuak eta zifrak etengabe konparatzea, eta egiaztatutako **idazpenei** kakotx bat egitea arkatz txiki batekin. Anton Garikano

---

# idazpuru *(orobat **idazburu** g.er.)* **1** *iz* idazki baten izenburua.

Jatorrizko arabiar testuak ez darama inolako **idazpururik,** baina egileak bere ikasleari egindako gutun batean, "sarrera" izena ematen dio. Xabier Kintana

Sei tomo ikusi zituen ilaran jarririk, **idazpuru** honekin: “Gogamenaren teoriarako prestakuntza-sarrera, haren orokortasuna, osotasuna eta mamia kontuan izanik eta gizarte-produktibitatearen adarkatze bikoitzaren jatorri organikoen ulerkuntzara aplikaturik”. Jose Morales

Banekienetz zer izan zen, eta nondik zetorren, gerla aurreko *Aintzina* aldizkariaren **idazpurua**. Piarres Xarriton

Ez zitzaidan arrotz iduritu behialako **idazpurua,** eta honelatsu itzuli nion euskaraz ene irakasleari bere erranaldia: "Bakoitza Gizartearentzat, Gizartea Presonarentzat". Piarres Xarriton

**Idazburutik** zirudien bezain interesgarria. Lourdes Oñederra

Hots, gainean, eta **idazpuru** gisa, ohar hau topatu dut: *Con censura eclesiástica.* Txillardegi

Prentsa **idazpuruek** aho batez salatzen zuten otsailaren 13an: "....". Txillardegi

**2** gutun orrien edo inprimakien buruan agertzen den erakunde edo pertsona baten izena.

Barruko papera ere urdina zen, eta **idazpurutzat** bere izena baino ez zuen ageri. Ramon Saizarbitoria

Hurbilagotik begiratzean, gutunak **idazpuru** bat zeukala konturatu zen Ruche jauna: Manausko polizia. Jon Muñoz

Iruñeko Udalak bi hizkuntzetan jarri behar dituela **idazpuruak,** inprimakiak eta bestelako agiriak, bai eta Udaleko ibilgailuen eta uniformeen errotulazioa ere. Berria - Euskal Herria

**3** idazkuna.

Han, kapeluak eta txanoak saltzen zituen denda bat ageri zen, **idazpuru** honekin: "Vasili Fiodorov, atzerritarra". Jose Morales

Eta argazkiaren alboan honako **idazpuru** hau: [...]. Joxerra Garzia

---

## idaztankera 1 *iz* idazteko modua.

Norbaitek bere **idaztankera** berariaz disimulatu nahi duenean, polikiago eta artifizialago idazten du. Gotzon Garate

Beren liburuetan hitzontzikeriaz erabiltzen zuten **idaztankera** hanpatua eta eztabaidetan erakusten zuten berotasuna. Xabier Kintana

Aitziber Etxeberriaren **idaztankera** iaz ezagutzeko parada izan genuen. Berria - Kultura

---

idaztarau ik **idatzi 9**.

---

## idaztaulki *iz* idazteko aulkia

Tokia, bi metro karratu lan-mahai eta **idaztaulki** ziren; tresnak, berriz, familia koxkor bat, baina haien artean Westphal balantza eta eterodina ziren seinalatuenak. Juan Garzia

---

## idazte 1 *iz* hitzak letren bidez irudikatzea.

Benetako mirariak egiten baititu **idazte** hutsak: minak sendatzen, ametsak bermatzen, galdutako esperantza berreskurarazten. Imanol Zurutuza

Zerbait idaztea bai, baina idazle izenekoen **idazte** objetugabea ez. Iñaki Segurola

· Lerro hautsietan **idazte** hutsak ez du, bestalde, esaldi bat, besterik gabe, poema bihurtzen. Joxerra Garzia

Sorianok ondo idazten zuela; eta ez dela ondo **idazte** horretan haren ordezkorik sortu. Berria - Kultura

Arrazoi sakonagoa zukeen Enrikeren eskuz **idazte** horrek. Iñaki Iñurrieta

**2** (hitz elkartuetan)

Biok ere **idazte** kontu hauetan hasiberriak ginela. Xabier Mendiguren Elizegi

Ipuinak argitaratzea eta Knut Hamsun-en eleberriak eta Thomas Mannen *Mendi magikoa* yiddishera itzultzea izan ziren Singerren lehen **idazte** lanak. Koro Navarro

Kode Zibilaren **idazte** prozesuan. Andres Urrutia

**Idazte** bokazioak kazetagintzara ere eroan zuen. Berria - Kultura

Eleberriaren **idazte**-urte horretan, Barojak ez zituen artean berrogei urteak bete. Josu Zabaleta

**Idazte**-data zehatzik ez badakigu ere, 1223az gerokoa da ziur. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> idazte data (4)

---

## idaztegi *iz* liburutegia; idazlekua.

Zaldun famatu honetaz ziharduten paperen batzuk jaso gabe, beren **idaztegi** edo idazgeletan. Patxi Ezkiaga

Gelako leihopean kokatutako **idaztegira** hurbildu eta ezpata motz bat hartu zuen eskuetan. Joxemari Urteaga

---

## idazteke *adlag* idatzi gabe.

Inprentariarena […] mundua ikusteko era zitzaion, aldea zegoela uste zuen mundua idatzirik ala **idazteke** ikusi, aldea zegoen bezala soro bat goldaturik ala goldatzeke zapaldu. Felipe Juaristi

**Idazteke** dagoen historia bat. Iñaki Arranz

**Idazteke** duzuna aurretik ongi pentsatu. Askoren artean

---

## Idazteun *(orobat **idazteun**)* 1 *iz* Biblia santua. ik **idatzi 3**.

San Agustinek esaten duenez, **Idazteuna** ondoen ulertzen duena dela, gainerako ulerkera guztiak alde batera utziz, Idazkiaren egia dagoen hartan bilatzen duena. Joan Mari Lekuona

Jaungoikoak inspiratutako **Idazteunean** oinarriturik. Imanol Unzurrunzaga

Maiz irakurtzen baitzuten **Idazteuna,** nahiz eta bihotza urrun eduki Jainkoa egiaz ezagutzetik. Joan Mari Lekuona

**Idazteuna** interpretatzerakoan. Imanol Unzurrunzaga

**2** *pl*

Izpiritu Santuak eta Izpiritu Santuagan esanak eta idatziak baitira **idazteunak**. Joan Mari Lekuona

Esan zuen **Idazteun** guztietako testurik zailenetako bat zela ondo interpretatzen. Irene Aldasoro

Ugari dira **Idazteunetan** Jaungoikoaren maitasunari buruzko aipamenak. Imanol Unzurrunzaga

---

## idaztezale *izond* idaztea atsegin duena.

Zenbat aldiz ez ote zaizue, **idaztezale** zaretenoi, honako hau gertatu: [...]. Pako Aristi

---

## idazti 1 *iz* liburua.

Uste dut inoiz idatzi den **idaztirik** alferrikakoena dela. Iñaki Iñurrieta

Idazleak ez datoz bat lege naturala definitzerakoan, hitz hau askotan erabiltzen duten arren beraien **idaztietan**. Esteban Antxustegi

Itun zaharreko **idaztiak** irakurtzen dituztenean. Elizen arteko biblia

**2** idazkia.

Aurrenekoa, G. E. Lessing da ***(Idazti** hautatuak,* Bilbo, Klasikoak, 2002). Askoren artean

Gertaera ongi egiaztatua dago frantziskotar iturrietan [...] baita begiz-begiko testigu izan zen Vitryko Jakobo Akreko San Joan hiriko gotzainaren **idaztietan** ere. Askoren artean

**3 *Idazti deuna*** Idazteuna.

Jaungoikoaren Hiria deitzen diogu, **Idazti** Deuna lekuko, Probidentzia gorenaren arabera, eta ez giza arimen eraginez suertatuta, giza ingenio guztiak bere mendean biltzen dituen hiriari. Imanol Unzurrunzaga

· *pl* **Idazti** Deunak jainkotzearen nemesi moral eta intelektuala protestanteen morrontza izan zen. Iñaki Mendiguren

---

# idaztitxo *iz* liburutxoa.

Lisboan azken fede-autoan erre zuten hemezortzi urteko neska judutar bat **idaztitxo** baten sorburu eta mintzagai izan zen. Iñaki Iñurrieta

---

# idaztohar *iz* idazte oharra.

Aitortzen dut neure **idaztoharrak** berriro begiratzean asko direla ulergaitz egiten zaizkidanak. Edorta Jimenez

Orduan egin nituen **idaztoharretan** hartuta daukat, adibidez, Lotte Inuk, bernan kolore ezberdinetako tiritak jartzen zuen neskarekin ere hitz eginda nengoela. Edorta Jimenez

---

# idaztoki *iz* idazteko tokia.

Saint-Benoît-le-Bétourné ondoan, **idaztokiak** diren lekuan, lumen karranka-hotsa entzuten zuten, eta kandelei putz egiten letradunen sudurretan, iluntzean, denden leihatiletatik. Juan Garzia

---

# idaztortz *iz* idazluma.

Zuen biloben bilobak luma eta **idaztortz** elektronikoak hartu ditu orratzaren orde. Joxan Elosegi

---

## idea ik **ideia**.

---

# ideal **1** *iz* izpirituaren xede edo helburua.

Langileok badute gogoan **ideal** bat, jomuga eta xede bat. Patxi Altuna

Baditut nire **idealak,** nire ideiak eta nire asmoak, baina oraindik ez dakit behar bezala adierazten. Josu Zabaleta

Ezin utzizko **ideal** baten alde azkeneraino borrokatzen dena. Askoren artean

Jendeak **ideal** batengatik odola oparo ematen zuen bitartean. Jokin Urain

**Ideal** anarkistatik gero-eta hurbilago. Iñaki Segurola

**Ideal** goitarren izenean. Xabier Olarra

Irudiz Michelcok biziaren goiburua, **ideala**, bertze nunbait ezartzen zuen. Michel Oronoz

**Ideal** zoragarri bat espresatzen du; ez du espresatzen errealitatea. Joxe Azurmendi

Ekialdeko Erromaren **ideal** aszetikoa. Iñaki Mendiguren

Benetako gauzarik ez dagoenean gauza guztiak berdintzen dituen ezerez ideala eta gauza guztien ordain izan nahi lukeen **ideal** ezereza gelditzen da. Iñaki Segurola

**Idealetan** sinesten zuen andaluziar gogor bat zen gure aita. Berria - Kultura

**2** eredu perfektua.

Aberrizalearen eta heroiaren **ideal** zaharra. Iñaki Mendiguren

Neska japoniar birjinaren **ideal** nostalgikoaren irudia. Joxan Elosegi

Aspaldi aspertu nintzen gezurrezko **ideal** baten eredu izatez, jakin ezazu behingoz. Ander Irizar

Zientziaren **ideal** modernoaren gainbehera. Berria - Gaiak

Arrazoimen-inferentzia dialektiko honi arrazoimen hutsaren **ideala** deituko diot. Ibon Uribarri

Betegintzarre ontologiko gorenaren **ideala**. Ibon Uribarri

Ministro letradunen eta Hugolino kardinalaren presioak frantziskotar **idealaren** frakasoa eta Frantziskoren porrota ekarri zituela. Askoren artean

Erlijio-eklektizismoaren **idealak** estatu unibertsalen zenbait gobernari liluratu zituen. Iñaki Mendiguren

Komunitate-homogeneotasunaren **ideala**. Iñaki Mendiguren

Hemen "erabateko" antzaren **ideala** adierazteko erabiliko dugu hitz hori. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan)

Habanan bildu diren amerikar demokrata denei nire arnasa eman nahi diet, eta gure askatasun-**idealak** garaile izango direlako esperantza adierazi. Edorta Jimenez

Kristoren pobretasuna eta apaltasuna bizitzeko asmoa, Ebanjelioko anaitasun-**ideala,** Elizarekiko elkartasuna. Askoren artean

Baztertu egiten zen pobretasun-**ideala,** Klarak [...] erabatekoa nahi zuena, bai pertsonari eta bai elkarteari dagokionez. Askoren artean

Antisemitismoaren eta [...] komunitate homogeneo baten Mendebaldeko kristau-**idealaren** arteko lotura estua. Iñaki Mendiguren

• **4** *izond* ideia hutsari dagokiona, gauzen munduan izatasunik ez duena.

Platonek estatu **ideal** hori eraikitzeko hierarkia hezigarri eta soziala sortzen du. Askoren artean

Diru errealak eta diru **idealak** daude. Iñaki Iñurrieta

Ez delako materiala eta ez **ideala,** baina bai kearen pare. Iñaki Segurola

Kasu **ideal** eta, ondorioz, abstraktutzat kontsideratu da. Piarres Xarriton

Forma goxoak, ia **idealak,** eguneroko bizitzako gatazka eta lardasketatik libre daudenak. Bernardo Atxaga

Ahozkotasuna eta idatzizkotasuna muturreko bi eredu **ideal** balira bezala. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Errealitatea adreilu **idealez** jasotako eraikin edo asmakina baita. Iñaki Segurola

Mundu intelektual eta burgesaren irudipen **ideal** bat, erabat lausoa. Joseba Urteaga

Denbora luzea zeramala bere bizimodua helburu **ideal** batetik urrunduta. Juan Kruz Igerabide

Vitruviok, beraz, arkitekto **ideal** bat diseinatzen du honela. Santiago Iruretagoiena

Horren arabera, espezie bakoitza tipo **ideal** edo unibertsal bati dagokio. Askoren artean

Adostasun horren bila negoziazio **ideal** batean parte hartuko luketen kide guztiek. Askoren artean

Egoera **ideal** hori zapuzten hasi zen pixkanaka-pixkanaka. Josetxo Azkona

Gehiegizko plazera [...] debekatuz baieztatzen du bere burua Freuden Aita **idealak**. Joseba Zulaika

**5** desira daitekeen egokiena edo beteginena.

Paris zen hiri **ideala,** argi elektrikoa, pailazoak, zinema izarrak zituen hiria. Berria - Kultura

Hortaz, esan daiteke ikur erabat arbitrarioak direla hobekien betetzen dutenak prozedura semiologikoaren egoera **ideala**. Isabel Arrigain

Konfidente neurotiko **ideala** naizela. Piarres Aintziart

Tipo **ideala** Yetiarena bezala delako: gutxik ikusi diten eta ikusi dutenek ez diten, zer gerta ere, etxean aurkeztu. Harkaitz Cano

Etorkinena egoera **ideala** da esplotazioari eutsi ahal izateko. Berria - Euskal Herria

Kurbak erakusten du haur batek adin batekin izan beharko lukeen garaiera eta pisu **ideala**. Berria - Gaiak

**Ideala** izango litzateke jende hori euskal munduan murgiltzea, euskara ikasiz... Berria - Harian

Garbi zegoen animalia **idealik** ez zela. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arrazoimen hutsaren ideala** (4); **egoera ideal** (3); **egoera ideala** (6); **eta ideal** (13); **eta idealak** (4); **film ideal** (4); **film ideal siempre** (4); **gauza ideal** (3); **gorenaren ideala** (3); **hutsaren ideala** (4); **ideal bat** (27); **ideal batean** (5); **ideal baten** (9); **ideal batera** (3); **ideal edo** (3); **ideal eta** (12); **ideal hori** (9); **ideal horiek** (4); **ideal horren** (3); **ideal siempre** (4); **ideala da** (7); **ideala eta** (5); **ideala ez** (3); **ideala izan** (3); **idealak eta** (5); **mendebaldeko ideal** (3); **nire idealak** (3)

---

# idealismo 1 *iz* gizakia edo gizartea hobetzeko, idealari atxikitzen zaion gogo jarrera.

Nerabea nintzen oraindik, eta politikak garai horretan sentipenak, errebelamendua, **idealismoa,** ametsak, eskuzabaltasuna, mistizismoa [...] eta antzeko gauza asko bildu ohi ditu bere baitan. Rafa Egiguren

Aurreneko gaztetasun hartako **idealismo** erromantikoaren eraginez. Rafa Egiguren

Bazuen halako misiolari-kutsu bat, batzuetan, bere gurasoen **idealismoaren** eraginari irtenbide mistikoagoak emateko joera edo. Juan Kruz Igerabide

Inolako **idealismorik** ez duten kolono batzuk jarri zizkigun begi aurrean: McCabe, prostituzioarekin negozio egin nahi duen koldarra, eta burdela dotoreziaz jantzi nahi duen Miller andere gogorra. Berria - Kultura

**2** (filosofian) gogoaz kanpoko gauzei ideia hutsen izatasuna baizik aitortzen ez dien filosofia sistema.

**Idealismoaren** arabera mundua gogo-egoeren multzoa da. Askoren artean

Berkeleyren **idealismo** dogmatikoa. Ibon Uribarri

**Idealismo** enpirikoari lotzen zaizkion psikologo guztiak errealista transzendentalak direnez gero [...]. Ibon Uribarri

Kantenari **Idealismo** Transzendentala esaten zaion moduan, Hegelenari **Idealismo** Absolutua esan ohi zaio. Askoren artean

**Idealismo** transzendentala Dialektika kosmologikoaren konponketarako gako gisa. Ibon Uribarri

**Idealismoaz,** dualismoaz, eliminatibismoaz, identitatearen teoriaz eta, batez ere, funtzionalismoaz eta horren garapenaz arituko gara. Askoren artean

Filosofoek ez bezala (beste bide batetik, alegia) kontatu zuen Cervantesek **idealismoaren** eta errealismoaren arteko lehia. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta idealismo** (6); **idealismo alemaniarra** (5); **idealismo enpirikoari** (3); **idealismo eta** (3); **idealismo transzendental** (4); **idealismo transzendentala** (5)

---

# idealista 1 *izond* gizakia edo gizartea hobetzeko, idealari atxikitzen zaion gogo jarrera duena.

Gizon **idealista** zen, eta borondatea osoa jartzen zuen beti Euskal Herria askatzeko ideiaren aldeko borrokan. Rafa Egiguren

Aitortu behar dut inbidia apur bat ematen zidala aitona borrokalari eta **idealista** hark, nire familian behintzat parekorik ez zuenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni gazte **idealista** samarra nintzen, mundu hobe eta zuzenago batekin amesten zuena. Alberto Ladron Arana

Gazte **idealistak,** bere absolutuan, etsai polimorfoa behar duela! Piarres Aintziart

Herriaren sentimendu desinteresatu eta **idealista**. Iñaki Mendiguren

Politikari buruz luze eta zabal hitz egitea gustatuko litzaidakek hirekin; guk ere badiagu interesik gauza horietan; handia, gainera, zeren gu ere **idealistak** gaituk, gure erara. Rafa Egiguren

Ingenuoa zen, eskuzabala, erromantikoa, **idealista,** jendeaz errazegi fidatzen zena. Mikel Hernandez Abaitua

Gu ginela utopiaren fusilari eusten zioten azken **idealistak,** lubakia utzi nahi ez zuten gudari zahartuen modukoak. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (filosofian) idealismoari dagokiona, idealismoari atxikia.

XX. mendeko filosofiak askotariko erantzunak eman dizkie Kanten ondorengo sistema **idealistek** sortutako bideei. Askoren artean

Objekzio **idealista** hauek hemen sortzen duten onura begi-bistakoa da orain. Ibon Uribarri

Bigarren modernitatea paradigma **idealistarena** da (1789-1900). Askoren artean

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, ikuspegi **idealista** gogor kritikatu zuten, bai Britainia Handiko antropologiak [...] bai marxismo ortodoxoak, bai materialismo kultural sortu berriak. Askoren artean

Estetika **idealistak** artearen ikuspegi berri bat proposatzen baitu. Josu Zabaleta

Obra klasikoa eta bikaina, hizkuntzalaritza eskola **idealista** onenaren tradizioari jarraitzen diona. Isabel Arrigain

**3** *iz* idealismoaren aldeko pertsona.

**Idealista** transzendentala errealista enpirikoa izan daiteke, eta beraz, deitzen zaion moduan, dualista bat. Ibon Uribarri

**Idealista** dogmatikoa materiaren izatea ukatzen duena litzateke, **idealista** eszeptikoa, zalantzan jartzen duena, bere izatea frogaezintzat duelako. Ibon Uribarri

Arrazoia esaten denean, **idealista** objektibista batek arrazoia modu absolutuan ulertzen du: osotasuna da, hemen, giltza-hitza. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta idealista** (5); **gazte idealista** (5); **idealista bat** (6); **idealista eta** (3); **idealista zen** (4)

---

# idealizatu, idealiza, idealizatzen *(orobat **ideializatu** g.er.)* 1 da/du *ad* norbaiti edo zerbaiti, benetan ez dituen ezaugarri idealak egotzi.

Doktrina horretan, "gizarte primitiboa" edo "gizaki primitiboa" **idealizatzen** da, eta zibilizazioen garapena ustelkeriaren prozesutzat hartzen da. Askoren artean

Ene ametsak mentsak zirela, amodioari buruz, eta emakumea **idealizatu** dudala, eta obsesioz desiratu. Piarres Aintziart

Ez dik adiskidetzat hautatu duen laguna **idealizatzen,** ezagutzen baititu haren akatsak. Xabier Olarra

Iragana **idealizatzeko** joerakoa. Ana Urkiza

**Idealizatu** egin ohi da egia, eta batzuetan ez da errepide ertzean lehertutako arratoi bat baino. Ramon Saizarbitoria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ikerkuntza zientifikoaren ikusmolde **idealizatu** batetik. Askoren artean

Forma perfektu horren definizioa, horratx, antzinako artearen ikusmolde **idealizatu** batean bilatzen da. Josu Zabaleta

Mitxoletaz jositako zelaien artean paseatzen gogoratzen zuen gizonak emaztea, mundu krudelegitik aldenduta, mundu **idealizatuan** barrena ibilian. Imanol Zurutuza

Ikuspegi manikeo asko [...] bakearen kontzeptu **idealizatuegiak** (bakea = harkadia eterno bat) bizkarreratu zaizkio bake hitzari. Berria - Kultura

Arketipo adoleszente **ideializatu** horietakoa dirudi orain. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **idealizatu egin** (6); **idealizatu egiten** (3); **idealizatu nahi** (3)

---

# idealizatzaile *izond* idealizatzen duena.

Arrazoimen **idealizatzaile** eta adigai transzendenteen eremura igarotzea. Ibon Uribarri

Horrela, enpirismoari arrazoimen transzendental-**idealizatzailearen** herritartasun oro lapurtzen zaio. Ibon Uribarri

Bi bertsio horiek gogoan, artisten hautaketa **idealizatzaileari** buruz pentsatzen geratu nintzen. Bernardo Atxaga

---

# idealizazio *iz* idealizatzea.

Zein da, adibidez, partikulen mekanika klasikoaren eta erlatibitatearen arteko erlazioa? murriztapenarena, muga-kasuarena, egokitasunarena (korrespondentzia), **idealizazioarena...** ? Askoren artean

Errealismo unibertsalista eta **idealizazio** nazionalista. Iñaki Segurola

Historiaren kritikoek denbora galtzen dute, zer den gertatua eta zer **idealizazio** -prozesu baten fruitu bereizi nahian. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta idealizazio** (3)

---

# idealki *adlag* era idealean.

**Idealki** pentsatuaren arabera, milako bat lanpostu sortu behar litezke gune horretan. Herria

**Idealki** gutxiengo sortzaileek askaturiko gizarte-indar berri bakoitzak erakunde berriak sortu beharko lituzke, hauen bidez funtzionatu ahal izateko. Iñaki Mendiguren

---

# idealtasun *iz* ideala denaren nolakotasuna.

Honetan datza, beraz, denboraren **idealtasun** transzendentala. Ibon Uribarri

Sentsuen objektu ororen **idealtasunaren** teoria egiaztatzeko. Ibon Uribarri

Lehen matematikariaren lehen keinuan ikusi zela **idealtasun** baten osaketa, historia osoan zehar hedatu dena eta ez dena auzitan jarri ez bada izan bera errepikatzeko eta gardentzeko. Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **idealtasun transzendentala** (3)

---

# ideatiko *izond*

-Hauxe da gizon **ideatikoa** ! -esan ohi zuen. Josu Zabaleta

---

# ideatu, idea(tu), ideatzen du *ad* bururatu.

Frederick Law Olmstead eta Callvert Vaux, Central Park **ideatu** zuten paisajistek diseinaturiko Prospect Park erraldoia ere Brooklynen dago. Harkaitz Cano

---

# ideia *(orobat **idaia** g.er.,eta **idea** g.er.)* **1** *iz* gauza baten irudikatze abstraktu eta orokorra, gogoak edo adimenak eratua.

Oro har, errealitatea zehatza dela uste dugu; **ideia,** aldiz, abstraktua. Askoren artean

**Ideiak** gauzen irudiak bezalakoak omen dira. Askoren artean

Zerbaitekin zer ikusia izatekotan, **ideiekin** du zer ikusia gauzen muinak. Iñaki Segurola

**Ideien** ordena eta lotura, eta gauzen ordena eta lotura, berberak dira. Askoren artean

**Ideiek** ezagutza-prozesua gidatzen dute. Askoren artean

Inguratzen gaituzten objektuen irudiak dira gure **ideia** guztiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Oinarrizko **ideia** bakun argi eta bereziok nahitaez sortzetikoak dira (ez adimenak asmatuak, hizkuntza abstraktuak eta konbinaketak bezala edo). Askoren artean

Izan ere, poesia ez dute hitzek egiten, **ideiek** baizik; eta hitzak **ideien** euskarriak dira. Iñaki Arranz

Zientzia, oroz gainetik, ibili dabiltzan **ideiaz** osaturiko mundu bat da. Juan Garzia

Irudimena **ideia** bat da, Izpirituak haren bitartez gauza bat kontenpla baitezake hor balitz bezala. Piarres Xarriton

Hobbesen liburuan bi **ideia** nagusi irakur ditzakegu: giza itunarena, alde batetik, eta natur legearen eta giza legearen arteko hierarkiarena, bestetik. Askoren artean

Newtonen **ideien** arabera, aldagaitza da uhin-luzeraren eta kolorearen arteko erlazioa. Xabier Olarra

Sinboloan, orduan, Langerrek bi **ideia** bereizten ditu garbiki: artea sinbolo gisa, alde batetik, eta sinboloa artean, bestetik. Askoren artean

Esperimentuek egiaztatu duten zentzuzko beste **ideia** bat: forma pertzibitzeko denbora behar da. Josu Zabaleta

Nola bururatuko litzaioke norbaiti, bestela, hitzezko irudi bat **ideia** batekin elkartzea, ez bazuen aldez aurretik elkarketa hori hizketa ekintza batean hautemana? Isabel Arrigain

Berriki arte frantses kulturan murgildurik baneuzkalakotz **ideia** gehienak. Piarres Aintziart

Barthes-en **ideien** eraginpean. Anjel Lertxundi

Gizon hark **ideia** baten sinpletasuna zuen. Monika Etxebarria

Hitz jarioa **ideien** itokinetatik sortu ohi da sarri. Joxerra Garzia

Debaldetan, jaunak, **ideiak** ez baitira hiltzen, are gutiago atxilotzen. Herria

**2** (izenondoekin)

Gaur egungo logika ezagutzeko, beharrezkoa da Aristotelesen eta estoikoen **ideia** logikoak aztertzea. Askoren artean

Erlatibismoak baieztatzen du gure **ideia** kognitiboak, moralak edo estetikoak [...] haiek sortzen diren testuinguruekiko erlatiboak direla. Askoren artean

Husserlen fenomenologia eta Heideggerren **ideia** existentzialistak ikasten zituen bidenabar. Monika Etxebarria

Barojar **ideia** filosofiko horien laburpena. Josu Zabaleta

Hau izan zen gizartearen **ideia** erakundetzailea. Juan Martin Elexpuru

Gure baitan argi eta berezi diren ideiak edo hirugarren ezagutza mailari dagozkionak [...] ez datozkeela lehen mailako ezagutzari dagozkion **ideia** murriztaile eta nahasietarik, baina bai **ideia** egokietarik. Piarres Xarriton

Ohore hau, beraz, **ideia** konplexu horietakoa da, ez bakarrik **ideia** sinpleak elkartuz osatzen dena, baizik eta baita **ideia** konplexuak elkartuz ere. Juan Martin Elexpuru

Letamendik ez du **ideia** sakon bat bera ere; hitzak eta esaldiak besterik ez ditu buruan. Josu Zabaleta

**Ideia** orokorrak lausengariagoak dira. Monika Etxebarria

**Ideia** nazionalsozialistarekiko fideltasuna: erabatekoa. Alberto Ladron Arana

**Ideia** handiak eskaintzera nator: jendeak entzungo ditu eta gogoeta egingo du horien gainean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** (-en atzikiaren eskuinean)

Filosofia transzendentala zientzia baten **ideia** da. Ibon Uribarri

Lehen kausaren **ideia,** Schopenhauerrek esan bezala, burdinaz egindako zur puska bat da. Josu Zabaleta

Jainko izaera mugagabekoaren betegintzarrea gozatzen duela; eta hori [...] bere buruaren **ideiak** lagundurik, hots, [...] bere kausa propioaren **ideiak** lagundurik. Piarres Xarriton

Mundua pentsatzea (ezagutzea) ez da Jainkoaren **ideia** azkeneraino pentsatzea besterik. Askoren artean

Espazioaren **ideia** gorputzari eta haren mugimenduari lotuta dago oinarri-oinarritik. Josu Zabaleta

Espazioaren eta denboraren **ideiak** gure espirituaren premiak direla, baina egiazko izaterik ez dutela. Josu Zabaleta

Gramatikaltasun-mailen **ideia** erabil dezakegu. Itziar Laka

Iraganbidearen **ideia** ere gizakien beste asmakizun bat da. Monika Etxebarria

Aipatzea merezi du, ordea, bi substantzien **ideia** horrek epistemologian izan duen eragina. Askoren artean

Nola lege fonetikoaren **ideiak** egituraren **ideiara** daraman, diakroniaren **ideiak** sinkroniarenera. Isabel Arrigain

· Platonek egiten duen ongi gorenari buruzko planteamenduan ere utilitarismoaren funtsezko **ideia** ikus daiteke. Askoren artean

Sarrera honetan logikaren oinarrizko **ideiak** aurkezten dira. Askoren artean

**4** *pl* ideologia.

Eta dena don Pedroren **ideiengatik,** haren arima-auziengatik. Juan Garzia

Halatan, Hervé Malgorn, nolabait, bere **ideiengatik** preso zegoen, ilobaren ustez bederen. Itxaro Borda

Bada jenderik aipatu interes horiek gidatuta baino, onerako nahiz txarrerako, **ideiek** edo ideologiek gidatuta dirudienik. Iñaki Heras

Nire **ideiak** eta iritziak ez dira, ordea, aldatu, horrenbestez. Josu Zabaleta

Interesgarriak ziren sentimendu eta **ideiez** bete ziotela burua eta bihotza. Jon Muñoz

Errusiak XVIII. mendeko **ideiak** muinetaraino buruan sartuak ditu, hots, Estatu soberania absolutuarenak. Piarres Xarriton

Lamela gauza guztietan zegoen atzeratuta, sakon-sakonean: ikasketetan eta **ideietan**. Josu Zabaleta

Adelaren **ideien** sendotasunak txundituta egiten ninduen. Juan Kruz Igerabide

Gustoko ez ditugun **ideiei** beste **ideiekin** erantzun behar zaie, baina sekula ez indarkeriarekin. Berria - Euskal Herria

XXI. mende hastapenean badoa, gaizoa, XIX. mendeko **ideiekin**! Herria

Sabino Arana Goiriren **ideia** nazionalistak. Itxaro Borda

Gerra Zibilean, errepublikaren alde borrokatu zen, eta areagotu egin zituen lehenagotik zeuzkan **ideia** komunistak. Juan Kruz Igerabide

Kristau **ideiek,** budismotik bost mende gerora azaldu baziren ere, ongiaren eta gaizkiaren esanahiek moldatutako mundua estutu egin zuten. Felipe Juaristi

**5** burutapena; asmoa; ustea.

**Ideia** horixe zeukaan buruan, anaia heriotzara bidali zuela. Bernardo Atxaga

Lana eta etxea utzi eta mendira jotzeko **ideia** nuen aspaldidanik buruan bueltaka. Juan Luis Zabala

Hark, ez zuen **ideia** bat baizik buruan. Daniel Landart

Banuen **ideiaren** bat edo beste. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ideia** bat erabili du buruan, lanetik kanpoko orduetan ikusi nahiko lukeela eskatzea. Oskar Arana

Laster **ideia** bat gorpuztuz joan zen bere baitan... Migel Angel Mintegi

Flouret deritzan baten **ideia** Jack Lang-ek obrarazi zuen. Herria

Lantzeko **ideia** pare bat. Herria

Testua **egiteko** ideiak eman dituzten guztien arteko afari batean bukatuko da hau guztia. Berria - Kultura

Uste dut lotsaz gorritu ere egin nintzela **ideia** hori bururatu zitzaidanean. Koro Navarro

**Ideia** hura orduantxe burutik igaro berri zitzaiolako itxurak eginez. Oskar Arana

**Ideia** bat izan nuen. Fernando Morillo

Hauxe da **ideia**: lehiaketa bat biper/arraultze moleta hoberenen probatzeko. Herria

**Ideiatik** proiektura pasatu gara. Herria

Leku santuetarako bidaiarekin jarraitzeko **ideiaren** aldekoek. Jon Alonso

Operatu aurretik oso bestelako **ideia** nuen espazioaz. Xabier Olarra

Zera zen **ideia:** erreplikazioa gobernatuko zuen puntu batean atxikitzea ADNa mintzari. Juan Garzia

Taktika psikologiko frogatuak erabiltzea **ideia** ona dela. Jon Alonso

Zure **ideiak** ez du bururik, ez buztanik. Jon Alonso

Hura **ideia,** erregearena, gerrara etortzea eguraldi honekin. Jon Alonso

**Ideia** bat baizik ez dut; hartan dut egunez pentsatzen, eta gauez amets egiten. Jon Muñoz

Zein da zure sormen prozesua: lehenengo **ideia** bat dago, forma dago... Ana Urkiza

Haurtzarotik **ideia** bera, kasik obsesioa: apez. Piarres Aintziart

**Ideia** gustatzen zaiola esan dit. Pako Aristi

Dibortziatzea ez zen nire **ideia** izan. Oskar Arana

-Berriz ere **ideiaz** aldatu zara? Elena Touyarou

**6** (izenondoekin)

Ohartu gara nola Tomas Akinokoak berak Agustinen **ideia** arriskutsu batzuk baztertu dituen. Askoren artean

Straussek uste du idazkera esoterikoak autorea bere **ideia** heterodoxoengatiko jazarpen politikoetatik salbatzeko xedea duela. Xabier Kintana

Eta gogoetan ari nintzela borborka gaineratzen zitzaizkidan **ideia** ilunekin ere ezin nintzen borrokatu. Koro Navarro

Ez da batere **ideia** txarra. Eneko Bidegain

Plan horren **ideia** nagusia hauxe da: herria trebeskatzen duen erripidea [...] egiazko hiribarne bat bilaka dadin, Hiribururen nortasuna erakutsiko duena. Herria

Begiak berriz ere etxerantz jaso nituenean, **ideia** bitxi bat bururatu zitzaidan, hain **ideia** funsgabea, izan ere, non arima estutzen zidaten sentimenduen indar bizia erakusteko aipatzen baitut bakar-bakarrik. Koro Navarro

## 7 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Gizona zenbat eta arruntago bihurtu, orduan eta gehiago jokatzen du hurbileko **ideia**-elkarketen arabera. Juan Martin Elexpuru

Barne-bakarrizketa azkengabean, aldiro espiritua zeharkatzen duten ezin konta ahal aieru, hurbilketa, konbinazio, **ideia**-asoziazioen artetik, su-arrasto batek urratzen du inoizka zerua. Juan Garzia

Konpromisoa zabalik dago, hain zuzen nahi duen pertsona edo erakunde orok aukera izan dezan libreki atxikitzeko eta **ideia**-sorta horrekiko konpromiso pertsonala adierazteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Besteen **ideia** zaparradaren aterrune batean. Iñaki Iñurrieta

**Ideia** arrastorik ez, noski, Houston-Texas hartan, zer demontre egin behar ote nuen. Joxe Austin Arrieta

*Think tanks* edo **ideia**-gordailuak deitu dituzte. Txema Ramirez de la Piscina

## 8 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Razionalismoan oinarriak arrazoimen-**ideiak** dira. Askoren artean

Erregearen, estatuaren eta soberaniaren jainkozko jatorriaren arteko identifikazioak bere baitan zekarren, orokorrean, boterea monarkaren eskuetan pilatzea, eta zigor-eremuan delitu eta bekatu **ideiak** elkarren gainean jartzea. Juan Martin Elexpuru

Oinarri biak estatu-tresnaren sortzaile den hitzarmen **ideian** sustraitzen dira. ea barruratu zaien santutasun-**ideia** bat, Jainkoagandik ez datorrena eta Jainkoa garbi bilatzen ez duena. Juan Martin Elexpuru

Komenigarritasun-**ideia** okerrak. Juan Martin Elexpuru

Morrontza-**ideiek** ez dute beren espirituetan lekurik izango, erlijio-izuek ez diete adorea nahastuko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ingalaterran bageunde edo Frantzian.... baina hemen... klan **ideia** oso barneratua dugu. Ana Urkiza

Genetistek ez dituzte nahikoa kontrastatu beren eugenesia-**ideiak** zientzialari ez direnekin. Juan Garzia

Pragmatismoaren eta indar-**ideien** iruzur txiki horiek guztiak. Josu Zabaleta

'Bizia'ren kontzeptua gako-**ideietako** bat da, bai Testamentu Zaharrean eta bai Berrian ere. Xabier Kintana

## 9 *ideiarik ere ez izan/eduki*

Guk **ideiarik** ere ez geneukan. **Ideiarik** ere ez dut. Ana Urkiza

-Ez dut **ideiarik** ere; nik uste baietz. Fernando Rey

Ez zuen **ideiarik** ere aita hila zuela. Xabier Olarra

Egoera hartatik nola aterako ziren **ideiarik** ere ez zuela. Josu Zabaleta

-Mutil horrek -esan zuen- politikaz **ideiarik** ere ez dik. Karlos Zabala

Ez dut **ideiarik** ere zer egiten ote duen Hannak gela honetatik kanpora. Joxe Austin Arrieta

Badira hiru urte inguru bazkari hartatik, eta **ideiarik** ere ez dut non ote dagoen. Oskar Arana

Ez daukat **ideiarik** ere zertan dabiltzan. Josu Landa

· -Bai zera! ez zeukaan **ideia** zorririk! Koldo Izagirre

-Ez daukat **ideia** arrastorik ere. Xabier Olarra

Ez zeukan puta **ideiarik** ere zoriontasun horren zergatiaz. Harkaitz Cano

· -Ezta **ideiarik** ere. Rafa Egiguren

-**Ideiarik** ere ez, Lar. Harkaitz Cano

Zergatik kontatu nion hura guztia, **ideiarik** ere ez. Joxe Austin Arrieta

Zer esan nuen, **ideiarik** ere ez. Joxe Austin Arrieta

## 10 *ideiarik ez izan/eduki*

Ez zuen inolako **ideiarik** ez espazioaz, ez tamainaz. adimena paper zuri bat da, inolako **ideiarik ez** duena. Xabier Olarra

Arrats hartan ze emanaldi ote zegoen **ideiarik ez** nuen arren. Joxe Austin Arrieta

Ez zuen, ez jolasaren **ideiarik,** ez arriskuaren zentzu normalik. Xabier Olarra

Ez dauka **ideiarik ez** nor den, ez non dagoen, ez nor garen. · **-Ideiarik ez** -erantzun zion Harryk. Iñaki Mendiguren

Zuk, **ideiarik ez,** ezta?, nik bezala orduan. Antton Olano

Eta nik **ideiarik ez,** soldaduska ere ez diat egin eta... Pako Aristi

**Ideiarik ez,** ideia zipitzik ere ez. Joxemari Iturralde

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

**absolutuaren ideia** (7); **antolatzeko ideia** (7); **arrazoimenaren ideia** (7); **azken ideia** (9); **bai ideia** (7); **baina ideia** (47); **baita ideia** (7); **bat egiteko ideia** (7); **bat ideia** (12); **batean ideia** (7); **baten ideia** (58); **bere ideia** (67); **beste ideia** (46); **beste ideia bat** (15); **beti ideia** (10); **bi ideia** (25); **buruan ideia** (13); **buruzko ideia** (26); **da ideia** (70); **da ideia txarra** (11); **dagoen ideia** (7); **delako ideia** (20); **den ideia** (34); **dira ideia** (8); **diren ideia** (21); **du ideia** (28); **duen ideia** (50); **dut ideia** (12); **duten ideia** (18); **edo ideia** (35); **edozein ideia** (11); **egiteko ideia** (32); **ere ideia** (21); **eta ideia** (209); **eta ideia bat** (9); **eta ideia berriak** (7); **eta ideia hori** (19); **ez da ideia** (23); **ez ideia** (8); **gauza baten ideia** (7); **gero ideia** (7); **giza gorputzaren ideia** (12); **gorputzaren ideia** (19); **gure ideia** (20); **hainbat ideia** (12); **halako ideia** (10); **haren ideia** (22); **hire ideia** (20); **hire ideia xelebre** (20); **hiru ideia** (7); **horren ideia** (19); **huen hire ideia** (20)

**ideia argi** (15); **ideia argi eta** (11); **ideia argiak** (7); **ideia argirik** (9); **ideia asko** (15); **ideia bakar** (8); **ideia bakarra** (16); **ideia bat** (265); **ideia bat besterik** (10); **ideia bat bururatu** (11); **ideia bat da** (15); **ideia bat izan** (11); **ideia batean** (7); **ideia batek** (28); **ideia baten** (37); **ideia batetik** (14); **ideia bati** (9); **ideia batzuen** (11); **ideia batzuk** (46); **ideia bera** (65); **ideia bera ere** (8); **ideia beraren** (8); **ideia bere** (8); **ideia berri** (28); **ideia berri bat** (9); **ideia berriak** (29); **ideia besterik** (10); **ideia besterik ez** (9); **ideia bikain** (7); **ideia bikaina** (17); **ideia bitxi** (17); **ideia da** (47); **ideia den** (9); **ideia duen** (8); **ideia edo** (42); **ideia edo ezagutza** (10); **ideia egoki** (9); **ideia egokia** (23); **ideia egokiak** (10); **ideia eman** (7); **ideia ere** (28); **ideia eta** (125); **ideia eta proiektu** (8); **ideia etorri** (8); **ideia ez** (43); **ideia ez da** (18); **ideia ezegokiak** (10); **ideia ezin** (8)

**ideia falta** (10); **ideia finko** (7); **ideia guztiak** (41); **ideia guztiek** (8); **ideia haiek** (12); **ideia hau** (72); **ideia hauek** (20); **ideia hoberik** (8); **ideia honek** (8); **ideia honen** (12); **ideia hori** (242); **ideia hori bera** (8); **ideia hori buruan** (7); **ideia hori ez** (7); **ideia horiek** (64); **ideia horien** (29); **ideia horrek** (55); **ideia horrekin** (27); **ideia horren** (45); **ideia horretan** (10); **ideia horretatik** (10); **ideia horri** (19); **ideia hura** (44); **ideia izan** (46); **ideia izan zen** (14); **ideia jakin** (10); **ideia nagusi** (18); **ideia nagusia** (26); **ideia nagusiak** (11); **ideia nahasiak** (8)

**ideia okerra** (7); **ideia on** (19); **ideia on bat** (13); **ideia ona** (100); **ideia ona da** (9); **ideia ona iruditu** (7); **ideia ona iruditzen** (10); **ideia ona izan** (15); **ideia onak** (8); **ideia orokor** (8); **ideia orokorrak** (8); **ideia oso** (18); **ideia polita** (12); **ideia politiko** (27); **ideia politikoak** (15); **ideia politikoen** (8); **ideia soil** (7); **ideia soila** (17); **ideia sortu** (11); **ideia transzendental** (13); **ideia transzendentala** (7); **ideia transzendentalak** (7); **ideia txarra** (38); **ideia xelebre** (24); **ideia xelebre horiekin** (20); **ideia zen** (9)

**izpirituaren ideia** (14); **izpirituaren ideia edo** (7); **jainkoaren ideia** (23); **naiz ideia** (8); **nire ideia** (18); **nuen ideia** (11); **oinarrizko ideia** (18); **orduan ideia** (8); **oso ideia** (45); **oso ideia ona** (16); **ren ideia** (9); **sortzeko ideia** (10); **zein ideia** (8); **zelako ideia** (11); **zen ideia** (35); **zenbait ideia** (16); **zer ideia** (9); **ziren ideia** (7); **zituen ideia** (8); **zitzaidan ideia** (19); **zitzaion ideia** (15); **zuen ideia** (43); **zure ideia** (10); **zuten ideia** (16)

**afekzioen ideiak** (15); **baten ideiak** (46); **baten ideiak lagun** (17); **bere ideiak** (56); **beren ideiak** (16); **buruzko ideiak** (14); **diren ideiak** (14); **dituen ideiak** (7); **eta ideiak** (72); **euren ideiak** (8); **gauza baten ideiak** (12); **gure ideiak** (21); **haien ideiak** (10); **haren ideiak** (17); **horren ideiak** (7); **ideiak argi** (18); **ideiak barne** (7); **ideiak dira** (9); **ideiak edo** (8); **ideiak ere** (16); **ideiak eta** (90); **ideiak ez** (41); **ideiak ez du** (11); **ideiak garbi** (14); **ideiak lagun** (27); **ideiak lagun daraman** (23); **ideiak modu** (7); **ideiak nola** (7); **ideiak oso** (7); **jainkoaren ideiak** (10); **kausa baten ideiak** (13); **nire ideiak** (22); **norberaren ideiak** (12); **ziren ideiak** (7); **zituen ideiak** (13); **zure ideiak** (10)

**afekzioen ideien** (7); **bere ideiekin** (12); **bere ideien** (13); **daukat ideiarik** (7); **duen ideiaren** (11); **dut ideiarik** (12); **dut ideiarik ere** (7); **eta ideiei** (7); **eta ideien** (31); **ez daukat ideiarik** (7); **ez dut ideiarik** (12); **ideiarekin bat** (8); **ideiaren arabera** (10); **ideiaren bat** (12); **ideiaren eta** (10); **ideiarik ere** (59); **ideiarik ere ez** (23); **ideiarik ez** (42); **ideiarik gabe** (24); **ideiaz aldatu** (8); **ideiek ere** (7); **ideiek eta** (8); **ideiek ez** (8); **ideiekin bat** (12); **ideien alde** (8); **ideien arabera** (8); **ideien artean** (10); **ideien arteko** (10); **ideien bitartez** (7); **ideien eta** (29); **ideien historiak** (11); **ideien historiaren** (9); **ideien ordena** (11); **ideien ordena eta** (7); **inolako ideiarik** (8)

---

# ideiagintza *iz* ideak sortzea.

Une haietan bazirudien haren ideiek barnerantz jotzen zutela, eta **ideiagintzaren** indarrak isiltzera bultzatzen zuela. Josu Zabaleta

---

**ideiakide** *iz* ideia berekoa.

Idazleak bere irakurle multzoaren aberkide, **ideiakide** eta talde bereko izan behar duela. Anjel Lertxundi

---

**ideiaño** *iz adkor* idea.

**Ideiaño** baten ukaiteko, 4 milioi Eurorekin HERRIAren hogei urtez biziaraztekoa baliteke. Herria

---

**ideiatxo** *iz pei* idea.

Tranpa egin eta zertxobait uzkurtu da, ezberdintasunaren **ideiatxoari** bultzada arin bat ematearren. Itziar Otegi

**Ideiatxo** estu eta sendoen zerbitzuan erabili zituen bere agintea eta [...] erudizio neurrigabea. Monika Etxebarria

---

**ideiaxka** *iz adkor* idea.

Baina Joanesen abenturen **ideiaxka** bat badu, orain. Eneko Bidegain

---

ideki ik **ireki[1]**.

---

**identifikagaitz** *izond* identifikatzen zaila.

Interesgunea bera, nolabait esateko, **identifikagaitz** bihurtzeraino. Jon Alonso

---

**identifikagarri** **1** *izond* identifika daitekeena.

Gainontzekoa -mahaiak, matrazeak, era guztietako gailuak...- **identifikagarria** zen, edo ia, gorputz ikaztuak, zipilduak eta ondo gardostuak gorabehera. Fernando Morillo

Naturaren transformazio (sozializazio) prozesuetan **identifikagarriak** diren ildo politiko-ekonomiko nagusien inertzia. Berria - Gaiak

**2** zerbait identifikatzen duena.

Abiapuntuko aireportuan ekipajeari jarri zioten txarteltxo **identifikagarria**. Berria - Kultura

---

**identifikatibo** *iz* zerbait identifikatzen duen gauza. ik **identifikagarri 2**.

Kolorea beti izan da **identifikatibo** erraza lehenago ere: txapelgorriak ziren karlistak, beltzak liberalak... Iñigo Aranbarri

---

**identifikatu**, identifika, identifikatzen **1** du *ad* nor, zein edo zer den jakin.

"Adiskide leiala" **identifikatu** gabe zeukaten oraindik. Jon Muñoz

Pelikuletan-eta lagun bat **identifikatzerik** nahi ez denean, itzal moduko batez difuminatzen da haren aurpegia. Anjel Lertxundi

Jonathanek, ahalegindu zen arren, ez zuen lortu musikaria **identifikatzea**. Jon Muñoz

Geometria lauarekin egin zuen bezala, espazioko izaki matematikoak **identifikatuko** ditu Euklidesek: solidoak: piramidea, prisma, konoa, zilindroa, eta esfera, jakina; eta horiez gainera, poliedro erregularrak ere bai. Jon Muñoz

Baina autismoa ez zen 1940ak arte **identifikatu,** eta ez zen termino bat, are gutxiago adigai bat, 1860etan. Xabier Olarra

**Identifikatu** ditugun hogeita zortzi zibilizazioetatik [...] hemezortzi hilda daude. Iñaki Mendiguren

**Identifikaturik** neuzkan ahots gehienak. Anjel Lertxundi

Giza genoma atalka **identifikatua** zuela. Pello Salaburu

Ezaugarri genetikoak **identifikatzeko** sistema garatu zuen. Berria - Gaiak

Txinan ustezko sei SARS kasu **identifikatu** dituzte. Berria - Gaiak

Teoriaren egitura **identifikatzeko** prozedura. Askoren artean

Kontzeptuek propietateak (alegia, predikatuen erreferentziak) **identifikatzeko** aurkezpen-moduak eskaini behar dituzte. Askoren artean

Lanaren nondik norakoa igartzen hasteko, puntu nagusiak **identifikatzeko,** loturak ikusteko, etab. giltza-kontzeptuek eta hitzek asko laguntzen dute. Askoren artean

**Identifikatu** ezin dudan zerbait gogorarazten dit usainak. Anjel Lertxundi

· Ez zuen bere "zer" hura Touretteren sindrometzat **identifikatu,** hogeita hamazazpi urte bete zituen arte. Xabier Olarra

• **2** da *ad* nor den esan.

Beltzez jantzita eta aurpegia mozorrotuta zeuden batzuk, baina inor ez zen **identifikatu;** ez nekien nortzuk ziren. Jokin Urain

• **3** da/du *ad (nortasun agiriaren bidez)*

Denok inongo arazorik gabe iritsi gara irratiaren atarira; ez gaituzte **identifikatu,** ez gaituzte katxeatu. Pako Aristi

Ertzaintza bertaratu eta, guztiak kanporatu eta **identifikatu** egin zituen. Berria - Euskal Herria

Hiru bidaiariak **identifikatu** zituzten agenteek, eta, ibilgailua miatu eta gero, CDen eta DVDen [...] kopia ilegalak ikusi zituzten zorro batzuen barruan. Iñigo Aranbarri

**Identifikatu** gabe iganarazi zuen atean zain zeukan komisario nagusiak. Koldo Izagirre

Gure buruak **identifikatzeko** agindu zigun bertan guardia egiten ari zen soldaduak. Anjel Lertxundi

**Identifikatzeko** eskatu zieten, eta gazteek leihotik eman zizkieten euren nortasun agiriak. Berria - Euskal Herria

Ertzainek eraikinetik kanpora irteteko agindu eta ikasleak atera egin ziren; **identifikatzeko** eskatu eta **identifikatu** ziren. Berria - Euskal Herria

Guardia zibilen aurrean **identifikatu** nahi ez izateagatik. Berria - Euskal Herria

**4** bat egin, berdin-berdintzat jo.

Menéndez Pelayorentzat *Volksgeist*a tradizioarekin **identifikatzen** da. Joxe Azurmendi

ETAren ideologiarekin bat egin, harekin **identifikatu**. Joseba Zulaika

Eta legea indartsuenarena zen baina gu, biolentziaren poetika hartan, derrigorrezko galtzaile ziren indioekin **identifikatzen** ginen. Joseba Sarrionandia

Beroa energia zinetikoarekin **identifikatzen** den moduan, gogoa garunaren egoera fisiko-kimikoein **identifikatu** behar da. Askoren artean

Minak, adibidez, klase natural bat osatuko ez balu, ezingo litzateke mina propietate fisiko partikular batekin **identifikatu** . Askoren artean

Ni, ostera, Tom-ekin gauza guztietan **identifikatzen** nintzen. Ana Urkiza

Euskal Herria Goierrirekin **identifikatzen** duenak liskarra besterik ez du sortuko, bai Baionan, bai Nafarroako Erriberan, eta bai Gasteizen. Bernardo Atxaga

Bada borondate arrazional eta instrumentala [...], eta beste bat emozionala eta afektuzkoa, herri, nazio, komunitate, leinu eta etniekin **identifikatzen** gaituena. Esteban Antxustegi

Egunkaria irakurtzerakoan ez al ditugu bilatzen intereseko albisteak, **identifikatuko** garen iritziak? Pako Aristi

Ez bide zen bere enpresarekin aski **identifikatua** . Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asko identifikatu** (3); **bat identifikatu** (13); **bat identifikatu du** (4); **bat identifikatu dute** (4); **batekin identifikatu** (6); **batzuk identifikatu** (6); **dena identifikatu** (3); **dena identifikatu eta** (3); **dezakeen genea identifikatu** (3); **ere identifikatu** (8); **eta identifikatu** (19); **etakide identifikatu** (4); **etakide identifikatu ditu** (4); **gaizki identifikatu** (3); **gazte identifikatu** (6); **gazte identifikatu eta** (3); **gazteak identifikatu** (4); **gehiago identifikatu** (3); **gene bat identifikatu** (3); **genea identifikatu** (7); **genea identifikatu dute** (5); **gorpua identifikatu** (4); **gorpuak identifikatu** (3); **guztiak identifikatu** (9); **guztiak identifikatu eta** (3); **guztiak identifikatu zituzten** (3); **horiek identifikatu** (7); **identifika daitezke** (3)

**identifikatu ahal** (16); **identifikatu ahal izan** (6); **identifikatu ahal izateko** (7); **identifikatu behar** (14); **identifikatu beharra** (4); **identifikatu da** (3); **identifikatu ditu** (10); **identifikatu dituzte** (22); **identifikatu du** (12); **identifikatu dute** (14); **identifikatu egin** (12); **identifikatu egin zituen** (4); **identifikatu egin zituzten** (4); **identifikatu eta** (52); **identifikatu ez** (7); **identifikatu ezin** (5); **identifikatu gabe** (11); **identifikatu gabeko** (6); **identifikatu izan** (3); **identifikatu nahi** (11); **identifikatu nahi izan** (6); **identifikatu nahian** (6); **identifikatu ondoren** (6); **identifikatu orduko** (3); **identifikatu ostean** (9); **identifikatu zen** (5); **identifikatu ziren** (6); **identifikatu zituen** (12); **identifikatu zituzten** (23); **identifikatu zuen** (13); **identifikatu zuten** (5)

**izenarekin identifikatu** (3); **kasu identifikatu** (3); **lagun identifikatu** (11); **lagun identifikatu zituen** (4); **lagun identifikatu zituzten** (5); **nola identifikatu** (3); **pertsona identifikatu** (6); **pertsona identifikatu dituzte** (3); **poliziak identifikatu** (4); **zela identifikatu** (3)

**apartekoak identifikatzeko** (3); **batzuk identifikatzeko** (4); **berriak identifikatzeko** (3); **eta identifikatzeko** (3); **gorpuak identifikatzeko** (7); **identifikatuak izan** (5); **identifikatuak izan dira** (3); **identifikatutako lagunen** (3); **identifikatzea da** (3); **identifikatzea ere** (3); **identifikatzea eta** (3); **identifikatzea izan** (3); **identifikatzea lortu** (4); **identifikatzeko asmoz** (3); **identifikatzeko ere** (4); **identifikatzeko eskatu** (15); **identifikatzeko eskatu zieten** (6); **identifikatzeko eta** (7); **identifikatzeko gai** (4); **identifikatzeko sistema** (5); **partaide identifikaturik** (3); **talentu apartekoak identifikatzeko** (3)

**batekin identifikatzen** (4); **gisa identifikatzen** (4); **identifikatzen da** (14); **identifikatzen den** (5); **identifikatzen diren** (3); **identifikatzen dituzte** (4); **identifikatzen du** (7); **identifikatzen dute** (4); **identifikatzen ez** (4); **identifikatzen hasi** (3); **identifikatzen naiz** (3); **identifikatzen saiatu** (3); **identifikatzen saiatzen** (4); **identifikatzen zuen** (3); **identifikatzen zuten** (3); **identifikatzera joan** (3; **jendea identifikatzen** (3); **pertsonaiarekin identifikatzen** (3)

---

# identifikazio **1** *iz* identifikatzea, nor, zein edo zer den jakitea.

Ondoren ertzainak, forenseak, epaitegiak, **identifikazioak…** Madame Rogêt, adina eta pena zirela-eta, ez zela **identifikaziora** joateko gai. Koro Navarro

Eskura ditugun informazio iturrien **identifikazioa** (liburutegiak, hemerotekak, Internet...). Askoren artean

[…] irakurtzen dugu, pasaportea besterik ez dagoenean hildakoen **identifikazioa** egiteko. Iñigo Aranbarri

Urte berean hasi ziren **identifikazio** genetikoak egiten. Pello Salaburu

**Identifikaziorako** aztarnak galaraztearren. Josu Landa

**2** bat egitea, berdin-berdintzat jotzea.

Erregearen, estatuaren eta soberaniaren jainkozko jatorriaren arteko **identifikazioak** bere baitan zekarren, orokorrean, boterea monarkaren eskuetan pilatzea. Juan Martin Elexpuru

Bere buruarekiko berehalako **identifikazioa,** bere umeekikoa. Xabier Olarra

Hainbesterainokoa izan zen Usandizagaren arrakasta eta herriak harekiko zuen **identifikazioa,** non donostiar herritarrek suhartasunez prestatu baitzuten musikariaren harrera. *Einfühlung* hau kanpoko munduarekiko zorionezko harreman bati legokioke **(identifikaziozko** harremana izango litzateke psikoanalista batentzat). Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

aldean zituen lantegiko mantala eta hango **identifikazio** -txartela. Xabier Olarra

Datu-basean informazio horrek duen **identifikazio** -zenbakia. Askoren artean

**Identifikazio-** eta adierazgarritasun-erregistro ongi ezagunekin jokatzen du batez ere, halakoetan, filmak. Josu Zabaleta

Narrazio-egitura ongi menderatuz **(identifikazio** -ikuspuntuak aldatuz, adibidez). Josu Zabaleta

Irudi orok topatzen du iruditeria, **identifikazio** -sareak eragiten ditu, eta ikusleak bere buruarekin ikusle begirale bezala duen identifikatzea eragiten du. Josu Zabaleta

Horren guztiaren aurrean, euskal irakurle askoren eta testuaren arteko **identifikazio** -arazoak aipatzen dira, itzulpenei eta itzultzaileei egotziz hiztun komunitatearena den defizita: ez dago euskararen alde, erdaren alde baino, egunero irakurtzen dugunaren batez bestekoa. Anjel Lertxundi

Oinarri-oinarriko kontraesan bat sortzen da horretatik, narraziozko film klasikoan, eskotofiliaren mugarik gabeko jokoaren [...] eta **identifikazio** jokoaren artean. Josu Zabaleta

Eta halakoa zen testua, bihotz-tiratuetara eta **identifikazio** nahira emana beste ezeren gainetik. Iñigo Aranbarri

Ezkutuan irakurritako liburu haiek sekulako emozioz irakurri nituen, eta **identifikazio** maila osoa sentitzen nuen pertsonaiekiko. Ana Urkiza

Baina **identifikazio** maila horrek atzeraka eragin zidan. Ana Urkiza

Imitaziozko artea, naturalista [...] munduarekiko enpatiazko **identifikazio** -harreman horretan oinarritzen da. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Proiekzio- **identifikazioak** . Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko identifikazio** (3); **eta identifikazio** (7); **identifikazio hori** (6); **identifikazio maila** (6); **identifikazio txartela** (4); **identifikazio zenbakia** (4); **identifikazioa eskatu** (3); **identifikazioa eta** (3); **talde identifikazio** (3)

---

# identiko *izond* berdin-berdina.

Biki **identikoak** edo monozigotikoek, hots obulu bakar batetik datozenek, informazio genetiko berdina daukate. Berria - Gaiak

Nire nortasun **identikoaren** determinazioak. Ibon Uribarri

Judizio **identiko** batean predikatua ezeztatu eta subjektua gordetzen badut, orduan kontraesan bat sortzen da. Ibon Uribarri

Hau nire izatearen eraz ezer ere argitzen ez duen esakune **identikoa** da. Ibon Uribarri

Hemen ez da kontsideratzen ea errepresentazioak berak **identikoak** diren eta bata bestearen bitartez analitikoki pentsa daitekeen. Ibon Uribarri

Estatua ez zaio gizabanakoari kanpotiarra, baizik barne-barnetarra, intimoa, bere buruaren **identikoa,** bere kontzientzia, bere arima. Joxe Azurmendi

Zenbaki-identitatea izanik errepresentatu behar dena ezin da **identikoa** balitz bezala pentsatu datu enpirikoen bitartez. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**identikoa da** (5)

---

# identikoki *adlag* era identikoan.

Denboran izateaz dudan kontzientzia, beraz, **identikoki** loturik dago nigandik kanpoko zerbaitekin dudan hartuemanaren kontzientziarekin. Ibon Uribarri

## identikotasun *iz* identikoa izateko nolakotasuna.

Neurri berdinik ezean, berdintasun printzipioa **identikotasun** printzipio bihurtuz endekatu zenean, orduan sartu zen demagogia. Josu Zabaleta

## identitario *izond* identitateari dagokiona. ik **identitate 3**.

Gizabanakoa, giza taldea eta kultura; giza talde **identitarioa** (herria, nazioa, aberria). Berria - Kultura

Batera-ren sorrerarekin, departamenduaren aldeko eskaerari osagai politikoa eta **identitarioa** gehitu zaizkio. Berria - Euskal Herria

Argumentu unibertsalistetan, liberaletan eta utilitarioetan oinarritutako independentzia, ez argumentu **identitarioetan** . urrun dagoela ideologia **identitariotik** eta bortizkeriaren bidez adierazten diren eskaera burrunbatsuetarik. Joseba Zulaika

Euskadiren defentsa egitea, baina «gizarte kohesiotik eta ez gatazka **identitario** batetik». Berria - Euskal Herria

Euskal herritarren aniztasun ideologiko eta **identitarioa** mespretxatuz. Berria - Euskal Herria

Katolikoak/protestanteak bloke **identitarioak** deuseztatzea. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eta identitarioa** (3)

## identitate 1 *iz* nor izateko zertzelada.

Pertsonaren **identitatea,** beraz, ezinbestean aurkitzen da nire kontzientzia propioan. Ibon Uribarri

**Identitatearen** arazoa ez du nazionalismoak asmatu. Joxe Azurmendi

**Identitatea** izatea funtsezkoa da; **identitaterik** gabe ez gara ez pertsona ez herri; **identitaterik** gabe fantasmak besterik ez gara. Berria - Euskal Herria

Hitz batean, beren ondasuna zeukaten, alde batetik **identitatea** ematen ziena eta, bestetik, gainerakoengandik bereizten zituena. Bernardo Atxaga

Hiria **identitateak** sortzeko eta asmatzeko aukera modura. Berria - Kultura

Giza sexualitatearen barruan hainbat **identitate,** desio eta nahi daudela. Luis Elberdin

Herrien **identitatea** defendatu beharra aldarrikatu du. Berria - Euskal Herria

Europako **identitateez** zerbait jakin guran. Edorta Jimenez

70eko hamarkadako belaunaldiaren **identitateaz** mintzo da. Berria - Kultura

Munduan diren **identitate** edo fede nazional guztien kontra. Iñaki Segurola

Inoiz bukatzen ez den prozesua da **identitatearena** . Joseba Zulaika

**2** gauza identikoen arteko erlazioa.

*Gogo-burmuin* banakako **identitatea** ("token-token identity" edo "token-token physicalism") erabat fisikoa dela. Askoren artean

Predikatuak subjektuarekin **identitatezko** elkarlotura duenean. Ibon Uribarri

Hizkuntza mekanismoa, oso-osorik, desberdintasun eta **identitateen** inguruan gauzatzen da. Isabel Arrigain

**Identitate** bat dago, bi perpausetan hurrenez hurreneko hotsen multzo zati berdinek [...] esanahi berbera dutelako. Isabel Arrigain

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **identitario.**

Europan ere **identitate** sentimentua areagotu beharra aldarrikatu zuen. ikastolok ditugun helburuei, **identitate** ezaugarriei, elkarlanari eta autonomiari. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko sindikalismoa **identitate** krisi sakon batean dago. Berria - Euskal Herria

Kolektibo baztertu edo gutxituek badakite, jakin, **identitate** -zantzuak bereganatzeko lehenengotariko gauza dela ahots propioa izatea. Berria - Kultura

Estatuaren **identitate** -aniztasunean aurrera egin ahal izateko legea. Berria - Kirola

Haren egoaren parte baten baliogabetze edo atzera-pausoa; **identitate** -uko txikitzaile eta ezereztailea, alegia. Xabier Olarra

Bai (1) eta bai (2), pertsona berari buruzko **identitate** -perpausak dira. Askoren artean

Multzoek **identitate** -irizpide garbia dute, unibertsalek ez bezala: A eta B multzo bera dira elementu berak baldin badituzte. Askoren artean

Objektu batek bere buruarekin duen **identitate** -erlazioa. Askoren artean

**Identitate** teoriaren sortzaileek [...] hau proposatzen dute: beroa energia zinetikoarekin identifikatzen den moduan, gogoa garunaren egoera fisiko-kimikoekin identifikatu behar da. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Erdaraz pentsatutako eta mamitutako herri-**identitatearen** garapena. Berria - Euskal Herria

Europan dauden nazio **identitate** guztiak. Berria - Euskal Herria

Talde **identitate** euskalduna, espainola edo nafarra dutenei eginikoa da eskaintza. Berria - Euskal Herria

Genero-**identitatearen** eta ideologiaren arteko harremanak. Berria - Kultura

Sexu **identitatea** «ez dago biologiaren esku soilik». Berria - Gaiak

Beste guztiak pott egiten duenean, hondar-**identitate** hori da geratzen dena. Joseba Zulaika

Zenbaki-**identitatea** izanik errepresentatu behar dena ezin da identikoa balitz bezala pentsatu datu enpirikoen bitartez. Ibon Uribarri

**5** ***ez-identitate***

Urruntzeak, ez-**identitateak,** jarraitasunik gabeko sailak, hutsuneak. Xabier Arregi

Objektu horien ez-**identitatea** . Xabier Arregi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arteko identitate** (4); **arteko identitatea** (4); **baten identitatea** (3); **bere identitate** (4); **bere identitatea** (18); **beren identitatea** (4); **da identitatea** (3); **diren identitate** (3); **edo identitate** (3); **ere identitate** (3); **eta euskal identitatea** (6); **eta identitate** (17); **eta identitatea** (11); **euren identitatea** (4); **europako identitatea** (3); **euskal identitate** (8); **euskal identitatea** (16); **gure identitatea** (7); **haren identitate** (3); **herrien identitatea** (4); **identitate arazo** (3); **identitate arazoak** (3); **identitate arazorik** (4); **identitate bat** (9); **identitate edo** (3); **identitate eta** (11); **identitate hau** (3); **identitate hori** (8); **identitate krisia** (7); **identitate nazional** (3); **identitate osoa** (4); **identitate sinkroniko** (3); **identitate soziokulturala** (4); **identitatea eta** (20); **identitatea ez** (9); **identitatea ez da** (6); **identitatea mantenduz** (3); **norberaren identitatea** (3); **sexu identitatea** (7); **sexu identitatea ez** (3); **zenbaki identitatea** (5); **zure identitate** (5)
>
> **bere identitatearen** (4); **bere identitateari** (3); **buruarekiko identitatearen** (4); **eta identitateen** (6); **euskal identitatearen** (5); **gure identitateak** (3); **herri identitatearen** (3); **identitateak eta** (3); **identitatearen arazoa** (3); **identitatearen arazorik** (4); **identitatearen eta** (3); **identitatearen gaineko** (3); **identitatearen teoriak** (3); **identitateari buruz** (4); **identitateari eta** (3); **identitateaz hitz** (5); **identitateaz hitz egiteko** (3); **identitateen inguruan** (3); **identitaterik gabe** (3); **ikustun identitatearen** (3); **norbere buruarekiko identitatearen** (4)

## ideografiko *izond* idazkeraz mintzatuz, ideak edo adigaiak zuzenean ikurren bidez ematen dituena.

Idazkera **ideografikoak** erraz bilakatzen dira bitariko: ideograma batzuek, esaterako, hasieran zuten balioaz arindurik, hots bakartuak irudikatu ohi dituzte azkenean. hori, bi idazkera sistemetan -bai sistema **ideografikoan,** bai fonetikoan ere- gertatu ohi da. Isabel Arrigain

Hitz honen irudiak, beraz, balio **ideografikoa** hartzen du guretzat. Isabel Arrigain

**ideograma** *(orobat* ***idiograma****)* *iz* hitz baten adiera, ez hotsa, adierazten duen ikur grafikoa.

Txinatar **ideogramak**. Ramuntxo Etxeberri

Denden neonezko **ideogramez** josi abisu ugariak. Ramuntxo Etxeberri

Beraren izenaren **ideograma** zein zen galdetu nion. Joxan Elosegi

Langileen izen-deituren **ideogramak**. Joxan Elosegi

Helbide gehienak **ideogrametan** zehaztuak baitziren. Joxan Elosegi

Idazkera ideografikoak erraz bilakatzen dira bitariko: **ideograma** batzuek, esaterako, hasieran zuten balioaz arindurik, hots bakartuak irudikatu ohi dituzte azkenean. Isabel Arrigain

Hartara, beren takigrafia propioa garatzen dute, beren hieroglifo, **ideograma,** piktograma sistema. Iñaki Iñurrieta

Kaligrafiatu nituen **ideograma** hauek eskaintzen dizkizut. Itxaro Borda

Horra euskal **idiograma** bat, bizitza modernorako egokitzapen ederra. Iñigo Aranbarri

---

ideolekto ik **idiolekto**.

---

**ideologia** **1** *iz* garai, gizarte, talde edo klase baten ideen eta usteen multzoa. ik**doktrina**.

**Ideologiaren** eragin ahaltsua. Josu Zabaleta

Lan artistikoetan **ideologia,** edukietan ez ezik, formaren eta teknikaren mailan ere bideratzen dela. Josu Zabaleta

Barkamena ez da beretzat jarrera bat, **ideologia** bat, pentsaera bat, baizik eta istant batean gertatzen den eta gero desagertzen den gertakaria da. Joseba Zulaika

Euskarak **ideologia** guztietako jendea behar du. Pello Salaburu

Borrokaren **ideologiaren** sareetan gatibu. Itxaro Borda

Liberalismo ekonomikoaren **ideologian** oinarri hartuz. Iñaki Heras

Merkatu askearen **ideologia** ez dela zaharkituriko ongizate korporatiboaren mozorro xume bat. Iñaki Heras

Terroristek hilketak justifikatzen dituen **ideologia** bultzatzen dute. Berria - Mundua

Nagusi den **ideologiak** dio zer den normala eta zer desbideratze sexuala. Luis Elberdin

Izan ere, Lyssenkorentzat, benetako eztabaida ez zen zientziaren mailakoa, **ideologiaren** mailakoa baizik. Juan Garzia

Sobietar Gizabanako batek beste gizabanako baten aurrean erakusten duen ontasun hau lekukorik gabeko ontasuna da, **ideologiarik** gabeko ontasun txikia. Felipe Juaristi

Azken batean zinema josteta hustzat dugulako, **ideologiarik** gabeko territorio libretzat. Iñigo Aranbarri

Ohiturek, tradizioek, erlijioek, **ideologiek** nahiz sistema politiko eta ekonomikoek ezin dute diskriminazioa justifikatu. Berria - Harian

Bada jenderik aipatu interes horiek gidatuta baino, onerako nahiz txarrerako, ideiek edo **ideologiek** gidatuta dirudienik. Iñaki Heras

Pentsamolde bakarra, **ideologien** kontrola eta desinformazioaren espiritu itogarriak haizatzea. Berria - Kultura

[Pasolini] izan zen **ideologien** krisia lehenengo sumatu zuenetakoa. Josu Zabaleta

Sexu, arraza, erlijio, hizkuntza eta **ideologien** gainetik. Berria - Harian

Batasunean, **ideologiak ideologia,** fisika kapitalista hura ezinbestekoa zuten. Fernando Morillo

**2** (izenondoekin)

Globalizazioaren mitoak indartu egiten du **ideologia** neoliberala. Iñaki Heras

**Ideologia** burgesaren erabateko morroi. Josu Zabaleta

**Ideologia** nagusien kontra. Josu Zabaleta

Urrun dagoela **ideologia** identitariotik eta bortizkeriaren bidez adierazten diren eskaera burrunbatsuetarik. Aurelia Arkotxa

Nolabaiteko paradisu lurtar bat **ideologia** sekular gehienen helburua baitzen. Iñaki Mendiguren

**Ideologia** abertzale hertsi bezain larderiatsua kraskatzen denean. Itxaro Borda

**Ideologia** espresionistak dakarren gauza berria irudikapenaz haranztiko zerbait badagoelako ideia da. Josu Zabaleta

Zinema oso nabarmen ari da **ideologia** nagusia zabaltzen, hau da, klase nagusiaren ideologia. Luis Elberdin

Ez zait iruditzen **ideologia** argirik zuenik, politika-kontuak ere ez zitzaizkion interesatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat**ideologi** g.er.) ik **ideologiko**.

Hegemoniaren kontzeptua **ideologia**-nagusitasunaren mekanismoak aztertzen saiatzen da. Koro Navarro

**Ideologia** askatasuna ere urratzen dutela. Berria - Euskal Herria

Askapen ekonomiko horren ondoren berehala iritsi zen gizarte- eta politika-askapena, Mendebaldeko Kristandadean garai hartan zeuden erlijio eta **ideologi** iraultzen ondorio zena. Iñaki Mendiguren

Azkenaldiotan, AEBetan **ideologia**-ekoizle huts-hutsak diren hainbat institutu zabaldu dira. Txema Ramirez de la Piscina

Orain arte emandakoak, arrazoi objektiboak dira gainera, ez baitugu uste inolako **ideologia** kutsurik dutenik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bi sektore horien arteko **ideologia** banaketa geroz eta nabarmenagoa da. Berria - Euskal Herria

Nafarroa Bai euskal nazionalismoak Nafarroarekiko duen erruduntasun konplexutik dator, bizi izan duten **ideologia** aldaketatik. Berria - Euskal Herria

Kontra-erreformatzaileen eta **ideologia** aldetiko egokitzaile ankerren aurka borrokatzen. Itxaro Borda

Edozein **ideologia** edo politika ikuspegitatik. Ospakizunak **ideologia** eta talde atxikimenduen gainetik egon beharko lukeela iritzi dio. Iñaki Heras

Besteak beste, elkartze, manifestazio, askatasun, parte-hartze eta **ideologia** eskubideak daude jokoan. Berria - Harian

Iztuetak bere ideologia bereko funtzionarioak nahi ditu, eta hau, **ideologia** garbitze prozesu baten barruan kokatu behar dugu. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zer den hizkuntza bateko tradizioa eta zer literatur **ideologia**. Anjel Lertxundi

George Bushen marine-en eraso-**ideologia**. Berria - Kultura

Espainiako nazionalismoaren masa **ideologia** antikatalanismoa da. Berria - Mundua

Pareko artalde-**ideologiak** ditugu, azken finean. Iñaki Heras

**5** ***ideologiazko***

Propagandarako, informaziorako, erlijio-asmoetarako, **ideologiazko** asmoetarako oro har. Josu Zabaleta

Irudien errepikatze itxuraz infinitua, haien zirkulazio oparoa, haien **ideologiazko** karga, haien eragina. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere ideologia** (15); **da ideologia** (6); **den ideologia** (3); **dira ideologia** (4); **dituen ideologia** (3); **du ideologia** (5); **edo ideologia** (8); **edozein ideologia** (3); **eta ideologia** (47); **eta ideologia askotako** (3); **eta ideologia eta** (6); **euskal ideologia** (4); **gure ideologia** (3); **ideologia aldetik** (3); **ideologia arrazista** (5); **ideologia askatasuna** (5); **ideologia askotako** (5); **ideologia bat** (13); **ideologia baten** (18); **ideologia baten arabera** (3); **ideologia bati** (4); **ideologia berriak** (3); **ideologia desberdinak** (3); **ideologia edo** (8); **ideologia eta** (36); **ideologia ez** (5); **ideologia guztiak** (4); **ideologia guztien** (3); **ideologia guztietako** (6); **ideologia hau** (3); **ideologia hori** (8); **ideologia horrek** (7); **ideologia horren** (3); **ideologia jakin** (8); **ideologia jakin baten** (3); **ideologia nazionalistaren** (4); **ideologia politiko** (3); **ideologia politikoa** (5);

**ideologia politikoagatik** (3); **ideologiak ideologia** (3); **mendebaldeko ideologia** (3); **zen ideologia** (3); **zer ideologia** (3)
**bere ideologiaren** (4); **den ideologiak** (3); **den ideologiak** (3); **dira ideologiak** (5); **dira ideologiak** (5); **eta ideologiak** (4); **eta ideologiak** (4); **eta ideologiaren** (9); **eta ideologiaz** (4); **eta ideologien** (3); **gure ideologiaren** (3); **ideologiak eta** (3); **ideologiak eta** (3); **ideologiak ideologia** (3); **ideologiak ideologia** (3); **ideologiarekin bat** (5); **ideologiarekin ere** (3); **ideologiarekin zerikusirik** (3); **ideologiaren aldetik** (3); **ideologiaren arabera** (3); **ideologiaren inguruan** (3); **ideologiarik gabeko** (4); **ideologien gainetik** (8)

---

# ideologiko **1** *izond* ideologiari dagokiona. ik **ideologia 2.**

Erakunde iraultzaile baten oinarri politiko eta **ideologikoak**. Rafa Egiguren

Bizitzari aurpegia erakusteko dituzten trepeta psikologikoak eta **ideologikoak**. Anjel Lertxundi

Kritika **ideologikoa** egiteko asmoz. Josu Zabaleta

Borroka **ideologikoa** bideratzeko. Rafa Egiguren

Eztabaidatu beharreko alderdi **ideologiko** eta politikoak. Rafa Egiguren

Ezin dira aukera **ideologikoak** kriminalizatu. Berria - Euskal Herria

Irudiak ikustea era askotako eragileak dituen testuinguru batean gertatzen da egiaz: gizarte testuingurua, erakunde testuingurua, testuinguru teknikoa, testuinguru **ideologikoa**. Josu Zabaleta

Gure artean dagoen aniztasun **ideologikotik** abiatuta. Berria - Euskal Herria

Aurreiritzi **ideologiko** eta estetikoetan oinarriturik. Iñaki Heras

Motibazio **ideologikoek** bultzaturik. Josu Zabaleta

Zama **ideologiko** handia du nobelak. Berria - Kultura

Plano **ideologikoan** hausnarketa gai interesgarria plazaratzen du obrak. Berria - Kultura

Liburu bakoitzaren maila intelektualari gehiago begiratzen diona adskripzio **ideologikoari** baino... Anjel Lertxundi

Hitzaurreak bi zati ditu ongi bereiziak: lehenengoan (1-2), liburu osoaren eduki **ideologikoaren** laburbilduma trinkoa eskaintzen du egileak. Askoren artean

[Elizak] euskarri **ideologikoa** eman die beti zanpatzaileei. Rafa Egiguren

Zinemaren eragin **ideologikoei** buruz. Josu Zabaleta

Mendebaldearen useltze **ideologiko** horrek sentimendu bikoitza pizten zidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Margolan baten ikuspena batez ere eragile sozio-**ideologikoek** determinatzen dutenez [...]. Josu Zabaleta

Halaxe zabaldu zen lesbianismo **ideologiko** bat, iraultza feminista gisa, gizonak erabat baztertzeko mehatxua eginez. Juan Kruz Igerabide

Eleberria erabat **ideologikoa** da, batez ere azken atala. Berria - Kultura

Politikariek morfina **ideologikoa** ematen digute, sufritu ez dezagun, traba ez ditzagun, betiko tresna gera gaitezen. Ana Urkiza

**2** ideologia baten mende ari dena.

Idazle **ideologikoak** atsegin ez dituela dioenak, sakonean, ideologia jakin bateko idazleak gaitzetsi nahi ditu soil-soilik. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi ideologiko** (3); **arrazoi ideologiko** (5); **arrazoi ideologikoak** (5); **arrazoi ideologikoengatik** (3); **asmo ideologiko** (3); **aurreiritzi ideologiko** (3); **bilakaera ideologikoa** (4); **borroka ideologikoa** (4); **edo ideologikoak** (3); **eredu ideologiko** (3); **eta ideologiko** (4); **eta ideologikoa** (8); **eta ideologikoak** (4); **eta ideologikoen** (7); **eztabaida ideologikoa** (3); **helburu ideologiko** (3); **ideologiko bat** (7); **ideologiko edo** (7); **ideologiko eta** (21); **ideologiko handia** (3); **ideologiko hori** (3); **ideologikoa da** (8); **ideologikoa dago** (3); **ideologikoa egiteko** (3); **ideologikoa ere** (3); **ideologikoa eta** (7); **ideologikoak ere** (3); **ideologikoen arabera** (3); **jarrera ideologiko** (4); **oinarri ideologiko** (4); **oinarri ideologikoak** (7); **politiko eta ideologikoen** (3); **politiko ideologikoa** (5)

---

# ideologikoki *adlag* ideologiaren aldetik.

Luzeak eta laburrak bereizi dituzte, umeenak eta nagusienak, iraganekoak eta oraingoak, bertakoak eta kanpokoak, **ideologikoki** zuzenak direnak eta ez direnak. Bernardo Atxaga

Gehiegizkotzat hartu izan da maiz, XX. mendean, lotura edo berdintza hori, eta **ideologikoki** arriskugarritzat. Josu Zabaleta

**Ideologikoki** markatua. Josu Zabaleta

Nik arazoak ditut **ideologikoki** gizarte honetan kokatzeko. Berria - Kultura

Populua **ideologikoki** menderatzen zuen jauntxo eliztarraren botere zapaltzailea. Itxaro Borda

**Ideologikoki** kiratsa ez balerio, gizon portatu nahi nuela erranen nuke. Aingeru Epaltza

Sartrek zioen politikoki marxista zela baina **ideologikoki** ez. Berria - Kultura

**Ideologikoki,** lurraldetasuna ezker abertzaleak sortu duen hitz bat da. Ana Urkiza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta ideologikoki** (4)

---

# ideologizatu, ideologiza, ideologizatzen **1** du *ad* ideologiaz hornitu.

Proiektuak kultura **«ideologizatzen»** du, Fernando Maura PPko ordezkariaren ustez, eta baditu «izaera autoritarioa duten politikak». Berria - Kultura

**2** (era burutua izenondo gisa)

Euskal sistemak kolera eta herra hori garraiatzen du, literaturaren, eskolaren (Estatuek egiten duten maneran, biktimen aldeko historia **ideologizatua** irakasten da) eta oro har, kulturaren bidez (jo ta ke irabazi arte). Itxaro Borda

Latinoamerikako antzerkia oso **ideologizatua** egon da, eta orain aniztasuna ezaugarri funtsezkoa da, baina kezkak dituen antzerkia eta bizitzaren inguruko gogoeta etikoa ahaztu gabe. Berria - Kultura

---

# ideologizazio *iz* ideologizatzea.

Horretarako, langileriaren **«ideologizazioa»** eta «herrien subiranotasuna berreskuratzea» derrigorrezko jo dituzte. Berria - Ekonomia

Bai, baina **ideologizazio-prozesua** baino lehenagoko bi pertsonaia horiek gatz gabeak dira, ez dute arketipo bihurtzeko ez bokaziorik, ez aukerarik, ez gorputzik. Anjel Lertxundi

---

# ideologo *iz* ideologia bat sortzen duen pertsona; ideologia baten alde teorikoaz aritzen den pertsona.

Inkisizioaren azken **ideologoa**. Koldo Izagirre

ETAren **«ideologo** nagusia» izan zela. Berria - Euskal Herria

Al Kaedako **ideologotzat** jotzen dute Al Zauahri. Berria - Mundua

Hamasen **ideologo** gehienak ez dira palestinarrak. Berria - Mundua

Jean-Jacques Rousseau da burges pedagogiaren **ideologoa**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Athenaiko demokrazia erradikalarentzat heroi eta **ideologo** handia izan zen Periklesek [...] oinarri sofistiko nabarmenak erakusten ditu bere pentsaeran.. Askoren artean

**Ideologoek** horrelako jendeak maite eta militante suhar deitzen dituzte. Itxaro Borda

Athenaiko demokrazia erradikalarentzat heroi eta **ideologo** handia izan zen Periklesek. Askoren artean

Biktima naiz, erruduna naiz, Arestik nahi zuen Gazteria Tristeko **ideologo** zahartua naiz. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ideologo** (3); **ideologo nagusia** (3)

---

**idi** 1 *iz* abelgorri ar heldu zikiratua, lanerako erabiltzen edo haragitarako hazten dena.

Lurra lantzen dizueten **idi** eta astoek belar gozoa izango dute jateko. Elizen arteko biblia

Laneko **idi** eta behiak ferratzen zituen. Herria

Probetarako **idiak** bezala eramaten zuten Joxan herri batetik bestera. Paddy Rekalde

*ik beherago* 12. Askoren artean

Jose eta neskamea, sokatik **idi** bat zutela. Patxi Altuna

Bizkaiko orga ttipia esan nahi dut, bi **idi** eta bi gurpil sendokoa. Koldo Izagirre

Egiten al du basastoak arrantza belarraren aurrean, edo **idiak** marruma zer janik baldin badu? Elizen arteko biblia

Berehalaxe **idiak** askatu zituen. Askoren artean

Martinek, bada, **idia** larrutzea erabaki zuen. Askoren artean

Konfiantza osoz **idia** zaintzeko gomendatu zion. Askoren artean

Orduan, baserriko **idiak** uztarrian, arropak, aferak eta dotea osatzen zuen oihaleria osoa orgetan garraiatu zioten. Itxaro Borda

*ik beherago* 15.

Itzainak, uztarriko **idiak** askatuta, beren gisara utzi zituen. Patxi Ezkiaga

Saiheskariak gara asko: hala esaten zaio nekez uztar litekeen **idiari,** uztarkidearekin batean ibili nahi ez duenari. Iñaki Segurola

**Idiak** goldean ari ziren eta astemeak inguruan larrean. Elizen arteko biblia

Golda ote lezakete itsasoa **idiek**? Elizen arteko biblia

Non-nahi ikusten ditugu gainera, Erroman ere, han-hemenka lasterkatzen, zezenak, **idiak** eta betizuak, adar eta hankak soka luzez loturik eta jendez beteak diren karriken erdian iragaiten. Piarres Xarriton

**Idiek** 1.750 kiloko harria erabiliko dute.

**Idien** azpiak aldatuta sukaldeko beharretan hasia zela, arrantza entzun zuen Azkaratek. Koldo Izagirre

**Idiaren** zainez egindako zartailuz zigorkatu zituen erregeak. Elizen arteko biblia

*ik beherago* 16. Askoren artean

**2** (izenondoekin)

Mendi urruna ketan, eta marruka **idi** gorria... Patziku Perurena

Nire andereari begi bitxiak, tortotxaren kukusagar bihurturik utzi dizkiozue; urre-urrezko adatsa, **idi** gorriztaren isats-ile. Patxi Ezkiaga

**Idi** beilegiek mugimendu nagi eta astunak egingo zituzten itsasbazterreko bidetik behera Ondarroarantz. Joseba Sarrionandia

Gorriz tindatzen dituzten ahuntz, behi, ufa, **idi** basa edo adar-bakarren larruak. Aurelia Arkotxa

Baina **idia** adarkaria zela jakin eta jabeak zaindu ez badu, hildako idiaren jabeari **idi** bizia emango dio hildakoaren ordain, berak hildakoa hartuz. Elizen arteko biblia

Astiki ziharduen, egunero legez, ahokada bakoitza ahoan gozatuz, **idi** hausnarti baten gisara. Aingeru Epaltza

Hamar **idi** gizen eta hogei **idi** larreko. Elizen arteko biblia

Ardi, **idi** eta zekor gizenduak hil zituen. Jose Antonio Mujika

Zergatik dago lurrean zure **idi** sakratu hori? Elizen arteko biblia

Sasian sartu zen **idi** izutu dohakabe bat. Koldo Izagirre

Artiledun aziendak eta **idi** adar-haundiak. Xabier Amuriza

Arabar ardoaz maneiatutako **idi** erregosia. Joxean Sagaztizabal

Beti aintzinean irabazleak Eugi bezain zorrotz eta zainart, Goñi III **idi** zohitua bezain langile segurra. Herria

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zenbatu ahalako ardi eta **idi**-multzo handia eskaini zuten opari. Elizen arteko biblia

Badago idolo sabelandi bat, **idi** muturra du eta lepokoa, eta beso lodi motz pare bi. Koldo Izagirre

**Idi** bihotz trinkoak gurditik lurrera jaisten zituzten. *ik beherago* 6. Karlos Zabala

**Idi** birikak handizka saltzen. Karlos Zabala

**Idi**-buztanaren zopa hartzeko. Anton Garikano

**Idi** buztana eta arroza Afrikar moduan. Herria

Irlandatik **idi**-haragia, kanta askorekin batera. Felipe Juaristi

Inoiz ezin jakin **idi** txuletak edo guraso baten saiheskiak jaten ari garen. Patziku Perurena

Masailak **idi** xerrak bezalakoak dituzten pertsona odoltsu horietakoa baitzen. Ramon Saizarbitoria

Ondotik **idi** mihikiaren aldi. Herria

Salda, **idi** errakia jusean, lur sagarrak, gasna, biskotxa eta kafea. Herria

Hartu **idi**-hanka bat, eta Ulisesi bota zion. Juan Kruz Igerabide

Oroituko duk, noski, haren **idi**-soina! Jon Muñoz

Arkume osoak ere baziren han, eta **idi** laurdenak. Karlos Zabala

**Idi** kasta adarmotzari horrengatik ez zaizkiola hazten adarrak. Patziku Perurena

· Badu 8 urte orain Baionan Hauste egunean, **idi** gizen erakusketa bat egiten duela Euskal Herriko eta Landesetako harakinen elkarteak. Bernardo Atxaga

**3a** (izenondo gisa)

Franz **idi**-lepoak maletako hesgailuak trakeski itxi eta bere kide meheari luzatu zion. Alberto Ladron Arana

**4** ***gurdia idien aurrean/aurretik jarri*** ik beherago **19.**

Gurdia **idien** aurretik jartzea bezalakoa baitzen halako erabaki bat hartzea. Joan Mari Irigoien

Hau da, gurdia **idien** aurrean jartzeko joera dugu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**5** ***idi begi***

Tapiatu egin dira ojibak, eta **idi** begi estu bat besterik ez dute utzi bakoitzaren erdian. atso txikia gora zihoala zirudien, solairuz solairu zebilela, kristalezko zuloetatik pasatuz, txapitulen **idi** begietaraino iritsi arte. Koldo Izagirre

Badaki bakarrik dagoela, eta ziega-dendaren kanpoaldean sumatzen dituen oinotsak, ateko **idi**-begitik so dauzkan begiak bere tribu-kidearenak ez direla. Jokin Urain

Ezkerraldean, erloju erabat urreztatu bat bazen, **idi** begi baten antzekoa. Karlos Zabala

Nik segituan askatu nituen **idi** -begiko torlojuak, aire gehiago sar zedin. Joxe Austin Arrieta

### 6 *idi-bihotz* tulipa.

**Idi-bihotz** gorri biziak etxearen muga-ertzen inguruan landatuak. Oskar Arana

**Idi bihotz** trinkoak gurditik lurrera jaisten zituzten, kanpai isil bat kanpandorretik bezala. Karlos Zabala

Altzifreak, **idi-bihotz** arbolak, lizarrak eta palmondo nanoak burumakur zeuden, bost eguneko euriaren eta haizerik ezaren ondoren. Anton Garikano

### 7 *idi dema* (*4 esaldi 4 artikulutan*) idi proba

*ik beherago* 12. Askoren artean

Ostiralean **idi** dema jokatu zuten Aian, eta Mikel Rezabal probalariak irabazi zituen alde bakoitzak jarritako 1.200 euroak. Berria - Kirola

Bakioko (Bizkaia) **idi** demen laugarren saioa jokatuko da gaur (18:00).

### 8 *idi gurdi/orga*

Sakonduretan karranka egiten duten **idi** gurdiak. Koldo Izagirre

**Idi** orgaren karranka. Berria - Kultura

Ardiak aurrean, **idi** gurdia kalabazez beterik atzean herrira zihoazela. Pablo Sastre

Amikuze osoan zabaldua da Migel Mailuri Biarnotik ekartzen diotela, urtero, **idi** -orgek garraiatu upel handietan. Aingeru Epaltza

### 9 *idi kosta* *ipar* idi saiheskia. *ik beherago* **14.**

Arraultze moleta bakalauareki, **idi** kosta lür sagarrekin, etxeko gazna, bixkotxa, kafe eta ondokoa. Herria

200 bat bazkaltiarrek zinez preziatu dute ahotik ezin utzia zen **idi kosta** ta gaineratiko, sagarnotegietan hartzen den apairu bera zerbitzatu baitute burrasoek, Hazparneko ezker paretean. Herria

### 10 *idi larru* (*orobat* ***idilarru*** *g.er.*)

Ikus dezagun zenbat urre eta zilar dakarren **idi-larru** horretan. Juan Kruz Igerabide

Ulises lurrean etzan zen, **idilarru** baten eta ardilarru askoren gainean. Juan Kruz Igerabide

Zabaldu zuten, bada, **idi** -larrua, eta haize guztiak irten ziren. Juan Kruz Igerabide

Altzairu mailazko kota eta **idi** larruzko erredola duena. Patziku Perurena

### 10a *idi musketadun*

Hauen artean daude ipar Amerikako elur-oreina, **idi musketaduna** , Seychelle Uharteetako azeri hegalaria eta lemur marroia. Berria - Gaiak

### 11 *idi pare*

Hamabi **idi** -pare zituen aurretik. Elizen arteko biblia

**Idi** pare batek enborrak menditik ekarriko ditu. Berria - Kultura

Entzuna nago baserriko **idi** parerik onena saldu zuela esku soinua erosi ahal izateko. Koldo Izagirre

Sei **idi** pare aritu ziren lehian. Berria - Kirola

Hogeita bost **idi** pare lehiatuko dira Urteberriko probetan, Deban. Berria - Kirola

Lau probalarien **idi** pareak ariko dira lanean: Erlete, Erreizta, Etxabe eta Andoni Telleria. Berria - Kirola

### 12 *idi proba* (*67 esaldi 54 artikulutan*) *ik gorago* **7.**

Bart hasi dira Berrizko **idi** probak. Berria - Kirola

Debako **idi** probak jokatuta, Abadiñokoen (Bizkaia) txanda heldu da. Berria - Kirola

Urteko lehen **idi** probak izan ohi dira Debako (Gipuzkoa) Urteberriko **Idi** Probak, eta bihar hasiko dira. Berria - Kirola

Sumatzen al duzu hobekuntzarik edo berrikuntzarik **idi** probetan? Berria - Kirola

Ez **da** idi proba txapelketa asko jokatzen Araban. Berria - Kirola

### 13 *idi probalari*

Zortzi **idi** probalariren uztarriak ariko dira lehian. Berria - Kirola

Joxemari Uzkudun, **idi** probalaria. Berria - Kirola

### 14 *idi saiheski* *ik gorago* **9.**

Donostia oso gustuko duela ere nabarmendu du: batez ere, hango pintxoak eta **idi-saiheskia** . Berria - Kirola

### 15 *idi uztarri* batera uztartzen diren idien bikotea.

**Idi-uztarriak** tiratzen zuenean. Santiago Iruretagoiena

**Idi-uztarriak** bultzaturiko gurdi batean eraman zituzten emakume biak hiriburuko kartzelaraino. Felipe Juaristi

Mando-sokak eta **idi-uztarriak** ezin aitzinatuz metatzen ziren hiriko sei ateetan. Aingeru Epaltza

Ukuiluak eta ukuiluen tamainak abereen arabera eta han elkartuko diren **idi-uztarrien** arabera egingo dira. Santiago Iruretagoiena

Osa dezala bakoitzak **idi uztarri** sendoa, eta, idien atzean, eroso ipini ahalko da gurdia; sekula ere ez, idien aurrean, gurdia. Koldo Zuazo

Ondoren, ardatzen inguruan txikota bat lotu zuen eta **idi-uztarri** bat jarri zuen txikotatik tiraka. Santiago Iruretagoiena

### 16 *idi zain*

Errebolbera ezkerreko eskuan, **idi** zain bat eskuinekoan. Michel Oronoz

### 17 *idia orgaren aitzinean jarri* ik gorago **19** eta **4.**

Horrela jokatuz, ordea, **idia** orgaren aitzinean jarri dugu nolabait. Josu Zabaleta

### 18 *idiarena jo* gizonezkoa masturbatu.

Hantxe ikasiko genuen **idiarena** behar bezala jotzen. Joxerra Garzia

Prakak belaunetaraino jaitsi, eta **idiarena** jotzen hasi da batere gupidarik gabe. Patxi Iturritegi

Lehen aldia nuen **idiarena** jotzen nuela, eta Zorab-ek irabazi zuen lehia. Juan Kruz Igerabide

Amanciok orduan berak **idiarena** joko zuela eta kopoirik dibinoena beteko zuela erreberoz. Inazio Mujika Iraola

Dutxan **idiarena** jo nuen, nik Margari titiak miazten nizkiola eta Lauaxetak niri zakila miazten zidala irudikatuz. Juan Luis Zabala

Jotze aldera jotzea galarazita zeukan antzinako erregimenaren dotrinak; gaurkoak aholkatu egiten du, eta derrigortzetik ere ez dabil oso aparte, beti ere seloxogiaren ordenantza eta neurrien arabera jotzekotan, jakina, larrua edo **idiarena** . Iñaki Segurola

### 19 *orga idien aurretik jarri* ik gorago **17** eta **4.**

Hori ez al da orga **idien** aurretik jartzea? Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere idi** (4); **bi idi** (8); **bi idi eta** (4); **bost idi** (5); **eta idi** (23); **eta idi uztarriak** (3); **idi bat** (14); **idi baten** (4); **idi bihotz** (8); **idi bihotz eta** (3); **idi eman** (3); **idi eta** (23); **idi gizen** (3); **idi hau** (5); **idi kosta** (5); **idi larru** (4); **idi larrua** (3); **idi orga** (4); **idi orgaren** (5); **idi orgaren karranka** (4); **idi pare** (22); **idi pare lehiatuko** (3); **idi parea** (15); **idi pareak** (15); **idi pareak ariko** (4); **idi pareak irabazi** (3); **idi parerik** (3); **idi proba** (6); **idi probak** (62); **idi probak bi** (3); **idi probak bihar** (4); **idi probak gaur** (6); **idi probak jokoan** (4); **idi probak uzkudunen** (5); **idi uztarriak** (3); **mila idi** (5); **sei idi** (4); **zen idi** (4); **zortzi idi** (3)

**a idiak** (8); **ari den idiari** (3); **astoa eta idia** (3); **dira idiak** (3); **edo idia** (3); **eta idia** (7); **eta idiak** (7); **eta idiaren** (6); **eta idien** (7); **ez idirik** (5); **gurdia idien** (3); **idia bezain** (4); **idia eta** (9); **idia eta astoa** (5); **idia nahiz** (5); **idia nahiz astoa** (3); **idiak ariko dira** (4); **idiak baino** (3); **idiak bezala** (4); **idiak elkarteak antolatzen** (3); **idiak eta** (12); **idiaren eraman handia** (5); **idiaren eta astoaren** (3); **idiarena jotzen** (3); **idiek bezala** (4); **idiek bezala eta** (3); **idiek irabazi** (3); **idiek jardungo** (3); **idiek jardungo dute**

(3); **idien aurrean** (4); **peñ uzkudunen idiek** (5); **zuen idia** (3)

---

**idiazabaldar** *izlag/iz* Idiazabalkoa, Idiazabali dagokiona; Idiazabalko herritarra.

Don Mateo Múgica apezpikua, **idiazabaldarra** bera. Mikel Hernandez Abaitua

Horren berri izateko Lide Larrañaga **idiazabaldarrarekin** hitz egin zuen *Berria*k. Berria - Kirola

---

**idiki** *iz* idi haragia.

Janen dugu: salda, **idikia**, lur sagar gorrituekin, entsalada, gasna, izozkia eta hurrupaldi onak, kafea eta ondokoak. Michel Oronoz

Jatekorik nahi ote zuten galdegin zien berriro hiru gizonei eta azak, saltxitxak, pernila eta **idikia** egosita zituela adierazi. Felipe Juaristi

---

idilarru ik **larru 10**.

---

**idiliko** *izond* artzain giroko maitasun samurra gogorarazten duena.

Bazekiten palmondo haiek uharte **idilikoak** apaintzen zituztela aintzira bare batean. Iñaki Mendiguren

Ohatze hartan jarriko zituen eserita, besoak gerrialdean, musu **idiliko** bat elkarri ematen. Karlos Zabala

Maitasun **idiliko** baten ondorioz. Luis Elberdin

Horko bake **idiliko** hori transmititu nahi izan digu margolariak. Anjel Lertxundi

Oso ipuin maitea izan dugu euskal gizarte **idilikoarena**. Xabier Mendiguren Elizegi

New Yorkeko irailaren 11ko erasoek inflexio puntu bat ezarri zuten bi herrialderen arteko harreman **idilikoetan**. Berria - Harian

Ainguratuta jada existitzen ez den iragan **idiliko** batean. Berria - Kultura

Auskalo zein toki **idilikotan** ariko diren txorta jotzen. Unai Iturriaga

Ez digu pintatu Euskal Herri **idiliko** bat, baizik problemen barruan urratua, kontraesan artean erdibitua. Koldo Izagirre

Hizkuntza eta kultura eta iraganeko misterio haien guztien zeru **idilikoekin** batera, ETAren martirioak zuzen-zuzen bultzatu gintuen demokrazia garaiko "terrorismo"ra. Joseba Zulaika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hain idilikoa** (3); **idiliko bat** (4)

---

**idilikotasun** *iz* idilikoa denaren nolakotasuna.

Handinahikeriarik gabe txikitasunetik abiatu da Borda, «pertsonatik pertsonara» poemok idaztera [...]; **«idilikotasunetik** aldendu eta neuk bizi izan ditudanak» kontatzera. Berria - Kultura

---

**idilio** **1** *iz* poema laburra, artzain girokoa eta oro har maitasunezkoa.

Poema honetan Virgiliok Teokrito poeta greziarraren **Idilioak** imitatu zituen. Bernardo Atxaga

Ikerketa bat egin ninan Calpurnius Siculusen **idilioei** eta hapax legomena delakoei buruz. Anton Garikano

**2** maitasunaldi samurra.

Nola bukatu zen **idilio** hura? Iñaki Zabaleta

Bada sexualitatearen **idilioa,** diruarena, boterearena, politikarena, bortizkeriarena. Berria - Euskal Herria

Estatutu onartezina hitzartu zuten, **idilio** bat antzeztu zuten eta gerra garaiko hizkuntza erabiltzera derrigortu zuten Esquerra, aldi berean Maragall estualdi batean jarriz. Berria - Mundua

Laztandu beharra zeukaten atzamarren 56 urteko **idilio** suntsigaitza izan da Gelatxoren bizitza. Pako Aristi

---

**idiofono** *iz* soinua instrumentuaren gorputza bera bibraraziz sortzen den zernahi musika tresna.

Bik danbor dundunak zotzez jotzen zituzten, grabeak eta agudoak, tartean **idiofonoak** edo harizko *ngoni*-a. Berria - Kultura

---

idiograma ik **ideograma**.

---

**idiolekto** *(orobat **ideolekto** g.er.)* *iz* gizabanakoak hizkuntza jakin batean hitz egiteko duen era berezia.

Eta lengoaia hau beste mundu batekoa izango da, hitz hauek itzulezinak izango dira, **idiolekto** honek itzelezko antza izango du isiltasunarena. Joseba Sarrionandia

Baina horren ordez erabaki dut erabiltzea gurean dabilen teknolekto xelebre bat, euskararen berezko izaera pospositiboa prepositiboa bihurtu nahi duen **ideolektoa**. Berria - Kultura

Hori ez zegoen ulertzerik, ez zegoen jaterik inolako moduz, beren kongregazioko **idiolektoaren** berri ikasi gabeko batentzat bederen. Iñaki Segurola

---

**idiomatiko** **1** *izond* hizkuntza jakin bati dagokiona.

Eta orduan senidetasun unibertsala izango da zeru bihurtutako lur honen gainean, eta, hizkuntza bakarraren podorioz, giza ale guztiek elkar hartu eta ulertuko dute erraz eta gozo: denek gauza berberak esango baitituzte, eta denek lerdokeria **idiomatiko** eta idiotiko berberetan sinetsiko baitute, erraz eta gozo. Iñaki Segurola

**2** ***ez-idiomatiko***

Musika inprobisatua, erradikala eta Bailey berak definitu ohi zuen moduan ez-**idiomatikoa**. Berria - Kultura

---

**idiosinkrasia** *iz* norbaiten edo zerbaiten izaera edo aiurri berezia, besteetatik bereizten duena.

Euskal kultura euskaldunen **idiosinkrasiaren** adierazpena da, eta arlo asko hartzen du bere barnean. Ana Urkiza

Proposatzen dituzten sistema horiek bakoitzaren **idiosinkrasiaren** araberakoak direlako oso. Josu Zabaleta

---

**idiosinkrazia** *iz* norbaiten edo zerbaiten izaera edo aiurri berezia, besteetatik bereizten duena.

Horrekin guztiarekin konpromisoa dugu, eta gure **idiosinkraziaren** parte ere badira. Berria - Euskal Herria

---

**idiota** **1** *izond/iz* tentela, tontoa; guztiz ezjakina; adimenik ez duena.

-Badakit zer den mendia, ez naiz **idiota**. Sonia Gonzalez

**Idiota** batek kontaturiko istorioa da, deus esan nahi ez duena. Iñaki Mendiguren

Tom **idiota** edo inuzentetzat bazeukaten ere, autismoaren ezaugarrizkoak dira jarrera eta estereotipo horiek. Xabier Olarra

Irlandar judua eta analfabetoa zela esaten zuten, eta haren seme **idiotaren** bitartez Jainkoak lukurreriaren gaitzespena agertzen zuela uste zuten. Irene Aldasoro

Ez da posible alderdi batean luzaroan irautea **idiota** izan gabe. Patziku Perurena

Informazio zehatza jakiteko eta errepikatzeko izugarrizko ahala daukate, baina gainerakoan deus ikasteko eta ulertzeko gauza ez diren **idiotak** dira. Iñaki Segurola

Hemen denok baitakigu erdara, inor ez da **idiota**. Iñaki Iñurrieta

Zeren zeharoko **idiota** baldin banaiz, injineru aeronautiko egingo bainaiz, eta bestela berriz, filosofo. Iñaki Segurola

**Idiota** jakintsua, ikasia edo abila deitzen zaion giza jeneroa, beraz, **idiota** da, baina zenbait arlo zehatzetan, hala nola matematikan, musikan edo datuak gogoan atxikitzen, ohi ez bezalako dohain eta ezin sinetsizko abildadearen jabe da. Iñaki Segurola

**Idiota** alaenak! Anjel Lertxundi

**2** (medikuntzan)

Bada haien artean mordoxka bat beste guztien gainetik atentzioa ematen duena, eta hura da teknikoki *idiot savant* deitzen den **idiota** klasea. Iñaki Segurola

**Idiota** zelako -erantzun zidan erretoreak buruarekin etsipen keinua eginez-. Bernardo Atxaga

"**Idiota**" hitzak, grekoz, "ideia bakarra duena" esan nahi duelako. Bernardo Atxaga

---

**idiotatu,** idiota(tu), idiotatzen du *ad* idiota bihurtu.

Ez zegoen polizia hoberik asmatzerik euskaldun jendea txepeltzeko eta lehenaz gainera **idiotatzeko**. Iñaki Segurola

Jendea lehenaz gain **idiotatzeko** sistemarena; dirua eta gorputz-arimetako miseria gozoki uztartzen hobekienik asmatu duen sistemarena. Iñaki Segurola

---

**idiotismo** *iz*

Gizabanakismoa eta gisabanakismoa; hots, **idiotismoa** bere adierarik zaharrenean. Iñaki Segurola

---

**idiozia** *iz* adimen gabezia, ergeltasuna.

[Haurtzaroa] Giza bizitzako aro bat, pix-oihaletako haurraren **idioziaren** eta gaztaroko erotasunaren tartekoa. Xabier Olarra

[Tinta] burdin tanogalatoz, goma arabiarrez eta urez osatutako konposatu bat, batik bat **idioziaren** kutsadura erraztu eta delitu intelektuala bultzatzeko erabilia. Xabier Olarra

---

**idisko** *(ETCn 111 agerraldi; orobat* ***idixko*** *ETCn 61 agerraldi, eta* ***isku*** *ETCn 7 agerraldi)* **1** *iz* txahal arra, zezen gaztea. ik **zezenko**.

-Oso ondo, baina eztek zezena, **iskua** dek, oso gaztia dek oraindik. Joxean Sagaztizabal

-Zezena? **Iskua** da, moteil, on puska, eta lotuta dago! Joxean Sagaztizabal

**Idisko** oso bat ikusi zuen bere begien aurrean aurreneko, sutan erretzen zeukatena. Patxi Ezkiaga

Libani jauzi eragingo dio, zekorrari bezala; / Sarioni, basa-**idiskoari** bezala. Pello Zabala

Hartzazu aitaren **idixkoa,** zazpi urtekoa. Elizen arteko biblia

Senarrak **idisko** gorriaren txuleta ederra jaten du. Monika Etxebarria

Niretzat, berriz, **idiskoaren** gisatua, andereñoa. Monika Etxebarria

Hantxe zegoen, bai, arestian **idisko** oldartsua zirudien gizona idi zahar flako bihurturik! Joan Mari Irigoien

Libani jauzi eragingo dio, zekorrari bezala; / Sarioni, basa-**idiskoari** bezala. Pello Zabala

**2** *irud*

Batzar haietako batean, OIC ko **idiskoa** atxilotu zutela zabaldu zen; haren kide batek hartu zuen hitza, bere lagunaren "potroak" goraipatzeko, ez baitzuen, nonbait, txintik ere atera, eta alderdiaren egitura osoa poliziatik babesturik geratu zen hala. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> oic ko idiskoa (8)

---

idixko ik **idisko**.

---

**idizain** *iz* itzaina.

Zerrizaina eta **idizaina** atean geratu ziren zain. erratua baldin bazabiltza galdegin iezaiezu bidea **idizainei,** urdainei, astozainei eta artzainei. Juan Kruz Igerabide

Filetio **idizainak** ere negar egiten zuen. Juan Kruz Igerabide

Batzuetan Graxi **idizain** ibiltzen zen. Itxaro Borda

---

**idizilkada** *iz* idi zilaz jotako kolpea.

Baina bizitza honetan gaizkintza larriei penen beldur larria dagokie, eta krimenaren zigorra, espetxea eta haitz erpinetik behera jaurtize lazgarria, **idizilkadak,** borreroak, lakioa, bikea, xafla goria, zuziak. Xabier Amuriza

# idoi *iz* zingira, putzua.

Zingira, **idoia,** putzua. Hasier Etxeberria

Jauregiko ipotx konkortu itsusiak ekarria zen **idoi** -zulo sakon beltz batetik; berak ez beste inork ezagutzen zuen [...] putzu usaintsu ezkutu hura. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# idoki, idokitzen du *ad ipar* kendu, atera.

Orrialdea **idoki** zuen eta esku artean zimurtu. Elena Touyarou

Edozein belar tzarren **idokitzeko** . Euskal Etxea **idoki** zutelarik lehen aldikotz, Ganixek eta Anak hartu zuten haren kudeatzea zonbait ilabeterentzat gauzak haxean poxi bat ezarri artio. Herria

Udan arto kukulak **idoki** eta bi aste pasatu zituen Artzandako barnetegian. Itxaro Borda

Heriotzaren konboiari Chaumonteko geltokian **idokiriko** ele haiek, zeutzan han nire aurrean, anabasa eta ahanzturatik salbu. Joxan Elosegi

---

# idokitzaile *iz* idokitzen duen pertsona.

Nago **idokitzaileak,** arto jorratzaileak, sagardogileak, ardo mingarra zoanetarik mahaietara ekarleak. Itxaro Borda

---

# idokitze *iz* ateratzea, kentzea.

Hemen sortu euskaldun gaztendako, begi **idokitze** bat izan da ikusiz Euskal Herriak jasan dituen egun historikoak etzirela beti hain alegerak. Herria

---

# idola *iz* euriaz eta kidekoez mintzatuz, jasa, erauntsia.

Euria ari du oraindik, baina ez **idolaz,** atzo bezala. Jon Alonso

Infanteriari dagokionez, izerdia **idolaz** dariela alde batera utzirik, ez dira kexatzen. Jon Alonso

---

# idolatra 1 *izond/iz* idolo-adoratzailea, idolozalea.

Hobe zela ateoa izan **idolatra** baino. Iñaki Iñurrieta

Itun Zaharreko Jainko krudel hura fetixe **idolatra** odolzale bat besterik ez zen. Joseba Zulaika

Oso emanak gara idolatriara, eta hala ere ez gaude erlijio **idolatren** mende. Iñaki Iñurrieta

Aitasantutzak herri-oposizio **"idolatrarekin"** bat egin zuen gogotsu, eta horrekin urrats handia egin zuen bizantziar agintetik bere burua askatzeko. Iñaki Mendiguren

**Idolatren** ondorengoak hiltzea. Xabier Kintana

Aitortu behar dut papista erdi **idolatra** bat ez izatea zor diodala Bidaxuneko etxeari. Aingeru Epaltza

## 2 *hed*

Kapitalismoa, militarismoa, alderdi aparatua, iraultza telezuzendua, marxismoaren zein sozialismoaren **idolatrak** ... Markos Zapiain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baten idolatria** (4); **eta idolatria** (4); **idolatria eta** (4); **idolatria eta jokaera** (3); **idolatriaren aurka** (4); **idolatriazko jardueraz** (3); **iragankor baten idolatria** (3); **zeuen idolatriazko** (4); **zeuen idolatriazko jardueraz** (3)

---

# idolatratu, idolatra(tu), idolatratzen 1 du *ad* gurtza moduko batez maitatu.

Emakumeak gurtu edo **idolatratzeko** gai izanik ere, ez zela egundo gauza izango inor maitatzeko. Joxean Agirre

Fitzgeraldek **idolatratu** zuen Zelda, Paul Bowlesen June, alemaniar erromantikoen Betina Von Armin. Joxean Agirre

Mundu sinikoaren kultur erdiguneko herriek berezko joera zuten eurak adierazgarri nagusi zituen kultura bat **idolatratzeko** . Iñaki Mendiguren

Lurreko erakunde bat **idolatratzea** . Iñaki Mendiguren

Eliza batek bere nortasun korporatiboa **idolatratzea** . Iñaki Mendiguren

Ezingo al zenukete, madame, biok elkarri heldu, eta **idolatratzen** ditudan bi ipurdi horiek niri begira ipini? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## 2 (era burutua izenondo gisa)

*Corruptio optimi* delakoa *pessima* bada, eliza **idolatratua** da idolo bakarra gizakiek Leviatan gisa gurtzen duten giza erlauntza **idolatratua** baino kaltegarriagoa dena. Iñaki Mendiguren

---

# idolatria 1 *iz* jainko baten idoloaren gurtza.

Greziarren politeismoa eta **idolatria** . Iñaki Mendiguren

Koranak **idolatria** gaitzesten du. Berria - Mundua

Ez dute israeldarrek **idolatria** gehiago egingo eta beren erregeen gorpuak urrundu egingo dituzte niregandik. Elizen arteko biblia

Zeure **idolatria** eta jokaera higuingarriaz nire santutegia kutsatu duzulako. Elizen arteko biblia

Lasaikeria eta biziotan, jan-edan eta mozkorkerian, eta **idolatria** gaitzesgarritan. Elizen arteko biblia

Odola isuri eta herrialdea **idolatriaz** kutsatu zutelako, neure sumina isuri nuen haien gainera. Elizen arteko biblia

**Idolatriak** tentaturiko jainkozalearen erregu-otoitza. Elizen arteko biblia

Oso emanak gara **idolatriara,** eta hala ere ez gaude erlijio idolatren mende. Iñaki Iñurrieta

Ni, ordea, Maggie **idolatriara** makurtuko ote zen beldur nintzen. Juan Garzia

## 2 *hed*

Nazional-sozialismoa heresia hutsa zela, odolaren eta estatuaren **idolatria,** besterik ez. Piarres Xarriton

Xede hipotetikoen **idolatria** . Markos Zapiain

Sormenaren nemesia: nortasun iragankor baten **idolatria** . Iñaki Mendiguren

Dagoeneko sartu dugu, inplikazioz, hirugarren elementu bat Mendebaldeko protestantismoaren berpizkunde judaikoan, bibliolatria alegia, testu sakratu baten **idolatria** irudi sakratuen **idolatriaren** ordez. Iñaki Mendiguren

Jakin behar da "gurasoen gaiztakeria semeengan zigortzen du" esaera **idolatria** -bekatuari dagokiola. Xabier Kintana

## 3 *idolatriazko izlag*

Ez duzue nire izen santua belztuko zeuen **idolatriazko** opariekin. Elizen arteko biblia

**Idolatriazko** kultuen aurka. Elizen arteko biblia

Zeuen **idolatriazko** jardueraz Jauna ez iraintzeko. Elizen arteko biblia

**Idolatriazko** gurtzarako gai berri bat. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **idolatriaren aurka** (4); **zeuen idolatriazko jardueraz** (3)

---

**idolo** **1** *iz* jainkotzat hartzen den zerbaiten irudia, jainko balitz bezala gurtzen dena.

Babiloniarrek **idolo** bat zuten, Bel izenekoa. Elizen arteko biblia

Grezia arkaikoko lehenengo eskulturak **idoloak** ziren. Josu Zabaleta

Nik ez dut gurtzen giza eskuz eginiko **idolorik,** Jainko bizia baizik. Elizen arteko biblia

Jaunak galarazi ziena egin baitzuten: **idoloak** gurtu. Elizen arteko biblia

Ez erori **idoloen** tranpan, haien jokabideari jarraituz. Elizen arteko biblia

Ez galbideratu edonolako **idolo** edo jainko-irudiak eginez. Elizen arteko biblia

Baztertu nautelako, jainko arrotzei intsentsua erre dietelako eta **idoloak** eginez iraindu nautelako. Elizen arteko biblia

Mikeldi **idoloa,** k.a. 1000. urte aldera harrian zizelatua. Patziku Perurena

Nork moldeatzen du irudia eta **idoloa** urtzen, probetxurik espero ezean? Elizen arteko biblia

Zutoin sakratuak eta zurezko nahiz metalezko **idoloak** kentzen hasi zen. Elizen arteko biblia

Ez iezadazue egin, ez zilarrezko, ez urrezko **idolorik**. Elizen arteko biblia

Eta israeldar askok ere onartu zuen haren erlijioa; **idoloei** opariak eskaini eta bete gabe utzi zuten larunbatari buruzko legea. Elizen arteko biblia

Moloch **idoloari** haurrak sakrifikatzen zitzaizkion lekua. Koro Navarro

Beren **idoloaren** santutegian, sartu ziren, beren bizia salbatzeko asmoz. Elizen arteko biblia

Mikalek etxeko **idoloa** hartu eta ohean sartu zuen. Elizen arteko biblia

**Idoloan** eta fetitxean sinestea nagusitasun-ikurra da. Josu Zabaleta

Jainkoa helburutzat ez duen guztia **idolo** bat da. Joan Mari Lekuona

Hautematen dut, elizako bortan, **idolo** itxurako bat, lehen bezala beneratua egun. Koldo Izagirre

**2** gurtzen den pertsona edo gauza.

Bitartean, nire atzean, eta segur aski ispiluaren aurrean, nire bihotzeko **idoloa** kantuz ari zen. Matías Múgica

Russeau zen Robespierre diktadorearen **idoloa**. jainko txikitzat eta **idolotzat** nindukatela neska askok eta askok. Joan Mari Irigoien

Bakoitzak bazituen pilotarien artean bere **idoloak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Nire zirrara, Errealeko jokalariak eta nire **idoloak** zelairatu zirenean! Joan Mari Irigoien

Garrintxa euskalduna, kontsumismoaren baztangak harrapatutako **idoloaren** historia. Joan Mari Irigoien

Eliza idolatratua da **idolo** bakarra gizakiek Leviatan gisa gurtzen duten giza erlauntza idolatratua baino kaltegarriagoa dena. Iñaki Mendiguren

Zuentzat zientzia ez da helburu gizatiar bat duen instituzio bat dagoeneko [...]; zuentzat gehiago da; **idolo** bihurtu duzue. Josu Zabaleta

**Idoloak** sortu ditugu, eta orain damugarriak gertatzen zaizkigu. Josu Zabaleta

Natura **idolotzat** hartzea, hori da inola ere onar ez dezakeguna. Joxe Austin Arrieta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Idolo**-adoratzaileen habia. Aingeru Epaltza

**Idolo**-moldeatzaileak hutsa dira denak, hain estimatuak dituzten irudiak ezertarako ez. Elizen arteko biblia

Beren bekatua baztertzen badute, **idolo**-aldare guztiak, kararria bezala, hauts egiten badituzte. Elizen arteko biblia

Ea salbatzen zaituen zeure **idolo**-multzoak, zuk laguntza eske deiadar egitean! Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beraien idoloak** (3); **bere idolo** (3); **bere idoloa** (6); **bere idoloak** (4); **beren idolo** (3); **beren idoloekin** (3); **egin idolorik** (3); **eginiko idolo** (3); **eta idolo** (3); **eta idoloa** (5); **eta idoloak** (10); **eta idoloei** (3); **ez egin idolorik** (3); **haien idoloak** (3); **idolo bat** (9); **idolo berria** (5); **idolo bihurtu** (3); **idolo eta** (4); **idolo guztiak** (5); **idolo higuingarria** (6); **idolo higuingarriak** (9); **idolo hori** (3); **idoloa da** (3); **idoloa eta** (3); **idoloa zen** (5); **idoloak eta** (7); **idoloak gurtu** (6); **idoloak gurtu zituzten** (3); **idoloak gurtuz** (4); **idoloaren aurrean** (3); **idoloek ezin** (3); **idoloen aurrean** (3); **idoloen ondoren** (4); **idoloetan uste** (3); **irudiko idolorik** (3); **izakiren irudiko idolorik** (3); **metalezko idoloak** (3); **nire idoloak** (3); **zurezko idoloak** (5)

---

**idologile** *iz* idoloak egiten dituen pertsona.

Elkarri laguntzen diote **idologileek** eta adore-hitzak esaten elkarri. Elizen arteko biblia

Lotsaz eta laidoz beterik, bai, laidoz estalirik doaz **idologileak**. Elizen arteko biblia

---

**idolozale** *(orobat **idolo zale** g.er.)* *izond* idoloak jainkotzat gurtzen dituena.

**Idolozaleek** laster jaten dute / idoloei emandako hitza. Jose Antonio Mujika

**Idolozaleak,** ordea, lotsagarri gertatuko, gizaki huts baitira egileak. Elizen arteko biblia

Izarrak eta konstelazioak zerbitzatzen dituzten **idolozaleekin**. Koro Navarro

Maite dut Norminha, nire idoloa da, eta ni ez naiz oso **idolo zalea**. Karlos Zabala

---

**idolozalekeria** *iz*

Gorroto izango dut **idolozalekeria,** ez zait itsatsiko. Elizen arteko biblia

---

**idor** **1** *izond* urik edo hezetasunik ez duena. ik **lehor**.

Mahaia xahutu zuen, trapu busti batez igurtzi, eta zura oihal **idor** batez dirdirarazi. Elena Touyarou

Irazpaper zati **idor** baten gainean ezarri nuen. Juan Garzia

Jauntzi **idorrak** behar dituzte, gureak organ blai egin dira. Elena Touyarou

Alde batera eta bestera begiratu zuen aginduak eman nahian, baina ahoa **idorra** zuen. Fernando Rey

Ziudadelako putzu bakarra **idortzeko** beldurrez. Aingeru Epaltza

Río Seco, "Erreka **idorra"** delakoak izen egokia dauka: ur tintik ez da uhobian. Piarres Aintziart

Neskaren begitarteko ubelak zenbatzen ahal nituen, ubelak eta odol **idorra** zerien urrakoak. Itxaro Borda

Pixa **idor** urrina zeriela karrikei. Itxaro Borda

**2** (lurraz eta kidekoez)

Beroak urtutako elurra lur **idorrak** irensten duen bezala. Elizen arteko biblia

Txarak eta sasiak, horra lur **idor**-antzu honek ematen duen guztia. Xabier Montoia

Hor da oraindik lur **idorra** ketan, garaiz aurretik fruitua galtzen duten arbolekin, bai eta gatzezko zutabea ere, arima sinesgabearen oroigarri. Elizen arteko biblia

Lur **idorrezko** pista. Itxaro Borda

Hondar-muino **idorren** arteko belargune zekenetan. Txillardegi

Mendoza, **leku** idorra, ezagutua da bere fruitu eta partikularzki bere mahasti eta arno onarendako. Herria

Bihurgune bazterrean den leku **idor** zabal batetara gidatzen du bere zaldia. Michel Oronoz

Pertsiar barbaroen sorterria [...] menditsua eta **idorra** zen. Iñaki Mendiguren

Menditxo **idor** batzuk ikusten ahal ditugu aurrez, harresien gainetik. Koldo Izagirre

Jaurtigailu gehienak eremu **idorretan** erori ziren, baina bakar batzuk inguruko herrietan erori ziren. Berria - Mundua

**3** (landare gauzez) ik **ihar 3**.

Hosto **idor** herbal bat. Itxaro Borda

Charly ene ondoan zegoen, bere ezker eskuko ahurraren gainean hosto pikatu **idorrak** tabako gorriarekin nahasten ari. Aingeru Epaltza

Belar **idor** izpiak ditu oraindik ilean eta aurpegian. Pello Lizarralde

Sasitzetan kiribilduriko liken **idorrak** eta lahar handiak edonon hasten ziren. Agustin Otsoa

Ibarreko zuhaitzen artetik adar **idor** erori berri baten kraskada heldu zaio. Pello Lizarralde

Bildu belar metatxo baten gainean, bi egur **idor** bermatu zituen Martizek eta gizonetarik batek sua eman zion. Itxaro Borda

Su eman zioten zamak gerizatzeko erabiltzen zuten lasto **idorrari**. Elena Touyarou

Garai batean arakatu zuen, pipermin **idor** bat aurkitu arte. Aingeru Epaltza

**4** (janariez)

Txokolatesnea edo kafea aukeran eta bizkotxa xerra **idor** bana. Itxaro Borda

Galleta **idor** batzuk. Aingeru Epaltza

Eguerditan salda ura eta ogi puska **idor** bat. Itxaro Borda

Arrain **idorraren** hezurrak. Juan Garzia

"Banque alimentaire" edo jateko **idorren** biltzea. Herria

· Datilak jan dituzue, piku **idorrak,** pastiza zati zenbait. Xabier Montoia

Foagras klase frantses guziak, aintzinako ahate-gibel piko **idorrez** gozatu haien kopia txarrak baino ez direla. Patziku Perurena

**5** (eguraldiaz, klimaz) ik **ihar 4**.

Gertatzen zen, udak **idorregiak** zirenean, belarra eskas eta pittikek korda ausikika hausten zutela. Itxaro Borda

Sasoin **idorra** abendutik maiatza arte. Ramuntxo Etxeberri

50 eguneko lehorte **idorrean**. Pello Zabala

Uda guziz komedia bera, aroa **idor** izaiten den pondutik. Herria

Hotz **idorra** baino txarragoa zen hura, hezurretaraino sartzen baitzen eta egun guziko gelditzen. Eneko Bidegain

**6** *hed/irud*

Lurraren izerdian usain beroak eta hotzak, hezeak eta **idorrak** dira nahasian. Pello Lizarralde

Urratua dut aurpegia, zimur **idorrez** betea, arraildua azala. Berria - Kultura

Naftalina-kiratsa omen zerion eta heste-**idor** aurpegia omen zuen. Juan Garzia

Sukaldean sua behiaren ximaur **idortuarekin** egiten da oraindik ere. Gotzon Garate

Sute **idorraren** beroa. Itxaro Borda

Hastapenean kosta zitzaidan, adibidez, [...] ene familian ikasi nuen "dautzut" uztea, diptongoaren galtzea, "dizut" **idorra** hautatzeko... Ana Urkiza

Hilobi Sainduko batimendu **idor** beltzairea. Txillardegi

Bi pareak elgarren bete izanez partida luze eta **idorra** izan da. Herria

Hain kolpe **idorra** nun gaixoak begi bat galdu baitu. Herria

**7** edariez mintzatuz, azukre kopuru txikia duena, gozoa ez dena.

75 tona sagarrekin atera dituzte 35000 pinta sagarno **idor**, 5000 pinta goxo eta 5000 sagarno-jus. Arno xuri **idor** bat bainan hautua, biziki ona! Menane Oxandabaratz

Ohiko bezeroak behean, piano-barrean, beren martini **idorrei** hurrupaka. Oskar Arana

**8** hotsez mintzatuz, erresonantziarik ez duena.

Tanpez erori da presoa, hots **idorra** ateraz. Xabier Montoia

Semaforoen klask **idorra** baino ez zen entzuten. Iban Zaldua

Urruneko urratsen harrabots **idorrak**. Filipe Bidart

Bi eztul **idorren** oihartzun ahula. Itxaro Borda

· Bere barrunbean ate-danbada **idor** bat entzuten du, eta danbada horrek adierazten dio beste zorigaitz bat erori zaiola gainera. Iñaki Segurola

**9** gozotasunik edo txerarik gabea (pertsonetan).

Irribarre **idor** bat zuzentzen dio Hakim jaunari. Oskar Arana

Irribarre **idor** bat zuela aho zilarrezkoan. Karlos Linazasoro

Sarrerazainaren keinu **idorra** ikusirik, desenkusaka hasi nintzaion: banekiela ixteko ordua zela eta barkatzeko. Anjel Lertxundi

Sekula ez ziren enekin mintzatzen, beti aurpegi ilun **idor** bat, ateak kliski-klaska zabaltzen, goizetan *bonjour!* eta arratsetan *bonsoir!,* besterik deus... Filipe Bidart

Haurrak aita **idor** eta bakarti hortatik urrundu ziren. Ramuntxo Etxeberri

Joantto Ithurbide ezagutzen zuen, kasik haurrak zirenetik, eta haren aire otzan eta **idorrak** beti erakarri zuen. Elena Touyarou

-Edo joatera behartzen dituztenean -zehaztu zuen gazteak, molde **idorrean**. Elena Touyarou

Norbait baldituriк utzi nahi zuenean bozari ematen ohi zion doinu **idorraz**. Elena Touyarou

**10** (gauzetan)

Ezin jasanezko pena baten zama **idorrak** lehertua zeukan Josepe. Janbattitt Dirassar

Behin eta berriz ametsaldiak kitto, eta errealitate **idorra** gailen. Txillardegi

Badela oraino nun zer egin jendetasun gehiagoren sartzeko lanaren mundu hortan, frangotan **idorregia** kausitzen ahal den mundu hortan... Herria

Eta bada tristura more bat, **idorra,** iharra, izerdi larria bezain hotza. Iñaki Segurola

Baina ilargiak baditu bere aldiak, argia batean halako xuri azkar eta **idorrean,** bestean halako herbail eta minduan. Michel Oronoz

Lau mende lehenago Behenafarroa Nafarroa zen, baina gizonen lege **idorrek** aspaldian ahantzirik zeukaten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bere gauak iragaiten zituen beztiturik eta taula **idorraren** gainean etzanik; goizetan hirur orenetan jeikia zen eta otoitzari lotua. Xipri Arbelbide

**11** (erkaketetan)

Ostegunetako eten hori gabe astea basamortua bezain **idorra** da. Oskar Arana

• **12** (predikatu edo adizlagun gisa) ik **idorki**.

Kasko kaskoan den harrokaren inguruan, belarra **idor** eta motz. Michel Oronoz

-Jaiki bai, esnatu ez oraindik -ihardesten diegu irri etsia ezpainetan, begiak **idor** eta mihiak totel. Itxaro Borda

Egokitzen zaigun tokian kausitzen gara, begiak **idor** eta aho zokoak lehor. Itxaro Borda

Aho zokoa **idor** neukan. Itxaro Borda

**Idor** eta antzu nengoen. Itxaro Borda

Zu ez kezkatu horretaz -erantzun zion funtzionarioak, **idor**. Jose Morales

Horra Baionattipiko trinket zaharra airestatu dela, partida huntako lekua sano eta **idor** utziz. Herria

· Han-hemen bildu duzuna behar duenean, aski du zu estutzea, eta aurki zaude, belaki, ostera ere **idor-idor**. Juan Garzia

• **13** (-en edo -ko atzikien eskuinean, izen gisa) idortasuna.

Bizitzaren **idorrak** kontrastea egiten zuen naturaren oparotasunarekin. Jon Maia

Bozaren **idorrean** ezagun du gaizki hartu duela bere hitzen hista egitea. Aingeru Epaltza

Medikuaren **idorra** ez nuen onartu, bidezkoa izanikan ere. Piarres Aintziart

Bigarren izena lurraren **idorrarekin** dago erlazionatua. Pello Salaburu

· Egia esan, munduko ur guztiek ezin izango zuten nire eztarriko **idorra** beratu, laborriak eragin ohi duen egarria baitzen nirea. Edorta Jimenez

**14** ***idorreko*** *izlag*

Inguruko soroak ez ziren baratzeak, **idorreko** lurlan erdi menditsuak baizik. Josu Zabaleta

**15** ***idor-idorra*** *adlag ipar* idor-idor. ik gorago **12.**

Ahoa **idor-idorra**. -Beste behin kontrabandoan? -galdegin zion, **idor-idorra,** paketa erakutsiz. Elena Touyarou

**16** ***idor-idorrik*** *adlag*

Begiak sutan gorri eta **idor-idorrik** geneuzkan biok, beira goriari luzaroegi begiratzez. Juan Garzia

**17** ***sos idor*** janaria barne ez duen lansaria.

Bidarten, etxe berri batzu egiten ari dituzten toki batean, polizak arrastatu ditu bost lagun, denak turkoak, beltzean ar-arazten zituztenak hargintzan, aterbea etxola batean segurtatuz kasik han berean eta jornala sos **idorrez** pagatuz. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **begiak idor** (3); **belar idor** (6); **eta idor** (10); **eta idorra** (9); **eta idorrak** (5); **hosto idor** (3); **idor arazteko** (3); **idor bat** (12); **idor batean** (4); **idor batzuk** (3); **idor eta** (35); **idor hauetan** (3); **idor idorra** (5); **idor idorra** (5); **idorra eta** (6); **idorra izan** (5); **idorra zen** (4); **idorrak dira** (5); **idorrak eta** (4); **leku idor** (6); **leku idor eta** (3); **lur idor** (6); **lur idorra** (3); **ogi idorra** (3); **piko idorrez** (3)

---

idorarazi ik **idorrarazi**.

---

**idorberia** *iz* hetika, tuberkulosia.

Haize-lasterrak eta soinekorik ezak, ubileria (erreumatismoa) ugaritu dute atxilotuen artean, bai eta **idorberia** (bular-galtzea) ere. Jokin Urain

---

**idorgailu** *iz* idortzeko gailua.

Ilunpetan ere, hango ikuzgailu eta **idorgailu** handiek, hango esekitoki luzeetan zintzilikaturiko arropek ez zuten akelarre baterako paisaiarik aproposena osatzen. Aingeru Epaltza

---

**idorkeria** *iz* idortasun gaitzesgarria.

Poderearen **idorkeria**. Herria

---

**idorki** *adlag* idortasunez. ik **idor 12**.

-Ta zu, zergatik itzuli zara? -bota zion, **idorki**. Monduteguy jaunaz kanpo bada hemen larderia duen beste gizonik -eten zuen, **idorki-**. Elena Touyarou

Errepublika eguneko solasketa berean, Chirac-ek frango **idorki** bere tokian ezarri du Nicolas Sarkozy. Herria

Michel Barnier minixtroa **idorki** mintzatua da Didier Julia-ren kontra. Herria

Beren aldarrikapenak berriz ere agertuz, eta hein bat **idorki**. Herria

Oraino hasarre handiagoan François Fillon, arras **idorki** mintzatu dena Chirac ederki jorratuz! Herria

---

**idoro**, idorotzen du *ad* aurkitu.

Gisa horretan, Virginako txalupa bat **idoro** zuten, otzan askoa, zeinaren kapitaina kuakero fede-kartsu bat baitzen, Knot izenekoa. Juan Garzia

Gure arbasoek Justinianoren Bilduma **idoro** zutenean, halako goi argibidea izan zuten. Andres Urrutia

Hilik **idoro** dute. Iñaki Arranz

Kontrako eztarriko psikiatrek **idoro** ziguten hipernormaltasuna paranoiaren era bat dela. Iñaki Segurola

Gura izan ezkero, laster **idoroten** dabe pistolea edo mistolea. Gotzon Garate

“Gauza galdua **idoroteko,** Aita San Antonio bitarteko” dio Bizkai aldeko beste esaera zahar batek. Pello Zabala

**idor** *iz* aurkikundea.

Hala ere, bai arrantza ederra, nolako **idorokundeak,** apal bezain dotore adieraziak! Markos Zapiain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bat idoro** (4); **bat idoro nuen** (3); **idoro eta** (3); **idoro nuen** (5)

# idorokuntza *iz* aurkikuntza.

Itsaso zabala airea bezain hilobi infinitu bilakaraztea izan da Latinoamerikako diktaduren **idorokuntzarik** miragarrienetakoa. Edorta Jimenez

Ustekabeko **idorokuntza** bi. Edorta Jimenez

# idorraldi *iz* idortasunezko aldia.

**Idorraldi** eta eguraldi garbitiko saio emankorrak. Pello Zabala

# idorrarazi, idorraraz, idorrarazten du *ad* idortzera behartu.

Zer lanak, soinekoak ezin **idorraraziz** atertu ondoan! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hitz eztigarriak aditzean begiak **idortzen** zituen. Itxaro Borda

Nola indigoa eguzkitan **idorrarazten** duten. Aurelia Arkotxa

Paper faltsu baten zuritasunean enkre iluna buhaka **idorrarazi** eta segitu zuen: [...]. Itxaro Borda

# idorreri *(orobat **idorreria**)* 1 *iz* sabela husteko debekua. ik **lehorreri**.

Ezer ez hartzetik mortadela eta sardinekin egindako bokadilloak irenstera egin duzu salto, eta beherakoa **idorreria** bihurtu zaizu. Rafa Egiguren

**Idorreria** ez da gaixotasun hilgarria, gogoratzen du alargunak. Imanol Zurutuza

Baina kontua da **idorreriak** jo zuela, behin 15 egun eman zituen komunera joan gabe. Bego Montorio

Asteburu osoan **idorreriak** eragindako nahi eta ezina kanporatu nahi zenuen. Javi Cillero

Gerla denborako **idorreria,** .../ ...aski jan gabeko ahuleria. Jokin Urain

Hainbat hilabete lehenago hasi zitzaion **idorreria** arazoak ematen. Imanol Zurutuza

**2** *irud*

Zenbait goiargik Putzu-ren soiltasun formala mespretxuzko imintzio aristokratiko batez arbuiatzen du, ez baitu ez dakit zer xilipurdi nouveau baliatu: irakurle pepelerdoa duzu hori, **idorreriak** jotako gizajoa. Markos Zapiain

# idortasun *iz* idorra denaren nolakotasuna.

Bigarren hipotesia lurraren **idortasuna,** tokietako lehortasuna, horizonteetako antzutasuna dateke. Jon Alonso

Uharrak ingurua basaki kolpatzen zuela, **idortasun** apurreko egur xehe bila atera nintzen. Itxaro Borda

Ziklo horietako bakoitzak **idortasun** eta hezetasun-aldiak zituelarik txandaka. Iñaki Mendiguren

Jendeak barnean elkarren kontra zeuden, **idor** eta berotasun bila, trinko. Itxaro Borda

Zer sofrikarioa, katixima egile, Elizako langile batentzat? nola jasan Elizaren **idortasuna**? Herria

# idorte *iz* agortea.

Aspaldian etzela holako **idorterik** izan gure eskualdetan ez eta hein hortako bero handirik. Herria

**Idortearen** ondotik, eurite gaitzak? Herria

Uholdeak edo **idorteak** izaten ahal dira, uztak suntsitzen edo berdin kiskaltzen ahal dira... Elena Touyarou

**Idorteak** eta beroaldiak batetik, euri jasak, lurraren higadura eta uholdeak bertzetik. Berria - Euskal Herria

Harri lauza ttipiek taulada berezi bat eratzen dute **idorteak,** basamortu batean, puskatu, kraskatu duen lurraren antzekoa. Piarres Aintziart

Suteak nun nahi badaude Europa guzian, **idorte** garai huntan. Herria

Urtarrila **idorte,** laboraria dirute. Pello Zabala

Afrikako lurraldeetan **idorteari** buru egiteko programak bideratu ditu. Herria

**Idorteak** kalteak eragiten dizkie laborariei, baina mahastizainei zoriona dakarkie. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **idorte gaitza** (3); **idorte handia** (3); **idortearen ondorioz** (3); **idortearen ondotik** (3)

# idortegi *iz* zerbait idortzeko prestatzen den lekua.

Zaila litzateke aurkitzea beste inor hark adina gari zuenik [...] eta biltegietan, aletegietan eta **idortegietan** hark beste oihal, ehun, ardi-larru ondu zein ondugabe, arrain gazitu, barazki eta ehizaki zuenik. Jose Morales

Soroetan, larrain estalietan, azao-**idortegietan** eta errotetan. Jose Morales

**Idortegietan** laboreak jo, jotako aleak larrainetik bihitegira eraman. Jose Morales

# idortu, idor(tu), idortzen 1 da/du *ad* lehortu, ura edo hezetasuna galdu edo kendu.

Arretaz **idortu** nintzen, bainu-oihal garbi batez. Joxan Elosegi

**Idortu** eta beztitu zen hasperenka. Itxaro Borda

Juana harrikoa bukatu eta eskuak **idortzen** ari dela ikusi duenean Lainez zutitu egin da. Pello Lizarralde

Jakaren besoa erabili du aurpegia **idortzeko**. Pello Lizarralde

Arropa bustiak su ondoan **idortzera** utzi zidaten, kristau onen legera. Aingeru Epaltza

Lanjantziak egunez garbitzen zitiztean, gauez gela girotu batean **idortzen,** eta hurrengo goizean goiz ekartzen zitiztean atzera, sirena-jotzearen aurretik. Juan Garzia

Ninak oihal xuri batekin ileak **idortzen** zituen. Ramuntxo Etxeberri

Bi azietak txorrotan garbitu, garbi-oihala mahai gainean hedatu eta han uzten dut baxera **idortzen**. Filipe Bidart

Esku gibelaz ezpainetarik zerion hagun zurpaila **idortuz**. Itxaro Borda

Aurpegiko tantak zamarraren mahukarekin **idortzean** ohartu da Joxe labana odoldua oraindik eskuineko eskuan duela. Pello Lizarralde

Udak **idortutako** belazeak. Jon Alonso

**Idortu** da guztiaren iturria. Oskar Arana

Kliskaz **idortu** genituen godalet lepo luzeak. Itxaro Borda

· Mokanesa hartu eta begi-izkinan loratu malko-muskila **idortu** zuen. Itxaro Borda

Erreteneko ura **idortu** egin zuen. Elizen arteko biblia

**2** *hed/irud*

Pikoak **idortzeko** ohitura ere oso aspaldikoa da. Patziku Perurena

Eztarria **idortu** zitzaidan, soin-adarrak txinaurritu. Aingeru Epaltza

Oi sukar, **idortu** garunok! Juan Garzia

Sofrikarioak **idortzen** ahal du norbait. Menane Oxandabaratz

**3** (era burutua izenondo gisa)

**Lohi** idortuak hirugarren bahe batean pasaraziko dituzte oraingo biez gain. Herria

Musu mardula pausatu zion ezpain **idortuetan** . Itxaro Borda

Ezpain-eztarri **idortuak** pixka bat bustitzeko. Xabier Montoia

Barazki **idortuak,** hala nola apez ilarrak eta ilar xabalak ahal bezain xuhurki xahutzen zituzten. Elena Touyarou

Ogi **idortu** xehatua (chapelure) eta bertze, Bai goxoa, piko **idortua** ! Patziku Perurena

· *irud* Belarri **idortuak** zituen, kartoizkoak iduri. Matías Múgica

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arropa idortzen** (3); **eta idortzen** (3); **idortu eta** (3); **idortu zituen** (4); **idortzen ahal** (4); **idortzen ari** (3); **malkoak idortu** (3); **piko idortua** (3)

---

## idortuxetu, idortuxe(tu), idortuxetzen da *ad* idortuxe bihurtu.

Handik egun batzuetara, lizarrostoa **idortuxetzen** zenean, [...]. Patziku Perurena

---

## idortze *iz* lehortzea, ura edo hezetasuna galtzea edo kentzea.

Lurren **idortzearen** ondorioz, 25 milioi lagun beren bizilekuak laga beharrean aurkitu direla gaitzetsi dute. Berria - Gaiak

Xingarraren kalitate hobea nahi dute aitzinean jarri, gazitegi handi bat duela sei hilabete estreinatu ondoan, **idortze** denbora bereziki bederen bederatzi hilabetekoa ezartzen diote "Oberena" xingarrari. Herria

Belarraren **idortze** prozesuak garrantzi handia du laborantzan. Berria - Euskal Herria

---

iduki ik **eduki[1]**.

---

## idulki 1 *iz* estatua edo kideko zerbaiten oinarria.

Marmolezko estatua klasikoak han hemenka sakabanatuak, **idulkien** gainean goratuak, zuriak, gogoetariak. Joseba Sarrionandia

Marmolezko **idulkiok,** bertikalitate hori zerurantz, egunen batean estatuok jaisteko aginduko dut, azpiko marmol blokeok kendu eta estatuok hemendik pasatzen den jendearen altueran gera daitezen. Joseba Sarrionandia

**Idulkiaren** gainera igorik, belaunikatu zen israeldarren batzar osoaren aitzinean. Elizen arteko biblia

Hor goian **idulkian** dagoen gixon horrengandik dator. Monika Etxebarria

Impétraz ez zen dantzan hasiko bere **idulkiaren** gainean. Monika Etxebarria

· Orain, baina, luzaroan egoten zen ispiluaren aurrean, zeina, urrezko **idulki** batean finkatua, gelako sabairaino iristen baitzen. Patxi Zubizarreta

**2** zutabearen oinarria.

**Idulkiaren** gainean kolomak egiten dira, **idulkiek** alderik alde duten diametroaren neurria emanez altueran; zabalean, berriz, altueraren hamarren bat emango zaie kolomei, kapitelak eta basak barruan hartuta. Santiago Iruretagoiena

Gaineko **idulkiak** beheko **idulkiaren** erdia izango du altueran. Santiago Iruretagoiena

**Idulki** horren gainean jarriko diren kolomek beheko kolomek baino laurden bat gutxiagoko altuera izango dute. Santiago Iruretagoiena

Brno-n, atzera ipini zuten Mendelen estatua bere **idulkian** . Juan Garzia

**3** gailentzeko balio duen gauza.

«Denok elkarrekin gaudela erakutsiko dugu, **idulkitik** jaisteko garaia duela frogatuko diogu», gaineratu zuen. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **idulki baten** (3

---

## idumear *izond/iz* Idumeakoa, Idumeari dagokiona; Idumeako herritarra.

Herodesen fakzioa, bestalde, estatu-politikari oportunista baten jarraitzaileen artetik zegoen erreklutatua, **idumear** jatorriak bere jeinu pertsonalarekin batera gai egiten zuelarik makabeoen erresuman sartu berria zen probintzia jentil bateko seme hura arazoa aurreiritzi gutxiagoz ikusteko. Iñaki Mendiguren

Aldi berean, **idumearrek** ere, gotorleku egokien jabe eginik, juduei eraso egiten zieten. Elizen arteko biblia

Bet-Sur ere gotortu zuen, herriak **idumearren** aurrez aurre gotorlekua izan zezan. Elizen arteko biblia

Judas **idumearren** eta amondarren kontra. Elizen arteko biblia

---

## idun 1 *iz* lepoa.

Belarritako luzeak zeramatzan, kate bat **idunean,** orratz bat paparrean, eraztun sortak ezker eskuko bi hatzetan eta eskuineko batean. Karlos Zabala

Gerrian, **idunean** bezala, perlaz aberastutako zilar-soka distiratsuak buelta osoan. Felipe Juaristi

Brusa urdina soinean, eta tapizeriazko lepokoa **idunaren** inguruan. Karlos Zabala

**2** (soineko batena)

Bere alkandora zuri gogor, **idun** gabea. Koro Navarro

**Idunean** [soldadu alemanek] zeramatzaten izpi itxurako bi marrek ere atentzioa eman zidaten. Urtzi Urrutikoetxea

Larruzko txano bat zeraman, gizonezkoena, eta larruzko **idun** hondatu batez apaindutako jaka. Koro Navarro

Gabardinaren **iduna** goratu eta kapela belarrietaraino sartu zuen. Joxemari Urteaga

Lehen botoia askatu eta **iduna** lasatu zion alkandorari Markoxek. Joxemari Urteaga

Egia da **idunik** gabeko pijama daramadala jantzita. Joxe Austin Arrieta

Baziren galtza arraiadunak eta **idun** gogorrak, eta baita onddo kapela ausart bat ere. Koro Navarro

**Idun** zabaleko kamiseta beltza. Urtzi Urrutikoeetxea

**Idun** jasoko polo beixaren gainetik. Urtzi Urrutikoeetxea

**3** (hitz elkartuetan)

Alegia, bere garaikideek, eskolatik irtetean, iseka egiten ziotela (amultsuki) jaka-**iduna** ukabilaz astabelarri antza jasorik imintzioka, kantari: [...]. Juan Garzia

Eskuak patriketan eta alkandora-**iduna** gorantz altxatuta hantxe egonean geundela. Joxe Austin Arrieta

Alkandora-**iduna** lotuz. Inazio Mujika Iraola

Emakume bat charlestona dantzatzen, emakume bat eguzkia hartzen, alkandora-**idun** meta bat eta gizon bat bere alkandora-**iduna** egokitzen... Berria - Kultura

**4 *farfail idun***

Atso zahar eta mehar bat, moda zaharreko farfail-**idun** xelebrea jantzita. Urtzi Urrutikoetxea

**5 *idun xingola***

Gizon koxkorra zen; ilea labur zeraman, **idun**-xingola koxkor bat, eta mauka-farfail koxkorrak. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> alkandora iduna (3)

---

# iduneko 1 *iz* lepoan jartzen den gauza.

Lepoan jarri dioten **iduneko** plastikozkoaren erruz. Hasier Etxeberria

Ez dut inoiz **idunekorik** jantzi orain arte eta itolarria eragiten dit. Mirentxu Larrañaga

Sama bueltan jarri dioten **iduneko** ortopedikoa. Iñigo Aranbarri

· *irud* Bi uso, **iduneko** berde metalikoa eta koralezko hankak zituztenak, Elleneren bidetik baztertu ziren ahateen ibilkeraz. Lopez de Arana

Eta faisaiak, faisai paregabeak, txano gorrimina, satin berdezko **idunekoa,** urre nielatuzko kapa, sugarrezko isatsa, herrestan orain, gorteko soineko baten gisa. Karlos Zabala

**2** lepokoa (apaingarria)

Hark saltzeko zeuzkan eraztun, **iduneko** eta belarritakoak aztertzen nituen bitartean. Oskar Arana

Eraztun batzuk, **idunekoak** eta urrezko besokoak. Juan Kruz Igerabide

**Idunekoa** kutxatik atera eta Marinari luzatu nion. Oskar Arana

Marinak jantzi zuen azkenean **idunekoa,** eta irribarre egin zuen. Oskar Arana

Beira-alezko **iduneko** baten antzera. Jose Morales

**Iduneko** puskatu baten aleak. Lopez de Arana

Kaobazko edergailu eta urrezko **idunekoak** eskaini zizkioten. Xabier Mendiguren Elizegi

Lepoa inguratzen zidan bolatxozko **idunekoa**. Eider Rodriguez

Lepoan ipini zuen ezkondu bezperan senarrak oparitutako **idunekoa,** harribitxi berde-kolorekoez osatua. Felipe Juaristi

Lepoan, egurrezko ale margotuekiko **iduneko** bat, eta belarritakoak, **idunekoari** ondo ematen diotenak. Oskar Arana

**3** (soineko batena)

Betiko soineko klasikoa, **iduneko** borobila eta bizkarrean lotzen den gerrikoa dituzten horietakoa. Oskar Arana

Oinezkoek burua babesten dute beroki eta longainen **idunekoarekin,** izoztu egiten dira gizonen biboteak eta abereen muturrak. Jose Morales

Elurra baino zuriago eta garbiago zeuzkan **idunekoa** eta paparrekoa, eta, bidaia luzea egin bazuen ere, hauts-izpirik ere ez zeukan frakean; gala-bazkari batera joateko moduan zegoen! Jose Morales

Artile oneko jertse grisa, mahuka eta **idunean** marra berdeduna. Urtzi Urrutikoetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> idunekoa jantzita (3)

---

# iduninguru *iz* lepokoa.

Matoaka gaixoak feltrozko kapelu altu bat zeukan jantzia, perlazko bi girlandarekin; farfail zurrunezko **iduninguru** handi bat, eta lumazko haizemaile bat eskuan. Juan Garzia

---

# iduri *(orobat **uduri** g.er.)* 1 *iz* antza, itxura.

Ez baita indarkeria ekintzaren mailan sartzen alabaina, baina bai -gure dema, desafio, apustu, erronka, zeingehiagoka guztiak **iduri** ikusgarriaren ordenan gelditzen. Piarres Xarriton

Asean dagoen zerri baten **iduria** zuen. Aurelia Arkotxa

Legarrean sartzen direlarik, trunko handi batzuen **iduria** dute. Aurelia Arkotxa

Ikusiz aintzineko bikario nagusien jokamoldea, apezentzat estimu handirik ez zuelako **iduria** eman zuen. Xipri Arbelbide

Ezen horrela laidoaren **iduriarekin** lotuko dugu aginduaren irudikapena. Piarres Xarriton

· -Heroi bat, bai... -eten zidan flakostak, barre-**iduri** bat ezpain zurbiletan-. Alberto Ladron Arana

Beraz, hisi **iduri** bat eginik, zutitu eta erran nion orduan: "Zure fermutasunak neure fermutasun osoa bihurtzen dit". Jon Muñoz

**2** irudia.

Noizik behin, jaun Marcelen **iduri** hura etortzen zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Eta egin zuen osabak **iduri** bat airean bere hatzaz. Joan Mari Irigoien

Liberaltasun iduri haren azpian bertze **iduri** bat ezkutatzen zelako. Joan Mari Irigoien

Ene oroitean **iduri** bat baino ez den emazteki noble eta saindua. Koldo Izagirre

Elizako sainduen **iduriei** bezala. Joan Mari Irigoien

• **3 *iduriko*[1]** *izlag* itxurako; antzeko.

Hautsi-mautsi **iduriko** erabaki horrek harritu zuen Azpilkueta, zinez uste baitzuen berak hobengabea zeukan gizona, osoki zuriturik aterako zela. Piarres Xarriton

Gero, *rapport* delako horrekin, presondegi barneko epaitegian pasatzen zira, eta auzi **iduriko** batean zuzendariak *mitard*-era kondenatzen zaitu. Filipe Bidart

Block-etatik ateratzen ginen, eta zenbait aldiz lantegietatik, haien kondatzeko, lerro lerro zihoazela, kea **iduriko** buztan xuri bat zariotela. Marzel Etxehandi

· *(-en atzikiaren eskuinean)* Horren **iduriko** kasu batean. Piarres Xarriton
Ametsetako andre batekin zaude, ametsetako andre horren **iduriko** norbait noizbait agertuko zaizulako menturan. Janbattitt Dirassar
Gaztainaren **iduriko** eltzaur barnehuts bat ematen dik. Aurelia Arkotxa
Gauza beraren anitz aldiz egitetik dator, alabaina, haren **iduriko** beste gauza baten egiteko erraztasuna. Piarres Xarriton
Herriaren balakatzeko jalgi zuenaren **iduriko** solasa da. Piarres Xarriton
Bigarren denbora erdia lehenaren **idurikoa** izan da. Herria
Hiru mintzaira badituzte, okzitanoa, gure kaskoinaren **idurikoa**, española eta katalana. Herria
Sudurra ttipia eta ahoa arrosaren **idurikoa**. Aurelia Arkotxa
Transzendentearen menean dagoenak ez du adiskidantzaren bidez bere **idurikoei** sobera hurbildu behar. Piarres Aintziart
Aspaldian ez ginuen ukana joanden eguneko eurite horren **idurikorik**. Herria
Zinez egun berezia, bertze urteko bateko irailaren 11 **idurikoa**. Herria
Kale borroka **idurikoa** hedatzen ari Frantzian. Herria
Oraikoak dira, hemengoak, gu **idurikoak,** hots gizon eta emazteak. Herria
Frantses telebixta Frantzia **idurikoa** da. Herria
Eroski euskaldunentzat bederen saltegi haundi horietarik bat [da], Auchan eta Carrefour **idurikoa,** euskaldunek sortua eta, beraz, euskalduna. Herria

## 4 *ene/zure/bere… **iduriko***[2] nire/zure/bere… ustez.

Ene **iduriko,** hola pentsatzen dutenak beste planeta batekoak dira eta beste hizkuntza batean mintzo zaizkigu. Pello Salaburu
Aldiz, ene **iduriko,** errota da eihera harriaren itxura. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Ez da, ene **iduriko,** Eutanasia kondenatzen duen legea kanbiatu behar. Herria
Hona herri bat, ene **iduriko** beste herriak baino barnago fede katolikoak markatua. Piarres Aintziart
Kalteak... ene **iduriko** ez. Menane Oxandabaratz
Eta horrela, ene **iduriko,** Jainkoaren ahalguztiduntasuna biziki hobeki ulertzen da. Piarres Xarriton
Euskal gaietan naski galdua dugu denek "immunité" hori... ene **iduriko**. Menane Oxandabaratz
Nun da, zure **iduriko,** Euskal Herriko tokirik ederrena? Menane Oxandabaratz
Eta beraz zure **iduriko** zein liteke Erroman bizi diren espainolen artean bereizi behar genukeena? Piarres Xarriton
Zure **iduriko** emazte eta gizon batek oraiko egunean ber lekua dutea gizarte huntan? Menane Oxandabaratz
Sofritu ez duen pertsonak, bere **iduriko** zernahi badaki, asko egiten ahal baitu. Menane Oxandabaratz
Ez zen, haren **iduriko,** deus interesgarririk gune hartan, ez eta baserririk ere. Elena Touyarou
Hura gizon xehea eta lañoa da eta, gure **iduriko,** konturatu gabe mintzatu dateke bazterretan. Piarres Xarriton

## 5 ***iduriz***[1] itxuraz, antza denez.

Herri honetan, etxe guti eta, **iduriz,** hutsak. Piarres Aintziart
Osasun betean **iduriz,** aurpegiek diotenez. Piarres Aintziart
Ene aitzinean, neska gazte bat **iduriz** xarmanta, bizkar erditarainoko ile luze batzuekin. Janbattitt Dirassar
Patar gogor eta xuta eta **iduriz** aski luzea. Piarres Aintziart
Kierkegaardek trenkatu ahal izan du, **iduriz,** arazo hori, baina berarentzat bakarrik du balio haren irtenbideak. Piarres Aintziart
Ez zuken bada **iduriz** penitentziaren behar handirik. Xipri Arbelbide
Badakigu, xehetasun anitzik gabe, elizako lehen dorrea, **iduriz** oraingoa baino apalagoa, 1791n altxatu izan zela. Michel Oronoz
-Halarik ere, **iduriz,** untsa ateratzen zira... Menane Oxandabaratz
**Iduriz** ez. Xipri Arbelbide
Atearen parean leihoa, aski gora, *vasistas* edo leihatila sistema bat, doi-doia idekia aire pixka bat uzteko gisan, **iduriz..**. Filipe Bidart
**iduriz,** zeren eta ez baita ongi ageri, sare lodi batek ongi hesten baitu leihatila barneko aldetik. Filipe Bidart

## 6 *-en **iduriz***[2] -en ustez.

Gauza barkagaitza horixe, amaren **iduriz**. Aingeru Epaltza
Ttipiren **iduriz** ez zuen nahitara egiten: "gaitza duk eta ez omen dik sendabiderik. Aingeru Epaltza
Begirada itxurakoaz, ene **iduriz**. Pako Aristi

## 7 ***idurizko*** irudizkoa.

Itsasertz lehertu baten **idurizko** nahasmenduan. Errealak baino areago, itxurazkoak eta **idurizkoak** dira kontradikzione guztiak. Koldo Izagirre
[Borroka haiek] gehiago zutela **idurizkotik** zinezkotik baino. Joan Mari Irigoien

## 8 ***ez idurian*** ez arian bezala, bestela bezala. ik **idurika 2.**

Ez **idurian** parropiako kermeza hurbiltzen ari da. Herria
Ez **idurian,** udan, 17.317 presuna galdezkatuak izan dire buruzburu, bertzalde 6.102 telefonoz. Herria
Ez **idurian** tanto xoragarriak izan ditu partida hunek aintzinean baina Titinek eremaiten auzia. Herria
Elkar ezagutzen ez duten jendeen arteko jestu horiek, ebaska bezala eginak direlarik, badukete, ez **idurian,** adiera sakon zerbait, senditzen den erranahi bat. Piarres Aintziart
Beharbada zalaparta mediatiko gutxiago sortuz, baina isil-isila, ez **idurian**, aitzinamendu handiak egiten ditu. Berria - Harian
Bizi dago sua eta zabaltzen ari ez **idurian** sutea, Gilenen baitan hotz eta irmo, semearena ero. Piarres Aintziart
Jakin behar duzu mundu zahar honetan indarrez betetako gazteez gain badirela beste anitz gauza zure inguruan, zerbaiterako balio dutenak gainera **ez idurian**. Pello Salaburu

## 9 ***iduri eta*** (konpletiba batez) ba-... bezala. ik beherago **14;** ik **alegia**[2].

Duela zenbait hilabete Sarkozy jaun ministroa agertzen zen egunero frantses telebixtetan, **iduri** eta harek bakarrik manatzen zuela. Herria
Noiztenka, bere eskua luzatu eta haren esku gainean pausatzen zuen, **iduri eta** egiaztatu nahi zuela ez zela amets bat, hezur eta larruz egina zela. Elena Touyarou
Euria jauts ahala, **iduri eta** gu ginela oraingoan zangotik harrapatuak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
· Jackie-ri so dago, **iduri-eta** kondatzen dituen guziak irensten dituen... Eneko Bidegain

## 10 ***iduri izan***[1] du *ad* irudi izan.

Ostalertsak emazte ona **iduri** zuen. Janbattitt Dirassar
Ez zuen **iduri** kexu zela nik erranik Arlesen nahiago nuela gelditu. Janbattitt Dirassar
Jende guti alorretan, **iduri** du denak gerlan direla. Marzel Etxehandi
**Iduri** du haatik gobernuak ixtorio hortan gibelerat bezala egiten duela. Herria
Gau batzuez, **iduri** du besta egiten dutela! Janbattitt Dirassar
Bi asteren epea ez dela halere hain luzea, luze **iduri** badu ere... Janbattitt Dirassar
Horrek ere ez du **irudi** fidagarria denik. Herria

Horiek euskaldunak bizkitartean, bainan ez dute **iduri** sobera axolarik badutela. Menane Oxandabaratz

Bere buruaz kontent **iduri** du. Filipe Bidart

Baina arras lotsatua **iduri** duzu. Janbattitt Dirassar

Bai, orai, hamar urteren buruan, horretaz orroitzean haurkeriak **iduri** dute, Aintzinerat egin beharko dela, denek ados **iduri** dute. Filipe Bidart

Frango lasai, hala **iduri** zuten segurik. Herria

Miserable bat **iduri** dik gizon horrek. Piarres Aintziart

Zetazkoa **iduri** zuen atorra koloretsu batekin. Janbattitt Dirassar

Andere gazteetan zaharrena **iduri** zuenak ihardetsi zien: [...]. Aurelia Arkotxa

Ez zaigu **iduri** beraz arazoa hor izan zitekeenik. Xipri Arbelbide

**Iduri** luke bakoitza bere alde ari zirela eta ez elgarrekin. Xipri Arbelbide

Girondins: **Iduri** luke hasi dutela holako beherakada bat Baionesen kontra galduz geroztik. Herria

Ez ote luke **iduri** solas horien oihartzuna dugula entzuten XX. mende hastapeneko Unamunoren ateraldi batzuetan? Piarres Xarriton

Itsasoa hain da handi leku horietan non hedoietarik dilindan dela duen **iduri**. Aurelia Arkotxa

## 11 *iduri izan*[2] zaio *ad*

**Iduri** zait autoak berak, airea hautsiz, ene oinazeak mozten dizkidala. Piarres Aintziart

**Iduri** zitzaidan begitartea ez zuela behin iduritua zitzaidan bezain hotza. Janbattitt Dirassar

Ez zait **iduri** Jainkotikakoa zela uste zuenik berak, bainan garbia zela eta bestek kutsatu gabea, bai. Xipri Arbelbide

Erromesari **iduri** zaioke, gain honetatik behere haietara so eginez, Konpostelara helduxea dela lerratzea aski zaiola. Piarres Aintziart

## 12 *iduri izan*[3] da *ad*

Segurki, ez gira nehoren zakurrak; bizkitartean **iduri** da denbora hauetan tendentzia dela gaitz guziak gure gain ezartzea gure itxuraren zikintzeko bizitzaleen aitzinean. Herria

## 13 *iduri izan*[4] (laguntzailea ezabaturik; ik **iduri 20**)

Denek uros **iduri**. Bizia bazihoan, egun batak bestea **iduri**. Marzel Etxehandi

Bakea da **haurra** iduri. Herria

Nehork ez nehori kasu egiten, denek presatuak **iduri,** kasik galduak, denak arrotzak, beste mundu batetik ateraiak bezala. Janbattitt Dirassar

Hori erran niolarik, begiak zabaldu zitzaizkion eta eni so gelditu zen, **iduri** harritua. Janbattitt Dirassar

Patarrari goiti, kamiunttoa alde bat eztul eta uzker, **iduri** ez zela sekulan gaineraino helduko... Janbattitt Dirassar

Abiatu berria baizik ez naizela **iduri,** eta horra non burdinazko atea zabaltzen entzuten dudan. Filipe Bidart

Egiazki lo zen, **iduri** aingeruekin ametsetan ari. Janbattitt Dirassar

Kasko batean, dena argitarat, **iduri** urrezkoa, Andredena Mariaren itxura. Janbattitt Dirassar

Galtzerdi pare bat, frantxixkano oinetakoak, eta buruan jockey **iduri** kasketa bat. Marzel Etxehandi

· Jainkoa **iduria** dela arima. Piarres Xarriton

Uste dutenak etxe handia hiri tipia bezala dela, eta hiri tipia, berriz, etxe handia **iduria**. Piarres Xarriton

Asmatu dute Izadiaren zuzendari bat edo batzuk badirela, gizakiak **iduriak,** libre direnak. Piarres Xarriton

Hortaz, gauza hura gu **iduria** bada, ahaleginduko gara haren, besteen gainetik, Poztasunez hunkitzen. Piarres Xarriton

Eta hortik dator ahalmen horiek eta horiek **iduriak** edo irudipen hutsak edo izate metafisiko soilak edo unibertsalak direla. Piarres Xarriton

· Haren hazteko eta osabetetzeko hazkurria eta bera **iduriko** beste baten sortzeko hazia. Piarres Xarriton

Gizakia sortzen du, zaintzen eta hazten, bai eta bera **iduriko** bat dio eginarazten. Piarres Xarriton

· Beste gauza honek izigarri soleitzen nau, hots, jakiteak Jainko onak baduela aski indar zure arima sainduaren eta zure **idurien** nasaiki sariztatzeko ene ordez. Piarres Xarriton

## 14 *iduriz eta* ba-... bezala; uste izanik. ik gorago **9.**

Ene mihiak indar berezia egin zuen hitz bakoitzeko silaba bakoitzean, **iduriz** eta ahoskeraren garbitasunak egiaren argiaz hornituko zuen nire argudioa. Aingeru Epaltza

Jadanik erran dut nola aipatu dituen Baionako bestak, **iduriz eta** ez dela bertze bestarik Iparraldean. Herria

**Iduriz eta** etapa errazegia bilakatu zaidala ondarrean! Piarres Aintziart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**baina iduri** (13); **baina iduri du** (6); **baina iduri luke** (5); **bainan iduri** (6); **bat iduri** (74); **bat iduri du** (4); **bat iduri zuen** (4); **batzuetan iduri** (4); **batzuk iduri** (4); **bertze iduri** (12); **bertzeak iduri** (4); **dela iduri** (14); **dela iduri du** (4); **dela iduri luke** (4); **direla iduri** (7); **du iduri** (40); **du iduri haatik** (9); **duela iduri** (4); **dute iduri** (8); **ere iduri** (5); **eta iduri** (36); **eta iduri du** (5); **eta iduri luke** (9); **eta iduri zuen** (4); **ez du iduri** (39); **ez dute iduri** (7); **ez iduri** (4); **ez zuen iduri** (6); **ezen iduri** (4); **galduak iduri** (4); **hala iduri** (16); **hala iduri du** (6); **horrek iduri** (8); **horrek iduri du** (4)

**iduri bailuke** (4); **iduri baino** (4); **iduri baitu** (15); **iduri baitzuen** (6); **iduri baitzuten** (4); **iduri bat** (17); **iduri bere** (4); **iduri du** (187); **iduri du ez** (4); **iduri du segurik** (5); **iduri duela** (4); **iduri duen** (11); **iduri dute** (38); **iduri dutela** (4); **iduri duzu** (6); **iduri egin** (5); **iduri egiten** (5); **iduri egiterat** (4); **iduri eta** (35); **iduri ez** (9); **iduri haatik** (12); **iduri haiek** (5); **iduri haren** (6); **iduri hura** (16); **iduri izan** (8); **iduri izan zuen** (4); **iduri luke** (163); **iduri luke ez** (7); **iduri luke haatik** (6); **iduri zaio** (4); **iduri zait** (11); **iduri zitzaion** (4); **iduri zuela** (4); **iduri zuen** (139); **iduri zuten** (21)

**kasik iduri** (7); **nahi iduri** (4); **on iduri** (5); **ona iduri** (4); **zela iduri** (9); **zela iduri zuen** (7); **zuela iduri** (8); **zuen iduri** (7)

**bainan iduriz** (9); **baten iduriko** (4); **baten idurikoa** (7); **batzuen iduriko** (4); **bere iduriko** (10); **da iduriz** (5); **ene iduriko** (56); **ene iduriz** (4); **erlikiontzi iduriko** (4); **eta iduriz** (39); **ez idurian** (14); **gure iduriko** (17); **haien iduriko** (6); **haren iduriko** (16); **hau iduriz** (4); **heien iduriko** (4); **horren iduriko** (4); **iduriko bat** (5); **iduriko beste** (5); **iduriko ez** (7); **iduriko gizon** (4); **iduriko haren** (4); **iduriko hartan** (7); **iduriko hura** (8); **iduriko zerbait** (10); **idurikoa da** (5); **idurikoak dira** (4); **iduriz arras** (5); **iduriz bederen** (15); **iduriz eta** (7); **iduriz ez** (15); **iduriz segurik** (20); **konbertsione iduriko** (5); **nere iduriko** (8); **nire iduriko** (22); **zen iduriz** (4); **zure iduriko** (5)

---

# idurika 1 *iz* antza.

Urarekin alderatzen du Axularrek denbora, "zeren denborak eta urak elkarren **idurika** handi baitute". Imanol Zurutuza

## 2 *ez idurika* *ipar* ez arian bezala, bestela bezala. ik **iduri 8**.

Karia hortarat Frantxua Bayrou-k ere **ez idurika** hein bat polliki jorratu du gobernua. Herria

Beste arrangura bat, arras minbera hau ere, **ez idurika** bizia polliki kariotu dela azken bi urte hotan. Herria

Egia erran, kanbiatu ere da **ez idurika** eta ez entraalean gainerat! Herria

**Ez idurika,** Sarkozy-k hartu du ostiko bat. Herria

**Ez idurika,** Begiraleak elkarte hortan badira 314 lagun eta denak atxikiak euskal kulturari. Herria

**Ez idurika** aldaketa handia da hori ere... Herria

Horrek ere baditu **ez idurika** bere gisako ondorioak eta gehiago ukanen, hola segituz, ondoko egunetan. Herria

Baditake zernahi gisaz gerlaren beldurrak ainitz egiten duen **ez idurika**. Herria

Kariotze pizkorra **ez idurika**! Herria

Urrun bainoa, **ez idurika**. Janbattitt Dirassar

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ere ez idurika (5); ez idurika (78); ez idurika hellip (3); idurika ezazu (4); idurika itzazu (3); idurikatu nuen (6); irudika idurika (4)

---

**idurikatu**, idurika, idurikatzen du *ad* imajinatu.

Hainbertze **idurikatu** bide berria ideki bezain laster, hestea aipatzen daukute gure hautetsiek. Herria

Nolako geroa **idurikatzen** ahal du belar tzarrak errotik jalgitzen diren bezala nexka kontzebitu berriak hiltzen dituen herriak? Herria

Antinaturaltasuna nork **idurika** lezake, ez bada hortzekilako oilo batek... Berria - Kultura

**Idurika** itzazu laurogei oin luze dituzten arbelak. Koldo Izagirre

49 urte badu asiatarren artean dagola misionest eta ez da dudarik bere artaldeak **idurikatzen** duela orai. Herria

Klara noragabetua **idurikatu** nuen, trenputxartua beti, etxera itzuli ezin edo lantokian sartzen ahal ez zela. Aingeru Epaltza

Ezin zuten Sara **idurikatu** herritarrik gabe, eta nonbait hobendun sentitzen ziren haiek sendo eta salbu baitziren. Elena Touyarou

---

**idurikeria** *iz* irudikeria.

Imajinazinoaren **idurikeriak** zirela haiek guztiak, eta ez arrazoinaren arrazoinak. Joan Mari Irigoien

Imajinazinoaren **idurikeriak** zirela haiek guztiak, eta ez arrazoinaren arrazoinak. Joan Mari Irigoien

---

iduriko ik **irudi 3; irudi 4**.

---

**idurikotasun** *iz* antzekotasuna.

Eta bi idurien **idurikotasuna** -Jesu Kristorena eta haren amarena, eta enea eta ene amarena- konfirmatzerat etorri zitzaidan. Joan Mari Irigoien

---

**idurimen** *iz* irudimena.

Edo koskoilak; edo koskabiloak; edo panpalinak; edo barrabilak; edo zintzilikarioak... herri **idurimenak** delako zorro pilotadun ale-bikoa izendatzeko asmatu dituen molde ugariak agortzeari emanez gero. Aingeru Epaltza

---

**iduripen** **1** *iz* irudipena.

Antzinako **iduripen** eta ustekizun beretan dago hemen Etxepare. Piarres Xarriton

**Iduripen** hutsa, bistan da, baina aski neure buruarekin koleratzeko. Aingeru Epaltza

Liburuak eta izkribuak epaitzen dituzten letradun batzuen **iduripenak** eta susmoak. Piarres Xarriton

Hizkuntzalaritzaren arloa da, hain zuzen, ustekeriak, ameskeriak eta **iduripenak** gehien zabaldu diren arloa. Isabel Arrigain

**Iduripena** eman du garaztarrak ez duela bere ahaletan aski sinetsi, noiz-eta bortxa gehixagorekin tiratzen hasi delarik bestea. Herria

**2** irudikapena.

Haritza baita euskaldunen arbola **iduripen** maitatuena. Herria

---

**iduritsu** *izond* gutxi gorabehera antzekoa.

Gudua ondar urtekoaren **iduritsu** izan da. Herria

---

**iduritu**, iduri, iduritzen **1** zaio *ad* iruditu.

**Iduritu** zait ez zarela arras besteak bezalakoa... Janbattitt Dirassar

Edouard Balladur gobernuburu ohiari **iduritzen** zaio «Union» hitz xoila batere ez litakeela gaizki. Herria

**Iduritzen** zait, gehiago dena, hemen ezarri lerro bakoitxak zutarik hurbilago ezartzen nauela. Janbattitt Dirassar

Urrun **iduritzen** zaukun Europa hori arras hurbil dugu. Herria

Eta **iduritzen** zaut egiazki norbait diren jendeek beren burua ez daukatela hala. Menane Oxandabaratz

Ez zait **iduritzen**. Menane Oxandabaratz

Magaliren begitartea doi bat ilundu zen, hala **iduritu** zitzaidan segurik. Janbattitt Dirassar

Ustekabe atsegina ukan zuen, gizabidetsuagoa **iduritu** baitzitzaion. Elena Touyarou

Ez zait bada **iduritzen,** Pierre Eyt, Bordeleko kardinale zenak horrelako irakaspenik emaiten zuela, 1974an, Baionako San Leonen parrokian. Piarres Xarriton

Iduri zitzaidan begitartea ez zuela behin **iduritua** zitzaidan bezain hotza. Janbattitt Dirassar

Eskaleretan goiti ari-eta **iduritzen** lurpean sartzen ginela. Janbattitt Dirassar

Ala eni **iduritzen** hala zela? ez dakit... Janbattitt Dirassar

***2 nire iruditan***

Gizakiaren baliorik gorena baita **nere idurituan**. Patziku Perurena

**Nire idurituan**, behintzat, hurra eta ura erro bereko izanak baitira, Europako mundu ikuskerarik zaharrenean. Patziku Perurena

**Nere idurituan**, herri batek izan lezazken etsairik haundienak, ahazkorrak baitira" zioen 1993.eko Plazaola aldizkarian. Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

baina iduritu (4); bat iduritu (6); bat iduritu zitzaidan (4); eta iduritu (17); eta iduritu zitzaidan (12); hala iduritu (9); hala iduritu zitzaidan (4); iduritu baitzitzaidan (5); iduritu baitzitzaidan ezen (4); iduritu zaie (5); iduritu zaigu (7); iduritu zaiku (4); iduritu zaio (14); iduritu zaiote (4); iduritu zait (31); iduritu zauku (5); iduritu zaut (6); iduritu zitzaidan (77); iduritu zitzaidan ezen (17); iduritu zitzaien (8); iduritu zitzaion (29); iduritu zitzaizkidan (6); idurituri ezen (6); nere idurituan (5); zela iduritu (7); zer iduritu (4)

al zaizu iduritzen (9); aldiz iduritzen (4); baina iduritzen (5); bainan iduritzen (9); batzueri iduritzen (14); dela iduritzen (5); direla iduritzen (4); eni iduritzen (5); ere iduritzen (4); eta iduritzen (19); eta iduritzen zait (4); hala iduritzen (9); iduritzen ahal (5); iduritzen baitzaio (4); iduritzen baitzait (4); iduritzen baitzitzaidan (5); iduritzen baitzitzaidan ezen (4); iduritzen ezen (5); iduritzen zaie (20); iduritzen zaien (4); iduritzen zaigu (14); iduritzen zaigun (8); iduritzen zaio (42); iduritzen zaion (4); iduritzen zaiote (18); iduritzen zait (88); iduritzen zait ez (4); iduritzen zaizu (16); iduritzen zauku (11); iduritzen zaut (26); iduritzen zauzu (9); iduritzen zitzaidan (27); iduritzen zitzaigun (10); iduritzen zitzaion (23); zaizu iduritzen (10); zaizu iduritzen ezen (4); zela iduritzen (4); zer iduritzen (11); zeren iduritzen (5)

---

**iduritze** *iz*

Iduritzen hau, iduritzen hura, bainan **iduritze** horiek frangotan tronpakor... Herria

---

**iduritzenago izan** 1 zaio *ad* areago iruditu.

Gurpilari lotuak ginen: zenbatenaz eta gehiago idatzi hanbatenaz zitzaigun **iduritzenago** halabeharrez irakurri behar genituela dendetako apaletako liburuak oro. gero eta **iduritzenago** zait ezen liburu haien orrietarik atereak izan zitezkeela nik egun haietan bertze marinelei aditurikako hainbat historia. Pello Salaburu

• **2** du *ad*

Atalasera agertu emakumeak **iduritzenago** zuen etxekoandre lanpetua, nik gogoan erabili bezalako sorgin, igarle edo belagilea baino. Aingeru Epaltza

---

iduzki ik **eguzki**.

---

**ieepa** *interj* iepa.

**Ieepa** ! Mirentxu Larrañaga

---

**iel** *(corpusean **ihel** soilik) adlag* behorra edo astemea arreske.

Baina abereen (asto-mando-behorren) sexugrina adierazteko erabili ohi den **ihel** hori? Patziku Perurena

---

**ieldu**, iel(du), ieltzen *(corpusean **iheldu** soilik)* da *ad* behorra edo astemea iel jarri.

Dena den, behorrak **iheltzen** diren sasoirako, auzoko herrietara eraman eta astarrak gaineratzen zaizkie, eta umatzen direnean, ekarri egiten dituzte atzera. Patziku Perurena

---

**iemstxik** *iz* posta-gidaria.

Posta gidari bat, **iemstxik** bat, hango hizkuntzaz esanda, arduratu zen zaldiak lotzeaz. Karlos Zabala

**Iemstxika** , bestalde, posta bakoitzean aldatzen da. Karlos Zabala

Bi lagun eramateko egina zegoen, **iemstxika** kontatu gabe, zeinak, oreka mirarizko bat zela medio, bere eserleku meharrean irauten zuen erortzeke. Karlos Zabala

-Gaizki ari dun hire neba hori -esan zion **iemstxikak** neska gazteari. Karlos Zabala

**Iemstxikak** tarantaseko bidaztiei begiratu zien jakin-min handiz, zaldiak lotzera hurbildu zenean. Karlos Zabala

---

**iepa** *interj* norbait ikustean agurtzeko erabiltzen den hitza.

**Iepa** . **-Iepa** -ogro ahotsa atera zitzaion. Fernando Morillo

**-Iepa** Kat! Sonia Gonzalez

**-Iepa,** Martin, Etxabe nauk. Xabier Etxabe

**-Iepa,** bikote -agurtu zituen. Fernando Morillo

**-Iepa,** kolega -besarkatu du Dylanek-, hi ere hiri handira etorri haiz, e? Pako Aristi

**Iepa,** maitea: [...]. Lander Garro

**Iepa..** . Euskalduna al haiz? Pablo Sastre

Karrikan guztiz emakume arruntek baizik ez naute agurtzen; pasaian kausitu eta **"iepa!"** erraten didatenetarik zen ate ondokoa ere. Aingeru Epaltza

---

ifar ik **ipar**.

---

iferrnu ik **infernu**.

---

**ifrentzu** *(orobat **infrentzu** g.er.)* **1** *iz* oihal, ehun, domina eta kidekoetan, aurkia ez den aldea, atzeko aldea. ik**iruntzi; binper**.

Arkimedesen dominaren **ifrentzua** duk hori -azaldu zuen Ruche jaunak ahots hotzez. Jon Muñoz

Kristoren gurutzea daramanean, bertute guztietan honen antzeko izanez, orduan lortzen da egiazko irudia txanponaren **ifrentzuan** . Joan Mari Lekuona

Argazkiari buelta eman eta **ifrentzuan** beste argazki bat zuen itsatsita. Fernando Rey

Gero, hauxe irakurri nuen **ifrentzuan:** “Anny”. Monika Etxebarria

**Ifrentzuan** ezer idatzirik ba ote zegoen ikustearren. Jose Morales

Pagoaren hostoa liburu baten orrialderen harat hunatekin, noiz aldea erakutsiz eta noiz **ifrentzua,** ikara eztian ari da iduzkiarekin josteta. Piarres Aintziart

Nik aurkia hautatu nuen, eta Jackek **ifrentzua,** eta **ifrentzua** atera zen. Iban Zaldua

Orobat, paper orri batekin erka dezakegu hizkuntza: pentsamendua aurkia litzateke, eta hotsa **ifrentzua** . Isabel Arrigain

Baina aurki horri ere aurki dakioke bere **ifrentzua** . Iñaki Arranz

Izan ere, txanponak badik **ifrentzua:** bere agindupean hago eta berak ez dik ahaztuko. Agustin Otsoa

Garaipenaren eztiak galtzaileen mikatza du bestaldea, aurkiak bere **ifrentzua** bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina txanpon guztiak bezala, bi alde ditu horrek ere, aurkia eta **ifrentzua** . Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aurkia, **ifrentzuaren** kaltetan. Pello Salaburu

Gauza orok du bere iruntzia, bere **ifrentzua,** bere alderdi ezkutu edo sibilinoa. Karlos Linazasoro

Kristoren gurutzea daramanean, bertute guztietan honen antzeko izanez, orduan lortzen da egiazko irudia txanponaren **ifrentzuan** . Joan Mari Lekuona

**2** *hed*

Inor ez da arduratu apaintzeaz, **ifrentzu** bat da, horixe hain zuzen. Monika Etxebarria

Zer da gezurra, egiaren mozorroa, egia deitzen dugunaren beste aldea, **ifrentzua** baino? Anjel Lertxundi

Eskubide bat betebehar baten **ifrentzua** izaten baita beti. Monika Etxebarria

Negozio, berriz, *otium* hitzaren **ifrentzua** dugu, aisiaren ukaziotik *-ne-otium-* sortua. Anjel Lertxundi

Eta ez da gezurra Allenderen abisua, baina aurki horrek badu bere **ifrentzua:** Herri puskatua beti garaitua! Piarres Xarriton

Argia baita gure izaera eta gure existentzia, gure aldea eta gure **ifrentzua**. Felipe Juaristi

Gogoramena eta ahazmena gauza bera dira biak, aldea eta **ifrentzua** dira biak, argia eta itzala dira biak. Felipe Juaristi

Alabenganako aitaren maitasunaren **ifrentzua** suhia da. Markos Zapiain

Kapitalismo basati baten nagusitasunaren **ifrentzua** baizik ez da estatuek ageri duten geldotasuna. Koro Navarro

Ahots bikoa (edo hirukoa) da gizakia, eta begietan itsatsirik darama bere historiaren **ifrentzua**. **Ifrentzuan** hasi balitzait bezala sentitu nuen barrua, sabela, tripak, hesteak, kanpoan guztia, buelta emaniko eskularru baten moduan. Juan Kruz Igerabide

Izan ere, zenbat gezur hitz horren **ifrentzuan** ere, jaun André! Joan Mari Irigoien

Galdegite goratsua zein ironikoa lanbide bihurtzen dugu idazleok, teknikari edo enpresari edo merkatari baten jokabidearen guztiz **ifrentzuan**. Anjel Lertxundi

## 3 *ifrentzuz* alderantziz. ik **iruntzi 2.**

Askoren arrangura, gauzak hein bat **ifrentzuz** egiten direla. Herria

Eta Donibane Garazin nago, **infrentzuz** eginik bidea, zer bitxikeria, eta hoin fite! Piarres Aintziart

Gero jakak elkarri lotu, mahukak **ifrentzuz** jarri, eta mahuketatik barrena pasatu zituzten bi adar haiek. Inazio Mujika Iraola

Aitzin eta gibel, aurkiz eta **ifrentzuz,** konkistatzaile indiar-jale baten irudia zeraman paper puska muskerraren angelu eta azalera ezberdinek eskaini ahala aukerez baliatu nintzen. Aingeru Epaltza

Zeren dohakabeari ongi baliatu baitzitzaion mahats hostoa, nahiz eta, enetzat, **ifrentzuzko** helburu batean dagoen delako hostoaren erabilera. Piarres Aintziart

Egunean zehar, egia erran, laneko eta gainerako betekizunak oro alderantziz edo **ifrentzuz** obratu nituen: kontularitzan derrigorrezko gehiketen ordez, [...]. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurkia eta ifrentzua** (9); **bere ifrentzua** (8); **eta ifrentzua** (14); **ifrentzua zen** (3)

---

# igali 1 *iz* fruitua.

Zuhaitzetako **igali** onduak balira bezala. Felipe Juaristi

Gero sagar ale eder bat atariko sagarrondotik hartu, eskuin eskuaz **igaliari** hautsa kendu eta ahora eraman zuen. Felipe Juaristi

Augilatik beste hamar eguneko bidean beste gatz muino bat dago, gainerakoek bezalaxe, ura eta palmondo **igali** emaile ugari duena. Patziku Perurena

Lur emankorrean erori eta fruitu mingotsak, **igali** odoltsuak, eman zituena. Felipe Juaristi

Naturaren **igaliez** gozatzeko. Felipe Juaristi

Gero udazkenean mandio eta ganbarak alez eta **igaliz** beteko baziren. Pello Zabala

Garaiz kanpoko **igaliek** duten kolore zurbil eta ajatuarekin, hain urduri eta adeitsu emakume gazte batekin zeudelako. Joxean Agirre

Eta folklore horretan nahasirik ageri ziren Afrikako eta Europako sustraiak, **igali** hibrido eta koloretsuak emanez. Berria - Kultura

## 2 *igali zuhaitz*

Arbolaxka txukun inausiak, **igali** zuhaitzak lorez betetzear, marrubi landareak, mahastiak... Pako Aristi

## 3 *zuhaitz igali*

Naturaren soinuak entzuteko belarriak, zuhaitz **igaliak** hartzeko eskuak, maitearengana laster egiteko oinak. Felipe Juaristi

---

# igan[1] , igaten *(291 agerraldi, 29 liburu eta 121 artikulutan; ETCn 46 agerraldi; orobat* **igaiten** *ETCn 168 agerraldi)* **1** da *ad* igo.

Hau Mont Blanc kaskorat **igan** da, Philippe Iphar Donazahartarrarekin. Herria

Gaztea, sasoi hoberenean, Everestera **igan** den lehen emaztea da. Herria

Eta hara **igan** direla eta Noeren ontzia ukitu dutela erraten dutenek gezurra diote. Aurelia Arkotxa

Hartua genuela mendi gain haietatik **iganen** zen bidea. Piarres Aintziart

Abel ezpondara **igan** eta ahuspez etzanda geratu da, zelatan. Pello Lizarralde

Pentze handi eder bat utzi dugu eskuin eta zuhaitzen erdian hasi gara **igaten**. Piarres Aintziart

Zuhaitz lerden baterat **iganik**. Joan Mari Irigoien

Ziminoak bezain aise arboletara **igaten** direnak. Aurelia Arkotxa

Lehen solairura **igan** zen eta usaiako bizilekuan sartu. Eneko Bidegain

Azkenean, noizbait, soinulariak **igan** ziren taula gainerat. Janbattitt Dirassar

Ixtanteko, "demo" batzu beren jarlekuen gainerat **igan** dira eta xutik plantatu. hormaren kontra altxatua den ohe gainera **igan** eta handik ene soa doa zuzenago leihatilaren artekatik teilatu izkinara. Herria

Zaldira **igan,** eta Baionarako bidean, ilunpean galdu zen. Elena Touyarou

Arratsaldeko 7'00etan, jautsi baino lasaiago **igan** gira denak autobuserat. Herria

Oren bat daukazue zuen pusken biltzeko eta berehala helduko diren kamioietara **igateko**. Xabier Montoia

Autorat berriz **igaiterat** nindoalarik, gizon handi sudur-luze bat hurbiltzen zait. Janbattitt Dirassar

Orotarat, mila bost ehun lagun nunbait han **igan** dira untzi hortarat... Herria

Gizonak oinez zihoazen, eta emazteak asto batek tiratzen zuen bi gurpileko orgatxoan **iganik**. Elena Touyarou

## 2 *hed/irud*

1004. urtean, Iruñeko tronüala **igan** zen Antso Handia, eüskaldünek üken dügün errege haütüa. Herria

Ez da harat ez hunatik: irabazi behar dute nahi badute goi mailarat **igan**. Herria

Ikustea aski da hogei urte hauetan bigarren egoitzen kopurua % zortzitik hamalauetara **igan** dela. Herria

Denen buru, 6 alki irabazi dituzte [hauteskundeetan], 27-tarik **igan** baitira 33-etarat. Herria

14-18 urte artekoetan, Maddalen Arzallus, aurten handienen kategoriarat **igan** berriak jantzi du igurikatzen ez zuen txapela.Gero, Frantziaren zerbitzuan aitzindari ospetsu bilakaturik, Estatuaren goiko mailetara gazterik **igan** zen. Herria

Iragan urteko sasoin ederrari esker **igana** dela "Federale 2" sail ederrerat. Herria

Frantziako Legebiltzarreraino **igan** zen eztabaida. Filipe Bidart

Ez dela zuzen, gure artzapezpiku Agurgarria hobendun izanik ere, asko gisetara hain gora **igana** izanez geroz [...] haren ordezkariek eta Eliza osoak eman arreta uka diezaioten. Piarres Xarriton

Bakotxak gure familietan dugulakotz nor edo nor bertze mundurat **igana**. Herria

Baina ehun urteren buruan, milioi bat eta ehun edo berrehun mila bizilagunetara **iganez,** bere jende kopurua biderkatua zuen Hegoaldeak, beti hein bertsuan zegoelarik Iparraldea, 200.000 bizilagunetara ezin helduz. Piarres Xarriton

• **3** du *ad*

Patarra **igan** dut. Piarres Aintziart

Tarrapataka **igan** zituen eskailerak. Elena Touyarou

*Las Nieves* kaperara doan eskailera luzea **igaiten** dut. Piarres Aintziart

Bidarraitik abiatuko da bainan ez da gure herrirat itzuliko, Iparla, Irubela eta Artzamendi **igan** ondoan, Itsasurat jautsiko baitira lasterkari eta ibilkariak. Herria

**Igan** beharko den mendi lepo gorena 5760 metretan izanen da. Herria

Cho Oyu mendia (8201 m.) nahi lukete **igan** 2004eko larrazken hortan. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat igan** (8); **bat igan eta** (4); **eta igan** (5); **gabe igan** (3); **gainera igan** (4); **gainerat igan** (5); **goiti igan** (3); **igan aitzin** (4); **igan behar** (9); **igan beharko** (3); **igan da** (12); **igan dena** (3); **igan dira** (8); **igan dire** (4); **igan direla** (3); **igan eta** (15); **igan ginen** (4); **igan nahi** (3); **igan nintzen** (3); **igan ondoan** (5); **igan zela** (3); **igan zen** (17); **igan zen eta** (3); **igan ziren** (10); **igan zituen** (3); **iganen da** (6); **kamioietara igan** (3); **patarra igan** (3)

---

igan[2] ik **igaran.**

---

# iganaldi *iz* igoaldia.

Azken **iganaldian** du atakatzen, ez lehenago eta azken kilometretan sortzen du abantaila. Herria

---

# iganarazi, iganaraz, iganarazten du *ad* igoarazi.

Egunsentian, eskuak eta zangoak loturik, orga batera **iganarazi** zituzten. Elena Touyarou

Kamioizain baten ondora **iganarazten** naute. Marzel Etxehandi

Aurrerantzean, bada, Poztasuna deituko dut, betegintzarre handiago batera Izpiritua **iganarazten** duen grina. Piarres Xarriton

---

# igande *(orobat **igante** g.er.)* **1** *iz* asteko lehen eguna, larunbataren eta astelehenaren artekoa.

**Igandea,** 1939ko martxoaren 19a. Alberto Ladron Arana

Abuztuak 15, **igandea**. Aingeru Epaltza

**Igandea,** 10:00 a.m. Lourdes Oñederra

**Igandea** izan zen hona iritsi ginenean. Edorta Jimenez

**Igandean,** Parisen, kermeza Euskal Etxean. Herria

**Igandean,** aratsaldeko 3etan, Angelun, Euskal Haziak elkarteak muntatu haurren besta. Herria

**Igande** batez Otsabidera zihoala, Arbideko bere sortetxean utzi zuen Agatak Louise. Itxaro Borda

**Igande** batean gertatu zen, Jerryren etxean. Koro Navarro

Abenduko lehen **igandea**. Anjel Lertxundi

Lehengo **igandean,** Vézelize jatetxean nigandik hurbil bazkaltzen ari zen bikotea. Monika Etxebarria

Urriaren 4an, **igandean,** hobiratu zuten. Askoren artean

Maiatzeko **igande** eguzkitsu batez. Ramuntxo Etxeberri

**Igandeetan** txukruta hartzen dute. Monika Etxebarria

**Igandeetan** dotore jantzen ziren. Joseba Urteaga

Larunbatetan eta **igandeetan** ere lan egiten zinan. Anton Garikano

Egunero, **igande** eta jai egunetan salbu. Josu Zabaleta

Han ez zen ez jairik, ez **iganderik**. Gotzon Garate

**Igandea** han pasatu zuen. Xipri Arbelbide

**Igande** arte, Hendaian, antzerki festibala. Herria

**Igandeko** bazkariaz geroztik. Aingeru Epaltza

Ezagunak egin zaizkit zenbait, **igandeko** erlijio-eskolatik. Mirentxu Larrañaga

-Barkatu **igandekoa** -hark, orduan. Aingeru Epaltza

**Igandetako** harizko jaka eta gona tolesduna zeramatzan. Anjel Lertxundi

Gora joan zen **igandetako** arropa janztera. Koro Navarro

**Igandetako** meza nagusia bururatzean kantatzen ohi zela. Piarres Xarriton

Janinak zotin estofatuka higatzen zen, Jacoben **igandeetako** paltoen papoetan izar horia arraposki eta ezer ez bailitzan josten zuela. Itxaro Borda

Bi **igandez** segidan. Daniel Landart

Egun batez aitortu zidan berak sekula ez omen zuela **igandez** lanik egin. Jesus Mari Mendizabal

Artetan joaten nintzen, **igandez,** parroki batetara, meza bat hemen, elkarrizketa bat han. Piarres Aintziart

Biharamunean **-igandez-,** Louvrera joan nintzen. Joxe Austin Arrieta

Afaltzera ere agertzen zen inoiz edo beste, **igandearekin**. solasbiderik handiena zuten zer egin behar ote zuketen biharamunean, **igandearekin:** ostatu hartan egon, meza bezperak entzuteko gisan eta pausuan, lanik egin gabe? Karlos Zabala

**Igandearen** zain zegoen, eta **igandea** urrun ez. Patxi Zubizarreta

Beraz karrikara ez zen jausten hemengo jendea **igandetik igandera** baizik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hilkutxa asto-mahai baten gainean jarrita dago, barruan du aitaren zerraldoa, **igande**-jantzian. Mirentxu Larrañaga

Abuztuko **igande** goiz horretan. Aingeru Epaltza

**Igande** arratsalde hartako eguzki-izpiak. Lopez de Arana

Neguko **igande**-arratsalde hotz eta euritsu hartan. Juan Kruz Igerabide

"Gurasoak, a zer rolloa" esaka pasatu du **igande**-bezpera osoa. Xabier Mendiguren Elizegi

**Igande** goizean deitu eta esan zidan: [...]. Josu Zabaleta

**Igande** aratsaldean, zezen lasterrak Baionan. Herria

**Igande** goizero meza Arantzazutik Euskadi Irratian ematen hantxe segi. Pello Zabala

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1645. urtean, emakunde-**igandeko** goizean. Koro Navarro

Inauteri- **igandean,** ospitaleko guardiatik irten ondoren. Josu Zabaleta

Pasio **igandea,** aspalditik, Lazaro eguna izendatu zuten. Pello Zabala

Erramu **igandez** sartzen gara Aste Santuan. Pello Zabala

1950az geroztik urtero, Pazko **igandez**. Koldo Izagirre

Ostiral Santutik Piztuera **igandea** arte. Askoren artean

Igokunde **igandetik** Mendekoste zortziurrenera bitartean. Askoren artean

Larunbat- **igandeetan** janzteko. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**abuztuko igande** (5); **aintzineko igande** (5); **an igande** (7); **aratsean eta igande** (5); **asteburuko hitzorduak igande** (7); **azken igande** (12); **azken igande huntan** (9); **bai eta igande** (11); **baina igande** (10); **beraz igande** (7); **besta igande** (7); **bi igande** (18); **da igande** (45); **da igande honetan** (6); **da igande huntan** (14); **den igande** (44); **den igande aratsaldean** (5); **den igande arratsaldean** (16); **den igande goizean** (11); **dira igande** (19); **dituzte igande** (6); **du igande** (16); **dugu igande** (9); **dute igande** (16); **dute igande huntan** (5); **edo igande** (9); **eguna igande** (6); **elizan igande** (5); **ere igande** (7); **eta igande** (114); **eta igande aratsaldean** (18); **eta igande gauean** (6); **eta igande goizean** (7); **eta igande honetan** (8); **finala igande** (7); **haste igande** (5); **heldu den igande** (6); **helduden igande** (61); **helduden igande aratsaldean** (9); **helduden igande arratsaldean** (7); **hitzorduak igande** (7); **hitzorduak igande arte** (7); **hitzorduak l igande** (6); **hori igande** (6)

**igande aratsalde** (13); **igande aratsalde huntan** (7); **igande aratsaldean** (198); **igande aratsaldean iragan** (5); **igande aratsaldearekin** (8); **igande aratsaldeko** (70); **igande aratsaldez** (5); **igande aratsean** (91); **igande aratseko** (9); **igande arrats** (7); **igande arratsalde** (52); **igande arratsalde batean** (9); **igande arratsalde batez** (5); **igande arratsaldea** (9); **igande arratsaldeak** (6); **igande arratsaldean** (100); **igande arratsaldearekin** (7); **igande arratsaldeetan** (20); **igande arratsaldeko** (26); **igande arratsaldetan** (6); **igande arratsaldez** (14); **igande arratsean** (14); **igande arte** (94); **igande batean** (27); **igande batez** (26); **igande batzuetan** (5); **igande eguerdi** (7); **igande eguerdian** (31); **igande eguerditan** (28)

**igande eta** (35); **igande eta besta** (5); **igande eta jai** (5); **igande eta jaiegunetan** (9); **igande gau** (7); **igande gaua** (6); **igande gauean** (69); **igande gaueko** (6); **igande gauetan** (5); **igande goiz** (47); **igande goiz batean** (10); **igande goiz batez** (6); **igande goiz hartan** (9); **igande goiza** (17); **igande goizaldean** (31); **igande goizalderat** (8); **igande goizarekin** (11); **igande goizean** (212); **igande goizean iragan** (5); **igande goizeko** (39); **igande goizetako** (8); **igande goizetan** (36); **igande goizez** (6); **igande guziz** (18); **igande hartan** (34); **igande honetako** (5); **igande honetan** (106); **igande honetan jokatuko** (7); **igande horietan** (6); **igande horretan** (6); **igande hortako** (5); **igande hortan** (22); **igande huntako** (27); **igande huntako dugu** (11); **igande huntan** (246); **igande huntan beraz** (6); **igande huntan dugu** (12); **igande huntan gure** (6); **igande iluntzean** (7); **igande osoan** (8

**igandez igande** (5); **iragan igande** (16); **izanen da igande** (8); **joan den igande** (37); **joanden igande** (19); **joanden igande aratsaldean** (6); **joanden igande goizean** (7); **kermeza igande** (10); **kermeza igande huntan** (7); **l igande** (33); **l igande aratsaldean** (11); **l igande aratsean** (8); **l igande arte** (9); **l igande goizean** (5); **larunbat eta igande** (13); **lehen igande** (9); **meza igande** (5); **nuen igande** (7); **pilota igande** (6); **xapelketa igande** (5); **zen igande** (20); **ziren igande** (10); **zituzten igande** (8); **zituzten igande huntan** (5); **zuen igande** (17); **zuten igande** (14); **zuten igande gauean** (6)

**anne igandea** (7); **betiko anne igandea** (7); **bigarren igandea** (8); **eta igandea** (35); **eta igandea arte** (9); **eta igandea bitarte** (6); **gaurtik igandea** (6); **hasi eta igandea** (12); **hirugarren igandea** (5); **igandea arte** (40); **igandea baino** (5); **igandea bitarte** (15); **igandea bitartean** (14); **igandea bretainia** (5); **igandea da** (12); **igandea eskozia** (6); **igandea eta** (13); **igandea eta astelehena** (6); **igandea flandes** (14); **igandea gales** (6); **igandea galizia** (6); **igandea herrialde** (6); **igandea herrialde katalanak** (6); **igandea iritsi** (5); **igandea izan** (7); **igandea korsika** (10); **igandea zela** (6); **igandea zen** (23); **larunbata eta igandea** (7); **laugarren igandea** (9); **lehen igandea** (8)

**aintzineko igandean** (25); **aitzineko igandean** (8); **ariko da igandean** (6); **ariko dira igandean** (13); **athleticek igandean** (9); **aurreko igandean** (31); **azken igandean** (13); **bai igandean** (6); **baina igandean** (37); **bainan igandean** (5); **bat igandean** (6); **bataio iragan igandean** (7); **batasunak igandean** (9); **beraz helduden igandean** (6); **beraz igandean** (10); **berri igandean** (8); **besta berri igandean** (5); **besta igandean** (8); **bestaberri igandean** (6); **bigarren igandean** (13); **bildu dira igandean** (5); **bozak igandean** (5); **bozak zituzten igandean** (10); **da datorren igandean** (7); **da eta igandean** (5); **da helduden igandean** (7); **da igandean** (101); **da iragan igandean** (11); **da joanden igandean** (24); **datorren igandean** (119); **datorren igandean egingo** (8); **den igandean** (442); **den igandean egin** (9); **den igandean eta** (5); **den igandean jokatu** (6); **den igandean jokatuko** (13); **den igandean zortzi** (6); **dio igandean** (5); **diote igandean** (6); **dira helduden igandean** (6); **dira igandean** (46); **dira joanden igandean** (6); **ditu igandean** (10)

**donostia igandean** (5); **du helduden igandean** (5); **du igandean** (62); **dugu igandean** (8); **dute igandean** (41); **egin zuen igandean** (13); **egin zuten igandean** (7); **eguna helduden igandean** (7); **eguna igandean** (13); **eko igandean** (5); **elizan iragan igandean** (5); **ere igandean** (23); **ertzaintzak igandean** (5); **esan zuen igandean** (5); **eta datorren igandean** (6); **eta hurrengo igandean** (7); **eta igandean** (431); **eta igandean beste** (5); **eta igandean bukatuko** (9); **eta igandean ere** (5); **eta igandean jokatuko** (6); **ezingo du igandean** (5); **finala igandean** (14); **ganden igandean** (34); **gertatu zen igandean** (5); **hasi eta igandean** (8); **hau igandean** (6); **heldu den igandean** (117); **helduden igandean** (268); **helduden igandean da** (5); **helduden igandean dugu** (6); **helduden igandean eginen** (9); **helduden igandean izanen** (5); **hil zen igandean** (8); **hil ziren igandean** (12); **hori igandean** (7); **hurrengo igandean** (31)

**igandean ageriko** (5); **igandean aiherran** (6); **igandean albaceteren** (5); **igandean aldiz** (14); **igandean amaitu** (23); **igandean amaitu zen** (19); **igandean amaituko** (8); **igandean amaituko da** (6); **igandean anoetan** (8); **igandean aratsaldeko** (7); **igandean ariko** (10); **igandean ariko da** (5); **igandean athleticen** (6); **igandean atxilotu** (5); **igandean azken** (5); **igandean baigorriko** (7); **igandean baigorrin** (8); **igandean baino** (7); **igandean beharra** (7); **igandean beraz** (12); **igandean bere** (11); **igandean berean** (5); **igandean berriz** (13); **igandean bertan** (32); **igandean beste** (15); **igandean bezala** (7); **igandean bi** (14); **igandean bigarren** (9); **igandean bilboko** (6); **igandean bilbon** (11); **igandean bukatuko** (11); **igandean bukatuko da** (10); **igandean bururatu** (10); **igandean bururatu da** (8); **igandean bururatuko** (5); **igandean da** (11); **igandean deportivoren** (8); **igandean deportivoren aurka** (7); **igandean donibane** (7); **igandean donostiako** (6); **igandean donostian** (16); **igandean dugu** (21); **igandean dute** (8)

**igandean egin** (53); **igandean egin da** (7); **igandean egin ziren** (10); **igandean egin zuen** (6); **igandean egin zuten** (10); **igandean egindako** (17); **igandean eginen** (13); **igandean eginen da** (7); **igandean egingo** (25); **igandean egingo diren** (8); **igandean eginiko** (10); **igandean eibarren** (9); **igandean ekainaren** (7); **igandean eman** (7); **igandean ere** (43); **igandean ere ez** (5); **igandean erredakzioa** (5); **igandean eta** (43); **igandean eta astelehenean** (8); **igandean europako** (7); **igandean euskal** (5); **igandean ez** (32); **igandean ez zen** (5); **igandean finala** (8); **igandean galdu** (11); **igandean gasteizen** (6); **igandean gertatu** (8); **igandean gertatutako** (6); **igandean ginuen** (12); **igandean gure** (21); **igandean gure elizan** (7); **igandean hasi** (18); **igandean hasi zen** (5); **igandean hasiko** (24); **igandean hasiko da** (18); **igandean hasitako** (7); **igandean hazparneko** (5); **igandean hazparnen** (8); **igandean herri** (6); **igandean hil** (18); **igandean hil zen** (15); **igandean hiru** (6)

**igandean ikusi** (10); **igandean ikusiko** (6); **igandean ipar** (5); **igandean iragan** (21); **igandean iragan da** (9); **igandean iragan dira** (5); **igandean iraganen** (11) igandean iraganen da (6); **igandean irailaren** (5); **igandean itzuliko** (7); **igandean izan** (15); **igandean izandako** (8); **igandean izanen** (11); **igandean izanen da** (9); **igandean izango** (22); **igandean izango da** (13); **igandean jaso** (5); **igandean jokatu** (44); **igandean jokatu zen** (11); **igandean jokatu zuen** (7); **igandean jokatuko** (83); **igandean jokatuko da** (33); **igandean jokatuko den** (10); **igandean jokatuko dira** (8); **igandean jokatuko du** (7); **igandean jokatuko duen** (5); **igandean jokatuko dute** (12); **igandean jokatzeko** (18); **igandean jokatzeko moduan** (8); **igandean kermeza** (6); **igandean korrituko** (8); **igandean korrituko da** (8); **igandean lehen** (13); **igandean lortu** (6); **igandean lortutako** (5); **igandean meza** (33); **igandean nafarroako** (8); **igandean osasunaren** (7); **igandean ospatu** (7); **igandean ospatuko** (9); **igandean otsailaren** (6); **igandean partida** (8); **igandean racingen** (6); **igandean racingen aurka** (5); **igandean real** (10); **igandean real madrilen** (8); **igandean realaren** (5); **igandean sadarren** (7); **igandean san** (13); **igandean sevillan** (8); **igandean urriaren** (6); **igandean uztailaren** (6); **igandean zen** (11); **igandean zortzi** (31)

**an igandearekin** (12); **eta igandeetan** (32); **igandeaz geroztik** (18); **igandeetan ere** (6); **igandeetan eta** (6); **igandeetan ez** (5); **irabazi zuen igandean** (13); **iragan igandean** (194); **iragan igandean egin** (7); **iragan igandean ginuen** (5); **iragan igandean gure** (8); **izan igandean** (6); **izan zen igandean** (10); **izan ziren igandean** (6); **izan zuten igandean** (5); **izango da igandean** (8); **izango igandean** (7); **joan den igandean** (310); **joan zen igandean** (51); **joanden igandean** (187); **joanden igandean iragan** (8); **jokatuko da igandean** (9); **jokatuko du igandean** (8); **kantaldi helduden igandean** (5); **kermeza helduden igandean** (8); **ko igandean** (7); **l igandean** (128); **larunbat eta igandean** (43); **larunbat eta igandeetan** (6); **larunbatean eta igandean** (161); **lehen igandean** (23); **lehengo igandean** (9); **litekeena da igandean** (5); **merkatua ganden igandean** (5); **ondoko igandean** (19); **ospatuko dute igandean** (5); **ostiralean eta igandean** (6); **pasa den igandean** (12); **pilota igandean** (9); **realak igandean** (7); **rugby iragan igandean** (6); **taldeak igandean** (5); **txapelketa igandean** (5); **zen igandean** (118); **zen iragan igandean** (8); **zioten igandean** (10); **ziren igandean** (40); **zituen igandean** (18); **zituzten igandean** (23); **zuen igandean** (103); **zuen iragan igandean** (8); **zuten igandean** (49); **zuten iragan igandean** (8)

**baina igandeko** (7); **da igandeko** (22); **datorren igandeko** (13); **den igandeko** (52); **dituzte igandeko** (6); **du igandeko** (14); **dute igandeko** (12); **eta igandeko** (57); **eta igandeko partida** (5); **heldu den igandeko** (11); **helduden igandeko** (41); **igandeko besta** (7); **igandeko bozak** (9); **igandeko bozetako** (5); **igandeko bozetan** (20); **igandeko derbia** (5); **igandeko egitaraua** (6); **igandeko egunkaria** (5); **igandeko emaitzak** (10); **igandeko emaitzek** (6); **igandeko erlijio** (7); **igandeko erreferendumeko** (5); **igandeko finala** (9); **igandeko finalari** (5); **igandeko finalean** (8); **igandeko finalerako** (8); **igandeko hauteskundeak** (5); **igandeko hauteskundeetan** (17); **igandeko herri** (5); **igandeko hori** (15); **igandeko lehen** (7); **igandeko meza** (32); **igandeko meza nagusia** (6); **igandeko meza nagusian** (8); **igandeko mezetako** (6); **igandeko mezetako tenoreak** (5); **igandeko partida** (45); **igandeko partidak** (7); **igandeko partidan** (12); **igandeko partidarako** (11); **igandeko partidaren** (12); **igandeko saioan** (7); **iragan igandeko** (14); **joan den igandeko** (38); **joanden igandeko** (19); **larunbat eta igandeko** (7); **larunbateko eta igandeko** (5); **lehen igandeko** (6); **zen igandeko** (8); **ziren igandeko** (7); **zuen igandeko** (13)

**baina igandekoa** (8); **bi igandez** (13); **bihartik igandera** (13); **bihartik igandera bitartean** (6); **da gaurtik igandera** (10); **da igandekoa** (9); **den igandetik** (9); **dira gaurtik igandera** (7); **du iganderako** (5); **eta igandekoa** (17); **eta igandera** (18); **eta igandera arte** (11); **eta igandera bitartean** (5); **eta iganderako** (5); **eta igandetan** (19); **eta igandez** (13); **gaurtik igandera** (32); **gaurtik igandera bitartean** (8); **hasi eta igandera** (8); **igandekoa da** (5); **igandera arte** (55); **igandera bitarte** (7); **igandera bitartean** (27); **iganderako gauean** (10); **iganderako prest** (5); **igandetako meza** (5); **igandetan ere** (6); **igandetan salbu** (6); **igandetik aurrera** (7); **igandetik igandera** (7); **igandetik igandera** (7); **igandez igande** (5); **izan zen igandekoa** (5); **izango da igandekoa** (5); **joan den igandetik** (6); **larunbat eta igandez** (8); **larunbatetik iganderako** (10); **larunbatetik iganderako gauean** (9); **ortzegunetik iganderat** (12); **ortziraletik iganderat** (41); **ostegunetik igandera** (6); **ostiraletik igandera** (6); **zen igandekoa** (9)

---

# igandekari *(orobat **igande kari** g.er.) adlag ipar* igandean.

Urriaren 26an **igandekari**, egun handia Heletan. Herria

Juan Jose Ibarretxe lendakariak eguna berexia du: maiatzaren 13-a, **igandekari**. Herria

Aurten urriaren 14 ean, **igandekari,** iraganen da. Herria

Bigarrena biharamunean, **igandekari** beraz, bainan aratsaldeko 6-etan. Herria

Joanden igandean, abendoaldiko lehen **igandekari**, iragan da Paueko Erakusgunean Zinodo Urratsaren bigarren gogoetaldiaren abiatze ospakizuna. Herria

Gerla denboran ere **igandekari** zituen bere guduka gehienak galdu Frantziak. Xipri Arbelbide

Kondatzen digu **igandekari** ihizira joan zen bi gazteen etsenplua. Xipri Arbelbide

**Igandekari** denda itxita zegoenez [...]. Txillardegi

Biharamunean, **igandekari,** lekuko batek zioenez, hainbeste jende hurbildu zen hilaren ikusteko non ez baitzen batzuen eta besteentzat tokirik. Piarres Xarriton

**Igande** kari, San Pankrazioko kanpaiek deitu dute mezatara. Txillardegi

---

# igandero 1 *adlag* igande guztietan.

Gurasoak ere **igandero** joaten ziren zinera. Arantxa Iturbe

Gurasoek **igandero** behartzen ninduten mezetara. Anjel Lertxundi

Bizikletan ibiltzen zen **igandero** Prospect Park-en zehar. Oskar Arana

Eta geroztik **igandero** ikusten zuten elkar. Gotzon Garate

**Igandero,** goizeko 9:00etatik 12:00ak arte. Pako Aristi

Larunbatero eta **igandero** elkartzen ziren, batzuetan maizago, jairen bat bazen. Koro Navarro

**Igandero** bezala, **igande-igandero** bezala. Karlos Linazasoro

## 2 *iganderoko izlag*

Hemendik gutxira sortuko da **iganderoko** jendetza, denda zerratuen eta ate itxien artean. Monika Etxebarria

**Iganderoko** lanak izaten ziren horiek. Iñaki Zabaleta

Öchler bigarren eskuko bizikleta beltz batean agertu zen **iganderoko** hitzordura. Anjel Lertxundi

## 3 *igandero-igandero*

**Igandero-igandero** joaten ziren Monumentalera bermut bat egin eta olagarro txikiak jatera. Pablo Sastre

Araua omen zen kongregazioko kide zirenen familiek elkarrekin joan behar zutela mezara **igandero-igandero**. Oskar Arana

Pentsa, **igandero-igandero** Pagasarrira igotzen zen, eguraldiaren batere aitzakiarik gabe. Patxi Iturritegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta igandero** (11); **ia igandero** (4); **igandero bezala** (10); **igandero egiten** (3); **igandero igandero** (12); **igandero joaten** (11); **igandero joaten da** (4); **igandero jotzen** (3); **larunbatero eta igandero** (6); **zen igandero** (3)

---

# igandetiar *iz* txangoak igandeetan egiten dituen pertsona.

Tokia etxalde bat izana zen oraintsu arte, beren bizitegietatik sobera urrundu nahi ez duten **igandetiarrei** askariak emateko berriki moldatua. Aingeru Epaltza

---

# igangailu *iz ipar* igogailua.

Gaur egungo biziak eskatzen dituen erraztasunak (bainu gela, **igangailua** xaharrentzat ea...) eskainiz geroztik hiri barneko apartamendu guztietan ba da jende. Herria

---

# igantzitar *izlag/iz* Igantzikoa, Igantziri dagokiona; Igantziko herritarra.

Agustin Saintz **igantzitarraren** obra. Herria

---

# igaraba 1 *iz* ugaztun haragijalea, txikia, uretan ibiltzeko egokitua, ilea sarria eta arrea duena, ibai-bazterretan bizi eta arrainez elikatzen dena. *(Lutra lutra* etab.*)*.

Aker-adarrak zeramatzaten buruan, eta **igaraba**-larru bat gerrian. Gonak, ez baitzuen galtzarik, zezen larruzko zabalak, eta **igaraba** larruzkoak galtzerdiak. Juan Garzia

## 2 *itsas igaraba* itsas bazterretan, bereziki Ipar Asian bizi den igaraba mota *(Enhydra lutris)*

250.000 hegazti, 2.800 itsas **igaraba,** 300 itsas zakur, 250 arrano burusoil eta 22 orka hil zituen, besteak beste. Berria - Gaiak

---

# igaraile *iz* iragailea.

Arren **igarailea** igaran da, eta ni heben egon, lehen kiristiak bezala haidürü. Herria

---

# igaran, igaraiten *(orobat **igan** g.er.)* da *ad* iragan.

Orohar sartzea ontsa **igaran** da, salbü Sohütako lizeoan, non barnategiko erizain postüa elkirik izan den. Herria

**Igaran** urtean, 39 ikasle, 10 erakasle eta sükaltari bat. Herria

Larunbatean elgarrekin, batasuneko multxo ederrak Izturitzen egun goxo bat **igan** dugu. Herria

Gaüaldia goxoki **igaran** dadin. Herria

Fite **igaraiten** beita hanitxen bizia. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **igaran asteko** (4); **igaran da** (5); **igaran igantean** (3); **igaranen da** (4)

---

# igarbide *iz* zerbaiti igartzeko bidea.

Aurki denetariko **igarbideengatik** antz eman nion hango irakasleek ere bazekitela nire jaiotzako sekretuaren berri. Matías Múgica

**Igarbide** horiek, jakina, ez zituzten profano baten begiek ikusiko. Matías Múgica

---

# igarkizun 1 *iz* esanahia igarri behar zaion esaldi ulertzeko iluna. ik **enigma**.

Esaerak, jolasak, kantak, **igarkizunak..** . Berria - Kultura

Hau ez da magia... hau logika da... **igarkizun** bat. Iñaki Mendiguren

Beraz, alegoriarik eta **igarkizunik** gabe irakatsi nahi izateak iluntasuna eta hitz murriztapena dakar. Xabier Kintana

Haiez mintzatzeko **igarkizunez** eta alegoriez baliatu dira, metafisikarekin hertsiki loturiko gaiak direlako. Xabier Kintana

Esfingearen **igarkizuna** asmatu uste zuen Edipok. Juan Kruz Igerabide

**Igarkizun** bat esan behar dizuet; eztei-otorduko zazpi egunen barruan asmatu eta aditzera ematen badidazue, soineko eta soingaineko bana emango dizkizuet. Elizen arteko biblia

**Igarkizunak** asmatzen, ilunpetan soinketa egiten, ingelesez edo frantsesez hitz egiten. Josu Zabaleta

Nire herritarrei **igarkizuna** ipini eta niri ez didazu adierazi zer esan nahi duen. Elizen arteko biblia

Hara, **igarkizun** bat jarriko dizuet. Jose Antonio Mujika

Proposa ezazu **igarkizun** bat eta egizu parabola bat. Xabier Kintana

Ez da epaiketa bat izan -esan nuen-, **igarkizuna** izan da. Oskar Arana

-Ez dut **igarkizunetan** jolastu nahi; argi hitz egin ezazu! Agustin Otsoa

Erantzun argi eta garbia eman zuen, baina, **igarkizunaren** barruan gorderik, beste **igarkizun** bat zegoen, eta Edipok ez zion igarri: "Ahots bakarreko izakia". Juan Kruz Igerabide

**2** (hitz elkartuetan)

Izan daiteke une egokia, **igarkizun**-jolasaren ikuspegia hartzeko. Andoni Egaña

Istorioari izari berezia hartzen genion, halako **igarkizun** kutsua; hots, historia zela. Jose Angel Irigaray

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**beste igarkizun** (3); **beste igarkizun bat** (3); **igarkizun bat** (11); **igarkizun eta** (3); **igarkizuna asmatu** (3)

---

# igarkizunka *adlag* igarkizunak jarriz.

Taldekoak gustura ibili dira, eta gero puska batean **igarkizunka** segitu dute. Patxi Zubizarreta

---

# igarkizunkeria *iz*

Zinez mintzo zen, zioenaz erabat sinetsirik, eta nik, **igarkizunkeria** horiez, jakina, une bakar batez ere tutik sinetsi ez. Joxe Austin Arrieta

---

# igarkizunzale *(corpusean **igarkizun zale** soilik) izond* igazkizunen zale dena.

Baina Maria Bautistak burua argi du; **igarkizun** zalea izatea, hori besterik ez. Patxi Zubizarreta

---

# igarlari *izond* igartzen duena. ik **igarle 2**.

-Bentari jauna, lekurik etxean? hemen dator tximino **igarlaria;** eta Melisendraren askatzea dakarren kontu-ohola. Patxi Ezkiaga

---

# igarle **1** *iz* gauza ezkutuak edo etorkizuna magiaz edo kideko bidez igartzen omen duen pertsona. ik**azti**.

Orduan, azti, **igarle** eta astrologoei dei egin zien, ametsaren esanahia azal ziezaioten. Elizen arteko biblia

Egiezue kontsulta hilazti eta **igarleei,** isil-misilean eta marmarka ari ohi diren horiei. Elizen arteko biblia

Kiron mediku eta **igarle** greziarra zen. Xabier Olarra

Ez dut ezertxo ere sinesten azti, sorgin, asmatzaile eta **igarle** horien esanetan. Gotzon Garate

Orakuluaren eta **igarlearen** autoritatea. Berria - Kultura

Irakurle gehienek broma moduan irakurri zituzten iragarpenok, azti eta **igarleen** esanak irakurtzen diren eran, lagunartean txisteak eginez. Joxean Agirre

Xake partidako mugimendu guztiak aurrez zekizkien **igarlea** zen, erregea arriskuan zegoenean dorrearekin ordezkatzen zuen endroke egilea, kasualidade urrunetara gidatzen zuten ate guztietako maratilaren jabea. Harkaitz Cano

Hades eta Persefoneren jauregira (infernura) jaitsi behar duk, Tiresias **igarle** itsuari etorkizuna adierazteko eskatzera. Juan Kruz Igerabide

Kartomanteak, **igarleak** eta aholkulari sentimentalak besterik ez dira. Karlos Zabala

Arrasto ñimiñoen **igarle,** Eta horma artean, badakizue, denok egiten gara paperjale, arrasto ñimiñoen **igarle,** hodeien mugimenduen itzultzaile, denok egiten gara irakurle amorratuak paretaren kontra. Koldo Izagirre

Ez zaitzatela engaina zuen artean bizi diren profetek eta **igarleek,** ez egin jaramonik berorien ameskeriei. Elizen arteko biblia

Ezagutu nian Media Lunan bat **igarletzat** zeukana bere burua. Juan Garzia

**2** (izenondo gisa) ik **igarlari**.

Horretarako, sasi sorgin **igarle** batez baliatu zen. Martin Anso

**3** profeta, Jainkoak argiturik eta haren izenean egia ezkutuen edo etorkizuneko gertaeren berri ematen omen duen pertsona.

Jainkoak agertu zizkion sura horiek Mahoma **igarleari**. Arabiatik mundura Mahoma **igarlearen** erlijioa zabaltzera etorritako musulmanek arrakasta izugarria izan zuten. Xabier Olarra

Jainko bakarra sinesten dute eta Zoroastro haren **igarle**. Gotzon Garate

**4** iragarlea.

Beren ingurura bildu arazi zituzten hegaztiok, eta honek zibilizazio eta aberastasun **igarle** bihur arazi zituen, baina gero, hegazti harrapariok uzta sail izugarriak hondatzen, eta batez ere ale jaten hasi zirenean, zorigaitzaren **igarle** izatera iragoko ziren. Patziku Perurena

Josu Onaindik ere hitz egin zuen atzo ontziolari buruz eta «lehen helburua, Navalen itxiera galaraztea» bete dela esan zuen, aldi berean, «zoritxarraren **igarle** zenbaiten» jarrera kritikatzen zuela. Berria - Ekonomia

**5** (hitz elkartuetan)

Hilazti- edo **igarle**-lanbidea duen gizonak nahiz emakumeak heriotza-zigorra izango du. Elizen arteko biblia

Erdozaintzi Etxart Donaixtikoak ere ekarri du bere uzta erakargarria berek egin **kartekin** igarle jokoan sartuz... Herria

· Tximino hori ez da izar-**igarlea,** egi-egia hori. Patxi Ezkiaga

Halere, urteak pasatu ahala, eguraldi **igarleak** ugaltzen doaz eta ikasiagoak bezala, Meteosat eta beste, meteorologian adituagoak eta jantziagoak ere badira. Pello Zabala

Oso iritzi onean zeukan Cunningham jauna nortasun-ezagutzaile eta aurpegi-**igarle** gisa. Irene Aldasoro

Ahaztea komeni zitzaigula, egun batez bederen, betiko zoritxar-**igarleek** aipatzen dutena. Iban Zaldua

Ez dut zoritxar-**igarle** izan nahi baina seguru nago datozen urteetan halako beste bat izango dugula. Berria - Euskal Herria

Emaztea jipoitzen zuten gizatxarrak, etorkizun **igarleak,** top-less dantzariak. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

egunerokо igarlea (22); eguneroko igarlea n (5); eguneroko igarlea ren (3); eta igarle (7); eta igarleak (4); eta igarleei (3); hilazti eta igarleei (3); igarle bat (4); igarle batek (3); igarle gisa (3); igarlea eta (3); igarlea n (5); igarlea ren (4); igarlea ri (3); igarleak eta (3); lurrorotako igarlea (3)

**igarletza** *iz* gauza ezkutuak edo etorkizuna magiaz edo kideko bidez igartzea; igarlearen jardunbidea.

Kasandrak, Greziako mitologian, **igarletzaren** dohaina zuen; sekula hark esandakoa ez sinesteko patua ezarria zuen, ordea. Xabier Olarra

John gazteak **igarletzarako** eta astrologiarako grina berezia zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**igarmen** *iz* igartzeko ahalmena.

Zuek gure **igarmen**-dardarak eragozten ari zarete! Iñaki Mendiguren

**igaro**, igarotzen *(6143 agerraldi, 219 liburu eta 1550 artikulutan)* da *ad* **1** toki edo bitarte bati buruz, heldu eta gelditu gabe aurrera jarraitu. ik **iragan**[1]; **pasatu**.

Ez eman gaua basamortuko lautadetan; **igaro** zaitez bestaldera. Elizen arteko biblia

Jordan ibaiaz bestaldera **igaro** zen bere gudaroste osoarekin. Elizen arteko biblia

Uraren parte bat odolera **igarotzen** da. Irene Aldasoro

Hortik, bitarteko fase bat edo bi **igarorik** agian, mugimendu-neuronetara **igarotzen** da mezua. Irene Aldasoro

Lailaren jauregitik **igarotzean,** hormak musukatzen ditut. Patxi Zubizarreta

Mazedoniatik **igaro** ondoren joango naiz zuenera. Elizen arteko biblia

Tren bat **igaro** zen zeharkatu berria genuen trenbidetik, leihoak argiztatuak. Juan Kruz Igerabide

Errazago dela orratzaren begitik gamelua **igarotzea,** aberatsa Jainkoaren erreinuan sartzea baino. Askoren artean

Nire aurretik **igaro** ziren, ondo-ondotik, eta urruntzen ikusi nituen. Josu Zabaleta

Segundo gutxi batzuen buruan, Hamida **igaro** zen bazarraren aurretik. Patxi Zubizarreta

Artizarra Eguzkiaren aurretik **igaroko** da gaur. Berria - Gaiak

Eta bidez zihoala, Montefeltroko gazteluaren ondotik **igaro** zen. Askoren artean

Mikelen albotik **igaro** zen, espazio betea espazio huts bihurtuz. Unai Iturriaga

Bi arrano agertu ziren, eta denen buru gainetik **igaro** hegan. Juan Kruz Igerabide

Gure baratzean behera joan, eta hesiaren txarrantxaren azpitik **igaro** nintzen. Juan Kruz Igerabide

Etxera bidean, beste emakume ilehori eta begi-urdin baten paretik **igaro** ginen. Juan Kruz Igerabide

Kontu! ez **igaro** toki hartatik, hara jaitsi baitira aramearrak. Elizen arteko biblia

-Omsken barrena **igaroko** haiz? Karlos Zabala

Itsasoan zehar **igaro** zinen, ur handien artetik oinez. Elizen arteko biblia

Utzi zeuen lurraldean barrena **igarotzen** geurera joateko. Elizen arteko biblia

Hotzikara bat **igaro** zitzaidan bizkar osoan zehar. Josu Zabaleta

Erregea **igarotzean,** honela egin zion oihu profetak: [...]. Elizen arteko biblia

Mezulariak bidali zizkioten Edomgo erregeari, beraren lurraldetik **igarotzeko** baimena eskatuz. Elizen arteko biblia

Denboralea **igaro** arte itxoin zuten eta sutondoan jarri ziren, denbora pasa. Koro Navarro

Trenbideak hortik **igaro** behar du, ez dago zer eginik. Koldo Biguri

**2** (modua adieraziz)

Tren bat ziztu bizian eta ziztuka **igaro** delako. Patxi Zubizarreta

Inguru haietatik **igaroa** zen Kristoren zerbitzaria, zaldiz, bere gaixotasuna zela eta. Askoren artean

Autoak burrunbaka **igaro** ziren zubi gainetik. Koldo Biguri

Aleman batzuk **igaro** ziren kamioietan eta oihu egin zuten: "Juden kaputt". Felipe Juaristi

Oton enperadorea segizio eta arrandia handiz **igaro** zen inguru haietatik. Askoren artean

Sugea bere ondotik ziztu bizian **igaro** zenean. Iñaki Mendiguren

Urre koloreko hainbat gezi **igaro** zitzaizkion hegan hurbil-hurbiletik. Ibon Uribarri

Geroxeago, beste objektu bat **igarotzen zaio** hegaz ondotik, eta beraren aurrean dagoen eserlekua jotzen du: paperezko pilotatxo bat, puxtarri baten neurrikoa. Oskar Arana

**3** (gauza abstraktuez)

Edo maitasuna pasiotik lasaitasunera **igarotzen** ote da eta pasioari bakarrik deitzen diogu maitasun. Lourdes Oñederra

Orduan bere hatzetik nire gorputzera indar bero bat **igaro** zen. Aitor Arana

Apurka-apurka **igaro** zen haragizko gizakitik espirituzkora. Askoren artean

Egun batzuen buruan, anaiekin irribarretsu hitz egiten ari zela, poz eta alaitasun handiz, bizitza hilkor honetatik bizitza zoriontsura **igaro** zen. Askoren artean

Arrunt oharkabean **igaro** zen ezkongabea izatetik ezkondua izatera. Koro Navarro

Arrotz izatetik niri bizitzako osagai finkoetako bat izatera **igaro** zen. Oskar Arana

Tentaldien proba **igaro** ondoren. Askoren artean

Ideia hura orduantxe burutik **igaro** berri zitzaiolako itxurak eginez. atzerrian egindako inbertsioen multzoa, **igaro** zen, 1840an 2.000 milioi dolar baino gutxiago izatetik, 9.000 milioi izatera 1870ean. Oskar Arana

Terminoa frantses arruntera **igaro** berria da. Isabel Arrigain

Hau ikusi, bestea ikusi, eguna oharkabean **igaro** zait. Patxi Zubizarreta

Zure sumina gainetik **igaro zait**, zure ikara larriak galdu nau. Elizen arteko biblia

• **4** du *ad* zenbaiten alde batetik bestera joan.

Ezkaratz zabal bat **igaro** nuen ondoren. Josu Zabaleta

Gure arbasoak denak egon zirela hodeiaren babespean eta denek **igaro** zutela Itsaso Gorria. Elizen arteko biblia

Ate guztiak **igaro** zituen, erregearen aurrez aurre gelditu arte. Elizen arteko biblia

Hamar bat kontrol **igaro** genituen gure ikasle-agiriekin. Juan Kruz Igerabide

Oraindik amildegi sakon bat **igaro** behar zuten ihes egin nahi bazuten. Askoren artean

Deustuko zubia **igaro** eta Maximo Agirre kalean sartu zen. Gotzon Garate

Zakurrak erreka **igaro** nahi ez. Gotzon Garate

Halako bihotz estuasun batez atalase bat **igaro** eta handik aurrera bat-batean gizon zarenak. Josu Zabaleta

Onik **igaro** genuen Austriaren eta Italiaren arteko muga. Anjel Lertxundi

Muga **igaro** eta Siberian izango gara, inbasioaren erdi-erdian. Karlos Zabala

Hotzikara batek **igaro** zidan bizkar osoa. Josu Zabaleta

Hogeita hamar urteen muga horren egoera hitsean **igaro** izanak astindua eman zion. Oskar Arana

Halako bihotz estuasun batez atalase bat **igaro** eta handik aurrera bat-batean gizon zarenak. Josu Zabaleta

Beti dago hitza, hitza gelditzen da **muga** igaro dutenengandik ere. Lourdes Oñederra

Aspaldi **igaroak** dituzte harrimenaren mugak. Josu Zabaleta

Inork ere ez dizue kalterik egingo, oinez **igaro** besterik ez dugu nahi eta [zeuen lurraldea]. Elizen arteko biblia

**5** (gauza abstraktuez)

Ezereza soseguz **igaro** nahi nuke, hori besterik ez. Aritz Gorrotxategi

**6** (denborazkoetan)

Diotenez, hogei urte **igaro** zituen espetxean Évariste Galoisek. Jon Muñoz

**Igaro** berri zuen urte kaxkarra etorri zitzaion gogora. Karlos Zabala

Elkarrekin **igaro** une zoragarrienak ere ahaztuko zitzaizkion noizbait. Eider Rodriguez

**-Igaro** ezazu, arren, beste gau bat hemen eta alai zaitez. Elizen arteko biblia

**Igaro** ezazu gaua nirekin. Oskar Arana

Eguzkia sartzean, zegoen lekuan **igaro** zuen gaua. Elizen arteko biblia

Denbora nahikoa kanpoan **igarotzea** aski bide da herrimina sortzeko. Lourdes Oñederra

Gau guztia itsasoan **igaroagatik** arrain bakar bat ere ez zuten harrapatu. Berria - Ekonomia

Elkarrekin **igaro** une zoragarrienak ere ahaztuko zitzaizkion noizbait. Eider Rodriguez

Apaiz libertino batekin **igaro** zuen bere haurtzaroa. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Oporrak Danimarkan **igaro** eta, Kopenhagetik itzuli ondoren, [...]. Jon Muñoz

On egiten eta deabruaren menpe zeuden guztiak sendatzen **igaro** zuen bere bizitza, Jainkoa berekin baitzuen. Elizen arteko biblia

Mahatsa bildu baino lehen, loraldia **igaro** eta mahats-alea heltzen hastean, kimu berriak moztu egin ohi dira. Elizen arteko biblia

Dolualdia **igaro** ondoren elkartuko zaio gizona, eta senar-emazte izango dira. Elizen arteko biblia

Zahartzaro ederra **igaro** ondoren. Elizen arteko biblia

Orain, batek daki zenbat hilabete arraio **igaro** ondoren. Oskar Arana

Ardandegian hausnarketan **igarotako** denboraldian. Felipe Juaristi

**7** (denborazko inpertsonaletan)

Baina denbora joan egiten da, **igaro** egiten da. Josu Zabaleta

**Igaro** ziren urteak, hogei gutxienez. Oskar Arana

Zortzi egun **igaro** arte ezin izan nuen ikusi. Jokin Urain

Hiru aste **igaro** dira, eta inork ez du haren arrastorik. Iñaki Mendiguren

Larunbata **igaro** zenean. Elizen arteko biblia

Horretan guztian laurehun eta berrogeita hamarren bat urte **igaro** ziren. Elizen arteko biblia

Arratsalde bat **igaro** zen eta goiz bat **igaro** zen: laugarren eguna. Jose Antonio Mujika

Zeren eta zenbat eta denbora gutxiago **igaro** bidegabekeriaren eta zigorraren artean, orduan eta indartsuagoa eta iraunkorragoa izaten baita gizonaren gogoan delitu eta zigor ideien arteko lotura. Juan Martin Elexpuru

**8** (denborazkoetan modua adieraziz)

Denbora nola **igaro,** horixe da kartzela eta kontzentrazio eremuetako arazo handienetako bat. Jokin Urain

Nire gainbeherako urteak auskalo nongo bazter galduan eman behar baditut, aparretan eta dotoreziaz **igaro** nahi ditut. Oskar Arana

Nik sokaz lotuko zaitut, etzanik **igaro** beharreko egunak bete arte. Elizen arteko biblia

Baraurik **igaro** zuen gaua. Elizen arteko biblia

Jainkoari otoitzean **igaro** zuen gaua. Elizen arteko biblia

Bozkarioz eta alai **igaro** zuten eguna. Elizen arteko biblia

Egun asko erdiminetan **igaro** ondoren. Askoren artean

Bizitza goseak **igaro** eta gero. Pablo Sastre

· Urtarrila ia oharkabean **igaro** eta otsaila iritsi zen. Iñaki Mendiguren

Egunak lasai antzean **igaro** ziren. Felipe Juaristi

Minutuak isilean **igaro** ziren. Iñaki Mendiguren

Minutuak ezin geldiago **igaro** ziren. Iñaki Mendiguren

**9** (era burutua izenondo gisa)

Hizkuntzan bertan, lehena orainean bizi da eta orainaren errainua aldi **igaroak** iragartzen du. Lourdes Oñederra

Samurtasun **igaroen** historiak nahigabez betetzen dit bihotza. Josu Zabaleta

**10** (era burutua izen gisa)

Errepidean etengabeko **igaroan** zebiltzan autoak. Unai Iturriaga

**11** (era burutua –en atzizkiaren eskuinean izen gisa)

Ellenek bere **igaroan** aurpegiak, fruta-erakusleihoak, lekale-poteak eta oliba-pitxerrak ikusten zituen. Lopez de Arana

Domingo non zen bilatu nuen, eta gizonak ikusi nituen, denboraren **igaroak** ni baitan izenik gabe utziko zituenak. Edorta Jimenez

Ez nekien denboraren **igaroaren** kalteen berri, ostera. Edorta Jimenez

Eta hala ere, trenaren **igaroan** erakusten diguten apur hori, biziki interesgarria duzu. Berria - Kultura

**12** egoera jakin batean egon. ik **pasatu 12.**

Eta bukatzeko, festak ondo **igaro**. Pako Aristi

Jende frankok **igaro** du ezin hobeki *Putzu* irakurtzen. Markos Zapiain

• **13** du *ad* jasan.

Kimioterapia-tratamenduen oinazealdi ahulgarriak **igaro** ondoren. Oskar Arana

Zure hegalen itzalpean babesten naiz, ezbeharra **igaro** artean. Elizen arteko biblia

**14** ***igarotzear*** *adlag* igarotzeko zorian.

Jordan ibaia **igarotzear** zaudete, Jaunak zeuen Jainkoak ematen dizuen lurraldeaz jabetzera joateko. Elizen arteko biblia

**15** *igaro-baimen* ik **igarobaimen.**

**16** ***igaro-modu*** igarotzeko modua.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**albotik igaro** (13); **aldera igaro** (18); **aldera igaro ziren** (6); **aldiz igaro** (7); **arazorik gabe igaro** (6); **arratsalde bat igaro** (6); **artean igaro** (9); **artetik igaro** (13); **asko igaro** (43); **asko igaro dira** (10); **aste igaro** (11); **asteak igaro** (13); **atea igaro** (84); **aurretik igaro eta** (7); **aurretik igaro zen** (30); **aurretik igaro zenean** (6); **aurretik igaro zirenean** (6); **azkar igaro** (7); **azpitik igaro** (14); **baino gehiago igaro** (12); **bakarrik igaro** (11); **bat igaro** (126); **bat igaro behar** (6); **bat igaro da** (13); **bat igaro ondoren** (8); **bat igaro zen** (44); **batean igaro** (16); **baten ondotik igaro** (10); **batera igaro** (11); **batetik bestera igaro** (9); **batetik igaro** (13); **batzuk igaro** (48); **batzuk igaro eta** (7); **batzuk igaro ondoren** (8); **batzuk igaro ziren** (10); **berean igaro** (6); **bertan igaro** (9); **bertatik igaro** (6); **bestaldera igaro** (15); **beste aldera igaro** (11); **bestera igaro** (9); **bi hilabete igaro** (8); **bi igaro** (6); **bi urte igaro** (16); **bizian igaro** (6); **bost urte igaro** (13); **denbora asko igaro** (7)

**denbora igaro** (40); **denbora igaro ahala** (16); **denbora igaro zen** (10); **denboraldi igaro** (6); **dezente igaro** (7); **egun batzuk igaro** (12); **egun igaro** (54); **egun igaro dira** (10); **egun igaro ziren** (6); **egunak igaro** (24); **egunak igaro ahala** (8); **elkarrekin igaro** (18); **epea igaro** (7); **erdi igaro** (21); **erditik igaro** (8); **ere igaro** (20); **eta erdi igaro** (15); **eta igaro** (11); **ez igaro** (7); **ez ziren igaro** (8); **gabe igaro** (38); **gainetik igaro** (28); **gainetik igaro eta** (8); **gaua han igaro** (6); **gaua igaro** (11); **gehiago igaro** (22); **gehiago igaro dira** (6); **goiz bat igaro** (6); **hainbeste urte igaro** (8); **hamabost urte igaro** (6); **hamar urte igaro** (18); **han igaro** (15); **handik igaro** (27); **handik igaro zen** (11); **hauteskundeak igaro** (10); **hilabete igaro** (46); **hilabete igaro dira** (18); **hilabete igaro ondoren** (6); **hilabetea igaro** (6); **hilabeteak igaro** (9); **hiru egun igaro** (6); **hiru urte igaro** (15); **hogei urte igaro** (13); **hori igaro** (11); **horrela igaro** (11); **horrela igaro ziren** (7); **ibaia igaro** (24); **ibaia igaro eta** (10); **ibaia igaro zuten** (8)

**igaro ahal** (15); **igaro ahal izateko** (9); **igaro ahala** (55); **igaro arren** (13); **igaro arte** (61); **igaro arte ez** (7); **igaro artean** (8); **igaro aurretik** (17); **igaro badira** (6); **igaro badira ere** (6); **igaro baino** (17); **igaro baino lehen** (16); **igaro baitzuen** (7); **igaro behar** (126); **igaro behar izan** (29); **igaro behar izaten** (8); **igaro behar zuen** (10); **igaro behar zuten** (8); **igaro beharko** (30); **igaro beharko du** (6); **igaro beharra** (15); **igaro beharreko** (9); **igaro berri** (11); **igaro bezain** (6); **igaro da** (130); **igaro da eta** (8); **igaro dadin** (7); **igaro daitezen** (8); **igaro daitezke** (8); **igaro dela** (24); **igaro den** (16); **igaro denean** (10); **igaro dira** (204); **igaro dira eta** (16); **igaro direla** (20); **igaro diren** (37); **igaro diren arren** (14); **igaro direnean** (13); **igaro ditu** (15); **igaro ditugu** (7); **igaro ditut** (9); **igaro dituzte** (7); **igaro du** (21); **igaro dugu** (11); **igaro dut** (6); **igaro dute** (11); **igaro duten** (6); **igaro eta** (242)

**igaro eta gero** (48); **igaro ez** (16); **igaro gabe** (17); **igaro gara** (21); **igaro genituen** (11); **igaro genuen** (25); **igaro ginen** (24); **igaro izan** (6); **igaro nahi** (32); **igaro nintzen** (22); **igaro nituen** (20); **igaro nuen** (30); **igaro ondoren** (177); **igaro ondoren ere** (6); **igaro ostean** (67); **igaro ote** (9); **igaro zara** (6); **igaro zela** (12); **igaro zelarik** (7); **igaro zen** (374); **igaro zen eta** (18); **igaro zen handik** (6); **igaro zenean** (36); **igaro zirela** (17); **igaro ziren** (220); **igaro ziren eta** (12); **igaro zirenean** (34); **igaro zituen** (76); **igaro zituzten** (22); **igaro zitzaion** (10); **igaro zuen** (130); **igaro zuen eta** (6); **igaro zuen gaua** (13); **igaro zuenean** (6); **igaro zuten** (77); **igaro zuten gaua** (7)

**inguru igaro** (12); **izatera igaro** (64); **izatera igaro da** (17); **izatera igaro dira** (7); **izatera igaro zen** (19); **jordan ibaia igaro** (13); **jordan igaro** (7); **lagun igaro** (6); **lasai igaro** (6); **latzak igaro** (9); **lau hilabete igaro** (8); **lau urte igaro** (19); **luze igaro** (7); **luzea igaro** (11); **luzeak igaro** (8); **mila urte igaro** (8); **minutu batzuk igaro** (6); **minutu igaro** (18); **muga igaro** (15); **nola igaro** (10); **oharkabean igaro** (16); **ondo igaro** (8); **ondotik igaro** (83); **ondotik igaro eta** (13); **ondotik igaro ginen** (7); **ondotik igaro zen** (22); **ondotik igaro zirenean** (7); **ordu igaro** (13)

**igaroa zen** (16); **igaroa ari** (16); **igaroak ziren** (9); **orduak igaro** (14); **oso bat igaro** (8); **osoa igaro** (15); **paretik igaro** (19); **paretik igaro zen** (8); **segundo batzuk igaro** (6); **sei urte igaro** (7); **uda igaro** (9); **urte asko igaro** (21); **urte batzuk igaro** (7); **urte igaro** (218); **urte igaro arte** (6); **urte igaro dira** (69); **urte igaro direla** (11); **urte igaro diren** (8); **urte igaro direnean** (6); **urte igaro eta** (22); **urte igaro ondoren** (25); **urte igaro ostean** (8); **urte igaro ziren** (13); **urte igaro zituen** (9); **urte igaroak** (9); **urteak igaro** (39); **urteak igaro ahala** (11); **urteak igaro ziren** (6); **urtebete igaro** (36); **urtebete igaro da** (14); **zazpi urte igaro** (7); **zehar igaro** (11); **zenbat denbora igaro** (7); **ziren igaro** (9); **ziztu bizian igaro** (6); **zortzi hilabete igaro** (6)

**albotik igarotzean** (16); **aldamenetik igarotzean** (6); **aurretik igaroko** (8); **aurretik igarotzean** (22); **bat albotik igarotzean** (10); **bat igarota** (9); **bat igarotzeko** (6); **batera igarotzeko** (8); **batetik bestera igarotzeko** (10); **bertan igarotzeko** (6); **bestera igarotzeko** (11); **denbora igarota** (7); **egun igarota** (8); **ekintzetara igarotzeko** (7); **ere igaroko** (6); **ez igarotzeko** (6); **gaua igarotzeko** (19); **handik igaroko** (7); **hori igarota** (6); **ibaia igaroko** (6); **ibaia igarotzeko** (6); **igaroko da** (50); **igaroko den** (11); **igaroko dira** (41); **igaroko diren** (11); **igaroko du** (9); **igaroko dute** (8); **igaroko duzue** (7); **igaroko ez** (8); **igaroko gara** (6); **igaroko naiz** (6); **igaroko zen** (11); **igaroko ziren** (7); **igarota ere** (6); **igarotako denbora** (12); **igarotako une** (6); **igarotako urteak** (7); **igarotzea erabaki** (7); **igarotzeko asmoa** (8); **igarotzeko aukera** (15); **igarotzeko baimena** (7); **igarotzeko eskubidea** (6); **jordan ibaia igaroko** (6); **noiz igaroko** (6); **ondotik igarotzean** (30); **paretik igarotzean** (9); **urte igarota** (20)

**artetik igarotzen** (11); **asko igarotzen** (13); **aurrean igarotzen** (7); **aurretik igarotzen** (24); **azkar igarotzen** (6); **azpitik igarotzen** (7); **barrena igarotzen** (6); **bat igarotzen** (41); **bat igarotzen ari** (9); **bat igarotzen da** (7); **bat igarotzen zen** (13); **batera igarotzen** (10); **bertatik igarotzen** (9); **bezala igarotzen** (7); **bizian igarotzen** (11); **bizkor igarotzen** (7); **denbora asko igarotzen** (8); **denbora igarotzen** (9); **erditik igarotzen** (8); **eta igarotzen** (6); **eta orduak igarotzen** (6); **gabe igarotzen** (27); **gainetik igarotzen** (20); **gehiago igarotzen** (7); **handik igarotzen** (25); **horrela igarotzen** (6); **igarotzen ari** (75); **igarotzen ari den** (6); **igarotzen ari zen** (20); **igarotzen ari ziren** (8); **igarotzen da** (86); **igarotzen dela** (10); **igarotzen den** (73); **igarotzen dena** (8); **igarotzen denean** (7); **igarotzen dira** (57); **igarotzen direla** (10); **igarotzen diren** (34); **igarotzen ditu** (10); **igarotzen dituzte** (9); **igarotzen du** (11); **igarotzen duen** (10); **igarotzen dut** (8); **igarotzen dute** (20); **igarotzen ez** (12); **igarotzen gara** (6); **igarotzen garenean** (9); **igarotzen ikusi** (10); **igarotzen naiz** (7); **igarotzen nintzen** (7); **igarotzen utzi** (14); **igarotzen uzteko** (6); **igarotzen uzten** (11); **igarotzen zen** (78); **igarotzen zenean** (6); **igarotzen ziren** (88); **igarotzen zituen** (19); **igarotzen zituzten** (6); **igarotzen zuen** (22); **igarotzen zuten** (10); **igaroz gero** (9); **izatera igarotzen** (6); **muga igarotzen** (6); **nola igarotzen** (14); **ondotik igarotzen** (33); **ondotik igarotzen zen** (6); **orduak igarotzen** (10); **ziztu bizian igarotzen** (8)

---

## igaroaldi 1 *iz* igarotzea, igarotzen den aldi bakoitza.

Jenisei ibaiaren **igaroaldia**. Karlos Zabala

Labur esateko, Jeniseiren **igaroaldi** hau izan zen denetan samurrena. Karlos Zabala

Doluaren lana aipatu ohi da, eta **igaroaldiaz,** metamorfosiaz, mintza gintezke halaber. Joxan Elosegi

Bigarren **igaroaldiak** lehenak baino arrakasta handiagoa izan zuen. Koldo Biguri

Denboraren ordena ari garela aintzat hartzen, ez, ordea, bere **igaroaldia**. Ibon Uribarri

Bidaiarien **igaroaldi** bakoitzean, bai igoeran, bai jaitsieran. Xabier Olarra

**2** aldi igaroa, iraganaldia.

Nekazaria, **igaroaldi** apalekoa, denbora luzez etxe bat eta lauzpabost mando pare zituena, hamarrekin, gero hogeirekin, agertzen zen bat-batean Josu Zabaleta

---

## igaroarazi, igaroaraz, igaroarazten du *ad* igarotzera behartu.

Salomon gogoratu zitzaidan, Sabako erregina ispilu baten gainetik **igaroarazten**. Josu Zabaleta

Beti bezain apal, Tomek keinu bat egin zuen eskua aurpegiaren aurretik **igaroaraziz,** eskolako nota hari garrantzia kendu nahirik bezala. Oskar Arana

Gauean, Jakobek, jaiki, bere bi emazteak, hauen bi neskameak eta hamaika semeak hartu eta Jabok errekako pasabidea **igaroarazi** zien. Elizen arteko biblia

Zeukan guztia ere errekaz bestaldera **igaroarazi** zuen. Elizen arteko biblia

Damu dut zure alabari **igaroarazi** niona Korronte elektriko bat **igaroarazita** hezur hautsia bizkorrago osa daitekeelako tesia plazaratu da. Oskar Arana

Dena da laua hemen, dena behar da idatzi, metaforizatu, letren iragazitik **igaroarazi**. Eider Rodriguez

Konkurrentziazko mekanismoak ipintzea eta baliabideen esleipenaren funtzioa merkatuetara **igaroaraztea** dira ekoizpena eta berrikuntza bultzatzeko modurik seguruenak. Koro Navarro

---

## igarobaimen *(orobat **igaro-baimen)*** *iz* zainpean dagoen bide batetik igarotzeko baimena. ik **salbakondukto**.

Bilbotik Donostiara autoz joateko, berriz, **igaro**-baimena behar izaten zen, zigilu eta guzti. Inazio Mujika Iraola

Bilatu zituzten, izenpetu zituzten letrak, erosi zituzten bidaiariek bi zaldi, inguratu zuten **igarobaimen** bat; eta arratsaldean, bazkaldu eta gero, Martin eta Bautista Zestoako errepidetik barna abiatu ziren. Koro Navarro

Paper zuria hartu, eta idazmakinaren aurrean eseri nintzen **igaro**-baimena idaztera. Inazio Mujika Iraola

**Igarobaimena** erakutsi zuten hirurek. Koro Navarro

Begien parean alderantziz jarrita irakurri zuten gure **igaro**-baimena irteerakoek. Inazio Mujika Iraola

Uko egin zion bere funtsgabeko ametsari eta ez zuen baliatu ere haren gortera hurbiltzeko [...] Errege Jaunak aitzinetik emana zion **igaro**-baimena. Piarres Xarriton

---

## igarobide 1 *iz* igarotzeko bidea.

Mendietako **igarobideak** itxi, mendi garaietako gailurrak gotortu eta lautadetan oztopoak ipini zituztela. Elizen arteko biblia

Hindu Kush mendiguneko **igarobideetan** zehar. Iñaki Mendiguren

Jendez gainezka daude vaporettoa hartzeko geltokia eta kanal-alboetako **igarobideak**. Anjel Lertxundi

Zorrozaurre Sarrikorekin lotzeko bost **igarobide** egingo dituztela. Berria - Euskal Herria

Bihar goizean irekiko dituzte Txorrierriko saihesbidea eta Bilbo erdialdea lotzen dituzten **igarobideak**. Berria - Ekonomia

Haren ondoren jaitsirik, Moaberako **igarobideak** hartu zituzten Jordanen, eta ez zioten inori ere utzi igarotzen. Elizen arteko biblia
Irurtzungo Aizpitarte **igarobide** ospetsua. Martin Anso
Toki malkartsua zen, **igarobiderik** batere gabea. Patxi Zubizarreta
Gero eta kontu handiagoz ibili beharra zegoen izotz pusken artean, **igarobideak** estutzen ari zirelako. Karlos Zabala
Eserlekuen arteko **igarobidetik** lasterka joango da. Josu Zabaleta
Gainera, **igarobideko** lurraldea gara, eta mugaren alde batetik bestera gero eta kamioi gehiago dabiltza. Berria - Euskal Herria
· Nola lortu zituen bere kasa libre ibiltzeko beharrezko **igarobideak**. Edorta Jimenez

**2** *(gauza abstraktuetan).*
Liburua egilearen eskuetatik irakurlearen eskuetara pasatzeko **igarobidea**. Efektuetatik kausetarako **igarobidearen** lege guztiak. Ibon Uribarri
Psikologia arrazionaletik Kosmologiarako **igarobideaz**. barne-merkatu benetakoaren faltak hazkundea eta industria-kapitalismorako **igarobidea** eragotzi zituen. Koro Navarro
Aldaketa oro (gauza baten **igarobidea** egoera batetik bestera) jarraitua da. Ibon Uribarri
Oso zaila izaten da gertaera batetik besterako **igarobidea** denbora jauzi bat bezala sentitzea. Josu Zabaleta

**3 *hesirik gabeko igarobide***
Trenak umea zihoan autoa harrapatu zuen hesirik gabeko **igarobide** batean. Berria - Euskal Herria
Araban dauden hesirik gabeko **igarobideak** zein hesiak dituztenak kentzeko aurrekontua zehazteko eskatu zion Diputazioak Renferi. Berria - Euskal Herria
· Hesirik gabeko trenbideko **igarobide** batek beste istripu larri bat eragin du. Berria - Euskal Herria

**4 *lurpeko igarobide***
Kalea lurpeko **igarobidea** erabiliz igaro beharrean. Edorta Jimenez
Batzuetan, ate aurrean etxeari eta urmaelari begira jarririk, bere artean esaten zuen ondo legokeela biak lurpeko **igarobide** baten bitartez lotzea. Jose Morales
Trenbidea lurpeko **igarobidetik** edo zubietako batetik zeharkatzen zuten inurriak bezala zihoazen fabrika pabiloietarantz. Jon Maia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> igarobide batean (3); igarobide gisa (3)

---

**igaroezin** **1** *izond* bideez eta kidekoez minzatuz, bertatik ezin igaro daitekeena. ik**igarogaitz; pasaezin**.
Batailoia eliza batean sartuta, bideak elurrarekin **igaroezinak** zeudela-eta ezin mugiturik. Koro Navarro
Bidea **igaroezina** eta lohiez betea zegoen. Koro Navarro

**2 *igaroezineko*** *izlag* igaroezina.
Aspergabe ibili ginen gaiztakeri eta hondamen-bideetan, **igaroezineko** basamortuan zehar, Jaunaren biderik ezagutu gabe. Elizen arteko biblia

---

**igarogaitz** *izond* bideez eta kidekoez minzatuz, bertatik nekez igaro daitekeena, ia igaroezina.
XIX. mendeak zer naturalaren eta humanoaren artean altxatu zuen zubi ustez **igarogaitza** [...] harentzat ez zen existitzen. Xabier Amuriza

---

**igarogune** *iz* igarotzeko gunea. ik **pasagune**.
Israelgo Armadak bi palestinar hil zituen goizean, Eretzen, Israel eta Gaza arteko **igarogunean**.
Bakezale hauek martxa bat egin zuten Israel eta Gaza hegoaldean kokatutako Kisufimeko **igarogunera**. Berria - Mundua
Eraso honi mendekatzeko, Israelek itxi egin zuen Eretzeko **igarogunea**. Berria - Mundua

---

**igarokor** *izond* igarotzen dena, gutxi irauten duena. ik **iragankor**.
Behin gaixo egon zen, sukar **igarokor** batez. Josu Zabaleta
Hodeien arteko ostarte **igarokorretan**. Txillardegi
Zeinu haiek idatzi zituenaren bizitza irakurri ahala, iragan ahaztu baten argi dirdai **igarokor** batzuk bezala etortzen zitzaizkidan aldika. Josu Zabaleta
Aritu gara "aro heroiko"ko lorpen horien izaera **igarokorraz**. Iñaki Mendiguren
Urmael bareak egunsentiko hodei lasterrak nola, halaxe islatzen zituen haren aurpegi mardul, polit, atseginak beste lauren sentimendu **igarokor** guztiak, haien pentsamenduak oro. Jose Morales
Gaizkile baten heriotzaren ikuskizun lazgarri baina **igarokorrak** ez ditu kitatzen hark iraindu duen gizartearekiko zorrak. Juan Martin Elexpuru

---

**igaroleku** *iz* igarotzeko lekua.
Guardak Jordanerako bidera, **igarolekuetara,** joan ziren haien bila. Elizen arteko biblia
Emakumeak eta gazteak egarriak hilda, eta hiriko plazetan eta ateetako **igarolekuetan** erortzen ziren indarrik gabe. Elizen arteko biblia

---

**igarotze** **1** *iz* toki edo bitarte bati buruz, heldu eta gelditu gabe aurrera jarraitzea.
Batetik besterako **igarotze** bikoitz horretaz jabetu zen Ruche jauna: "kurba/zuzena", zirkuluan; eta "angelua/zuzenkia", triangeluan. Jon Muñoz
Okerretik okerragora **igarotze** ezinbesteko bat. Xabier Mendiguren Elizegi
Astiro, zurrutada bakoitzean denboraren **igarotze** geldoa dastatuz. Jon Arretxe
Diligentziaren **igarotzeak** hauts hodeiak harrotzen zituen. Josu Zabaleta
Nik egokitzen dut helizeen **igarotzea** eta olioaren berotzea. Josu Zabaleta
Duke handia ez zen saiatu **igarotze** hori eragozten. Karlos Zabala
Batxilergotik fakultateko ikasketetara **igarotze** horrek beti eragiten dizkio ikasleari halako ilusio batzuk, gizonago dela, bizitza aldatzera doakiola sinetsarazten dio. Josu Zabaleta
Danborrada, denboraren **igarotzearekin,** hiriaren arima bihurtu da. Askoren artean
Betierekotasuna beste gauza bat da: obra bat beti momentukoa, indarrean egotea, bere kabuz denboraren **igarotzeari** aurre egiteko bezain esanguratsua izatea. Ana Urkiza

**2** (hitz elkartuetan)
Istanbulgoan, tramitazio luzea itxaronda ere ez didate **igarotze**-bisa baino bermatzen. Jon Arretxe

Atzo Langraizen hildako bi presoak Arabako presondegiko **igarotze** moduluan zeudela (bosgarrena), beste kartzela batera noiz bidaliko zain epaiketa egiteko. Berria - Euskal Herria

Etorkin klandestinoak kaleratzeko baldintzak hobetzea, euren mugak kontrolatu nahi dituzten **igarotze** herrialdeei laguntzea... Berria - Mundua

· Muga **igarotze** arriskutsuak. Markos Zapiain

Hori hasiera baino ez da izan, ez baitauka zerikusirik muga- **igarotze** honek kontrako norabidean egin nuenarekin. Jon Arretxe

**3** santuez mintzatuz, zeruratzea.

Anaia asko zegoen guztien aita eta gidari zenaren inguruan bilduta, haren **igarotze** dohatsu eta konplimendu zoriontsua begirunez itxaroten. Askoren artean

Izan ere, ez zen inola ere egokia Frantziskogatik negar egitea, haren **igarotzeak** aingeru-talde handiak erakarri baitzituen eta zeruko santu eta Jainkoaren adiskideak pozez bete. Askoren artean

**Igarotzearen** ordua hurbildu zenean, Frantziskok etxean zeuden anaia guztiei dei egin, eta [...]. Askoren artean

Santuaren **igarotze** orduan. Askoren artean

Aita Frantzisko dohatsuaren konbertsio miragarria; Jainkoaren hitzaren predikazio eraginkorra; bertute gorenen dohaina; [...] eta mundu honetatik zerura **igarotze** aintzatsua. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **denboraren igarotzeari** (4)

---

# igarpen 1 *iz* igartzea, asmatzea.

Geroa igartzeko ahalmena ematen zion espiritu batek hartua zen, eta bere **igarpenen** bidez irabazi ederra ematen zien nagusiei. Elizen arteko biblia

Orakulua eta **igarpena,** bada, gizakien eta jainkoen arteko komunikabidetzat baliatzen dira, baina jainkoen ondare dira betiere. Juan Garzia

Nekatuta balego bezala hitz egin du: -Hitz horietan zegoela orakuluaren **igarpena** . Anjel Lertxundi

Iragarpena a posteriori da **igarpen** -"ene, asmatu ere, asmatu egin zuen!"-. Edorta Agirre

Ez da aztikeriazko **igarpenik,** ez eta madarikazio-hitzik, Israelen kontra balio duenik. Elizen arteko biblia

**Igarpenak** egiteko dira harriak. Xabier Aranburu

Sybill Trelawney, **Igarpeneko** irakaslea -irakurri zuen Harryk-. Iñaki Mendiguren

Atzo, **Igarpeneko** azterketa egiten ari nintzela, Trelawney andereñoa oso... oso arraro jarri zen. Iñaki Mendiguren

Gure lehenengo **Igarpen** -eskola izan dugu. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

Gogoak eman, eta han doa; unea iritsirik, alferrik dira azti- **igarpenak** eta zori-asturuak; teoria huskeria da eta bidean zehar ikasten da; besteen esperientziek ez dute ezertarako balio; nork bere burua neurtzea, horixe da funtsezko. Juan Garzia

Baina beltzean beltz iragartzen zituen Merlinen aurre- **igarpenak,** eta Sibilarenak, eta Joachim abadearenak, zeinak Figuren Liburuan baitatoz. Juan Garzia

**3** iragarpena.

Izan ere, eguzki sistemari egindako argazkiek bere **igarpenak** berretsi zituzten. Berria - Harian

Aztikeriak, **igarpenak** eta ametsak funsgabeak dira, erdiminetan dagoen emakumearen irudipenak bezalakoak. Elizen arteko biblia

Horrelako **igarpenetan** ez dut huts egiten. Edorta Jimenez

Hain da handia, oro har, zientziaren igartze-ahalmenean dugun ustea, ezen azti eta ezkutu-ikusleek ez baitute eskrupulurik "zientifiko"tzat saltzeko beren **igarpenak** , hobeki beitatzeko bezeroak. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta igarpena** (3); **igarpenak eta** (3)

---

# igarri, igar, igartzen *(orobat **igerri**)* 1 dio *ad* ustearen edo intuizioaren bidez zerbait ezagutzera heldu edo zerbaitez konturatu. ik **antzeman**.

Nagusiak **igarri** dio enigma horri. Juan Garzia

Ez al diezu ene begiei **igarri? Patxi Zubizarreta**

Uste dut nire esaldiaren sakontasunari ez ziotela **igarri** . Joxean Sagaztizabal

Hark irribarrez **igarri** zion Fructuosoren asmoari, eta baietz. Inazio Mujika Iraola

Mirari honegatik **igarri** zion San Joanek eta esan San Pedrori : "Jauna da". Patxi Altuna

Zalantzarik gabe -txartela irakurri aurretik **igarri** nion- Derwatt bat zen hura. Iban Zaldua

Iritzi honen faltsutasunari berehala **igarriko** dio gizonen arteko harremanak [...] hotzean aztertzen ohituta dagoenak. Juan Martin Elexpuru

-Bai, ongi **igarri** diozu. Txillardegi

Berehala **igarri** nion: egun hark ez zuen akabu onik izango. Harkaitz Cano

Aurpegian **igarri** nion: ohartu zen nor nintzen, konturatu zen berak bidali ninduela kartzelara. Edurne Elizondo

Erantzun argi eta garbia eman zuen, baina, igarkizunaren barruan gorderik, beste igarkizun bat zegoen, eta Edipok ez zion **igarri:** "Ahots bakarreko izakia". Juan Kruz Igerabide

-Ez dauka ahuldadearekin zerikusirik -esan zion Lupin maisuak zorrotz, Harryren buruan zegoenari **igarri** balio bezala-. Iñaki Mendiguren

Zu euskalduna zara, **igarri** zion bizardunak. Xabier Montoia

**Igarri** nionez, traktorea neuk gidatzea nahi zuen. Joxean Sagaztizabal

Begitan hartu hau, Tommo, **igarri** zioat. Mirentxu Larrañaga

Etxe barnean ere **igarri** nion, ez dakit nola; gaixotasunak ahalmen misteriotsuak ematen dizkigulako? Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dut uste ezer **igarri** zidanik. Joxe Austin Arrieta

Bokalean sartzen ikusi nuenerako nion **igarria,** Lafayette-ko Markesa zen, gure portuan babestua Frantziako agente ingelesengandik ihesi. Koldo Izagirre

Eta Nemesio Arozena, **igarriko** zenion honezkero, gorrietan egina zen gerra. Koldo Izagirre

**-Igarriko** diozue, gazte zitalok! -esan zuen orroka-. Mirentxu Larrañaga

Baina aittitteren aurpegiak inoiz **igarri** ez nion bezalako gogortasuna hartu zuen. Koldo Izagirre

Asmazioetan hasita, **igarri** egiten diot. Iñaki Iñurrieta

Lehenengoetan ez nion **igarri** zeren gainean zioen zioena. Edorta Jimenez

Évarengana hurbildu eta nora ari zen begira **igarri** nahi izan nion. Ander Irizar

Bart emagaldu batekin joan nahi izan diat, baina begietan **igerri** egin zidak eta kalera bota naik... Lopez de Arana

· **Igarri** egiten zait, ezta? Juan Luis Zabala

**Igarri** egiten zitzaien, ezin zuten ezkutatu. Harkaitz Cano

Baina izena paratzen ez badiozu azpian, akabo zure meritua; inork ez baitio **igerriko** Ama Birjina denik. Patziku Perurena

**2** (mendeko esaldiekin)

Seinale horretatik batik bat **igarri** zioten hiltzera zihoala. Patxi Ezkiaga

Gezurretan ari zitzaizkiola **igarri** zien arren, bere herritarrak kontra jar ez zekizkion, dirua eta haurrak ekartzeko agindu zuen Simonek. Elizen arteko biblia

Gaixorik zebilenik ere ez zion inork **igarriko,** hain zegoen indartsu eta itxura oneko. Patxi Iturritegi

Gezurra esaten ari ote nintzaion jakin guran begiratu ninduela **igarri** nion. Edorta Jimenez

Besteak, berriz, apaiza zela **igarri** nionak, isilpean etorria zela-ta, bere zertzeladak ez zizkidan eman nahi izan. Txillardegi

Amak, nonbait, berehala **igarri** zion nor zen. Mirentxu Larrañaga

**Igarriko** diozue, bai, nor naizen. Matías Múgica

**Igarriko** diozu zer-nolako biharamuna izango duzun. Mirentxu Larrañaga

Hi hilda egona haiz eta nik baino hobeto **igarri** beharko hioke hilda dagoen edo ez. Juan Luis Zabala

Ez nion **igarri** irriaren maltzurtasuna zergatik ote zen. Edorta Jimenez

Zer irakurtzen ari zen **igarri** nion. Edorta Jimenez

· Ezin zitzaion **igarri** nor zen, begiak zapi batez estaliak baitzituen. Elizen arteko biblia

Kontu ilunetan, mafia giroan sartuta zeudela **igartzen** zitzaien. Sonia Gonzalez

• **3** du (zerbait norbaiti)

Inork ezin dio gaixotasuna **igarri**. Patxi Zubizarreta

Ezjakintasun-keinua **igarriko** zidan aurpegian. Xabier Mendiguren Elizegi

Urteak dira, oraindik Berlinen ginela, sendagileek heriotza **igarri** ziotela. Koro Navarro

Nadiak, ordea, pentsamendua **igarri** zion, nahiz ez ulertu zergatik bere lagunak presa zuen Irkutskera iristeko. Karlos Zabala

Irri-aire bat **igarri** nion ahotsean Martini. Edorta Jimenez

Léak haserrea **igarri** zion aurpegian. Jon Muñoz

Léak haserrea **igarri** zion aurpegian. Jon Muñoz

Kargu hartze tonua **igarri** zion Antoniari. Josu Landa

Agentziara etorri aitzin **igarri** nion gogo eza. Aingeru Epaltza

· Pixka bat gizendu zinela **igarri** nizun, baina betiko usain bera izaten jarraitzen zenuela, herdoil eta limoi usaina. Eider Rodriguez

· Baina batez ere, tristura puntu bat **igartzen** zaie solidarioei. Edurne Elizondo

Hala ere gaiztakeria **igarri** zitzaion begietan. Koro Navarro

Atsoa aztertu zuen begi artegaz, asmoak **igartzen** zizkiolakoan. Karlos Zabala

**4** (zerbait)

Ezin duzu **igarri,** laztana, amodioaren oinazea. Patxi Zubizarreta

Hutsaren sentsazioa daukazu buruan, eta eromena **igarri** dezakezu ate joka. Rafa Egiguren

Amak berehala **igarri** zuen ezin zela Molly izan. Halako baten biharamunean izango zela **igarri** nuen, izuz eta pozez. Mirentxu Larrañaga

Bisitaria jakingurak erreta **zegoela** igarri nuen. Edorta Jimenez

Honetan **igarriko** duzue Jaunak hitz egin duela: zartatu egingo da aldarea eta lurrera isuriko gainean duen errautsa. Elizen arteko biblia

Kristalaren bestaldean bere laguntzaileek irribarre txikiak egiten zituztela **igarri** zuen, "maritxu honek nola izango ditik bada, seme-alabak, nahiko lan bere burua gobernatzen!". Harkaitz Cano

Hasieran ez zuen **igartzen** zer zen. Anton Garikano

Hain azkarra izan, eta ez duk **igarri** Palas Atenea duala heure aurrean, hi babesten ibili den jainkosa! Juan Kruz Igerabide

Lehenago **igarri** behar nuen: horrelako neska bat ez zitzaidan zorrik gabe eskuetara iritsiko. Oskar Arana

Hastera noa, eta **igarriko** zenutenez, berriz ere madameren ipurdiak jasoko du nire omenaldia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Neke lozorro bitxi hartan ezin nuen **igarri**. Txillardegi

Baina zertarako hau guztia kontatu, ume zapuztu baten bere kontrako amorru itsua, [...] zertarako kontatu behin ere **igarri,** behin ere horren berri izan ez duenari? Eduardo Matauko

Eta hori guretzat **igarriko** duen profetarik ez dago. Joxe Azurmendi

· Iraila hasi da eta hori **igarri** egiten da kaleetan. Sonia Gonzalez

· Min eman nahi izan nion, eta **igarria** zen. Koldo Izagirre

**Igarria** da ez diodala bidea erraztu, deserosoa zaiola nik erabakia bere esku utzi izana. Anjel Lertxundi

**5** (aditz laguntzailea ezabaturik)

-Rosa ez -azaldu zion nebak, Mariaren usteari **igarriz-;** beste Rosa bat, neska gazte bat. Unai Elorriaga

Tomek eta biok haren galtza-mantalen zergatiari **igarri** nahiz ari ginela, eskolako autobusa geratu zen etxearen aurrean. Oskar Arana

-Lo eta nork iratzarriko? -harritu zitzaion mezulari gaztea, alkatearen trikimailu berriari **igarri** ezinda. Felipe Juaristi

Santuak, heretikoaren maltzurkeria **igarriz,** honela esan zien: [...]. Askoren artean

Nahiago zuen, kanpoko hotza **igartzean,** aldi baterako ohean geratu. Joseba Sarrionandia

Patuak niretzat gorderik zer ote zuen **igarri** gura izan nuen. Edorta Jimenez

Marta benetan ari ote zen ala ez **igarri** ezinik. Harkaitz Cano

Bezeroak bueltan zekarren aulkiak zer matxura edo zer tatxa izango ote zuen **igarri** ezinik. Harkaitz Cano

Ezetz **igarri** zer erantzun didan; galde egiozue berari, asmatu egin dudala pentsatuko zenukete eta. Itziar Otegi

**6** ik **asmatu.**

Zuk ba omen dakizu honelako asmakizunak **igartzen** eta gauza korapilatsuak erabakitzen. Elizen arteko biblia

Geroa **igartzeko** ahalmena ematen zion espiritu batek hartua zen. Elizen arteko biblia

Grekoen artean, ordea, **igartzeko** gaitasuna ez zegoen hilkor arrunten esku, jainkoei baitzegokien. Juan Garzia

Maribel, zutik, mahai gainean lagatako Ander's aldizkariari so geratzen da, begirada lausotzen zaio, eta asmatu ahalak **igartzeari** ekiten dio. Xabier Mendiguren Elizegi

Hegoaren eta Iparraren biharko harremanak asmatzeko, belaunaldien arteko loturak ala urradurak **igartzeko**. Piarres Aintziart

Baldin eta asmakizun baten erantzunari **igartzen** bazion. Pako Aristi

Maribel, zutik, mahai gainean lagatako *Ander's* aldizkariari so geratzen da, begirada lausotzen zaio, eta asmatu ahalak **igartzeari** ekiten dio. Xabier Mendiguren Elizegi

Etorkizuna **igartzen** zuen atsoaren alaba izan behar zuen hark, inondik ere. Harkaitz Cano

Etorkizuna **igartzea** zaila izanik, ez da errazago gertatzen, batzuetan, iragana berrosatzea. Juan Garzia

Jainkoak daki, ez dago **igartzerik**. Jose Morales

Jakin berri dudanarekin aski dut nora joango den **igartzeko..**. Karlos Zabala

Eguraldia **igartzen** duenaren jakituria ezkutua. Pello Zabala

· Denborai **igartzeko** / zenbait aparatu / ongiegille on batek / zizkan preparatu. Pello Zabala

**7** ***ezin igarrizko*** *izlag*

Besoa behera joan zen berriz, eta gero ostera atera zen, ezin **igarrizko** gauza batekin batera. Koro Navarro

Usain izugarria zegoen, ikatz, petrolio eta beste erregai ezin **igarrizko** batena. Koro Navarro

Behealdean, kopetako ileorde ezin **igarrizkoak,** ile kiribil guztiz kizkurtuak. Karlos Zabala

Porrot egiteko, gauza gehiegi zituen bere alde, nortasun sendoegia zuen nahigabearen edo zorigaiztoaren haize ezin **igarrizkoek** beraren bidea galarazteko. Oskar Arana

Nolatan balioetsi, aldian-aldian, guztiz ezin **igarrizkoa** den bilakaera baten urratsak? Juan Garzia

· Ezin **igarrizkotik** eta kezkagarritik daukan partea ere onartu beharra dago gainerakoarekin. Juan Garzia

### 8 *igarri-igarrian*

Eguzki sartzea **igarri-igarrian** zegoen eta Midak kalezuloa itzalek lausotua ageri zen. Patxi Zubizarreta

Hala ere, **igarri-igarrian** dago Rakelek gogoa beste nonbait duela. Patxi Zubizarreta

**Igarri-igarrian** geratu zela Rakel eta Rubenen arteko zera. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aise igarri** (3); **aldez aurretik igarri** (3); **aurretik igarri** (4); **baina igarri** (6); **bat igarri** (19); **bat igarri du** (3); **bat igarri nion** (3); **bera igarri** (3); **berak igarri** (3); **berehala igarri** (19); **berehala igarri diat** (3); **berehala igarri zion** (4); **berehala igarri zuen** (4); **bertan igarri** (3); **bi igarri** (3); **dela igarri** (4); **du igarri** (3); **ederki igarri** (3); **ere igarri** (30); **ere igarri nuen** (3); **eta hori igarri** (6); **eta igarri** (8); **etorkizuna igarri** (4); **ez igarri** (3); **ezer igarri** (8); **ezin igarri** (5); **hartan igarri** (5); **hasieratik igarri** (3); **hobeto igarri** (3); **hori igarri** (10); **hori igarri egiten** (7); **hura igarri** (3); **ia igarri** (4)

**igarri ahal** (18); **igarri ahal izan** (3); **igarri ahal izango** (3); **igarri ahal zen** (4); **igarri barik** (4); **igarri behar** (11); **igarri beharko** (5); **igarri da** (4); **igarri diat** (4); **igarri dio** (9); **igarri diot** (4); **igarri diote** (3); **igarri diozu** (4); **igarri ditut** (3); **igarri du** (13); **igarri dudan** (3); **igarri dut** (14); **igarri dute** (9); **igarri egin** (31); **igarri egin zidan** (5); **igarri egin zion** (7); **igarri egingo** (3); **igarri egiten** (29); **igarri egiten da** (10); **igarri ere** (10); **igarri ere ez** (4); **igarri eta** (12); **igarri ez** (14); **igarri ezin** (3); **igarri ezinik** (15); **igarri gabe** (7); **igarri genuen** (5); **igarri igarrian** (5); **igarri izan** (7); **igarri izan balu** (4); **igarri nahi** (4); **igarri nahian** (11); **igarri nahiz** (3); **igarri nien** (3); **igarri nion** (43); **igarri nor** (3); **igarri nuen** (32); **igarri uste** (9); **igarri uste izan** (6); **igarri zen** (3); **igarri zer** (4); **igarri zezakeen** (3); **igarri zidan** (8); **igarri zion** (37); **igarri zioten** (3); **igarri zituen** (4); **igarri zitzaion** (3); **igarri zizkien** (3); **igarri zizkien jesusek** (3); **igarri zuen** (46); **igarri zuenean** (6); **igarri zuten** (11)

**aise igarriko** (3); **berehala igarriko** (7); **ezin igarrizko** (3); **igarriko diozu** (3); **igarriko diozue** (5); **igarriko du** (3); **igarriko duzu** (4); **igarriko ote** (6); **igarriko zion** (8); **inola ere igarri** (3); **laster igarri** (7); **nintzen igarri** (3); **nola igarri** (5); **orduko igarri** (4); **ote zen igarri** (4); **ote zuen igarri** (3); **pentsamendua igarri** (3); **segituan igarri** (4); **zela igarri** (16); **zela igarri nion** (3); **zela igarri nuen** (3); **zela igarri zuen** (3); **zen igarri** (15); **zen igarri ezinik** (5); **zion igarri** (3); **zirela igarri** (6); **zuela igarri** (6); **zuen igarri** (8)

**den igartzea** (3); **ez igartzeko** (8); **igartzea ez** (3); **igartzeko gai** (4); **igartzeko moduan** (3); **igartzeko moduko** (6); **igartzeko moduko aldaketarik** (5); **igartzeko modukoa** (3); **zen igartzeko** (3)

**ahotsean igartzen** (3); **bat igartzen** (12); **batere igartzen** (4); **berehala igartzen** (7); **beti igartzen** (3); **da igartzen** (6); **dagoela igartzen** (3); **dela igartzen** (3); **duela igartzen** (5); **ere igartzen** (12); **ere igartzen da** (4); **erraz igartzen** (3); **eta igartzen** (7); **eta igartzen da** (3); **ez da igartzen** (5); **ez zitzaien igartzen** (3); **ez zuen igartzen** (3); **ezer igartzen** (4); **falta igartzen** (3); **gehiegi igartzen** (3); **handirik igartzen** (3); **hori igartzen** (4); **igartzen ahalegindu** (3); **igartzen bainuen** (3); **igartzen da** (42); **igartzen dela** (3); **igartzen den** (3); **igartzen dio** (3); **igartzen diot** (4); **igartzen dira** (4); **igartzen du** (8); **igartzen duen** (3); **igartzen dugu** (5); **igartzen dut** (12); **igartzen dute** (5); **igartzen duzu** (9); **igartzen eta** (7); **igartzen ez** (9); **igartzen nuen** (5); **igartzen saiatu** (3); **igartzen zaie** (5); **igartzen zaien** (3); **igartzen zaio** (25); **igartzen zen** (22); **igartzen zion** (6); **igartzen zitzaien** (4); **igartzen zitzaiola** (4); **igartzen zitzaion** (14); **igartzen zuen** (16); **igartzerik nahi** (3); **nola igartzen** (5); **ondo igartzen** (4); **oraindik igartzen** (4); **zen igartzen** (6); **zitzaien igartzen** (3); **zuen igartzen** (3)

---

## igarriezin *(orobat **igarri ezin** eta **igartezin**)* **1** *izond*

Heriotza, irizpide errefusagaitz hauen ondotik, forma aldaketa besterik ez da, izaera batetik besterako pasabide **igarriezina,** Pitagorasek metenpsikosia deitzen zuena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Baina ez zuten kontuan hartzen ezbehar **igarri** ezina gerta zitekeela, eta haren kontra deus egiterik ez zuela haien ardurak, ezta haien abildadeak ere. Karlos Zabala

Bekatuaren larritasuna bihotzaren gaiztakeria **igarriezinaren** araberakoa da. Juan Martin Elexpuru

Paradisuan Aurelianok jakin zuela dibinitate **igartezinarentzat** berak eta Juan de Panoniak [...] pertsona bakar bat osatzen zutela. Juan Garzia

Momentu soil eta laburra, lasaia, agian **igartezina**. Sonia Gonzalez

### 2 *igarri ezineko* *izlag* igarriezina.

Eta, halaz guztiz, zientzia ere **igarri ezinekoa** da. Juan Garzia

---

## igarrigaitz *izond* igartzen zail dena, ia igarriezina.

Otarreak, plastikozko poltsak, oihal edo paperetan bilduriko pakete eta gauza **igarrigaitz** asko zegoen pasabidean, bidaiariek han utzirik. Xabier Montoia

---

## igartezin ik **igarriezin**.

---

## igartze *iz* ustearen edo intuizioaren bidez zerbait ezagutzera heltzea edo zerbaitez konturatzea.

Hain da handia, oro har, zientziaren **igartze** -ahalmenean dugun ustea, ezen azti eta ezkutu-ikusleek ez baitute eskrupulurik "zientifiko"tzat saltzeko beren igarpenak, hobeki beitatzeko bezeroak. Juan Garzia

Arrasto bakar hartaz at, oro zen itsuan egin beharreko **igartze** -lana. Oskar Arana

---

## igate *iz* igotzea.

Bidaiarien mintzamoldean mendi gora batek, **igate** luze batek; postamutilaren mintzamoldean malkar zakar batek egiten du bi zati ataka hau. Koldo Izagirre

---

## igbo *iz* Afrikako zenbait eremutan bizi den etnia bateko kidea.

Deltan bizi diren etniek ijwak, ogoniak, **igboak** eta itsekiriak hainbat multinazionalen kontrako salaketa jarri zuten ekainean. Berria - Mundua

---

## igebelar *iz* landare urtarra, ur gainean hedatzen diren hosto handi biribilak dituena, lurralde bero eta epeletan hazten dena *(Nymphaea* sp.)

Haztegien hezetasun hartan zutik, arraba errun berrien usaina inguruan zuela ematen zuen, usain lodia, zingirako **igebelar** eta ihien artetik sortutakoa. Karlos Zabala

Claude Moneten **igebelarren** margolanak. Berria - Kultura

---

## igel **1** *iz* ornodun urlehortar isatsgabea, azala biguna eta leuna, atzeko hankak luzeak eta behatzak mintz batez lotuak dituena, uretan igerian eta lehorrean jauzika ibiltzen dena *(Rana esculenta, Rana ridibunda* etab.).

Ez dakit **igela** ala apoa, zer zen. Unai Elorriaga

Sugandila bat etortzen zitzaion gogora **igelarekin** batera. Unai Elorriaga

Hildako **igelen** hezurrak. Xabier Olarra
Haren sabel handituak **igel** batena ematen zuen. Josu Zabaleta
Goizean zapaldu zuen **igela** . Unai Elorriaga
**Igelen** eta saguen arteko borrokan. Xabier Olarra
**Igela** abeslari maratza da, ahots on baina belarri txarrekoa. Xabier Olarra
Parke batean **igel** erraldoi batek metroren bat luze zen sugea jan zuen. Gotzon Garate
**Igel** gautarrek, esaterako, zailtasun handiagoak izaten dituzte harrapakinak topatu eta atzemateko. Berria - Gaiak
Lakuaren urik gardenenetan ere apoak eta **igel** satsuak ez daude geldi... Joan Mari Irigoien
Hegaztiek, **igel** zaratatsuek, otsoek, lehoiek. Luis Elberdin
Pasatzerakoan, **igel** motadunek salto egin dute ertz eguzkitsutik te koloreko ur geldietara. Patxi Iturritegi
Arratsaldean dutxatzen zen beraz, hipopotamoak bezala edo Madagaskarreko **igel** gorriak bezala. Unai Elorriaga
Bidezidor artez bat egina zuten zingiran zehar, **igelak** harrapatzeko erabiltzen zutena. Joanes Urkixo
Desagertzeko zorian dauden animaliak: Igeldoko **igela,** arranoa, otsoa. Joxerra Garzia
Arrain fresko bakarra **igelak** ziren, gauza barregarri samarra, elikagai gisa hartzeko. Josu Zabaleta
Txokolatezko **igelak,** kalabaza-enpanadak. Iñaki Mendiguren
Bazen erreklamo antzeko bat nire anaiak erabiltzen zuena ni erakartzeko: **igelen** korroka. Pello Lizarralde
**Igelak** entzuten ziren korroka, baina **igelak** beti entzuten dira ilundu berritan. Koro Navarro
**Igelak** amorru batean ari ziren korroka. Josu Zabaleta
Urmael berde handi bat, **igelez** betea. Iñaki Mendiguren
Ur benedikatuetako **igelak** baizik ez zarete. Itxaro Borda

**2** (erkaketetan)

Weasley andrea **igela** bezala puzten ari zela. Iñaki Mendiguren
**Igela** bezala lodituko da. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Geratzen zitzaion **igel** -zatia ahora sartuz. Iñaki Mendiguren
Europarrontzako **igel** hankak hauta-hautakoak dira. Gotzon Garate
Ferratzaileak **igel** -begiez begiratu zion epaileari. Anjel Lertxundi
Ezezkoan jarraitzen baduzu, zure herrialde osoa **igel** -izurriz joko dut. Elizen arteko biblia
Oporretan etxeratzen zenean, poltsikoak **igel** -arrautzaz beteta ekartzen zituen. badela Donostian **igel** espezie bat, hiria bezala bakarra omen dena munduan. Iñaki Mendiguren
**Igel** -hotsa besterik ez zen entzuten. Inazio Mujika Iraola
Egunean zehar, baina batez ere iluntze aldera, padura alde hura **igel** hotsez betetzen zen. Joseba Sarrionandia
Hirugarren urteko batzuek nahi gabe **igel** -burmuinez zipriztindu dute bosgarren ziegako sabaia. Iñaki Mendiguren

**4** ***igel joko***

Ez da trikitia, disko festa, txistorra, gazta, sagardoa, toka eta **igel** -jokorik faltako. Berria - Kirola

**5** ***zuhaitz igel***

Zuhaitz- **igelek** iluntzean bezala egiten du girringa. Itziar Otegi
Errauste planta eraiki nahi duten lekuan galtzeko arriskuan dagoen hegoaldeko zuhaitz- **igela** bizi dela.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baso igel** (3); **eta igel** (9); **eta igel bat** (4); **igel bat** (15); **igel batek** (3); **igel eta** (3); **txokolatezko igel** (3); **txokolatezko igel bat** (3); **zegoen igela** (3)

---

## **igeldoar** *izond/iz* Igeldokoa, Igeldori dagokiona; Igeldoko herritarra.

**Igeldoar** tenoreak *Gure herri maiteari* eta *Txantxagorria* abestuko ditu. Berria - Kultura
Jose Mari Olasagasti lehenbiziko **igeldoar** aizkolari txapeldunari. Iñigo Aranbarri
**Igeldoarrak** jantzi du berriz Gipuzkoako txapela. Berria - Kirola
Ahuntzaz esaten dena badakik; eta, bera ere, **igeldoarra** izanik, astean behin bederen, herriraino joaten duk oinez. Txillardegi
Itziartarrekin batera aurkeztu dute helegite hori **igeldotarrek,** eta hainbat ekimen abiatu dituzte. Berria - Euskal Herria

---

## **igeltoki** *iz* igelak dauden tokia.

**Igeltokian** berriz siku utzi dut. Xabier Olarra

---

## igeltsari ik **igeltsero**.

---

## igeltsaritza ik **igeltserotza**.

---

## **igeltsatu**, igeltsa, igeltsatu du *ad* igeltsuz estali. ik **igeltsuztatu**.

Batak **igeltsatua** darama besoa. Iñigo Aranbarri
Beso bat ere **igeltsatuta** zuela. Harkaitz Cano
Esku bat **igeltsatuta** zuen neskak, ustez kolpe horien ondorioz. Berria - Euskal Herria
Oin bat **igeltsatuta** dauka oraindik jokalari danimarkarrak. Berria - Kirola

---

## **igeltsero** *(118 agerraldi, 45 liburu eta 21 artikulutan; ETCn 18.145 agerraldi, horietatik 17.286 **Wikipedia**koak; orobat **igeltsari** 3 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 36 agerraldi)* **1** *iz* etxegintzan, paretak eta hormak egiten eta konpontzen dituen pertsona. ik **hargin**.

**Igeltsero** eta harginei. Elizen arteko biblia

Zurginei, etxegileei eta **igeltseroei**. Elizen arteko biblia
Eskailburuan **igeltsero** bat ari zen lanean. Fernando Rey
Zuk badakizu zenbat kobratzen duen **igeltsero** batek, orduko? Jon Alonso
Orain ez nintzateke holakorik egiteko gauza izango, baina orduan **igeltsero** nagusiak baino hobeto egiten nuen. Koldo Biguri
Egia esanda, ez zirudik Zakarra bezalako **igeltsero**-maisu gizarajo batek diseinatua denik! Koldo Biguri
Hiru anaiak ez ziren **igeltsero** profesionalak. Berria - Kultura
Dela hargin ala zurgin, dela elektrikari ala **igeltsari**. Daniel Landart
. Ni laguntzen aritu nauk; egia esan, inozoarena egiteko hartu naik; hilabete osoan **igeltsero,** arotz, peoi eta haurtzain ere eduki naik. Josu Zabaleta
Herentzia hori ohol askok eta adreiluek eta mailuek eta **igeltsero** eskailerek eta iltzeek osatzen zuten. Pello Lizarralde
· Nola emigratu zuen gure osaba **igeltseroak** Frantziara. Fernando Rey
Ordurako, peoi **igeltseroak** lanean ari ziren bertan. Juan Garzia
Margolarien eta **Igeltseroen** Elkarteak. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Igeltsero** lanetan ibilia zen. Jon Alonso
Ura eramatea hiru eratan egiten da: **igeltsero**-lanez egindako kanal bidezko ubideekin, edo berunezko hodiekin, edo lurrezko tutuekin. Santiago Iruretagoiena
[Errekako harea] **igeltsero**-paletarekin leuntzen denean izugarri sendoa egiten da zarpeatu-lanetan erabiltzeko. Santiago Iruretagoiena
Zer egin behar du neska batek **igeltsero** taldean onartua izateko? Bernardo Atxaga

**3** ***igeltsero ibili***

Zertako **igeltsotu** bestela kalpar bizarrak? Patziku Perurena
David ingeles filologian lizentziatu zen 1992an, baina **igeltsero** dabil ia orduz geroztik. Iban Zaldua
· **Igeltsero** laguntzaile nenbilen. Koldo Biguri

---

# igeltserotza *(orobat **igeltsaritza**)* *iz* igeltseroaren lanbidea.

Irakaskuntza, abeltzaintza, zurgintza, **igeltserotza,** bulegaritza... esperientzia zabala neureganatu nuen. Xabier Mendiguren Elizegi
Hargin-lana, **igeltsaritza**, trebea izan behar du batek hori guztia egiteko. Oskar Arana

---

# igeltsu *(orobat **igeltso** g.er.)* **1** *iz* kaltzio sulfatoa ($CaSO_4$, $2H_2O$).

Klariona, **igeltsua** edo auskalo zer zerrikeria erantsi dioten. Aingeru Epaltza
Jimmy **igeltsua** xehatzen ari zen. Lopez de Arana
Aireak **igeltsu** lehorraren usaina zuen. Alberto Ladron Arana
Hainbat mezu eta itxaropenez urratutako hamaika esaldi txiki ikus daitezke bere horretan utziak izan diren paretetako **igeltsu** harramazkatuan. Harkaitz Cano
Paretetako **igeltsua** funditua baitzen. Elena Touyarou
Sabaiko **igeltsua** [...] pitzatu zuen... Xabier Paya
Pitzadurari **igeltsua** bota eta gero, pintura apur batez margotzen ari zen **igeltsuaren** zuria. Koldo Biguri
**Igeltsuz** egindako zarpeatuak zartatu egiten dira horma horietan. Santiago Iruretagoiena
Erlaitzak egiteko ahalik eta gutxien erabili behar da **igeltsua;** hobe testura uniformeko marmol-hauts aukeratua erabiltzea, bestela **igeltsua** lehenago lehortzen da eta ez du uzten lan osoa dena batera lehortzen. Santiago Iruretagoiena
Salmahaian **igeltsuzko** dragoia dago. Joseba Sarrionandia
**Igeltsuzko** bi estatua. Josu Zabaleta
**Igeltsuzko** horma oso leun bat. Josu Zabaleta
Denik eta **igeltsuzko** holtzik arinena. Oskar Arana

**2** (erkaketetan)

Gure haurra, begiak itxita, lo balego bezalaxe, baina **igeltsua** bezain zuri. Joxe Austin Arrieta
Nora ote ginderamatzan harkaitz arteko bidexidor malkartsu, harritsu eta hautsu hark, ilargiaren argitan **igeltsoa** bezain zuri ageri zitzaigunak. Joxe Austin Arrieta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskaiola plakak, **igeltsu** zakuak, trasteak han eta hemen. Pablo Sastre
Kamioia errepidean gurutzatuta geratu zen, eta zeramatzan **igeltsu** piezak erori ziren. Berria - Euskal Herria
**Igeltsu** hauts finez estalirik. Karlos Zabala
Hormak zarpailduta, **igeltso** puska eroriak, trasteak bazterretan pilatuta... euriaren ostean, antzokiko **igeltsu**-usaina garratza gertatzen zen euren sudurzuloetan. Lopez de Arana
**Igeltsu** eta pintura usaineko pisua. Lopez de Arana
**Igeltso** kartela sortzeagatik, 248,60 milioi euroko isuna. Berria - Ekonomia

**4** gorputz adar bat estaltzen duen igeltsuzko geruza.

Orain min gutxiago izango duzu, **igeltsua** jarriko dizugu. Agurtzane Juanena
**Igeltsua** jarri diogu eta ordura arte orkatila guztiz geldirik eduki beharko du, ondo luzatuta. Berria - Kirola
Jokinek hanka hautsi zuen atxilotzerakoan eta Martutenen ipini zioten **igeltsua**. Jokin Urain
Atxiloketan hautsitako hanka igeltsutan zuen artean, eta makilakadaka puskatu zioten **igeltsu** hori. Jokin Urain
Bi aste eta erdi barru **igeltsua** kenduko dio frantziarrari. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta igeltsuz** (3); **eta igeltsuzko** (6); **igeltsua eta** (4); **igeltsuzko irudi** (3)

---

# igeltsutegi *(corpusean **igeltsutei** soilik)* *iz*

San Inaxioko bidean **igeltsuteitik,** Hiriart langai enpresak galdegiten du arrimatze denboran ahal bezein guti hor gaindi igaitea. Herria

---

# igeltsutu, igeltsu(tu), igeltsutzen du *ad* igeltsuztatu.

Zertako **igeltsotu** bestela kalpar bizarrak? Patziku Perurena

## **igeltsuztatu**, igeltsuzta, igeltzustatzen du *ad*

Konponketa bat nork egin, nork taxutu, nork **igeltsuztatu** ez duenean, sekulako abiadan zahartzen da makina. Josu Zabaleta

## **igeltxo** *iz adkor* igela.

Iseka egiten zioten haren altuera txikiari, eta haren barreari, **igeltxo** batenaren pareko, behin baino gehiagotan Asanblea osoa barrez lehertzen jarri baitzuen. Monika Etxebarria

## **igeri** *(orobat* ***uger*** *g.er.)* **1** *adlag* ur gainean edo barruan hondoratu gabe eta berez higituz; ur gainean hondoratu gabe. ik **flotatu**.

Parkeko urmaelean hiru beltxarga zuri, polliki **igeri**. Lokarriak askatzea lortu, eta urez egin nian ihes, **igeri**. Txillardegi

Urertzerantz **igeri** hasi nintzen, indar guztiekin. Juan Kruz Igerabide

**Igeri** iristeko hara. Juan Kruz Igerabide

Almadia osorik dagoen bitartean, behintzat, ez naiz **igeri** abiatuko. Juan Kruz Igerabide

Ahalegin betean ekin zion **igeri**. Juan Kruz Igerabide

Sethek erreka zeharkatu ahalko ote du **igeri**? Anton Garikano

Eskukada batez, pilota zakurrari bidali zion, eta zakurrak hartu eta **igeri** eraman zuen harrapa ezinezko leku batera. Koro Navarro

Neska gazte guztiz eder hori, urtegi batean hilik **igeri** datzana. Ramon Saizarbitoria

*ik* flotatu; *ik beherago* 9. Askoren artean

Are lasterrago erreakzionatzen du urarekin [sodioak], zeinaren gainean **igeri** geratzen baita (metal bat **igeri!)** dantza eginez frenetikoki, hidrogenoa dariola. Juan Garzia

Pobreak beti bizi dira miserian, baina gauean uholdeak atera eta etxeko gauzak **igeri** hasten direnean, bizitza ezin eramanezkoa bihurtzen da. Koro Navarro

Azalean **igeri** ez da Hendriken gurutze sakrilegoa bakarrik geratzen. Juan Garzia

**2** (airean eta kidekoetan)

Etxeak, bazkalaurreko ordu hartan, airean **igeri** zirudien, miraia koloretsu baten antzera. Ander Irizar

Beste hainbat gauza bere hartan baitzeuden, airean **igeri** bezala. Karlos Linazasoro

Eta nola zeruan barna hodei iritsi ezinak **igeri** zebiltzan, hala [...]. Matías Múgica

Baina Lucy bere baitara bildurik zegoen oso barna, axolagabetasunezko laino baten gainean **igeri** pisurik ez baleuka bezala. Oskar Arana

Gaueko egurats izoztuan **igeri** zebilen ke usaina... Alberto Ladron Arana

Pabiloiek makina moderno baten antza hartzen zuten, egun berriaren argitan **igeri**. Karlos Zabala

**3** *irud*

Inprimaki ofizial artean **igeri,** indarrak eta asmoak xahutu egiten dira. Berria - Kultura

Jan-edanean **igeri** dabiltzanak erortzenago dira haragiaren bekatutan. Joan Mari Irigoien

Buruan **igeri,** edo "ihesi", dabilzkidan ideiak harrapatzeko. Bernardo Atxaga

Hutsartearen arintasunean eta babesean **igeri** bizitzea. Iñaki Segurola

Erudizio zabalean **igeri** dabiltzanei . Iñaki Iñurrieta

Bi begi argi, gorritan gorri, alkoholetan **igeri,** ikusi ditu berari so-. Iñaki Iñurrieta

Aski da irakurtzen hastea, etorriak bere bidea bilatzen dizu, bere bidean eramaten zaitu, zeu ere bide bihurturik, zeu ere korronte ugarian, antzinako jakiturian partaide, hitz zahar berrituen uholdean **igeri**. Iñaki Iñurrieta

Oroitzapenetan barna **igeri** abiatu zen. Itxaro Borda

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Igeri**-eskola bat antolatu zuen. Joxerra Garzia

Sariak ere ematen zituen, **igeri** grina suspertzeko. udan egindako **igeri** saioetan. Joxerra Garzia

Ahateek, azala gogorrago, beren **igeri** oinak zabal-zabal zeuzkaten Karlos Zabala

**5** ***igerian*** igeri eginez. ik beherago **15.**

Hondoratzea gertatuz gero ere, aurki daitezen beren kabuz **igerian** onik ateratzeko moduan. Santiago Iruretagoiena

Fay Capeheart zen, larrugorritan **igerian**. Fernando Rey

Zela **igerian,** zela gabarraz. Karlos Zabala

4.000 metro **igerian**, 180 kilometro bizikletan eta maratoia korrika. Berria - Harian

Eta **igerian** eta bizikletan ere ezin hobeki moldatzen naiz. Matías Múgica

Solidoek **igerian** egoteko behar zituzten baldintzak. Jon Muñoz

Ur bare, beltzez pikortatuaren gainean kortxo bat zebilen **igerian**. Monika Etxebarria

Izarren hautsa unibertsoan **igerian**. Jon Muñoz

B-15A izozmendia egun munduan **igerian** dagoen objekturik handiena dela esan dute zientzialariek. Berria - Gaiak

Lagun batzuk **igerian** ari ziren. Fernando Rey

Arraunean eta **igerian** aritzen zena. Fernando Rey

Beste alderaino **igerian** pasatuz. Karlos Zabala

Uretan murgildu eta hasi naiz **igerian,** beso-zangoak gustura luzatuz. Iñaki Iñurrieta

**Igerian** joanak ziren uharteraino. Iñaki Iñurrieta

**Igerian** ihes egitea bururatu zitzaidan. Josu Zabaleta

Ezin zen **igerian** zeharkatu, igerilari aparta izan arren [Irtish ibaia]. Karlos Zabala

Urmaelean ahate-multzo bat dabil **igerian,** lasai-lasai. Oskar Arana

Ur sakonetan **igerian** ibili eta gero, orain belarraren gainean atseden hartzen ari ginen. Fernando Rey

Orduan jabetzen naiz jubilatuen malkoz bustitako uretan nabilela **igerian**. Iñaki Segurola

Amets gozoenean, atseginenean **igerian** zebilen. Berria - Kirola

Gerora, itsasoa ezagutu zuen, ikasi zuen **igerian**. Iñaki Iñurrieta

Itsaso erdian banengo eta **igerian** ez baneki. Koldo Biguri

-Ba al dakik **igerian**? Koro Navarro

Mariok oso ongi zekien **igerian**. Fernando Rey

· Eligiok eta Germanok zakur-**igerian** baizik ez zekiten. Josu Zabaleta

· Izuturik, bobeda aurreko zulorantz hasi naiz, txapla-txapla eta erdi **igeri** urdurian. Anjel Lertxundi

**6** ***igeritara*** igeri egitera.

Azkenean, joan egin nintzen **igeritara..** . Joxe Austin Arrieta

### 7 *igeri egin* ik beherago **15;** ik **flotatu**.

Arrainek **igeri** egin behar dute, txoriek hegaz. Oskar Arana

Zakur batzuek **igeri** egitea eta uretan ibiltzea oso atsegin dute. Gotzon Garate

Nahi zenuke etorri arratsaldean **igeri** egitera? Fernando Rey

Itsasadarra **igeri** eginez igaro eta Miarritzera alde egin zuen. Edorta Jimenez

Bular azpian zapia jarri, eta ahozpez etzan zen itsasoan, **igeri** egiteko. Juan Kruz Igerabide

Aurrena, **igeri** nola egiten nuen erakusteko esan zidan. Juan Kruz Igerabide

Urpean **igeri** egiten ahalegindu beharko dugu. Josu Zabaleta

Bizkor eta txukun **igeri** egiten saiatu zen. Jon Alonso

Uretatik kanpo egingo nuke **igeri** . Joxerra Garzia

Hori da ur biziaren aurka **igeri** egitea. Jokin Urain

Luze egin du **igeri** itsasoan aurrera, neka-neka egin arte. Pako Aristi

Gogo handia piztu zitzaidan haren begi handietan **igeri** egiteko. Karlos Zabala

Erdararen itsasoan egiten dute **igeri** . Berria - Harian

Zein itsaso izengabetan egin nahi dut **igeri** ? Iñaki Segurola

Airean **igeri** egin eta anaia nagusi Felixi esan dio: [...]. Itziar Otegi

Gonazpiko zahar batek, kolore guztietako pilda desberdinez osatua, bandera baten gisa egiten zuen **igeri** balkoi hauetarik batean. Koldo Izagirre

· Ez zenuke galdu behar **igeri** pixka bat egiteko aukera. Fernando Rey

Ez ikaratu, lagunok, badakit **igeri** egiten. Edorta Jimenez

· Orain -dio- hogei luze **igeri** egitera, xanpain pittin bat edatera eta nire katemetxoa zein maite dudan gogoratzera noa. Edorta Jimenez

### 8 *igeri eginarazi*

Ezta desira ere, bera han ito zuena eta gora, gora **igeri** eginarazi ziona, neska hura balitz bezala itsas gaineko aire garbia. Anton Garikano

### 9 *igeri egon* ik **flotatu**.

Airean **igeri** daudela dirudite. Ibon Uribarri

Erran liteke ibili baino areago **igeri** dagoela bide meharraren gainetik. Aingeru Epaltza

Yves odol zipo karroinduan **igeri** zegoen, gogortzen. Itxaro Borda

Betegintzarre handiena, txikiena bezala, sustapenik gabe **igeri** dago arrazoimen espekulatiboaren aurrean. Ibon Uribarri

Esperientzia ororen mugaz goiti **igeri** dagoen arrazoimenaren asmo leihatsu oro. Ibon Uribarri

### 10 *igeri ibili*

Putzu gardenean **igeri** dabilen arrainaren parekoa. Juan Kruz Igerabide

Zure beste lagun horiek zinera joaten dira noiznahi, eta Romerreko piszinan **igeri** ibiltzera. Bernardo Atxaga

Ibili al zarete Urtzan **igeri** ? Bernardo Atxaga

Bere begietan **igeri** dabiltzan laino hezeetan. ugaritasunaren uretan **igeri** zabiltzanean Eta entzimok [...] **igeri** dabiltza "likido koloidal" tanta batean. Bernardo Atxaga

Bazirudien arratseko argia **igeri** zebilela kameliaren adaburuan. Ibon Uribarri

Inork ez du gogoko kaka zaharretan **igeri** ibiltzea. Hasier Etxeberria

### 11 *igeri ikasi*

Kontatu zuen umetan txalupatik bota zutela; aitak beti haga batekin harrapatzen zuela; horrela ikasi zuela **igeri** . Anton Garikano

Nabokovek Miarritzen ikasi zuen **igeri** . Edorta Jimenez

Bata hozbera delako, bestea lotsatia, honakoa beldurtia eta harakoa **igeri** ikasi gabea. Xabier Mendiguren Elizegi

### 12 *igeri joan*

Ur gardena, itsas hondoa garbi-garbi ageri, aurpegia uretan murgildurik noa **igeri** . Joxe Austin Arrieta

Berriro **igeri** zihoan ur ilunetan barrena. Anton Garikano

Ur gainean **igeri** zihoan gorpuari sabela ireki zion. Gotzon Garate

### 13 *igeri-jaka*

**Igeri** -jaka berde horietako bat. Joxe Austin Arrieta

Gu beraien inguruan, **igeri** -jakak soinean. Joxe Austin Arrieta

Nire bidelaguna ere horretantxe ari zen, bere **igeri** -jaka lotzen. Joxe Austin Arrieta

Ez dakit zergatik inork ez zuen artean berea erantzia, **igeri** -jaka, alegia. Joxe Austin Arrieta

### 14 *igeri jakin*

Nola egin arrantza, **igeri** jakin gabe? Juan Kruz Igerabide

"Nik hartuko diat, **igeri** badakien ikusteko!", erabaki zuen Ubanbek sagua Pantxori kenduz. Bernardo Atxaga

Hor berean hil zuan, **igeri** ez zekielako, itsas kolpe batek eramanik. Joan Mari Irigoien

Doi-doi egon nintekeen ur azalean, ez nekien **igeri** ia-ia. Joxan Elosegi

Etsaiak oro ihesi hasten baitziren itsasoan sartuz, gehienek **igeri** ez zekitela ahazturik. Felipe Juaristi

### 15 *igerian egin* igeri egin.

**-Igerian** egitera gonbidatu diat. Iñaki Iñurrieta

**Igerian** egiteko behar diren mugimendu guzti-guztien berri ematen zien. Joxerra Garzia

Berriz ere makurtu egin da, **igerian** egiteko. Itziar Otegi

Lehen pelotan jokatzen zuten frontoian, piszinan **igerian** egin. Pako Aristi

Bazen aintzira bat, Grand Lake izenekoa, **igerian** egiteko irrikaz nindukana. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**airean igeri** (6); **artean igeri** (3); **azalean igeri** (3); **bat igeri** (3); **batean igeri** (4); **da igeri** (6); **da igeri egiteko** (3); **du igeri** (4); **dut igeri** (4); **egin zuen igeri** (3); **egiten zuen igeri** (4); **eta igeri** (13); **ez zekien igeri** (4); **gainean igeri** (5); **igeri dagoen** (3); **igeri egin** (20); **igeri egin eta** (6); **igeri eginez** (4); **igeri egingo** (6); **igeri egitea** (18); **igeri egiteak** (3); **igeri egiteko** (16); **igeri egiten** (26); **igeri egitera** (22); **igeri eta** (4); **igeri ez** (5); **igeri ibili** (3); **igeri jaka** (4); **igeri joan** (5); **igeri zebilen** (6); **itsasoan igeri** (6); **naiz igeri** (3); **nintzen igeri** (3); **nuen igeri** (4); **uretan igeri** (4); **zekien igeri** (4); **zuen igeri** (9); **zuten igeri** (3)

**batzuk igerian** (3); **dakit igerian** (3); **du igerian** (3); **ere igerian** (4); **eta igerian** (18); **eta igerian hasi** (3); **ez dakit igerian** (3); **gainean igerian** (3); **igerian ari** (8); **igerian bezala** (3); **igerian edo** (3); **igerian egin** (4); **igerian egiteko** (5); **igerian eta** (10); **igerian ez** (10); **igerian hasi** (6); **igerian ibili** (4); **igerian ihes** (3); **igerian joan** (5); **igerian nola** (3); **igerian zeharkatu** (4); **zekien igerian** (3); **zen igerian** (6); **zuen igerian** (5)

---

## igerialdi *iz* igeri saioa.

**Igerialdi** labur eta kontrolatu haiek. Xabier Mendiguren Elizegi

Klarak eta Godotek uhartera egin **igerialdian**. Iñaki Iñurrieta
Kantauri itsasora hiltzera etorri den izurdearen **igerialdiak** ikustera. Eider Rodriguez

---

# igerika 1 *adlag* igerian.

Urpean **igerika,** Mikel Strogoff kaian lehorreratu zen Nadiarekin batera. Karlos Zabala
-Badakizu, zuk, **igerika**? Menane Oxandabaratz
Setiatuen artean guti ziren igeri zekitenak eta nik **igerika** trabeskatu nuen Ihuri ibaia, Maitiaren zuberotarren gezien artean. Aingeru Epaltza
Emeki **igerika** aritu ziren eta prestuki uretik atera. Ramuntxo Etxeberri
Ezin zituen begiak saihestu [...] irria ezpainetan **igerika** eta kokotsa esku ezkerrean bermaturik hari beha zegoen emazte gaztearengandik. Elena Touyarou
Nor zegoen mahaiaren beste aldean epaileei aurre egiten eta munduaren itsasoan hondora joan gabe **igerika** zekiela erakusten? Pello Salaburu

• **2** *iz* igeri egitea. ik **igeriketa**.

**Igerika**: Munduko xapelgoak jokatzen dira Montreal hirian. Herria
Neskak dira hoberenak **igerikan**. Herria
Igandean **igerika** bataioak proposatuak dira Hendaian, Irandatzeko **igerika** lekuan. Herria
Txupinazoa, Buruhandiak, Antzerkia, **igerika** frogak, marrazki lehiaketak. Herria
**Igerikari** taldean: Patxi Elichagaray. Herria
Itsasorat eta mendirat ateraldiak, **igerika** ikaste, ekintzak ingurumenaren inguruan, "rafting" eta "surf" iharduerak. Herria
Donibane Lohizunen, larunbat goizean egin dute halere Errepublika egunean beti egiten den **igerika** zoin-gehiagoka. Herria
**Igerika** zaintzalek lan anitz. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> igerika zaintzalek (3)

---

# igerikagune *(corpusean **igerika gune** soilik) iz ipar* igerilekua.

Orain, Angeluko gehiengoak nahi luke Barran eraiki **igerika** gune bat "Complexe aqualudique" deitua, 25 metro luzetasuneko urtegiarekin. Herria

---

# igerikaleku *(orobat **igerika leku**) iz ipar* igerilekua.

**Igerikaleku** bat ere izanen dute herrian luze gabe.Igandean igerika bataioak proposatuak dira Hendaian, Irandatzeko **igerika** lekuan. Herria

---

# igerikarazi, igerikaraz, igerikarazten du *ad ipar* igeri eginarazi.

Errekaren ura baliatuz, zuhaitz trunkoak edo enborrak **igerikarazten** zituzten elgarri lotu ondoan, almadieroen bitartez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

# igerikari *iz* igerilaria.

Ez zure trebetasunaz duda egiten dudalako: baina **igerikari** onak dira itotzen direnak. Jon Muñoz
**Igerikarien** biltokia. Herria

---

# igerikategi *iz ipar* igeritegia, igerilekua.

Baiona hunkitzen duen gune horretan gazteak anitz kiroletan ari dira eta familia gaztek **igerikategi** bat baitezpadakoa dutela iduritzen zaio Destrade kontseilariari. Herria

---

# igerikatoki *(orobat **igerika toki**) iz ipar* igerilekua.

Herri elkargoak jadanik segurtatzen ditu kantonamenduko kirol aktibitateak eskoletan, **igerikatokietara** joaiteko. Herria
Ezkerreko oposizioak aldiz uste du **igerika** toki olinpiko bat, 50 metro luzekoa, eraiki behar dela. Herria
Egun guzian, **igerika** tokian Jokoak eta animazioak. Herria

---

# igerikatu, igerika, igerikatzen da *ad* igeri egin.

Literaturaren nabarduretan **igerikatzen** hasia nintzen; ohartu gabe ere naski doktrina teolologikotik urrunduz nindoan. Piarres Aintziart

---

# igeriketa 1 *iz* igeri egitea.

**Igeriketan** hasi aurretik, atletismoan zebilen. Berria - Kirola
Didieu frantziarrak urrea irabazi zuen banakako **igeriketa** sinkronizatuan. Berria - Kirola
Aurretik, **igeriketa** sinkronizatuko proba jokatuko da. Berria - Kirola
Etorkizun bikaina du **igeriketaren** munduan. Berria - Kirola
Herrian bertan, **igeriketako** entrenatzaile-lanetan aritua zen beste Gazte Kristauen Elkarte batean. Xabier Olarra

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Aldenik aldeko **igeriketa**-saioan. Xabier Mendiguren Elizegi
**Igeriketa** lasterketak egiten. Aritz Gorrotxategi
Caslaru errumaniarrak hamar urte daramatza **igeriketa** probetako goi mailan. Berria - Kirola
Tolosako Usabal kiroldegian zuen **igeriketa** irakasle lanpostua galdu berri du. Berria - Kirola
Judizmendi **Igeriketa** Klubeko igerilari gaztea. Berria - Kirola
Bost hilabete falta dira denboraldi honetako **igeriketako** hitzordu nagusirako: 50 metroko igerilekuko Europako Txapelketa, Budapesten (Hungaria). Berria - Kirola
Europako **Igeriketa** Txapelketak jokatuko dira gaurtik hilaren 16a bitartean, Madrilen. Berria - Kirola
Europako **Igeriketa** Ligako proba da gaurkoa. Berria - Kirola

Nazioarteko **Igeriketa** Federazioak. Berria - Kirola

Nazioarteko **Igeriketa** Torneoa jokatuko da Donostian. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Igerilari trebea zen gainera, eta bular **igeriketan** eta azpira joan gabe uretan zutik egoten erakutsiko ziola eskaini zion Ansheli. Koro Navarro

Crawl **igeriketako** ehun metroetan herrialdeko txapelduna zena. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **den igeriketa** (3); **igeriketa proba** (3); **nazioarteko igeriketa** (3)

---

# igerilari **1** *iz* igeri egiten duen pertsona.

**Igerilari** trebea zen gainera, eta bular igeriketan eta azpira joan gabe uretan zutik egoten erakutsiko ziola eskaini zion Ansheli. Koro Navarro

Han besoak luzatuko ditu Moabek, **igerilariak** igerian bezala. Elizen arteko biblia

Urpean egon eta arnasa hartzeko premia larrian dagoen **igerilariaren** moduan. Bernardo Atxaga

Ez zen errekan, ezta Urtzan ere, **igerilarien** zalapartarik sentitzen. Bernardo Atxaga

Gabarroian zeuden **igerilarien** aurpegiei ia antzematen zienean. Iñaki Iñurrieta

Judizmendi Igeriketa Klubeko **igerilari** gaztea. Berria - Kirola

Abiadura probako **igerilariekin** . Berria - Kirola

Martin Strel iraupeneko **igerilari** esloveniarrak. Berria - Kirola

Sandra Gomez **igerilari** paralinpiarrak ongietorri hitzaldia eginen du Takoneran. Berria - Harian

Eskarmentu handiko **igerila[ria]k** dira guztiak, eta badakite txapelketa garrantzitsuetan lehiatzea zer den. Berria - Kirola

Puntako **igerilariak** Ordiziako Hegats Igeriketa txapelketan. Berria - Kirola

**2** *izond* igeri egiten duena.

Larruzko dortokak **igerilari** indartsuak dira, baina horrek ez du galarazi egun espeziea galbidean egotea. Berria - Gaiak

Koretroia zorrotada bidezko propultsioa erabiliz mugitzen da uretan, **igerilari** ona da. Ezkatadun animalia **igerilari** isilak eta azienda gizenak eta piztiak eta hegazki koloretsuak. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euskal igerilariak** (4); **igerilari batek** (4); **igerilari trebea** (3); **igerilaria ekonomiaren lanbroan** (3); **igerilariak ere** (3); **taldeko igerilari** (3)

---

# igerileku *(orobat **igeri leku** g.er.)* **1** *iz* igeri egiten den lekua; bereziki, igeri egiteko prestaturiko urmaela.

Urtegi tipi bat, etxeko abereek askatzat hartzen zutena eta ahateek **igerilekutzat** . Joan Mari Irigoien

Txikia da **igerilekua,** hogei metro luze eta hamar metro zabal. Xabier Mendiguren Elizegi

**Igerilekuaren** ertzean jarria eta zangoak urean sartuta. Aingeru Epaltza

**Igerilekuaren** lauki urdinetik gertu. Patxi Iturritegi

**Igerilekuetan** konjuntibitisa hartzeko arriskua handiagoa da. Berria - Harian

**Igerilekuetako** kloroa biriketako gaixotasunekin lotu dute. Berria - Gaiak

**Igerilekurako** trasteria guztia zeramaten aldean. Aingeru Epaltza

**Igerilekuko** sorosleak. Berria - Euskal Herria

**Igerilekuaren** inguruko aldagelatik atera nintzenean bainu-jantzi busti bat neraman. Fernando Rey

**Igeri** lekuaren ondoan den kirol sala horretan. Herria

Gogoratzen motel hura, **igerilekuan** zikinkeria hura guztia zegoena? Koro Navarro

Bi pertsona hil dira Kontxako hondartzan eta Falcesko **igerilekuan** . Iñigo Aranbarri

Hamabi urteko haur bat hil da Valtierrako udal **igerilekuan** .

**Igerilekura** jauzi egiten duten andra-gizonak. Jokin Urain

Donostiako Ioldi **igerilekuan** jokatuko da gaur Eguberrietako Nazioarteko Torneoa-Aldundiko eta Jaurlaritzako Sari Nagusia. Berria - Kirola

50 metroko **igerilekuko** Europako Txapelketa, Budapesten (Hungaria). Berria - Kirola

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Urtza, zerrategia baino beherago ibaiak zeukan zabaltokia, gure **igerileku** nagusia zen. Bernardo Atxaga

Ia hutsaren truke erosi zuen **igerileku** eramangarrian. Koro Navarro

Baita **igerileku** puzgarri bat ere. Berria - Kultura

Bere bizitokian **igerileku** olinpiko pribatu bat eginez. Pello Salaburu

Olinpiar **igerilekuak** ez du sabairik. Berria - Kirola

Hidroterapia eta fisioterapiarako **igerilekua** . Berria - Kirola

**Igerileku** Motzeko Munduko Txapelketak. Berria - Kirola

Indianapolisen jokatzen ari den **igerileku** laburreko munduko txapelketan. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta igerileku** (8); **eta igerileku bat** (3); **eta igerilekua** (4); **igerileku bat** (7); **igerileku batean** (3); **igerileku motzeko munduko** (5); **igerilekua eta** (3); **igerilekuko espainiako** (3); **metroko igerilekuko** (3); **udal igerilekuan** (3); **zangozako igerileku** (3)

---

# igeritako *iz* bainu-jantzia.

Marga hantxe zegoen, nire zain itxura batean, erronbo zuriak zituen **igeritako** bat jantzita, Coca-Cola banaketako kamioi herdoildu baten ondoan. Juan Luis Zabala

**Igeritakoaren** atzealdeko korapiloa askatu eta titiak erakutsi zizkidan Margak, estreinakoz. Juan Luis Zabala

---

# igeritegi *iz ipar* igerilekua.

**Igeritegian,** uztail-agorrilean bi lagun arta mantenuko eta bertze bi sarrerarentzat. Herria

**Igeritegia** bere ardura onean eman dute, Sarako eta Senpereko haurrek josta lekua segurtatua dute udari buruz. Herria

---

**igeritoki** *iz* igerilekua.

Erosketak egindakoan, kanpineko **igeritokian** bustialdi bat hartu, eta afaria prestatzeari ekin diogu. Patxi Zubizarreta

**Igeritoki** eta aparka lekua. Herria

---

igerri ik **igarri**.

---

**igitai** **1** *iz* uzta biltzeko edo belarra ebakitzeko lanabesa, altzairuzko xafla kakotu batez eta eskutoki labur batez osatua.

Ukuiluetan argi fluoreszenteak, zoruan hormigoia eta paretan goldea, area, alferra, sega, laia eta **igitaiak**. Edorta Agirre

Zenbait jende plazara agertu ziren aitzur, **igitai,** dailu eta sardeak ekarriz erasoari buru egiteko asmoz. Elena Touyarou

200 bat jauntxo aizkoraz, ganibetaz, **igitaiez** eta lantzaz hornituak. Gotzon Garate

Laborariak beren **igitai** eta sardeekin; ofizialeak, mailuz, marrazaz eta lanerako bertze lanabesez hornituak. Aingeru Epaltza

Etxera joan ziren lehendabizi, **igitaiak** eta eskuareak hartzera. Josu Zabaleta

Garai batean garia, **igitaia** hartu eta eskuz ebaki behar izaten zen. Belarra **igitaiaz** mozten, arratsa arte batere jan gabe. Pako Aristi

Baratzeko azaburu ederrenak mozten hasi zen **igitai** batez. Anjel Lertxundi

Hartu **igitaia** eta ekin uzta-biltzeari. garia **igitaiaz** ebakitzen ziharduen gizaseme helduarekin. Elizen arteko biblia

Gariari **igitaia** noiz erantsiko kontuak ateratzen ibiltzen ziren puntuan. Pello Zabala

Ezpatak golde bihurtuko dituzte eta lantzak **igitai**. Elizen arteko biblia

Eta garia heltzean, **igitaiaz** ekiten zaio, uzta-aroa da eta. Elizen arteko biblia

Buruan urrezko koroa eta eskuan **igitai** zorrotza zituela. Hogeita bi elefantez eta gurpiletan **igitaiak** zituzten hirurehun gurdiz osaturiko gudarostea. Elizen arteko biblia

**Igitai** zorroztun gurpilek. Xabier Amuriza

· Plaza Gorrian **igitaia** eta mailu horiak dituen bandera gorria altxatuz abiatu zuten nazien porrota ospatzeko ekitaldia. Berria - Harian

**2** *irud*

Etxera ailegatu zinenean ekialdetik ilargiaren **igitai** gorria ateratzen ikusi zenuen. Iñaki Arranz

**3** (hitz elkartuetan)

Saltari trebeak ez zuen gerriko minik izango **igitai**-lanetan. ilargiaren **igitai**-kaxkoa edo talo xurixka. Pello Zabala

Emakume taldeak ere ageri ziren, berriketan, bularraldea urre koloreko xaflez apaindua eta burua **igitai**-ilargiaren itxurako diadema altxatu batez koroatua. Karlos Zabala

· Garo-segak eta garo-**igitaiak** pikatu eta zorroztu. Pello Zabala

**4** ***igitaian egin*** igitaitu.

Nini pozik sentitzen zen: hainbeste denbora zen **igitaian** egiten ez zuela, eta nahiz eta nekazariaren lanik astunena izan, jorana eta guzti zeukan harena. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta igitaiak** (5); **igitai eta** (3); **igitai zorrotza** (3); **igitaia eta** (5)

---

igitaitu ik **igitatu**.

---

**igitaitxo** *iz* igitai txikia.

Ez du burdinak gaiztotu behar; urrezko **igitaitxoa** zerabilten druidek eurek, mihura ebakitzeko enkargua zutenek. Pello Zabala

---

**igitari** *iz* igitatzen duen pertsona.

Baina egun batez, bere aita **igitariekin** ari zen tokira joan eta [...]. Elizen arteko biblia

Orduantxe, eltzekoa egosi eta ontzi batean ogi-apurrak prestatu berriak zituen, eta sorora zihoan **igitariei** eramatera. Elizen arteko biblia

Boozek galdegin zion **igitari**-buruari: -Nor dugu neska hau? Elizen arteko biblia

---

**igitatu**, igita(tu), igitatzen *(orobat* ***igitaitu****)* du *ad* igitaiaz ebaki.

Ez duzue ereiten ez **igitatzen,** eta Jainkoak bazkatzen zaituzte, eta ibaiak eta iturriak ematen dizkizue edateko. Askoren artean

Galsoro, garagardi eta zekale-alor **igitatu** gabeak. Jose Morales

Batzuek erregearen alorrak goldatu beharko dituzte, beste batzuek uztak **igitaitu**. Elizen arteko biblia

Garagarra **igitaitzen** hasteko garaian iritsi ziren Belenera. Elizen arteko biblia

Eta hodeian eseria zegoena **igitaitzen** hasi zen eta lurreko uzta bildu zuen. Elizen arteko biblia

---

**iglu** *iz* Kanadako eskimoen neguko edo ehiza garaiko etxea.

Beste orrialde batean familia eskimalak **igluaren** ataritik so egiten zigun. Joseba Sarrionandia

Aita itsastxakurren ehizan dabil, ama **iglu** barruan itsastxakur larruzko arropak egiten, eta zu, **iglu** aurreko umea zara zu. **Iglu** bat eraikitzeko. Joseba Sarrionandia

Lo hartu zuten, zein bere **igluan** kokatuak, hanka goian jarria kuxin bigun baten gainean. Jon Muñoz

---

**ignorante** *(orobat* ***inorant*** *g.er. eta* ***enorant*** *g.er.)* *izond* ezjakina.

Hondoraturik, funtsgabe eta lotsabako da bilakatu, are **ignorante**. Jose Angel Irigaray

**Inorant** eskolagabe horiek. Joan Mari Irigoien

Samurtasunaz eta maitasunaz **enorant** eta ez-jakin zebilen. Itxaro Borda

---

**ignorantzia** *(orobat* ***inorantzia*** *eta* ***enorantzia*** *g,er,)* *iz* ezjakintasuna.

Funtsean, inkontzientzia eta **ignorantzia** suerte bat baitezpadakoa direla osasuntsu bizitzeko [...] ez baitzaio batere kontrajarria denik adimena garatzearekin. Jose Angel Irigaray

-Jauna: igorri diguzun izurria ez da tipia izan, baina jende honen **inorantzia** ez da, ez, tipiagoa...! Joan Mari Irigoien

**Inorantzia** eta intolerantzia fede dituen gizarte honek. Patziku Perurena

Elkarrizketaren jakintza besterik ez dela politika erran baitzuen naski behin Hannah Harendtek, ez ote genioke azkenean galdegin behar geure buruari ez ote gaituen halako **enorantzia** zerbaitek kutsatu euskaldunak oro? Piarres Xarriton

---

**ignoratu**, ignora, ignoratzen *(orobat* ***enoratu****)* du *ad* kontuan ez hartu, ez ikusiarena egin.

Baina berak zu **ignora** zaitzake eta **ignoratzen** zaitu, zuk bera ezin duzu **ignoratu**. Joxe Azurmendi

Geureari jarraitu genion, ondoan genituen kartzeleroei jaramonik egin gabe, **enoratuz**. Jokin Urain

---

**ignoratzaile** *iz* ezagutzen ez duena.

Etorri da oraingo gizona, dotrina ororen sinesle eta guzien **ignoratzaile,** eta ez daki zer egin. Patziku Perurena

---

**igo**, igotzen *(**7012** agerraldi, **261** liburu eta **2008** artikulutan; orobat* ***igon****, igoten g.er.)* **1** da *ad* toki batetik, gorago dagoen beste batera joan. ik **igan**[1]**; goratu**. ant **jaitsi**.

Egiptotik Negeb aldera **igo** zen Abran, bere emazte eta ondasun guztiekin. Jose Antonio Mujika

Negebetik **igo** eta Hebronera iritsi ziren. Elizen arteko biblia

Eskailera biribil batetik **igo** zitekeen erdiko solairura eta hemendik gorenekora. Elizen arteko biblia

Keak ezin zuen tximiniatik gora **igo**. Koro Navarro

Martin bere kaletik **igo** zen, jaio zen etxea ikustera. Koro Navarro

Aitak besotik heldu zion, zer gerta ere, eta biak ganbarara **igo** ziren. Josu Zabaleta

Lisa zuzen-zuzen **igo** zen Florenten gelara. Karlos Zabala

Teilatura eskailera batez **igo** zen, han piperrak jartzera. Juan Kruz Igerabide

Bitartean, Moises -Aaron eta Hur berekin hartuta- muino gainera **igoa** zen. Jose Antonio Mujika

*ik* 12.

Sanzek Everestera oxigenorik gabe **igotzeko** asmoa du Peppone bera **igo** da ringera eta mutur-joka hasi da garailearekin. Koldo Biguri

Urkamendira **igo** bitarteko denbora. Anjel Lertxundi

Eta biak gora **igo** dira. Josu Zabaleta

Otoitzean hasi zeneko, zeruraino **igoa** eta eramana izan zen [...] eta aulki asko ikusi zituen zeruan. Askoren artean

Gero eta gorago **igo** zen Harry. Iñaki Mendiguren

Ziztu bizian **igo** ginen aldapa gora. Juan Kruz Igerabide

Patata gehiagoren bila **igo** beharra zegoela esan dit amak. Josu Zabaleta

Estropezuka **igo** ziren, aharrausika. Lopez de Arana

Gero bere aulkira **igo** zen laguntzeko. Iñaki Mendiguren

Hamidari bihotza punpaka hasi zitzaion, eta odola begitartera eta burura **igo** zitzaion. Patxi Zubizarreta

Odola beroago **igo** zitzaidan bihotzera. Eduardo Matauko

Malkoak ugari **igo** zitzaizkion bihotzetik begietara. Karlos Zabala

Irakurtzen hasi bezain pronto **igo** zitzaion usaina: perfume goxo baten ukitu arina zuen postariak ekarritako gutun hark. Joxemari Urteaga

**Igo,** nahi baduzu. Koldo Biguri

**2** (ibilgailu batera)

Zaldi-kotxera **igo** zen. Irene Aldasoro

Jauzi batez **igo** zen Txitxikov kalesara. Jose Morales

Zalgurdira igo zen, urkamendira **igoko** zen modu berean. Karlos Zabala

Bidazti gehiago **igo** ziren trenera Vladimirreko geltokian. Karlos Zabala

**Igotzera** noan bagoian dagoena. Josu Zabaleta

Broadwayn gora egiten zuen tranbia batera **igo** zen. Lopez de Arana

Bidaiariak autobusera **igo** ziren. Xabier Olarra

Automobil batera **igo** ziren. Irene Aldasoro

Han autora **igo,** eta ospitalera bidean abiatu ginen abaila batean. Juan Kruz Igerabide

Orain, Turinera naraman hegazkinera **igotzera** noanean. Berria - Kirola

Norbaitek nire txalupara **igo** nahi zuela hasten nintzen pentsatzen. Josu Zabaleta

Ontzira noiz **igoko** itxaroten geundela [...]. Edorta Jimenez

Zaldira **igo** zen berriro Belasko. Joanes Urkixo

Motorrera **igo** eta Danik galdetzen dio: [...]. Antton Olano

Bizikletara **igo** eta etxera joan nintzen. Josu Zabaleta

**3** *hed/irud*

Dardara sentitu nuen, bizkarrean gora **igo** zitzaidan hotz kolpe bat. Jon Muñoz

Halako amorru olde bat **igo** zitzaion garunera doktoreari. Josu Zabaleta

Izua sentitu zuen, izua bizkarrezurretatik gora **igo** zitzaion. Felipe Juaristi

Berotasuna **igo** zaidak begitartera, eta burura. Patxi Zubizarreta

Bat-bateko mozkorrarena bezalako odol-zorabioa **igo** zitzaion zainetan gora. Anjel Lertxundi

Espantua urdailetik eztarrira **igo** zitzaizunean. Hasier Etxeberria

Urdaileko goragalea lokietaraino **igotzen** zitzaiola. Karlos Zabala

Nik uste, Chartreusea **igo** zitzaiola burura. Hasier Etxeberria

**4** egoera edo maila gorago batera igaro.

Mary erregina katolikozalea -Bloody Mary, Maria Odoltsua- **igo** zen errege-jarlekura. J.M. Olaizola "Txiliku"

Alaves Lehen Mailara **igo** zenean. Berria - Kirola

Miarriztarrek Baiona jaitsitako sasoi berean lortu zuen Maila Nagusira **igotzea**.

Aurten ere, mailaz **igotzeko** moduko taldea osatu du. Berria - Kirola

Bilbo Basketek ACB Ligara **igotzeko** zuen lehen aukera baliatu zuen, Leoni etxean 55-71 irabazita.

Gure indar ezagutzailearen banakako hautemapenetatik adigai orokorretara **igotzeko**. Ibon Uribarri

**5** (magnitudeak) ik **gora 7.**

1975ko San Inaziotan bai, 38.0 gradura **igo** zen beroa Donostian. Pello Zabala

Uraren tenperatura gradu bat **igotzeko** behar den beroa. Irene Aldasoro

Bat-batean tenperatura 40º kelvin **igo** zen. Patxi Iturritegi

Hezetasuna **igo** denean. Pello Zabala

Costaren ahotsaren tonua **igo** egin zen. Jon Alonso

Ahotsaren tonua gogortu zuen, bolumena **igo** gabe baina-. Joan Mari Irigoien

Plajiatu, dezibelioak erantsi, bolumena **igo** eta musikaren magia eta ralenti guztia azeleratu. Harkaitz Cano

3.000 Hz-etik gora, intentsitatea handituz gero, garaiera ere **igo** egiten da. Irene Aldasoro

24 Hz-z goiti **igo** zen maiztasun kritikoa. Josu Zabaleta

Odol-presioa, aldiz, **igo** egiten da, eta, hartara, hobeto iristen da odola muskuluetara. Irene Aldasoro

Arnas estua, odoletan urea **igo** izanaren ondorioa seguruenik, geroz eta estuago ari zen bihurtzen. Josu Zabaleta

Baseko biztanleria 10.000 soldadura **igo** omen zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Merkealdiaren efektua igaro orduko %0,8 **igo** da inflazioa Hegoaldean. Berria - Ekonomia

Dolarretako epe luzeko obligazioen interes errealeko tasa (1960-1972 urteetan %3 zen, batez beste, eta %0,5era erori zen 1972tik 1980ra), %9raino **igo** zen 1983an. Koro Navarro

Hilabete batzuetan bi puntu **igo** ziren epe luzeko interesak. Koro Navarro

Etxebizitza berriaren prezioa **%8,8** igo da EAEn eta %6,5 Nafarroan. Berria - Euskal Herria

Urtetan ibili ziren hala, harik eta piztia hura diru-arazo larriekin hasi zen arte; prezioa **igo** zion, eta ez zuen "beste fabore" baten truke zorrik kitatu nahi izan. Juan Kruz Igerabide

Martxoan Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) %0,9 **igo** zen Nafarroan eta Gipuzkoan. Berria - Ekonomia

Nafarroako Barne Produktu Gordina (BPG) %3 **igo** zen 2003an. Berria - Ekonomia

· Bizkor ari zen itsasoa **igotzen**. Anton Garikano

• **6** du *ad* (zerbait) toki batetik, gorago dagoen beste batera eraman.

Aingura **igo,** haizeari zapi bat eman, eta hantxe abiatu ginen. Edorta Jimenez

Phineas R. Blackhead-ek bulegoko leiho zabaleko pertsiana **igo** zuen. Lopez de Arana

Gero, bien artean kutxa autobusera **igo** zuten. Iñaki Mendiguren

Jaun iritsi berriak gela aztertzen zuen bitartean, bere puskak **igo** zizkioten. Jose Morales

Bekainak **igo** zituen hitz egiten jarraitzeko. Joxemari Urteaga

Igandean, salda bat **igo** zion, oso aurpegi txarra zuela ikusita. Karlos Zabala

Amak, ardura handienaz, manta **igo** dit kokotseraino. Anjel Lertxundi

Eskalot zaldi gainera **igo** zuen Lancelotek. Juan Kruz Igerabide

Kuleroak **igo** eta lagunarengana abiatu zen. Sonia Gonzalez

Besoak zerura **igoaz**. Koro Navarro

Larruzko jakaren kremailera goraino **igo** eta eskuak poltsikoetan gorde ditu. Sonia Gonzalez

**Igoko** nauzu? Unai Elorriaga

**7** *irud*

Mandataritik behin-behineko kotxe-gidari izatera **igo** zuten. Koro Navarro

Denboraldi bitan zazpi jokalari **igo** ditu Bilbo Athleticetik Valverdek. Berria - Kirola

Diru harekin Trzeciak, Ziganda, Alfredo edota Rosadoren fitxaketak ordaindu ahal izan ziren, eta ezin da ahaztu horiek **igo** gintuztela Lehen Mailara. Berria - Kirola

**8** (soldatak eta kidekoak)

Aizu, soldata **igo** didate. Lopez de Arana

Noski, soldata ere **igo** zitzaien. Pello Zabala

-Alokairua **igo** nahi ote digu? Patxi Zubizarreta

Etxejabeak aipatu du errenta **igo** behar duela, adeitsuki aipatu ere. Lutxo Egia

Urtetan ibili ziren hala, harik eta piztia hura diru-arazo larriekin hasi zen arte; prezioa **igo** zion, eta ez zuen "beste fabore" baten truke zorrik kitatu nahi izan. Juan Kruz Igerabide

Gasolina **igo** zuten, eta horrekin batera autobusen txartelak. Pako Aristi

Garraio publikoa %4,5 **igo** zen Hegoaldean. Berria - Ekonomia

Urdaiazpikoa berriro **igo** da. Lopez de Arana

**9** zerbaitetan gora egin.

Geletan hara-hona ibiltzen naiz, eskailerak **igo** eta jaitsi. Josu Zabaleta

*ik beherago* 10. Askoren artean

Eskailerak binaka **igo** nituen. Joseba Sarrionandia

Eskailerak lasterka **igotzeko**. Irene Aldasoro

Beste bi eskailera-maila **igo** eta ate batera iritsi ziren. Iñaki Mendiguren

**Igoak** nituen ordurako, hasierako kale aldapatsua ez ezik, ehun bat harmaila. Bernardo Atxaga

Wildstrubelera daramaten aldapak **igo** aurretik. Josu Zabaleta

Erreketeak **igotzen** ari ziren aldaparen kontrako aldetik ihes egin zuen. Juan Kruz Igerabide

Ezponda nekez **igo** eta lubakiaren ertzetik arin joan ginen. Alberto Ladron Arana

Beste inon ez dauden mendateak **igotzen** direlako da erakargarria Giroa. Berria - Kirola

Bost pisu **igo** behar zituen etxera bidean. Ramon Saizarbitoria

Tristanek oinez **igo** zituen bere bulegora iristeko bi solairuak. Aritz Gorrotxategi

**10** ***eskaileretan/eskaileran gora igo***

Hozten hasi ginen, eta eskaileretan gora **igo** ginen berriro. Josu Zabaleta

Eskaileretan gora **igo** eta hallean sartu ziren. Koro Navarro

Marmolezko eskaileretan gora **igo** zen. Felipe Juaristi

Eskaileretan gora bere gelara **igo,** barrura sartu eta liburuak ohera bota zituen. Iñaki Mendiguren

Eskaileretan gora, hirugarren solairuraino **igo** ziren eta gazteak, kopetilun, atea jo zuen. Patxi Zubizarreta

· Lasterka **igo** zen eskailera lohietan gora. Lopez de Arana

Kapa erantzi eta eskailera kiribilean gora **igo** ziren logelara. Iñaki Mendiguren

Gero, eskailera kiribil batean gora **igotzen** zen. Karlos Zabala

### 11 *eskaileretatik/eskaileratik gora igo*

Eskaileretatik gora **igo** ondoren, beira zeharrargizko ate batera iristen da. Josu Zabaleta

Emakumeak jauregiko eskaileratik gora **igo** ziren eta sala handira iritsi. Felipe Juaristi

### 12 *(-en) gainera igo*

Nire gainera **igo** hadi, ea ailegatzen haizen. Koro Navarro

Adreilu pilatuen gainera **igo** nintzen. Juan Kruz Igerabide

Atea itxi eta aulki gainera **igo** zen atzera. Joxemari Urteaga

Berriz harri gainera **igo** zen, eta honako hau esan zuen [...]. Jon Alonso

Arrimatu zuen bankua paretara, banku gainera **igo,** barra lodiei heldu eta besoen indarrez altxatu zen, burdin saretik begiratu ahal izan zuen arte. Koro Navarro

-Ez **igo** sofa gainera, Jack, mesedez! Koro Navarro

Zaita bizkar gainera **igo** zitzaion eta, goiko ertza heldu ziolarik, erraztasunez iritsi zen gora. Patxi Zubizarreta

Afal ondoren ontzi gainera **igo** ginen berriro. Josu Zabaleta

Bere erratz gainera **igo,** ostiko eman lurrari eta airean gora joan zen. Iñaki Mendiguren

Birgha ezpata uretatik atera eta zaldi gainera **igo** zen. Joanes Urkixo

Mando gainera **igo** eta geroxeago topatu behar zituzten bi gizonez hasi ziren hizketan. Josu Zabaleta

· Joan zen bere bizikleta zuen tokira, eta, bultzada bat emanda, salto batez **igo** zen gainera. Josu Zabaleta

### 13 *–n gora igo*

Aldapan gora **igo,** eta mendi-bizkar lauetatik joan zen gero bidea. Jose Morales

Maldan gora **igo** nintzen lasai. Irene Aldasoro

Mikel Strogoff bizi-bizi **igo** zen bidean gora. Karlos Zabala

Ilehoria berehala **igo** zen zurubian gora. Jose Morales

*ik gorago* 10.

Gero, argindarraren poste zaharrean gora **igo** zen. Joseba Sarrionandia

Oilarrak arboletan gora **igo** ta an gelditzen badira, euria. Pello Zabala

Betaurrekoak **igotzen** zituen sudurrean gora begi pareraino. Anjel Lertxundi

Ur izoztuak bularrean gora **igo** eta barruak ebakiko balizkio bezala sentitu zuen. Iñaki Mendiguren

Gar bat, gar handi, gorri-hori, luze, malgu bat **igo** zen horman gora. Josu Zabaleta

Hobeki pentsatuta, irentsi egin zituen eztarrian gora **igo** zitzaizkion hitz airatuak. Alberto Ladron Arana

1880an, *Nana,* prostituta bat gizartean gora nola **igotzen** den eta gero nola amiltzen den kontatzen duena. Karlos Zabala

### 14 *igo berri* (*orobat* ***igoberri***) *izond* duela gutxi igoa.

Bidaiari **igo berri** batek. Xabier Olarra

Talde **igo berriek** lanak izaten dituzte mailari neurria hartzeko. Berria - Kirola

Realak Levante **igo berria** izango du aurkari gaur Anoetan. Berria - Kirola

Levante, Numantzia eta Getafe **igo berriak** jaitsiera postuak saihesteko borrokan izango direla dirudi aldez aurretik. Berria - Kirola

Alcobendas **igoberriaz** hiru datu: [...]. Berria - Kirola

**Igo berriarengana** begiratu nuen berriro bat-batean. Joxemari Iturralde

**Igo berriek** izango dute arazo gehien. Berria - Kirola

**Igoberrien** artean gehien jokatu duena da usurbildarra.

· Florenten logelara **igo berria** zen, giltza sukaldeko iltzetik hartuta. Karlos Zabala

Suediako tronura **igo berria** zen, eta, horren bitartez, hura zen Norvegiako agintaria. Jon Muñoz

Mailara **igoberria** den taldeak sorrarazi ohi dituen arazoak gainditu ondoan. Berria - Kirola

**Igo berri** dudan muino-muinoan, San Giusto eliza. Anjel Lertxundi

· Alaves larri zebilen 1998-1999 denboraldian, Lehen Mailara **igo berritan**. Berria - Kirola

### 15 *igo-jaitsi*

Beirazko hutsarte handi bat, alegia, non lau igogailu, beirazkoak haiek ere, **igo** -jaitsi baitzebiltzan. Jon Muñoz

**Igo** -jaitsi aski aspergarri horretan. Xabier Montoia

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)

**agertokira igo** (11); **aldarera igo** (6); **aldera igo** (7); **aldiz igo** (17); **arrastaka igo** (7); **arte igo** (7); **artean igo** (7); **asko igo** (26); **astiro igo** (6); **aulkira igo** (7); **autobusera igo** (17); **autora igo** (6); **baino gehiago igo** (9); **bakarrik igo** (7); **balkoira igo** (8); **bat igo** (69); **bat igo da** (9); **bat igo zen** (12); **batean igo** (15); **baten gainera igo** (19); **batera igo** (89); **batera igo eta** (14); **batera igo nintzen** (15); **batera igo zen** (17); **batera igo ziren** (12); **batetik igo** (6); **batez igo** (14); **batez igo zen** (11); **batzuk igo** (13); **bera igo** (6); **bere gelara igo** (6); **berehala igo** (6); **berriro igo** (17); **berriz igo** (11); **bertara igo** (6); **bizian igo** (7); **bizikletara igo** (8); **dolarrera igo** (7); **dorrera igo** (8)

**ere igo** (35); **eskailera igo** (8); **eskailerak igo** (44); **eskailerak igo eta** (18); **eskaileretan gora igo** (15); **eta gora igo** (13); **eta igo** (49); **eta igo egin** (12); **etxera igo** (22); **eurora igo** (15); **eurora igo da** (6); **ez igo** (7); **ez zen igo** (10); **gabe igo** (10); **gailurrera igo** (12); **gainean igo** (7); **gainera igo** (130); **gainera igo eta** (29); **gainera igo zen** (25); **gainera igo ziren** (18); **ganbarara igo** (22); **gehiago igo** (22); **gehiago igo ziren** (6); **gehien igo** (8); **gelara igo** (37); **gelara igo eta** (6); **gelara igo nintzen** (7); **gelara igo zen** (10); **goiko solairura igo** (7); **gora igo** (151); **gora igo eta** (27); **gora igo ginen** (9); **gora igo zen** (22); **gora igo ziren** (22); **gorago igo** (20); **goraino igo** (8); **gorantz igo** (7); **gorenera igo** (7); **gurdira igo** (7); **harmaila igo** (6); **harmaila igo behar** (6); **hegazkinera igo** (8); **horiek igo** (6)

**igo ahal** (20); **igo ahal izango** (6); **igo ahal izateko** (10); **igo ahala** (19); **igo arren** (8); **igo arte** (8); **igo aurretik** (19); **igo baino** (11); **igo baino lehen** (7); **igo baita** (11); **igo baitzen** (9); **igo behar** (96); **igo behar da** (7); **igo behar izan** (17); **igo behar ziren** (7); **igo beharko** (34); **igo beharko dituzte** (7); **igo beharra** (11); **igo berri** (20); **igo berria** (15); **igo da** (267); **igo da eta** (8); **igo dadila** (6); **igo daiteke** (10); **igo daitezkeela** (6); **igo dela** (16); **igo den** (17); **igo dira** (110); **igo dira prezioak** (6); **igo direla** (11); **igo diren** (19); **igo ditu** (41); **igo dituzte** (6); **igo du** (43); **igo dugu** (6); **igo dute** (18); **igo edo** (14); **igo egin** (89); **igo egin da** (20); **igo egin dira** (7); **igo egin zen** (18); **igo egin ziren** (10); **igo egingo** (15); **igo egiten** (15); **igo egiten da** (7)

**igo eta** (414); **igo eta gero** (11); **igo eta jaitsi** (13); **igo ez** (17); **igo gabe** (13); **igo gaitezen** (8); **igo gara** (14); **igo genuen** (9); **igo ginen** (51); **igo izana** (11); **igo nahi** (56); **igo nahi du** (8); **igo nahi dute** (6); **igo naiz** (28); **igo nintzen** (102); **igo nintzenean** (8); **igo nituen** (8); **igo nuen** (6); **igo ohi** (6); **igo ondoren** (22); **igo orduko** (6); **igo ostean** (11); **igo zaitez** (16); **igo zedin** (7); **igo zela** (19); **igo zen** (650); **igo zen atzo** (8); **igo zen bere** (7); **igo zen berriro** (9); **igo zen eta** (32); **igo zen gehien** (6); **igo zenean** (31); **igo zenetik** (15); **igo ziren** (353); **igo ziren atzo** (7); **igo ziren eta** (18); **igo ziren gehien** (6); **igo ziren oholtzara** (9); **igo zirenean** (12); **igo zitekeen** (6); **igo zituen** (52); **igo zituzten** (24); **igo zitzaidan** (12); **igo zitzaion** (23); **igo zuen** (77); **igo zuten** (52)

**inguru igo** (6); **inor igo** (6); **interes tasak igo** (17); **izugarri igo** (6); **jauzi batez igo** (10); **jendea igo** (6); **jerusalemera igo** (8); **kopurua igo** (12); **kopurua nabarmen igo** (7); **korrika igo** (9); **koska bat igo** (8); **kotxera igo** (8); **lasterka igo** (11); **laurden igo** (7); **lehen mailara igo** (23); **lekura igo** (6); **logelara igo** (11); **maila igo** (18); **maila nagusira igo** (6); **mailak igo** (7); **mailara igo** (38); **mailaz igo** (7); **mendia igo** (6); **mendira igo** (43); **mendira igo eta** (6); **mendira igo zen** (24); **metrora igo** (7); **milioi eurora igo** (6); **nabarmen igo** (26); **nabarmen igo da** (11); **nagusira igo** (10); **nekez igo** (10); **nola igo** (11); **oholtza gainera igo** (11); **oholtzara igo** (19); **ontzira igo** (12); **pasa igo** (33); **pasa igo ziren** (28); **pisura igo** (8); **podiumera igo** (29); **postura igo** (12); **posturaino igo** (6); **prezioa igo** (16); **prezioak igo** (14); **puntu igo** (13); **puntu laurden igo** (7); **soilik igo** (8); **solairura igo** (20); **soldata igo** (9); **talde igo** (9); **tasak igo** (19); **taula gainera igo** (8); **teilatura igo** (19); **teilatura igo zen** (8); **trenera igo** (20); **txalupara igo** (11); **urkamendira igo** (6); **zaldi gainera igo** (19); **zaldira igo** (8); **zen igo** (13); **zerura igo** (20); **zeruraino igo** (7)

**aldiz igoko** (6); **bat igoko** (8); **batean igota** (6); **batera igota** (11); **dira igoko** (6); **ez dira igoko** (6); **gainera igota** (16); **gehiago igoko** (17); **gora igoko** (9); **igoa eta** (6); **igoa zen** (6); **igoko da** (77); **igoko dela** (21); **igoko den** (7); **igoko dira** (58); **igoko direla** (17); **igoko diren** (16); **igoko ditu** (19); **igoko dituela** (12); **igoko dituzte** (16); **igoko duela** (6); **igoko dute** (18); **igoko gara** (8); **igoko litzateke** (9); **igoko naiz** (21); **igoko zaie** (7); **igoko zela** (7); **igoko zen** (10); **igota zegoen** (6); **interes tasak igoko** (18); **mendate igoko** (10); **mendate igoko dira** (6); **metrora igoko** (7); **metrora igoko da** (6); **noiz igoko** (6); **tasak igoko** (19)

**bat igotzea** (6); **bat igotzeko** (7); **batera igotzeko** (6); **eta igotzeko** (10); **ez igotzea** (12); **ez igotzeko** (15); **gainera igotzeko** (8); **gora igotzea** (9); **gora igotzeko** (26); **gorago igotzeko** (6); **igotzea da** (13); **igotzea erabaki** (17); **igotzea espero** (11); **igotzea eta** (24); **igotzea lortu** (25); **igotzea lortu zuen** (7); **igotzea proposatu** (10); **igotzeari ekin** (7); **igotzeko agindu** (13); **igotzeko asmoa** (6); **igotzeko aukera** (19); **igotzeko bidea** (7); **igotzeko eskatu** (11); **igotzeko eskatzen** (6); **igotzeko eta** (9); **igotzeko prest** (12); **interes tasak igotzea** (8); **interes tasak igotzeko** (8); **lehen mailara igotzea** (10); **lehen mailara igotzeko** (33); **maila nagusira igotzea** (8); **maila nagusira igotzeko**

(19); **mailara igotzea** (16); **mailara igotzeko** (40); **mailara igotzeko aukera** (6); **mailaz igotzea** (8); **mailaz igotzeko** (7); **nagusira igotzea** (9); **nagusira igotzeko** (19); **podiumera igotzeko** (9); **prezioa igotzea** (8); **prezioak igotzea** (6); **prezioak igotzeko** (6); **soldata igotzeko** (7); **soldatak igotzeko** (10); **tasak igotzea** (10); **tasak igotzeko** (10)

**asko igotzen** (7); **bat igotzen** (24); **batera igotzen** (16); **bezala igotzen** (9); **da igotzen** (6); **ere igotzen** (8); **eskailera igotzen** (6); **eskailerak igotzen** (18); **eta igotzen** (10); **gainera igotzen** (23); **ganbarara igotzen** (7); **gora igotzen** (84); **gora igotzen ari** (7); **gora igotzen zen** (8); **gora igoz** (6); **gorago igotzen** (10); **igotzen ari** (109); **igotzen ari da** (16); **igotzen ari zela** (11); **igotzen ari zen** (20); **igotzen ari ziren** (12); **igotzen bada** (10); **igotzen badira** (6); **igotzen da** (57); **igotzen den** (31); **igotzen dena** (9); **igotzen denean** (8); **igotzen dira** (34); **igotzen direla** (9); **igotzen diren** (13); **igotzen dituzte** (6); **igotzen du** (6); **igotzen duen** (6); **igotzen edo** (8); **igotzen eta** (14); **igotzen ez** (12); **igotzen ginen** (13); **igotzen hasi** (41); **igotzen hasi zen** (11); **igotzen hasi ziren** (8); **igotzen ikusi** (20); **igotzen ikusi zuen** (6); **igotzen jarraitu** (12); **igotzen jarraituko** (8); **igotzen lagundu** (14); **igotzen lagundu zion** (6); **igotzen laguntzeko** (8); **igotzen naiz** (11); **igotzen nintzen** (7); **igotzen saiatu** (9); **igotzen uzten** (6); **igotzen zela** (8); **igotzen zen** (100); **igotzen zen eta** (6); **igotzen ziren** (32); **igotzen zituen** (7); **igotzen zitzaion** (11); **igotzen zuen** (8); **igotzera behartu** (6); **igotzera behartu** (6); **igoz gero** (18); **mendira igotzen** (6); **nola igotzen** (6); **prezioa igotzen** (7); **trenera igotzen** (7); **zen igotzen** (7); **zerura igotzen** (13); **zerura igotzen ikusi** (8); **zeruraino igotzen** (7); **zerurantz igotzen** (6)

---

igoal ik **igual**.

---

**igoaldi** *iz* igotzea, norbait edo zerbait igotzen den aldi bakoitza.

**Igoaldi** luze baten ondoren, jauregi baten sarreraren aurrean gelditu zen furgoneta. Jon Muñoz

Patarraren itzulinguruek iduriz errexten ziguten orain **igoaldia,** eztituz haatik urratsa. Piarres Aintziart

Inflazioaren eta langabeziaren aldi bereko **igoaldiari** aurre egin behar zitzaion bat-batean. Koro Navarro

1982tik geroztikako kotizazioen **igoaldi** etengabeak maila beherenetara eraman zituen akzioen errendimenduak. Koro Navarro

Inflazioaren eta soldaten **igoaldiaren** kontrako erreakzio gisa. Koro Navarro

Ez baitago beheraldi gabeko **igoaldirik**. Unai Iturriaga

---

**igoaldiro** *adlag* igoaldi guztietan.

"La ley de la gravedad" esan nion lehengusuari, eta harro harro, han noa, bi eskuekin sokari heldu eta, behitik goiti **igoaldiro** haritzaren gerrian bi iztermasailak estutuz. Patziku Perurena

---

**igoalditxo** *iz* igoaldi txikia.

Beste **igoalditxo** bat beharko txartel-bandatxoa aldatzeko... Pello Zabala

---

**igoarazi,** igoaraz, igoarazten du *ad* igotzera behartu.

Zaldira **igoaraziko** dituzte bai zalduna bai ezkutaria, begiak trapu batez estalita. Patxi Ezkiaga

Jaiki zen, bada, Jakob, eta gamelu gainera **igoarazi** zituen seme-alabak eta emazteak. Jose Antonio Mujika

Gero, bere bigarren zalgurdiaren gainera **igoarazi** zuen. Xabier Kintana

Tellagorrik zaildu egiten zuen Martin, ibilarazi egiten zion, lasterka eragin, zuhaitzetara **igoarazi**. Koro Navarro

Biak jeep batera **igoarazi** zituzten, bultzaka. Juan Kruz Igerabide

Hegazkin batera ari ziren **igoarazten** metraileten artean, beste lagun batzuekin. Joxan Elosegi

Lurraren gailurretara **igoaraziko** zaitut. Xabier Kintana

Mundu pribatu bat, berezia: ikerkuntzarena; bere grinak, bere pozaldi eta bere etsialdiak dituen mundu bat; zerura **igoaraz** zein infernuetara jaitsaraz zaitzakeen mundu bat. Juan Garzia

Mutazioen maiztasuna **igoarazi**. Juan Garzia

Urte hartan bertan, hiru anaia **igoarazi** zituen apaizgora. Askoren artean

Petrolioaren bigarren krisiak %13ra **igoarazi** zuen inflazioa ELGE eremuan. Koro Navarro

Eskailerak **igoarazi** zizkion, bere logela txiki urdinerantz. Mirentxu Larrañaga

Horregatik ehun eskailera maila **igoarazi**? Patxi Zubizarreta

Autobusaren geldialdi bakoitzak maila bat **igoarazten** dio bere okerrean. Urtzi Urrutikoetxea

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**batera igoarazi** (9); **bere etxera igoarazi** (3); **etxera igoarazi** (3); **gainera igoarazi** (11); **gainera igoarazi eta** (3); **gainera igoarazi zuen** (3); **gora igoarazten** (5); **igoarazi ditu** (3); **igoarazi du** (5); **igoarazi dute** (3); **igoarazi eta** (9); **igoarazi zituen** (4); **igoarazi zituzten** (4); **igoarazi zuen** (19); **igoarazi zuten** (5); **igoarazten ditu** (3)

---

**igobide** *iz* igotzeko bidea.

Puska batean egon ziren zain **igobideen** aurrean. Matías Múgica

Izotz hesia igotzeko lekua aurkituko duzue [...] hortik ere **igobidea** erraza izango ez den arren. Joseba Sarrionandia

**Igobidea** "muturreko zailtasunekoa" zen, gidaren kalifikazioaren ariora. Aingeru Epaltza

---

**igoera** 1 *iz* toki batetik, gorago dagoen beste batera joatea.

Bar batean edan dudan esne beroak *Alto de Portillo*rako patarraren **igoera** erraztu dit. Piarres Aintziart

Infernuetara erortzean, **igoera** handi baten esperantza sortzen zaigu, eguneroko bizitzan gorabehera etengabean ohituak gaude eta. Juan Kruz Igerabide

Azken **igoera** honek zangoak pisutu dizkit. Piarres Aintziart

**Igoera** hori, jainkozkoaren gailur-ikuspeneraino, honela deskribatu eta laburbiltzen du: [...]. Joan Mari Lekuona

**Igoera** luzea da, oso pattarra, aski dorpea. Koldo Izagirre

Patruila autoa, Mirakruz **igoera** hasi aurretiko bidegurutzean trabeska geratu zen. Harkaitz Cano

**Igoeraren** azken zentimetroetan Raimundo Silva igogailuaren erdian jarri zen. Jon Alonso

Bihar Tourmaleteko **igoera** zikloturista. Berria - Kirola

Ongi ezagutzen duzu Lazkaomendiko **igoera** bihurria. Berria - Kirola

Goizeko 11etan hasiko da ekitaldi nagusia, pilota plazan: ikurriñaren **igoera**, dantzariak, joaldunak [...]. Herria

· Labarretatik Harriandi gainera **igoeran,** harpearen aurrera ailegatu, gorputza lurrera etzan eta [...] ozen egin nuen oihu: [...]. Joseba Sarrionandia

**2** egoera edo maila gorago batera igarotzea.

Jesukristok Jaungoikotasunera egin zuen **igoera** miragarria. Jenaro Garate

Ekipoaren **igoera** ospatzeko. Iñigo Aranbarri

Presioaren **igoerak** eraginda. Irene Aldasoro

**3** (ekonomia arloan)

Sindikatuentzat inoiz ez da behar adinakoa soldaten **igoera**. Iñaki Heras

Egundoko **igoera** ekarri omen zuen horrek gure amaren soldatan. Xabier Mendiguren Elizegi

Laurogeiko hamarkadan gertatu zen inbestimenduen **igoerarik** handiena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hitzarmen kolektiboak mobilizatu zituen, 130 pezetako **igoera** ari ziren eskatzen. Rafa Egiguren

Euroaren **igoera** ez da ongi etorria. Berria - Ekonomia

Zergak gehituz saiatu ziren gastu publikoen **igoera** orekatzen. Koro Navarro

Finantzaketa zuzenaren **igoera**. Koro Navarro

Prezioen **igoeren** efektua deskontaturik. Iñaki Heras

Interes tasen **igoera** mundu mailan. Berria - Ekonomia

Bizi-mailaren igotzeak beti ez dakar berekin bizi-kalitatearen hobekuntzarik, eta kalitate horren hobekuntza batek ere ez dakar ezinbestean bizi-mailaren **igoerarik**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hazkundea **igoera** kuantitatiboa da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Oilaskoaren **igoeraz** ari ziren emakume bi harategian. Unai Iturriaga

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bigarren B Mailako **igoera** ligaxkak zozkatu dituzte. Berria - Kirola

Alaves ere **igoera** postuetan da. Berria - Kirola

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mendi-**igoeretarako** goizeko lauretan ateratzen zen. Fernando Rey

Diru batzuen balio-**igoera** jarraituak. Koro Navarro

Prezio-**igoera** txikiena izan duten elkarteko hiru herrialdeen tasa. Iñaki Heras

Garapen teknologikoak eragiten dituen produktibitate **igoerak** direla eta. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Demagun funtzionarioei EAk soldata **igoera** ederra agintzen diela, K. funtzionarioari ezin hobeki datorkiona. Markos Zapiain

Danubioaren maila **igoerak** alerta eragin zuen Errumaniako hegoaldeko 100 bat hiri eta herritan. Berria - Mundua

Martinek zorionak eman zizkion Brionesi bere maila-**igoerengatik**. Koro Navarro

Airearen jaitsiera-**igoera** bertikala. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**araberako soldata igoera** (5); **arrateko igoera** (17); **arrateko igoera jokatuko** (4); **atzoko igoera** (5); **azken igoera** (6); **baina igoera** (13); **bateko igoera** (4); **d ereduaren igoera** (5); **da igoera** (11); **du igoera** (8); **duen igoera** (4); **duten igoera** (4); **eragin du igoera** (4); **ereduaren igoera** (5); **eta igoera** (20); **eta soldata igoera** (6); **etengabeko igoera** (4); **euroaren igoera** (5); **euroko igoera** (9); **gorlako igoera** (4)

**igoera adostu** (4); **igoera aurreikusten** (4); **igoera bakarrik** (4); **igoera bat** (7); **igoera da** (8); **igoera egin** (4); **igoera egiteko** (4); **igoera ekarri** (5); **igoera ere** (12); **igoera eskaini** (14); **igoera eskaini die** (6); **igoera eskaini du** (4); **igoera eskatu** (18); **igoera eskatu dute** (9); **igoera eskatzen** (13); **igoera eskatzen dute** (8); **igoera espero** (8); **igoera eta** (40); **igoera ez** (22); **igoera ez da** (9); **igoera ez dela** (4); **igoera gehiago** (7); **igoera handia** (11); **igoera handia izan** (7); **igoera handiagoa** (4); **igoera handiena** (8); **igoera hasi** (4); **igoera hitzartu** (6); **igoera hitzartu dute** (5); **igoera hori** (25); **igoera horiek** (4); **igoera horrek** (5); **igoera horren** (7); **igoera horretan** (7)

**igoera ikusgarria** (4); **igoera iragarri** (4); **igoera izan** (33); **igoera izan du** (9); **igoera izan zen** (5); **igoera izan zuen** (5); **igoera izanen** (4); **igoera izango** (13); **igoera izango da** (6); **igoera jasotzen** (5); **igoera jokatuko** (11); **igoera jokatuko da** (8); **igoera kpi** (4); **igoera lortu** (11); **igoera lortu zuen** (4); **igoera lortzeko** (5); **igoera nabarmena** (10); **igoera nabarmena izan** (4); **igoera nahi** (6); **igoera nahi dute** (5); **igoera onartu** (4); **igoera orokorra** (5); **igoera oso** (4); **igoera postuak** (4); **igoera postuetan** (15); **igoera postuetatik** (6); **igoera proposatu** (12); **igoera proposatu du** (7); **igoera txikiak** (6); **igoera txikiak izan** (4)

**inflazioaren igoera** (8); **interes tasen igoera** (20); **izan da igoera** (6); **kilometroko igoera** (4); **kopuruaren igoera** (4); **langabeziaren igoera** (4); **maila igoera** (4); **mailako igoera** (5); **montjuiceko igoera** (5); **narancoko igoera** (4); **pentsioen igoera** (8); **prezio igoera** (14); **prezioaren igoera** (4); **prezioen igoera** (36); **prezioen igoera ez** (4); **puntuko igoera** (9); **puntuko soldata igoera** (4); **salneurrien igoera** (5); **soldata igoera** (145); **soldata igoera eskaini** (6); **soldata igoera eskatu** (7); **soldata igoera eskatzen** (8); **soldata igoera eta** (14); **soldata igoera hitzartu** (5); **soldata igoera jasotzen** (5); **soldata igoera proposatu** (4); **soldataren igoera** (6); **soldaten igoera** (14); **tarifen igoera** (7); **tasen igoera** (21); **tenperaturaren igoera** (4); **tourmaleteko igoera** (4); **zen igoera** (4); **zergen igoera** (4); **zuen igoera** (6); **zuen prezioen igoera** (4); **zuten igoera** (6)

**azken igoeran** (12); **azken igoeraz** (7); **azken igoeraz gerotik** (4); **da igoerarik** (6); **dute igoerarik** (4); **ez da igoerarik** (5); **fitoko igoeran** (4); **igoerarekin batera** (4); **igoeraren aurka** (4); **igoeraren aurrean** (4); **igoeraren ondoren** (4); **igoerari dagokionez** (5); **igoerari esker** (5); **igoerarik handiena** (8); **igoerarik nabarmenena** (4); **igoeraz gain** (7); **igoeraz gerotik** (4); **igoeraz geroztik** (4); **interes tasen igoeraren** (7); **prezioen igoeraren** (8); **soldata igoeran** (5); **soldata igoeraren** (6); **soldata igoerari** (8); **soldata igoerarik** (5); **soldata igoerei** (4); **tasen igoeraren** (7); **urkiolako igoeran** (6); **urrakiko igoeran** (4)

---

# igoezin *iz* ezin igo dena.

Hesi zuri harrigarria da, bertikala eta **igoezina**. Joseba Sarrionandia

---

# igogailu *iz* eraikuntza bateko solairuetan gora igotzeko eta jaisteko erabiltzen den tresna.

**Igogailua** jaitsi berria zen. Lopez de Arana

Astor hoteleko **igogailuan** gora egin zuten. Lopez de Arana

**Igogailuak** gora eta behera. Lopez de Arana

Inoiz ez zuen **igogailurik** hartzen, badaezpada ere. Ez zuen hartu **igogailua;** oinez jaitsi zituen, patxadan, lau eskailera-tarteak. Iñaki Zabaleta

**Igogailuan** sartu, botoi urdina sakatu, eta hirugarren solairuraino heltzen naizenerako, bertan izaten dut izeko Margari beso zabalik. Patxi Iturritegi

Uil etxe handira eraman nuen, **igogailuan** ibiltzera. Juan Kruz Igerabide

**Igogailuan** sartu eta Lorategi Japoniarrera igo zen. Lopez de Arana

Hesketa automatikoko **igogailua**. Txillardegi

**Igogailuan** behera, gorakoan baino askozaz ederragoa iruditu zitzaidan Pantxo Rey. Jasone Osoro

New-york-arren urgulua ziren beren 400 metroko goratasunarekin, minuta xoil batez heltzen zinela 110. estaian **igogailuz**. Herria

Gauez atera eta etxerakoan **igogailua** hondaturik aurkitzen genuenean. Joxean Agirre

Izan ere, **igogailua** izorratu egin da, eta egoitza seigarren pisuan dute. Berria - Euskal Herria

**Igogailuetan** erasotzen zien haurrei. alkateak agindu zuen **igogailua** berriki hasi dira eraikitzen Isaac Albeniz kalean. Berria - Euskal Herria

**Igogailuko** mutilak txokolate-koloreko uniformea eta letoizko botoiak zeuzkan. Lopez de Arana

*ik* igogailuzain.

Caulfieldek prostituta eta **igogailu**-mutil makarrarekin. Bernardo Atxaga

**Igogailuko** atetik begiratu eta koadro bi ikusi zituen lehenengo pisuan. Unai Elorriaga

**igogailuko** Ispiluan kosta egin zitzaidan neure burua ezagutzea. Joxean Agirre

Eskailera gorantz kiribiltzen zen, **igogailuaren** zuloaren inguruan. Alberto Ladron Arana

Zorigaitzeko egun batean, Amaia erori egin zen etxeko **igogailuko** zulotik behera. Josetxo Azkona

Perspektiba zorabiagarri batez **igogailu** -zulo bat marraztu zuenean, sei urte baizik ez zituen. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **espaziorako igogailuaren** (3); **igogailua hartu** (14); **igogailuan gora** (3); **igogailuan jaitsi** (3); **igogailuan sartu** (10); **igogailuaren zain** (9); **igogailuko atea** (5); **igogailutik atera** (6); **igogailutik irten** (3)

---

# igogailuzain *(orobat* ***igogailu-zain****)* *iz* igogailua gobernatzen duen pertsona.

**Igogailuzainaren** aurpegia ebanozkoa zen, bolizko inkrustazioez hornitua. Lopez de Arana

-Wilmer -esan zion gaueko **igogailuzainari-,** gauez korridore hauetan argi gehiago behar litzateke... Lopez de Arana

Metroko **igogailu** -zaina premia eternala da. Anton Garikano

New York hirian **igogailu-zain** ibili ei zen Duñabeitia. Edorta Jimenez

---

# igoka *adlag* igotzen

Bengalak gorantz **igoka** eta kulunka zebiltzan, eta ostera beheraka jaisten ziren gudu-oinerantz. Mirentxu Larrañaga

---

# igokari **1** *izond* igoz doana.

Bide **igokaria** horma arrokatsuen arteko zirrikitu batean sartu, aldapa motza igo eta goi-lautada handi batean agertu zen. Agustin Otsoa

Bibote horail **igokariaren** arku bera errepikatzen zen haren bekain horailetan, begi harritu atsegin haien gainean. Irene Aldasoro

Berak asmatu zituen […] daratulua eta makina **igokaria,** harresietan gainetik igaroz sartzeko balio zutenak. Santiago Iruretagoiena

Aihen-belar **igokariak** . Fernando Rey

## 2 *landare igokari*

Eraikin berria metalezko sare batek inguratuko du, eta han landare **igokariak** jarriko dituzte. Berria - Harian

Bainilla landare **igokari** bat da, zuhaitzetan gora igoz 10 metroraino luza daitekeen orkidea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gorputz gihartsu hura zen, zinez, Sarak behar zuen zutabe sendoa, haren inguruan hazi eta garatu ahal izateko, nola hainbat landare **igokari** zurkaitzaren inguruan. Joan Mari Irigoien

· Beste arrosa-landare **igokari** bat, adar bihurrikoa eta lore te-koloreak ematen zituena, fatxadan gora igotzen zen mahatsondo baten moduan. Koro Navarro

---

# igoketa *iz* igotzea.

Gure bizitzako urteak eskalada baten moduan aurkeztu dizkigute, ondasun materialen eta ekonomikoen bila etengabe gora eta gora jo beharreko **igoketa** baten moduan Pako Aristi

---

# Igokunde *(orobat* ***igokunde****)* **1** *iz* Jesusirariz zerura igotzea. ik **Salbatore**.

Jesusen **igokundea** . Elizen arteko biblia

Non nahi ikusten dira alabaina aingeruak umetxoen itxuran margoturik, Jaiotzaren laukietan eta Jesu Kristo gure Jaunaren **Igokundean** eta Andre dena Mariaren Jasokundean. Piarres Xarriton

Jesusen jaiotza, nekaldi, piztuera eta **igokundeko** misterioak. Askoren artean

Hirugarrenik, Kristo gure Jaunaren nekaldiarekin; laugarrenik, Pazko eta **Igokundearekin** . Patxi Altuna

Ez dugu Apokalipsian eta Azken Judizioan sinesten; ez dugu **Igokundean** sinesten, ez eta munduaren amaieran ere. Oskar Arana

## 2 zeruratze horren urteurreneko eguna.

Han goian kantuan aritua nintzen, koruan, **Igokunde** Egun bateko egunsenti aldean, txikitan. Mirentxu Larrañaga

**Igokunde** hori elizak jarritako jaiegunari dagokio: azentzio-eguna, alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 *Igokunde igande* igokunde egunaren ondoko igandea,

**Igokunde** igandetik Mendekoste zortziurrenera bitartean egunero esaten da salmo hau. Askoren artean

## 4 *Igokunde jai* Jesusen igokundearen urteurreneko jaia.

Piztuera igandetik **Igokunde** jaia arte. Askoren artean

---

# igon ik **igo**.

---

# igorgailu *iz* uhin elektromagnetikoak igortzen dituen gailua.

Programaren barruan sartzen den pertsonaren etxebizitzan hargailu bat ezarri beharko litzateke, eta **igorgailua** presoak eraman beharko luke. Berria - Euskal Herria

Nola egiten dudan hari jarraitzeko? **igorgailu** bana daramagu, eta horren bidez esaten dit nondik nora joan behar dudan, rallyetan bezala. Berria - Kirola

Difusio-bobina bati konektaturik dago **igorgailua** . Irrati- **igorgailu** batek sortzen ditu seinale elektriko horiek. Irene Aldasoro

Irrati **igorgailu** txiki bat daraman tandem bizikleta honek indigenekin batera burutu du ibilbidea. Berria - Mundua

---

# igorketa *iz* igortzea, igorpena.

Frankfurteko Pomosin fabrikako zuzendariak etortzekoak ziren, Opektaren salgai **igorketak** negoziatzeko. · Azkenik, Molères apezpikuaren **igorketa..** . Josu Zabaleta

---

# igorle **1** *iz* aipatzen dena igortzen duen pertsona.

Nor esan dun dela telegramaren **igorlea** ? Xabier Paya

Gutuna zabaldu baino lehen jakin nahi zuen nor zen **igorlea** . Joxemari Iturralde

**Igorlearen** izen-deiturak eta helbidea. Joxemari Iturralde

Idazle gazteak **igorlearen** izenik ez zekarren gutun bat jaso zuen. Patxi Zubizarreta

Nire irakasle baten izena ikusi nuen **igorlearen** lekuan. Xabier Mendiguren Elizegi

THX Mezuaren **igorlea:** Llum 15/04 10:25. Iñaki Arranz

Maswell-en paradigma klasikoa **(igorle** -> kanala -> hartzaile) zaharkituta geratu da. Txema Ramirez de la Piscina

**Igorle** eta mezuaz gainera, kodeak, hartzaileak eta kanalak ere berritu edota aldatu egin behar dira. Txema Ramirez de la Piscina

**Igorle** eta hartzailearen arteko bestelako harremana lantzean bakarrik sor liteke lilura. Txema Ramirez de la Piscina

Bertso-saioetan entzuleriaren erantzunak, edo erantzun horretaz **igorleak** jasotzen duen berrelikadura edo *feedback* delakoak leku garrantzitsua du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Saskiak **igorleei** itzultzeko. Karlos Zabala

Albotik pasaeran sumatzen zuen guztiaren **igorle** moduko bat izango zen. Xabier Olarra

Mars planeta edo izarbelean Eguberritan pausatu beharra zen *Beagle* errobota ez da uste zuten bezain ongi ibili europear **igorleen** gostura. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Entzun ezinik, begirada bilakatzen da mezu **igorle** eta gorputzak igorritako mezu hartzaile. Pako Aristi

Enplegatuak iristen ziren beren kontu liburuekin, eta merkantzi **igorleen** agenteak [...] dirua noiz jasoko zain zeuden. Karlos Zabala

**3** (gauzei buruz)

XIX. mendearen adierazpen artistiko izateaz gain, urte haietako gertakarien **igorle** ere bihurtu baitziren irudi satirikoak. Berria - Kultura

Tita ohartuko da prestatzen dituen janak sentimendu **igorle** direla, eta haien bitartez maite duen pertsonarekin komunikatu daitekeela. Berria - Kultura

Ikus-entzunezko narrazioaren ezaugarriak eta narrazioa balio **igorle** gisa gaitzat hartuta, beste hamaika ariketa daude. Berria - Harian

**4** igorgailua.

Ekologia Ministerioko adituek hartzaren urratsen berri jaso ahal izanen dute, jarri dizkioten **igorle** txikien bidez. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **igorle eta** (7)

---

## **igorleku** *iz* aipatzen dena igortzen den lekua.

Poliziak zehaztu zuenez, ez zekarren [lehergailuz beteriko gutunaren] **igorlekuaren** inguruko informaziorik. Berria - Mundua

---

## **igorpen** 1 *iz* igortzea.

Ixtanteko, **igorpena** onartua zuela jakinarazi zidan makinak. Aingeru Epaltza

Satelite bidezko **igorpenak** debekatzea aztertzen ari da. Berria - Mundua

Ahots landuak zituzten, akats gabeko **igorpen** paregabea. Berria - Kultura

Kurduerazko **igorpenaren** ondoren eduki ber-berak turkieraz hedatzera derrigortzen dute Turkiako legeek. Berria - Mundua

Nabarmentzekoa, tenore arinaren **igorpen** argia eta gustua. Berria - Kultura

PVCa lortzen ari den bitartean edo bere transformazioan egon daitezkeen gas toxikoen **igorpena**. Berria - Gaiak

Begiztatu baizik egin ez ditugun misterioak, hala nola elektrizitate indarra, hipnosia, borondatearen **igorpena,** sugestioa, magnetismozko gertaera guztiak. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Prezioan ere ondorio gaindiezinak ditu, ale bakoitzaren **igorpen** prezioa halako sei edo zortzi gehituko baita. Berria - Euskal Herria

Espainiako Gobernuak aurkezturiko **igorpen** planak hutsune nabarmenak ditu. Berria - Ekonomia

· Diru- **igorpen** bat dauka zuretzat. Anton Garikano

Errepidean oinarritutako ereduak %70 areagotu dituelako urteotan gas **igorpenak**. Berria - Euskal Herria

CO2 **igorpenen** Espainiako plana osatu gabe dago. Berria - Euskal Herria

Horren errudun nagusia klorofluorokarbono **igorpenak** zirela atzeman zuten ikertzaileek orain urte batzuk. Berria - Gaiak

---

## **igorrarazi**, igorraraz, igorrarazten du *ad* igortzera behartu.

Apezak partikulazki, horrelako botzak Jainkoaren laudatzeko balio zuela iritzirik, Balantsunen etxekoak balakatu zituen, mutiko koxkorraren Larresoroko seminariora **igorrarazteko**. Itxaro Borda

Tazitok faltsuki kontatzen du dotorezien epaile izan zela Neronen gortean, eta Tigelinok, jeloskor, heriotzako ordena **igorrarazi** ziola. Juan Garzia

Otoi arren, irakur, zigila, eta postara **igorraraz** ezazu. Jon Muñoz

Han, ezagutzen ez duen morroi ttipi batek [...] iragartzen dio zaldi orga behar duela **igorrarazi** eta berari behar zaiola jarraitu. Jon Muñoz

Otoi arren, irakur, zigila, eta postara **igorraraz** ezazu. Jon Muñoz

---

## **igorretar** *(orobat **igorrear**) izlag/iz* Igorrekoa, Igorreri dagokiona; Igorreko herritarra. ik **igorreztar**.

Euskaldun bakarra agertzen da lehen hamarretan, Iban Mayo (Euskaltel-Euskadi) **igorrearra** hain zuzen ere. Berria - Kirola

Hain dira laster pasatu, gutti baizik ez ditut ezagutu: Haimar Zubeldia usurbildarra, Iban **Mayo** igorretarra. Herria

Baina **igorretarraren** ezina gertu-gertutik bizi izan dutenak txirrindulariak izan dira. Berria - Kirola

Leontzi Aipuzpuru, Antselmo Totorika eta Jose Abasolo poeta **igorreztarrak,** esaterako. Berria - Kultura

---

## **igorreztar** *izlag/iz* Igorrekoa, Igorreri dagokiona; Igorreko herritarra. ik **igorretar**.

Euskarazko literaturaren inongo bibliografian ageri ez diren idazleak aurkitu dituzte; Leontzi Aipuzpuru, Antselmo Totorika eta Jose Abasolo poeta **igorreztarrak**, esaterako. Berria - Kultura

---

## **igorri**, igor, igortzen **1** du *ad* bidali. (zerbait)

Marina Gonzalezek musu bat **igorri** zidan irribarrez. Oskar Arana

Irri pollit bat **igorri** digu. Piarres Aintziart

**Igorri** nion idunekoa jantzita agertu zen. Oskar Arana

Egun horretan Agirre lehendakariak telegrama bi **igorri** zituen Habanara. Edorta Jimenez

Gela bakoitzak bazuen bere telefonista, leihoan zegoena, lagunen mezuak hartzeko eta **igortzeko**. Marzel Etxehandi

Oraindik ere erantzun gabe dagoen beste galdera bat **igorri** zuen iragan martxoaren 10ean Europako Batzordera. Berria - Mundua

Gutun apain-bihurri zeremoniatsu bat **igorri** zidan. Juan Garzia

Parlamentuari **igorritako** txosten batean. Berria - Kultura

Hedabideetara **igorritako** prentsa ohar baten bitartez. Berria - Kultura

Anjak **igorritako** faxean, Hans Lauerrek epaiketa egunean esandakoa zetorren komatxo artean azpimarratuta. Hasier Etxeberria

Munduko Merkataritza Erakundera salaketa **igorri** edo ez aztertzen ari dira agintariak. Berria - Harian

Salomonek mandatu hau **igorri** zion Hirami: [...]. Elizen arteko biblia

Eskabidea **igorri** nuen. Juan Garzia

Tematu nintzen urtero hainbat aldiz liburuak **igorri** behar nizkiola. Oskar Arana

Parte hartzeko, zinema nahiz bideo lanak **igorri** behar dira, euskaraz eginak eta 30 minututik beherakoak. Berria - Kultura

33 herritatik **igorritako** 221 animazio lan jaso zituzten. Berria - Kultura

ELBk ordezkaritza bat **igorriko** du ELAren kongresura. Berria - Ekonomia

Manu bat eta dirua **igortzen** diot. Jon Muñoz

Nahiago zuen arroz-esnearen usainak **igortzen** zion lasaitasuna sentitzea. Jasone Osoro

Halaber, 68 tonako giza laguntza **igorri** dute. Berria - Mundua

Horrenbeste denbora batere berririk **igorri** gabe. Oskar Arana

Planeta urrun batetik **igorririko** espaziontzi batean. Juan Garzia

Ontziak herenegun iluntzeko 20:33ean hondoratze seinalea **igorri** zuen, bere baliza irratitik. Berria - Mundua

Ordubetean, gai erradioaktiboak erradiazioa **igortzeko** %50eko probabilitatea du. Fernando Morillo

Marteko gainazalaren %90en informazioa **igorri** du Lurrera. Berria - Gaiak

Unibertsoa sortu eta gutxira sortutako galaxien irudia **igorri** zuen Hubblek.

Ontzi bakoitzak, gainera, grabitate-uhinak aurkitzea helburu duten laser izpiak **igorriko** ditu. Berria - Gaiak

Jesus Kristo, Jainko aitak **igorri** Semea. Herria

## **2** (nora)

Ospitalera **igorri** dugu. Ramuntxo Etxeberri

Edo atzerrira **igorriko** dituztela agindu eta **igorri** ez. Gotzon Garate

Ginzburg Civitavecchiako presondegira **igorri** zuten. Fernando Rey

Bidaxunera **igorri** ninduten egunean kanbiatu ziren gauzak niretako. Aingeru Epaltza

Oinazeak edo, noiztenka, bozkario itzal erraz batek, beti mendira **igorri** naute, [...] bereziki Baigura kaskora! Piarres Aintziart

Berorren ama erreginak, gogo-samin guztiz larrian, berorrengana nau **igorri**. Juan Garzia

Ximurraren bolante-ukaldi ozpinduak autoaren bertze aldera **igorri** ninduen kasik. Aingeru Epaltza

Oren guztiek dute gizona kolpatzen, azkenekoak du hobira **igortzen**. Koro Navarro

**Igorri** zituzten, bada, gizon batzuk Xilora eta ekarri zuten handik kerubinen gainean eseria dagoen Jaun ahalguztidunaren itun-kutxa. Elizen arteko biblia

· Bi, hiru, lau... **igorri** nituen lurrera! batzuk zauriturik, bertze batzuk jadanik hilak... Aingeru Epaltza

Horietarik hiru berak zuzen-zuzen beste mundura **igorri** ditu. Gotzon Garate

## **3** (zertara)

Kristinak Maite **igorri** zion laguntzera. Aingeru Epaltza

Davidek mandatariak **igorri** zizkion, aitaren heriotzagatik doluminak ematera. Elizen arteko biblia

Bere mutilak **igorri** zizkien, eihera harriaren eta tresneria guziaren bahitzera. Elena Touyarou

Orduan, Jezabelek mezularia **igorri** zion Eliasi, esatera: [...]. Elizen arteko biblia

Apostoluak sermoiak egitera **igorriak**. Patxi Altuna

Jauntxoak norbait **igorri** zuen haren bila, espos mezaren emateko. Elena Touyarou

Handik urteetara serora **igorri** zion mezulari erretoreak, konfesioz jakin ahal izan omen zuenaren berri emateko: [...]. Koldo Izagirre

AEBek, anartean, 50 marine **igorri** dituzte euren enbaxada gerizatzeko. Berria - Mundua

Arratsalde hartan berean, Migel Mailuk patruila bat **igorri** zuen bizigarri bila. Aingeru Epaltza

## **4** (nola)

Nire tokitik, keinuka **igorri** nizkion eskerrak. Aingeru Epaltza

Gu, 18.ekoak, kamiunetan **igorri** gintuzten Givet-i buruz. Michel Oronoz

Egun batez, 1500 lagun Alemania aldera **igorri** zituzten trenez. Eneko Bidegain

Hauekin argazki bildumak osatu eta postaz **igortzen** zizkioten hilero. Harkaitz Cano

Irratiz **igorri** behar dituzten mezuak aldez aurretik adosturiko liburu jakin bateko orrialdeen arabera kodifikatzen dira. Edorta Jimenez

Aginduta dugun arauzko bidetik **igorri** diot gutuna, begiralearen eskutik alegia. Anjel Lertxundi

Gerla denboran Alemaniarat bortxaz **igorri** zen bere adinekoen zerrendan izan zen. Herria

Eskularrua baitzeukan eskuinekoan, honetan ezartzen du eta **igortzen, igortzen** besagainka delako xefari buruz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

## **5** (bestelakoak)

Juduekin batean heriotzerako ber bideetatik **igorriak** izan ziren, ehun milaka, Hitler-en gustukoak ez ziren guziak. Michel Oronoz

Ingeles handirik jakin beharrik ez zegoen nondik **igorria** zen jakiteko. Joxemari Urteaga

Biharamunean, kabala bagoi batean, **igortzen** gituzte erran gabe norat. Michel Oronoz

Apezpikuak herri hortara bikari **zuen** igorri. Herria

Eta kolpe batez, paretaren kontra **igorri** zuen, tanpa! Ramuntxo Etxeberri

## **6** (esapideetan; ik beherago **8** eta **9**)

Ostrukak jeiztera **igorri** behar nukeen. Aingeru Epaltza

Haizea hartzera **igorri** zuen. Aingeru Epaltza

Bai, badakit kaka egitera **igorri** zintudala... Aingeru Epaltza

## **7** uxatu.

Eguzkiaren beroak iheska **igorri** zituen azken lainoak eta xori zuri handien ongarriaren urrina azkartu zen ere. Aurelia Arkotxa

## **8** ***antzara(k) ferratzera igorri***

Gero, antzarak ferratzera **igorri** ninduen: [...]. Aingeru Epaltza

Lepoa eginen nuke bat baino gehiago ni antzarak ferratzera **igorri** beharrean jarri nuela. Aingeru Epaltza

Holako galdea egiten didatenak laster **igortzen** ditut antzara ferratzerat. Janbattitt Dirassar

Jakes ene ondotik, trapu tzar bat izan banintz bezala antzara ferratzerat **igorria** ninduelarik, ene haurraren galtzerat pusatuz! Janbattitt Dirassar

## **9** ***txakurraren/mandoaren ipurtzulora bidali***

"Antzarrak ferratzera **igortzea"** esateko "zakurraren ipurdira edo zakurraren ipurtzulora **igorri"** esaten dute. Gotzon Garate

Mandoaren ipurtzulora **igorriko** nukeen, inondik ere. Aingeru Epaltza

**10** ***preso igorri***

Jean-Martin-ek bere koinata preso **igorri** omen zuela, iraultzaren kontrakoa zela leporatuz. Elena Touyarou

Ez zuela berak bere botz bakarrarekin laguna preso **igorri**. Piarres Xarriton

Dorrera preso **igorri** zuten eta han giltzapetu. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**igor dezatela** (10); **igor ditzatela** (4); **igor ditzaten** (4); **seaskara igor dezatela** (6)

**aitak igorri** (4); **bana igorri** (17); **bana igorri die** (5); **bana igorri zien** (5); **bat igorri** (104); **bat igorri die** (4); **bat igorri dio** (9); **bat igorri du** (7); **bat igorri dute** (5); **bat igorri nahi** (5); **bat igorri zien** (9); **bat igorri zion** (18); **bat igorri zioten** (8); **bat igorri zuen** (7); **batean igorri** (4); **batera igorri** (9); **batzuk igorri** (4); **egitera igorri** (4); **erakundeak igorri** (4); **ere igorri** (15); **erregeak igorri** (4); **eskaera igorri** (6); **eskutitz bat igorri** (10); **eskutitza igorri** (4); **eta igorri** (12); **etxera igorri** (7); **fiskaltzari igorri** (4); **gutun bana igorri** (8); **gutun bat igorri** (29); **gutuna igorri** (31); **gutuna igorri zien** (4); **gutunak igorri** (7); **handik igorri** (4); **harat igorri** (8); **hau igorri** (8); **hau igorri zion** (5); **hori igorri** (5); **idatzia igorri** (5)

**igorri aurretik** (4); **igorri behar** (42); **igorri behar dio** (5); **igorri behar dira** (7); **igorri beharko** (9); **igorri dauku** (4); **igorri die** (17); **igorri diela** (4); **igorri dio** (32); **igorri dion** (7); **igorri diote** (6); **igorri ditu** (21); **igorri dituzte** (13); **igorri dizkio** (7); **igorri du** (38); **igorri duen** (5); **igorri dugu** (4); **igorri dute** (16); **igorri duten** (5); **igorri eta** (15); **igorri ez** (4); **igorri gizonak** (4); **igorri izana** (6); **igorri nahi** (35); **igorri nahi izan** (11); **igorri nau** (8); **igorri nien** (4); **igorri ninduen** (11); **igorri nion** (13); **igorri nuen** (10); **igorri omen** (4); **igorri prentsa** (5); **igorri prentsa oharrean** (5); **igorri uztailaren** (4); **igorri zidan** (10); **igorri zien** (37); **igorri zieten** (4); **igorri ziola** (5); **igorri zion** (82); **igorri zion atzo** (6); **igorri zioten** (22); **igorri zituen** (23); **igorri zituzten** (19); **igorri zizkien** (11); **igorri zizkieten** (7); **igorri zizkion** (21); **igorri zizkioten** (5); **igorri zuela** (4); **igorri zuen** (98); **igorri zuen atzo** (6); **igorri zuten** (37)

**bat igorria** (10); **igorria izan** (26); **igorria izan zen** (4); **igorria izanen** (9); **igorria izanen da** (7); **igorria zuen** (6); **igorriak dira** (4); **igorriak eta** (4); **igorriak izan** (19); **igorriak izan ziren** (6); **komunikabideei igorri** (5); **komunikabideei igorri prentsa** (4); **lasaitasun mezua igorri** (12); **mandatariak igorri** (10); **mandatariak igorri zizkion** (4); **mattin megadendara igorri** (4); **megadendara igorri** (4); **megadendara igorri uztailaren** (4); **mezu bat igorri** (11); **mezua igorri** (26); **mezua igorri nahi** (6); **mezua igorri zion** (6); **mezua igorri zuen** (8); **mezulariak igorri** (10); **mezulariak igorri zizkion** (6); **oharra igorri** (8); **onu erakundeak igorri** (4); **postaz igorri** (4); **prentsa oharra igorri** (4); **txosten bat igorri** (4); **txosten igorri** (4); **txostena igorri** (6)

**bat igorriko** (14); **bat igorriko du** (4); **batera igorriko** (5); **baterat igorriko** (4); **batzordera igorriko** (6); **eskubideen batzordera igorriko** (4); **espainiako gorteetara igorriko** (4); **gorteetara igorriko** (4); **harat igorriko** (4); **igorriko da** (5); **igorriko die** (5); **igorriko dio** (7); **igorriko diote** (4); **igorriko ditu** (12); **igorriko dituzte** (12); **igorriko du** (19); **igorriko dute** (13); **igorriko ote** (4)

**atzo igorritako** (14); **atzo igorritako prentsa** (6); **bat igorriz** (18); **bat igorriz ez** (9); **berriara igorritako** (7); **cv bat igorriz** (9); **hedabideetara igorritako** (17); **hedabideetara igorritako prentsa** (12); **igorritako agiri** (8); **igorritako agirian** (8); **igorritako bideo** (5); **igorritako bideo batean** (4); **igorritako eskutitzean** (5); **igorritako gutun** (12); **igorritako gutun batean** (5); **igorritako gutuna** (6); **igorritako gutunak** (7); **igorritako gutunean** (8); **igorritako informazioaren** (8); **igorritako informazioaren arabera** (8); **igorritako mezu** (4); **igorritako mezua** (4); **igorritako ohar** (11); **igorritako ohar baten** (5); **igorritako oharrean** (6); **igorritako prentsa** (32); **igorritako prentsa ohar** (7); **igorritako prentsa oharrak** (6); **igorritako prentsa oharrean** (14); **igorritako txosten** (6); **igorritako txostenean** (5); **igorriz ez** (10); **igorriz ez ahantz** (9); **komunikabideei igorritako** (6); **komunikabideei igorritako prentsa** (5); **komunikabideetara igorritako** (4)

**bat igortzea** (8); **bat igortzeko** (8); **ez igortzea** (7); **igortzea erabaki** (8); **igortzeko erabakia** (5); **igortzeko eskatu** (4); **igortzeko prest** (4); **mezua igortzeko** (4)

**bat igortzen** (31); **bat igortzen dio** (5); **batera igortzen** (11); **batzuk igortzen** (4); **berriz igortzen** (4); **da igortzen** (4); **ere igortzen** (4); **eta igortzen** (8); **gutun bat igortzen** (4); **honekin batera igortzen** (6); **igortzen ahal** (7); **igortzen ahalko** (4); **igortzen da** (5); **igortzen den** (4); **igortzen dio** (7); **igortzen dion** (6); **igortzen diren** (4); **igortzen ditu** (9); **igortzen dituen** (13); **igortzen ditut** (4); **igortzen dituzte** (12); **igortzen dituzten** (9); **igortzen dizkizut** (6); **igortzen dizudan** (6); **igortzen dizut** (11); **igortzen du** (15); **igortzen duen** (11); **igortzen dugu** (5); **igortzen dute** (10); **igortzen duten** (5); **igortzen eta** (4); **igortzen ez** (4); **igortzen zidan** (4); **igortzen zituen** (9); **igortzen zituzten** (10); **igortzen zizkion** (9); **igortzen zuela** (4); **igortzen zuen** (12); **igortzen zuten** (4); **postaz igortzen** (5)

---

## igortzaile *iz* igorlea.

Hartara, **igortzailea** eta jasotzailearen arteko harremana askoz ere estuagoa da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Mezuaren hizkerak zer pentsatua eman zidan: hartzailea "hi"ka tratatzen zuen, eta **igortzailea** gehiegikeria nabarmenez baliatzen zen eskolako solas-jolasetako hitz zaharkituez, hogeita bost urte haiek iragan ez balira bezala. Juan Garzia

---

## igortze *iz* bidaltzea.

Hain **igortze** lasterrak ezin adierazizko neurriraino poztu zuen. Jose Morales

Halabeharrez bazter hartara behako soil bat **igortze** hutsak ez ote zidan bet-betan suntsituko hain artoski eginiko lanaren emaitza. Jon Muñoz

Nahi gabe berriz ere gutunazala haztatu zuen, barruan **igortze**-oharren bat ahazturik ote zen. Eduardo Matauko

Kanadatiko **igortze** gastuek bikoiztu egiten zuten liburuaren prezioa. Berria - Kultura

---

## igotzaile 1 *iz* igotzen duena.

Han otsoak behar zituzten, hiltzaile seneko zapaltzaile-**igotzaile** errukibakoak, eta gure ingeniari finak ez zituen ezaugarri haiek inola ere betetzen. Jon Arretxe

**2** (txirrindularitzan)

Malda horietan erakusten dute **igotzaileek** euren trebezia. Berria - Kirola

Zer da Hamilton, ordokizalea ala **igotzailea**? Berria - Kirola

Erlojupekoetan, aldiz, **igotzaileek** denbora asko galtzeko arrisku handia dute. Berria - Kirola

Roberto Laiseka eta Alberto Lopez de Munain, aldiz, **igotzaile** petoak dira.

Dena den, artista omen da Lopez, **igotzaile** fin-fina. Berria - Kirola

Birritan saiatu zen, baina Cardenas ere **igotzaile** trebea da, eta itsutu gabe Mayoren gurpilari eutsi zion. Berria - Kirola

**Igotzailea** zen Munain, eta trebea oso kronoigoeretan. trebea erlojupekoetan eta **igotzaile** txukuna. Berria - Kirola

**Igotzaile** aparta dela erakutsi zuen eta iazko mailari eusten badio, berea izan daiteke etorkizuna. Berria - Kirola

Dider Rous (Bouygues Telecom) beteranoak marka ezarri zuen atzo, **Igotzaileen** Sarian nagusitu ondoren. Berria - Kirola

Discoverykoak ibilbidearen ezagutzea zuen alde, Parrak **igotzaile** sena. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ere igotzaile** (3); **eta igotzaile** (4); **igotzaile aparta** (5); **igotzaile peto** (4); **igotzaile petoa** (6); **igotzaile petoa da** (4)

---

## igotze *iz* toki batetik, gorago dagoen beste batera joatea.

**Igotze** bat senditzen da. Herria

Bere **igotze** espiritualen bidez. Askoren artean

Langabezia **igotze** horrek 16 eta 24 urte bitartean dituzten lau gaztetik batean izan zuen eragina. Berria - Ekonomia

Gogoan izanik uhin horiek presio **igotze** eta jaiste erregularrak direla. Lourdes Oñederra

Hots ozenagoa, presio **igotze** eta jaiste bortitzagoak gertarazten dituena. Lourdes Oñederra

---

## igotzeke *adlag* igo gabe.

Diru politikari buruz, interes tasen igoerak ez direla urgentziazkoak uste du erakundeak, eta Cotisek tasak **igotzeke** jarraitzen duten Japoniako eta Europako banku zentralen jokaera hobetsi zuen. Berria - Ekonomia

---

# igual *(orobat* **igoal***)* 1 *adlag* berdin.

Beti **igual** ! Antton Olano

Aurtengo denboraldian estreinatu da Lehen Mailan, baina **futbola** iguala da maila guztietan. Berria - Kirola

Geneak **igualak** dira. Berria - Gaiak

Zer grazi leukake ba, munduak, denok **igoalak** bagina?' Denak **igualak** dira: andrea ez beste emakume guztien atzetik gau eta egun. Xabier Mendiguren Elizegi

Jonki puta guztiak **igualak** dituk. Patxi Iturritegi

Gizonen aurrean, **igualen** artean, beste arrei, norberaren baliokideei erakusteko ehiza. Lourdes Oñederra

· Nirea da, eta ez dut aldatu nahi, baina ez da nire **iguala** . Arantxa Iturbe

**2** beharbada, agian.

**Igual** ez duk hain zatarra izango... Pablo Sastre

**Igual** ez da kapitaina izango, **igual** kontramaisua izango da. Joseba Sarrionandia

**Igoal** euria egingo du, **igoal** ez du egingo... a zer nolako iragarpena! Pello Zabala

**Igual** hartuko dut bainu bat. Koro Navarro

Floridako hondartzaren batera joango da **igual** hiltzera... Joseba Sarrionandia

Gaizki hezitako gizabere traza **igoal** hartuko zenidan, gaur zortzi, txoko honetan bertan puzker kontutan ari nintzela. Patziku Perurena

Orduan, goazen 'Turgeniev' aurrean dagoen parketxora, han **igual** pillauko dinagu zerbait. Pako Aristi

Everest da mendi handi-handia, handienetakoa **igual** . Unai Elorriaga

Hi baino askoz zaharragoa duk, hamar urte zaharragoa **igual** . Matías Múgica

Etxera joango nauk, **igual** . Pablo Sastre

Ohitura-falta izango da **igual** . Xabier Mendiguren Elizegi

Edo **igual** bai. Xabier Mendiguren Elizegi

Beranduago **igual,** bai. Unai Elorriaga

Eta ziklistak berandu heltzen zirela beti, batez ere udan, eta itxaroten egon beharko zuela, berrogeita hamar minutu **igual,** eguzkipean. Unai Elorriaga

Hobe dugu isilik egon, bestela kendu **igual** egingo digute lehen emana. Joxerra Garzia

**3** ***igualeko***

Gero, **igualeko** kopurua egiteko bildu beharreko diamante kilo kopurua kalkulatzen saiatu zen. Harkaitz Cano

Hiruzpalau zakur madarikatu harrapatu behar zituen **igualeko** kopurua lortzeko. Harkaitz Cano

· *(ironiazkoa)* Zuen ondoan **igualeko** lasaitasunean bizi ginen gu! Arantxa Iturbe

**Igoaleko** parajetan bizi gara... edo ez? Pello Zabala

**Igoalekoak** ziren lehengo garaiak oraingoen aldean. Anton Garikano

**4** ***igualekoxe***

"Udaberria **igualekoxea** izaten da", pentsatzen du guztiz itsutzen ari dela sentituz. Gernika **igualekoxea** zuan guretzat: ihesi zetorren jendearen bilgune eta pasalekua; Bilborantzako joan-etorrien nobedadea. Pako Aristi

**5** ***igual-igual*** *izond* berdin-berdina.

Eta egunak joan egunak etorri, denak **igual-igualak,** elkarrengandik bereizezinak. Jon Alonso

Bi soinujoleen aurpegiko keinua, irribarre lotsati moduko bat, **igual-iguala** da. Pako Aristi

**Igoal-igoalak** dituk biak. Alberto Barandiaren

Bizkarreko lekedak indarra galdu eta orri batzuk erortzeko zorian daudela; bestela **igual-iguala** dago. Pako Aristi

· *(-en atzizkiaren eskuinean)* Arrebaren **igual-iguala** gainera. Pablo Sastre

-Ea... ene! Ze polita! Amaren **igual-iguala..** . Arantxa Iturbe

Vassia ez zen ausartuko... hala ere, haren **igual-iguala** da! Pablo Sastre

Nire asteazkenetan hemen izaten zunan beti, **igual-igual** eguraldi txarrarekin eta eguraldi onarekin. Koro Navarro

Azken denboraldietan **igual-igual** dabil, eta... Berria - Kirola

Baterako edo besterako **igual-igual** balio dezakeena. Koro Navarro

Ni ez naiz sekula hemen izan eta **igual igual** bizi naiz. hari ezkerretara zein eskuinera eman, **igual-igual** pizten zen argia. Pako Aristi

Ilda ordurako ez zen bizi Palestinan, baina **igual-igual** segitzen zuen hartaz mintzatzen. Fernando Rey

**6** ***igual-igualeko*** *izond*

Eta ahaztua ninan benetan, harik eta pelikula hori ikusi genuen arte, horko mutil hori **igual-igualekoa** baita, haren erretratua bera. Xabier Mendiguren Elizegi

Maindire artean gizon-emakumeek egiten dutena eta bi gizasemeren artekoa ez baitira **igual-igualekoak** baina bai elkarren antz handikoak. Xabier Mendiguren Elizegi

**7** ***igual izan*** dio *ad*

**Igual** ziok, ijitoen erregearen semeak baldin badira ere, Piperrak ederra sakatuko ziek. Pablo Sastre

**Igual** zaidak, ba, utziok, gau bategatik... Pako Aristi

· Ba, **igual** zaio, badakit ordu hauetan mundu-konponketa alfer asko egin ohi dela. Pako Aristi

· du *ad* Izena ez dut maite, bainan **igual** du! Menane Oxandabaratz

Soldado zen norbaitek ez zuen, hola, kazeta batean -izanik ere frantsesez edo euskaraz, **igual** du- idazteko dretxorik. Menane Oxandabaratz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bai igual** (3); **baina igual** (10); **bat igual** (3); **bestela igual** (3); **beti igual** (3); **da igual** (9); **denak igualak** (4); **du igual** (4); **duk igual** (3); **edo igual** (5); **edo igual bai** (3); **ere bai igual** (3); **eta igual** (24); **eta igual ez** (3); **eta igual igual** (7); **igual bai** (15); **igual beste** (3); **igual bizi** (5); **igual bizi naiz** (5); **igual du** (4); **igual egingo** (3); **igual ez** (29); **igual ez da** (6); **igual hasiko** (5); **igual hori** (4); **igual igual** (17); **igual igual bizi** (5); **igual iguala** (8); **igual iguala** (8); **igual iguala da** (3); **igual iguala da** (3); **igual igualak** (6); **igual igualak** (6); **igual izango** (12); **igual izango da** (8); **igual pentsatuko** (3); **igual uste** (3); **igual zaio** (3); **igual ziok** (5); **iguala da** (4); **igualak dira** (3); **izan eta igual** (4); **izango da igual** (4); **zen igual** (4); **zuen igual** (3)
>
> **eta igoal** (3); **igoal dio** (3); **igoal ez** (4); **igoal igoal** (4)

---

# igualitario *izond* igualitarismoaren araberakoa.

Hegemoniak balio berdinen kate demokratikoaren zabalkuntza **igualitarioa** du bere logika. Joseba Zulaika

Arazoa ez da teknikoa, arazoa egungo indar politiko eta sozialen oreka da, errenten banaketa **igualitarioaren** erabat kontrakoa dena. Iñaki Heras

Herrialde aberatsenak dira **igualitarioenak,** alegia, aberastasuna hobeto banatzen dutenak. Iñaki Heras

Zaila da esaten, noski, kausalitatearen noranzkoa nolakoa den: aberastasun handiagoak ahalbidetzen ote duen banaketa ekitatiboagoa, edo aitzitik, banaketa **igualitarioak**

ahalbidetzen duen hazkunde handiagoa. Iñaki Heras

Agian, garrantzitsuena, bikotea eta familia ulertzeko modu berria izan zen, **igualitarioagoa,** mendekotasuna kolokan jartzen zuena. Ana Urkiza

Bost erakundeek «modu **igualitarioan»** hitzartzen zituzten erabakiak, eta gero erakunde bakoitzak bere erabakiguneetan berretsi. Berria - Euskal Herria

---

## igualitarismo *iz* gizakien berdintasun sozial eta politikoaren aldeko joera.

Euskal Herri malenkoniatu eta esentzializatu baten edukiak ez dira falta: pertsonalismoa, **igualitarismoa,** demokrazia popularra, emakumearen papera ordena tradizionalean, eta abar. Joseba Zulaika

---

## igualitarista 1 *izond/iz* igualitarismoaren aldekoa.

Euskal Herri tradizionala **igualitarista** izan ei da. Joxe Azurmendi

**2** *iz* igualitarismoaren aldeko pertsona.

**Igualitaristen** aburuz desberdintasunak ez dira bidezkoak. Iñaki Heras

Liberal klasikoek, aldiz, askatasun pertsonala defenditzen zuten eta **igualitaristen** ideiak kritikatzen zituzten, etorkizuneko utopia baten izenean giza askatasuna ukatzen zutelakoan. Berria - Kultura

---

## igualtsu *(orobat **igoaltsu**)* 1 *izond* berdintsua.

Produktu baten antzekoa da hurrengoa, eta **igualtsua** denen funtzioa. Unai Elorriaga

Ume guztiak **igualtsuak** direla esaten du ama den lagun batek. Denborarekin jabeek beren zakurren antza hartzen dute, edo alderantziz, **igualtsu** da. -Tira, **igualtsu** dun, ez? Arantxa Iturbe

Ez zeukan errezetarik, baina **igualtsu** zen, plaka atera eta ez zioten eragozpenik jarri. Harkaitz Cano

Atera ditiat mahai gainera eta denak **igualtsuak** iruditzen zaizkidak. Andoni Egaña

Bidaia hori egin beharra dauka, eta **igualtsu** zaio norekin joan. Anton Garikano

• **2** *adlag* berdintsu.

Militarrak eta mugazainak nahasten diren denbora honetan, biak **igualtsu** tratatzen ditut nik, zakur zahar amorratua baino hobekiago ez. Pablo Sastre

Emazteari eta alabei buruz galdetu zidan, eta **igoaltsu** ekarri zituen hizpidera eskola garaiko zein soldadutzako kontuak; nire bizitza nik baino hobeto ezagutzen zuela zirudien. Iban Zaldua

Zama publikoak **igualtsu** partitzeak lagundu egiten du bakea gordetzen. Esteban Antxustegi

Bortxazko egoerak baino ez ditugu ezagutu nire belaunaldikook; eta aurrekokoek ere, **igualtsu**. Berria - Harian

Nafarroan **igoaltsu:** beren ariman erroturiko ohiturak eta sineskerak koplatuz herria bozkariotan ipinten zuen trobadorea zen bardoa. Patziku Perurena

---

## igualtxo *izond*

Sagardoa tipo bakarrekoa da, **igualtxoa** denetan, eta prezio berbera du onak eta txarrak. Edorta Agirre

---

## iguana *iz* Hego Ameriketako narrasti isats-luzea *(Iguana iguana).*

Hortxe dago Goio, leihotik begira, **iguana** bat egongo litzatekeen moduan. Joseba Sarrionandia

Harresi erdi eroriaren arrailduran **iguana** bat ikusi dut, harresiarekin eta arraildurarekin mimetizatua, hazizurriak dituela eta gargarak egiten. Joseba Sarrionandia

Eguzkipean erdi-lo dagoen **iguana** dirudizu. Eider Rodriguez

Bera **iguanak** harrapatzera joan da. Joxe Austin Arrieta

Ohetik eguzkitara eta eguzkitatik ohera, **iguanak** bezala. Joan Mari Irigoien

Gure pasaporteak eskuan ditu, **iguana** eskuaren antzeko bere eskuan. Joseba Sarrionandia

Bere **iguana** eskuaz alabaren ilea laztantzen ari da eta ni ez naiz ezer esateko gauza. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iguana bat** (3)

---

## igurai *(orobat **igurain** g.er.)* *iz* basoak zaintzen dituen pertsona.

Aita **igurai** aritzen zen. Matías Múgica

Imajina zazue denak bezalako **igurai** ilehori bat, **igurai** lanean usatzen den arroparekin, eta hortxe duzue aita begien aurrean. Matías Múgica

Golubtxik **iguraia** berehala atera zen kanpora. Matías Múgica

Ixileko ehiztariak **iguraina** hiltzen duenian. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **golubtxik iguraia** (3)

---

## igurika 1 *adlag* zain.

Yankiak noiz hurbilduko labana zorroztuta leizean **igurika** zeuden gerlari nipon haietarik bat. Koldo Izagirre

Ondoko goizean, tropa urriak **igurika** egoteak aski iraun zuela jujatu eta herria setiatu zuenean, bi gizonen hilotzak, barrabilak ahoan trebes, egurrean gurutzefikatuak kausitu zituzten. Itxaro Borda

Jendea zerbaiten **igurika** denean, begiratzekoa da. Piarres Aintziart

**2** ***igurikan*** igurika, zain.

Viktor Iushtchenkoren bitoriaren menturan, abenduaren 26an berriz emanen diren bozen **igurikan** daude. Herria

Ama [...] kanpoan da **igurikan**. Jose Angel Irigaray

---

## igurikapen *iz* igurikatzea; itxaropena.

Atzera utzia zuen mutilzahar itsuaren bizitza beti-batekoaren martxa; **igurikapen** -presio izugarri baten pean zegoen; eta ikustea bera ere nahasgarri eta leher-eragingarri zitzaion. Xabier Olarra

Honela, Malthusen **igurikapen** betetze postumoa iragartzean, halaber, [...] planetako biztanleria osoaren oinarrizko premia materialak asetzeaz aginte ekumenikoren batek arduratu beharko lukeela ere iragartzen dugu. Iñaki Mendiguren

Inortxok ere ez zekiela gizon ezkongabe harengan ezarri zituen **igurikapenen** berri. Joxan Elosegi

---

**igurikatu**, igurika, igurikatzen *(307 agerraldi, 27 liburu eta 197 artikulutan (horietako 171 Herria astekarian) )* **1** du *ad* espero izan. ik **iguriki.**

Kinka batean, gauzak arrunt kanbiatu baitziren enetzat, holakorik ez nuelarik batere **igurikatzen** . Janbattitt Dirassar

Hainbestenarekin, berri on bat jin zitzaidan, ez nuena **igurikatzen:** [...]. Janbattitt Dirassar

Hamar bat izen-orde baziren lerroan baina ez **igurikatzen** zuen hura... Janbattitt Dirassar

Gehiago diot; ez ezazu batere plazerrik **igurika** . Jon Muñoz

Hire makila ferratuarekin emaiok **igurikatzen** duen zafraldia! Itxaro Borda

Medailarik **igurikatzen** zuenez? ez baitezpada. Itxaro Borda

Inork ez zuen zorotzat hartuko, erregerengandik horien heineko esker ona **igurikatzen** bazuen. Aingeru Epaltza

Frontetik berri onak heldu zirela, bitoria **igurikatu** behar zela. Michel Oronoz

-Nigandik deus ez **igurika,** gero. Elena Touyarou

**2** zain egon, itxaron.

Erantzuna **igurikatu** gabe, gizonaren besotan kuxkurtu zen. Itxaro Borda

Otsabiden **igurikatzen** naute bazkariteko. Itxaro Borda

Thierryk egunaren altxatzea **igurikatzen** zuen. Itxaro Borda

Beltzez jantziriko eta urrez koroaturiko gizonak bere tronuan **igurikatzen** zuen meteoroaren etorrera. Juan Garzia

Hemen **igurika** ezazue. Itxaro Borda

Moisesek bezala, laino hartatik **igurikatzen** nuen nik neure legea, neure baitako, neure inguruko eta mundu osoko ordena. Juan Garzia

Azkenean bide beretik etxera itzuli ziren hain aspaldian **igurikatzen** genituen gure herritar presoak, ihesliarrak eta gerlari ohi berriak. Piarres Xarriton

Ez nuen pentsatu nahi **igurikatzen** gintuen errealitate lazgarriari. Daniel Landart

Doi bat **igurikatzen** ahal baduzu, meza bururatu orduko abisatuko dut. Marzel Etxehandi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ainitz igurikatzen** (3); **ainitz jende igurikatzen** (4); **arte igurikatu** (4); **bat igurikatu** (4); **bat igurikatzen** (7); **denek igurikatzen** (6); **ere igurikatzen** (4); **eta igurikatzen** (4); **gehiago igurikatzen** (4); **igurikatu behar** (14); **igurikatu beharko** (10); **igurikatu beharko da** (3); **igurikatu eta** (4); **igurikatu gabe** (9); **igurikatu zuten** (3); **igurikatua da** (5); **igurikatua zen** (3); **igurikatuak dira** (15); **igurikatuak diren** (3); **igurikatuak ziren** (3); **igurikatzen ahal** (10); **igurikatzen ahalko** (3); **igurikatzen baitute** (3); **igurikatzen baitzuen** (3); **igurikatzen ditu** (5); **igurikatzen dituzte** (3); **igurikatzen duen** (5); **igurikatzen dute** (12); **igurikatzen duten** (5); **igurikatzen ez** (3); **igurikatzen ginuen** (8); **igurikatzen nuen** (4); **igurikatzen zuen** (10); **igurikatzen zuten** (18); **igurikatzen zutena** (4); **jende igurikatzen** (8); **jende igurikatzen dute** (5); **laguntza igurikatzen** (3); **urte igurikatu** (4); **zer igurikatzen** (5)

---

**igurikatze** *iz* itxarotea.

Horra beraz zergatik zuzen den Erroman egitea auziaren epaia, han ez baita artzapezpikuaren ondoriotasunaren **igurikatze** luzerik, ez laburrik. Piarres Xarriton

---

**iguriki**, igurikitzen *(197 agerraldi, 16 liburu eta 3 artikulutan)* **1** du *ad goi* espero izan. ik **igurikatu.**

Erantzun didate ezen irakurle zentzudun orok hain segur **igurikiko** zukeela partikular batzuen gutun bilduma batean hutsegiterik kausitzea. Jon Muñoz

Pentsatu zuen, halako egoera batean, atsekabeak jotakoari zegokion itxura zabarra ager zezan **igurikiko** zuela Whittaker andreak Mirentxu Larrañaga

**2** zain egon, itxaron.

Ez dakit nire gutuna noren bidez igorri: beraz Joséphine etorri arte **igurikiko** dut. Jon Muñoz

Eta espero nuen bertan **igurikiko** ninduela, han bertan atzemanen nuela. Daniel Landart

Beraz, atea ixten ikusi eta minutu pare bat **iguriki** du txirrina jo artean. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **arte iguriki** (3); **arte igurikiko** (4); **dut igurikitzen** (5); **eta igurikitzen** (4); **eta igurikitzen dut** (3); **ez dut igurikitzen** (4); **ezin iguriki** (3); **gutien igurikitzen** (3); **iguriki behar** (5); **iguriki behar izan** (4); **igurikiko balu** (3); **igurikiko balu bezala** (3); **igurikiko dut** (4); **igurikitzen dudan** (5); **igurikitzen dudan bezala** (3); **igurikitzen dut** (24); **igurikitzen dut ez** (4); **igurikitzen ez** (6); **igurikitzen nuen** (14); **luzaz iguriki** (3); **nik iguriki** (3); **onik iguriki** (3)

---

**igurikimen** *iz* igurikitzea, itxaropena. ik **igurikipen.**

Eta sekula ez zuten kikildu heriotzaz haraindiko **igurikimenek** ere. Mirentxu Larrañaga

Raymonden **igurikimena** ezti aho-gozagarria bezalakoxea zen. Mirentxu Larrañaga

Bazerien **igurikimen** -kutsu halako bat, desatsegina ez zen urduritasun apur bat, atze-oihala igo zain daudenei antzeman ohi zaiena bezalakoa. Mirentxu Larrañaga

---

**igurikipen** *iz* igurikitzea, itxaropena. ik **igurikimen.**

Sekula ez zion erantzun emaitzak bere **igurikapenari** . Juan Garzia

Orobat dio ezen orainak baino asetzen ez duenak estu hartzen dituela gauzen emaitzak, zeren bai baitago plazerik etorkizuneko gauzetan, baita iraganekoetan ere, batean **iguripenagatik,** oroitzapenagatik bestean. Imanol Zurutuza

---

**igurtzaile** *iz* aipatzen dena igurzten duen pertsona.

Baldin haatik ohartuko balitzaizkio, dudarik gabe erraiezu gazteluko zoru- **igurtzailea** izan dela. Jon Muñoz

---

**igurtzaldi** *(4 agerraldi 3 liburutan; ETCn 6 agerraldi; orobat* ***igurtzialdi*** *14 agerraldi, 10 liburu eta artikulu 1ean; ETCn 31 agerraldi)* *iz* igurtzia.

Begiak igurtzi zituen badaezpada ere, zakar eta sasoiz, loaren orratzak kentze aldera, baina **igurtzaldiak** ez zion hark espero zuen fruiturik eskaini, eta begizuloak gorri-gorri

utzi zituen. Karlos Linazasoro

Eta muxu luze eta **igurtzialdi** bortitzean galtzen dira Xabiren mihi-eskuak. Xabier Mendiguren Elizegi

Oi!, zergatik ez nintzen negar-malkotan urperatu bertan, neure larriari ur horrez **igurtzaldi** bat emateko? Juan Garzia

Bizitzak zuetako bakoitzari eman dizuen **igurtzialdi** sentimentala, hori bera da zuen arteko aldea. Pako Aristi

Tango baten boladak eta ahots-aieruak zetozkien, baita oinek dantzagunean egindako **igurtzialdiak** ere. Lopez de Arana

Edertzeko igurtziak hartzen igarotzen zuten denbora hori: mirra-oliozko **igurtzialdiak** hartzen zituzten lehen sei hilabeteetan eta [...] lurrin eta usain gozozko **igurtzialdiak** hurrengo seietan. Jose Antonio Mujika

Gerrietan izan dut zartakoren bat edo beste, baina masaje-**igurtzialdi** pare bat hartu eta segi lanean. Berria - Kirola

Aski maitekorra eritzitako bizkar-**igurtzaldi** batez agurtu zuen. Josu Landa

Tarteka algararen bat, makurtu bat egiten du, edo esku-**igurtzialdi** sail bat, alboetaranzko kulunkak nahiz irribarre misteriotsuak. Xabier Olarra

---

# igurtzalditxo *iz* igurtzi laburra.

Inaxiri **igurtzalditxo** batzuk eman zizkion lepoan agur legez, baina andreak masaia bat zela pentsatu zuen, eta erdi intzirika esan zion ahapetik, "zuk dituzu eskuak, Mentxu, zuk...". Josu Landa

---

# igurtzi[1], igurtz, igurzten *(orobat **igurtzen** g.er.)* **1** du *ad* zerbaiti, bere gainean behin eta berriz halako indarrez igaroarazten den beste zerbaitez eragin. ik **torratu**; **marruskatu**; **ferekatu.** (gorputz alderdiak)

Behin eta berriro **igurtzi** zuen gorputza xaboiaz, behin eta berriro murgildu zen uretan. Bernardo Atxaga

Olioa ere eman zion, zerbitzariek gorputza **igurtz** ziezaioten. Juan Kruz Igerabide

Egidazu putz, **igurtz** nazazu, atera iezadazu distira. Iñaki Iñurrieta

Begiak **igurtzi** zituen kearen eraginagatik. Anjel Lertxundi

Eskuak **igurtzi** ditu. Koldo Izagirre

Galtzetan **igurtzita** garbitu nituen eskuak. Koldo Izagirre

Sudurra ukabilaz **igurtzi** ondoren. Lopez de Arana

Mitxelenak esku urduri batez **igurtzi** zituen ezpainak. Alberto Ladron Arana

Barruko bultzadari men eginik, ilea **igurtzi** zion Léak Maxi. Jon Muñoz

Reb Alter, bizarra **igurtziz,** hizketan hasi zitzaion Ansheli: […]. Koro Navarro

Izekok besoak eta hankak fuerte **igurtzi** behar izan zizkion, eta aurpegi osoa garbitu benda batekin. Alberto Barandiaren

Neska baldin bada, klitoria **igurtzi**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Katutxoek bizkarra **igurzten** zuten Joxe Mariren hanken kontra. Juan Kruz Igerabide

Nestorren alaba gazteenak Telemako garbitu zuen eta olioz **igurtzi**. Juan Kruz Igerabide

Kerosenoz **igurtzi** eta bizirik erre zuten. Gotzon Garate

Gaixorik dudan alderdia eskuz **igurtzi** eta sendatuko zidala legena. Elizen arteko biblia

Jaunaren atzean zegoela, oinen ondoan, malkoz bustitzen hasi zen, eta buruko ileez txukatzen, eta oinak muinkatzen eta ukenduz **igurtzen**. Patxi Altuna

Nik **igurtzi** eta **igurtzi** jarraitzen nuen, orain begiak itxita nituen, nire orgasmoa baitzen ardura zitzaidan gauza bakarra. Juan Martin Elexpuru

Gantzu eta usain goxo merkez **igurzten** dituzte beren buruak. Gotzon Garate

**2** (gauzak)

Paul D-k kikararen ertza **igurtzi** zuen. Anton Garikano

Gizon hura bere erpuru zabalaz aizkora distiratsu baten xafla **igurzten** ari zela ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Kobrezko plater asko genituen, amak astero **igurzten** zituenak. Koro Navarro

Tomate helduekin eta oliba olioarekin **igurtzitako** ogi zatiak. Berria - Kultura

Eztiz **igurtzitako** opil bat hartu, eta ahoan jarri zion Andreasek. Anjel Lertxundi

Atsoak ogi puska bat hartu, eta koipe eta piperrautsez **igurtzirik,** zakur bati emateko usadioa hartu zuen. Patxi Zubizarreta

Haritz ezpalak bata bestearen kontra **igurtziz** eta gorituz su berria lortzen zuten. Pello Zabala

"Babarrunak **igurzteak"** babarrun tantodun lizunduak txukuntzea nahi du esan hemen. balearen gantzarekin **igurzten** zituen bere botak eta nire senideenak. Josu Zabaleta

Arkua berotu eta gantzaz **igurtziko** diagu. Juan Kruz Igerabide

Elkarren arteko junturak olioarekin nahastutako kare biziarekin **igurtziko** dira. Santiago Iruretagoiena

Aleak eskobatu, eta garbitzeko zapiaz **igurtzi** zuen zorua. Jon Muñoz

Kontua [lapikoa] espartzu egokiarekin **igurztea** da. Iñaki Iñurrieta

Lurra eskobatzen zuen eta argizariz **igurzten**. Koro Navarro

Eraztuna edo lanpara **igurtzi,** eta jeinua azaltzen da. Bernardo Atxaga

Ihiek elkar **igurztean** ateratzen zuten hotsa eta ibaiaren zarata makurra entzuten. Josu Zabaleta

Batzuetan garraren distira bizia lehertzen da, adarrek eta enborrek elkar **igurzten** duten bitartean. Xabier Amuriza

Hitz jolasguratuak elkarrekin gertatzen dira jendeen aho-mihitan, elkar **igurzten** dute, adiskidetuz eta haserretuz orobat. Iñaki Segurola

**3** *irud*

Artean egin gabe zegoen "Poeta Hilen Kluba" delako filma, baina gu ere halako dohain batek **igurtzirik** sentitzen ginela esan liteke. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** *adkor* (kargu publiko bat) erosi.

Senarrak eta beraren etxekoek -emaztea erre, urkarazi edo irato egin badute-, epailea, medikua eta polizia **igurtzi** egiten dituzte, emazteak bere buruaz beste egin duela esan dezaten. Gotzon Garate

Auzia gaizkiagotuz gero, gaizkileak polizia mila pezetako batzuez **igurtzi** eta kito. Gotzon Garate

Euren kontra «diruz ongi **igurtzita»** arituko direla, eta hurrena Alevesekin ez direla ahalegin betean arituko esan zuen. Berria - Kirola

**5** (era burutua izenondo gisa)

Eta bainila txokolatezko katilu batean bustitako ogi gurinez **igurtzi** batez betetzen. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldiz igurtzi** (3); **aurpegia igurtzi** (8); **aurpegia igurtzi zuen** (5); **batek igurtzi** (4); **batekin igurtzi** (3); **batez igurtzi** (11); **begiak igurtzi** (48); **begiak igurtzi eta** (6); **begiak igurtzi nituen** (3); **begiak igurtzi zituen** (23); **bizkarra igurtzi** (3); **burua igurtzi** (5); **elkarren kontra igurtzi** (4); **eskuak igurtzi** (26); **eskuak igurtzi ditu** (3); **eskuak igurtzi eta** (3); **eskuak igurtzi zituen** (16); **eskuaz igurtzi** (4); **eta aurpegia igurtzi** (3); **eta begiak igurtzi** (7); **eta eskuak igurtzi** (9); **eta galtzetan igurtzi** (5); **eta igurtzi** (29); **eta igurtzi egin** (4); **eta igurtzi eta** (3); **eta olioz igurtzi** (3); **galtzetan igurtzi** (6); **galtzetan igurtzi zuen** (5); **gogor igurtzi** (3); **gozoz igurtzi** (3); **gurinez igurtzi** (3)

**igurtzi arin** (3); **igurtzi arren** (3); **igurtzi arte** (3); **igurtzi batzuk** (7); **igurtzi behar** (8); **igurtzi behar izan** (3); **igurtzi ditu** (16); **igurtzi du** (7); **igurtzi egin** (11); **igurtzi egin zituen** (5); **igurtzi egiten** (8); **igurtzi eta** (78); **igurtzi eta igurtzi** (14); **igurtzi nion** (4); **igurtzi nituen** (7); **igurtzi nuen** (6); **igurtzi ondoren** (14); **igurtzi zidan** (5); **igurtzi zion** (11); **igurtzi zituen** (80); **igurtzi zituen begiak** (6); **igurtzi zituzten** (3); **igurtzi zizkion** (9); **igurtzi zuen** (59); **igurtzi zuen distira** (3); **igurtzi zuen gorputza** (3)

**adarrak igurtziko** (7); **adarrak igurtziko ditu** (6); **erpuruak igurtziko** (4); **erpuruak igurtziko ditu** (4); **ertzeko adarrak igurtziko** (7); **igurtziko dira** (3); **igurtziko ditu** (12);

igurtziko du (4); ilea igurtzi (3); jesus ukenduz igurtzi (3); klitoria igurtzi (3); kontra igurtzi (15); kontra igurtzi zituen (3); kontra igurtzi zuen (4); kopeta igurtzi (3); lepoa igurtzi (4); lokiak igurtzi (3); oineko erpuruak igurtziko (4); olioz igurtzi (12); olioz igurtzi eta (3); ondo igurtzi (3); ongi igurtzi (3); txiki batez igurtzi (3); ukenduz igurtzi (8); usain gozoz igurtzi (3)

begiak igurtzitzen (4); begiak igurtziz (7); bestearen kontra igurtziz (3); bizarra igurtziz (3); eskuak igurtzitzen (3); eskuak igurtziz (15); eskuak mantalean igurtziz (3); igurtzitzen ari (11); igurtzitzen ari zen (8); igurtzitzen hasi (4); igurtzitzen hasi zen (4); igurtziz edo (3); igurtziz edo neurtuz (3); igurtziz eta (7); igurtziz gero (3); kontra igurtziz (10); mantalean igurtziz (3); sabela igurtziz (3)

batez igurzten (5); begiak igurzten (9); begiak igurzten ditut (3); bizkarra igurzten (3); bularra igurzten (3); elkar igurzten (5); eskuak igurzten (13); eskuak igurzten ditu (3); igurzteari ekin (4); igurzten ari (26); igurzten ari zela (6); igurzten ari zen (11); igurzten ari zitzaion (3); igurzten dira (3); igurzten ditu (8); igurzten ditut (5); igurzten du (7); igurzten eta (5); igurzten hasi (18); igurzten hasi zen (7); igurzten hasi zitzaidan (3); igurzten hasten (3); igurzten zidan (5); igurzten zituen (11); igurzten zuela (4); igurzten zuen (16); igurzten zuten (5); ilea igurzten (3); ipurdia igurzten (3); klitorisa igurzten (3); kontra igurzten (10); nola igurzten (4); titiak igurzten (4)

---

**igurtzi**[2] **1** *iz* zerbaiti, bere gainean behin eta berriz halako indarrez igaroarazten den beste zerbaitez eragitea.

Hain zen arina, kasik ume batena, musua gehiago **igurtzia** baino. Anton Garikano

Mary Annek **igurtziak** ematen zizkion andreari bizkarrean, beroa eman nahi balio bezala. Bernardo Atxaga

Bere emaztearen masaje eta **igurtziek** mina arintzen zioten. Harkaitz Cano

Izaren **igurtzia** sentitu nuen titiburuetan. Juan Martin Elexpuru

Egoki zizelkatuta eta **igurtzi** askotxoz leunduta. Pello Zabala

Txarolezko zapatei **igurtzi** batzuk eman zizkien bizi-bizi. Irene Aldasoro

Edertzeko **igurtziak** hartzen igarotzen zuten denbora hori: mirra-oliozko igurtzialdiak hartzen zituzten lehen sei hilabeteetan eta [...] bestelako lurrin eta usain gozozko igurtzialdiak hurrengo seietan. Jose Antonio Mujika

Badakigu norberekeriaren gaitza hain errotua dagoela batzuengan, non ebakuntza behar baitu, ez ukenduaren **igurtzia**. Askoren artean

Ingelesez, azentu alemanaren **igurtziarekin,** ingelesez. Lourdes Oñederra

Arras-arras, azken **igurtzia** eman eta amaitutzat eman du arotzak esku-karrila. Harkaitz Cano

Azal gazteago baten **igurtziaz** zeuen ximurrak suntsituko direlakoan. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dakizue ezagutzen egiazko gurariaren usainik eta ez haren **igurtzirik**. Hasier Etxeberria

**2** (izenondoekin)

Beste **igurtzi** on bat emango zienat -esan zuen. Anton Garikano

Burbuilen **igurtzi** atsegina ari nintzen sentitzen nire larruazal guztian. Juan Martin Elexpuru

Eta aurrera mugitu da, atzera eta aurrera, poliki, eta neskaren **igurtzi** sotilak erabat puztu du. Eider Rodriguez

Hozta ukitu zituen, **igurtzi** arin bat baizik ez. Jon Alonso

Hauxe da seguruenik bere bularren **igurtzi** goxoa sentitzen duzun azken gaua. Sonia Gonzalez

Itsaso ezkutuaren **igurtzi** indartsuak kaietako arrastoak garbitzen zituen. Koro Navarro

Espirituaren **igurtzi** salbagarria isuri. Askoren artean

**3** (fonetikan)

Ahots-bidean inolako trabarik jarri gabe, eztarrian **igurtzi** bat sortzeko adina aire botaz gero biriketatik, hasperena sortuko da. Lourdes Oñederra

Airearen bidea ez bada erabat ixten, baina bai **igurtzia** entzuteko nahikoa estutzen, hots igurzkariak ateratzen dira. Lourdes Oñederra

Afrikatuetako hersketa poliki irekitzen da, denbora batez ebakera-organoak elkarrengandik nahiko hurbil daudelarik, tartetik igarotzen den aireak **igurtzi** zarata atera dezan. Lourdes Oñederra

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barruari alkohol **igurtzi** batzuk egitea. Edorta Jimenez

Federik ez zitzaidan itzuli baina, halako kontsolamendu-**igurtzi** moduko bat sentitu nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Iodo **igurtziak,** atsedena, bururdi termikoa, ur berozko poltsak. Josu Zabaleta

Pornografia ote dira aho-**igurtziak**? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Garrantzitsuena harrimena da, barne-**igurtzia**. Askoren artean

Hala ere, bazuten naturaltasun poxi bat, hurrenez hurren, helduendako eta haurrendako ene besarkada eta buru-**igurtziek**. Aingeru Epaltza

**5** ***igurtzi egin***

Gizonak, gero, **igurtzi** eta laztan egin zion, emakumearen konfiantza irabaztearren. Felipe Juaristi

Horrelakoetan, hainbeste **igurtzi** egin eta gero, gure azalak distira ere bazuela esango nuke. Jasone Osoro

· Elkarren kontra **igurtzi-igurtzi** egin, estutu eta marruskatu. Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

azken igurtzia (3); eta igurtziak (3)

---

igurtzialdi ik **igurtzaldi**.

---

**igurtzika** *adlag* igurzten.

Su ondoraino joan zen bizkor, eskuak **igurtzika,** txinpartak atera nahi balizkie bezala. Irene Aldasoro

Berak nire gorputza **igurtzika** jarraitu zuen, eta, izterretara heldu zenean gelditu. Juan Martin Elexpuru

Alua kulero gainetik **igurtzika,** begiak zuri. Juan Martin Elexpuru

Eskobak galtzadako lauzetan aztarka eta **igurtzika**. Matías Múgica

Ezkerreko ukabileko hatz-koskorrez ezkerreko begia **igurtzika** eta **igurtzika**. Irene Aldasoro

Ardiak batzuetan zuhaitzen kontra **igurtzika** hasten dira, azkuraren azkuraz. Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

eta igurtzika (5); igurtzika ari (3); igurtzika hasi (3)

---

**igurtziko** *iz* igurtzia.

Isil antza, aspaldiko kontuez aritzen ziren, tarteka marteka elkarren kontra **igurtzikoak** eginez. Pablo Sastre

---

**igurtzimendu** *iz* igurztea.

”Abiadura horretan, aireko molekulekin **igurtzimendu** handia sortzen da eta segundu gutxitan desintegratzen dira; jendeak ikusi zuen zutabea sortzen da horrela, gas beroarekin”, azaldu zuen Bolidoen eta Meteoritoen Ikerketarako Sareko kideak. Berria - Gaiak

---

**igurtzitxo** *iz* igurtzi arina.

Ezer ez, ezer ez, ikara bat ere ez hiri osoan, argitxo bat ere ez, haizearen **igurtzitxo** bat ere ez. **Igurtzitxo** batzuk egiten hasi nintzaionean. Josu Zabaleta

---

**igurzkari** 1 *izond* kontsonanteez mintzatuz, ahots bidea erabat itxi gabe ebakitzen dena.

Esan genezake **igurzkariak,** organo artikulatzaileen artean airea estuegi pasaraztean sortzen den zurrunbiloari dagokion zarata direla. Lourdes Oñederra

Fonema diren bezainbatean, euskarazko **igurzkari** guztiak ahoskabe dira. Lourdes Oñederra

Alofonikoki bakarrik gertatzen dira **igurzkari** ahostunak. Lourdes Oñederra

**Igurzkari** sudurkaria. Isabel Arrigain

Aintzat hartuta [ts] afrikatua osorik hobikaria dela, errazago onartuko dugu ez dela [t] (euskaraz horzkaria dena) "sartzen", baizik /s/ **igurzkariaren** ordez [ts] afrikatua ahoskatzen dela. Lourdes Oñederra

Euskaraz maiztasun handikoak direla **igurzkari** / afrikatu txandakatzeak. Lourdes Oñederra

Hasperena **igurzkaritzat** har daiteke, igurtzi baten emaitza delako azken batean. Lourdes Oñederra

Euskaraz **igurzkari** guztiak maila fonemikoan ahoskabe izatea *fortitio* paradigmatiko baten emaitza da. Lourdes Oñederra

Txistukariak izaten dira nabarmenenetakoak, **igurzkari** indartsu eta entzungarrienetakoak direlako. Lourdes Oñederra

• **2** *iz* gantzua.

Ukendu eta **igurzkariz** betetako mahai bat omen zegoen hormako ispiluaren kontra, eta zetazko bata arin bat ere bai aulki-burua estaliz. Joxean Agirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **igurzkari edo** (3); **igurzkari eta** (4); **s igurzkariaren** (3)

---

**igurzkaritasun** *iz* igurzkaria denaren nolakotasuna.

Ixtea nola isiltasuna eta leherketa den (herskaritasuna), estutzea zarata jarraitua den **(igurzkaritasuna)**. Lourdes Oñederra

---

**igurzketa** *iz* igurtzia, igurztea.

Edertzeko **igurzketak** honela egin ohi ziren: sei hilabetez mirra-olioz, eta hurrengo seietan emakumeek erabili ohi dituzten lurrin eta usain-gozoz. Elizen arteko biblia

Ibrahimen esku-erakutsi eta **igurzketak** esker onez hartzen dituzte. Gotzon Garate

Bihurdura-problemak, **igurzketa** -koefizientea, altzairuaren bibrazioaren eraginezko nekadura eta abar, horiek guztiak nerabiltzan nik orduantxe gogoetan Joxe Austin Arrieta

---

**igurzle** *izond* igurzten duena.

Era berean, zokilen zati bat eurien eraginez desegitera dator eta ibai **igurzleek** bazterrak jaten dituzte. Xabier Amuriza

---

**igurzte** *(corpusean **igurtze** eta **igurtzitze** soilik)* *iz* igurtzia.

**Igurtze** gozoa, sakatzea eta erritmoa -in crescendo- dira plazer lasai baterako edo pasio zoro baterako behar direnak. Luis Elberdin

Zoritxarrez-edo, txikiak zituen begiak, eta, horren ondorioz, denbora izugarri luzea ematen zuen **igurtzitze** -lan horretan. Jose Morales

---

iguzki ik **eguzki**.

---

**ihakin** 1 *iz* norbaiten keinuak edo moldeak antzeratzea, askotan isekaz.

Berau areagotze aldera, beti du datxekion eta komeni zaion irudia eragiten eta behin eta berriz sortarazten, beraz, egokituriko **ihakinak**. Jose Angel Irigaray

Gorputzaren trebetasuna **ihakinetan**. Herria

Gero, ahots goibel **ihakinezko** batez Raleigh-ren "Agur gorteari" lanaren hasierako bertsoak errezitatu zituen: [...]. Oskar Arana

**2** ***ihakina egin*** ik **ihakindatu**.

Hori da anitzetan egiten dugun aukera, artoski ustez, ostrukaren **ihakina** eginez. Pello Salaburu

---

**ihakindatu,** ihakinda, ihakindatzen du *ad* norbaiten keinuak eta moldeak antzeratu, norbaiten ihakina egin.

Euskal idazleak frantsesak eta espainiarrak bezain onak direnez, batzuetan hobeak ez badira, ez dute haien **ihakindatzen** ibili beharrik. Pello Salaburu

Estriptilari baten mugimenduak **ihakindatuz**. Ramon Saizarbitoria

---

**ihalartar** *izond/iz* Ihalarrekoa, Ihalarri dagokiona; Ihalarreko herritarra.

**Ihalartarrek** izanen dute karrika distirant batean bizitzeko plazerra. Herria

---

**ihalozka** 1 *adlag* ihalozkatuz.

Gerritik edo belaunetik, ez zekien zehatz, isurtzen zitzaion odolean **ihalozka,** besoak zabalik, aurpegia lurrera, zangoak bilduak, bi egur puska gogorrek bizkarrezurra errausten ziotela. Itxaro Borda

Hiruretan tanpez iratzarri da, lotara ezin bihurtuz sehaskan **ihalozka**. Itxaro Borda

**Ihalozka** bukatu genuen biok lurrean. Joxan Elosegi

Eta gure "etxeko" zelaia agertu zitzaidan, hogeita hamar gizon gazte indartsu eta lerden lohian **ihalozka** ari ikusten nituela. Daniel Landart

Halaz, lurrean herrestatzen ikasia zuten, horma gorakoiak gainditzen, lohian **ihalozka** lerratzen. Itxaro Borda

Etsaia lurrean zegoen, oihu eta negarrez **ihalozka**. Itxaro Borda

**2** *irud*

Zoritxarrean **ihalozka** zebilen Ttotteri James Ellroyren nobela berria. Itxaro Borda

Bekatuaren minean **ihalozka**. Itxaro Borda

Erran behar zen ohea zaplastatu zioten gehienek, izaera eta gorputzaren ahalkean **ihalozka,** aztal-ukaldi batez ito zutela. Itxaro Borda

Eta frantses egoki haren aitzinean baliatzen ninduela, **ihalozka** eroaten ninduen arkaismoaren lohitik atera zela frogatzeko. Itxaro Borda

**3** (izen gisa)

Energia kosmikoz hantzera abiatu eta sexu- **ihalozka** ederraren erdian harrapatuak izan gaitun. Itxaro Borda

**4** ***ihalozkan*** *(corpusean* ***ihalauskan*** *soilik)*

Mary irri gordinaz **ihalauskan** nakusan bitartean. Itxaro Borda

---

## **ihalozkarazi**, ihalozkaraz, ihalozkarazten du *ad* ihalozkatzera behartu.

Baina estek-fritak nahiago nituzke, Enez Eussako kozina bereziaren ordez: kedar gustuak barda sabela **ihalozkarazi** dit. Itxaro Borda

---

## **ihalozkari** *iz* ihalozkatzen den pertsona.

Ipotx Tropokila, Mihiluze eta Mihizikin bozeramaileak, Kaskagogor eta Elezaku **ihalozkariak,** Frakanasai Sabeldarraio Ogasun kontseilaria, Farramail Artaburu eta Gainxuri Hezkuntza kodeatzaileak eta Martinkoska gidazkaria. Jose Angel Irigaray

---

## **ihalozkatu**, ihalozka, ihalozkatzen da *ad* iraulkatu.

Minak ziztatuta, suge bat bezala **ihalozkatu** nintzen, ene armen bila. Aingeru Epaltza

Aitzurraz eta palaz **ihalozkatu** lur gain lohitsuan pausatu zen kutxa. Itxaro Borda

---

## **ihar** *(orobat* **igar** *g.er.)* **1** *izond* gantz edo haragi gutxikoa. (gizakiez)

Luzea zen, hezurtsua, sudur izugarriarekin, meharra eta **iharra**. Koro Navarro

Txabusina krakatsu batez jantzitako agure **ihar** bat begiztatu zuten. Alberto Ladron Arana

Letamendi gizon **ihar,** txiki, argal bat zen, ile-adats grisa eta bizar zuria zituena. Josu Zabaleta

Mutil **ihar** batek garangorriak eskaintzen zizkion saski batean. Lopez de Arana

Zakil benetan itzela zen, horrelako tipo **ihar** baten zango artean zintzilik aurkitzea espero izango zenukeena baino askoz handiagoa. Oskar Arana

Henne ijito bat bezain beltza zen, aurpegia estua, zuloak masailetan, **ihar** -iharra: hezurra eta azala. Koro Navarro

**Iharra** zen, oso **iharra,** hezurtsua, keinukaria eta irribarretsua. Josu Zabaleta

Maria, gorputzez, Aita zenaren antzekoa da: **iharra**. Xabier Etxabe

Florentek bere ukondo zimelak, bere sorbalda **iharrak** atzeratzen zituen, haragi hartan hondoratzeko beldur zehazgabeak harrapaturik. Karlos Zabala

Oliba-koloreko aurpegi **iharrak**. Lopez de Arana

Esku **ihar** mehe bat topatu zuen, berea indarrez estutuz. Lopez de Arana

Haren hanka **iharrek** burdin hariak ziruditen. Juan Kruz Igerabide

Haren burutxo ile-urdin **iharra** indar gutxiz kulunkatzen zen. Jose Morales

· Maddi libre zegoen, hondarreko, lepo- **ihar** harengandik. Aingeru Epaltza

**2** (animaliez)

Petrusen aldean bi bigantxa **ihar** ari dira bazkatzen. Oskar Arana

Atarian txakur **igar** -igarra ikusi zuan. Gotzon Garate

**3** (landareez) hezetasunik ez duena. ik **idor 3.**

Egur hezeari hau egiten badiote, zer ez ote **iharrari**? Elizen arteko biblia

Lautada mugagabearen monotonia sasi banaka batzuek ozta-ozta hausten dute, **iharrak,** kiskaliak. Karlos Zabala

Orain, aitzitik, kanabera **ihar** bat egina nagok. Juan Kruz Igerabide

Besakada bat abar **ihar**. Elizen arteko biblia

Ikaragarri luzea zirudien, adar **iharra** bezain mehea. oharkabean, belar **iharra** urratzen hasi zen. Koro Navarro

Haizeak erauzitako hosto **iharrak**. Josu Zabaleta

Zelofanezko poltsa tiki batetik marihuana **iharra** aterata. Aingeru Epaltza

**4** (eguraldiaz eta kidekoez) euri edo hezetasun gutxikoa. ik **idor 5.**

Eguraldi **iharragoa** eta eguzkitsuagoa dakar, seko lehorrera pasatzen ez bada. Pello Zabala

Udamin gogaikarria gertatu zen, errea eta **iharra**. Pello Zabala

Bero **iharrago** batez Pello Zabala

**5** *irud*

Agorra, diot, eta **iharra** Erlijio-elkarte pobretxo hau, lurreko gauzen hezetasunetik urruti baitago. Askoren artean

Eta bada tristura more bat, idorra, **iharra,** izerdi larria bezain hotza. Iñaki Segurola

Deitzeko indarrik ere ematen ez duen gogo **iharra**. Lourdes Oñederra

Izeko espiritu **ihar** eta hits bat zen, bere zorroztasunaren labanak ezpel horian egindako irudi zurbil eta izu bat.abuztuko asteazken hori halakotsua izana zen esku artean nerabilen aferari zegokionez: agorra eta **iharra,** aroaren pare. J.M. Olaizola "Txiliku"

Fonografoko diskoen atzean, jazz taldeen auhen **ihar** luzeekin. Monika Etxebarria

· **6** (idazlagun gisa)

Barauaren barauz, zangoak koloka ditut, gorputza argal eta **ihar**. Elizen arteko biblia

Begiak zimel zituen, gorputza **ihar,** arropak pilda txar eginik. Aingeru Epaltza

Esperantzaren ontzia guztiz hutsik, guztiz **ihar,** siku, geratzen denean. Jon Alonso

**7** (erkaketetan)

Hezurretan azala besterik ez dute, egurra bezain **ihar**. Elizen arteko biblia

Belar **iharra** bezala erabat erreko dituzte. Elizen arteko biblia

Abu ihia bezain luzea da, ira **iharra** baino **iharragoa**. Pablo Sastre

Gizon txikitxoa zen, hetikadun bat bezain **iharra,** makurra eta hanka-okerra. Koro Navarro

**8** ***ihar-ihar egin***

mandarina ez zen usteldu, eta, **ihar-ihar** egin zenean ere, arbolan zintzilik zegoeneko usain goxo ber-bera zerion oraindik. Joxerra Garzia

Hala ere, gorputza ez duzu horrela zaintzen, **ihar-ihar** eginik eta zarpailtsu jantzirik, gainerakoan errege bat dirudizun arren. Juan Kruz Igerabide

Eta han aurkitu zutela, egun batean, goseak **ihar-ihar** egina. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ama iharra** (4); **ama iharrak** (4); **ama iharrarekin** (3); **ama iharraren** (5); **belar iharra** (4); **egur iharrak** (4); **egur iharrak eskuz** (4); **esku ihar** (4); **eta ihar** (5); **eta iharra** (13); **eta iharra zen** (3); **hain ihar** (3); **hosto iharrak** (3); **ihar bat** (6); **ihar baten** (3); **ihar eta** (16); **ihar ihar** (3); **iharra da** (3); **iharra eta** (6); **iharra zen** (5); **iharrak eskuz** (4); **iharrak eskuz puskatzean** (4); **lehengusu iharra** (3)

---

# **ihardesgailu** *iz* erantzungailua.

**Ihardesgailuan** mezu bat neukalako. Itxaro Borda

05.59.28.15.56 telefona zonbakiko **ihardesgailüan** entzüngei datekean mezüan. Herria

**Ihardesgailuetako** ahotsak ezagutzen zituen, lagun hurbilenak, Itxaro Borda

---

# **ihardesle** *iz* erantzulea.

Hautatuak izan dira ere bortz batzordeen **ihardesle** eta kideak. Herria

Egongelara itzulirik, baldin egiten badut urrats bat, zu kausitzen zaitut ondoan; baldin erraten badut ele bat, zu zaitut betiere **ihardesle**. Jon Muñoz

Portalisek, berriz ere, **ihardesle,** bidenabar azaltzeko testamentu egiteko ahalmena mugatua dela, egundo ere ez eskubide naturala, lege politiko eta zibilak arautua baino: [...]. Andres Urrutia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batzordea ihardesle** (4)

---

# **ihardespen** *iz* erantzuna.

Nire galderaren puska larriena **ihardespenik** gabe zegoen beti. Aingeru Epaltza

Noizbait ere etorri zen Kantzileriaren **ihardespena**. Aingeru Epaltza

**Ihardespenik** ezean, irriño zozo bat marraztu nuen. Aingeru Epaltza

Berorren **ihardespenaren** zain nauka kitatu nahi dudan damuaren egonezinaz. Jon Muñoz

Ez zuten entzuten galde- **ihardespenez,** ordezkatzez, eliza-sariez, kontratuez, patronatuez, salaketez beste solasik. Piarres Xarriton

Hari entzutea bezain erraza zen, bestalde, **ihardespena** ematea ere. Josu Zabaleta

747 **ihardespen** izan dira, honela banatuak: 714 talde-ihardespen, 33 bakarkako **ihardespen**. Herria

Grefierak ontzat eman du **euskarazko** ihardespena. Herria

Jean Grenet Baionako auzapezak **ihardespen** zorrotza eman zuen. Berria - Euskal Herria

Gero, **ihardespenen** txanda hasiko da. Berria - Euskal Herria

Proposamen horiek sortu berri den Herri Elkargoari egin dizkiote, baina oraindik ez dute **ihardespenik** ukan. Berria - Euskal Herria

Gizarte pobreziari ematen zaion **ihardespen** bortitza da presondegia. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ene ihardespen** (3); **haren ihardespena** (4); **ihardespen bat** (9); **ihardespen ezin** (3); **ihardespen hura** (3); **ihardespena izan** (3); **ihardespenik ez** (3); **ihardespenik ukan** (3); **zer ihardespen** (4)

---

# **ihardeste** *iz* ihardespena.

Osabari **ihardeste** hura eman bezain laster, xuxendu zen aita prezeptore jaun Marcelenganat. Joan Mari Irigoien

Alferrikakoa gertatuko zitzaidala **ihardeste** hura. Joan Mari Irigoien

---

# **ihardetsi**, ihardets, ihardesten **1** du *ad* erantzun.

Orain, arazoa hobeki argitzeko, kontrakoen argumentuei **ihardetsiko** diet. Piarres Xarriton

**Deiari** ihardetsiz. Piarres Xarriton

Neska gaztearen galde horiei **ihardesteko** partez, nihaur ere galdeka hasi nintzen. Janbattitt Dirassar

**Ihardetsiko** digute, bada, ez dela gauzen baitan ez perfekziorik ez inperfekziorik. Piarres Xarriton

Aitak **ihardetsi** dio, horrelako ziurtagiri batek ez duela balio praktikorik. Urtzi Urrutikoetxea

Erantzungailu batek **ihardetsi** zion. Migel Angel Mintegi

Nola **ihardetsi,** andrea, zure azken gutunari? Jon Muñoz

Gertatu dena da ainitz Europari mendekatu direla gobernuari ostiko bat eman nahiz, ez baitezpada egina zitzaioten galdeari **ihardetsiz**. Herria

Ondorioz, eguneko betekizunak derrigorrezkoak izanagatik, auhena jabaldu artean, nehor ez dut gehiago helatzen, telefonoari ez diot **ihardesten**. Itxaro Borda

**2** (elkarrizketa kontakizunetan)

-Nik ez dut ezer esan - **ihardetsi** zion Arantxak. Joan Mari Irigoien

-Ezetz! **-ihardetsi** nion, are ozenago. Joan Mari Irigoien

Baita gustura ere **-ihardetsi** du Leirek, ahots logaletuaz-. Aingeru Epaltza

-Anaia da hango gizon zuri bakarra -hark **ihardetsi-,** eta azken bi hilabeteotan ez dugu haren berririk batere. Joxe Austin Arrieta

Obadiasek **ihardetsi** zuen: -Zein oker egin dizut, ni Akaben eskuetara emateko? hil nazan nahi al duzu? Elizen arteko biblia

Ahotik hortzera **ihardetsi** nion: […]. Aingeru Epaltza

Irriño batekin **ihardetsi** zautan: […]. Michel Oronoz

Irakasleak beste itaun batekin **ihardetsi** zion: nola kontrolatzen du General Motors? Txema Ramirez de la Piscina

"Baietz" **ihardetsi** neion, salbuespen honekin: aitaren lekūrik ezin zūala bete andere batek, haboroziz eta gizon batek amarena. Herria

-Nik ere maite zaitut, Josepe, **ihardetsi** zidan, kasik ahapetik, ene bihotzean erregin jartzen ari zen Magalik. Janbattitt Dirassar

Biek ezpainetan irriarekin **ihardetsi** zien. Aurelia Arkotxa

Emazteak buru ukaldi hotz batez **ihardetsi** zion nire diosalari. Aingeru Epaltza

Baietz, ontsa zela, **ihardetsi** zidan pollikiño. Janbattitt Dirassar

**3** *hed*

Hordagoari nork **ihardetsiko** dio: kanta? Herria

François Larralde erakusketa-buruaren gomitari **ihardetsirik**, bertze bederatzi artisten obrak. Herria

Egia bide da Bové juje batek deitua zuela eta ez duela gomitari batere **ihardetsi,** legeaz axola mikorik ez balu bezala. Herria

Kapitainak bat-batean ez higitzeko eta tiroei ez **ihardesteko** ordena eman zuen. Itxaro Borda

**4** *(cf. fr contester?)*

Dena haro eta espantu, holakoetan gisa guziz ixilago behar delarik ibili, Ekialde-Hurbilerat jo zuen, arrunt bere baitarik naski, bahituen askatzea **ihardetsiko** zuela. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta ihardets** (3); **ihardets diezadazun** (3); **zer ihardets** (3)

**aitak ihardetsi** (7); **aitak ihardetsi zion** (5); **auzapezak ihardetsi** (11); **auzapezak ihardetsi dio** (5); **auzapezak ihardetsi diote** (3); **baietz ihardetsi** (19); **baietz ihardetsi nion** (3); **baikorki ihardetsi** (3); **batek ihardetsi** (3); **batekin ihardetsi** (9); **batekin ihardetsi zion** (3); **batez ihardetsi** (8); **batez ihardetsi zion** (5); **berak ihardetsi** (5); **berean ihardetsi** (3); **berehala ihardetsi** (8); **bezala ihardetsi** (3); **davidek ihardetsi** (5); **davidek ihardetsi zion** (4); **dela ihardetsi** (4); **deus ihardetsi** (3); **deusik ihardetsi** (7); **dio ihardetsi** (6); **eginez ihardetsi** (4); **erregeak ihardetsi** (5); **erregeak ihardetsi zion** (4); **eta aitak ihardetsi** (4); **eta hark ihardetsi** (4); **eta ihardetsi** (16); **eta ihardetsi zion** (7); **eta nik ihardetsi** (4); **eta osabak ihardetsi** (5); **eta pedrok ihardetsi** (3); **ez dio ihardetsi** (4); **ez zion ihardetsi** (3); **ez zuen ihardetsi** (5); **ezer ihardetsi** (6); **ezetz ihardetsi** (5); **gabe ihardetsi** (4); **haiek ihardetsi** (3); **hala ihardetsi** (4); **hala ihardetsi zion** (3); **halaberean ihardetsi** (4); **halaxe ihardetsi** (8); **halaxe ihardetsi nion** (3); **hark ihardetsi** (14); **hark ihardetsi zidan** (4); **honek ihardetsi** (5); **honek ihardetsi zion** (3); **honela ihardetsi** (10); **honela ihardetsi zion** (5); **horrela ihardetsi** (3); **horri ihardetsi** (4); **hunek ihardetsi** (4)

**ihardetsi baitzidan** (3); **ihardetsi baitzion** (5); **ihardetsi behar** (16); **ihardetsi behar nion** (3); **ihardetsi beharrean** (3); **ihardetsi dako** (3); **ihardetsi die** (5); **ihardetsi dio** (29); **ihardetsi diot** (6); **ihardetsi diote** (16); **ihardetsi dit** (6); **ihardetsi du** (27); **ihardetsi dute** (7); **ihardetsi duten** (4); **ihardetsi dutenen** (3); **ihardetsi eta** (4); **ihardetsi gabe** (7); **ihardetsi nahi** (14); **ihardetsi nahi izan** (6); **ihardetsi nien** (6); **ihardetsi nion** (90); **ihardetsi nion haren** (3); **ihardetsi nizun** (4); **ihardetsi nuen** (12); **ihardetsi omen** (4); **ihardetsi zidaan** (4); **ihardetsi zidan** (104); **ihardetsi zidan aitak** (3); **ihardetsi zidan ezen** (4); **ihardetsi zien** (29); **ihardetsi zion** (280); **ihardetsi zion aita** (6); **ihardetsi zion aitak** (7); **ihardetsi zion aitari** (3); **ihardetsi zion amak** (5); **ihardetsi zion erregeari** (3); **ihardetsi zion ezen** (7); **ihardetsi zion mikelek** (4); **ihardetsi zion osabak** (8); **ihardetsi zion pedrok** (3); **ihardetsi zioten** (12); **ihardetsi zuen** (71); **ihardetsi zuen aragornek** (3); **ihardetsi zuten** (5)

**ezetz ihardetsia** (3); **ihardetsia izan** (3); **irri batekin ihardetsi** (3); **jesusek ihardetsi** (6); **jesusek ihardetsi zien** (3); **joanikotek ihardetsi** (4); **joanikotek ihardetsi zion** (3); **moisesek ihardetsi** (4); **moisesek ihardetsi zion** (4); **nagusiak ihardetsi** (4); **nik ihardetsi** (4); **nik ihardetsi nion** (3); **nion ihardetsi** (4); **nola ihardetsi** (8); **osaba joanikotek ihardetsi** (4); **osabak ihardetsi** (6); **osabak ihardetsi zidan** (3); **osabak ihardetsi zion** (3); **pedrok ihardetsi** (3); **sansomek ihardetsi** (3); **sansomek ihardetsi zion** (3); **zela ihardetsi** (4); **zer ihardetsi** (6); **zerbait ihardetsi** (4); **zion ihardetsi** (3); **zuen ihardetsi** (6)

**deiari ihardetsirik** (4); **deiari ihardetsiz** (9); **gomitari ihardetsirik** (3); **gomitari ihardetsiz** (3); **ihardetsiko diet** (3); **ihardetsiko dizut** (3); **ihardetsiko dute** (4); **nola ihardetsiko** (3); **zer ihardetsiko** (4)

**argudioari ihardesten** (4); **argudioari ihardesten diot** (4); **baietz ihardesten** (3); **batekin ihardesten** (3); **beharrei ihardestea** (4); **beharrei ihardesteko** (7); **berriei ihardesteko** (4); **bezala ihardesteko** (3); **eta ihardesten** (3); **eta nik ihardesten** (4); **ez ihardesteko** (4); **ez ihardesten** (3); **ezetz ihardesten** (4); **horri ihardesten** (4); **ihardesten ahal** (5); **ihardesten ahalko** (3); **ihardesten dio** (19); **ihardesten diola** (4); **ihardesten diot** (11); **ihardesten du** (10); **ihardesten dute** (4); **ihardesten nien** (5); **ihardesten nion** (6); **ihardesten zidan** (7); **ihardesten zidan ezen** (3); **ihardesten zien** (3); **ihardesten zion** (22); **ihardesten zuen** (8); **ihardestera behartzen** (3); **nik ihardesten** (7); **nik ihardesten nien** (3); **puntuari ihardesten** (5); **puntuari ihardesten diot** (4)

---

# **ihardoki,** ihardokitzen *(ETCn* ***830*** *agerraldi)* **1** du *ad ipar* aurre egin, buru egin. ik **iharduki.** (zerbaiti)

Genevako Batasunak ez zuen bertuterik aski izan, ez Hitlerren jokabideari **ihardokitzeko,** Alemaniaz jabetzera zihoalarik "demokratikoki"; ez Mussoliniren harrokeria gaztigatzeko, Etiopian sartu zelarik. Piarres Xarriton

Maila sozialeko ezberdintasunei **ihardokitzeko**. Elena Touyarou

Lan-gabeziari **ihardokitzeko**. Herria

Munduko zuzengabekerien aitzinean zer egin? ixilik edo ezazol egon, jendetzaren gehiengo handi bat bezala? ala, xutik ezarria den xixtema ekonomiko **suntsitzaileari** ihardoki? Herria

Nola **ihardoki** gastuen urtetik urterat hola emendatzeari. Herria

Zernahi su-hiltzale bildu da su horri **ihardokitzeko**. Herria

Badira oraino zonbait ametz ondo, Urtsuko patar batzuetan, suteeri **ihardoki** dutenak. Herria

Bazkari ondarrean, Jamattittek presentatu gaieri, aise **ihardoki** dute Miren Artetxe, Eztitxu Arozena eta Maialen Lujanbio bertsulari ezagun eta trebeek. Herria

· Handiagotzen zen egoera dorpeetan; **ihardokitzea** zaila zen, aldiz, lehiarik ez zenean. Elena Touyarou

Ez zen gerrazalea, baina, kitzikatzen bazuten, bortizki **ihardokitzen** zuen eta ez zuen onesten hartaz irri egiterik. Elena Touyarou

Ohi duen bezala, judu gobernuak berehala **ihardoki** du eta biziki bortizki. Herria

**2** (eritasunari)

Baginakien ez ontsa zabilala, eta eritegitean tratamenduak egiten ziozkatela, bainan ez du **ihardoki** ahal izan. Herria

Hor da batbatean gaizkitu eta ezin izan du **ihardoki**. Herria

**3** (norbaiti)

Baina XI. mendean Nafarroako erregeak emeki kontrolatzen ditu Baigorri, Garazi, eta Ortzaizeko ibarrak, Amikuze eta Oztibarreko zelaiak eta **ihardokitzen** ere dio Inglaterrako erregeari. Michel Oronoz

**4** mintzatu, jardun.

Emilio Lopez Adanek, Euskal Herrian Euskaraz elkartearen izenean, **ihardoki** du, euskararen transmisioa ez dela txikitzen ikustea gauza baikorra dela baina euskara beti lanjerrean dela. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**berehala ihardoki** (3); **du ihardoki** (12); **du ihardoki ahal** (4); **dute ihardoki** (3); **ez du ihardoki** (7); **ezin ihardokiz** (3); **horri ihardokitzeko** (5); **ihardoki ahal** (5); **ihardoki ahal izan** (5); **ihardoki behar** (6); **ihardoki du** (13); **ihardoki dute** (8); **ihardokitzen ahal** (4); **ihardokitzen dute** (3); **ihardokitzen eta** (3); **ihardokitzen zuen** (3); **nola ihardoki** (3); **nola ihardokiko** (4); **nola ihardokitzen** (5); **nola ihardokitzen ahal** (3)

---

# **ihardokimendu** *iz ipar* aurre egitea.

10-etan, solasaldia Ondoria ostatuan : "Emazteak eta **ihardokimendu** izpiritua". Herria

---

# **ihardokipen** **1** *iz ipar* jardutea, aritzea; erantzuna.

Aste honetako HERRIAn bi **ihardokipen** bildu ditugu, inkesta sozio linguiztikoaren BAM-eko emaitzak ezagutu bezain laster, Erramun Baxok Euskal Kultur Erakundeko presidentearena, eta Gexan Alfaro Angeluko euskaltzalearena. Herria

**Ihardokipenak** bi gisetara iragan dira : alderdi eta erakunde gehienak elkarretaratu dira Donostian ostiral arratsean ; EH eta LAB sindikatak ere elkarretaratze ixilak deitu dituzte bakea eta burujabetza lemaren pean.Denak kontra ez izaiteko, berriketariek diote araberako erantzun edo **ihardokipenak** ikusi ere direla alde guzietarik makurren ordaintzeko. Herria

**Ihardokipenak** segidan abiatu dira : Nafarroako auzapez abertzalek faxiztatzat jotzen dute proiektu hori. Herria

**2** aurre egitea, buru egitea.

Departamenduak lehen tokia hartzen du **ihardokipenen** lehia horretan. Herria

Aste buruan prefeta da mintzatu, **ihardokipen** haize horren gainean bermatuz, polizari emaiten dio manua abertzaleak Franck Riboud-ren egoitzara hurbiltzera ez uzteko Herria

---

# ihardokitzaile 1 *izond/iz ipar* aurre egiten duena.

Aña Mari Etxeberri bere aldetik, duela hogoi bat urte Euskaldun Gazteriaren animatzaile nagusi izana eta gaur Alozeko auzapez, mintzatu zaiku gazte mugimendu baten garrantziaz, hitz hauekin bururatuz: “gazte **ihardokitzailerik** gabe, gerorik ez, esperantzarik ez!". Herria

40-eko gerla denboran, **ihardokitzaile** ausarta izan zen, arrastatu zuten eta Dachau-ko herio-kanpo deitoragarri hartan hil zen. Herria

Gerla **denboran,** ihardokitzaile guziz suharra izana zen eta De Gaulle jeneralak eman zion "Compagnon de la Libération" titulu berezia. Herria

Babeth, Marie, Pantxo, Thierry, Agnès eta Patxik osatzen duten musika **ihardokitzaile** multzoa. Herria

**2** ***apaiz ihardokitzaile*** Frantzian, 1789ko Iraultzari buru egin zion apaiza.

Eskualde hartan ez dela neholaz ere apez **ihardokitzailerik** onetsiko, eta, are gutxiago, lehengo eginkizunak bete eta iraultzaren kontrako propaganda egiten duenik. Elena Touyarou

Zurrumurruek ziotenez, auzo herrietan jende parrasta bat atxilotu zuten apez **ihardokitzaileak** sostengatzeagatik. Elena Touyarou

Anartean, dekretu bat izenpetua izan zen, apez **ihardokitzaileei** erbesteratzea agintzen ziena, non ez zuten Guianara, gaizkile arriskutsuenak eramaten zituzten *Outre-mer* deitu zoko urrun hartara deportatuak izan nahi. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apez ihardokitzaile** (3); **apez ihardokitzaileak** (4); **apez ihardokitzaileen** (3)

---

# ihardokitze 1 *iz ipar* aurre egitea, buru egitea.

Eta bere gisan, emazte iraultzalea, desobedientzia zibila moduko **ihardokitzearen** sustatzaile. Herria

Demo-ek sustatu mugimendua **ihardokitze** hoberena da Euskal-Herriarentzat. Herria

Izariz kanpokoa zela [judu gobernuaren] **ihardokitze** hori zioten frango gobernu gizonek. Herria

**2** aritzea, jardutea; mintzatzea.

Jostetekin bakarrik ala behar da lanaren eta jostetaren artean okupazione deit zenezakeen edo ez dakit zerbait ariketa, **ihardokitze** zerbait hartu, asmatu... Menane Oxandabaratz

**3** helegitea.

Gibelarten: Etxeberria eta Soldatenean bide baten lekuz aldatzea ez ditake egin, inkesta denboran bi **ihardokitze** izan direlakotz. Herria

---

# iharduera ik **jarduera**.

---

# iharduka *adlag*

Bietariko bat **iharduka** hasi arte bai, bederen. Xabier Montoia

---

# iharduki *(ETCn 558 agerraldiorobat **jarduki** g.er.)* , ihardukitzen 1 dio/du *ad* aurre egin, buru egin. ik **ihardoki**.

**-Ihardukiko** dugu, kolpez kolpe etsairen diegu, lepoa mozten badin badigute ere. Itxaro Borda

Irakurtua dut zerbait hemengo historiaz: Obanos hirian bildu zirela hamalaugarren mendean aitonensemeak, erregearen botereari **ihardukitzeko**. Piarres Aintziart

Indarkeriaz ezarririko estatu zentralista batuari, desberdinaren, ihesaren, askatasunaren aldarrikapenak dio **ihardukitzen**. Markos Zapiain

Atea zabaltzen zen aldiro, hor nintzen ene bi zangoen gainean xut, borrokarako prest, edozoin desafio altxatzeko prest, lehenbiziko probokazioneari **ihardukitzeko** prest, erne. Filipe Bidart

Ez dakit musikak musikaren etsipena hartzen ote dakien eta marmolak marmolarena; literaturak, ordea, bera jadanik mutu egongo den garai hura iragartzen daki, eta bere bertutearen kontra gogor **jardukitzen** eta bere desegintzarreaz maitemintzen eta bere azkenari gortea egiten. Juan Garzia

Nik banekien Hanna ere, ama, ez zegoela inola ere lilураturik neskaren gaztetxo-asmo ziztrin harekin; **iharduki** egiten zidan, dena den, nik hartaz zer arduraturik ez neukala erakustearren soilik. Joxe Austin Arrieta

**2** jardun, aritu.

Horrela **ihardukitzen** zuen, bere burua zuritu beharrean aurkitzen zen aldiro. Aingeru Epaltza

Komando kideak klandestinitatean **ihardukitzera** ohituak ziren eta diskretuki, arraileria bultetan zioten eran, edozer "dinamiza" zezaketen. Itxaro Borda

Hala eta guztiz ere, gu ez ei ginen gerran **ihardukitzekoak,** buruz burukoan behintzat. Edorta Jimenez

**3** hitz egin, (aurre eginez) erantzun.

-Zergatik, baina, matxinada? **-iharduki** nion-, beharbada galdu egin dira haren gutunak, besterik gabe... Joxe Austin Arrieta

-Baina heure gizonak badauzkak hik **-iharduki** zion On Camillok. Koldo Biguri

-Jakina, zuk uste duzu herrian bakarrak garela eta aise saltzen dugula, baina hemen ere aldatzen dira gauzak **-jarduki** du Joxepak-. Pello Lizarralde

**4** (era burutua izen gisa)

Argitaletxeko gizonezko buruzagiengandik **iharduki** bortitza pairatzen du, zemaia eta aitakeria urduria. Markos Zapiain

Aita-osaben arteko **ihardukiak** eta eztabaidak. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ihardukitzeko** (3); **iharduki zion** (6); **iharduki zuen** (5)

---

# ihardukigarri *izond* eztabaidagarria.

Baina asmatu beharko ote zenuen zuk hainbeste xelebrekeria, ahalegindu izan ez bazina estrukturalismoaren oinarrizko gai batzuk -postulatu **ihardukigarrienak,** filosofikoki zalantzagarrienak osatzen dituztenak, gainera- baliozkoak egiten eurentzat arrotza den eremu batean? Xabier Arregi

---

**ihardukitzaile** *iz* ihardukitzen duena.

Nolabait **-ihardukitzaile** eta adeigabearen plantak eginez- esango nuke pentsamendu bakarrari egiten zaizkion kritika askok ere pentsamendu bakarraren bertute eta gabezia antzekoak dituela. Iñaki Heras

---

**ihardukitze** *(orobat* ***jardukitze*** *g.er.)* **1** *iz* aurre egitea, kontra egitea.

Ximurraren **ihardukitzea** espero nuen, baina ez zen horrelakorik etorri. Aingeru Epaltza

Hutsunea balego, gorputzak abiadura infinituan higituko lirateke **jardukitze**-izpirik aurkitzen ez duen bitartean. Askoren artean

**2** jardutea, aritzea.

«Konbentzionala» ez litzatekeen, «beste moduko» **ihardukitze** hori, arma nuklearraren erabilera litekeela nahiko argi geratu zen. Berria - Mundua

Gorputzaren indar eta **ihardukitze** horiek betitik laket izan zaizkit. Piarres Aintziart

Bi ekintzaile palestinarrak Gaza iparraldean dagoeno Jabaliako errefuxiatu bizigunekoak zirelakotz, hango biztanleak Israelgo Armadaren **ihardukitze** gogor baten zain zeuden atzo. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ihardukitze hori** (3)

---

ihardun ik **jardun**[1].

---

ihardute ik **jardute**.

---

**iharraire** *izond* ihar itxurakoa.

Baina barrualdeko landare **iharraire** usaintsuen mundua zer zen, ez nuen Donostian sumatu ere egiten. Txillardegi

---

**iharrarazi** *(orobat* ***ihartarazi*** *g.er.)* , iharraraz, iharrarazten du *ad* ihartzera behartu.

Otsaileko haizeaz, zeinak garo-zurtoinak puskatzen baitzituen, utzikeriak **iharrarazi** baino lehen; limoi helduak, euren usainaz betetzen patio zaharra. Juan Garzia

Ez ote dizkio lehenengo arranoak sustraiak atera, fruituak bota eta kimu berriak **ihartaraziko** ? Elizen arteko biblia

---

iharrausi ik **inarrosi**[1].

---

iharrosi ik **inarrosi**[1].

---

**ihartezin** *izond* ezin ihartuzkoa.

Argia eta **ihartezina** da jakintasuna; eta maite dutenei ikusterraz azaltzen zaie, eta bilatzen dutenei aurkierraz Joan Mari Irigoien

---

**ihartu**, ihar(tu), ihartzen *(orobat* ***igartu****)* **1** da/du *ad* ihar bihurtu, ezetasuna edo bizitasuna galdu edo kendu. ik **idortu**; **lehortu**. (gorputza edo gorputz atalak)

Badakidalako heriotza hurbil duela, eta **ihartzen** ari dela ikusiz [...]. Josu Zabaleta

Etiopiar "arraijaleek", hildakoen gorpua **ihartu** ondoan, guztia iheltsoz estali eta margoz apaintzen dute. Patziku Perurena

Eta bat-batean besoa **ihartu** egin zitzaion. Martin Anso

Hanka eta oina argaldu, okertu eta **ihartu** egin zitzaizkion, aiztoaren ebakia edo suaren erredura sentitzeko gai ez izateraino. Askoren artean

Hain elbarri zegoen mutila, non zangoak, erabat **ihartuak,** ipurmasailei itsatsiak baitzeuzkan. Askoren artean

Narni hiriko emakume batek zortzi urtez eskua **ihartua** izan zuen, ezertarako erabili ezinik. Askoren artean

Eta hain da astuna gaitz hau, non Jainkoaren lagunen bihotza **ihartu** bailiteke eta gorputzean izoztu, ikusiz zeinen desegoki portatzen den jende asko beren Jainkoarekin. Joan Mari Lekuona

Mihia ahosabaiari itsatsi eta **ihartu** egin zitzaion. Askoren artean

Ximurraren irri-algarak zainak **ihartu** zizkidan. Aingeru Epaltza

Bihotz alaiak osasuna ekarri, bihotz tristeak hezurrak **ihartu** . Elizen arteko biblia

Besarkatzen ditut ziegetan usteltzen diren drogadiktoak eta patioetan **ihartzen** diren psikopatak. Koldo Izagirre

**2** (landareak)

Harrak jo eta landarea **ihartu** egin zen. Elizen arteko biblia

Sustraiak zahartu eta motzondoa lurpean **ihartu** arren. Elizen arteko biblia

Pikuondoa sustraietaraino **ihartua** ikusi zuten. Elizen arteko biblia

Basoko zuhaitz guztiek jakingo dute nik, Jaunak, zuhaitz garaia beheratu eta txikia goratu egiten dudala, zuhaitz hezea **ihartu** eta ihartua hezeberritu. Elizen arteko biblia

Nimrimgo erreka agortu egin da, belarra **ihartu,** larrea zimeldu. Elizen arteko biblia

Beste zazpi galburu mehar sortu ziren, haize-erreak **ihartuak** . Elizen arteko biblia

Gorritzen eta **ihartzen** ari ziren hostoek dardara egiten zuten. Juan Kruz Igerabide

Ureztatze faltaz **ihartuz** doan lorea bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Belar edo landare-jendea **ihartu** edo erre egiten da; ez da hiltzen, ez baitzegoen bizirik ere (biologiarentzat bai, jendearen hizkuntzarentzat ez; gauzak berezko zentzuan harturik beti ere, ez erabilera irudizko, hedatu eta norgauzatuetan). Iñaki Segurola

Eta amorioaren lorea, gaur hain ederra dena, bihar berean **ihar** liteke. Joan Mari Irigoien

**3** (gauzez)

Xigorgailuan **ihartzen** ari zen ogia zaintzen. Aingeru Epaltza

**4** *hed/irud*

Bai, berarengan bada zerbait erremediorik gabe **iharturik** dagoena. Monika Etxebarria

Hormatuak zeuden haien ezpainetako otoitzak, airean gelditua haien "aitaren" egiteko keinuak, **ihartuak** begiradak. Anjel Lertxundi

Zeren bainekien ezen jaio orduko **ihartu** eta hostogabetu zitzaidala Elbiraren begietako leihoetarik atzeman eta usaindu nuèn udaberri ezin ederrago hura...! Joan Mari Irigoien

Kontu korronte jori bat zen Inesen bizigarria, agortzen hasiz gero **ihartzen** hasiko zen. Migel Angel Mintegi

Ez zuen, egia esan, besterik espero elkartasuna hitz **ihartua** den garaiotan. Migel Angel Mintegi

Agudo ibiltzeko agindu zigun artzainak, eguzkia **ihartu** eginen zela -bazekien hizketan agure hark- karabineroak iritsi orduko. Koldo Izagirre

**5** (era burutua izenondo gisa)

Gorputz-atal **ihartuei** indarra bihurtzen baitzien eta bihotz gogorrei sentimendu samurrak ezartzen. Askoren artean

Beso **ihartua** erakutsi zuenean. Martin Anso

Egutxik amaren bular **ihartuak** ukitu zituen. aretoaren hondoa apaintzen zuen balea **ihartuaren** antzean. Ibon Uribarri

Zuhaitz **ihartua** besterik ez naiz. Elizen arteko biblia

Zuhaitz guztiak, heze nahiz **ihartuak,** irentsiko ditu. Elizen arteko biblia

Besoak eta hankak adar **ihartuen** antzera zintzilik. Juan Kruz Igerabide

Bularra gogor eta huts zeukan, egur **ihartua** bezala. Juan Kruz Igerabide

Philomène eta Dominique, bi lore **ihartu,** igandeko arropa berriegiak soinean. Aurelia Arkotxa

Udazkeneko hosto **ihartuei** behatzean sortzen den sentipena. Ibon Uribarri

Hainbat programa berri txertatu ziren orduko programazio **ihartu** haietan. Txema Ramirez de la Piscina

**6** ***ihartuxe*** ihartu samar.

Neskazaharrak, hostoa galdutako frutarbola ihartua iduriarren, badizu oraino izerdi gozorik bihotzondo isilean, eta **ihartuxea** dirudien frutarbolan bezala, barren barrengo izerdi zaildu gorde hori, paparretik zintzilik daraman mihura mordoak salatuko dio. Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**besoa ihartu** (3); **erabat ihartuta** (3); **erreak ihartuak** (3); **eta berak ihar** (4); **eta haizerreak ihartuak** (3); **eta ihartu** (9); **eta ihartu egin** (3); **eta ihartzen** (4); **haize erreak ihartuak** (3); **haizerreak ihartuak** (3); **hosto ihartuak** (4); **hosto ihartuen** (3); **ihartu bat** (4); **ihartu baten** (3); **ihartu da** (4); **ihartu egin** (11); **ihartu egin zen** (4); **ihartu eginen** (3); **ihartu egiten** (5); **ihartu eta** (7); **ihartu zen** (4); **ihartuko dira** (3); **ihartzen ari** (7); **ihartzen da** (6); **ihartzen da belarra** (3)

---

## ihaurgai *(orobat **ihaurgi**)* *iz ipar* inaurkina.

**Ihaurgai** heze bilakatu hosto sailak kotxez pilatzen. Itxaro Borda

**Ihaurgairako** iratze biltzera larrazkenean idien aitzinean abiatzeko. Itxaro Borda

Bagoian han hemenka berduratu lasto azau batzuetarik **ihaurgi** bat frango goxoa egin genuen Marzel Etxehandi

---

## ihaurgaitu, ihaurgai, ihaurgaitzen da/du *ad ipar* inaurkin bihurtu.

Noizbehinka jinen zen gasnari gustuaren emateko oihal hura asunez **ihaurgaitzen** zen. Itxaro Borda

---

## ihaurgi ik **ihaurgai**.

---

## ihaurkin ik **inaurkin**.

---

## ihaurri[1], ihaur, ihaurtzen du *ad* bete.

Puskatuz eta txatarrez **ihaurritako** inguruetan. Gotzon Garate

Ateko argiak, berriz, hezetasunez **ihaurritako** lurreko harlauza zabalak nabarmentzen zituen. Anjel Lertxundi

Abere-gorpuz **ihaurriak** zeuden larre-bazterrak, eta ardi larrutuak ageri ziren han-hemenka, aho-muturrak zerurantz zabaldurik hilak, saihetsak nabarmendurik. Juan Garzia

---

## ihaurri[2] *adlag* beterik.

Handik laster, istilez **ihaurri** ziren baratzeetan barna abiatu ziren. Elena Touyarou

Hiria zeharkatu zuen, ondoko plaza herexaz **ihaurri** zen katedral aitzinetik iraganez. Elena Touyarou

Etzanez geroz, ez zitekeen higi, beste bien artean kokaturik, ezin haizatuzko bizkarkinek jana, lastairak horietaz **ihaurri** baitziren, eta sekula ez garbituak. Marzel Etxehandi

Abuztuko asteazken horretan, bederen, eliza jendez **ihaurri** zegoen. Aingeru Epaltza

Zimitzak eta labezomorroak **ihaurri** zituzten haien zeldan. Eneko Bidegain

Eltze bat bor-bor su gainean, saltsa gorriz **ihaurri**. Aingeru Epaltza

---

## ihaurrika *adlag* hedatuz, zabalduz.

Mami malguaren minean, haragi malats zuriak **ihaurrika** zerabilzkion janaria oparituz, bere burua salbatuko zuela sinesten zukeen maiteak. Itxaro Borda

---

## ihaurtze *iz* (lurrean) hedatzea, zabaltzea.

Hemen, haatik, onartu zaizkio birjina-ohore eta lore-**ihaurtzeak,** eta ezkila eta guztiko azken hileta-agurra. Juan Garzia

---

## ihausi **1** *iz* zaunka.

Laster zakurren **ihausiek** akusatu zaituztete. Xabier Montoia

Ez zen izan elikoptero tarrantarik ez eta etxerako bidexkan otso-zakur **ihausirik**. Michel Oronoz

"Kaxtor" xakurra atearen aitzinean, ene ondora jin nahiz nigarrezko **ihausi** batean. Piarres Aintziart

**2 *ihausi egin***

Zakurrek **ihausi** eginez, gatuek ihesi eta puralleriak lau haizetara eskapu. Piarres Aintziart

---

# ihausika *adlag* zaunka.

Etxe bakar baten saihetsetik zakurra **ihausika** hasi zait. Piarres Aintziart

Baina ez zait alimale tzarra lasterka heldu gibeletik; bi edo hiru ehun metro egin dituzkegu molde horretan, hura **ihausika** eta ni, alegia gostuan, urrats ezti goxo urduri batean. Piarres Aintziart

Zakurrak datozkizue ondotik **ihausika**. Xabier Montoia

---

# ihauska *adlag* ihalozka.

Lau zangoez zulatu nuen lurra, kaka egin eta haren gainera erori nintzen, **ihauska**. Joxan Elosegi

---

ihaute ik **inaute**.

---

ihauteri ik **inauteri**.

---

ihaz ik **iaz**.

---

ihazinto ik **hiazinto**.

---

ihel ik **iel**.

---

# ihes **1** *iz* arrisku edo kalte bat, edo batere gogoko ez den zerbait saihesteko lasterka urruntzea. ik**ihesaldi**.

Alkohola eta eromena, mistizismoa eta **ihesa** izan zituen ordu arte bide-makulu. Anjel Lertxundi

Ihesi doazenak **ihesaren** erantzule dira, iheslaririk izan ezean ez bailitzateke izango **ihesik**. Josu Zabaleta

Iritsia zen ordea **ihesaren** unea. Koro Navarro

-Zer dakik Basauriko **ihesari** buruz? -galdetu dizu bat-batean. Rafa Egiguren

Euskal batailoiek, batzuk berrosatuta eta besteak desegında, Santander alderako **ihesa** antolatu zuten. Jokin Urain

**Ihesa** gaizki atera? Josu Zabaleta

Luisa biriketatik gaixo zebilelako atzeratu behar izan zuen **ihesaren** asmoa. Felipe Juaristi

**Ihesaren** prestaketa leporatu zieten hamalauri heriotza zigorra ezarri zieten. Jokin Urain

Erabakita neukan nire **ihesaren** lehendabiziko etapak Marseillara eraman behar ninduela. Anjel Lertxundi

Hirugarren egunean eman zioten Labani Jakoben **ihesaren** berri. Elizen arteko biblia

Luis XVI.aren eta haren familiaren **ihesaren** eta atxilotzearen berriak susmo txarrak baieztatu zizkion. Elena Touyarou

Zein presok ez du **ihes** bat amestu? Jokin Urain

Halako batean **ihesa** antolatu zitean gureetako hiru zorok. Koldo Izagirre

Ikasten hasiak baitziren **ihesa** garaipena ere izan daitekeela. Felipe Juaristi

**Ihesa** da gogoan darabilen pentsamendu bakarra. Koro Navarro

Kinto ez joatearren erruz lotu zitzaizkion **ihesari** euskal gazteak. Jokin Urain

Eta guk egin genuen **ihesik** luzeena estaziora joatea izan zen. Pello Lizarralde

Ihesi doazenak ihesaren erantzule dira, iheslaririk izan ezean ez bailitzateke izango **ihesik**. Josu Zabaleta

Konforme, **ihesean** lagundu nion nolabait. Harkaitz Cano

*ik beherago* 9. Askoren artean

Kartzelatua, eta gero Lipariko konfinamendura bidalia Turatiren **ihesean** parte hartzeagatik. Fernando Rey

Noraezeko **ihesean** eroturik. Hasier Etxeberria

Thierryk **iheserako** keinua markatu zuen, baina emazte zohiak besotik tinkatu zuen, antsiaz: […]. Itxaro Borda

Animaliak gara, egoera izugarrietan **iheserako** fisikoki eta biokimikoki egokituta gaudenak. Ramon Saizarbitoria

Itxura zenez, sugandilak prest zeuden, **iheserakoan,** buztanaren hiru laurdenak bixi-bixi galtzeko. Txillardegi

**2** (gauzei buruz)

Industria kimikoa etengabe ari da material berriak bilatzen betiko hodi metalikoak ordezkatu ahal izateko eta hauek dakartzaten arazoak ekiditeko, herdoila, **ihesak** loturetan, […]. Berria - Gaiak

Ur erradioaktiboaren **ihesa** izan zen Tsurugako zentral nuklearrean (Japonia). Berria - Gaiak

Portuan erabiltzen dituzten zamalanetarako besoek, [...] zauritu batzuk eta erregai **ihesak** eragin dituzte. Berria - Ekonomia

Tokaimurako zentralean (Japonia) bizpahiru tona sodio likidoren **ihesa** izan zen. Berria - Gaiak

Politikan, aitzakia gisa eguraldiari leporatzen zaio botoen **ihesa**. Berria - Ekonomia

Inbertsio ez errentagarriak (Aljeria) finantzatu zituztenean, edota kapitalen **ihesa** bultzatu zutenean (Argentina). Koro Navarro

Aktibo likidoenak gauzatzeko lasterketa hasten da orduan, eta lasterketa horrek berehala ekartzen du merkatu espekulatiboen erorikoa, kapitalen **ihesa** eta kanpoko kreditu-lineak izoztea. Koro Navarro

100.000 langile dituen enpresa baten kiebra, petrolio hornikuntzaren arazoak, atzerriko inbertsioen **ihesa..**. Berria - Ekonomia

**3** (izenondoekin)

Izumen hartan, eta horren **ihes** bizkorrean, haurretako batek, beldurrak nahasturik, ibaira jauzi egin eta desagertu egin zen. Josu Zabaleta

Ordu bele-hegodunen **ihes** isila. Koro Navarro

Lucyren **ihes** iaio eta setatiak. Oskar Arana
1938ko maiatzaren 22an **ihes** handi bat izan zen. Jokin Urain
Baina ez dezagun goragi esan, ez dadin **ihes** orokor bat gertatu. Iñigo Aranbarri
Oilo kolokak eta oilar nagiak kurukuruka beren habietarik **ihes** izutuan abiatzen. Itxaro Borda
Artean ikusi gabe neukan gizon harexek jakinarazten zigun faxisten **ihes** baimenduen berri. Edorta Jimenez
Zeru urdinean, laino urratu batzuk, bizi-bizi, **ihes** betean. Anjel Lertxundi
· Asmo sendoa hartua zuelako **ihesa** segurua ez zen bitartean estepan barrena ez saiatzeko. Karlos Zabala

• **4** *adlag* ihes eginez. ik **ihesi**[1].
Zein da **ihes** dabilen judu bat joango litzatekeen azkeneko zuloa […]? Anjel Lertxundi
Jakes haren soakoari **ihes** zebilkion. Itxaro Borda
Kaskarin bertan-goxo bat ez da **ihes** dabilen baten kargu egiten, baina bai kaskotik egindako bat. Anjel Lertxundi
Alemaniako kontzentrazio zelai eta hango laborantza zein lantegietarik **ihes** zetozen herritar gazteak. Itxaro Borda
Maddi lasterka **ihes** joan zen hilerritik. Itxaro Borda
Baztan ibarretik mendia zeharkatuz, armadari **ihes** joan ziren. Elena Touyarou
Edonor fusilaraz dezakete desertatu eta **ihes** joateagatik. Mirentxu Larrañaga
Artoizetik **ihes** joatea izan zen hartu zuen delibero bakarra. Itxaro Borda
Espaloi malkarrean gora zihoan, gurutzatzen zituen jendeetarik **ihes**. Itxaro Borda
Louiserentzat laidoa zen Luixa; izena **ihes** zihoakiola iruditzen zitzaion. Itxaro Borda
Garratoinak **ihes** atera dira, tropan, jauzika, urbideetan itoak ez izaiteko. Filipe Bidart
Egia da, bidaiara **ihes** abiatzen da bat, zabaltasun bila. Josu Zabaleta
Roswellen umeak eta haren har andana adoratzaileek eroan nintzatela beraz, mundu honetan paira nezakeen bakardade karroindutik **ihes**! Itxaro Borda

**5** (-en atzizkiaren eskuinean)
Amstelek eta Ijseelek biek bat egiten dituen ibai artera suaren **ihes** etorri zen, aspaldi. Felipe Juaristi
Hitlerren **ihes** zabiltzate? Anjel Lertxundi

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)
**Ihes** saioak izan ziren eta bere buruaz beste egin zutenak ere bai. Jokin Urain
Ezkaba mendikoaz gero egin dira beste **ihes** saio batzuk. Jokin Urain
Errebolta edo **ihes** saio bat ote zen, laster baino lasterrago zapalduko zutena? Karlos Zabala
Exekuzio publikoak arratsean izaten ziren: makilka edo, **ihes**-ahaleginak bezalako falta larrien kasuan, urkamendian. Urtzi Urrutikoetxea
Orduko **ihes**-asmoei buruzko gorabeherak dauzka Mentxakak gogoan. Rafa Egiguren
Gerra-gatibu baten **ihes**-ametsaren gisa. Juan Garzia
· *hed* Ustez irudiaren planoari buruz perpendilularrak behar zuten marrak konbergente eta **ihes**-puntu baterantz zuzenduta marraztu ordez [...] dibergente marrazten direnak. Josu Zabaleta
Ekar dezagun gogora, adibidez [...] "arrain-hezurrezko" perspektiba deitua **("ihes**-ardatzezko perspektiba" ere deitua). Josu Zabaleta

**7** (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)
Errusiako Arkangelsk hirian 48 hildako eragin zituen etxebizitza bloke batean izandako gas **ihes** batek. Berria - Mundua
Ustez gas **ihes** batek eragindakoa izan zen Kurtxaloiko leherketa. Berria - Mundua
Mihamako zentral nuklearrean (Japonia) lurrun **ihesa** izan zen atzo. Berria - Gaiak
Tritio-**ihesa** eragoztea ezinezkotzat jo du. Berria - Mundua
Tokaimurako (Japonia) zentral nuklearrean uranio **ihesa** gertatu zen, eta sutea. Berria - Gaiak
Aukera baliatu du kapital **ihesa** justifikatu eta zerga beherapena eskatzeko. Berria - Ekonomia
Besteak beste, iruzurra eta kapital-**ihesa** egitea eta dokumentuak faltsutzea leporatzen diote. Berria - Mundua
Berlusconik ahalbidetu duen kapital-**ihesetik** lortuko ditu funtsak. Berria - Mundua
Bilkuretan sobera luzaz neska gazteari so egon ez nahiz, nere barnearen barnean nuen ikusten, pertzepzio **ihesak** kontenplazio iraunkor bilakatuz. Piarres Aintziart
Amodio-grina baino gehiago, amodio-**ihesa** zen, amodiora egiten nuen ihes. Matías Múgica

**8** *ihes egin* ik **ihes egin.**

**9** ***ihesean*** ihesi. ik **iheska; ihesi**[1] **7.**
**-Ihesean** dabilela jendea, **ihesean..**. Pello Lizarralde
Bilbotik **ihesean** Gijonera iritsi zen Jose Mari Mugerza, eta Muselko portuan ontziratu zen tiro eta zalaparta artean. Jokin Urain
Erregeren armagizonen **ihesean** zebilen. Aingeru Epaltza
**Ihesean** abiatu ziren guztiak ez ziren ailegatu, ordea, aurrez pentsatutako tokira. Xabier Etxabe
Frantzia trebeskatu zuela **ihesean**. Itxaro Borda
Beti **ihesean** banabil ez diat ihes egiten, argi zagok. Koldo Izagirre
Nola zerbitza daiteke herria, kartzelan, **ihesean** edo hilerrian egonez? Itxaro Borda
**Ihesean** dauden ekintzaileei amnistia ematea. Berria - Mundua
Zure hurbilenekoengandik baztertzea hautatzen duzu, etsaien atzaparretatik **ihesean**. Filipe Bidart
Crosbie frantziarrak 190 kilometro egin ditu **ihesean** Paris-Nizan. Berria - Kirola
**Ihesean** egindako kilometroetan behin eta berriz begiratzen zuen atzera, tropelak irentsiko ote zuen beldur. Berria - Kirola
· Martinez Bergara, berriz, **ihesean** epaitu zuten 1993an, eta bost urteko zigorra jarri zioten zortzi tona dinamita lapurtzeagatik. Berria - Euskal Herria
Gainerakoak **ihesean** zirela izan ziren epaituak. Berria - Mundua
Madrilen **ihesean** bizi den eta Obiangek estatu-kolpe asmoaren burutzat jotzen duen Severo Moto aurkariak jakinarazi zuen atzo AEBek bisa baliogabetu diotela. Berria - Mundua

**10** ***ihes eginarazi***
Joera aristokratiko horrexek [...] behe mailako zen orotik **ihes** eginarazten zien. Josu Zabaleta
Otsailean, gerra zibila piztear izan zen matxinada izan zuten, Aristide presidente ohia **ihes** eginarazi zuena. Berria - Mundua

**11** ***ihes eragin***
**Ihes** eragin zieten ekialdera nahiz mendebaldera dauden haranetako bizilagunei. Elizen arteko biblia
Amorruaren amorruz bere onetik aterata, **ihes** eragin ziotenek berari eginiko iraina, juduei ordainaraztea pentsatu zuen. Elizen arteko biblia

**12** ***ihes hodi*** *(13 agerraldi, 7 liburu eta 3 artikulutan)*
Baina autoa desagertu egin zen bistatik, **ihes-hoditik** azken bafada bat botaz. Iñaki Mendiguren
Lurrun zuri bat zerien **ihes hodiaren** muturrari eta balbulen estalkiari. Karlos Zabala
**Ihes-hodia** apurtuta zeukan auto baten zaratak iratzarri zuen. Fernando Morillo

Zainak, berriz, hondakinak eramaten ditu, motorraren **ihes-hodiak** betetzen duen funtzioa betez. Irene Aldasoro

Valentino Rossik Portugalen emaitza oso ona eman zion **ihes-hodi** sistema erabiliko du. Berria - Kirola

### 12a *ihes tutu* (*10 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan*)

Kolpe-leungailuak atzeko argiekin bat, lohi-babesak elkar marruskatuz, motoreak marruka, **ihes-tutuak** ketan. -Nik ez dut inoren **ihes-tutua** izan nahi -esan zuen barreka begiak txilotuz. Lopez de Arana

Autoaren **ihes tutuari** hodi bat jarri zioten eta hodiaren muturra autoaren barrura sartu zuten. Berria - Euskal Herria

**Ihes-tutuari** txinpartak zerizkion, gau beltzean... Joxe Austin Arrieta

### 13 *ihesari ekin*

1936ko gerran umeak izan ziren **ihesari** ekiten ez bakarrak baina bai lehenak. Jokin Urain

Erraldoiak, larri zaurituta, atzera egin du, eta Errolanek **ihesari** ekin dio. Martin Anso

Bi gazteek kontrola pasatu eta **ihesari** ekin zioten. Berria - Euskal Herria

### 14 *ihesari eman*

Orduan, inudeak haurra hartu eta **ihesari** eman zion. Elizen arteko biblia

Aramearrak ihesi zihoazela ikusirik, amondarrek ere **ihesari** eman zioten Joaben anaia Abixairen aurrean, eta hirira sartu ziren. Elizen arteko biblia

**Ihesari** emango diozue inork atzetik eraso gabe ere. morroiak, zeharo ikaratuta, leihotik salto egin eta **ihesari** eman zion. Elizen arteko biblia

Gero, **ihesari** eman, eta, Irkutskeko bidea itxita egonik, Baikal aintziraraino egin behar izan zuen. Karlos Zabala

-Hau ez litzateke ihes egitea, hau **ihesari** ematea izanen litzateke... Koldo Izagirre

Beste zakur batzuk ere elkartu eta leopardoak **ihesari** eman zion. Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**battistiren ihesa** (3); **beren ihesean** (4); **edo ihesean** (7); **egin eta ihesari** (3); **egin zituen ihesean** (5); **egiptorako ihesa** (3); **ere ihesari** (3); **ere ihesean** (5); **eta ihesa** (6); **eta ihesaren** (3); **eta ihesari** (18); **eta ihesari ekin** (3); **eta ihesari eman** (9); **eta ihesari ematen** (4); **eta ihesean** (15); **eta iheserako** (3); **ihesa da** (4); **ihesa dela** (3); **ihesa eta** (3); **ihesa ez** (3); **ihesa gertatu** (6); **ihesa gertatu eta** (3); **ihesa izan** (6); **ihesa izan zen** (4); **ihesak eta** (3); **ihesaren berri** (5); **ihesaren eta** (3); **ihesari buruz** (6); **ihesari buruzko** (4); **ihesari ekin** (7); **ihesari ekin zioten** (4); **ihesari eman** (47); **ihesari eman dio** (3); **ihesari eman zion** (7); **ihesari eman zioten** (16); **ihesari emana** (4); **ihesari emanda** (5); **ihesari emango** (4); **ihesari ematea** (3); **ihesari ematen** (5); **ihesean bezala** (3); **ihesean bizi** (6); **ihesean dago** (3); **ihesean doan** (5); **ihesean doazen** (3); **ihesean egin** (3); **ihesean eman** (3); **ihesean eta** (6); **ihesean hasi** (3); **ihesean ibili** (8); **ihesean joandako** (3); **ihesean joaten** (3); **ihesean lagundu** (4); **ihesean saiatu** (3); **ihesean zihoazela** (3); **ihesean zihoazen** (6); **ihesik egin** (4); **ihesik ez** (4); **joan zen ihesean** (3); **kapital ihesa** (5); **kapitalen ihesa** (3); **lurrun ihesa** (3); **nire ihesak** (3); **segoviako ihesa** (4); **zen ihesean** (8); **zituen ihesean** (6); **zuten ihesean** (3)

---

## ihes egin 1 du *ad* arrisku bat edo batere gogoko ez den zerbait saihesteko lasterka urrundu.

Zaldiak, berriz, eroturik **ihes** egin zuen, oihana biltzen zuen ilunpean desagertzeko. Josu Zabaleta

-Batere arazorik gabe **ihes** egin zuten. Koro Navarro

'Tiroak **ihes** egin dit', erantzun zidan. Berria - Euskal Herria

Hainbat jokaldi errazetan aisegi egin zien **ihes** baloiak miarriztarrei. Berria - Kirola

Ama ez zen aski niri eusteko, eta aitak lagundu behar izan zion, sofatik behera neure burua botako ez banuen, arrastaka **ihes** egiteko asmoz, bainugelan ixtera. Juan Kruz Igerabide

Edozein unetan lasterka **ihes** egiteko gertu. Luis Elberdin

Zortzik **ihes** egitea lortu zuten. Juan Garzia

Orain ez didazu **ihes** egingo! Mirentxu Larrañaga

Izuak hartuta, milioika errefuxiatuk **ihes** egin zuen, etxeak eta jabegoak utzita, -Zergatik ez zuen **ihes** egin, hala ere, bere burua hil ordez? -galdetu zuen Perrettek. Iñaki Mendiguren

Zertarako dira ba zuloak, ez bada **ihes** egiteko? Koldo Izagirre

Baina orduan denek egin beharko dute **ihes**. Edorta Jimenez

**Ihes** egin nahia, bai. Txillardegi

**Ihes** egin beharra, murru gaitz eta beltz haiek gainditu beharra, hamaika aldiz. Txillardegi

**Ihes** egin behar ero batek hartu ninduen orduan. Josu Zabaleta

-Ezagutzen al duzu? -Idoiari ez zion **ihes** egin nire jarrerak, eta arretaz begiratzen zidan. Juan Kruz Igerabide

**Ihes** egindako esklabo daniar batek. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Ihes** egiteko beste saio bat; estolderian barrena berriz ere. Rafa Egiguren

**Ihes** eginda nengoen bitartean, gutun trukaketa sarria izan genuen Almak eta biok. Harkaitz Cano

Korridore bihurrietan barrena **ihes** egiten saiatu arren, Errege Beltza gero eta hurbilago zegoen. Alberto Ladron Arana

Denbora hatzen artean **ihes** egiten sentitzen zuen, gorputzetik itzurtzen minutuz minutu, odoluste jadanik geldiezin bat bezala. Juan Garzia

-Eta oraindik hementxe edukiko nian -jarraitu zuen Morganak-, baldin eta demonio halakoak **ihes** egin izan ez balit. Juan Kruz Igerabide

### 2 (nora)

Gainerakoek Afek hirira egin zuten **ihes**. Elizen arteko biblia

**Ihes** egizu mendira, hondamendiak harrapa ez zaitzan. Jose Antonio Mujika

Makinetara egin dut **ihes**. Koldo Izagirre

Denek **ihes** egin zuten etxera agudo. Pako Aristi

Holandara **ihes** egindako juduei. Iñaki Mendiguren

1939an Errusiara **ihes** egin zuen bere alabarekin. Koro Navarro

Ez zegoen erasoaren aurrean defenditzeko modurik: hondartza aldera **ihes** egin eta itzalkin baten azpian gordetzea beste aukerarik ez geneukan. Bernardo Atxaga

Himachal Pradesh lurraldeko 60 herri hutsik gelditu dira, bertako biztanleek lur altuagoetara **ihes** egin ostean. Berria - Mundua

Nora egin dezaket **ihes** zeru eta lurretik at, nigana etor zaitezen, nire Jaun hori? Imanol Unzurrunzaga

Begirada labur batek Alaznerengana egin zion **ihes-**. Fernando Morillo

Materiaren beharbadakotasun bera frogatu nahiko bagenu, orduan argumentu transzendental batera **ihes** egin beharko genuke, hau izaki, ordea, hemen saihestu behar zena. Ibon Uribarri

Dederen aitona-amonek Frantziara egin behar izan zuten **ihes** Bartzelonatik 36ko gerran. Berria - Kultura

### 3 (nondik)

Bi presok **ihes** egin dute Martuteneko espetxetik. Pedro Alberdi

Jaengo espetxetik **ihes** egindako koitaduren bat izanen zela. Koldo Izagirre

Rita urakanaren ibilbidetik **ihes** egin nahian. Berria - Harian

**Ihes** egin zion esaldiak ahotik. Jon Muñoz

Begietatik egiten dio **ihes**. Berria - Kultura

Hirian egoera larria da eta ehunka bizilagunek egin dute handik **ihes**. Berria - Mundua

Etxetik zergatik egin zuen **ihes**. Gotzon Garate

Egizue **ihes** haragikeriatik! Elizen arteko biblia

Grina txarrek munduan eragiten duten ustelkeriatik **ihes** eginez. Elizen arteko biblia

Eta patu horretatik ez zirudien **ihes** egiterik zegoenik. Iñaki Mendiguren

Amaren arima besarkatzen saiatu nintzen, hiru bider, eta hiruretan egin zidan **ihes** beso artetik. Juan Kruz Igerabide

Gure garaikideek dagoeneko ez badute jotzen Jainkoaren Hirira eta Ebanjeliora, Leibnitzek zalantzarik gabe egin zuen bezala, hori ez dela haien eraginpetik **ihes** egin dutelako. Iñaki Mendiguren

Sute-irtenbidetik **ihes** egitea, teilatu-hodietan zehar katuka ibiltzea... Lopez de Arana

Alkohol kontrol batetik **ihes** egin zuten bi lagun ETAko kideak direla uste du Frantziako Poliziak. Berria - Euskal Herria

Aireak egiten diola **ihes** ertz batetik, eta listu zipriztinak bestetik. Hasier Etxeberria

Zulo horietatik indarrak **ihes** egiten dizu. Lourdes Oñederra

Ez zuten Dorothy ezagutu eta ez zekiten kartzelatik **ihes** egina zela. Fernando Rey

Afizionatu mailan hamabi garaipen lortu ditut tropeletik **ihes** eginda. Berria - Kirola

## **4** (zeri, nori)

Atzo itsaso ardoa bezain gorriari **ihes** egin nion, ekaitzen mende ibili eta gero. Juan Kruz Igerabide

Errusian zorriei **ihes** egitea zen arazoa; hemen erotasunak inguratzen zaitu. Koro Navarro

Ezin da egin nahi dena, ezin zaio **ihes** egin norberaren patuari. Juan Kruz Igerabide

Ene maiteok, **ihes** egiozue, beraz, idolatriari. Elizen arteko biblia

-Ezin ote diogu bada **ihes** egin bizitza ilun horri? Pako Aristi

Beti puta, sekula ere ez maitale, maitasunari **ihes** eginez, plazera adoratuz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Etxeko kateen zamari **ihes** egiteko ezkondu egin zen lehenbailehen. Arantxa Iturbe

Emaitza on bat lortzeko aukerari **ihes** egiten utzi zioten nafarrek atzoko partidan. Berria - Kirola

Apaltasun honek **ihes** dagio oharpenaren nagusigo sentiberari. Joan Mari Lekuona

Hain logikoa, hain berezkoa da gizonarengan oinazeari, gaixotasunari, tristeziari **ihes** egitea! Josu Zabaleta

Gairik korapilatsuenetan ere nola asmatzen duen ikuspegi aurrerakoi bati eusten, topikoei **ihes** egiten. Berria - Kultura

Zer da bestela bizitza, melankoliari **ihes** egitearen artea ez bada? Pako Aristi

Izurriari bezala egiten zien **ihes**. Jon Muñoz

Izurriari bezala **ihes** egiten zioten amari. Koro Navarro

Akusatuak Justiziari **ihes** egingo balio ere. Berria - Euskal Herria

## **5** (**egin** ezabaturik)

**-Ihes,** baina nora? Fernando Rey

**Ihes**? nora joan behar dugu? lasai. Fernando Rey

Baina gizonak galderei **ihes,** arraposturik ez. Fernando Rey

Antsiak arima nekatzen du: zergatik honi **ihes** eta hura onartu? Itxaro Borda

Artistak Europatik **ihes,** ikaraturik. Pello Salaburu

## **6** (era burutua izenondo gisa)

Jopu **ihes** eginak. Jose Morales

Mirabe **ihes** eginak kartzelari begiratzen dion bezalaxe. Patxi Zubizarreta

Neurrigabekeria guztiak egin zituzten gladiadore **ihes** eginekin. Juan Garzia

Etxalde handiak dituzten lurjabeek batera dauzkate erroldaturik arima guztiak: biziak, hilak eta **ihes** eginak... Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**aldera ihes** (7); **artean ihes** (7); **artetik ihes** (9); **askok ihes** (12); **askok ihes egin** (8); **atzaparretatik ihes** (7); **baina ihes** (23); **baina ihes egin** (10); **bakarrik ihes** (17); **bakarrik ihes egin** (8); **batean ihes** (17); **batean ihes egin** (9); **batek ihes** (48); **batek ihes egin** (33); **batek ihes egiten** (7); **batera ihes** (15); **batera ihes egin** (7); **batetik ihes** (25); **batetik ihes egin** (10); **bati ihes** (9); **batzuek ihes** (11); **batzuek ihes egin** (7); **berak ihes** (8); **berriro ihes** (9); **bezala ihes** (16); **bezala ihes egiten** (7); **bizirik ihes** (7); **da ihes** (8); **dio ihes** (25); **dio ihes egiten** (7); **diote ihes** (8); **du ihes** (36); **du ihes egin** (8); **duela ihes** (9); **dut ihes** (14); **dute ihes** (25); **duzu ihes** (8); **duzue ihes** (7); **edo ihes** (16); **egin dute ihes** (7); **egin ihes** (18); **egin zion ihes** (19); **egin zuen ihes** (65); **egin zuten ihes** (39); **egiten du ihes** (8); **ere ihes** (43); **ere ihes egin** (26)

**eskuetatik ihes** (21); **eskuetatik ihes egin** (11); **eskuetatik ihes egiten** (7); **eskutik ihes** (10); **eskutik ihes egin** (7); **espetxetik ihes** (14); **eta ihes** (203); **eta ihes egin** (99); **eta ihes egitea** (12); **eta ihes egiteko** (16); **eta ihes egiten** (33); **etxeetatik ihes** (8); **etxetik ihes** (51); **etxetik ihes egin** (32); **etxetik ihes egiten** (8); **ez dio ihes** (11); **ez du ihes** (9); **ez ihes** (7); **ez zion ihes** (10); **ez zuen ihes** (22); **ezin ihes** (18); **ezin ihes egin** (15); **frantziara ihes** (8); **gabe ihes** (16); **gabe ihes egin** (9); **gero ihes** (10); **gero ihes egin** (8); **guztiek ihes** (13); **guztiek ihes egin** (10); **handik ihes** (48); **handik ihes egin** (19); **handik ihes egitea** (7); **handik ihes egiteko** (11); **harengandik ihes** (7); **hari ihes** (14); **hark ihes** (7); **hartatik ihes** (17); **hartatik ihes egiteko** (7); **hartu eta ihes** (8); **heriotzari ihes** (13); **heriotzari ihes egin** (10); **herritarrek ihes** (7); **herritarrek ihes egin** (7); **herritik ihes** (13); **herritik ihes egin** (8); **hiritik ihes** (11); **honek ihes** (7); **horretatik ihes** (17); **horretatik ihes egin** (7); **horri ihes** (14)

**ihes egin** (1983); **ihes egin ahal** (46); **ihes egin baitzuten** (8); **ihes egin behar** (141); **ihes egin beharko** (8); **ihes egin beharra** (13); **ihes egin beharrean** (8); **ihes egin dio** (22); **ihes egin dit** (12); **ihes egin du** (50); **ihes egin duen** (11); **ihes egin dute** (41); **ihes egin duten** (7); **ihes egin eta** (117); **ihes egin ez** (43); **ihes egin ezin** (7); **ihes egin gabe** (8); **ihes egin genuen** (7); **ihes egin izan** (10); **ihes egin nahi** (130); **ihes egin nahian** (34); **ihes egin nahirik** (8); **ihes egin nuen** (33); **ihes egin ondoren** (11); **ihes egin ostean** (9); **ihes egin ote** (7); **ihes egin zidan** (13); **ihes egin zien** (20); **ihes egin zion** (63); **ihes egin zioten** (14); **ihes egin zuela** (23); **ihes egin zuen** (262); **ihes egin zuenean** (7); **ihes egin zuenetik** (9); **ihes egin zutela** (17); **ihes egin zuten** (144)

**ihes egina** (47); **ihes egina zen** (14); **ihes eginak** (17); **ihes eginda** (70); **ihes egindako** (96); **ihes eginen** (20); **ihes eginez** (51); **ihes egingo** (143); **ihes egingo du** (14); **ihes egingo ez** (8); **ihes eginik** (14); **ihes eginiko** (7); **ihes egitea** (303); **ihes egitea erabaki** (12); **ihes egitea eta** (12); **ihes egitea lortu** (105); **ihes egitean** (15); **ihes egitearren** (7); **ihes egiteko** (496); **ihes egiteko arriskua** (27); **ihes egiteko asmoa** (8); **ihes egiteko aukera** (19); **ihes egiteko eta** (13); **ihes egiteko gogoa** (11); **ihes egiteko modu** (7); **ihes egiteko modua** (7); **ihes egiteko modurik** (7); **ihes egiten** (707); **ihes egiten ahalegindu** (8); **ihes egiten ari** (25); **ihes egiten dio** (19); **ihes egiten du** (38); **ihes egiten duen** (10); **ihes egiten dute** (21); **ihes egiten ez** (10); **ihes egiten hasi** (8); **ihes egiten lagundu** (10); **ihes egiten nuen** (7); **ihes egiten saiatu** (47); **ihes egiten utzi** (58); **ihes egiten utziko** (11); **ihes egiten ziola** (8); **ihes egiten zion** (17); **ihes egiten zioten** (11); **ihes egiten zuen** (20); **ihes egiten zuten** (15); **ihes egitera** (51); **ihes egitera behartu** (9); **ihes egiterat** (7); **ihes egiterik** (33); **ihes egiterik ez** (7); **ihes egiterik izan** (7); **ihes egizu** (7)

**ihes eragin** (17); **ihes eta** (19); **ihes joan** (18); **inork ihes** (7); **jaitsiera postuetatik ihes** (11); **jendeak ihes** (9); **kanpora ihes** (9); **kartzelatik ihes** (19); **kartzelatik ihes egin** (8); **korrika ihes** (7); **lagunek ihes** (8); **lasterka ihes** (8); **nik ihes** (12); **nola ihes** (12); **nola ihes egin** (9); **nuen ihes** (12); **patuari ihes** (8); **pertsonak ihes** (7); **postuetatik ihes** (16); **postuetatik ihes egin** (7); **postuetatik ihes egiteko** (9); **tropeletik ihes** (7); **utzi eta ihes** (13); **zen ihes** (12); **zergatik ihes** (10); **zergatik ihes egin** (8); **zidan ihes** (10); **zien ihes** (8); **zigorrari ihes** (11); **zion ihes** (38); **zion ihes egin** (9); **zioten ihes** (8); **zuela ihes** (7); **zuen ihes** (111); **zuen ihes egin** (19); **zuen ihes egiteko** (9); **zulotik ihes** (13); **zulotik ihes egin** (7); **zuten ihes** (60); **zuten ihes egin** (8); **zuten ihes eta** (4)

---

ihes eginarazi ik **ihes 10**.

---

ihes eragin ik **ihes 11**.

---

# **ihesaldi** *(orobat **ihesialdi** g.er.)* **1** *iz* ihes egitea, ihesa.

**Ihesaldi** eta deportazio, kartzelaldi eta sakabanaketa horien historia moduren bat idatzi beharko genuke. Jokin Urain

Joan Mari Labordetak, Lexok, bere kartzelaldi eta **ihesaldien** berri bidali zigun. Jokin Urain

Rufinen **ihesa** ospetsu bilakatu zen Prusian. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bost hilabete eta hemeretzi eguneko eta milaka kilometrotako **ihesaldi** luzea egin ondoren. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Ihesaldia** geroko uztea ala ez gogoetan ari zela. Karlos Zabala

Hortaz, zuk zeure aldetik ulerkorra izan beharko duzu, ezikusiarena egin aldizkako **ihesaldi** horien aurrean. Migel Angel Mintegi

Gaueko **ihesaldietan** pentsamendua hegaldatzen zaigu, batean Biblian eta bestean *Odisea*-n txertatzen. Itxaro Borda

Lau lerro soldadu, zutik edo zaldi gainean, atzean jarri zitzaizkien, **ihesaldia** guztiz oztopatzeko. Karlos Zabala

Erromako printzea bera agertzen zitzaigun bide erdira, **ihesa** eragoztera. Aingeru Epaltza

Nire bi **ihesaldien** ondoren lasterrago zetorren Inkisizioaren mendekua. Koro Navarro

Eta azpimarratu behar da aurreneko **ihesaldi** jakinaren eta bigarren **ihesaldi** ustezkoaren arteko denbora bitartea, itsas armadako gizonen itsasaldiena baino hilabete batzuk luzexeagoa dela. Koro Navarro

Bere bi idazkari pertsonal leialak ezker-eskuin dituela: apaiz gazte bat eta moja are gazteago bat, odisea-giroko **ihesaldian** laguntza handia eman ziotenak. Inazio Mujika Iraola

Bazekitelako edo bestela susmatzen zutelako **ihesaldi** guztien amaieran hilobi bat zegoela, lurrezko hilobi edo airezko hilobi. Felipe Juaristi

Atzeraldia **ihesaldi** bihurtu zen. ezkon etxea utzirik, semeenera jo izan baitzuen, ikustaldiak itxuratuz, baina zinez **ihesaldiak** eginez. Patxi Zubizarreta

Erromesaldiko azken egunean 345 lagun hil dira, pilatuta, **ihesaldi** batean. Berria - Mundua

127 zekorren **ihesaldi** arriskutsua. Berria - Euskal Herria

Egungo egunean harrotzen ahal baita bere **ihesialdiaz** ni neure garaipenaz bainoago. Jon Muñoz

**2** (txirrindularitzan)

Zazpi txirrindulariz osatutako **ihesaldia** antolatu zen Jaizkibelen. Berria - Kirola

Morellako etapan eguneko **ihesaldian** sartu zen Osa anaia gazteena. Berria - Kirola

Etapako **ihesaldi** onean sartu zen larunbatean, Brochard garailearekin batera. Berria - Kirola

Ibilbidearen aurreneko zatia aproposa da **ihesaldiak** sortzeko. Berria - Kirola

Mallorcako bide bihurriek, gainera, **ihesaldietarako** aukera ederrak eskaintzen dituzte. Berria - Kirola

**Ihesaldikoak** harrapatzea zaila izan zela, baina Euskatel-Euskadik ere lan egin zuela, eta azken kilometroetan lortu zutela. Berria - Kirola

Algortakoarenak izan ziren errelebo luzeenak **ihesaldiaren** azken txanpara arte. Berria - Kirola

**3** (ekonomian)

Nazio-kapitalen aberriratze-aldiak eta **ihesaldiak**. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan)

**Ihesaldi** irriskuak bazirela... Filipe Bidart

Txirrindulariek maldan gora hainbat **ihesaldi** saio egin zituzten lasterketa osoan, arrakasta handiegirik gabe. Berria - Kirola

Aurten bertan bigarren postu bat lortua, aurten bertan hainbat **ihesaldi** saiakera egindakoa, iaz etapa bat irabazitakoa, klasikoetan zaildutakoa. Berria - Kirola

Etenik gabeko **ihesaldi** ahaleginak, baina alferrekoak den-denak. Berria - Kirola

· Ez dakigu altxamendu bat edota kartzela **ihesaldi** bat bultzatu nahian dabiltzan. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere ihesaldiaren** (3); **beren ihesaldian** (3); **beste ihesaldi** (3); **bigarren ihesaldia** (3); **dozenaka ihesaldi** (3); **eguneko ihesaldia** (9); **eguneko ihesaldian** (13); **eguneko ihesaldian sartu** (4); **eta ihesaldi** (9); **eta ihesaldia** (4); **eta ihesaldiak** (6); **eta ihesaldietan** (4); **gabeko ihesaldia** (3); **hainbat ihesaldi** (6); **ihesaldi ahalegin** (5); **ihesaldi ahaleginak** (6); **ihesaldi arriskutsuak** (3); **ihesaldi bat** (14); **ihesaldi bat egin** (3); **ihesaldi batean** (6); **ihesaldi bateko** (5); **ihesaldi guztiak** (3); **ihesaldi guztietan** (3); **ihesaldi horretan** (3); **ihesaldi luzea** (3); **ihesaldi ona** (3); **ihesaldi saiakera** (5); **ihesaldi saiakerak** (3); **ihesaldi saio** (3); **ihesaldia egin** (3); **ihesaldia eragin** (3); **ihesaldia izan** (4); **ihesaldia osatu** (3); **ihesaldia sortzeko** (3); **ihesaldian sartu** (8); **ihesaldian sartu zen** (4); **ihesaldian sartzen** (4); **ihesaldiaren berri** (6); **ihesaldiaren ostean** (5); **ihesaldietan sartu** (3); **ihesaldietan sartzen** (7); **ihesaldiren batean** (7); **ihesaldiren batean sartzen** (3); **kilometroko ihesaldia** (3); **zen eguneko ihesaldia** (3); **zen ihesaldia** (3); **ziren ihesaldi** (4); **ziren ihesaldia** (3); **ziren ihesaldian** (3); **zuten ihesaldia** (3)

---

# ihesalditxo *iz* ihesaldi laburra.

Tabakoak ez die lan handirik eman, herrira egindako **ihesalditxo** bat aski pakete batzuk eskuratzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina esaten badidazu sekula ez duzula gogorik izan noizean behin **ihesalditxo** bat egiteko, sekula ez duzula amets egin etxetik kanpo buelta bat ematearekin, gezurretan ari zara. Karlos Zabala

Hiru hilabete barru Espainiara joatekotan gaude, eta nik Euskal Herrira **ihesalditxo** bat egiteko asmoa badut. Berria - Euskal Herria

Hiru laguneko **ihesalditxoa** iritxi zen helmugara, eta Cofidiseko txirindularia Kurt-Asle Arvesen eta Jens Voigten aurretik sailkatu zen. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ihesalditxo bat** (3)

---

# ihesarazi, ihesaraz, ihesarazten du *ad* ihes eragin.

Eta Damari hitzeman zion, Santiago lekuko hartuz, hiru ehun zaldun garaituko zituela, eta errana egin zuen zaldun frantses, italiano, aleman, portuges eta espainolak **ihesarazi** zituen leones printzeak. Piarres Aintziart

Bainan euskararik nihundik ere ez! iduri-eta gure mintzaira “barbaroak” **ihesaraziko** lituzkeela! Herria

---

# ihesbide *(orobat **ihespide** g.er.)* **1** *iz* ihes egiteko bidea. ik **itzurbide**.

Galindezek Landetara egin du, hantxe bada **ihesbidea:** Bordeleko portua. Edorta Jimenez

**Ihesbidea** itsasontzia zelarik, itsasontziko kapitaina aldez aurretik egin beharko zuten planaren jakitun. Edorta Jimenez

-Oraindik auzoan egon behar dute, **ihesbiderik** ez dutenez! Aitor Arana

Inguru hutsera luzatu nituen begiak, **ihesbideren** baten eske. Aingeru Epaltza

**Ihesbidea** ixten didate, ni galtzen saiatzen dira, inoren laguntza-beharrik ez dutelarik. Elizen arteko biblia

Zertarako, eta beste aldera pasatu eta, faxisten artean bere burua lasai ikusita, gure kontra asto beltzarenak esango zituen obispo bati **ihesbidea** errazteko. Inazio Mujika Iraola

**2** *hed*

Jack Londonen ipuineko protagonistak heriotzan aurkitu zuen duintasunik gabeko bizitzaren **ihesbidea**. Joxerra Garzia

Aisialdia, garapenerako bide baino gehiago, **ihesbide** gisa ulertzen da. Berria - Harian

Haatik, gizakiaren bizitza existentziaren zirkunferentziaren ukitze-gunean **ihesbide** bat sortzeko ahalegina da, hain zuzen, existentzia berezi bat eraikitzeko seta, betiereko itxitura biribiletik ihesi. Juan Kruz Igerabide

Neure erruek inguratua naukate, **ihesbiderik** gabe. Elizen arteko biblia

Galduta gaudek hondamendiaren eta suntsipenaren erdian, **ihesbiderik** gabe. Agustin Otsoa

**Ihesbiderik** gabeko tranpa. Berria - Harian

Eta **ihesbideak** ez du inoiz inora eraman. Josu Zabaleta

Egun, urteetan jasandako egoera itogarriaren aurrean **ihesbide** izan zuten irudimena aldarrikatzen dute bi sortzaileek. Berria - Kultura

Irakurtzea nuen **ihesbidea** eta aisia, kontsolamendua eta pizgarrietan kutunena. Oskar Arana

Basoko lan akigarria **ihesbide** izan nuen hasieran, baina azken garaietan nekeak ere ezin zituen nire buru barneko irudi beltzak uxatu. Alberto Ladron Arana

Baina bistan da zorpean sartu dela berriz ere, eta ez duela hona itzultzea beste **ihesbiderik** izan. Ander Irizar

Ez diezadala berriz otoi eni erran Sasiondoko teologo berriak "Ebanjelioa duela nahi irakatsi eta ez euskal gramatika"! galda niezaioke berari, ea bere ebanjelioa irakasteko nahitaez darabilen gramatika, norena ote den: aingeruena aments, ala gaskoinena? ezen ez dugu **ihespiderik:** aitortzen ez den fedea galtzen da. Piarres Xarriton

Horiek guziak **ihesbide**, bainan ere galbide! Herria

**3** (kearena eta kidekoena)

Goiko leihoa ireki dute, tabakoaren keari **ihesbidea** emateko. Edorta Jimenez

Lisak angeluetako dorretxo baten barnealdea ikusi zuen, irteera hodi zabal moduko bat, abeltegiko aire nazkagarriaren **ihesbidea**. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beste ihesbiderik** (3); **dago ihesbiderik** (7); **eta ihesbiderik** (4); **ez dago ihesbiderik** (7); **ez nuen ihesbiderik** (3); **ez zegoen ihesbiderik** (3); **ihesbide bakarra** (4); **ihesbide bat** (7); **ihesbide izan** (3); **ihesbidea eta** (3); **ihesbideren bat** (4); **ihesbiderik eta** (4); **ihesbiderik ez** (9); **ihesbiderik ez zuela** (3); **ihesbiderik gabe** (7); **nuen ihesbiderik** (3); **zegoen ihesbiderik** (3)

---

# ihesbidetxo *iz adkor* ihesbidea.

Ez zegoen lehertuta, gaitzerdi, baina izan bazuen halako **ihesbidetxo** bat. Unai Iturriaga

---

# ihesezin 1 *izond* bertatik ihes egin ezin daitekeena.

Zain zuten zelda hutsak **ihesezina** zirudien, unetik unera gertuago zegoen iturriko itogina, aulkia, Gela Zebratua. Harkaitz Cano

**2** ***ihesezinezko*** *izlag*

Baina patua ez da **ihesezinezkoa,** azpimarratzeko aukera guri emana izan zaigunetik. Harkaitz Cano

---

# ihesgin *iz* iheslaria.

Gainera **ihesgin** bakoitzeko gutariko hamar fusilatzen zitiztean denon aitzinean, zentzagarri... Koldo Izagirre

**Ihesginak** bortxatu egin nahi izan zuen, baina alargunaren kuraiak gaina hartu zion Koldo Izagirre

---

# ihesgo *iz* ihesladia, ihesa.

Bi aldetako gerlek eragin **ihesgoen** ondotik. bBgarren auzi batek aztertu behar ditu Baigorriko afera, Paueko **ihesgoa**, Baionako auzitegiko tirokatzea eta Miarritzeko banko baten arrobatzea. Herria

---

# ihesgune *iz* ihes egiteko gunea.

Espazioak, **ihesguneak** eta mikroarkitekturak Berria - Kultura

---

# ihesi[1] 1 *adlag* ihes eginez. ik **ihes 4.**

Beldurtu zen Elias eta **ihesi** joan, bere bizia salbatzeko. Elizen arteko biblia

Mikel Strogoffek zaldi gainera igo eta lauoinka **ihesi** joatea beste aukerarik ez du. Karlos Zabala

Zaldi gainean doa **ihesi** beti gaizkilea. Patziku Perurena

Etxeek **ihesi** ikusten ninduten, beren begi goibelekin. Monika Etxebarria

Malkoak begietan **ihesi** joan zirenen arrasto tristea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ahalegina egingo dut gaiari lotu eta [...] buruan igeri, edo **"ihesi",** dabilzkidan ideiak harrapatzeko. Bernardo Atxaga

Ez daukazue beste aukerarik: borroka egin edo **ihesi** abiatu, ea norbaitek heriotza saihesten duen. Juan Kruz Igerabide

Frantses polizia etengabe orpoz orpo daukalarik, beti **ihesi** bizi duk. Txillardegi

Orduan, jauzi batez zutitu eta **ihesi** joan zen ero-eroan, kapelarik gabe, eskuak odoletan. Karlos Zabala

Ibai uretan **ihesi** doazen norberaren irudi puskak bezala. Felipe Juaristi

Gu **ihesi** abiatu ginen, erabat izuturik. Juan Kruz Igerabide

Erabat izuturik eta ikaraturik, sakanean barrena barreiatu ziren denak **ihesi,** elkarri itxaron gabe. Jose Antonio Mujika

Gero, bi mozorrotuak aldapa behera abiatu ziren **ihesi,** abaila batean. Juan Kruz Igerabide

Eta haragiaren berezko kosmetika ez ezik, izpirituaren puxka bat ere **ihesi** doakigu egunero bainugelako ur-zuloetan behera, apar arrotz desohoragarri batekin nahasirik. Iñaki Segurola

Haren begiei **ihesi,** begirada batez gela inguratu nuen. Ramon Saizarbitoria

Egun osoa etxean ematen dugu, kanpoko sapa beroari **ihesi**. Javi Cillero

Atzera egin zuen berriz, bolbora usain erreari **ihesi**. Jon Maia

Oroimen eta gogoetei **ihesi** iragan dituzu orenak. Xabier Montoia

-Gábor askoz lasaiagoa da -esan zuen nire galderari **ihesi-**. Ander Irizar

Bide horretatik, beren haurtzaroko eliza hertsiari eta kultura zaharrari **ihesi,** belaunaldi berriak aurkitu zituen Iparralderantz Albert Camus, Jean-Paul Sartre, Simone de Beauvoir eta Pariseko iraultza prestatzen ari ziren profetak. Piarres Xarriton

Nazismoari **ihesi** Frantziara etorri zen 26 urteetan 1933an. Piarres Xarriton

**2** (nora)

Hadad, ordea, mutiko gazte zelarik, **ihesi** joan zen Egiptora, bere aitaren zerbitzari ziren edomdar batzuekin. Elizen arteko biblia

Horrexegatik joaten naiz ganbarara **ihesi**. Josu Zabaleta

Beste biak **ihesi** abiatu ziren eta ontzietara iritsi. Juan Kruz Igerabide

Kearen beldurrez, sura **ihesi**. Jose Morales

Ahaztu al zaik hire aita hona **ihesi** etorri zela [...]? Juan Kruz Igerabide

Nekazariak Jeniseiz bestaldera joanak ziren **ihesi,** ibaiaren zabalerak beharbada tatariarrak geldiaraziko zituelakoan. Karlos Zabala

Eta lasterka hasi zen, bere bizilekurantz **ihesi** . Josu Zabaleta

Igelak, argia piztu orduko, armairu azpitik irten eta **ihesi** ateratzen ziren hara eta hona saltoka. Pello Lizarralde

Kafetegirantz egin bide zuten **ihesi** .Txoriak **ihesi** joan ziren, inon ez den tokira. Felipe Juaristi

Euskal Herritik New Yorkera **ihesi** etorritako emakume baten istorioa kontatu dizu. Harkaitz Cano

**3** (nondik)

Koadrila **ihesi** irten zen tabernatik. Juan Kruz Igerabide

Hara joan ziren Feofar Khanen saldoek inbaditutako probintzietatik **ihesi** . Karlos Zabala

Jendetza ikaraturik haren gainetik pasatu zen izu-laborrian tiroetatik **ihesi** . Karlos Zabala

Burua biratzen zuten orain, besteen begiradatik **ihesi** . Karlos Zabala

Errusiatik 1917. urtean iraultzatik **ihesi** alde egin ondoren. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gure aitona Espainiako justiziatik **ihesi** zebilen. Jon Muñoz

Iskanbila horietatik **ihesi,** Erroman ezkutatu zen. Josu Zabaleta

Eskuak gainean ipintzen zituen behin eta berriz, zuloa estali nahirik, bere izana handik **ihesi** zihoakiola iruditzen baitzitzaion. Karlos Zabala

Itsasotik eta Poseidonen mehatxuetatik **ihesi** nator. Juan Kruz Igerabide

Hura ez zihoan forma hutsen atzetik, hura ez zihoan bere burutik **ihesi;** alderantziz: bere buruarekin aurrez aurre jartzen zen etengabe. Juan Kruz Igerabide

**4** (norengandik)

Otso batengandik **ihesi,** tigre baten atzaparretan erori naiz. Juan Kruz Igerabide

Atxilotuak izateko beldurrez, poliziarengandik **ihesi** . Iñigo Aranbarri

Testuak ere arrainak dira, elkarren bila edo elkarrengandik **ihesi** dabiltzanak. handik egun batzuetara hoteletik hanka egin zuen ilehori hark, bahitzailearengandik **ihesi,** satiro hutsa baitzen, nonbait. Bernardo Atxaga

-Hebertarra naiz -erantzun zien-, eta **ihesi** nator neureengandik, laster eroriko baitira haiek zuen eskuetan. Jose Antonio Mujika

**5** (-en atzizkiaren eskuinean)

Fusil tiroen **ihesi** ibiliko da merkatari lasai hau. Karlos Zabala

Zeren **ihesi?",** otutzen zaio Gabini. Berria - Kultura

1933an Suitzara emigratu behar izan du, gero Frantziara eta 1942an USAra nazien **ihesi** . Joxe Azurmendi

Gazelak Afrikako sabanan lehoien **ihesi** bezalatsu. Iñaki Heras

Auzo-probintziako gobernadoreak zioen gaizkile bat justiziaren **ihesi** zebilela. Jose Morales

Zama handiegia baitzeraman haien **ihesi** joateko. Karlos Zabala

Horregatik doa ihesi, emazte biluziaren **ihesi** . Koldo Izagirre

Badira han, euskaldunez gainera, juduak, nederlandarrak, poloniarrak, txekiarrak, denak ere Europan gero eta ugariagoak eta ozenagoak diren gerra-hotsen **ihesi** . Anjel Lertxundi

• **6** *iz* ihesa.

Hiritarren **ihesia** amaitzera zihoan. Migel Angel Mintegi

**7** ***ihesian*** ihes eginez. ik **ihes 9.**

**Ihesian** omen ditinagu jada alemaniarrak. Mirentxu Larrañaga

Ez noa Ritak orduan aipatutako oro hemen jartzera, asko baitira **ihesian** ibilitakoaren oroitzapenak eta asko zoritxarrak jotakoaren kontuak. Hasier Etxeberria

**Ihesian** harrapaturiko San Kristobalgo milizianoei. Koldo Izagirre

Gauza bakarra nahi dut zugandik, sinets diezadazula nire oinazeak, zugana **ihesian,** aitortuko dizun guztia. Eduardo Matauko

**8** ***ihesi egin*** ihes egin.

Heriotzari **ihesi egin** izanaren ospakizunetan, ahantziak ginen Ximurraz. Aingeru Epaltza

Zweigek berak naziengandik **ihesi egin** behar izan zuen bezala. Markos Zapiain

Izan ere beste bide bat hartu eta aurreraka **ihesi eginez** gero, etorkizunean are neurri tamalgarriagoak hartu beharko baitira noizbait. Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**artetik ihesi** (7); **bat ihesi** (8); **batetik ihesi** (6); **beti ihesi** (7); **burdinen artetik ihesi** (4); **da ihesi** (4); **doaz ihesi** (4); **edo ihesi** (5); **egiptora ihesi** (4); **ere ihesi** (8); **eta ihesi** (45); **eta ihesi abiatu** (4); **eta ihesi joan** (17); **etxetik ihesi** (6); **gerratik ihesi** (5); **goazen ihesi** (4); **handik ihesi** (9); **herritik ihesi** (4); **hiritik ihesi** (5)

**ihesi abiatu** (27); **ihesi abiatu zen** (10); **ihesi abiatu ziren** (10); **ihesi alde** (7); **ihesi alde egin** (6); **ihesi beste** (4); **ihesi bezala** (4); **ihesi bizi** (4); **ihesi datorren** (4); **ihesi doa** (7); **ihesi doan** (11); **ihesi doaz** (14); **ihesi doazen** (5); **ihesi doazenak** (5); **ihesi egin** (5); **ihesi eta** (13); **ihesi etorri** (9); **ihesi etorritako** (4); **ihesi ibili** (19); **ihesi ibili behar** (7); **ihesi joan** (121); **ihesi joan da** (4); **ihesi joan nintzen** (4); **ihesi joan zen** (26); **ihesi joan ziren** (31); **ihesi joana** (6); **ihesi joanak** (15); **ihesi joanak ziren** (6); **ihesi joandako** (16); **ihesi joandakoak** (4); **ihesi joango** (18); **ihesi joango dira** (4); **ihesi joatea** (5); **ihesi joateko** (8); **ihesi joaten** (12); **ihesi noa** (4); **ihesi zebilela** (5); **ihesi zebilen** (8); **ihesi zebiltzan** (4); **ihesi zihoakion** (5); **ihesi zihoala** (14); **ihesi zihoan** (18); **ihesi zihoazela** (8); **ihesi zihoazen** (15)

**joan ihesi** (5); **joan zen ihesi** (12); **joan ziren ihesi** (9); **justiziatik ihesi** (6); **ondoren ihesi** (4); **zen ihesi** (19); **ziren ihesi** (17)

---

## ihesi[2], ihes, ihesten da *ad* ihes egin.

Neorrealistak, idazleak zein zinegileak, kultura elitista baten guztizko etsaiak dira, **ihesteko** baizik balio ez duen arte baten etsai amorratu. Anjel Lertxundi

Begiak mugimendu ikusezin etengabean hasi zitzaizkion, zuloetatik **ihesteko** zorian. Unai Iturriaga

Ivan Colonna, duela lau urte ta erdi hurbil, Claude Erignac prefeta hil zutenaz geroztik **ihesi** zena. Herria

Ez zekien non paratu begirada, arakatzen zuten begi haietatik **ihesi** nahian. Sonia Gonzalez

Dylanek ez zuen garbi ikusi; tarteka biragune sakonen batetik **ihesitako** argi errainuak. Pako Aristi

Bertus ezkutuan baitabil, lan behartuetatik **ihesia** da. Josu Zabaleta

Zuen ahalegin oro alferrikakoa izango da eta begiespenera **ihestera** behartuak izango zarete, Geometriak ere beti egiten duen legez. Ibon Uribarri

**Ihesten** saiatzea, ezta bururatu ere. Berria - Harian

· du *ad* Guztiz erabakitzeke uzten du gure adigaiei **ihesten** dien bere oinarriak zein antolaera duen Ibon Uribarri

---

## ihesialdi ik **ihesaldi.**

---

## iheska *adlag* ihes eginez, ihesi. ik **ihes 9.**

**Iheska** abiatu zen izu-izu egina. Patxi Ezkiaga

Bi hitzetan, **iheska** atera behar izan nuen handik. Fernando Rey

Ez duzu horrela txoro-txoro **iheska** hasi beharrik. Patxi Ezkiaga

Hainbat egunetan, **iheska** ibili nintzaion. Aingeru Epaltza

Egun hartatik bertatik osaba Kamil **iheska** ibiltzen zitzaion. Patxi Zubizarreta

Bata besteari **iheska** zebiltzan, eta zazpi eginahalak egiten zituzten ez elkarrekin topo egiteko. Elena Touyarou

Areago, bi emakumeen begiradak elkarri **iheska** ari zirela erran zitekeen. Aingeru Epaltza

Ukigarri ez zen guztiari **iheska,** ur edan berriak gorputz barnera ekarri zidan freskurara ezarri nuen gogoa. Aingeru Epaltza

Ni atetik **iheska** ateratzen nintzen bitartean. Fernando Rey

Ez zaitezela horregatik ibil niregandik **iheska,** ez nazazula zeure aurretik bota. Askoren artean

Betiko galderari askotan erantzun diot erdi- **iheska:** "nahi al zenuke zure seme-alabak bertsolari izatea?". Andoni Egaña

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta iheska** (6); **iheska abiatu** (3); **iheska eta** (3); **iheska etorri** (3); **iheska hasi** (6); **iheska ibili** (4); **iheska ibiltzea** (3); **iheska ibiltzen** (4); **iheska joan** (11); **iheska joanak** (3)

---

# iheskada *iz* ihesa, ihes egitea.

Ez da lehen aldia produktu kimiko **iheskadak** gertatzen direla hor, RUWEL lantegia sei hilabete honetan hetsia delarik Herria

---

# iheskari *izond* iheslaria.

Hark putz egin eta zerua garbi uzten du, haren eskuak herensuge **iheskaria** aldez alde zulatzen. Elizen arteko biblia

---

# iheskeria *iz* ihes egite gaitzesgarria.

Hango neskez, haien **iheskeria** -lotsa? zuhurtzia?- baizik ez dut gogoan, baina horretan ez zeuden sobera aparte neure ohiko bizilekuan ezagutzen nituenetatik. Aingeru Epaltza

---

# ihesketa *iz* ihes egitea.

Isiltasuna nagusitu zen beste behin: bata serbilleta-ontziarekin jostalari, bestea azazkalez mahaian joka, elkarrekiko mututasun eta **ihesketan** tematsu. Xabier Mendiguren Elizegi

Uste dut sinadura bilketako kanpaina horrek **ihesketaren** ondorioz sortu zen poz eta euforia bideratzeko balio izan duela. Berria - Harian

---

# iheskide *(22 agerraldi, 14 artikulutan)* *iz* ihesean kide dena *(corpusean soilik txirrindularitzan)*. ik **iheslagun**.

Bertan behera utzi zituen bi **iheskideak,** berehala lortu zituen lehenengo aldeak, eta bakar-bakarrik sartu zen Figeaceko helmugan. Berria - Kirola

Tropelari meriturik kendu gabe, bi **iheskideen** akatsak ere izan zuen zerikusirik. Berria - Kirola

Bakarrik iritsi zen helmugara, eta lau segundoko aldea atera zien **iheskideei** . Berria - Kirola

Alberto Martinezek erasoa jo zuen Hondarribian, Ivan Bassok gurpila zulatu zuen eta nahiko lan izan zuen berriro taldetxoan sartzen, Rebellinek **iheskideak** kontrolatu zituen. Berria - Kirola

---

# iheskor 1 *izond* berehala igarotzen edo desagertzen dena, bistatik behingoan aienatzen dena; atzitzeko edo atzemateko zaila.

Miresmena bainoago, gaitzespena zerien haien begi **iheskorrei** . Aingeru Epaltza

Eta azkenean ezin izan zion malko **iheskor** bati eutsi. Bego Montorio

Ez da bular **iheskorrik** gehiago ikusiko. Berria - Kultura

Bisaian fereka **iheskor** bat egin nion, erranaren bermagarri. Aingeru Epaltza

Aurpegia bizitasunez aurreratuz, musu **iheskor** bat eman zion. Ramon Saizarbitoria

Katek atzamar soil batez bere barruko berotasun guztia pausatu du laztan **iheskor** batean, mutilari begietara so eginez. Sonia Gonzalez

Begirada **iheskor** bat ibilbidea bukatzean, autobusetik jaistean. Jon Alonso

Lapur-begiratu **iheskor** bat zure bizitzan besterik ez zen izan. Eduardo Matauko

-Ez, ez -esan zuen Cunningham jaunak tonu **iheskor** batean-, zera... auzitxo espiritual bat. Irene Aldasoro

Ez zuen sekula berriz ikusiko eta bere bizitzako alaitasun osoa maitasun-une **iheskor** hura baizik ez zen izanen. Fernando Rey

Begi eder horien samurtasun **iheskorra** . Monika Etxebarria

Kanporatu zelarik, belaunetarainoko gonaren azpiko aztal beteen ikuskari **iheskorrak** agurtu ninduen. Aingeru Epaltza

-Biziera gerra da... deserri arrotzean jasan beharreko pausaldi **iheskorra..** . Txillardegi

Kanpoan, izarloka baten isats **iheskorra** dirdaitu zen abuztuko izartegian. Aingeru Epaltza

Gorputz zuri bat ilargipean, ur beltzen gainean errainu **iheskor** bat osatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizakia arnasaldi baten antzeko da, haren egunak itzal **iheskorraren** antzeko. Elizen arteko biblia

Triestek grazia **iheskor** bat du, bai. Berria - Kultura

Pentsamenturik **iheskorrena** antolamendu ikusezin bati dagokio eta horrenbestez buru eman diezaioke, edo hastapen, forma sekretu bati. Juan Garzia

## 2 (izan aditzarekin)

Itzala bezain **iheskor** da gure bizialdia, eta gure azkena ez dago atzeratzerik. Elizen arteko biblia

Oroitzapen "normalak", eguneroko oroitzapenak, ez direla inondik ere finkoak, **iheskor** eta mudakorrak direla, aldatu egiten direla haietaz pentsatzen dugun aldiro. Xabier Olarra

Pertzepzioen mundua oso subjektiboa izanik, ura bezain aske eta **iheskorra** ere badelako. Ana Urkiza

Bazen elementu erraz-zintzorik, ezkutatzeko gauza ez zenik, hala nola burdina eta kobrea; beste batzuk, berriz, makur eta **iheskor** ziren, hala nola bismutoa eta kadmioa. Juan Garzia

## 3 (bizidunei buruz)

Ingrid **iheskorra** zen. Bernardo Atxaga

Ni protestaria bai baina **iheskorra** ere banaiz. Ana Urkiza

Lebiatan, suge **iheskor** eta makurra, zigortuko du Jaunak bere ezpata zorrotz, handi eta bizkorraz. Elizen arteko biblia

Sagutxo bat bakarrik dut lagun, sagu belgikar **iheskor** bat. Mirentxu Larrañaga

Nik silfide **iheskorraren** poseak hartzen nituen. Karlos Zabala

## 4 *(adizlagun gisa).*

Eguraldia bikain zetorren, epel eta **iheskor;** eta lakua ezin bareago. Txillardegi

Berak ere begiratu zidan, hasieran **iheskor,** gero arreta handiagoz, begitxo ñimiño, bizi eta argitsuekin. Urtzi Urrutikoetxea

Dianneren begiak gaseosa-burbuilen antzera mugitzen ziren, arin eta **iheskor**. Fernando Morillo

Etorri bezala, **iheskor,** uzkur eta itzalgaizka ikusi nuen, bere poltsa beltz zimurra magalean estutuz. Joxean Agirre

Lopezek **iheskor** erantzun du: [...]. Berria - Euskal Herria

**5** ***izar iheskor***

Itsasoko olatu haserreak dira, beren lotsarien aparra botatzen dutenak; izar **iheskorrak,** betikotasun guztirako ilunpe beltzak zain dauzkatenak. Elizen arteko biblia

Gero lauhazka hasi zen mendi aldera, mendi-hegian izar **iheskor** baten gisan arin lerratuz. Fernando Rey

Hala, atzo egin ez zutenek nekez izango dute gaur izar **iheskorrak** ikusteko aukera, eguzkiak ez baitu utziko. Berria - Gaiak

· Baina famaren izarra **iheskorra** duk. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **begi iheskorrak** (3); **begirada iheskor** (4); **begirada iheskorrak** (3); **begiratu iheskor** (3); **bezain iheskor** (4); **eta begi iheskorrak** (3); **eta iheskor** (12); **eta iheskorra** (7); **eta iheskorrak** (5); **grazia iheskor** (8); **grazia iheskor bat** (4); **grazia iheskor horren** (4); **iheskor bat** (24); **iheskor bat du** (4); **iheskor bat egin** (3); **iheskor batean** (5); **iheskor batek** (3); **iheskor baten** (4); **iheskor batez** (3); **iheskor eta** (7); **iheskor hori** (7); **iheskor horren** (4); **iheskor hura** (3); **iheskorra ere** (4); **iheskorra izan** (3); **iheskorren bat** (3); **itzal iheskor** (3); **izar iheskorrak** (3); **musu iheskor** (3); **triestek grazia iheskor** (4); **une iheskor** (4)

---

# iheskortasun *iz* iheskorra denaren nolakotasuna.

Bizitzaren **iheskortasunaz** mintzatu dira, izakiaren txikitasunaz. Eider Rodriguez

Malenkoniatsua naiz, **iheskortasunaren** edo ezintasunaren ideiek gozomina sortzen didate... Ana Urkiza

Heriotzaren, denboraren eta **iheskortasunaren** kontzientzia bizia duzu... Ana Urkiza

Despiste keinua ahalegindu da irudikatzen eta, aitzitik, **iheskortasuna** da aurpegian marraztea lortu duen bakarra. Sonia Gonzalez

---

# iheslagun *(6 agerraldi, 6 artikulutan) iz* iheskidea *(corpusean soilik txirrindularitzan).*

Han, pedal maiztasun ikusgarriarekin, **iheslagunak** zituenak atzean utzi zituen eta Petroven bila abiatu. Berria - Kirola

Esprintean aidean irabazi zien Ullrichi eta beste **iheslagunari**. Berria - Kirola

McGee australiarra indartsu dago, eta astindu ederra eman zien beste bi **iheslagunei**. Berria - Kirola

---

# iheslari *(920 agerraldi, 100 liburu eta 287 artikulutan)* **1** *iz/izond* ihes egiten duena, ihesi dabilena. ik **ihesle; ihesliar.**

Pentsa zenbat eta zenbat **iheslari** ibiliko den munduan, auskalo non eta nola. Jokin Urain

Ihesi doa gure protagonista, **iheslari** errugabea («berari egotzi zioten hilketa»), eta irakurlea bat-batean identifikatzen da euskal artzain **iheslariarekin**. Berria - Kultura

Atzemandako **iheslariak** kanporatzen hasi zen Frantziako Polizia, Hendaiara atxilo ekarri eta Espainiako Poliziari entregatzen zizkieten. Jokin Urain

San Kristobalgo **iheslarietatik** hiruk bakarrik lortu zuten mugaz bestaldera igarotzea. Jokin Urain

**Iheslaria** mundu guztian da **iheslari,** maila pertsonalean estatus edo ospe bereziren bat duen **iheslaria** izan ezean. Jokin Urain

Mugaz bi aldeetan bazituen **iheslarien** gidatzeko ardura zuten sarekideak. Elena Touyarou

Erresistentziako kide **iheslari** anitz gordetzen zuen han. Eneko Bidegain

Helburua argia zen presoak ihes egiten bazuen, palto zilatu eta zikinetik ageriko zen preso **iheslaria** zela. Eneko Bidegain

Esklabo **Iheslarien** Legea. Anton Garikano

Ez da bere asmoa biltzea korapilo **iheslari** bat, non egileak eta obrak identitatea aldatzen duten; non pentsamenduak bere buruaz albait eta gertuen dirauen, berberaren forma ez aldatuan, eta non hizkuntza ez den oraindik diskurtsoaren sakabanaketa espazial eta jarraituan zabaldua. Xabier Arregi

Telemakok atzerritar **iheslaria,** Teoklimeno, bere etxera eraman zuen. Juan Kruz Igerabide

Bideak aleman **iheslariz** beteak. Marzel Etxehandi

Espainia eta Portugaleko judu sefardita **iheslarien** komunitate zibilak. Iñaki Mendiguren

**2** bere ideia politikoengatik beste herrialde batean babes hartu duena. ik **errefuxiatu.**

Uztailean desagertu zen Eduardo Moreno Bergaretxe **iheslaria**. Jokin Urain

Frankismoaren garaian, Belgikara joan zen **iheslari** Aranburu eta han, Lovainako unibertsitatean, egin zituen ekonomia ikasketak. Berria - Ekonomia

Bere emaztea berriz Jordanian du, **iheslari**. Herria

Frangotan, ez dira **iheslari** bezala ezagutuak izaiten. Herria

Baina **iheslari** eta presoez gain, baita deportatuak eta kontzentrazio barrutietan egondakoak ere. Jokin Urain

36ko gerrako **iheslariekin** hasi beharko zenukete. erabilpenik gabe zeuden egoitza militarrak, hotel zaharrak, eskolak **iheslarientzat** bizileku bihurtu zituzten. Jokin Urain

Iparraldean ere ez zieten denek abegi gozoa egin **iheslariei**. Jokin Urain

1987a zen, Ipar Euskal Herrian **iheslarien** aurkako setioan ari zen Frantziako Polizia, eta **iheslari** haiek multzoka sartzen zituzten kartzelara, denbora gutxiren buruan kaleratzen bazituzten ere asko. Jokin Urain

Zurrumurruak bala-bala zebiltzan Iparraldeko **iheslarion** artean. Alberto Ladron Arana

1962an deportazio eta konfinamendu politikari ekin zioten agintari frantziarrek, lau euskal **iheslariren** aurka hartutako neurriekin. Jokin Urain

30etik gora ziren Frantziak deportatutako **iheslariak**. Jokin Urain

Sasoi bertsuan **iheslariei** errefuxiatu politikoen paperak kentzen eta ez berritzen hasi ziren. Jokin Urain

Neskak **iheslari** judu alemaniarrekin elkartzen ziren. Fernando Rey

Mexikon den euskal **iheslarien** kolektiboa «kriminalizatzeko» saioa salatu zuen abokatuak. Berria - Euskal Herria

**Iheslarien** goi komisionatuari sexu jazarpena egotzi diote. Berria - Mundua

Margolanak Talibanek, bestalde, ordezkariak bidali dituzte **iheslarien** kanpalekuetara. Berria - Mundua

**3** (txirrindularitzan)

Valentziara hurreratu ahala, tropelak **iheslariak** irentsi zituen. Berria - Kirola

Helmugarako lau kilometroren faltan lortu zuten Quick-Step taldeko txirrindulariek euren helburua, eta **iheslariak** harrapatu zituzten. Berria - Kirola

10 minutuko abantaila bazuten ordurako bi **iheslariek**. Berria - Kirola

Kilometroak aurrera joan ahala, **iheslarien** taldeak bidaide gehiago izan zituen. Berria - Kirola

Garaipena **iheslarientzat** izango zela zirudien, 40 kilometroren faltan 8 minutuko aldea baitzeukaten. Berria - Kirola

Bi **iheslarien** atzetik sartu zen tropel nagusia, 25 segundora. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Artxiboa ez da enuntziatuaren gertaera babesten duena (nahiz eta berak berehala ihes egin) eta gordetzen duena (etorkizuneko oroimenentzako) bere **iheslari**-egoera zibila.

Xabier Arregi

Alemaniako **iheslari**-talde baten buletin bat zela. Anjel Lertxundi

**Iheslari**-taldearen kargu egin behar zuen mugalaria Otsoren hatzaparretan erori zela. Anjel Lertxundi

Badakizue, Cayenneko **iheslari** aire horiekin... Karlos Zabala

Xagu, Ehorzlea eta hirurak, "boltxebikez" mozorroturik, aurrena **iheslari**-pasa, gero kontrabandistei ebatsiz aritu ziren. Pablo Sastre

Matxino kristauek bi taldetan banatuta eraso zioten **iheslari** eremuari. Berria - Mundua

### 5 *auzi-iheslari*

Lehenengoan, auzibide zibilez ari denean, auzi-**iheslariak** kondenatzea debekatzen zaiei epaileei, errua frogatu gabe dagoenean gai zibiletan. Juan Martin Elexpuru

Beraz, dirua zor duen gizon bat ezin daiteke kondenatu auzi-**iheslari**gisa, bere zorra frogatuta ez dagoen bitartean; Baina bizitza-kontua denean, kondena daiteke auzi-**iheslaria,** nahiz eta bere krimena frogatu gabe egon. Juan Martin Elexpuru

### 6 *iheslari gune*

Tindufeko **iheslari** guneetatik ekarriak dira denak. Berria - Euskal Herria

Gutxienez 159 hildako tutsien **iheslari** gune bati eginiko erasoan. Berria - Mundua

### 7 *iheslari politiko*

Aitor Elorza **iheslari** politikoa hilik topatu zuten atzo, etxean, Baionan. Berria - Euskal Herria

Egun haietan gure **iheslari** politikoen giroetan ibiltzen nintzen. Matías Múgica

**Iheslari** politikoen arazoa ere global bihurtu dela. Pello Salaburu

XX. mende amaieran baziren munduan 11,7 milioi **iheslari** politiko, denon ahalkerako. Pello Salaburu

Fidel Castro Mexikon erbesteratu zen, herrialde hartan harrera ona egiten baitzitzaien espainolez hitz egiten zuten **iheslari** politiko guztiei. Jon Muñoz

Gaur, euskal **iheslari** politikoen egoera aztertuko du Askatasunak, Makean ospatuko duen Elkartasun Egunean. Berria - Euskal Herria

Preso eta **iheslari** politikoen senideen elkarteak. Berria - Harian

Euskal **Iheslari** Politikoen Kolektiboa. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat iheslari** (5); **beste iheslari** (3); **bi iheslari** (3); **eta iheslari** (33); **eta iheslari guztiak** (3); **eta iheslari politiko** (3); **eta iheslari politikoak** (3); **eta iheslari politikoen** (7); **euskal iheslari** (20); **euskal iheslari politikoak** (3); **euskal iheslari politikoen** (9); **gatumbako iheslari** (6); **gatumbako iheslari eremuko** (3); **iheslari bat** (12); **iheslari batek** (3); **iheslari batzuek** (3); **iheslari belaunaldi** (3); **iheslari bezala** (6); **iheslari bizigunean** (3); **iheslari eragin** (3); **iheslari eremuko** (3); **iheslari eta** (16); **iheslari eta presoen** (3); **iheslari frango** (4); **iheslari gehiago** (4); **iheslari gehienak** (3); **iheslari gune** (4); **iheslari gunea** (3); **iheslari gunean** (6); **iheslari guneetan** (5); **iheslari guneko** (4); **iheslari guztiak** (6); **iheslari haiek** (4); **iheslari hil** (3); **iheslari horien** (7); **iheslari horietako** (3); **iheslari ohiak** (3); **iheslari politiko** (6); **iheslari politikoa** (3); **iheslari politikoak** (9); **iheslari politikoen** (22); **iheslari politikoen kolektiboak** (3); **iheslari talde** (6); **ingushetiako iheslari** (3); **jabaliako iheslari** (3); **milaka iheslari** (4); **milioi bat iheslari** (3); **milioi iheslari** (4); **miliun iheslari** (4); **planak iheslari** (3); **planak iheslari horietako** (3); **preso eta iheslari** (17); **rafako iheslari** (6); **zen iheslari** (4); **zuten iheslari** (5)

**bi iheslariak** (6); **da iheslarien** (4); **dira iheslariak** (5); **du iheslarien** (3); **ere iheslaria** (3); **eta iheslariak** (27); **eta iheslariei** (4); **eta iheslariek** (7); **eta iheslarien** (32); **eta iheslarien alde** (7); **eta iheslarien aldeko** (5); **euskal iheslaria** (3); **euskal iheslariak** (9); **euskal iheslarien** (15); **euskal iheslariren** (3); **hiru iheslariak** (3); **iheslaria da** (3); **iheslariak eta** (4); **iheslariak etxera** (3); **iheslariak ez** (3); **iheslariak itzuli** (3); **iheslariaren atzetik** (3); **iheslariek ere** (4); **iheslariek eta** (3); **iheslarien alde** (8); **iheslarien aldeko** (5); **iheslarien artean** (4); **iheslarien aurkako** (4); **iheslarien auzia** (3); **iheslarien auzia konpondu** (3); **iheslarien egoera** (6); **iheslarien eta** (8); **iheslarien kolektiboa** (3); **iheslarien kolektiboak** (5); **iheslarien kolektiboaren** (6); **iheslarien kolektiboko** (9); **iheslarien kolektiboko kide** (3); **iheslarien kontrako** (5); **iheslarien legea** (4); **iheslarietako bat** (5); **preso eta iheslariak** (8); **preso eta iheslarien** (17); **presoak eta iheslariak** (4); **ziren iheslariak** (3); **ziren iheslarien** (4); **zuen iheslariak** (3); **zuten iheslariek** (3)

---

## ihesle *(**6** agerraldi, **3** liburu eta **2** artikulutan)* *iz* iheslaria.

Ceciliak, aparte samar, poz argi labur **ihesle** bezalako bat izan zuen bere begi errugabe gaixo haietan. Josu Zabaleta

Eroaren gisa abiatu zen **iheslearen** atzetik. Josu Zabaleta

Inorako **Iheslea k**. Patziku Perurena

Lakarko bataila gertatu zen arratsaldeko hirurak aldean, bertako biztanleek berek argitu digutenez, hantxe zegoen oraindik Alfonso **"iheslea"**. Txillardegi

· Hegoaldeko gure herritar **ihesle** "lanjerosak". Herria

Badute zer xuxendu, Darfur probintzian egin gerlaren ondotik, hunek 180.000 eta 300.000 hilen artean egin baitzituen eta bi miliunez goiti **ihesle**. Herria

---

## ihesleku *iz* babeslekua, gordelekua.

Jauna **ihesleku** da zapalduarentzat, **ihesleku** larrialdian. Elizen arteko biblia

Bedeinkatua Jauna, nire Jainkoa (Sal 143,1), / babesle eta **ihesleku** gertatu baitzait / larrialdian. Askoren artean

Zu izan zaitut gotorleku, larrialdian **ihesleku**. Elizen arteko biblia

Ene Jainkoa nire harkaitz babesgarri, nire babeski eta indar salbatzailea, nire gotorlekua, nire **ihesleku** eta salbatzailea. Elizen arteko biblia

Nahi gabe norbait hiltzen duenak han aurkituko du **iheslekua**. Elizen arteko biblia

Lebitarrei emango dizkiete sei babes-hiriak, hau da, hiltzailearen **ihesleku** izateko ezarriko dituztenak. Elizen arteko biblia

Elkarteak libratu egingo du hiltzailea mendekariaren eskuetatik, eta **ihesleku** izan duen babes-hirira itzularaziko berriro; hantxe biziko da, olio sakratuz gantzuturiko apaiz nagusia hil arte. Elizen arteko biblia

Simone Weil andere jakintsuak, II. Mundu Gerla denboran, **ihesleku** hartua zuen Ingalaterratik, hauxe idatzi zuen Estatuaz [...]. Piarres Xarriton

**Iheslekurik** ez dagoen norabait ihes egin nahi izateko. Joxe Azurmendi

Batetik, lurpeko gordabiak eta sator-bideak ere ba omen ziren eginak **ihesleku** edo eskapabide, bestetik, izan ditake ere beren jukutriak eta laguntzak izan dituzten handik lekutzeko. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurkituko du iheslekua** (3); **du iheslekua** (3); **eta ihesleku** (4); **ihesleku gertatu** (3)

---

## iheslíar *(**7** agerraldi, liburu **1** eta artikulu **1**ean)* *iz* iheslaria.

XIX. mendean, gerlako desertore, errefuxiatu edo **iheslíar** mota guztien aztarnak bil bagenitza, ustekabeak izanen genituzke. Piarres Xarriton

Eta azkenean bide beretik etxera itzuli ziren hain aspaldian igurikatzen genituen gure herritar presoak, **iheslíarrak** eta gerlari ohi berriak. Piarres Xarriton

---

## ihespide ik **ihesbide**.

---

## iheste *iz* ihes egitea.

Milanen bizikletaz ibiltzea ez zen artean inolako ausarkeria, eta barra gainean inor garraiatzea, bonba eta **iheste** larrizko garai hartan, alde-aldean normala zen Juan Garzia

---

## ihesti *izond* iheskorra.

Ileak kizkurrak eta nahasiak zituen, bizarra gaizki mozturik, sudur-moko galanta, ahoa ezpainik gabea eta begiak **ihesti** . Juan Garzia

---

## ihestoki *iz* iheslekua, babeslekua.

Anartean, Iraken berean ere bazuten Tikrit lehen **ihestoki** izan zitakeena, Hussein horren beraren hiria. Herria

---

## ihi 1 *iz* zurtoin luzeak eta malguak dituen belar landarea, oso toki heze eta bustietan hazten dena(*Juncus effusus* etab.).

Azienden azpitarako baliagarri den horbel, garo, lasto, **ihi** eta beste. Pello Zabala

Ikustekoak ziren bi bazterretako itsas padurak, **ihi** eta lezkaz oparoak. Joanes Urkixo

Basa txakurren bizilekuetan belarra, kanabera eta **ihia** aterako dira. Elizen arteko biblia

Baina gerora **ihiak** sortu ei ziren lur hartan. Pako Aristi

East River ibaiko **ihiak** hego haizeak orrazten ditu. Iñaki Zabaleta

Nik badut ustea **ihi** meheek beren ahots apal hain gozo horiez xuxurlatzen dituzten historiak makurragoak direla oraindik olatuen urrumak kontatzen dituenak baino. Josu Zabaleta

**Ihi** xuxurlariez estalita dauden ibai ertzetan. Josu Zabaleta

Sortzen al da kanabera paduratik kanpo, hazten ote **ihia** urik gabe? Elizen arteko biblia

Niloren adarrak agortzeraino jaitsiko dira, kanabera eta **ihiak** zimelduko. Elizen arteko biblia

Burdina **ihia** bezalakoa da harentzat, brontzea egur ustela. Elizen arteko biblia

**Ihien** puntak baizik ez nituen ikusten. Josu Zabaleta

**Ihien** malgutasunaz mugitzen diren zangoen gainean aurrera okertuta. Pako Aristi

Usain lodia, zingirako igebelar eta **ihien** artetik sortutakoa. Karlos Zabala

Indietako eta Itsaso Gorriko itsasontzi **ihiz** egin batek hogei egunetan egiten zuen bidea. Iñaki Iñurrieta

**Ihizko** ontziak bezain arin. Elizen arteko biblia

**Ihizko** saskiak egin eta saldu egiten zituen. Askoren artean

**2** (erkaketetan)

Abu **ihia** bezain luzea da, ira iharra baino iharragoa. Pablo Sastre

Zure begiak txingarrak bezain distiratsuak dira, behatzak **ihiak** bezain luzeak. Fernando Rey

**Ihia** baino meheagoa, sudur luze hezurtsu baten jabe, pikorrak nabari kokots aldean. Aingeru Epaltza

Zuhaitzak bezalakoak ziren gizonak, edo **ihi** bezalako emakumeak. Jon Alonso

Udagoienean **ihia** bezain malgu. Edorta Jimenez

Haize zakar batek jotako **ihi** herbal batzuk baino dardartiago. Anjel Lertxundi

Haren higiezintasuna gauza ederra da larritasunak **ihi** mengelaren gisa astintzen duen gure existentziaren aldean. Pako Aristi

**3** (hitz elkartuetan)

**Ihi** multzo garaixeago batzuk. Josu Zabaleta

**Ihi** ilara bakanei. Koro Navarro

**Ihi** zurtoinen gainean [lore] sortak eta sortak prestatzen ematen zuen egun guztia. Karlos Zabala

Gero, ardura infinituz, **ihi** pusketan finkatzen zituen haien zurtoin motzak. Karlos Zabala

Helgaren **ihi** -gorputza etorri zitzaidan gogora. Edorta Jimenez

Garo, **ihi** eta ira bilketa lanak. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ihi** (4); **eta ihiak** (3); **ihi artean** (4); **ihi eta** (7); **ihia bezain** (4)

---

## ihidoi *iz* ihi asko dagoen eremua. ik **ihitegi; ihitza**.

On Camillo **ihidoian** etzan eta zain gelditu zen. Koldo Biguri

Mendikletaz Fanchekin Feunten Velen aldera zuzendu ginen, ilardi, ote sail, **ihidoi** eta ahul itxurako seska landen artetik. Itxaro Borda

---

## ihintz 1 *iz* eguratseko hezetasuna, batez ere gau eta goizaldean, ur tanta xehe bihurtzea; ur tanta xehe horiek.

Jaits bedi nire irakaspena euria bezala, isur bitez nire esanak **ihintza** bezala. Elizen arteko biblia

Horregatik ukatzen dizue zeruak **ihintza** eta lurrak fruitua. Elizen arteko biblia

Izan ere, bakea ereingo dut, mahastiak emango du bere fruitua, lurrak bere ekarria eta zeruak bere **ihintza** . Elizen arteko biblia

Ez al du **ihintzak** sargoria arintzen? Elizen arteko biblia

Hau dena bizkor erremediatzen du behe-lainoak, sargoriaren ondorengo **ihintzak** bizitasuna ekartzen. Elizen arteko biblia

Maiatzeko **ihintzak** urrea balio du. Pello Zabala

Urteko gau oskarbi ugari horietan botatako **ihintzarekin** . Pello Zabala

Datozen urteotan ez du ez **ihintzik** ez euririk egingo, nik aginduta ez bada. Jose Antonio Mujika

Gauez, kanpalekuan **ihintza** egitean, gainean agertzen zen mana. Elizen arteko biblia

Irri egiten zuen eguzkiak, soroko **ihintzetan** dirdirka. Patziku Perurena

Larre huts, **ihintzez** blaituetan barrena. Juan Garzia

Atariko portxera atera eta begiratu bat ematen diogu soropil heze **ihintzez** estaliari. Oskar Arana

Eta haiek euri baldin badute, izango dugu guk **ihintz** . Berria - Kirola

**2** (erkaketetan)

Lilia bezain zuri zirudien, eta **ihintza** bezain hotza eta gogorra, harrian landuta balego bezala. Agustin Otsoa

**3** (hitz elkartuetan)

Mundu osoa zure aurrean balantza alde batera okertzen duen izpitxoa da, lurrean pausatzen den goizeko **ihintz** -tanta. Elizen arteko biblia

Biharamun goizean, **ihintz** -geruza azaldu zen kanpaleku inguruan. Elizen arteko biblia

Lasai egongo naiz, neure lekutik begira, geldi-geldi, eguerdiko sargoria bezala, uzta-aroko sargoritan **ihintz** -lainoa bezala. Elizen arteko biblia

· Beztiduradun hilak orro-garrasika zebiltzan hango karriketan, izar su-jario, odol- **ihintz,** eguzkiko asturu gaitzen pean. Juan Garzia

Zuen maitasuna goiz-lainoa bezala doa, berehala kentzen duen goiz- **ihintza** bezala. Elizen arteko biblia

Gaztaroko goiz- **ihintz** freskotan ohi dira helde kutsakorrak errazen gertatzen. Juan Garzia

Bera izango duzu adore-emaile, bera egunsenti eta gaztetasun- **ihintz** . Elizen arteko biblia

**4** ***ihintz-lore***

Basotxoa inguratzen zuen ezpondan, astakarduak eta **ihintz** -loreak loraldi bete-betean zeuden. Ibon Uribarri

**Ihintz** -lore: Tsuyukusa *(Commelina communis).* Ibon Uribarri

**5** ***ihintz-puntu*** (fisikan)

Honelakoetan, **ihintz** -puntua non dagoen kontuan hartu behar bada ere, ez da kondentsaziorik gertatzen, ez da kapatxo xuririk ikusten, ez zaio izotzari antzematen, baina, putzuak, lur zorua eta beste, seko izozten dira. Pello Zabala

**6** ***izar-ihintz*** *ipar* ihintza.

Izar **ihintz** eztiak busti belardian. Itxaro Borda

Arrosa udatiarren moldean gorritu zakilak eta izar **ihintz** odoltsuz busti aluak. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ihintz** (3); **eta ihintza** (13); **eta ihintzak** (3); **goizeko ihintzetan** (3); **ihintza bezala** (13); **ihintza eta** (4); **ortziko ihintzak** (3)

---

# ihintzaldi *iz* ihintza egitea.

Italia faxistak, bigarren mailako pirata, Albania hartua zuen, eta etortzear zegoen hondamendiaren aurreiragarpena **ihintzaldi** likits baten modura kondentsatzen zen etxeetan eta kaleetan barrena, kontu handiko solasetan eta kontzientzia modorrotuetan. Juan Garzia

---

# ihintzeztatu, ihintzezta, ihintzeztatzen du *ad* ihintztatu.

Oi seme laztana, heure gaitzaldi horren su eta garraren gainera **ihintzezta** ezak patxada freskoa. Juan Garzia

---

# ihinzdun *izond* ihintza duena.

Pentsa orain zenbateko zoramena ez zuen izango laborariak, eguraldi zeru urdin garbikoa eta gainera goiz frexko **ihintzduna** fortunatzen bazitzaion! Pello Zabala

Goiz freskoa, **ihintzaduna** . Pello Zabala

---

# ihinztagailu *iz* ihinztatzeko gailua. ik **ihinztatzaile.**

Ondotik, komunera sartu, eta lainoztagailu urdin bat ekarri zuen, erpinean metalezko uztai bat zeukana eta zeinetik **ihinztagailu** gorri bat ateratzen baitzen. Patxi Zubizarreta

Lainoztagailua neskarengana zuzendurik, **ihinztagailua** sakatu, eta lurrinez busti zion masaila. Patxi Zubizarreta

---

# ihinztatu, ihinzta(tu), ihinztatzen *(orobat **ihiztatu,** g.er. eta **ihintzatu** g.er.)* **1** du *ad* ihintzak bezala busti. ik **ureztatu.**

On Camillok pauso batzuk egin eta ur bedeinkatuz **ihinztatu** zituen hango denak. Koldo Biguri

Hau mundua, alde guztietatik estutzen baitu bat, han-hemenka eskukadaka hustuz baitoa eginak garen hautsa, zatitan deseginez gu, lurra gure odolez **ihinztatuko** balu bezala. Juan Garzia

Elkarren arteko gutunak **ihintzatu** zituen perfume bera zabaldu zuen Macarenak Antonio lehengusuaren zerraldo aurrean. Joxemari Urteaga

Ordukoz, apeza, isipuari eraginez, hilkutxa **ihiztatzen** ari zen kemen handiz. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Argi **ihinztatu** bat, behegaina malkotan blai bailegoen emakumearen azpian. Juan Garzia

Mandoa bezala lotuta, Paul D-k sentitu du belar **ihinztatu** eta tentagarria. Anton Garikano

---

# ihinztatzaile *iz* ihinztatzen duena. ik **ihinztagailu.**

Eraikin adimendunaren barruko segurtasun neurriak indargabetuta zeuden: bai segurtasun kamerak eta baita keak eragin behar zituen alarma eta **ihinztatzaileak** . Berria - Harian

---

# ihitegi *iz* ihi asko dagoen eremua. ik **ihitegi; ihitza.**

Nilo bazterretako eta bokaleko **ihitegia,** bai eta ibai ondoan ereindako guztia ere, ihartu egingo da eta erabat galduko. Elizen arteko biblia

---

# ihitsu *izond* ihi askokoa.

Apirila euritsu, maiatza **ihitsu** . Pello Zabala

---

# ihitza *iz* ihi asko dagoen eremua. ik **ihidoi; ihitegi.**

Ibaia haien artetik zihoan sigi-saga Uholde Grisean hondoratzeko: han, **ihitzen** artean zisne asko zegoen. Agustin Otsoa

---

# ihizatu ik **ehizatu.**

---

ihizi ik **ehizi**.

---

ihiztari ik **ehiztari**.

---

**ihiztoka** *iz ipar* ur mehe geldizko hedadura, gehienetan landare asko dagoena. ik**ihiztoki**.

Badira urgeldi eta **ihiztokak** agortuak. Herria

---

**ihiztoki** *iz ipar* ihiztoka.

Otsailaren 9 an, igandez, Orx-eko **ihiztokietarat**. Herria

---

**ihiztor** **1** *iz* ehiza-ora.

**Ihiztorak** naski ni baino eztikiago tratatzen dizkin... Itxaro Borda

**2** ***zakur ihiztor***

Zakur **ihiztorren** besta. Herria

Egungo egunean, Baigorriarrek bakan aipatzen dute Ermitarekin bizi den basoilarra, eta aipatzen dutelarik ere artzain zakur batez edo zakur **ihiztor** batez mintzo balire bezala mintzo dira. Michel Oronoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zakur ihiztorren** (4); **zakur ihiztorren besta** (3)

---

**iholdiar** *izlag/iz* Iholdikoa, Iholdiri dagokiona; Iholdiko herritarra.

Mehaindarra eta **Iholdiar** anderea bidean ditugu Euskal Herriko xapelketa nagusira eta Oñatiko finalera joaiteko irailean. Herria

Hartzen zuela biziko lagun Legarto Alain, **iholdiar** hargin sano bat. Herria

Kattalin Indaburu **Iholdiarra**. Herria

Jeannot Etcheto jaun erretorari eta Jean Pierre Cachenaut **Iholdiar** laguntzaileari. Herria

Filipe **iholdiarra** zen sortzez, Oihanartekoa, 6 haurridetan zaharrena. Herria

Nahiz Irisarrin bizi izana zen, denek dakigu erdi **iholdiarra** zela. Herria

**Iholdiarrek** dute beraz irabazi. Herria

Betidanik ezagutzen dute harpe hori **iholdiarrek**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **acheritogaray iholdiarra** (3); **indaburu iholdiarra** (5); **kattalin indaburu iholdiarra** (5)

---

ihortziri ik **ihurtzuri**.

---

**ihurtzuri** *(11 agerraldi, 4 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 45 agerraldi; orobat* ***ihortziri*** *17 agerraldi 5 liburutan; ETCn 22 agerraldi)* *iz* trumoia. ik **inusturi**.

Lehena **ihurtzuriak** erre zuen, bigarrena ez, nahiz hedoi batetarik boz bat entzun zen: [...]. Xipri Arbelbide

Gauaren erdian, **ihurtzuri** ikaragarri batek hiruak bat-batean iratzarrarazi zituen. Aurelia Arkotxa

Euriak berean zerraikan eta itxuraz **ihortziria** urrundua zen. Itxaro Borda

Eta entzun genuen, bai, halako batean, burrunbots bat, **ihortziri** baten idurikoa. Joan Mari Irigoien

Zazpi arte kontatu zuen, **ihortziriaren** urruntasuna haztatzeko. Itxaro Borda

Lehenik urrundik burrunba ezti bat hauteman zuten, **ihortzirien** gisako tiroak ere bai. Eneko Bidegain

**Ihurtzuriaren** pareko eragina izan duen berria dudarik gabe joan den ostiral arratsaldean. Herria

---

**iji**

**1** *adlag* **iji eta aja** barre eginez.

Badoa, hortaz, **iji eta aja** ari zaretelarik. Xabier Montoia

Atzerago Txano Gorritxok Grouchorekin segitzen du adar joka, **iji eta aja**. Jokin Muñoz

**2** ***iji-aja*** *iz* barrea.

Eta iji-ajaka Gorputz Heziketa hartu nuen joan den urtean, **iji-aja** etenik gabea. Jesus Mari Mendizabal

**3** (adizlagun gisa)

Ez zen lanbide nekosoa, eta hamaika gizaseme ezagutu zuen eta hamaika iluntze eman zuen haien konpainian, haien txantxei **iji-aja**, eta gorbata atseginak zituztela esanez. Mirentxu Larrañaga

**4** ***ijiji-ajaja***

Gainera, ama-alabak bi dituk, lauko multzoa osatzeko beste bi falta, **ijiji-ajaja**... Joan Mari Irigoien

Haren leihoak, baina, ez zaizkit, besteetan bezala, begiak iruditzen, ahoak baizik: aho zabal ankerrak, Nekaneri burla egiten diotenak, **ijiji-ajaja**... Joan Mari Irigoien

**5** ***iji-ajaka*** barre eginez.

Baina, tira, nik ezin ditut bizitzako arazo guztiak ganbaran jaso eta gorde; zenbait gauza **iji-ajaka** burla-airez hartu beharra dago, beste gainerakoan zeharo lelotuko nintzateke. Jesus Mari Mendizabal

Eta **iji-ajaka** Gorputz Heziketa hartu nuen joan den urtean, iji-aja etenik gabea. Jesus Mari Mendizabal

---

**ijitano** *iz* ijitoa.

Egiptotik etorritakoak zirelakoan, hor ditugu **ijitano** edo ijituak edo hungariatik zetozelakoan hungrianoak deitutakoak, bere lapiko eta pertza... J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**ijito** *(orobat* ***ijitu*** *g.er.,* ***jito*** *g.er. eta* ***kitu*** *g.er.)* **1** *iz* Egiptotik zetorrela uste zen herri ibiltari, orgetan bizi den bateko kidea. ik **buhame**; **motxaile**.

**Ijito** gazte batek. Pablo Sastre

**-Ijito** mozkor geihegi zegok. Koro Navarro

Brad Pitt **ijito** gaizkilearen rolean Goierriko euskaran hizketan entzutean. Berria - Kultura

**Ijitoen** kontrako krudelkeriarik handienak. Patziku Perurena

Uste dut badutela gure historia etnologiko ilunean beren leku kriptikoa: juduak, moroak, **ijitoak..** . Patziku Perurena

**Ijitoak** irrikaz eutsi dio diruari, ibilgailuaren kontra eserita. Urtzi Urrutikoetxea

**Ijitoen** eta beltzen artetik pasartea egin eta tabernara sartu da Roberto ere. Urtzi Urrutikoetxea

Harresien bestaldean **ijito** kanpamentu bat zegoen. galdutako anaia zenuela, behinola **ijito** batzuek sehaskatik ebatsitakoa. Pello Lizarralde

Jantzien itxuragatik **ijitoak** direla pentsatu du Gabrielek. Felipe Juaristi

Kanpotik heldutako hiru umeak **ijitoak** zirela. Iñigo Aranbarri

María Francescatti, Bucaresteko emakumea, **ijitoa** arrazaz. Felipe Juaristi

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 14.000 **ijito** inguru bizi dira. Berria - Euskal Herria

**Ijitoek** Europan jasan behar izaten duten bazterkeria gaitzetsi du Europako Arrazismoaren Behatokiak. Berria - Gaiak

Lanean hasi da **Ijitoen** Gizarteratze Kontseilua. Berria - Euskal Herria

**Ijitoen** Gizarteratze eta Sustapenerako Kontseiluak. Berria - Euskal Herria

**Ijitoen** Gizarteratze Egitasmoa izan zuten eztabaidagai. Berria - Euskal Herria

Soziologoa eta **ijitoen** arazoetan aditua. Berria - Euskal Herria

**Ijitoen** Gizarte Sustapenerako Kontseiluak. Berria - Euskal Herria

**Ijitoen** Idazkaritza Nagusiko kideak. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ijito** hizkera disimulatua. Patziku Perurena

Zokoren batetik **ijito** musika heldu zelarik [...]. Pablo Sastre

Beti sumatu izandu dut **ijito** usain ikaragarria, euskal erlijio eta sineskeria orotan ere. Patziku Perurena

Gizon iluna zen, gaztea, **ijito** tankerakoa. Koro Navarro

Nirea bezalako **ijito** -aurpegi harekin. Juan Kruz Igerabide

Gogaiturik zegoen **ijito** -bizimoduaz. Jose Morales

Europa osoko judu eta **ijito** gutiengo guztien suntsiketa. Piarres Xarriton

Zortzi-hamar urte inguruko **ijito** talde bat. Sonia Gonzalez

Haren obran ez da ageri **ijito** kutsurik. Juan Garzia

Larruzko zamarradun **ijito** plantako gizaseme bik. Pablo Sastre

Metroaren sarreran, **ijito** koadrila zegoen biribilean eserita. Jasone Osoro

Ondorioz, antxoa eta **ijito-sardina** desagertu egin dira itsaso horietatik. Berria - Gaiak

• **3** *izond*

Dantzari **ijito** tentagarri baten itxura hartu nion. Juan Kruz Igerabide

Emakume **ijitoen** egoera. Berria - Euskal Herria

Bospasei urteko haur **ijito** ile-nahasi bat. Pablo Sastre

Orduko neskatxa mairua eta oraingo neskatxa **ijitoa** . Markos Zapiain

**4** ***ijito jende*** *(orobat* ***ijitojende****)*

Badakik **ijito jende** hori zelangoa den, beste familia batekin bizi zituan, dozenatik gora lagun etxe berean... Urtzi Urrutikoetxea

Ikerketen arabera, batez ere **ijito jendea** dabil tartean. Gotzon Garate

Pelegrino izeneko **ijitojende** merkatari negarti horren eragin soziokulturala. Patziku Perurena

**4** ***ijito kastako*** *izlag*

**Ijito kastako** tratulariren bat. Patziku Perurena

**Ijito kastako** atsorik lotsagabeenak. Patziku Perurena

Inkisizio garaian gure alderdiotan epaitutako sorginik gehienak [...] oro har **jito kastakoak** zirela, edo hobeki esan, orotariko jendaje kriptikoa. Patziku Perurena

Baina zenbat ote dira gure artean **ijito kastako** ? Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **da ijito** (3); **da ijitoak** (3); **dira ijitoak** (6); **dituzte ijitoek** (5); **edo ijito** (3); **eta ijito** (10); **eta ijito ez** (7); **eta ijitoak** (9); **eta ijitoek** (5); **ijito bat** (7); **ijito batek** (5); **ijito bati** (3); **ijito batzuek** (3); **ijito batzuk** (3); **ijito bizi** (4); **ijito eta** (8); **ijito ez** (13); **ijito ez direnen** (8); **ijito herriaren** (4); **ijito horiek** (3); **ijito inguru** (5); **ijito inguru bizi** (4); **ijito kastako** (5); **ijitoak ere** (4); **ijitoak eta** (10); **ijitoak euskal** (4); **ijitoak ez** (3); **ijitoei buruz** (5); **ijitoen eta ijito** (7); **ziren ijito** (3); **ziren ijitoak** (6)
>
> **bizi diren ijitoen** (4); **da ijitoen** (7); **diren ijitoen** (4); **diren ijitoen bizi** (3); **emakume ijitoen** (4); **eta ijitoen** (10); **ijitoen artean** (4); **ijitoen aurkako** (3); **ijitoen bizi** (6); **ijitoen bizi baldintzak** (3); **ijitoen egoera** (3); **ijitoen elkarteko** (3); **ijitoen eta** (12); **ijitoen eta ijito** (7); **ijitoen gizarteratze** (3); **ijitoen idazkaritza** (3); **ijitoen inguruko** (3); **ijitoen kontrako** (4); **ijitoen kultura** (6); **ziren ijitoen** (4)

---

**ijitokeria** *iz* ijitoei egozten zaien egite makurra, maltzurkeria, iruzurra.

Kontu nahasiak zeuzkan jende guztiarekin, diligentziak kudeatzen zituen, maltzurkerian eta **ijitokerian** ibiltzen zen beti. Koro Navarro

---

**ijitotasun** *iz* ijito izateko nolakotasuna.

Bere **ijitotasuna** estali nahiko lukeen batek, Patziku Perurena

---

**ijitotxo** *iz* ijito txikia.

-Ene, Haritz, **ijitotxo** horrek a zer begirakunea bota dian! Urtzi Urrutikoetxea

---

## **ika-mika** *(orobat **ikamika** g.er.)* **1** *iz* eztabaida, liskarra.

Jasanezinak zitzaizkion etxean sortzen ziren eskandaluak, liskarrak eta **ika**-mikak. Patxi Zubizarreta

Konponezinen bat izan ohi zen beti garai bateko gure **ika**-mika, istilu, iskanbila, zalaparta, matraka eta borroken jatorrian. Joxerra Garzia

Bion arteko **ika**-mika bihurtu zen eztabaida. Berria - Kultura

Desadostasunak, **ika**-mikak eta baita haserreak ere. Berria - Euskal Herria

PPren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko **ika**-mika aspaldikoa da. Berria - Euskal Herria

Gu biok **ika**-mika ugari izaten genuen elkarrekin ibiltzen hasi ginenean. Mirentxu Larrañaga

Alderdi abertzaleen arteko **ika**-mika eta ezinikusiak. Juan Luis Zabala

**Ika**-mikak izan ziren atzo soldaduen eta herritarren artean. Berria - Euskal Herria

Auziak **ika**-mikak sortu ditu erietxean, eta sareaen pribatizazioari buruzko eztabaida piztu du. Berria - Euskal Herria

San Martzialak nahiko ongi iragan dira Irunen, nahiz alardeen inguruko **ikamikak** ez diren oraino ezeztatuak. Herria

Espainiako Kongresuan **ika**-mika eragin du Del Burgori ezarri behareko zigorrak. Berria - Euskal Herria

**Ika**-mikak, bien bitartean, ez zuen etenik izan senar-emazteen artean. Patxi Zubizarreta

Panfletoen zuzentasun gramatikalaz sekulako **ika**-mika piztu [zen]. Aingeru Epaltza

**Ika**-mikak ahazteko deia egin zien hurrengo lau urteetan sindikatua zuzenduko duen gizonak. frontoietan pilotak aukeratzeko orduan izaten diren **ika**-mikak behin betiko isilarazi nahi ditu. Berria - Ekonomia

Tarifen **ika**-mika konpontzen saiatzeko. Berria - Ekonomia

**2** (izenondoekin)

Gasteizko Udalarekin izandako **ika**-mika gogorraren eraginez. Berria - Euskal Herria

Polemika eta **ika**-mikarik gordinenek baino ez zidaten pizten benetako jakinmina eta interesa. Juan Luis Zabala

Hiru asteko **ika**-mika luzeen ostean. Berria - Mundua

**Ika**-mika luze baten ondotik. Patxi Zubizarreta

**Ika**-mika motz baten ondoan. Aingeru Epaltza

Hura estraditatzeko asmoek **ika-mika** beroa piztu dute. Berria - Mundua

Aireko bidaia agentzien segurtasunaren inguruko **ika**-mika piztu da. Berria - Mundua

Bien bitartean zer gertatzen den ebazteak eztabaida eta **ika**-mika handiak eragin ditu azken mende honetan. Irene Aldasoro

**Ika**-mika makur baten esperoan geratu zen. Patxi Zubizarreta

**Ika**-mika poetiko bat-batekoa. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan)

Frantzisko Xabierkoa **ika**-mika iturri izan da aspaldidanik. Berria - Euskal Herria

· Politika **ika**-miketan sarriegi nagusitzen den pedantekeria. Markos Zapiain

• **4** *adlag* ika-mikan.

Baina gure aitak umore ona zuen eta, osaba Domingorekin **ika**-mika ibili beharrean, hatza zerurantz jasorik, ozenki esaten zuen, erdi serio erdi txantxetan: Joan Mari Irigoien

**5** ***ika-mikan*** *adlag*

Orduan **ika**-mikan hasten ziren aita eta ama, ia-ia egunero hasten ziren **ika**-mikan. Fernando Rey

Mariok, Albertorekin **ika**-mikan eta borrokan aritu eta gero, egunak ematen zituen "muturtuta", edo "kopetilun", gure etxean esaten zen bezala. Fernando Rey

Gainerako emakume ezagun guztiek ez zuten **ika**-mikan ibili beharrik euren aldartea zela-eta. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **artean ika** (5); **artean ika mika** (3); **arteko ika** (43); **arteko ika mika** (14); **arteko ika mikak** (18); **arteko ika mikaren** (3); **baina ika** (3); **barruko ika** (3); **bion arteko ika** (3); **buruzko ika** (5); **buruzko ika mikak** (4); **da ika** (8); **da ika mika** (7); **den ika** (7); **den ika mikaren** (3); **dira ika** (3); **diren ika** (4); **du ika** (4); **duen ika** (3); **dugu ika** (3); **dugu ika mikarik** (3); **ere ika** (6); **eta ika** (27); **eta ika mika** (11); **eta ika mikak** (5); **eta ika mikarik** (3); **ez dugu ika** (3); **gaineko ika** (3); **hainbat ika** (4); **hainbat ika mika** (3)
>
> **ika mika** (216); **ika mika bat** (3); **ika mika bihurtu** (3); **ika mika dezente** (3); **ika mika eragin** (3); **ika mika eta** (6); **ika mika gehien** (4); **ika mika handia** (6); **ika mika handiak** (7); **ika mika iturri** (6); **ika mika izan** (17); **ika mika piztu** (5); **ika mika sortu** (7); **ika mika ugari** (8); **ika mikak** (71); **ika mikak eta** (3); **ika mikak ez** (4); **ika mikak izan** (9); **ika mikak sortu** (3); **ika mikan** (20); **ika mikan hasten** (4); **ika mikaren** (19); **ika mikaren bat** (5); **ika mikari** (9); **ika mikarik** (16); **ika mikarik nahi** (3); **ika mikaz** (4); **ika mikek** (3); **ika mikekin** (3); **ika miken** (8); **ika miketan** (5)
>
> **inguruan sortutako ika** (4); **inguruko ika** (7); **inguruko ika mika** (4); **izandako ika** (10); **izandako ika mika** (4); **sekulako ika** (5); **sekulako ika mika** (4); **sortu den ika** (4); **sortutako ika** (10); **sortutako ika mika** (4); **sortutako ika mikari** (3); **zen ika** (6); **zen ika mika** (4); **ziren ika** (3)

---

## **ikara** *(**1515** agerraldi **217** liburu eta **137** artikulutan)* **1** *iz* astinaldi labur eta arinen saila. ik **dardara**.

**Ikara** urduri batek eraginik eskuak zabaldu zituen. Josu Zabaleta

**Ikara** latza sentitu zuen bizkarrezurrean behera sigi-sagatzen. Itxaro Borda

Eta **ikara** asaldatu batez ezkutatzen zituen bere esku dardaratiak jakaren azpian. Josu Zabaleta

Eskuetako **ikara** mendean hartzeko. Imanol Zurutuza

Nigan behintzat [...] **Ikara** ezin uxatuzko batek hartu zidan gorputza. Koro Navarro

Mogueimek zerua begiratzen du, **ikara** bat sentitzen du, agian hegaztien oihu zoroa da ikararen arrazoia. Jon Alonso

Haurretan, halako **ikara** batek inarrosten ninduen hori aditzean. Aingeru Epaltza

Hura ikusten zuenean, **ikara** batek inarrosten zuen Andres, eta dardaraz hasten zen. Josu Zabaleta

Eta halako oihu ozenak bota zituen non izumenezko **ikara** bat zabaldu baitzen elizan. Josu Zabaleta

*ik beherago* 22. Askoren artean

Zapalkuntzatik libre izango zara eta ez duzu ezeren beldurrik izango, **ikara** ez zaizu inoiz hurbilduko. Elizen arteko biblia

**Ikara** betean hasi zitzaidan dardaraz gorputz guztia. Joxan Elosegi

Idien joarea entzun nuen, eta zuhaitzen **ikara**. Koldo Izagirre

Beldurra halako **ikara** fisiko bat bezala sentitzeko beste betarik ez dut izan, hots handi batek eragiten duen **ikara** hori. Josu Zabaleta

Dardarka ari da, eta **ikarak** akabatzen dago. Koro Navarro

**Ikarak** airean zegoen Mary, aita noiz sartuko zain. Koro Navarro

Entzun dudanean, **ikarak** hartu dit barrua. Elizen arteko biblia

Hots mehe itoa zen, **ikarak** arima hartu duenean sakonenetik irteten dena. Koro Navarro

· Sumatra iparraldean 6,2 graduko beste itsasikara bat izan da; Andaman eta Nicobar artxipelagoetan ere izan dira **ikarak** . Berria - Harian

**2** beldur handia.

Eszenan agertzeko halako beldurra edo **ikara** sentitzen du, segundo batzuetakoa izaten dena eta eszenara agertzeaz bat desagertzen dena. Ana Urkiza

Halere, beti izaten da beldurra, **ikara,** mikrofonora joan eta zer kantatu. Berria - Kultura

Maiteminduak bere kuttuna galtzeko duen **ikara** larri bera zen Istillagak bere burua galtzeko zeukana. bakarrik egoteko beldurra jende aurrean agertzeko **ikara** bilakatu zen. Pako Aristi

Baso urrunetan galdurik ibili denaren **ikara** ez da erabat desagertu haren aurpegian. Pako Aristi

Ni geldi-geldirik nago, **ikara** daukat korrika abiatu eta hotsarekin nabarmenduko ote naizen. Bernardo Atxaga

Nagoen lekutik mugitzeko **ikara** daukat. Bernardo Atxaga

Mahaitik eroritako hondakinekin konformatzen den zakurrak bezala jarraitu nuen lanean, eta, bizitzan aurrenekoz, **ikara** hartu nion etorkizunari. Bernardo Atxaga

Gizona hain bihotz-gogorra ikusita, **ikara** hartu zion eta harengandik urrundu zen. Koro Navarro

Hau esaterainoko **ikara** sartu zitzaion: "Hilzorian dago ene arima"; eta hainbat izerdi bota zuen, non [...]. Patxi Altuna

**Ikara** gorrian bizi ziren. Pako Aristi

**Ikara** ikusi du ziba dantzarazten ari den ume baten begietan. Harkaitz Cano

Eszenan agertzeko halako beldurra edo **ikara** sentitzen du, segundo batzuetakoa izaten dena eta eszenara agertzeaz bat desagertzen dena. Ana Urkiza

Edozein lekutan seguru bizi ziren, ez zituela inolako **ikarak** geldiarazten, ez inongo kezkak desbideratzen. Askoren artean

**Ikara** izugarria, eraman ezinezkoa, sortzen zidaten hipokondriako hark bere oihalean ipintzen zituen abstrakzio hutsek. Koro Navarro

Hor dago izua, **ikara,** baina baita ere izua eta **ikara** guztiak ezabatzen dizkizun itxaropen gozo bat. Pako Aristi

Kanpalekua **ikaraz** eta beldurrez bete ondoren, garaile alde egin zuten. Elizen arteko biblia

*ik beherago* 8. Askoren artean

Haren bidelagunak **ikaraz** mutu gelditu ziren. Elizen arteko biblia

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Josebak **ikara** aurpegia jarri zuen Faraonen gainera igo zenean. Bernardo Atxaga

Izeba Petuniak ere **ikara**-oihu ito bat egin zuen. Neskak **ikara**-dardara bat egin zuen, hozkirriak jota. Iñaki Mendiguren

Monikarengan, aldiz, harridura izan zitekeen harreman horretako sentimendu nagusia, harridura eta **ikara** punta bat. Joxean Agirre

Egia esatera, itxaronaldi hartan Um Hamidak halako begikotasun eta **ikara**-nahasmendua eragiten zion. Patxi Zubizarreta

**Ikara** antzeko batek dardararazi ziola ahotsa. Mirentxu Larrañaga

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Dardar **ikara** hotz batek korritu zidan gorputza. Koro Navarro

Baina ezin ireki nuen; eta nire dardar-**ikaretan,** ihes egin zidan eskutik eta astun erori zen, eta mila puskatan hautsi zen. Koro Navarro

*ik beherago* 10. Askoren artean

Larritasun **ikara** bitxi bat. Josu Zabaleta

Sentipen-**ikara** handi bat sorrarazi zidan, nire sentimenaren erdi-erdian jo ninduen. Jon Muñoz

Hiru Mariak hilobitik poz-**ikara** handiaz atera ziren, dizipuluei Kristoren berpiztearen berri eman nahiez. Patxi Altuna

Esku-**ikara** halaxe baretzearren beharbada. gero eta gorputz-**ikara** handiagoak egiten zituen haurrak zotinka. Irene Aldasoro

Bakartasunak hainbateko bihotz-**ikara** eragin zidan. Aingeru Epaltza

Halako heriotza-modu lazgarri batek beti sortu ohi du bihotz-**ikara** bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Dardarka eta zain-**ikara** batek astindurik hasten zen Nathaniel, kontakizuna eraman ezinik. Anjel Lertxundi

Tximista eta ostots, lurrikara eta itsas **ikara**. Felipe Juaristi

Ez al du Ibarretxeren gobernuak krisi **ikara** txiki bat ere ezagutuko? ez al du inork dimitituko? Hasier Etxeberria

Esan daiteke gal-gal dagiten urak direla, ur-**ikarak**. Joan Mari Lekuona

## **5** (adizlagun gisa)

Handik mugitu gabe, beldurrez **ikara**. Karlos Zabala

Kokots bizarra **ikara** zebilkion pixka bat. Matías Múgica

Oinen azpian, ontzia zebilkidan **ikara**! Edorta Jimenez

· Lertxun hostoa baino **ikarago**. Josetxo Azkona

## **6** ***ikaran*** *(76 agerraldi, 28 liburu eta 16 artikulutan)* *adlag* ikaraturik, dardarka. ik beherago **8.**

Behin borrokan ikusi dut lurrarekin, lurrean etzana, itzulika, jauzika, gorputz guzia **ikaran**. Bide guzia **ikaran** egiten zuten, kontrol batean gelditu eta miatuko zitutzten beldurrez. Michel Oronoz

Arrain saltzailea **ikaran** zebilen poliziak Florent aurkituko ote zuen. Karlos Zabala

**Ikaran** abiatu nintzen. Aingeru Epaltza

**Ikaran** jaiki naiz: pentsatzeari uztea banu sikiera, aski litzateke hobeki egoteko. Monika Etxebarria

SSak **ikaran,** presoak ere ez hain lasai... Eneko Bidegain

Gauaz holako galdeek **ikaran** atxikitzen baitzaituzte, denak ahantziak bazenitu bezala. Michel Oronoz

Goseak joak, zangoak hormatuak, hotzez **ikaran** elurrean eta haize hotzean abiatzen gira, Gorputza zauritua eta sutan, sukarrez **ikaran**. Michel Oronoz

Hotzak **ikaran,** blai eginda, mugitzeko nahiko tokirik gabe... Rafa Egiguren

Belaunak **ikaran** heldu nintzen hiri barnera. Koldo Izagirre

Eskuak **ikaran,** poliki-poliki pasatu dituzu orriak. Rafa Egiguren

Azkenean zaldi bortitz hori gelditzen da oro akiturik eta harriturik, dardar **ikaran** dagoela. Xipri Arbelbide

## **7** ***ikaratan*** *(8 agerraldi, 6 liburutan)* *adlag* ikaran.

**Ikaratan** nengoen ikusiko ote ninduten. Josu Zabaleta

Oroitze hutsak **ikaratan** jartzen nau!-. Eduardo Matauko

**Ikaratan** atearen eskutokiari heldu nion. Eduardo Matauko

· Zer gertatu zen asmatzen ahalegindu, beldur-**ikaratan** egon eta komunera joateko beharra izan. Josu Zabaleta

## **8** ***ikaraz*** *(334 agerraldi, 102 liburu eta 4 artikulutan: **2.** adierakoak barne)* *adlag* ikaraturik, dardarka. ik gorago **6.**

**Ikaraz** so egin dizu, ezagutuko ez bazintu bezala. Lander Garro

**Ikaraz** nengoen, egiatan esaten dizuet. Koro Navarro

Gela hartatik, eta etxe hartatik, **ikaraz** itzuri nintzen. Koro Navarro

Erne zeudenak txundituri gelditu ziren eta lo zeudenak **ikaraz** esnatu. Askoren artean

**Ikaraz** eta txunditurik, kordegabeturik bezala gelditu zen entzun zuenagatik. Askoren artean

Kafka **ikaraz** zegoen ez ote zen Bamberg bezalakoa bihurtuko. Koro Navarro

Vasilik harriturik eta **ikaraz** ikusi zuen panpinaren begietatik ura isurtzen zela. eraikinean beste nonbaitetik etorritako zarataren batek **ikaraz** iratzarrarazten zuen arte. Jose Morales

Belaunika dadila zirkuluaren erdian eta **ikaraz** entzun dezala iragarriko zaiona. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Lurra bera ere **ikaraz** jarri zuten beren oihuekin. Jose Antonio Mujika

Anaia dardarka hasi zen **ikaraz**. Askoren artean

## **9** ***ikarazko*** *izlag*

Ahoa zabaldu zuen, **ikarazko** intziri bat atera zitzaion. Zain geratu zen, **ikarazko** begiratua bere aurpegi tolesgabean. Anjel Lertxundi

–Harri madarikatu eta sorgindu hori ikuskatu al duzu? –oihu egin zuen Gimlik beldur eta **ikarazko** aurpegieraz-. Agustin Otsoa

Baina oihu hark jada ez zituen izutu, min eta **ikarazko** oihua baitzen. Agustin Otsoa

Eta gero, guztiz bat-batean, pentsamendua, eta **ikarazko** izumena, eta nire benetako egoeraz jabetzeko ahalegin bizia. Koro Navarro

[Ardien] ipursalto eroak eta aiuma **ikarazkoak**. Pako Aristi

## 10 *ikaretan* (*4 agerraldi, 2 liburutan*) *adlag* ikaran.

**Ikaretan** nagok... Daniel Landart

**Ikaretan** eta irakitan nintzen. Daniel Landart

## 11 *beldur-ikara*

Osasunaldia espero genuen, baina **beldur-ikara** dugu gainean.

Zuen **beldur-ikara** izango dute abereek eta zeruko hegaztiek. Elizen arteko biblia

**Beldur-ikara** izango du Asiriak, Jaunaren ahotsa entzutean. Elizen arteko biblia

Bi osaba, sekulako **beldur-ikara** eragiten zidatenak, ate haren atzean zaratak eta argiak itxirik, ezkaratzean hara-hona ibiltzen hasi ziren. Josu Zabaleta

**Beldur-ikarak** hartuko ditu, Jaun ahalguztidunak eskua beraien aurka jasotzen duela ikustean. Elizen arteko biblia

Jakin zuten guztiak **beldur-ikaraz** gelditu ziren. Elizen arteko biblia

· Zer gertatu zen asmatzen ahalegindu, **beldur-ikaratan** egon eta komunera joateko beharra izan. Josu Zabaleta

## 12 *hotz(-)ikara* ik **hotzikara**.

## 13 *ikara batean*

Sukarra banu bezalaxe **ikara** batean nengoen. Bafleak **ikara** batean jarriko lirateke irratiko bolumena apur bat gehiago igoz gero. Josu Zabaleta

Itzal hegadunak berriro zeharkatu zuen zerua, eta **ikara** batean jarri ziren denak, beldurraren beldurrez. Agustin Otsoa

**Ikara** batean gelditu zen, beldur errukarriak menderaturik. Agustin Otsoa

Amonak **ikara** batean zabaldu zituen begiak. Anjel Lertxundi

Müller jauna **ikara** batean esnatu zen eta maletatxoa besarkatu zuen bi besoekin. Anjel Lertxundi

«Frankotiratzailetzat» du bere burua, «odola borborka ipini eta larruazala **ikara** batean jarri nahi dizun frankotiratzailea». Berria - Kultura

## 14 *ikara bizian*

Ama, berriz, **ikara** bizian, osaba Vernonen atzean zegoen kuzkurtuta. Iñaki Mendiguren

Zure haserreak akiturik gauzka, zure suminak **ikara bizian**. Elizen arteko biblia

Handik hamabost minutura amonaren etxean nintzen, bihotza **ikara bizian** eta etsi-etsian taupadaka. Jon Muñoz

Nevillek **ikara bizian** begiratu zuen ingurura, norbaitek lagun ziezaiola erregutuz bezala. Iñaki Mendiguren

## 15 *ikara eman*

Denboraren mugarik ezak **ikara** ematen dizu. Rafa Egiguren

**Ikara** ematen zidan beragana hurbiltzeak. Bernardo Atxaga

Adinekoentzako egoitza batera joan beharko zuela pentsatze hutsak **ikara** ematen zion. Berria - Gaiak

Desertu mota guztiek **ikara** ematen digute. Bernardo Atxaga

–Hire esku zegok nik gogor egitea edo ez –esan dizu inspektoreordeak, **ikara** emateko asmotan-. Rafa Egiguren

Liburuxka haietako batzuk **ikara** emateko modukoak ziren. Karlos Zabala

Hitz batzuek **ikara** ematen dute. Juan Garzia

–Hiltzeko moduko **ikara** eman dit esnatu eta sofaren ondoan zutik ikusi dudanean –esan nuen. Fernando Rey

**Ikara** emateko moduko hotsa atera zuen talkak, eta bi zaldunak joan ziren lurrera. Juan Kruz Igerabide

A zer **ikara** eman didazun! Aingeru Epaltza

## 15 *ikara egin* dardaratu.

Minutuen orratzak **ikara** egiten du eta 5:46an geratzen da. Neskameak **ikara** egin du eta joan da. Oskar Arana

Gizon gazteak **ikara** egin zuen eta begi kolpe motz bat zuzendu zidan. Monika Etxebarria

**Ikara** egin zuen hurbildu nintzaionean. Koro Navarro

–Ale, **ikara** egin! eragin zure ipu[r]diei, urdanga horrek! Juan Martin Elexpuru

–Ezkondu? –esan dut **ikara** eginez. Monika Etxebarria

Bat-batean ikararen ikaraz hasi zen, zakurrek **ikara** egiten duten bezala. Josu Zabaleta

Bat-batean labana bera ikusi nuen, zinez ikusi, **ikara** egiten, mugitzen, geldiro irristatzen, bera bakarrik, mahaiko zuraren gainetik, gelditurik zain zeukan eskurantz, eta haren hatzen azpian geratu zen. Josu Zabaleta

“Berari ere **ikara** egiten diote eskuek?” pentsatu nuen edalontzia hartzen nuen bitartean. Juan Martin Elexpuru

Eskuak **ikara** egiten zuen nire besoan, eta mugitzen zen aldi bakoitzean dardara batek hartzen zidan gorputza. Koro Navarro

Gure oinen azpian, lurrak **ikara** egin zuen. Alberto Ladron Arana

*ik* lurrikara.

Belaunek **ikara** egin zioten. Anton Garikano

## 16 *ikara eragin* dardarazi.

Gau osoak iratzarririk edukitzen ninduen nerbioetako ezinegon bat izan zen lehendabizi, zaratarik txikienak **ikara** eragiten zidan gehiegizko urduritasun bat, alegia. Josu Zabaleta

Idazletzak, halere, **ikara** eragiten dio, beldur halako bat. Berria - Kultura

Misterio kutsu hura zen **ikara** eragiten ziona. Eneko Bidegain

Mutikoei **ikara** eragin baino lehen. Monika Etxebarria

Antonen garrasiek **ikara** eragin dizute. Rafa Egiguren

Umorez eta atsekabez beteak daude, **ikara** eragiten duen umorez zipriztinduak. Berria - Kultura

Nolanahi ere, ezin zen finantza-merkatuei buruzko uste onik berriz sortu, non eta errusiar luzamenduak eragindako **ikara** desagerrarazten ez zen. Koro Navarro

## 17 *ikara izan*[1] da *ad* beldur izan.

**Ikara** zen neska. Itxaro Borda

Mijail **ikara** zen. Felipe Juaristi

**Ikara** zara egun osoan, etengabe, zu suntsitu nahian suturik dabilen zapaltzailearen aurrean! Elizen arteko biblia

Noren **ikara** zinen, noren beldur, niri huts egiteko, nitaz erabat ahazteko? Elizen arteko biblia

Gaua itxuratzen nuen, euri piztiak, dolua, negarrak, auhen kantak eta orduko etxeetako hotz hezea: **ikara** nintzen. Itxaro Borda

## 18 *ikara izan*[2] du *ad* beldur izan.

**Ikara** izango dute Sionen bekatariek, dardarak hartuko ditu sinesgabeak. Elizen arteko biblia

Izugarrizko **ikara** genion, bakarrik zegoela sumatzen genuelako. Monika Etxebarria

Davidek **ikara** bide zien hutsuneei. Bernardo Atxaga

Urduri nengoen, artean ez nekien zer zen atxilotua izatea, **ikara** nion neure buruari. Koldo Izagirre

· Alemanek **ikara** handiagoa zieten aire-erasoei guk baino Juan Garzia

**19** ***ikara sartu***

**Ikara** sartu zitzaidan. Josu Zabaleta

Horrela ikusirik **ikara** sartu zaizu urdail-bihotz errean. Sonia Gonzalez

Peterrek hesia saltatu eta bere barkuaren atzean babestu zen, hainbesteko **ikara** sartu zitzaion. Julen Gabiria

**20** ***ikararen ikaraz***

Bat-batean ikararen **ikaraz** hasi zen, zakurrek ikara egiten duten bezala. Josu Zabaleta

Izumenak gogorturik nengoen, ikararen **ikaraz** mozkorturik, oihuka hasteko prest, hiltzeko prest. Josu Zabaleta

Beldurra ere han ezagutu nuen, ikararen **ikaraz** garondotik heldu eta ileak lazten dizkizun beldur hori. Pako Aristi

Aurpegia zuri zuen, ikararen **ikaraz**. Iñaki Mendiguren

**21** ***itsas(-)ikara*** ik **itsasikara**.

**22** ***izu-ikara*** *(orobat **izuikara** g.er.)* ik **laborri**.

Izu-**ikara** batek jo zuen Nora Andreasek ukalondoetatik oratu orduko. Anjel Lertxundi

Ihes egin behar ero batek hartu ninduen orduan, heriozko izu **ikara** bat, guduetako izu **ikara** egiazkoa. Josu Zabaleta

Benetan izu-**ikara** ematen zidan haurdun gelditzeak. Karlos Zabala

Eta izu-**ikara** izango Etiopian, Egipton hildakoak erortzean. Elizen arteko biblia

Pentsatze hutsak, izu-**ikara** sortzen zuen. Karlos Linazasoro

Izu-**ikara** ezartzen zuten bizidunen artean. Elizen arteko biblia

Nik barre egingo dizuet zeuen zoritxarraz, iseka, izu-**ikara** sartzen zaizuenean. Elizen arteko biblia

Izu-**ikara** batek zeharkatu balu bezala zen. Ibon Uribarri

Dolu-jantzia jarriko dute soinean, izu-**ikarak** harrapatuko ditu. Elizen arteko biblia

Horien ondoren, milaka arima hasi ziren agertzen, eta **izuikarak** hartu zidan barrena. Juan Kruz Igerabide

Hobe gutxi eduki eta Jaunarenganako begirunean bizi, altxor handia eduki eta izu-**ikaraz** bizi baino. Elizen arteko biblia

Ezin ulertuzko latzikarak eta **izuikara** estuagarriak. Joan Mari Lekuona

Izadiak **izuikara** dio hustasunari, hala diote. Joan Mari Lekuona

**Izuikarek** habia duten lekuraino iritsirik. Juan Garzia

Izu-**ikarazko** keinu bat egin eta kolpe zakar bat eman zidan bizkarrean. Anjel Lertxundi

Ezpain **izuikararen** eraginez geldi-geldirik irekiak. Jose Morales

**Izuikara**-kliskada bat ikusi diot begietan. Mirentxu Larrañaga

**23** ***izu-ikaratu*** ik **ikaratu 5**.

**24** ***lur(-)ikara*** ik **lurrikara**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**artean izu ikara** (3); **baina ikara** (3); **beldur ikara** (13); **beldurra eta ikara** (3); **den lur ikara** (3); **duen ikara** (5); **ere ikara** (11); **eta ikara** (65); **eta ikara bat** (3); **eta ikara batean** (5); **eta ikara dira** (3); **eta itsas ikara** (3); **gaitzeko lur ikara** (3); **hainbesteko ikara** (3); **halako ikara** (21); **halako ikara bat** (5); **halako ikara batek** (3); **hotz ikara** (3); **hutsak ikara** (4)

**ikara antzean** (3); **ikara apur** (3); **ikara apur bat** (3); **ikara bat** (35); **ikara bat sentitu** (4); **ikara batean** (33); **ikara batek** (19); **ikara batek zeharkatu** (3); **ikara batekin** (3); **ikara baten** (7); **ikara bedi** (6); **ikara betean** (5); **ikara bizian** (8); **ikara dira** (7); **ikara egin** (23); **ikara egin du** (4); **ikara egin zuen** (8); **ikara egiten** (16); **ikara egiten du** (4); **ikara eman** (8); **ikara eman zion** (3); **ikara emango** (3); **ikara emateko** (8); **ikara ematen** (46); **ikara ematen dio** (3); **ikara ematen dit** (4); **ikara ematen dizu** (4); **ikara ematen zidan** (4); **ikara ematen zion** (8); **ikara ematen zioten** (3)

**ikara eragin** (11); **ikara eragin zidan** (4); **ikara eragin zuen** (3); **ikara eragiten** (9); **ikara ere** (3); **ikara eta** (25); **ikara ez** (5); **ikara ezartzen** (5); **ikara ezartzen zuten** (3); **ikara gorrian** (5); **ikara gozo** (3); **ikara handi** (5); **ikara handi bat** (4); **ikara handiagoa** (3); **ikara haren** (3); **ikara hartu** (7); **ikara hori** (7); **ikara horiek** (3); **ikara hura** (3); **ikara izan** (3); **ikara izango** (6); **ikara izigarri** (5); **ikara izigarri haren** (3); **ikara izugarria** (3); **ikara jasan** (4); **ikara kentzeko** (5); **ikara larri** (4); **ikara larriak** (4); **ikara pixka** (5); **ikara pixka bat** (5); **ikara sartu** (10); **ikara sartu zitzaion** (3); **ikara sentitu** (8); **ikara sentitu nuen** (3); **ikara sortu** (3); **ikara sortzen** (10); **ikara txiki** (9); **ikara txiki bat** (7); **ikara zaitezte** (4); **ikara zen** (3)

**itsas ikara** (15); **itsas ikara izigarri** (4); **izu eta ikara** (3); **izu ikara** (55); **izu ikara bat** (4); **izu ikara batek** (3); **izu ikara ematen** (6); **izu ikara ezartzen** (5); **izua eta ikara** (6); **izugarrizko ikara** (3); **lur ikara** (61); **lur ikara bat** (5); **lur ikara batek** (5); **lur ikara baten** (5); **lur ikara jasan** (3); **lurrak ikara** (7); **lurrak ikara egin** (3); **lurrak ikara egiten** (4); **nolako ikara** (3); **nuen ikara** (4); **pentsatze hutsak ikara** (3); **zen ikara** (6); **zuen ikara** (3)

**baten ikarak** (4); **baten ikarak eta** (3); **begi ikarak** (3); **beldur ikarak** (9); **beldur ikarak hartu** (3); **eta ikarak** (13); **hotz ikarak** (8); **ikarak airean** (3); **ikarak eta** (10); **ikarak eta ostikadak** (3); **ikarak hartu** (11); **ikarak hartu zuen** (4); **ikarak hartua** (3); **ikarak jota** (6); **itsas ikarak** (3); **izu ikarak** (13); **lur ikarak** (12); **maisu baten ikarak** (3)

---

# ikarabide *iz* ikaratzeko arrazoia.

Sujet horren karietara deus berririk ezin erran ere nizuke, arrunt gogoetagarria zaidan gertakari bat agitu ez balitz, **ikarabide** ala esperantzabide ote den oraino ez dakidana. Jon Muñoz

---

# ikaragabe *izond* ikara sentitzen ez duena.

Errealitatearen oneste betegin, soraio eta **ikaragabearen** alderdi libelante-subjetibo edo desmitifikatzaile-objetibotik, hots, errealitatearen gurtze patologikotik. Iñaki Segurola

---

# ikaragaitz **1** *izond* ia ezin ikaratuzkoa.

Malkoak ikusi zituen lehengo aurpegi **ikaragaitz** hartan, haserrea baino jasangaitzagoak. Agustin Otsoa

Kaleko gainerako etxeek, berriz, beren barruko bizimodu txukunen jakitun, aurrez aurre begiratzen zioten elkarri aurpegi arre **ikaragaitzez**. Irene Aldasoro

**2** (adizlagun gisa)

Baina Maryk **ikaragaitz** entzun zituen berriak, kurrinka ekin zion purrustaka, txintik ere esan barik, eta ate kulunkariari dinbi-danba eraginez irten zen arrapaladan sukalderantz. Mirentxu Larrañaga

Aurpegia **ikaragaitz** mantentzeko ahal zuen guztia egin zuen Harryk. Iñaki Mendiguren

Itzalasterrek aurre egiten zion beldurrari, **ikaragaitz,** Rath Dinenen zizelkatutako irudi bat bezain sendo, bakarra munduko zaldi libreen artean. Agustin Otsoa

**Ikaragaitz,** Hermionek makila bere poltsara sartu eta borragoma gorri bizi baten antzeko zerbait atera zuen. Iñaki Mendiguren

---

# ikaragarri **1** *izond* ikaratzen duena, guztiz beldurgarria. ik **izugarri**.

Susmo **ikaragarri** bat dut. Ramon Etxezarreta

Hiltzaile askoren bilobak euren aitonen ekintza **ikaragarri** horietaz trufatzen aritu dira urteotan. Berria - Harian
Bide istripuen balantze **ikaragarri** horrez gain, Iranek pairatu du beste hondamendirik. Berria - Mundua
Iraileko atentadu **ikaragarri** heien ondorio itsuak. Herria
Haren lepo labur lodiak itxura **ikaragarria** zuen, eta jasanezina zen hatz labur handituei begiratzea. Jose Morales
Guraso adintsuen azken bisita jaso zuen egun **ikaragarriaren** bezperan ere. Jose Morales
PP agintean egon den zortzi urteko **ikaragarrian** (1996-2004). Txema Ramirez de la Piscina
Gaiztoaren patu **ikaragarria**. Elizen arteko biblia
Leku arriskutsu, **ikaragarriren** batetik etorri da noski. Fernando Rey
Historia **ikaragarriak** kontatzen ziren ohiturari muzin egin ziotenek egindako fin gaiztoaz. Fernando Rey
Itsusi **ikaragarria** zen, beltza, iharra, luze-luzea. Josu Zabaleta
Bere familiaren patua taxutu zuen eragin isil baina hala ere desegoki eta **ikaragarrian**. Koro Navarro
Modu **ikaragarrian** hilko dira eta ez dute hiletarik, ez hilobirik izango. Elizen arteko biblia
Aldaketaren espirituak astindu zuen, adimenean, ohituretan eta izaeran barneratu zitzaion, eta, modurik sotil eta **ikaragarrienean,** nortasuna bera ere nahasi zion. Koro Navarro
Zarata eta dardara **ikaragarria;** eta ikaratu egiten zintuen. Jokin Urain
· Snaperen entzumenetik kanpo egon zirenean, hari buruz **ikaragarriak** esaten hasi ziren guztiak. Iñaki Mendiguren
**“Ikaragarriren** bat izango duk hemen”, esan zuen Bautistak bere kolkorako. Koro Navarro

**2** oso handia.

Milaka metroko desnibel **ikaragarri** bat igaro. Iñaki Segurola
Turkian lurrikara **ikaragarri** batek hainbat hiri suntsitu zituela. Joseba Sarrionandia
Munduko urre guztiaren truke ere ez zirela hara hurbilduko, pasatu zituzten miseria eta neke **ikaragarriak** gogoan. Ramon Saizarbitoria
Euri jasa **ikaragarriak** bota zituen egun hartan. Ramon Saizarbitoria
Harri-koskorraren antz **ikaragarria** duen gai batez beterik. Jose Morales
Eta, gainera, bero **ikaragarria** egiten zuen! Joxe Austin Arrieta
Quenuri beldur **ikaragarria** ematen baitzion gaixotzeak. Karlos Zabala
Sute **ikaragarriak** pizten dituzte dena hauts-errauts uzteko. Jon Muñoz
Autotik jaitsi eta harrizko edifizio **ikaragarri** hari begira geratu nintzen. Joseba Sarrionandia
Ene! Lagun laztana, zein zakil **ikaragarria!..** . ezin dut ia eskuaz bildu! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Barazkiz beteriko ohe **ikaragarri** haren gainean. Karlos Zabala
Beharbada, miserable izatea, Victoriarentzat hain **ikaragarria** zena [...] normala iruditu zitzaidan ordu arte. Ramon Saizarbitoria
Gezi zorrotz **ikaragarri** horiek. Elizen arteko biblia
Etxea su **ikaragarri,** bikain bat zen ordurako, munstrozko su bat. Josu Zabaleta
Zure iraganean gauza **ikaragarriak** baitaude. Iñaki Mendiguren
Nekaldi **ikaragarriko** orduan sentitu zenuen oinazea. Askoren artean
*ik beherago* 7. Askoren artean
Talentu **ikaragarriko** zuzendari bikaina. Berria - Kultura
Haren itxura sinpletasun **ikaragarrikoa** zen: jilbaba bat gorputz mehe beltz batean esekia. Patxi Zubizarreta
«Arrasateko artxiboan «gai ugaritako dokumentuak» zeuden, «herriaren historia ezagutzeko garrantzi **ikaragarrikoak,** [...]». Berria - Kultura
Banekien gauza **ikaragarriren** bat erantsiko zuela. Ramon Saizarbitoria
· **Ikaragarria** iruditu zitzaidan hura guztia. Juan Kruz Igerabide
· *adlag* Lipar batean arnaska gelditu ziren, mutu eta **ikaragarri,** okelen gainetik. Karlos Zabala
Hau altxatu zen, **ikaragarri,** xala erortzen utzita. Karlos Zabala

**3** (izan aditzarekin)

Agendan honako hau: “Haurdun nago. **Ikaragarria** da”. **-Ikaragarria** da, Liuba! Joseba Urteaga
– **Ikaragarria** da zuen bion arteko antza. Iñaki Mendiguren
**Ikaragarria** da... baina zer egingo diogu? Lopez de Arana
**Ikaragarria** zara: nork iraun zutik zure aurrean, zure haserrealdian? Elizen arteko biblia
Hitz egitea bera **ikaragarria** zen. Jose Morales
Piztitzar hura [...] guztiz **ikaragarria** zen, burdinazko haginak eta brontzezko atzaparrak zituena. Elizen arteko biblia
Horrexegatik zen **ikaragarria** egoera. Jose Morales
Izan ere, asko da, **ikaragarri** da, itxuragabe da izen batek –aho-mihietako putz batek- lezakeena. Iñaki Segurola
Asko dezakegu denon artean, baina ez dena; **ikaragarri** gara denon artean, baina ez dena. Iñaki Segurola
Beldurgarri da Jainkoa aingeruen kontseiluan, handi eta **ikaragarri** inguruko guztientzat. Elizen arteko biblia
Ez dakizu zeinen **ikaragarria** zaidan zure hutsunea. Mirentxu Larrañaga
· Eta, beldurturik, esan zuen: “Bai **ikaragarria** leku hau! Elizen arteko biblia

• **4** *adlag* oso, asko, guztiz. ik **ikaragarriro**. (aditzekin)

Doktor Kerrn hark **ikaragarri** zekiela. Juan Garzia
Autoreari **ikaragarri** atsegin zaio gauza guztietan zehatza izatea. Jose Morales
B-k **ikaragarri** maite zuen zinema. Jon Alonso
Eman musu pare bat, gizona, **ikaragarri** maite haut eta! Jose Morales
Bai zera, **ikaragarri** aspertzen da... Harkaitz Cano
Haren musika **ikaragarri** gustatzen zait. Berria - Kultura
Kezkatzeko arrazoi gutxi izango zen, gero arma-trafikoa **ikaragarri** hazi ez balitz Pertsiar golkoan. Iñaki Mendiguren
S@reak jakite huts zertangabea **ikaragarri** erraztu du eta azkartu. Iñaki Segurola
Jende dixtiranta **ikaragarri** ugaldu zaigu Zientzian, Literaturan (puf!) eta bestetan. Iñaki Segurola
Emakumea **ikaragarri** gorroto zuen arren. Ramon Saizarbitoria
Dioxido karbono mailak **ikaragarri** egin du gora azken urteotan.
Iluntasunean **ikaragarri** gora egiten baitzuten sei solairu trinkoek. Mirentxu Larrañaga
Prostituzioak gora egin du **ikaragarri** Espainia osoan. Berria - Euskal Herria
Lisa **ikaragarri** iraindua sentitzen zen horregatik. Karlos Zabala
Eskua emakume haien gonen azpitik sartzeko keinua egiten genuen, eta **ikaragarri** gozatzekoa ere bai. Pello Lizarralde
Pixkanaka argitzen doan gorputz ilun horrek erasan egiten dit, **ikaragarri** erasan ere. Monika Etxebarria
Gazta gustatzen zaio **ikaragarri**. Harkaitz Cano

## **5** (izenondoekin)

**Ikaragarri** jatunak dira, alfertasunetik datorkie neurririk gabe jateko ohitura. Jose Morales

–Ez, ni ere ez naiz **ikaragarri** zalea –erantzun zuen emazteak-. Mirentxu Larrañaga

Urduria izan naiz beti, **ikaragarri** urduria. Koro Navarro

Ikus i genuen lehen gauza hilerria izan zen, **ikaragarri** handia.Urdin argia zen, **ikaragarri** ñimiñoa. Bernardo Atxaga

Haren botak **ikaragarri** handiak ziren. Jose Morales

Partida **ikaragarri** luze eta gogorra izan zen. Berria - Kirola

Azpiegiturak oso txarrak dira eta kaleak **ikaragarri** estuak. Berria - Mundua

Haren hitzak **ikaragarri** argiak bihurtu ziren orduan. Koro Navarro

Nahiz eta herri osoak putzu hura **ikaragarri** arriskutsua zela pentsatu. Koro Navarro

Florent defendatzea, egia esateko, **ikaragarri** zaila bihurtzen ari zen. Karlos Zabala

Heroi haiek guztiek izter **ikaragarri** mardulak eta bibote izugarri handiak zituzten. Jose Morales

Gertaera hasieran itxaropentsu eta geroago **ikaragarri** haiek. Berria - Kultura

· Gari sail **ikaragarri** handi bat. Harkaitz Cano

Emazteak bazekien […] noiz esan esaldi **ikaragarri** zakar bat hantxe lur jota uzteko. Fernando Rey

Erreflexu **ikaragarri** bizkor batez, mikroa hartu zuen gizonak, zorua ukitu baino askoz lehenago. Jon Muñoz

«Jarrera **ikaragarri** hotza» erakusten ari dira. Berria - Ekonomia

Gertatu berri zen gauza **ikaragarri** garrantzitsuaz zeharo oharkabe. Oskar Arana

Horrexek ematen dio gorpuari buiatu itxura hain **ikaragarri** hori. Koro Navarro

Orduan soilik zirudien denak amaituta, kito, aldagaitz, behin betiko, hain **ikaragarri** bizkor, eta hain izugarri lauso. Urtzi Urrutikoetxea

Ixtaber hura zapatagile zahar **ikaragarri** aberatsa zen. Koro Navarro

Han zen prokuradorea bere bekain iletsu **ikaragarri** beltzekin. Jose Morales

· *(cf oso)* **Ikaragarri** zama astunak garraiatzen dituzte. Iñaki Mendiguren

Kapistun zuen kide, Amerikanoa, **ikaragarri** gizon azkarra. Koro Navarro

**Ikaragarri** giro ona dago hemen. Berria - Euskal Herria

Erizain tituluduna zen Wilmarth andereñoa, miragarriro trebea, […] **ikaragarri** gustu onekoa loreak pitxerretan eta lorontzietan atontze-lanetan. Mirentxu Larrañaga

## **6** (nola adizlagunekin)

Ni **ikaragarri** otxanduta, gixaixotuta azaldu nintzen psikiatraren aurrera. Iñaki Segurola

**Ikaragarri** berandu zetozen; izugarri berandu zetozen, esan zien Mintak. Anton Garikano

**Ikaragarri** motel jarri ziren matematikariak abian. Jon Muñoz

Gero gauzak **ikaragarri** argi ikusten hasi zen. Harkaitz Cano

**Ikaragarri** ondo ari da jokatzen. Berria - Kirola

**Ikaragarri** txarto sentitzen zara, ezta ba? Mirentxu Larrañaga

–Duela gutxi ikusi nuen; **ikaragarri** gaizki zahartu da. Ramon Saizarbitoria

**Ikaragarri** lanpetuta daudela ematen du. Julen Gabiria

Urrats bat hurbilago ekarri duela arima bere bidaiaren helmuga **ikaragarri** urrutirantz. Iñaki Mendiguren

## **7 *ikaragarriko*** *izlag ipar* ikaragarria.

**Ikaragarriko** beldurra ematen zidaten. Daniel Landart

Orduan **ikaragarriko** beroa senditzen nuen, eta beroaren ondotik, izigarriko goxotasuna. Menane Oxandabaratz

Orotarat, sei ehun bat hil segurik, desagertua frango eta **ikaragarriko** makurrak. Herria

Laugarren entsegu bat izan zitekeen ere ez balu Dominici-k egin **ikaragarriko** astokeria. Herria

Behin ere ezagutua ez nuen plazerra, **ikaragarriko** plazerra den bezala erraiteko. Janbattitt Dirassar

Mendiak dituzu bakarrik atzemanen eta **ikaragarriko** arrokak. Aurelia Arkotxa

Bat-batean, **ikaragarriko** aro hitsa mugaren bazter hortan guzian, euri eta ortz. Herria

Baina beste egia batzuk ere badira, **ikaragarriko** hilketak eragiten dituztenak kanpalekuan, edo kanpoko komandoetan. Marzel Etxehandi

Hegoaldean zen Munich-ek **ikaragarriko** bonbardaketa jasan behar izan zuen, hiru oren iraun zuena. Marzel Etxehandi

## **8 *ikaragarrizko*** *izlag* ikaragarria.

**Ikaragarrizko** matrailekoa eman zion. Koro Navarro

**Ikaragarrizko** beroa egiten zuen kalean. Josu Zabaleta

**Ikaragarrizko** desengainua hartu zuen. Iñaki Segurola

Pilulak **ikaragarrizko** eragina izan du haurren kopurua kontrolatu ahal izateko. Luis Elberdin

Neure gaitza, bada, **ikaragarrizko** lastertasunaz ari zitzaidan areagotzen. Koro Navarro

Esan beharra dago **ikaragarrizko** zalaparta eragin nuela.Igandean **ikaragarrizko** bonbardaketa izan zen Amsterdameko iparraldean. Jesus Mari Mendizabal

Garraioaren kostuak **ikaragarrizkoak** ziren garai batean. Koro Navarro

Guztiz adierazgarria da hirietako biztanleriaren hazkunde-erritmoa, hazkunde demografiko oraindik **ikaragarrizko** baten eta modernizazio besterendu batek dakartzan biztanleen lekualdatze masiboen emaitza dena. Koro Navarro

Mendi osoaren ingurua **ikaragarrizko** harrizko murruz inguratu zuen eta murru horren gibelean munduko baratzerik ederrena sortu. Aurelia Arkotxa

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ahots ikaragarri** (3); **baina ikaragarri** (10); **bat ikaragarri** (6); **beltz ikaragarri** (3); **bero ikaragarri** (3); **da ikaragarri** (5); **doinu ikaragarri** (3); **egoera ikaragarri** (3); **egun ikaragarri** (3); **ekaitz ikaragarri** (3); **ere ikaragarri** (7); **esaldi ikaragarri** (3); **esatea ikaragarri** (3); **esatea ikaragarri gustatzen** (3); **eta horrek ikaragarri** (3); **eta ikaragarri** (47); **garrasi ikaragarri** (3); **garrasi ikaragarri bat** (3); **gau ikaragarri** (5); **gauza ikaragarri** (8); **gertaera ikaragarri** (3); **gizon ikaragarri** (3); **handi ikaragarri** (3); **hanley ikaragarri** (5); **honek ikaragarri** (3); **hori ikaragarri** (6); **horrek ikaragarri** (8); **hots ikaragarri** (3); **hutsune ikaragarri** (3); **hutsune ikaragarri bat** (3)

**ikaragarri aldatu** (3); **ikaragarri arriskutsua** (3); **ikaragarri aspertzen** (3); **ikaragarri bat** (91); **ikaragarri bat bota** (3); **ikaragarri bat egin** (3); **ikaragarri bat eman** (3); **ikaragarri bat gertatu** (3); **ikaragarri batean** (15); **ikaragarri batean bizi** (3); **ikaragarri batek** (30); **ikaragarri batekin** (6); **ikaragarri baten** (27); **ikaragarri batetik** (3); **ikaragarri batez** (11); **ikaragarri batzuek** (3); **ikaragarri batzuen** (3); **ikaragarri bizkor** (4); **ikaragarri eder** (3); **ikaragarri ederra** (8); **ikaragarri egin** (3); **ikaragarri estimatzen** (4); **ikaragarri eta** (15); **ikaragarri gaizki** (6); **ikaragarri gozatu** (3); **ikaragarri gozatzen** (5); **ikaragarri gustatu** (9); **ikaragarri gustatuko** (8); **ikaragarri gustatuko litzaidake** (3); **ikaragarri gustatzen** (28); **ikaragarri gustatzen zait** (13); **ikaragarri haiek** (5); **ikaragarri haietan** (3); **ikaragarri handi** (17); **ikaragarri handi bat** (7); **ikaragarri handi eta** (3); **ikaragarri handia** (26); **ikaragarri handia da** (3); **ikaragarri handia eta** (5); **ikaragarri handia zen** (4); **ikaragarri handiak** (9

**ikaragarri handitu** (6); **ikaragarri haren** (18); **ikaragarri hari** (4); **ikaragarri hark** (3); **ikaragarri hartako** (4); **ikaragarri hartan** (10); **ikaragarri hau** (6); **ikaragarri hazi** (3); **ikaragarri honen** (5); **ikaragarri hori** (24); **ikaragarri horiek** (5); **ikaragarri horietako** (4); **ikaragarri horietako bat** (4); **ikaragarri horrek** (7); **ikaragarri horren** (7); **ikaragarri horretan** (4); **ikaragarri hura** (26); **ikaragarri indartsua** (4); **ikaragarri indartsua da** (3); **ikaragarri kostatu** (3); **ikaragarri kostatzen** (5); **ikaragarri kostatzen zait** (3); **ikaragarri luze** (5); **ikaragarri luzea** (3); **ikaragarri maite** (21); **ikaragarri maite zuen** (4); **ikaragarri ona** (10); **ikaragarri onak** (4); **ikaragarri ondo** (7); **ikaragarri pozten** (4); **ikaragarri poztu** (4); **ikaragarri sufritu** (7); **ikaragarri sufritzen** (5); **ikaragarri txarra** (6); **ikaragarri txarra da** (3); **ikaragarri zabaldu** (5); **ikaragarri zaila** (10); **ikaragarri zaila da** (6); **ikaragarri zorroztu** (3)

**indar ikaragarri** (3); **isiltasun ikaragarri** (3); **itzala ikaragarri** (3); **jendetza ikaragarri** (4); **kopuru ikaragarri** (4); **lan ikaragarri** (5); **oihu ikaragarri** (4); **partida ikaragarri** (4); **tresna ikaragarri** (3); **une ikaragarri** (3); **zen ikaragarri** (3); **zerbait ikaragarri** (5)

**aberastasun ikaragarria** (3); **ahalmen ikaragarria** (4); **alde ikaragarria** (9); **alde ikaragarria zegoen** (3); **antz ikaragarria** (10); **arrakasta ikaragarria** (9); **baina ikaragarria** (6); **bat ikaragarria** (6); **beldur ikaragarria** (18); **beldur ikaragarria ematen** (4); **beldur ikaragarria sartu** (3); **bero ikaragarria** (5); **bero ikaragarria egiten** (3); **borroka ikaragarria** (7); **burrunba ikaragarria** (6); **da ikaragarria** (13); **den giroa ikaragarria** (3); **dirutza ikaragarria** (4); **egoera ikaragarria** (4); **ere ikaragarria** (5); **esfortzu**

ikaragarria (4); eta ikaragarria (37); eta ikaragarria da (8); eta ikaragarria zen (3); eztanda ikaragarria (4); falta ikaragarria (8); falta ikaragarria dago (3); gaitasun ikaragarria (5); galera ikaragarria (3); garrantzi ikaragarria (3); gau ikaragarria (3); gauza ikaragarria (6); giroa ikaragarria (3); gogo ikaragarria (3); gose ikaragarria (3); hain da ikaragarria (6); hain ikaragarria (9); handi eta ikaragarria (5); hau ikaragarria (12); hau ikaragarria da (10); hazkunde ikaragarria (3); hori ikaragarria (7); hori ikaragarria da (5); hots ikaragarria (3); hotz ikaragarria (4); huts ikaragarria (3); hutsa ikaragarria (3)

ikaragarria baino (3); ikaragarria baita (8); ikaragarria benetan (4); ikaragarria bildu (3); ikaragarria da (169); ikaragarria da eta (6); ikaragarria da gizona (3); ikaragarria da hori (6); ikaragarria dago (13); ikaragarria dauka (7); ikaragarria daukat (3); ikaragarria dela (13); ikaragarria den (3); ikaragarria du (13); ikaragarria duela (6); ikaragarria duen (5); ikaragarria duk (4); ikaragarria dun (3); ikaragarria dut (3); ikaragarria dute (5); ikaragarria duzu (3); ikaragarria egin (41); ikaragarria egin du (6); ikaragarria egin zion (5); ikaragarria egin zuen (9); ikaragarria egingo (5); ikaragarria egiten (24); ikaragarria egiten ari (5); ikaragarria egiten du (4); ikaragarria egiten zuen (4); ikaragarria eman (7); ikaragarria ematen (14); ikaragarria ematen dit (3); ikaragarria ematen zidan (3); ikaragarria entzun (3); ikaragarria erakusten (3); ikaragarria erakutsi (3); ikaragarria ere (6); ikaragarria eta (17); ikaragarria ez (3); ikaragarria gertatu (8); ikaragarria gertatuko (5); ikaragarria hartu (6); ikaragarria iruditu (3); ikaragarria iruditzen (12); ikaragarria iruditzen zait (5); ikaragarria iruditzen zitzaion (3); ikaragarria izan (114); ikaragarria izan da (22); ikaragarria izan omen (4); ikaragarria izan zen (55); ikaragarria izan zuen (5); ikaragarria izango (20); ikaragarria izango da (12); ikaragarria izango litzateke (3); ikaragarria izaten (9); ikaragarria jasan (3); ikaragarria jaso (3); ikaragarria leku (3); ikaragarria litzateke (9); ikaragarria sartu (3); ikaragarria sentitu (3); ikaragarria sentitzen (5); ikaragarria sentitzen nuen (3); ikaragarria sortu (11); ikaragarria sortu zen (3); ikaragarria sumatu (3); ikaragarria ukan (3); ikaragarria zegoen (8); ikaragarria zela (5); ikaragarria zen (54); ikaragarria zeukan (3); ikaragarria zuen (14)

ilusio ikaragarria (4); indar ikaragarria (6); isiltasun ikaragarria (3); itxura ikaragarria (6); itxura ikaragarria zuen (3); jauzi ikaragarria (3); jendetza ikaragarria (5); kalte ikaragarria (3); kopuru ikaragarria (6); kopurua ikaragarria (3); lan ikaragarria (23); lan ikaragarria egin (7); lan ikaragarria egiten (3); lana ikaragarria (3); larritasun ikaragarria (3); lasaitasun ikaragarria (3); maila ikaragarria (5); meritu ikaragarria (4); mespretxu ikaragarria (3); min ikaragarria (9); min ikaragarria egiten (3); nagusitasuna ikaragarria (3); nagusitasuna ikaragarria izan (3); oihu ikaragarria (3); oinaze ikaragarria (4); partida ikaragarria (5); partida ikaragarria izan (3); pisu ikaragarria (4); sarraski ikaragarria (4); talde ikaragarria (3); tresna ikaragarria (3); usain ikaragarria (3); zalaparta ikaragarria (3); zarata ikaragarria (5); zerbait ikaragarria (12); zerbait ikaragarria gertatuko (3); zigor ikaragarria (4)

abiada ikaragarrian (3); aldaketa ikaragarriak (3); are ikaragarriagoa (4); arma ikaragarriak (3); baino ikaragarriagoa (3); dirutza ikaragarriak (3); dohain ikaragarriak (4); egintza ikaragarriak (17); egintza ikaragarriak hauek (16); eta ikaragarriagoa (3); eta ikaragarriak (9); gauza ikaragarriak (12); hiru egintza ikaragarriak (16); ikaragarriagoa zen (4); ikaragarriak daude (3); ikaragarriak dira (13); ikaragarriak ditu (3); ikaragarriak egin (6); ikaragarriak egiten (6); ikaragarriak eragin (3); ikaragarriak eragiten (4); ikaragarriak ere (7); ikaragarriak esaten (4); ikaragarriak eta (4); ikaragarriak ez (4); ikaragarriak hauek (16); ikaragarriak hauek izan (16); ikaragarriak ikusi (3); ikaragarriak izan (8); ikaragarriak izan ziren (3); ikaragarriak izango (3); ikaragarriak jasan (3); ikaragarriak ziren (10); ikaragarrien artean (4); ikaragarrien ondoren (3); kalte ikaragarriak (4); modu ikaragarrian (4); ondorio ikaragarriak (6)

baina ikaragarrizko (4); ere ikaragarrizko (3); eta ikaragarriko (6); eta ikaragarrizko (14); hori ikaragarrizko (3); ikaragarriko arrakasta (7); ikaragarriko arrakasta ukan (3); ikaragarriko euritea (3); ikaragarriko lan (4); ikaragarriko makurrak (5); ikaragarriko mugimendua (4); ikaragarriko mundua (3); ikaragarriren bat (13); ikaragarrizko beldurra (6); ikaragarrizko eragina (5); ikaragarrizko eragina izan (5); ikaragarrizko garrantzia (4); ikaragarrizko garrasiak (3); ikaragarrizko hotza (4); ikaragarrizko indarra (3); ikaragarrizko kiratsa (3); ikaragarrizko lezioa (3); ikaragarrizko zalaparta (3)

---

# ikaragarridun *izlag* ikaragarrikoa.

Aspaldian ikusi duen jokalari gazte interesgarriena dela esan zuen Cristiano Ronaldori buruz, «talentu **ikaragarriduna»**. Berria - Kirola

---

# ikaragarrikeria *iz* egintza ikaragarria, gaitzesgarritzat hartua.

Madrilgo atentatuaren **ikaragarrikeriak** [...] borroka armatuarekiko daukagun konplazentzia edota axolagabeziaren hesia errotik inarrosi digu. Berria - Kultura

Ben Laden zela **ikaragarrikeriaren** manatzailea. Herria

**Ikaragarrikeriak** gertatu dituk jauregian eta hire lurretan; baina horren guztiaren erruduna hilik zagok. Ez genion salatu zer **ikaragarrikeria** gertatu zitzaigun baina zerbait senditu balu bezala, solasik nahasienak erabiltzen zituen, noizbehinka Abel aipatuz... Juan Kruz Igerabide

Polizia bat pertsona bat jotzen ikusi orduko dardarka hasten zena, ez baitzen inoiz **ikaragarrikeria** hura ulertzeko gauza. Bego Montorio

Heriotzarekin aurrez aurre ipintzen ninduen giltza, misteriozko ate bat zabaltzeko erabiltzen den hitz magiko baten antzekoa, ez altxorrez beteriko leize batera sartzekoa noski, baizik eta **ikaragarrikeriaren** ilunpean barneratzekoa, babesik eta errukirik gabe. Juan Kruz Igerabide

Ea salbatzen gaituzun **ikaragarrikeria** honetatik! Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

zer ikaragarrikeria (3)

---

# ikaragarriro *adlag* ikaragarri.

Ibili ahala, harriturik begiratuko diozu zeure itzalari, itzala **ikaragarriro** luzatuko baita farola pasatzean, eta hurrengo farolera hurbiltzean urtuko baita zure atzean beste itzal bat gauzatzen den artean. Joseba Sarrionandia

---

# ikaragarritasun *iz* ikaragarria denaren nolakotasuna.

Izulaborria sortzen zuen, ez bakarrik bonbak iragartzen zituelako, baizik eta bere **ikaragarritasun** berezkoarengatik ere. Juan Garzia

Metrailaren hotsari kontrapuntua emanez haren **ikaragarritasuna** azpimarratzeko. Ramon Saizarbitoria

---

# ikaragarritu, ikaragarri(tu), ikaragarritzen **1** du *ad* ikaragarri bihurtu.

Espiritu nazionala edo klasearena sustatu, patriotismoa berotu, barruko edo kanpoko etsaia **ikaragarritu,** Ongiaren defentsan masak mobilizatu. Joxe Azurmendi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Kontu ilun **ikaragarrituen** gailurrean errukia sortzeko sastakai beltz gisan. Patziku Perurena

---

# ikaraka *adlag* dardaraka.

Antzeman diot **ikaraka** eta intzirika zegoela, bazirudien mugitu-edo nahi zuela esne beroa zeukan alderantz, handik apur bat edateko asmoz. Mirentxu Larrañaga

Eta besoak luzatzen dizkio **ikaraka,** irribarrea ezpainetan!... Karlos Zabala

---

# ikarakor *izond* ikaratzkeo joera duena, dardarakorra. ik **ikarati.**

Lurrak dar-dar egiten du **ikarakor** nire inguruan, baina lasai nago harrigarriro. Mirentxu Larrañaga

Gero, bere kandela-argi **ikarakorra** apain-mahai baten gainean utzi eta galdetu zien ea zer ordutan nahi zuten deitzea goizean. Irene Aldasoro

---

# ikaralarri *iz*

Dena den, Fernandok ongi daki herri xeheak ere ematen dituela lantzean behin bokaziozko hartzekodun **ikaralarriak,** eta hauei ere ez die barkatzen. Markos Zapiain

---

## **ikaraldi** *iz* ikara egitea.

**Ikaraldi** batek inarrosi zuen Teresa. Migel Angel Mintegi

**Ikaraldi** batek astindu zuen Raimundo Silva. Jon Alonso

**Ikaraldi** batek itzularazi zuen errealitatera. Migel Angel Mintegi

Goian, **ikaraldiak** jo zuen, logelan sartu zenean. Karlos Zabala

Gero, **ikaraldia** eragin zidan tonu abaildu bat atera zitzaion. Anjel Lertxundi

Hasierako **ikaraldia** gainditurik, [...]. Jose Morales

---

## **ikaralditxo** *iz* ikaraldi arina.

Haren begietan ikusiriko distirak eta eskuan nabaritutako **ikaralditxoak,** erne jarri zuten. Migel Angel Mintegi

**Ikaralditxo** batek astindu zuen idazkaria. Migel Angel Mintegi

---

## **ikarante** *izond* ikara eragiten duena.

Hipernormaltasuna paranoiaren era bat dela: beldur **ikarante** batek harrapatutakoaren izaera normal-normal-normala. Iñaki Segurola

---

## **ikararazi** *(ETCn **45** agerraldi)*, ikararaz, ikararazten du *ad* ikaratzera behartu.

Hobengabeak gartzelaratzen dituzu eta hainbat inozente halaber **ikara** arazten. Itxaro Borda

Emakume guztiek duten ostrukaren lotsakortasun hori ez **ikararazteko**. Josu Zabaleta

Larriki zauritu abere desesperatu oihua bota zuen, etxeko hormak **ikararaziz**. Itxaro Borda

Urduritasun arraro batek **ikararazten** dizkit begiak eta gorritzen dizkit ezpainak. Joseba Sarrionandia

–Ni ez naiz inoren gaizkidea, Gabriellerena ezbehar bat izan zen, txolinduta zegoen eta erori egin zen yatetik –oihuka esan zuen, salaketak **ikararazia**. Migel Angel Mintegi

---

## **ikararazle** *izond* ikararazten duena.

Horren lehen gauzatze artistikoa da, era **ikararazlean** iraizekoa eta galkorra den mundu honetako guztiaz ohartarazten duena. Joan Mari Lekuona

---

## **ikarati** **1** *izond* dardaratia.

Irribarre sotilak egiten zituen eta musuak botatzen antzezlarien gisa, bere esku **ikaratiaz,** zuhaitz inausizko bi ilaretarantz. Josu Zabaleta

Baina abereek, haizea kontra zutenean ere oso urrutitik abioiak atzematen ikasi baitzuten, garaiz iragartzen zituzten, urruma luze eta **ikaratien** bidez, aireko erasoak. Ramon Saizarbitoria

Ardien eta bildotsen marraka **ikaratiak** hautematen. Itxaro Borda

Atean zutik, Lupinen eskuko sugar **ikaratiek** argituta, sabairaino iristen zen norbait zegoen kapa batez estalita. Iñaki Mendiguren

Musu bat pausatu zuen haren ezpain zurietan, haizeak txepetxa adar txiki **ikaratian** pausatzen duen bezala. Felipe Juaristi

Parketaren kexu arranguratsua, apaingarrien dar-dar **ikaratia**. Mirentxu Larrañaga

· Nola eman aditzera besteei Aleph infinitua, nire oroimen **ikaratiak** ozta-ozta hartzen baitu bere baitan? Juan Garzia

**2** ikara adierazten duena.

*Egiptorako ihesa* margolanean, astoaren atzetik doazen bi pertsonaien mugimenduak ahotan darabilten elkarrizketa **ikaratia** iradoki nahi du –“Hi, entzun duk hots hori?”. Anjel Lertxundi

Beldur den neskatilaren irri **ikaratia** marraztu zitzaion. Jasone Osoro

– Ez eta ez –boz **ikaratiz** oldartzen zitzaion. Itxaro Borda

Nork ezagutzen du, nik ez bada, samurtasun horien gozotasun, eromen, estasi **ikarati,** haragizko, ideal, gizonarena baino gehiagokoa. Josu Zabaleta

Gazteena, Gerard botz apal eta **ikaratiaz** mintzo zen. Itxaro Borda

Sonjak ahalegin **ikarati** bat egin zuen bere adiskideari laguntzeko. Anton Garikano

**3** erraz ikaratzen dena, beldurtia. ik **ikarakor**.

Edgar, hamaika urterekin, haur **ikaratia,** isila, goibela zen, eta, bere heroi guztiak bezalaxe, bere baitan itxi zen. Koro Navarro

Ez ziren bihotza bakean zuten gizonak, **ikaratiak** eta galtzaileak ziren. Ibon Uribarri

Iralak, zaldiz ibiltzen **ikaratia** izaki, istripu koxkor bat izan zuen. Juan Garzia

Isekaz ibiltzen zitzaigun panparroi hura, eta katakume **ikarati** baten gisa portatzen zen itaunketetan. Joxemari Urteaga

**4** (adizlagun gisa)

Goibel eta **ikarati** dago, Lucyri batera eta bestera jarraika, haren orpoen ondoan beti. Oskar Arana

Tabako saltzaileak eskua luzatu dio leihatilatik, debekaturiko zerbait egiten ariko balitz bezala, azkar eta **ikarati**. Eider Rodriguez

Baina Nevillek, urduri eta **ikarati,** eta lurrean geratuko ote zen beldurrez, gogor jo zuen lurra txilibituak Hooch andrearen ezpainak ukitu ere egin baino lehen. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ikarati** (3)

---

## **ikaratsu** *izond* ikaraz betea.

Esku **ikaratsu** batez erakusten zion tiradera. Elena Touyarou

---

## **ikaratu,** ikara(tu), ikaratzen **1** da *ad* dardaratu, ikara egin.

**Ikaratu** zen lurra eta dardaratu, zeruaren oinarriak mugitu. Elizen arteko biblia

**Ikara** bedi haren aurrean lur osoa. Askoren artean

Gizakia osorik **ikara** bedi, mundua osorik dardara. Askoren artean

**Ikara** zaitezte, herriok, suntsitu egingo baitzaituztete! Elizen arteko biblia

Gorputz **osoa** ikaratu zitzaion, epilepsiak jota bezala, eta handik gutxira txilioka hasi zen. Berria - Kultura

Gorputza **ikaratu** zitzaidan. Daniel Landart

Apur batez, emazteak ez zuen ihardoki, baina geroxeago, beheko ezpaina **ikaratu** zitzaion. Elena Touyarou

• **2** da/du *ad* asko beldurtu, izutu.

Harry izugarri **ikaratu** zen beheko suaren apal gaineko ispiluan lehenengo aldiz begiratu zuenean. Iñaki Mendiguren

Aurrerantzean ez da **ikaratuko;** gaizkile horiek ez dute gehiago desegingo. Elizen arteko biblia

Jendea **ikaratu** egiten zen eta amore ematen zuen, baina hori ere alferrik izaten zen. Koro Navarro

Euskal artzainak ez dira euri pittin batekin **ikaratzen** –esan nion-. Bernardo Atxaga

Katu zaintzailea eta ukuiluko behietako bat zerraldo ikusi zituenean, guztiz **ikaratu** zen, odola gatzatu eta izoztu balitzaio bezala. Joan Mari Irigoien

Zahar beldurgarri horrek zu ere **ikaratu** al zaitu, Weasley? Iñaki Mendiguren

Burutazio hura ez zitzaidan batere gustatu, **ikaratu** egiten ninduen. Koro Navarro

Baina poliki noa; ez dut **ikaratu** eta uxatu nahi. Juan Kruz Igerabide

Ekintza zikin horien lekuko izan diren jipoitutakoen lagunak mehatxuka **ikaratu** dituzte. Berria - Euskal Herria

Batzuetan neure burua ere **ikaratzen** dut. Sonia Gonzalez

Txoriak **ikaratu** zituen bozina-hotsa entzun zuen kanpoaldean. Joxemari Urteaga

Guztiz txunditurik begiratu nion, baita **ikaraturik** ere. Koro Navarro

Izutu egin zen zintzoen herri osoa, zetozkion gaitzengatik **ikaraturik**. Elizen arteko biblia

Ustekabeak **ikaraturik,** magaletik behera erori zitzaion liburua. Anjel Lertxundi

Maiz esnatzen da amesgaiztoek **ikaraturik**. Patxi Zubizarreta

Suak **ikaraturik** ihes egin nahi izan dute saguzarrek batean. Xabier Montoia

Ebe egongelan sartu da, Katen irainek **ikaratuta**. Sonia Gonzalez

Izututa zegoen, **ikaratuta**. Fernando Rey

Harryk begiak itxi zituen **ikaratuta**. Iñaki Mendiguren

–Isildu! Isildu! **-ikaratu** zen koronela. Jose Morales

**Ikaratzeko** moduko eguraldia dago, ile guztia banatu dit. Bernardo Atxaga

**3** (era burutua izenondo gisa)

Lehenengo urteko ikasle **ikaratuei**. Iñaki Mendiguren

Zerbitzari **ikaratuak** orduan abiatu ziren arrapaladan Gandalfen atzetik. Agustin Otsoa

Begi **ikaratuekin** inguruari begiratzean. Agustin Otsoa

Hantxe geratu ginen, zaldi **ikaratuen** artean, eta haiek pozik ziruditen gu lagunarteko izateagatik. Mirentxu Larrañaga

Gizarte **ikaratuak** ziurtasuna bilatzen du; gizarte zeharo **ikaratuak,** zeharoko ziurtasuna. Joxe Azurmendi

Bihotza geldiarazi zien zerbait entzun zuten… garrasi zoli eta **ikaratua…** Ahots lodia zen oso: itsaso haserrearena, zeru beltzarena, lur **ikaratuarena**. Iñaki Mendiguren

**4** (erkaketetan)

Bere fortuna sakelan zeramala, erbi bat baino **ikaratuago** zihoan. Koro Navarro

**5** ***izu-ikaratu*** ik **ikara 22.**

Zuzenbidea betetzean, zintzoa poztu; gaizkilea, ordea, izu-**ikaratu**. Elizen arteko biblia

Izu-**ikaraturik** zegoen Belxatzar eta erabat zurbildurik. Elizen arteko biblia

Ametsez beldurtzen nauzu eta ikuskari gaiztoz izu-**ikaratzen**. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asko ikaratu** (3); **batere ikaratu** (4); **erabat ikaratu** (5); **ere ikaratu** (6); **eta ikaratu** (17); **eta ikaratu egin** (5); **eta ikaratu egiten** (3); **ez ikaratu** (22); **ez zen ikaratu** (4); **guztiak ikaratu** (3); **hainbeste ikaratu** (4)

**ikaratu bat** (3); **ikaratu behar** (4); **ikaratu da** (3); **ikaratu egin** (83); **ikaratu egin da** (6); **ikaratu egin nauzu** (4); **ikaratu egin ninduen** (5); **ikaratu egin nintzen** (8); **ikaratu egin zara** (4); **ikaratu egin zen** (30); **ikaratu egin ziren** (9); **ikaratu egingo** (9); **ikaratu egingo zen** (3); **ikaratu egiten** (49); **ikaratu egiten da** (3); **ikaratu egiten ninduen** (3); **ikaratu egiten zen** (5); **ikaratu egiten zuen** (4); **ikaratu ere** (10); **ikaratu ere egiten** (3); **ikaratu eta** (11); **ikaratu ez** (3); **ikaratu gabe** (7); **ikaratu nintzen** (5); **ikaratu zen** (21); **ikaratu ziren** (5); **ikaratu zituen** (3); **ikaratu zitzaion** (4); **ikaratu zuen** (3)

**apur bat ikaratuta** (3); **baino ikaratuago** (3); **bat ikaratuta** (3); **edo ikaraturik** (3); **erabat ikaratuta** (6); **eta ikaratua** (5); **eta ikaraturik** (14); **eta ikaratuta** (9); **guztiak izu ikaraturik** (3); **guztiz ikaratuta** (5); **ikaratua zegoen** (3); **ikaraturik gelditu** (3); **ikaraturik geldituko** (5); **ikaraturik geldituko dira** (4); **ikaraturik zegoen** (3); **ikaratuta al** (3); **ikaratuta begiratu** (3); **ikaratuta geratu** (5); **ikaratuta geunden** (3); **ikaratuta nago** (5); **ikaratuta nengoen** (3); **ikaratuta zegoen** (9); **izu ikaratu** (3); **izu ikaraturik** (7); **izu ikaraturik geldituko** (3); **jendea ikaratu** (3); **jendea ikaratu egiten** (3); **lurra ikaratu** (3); **ni erabat ikaratu** (3); **zeharo ikaratuta** (6); **zen ikaratu** (4); **zuen ikaratuta** (3)

**edonor ikaratzeko** (4); **edonor ikaratzeko** (4); **ez ikaratzeko** (4); **ez ikaratzeko** (4); **ikaratzeko moduan** (3); **ikaratzeko moduan** (3); **ikaratzeko moduko** (7); **ikaratzeko moduko** (7); **ikaratzeko modukoa** (3); **ikaratzeko modukoa** (3)

---

## ikaratzaile *izond* ikaratzen duena.

Antxetek habiak zeuzkaten labar **ikaratzaileetan** jaitsi behar genuela arrautza bila. Koldo Izagirre

---

## ikaratze *iz* asko bildurtzea.

Komunikabideetan **ikaratze** eta indarkeria kasu batzuen inguruko berriak ikusi ditugu. Berria - Mundua

---

## ikas (hitz elkartuen lehen osagi gisa) ik **ikasi 8.**

---

## ikasaldi ik **ikastaldi**.

---

## ikasarazi, ikasaraz, ikarazten *(orobat **ikasiarazi** g.er. **ikastarazi** g.er. eta **ikas arazi**)* du *ad* ikastera behartu.

Euskara ikasi nahi ez duenari begirune osoa zor zaio, eta horrela horrek erdara biak **ikasaraz** eta erabilaraz diezaguke gainerakooi... Euskarak aiseago **ikas** arazten ditu bertze mintzairak. Herria

Eta anaien artean, dauden tokian daudela, norbaitek giza grinen arabera jokatu nahiko balu eta ez Espirituaren arabera, berarekin bizi diren anaiek ohartaraz, **ikasaraz** eta zentza bezate apalki eta maitekiro. Askoren artean

Buruz **ikasiarazi** bere adiskide leialari bere demostrazioen testuak. Jon Muñoz

Beraz, poliziek **ikastarazitako** erantzunak eman zituen galdeketan. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**buruz ikasarazi** (5)

# ikasaulki *iz* ikasgelako aulkia.

Umeak, pixkana-pixkana, badoaz nor bere **ikasaulkira**. Joxerra Garzia

**Ikasaulkian** behera ipurdia irristatzen utzi. Joxerra Garzia

# ikasberri *izond* zerbait duela gutxi ikasi duen pertsona.

Honek **ikasberriari** izenak ezagutarazten dizkio aldez aurretik. Ibon Uribarri

# ikasbide *(orobat **ikas(-)bide** g.er.)* 1 *iz* irakaspena.

Historiaren **ikasbideak**. Elizen arteko biblia

Abrahamen **ikasbidea**. Elizen arteko biblia

Jauna errespetatzea da zuhurtziaren **ikasbidea;** apaltasuna lehenengo, ohorea gero. Elizen arteko biblia

Galbidetik **ikasbidea** ateratzeko metodoa. Berria - Kultura

Gure jakintzaren inguruko esparruetan egin ditugun saioetatik, guztiz negatiboa izanik ere interesgarria den **ikasbide** bat ateratzen da. Isabel Arrigain

Gure Jaunak **ikasbide** on bat adierazi digu jainkozko irakatsietan sendo iraun dezagun. Joan Mari Lekuona

Liburu Santuetan idatzia dagoen guztia gure **ikasbiderako** dago idatzia. Elizen arteko biblia

Hori erakutsi zidan Idoiak, eta nire bizitzako **ikasbiderik** behinenetakoa izan zen hura, nahiz eta zeharo ikasi ez dudan oraindik. Juan Kruz Igerabide

Haiei gertaturiko gauza horiek **ikasbide** dira guretzat, eta gure eskarmenturako idatzi zituzten, azkenak diren garai hauetan bizi garenok zentzarazteko. Elizen arteko biblia

Emakumeentzako **ikasbide** bihurtu zen, eman zioten zigorrarengatik. Elizen arteko biblia

Aitatxi berriz ere ikastun bilakatu zen, lehenago zapategian bezala, gerlaren **ikasbidean** oraingoan. Aingeru Epaltza

Sarak Paris maitatzen ikasi zuen, maitasuna sekula amaitzen ez den **ikasbidea** baita. Felipe Juaristi

Hasteko, kristauak Jesukristoren **ikasbideari** ere kasu egin behar dio, Testamentu Berriko "Maita ezazu hurkoa" aginduari bereziki. Askoren artean

Idatzirik den oro gure **ikasbiderako** da. Anjel Lertxundi

**2** ikasteko metodoa.

Ez zen euskaltegirik, ez zen oraingo gramatika, hiztegi eta **ikasbiderik**. *Modo breve de aprender la lengua vizcaina* izeneko **ikasbidean**. Koldo Zuazo

Bosgarren liburuki hau da *Bakarka* **ikasbidearen** azkena. Herria

Atarramentu bera izan zuen Joanes Etxeberri saratarraren latina-euskara **ikasbideak:** Lapurdiko Biltzarrak ukatu egin zion, hari ere, argitaratzeko diru laguntza. Koldo Zuazo

Euskararen ikasteko **ikas** bide bereziak eskaintzen baititu Jaurlaritzak "Internetaren" bidez. Herria

Ulertu egin dut Autodidaktaren metodoa: ordena alfabetikoaren araberako **ikasbidea** egiten du. Monika Etxebarria

Hamahiru-hamalau urteko ikasleak ziren BBBko lehen mailako horiek, eta, adin horretan gertatu ohi denez, zaila da denontzat gustagarri den **ikasbidea** asmatzen. Joxerra Garzia

**3** ikasgaia.

**Ikas**-bide guztien erregina den Teologia. Patxi Ezkiaga

Ornitologia **ikasbide** bat da, baina bizi **ikasbidea** ere bai. Berria - Kultura

Sei urte egin ditu Salamankan latina eta grekoa ikasten; eta hortik aurrerako **ikasbideetara** pasarazi nuenean, olerkiak (baldin eta olerkia **ikasbide** baderitzate) burua erabat hartua aurkitu nuen. Patxi Ezkiaga

Ikasgaien artekoa zen Irakasle Nafarraren **ikasbidea,** baina artzain teologiari emanez lehentasuna. Piarres Xarriton

**4** ***ikasbide(a) eman***

Kristok, zuengatik sufrituz, **ikasbide eman** zizuen, zuek ere haren urratsei jarraituz joka dezazuen. Elizen arteko biblia

Baina **ikasbide ematen** dizuet, zuek ere, nik zuekin bezalaxe joka dezazuen. Askoren artean

Kontzientzia arazoei irtenbidea emateko ahaleginean, pertsonaia gogoangarriak sortu zituen literaturaren historiarako, eta, batez ere, **ikasbidea** eman: galderak eta erantzunak proposatzea estiloa bera baino garrantzitsuagoa iruditu zitzaion. Berria - Kultura

Emakumeei buruzko **ikasbidea ematen** hasi ote zaio bada Lucy, bere umea? Oskar Arana

· **Ikasbide** bikaina emango diet gazteei, lege santu eta agurgarriengatik gogotsu eta kementsu hilez. Elizen arteko biblia

Oneski jokatu behar dute eta gutxi hitz egin, begira dauzkatenei **ikasbide** ona emateko. Askoren artean

Benetan **ikasbide** ona da nik emandakoa, ez baztertu nire irakaspena. Elizen arteko biblia

**5** ***ikasbide hartu***

Eta bertzenaz beha zezatela Frantziari, hango amak alargun eta hango haurrak zurtz uzten ari ziren gertakari odoltsuei, eta har zezatela haietan **ikasbide,** halako gorrotoa eta halako jazarpena gure erresumara heda ez zitezen. Aingeru Epaltza

Inozoak eta zentzugabeak dira denak: zurezko idoloetara doaz **ikasbide** hartzera! Elizen arteko biblia

· Nigandik hartu **ikasbidea,** gazte. Matías Múgica

**6** ***kristau ikasbide*** kristauak jakin behar dituen egien irakaskuntza; egia horiek ikasten diren liburutxoa. ik **dotrina**.

Herrietako hizkuntzetan egin ziren, era berean, dotrinak edo **kristau ikasbideak**. Koldo Zuazo

Bizkaiko **kristau ikasbide** batetik hartutako pasartea. Koldo Zuazo

Hitz bitxia iruditu izan zitzaidan beti, Geometriako *gnomon* hitza eta **Kristau Ikasbideko** *simonia* hitza bezala. Irene Aldasoro

North Richmond Street, itsua izaki, oso kale lasaia zen, **Kristau-ikasbideko** Anaien Eskolak mutikoei jaregiten zien orduetatik kanpo. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**haren ikasbide** (3); **ikasbide bat** (3); **ikasbidea ateratzeko** (3); **kristau ikasbide** (3); **kristau ikasbideak** (3)kristau ikasbideak (3); **nire ikasbidea** (3)

# ikasbidetsu *izond* ikasbide ematen duena.

Korritu ditut, halaber, entremesak, komediak, *Galatea, Nobela* ***ikasbidetsuak,*** Persiles eta Segismundaren lan dudarik gabe nekosoak eta *Parnasoko bidaia*... Juan Garzia

ikasetxe ik **ikastetxe**.

---

ikasgabe ik **ikasigabe**

---

## **ikasgai** 1 *iz* ikasteko gaia.

Badira liburuetan ikas ez daitezkeen **ikasgaiak**. Joxerra Garzia

Irakurtzea baita idazle bihurtu nahi duenaren lehenengo **ikasgaia**. Xabier Mendiguren Elizegi

Trekeko bertze **ikasgai** bat: "inork ez dezala igar inondik pasatu garenik". Aingeru Epaltza

Uste hori zuzena izatera, bada geure egunotarako balioko lukeen bigarren **ikasgaia:** edozein hizkuntza eredu arrakastatsua izango bada, eguneroko jardunetik gertukoa izan behar duela. Koldo Zuazo

Hauxe da gure egunotarako balio duen **ikasgaia:** euskalkien etorkizunaz jarduteko, euskalkien iragana ezagutzea dugula ezinbesteko. Koldo Zuazo

Ume eder honi lizunkeriaren lehen **ikasgaiak** erakutsi ahal izateko, beharrezkoa da zu, andere, komeni den guztirako prest egotea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hizkuntza eta politikaren arteko lotura ezinbesteko **ikasgaia** da mundu horretan aritu nahi duenarentzat. Iñigo Aranbarri

Biblia beti izan zen Agustin deunarentzat **ikasgai** eta inspirazio iturri. Imanol Unzurrunzaga

«Israelek inoiz ahaztuko ez duen **ikasgaia»** agindu du Hamasek. Berria - Mundua

· Irailaz geroz hiru kantu dira **ikasgai**. Herria

**2** ikasturte edo ikastaro bat banatzen den gaietako bakoitza. ik**irakasgai**.

Matematika **ikasgai** eternala zen, urterokoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrexegatik aukeratuko nuen natur zientzien **ikasgaia**. Xabier Mendiguren Elizegi

Institutuan, urte hartan, 1980-1981 ikasturtean, aukerazko **ikasgaia** zen euskara. *ik beherago* 4 D ereduan **ikasgai** bat erdaraz ematea eskandalua litzateke. Joxerra Garzia

Ikasturte bakoitzeko 7-8 **ikasgai** eta 5 ebaluazio kalkulatuta, ehundaka azterketa eginak izango nituen ordurako. Xabier Mendiguren Elizegi

2003-04 ikastaroan bi **ikasgaitan** ikasle izan nuen Ainhoa. Joxerra Garzia

Programako **ikasgaietan**. Karlos Zabala

**Ikasgai** teorikoak ere izango dira, betiere euskaraz. Berria - Kultura

Doktoregorako **ikasgaiak** ikastea erabaki zuen. Josu Zabaleta

**Ikasgai** horretan matrikulatuta zeudenei galdetu nien ea zer egin behar zen hura gainditzeko. Joxerra Garzia

Melanie Isaacs ikasleak ezeztatu egin du COM 312 **ikasgaiaren** matrikula. Oskar Arana

Emaitza bikainak **ikasgai** guztietan. Jokin Muñoz

Haurren **ikasgai** programetan. Herria

**3** irakasgai bat banatzen den zatietako bakoitza.

Kimikako lehenengo **ikasgaiak** kenduta, gainerako guztiaz zer erantzunik ia ez zuela. Josu Zabaleta

Etengabe egiten zien agiraka umeei, eta jo ere egiten zituen **ikasgaia** ikasten ez zutenean. Oskar Arana

-Australia, hamaseigarren **ikasgaian** dago. Joxerra Garzia

Unibertsitateko bulegoan nengoelarik, baleen eta kurriloen ohiturari buruzko **ikasgaia** prestatzen. Atzoko **ikasgaia** errepikatuko dugu. Felipe Juaristi

Idazmahaian ezarri zituen ukondoak, pentsati, **ikasgaia** errepasatzen ari den eskola-ume zintzo bat irudi. Xabier Olarra

**Ikasgaia** errezitatuko zukeen ume batek bezala esan zuen. Ramon Saizarbitoria

Eta orain, haur maiteok, gaurko literatur **ikasgaia** azalduko dizuet.. Javi Cillero

Gaur gauean, adibidez, gizon dotorea izateko lehenbiziko **ikasgaia** eman zidak. Fernando Rey

· Politika **ikasgai** bat nahi duzu? -esan zidan nekatuta-. Jon Muñoz

**4** ***enborreko ikasgai***

Garrantzitsua izango litzatekeela hezkidetza **enborreko ikasgaia** izatea Irakasle Eskolan. Berria - Euskal Herria

Enborreko **ikasgaiak** euskaraz emango dituzte datozen lau urteetan. Berria - Euskal Herria

Enborreko eta hautazko **ikasgaiek** lau ordu izatea. Berria - Euskal Herria

**5** ***hautazko ikasgai***

Hautazko **ikasgaiak** emateko modua bideratu. Xabier Mendiguren Elizegi

Hain zuzen, hautazko **ikasgaietan** badaude hutsune batzuk, eta horiek betetzen joateko. Berria - Euskal Herria

Enborreko eta hautazko **ikasgaiek** lau ordu izatea. Berria - Euskal Herria

Karrera urteetatik gehien oroitzen duena **hautazko ikasgai** baterako egin zuen hirurogeita lau folioko lana da. Iban Zaldua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**a ereduan ikasgai** (3); **balio duen ikasgaia** (3); **beharreko ikasgaia** (5); **bere ikasgaietan** (3); **beste ikasgai** (7); **beste ikasgai bat** (5); **bi ikasgai** (4); **da derrigorrezko ikasgaia** (4); **derrigorrezko ikasgaia** (5); **derrigorrezko ikasgaia izango** (3); **duen ikasgaia** (10); **duten ikasgaiak** (3); **ereduan ikasgai** (5); **ereduan ikasgai bat** (4); **erlijioa ikasgaia** (7); **eta ikasgai** (5); **eta ikasgaiak** (7); **euskara ikasgai** (4); **euskarazko ikasgai** (3); **ez duen ikasgaia** (4); **hainbat ikasgai** (6); **hiru ikasgai** (4); **ikasgai bat** (34); **ikasgai bat erdaraz** (3); **ikasgai bat euskaraz** (4); **ikasgai batzuk** (8); **ikasgai batzuk euskaraz** (3); **ikasgai berri** (5); **ikasgai berriak** (4); **ikasgai eta** (5); **ikasgai gehiago** (4); **ikasgai gisa** (7); **ikasgai guztiak** (3); **ikasgai guztietan** (4); **ikasgai hori** (3); **ikasgai horiek** (3); **ikasgai ona** (3); **ikasgaia da** (4); **ikasgaia eman** (5); **ikasgaia ematen** (3); **ikasgaia ere** (3); **ikasgaia ez** (4); **ikasgaia ez da** (3); **ikasgaia izango** (5); **ikasgaiak dira** (7); **ikasgaiak eman** (3); **ikasgaiak emateko** (4); **ikasgaiaren ondorioak** (3); **ikasgairen bat** (5); **iraganeko ikasgaiak** (3); **lehen ikasgaia** (10); **lehen ikasgaiak** (3); **zenbait ikasgai** (3)

---

## **ikasgaika** *adlag* ikasgaien arabera.

Unibertsitateko ikasketak, titulazio bakoitzari dagozkion ikasketak, **ikasgaika** antolatuak daude. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

## **ikasgaitxo** *iz* ikasgai txikia edo laburra.

Ematera nioazkizuen **ikasgaitxoak,** gure aurrentzako, len-ikastola-mailako nexka-mutikoentzako ondu nitun. Berria - Harian

---

## **ikasgarri** 1 *izond* ikastea merezi duena; ikasteko modukoa.

Edadetzea da bereizkuntza horren **ikasgarri** bakarra, baina behar den edadea etortzen denean, ahulegi gaude oinazeari muzin egin eta poza hartu eta gozatzeko. Matías Múgica

Hnuen nik saria irabazi, lehen saria hain zuzen, enetzat ohore bezenbat **ikasgarri** izan zena. Herria

Horrela, jardunbide eszeptikoa ez da gogobetegarria bere baitan arrazoimenaren galdekizunari dagokionez, baina bai **ikasgarria,** bere zuhurtasuna iratzartzeko eta bere legezko jabegoa segurtatuko lioketen baliabide sendoak erakusteko. Ibon Uribarri

**2** (adizlagun gisa)

Jadanik seinale horietarik zenbait asmatuak ziren baina, orain, ikergailuak igorriago eta gehiago, ari gara argitzen eta beti gehiago segurtasun biltzen, **ikasgarri** . Herria

---

# **ikasgela** 1 *iz* ikastetxe batean eskolak ematen diren gela bakoitza.

Arkitektura Eskolako patioan, ikasle taldeak **ikasgela** noiz zabalduko zain. Josu Zabaleta

Pasabide zuri eta gangadunetan, **ikasgeletan,** jantokian, lotokietan, alde guztietan. Xabier Olarra

Kimika orokorreko eskola, behinola San Isidro Institutuko kapera izan eta orain **ikasgela** bihurtua zegoen areto batean ematen zen. Josu Zabaleta

Guk 25 haurretako 18 ikastalde ditugu eta Hezkuntza Departamentuak 19 **ikasgela** eman dizkigu bakarrik. Berria - Euskal Herria

Hurrengo egunean neska ez da **ikasgelan** ageri. Oskar Arana

Berrogeita bost ginen **ikasgelan** . Juan Kruz Igerabide

Paseatzen jarraitu zuen **ikasgelako** mahaien artean. Anjel Lertxundi

**Ikasgeletako** eraikinetik irten eta liburutegirako bidea hartu zuen. Anjel Lertxundi

Trelawney andereñoaren **ikasgelara** zihoan eskailera kiribilean. Iñaki Mendiguren

**Ikasgelara** iritsi zirenean, Lockhartek joaten utzi zion. Iñaki Mendiguren

Barquinen esanetan, kulturen harreman hutsak **ikasgela** partekatzeak, esaterako ez du bizikidetza bermatzen. Berria - Euskal Herria

Erabiltzen ez zen **ikasgela** bat ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Hari begira egoten nintzen, ezinbestean, elkarrekin **ikasgela** berean genbiltzan garaian. Mirentxu Larrañaga

Ohitura bihurtu zen eskolen ondotik **ikasgelan** gelditzea. Karlos Zabala

Ez da berria **ikasgeletan** bertsolaritza lantzea. Berria - Kultura

**Ikasgelan** onena baldin bahintz ere. Jesus Mari Mendizabal

Kolegioan geundenean **ikasgelako** putakumeena zen. Mikel Hernandez Abaitua

189 nazionalitatetako ikasleak esertzen dira Italiako **ikasgeletako** bankuetan. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo edo izenlagunekin)

Herriz herri ibiliko den **ikasgela** mugikor batean, larrialdi kimiko baten aurrean zer egin azaltzeko hitzaldiak emango dituzte. Berria - Euskal Herria

Eraikuntzako istripuak gutxitzeko, **ikasgela** iraunkorra sortuko dute. Berria - Ekonomia

Nesken **ikasgelako** txokoan zegoela. Jon Arretxe

"Esperientziaren **ikasgelak**" izeneko ikasketen programak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

D ereduko **ikasgelak** jartzeko ikasleen ratioak berrikustea. Berria - Harian

Mondragon Unibertsitateko **ikasgelak** inauguratzean. Berria - Euskal Herria

**3** ikasten den gela.

Hauxe da nire **ikasgela** -erran zuen aitak. Alberto Ladron Arana

**Ikasgelan** lanean nintzela, atean agertu zen buruzagia, behar ninduela ikusi. Piarres Aintziart

**Ikasgelaren** ondoko pasabideetarik batean itzarri nintzen, bi ikaskidek zaintzen eta begiratzen nindutela. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **athereñ d ereduko ikasgelak** (4); **ereduko ikasgelak** (5); **ereduko ikasgelak jartzeko** (4); **eta ikasgela** (3); **eta ikasgelara** (3); **eta ikasgeletan** (3); **ikasgela bat** (4); **ikasgela batean** (3); **ikasgela batera** (3); **ikasgela berean** (3); **ikasgela iraunkor** (3); **ikasgela iraunkor bat** (3); **ikasgelako atea** (4); **ikasgelan bertan** (3); **ikasgelan sartu** (4); **ikasgelara itzuli** (3); **ikasgelara sartu** (4); **ikasgelara sartzeko** (3); **ikasgelatik irten** (3); **oaren ikasgelako** (3); **zegoen ikasgela** (3); **zen ikasgela** (4)

---

# **ikasgelategi** *iz* batez ere ikasgelez osaturiko eraikina.

Ignacio Maria Barriola **Ikasgelategian** . NUPeko **ikasgelategiko** pasabideetan gora eta behera. Berria - Euskal Herria

Ogitartekoa amaituta, **ikasgelategi** ondoko belardian eseri ziren bi neska gazteak, «ikasten jarraitzeko». Berria - Euskal Herria

---

ikasgia ik **ikasgu**.

---

# **ikasgu** *(orobat* ***ikasgia****)* **1** *iz* irakaskuntza.

Beltzen gorrotoa, batetik, jakina, **ikasgu** "sektarioa" omen zelako. Txillardegi

**2** ikastetxea.

Ohore ere zuri, ama, haurtasunean erdizka bakarrik goxatu zinuena, haunditu-eta ere beste urruneko **ikasgia** edo karriketan barna, hango kulturen landare arrotz bilakatzea onartu beharko duzunean zureño hura. Herria

Mauleko San Frantzes **ikasgiako** bürüzagia. Herria

---

# **ikasgune** *iz* ikasteko gunea.

Bizpahiru **ikasgune** zituen orduan ikastolak. Joxerra Garzia

Zer eraikuntza ederra! zer **ikasgune** pollita! ez zen bertze hitzik guzien ahotan. Herria

Gazte astekaria banatzeko ardura zutenak goizean goizetik **ikasgune** nagusietako atarietan eta leku estrategikoetan jarri ziren. Berria - Euskal Herria

Oiartzungo Udalarekin lankidetzan abian jarritako Luberri **Ikasgune** Geologikoa da sail honen ardatz nagusietako bat. Berria - Kultura

HEIS Elkarteak (Herri Eskubideen **Ikasgunea** Sortzen) antolatutako jardunaldietan. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eskubideen ikasgunea** (3); **eskubideen ikasgunea sortzen** (3); **ikasgunea sortzen** (3)

---

# **ikasgura** *iz* ikasteko gogoa. ik **ikasinahi.**

Jende asko hasi zen, hasi ginen, **ikasguran** UEUra joaten: bai irakastera, bai ikastera. Pello Salaburu

**ikasi**, ikas, ikasten **1** du *ad* ezaguera multzo bat iritsi, zerbait egiteko edo erabiltzeko gaitasuna edo trebetasuna bereganatu, adimen lanaz nahiz esperientziaz.

Haurrak **ikasi** egiten du, eta kito. Xabier Olarra
**Ikasi** egin beharko nuke, ordea... Oskar Arana
"Davidek Avarekin **ikasi** beharko luke", esan zuen osabak. Bernardo Atxaga
**Ikasi** nahi nuen, ondo pasatzen nuen eskolan. Anjel Lertxundi
Hurka da zaharrena, Saskatchewango Unibertsitateko industria-harremanen irakasle baten izena; han **ikasi** baitzuen Helenek, hain zuzen ere. Xabier Olarra
Horrenbestez, ezin dugu ez ikusi, ez imitatu, ez **ikasi**. Luis Elberdin
Ezin dut hemen **ikasi,** jangelan; idazgelara joan beharra daukat, lanpara irismenetik kanpo dudan leku batera. Xabier Olarra
Haurrean supazterrean **ikasi** genituen kantu horien ondotik, mende osoa iragan zaigu. Piarres Xarriton
Sanson Carrasco bezala, ni ere Salamankan **ikasia** naiz. Patxi Ezkiaga
Hori, geroago **ikasi** nuen, beren arteko txantxa bat zen. Xabier Olarra
Asko **ikasi** dut elkar ikusi genuen azken aldiaz geroztik. Fernando Rey
Belaunaldiz belaunaldi **ikasi,** hartu, transmititu eta birsortzen da kultura. Askoren artean
Hasiberri baten betekizunak dira hauek; asko **ikas** dezakezu horrela, eta horregatik eginarazten dizut hau guztia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Joanden astean beraz, arizan dira **ikas** eta **ikas,** berek hautatu antzerkia ahal bezen ederki emaitea gogoan. Herria
Agerre, deabruaren eskolan **ikasia**. Aingeru Epaltza
Neska bizia naizela esan diote, balio dudala **ikasteko**. Arantxa Iturbe
**Ikasteko** aukera izatea ez da aukera txarra. Arantxa Iturbe
Haur gutxi zegoelako kendu ziguten andereñoa, eta Atarrabiara bidali behar izan genituen alabak **ikastera**. Edurne Elizondo

**2** (zer osagaiaz)

Alemana **ikasi** gabe ez nuela etsiko. Joxerra Garzia
Paristik bueltatu eta euskara **ikasteari** ekin zenion. Ana Urkiza
Bejaiako dendari baten dendan **ikasi** zuen Leonardok arabiera. Jon Muñoz
*ik beherago* 7. Askoren artean
Ordu arte latin askorik **ikasi** ez nuelako seguru asko. Anjel Lertxundi
Alcalatik iragan zen zuzenbide zibila eta kanonikoa **ikastera,** Tolosako Unibertsitatera. Piarres Xarriton
Musika **ikasi** zuen, haatik, eta musikari bikaina izan zen. Jon Muñoz
Apaiz egin aurretik, erizaintza **ikasi** nuen. Juan Kruz Igerabide
Landare, lore eta hegaztien izenak **ikasi** nahian. Pako Aristi
Arratsero, Uil behartu egiten nuen biderketa-taulak **ikastera,** eta diktaketak eginarazten nizkion. Juan Kruz Igerabide
Badirudi teologo batzuek ez dutela behin ere funtsezko teologiarik **ikasi,** edo **ikasi** hura ahantzi dutela. Piarres Xarriton
Mustafa zenak zazpi ahaleginak egin zituen bere lanbidea **ikas** zezan, baina dena alferrik izan zen. Patxi Zubizarreta
Herritar gazteak hango **dantzak** ikas zitzaten. Herria
**Ikas** hau ere: [...]. Joan Mari Lekuona
Oraindik ez duk hire lana **ikasi,** alemaniar alfer horrek? Jose Morales
Bidean, denok **ikasi** dugu zerbait. Iñigo Aranbarri
Zer esan dezake filosofia **ikasi** duenak galdera eta jarrera horien aurrean? Askoren artean
Aspaldi **ikasia** daukat lezioa. gaur egungo aingeruek masturbazioa, sarketa, kitzikatzea eta abar garbi horiek oro txit ongi **ikasiak** dauzkate. Iñaki Segurola
· Gandiagari **ikasi** nion zuhaitz-kontu ugari. Pello Zabala
Hamaika ikusteko jaioak, harginari ikasi **dion** legez. Urtzi Urrutikoetxea
Eibarko itsuarekin ere ihardun zuen, hari **ikasi** zizkion beste pieza batzuek. Pako Aristi
Patxi Salaberri filologoari **ikasia**. Patziku Perurena
· Zer ikusi, hura **ikasi**. Gotzon Garate
Izanen duzuela zer ikus eta zer **ikas,** idazlarien ikus moldea baita beti atsegingarri. Herria
Gaualdi goxo baten mentura dugu heldu den ostiral aratsean, izanen baitugu zer ikus eta zer **ikas**. Herria
*ik beherago* 19. Askoren artean
Egongo da han zer **ikasi**. Oskar Arana

**3** (nola adizlagun osagaiaz)

Sarri gertatu ohi da inorengandik hartutakoa gaizki **ikastea** eta, gaizki **ikasitakoa**, gaizki erabiltzea. Koldo Zuazo
Zeren hiru lagun sartu ginen elkarrekin latin ikastera, eta batak hura txit errazki **ikasi** zuen. Askoren artean
Ederki **ikasi** zuen, 1525eko otsailean. Aingeru Epaltza
Juliok oso erraz eta bizkor **ikasten** zituen joko guztiak. Josu Zabaleta
Idazten, aldiz, irakurriz eta idatziz **ikasten** dela. Ana Urkiza
Erakutsi ziguten, saiatu ziren eginahalean, baina [...] ez genuen gogo onez **ikasi,** entzungor egin genion. Iñaki Segurola
Bere kabuz **ikasi** zuen, herriaren beharrei begira. Pello Zabala
Bide horrek, hala ere, interpretazio- edo ondorioztatze-lan gogorra ezarri zion; hala **ikasi** zuen, esate baterako, "eskuinaldeko zuritasun" bat [...] hurrengo gelako otordu-mahaia zela. Xabier Olarra
Irailaren lehenetik hasi nintzen jo eta su **ikasten,** eromenak hartua bezala. Juan Kruz Igerabide
Buru-belarri **ikasi** zituen Ruche jaunak Grosrouvreren hurrengo fitxak. Jon Muñoz
Jaunaren errebelazioz **ikasi** zuen agur hori, berberak geroago aitortu zuenez. Askoren artean
Bere kasa **ikasi** izango zuen Gelatxo zaharrak soinua jotzen. Pako Aristi
Errebelazioz **ikasia** irakasten zuen Frantziskok. Askoren artean
Esperientziaz ongi **ikasia** zuen, deabruek laztasunari ikara diotela. Askoren artean

**4** (perpaus galdekatzaile eta konpletiboekin)

Adi orain eta **ikas** lurrikarak zerk eragiten dituen. Xabier Amuriza
Uste dut **ikasi** dugula elkarrekin nola egin. Luis Elberdin
Mirenek ezin izan du mina zer den erabat **ikasi**. Askoren artean
**Ikasi** non dagoen zuhurtasuna, non indarra eta zentzu ona, eta jakingo duzu non dauden bizitza luzea eta benetako bizia. Elizen arteko biblia
Iruditzen zait gazte askok ez duela hori onartzen, agian ez dutelako **ikasi** emakume izateko modu asko dagoela. Ana Urkiza
Horiengandik **ikasi** nuen norbera dela norbere buruaren arduradun. Ana Urkiza
**Ikasi** berria zuen Maxek espezie batzuk aise iristen zirela mende beteko adinera. Jon Muñoz
Noiz **ikasi** behar duk gure akatsak direla bizirik irauteak ordainarazten digun prezioa? Pako Aristi

Gutarik zenbaitek **ikasi** genuen bizkitartean eta sinetsi, Euskal Herria ez zela mugatzen Bidasoaz honaindiko hiru hegal xuhurretara. Piarres Xarriton

**Ikasi** dugu nola genozidioa, nazismoaren gainbeheraren ondoren ezin gertatuzko gauza zirudiena, aise ager zekigukeen berriro plazara edozein unetan. Juan Garzia

## 5 (objektua -n edo -tzen atzizkiarekin edo kidekoekin)

Hizketan **ikasi** baino lehen. Patziku Perurena

Ez dut **ikasi** dantzan... Menane Oxandabaratz

Hegelek egotziko dio Kanti Kritikarekin alferrik nahi duela, uretan sartu baino lehen, igerian **ikasi**. Askoren artean

Ohoinkerian baizik ez dute **ikasi**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Eta larrutan **ikasi** genuen, den-denetik egiten **ikasi** genuen. Karlos Zabala

Merezi duenaren gainean oinarritzen **ikasi** behar duzu, eta gainerakoa alde batera uzten, gaitzetsi gabe gainera. Juan Kruz Igerabide

Begiradak irakurtzen **ikasi** ezean, ezinezkoa da ia esaten den hura ulertzea. Arantxa Iturbe

Katiximan, berriz, Baigorriko erretorearekin, euskaraz irakurtzen **ikasi** nuen. Ana Urkiza

Har ezak paketea eta **ikas** ezak behingoan erretzen. Urtzi Urrutikoetxea

Baina udako egunetan errekara eramaten gintuen, ur gainean geure burua hondoratu gabe atxikitzen **ikas** genezan. Aingeru Epaltza

Elkar errespetatzen **ikasi** behar dute... Ana Urkiza

Ni, berriz, mutil gaztea nauzu eta gobernatzen **ikasi** gabea. Elizen arteko biblia

*ik* ikasigabe.

Heldugabeok, **ikasi** zuhurrak izaten; zentzubakook, **ikasi** burutsuak izaten. Elizen arteko biblia

Gizarteak **ikasi** egin behar du desberdintasuna eta aniztasuna errespetatzen. Luis Elberdin

Berrogeita lau mila zazpiehun eta hirurogei gudari bizkor zituzten, babeskia, ezpata eta uztaia erabiltzen **ikasiak**. Elizen arteko biblia

## 6 (-tik atzizkiko osagaiaz)

Komeni da eskarmentutik **ikastea**. Luis Elberdin

Ea nondik **ikasiak** zituen bere hitz ezin-taxuzkoago haiek guztiak. Joxe Austin Arrieta

Besteen esperientziatik **ikas** genezake. Joxe Azurmendi

Hutsegiteetatik **ikasi**. Luis Elberdin

**Ikasi** pikuondoaren irudi honetatik: [...]. Elizen arteko biblia

Urteetako esperientziarekin, bere baitarik **ikasia** zuen zeinek nahiago zuen goizetako eguzkia eta zeinek arratsaldekoa. Daniel Landart

Holako jende gutxi ikusiko duzu, lurra beste libururik izan ez duen jakintsu xahar horiei gogobihotzak erne paratzen; gustoz eta plazerrez haien senetik **ikasten**. Patziku Perurena

Horiengandik **ikasi** nuen norbera dela norbere buruaren arduradun. Ana Urkiza

Atsegin emateko nola bizi guregandik **ikasi** zenutenez gero. Elizen arteko biblia

Nigandik **ikasia** zuen Gilenek, bertzeen hista egiten. Aingeru Epaltza

Elkarrengandik **ikasi** behar dugu, toki batean egiten den lana beste batean baliatu ahal izateko. Edurne Elizondo

## 7 (objektua -z atzizkiarekin)

Frantziatik etorriak ziren Sylvain Pouvreau eta Esteve Materre, eta euskaraz **ikasi** ondoren, euskal idazle bilakatu ziren. Koldo Zuazo

*ik gorago* 2.

Patxi Zabaltza […] hau ere nafar erdalduna baina estiloz euskalduna bezainbat pentsaeraz euskaltzalea, geroxeago euskaraz primeran **ikasi** zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Dagoeneko esana dut erdara hutsez **ikasi** genuela guk. Xabier Mendiguren Elizegi

Oinez **ikasi,** gero korrika egiteko. Luis Elberdin

Hori dela eta, gazteleraz baino ez nuen **ikasi**. Ana Urkiza

Denok dakigu zertaz ari garen, eta termodinamikaz eta entropiaz zerbait **ikasi** badugu, gehiago. Iñaki Segurola

Egia esatera, bere buruaz egun bakar batean gehiago **ikasi** zuen ordu arteko bere bizitza osoan baino. Patxi Zubizarreta

· Helburua da EHUko titulazio guztiak **euskaraz** zein gaztelaniaz **ikasi** ahal izatea. Berria - Euskal Herria

## 8 (**ikas** hitz elkartuen lehen osagai gisa)

**Ikas** baldintza duinetan ikasteko eskubidea. Berria - Euskal Herria

Ertzetan lotuta ontzi turistikoak, **ikas** bidaietako taldeen aiduru, Nikkon eta Yashicaz hornituriko turista japoniarren aiduru... Unai Iturriaga

Zein denboratan eta zer-nolako ahaleginarekin lortuko duen hitzartutako **ikas**-helburua. Berria - Euskal Herria

Gainera, **ikas**-kontratoen bidez, zazpi urtez gutxienez egonarazten zituzten fabriketan. Iñaki Heras

KGBren **ikas**-lerro nagusiak baliatuz. Itxaro Borda

**Ikas**-prozesua bertan behera uzteko arriskua. Berria - Euskal Herria

Umoreak dezente laguntzen duela **ikas** prozesuan. Joxerra Garzia

Komertzial **ikas saila** jarraitzen duten lau gazte. Herria

**Ikas** sail horietaz bertzalde, ikuskizun batzu ere antolatuko ditu. Herria

**Ikas** saioa bukatutzat eman zuen, ustez, eta beraz neuk egin nion oraingoan galdera. Jon Muñoz

"Kirolari-ikasle" talde bat zen, beren matematika-irakaslearekin **ikas**-txangoan irtena. Jon Muñoz

Haur baten lehen **ikas**-urratsen antzekoa. Xabier Olarra

Aldaketa hartatik aurrera, asko ahalegindu nintzen txintxoa izaten eta izugarrizko **ikas** zakua egin nintzen. Ana Urkiza

Uztaritzen den **Ikas** zentroak. Herria

## 9 erakutsi.

Haurrer **ikas** eüskara. Herria

## 10 jakin, jabetu.

Elkarrizketei adi, Garazi zeritzola **ikasi** nuen. Txillardegi

Lehenago ohartu ez banintzen, orduan **ikasi** nuen ez nintzela Vladimir Ilitx izateko sortu. Aingeru Epaltza

Patty, geroago **ikasi** nuenez, aspaldiko neska-laguna zen. Xabier Olarra

Baionako bulegoaren eginkizun nagusia, oro har, espioitza-lana zela **ikasi** nuen. Txillardegi

Plajioa latinezko *plagiare*-tik datorrela **ikasi** nuen. Bernardo Atxaga

Hantxe **ikasi** nuen, adibidez, Gobernu Liberalak Oñatiko Unibertsitatea hestea erabaki zuela. Txillardegi

Han **ikasi** nuen lehenik, gure Herriak izan duen teologo handienak, Frantzisko Vitoriakoak, idatzi zuela: [...]. Piarres Xarriton

Ez naiz, bada, larunbat batean, gaueko trena hartu eta Valladolid aldera abiatu, Marisa non bizi zen ere **ikasi** gabe! Juan Kruz Igerabide

Jatetxeko etxekanderearenganik **ikasi** nuen zer zen gertatua. Janbattitt Dirassar

Garagardo hurrupatzen ari ginela, izendatzen ez zuen metropolis batean emazte batez amoros egon zela **ikasi** nuen agudo, amodio haren bulta ahitu zitzaienean herrira itzuli zela. Itxaro Borda

## 11 (era burutua izenondo gisa) eskola duena, kultura duena.

Baita jende **ikasiaren** artean ere. Askoren artean

Ustez behintzat, jende **ikasia** zen. Patxi Ezkiaga

Hobe gizon zuhurra indartsua baino, eta gizon **ikasia** ahaltsua baino. Elizen arteko biblia

Ezen entzuten zeuden pertsona **ikasi** asko erabat harriturik geratu baitziren gizon eskolagabe haren sermoiarekin. Askoren artean

**Ikasiak** eta jakintsuak ere txundituta zeuden haren hitzen indarraz eta egiaz. Askoren artean

Zerbitzua nork egin erabakitzeko zotz egin zuten, zozketan denak sartuz: gazte eta zahar, **ikasi** eta ikasle. Elizen arteko biblia

· Orobat, *in-* aurrizkia, oso emankorra -eta **ikasia** jatorrian-, bi forma desberdinez agertu ohi da egoera berdinetan. Isabel Arrigain

Konturatu gabe pasatuko baitira gurpiletik tortura geldi eta **ikasiagoetara**. Juan Martin Elexpuru

## 12 *–en* ***berri ikasi***

Hori ez zegoen ulertzerik, ez zegoen jaterik inolako moduz, beren kongregazioko idiolektoaren berri **ikasi** gabeko batentzat bederen. Iñaki Segurola

Mutikoak **ikasi** behar baitu aitzinekoen berri. Michel Oronoz

Jonasek Jaunaren errukiaren berri **ikasi**. Elizen arteko biblia

## 13 ***buruz ikasi*** *(171 agerraldi, 77 liburu eta 19 artikulutan)*

Buruz **ikasi** dudan epigrama bakarra. Patziku Perurena

Buruz **ikasi** duena errepikatu besterik ez du egingo, loroek bezala. Koldo Zuazo

Gaixoak, liburu osoa irakurri, eta irakurraldi bakarrean **ikasi** omen zuen buruz. Xabier Olarra

Irudi bat buruz **ikasi** edo berriro kopiatzeko eskatzen bazaio. Josu Zabaleta

Testu osoa **buruz ikasten** ari banintz bezala. Anjel Lertxundi

Entzutearen poderioz, **buruz ikasi** zituzten, azkenean, karabanako kideek zifrak. Jon Muñoz

Holaxe, Genet-en aipua, buruz **ikasia,** etorri zitzaidan eta idatzi egin nuen. Iñaki Zabaleta

Pasarteak buruz ikasarazten zizkiguten eta niri poemak buruz **ikastea** asko gustatzen zitzaidan. Ana Urkiza

## 14 ***gogoz ikasi*** *(13 agerraldi, 7 liburu eta 4 artikulutan)* buruz ikasi.

Gogoz **ikasi** behar genituen zati osoak eta gero gogoz errezitatu erretorearen aurrean, Baigorriko elizan. Ana Urkiza

Gogoz **ikasten** zituen Talmuda eta Thora, juduek ohitura duten bezala. Matías Múgica

Eusebiok, gainera, alemanen mugimendu guziak **gogoz ikasiak** zituen. Eneko Bidegain

Iraultzako kantuak gogoz **ikastera** bortxatuko ote zituzten. Elena Touyarou

## 15 *ikas erraz* ik **ikasterraz**.

## 16 *ikas(-)mahai* ik **ikasmahai.**

## 17 *ikas(-)maila* ik **ikasmaila.**

## 18 *ikas(-)material* ik **ikasmaterial.**

## 19 ***ikus eta ikas***

Ikus **eta** ikas ibili dira abendoan. Herria

Izanen duk han ere zer **ikus eta ikas**. Michel Oronoz

· Eskarmentu bat emango da, gainera, jendeak **ikus eta ikas** dezan. Joxe Azurmendi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**ahotik ikasi** (7); **ainitz ikasi** (7); **anitz ikasi** (8); **asko ikasi** (118); **asko ikasi du** (8); **asko ikasi duela** (7); **asko ikasi dut** (21); **asko ikasi nuen** (12); **asko ikasi zuen** (7); **aspaldi ikasi** (13); **aurre egiten ikasi** (7); **baina ikasi** (17); **baino gehiago ikasi** (7); **bat ikasi** (46); **batean ikasi** (23); **batean ikasi nuen** (7); **batzuk ikasi** (11); **berarekin ikasi** (6); **berehala ikasi** (9); **bereizten ikasi** (13); **berri ikasi** (9); **berriak ikasi** (7); **bertan ikasi** (8); **bizitzen ikasi** (19); **buruz ikasi** (56); **buruz ikasi zuen** (7); **da ikasi** (7); **dela ikasi** (14); **den ikasi** (16); **dena ikasi** (7); **deus ikasi** (10); **du ikasi** (8); **dut ikasi** (15); **dute ikasi** (15); **ederki ikasi** (6); **edo ikasi** (8); **egiten ikasi** (46); **egoten ikasi** (6); **erabiltzen ikasi** (11); **ere ikasi** (86); **ere ikasi behar** (11); **ere ikasi dut** (6); **ere ikasi zuen** (7); **ereduan ikasi** (6); **esaten ikasi** (9); **esker ikasi** (14)

**eskolan ikasi** (24); **eta asko ikasi** (6); **eta buruz ikasi** (6); **eta han ikasi** (7); **eta ikasi** (112); **etxean ikasi** (11); **euskara ikasi** (74); **euskara ikasi behar** (6); **euskara ikasi edo** (8); **euskara ikasi eta** (8); **euskara ikasi nahi** (12); **euskaraz ikasi** (51); **euskaraz ikasi ahal** (7); **euskaraz ikasi nahi** (21); **ez dut ikasi** (9); **ez dute ikasi** (10); **ez ikasi** (12); **ez nuen ikasi** (7); **ez zuen ikasi** (9); **ezer ikasi** (18); **filologia ikasi** (6); **filosofia ikasi** (16); **frantsesa ikasi** (8); **gabe ikasi** (6); **gauza asko ikasi** (20); **gauza ikasi** (10); **gaztelaniaz ikasi** (6); **gehiago ikasi** (27); **gehiago ikasi behar** (7); **gero ikasi** (7); **gerora ikasi** (6); **guztia ikasi** (6); **guztiak ikasi** (8); **hala ikasi** (12); **han ikasi** (28); **harekin ikasi** (7); **harengandik ikasi** (7); **hartan ikasi** (8); **hartzen ikasi** (11); **hemen ikasi** (6); **historia ikasi** (7); **hizkuntza ikasi** (14); **hor ikasi** (10); **hori ikasi** (14); **horiek ikasi** (6); **horrela ikasi** (7); **hura ikasi** (11); **ibiltzen ikasi** (20); **idazten ikasi** (9)

**ikasi ahal** (43); **ikasi ahal izan** (13); **ikasi ahal izango** (7); **ikasi ahal izateko** (16); **ikasi ahala** (7); **ikasi al** (8); **ikasi arren** (8); **ikasi arte** (14); **ikasi badu** (6); **ikasi baino** (8); **ikasi bainuen** (14); **ikasi baitut** (8); **ikasi baitzuen** (13); **ikasi behar** (312); **ikasi behar da** (12); **ikasi behar dela** (6); **ikasi behar du** (12); **ikasi behar dugu** (29); **ikasi behar dut** (16); **ikasi behar dute** (12); **ikasi behar duzu** (14); **ikasi behar eta** (6); **ikasi behar izan** (45); **ikasi behar izaten** (7); **ikasi behar nuen** (6); **ikasi beharko** (58); **ikasi beharko du** (7); **ikasi beharko dute** (10); **ikasi beharra** (48); **ikasi beharra dago** (8); **ikasi beharrean** (8); **ikasi beharreko** (15); **ikasi beharrekoak** (7); **ikasi beharrik** (9); **ikasi berri** (10); **ikasi berria** (8); **ikasi bitartean** (6); **ikasi diat** (6); **ikasi ditu** (7); **ikasi dituen** (7); **ikasi ditugu** (8); **ikasi ditut** (13); **ikasi dituzte** (10); **ikasi du** (105); **ikasi dudala** (8); **ikasi dudan** (25); **ikasi dudana** (6); **ikasi dudanez** (7); **ikasi duela** (25); **ikasi duen** (22); **ikasi duena** (7); **ikasi dugu** (83); **ikasi dugula** (8); **ikasi dugun** (14); **ikasi duk** (8); **ikasi dut** (137); **ikasi dute** (69); **ikasi dutela** (7); **ikasi duten** (10); **ikasi duzu** (25); **ikasi duzue** (8)

**ikasi edo** (18); **ikasi edo hobetu** (6); **ikasi egin** (63); **ikasi egin behar** (29); **ikasi egingo** (6); **ikasi egiten** (39); **ikasi egiten da** (12); **ikasi ere** (31); **ikasi ere bai** (7); **ikasi eta** (203); **ikasi eta gero** (15); **ikasi eta ikasi** (10); **ikasi eta lan** (6); **ikasi ez** (46); **ikasi ezin** (6); **ikasi gabe** (25); **ikasi gabea** (9); **ikasi genituen** (9); **ikasi genuela** (8); **ikasi genuen** (69); **ikasi izan** (15); **ikasi izana** (11); **ikasi nahi** (139); **ikasi nahi du** (7); **ikasi nahi duten** (15); **ikasi nahi ez** (8); **ikasi nahi izan** (7); **ikasi nahi nuen** (6); **ikasi nahi zuen** (8); **ikasi nahian** (13); **ikasi nian** (10); **ikasi nituen** (30); **ikasi nuela** (10); **ikasi nuen** (222); **ikasi nuen nik** (11); **ikasi nuenean** (6); **ikasi nuenez** (7); **ikasi omen** (9); **ikasi ondoren** (22); **ikasi ordez** (7); **ikasi ote** (13); **ikasi zenuen** (12); **ikasi zituela** (6); **ikasi zituen** (58); **ikasi zituzten** (10); **ikasi zuela** (26); **ikasi zuelako** (7); **ikasi zuen** (320); **ikasi zuen eta** (8); **ikasi zuenean** (9); **ikasi zutela** (10); **ikasi zuten** (63); **ikusi eta ikasi** (15)

**ingelesa ikasi** (7); **irakurtzen ikasi** (16); **izaten ikasi** (20); **izenak ikasi** (6); **jokatzen ikasi** (10); **jotzen ikasi** (16); **kabuz ikasi** (7); **kasa ikasi** (7); **lana ikasi** (6); **laster ikasi** (12); **lezioa ikasi** (7); **maitatzen ikasi** (8); **medikuntza ikasi** (8); **nik ikasi** (7); **noiz ikasi** (6); **nola ikasi** (15); **non ikasi** (26); **nuen ikasi** (8); **oinez ikasi** (8); **onartzen ikasi** (6); **ondo ikasi** (16); **ongi ikasi** (26); **ontsa ikasi** (6); **orain ikasi** (9); **oraindik ikasi** (8); **orduan ikasi** (13); **orduan ikasi nuen** (8); **orduantxe ikasi** (6); **sekula ikasi** (7); **unibertsitatean ikasi** (10); **zela ikasi** (12); **zen ikasi** (7); **zer den ikasi** (9); **zer ikasi** (74); **zer ikasi eta** (6); **zerbait ikasi** (33); **zuen ikasi** (13); **zutela ikasi** (6); **zuzenbidea ikasi** (14); **zuzenbidea ikasi zuen** (7)

**asko ikasia** (7); **asko ikasiko** (8); **buruz ikasita** (7); **buruz ikasitako** (16); **egiten ikasiko** (6); **ere ikasiko** (8); **eskolan ikasia** (7); **eta ikasia** (18); **eta ikasiak** (8); **eta ikasiko** (8); **eta ikasitako** (7); **euskara ikasiko** (13); **gizon ikasia** (13); **horrela ikasiko** (12); **ikasia du** (6); **ikasia dut** (7); **ikasia eta** (22); **ikasia izan** (7); **ikasia nuen** (13); **ikasia zen** (11); **ikasia zuela** (6); **ikasia zuen** (44); **ikasia zuten** (15); **ikasiak eta** (14); **ikasiak zituen** (8); **ikasiko du** (24); **ikasiko duela** (16); **ikasiko duk** (10); **ikasiko dut** (17); **ikasiko dute** (34); **ikasiko duzu** (28); **ikasiko duzue** (7); **ikasiko ez** (7); **ikasiko genuen** (6); **ikasiko nuen** (10); **ikasiko nuke** (8); **ikasiko zuela** (9); **ikasiko zuen** (14); **ikasiko zuten** (7); **ikasitako guztia** (16); **ikasiz eta** (6); **ikasiz gero** (9); **jende ikasia** (10); **laster ikasiko** (7); **lezioa ikasita** (6); **non ikasia** (6); **ondo ikasia** (8); **ondo ikasita** (11); **ongi ikasia** (18); **ongi ikasiak** (11); **sekula ikasiko** (6); **zer ikasia** (26); **zer ikasiko** (6); **zer ikasirik** (7); **zerbait ikasiko** (14)

**buruz ikastea** (9); **buruz ikastea** (9); **egiten ikastea** (9); **egiten ikastea** (9); **eta ikastea** (8); **eta ikastea** (8); **euskara ikastea** (35); **euskara ikastea** (35); **euskara ikasteari** (8); **hizkuntza ikastea** (6); **hizkuntza ikastea** (6); **idazten ikastea** (7); **idazten ikastea** (7); **ikastea baino** (9); **ikastea baino** (9); **ikastea da** (24); **ikastea da** (24); **ikastea erabaki** (11); **ikastea erabaki** (11); **ikastea ere** (8); **ikastea ere** (8); **ikastea eta** (28); **ikastea eta** (28); **ikastea ez** (16); **ikastea ez** (16); **ikastea ez da** (7); **ikastea ez da** (7); **ikastea izan** (9); **ikastea izan** (9); **ikasteari ekin** (10); **ikasteari utzi** (6); **ikasteaz gain** (13); **zerbait ikastea** (7); **zerbait ikastea** (7)

**baina ikasteko** (7); **berriak ikasteko** (8); **bizitzen ikasteko** (10); **buruz ikasteko** (15); **egiten ikasteko** (17); **ehun ikasteko** (18); **eta euskaraz ikasteko** (8); **eta ikasteko** (57); **euskal herrian ikasteko** (10); **euskara ikasteko** (116); **euskara ikasteko aukera** (9); **euskaraz ikasteko** (60); **euskaraz ikasteko aukera** (15); **euskaraz ikasteko eskubidea** (18); **ez ikasteko** (6); **frantsesa ikasteko** (8); **herrian ikasteko** (10); **herrian ikasteko eskubidea** (6); **hizkuntza ikasteko** (11); **hizkuntzak ikasteko** (15); **ikasteko asko** (7); **ikasteko asmoa** (7); **ikasteko asmotan** (9); **ikasteko aukera** (76); **ikasteko aukera izan** (6); **ikasteko aukera izango** (10); **ikasteko aukera izatea** (6); **ikasteko aukerak** (6); **ikasteko aukerarik** (12); **ikasteko balio** (13); **ikasteko balio izan** (6); **ikasteko duten** (9); **ikasteko edo** (6); **ikasteko ere** (11); **ikasteko eskubidea** (52); **ikasteko eskubidearen** (7); **ikasteko eta** (44); **ikasteko gai** (6); **ikasteko gaitasuna** (9); **ikasteko gogoa** (13); **ikasteko leku** (8); **ikasteko metodoa** (6); **ikasteko modu** (7); **ikasteko oraindik** (6); **ikasteko orduan** (6); **ikasteko parada** (9); **ikasteko prest** (6); **presoek ehun ikasteko** (11); **unibertsitatean ikasteko** (10); **zerbait ikasteko** (7)

**ari da ikasten** (8); **ari dira ikasten** (7); **ari naiz ikasten** (6); **ari zen ikasten** (8); **arkitektura ikasten** (6); **asko ikasten** (39); **asko ikasten ari** (15); **asko ikasten da** (6); **bakarrik ikasten** (8); **bat ikasten** (24); **bat ikasten ari** (6); **batean ikasten** (9); **berriak ikasten** (6); **beti ikasten** (15); **bidez ikasten** (11); **buruz ikasten** (27); **d ereduan ikasten** (6); **da ikasten** (11); **den ikasten** (6); **dira euskara ikasten** (6); **dira ikasten** (11); **dugu ikasten** (7); **dute ikasten** (11); **edo ikasten** (6); **egiten ikasten** (17); **egun ikasten** (10); **egunez egun ikasten** (8); **ere ikasten** (26); **ereduan ikasten** (7); **eskolan ikasten** (14); **eta buruz ikasten** (6); **eta ikasten** (43); **eta ikasten ari** (8); **euskara ikasten** (133); **euskara ikasten ari** (36); **euskara ikasten duten** (6); **euskara ikasten hasi** (12); **euskararen ikasten** (13); **euskaraz ikasten** (24); **euskaraz ikasten duten** (6); **ez dugu ikasten** (7); **filologia ikasten** (7); **filosofia ikasten** (13); **filosofia ikasten ari** (6); **gehiago ikasten** (13); **hasi zen ikasten** (6); **haurrek ikasten** (6); **hizkuntza ikasten** (11); **hizkuntzak ikasten** (9); **hori ikasten** (8); **horrela ikasten** (7)

**ikasten ahal** (13); **ikasten ari** (279); **ikasten ari da** (36); **ikasten ari dela** (8); **ikasten ari den** (15); **ikasten ari dira** (11); **ikasten ari diren** (17); **ikasten ari gara** (11); **ikasten ari naiz** (22); **ikasten ari nintzela** (9); **ikasten ari nintzen** (9); **ikasten ari zela** (15); **ikasten ari zen** (27); **ikasten ari ziren** (9); **ikasten aritu** (10); **ikasten aurkitu** (6); **ikasten baita** (10); **ikasten da** (70); **ikasten dela** (15); **ikasten den** (19); **ikasten dira** (12); **ikasten dituzte** (19); **ikasten du** (46); **ikasten duela** (8); **ikasten duen** (15); **ikasten duena** (9); **ikasten dugu** (25); **ikasten dute** (82); **ikasten dutela** (11); **ikasten duten** (42); **ikasten dutenak** (6); **ikasten duzu** (19); **ikasten edo** (15); **ikasten ere** (13); **ikasten eta** (59); **ikasten ez** (25); **ikasten genuen** (12); **ikasten hasi** (88); **ikasten hasi behar** (6); **ikasten hasi nintzen** (9); **ikasten hasi zen** (23); **ikasten hasia** (8); **ikasten hasteko** (11); **ikasten hasten** (9); **ikasten ibili** (9); **ikasten jardun** (11); **ikasten jarraitu** (12); **ikasten jarraitzeko** (13); **ikasten jarraitzen** (8); **ikasten nituen** (8); **ikasten nuen** (9); **ikasten saiatu** (12); **ikasten segitu** (8); **ikasten zegoen** (9); **ikasten zegoen mutila** (9); **ikasten zituen** (13); **ikasten zituzten** (12); **ikasten zuen** (36); **ikasten zuten** (21)

**euskara ikastera** (10); **ikastera edo** (6); **ikastera eta** (15); **ikastera joan** (18); **ikastera joaten** (10); **ingelesa ikasten** (18); **irakasteko ikasten** (6); **irakurtzen ikasten** (8); **letrak ikasten** (6); **liburutegian ikasten** (19); **liburutegian ikasten aurkitu** (6); **liburutegian ikasten zegoen** (9); **medikuntza ikasten** (10); **naiz ikasten** (10); **nintzen euskara ikasten** (7); **nintzen ikasten** (8); **nola ikasten** (9); **ofizioa ikasten** (7); **unibertsitatean ikasten** (15); **zen ikasten** (21); **zen ikastera** (6); **zer ikasten** (11); **zerbait ikasten** (12); **zuen ikasten** (8); **zuzenbidea ikasten** (9)

---

## ikasigabe *(orobat **ikasgabe** g.er.)* *izond* eskolarik ez duena, kulturarik ez duena.

Desberdintasunak sortzen dira gizartean, jende ikasiaren eta **ikasigabearen** artean. Koldo Zuazo

Nire seme Salomon oraindik gaztea da, **ikasigabea**. Elizen arteko biblia

Bildutakoen artean ikasiak eta **ikasgabeak,** jakintsuak eta jakintzarik gabe Jainkoaren gogoko izaten dakitenak daudenez [...]. Askoren artean

Zer eleberri edo ipuin-liburu sekula idatzitakorik ez zuen irakurriko "buruargi **ikasigabe"** hark? Juan Garzia

Bideetako predikaria eta herri **ikasigabearen** mistikoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

## ikasinahi *iz* ikasteko gogoa. ik **ikasgura**.

Jakinmina, inbidia, **ikasinahia,** mirespena, baina beti ere gehiago. Lourdes Oñederra

---

## ikasizale *izond* ikasteko zaletasuna.

Irakasleek gazteria **ikasizalea** metodikoki astotzeko baizik ez dute balio. Josu Zabaleta

Gogorrean usatutako langile **ikasizalea,** bere kamaraden defendatzaile sutsua. Pablo Sastre

---

## ikasketa **1** *iz pl* ikastetxe batean erakusten diren gaiak ikastea.

-Zer moduz **ikasketak**? Lehen zikloko **ikasketetan** matrikulatuta dauden ikasleek. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Erdi mailako **ikasketen** agiria. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitate aurreko **ikasketeetan** hizkuntzen erabilera kontuan hartzea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Filosofiako **ikasketetan** estandar bihurtu diren gaiak eta metodologia. Askoren artean

Laborategiko **Ikasketak**. Askoren artean

SS-Anhenerbeko **Ikasketa** Berezien saileko laguntzailea. Alberto Ladron Arana

Zientziaren eta Teknologiaren **Ikasketak** deritzanean. Askoren artean

**Ikasketa** teknikoen iraupen teorikoa.. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zuzenean egiten dituzten **ikasketen** edukiak dira eskuragarri dauden bakarrak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikasketen** emankortasunari begira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

"Esperientziaren ikasgelak" izeneko **ikasketen** programak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Langabezia handiko **ikasketak** EHUn. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egoera hura, noski, ez zen batere erosoa niretzat, eta ez zidan batere laguntzen **ikasketetan**. Juan Kruz Igerabide

Gure kontuak jakin nahi zituen: **ikasketetan** nola gindoazen, etorkizunerako zer asmo genituen. Juan Kruz Igerabide

Neure irakurketa eta **ikasketetan** bete-betean sartuta. Juan Kruz Igerabide

Batxilergotik fakultateko **ikasketetara** igarotze horrek beti eragiten dizkio ikasleari halako ilusio batzuk. Josu Zabaleta

Lehen titulua lortzeko **ikasketen** iraupena laburtzea. Berria - Euskal Herria

Nik irribarrez erantzun nion nire altxor bakarra nire **ikasketak** zirela. Arantxa Iturbe

Alproja; **ikasketarik** gabea. Aingeru Epaltza

Princetoneko **Ikasketa** Aurreratuen Institututik oso gertu. Fernando Morillo

**2** (singularrean) ikastea. ik **ikaskuntza**.

Erromatar zuzenbidea, epaitegien sententziak eta berriro idatzitako usadio-gorputzak ezagutzeak, **ikasketa** eskatzen zuen, eta nobleak eta letrarik gabeko herritarrak ez ziren horretarako gai. Iñaki Iñurrieta

Mekanismo horiek **ikasketa** "normal" baten bidez barneratzen dira. Josu Zabaleta

**Ikasketa** hura ez zen, horratik, hurrengo egunean hasi. Aitor Arana

Puntu honetan, bada, kontrako jarrerak daude teoria innatista baten, Gestalt-en, eta **ikasketaren** teoria baten, konstruktibismoaren, aldetik. Bizitzako funtzioen **ikasketa** eleberrien irakurketa bezain erakargarri edo erakargarriago gertatuko zitzaiola uste zuen. Josu Zabaleta

Zientzia zehatzen **ikasketa** arbuiatzen duen gazteriaren denbora-erabilera. Ibon Uribarri

Antzinako hizkuntzen **ikasketari** buru-belarri emana dagoen letragizon bat da. Juan Garzia

Latinaren **ikasketa** metodikoan abiatua nintzen ni garaitsu hartan. Juan Garzia

Liburu santuen **ikasketa** gogoko ez zuelako. Askoren artean

Hizkuntz jabekuntza, H2ren **ikasketa,** hizkuntz patologiak, etab. Lourdes Oñederra

Baina felazioaren bene--benetako **ikasketa** praktikoa Trinik berak azaldu zigun. Jasone Osoro

**3** (aditzaren objektu gisa)

Andresek unibertsitateko **ikasketak** hasi zituenean, Margaritak hogeiren bat urte zituen. Josu Zabaleta

Distira eta argi berezirik gabe gainditu zituen oinarrizko **ikasketak**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Japonian, esaterako, goi mailako **ikasketak** dituzten emakumeek etxean egiten dute lan. Berria - Gaiak

**Ikasketak** bukatu bezain laster. Josu Zabaleta

1997an graduondoko **ikasketak** amaitu zituen Zuricheko Kontserbatorioan. Berria - Kultura

Unibertsitateko **ikasketak** amaitu berriak dituen gazte baten esku utziko dut zure eskabidea. Jose Morales

Madrilgo Complutense Unibertsitatean burutu zituen filosofiako **ikasketak,** 1985ean. Askoren artean

Bost urte baino gehiago behar izaten dituzte **ikasketak** burutzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lizentzia edo ingeniari titulua eskuratzeko **ikasketak** amaitu ondoren, doktore tesia egin behar du ikerkuntza lanetan hasi nahi duenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gurasoek, bestalde, ezin zizkidaten ordaindu ingeniaritza elektronikoa egiteko **ikasketak**. Juan Kruz Igerabide

EHUk presoen **ikasketak** arautuko dituen protokoloa onartu du. Berria - Euskal Herria

Unibertsitate **ikasketak** Europako goi-ikasketen eremura egokitzeko. Berria - Euskal Herria

Sokorritzaile **ikasketa** batzu antolatuak izanen dira Ortzaizen helduden otsailean. Herria

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ikasketa**-orri distiratsua aurkezten ahal zuela fraideenekoa bukatzean. Aingeru Epaltza

Estatu Batuetara, gobernuaren **ikasketa**-burtsa bati esker joan omen zen. Edorta Jimenez

**Ikasketa** prozesua ez da batere erregularra. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikasketa** maila guztietan berdin gertatzen da joera hori eta beti leporatzen zaio prestakuntza txar horren erantzukizuna aurreko mailari. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Luis Campoyk berak **ikasketa** ibilbideak bertan behera utzi zituen, LOCE indargabetzearekin batera. Berria - Euskal Herria

DBHko hirugarren mailako ikasleek ez dute **ikasketa** ildoa aukeratu beharrik izango. Berria - Euskal Herria

**Ikasketa** plan berriak ezarri ziren urtean. Joxerra Garzia

Bi gertaerak atera ninduten nire **ikasketa**-egitarau zorrotzetik. Juan Kruz Igerabide

**Ikasketa**-saio luzeak eginez. Juan Kruz Igerabide

**Ikasketa** etxea erdi eroria zegoen. Koro Navarro

Aldi berean entzutegi, sinagoga, **ikasketa** gela eta psikoanalista kontsulta. Koro Navarro

Ezta bere **ikasketa kideak** ere. Berria - Euskal Herria

*ik* ikaskide.

Ez zen oso ekintzailea, eta **ikasketa** kontuan etekin eskas samarra ateratzen zuen. Juan Garzia

**Ikasketa**-bidaiarako dirua lortzeko COUkoek antolatzen zuten "diskoteka". Iban Zaldua

India eta Asia Hegoaldeko **Ikasketa** Zentroko ikerketa zuzendari Jean-Luc Racinek dioenez. Berria - Mundua

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hizkuntzalaritza **ikasketak** hemengo eta kanpoko unibertsitateetan egin ditu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

LBH **ikasketak** bukatu zituztenen artean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Musika-**ikasketak** amaitu nituenean. Anjel Lertxundi

Kirol-**ikasketetako** ikasleak. Jon Muñoz

Alabak maistra-**ikasketak** egitea lortu zuen. Juan Kruz Igerabide

Errabino **ikasketak** egiten diren apaizgaitegi edo goi mailako eskola. Koro Navarro

Filosofia eta Teologia **ikasketak** egin zituen Donostiako Seminarioan. Askoren artean

Eliz **Ikasketetan** Madrilgo Comillas Unibertsitatean lizentziatua da. Askoren artean

Liburu santuen interpretaziorako giza **ikasketa** eta jakintzaz lortzen den trebeziarik izan ez arren. Askoren artean

15-64 urteen arteko biztanleen %23ak unibertsitate **ikasketak** ditu EAEn. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Lanbide **ikasketez** ari garela [...] komeni da hor ere bereizketa handiak egitea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Segur naiz oraindik espekulazio-**ikasketarik** egin ez duten hasi berri guztiek probetxua aterako dutela Tratatu honetako kapitulu batzuetatik. Xabier Kintana

Aurreko prestatze-**ikasketen** iraute luzea. Xabier Kintana

Prestakuntza-**ikasketa** horien ondoren. Xabier Kintana

## **6** ***ikasketak egin***

Unibertsitateak sortu ziren, zentro berriak, **ikasketak** egiteko aukerak, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nahi dituzun **ikasketak** egin; zure gauza da hori. Josu Zabaleta

%60 inguruk egin ditu bigarren hezkuntzako **ikasketak** gutxienez. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Frantziara joan aitzin **ikasketak** egin nituela Nafarroan eta Filosofia eta Eskolako Teologia ikasi nituela Alcalako Unibertsitatean, hots, Gaztela Berrian. Piarres Xarriton

Ingeniaritzako goi **ikasketak** egin zituen, Nafarroako Unibertsitatean. Berria - Kultura

Nire senideek ere, arrazoi beragatik, oinarrizko **ikasketak** etxean egin zituzten, maistra batzuekin. Fernando Rey

Ikastetxe pribatu batean egin zituzten batxilergoko **ikasketak**. Josu Zabaleta

Lehen zikloko unibertsitate **ikasketak** egiten hasten diren ikasleen artean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikasketak** euskaraz egiteko. Pello Salaburu

Johanesek eliz **ikasketak** egin zituen Salamancan. Martin Anso

Montserraten **ikasketak** egin, eta Bartzelonan bizi zela, berak fundatu zuen Ama Maria Mesedeetakoen Ordena. Pello Zabala

Matematika hautatu nian, ez bakarrik batik bat matematikako **ikasketak** egina nintzelako. Jon Muñoz

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baten ikasketa** (3); **batez ere ikasketa** (3); **bere ikasketa** (6); **beren ikasketa** (3); **beste ikasketa** (9); **da ikasketa** (6); **dago ikasketa** (3); **den ikasketa** (4); **dira ikasketa** (3); **ditu ikasketa** (3); **duen ikasketa** (3); **duten ikasketa** (3); **edo ikasketa** (4); **ere ikasketa** (5); **eta ikasketa** (41); **eta ikasketa horiek** (4); **eta ikasketa maila** (4); **goi mailako ikasketa** (3); **gure ikasketa** (3); **hainbat ikasketa** (4)

**ikasketa amaierako** (4); **ikasketa aurreratuen** (6); **ikasketa aurreratuen institutua** (4); **ikasketa bat** (4); **ikasketa batzuek** (5); **ikasketa batzuk** (6); **ikasketa berri** (5); **ikasketa berriak** (4); **ikasketa burua** (8); **ikasketa buruak** (10); **ikasketa buruaren** (5); **ikasketa buruari** (3); **ikasketa edo** (4); **ikasketa egin** (4); **ikasketa egin ahal** (3); **ikasketa eta** (14); **ikasketa etxean** (7); **ikasketa gogorra** (3); **ikasketa guztiak** (17); **ikasketa guztiak euskaraz** (5); **ikasketa guztietan** (4); **ikasketa handirik** (3); **ikasketa hauek** (5); **ikasketa horiek** (24); **ikasketa horien** (3); **ikasketa horietan** (4); **ikasketa luzeak** (3); **ikasketa maila** (15); **ikasketa mota** (7); **ikasketa plan** (7); **ikasketa plana** (4); **ikasketa planak** (6); **ikasketa planen** (10); **ikasketa planetan** (4); **ikasketa programa** (3); **ikasketa prozesu** (3); **ikasketa prozesua** (12); **ikasketa prozesuan** (3); **ikasketa prozesuaren** (3); **ikasketa teknikoak** (3); **ikasketa unibertsitarioak** (5)

**lehen ikasketa** (3); **mailako ikasketa** (5); **nire ikasketa** (4); **princetoneko ikasketa** (6); **princetoneko ikasketa aurreratuen** (6); **zen ikasketa** (4); **zenbait ikasketa** (3); **zituen ikasketa** (3); **zuen ikasketa** (3)

**abokatu ikasketak** (3); **alaben ikasketak** (3); **antzerki ikasketak** (3); **arkitektura ikasketak** (4); **askok ikasketak** (3); **bai eta ikasketak** (3); **baina ikasketak** (5); **behin ikasketak** (3); **bere ikasketak** (20); **beren ikasketak** (11); **bertan ikasketak** (3); **bigarren mailako ikasketak** (9); **biologia ikasketak** (3); **buruzko ikasketak** (3); **dantza ikasketak** (6); **derrigorrezko ikasketak** (4); **dira ikasketak** (7); **diren ikasketak** (3); **ditu ikasketak** (6); **dituen ikasketak** (8); **dituzte ikasketak** (14); **dituzten ikasketak** (4); **doktoretza ikasketak** (3); **dute ikasketak** (4); **duten ikasketak** (4); **edo ikasketak** (5); **egin zituen ikasketak** (14); **egindako ikasketak** (3); **ehun ikasketak** (3); **ekonomia ikasketak** (6); **ekonomia ikasketak egin** (3); **enpresa ikasketak** (5); **ere ikasketak** (7); **ere ikasketak euskaraz** (3); **eskaintzen dituen ikasketak** (3); **eskolako ikasketak** (4); **eta euskal ikasketak** (5); **eta ikasketak** (40); **eta ikasketak bukatu** (3); **eta musika ikasketak** (3); **eta teologiako ikasketak** (3); **eta unibertsitate ikasketak** (3); **eta zuzenbide ikasketak** (3); **euren ikasketak** (5); **euskal filologia ikasketak** (4); **euskal filologiako ikasketak** (5); **euskal ikasketak** (7); **euskal ikasketak sailean** (3); **euskara ikasketak** (4); **euskarazko ikasketak** (6); **ez dituen ikasketak** (5); **filologia ikasketak** (6); **filologiako ikasketak** (8); **filosofia ikasketak** (8); **filosofia ikasketak egin** (3); **filosofiako ikasketak** (4); **goi ikasketak** (9); **goi mailako ikasketak** (31); **gradu ikasketak** (3); **hasi zituen ikasketak** (3); **heziketako ikasketak** (3); **historia ikasketak** (4)

**ikasketak abian** (3); **ikasketak abian jartzeko** (3); **ikasketak amaitu** (61); **ikasketak amaitu baino** (3); **ikasketak amaitu berriak** (3); **ikasketak amaitu eta** (20); **ikasketak amaitu nahi** (3); **ikasketak amaitu ondoren** (5); **ikasketak amaitu ostean** (4); **ikasketak amaitu zituen** (3); **ikasketak amaitu zituenean** (4); **ikasketak amaituta** (8); **ikasketak amaitutakoan** (4); **ikasketak amaitzean** (10); **ikasketak amaitzeko** (6); **ikasketak amaitzen** (9); **ikasketak amaitzera** (5); **ikasketak arautzeko** (3); **ikasketak ari** (4); **ikasketak aurrera** (5); **ikasketak aurrera atera** (3); **ikasketak bertan** (4); **ikasketak bertan behera** (3); **ikasketak beste** (3); **ikasketak bukatu** (27); **ikasketak bukatu berri** (4); **ikasketak bukatu eta** (6); **ikasketak bukatu ondoren** (5); **ikasketak bukatuta** (4); **ikasketak bukatzean** (3); **ikasketak bukatzeko** (7); **ikasketak bukatzen** (3); **ikasketak bukatzen ari** (3); **ikasketak bururatu** (6); **ikasketak bururatu ondoan** (3); **ikasketak burutu** (5); **ikasketak burutzeko** (7); **ikasketak direla** (6); **ikasketak direla eta** (3); **ikasketak ditu** (3); **ikasketak dituzte** (3); **ikasketak dituzten** (5)

**ikasketak edo** (5); **ikasketak edo lana** (4); **ikasketak egin** (98); **ikasketak egin behar** (3); **ikasketak egin ditu** (7); **ikasketak egin eta** (6); **ikasketak egin nahi** (4); **ikasketak egin ondoan** (3); **ikasketak egin ondoren** (6); **ikasketak egin zituen** (41); **ikasketak egin zitzan** (3); **ikasketak egina** (3); **ikasketak eginak** (8); **ikasketak eginen** (3); **ikasketak eginez** (3); **ikasketak eginik** (3); **ikasketak egitea** (5); **ikasketak egiteko** (35); **ikasketak egiteko aukera** (6); **ikasketak egiten** (42); **ikasketak egiten ari** (14); **ikasketak egiten hasi** (5); **ikasketak egitera** (27); **ikasketak ehun** (3); **ikasketak eman** (4); **ikasketak eman zizkion** (3); **ikasketak ere** (10); **ikasketak eskaini** (5); **ikasketak eskaintzen** (6); **ikasketak eta** (28); **ikasketak eta han** (3); **ikasketak euskaraz** (43); **ikasketak euskaraz egin** (6); **ikasketak euskaraz egiteko** (9); **ikasketak euskaraz egiten** (6); **ikasketak ez** (8); **ikasketak hasi** (15); **ikasketak hasi zituen** (4); **ikasketak hemen** (3); **ikasketak izan** (4); **ikasketak jarraitzeko** (4); **ikasketak nola**

(4); **ikasketak ongi** (5); **ikasketak ordaindu** (5); **ikasketak ordaintzeko** (6); **ikasketak sailean** (3); **ikasketak segitzeko** (3); **ikasketak segitzen** (3); **ikasketak utzi** (14); **ikasketak utzi eta** (5); **ikasketak uztea** (4); **ikasketak zirela** (3); **ikasketak zituen** (3)

**ingeniaritza ikasketak** (8); **irakasle ikasketak** (3); **izateko ikasketak** (5); **kazetaritza ikasketak** (10); **kazetaritza ikasketak egiten** (3); **lanbide heziketako ikasketak** (3); **lehen ikasketak** (14); **mailako ikasketak** (47); **mailako ikasketak dituzten** (3); **mailako ikasketak egin** (5); **mailako ikasketak eginak** (3); **mailako ikasketak egiteko** (3); **mailako ikasketak egitera** (3); **maileko ikasketak** (3); **maistra ikasketak** (3); **medikuntza ikasketak** (10); **medikuntza ikasketak egin** (3); **moduz ikasketak** (3); **muggle ikasketak** (6); **musika ikasketak** (17); **nere ikasketak** (3); **nik ikasketak** (4); **nituen ikasketak** (4); **oinarrizko ikasketak** (14); **presoek ikasketak** (3); **presoen ikasketak** (3); **seme alaben ikasketak** (3); **soziologia ikasketak** (4); **teologia ikasketak** (6); **teologiako ikasketak** (5); **unibertsitate ikasketak** (39); **unibertsitate ikasketak egitera** (3); **unibertsitate ikasketak euskaraz** (4); **unibertsitate mailako ikasketak** (4); **unibertsitatean ikasketak** (3); **unibertsitateko ikasketak** (19); **unibertsitateko ikasketak euskaraz** (3); **urteko ikasketak** (5); **utzi zituen ikasketak** (3); **zen ikasketak** (4); **zer ikasketak** (3); **zer moduz ikasketak** (3); **zientzia ikasketak** (4); **zikloko ikasketak** (6); **zituen bere ikasketak** (4); **zituen ikasketak** (24); **zituen ikasketak eta** (7); **zituen lehen ikasketak** (3); **zituen musika ikasketak** (3); **lituzten ikasketak** (3); **zuten ikasketak** (3); **zuzenbide ikasketak** (23); **zuzenbide ikasketak egin** (3)

**aukeratutako ikasketetan** (4); **beren ikasketen** (5); **da ikasketen** (4); **diren ikasketen** (6); **duten ikasketen** (3); **edo ikasketengatik** (3); **eta ikasketaren** (3); **eta ikasketen** (7); **eta ikasketetan** (4); **euskal ikasketen** (11); **euskal ikasketetan** (3); **goi mailako ikasketen** (6); **graduondoko ikasketen** (5); **hainbat ikasketatan** (3); **ikasketaren bat** (3); **ikasketarik egin** (4); **ikasketarik ez** (9); **ikasketarik ez duen** (3); **ikasketaz eta** (4); **ikasketei dagokienez** (3); **ikasketek eta** (6); **ikasketek ez** (4); **ikasketekin batera** (4); **ikasketekin jarraitzeko** (4); **ikasketen agiria** (3); **ikasketen artean** (6); **ikasketen egitera** (3); **ikasketen eskaintza** (9); **ikasketen eskaintza zabala** (3); **ikasketen eta** (5); **ikasketen gaiarekin** (3); **ikasketen garaian** (3); **ikasketen inguruan** (3); **ikasketen iraupena** (3); **ikasketen karietara** (3); **ikasketen zentroko** (3); **ikasketetan eta** (7); **ikasketez ari** (3); **mailako ikasketen** (7); **mailako ikasketetan** (3); **presoen ikasketen** (4); **unibertsitate ikasketen** (5); **unibertsitateko euskal ikasketen** (4); **unibertsitateko ikasketekin** (3); **ztg ikasketek** (4)

---

**ikasketaburu** *(25 agerraldi, liburu 1 eta 2 artikulutan; orobat* ***ikasketa(-)buru*** *29 esaldi, 3 liburu eta 2 artikulutan) iz* ikastetxe batean ikasketen arduraduna dena.

Zuzendaria, **ikasketaburua,** tutorea eta irakasle bat. Berria - Harian

**Ikasketaburuak** ikasleen eskuak ikuskatu ditu. Itziar Otegi

Zuzendaria kanpoan zen egun haietan, eta, halakoetan, **ikasketa**-burua zen zuzendari-lanak betetzen zituena. Anjel Lertxundi

**Ikasketa**-buruaren bulegora joan ginen presioa egitera. eskolako zuzendariak edo **ikasketa-buruak** erabaki beharko du ustez droga kontsumitzen duten ikasleekin zer egin. Anjel Lertxundi

**Ikasketaburuak** begitan hartu nau! Itziar Otegi

**-Ikasketa**-buruarengana joango naiz protestatzera! Jon Arretxe

**Ikasketa** buruak adierazi zidanean, bihotza plauxta erori zitzaidan. Jesus Mari Mendizabal

---

**ikasketadun** *izond* ikasketak dituena.

Egungo publikoan denetik dagoelako, emakumeak daude, gizonezkoak daude, adin diferentetakoak, kalekoak, baserrikoak, **ikasketadunak,** ikasketarik gabeak. Berria - Kultura

Bera, unibertsitate **ikasketaduna;** ni, aldiz, [...] idazkari xume bat, gehienez ere ingeles eta informatika ikastaroren bat egina duena. Patxi Zubizarreta

Unibertsitate **ikasketadunak** ia bikoiztu egin ziren urte horretan. Berria - Euskal Herria

Gizonezkoa, lehen edo bigarren mailako **ikasketaduna** eta bikotekiderik gabea. Berria - Euskal Herria

---

**ikaskide** *(374 agerraldi, 77 liburu eta 54 artikulutan) iz* ikasketa kidea. ik **ikaslagun**.

**Ikaskideek** baztertu egiten zuten, baita hain aberatsak ez ziren batzuek ere. Pello Lizarralde

Ezin esan emakume katxarro horietakoa zenik, baina bai polita oso: **ikaskide** guztiak maiteminduta gintuen. Joxerra Garzia

Psikologoak azaldu zuenez, **ikaskideen** arteko erasoak batez ere 13 eta 14 urtekoen artean gertatzen dira. Berria - Harian

Ikasleak bere buruaz beste egin zuen, ustez **ikaskideen** jazarpenagatik. Berria - Euskal Herria

Adingabe bat atxilotu dute **ikaskide** bati labanaz erasotzeagatik. Berria - Euskal Herria

Azaldu die, irakasle eta **ikaskideei,** arriskua zer den: [...]. Joxerra Garzia

Gelako **ikaskide** batzuei. Aingeru Epaltza

Hiru lagunen artean La Salleko beste **ikaskide** bati erloju bat ostu genionean. Joan Mari Irigoien

Festara, ordea, neskatila ezezagun bat etorri da, Irati izenekoa, lehengusuaren **ikaskidea,** antza. Patxi Iturritegi

Ez dakit zer pentsatu zuten nire **ikaskideek**. Joxerra Garzia

Bere erdaldun **ikaskideekin** erkatzen badugu. Pello Salaburu

Gure eskolako **ikaskide** errepikatzaile batek. Pello Lizarralde

Ene gaztetako **ikaskideak**. Aingeru Epaltza

Karrerako **ikaskide** batzuekin batean. Aingeru Epaltza

Loiolan, Jokin Zaitegi, Lauaxeta, Iñaki Goenaga eta Plazido Mujika izan zituen, besteak beste, **ikaskide**, eta Aita Estefania irakasle. Berria - Harian

Ordurako, **ikaskide** izandako lagun batzuk irakasle ziren unibertsitatean. Joxerra Garzia

-Motel, aspaldiko! -egin zuen oihu **ikaskide** ohiak, Andresengana hurbilduz. Josu Zabaleta

**Ikaskideak** izan ginen, elkarrekin igotzen ginen hesietara! Jose Morales

Ez izan harremanik **ikaskideekin,** haiek ez diate-eta ezer onik irakatsiko. Jose Morales

Julen **ikaskidearekin** jarraitu nuen pisuan. Jon Arretxe

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere ikaskide** (9); **bere ikaskideen** (3); **beste ikaskide** (6); **bi ikaskide** (3); **eta ikaskide** (8); **gainerako ikaskideak** (3); **gure ikaskide** (9); **ikaskide bat** (7); **ikaskide batek** (7); **ikaskide batekin** (6); **ikaskide baten** (4); **ikaskide bati** (9); **ikaskide batzuekin** (3); **ikaskide batzuk** (4); **ikaskide eta** (3); **ikaskide gehienak** (4); **ikaskide guztiak** (4); **ikaskide hark** (3); **ikaskide hura** (3); **ikaskide ohi** (5); **ikaskide ohiak** (3); **ikaskide ohiaren** (7); **ikaskideek ez** (3); **ikaskideen aldetik** (3); **ikaskideen artean** (8); **ikaskideen jazarpena** (5); **ikaskideen jazarpena jasaten** (3); **ikaskideren bat** (6); **jokinen ikaskide** (4); **nire ikaskide** (11); **nire ikaskide ohiaren** (4); **nire ikaskideak** (4); **nire ikaskideek** (4); **nire ikaskideen** (5); **ustez ikaskideen** (4); **zen ikaskide** (3); **zenbait ikaskideren** (3); **zuen ikaskide** (4); **zure ikaskide** (4)

---

**ikaskintza** *iz* ikaskuntza.

Hamabi neguz jarduna naiz metrikaren **ikaskintzan** buru-belarri. Juan Garzia

---

**ikaskizun** *iz* ikasi behar den gauza.

Egun hartako **ikaskizun** bat: laguntzak uztarria ekartzen ohi du. Aingeru Epaltza

Eskalatzailearendako ere **ikaskizun** izanen zelakoan, dena mahairatu nion, testu eta irudi, eta haren benedikazio guztiak hartuta handik ziztuan hanka egitea bertze lanik ez zitzaidan gelditzen. Aingeru Epaltza

Bertze garai batean gaitzerranei irri eginen zien, San Anbrosioren **ikaskizunei** jarraikiz: [...]. Aingeru Epaltza

Kalbinoren **ikaskizunak** bere egiteko prest. Aingeru Epaltza

Baldin eta arreta jartzen bazuen egiten zuen horretan eta egiten zuen horren zergatian, taxiak beste inon ikasi ezin ziren **ikaskizunak** emango zizkiola. Oskar Arana

Heriotzarekiko enkontru labur honetatik **ikaskizunik** ateratzekotan, honako hau izango zen: nire bizitza, hitzaren zentzurik hertsienean, ez zen jada nirea. Oskar Arana

Nik beste **ikaskizun** lurtarrago eta konkretuago bat nerabilen gogoan. Juan Garzia

Hori da istorioaren **ikaskizun** morala? Oskar Arana

Zer **ikaskizun** dago hor? Oskar Arana

Beste historia bat, ez **ikaskizun** gutxiagokoa: minbiziarena. Juan Garzia

**Ikaskizun** on horren gomuta dut gordeko neure bihotzaren zaintzaile. Juan Garzia

Ohiturik geunden moralkeriaren kontra egiten zuen Reich-ek istorio haren **ikaskizunarekin**. Juan Kruz Igerabide

**Ikaskizunen** bat proposatzen duten kontakizunena. Berria - Kultura

Gure atsotitzek badutela filosofia lezio eta **ikaskizunik** hitz gutxitan bilduta...! Pello Zabala

**Ikaskizun** mota hori sarri laketu zitzaidan. Jon Muñoz

---

# **ikaskuntza** 1 *iz* ikastea, ikasketa.

Jabekuntza/**ikaskuntza** (ing. *acquisition/learning*) modu ezberdinetan erabiltzen den termino bikotea da. Lourdes Oñederra

Autore batzuek ikaste naturala (jabekuntza) eta formala **(ikaskuntza)** bereizteko erabiltzen dute; beste batzuengan, jabekuntza lehenengo hizkuntza (H1) ikasteari dagokio eta **ikaskuntza,** bigarren hizkuntza (H2) ikasteari. Lourdes Oñederra

Sinagogari, berriz, apaltasun harroz, soilki "scòla" deitu ohi zioten, hots, **ikaskuntza** eta heziketa hartzen den lekua. Juan Garzia

Irakaskuntza aldatu bada, **ikaskuntza** ere aldatu da. Berria - Kultura

Eta hori, hezkuntza deitzen dioten arren, **ikaskuntza** baino ez da. Joxerra Garzia

Euskal **ikaskuntza** unibertsitarioen hastapen hartan. Berria - Kultura

**Ikaskuntza** profanoak exegesi biblikoari dakarkion onura nabarmentzen du eta oratoria kristaua tradizio klasikoarekin lotzen du. Imanol Unzurrunzaga

Euskararen **ikaskuntza** motibatzailea sustatzeko aholkuak. Berria - Kultura

Euskararen **ikaskuntza** errazteko laguntzak. Berria - Euskal Herria

Guztiz funtsezkoa iruditu zitzaion hedabide modernoen **ikaskuntza,** irakaskuntza eta azterketa. Txema Ramirez de la Piscina

Memoria historikoa gizarteratzea, eta agiriak zabaltzea, **ikaskuntzarako** material gisa. Berria - Kultura

**Ikaskuntzarako** eta ikerketarako zentro modernoa. Berria - Kultura

Etengabeko **ikaskuntzaren** Liburu Zuria prestatu du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Jorge Arevalo EAEko Lanbide Heziketako eta Etengabeko **Ikaskuntzarako** sailburuordeak. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ikaskuntza** programa bat Frantziatik pagatua. Menane Oxandabaratz

**Ikaskuntza** prozesuak elkarrekintza izan behar du oinarri esanguratsua izango bada. Berria - Euskal Herria

Ikerketarako gelak ere izango ditu Deustuko Unibertsitateko **Ikaskuntza** eta Ikerketarako Baliabideen Zentroak. Berria - Kultura

Xabier Etxague EHUko **Ikaskuntza** Berrikuntzarako errektoreordeak. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Esango nuke euskararen irakaskuntzan ere, berdin helduen bigarren hizkuntz **ikaskuntzan** zein eskoletako umeen irakaskuntzan, askoz garrantzi handiagoa ematen zaiola gramatikari ahoskerari baino. Lourdes Oñederra

Bestetik, auto-**ikaskuntzaren** eragina ere badago. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriak goi **ikaskuntza** eta ikerkuntza arloan dituen beharrak ez direlako ase. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ditu eusko ikaskuntzak** (8); **du eusko ikaskuntzak** (6); **eta eusko ikaskuntzak** (7); **euskararen ikaskuntza** (3); **eusko ikaskuntza** (42); **eusko ikaskuntza elkarteak** (5); **eusko ikaskuntza eta** (3); **eusko ikaskuntzak** (83); **eusko ikaskuntzak antolatu** (5); **eusko ikaskuntzak antolaturik** (4); **eusko ikaskuntzak antolatuta** (3); **eusko ikaskuntzak antolatutako** (3); **eusko ikaskuntzak bere** (4); **eusko ikaskuntzak eta** (3); **eusko ikaskuntzak miarritzen** (3); **ikaskuntza elkarteak** (5); **ikaskuntza eta** (11); **ikaskuntzak antolatu** (5); **ikaskuntzak antolatu jardunaldian** (3); **ikaskuntzak antolaturik** (4); **ikaskuntzak antolatuta** (3); **ikaskuntzak antolatutako** (3); **ikaskuntzak bere** (4); **ikaskuntzak eta** (3); **ikaskuntzak euskal** (3); **ikaskuntzak miarritzen** (3)

**baionako eusko ikaskuntzaren** (4); **eta eusko ikaskuntzako** (5); **eta eusko ikaskuntzaren** (3); **eusko ikaskuntzako** (35); **eusko ikaskuntzako eta** (3); **eusko ikaskuntzako kide** (3); **eusko ikaskuntzako kidea** (3); **eusko ikaskuntzako lehendakari** (3); **eusko ikaskuntzan** (6); **eusko ikaskuntzara** (3); **eusko ikaskuntzarekin** (5); **eusko ikaskuntzaren** (68); **eusko ikaskuntzaren asmoz** (3); **eusko ikaskuntzaren egoitzan** (25); **eusko ikaskuntzaren eskutik** (4); **eusko ikaskuntzari** (4); **ikaskuntzako eta** (3); **ikaskuntzako kide** (3); **ikaskuntzako kidea** (3); **ikaskuntzako lehendakari** (3); **ikaskuntzako lehendakariak** (3); **ikaskuntzaren asmoz** (3); **ikaskuntzaren egoitzan** (25); **ikaskuntzaren eskutik** (4); **retegi eusko ikaskuntzako** (4)

---

# **ikaslagun** *(**11** agerraldi, **7** liburutan)* *iz* ikaskidea.

Paseo bat egin nuen **ikaslagun** batekin. Eduardo Matauko

**Ikaslagunek** bestela ere adarra jotzen baitzioten bere jantzi lasai eta zeloz erantsitako betaurrekoengatik. Iñaki Mendiguren

Aita-amen **ikaslagun** zahar guztiei. Iñaki Mendiguren

Aldaketak alderdi desatsegin franko zituen, eta hau desatseginena: Gilen ez zen gehiago nire **ikaslaguna** izanen. Aingeru Epaltza

---

# **ikasle** 1 *iz* ikastetxe batean edo irakasle batengandik eskolak edo irakaspenak hartzen dituena.

**Ikasle** gutxiago dago orain, eta irakasle gehiago. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

1.926 **ikasle** daude irakaskuntza katolikoan. Berria - Euskal Herria

Irakaskuntza publikoak 3.900 **ikasle** biltzen ditu, eta frantsesari eta euskarari oren kopuru bera eman kasu hoberenean. Berria - Euskal Herria

**Ikasle** bikaina eta egundoko irakaslea. Karlos Zabala

**Ikasle** saiatua nintzen ni, lehen urtean behintzat. Joxerra Garzia

**Ikasle** askeak heziko dituen eredu baten alde. Berria - Euskal Herria

Nahiago zuela hura **ikasle** buruargia baino. Jose Morales

Bordeleko **ikasle** euskaldunen etxera. Piarres Aintziart

Eta katedraletik ez urrun U.N.E.F **ikasle** ezkertiarren sindikatuaren egoitza. Piarres Aintziart

**Ikasle** unibertsitarioen usteak arakatu dituen azterketaren nondik norakoak azaldu zituen. Berria - Euskal Herria

Urte barru itunpeko sarearen ikastetxeek **ikasle** etorkinen %40 eskolatzea hartu du helburutzat. Berria - Euskal Herria

Horrekin EHUk garbi utzi nahi izan du, **ikasle** presoek ez daukatela «inongo pribilegiorik». Berria - Euskal Herria

Hemezortzi urteko **ikasle** ez-diplomatuek soldadutzara joan behar zuten. Juan Kruz Igerabide

**Ikasle** kakaumez, irakasle koipetsuz eta era guztietako keinu lizunak egiten zizkiguten pailazoz inguraturik. Jon Arretxe

Irakasle heldu bat, bere andreaz aspertuta kutizia ero bat hartua bere **ikasleetariko** batekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Otsailaren 6ko biltzar nagusian, 2.000 **ikasle** bildu ginen. Berria - Ekonomia

Irakaskuntza bera aldatzea eta **ikasle** eta irakasleen funtzioak berregokitzea. Berria - Euskal Herria

Zenbat **ikasle** matrikulatu diren kontuan hartu gabe. Oskar Arana

**Ikasleak** hartzeko eta hautatzeko bideak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikasleak** titulazio bati dagokion agiria eskuratzeko duen ikasgaien egitura. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ikasturte bakoitzean **ikasleak** gainditu beharko lituzkeen kredituen gutxieneko kopurua zehaztea. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eskolan emaitza onak lortzea **ikaslearen** esku dago, ikastetxeak eta aukeratzen duen ereduak ez baitaukate eragin handirik. Berria - Harian

**Ikasleak** lan akademikoak atontzeko behar dituen irizpideak. Askoren artean

## **2** (izenlagunekin)

A ereduko **ikasle** bakar batek ere ez daki euskaraz, azterketa horren arabera. Oxfordeko **ikasle** den garaian.

Letretako **ikasle** bat zen. Joseba Urteaga

Jesuitetako **ikasleen** artean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Karrerako azken kurtsoko **ikaslea**. Aingeru Epaltza

Teologiako **ikasle** eta lapurretan? Joxerra Garzia

Behialako **ikasleak** pertsona helduak ziren orduerako, hogeietan aurrera edo oso aurrera zihoazen gizon eta emakumeak. Oskar Arana

## **3** maisu edo gidari baten irakaspenak hartzen dituena. ik **dizipulu.**

Jonian, handik hurbil-hurbil, urte batzuk igaro zituen Talesen eta haren **ikasle** Anaximandroren ondoan. Jon Muñoz

Teofrastok, Aristotelesen **ikasle** batek, Lizeoa sortu zuen. Jon Muñoz

Luzaroan iraun du ideia horrek, Ingres eta Ingresen **ikasleak** iritsi ziren arte, gutxienez. Josu Zabaleta

Jakin zuten fariseuek Joanek baino **ikasle** gehiago egin eta jende gehiago bataiatzen zuela Jesusek. Elizen arteko biblia

Ondoren, Jaunak beste hirurogeita hamabi **ikasle** izendatu eta bere aurretik bidali zituen binaka, bera joatekoa zen herri eta toki guztietara. Elizen arteko biblia

Jerusalemera iritsi zenean, Saulo **ikasleekin** elkartu nahirik zebilen, baina beldur zioten denek, ez baitzuten sinesten benetako **ikasle** zenik. Elizen arteko biblia

Hiri hartan berriona zabaldu eta **ikasle** asko egin ondoren, Listrara, Ikoniora eta Antiokiara itzuli ziren. Elizen arteko biblia

Frantziskoren **ikasle** pribilegiatu bihurtzen da Klara, bere adiskidearen pentsamenduaren eta Kristorenganako leialtasunaren partaide. Askoren artean

Egileak bere **ikasle** R. Yosef ben R. Y-hudah-ri eginiko gutuna. Xabier Kintana

Erosen **ikasle** abantailatua zen neurrian, harreman erotikoen hariak ehoteko abilezia aparta zuen Montsek. Joan Mari Irigoien

**Ikaslea** ez da irakaslea baino gehiago, baina ongi eskolaturiko **ikaslea** irakaslea adina izango da. Elizen arteko biblia

Kristok bere **ikasleak** predikatzera bidaltzean esaten diena entzun zuen: alegia, ez eramateko urrerik, ez zilarrik, ez poltsarik, ez zakutorik, ez ogirik, ez makilarik, ez oinetakorik, ezta soinekorik aldatzeko ere. Askoren artean

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ikasle** garaian, liluratuta nindukan Hipiasek. Jon Muñoz

**Ikasle** denboran ere ez zen buru bero haietarik. Eneko Bidegain

Liburutegiko elkartze ustekabekoa: **ikasle**-giroko gertaera peto-petoa, alajaina! Jon Muñoz

**Ikasle**-egoitza hartan mojek zeukatela etxeko ardura. Joxemari Iturralde

Unibertsitateko **ikasle** txartela. Joxerra Garzia

Hamar bat kontrol igaro genituen gure **ikasle**-agiriekin. Juan Kruz Igerabide

Hona hemen IAk zerrendatu dituen **ikasle** eskubideak: [...].Bigarrenik, **ikasle** mugimenduek erakutsi duten heldutasun maila azpimarratu nahi izan zuen. Berria - Euskal Herria

Eurijasa noiz atertuko zain dagoen **ikasle** multzo baten erdian. Oskar Arana

Baina, **ikasle**-andanaren erdian sartuta, ihes egiten du hark. Oskar Arana

**Ikasle** elkarte batek antolatu 'ballroom dancing' dantzaldi batean. Ramuntxo Etxeberri

Eskolako patioan, **ikasle** taldeak ikasgela noiz zabalduko zain. Josu Zabaleta

**Ikasle** kopuruaren beherakada dela eta. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Seigarren urteko **ikasle**-pila baten artean estututa. Iñaki Mendiguren

**Ikasle**-bizimoduari agur esatea neukan pentsatuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez ginen **ikasle**-irakasleak, bi adiskide baizik. Anjel Lertxundi

Ikasle Abertzaleak taldeko kideek Villabonan antolatutako **Ikasle** Egunean. Berria - Euskal Herria

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Unibertsitateko janlekuan sarritan ikusten nuen medikuntza-**ikasle** bati galdetu nion. Joseba Urteaga

Eta ni kazetaritza **ikaslea** nintzen, ohiko ideiak ez zituena... Jon Muñoz

New Yorkeko Juilliard School-ek jazzaldiko bosgarren mintegia antolatuko du, musika **ikasle** orori zabalik. Berria - Kultura

Hara biltzen ziren, halaber, Unibertsitateko filosofia **ikasle** eta irakasle asko. Iñaki Iñurrieta

Amarekin etorritako jostun **ikasleak** oihuka hasi ziren. Bernardo Atxaga

Gure amak josle-**ikasle** bat ere bazuen, Alice joslea. Fernando Rey

Bere garaiko zaletasun eta plazerak kutsatu zitzaizkion, eta "libertino-**ikasle"** saiatua izan zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Emozioaren dardaraz baina oporraldi lasaian dabilenaren patxadaz, "omen" baten atzean babesturiko diletantismo-**ikasleak**. Xabier Mendiguren Elizegi

## • **5** (predikatu edo adizlagun gisa)

Adio, ikasle eder hori: zeren **ikasle** baitzaitut. Jon Muñoz

Mutila **ikasle** zen Salamankan. oso historia arrunta dut; **ikasle** izan nintzen, gero maistra... Juan Kruz Igerabide

Ibarretxek **ikasle** zenean euskal historia zein euskara ikastea ezinezko izan zuela. Berria - Euskal Herria

**Ikasle** izandakoen elkarteko kide batek. Berria - Gaiak

*ik beherago* 6. Askoren artean

Juan Bautista zen mutikoa, eta aurki **ikasle** izango nuen Arrasaten. Joxerra Garzia

Ez baitakit non gertatu zen hori, susmoa daukat Groutxo Marx **ikasle** ibili zen eskola ez ote zen izango. Joxerra Garzia

Carlos Tadrid dut izena, / Madrilen **ikasle** nagoena. Fernando Rey

Ez zuen atsegin guraso mugleen haurrak **ikasle** hartzea, ez zirela fidagarriak uste baitzuen. Iñaki Mendiguren

## **6** ***ikasle ohi***

Ez da hurbildu **ikasle** ohia agurtzera, nahiz eta emozio izpiren bat sentitu. Iban Zaldua

Emakume gazteagoekin ditudan harremanetan, **ikasle** ohiekin batik bat, badago muga bat adinaren tartea gogorarazi eta deseroso sentiarazten nauena. Joxean Agirre

Euskaltegietako zenbait irakaslek eta **ikasle** ohik hartu zuten parte. Berria - Euskal Herria

-Angie O'Connor nauzu, zure **ikasle** ohia. Iñaki Zabaleta

· Haurrak han izango ziren nonbait, gertu -nire piano **ikasle** ohiren bat ere bai, tartean, lepoa egingo nuke-. Harkaitz Cano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**a ereduko ikasle** (5); **arte ikasle** (5); **baina ikasle** (11); **baino ikasle** (6); **barneko ikasle** (7); **bat ikasle** (33); **bere ikasle** (30); **bertako ikasle** (6); **beste ikasle** (20); **bi ikasle** (21); **da ikasle** (22); **dela ikasle** (5); **den ikasle** (6); **dio ikasle** (5); **dira ikasle** (7); **diren ikasle** (11); **ditu ikasle** (8); **dituzte ikasle** (7); **du ikasle** (20); **du ikasle abertzaleak** (5); **duen ikasle** (7); **dugu ikasle** (6); **dute ikasle** (14); **duten ikasle** (23); **edo ikasle** (8); **ehunka ikasle** (6); **ere ikasle** (13); **ereduko ikasle** (7); **eskolako ikasle** (15); **eskoletako ikasle** (5); **eta haren ikasle** (5); **eta ikasle** (138); **eta ikasle abertzaleak** (11); **eta ikasle gehiago** (6); **eta ikasle gutxiago** (8); **europako ikasle** (6); **euskal herriko ikasle** (6); **euskal ikasle** (11); **gero eta ikasle** (17); **gure ikasle** (10); **hainbat ikasle** (12); **hamar ikasle** (5); **haren ikasle** (24); **herriko ikasle** (7); **hiru ikasle** (8); **ia ikasle** (6)

**ikasle abertzaleak** (74); **ikasle abertzaleak eta** (6); **ikasle abertzaleak ia** (7); **ikasle abertzaleak taldeak** (21); **ikasle abertzaleak taldeko** (5); **ikasle abertzaleek** (24); **ikasle abertzaleen** (10); **ikasle andana** (9); **ikasle ari** (6); **ikasle asko** (26); **ikasle askok** (10); **ikasle badaude** (6); **ikasle baino** (18); **ikasle baino gehiago** (11); **ikasle bakar** (7); **ikasle bakoitzak** (12); **ikasle bakoitzaren** (7); **ikasle bakoitzeko** (8); **ikasle bat** (74); **ikasle batek** (68); **ikasle batekin** (8); **ikasle baten** (29); **ikasle bati** (16); **ikasle batzuek** (17); **ikasle batzuekin** (8); **ikasle batzuk** (25); **ikasle berri** (18); **ikasle berriak** (12); **ikasle berrien** (6); **ikasle bezala** (5); **ikasle bikaina** (5); **ikasle bildu** (8); **ikasle daude** (10); **ikasle dira** (8); **ikasle ditu** (10); **ikasle edo** (9); **ikasle egoitza** (5); **ikasle eguna** (7); **ikasle eta** (148); **ikasle eta irakasle** (21); **ikasle eta irakasleen** (7); **ikasle eta langabetuentzat** (8); **ikasle etorkinak** (7); **ikasle etorkinek** (6); **ikasle etorkinen** (20); **ikasle euskaldunen** (7); **ikasle ez** (6); **ikasle garaian** (29); **ikasle garaiko** (9)

**ikasle gazte** (19); **ikasle gazteak** (11); **ikasle gazteek** (11); **ikasle gazteen** (9); **ikasle gehiago** (33); **ikasle gehiagok** (6); **ikasle gehien** (6); **ikasle gehienak** (14); **ikasle gehienek** (19); **ikasle gisa** (16); **ikasle gutxi** (8); **ikasle gutxiago** (17); **ikasle guziek** (6); **ikasle guztiak** (44); **ikasle guztiei** (11); **ikasle guztiek** (46); **ikasle guztien** (21); **ikasle guztientzat** (6); **ikasle haiek** (7); **ikasle hark** (6); **ikasle hauek** (6); **ikasle hil** (6); **ikasle horiei** (5); **ikasle horiek** (17); **ikasle horien** (12); **ikasle inguru** (23); **ikasle inguruk** (10); **ikasle irakasle** (9); **ikasle izan** (48); **ikasle izan dira** (5); **ikasle izan zen** (12); **ikasle izana** (7); **ikasle izandako** (8); **ikasle izango** (9); **ikasle izanik** (5); **ikasle izatea** (6); **ikasle kopuru** (8); **ikasle kopurua** (20); **ikasle kopuruak** (10); **ikasle kopuruaren** (12); **ikasle mugimendua** (6); **ikasle mugimenduaren** (6); **ikasle multzo** (5); **ikasle ohi** (18); **ikasle ohia** (11); **ikasle ohiak** (11); **ikasle ohiek** (15); **ikasle ohien** (11); **ikasle on** (7); **ikasle ona** (33); **ikasle ona izan** (6); **ikasle ona zen** (5); **ikasle onak** (13); **ikasle orok** (5); **ikasle pisu** (5); **ikasle presoak** (5); **ikasle presoek** (9); **ikasle saiatua** (6); **ikasle talde** (30); **ikasle talde bat** (9); **ikasle talde batek** (10); **ikasle zein** (5); **ikasle zela** (5); **ikasle zen** (6); **ikasle zeuden** (5); **ikasle ziren** (5)

**ikastetxeko ikasle** (6); **ikastolako ikasle** (7); **institutuko ikasle** (9); **irakasle eta ikasle** (11); **izan nire ikasle** (7); **lau ikasle** (5); **lehen ikasle** (6); **lizeoko ikasle** (7); **mailako ikasle** (5); **medikuntza ikasle** (6); **mila ikasle** (11); **milaka ikasle** (5); **ni ikasle** (9); **nire ikasle** (31); **oso ikasle** (7); **unibertsitate ikasle** (7); **unibertsitatean ikasle** (6); **unibertsitateko ikasle** (16); **urte ikasle** (5); **urteko ikasle** (16); **yeshivako ikasle** (5); **zen ikasle** (20); **zenbait ikasle** (8); **zenbat ikasle** (8); **ziren ikasle** (16); **zituzten ikasle** (7); **zortzi ikasle** (7); **zuen ikasle** (16); **zure ikasle** (8); **zuten ikasle** (14)

**arte ederretako ikaslea** (10); **baina ikasleak** (5); **bere ikaslea** (5); **bere ikasleak** (18); **beste ikasleak** (9); **da ikasleak** (5); **dira ikasleak** (22); **diren ikasleak** (10); **ditu ikasleak** (12); **dituen ikasleak** (5); **dituzten ikasleak** (12); **du ikasleak** (9); **duen ikaslea** (7); **duten ikasleak** (18); **ederretako ikaslea** (10); **eskolako ikasleak** (10); **eskoletako ikasleak** (6); **eta ikaslea** (13); **eta ikasleak** (63); **eta ikaslearen** (14); **euskal ikasleak** (5); **gainerako ikasleak** (7); **gure ikasleak** (9); **haren ikasleak** (6); **ikaslea bere** (5); **ikaslea da** (19); **ikaslea eta** (12); **ikaslea izan** (19); **ikaslea izan zen** (10); **ikaslea nintzen** (7); **ikaslea zen** (12); **ikasleak bere** (9); **ikasleak bi** (5); **ikasleak dira** (21); **ikasleak ere** (21); **ikasleak eta** (60); **ikasleak eta irakasleak** (5); **ikasleak ez** (21); **ikasleak izan** (10); **ikasleak izango** (6); **ikasleak joan** (5); **ikasleak ziren** (10); **ikastolako ikasleak** (7); **institutuko ikasleak** (5); **lizeoko ikasleak** (9); **mailako ikasleak** (6); **unibertsitateko ikasleak** (12); **urteko ikaslea** (5); **urteko ikasleak** (9); **ziren ikasleak** (18); **zituen ikasleak** (7); **zuen ikaslea** (6); **zuen ikasleak** (11); **zure ikaslea** (13)

**baina ikasleek** (9); **bere ikasleei** (37); **bere ikasleei esan** (5); **bere ikasleek** (15); **beste ikasleek** (7); **d ereduko ikasleek** (5); **da ikasleek** (6); **die ikasleei** (12); **diegu ikasleei** (5); **diete ikasleei** (5); **diren ikasleek** (6); **dituzte ikasleek** (20); **dute ikasleek** (40); **duten ikasleei** (6); **duten ikasleek** (7); **ereduko ikasleek** (7); **esan zien ikasleei** (7); **eskolako ikasleek** (10); **eta ikasleei** (26); **eta ikasleei eman** (5); **eta ikasleek** (52); **gainerako ikasleek** (5); **gure ikasleek** (6); **ikasleei babesa** (5); **ikasleei begira** (6); **ikasleei dei** (10); **ikasleei dei egin** (5); **ikasleei eman** (9); **ikasleei eman zizkien** (6); **ikasleei ere** (5); **ikasleei esan** (10); **ikasleei esan zien** (7); **ikasleei eta** (12); **ikasleek baino** (6); **ikasleek behar** (5); **ikasleek berek** (6); **ikasleek beren** (10); **ikasleek duten** (5); **ikasleek egindako** (6); **ikasleek ere** (13); **ikasleek esan** (9); **ikasleek esan zioten** (8); **ikasleek eta** (27); **ikasleek eta irakasleek** (6); **ikasleek euren** (5); **ikasleek euskara** (6); **ikasleek euskaraz** (5); **ikasleek ez** (44); **ikasleek ez dute** (22); **ikasleek ez zuten** (5); **ikasleek ezin** (5); **ikasleek ordaintzen** (5); **ikasleek parte** (6); **ikasleek zer** (5); **ikastetxeetako ikasleek** (7); **jesusek bere ikasleei** (7); **lizeoko ikasleek** (10); **nire ikasleei** (5); **unibertsitateko ikasleek** (7); **urteko ikasleei** (6); **urteko ikasleek** (8); **zaie ikasleei** (6); **zatitu eta ikasleei** (5); **zien ikasleei** (12); **zieten ikasleei** (5); **zituzten ikasleek** (6); **zitzaien ikasleei** (6); **zure ikasleek** (6); **zuten ikasleek** (24)

**baina ikasleen** (5); **bere ikasleekin** (24); **bere ikasleen** (12); **beste ikasleekin** (5); **da ikasleen** (15); **dauden ikasleen** (6); **dbhko ikasleen** (6); **dira ikasleen** (8); **diren ikasleen** (20); **dituzten ikasleen** (6); **dute ikasleen** (7); **duten ikasleen** (34); **duten ikasleen kopurua** (6); **ereduko ikasleen** (7); **eskoletako ikasleen** (5); **eta ikasleekin** (10); **eta ikasleen** (55); **eta ikasleen artean** (8); **euskal herriko ikasleen** (19); **euskal ikasleen** (11); **herriko ikasleen** (19); **herriko ikasleen gurasoen** (12); **hezkuntzako ikasleen** (6); **ikasleekin batera** (7); **ikasleekin eta** (6); **ikasleen artean** (74); **ikasleen arteko** (21); **ikasleen aurrean** (14); **ikasleen beharretara** (5); **ikasleen burrasoek** (5); **ikasleen dozierentzat** (5); **ikasleen egoitza** (5); **ikasleen egoitzara** (5); **ikasleen erdiak** (6); **ikasleen eskubideak** (11); **ikasleen eskubideen** (13); **ikasleen eta** (14); **ikasleen euskalduntzea** (9); **ikasleen euskara** (6); **ikasleen guraso** (9); **ikasleen gurasoak** (5); **ikasleen gurasoek** (5); **ikasleen gurasoen** (17); **ikasleen gurasoen elkarteak** (5); **ikasleen gurasoen elkarteko** (5); **ikasleen kopurua** (30); **ikasleen kopuruak** (8); **ikasleen lanak** (6); **ikasleen nazioarteko** (6); **ikasleen ordezkari** (6); **ikasleen parte** (5); **ikasleen sindikatu** (6); **ikasleen sindikatuak** (5); **ikasleen zerrenda** (5); **irakasleen eta ikasleen** (5); **lipako ikasleekin** (5); **lizeoko ikasleen** (8); **mailako ikasleen** (6); **unibertsitateko ikasleen** (9); **urteko ikasleen** (6); **zen bere ikasleekin** (5); **zen ikasleen** (7)

**bat ikaslek** (13); **bere ikasleetako** (5); **bi ikaslek** (5); **diren ikasleentzat** (7); **eta ikasleentzako** (5); **eta ikasleentzat** (7); **euskal ikasleon** (8); **hainbat ikaslek** (8); **hiru ikasletik** (5); **ikasleengana joan** (6); **ikasleentzat eta** (7); **ikasleetako bat** (10); **ikasleetako batek** (10); **ikaslek egin** (5); **ikaslek eman** (5); **ikaslek eta** (10); **ikaslek parte** (8); **ikaslek parte hartuko** (5); **ikasleren artean** (5); **ikasleren bati** (5); **ikaslerik ez** (5); **ikaslerik onena** (6); **ikasletik gora** (7); **mailako ikasleentzat** (5)

---

# ikaslegai *iz* etorkizunean ikasle izango den pertsona.

**Ikaslegaiak** sarrera froga ofizialak gaindituak izan ondoren. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Horrekin, **ikaslegaien** gurasoen eskakizunak ez betetzea salatu nahi du. Berria - Euskal Herria

---

# ikaslego *iz* ikasletza.

Gaztearen eta memento berean esperantzaren kopa eskainia izan zako Eñaut Saldubehere-ri, "Perkain" batasunean hasirik bere **ikaslegoa** eta orai "Zaharrer Segin" segitzen duena. Herria

---

# ikasleku *iz* ikasteko lekua. ik **ikastoki**.

Loleku baino **ikasleku** bihurtu nuen hura ere. Arantxa Iturbe

---

# ikasleria *iz* ikasle multzoa, ikasleak.

Jaiki orduko erabaki zuen gure irakasle maiteak ez zegoela eskolarik; **ikasleria** gustura asko. Joxean Sagaztizabal

**Ikasleria,** irakasleria, irakaskuntza lerro, antolakuntza eta titulazio propioak izanen lituzke unibertsitate horrek. Berria - Euskal Herria

Euskal **ikasleriari** inposatzen zaizkion Frantziako eta Espainiako hezkuntza sistema arrotzek ez dituzte gure eskubideak errespetatzen. Berria - Euskal Herria

Gaur egun Euskal Herrian 268.354 euskal ikasle euskalduntzen ez duten ereduetan ari dira ikasten, hots, **ikasleria** osoaren %62. Berria - Euskal Herria

**Ikasleriaren** hazkundea zertxobait txikiagoa izan da. Berria - Harian

**Ikasleria** errektoreordea izan zen 1991tik 2000ra. Berria - Euskal Herria

---

# ikasliburu *iz* eskola liburua; ikasgai bat azaltzen duen liburua.

Gure unibertsitateko **ikasliburuetan**. Pello Salaburu

**Ikasliburu** guztietan dator. Juan Garzia

Idatzizko zereginetarako ere egin zen, gehienbat **ikasliburuetan** eta esparru tekniko eta zientifikoetan erabiltzeko. Koldo Zuazo

**Ikasliburuetan** erabiltzen den hizkerak egokia, ulertzeko erraza izan behar du. Berria - Euskal Herria

**Ikasliburua** bera ergelkeria hutsa zen, liburu frantses batzuetatik puskak hartuz egina, argitasunik eta gogo-berotasunik gabe idatzia. Josu Zabaleta

**Ikasliburur**ik gabeko irakaskuntza. Berria - Euskal Herria

Hor dago, adibidez, **ikasliburuen** alorrean egindako lana, txalotzekoa, salbuespenak salbuespen. Ana Urkiza

**Ikasliburuetako** litografiak. Lopez de Arana

**Ikasliburuak,** ordenagailuak edo eskolako bestelako materialak. Berria - Harian

**Ikasliburuak** argitaratzen ditugu, eta etxe nagusia Chicagon dago. Koro Navarro

**Ikasliburuetarako** mailegu sistema ezartzeak. Berria - Harian

**Ikasliburuen** mailegutza sistemaren kontra. Berria - Harian

**Ikasliburuak** erosteko laguntza zuzenaren alde. Berria - Harian

**Ikasliburuen** doakotasunaren eztabaida. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ikasliburuak** (3); **familiei ikasliburuak** (3); **familiei ikasliburuak erosteko** (3); **ikasliburua ez** (4); **ikasliburuak erosteko** (5); **ikasliburuak euskaraz** (3); **ikasliburuak ez** (5); **ikasliburuak ez diren** (3); **ikasliburuak maileguan** (3); **ikasliburuen doakotasuna** (6); **ikasliburuen doakotasuna mailegu** (3); **ikasliburuen doakotasunaren** (5)

---

# ikasmahai *(orobat **ikas-mahai** g.er.)* **1** *iz* ikasteko mahaia.

Nire **ikasmahaia** norabidez aldatu nuen, leihoko argia ezkerretik sartzen zitzaidala ipinia baineukan. Juan Kruz Igerabide

**Ikasmahaian** jarri eta, argi triste baten pean, gramatika eta hiztegien gainean maratz-maratz sarturiko orduen fruitua. Juan Garzia

Euklidesen Elementuei buruzko hamahiru **ikas**-mahaiekiko ikuskizun amaiezin hura. Jon Muñoz

**2** (ikasgeletan)

Gela erdiko **ikasmahaiaren** alde banatara eseri ziren, eta larruzko maletatxotik bere paperak eta apunteak eta liburuak ateratzen hasi zen irakaslea. Iban Zaldua

Eskolako mutikoak **ikasmahaien** gainean hilda geratzen ziren euliek helduta. Pello Lizarralde

Ikasturtez ikasturte nire gibelean jasatera behartu baininduen, gelako **ikasmahaien** lerroan. Aingeru Epaltza

**Ikasmahaian** elkartu gintuzten ia lehenengo egunetik: García ni, Garciandía bera. Iban Zaldua

Atsegin hartzen dut eguzki hau gozatuz, **ikasmahaiaren,** klarionaren, arbelaren haur usain hori dastatuz. Josu Zabaleta

---

# ikasmaila *(orobat **ikas(-)maila**)* *iz* hezkuntza maila.

Lanera bidaltzen zituen lehen **ikasmaila** amaitutakoan. Jose Morales

Emaitzen zain geratu nintzen, hurrengo **ikasmailara** igarotzeko itxaropenez, irakasleak eskuzabal jokatuko zuelakoan. Juan Kruz Igerabide

Hamar urte daramakialako **ikas** maila berean. Joxerra Garzia

Hitzartutako **ikas**-mailetara iristea sustatu behar da. Berria - Euskal Herria

---

# ikasmaterial *(orobat **ikas(-)material**)* *iz* ikasteko liburu eta lanabesen multzoa.

Ikasliburuaren kontzeptua **ikasmaterialarena** baino murritzagoa da; hor sartuko lirateke erreferentziazko lanak, hiztegiak, entziklopediak, lan monografikoak eta bestelakoak. Berria - Euskal Herria

**Ikasmaterialak** sortzea ez da lan erraza. Berria - Euskal Herria

Ikas Pedagogi Zerbitzuen **ikas-materialen** aurkezpenean. Berria - Euskal Herria

**Ikas**-materialaren itzulpena. Berria - Euskal Herria

**Ikasmaterialetako** hizkuntzaren egokitasun-irizpideak finkatzeko. Berria - Euskal Herria

Irakasleek ikastaroak egiten dituzte, **ikas material** asko sortu da... Berria - Kultura

**Ikas**-materiala prestatzen ari dira. Andoni Egaña

Euskarazko **ikasmaterial** onenak eta berritzaileenak saritu ditu Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak. Berria - Euskal Herria

**Ikasmaterial** osagarririk onena: Zubia argitaletxearen Matematikako koadernoak 1.1, 1.2, 1.3 LMH. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euskarazko ikasmaterial** (3); **ikasmaterialak sortzea** (3)

---

# ikasmaterialgintza *iz* ikasmaterialak egitea.

Euskarazko **ikasmaterialgintzari** doakionez, Euskal Herriko pedagogia zentroa da IKAS. Herria

**Ikasmaterialgintzako** proiektu kudeatzaile bat. Herria

---

# ikasmin *iz* ikasteko gogo bizia.

-Seme-alabon artean, soinuaren edo beste tresnaren baten **ikasminik** ez jatzuen sortu? Xabier Amuriza

Gure gizarteen egoera zein den baino, pozgarri da jurisprudentziak, oraingoz bederen, zientzia osatzea eta zientzia horrek jakituria erakarri, norberaren izatea bete eta **ikasmina** esnatu ahal izatea. Andres Urrutia

Diosala egin, eta neure **ikasmina** azaldu diot segituan, maistra xaharrari: [...]. Patziku Perurena

---

# ikaspen *iz* ikastea; irakaspena.

Beste haurrekin harremanetan jartzen, harreman horiek gidatzen dituzten arauak barneratzen, ohiturak jasotzen ikasten du haurrak lehen etapa horretan, eta **ikaspen** horiek bizitza osorako izanen dute eragina umearengan, Tafallako eskolako zuzendariaren ustez. Berria - Harian

Arratsaldean *skate* eta *roller* lehen **ikaspenak** urririk eskainiko dira. Herria

---

# ikaspostu *iz*

Atseginez jakinarazten dizugu **ikaspostu** bat duzula Hogwartseko Sorgin eta Azti Eskolan. Iñaki Mendiguren

---

# ikastalde *iz* ikasle taldea.

Guk 25 haurretako 18 **ikastalde** ditugu eta Hezkuntza Departamentuak 19 ikasgela eman dizkigu bakarrik. Berria - Euskal Herria

**Ikastaldeak** minutu batzuk behar izan zituen berriro lasaitzeko. Iñaki Mendiguren

---

**ikastaldi** *(297 agerraldi, 17 liburu eta 164 artikulutan –horietako 143 Herria aldizkarian-; ETCn 1.133 agerraldi –horietako 791 Herria aldizkarian-)* **1** *iz* ikastaroa; ikas jardunaldia.

Atzo Iruñean amaitu zen udako ikastaroen 32. edizioaren balorazio ona egin du zuzendariak, eta Miarritzeko eta Iruñeko **ikastaldien** artean lortu den oreka azpimarratu. Berria - Euskal Herria

Natur Zientziak Sailak bi ikastaro antolatu ditu Iruñeko **ikastaldirako**. Berria - Euskal Herria

Argazkiari eskaini erakustoki iraunkor batez gain, **ikastaldiak** eta sorkuntza egonaldiak eskaintzeko espazio batek osatuko du Argazkiaren Etxeak. Berria - Kultura

Tolosako Institutu Katolikoak antolatu udako **ikastaldietan** hitzaldi baten emaitera etorri zela Uztaritzeko Seminariora Robert Schuman jaun ministroa. Piarres Xarriton

Bazkoko **ikastaldian** Euskal Herriko historiaz mintzaldi baten ematera gonbidatu zuten antolatzaileek. Itxaro Borda

Lehen urratseko hiru **ikastaldi** antolatuko ditu AEK-k. Berria - Euskal Herria

Teologia politikozko **ikastaldiak**. Piarres Xarriton

Italiako XX. mendeko ipuingintzari buruzko zazpi orduko **ikastaldi** bat emateko. Iban Zaldua

Ikasi nahi duten haurrentzako **ikastaldiak** egonen dira egun osoan. Berria - Euskal Herria

Soinularien **ikastaldiak** ere badira elkarte huntan. Herria

Hasi nintzen ezohiko **ikastaldietan,** sakramentuak eta arimaren salbamenari zuzenean doazkion beste gai izpiritualak hunkitzen dituzten Dekretalen tituluak argitzen. Piarres Xarriton

**Ikastaldi** ttipi bat egin dugu, 96 oren orotara. Herria

Itsuentzako Institutu Juduarekin harremanetan jarri ginen **ikastaldi** trinko batean sar zedin (astean lau saio). Xabier Olarra

Euskararen Aholku Batzordeak **ikastaldiak** trinkotzea gomendatzen du. Berria - Euskal Herria

**Ikastaldien** arduraduna. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Mineralogia **ikastaldian** ezagutzen ikasitako silizio, kaltzio eta magnesio ospetsuei. Juan Garzia

Aurten berriz ere Perkain pilota **ikastaldiak** arrakasta haundienarekin iragan dira Donapaleun. Herria

Puntu horiek berreskuratzeko beharrezkoa da segurtasun **ikastaldiak** segitzea. Berria - Euskal Herria

Aintziartek aipu ditu, jarraian [...] Lafitte xaharrarekin, Narbaitz zenarekin eta gutarik beste zenbaitekin berak hartu zituen historiazko, literaturazko eta gramatikazko lehen euskal **ikastaldiak**. Piarres Aintziart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**akademiaren ikastaldi** (4); **bi ikastaldi** (4); **da ikastaldi** (4); **dantza ikastaldi** (6); **dantza ikastaldiak** (5); **dira ikastaldi** (4); **dira ikastaldiak** (3); **ikastaldi bat** (24); **ikastaldi bat antolatzen** (4); **ikastaldi batean** (6); **ikastaldi batzu** (7); **ikastaldi berezi** (11); **ikastaldi berezi bat** (4); **ikastaldi berezi batzu** (6); **ikastaldi eta** (12); **ikastaldi hori** (6); **ikastaldi horiek** (6); **ikastaldi horiek urririk** (3); **ikastaldi horietan** (3); **ikastaldi nagusia** (4); **ikastaldi nagusian** (3); **ikastaldiak ere** (4); **ikastaldiak eta** (3); **ikastaldian parte** (4); **ikastaldiaren prezioa** (3); **informatika ikastaldi** (6); **informatika ikastaldiak** (3); **kantu ikastaldiak** (3); **lehen ikastaldia** (3); **ravel akademiaren ikastaldi** (4); **ren ikastaldiak** (3)

---

ikastarazi ik **ikasarazi**.

---

**ikastaro** *(335 agerraldi, 67 liburu eta 135 artikulutan)* **1** *iz* gai bati buruz ematen diren eskola edo irakaspen jarraituen multzoa. ik **ikastaldi.**

Urteetan emandako hitzaldi, **ikastaro** eta artikuluetan azaldutako iritzi eta gogoetak. Andoni Egaña

Natur Zientziak Sailak bi **ikastaro** antolatu ditu Iruñeko ikastaldirako. Berria - Euskal Herria

3.149 pertsona izan ziren jardunaldietan eta 1.112 **ikastaroetan**. Berria - Ekonomia

**Ikastaro** horietako batek kable bideko telebista zuen gaitzat. Joxerra Garzia

Astebeteko **ikastaro** bat eman behar nien Finisterreko ordezkariei Brest-en. Ramon Saizarbitoria

Masaje-emaile izateko **ikastaro** bat egina nintzen ordurako. Joxan Elosegi

Klausenhof Akademie delako ikastetxean matrikulatzea lortu nuen, etorkin turkiarrentzako **ikastaro** batean. Joxerra Garzia

UNED-Bergarak euskarazko **ikastaro** gehiago eskainiko ditu. Berria - Euskal Herria

Yogako **ikastaro** labur bat eman zezala eskatu zioten, gutxienez oinarrizko asanak ikasteko. osasun arloko profesionalak trebatzeko **ikastaro** bereziak antolatzea. Juan Kruz Igerabide

Euskarazko **Ikastaro** praktikoa antolatu dute UEUk eta Aranzadik. Berria - Kultura

250etik gora ikaslek parte hartu dute **ikastaro** monografikoetan. Berria - Kultura

Eskola amaitzean, erresistentziako gazte batek **ikastaro** bat ematen zigun heziketa politikoaz. Juan Kruz Igerabide

Gurasoei **ikastaro** bat eskaini zien, drogek kultura diferenteetan duten lekuaz. Aingeru Epaltza

Erakusketa bat dela, hirugarren adinekoen **ikastaro** bat dela. Iban Zaldua

Donostiako udalak antolatzen zituen **ikastaro** batzuetara joan ginen alfabetatzera. Ana Urkiza

**Ikastaro** hartarako matrikula egin ala ez zalantzatan zebilela esan zionean. Imanol Zurutuza

Eta horretarako, beharbada, **ikastaro** batzuk antolatu beharko lirateke irakasleei begira. Pello Salaburu

Gutxik burutu zuten **ikastaro** hura. Jose Morales

Katearen zuzendariak neure formazioari begira eskaini zidan **ikastaro** gehigarriarekin. Joxan Elosegi

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beharbada **ikastaro** amaierarako maiteago izango dut. Oskar Arana

Leideneko irakaskuntza institutuko **ikastaro** liburuxka eskatu du. Josu Zabaleta

Leire Arrizabalaga eta Ainhoa Beola **ikastaro** arduradunek ikastaro praktikoa egin nahi izan dute. Berria - Euskal Herria

Bai irakasleen trebatzaile gisa, eta baita **ikastaro** antolatzaile gisa ere. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Besteak beste, gerraosteko britainiar literaturari buruzko gau-**ikastaro** bateko eskoletara joan zen, hamabost astez, udaberri gogoangarri batean. Iban Zaldua

Aerobic **ikastaro** batean. Joxan Elosegi

Münsterreko unibertsitateak hizkuntz **ikastaro** bat eskaintzen du bertan matrikulatzen diren atzerritarrentzat. Joxerra Garzia

Bukatu gabe utzi behar izan nuen musika **ikastaro** hura. Fernando Rey

Aspalditik nirekin lanean ari ziren bi ikertzaile, Charles Babinet eta Hubert Condamine, prestakuntza-**ikastaro** bana egitera abiatu ziren, bata Ingalaterrara eta bestea Estatu Batuetara. Juan Garzia

Logikako sarrera-**ikastaro** baterako. Askoren artean

Onofre, irakaslea, birziklatze **ikastaro** bat egiten ari dena. Bernardo Atxaga

Pozez esan dezaket haren aita dohakabeak Unibertsitateko Sakontze **Ikastaro** batean uste duela bere alaba. Antton Olano

**4** ***ikastaro trinko*** eskola-ordu askoko egun gutxitan ematen den ikastaroa.

Arantxak hogeita hamabi urte bete zituen egunean, Zen **ikastaro trinko** horretarako matrikula ordaindu zion. Iban Zaldua

Gizarajoak mundologia **ikastaro trinkoa** egin du bidaia honetan zehar. Patxi Zubizarreta

Errusierazko **ikastaro trinkoa**. Berria - Gaiak

Uda osoa eman nuen irakurketan, literatura unibertsaleko **ikastaro trinko** bat egin banu bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Big City-n urtero egiten zen goi mailako **ikastaro trinko** haren eragile eta zuzendari nagusia. Josetxo Azkona

**Ikastaro trinkoak** eginarazi zizkien han. Jon Muñoz

1994an sortua, urtero eskola eta **ikastaro trinkoak** antolatzen ditu komunikazio alternatiboaren inguruan. Txema Ramirez de la Piscina

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste ikastaro** (3); **bi ikastaro** (4); **buruzko ikastaro** (9); **buruzko ikastaro bat** (3); **da ikastaro** (3); **dute ikastaro** (3); **eta ikastaro** (13); **euskarazko ikastaro** (3); **hainbat ikastaro** (4); **ikastaro antolatu** (6); **ikastaro bana** (4); **ikastaro bat** (43); **ikastaro bat egin** (4); **ikastaro bat egiten** (4); **ikastaro bat eman** (4); **ikastaro bat ematen** (3); **ikastaro batean** (19); **ikastaro batzuetan** (6); **ikastaro batzuetara** (3); **ikastaro batzuk** (7); **ikastaro batzuk egin** (3); **ikastaro berezi** (4); **ikastaro bereziak** (16); **ikastaro bereziak izango** (3); **ikastaro eman** (3); **ikastaro eskainiko** (5); **ikastaro eskainiko ditu** (3); **ikastaro eta** (8); **ikastaro gehiago** (5); **ikastaro haietan** (3); **ikastaro hartan** (3); **ikastaro hartarako** (3); **ikastaro hartarako matrikula** (3); **ikastaro hau** (3); **ikastaro hauek** (4); **ikastaro hori** (8); **ikastaro horiek** (8); **ikastaro horien** (3); **ikastaro horietako** (4); **ikastaro horretan** (3); **ikastaro hura** (4); **ikastaro izango** (6); **ikastaro izango dira** (5); **ikastaro labur** (3); **ikastaro labur bat** (3); **ikastaro praktikoa** (3); **ikastaro trinko** (10); **ikastaro trinko bat** (5); **ikastaro trinkoa** (4); **ikastaro trinkoak** (9); **ikasteko ikastaro** (3); **izateko ikastaro** (3); **nuen ikastaro** (3); **oso ikastaro** (3); **prestakuntza ikastaro** (4); **udako ikastaro** (3); **udako ikastaro batzuetan** (3); **zen ikastaro** (3); **zenbait ikastaro** (3); **zituen ikastaro** (3); **zuten ikastaro** (3)

**buruzko ikastaroa** (13); **buruzko ikastaroa antolatu** (3); **da ikastaroa** (7); **dantza ikastaroa** (3); **doktorego ikastaroa** (5); **dute ikastaroa** (3); **eta ikastaroa** (3); **ikastaroa antolatu** (10); **ikastaroa antolatu du** (8); **ikastaroa da** (3); **ikastaroa egin** (10); **ikastaroa egiten** (9); **ikastaroa egiten ari** (7); **ikastaroa eman** (5); **ikastaroa emango** (9); **ikastaroa emango du** (7); **ikastaroa ematen** (3); **ikastaroa ematen ari** (3); **ikastaroa ere** (3); **ikastaroa eskainiko** (3); **ikastaroa eta** (4); **ikastaroa hasi** (4); **ikastaroa hasiko** (3); **ikastaroa izango** (3); **ikastaroa izango da** (3); **ikastaroa utzi** (3); **inguruko ikastaroa** (5); **orduko ikastaroa** (6); **udako ikastaroa** (5)

**antolatutako udako ikastaroak** (3); **buruzko ikastaroak** (7); **dira ikastaroak** (5); **ditu ikastaroak** (4); **dituzte ikastaroak** (4); **doktorego ikastaroak** (5); **du ikastaroak** (3); **ehuren udako ikastaroak** (4); **eta ikastaroak** (5); **euskara ikastaroak** (6); **euskarazko ikastaroak** (4); **hirugarren uda ikastaroak** (3); **ikastaroak antolatu** (9); **ikastaroak antolatzeko** (3); **ikastaroak antolatzen** (5); **ikastaroak dira** (8); **ikastaroak egin** (8); **ikastaroak egiteko** (3); **ikastaroak egiten** (4); **ikastaroak eman** (3); **ikastaroak emateko** (4); **ikastaroak ematen** (6); **ikastaroak ematen ditu** (3); **ikastaroak ere** (8); **ikastaroak eskainiko** (6); **ikastaroak eskainiko ditu** (3); **ikastaroak eskainiko dituzte** (3); **ikastaroak eta** (14); **ikastaroak ez** (3); **ikastaroak ez dira** (3); **ikastaroak iraun** (3); **ikastaroak uztailaren** (3); **lehen ikastaroak** (3); **musika ikastaroak** (3); **prestakuntza ikastaroak** (5); **ren udako ikastaroak** (3); **uda ikastaroak** (8); **udako ikastaroak** (30)

**antolatutako ikastaroan** (8); **bigarren ikastaroan** (4); **bigarren ikastaroan idazkera** (3); **buruzko ikastaroan** (4); **dute ikastaroan** (3); **eskolaren bigarren ikastaroan** (3); **ikastaroan idazkera** (3); **ikastaroan idazkera literarioa** (3); **ikastaroan izena** (4); **ikastaroan parte** (4); **ikastaroan parte hartu** (4); **ikastaroan zehar** (4); **ikastaroaren amaieran** (3); **ikastaroaren azken** (3); **ikastaroaren barruan** (4); **ikastaroaren bidez** (3); **ikastaroaren zuzendariak** (3); **izeneko ikastaroaren** (3); **sorgintzarin ikastaroaren** (3); **udako ikastaroan** (3); **udako ikastaroek** (8); **zuen ikastaroan** (3)

**aurtengo ikastaroen** (3); **dituen udako ikastaroen** (4); **dituzte ikastaroetan** (3); **doktorego ikastaroetan** (3); **ehuko udako ikastaroetan** (7); **ehuren udako ikastaroen** (4); **ehuren udako ikastaroetan** (12); **eta ikastaroetan** (3); **eta udako ikastaroko** (7); **etxepare udako ikastaroen** (4); **ikastaroen barruan** (7); **ikastaroen lehen** (3); **ikastaroen zuzendariak** (5); **ikastaroetan emandako** (3); **ikastaroetan ere** (3); **ikastaroetan izena** (5); **ikastaroetan izena emateko** (4); **ikastaroetan parte** (6); **ikastaroez gain** (4); **ikastaroko gazteen** (6); **ikastaroko gazteen gogoko** (5); **ikastaroko ikasleek** (4); **ikastaroren bat** (3); **uda ikastaroen** (7); **udako ikastaroen** (26); **udako ikastaroen barruan** (6); **udako ikastaroen zuzendariak** (3); **udako ikastaroetako** (4); **udako ikastaroetan** (39); **udako ikastaroko** (7); **udako ikastaroko gazteen** (6)

---

# ikastaroburu *(corpusean **ikastaro-buru** soilik)* *iz* ikastaro baten buru dena.

**Ikastaro**-buru irakasle laguntzaile gazte bat zen, argala, luzea, konkor samarra. Juan Garzia

---

# ikaste 1 *iz* ezaguera multzo bat iristea, zerbait egiteko edo erabiltzeko gaitasuna edo trebetasuna bereganatzea. ik **ikaskuntza; ikasketa 2.**

Halere ez dira haurrak enoatzen katiximan! gogotik ari dira beren **ikaste** eta lantxoetan. Herria

Iduritu zait **ikaste** abstraktuek naturatik urrundu nautela. Piarres Aintziart

Autore batzuek **ikaste** naturala (jabekuntza) eta formala (ikaskuntza) bereizteko erabiltzen dute; beste batzuengan, jabekuntza lehenengo hizkuntza (H1) **ikasteari** dagokio eta ikaskuntza, bigarren hizkuntza (H2) ikasteari. Lourdes Oñederra

**Ikaste** espliziturako lobulu tenporalen erdialdeko sistemaren osotasuna beharrezkoa bada ere, **ikaste** inpliziturako bide primitiboago eta lausoagoak erabil daitezke. Xabier Olarra

Herri baten mendetako arnasa sentitzea, gozatzea, mila galdera ergelen erantzuna buruz **ikaste** hutsa balitz bezala! Patziku Perurena

**2** (hitz elkartuetan)

Mendirat ateraldiak, igerika **ikaste,** ekintzak ingurumenaren inguruan, "rafting" eta "surf" iharduerak. Herria

· **Ikaste** prozesu bat izan zen Sartrerentzat *Goragalea* idaztea. Berria - Kultura

**Ikaste** prozesuaren emankortasuna. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

HEMEN Elkarteak antolatzen du **ikaste** bidaia bat Nafarroara maiatzaren 5ean, Salbatore ortzegunean. Herria

---

# ikastegi *(ETCn **2.556** agerraldi)* *iz* ikasketak egiteko lekua.

387. urtean sortutako **ikastegia**. Xabier Olarra

1789ko iraultzaz geroz, alabaina, Frantziaren eremuetako **ikastegi** guztietan, izan zitezen Errepublikarenak edo Elizarenak, Enperadorearenak edo Erregerenak, irakatsi izan da beti, Estatua eta Nazioa eta Populua eta Aberria: patrie, peuple, nation, état, denak gauza bera direla, egundainotik eta sekulakotz Frantzian. Piarres Xarriton

Dena den, Piarres-Larzabal **ikastegiak** den tokian segitu behar du aurten segurik, ez da hortan haratik ez hunatik. Herria

Fedegabeei armak edo beste edozer gauza emateko debekuaz, Coimbrako Jesusen Lagundiaren **Ikastegi** Ezagunari eskainia. Piarres Xarriton

Ikasketak egin ondoan Donibane Garazin, Madrilgo San Fernando deitu Arte Ederretako **ikastegira** joan zen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gauzak horrela, **ikastegi** mota bakarra egon beharko litzateke eta ikastetxe horretan era guztietako ikasketak eskaini beharko lirateke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Iraken, Hego Amerikan bezala, atxilotuak torturatzeko teknikak Georgiako SOA **ikastegian** eta CIAren eskuliburuekin irakasten dela esan dio berriari akademiaren ibilbidea zaintzen duen taldeko kideak. Berria - Mundua

Turingo Unibertsitateko Kimika **Ikastegiko** biblioteka beneragarrira. Juan Garzia

Euskal Herriko goi mailako musika **ikastegiak**, Musikenek, jam session-a egingo du gaur 20: 00etan Miramar jauregian. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baionako iut ikastegian** (4); **baionako musika ikastegi** (8); **ditu labayru ikastegiak** (3); **donamaria ikastegian** (3); **ikastegi batean** (6); **ikastegi batzuk** (3); **ikastegi hortan** (7); **ikastegi nagusian** (6); **ikastegi nagusian moldatu** (3); **ikastegia eta** (3); **ikastegian dabiltzan** (3); **ikastegian eta** (5); **ikastegian eta baionako** (3); **iut ikastegian** (6); **labayru ikastegia** (8); **labayru ikastegiak** (11); **larzabal ikastegia** (5); **larzabal ikastegiak** (4); **larzabal ikastegian** (10); **mailako musika ikastegian** (3); **musika ikastegi** (10); **musika ikastegi nagusian** (6); **musika ikastegian** (5); **piarres larzabal ikastegia** (5); **piarres larzabal ikastegiak** (4); **piarres larzabal ikastegian** (9); **xalbador ikastegia** (9); **xalbador ikastegian** (4)

**baionako ikastegietan** (4); **baionako musika ikastegiko** (3); **ikastegiaren alde** (5); **ikastegiaren pesta** (3); **ikastegiko gaztetxo** (3); **ikastegiko haurren** (3); **ikastegiko ikasle** (3); **ikastegiko orkestra** (3); **labayru ikastegiaren** (10); **labayru ikastegiko** (4); **larzabal ikastegiaren** (9); **larzabal ikastegiaren alde** (5); **larzabal ikastegiko** (13); **larzabal ikastegiko gaztetxo** (3); **larzabal ikastegikoak** (3); **mailako musika ikastegiko** (3); **musika ikastegiko** (7); **musika ikastegiko orkestra** (3); **piarres larzabal ikastegiaren** (9); **piarres larzabal ikastegiko** (13); **piarres larzabal ikastegikoak** (3); **santa terexa ikastegiaren** (3); **terexa ikastegiaren** (3); **xalbador ikastegiko** (5)

---

**ikasterraz** *(orobat* ***ikas erraz****)* *izond* ikasteko erraza.

Hiztun guztiendako ez bada ere, gehienendako, behintzat, ulerterraza eta **ikasterraza** izatea. Koldo Zuazo

Bestalde, erdiguneko hizkera zenez, euskaldun guztiendako ulerterraza eta **ikasterraza** gertatzen zen. Koldo Zuazo

Instrumentua **ikas** erraza dela dio. Berria - Kultura

---

**ikastetxe** *(ETCn* ***31.147*** *agerraldi; orobat* ***ikas etxe*** *g.er.)* **1** *iz* irakaskuntzan edozein mailatan, baina bereziki lehen mailan edo erdikoan, ari den etxea.

Legazpiko lasalletarren El Buen Pastor **ikastetxea,** orain ikastola den hori. Joxerra Garzia

DBHa Antiguako Jakintza ikastolan egiten duten gehienek Luberri **ikastetxean** egiten dute gero Batxilergoa. Joxerra Garzia

Ikastola bitan zatitu zenean partaidetza sozialeko **ikastetxeen** sarean jarraitzearen aldeko apustua egin zuten gurasoek omenaldia jasoko dutela. Berria - Euskal Herria

**Ikastetxe** batean izena emanda, beraz, ez lehen-hezkuntzako eskola batean. Jon Muñoz

Gerard Urrutia Ziburuko **ikastetxeko** lehendakariaren hitzak dira. Berria - Euskal Herria

800 metrotara **ikastetxe** bat eta ikastola bat daude. Berria - Euskal Herria

Ikasleek aukera gutxi dituzte **ikastetxe** zein unibertsitateetako erabaki organoetan parte hartzeko. Berria - Harian

Donostian, marianisten **ikastetxean**. Joxerra Garzia

Birjintasuna emakume txepelen txepelkeriatzat baitzuen, mojen **ikastetxe** batean ikasi zuen arren. Joan Mari Irigoien

Hamasei urte zituen, eta prestigio handiko **ikastetxe** batean estudiatzen zuen. Bernardo Atxaga

Arte eszenikoen **ikastetxe** ofizialaren proiektua. Berria - Kultura

Dena suntsitu, edo Arte Ilunetarako **ikastetxe** bihurtuko du. Iñaki Mendiguren

Eliza katolikoa denetan sartua zen, biziko sail guzietan, fraile eta serorek sekulako **ikas** etxeak bazituzten, lan haundia egiten baitzuten haur eta gazteak altxatzeko. Herria

Bazen **ikas** etxe bat, Amerikanoek kudeatzen zutena. Herria

Elur ekaitzak 29 **ikastetxe** itxiarazi zituen atzo. Berria - Harian

**ikastetxeko** jantokian bazkaltzen ari ginela. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ikastetxeetako** lo-ganbarek hogei pertsona hartzen dituzte gehienez ere, eta begirale batek zorrotz zaintzen ditu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Ikastetxeetako** organo gorenek. Berria - Euskal Herria

**Ikastetxeetatik** *bullying*-a desagerrarazteko borrokan. Berria - Euskal Herria

**ikastetxeko** maisuek aipatu dutenez. Berria - Euskal Herria

**Ikastetxeko** lankideren batzuek ematen zidaten tarteka Monikaren berri Joxean Agirre

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Tolosako Eskolapioen **ikastetxe** zaharra. Xabier Mendiguren Elizegi

Beti ikasi nuen **ikastetxe** erlijiosoetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hezkuntza Sailak ziklo hau **ikastetxe** publikoetan ere zabaltzeko konpromisoa hartu beharko luke. Berria - Euskal Herria

Nafarroako D ereduko **ikastetxe** publikoen eskaintza ezagutarazi. Berria - Euskal Herria

Itunpeko **ikastetxe** pribatuek matrikulazioan. Berria - Euskal Herria

**Ikastetxe** pribatu batean egin zituzten batxilergoko ikasketak. Josu Zabaleta

UNED Bergarako **Ikastetxe** Elkartuan izango dira ikastortuak. Berria - Kultura

**Ikastetxe** kristauen elkartea. Berria - Mundua

Seaskak **ikastetxe** elebakarrek baino emaitza hobeak lortu ditu baxoan. Berria - Euskal Herria

Bigarren Hezkuntzako **ikastetxeetako** zuzendarien elkartea. Berria - Euskal Herria

Semea edo alaba frantses edo ingeles **ikastetxe** batera bidaltzeak. Pello Salaburu

**3** ikastetxe bateko kideen multzoa.

Zaletasun handia zegoen quidditcherako, eta, ohi bezala, **ikastetxe** osoa abiatu zen partida ikustera. Iñaki Mendiguren

Baina batez ere Buckbeaken arazoak ematen zion Harryri kemena **ikastetxe** osoaren aurrean Malfoy menderatzeko. Iñaki Mendiguren

Ziegetan Quirrell maisuaren eta zure artean gertaturikoa erabat sekretua da, eta, beraz, **ikastetxe** osoak daki, noski. Iñaki Mendiguren

**Ikastetxe** osoaren inplikazioa eta ikastetxearen eta familiaren arteko harremana. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ikastetxe** aldaketak kalte egin zion gero. Pako Aristi

Hezkuntza Saileko **Ikastetxe** zuzendariak. Berria - Harian

Horrela, **ikastetxe** motaren arabera behintzat, ez litzateke irakasleen arteko bereizketarik egingo. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskola, moja-**ikastetxe** bat amak hala nahi zuelako, unibertso izugarri bat zen berarentzat. Joseba Urteaga

Garai batean moja-**ikastetxeko** zuzendariak gabonetako kantak kantarazten zizkigun. Joseba Urteaga

Amezketako (Gipuzkoa) Zumadi Herri **Ikastetxean**. Berria - Euskal Herria

Batxilergoa lortzeko ikasketak jarraitu nahi zituelarik, lanbide **ikastetxe** batera bideratu nahi izan zuten. Berria - Harian

Laborantxa **ikastetxeko** ikaslentzat logelak eginen dituzte. Herria

Gau-bilera iskanbilatsu baten ondoren, bi-biek aho batez hartu zuten ni barne-**ikastetxe** batera bidaltzeko erabakia. Jesus Mari Mendizabal

Hainbat administrazio-**ikastetxe** sortu zituen, errusiarrak Mendebaldeko administrazio-metodo berrietara bultzatzeko. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**basauriko ikastetxe** (6); **beste ikastetxe** (8); **bi ikastetxe** (6); **bigarren mailako ikastetxe** (6); **d ereduko ikastetxe** (3); **da ikastetxe** (6); **diren ikastetxe** (4); **ditu ikastetxe** (4); **dituzten ikastetxe** (3); **du ikastetxe** (3); **dute ikastetxe** (4); **duten ikastetxe** (4); **ere ikastetxe** (3); **ereduko ikastetxe** (3); **eta gipuzkoako ikastetxe** (3); **eta ikastetxe** (32); **eta ikastetxe guztietan** (4); **gipuzkoako ikastetxe** (3); **hainbat ikastetxe** (5); **herri osoko ikastetxe** (3); **herriko ikastetxe** (3); **hiriko ikastetxe** (4); **hiru ikastetxe** (10)

**ikastetxe arruntetara** (3); **ikastetxe asko** (4); **ikastetxe askotan** (3); **ikastetxe bakoitzak** (5); **ikastetxe bakoitzak bere** (3); **ikastetxe bakoitzaren** (4); **ikastetxe bakoitzean** (5); **ikastetxe barruan** (5); **ikastetxe bat** (10); **ikastetxe batean** (40); **ikastetxe batean ikasi** (3); **ikastetxe batean irakasle** (5); **ikastetxe batek** (4); **ikastetxe bateko** (7); **ikastetxe baten** (3); **ikastetxe batera** (14); **ikastetxe batzuetan** (7); **ikastetxe berean** (3); **ikastetxe berri** (4); **ikastetxe berria** (4); **ikastetxe berriak** (3); **ikastetxe berrian** (3); **ikastetxe erlijiosoetan** (4); **ikastetxe eta** (22); **ikastetxe gehienetan** (3); **ikastetxe guztiak** (5); **ikastetxe guztiek** (7); **ikastetxe guztietan** (10); **ikastetxe hartan** (4); **ikastetxe hau** (3); **ikastetxe honek** (3); **ikastetxe horietako** (3); **ikastetxe horietan** (4); **ikastetxe horren** (3); **ikastetxe horretan** (7); **ikastetxe hortako** (4); **ikastetxe hunek** (4); **ikastetxe inguruko** (3); **ikastetxe kristauen** (4); **ikastetxe kristauen elkartea** (4); **ikastetxe nagusian** (5); **ikastetxe pribatu** (7); **ikastetxe pribatu batean** (3); **ikastetxe pribatuak** (5); **ikastetxe pribatuek** (3); **ikastetxe publiko** (11); **ikastetxe publikoa** (4); **ikastetxe publikoak** (5); **ikastetxe publikoan** (3); **ikastetxe publikoei** (4); **ikastetxe publikoek** (3); **ikastetxe publikoen** (6); **ikastetxe publikoetako** (9); **ikastetxe publikoetan** (24); **ikastetxe publikoetan eta** (3); **ikastetxe zein** (3); **ikastetxez ikastetxe** (4)

**mailako ikastetxe** (8); **mailako ikastetxe batean** (6); **mojen ikastetxe** (5); **mojen ikastetxe batean** (4); **osoko ikastetxe** (3); **sei ikastetxe** (3); **ziren ikastetxe** (3); **zuen ikastetxe** (5)

---

**ikastoki** *(orobat **ikas toki** g.er.)* **1** *iz* ikasteko tokia.

Sala eder nasaiak biltzarretako, eta bazterretan **ikastoki** berri modernoak alde batetik eta ikasleen logelak bestetik, hots ainitz zerbitzu motaren bilgia. Herria

Hauen artean daude gaur egungo musiken zentro bat, hiru mila ikusle bil ditzakeen kontzertu gune bat, ikus-entzunezko zein argazki **ikastokiak,** argazkiaren etxea, baita dantza eta musikaren kontserbatorioa ere. Berria - Kultura

**2** ikastetxea.

**Ikas** toki bat topatu behar dizugu, kurtso erdian jasoko zaituena, eta... Jesus Mari Mendizabal

---

**ikastola** **1** *iz* euskaraz erakusten den eskola edo lehen hezkuntzako ikastetxea.

Pentsatzen dut eskolan edo **ikastolan** norbaitek galdetuko zizula Lizardiri buruz zerbait. Pello Salaburu

Eskolak, ugari; **ikastolarik** ez, ordea. Xabier Montoia

Zortzigarren kurtsoa amaitu, eta **ikastolatik** institutura aldatu nintzen. Iban Zaldua

Gaur egungo gizartean **ikastolek** edo titulartasun pribatuko bestelako hezkuntza zentroek izan behar duten lekuaz. Berria - Euskal Herria

**Ikastolatik** unibertsitateraino iritsi da euskara. Koldo Zuazo

Mutila **ikastolara** eraman behar genuela, ez fraideetara. Joan Mari Irigoien

**Ikastola** eta euskaltegien bidez. Koldo Zuazo

Zarauzko **ikastolan** sartu nintzen andereño. Ana Urkiza

Nafarroako eremu erdalduneko **ikastolen** egoeraren inguruan. Berria - Euskal Herria

**Ikastolara** inspektorea etortzen bazen. Ana Urkiza

**Ikastolako** lanak egiten. Koldo Izagirre

Bigarren hizkuntza mota hau, batzuek **"ikastolako** hizkera" deitzen diotena, nagusitzen da gazteen mintzoan azkeneko urteetan. Pello Salaburu

**Ikastolako** gabonetako jaialdian ekitaldi batzuk ditugu. Joan Mari Irigoien

**Ikastolako** haur-kategoriako futbol-taldera. Joan Mari Irigoien

Maiteen nituen **ikastolako** txokoen artean Gela Handia zegoen. Iban Zaldua

Iztunde **ikastolako** zuzendaria izan zen frankismo garaian. Berria - Kultura

Iñaki Astarriaga Lizarra **Ikastolako** lehendakaria. Berria - Euskal Herria

**Ikastoletako** lehendakariak, zuzendariak eta irakasleak bildu ziren, 200 bat guztira. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako elkarteen lekukotasunak, **ikastoletako** irakasle, guraso eta laguntzaileen iritziak jendeen dei eta sostengu mezuekin tartekatu dira. Berria - Euskal Herria

**Ikastolako** arduradun bat hurbildu zitzaidan. Itxaro Borda

Hasi, artean Franco bizi zela hasi nintzen, 1975ean, Arrasateko **ikastolan,** zortzi urteko neska-mutikoen maisu. Joxerra Garzia

Filosofian lizentziatu berri, hogeita bi urte nituela hasi nintzen Arrasateko **ikastolan** irakasle. Berria - Kultura

Nafarroako Hezkuntza sarearen barruan dagoen Hegoalde **Ikastolara** joateko. Berria - Euskal Herria

Elortzibarren **ikastola** eraikitzeko egitasmoa atzeratu dute. Berria - Euskal Herria

Seaskak **ikastola** irekiko du Baigorrin irailean. Berria - Euskal Herria

Iparraldeko **ikastolak** garatzeko. Berria - Euskal Herria

LABek, EIBk eta Partaidek EAEko **ikastola** pribatuetako Lan Hitzarmenaren gaineko aurreakordioa sinatu dute. Berria - Euskal Herria

Urtero hainbat **ikastolatako** matrikulazio datuak Nafarroako Gobernuak egiten duen zenbaketatik kanpo gelditzen dira. Berria - Euskal Herria

**Ikastolen** publifikazio prozesuak. Joxerra Garzia

**Ikastolen** Elkarteko presidenteak. Berria - Euskal Herria

Euskal Herriko **Ikastolen** Konfederazioak Bosgarren Batzarraren lehen saioa egin zuen atzo Donostian. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Halako batean, **ikastola**-urteak amaitu eta handik gutxira desagertu zen Ander gure bizitzatik. Iban Zaldua

**Ikastola** garaietan denak urduri jartzen ziren hitz hori aipatze soilarekin. Berria - Ekonomia

**Ikastola** ereduaren barruan euren seme-alabei bigarren hezkuntzaren osteko ikasketak eman ahal izateko. Berria - Euskal Herria

· Orio Herri **Ikastolako** sortzaileei. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ako ikastola** (11); **ako ikastola eta** (3); **aldeko ezkia ikastola** (3); **alozeko ikastola** (3); **ama ikastola** (4); **arrasateko ikastola** (3); **baita ikastola** (4); **beste ikastola** (5); **bi ikastola** (4); **da ikastola** (13); **da ikastola berria** (4); **dira ikastola** (4); **edo ikastola** (3); **ere ikastola** (4); **errobi ikastola** (8); **eta ikastola** (19); **ez da ikastola** (3); **ezkia ikastola** (26); **ezkia ikastola berria** (3); **ezkia ikastola berriaren** (3); **ezkia ikastola pestan** (3); **garaziko ikastola** (16); **garaziko ikastola ederra** (3); **gobela ikastola** (3); **gure ikastola** (7); **hazparneko ikastola** (10); **hendaiako ikastola** (3); **herri ikastola** (3); **herriko ikastola** (3); **hiru ikastola** (3); **ikastol eta** (6); **ikastol eta eleiz** (6); **ikastola antolatzaile** (6); **ikastola asko** (3); **ikastola bat** (10); **ikastola batean** (6); **ikastola baten** (8); **ikastola berri** (21); **ikastola berri bat** (9); **ikastola berri baten** (4); **ikastola berria** (21); **ikastola berrian** (3); **ikastola berriaren** (15); **ikastola berrien** (3); **ikastola da** (8); **ikastola da antolatzaile** (3); **ikastola ederra** (5); **ikastola edo** (6); **ikastola eraikitzeko** (3); **ikastola ere** (3); **ikastola eta** (33); **ikastola ez** (4); **ikastola gure** (3); **ikastola guzien** (3); **ikastola hau** (3); **ikastola hori** (4); **ikastola horren** (5); **ikastola horretan** (3); **ikastola hortako** (3); **ikastola hunek** (3); **ikastola izan** (4); **ikastola kexu** (3); **ikastola pestan** (3); **ikastola sortu** (10); **ikastola sortzeko** (4); **ikastola utzi** (3); **ikastola utzi eta** (3); **ikastola zen** (3); **iparraldeko ikastola** (4); **laugarren ikastola** (3); **lehen ikastola** (4); **lizarra ikastola** (3); **orain ikastola** (5); **orioko herri ikastola** (3); **ortzaizeko ikastola** (9); **oztibarreko ikastola** (3); **sortu zen ikastola** (5); **urruñ urruñ zen ikastola** (12); **zuen ikastola** (3); **zuten ikastola** (4)

**ako ikastolak** (9); **aldeko ezkia ikastolak** (4); **amikuzeko ikastolak** (12); **baionako ikastolak** (5); **bi ikastolak** (4); **bretoin ikastolak** (3); **ditu ikastolak** (4); **donibane ziburuko ikastolak** (3); **du ikastolak** (11); **errobi ikastolak** (15); **errobi ikastolak eta** (3); **eta ikastolak** (13); **ezkia ikastolak** (21); **ezkia ikastolak antolatu** (6); **ezkia ikastolak antolaturik** (4); **ezkia ikastolak antolatzen** (4); **garaziko ikastolak** (8); **garaziko ikastolak antolaturik** (4); **gure ikastolak** (3); **hazparneko ezkia ikastolak** (3); **hazparneko ikastolak** (9); **hazparneko ikastolak antolatzen** (3); **hendaiako ikastolak** (5); **herri ikastolak** (5); **herri ikastolak eta** (3); **herriko ikastolak** (8); **ikastolak antolatu** (14); **ikastolak antolaturik** (24); **ikastolak antolatzen** (19); **ikastolak antolatzen du** (8); **ikastolak antolatzen duen** (7); **ikastolak ateak** (7); **ikastolak ateak zabalik** (3); **ikastolak bere** (7); **ikastolak ere** (5); **ikastolak eskaini** (3); **ikastolak eta** (27); **ikastolak ez** (3); **ikastolak gomitaturik** (4); **ikastolak hamar** (3); **ikastolak hamar urte** (3); **ikastolak jaso** (3); **ikastolak muntatu** (4); **ikastolak muntatu kantaldia** (3); **ikastolak muntatzen** (3); **ikastolak muntatzen du** (3); **ikastolak sare** (3); **ikastolak sare publikoan** (3); **ikastolak urte** (3); **kanboko errobi ikastolak** (8); **lizarra ikastolak** (6); **oihana ikastolak** (4); **orioko herri ikastolak** (4); **ortzaizeko ikastolak** (23); **ortzaizeko ikastolak antolatzen** (5); **oztibarreko ikastolak** (9); **oztibarreko ikastolak antolaturik** (4); **sarako ikastolak** (3); **urruñ uztaritzeko ikastolak** (9); **zaldubi ikastolak** (4); **ziburuko ikastolak** (5); **ziren ikastolak** (3)

**aldeko ezkia ikastolako** (3); **amikuzeko ikastolako** (5); **ander deuna ikastolako** (4); **arrasateko ikastolako** (3); **baionako ikastolako** (4); **bestalde ikastolako** (5); **bestalde ikastolako langileen** (4); **betiko ikastolako** (7); **betiko ikastolako zuzendari** (4); **bixtan dena ikastolako** (3); **da ikastolako** (4); **dena ikastolako** (3); **dena ikastolako haurrak** (3); **deuna ikastolako** (4); **deuna ikastolako zuzendariak** (3); **dute ikastolako** (3); **errobi ikastolako** (6); **eta ikastolako** (13); **eta ikastolako haurrak** (3); **ezkia ikastolako** (29); **ezkia ikastolako burrasoek** (3); **ezkia ikastolako haur** (3); **ezkia ikastolako haurrek** (4); **ezkia ikastolako ikasleak** (3); **ezkia ikastolako ikasleek** (3); **garaziko ikastolako** (6); **haurtzaro ikastolako** (3); **hazparneko ikastolako** (17); **hazparneko ikastolako burrasoek** (3); **hazparneko ikastolako haurrak** (3); **herri ikastolako** (7); **ikasberri ikastolako** (3)

**ikastolako antzerki** (3); **ikastolako arduradunek** (5); **ikastolako buraso** (6); **ikastolako buraso eta** (4); **ikastolako burasoak** (5); **ikastolako burasoek** (7); **ikastolako burasoek eta** (3); **ikastolako burraso** (6); **ikastolako burrasoek** (12); **ikastolako burrasoen** (3); **ikastolako eta** (3); **ikastolako guraso** (4); **ikastolako haur** (21); **ikastolako haur eta** (4); **ikastolako haur guziek** (3); **ikastolako haurrak** (34); **ikastolako haurrek** (24); **ikastolako haurrek ikusgarri** (3); **ikastolako haurrekin** (7); **ikastolako haurren** (3); **ikastolako hiru** (3); **ikastolako ikasle** (7); **ikastolako ikasleak** (7); **ikastolako ikasleek** (4); **ikastolako irakasle** (6); **ikastolako irakasleak** (3); **ikastolako kideek** (4); **ikastolako lagunek** (3); **ikastolako langileen** (4); **ikastolako langileen aldetik** (4); **ikastolako lehen** (3); **ikastolako lehendakaria** (5); **ikastolako lehendakariak** (7); **ikastolako pedagogia** (3); **ikastolako pedagogia taldeak** (3); **ikastolako talde** (3); **ikastolako zuzendari** (17); **ikastolako zuzendaria** (10); **ikastolako zuzendariak** (13); **lauro ikastolako** (3); **lizarra ikastolako** (18); **oiartzungo haurtzaro ikastolako** (3); **olain ikastolako** (3); **orioko herri ikastolako** (5); **ortzaizeko ikastolako** (7); **ortzaizeko ikastolako pedagogia** (3); **txingudi ikastolako** (3); **uztaritzeko ikastolako** (4); **zuen ikastolako** (3)

**ako ikastolan** (7); **aldeko ezkia ikastolan** (7); **arrasateko ikastolan** (10); **arrasateko ikastolan hasi** (3); **bilboko kirikiñ da ikastolan** (4); **donibane lohizuneko ikastolan** (3); **ere ikastolan** (3); **errobi ikastolan** (11); **eta ikastolan** (10); **ezkia ikastolan** (25); **ezkia ikastolan ibiltzen** (3); **fermin ikastolan** (3); **haurrak ikastolan** (3); **hazparneko ezkia ikastolan** (3); **hazparneko ikastolan** (8); **ikastolan berean** (10); **ikastolan dabiltzan** (4); **ikastolan diren** (3); **ikastolan egin** (3); **ikastolan ehun** (4); **ikastolan ehun eta** (4); **ikastolan ere** (7); **ikastolan eta** (8); **ikastolan hasi** (5); **ikastolan ibili** (3); **ikastolan ibiltzen** (4); **ikastolan ikasi** (5); **ikastolan irakasle** (5); **jakintza ikastolan** (4); **kanboko errobi ikastolan** (3); **kirikiñ lizarra ikastolan** (3); **lohizuneko ikastolan** (3); **o ikastolan** (3); **o ikastolan** (3); **ortzaizeko ikastolan** (3); **san fermin ikastolan** (3); **tolosako ikastolan** (4); **udarregi ikastolan** (5); **urruñ uztaritzeko ikastolan** (6); **zarauzko ikastolan** (6); **zen ikastolan** (4)

**aldeko ezkia ikastolarentzat** (3); **arangoiti ikastolaren** (3); **da ikastolaren** (4); **errobi ikastolaren** (9); **eta ikastolaren** (5); **eta ikastolatik** (6); **ezkia ikastolaren** (14); **ezkia ikastolarentzat** (4); **ezkia ikastolatik** (7); **garaziko ikastolaren** (7); **garaziko ikastolaren alde** (3); **goiti eta ikastolatik** (4); **gure ikastolaren** (3); **hazparneko ikastolaren** (6); **hazparneko ikastolari** (3); **hendaiako ikastolaren** (3); **herriko ikastolaren** (7); **herriko ikastolaren alde** (3); **herriko ikastolaren besta** (3); **ikastolara eraman** (5); **ikastolara joan** (8); **ikastolara joateko** (5); **ikastolaren alde** (31); **ikastolaren aldeko** (5); **ikastolaren besta** (9); **ikastolaren estreina** (3); **ikastolaren fagoretan** (7); **ikastolarik ez** (3); **ikastolatik eta** (3); **kanboko errobi ikastolaren** (3); **ortzaizeko ikastolaren** (3); **oztibarreko ikastolaren** (3); **umea ikastolara** (3)

**baionako ikastolek** (15); **dute ikastolek** (4); **eta baionako ikastolek** (3); **eta garaziko ikastolek** (4); **eta ikastolei** (4); **eta ikastolek** (5); **garaziko ikastolek** (4); **garaziko ikastolek prestaturik** (3); **ikastolek bat** (3); **ikastolek bat egin** (3); **ikastolek beren** (3); **ikastolek deskulturizazioa** (5); **ikastolek deskulturizazioa eragiten** (3); **ikastolek eta** (7); **ikastolek prestaturik** (3); **nafarroako ikastolek** (3); **xiberoko ikastolek** (5); **zuberoako ikastolek** (3)

**arabako ikastolen** (7); **arabako ikastolen besta** (3); **aurrekoetxea bizkaiko ikastolen** (3); **bizkaiko ikastolen** (18); **bizkaiko ikastolen aldeko** (6); **bizkaiko ikastolen elkarteko** (3); **da nafarroako ikastolen** (3); **du ikastolen** (6); **du ikastolen konfederazioak** (3); **elkarlanean ikastolen** (3); **elkarlanean ikastolen elkartea** (3); **eta goierriko ikastolen** (3); **eta ikastolen** (18); **eta ikastolen elkarteak** (4); **eta ikastolen elkartearen** (3); **eta nafarroako ikastolen** (6); **euskal herriko ikastolen** (23); **gipuzkoako ikastolen** (21); **gipuzkoako ikastolen alde** (4); **gipuzkoako ikastolen besta** (6); **gipuzkoako ikastolen elkarteko** (4); **goierriko ikastolen** (3); **herriko ikastolen** (23); **herriko ikastolen konfederazioak** (12)

**elarena nafarroako ikastolen** (3); **ikastolen alde** (22); **ikastolen aldeko** (20); **ikastolen aldeko besta** (3); **ikastolen artean** (3); **ikastolen arteko** (5); **ikastolen arteko harremana** (3); **ikastolen besta** (17); **ikastolen besta handia** (5); **ikastolen elkartea** (18); **ikastolen elkarteak** (58); **ikastolen elkarteak ere** (3); **ikastolen elkarteak eta** (7); **ikastolen elkartean** (6); **ikastolen elkartearekin** (4); **ikastolen elkartearen** (14); **ikastolen elkarteari** (3); **ikastolen elkarteko** (33); **ikastolen elkarteko lehendakari** (3); **ikastolen elkarteko presidenteak** (5); **ikastolen elkarteko zuzendari** (3); **ikastolen elkarteko zuzendariak** (4); **ikastolen eta** (7); **ikastolen eta euskararen** (3); **ikastolen federazioa** (5); **ikastolen federazioak** (6); **ikastolen federazioak eta** (3); **ikastolen federazioko** (3); **ikastolen festa** (5); **ikastolen konfederazioa** (6); **ikastolen konfederazioak** (31); **ikastolen konfederazioak eta** (6); **ikastolen konfederazioaren** (6); **ikastolen konfederazioko** (4); **iparraldeko ikastolen** (27); **iparraldeko ikastolen elkarteak** (23); **mariñ nafarroako ikastolen** (40); **nafarroako ikastolen aldeko** (3); **nafarroako ikastolen elkartea** (3); **nafarroako ikastolen elkarteak** (7); **nafarroako ikastolen elkarteko** (11); **partaide ikastolen** (10); **partaide ikastolen elkarteak** (7); **zuen ikastolen** (5); **zuten ikastolen** (3)

**baionako ikastoletako** (4); **baionako ikastoletako burasoek** (3); **bi ikastoletako** (3); **dira ikastoletan** (3); **diten ikastoletan** (3); **duten ikastoletako** (3); **edo ikastoletako** (5); **edo ikastoletako proiektuen** (3); **ere ikastoletan** (3); **eta ikastoletako** (6); **eta ikastoletako haurrek** (3); **eta ikastoletan** (8); **eta uztaritzeko ikastoletako** (3); **ikastoletako burasoek** (4); **ikastoletako burrasoek** (3); **ikastoletako haurrak** (5); **ikastoletako haurrek** (4); **ikastoletako proiektuen** (3); **ikastoletako proiektuen inguruko** (3); **ikastoletan dabiltzan** (3); **ikastoletan dabiltzan ahalmen** (3); **ikastoletan edo** (3); **ikastoletan ere** (4); **ikastoletan eta** (8); **ikastoletan lan** (3); **izan diten ikastoletan** (3); **proiektua edo ikastoletako** (3); **uztaritzeko ikastoletako** (3)

---

## **ikastolakume** *iz adkor* ikastola-ikaslea.

**Ikastolakumea,** azkoitiar gazte batek neska bizkaitar baten ezagutza egin du Korrikako azken jaian. Iñigo Aranbarri

Ez zuen taxu handirik gure alabaren bihotza anarteraino hunkitu zuten **ikastolakumeekin**. Aingeru Epaltza

---

## **ikastolero** *iz adkor* ikastolakumea.

Bai, esan ezak hik ere, Gomez, Perez edo Lopez horrek bezala, **ikastolero** alu hauek ez dutela euskara maite. Jokin Muñoz

---

## **ikastolizazio** *iz* ikastetxe bat ikastola bihurtzea.

Baleareetako presidente Jaume Matasek «eskolen **ikastolizazioaren»** aurka egingo zuela iragarri zuen. Berria - Mundua

---

## **ikastordu** *iz* eskola ordua; ikasteko ordua.

Goizeko azken **ikastorduaren** amaiera aldera. Juan Kruz Igerabide

Erlijioen historia jasoko lukeen ikasgaia sortzea alferreko lana egitea izango zela azpimarratu du, eta, hori eginez gero, **ikastorduak** galduko liratekeela ohartarazi du. Berria - Harian

Denbora gutxi egiten zuten elkarrekin, astearte eta ostiralero, Hannaren biolin-**ikastorduen** garaian. Joxe Austin Arrieta

---

## **ikastun** **1** *izond* asko edo ongi ikasten duena.

Lehen ganorabako koadrila ederra juntetan zan karrera horretan, baina orain nota onenak daukezanak bakarrik sartzen dira, **ikastunak,** eta zure alabea ondo inguratuta egongo da. Jon Arretxe

Pberrietako gaztetxo **ikastunez** inguraturik ikusi genuen geure burua. Jon Arretxe

Sendagile hura -gizon **ikastuna-,** diagnostikoa oso gutxik ohi duten bezala menderatzera iritsia zen. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Izan ere, formaltxo, santujale eta **ikastun** fama ondo irabazia neukan. Iban Zaldua

• **3** *iz* ikaslea, bereziki lanbide ikaslea. ik **aprendiz.**

Udaberrian kakamarloak bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta sokagileak, harri-pikatzaileak eta zurginak, arotzak eta kisuginak, beren maisu, peoi, ofiziale eta **ikastunekin**. Aingeru Epaltza

Udaberrian kakamarloak bezala agertu ziren, auskalo nondik etorriak, harginak eta sokagileak, harri-pikatzaileak eta zurginak, arotzak eta kisuginak, beren maisu, peoi, ofiziale eta **ikastunekin**. Aingeru Epaltza

Gurrea, nire manupera **ikastun** ibilitako ergel hantuste bat. Aingeru Epaltza

Joanikot, Migelen anaia gaztea [...] **ikastun** hastekoa zen aitaren zapategian. Aingeru Epaltza

Aitatxi berriz ere **ikastun** bilakatu zen, lehenago zapategian bezala, gerlaren ikasbidean oraingoan. Aingeru Epaltza

Fornellsek Ugartek bobeda margotzeko egin zituen zirriborroak bildu ditu Bulebarren, «artistaren atzean dagoen **ikastuna** erakusteko». Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zapatagin-**ikastunari** puska bat joan zitzaion armagizon haien artean bere mintzairaz egiten zuenik aurkitu arte. Aingeru Epaltza

Ondoko urteak klase eta jite ugaritako lanbideen probaleku izan zituen, zein baino zein bereiziago: tailer bateko mekanikari-lagun, obretako peoi edo pintore-**ikastun,** batetik bertzera opor aldiak tartekatzen zituela. Aingeru Epaltza

Etxeberrik beretako nahi ninduen, ministro-**ikastun**. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**zapatagin ikastuna** (3)

---

## **ikasturte** *(orobat **ikasurte** eta **ikas urte** g.er.)* **1** *iz* uda oporraldi biren arteko eskola aldia.

1980-1981 **ikasturtean,** aukerazko ikasgaia zen euskara. Xabier Mendiguren Elizegi

Gogorra egin zitzaidan 1964tik 1965erako **ikasturtea,** Batxilergoko seigarrena. Bernardo Atxaga

Biolineko bederatzigarren **ikasturtea** gainditaa, Ganbera Musikako Goi Mailako Irakasle titulua lortu zuen Larburuk.

Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 2004-2005 **ikasturterako** Batxilergoko aukerako irakasgaiei buruz onartu duen dekretuak. Berria - Euskal Herria

Nire adin berekoa zen Jon Baltza, **ikasturte** berekoa baina aldameneko gelan zegoena. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ikasturte** berriak lagun zaharrak elkartu zituen. Xabier Montoia

Laugarren **ikasturtearen** hasieran. Josu Zabaleta

Kimikako laugarren **ikasturteko** programaren barnean bazen ikastaro labur bat fisikako ariketak egiten zirenekoa. Juan Garzia

BUPeko 3. **ikasturtea** Beasaingo Institutuan egin ostean COU edo UBI egitera Tolosara itzuli nintzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Filologiako azken **ikasturtean** nago; datorren urtean, doktorego-ikastaroetan matrikulatuko naiz. Juan Kruz Igerabide

Gogoan izan **ikasturte** berria irailaren 1ean hasiko dela. Iñaki Mendiguren

Aurtengo **ikas** urtea arrunt berezia dute, kolegioko 4 mailak aterbetzen dituztelako. Herria

**Ikasturte** bakoitzean ikasleak gainditu beharko lituzkeen kredituen gutxieneko kopurua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Oinarrizko Hezkuntza Orokorrak irauten zuen zortzi urteetan, **ikasturte** bakoitzeko 7-8 ikasgai eta 5 ebaluazio kalkulatuta, ehundaka azterketa eginak izango nituen ordurako. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrenbestez II. **ikasturteko** Analisi Kualitatiboko laboratoriorako onarturik geunden. Juan Garzia

**Ikasturteko** azken azterketa. Patxi Zubizarreta

**Ikasturteko** lehen eskola eguna. Berria - Mundua

Datorren **ikasturteko** aurrematrikula, irailean. Berria - Kultura

Ekain inguruan Andresek **ikasturteko** eta Lizentziako azterketak egin zituen, eta onik atera zen. Josu Zabaleta

New Yorkeko Syracuse Universityn **ikasturte** bateko egonaldia lortzeko. Iñaki Iñurrieta

Datorren **ikasturteko** testuliburuen zerrenda. Iñaki Mendiguren

Irakasle horiek aukera izan dute 3 **ikasturtez** liberatuta egoteko. Berria - Harian

## **2** (aditzaren objektu gisa)

Lehenengo bi **ikasturte** haiek gainditu nituen. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ikasturtea** gainditzeko falta duen ikasgaiko azterketa prestatzeko. Berria - Harian

**Ikasturteak** gainditzea zitzaion axola, eta igandean eskien gainean edo haitzetan gaindi ibiltzea. Juan Garzia

**Ikasturtea** hasi aurretik. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ikasturtea** amaitu da ia. Oskar Arana

Ez nuen **ikasturterik** huts egin arazo fisiko eta psikologikoak eduki arren. Agurtzane Juanena

Ez da oso-oso bizkorra, eta **ikasturtea** errepikatu egin beharko duela iruditzen zait. Josu Zabaleta

## **3** *hed*

**Ikasturte** judizialaren hasiera ekitaldian. Berria - Euskal Herria

Uda ondorengo **ikasturte** politikoa garrantzitsua izan daitekeela. Berria - Euskal Herria

Eusko Legebiltzarrean **ikasturte** politiko berria ireki zuten atzo EAko legebiltzarkideek. Berria - Euskal Herria

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak **ikasturte** honetako azken zikloa hasiko du gaur. Berria - Kultura

## **3** (hitz elkartuetan)

**Ikasturte**-bukaerako jaia. Iñaki Mendiguren

**Ikasturte**-hasierako oturuntza laster hasiko da. Iñaki Mendiguren

**Ikasturte** hasieraren bezpera arte. **Ikasturte**-erdiko azterketa ere ez omen zuen egin. Oskar Arana

**Ikasturte** bukaerako azterketen garaia. Berria - Euskal Herria

Ez bada aintzinatzerik, heldu den **ikasturte** sartzean ere beren boza entzunaraziko dutela erran dute. Herria

Lehen emanaldia ontsalaz **ikasturte** ondarrean emana izanen da. Herria

Aurtengo **ikasturte**-zabalkundera joatekoa nintzen ni, bestalde, 1874ko urriaren hasieran. Txillardegi

· Madrilen komunistekin batera egiten zuen 1936-37ko gerra-**ikasturte** hartatik. Edorta Jimenez

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baina ikasturte** (4); **bi ikasturte** (7); **bi liburu ikasturte** (3); **da ikasturte** (5); **den ikasturte** (4); **ditu ikasturte** (3); **du ikasturte** (4); **dute ikasturte** (4); **dute ikasturte berria** (3); **eta ikasturte** (16); **ikasleek ikasturte** (3); **ikasturte amaierako** (5); **ikasturte amaieran** (3); **ikasturte bakoitzeko** (5); **ikasturte bakoitzeko bat** (3); **ikasturte bakoitzerako** (3); **ikasturte bat** (3); **ikasturte berria** (14); **ikasturte berria hasteko** (3); **ikasturte berrian** (4); **ikasturte berriaren** (6); **ikasturte berriari** (3); **ikasturte berriko** (3); **ikasturte berrirako** (9); **ikasturte berrirako lan** (3); **ikasturte erdian** (6); **ikasturte erdiko** (3); **ikasturte hartan** (12); **ikasturte hasiera** (3); **ikasturte hasierako** (11); **ikasturte hasierako ekitaldian** (3); **ikasturte hasieran** (5); **ikasturte honen** (5); **ikasturte honen hasieran** (3); **ikasturte honetako** (3); **ikasturte honetan** (20); **ikasturte honetarako** (12); **ikasturte horretan** (5); **ikasturte hura** (3); **ikasturte oso** (3); **ikasturte osoa** (5); **ikasturte osoan** (7); **ikasturte politikoa** (3); **lehen ikasturte** (6); **lehen ikasturte hartan** (3); **lehen ikasturte hura** (3); **liburu ikasturte** (3); **liburu ikasturte bakoitzeko** (3); **zen ikasturte** (3); **zuen ikasturte** (4)

**aurtengo ikasturtea** (5); **azken ikasturtea** (5); **bigarren ikasturtea** (4); **da ikasturtea** (3); **dute ikasturtea** (5); **eta ikasturtea** (6); **hasiko dute ikasturtea** (3); **ikasturtea amaitu** (16); **ikasturtea amaitu arte** (3); **ikasturtea amaitu eta** (4); **ikasturtea amaitzean** (3); **ikasturtea arte** (3); **ikasturtea bukatu** (3); **ikasturtea egiten** (3); **ikasturtea egiten ari** (3); **ikasturtea ere** (4); **ikasturtea hasi** (26); **ikasturtea hasi baino** (4); **ikasturtea hasi eta** (4); **ikasturtea normal** (3); **lehen ikasturtea** (8); **lehenengo ikasturtea** (3); **zuen ikasturtea** (4)

**aurreko ikasturtean** (12); **aurreko ikasturtean baino** (3); **aurtengo ikasturtean** (13); **azken ikasturtean** (9); **bigarren ikasturtean** (5); **datorren ikasturtean** (28); **datorren ikasturtean indarrean** (3); **den ikasturtean** (12); **hirugarren ikasturtean** (3); **hurrengo ikasturtean** (13); **iazko ikasturtean** (10); **ikasturtean arabako** (4); **ikasturtean baino** (3); **ikasturtean ehun** (3); **ikasturtean eta** (4); **ikasturtean euskal** (3); **ikasturtean ez** (4); **ikasturtean hasi** (3); **ikasturtean ikasleen** (3); **ikasturtean indarrean** (4); **ikasturtean jarriko** (3); **ikasturtean zehar** (12); **iragan ikasturtean** (3); **joan den ikasturtean** (6)

**aurreko ikasturteko** (4); **aurtengo ikasturterako** (7); **azken ikasturteko** (3); **bi ikasturteetan** (3); **datorren ikasturteari** (4); **datorren ikasturteari begira** (3); **datorren ikasturterako** (11); **datorren ikasturtetik** (3); **datorren ikasturtetik aurrera** (3); **den ikasturteko** (3); **den ikasturterako** (9); **eta ikasturteko** (3); **heldu den ikasturterako** (9); **hurrengo ikasturterako** (5); **ikasturtearen amaiera** (3); **ikasturtearen amaieran** (4); **ikasturtearen hasiera** (3); **ikasturtearen hasieran** (10); **ikasturteari begira** (5); **ikasturteari hasiera** (4); **ikasturteari hasiera emateko** (3); **ikasturteko azken** (4); **ikasturteko lehen** (7); **ikasturtetik aurrera** (3)

---

# **ikatz** **1** *iz* errekin beltz eta trinkoa, gehienbat karbonoz osatua, landare etorkia duena. ik**harrikatz**.

Usain izugarria zegoen, **ikatz,** petrolio eta beste erregai ezin igarrizko batena. Koro Navarro

Sototik **ikatza** igo eta sua bizituko nuela esan nion. Anjel Lertxundi

**Ikatzik** onena pagoarena eta elorriarena seinalatzen dute. Pello Zabala

Ezker-eskuin, oholesi **ikatzez** belztuak zeuden. Anjel Lertxundi

Ikaztegian ez zegoen zakuak pisatzeko edo **ikatza** garraiatzeko deus. Anjel Lertxundi

Ikazkina **ikatz** banatzen egon zitekeen. Anjel Lertxundi

Irratitelegrafoen ganbaran eman nituen gau eta egun asko hegoaldeko itsasoetan, Hego Barearen itsasbidea egiten zuten **ikatzez** betetako kargaontzi haietan. Javi Cillero

*ik* ikatzontzi 2.

Besterik ez bada zurezko ate bat eginen dut eta **ikatzezko** berogailua ipiniko dut. Iñaki Zabaleta

**Ikatzezko** lokomotora zaharrak. Berria - Kultura

Badira teknologia garbiak **ikatzezko** zentraletan karbono dioxidorik ez isurtzeko. Berria - Gaiak

Zentral nuklearrek **ikatzezkoek** baino askoz CO2 gutxiago isurtzen dute. Berria - Gaiak

Antza, **ikatza** erre, eta karbono monoxidoa arnastuta hil ziren guztiak.

Ur biltegietan **ikatz** aktibatuzko iragazkiak jarriko dituzte arazoa konpontzeko. Berria - Euskal Herria

**Ikatza** erretzeak sortzen du gehienbat euri azidoa. Pello Zabala

**Ikatzaren** gas toxikoagatik. Juan Kruz Igerabide

Jendeek **ikatzaz** egiten baitzuten eguneroko sua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ilbeherako zurgaiak nahi ziren sutarako edo **ikatzetarako**. Pello Zabala

Urrearen ordez **ikatza** eman nahi diguten garaiak bizitzen ari gaituk. Anjel Lertxundi

Burdinazko ontzi batean **ikatz** piztuak jarriz. Santiago Iruretagoiena

**-Ikatz** ikaragarri txarra eman digute -esan zuen makinistak-. Fernando Rey

Horregatik ezin ezagutu du ez bere kolorerik, ez, eskuarki inolako besterik, urrearen margo ederrik, **ikatzaren** kolore beltzik. Joan Mari Lekuona

*ik beherago* 11. Askoren artean

Dakiguna da odola gorria dela, gehienetan, **ikatza** beltza, elurra zuria, baina odolak ez du zehazten gorritasuna, ez **ikatzak** belztasuna, ez elurrak zuritasuna. Felipe Juaristi

Meatzari esklabizatuek lanaren izerdiaz erauzitako **ikatzarena** zirudien beltzasuna. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ikatz** guri-guria zaukak horrek hanka artean, **ikatz** guri-guria, zera! Juan Kruz Igerabide

Ez da gehiago amets hutsa, Europako Erkidegoa badabil, **Ikatzaren** eta Altzairuaren Erkidegoa alhan da. Piarres Xarriton

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Apenas dugu neguko **ikatz**-karga erosteko dirurik. Anjel Lertxundi

Lehenengo **ikatz**-zama sartu zuenean, emakumea harat-honat zebilen sukaldean zehar. Lopez de Arana

Lehen-lehenik Baionako portuan, docker gisa jardun zuen, **ikatz**-zaku zamaketari gehienbat. Pablo Sastre

Etxeetarako nahikoa ona zen, **ikatz**-kondar xehatua. Anjel Lertxundi

Hormetako karea belztua zegoen, belztuak eta **ikatz**-hautsez beterik hormetako zartadura ugariak ere. Anjel Lertxundi

Eguzkia gorri jalgiko da, **ikatz** suak hartua lez. Joseba Sarrionandia

Begietan ageri zuen: bi **ikatz** koskor ziren. Koro Navarro

Berandu bazen ere, **ikatz**-adreiluak eta arroza ekarrarazi zituen. Juan Kruz Igerabide

Kanpoan ipinitako labe bat; han **ikatz**-adreiluak erretzen dira, eta ke beroa gelaren azpitik igarotzen da. Juan Kruz Igerabide

Txingarrak kartoi puska batekin elkarrengana bildu eta **ikatz**-tontor gorituaren gainean zabaldu zituen zuhurki. Irene Aldasoro

Ikusten genuen zer **ikatz** metak hirira eramaiten zituzten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Ikatz**-meategiek erregaiaz hornitzen dituzten herrialdeek. Iñaki Iñurrieta

Krasnolimaskaya **ikatz** meategian izandako metano leherketaren ondorioz. Berria - Mundua

**Ikatz**-meatzariak […] ez dituk gu baino okerrago bizi. Hasier Etxeberria

Kyotok ez diola kalterik egingo Espainiako **ikatz** ekoizpenari. Berria - Ekonomia

**Ikatz-biltokia** izandakoa zen. Unai Elorriaga

*ik* ikaztegi.

Eguneroko **ikatz**-hornidura eta berogailua. Urtzi Urrutikoetxea

Orain zakuetan sartuak zeuden, bide bazter batean lotan [...] edo **ikatz** bagoietan. Koro Navarro

**Ikatz**-sutegian iltzeak fabrikatzen zituzten. Juan Garzia

Ordenagailuek, ordea, ez zuten kontuan izan **ikatz** lantegiak egun hartan bere festa eguna zuela. Pablo Sastre

Midland trenbideko enplegatu izan zen […], **ikatz**-konpainia batean bide-saltzaile, komisiora, ikertzaile pribatu, aguazil laguntzailearen bulegoan enplegatu. Irene Aldasoro

**Ikatz**-saltzailea naiz, kalearen bestaldekoa. Koro Navarro

**Ikatz** palakada batzuk bota zituzten galdara azpira. Fernando Rey

Kolegioan gelatxo bat zuen, **ikatz**-berogailu batez hornitua. Fernando Rey

**Ikatz**-kealdi bat sudurrera etorri zitzaion. Lopez de Arana

**Ikatz**-ke usain sarkorrak. Txillardegi

Begiak **ikatz**-margoz belzturik, masailak berun-zuriztaturik. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gudari-gezi zorrotzen, ipuru-**ikatz** gorien antzeko zaren hori! Elizen arteko biblia

Buztinezko arragoa, zotz-**ikatza**. Juan Garzia

Zotal **ikatzezko** belardi batean zehar. Karlos Zabala

Gatz gema, burdin minerala, kok **ikatza,** zink pirita eta halakoak. Koldo Izagirre

**4** (pisu neurriekin edo kidekoekin)

Emaztea nigana etortzen da hamar libra **ikatz** erostera. Koro Navarro

Zer dira hamar libra **ikatz** neguan? Koro Navarro

Léonek zenbait palakada **ikatz** bota berriak zituen. Karlos Zabala

Kkrasnolimaskayako meategia herrialdeko emankorrenetakoa eta seguruenetakoa da eguneko 10.000 tona **ikatz** ateratzen dituzte. Berria - Mundua

**5** (margotzeko gai gisa)

**Ikatzarekin** egingo zigutek potreta... Harkaitz Cano

Zuloagaren hainbat koadro bildu ditu, **ikatzez,** klarionez eta arkatzez eginiko 40 marrazki zuri-beltz. Berria - Kultura

**Ikatzez** eta arkatzez egindako hamar marrazki inguru. margolariak erabiltzen duen teknika sorta suertatzen da deigarriena: olioa, **ikatz** ziria, grafitoa, pastela, akuarela, tintak... Berria - Kultura

Hurrengo sei hilabeteetan, Dryer-ek beste hogeita zazpi margolan egin zituen, bai eta beste hainbat dozena tintazko marrazki eta **ikatz**-zirizko zirriborro ere. Oskar Arana

**6** (zigorrraren irudi gisa)

**Ikatza** horientzat. Berria - Kirola

Sacyr Vallehermosori (-%1,55) **ikatza** utzi diote erregeek. Berria - Ekonomia

**Ikatza** zuten CDNk eta UPNk zain. Berria - Harian

Bart gauean zapatak leihoan utzi badituzte, litekeena da bi aurrelariek **ikatza** jaso izana. Berria - Kirola

Oparia eta **ikatza** banatuko dira gaur Baskonia eta Estudiantesen arteko finalerdietako azken partidan. Berria - Kirola

Iragan gertuari begira **ikatza** banatuko zenuke? Berria - Kultura

**7** (erkaketetan)

Namah **ikatza** bezain beltza zela eta amorrazioz betea ibiltzen zela beti. Koro Navarro

Eskeleto bat zegoen aulkian eserita, **ikatza** bezain beltza. Koro Navarro

**Ikatza** bezain beltzak zituzten besoak. Koro Navarro

Beltza zen, **ikatza** bezalakoa. Jon Maia

Pastelak, **ikatza** bezain beltz erreta, erretiluetan metatuta zeuden. Iñaki Mendiguren

Itzalek, **ikatza** bezain ilun, saldoka zeharkatzen dituzte ilargi-izpiak. Jose Morales

· Ile beltz luze ederra, **ikatz** puxka parea ziren begiak. Xabier Montoia

**8** ***egur ikatz*** egurrarekin egiten den ikatza.

Uholdeek bereziki kaltetzen dute Haiti, **egur ikatza** egiteko herrialdeko zuhaitzen %90 moztu baitituzte. Berria - Mundua

Besteak beste, Luzaide izan da **egur ikatz** anitz egiten zen tokia. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bestelakoa zen gar hura, lehen alkoholaren erregai puruaz sutu eta orain, berriz, **egur-ikatzaren** indar organikoaz erreko balitz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

**Egur-ikatzezko** sutontzi baten inguruan, eserleku baxu eta bigunak kokatu zituzten. Agustin Otsoa

Habibik te-ontzia hartu zuen; patiora irten, iturriko uretan pasatu te-ontzia, **egur-ikatza** erantsi kanunari, eta ura sartu zuen te-ontzian. Jon Muñoz

**9** ***ikatz bizi*** *(orobat **ikazbizi** g.er.)*

Sekula ez nuen denbora alferrik galdu **ikatz** bizien gainean oinutsik ibili nahian. Karlos Zabala

**Ikatz** bizian oinutsik ibili zen Irujo partidaren bigarren zatian. Berria - Kirola

Neskaren bularraren azpian sua edo **ikatz** bizia jarri balute bezala. Jose Morales

**Ikatz** biziak bezalako begiak. Pablo Sastre

Iluntasunean **ikazbiziak** sortzen dituen irudiak bezalakoak. Berria - Kultura

**10** ***ikatz gori***

Galipotezko upeletan eta **ikatz** gorizko pertzetan. Koro Navarro

Kea zerion sudurretik, su kiskalgarria, **ikatz** goriak ahotik. Elizen arteko biblia

Gurpilak, burdinagak, balantzinak ikusi uste zituen galdararen azpian, **ikatz** gorien purpura lausoak argiturik. Karlos Zabala

Ohorez eta aintzaz koroatua eta **ikatz** gorien artean kokatua. Askoren artean

Zalantzak jo ninduen ibilgoaren erdi parean, eta **ikatz** gorien gainean sentitu bainintzen. Juan Garzia

**Ikatz** goriak bezain handiak ziren errubi-pila ari zen pisatzen. Iñaki Mendiguren

**11** ***ikatz-kolore*** *izond* ikatzaren kolorea duena.

Mona Lisarena bezalakoa neure aurpegia, ile **ikatz**-kolorea belarri gainetan mototsetan bildua. Koro Navarro

Errabinoari begira geratu zitzaion bere bekain iletsu, **ikatz**-koloreen azpitik. Koro Navarro

**12** ***ikatz/ikatza egin***

Ikusten ahal dira mendi eta irasailetan **ikatz** egiteko tokien herrestoak edo hatzak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Olentzero heldu zela bere bizar haundiarekin eta **ikatz egiten** ibiltzen dituen arropa zirtzilekin. Herria

Zuhaitz burukitak egurtu eta, **ikatza** egiten zuten, hori ere kabletan jausteko errepideraino. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Sutarako ere ez omen da ona, baina aldiz, **ikatza** egiteko oso ona, onena. Pello Zabala

Egur-erre puskak, erdi **ikatz egindakoak**. Pello Zabala

Emakumeak sugarren artetik lasterka, ilea kiskalia eta **ikatz eginak** bularrak. Koro Navarro

**13** *ikatz-ontzi* ik **ikatzontzi**.

**14** ***zotal ikatz*** erregai harroa eta arina, zingira lekuetako belardietan eratzen dena. ik**zohikatz**.

Mikel Strogoffek zaldiari eragin eta **zotal ikatzezko** belardi batean zehar jo zuen aurrera. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egur ikatza** (3); **eta ikatz** (23); **eta ikatz gorien** (3); **eta ikatza** (12); **eta ikatzarekin** (3); **eta ikatzezko** (3); **ikatz beltza** (3); **ikatz eta** (5); **ikatz goria** (3); **ikatz goriak** (5); **ikatz gorien** (8); **ikatz hautsa** (4); **ikatz hautsez** (3); **ikatz koskor** (4); **ikatz koxkorra** (5); **ikatz mutur** (3); **ikatz pila** (3); **ikatz puska** (4); **ikatz saltzailea** (3); **ikatz saltzaileak** (6); **ikatza baino** (6); **ikatza bezain** (12); **ikatza bezain beltza** (6); **ikatza bezain beltzak** (3); **ikatza bezala** (3); **ikatza bezalako** (3); **ikatza botatzen** (3); **ikatza erre** (5); **ikatza eta** (13); **ikatza eta egurra** (3); **ikatza eta gasa** (4); **ikatzaren eta** (3); **txori eta ikatz** (3); **zuen ikatz** (3)

---

# ikatzegile *iz* ikazkina.

Luzaiden azkenik ezagutu dugun **ikatzegilea** izan da Juan Pedro Erviti arotza. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

# ikatzontzi *(orobat **ikatz-ontzi**)* **1** *iz* ikatzaren ontzia, bereziki berogailuena.

Atetik hurre burdinazko berogailu handi eta dotorea burrunba batean, aldamenean **ikatz**-ontzi beltz distiratsua. Urtzi Urrutikoetxea

Duffy jaunak berak erosiak ziren gelako altzari pieza guzti-guztiak: burdinazko ohe beltza, burdinazko apain-mahaia, kanaberazko lau aulki, arropak esekitzekoa, **ikatzontzia,** su-babeskia eta burdinak. Irene Aldasoro

Susie erietxera eramateko kotxe baten bila abiatu zenean, egunkari hura lurrera bota zuen, **ikatz**-ontziaren ondora. Lopez de Arana

**2** ikatza garraitzeko itsasontzia.

Eskerrak **ikatz**-ontzi ingeles batek ikusi eta gau aldera handik jaso gintuen. Josu Zabaleta

---

ikazbizi ik **ikatz 9**.

---

# ikazdun *iz* ikatz-saltzailea.

Soto batean aurkitu dute, **ikazdunaren** alabarekin. Karlos Zabala

**Ikazdunak** tabernarako urrats urriak egin zituen, eta errabinoa atzetik joan zitzaion, erdi erorka. Koro Navarro

---

# ikazki *iz* ikatz gaia.

Erreka haren ertzean ikusi zituen buhame taldearen sutearen hondakinak, errautsa, ilauna, **ikazki** egurrak eta sasietan dilindan, botaiak ziren hainbat etxeetan erdietsi arropa zapituak. Itxaro Borda

---

# ikazkile *(orobat **ikazkille**)* *iz* ikazkina.

Eta otordu horren usaiera datorrena behar du izan, inondik inola, alderrai jende horrek guziak: alemanak, hungaroak, zingaroak, ijitoak, agotak, **ikazkileak,** kaskarotak edo dena delako eskazaleak, alegia. Patziku Perurena

**Ikazkille** gaxuak / dijuaz basora / anua bizkarrian, / eskuan aizkora... Patziku Perurena

---

**ikazkin** 1 *iz/izond* ikatz egiten duena; ikatza saltzen edo garraiatzen duena.

Bolada hartan, Mikel gipuzkoar **ikazkin** gaztea Otañez mendian ari zen lanean. Martin Anso

**Ikazkinen** surik ez basoetan, meatzarien kanpamenturik ez harrobi zokoetan, ezta txabola galdurik ere zuhaitzen artean. Karlos Zabala

Artzain ta **ikazkinen** mintzaira. Berria - Harian

**Ikazkina** zegoen atean, orga baten endaitzak esku banatan hartuta eta haserre. Anjel Lertxundi

**Ikazkina** ikatz banatzen egon zitekeen. Anjel Lertxundi

**Ikazkin** malapartatuak gaur goizean utzi eta esan du itzuliko zela ikatza barrura sartzeko. Lopez de Arana

Camagueyn eta Las Villas probintzien iparraldeko uharteñoetan **ikazkin** lanetan hil ziren guztiei. Berria - Kultura

Niri agindutako hitzordua baino ordu erdi beranduago iritsi zen Angeloren lagun **ikazkina**. Anjel Lertxundi

Urtarrila hotza, **ikazkinaren** poza. Pello Zabala

**2** (adizlagun gisa)

Aitaren aita, nire aitona Joxemari, **ikazkin** ibili zen gaztetan, mendian txondorra eginez. Xabier Mendiguren Elizegi

Jende behartsua izan ohi zen, ijito kastakoa maiz, baso lanetan eta **ikazkin** aritzen zena ere. Patziku Perurena

Urteak joan urteak etorri, zertara bidali zituzten ere ahaztuko zitzaiean bai berei bai baserritarrei, eta **ikazkin** hasi zituan, jaiotzeko sua behar duen, izateko ere sua behar duen eta hil ere suak hiltzen duen minerala egiten. Anjel Lertxundi

**3** ***ikazkinarekin beltz eta errotariarekin zuri***

Jan Janssen, ordea, **ikazkinarekin** beltz eta errotariarekin zuri izan ohi diren horietako pertsona zen, dirudienez, eta laster baino lehen etxean baino hobeto moldatu zen atzerriko itsaslapurren artean. J.M. Olaizola "Txiliku"

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **olentzero ikazkina** (4); **olentzero ikazkina da** (3); **zuen ikazkinak** (6)

---

**ikazkingo** *iz* ikazkintza.

Segur, beti itxura bertsua du, beti **ikazkingoan** segitzen du, ikatzak tira gutiago badu ere, beti mendian nunbait bizi da. Herria

---

**ikazkintza** *iz* ikatza egitea.

Ezkondu eta gero alde batera utzi zituen **ikazkintza** eta baso-lana. Xabier Mendiguren Elizegi

Gure aitak gobernuarentzako **ikazkintzan** aurkitu zuen lana, basoan.· Oligarkak eta **ikatz** eta altzairugintzako beren langileek esan zuten prest zeudela Janukovitxek gaztetan izan zituen bi zigorrak lapurretagatik eta eraso batengatik ahantzi eta lehen ministro gisako ibilbideagatik harengan konfiantza izateko. Jokin Urain

---

**ikazleku** *iz* ikatza dagoen lekua.

Aldeotako baso oihantsu, burniola zahar, eta **ikazleku** oparoenetakoa Patziku Perurena

---

**ikaztegi** *iz* ikatza gordetzen den tokia edo biltegia.

**Ikaztegia** etxepe batean zegoen, Madonna del Mare elizatik hurbil. Anjel Lertxundi

Ezkaratzeko **ikaztegian** zati batzuk zakura sartzen hasi eta ukitu nuen pistolaren metala. Joseba Sarrionandia

Labearen albora heldu, **ikaztegira** makurtu eta ikatz artean haztamuka hartu nuen pistola. Joseba Sarrionandia

Begiratu bat, lehendabizi sukaldeari, gero aitaren bulegoari, eta handik **ikaztegira,** Muxiri ataka zabaltzeko. Josu Zabaleta

Bere lagun batek **ikaztegia** zeukan, nonbait, portu inguruko sotoetako batean. Anjel Lertxundi

Hor hartuko nuen nik parte, **ikaztegiko** sarrera-irteeren kargu egingo nintzela esan baitzidan Angelok. Anjel Lertxundi

**Ikaztegian** ez zegoen zakuak pisatzeko edo ikatza garraiatzeko deus. Anjel Lertxundi

**Ikaztegiko** langileek nire kontrola nola hartuko zuten beldurrez. Anjel Lertxundi

Mutikoak garbitegitik **ikaztegiko** ate irekira eraman zuen atzeraka Gales Hegalaria. Koro Navarro

---

**ikaztegietar** *izlag/iz* Ikaztegietako, Ikaztegietari dagokiona; Ikaztegietako herritarra.

Mikel Artetxe larrabetzuarra eta Mikel Gaztañaga **ikaztegietarra**. Berria - Kirola

---

**ikaztu**, ikatz/ikaztu, ikazten **1** da *ad* ikatz bihurtu.

Gure herriko baserri maite guztiak arrotzei merke saltzen zegokion agentziaren hondarrak suak **ikaztu** zituen, su hiltzaileak eta poliziak jin baino lehen. Itxaro Borda

Plastikoa urtu behar zuen, baina kontu izan behar zuen aurretik ez **ikazten**. Berria - Gaiak

Suak **ikaztutako** erraiak. Gotzon Garate

Erreduraz **ikazturiko** mahaiaren ertzak. Aingeru Epaltza

**Ikaztutako** puska beltz eta suak purifikaturiko hauek, edo tximistak erretako haritzak, errespeto handiz gordetzen ziren. Pello Zabala

**2** *irud*

Joana neukan gogoan bat-batean, Creac'heko itzal iheslaria eta **ikazten** ninduen Maienganako sugeldo haragikorra. Itxaro Borda

**3** (era burutua izenondo gisa)

Oihal **ikaztu** pilotik auhenka ari zen zerbait atera zuen. Lopez de Arana

Ardi, behi eta zaldi **ikaztuak**. Joanes Urkixo

Gorputz **ikaztuak,** zipilduak eta ondo gardostuak. Fernando Morillo

---

**ikebana** *iz* Loreak kokatzeko japoniar antzea.

Irudiren bat eskegitzen da urtaroaren arabera, eta **ikebana** edo lore bizi sorta batekin apaintzen da. Ibon Uribarri

---

**iker** (hitz elkartuen lehen osagi gisa) ik **ikertu 3**.

---

## ikerbide *(16 esaldi, 7 liburu eta 2 artikulutan) iz* ikertzeko bidea. ik **ikerketa 7**.

Ez da inolako modurik asmatzeko nora eramango duen **ikerbide** jakin batek, ez eta, beraz, zein izango diren aplikazio posibleak. Juan Garzia

Inoiz ez zen bere ikergaia zehazteaz arduratu, eta oinarrizko eragiketa hori egin gabe, zientzia bati ezinezko zaio **ikerbide** bat garatzea. Isabel Arrigain

Kolore aldagarrizko erauzkinak ematen zituzten, polit-bitxiak haiek ere, baina ezinago ezegonkorrak: saio-egun gutxiren buruan, untxietara jo baino ere lehenago, **ikerbide** hura artxibaturik uzteko baimena lortu nuen Commendatorearengandik. Juan Garzia

Puntu honetan, gure **ikerbidea** erabat aldentzen da hizkuntz egituraren beste hainbeste teoriatatik. Itziar Laka

---

## ikerburu *iz* ikerketaburua.

Hiru ikerkuntzatako **ikerburu** izan da: [...]. Berria - Kultura

---

## ikergai *(49 esaldi, 16 liburu eta 15 artikulutan) iz* ikerketaren gaia. ik **ikerketa 10**.

Ikerketak, jakina denez, **ikergaia** gero eta gehiago zatikatuz, atalduz, egiten du aurrera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Inoiz ez zen bere **ikergaia** zehazteaz arduratu, eta oinarrizko eragiketa hori egin gabe, zientzia bati ezinezko zaio ikerbide bat garatzea. Isabel Arrigain

K hizkuntza **ikergaitzat** harturik, hauxe aurkitzea da arazoa: [...]. Itziar Laka

Ohar bedi ezin argudia daitekeela ibai-ertza den *bank* eta aurrezkiak gordetzeko *bank* hitz beraren agerraldi bi direnik, horixe baita, hain zuzen, **ikergaia** . Itziar Laka

Osagai-egitura sistemaren ezaugarri formalak **ikergai** interesgarria dira. Itziar Laka

Egokitasun hauek, sintaxia, semantika eta bion arteko loturak aztertuko dituen hizkuntz teoria orokorrago baten **ikergaiaren** atalak izan litezke. Itziar Laka

Euskal Herria eta erlijioa ziren bere **ikergaiean** ardatzak. Berria - Kultura

Diabetesa da zure **ikergaia** . Berria - Gaiak

Xabier Irigoienek itsasoa du **ikergai;** itsasoaren biodibertsitatearen inguruko ikerketa bat egin berri du, eta ondorio interesgarriak lortu ditu. Berria - Gaiak

Garuneko akromatopsia ez zuen ia inork **ikergaitarako** hartu hurrengo hirurogeita hamabost urteetan. Xabier Olarra

Jakintsua, hasieran, gehiegizko koldartasunez hurbiltzen da **ikergaira,** astiro, uzkur, oso galdera apalak eginez. Jose Morales

Eta banku bateko kamera korazatutik ateratzerakoan justifikatu ezineko bederatzi mila dolar baldin badauzka batek aldean, besterik gabe bihurtzen da **ikergai** . Xabier Olarra

Preso irakiarrek pairatutako ustezko tratu txarrak **ikergai** . Berria - Mundua

Senatari bat **ikergai,** irailaren 11ko erasoez aurretik zuen informazioagatik. Berria - Mundua

Saguak eta arratoiak hartu zituen **ikergai** . Juan Garzia

Xenpelar Dokumentazio Zentruaren inguruan gorpuzten ari den ikertaldekoei berriz, kezkagai zer dudan eta **ikergai** zer datekeen zirriborratu diet. Andoni Egaña

---

## ikergailu *iz* ikerketarako gailua.

Hain zuzen bazuten europearrek *Express* deitu **ikergailu** bat Marterat igorria eta huna handik berri interesgarriak etorri berri direla guretako ainitz balio dutenak jakintza mailean. Herria

---

## ikergaitz *izond* ia ikertezina.

Arrazoimen hutsaren idealari, ordea, ezin zaio **ikergaitza** deitu, zeren arrazoimenaren beharra baino bere beste errealitatearen baieztapenik ez baitu aurkeztu behar bere bitartez batasun sintetiko oro osatzeko. Ibon Uribarri

Bere izatea efektu jakinen bitartez adierazten duten izadiko indar askok **ikergaitz** dirau guretzat; izan ere, behaketaren bitartez ezin gatzaizkie behar adina urrun jarraiki. Ibon Uribarri

Pentsagarria den aldetik ere ez da **ikergaitza** . Ibon Uribarri

---

## ikergune *iz* ikerketa gunea.

Joseba Zulaikaren gidaritzapean dagoen *Center for Basque Studies* izeneko **ikergunean** . Pello Salaburu

Azkenik, hemen ez zegoen Espainiako CSIC, Frantziako CNRS edo Britania Handiko NERC bezalako ikerketarako erakunde publikorik: **ikergune** publiko hauek baliabide asko dituzte eta egiten den inbestimenduen kopuruan eragin handia dute. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Zientziaren aurrerapena **ikergune** pribatuetan oinarritzen denean arazo handiak sortzen ahal dira, uste gabean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitate eta **ikergune** publikoek har zezatela bere gain arlo hauetan egiten den ikerkuntza. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Amaia Elizagarate Aztiker **Ikerguneko** teknikari eta liburuaren zuzendariaren esanetan. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aztiker ikerguneak** (3); **aztiker soziologia ikerguneak** (3)

---

## ikerka *adlag* ikertzen.

Ondotik, itsasoz haraindian ere **ikerka** ari izana zen. Aurelia Arkotxa

---

## ikerketa *(5451 esaldi, 168 liburu eta 2508 artikulutan)* **1** *iz* ikertzea. ik **ikerkuntza; ikerpen**.

Horrela, fisika izaki fisiko-naturalen **ikerketa** da, higitzen diren izakiena, hain zuzen ere. Askoren artean

**Ikerketa** horren arabera, haurren %39k soilik hartzen dute amaren esnea, bizitzako lehen sei hilabeteetan. Berria - Gaiak

**Ikerketa** horiek aztergai beregainak zituzten. Lourdes Oñederra

Atentatuaren **ikerketari** dagokionez. Berria - Mundua

Gobernuak eskuratu ditu berak manatua zuen **ikerketa** baten emaitzak. Herria

**Ikerketa** sustatzeko ikertzaile gaituak izatea ezinbestekoa dela dio Europako Batasunak. Berria - Gaiak

Azken denbora hotan akulatu den **ikerketa** nasai baten ondorioz. Herria

**Ikerketa** abiatu zutenetik gaur arte hiru lagun auzipetu dituzte kasuan. energia iturri alternatiboen inguruko **ikerketari** eskainitako aurrekontuak. Berria - Gaiak
**Ikerketa** berak salatzen dauku ere probintziaka nun zonbat jende bizi den. Herria
**Ikerketa,** galdeketa edo dena delakoa. Oskar Arana
Euskal Herriko **ikerketa,** garapena eta berrikuntza zabaltzeko eta bultzatzeko nazioarteko sarea. Berria - Gaiak
**Ikerketa** oso aurreratuta zegoen. Luis Elberdin
Ea **ikerketak** inolako baliorik baduen. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Hori frogatuta dago; hainbat **ikerketak** berresten dute. Berria - Euskal Herria
Azken **ikerketek** erakusten dutenez. Gotzon Garate
Eta **ikerketa** haren ondorioz, lanpostua utzi behar izan nuen. Oskar Arana
**Ikerketa** aurrera zihoan neurrian, beste hainbat gertakari arraro izan ziren. J.M. Olaizola "Txiliku"
JMAren aurka zenbait eskolatara ez agertzeagatik eta harrera-orduetan bulegoan ez egoteagatik martxan zuen **ikerketa** bertan behera utziko du unibertsitateak. Iban Zaldua
180 adituko taldea prest da ja **ikerketari** ekiteko. Berria - Gaiak
**Ikerketa** ordaintzen duenak ondorioak nahi baititu berehala. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
**"Ikerketa** eta Garapenerako" (I+G) erabiltzen diren inbestimenduak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
**Ikerketa** horien emaitza izan zen liburu mardul eta mamitsu bat, *Visionaries*. Xabier Mendiguren Elizegi
Krimen horien **ikerketa** eta epaiketan. Andres Urrutia
Euskal Herriari buruzko **ikerketak** liburu batean bildu ditu Aztik. Berria - Euskal Herria
Guztira, 2.600 boluntariok parte hartu zuten **ikerketan**. Berria - Gaiak
Epe luzera lehiakor izateko berrikuntza eta **ikerketan** inbertitu beharra. Koro Navarro
Parisen zegoen, nazioarteko espioitza kasu baten **ikerketan**. Alberto Ladron Arana
Ni bihurrika nenbilen plazerrez, baina Kikok ez zidan mugitzen uzten, nire aluaren **ikerketan** ari baitzen. Juan Martin Elexpuru
36ko Gerraren garaiko hilobi komunen inguruko **ikerketan** ari da lanean sail hau. 50 guardia zibil ari dira **ikerketan** lanean. Berria - Kultura
EAEko etorkinei egindako osasun inkesta izeneko **ikerketatik** atera dituzte datuok, Berria - Euskal Herria

## **2** (izenlagun eta izenondoekin)

Oinarrizko **ikerketa** egitea denbora galtzearen pareko zerbait dela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Lehen mailako ekuazio aljebraikoei buruzko **ikerketak**. Jon Muñoz
Alzheimerrari buruzko bi **ikerketa**. Berria - Gaiak
Askotan salatu izan da pertzepzioari buruzko **ikerketak** etnozentrikoak direla. Josu Zabaleta
Sekta okultisten gaineko **ikerketa,** Urtxipiaren hilketaren eragile. Aingeru Epaltza
Gaia -aski interesgarria eta emankorra **ikerketa** sistematiko baterako- ez da sinplea. Joxe Azurmendi
"Gizakia zer da" auziari buruzko **ikerketa** filosofikoak. Askoren artean
Zientziaren **ikerketa** sozialen ildotik. Askoren artean
**Ikerketa** historikoan aspalditik egiten zen galdera horrek ez du erantzun errazik. Koro Navarro
**Ikerketa** historiko-kritikoak ahalegin handia egin du testuen arteko harremanak aztertzen. Askoren artean
**Ikerketa** genetikoen eragina. Berria - Gaiak
Erregulazio publikoak **ikerketa** zientifiko-teknologikoaren mugak ezartzen ditu. Askoren artean
Barrutiko inspektoreak **ikerketa** berezi bat agindu zuen krimenaren arrazoiak argitzeko. Aritz Gorrotxategi

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ezin garbiagoa da, ikuspuntu guztietatik begiratuta ere, nire laginean agertu dudan hirugarren **ikerketa** -adar hau. Naturaren legeak Jainkoaren legea ordeztu duelarik **ikerketa** -arlo gehientsuenetan. Anjel Lertxundi
**Ikerketa** beka bat du. Askoren artean
Baina delitu txikietan, akusatuaren errugabetasun-probabilitatea gutxitu egiten denez, luzatu egin behar da **ikerketa** -denbora. Juan Martin Elexpuru
Fonologia **ikerketa** eremu bizia izan da azken urteotan. Lourdes Oñederra
Zenbait **ikerketa** -eskolak erronkari heldu eta bigarren hautagaiarekin geratu ziren, gizartearekin alegia. Askoren artean
Horren **ikerketa** -esparrua zientziaren eta teknologiaren praktikatik eratortzen diren ziurgabetasunak eta arriskuak aztertzea da. Askoren artean
**Ikerketa** fasean dauden bi botikek. Berria - Gaiak
**Ikerketa** -garapenean (IG) inbertsiorik handienak egiten dituzten herrialdeetako enpresek. Koro Navarro
Gorago aipatu dugu **Ikerketa** Institutuak sortzeko beharra. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
**Ikerketa** jarduera sustatzeko erabiltzen diren edo erabili beharko liratekeen pizgarriei buruz. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Arlo bakoitzeko **ikerketa** joerak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Hamazazpi museo eta galeria, Washington D. C.-ko Zoo Nazionala, hamaika **ikerketa** -laborategi. Fernando Morillo
Lehen **ikerketa** -metodoa dauden zibilizazioak, jada identifikatuak, hartzea da. Iñaki Mendiguren
Zientzia politikoaren **ikerketa** objektua errealitatean azaltzen diren politikek osatzen dute. Askoren artean
**Ikerketa** orduan egiten zaizkion itaunei erantzutera ukatzen denak legeak ezartzen duen zigorra merezi du. Juan Martin Elexpuru
**Ikerketa** -plan eta –egutegiak. Juan Garzia
Bertsolaritzaren **ikerketa** -politika. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Beste batzuek, berriz, adaptazionismo delako hori **ikerketa** -programa bat dela uste dute. Askoren artean
Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta **Ikerketa** Saila. Berria - Harian
Bizitza atzemateko jakingura hori, hain gizakiarena den **ikerketa** -sen hori, gainerako ia ikasle guztiek bezalaxe sentitzen zuen berak ere. Josu Zabaleta
**Ikerketa** teknikak, ikastaroak, lanabesak, jardunak. Fernando Morillo
Beste filosofo batzuek ikerketa-programa edota **ikerketa** -tradizio bezalako kontzeptuak erabili dituzte teoria zientifikoa ezaugarritzeko. Askoren artean
Armadak berak kapitaina "istripuan hil zela" idatziz zarratu zuen **ikerketa** txostena. Iñigo Aranbarri

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

*Ensayo acerca de las leyes fonéticas de la lengua vasca* hizkuntz **ikerketa**. Askoren artean
Barne- **ikerketa** bat abiatu zen, aztertzeko. Fernando Morillo
Gogoratzen Pandora inguruko barne- **ikerketa**? Fernando Morillo
Oraindik ere osasun- **ikerketa** askorik ez baita. Gotzon Garate
Osasun- **ikerketak** egin dituzte Bonbaiko emagalduen artean. Gotzon Garate
Bere garapenerako **eremu** ikerketa egin duelarik enpresa batek, Mugerreko garraio lekuan metro karratua berrogei eurotan proposatua izan zaio ; aldiz hego Landesetako Seignanx aldetik hamabost euroko proposamena egin diote. Herria
XIX. mendearen erdialdera etorri zen Bonaparte printzea Euskal Herrira, eta ordukoak dira haren dialektologia **ikerketak**. Koldo Zuazo
Landa- **ikerketak** egin zituen garaian. Andoni Egaña

## **5** ***ikerketapean***

British Arways, Air France-KLM eta Lufthansa dira, besteak beste, **ikerketapean** dauden airelineak. Berria - Ekonomia

Irregulartasun susmoak zirela eta, Faziok kargua utzi behar izan zuen eta **ikerketapean** dago, Giovanni Consorte Unipoleko presidente ohia bezalaxe. Berria - Ekonomia

Juje batek **ikerketapean** ezarriz geroz. Herria

## 6 *ikerketa batzorde*

Beste agiri batean **ikerketa**-batzordeen eraketa eta eskumenak azaltzen dizkiote. Oskar Arana

**Ikerketa** Batzordean ezin bada honelakorik salatu, zertarako nahi dugu Liderra bertan egotea? Jon Alonso

Deputatuen artean muntatua izana zen **ikerketa** batzorde bereziak bere lana bururatu du. Herria

· Euskaltzaindiako Literatura **Ikerketa** batzordekidea da 1990 urteaz geroztik. Ana Urkiza

## 7 *ikerketa(-)bide* (*15 esaldi, 5 liburu eta 9 artikulutan; orobat* ***ikerketabide*** *2 agerraldi, liburu 1ean*) ik **ikerbide**.

Horra bada, antropologiaren arreta merezi duen **ikerketa**-bide bat:[...]. Anjel Lertxundi

XIII. mendean, berriz, Aristotelesen miresmena indarraldi osoan zegoen bitartean, **ikerketa** bide hori nahikoa etenda egon zela aitortu behar da. Askoren artean

Bi biltzar horietan Euskal Herriko kulturaz, hizkuntzaz, ekonomiaz, industriaz eta zientziaz eta **ikerketa bide** berriak sustatzeaz egin zituzten hitzaldiak. Berria - Kultura

Garmendiaren bizia eta lanak ditu goraipatu, bereziki Sevillan eramanikako urte garrantzitsuak, han baitzituen **ikerketa** bide berri batzu urratu. Herria

Ideia horrek ezagutzaren eta burmuinaren inguruan **ikerketabide** oparoa ireki du, zientzien arteko elkarlanean gauzatzen dena. Askoren artean

Aitor ezazu zu ez zarela egia, ez baitabil egia bere buruaren bila, eta zu **ikerketa bidez** iritsi zinen egiara. Imanol Unzurrunzaga

## 8 *ikerketa erakunde*

Euskal Herritik kanpoko **ikerketa** erakundeetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitateak eta **ikerketa**-erakundeak aspaldidanik ari dira, gehienetan zein bere aldetik eta nor bere esparruan, sozioekonomia aztertzen. Berria - Harian

Ifo ekonomia **ikerketa erakundeak** hobetu egin du aurten Alemaniako ekonomiak izango duen hazkuntzaren aurreikuspena. Berria - Ekonomia

Azti Arrantzarako Euskal **Ikerketa** Erakundeko. Berria - Harian

Espainiako Ozeanografia Institutuko, Frantziako Itsasoaren **Ikerketarako** Institutuko eta Marokoko Itsas Baliabideetarako Institutukoak. Berria - Harian

## 9 *ikerketa egin*

Unibertsitateak, gainera, **ikerketa** egiteko ere balio du, askotan enpresek ezinbestekoak dituzten ikerketak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Badirudi bi eratako irakasleak beharko genituzkeela izan unibertsitatean: **ikerketa egiten** duena, eta ikerketarik egiten ez duena edo helburu hori ez duena behintzat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikerketa** egitera bidali ninduenean bezain indartsu nago oraindik ere. Elizen arteko biblia

**Ikerketa** egin egiten da, itxuraz behintzat. Edorta Jimenez

**Ikerketa** egiteko bi lagun izendatu zituzten. Felipe Juaristi

Onartu behar izan duelakotz auziaren **ikerketa** egitea baina ez haren epaitzea. Piarres Xarriton

**Ikerketa egiteko** 205 haur aztertu zituzten. Berria - Gaiak

Baiona/Angelu/Miarritze hiri elkargoaren jokabidea salatzen du, elkargo horrek ez duela **ikerketarik** egiten ere funski ezagutzeko zertan den aloimenduaren problema hiru hiri horietan. Herria

· **Ikerketak** egin zituzten hainbat herrialdetan nire gurasoen bila, bizirik egon zitezkeelakoan. Eskarne Mujika

-Tira, zenbait **ikerketa** eginda, hortik zehar galdetuz eta, badakik, hainbat gauza entzun ditiat hire neska horri buruz. Sonia Gonzalez

Mundu osoko fisikariak etortzen ziren **ikerketak** egitera. Fernando Morillo

Mundu Gerrak fisika nuklearreko **ikerketak** egiten harrapatu zuen Werner. Fernando Morillo

1996tik hona eginiko **ikerketak** aztertu ditugu. Berria - Euskal Herria

**Ikerketa** bat egiteko «diru laguntza handiak» behar dira. Berria - Gaiak

Oinarrizko **ikerketa** egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hildakoaz nekizkien guztiak esan nizkien epaileei eta poliziako ofizialei, eta **ikerketa** sakon bat egin zen uharte osoan.. Josu Zabaleta

Nori zegokiok istripu honen **ikerketa** egitea? Harkaitz Cano

Duela urtebete emakumeen sexualitateari buruz **ikerketa** bat egin nuen Askabiden. Luis Elberdin

Hura topatzeko egin ziren **ikerketak** arreta handiz jarraitu zituen, eta beste gizon batekin alde egina zelako zurrumurrua heldu zitzaiolarik, hunkitu egin zen. Patxi Zubizarreta

## 10 *ikerketa gai* (*9 esaldi, 2 liburu eta 7 artikulutan*) ik **ikergai**.

**Ikerketa** gai interesgarri baten iradokizun gertatuko ahal da. Lourdes Oñederra

Antropologo garaikideentzako **ikerketa** gaia. Pako Aristi

Hori guztia hauteskunde Batzorde Nazionalaren **ikerketagaia** da. Berria - Mundua

Euskara **ikerketa gai** duen edozein ikerketa taldek Sisteman parte hartu ahal izango duela dio legeak.

## 11 *ikerketa(-)lan* (*152 esaldi, 8 liburu eta 123 artikulutan*) ik **ikerlan**.

Jarrera filosofiko hori **ikerketa**-lan askotara itzuli behar da. Askoren artean

Deialdi publikoen bitartez finantzatzen diren **ikerketa** lanetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Eusko Ikaskuntzak, Euskal Herriari buruzko **ikerketa** lanak egiteko, diru laguntzak eskaintzen ditu. Herria

1950ko hamarkadan, Jose Migel Barandiaranekin hasi zen **ikerketa** lanetan. Herria

Azken finean, **ikerketa lan** saiatuari esker egiten du aurrera zientziak. Berria - Gaiak

Duela urte eta erdi istripua argitzeko hasitako **ikerketa lan** asko bukatu gabe daudela salatu dute.

Landareekin egindako gurutzamenduak eta kolore berriak asmatzeko **ikerketa**-lanak... J.M. Olaizola "Txiliku"

Orain arte, ikerlari askok opor garaiak baliatu dituzte **ikerketa** lanak egiteko. Berria - Kultura

Wagnerren obraren gainean egin ditu bere **ikerketa** lan gehienak. Alberto Ladron Arana

Idazle batek gai jakin baten inguruan **ikerketa** eta azterketa lan handia egiten duenean, zergatik jo nobelara eta ez saiakerara? Ana Urkiza

Ia zortzi urteko **ikerketa** eta bilaketa lana izan zen, eta pozik utzi ninduen. Pello Lizarralde

## 12 *ikerketa(-)programa*

1962. urtean, ordenagailuen gaineko **ikerketa programa** bat abiatu zuen ARPAk. Berria - Gaiak

**Ikerketa** programa sustatzeko asmoa agertu duzu kanpainan zehar... Berria - Euskal Herria

Ameriketako Estatu Batuetako Autismoaren Ikerketarako Aliantza Nazionaleko (NAAR) **Ikerketa** Programarako arduraduna da Andy Shih. Berria - Gaiak

Beste filosofo batzuek **ikerketa**-programa edota ikerketa-tradizio bezalako kontzeptuak erabili dituzte teoria zientifikoa ezaugarritzeko. Askoren artean

Etorkizuna gogoan duen **ikerketa** programa indartsu baten alde egin dezazun eskatzen dizugu. Pello Salaburu

## 13 *ikerketa(-)proiektu*

Zenbait **ikerketa** proiektu akademikotan hartu du parte. Askoren artean

Lan hau egiteko bi **ikerketa**-proiekturen laguntza izan dut: 9/UPV 00003. 230-13707/2001 (EHU) eta BFF2002-03294 (MCyT). Askoren artean

Globalizazioak Gipuzkoan izango dituen eraginak eta aukerak aztertzeko Open Gipuzkoa **ikerketa proiektua** izenpetu zuten atzo MCCk, Gipuzkoako Merkataritza Ganberak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Ameriketako Estatu Batuetako **Ikerketa** Proiektu Aurreratuetarako Defentsa departamentuaren Agentziak soldaduentzako hezurdura mekanikoa aurkeztu du. Berria - Gaiak

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuak **ikerketa** proiektu onena saritzen du beka horrekin, urtero. Berria - Gaiak

### 14 *ikerketa(-)talde* (*78 esaldi, 61 artikulutan*) ik **ikertalde**.

Londresko College Unibertsitateko **ikerketa talde** batek ikerketa bat egin du bularreko angina duten emakumeei zer-nolako arreta eskaintzen zaien ikusteko. Berria - Gaiak

Norwicheko (Erresuma Batua) New Eeagle Unibertsitateko **ikerketa** talde batek egin du publiko ikerlana.

1.200 inkesta egin ditu **ikerketa** taldeak Euskal Herriko hiru herrialde horietan. Berria - Euskal Herria

Hwangek atzo adierazi zuenez, **ikerketa taldeko** kide batzuek engainatu zuten. Berria - Gaiak

EHUko Historiaurreko irakasle Andoni Saenz de Buruagak zuzenduriko **ikerketa taldea** 2004an hasi zen Saharako ondarea aztertzen. Berria - Kultura

«CIAk, behin eta berriro, ustezko terrorista andanaren bahiketak eta legez kanpoko atxiloketak egin ditu EBko hainbat estaturen esparruetan», azaldu du **ikerketa taldearen** txosten egile nagusiak, Claudio Faviak. Berria - Mundua

**Ikerketa** taldeko buru Jan Egelandek. Berria - Mundua

**Ikerketa taldeak** dokumentuak aztertzen ari dira. Berria - Mundua

David Kay AEBetako Estatu Batuetako Irakeko **Ikerketa** Taldeko buru ohiarekin elkartuko dela esan zien kazetariei.

Nazioarteko **Ikerketa Taldeak** zuzendu zuen itaunketa. Berria - Mundua

### 15 *ikerketa(-)zentro*

Azken urteotan eztabaida horiek muga akademikoak hautsi eta arazoen kokagunera zabaldu dira, hots, ospitaleetara, **ikerketa** -zentroetara, etab. Askoren artean

14 **ikerketa** zentro daude Iparraldean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Irudikatzen al nauk ni **ikerketa** -zentro batean lanean egun osoan, "lankidez" inguraturik? Jon Muñoz

### 16 *ikerketan jardun*

Herri horretako udal artxiboan **ikerketan** jardun ondoren, trena hartzera abiatu da irakaslea. Iban Zaldua

Gai hauen **ikerketan** dihardutenen adimenaren solitasuna. Imanol Unzurrunzaga

Produkzio sistemak ez du oinarrizko **ikerketan jardungo,** epe laburrerako irabaziak eta emaitzei begira dagoelako. Berria - Euskal Herria

Salbamendu taldeak erretako eraikinaren hondakinen artean gorpuen bila zebiltzalarik, jendarmeek bestelako **ikerketan** ziharduten, sutea zerk eragin zuen argitzeko. Berria - Mundua

Harik eta Hermann von Helmholtzek, ikusmenari buruzko **ikerketan** ziharduela, piztu eta zehaztasun berri bat eman zion arte. Xabier Olarra

### 17 *zientzia ikerketa*

Zientzia- **ikerketa** beraren jarraipena. Askoren artean

Bada esparru bat zientzia- **ikerketa** orotatik kanpo geratzen dena. Juan Garzia

Mundu osoko puntako ikerlari ugari elkartzen zituzten hormok, era guztietako zientzia- **ikerketak** burutzeko. Fernando Morillo

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan iaz 700 milioi euro inbertitu ziren **zientzia ikerketa** eta teknologia garapeneko jardueretan (I+G). Berria - Ekonomia

Farimonteko **Zientzia Ikerketarako** Institutuko ikertzailea da Edwards (Mendebaldeko Virginia, AEB). Berria - Gaiak

CSIC **Zientzia Ikerketarako** Espainiako Goi Kontseiluaren menpeko Bioteknologia Zentroko kidea da Santos Mañes.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**aburu ikerketa** (6); **akulatu ikerketa** (8); **argitaratutako ikerketa** (8); **argitzeko ikerketa** (32); **argitzeko ikerketa abiatu** (6); **atentatuen ikerketa** (7); **atzo ikerketa** (7); **auziaren ikerketa** (6); **azken ikerketa** (6); **aztertzeko ikerketa** (13); **baina ikerketa** (25); **barne ikerketa** (13); **batek ikerketa** (6); **bere ikerketa** (25); **beren ikerketa** (7); **beste ikerketa** (27); **beste ikerketa bat** (12); **bi ikerketa** (9); **buruz ikerketa** (10); **buruzko ikerketa** (87); **buruzko ikerketa bat** (8); **da ikerketa** (41); **dago ikerketa** (6); **den ikerketa** (31); **dio ikerketa** (13); **dira ikerketa** (18); **diren ikerketa** (15); **ditu ikerketa** (11); **dituen ikerketa** (8); **dituzte ikerketa** (6); **du ikerketa** (66); **du ikerketa batek** (8); **duen ikerketa** (33); **dute ikerketa** (44); **dute ikerketa horren** (8); **duten ikerketa** (10); **edo ikerketa** (7); **egin du ikerketa** (11); **egin dute ikerketa** (7); **egin ikerketa** (14); **egin zuen ikerketa** (6); **egindako ikerketa** (65); **egindako ikerketa batek** (10); **egindako ikerketa baten** (34); **eginiko ikerketa** (28); **eginiko ikerketa batek** (9); **eginiko ikerketa baten** (9); **eman dute ikerketa** (6); **ere ikerketa** (8); **ertzaintzak ikerketa** (7); **espainiako ikerketa** (10); **eta ikerketa** (233); **eta ikerketa sailak** (18); **eta ikerketa sailburu** (16); **ez da ikerketa** (8); **gaineko ikerketa** (27); **gobernuak ikerketa** (7); **gure ikerketa** (6); **hainbat ikerketa** (18); **hasitako ikerketa** (14); **hori ikerketa** (6); **horien ikerketa** (6)

**ikerketa abian** (15); **ikerketa abian jarri** (6); **ikerketa abiarazi** (6); **ikerketa abiatu** (42); **ikerketa abiatu du** (15); **ikerketa abiatu zuen** (11); **ikerketa abiatzeko** (8); **ikerketa agindu** (6); **ikerketa asko** (13); **ikerketa aurrera** (9); **ikerketa bat** (206); **ikerketa bat abiatu** (13); **ikerketa bat agindu** (13); **ikerketa bat egin** (26); **ikerketa bat egingo** (6); **ikerketa bat egiteko** (10); **ikerketa bat egiten** (7); **ikerketa bat hasi** (7); **ikerketa batean** (24); **ikerketa batek** (65); **ikerketa baten** (123); **ikerketa baten arabera** (86); **ikerketa batzorde** (31); **ikerketa batzorde bat** (17); **ikerketa batzordea** (38); **ikerketa batzordea eratzea** (6); **ikerketa batzordea eratzeko** (7); **ikerketa batzordeak** (31); **ikerketa batzordean** (17); **ikerketa batzordearen** (20); **ikerketa batzordearen aurrean** (6); **ikerketa batzordeari** (6); **ikerketa batzordeko** (11); **ikerketa batzu** (8); **ikerketa batzuen** (12); **ikerketa batzuk** (7); **ikerketa berezi** (7); **ikerketa berri** (10); **ikerketa bide** (10); **ikerketa bultzatzeko** (6); **ikerketa da** (8)

**ikerketa egin** (67); **ikerketa egin du** (8); **ikerketa egin duen** (6); **ikerketa egin zuten** (6); **ikerketa egingo** (14); **ikerketa egitea** (18); **ikerketa egiteko** (52); **ikerketa egiten** (33); **ikerketa egiten ari** (16); **ikerketa erakunde** (8); **ikerketa eskatu** (14); **ikerketa esparru** (6); **ikerketa eta** (136); **ikerketa eta garapenean** (15); **ikerketa eta garapenerako** (13); **ikerketa ez** (13); **ikerketa gehiago** (13); **ikerketa gehiago egin** (10); **ikerketa guztiak** (6); **ikerketa hasi** (41); **ikerketa hasi du** (16); **ikerketa hasi zuen** (7); **ikerketa hau** (9); **ikerketa historiko** (12); **ikerketa honek** (11); **ikerketa honen** (15); **ikerketa hori** (35); **ikerketa horiek** (23); **ikerketa horien** (10); **ikerketa horietan** (6); **ikerketa horrek** (10); **ikerketa horren** (47); **ikerketa horren arabera** (6); **ikerketa horren berri** (11); **ikerketa horretan** (13); **ikerketa ildo** (6); **ikerketa independente** (12); **ikerketa independente bat** (7); **ikerketa independentea** (23); **ikerketa ireki** (7); **ikerketa jarduera** (6); **ikerketa judizial** (6)

**ikerketa lan** (46); **ikerketa lana** (34); **ikerketa lanak** (29); **ikerketa lanaren** (6); **ikerketa lanetan** (10); **ikerketa lerro** (6); **ikerketa mota** (14); **ikerketa programa** (8); **ikerketa proiektu** (9); **ikerketa publikoa** (9); **ikerketa sail** (7); **ikerketa saila** (6); **ikerketa sailak** (19); **ikerketa sailburu** (16); **ikerketa sailburu anjeles** (16); **ikerketa sakon** (9); **ikerketa sakon bat** (6); **ikerketa sakona** (15); **ikerketa sustatu** (6); **ikerketa talde** (21); **ikerketa taldeak** (16); **ikerketa taldearen** (9); **ikerketa taldeko** (18); **ikerketa txostenak** (6); **ikerketa ugari** (8); **ikerketa zabaldu** (7); **ikerketa zentro** (16); **ikerketa zentroa** (11); **ikerketa zentroak** (18); **ikerketa zentroko** (21); **ikerketa zientifiko** (11); **ikerketa zientifikoak** (6); **ikerketa zientifikoaren** (6); **ikerketa zuzendu** (9); **ikerketa zuzendu duen** (6)

**inguruan ikerketa** (9); **inguruko ikerketa** (80); **irakaskuntza eta ikerketa** (14); **jakiteko ikerketa** (13); **legebiltzarreko ikerketa** (7); **legezko ikerketa** (10); **lehen ikerketa** (13); **nazioarteko ikerketa** (14); **oinarrizko ikerketa** (11); **p ikerketa** (9); **polizia ikerketa** (10); **poliziak ikerketa** (8); **poliziaren ikerketa** (6); **unibertsitate eta ikerketa** (58); **unibertsitateko ikerketa** (8); **urteko ikerketa** (13); **zehazteko ikerketa** (8); **zen ikerketa** (15); **zenbait ikerketa** (12); **zituen ikerketa** (6); **zuen ikerketa** (48); **zuen ikerketa bat** (6); **zuten ikerketa** (17); **zuzendu du ikerketa** (6)

**azken ikerketak** (7); **bere ikerketak** (10); **buruzko ikerketak** (29); **dira ikerketak** (8); **diren ikerketak** (10); **du ikerketak** (12); **duten ikerketak** (6); **egindako ikerketak** (11); **eginiko ikerketak** (12); **eta ikerketak** (20); **gaineko ikerketak** (10); **ikerketak agerian** (6); **ikerketak aurrera** (14); **ikerketak egin** (41); **ikerketak egin eta** (6); **ikerketak egitea** (8); **ikerketak egiteko** (23); **ikerketak egiten** (36); **ikerketak egiten ari** (7); **ikerketak erakutsi** (6); **ikerketak ere** (7); **ikerketak eta** (22); **ikerketak ez** (15); **ikerketak ez du** (8); **inguruko ikerketak** (33); **zuen ikerketak** (7)

**bere ikerketan** (8); **bere ikerketaren** (6); **buruzko ikerketaren** (8); **da ikerketaren** (8); **duen ikerketaren** (6); **dute ikerketaren** (6); **egindako ikerketaren** (23); **egindako ikerketaren arabera** (13); **eta ikerketan** (7); **eta ikerketarako** (24); **eta ikerketaren** (14); **ikerketan eta** (9); **ikerketan parte** (16); **ikerketan parte hartu** (9); **ikerketarako eta** (6); **ikerketarako institutuko** (9); **ikerketaren arabera** (70); **ikerketaren ardura** (11); **ikerketaren berri** (21); **ikerketaren bigarren** (9); **ikerketaren emaitzak** (24); **ikerketaren harira** (7); **ikerketaren ondoren** (6); **ikerketaren ondorioak** (9); **ikerketaren ondorioz** (6); **ikerketaren ondotik** (6); **ikerketari buruzko** (6); **ikerketarik egin** (13); **inolako ikerketarik** (6); **zientzia ikerketarako** (6); **zuen ikerketaren** (9)

**azken ikerketek** (6); **azken ikerketen** (10); **azken ikerketen arabera** (7); **diren ikerketek** (8); **diren ikerketen** (9); **diren ikerketetan** (6); **egindako ikerketek** (13); **egindako ikerketen** (13); **egindako ikerketen arabera** (8); **egindako ikerketetan** (6); **eta ikerketek** (7); **eta ikerketen** (8); **ikerketei esker** (6); **ikerketek aurrera** (8); **ikerketek erakusten** (6); **ikerketek erakutsi** (9); **ikerketek eta** (6); **ikerketek ez** (6); **ikerketen arabera** (77); **ikerketen berri** (15); **ikerketen emaitzak** (11); **ikerketetan eta** (6); **lehen ikerketen** (9); **lehen ikerketen arabera** (9)

---

## ikerketabide ik **ikerketa 6.**

---

## **ikerketaburu** (*orobat* ***ikerketa buru***) *iz* ikerlan baten buru den pertsona.

Mikel Noval ELAko **ikerketaburuak** kritikatu zuen langabezia gutxi jaitsi dela, eta %8ko tasa ez dela gainditu. Berria - Ekonomia

«Esperimentu honek erakusten du posible dela ernalketa galarazten duen gizonentzako txerto itzulgarri bat diseinatzea», esan du Michael O'Rand Ipar Karolinako

Unibertsitateko zientzialariak eta **ikerketaburuak**. Berria - Gaiak

Ezer ez dakitela onartu zuen atzo Steve Squyres AEBetako Espazio Agentziaren Propultsio Laborategiko **ikerketa buruak**. Berria - Gaiak

Horretan Israelgo Armadako Inteligentzia Zerbitzuetako **Ikerketa buru** Yossi Kuperwaserrek argi esan du hilketak ondorio latzak eragin ditzakeela epe laburrera. Berria - Mundua

---

ikerketagai ik **ikerketa 9**.

---

# **ikerketalari** *iz* ikerlaria.

Katowice hiri handitik hurbil dagoen Chorzoweko erakusketa guneko hegatzaren erortzea zerk eragin duen aztertzen hasiak dira **ikerketalariak**. Berria - Mundua

---

# **ikerketatxo** *iz adkor* ikerketa.

Hainbeste unibertsitario kritiko eta progre dabilen Espainietan, arrazismo espainolak (Ortega, Sánchez Albornoz, etc.) **ikerketatxoren** bat ez ote du merezi? Joxe Azurmendi

---

# **ikerkizun** *pred* ikertzeko.

Munduari bira egiten ez dion itzulinguruko esferarik ba ote den jakiteari dagokionez, halaber, **ikerkizun** dago. Xabier Kintana

---

# **ikerkuntza** *(534 esaldi, 22 liburu eta 172 artikulutan)* **1** *iz* ikerketa.

Esana dago irakaskuntzak eta **ikerkuntzak** nahitaez eskutik joan behar dutela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikerkuntza** azkenik gabeko prozesu bat da, eta inork ez daki deus haren bilakaeraz. Juan Garzia

Baliabideak behar dira [...], baliabideak irakaskuntza eta **ikerkuntza** egokiagoak egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Azken urte hauetan **ikerkuntza** eta garapenari garrantzi handia eman zaie. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

EAEk BPGren %1,5 bideratzen du **Ikerkuntza** eta Garapenera. Berria - Ekonomia

Japonia inbestimendu handiak egiten ari da oinarrizko **ikerkuntzan**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Oinarrizko **ikerkuntza** eta estrategiazko **ikerkuntza** behar bezala sustatzea. Juan Garzia

Punta-puntako **ikerkuntzaren** berri izateko aukera. Berria - Gaiak

Armando Llanos arkeologoak, era berean, etengabeko **ikerkuntzaren** beharra azpimarratu du. Berria - Kultura

Euskal ondare bibliografikoari buruzko **ikerkuntzaren** eta kontserbazioaren esparruan. Berria - Kultura

Gramatika-egituraren **ikerkuntza** formalaren emaitzetako bat. Itziar Laka

**Ikerkuntza** babesten duten erakundeek. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikerkuntza** garatzeko toki guztietan unibertsitateari berez dagokion zeregina. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Beharbada horren begi-bistakoa ez bada ere, **ikerkuntza** honen ibiliak Nelson Goodman eta W.V. Quineren lanaren eragin sakona jasan du. Itziar Laka

Zer egin behar duen batek **ikerkuntzan** hasten denean bere ibilbide akademikoa behar bezala zedarritzeko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

2001ean **ikerkuntzara** bideratutako diruaren %56 baino ez zen enpresa pribatuena. Berria - Gaiak

1999an zientzia eta **ikerkuntzari** Barne Produktu Gordinaren (BPG) %0,83 eskaini zion Txinak. Berria - Gaiak

Bizitza zoriontsurako aski da egiaren **ikerkuntza**. Imanol Unzurrunzaga

Filosofia ez da jakituria bera; jakituriaren **ikerkuntza** da. Imanol Unzurrunzaga

Hizkuntzaren **ikerkuntzan,** gramatika eta gramatikaren teoria da axola duena. Itziar Laka

Sintaxiaren eta semantikaren arteko loturen **ikerkuntzan**. Itziar Laka

Eritasunek sortzen dituzten heriotzen % 90 aztertzeko, **ikerkuntzako** diruen % 10 bakarrik erabiltzen da. Pello Salaburu

**Ikerkuntza** eta Enpresekiko Harremanetako errektoreordea. Berria - Euskal Herria

Elikagaien **Ikerkuntzarako** Institutuko zuzendari Jan Mousingek. Berria - Gaiak

Rafal Antczak Varsoviako Gizarte eta Ekonomia **Ikerkuntza** zentroko ekonomistak. Berria - Ekonomia

Espainiako Poliziako **Ikerkuntza** Teknologikorako Brigadako poliziek. Berria - Euskal Herria

Frantziako CNRS Zientza **Ikerkuntzarako** Zentro Nazionalean. Berria - Mundua

Euskadiko Kutxako **Ikerkuntza** departamentuko zuzendariak. Berria - Ekonomia

Gizarte Zientzien Euskadi **Ikerkuntza** Saria. Berria - Euskal Herria

**Ikerkuntzako** Euskadi Saria Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ahozkotasunaren **ikerkuntza** arloa. Andoni Egaña

Iradoki dugun hizkuntz teoriaren **ikerkuntza**-egitasmoan hiru betebehar nagusi daude. Itziar Laka

**Ikerkuntza** prozesu azkengabe bat da, nondik nora egingo duen sekula jakiterik ez dagoena. Juan Garzia

Kontrolik ezaz, artikulurik hutsalenak maila gorenetara iristen dira, **ikerkuntza** erreportajeen eta nazioarteko albisteen kaltean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Benetako unibertsitate sistema eraginkorra lortuko badugu, **ikerkuntza** jarduera suspertu egin behar da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gizarte zientzien arloetako **ikerkuntza** jardueraren garapen maila, apalagoa da beste arlokoen garapena baino. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikerkuntza**-kredituak banatzeko kargua zuten batzorde eta erakundeek. Juan Garzia

Barne-arazokoek bere **ikerkuntza**-metodoetan aurkitutako irregulartasun batzuez. Iban Zaldua

Ezein kudeatzailek, ezein fundaziok, ezein **ikerkuntza**-ministrok ez zituen bide horretan abiarazi. Juan Garzia

Bistan da ezin ditugula **ikerkuntza** mota guztiak, jakintza arlo desberdinetan gainera, bultzatu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**ikerkuntza**-ordezkaritza bat sortu zuen, hainbat urtetarako egitamu baten arabera gehituz zihoan aurrekontu batekin. Juan Garzia

**Ikerkuntza**-subjektu horren behinekotasuna. Edorta Agirre

Lanbide Heziketako **ikerkuntza** zentro bat jarriko dute Errenterian. Berria - Euskal Herria

Tekniker **ikerkuntza** zentroak **Ikerkuntza** esparru ezberdinak jorratu ditu Axelek. Berria - Gaiak

**Ikerkuntza** gune publiko sare bortitz bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Azterketa egiteko lana MIT *(Massachussets Institute of Technology)* **ikerkuntza**-institutuko talde bati eman zioten. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Industria eta **ikerkuntza** ministroa Bidarten Izarbel deitzen den teknopolioan. Herria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta **Ikerkuntza** Sailak babestua. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lan honek EEBBko [...] *Air Force* (Zientzia-ikerkuntzarako bulegoa, Aire- **ikerkuntza** eta Garapen Komandoa) eta *Navy* (Itsas- **ikerkuntzarako** bulegoa) erakundeen diru-laguntza jaso du. Itziar Laka

Gramatika- **ikerkuntza** giza hizkuntzaren formari buruzko teoria baten zerbitzuan hasi berria zen. Itziar Laka

Haur-eskoletatik unibertsitate- **ikerkuntzaraino** Unibertsitate **ikerkuntzan** ere, gutxiago inbestitzen da hemen herri horietan baino. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Haur-eskoletatik unibertsitate- **ikerkuntzaraino** . Berria - Euskal Herria

## 4 *ikerkuntza egin*

Euskal Herriko unibertsitateak ez dira sortu, pentsatu eta antolatu **ikerkuntza** egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikerkuntza** egiteko prestakuntza eta gogoa sustatu behar dira. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Unibertsitatean **ikerkuntza** egiteko diru kopuruak atzera egin du. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Munduan zehar diru publiko asko erabiltzen da ikerkuntzan, baina enpresek ere diru asko erabiltzen dute **ikerkuntza** egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

· **Ikerkuntza** hau egin artean, Zellig S. Harrisekin eztabaida luze askotan jarduteko aukera izan dut. Itziar Laka

## 5 *ikerkuntza lan*

Kubako hegoaldeko kostaldean patruilatzeko eta **ikerkuntza** lan zenbait egiteko. Edorta Jimenez

Gaur egun hainbeste lagun daude Euskal Herrian **ikerkuntza** lanak egiten, horietako gehien-gehienak EHUn. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

EHUko irakasle guztien %40 inguruk ez du **ikerkuntza** lanik egiten. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Doktore tesia egin behar du **ikerkuntza lanetan** hasi nahi duenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Claudie Haignere Frantziako Ikerkuntza ministroak, bestalde, ukatu egin zuen zientzialarien kargu-uzteak **ikerkuntza** lana gelditzea ekar dezakeela. Berria - Gaiak

## 6 *zientzia ikerkuntza*

Ba ote zientzia- **ikerkuntzan** mugaren bat, ez ezagutze-ahalmenak, baizik eta ezagutzeko interesak ezarria? Juan Garzia

Zientzia **ikerkuntzaren** alorrean aurrerapen handiak egon direla, alor horretako asmakuntzak patentagarriak izan ez arren. Berria - Gaiak

Biziaren errespetua maizegi ukatua, gosetea eta ezaxolkeria, zientzia **ikerkuntzaren** ilunbeak eta gerlen ekaitzak. Herria

Frantziako zientzia **ikerkuntzarako** zentro nazionaleko kidea. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**den ikerkuntza** (11); **du ikerkuntza** (6); **egiten den ikerkuntza** (6); **eta ikerkuntza** (32); **eta ikerkuntzan** (6); **ikerkuntza egitea** (6); **ikerkuntza egiteko** (9); **ikerkuntza egiten** (6); **ikerkuntza eta** (32); **ikerkuntza mota** (6); **ikerkuntzan eta** (8); **oinarrizko ikerkuntza** (16); **oinarrizko ikerkuntzan** (9)

---

# ikerlan *(139 esaldi, 27 liburu eta 73 artikulutan)* **1** *iz* ikerketa lana. ik **ikerketa 11**.

Gure aita bizitza osoan **ikerlan** zientifikoan aritu zen buru-belarri. Fernando Rey

Fisika nuklearraren arloko **ikerlan** funtsezko batzuk egin zituen, haietako batzuk Fermirekin. Fernando Rey

Osakidetzari zonako **ikerlan** epidemiologikoa egin dezala eskatzeko. Berria - Euskal Herria

Izan ere, jakituria eta gizatasuna ez baitira jatorkeria batzuk asmatu eta taigabe haiek predikatuz umotzen, buruko argi guziak itzali arte nork bere **ikerlan** eszeptikoan segituz baizik. Patziku Perurena

**Ikerlanaren** arabera, gai kimikoak izan dira eragileak: Irakek erabilitako nerbio gasa eta AEBek arma kimikoetatik babesteko soldaduei emaniko drogak, adibidez Azken hamarkadako **ikerlanek** frogatu dute garun-azala oso plastikoa dela. Xabier Olarra

Ikerketaren baldintza zenbaitegatik hizketari buruzko **ikerlanek,** edo ekoizpenari edo oharmenari eman izan diote lehentasuna. Lourdes Oñederra

Hala ere, lan bat aintzat har dadin, pentsamolde berri bat onar dadin, araztu beharra dago **ikerlana** zabor afektibo edo irrazional guztiez. Juan Garzia

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pasteur Institutuko gure laborategian martxan zeuden bi **ikerlan** motak [...] ez zirela, izatez, fenomeno beraren bi aurpegi baino, mekanismo beraren bi adierazpen. Juan Garzia

Santiago Leone Puncel ikerlariak[...] irabazi du Irungo Udalak antolatutako Jose Antonio Loidi ikerketa-bekarako lehiaketa, *Euskal Herria XIX. mendeko bidaia* liburuetan izeneko **ikerlan** egitasmoari esker. Berria - Kultura

Gasteizko harresiak berreskuratzeko **ikerlan** egitasmoa aurkeztu dute. Berria - Kultura

**Ikerlan** enpresak hainbat proiektu ditu esku artean. Berria - Gaiak

Eusko Ikaskuntzak diru-laguntzak emanen ditu 12 **ikerlan** egileri. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**buruzko ikerlan** (4); **eta ikerlan** (5); **ikerlan bat** (7); **ikerlan batean** (3); **ikerlan eta** (4)

---

# ikerlari *(329 esaldi, 46 liburu eta 151 artikulutan)* **1** *iz* ikertzaile**a.**

Orain arte, **ikerlari** askok opor garaiak baliatu dituzte ikerketa lanak egiteko. Berria - Kultura

Fonoestilistika arazoek **ikerlarien** arreta gutxiago jaso dute beste batzuek baino. Lourdes Oñederra

Mireiak *International Physics Center* horretan egiten zuen lan, **ikerlari** moduan. Fernando Morillo

Mundu osoko puntako **ikerlari** ugari elkartzen zituzten hormok, era guztietako zientzia-ikerketak burutzeko..Horrela osatu genuen batzordea, komisarioaz gain **ikerlaria** ere tartean zela. Fernando Morillo

Poliziako **ikerlarien** arabera istripuzko gertakaria zitekeen, baina ez zuten pista bakar bat baztertzen. Itxaro Borda

Dopin genetikoaren arriskuaz ohartarazi dute **ikerlariek** . Berria - Kirola

NBEko bost **ikerlari** independentek azken hiru urteetan egindako lanaren emaitza da atzo kaleratu zuten txostena. Berria - Harian

Kimikari ezin hobea eta **ikerlari** aspergaitz zorrotza zela. Juan Garzia

Spencer Wells **ingles** ikerlariak ahaidetasun zerbait aurkitzen du euskararen eta Kaxmir eskualdeko burushaski mintzairaren artean. Herria

Gaur egun Berkeley unibertsitateko (California) **ikerlaria** da. Askoren artean

Iker-CNRS taldeko **ikerlaria** da. Ana Urkiza

## 2 ik **ikertu 1**.

Eta **ikerlariak** bidali zituen etsaien kanpakelura. Elizen arteko biblia

**Ikerlariak** bidali zituen, Saulen etorrera ziurtatzera. Elizen arteko biblia

## 3 (hitz elkartuetan)

Kutx ala pil egin bezain pronto **ikerlari** lanetan jarria zen errioxarra. Berria - Kirola

Agustin Azkarate EHUko irakasleak zuzendutako **ikerlari** talde bat. Berria - Kultura

**Ikerlari** taldea hamabost hilabetez egon da lanean eta aurki helaraziko dute txostena bere osotasunean. Berria - Mundua

· Badira ere, beste ainitz maileten, xakur heziak: batzu itsu gidari, besteak droga **ikerlari** , edo jende bakartuen etxeko lagun, ala xahur toki zaindaria edo gizonaren lagun hoberena, errana den bezala. Herria

Bere arrazoiketa oinarritzeko Francois Passard garraio **ikerlariaren** hitzak ekarri ditu gogora. Berria - Euskal Herria

Bizkitartean, Hannah Arendt-en arabera, eskuineko ala ezkerreko politika-**ikerlariek** onartzen omen dute bortizkeria ez dela boterearen erakusle argiena baizik. Piarres Xarriton

Ba ote du interesik filologo eta literatur **ikerlarien** sekta murritzetik kanpoko irakurlearentzat idazle baten ariketen bildumak? Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dute ikerlariek** (6); **duten ikerlari** (3); **eta ikerlari** (9); **eta ikerlaria** (3); **eta ikerlariak** (9); **hainbat ikerlarik** (3); **ikerlari askok** (3); **ikerlari batek** (3); **ikerlari eta** (17); **ikerlari gehienek** (3); **ikerlari horiek** (4); **ikerlari talde** (3); **ikerlaria da** (6); **ikerlaria eta** (6); **ikerlariak bidali** (3); **ikerlariak eta** (4); **ikerlariak ez** (3); **ikerlarien arabera** (3); **literatur ikerlaria** (3)

---

## **ikerlaritza** *iz* ikertzaile jarduna.

Gogor egiten zuen lan [...] oinez jarraitzen zuten eta Ramsay andrea ez zen esanahiaz zehatz ohartu, hitz bakanak soilik, han-hemenka... disertazioa... **ikerlaritza..** . lektoradutza... katedra. Anton Garikano

---

## **ikerle** 1 *(**102** esaldi, **14** liburu eta **69** artikulutan)* *iz* ikerlaria, ikertzailea.

Hannah Arendt (1906-1975) judu aleman **ikerlea,** Totalitarismoaren Iturriak aztertu dituena. Piarres Xarriton

Akiro Mitamura Japoniako herri literaturaren **ikerle** ospetsuak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Atzerritik etorritako hainbat **ikerle** entzutetsu geure hizkuntzaz arduratzen zela ikustea. Anjel Lertxundi

Egiaren **ikerlea** zoriontsua da, egiaren jabe izatera iritsi ezin bada ere. Imanol Unzurrunzaga

Hango piramidearen ondoan frantses **ikerle** batzu ari direla beren ikerketen egiten. Herria

Datu arkeologikoetan oinarrituz nekazaritzaren sorrera Euskal Herrian aztertu zuen Lydia Zapata EHUko irakasle eta **ikerleak** . Berria - Euskal Herria

Bilduak zituzten Testament zahar eta berria aztertzen dituzten **ikerleak** . Herria

Gogamenaren teoria multifaktorial edo konposatuaren mugak dituzte **ikerleok** hizpide. Xabier Olarra

Zeren baitaki guztiek dakitena, hots, Inkisidore Jaunek, **Ikerle** diren ber, ez dutela neholako eskubiderik nehongo apezpiku xumeenaren ala gaiztoenaren gain. Piarres Xarriton

**2**

Han-hemenka jendea geldiaraziz eta **ikerle** -aurpegi urduriz, atzamarrak bihurritu eta karraskatuz itauntzen ziela: "barkatu, joateko asmoa daukazu?", eta: "zergatik?", edo eta: "zure ustez hobe al da horrela, galdetzea zilegi bada?". Urtzi Urrutikoetxea

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aro ikerleek** (6); **eta ikerle** (5); **ikerle eta** (6); **xiberotar ikerleak** (3)

---

## **ikerleku** *iz* ikerketa egiten den lekua.

Princeton: mundu osoko zientzialari ospetsuenetakoen **ikerlekua** . Fernando Morillo

---

## **ikerlerro** *iz* ikerketa-lerroa.

Barandiaranen **ikerlerro** garrantzitsuenetakoa izan zen herritarren ahotik kondairak jasotzea. Berria - Harian

---

## **ikerpen** *(**4** esaldi, liburu **1** eta artikulu **1**ean)* *iz* ikerketa.

Monsieur Poiroten **ikerpenak**. Berria - Kultura

**Ikerpen** eta behatze filosofikoek soilik janaritzat balio diote gure jakinahiari... Patziku Perurena

---

## **ikerraldi** *(orobat **ikertaldi**)* **1** *iz* ikerketa.

Izan ere, apaldegi makulagabe, kanfor, argizari eta mendeetako kimika-nekez usaintsu haietan beste **ikerraldi** bat eginez, zera ikasi nuen: azido urikoa, gizonaren eta ugaztunen jariakinetan urri-urria, txorien iraizkinen ehuneko 50 dela, eta narrastien iraizkinen ehuneko 90. Juan Garzia

**2** ik **ikertu 1**.

Zaldi **ikertaldia** (hobekuntza) Saran , uztailaren 8-tik 13-ra, 1800 lib. Herria

---

## **ikerrarazi**, ikerraraz, ikerrarazten *(orobat **ikertarazi**)* du *ad* ikertzera behartu.

Estatu batzuek ez dute ikertu nahi, baina NBEren instantziek **ikerrarazi** beharko dute. Berria - Euskal Herria

Horren kontrako lehen urratsa, bere buruaren **ikertaraztea** edo miaraztea da, gero sendagailu zorrotzetara joaiteko. Herria

---

## **ikertalde** *(**3** esaldi, **2** liburutan)* *iz* ikerketa taldea. ik **ikerketa 14**.

Xenpelar Dokumentazio Zentruaren inguruan gorpuzten ari den **ikertaldekoei** berriz, kezkagai zer dudan eta ikergai zer datekeen zirriborratu diet. Andoni Egaña

Biologia molekularreko **iker** -taldeak ziren han kokatzekoak. Juan Garzia

---

## ikertaldi ik **ikerraldi.**

---

## **ikertegi** *iz* ikerketa zentroa.

Hamar urte segurik beharko **ikertegiaren** eraikitzeko, ondotik beste hogoi bat edo gehiago ikerketa guzien egiteko. Herria

Ez ote duten ustegabeko nuklear ixtripu zerbait ukan beren **ikertegietan** . Herria

Danobat taldea honako hauek osatzen dute: D+S Sistemas, Estarta, Goiti, Lealde eta Soraluze kooperatibek eta Ideko **Ikertegiak** . Berria - Ekonomia

## ikertezin *izond* ezin ikertuzkoa. ik **ikergaitz**.

Gauza guztien egilea [...] hasierarik eta amaierarik gabea dena, aldaezin, ikusezin, kontaezin, esanezin, adiezin, **ikertezin,** bedeinkatu, goresgarri, ospetsu, goraipatu, goren, garai, leun, maitagarri, atsegingarri eta gauza guztien gainetik guztiz desiragarria gizaldietan. Askoren artean

Eta bitartean lauzpabost indio haiek hantxe, zirkinik egin gabe, pantaila ximurtuaren aurrean kukulumuxu, nork bere lastozko kapelutzarra buruan, beharbada pozik, beharbada ez, ezin ba jakin, hain **ikertezin,** hain mongoliko... Joxe Austin Arrieta

Desarrazoi **ikertezina**. Iñaki Arranz

Osoki **ikertezina** den adigaia. Ibon Uribarri

Hainbestez, ibilera baten zeinua barnebildu behar duen esperientziaren lurra uzten duen heinean, eta honetaz goiti ulertezina eta **ikertezina** denera ausartzen den heinean. Ibon Uribarri

---

## ikertu, iker, ikertzen **1** du *ad* aztertu, arakatu, miratu.

Arduradunak denak **ikertu** zituen, zaharrenarenetik hasi eta gaztearenenraino; eta Benjaminen zakuan aurkitu zuen kopa. Jose Antonio Mujika

Faraoiak **ikertzeko** agindu zuen, eta egia zen israeldarren abererik ez zela galdu. Elizen arteko biblia

Igo ziren, bada, gizonak eta lurraldea **ikertu** zuten Tzin basamortutik hasi eta Rehob-eraino. Jose Antonio Mujika

Bi gizon bidali zituen Xitimgo kanpalekutik lurraldea isilean **ikertzera**. Elizen arteko biblia

Bi poliziek goitik behera **ikertu** zuten beltzez beztitu anderea. Itxaro Borda

Poliziak igotzen ziren bidaztiak **ikertzera** eta den-denak zorrotz ikuskatzen zituzten, Ivan Ogareffen bila baitzebiltzan. Karlos Zabala

Nire irudia **ikertu** nuen armairuko ispiluan, titi eder batzuk ikusi nituen, [...]. Juan Martin Elexpuru

Badakit **ikertu** egiten nauela, baina aurrekoa baino eramangarriagoa da hau. Agurtzane Juanena

Aitona Juanitoren bizitza **ikertu** nahi duk? Xabier Mendiguren Elizegi

**Ikertu** lehenengo, zehatz-mehatz galdetuz eta aztertuz; eta ikusten baduzue, egiaz gertatu dela zuen artean gaiztakeria hori, [...]. Elizen arteko biblia

Nork **ikertuko** gure makurkeria biribilak?" **ikertzen** ditu, bai, gizakiaren barrena bihotz-hondoraino ikertzen duenak. Elizen arteko biblia

Berak aztertuko ditu zuen egintzak eta **ikertuko** zuen egitasmoak. Elizen arteko biblia

Egia **ikertze** hutsak, hura lortu gabe ere, gizakiaren zoriona ekar lezake. Imanol Unzurrunzaga

Ez ezazu **iker** zuretzat ilunegi dena, eta ez azter nahaspilatuegirik dagoena. Xabier Kintana

Arren eskatu nion diskrezio osoz **iker** zezala Müller doktoreari buruz: zenbat urte zituen? nolako itxura? non ibilia zen gerran? Miren Arteagaren hilketa **ikertzen** ari naiz, jakingo duzun bezala oraindik argitu gabe dago eta. Juan Garzia

Poliziarengandik, Rosarioren desagerpena **ikertzeko** promesa baizik ez nuen erdietsi. Aingeru Epaltza

2003. urtean, Ertzaintzak 71.202 delitu eta falta **ikertu** zituen Euskal Autonomia Erkidegoan. Berria - Euskal Herria

**Iker** ezazue arazoa legearen arabera eta epaitu. Salaketa **ikertu** zuten, eta funtsik gabea zela ondorioztatu zuen Fiskaltzak. Elizen arteko biblia

Matematika **ikertzeak** erakutsiko ziela medikuei nola konpondu medikuntzako arazo ezin konponduzkoak. Irene Aldasoro

Laborategiek hazi horien ADNa **ikertu** zuten. Berria - Gaiak

Erresuma Batuko *Plymouth Derriford* erietxeko zientzialariek 12.674 lagin **ikertu** dituzte eta horietatik hirutan Creutzfeldt-Jakob (CJD) gaitzaren aztarnak aurkitu dituzte. Berria - Gaiak

Zizeron **ikertzea** derrigorrekoa zen hizlarigaientzat. Imanol Unzurrunzaga

**2** jakintzari edo zientziari dagozkion aurkikundeak egiteko aztertu.

Zer **ikertu** behar du Filosofia Politikoak? Askoren artean

**Ikertu** nahi nuena zera zen: ea bakterioen baitako gene-adierazpenaren erregulazioan atzemandako printzipioek zer neurritan funtzionatzen zuten organismo konplexuetan. Juan Garzia

*Messenger*-ek Merkurio **ikertu** ahal izateko tresneria berezia darama. Berria - Gaiak

Marten inoiz urik izan ote den argitu nahi dute orain datu horiek **ikertuta** zientzialariek. Berria - Gaiak

Balada zaharrez **ikertutakoa** bildu du *Erein*ek argitara eman berri duen liburu batean. Berria - Kultura

Aldekoen arabera, parkinsona, alzheimerra, minbizia eta diabetesa sendatzeko bidea aurki daiteke ama zelulak **ikertuta**. Berria - Gaiak

Enbrioiaren garapena **ikertu** nahi bazen, enbrioiak hartu behar ziren aztergai. Juan Garzia

Zuzenean ingelesa **ikertu** beharrean, **iker** ditzagun alfabetoan *a* eta *b* letrak baino ez dituzten zenbait hizkuntza. Itziar Laka

Sasoi hartan Deba arroko euskara **ikertzen** niharduen. Koldo Zuazo

Egokitasun hauek **ikertu** egin beharko lirateke, hizkuntz formaren teoria eta hizkuntz erabileraren teoria barne-ataltzat biltzen dituen hizkuntz teoria orokor batean. Itziar Laka

Azken boladan globalizazioari eta krisi ekologikoari buruz **ikertu** du. Askoren artean

Eritasun horren erroak nork **ikertu** ditu? Piarres Aintziart

George A. Kennedy erretorika klasikoa erakartzearen arte gisa **ikertu** duen aditu garrantzitsuena da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gai hori Leo Straussek **ikertu** eta aztertzen du *Jazarpena eta idazteko artea* izeneko bere liburu ospetsuan. Xabier Kintana

Euskal Herriko Unibertsitatean **ikertu** euskaraz **ikertu** behar litzateke, eta argitaratu, berriz, ingelesez. Joxerra Garzia

**3** (**iker** hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Gramatika semantikatik bereizia den **iker**-alor beregain bezala formulatzen da hobekien. Itziar Laka

Hizkuntzaren beste **iker**-alor batzuek. Itziar Laka

Ahoskeraren eta ortografiaren arteko lotura **iker**-eremu oparoa da zalantzarik gabe. Lourdes Oñederra

Zantza dute bai denak, baina egiaren **iker**-harrian ezin iraun denek. Patxi Ezkiaga

Horietako bakoitzaren barrenean ere, zenbait **iker**-maila dauzkagu aukeran: [...]. Lourdes Oñederra

I. Berlinek behin baino gehiagotan arakatu izan du bere **iker**-saioetan, hori Euskal Herrian bakarrik ikusten dena, edo ikusi izan dena behintzat [...] ez baita. Joxe Azurmendi

Baita opoterapia-gaien ekoizpen sailetara eginiko zenbait **iker**-txango ere. Juan Garzia

**4** ***iker-lerro*** (*corpusean **ikerlerro** soilik*)

Barandiaranen **ikerlerro** garrantzitsuenetakoa izan zen herritarren ahotik kondairak jasotzea. Berria - Harian

**5** ***iker-txosten*** (*orobat **ikertxosten***)

Hainbat fosil beneragarri aurki daiteke bertan, hala nola elezaharrezko **iker**-txosten hura zeinean Wölhler gure aitak lehen sintesi organikoaren berri ematen baitu. Juan Garzia

Nik ere **ikertxosten** bat neukan aurkezteko. Iñaki Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**iker daiteke** (4); **iker dezake** (3); **iker dezala** (4); **iker dezatela** (3); **iker dezaten** (4); **iker zitzan** (3)

**arretaz ikertu** (3); **asko ikertu** (11); **auzia ikertu** (8); **aztertu eta ikertu** (5); **baina ikertu** (3); **bat ikertu** (5); **batek ikertu** (4); **behar beste ikertu** (3); **behar bezala ikertu** (3); **berriak ikertu** (3); **beste ikertu** (3); **bezala ikertu** (4); **bideak ikertu** (3); **bizitza ikertu** (3); **den ikertu** (3); **dena ikertu** (3); **dena ikertu behar** (3); **diren ikertu** (3); **duen**

ikertu (3); dut ikertu (3); dute ikertu (3); duten ikertu (3); eragina ikertu (3); erasoak ikertu (3); ere ikertu (14); ere ikertu nahi (3); eta ikertu (20); eta ikertu behar (3); eta lurraldea ikertu (3); ezer ikertu (4); gaia ikertu (3); gehiago ikertu (12); gehiago ikertu behar (4); gehiago ikertu beharko (4); gehien ikertu (3); gertatutakoa ikertu (3); gutxi ikertu (6); guztiak ikertu (11); guztiak ikertu behar (3); handiz ikertu (4); historia ikertu (4); hobeki ikertu (3); hori ikertu (4); horiek ikertu (6); horiek ikertu eta (4)

ikertu ahal (12); ikertu ahal izango (5); ikertu ahal izateko (5); ikertu arte (4); ikertu behar (60); ikertu behar da (13); ikertu behar dela (8); ikertu behar dira (6); ikertu behar direla (5); ikertu behar dugu (5); ikertu behar izan (3); ikertu beharko (24); ikertu beharko lirateke (3); ikertu beharko litzateke (5); ikertu beharko luke (5); ikertu beharra (7); ikertu beharrean (5); ikertu beharreko (8); ikertu den (6); ikertu dira (4); ikertu ditu (18); ikertu dituen (4); ikertu dituzte (20); ikertu du (22); ikertu duen (12); ikertu dugu (4); ikertu dut (3); ikertu dute (15); ikertu duten (3); ikertu duzu (3); ikertu egin (5); ikertu egingo (5); ikertu egiten (3); ikertu eta (78); ikertu eta argitu (3); ikertu eta onartu (3); ikertu ez (9); ikertu ez den (3); ikertu gabe (13); ikertu nahi (37); ikertu nahi dugun (3); ikertu nahi duten (3); ikertu nahi zuen (3); ikertu nuen (3); ikertu ondoan (5); ikertu ondoren (15); ikertu ostean (3); ikertu zituen (13); ikertu zituzten (5); ikertu zuen (15); ikertu zuten (12)

berriz ikertuko (3); delituak ikertuko (3); egoera ikertuko (3); ikertua izan (4); ikertua izanen (3); ikertuak izan (6); ikertuak izan dira (4); ikertuko ditu (12); ikertuko dituela (5); ikertuko dituen (3); ikertuko ditugu (3); ikertuko dituzte (16); ikertuko du (22); ikertuko duela (12); ikertuko duela iragarri (4); ikertuko duen (5); ikertuko dugu (3); ikertuko dute (20); ikertuko dutela (5); ikertuko zituztela (3); ikertuko zuela (7); ikertuko zuela esan (3); kasua ikertu (4); kasua ikertuko (3); kasuak ikertu (5); konduak ikertu (3); konduak ikertu eta (3); kontu handiz ikertu (3); lurraldea ikertu (5); lurraldea ikertu zuten (3); salaketak ikertu (4); salaketak ikertuko (4); zaharrak ikertu (3); zer ikertu (5); zuten ikertu (3)

da ikertzea (5); den ikertzea (4); diren ikertzea (6); dituen ikertzea (3); eta ikertutako (4); eta ikertzea (5); eta ikertzeaz (3); ez ikertzea (6); ez ikertzeagatik (5); gehiago ikertzea (3); ikertuz eta (4); ikertzea da (5); ikertzea dute (4); ikertzea dute xede (3); ikertzea erabaki (7); ikertzea eskatu (3); ikertzea eta (14); ikertzea merezi (4); ikertzea xede (3); ikertzearen alde (3); ikertzeari ekin (8); ikertzeari ekin zion (3); ikertzeari eta (3); ikertzeari uko (4); ikertzeaz arduratzen (3); ikertzeaz arduratzen den (3); ikertzeaz gain (3); untsa ikertuz (3); zelula amekin ikertzea (9); zelula amekin ikertzearen (5)

atentatua ikertzeko (4); atentatuak ikertzeko (12); atentatuak ikertzeko batzordeak (3); atentatuak ikertzeko batzordean (3); auzia ikertzeko (10); auziak ikertzeko (3); bat ikertzeko (3); behar bezala ikertzeko (3); bezala ikertzeko (3); boulevardeko salmenta ikertzeko (4); dagoen ikertzeko (3); den ikertzeko (4); diren ikertzeko (6); duten ikertzeko (4); ebaluatu eta ikertzeko (7); egoera ikertzeko (5); erasoa ikertzeko (8); erasoa ikertzeko batzordean (4); erasoak ikertzeko (5); eta ikertzeko (27); eta ikertzeko erakundeak (3); ez ikertzeko (3); gertaerak ikertzeko (3); gertatutakoa ikertzeko (7); guztiak ikertzeko (5); heriotza ikertzeko (10); heriotzak ikertzeko (3); hilketa ikertzeko (3); hori ikertzeko (6); horiek ikertzeko (4); hura ikertzeko (3)

ikertzeko agindu (18); ikertzeko agindu du (6); ikertzeko agindu zuen (3); ikertzeko agindua (3); ikertzeko agindua eman (3); ikertzeko aginduz (3); ikertzeko ardura (4); ikertzeko asmoa (4); ikertzeko asmorik (3); ikertzeko asmoz (3); ikertzeko aukera (3); ikertzeko baimena (4); ikertzeko batzorde (11); ikertzeko batzorde bat (4); ikertzeko batzordea (9); ikertzeko batzordea eratu (3); ikertzeko batzordeak (6); ikertzeko batzordean (10); ikertzeko batzordeko (3); ikertzeko beste (3); ikertzeko bidea (3); ikertzeko borondatea (4); ikertzeko duen (4); ikertzeko erabili (3); ikertzeko erabiltzen (3); ikertzeko erakundeak (3); ikertzeko erakundeak isei (3); ikertzeko erakundeko (3); ikertzeko ere (5); ikertzeko eskatu (66); ikertzeko eskatu dio (6); ikertzeko eskatu diote (6); ikertzeko eskatu du (12); ikertzeko eskatu dute (6); ikertzeko eskatu zion (8); ikertzeko eskatu zioten (4); ikertzeko eskatu zuen (15); ikertzeko eskatzen (4); ikertzeko eta (26); ikertzeko exijitu (3); ikertzeko gai (4); ikertzeko konpromisoa (3); ikertzeko legebiltzarreko (3); ikertzeko legebiltzarreko batzordea (3); ikertzeko nazioarteko (4); ikertzeko zentro (3); ikertzeko zentro bat (3)

inguruan ikertzeko (3); istripua ikertzeko (4); jarduera politikoa ikertzeko (3); kasua ikertzeko (6); krimenak ikertzeko (5); lana ikertzeko (4); minbizia ikertzeko (8); nondik norakoak ikertzeko (4); norakoak ikertzeko (4); ondasun guztiak ikertzeko (3); ote diren ikertzeko (3); politikoa ikertzeko (3); politikoa ikertzeko agindu (3); sakonki ikertzeko (4); sakonki ikertzeko eskatu (3); salaketak ikertzeko (8); salmenta ikertzeko (10); sanchizen heriotza ikertzeko (3); sarkozy ikertzeko (5); tortura salaketak ikertzeko (6); torturak ikertzeko (3); zituzten ikertzeko (3); zuen ikertzeko (4)

aebak ikertzen (3); ari da ikertzen (3); ari dira ikertzen (5); arrazoiak ikertzen (3); arrazoiak ikertzen ari (3); auzia ikertzen (10); auzia ikertzen ari (4); bat ikertzen (7); bat ikertzen ari (5); batzuk ikertzen (3); berriak ikertzen (3); da ikertzen (6); delituak ikertzen (3); den ikertzen (4); dira ikertzen (6); dituen ikertzen (3); dituen ikertzen ari (3); du ikertzen (3); duen ikertzen (4); duen ikertzen ari (4); edo ez ikertzen (3); ekitaldia ikertzen (4); ekitaldia ikertzen ari (3); enpresa ikertzen (3); enpresa ikertzen ari (3); erasoa ikertzen (3); erasoa ikertzen ari (3); erasoak ikertzen (15); erasoak ikertzen ari (8); erasoak ikertzen dituen (5); ere ikertzen (4); eta ikertzen (20); eta ikertzen hasi (3); eta ikertzen jarraitu (4); ez ikertzen (4); gaia ikertzen (4); gertaera ikertzen (3); gertaera ikertzen ari (3); gertatu zen ikertzen (4); gertatutakoa ikertzen (10); gertatutakoa ikertzen ari (9); gizakiak ikertzen (3); guztiak ikertzen (6); hilketa ikertzen (5); hilketa ikertzen hasi (3); hori ikertzen (7); horiek ikertzen (6); horren inguruan ikertzen (3)

ikertzen ari (297); ikertzen ari da (90); ikertzen ari dela (8); ikertzen ari den (29); ikertzen ari dira (81); ikertzen ari direla (8); ikertzen ari diren (15); ikertzen ari gara (7); ikertzen ari zela (9); ikertzen ari zen (14); ikertzen ari zirela (6); ikertzen ari ziren (11); ikertzen aritu (15); ikertzen aritu da (5); ikertzen aritu den (4); ikertzen dabil (8); ikertzen ditu (12); ikertzen dituen (16); ikertzen dituen batzordean (3); ikertzen dituzte (4); ikertzen dituzten (4); ikertzen du (7); ikertzen duela (4); ikertzen duen (4); ikertzen duenak (3); ikertzen dugu (3); ikertzen dute (6); ikertzen duten (5); ikertzen eta (13); ikertzen eta aztertzen (3); ikertzen hasi (39); ikertzen hasi da (4); ikertzen hasi dira (4); ikertzen hasi nintzen (3); ikertzen hasi zen (10); ikertzen hasi ziren (6); ikertzen hasi zirenean (3); ikertzen hasiko (5); ikertzen ibili (8); ikertzen ibili garen (3); ikertzen jardun (4); ikertzen jarraitu (15); ikertzen jarraitu behar (8); ikertzen jarraituko (6); ikertzen jarraitzea (4); ikertzen jarraitzeko (4); ikertzen jarraitzen (7); ikertzen jarraitzen du (4); ikertzen zuen (5)

inguruan ikertzen (9); istripua ikertzen (5); istripua ikertzen ari (4); izana ikertzen (3); izana ikertzen ari (3); jazotakoa ikertzen (3); kasua ikertzen (15); kasua ikertzen ari (7); kasuak ikertzen (4); lurraldea ikertzen (3); minbizia ikertzen (3); nondik norakoak ikertzen (6); norakoak ikertzen (6); norakoak ikertzen ari (5); orain ikertzen (3); ote den ikertzen (3); ote zen ikertzen (4); ote zuen ikertzen (6); salaketak ikertzen (6); ustelkeria ikertzen (3); zen ikertzen (11); zen ikertzen ari (8); ziren ikertzen (7); ziren ikertzen ari (3); zituen ikertzen (3); zuen ikertzen (15); zuen ikertzen ari (13); zuten ikertzen (4)

ikertzera bidali (10); ikertzera bidali zituen (4); ikertzera eraman (3); ikertzera etorri (3); kanaan lurraldea ikertzera (4); lurraldea ikertzera (12); lurraldea ikertzera bidali (5)

---

**ikertuezin** *izond* ezin ikertuzkoa.

**Ikertu** ezina ikertu beharra zen bere asmoa. Berria - Kultura

---

ikertxosten ik **iker 5**.

---

**ikertzaile** (*1269 esaldi, 65 liburu eta 592 artikulutan; orobat* ***ikertzale*** *g.er. eta* ***ikerzale*** *g.er.*) **1** *iz* jakintza edo zientzia ikerketan aritzen den pertsona. ik **ikerlari**.

Harrera egin zion liburuzain andreak galdetu zion ea irakaslea edo **ikertzailea** zen; ea ikerlan bat egiten ari zen, alegia. Jon Muñoz

Ikerketa sustatzeko **ikertzaile** gaituak izatea ezinbestekoa dela dio Europako Batasunak. Berria - Gaiak

**Ikertzaileen** joan-etorri askea. Berria - Gaiak

Laborategietan eta ikerketa zentroetan lanean aritzen diren **ikertzaileen** jarduna. Berria - Gaiak

Zentroko **ikertzaileen** helburua birusaren kontrako botiken eraginkortasun probak erraztea da eta, horretarako, gene markatzaile bat txertatu nahi diote birusari. Berria - Gaiak

**Ikertzaileek** haizearen abiadura, itsas sakonerak [...] eta parkeen garapen teknologikoa aztertu dituzte. Berria - Gaiak

NASA [...] agentziako **ikertzaileek** espaziontziak bidalitako informazioa prozesatu eta egun hauetan erakutsi dute Marteko koloreetako lehen argazkia. Berria - Gaiak

Salzburgoko Unibertsitateko **ikertzaileek** gas horiek organismoari egiten dioten kaltea neurtzeko beste sistema bat ere garatu dute. Berria - Gaiak

Ehun galderatik gorako galdetegia prestatu zuten **ikertzaileek,** eta ikerketa horren emaitzen arabera [...]. Berria - Euskal Herria

**Ikertzaileen** arabera, teknikak lagunduko du minbiziaren kontrako terapia eraginkorragoak eta toxikotasun gutxiagokoak garatzen. Berria - Gaiak

Pestizidek eta bestelako gai toxikoak leuzemia eragin dezakete, **ikertzaileen** arabera. Berria - Gaiak

**Ikertzaile** guztiek ez dute modu berean lan egiten. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hala ere, **ikertzaile** zientifikoek jada asko zekiten gai honetaz. Iñaki Mendiguren

DIPC Fundazioak punta-puntako **ikertzaileak,** tartean sei nobel saridun, ekarriko ditu irailean Donostiara. Berria - Harian

Akusazio horien aurrean bi izan dira zientziaren soziologiaren eremuko **ikertzaileek** erabili izan dituzten defentsa-argudioak: […]. Askoren artean

Merkataritza-zikloen **ikertzaile** adituen ustez. Iñaki Mendiguren

Pidal batez ere *El Cid* eta epika gaztelauaren **ikertzailea** izan da. Joxe Azurmendi

Zientzia biologikoetako **ikertzailea** omen da, poliglota, Caracaseko unibertsitatean irakasle. Pako Aristi

Unibertsitateetan oso **ikertzaile** gutxi aritzen ziren, eta gainera, oso urriak ziren ikertzeko gertu ziren baliabideak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikertzaileen** prestakuntza: ibilbide akademikoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Era guztietako berritsu, asmaketari, **ikertzaile,** zientzialari eta iruzurtiak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** polizia ikerketetan eta kidekoetan aritzen den pertsona.

**"Ikertzailea** etorriko da hatz markak hartzera", esaten dute alde egitera doazela. Oskar Arana

Gero bi **ikertzaile** etorri ziren, ahalik eta erantzunik laburrenak eman nizkien egin zizkidaten galderei. Xabier Olarra

Hori zen detektibe pribatu batek, edo hobe esanda, **ikertzaile** batek egin zezakeen hankasartzerik latzena. Joxemari Iturralde

Esterhuyse **ikertzaile** nagusiak [...], bere artxiboen artean bilatzen du, eta gero patio batera darama. Oskar Arana

Konpainiaren **ikertzailerik** gorenetako bat izan zen, eta aseguru-etxean egin nituen urteetan hainbat kasutan ibiliak ginen elkarrekin lanean. Oskar Arana

Esan dezagun horrela, **ikertzaile** *interruptus* bat zen bera, misteriozko antzerki batean lehen aktoan bakarrik parte hartzen zuen aktorea. Harkaitz Cano

**Ikertzaileek** denbora asko galdu zuten alferrik, hilketak eraginiko armaren bila. Joxan Elosegi

Ustelkeriaren aurkako **ikertzaileak**. Berria - Harian

Hegazkinak erori ziren lekuetara, FSB Errusiako zerbitzu **sekretuetako** ikertzaileak ere joan ziren sorosleekin batera. Berria - Mundua

Polizia eta **ikertzaileak** zirkuitu itxiko kamerek hartutako grabazioak aztertzen ari ziren. Berria - Harian

**Ikertzaileen** arabera, susmagarria talde kriminal bateko kidea da. Berria - Mundua

**Ikertzaileek** frogak aurkeztu behar dituzte inori ezer leporatu aurretik. Berria - Mundua

**Ikertzaileak** suntsipen handiko armarik ez dagoela esan arren, Etxe Zuriak eta Erresuma Batuko gobernuak halakoak topatuko dituztela berretsi dute.

**Ikertzaleek** galdegina diote ONU-ko arduraduneri luza dezakoten miatze horien epea. Herria

ONU erakundeak igorri **ikertzaleak,** espiungoan zirela ari Irakian. Herria

## 3 (hitz elkartuetan)

Horren ordez, **ikertzaile**-agentzia bati ordaintzen dio, haren lorratza aurkitzeko. Oskar Arana

Ikerketari eta **Ikertzaile**-Populazioari buruzko Azterketa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

· Madril da unibertsitate **ikertzaile** gehien duen erkidegoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Idazle, hizkuntza **ikertzaile,** kazetari edo irakasleak. Pello Salaburu

Azken urteotan, izadia hobeto imitatzen duten plastikozko materialak garatzeko gai izan dira material-**ikertzaileak**. Irene Aldasoro

Bistan da enpresaburuen nahiak eta unibertsitateko irakasle-**ikertzaileenak** ez datozela beti bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

## 4 (izenondo gisa)

Lehenbiziko mediku **ikertzaileek** gogo-ahalmen bakar baten hipertrofiatzat hartzen zituzten, batzuetan, savanten trebetasunak. Xabier Olarra

Kaliforniako San Diego Unibertsitateko Larry Squire neuropsikologo **ikertzailearen** lana funtsezkoa. Xabier Olarra

Hasierako asmo **ikertzailea** aldatzen ari zaigula konturatu naiz. Anjel Lertxundi

Polizia gizon **ikertzalek** diote ez dela dudarik Ben Laden-en kidekoen jokoak direla horiek oro. Herria

## 5 *ikertzaile pribatu*

Agian horixe zen nagusiek nahi zutena, beste edozein dohainen gainetik, **ikertzaile** pribatu on bat bilatzeko orduan. Joxemari Iturralde

Sam Spade **ikertzaile** pribatua. Unai Iturriaga

Midland trenbideko enplegatu izan zen, *The Irish Times* eta *The Freeman's Journal* egunkarietarako iragarki-biltzaile, ikatz-konpainia batean bide-saltzaile, komisiora, **ikertzaile pribatu,** aguazil laguntzailearen bulegoan enplegatu, eta oraintsu, berriz, udaleko heriotz-epailearen idazkari egin zuten. Irene Aldasoro

## 6 *ikertzaile talde*

Parkinson hereditarioaren Park8 aldaera eragiten duen gene bat identifikatu du Euskal Herriko eta Valentziako [...] **ikertzaile** talde batek Euskal Herriko lau familiatan. Berria - Gaiak

Zenbait **ikertzaile** taldek egindako azterketek frogatutzat eman dituzte Hwang jaunak egindako tranpak. Berria - Gaiak

Mikrobio andui jakin batzuetatik material sintetikoak sortzeko moduak aztertzen ari da Sankt Gallengo Materialen Ikerketarako Institutuko [...] **ikertzaile** talde bat. Berria - Gaiak

**Ikertzaile** taldeko buruak. Berria - Gaiak

**Ikertzaile** taldeko arduradunak. Berria - Gaiak

Fiskaltza nagusiko **ikertzaile** talde bat. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako ikertzaile talde** (3); **baina ikertzaile** (3); **baino ikertzaile** (3); **bat ikertzaile** (3); **batuetako ikertzaile** (7); **batuetako ikertzaile talde** (7); **batuko ikertzaile** (7); **batuko ikertzaile talde** (7); **beste ikertzaile** (5); **bezalako ikertzaile** (3); **bi ikertzaile** (5); **da ikertzaile** (4); **diren ikertzaile** (7); **du ikertzaile** (4); **duen ikertzaile** (3); **dute ikertzaile** (3); **erresuma batuko ikertzaile** (7); **estatu batuetako ikertzaile** (7); **eta ikertzaile** (27); **eta ikertzaile asko** (3); **frantziako ikertzaile** (4); **idazle eta ikertzaile** (5)

**ikertzaile asko** (4); **ikertzaile askok** (9); **ikertzaile bat** (6); **ikertzaile batek** (10); **ikertzaile batzuek** (13); **ikertzaile batzuen** (6); **ikertzaile batzuen arabera** (3); **ikertzaile batzuk** (3); **ikertzaile edo** (3); **ikertzaile eta** (25); **ikertzaile eta idazle** (3); **ikertzaile eta irakasle** (3); **ikertzaile ez** (3); **ikertzaile gaituak** (3); **ikertzaile gazte** (6); **ikertzaile gazteak** (5); **ikertzaile gazteen** (3); **ikertzaile gehiago** (3); **ikertzaile gisa** (6); **ikertzaile gutxi** (5); **ikertzaile hauek** (3); **ikertzaile horiek** (7); **ikertzaile jakintsunak** (3); **ikertzaile lanetan** (3); **ikertzaile pribatu** (3); **ikertzaile talde** (71); **ikertzaile talde bat** (9); **ikertzaile talde batek** (48); **ikertzaile talde baten** (7); **ikertzaile taldeak** (3); **ikertzaile taldeko** (14); **ikertzaile taldeko arduradunak** (3); **ikertzaile taldeko buruaren** (5)

**irakasle eta ikertzaile** (7); **kanadako ikertzaile** (3); **kanadako ikertzaile talde** (3); **nazioarteko ikertzaile** (3); **nazioarteko ikertzaile talde** (3); **nazionaleko ikertzaile** (3); **oso ikertzaile** (3); **unibertsitateko ikertzaile** (8); **unibertsitateko ikertzaile talde** (5); **zuen ikertzaile** (5); **zuten ikertzaile** (3)

**ari dira ikertzaileak** (4); **die ikertzaileei** (3); **dira ikertzaileak** (9); **du ikertzaileak** (8); **ematen die ikertzaileei** (3); **eta ikertzailea** (7); **eta ikertzaileak** (14); **handiko ikertzailea** (3); **ikertzailea da** (14); **ikertzailea eta** (5); **ikertzailea izan** (3); **ikertzaileak ari** (3); **ikertzaileak azaldu** (3); **ikertzaileak bere** (3); **ikertzaileak dira** (3); **ikertzaileak ere** (4); **ikertzaileak eta** (10); **ikertzailearen arabera** (5); **ikertzailearen esanetan** (6); **ikertzailearen eta** (3); **ikertzaileei eta** (3); **unibertsitateko ikertzaileak** (3); **zuen ikertzaileak** (3)

**adierazi dute ikertzaileek** (3); **agentziako ikertzaileek** (3); **aro ikertzaileek** (4); **atzeman zuten ikertzaileek** (3); **aurkitu dituzte ikertzaileek** (4); **batuko ikertzaileek** (6); **diote ikertzaileek** (13); **dituzte ikertzaileek** (16); **dute ikertzaileek** (50); **dutela diote ikertzaileek** (3); **erresuma batuko ikertzaileek** (6); **esan dute ikertzaileek** (6); **esan zuten ikertzaileek** (3); **eta ikertzaileek** (8); **ikertzaileek atzo** (3); **ikertzaileek azaldu** (5); **ikertzaileek denbora** (3); **ikertzaileek egin** (6); **ikertzaileek erredakzioa** (3); **ikertzaileek esan** (3); **ikertzaileek ez** (7); **ikertzaileek ez dute** (4); **ikertzaileek iradoki** (3); **ikertzaileek jakinarazi** (3); **ikertzaileek uste** (5); **ikusi zuten ikertzaileek** (3); **institutuko ikertzaileek** (4); **izan dute ikertzaileek** (3); **nasako ikertzaileek** (5); **ondorioztatu dute ikertzaileek** (6); **orain ikertzaileek** (3); **oraindik ikertzaileek** (3); **unibertsitateko ikertzaileek** (10); **uste dute ikertzaileek** (5); **zuten ikertzaileek** (22)

**batuetako hainbat ikertzailek** (3); **du ikertzaileen** (3); **eta ikertzaileen** (16); **eta ikertzaileen artean** (6); **eta ikertzaileentzat** (3); **hainbat ikertzailek** (9); **ikertzaileen arabera** (42); **ikertzaileen artean** (12); **ikertzaileen esanetan** (13); **ikertzaileen eta** (4); **ikertzaileen kopurua** (5); **ikertzaileen lana** (7); **ikertzaileen ustez** (4); **irakasleen eta ikertzaileen** (3); **izadiaren ikertzaileen** (3); **nasako ikertzaileen** (3); **unibertsitateko ikertzaileen** (3); **zenbait ikertzailek** (5)

**ikertzale eta** (4)

---

# **ikertzaileburu** *iz* ikertzaile talde baten burua.

Zientzia politikoetako doktorea da, eta egun Errusiako Zientzia Akademiako Europako Institutuan dihardu, **ikertzaileburu**. Berria - Mundua

---

# ikertzale ik **ikertzaile.**

---

# **ikertze** *iz* aztertzea, arakatzea, miratzea; jakintzari edo zientziari dagozkion aurkikundeak egiteko aztertzea. ik **ikerketa; ikerkuntza.**

Zer dela eta zalantzan jarriko dugu egiaren **ikertze** hutsak zoriontsu egin dezakeela bizitza? Imanol Unzurrunzaga

Estilo estrategikoan **ikertze** bat esaten zaion hori egiten ari nintzen. Koldo Izagirre

Xuxen zer egin behar den eta zonbat gostako den, **ikertze** bat manatua izan da. Herria

Hilarri horietaz ainitz **ikertze** balios egin da. Herria

Berrikitan akulatu **ikertze** baten arabera, [...] gutienetik 150 miliun jende badira mundu zabalean beren herritik urrun joanak lan zerbaiten menturan. Herria

Goi mailako zer ikasketa eta **ikertze** behar diren hautatu oraidanik, kontratu hori bururatu baino lehen. Herria

Oraindik ere **ikertze** aldian daude material horiek. Berria - Gaiak

Pinochet jenerala gauza da epaiketa bat jasateko; etapa guztiekin, hala nola **ikertze** deklarazioak eta lekukoen aurrez aurrekoak. Berria - Mundua

Horrela agindu zidaten agentzian, bazegoelako tartean beste **ikertze**-lan larriago bat. Joxemari Iturralde

Filosofoaren eta teologoaren **ikertze** bizitza osora hedatzen den ikuspegi zabal honetatik. Imanol Unzurrunzaga

Baldin eta aurrerantzean ere oinarrizko **ikertze**-ahaleginari eusten bazaio. Juan Garzia

Italian ere bi gizon edo bi emazteren arteko ezkontza legea (homo) galdatzen baitzuten zenbaitek, iritzi **ikertze** edo sondaia batek erakutsi du garbiki ez direla batere hortarik ari italiarrak. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ikertze bat** (4); **ikertze baten** (5); **ikertze baten arabera** (4); **ikertze edo** (3); **ikertze horiek** (3); **ikertzeak egin** (4)

---

# **ikertzeke** *adlag* ikertu gabe.

Orotara 599 salaketa daude **ikertzeke**. Berria - Mundua

**Ikertzeke** duzun arazoaren aurkezpena [...]. Askoren artean

---

# ikilimiliklik ik **ikimiliklik**.

---

# **ikimiliklik** *(orobat* ***ikilimiliklik****)* *adlag*

**Ikimiliklik** irensten zuen, lagunek bezala. Eneko Bidegain

Eta ez zen presoen abantailetan dena **ikimiliklik** irenstea hura baizik ez baitzuten egun osorako. Eneko Bidegain

Urtero, gerezi beltz lodi-lodiak ematen zituen, **ikilimiliklik** beren hexurrarekin jaten genituenak. Daniel Landart

---

# **ikoldu**, ikol(du), ikoltzen da *ad* uzkurtu, zapaldu.

Sasien arteko euren kokalekuetan, bi banderadun berari so zeuden, aurpegiak tentsioagatik **ikolduta**. Joanes Urkixo

---

# **ikoniko** *izond* ikonoari dagokiona, ikono izaera daukana.

Oso kontuan edukiko dugu beti ideia hori: bere irudikapen **ikonikoa** baino askoz ere konplexutasun handiagoko kategoria dela espazioa. Josu Zabaleta

Konposizioak zerikusi estuagoa zuen koadroaren material plastikoarekin, edota haren material **ikonikoarekin**. Josu Zabaleta

---

# **ikonikotasun** *iz* ikonikoa denaren nolakotasuna.

"Iruditsu" hitzak, eta "figura" hitzak ere, argi erakusten dute tradizioz figura, edo figuraren printzipioa, hobeto esanda, hitzezko dena **ikonikotasunak** kutsatze batek eragintzat hartzen dela. Josu Zabaleta

---

# **ikono** 1 *iz* Sortaldeko Elizan, zurezko ohol batean egiten den erlijiozko irudia.

Kandela bat eduki dut gau osoan **ikonoaren** aurrean pizturik. Jose Morales

**Ikonoaren** azpiko lanparatxo gorri-beltza zen gelako argi bakarra. Matías Múgica

Alferrik eta barne-minez gogoratu zituen argizari piztuak, sotanaz jantzitako popea, horman margotutako **ikonoa**. Jose Morales

**Ikonoek** agerian uzten dute artista errusiarrek eredu bizantziarrak eraldatu zituztela. Berria - Kultura

Bizantziar **ikonoak** naturaz gaindiko aura bat zuen, bere erlijiozko eginkizunari zegokiona. Josu Zabaleta

Budaren estatua errepikatuak, adibidez, eta [...] kristau ortodoxoen **ikonoak,** jainkoaren egonlekutzat hartzen direnak. Josu Zabaleta

Ama bitartean belauniko egon zen **ikonoaren** aurrean sukaldean. Matías Múgica

Bera ere nitaz errukitzen da hasieran, eta gero haserretu, **ikono** bat bezala gurtzen ez dudalako. Jose Morales

Sikhtarrei, berriz nazkagarri zaie hindutarren mila eta mila jainko, **ikono,** irudi eta pintura. Gotzon Garate

**2** irudikatzen duen gauzarekin antz formala duen ikurra.

Hitzezkoa edo **ikono** bidezkoa. Josu Zabaleta

**"Ikono** bidezko izendapen kode" kontzeptuarekin. Josu Zabaleta

Errealitatea **ikono** gisa irudikatzen duten zentzuan. Josu Zabaleta

**3** ordenagailuaren pantailan, programa edo funtzio bat irudikatzen duen iruditxoa.

Ezin harroago sentitzen da bere azpi-programa horren bitartez *status line*-aren bazter bateko **ikono** ñimiñoa zabaltzen den bakoitzean. Karlos Zabala

**4** sinbolo balioa duen zerbait edo norbait.

Nork eta nola sortzen ditu **ikono** horiek? Ana Urkiza

Abangoardia izan dena jasotzen du kontzertuak, konposatzeko era diferenteen **ikono** izan diren obrak erakutsiko dira. Berria - Kultura

Nazioarteko kitsch literarioaren **ikono** eta sinbolo. Xabier Mendiguren Elizegi

Artelana giza sentimenduaren **ikonoa** dela definizioz. Askoren artean

47 urterekin, Morrissey **ikono** bat da. Berria - Kultura

**Ikono** bat da Einstein, ikur bat. Berria - Harian

Lou Reed, New Yorkeko **ikono** eta The Velvet Underground talde mitikoko kide ohia. Berria - Kultura

Hauster maiteminduta dago Marujaz, Donostiako gau moreen **ikono** behinenaz. Iñaki Iñurrieta

Beste **ikono** bat Londresko Tate Modern da. Berria - Kultura

Justiziaren izenean hiltzen duen justizia baten **ikono** hotza da. Berria - Kultura

80ko hamarkadako garage-psikodelia revival-aren **ikonoetako** bat izan zen *The Cynics.* Ez dira mundu osoko ezkerrarentzat **ikono** bihurtu eta Zinemalditik igaroko diren buruzagi bakarrak. Berria - Kultura

Bihar da [Jean Gabin] Frantziako zinemaren **ikono** handia izan zen aktore zakar eta goxoaren jaiotzaren lehenengo mendeurrena. Berria - Kultura

Metropoliko zinema kazetariak intelektualegiak dira, nonbait, halako dinosauro populistak **ikonotzat** hartzeko. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Ez naiz **ikono**-gurtzaile. Koldo Izagirre

· Eskultura eta diseinu patroiak deskodetzeko sentsibilitatea erabiliz, kultura **ikonoak** hobeto ulertzera garamatza. Berria - Kultura

82 urterekin hil zen Christopher Isherwood, gay eta lesbianen askapen **ikono** bihurtuta. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ikonoak** (13); **eta ikonoak poema** (4); **ikono bat** (9); **ikono bat da** (3); **ikono bihurtu** (3); **ikonoak poema** (4); **ikonoetako bat** (4); **mimodramak eta ikonoak** (11)

---

# ikonofilo *izond* ikonoen zale dena.

Baina Kristau Elizaren barruan **ikonofilo** eta ikonofoboen artean izandako eztabaida paraleloa aztertzen dugunean, harritu egiten gaitu bere iraunkortasun eta nonahikotasunak. Iñaki Mendiguren

---

# ikonofobia *iz* ikonoekiko gorrotoa.

K.o. 726an **ikonofobia** judaikoaren arima, luzaroan airean geldi egona, agertokiaren erdira ekarri zuen [...] Leon Isauriarraren Dekretu Ikonoklastak. Iñaki Mendiguren

---

# ikonofobo *izond* ikonoei gorroto diena.

Baina Kristau Elizaren barruan ikonofiko eta **ikonofoboen** artean izandako eztabaida paraleloa aztertzen dugunean, harritu egiten gaitu bere iraunkortasun eta nonahikotasunak. Iñaki Mendiguren

---

# ikonografia *iz* gai edo izaera jakin bateko irudi multzoa.

Euskaraz eskolatutakoen **ikonografian** geratu den irudia da: [...]. Anjel Lertxundi

Euskal produkzio kulturalaren **ikonografia** (garai hartako kartelak, liburuetako portadak, pegatinak...). Anjel Lertxundi

Publizitatearen **ikonografia** berritzea eta ugaritzea lortuko zuen. Berria - Kultura

Garai hartako **ikonografian** oinarritu da batik bat. Berria - Kultura

Erdi Aroko **ikonografian,** "gatazkarik gogorrenetan ere, bere arimako sosegua galtzen ez duen jendaki noble eta zintzoa" adierazten omen zuen arrabioak. Patziku Perurena

Egia da kristau-tradizioak oro har **ikonografia** oparoa erakutsi duela. Panofskyk berak ere proposatu izan zuen [...] 1910eko zinema eta Erdi Aroko artea konparatzea, ulermenaren lagungarri izango zen **ikonografia** egonkor baten bila ari baitziren bata eta bestea. Joan Mari Lekuona

Eusko Jaurlaritzako lehendakaria **ikonografia** naziaz inguratua. Berria - Mundua

Aginteak erabiltzen duen **ikonografiaz** baliatzen dira bestelako mezua zabaltzeko, arrazakeria, sexismoa, patriarkatua eta nazionalismoa kritikatzeko, alegia. Txema Ramirez de la Piscina

Francis Klingender-ek Ingalaterrako artelan batzuetan lehen industria iraultzari buruz agertzen den **ikonografiaz** egindako azterketa aipagarria. Josu Zabaleta

Texas errepublika bihurtu zuen borroka AEBen **ikonografiaren** aldareetan izan da urteetan. Berria - Kultura

Film zatarrak oso, baina modu askean eginak eta irudi eta **ikonografia** propiodunak. Berria - Kultura

**Ikonografia**-unea da, eta tradiziozko kodeak (eta intentzio-kodeak, azpimarratzen du Panofskyk) ezagutzea eskatzen du. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ikonografia** (5)

---

# ikonografiko *izond* ikonografiarena, ikonografiari dagokiona.

Simbolismo zaharrago batetik etorritako eskema **ikonografikoa** da, izatez, argi-koroatik, auratik, datorrena. Josu Zabaleta

Gero tradizio **ikonografiko** ugari sortzeko izango ziren beste bide batzuk irekiz. Santiago Iruretagoiena

Keith Haring artistaren hizkuntza **ikonografiko** aberatsa aurkeztu du Montehermoso kulturuneak. Berria - Kultura

Perraultek 1989an irabazi zuen Liburutegi Nazionala eraikitzeko proiektu lehiaketa, eta erakusketak agerian uzten ditu arkitektoak eginiko ikerketa grafiko eta **ikonografikoak**. Berria - Kultura

---

# ikonografo *izond* ikonografian espezialista.

Departamenduak beka bat eskainiko dio argazkilari gazte onenari eta **"ikonografoen"** "elkarteak sari bat emanen dio oraino agertua ez den argazki deigarrienari. Herria

---

# ikonoklasia *iz* ikonoklastia.

Eta intelektual kazetariren batzuen ofizioa bilakatu den [...] baliotxo kuttun "erlatiboen" **ikonoklasiak,** [...] eta ausardia paregabeak (beti ahulenekin!), ez dute balio batzuen fanatismoa goritzeko eta besteen inbezilitatea laketzeko baino. Joxe Azurmendi

---

# ikonoklasta 1 *izond/iz* irudi sainduen gurtzaren aurkakoa dena.

Ekialdeko erromatar gobernu inperialaren politika **ikonoklastaren** aurka. Iñaki Mendiguren

Jesuiten eta erlijioaren aurkako erreakzio **ikonoklasta**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Ikonoklastak** idoloak desegin bai, baina ez duela berririk jartzen, eraisten dituela baina ez dituela altxatzen. Xabier Olarra

**2** tradizioko balioen eta irudien suntsitzailea.

Testuaren bizkortasunean eta aktore bien gaitasun eszenikoan datza euren estilo **ikonoklasta**. Berria - Kultura

Horretaz aparte, bere nortasun **ikonoklasta** erakutsi du beste hamaika proiektutan. Berria - Kultura

*Howe Gelb Giant Sand* taldeko buruak ere proposamen **ikonoklasta** aurkeztuko du lehenengo egunean.

Jon Mirandek ere istorio horren aldaera bat egin zuen, oso **ikonoklasta,** gainera, egilearen nortasunari zegokion bezala. Martin Anso

Lan guztietan agertzen da bere **ikonoklasta** sena. Berria - Kultura

Letra motzak eta **ikonoklastak** ziren Zapparenak. Berria - Mundua

# ikonoklastia *iz* joera edo jokaera ikonolasta. ik **ikonoklasia**.

Artean **ikonoklastia** gisa agertzen da. Iñaki Mendiguren

Ikasleak, **ikonoklastia** morea nagusi, autoantolamenduzko ekin behar hartan. Iñaki Iñurrieta

# ikonologia *iz* arte irudikapenaren azterketa.

**Ikonologiazko** jardueraren oinarrien beraien oso kritika interesgarri bat. Josu Zabaleta

Artearen historialariek, Norman Bryson-engandik hasi eta Svetlana Alpers edo Daniel Arasse-renganaino, **ikonologia**-lana egiten dute ia denek. Josu Zabaleta

*ik* ikonologiko.

# ikonologiko *iz* ikonologiarena, ikonologiari dagokiona. ik **ikonologia**.

Hauxe da analisi **ikonologikoaren** maila, eta Panofskyk garbi esaten du esanahi horiek guztiak izan daitezkeela asmo jakinik gabekoak, eta halaxe direla gehienetan. Josu Zabaleta

Irudien interpretazioa interpretazio **ikonologiko** bat izaten da gaur egun normalean, eremu guztietan. Josu Zabaleta

# ikonomia *iz*

Bizantzion, hain zuzen, irudiak, ikonoak, han irudia definitzen zuten arau ideologikoen -kasu honetan erlijiosoen- arabera arautzeko jokoa hartzen zuen bere baitan **ikonomiak**. Josu Zabaleta

# ikonosfera *iz* cf **ionosfera**.

Aitzitik, gauza bakoitzak bere erabil-arauak ditu berekin, eta esan daiteke **ikonosfera** halako batean bizi-edo garela, non zentzubako gauzei ere beren zentzua eransten zaien. Joxerra Garzia

# ikonostasio *iz* ikonoz eta irudi sakratuz apainduriko zurrezko hesia, greziar elizetan aldarearen aurrean jartzen dena.

San Zirilo monasterioko **ikonostasioko** oholek egiten diote harrera ikusleari. Berria - Kultura

# ikonotu, ikono(tu), ikonotzen du *ad* ikono bihurtu.

Programa bat **ikonotu,** eta martxan segitzen du besteen azpitik, fitxategi bat hara eraman dezakezu, bestea handik hona ekarri, gauza asko ikas daitezke informatikaren bitartez. Karlos Zabala

# ikore *iz* zenbait zauri gaiztori darien zorne modukoa.

**Ikore**-isurtzez daukak arima gaur zikina. Xabier Olarra

# ikorzirin *iz* baba, pusla.

Eskuak eta oinazpiak maskurturik eta **ikorzirinez** josirik... Joan Mari Irigoien

# ikosaedro *iz* hogei aurpegiko poliedroa.

Dodekaedroa, hamabi aurpegiak pentagono erregular dituena; eta **ikosaedroa,** hogei aurpegiak triangelu aldekide dituena. Jon Muñoz

# ikotika 1 *iz* jauzia.

Bildots asetuek, berriz, jolasean eta **ikotika** leunean dihardute. Xabier Amuriza

• **2** *adlag* jauzika.

Igaro ziran beste neska-mutil sokatxo bi, honeek be alkarri helduta, **ikotika,** ta bertan hasi ziran abestuten. Koldo Izagirre

Gazte aldra asko joan ohi dira bidean soinu joten, dultzaina, pandero, atabal, hauspo soinu eta honakoekaz, **ikotika** eta ujuka zoro-zororik. Koldo Izagirre

Gero piztiak eta abereak **ikotika** hasten dira larre marduletan eta ibai azkarrak zeharkatzen dituzte. Xabier Amuriza

# ikterizia *iz* min horia, larumina.

Laruminez edo **ikteriziaz** eri dena. Xabier Kintana

Aberatsak **ikteriziak** jota gelditzen ziren urdailean trabatuta geratzen zitzaien kolore hura ikustean. Pello Lizarralde

**Ikterizia** edo hipogluzemia, esaterako, ohikoagoak dira 35 asterekin jaiotako umeengan, adituen arabera. Berria - Gaiak

# iktiofago *iz* arabiako hegoaldean-edo bizi zen herri bateko kidea, arrainez elikatzen zena.

Pertsiarrek **iktiofagoen**, oriten eta beste herri barbaro batzuen esku uzten zuten itsasbazter osoa. Iñaki Iñurrieta

Arraina jatea galarazi zien **iktiofagoei**, itsasbazter hartan nazio zibilizatuak bizi zitezen nahi baitzuen. Iñaki Iñurrieta

**iktiologia** *iz* zoologiaren adarra, arrainak aztertzen dituena.

Eta nik baietz, sekula gehiegi landu ez badut ere, **iktiologia** ikasi genuela geure ikasle garaietan. Hasier Etxeberria

---

**iktiologo** *iz* arrainak aztertzen dituen zoologoa.

Batzuen ustez balea izan zen, baina Stanford Unibertsitateko Jordan doktore **iktiologo** ospetsuak gartsu antzean dio Zapaburu erraldoi bat *(Sapus buruhandi)* izan zela edo Txalburua *(Biga pseudochephalea)*. Xabier Olarra

---

ikuilu ik **ukuilu**.

---

**ikur** **1** *iz* zerbaiten adierazgarri erabiltzen den letra, ezaugarri edo kidekoa. ik **zeinu**[1].

Ortografiaren **ikur** bikoitzek. Lourdes Oñederra

Transkripzio sistema guztiek ez dituzte **ikur** berak erabiltzen. Lourdes Oñederra

**Ikurra,** adierazia, adierazlea. *n* letra da hitz honen **ikurra**. Xabier Olarra

Orduan asmatu zuen @ delako **ikur** bitxi hori. Pello Salaburu

Goitik behera eta behetik gora miatu ditut Morse-**ikur** ilara haiek. Txillardegi

**Ikur** gutxi batzuen bitartez -gure bi eskuetako hatz kopurua halakoa, zehatz-mehatz-, munduko zenbaki guztiak irudikatzeko aukera ematen du zenbakera horrek. Jon Muñoz

Noiz agertu ziren *plus* **ikurra** eta *minus* **ikurra**? Jon Muñoz

*Minus* **ikurra** aurretik duten osagaiak atera egin behar dira ekuazioetatik. Jon Muñoz

Erro karratua adierazten du ikur honek: "erro karratuaren **ikurra";** eta Rudolff alemanak asmatu zuen, 1525ean. Jon Muñoz

Infinituaren **ikurra**. Jon Muñoz

*S* luzatu bat sortu zuen Leibnizek: integralaren **ikurra**. Jon Muñoz

Handik laster TAU itxurako **ikur** handia ikusi zuen Frantzisko dohatsuaren bekokian. Askoren artean

Eta bularrean *P* izkiarekin zilarrezko **ikur** distiratsu bat zeukala ohartu zen Harry. Iñaki Mendiguren

Kleraz gurutzearen **ikurra** eginez. Askoren artean

Mailuaren eta igitaiaren **ikurra** erliebean daukan arrautza. Koldo Biguri

Dolarraren **ikurra** laketgarria zen, apain-apaina. Mirentxu Larrañaga

Framazonen **ikur** eta sinboloak Paris eta Erromako katakunbetan aurkitu izan dira. Xabier Olarra

Ikurrinaren bihotz zurian, Eusko Armadaren **ikurra** agertzen zen. Itxaro Borda

Laurak saltegiaren **ikurra** zekarten zakuz zamatuak ziren. Itxaro Borda

**Ikur** horien azpian polimero bat daukagu, poli (binil kloruroa), hain zuzen ere. Berria - Gaiak

Seda beltzezkoa zuten bandera, honako **ikurrez:** burezur bat, hareazko erloju bat, bi hezur gurutzatu, eta, azpian, gezi batek zeharkaturiko bihotz bat, nondik hiru odol-tanta jausten baitziren. Juan Garzia

aita ikusten (11); al duk ikusten (11); al duzu ikusten (43); al duzue ikusten (14); aldaketarik ikusten (10); aldez aurretik ikusten (12); aldiz ikusten (27); ama ikusten (11); apenas ikusten (18); arazorik ikusten (14); argi ikusten (177); argi ikusten da (39); argi ikusten dugu (10); argi ikusten dut (11); argia ikusten (35); argiago ikusten (31); argirik ikusten (20); ari gara ikusten (13); ari naiz ikusten (12); arrazoirik ikusten (21); arriskua ikusten (18); arriskuan ikusten (29); artean ikusten (28); asko ikusten (60); askorik ikusten (13); askotan ikusten (21); atseginekin ikusten (11); aukera ikusten (35); aukerak ikusten (12); aukerarik ikusten (18); aurpegia ikusten (21); aurrean ikusten (36); aurretik ikusten (15); aurrez ikusten (16)

baina ikusten (58); baino hobeto ikusten (14); baino ikusten (21); baino ikusten ez (17); baizik ikusten (28); baizik ikusten ez (15); bakan ikusten (12); bakarrik ikusten (53); bat bezala ikusten (21); bat ere ikusten (12); bat ikusten (384); bat ikusten ari (20); bat ikusten da (21); bat ikusten du (22); bat ikusten dugu (12); bat ikusten dut (39); bat ikusten nuen (14); bat ikusten zen (46); bat ikusten zuen (17); batean ikusten (42); batek ikusten (14); batekin ikusten (17); batera ikusten (20); batere ikusten (10); batez ikusten (20); batzuk ikusten (43); begi onez ikusten (210); begi txarrez ikusten (27); begiek ikusten (35); begiez ikusten (18); begira ikusten (11); begiz ikusten (17); beharra ikusten (31); beharrezko ikusten (24); beharrezkoa ikusten (31); beharrik ikusten (23); behin ikusten (19); beltz ikusten (24); bera ikusten (30); berak ikusten (16); berdin ikusten (17); bere burua ikusten (18); berean ikusten (10); berehala ikusten (21); berriro ikusten (16); berriz ikusten (33); bertan ikusten (13); bestela ikusten (10); besterik ikusten (28); besterik ikusten ez (13); beti ikusten (13); bezala ikusten (130); bezala ikusten du (12); bezala ikusten dut (14); biderik ikusten (13); burua ikusten (41)

da ikusten (106); dagoela ikusten (25); daudela ikusten (10); dela ikusten (73); den ikusten (19); dena ikusten (42); denek ikusten (10); deus ikusten (31); dira ikusten (25); direla ikusten (32); diren ikusten (11); ditu ikusten (13); dituk ikusten (12); ditut ikusten (15); du ikusten (74); dudala ikusten (10); duela ikusten (47); duen ikusten (11); dugu ikusten (35); duk ikusten (21); dun ikusten (11); dut ezer ikusten (12); dut ikusten (117); dut ikusten zergatik (11); dute ikusten (40); dutela ikusten (21); duzu ikusten (76); duzue ikusten (19)

ederki ikusten (20); ederki ikusten da (10); edo ikusten (18); egiten ikusten (27); egoki ikusten (26); egun ikusten (12); egunero ikusten (61); elkar ikusten (62); elkarrekin ikusten (13); entzuten eta ikusten (16); ere ikusten (226); ere ikusten da (19); ere ikusten du (17); ere ikusten dut (12); ere ikusten ez (14); erortzen ikusten (10); erraz ikusten (31); erraz ikusten da (16); eta garbi ikusten (26); eta hor ikusten (11); eta ikusten (231); eta ikusten ari (14); eta ikusten da (11); eta ikusten ez (17); ez da ikusten (74); ez dela ikusten (12); ez dira ikusten (14); ez ditu ikusten (12); ez ditut ikusten (15); ez du ikusten (67); ez duela ikusten (16); ez dugu ikusten (31); ez duk ikusten (10); ez dut ikusten (114); ez dute ikusten (30); ez duzu ikusten (32); ez genuen ikusten (12); ez ikusten (31); ez nuen ikusten (49); ez zen ikusten (28); ez ziren ikusten (13); ez zuela ikusten (14); ez zuen ikusten (45); ez zuten ikusten (14); ezer ikusten (106); ezer ikusten ez (11)

gabe ikusten (31); gai ikusten (43); gainean ikusten (16); gaizki ikusten (37); gara ikusten (17); garbi garbi ikusten (10); garbi ikusten (209); garbi ikusten da (36); garbi ikusten dut (16); garbi ikusten nuen (11); garbi ikusten zen (10); garbi ikusten zuen (11); garbiago ikusten (18); gauza ikusten (12); gauzak ikusten (17); gehiago ikusten (71); gehiago ikusten da (11); genuen ikusten (14); gertu ikusten (35); gertuago ikusten (15); gisa ikusten (103); gisa ikusten du (15); gorriak ikusten (24); guk ikusten (13); gustura ikusten (11); gutxi ikusten (28); gutxiago ikusten (21); gutxitan ikusten (27); guztia ikusten (19); guztiak ikusten (25); guztietan ikusten (12)

haiek ikusten (16); hain argi ikusten (11); hala ikusten (33); halaxe ikusten (10); han ikusten (40); handi bat ikusten (12); handia ikusten (24); handiak ikusten (13); handirik ikusten (11); hantxe ikusten (21); hara non ikusten (19); hartan ikusten (11); hau ikusten (11); hemen ikusten (33); hobeki ikusten (13); hobeto ikusten (49); hobeto ikusten dut (11); hola ikusten (13); honetan ikusten (17); hor ikusten (91); hor ikusten da (24); hor ikusten dugu (11); hori ikusten (49); horiek ikusten (13); horixe ikusten (14); horra non ikusten (10); horregatik ikusten (13); horrela ikusten (51); horrelakorik ikusten (13); horretan ikusten (16); hura ikusten (39); hurbilago ikusten (10)

ikusten ahal (181); ikusten ahal da (21); ikusten ahal dira (26); ikusten ahalko (171); ikusten ahalko da (46); ikusten ahalko dira (50); ikusten ahalko ditugu (10); ikusten ahalko dugu (10); ikusten al (125); ikusten al duk (15); ikusten al duzu (70); ikusten ari (353); ikusten ari da (19); ikusten ari dira (10); ikusten ari gara (29); ikusten ari garen (11); ikusten ari naiz (29); ikusten ari nintzela (15); ikusten ari nintzen (18); ikusten ari zela (14); ikusten ari zen (32); ikusten ari zena (14); ikusten ari ziren (10)

ikusten bada (28); ikusten badu (72); ikusten badugu (37); ikusten badut (24); ikusten badute (28); ikusten baduzu (33); ikusten bainuen (41); ikusten baita (51); ikusten baititu (11); ikusten baitu (25); ikusten baitugu (19); ikusten baitut (29); ikusten baitute (26); ikusten baitzen (18); ikusten baitzituen (13); ikusten baitzuen (44); ikusten baitzuten (21); ikusten baldin (35); ikusten bazuen (34); ikusten bere (16)

ikusten da (826); ikusten da eta (19); ikusten da hori (17); ikusten dela (34); ikusten delarik (22); ikusten den (184); ikusten den bezala (35); ikusten dena (70); ikusten denean (21); ikusten denez (124); ikusten diat (49); ikusten dio (22); ikusten diot (13); ikusten diozu (16); ikusten dira (216); ikusten direla (11); ikusten diren (109); ikusten direnak (16); ikusten ditu (178); ikusten ditudan (37); ikusten ditudanean (14); ikusten dituela (16); ikusten dituen (61); ikusten ditugu (127); ikusten ditugula (12); ikusten ditugun (54); ikusten ditugunean (12); ikusten ditut (206); ikusten dituzte (67); ikusten dituztela (14); ikusten dituzten (16); ikusten dituztenean (11); ikusten dituzu (73); ikusten dituzun (18); ikusten dizkio (11)

ikusten du (648); ikusten du bere (51); ikusten du eta (14); ikusten dudala (21); ikusten dudalako (11); ikusten dudan (95); ikusten dudana (22); ikusten dudanean (37); ikusten dudanez (42); ikusten duela (100); ikusten duela esan (15); ikusten duelako (19); ikusten duelarik (17); ikusten duen (149); ikusten duena (44); ikusten duenak (10); ikusten duenaren (12); ikusten duenean (40); ikusten dugu (422); ikusten dugula (21); ikusten dugulako (11); ikusten dugularik (11); ikusten dugun (87); ikusten dugun bezala (11); ikusten duguna (34); ikusten dugunean (16); ikusten dugunez (17); ikusten duk (51); ikusten dut (779); ikusten dut eta (18); ikusten dut neure (32); ikusten dut nik (20); ikusten dut nire (10); ikusten dut orain (11); ikusten dute (280); ikusten dutela (28); ikusten dutelako (18); ikusten duten (66); ikusten dutena (17); ikusten dutenak (15); ikusten dutenean (36); ikusten duzu (501); ikusten duzu nola (11); ikusten duzu zeure (25); ikusten duzu zuk (11); ikusten duzu zure (18); ikusten duzue (75); ikusten duzuen (16); ikusten duzuen bezala (12); ikusten duzuena (10); ikusten duzuenez (20); ikusten duzula (11); ikusten duzun (53); ikusten duzun bezala (17); ikusten duzunean (20); ikusten duzunez (55)

ikusten edo (20); ikusten egon (20); ikusten ere (27); ikusten esan (11); ikusten eta (140); ikusten eta entzuten (19); ikusten ez (573); ikusten ez bada (11); ikusten ez badu (11); ikusten ez den (36); ikusten ez dena (17); ikusten ez diren (23); ikusten ez duen (21); ikusten ez duena (11); ikusten ez duguna (11); ikusten ez duten (14); ikusten ez nuen (10); ikusten ez zen (13); ikusten ez zuela (12); ikusten ez zuen (12)

ikusten genituen (39); ikusten genuen (103); ikusten ginuen (15); ikusten gure (14); ikusten hasi (84); ikusten hasi zen (20); ikusten hasten (11); ikusten haut (20); ikusten izan (27); ikusten ninduen (18); ikusten ninduenean (12); ikusten nire (11); ikusten nituela (13); ikusten nituen (164); ikusten nola (46); ikusten nuela (32); ikusten nuelako (19); ikusten nuen (420); ikusten nuen neure (21); ikusten nuen nik (11); ikusten nuen nire (13); ikusten nuena (20); ikusten nuenean (26)

ikusten omen (36); ikusten ote (44); ikusten ote zuen (10); ikusten utzi (25); ikusten uzten (56); ikusten uzten ez (12); ikusten zaitut (51); ikusten zein (12); ikusten zela (19); ikusten zen (308); ikusten zenuen (12); ikusten zer (29); ikusten zergatik (18); ikusten zion (10); ikusten ziren (205); ikusten zituela (14); ikusten zituen (162); ikusten zituenean (16); ikusten zituzten (49); ikusten zitzaion (18); ikusten zitzaizkion (11); ikusten zuela (78); ikusten zuelako (20); ikusten zuelarik (13); ikusten zuen (508); ikusten zuen bakoitzean (19); ikusten zuen bere (36); ikusten zuena (28); ikusten zuenean (45); ikusten zutela (19); ikusten zutelako (11); ikusten zuten (158); ikusten zutena (21); ikusten zutenean (15)

ilun ikusten (22); indartsu ikusten (15); inguruan ikusten (20); inoiz ikusten (10); inon ikusten (11); inor ikusten (25); inork ikusten (20); inork ikusten ez (12); irudia ikusten (20); ispiluan ikusten (12); itsasoa ikusten (15); jantzita ikusten (11); jendea ikusten (13); jendeak ikusten (10); kalean ikusten (11); kanpo ikusten (10); kanpotik ikusten (24); lanean ikusten (10); leihotik ikusten (23); lotuta ikusten (10); maiz ikusten (35); modu batera ikusten (10); moduan ikusten (64); moduan ikusten du (10); modurik ikusten (10); mugitzen ikusten (10); nabarmen ikusten (13); nahi ikusten (12); naiz ikusten (16); nekez ikusten (18); neure burua ikusten (12); ni ikusten (13); nik ikusten (28); nola ikusten (264); nola ikusten dituzu (15); nola ikusten duen (14); nola ikusten duzu (153); nola ikusten duzue (10); non ikusten (81); non ikusten dudan (25); non ikusten duen (12); non ikusten dugun (11); nonahi ikusten (15); norbait ikusten (10); nuen ezer ikusten (14); nuen ikusten (58)

obrak ikusten (16); ondo ikusten (127); ondo ikusten dut (20); onez ikusten (214); onez ikusten du (35); onez ikusten dute (15); ongi ikusten (65); orain ikusten (48); oraindik ikusten (11); orduan ikusten (11); oso garbi ikusten (15); oso ondo ikusten (20); oso zaila ikusten (13); osoa ikusten (13); ozta ikusten (13); ozta ozta ikusten (12); partida ikusten (16); pasatzen ikusten (15); posible ikusten (35); pozik ikusten (13); premia ikusten (11); prest ikusten (16); sarri ikusten (14); sarritan ikusten (12); sartzen ikusten (15); telebista ikusten (58); telebistan ikusten (15); txarrez ikusten (31)

ugari ikusten (10); urrun ikusten (38); urrunago ikusten (12); urrundik ikusten (10); urruti ikusten (25); urrutitik ikusten (13); usu ikusten (17); zail ikusten (44); zail ikusten du (20); zaila ikusten (53); zaila ikusten du (15); zaila ikusten dut (18); zegoela ikusten (10); zela ikusten (33); zen ezer ikusten (11); zen ikusten (62); zer ikusten (94); zer ikusten duzu (24); zerbait ikusten (33); zirela ikusten (10); ziren ikusten (29); zituen ikusten (12); zuela ikusten (29); zuen ezer ikusten (11); zuen ikusten (58); zuten ikusten (20)

aita ikustera (10); ama ikustera (14); bat ikustera (64); bat ikustera joan (16); baten ikustera (11); bera ikustera (15); dagoen ikustera (10); den ikustera (33); eta ikustera (30); goazen ikustera (11); gu ikustera (17); haiek ikustera (18); hori ikustera (18); hura ikustera (49); ikustera eraman (24); ikustera eramaten (11); ikustera ere (12); ikustera eta (39); ikustera etorri (62); ikustera etorriko (12); ikustera etortzen (28); ikustera irten (12); ikustera joan (214); ikustera joan behar (16); ikustera joan ginen (12); ikustera joan nintzen (16); ikustera joan zen (45); ikustera joan ziren (23); ikustera joanen (16); ikustera joango (33); ikustera joatea (32); ikustera joateko (44); ikustera joaten (50); ikustera joaten zen (10); ikustera noa (11); ikusterik ez (20); ikusterik izan (29); ni ikustera (44); ote zen ikustera (12); partida ikustera (16); zegoen ikustera (10); zen ikustera (36); zer ikustera (10); zu ikustera (32)

[3] donostia ikus entzunezkoen (3); du ikus entzunezkoen (3); duen ikus entzunezko (4); entzunezko hedabideak (5); entzunezko hedabideen (3); entzunezko komunikazioa (3); entzunezko kontseiluak (5); entzunezko lanak (5); entzunezko saioen (12); entzunezko saioen nazioarteko (10); entzunezkoen alorra (4); entzunezkoen alorrean (3); entzunezkoen alorreko (3); entzunezkoen arloa (3); entzunezkoen arloan (6); entzunezkoen arloko (4); entzunezkoen europako (9); entzunezkoen europako legea (7); entzunezkoen euskal (6); entzunezkoen euskal ekoizle (6); entzunezkoen finantzabidearen (3); entzunezkoen jaialdian (3); eta ikus entzunezko (13); eta ikus entzunezkoen (15); euskadiko ikus entzunezko (3); fipa ikus entzunezko (7); herriko ikus entzunezko (3); ibaia ikus entzunezkoen (4); ikus entzunezko (164); ikus entzunezko hedabideak (5); ikus entzunezko hedabideen (3); ikus entzunezko komunikazioa (3); ikus entzunezko kontseiluak (5); ikus entzunezko lanak (5); ikus entzunezko saioen (12); ikus entzunezkoen (112); ikus entzunezkoen alorra (4); ikus entzunezkoen alorrean (3); ikus entzunezkoen alorreko (3); ikus entzunezkoen arloa (3); ikus entzunezkoen arloan (6); ikus entzunezkoen arloko (4); ikus entzunezkoen europako (9); ikus entzunezkoen euskal (6); ikus entzunezkoen finantzabidearen (3); ikus entzunezkoen jaialdian (3); kataluniako ikus entzunezko (5)

---

# ikusiezin *iz* ezin ikusia.

Ahizparen gorrotoa eta **ikusiezina** behin eta berriz bereganaturik. Aitor Arana

Ez da suniten eta xiiten arteko **ikusiezinaren** ondorioa izan, bai, ordea, terrorismo ekintza huts bat. Berria - Mundua

Iruzurgile ausart batek (beti jende berezia izaten da) herri ezjakinaren miresmena eta argituaren **ikusiezina** izango du. Juan Martin Elexpuru

Goiz oheratu nintzen; nion **ikusiezina** eta gutzi, berotuta geratu nintzen haren zirriekin, eta nahiago izan nuen gustora masturbatu, Luisa eta Antoniorekin telebista ikusi baino. Juan Martin Elexpuru

· Zer ikusten dugu honen guztiaren ordez? elkar **ikusiezin** betierekoak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# ikuska 1 *adlag ipar* ikusten.

Dominique de Villepin barne-minixtroa ibili da **ikuska** suak nolako eremuak hartuak zituen. Herria

Maite zuen Man-i so geratzea, Man bera **ikuska** hurbilaz ohartzen ez zela ardurenean. Itxaro Borda

Hendaian,joanden egunean, itsas-bazterrean **ikuska** zabilan norbaitek atxeman ditu hiru paketa drogakiz beteak. Herria

Jantziz eta gogoz arin dabiltza gure xokoetan gaindi **bazterren** ikuska, begiak kurios eta bihotza alegera, agian bai segurik. Herria

*ik beherago* 3. Askoren artean

Urte guzian landu dute historiaurrea, beren ikasgaietan, baita ere toki desberdinetan ibiliz: Errioxako dinosauroen **aztarnen** ikuska, Gasteizko arkeologia-erakustokia bisitatuz, Larla mendiko aztarnen ezagutza eginez Argitxu Beyrie-rekin... Herria

## 2 (izen gisa)

Joko asko zabaldurik jendea ibili da gosturat, **ikuska** hautuak eginez eta gogoko gauzak erosiz. Herria

Maite zuen Man-i so geratzea, Man bera **ikuska** hurbilaz ohartzen ez zela ardurenean. Itxaro Borda

## 3 ***bazter ikuska*** bazterrak ikusten.

Bainan bazter **ikuska** ere ibili dira. Herria

Itzuliño bat egin ere dute Euskal Herrian gaindi, bazter **ikuska**. Herria

Zer dioten oihanzainek, artzainek, ihiztariek, hautetsiek eta mendian bazter **ikuska** ibiltzen direnek... Herria

Deliberatu nuen norabait behar nuela mugitu, bazter **ikuska** ibiltzea ez dela kalte, munduaren berri hola jakiten ahal dela, eta abiatu nintzen Marsellako alderat. Janbattitt Dirassar

Euskal-Herri barne hortarat ere joaiteko bazter **ikuska**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

bazter ikuska (25); bazter ikuska ibili (4); da ikuska (4); eta bazter ikuska (3); ikuska ibili (5)

---

# ikuskagarri *izond* ikuska daitezkeena.

Planetaren beheko aldetik sartu zen haren orbitara, eta handik irudi **ikuskagarriak** bidali dizkigu. Berria - Gaiak

L Metaforaren erabilpena abstrazioaren iturburua da, gauzakien mugak gainditzen eta aldatzen dira, sortzen da **ikuskagarri** ez den ikusteko ahalmena, sortzen da gogozko harremana, majikoa; hori da abstrazioa. Patziku Perurena

---

# ikuskaketa *iz* ikuskatzea.

Senarraren administrazioak, haatik, zuhurra behar du izan eta **ikuskaketak,** mugatua; senarraren eraginak zabalago jokatu behar du babesean aginpidean baino; indartsuena da ahulena defendatu eta sostengatu behar duena. Andres Urrutia

Txartelaren ifrentzuari so egin nion: azken **ikuskaketaren** data zekarren, 1944ko urtarrilaren 4a. Juan Garzia

Iranek ez du Arma Nuklearrak Ez Ugaltzeko Itunaren atal gehigarria beteko eta IAEAko **ikuskaketei** uko egingo die.

Trenbide sare osoan konpainiako 10.000 langile aritu ziren **ikuskaketa** egiten. Berria - Mundua

Hantxe nituen, hain zuzen, begien aurrean, 1942ko urtarrilaz geroztiko **ikuskaketa**-agirien zerrenda amaigabea [...] eta zenbaki guztiak egokitzen zitzaizkion ebazpenak arautuari. Juan Garzia

---

**ikuskaldi** *iz* ikuskatzea.

Urteak joan, urteak etorri, poliziak halako ontzien kopuru ederra bildua zuen dendari haien etxeetan egiten zituen **ikuskaldietan**. Matías Múgica

Herrialdean berriki egindako **ikuskalditik** landa, Unicefeko batzorde eragileko kide eta Ekuadorko enbaxadore Luis Gallegok hauxe esan zien atzo kazetariei: «Kongoko emakumeen eta haurren egoera larriak nazioartearen berehalako arreta behar du». Berria - Mundua

---

**ikuskapen** **1** *iz* ikuskatzea.

Ilaran jarrita egiten genuen bizarra, lerrokatuta jaten genuen, eta errenkadan izaten ziren **ikuskapenak**. Mirentxu Larrañaga

Lurruna presio handian irten zen, 200 graduko tenperaturan, eta ohiko **ikuskapen** bat egiten ari ziren hamaika behargin harrapatu zituen. Berria - Gaiak

Natur baliabideen **ikuskapen,** antolamendu eta banaketa bidezkoa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eta leihatilak eta ateak hermetikoki itxita zeuden, ongiegi itxita egon ere, pentsatu nuen nire kabutan **ikuskapen** zehatz-mehatz baten ondoren. Karlos Linazasoro

Gure trepetak garbitu, martxa-lerroan gora eta behera ibili, **ikuskapenetara** agertu behin eta berriro. Mirentxu Larrañaga

Eskumen gehiago eduki eta **ikuskapenak** kontrolatu. Berria - Ekonomia

Jaun ahalguztiduna **ikuskapena** egiten ari zaio borrokara doan gudarosteari. Elizen arteko biblia

IAEA Energia Atomikorako Nazioarteko Agentziaren **ikuskapenarekin** abiatuko dutela programa zehaztu zuten agintariek. **Ikuskapenerako** Informazio eta Plangintza Ataleko zuzendariari.

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Igande goiz batean, **ikuskapen**-saioa izan genuen armen plazan. Mirentxu Larrañaga

Espainiako Armada, Guardia Zibila, Polizia Nazionala eta RENFEko laginleak aritu ziren **ikuskapen** lanak egiten, besteak beste, 45 helikopteroren, txakurren eta auto blindatuen laguntzarekin. Berria - Mundua

Legebiltzarraren neurria egokia den aztertuko du **ikuskapen** talde batek. Berria - Mundua

Prekarietatea eta benetako **ikuskapen** falta dira eraikuntzan etengabe gertatzen diren lan istripu hilgarrien eragile nagusi. Berria - Ekonomia

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako enpresetan hiru **ikuskapen** mota egiten zituzten orain arte. Berria - Euskal Herria

Hezkuntza **ikuskapen** egoitza baten aurkako erasoa. Berria - Mundua

Barne **Ikuskapen** Zerbitzuen Bulegoko arduradun nagusi Dileep Nairren ustezko kutunkeria kasuaren ikerketa itxi izanak eragin zuen sindikatuaren mozioa. Berria - Mundua

Aireko **Ikuskapen** Artxiboko zuzendari Allan Williamsek azaldu duenez. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hango ospitaleetan egiten dituzte begi **ikuskapen** guztiak. Berria - Gaiak

Bigarren boto **ikuskapenaren** inguruan zituzten zalantzak azaltzeko eta iruzurra egiaztatuko luketen «frogak» aurkezteko. Berria - Mundua

Kudeaketaren kontu **ikuskapena** ere egin beharko litzateke. Berria - Kirola

Kremlinek 2000. urtean egindako zerga-**ikuskapena** baliatu zuen neurria hartzeko. Berria - Mundua

Langileen formakuntza bultzatu, hazkuntza ekonomikoaren oinarriak aldatu, kausalitate printzipioa indartu eta Lan **Ikuskapena** sendotuko dituela ziurtatu du. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ikuskapen bat** (3); **ikuskapenerako informazio eta** (9)

---

**ikuskari** *(836 agerraldi, 66 liburu eta 160 artikulutan)* **1** *iz* ikuspena, alegiazko edo naturaz gaindiko ikusketa.

Kartzelatik aske geratu ondoren Asisa itzuli zenean, espedizio militar batean parte hartu nahi izan zuen, ospearen bila, baina abiatu eta berehala, uko egin zion bere asmoari, **ikuskari** baten ondorioz. Askoren artean

**Ikuskari** bat izan zuen: goserik zegoen anaia multzo handi bat zeukan inguruan. Askoren artean

Eta **ikuskari** batean Ananias izeneko gizon bat ikusi du etxean sartzen eta eskuak gainean ezartzen, berriro ikusi ahal izan dezan. Elizen arteko biblia

Urrengo gauean eta beste bi gauetan, **ikuskari** bat izan zuen Jainkoak emanda: Frantzisko santuaren ahotik urrezko gurutze bat ateratzen zen; honen goiko punta zeruraino iristen zen eta besoak sortaldetik sartalderaino zabaltzen ziren. Askoren artean

Pauloren **ikuskari** eta agerpenak. Elizen arteko biblia

Damaskoko bidean izandako **ikuskariak**. Iñaki Mendiguren

Anai Pazifikok Bovarako elizan izan zuen **ikuskaria**. Askoren artean

**Ikuskaria** izan zuenak, pozez gainezka, preso lagunei jakinarazi zien aginduriko mesedea. Askoren artean

Jainkoaz beteriko gizonak oso ongi ulertu zuen **ikuskariak** iragartzen zuena, Aginte apostolikoa bere onginahian berarengana makurtuko zela, alegia. Askoren artean

Gainera, Espiritu Santuak argiturik ziurtatu zuen egun haietan izan zuen zeruko **ikuskaria** gizon honen bidez beteko zela. Askoren artean

**Ikuskari** bat datorkio gogora, Lucy lan-jantzi urdineko bi gizonekin borrokan, haiei jazartzen. Oskar Arana

Anne Katherine Emmerich serora estigmatikoaren **ikuskari** mistikoak. Berria - Kultura

Kritikari askok erromantikotzat jotzen dute, eta biziki miresten dute amets eta **ikuskari** fantastikoen sortzaile gisa. Jose Morales

Poetak beren poemekin bizitzen eta paseatzen dira; **ikuskariak** izaten dituen gizon batek ez du bestelako lagunik behar. Koro Navarro

**2** ikuskizuna.

Merteuil andreak Italiar Komediara eraman zezatela manatu zuen, han palko bat baitu; bakarrik zen, eta [...] ezein gizon ez zitzaion hara bildu **ikuskari** osoa bitartean. Jon Muñoz

Zirkuko **ikuskari** harrigarriak. Jon Muñoz

Kale antzerkiko **ikuskari** batek itxiko du inauterien aroa. Berria - Kultura

Lindaren eta hartzaren arteko borroka zen **ikuskari** txundigarria. *En Derangement clown* **ikuskaria** eskainiko du Petit Monsieurrek. Koro Navarro

Antzerki kutsua hartuko du **ikuskariak**. Berria - Kultura

Beste **ikuskari** bat prestatzen ari zen Elsarekin. Harkaitz Cano

Sekula ere ez bainaiz ausartu horrelako antzoki batean eta horrelako **ikuskari** batean parte hartzen. Berria - Kultura

Atxagak ez du gogoko **ikuskaria** hitza, eta, aldiz, saioa «irakurketatzat» hartu beharko litzatekeela uste du: «Irakurketa, eta gero, kantuak». Berria - Kultura

Baztertu egin ditu **ikuskariek** erantsita ohi dituzten efektismoak-eta: «Hitzak, ahal badu, aurrera aterako du 75 minutuko saioa, eta bestela hitzaren porrota izango da». Berria - Kultura

9etan **Ikuskarien** gelan, Christophe Biamont. Herria

· Sute bat **ikuskari** atsegina ez den arren. Josu Zabaleta

Kalera ateratzean, espero ez zuen **ikuskari** batekin topo egin zuen. Koro Navarro

Zehar-so egin nion hegalak berriz ere irekitzen ote zitzaizkion janzkiari, baina neskaren eskuek finki kontzen zieten, izterren **ikuskari** miresgarria ukatuz. Aingeru Epaltza

Naturaren **ikuskariak** eta hegazti harraparien hegaldiak miresteko. Joan Mari Irigoien

Ohitura gaiztoen **ikuskari** horrez asaldatuak. Jon Muñoz

**Ikuskari** ederra emango zenukete zuek, bai! Josu Zabaleta

**Ikuskari,** entzukari, usainkari... Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan)

Joko horretan **ikuskari** -tresneria sartzen da. Josu Zabaleta

· Kale **ikuskari** batekin itzelezko marka baita 200 saio egitea. Jainkoak gorputzeko gaixotasunez eta gau- **ikuskariz** Frantziskoren bihotza bisitatu zuen. Askoren artean

Gau- **ikuskari** batean, Jainkoak dei egin zion Jakobi: -Jakob! Jakob! Jakobek erantzun: -Hemen nauzu. Elizen arteko biblia

Garai hartan asko jaikiko dira hegoaldeko erregearen aurka; haien artean zure herriko gizon oldarkoi batzuk ere bai, goi- **ikuskariren** bat betetzen dutelakoan, baina porrot egingo dute. Elizen arteko biblia

**4** ikuskatze lana egiten duen pertsona. ik **ikuskatzaile 2.**

Legea eraginkorra izatea nahi badute, **ikuskariak** lehenbailehen jarri beharko dituzte. Berria - Euskal Herria

Etxeak urez hornitzen dituzten zentroetan **ikuskariak** falta dira. Berria - Ekonomia

Germaine Hacala, zazpi urte huntan gela elebidunetako **ikuskari** zena. Herria

Estatuko naiz nazioarteko **ikuskari** eta epaileek balioztatu dituzte emaitzak. Berria - Mundua

Bernard de Korsak ingeniariak, Olivier Beth Laborantzako **Ikuskari** Nagusiak eta Christiane Cabanel administrazioaren **ikuskariak** txosten bat ondu dute. Berria - Euskal Herria

Jean Michel EPLE **Akademiako** ikuskaria. Herria

Hezkuntza saileko **ikuskariek** . Herria

Europako Segurtasun eta Kooperaziorako Erakundeak (ESKE) iragarri zuen ez dituela igandeko hauteskundeetara **ikuskariak** bidaliko, segurtasun falta argudiatuz. Berria - Gaiak

300 **ikuskari** bidali zituen ESKEk. Berria - Mundua

Orduko 954 **ikuskari** eta 968 ikuskariorde egotea aurreikusten du Espainiako Gobernuak. Berria - Ekonomia

**Lan** ikuskariak ez zuen gehiegikeriarik ikusi langileen lanuztean. Berria - Ekonomia

Langile batzordeak eskatuta, lan **ikuskari** batek Atxuriko tren geltokia bisitatu zuen. Berria - Ekonomia

Lan **ikuskarien** kopurua %20 handitzea onartu du gobernuak. Berria - Ekonomia

Akademia **ikuskariak** ez du deus errateko gai horren inguruan. Berria - Euskal Herria

Price Waterhouse-Coopers-eko kontu- **ikuskariek** egindako txostenaren arabera. Berria - Ekonomia

KPMG kontu **ikuskariak** uko egin dio BWEren 2003ko kontuei buruzko iritzia emateari, hutsune nabarmenak aurkitu baititu. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**duen ikuskari** (3); **eta ikuskari** (8); **gau ikuskari** (9); **gau ikuskari batean** (5); **gau ikuskari kezkagarri** (4); **goi ikuskari** (3); **horrelako ikuskari** (3); **ikuskari bat** (19); **ikuskari bat izan** (14); **ikuskari batean** (16); **ikuskari batek** (3); **ikuskari baten** (6); **ikuskari baten bidez** (3); **ikuskari bitxia** (3); **ikuskari ederra** (3); **ikuskari eta** (6); **ikuskari haren** (5); **ikuskari hark** (4); **ikuskari harrigarria** (3); **ikuskari hau** (12); **ikuskari hau izan** (6); **ikuskari honen** (5); **ikuskari honetan** (4); **ikuskari hori** (6); **ikuskari hura** (16); **ikuskari hutsalak** (3); **ikuskari kezkagarri** (4); **ikuskari kezkagarri bat** (4); **ikuskari miresgarri** (3); **zuen ikuskari** (10); **zuen ikuskari hura** (3)

**akademia ikuskariak** (4); **akademiako ikuskariak** (4); **bigarren ikuskaria** (3); **duzun ikuskaria** (3); **eta ikuskariak** (3); **eta ikuskarien** (3); **gau ikuskarietan** (3); **hirugarren ikuskaria** (3); **ikuskaria eta** (3); **ikuskaria izan** (10); **ikuskaria izan zuen** (4); **ikuskariak eta** (4); **ikuskarian agertu** (3); **ikuskariari begira** (3); **ikuskariren bat** (3); **izan duzun ikuskaria** (3); **izan zuen ikuskaria** (6); **izandako ikuskaria** (7); **kontatu zion ikuskaria** (3); **lan ikuskarien** (3); **serafinaren ikuskaria** (3); **zen ikuskaria** (3); **zien ikuskaria** (3); **zion ikuskaria** (4); **zuen ikuskaria** (8)

---

# ikuskariorde *iz* ikuskariaren hurrengoa, eta, egoera jakin batzuetan, haren ordekoa.

Orduko 954 ikuskari eta 968 **ikuskariorde** egotea aurreikusten du Espainiako Gobernuak. Berria - Ekonomia

---

# ikuskaritu, ikuskari(tu), ikuskaritzen du *ad* ikuskatu.

JFKn lur hartu baino ordu laurden lehenago eman dizkigute aduanan **ikuskarituko** dizkiguten paperak. Harkaitz Cano

---

# ikuskaritza 1 *iz* ikuskariaren jarduera, kargua eta lanbidea; ikuskariak lan egiten duten zerbitzua; zerbitzu horren bulegoak.

Elikagaien planifikazioa eta **ikuskaritza** . Pasaporteen **ikuskaritza** zorrotza gainditu beharko genuen. Edorta Jimenez

Goi mailako **ikuskaritza** zientifiko baten pean 1935ean eta 1937an Londresen kontu handiz egindako esperimentu batzuek erakutsi zutenez, [...]. Irene Aldasoro

NDFri zegokion, lehen bezala, **ikuskaritza** makroekonomikoaren ardura. Koro Navarro

Etorri eta berehala lortu zuen **ikuskaritzak** onar zezan mutilak eta neskak elkartzea. Juan Kruz Igerabide

Arabak, Bizkaiak eta Gipuzkoak aitorpenak berrikusiz eta **ikuskaritzaren** lanari esker ia 300 milioi euro azaleratu zituzten 2004an (iazko datu ofizialik ez dago). Berria - Ekonomia

**Ikuskaritza** medikuak hiru egunen buruan erantzuten ez badu, mutualitateak senda-agiria eman ahalko dio. Berria - Ekonomia

Departemenduko **Ikuskaritza** Akademikoak. Herria

Merkataritza-bankuen nazioarteko jardueren **ikuskaritza** egin. Koro Navarro

Kudeaketaz gain, Gobernuak enpresen kontuen eta orain arteko kudeaketaren **ikuskaritza** eginen du. Berria - Ekonomia

Hiru lantegietako kontuen **ikuskaritza** egin ondoren […]. Berria - Ekonomia

Kontuak **ikuskaritza** pasatzeko ditu oraindik Gamesak. Berria - Ekonomia

IEAEren **ikuskaritza** onartu eta energia nuklearrari uko egiteagatik zigorrak kentzeko eskatu zuen Libiak. Berria - Mundua

Lan eta Gizarte Segurantzako **Ikuskaritzako** agintariei galdetuz gero, erantzuna berehalakoa da: «Guk eskunduntzarik ez daukagu horretan eta, beraz, ez gara sartuko». Berria - Euskal Herria

Juan Ramon Ibarra Foru Ogasuneko **Ikuskaritzako** zuzendariordea kargugabetzea erabaki zuen Bizkaiko Foru Aldundiak.

Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko **ikuskaritzaren** ordezkariak. Berria - Euskal Herria

Kutsatutakoetako bat Elikagaien **Ikuskaritza** Bulegoko langilea da. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa)

Herrialdearen egoera aztertzeko, **ikuskaritza** batzordea bidaliko du lehenik. Berria - Mundua

Stormontek eta Dublinek **ikuskaritza** talde bat izendatuko dute, eragingarritasuna aztertzeko. Berria - Mundua

Hainbat **ikuskaritza** misio behar dira. Berria - Mundua

Botere politikoa eta sozio-ekonomikoaren arteko lokarri hertsiak geroz eta sendoagoak direlarik [...] **ikuskaritza** -eskuduntzak lausotuz eta elkarrekin nahasiz doaz. Edorta Agirre

Enpresak eredua ezarri ondoren **ikuskaritza** enpresa bati deitzen dio ezarpena ikuskatu dezan. Iñaki Heras

KPMG **ikuskaritza** enpresaren txostenaren arabera. Berria - Ekonomia

Espainiako Botere Judizialeko Batzorde Nagusiko (CGPJ) **Ikuskaritza** Zerbitzuak.

**3** (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Administrazioak diruz babestutako jarduerak zerbitzu- **ikuskaritzaren** bidez aztertzea proposatu dute. Berria - Euskal Herria

1833ko Legeak eratu zuen lantegi- **ikuskaritza** urrats bat izan zen beste mota bateko herri-administrazioaren garapenean... Iñaki Mendiguren

Parisko osasun- **ikuskaritzak** ez zuen sekula ezer arrarorik sumatu. Iban Zaldua

Paueko Akademia **Ikuskaritzak** segurtatu duenez, departamendu mailan 5 irakasle zeuden greban. Berria - Ekonomia

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola guztiek A eredua eskaini dezatela eskatu dio Espainiako Hezkuntza Ministerioko Goi **Ikuskaritzak** Eusko Jaurlarizari. Berria - Euskal Herria

**4** lan ikuskaritza.

**Ikuskaritzak** eskatuta, Osalanek obren ia erdia berriro bisitatu zuen, baldintza egokiak zituztela egiaztatzeko. Berria - Ekonomia

Segurtasun arauak ez betetzeagatik 30 obra geldiarazi ditu **ikuskaritzak**. Berria - Ekonomia

**5** ***lan ikuskaritza***

Lan **Ikuskaritzak** beste isun bat jarri nahi dio Pferd Ruggeberg Caballito enpresako Zuzendaritzari.

Salaketa bat jarri zuen langile batzordeak Lan **Ikuskaritzan**. Berria - Ekonomia

CCOOk salatu zuen atzo Bizkaiko Lan **Ikuskaritzan** Azkotarpe eraikuntza enpresak Urdulizen baldintza txarretan lanean dituela hainbat langile portuges. Berria - Ekonomia

Lan **Ikuskaritzak** 217 eskari jaso ditu jazarpen morala ikertzeko. Berria - Ekonomia

Auto ilaran Nafarroako Gobernuaren Lan Departamentutik, Nafarroako Parlamentutik eta Lan **Ikuskaritzaren** egoitzetatik pasatu zen aurrena, eta aurten hildako langile bakoitzaren omenez zuhaitz bana landatu zuten ondoren. Berria - Ekonomia

· *(egoitza)* Iruñean Lan- **Ikuskaritzaren** aurrean egin zuten protesta. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**akademia ikuskaritza** (4); **akademia ikuskaritzak** (7); **cgpjko ikuskaritza** (3); **dute lan ikuskaritzan** (4); **eta lan ikuskaritzak** (4); **eta lan ikuskaritzaren** (3); **ikuskaritza batzordea** (3); **ikuskaritza egin** (3); **ikuskaritza zerbitzuak** (3); **ikuskaritzak ez** (7); **ikuskaritzak ez du** (3); **ikuskaritzaren aurrean** (4); **lan ikuskaritza** (4); **lan ikuskaritzak** (25); **lan ikuskaritzak ez** (3); **lan ikuskaritzan** (15); **lan ikuskaritzaren** (10); **lan ikuskaritzaren aurrean** (4); **lan ikuskaritzari** (6); **lan ikuskaritzari eta** (4); **ogasuneko ikuskaritzako** (3); **paueko akademia ikuskaritzak** (5)

---

**ikuskatu,** ikuska, ikuskatzen **1** du *ad* arretaz ikusi; ikertu, arakatu.

XIX. mendeko lehen urte haietan bada, Euskal Herriko bi alderdiak hurbiletik **ikuskaturik,** Wilhelm Humboldt prusiar jakintsuak idatzi zizkigun ohar harrigarri hauek: Hegoaldean ikusten da, zein barna finkatua den aspaldian euskaldunek nazio bat osatzen dutelako kontzientzia. Piarres Xarriton

Sarrerako horma **ikuskatu** zuen harik eta harri handi bat topatu zuen arte. Patxi Zubizarreta

Emakumeak lepoa besterik ez zuen bihurtu atearen atzera, eta alboko gela **ikuskatu** zuen. Ibon Uribarri

Paperak **ikuskatu** eta luze aztertu zituen gizonaren agiriak. Koldo Biguri

**-Ikuskatu** al dituzu haren egunkariak eta gutunak? Oskar Arana

Liburuko materiala **ikuskatu,** zuzendu eta txukuntzen hasiak dira. Berria - Euskal Herria

Sarjentua banan-banan hasi zen petateak **ikuskatzen**. Harkaitz Cano

Ikasketaburuak ikasleen eskuak **ikuskatu** ditu. Itziar Otegi

Pontzio Telesinok ere Katonek esandakoa bera adierazi zuen arrazoi handiz, [...] tropak **ikuskatu** eta, Erroma suntsitu eta birrindu egin behar zela deiadar egiten zuenean. Esteban Antxustegi

Joantto ez zen behin ere mintzatu eta mahaikideen **ikuskatzen** ari zen, aditu gabe. Elena Touyarou

Hamahiru urte baino ez nuen, eta artean ez nekien zu zelatatu eta **ikuskatzeko** nerabilen berebiziko jakin-mina maitasuna zela. Eduardo Matauko

Poliziak igotzen ziren bidaztiak ikertzera eta den-denak zorrotz **ikuskatzen** zituzten, Ivan Ogareffen bila baitzebiltzan, polizi buru nagusiaren aginduz. Karlos Zabala

Ni ondo **ikuskatu** ondoren, goiko leihoan bi begi itzali zirela ohartu nintzen. Javi Cillero

Parera iritsi zitzaionean, agureak gain behera **ikuskatu** zuen, eta kopeta zimurtu. Elena Touyarou

Banan-banan **ikuskatu** nituen, patxada ederrean, neska gazte izateari aspalditxo utzitako andere bidaide guztiak. Joxe Austin Arrieta

Mesas zuzendariak kontatu zion, biharamunean, ikerketa bere gain hartu zuen polizi inspektoreari: «Lur azpitik ihes egin ote zuten» sotoak **ikuskatu** zituztela, «ezkutatuta ote zeuden» teilatuak begiratu zituztela... Berria - Harian

Sierra Nevadako kronoigoera, eta Calar Alto gainean bukatzen den etapa **ikuskatu** ditugu, eta oso gogorrak dira. Berria - Kirola

Lan haiek guztiak zure etxezainak **ikuskatzen** zituen. Eduardo Matauko

Teilatuan kristalezko begiratoki handi bat zegoen, ez ikuspegiak miresteko, ezpada nekazarien lanak **ikuskatzeko,** mujik bakoitza non zegoen eta zertan ziharduen ikusteko. Jose Morales

**2** zerbait behar bezala dagoen edo dabilen ikusteko ikerraldia egin.

IRA «prest» dago bi apaizek desarme prozesua **ikuskatzeko**. Berria - Mundua

Itsasbazter zabal hori **ikuskatu** ahal izateko, ordea, gerraontzi zahar bat, bi patruila ontzi, sei txalupa eta bi batel baino ez ditu. Berria - Harian

Ukrainara, orotara, nazioarteko 7.095 begirale joan dira heldu den igandean egingo diren bozak **ikuskatzera**. Berria - Mundua

El Alto auzoan liskarrak egon ziren sindikalista batzuen eta erreferenduma **ikuskatzera** joan ziren Amerikako Estatuen Erakundeko (OEA) begiraleen artean. Berria - Mundua

Lan Ministerioak, «iruzur zantzuren bat» izanez gero, langabeen zerga aitorpenak **ikuskatu** ahal izanen ditu, abenduaren 24an argitaratu dekretuari esker. Berria - Harian

Horretarako, kontuen azterketa aurkeztu beharko dute, eta UEFAk, susmo txarren bat badu, kontuak **ikuskatu** ahal izango ditu. Berria - Kirola

Obrak **ikuskatu** behar dituzte tokian tokiko Administrazioek, enpresek legedia errespeta dezaten. Berria - Ekonomia

Iaz 200dik gora etxebizitza **ikuskatu** zituen Nafarroako Gobernuak, eta, ondorioz, 21 isun ezarri zituen. Berria - Euskal Herria

Hipermerkatuak, burdindegiak, zerbitzu guneak eta tabernak **ikuskatu** dituzte. Berria - Euskal Herria

Gobernuak hiruhilero suhiltzaileen ibilgailuak eta tresneria **ikuskatuko** ditu segurtasuna bermatzeko. Berria - Ekonomia

Atzokoa izan da Carlos Urkijok [...] aginduta **ikuskatu** den lehenengo eskola. Berria - Euskal Herria

Udaltzainek hiriko 36 lokal **ikuskatu** zituzten eta horietako lautan jende gehiegi zegoela ziurtatu zuten. Berria - Euskal Herria

Hainbat kontu ikuskaritza egin dira ubideko obren inguruan; Estatuak egin du bat, baina ez da bakarra izan; kanpoko erakunde batek **ikuskatu** ditu lanak, bai eta Kontuen Auzitegiak ere; ez da legez kanpoko deus aurkitu. Berria - Euskal Herria

UNMOVIC Irakeko Desarmea Egiaztatzeko, Kontrolatzeko eta **Ikuskatzeko** Batzordearen azken txostenak. Berria - Mundua

Desarmea **ikuskatu** zuen IICD Desarmerako Nazioarteko Batzorde Independentea, ordea, prozesuarekin kontent agertu da. Berria - Mundua

Indar Atomikoaren Nazioarteko Agentziak nahi duenean **ikuska** ditzake instalazio nuklearrak. Berria - Mundua

**3** *(era burutua izenondo gisa).*

Olde hau harat-honat dabil ilunpean, eta ez dago zoragarriagorik begitarte polit **ikuskatuen** eta irri alegera apalduen nahaste diskretu hau baino. Koldo Izagirre

Adierazpenok Munduko Medikuak elkartearen egoitzan egin zituen Madrazok, drogaren kontsumo **ikuskatuaren** gelak sei hilabete dituenean, zerbitzuaren gaineko azterketa egiteko egindako agerraldian. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eskuak ikuskatu** (3); **eta gela ikuskatu** (3); **eta ikuskatu** (5); **etapak ikuskatu** (5); **gela ikuskatu** (5); **hori ikuskatu** (5); **ikuskatu ahal** (5); **ikuskatu al** (3); **ikuskatu behar** (4); **ikuskatu ditu** (5); **ikuskatu dituzte** (4); **ikuskatu dut** (3); **ikuskatu eta** (7); **ikuskatu nituen** (5); **ikuskatu ondoren** (5); **ikuskatu zituen** (9); **ikuskatu zuen** (11); **ikuskatu zuten** (3)

**bozak ikuskatzera** (3); **desarmea ikuskatzeko** (3); **eta ikuskatzeko** (3); **haiek ikuskatzen** (3); **ikuskatzea izango** (5); **ikuskatzea izango da** (3); **ikuskatzeko eta** (3); **ikuskatzen ari** (10); **ikuskatzen ari da** (4); **ikuskatzen aritu** (4); **ikuskatzen ditu** (3); **ikuskatzen hasi** (3); **ikuskatzen izan** (3); **ikuskatzen zituen** (4); **ikuskatzen zituzten** (3); **ikuskatzera joan** (4); **lanak ikuskatzen** (3)

---

# ikuskatzaile *(307 agerraldi, 624 liburu eta 133 artikulutan)* **1** *izond* ikuskatzen duena.

Nazioarteko batzorde **ikuskatzaile** baten sorrera kalteak neurtzeko eta balorazioak egiteko. Berria - Euskal Herria

New Yorkeko Gorte Federalak aintzat hartu du Eusko Jaurlaritzak *Prestige* ontziaren sozietate **ikuskatzailearen** aurka [...] aurkeztutako auzi eske zibila. Berria - Euskal Herria

*American Bureau of Shipping* (ABS) enpresa **ikuskatzaileak** Espainiako Gobernuaren aurka jarritako helegitea. Berria - Gaiak

• **2** *iz* ikuskatze lana egiten duen pertsona. ik **ikuskari 4**.

**Ikuskatzaileak** bosgarren aldiz txulatu zizkigun txartelak, eta mamu harrigarri baten antzera desagertu zen gero. Karlos Linazasoro

Itxura denez, **ikuskatzaile** bat ekarri zuten hodieriak aztertzeko... Lopez de Arana

Han itxoin nuen bila etor zekizkidan probarako, hau da, nire klasea emateko **ikuskatzailearen** eta bi aholkulariren aurrean. Joseba Urteaga

Kazakhstanen eginiko hauteskundeetan **ikuskatzaileen** misioko burua izan da. Berria - Mundua

Osasun-batzordeko **ikuskatzailearenera** eta udal-arkitektoarenera era joan zen gizalegezko diosalak egitera. Jose Morales

-Estatuko trenbideetako **ikuskatzaile** izendatu behar omen zaituzte, ez da hala? Fernando Rey

Aduanako **ikuskatzaile** eta funtzionarioez aritzen baziren. Jose Morales

Aseguru-etxeko **ikuskatzailea**. Anjel Lertxundi

-Ez zabiltza zuzen, arrain **ikuskatzaile** postu horri uko eginda -esan zion Florenti-. Karlos Zabala

Lehenbiziko egun hotzetatik, **ikuskatzailearen** bulegoak jakin-min bizia piztu zion. Karlos Zabala

Pushkinek, berriz, ***Ikuskatzailea*** komediaren eta *Arima hilak* eleberriaren gaiak iradoki zizkion Gogoli. Jose Morales

Arma Kimikoak Eragozteko Erakundeko **ikuskatzaileak** atzo ailegatu ziren Tripolira IAEAko **ikuskatzaileek** hiru urte eman dituzte Iranen programa nuklearra gertutik jarraitzen eta aztertzen. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan)

**Ikuskatzaile**-lanak egiten. Karlos Linazasoro

Londresen egiten ari diren lan guztiak gainbegiratuko ditu Nazioarteko Olinpiar Batzordeko **ikuskatzaile** talde batek. Berria - Kirola

· Txartel-**ikuskatzaileak** esan zion bigarren klaseko txartela zela hura. Josu Zabaleta

-Zu... zu al zara gas-**ikuskatzailea**? -galdetu zion mesfidantzaz, ate erdian jarririk. Migel Angel Mintegi

Eskola-**ikuskatzailea** zen. Monika Etxebarria

Notarioen eta kontu **ikuskatzaileen** zerbitzuei ere ez die eragingo. Berria - Harian

Guardia Zibilak Ondarroako zortzi ontzijabe eta arrantza **ikuskatzaile** bat atxilotu zituen orain bi aste.

Arma **ikuskatzaileen** buruak. Berria - Mundua

Hauteskunde **ikuskatzaile** batzuk ez dira arduratzen hauteskundeen aurreko irregulartasunez. Berria - Mundua

Horrelako lanetan Roland Bruyseraede zirkuitu **ikuskatzailea,** Charlie Witting 1 Formulan FIAren ordezkari teknikoa, eta segurtasun batzordeko beste ordezkari bat aritzen dira. Berria - Kirola

**4** ***goi ikuskatzaile***

Espainiako Hezkuntza ministerioko goi **ikuskatzaileak** zentroa bisitatu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Ministerioko **goi ikuskatzailea** joan den ostegunean izan zen Basaurin, bertan, Velazquez eskolan, A eredua bat-batean desagertu zela-eta Carlos Urkijok egindako salaketa egiaztatzeko. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arma ikuskatzaile** (6); **arma ikuskatzaile** (6); **arma ikuskatzaileak** (5); **arma ikuskatzaileen** (5); **arrain ikuskatzaile** (5); **arrain ikuskatzaile** (5); **dute ikuskatzaileek** (3); **erakundeko ikuskatzaileak** (5); **erakundeko ikuskatzaileek** (4); **iaeako ikuskatzaileek** (3); **ikuskatzaile bat** (11); **ikuskatzaile bat** (11); **ikuskatzaile berria** (3); **ikuskatzaile berria** (3); **ikuskatzaile eta** (5); **ikuskatzaile eta** (5); **ikuskatzaile izendatu** (3); **ikuskatzaile izendatu** (3); **ikuskatzaile postua** (4); **ikuskatzaile postua** (4); **ikuskatzaile talde** (5); **ikuskatzaile talde** (5); **ikuskatzaileak ez** (4); **ikuskatzaileek esan** (3); **ikuskatzaileen arabera** (3); **ikuskatzaileen buru** (3); **nazioarteko ikuskatzaileek** (3); **osasun batzordeko ikuskatzailea** (4)

---

# ikuskatze **1** *iz* arretaz ikustea; zerbait behar bezala dagoen edo dabilen ikusteko ikerraldia egitea.

**Ikuskatze** moduko bat zela, lanari begira egindako gaitasun-proba. Urtzi Urrutikoetxea

**Ikuskatze** luze baten ondoren, Kuglerren eremura noa. Josu Zabaleta

**Ikuskatze** teknikoak larunbatean egingo dira. Berria - Kirola

Bere **ikuskatze** horretan oso kontzentratua dirudien arren [...]. Pello Lizarralde

Bertzalde, ustegabeko **ikuskatze** edo kontrola batzu eginak izanen dira edozoin tenorez. Herria

Urkijok **ikuskatze** gehiago iragarri zituen. Berria - Euskal Herria

IAEA Energia Atomikorako Nazioarteko Agentziak nabarmendu nahi du hiru urteotan Iranen eginiko **ikuskatzeetatik** oraindik ez dituela oso garbi Iranen programa nuklearreko hainbat arlo.

Espainiako Gobernuak ikastetxeetan **ikuskatzeak** egingo dituela esan du Carlos Urkijok. Berria - Euskal Herria

Lehenengo **ikuskatzea** egin genuen eta hilobia aspaldikoa zela ohartu ginen. Berria - Gaiak

Quilish muinoko **ikuskatzeek** aurrera jarraitzen badute. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

Hego Poloan egongo naiz **ikuskatze** proiektu bat egiteko. Berria - Kultura

Kontratuen **Ikuskatze** Batzordearen erabakiaren zain. Berria - Kirola

Nazioarteko Aholku eta **Ikuskatze** Batzordeak. Berria - Mundua

UGT eta CCOOk lan istripuen prebentziorako legea betetzeko eskatu die enpresei eta Administrazioari **ikuskatze** lanetan zorrotzagoa aritzeko. Berria - Ekonomia

Kalearteko ohitura onen aldeko **ikuskatze** lanak betetzen? Josu Landa

Gipuzkoak luiziak kontrolatzeko «**ikuskatze** sistemarik modernoena» daukala baieztatu arren [...]. Berria - Euskal Herria

Ingurumen Kontrol eta **Ikuskatze** Plana aurkeztu du Sabin Intxaurragak. Berria - Euskal Herria

· Eraman zituzten armak segurtasun enpresa batek segurtasun **ikuskatzea** egiteko utzitakoak dira. Berria - Euskal Herria

Mintzaldi, harreman eta **bazter** ikuskatze askoren parada izan da hor. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eta ikuskatze** (3); **ikuskatze batzordeak** (3); **ikuskatze lanak** (9); **kontratuen ikuskatze** (5)

---

## **ikuskera** 1 *iz* ikusteko era edo modua.

Euriak paisaiaren **ikuskera** lausotzen du. Unai Iturriaga

Nire begiak, ordea, ez dira orain 13 urtekoak, eta ez naiz ikusmenaz ari, **ikuskeraz** baizik. Joxerra Garzia

Azkeneko mende honetan errealitatearen **ikuskera** artistikoan izan diren inarrosaldiak. Josu Zabaleta

Banatzen diren bidexken jardina Tsíui PÍn-ek unibertsoaz zuen **ikuskeraren** halako irudi osagabe bat da, ez hala ere faltsua. Juan Garzia

Bizitzaren erritmoak **ikuskera** jakin bat eragiten du; **ikuskerak,** berriz, bizitzaren erritmoa markatzen. Anjel Lertxundi

Literaturak errealitatea du abiapuntu, baiki, eta txosten baten itxura hotza har badezake ere [...] txostenak, literarioa bada, munduaren eta bizitzaren **ikuskera** bat erakusten du: errealitatea baino haratago doan zerbait. munduaren **ikuskera** aldarazi zuen bidaiaren kronika egin zuen Pigaffetak. Anjel Lertxundi

*ik beherago* 3. Askoren artean

**Ikuskera** tragiko hark luzaz liluratu zuen, bada, Nora. Anjel Lertxundi

Kristautasunaren muina greziar **ikuskera** eta pentsaeraren arabera aurkezteko. Iñaki Mendiguren

Analisi psikologikoaren azterketak nortasunaren freudiar **ikuskerarekin** harreman puntu batzuk dituen teoria bat aurkezten digu. Xabier Kintana

Tradizioan oinarritutako **ikuskerak**. Berria - Kultura

Beste **muturreko** ikuskerak (Hobbesena, kasu) gizakia gaiztoa eta berekoia dela aldarrikatzen du. Berria - Kultura

Aristotelesen *Topiko*etan topikoak lekuak dira, **ikuskerak** -predikatuak, atributuak-, predikatu batek subjektuarekin elkarrekikotasuna egiten ahal duelarik. Askoren artean

Gauzen izaeraren **ikuskera** sakonagoa izateko. Ibon Uribarri

Bere egia (ezta oro har kausa arazle baten adigaiaren baliotasun objektiboa ere) ez dela oinarritzen ezein apriorizko **ikuskeratan**. Ibon Uribarri

Kultura **ikuskera** horri haurren esklabotza laguntzen duten beste zenbait arrazoi gehitu behar zaizkio. Berria - Gaiak

### 2 (hitz elkatuetan)

Kultura **ikuskera** horri haurren esklabotza laguntzen duten beste zenbait arrazoi gehitu behar zaizkio. Berria - Gaiak

### 3 *mundu ikuskera*

Unibertsoaren infinitutasunarekin mundu-**ikuskera** berria zabaldu zuena. Askoren artean

Mundu-**ikuskera** objektiboa eta subjektiboa kontrajartzen ditu. Askoren artean

Nire mundu **ikuskera** osatzeko, ezinbestekoak izan dira Simone de Beauvoir eta J.P. Sartreren obrak. Ana Urkiza

Liburu honekin Kantek Filosofia ez ezik, izadiaren eta munduaren ulermena, hots, gure mundu-**ikuskera** ere hankaz gora jarri duela. Ibon Uribarri

Bat-batean konturatu nintzen nire fedegabetasun hura ez zegoela ongi burutua, eta nik orduan nire "mundu-**ikuskera"** deitzen nion ergelkeria hura zuloz josita zela. Matías Múgica

-Batak zein besteak beren mundu-**ikuskeraren** araberako bukaera emango lioketek narrazioari. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**bere ikuskera** (4); **bere mundu ikuskera** (4); **beste ikuskera** (4); **buruzko ikuskera** (3); **eta ikuskera** (6); **eta mundu ikuskera** (4); **ikuskera bat** (7); **ikuskera baten** (4); **ikuskera berri** (3); **ikuskera berria** (3); **ikuskera eta** (7); **ikuskera hori** (4); **ikuskera oro** (3); **ikuskera ororen** (3); **mundu ikuskera** (51); **mundu ikuskera bat** (5); **mundu ikuskera baten** (4); **mundu ikuskerak** (5); **mundu ikuskeran** (3); **mundu ikuskeraren** (10); **munduaren ikuskera** (9); **ustezko ikuskera** (3)

---

## **ikusketa** 1 *iz* ikustea.

Bideo **ikusketak,** erakusketak, txotxongiloak, jokoak, margolanak... molde desberdin horien bidez dira haurren eskubideak oroitaraziak izan. Herria

### 2 ikuskatzea.

Erregeak agindutako arma-**ikusketa** biharamunean egingo da. Agustin Otsoa

Bihar goizean Edorasera abiatuko nauk, Markako tropen **ikusketarako**. Agustin Otsoa

Lizardiren alargunak, gerra-ostean guardia zibilek maiztasun handiz egiten zituzten **ikusketen** beldur, poetaren liburu, koaderno eta paper zahar gehienak bota omen zituen Tolosako ibaira. Anjel Lertxundi

Teheranek Arma Nuklearrak ez Ugaltzeko ituna bortxatzen arituko litzateke, IAEAk **'ikusketak** egin behar ditugu' esango balu eta sartzen utziko ez balieke. Berria - Mundua

AEBetako Armadako paraxutistek aurreko egunetan base militarraren inguruan egindako **ikusketetan** hainbat arma biltegi aurkitu zituztela jakinarazi zuen atzo koronelak. Berria - Mundua

Bikandiren arabera, ikastetxe publikoetako egoera gero eta okerragoa da, eta Eusko Jaurlaritzaren ikuskatzaileen ondorioek ez dute beti benetako egoera adierazten, garbitzaileek gutxieneko zerbitzuak bete berritan joan izan baitira **ikusketak** egitera. Berria - Euskal Herria

---

## **ikusketari** 1 *iz* ikuskariak dituen pertsona.

Ez egin kasurik profetaren esanei, ezta **ikusketariaren** ikuskariei ere. Elizen arteko biblia

Gerta daiteke profeta edo **ikusketariren** bat zuen artean agertzea, eta, mirari edo egintza harrigarriren bat iragarriz. Elizen arteko biblia

### 2 *ipar* ikuskatzailea.

-Ez da gaitz, ontsa lan egin oren bat edo biez, zure aitzinean lan egina ikus dezaten **ikusketariak** pasatuko direlarik. Marzel Etxehandi

---

## **ikuskide** *iz*

Alabaina oraino bazen zertaz goza eta non usma, begi-luzeen alde gogorra **ikuskide**. Aingeru Epaltza

---

## **ikuskizun** 1 begien aurrean agertzen dena; antzerki, dantza edo kidekoren baten emanaldi jendaurrekoa. ik**ikuskari 2**.

**Ikuskizun** bat nahi zuten: ukabilaz bularrean jotzea, damua, ahal balitz malkoak ere bai. Oskar Arana

Geroago jakin izan genuen dena gezurra izan zela, neska AEBetako enbaxadorearen alaba zela eta guztia Hill and Knowlton enpresak antolatutako **ikuskizuna** genuela estatubatuarren inbasioa justifikatzeko. Iñigo Aranbarri

Interesgarria iruditzen zaiola guztien agerian muturka ari diren bi gizonen **ikuskizuna**. Koldo Biguri

Libertinoak, une batez begi aurreko ipurdi ederraren **ikuskizunaz** atsegin hartutakoan, [...]. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Burua jiratu zuen Norak, **ikuskizuna** eraman ezinik. Anjel Lertxundi

Benetako **ikuskizuna** da hura lanean ikustea. Oskar Arana

Hara hurbiltzean, **ikuskizuna** erabat aldatu zen. Joanes Urkixo

Claude esku zartaka ari zen, **ikuskizun** hari begira. Karlos Zabala

Bai festagiroko **ikuskizun** guzietan (dantza, musika, koplagintza, fartsa, ihauteri...) bai sendakuntza eta sineste guzietako sorginkeria orotan. Patziku Perurena

Aurten doako 130 **ikuskizun** antolatu dituzte. Berria - Kultura

On Camillo galtzontzilotan agertarazi eta **ikuskizun** hartaz gozatu. Koldo Biguri

Jaia **ikuskizun** bilakatzeko joera dago. Berria - Euskal Herria

Kasik partida guztietan omentzen dute norbait, Pottoka maskota ere **ikuskizun** bihurtu dute. Berria - Kirola

Azotaldiak eguneroko **ikuskizun** bilakatu ziren ziudadelako patio zabalean. Aingeru Epaltza

Heriotza-zigorra **ikuskizun** bilakatzen da gehienentzat. Juan Martin Elexpuru

Aurten bi **ikuskizun** antolatu dituzte. Berria - Euskal Herria

Sei arte erakusketa eta 71 **ikuskizun,** tartean ganbera musika, folk, pop-rock, folklore edo artisautza erakustaldiak eta herri kirola biltzen ditu Cultur 2004 egitarauak. Berria - Kultura

Gazteentzako 11 **ikuskizun** eskainiko dituzte Irunen. Berria - Kultura

Telebistako **ikuskizun** bat, alegia. Oskar Arana

Guztira 74 kontzertu eta **ikuskizun** izango dira. Berria - Kultura

Broadwayko **ikuskizun** eta jatetxeetara joandako errepublikanoei aurre egiten. Berria - Mundua

Bizitzari **ikuskizun** bati bezala begira egoten naiz sarritan. Pako Aristi

4:30etan, Luhusoko **ikuskizunen** gelan,"Euskararen zazpi pekatuak" antzerkia emana izanen da. Herria

Eskolako aretoan ematen zituzten **ikuskizunetara** joaten nintzen, emakumez eta haurrez inguraturik, eta doinu herrikoi kurduen musikarekin dantza egiten genuen. Juan Kruz Igerabide

Asko eta asko etorri ziren **ikuskizunera,** eta horien artean lurralde hartako kondea. Askoren artean

**Ikuskizuna** ez baita bukatu. Aingeru Epaltza

Euskaldunak ez du halako **ikuskizunik** eskaintzen despedidetan. Pako Aristi

Erredakzio batean daitezkeen atal gutzi-guztietan utzi dut nire sinaduraren lorratza: Lokala, Politika, Ekonomia, Kultura, berriz ere Politika, Nazioartea, eta berriz ere Kultura (gehi **Ikuskizunak,** gehi Telebista). Aingeru Epaltza

## 2 (izenondoekin)

Gizon bat aulkian eserita, artaziekin bere burua zikiratzen; **ikuskizun** itsusia, baina gizon hori berori emakume baten gorputzaren gainean ekinean baino itsusiagoa ez, nondik begiratzen zaion. Oskar Arana

Han, **ikuskizun** lotsagarria balitz bezala besaulki baten gibelean kukutua, Josuren disko-jogailu zaharra. Aingeru Epaltza

Bertan **ikuskizun** nazkagarria neukan zain: izterra mozten ari zitzaizkion korazero gazte, lerden eta eder bati. Jon Alonso

**Ikuskizun** zakar hura begien aurrean nuela. Pello Lizarralde

Gaizkile baten heriotzaren **ikuskizun** lazgarri baina igarokorrak. Juan Martin Elexpuru

Brunekildaren suplizioaren **ikuskizun** harrigarria. Iñaki Iñurrieta

Iragar iezaiezue **ikuskizun** anker bat: duelu bat, sute bat, bataila bat, gladiadoreen arteko borroka bat: ikusiko duzue nola etortzen diren. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zein **ikuskizun** atsegina jendetza fanatikoarentzat! Juan Martin Elexpuru

Federico **ikuskizun** publikoa zen gu bizi ginen kalean. Pello Lizarralde

Antzerki lanez gain, dantza proiektuak, **ikuskizun** multimediak eta bestelako lanak ere izan dira tartean. Berria - Kultura

**Ikuskizun** Berritzaile Onenaren sarian. Berria - Kultura

Argi eta hotsezko **ikuskizun** erabatekoa! Jon Muñoz

· Neu ere momentu hartan aireratzen zen hegazkin baten **ikuskizun** beti harrigarrian galduko nintzatekeen, gizonak besoan ukituz arreta eskatu ez balit. Ramon Saizarbitoria

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Masa-kulturaren ikuspegi kritikoak adierazten digu **ikuskizun**-merkatu erraldoiak abiadura handian mugitzeko gai diren merkantziak bakarrik onartzen dituela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Horrek guztiak ematen dio **ikuskizun** izaera antzezlanari. Berria - Kultura

Espazio plastikoa, **ikuskizun**-espazioa. Josu Zabaleta

**Ikuskizun**-aurkezle batek entzuleei pertsona miragarri bat aurkezten dienean bezala. Irene Aldasoro

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

17.00: "Sarri gure artean" **poesia** ikuskizuna, *Bihotz Bakartien Kluba*-k emanik. Herria

Menpean gauzkaten kultura- **ikuskizun** formetatik ihes egin, dena auzitan jarri, begiradak zabaldu, desirak gizartekotu. Berria - Kultura

Topaguneak askotariko 90 kultur **ikuskizun** eskainiko ditu herririk herri. Berria - Kultura

Turistentzako nazioarteko kabaret **ikuskizun** bat ikusi nuen. Jon Muñoz

Zezen- **ikuskizun** batean. Joan Mari Irigoien

Dantza- **ikuskizun** batekin hasiko gara... Lopez de Arana

Euskal Herri barnekaldeko musika eskolek trikitixa **ikuskizun** bat eskainiko dute azaroaren 13an. Herria

Sexu **ikuskizunak** eskaintzen dituzten areto batean. Patxi Zubizarreta

Kale **ikuskizun** ugari programatu dituzte antolatzaileek, jaialdia kalera ateratzeko asmoz. Berria - Kultura

Ekilibrista naiz [...] gerra aurretik "akrobazia **ikuskizun** saila" egiten genuen. Fernando Rey

## 5 ikuspena.

Bertze **ikuskizun** bat: Donapaleun naiz, Larreak nire eskuan utzi duen papera irakurtzen ari. Aingeru Epaltza

Patriziok laino arteko **ikuskizuna** begien sorginkeriatzat zuen, gezurtzat; Gustavok [...] benetakotzat zuen emakumearen agerpena. Felipe Juaristi

## • 6 *ikuskizun izan* du *ad*

Eta, edonora begiratzen nuelarik, soldaduak nituen **ikuskizun,** soldaduak maniobratan, martxa-lerroan ibiltzen, biraka, lau hankan, itzulinguruka, agur egiten, armak agertzen. Mirentxu Larrañaga

Beata Beatrix **ikuskizun** nuela, bigarren zalantza zera izan nuen. Ramon Saizarbitoria

· Biok geratu ginen une batez isilik, gauak inguraturik, kaleko argitasunaren isla sabaian **ikuskizun**. Ramon Saizarbitoria

## 7 *ikuskizun izan* (da *ad*)/*egon*

Etorkizuna **ikuskizun** denez, erantzukizun handia dik hire egikizunak. Anjel Lertxundi

**Ikuskizun** zen Vlaams Blok alderdia negoziazioetan sartuko ote zuten. Berria - Mundua

Geroak zaitu arranguratzen, **ikuskizun** denak. Xabier Montoia

**Ikuskizun** dago kasu hauen bilakaera, baina orain arte, sintomak nabarmen apaldu zaizkie, eta lobotomiaren ondoko portaera-arazo txikietariko batzuk baizik ez dituzte nabari. Xabier Olarra

**Ikuskizun** dago Westerveldekin uda honetan zer gertatuko den. Berria - Kirola

Talenturik badudan, **ikuskizun** dago oraindik. Josu Zabaleta

Denetariko lanetan jardun ostean unibertsitatean sartzekotan da, lehenik, eta gero, oraindik **ikuskizun** dagoen 1944an, Lan Ministerioan sartzera iritsiko da. Edorta Jimenez

Yann Tiersenen zuzenekoari buruz entzunda genituen iritzi guztiak, onak, *Le fabuleux destin d'Amélie Poulain* filmaren arrakastaren harira eskainitako emanaldietakoak ziren [...] baina bira honetan ekarriko zuen formatua **ikuskizun** zegoen. Berria - Kultura

## 8 *ikuskizuna huts egin*

-Ez dut eiki **ikuskizuna huts egin** nahi. Itxaro Borda

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**baina ikuskizun** (6); **baino ikuskizun** (5); **baten ikuskizun** (3); **beste ikuskizun** (10); **beste ikuskizun bat** (4); **bi ikuskizun** (5); **bost ikuskizun** (4); **da ikuskizun** (10); **dantza ikuskizun** (8); **den ikuskizun** (7); **diren ikuskizun** (3); **dituen ikuskizun** (6); **du ikuskizun** (6); **duen ikuskizun** (5); **dute ikuskizun** (6); **ere ikuskizun** (4); **eta ikuskizun** (48); **eta ikuskizun hura** (3); **ez da ikuskizun** (5); **hainbat ikuskizun** (11); **halako ikuskizun** (5); **halako ikuskizun bat** (3); **haurrentzako ikuskizun** (4); **hiru ikuskizun** (3)

**ikuskizun antolatu** (6); **ikuskizun antolatu dituzte** (3); **ikuskizun aparta** (8); **ikuskizun aparta eskaini** (3); **ikuskizun atsegina** (5); **ikuskizun bakarra** (4); **ikuskizun bat** (38); **ikuskizun bat eskainiko** (3); **ikuskizun bat izan** (3); **ikuskizun batean** (7); **ikuskizun batekin** (4); **ikuskizun baten** (6); **ikuskizun batera** (3); **ikuskizun baterako** (3); **ikuskizun batez** (3); **ikuskizun beldurgarri** (3); **ikuskizun berezia** (7); **ikuskizun berria** (11); **ikuskizun bihurtu** (4); **ikuskizun bihurtzen** (3); **ikuskizun bikaina** (10); **ikuskizun bilakatu** (4); **ikuskizun bilakatzen** (4); **ikuskizun da** (6); **ikuskizun dago** (18); **ikuskizun eder** (3); **ikuskizun ederra** (28); **ikuskizun ederra da** (5); **ikuskizun ederra eman** (3); **ikuskizun ederra izan** (4); **ikuskizun eskainiko** (7); **ikuskizun eskainiko ditu** (3); **ikuskizun eskainiko dituzte** (4); **ikuskizun eta** (15); **ikuskizun gela** (3); **ikuskizun guztiak** (4)

**ikuskizun handia** (11); **ikuskizun handiena** (3); **ikuskizun haren** (8); **ikuskizun haren aurrean** (4); **ikuskizun hari** (5); **ikuskizun hark** (9); **ikuskizun harrigarria** (5); **ikuskizun hartaz** (4); **ikuskizun hau** (10); **ikuskizun honek** (6); **ikuskizun honen** (4); **ikuskizun honetan** (4); **ikuskizun hori** (11); **ikuskizun horiek** (3); **ikuskizun horrek** (8); **ikuskizun horren** (8); **ikuskizun horretan** (3); **ikuskizun hura** (15); **ikuskizun hutsa** (4); **ikuskizun izango** (4); **ikuskizun izango dira** (3); **ikuskizun lazgarri** (3); **ikuskizun lotsagarria** (7); **ikuskizun moduan** (4); **ikuskizun multimedia** (3); **ikuskizun nagusia** (3); **ikuskizun negargarri** (3); **ikuskizun negargarria** (3); **ikuskizun onenaren** (8); **ikuskizun onenaren saria** (4); **ikuskizun oso** (3); **ikuskizun osoa** (4); **ikuskizun paregabea** (7); **ikuskizun paregabea eskaini** (3); **ikuskizun polita** (17); **ikuskizun ugari** (4); **ikuskizun urria** (3); **ikuskizun zoragarria** (3)

**izeneko ikuskizun** (5); **kale ikuskizun** (4); **kirol ikuskizun** (3); **kontzertu eta ikuskizun** (3); **orain ikuskizun** (3); **oso ikuskizun** (8); **oso ikuskizun ederra** (3); **zen eta ikuskizun** (3); **zen ikuskizun** (5); **zenbait ikuskizun** (3); **zituen ikuskizun** (5); **zuen ikuskizun** (7)

**agian ikuskizuna** (3); **antzerki ikuskizuna** (4); **azken ikuskizuna** (6); **baina ikuskizuna** (9); **benetako ikuskizuna** (4); **berebiziko ikuskizuna** (4); **bertso ikuskizuna** (3); **beteriko ikuskizuna** (3); **bidezidorretatik ikuskizuna** (4); **buruzko ikuskizuna** (3); **da ikuskizuna** (16); **dantza ikuskizuna** (14); **den ikuskizuna** (9); **dituen ikuskizuna** (8); **du ikuskizuna** (11); **duen ikuskizuna** (7); **emandako ikuskizuna** (4); **eskutik ikuskizuna** (3); **eta ikuskizuna** (28); **eta ikuskizuna ez** (3); **gabe ikuskizuna** (3); **gogoaren bidezidorretatik ikuskizuna** (4); **handiko ikuskizuna** (5); **heldu eskutik ikuskizuna** (3); **horrelako ikuskizuna** (3)

**ikuskizuna amaitu** (3); **ikuskizuna aurkeztuko** (20); **ikuskizuna aurkeztuko du** (13); **ikuskizuna aurkeztuko dute** (6); **ikuskizuna baino** (3); **ikuskizuna baino ez** (3); **ikuskizuna bera** (4); **ikuskizuna bermatzen** (3); **ikuskizuna da** (22); **ikuskizuna dela** (3); **ikuskizuna ederra** (4); **ikuskizuna egin** (3); **ikuskizuna egingo** (3); **ikuskizuna eman** (19); **ikuskizuna eman zuen** (3); **ikuskizuna eman zuten** (9); **ikuskizuna emanez** (3); **ikuskizuna emango** (9); **ikuskizuna emango du** (4); **ikuskizuna emango dute** (5); **ikuskizuna ematea** (5); **ikuskizuna emateko** (7); **ikuskizuna ematen** (7); **ikuskizuna ere** (5); **ikuskizuna errepikatzeko** (3)

**ikuskizuna eskaini** (5); **ikuskizuna eskaini zuten** (3); **ikuskizuna eskainiko** (20); **ikuskizuna eskainiko du** (10); **ikuskizuna eskainiko dute** (8); **ikuskizuna eskaintzen** (4); **ikuskizuna estreinatuko** (5); **ikuskizuna estreinatuko dute** (3); **ikuskizuna eta** (16); **ikuskizuna ez** (15); **ikuskizuna ez da** (4); **ikuskizuna ez zen** (4); **ikuskizuna galdu** (4); **ikuskizuna galdu nahi** (3); **ikuskizuna hasi** (3); **ikuskizuna ikusi** (3); **ikuskizuna izan** (9); **ikuskizuna izan zen** (6); **ikuskizuna izango** (11); **ikuskizuna izango da** (9); **ikuskizuna murriztu** (3); **ikuskizuna prestatu** (4); **ikuskizuna taularatuko** (6); **ikuskizuna taularatuko du** (4); **ikuskizuna ziurtatuta** (3)

**baina ikuskizunak** (3); **dantza ikuskizunak** (6); **diren ikuskizunak** (4); **duen ikuskizunak** (4); **eta ikuskizunak** (13); **horrelako ikuskizunak** (3); **ikuskizunak aurrera** (3); **ikuskizunak erakarri** (3); **ikuskizunak eskaintzen** (3); **ikuskizunak eta** (7); **ikuskizunak ez** (8); **izan zen ikuskizuna** (3); **izeneko ikuskizuna** (5); **kale ikuskizuna** (3); **kale ikuskizunak** (5); **moduko ikuskizuna** (5); **nolako ikuskizuna** (3); **oinarritutako ikuskizuna** (7); **oinarritutako ikuskizuna da** (3); **primerako ikuskizuna** (4); **primerako ikuskizuna eman** (3); **txikiegia agian ikuskizuna** (3); **uztartzen dituen ikuskizuna** (3); **zen ikuskizuna** (9); **zirku ikuskizuna** (3); **zuen ikuskizuna** (8); **zuen ikuskizunak** (5); **zuten ikuskizuna** (3)

**da ikuskizunaren** (3); **da ikuskizunik** (4); **dira ikuskizunean** (3); **ere ikuskizunaren** (3); **eta ikuskizunaren** (9); **eta ikuskizunari** (3); **eta ikuskizunen** (3); **eta ikuskizunetarako** (3); **ikuskizunaren aurrean** (5); **ikuskizunaren zati** (3); **ikuskizunari begira** (7); **ikuskizunaz gozatu** (5); **ikuskizunaz gozatzeko** (6); **ikuskizunen artean** (5); **ikuskizunen batera** (3); **ikuskizunik eman** (4); **ikuskizunik ez** (5); **munduko ikuskizunik** (3); **zuten ikuskizunaren** (4)

---

# ikuskoikeria *iz*

**Ikuskoikeria** dela holako emankizuna diote hanitzek. Herria

---

# ikuskor *izond* ikusgaia.

*Gasteiz Lurralde* ***Ikuskorra*** izenpean arte bisualekin zerikusia duten ekintza ugari bildu ditu Gasteizko Udalak. Berria - Kultura

Mendebaldeko ekonomi amaraunaren sare **ikuskorretatik** libratzeko. Iñaki Mendiguren

---

# ikuskortu, ikuskor(tu), ikuskortzen da *ad* ikusgai utzi

Soineko zuri bat jantzia zuen, zeinak, goi aldean, alkandora arrosa bat **ikuskortzen** baitzuen eta, behe aldean, ostera, galtzerdi grisaxka batzuk. Patxi Zubizarreta

---

# ikuslari 1 *iz* ikuslea.

Sei **mila** ikuslariez goiti bildu da gehienak angeluarren sustatzeko. Herria

**Ikuslariak** hautematen dituen sorreraren hari ezkutuak [...] sare askagaitz bat egiten dutela, bizitza bakarra bizitzeko sabia bakarrak elikatua, bakarra ugaritasunean. Koldo Izagirre

## 2 ikuskaria.

Proiektuen biltzeko, egitarauen egiteko eta egutegiaren finkatzeko, eta Hezkuntza nazionaleko **ikuslarien** eta Euskaltzaindiaren kalitate bermearekin gauzatzeko. Herria

---

# ikusle 1 *iz* ikuskizun bat ikusten duen pertsona. ik **ikusliar**.

**Ikusleek** jasota aurkituko dute agertokiko oihala, antzokian sartzen direnean. Josu Zabaleta

Jarraitu behar zuen hezleak, baina ikusiz lortua zuela **ikusleen** jakin-minaren efektua, eta jendetza hark lehenbailehen nahi zuela zirku barrura pasatu, oihu egin zuen: [...]. Koro Navarro

Malkoak isuri zaizkio **ikusleren** bati. Imanol Zurutuza

**Ikusleak** banaka eta binaka sarrarazten dituzte, multzoan harro ez daitezen presoa ikusita. Koldo Izagirre

Bertsogintzan **ikusle** eta entzulearen erreakzioak, begiak, txaloak, barreak, isiltasunak... sortzaileentzat lehentasunezko inputak dira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Une hartantxe, **ikusleak** denak batera eserlekuetatik altxatu eta oihuka hasi dira: "Hil ezazu! Martin Anso

Monsieur Guillotinek, horregatik, hiltzeko makina garbia asmatu zuen, **ikusleak** besteen heriotzaz goza zitezen, odol jario gehiegizkorik gabe, jakina baita odolaren ikuspegia zirraragarria dela beti; **ikusleak** zibilizazioarekin bat zetorren ikuskizun errefinatu eta aurreratuaren lekuko izan zitezen. Felipe Juaristi

Partida gustagarria izan da zinez, saldo haundian etorriak ziren **ikusleentzat**. Herria

Motorzaleek **ikusleen** txalo eta animo oihuak jasotzen dituzte. Harkaitz Cano

Hondartza **ikuslez** bete zen. Felipe Juaristi

**Ikusleengana** itzuli zen Tomen aita. Koldo Izagirre

Antzezpenak **ikuslearengan** pizten duen erreakzioari deitu zion katarsi Aristotele filosofoak. Berria - Kultura

Nola eskuratu, ordea, seko drogatuta zeuden **ikusle** odol-egarrituen sinpatia? Karlos Linazasoro

Bilbo Basketen eta Tauren arteko derbiak 12.000 **ikusletik** gora batuko ditu etzi Bizkaia Arenan. Berria - Harian

Arriaga antzokiak 160.019 **ikusle** bildu ditu 2005. urtean. Berria - Kultura

Izpi infragorriak erabili dituzte Erroman, museoetako **ikusleen** arreta zer-nolakoa den jakiteko. Berria - Kultura

Hura zen [...] antzinate osoko antzokirik handiena; muinoan bertan zulatua zegoen, eta 15.000 **ikusle** hartzen zituen, berrogeita hamar bat harmailetan eseriak! Jon Muñoz

**Ikusleen** eserlekuak jartzeko harmailen altuera ez da izango oin bat eta sei hazbete baino txikiagoa. Santiago Iruretagoiena

**2** ikusten duena.

Ni naiz argazkiaren kanpoko **ikuslea**. Telebisiotik ematen dutenean, benetako sagardotegiaren itxura hartuko dio **ikusleak** jatetxeari. Pako Aristi

Ontzi norvegiarra zela esan zuten **ikusle** batzuek. Irene Aldasoro

Beirateaz harata, **ikusle** nituen erredakzioko nire lankide guztiak. Aingeru Epaltza

Lekukorik gabe nahi dituzu zeure zauriak miazkatu, **ikuslerik** gabe, ezagunik gabe etzan eta indarberritu edo betiko etzan. Lourdes Oñederra

Espazioan elkarrengandik urruti ez dauden bi argi-puntu ikusarazten zaizkio **ikusle** bati. Josu Zabaleta

Lumière Zinematografoaren lehenengo **ikusleen** artean. Josu Zabaleta

Irudiak **ikusleari** eragiten dio. Josu Zabaleta

**Ikusleak** irudia eraikitzen du; irudiak, **ikuslea**. Josu Zabaleta

Espazio plastikoaren eta **ikuslearen** espazioaren arteko bereizkuntza argitzeko. Josu Zabaleta

Ez dago gertatutakoa islatuko duen ispilurik, haren lekuan leiho bat dago, eta bertatik irakurleak, entzuleak edo **ikusleak** gertatutakoa zuzenean ikus dezake, bertan balego bezala. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nola sorrarazten du zinemak **ikusle** mota jakin bat? Josu Zabaleta

Argitu beharra zegoen ea hain ahula ote zen oraindik haren ikusmena eta **ikusle**-nortasunaren oinarri guztia. **Ikusle** eredua arras desberdina da, irudiaren irakurketan ala haren produkzioan finkatzen den begirada. Xabier Olarra

Lacanen ikuspegiaren harira [...] **ikusle**-identifikazioaren bi mailako teoria bat landu du Metzek. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bigarren ekitaldiaren erdialdera jo zuen opera **ikuslearen** telefonoak, tenorra unerik gorenetako batean zenean. Imanol Zurutuza

Zinema **ikusleari** argizko estimulu eten bat ematen zaio. Josu Zabaleta

Film-**ikuslearen** egoera distantzia psikiko guztiz berezi baten adibide bikaina da. Josu Zabaleta

Ikusten duen irudia errealitate dokumental batekin erabat berdintzen duen telebista-**ikuslearengan**. Josu Zabaleta

Ondo agerian azaldu zen haiengan zezenketa-**ikuslearen** morala; besteari, gudu-zelaian soldaduari, histrioiari, zirkuko toreroari ausardia eskatzen zion koldarraren morala. Josu Zabaleta

• **5** *izond* ikusten duena.

Subjektu **ikusleak** bere begiradarekin duen "lehen mailako" identifikazioa. Josu Zabaleta

Gizaki **ikusle** dela jadanik […] ikusteko ahalmenez -begiratzera, hain zuzen- ateratzen baita Jenaro Garate

**6** ***ezkutu-ikusle***

Berrogei milaren bat azti, igarle, ezkutu-**ikusle** eta karta-botatzaileren artean. Juan Garzia

Hain da handia, oro har, zientziaren igartze-ahalmenean dugun ustea, ezen azti eta ezkutu-**ikusleek** ez baitute eskrupulurik "zientifiko"tzat saltzeko beren igarpenak, hobeki beitatzeko bezeroak. Juan Garzia

Hain zuzen ere, ezein igarle, azti edo ezkutu-**ikusle** ez da gai izan aurreikusteko, ez Japoniaren ekonomiaren hazkundea, ez Berlingo hesiaren lur-jotzea, [...] eta ez azken urteotako gainerako gertakari garrantzitsuetatik bat bera ere. Juan Garzia

**7** ***tele-ikusle***

Duela hamabost bat urte, berrogei segundoz "plano amerikano" geldo bat jasango zuen tele-**ikuslerik** ez zela esaten ziguten adituek. Andoni Egaña

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina ikusle** (4); **baino ikusle** (8); **baino ikusle gehiago** (6); **bat ikusle** (28); **da ikusle** (11); **dagoen ikusle** (4); **den ikusle** (4); **dituen ikusle** (3); **du ikusle** (4); **duen ikusle** (5); **dute ikusle** (4); **edo ikusle** (3); **ehun ikusle** (5); **ere ikusle** (9); **ere ikusle asko** (3); **eta ikusle** (45); **eta ikusle gehienak** (3); **ez ikusle** (3); **ezkutu ikusle** (3)

**ikusle ainitzen** (3); **ikusle asko** (11); **ikusle askok** (4); **ikusle askoren** (4); **ikusle baino** (8); **ikusle baino gehiago** (6); **ikusle baizik** (3); **ikusle baizik ez** (3); **ikusle bakoitzak** (5); **ikusle bat** (5); **ikusle batek** (17); **ikusle batekin** (3); **ikusle baten** (9); **ikusle bati** (7); **ikusle batzuek** (3); **ikusle batzuk** (7); **ikusle bezala** (3); **ikusle bildu** (22); **ikusle bildu ziren** (11); **ikusle bildu zituen** (3); **ikusle bilduko** (4); **ikusle ditu** (3); **ikusle edo** (3); **ikusle eta** (28); **ikusle eta entzule** (3); **ikusle gehiago** (14); **ikusle gehiago izan** (4); **ikusle gehienak** (6); **ikusle gehienen** (3); **ikusle gisa** (6); **ikusle gutxi** (4); **ikusle gutxiago** (5); **ikusle guziak** (4); **ikusle guzien** (3); **ikusle guztiak** (9); **ikusle guztien** (4); **ikusle guztientzat** (3); **ikusle hurbildu** (4); **ikusle huts** (4); **ikusle hutsa** (3); **ikusle hutsak** (3); **ikusle inguru** (40); **ikusle inguru bildu** (3); **ikusle inguru san** (4); **ikusle izan** (18); **ikusle izan dira** (3); **ikusle izan ziren** (7); **ikusle izan zituen** (4); **ikusle izango** (3); **ikusle jarraikiek** (4); **ikusle joan** (4); **ikusle kopuru** (8); **ikusle kopurua** (27); **ikusle kopuruak** (3); **ikusle kopuruaren** (5); **ikusle marka** (7); **ikusle mota** (3); **ikusle orok** (3); **ikusle saldo** (3); **ikusle san** (3); **ikusle sartzen** (12); **ikusle sartzen dira** (10); **ikusle soil** (3); **ikusle talde** (3); **ikusle ugari** (6)

**mila ikusle** (7); **milioi ikusle** (5); **zein ikusle** (3); **zen ikusle** (6); **zeuden ikusle** (4); **zuen ikusle** (4); **zuten ikusle** (3)

**baina ikuslea** (4); **da ikuslea** (14); **darama ikuslea** (3); **du ikuslea** (13); **dute ikuslea** (8); **eta ikuslea** (13); **ikuslea aktore** (3); **ikuslea bera** (3); **ikuslea bere** (3); **ikuslea da** (3); **ikuslea ere** (5); **ikuslea ez** (12); **ikuslea ez da** (4)

**baina ikusleak** (3); **baiona ikusleak** (4); **baita ikusleak** (3); **behar du ikusleak** (3); **da ikusleak** (3); **dira ikusleak** (3); **diren ikusleak** (4); **ditu ikusleak** (15); **dituzte ikusleak** (3); **du ikusleak** (23); **du topo ikusleak** (4); **eta ikusleak** (40); **hormadi ikusleak** (10); **ikusleak berak** (4); **ikusleak bere** (10); **ikusleak ere** (13); **ikusleak eta** (13); **ikusleak ez** (14); **ikusleak ez du** (5); **ikusleak irudia** (4); **ikusleak irudiarekin** (7); **ikusleak irudiarekin duen** (5); **ikusleak oso** (3); **izango du ikusleak** (3); **topo ikusleak** (4); **ziren ikusleak** (5); **zituen ikusleak** (4); **zuen ikusleak** (4)

**baina ikusleek** (6); **den ikusleari** (4); **den ikusleari** (4); **die ikusleei** (4); **dio ikusleari** (10); **dio ikusleari** (10); **diote ikusleari** (4); **diote ikusleari** (4); **dira ikuslearen** (4); **diren ikusleek** (6); **du ikuslearen** (3); **dute ikusleek** (8); **eta ikuslearen** (20); **eta ikuslearen arteko** (5); **eta ikusleari** (12); **eta ikusleari** (12); **eta ikusleei** (7); **eta ikusleek** (27); **eta ikusleek ere** (3); **eta ikusleek ez** (3); **eta ikusleek txalo** (3); **film ikuslearen** (3); **harrera ikusleari** (3); **harrera ikusleari** (3); **ikuslearen arreta** (11); **ikuslearen arteko** (6); **ikuslearen aurrean** (4); **ikuslearen begiradaren** (3); **ikuslearen denbora** (5); **ikuslearen eginkizuna** (5); **ikuslearen egoera** (3); **ikuslearen espazioaren** (3); **ikuslearen eta** (13); **ikuslearen eta irudiaren** (6); **ikusleari begira** (4); **ikusleari begira** (4); **ikusleei begira** (3); **ikusleek ere** (8); **ikusleek eta** (7); **ikusleek ez** (16); **ikusleek ez dute** (4); **ikusleek ez zuten** (4); **ikusleek txalo** (8); **ikusleek txalo zaparrada** (3); **irudiaren ikuslearen** (3); **zaio ikusleari** (8); **zaio ikusleari** (8); **zuten ikusleek** (13)

**baita ikusleen** (3); **bete zuten ikusleen** (3); **da ikusleen** (5); **eta ikusleekin** (3); **eta ikusleen** (30); **eta ikusleen artean** (4); **eta ikusleen arteko** (4); **ikusleen aitzinean** (4); **ikusleen arreta** (8); **ikusleen artean** (37); **ikusleen arteko** (6); **ikusleen artetik** (4); **ikusleen aurrean** (12); **ikusleen baitan** (5); **ikusleen baitan sorkuntza** (4); **ikusleen eta** (6); **ikusleen gustukoena** (3); **ikusleen harrera** (5); **ikusleen kopurua** (3); **ikusleen saria** (8); **ikusleen txalo** (6); **zen ikusleen** (4); **zen ikusleen artean** (3); **zeuden ikusleen** (3); **ziren ikusleen** (5); **zuela ikusleen** (3); **zuen ikusleen** (3); **zuten ikusleen** (6); **zuten ikusleen aurrean** (3)

**ikusleren aitzinean** (5); **ikusleren aurrean** (7); **ikuslerentzako tokia** (5); **ikuslerik ez** (3); **ikusletik gora** (12); **ikusletik gora izan** (5)

---

# ikuslego *iz* ikusleria, ikusleak.

**Ikuslegoaren** erdia ere ez dago zelaira begira. Harkaitz Cano

Telebistako **ikuslegoaren** arreta. Berria - Mundua

Hasia da beraz TF.1 gatea M6-en ondotik bildu beharrez bere **ikusle** eta entzulegoa. Herria

---

# ikusleria *iz* ikusle multzoa.

Argazkia jostaketaren eta artearen erdibidean dagoen eta bere **ikusleria** berezia duen jarduera sozial bat bezala aztertzen da. Josu Zabaleta

Udaltzainak ezkutatu egin dira, ez dute emazte biluzi bat atxilotu nahi, halakorik, kuku eginen lieke oihu **ikusleriak**. Koldo Izagirre

Beldurra zabaldu da agertokitik eserlekuetara, ezusteko itzela jaso du **ikusleriak**. Berria - Kultura

Ofiziozko eta afiziozko antzerkilarien topagunea, adin ezberdinetako **ikusleriaren** topagunea, hainbat eskualde eta estilotako artisten topagunea... Berria - Kultura

---

# ikusletegi *iz* ikusleria, ikusleak.

Zelai inguruko **ikusletegia** hustu behar ukan dute orduan tarrapataka eta ez da deus gertatu. Herria

---

# ikusliar 1 *iz* ikuslea.

Hemendik bultza, handik ukondoz kaska, **ikusliarren** lehen lerroan jartzea lortu zuen. Elena Touyarou

Ez ditut sekula ahaztuko Indiako zinemak, kokorreraino jende behartsuz, erdi larrugorri doazen **ikusliarrez** beteak. Gotzon Garate

Beraz, nahikoa eszeptiko nago balioen komedia honetan guztian **ikusliar**. Joxe Azurmendi

Mauleko Marius Rodrigo kirol zelaiko 4.000 lekutako harmaila eta jarlekuetara hurbilduko diren **ikusliarrek**. Berria - Kultura

Arrakasta handia lortu zuen **ikusliarren** artean San Frantses ikastetxeko haurrek Maulen emandako 'Jesüs' pastoralak. Berria - Kultura

## 2 ikustaldi bat egiten duena. ik **bisitari**.

**Ikusliarrak** etxera datozenean, senarrari iruditzen bazaio emazteak bere lagunei zerbizatzea komeni dela, etxekanderea ongietorri-egilea bihurtu eta hantxe arituko da lanean. Gotzon Garate

Gure neskamea alde batetik legebidetsua da eta nik galdetu ezik, **ikusliarra** nor den ez dit esaten. Gotzon Garate

Gernikako herriak estreinatu berri du Bakearen Museoa eta, paradaz balia, begiratu ditut **ikusliarrentzat** lau hizkuntzatan argitaratu dituzten pertsona, alderdi edo elkarte ezagun batzuen oharrak euskal gatazkari buruz. Piarres Xarriton

Patioa eta inguru guztiak ttipitzeraino metatzen ziren orduan **ikusliarrak** gazteluan. Aingeru Epaltza

Joanden urtean 6000 **ikusliar** pasatu ziren, aurten 7000 goaitatuak dira. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ikusliarrak ere** (3)

---

# ikusmen 1 *iz* ikusteko ahalmena.

**Ikusmenaz,** entzumenaz, dastamenaz eta usaimenaz arduratzen diren sentipen-organoak andeaturik egongo dira ziur asko egungo gizakietan, orain ez baitira lehenengo garaietan bezain baliotsuak bizirik irauteko. Irene Aldasoro

Itsutasuna begien akatsa dela diogunean, begiek **ikusmena** berezkoa dutela aitortzen dugu. Imanol Unzurrunzaga

**Ikusmen** ona eta entzumen ona beharrezkoak izatera iritsi baino askoz lehenago, gure antzinako arbasoek [...] usaimena garatu zuten janaria bilatzeko eta harrapariei ihes egiteko. Irene Aldasoro

Badakigu koloreak ezin direla entzumenez sumatu, ez eta soinuak **ikusmenez**. Imanol Unzurrunzaga

Bere **ikusmen** luzeko begiekin agian ikus zezakeen hosto antzeko forma urritu hura. Anton Garikano

Miopia eta guzti, ez zen hagitz **ikusmen** zorrotzik behar pistola ezagutzeko Ximurraren eskuan. Aingeru Epaltza

**Ikusmen** normaleko pertsona batentzat. Xabier Olarra

Andreak erdizka itxi zituen begiak bere **ikusmena** zorrozteko ahaleginean. Aitor Arana

Nork ez du nahiago ondasunak galdu **ikusmena** baino? Imanol Unzurrunzaga

Itsuek **ikusmena** berreskuratzen dute, gorrek entzumena, mutuek hitza. Askoren artean

Itsuei **ikusmena** itzuli, konkordunak zuzendu, eta beste gauza harrigarri asko. Juan Kruz Igerabide

Bat-batean, **ikusmena** etorri zitzaion berriro. Elizen arteko biblia

Lausoak hartu zion **ikusmena**. Jon Muñoz

**Ikusmena** erabat galdua zuen. Askoren artean

Ehun eta hogei urte zituen Moisesek hil zenean; ez zitzaion **ikusmena** ahuldu, ez zioten indarrek huts egin. Elizen arteko biblia

**Ikusmena** moteltzen ari zitzaiola eta, kexatzen hasi zen. Xabier Olarra

-Barkadazu, ene gazte, **ikusmena** ahuldua dut. Patxi Zubizarreta

Odola bildu egin zitzaion, **ikusmena** lausotu. Patxi Zubizarreta

Ingurura begiratu zuen, baina **ikusmena** nahasten zion hainbeste ardo-kopa gorri eta berderen distirak. Irene Aldasoro

Haren silueta lausoa besterik ikusten ez bazuen ere, oroimenak eta irudimenak osatu egiten zuten haren **ikusmen** akitua. Patxi Zubizarreta

Nahiz eta **ikusmena** gero eta nekatuago duen. Jon Alonso

Ez zen **ikusmenik** izan begiak jaio aurretik, ez hitz egiterik, mihia sortu aurretik. Xabier Amuriza

**Ikusmena** aztertzen zidaten bitartean, konturatu nintzen ez nintzela gauza letrak edo koloreak bereizteko. Xabier Olarra

Zernahi zela ere gertatutakoa, berriro gertatuko zitzaiola, eta erabat galaraziko ziola **ikusmena**. Xabier Olarra

Nire begiak, ordea, ez dira orain 13 urtekoak, eta ez naiz **ikusmenaz** ari, ikuskeraz baizik. Joxerra Garzia

**Ikusmenaren** kulturak -batez ere zinemaren narratzeko erak- erabat kutsaturik du narratiba. Iñigo Aranbarri

Koadroak **ikusmenerako** nabarmena behar du izan, ikuslea "erakarri, gelditu, atxiki" egin behar du. Josu Zabaleta

Beren inguruaz arduratu eta beren **ikusmeneko** eremuan zegoen edozer kuxkuxeatu eta zirikatu beharrean, geldo eta zozoturik zeuden. Xabier Olarra

## 2 (hitz elkartuetan)

**Ikusmen**-zorroztasuna neurtzeko. Josu Zabaleta

Gauza jakina da nikotinak **ikusmen**-lausotzea ekar dezakeela.. Xabier Olarra

· Lehen puntua izango da irudipen-**ikusmenaz** sute handiak ikustea. Patxi Altuna

## 3 (leku deklinabide atzizkiez)

Ke arteak argitu eta gero, elkarri begiratu genion berriro, tren-geltokia gure **ikusmenetik** kanpo zegoen jada. Mirentxu Larrañaga

Vilma hil eta gure arteko haustura gertatu zenean, Lajos desagertu egin zen gure familiaren **ikusmenetik**. Ander Irizar

Baina behin ere geratu gabe hurrengo izkinara iritsi eta taxia **ikusmenetik** galdu zen arte. Oskar Arana

Ez da zerua **ikusmenean** dudana, lurra baizik. Mirentxu Larrañaga

Atsegin dut ur gardenetan biluzik bainatzea, baina betiere itsas hondoa **ikusmenean**. Migel Angel Mintegi

Baina noizbait ikusi zuen hiria aspaldi ezkutatu zela begien bistatik eta **ikusmenean** ez zegoela aroztegirik, ez errotarik, ez hirien inguruan egon ohi diren gauzen aztarnarik. Jose Morales

Turin inguruko mendiak, egun argietan **ikusmenean,** eta bizikletaz irispidean, gureak ziren, ordezkaezinak. Juan Garzia

Eta ene garaian nomo honetan izugarrizko bat gertatu zen: akerra emakume batekin lotu zen, eta hau jendearen **ikusmenera** iritsi zen. Patziku Perurena

Hamaika eguneko itsasaldiaren ondoren iritsi gara uhartearen **ikusmenera**. Juan Garzia

**4** (testuinguru teknikoagoetan)

**Ikusmena** berreskuratua dutenei, nerbio-sistemaren funtzionamendua errotik aldatzea eskatzen die ikusten ikasteak. Xabier Olarra

Zirkuitu itxiko telebista-sistema baten antzekoa da **ikusmena**. Irene Aldasoro

**Ikusmenaren** baliabideetako bat dira begiak. Josu Zabaleta

**Ikusmena** prozesu bat da hain zuzen ere, eta hainbat organo espezializatuz baliatzen da. Josu Zabaleta

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Begia eta **ikusmen**-sistema. Josu Zabaleta

"Erretinako irudia" **ikusmen**-sistemak argia tratatzeko duen prozesuaren aldi bat baizik ez da. Josu Zabaleta

Eskualde urdin-berdean, begia sentikorren den lekuan, gutxi gorabehera 50 eta 150 arteko kuantuko **ikusmen**-seinale batek ikuste-sentipen bat sortuko luke, gehienetan, begiaren kanpoaldea (kornea, alegia) ukitzean. Irene Aldasoro

Kristalinotik zehar igarotako argiaren seinaleak erabiltzen ditu begiaren esposimetroak, garuneko **ikusmen**-konputagailuak eta erretinak kontrolaturik. Irene Aldasoro

Bulkada elektriko bat **ikusmen**-nerbioaren zuntz batean. Irene Aldasoro

Ferra-karramarroaren **ikusmen**-zelula bakoitza bere nerbio-zuntzari konektaturik baitago beti. Irene Aldasoro

Makiletan -gau- **ikusmenerako** erretinak dituen zelula sentikorretan, alegia- 5-15 kuantu argi xurgatzeari dagokiola **ikusmen**-atalasea. Irene Aldasoro

Erretinatik garuneko **ikusmen**-alde primariora igortzen ziren "zentzumen-datu" edo "inpresio"ekin parekatzen zen **ikusmen**-pertzepzioa. Xabier Olarra

**Ikusmen**-eremuaren ezkerreko aldean. Irene Aldasoro

Ikustea, berez, espero duguna eta gure **ikusmen**-aparatuak jasotzen duen mezua konparatzea baino ez dela izan da, hain zuzen ere, Gombrichen lehen ekarpena. Josu Zabaleta

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Begiaren behaketa-eremu onenean dagoen kono-**ikusmenak** xehetasun handia ematen du, kono bakoitza zuntz bakar baten bidez konektatzen baita gehienetan **ikusmen**-nerbiora. Irene Aldasoro

Kolore-**ikusmenaren** bat-bateko eta erabateko eten baten historia. Xabier Olarra

**7** ikustea.

Gainera, ateen **ikusmena** ere galarazi egiten dute koloma ugari horiek, eta estatuak ikusteko ere traba egiten dute. Santiago Iruretagoiena

**Ikusmena** eskasa zen, iluntzea zen eta. Elena Touyarou

**Ikusmena** iristen zitzaidaneraino ez zen hiririk ageri. Mirentxu Larrañaga

**8**

Bide nagusia **ikusmen** genuela, Volvoak, argi keinukaria piztu gabe, bira egin zuen, bat-batean, bigarren mailako errepide batera. Aingeru Epaltza

**9** ***ikusmenezko***

Ikustea, **ikusmenezko** atzematea, **ikusmenezko** pertzepzioa oso jarduera konplexua da, eta ezin da, egia esateko, funtzio psikiko nagusietatik, ulermenetik, ezagutzatik, oroimenetik, desiratik erabat bereizi. Josu Zabaleta

**Ikusmenezko** pertzepzioaren azterketa. Josu Zabaleta

**Ikusmenezko** oroimen miragarria zuen, eta bazirudien aski zituela segundo batzuk, eraikin edo hiri-ikuspegirik konplexuenak bereganatu, eta xehetasunik ñimiñoenak gogoan edukitzeko. Xabier Olarra

**Ikusmenezko** informazioa esaten denean, bada, gure ikusmen-sistema begietara iristen zaizkigun argi-fenomenoetan zenbait erregulartasun atzeman eta interpretatzeko gauza dela esan nahi da, izatez. Josu Zabaleta

**Ikusmenezko** irudi guztiek, beren izaera, forma, zertarakoa, produzitzeko modua nolakoa den axola ez diola, denek berdin dutenaz nahi da hitz egin. Josu Zabaleta

**Ikusmenezko** haluzinazioak. Xabier Olarra

Espazioa gure **ikusmenezko** eta ukimenezko sentsazioei, biei, dagokielako batera. Josu Zabaleta

Goi-goiko maila ematen zuela haur-haurretatik test espazial eta **ikusmenezkoetan**. Xabier Olarra

Hartu dugu "analogia-mailak" esapidea, adierazi nahiz irudiak analogia baduela, baina, horretaz gainera, analogiak, gehienetan analogiazkorik deus ere ez duen eta **ikusmenezkorik** ere deus ez duen zerbait (publizitate mezua, erlijiozkoa, narraziozkoa, eta abar) bideratzeko balio duela. Josu Zabaleta

**10** ***ikusmen gune*** (*orobat* ***ikusmengune***)

Iradoki zuen existitu behar zirela **ikusmen**-gune bereizi batzuk, ikusmen-kortex primarioan, "argi-inpresio", "kolore-inpresio" eta "forma-inpresio"entzat, nahiz eta berak ez izan horren froga anatomikorik. Xabier Olarra

Aldi berean garun-azal azpiko **ikusmenguneak** ukitu gabe baldin badaude. Xabier Olarra

**11** ***ikusmen kortex***

I. jaunaren **ikusmen**-kortex primarioa funtsean ukitu gabe zegoen, eta kortex sekundarioa zen (V4 aldeak zehazki, edo haiekiko konexioak) lesioaren ia zama guztia jasan zuena. Xabier Olarra

Tximino anestesiatuei **ikusmen**-kortexean mikroelektrodoak sartu, eta estimulu koloretakoak ematean sortzen ziren potentzial neuronalak neurtzen zituen. Xabier Olarra

Ikusi zen **ikusmen-kortexaren** eremu txiki batean zuela lesioa (mako fusiforme eta mihi formakoetan). Xabier Olarra

Duela mende erdi bat jakin zen argi zurizko puntu bat erregistratzen duela begiak **ikusmen-kortexaren** gaina elektrikoki estimulatzen denean. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere ikusmen** (4); **da ikusmen** (4); **edo ikusmen** (3); **eta ikusmen** (9); **garuneko ikusmen** (8); **gure ikusmen** (10); **gure ikusmen sistema** (3); **gure ikusmen sistemak** (3); **haren ikusmen** (3); **ikusmen arazoak** (10); **ikusmen eremu** (6); **ikusmen eremua** (3); **ikusmen eremuaren** (9); **ikusmen eta** (5); **ikusmen kortex** (3); **ikusmen kortexaren** (3); **ikusmen normaleko** (4); **ikusmen ona** (5); **ikusmen sistema** (8); **ikusmen sistemak** (18); **ikusmen sistemak ez** (3); **ikusmen sistemaren** (4); **ikusmen zorrotza** (3); **ikusmen zorroztasuna** (5); **zen ikusmen** (3)

**baina ikusmena** (4); **baitzuen ikusmena** (3); **batean ikusmena** (3); **batek ikusmena** (3); **da ikusmena** (5); **du ikusmena** (3); **entzumena eta ikusmena** (4); **eta ikusmena** (14); **ikusmena baino** (4); **ikusmena bera** (3); **ikusmena berreskuratu** (13); **ikusmena berreskuratu zuen** (5); **ikusmena eman** (3); **ikusmena erabat** (4); **ikusmena ere** (3); **ikusmena eta** (12); **ikusmena eta entzumena** (4); **ikusmena etorri** (3); **ikusmena ez** (5); **ikusmena galdu** (7); **ikusmena galtzea** (3); **ikusmena galtzeak** (3); **ikusmena galtzen** (3); **ikusmena iluntzen** (3); **ikusmena itzuli** (3); **ikusmena lausotu** (3); **ikusmena lausotzen** (4); **ikusmena mugatua** (3); **itsuei ikusmena** (3); **kolorearen ikusmena** (4); **virgilek ikusmena** (3); **virgilen ikusmena** (3); **zitzaion ikusmena** (5); **zuen ikusmena** (12)

**begiaren ikusmenaz** (3); **eta ikusmenaren** (5); **ikusmenaren ahalmena** (3); **ikusmenaren bidez** (3); **ikusmenaren eta** (5)

**da ikusmenezko** (3); **du ikusmenezko** (4); **eta ikusmenezko** (11); **ikusmenezko bi** (3); **ikusmenezko bilaketa** (3); **ikusmenezko ertz** (3); **ikusmenezko ertzak** (5); **ikusmenezko eszena** (3); **ikusmenezko eta** (5); **ikusmenezko irudi** (4); **ikusmenezko mundua** (9); **ikusmenezko munduarekin** (3); **ikusmenezko munduaren** (7); **ikusmenezko pertzepzioa** (9); **ikusmenezko pertzepzioaren** (10); **ikusmenezko pertzepzioari** (4); **ikusmenezko piramide** (3); **ikusmenezko piramidea** (3); **ikusmenezko piramidearen** (5); **ikusmenezko sistemaren** (3); **ikusmenezko ukimenaren** (3); **ikusmenezkoak ez** (3)

---

## **ikusmendun** *izond* ikusmena duena.

Gizon horiei ez ote zizkieten begi **ikusmendunak** erauziko, urretxindorrei garai batean, eta agian gaur ere, erauzten zizkieten bezala, Jon Alonso

---

## **ikusmenezkotasun** *iz* ikusmenezkoa denaren nolakotasuna.

Ukimenezkotasunaren eta **ikusmenezkotasunaren** paradigma horretan aise ikusten da lehen ere aipatu dugun Hildebranden intuizioa. Josu Zabaleta

---

# ikusmin *(orobat **ikus min** g.er)* **1** *iz*

Armak aldean eramatera ohitu nintzen, hainbateko **ikusmina** pizten baitzieten, pistolak bereziki. Aingeru Epaltza

Eibarren eta Real Madrilen arteko partidak **ikusmin** itzela piztu zuen. Berria - Kirola

**Ikusmin** handia piztu duten pelikula ugari ikusi ahalko dira. Berria - Kultura

**Ikusmin** handia sortu zuen partidak, eta Labrit pilotalekua ia oso-osorik bete zen. Berria - Kirola

Gizon bitxi hura ezagutzeko **ikusmina** sortu zitzaion. Patxi Zubizarreta

**Ikusmina** handia da. Berria - Euskal Herria

Bere itxura apainak eta bere jokaera prestuak arrazoizko **ikusmina** eragiten zutela. Anton Garikano

Festa hark sortu zuen, bai, jakinminik eta **ikusminik** aski...! Joan Mari Irigoien

Azkenean, **ikusmina** aserik, gezur-eztul batzuk egin zituen. Migel Angel Mintegi

Bere urduritasuna **ikusmin** bihurturik sentitu zuen. Anton Garikano

Hala ere, Zaitaren gisako izaki batek beti topatzen du zulo bat bere gelaren eta labearen arteko horman, hartara bere **ikusmina** eta amets ankerrak asetzearren. Patxi Zubizarreta

Zinez miresgarritzat jo zuen halako kontuekiko **ikusmin** sano hura sentitu ahal izatea berriro ere. Mirentxu Larrañaga

Zaragozak etxean hartzen zuen Athletic taldea eta **ikusmin** handia zegoen kafetegian. Joxemari Iturralde

Itsasondon bozketek izandako bilakaera begiratzen ibili naiz, **ikusmin** hutsez. Xabier Mendiguren Elizegi

Jakin-minak **ikusmina** eta honek maitemina ekarri baldin bazuten, maitasunak berriro eraman ninduen jakin-min are irrikatsuago batera. Xabier Mendiguren Elizegi

Une hartan ere opera-kantaria nuen **ikusmin** nagusi. Anjel Lertxundi

Ezker aldeko miradore bikunean, inor ez begira; ezta Xotera anderea ere, hainbestetan hantxe, kuxkuxero, **ikus**-min. Txillardegi

## **2** (hitz elkartuetan)

Aterki beltzari tente-tente heldurik eta **ikusmin** ukitu batekin mugituz. Anton Garikano

## • **3** *izond*

Jende **ikusmina** erruz bildu zen exekuzioa bertatik bertara ikusteko Patxi Zubizarreta

## **4** ***ikusminez***

Haurrek so egiten diote inguruan bildurik, **ikusminez** jarraitzen diete emakumearen esku latzen mugimenduei mailua jasotzen duen bakoitzean. Jose Morales

Budur **ikusminez** inguratu zen zamaketa lanak ikustera. Patxi Zubizarreta

**Ikusminez,** isilean inguratu nintzen pila gero eta haziagoen aldera. Eduardo Matauko

Eszenatokiaren kanpoaldera gerturatzen hasi nintzen, **ikusminez,** senak halakorik ez egiteko agintzen bazidan ere. **Ikusminez** beterik, Fatima berarengana eraman zezatela agindu zuen. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **artean ikusmin** (4); **baino ikusmin** (6); **baino ikusmin handiagoa** (5); **da ikusmin** (3); **du ikusmin** (3); **eta ikusmin** (14); **eta ikusmin handia** (9); **ikusmin gehien** (7); **ikusmin gehien sortu** (3); **ikusmin gehien sortzen** (3); **ikusmin handia** (108); **ikusmin handia dago** (10); **ikusmin handia piztu** (26); **ikusmin handia sortu** (45); **ikusmin handia zegoen** (9); **ikusmin handiagoa** (9); **ikusmin handiarekin** (5); **ikusmin handiena** (10); **ikusmin handiena sortu** (3); **ikusmin handiz** (6); **ikusmin itzela** (4); **partidak ikusmin** (7); **partidak ikusmin handia** (6)
>
> **du ikusmina** (3); **duen ikusmina** (10); **eta ikusmina** (9); **halako ikusmina** (3); **ikusmina dela** (3); **ikusmina dela eta** (3); **ikusmina eta** (6); **ikusmina handia** (7); **ikusmina handia da** (3); **ikusmina handia zen** (3); **ikusmina izugarria** (4); **ikusmina izugarria zen** (3); **ikusmina pizten** (3); **ikusmina piztu** (14); **ikusmina piztu du** (10); **ikusmina piztu zuen** (3); **ikusmina sortu** (21); **ikusmina sortu du** (6); **ikusmina sortu zuen** (11); **ikusmina sortuko** (3); **ikusmina sortzen** (5); **jendearen ikusmina** (3); **lehiak ikusmina** (3); **sekulako ikusmina** (5); **sortu duen ikusmina** (4); **sortu zuen ikusmina** (5); **sortutako ikusmina** (3); **zuen ikusmina** (6)
>
> **du ikusminik** (3); **eta ikusminez** (5); **hainbesteko ikusminik** (3); **ikusminez begiratzen** (3); **ikusminez beterik** (5); **ikusminez eta** (3); **ikusminik handiena** (3); **ikusminik sortu** (3)

---

# ikusmira **1** *iz* ikusmiratzea.

Besteren miseriaren **ikusmirak** sortzen duen sentsazio atsegina. Xabier Olarra

Soineko dotoreen eta altzari garestien **ikusmirak** diru-gosea pizten zion. Patxi Zubizarreta

Azazkal mutur gris-zuri luzeak irteten zitzaizkion, nabarmen, hatz-puntez haraindira, eta haien **ikusmirak** deseroso sentiarazten zuen senarra. Mirentxu Larrañaga

## **2** (leku deklinabide atzizkiekin)

Bazen zertan pentsatu, baziren funts handiagoko gaiak **ikusmiran**. Bernardo Atxaga

Biharamunean, Migel Mailuk berak [...] eskolta eman zion erregeri Luzaideko dorrea **ikusmiran** izan zezan. Aingeru Epaltza

Terrorismoaren **ikusmiran** egoteak dirua ere beldurtzen du. Berria - Ekonomia

Orain bere titi parea dauka **ikusmiran,** baina ezin bertan hondoratu, eskumuturretatik tinko heldurik baitauka, irribarre bat anbarezko adatsek mugaturiko aurpegian. Eider Rodriguez

Gibela emanda mendi urrunei, gazteluzainak **ikusmiran** hartu du bere ardurapeko eskualdea. Aingeru Epaltza

Fruitu-arbolen baratzearen hondoan ezkutatu baikinen, etxaldeko **ikusmiratik** at eta Amama Otsoren begirada zelataritik urrun. Mirentxu Larrañaga

Erdigune horretatik, **ikusmiran** zituen salerosketen, langileen, garraiolarien eta bezeroen atzera-aurrerak. Patxi Zubizarreta

Bazirudien zoratu egin zela, mundua **ikusmiratik** galdua zuela. Patxi Zubizarreta

Haien atzealdean, hilobiak eremu zabalean sakabanatzen ziren, **ikusmiratik** aienatzeraino. Patxi Zubizarreta

Aparteko txoko batean, besteen **ikusmiratik** urrun, jesartzera gonbidatu zuen. Josu Landa

## **3** ikuspegia.

Muinoa jaisten hasi berria da, eta orain ez dago **ikusmira** eragozten dion zuhaitzik. Pello Lizarralde

Batere trabarik ez **ikusmira** guztian, lautada zuri berdinduan! Karlos Zabala

Liz ez dago paisaian edo **ikusmira** zabaletan interesatua. Bernardo Atxaga

Barrio latza da Petare, eta haurtzaindegi gainetik dagoen **ikusmira,** ikaragarria: milaka eta milaka ranchito edo txabola ziztrin, pendizetan zintzilik, sasiaren, lokatzaren eta harrien artean. Pako Aristi

Barandaren ondo-ondoko mahaietatik halako **ikusmira** zabal bat dago beheko pistarantza. Pako Aristi

**Ikusmira** huraxe, esan zuen, bertan gelditu eta begiak uherturik, maite zuen bere senarrak. Anton Garikano

Begiei **ikusmira** ederrak eskaintzea. Patxi Zubizarreta

Eta bai ederra geltokiko **ikusmira:** eliza, etxe ttipi lerrokatuak (ia portu bateko etxeak irudi), hotelak, eliza... Patxi Zubizarreta

Urjauzien **ikusmira** zoragarria izan da, zoragarria eta zirraragarria. Patxi Zubizarreta

Hura gelditu egin ohi zen zuhaitz bati begiratzeko, edo lakuaren gaineko **ikusmirari**. Anton Garikano

**-Ikusmira** ederra benetan, Inazio! Pako Aristi

· "Hori, Tximu, gauzen **ikusmira** motza edukitzea duk", Manuk. Pako Aristi

**4** ikuspuntua.

Denen iritziak eta **ikusmirak** begiratzea. Aingeru Epaltza

Alabaina, zaletasunak ez ezik **ikusmirak** ere mudatzen hasi zitzaizkion alabari. Aingeru Epaltza

Ohar bedi **ikusmira** honetatik teoria orokorra eta gramatika bereziak ez daudela betiko finkaturik. Itziar Laka

**5** ikusnahia.

Heriotza guztiek ez digute **ikusmira** berdina sorrarazten, denek ez gaituzte berdin lasaitzen. Joxerra Garzia

Kontzertuak **ikusmira** handia sortu du, eta duela zenbait egun bukatu ziren sarrerak. Berria - Kultura

Desafio Torneoko finalaren bezperetan hirukoteen arteko lehiak **ikusmira** handia sortu zuen; **ikusmira** eta mesfidantza. Berria - Kirola

Berriro Pradora joan eta dena da berriro haluzinazio bat bezalakoxea: haiek bai neska ederrak, inon ederrik bada, gizonak ere oso eder, gizon-emakume zoragarriak benetan, beltzen eta espainiarren arteko gurutzaketa, ikusmiraren **ikusmiraz** aspertu ere ez ni. Joxe Austin Arrieta

**6** (izenondo gisa)

Joritasun **ikusmira** hark isilik eduki gintuen denboratxo batean. Jon Maia

**7** ***ikusmiran*** ikusmiratzen.

Rubenekin gustura ibili naiz anasazi indiarren erruinetan **ikusmiran**. Patxi Zubizarreta

Ohe gainean etzanda, **ikusmiran** egon zen une batez. Unai Iturriaga

Lagun biboteskaduna ere agertu zen halako batean eta, hantxe, **ikusmiran** eta irribarretsu gelditu, eskuak patriketan. Joxe Austin Arrieta

Berak, belauniko, **ikusmiran** jarraitu zuen. Joxe Austin Arrieta

Oilo-ipurdia jarri zitzaidan gure laguna hilik ikusi nueneko aulki birakorraren **ikusmiran**. Aingeru Epaltza

Zeren astelehenetan, bostak arte itxi denda, eta joan-etorri bat egiten baitzuen Auzo Latindarreko liburu-dendetara, liburu argitaratu berrien **ikusmiran**. Jon Muñoz

**8** ***ikusmiraz*** ikusnahiz.

Jaunak zigortu egin zituen Bet-Xemexekoak ere, Jaunaren kutxari **ikusmiraz** begira egon zirelako Elizen arteko biblia

**9** ***ikusmira egin***

Anak azkenetarik egiten zuen, neure putzuaren barnean **ikusmira** egitera utziko nien jendeetan. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beste ikusmira** (3); **ikusmira ederra** (4); **ikusmira eta** (3); **ikusmira handia** (6); **ikusmira handia sortu** (4); **ikusmiran egon** (5); **ikusmiran egon naiz** (3); **ikusmiraren eraginez** (3)

---

# ikusmiraka *adlag* ikusmiratzen.

Planifikaziorik gabeko hautaketa arbitrario samarra egiten dudala, liburu-dendan **ikusmiraka** ibili eta gero hau edo beste hartuaz Xabier Mendiguren Elizegi

---

# ikusmirante *iz adkor* ikusmiran ari den pertsona.

Hartu-emanezko gerra honetan, beraz, ze perbertsio klase da gurea?; **ikusmirante** hutsak al gara?; begiekin jotzen al dugu?; emetzeko beldurrak al garamatza geure atseginari -debaldeko atsegin-hartzeari- uko egitera? Iñaki Segurola

---

# ikusmiratsu *iz*

Hogan barruan indio zahar bat zegoen eta sujetu **ikusmiratsuak** galdetu zion: [...]. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# ikusmiratu, ikusmira, ikusmiratzen du *ad* miratu, aztertu.

-Bilduma zaharrak **ikusmiratzeko** apeta izaten diat noizean behinka. Aingeru Epaltza

Ibrahim Farat heldu zen, bere segizioak inguratua, tokia **ikusmiratzeko** asmotan. Patxi Zubizarreta

Kalea arretaz **ikusmiratu** arren, ez zuen inon topatu, ez atzean, ez aurrean, ez eskuinean, ez ezkerrean. Patxi Zubizarreta

Eskaleak lerrokaturik zeuden eta Zaitak bere begi beldurgarriekin **ikusmiratu** zituen. Patxi Zubizarreta

Begi arranpaloekin **ikusmiratu** zuen, arretatsu, lanpararen argi ilaunarekin. Patxi Zubizarreta

Manhattango etxeorratzen zerulerro guztia **ikusmira** daiteke. hantxe alderik alde esekitako zapiak eta banderak **ikusmiratzen**. Harkaitz Cano

Gainera, eta hori da interesanteena, malekoitik pasieran dabiltzanak **ikusmiratzeko** aukera ematen du kuxkuxero itxurarik egin gabe. Xabier Etxabe

Bartzelonan egun batzuk eman zituzten, hiria **ikusmiratzen**. Felipe Juaristi

Barran jarri dira, bazterrak **ikusmiratzen**. Jokin Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arretaz ikusmiratu** (3); **ikusmiratu zituen** (6); **ikusmiratu zuen** (6)

---

# ikusmiratzaile *izond* ikusmiran ari dena.

Begiluze **ikusmiratzaile** moduan nengoen han. Mirentxu Larrañaga

---

# ikusmiratze *iz* miratzea, aztertzea.

**Ikusmiratze** hartara bildu zuen gogo guztia, emakume batek beste emakume bati nahierara eta inor ohartu gabe so egiteko aukera duenean bezala Karlos Zabala

---

# ikusmirazale *iz* ikusmiraren zale den pertsona.

Gizon heldu, lasai eta **ikusmirazale** bat. Pablo Sastre

Eta irakurketa ozena edota dastaketa isila eskatzen duten testuak dauden bezala, zeruak ere baditu, **ikusmirazalearentzat,** bere baldintzak: ederreste isila besterik ez du onartzen, begirada bakartiaren irakurketa biluzia. Pako Aristi

---

**ikusmodu** *iz* ikusmoldea.

Letrak kontsideratzeko **ikusmodu** estalinista apezkoi hori izan da, euskal letretan gailendu den bakarra. Patziku Perurena

---

## **ikusmolde** *(orobat **ikus-molde** g.er.)* **1** *iz* ikusteko moldea.

Ene **ikusmoldean,** ni nintzen errukarria eta nire laguna dohatsua. Aingeru Epaltza

Mahai gainean ezarri ditu bere oroitzapenak, dokumentuak, **ikus**-moldeak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ikuslearen **ikusmolde** honek, ororen gainetik, irudiaren kide aktibo gisa hartzen du ikuslea. Josu Zabaleta

Oso bestelako mundu batekoak, oso bestelako **ikusmolde** batekoak. Juan Luis Zabala

Frango **ikusmolde** desberdinak dituzte. Herria

Bainan hautatze hori da preseski zaila, ainitz **ikusmolde** desberdin agertzen-eta. Herria

Abertzaleen artean ere baziren **ikusmolde** aski desberdinak. Herria

Batak nahiz bertzeak **ikusmolde** makurra zuten elizaz. Aingeru Epaltza

Oso **ikusmolde** zorrotzak baititu heziketaz. Antton Olano

Ezagutzaren **ikusmolde** tradizionala. Askoren artean

Bertsio horri ezagutzaren **ikusmolde** hertsia esan izan zaio. Askoren artean

Benetako ikuspegi antropozentrikoaren ordez **ikusmolde** mekanizista itxura berritua azaldu ohi da mamian. Iñaki Heras

Luze samar mintzatu zen bere eritasunaz zuen **ikusmoldearen** gainean. Koro Navarro

**Ikusmolde** hori iraultzera dator lantxo hau. Iñaki Arranz

Badut nire iritzia, nire **ikusmoldea** eta nire printzipioak. Josu Zabaleta

Horrek fruiturik ekartzen ez badu, neure iritzia eta neure **ikusmoldea** mantenduko ditut nolanahi dela ere. Josu Zabaleta

Hizkuntza sistema kognitibotzat hartzen duen teoriarekin guztiz bat datorren lehen gramatika-liburua da, hala **ikusmoldean** nola egituran. Itziar Laka

Nola tratatzen ditu irudikatze horrek espazioa eta denbora, errealitateaz dugun **ikusmoldearen** kategoria nagusiak diren horiek? Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Gizarte osoan gertatzen ziren **ikusmolde**-aldakuntzekin batera. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arras ikusmolde desberdinak** (3); **artearen ikusmolde** (3); **baten ikusmolde** (3); **bere ikusmolde** (4); **bertze ikusmolde** (6); **bertze ikusmolde batetik** (3); **beste ikusmolde** (5); **bi ikusmolde** (7); **buruzko ikusmolde** (4); **da ikusmolde** (6); **da ikusmolde hori** (3); **du bere ikusmolde** (3); **espazioaren ikusmolde** (3); **eta ikusmolde** (12); **eta ikusmolde berriak** (3); **ezagutzaren ikusmolde** (5); **filosofiaren ikusmolde** (3); **gure ikusmolde** (4); **ikusmolde bat** (11); **ikusmolde batek** (3); **ikusmolde baten** (6); **ikusmolde batetik** (4); **ikusmolde bera** (3); **ikusmolde berri** (4); **ikusmolde berria** (4); **ikusmolde berriak** (4); **ikusmolde desberdin** (5); **ikusmolde desberdinak** (15); **ikusmolde estandarraren** (8); **ikusmolde estandarrean** (3); **ikusmolde eta** (5); **ikusmolde hau** (7); **ikusmolde honek** (3); **ikusmolde hori** (16); **ikusmolde horiek** (3); **ikusmolde horrek** (7); **ikusmolde horren** (4); **ikusmolde horri** (3)

**bakotxak bere ikusmoldea** (4); **bere ikusmoldea** (31); **bere ikusmoldea eman** (4); **bere ikusmoldearen** (8); **beren ikusmoldea** (14); **besteen ikusmoldeak** (3); **dauden ikusmoldeak** (3); **du bere ikusmoldea** (3); **gure ikusmoldea** (9); **gure ikusmoldeak** (3); **haren ikusmoldea** (3); **ikusmoldea agertu** (3); **ikusmoldea agertzen** (3); **ikusmoldea aldatu** (5); **ikusmoldea eman** (6); **ikusmoldea eta** (10); **ikusmoldea ez** (3); **ikusmoldearen arabera** (6)

---

## **ikusmuga** **1** *iz* ikusten denaren muga; zerumuga.

-Legoak eta legoak egin beharko dituzue **ikusmugarik** gabeko eremu zabal honetan beste etxeren bat aurkitzerako. Anjel Lertxundi

Bigarren dimentsioa, horizontala, sorbalda-lerroa izango litzateke, gure aurrean dugun **ikusmugaren** paraleloa. Josu Zabaleta

**2** *hed*

Horren astuna arintzen da familia gaztearen baliabide eta artapen hunkigarrien bidez, hortxe ikusten baita norberaren birjaiotzea, hilobiaren **ikusmugan** gerarazten gaituena. Andres Urrutia

**Ikusmuga** oso txikia baino ez dugu, ordea, eta horrekin egin behar dugu historia. Joxe Azurmendi

Horrek ekumenismo handiko **ikusmuga** zabal baterako sarbidea eskaintzen digu. Joan Mari Lekuona

Adigai bakoitza puntu bat balitz bezala begizta daiteke, zeinak, ikusle baten ikuspuntua den aldetik, bere **ikusmuga** duen, h[au] d[a], bertatik errepresentatuak eta, nolabait esateko, gainbegiratuak izan daitezkeen gauzen kopuru handi bat duen. Ibon Uribarri

Espezie bakoitzak azpi-espezieak barnebiltzen ditu espezifikazioaren printzipioaren arabera, eta **ikusmuga** logikoa **ikusmuga** txikiagoez soilik osatzen da (azpi-espezieak), ez, ordea, hedapenik ez duten puntuez (banakoez). Ibon Uribarri

---

## **ikusnahi** **1** *izond* ikusteko edo ezagutzeko gogoa duena.

Zeren zientzia maite duenak berez izan behar baitu begiluze eta **ikusnahi**. Joan Mari Irigoien

Gela horretan ostatu hartu duen gizona isila eta lasaia izan ohi da, baina izugarri **ikusnahia,** eta berebiziko interesa erakusten du bidaiariaren gaineko xehetasun guztiak jakiteko. Jose Morales

Eta aterbean sartzeko, ate bat, hertsi egin daitekeena, **ikusnahi** begiluzeenganik babesteko. Joan Mari Irigoien

**2** (adizlagun gisa)

Bi albo eraikinetako leihoak zabaldu ziren eta hamaika buru agertu ziren, **ikusnahi,** gertatzen ari zenaren berri izan nahian. Patxi Zubizarreta

**3** *hed*

Nire haur-begirada **ikusnahiak** gauza liluragarri ugari kausitzen zituen beti. Jose Morales

---

## **ikuspegi** **1** *iz* ikuslearen aurrean agertzen den eremua. ik **ikusmira 3**.

Bazekien paisaia beraren **ikuspegi** berri bat erakutsiko ziola oroimenak aldi oro, heriotzaren ganduak guztietan azkena lausotzen zion arte. Imanol Zurutuza

**Ikuspegia** ikaragarria zen, eta egunsentia izadiaren ikusgarri miragarri bat zen. Jon Muñoz

Bat-batean, hantxe bukatu basoa, eta paisaiaren **ikuspegi** panoramikoa agertu zitzaien. Jon Muñoz

Harkaitz baten kontra, **ikuspegi** zabal baten gainetik nengoen, haranean herri suntsituen orban beltzak ikusten nituela. Juan Kruz Igerabide

**Ikuspegi** bikaina dago tontorretik. Imanol Zurutuza

Ilargipeko **ikuspegi** zabalari atsegin handiz begira zegoen orain, sudurra autobusaren beiraren kontra estuturik. Xabier Olarra

Hiriaren **ikuspegi** osoa hedatzen zen gure hoteleko leihoen aurrean. Xabier Olarra

Ibarraren **ikuspegi** zabalena zuen talaia horrek. Aingeru Epaltza

**Ikuspegi** hesigabeak omen zituen gustuko, mendi eta belardi berdeak. Xabier Olarra

Beti dago haren lanean nolabaiteko berreraikuntza; bere-bere dituen margolanetan, bereziki: logelako leihotik zuen **ikuspegiarenean,** adibidez. Xabier Olarra

Paisaia zoragarri eta itsas **ikuspegi** ederraz. Xabier Olarra

Paisaia- **ikuspegi** txikitxo batzuk margotzen espezializatu zen. Josu Zabaleta

Mutilak bere biluztasunaren aurreko **ikuspegia** eskaini dio. Aingeru Epaltza

Gugana hurbiltzen zen bakoitzean zer aztertu eta miretsi ematen baitzidan (bere bular oparo eta hunkigarrien aurrez aurreko **ikuspegia,** alegia) eta baita aldentzen zenean ere (bere atzealde biribil eta doi bat mardularen atzeko **ikuspegia)** . Oskar Arana

Bazirudien aski zituela segundo batzuk, eraikin edo hiri-**ikuspegirik** konplexuenak bereganatu, eta xehetasunik ñimiñoenak gogoan edukitzeko. Xabier Olarra

**2** (ikus eremua)

Telefonoa ene gelako atetik bi-hiru metro haratago zegoen, nire **ikuspegitik** kanpora, beraz. Aingeru Epaltza

Aterpetxea **ikuspegian** dute. Aingeru Epaltza

**Ikuspegian** izan duenean presa keinu bat egin du Abelek. Pello Lizarralde

Joxe **ikuspegitik** joan zaion unean aditu du Abelek motor hotsa. Pello Lizarralde

Aztore bat **ikuspegira** sartu eta gero desagertu egiten da. Oskar Arana

Pentsatzen jarraitu, eta are gogo biziagoa sentitu zuen Verner ikusteko eta bere **ikuspegira** ekartzeko. Jose Morales

**3** *hed*

Hartara, hala espero dugu behintzat, Garapen Iraunkorraren **ikuspegi** osoagoa izango du irakurleak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Programa horiek arazo ekologikoen **ikuspegi** bertikal eta sektorial batean oinarrituta zeuden. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Euskal ortografiaren **ikuspegi** orokorra izateko, ikus Zuazo 1988. Koldo Zuazo

Telebistak errealitatearen **ikuspegia** itzulipurdikatu egiten du, handia txikitu eta txikia handitu. Andoni Egaña

Beti izan duzu **ikuspegi** zabaltasuna. Ramon Etxezarreta

**4** ikustearen ondoriozko irudia.

Fermatek oso **ikuspegi** argia zuela eta garbi zekiela alegia zer zen egia eta zer ez zenbakien teoriaren alorrean. Jon Muñoz

Hala diosku Xabier Letek, euskal tradizioan ondo errotuta dagoen **ikuspegia** jasoz: lana zigorra dela, alegia. Joxerra Garzia

Azalpen haien haritik bizitzaren eta errealitatearen **ikuspegi** bat eraikitzen joateko aukera izan nuen. Juan Kruz Igerabide

Kontatu diat sekula nire kosmosaren **ikuspegia** ? Harkaitz Cano

Zientzialari batek egiten duen hori, bada, beraren mundu-**ikuspegiak** ez ezik, garaiarenak ere determinatzen du. Juan Garzia

Errealitatetik hautematen duena deskonposatu eta gero bestela berrosatu: hara nola eraikitzen duen margolariak, poetak zein zientzialariak bere unibertso **ikuspegia** . Juan Garzia

· Oteizari buruzko **ikuspegi** mitomanoak ezkuta ez dezan haren ekarriaren benetako aurpegia. Anjel Lertxundi

Tradizioari buruzko **ikuspegi** etxezuloegiek bezainbat goganbehartzen naute kanpoederregiek, tradizioa ez baita oinordekotzan ematen zaigun zerbait, lan eta neke askoren ondoren irabazten hasten garen eta inoiz osorik lortzen ez dugun altxor bat baino. Anjel Lertxundi

**5** ikuspuntua.

Stephenek azken marrazkiak erakutsi nahi zizkidan; [...] eta miraz ikusi nituen (helikopteroko **ikuspegitik** egindakoak bereziki). Xabier Olarra

Sarrera bakoitzak egilearen **ikuspegia** islatzen du. Askoren artean

Ordu arte bizitza hesitu zioten **ikuspegi** mugatuez haragoko zerumuga zabalagoen zentzua. Xabier Olarra

Kristau-fedearen **ikuspegia** galdu gabe. Askoren artean

**Ikuspegi** psikologikoa duela hagiografikoa baino gehiago. Askoren artean

Ez da gai berria euskal literaturan, eta **ikuspegiak** ere ezer gutxi du originaletik. Xabier Mendiguren Elizegi

Denborak "denborari buruzko **ikuspegi** bat" behar du, Merleau-Ponty-k esan bezala; denborazko **ikuspegi** bat behar du. Josu Zabaleta

Denboraren **ikuspegitik** begiratuta. Xabier Olarra

**Ikuspegi** zabalago batetik begiratuta. Josu Zabaleta

**Ikuspegi** orokor batetik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Ikuspegi** orokor horretatik aztertuko dugu, bada, ikuslea. Josu Zabaleta

**Ikuspegi** filologikotik landa, literariotik ere interesgarria zela. Iñaki Iñurrieta

Bi eratako gizakiak daudela Espainian, **ikuspegi** moraletik begiratuta: gizaki mota iberikoa eta semitikoa. Josu Zabaleta

Irudiaren ikusleaz dauden **ikuspegi** nagusien gainbegiratu labur honek erakusten duena. Josu Zabaleta

Errealitatearen **ikuspegi** laikoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Muskuluak, ingeniaritzaren **ikuspegitik,** erregai-pilen indarrez dabiltzan motor linealak dira. Irene Aldasoro

Iruditeriaren kontzeptu hori asko sakondu dute psikoanalisiaren **ikuspegitik** zinemari buruz egin diren lanek. Josu Zabaleta

1998ko Txostenak kontsumoa aztertzen du, giza garapenaren **ikuspegitik** . Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ama alabaren **ikuspegitik** deskribatzea falta da. Ana Urkiza

**Ikuspegi** horren arabera egin ditugu honelako liburu xume batean ezinbestean egin behar izaten diren hautuak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hala ere, Erdi Aroko pentsamendua, filosofiaren **ikuspegitik,** zinez antzinako filosofiaren jarraipentzat har daiteke. Askoren artean

Perspektiba linealaren legeak aski bakunak dira geometriaren **ikuspegitik,** eta ongi ezagutzen dira. Josu Zabaleta

Subkontzientearen **ikuspegitik** arrazoia pedante bihozgabe bat da. Iñaki Mendiguren

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Horratx zertan datzan biologiaren munduan azken urteotan gertatu den erabateko **ikuspegi** -aldaketa. Juan Garzia

Oro har, bizidunak azaltzeko bi **ikuspegi** -mota agertu izan dira. Askoren artean

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Alde guztietara begiratzen zuen kanoian barrena, etengabe, Iparraldeko ertzaren ondotik igaro eta gero eta gorago kanoi osoaren txori **ikuspegia** izateraino igo ginelarik. Xabier Olarra

Zientzi **ikuspegi** modernoa sortu ez balitz. Iñaki Mendiguren

G. Gentile-ri (1875-1944) eta haren filosofia-**ikuspegiari** dagokiona. Juan Garzia

Gizarte- **ikuspegitik,** aro heroikoa zorakeria eta krimena da. Iñaki Mendiguren

Ume- **ikuspegi** horren zehaztasun zorrotzak. Xabier Olarra

Isisen gurtzak eta neoplatonismoak kristau-**ikuspegi** eta praktikari egin zizkioten bezain ekarpen emankorrak. Iñaki Mendiguren

Nolako sukarrak berotzen zituen bazterrak oharturik eta bere legelari **ikuspegiari** nahiz jarraiki, eginahalak oro egin zituen Espainiako Inkisizioaren auzitegitik auziaren kentzeko eta Erromara eramateko. Piarres Xarriton

Ez zion kontulari-**ikuspegiz** begiratu nahi lagunaren liburutegiari. Jon Muñoz

Narrazio-egitura ongi menderatuz (identifikazio- **ikuspuntuak** aldatuz, adibidez), Josu Zabaleta

**8** ikusmoldea.

Nire **ikuspegian,** Bidaxunera igorri ninduten egunean kanbiatu ziren gauzak niretako. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**bai ikuspegi** (5); **baina ikuspegi** (16); **bere ikuspegi** (8); **beste ikuspegi** (85); **beste ikuspegi bat** (34); **beste ikuspegi batetik** (31); **bestelako ikuspegi** (8); **bi ikuspegi** (33); **bi ikuspegi horiek** (5); **bigarren ikuspegi** (5); **bizitzaren ikuspegi** (6); **buruzko ikuspegi** (53); **da ikuspegi** (13); **den ikuspegi** (9); **du ikuspegi** (17); **duen ikuspegi** (7); **dute**

ikuspegi (6); duten ikuspegi (8); ere ikuspegi (16); errealitatearen ikuspegi (5); eta ikuspegi (100); ez ikuspegi (10); gaineko ikuspegi (13); gauzak ikuspegi (5); gure ikuspegi (7); hainbat ikuspegi (6); hiru ikuspegi (5); historiaren ikuspegi (6); hizkuntzaren ikuspegi (5); honen ikuspegi (5)

ikuspegi aldaketa (6); ikuspegi argia (6); ikuspegi bakar (5); ikuspegi bat (75); ikuspegi bat da (5); ikuspegi bat ematen (8); ikuspegi batekin (6); ikuspegi baten (6); ikuspegi batetik (53); ikuspegi bera (6); ikuspegi berezi (7); ikuspegi berezia (7); ikuspegi berri (20); ikuspegi berri bat (12); ikuspegi berria (7); ikuspegi berriak (9); ikuspegi desberdinak (8); ikuspegi ederra (6); ikuspegi edo (6); ikuspegi ekonomiko (6); ikuspegi ekonomikotik (7); ikuspegi erabat (10); ikuspegi eta (29); ikuspegi ezberdin (7); ikuspegi ezberdina (8); ikuspegi ezberdinak (14); ikuspegi ezkorra (5); ikuspegi filosofiko (6); ikuspegi guztietatik (6); ikuspegi hau (21); ikuspegi historiko (5); ikuspegi historikoa (8); ikuspegi honek (11); ikuspegi honen (8); ikuspegi honetan (6); ikuspegi honetara (5); ikuspegi honetatik (35); ikuspegi hori (53); ikuspegi horiek (15); ikuspegi horrek (17); ikuspegi horrekin (9); ikuspegi horren (25); ikuspegi horren arabera (9); ikuspegi horretan (18); ikuspegi horretatik (57); ikuspegi horretatik begiratuta (7); ikuspegi horri (10); ikuspegi jakin (7); ikuspegi juridiko (5); ikuspegi juridikotik (8); ikuspegi kontrajarriak (6); ikuspegi kritiko (8); ikuspegi kritikoa (24); ikuspegi nazional (8); ikuspegi nazionala (8); ikuspegi orokor (20); ikuspegi orokor bat (8); ikuspegi orokorra (34); ikuspegi oso (15); ikuspegi osoa (11); ikuspegi pertsonaletik (5); ikuspegi politiko (16); ikuspegi politikoa (6); ikuspegi politikotik (8); ikuspegi zabal (12); ikuspegi zabala (17); ikuspegi zabalago (7)

inguruko ikuspegi (6); kanpoko ikuspegi (5); kulturaren ikuspegi (5); munduaren ikuspegi (12); nazio ikuspegi (5); oso ikuspegi (16); zer ikuspegi (7); zuen ikuspegi (7)

bakoitzak bere ikuspegia (6); baten ikuspegia (6); bere ikuspegia (43); bere ikuspegiak (6); beren ikuspegia (5); bestelako ikuspegia (11); bestelako ikuspegiak (6); bi ikuspegiak (5); buruz duen ikuspegia (6); buruzko bere ikuspegia (5); buruzko ikuspegia (14); den ikuspegia (9); duen ikuspegia (26); dugun ikuspegia (6); duten ikuspegia (14); eta ikuspegia (15); eta ikuspegiak (8); genero ikuspegia (9); gure ikuspegia (14); herri ikuspegia (5); ikuspegia aldatu (7); ikuspegia azaldu (6); ikuspegia eman (8); ikuspegia ematen (5); ikuspegia ere (11); ikuspegia eta (17); ikuspegia ez (16); ikuspegia ez da (7); ikuspegia helarazi (5); ikuspegia oso (6); ikuspegiaren arabera (8); nazio ikuspegia (8); nire ikuspegia (5); oso bestelako ikuspegia (5); zen ikuspegia (5); zuen ikuspegia (6); zure ikuspegia (5)

baten ikuspegitik (14); bere ikuspegitik (5); egungo ikuspegitik (7); ekonomiaren ikuspegitik (6); ezkerreko ikuspegitik (8); filosofiaren ikuspegitik (8); gaur egungo ikuspegitik (5); gaurko ikuspegitik (7); gure ikuspegitik (10); hainbat ikuspegitatik (9); herriaren ikuspegitik (5); historiaren ikuspegitik (8); hizkuntzaren ikuspegitik (5); idatziaren ikuspegitik (6); ikuspegitik aztertu (15); ikuspegitik begiratuta (24); ikuspegitik egiten (5); ikuspegitik ere (8); ikuspegitik eta (7); ikuspegitik ez (6); ingurumenaren ikuspegitik (6); nire ikuspegitik (8); poetika idatziaren ikuspegitik (5)

---

## ikuspegidun *izlag* ikuspegia duena.

Berriro eman zidaten **ikuspegidun** gela hura, Sena aldera, eta oraindik inoiz bisitatu ez dudan Louvre ditxosozkora, juxtu pare-parean. Joxe Austin Arrieta

---

## ikuspen 1 *iz* ikustea, begien bidez hautematea.

Gizakiaren **ikuspena** irudikapenaren arau bihurtzea. Josu Zabaleta

Margolan baten **ikuspena** batez ere eragile sozio-ideologikoek determinatzen dutenez, [...]. Bi **ikuspen**-modu horiekin, irudikapen-artearen muturreko bi joera edo polo lortzen zituen Hildebrandek: polo optikoa, urrutiko **ikuspenari** dagokiona […]; beste muturrean, polo haptikoa (ukimenezkoa) dago, hurbileko **ikuspenari** dagokiona. artearen bilakaera […] "ukimenezko" **ikuspenaren** eta "ikusmenezko" **ikuspenaren** eraginaren arabera gertatu dela. Josu Zabaleta

Tenpluko pronaoaren **ikuspena** ez galarazteko. Santiago Iruretagoiena

Bere egiturak, anfiteatro natural batean eserita, **ikuspen** ezin hobea ahalbidetzen du harmailetako leku guztietatik. Berria - Kirola

**Ikuspen** orokor bat izan dezagun, historiako bide larrienak eta garrantzitsuenak azpimarratuz. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

**Ikuspen**-eremuaren aldaketa etengabeak halako fluxu gisako bat eragiten digu erretinan. Josu Zabaleta

Film klasiko gehien-gehienetan **ikuspen**-zentro baten edo biren inguruan eraikitzen da irudia, pertsonaien inguruan maizenik. Begitik urrutien dauden elementuek **ikuspen**-ardatzetik hurbilago dagoen irudi bat osatzen dute. Josu Zabaleta

· Irudikapena zentratzea eta giza **ikuspenarekin** berdintzea 1800 inguruko pinturaren ezaugarriak dira batez ere. Josu Zabaleta

Espazio-**ikuspena** askoz ere jarduera konplexuagoa dela berehalaxe aztertu behar dugun erretinaren "argazkia" baino. Josu Zabaleta

Berpizkundeko humanismoak definitu zuen ispilu-**ikuspenaren** kode hura. Josu Zabaleta

**3** begien edo gogoaren aurrean agertzen den ikuskizun naturaz gaindikoa.

Orduan Abraham profeziazko **ikuspen** eta goi arnasazko egoera jasoan aurkitzen zelako. Xabier Kintana

"Israelgo semeen artetik hautatuak" deituriko hirurogeita hamar zaharren **ikuspenaz** ari da. Xabier Kintana

Eta gau-**ikuspenez** Jainkoak dei egin zion Israeli, zioela: Jakob, Jakob! Xabier Kintana

Moisesek Sinai mendian izan zuen Jainkoaren **ikuspenaren** kontakizun biblikoa. Joan Mari Lekuona

Mistikoa, azken finean, eta profeta: pixka bat itxoinez gero paradisuaren **ikuspenak** ikusiko omen nituen haren bonbillekin. Fernando Rey

Zeruaren **ikuspenak,** nik jazz-musika aditzean izaten nituen **ikuspen** txiki zarpail haiek duda izpirik gabe. Fernando Rey

Uhin bereziak, **ikuspenak** ekarrarazten dituzten horiek. Fernando Rey

Galdu egiten naiz oroitzapen urrun-urrunean, **ikuspen** batzuk beste batzuekin nahasten ditut, gauza miragarri batzuk beste batzuekin. Fernando Rey

Lehen hitzaurrea irudipena da, tokia ikusiz; hemen izango da irudi-**ikuspenez** ikustea sinagogak, landetxeak eta gazteluak, non Kristo gure jaunak predikatzen zuen. Patxi Altuna

Zuhaitz eder eta txit garai bat ikusi zuela goi-**ikuspenez**. Askoren artean

**4** alegiazko irudia, norbeararen irudimenean sortua.

Nazkarekin batera, **ikuspen** bat izan nuen: koltxoi hura, nolabait esateko, ustelduta zegoen, eta zizare, har edo dena delako haren pareko milaka eta milaka izakik hartzen zioten barrena. Bernardo Atxaga

**-Ikuspenez** betetzen ditu basamortuak gizakien bihotzak. Xabier Aranburu

Konta iezaiezu hona inguratzen ari diren gerlarien **ikuspen** hori. Xabier Aranburu

Ispiluaren aurrean janzten ari nintzelarik, bermatu beharra izan nuen zorabiatzen ari nintzela sentituta: **ikuspen** bat izan nuen. Ander Irizar

Errealitateak ordea, dutxa hotz berezi horrek, nire **ikuspenetik** esnatu ninduen. Ander Irizar

Pontitoren **"ikuspenak"** egunez hasi zitzaizkion etortzen, orduan; zirrara izugarria eragiten bazioten ere, holografien parekoak ziren **ikuspenok,** zehaztasun handikoak eta hiru dimentsiokoak baitziren aldi berean. Xabier Olarra

**Ikuspen** bortitz hark eragindako barne-asaldura pixka bat baretu zitzaionean. Juan Luis Zabala

Ezabatu egin zen **ikuspena;** geroztikako izu-ikarak, ordea, iraun egin zion Ruche jaunari. Jon Muñoz

Edozein unetan etor dakizkioke halako **ikuspenak:** jan-edanean nahiz paseatzen zein dutxatzen ari denean. Xabier Olarra

**Ikuspen** fantastiko bat izan banu baino ere harrituago eta urduriago geratu naiz Hura geldi-geldi zegoen, **ikuspen** batek sorgindurik baleuka bezala. Josu Zabaleta

Hura **ikuspena** baldin bazen, ni hemen zurekin eserita egotea ere **ikuspena** da. Koro Navarro

**5** ikusten den gauza, ikuskizuna.

Petrusek badu **ikuspen** bat etorkizunari buruz, eta Lucy bezalako jendeak ez du tokirik **ikuspen** horretan. Oskar Arana

Kaleetako **ikuspenak,** bestalde, nardatu egiten ninduen. Txillardegi

Tristea zen **ikuspen** hura aurrean izatea. Oskar Arana

**6** ikus-eremua.

Ia ez zebilen autorik, baina bat agertu orduko, bazter-bazterreraino arrimatzen zen aita, bidea hain zen estua eta **ikuspen** laburrekoa. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

da ikuspen (4); duen ikuspen (3); eta ikuspen (10); ikuspen bat (13); ikuspen bat izan (9); ikuspen batek (3); ikuspen eta (3); ikuspen fotopikoa (3); ikuspen hori (7); ikuspen modu (4); ikuspena da (4); ikuspenari dagokiona (3); irudi ikuspenez (5); paradisuaren ikuspenak (5); txantxetako ikuspenak (3)

---

**ikuspide** *iz* ikuspegia, ikusmoldea. ik **ikusbide**.

**Ikuspide** pluralista da hori, diferentearen eta erlatiboaren maitalea. Joxe Azurmendi

Historiaren **ikuspide** "progresista". Joxe Azurmendi

Historiaren mekanizismo ("fisika") hori historiaren ukoa dela, eta azken batean arimaren (izpirituaren) **ikuspide** hori, arimaren ukoa. Joxe Azurmendi

---

**ikuspuntu** *(orobat* ***ikuspundu*** *g.er.)* **1** *iz* zerbait ikusten den puntua, zerbaiti begiratzen zaion puntua. ik **ikuspegi 5**.

Lepoa luzatuz [...] azkenean atxemaiten dut **ikuspuntu** egokiena, hormaren kontra altxatua den ohe gainera igan eta handik ene soa doa zuzenago leihatilaren artekatik teilatu izkinara. Filipe Bidart

Zenbait margolan bi egileek **ikuspuntu** berberetik eginak dira. Berria - Kultura

Bihotza, pentsamendua eta begiak **ikuspuntu** berean jarri, munduari begiratu eta ikusten saiatzen da argazkilaria. Berria - Kultura

**2** (objektu abstraktuez)

Ez da gauza erraza **ikuspuntu** horiek guztiak metodologia orokor beraren mendean sartzea. Josu Zabaleta

Hartu zuten bizi-moldearen estutasunetik euren **ikus**-puntuak zabaltzen saiatzen ziren, gazteegi itxi zituzten ate batzuk irekitzen. Pako Aristi

Egoera, premia eta **ikuspuntu** berriek, Frantziskoren irudiaren berrinterpretatzea ekarri zuten ezinbestean, Ordenaren norabide berrien **ikuspuntutik**. Askoren artean

-Arazoa beste **ikuspuntu** batetik ikus dezakezu. Migel Angel Mintegi

**Ikuspuntu** horretatik begiratuz gero, unibertsitateak ez du parekorik gizartean. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Ikuspuntu** horretatik begiratuta, ezagutza ez da norabide bakarreko prozesua. Josu Zabaleta

Bai artistaren **ikuspuntutik,** bai ikuslearenetik. Josu Zabaleta

Antropologiaren **ikuspuntu** hutsetik. Oskar Arana

Jekaterinburg, **ikuspuntu** geografikotik, Asiako hiria da, Ural mendietatik hara kokaturik baitago. Karlos Zabala

Gizarte prekapitalistetan, antolamendu ekonomikoaren **ikuspuntutik,** ekonomia ez zen alor beregaina. Koro Navarro

Bi **ikuspuntuen** -sinkronikoaren eta diakronikoaren- arteko aurkakotasuna erabatekoa da eta ez du hautsi-mautsirik onartzen. Isabel Arrigain

Sexualitatearen inguruko **ikuspuntu** platonikoa. Luis Elberdin

Oso **ikuspuntu** desberdinetatik aztertu izan da langabezia ekonomian. Iñaki Heras

**Ikuspuntu** metodologikoa aldatzearekin batera, prozedura taxonomikoek hizkuntzaren ikerkuntzari jartzen zizkioten oztopoak kenduz joan ziren. Itziar Laka

Azken afaria: apostolu bakoitzaren aurpegia gertatzen ari denari buruzko **ikuspuntu** narratzaile bat da. Anjel Lertxundi

Hori horrela gertatu zen; ulertu beharra dago halako herriaz ari direla; hau da **ikuspuntu** zuzena! Jose Morales

Zorrotzegia zen horretarako, **ikuspuntu** estukoa, politikak eta botereak beharrezko duten malgutasunik gabea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pablo Aldazek, hala ere, ez zuen **ikuspuntu** ezkorra agertu nahi izan, eta oro har Nafarroako jendeak ez duela erretzen nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

Ez duk nire **ikuspuntu** berekoa zertan izanik. Jon Muñoz

Arrazoizkoa iruditzen zait **ikuspuntu** hori. Anjel Lertxundi

Den-dena okerreko **ikuspuntu** batetik ikusten duzu, gazte maitea. Fernando Rey

Konprenitzen zuten nik beste **ikuspuntu** bat defenditzea. Bernardo Atxaga

**3** (hitz elkartuetan)

**Ikuspuntu** kontua da, bat(zuk) aukeratzea beste bat(zuk) baztertzea dakarrelako nahitaez. Iñaki Arranz

Beharbada distantzia eta **ikuspuntu** kontua zen mito bihurtzeko gaitasuna; distantzia-tamainen arteko proportzio kontua. Iñaki Iñurrieta

Nik aurrera eta atzera egiten ditudan saltoak eta narratzaileraren **ikuspuntu**-desplazamenduak ez dira estetika hutsa. Berria - Kultura

· Hauteskunde **ikuspuntu** batetik. Berria - Harian

Berak dituen jokolari, zuzendari eta idazle **ikuspunduak** txirikordatuz, gaiari buruz dituen gogoetak ekarriko dizkigu. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bai ikuspuntu** (4); **baina ikuspuntu** (3); **bat ikuspuntu** (3); **bere ikuspuntu** (4); **beren ikuspuntu** (3); **beste ikuspuntu** (52); **beste ikuspuntu bat** (11); **beste ikuspuntu batetik** (30); **beste ikuspuntu batzuk** (4); **bestelako ikuspuntu** (5); **bestelako ikuspuntu bat** (3); **bi ikuspuntu** (11); **buruzko ikuspuntu** (6); **da ikuspuntu** (7); **den ikuspuntu** (6); **den ikuspuntu batetik** (4); **duen ikuspuntu** (3); **dut ikuspuntu** (3); **edo ikuspuntu** (3); **ere ikuspuntu** (3); **eta beste ikuspuntu** (3); **eta ikuspuntu** (33); **eta ikuspuntu ezberdinak** (3); **eta ikuspuntu guztiak** (3); **eta ikuspuntu horretatik** (4); **eta narratzailearen ikuspuntu** (3); **ez zuen ikuspuntu** (3)

**ikuspuntu asko** (3); **ikuspuntu askotatik** (7); **ikuspuntu bakar** (3); **ikuspuntu bat** (18); **ikuspuntu batetik** (50); **ikuspuntu batetik begiratuta** (5); **ikuspuntu batetik ikusten** (3); **ikuspuntu batzuk** (4); **ikuspuntu berri** (3); **ikuspuntu berritzailea** (3); **ikuspuntu demokratiko** (3); **ikuspuntu demokratiko batetik** (3); **ikuspuntu desberdinak** (6); **ikuspuntu desberdinetatik** (6); **ikuspuntu ekonomikotik** (3); **ikuspuntu eta** (12); **ikuspuntu ezberdinak** (12); **ikuspuntu feministatik** (3); **ikuspuntu filosofikotik** (3); **ikuspuntu guztiak** (3); **ikuspuntu guztietatik** (4); **ikuspuntu hau** (3); **ikuspuntu historikotik** (4); **ikuspuntu honek** (4); **ikuspuntu honetatik** (14); **ikuspuntu hori** (12); **ikuspuntu horiek** (6); **ikuspuntu horrek** (4); **ikuspuntu horren** (4); **ikuspuntu horretatik** (42); **ikuspuntu horretatik begiratuta** (3); **ikuspuntu juridikotik** (5); **ikuspuntu moraletik** (3); **ikuspuntu politiko** (6); **ikuspuntu politiko batetik** (3); **ikuspuntu politikotik** (9); **ikuspuntu positibo** (3); **ikuspuntu sozio** (3); **ikuspuntu zabalago** (3); **ikuspuntu zientifiko** (3)

**inguruko ikuspuntu** (3); **lau ikuspuntu** (3); **narratzailearen ikuspuntu** (3); **oso ikuspuntu** (5); **zein ikuspuntu** (3); **zuen ikuspuntu** (4)

**bakoitzak bere ikuspuntua** (3); **bere ikuspuntua** (13); **bere ikuspuntua eman** (3); **beren ikuspuntuak** (4); **bi ikuspuntuen** (3); **duen ikuspuntua** (14); **eko ikuspuntua** (3); **eta ikuspuntua** (4); **euren ikuspuntua** (8); **euren ikuspuntuak** (4); **gure ikuspuntua** (8); **ikuspuntua aldatzen** (4); **ikuspuntua azaldu** (4); **ikuspuntua azaltzeko** (4); **ikuspuntua eman** (5); **ikuspuntua ematen** (3); **ikuspuntua eta** (6); **ikuspuntua ez** (4); **ikuspuntua jaialdian** (4); **ikuspuntua jaialdian alberto** (3); **ikuspuntua jaialdiaren** (3); **ikuspuntua zinema** (7); **ikuspuntua zinema jaialdia** (3); **ikuspuntuak ere** (3); **ikuspuntuak ezagutu** (3); **ikuspuntuak gerturatzeko** (3); **ikuspuntuarekin bat** (3); **inguruan duen ikuspuntua** (3); **iruñ kanpoko ikuspuntua** (3); **nire ikuspuntua** (6); **zure ikuspuntua** (3)

**edozein ikuspuntutatik** (3); **hainbat ikuspuntutatik** (5); **zein ikuspuntutatik** (4); **zer ikuspuntutatik** (3)

**baten ikuspuntutik** (18); **bere ikuspuntutik** (5); **demokraziaren ikuspuntutik** (4); **egungo ikuspuntutik** (4); **ekonomiaren ikuspuntutik** (3); **fonetikaren ikuspuntutik** (3); **gaur egungo ikuspuntutik** (3); **gizartearen ikuspuntutik** (3); **gure ikuspuntutik** (15); **hezkuntzaren ikuspuntutik** (3); **hizkuntza baten ikuspuntutik** (3); **ikuspuntutik aztertu** (3); **ikuspuntutik aztertzeko** (3); **ikuspuntutik baino** (3); **ikuspuntutik begiraturik** (3); **ikuspuntutik begiratuta** (14); **ikuspuntutik egin** (3); **ikuspuntutik ere** (7); **ikuspuntutik eta** (3); **ikuspuntutik ez** (6); **ikuspuntutik oso** (3); **ingeniaritzaren ikuspuntutik** (4); **komunikazioaren ikuspuntutik** (3); **kulturaren ikuspuntutik** (3); **logikaren ikuspuntutik** (3); **merkataritzaren ikuspuntutik** (3); **moralaren ikuspuntutik** (4); **nire ikuspuntutik** (8); **pankroniaren ikuspuntutik** (3); **politikaren ikuspuntutik** (3)

---

**ikustaile** *iz* ikuskatzailea.

Eta, bai zentzuz mintzatu ere Don Kijote, ukitu zituzten gai guztiez; dudarik gabe, erabat sendatuta bere onera etorria zela uste izan zuten **ikustaile** biek. Patxi Ezkiaga

---

**ikustaldi** *(ETCn* ***1.587*** *agerraldi; orobat* ***ikusaldi*** *ETCn* ***33*** *agerraldi;)* **1** *iz* bisita. ik **bisitaldi**.

**Ikustaldi** luzeek ez diote onik egiten adiskidetasunari. Oskar Arana

Meza bat egunoro, **ikustaldi** zenbait eskualdeko behartsuei, goizeko eta arratseko otoitzak. Jon Muñoz

Gerrira iristen zen oholtza baten alde banatan jarrita **ikustaldiak** ordu laurdenekoak izaten ziren. Jokin Urain

Iñigok aipaturiko hotelera egiteko asmoa zuen **ikustaldia** aurreratzea erabaki zuen. Migel Angel Mintegi

Bideoan grabatzen dizkiete bisitok, eta **ikusaldia** amaitzean biluztu egiten dituzte. Jokin Urain

Baleztenera ere urritu ditugu **ikustaldiak**. Hasier Etxeberria

Onartu du zure **ikustaldia,** baldin azkenekoa bada. Jon Muñoz

Hala ere, nik badakit maite nauena eta seme-alaben **ikustaldiak** estimatzen dituena. Xabier Mendiguren Elizegi

Gelazainari manatu nion nire logelan egon zedin **ikustaldi** horren denbora guztian. Jon Muñoz

Bi bisitarion **ikusaldi** hura, dena dela, bitxia izan zen. Txillardegi

Urtetik urtera pazientzia erreago agertu ohi zen eta itzulingururik gabe kexatu zitzaion, halako moldez non, ezkon etxea utzirik, semeenera jo izan baitzuen, **ikustaldiak** itxuratuz, baina zinez ihesaldiak eginez. Patxi Zubizarreta

Neure bigarren **ikustaldian** esan nizuena bera esaten diet orain, urruti nagoela. Elizen arteko biblia

Afari eder bat eta Zientziaren Museora **ikustaldi** gidatua. Iñaki Segurola

**2** (hitz elkartuetan)

Zorionez, pasea zen **ikustaldi** ordua, baina Eugeniak Borboiei buruz hitz egin zuen, eta Sabatiniren eskaileraz, Gaspariniren egongelaz [...] eta ispiluen aretoaz. Ramon Saizarbitoria

-Justuki **ikustaldi** hitzordua daukat etzi; joanen gara elkarrekin nahi baduzu. Itxaro Borda

**3** begiraldia.

Azken **ikustaldia** makillaje osoari eta ederki. Iñaki Zabaleta

**Ikustaldi** bat eman eta galtzarbean jartzen dut. Iñaki Zabaleta

**4** ikuskizuna.

**Ikusaldi** hunen izena da "Ambrouille" eta hau beraz emana izanen da buruila hunen 28 an ortziralearekin, aratseko 9 orenetan. Herria

Erreusitze handia izan zuen joan den udan emana izan zen kabalkada toberak **ikusaldiak**. Herria

Aratsaldean "Moto Trial" **ikusaldi** bat izanen da Latseko kartierean. Herria

Eta bide ertzera baztertuta, begira-begira egon ziren biak, harako zuzi ibiltari haien hura zer izan ote zitekeen; handik oso gutxira, kristau talde ugari bat bistatu zuten, atorra-jantzian zetozenak, eta **ikustaldi** beldurgarri honek erabat erauzi zuen Santxo Panzaren kemena Patxi Ezkiaga

**5** ikusmira.

Gain hartarik ezin ahantzizko **ikusaldia**. Herria

Leihotik Manhattango etxe-orratzak eta trafikoaren sugea ikus zitezkeen; mututasun inpresionagarrizko **ikustaldiak**. Iñaki Zabaleta

**6** ikustea

Haren kapela beltzeko ikurraren **ikustaldi** labur bat izan nuen: zilarrezko burezur bat. Alberto Ladron Arana

Schenker doktorearen aurpegiaren **ikustaldi** labur bat izan nuen: uretatik ateratako arrainak bezala hartzen zuen arnasa. Alberto Ladron Arana

**7** ***ikustaldi bat egin***

Opera bukaturik, teatroko atseden gelara joan nintzen neure adiskideei **ikustaldi** bat egitera. Jon Muñoz

Bigarren solairuko Um Hamidari **ikustaldi** bat egiteko prestatzen ari zen. Patxi Zubizarreta

Gurasoen herrira joatea bururatu zitzaidan, haiei ezusteko **ikustaldi** bat egitera. Patxi Zubizarreta

Joan den udan **ikustaldi** bat egin nionean. Xabier Olarra

Skinner behaviorista handiari idatzi, eta azkenean **ikustaldi** bat egin zion. Xabier Olarra

**8** ***ikustaldia egin*** bisitatu

Goizean Joyce, Tom eta Honey, Aurora eta Nancy etorri ziren **ikustaldia** egitera. Oskar Arana

Nire alaba Rachel [...] etorri zitzaidan **ikustaldia** egitera, New Jersey-tik autoz. Oskar Arana

Harry astean hainbat aldiz joaten zitzaion margolariari estudiora **ikustaldia** egitera. Oskar Arana

"Aldi baterako etorri zara, ala **ikustaldia** egitera baizik ez?" galdetzen dio. Oskar Arana

Legendunei egindako **ikustaldiaren** ondoren. Askoren artean

Antonio Borboikoarekin, berriz, ez zuen gizonez gizon mintzatzeko bere nahia konplitu; kanpoan zen, Frantziako bere jabegoetan **ikustaldia** egiten. Aingeru Epaltza

Orain etorriko da sendagilea eta hark egingo dizu **ikustaldi** bat. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta ikustaldi (3); ikustaldi bat (21); ikustaldi bat egin (6); ikustaldi bat egitea (3); ikustaldi bat egitera (6); ikustaldi labur (4); ikustaldi labur bat (3); ikustaldia egitera (9)

---

# ikustalditxo *iz* ikustaldi laburra.

-Gaur gauean lo dagoen printzesari **ikustalditxoa** egingo diot -esan zuen mutilak. Felipe Juaristi

Konstantin Fiodorovitxenera joan gaituk **ikustalditxo** bat egitera... Jose Morales

Manuel Lasarteren "bixki-lagunari" [...] **ikustalditxo** bat egin ondoren, ibilaldi ederra egin genuen. Juan Luis Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> ikustalditxo bat (4); ikustalditxo bat egin (3

---

# ikustamen *iz* ikustaldia.

Operatu berria zan Orixe, Ategorrietako klinikan, eta **ikustamen** bat egitera joan gintzaizkion nere emaztea ta biok. Patziku Perurena

---

# ikustate 1 *iz* begirunea; adeitasun agerpena; esker ona.

Lanari emanen diozu zure bihotz ona, nasaitasuna, eta lanak emanen dautzu onarpena, laneko lagunak beren **ikustatea,** errespetua. Herria

Bestalde hilari gure **ikustatea** nahi badiogu erakutsi, behar da, nunbait, orroit-leku bat, hil-herrietan bezala. Herria

Egun guziz hartze dute gure **ikustatea** bainan denen buru oraino gehiago, zendako ez, holako egun batez, loreño batzu eskainiz, edo beste zerbait opari... Herria

Amikuztar askok segitu ere dute funtsean Ziburuurat, berriz ere beren **ikustatea** agertzea gatik. Herria

Gizon miresgarri horri, ezagutza eta esker onezko **ikustate** hau egin diote Frantzian. Herria

**Ikustatea** zor zion aitaren biziari amodio apur bat eskainirik. Elena Touyarou

Aljeriako gerlari ohiek eta Herriko Etxeak parte harturik emanak izan zaizkiote itxura eder batzu, segur, biak biziki hunkiak izan baitira **ikustate** hortaz. Herria

Damak, gizon horrek zituen kortesia eta **ikustate** nobleek xarmaturik, gazteluan gauaren iragateko baia ematen zion. Aurelia Arkotxa

Bakotxak merexi duen **ikustatea** ukan dezala eta bat bestearen errespetuan egon, beti ahalaz hobetuz, arno onaren pare! Herria

Elkarrenganako Maitasun hori, bada, eta, ondorioz, maite gaituenari eta, guri ongi egitera lehiatzen denari on egiteko ahalegina, Eskerrona edo **Ikustatea** deitzen da Piarres Xarriton

**2** ikuspena.

**Ikustateak** segundo bat iraun du edo beharbada gutxiago; ez dakit zenbat txori ikusi ditudan. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere ikustatea** (4); **beren ikustatea** (7); **beren ikustatea agertzea** (3); **ikustatea agertzea gatik** (3)

---

# ikustatu, ikusta, ikustatzen **1** du *ad* ikustaldia egin, bisitatu.

Han zegoen Joram oheratua, eta Judako errege Akazias ere bertan zen, Joram **ikustatzera** joana. Elizen arteko biblia

Akaz Damaskora joan zen Asiriako errege Tiglat-Pileser **ikustatzera**. Elizen arteko biblia

Jean Etxeparek-eta oroz lehen San Inazioren sortetxea ikustera egin zuten gero basilika eta gainerako komentuak **ikustatzeko**. Berria - Kultura

Erregea **ikustatzera** joan zitzaionean, esan zion Amnonek: [...]. Elizen arteko biblia

**2** begiztatu, urrundik ikusi.

Laino argitsuan zehar, *Governors Island*-eko eraikin txikien atzean, Brooklyn-go zubiaren pilare handiak, kable okertuak eta aireko mihiztadurak **ikustatu** zituzten. Lopez de Arana

Urrutitik **ikustatu** nuen Itsasoari izena eman zion mendia: haren mazeletan euforbioa hazten da, edenen deusezgarria. Juan Garzia

Beste txalupa bat **ikustatu** nuen, deitu egin genion. Josu Zabaleta

" Vírgen de Iciar" itsasontziko gure reketeek "Goixeko ixarra" itsasontzi gorria **ikustatu** zuten gauaren erdian. Inazio Mujika Iraola

**3** ikuskatu, arretaz ikusi.

Tom Times Square-n eta ni Grand Central-en, eta jendearen erreakzioak, portaerak, mezuak **ikustatuko** ditugu. Iñaki Zabaleta

223 lagun zeramatzan **ikustatu** zuten lehen itsasontziak eta motorra matxuratuta zuen. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ikustatu nuen** (3); **ikustatzera joan** (4); **ikustatzera joan zen** (3); **joram ikustatzera** (3)

---

# ikustatze *iz* arretaz ikustea.

Nor bere mikrokosmosean, ahalik eta hitz gutxien botatzeko tentsioarekin, begiratuen borroka nekaezinean, **ikustatze** arinean, defentsiban. Berria - Kultura

---

# ikuste **1** *iz* begien bidez sumatzea.

Begirada hitza erabiltzen den zentzu guztietan, baita arruntenetan ere, ongi bereizten da **ikuste** soiletik. Josu Zabaleta

Jendartean Pedro Huizi ikusi nuela eta **ikuste** hark harritu egin ninduela. Joan Mari Irigoien

Pertzepzioak ikusgai dena nola antolatzen duen -eta, horrenbestez, **ikustearen** giza kategoriara nola jasotzen duen- deskribatuko dugu. Josu Zabaleta

Trabestismoa maite duten gizajo koadrila bat, odola **ikuste** hutsak xoratuko lukeena. Aingeru Epaltza

Erdi- **ikuste** horretan, Edurneren titi beteak [...] nire bihotzarekin batean pilpiratzen zirela imajinatzen ahal nuen. Aingeru Epaltza

Argi **ikuste** horretan izango zuen zerikusia nire idazle-dohain deskubritu berri hark, noski. Xabier Mendiguren Elizegi

Erretinan gertatzen diren aldaketa kimikoek eragiten dute **ikuste**-sentipena. Irene Aldasoro

Erretinako makila bakar batean kuantu bakar bat xurgatzen denean hasten denez **ikuste**-prozesua [...].Joan Brossaren **ikuste**-poemetakoen antzekoa. Irene Aldasoro

Eszenaratzea **ikuste**-poesiaz zipriztintzeko. Berria - Kultura

Konpainiako sei dantzariek **ikuste**-efektu harrigarriak eraiki dituzte. Berria - Kultura

Garun-azalean daudela, itxuraz, oroimenaren alderdi konplexuak, **ikuste-** eta entzute-esperientzien oroitzapen eta asoziazioarekin zerikusia dutenak. Irene Aldasoro

**2** (izenondoekin)

"Herri osoak trumoiak ikusten zituen", eszena hori **"ikuste** profetikoa" zen arren [...]. Xabier Kintana

*La Ilustracion Española y Americana*k erredaktore artistiko bat bidali ei du hona, Comba jauna, jarraigoaren zenbait **ikuste** fotografiko hartzeko. Koldo Izagirre

**3** ***elkar ikuste*** (*orobat* ***elkarrikuste*** *g.er.*)

Gertakari handi hori aita Anselmek mezutu dit, harengana jo baitu hemendik aurrera gida dezan, bai eta antola dezan ere gure arteko **elkar ikuste** bat. Jon Muñoz

Orain hotzagoa da lehenengo **elkar ikuste** hau, besteak beste gure herritarrak sartzerako aretoa txukelez betea daukatelako. Koldo Izagirre

Danceny bihar goizean behar duzu ikusi; badakizu zeinen garrantzitsua den **elkar ikuste** hori baino lehen mintza nakizun. Jon Muñoz

Kausitua nuen bide soil, eroso eta ziur bat zure gutunak hari emateko, bai eta, segidan, zuk nahi dituzun **elkar ikuste** horiek errazteko ere. Jon Muñoz

Otoi arren, jauna, egin biezat bada, nire delibero berriak hari jakinarazi eta niretzat **elkar ikuste** berezi bat hari galdatzeko ontartea. Jon Muñoz

Nola gure **elkar ikuste** laburrak promenaldia bitartean izaten baitira, egungo egun osoan egin duen eguraldi ezinago txarrak ez zidan deusik igurikatzen uzten: zinez gaitzitu ere zitzaidan. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elkar ikuste** (14); **elkar ikuste hori** (5); **eta ikuste** (3); **ez ikuste** (3); **ikuste bat** (4); **ikuste hori** (6); **ikuste hutsa** (3); **ikuste hutsak** (14); **ikuste hutsarekin** (18)

---

# ikustear

**1** ***ikustear egon*** *adlag* ikusteko egon.

Hori oraindik **ikustear** dago. **Orain** ikustear dago, behin agintea galduta, zer gertatzen den. Berria - Harian

---

# ikustearren *adlag* ikusteko.

Nire eskuak bere buruari eutsiz, harik eta berak astiro begiak bir-zabaldu zituen arte, zer nahi ote nuen **ikustearren:** neronek ere jakin ez, ordea. Joxe Austin Arrieta

Begiak itxita netzan, neure gorputz zaharra ez **ikustearren..**. Joxe Austin Arrieta

Gero, atzezkoz aurrera jarri zuen orria, ifrentzuan ezer idatzirik ba ote zegoen **ikustearren**. Jose Morales

Ni ondoko zuhaitz batera igo nintzen, hobeto **ikustearren,** nire adineko beste gaztetxo batzuekin. Juan Kruz Igerabide

Berak burua atera zuen tapakien azpitik zer aurpegi ote neukan **ikustearren**. Bernardo Atxaga

---

# ikustegi **1** *iz* behatokia.

Bi astronomo amerikanok dute aurkikuntza hori berriki egin beren Nasako **ikustegitik**. Herria

**2** erakustokia.

Arropa denda baten **ikustegi** aurrean gelditu zen ezer esan barik, ugari zituen halakoak. Koldo Izagirre

---

## ikusteke *adlag* ikusi gabe.

Ezer **ikusteke** jarraitzen zuten eta itsasoak oliozko urmaela zirudien, beltza eta barea. Felipe Juaristi

Ez inor ez ezer **ikusteke. ikusteke** begiratzen zuen, entzuteke entzuten zuen, dena ahazten zuen, ia dena. Juan Garzia

Musika Hamabostaldiaren azken egunetan kontzertu garrantzitsuak geratzen dira oraindik **ikusteke**. Berria - Kultura

**Ikusteke** ditugun aurrerapen teknologiko guztiek. Berria - Gaiak

**Ikusteke** dago, hala ere, nolako ondorioak izango dituen aldaketak. Berria - Ekonomia

Zeminen agintepean Txinan asko zabalduriko ustelkeriaren kontrako konpromiso sendoa du, baina **ikusteke** dago erreforma politikoak gauzatzeko, oraindik boteretsu diren Zemin eta haren aliatuen indarrari aurre egiteko gauza izango ote den. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ikusteke dago** (38)

---

## ikusterraz *izond* ikusten erraza dena.

Barrera **ikusterrazak** ipiniz. Irene Aldasoro

Batzuetan loturak **ikusterrazak** dira, beste batzuetan testuaren eta abestiaren arteko sokak detaile edo txikikeria batean korapilatuta daude, metafora edo irudi baten bi muturrak lotzen dituela... J.M. Olaizola "Txiliku"

Kontua da kale jendegabean **ikusterraz** eta hondabera sentitzen nintzela, infinituki. Juan Garzia

---

## ikusterrean *adond* ikusmenean, begien irispidean.

Nik ere, haiek **ikusterrean** zirela bederen, ahalik eta gutien. Aingeru Epaltza

---

ikustezin ik **ikusezin**.

---

## ikustun 1 *izond/iz* ikusmena duena.

Ahalegin guztiak eginagatik gizon **ikustun** baten bizitza bizitzeko, arazotsuago bihurtu zen garai hartan. Xabier Olarra

Argizarizko madari ongi itxuraturiko bat sartu genuen benetako fruten artean; tamainaz eta kolorez benetakoaren hain parekoa izanik, erabat engainatu zituen **ikustunak**. Xabier Olarra

Itsuak **ikustunari** besotik oratu dio esku batez. Karlos Zabala

Nork egiten du gizakia mutu ala gor, itsu ala **ikustun,** nik, Jaun honek, izan ezik? Elizen arteko biblia

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zer espero zezakeen, hoberenean ere? zenbaterainoko ikusmenezko mundua, **ikustun**-bizitza ote zuen zain? Xabier Olarra

Hori gertatuz gero, pertsona batek, itsu bihurtzeaz gain, galdu egiten du **ikustun**-izaera, ez du barne-egoerako inolako aldaketaren berri ematen; erabat ahaztu du ikus-ahalmena edo ezintasuna. Xabier Olarra

Halakoetan, itsu ematen zuen arren, eta **ikustun**-portaerarik bat ere erakutsi gabe ere, "ikusi" hitza erabiltzen zuen. Xabier Olarra

Episodio horietan, itsua balitz bezala tratatzen zuen familiak Virgil; **ikustun**-nortasuna ukatu, edo hari azpijana egiten zion. Xabier Olarra

Ikuste-prozesatzearen eta **ikustun**-identitatearen porrota. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ikustun** (6); **ikustun identitatearen** (3)

---

ikutu ik **ukitu**[1].

---

ikutuka ik **ukituka**.

---

## ikuzarazi, ikuzaraz, ikuzarazten *(orobat **ikuz-arazi**)* du *ad* ikuztera behartu.

Kid kapitainak perraila **ikuzarazi** zuen, ileak erantsiak baitzitzaizkion, odol gatzatuz. Juan Garzia

Euri temati batek tona asko amianto **ikuz**-irazi zituen harrobiaren hormetatik beretatik. Juan Garzia

---

## ikuzgailu *(18 agerraldi, 6 liburu eta 7 artikulutan)* 1 *iz* ikuzteko makina. ik **ikuzmakina; garbigailu.**

Amaren aspaldiko kezka omen zen gure lagunaren galtza zikinen sakelak ongi miatzea, **ikuzgailura** txina eta guzti ez botatzearren. Aingeru Epaltza

Gero **ikuzgailua** ireki eta aitonaren izarak atera zituen. Jon Alonso

**Ikuzgailutik** arropa garbia aterata. Aingeru Epaltza

**Ikuzgailu** asko zeuden ilaran garbitegi publiko hartan. Iñaki Zabaleta

**Ikuzgailua** geratu egin zen eta, arropa bustiak hortik atereaz, lehorgailuan sartu zituen, hamar zentaboko txanponaz makina martxan jarriz. Iñaki Zabaleta

Elektrotresnen saltokian, **ikuzgailuen** eta hozkailuen artean. Aingeru Epaltza

Ilunpetan ere, hango **ikuzgailu** eta idorgailu handiek, hango esekitoki luzeetan zintzilikaturiko arropek ez zuten akelarre baterako paisaiarik aproposena osatzen. Aingeru Epaltza

**2** ikuzteko gailua.

Autoen parabrisa **ikuzgailuak** lapurtzen bide zituen gero tailerretan saltzeko, Pako Aristi

**3** *ontzi-ikuzgailu*

Fagor enpresaren ontzi- **ikuzgailu** lantegi berria inauguratzera.

---

# ikuzgile *iz*

Lagunetan ni izan nintzen baikorrena: urtebete jo nion, gehienez ere, **ikuzgile**. Aingeru Epaltza

---

# ikuzgintza *iz* ikuzgailuak egitea.

Fernando Soria delakoa, **ikuzgintza** sektoreko enpresaria. Aingeru Epaltza

---

# ikuzi, ikuz, ikuzten **1** du *ad* uretan garbitu.

Big Lannie egunez joan ohi zen dama dirudun eta astitsuen etxera, gobada egitera, nola zetazko arropak hala lihozko zapi zuriak **ikuztera**. Mirentxu Larrañaga

Gure jantziak **ikuzteko** agindu zigun. Edorta Jimenez

Barruko arropak hantxe etxe ondoko iturrian **ikuzten** zituen. Edorta Jimenez

Erreka hartako uretan **ikuzten** zitian ikuztegiak lanjantziak: irazi egiten zian, ordea, ur hori, eta ioi-trukezko araztailu batetik pasarazten. Juan Garzia

Lanjantzi eta txanook egunero **ikuzten** dituk. Juan Garzia

Ohe-atorra arrosa ere, josturako ehuna han-hemenka sareturik zuena, **ikuzi** beharraren **ikuzi** beharraz. Mirentxu Larrañaga

Hoteleko nagusi batek, errukitu eta lana eman zion ontzi **ikuzten**. Gotzon Garate

Belea **ikuz** daiteke, xuri ez daiteke... Joan Mari Irigoien

Bazeren **ikuzteko** produktua. Herria

Gordinik kontsumitzeko, aurretiaz **ikuzi** diazinon-ur edo ehetan. Edorta Agirre

Ezin bestean direnek aurkitzen dute hor ongi etorria, kafe bat, dutxa bat, beren **jantziak** ikuzteko tresna bat eta laguntzaile sozial bat entzuteko prest. Herria

· Gizonak heriotzetik **ikuzten** dituen ibai sekretua. Juan Garzia

**2** urarekin garbitu.

Non ote zegoen ura, begitartea **ikuzi** ahal izateko? Patxi Zubizarreta

Miraila jalgi zuen esku-poltsatik eta ileak ozkan ezarri zituen, ezpainak gorritu, koloniako urarekin begitartea **ikuzi** eta freskatu ostean. Itxaro Borda

Apezak hor bilduak zeuden ehun bat beilarieri zangoak **ikuzi** ditu. Herria

Ura burrustaka zarion errobinet batetara joan ginen **ikuztera**. Marzel Etxehandi

Sarjentak bortz minutu eman dizkizuela **ikuzi,** jantzi eta lerrokaturik egoteko. Xabier Montoia

Kolpatuen zaurien **ikuzteko** ozta-ozta. Xabier Montoia

**Ikuziz** kameraren begia errautsez betea. Herria

**3** garbitu.

Munduko bekatuak ezin nehork osoki **ikuzi**. Xabier Montoia

**4** (era burutua izenondo gisa)

Papaia-entsalada baldar **ikuzia** eta chile soberaz maneiaturiko zerriki puska ahoratu bitartean. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ikuzi eta** (6); **ikuzi ondoan** (3); **jantziak ikuzteko** (3)

---

# ikuzketa *iz* ikuztea.

10 orenetan izanen da beribil eta karrosa garbiketa 5 eurotan; barne eta kanpoaren **ikuzketa,** ez da kario! Herria

---

# ikuzle *iz* ikuzten duen pertsona.

Liluragarri zeuden Urumea ibarreko inguru baketsuak... ertzeko **ikuzleak** zalapartan lixiba jotzen. Txillardegi

Eta zubi nagusiaren ondoko **ikuzleez,** Urumean bezala Aturrin, eta Akizen bertan, harrikoa egiten ari. Txillardegi

Bertze biak, **ikuzlea** eta mafiosoa. Aingeru Epaltza

---

# ikuzmakina *iz* ikuzteko makina. ik **ikuzgailu**.

**Ikuzmakina** honek ez dauka stopik. Joxerra Garzia

---

# ikuztaldi *iz* ikuztea.

Bidean iturriren bat aurkitzen badu, **ikuztaldi** bat egingo du Etxean bada, amak atonduko du afaria. Gotzon Garate

---

# ikuzte *iz* uretan garbitzea.

**Ikuzte** edo abluzio erritual eta higieniko horiek egin-eta, mendi Gozora *(Mons Gaudii)* bozkario osoz iragaiten ziren. Piarres Aintziart

---

# ikuztegi *iz* arropa garbitzen den denda.

Lanjantziak **ikuztegitik** zekartzan kamioneta itzultzen ikusi nuenean. Juan Garzia

Lau urte geroago, makineria ultramodernoaz hornituriko **ikuztegi** berria ireki zuen, Jabearen erretretaren kariaz salgai zegoen **ikuztegiaz** jabetu zen, auzo batean. Aingeru Epaltza

Hain segur ere, hire **ikuztegiak** eramateko maneraz nik ere izan nezakek erratekoren bat. Aingeru Epaltza

Haren kamioneta zuri-gorriak maiz topatzen nituen han eta hemen, Soria **Ikuztegiak,** S.L. enpresaren izena harro erakusten zutela.] Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**soria ikuztegiak** (4)

ilabete ik **hilabete**.

ilabetekari ik **hilabetekari**.

ilabetero ik **hilabetero**.

ilabetesu ik **hilabetetsu**.

ilada ik **ilara**.

## ilagin

**1** *iz* artilea egiten edo harrotzen duen pertsona.

Langabezian jausitako irule, ehule, **ilagin,** bolatzaile, tindatzaile, mandazain, dendari eta abarrek. Iban Zaldua

**Ilagin** batek as laurden bat emana zion ordain-sari. Juan Garzia

**2** (**ilagi**-ren ordez ziur aski) ilagia, artilea.

Belartze-atorra, **ilagin** gozo-finezko galtzak eta oinetako leunak. Patxi Ezkiaga

Lau ohol zakar, asto biren gainean, astoak ez hain berdinak, koltxoia mehe, koltxa zirudiena, kozkorrez betea, eta, zarrata batzuetatik **ilagin** -kozkorrak zirela ageri izan ez balute, ukitu hutsetik harri kozkorrak ziruditen. Patxi Ezkiaga

## ilagindegi

*(orobat* ***ilandegi****)* *iz* artilea lantzen den lantegia.

Mendi muinoetan erraus gaizto batek jotzen zituen, alabaina, gure ameztoiak, gaztaindegiak ala mahastiak, eta ibar-zelaietan hesten ziren **ilagindegiak,** oihalgindegiak eta larru-apaindegiak. Piarres Xarriton

ilaia ik **ilaje**.

## ilaje

*(ETCn* ***405*** *agerraldi; orobat* ***ilaia*** *g.er. ETCn* ***49*** *agerraldi)* **1** *iz adkor* ilea. (pertsonena)

**Ilaje** harro eta naroa bizkarrean behera aske duela. Joxean Agirre

**Ilajea** nahasia, bi egunetako bizarra. Migel Angel Mintegi

Esku bat bere **ilaje** naro eta nahasian sartu eta burua nire kontra pitin bat estutuz. Joxean Agirre

Haren **ilaje** aspaldi orraztu gabeagatik ere. Aingeru Epaltza

Bere **ilaje** euriz blaitua. Anton Garikano

Domingori [...] bakantzen eta urdintzen hasia zitzaion **ilaje** beltz sarria. Aingeru Epaltza

Keinu dotore usteko batekin laztantzen zuen **ilaje** bakan eta urdindua. Ander Irizar

**Ilaje** beltza leuntzen zuen bitartean. Juan Garzia

Neskatxak bere **ilaia** iluna orrazten jarraitu zuen. Patxi Zubizarreta

Gizonak eztitasunez laztandu zuen **ilaia** bereizten zion artesia. Patxi Zubizarreta

Haren **ilaje** zilarrezkoak distira egin zuen lanpararen argitan. Jon Muñoz

Nazka-nazka eginda zegoela **ilaje** urrekoloreaz. Karlos Linazasoro

Harroturik **ilajea** eta bihurriturik gorputza, ate erdi-irekiaren babespetik kanpora buru-lepoak eta besagain biluzia baizik ez zitzaizkion agertzen. Aingeru Epaltza

Botilakadaz gorrituriko **ilajearen** azpian. Aingeru Epaltza

Biraka ari zitzaizkion zilar-koloreko **ilajeko** xerlo luzeak, hegan. Jon Muñoz

Ane, beltzarana **ilajez** eta azalez, sorbaldetaraino heltzen zaion txima luzea motots batean lotua, bikea baino beltzagoak begi handiak. Unai Iturriaga

Baten batek ilean sartuko du lorea, eta ausartagoren batek sabelpeko **ilajean** . Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (animaliena)

Behatzez eta oinpeaz katuaren **ilaje** leuna eta sabelaldea laztanduz. Harkaitz Cano

Aspaldion **ilaje** bereko astooi laket zaigu elkarri azkurea kentzea. Koldo Izagirre

Otsoko gorri eder bat, azeri kolore distiratsua eta **ilajez** harro askoa. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**bere ilaje** (8); **eta ilaje** (3)

## ilar

**1** *iz* baratzeko landare lekaduna, jaten diren hazi biribilak ematen dituena*(Pisum sativum).*

**Ilarrak** haztea ere lortu dute, grabitate gabeko baldintzetan. **Ilarrak** eta babarrunak beren zurtoin meheak kiribiltzen hasiak ziren hango zurkaitz basoan. Karlos Zabala

· **Ilarretan** ondoretasuna nola gauzatzen den azalduz Gregor Mendel-ek idatziriko lehenbiziko txostenaren mendeurrena. Juan Garzia

**Ilarraren** ondoren, eulia hartu zuen aztergai genetikak. Juan Garzia

**2** landaren horren hazia edo alea.

Bentzenoaren matrazean **"ilar** erdi baten lodierako" potasio xorta bat bota. **Ilarrak** aletzea nahiko lan nekagarria da berez ere, baina ez dakizu zer den lekak zuritzea. Juan Garzia

Harrak jotako **ilarrak** bezala isurtzen zitzaizkion biraoak ahotik. Koro Navarro

**Ilar** eta azalore lurrintsuak. Edorta Agirre

**Ilar** berriak irailean. Anton Garikano

**Ilar** guztiak jan zituenean, garagardoa hurrupatu eta Corleyren abenturan pentsatzen egon zen tarte batean. Irene Aldasoro

Garunak **ilarrekin,** saltxitxak azalorearekin. Jose Morales

Eta 'guk' holako **ilar** handiak eta beste handiago batzu ere, egun guziz, errexki irensten!! Herria

**3** (neurriekin)

Hogeita hamarren bat kilo babarrun eta bost kilo **ilar** ditugu. Josu Zabaleta

Lakari bat **ilar** eman zion Denverri, aletu eta gauean beratzen uzteko. Anton Garikano

-Ekarri plater bat **ilar** -esan zuen-, eta botila bat garagardo gorri. Irene Aldasoro

Plater bat **ilar** min, piper eta ozpinez atondurik. Irene Aldasoro

Zenbat da plater **ilarra** ? -galdetu zuen Lenehanek. Irene Aldasoro

**4** (hitz elkartuetan)

**Ilar** -ale gordinen antzeko notak ausaz kantatzen ziharduen zozoa. Itziar Otegi

Etxean batera eta bestera nabil **ilar** -aletxo bat botila batean bezala. Nik uste dut oso jende gutxik dakiela zenbat bitamina duten eta zein gozoak eta samurrak diren **ilar** lekak, barruko azala kendu diezunean. Oskar Arana

**Ilar** -ontziaren ondoan eseri zen Harry. Iñaki Mendiguren

Oilo salda usaina, baba eta **ilar** bihikatze soinua. Itxaro Borda

· Arbi sorta zuriez, **ilar** eta aza pila berde biziez osaturiko loratze jori hartan. Karlos Zabala

Atzo amak lehenengo **ilar** zopa egin nahi izan zuen. Josu Zabaleta

**5** babarruna.

**Ilarraz** , ilar-biribilaz edo babaz mintzatzen direnean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**6** ***ilar biribil*** *ipar* ilarra.

Ilarraz, **ilar** -biribilaz edo babaz mintzatzen direnean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bazkaria: salda, amuarraina, ahatea, **ilar** biribila, entsalada, ardi gasna, bixkotxa, kafea eta ondokoa, 80 libera. Herria

Bazkaria (Salda, arraina, ahatekia, **ilhar** biribilak, entsalada, ardi gasna, bixkotxa, kafea, ondokoa, arnoa...). Herria

**6** ***ilar gorri*** babarrun gorria.

Afaritarako, esku bete lentexa edo **ilar** -gorri. Jokin Urain

Aitamek irrisa eta **ilhar** gorria ekarrarazten dituzte Tachunaldu lurraldean. Herria

**7** ***ilar leka*** *(orobat **ilarleka**)* ilarraren leka.

Xerrikia ilar zuriekin edo **ilar lekarekin** . Herria

Bai segur, dela porru, aza, tipula edo baratxuri, dela piper, pastenagre, entsalada edo **ilarleka,** ahantzi gabe perrexila eta xarbota. Daniel Landart

Gero aratxekia errerik eta hunen laguntzeko **ilar leka** eta lur sagarrak. Herria

Oso jende gutxik dakiela zenbat bitamina duten eta zein gozoak eta samurrak diren **ilar lekak,** barruko azala kendu diezunean. Josu Zabaleta

**8** ***ilar xabal*** *ipar* dilista.

Etxekoandreek ezin asmatuzko tokietan guarden bistatik gorde zituzten barazki idortuak, hala nola apez ilarrak eta **ilar xabalak** ahal bezain xuhurki xahutzen zituzten. Elena Touyarou

**9** ***ilar xehe*** *ipar* ilarra.

Bildoxkia edo oilaskoa hautuan **ilar** xehearekin. Herria

Atunkia **ilar** xehe batzuekin. Herria

**10** ***ilar zuri*** ilarra.

Mertxikak, meloia, **ilar** zuriak, ardi-gazta, oilasko-izterrak... Aingeru Epaltza

Xerrikia **ilar** zuriekin edo ilar lekarekin. Pote bat **ilar** zuri. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bat ilar** (4); **edo ilar** (4); **eta ilar** (10); **eta ilarra ipuinaren** (3); **eta ilarrak** (5); **ilar ale** (3); **ilar eta** (3); **ilar zopa** (3); **ilarrak aletzen** (4); **ilarrak eta** (3); **printzesa eta ilarra** (3)

---

# ilara *(orobat **ilada** g.er.)* **1** *iz* errenkada, ondoz ondoko gauzen lerroa.

Irudi beltz ttipiak **ilara** eta **ilara** amaigabeetan. Agustin Otsoa

Beste batek **ilara** txukun monotonoetan lerrokatzen zituen etengabe adreiluak. Xabier Olarra

Idazmahai horien **ilarak** eta idazmakina estaliak. Lopez de Arana

-Edonola ere, joan den astean berrezarri egin dugu telegrafo-tantaien **ilara** . Txillardegi

Soldaduak plazan **ilarak** eratuz zeuden ordu berean agertu zen Martin. Koro Navarro

*Dispertsioak heriotza daka*r ohartarazi zuten 33 lagunek bi **ilara** osatuz. Berria - Euskal Herria

**Ilara** luzexkak gertatu ziren Aguileran. Berria - Kirola

Udaltzainek autoak beste kale batzuetatik bideratu behar izan zituzten **ilarak** arintzeko. Berria - Ekonomia

Goizean lau kilometro inguruko **ilarak** sortu ziren Irunen.

Etxe handizko bi **ilaren** artean. Josu Zabaleta

Kale inorgabeak luze hedatzen ziren gas argiontzien **ilaren** azpian. Karlos Zabala

**Ilararen** amaieran, arriskurik handieneko lekuan. Julen Gabiria

**Ilararen** buruan. Iñaki Mendiguren

**Ilararen** eskuineko muturrean zegoen botila biribila seinalatu zuen Hermionek. Iñaki Mendiguren

Eta **ilarako** mutur batean, txakurkume beltz mordoxka bat topatu dut. Txillardegi

Balthazar, François andrearen zaldia, abere gizenegia, **ilararen** buru zihoan. Karlos Zabala

Arnasestuka lehendabiziko solairura iritsi nintzenean [...] self-service-n **ilaran** ikusi nuen. Ramon Saizarbitoria

**Ilarako** gizonek buelta eman eta kutxei begira jarri ziren. Anton Garikano

**Ilaratik** bereizi eta han barrena pasatzen ari zen zakur bat besarkatzera joan zen lasterka. Fernando Rey

Bertakoen **ilaretan** nahasirik. Karlos Zabala

**2** (izenlagunekin)

Lehenbiziko **ilaran** esertzen zen. Joseba Urteaga

Bigarren **ilaran** aparkatutako autoek utzitako pasaleku estuetan. Urtzi Urrutikoetxea

Iganderoko zinezaleak ez baitziren sekula beheko 21garren **ilarako** butaketan esertzen. Joseba Sarrionandia

Sarrerak erosteko **ilaran** jarri nintzen. Anjel Lertxundi

Inor ohartu gabe, atzeko **ilarako** eserleku batean esertzen da. Oskar Arana

Gasolindegien inguruan 3 kilometroko **ilarak** ere egoten dira. Berria - Mundua

Haren atzetik hamabi zaldi gorri-beltzak zihoazen, seinakako **ilaretan,** sei orain eta sei gero. Felipe Juaristi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Lepo bakoitzean buru izugarri bana dauka, eta buru bakoitzean hiru hortz-**ilara** beldurgarriak. Juan Kruz Igerabide

Nikelezko hortz-**ilarak** zituen aho bat zen linotipia, irensten, xehatzen zuena. Lopez de Arana

Bi jendarme **ilara** alboetan, fusilak kargaturik. Karlos Zabala

Orpoz orpo, Dantxarinetikako errepidetik gorantz, soldadu **ilara** trinko bat ikusi dut. Txillardegi

Gurdi **ilara** gehiago eta gehiago zetozen azoketarantz, etengabe. Karlos Zabala

Adreilu horizko eraikin-**ilara** baten parera. Lopez de Arana

Murrutzar beltza eta hari erantsitako txabola-**ilara** xumea. Txillardegi

Bi leiho **ilara** oso ageri dituk, elkarren gainean paraturik. Txillardegi

Gas-lanparen argi zakarraren azpiko ohe-**ilarak**. Lopez de Arana

Aldare nagusiaren atzean, zutabe **ilara** bikoitzaren itzalpean. Karlos Zabala

Belus higatuzko besaulki-**ilara** batera. Jon Muñoz

Mahats-soroak eta olibondo-**ilarak** hasi ziren ikusten. Josu Zabaleta

Maldan gorako zuhaitz **ilara** bikoitz hura. Txillardegi

Goitik behera eta behetik gora miatu ditut Morse-ikur **ilara** haiek. Txillardegi

**4** ***ilaran*** *adlag* ik beherago **7.**

**Ilaran** atera gintuzten galeriatik kanpora. **Ilaran** zihoazen espaloi estutik. Jokin Urain

Eta bost izen zetozkidan **ilaran,** behin eta berriz, etengabe, etsimenduaren ezintasun errepikakorrean: [...]. Txillardegi

Bost leiho zabal ditu **ilaran** etxaurre bikainak. Txillardegi

**Ilaran** galdu ditugu geure buruzagirik maiteenak... Txillardegi

'Denak **ilaran** irten eta trenaren kontra!' deiadar egin du beste soldadu batek. Joseba Sarrionandia

Agudo zebiltzan, **ilaran,** izeba-ilobei sakela beteen zamak traba egiten ziela. Karlos Zabala

-Eta gero sein piloa **iladan**. Xabier Amuriza

**5** ***auto ilara***

Auto **ilararik** ez errepidean. Berria - Harian

Houstondik ateratzeko, berriz, 160 kilometroko auto **ilarak** zeuden. Berria - Harian

Istripuak auto **ilara** luzeak eragin zituen.

Auto **ilara** luzeak izan dira A-8an irteera operazioko bigarren egunean.

**6** ***bigarren ilara***

Auto gehiegi **bigarren ilaran**, betaurreko ilun franko kalearen bi aldeetan, zigarro piztu bana betaurrekodunen ahoetan. Iban Zaldua

**Bigarren ilara** desagertu dela azpimarratu du, eta horrek autobus publikoen zirkulazioari egin diola mesede. Berria - Euskal Herria

Goazen bizkortxo, kotxea **bigarren ilaran** daukat aparkatuta-eta, garabia azaltzen bada ikusiko duzu... Joxemari Iturralde

106. kalera sartu zen eta 448. zenbakira heltzean gelditu egin zen, autoa **bigarren ilaran** utziz. Iñaki Zabaleta

**7** ***ilara-biko*** *(corpusean* ***ilarabiko*** *soilik)*

Aldea, teknikoa ere bazelako: [soinu] **ilarabikoarekin** beti-betiko errepertorioko dantzez gain, lotua ere jo zitekeen. Iñigo Aranbarri

**8** ***ilaran-ilaran***

Imajina dezagun azukre-kanaberen artean gaudela etzanda eta **ilaran-ilaran** pasatzen ikusten ditugula, eskuan daga bana daramatela. Julen Gabiria

**Ilaran-ilaran** jarriko bagenitu denak. Julen Gabiria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agerpenen ilara** (3); **armairu ilara** (3); **auto ilara** (84); **auto ilara amaigabeak** (3); **auto ilara handiak** (8); **auto ilara luzeak** (44); **baldintzen ilara** (24); **baldintzen ilara bere** (3); **baldintzen ilara osoa** (3); **baterako baldintzen ilara** (4); **beste ilara** (5); **bi ilara** (12); **botoi ilara** (3); **da ilara** (4); **den ilara** (4); **egoeren ilara** (3); **emakume ilara** (3); **ere auto ilara** (5); **errepresentazioen ilara** (3); **eta auto ilara** (11); **eta ilara** (19); **eta ilara luzeak** (3); **etxe ilara** (7); **gizon ilara** (3); **hiru ilara** (4); **hortz ilara** (5); **ibilgailu ilara** (8); **ibilgailu ilara handiak** (4); **ibilgailu ilara luzeak** (3)

**ilara amaigabeak** (7); **ilara bat** (50); **ilara bat dago** (3); **ilara bat eta** (4); **ilara bat osatzen** (5); **ilara bat zegoen** (4); **ilara batean** (13); **ilara batean zehar** (3); **ilara batek** (7); **ilara baten** (15); **ilara batera** (3); **ilara batzuk** (3); **ilara bere** (4); **ilara bere baitan** (3); **ilara bi** (3); **ilara egin** (3); **ilara enpirikoaren** (3); **ilara estu** (3); **ilara eta** (5); **ilara gisa** (5); **ilara handiak** (16); **ilara handiak izan** (4); **ilara handiak sortu** (5); **ilara honen** (4); **ilara luze** (17); **ilara luze bat** (3); **ilara luzea** (13); **ilara luzeak** (81); **ilara luzeak daude** (3); **ilara luzeak egin** (5); **ilara luzeak eragin** (9); **ilara luzeak izan** (10); **ilara luzeak sortu** (29); **ilara luzean** (5); **ilara luzeen** (4); **ilara luzeetan** (4); **ilara osatzen** (3); **ilara oso** (5); **ilara oso bat** (3); **ilara osoa** (11); **ilara osoa ere** (3); **ilara osoak** (3); **ilara zegoen** (4)

**inurri ilara** (3); **istripuak auto ilara** (3); **jazoeren ilara** (3); **jende ilara** (12); **kamioi ilara** (3); **leiho ilara** (3); **zen ilara** (3)

**auto ilarak** (97); **auto ilarak eragin** (7); **auto ilarak eta** (3); **auto ilarak izan** (8); **auto ilarak jasan** (3); **auto ilarak saihesteko** (3); **auto ilarak sortu** (34); **auto ilarak sortzen** (3); **diren auto ilarak** (3); **eta auto ilarak** (9); **ilarak bere** (3); **ilarak daude** (3); **ilarak eragin** (9); **ilarak eragin zituen** (6); **ilarak eta** (10); **ilarak ez** (6); **ilarak izan** (11); **ilarak izan ziren** (9); **ilarak jasan** (3); **ilarak osatzen** (3); **ilarak saihesteko** (3); **ilarak sortu** (47); **ilarak sortu dira** (5); **ilarak sortu ziren** (33); **ilarak sortu zituen** (4); **ilarak sortzen** (6); **ilarak zeuden** (5); **inguruko auto ilarak** (6); **jende ilarak** (7); **kilometroko auto ilarak** (26); **kilometroko ilarak** (10); **kilometroko ilarak sortu** (3); **kilometrotako auto ilarak** (3); **metroko ilarak** (3); **sei kilometroko ilarak** (3); **ziren ilarak** (4)

**agerpenen ilaran** (9); **atzeko ilaran** (5); **aurreko ilaran** (5); **aurreneko ilaran** (5); **auto ilaran** (6); **autoa bigarren ilaran** (3); **azken ilaran** (5); **baldintza enpirikoen ilaran** (3); **baldintzen ilaran** (6); **banakako ilaran** (3); **bateko ilaran** (3); **batera ilaran** (3); **bigarren ilaran** (13); **da ilaran** (3); **denak ilaran** (3); **denboraren ilaran** (4); **enpirikoen ilaran** (3); **ere ilaran** (4); **eta ilaran** (7); **eta lehen ilaran** (3); **ilaran beste** (3); **ilaran eseri** (3); **ilaran esertzen** (3); **ilaran eta** (5); **ilaran jarri** (22); **ilaran jarri zen** (7); **ilaran jarriak** (5); **ilaran jarriko** (3); **ilaran jarrita** (12); **ilaran jartzeko** (4); **ilaran jartzen** (9); **ilaran jartzen dira** (3); **ilaran zain** (7); **ilaran zegoen** (7); **ilaran zeuden** (13); **lehen ilaran** (7); **lehenengo ilaran** (6); **ondoan ilaran** (3); **zeuden ilaran** (9)

**agerpenen ilararen** (5); **agerpenen ilararen itzulera** (3); **aurreko ilarara** (3); **auto ilararik** (4); **baldintzen ilararen** (12); **bi ilaratan** (5); **hiru ilaratan** (3); **ilararen itzulera** (3); **ilararen osakide** (8); **ilararen osotasun** (5); **ilararen osotasun absolutua** (3); **ilararen totalitate** (3); **ilararen zatia** (3); **ilarari begira** (3); **ilararik ez** (5); **ilaratan zeuden** (3); **ilaratik at** (5)

---

ilarabiko ik **ilara 6**.

---

## ilaratxo *iz* ilara laburra.

Beren txanda noiz tokatuko, han jartzen ziren bata bestearen atzean, eta **ilaratxoa** laster hasi zen luzatzen. Iñaki Iñurrieta

---

## ilargi *(orobat **illargi** g.er.)* **1** *iz* Lurraren satelitea, Eguzkiak argitzen duena, gaueko argizagi nagusia.

Duela 35 urte Neil Amstrong izan zen **Ilargian** pausoak eman zituen lehen gizakia. Berria - Gaiak

**Ilargiko** lurrazala aztertzeko robota bidali nahi du Bushek gizakia bidali aurretik. Berria - Gaiak

**Ilargiko** harri kozkor batzuk eta han lurrean bildu dugun errautsa. Pello Salaburu

**Ilargiko** kraterren irudi bat. Josu Zabaleta

**Ilargiko** beste mineral bat aurkitu dute, 2000. urtean Lurrera iritsitako meteorito batean. Berria - Gaiak

**Ilargiko** ipar-poloko puntu batean. Berria - Gaiak

Triku ikusi nuen Obabako ostatuan Amstrong eta bere kideak **ilargira** iritsi ziren egunean. Bernardo Atxaga

**Ilargira** aurrenezkoz heldu zirenak sobietarrak izan ginen. Iban Zaldua

Hiru eguneko bidaia da Lurretik **ilargirakoa**.

Teleskopioarekin **ilargiko** izakien bizitza ikus daitekeela. Berria - Kultura

*ik* ilargitar.

**Ilargiak** lurra inguratzeko behar duen denbora. Pello Salaburu

## **2** Ilargiaren itxura Lurretik ikusten den bezala.

**Ilargi** gabeko gau bat zen, aire gabea, erregarria. Josu Zabaleta

*ik* ilargigabe.

**Ilargirik** gabeko gaua zen. Michel Oronoz

Biak **ilargirik** gabeko zeruari begira zeuden gau batean. Xabier Aranburu

**Ilargiak** argitzen zuen dena, eta gauzarik txikienak ere ikus nitzakeen. Koro Navarro

Eguzki, **ilargi** eta izarrek distira egiten dute eta esaneko dira eman zaien eginkizuna betetzen. Elizen arteko biblia

**Ilargi** gorri handi-handi bat altxatzen da ezponda atzetik. Koldo Biguri

**Ilargi** zurbila baino zurbilago geratu zen aita. Joan Mari Irigoien

Koroa txikia **ilargiaren** jiran uztaitua sarri ikusi ohi da. Pello Zabala

***Ilargi*** *koroatua, laster euri* zioten Azpeiti aldean. Pello Zabala

Hiru brie gazta, ohol biribil batzuen gainean, malenkoniatsu ageri ziren, **ilargi** itzaliak iduri. Karlos Zabala

**Ilargiak** bere betealdia izan eta gero, ilzahartu eta gero, beheruntz abiatu denean. Pello Zabala

**Ilargiaren** gorapenean jarritako arrautzetatik, gehienak oilasko; beherapenean ipinitakoetatik, oilandak. Pello Zabala

**Ilargi** lehen laurdenean gaude eta beherapena. Herria

**Ilargiaren** distira hor-hemen. Jose Morales

## **3** beste planeta baten satelitea.

Cassini-Huygens espazio zundak beste bi **ilargi** atzeman ditu Saturnoren orbitan. Berria - Gaiak

Neptunon beste bost **ilargi** atzeman ditu nazioarteko astronomo talde batek. Berria - Gaiak

Phobos, Marteren **ilargia**. Berria - Gaiak

Jupiterren mapa bat hartu eta haren **ilargien** izenak ikasten hasi zen. Iñaki Mendiguren

Saturnoren Titan **ilargi** gorrixkan lur hartuko du robotak, **ilargi** hori solidoa baita. Berria - Gaiak

Diotenez, Uranoko gainerako **ilargien** antzekoa dirudi sateliteak. Berria - Gaiak

**Titan** ilargiaren orain arteko irudirik zehatzenak. Berria - Gaiak

Xena-k **ilargi** bat duela. Berria - Gaiak

Sedna planetak ez du **ilargirik**. Berria - Gaiak

2008ko udaberrian beste aukera bat izango du Cassini zundak Enceladusi argazkiak egiteko, **ilargitik** 350 kilometrora igaroko baita. Berria - Gaiak

Planeta eta **ilargietan** laginak hartu behar dituzten misioek ziurtatu behar dute aurkituko diren gaiak ez dituela zundak berak lurretik eraman. Berria - Gaiak

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ez zen oroimen-irudimenetan agertzen zitzaidan bezalakoa, ametsezkoa eta **ilargi**-argiak argitua. Ander Irizar

Hegazkinaren hegalak **ilargi**-argitan diz-diz, hotz. Joxe Austin Arrieta

**Ilargi**-gaua zenean, haren argitan aritzen zitunan lanean. Anton Garikano

Bizarginaren **ilargi**-itxurako aurpegi koipetsua. Lopez de Arana

Aurrerantzean ez duzu eguzkirik beharko eguna argitzeko, ez eta **ilargi**-distirarik ere gauez. Elizen arteko biblia

**Ilargi**-errainuarena aitzakia hutsa baitzen, neska erromantikoren bat engainatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Begira jarri zen **ilargi** esnez bustita zirudien ganbera hartan. *ik* 16. Felipe Juaristi

Agindu horiei jarraituz, **ilargi** giroko eszena misteriozko bat eratuko da. Josu Zabaleta

**Ilargi**-paisaje hartan. Jon Alonso

Noiz hasten da **ilargi** eguna? Pello Zabala

**Ilargi** urte bateko epean, ikusezin izendatu naute. Juan Garzia

Nor bere **Ilargi**-urtearen arabera. Patxi Iturritegi

Babiloniarrek, esaterako, **ilargi** egutegia zuten, 30 eguneko hamabi hilabetekoa. Pello Salaburu

Zilar-koloreko ilea eta bizar luzeak zituen, **ilargi**-erdiaren tankerako betaurrekoak eta sudur guztiz kakotua. Iñaki Mendiguren

Mendi ostean erortzear dagoen **ilargi** laurden hori mehe batek odaiertzaren ertzetik argitzen duen gau hits zuhaila. Josu Zabaleta

Badakigu **ilargi** betealdi bakoitzak 29 egun eta puxka bat dituena. Pello Zabala

Arropa amerikano arruntak zeramatzaten soinean, beren **ilargi**-ospakizunerako. Joxe Austin Arrieta

Elizak [...] bere egun eta festa nagusiak **ilargi** jokoaren mende kokatzen ditu. Pello Zabala

**Ilargi** izpi bat ere ez zen ageri. Pello Zabala

Ez dirudi pozik daudenik, izuturik baizik, **ilargi** kolorea hartu die aurpegiak. Felipe Juaristi

Mitxeletak zebilzkion buruaren inguruan, mitxeleta zuri, **ilargi**-kolorekoak. Felipe Juaristi

**Ilargi** aldaketa garaietan. Itxaro Borda

**Ilargi**-izpi eskukadak harrapatzeko. Julen Gabiria

## **5** ***ilargitan*** ilargiaren argitan

**-Ilargitan** bezain ederra zara eguzkitan ere -eten zuen Andreasek isiltasuna. eta eguzkitan, **ilargitan** eta izar guztien argitan zabalduko dituzte. Anjel Lertxundi

Harryk Firenzeren buruaren atzealdeari begiratu zion, eta **ilargitan** zilarreztatua ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Badoa apaiza maldan gora, arnaska, **ilargitan** itzal beltza arrastaka daramala. Anjel Lertxundi

Gure itzalak **ilargitan:** guraizez ebakitako siluetak!, Sabethen irudiko. Joxe Austin Arrieta

## **6** ***eguzki-ilargi*** *pl* eguzkia eta ilargia.

**Eguzki-ilargiok,** bedeinka ezazue Jauna. Elizen arteko biblia

Haien aurrean dardar dagi lurrak, ikara da zerua; **eguzki-ilargiak** ilundu egiten dira, izarrek beren dirdira galtzen. Elizen arteko biblia

Zureak dira gau-egunak, zuk eratuak **eguzki-ilargiak**. Elizen arteko biblia

Haren edertasuna eguzki-**ilargiek** miresten baitute. Askoren artean

Eguzki-**ilargien** orbitak nola sortu zituen. Xabier Amuriza

· Handik isurtzen baitigute **eguzki-ilargi**-izarrek euren argia lurrera. Imanol Unzurrunzaga

## 7 *ezti-ilargi* eztei bidaldia.

Eta Gabriel Grettarekin zihoan berriro kotxean, lauhazka, ontzia hartzera, lauhazka, beren ezti-**ilargira**. Irene Aldasoro

## 8 *ilargi amandre*

Atarian eserita, izarrei eta **ilargi** amandreari begira. Aitor Arana

Xarma berezia dizu **ilargi** amandreak horrelakoetan. Pello Zabala

**Ilargi** amandrea, zeruan zer berri? Pello Salaburu

-Gu biok eta **Ilargi** Amandrea. Koro Navarro

· Ilgora eta ilbehera, hortxe dabil gizendu eta flakatu, bete eta hustu gure amandre**ilargia**. Pello Zabala

## 9 *ilargi beltz* ilargi berria.

Hilabete hastapeneko gau batez, **ilargi** beltzaren ilunaz baliatuz, haren lantegitik hartu trukesekin alanbre xixtadun 8atzuen moztera ahalegindu zen. Eneko Bidegain

## 10 *ilargi berri* ik **ilberri**.

Asteartearen edo ostiralaren maldiziotxoa berekin ekarriko ote zuen **ilargi** berri edo ilbeteak. Pello Zabala

Izan zen udazken bat, aspaldikoa, zeinetan **ilargi** berria San Martin egunez egokitu zen, azaroaren 11n. Pello Zabala

Pazkoz ilargi-zar, hausterrez **ilargi** berri akordatuko ziren. Pello Zabala

Astearte huntaz geroz **ilargi** berriarekin gorapena, Astearte huntako **ilargi** berriarekin gorapentzen gira. Herria

Ortzegun huntan **ilargi** berria, gorapentzen, aro ederraren meneko gaude. Herria

## 11 *ilargi bete* ik **ilbete**.

**Ilargi** betea da gaur. Xabier Etxabe

**Ilargi** betea ortzegun huntan. Herria

**Ilargi** beteko gauetan. Joan Mari Irigoien

**Ilargi** betetik **ilargi** betera. Pello Zabala

Jo turuta ilargi berrian, eta **ilargi** beteko gure jaiegunean. Elizen arteko biblia

Nire buru gainean, **ilargi** handi, bete, zabal bat hedatzen zen, zeru urdinkara esnezko baten erdian argi ematen. Josu Zabaleta

Mutil galant bat irten zen, **ilargi** betearen parekoa, bibote sarriekikoa eta masail gorriduna. Patxi Zubizarreta

Nire bi titiek salto egin zuten aske, xamurrak eta ederrak bi **ilargi** beteen antzera. Karlos Zabala

Zenbat, haur eta heldu, txundituta egon izan diren **ilargi** bete-beteari begira! Pello Zabala

**Ilargi** ia betea leihotik. Joxean Sagaztizabal

**Ilargi** betearekin beherapenean sartu gira aste huntan. Herria

**Ilargi** betea eta beherapena igandean. Herria

## 12 *ilargi-eri* ilargi-joa.

Ebanjelioan ageri diren ilargiak-jotako haien gaitza, Jesusi senda zitzan bazter guztietatik eramaten zizkioten haiena: **ilargi-eriak,** halaxe deitu izan zaie aspaldiko itzulpenetan. Pello Zabala

**Ilargi-eriz** jota etorri badira. Pello Zabala

## 13 *ilargi eklipse*

Bezperatik komunikabideetan iragarrita zegoen gau hartan **ilargi**-eklipsea izango zela. Aitor Arana

Egun hartan egokitu zen **ilargi**-eklipse bat. Pello Zabala

**Ilargi**-eklipse bat zertan datzan ongi aski ez baneki bezala. Joxe Austin Arrieta

Ordura arte sekula ez baikenuen, ezta nik ere, hain **ilargi**-eklipse argirik ikusi. Joxe Austin Arrieta

Almanaka bati esker **ilargi-eklipse** baten berri izan zuen. Martin Anso

## 14 *ilargi-erdi* (orobat ***ilargierdi*** *g.er.)* diskoaren erdia edo gutxiago argitua duen ilargiaren irudia.

Andaluziar ikurrak azaltzen dira, arabiar **ilargi erdiarekin** batera. Berria - Kultura

Launa zauri ziren esku bakoitzean, **ilargi erdien** antzekoak. Alberto Ladron Arana

Zortzi **ilargi erdi** odoltsu haiei begira. Alberto Ladron Arana

Estalpeko kale nagusiaren gangaren armazoi garaiak argitasunezko **ilargi erdi** bat ebakitzen zuen zeruaren urdin zurbilean. Karlos Zabala

Ikusi nuen bihotzaren aldea gurutzatzeko xedeaz pentsatua zegoela **ilargierdia**. Koro Navarro

Zilar-koloreko ilea eta bizar luzeak zituen, **ilargi**-erdiaren tankerako betaurrekoak eta sudur guztiz kakotua. Iñaki Mendiguren

**Ilargi erdi** baten itxurako kateorratz bat. Patxi Zubizarreta

Zaldiraino joan eta **ilargi-erdi** itxurako ezpata luzea hartu zuen Alkimistak. Xabier Aranburu

Ararateko gailurraz bestaldean eguzkia artean ez zen **ilargi-erdi** gorri bat besterik. Fernando Rey

Azazkaletako **ilargi erdiak** akasgabeak zituen. Irene Aldasoro

## 15 *Ilargi Erdi Gorri* Ilargi gorria.

«Inongo babesik gabe sartu dira, Armada estatubatuarraren kontrol batean minutu batzuk geldi pasa ondoren», adierazi zuen **Ilargi Erdi Gorriko** bozeramaile batek. Berria - Mundua

Munduko Elikadura Programako (PAM) bi langile sudandar eta **Ilargi** Erdi Gorriko beste hiru bahitu zituztela larunbatean Darfur hegoaldean. Berria - Mundua

**Ilargi** Erdi Gorriak artatu behar izan zituen. Berria - Mundua

## 16 *ilargi esne*

Mineral sekundario ezezagunez osatutako egoera berezi hori osatzen zuen substantziari *moonmilk* edo **ilargi** esne izena jarri zioten orduan zientzialariek. Berria - Gaiak

Aizarnan **ilargi** esnezko erreka bat dagoela argitu du Aranzadi elkarteak. Berria - Gaiak

**Ilargi** esnea paretetan dagoen estaldura bat da, zuria eta distiratsua. Berria - Gaiak

Ernioko errekako **ilargi** esnea, berriz, egoera likidoan dago. Berria - Gaiak

## 17 *Ilargi Gorri* Gurutze Gorriaren arabiar kidekoa.

**Ilargi** Gorria erakundearen arabera. **Ilargi** Gorriko bozeramaile Ahmed Al Rauiak.

**Ilargi** Gorriko arduradun Ahmedu Uld Haiek azaldu zuenez. Berria - Mundua

Irakeko **Ilargi** Gorriak azaldu duenez, Falujako erasoa baino lehen, 300.000 pertsonak alde egin zuten hiritik. **Ilargi** Gorriko zuzendariak, Fardous al Ubaidik giza hondamendia gertatzen ari dela ohartarazi zuen.

**Ilargi** Gorriak Mauritanian duen ordezkaritzak atzo jakinarazi zuenez. Berria - Mundua

Emakumea **Ilargi** Gorriak Bamen duen ospitalean dago orain. Berria - Mundua

«Populazioarentzat osasun arrisku handia dira gorpuak», azaldu zuen Gurutze Gorriaren eta **Ilargi** Gorriaren Elkarteen Nazioarteko Federazioko kide Marko Kokicek. Berria - Mundua

## 18 *ilargi-jo* (orobat ***ilargijo****)* Ilargiaren eraginpean dagoen pertsona, aldizkako zoroaldiak dituena.

Badira, bai, artean ere, **ilargi-joak** eta ilargi-aldiak dituztenak... Pello Zabala

Ilargitar [...] Ilargiko biztanlea, **ilargi-joarekin** nahasi behar ez dena; hori ilargiak. Xabier Olarra

Eta Hitlerrek halako **ilargijo** bat dauka bere buruzagien artean? Alberto Ladron Arana

**18a *ilargi urte*** Lurreko behatzailearentzat Ilargiak eguzkiaren inguruan 12 itzuli egiten ematen duen denbora, gutxi gorabehera 354 egunek osatzen dutena.

**Ilargi urte** bateko epean, ikusezin izendatu naute: oihu negien eta ez zidaten erantzuten, ogia ebasten nuen eta ez zidaten bururik mozten. Juan Garzia

Mahai inguruan esertzeko orduan ere oso kontuan hartzekoa omen zen Kua zenbakia, eta halaxe jarri ginen, txintxo-txintxo, nor bere **Ilargi-urtearen** arabera. Patxi Iturritegi

**19 *ilargi zuri*** *(orobat **xuri**)* ilargiaren argia. ik **ilargite**.

Beha egoiten gara, beha luzaz, ilun beltza da **-ilargi** xuri. Marzel Etxehandi

Gaua ederra da, **ilargi** xuri eta hotzik ez. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Ilargi** -zuritan ikusi zen altzairuaren distira. Xabier Aranburu

Ur beltz dirdiradunaren klaxka-klaxka **ilargi** zuritan. Aurelia Arkotxa

Eduardo Gerra burusoila, Zilarbizi ezizenez ezagunagoa, **ilargi** zuritan haren buruak zilarbiziak bezala egiten baitzuen distira. Felipe Juaristi

Arrats hartan bi gizon, ingelesak, mugaraino lagundu behar zituen, ekaineko aro eder eta epel batez, **ilargi** xuria lagun. Eneko Bidegain

Azken dolarra ere joka dezakek ez dela ez **ilargi** xuririk ez ele-melerik izango. Irene Aldasoro

**Ilargi** zuria zen, orbainez estalia. Koro Navarro

Haren begiak bi **ilargi** zuri ziren, handi-handiak. Jon Muñoz

· **Ilargi** -xuritea dela gauero sartu zaigu buruan. Pello Zabala

**20 *ilargi zahar*** ilargi betea. ik **ilbete**.

Pazkoz **ilargi** -zar, hausterrez ilargi berri akordatuko ziren. Pello Zabala

Goian **ilargi** izoztu eta zahar-zaharra ñirñirka ari zen, mendigainak erdizka estalirik. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat ilargi** (4); **bi ilargi** (9); **da ilargi** (7); **den ilargi** (3); **dute ilargi** (3); **edo ilargi** (6); **eguzki eta ilargi** (4); **ere ilargi** (3); **eta ilargi** (43); **eta ilargi betea** (3); **eta ilargi erdi** (3); **ez ilargi** (3); **gure ilargi** (3); **hurrengo ilargi** (4)

**ilargi aldaketa** (3); **ilargi aldera** (5); **ilargi aldi** (3); **ilargi aldiak** (3); **ilargi amandre** (3); **ilargi amandrea** (4); **ilargi amandreari** (3); **ilargi argitan** (8); **ilargi atzeman** (3); **ilargi atzeman ditu** (3); **ilargi aurpegiduna** (4); **ilargi bat** (7); **ilargi berria** (11); **ilargi berriarekin** (7); **ilargi bete** (7); **ilargi betea** (31); **ilargi betea zegoen** (4); **ilargi beteak** (14); **ilargi betearekin** (5); **ilargi betearen** (11); **ilargi beteari** (4); **ilargi beteko** (13); **ilargi beteko gau** (4); **ilargi beteko gauetan** (4); **ilargi eklipse** (4); **ilargi eklipsea** (6); **ilargi erdi** (11); **ilargi erdia** (3); **ilargi erdiaren** (7); **ilargi erdiaren tankerako** (3); **ilargi esnea** (5); **ilargi esnezko** (3); **ilargi eta** (19); **ilargi gabeko** (4); **ilargi gaua** (3); **ilargi gorria** (6); **ilargi gorriak** (19); **ilargi gorriak ohartarazi** (3); **ilargi gorriaren** (5); **ilargi gorriaren arabera** (3); **ilargi gorriko** (10); **ilargi gorriko bozeramaile** (3); **ilargi handi** (5); **ilargi handienaren** (3); **ilargi hori** (3); **ilargi izpi** (5); **ilargi koska** (5); **ilargi langa** (3); **ilargi zaharra** (3); **ilargi zuria** (4); **ilargi zuritan** (5)

**irakeko ilargi** (4); **saturnoren ilargi** (10); **saturnoren ilargi handienaren** (3); **titan ilargi** (3); **zen ilargi** (13); **zuen ilargi** (6)

**da ilargia** (8); **du ilargia** (4); **egunez ilargia** (3); **eguzkia eta ilargia** (9); **eta ilargia** (45); **gure ilargia** (4); **ilargia agerian** (3); **ilargia agertu** (8); **ilargia agertu zen** (4); **ilargia atera** (3); **ilargia baino** (4); **ilargia bera** (4); **ilargia bera ere** (3); **ilargia bere** (4); **ilargia bete** (3); **ilargia bezain** (10); **ilargia bezain handi** (3); **ilargia bezala** (3); **ilargia distiratsu** (4); **ilargia edo** (3); **ilargia ere** (15); **ilargia eta** (21); **ilargia eta izarrak** (3); **ilargia eta lurra** (3); **ilargia hodei** (3); **ilargia ikusi** (3); **ilargia lagun** (3); **ilargia oso** (3); **ilargia zapaldu** (4); **ilargia zeruan** (3); **izarrak eta ilargia** (3); **zen ilargia** (6); **zuen ilargia** (6)

**baina ilargiak** (4); **baitako ilargiak** (16); **baitako ilargiak txotxongilo** (3); **eguzki ilargiak** (5); **eguzkiak eta ilargiak** (4); **eta ilargiak** (20); **gure baitako ilargiak** (16); **ilargiak argitzen** (4); **ilargiak baleki** (3); **ilargiak bere** (6); **ilargiak bezala** (3); **ilargiak distira** (6); **ilargiak eguzkiaren** (3); **ilargiak ere** (6); **ilargiak eta** (8); **ilargiak ez** (11); **ilargiak ez du** (4); **ilargiak ilundu** (3); **ilargiak ilundu egiten** (3); **ilargiak txotxongilo** (3); **titan ilargian** (3)

**babuino handia ilargiaren** (3); **da ilargiaren** (5); **dira ilargiaren** (5); **eguzkia eta ilargiaren** (3); **eguzkiaren eta ilargiaren** (7); **ere ilargiaren** (4); **eta ilargiaren** (35); **eta ilargiaren argitan** (3); **handia ilargiaren** (3); **handia ilargiaren argitan** (3); **ilargiaren adar** (5); **ilargiaren argi** (6); **ilargiaren argia** (10); **ilargiaren argiak** (6); **ilargiaren argipean** (4); **ilargiaren argitan** (32); **ilargiaren argitan bere** (3); **ilargiaren argitara** (3); **ilargiaren aurpegi** (3); **ilargiaren azpian** (3); **ilargiaren azpiko** (3); **ilargiaren distira** (6); **ilargiaren distirak** (4); **ilargiaren eragina** (3); **ilargiaren eskolan** (3); **ilargiaren eta** (5); **ilargiaren inguruan** (3); **ilargiaren kaleak** (3); **ilargiaren ondoan** (3); **ilargiaren orbitan** (3); **ilargiaren pean** (3); **ilargiaren sekretua** (11); **ilargiaren sekretua filma** (3); **saturnoren titan ilargiaren** (4); **titan ilargiaren** (8); **zen ilargiaren** (7)

**eguzki ilargien** (3); **espazioa ilargiko** (3); **eta ilargira** (5); **eta ilargirik** (3); **eta ilargirik gabeko** (3); **ilargira eta** (7); **ilargira eta martera** (4); **ilargira heldu** (3); **ilargirik ez** (8); **ilargirik gabe** (3); **ilargirik gabeko** (10); **ilargirik gabeko gau** (4); **ilargirik gabeko gauetan** (3); **ilargirik handiena** (3); **lurretik ilargira** (4); **saturnoren ilargirik** (4); **saturnoren ilargirik handiena** (3)

---

# ilargialdi

**1** *iz* ilargi hilabetea.

Nahiz eta bere **ilargi** aldi osoa 28 egunekoa izan, 28 egun horiek, gure egutegietako 29 eta ordu batzuetaraino iristen dira. Pello Zabala

**Ilargialdi** oso bat eta erdi. Pello Zabala

Alegia, egizu kontu ilargiak bere bidea osatzeko, 28 egun dituela, baina, egun luzexeagoa duenez, 25 ordu eta minutu batzuekikoa, bere **ilargialdia** betetzeko, 29 egun eta puxka bat behar duela. Pello Zabala

Zein **ilargialdik** dakartzan arkume gehiago eta horrelako eztabaidak sarri pizten dira artzainen artean. Pello Zabala

Polita da urte-sasoiak existitzea, ilargiak eta **ilargialdiak,** ez zaizu iruditzen? Fernando Rey

Han goian, Alemanian, ia-ia lau **ilargialdi** pasatuta, are urtaro gogorragoa iragartzen zuten hodei beltzek. Fernando Rey

Eraikuntza bat aztertzen dugunean ere ez diogu alderdi bakar bati erreparatu behar, edota gizaki galantean ilajeari soilik, edota hizlari trebea mirestean eskuen mugimenduari, edota **ilargialdietan** hiruzpalau eguneko aldarteei soilik. Imanol Unzurrunzaga

**2** ilargiak alditsuengan duen eragina.

Zer den **ilargi-aldia** ? [...] Ebanjelioan ageri diren ilargiak-jotako haien gaitza, Jesusi senda zitzan bazter guztietatik eramaten zizkioten haiena. Pello Zabala

---

# ilargierdi

ik **ilargi 14**.

---

# ilargigabe

*izond* ilargia ikusten ez dena.

Behin, udako ilunabar **ilargigabe** batean, hiria Egipto bezain beltz zegoela, Taibele bere lagunekin aulkian eserita zegoen, kalez kaleko saltzaile bati erosi zion liburu bateko istorio bat kontatzen. Koro Navarro

---

# ilargijo

ik **ilargi 18**.

---

# ilargikume

*iz* satelite artifiziala.

1957tik hona, urriaren 14an lehen **ilargikumea** hor jiraka ipini zutenetik [...] auskalo zenbat tona txatar-zahar dabilen hor goian. Pello Zabala

---

# ilargipe

*iz* ilargi argiaren azpia.

Ez dut deusik aditzen **ilargipe** isil honetan. Patziku Perurena

Ni hebainduta nengoen, eta lurra kiskalita, baina hantxe kokorikatu nintzen, buruari eskuez eutsirik, **ilargipe** urdinskan izerditan blai. Joxe Austin Arrieta

Paisaia hau, eguzkitan hain alegera, hitsa bihurtua zen **ilargipean**. Koldo Izagirre

Terraza batean gaude, itsasoa etxe artean ikusten dugula, zilartsu **ilargipean**. Anjel Lertxundi

Eta zuhaitzek diz-diz egiten zuten **ilargipean**. Mirentxu Larrañaga

**Ilargipean** ardiak estatuak ziruditen. Pablo Sastre

Gorputz zuri bat **ilargipean,** ur beltzen gainean errainu iheskor bat osatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

Oreina **ilargipeko** azken une grinatsuez oroitzen duk, larrearen erdian gelditzen duk, amodiozko borrokaren lekuan. Lehenago inguruez axola gutxi erakutsi arren, **ilargipeko** ikuspegi zabalari atsegin handiz begira zegoen orain. Xabier Olarra

---

**ilargiratu,** ilargira(tu), ilargiratzen da *ad* ilargira joan.

Ameriketan NASA erakundeak jakinarazi du berria: 2018an **ilargiratuko** direla. Herria

---

**ilargiratze** *iz* Ilargira heltzea.

Bitxikeria modura: **ilargiratzea** goizeko 02:56 GMT izan zenez, 1969ko uztailaren 21ean. Berria - Gaiak

---

**ilargitar** **1** *izond* ilargikoa, ilargiari dagokiona.

Eta halere, mundu **ilargitar** hau ezaguna dut, hala iruditzen zait. Monika Etxebarria

Alde egin du helikopteroak, harrizko paisaia **ilargitar** honen handitasunean zuek bakarrik utziz. Xabier Montoia

**2** *iz* Ilargiko biztanlea.

**Ilargitar** [...] Ilargiko biztanlea, ilargi-joarekin nahasi behar ez dena; hori ilargiak bizi baitu. Xabier Olarra

**Ilargitarrak** deskribatu zituen, Sir John Herschelen irispide luzeko teleskopioaren bidez ikusitakoaren arabera. Xabier Olarra

Jarraian ematen da ***Ilargitar*** *txunditua* [...] izenburuko liburu zahar batetik hartutako zati bat. Xabier Olarra

---

**ilargitari** *iz* ilargialdiaren araberako egutegia.

Badira **ilargitariak,** ilargiaren arabera egindako egutegiak, alegia, hori poliki seinalatzen dutenak. Pello Zabala

Ilargiarena ez dago gure egutegiko egunekin finkatzerik, hori **ilargitarian** beharko genuke erreparatu. Pello Zabala

---

**ilargite** *iz* ilargiaren argia. ik **ilargi 19**.

Kanpora irten ziren **ilargiteak** argituriko sailetara. Iñaki Mendiguren

Garrasi egin zuen iratxoak, Harryri begira, leihorik hurbilenetik sartzen zen **ilargiteak** begi biribiletan dir-dir egiten ziola. Iñaki Mendiguren

---

**ilargitsu** *izond* ilargi argiz beta.

Eta biharamuneko gau **ilargitsuan** zaldia hartu, eta beheko txaboletarat joan nintzen. Joan Mari Irigoien

---

**ilargitu** *(orobat **illargitu**)* *izond* ilargi-joa.

Ilargi-eriak, halaxe deitu izan zaie aspaldiko itzulpenetan: **illargituak** ere bai, ilargi-joak gajoak, nolanahi ere ilargi-aldiak dituztenak. Pello Zabala

· Maitagarria eta aldi berean beldur emailea, bakardade **ilargituenean** bizi da otzaran egon behar ez lukeen psikopata gaixoa. Koldo Izagirre

---

**ilargitxo** *iz* ilargi txikia.

Ni ikusteko kandela besoa jasota zeukanez, **ilargitxo** bat balitz bezala iruditu zitzaidan haren buruan, altzari zaharrez gainezka zegoen gela zabal hartan. Josu Zabaleta

---

**ilargitzar** *iz* ilargi guztiz handia.

**Ilargitzarra** zeruan, eta arroken zohardura -zilarrezkoak bailiran-, besterik ez zen antzematen. Xabier Aranburu

---

**ilari** *iz* artile haria.

Kulunkaulkian haria biribiltzen zuen andreak, antioju borobil txikiak erantzi, **ilaria** alde batera utzi eta, ernegaturik, atea seinalatu zuen: [...]. Joseba Sarrionandia

---

ilarleka ik **ilar 7**.

---

**ilarraindu,** ilarrain, ilarraintzen da *ad* harrotu, harropuztu.

Orain arte bere baitan zatikatu zuten oker guztien konponketa aurkitu izanaz **ilarraintzen** naiz. Ibon Uribarri

---

**ilatx** *iz* ile izpia; izpia.

Aitak, ardiak laxatu zituen eta lohian txapatxapa ihalozka pasatu ziren, muturrak lurrera, **ilatxetan** iratze zein ote abarrak perlatzen zirela, kakaila pikorren artetik. Itxaro Borda

Edmea zutitu zen, arropari itsatsi belar idor **ilatxak** eskuz garbitu zituen eta ahurraz akotea orekatu zuen. Itxaro Borda

Kaka pikor beltz biribilak, ardi **ilatxak,** eta deizteko unean, ilunetik argirako ibilaldian kalit harrapatu ulutxak. Itxaro Borda

Gatu **ilatxez** estali jargian. Itxaro Borda

Paperetik kanpo zebilzkion tabako **ilatxak**. Itxaro Borda

---

## ilaun[1] 1 *izond* bizitasunik, indarrik, funtsik gabea. ik **ahul; geldo**.

Lanpararen argi **ilaunarekin**. Patxi Zubizarreta

Argi **ilaun** triste bat besterik ez dela haraino [ur handi edo sakonetaraino] iristen. Iñaki Segurola

Ipurtargiak hurbil iragartzen dik goiza, zurbiltzen hasia baitu bere su **ilauna**. Juan Garzia

Argi kaskarra egiten baitzuen bonbilla **ilaun** bakartiak. Anjel Lertxundi

Arestiko begirakune **ilauna** desagerturik, begirakune gotor erronkaria josi zion. Patxi Zubizarreta

Bat-batean, nik antzematen ez nuen seinale batera, hotzikara egiten zuen, bere hazpegi **ilaun** ederrak gogortzen zituen eta inurri lanari ekiten zion. Monika Etxebarria

Irribarre **ilaun** batez. Patxi Zubizarreta

Halako artegatasun **ilaun** batek egin zuen habia neure barrenean. Aingeru Epaltza

Lilura **ilaunak**. Josu Zabaleta

Susmo **ilauna,** lausoa... Alberto Ladron Arana

Ez da hau, ordea, ohoregose direnen berezitasuna, baina, bai, zorigaitzak jotzen dituen eta barne **ilauna** duten guztiena. Piarres Xarriton

Zuria lepoa, handiak begiak, **ilauna** begirada. Jose Morales

Begiak altxatu eta lokamuts **ilauna** aienatu egin zen. Juan Garzia

Orduan zilarrezko kanpaitxo baten hots **ilauna** aditu nuen. Matías Múgica

Geroenean, burua makurturik, ahots ezin **ilaunagoz** esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Urrutitik datoz orduko ahotsen oihartzun **ilaunak,** gero eta itzaliago. Jokin Urain

Bere burua argi engainagarriren baten inguruan jiraka zorabiaturik galtzen duen sorkari **ilaun** eta pasakor izate horretan. Patziku Perurena

Beren izate **ilauna** euli baten gisako sentitzeraino. Patziku Perurena

Itzal **ilaun** bat bezala jarraitzen ziola noranahi. Juan Garzia

**2** (adizlagun gisa)

Gogoko ditut zaldiak, nik -esan zion Camillari, zurbil eta **ilaun** baitzegoen satinezko etzaulki abrikot-kolorean-. Mirentxu Larrañaga

Husainek, orduan, ahotsa **ilaun**: [...]. Patxi Zubizarreta

Hain **ilaun** sentitzen zen gaualdi bare hargatik, hain ahul, odolki eta txerri gantz usainengatik, hain motel, Pauline potxolo hura bere belaunen gainean lo gelditu ondoren [...]. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ahotsa ilaun** (5); **ilaun bat** (3); **ilaun batek** (3); **ilaun batez** (3)

---

## ilaun[2] *iz* paperaren, lastoaren edo zernahi gai arinen errautsa; ikatzaren gainean egiten den errauts zuria

Erreka haren ertzean ikusi zituen buhame taldearen sutearen hondakinak, errautsa, **ilauna,** ikazki egurrak eta sasietan dilindan, botaiak ziren hainbat etxeetan erdietsi arropa zapituak. Itxaro Borda

Ekaineko airean dabiltzan kardu-**ilaunen** hegaldi hutsala. Juan Garzia

**Ilaun** batek bera baino jaunagoari. Herria

**Ilaunezko** bolatxoek masaila kilikatzen zioten Ruche jaunari. Jon Muñoz

Aski baitzen txinpart edo **ilaun** bat ibaian erortzea naftazko korronte hura guztia suak har zezan. Karlos Zabala

---

## ilaundu, ilaun(du), ilauntzen 1 da *ad* ilaun bihurtu.

Filologoak ez luke intelektual errealista, aurrerakoi eta arrazoizale merkea izan nahi, baina inolaz ere ezin egin dezakeena da bere baitan daraman su fedekalte hura **ilauntzen** uztea. Iñaki Segurola

Berrogeita bi urteko aurpegi **ilauntzen** hasia. Paddy Rekalde

· Motorra euri-zaparraden eraginez erabat lohitua aurkitzen dut, dena garbitu beharra dago, dena dago **ilaundua** eta gingildua, polen-usaina dario, lubrikazio-olioari itsatsia eta usteltzen ari, baina ni pozik, lanean... Joxe Austin Arrieta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Negar-malko mardulak isuri zituen bere begi jadanik **ilaunduetatik**. Jose Morales

---

## ilaunki *adlag* ahulki, bizitasunik gabe.

Jende arteko giza irudi batzuk zaintzen zituzten **ilaunki,** eta batzuetan kritikaren bat egiten zuten. Irene Aldasoro

Arima kordegabetzen zihoakion, eta elurra entzuten zuen unibertsoan barrena **ilaunki** erortzen. Irene Aldasoro

Atzera itzuli, eta esan zuen, **ilaunki**: [...]. Irene Aldasoro

---

## ilauntzear *adlag* ilauntzeko zorian.

Hegaztiaren begiek dir-dir egin zuten, baina **ilauntzear** zegoen sugarra. Jon Muñoz

---

## ilazki *iz* ilargia.

Gure ilargia, argizaria, **ilazkia** edo goikoa, horrela ere deitu izan baitzaio gure eskualdeetan, beti egon da eguneroko lan eta ohiturekin estu-estu loturik. Pello Salaburu

---

## ilazkin *iz* artilea harrotzen duen pertsona.

Lihoginak etsita geldituko dira, **ilazkin** eta ehuleak zurbil. Elizen arteko biblia

---

ilazti ik **hilazti**.

---

## **ilbehera** *iz* ilargi betetik ilargi berrira doan 14 eguneko aldia; ilbeheraren erdiko eguna, ilargiaren erdia argiturik dagoena.

Hilaren 8an **ilbehera,** 16an ilberri eta 23an ilgora. Pello Zabala

**Ilbeherako** bakeak eta orekak. Pello Zabala

Gaztelako ordoki garai eta errean, aparteko estimazioa du ilgoratik **ilbehera** bitarteko ilargiaren argiak. Pello Zabala

Eta ilargiak? ilgora ala **ilbehera**? oiloa noiz lokatzen den kontu: arrautza gainean **ilberrian** edo ilgoran jarriz gero, oilaskoak gehienak; ilbetean edo **ilbeheran,** oilandak nagusi. Pello Zabala

Hau dena dakart ilgora-**ilbehera** ohiko horien uhinen mende bizi garela denok gogoratzeko. Pello Zabala

**Ilbeherarekin** gaiztotzen bada eguraldia [...].Ez dago gogoratu behar handirik, ilargiaren eraginak geurean zenbat zabalduta dauden jabetzeko, hala **ilbeherarenak** nola ilgorakoak. Pello Zabala

Zura egiteko mementu beretik abiatzen zen baserritar gurea: Hosto koxkaduna duten zuhaitzak, **ilbeheran** inausi behar dira; bestelakoak, ilberrian. Pello Zabala

Ilberriko alea lastotsu, **ilbeherakoa** burutsu. Pello Zabala

Biek zeukaten **Ilbeheraren** irudi bana bizkarra baino goraxeago. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ilbehera** (3)

---

## **ilbeheradun** *izlag* ilbeheraren irudia duena.

Banu Kasitarren otzantasuna, gerlari baskoiak eta arabiarrak elkarrekin Karlomagnoren harropuzkeria inperialaren kontra, **ilbeheradun** hilobia Gaztelu enparantzako parkinaren pean. Iñigo Aranbarri

---

## **ilbeltz** *(orobat **hilbetz** g.er.)* *iz* urtarrila.

1977ko **ilbeltzaren** 19ko gauerdi aldera. Iñaki Segurola

1967ko 29an, **ilbeltzaren** azkenetan. Pello Zabala

Agustin saindua, zeinak urtero, **ilbeltzaren** 22an, sermoi dotore bat eskaintzen zion. Pello Zabala

**Ilbeltzeko** elurra, brontzea, otsaillekoa zura, ta martxokoa ura. Pello Zabala

Oraintxe **ilbeltzean,** gordelekuetan lozorroan daudela, beren operkulotan itsatsiak, dira gozoenak eta garbienak karakolak. Patziku Perurena

Joan den **hilbeltzean** ere jaso zuen Volkswagenek beste bonba mehatxu bat. Berria - Euskal Herria

**Ilbeltza,** beti hil beltza! biribilduko zuen besteak aldamenetik. Pello Zabala

---

## **ilberri** **1** *iz* Lurraren eta Eguzkiaren artean dagoelako ikusezina gertatzen den ilargia; orobat hurrengo egunetakoa, ilargi betea arte. ik **ilargi 10**.

Hilaren 8an ilbehera, 16an **ilberri** eta 23an ilgora. Pello Zabala

Bihar **ilberri** da. Elizen arteko biblia

Gau hartan **ilberri** zen eta ia zeharo ilundu zuen hamaiketatik ordu biak arte. Karlos Zabala

Etorri zen **ilberria** azaroaren 8an, eta 11tik, San Martin egunetik, euria eta hotza etorri ziren. Pello Zabala

**Ilberriko** baba eta zalkeak, leka askatu ta ixuri egiten dira. Pello Zabala

**Ilberriko** alea lastotsu, ilbeherakoa burutsu. Pello Zabala

Txarria hilteko egun txarra da **ilbarria**. Pello Zabala

Zura egiteko mementu beretik abiatzen zen baserritar gurea: hosto koxkaduna duten zuhaitzak, ilbeheran inausi behar dira; bestelakoak, **ilberrian**. Pello Zabala

**Ilberriz** ebakitako ilea hazi ta mehetu egiten baita. Pello Zabala

Sortu ziren zenbait esaldi, beti ere **ilberri** eta ilzaharrarekin kontatzen hasita. Pello Zabala

**Ilberriko** hirugarren egunak. Pello Zabala

Larunbat eta **ilberri**-egunetan, jendea sarrera honetara etorriko da. Elizen arteko biblia

Eta **ilberri** oro eta larunbatero nire aurrean ahozpeztera etorriko dira gizaki guztiak. Elizen arteko biblia

Masailezurrek more aire lauso bat zuten eta, bekainen ordez, esku aditu batek bi **ilberri** marraztu zizkion. Patxi Zubizarreta

**2** (hitz elkartuetan)

Bai eta Jaunari egin ohi zizkioten erre-opari guztietan, larunbat, **ilberri**-jai eta jai nagusietan ere. Elizen arteko biblia

Jaiegun, larunbat eta **ilberri**-jaietan. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ilberri** (5); **eta ilberri jaietan** (3); **ilberri eta** (7); **ilberri jaia** (3); **ilberri jaiak** (3); **ilberri jaietan** (5); **larunbat eta ilberri** (3); **zazpi ilberritan** (3)

---

## **ilbete** *iz* aurpegia erabat argiturik agertzen duen ilargia. ik**ilargi 11; ilzahar**.

Pazkoa noiz den, udaberriko lehen **ilbeteak** markatzen baitu. Pello Zabala

Urtarril hark bi **ilbete** bizi izan zituen: 2an, opari ederrez etorri zitzaiguna, eta 31an. Pello Zabala

Otsail **ilbete** gabea. Pello Zabala

Otsailgo **ilbete,** edurra ni bete dio atsotitzak. Pello Zabala

Uda mineko **ilbete** txuri-txuria, biribila. Alberto Barandiaren

Izan da aldi ilargialdiko berezirik, 500 litro ondroso eta beteak eman dituenik, **ilbetearekin** hasi euritea, eta **ilbetearekin** amaitu. Pello Zabala

**Ilbetean** itzuliko da. Askoren artean

Arrautza gainean ilberrian edo ilgoran jarriz gero, oilaskoak gehienak; **ilbetean** edo ilbeheran, oilandak nagusi. Pello Zabala

Eramana du diru-zorroa ere, eta ez da **ilbetera** arte itzuliko. Elizen arteko biblia

**Ilbeteko** gauean eginiko jauzi bizkor batez. Joxan Elosegi

**Ilbetearen** argia, besterik ez zegoen oasian mutila kanporatu zenean. Xabier Aranburu

Mutila Ramadaneko **ilbetea** bezain ederra baitzen. Patxi Zubizarreta

## ildaska *(orobat **ildaxka**)* 1 *iz* Goldeak lurrean egiten edo urratzen duen ildoa.

Landatu behar omen zituen landareentzat **ildaskak** egiten, nonbait. Ramon Saizarbitoria

**2** *hed*

Kolometako **ildaxkek** hogeita lau izan behar dute. Santiago Iruretagoiena

**Ildaxken** zabalera aldatzen joango da. Santiago Iruretagoiena

Hosto barruko ildo eta **ildaxken** koxka. Pello Zabala

Oskolaren bihotzak, haren koloreak, **ildaskek,** akatsek edo gogortasunek... Fernando Morillo

**3** *(hitz elkartuetan).*

Kolomaren diametroari kentzen zaiona **ildaxka** -kopuruari gehitzen zaion horrekin konpentsatuko da. Santiago Iruretagoiena

---

## ildaskadun *(corpusean **ildaxkadun** soilik)* *izond* ildaskak dituena.

Diametro bereko bi koloma hartu, bata **ildaxkaduna** eta bestea ildaxka gabea, Santiago Iruretagoiena

---

## ildaskagabe *(corpusean **ildaxka gabe** soilik)* *izond* ildaskarik ez duena.

Diametro bereko bi koloma hartu, bata ildaxkaduna eta bestea **ildaxka gabea**. Santiago Iruretagoiena

---

## ildaskatu, ildaska(tu), ildaskatzen *(orobat **ildaxkatu**)* 1 du *ad* ildaskak egin.

Boluten zentroek ez dute begiaren diametrotik kanpora atera behar, eta bolutak berak **ildaskatu** egin behar dira, erretenaren neurria boluten altueraren hamabiren batekoa eginez. Santiago Iruretagoiena

Berdel urrekarek, bizkarra txartatu berdexkez **ildaskatuta,** beren saihetsetako nakar aldakorrari distirarazten zioten. Karlos Zabala

· Traje iluna, marra argiz **ildaskatua**. Jon Muñoz

**2** (era burutua izenondo gisa)

Badira bi muskulu mota nagusi: lisoak eta **ildaskatuak**. Irene Aldasoro

Beso, zango eta enborrean daude muskulu **ildaskatuak**. Irene Aldasoro

Esan daiteke ikusmenezko pertzepzioa kokatuta dagoen kortex **ildaskatuaren** eremua zutabetan antolatuta dagoela. Josu Zabaleta

Handik beste nerbio konexio batzuk abiatzen dira garunaren atzeko alderantz, eta kortex **ildaskatura** iristen dira. Josu Zabaleta

Tximista **ildaskatuek** zerua trumoiz bete zuten. Agustin Otsoa

Hori eginez, bere ordenari dagokion **ildaxkatu** berezi hori izango du koloma doriarrak. Santiago Iruretagoiena

---

## ildaxka ik **ildaska**.

---

## ildo 1 *iz* goldeaz lurra irauliz egiten den irekidura luzea. ik **ildaska; ildoxka**.

Bizkor zabaltzen du **ildoa** goldeak orain, zokil artean trabatuta geratzen da gero. Imanol Zurutuza

Traktoreak utzitako **ildoengatik** ez balitz. Imanol Zurutuza

**Ildoak** egiteaz arduratzen da buru-belarri, eta gauean oraindik ganadua gobernatu behar. Elizen arteko biblia

**Ildoa** goldearen bide zuzenetik ateratzen eta semenaren kolpea lekutik apartatzen baitu. Xabier Amuriza

**Ildoak** ureztatu, zokorrak berdindu, euri-zaparradaz harrotu, ernamuinak bedeinkatu. Elizen arteko biblia

Aita ikusten du soroa ildoz **ildo** oinkatzen, mokorrez mokor zapaltzen, eskuarez bezala berdintzen, sasiak, zuhaixkak, karduak eskopetaz jotzen. Itziar Otegi

Fulgor Sedano, lurraren usaina aditu, eta euriak **ildoak** nola zarrastatzen zituen ikustera irten zen. Juan Garzia

Haien zuzenbidea, ordea, soro-**ildoetan** hazten den belar gaizto bihurtu da. Elizen arteko biblia

**2** *hed/irud*

Izerdiak **ildo** ñimiñoak goldatzen zizkidan lepoan eta galtzarbeetan. Aingeru Epaltza

Urak beste ehun bat metro egiten zituen sastraka eta ihi artean, bizi-bizi orduan ere, zaplaztaka **ildo** harritsuan. Bernardo Atxaga

Marmolezko blokeetan **ildoak** egin, eta burdinazko ziriak sartu zituen ildootan, porlanez disimulatuak. Irene Aldasoro

Halaxe ohartu nintzen kutxaren barruan bazela **ildo** antzeko bat, zurezko pieza bi elkarri josten zaizkionean geratzen dena bezalakoa. Edorta Jimenez

Garabi-besoak, goi muturrean eskegita, **ildo** biko gurpiltxoa zeukan. Edorta Jimenez

Grabatzeari ekin zion gero, markatutako lerroetatik **ildoak** eginez. Iñaki Iñurrieta

Aurpegia ferekatu nion berriro; zimurren **ildo** sakonak, goizeko bizarraren ile urdin tenteak, azal marguldua... Xabier Mendiguren Elizegi

Hondar hezezko bere **ildo** kontzentrikoekin. Juan Garzia

Ibaiaren erdian uhin-**ildo** kexatuek apokalipsia irudikatzen zuten. Itxaro Borda

Gailuaren orratzak diskoko **ildo** espiralean grabaturiko gorabeheretan aurrera egin ahala, [...]. Irene Aldasoro

Baina orratz marketsak disko zaharraren **ildo** beltzari eutsi eta nota bizkorrek segitu zuten baserriko sabaiko egurats ilunaz jabetzen. Alberto Ladron Arana

Harriak bihotzean **ildoak** nola irekitzen dituen sentitu dut. Jon Alonso

Kopetatik eroritako odolak **ildo** bakarra utzirik zuela, jakaren lepoaren ezkerraldean. Aingeru Epaltza

Batelak aurrera egiten zuen eta ur **ildo** txiki bat uzten zuen atzean. bi malkoak masailean behera erori zitzaizkion, **ildo** hezeak irekiz haren azal ederrean. Joseba Sarrionandia

Pneumatikoen **ildo** -zirrituetan zegoen itsatsita zer nazkagarri hura. Joxe Austin Arrieta

Emakume baten irudi handi **ildo** -sakon bat marraztu zuen hondarrean. Koro Navarro

**3** haria, bidea.

Bazekien bidea urratu beharra zeukala, aurrea hartu behar ziola idazleari ahal zuen neurrian, berak markatu behar zuela **ildoa,** eta ez hark. Imanol Zurutuza

Horrela jakituriara gidatuak lirateke Jaungoikoaren errukiaren **ildo** seguruetan zehar. Imanol Unzurrunzaga

Frantsizkotarren **ildo** zahar eta iraunkorretik bazabilan hor, behartsuen zerbitzuko. Herria

Gandhi, Luther king edo Cesar Chavez-ek **urratu** ildoari jarraikiz. Herria

Unamuno gaztea garai honetan positibismoaren **ildoan** dabil buru-belarri. Joxe Azurmendi

**Ildo** berria eta oldar eragilea eskaini zion Agustinen bizitzari. Imanol Unzurrunzaga

Badira antzezlanetatik ateratako hainbat zati ere, baina ez dago **ildo** narratibo bakar bat. Berria - Kultura

Sistemaren osagai alde bikoak **ildo** hierarkiko eta politiko jakinen arabera jarduten du. Koro Navarro

**Ildo** sindikal berria zehaztu bezain laster, mugaz beste aldera itzuli beharra neukan. Rafa Egiguren

Gaur egun kooperatibak **ildo** horrek gidatzen ditu. Iñaki Heras

Gure jasangogortasun burlati hura ez zela aski; sumin bihurtu behar zela, eta sumin hori iraultza organiko eta xuxen baten **ildora** ekarri. Juan Garzia

"Oinarri ideologikoak" onartu ziren erakundeetan **ildo** berriari begira. Rafa Egiguren

**Ildo** berri horrek ahalegina egiten baitu politikak prestatzeko prozedurak gardenagoak izan daitezen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Behin **ildo** hori ireki zenez gero, aurrerantzean ere, bertatik aurrerapauso garrantzitsuak egin ziren hainbat norabidetatik. Askoren artean

Erabat eta biziki estimatzen du eta horregatik bizi da **ildo** horri jarraiki. Imanol Unzurrunzaga

**Ildo** horri jarraitzen dion ereduan. Santiago Iruretagoiena

Estetika horrek 1970 inguruan bolada-boladan zegoen "freudo-marxismoaren" eragin handia du; **ildo** horrixe jarraituz ahalegindu zen geroxeago Lyotard "ekonomia libidinal" bat paratzen. Josu Zabaleta

Baina Txekhovengandik Carverrengana doan **ildoko** ipuingintza ere ez zaizu erabat arrotza. Berria - Kultura

Erraztiren **ildokoek** hartu dute Bizkaiko zuzendaritza. Berria - Euskal Herria

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Luzaz, katekesia girixtinoen haurreri eskainia zen eta fede **ildoak** hola segitzen zuen, familien belaunaldien erritmoa errespetatuz. Herria

Puntuazio sistema bitxiak eta narrazio **ildo** desordenatuak bikain lortzen dute irakurlea tren-geltoki txiki bateko eta gazte baten sentimenduen zurrunbiloan sartzea. Fernando Rey

Bertsozale Elkartearen lan-**ildoak**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bi lan-**ildo** nagusi ditu alor honek: batetik, irakaskuntza arautuan txertatutako bertsolaritzaren jarraipena egitea eta, bestetik, bertso-eskolak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eusko Jaurlaritzak finantzaketa **ildo** berriak baliatuko ditu. Berria - Kultura

Musika alemanak ezin hobeki islatzen ditu bi kultura-**ildo** horiek, bere baitan biltzen baititu kondaira ipartarrak eta ideia kristauak. Alberto Ladron Arana

Ikerkuntza **ildo** honen oinarri diren zenbait ikuspuntu argitu nahi nituzke. Itziar Laka

Baina ikerketa-**ildo** hau ixten da Taigher desagertzen denean. Jon Alonso

Kritika **ildo** honi jarraiki, Ongizate Estatuaren paternalismoa kritikatzera ere iristen dira hainbat. Iñaki Heras

Garapen iraunkor baten aldeko argudio-**ildo** nagusiak finkatzen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Arazo deitu horiei loturiko egiazko jarduera **ildo** eraginkorrak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Borroka **ildo** berriak zabaltzeko beharra izan zen solidarioak sortzearen funtsa. Edurne Elizondo

## 5 *-en* ***ildotik*** *(362 agerraldi, 56 liburu eta 221 artikulutan)*

Nire bizimoduak betiko **ildotik** jarraituko zuen. Bernardo Atxaga

Frantxua Gilenen **ildotik** apeztuko zelako ametsa zerabilkion gogoan dantzari. Itxaro Borda

Nik gidatzen zaitut zuhurtziaren bidetik, nik ibilarazten zuzentasunaren **ildotik**. Elizen arteko biblia

Garbizaletasunaren **ildotik** asmatutako hitz berriak. Iñaki Arranz

Silvia Treudlek, gogor ekin dio Haiderren aurka, feminismoaren **ildotik** aldendu gabe. Edorta Jimenez

Bestalde, Beldurra Izpirituaren ezintasunetik heldu da, eta ez, beraz, Arrazoiaren **ildotik**. Piarres Xarriton

Arratsaldean, gertakariak inork aldez aurretik sumatuko ez zuen **ildotik** mamitu ziren. Txillardegi

· Bestelako biderik ezean, horrenbeste aldiz jorratutako **ildotik** jo nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

## 6 *ildo berean (356 agerraldi, 9 liburu eta 163 artikulutan)*

Horra bigarren gutuna, lehenengoaren **ildo** berean baina larritasunezko doinua erantsita. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ildo** berean jarraituz, begia ez da oso bizkorra argi-estimuluak bereizten. Josu Zabaleta

Aztertu beharra dagoela ustez elkarren kontra doazen legeak **ildo** berekoak al diren. Iñaki Iñurrieta

**Ildo** berean, hiru aldeak desberdinak dituzten triangeluei eskalenoak esaten zitzaien: herrenak. **Ildo** berean, Serratek adierazi zuen orkestra batekin kantuen tratamendua askotarikoa izan daitekeela: «Abesti batek ez du musika lanketa jakin bat; norberak erabakitzen du nola moldatu». Jon Muñoz

## 7 *ildo beretik (750 agerraldi, 29 liburu eta 308 artikulutan)*

Bidaiaren gainerakoa **ildo** beretik joan zen. Alberto Ladron Arana

Aste bati bestea jarraitzen zitzaion, **ildo** beretik, monotoniaz. Bernardo Atxaga

Haien jarduera ere **ildo** beretik zihoan. Bernardo Atxaga

Ikertzaile horiek, eta beste askok, Panofskyren **ildo** beretik, *perspectiva artificialis,* izatez, berraurkikuntza bat dela azpimarratu dute. Josu Zabaleta

Beste filosofo askok ere **ildo** beretik jarraitu zuten eta, oro har, bi ikuspegi nagusitu ziren teoria bakoitzean: [...]. Askoren artean

**Ildo** beretik jarraiki, Amsterdamgo Itunak, 1997ko urriaren 2koak, garapen iraunkorraren printzipioa jaso zuen Europako Komunitatearen helburuen artean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Ildo** beretik, baina, aldi berean, Krutwigekin lehian, Jose Luis Alvarez Enparantzaren pentsaera nabarmentzen da. Askoren artean

Madrileko jujeek dutela gisa hortan beren lana segitu, aspaldian abiatu ikerketa batzuen **ildo** beretik. Herria

Arrazoizkoa dirudi nazio guztiek, bakoitzak idazteko bere hizkuntza erabiltzea eta, **ildo** beretik, alemaniarra dena ez mespretxatzea alemanez idazten duelako. Askoren artean

## 8 *ildo bertsutik (24 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean)*

**Ildo** bertsutik, hona zer zioen Rafael Termesek gehigarri horretan bertan: [...].Hausnarketa estrategiko kolektiborako prozesu bat da, Rio de Janeiroko Goi Bileran jaiotako Foro Globalaren **ildo bertsutik** doan sare, aliantza eta gizarte zibileko mugimenduen arteko topaketatik sortua. Iñaki Heras

Bizkitartean, ez dezaket ahantz, bizpalau hilabete lehenago, 1973ko abenduan, **ildo bertsutik** zihoan tesia aurkeztu nuelarik [...] nola entzungor egin zuten ez bakarrik Baionako apezpikutegiak, baina bai ere Pariseko Irakasle edo Argitaletxeek. Piarres Xarriton

Nuriaren ondotik, bigarren emakumea mintzatu zen, **ildo bertsutik**. Joan Mari Irigoien

## 9 *ildo honetan (34 agerraldi, 2 liburu eta 12 artikulutan)*

**Ildo** honetan, Eusko Legebiltzarraren funts bibliografikoa Liburutegi Digitalaren barruan sartzeko helburuarekin lan egiten ari da Kultura Saila. Berria - Kultura

**Ildo honetan** esan genezake ETA izan dela Euskal Herri modernoaren benetako sintoma. Joseba Zulaika

## 10 *ildo honetatik (36 agerraldi, 6 liburu eta 9 artikulutan)*

**Ildo** honetatik, Adierazpen honetan jasotako eskubideak modu eraginkorrean gauzatu ahal izateko beharrezko administrazio, lege zein beste arlo batzuetako neurriak hartuko dituzte. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eta **ildo** honetatik aipa dezakegu halaber ez dagoela hizkuntzarena bezain zaila den sistemarik. Isabel Arrigain

## 11 *ildo horretan (2228 agerraldi, 13 liburu eta 921 artikulutan)*

Ekintza zailak eta konplexuak izan dira herrietan egindakoak, baina jende andanak parte hartu du, eta, **ildo** horretan, oihartzun zabala lortu dute. Edurne Elizondo

Christopher Gilberg [...] ez da iritzi berekoa, uste baitu goi mailako sormena izan dezaketela Asperger motako autistek; **ildo** horretan iradokitzen du, hain zuzen, ea Wittgenstein eta Bartók ez ote ziren autistak. Xabier Olarra

**Ildo** horretan Agustinek diosku gauza on guztiak Jaungoikoagandik datozkigula, bera baita Ondasun Gorena, eta erabakimena. Imanol Unzurrunzaga

Hona, **ildo** horretan, Maurice Dobb autore marxistaren hitzak: [...]. Iñaki Heras

· Eta Euskal Idazleen Elkartea ere ari da **ildo** horretako lanak egiten... Berria - Kultura

12 ***ildo horretatik*** *(776 agerraldi, 16 liburu eta 313 artikulutan)*

Uste izan dut **ildo** horretatik jarraituko zuela, baina hitz-beste egin du segituan, eta kontu arinekin jarraitu. Bernardo Atxaga

Gaitza egitea zertan datzan aztertu nahi izan dugu eta **ildo** horretatik esan ditugu orain arte esan ditugunak. Imanol Unzurrunzaga

Dirudienez, nahimen hori gabe bekaturik ezin egingo genukeen eta **ildo** horretatik, ikaragarria badirudi ere, Jaungoikoa har genezakeen gure bekatuen egiazko egiletzat. Imanol Unzurrunzaga

**Ildo** horretatik, *homo complexus* berria dugula esan dezakegu. Askoren artean

**Ildo** horretatik, 1994ko Txostenean elementu nagusia enplegua zen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

· Meiklejohn-ek **ildo** horrexetatik jotzen du: [...].· Baina **ildo** horretatiko baieztapen bakan horiek, halere, ez dute frogatzen 1816an aditu guztiak egia honen esanahi eta garrantziaz jabetzen zirenik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

13 ***ildo-txori*** *(corpusean **ildoxori** soilik)* *iz* buztanikara.

Etzuten samatseko hegaztinek **ildoxorien** grazia, udaberrian arto ereiteko iraultzen ari ginela heldu zirelarik, oraindik kaldan zeuden ildoen barnean jatera, buztan keinukaria ezker edo eskuinera, ikusiz non zen zizaria, ez bazen hemen erdi bat eta han bestea. Piarres Aintziart

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**baina ildo** (10); **beste ildo** (7); **bi ildo** (11); **borroka ildo** (5); **da ildo** (12); **dira ildo** (8); **dira ildo horretan** (5); **diren ildo** (5); **du ildo** (6); **dute ildo** (5); **ere ildo** (47); **ere ildo beretik** (34); **eta ildo** (70); **eta ildo beretik** (11); **eta ildo horretan** (19); **eta ildo horretatik** (13); **hiru ildo** (7); **hiru lan ildo** (6); **ikerketa ildo** (6)

**ildo bat** (22); **ildo bera** (15); **ildo berari** (7); **ildo berean** (179); **ildo berean hitz** (7); **ildo berean mintzatu** (10); **ildo bereko** (6); **ildo beretik** (381); **ildo beretik doa** (9); **ildo beretik doala** (5); **ildo beretik egin** (15); **ildo beretik hitz** (5); **ildo beretik jarraitu** (11); **ildo beretik jo** (51); **ildo beretik joan** (8); **ildo beretik mintzatu** (24); **ildo berria** (8); **ildo berriak** (10); **ildo bertsutik** (12); **ildo editoriala** (8); **ildo errepresiboa** (5); **ildo estrategikoak** (5); **ildo eta** (5); **ildo honetan** (17); **ildo honetatik** (19); **ildo hori** (20); **ildo horiek** (11); **ildo horietan** (5); **ildo horrek** (7); **ildo horretan** (1116); **ildo horretan azpimarratu** (7); **ildo horretan kokatu** (9); **ildo horretan lanean** (5); **ildo horretatik** (391); **ildo horri** (19); **ildo horri jarraituz** (5); **ildo komando** (7); **ildo nagusi** (16); **ildo nagusia** (17); **ildo nagusiak** (56); **ildo politiko** (27); **ildo politiko instituzionalaren** (13); **ildo politikoa** (21); **ildo politikoan** (6); **ildo politikoaren** (5); **ildo politikoari** (6)

**kontseiluko ildo** (12); **kontseiluko ildo politiko** (11); **lan ildo** (71); **lan ildo nagusi** (7); **lan ildo nagusiak** (6); **lasa kontseiluko ildo** (6); **programaren ildo** (6); **programaren ildo nagusiak** (5); **zuen ildo** (6)

**arteko ildoari** (6); **baten ildotik** (9); **begirako lan ildoak** (9); **eta lan ildoak** (5); **geroko lan ildoak** (5); **haren ildotik** (9); **honen ildotik** (11); **horren ildoan** (15); **horren ildotik** (65); **ildoak eta** (12); **ildoak finkatu** (8); **ildoak zehazteko** (9); **ildoarekin bat** (6); **ildoaren berri** (5); **ildoari eusteko** (5); **ildoari jarraiki** (7); **ildoari jarraituz** (9); **ildoari jarraitzen** (7); **ildotik abiatu** (5); **ildotik doa** (7); **ildotik jo** (7); **ildotik mintzatu** (7); **lan ildoa** (25); **lan ildoak** (67); **lan ildoak eta** (7); **lan ildoak finkatu** (7); **lan ildoari** (6); **orain arteko ildoari** (6)

---

**ildokatu**, ildokatu, ildokatzen du *ad* ildaskatu.

Haren kopeta **ildokatzen** zuten zimur hasberrietan. Joan Mari Irigoien

Ongi ezagutzen genion zimur hura ezpain ertzean zuen **ildokatua,** eta bazirudien begiak zabaldu, mugitu, eta hitz egin behar zuela. Josu Zabaleta

---

**ildotu**, ildo(tu), ildotzen **1** du *ad* ildoak egin, goldatu.

Bizi beharrez goldera auhen egiten eta, nabarra sakon, lurra **ildotzen** ohiturik. Xabier Amuriza

2 *irud* ik **ildaskatu.**

Zerbaitek, denbora ez bertze zerbaitek, hazpegiak **ildotu** eta antzaldatuak zizkion. Juan Garzia

Esklabo latzikaratu batek kontatu zuen arrasto gorri bat ikusi zuela ilunpeak **ildotzen** Etnaren gailurrerantz. Juan Garzia

---

**ildotxo** *iz* ildo txikia.

bero egiten duenean batez ere, rougea lerratu egiten da, emakume gazteek ere ezpainen inguruan dituzten zimur-**ildotxoetan** barrena sartzen da pixkanaka. Juan Garzia

---

**ildoxka** *iz* ildo txikia.

Eskuinaldean, xehatzeko mahai izugarri batek euskarri hartzen zuen murruan; haritzezko enbor puska eskerga zen, txit astuna, ebakiondoz eta **ildoxkaz** josia. Karlos Zabala

---

ildoxkatu ik **ildozkatu.**

---

ildoxori ik **ildo 13.**

---

**ildozkatu**, ildoxka(tu), ildoxkatzen *(orobat **ildoxkatu**)* **1** du *ad* ildaskatu.

Etxe zorrotz, ojibaz **ildoxkaturiko** teilaz gain-estalien, eta piperrontzi tankerako kantoidorre urdin-horien artean. Juan Garzia

2 *irud*

Ez zuen bizia biderkatzen, **ildozkatzen** eta neurkatzen zion zurrunbilo horren azkenik antzematen, bukaerarik gabekoa baitzen, mundua adina zabala, zerura iristeko orratz zuloa bezain txikia halaber. Itxaro Borda

---

**ildoztatu**, ildozta(tu), ildoztatzen du *ad* ildaskatu.

Enearen gisako ehun bat hobi nolabait taxutuk **ildoztatzen** zuten mendia eta harana. Juan Garzia

Bere gelako sabai erronboz **ildoztatura** itzulia aurpegia. Juan Garzia

---

**ile** *(orobat **ule** g.er.)* **1** *iz* giza gorputzaren buruan eta beste alderdi batzuetan, eta zenbait animaliatan, batez ere ugaztunen azalean, sortzen diren adarkizko zuntz mehetako bakoitza. ik **bilo.**

Haren **ileak** urrezko hariak ziren. Koro Navarro

Baina ez duzue buruko **ile** bakar bat ere galduko. Elizen arteko biblia

Jator jokatzen badu, ez zaio **ile** bat ere eroriko lurrera; baina nolabaiteko gaiztakeriarik aurkitzen badiogu, heriotza izango du. Elizen arteko biblia

Haren jantzia elurra bezain zuri, buruko **ileak** artilea bezain garbi. Elizen arteko biblia
Gure **ileak** laztu eta kamioi ero hura gerarazteko moduko harrokeriaren bat aurkitu nahi zuela. Koro Navarro
**-Ileak** laztu zitzaizkidan pentsatze hutsarekin. Inazio Mujika Iraola
Behatzetatik burugaineraino latz-harrotu zituen **ileak**. Juan Garzia
**Ileak** tindatzeko produktuez ari ziren gidari biak. Unai Elorriaga
**Ileak** apainarazi eta bizarra motzarazi ondoan, Durruty notarioaren lantegira hurbildu zen. Elena Touyarou
Desira bizi batek betetzen ninduen oinetatik buruko **ileetaraino**. Josu Zabaleta
Eroritakoan, **ileetatik** heldu dizu, eta, altxarazi ondoren, sekulako astindua jaso duzu hormaren kontra. Rafa Egiguren
Inspektoreordeak, **ileetatik** tiraka berriro, altxatzera behartu zaitu. Rafa Egiguren
Orduan, Jaunaren aingeruak buruko **ileetatik** hartu eta haizearen bultzadaz Babiloniara eraman zuen, lehoi-zuloaren ahora. Elizen arteko biblia
Zer edo zer esaten badion, badakin, **iletatik** tiratuko dinat. Karlos Zabala

## **2** ileen multzoa; batez ere, buruko ileen multzoa.

Zazpigarren egunean, gorputzeko **ile** guztia moztuko du. Elizen arteko biblia
Hankarteko **ilea,** berriz, horia zen eta ez oso kizkurra. Juan Martin Elexpuru
Denbora eman zuen bere mihiaz nire pubiseko **ilearekin** jolasean. Juan Martin Elexpuru
Orain **ile** ondo moztu eta orraztuarekin ageri zen. Juan Kruz Igerabide
Laban artaldeari **ilea** moztera joana zelarik, Rakelek bere aitaren etxe-jainkoen irudiak ostu zituen. Elizen arteko biblia
Beraz, burua estali nahi ez badu, moztu dezala erabat **ilea**. Elizen arteko biblia
**Ilea** zurituko zaik, ibilera baldartuko eta atsegin-grina hoztuko. Elizen arteko biblia
Ikusten badu azalekoa baino sakonagoa dela eta **ilea** horitua eta bakandua duela, kutsatutzat aitortuko du. Elizen arteko biblia
Sidneyk **ilea** txukundu zuen, zutitu zen axolagabe itxurak eginez, eta nesken aldera joan zen. Koro Navarro
Gero hortzak garbitzea dator, **ilea** kizkurtzea, azkazalak zaintzea. Josu Zabaleta
**Ilea** luzatzen utzi zuen. Xabier Olarra
**Ilea** tindatzeko henna erostetik dator emakume pakistandarra. Harkaitz Cano
Bi eskuez lisatzen hasi zen, **ilea** lisatzen zuen bezain emeki. Felipe Juaristi
Ondoan eseri eta **ilea** ferekatzen hasten zaio. Antton Olano
Neskatxak zeharrez begiratu zion eta, **ilea** txirikordatu bitartean, [...]. Patxi Zubizarreta
Txistua bota zuen eskuetara **ilean** artesia egin aurretik. Koro Navarro
**Ilea** motots batean bilduta, dotore etorri zen Ane. Unai Iturriaga
*ik beherago* 18. Askoren artean
Ni lasterka joan nintzen haiengana, gorbata lotu gabe eta **ilea** nahasia. Koro Navarro
**Ilea** orraztua zuen ordurako, soina kortsearen barruan estu. Karlos Zabala
Malkoz busti dizkit oinak eta bere **ileaz** xukatu. Elizen arteko biblia
Ez al dizkiok ikusi ihintza ttanttak **ilean**? Koro Navarro
**Iletik** heldu eta lurretik arrastaka eraman omen zuen erasotzaileak emakumea. Berria - Euskal Herria
**Iletik** pasatu zizkidan hatzak. Koro Navarro
Armiarma erraldoi bat, bi metro altu eta **ilez** estalia. Iñaki Mendiguren

## **3** (koloreei buruzko izenondoekin)

**Ile beltza** motots estuan bilduta zeukan. Iñaki Mendiguren
*ik beherago* 13. Askoren artean
Soraya liraina eta garaia da, **ile beltz** luzea eta begi ilun urtsuak ditu. Oskar Arana
Gizontxo ihar baina irribarretsu bat zen, begi eta **ile beltzekoa**. Juan Garzia
**Ile beltzezko** xerloak ageri zituen ia nonahi. Juan Garzia
Zapal dezagun zintzo bizi den behartsua, ez diezaiogun alargunari errukirik izan, ez eta begirunerik ere agurearen **ile zuriei**. Elizen arteko biblia
*ik beherago* 21. Askoren artean
Gizakiarentzat benetako **ile zuria** zuhurtzia da, adin handia bizitza akasgabea. Elizen arteko biblia
Bitxienetakoa **ile zuriko** gizontxo mehe-mehe bat zen. Jon Arretxe
Gizon altua zen, **ile zuri** eta kizkurrekoa. Bernardo Atxaga
Hemen ez zagok **ile zuridun** horren aztarnarik, Alex. Fernando Morillo
Ilargiaren argitan bere **ile gorrixka** orrazten eta orrazten. Gotzon Garate
Juanek bere **ile gorri** eta larru zuriarekin gringo itxura du paisaia honetan. Joseba Sarrionandia
*ik beherago* 14. Askoren artean
Eta gizon buru bat azaldu zen, **ile gorria** eta azala ia kolore berekoa. Josu Zabaleta
**Ile** horia zuen, begi ederrak, itxura bikaina. Elizen arteko biblia
*ik beherago* 15. Askoren artean
Emakumearen **ile horiaren** gainean kapela bat ikus zitekeen. Lopez de Arana
**Ile horiak** uhinak egiten zituen haren sorbaldetan. Juan Kruz Igerabide
Aurretik buru-soila zen, baina **ile hori**-grisaxka zuen buruaren atzealdean. Koro Navarro
**Ile** gris batzuk baino ez zituen bere kaskezur luzexkan. Koro Navarro
Haizeak **ile** urdinezko xerlo batzuk soilune higatuan inarrosten zizkion bitartean. Lopez de Arana
Buruzapi beltza behera irristatu zitzaion, garondoko **ile urdinen** artean buru soila agerian utziz. Jose Morales
*ik beherago* 19. Askoren artean
**Ile urdin** bakanek soilgune txiki bat osatzen duten lekuan. Urtzi Urrutikoetxea
**Ilea** gaztain-kolorea zuen, goialdean bildua modaz pasatako moduan. Koro Navarro

## **4** (bestelako izenondoekin)

Ama zenak ere **ile argia** zuen eta begi berde-berdeak. Patxi Iturritegi
*ik beherago* 12. Askoren artean
Argala zen Angela Galli, luzanga, begi eta **ile argikoa,** mototsean bildua ia beti. Xabier Montoia
Ederki emango lizuke, **ile luze** horiekin... Josu Zabaleta
*ik beherago* 18. Askoren artean
Neskatoaren **ile luze** sakabanatua ukitzen ari zenean. Ibon Uribarri
Eskuak buruko **ile labur** latzetik pasatu eta, atea itxi gabe, ohera hurbildu eta bertan eseri zen. Jose Morales
Ederki emango lizuke, **ile luze** horiekin... Josu Zabaleta

*ik beherago* 17. Askoren artean

Badago **ile laburreko** lapurra zeu zarelako susmorik. Lopez de Arana

**Ile** kizkur luzeak aurpegi erdia estali zion. Fernando Morillo

Klima epeletan ere arazo bera dute **ile** sarria duten animaliek. Irene Aldasoro

*ik beherago* 19. Askoren artean

Gazte mehar eta zurbila zen, eta ilea zeukan oraindik, **ile sarri,** hori eta kirrua. Urtzi Urrutikoetxea

Hankak zabal eta luze, pubisa harro eta ausart -beti izan dira oso politak nire Venusen mendia eta nire **ile sarriak-** . Karlos Zabala

**Ile sarriko** hartz-larru handi eta lodi baten gainean. Fernando Rey

Jaioberriaren gorputza estaltzen duen **ile** fina ere desagertu egiten da. Irene Aldasoro

**Ile** fin sarriak, atzeraka orraztuak. Jon Muñoz

**Ile kiribila** likaz lisatzen saiatzen zen. Unai Iturriaga

*ik beherago* 16. Askoren artean

**Ile kiribileko** sasoiko gizona, berrogeien bueltan ibiliko zena. Unai Iturriaga

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Larruazalaren zentimetro koadro bakoitzeko **ile** kopurua bertsua dela gizakietan eta gainerako primateetan. Irene Aldasoro

**Ile** -xerlo horailak ageri zitzaizkion bere kapelu oktogonalaren azpitik. Koro Navarro

Lozioen eta **ile** -punta erreen usaina. Lopez de Arana

**Ile** -moztaileekin ere egon ei ziren -hala esan zuten- eta eurei ere eman ei zieten xaboi zatia. Urtzi Urrutikoetxea

**Ile** -gogortzailea emana zuen. Jon Muñoz

Hala nola bizitza, heriotza, sudurreko hotzeria edo **ile** -galtzea. Juan Garzia

· *izond* Ez zuen inork ezagutuko atzerriratutako **ile** -urdindu arrotz hura. Xabier Olarra

Gizon baten buru txiki **ileurdindua** agertu zen gero emakumearen ondoan. Anjel Lertxundi

Gizaseme gazte bat eta mutil **ile** -kizkur bat. Koro Navarro

Annieren argazki margoztatu bat, **ile** -harrotua eta bular-irtena azaltzen zena. Koro Navarro

Argentino xurigorria da, mardula, **ileurdintsua,** hazpegi finetakoa. Juan Garzia

Adinik onenean nago (hori banekien ispilurik gabe ere), **ileurdindun,** baina sasoitsu. Joxe Austin Arrieta

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskuak badaki emakume- **ilea** bigunagoa dela itsasertzeko hondar fina baino, lorategi dotore bateko belarra baino. Felipe Juaristi

Estalki horri gainetik buztina jartzen zaio ahuntz- **ilearekin** nahastuta eta dena lodi emanda. Katu- **ile** gorrixka luze batzuk. Santiago Iruretagoiena

Medusaren suge- **ilea** balitz bezala. Fernando Morillo

Gero zein bere txandan joaten ginen "despatxu"ra, non Caselli triku- **ileak** banatzen baitzizkigun lehengaiak, exotikoak zein domestikoak. Juan Garzia

Nituen zurda- **ileak** nahasirik zeuzkaten zaldi batzuk Juan Garzia

## 7 (testuinguru teknikoetan)

**Ilea** (beroaren edo gai kimikoen bidez tratatu gabea bada) zilindro leun bat da normalean; horrelakoa denean, lisoa da adatsa, oro har. Zelula ama horiek **ile** erraboileko folikuluetan daudela zehaztu dute. Irene Aldasoro

Folikulu bakoitzak **ile** bat gordetzen du, folikuluaren pareten zorroan gora larruazala zeharkatu eta kanpora irteten dena. Irene Aldasoro

Sentipen-nerbioz inguraturik daude **ile** -folikulu asko, eta ukimen-organo delikatu bihurtzen ditu horrek ileak. **Ile** -zelulak elkarri josita daude, alfonbra baten harien antzera. Irene Aldasoro

Zelula hartzaile bakoitzaren muturrean, **ile** finezko motots bat dago: zilio deitzen diete anatomistek **ileoi,** eta beren kasa mugitzeko ahalmena dute ziliook. Irene Aldasoro

Isolatzaile aparta da **ile** -larrua. Irene Aldasoro

Sudur-mukosako zelula hartzaileetatik irteten diren **ile** sentikorrak erraz desaktibatu ohi dira hotzeriarekin. Irene Aldasoro

Ardiaren **ileak** 93 ºC-rainoko tenperatura irits dezake kanpotik tropikoetako eguzkipean, eta, aldi berean, fresko du barrualdea. Irene Aldasoro

## 8 *ilezko* *izlag*

**Ilezko** poltsa beltza eta alboan Elena. Eider Rodriguez

Ipar herri batzuetako biztanleak erabiltzen dituzten **ilezko** kapeluen antza-edo zuen. Josu Zabaleta

Ez dute erabiltzen larruzko jantzirik, ez lihozko ehunik, **ilezko** tunika kaputxadunak bakarrik baizik. Askoren artean

**Ilezko** berogiez edo manta batzuekin ontsa inguratzen dute eta zubi meharrean pasatzen dira, nehork ikusi gabe. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Mototsa askatzean eskainitako **ilezko** irribarrea. Eider Rodriguez

Larru- **ilezko** kapela bat eta artilezko eskularru urdin ilunak. Xabier Olarra

Mandatariek, sartzean, etxeko idoloa aurkitu zuten ohean, ahuntz- **ilezko** oihala burualdean zuela. Elizen arteko biblia

## 9 *ile adats* (*orobat* *ileadats* *g.er.*)

**Ile-adatsa** emakumeena bezalakoa, eta hortzak lehoiarenak bezalakoak. Elizen arteko biblia

**Ile-adatsa** laztandu nion, eskuin eskuaz. Joxe Austin Arrieta

Ilehoriak ziren biak, altuak, eta batak bizarra zeraman eta besteak **ileadatsa** motots batean bilduta. Joxemari Iturralde

## 10 *ile-apaindegi* (*57 agerraldi, 29 liburu eta 17 artikulutan; ETCn 13.925 agerraldi –12.147* **Wikipedia***koak-; orobat* ***ileapaindegi*** *26 agerraldi, 14 liburu eta 4 artikulutan; ETCn 299 agerraldi)*

Domingok etxe ondoko **ile-apaindegian** egiten zuen lan. Iban Zaldua

**Ile-apaindegiko** laguntzailea. Anton Garikano

Kale-kantoiko **ile-apaindegiko** mutil hori. Josu Zabaleta

**Ile-apaindegiek** eskaintzen dituzten zerbitzuetan. Iñaki Heras

Burua **ileapaindegian** orraztua eta ezpainak poliki margoturik zituen. Aingeru Epaltza

Globe **ile-apaindegia** ere itxi egin beharko da. Oskar Arana

**Ileapaindegi** bateko erakusleihoaren parean geldirik. Fernando Rey

Saint-Honore kaleko **ile apaindegi** baten aurrean. Karlos Zabala

Xiringa batekin **ile-apaindegi** batean lapurreta egiteagatik atxilotua. Berria - Euskal Herria

**ile** -apaindegira joateko hitzordua. Berria - Kirola

Gizonak **ile-apaindegian** biltzen dira. Pablo Sastre

Etxetik irtetera zihoala, ordea, nor topatuko eta ile- **apaindegitik** zetorren bere emaztea topatu zuen. Josetxo Azkona

## 11 *ile-apaintzaile* (*28 agerraldi, 16 liburu eta 5 artikulutan orobat* ***ileapaintzaile*** *8 agerraldi, 6 liburutan) iz*

**Ile-apaintzailea** naiz ofizioz. Itxaro Borda

Balizko **ile-apaintzaile** lanbide horretan. Joxan Elosegi

Autoak konpontzen motorrak konponduz ikasten dela, eta **ile-apaintzaile** izaten, ilea moztuz. Ana Urkiza

Larunbatero, ilea labanaz txukuntzen zioten, lepoa zuri-zuri izateko, Deux-Ecus kaleko **ile apaintzaile** batenean. Karlos Zabala

Xanpu koloratzaile bat aholkatzen dit **ile-apaintzaileak**. Eskarne Mujika

Ile zuri batzuk han eta hemen, **ileapaintzaileak** noizean behin ezkutatzen dizkionak. Paddy Rekalde

Gustavek, **ile-apaintzaileak,** manikurako lau langilerekin, horiz margoturiko eraikin berri-berri baten lehen solairuan du egoitza. Monika Etxebarria

Agertokian, **ile-apaintzaile** gay arraitsu batek bi bezerori egiten die kasu, bata beltza, bestea zuria. Oskar Arana

Sidney **ile-apaintzailea** zorigaiztoko kartazala irekitzen ari da eta ugazabaren ultimatuma ozen irakurtzen. Oskar Arana

Atzera **ileapaintzaile** lanetan hasi zen. Pello Lizarralde

## 12 *ile-argi* (*orobat* ***ileargi*** *g.er.)* *izond* ilea argia duena.

Azal horaileko gizon **ile argi** bat. Lopez de Arana

Gazte **ileargi,** muxugarbi bat zen Kruz Lete, fina esaten zaien horietakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiru neska, **ile-argiak** hirurak, galtza motz zuriez jantzita, jaitsi ziren arroken aldetik besotik helduta. Kirgizak, **ile-argiak,** Enba ibaiaren bazterretatik ekarriak. Koro Navarro

## 13 *ile-beltz* (*orobat* ***ilebeltz****)* *izond* ilea beltza duena.

Emakume txikia, oin eta esku txikikoa eta **ile-beltza**. Koro Navarro

Etxekoandrea emakume **ilebeltz,** azal zuriko bat zen, aurpegia ia perfektua zuena. Josu Zabaleta

Ilehoriaren lagun **ilebeltza** sartu zen. Gizon garaia zen, goibela, **ile-beltza,** anaia hilaren antzeko samarra. Jose Morales

Vittorio **ile-beltza** zen, bizkar-zabala, eta kokotsa luzea eta aterea zuen. Fernando Rey

Bizarra egiten duten gizon oso **ile-beltzek** ohi duten bezala. Jose Morales

Tartean Alessandro, gazte tantai bat, **ile-beltz** kirrua, biolin-jotzailea. Felipe Juaristi

Ni baino **ilebeltzagoa** eta sudurmotzagoa baita. Josu Zabaleta

## 14 *ile-gorri* ik **ilegorri**.

## 15 *ile-hori* ik **ilehori**.

## 16 *ile-kiribil* (*orobat* ***ilekiribil****)* *iz* ilezko kiribila.

Kopetarainoko **ile-kiribil** luze ongi apainak. Fernando Rey

Aurpegi obalatu txiki bat, **ile** kiribil marroiak mugaturik. Lopez de Arana

Almendra-begiak zituen, **ile-kiribil** beltz eta leunak. Fernando Rey

Egun luze hartako maitasunak zurrunduak zizkion **ile-kiribilak..**. Lopez de Arana

**ile-kiribil** beltzak... Lopez de Arana

Bere atzean piztua zegoen kandelaren argiak distira egiten zuen bere **ilekiribil** zuri batean zehar. Fernando Rey

Barre txoroko neska victoriar batengan pentsarazten dit, kaskarin batengan, **ile-kiribil** horiko eta masail-barren potzolo gorriko neska horietako batengan. Oskar Arana

Mutiko ihar **ile-kiribila**. Anton Garikano

## 17 *ile-labur* (*orobat* ***ilelabur*** *g.er.)* *izond*

Bere buru **ile-labur** handia makurtu, eta sorbaldan jarri zion eskua. Jose Morales

Neska **ile-labur** batek. Jose Morales

Galderren belarriek ozta-ozta jasaten zituzten londrestar **ile-laburren** arrantzak. Lutxo Egia

Beltzarana, **ilelaburra**. Edorta Jimenez

## 18 *ile-luze* (*orobat* ***ileluze*** *g.er.)* *izond* ilea luzea duena.

Azken finean, Durero bera ere -hantxe ikusten nuen, bere Autorretratuan- **ileluzea** zen, bigote eta bizarduna, ez, inolaz ere, azal soilekoa. Bernardo Atxaga

[…] -esan zion soldaduetako batek, biboteduna eta **ile-luzea** bera, bentariari. Felipe Juaristi

Bakeroak zeramatzan berarekin zegoen gizon **ile-luzeak** ere. Koro Navarro

Mutiko **ile luzeak** ez zuen ezer erantzun. Harkaitz Cano

Diskoak ipintzen ari zen mutil argal garai **ile luzeak** musika aukeratzen jarraitu zuen. Sonia Gonzalez

Gazte bibotedun eta **ile luzeak** itsuaren mahaiari begiratu eta han gainean biolin bat ikusirik esan zuen […]. Felipe Juaristi

Ez zen batere harritu neskak bere buru astuna, **ile-luzea** eta beltza, beraren lepoan jarri, eta esan zionean isilka: […]. Koro Navarro

Lau zaldi **ile-luzek** tiraturik. Jose Morales

**Ileluze** potrodun eta ero samar hura, orain ile ondo moztu eta orraztuarekin ageri zen, bizarra eginda, eta PSOEn oso aurrera zebilen. Juan Kruz Igerabide

· Gaztetxearen iluntasunean aurreko asteko **ile-luze**-gorria bilatzen hasi zen. Sonia Gonzalez

## 19 *ile motots* (*orobat* ***ilemotots*** *g.er.)*

Esku biak praken patriketan, **ile-motots** gorrikara sorbaldan behera. Joxe Austin Arrieta

Haren aurpegia, haren **ile motots** sarria, haren masailbizarrak. Matías Múgica

Sekula baino argalago, **ile-motots** handiak erorita, [...]. Iñaki Mendiguren

Buruko **ile-mototsa** borobil eta tente, belarri lotsorrak ilearen azpitik ageri. Txillardegi

Berarengan zerak ematen zidan atentzioa gehienbat, solasaldirakoan, desadostasuna adieraztearren, bere **ile-mototsa** atzerantz botatzeko egiten zuen keinuak. Joxe Austin Arrieta

**Ile**-motots kaxkagorridun neskatxa arrotz hura. Joxe Austin Arrieta

Jerusalem, moztu zeure **ile**-mototsa eta bota! zein atsegin handia labanaz lehenengo **ile mototsa** kendu nionean. Elizen arteko biblia

**Ilemototsarekin** atonduta. Berria - Kirola

Hitzak **ile mototsak** balira bezala lotuz. Felipe Juaristi

## 20 *ile-sarri* (*orobat* ***ilesarri****)* *izond* ile sarrikoa.

Begi beltz kartsuak, bekain **ile-sarriak**. Jose Morales

Bere belarrondoko bizar **ile-sarri** eta ondo zainduak. Jose Morales

Begitxo txikiak oraindik iraungi gabe zeuzkan, eta bizkor higitzen zituen bekain **ilesarrien** azpian. Jose Morales

## 21 *ile txima* (*orobat* ***iletxima****)*

Marihuana hosto baten gainean, Bob Marley-ren aurpegia ageri zen, bere **ile txima** luzeekin. Jokin Muñoz

Eskua kopetara altxatu, **iletxima** bat kiribildu eta berriro erortzen utziz. Anton Garikano

Eta burura etorri zaik, atzera berriz, haren begirada hura, **ile-txima** kiribilduen atzean ezkutatua, eta bere doinu irmoa, gonbiteari ezetz esan zionean. Jokin Muñoz

Buruarin eta axolakabe samarrak, **"iletximak** zintzilik" zituztenak. Anton Garikano

## 22 *ile-urdin* (*orobat* ***ileurdin****)* *izond* ilea urdina duena.

Agure txiki **ile-urdina** zen. Jose Morales

Hala ere, adineko emakume **ile-urdin** horren malkoek biziki hunkitu zuten. Jose Morales

Ondoan eserita, esate baterako, atso **ileurdin** bat genuen, etxeko bata zarpail eta zapatila beroekin. Joxean Agirre

Legoa baten laurdena baizik ez genuen eskas izanen Nabarrenkoxeko murruak ikuspegian izateko, gizon **ile-urdinaren** arabera. Aingeru Epaltza

Klubeko emakume bat, **ile-urdina,** lepoan arrasto bat zuen andre mehe bat […] etorriko zen berehala kafe poto batekin.Nola zabukatzen ziren amaren buru **ile-urdina** eta

kapela beltz parpailaduna. Koro Navarro

**Ile-urdina** bere gizonengana bihurtu zen. Aingeru Epaltza

-Hori **ileurdin** azalori batekin joatia baino hobia dok -Xankapok-. Iñaki Iñurrieta

## 23 *ile xerlo*

**Ile-xerlo** bat dindilizka zeukan bekain baten gainean. Lopez de Arana

Mirariri **ile-xerloa** erori zitzaion kopetara. Fernando Morillo

Soinean zeukan jantzia eta bere seme hilaren **ile-xerlo** bat, gero gutunazal batean gordetzen zuena: horiexek besterik ez zuen bererik. Xabier Olarra

**Ile-xerlo** bihurri batek ihes egin zion. Fernando Morillo

**Ile-xerlo** horailak ageri zitzaizkion bere kapelu oktogonalaren azpitik. Koro Navarro

Han izaten zen, **ile xerlo** horiak lepoan eta lokietan, soinekoaren botoiak gaizki lotuak, bere postuaren atzean eserita, ganoragabe. Karlos Zabala

Gizenago zegoen eta burutik soildua ia-ia, baina buruaren goiko aldean bazituen, artean ere, **ile-xerlo** hori leun banatu batzuk. Fernando Rey

Horregatik ateratzen da kea **ile xerloa** balitz bezala estolderietatik gora. Gotzon Garate

## 24 *ile-zuri* (*orobat* **ilezuri**) *izond*

Donati andrea altua zen, handia, polita eta **ile-zuria** . Fernando Rey

Orain, zahar eta **ile** -zuri naizenean, ez nazazu bertan behera utz. Elizen arteko biblia

Hirurogei bat urteko gizon **ile-zuria** zen Nobel sariduna. Joan Mari Irigoien

Lehen egunean jantoki obalatuan ikusi zintudan hazpegi finak zituen gizon dotore **ilezuri** batekin. Lopez de Arana

Atso **ile-zuri** sagar-musu batek buruari eragin zion, etsipenezko zirkin bat eginez. Anjel Lertxundi

Gizon **ile-zuri** batek bizkarreko zauriak olioz eta ukenduz gantzutzen zizkidala. Joan Mari Irigoien

Umeei letrak erakusten zizkien agure beneragarri **ile-zuriak** . Felipe Juaristi

Agure **ile-zuri** bat, ero-begia, fusila kargaturik eskuan zuela. Josu Zabaleta

-Berriro **ilezuria** ? Fernando Morillo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**baina ile** (8); **bat ile** (5); **bere ile** (87); **bere ile gorria** (7); **bi ile** (8); **bizar eta ile** (5); **buru ile** (7); **buruko ile** (27); **buruko ile bat** (8); **da ile** (8); **den ile** (5); **diren ile** (6); **du ile** (6); **duen ile** (5); **edo ile** (8); **emakume ile** (10); **emakumearen ile** (5); **ere ile** (5); **eta bere ile** (15); **eta haren ile** (5); **eta ile** (176); **eta ile beltz** (10); **eta ile horia** (5); **eta ile luzea** (6); **eta ile luzeak** (5); **ez zuen ile** (5); **gaineko ile** (5); **gaztaina koloreko ile** (8); **gizon ile** (9); **gorputzeko ile** (5); **haren ile** (58)

**ile adats** (23); **ile adatsa** (21); **ile adatsak** (6); **ile apaindegi** (13); **ile apaindegi batean** (5); **ile apaindegia** (6); **ile apaindegian** (12); **ile apaindegiko** (6); **ile apaindegira** (7); **ile apaintzaile** (8); **ile apaintzailea** (6); **ile apaintzaileak** (6); **ile argia** (5); **ile bakar** (16); **ile bakar bat** (12); **ile bat** (28); **ile bat ere** (9); **ile baten** (6); **ile batzuk** (13); **ile beltz** (70); **ile beltz beltza** (5); **ile beltz eta** (7); **ile beltz luzea** (7); **ile beltza** (34); **ile beltzarana** (6); **ile beltzeko** (8); **ile bustia** (5); **ile de** (9); **ile de france** (7); **ile eta** (29); **ile eta bizar** (8); **ile gorri** (34); **ile gorria** (23); **ile gorrixka** (7); **ile gris** (10); **ile guztia** (13); **ile guztiak** (12); **ile horail** (5); **ile horaila** (5); **ile hori** (51); **ile horia** (44); **ile horia eta** (7); **ile horiak** (14); **ile hura** (8); **ile iluna** (8); **ile kiribil** (8); **ile kizkur** (40); **ile kizkur bat** (6); **ile kizkurra** (24); **ile kizkurra eta** (5); **ile kizkurrak** (12); **ile kizkurreko** (10); **ile larrua** (6); **ile lehorgailu** (5); **ile leun** (8); **ile lisoa** (5); **ile luze** (41); **ile luze eta** (6); **ile luzea** (40); **ile luzea eta** (6); **ile luzeak** (19); **ile luzeko** (8); **ile mataza** (15); **ile matazak** (6); **ile motots** (16); **ile mototsa** (8); **ile mototsak** (6); **ile motxa** (5); **ile motz** (13); **ile motza** (11); **ile moztea** (6); **ile nahasi** (7); **ile nahasia** (5); **ile sarri** (5); **ile txima** (5); **ile urdin** (14); **ile urdina** (10); **ile urdinak** (7); **ile urdindua** (5); **ile xerlo** (40); **ile xerlo bat** (11); **ile xerloa** (7); **ile xerloak** (6); **ile zuri** (29); **ile zuria** (13); **ile zuriak** (10); **ile zuridun** (8); **ile zuriduna** (15); **ile zuriko** (11)

**koloreko ile** (19); **kopetako ile** (5); **mutil ile** (6); **neska ile** (15); **neskaren ile** (5); **nire ile** (7); **oso ile** (5); **txiki ile** (5); **zen ile** (16); **zeukan ile** (6); **zion ile** (5); **zitzaion ile** (13); **zitzaizkion ile** (7); **zuen bere ile** (6); **zuen eta ile** (6); **zuen ile** (22); **zure ile** (9)

**baina ilea** (5); **bere ilea** (19); **bizarra eta ilea** (6); **buruko ilea** (12); **du ilea** (12); **dut ilea** (6); **eta ilea** (115); **haizeak ilea** (7); **haren ilea** (9); **hoffen ilea** (6); **ilea askatu** (8); **ilea atzera** (7); **ilea atzerantz** (5); **ilea baino** (7); **ilea beltza** (12); **ilea bustita** (9); **ilea ere** (15); **ilea erori** (6); **ilea eta** (36); **ilea eta bizarra** (6); **ilea ez** (6); **ilea gorri** (5); **ilea harrotu** (6); **ilea hazten** (6); **ilea laztandu** (13); **ilea laztantzen** (12); **ilea luze** (9); **ilea luzea** (5); **ilea motots** (9); **ilea motots batean** (6); **ilea motz** (10); **ilea motz motz** (5); **ilea motza** (6); **ilea mozteko** (11); **ilea mozten** (18); **ilea moztera** (7); **ilea moztu** (46); **ilea moztu behar** (5); **ilea moztu eta** (11); **ilea orrazten** (6); **ilea orraztu** (12); **ilea tente** (5); **ilea tindatu** (5); **ilea txukundu** (6); **ilea ukitu** (6); **ilea urdindu** (6); **ilea urdintzen** (12); **ilea urdintzen hasia** (7); **koloreko ilea** (14); **kopetako ilea** (7); **nire ilea** (9); **t hoffen ilea** (6); **zen ilea** (5); **zeukan ilea** (10); **zion ilea** (7); **zitzaion ilea** (9); **zuen ilea** (28); **zure ilea** (7)

**batek buruko ileetatik** (7); **bere ileari** (5); **buruko ileak** (32); **buruko ileetatik** (16); **buruko ileetatik behatzetako** (7); **buruko ileetatik oinetako** (6); **eta ileak** (30); **eta ilean** (6); **eta ilearen** (5); **eta ileetatik** (6); **haren ileak** (10); **haren ilearen** (6); **ileak ere** (8); **ileak eta** (10); **ileak lazteko** (6); **ileak laztu** (11); **ileak tente** (7); **ilean eta** (6); **ilearen kolorea** (7); **ileetatik behatzetako** (7); **ileetatik behatzetako atzazaletaraino** (7); **ileetatik heldu** (7); **ileetatik oinetako** (7); **ileetatik oinetako behatz** (6); **ileetatik tiraka** (10); **ileko zinta** (5)

**eta ilerik** (9); **eta iletik** (11); **ilerik ez** (7); **ilerik gabe** (7); **ilerik gabea** (6); **ilerik gabeko** (9); **iletik heldu** (10); **iletik tira** (5); **iletik tiraka** (7)

---

# ileadats ik **ile 9**.

---

# ileapaindegi ik **ile 10**.

---

# ileapaintzaile ik **ile 11**.

---

# ileargi ik **ile 12**.

---

# ilebeltz ik **ile 13**.

---

# **iledi** *iz* ile multzoa.

Frantxuaren **iledia** malgutzen eta desegiten zuen euriak. Itxaro Borda

---

# **iledun** *izond* ilea duena.

Kasaka berdea, galtza gorriak, azpantar zuriak, larruzko mantala eta kapelu luze **iledunak** . Askoren artean

-Hauek ez ditek **iledunik** etzanarazi oraindik! Koldo Izagirre

· Hori esaten zuen bitartean, zilar **iledun** gizonak urre trinkozko erlojua atera zuen poltsikotik. Matías Múgica

---

# **ilegabe** *izond* ilerik ez duena.

Haren isats **ilegabea** . Iñaki Mendiguren

Ume bularra zuen, zuria, zapala, **ilegabea** . Matías Múgica

Hark, ordea, kaskarra zuen guztiz **ilegabea**. Eskarne Mujika

Hain zeuzkan leun eta **ilegabe** masailak eta kokotsa, ezen itsua izan beharra baitzegoen haien mardultasuna eta biribiltasuna ez miresteko. Jose Morales

---

# ilegabetu, ilegabe(tu), ilegabetzen da/du *ad* ilea galdu edo kendu.

Orgia bizi bat hasten zen bertan, denak harrapatzen zituena, lumagabeko emagazte daktilografoak zein **ilegabeturiko** gizaseme kontulari, orduko zuzendaritik hasi eta behe-beheko postuetaraino, atezainak barne, elbarri zibilak baitziren. Juan Garzia

---

# ilegal 1 *izond* legez kanpokoa.

Mundu garatuak harresi barneraezinak eraiki ditu, eta gizaki migratzailea gizaki **ilegal** bilakatu da. Taxi **ilegaletan** ibiltzeak dakartzan arriskuak. Iñaki Heras

Droga **ilegalik** gabe ere, aski pizgarri ditu festa honek denen gogoa kilikatzeko. ibilgailua miatu eta gero, CDen eta DVDen (musikaren eta zinemaren merkatuko azken nobedadeak tartean) kopia **ilegalak** ikusi zituzten zorro batzuen barruan. Xabier Mendiguren Elizegi

Musika-jaiste **ilegalaren** aurka zigor mailakatua hautatu dute Frantzian Trafiko **ilegala** egin zuela uste dut. Pello Lizarralde

Rahimek satelite bidezko telebista dauka etxean, **ilegala,** jakina. Jon Arretxe

Egoera **ilegalari** amaiera emateko. Berria - Mundua

Beste asko bezala egoera **ilegalean** zegoenez, [...]. Harkaitz Cano

Etorkinei pisua modu dohakabe (eta **ilegal)** horretan alokatu dietenak. Iban Zaldua

Alegala da, hori bai, baina ez **ilegala**. Berria - Harian

Montakargas hau **ilegala** da... Harkaitz Cano

Protesta horiek **ilegalak** eta ez-legitimoak dira, presio-formula onartezina. Txema Ramirez de la Piscina

Yakuzakoek tatuajea onartzen zuten, kemena adierazten zuelako eta, **ilegala** zenez, legez kanpoko bihurtzen zituelako. Javi Cillero

**Ilegala** da, bisaturik gabea... Iñaki Zabaleta

Zuzendaritzak «greba **ilegaltzat** jotzea eskatu duela, horrek legearen aldetik dakartzan ondorio guztiak onartuta». Berria - Ekonomia

## 2 (adizlagun gisa)

-Ez, **ilegal** zegoen, bisatu eta paperik gabe. Iñaki Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ilegala da** (6); **ilegala dela** (3)

---

# ilegalitate *(3 agerraldi, 2 liburu eta 1 artikulu 1ean)* *iz* ilegaltasuna.

Ez dakizue **ilegalitatean** sartzen ari zaretela? Itxaro Borda

Trantsizio demokratikoari eta gizarteratzeari muzin eginda, indarkeriaren eta eta **ilegalitatearen** aukera egingo dutenak. Berria - Mundua

Pena ematen didazue, bai, zeren kartzelan edo **ilegalitatean** bizi baitzarete izugarrizko sakrifizioak eginez Mikel Hernandez Abaitua

---

# ilegalizatu, ilegaliza, ilegalizatzen 1 du *ad* ilegal bihurtu, legez kanporatu.

Batasuna, AuB, Herritarren Zerrenda eta ondorengo guztiak **ilegalizatuko** ditiztek, eta ez duk ezer gertatuko. Iban Zaldua

**Ilegalizatutako** alderdiekin. Berria - Euskal Herria

Greenpeace erakunde ekologista **ilegalizatzea** aztertzen ari da Floridako [...] Fiskaltza Nagusia. Berria - Gaiak

Frankismoan bezala Nafarroan ikurrina **ilegalizatu** eta debekatzen zutenekin bat egiten duelako. Berria - Euskal Herria

## 2 (era burutua izenondo gisa)

Gezurra ematen du, alderdi **ilegalizatu** batek lan gehiago izatea legezkoa zenean baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Talde **ilegalizatuetako** ordezkarien parte-hartze erabakigarria bermatzeko. Berria - Euskal Herria

Mahai berean alderdi legalizatuak eta **ilegalizatuak** sartzea. Berria - Harian

**Ilegalizatu** guztien izenean. Berria - Euskal Herria

---

# ilegalizatze *iz* ilegal bihurtzea, legez kanporatzea. ik **ilegalizazio**.

Espainiarren gehiengoak nahi omen du Batasunaren **ilegalizatzea** eta gehiengoaren nahi horixe omen da gaur arau. Hasier Etxeberria

Gizarte erakunde eta sindikatu asko agertu dira euskal alderdi politiko bat **ilegalizatzearen** kontra. Berria - Gaiak

---

# ilegalizazio *(175 agerraldi, liburu 1 eta 108 artikulutan)* *iz* ilegalizatzea, legez kanporatzea.

**Ilegalizazioaren** mehatxupean. Berria - Harian

**Ilegalizazioa** salatzeko gaur elkarretaratzea deitu du Batasunak. Berria - Euskal Herria

Batasunaren **ilegalizazio** prozesua. Berria - Euskal Herria

**Ilegalizazio** politikak zauriak eragiten ditu. Berria - Harian

**Ilegalizazio** egoera behin-betikotu eta egoera anti-demokratiko horri zilegitasuna emateko jarrera. Berria - Harian

Estatu espainol eta frantsesaren errepresio eta **ilegalizazio** dinamikaren porrota. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batasunaren ilegalizazioa** (10); **eta ilegalizazioa** (5); **hzren ilegalizazioa** (3); **hzren ilegalizazioaren** (3); **hzren ilegalizazioari** (3); **ilegalizazio estrategia** (3); **ilegalizazioa eta** (4); **ilegalizazioa salatu** (3); **ilegalizazioa salatzeko** (4); **ilegalizazioaren aurka** (6); **ilegalizazioaren aurka hitz** (3); **ilegalizazioaren aurrean** (3); **ilegalizazioaren inguruko** (3); **ilegalizazioaren inguruko eztabaida** (3); **ilegalizazioaren ondorioz** (3); **ilegalizazioari aurre** (3); **ilegalizaziorik ez** (4)

---

# ilegalkeria *iz* ilegaltasun gaitzesgarria.

Legez kontrako diru laguntza: «Onartu duzuen diru laguntza **ilegalkeriaz** betea da». Berria - Harian

---

**ilegalketa** *iz* ilegalizazioa.

elkarte eta biltzar eskubideak, erakunde "Estatuaren etsaien" **ilegalketa** arbitrarioak (Alderdi Komunista eta Sozialdemokrata debekatuak izan dira; besteak berak "libreki" desegin dira), eta posta, prentsa, teatro eta informazioaren kontrola Joxe Azurmendi

---

**ilegalki** *iz* era ilegalean.

Ertzainak etxe bat hustera doaz, **ilegalki** bizi diren gazteak ateratzera. Pako Aristi

Gorte Gorenak itxiarazi zuen, **ilegalki** irekia izan baitzen. Ramuntxo Etxeberri

Baziren lehen planoak eta urrutikoak, baziren argazki difuminatuak, desfokatuak, Fotomaton enpresetatik ebatsiak edo diru bereiziekin **ilegalki** erosiak. Harkaitz Cano

---

**ilegaltasun** *(**15** agerraldi, **2** liburu eta **3** artikulutan)* *iz* ilegala denaren nolakotasuna. ik **ilegalitate**.

Urgull mendiko okupa nintzen, desanparoaren beldurrik gabe, bakardadeak ez ninduen izutzen, ezta **ilegaltasunak** ikaratzen ere. Hain zuzen, borroka armatuaren inguruko bere ikusmoldearen arabera luzatzen da legaltasunaren eta **ilegaltasunaren** arteko marra gorria. Itxaro Borda

Bere lege propioak **ilegaltasunera** makurtuz. Itxaro Borda

Segi erakundearen eragina handia denean eskola horietako abertzale gazteen artean, ikastoletan **ilegaltasunaren** kultura bat barneratzen dela ematen du, nahiz eta ez den egia. Itxaro Borda

Udalbatzako idazkaritza nagusiari txosten juridikoa egiteko eskatu dio, «udalbatzako eskumenen urraketak **ilegaltasunaren** oinarri» direla argudiatuta. Berria - Euskal Herria

---

**ilegaltze** *iz* ilegal bihurtzea.

Akabo orduan nere tripako min guziak, buruko nerbio eta **ilegaltzeak,** erreumak, hipotentsioak, eta emaztearen hileroko gorabeherak. Patziku Perurena

---

**ilegitimo** *iz* ez-legitimoa.

Haien arabera, «Nafarroa Baik estrategia **ilegitimo** eta desleialen bidez ezker abertzalea ordezkatu nahi du hauteskundeetan». Berria - Euskal Herria

---

**ilegorri** *(orobat **ile-gorri**)* *izond* ilea gorria duena.

Kontent naiz **ilegorri** izateaz. Monika Etxebarria

Ilea bakantzen hasia, baina ez burusoila, **ile-gorria,** bibote lodiak aho oraindik gordinaren inguruan ia gakotuak. Josu Zabaleta

Begitxo beltzeko **ile** -gorria, ederra da, bai ala ez? Jon Muñoz

Handik, buru **ile-gorri** bat baizik ez nuen bereizten ahal gidariaren jarlekuan. bizar **ilegorriko** gizaseme ihar eta luzea. Aingeru Epaltza

Sabeth bere motots **ilegorria** garondotik atzerantz botatzen. Joxe Austin Arrieta

Isats **ile-gorri** bat erakutsi zion, handi-handia, behor sendoren bati kendua. Karlos Zabala

-A! badakizu, **ilegorri** baten trakeskeriak. Monika Etxebarria

**Ilegorriak** barrako ohol urratuaren gainean eusten zion gorputzari. Sonia Gonzalez

Puntuz puntu baieztatu zizkidan **ilegorri** bular-handiaren informazioak [...] zituen gehigarri nabarmenenak. Aingeru Epaltza

**Ilegorri** gazteena sartu zen. Iñaki Mendiguren

Haren besoan trabatua, mutil **ile-gorri** bat. Aingeru Epaltza

Nire lehengusu **ilegorriari** eta bioi oso ideia ederra iruditu zitzaigun. Pello Lizarralde

Gizatzar **ile-gorri** bat zen, bizar-gorria, oso handia, halako Herkules baketsu, eratsu bat. Josu Zabaleta

Aurpegi argaleko mutil gazte judu **ilegorri** bat zen. Lopez de Arana

Bestea mozkotea, baldarra, **ile-gorria** . Koro Navarro

· King Kong neska **ile-gorritxoaz** jabetu zen bezala oratu eta herrestan eraman ninduen kanpoaldera. Joxan Elosegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **gizon ilegorri** (6); **hiltzaile ilegorria** (3); **ilegorri bat** (8); **ilegorri batek** (5); **ilegorria da** (4); **ilegorria eta** (5); **ilegorria ez** (3); **ilegorria zen** (6); **lehengusu ilegorria** (8); **lehengusu ilegorriak** (3); **lehengusu ilegorriari** (3); **mutil ilegorri** (4); **neska ilegorri** (5); **neska ilegorria** (8); **neska ilegorriak** (3)

---

**ilegun** *iz* abuztuko lehen egunetako bakoitza.

Hogeita lau egun zituzten **ilegunak;** 24 egun, urtarrileko kontuan hartu beharrekoak, urteko eguraldiaren martxa ongi markatu nahi bazuten. Pello Zabala

**Ilegun,** zotaleguna, sortelegun, igerregun... molde horietan denetan deitu izan zaie Abuztuko lehen egunei. Pello Zabala

Kontuak horrela, nire iritzirako, abuztuko **ilegun** eta sortegun hauek ez dira hemengo landarea. Pello Zabala

---

**ilehori** *(orobat **hilehori** g.er. **hile hori** g.er. eta **ile hori** g.er.)* *izond* ilea horia duena.

Bata **ilehoria** zen, eta garaia; bestea apur bat baxuagoa, eta ilebeltza. Jose Morales

Miranda ttikia zen, mehea eta **ile-horia,** begi-urdina. Fernando Rey

Arrieta ez da ez **ilehoria,** ez garaia; guztiz bestelakoa baizik: mozkotea, beltzarana oso, [...]. Rafa Egiguren

Gazte-gaztea da, **ilehoria** oso, eta ez ditu hogei urtetik gora. Rafa Egiguren

Briotxe bat jaten ari zen gizon **ilehori** altu batekin zegoen. Monika Etxebarria

Beste emakume **ilehori** eta begi-urdin baten paretik igaro ginen. Juan Kruz Igerabide

Andre Virginia emakume garai, **ilehori,** lodi bat zen. Josu Zabaleta

Gizaseme **hile hori** begi urdin lerden bat. Aurelia Arkotxa

Tipo **ilehori** musugorri bat. Joxe Austin Arrieta

Moztaka **ilehori** bat? Josu Zabaleta

Emakume atsegin **ilehori** hura beltzaren besoetan. Monika Etxebarria

Londrestar txiki **ile-hori** batek. Irene Aldasoro

Nik platerak lehortzen laguntzen nion ofizial **ilehoriari** . Pello Lizarralde

Txapel gorria buru **ilehorian** . Koro Navarro

-Emakume bat aurkitu behar duzu, **ilehori** deigarri bat, apartekoa esan didatenez. Migel Angel Mintegi

**Ilehori** eder baten bila nabil. Migel Angel Mintegi

Klaseko beste neska bat da Amanda, **ilehori** mehe bat. Oskar Arana

Berrogei urteko **ilehori** mardula da, masail gorri eta leunekoa. Monika Etxebarria

Orain bi aste edo, nire bezeroa zorioneko **ilehoriarekin** oheratu zen. Migel Angel Mintegi

**Ilehoriaren** familiakoak konde haren zerbitzura zeuden. Pello Lizarralde

-Beraz, **ilehoriaren** bila zabiltza... Migel Angel Mintegi

**Ilehoriaren** lagun ilebeltza sartu zen. handik Espartara joan behar duk, Menelao **hilehoriaren** etxera. Juan Kruz Igerabide

Bezero **ilehori** -buruzuriak erdizka baizik ez zuen adituko barran esaten zena. Matías Múgica

Besoetan lehoi-muturreko txakur **ile-hori** bat zuela. Ander Irizar

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina ilehoriak** (6); **emakume ilehori** (7); **emakume ilehoria** (3); **eta ilehori** (5); **eta ilehoria** (14); **eta ilehoriak** (9); **gazte ilehori** (10); **gizon ilehori** (6); **gizon ilehori bat** (3); **ilehori bat** (22); **ilehori batek** (8); **ilehori batekin** (4); **ilehori baten** (4); **ilehori eder** (6); **ilehori eta** (9); **ilehoria ere** (5); **ilehoria eta** (14); **ilehoria ez** (3); **ilehoria gure** (3); **ilehoria gurekin** (3); **ilehoria zen** (13); **ilehoria zen eta** (4); **ilehoriak ere** (3); **ilehoriak esan** (3); **ilehoriak eta** (5); **ilehoriak ez** (8); **ilehoriak ez zuen** (3); **luze ilehori** (3); **mutil ilehori** (4); **mutil ilehoria** (4); **neska ilehori** (15); **neska ilehori bat** (4); **neska ilehori batek** (4); **neska ilehoria** (8); **neska ilehoriak** (5); **ofizial ilehoria** (8); **ofizial ilehoriak** (7); **ofizial ilehoriari** (3); **zen ilehoria** (3); **zion ilehoriak** (3); **zion ilehoriari** (3); **zuen ilehoria** (3); **zuen ilehoriak** (3)

---

## **ilehorixka** *izond* ilea horixka duena.

Zerbitzari **ilehorixkak** beste garagardo bat ipini du barra gainean Sonia Gonzalez

---

## **ileizun** *iz* ileordea.

**Ileizuna** alde batera okertua zuen, pompadour orrazkera itogarriaren azpitik ihes egiteko asmoz edo Lopez de Arana

---

## **ileketa** *adlag ipar* ile eske.

Ardia ahuntzari **ileketa** . Xipri Arbelbide

---

## ilekiribil ik **ile 16**.

---

## ilelabur ik **ile 17**.

---

## ileluze ik **ile 18**.

---

## ilemotots ik **ile 19**.

---

## **ilemoztegi** *iz* ileapaindegia.

Bizimodu sotilaren gozoak dastatzea, ehizan ibiltzeaz gain, Santa Klara karrikako **ilemoztegian** sartu eta "Ilea eta bizarra, dena!" agintzea zen, brotxaren kilima masailetan, kolonia merkeen lurrina, motzailearen jardunari sobera belarri eman gabe ispiluan islatzen zen buruari barre egitea... Koldo Izagirre

---

## **ilen** *iz* astelehena.

Astelehenari **ilen** ere esaten zaio, hau ere ilargiaren izenarekin lotua dagoen hitza erabiliz. Pello Salaburu

---

## ilenti ik **ilinti**.

---

## **ileo** *iz* hestearren hersketa mingarria.

Hasieran kezka hutsala baino ez zena, ordea, larriagotu egin zen denboraren joanarekin, harik eta, tratamendua zela eta kontsultara joan ziren batean […] Casado doktoreak kolon- **ileoa** antzeman zion arte. Imanol Zurutuza

---

## **ileorde** *iz* ordezko ilea.

Pailazo zuria, **ileorde** gorri batekin eta sudur handi batekin... Josu Zabaleta

Olatz da, mutil jantzian eta **ileorde** beltz bat jantzita duela. Harkaitz Cano

Azenario koloreko artilezko **ileorde** harro batekin. Josu Zabaleta

Gizon bat ikusi zuen [...] luzea eta argala era berean, **ileorde** gari-kolore, bai, gari-kolore eta azafrai-usainekoa zuena. Felipe Juaristi

Garai hartako erretratu batean **ileordea,** jaka, txalekoa eta estokea dituela agertzen da. Iñaki Mendiguren

**Ileorde** kaoba-kolorekoak benetako ilea ematen zuen; bularrek ere benetakoak ematen zuten. Oskar Arana

Emakumez jantzita ikusi dute beti, **ileorde** eta betaurreko handi ilunen atzean ezkutatuta. Berria - Kultura

Hark ere ez zuen **ileordekorik** erabiltzen, apaindura zaharkitua zitzaiolako. Elena Touyarou

Umeek eta txakurrek Maradonaren **ileordeak** janzten zituzten. Berria - Kirola

**Ileorde** beltzaz jantzita. Harkaitz Cano

Maletatik zerbait atera zuen, **ileorde** bat, pistola bat eta betaurreko batzuk, eta soinean jarri zituen. Harkaitz Cano

Gizonezko bat eta **ileordea** zeraman emakume bat agertu ziren. Berria - Ekonomia

**Ileordea** askatzen hasi zitzaion. Berria - Kirola

Kendu **ileorde** eta soineko barregarri horiek oraintxe bertan. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ileorde** (4); **eta ileordea** (3); **ileorde eta** (3); **ileordea zeraman** (3)

---

# ileordedun *izond* ileordea duena.

Korridorearen bukaeran familiako kide frantsesen erretratuak zeuden, buru-estunekiko dama zaharrak, [...] jaun ezezagun, gizen, **ileordedun** eta ezpain lizunekoak. Xabier Olarra

---

ilesarri ik **ile 20**.

---

# iletratu *iz* eskolagabea.

Euskalduna, ez da berez letratu, letratu kondeszendiente baizik, euskaldun **iletratuak** jada beragandik bueltarik gabeko arroztu eta ergeltegi bateko azienda bezala ikusiko dituena. Patziku Perurena

---

# iletrismo *iz* eskolagabetasuna.

Hiru ardatz ditu Frantziako Hezkuntzak 2004-2205. urteari begira, **iletrismoa** aitzinikustea, lehen mailako programa berriak indarrean ezartzea eta ikasteko zailtasunak dituzten ikasleen jarraipena eta laguntza bermatzea. Berria - Euskal Herria

---

# iletsu *iz* ile asko duena.

Gorputza bere senarrarenaren antzekoa zuen, hezurtsua eta **iletsua** . Koro Navarro

Haren buru **iletsu** iharra bolatxo zurixka baten antzera zetzan semearen bularrean. Jose Morales

Bi masailak laztandu zizkion bere masail **iletsuekin** . Jose Morales

Alkandora hutsean, oin biluzi **iletsuak** lurrean, eserita eta isilik. Jose Morales

Orduan, maleta hartu du esku sendo **iletsuetan** . Javi Cillero

Bekain **iletsu** elurrez estalitakoen azpitik. Iñaki Mendiguren

Sudur busti eta esku dardarti **iletsu** haiekin. Koro Navarro

Biziki maite zituen lehengusuaren barrabil **iletsuak** . Aitor Arana

Gogotik gustatzen zaizkit pubis **iletsuko** emakumeak. Karlos Zabala

Sudur zulo **iletsuak** hatz batez esploratzen. Koro Navarro

Gorputz handi, ipur-behera, **iletsu** bat. Iñaki Mendiguren

Atea ireki eta, sekulako zalapartan, urkamendirantz zuzen-zuzen, arratoi **iletsu** bat irten zen. Karlos Linazasoro

Indian zerriak eskuarki **iletsuak,** mutur-okerrak, beltzak dira. Gotzon Garate

Piztiak sei hanka luze-luze eta **iletsu** zituela. Iñaki Mendiguren

Bere isats **iletsuaren** muturra astinduz. Iñaki Mendiguren

Errusiako kapela **iletsua** buruan eta kandela eskuan. Pello Lizarralde

Lehenengo atera zena ilegorria zen, abere-larrua bezain **iletsua** . Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bekain iletsu** (4); **bekain iletsuen** (4); **bezain iletsua** (3); **bezain iletsuak** (4); **buru iletsua** (3); **eta iletsu** (6); **eta iletsu bat** (3); **eta iletsua** (9); **eta iletsuak** (4); **handi iletsua** (3); **iletsu bat** (9); **iletsu baten** (3); **iletsu eta** (10); **iletsua eta** (5); **luze eta iletsuak** (3)

---

iletxima ik **ile 21**.

---

# iletxo *iz* ile txikia.

**Iletxo** batzuk ere bazituen goiko ezpainaren gainean. Koro Navarro

Sudurzuloetatik ateratzen zitzaizkion bi **iletxo** kendu, eta, aitaren egin orduko, txilar koloreko frak izpildun baten barruan sarturik zegoen. Jose Morales

Gorputz osorik ezean, zure bi **iletxo** nahi nituzke, gizon jakintsu hori, oroigarritzat. Joan Mari Irigoien

Besoko **iletxoak** zelan tentetzen zitzaizkion igarri ahal izan zuen kamiseta azpian. Sonia Gonzalez

**Iletxo** luzeak. Eider Rodriguez

Haren azal leunak distira egiten zuen urrezko **iletxoez** estalia. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iletxo batzuk** (3)

---

ileurdin ik **ile 22**.

---

ileurdindun ik **ile 5**.

---

ileurdintsu ik **ile 5**.

ilezuri ik **ile 24**.

---

**ilgora** *(orobat **hilgora** g.er.)* **1** *iz* ilargi berritik ilargi betera doan 14 eguneko aldia; ilgoraren erdiko eguna, ilargiaren erdia argiturik dagoena.

**Ilgora** osoan, berritik betera bitarteko bi asteotan, ilargia betelanean doa, trinkotzen eta indartzen. Pello Zabala

Putzuari begira geratu nintzen une batez, **ilgoraren** argitan. Juan Kruz Igerabide

**Ilgorak** indarra eransten omen dio izadiari. Pello Zabala

Hazi eta urdindu egiten dela ilberri eta **ilgoran** ebakitako ilea. soroko lanak eta laboraritzakoak **ilgoran** ezin baziren osatu, ilbeherako ostiralari itxarongo zion. ilbete eta ilbehera eguraldi eskasekoa zihoala, ba, **ilgorako** ostiralari erne, ea orduan eguraldi hobea tokatzen zitzaion. Pello Zabala

Hilaren 8an ilbehera, 16an ilberri eta 23an **ilgora** . Pello Zabala

**Ilgora** baitzen gau hartan. Iñaki Arranz

Erdian, klariona gorriaz marrazten zuen **ilgoran** dagoenean ilargiak daukan itxurako herrialde bat: Kurdistan. Juan Kruz Igerabide

**2** ilgoraren irudia.

Gazteluaren goi aldean musulmanen **ilgora** jaitsi zen azkeneko aldiz. Jon Alonso

Zeren historialariak jakin beharko lukeen bezala, banderan **ilgora** jartzearena otomanoen inperioaren asmazioa izan baitzen. Jon Alonso

Eta, nola ez, kruasanak, frantsesezko izena eman zien **ilgora** -eite horrekin, lehen ausikiarekin ilbehera bihurtzen dena, gutxiagotzen doana, platerean apurrak baizik gelditzen ez diren arte. Jon Alonso

Labar artetik itsasertzeraino jaitsi ginen, **ilgora** formako hondartza txiki batera. Joseba Sarrionandia

**Ilgora** bezain ederra zen neska batek osatzen zuten. Patxi Zubizarreta

Otomandar **hilgoraren** adarrek. Iñaki Mendiguren

**3** (adizlagun gisa)

**Ilgora** zegoen ilargia, eguzkiarekin "koadraturan". Jon Muñoz

**4** ***Ilgora Emankor***

Eta **Ilgora Emankorreko** arabiar herriak kopuruz askoz gehiago ziren israeldarrak baino. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta ilgora (3)

---

**iliako** *izond* pelbiseko hezurrik handienari dagokiona.

Gogoratu behar da Berrueta artatu zuten larrialdiko zerbitzuek egindako txostenaren arabera, lau bala zulo zituen okinak: bat sorbalda inguruan, beste bat ipur-masailean, beste bat aurpegian, eta bestea pala **iliakoan** . Berria - Euskal Herria

---

ilindi ik **ilinti**.

---

**ilinti** *(orobat **ilenti** g.er. eta **ilindi** g.er.)* **1** *iz* egur zati erdi errea.

**Ilinti** bakan batzuk artean gori zeuden supazterrean. Iñaki Mendiguren

**Ilindia** hauspean ehortzirik ezkutatzen denez **Ilinti** bati airean eraginik zuzi gisa. Xabier Amuriza

Orduan arreba, sutatik **ilenti** bat hartu, eta anairen atzetik abiatu zen. Pako Aristi

Amak, Alteak, **ilintia** garretatik atera eta gorde egin zuen. Martin Anso

Azkenean iritsi ziren Gryffindorreko egongelaren segurtasunera; han sua ia itzalita, **ilenti** batzuk baizik ez zeuden. Iñaki Mendiguren

-Beharbada! -esan zion Reginak, **ilintia** baino gorriago jarriz, begi guztiak bere gain jarri zitzaizkiolako. Josu Zabaleta

**2** *irud*

Asiako errebolta helenikoaren azken **ilintiak** K.a. 493an itzali ondoren [...]. Iñaki Mendiguren

Hautsak sua estali bazuen ere, **ilintiak** bizi jarraitzen zuen Alustizako Zuriñeren bakartasunaren kolkoan. Joxemari Urteaga

Alabaina, zoroaldiaren **ilintia** ez zegoen itzalia. Patxi Zubizarreta

Adimenaren **ilintia,** jakintzaren gezia, zentzuzko oharpenen perlazko idunekoa, mintzo zuzenaren lorategia... Josu Zabaleta

Eta hura lasai zegoen bitartean, Hamida zinezko **ilintia** zen. Patxi Zubizarreta

Neska garbi eta Jaungoikoaren beldurra duen batek nolatan jarri ahal izan ditu begiak infernuko **ilenti** horrengan? Koldo Biguri

Eskandalua **ilintietan** zegoela, lehengo lepotik burua, berriro hauspotzen zuen, eta suak hartzen, eta bazirudien berebiziko plazera hartzen zuela esamesak sortzen. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan)

Ez ikaratu Siriako Retzinen eta Remaliasen semearen haserre-sumina dela-eta, kea darien **ilinti** -mutur bi besterik ez baitira. Elizen arteko biblia

Biak jaikitzen dira, mugimendu erreflexu batez suontzira hurbiltzen dira, makurtu, beren eskuak **ilinti** -hondarretara luzatzen dituzte. Xabier Olarra

**4** ***ilinti bizi.***

Egurrean sua pizten denean, eta egurra garretan jartzen, **ilinti** bizi bihurtzen du. Joan Mari Lekuona

Urrezko **ilinti** -bizi dira hirurak, erabat, bera eta bere neskameak. Patxi Ezkiaga

---

**iliondar** *izond/iz* Iliongoa, Ilioni dagokiona; Iliongo herritarra.

Eta hala, Troiako ibaien inguruan behiak gorriak eta ardiak errauts kolorekoak jaiotzen direlako, esaten da **iliondarrek** ibai horri horregatik deitzen diotela Xanto ibaia. Santiago Iruretagoiena

---

**iliriar** *izond/iz* Iliriakoa, Iliriari dagokiona; Iliriako herritarra.

Italian bere senide zituen oskoera eta unbriera dialekto italikoekin borrokatu behar izan zuen, eta mesapiera eta veneziera **iliriar** dialektoekin [...] eta zer esanik ez etruriierarekin, bere anatoliar sorlekuko kultur ondarea bere gain zuela. Iñaki Mendiguren

X. mendea: tribu eslaviarrak **iliriar,** avar eta erromatarrekin nahastu, eta Dukljako dukerri erdi independentea osatu zuten. Berria - Mundua

ilkaldi ik **ilkialdi**.

---

**ilkatu**, ilka, ilkatzen du *ad* iltzatu, sartu.

Distiraren erdian Gurutze Santuaren seinale patu onekoa ikusi zuen, eta gurutzean **ilkatua** munduaren Berreroslea, inguruan aingeru-saldo hagitz ugari zuela. Jon Alonso

Labana xerran **ilkatzea** . Jon Alonso

Zatiak dira, baita esaldi osoak ere, esanahidunak, beste munduetatik etorririko zelula geldi eta dirdiratsuak bailiran oroimenean **ilkatzen** direnak. Jon Alonso

Kapelua bekainetaraino **ilkaturik**. Jon Alonso

Behin orpo aldeko takoak larregi **ilkatu** zitzaizkion zelai lokaztuan. Jon Alonso

---

**ilki**, ilkitzen *(orobat **elki**)* **1** da *ad* atera, irten.

-Noiz **ilkiko** haiz, Iker? Itxaro Borda

Jakinen duzu beraz, Myrratik **ilki** eta Hipokrataren lurraldeetara buruz joan beharko duzula. Aurelia Arkotxa

Eta irla horren inguruko itsasoan diren arrainak urtean behin itsas-hegira **ilkitzen** dira. Aurelia Arkotxa

Zeren Siondik **ilkiko** baita Legea. Xabier Kintana

Azkenean, berriz, Visnuren oinetatik shudrak **ilki** dira, kasta mailan errukarrienak. Gotzon Garate

Jainkoa bera behartua dela eman hitzaren atxikitzera, horra zergatik 88. salmoan kantatzen den: *Ene ezpainetarik **ilki** direnak ez ditut deuseztatzen.* Ikusi nituelarik Oiartzungo gazteak, diktadura militar batetik **ilki** berriak, dantzan zebiltzala ziruriken [...]. Piarres Xarriton

• **2** du *ad* atera.

Jeff hark base-ball makila **ilki** zuen eta banba... Itxaro Borda

Karkara gordina askatzen zuen noiztenka, etxekoei maleta hanpatu batetik **ilkitzen** zituen opariak banatzen zituela. Itxaro Borda

Zuloaren barnera ponpatu eta buztin astuna arakatuz kaskezur bat **ilki** zuen. Itxaro Borda

**3** (era burutua izenondo gisa)

Belarri idortuak zituen, kartoizkoak iduri, betondo **ilkiak,** eta aho erdi irekian hortz handi horiak ageri zituen. Matías Múgica

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ilki eta** (3)

---

**ilkialdi** *(corpusean **ilkaldi** eta **elkialdi** soilik)*

Pilota partida bat egin adineko lagunekin, besta zein mozkor zenbait, Nouba dantzatokira **ilkaldi** batzuk. Itxaro Borda

---

**ilkiarazi**, ilkiaraz, ilkiarazten du *ad* aterarazi, irtenarazi.

Gauza zen, Lutero-ren eta Dante-ren begitarte eta hazpegietatik soilik haien germaniartasun arraziala, biologikoa, **ilkiarazteko** . Joxe Azurmendi

---

**ilkibide** *(orobat **elkibide**)* *iz* aterabidea, irtenbidea.

Hersteaz beste **ilkibiderik** ez zela bazekien, alta Daniel Lavie kandidatuak Delbard nagusiaren hitzak errepikatu zituen, bake lehiaz: [...]. Itxaro Borda

Eta **elkibidea** izaten ahal da langile baten hartzea. Herria

Anartean, **elkibide** bat atzaman düe apaidüak kanpoan prestaraziz. Herria

---

**ilkitze** *iz* ateratzea, irtetea.

Halere, eguzki **ilkitzetik** datozen izpi dirdiradunak erlaino zurixkaren urratzen hasiak dira. Aurelia Arkotxa

---

**iloba** *(orobat **illoba** g.er.)* **1** *iz* anaia, arreba edo ahizpa baten semea edo alaba.

Bi ume izan zituzten **(iloba** Tom eta **iloba** Aurora), baina ezkontza hautsi egin zen hamabost urte geroago. Oskar Arana

Nire **iloba** Tom Wood-i. Oskar Arana

Begiak aterarazi zizkion bere **iloba** Bernardo Italiako erregeari. Iñaki Iñurrieta

Amak ez zekien astero osabak **ilobari** 1.000 dolar ematen zizkionik. Gotzon Garate

Nire **iloba** lotsati eta maiteminduaren buru-osasunarengatik. Oskar Arana

Berdin litzateke adeitasun gutxi erakustea, hala izebari, nola **ilobari** . Jon Muñoz

**Illoba** ttipi horiek zuen inguruan. Herria

Zure sabelean nire **ilobaren** haurra daramazu! Patxi Zubizarreta

Zure **iloba** jaunak... Jon Muñoz

**2** biloba.

Aiton-amonen koroa **ilobak** dira, seme-alaben harrotasuna gurasoak. Elizen arteko biblia

Hurrengo eszenan, aitita- **ilobek** beren bideari jarraitzen zioten. Pedro Alberdi

**3** (hitz elkartuetan)

Rosemonde andrea arras **iloba** -min da. Jon Muñoz

Aladinentzako jantzirik ederrenak hautatu ostean, oihalik politenak eta ehunik finenak erosi, osaba- **ilobak** merkatari jendea ezagutzera joan ziren. Patxi Zubizarreta

Agudo zebiltzan, ilaran, izeba- **ilobei** sakela beteen zamak traba egiten ziela. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baten iloba** (7); **bere iloba** (36); **bi iloba** (4); **en iloba** (3); **ene iloba** (9); **erregearen iloba** (4); **eta bere iloba** (4); **eta haren iloba** (4); **eta horren iloba** (3); **eta iloba** (40); **eta iloba bat** (4); **etxekoandrea eta iloba** (3); **gazteluzainaren iloba** (3); **haren iloba** (16); **hiru urteko iloba** (3); **horren iloba** (4); **iloba ahikar** (3); **iloba bakarra** (3); **iloba bat** (18); **iloba batek** (7); **iloba bati** (4); **iloba da** (8); **iloba edo** (5); **iloba ere** (5); **iloba eta** (33); **iloba eta familiako** (5); **iloba eta haren** (3); **iloba eta jendakia** (3); **iloba ez** (3); **iloba izan** (3); **iloba lot** (3); **iloba maitea** (4); **iloba naiz** (3); **iloba ttipi** (4); **iloba zela** (4); **iloba zen** (10); **lehen iloba** (3); **mailuren iloba** (5); **migel mailuren iloba** (4);

**nagusiaren iloba** (3); **neure iloba** (4); **nire iloba** (25); **ospetsuaren iloba** (3); **urteko iloba** (7); **zen iloba** (5); **zuen iloba** (5); **zure iloba** (9)

**alabak eta ilobak** (3); **bere ilobak** (9); **bere ilobaren** (8); **bere ilobari** (8); **bere ilobei** (3); **bi ilobak** (3); **esan zuen ilobak** (4); **eta bere ilobak** (3); **eta ilobak** (18); **eta ilobak ere** (3); **eta ilobaren** (7); **eta ilobek** (5); **eta iloben** (8); **haren ilobak** (3); **haren ilobari** (3); **ilobak dira** (3); **ilobak ere** (5); **ilobak eta** (10); **iloben artean** (5); **iloben arteko** (4); **izeba ilobak** (5); **nire ilobak** (8); **nire ilobaren** (8); **osaba ilobak** (7); **osaba ilobek** (6); **osaba iloben** (5); **osabak ilobari** (3); **zion ilobari** (3); **zuen ilobak** (4), bere ilobarekin (4)

---

**ilobaño** *iz* urte gutxiko iloba.

Saint-Jean jesuista, kartiereko semeak, eman du meza bere bi **ilobañoak** zituela beretter. Herria

---

## **ilobaso** *iz ipar* biloba.

Azken hau arras ongi ezagutu dute Juan Pedro Aguirre-ren **ilobasoek,** eta haien artean Pedro Aguirre-k. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ondoan bizi zen etxetiar zaharra ohartu zen eta medikuaren abisatzera bere **ilobaso** gazteena igorri zuen. Michel Oronoz

Gure gaztaroan ginen baino biziki gazte gehiago baditugu gure iloben eta **ilobasoen** belaunaldietakoak, sorterriaren kezka bihotzean barna alha dutenak. Piarres Xarriton

Bereziki, Kattin eta Beñat "Burki"-ri zeren diren bi azkeneko **ilobaso** heien aitatxi eta amatxi zoriontsuak. Herria

---

## **ilobatxo** *iz* urte gutxiko iloba.

Sufrimendu horren guztiaren ordain bakarra **ilobatxoa** hazteko ezusteko oparia izan zen. Oskar Arana

Gina izeneko bat, bi urtekoa, Filottiren lehen **ilobatxoa**. Koldo Biguri

Zahartzaro onean eta umotuan helduko zaik heriotza eta beren esku samur leunekin itxiko dizkiate begiak hire **ilobatxoek**. Patxi Ezkiaga

Ez, **ilobatxo,** bakarrik egingo dut hemendik aurrerako bidea. Anjel Lertxundi

---

## **ilobazale** *izond* iloben zale dena.

Halaber, ez nuen denbora alferrik galdu oroitarazten bere amaginarreba ez zela munduko amatxirik **ilobazaleena**. Aingeru Epaltza

---

## **ilogika** *iz*

Baina futbolean bi gehi bi ez dira lau, eta **ilogikak** logika irentsi zuen.

---

## **ilogiko** *iz* logikaren aurka doana.

Hau dela eta, ez da batere **ilogikoa** bi artikulazio era horiek banako mekaniko eta akustiko batean biltzea. Isabel Arrigain

Euskal Herrian estatuek antolatzen dituzten diskurtso suntsitzaile eta **ilogikoak** ikusita... Berria - Kultura

Sharon logika **ilogikoaz** mintzatu da: hesiak atentatuak saihesteko balio du; Hagak hesiaren kontra egin du; beraz Haga, zeharka, atentatuak bultzatzen ari da, horien konplizea da, azken batean. Berria - Mundua

Legez kanpokoa eta **ilogikoa** da. Berria - Mundua

Ekintza-bide hori ezin zen baztertu **ilogikotzat** joz. Iñaki Mendiguren

---

## **ilogikotasun** *iz* ilogikoa denaren nolakotasuna.

Ez bakarrik Unamuno-ren arrazoiketaren **ilogikotasun** posiblea garai hartako bere beste arrazoimoldeekin [...] ezpada **ilogikotasun** horrek Bilbon erakutsi duen agresibitatearen arrazoia. Joxe Azurmendi

---

## **ilokutorio** *izond* mintzatze ekintzez mintzatuz, hiztunaren intentzioa adierazten duena.

Zin-egiteak, erreguak, kontratuak, frogapenak, gehienetan zenbait formula ezberdin edo esaldi banandu eskatzen dute: zaila litzateke euretako bakoitzaren enuntziatu-estatusa auzitan jartzea aitzakia modura hartuz ekintza **ilokutorio** berberak zeharkatzen dituela denak. Xabier Arregi

---

ilortu ik **hilaurtu**.

---

## **ilota** *iz* antzinako Espartako esklaboa.

Espartan, Lazedemonian, **iloten** ehizara joaten ziren, gu Frantzian eperretara bezala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Menderatutako herriek hiritarrei bizibiderakoak hornitzera behartuta zeuden: lazedemoniarrei **ilotek** ematen zieten jaten; kretarrei, perieziarrek; tesaliarrei, penesteek. Iñaki Iñurrieta

---

iltzar ik **ilzahar**.

---

## **iltzarazi**, iltzaraz, iltzarazten du *ad* iltzatzera behartu.

Hesola batzuk **iltzarazi** zizkidan etxe aurreko luzera osoan, eta lurretik hogeita hamar zentimetrora soka batekin lotarazi. Ramon Saizarbitoria

Tarteetan, beste hainbat albiste kontatu zizkioten Wilmarth andereñoari, begiak berripaperetan **iltzarazi** zizkieten haietakoak eta erizainak gogotsu eta irribarre zabala ezpainetan entzun zien adi-adi guztiei. Mirentxu Larrañaga

---

## **iltzatu**, iltza, iltzatzen **1** du *ad* zerbait iltzez edo kidekoez finkatu.

Larru-puskak **iltzatu** genituen zapatariaren mahaian, hormetan eta atean, zapata-zolak josteko iltze txikiez. Anjel Lertxundi

Atsegin handiz **iltzatuko** zion sastakai zorrotz bat. Patxi Zubizarreta

Jesusen tailua **iltzatua** zekarren egurrezko gurutzea. Itxaro Borda

Zuhaitzean **iltzatutako** kartel hura. Lander Garro

Hamar minutu geroago **iltzaturiko** ateak behartu, autoan sartu eta han zihoazen, ziztu bizian autobiderantz. Iñaki Mendiguren

· *irud* Eta begirada zorrotzez **iltzatu** ninduen paretaren kontra. Inazio Mujika Iraola

• **2** da/du *ad* iltzea bezala sartu.

Milioika orratz **iltzatu** zitzaizkidan zangoetan, bihotza mila geografiatan zatitu zitzaidan biriken artean. Lander Garro

Gezia non **iltzatuko,** hantxe lurpera zezatela eskatu zuen. Joxerra Garzia

Baina burdinazko kako bat sentitu zuen sorbaldan **iltzatuta**. Julen Gabiria

Gero jostorratza esponja zatian **iltzatu** du. Lander Garro

Hareatzan matadorea, honezkero zazpi banderilla **iltzaturik** dituen zezenaren bizkarrezurrean ezpata sartzen. Edorta Jimenez

Piztiek hatzetan **iltzatzen** zizkidaten sarritan beren hortz zorrotzak. Koro Navarro

Laukiekiko txalekoa zuen eta, txakur-buru batez apaindutako iskilinba bat ere, brokatuzko gorbatan **iltzaturik**. Lopez de Arana

Eskandinavian ereiaroa seinalatzen zien urkiak: bere zarbatxoak lurrean tente **iltzatuz** seinalatzen baitzuten noraino zuten egina erein-lana. Pello Zabala

Azazkalak harrien kosketan **iltzatu** nahian. Juan Kruz Igerabide

Azazkal zorrotzak ahurretan **iltzatu** zituen eta arnasari eutsi zion hogei zenbatu arte. Lopez de Arana

Lurrean sendo **iltzatutako** makiletan. Koro Navarro

Harriek mina ematen zioten oinetan, zapaten zola higatuetan **iltzatzen** baitzitzaizkion. Lopez de Arana

Oinak lohian **iltzatuak** zeuzkaten. Itxaro Borda

Aipatu horietaz gainera, termometro bat lur zoruan behera, lurrean **iltzatuta** sartzen da, lurpeko tenperatura hain gutxi aldatzen dena apuntatzeko. Pello Zabala

Hantxe jarraitzen nuen, gorpuari begira, lurrari **iltzaturik,** bertan sustraiak banitu bezain paralizaturik. Anjel Lertxundi

· *irud* Begi bistakoa egiten zait gabeziaren baten sentipena zeukala barrenean **iltzatua**. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** finkatu

Cesar Telleria erabat zurbildu zen, eta lurrean **iltzaturik** geratu zen, inguruko jendearen begirada zorrotzen pean masailak gorrituta. Harkaitz Cano

Nire aulkian **iltzaturik** nago, eta aulkia zoruari atxikirik, eta ez gintuzke ezerk handik jasoko. Josu Zabaleta

Haren sudurra emakumearen lepoan **iltzatu** zen, bortizki. Lopez de Arana

Inkomunikazioa pertsonaien mihietan **iltzatzen** denean. Karlos Linazasoro

Harik-eta [petsona] bere norberatasun horretan zeharo harrapatua, gatzatua eta **iltzatua** gelditzen den arte. Iñaki Segurola

**4** (gogoan eta kidekoetan)

Egun tristea gogoan **iltzatuta** gordetzekoa. Pello Zabala

Itzarri orduko, ezbai hura **iltzatu** zitzaidan gogoan: gertatuaren berri osabari eman ez eman. Joan Mari Irigoien

Filmean esaten zuten esaldi bat geratu zaio Hanseli buruan **iltzatuta:** […]. Harkaitz Cano

Burmuinetan **iltzaturik** banu bezala. Joan Mari Irigoien

Oso gogoan ditut xehetasun horiek guztiak, **iltzatuak** geratu zaizkit betiko. Anjel Lertxundi

Ondo **iltzatua** gera zedin nire memorian. Anjel Lertxundi

Sigmund Freuden irudia oroimenean **iltzatuta** du Margherete Walterrek. Berria - Harian

Oroimenean **iltzatzeko** erraza. Pello Zabala

Nik ikusitako emakumezko lehen pubisa, beltz-beltza, begi-ninian eta garunetan **iltzaturik** geratu zitzaidana. Xabier Mendiguren Elizegi

Hona hemen gure hildakoak, gure torturatuak; hona gure elbarrituak, ezinduak; gure zurtzak, bakartuak, bihotz-urratuak, bizi-puskatuak, oroimenaren zulo beltzean **iltzatuak**. Iñaki Segurola

**5** (begiak, begirada eta kidekoak)

Begirada hura haren begi ausartetan **iltzatu** zen lotsarik gabe. Lopez de Arana

Neskak begietan **iltzatu** zion soa, irribarretsu. Lopez de Arana

Begiak begietan **iltzatzen** zenizkidala, erran zenidan-: [...].Telebistan **iltzatu** nituen berriro begiak. Joan Mari Irigoien

Budek haren esku gorri koipetsuetan **iltzatu** zituen begiak. Lopez de Arana

Begiak testuan **iltzaturik** eta arkatza eskuan. Anjel Lertxundi

Erregina Zuriaren begien so grisa, partida osoan nigan **iltzaturik** sentitu nuena. Alberto Ladron Arana

Gizonak bere begi sarkorrak **iltzatu** zituen Hamidarengan. Patxi Zubizarreta

Zer zela eta **iltzatzen** zion begirakune lizun hura kuku-gordeka? Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**batean iltzatu** (3); **batean iltzaturik** (5); **begiak iltzatu** (5); **begiak iltzaturik** (4); **begietan iltzatu** (3); **begietan iltzaturik** (3); **da iltzatuta** (3); **gogoan iltzaturik** (4); **gogoan iltzatuta** (7); **gogoan iltzatuta geratu** (4); **iltzatu ditu** (3); **iltzatu eta** (11); **iltzatu nituen** (3); **iltzatu nuen** (4); **iltzatu zen** (4); **iltzatu ziren** (8); **iltzatu zituen** (12); **iltzatu zituen begiak** (3); **iltzatu zizkion** (6); **iltzatu zuen** (11); **iltzatuak geratu** (3); **iltzaturik bezala** (3); **iltzaturik geratu** (14); **iltzaturik geratu zait** (3); **iltzaturik sentitzen** (3); **iltzaturik zeukan** (3); **iltzatuta gelditu** (4); **iltzatuta geratu** (13); **lurrean iltzatua** (3); **lurrean iltzaturik** (3); **lurrean iltzatuta** (3); **memorian iltzatuta** (3); **nigan iltzaturik** (3)

---

# iltze

**1** *iz* metalezko atal mehea eta luzea, mutur batean punta eta bestean burua duena, finkatzeko, batzeko, zintzilikatzeko erabiltzen dena. ik **itze; entenga**; **kabila.**

Soliba bakoitzean taularen bi muturretan bina **iltze** josiko dira. Santiago Iruretagoiena

Berehala tapa jarri eta **iltzeekin** josi zuen. Martin Anso

Gure botopaper bakoitza, azkenean, elkarrizketa politikorako mahaia josteko **iltze** bat izango da. Berria - Euskal Herria

Altxatu du mailua eta ekin dio **iltzea** sartzeari, baina egurrak jaso du kolpea. Bernardo Atxaga

Uhalak lotzen diren lekuan, **iltzeak** sartzen dira, uhala ez dadin alde batera edo bestera labaindu. Santiago Iruretagoiena

Denborak dena sendatzen duela pentsatu nuen, **iltze** bat beste batek ateratzen duela. Antton Olano

Behin batean banuen bihotzean iltzatutako **iltze** bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Iltzeekiko** bota handi gogor eta beruna bezain astunak. Fernando Rey

Ziplo akabatzen dute animalia aire-pistolaz garunean sartzen zaion **iltze** batez. Xabier Olarra

Ikatz-sutegian **iltzeak** fabrikatzen zituzten. Juan Garzia

**Iltze** baten hortzarekin, letra bana zizelkatu nuen baletan: batean J, Juliorentzat; bestean M, Marrorentzat. Juan Kruz Igerabide

**Iltze** batean zintzilikatua.. Koldo Izagirre

Soingainekoa **iltze** batean trabatu zitzaidan. Fernando Rey

Udako soineko zuri tanta horidun bat **iltze** batean zegoen zintzilik. Karlos Zabala

**Iltze** batean jositako lanparak argitzen zuen. Koldo Izagirre

**Iltze** batetik zintzilik zegoen bisera bat jarri zidan buruan.. Anjel Lertxundi
Erdi biok **iltze** luze batekin elkarri estekatuak. Edorta Jimenez
Ziri bezala **iltze** bat erabiliz -entenga esaten zitzaien Obaban-, zinta-karrerarako entrenatzen hasi nintzen. Bernardo Atxaga
Amona lanean sumatu zuten, mailu eta zerra, ohol eta **iltze,** etxeari beste zatiren bat erantsi nahian bezala. Pako Aristi
Baina zaila da ulertzen 31 urte bakarrik dituen atleta batek **iltzezko** oinetakoak zintzilikatu nahi izatea. Berria - Kirola
Gurutzatu ziren arratsalde hartan geldo geratu ziren, soak **iltze**. Itxaro Borda
· Vuelta hasteko hamabost egun falta zirela radioa hautsi nuen, eta **iltzeak** jarri behar izan zizkidaten. Berria - Kirola

**2** (izeonondo eta izenlagunekin)

Pareta horri kanaberak josiko zaizkio luzera guztian buru zapaleko **iltzeekin**. **Iltze** buru-zapalak. Santiago Iruretagoiena
Paretetan **iltze** herdoildu batzuk josirik zeuden. Juan Garzia
Mailua eta **iltze** zuzena. Joan Mari Irigoien
**Iltze** okertu batekin. Pello Lizarralde
Nabari dira, dena den, **iltze** zaharrek utzitako zulotxo maiztuak, **iltze** berriak sartu dizkioten zulotxoen ondoan. Javi Cillero
Florenten logelara igo berria zen, giltza sukaldeko **iltzetik** hartuta. Karlos Zabala
Burdina ugari prestarazi zuen, ate-orrietako **iltze** eta gakoak egiteko. Elizen arteko biblia
Zilarrezko **iltzeak** zituen besaulki batean. Juan Kruz Igerabide
Ez dut gogoratzen **iltze** hura urrezkoa, burdinazkoa ala maitasunezko[a] zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haren eskuek eta oinek **iltze**-zuloak bezalakoak zeuzkaten alde bietatik. Askoren artean
Nahiz elektrokuzioa den halakoak akabatzeko ohiko sistema, eta ez **iltze**-ukaldia. bidezidor mugarriztatu bat elurtegian gora, giza aztarren bat, alegia: **iltze**-joskura dirudi, baina Sabethi seguru aski besterik irudituko litzaioke. Xabier Olarra
**Iltze** fabrika abandonatuaren barruan. Harkaitz Cano
Itxaropenari **iltze** goriari bezalaxe heltzen dio. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa )

Poltsatxo batean kako-**iltze** batzuk sartu bitartean. Iban Zaldua
Ferra-**iltzerik** ezean. Urtzi Urrutikoetxea
Burdina-**iltzez** jositako ohol sendoen artean lotu zuen presoa. Askoren artean

**5** (erkaketetan)

Azkenean buruan sartuta geratu zitzaidan **iltze** bat bezala. Pello Lizarralde
Mazpilduko zaitut, **iltze** bat bezala! Pablo Sastre
Maianak ez zezakeen bihotzean **iltze** herdoilduaren pare bermatzen zihoakion herabetasuna bazter. Itxaro Borda
**Iltzea** bezain argala eta bizarluzea. Koldo Biguri

**6** idi demetan, probalekuaren luzera.

Herenegun amaitu ziren probak eta idi pare garaileak 62 **iltze** eta 2 metro pasatxo egin zituen. Berria - Kirola
Atzoko lana aintzat hartu gabe, Mendipek du marka onena: 55 **iltze** eta sei metro. Berria - Kirola

**7** iltze-kanela.

Pipermina eta kanela, **iltzea** eta intxaur muskatua. Felipe Juaristi
Drogagileak opio greziarra hartu zuen, eta kubaba txinarra; horrez gain, kanela, **iltzea,** jengibrea, piperrautsa eta mendiko sugandila ere bildu zituen. Patxi Zubizarreta
Arreta biziz begiratzen nien barazki-denda bateko ateaz bestaldean atzematen ziren zurezko kutxa **iltzez,** mahaspasaz, sufrez eta xaboiz beteei eta Moskuko gozoki lehorrez beteriko potoei. Jose Morales

**8** eskuzko pilotariei ahurrean sortzen zaien mina.

Abuztuan asko kargatu nuen eskua eta hiru aste egon naiz jokatu gabe eskuko **iltzea** zela eta; halere, orain ondo nagoela uste dut. Berria - Kirola

**9** gakoa.

Hara auziaren **iltzea:** liburuez aritzeko orduan, batzuek epaitzea lehenesten dute; beste batzuek, ostera, ateratzea, atzematea. Markos Zapiain

**9a** *(corpusean **untze** soilik)* luzera neurria.

Igandean amaitu ziren Aulestiko zaldi-mando probak, eta Berangoko (Bizkaia) Ekaitz Elorduiren abereak egin zuen marka onena: 73 **untze**. Berria - Kirola
Larunbatean hasi zen Getxoko (Bizkaia) Andra Mari probalekuko txapelketa, eta Janire Alegriaren **abereak** egin zuen markarik onena: 57 **untze** eta 2 metro. Berria - Kirola
Bost **abere** plazaratu dira, eta Fikako Maitane Garciarenak egin du markarik onena: 58 **untze** eta 0.95 metro. Berria - Kirola

**10** ***iltze-ateratzeko***

Soldagailuak, azkoinak, iltzeak eta **iltze**-ateratzekoak, zizelak, pintzak, kurrikak, artaziak eta altxaprimak. Joxan Elosegi

**11** ***iltze-belar*** eukaliptuaren familiako landarea, lurralde beroetan hazten dena, iltze-kanelak ematen dituena*(Caryophyllus aromaticus).*

Horregatik, Petrushka jantziak eranztera eta botak kentzera inguratzen zitzaion bakoitzean, **iltze-belarra** ipintzen zuen sudurrean, eta neskagazte batenak bezain kilikabera izaten zituen sarritan kirioak. Jose Morales
Kikarakadatxo bat **iltze-belar**? Iñaki Mendiguren

**12** *iltze-buru* ik **iltzeburu**.

**13** ***iltze-kanela*** iltze-belarraren lorearen pipil ihartua, janarien bizigarri erabiltzen dena.

Arabiarrek kardamomoa, **iltze-kanela** eta beste zenbait espezia erabiltzen omen dituzte kafeari zapore berezia emateko. J.M. Olaizola "Txiliku"
Kanela, **iltze-kanela**, usainki, mirra eta intsentsu. Elizen arteko biblia

**14** ***iltzez eta giltzez itxi*** erabat itxi.

Iltzez eta **giltzez** itxi zaizkie euskalkiei ateak. Koldo Zuazo
Ez aipatu Porta de Ferroren aurrean, ez eta beste ezein ateren aurrean ere, mairuen arraza zital hau ez baita hain herabea, eta ez delako borrokarik gabe **iltzez** eta giltzez itxiko. Jon Alonso
Gero tunika eta kapirotea jantzi eta kalabozo hartatik atera nintzen, di-da, Fred Astaire baino zaluago, beste mozoloa **iltzez** eta giltzez itxita utzirik. · Atea **giltzez** eta iltzez ixten zuen, eta alferrik ariko zitzaion inor deika, ez baitzuen irekiko. Jon Alonso

**15** ***iltzez josi*** ik **iltzeztatu**.

Ukuiluko ate-leihoak **iltzez josi** eta zigiluak ipini zizkieten. Koldo Biguri
Etxean geratu zen eta **iltzez josi** zuen postontzia. Iñaki Mendiguren
Esku-oinak **iltzez** josiak zituen eta eskuineko saihetsa lantzaz zulatua. leihotapa guztiak **iltzez josita** zeuzkala. Askoren artean
Lurrean **iltzez** josita geratu banintz bezala. Xabier Mendiguren Elizegi
Urre eta zilarrez apainduak eta **iltzez** eta mailuz josiak, eror ez daitezen. Elizen arteko biblia

16 ***kako iltze*** *(corpusean **gakoiltze** soilik)*

Gero paretan bi **gakoiltze** sartu eta haietatik handik gutxira Minimax markako suitzalgailu bat zintzilikatzeko. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat iltze** (3); **edo iltze** (3); **edo iltzeak** (4); **erditik iltzeek** (3); **erditik iltzeek zulatuak** (3); **esku oinetan iltzeen** (3); **eta iltze** (15); **eta iltzeak** (11); **eta iltzeekin** (4); **eta iltzez** (6); **ez iltze** (3); **iltze bat** (19); **iltze bat bezala** (4); **iltze batean** (6); **iltze baten** (4); **iltze baten antzera** (3); **iltze batetik** (12); **iltze batetik eseki** (3); **iltze batetik zintzilik** (6); **iltze batez** (3); **iltze batzuk** (3); **iltze buruak** (4); **iltze eta** (8); **iltze herdoildu** (3); **iltze zuloak** (3); **iltzeak berak** (3); **iltzeak berak baizik** (3); **iltzeak eta** (4); **iltzeak sartzen** (3); **iltzeek zulatuak** (3); **iltzeen buruak** (4); **iltzeen buruak eskuen** (4); **iltzeen lekua** (4); **iltzeen seinaleak** (3); **iltzeen zuloak** (3); **iltzez eta** (10); **iltzez eta giltzez** (7); **iltzez josi** (5); **iltzez josita** (5); **lau iltze** (4); **oinak erditik iltzeek** (3); **oinetan iltzeen** (3)

---

# iltzeburu *(orobat **iltze-buru**)* *iz* iltzearen burua.

Esku-oinetako **iltze** -buruak borobilak eta beltzak ziren. Hasier Etxeberria

Handik gutxira, atzera lehengo **iltzeburuan** joz, honela idatzi zion Pascali: "Neronek bermatzen dizut proposizio horren egia". Jon Muñoz

Perrettek atzera lehengo **iltze-buruan** jo zuen. Jon Muñoz

---

# iltzedun *izond* iltzea duena; iltzeak dituena.

"Goazen ibiltzera!", esaten zuen goizean goiz gure aitak mendian, kedarraren koloreko jaka zahar hura, galtzerdiak eta bota **iltzedunak** jantzita. Fernando Rey

Bota militar **iltzedun** baten oinatzak apaindua. Fernando Rey

Giza hezurrak aukeran zeuden erakusmahaiaren gainean eta tresna herdoildu eta **iltzedunak** sabaitik zintzilika. Iñaki Mendiguren

**Iltzedun** bota astunen hotsak kanpandorre barrutik nigana hurbiltzen sumatu ditut. Txillardegi

**Iltzedun** tormentu tresnak eta uhalezko zigorrak. Jokin Urain

Talde guztiek prest dituzte Suediako elur eta izotz pistetan aritzeko ezinbestekoak diren **iltzedun** pneumatikoak. Berria - Kirola

Brontzezko ezpata handia hartu nuen bizkarrean, zilarrezko **iltzeduna** . Juan Kruz Igerabide

---

# iltzeria *iz*

Lehenengo jaunartzea prestatzen ari zarenez, eta katekesira zoazenez, jakingo duzu gizateria ez dela zure zain egon **iltzeria** sufritzeko. Itziar Otegi

---

# iltzetxo *iz* iltze txikia.

Zapatariaren irudia etorri zitzaidan, orkoiaren aurrean jarrita, betaurreko labur estuekin, **iltzetxoak** ezpain artean zituela eta mailu txiki batez zapata-zoruak josten. Anjel Lertxundi

Zurezko txirrika bat emana zioten, gain-gainean **iltzetxo** batzuk zituena josirik bira osoan. Mirentxu Larrañaga

---

# iltzeztatu, iltzezta, ilzeztatzen du *ad* iltzez josi.

Ezkerrera, [...] horma biluziak, keak eta zikinak horituak, zortzi urte atzeragoko egutegia, pentsu konpainia baten propaganda, 1924koa, garai oparoago baten oroigarri gisa **iltzeztatua** geratu zena. Jon Maia

---

# iluminatu *(ETCn **134** agerraldi)* , ilumina, iluminatzen **1** argiztatu.

Thames, Greenwich eta inguruak arras **iluminaturik** ikusi ditizugu airetik. Jose Angel Irigaray

## 2 argitu.

Vitruvioren deskripzioen interpretazio literala egiteko kezka edo ardura baino gehiago tratatu erromatarraren printzipioak eta arauak modu pertsonalean **'iluminatzeko'** asmoa ikusten zitzaion areago, grabatuak egin ziren garaiko arkitektura errealak edo posibleak sartuz irudietan, baita orduan berreskuratu nahi zen tradizio klasiko harekin zerikusi handirik ez baldin bazuten ere. Santiago Iruretagoiena

## 3 (era burutua izenondo gisa) goiargitu-ustea dena.

Gizona **iluminatu** bat da. Berria - Kultura

Erreibindikatu egiten zuen pailazoaren emazte estatusa eta abertzale **iluminatuaren** paperean jartzen zen. Josu Zabaleta

Harrokeria **iluminatua,** ez besterik. Hasier Etxeberria

Gure eztabaiden %90ek **iluminatu** koadrila hori izan zuen iturburu. Aingeru Epaltza

**Iluminatuaren** jakinduriazko mespretxu errukitsuz goitik behera begiratzen diotenak. Joxe Azurmendi

## 4 iluminismoaren jarraitzailea; iluminismoari dagokiona.

Mistizismoarekin batera erasmismoaren eta **iluminatuen** espiritua nabari da haren ekarrian. Askoren artean

Axularren *Gero* (1643) ez da pentsamendu originala [...] baina aurreko mistizismo **iluminatuari** aszetismoarekin erantzun nahi izan zion. Askoren artean

---

# iluminazio *(ETCn **99** agerraldi)* **1** *iz* argiztapena; toki bat argitzen duten argien multzoa.

Ziur goia sofa eroso eta **iluminazio** ilunagoez horniturik dagoela. Pako Aristi

## 2 argi berezia, goiargia.

Amodioa baino gehiago **iluminazioa** zen, mendeetako lotsak giltzarrapoz kateztatu bihotzaren iratzartze berria. Itxaro Borda

Izena ahoskatzearekin berarekin **iluminazioa** nigan eragin zuen Fatiharekin. Itxaro Borda

Zentzu honetan da pizkundea hau ere, hirugarren pizkundea, erlijioaren erreferentzia historiko edo nazionalismoaren kultu ospakizunetik haratago dagoena: unibertsalaren forman eta eguneroko **iluminazio** profanoan gauzatua. Joseba Zulaika

## 3 kolorea eman zaion iduria.

Erdi Aroaren azken aldiko **iluminazio** askotan badira sakontasuna adierazten den eszenak. Josu Zabaleta

---

# iluminista *iz* iluminismoari dagokiona.

Arkeologia **iluministaren** ordezkari nagusienetako batek. Santiago Iruretagoiena

· Caravaggio, Rembrandt eta gisako argi-ilunaren margolarietatik hasi eta margolari **iluministetaraino,** Velázquez eta Vermeer, esate baterako. Josu Zabaleta

**ilun** 1 *izond* argiz edo argitasunez gabetua; argi edo argitasun gutxi duena. ik **goibel**; **beltz**. ant **argi**.

Ordu erdi geroago iritsi zen Ron gela **ilun** hartara. Iñaki Mendiguren
Ziega **ilun** batean egindako tortura beltzak. Anjel Lertxundi
Eta hantxe dago, taberna **ilun** eta umel hartan. J.M. Olaizola "Txiliku"
Hiri arrotz bateko etxarte **ilun** batean herabe begira. Koro Navarro
Katedralaren zoko **ilun** batean elkarri musuka. Fernando Rey
Zulo **ilun,** txiki eta zikin batean lo egitearen truke. Jon Alonso
Auto aparkatuz beteriko kale **ilun** batean. Iñaki Mendiguren
Las Vegasko karrika **ilun** eta etxe zokoratuetan. Itxaro Borda
Auzo **ilunetako** fama txarreko kaleetan. Josu Zabaleta
Kapera **ilun** bateko banku batean eseri ziren. Koro Navarro
Ez bat eta ez bi, korridore **ilun** batean barneratu ginen. Aingeru Epaltza
Bizitzaren bidaiaren erdian, baso **ilun** batean galdu nuen bidea. Oskar Arana
Koruko eskailera **ilun**-estuetan gora eta behera. Xabier Mendiguren Elizegi
Hodei **ilun** trinkoek sekulako abiada hartzen zuten hegazkinen antzo. Anjel Lertxundi
Eguna **iluna** zen, lanbrotsua, hezetasuna hezurretaraino sartzen zen. Migel Angel Mintegi
Gero eta **ilunago** zegoen eguna, eta Alcatrazeko argiak piztuta zeuden. Bernardo Atxaga
Gaua **iluna** zen, tristea, euritsua, etxean edo estalpean egoteko egokia. Migel Angel Mintegi
Oso gau **ilun** eta hodeitsua zen. Iñaki Mendiguren
Donibane Gurutzekoaren "arimaren gau **ilunean"**. Joan Mari Lekuona
Gaua hondorik gabeko zaku **iluna** zen. Edorta Jimenez
Harry makurtu, eta hodi luze eta **ilunaren** barrura begiratu zuen. Iñaki Mendiguren

**2** *irud*

Zer dela-eta aurpegi **ilun** horiek? Iñaki Mendiguren
Blackek bekozko **ilun** samarraz begiratu zion Hermioneri, baina ez berarekin haserretuta zegoelako-edo. Iñaki Mendiguren
-Pozik jakingo nuke zertan dabilen -esan zuen Fredek, bekozko **iluna** jarrita-. Iñaki Mendiguren
Axola dizu?, galdetu zidan asko harritu ninduen ahots **ilun** batez. Anjel Lertxundi
Nire begiek edertasun **ilun** hura guztia xurgatu zuten. Alberto Ladron Arana
Bai, hark bezala beldurra sentitu nuen, beldur **ilun** bat, herioa hurbil sumatzen duenaren antzera. Alberto Ladron Arana
Tristeziazko olatu geldo eta **ilun** bat bezalakoa izan zen. Alberto Ladron Arana
Halako inozokeria pila bategatik infernu **ilun** batera amiltzear zegoen Europa. Alberto Ladron Arana
Larru zuria, eta ezerez **iluna** bere begietan. Joseba Sarrionandia
Nolabait esan, Ehiztari Beltza, kristandadetik bazter gelditzen dena genuke, edo sotana beltzaren azpian gordetako hereje, moro, jito, judio edo dena delako jendaje **iluna**. Patziku Perurena
Elkarte erlijioso **ilun** bateko idazkaria zen Padre Mendibe. Joseba Sarrionandia
Jasoko banitu arrazoiaren jarraitzaile **ilun** eta baketsuen isileko eskerrak. Juan Martin Elexpuru
Gorroto nuen nire alde **ilun** hura. Alberto Ladron Arana
Bada, ordea, beste alderdi **ilun** bat, idazleari, baina, agor ezinezko kontagaia ematen diona: legez kanpoko gizartea. Gotzon Garate
Ihartuta zeuzkaten goseak eta miseriak, marraska ibiltzen ziren eremuan, lur **ilun** idorretan. Elizen arteko biblia
Bautista harritu egiten zen Martinen grina **ilun** harekin, bera argia eta ordenatua baitzen. Koro Navarro
Baina ez ziren inongo, ez ziren inoizko, zorigaiztoko kondena **ilun** batek kalesa madarikatu hartan ezin hilez bizirik ibiltzera behartu zituenetik. Anjel Lertxundi
Une batez gorputza airean geratzen zitzaidala ere iruditu zitzaidan, arintasun **ilun** batean zintzilik, erortzearen itsumenak eragin ohi duen histasun horretan bilduta. Juan Kruz Igerabide
Aldea, Virginiak ilea eta begiak kolore **ilunekoak** zituela, eta Mary Annek ko-lore argikoak. Bernardo Atxaga
Eskaileretan elkar agurtu zutenekoa oroiturik, bihotz **ilunak** egin zitzaizkion: ezin, bada, ulertu, nolatan utzi zion bere ezpainak ukitzen ere. Patxi Zubizarreta
Marinelari bihotz **ilunak** egin zaizkio lasai asko afrikarrak izan zitezkeen haur horien egoeraz jabetzean. Patxi Zubizarreta

**3** (koloreekin)

Ardo beltz batzuen gorri **ilun** hori. Lourdes Oñederra
Ile gorri **iluna** zuen. Iñaki Mendiguren
Esku-zartako bizi bat eman zion landare gorri **ilun** arantzadun bati. Iñaki Mendiguren
Behi gorri-**ilun** batzuk barreiatzen ziren hara-hona. Karlos Zabala
Berde **ilun** koloreko ate margotu berri bat. Lopez de Arana
Azal berdaska **iluna**. Patziku Perurena
Corte Inglesko traje urdin **ilunez** jantzia. Unai Iturriaga
Jertse urdin **iluna** soinean, alkandoraren lepo zuria dauka agerian. Rafa Egiguren
Begi urdin **ilun** parea nabarmena zen aurpegi biribil zurbil eta hauskor hartan. Lopez de Arana
Aitzinean, ikus ahala luzea den itsas-hegia eta *Strait of Belle Isle* blu **ilunaren** eremu hedatua. Aurelia Arkotxa
Basatza gris **ilun** ura Jamesek marra berde argiekiko jantzi gris **ilun** bat zuen. Lopez de Arana
Moketa gorraila edo ubel **ilun** kolorekoa zela iduritu zitzaien. Ramuntxo Etxeberri
Ile gaztain kolore **ilun** luzeak. Eneko Bidegain
Lauki urre kolore **ilun** horrek inguratzen duen oihala. melanina izeneko pigmentu marroi **ilun** bat. Javi Cillero
Zutabeak eta gapirioak marroi **ilunez** margotuak dauzka. Txillardegi
Eskularru **more ilunak** jantzi, eta belo lodi bat itsatsi zion kapelari. Karlos Zabala
Lizarrako kaleak, more **ilunean** blai. Txillardegi
Beste batzuk, izokin-kolorekoak; eta beste batzuk, berriz, **hori ilunak**. Lopez de Arana

**4** kolore ilunekoa.

Emakumeak begi **ilun** eta eztiak ditu. Monika Etxebarria
Alexen begi **ilunek** basatasun puntua izan ohi zuten. Fernando Morillo
Ilaia, **ilun** eta dirdaitsua, hutsagatik ez zitzaion belaunetara heltzen. Patxi Zubizarreta
Alice-k gaztaina-koloreko ile **iluna** eta panpin aurpegi leuna zituen. Lopez de Arana
Oskarrek marra finezko traje **ilun** bat jantzen zuen. Alberto Ladron Arana
Beroki **iluna** eranzten zuen bitartean. Alberto Ladron Arana
Garaizago oheratu beharko niken, betzulo **ilun** horiek... Lopez de Arana

Emeki-emeki, Mercedes **iluna** legarrezko bidean aurrera lerratu zen. Alberto Ladron Arana

Burua zapi **ilun** baten bildua zeukan. moketa gaineko arrasto **iluna**. Koldo Izagirre

Aurpegia asfalto **ilun,** zikinaren kontra. Jose Morales

Irribarrez, pistola **ilun** eta hotz hura eskuan. Joseba Sarrionandia

Ararateko artzainek begi eder **ilun** handi eta tristeak dituzte, behatzak luze eta meheak. Fernando Rey

Hemen ere badira pobreak, jende koloreduna, iluna, zu baino **ilunagoak** behintzat, aireportuko pasaporte kontrolean gelditu dutena bezalakoak. Lourdes Oñederra

Azal **iluneko** aurpegiko gizon haiek guztiak. Xabier Olarra

*ik beherago* 14. Askoren artean

Oihal **ilunezko** sofa astunez jantzitako egongela. Alberto Ladron Arana

Hilde andereak zur **ilunezko** barra astuna seinalatu zidan. Alberto Ladron Arana

## 5 ulertzeko, azaltzeko, mugatzeko zaila dena.

Orduan, ziur nauk, oso bestelako argi batez begiratuko diok matematika **ilun** eta lauso horri. Jon Muñoz

Horra hor metodo aski bitxia, gauza **ilun** bat are gauza **ilunago** batekin frogatu nahi duena. Xabier Kintana

Laburbilduz, buruak ezin uler ditzakeen gauza **ilun** hauetan ez dira hartu behar beste gauza batzuk frogatzeko premisak. Xabier Kintana

Marinak ez daki zertara datorren orain igarkizun **ilun** hori. Patxi Zubizarreta

Hizkuntza arkaiko edo **ilun** batean idatziriko inskripzioak argitu eta esplikatzeko. Isabel Arrigain

Idazkera nahasi eta **ilun** orotik aldendu. Txema Ramirez de la Piscina

Zer da kode **ilun,** nahasi eta anbiguo hori, non etengabe nahasten baita jurisprudentzia frantsesa erromatarrarekin [...]? Iñaki Iñurrieta

Intuizioari lotutako nozio **ilunek** ezin gaituzte ondorio zentzugabeetara eraman. Itziar Laka

Lege feudalen ikerketan labirintu **ilun,** zidorrez eta itzulinguruz bete batean banago ere, uste dut eusten diodala hari-muturrari. Iñaki Iñurrieta

Gizonik jatorrena zigorrik ankerrenaren arriskupean jartzen duen lege mordoa dago, eta, ostera, bizio eta bertute izenak **ilun** eta aldakor bihurtu dira. Juan Martin Elexpuru

Kolera gogobetetasunarekin nahasi zitzaion berriro ere, eta bere baitan bortizkeria eta desafiozko desira **ilun** bat nabaritu zuen. Patxi Zubizarreta

Santosek silueta **ilun** bat besterik ez zuen bereizi Azken Portuko kaian. Josu Landa

Kontatu dizudan ipuinaren argitasun **iluna** edo iluntasun argia ulertuko duzu. Joseba Sarrionandia

Maelek esku keinu batzuk egin zituen Oisinen aurrean, aldi berean Hizkuntza **Ilunean** zenbait hitz esaten zituelarik. Joanes Urkixo

· Honek **iluna** izatera behartu nau, eta lainopean estaltzera egiaren argia. Juan Martin Elexpuru

## **6** alaitasunez gabetua, tristea, goibela. ik **itun**[2].

Bihotza pozik, aurpegia argi; bihotza triste, begitartea **ilun**. Elizen arteko biblia

Argi ezazu aurpegi **ilun** hori! Jose Morales

Aholkuak eta berriak ekartzera natorkizu garai **ilun** honetan. Agustin Otsoa

Begirada **ilun** eta galdetzaileko begi haiek. Ander Irizar

Arrantzale **ilun** eta hits haien etxola mixerableetara ere ez zen geroztik hurreratu. Xabier Mendiguren Elizegi

Haien soinua **iluna** eta hitsa da zurearen aldean. Felipe Juaristi

Bertzalde Frantziako iraultza **ilun** hartan, Etxalartarrek ez ote zituzten gure arbaso ainitz desterrutik gerizatu? Herria

Ondoko urtean bukatu zen Espainiako Gerra, eta, Errepublika hondoraturik, urteak eta urteak iraungo zuen diktadura **ilun** bati ireki zitzaizkion ateak. Pello Salaburu

Commendatorea zen nagusia, nahiz Basileako beste nagusi **ilun**-lauso batzuen mendean egon. Juan Garzia

## • **7** *iz* iluntasuna.

Begiak **iluna** zulatzeko geziak izan zirenean, bi buru ikusi zituen. Felipe Juaristi

Gaueko **ilun** trinkoak harrapatu zituen Po ibaiaren ondoan. Santiago Iruretagoiena

Amama sangria prestatzen ari zen, sukaldeko **ilun** nabarrean. Joseba Sarrionandia

Bere argiaren esfera txikitik kanpo dena **ilun** beltza zen. Iñaki Mendiguren

**Ilun** beltzean murgilduta, nor bere etxerako bidea aurkitu ezinik zebilen. Elizen arteko biblia

Desordenazko aro heroikoa bat-batekotasun harrigarriz bukatzen da, eta ondoren **"ilun**-aroa" etortzen da, non lege eta ordenaren indarrak berriro sendotzen diren pixkanaka. Iñaki Mendiguren

Baina horrek ez du irauten, ezin du iraun, eta ondotik berriz ere **ilun** erabatekoa, nora eza. Iñaki Iñurrieta

Bosgarrena da, batere argirik gabeko **ilun** beltza, ezen parerik gabe, mundu honetako su edozeinek baino gehiago erretzen duen su hura, ilun eta beltza, argi izpirik gabea da. Piarres Xarriton

Malenkoniaren aire leunak darabilen orbela omen zirudien musikak; egunsenti martziala barik, eguzkia ezkutatu osteko **ilun**-dardara. Xabier Mendiguren Elizegi

Jauffretek berak **ilun** aire bat aurkitzen ote zien argi hoiei? Xipri Arbelbide

Hotza eta gauaren **iluna** handituz zihoazen. Fernando Rey

Elkarren ondoan, bi andreek **ilunaren** eta argiaren irudia osatzen zuten, tristeziaren eta alaitasunaren enblema moduko bat. Bernardo Atxaga

Elurraren eta **ilunaren** etorrerarekin, hibernatzen duten animalien antzera. Patxi Zubizarreta

Jainkoa argia da, eta berarengan ez da inolako **ilunik**. Elizen arteko biblia

Zeren gau-**ilunez** esan duzuena egun-argiz entzungo baita. Elizen arteko biblia

**Ilunetik** argira bitarteko tartea. Anjel Lertxundi

## • **8** *adlag* argitasunik, alaitasunik gabe.

**Ilun** eta ziztuan mintzo ziren eta nik ez nuen tutik ere ulertzen. Fernando Rey

Eta gaua erori zen, arin eta **ilun**. Agustin Otsoa

Bereziki **ilun** zegoen han. Iñaki Mendiguren

-Hauxe zen Gabrielle **-ilun** jarri zitzaion begitartea-. Migel Angel Mintegi

Hitz hauek entzutean, **ilun** jarri zen gizona eta atsekabez joan. Elizen arteko biblia

Haiek, ordea, ez zuten ulertzen zer ari zitzaien; **ilun** gertatzen zitzaien, eta ezin ziren esanahiaz jabetu; galdetzera, berriz, ez ziren ausartzen. Elizen arteko biblia

-Egunak daramatzagu deus probatu gabe -esan du **ilun** Joxek. Pello Lizarralde

-Ez da min klase hori -erantzun zuen Peterrek, **ilun**. Julen Gabiria

Urrunago behatuz, geroa **ilun** ikusten nuen. Janbattitt Dirassar

· Ahotik ahora hitz egiten diot hari, / ez **ilun**-gordeka, / aurrez aurre baizik, / eta Jaunaren irudia ikusten duelarik. Jose Antonio Mujika

## **9** (izen bati elkarturik izenondo edo adizlagun gisa)

Beharrik, ez zen orain arte ezagututako ibilgailu ofizial kristal-**iluna.** **Aingeru Epaltza**

Txukin jauna, etorri zitzaidan, gizon kopeta-**iluna,** bihotz-lehorra. Felipe Juaristi

Mendi kopeta-**ilunek** ixten zuten zerumuga. Koro Navarro

Gizon barren-**ilun** hura harrituta geratu zen Zalakainen eta Bautistaren adorearen eta baretasunaren aurrean. Koro Navarro

· Zergatik dago hain mutur-**ilun** gaur gure hiltzailea? Matías Múgica

Mary Jane atzetik begira geratu zitzaion, aurpegi-**ilun,** zer pentsatu ez zekiela. Irene Aldasoro

Oso gogo-**ilun** nenbilen bolada hartan. Eskarne Mujika

Aturri ibaia, marroi-**ilun** eta haserre, indar handiz itsasoari buruz zihoan. Daniel Landart

## 10 (erkaketetan)

Ilun du gogoa, gaua bera bezain **ilun**. Iñaki Iñurrieta

## 11 *ilunxeago*

Azazkal haiek bereak baino handiagoak ziren, **ilunxeagoak,** biribilagoak eta, batez ere, zainduagoak. Karlos Linazasoro

Horregatik esaten nionan ezetz kale **ilunxeagoetara** eraman nahi izaten ninduenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Ilea lehen baino **ilunxeagoa** dauka. Eskarne Mujika

· Horrek kale nagusiari bizitasuna ekarri zion, zoologikoaren alboetara eta atzealdera desbideratzen ziren kalexkak **ilunxeago** utziz. Pako Aristi

## 12 *ilunxegi*

Oso guapo zetorrela ile kolore berriarekin, tonu beltzaxka harekin, **ilunxeegia** aukeran, baina ondo hala ere. Karlos Linazasoro

## 13 *argi-ilun* *iz ik beherago* 16. ik **argilun.**

Gai honi buruz ere bada argi-**ilun** nabarmenik. Iñaki Heras

Caravaggio, Rembrandt eta gisako argi-**ilunaren** margolarietatik hasi eta margolari iluministetaraino, Velázquez eta Vermeer, esate baterako. Josu Zabaleta

Gelatik lorategi bat ikusten zen, argi-**ilunen** arteko mundu koloretsu eta usaintsua. Felipe Juaristi

Turista guztiak liluraturik zeuden argi-**ilunetan** agertzen zitzaizkien mirari haien aurrean. Josetxo Azkona

Rasputinen heriotzaren kronika beti izan da argi-**ilunez** betetakoa, ilunez batez ere... J.M. Olaizola "Txiliku"

"Maisuaren lana", azpimarratu zuen [...] esaldiaren argi-**ilunetan,** esaldiaren laburrean bide nabar eta zeharka indartuz eta oinarrituz giza eskuena baino ahalmen handiagoa zuen norbaitek egina zela. Felipe Juaristi

## 14 *aurpegi-ilun* *izond*

Tsarraren jauregiko goi kargudun aurpegi-**ilun** baten itxura ematen zion. Matías Múgica

Zergatik zaudete hain aurpegi-**ilun**? Elizen arteko biblia

## 15 *azal-ilun* *izond*

Senako ferry batean ikusi zuela Marie Rogêt, delako igandean, gazte azal-**ilun** batekin. Koro Navarro

Badakizu, haurtzain azal-**ilun** horietako bat eduki izan du, betiereko mammy edo inude beltz horietakoa. Mirentxu Larrañaga

Zorionekoa, zu, Walter Williams azal-**iluna** delako. Mirentxu Larrañaga

Provenceko neska azal-**ilunen** gisakoak. Karlos Zabala

Emazteak [...] berriketan jarduten mutil mandatariekin eta emakume latsari azal-**ilunekin**. Mirentxu Larrañaga

## 16 *ilun-argi* *iz ik gorago* 13.

Kolorea, jakina, baina baita kontrastea ere: **ilun**-argia beti erabili izan da zirrara bortitzak eragiteko. Josu Zabaleta

· Zelda hartako **ilun**-argian. Matías Múgica

Begiak pixkanaka ohitu zitzaizkion gelako **ilun**-argira. Ibon Uribarri

## 17 *ilun-bista* ik **ilunbista.**

## 18 *ilun-ilun*

Utzi zuena kuzkurtuta leku **ilun-ilun** batean. Anton Garikano

Biharamun goizean oso goiz esnatu zen Harry, artean **ilun-ilun** zegoela. Iñaki Mendiguren

**Ilun-ilun** ageri ziren leihoak... baina barruan dena distiratsu eta alai zegoen. Iñaki Mendiguren

Ura beltz-beltza dago, **ilun**-iluna. Eskarne Mujika

-Aditu duzue zer gertatu den goiz honetan?, bota zuen gero kara bat-batean **ilun**-iluna. Janbattitt Dirassar

Eta etxerat abiatu, gogoa **ilun**-iluna, ezin onetsiz bezperagoan sekulako musu goxoak emanak zizkidan neska hura bera zela ortzegun hartan beste batekin berdin-berdin musuka ari...! Janbattitt Dirassar

Bihotza **ilun-ilun,** mingaina pasatzen dut ezpainetatik. Anjel Lertxundi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**ahots ilun** (6); **alde ilun** (9); **alderdi ilun** (7); **argi ilun** (17); **artean ilun** (9); **aurpegi ilun** (13); **azal ilun** (16); **baso ilun** (5); **bazter ilun** (5); **bazterrak ilun** (5); **begi ilun** (18); **begi ilun eta** (6); **begitartea ilun** (6); **berde ilun** (15); **berri ilun** (9); **beti ilun** (6); **bezain ilun** (20); **bide ilun** (6); **dena ilun** (31); **dena ilun zegoen** (5); **egun ilun** (14); **erabat ilun** (7); **ere ilun** (8); **eta ilun** (100); **eta ilun bat** (6); **eta ilun batean** (7); **eta ilun baten** (6); **etorkizuna ilun** (6); **etxe ilun** (11); **gaitz ilun** (7); **garai ilun** (19); **gau ilun** (14); **gau ilun eta** (6); **gauza ilun** (16); **gela ilun** (34); **gela ilun batean** (6); **gela ilun eta** (5); **gelatxo ilun** (5); **gertakari ilun** (8); **gogoa ilun** (5); **gogoeta ilun** (7); **gorri ilun** (15); **gorri ilun bat** (6); **gris ilun** (7); **hain ilun** (9); **handi ilun** (5)

**ilun ageri** (6); **ilun antzean** (5); **ilun asko** (13); **ilun baino** (5); **ilun bat** (154); **ilun bat besterik** (6); **ilun bat zuen** (7); **ilun batean** (102); **ilun batean sartu** (5); **ilun batek** (31); **ilun batekin** (8); **ilun bateko** (11); **ilun baten** (43); **ilun batera** (19); **ilun batera eraman** (5); **ilun batetik** (18); **ilun batez** (18); **ilun batzuen** (5); **ilun batzuk** (11); **ilun beltza** (7); **ilun beltzean** (6); **ilun bihurtzen** (5); **ilun da** (7); **ilun dago** (27); **ilun daude** (5); **ilun edo** (6); **ilun egon** (5); **ilun eta** (271); **ilun eta hotz** (5); **ilun ez** (6); **ilun gertatzen** (6); **ilun guztiak** (5); **ilun haiek** (16); **ilun haien** (6); **ilun haietan** (12); **ilun handiak** (5); **ilun haren** (5); **ilun hark** (8); **ilun hartako** (10); **ilun hartan** (40); **ilun hartara** (6); **ilun hau** (5); **ilun honen** (6); **ilun honetan** (14); **ilun hori** (27); **ilun horiek** (9); **ilun horietako** (7); **ilun horrek** (8); **ilun horren** (10); **ilun horretan** (7); **ilun horri** (5); **ilun hura** (25); **ilun ikusten** (22); **ilun ilun** (15); **ilun iluna** (13); **ilun koloreko** (5); **ilun kolorekoa** (5); **ilun nabarrean** (7); **ilun samar** (15); **ilun samarra** (13); **ilun zegoela** (7); **ilun zegoen** (73); **ilun zegoen eta** (8); **ilun zen** (9); **ilun zeuden** (7)

**irudi ilun** (7); **itzal ilun** (7); **kale ilun** (9); **karrika ilun** (5); **kartzela ilun** (5); **kolore ilun** (7); **kontu ilun** (10); **kopeta ilun** (11); **korridore ilun** (7); **lan ilun** (6); **leku ilun** (9); **marroi ilun** (6); **masa ilun** (5); **mendi ilun** (6); **modu ilun** (5); **mundu ilun** (6); **nahiko ilun** (5); **oraindik ilun** (6); **oso ilun** (27); **oso ilun zegoen** (5); **pasillo ilun** (5); **pentsamendu ilun** (5); **puntu ilun** (9); **puntu ilun asko** (5); **putzu ilun** (5); **soto ilun** (7); **taberna ilun** (6); **traje ilun** (6); **triste eta ilun** (5); **txiki ilun** (5); **txoko ilun** (10); **txoko ilun batean** (7); **urdin ilun** (19); **zerua ilun** (11); **ziega ilun** (6); **zoko ilun** (18); **zoko ilun batean** (8); **zulo ilun** (9)

**alde iluna** (12); **alderdi iluna** (6); **argia eta iluna** (7); **argitu orduko iluna** (5); **aurpegi iluna** (11); **azal iluna** (13); **begirada iluna** (5); **begitarte iluna** (6); **bekozko iluna** (47); **bekozko iluna ipinita** (8); **bekozko iluna jarri** (13); **bekozko iluna jartzen** (6); **berde iluna** (12); **bezain iluna** (8); **egun iluna** (5); **ere iluna** (9); **eta iluna** (62); **eta iluna zen** (7); **etorkizun iluna** (16); **gau iluna** (33); **gau iluna zen** (5); **gaua iluna** (8); **gauaren iluna** (10); **gela iluna** (7); **giro iluna** (6); **gorri iluna** (11); **gris iluna** (8); **hain iluna** (5); **hizkuntza iluna** (6); **ile iluna** (8); **ilun iluna** (13); **iluna argi** (5); **iluna baino** (5); **iluna da** (48); **iluna dela** (8); **iluna den** (5); **iluna du** (8); **iluna egin** (7); **iluna egiten** (5); **iluna ere** (8); **iluna eta** (92); **iluna ez** (9); **iluna ipinita** (8); **iluna izan** (21); **iluna izan da** (5); **iluna izan zen** (6); **iluna izango** (13); **iluna izango da** (6); **iluna izanik** (6); **iluna jarri** (18); **iluna jarri zuen** (10); **iluna jartzen** (7); **iluna sartzen** (6); **iluna sartzen hasia** (5); **iluna zegoen** (8); **iluna zela** (7); **iluna zen** (49); **iluna zuen** (9); **iragan iluna** (5); **itzal iluna** (8); **jaun iluna** (10); **kapa iluna** (5); **kasik iluna** (5); **kolore iluna** (6); **kopeta iluna** (11); **lan iluna** (7); **orduko iluna** (7); **oroitzapen urdin iluna** (6); **oso iluna** (15); **urdin iluna** (27); **zen iluna** (12); **zerbait iluna** (5); **zeru iluna** (8)

**are ilunago** (11); **are ilunagoa** (5); **baino ilunago** (21); **baino ilunagoa** (14); **eta ilunago** (28); **eta ilunago zegoen** (8); **eta ilunagoa** (17); **eta ilunagoak** (6); **gero eta ilunago** (20); **gero eta ilunagoa** (12); **ilunago ikusten** (5); **ilunago zegoen** (12); **ilunagoa da** (12); **ilunagoa zen** (7)

**alde ilunak** (9); **argi ilunak** (25); **argiak eta ilunak** (7); **arrasto ilunak** (5); **begi ilunak** (11); **bekozko ilunak** (5); **berde ilunak** (9); **betaurreko ilunak** (12); **bezain ilunak** (11); **bihotz ilunak** (15); **bihotz ilunak egin** (13); **egun ilunak** (7); **eta ilunak** (41); **garai ilunak** (5); **gauaren ilunak** (5); **gorri ilunak** (7); **ilunak beste** (5); **ilunak dira** (13); **ilunak egin** (16); **ilunak egin zitzaizkion** (9); **ilunak egiten** (5); **ilunak ere** (16); **ilunak ere izan** (5); **ilunak eta** (40); **ilunak izan** (5); **ilunak ziren** (9); **ilunak zituen** (11); **jaun ilunak** (9); **kontu ilunak** (8); **laino ilunak** (5); **orban ilunak** (6); **oroitzapen ilunak** (5); **pentsamendu ilunak** (6); **urdin ilunak** (10); **zulo ilunak** (7)

**ahots ilunez** (7); **argi ilunen** (6); **argi ilunetan** (6); **arte ilunen** (38); **arte ilunen aurkako** (37); **azal iluneko** (11); **bekozko ilunarekin** (7); **bekozko ilunez** (28); **berde ilunez** (5); **betaurreko ilunen** (5); **dorre ilunaren** (5); **eta bekozko ilunez** (5); **eta ilunaren** (18); **eta ilunean** (8); **eta ilunegia** (5); **eta ilunen** (11); **eta ilunetan** (8); **garai ilunetan** (7); **gau ilunean** (27); **gauaren ilunean** (10); **gela ilunean** (7); **ilunaren erdian** (5); **ilunaren gainean** (6); **ilunean aurrera** (5); **ilunean eta** (5); **iluneko gizon** (7); **ilunen artean** (10); **ilunen aurkako** (40); **ilunen aurkako defentsa** (12); **ilunen aurkako defentsako** (18); **ilunen bat** (12); **ilunen batean** (13); **ilunetan barrena** (6); **ilunetan ere** (5); **ilunez eta** (8); **ilunez zegoen** (6); **jaun ilunaren** (6); **kolore iluneko** (5); **kolore ilunez** (6); **korridore ilunean** (12); **urdin ilunez** (8); **urte ilunetan** (6); **zoko ilunen** (5); **zoko ilunetan** (5)

## ilunabar *(orobat **ilun nabar** g.er.)* **1** *iz* eguzkia sartu ondoko iluntzea. ik **iluntze; ilunbista; ilunsenti**.

Anitz aldiz erraiten dugu : **ilun** nabarra, ez argi, ez eta ere oraino iluna. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Geldi zaitezte **ilunabarra** arte. Elizen arteko biblia

**Ilunabar** batez deitu nuen eta gizonezko batek hartu zuen telefonoa. Joxean Agirre

Beroa eta euria, iduzkia beti oren berean ateratzen eta beti oren berean sartzen, **ilunabarrarik** gabe. Herria

Azkenean amaitu egin zen ustez amaigabea zirudien **ilunabarra**. Patxi Zubizarreta

Askotan, **ilunabarraren** itzalei gelan barneratzen uzten zien, argia piztu gabe. Irene Aldasoro

**Ilunabar** eta gauean. Herria

Goizean bata eta **ilunabarrean** bestea. Elizen arteko biblia

Atzo **ilunabarrean** hamarnaka lagun bildu ziren bi herri horietan, Lefort eta Carrereren sostenguz. Berria - Euskal Herria

Frantzisko urriaren 3ko **ilunabarrean** hil zen. Iñaki Mendiguren

**Ilunabarrean,** lanetik etxerakoan, Gregory egoten zen tabernan sartu zen. Iñaki Zabaleta

Goizeko edo **ilunabarreko** angelusetan. Joan Mari Irigoien

Ekin zioten guduari eta borrokan jardun zuten egunsentitik **ilunabarreraino**. Elizen arteko biblia

Orduan nere etxerat etorri behar duzu gaur **ilun** nabarrean. Hasier Etxeberria

Behin batean, **ilunabar** aldera bazihoan bere anaia lagunarekin San Verekundoko bidetik[...] eta dei egin zioten alorrean ari ziren nekazari batzuek. Askoren artean

Aita **ilunabar** aldera itzuli zen, emakume batekin. Juan Kruz Igerabide

**Ilunabar** aldera hegazkin bat azaldu zen, militarra. Joxe Austin Arrieta

**Ilunabarreko** zortzi eta erdiak aldean. Joan Mari Irigoien

Arrantzale batzuk nasan, **ilunabarreko** zeru gorri ilun baten argia atzetik zutela. Xabier Olarra

Hor dator Lizarriturri **ilunabarreko** basoerdiak hartzera. Pako Aristi

Saguzarren aldrak agertu ziren [...] **ilunabarreko** argitan hegaldi nahaspilatsuan. Txillardegi

Izpiliku usaina darabil haizeak, eta **ilunabarreko** isiltasuna erabatekoa da. Patxi Iturritegi

**Ilunabarreko** orduek erasotzen diote, lanaren arabera antolatua daukalako eguna. Pako Aristi

Kaleko zumarren adaburu beltzak ageri ziren **ilunabarreko** urdin kobaltoarekin jolasean. Ramon Saizarbitoria

Euri-usaina zerion **ilunabarrari,** hodei goibelez zegoen zerua belzturik. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

Sargori egunetako **ilunabar** freskoetan. Txillardegi

Udazkeneko **ilunabar** euritsu batean. Koro Navarro

Iparraldeko Venezia deitzen diote [...] eta **ilunabar** politak ditu, zeruminak denbora dezente irauten baitu zeruertzean galdu baino lehen. Felipe Juaristi

Emakumeek, bularrak airean, distira egin zuten **ilunabar** apalean, eguzkiaren ordezko balira bezala. Felipe Juaristi

**3** *irud*

Hauxe zion Xavier Grall poetak bere biziko **ilunabarrean:** [...]. Herria

Bizitzaren **ilunabarrean** zegoelarik, bere onberatasuna isurtzen zuen ororengan. Monika Etxebarria

**3** (hitz elkartuetan)

Urrezko **ilunabar** -argiaz blaiturik zegoen gela. Irene Aldasoro

Eta maldan gorako zuhaitz ilara bikoitz hura, **ilunabar** argitasun barean ikustean, bihotzean sartu zitzaidan. Txillardegi

Hura **ilunabar** -pila filmatuta neukana, Tamaulipaseko basamortukoak, besteak beste, hiru ziren. Joxe Austin Arrieta

**Ilunabar** -arrats ingururako Hendrixtownera itzuli beharra daukat, "Turgeniev" irekitzera. Pako Aristi

· Itsas **ilunabar** zoragarria. Migel Angel Mintegi

Ostegun **ilunabar** hartan. Koldo Izagirre

Arratsalde- **ilunabarrean** sartu zen, nonbait, eraikinean. Josu Zabaleta

Arrats- **ilunabarreko** albistegietan. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta ilunabar** (8); **eta ilunabar aldera** (3); **eta ilunabarra** (10); **eta ilunabarra arte** (3); **ilunabar aldera** (15); **ilunabar batean** (12); **ilunabar baten** (3); **ilunabar batez** (3); **ilunabar hartan** (10); **ilunabarra arte** (14); **ilunabarra baino** (7); **ilunabarra baino lehen** (3); **ilunabarra baino lehenago** (3); **ilunabarra bitarte** (3); **ilunabarra da** (4); **ilunabarra gainean** (3); **ilunabarra heldu** (3); **ilunabarra zen** (11); **zen ilunabarra** (4)

**atzo ilunabarrean** (22); **baina ilunabarrean** (3); **egunsentitik ilunabarrera** (8); **eta ilunabarrean** (23); **eta ilunabarreko** (9); **hamalauko ilunabarrean** (3); **hurrengo ilunabarrean** (3); **ilunabarrean bere** (3); **ilunabarrean edo** (4); **ilunabarrean hil** (5); **ilunabarrean iritsi** (4); **ilunabarrean itzuli** (7); **ilunabarrean itzuli ziren** (4); **ilunabarrean sartzen** (3); **ilunabarreko argi** (9); **ilunabarreko azken** (4); **ilunabarreko eguzki** (4); **ilunabarreko eguzkiak** (3); **ilunabarrera arte** (6); **ilunabarretik aurrera** (4) +; **larunbat ilunabarrean** (3); **zen ilunabarrean** (5); **zen ilunabarreko** (3); **ziren atzo ilunabarrean** (3); **zuen atzo ilunabarrean** (4); **zuen ilunabarrean** (3)

---

## ilunabarrero *adlag* ilunabar guztietan.

Hala ere, orain ez du semea ikusi gabeko orduak marraz marra zenbatu beharrik, ez platerik jarri beharrik, ezta ohea zabaldu beharrik ere, **ilunabarrero** hitzordua baitauka semearekin. Joan Mari Irigoien

**Ilunabarrero,** gauaren malkarrean erori ez erori, ateak ixten zituztenean biltzen ziren, barrakoiko atzeko aldean, laukoteren bat jotzeko. Felipe Juaristi

---

## ilunabartu, ilunabar(tu), ilunabartzen **1** du *ad* ilunabarra heldu, zerua ilundu.

Izan ere, hain goiz **ilunabartzen** du. Mirentxu Larrañaga

New York lainotua **ilunabartzen** ari zuen, kaleetako eta etxeetako argiak pizten zihoazen eta ordu erdi bat baino lehenago beste itxura bat hartuko zuen hiriak. Iñaki Zabaleta

**Ilunabartzen** ari zen, kaxa mugituen hotsa entzuten zen. Karlos Zabala

Mollyk Charlieren sorbalda gainean zeukan burua, eta **ilunabartzen** ari zuen gure ingurumarian. Mirentxu Larrañaga

Harik eta, azkenean, itzalak luze-zabal hedatu ziren arte eta erabat **ilunabartu** zuen. Mirentxu Larrañaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Nabe altua zen, kanpotik bezain biluzia barrutik, iluna, hotza, miserablea eta handia, egun **ilunabartuaren** isla ubel eta lurkarek doi argitua. Koldo Izagirre

· *irud* Ezeren lotsarik, hiltzeko lotsarik ere ez dagoenean, umetzeko lotsarik ere ez dago, eta orduan, pertsona **ilunabartuak,** bere garapen oso eta etsigarria gainean dakusalarik, haur bihurtzera bulkatzen du bere burua. Iñaki Segurola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ilunabartzen ari** (3)

## **ilunabartze** *iz* ilunabarra heltzea, zerua iluntzea.

Hotza zen urtarrileko **ilunabartze** hartan Manhattanen. Iñaki Zabaleta

---

## **ilunagotu**, ilunago(tu), ilunagotzen da/du *ad* ilunago bihurtu.

Betaurreko ilunen atzetik, "Potzoloren" begitartea **ilunagotzen** sumatu nuen. Aingeru Epaltza

Bisaia **ilunagotuz** erantzun nion. Aingeru Epaltza

Betaurrekoak puska tiki eginda, begietako lausoak **ilunagotzen** zuen toki zoldazu horretako ilunpea. Aingeru Epaltza

---

## **ilunaire** *izond* ilun-antzekoa. ik **ilunkara**.

Toki apaina zen, franko modernoa, argi **ilunaire** goxo-eztiarekin. Daniel Landart

---

## **ilunaldi** **1** *iz* argiaren etenaldia.

Lauzpabost minutuan egon ziren zelaian jokalariak, teknikariak eta epaileak, **ilunaldia** bukatu zain. Berria - Kirola

Segidan datozen fotogramen arteko **ilunaldian** . Josu Zabaleta

Zineman berez geldirik dauden irudiak erabiltzen dira, irudi horiek kadentzia erregular batean pantaila baten gainera proiektatuz, eta tartean **ilunaldiak** utziz, filma fotograma batetik bestera aldatzen den bitartean proiektorearen objektiboa gortina birakari batek estaltzen duelako. Josu Zabaleta

**2** aldi iluna.

Sararen gorabeherak eta aldarteak -argialdiak eta **ilunaldiak-** pazientzia handiz eraman beharko nituela, ondorio arrakastatsurik izatekotan. Joan Mari Irigoien

Esan nahi dut argialdi bakoitzari **ilunaldi** luzea zerraiola. Joan Mari Irigoien

Eta, Mexikoko jatorrizko kultura sendotzen ari bazen laurehun urteko **ilunaldiaren** ondoren, [...]. Iñaki Mendiguren

Gizonaren sormena ere negualdian, **ilunaldietan,** itzalaldietan, ernaltzen baita. Patziku Perurena

Zenbat pozaldi eta zenbat **ilunaldi** ? Patziku Perurena

Lehen bidaia hark **ilunaldi** bakar bat izan zuen. Joxean Agirre

---

## **ilunantz** **1** *iz* argitasun ahula.

**Ilunantz** hartan begiak erdi itxita ohe-barrenera begiratu zuen, eta han fardel-metatxo bat ikusi zuen. Iñaki Mendiguren

Leihoa itxi zuen eta **ilunantza** jabetu zen gelaz. Felipe Juaristi

Han, egurats hertsi hartan, zenbait gas argiontziren **ilunantzean,** arnasa garbiaren freskura aurkitzen zuen berriz. Karlos Zabala

Gela **ilunantzean** zegoen. Ander Irizar

Katedralaren **ilunantzean** . Piarres Aintziart

**Ilunantz** goibel haien barrenean. Fernando Rey

Ez zitzaion ezinegona joan harik eta, **ilunantz** lodian, itzal altu bat jaiki eta oinez hasi zen arte. Fernando Rey

**Ilunantz** motelean, isiltasun sakonean, [...] atseden hartzeko abagunea aurkitu zuen pintura-museoko aretoetako bat agertu zen. Jose Morales

Nahi gabe ahots apalagoz hasi ginen hizketan, **ilunantzean** dena ahulago bihurtu balitz bezala. Ander Irizar

**2** (izenondo gisa)

Pasabide **ilunantz** hartan, pixa usainarekin nahastua, Joseba odol lodiz inguratua zegoen. Iñaki Zabaleta

---

## **ilunarazi**, ilunaraz, ilunarazten du *ad* iluntzera behartu

Zuri bakarrik, antza, nahiz eta bertze batzuen begitartea **ilunarazi** ikuskizunak. Xabier Montoia

---

## **ilunarte** *iz* tarte iluna.

Gas argiontzi batek, **ilunarte** batetik irtendakoan, zapata baten iltzeak, blusa baten orban urdina, txapel baten punta argiztatzen zituen. Karlos Zabala

---

## ilunbe ik **ilunpe**.

---

## ilunbetaratu ik **ilunpetaratu**.

---

## **ilunbista** *(orobat **ilun-bista**)* **1** *iz* ilunabarra, iluntzea.

Bere gorputzak, **ilun-bistan,** "hari beltza eta zuria bereizi ezin diren unean", sendoagoa ematen zuen, beteagoa; hogei urte izan ordez hamar gehiago balitu bezala. Bernardo Atxaga

Ohol-gazteluak geneuzkan inguruan; ibaiak bereizi egiten gintuen mundutik; **ilun-bistak** babestu. Bernardo Atxaga

Gero, itzuli bat egin genuen kaian zehar, **ilun** -bistaren urdin gero eta ilunagoa barneratuz, nire ikasketei buruz eta erosi nituen liburuez mintzatzen ginen bitartean. Juan Kruz Igerabide

Azalpen horixe egin nien bi lagunei, **ilun** -bista jaio berriaren altzoan. Karlos Linazasoro

Paola eta Mario paseo malenkoniatsuak egiten zituzten, biek elkarrekin edo bakoitzak bere aldetik, **ilunbistan,** bakardade barrenkoian. Fernando Rey

Gaua, epela eta haizetsua zetorren, eta **ilunbistan** amak labadora ireki zuen etxeko arropa pilda hura atera eta oilategian esekitzeko. Pako Aristi

Adiskidetzearen errainu-izpiak hasiko ote dira, oraindik **ilunbistan,** argi egiten? Berria - Euskal Herria

**2** (izenondo gisa)

Denborarekin kriseilu batzuk ezarri ziren etxe bakoitzean, giro **ilunbista** argitzeko lain ez zirenak. Jokin Urain

---

**ilundegi** *iz* ilunpea.

Arimako jaiotzaz nahi nuen hitz egin, eta Hitz horrek berak distiratzen duen **ilundegiaz** , beronek fruitu onuragarriak omen dituenez arimarentzat. Joan Mari Lekuona

---

# **ilundu**, ilun, iluntzen **1** da/du *ad* argia edo argitasuna galdu edo kendu, ilun bihurtu.

Jaunak ilunpea bidali eta dena **ilundu** zen, baina haiek ez zituzten haren egintzak ulertu. Elizen arteko biblia

**Ilundu** egiten da haren etxeko argia, itzali, argi egiten zion kriseilua. Elizen arteko biblia

Gauak **ilunduriko** Ama Birjinaren kaperaren aurrean. Karlos Zabala

Zerua zeharo **ilundu** zen. Joxemari Urteaga

Ilargia **iluntzen** . Martin Anso

Bat-batean, ez da eguzkirik ikusten, hodeiek **ilundu** egin baitute, baina gero haizeak jo eta garbitu egiten ditu. Elizen arteko biblia

Egun hartan, eguerdi betean sarraraziko dut eguzkia, eta egun-argitan **ilunduko** dut lurra. Elizen arteko biblia

Zu itzaltzean, zerua estaliko dut: izarrak **ilundu** eta eguzkia lainoz estaliko; ilargiak ez du distirarik egingo. Elizen arteko biblia

Jakin badakigu gure hitzek zure egintza ospetsuen distira asko **ilundu** dutela, ez baitira neurriko hain perfekzio handia azaltzeko. Askoren artean

## **2** *irud*

Bigundu beharrean areago **ilundu** zitzaion kopeta gizonari. Migel Angel Mintegi

Osaba Kamilek kopeta **ilundu** zuen. Patxi Zubizarreta

Aurpegia are gehiago **ilundu** zitzaidan. Aingeru Epaltza

Ez zitzaion nire galdera gustatu, begiak **ilundu** baitzitzaizkion bat-batean. Anjel Lertxundi

Ardoak **iluntzen** ditu haren begiak. Elizen arteko biblia

Zaitak, begitartea **ilundurik,** koleraz beteriko garrasia egin zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Kontakizunak aurrera egin ahala, begitartea **iluntzen** joan zitzaion Umbertori. Anjel Lertxundi

Baina **ilundu** egin zitzaien adimena israeldarrei. Elizen arteko biblia

Gertakari batek XIII. mendea **ilundu** zuen. Michel Oronoz

Tumore bat agian, ez dakit, aldi berean gibelaldea paralizatu, ikusmena **ilundu** eta txegoste sistema hein batean nahasiko zidan zerbait. Joxan Elosegi

Handik beste pixka batera, guztiz **iluntzen** da ikusmen-eremua, eta ez da ezer ikusten. Irene Aldasoro

Kontzientzia hartze hori **ilunduz** eta ideologia perspektibista mekanikoki produzituz. Josu Zabaleta

Hori esaterakoan, ahotsa **ilundu** egin zaiola iruditzen zait. Anjel Lertxundi

Atzoko bileraren ondotik, Sestaoko Navalen etorkizuna **ilunduz** doa. Berria - Ekonomia

**Iluntzen** nahiz argitzen ziren noten tinbreak, baina piezak kementsu segitzen zuen aurrera. Anjel Lertxundi

## **3** *(eguna, eguraldia eta kidekoak).*

Arratsaldea da; laster **ilunduko** du. Elizen arteko biblia

Arratsalde hartan goiz **ilundu** zuen, bost eta erdiak inguruan. Fernando Rey

Mugi gaitezen, **ilundu** baino lehen. Jon Muñoz

Agian **ilundu** baino lehen iristeko itxaropenaz inoiz baino urduriago gu. Joxe Austin Arrieta

Egun osoan jarduten genuen goizetik **ilundu** arte. Berria - Kirola

**Ilundu** arte ez zen etxetik mugitu. Migel Angel Mintegi

Berandu **ilundu** du, Turkia baino ordu eta erdi atzerago baitago Iran, erlojuari dagokionez. Jon Arretxe

Artean ez zegoen **ilundu** beldurrik. Pedro Alberdi

Bizkor **ilundu** zuen. Jon Muñoz

**Ilundu** zuenean, untzia aintzira erdian zegoen, eta Jesus lehorrean, bakarrik. Elizen arteko biblia

**Ilunduta** zegoen ordurako, eta sabaiko argi gorriak binbilika egiten zuen trenarekin batera. Anjel Lertxundi

Hala eta guztiz, gau hartan ilberri zen eta ia zeharo **ilundu** zuen hamaiketatik ordu biak arte. Karlos Zabala

Doi **ilundu** berritan tabernara datozenengan nabari da baretu ezin duten indar baten distira. Pako Aristi

Eguerdialdea zen, eta **ilundu** egin zuen lurbira guztian hirurak arte. Elizen arteko biblia

**Ilunduko** du eta haize hotza egingo du. Joseba Sarrionandia

**Ilundu** arteko denboran harrika eman genien. Aingeru Epaltza

Argia **ilundu** artean itxaron dugu, eta gaua belztu egin da berriro bat-batean. Mirentxu Larrañaga

Eguna **ilundu** zuen, eta neskatxa ez zen atzera ere agertu Kaukasoren zubian. Karlos Zabala

**Ilundutakoan** joango naiz. Txillardegi

Eguzkia sartua zen, eta **iluntzen** ari zuen. Juan Kruz Igerabide

Bostak aldean **iluntzen** hasten du jadanik. Filipe Bidart

Sototik irten ginenean, **iluntzen** hasita zegoen, eta hotz gordin batek hartua zuen airea. Anjel Lertxundi

**Iluntzeko** puntuan, hiriko ateak ixtekotan zeudela ailegatu nintzen Uhaitzandi ibaiaren ertzetara. Aingeru Epaltza

## **4** alaitasuna galdu edo kendu, goibeldu. ik **betilundu**.

Ordura arteko begitarte alaia **ilundu** zion bekozkoa jarrita. Xabier Mendiguren Elizegi

Bihotza **ilundurik,** negargalea etorri zitzaion. Patxi Zubizarreta

Gogo bihotzak **iluntzen** zaizkit berri horiek entzun-eta. Herria

Oroitzapenek gogoa **ilundu** eta isilarazi egin zuten. Migel Angel Mintegi

Joseperen gogoa hasi zen **iluntzen** . Janbattitt Dirassar

Argi faltan ixten den lore bat bezala **ilundu** zitzaidan barrena. Anjel Lertxundi

Bien bitartean, gauza batek **ilundu** du nire zoriona. Josu Zabaleta

Bisaia eta aldartea alaitu-**ilundu** zaizkio ziztu bizian. Jose Angel Irigaray

Berri trixte batek **ilundu** du herri guzia, Maxime Albandos zendu zela jakitearekin. Herria

Eguberri biharamuna **ilundu** du haatik Mulhouse hirian gertatu den ixtripu izigarri horrek. Herria

Aski ene gogoaren hondarra **iluntzeko...** ! Janbattitt Dirassar

## **5** ulergaitzago bihurtu.

Etimologiaren ziurtasuna nahas edo **ilun** dezakeen [...] faktore bat. Isabel Arrigain

Argi dago idazkera horrek **ilundu** egingo lukeela argitzera zetorrena. Isabel Arrigain

Honelako informatzaileen erantzunek, Lounsburyren esanahiari buruzko galdera zuzena egingo balitzaie, arazoa **ilundu** baino ez lukete egingo. Itziar Laka

Baina hemen misterioa **ilundu** egiten da, ikasiko duzue noizbait ere, une egokia ailegatzen denean. Fernando Rey

## **6** (era burutua izenondo gisa)

Bandera gorri **ilunduaren** azpian. Joseba Sarrionandia

### 7 *iluntzearren adlag*

Kontuok gehixeago **iluntzearren,** sarritan bozketaren emaitza ez dator bat nahimen orokorrarekin. Markos Zapiain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**apur bat ilundu** (4); **are gehiago ilundu** (3); **argia ilundu** (3); **asko ilundu** (3); **aurpegia ilundu** (7); **bat batean ilundu** (3); **bat ilundu** (6); **batean ilundu** (3); **batek ilundu** (8); **begiak ilundu** (7); **begiak ilundu zitzaizkion** (3); **begitartea ilundu** (7); **begitartea ilundu zitzaion** (3); **bekokia ilundu** (7); **bekokia ilundu zitzaion** (3); **bekozkoa ilundu** (4); **berehala ilundu** (3); **bezala ilundu** (3); **bihotza ilundu** (8); **bihotza ilundu egin** (4); **dena ilundu** (5); **eguna ilundu** (6); **eguzkia ilundu** (4); **erabat ilundu** (10); **erabat ilundu zuenean** (3); **ere ilundu** (6); **eta ilundu** (22); **eta ilundu arte** (5); **gaua ilundu** (3); **gehiago ilundu** (4); **gela ilundu** (3); **gela ilundu egin** (3); **guztiak ilundu** (3); **guztiz ilundu** (7); **ilargiak ilundu** (3); **ilargiak ilundu egiten** (3)

**ilundu ahala** (3); **ilundu arte** (25); **ilundu arte ez** (3); **ilundu aurretik** (6); **ilundu baino** (27); **ilundu baino lehen** (23); **ilundu bezain** (3); **ilundu bezain laster** (3); **ilundu da** (5); **ilundu ditu** (5); **ilundu dituen** (3); **ilundu du** (15); **ilundu dute** (5); **ilundu egin** (51); **ilundu egin du** (3); **ilundu egin zen** (9); **ilundu egin ziren** (3); **ilundu egin zitzaion** (6); **ilundu egin zuen** (9); **ilundu egingo** (5); **ilundu egiten** (14); **ilundu egiten da** (4); **ilundu egiten dira** (4); **ilundu eta** (41); **ilundu eta gero** (11); **ilundu eta handik** (4); **ilundu gabe** (8); **ilundu nahi** (3); **ilundu nuen** (3); **ilundu ondoren** (4); **ilundu orduko** (9); **ilundu ostean** (7); **ilundu zaio** (3); **ilundu zen** (25); **ilundu zion** (7); **ilundu zitzaion** (27); **ilundu zitzaion eta** (5); **ilundu zitzaizkion** (5); **ilundu zuen** (44); **ilundu zuen arte** (3); **ilundu zuen eta** (4); **ilundu zuenean** (9)

**bekokia ilunduz** (3); **bihotza ilundurik** (5); **eguzkia ilunduko** (3); **ilundua du** (3); **ilundua zen** (3); **ilundua zuen** (3); **ilunduko da** (3); **ilunduko du** (5); **ilunduko du eta** (4); **ilunduko zuen** (3); **ilundurik eta** (3); **ilunduta ere** (3); **ilunduta zegoen** (4); **ilunduz gero** (3); **ilunduz joan** (5); **kopeta ilundu** (28); **kopeta ilundu zitzaion** (3); **kopeta ilundu zuen** (11); **kopeta ilundurik** (8); **laster ilunduko** (5); **laster ilunduko du** (3); **orduko ilunduko** (3); **zeharo ilundu** (4)

**aurpegia iluntzen** (4); **baina iluntzen** (5); **begitartea iluntzen** (8); **bihotzak iluntzen** (3); **eguna iluntzen** (3); **eta iluntzen** (11); **gogoa iluntzen** (6); **goiz iluntzen** (3); **ikusmena iluntzen** (3); **iluntzen ari** (63); **iluntzen ari da** (6); **iluntzen ari du** (6); **iluntzen ari zen** (7); **iluntzen ari zuen** (32); **iluntzen da** (5); **iluntzen ditu** (3); **iluntzen du** (13); **iluntzen du eta** (3); **iluntzen duenean** (3); **iluntzen dute** (3); **iluntzen ere** (3); **iluntzen eta** (4); **iluntzen hasi** (17); **iluntzen hasi orduko** (3); **iluntzen hasi zuen** (3); **iluntzen hasia** (14); **iluntzen hasia zen** (7); **iluntzen hasita** (4); **iluntzen hasita zegoen** (4); **iluntzen hasten** (3); **iluntzen joan** (4); **iluntzen zihoan** (3); **iluntzen zion** (4); **iluntzen zuen** (4); **iluntzen zuten** (3); **itzalak iluntzen** (3); **kopeta iluntzen** (3); **osoa iluntzen** (3); **zen iluntzen** (4); **zerua iluntzen** (4); **zuen iluntzen** (3)

---

## ilundura 1 *iz* iluntasuna; argitasun galtzea.

Begiak **ilundurari** ohitzeko denbora emateko, sarreran Camille Claudelen argazki argituek egiten diote ongietorria bisitariari. Berria - Kultura

Bere barneko **ilundura** samina. Janbattitt Dirassar

Zorigaitzez Beltran Etxauzkoaren apezpikugoak badu bere **ilundura**. Michel Oronoz

Eman nahi dizut zuretzat nire betiereko argia, zure **ilunduren** truke. Joan Mari Lekuona

Hau baita Jainkoaren ikustea eta maitatzea gozo bete handienarekin, neholako **ilundura** kutsurik ez hutsik gabe. Piarres Xarriton

**Ilundurak** hartzen gintuen gero eta sarriago zergatik jakin gabe. ekonomiaren aldetik, gauzak etzoatzila hain untsa, bazela hor gaindi halako **ilundura** pisu bat, ez bazen ere argi ageri zerk emaiten ahal zuen hori... Herria

**Ilundura** bat gaitza ukan nuen jasateko. Janbattitt Dirassar

Hautatuen oski dirdiratsuek **ilundura** bat jasan zuketen eta gehienek Euskal Herriko aro txarra madarikatzen zuten. Itxaro Borda

### 2 *ipar (eguraldiaz minzatuz)*

Zerua goibeldu da eta sendi da halako **ilundura** pisu bat... Herria

Aste ondarrean **ilundurak** hegoari buruz. Herria

### 3 (hitz elkartuetan)

Gure amak "galipoteria" bihotz-**ilundura** eta bakardade sentimenduen nahas-mahasari deitzen zion. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**halako ilundura** (3); **ilundura bat** (3)

---

## ilunik *adlag* ilun.

Eta baldin bertan beren egarria asetzen badute, **ilunik** dauden puntuetako batean besterik ez bada ere [...]. Xabier Kintana

**Ilunik** zegoen ordurako, eta ateetako arkuez harunztik polizia eta soldadu garaituen itzalak ikusten ziren. Josu Zabaleta

---

## ilunkara *izond* ilun-antzekoa.

Landaretza itxi eta **ilunkararen** erdiko argiune bakarrean. Hasier Etxeberria

Titiburu **ilunkara** haiek bular beteetan. Joseba Sarrionandia

Zamau gorri **ilunkara** batek estaliriko mahaiaren ertzean telefono bat ageri zen. Koldo Izagirre

Erretratuen koloreak, oro har, arre **ilunkarara** jotzen du. Monika Etxebarria

---

## ilunkera *iz* iluntzea, ilunabarra.

**Ilunkeran,** fabrikatik irtendakoan, justu izaten dugu astia erosketa batzuk egiteko, zerbait jateko. Eskarne Mujika

Orain Cameron Avenue-n ez da neskarik ikusten **ilunkeran**. Lopez de Arana

Blues kantak kantatzen zituen, **ilunkera** batean afaria zerbitzatzen zielarik ezagututako hiru musikarirekin batera. Oskar Arana

Heldu da **ilunkera**. Oskar Arana

Zapatu **ilunkeran,** Yolanderenera joan nintzen. Eskarne Mujika

Igande **ilunkera** batean. Oskar Arana

Ni kapitaina ninduan Saseta batailoian, eta tenienteari tarte-bitarteka autoa eskatuz hasi gintuan Polixene eta biok **ilunkeran** ateratzen. Pako Aristi

---

## ilunki *adlag* iluntasunez, ilun.

**ilunki** bada ere badaki bere ibilaldi bitxi honek baduela helburua. Jon Alonso

Gau-ikuskariaren latzikara hauxe da: sorkariek bihotza **ilunki** eta itsuki hartu izana. Joan Mari Lekuona

Aldiz, ibarreko zuhaitzak, udaberriz jantzirik ordurako, gu bezalakoak ziren, haiek ere jende, hitzik gabea baina bero-izotzak sentitzen dituena, gozatzen eta sofritzen zekiena, jaio eta hiltzen zena, haizetan polena zabaltzen, **ilunki** eguzkiari bere bidean jarraitzen diona. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ilunki bada ere** (3)

---

## ilunkiro *adlag* ilunki.

Lanza gustura zegoen, eta **ilunkiro** baketurik galdarekin, termometroarekin eta finean mundu guztiarekin eta bere buruarekin. Juan Garzia

---

**ilunpe** *(1547 agerraldi, 183 liburu eta 54 artikulutan; ETCn 5.057 agerraldi; orobat* ***ilunbe*** *142 agerraldi, 28 liburu eta 19 artikulutan; ETCn 509 agerraldi)* **1** *iz* argirik edo argitasunik eza. ik **iluntasun.**

Eguzkia **ilunpe** bihurtuko da, ilargiak odol-itxura hartuko du. Elizen arteko biblia

Heliodoro lurrera erori zen zerraldo, **ilunpe** handiak inguratua. Elizen arteko biblia

**ilunpeak** irents dezan. Anton Garikano

-Ez dut **ilunpea** gogoko -xuxurlatu zuen. Mirentxu Larrañaga

Zuregatik ilunduko ditut zeruko argizagi guztiak, eta **ilunpea** ekarriko zure herrialdera. Elizen arteko biblia

Zuk argitzen duzu, Jauna, nire **ilunpea**. Elizen arteko biblia

Eta bertan, **ilunperik** beltzenean gelditu zen Elimas, eta itsumustuka zebilen, eskutik nork eramango. Elizen arteko biblia

Argiaren egilea eta **ilunpearen** sortzailea. Elizen arteko biblia

Berak atera gaitu **ilunpearen** menpetik. Elizen arteko biblia

**Ilunperik** beltzenean daudenei argi egitera. Elizen arteko biblia

Euskaldun nortasuna **ilunpe** etengabeak zedarritzen du? Itxaro Borda

Alboetan, beste kaleen sarbide beltzak ageri ziren, oro isil, oro **ilunpe**. Karlos Zabala

Eskuak zinkezko ertzari atxiki eta aurrera makurtzen zen, kaleak ikusteko; **ilunpez** beteak zeuden oraindik. Karlos Zabala

**2** *pl*

**Ilunpeak** uxatzen dituen egunsentiak bezala. Askoren artean

Bederatzigarren izurria: **ilunpeak**. Elizen arteko biblia

Altxa ezazu eskua zerurantz eta ukitzeko moduko **ilunpeak** izango dira Egipton. Elizen arteko biblia

Adiskide eta lagunak urrundu egin dizkidazu: **ilunpeak** ditut lagunarte bakar. Elizen arteko biblia

Begiradarekin segitu zion Mathildek, harik eta ezkaratzeko **ilunpeak** senarra guztiz irentsi zuen arte. Anjel Lertxundi

**Ilunpeek** hartu zuten kafetegia. Monika Etxebarria

Baina **ilunpeek** ez zuten onartu. Elizen arteko biblia

Zein da argiaren bizitokirako bidea? non da **ilunpeen** egoitza? Elizen arteko biblia

Humirzah deabrua naiz, **ilunpeen,** euriaren, kazkabarraren, trumoiaren eta basapiztien jauna. Koro Navarro

**Ilunbeen** bihotzerainoko bidaia. Pako Aristi

**Ilunpe** trinkoen orduetan, lauretan jaikitzen ziren eta gosaldu gabe, hegiak agerian zeuzkan kamioira igotzen. Itxaro Borda

Niregan sinesten duenik inor **ilunpeen** menpe geldi ez dadin. Elizen arteko biblia

**Ilunpeetako** sakonena agerrarazten du eta itzalik beltzenak argitara ateratzen. Elizen arteko biblia

Ezintasun giro horretan murgiltzen hasten naizenean, anitzetan ene **ilunpeetako** urratsak hilerrira bideratzen ditut. Itxaro Borda

Argiak **ilunpeetako** munstroak suntsitzen dituenean. Aingeru Epaltza

**Ilunpeetako** printzearekin borrokan. Aingeru Epaltza

**3** (leku-denborazko atzizkiekin singularrean)

Erabateko **ilunpean** murgildu zen gela. Xabier Olarra

[Trena] **ilunpean** galdu zen, atzealdeko bere argi gorria zabuka zebilela. Lopez de Arana

Eta **ilunbean** gure txokotxoa aurkitu genuen. Josu Zabaleta

**Ilunpean** eta ahanzturan galtzen ziren berriz ere liburuak. Jon Muñoz

Lisak beldurra izan zuen morrosko haren ondoan **ilunpean** ibiltzeko. Karlos Zabala

Loroaren begiek diz-diz egiten zuten **ilunpean**. Jon Muñoz

Berak argituko du **ilunpean** ezkutatua dagoena. Elizen arteko biblia

Lurra mugatuta dago arrantzalearentzat, eta **ilunpean,** ilargirik ez denean, ibaiak mugarik ez du. Josu Zabaleta

Maixabel **ilunpean** geratu da zenbait segundoz. Pello Lizarralde

Fred eta George eskailera-buruko **ilunpean** zeuden kuzkurtuta. Iñaki Mendiguren

Geldirik egon nintzen, begiak **ilunpera** egokitu arte. Juan Kruz Igerabide

**Ilunpera** jaurtikitako gorpuak. Elizen arteko biblia

Jada ikusezinak zirela ahaztuta, **ilunpera** erretiratu ziren. Iñaki Mendiguren

Beste ahots bat ateratzen da **ilunpetik**. Oskar Arana

**4** (leku-denborazko atzizkiekin pluralean)

Eta kaleko **ilunpeetan** murgildu zen. Josu Zabaleta

Zuhaitz baten alboan gelditu zen [...] eta gau sartzen hasi berriaren **ilunpeetan** babestu zen. Patxi Zubizarreta

Frantsesa berriro murgilduko balitz kristautasunaren **ilunpeetan**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Kriseiluak, haren inguruan, hara-hona astiro ibili eta gelditu egiten ziren **ilunpeetan**. Karlos Zabala

Kaira heltzen ari zen kalesa, biltegi eta eraikuntzetako teilatuen atzealdeko **ilunpeetan** erdi ikusten ziren ontzietako masta-punta, gabia eta belazurrunen arabera. Anjel Lertxundi

Loaren **ilunbeetan** barrena sartzeko. Pako Aristi

Halakoaren etxera joatea heriotzarantz joatea da, beraren bideak **ilunpeetara** eramaten zaitu. Elizen arteko biblia

**Ilunpeetara** bidean, iluntasunerantz. Jose Morales

Begiak **ilunpeetara** ohitu arteko astia hartu zuen. Anjel Lertxundi

Urtarrileko **ilunpeetara** irteten den lautada elurtu eta eguzkitsu itsugarri bat ikusten dut. Joseba Urteaga

Ikusi zuen Jainkoak argia ona zela eta bereizi egin zuen **ilunpeetatik**. Elizen arteko biblia

Gau berezi horietan **ilunpeetarik** jalgi nahi ez zuten Platonen harpeko kide sentitzen nintzen. Itxaro Borda

Zalantzen **ilunpeetatik** irten ezinik. Txillardegi

Ezkutuko indar batek heriotzaren **ilunpeetatik** biziaren argira itsumustuan erauzia. Juan Luis Zabala

Hango jende gehiena Erromako Satan handiaren **ilunpeetatik** atera eta zalu-zalu egiten ari zen Erreformaren argira. Aingeru Epaltza

**5** (hitz elkartuetan)

Argi ezazu nire barne-**ilunpea**. Jose Morales

Lanpara hark iduri zuen gela hartako gau-**ilunpe** zirkularraren bihotz berdea zela. Matías Múgica

**6** ***ilunpetako***

Egun hartan bertan hil zen infernuko morroi eta **ilunpetako** seme zen gizon zital hura. Askoren artean

**7** ***ilunpetan*** iluntasunean. ik gorago **4.**

Atea erdi zabalik zegoen, eta korridorea **ilunpetan** zegoen. Agustin Otsoa

Gogotik ari ziren lanean **ilunpetan**. Jon Muñoz

Pentsatu nuen bizitza osoa eman nuela [...] eskailerak **ilunpetan** bakarrik igotzen. Koro Navarro

**Ilunpetan** joan nintzen, hanka-punttetan, aitonaren gelako ateraino. Koro Navarro

Bizkarrean fardela harturik, **ilunpetan** aterako zara; estali aurpegia zeure herrialdea ez ikusteko. Elizen arteko biblia

Leihoko gortina itxi zuen gero, gela **ilunpetan** uzteko. Anjel Lertxundi

Bere senideari gorroto diona, berriz, **ilunpetan** dago, **ilunpetan** dabil eta ez daki nora doan, ilunak itsutu egin baitizkio begiak. Elizen arteko biblia

Zintzoen urratsak ditu zaintzen, baina gaiztoak **ilunpetan** dira galtzen. Elizen arteko biblia

Neguko egun ilunetan argia joaten zenetan, ia **ilunpetan** geratzen ginen eskolan. Juan Kruz Igerabide

Telebista itzali eta **ilunpetan** geratu nintzen. Bernardo Atxaga

### 8 *ilunpetara* ik gorago **4.**

Hegoak zabaldu eta leihotik kanpora irten zen **ilunpetara**. Argitasunetik **ilunpetara** jaurtikia, mundutik ere kanporatua. Iñaki Mendiguren

Erreinuaren oinordeko zirenak, berriz, kanpora, **ilunpetara,** botako ditu. Elizen arteko biblia

Atea gontzetatik atera, lurrean utzi eta balantzaka joan zen **ilunpetara**. Koro Navarro

### 9 *ilunpetatik* ik gorago **4.**

Atera gaitezen **ilunpetatik**. Koro Navarro

Ez bakarrik munduko **ilunpetatik** atera eta argira ekarriz, baita bertuteen dohain eta merezimendu bikainez ospetsu eginez ere. Askoren artean

Korridorera iritsi zirenean, Filchen aurpegia agertu zen bat-batean **ilunpetatik**. Iñaki Mendiguren

Segi gora, oraintxe noa eta -hots egin zuen Gabrielek **ilunpetatik**. Irene Aldasoro

### 10 *erdi ilunpe.*

Ordea, proiekzio-gelako erdi-**ilunpe** goxoak. Xabier Mendiguren Elizegi

Atzealdeko mahai txiki batean eserita zeuden, te-areto bateko erdi-**ilunpean**. Lopez de Arana

Nola igarri ahal izanen zenukeen zure logelako erdi-**ilunpean** egondako neska kikil hura ni nintzela! Eduardo Matauko

Nola igarri ahal izanen zenukeen zure logelako erdi-**ilunpean** egondako neska kikil hura ni nintzela! Eduardo Matauko

Erdi **ilunbean** badarik ere, handik behintzat bikotea ikusten nuen. Anjel Lertxundi

Pertsianen zirrituetatik sartzen ziren argi-txirrinta jolastiek halako sosegua ematen zioten gelako erdi **ilunpeari**. Anjel Lertxundi

Elizako bankuetan, erdi-**ilunpetan,** neska bat, bizkarra emanda, nire musika entzuten. Pako Aristi

### 11 *ilunpez ilunpe*

Aldi hartan, beste behin, **ilunpez ilunpe,** bortu eta zelaietan barna Gasnaren Bidea segitu nuen, Oxkaxen behera jaitsiz, neurea ere ez zen lurraldean aterpetzeko. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argia eta ilunpea** (3); **argia ilunpea** (3); **argia ilunpea baino** (3); **erabateko ilunpe** (3); **eta ilunpe** (22); **eta ilunpea** (13); **eta ilunpeak** (9); **ilunpe artetik** (3); **ilunpe beltz** (6); **ilunpe beltzak** (3); **ilunpe beltzean** (3); **ilunpe eta** (5); **ilunpe hartan** (20); **ilunpe honetan** (3); **ilunpe itsuan** (6); **ilunpea baino** (4); **ilunpea eta** (10); **ilunpeak baino** (3); **ilunpeak eta** (3); **ilunpeak inguraturik** (3; **nire ilunpea** (3); **zen ilunpe** (3); **ziren ilunpe** (3); **zuen ilunpe** (4); **zuten ilunpe** (3)

**ahotsak ilunpean** (3); **baina ilunpean** (3); **bat ilunpean** (3); **beti ilunpean** (3); **da ilunpean** (4); **erabateko ilunpean** (6); **erdi ilunpean** (8); **eta ilunpean** (18); **gela ilunpean** (6); **gelako ilunpean** (3); **han ilunpean** (3); **hango ilunpean** (3); **hartako ilunpean** (3); **ia ilunpean** (4); **ilunpean dagoen** (5); **ilunpean egon** (4); **ilunpean eta** (13); **ilunpean galdu** (3); **ilunpean galduta** (3); **ilunpean galtzen** (3); **ilunpean geratu** (5); **ilunpean geratzen** (3); **ilunpean ikusi** (3); **ilunpean izan** (3); **ilunpean murgildu** (8); **ilunpean murgildu zen** (3); **ilunpean zegoen** (13); **nuen ilunpean** (3); **sukaldeko ilunpean** (3); **zen ilunpean** (6); **ziren ilunpean** (3); **zuen ilunpean** (5); **zuten ilunpean** (5)

**bat ilunpetan** (4); **begiak ilunpera** (4); **da ilunpetan** (5); **dena ilunpetan** (3); **erdi ilunpera** (3); **erdi ilunpetan** (21); **erdi ilunpetan zegoen** (3); **ere ilunpetan** (4); **eta ilunpearen** (3); **eta ilunpeko** (4); **eta ilunperik** (3); **eta ilunpetan** (17); **gaueko ilunpetan** (3); **gela ilunpetan** (6); **gela ilunpetan zegoen** (3); **ia ilunpetan** (6); **ilunpearen babesean** (4); **ilunpeko erreinuaren** (3); **ilunpera ohitu** (3); **ilunpera ohitu ahala** (3); **ilunperik beltzenean** (5); **ilunpetan bizi** (6); **ilunpetan dabil** (4); **ilunpetan dago** (5); **ilunpetan ere** (4); **ilunpetan eta** (11); **ilunpetan galtzen** (3); **ilunpetan geratu** (10); **ilunpetan geratu zen** (3); **ilunpetan ibiliko** (3); **ilunpetan murgildu** (3); **ilunpetan uzten** (3); **ilunpetan zegoen** (22); **ilunpetik argira** (7); **nahiz ilunpetan** (3); **osoa ilunpetan** (3); **zen ilunpearen** (3); **zen ilunpetan** (10); **zuen ilunpetan** (3)

---

## ilunpetar *izlag* ilunpetakoa.

Eta ez al zen gutasun bakar hori jende primitibo, **ilunpetar,** ezjakin eta bakartuenaren ezaugarrietarik bat? Iñaki Segurola

---

## ilunpetaratu, ilunpetara(tu), ilunpetaratzen *(corpusean **ilunbetaratu** soilik)* da *ad* ilunpetara joan.

Liburu batzuk argitaratu egiten dira, beste batzu **ilunbetaratu**. Iñaki Arranz

---

## ilunpetsu *izond* ilunpez betea.

Bide zuzena utzi eta **ilunpetsuetatik** doazenengandik. Elizen arteko biblia

Argi naza zure errukiak eta galde biezaiete, erantzuteko gai badira, giza minen leize ezkutuei eta Adanen semeen samin **ilunpetsuenei**. Imanol Unzurrunzaga

Zulo **ilunpetsu** batzuk. Karlos Zabala

---

## ilunpetu, ilunpe(tu), ilunpetzen **1** du *ad* ilundu, ilunpetan ezarri.

Bestalde, ibai guztietatik eta lurretik bertatik ere lainoak eta lurrunak sortzen ikusten dugu, zeintzuk arnasa bezala honela gorantz igorriak diren eta ortzia **ilunpetzen** eta, astiro-astiro pilatuz, hodeiak sortzen dituzten. Xabier Amuriza

**2**

Amatxiren eskuek bereak tinkatu zizkioten supazterreko suak baizik argitzen ez zuen sukalde erdi **ilunpetuan,** eta hark gauza bera egin zion. Elena Touyarou

---

## ilunpilatu *izond adkor* iluna.

Ideia argi eta bereziak gabe, irakurleak eklektizismo **ilunpilatu** bat topatzen badu, zilegi bekio garaiko informazio edo kulturaren agergarritzat jotzea hori ere. Joxe Azurmendi

---

## ilunsenti *iz* iluntzea, ilunabarra.

Neguko arratsaldeak **ilunsentia** ematen zuen, Sawyer jatetxearen atzeko kalezuloan. Anton Garikano

Sethek sokekin denbora-pasak egin zizkien, eta itzalekin irudiak **ilunsentian**. Anton Garikano

Eta galdu ditudan amodioetako bat behintzat ondoan eduki, **ilunsentiak** bizitzan dena gaizki egin dugula emeki xuxurlatzen digun une horretan. Pako Aristi

---

# iluntasun 1 *iz* argi edo argitasunik eza; iluna den edo dagoenaren egoera. ik**ilunpe**.

Egunaren amaiera zen, ilunabarra, gau betea eta **iluntasuna** zetozen. Elizen arteko biblia

Eta horrelaxe bildu ninduen ilunabarrak, eta gero **iluntasuna** etorri zen, eta geratu zen, eta joan zen, eta eguna berriz argitu zuen. Koro Navarro

Tximistek **iluntasuna** nola urratzen duten ikustea. Patxi Zubizarreta

Sartzearekin batera dena da formarik gabeko **iluntasuna,** begiak ohitu heinean pertsonak eta gauzak agerian uzten hasten dena. Sonia Gonzalez

**Iluntasunik** ez badago, baina, askok ez dute ganoraz lo egiten. Berria - Gaiak

Ziegan beti argia dagoelako edo galdeketa gelan **iluntasuna**. Berria - Harian

Gauean, **iluntasunaren** babesean. Patxi Zubizarreta

**Iluntasuna** loditzen ari zen, hotz bortitzak zuhaitzak kraskarazten zituen. Josu Zabaleta

Lanpara itzalia zegoen, baina **iluntasuna** ez zen erabatekoa. Koro Navarro

**Iluntasunean** haztamuka. Jose Morales

-Ez al zara **iluntasunean** galduko? Patxi Zubizarreta

Palenquek badu diesel-motor bat, argindarra ematen duena, baina gaueko 9etan itzaltzen zuten, eta derrepente oihaneko **iluntasunean** murgiltzen zinen. Joxe Austin Arrieta

Bi ahots mintzo ziren gelako **iluntasunean**. Jose Morales

Begira eguzkiaren izpiek zer egiten duten, gelako **iluntasunean** sartu eta argia zabaltzen dutenean. Xabier Amuriza

Horrelaxe erortzen dira elur malutak leiho argiztatuaren aurrean: beti maluta berberak direla ematen du, baina desberdinak dira, denak berriak, **iluntasunetik** datoz eta **iluntasunera** doaz etengabe. Jose Morales

Ez baitago etsipen gozorik inon, berarekin baitakar minaren itzala, argiak ere **iluntasuna** bere baitan daraman bezala. Felipe Juaristi

Lehen, gaua **iluntasuna** besterik ez zen Jansonentzat, lo egiteko denbora bereziki iluna; orain, aldiz, haren izaera misteriozkoa eta mehatxagarria sentitzen zuen. Jose Morales

## 2 (izenondoekin)

Tabernetako **iluntasun** koipetsuan. Felipe Juaristi

Zinema aretoko **iluntasun** erdi sakon erdi ahul deprimigarrian. Neguak, berriz, luzeak dira gure lurraldean, eta **iluntasun** handikoak. Karlos Linazasoro

**Iluntasun** argituan bere azeri aurpegi luze, gorri, mozkor hura erakutsi zidan. Koro Navarro

**Iluntasunik** beltzena erori zitzaion gainera Gillesi. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Iluntasunik ilunenean** ibili arren, hormari atxikia zihoan Patxi Zubizarreta

## 3 *irud*

Bohartu zen ilunbe haietatik laster heriotzaren **iluntasuna** etorriko zitzaiola. Patxi Zubizarreta

Bere argitasunak gezurraren **iluntasuna** deusezten du. Patxi Zubizarreta

Oraingo haurrek ere ez omen dute garai hartako umetxoen beldurrik ezagutu, **iluntasunik** gabeko mundu batera sortuak izan direlako. Pako Aristi

Baserri-giroko jendearengan ohikoa den **iluntasun** psikologiko horretan bizi izan zen. Koro Navarro

Egitasmoak burutzeko eran ere **iluntasuna** da nagusi, informazioa ez da behar bezala zabaltzen. Berria - Euskal Herria

Zientzia-artikuluetan, **iluntasunetik** argirantz daraman errege-bide batean barrena doa adimena. Juan Garzia

Ustezko **iluntasunean** argi izpi bat ikusi dute. Berria - Euskal Herria

## 4 iluna denaren nolakotasuna.

Aristokraziak gaizkiaren ezaugarri oro arbuiatzen du: makurkeria, koldarkeria, **iluntasuna,** ahultasuna, distiragabetasuna, taldetasuna eta abar. Askoren artean

Udazkeneko gau euritsuaren **iluntasuna** eta bakardadea. Jose Morales

**Iluntasuna** eta handitasuna bateratzen dituzten eraikin erraldoi horietako bat zen. Koro Navarro

Etxea ez zen berria, ezta oso zaharra ere, baina abegikorra ematen zuen, ez baitzuen etxe zaharren **iluntasuna** ezta berri askoren hoztasuna ere. Migel Angel Mintegi

## 5 (testuetan eta kidekoetan)

Vitruvioren hizkeraren **"iluntasunari"** eta ulermen-zailtasunei buruzko eztabaida antzinakoak. Santiago Iruretagoiena

**Iluntasuna** eta sakontasuna ez dira gauza bera. Askoren artean

· Testuan arkituko dituzun **iluntasunak,** beraz, ez dira guztiak itzultzailearen ezinak edo ezjakinak eragindakoak. Ikas ezazu etenik gabe, eta Legeko **iluntasun** larrienak, pertsona adimentsuarentzat ere zailak, argiturik ikusiko dituzu. Juan Martin Elexpuru

Izan ere, haren existentziaren kausa -aingeruarena esan nahi dut- **iluntasunez** inguratua da eta hor da "haren begitartea" deitu izan dena. Xabier Kintana

## 6 alaitasunik eza, goibeltasuna.

Luzaroan egona zen bere baitara bildua, **iluntasunik** handienean. Patxi Zubizarreta

Fedeak salbatu zuen, baina, **iluntasun** zorigaitzeko hartatik, eta maitasunaren argitara eraman. Patxi Zubizarreta

Jesu Kristoren Pazko Misterioak erakusten dio Frantziskori bere **iluntasun** eta sufrimenduaren misterioa bizitzen. Askoren artean

Kalean alde batetik bestera, ez nuen lortzen kezka eta **iluntasuna** gainetik kendu eta kontu arruntagoak pentsatzea. Anjel Lertxundi

Etxe osoko argiak piztu ditu, argitasunarekin amets gaiztoen **iluntasunetik** ihes egitearren. Sonia Gonzalez

## 7 (hitz elkartuetan)

Argitasun eta **iluntasun** guneak daudela gaineratzen du. Berria - Euskal Herria

· Hala arima nola hilaurreko barne-**iluntasun** sakona begirada arrotz, gaizto eta etsaietatik babesteko bezain lasai zeuden. Jose Morales

Errusiako intelektual aurrerazaleek zorrotz kritikatu zuten, eta, besteak beste, "zartailuaren predikaria eta buru-**iluntasunaren** apostolua" deitu zion Belinski literatur kritikari ospetsuak. Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina iluntasuna** (3); **berezko iluntasuna** (4); **edo iluntasun** (3); **eta iluntasun** (23); **eta iluntasun hartan** (3); **eta iluntasuna** (19); **eta iluntasunak** (12); **eta iluntasunaren** (3); **gaueko iluntasuna** (3); **gero eta iluntasun** (3); **iluntasun bat** (5); **iluntasun beltz** (4); **iluntasun beltzak** (3); **iluntasun beltzean** (4); **iluntasun eta** (10); **iluntasun hartan** (13); **iluntasun honetan** (3); **iluntasun hori** (4); **iluntasun horretan** (3); **iluntasun hura** (3); **iluntasun sakon** (3); **iluntasun sakona** (3); **iluntasun trinko** (4); **iluntasuna baino** (3); **iluntasuna da** (5); **iluntasuna erabatekoa** (3); **iluntasuna ere** (3); **iluntasuna eta** (13); **iluntasuna ez** (5); **iluntasuna ez zen** (3); **iluntasuna iritsi** (4); **iluntasuna nagusitu** (3); **iluntasuna zen** (4); **iluntasuna zen nagusi** (4); **iluntasunak eta** (6); **iluntasunak ez** (3); **iluntasunak hartu** (3); **iluntasunaren erdian** (3); **iluntasunaren eta** (3); **orduan iluntasuna** (3); **zen iluntasun** (4); **zen iluntasuna** (5)

**bere iluntasunean** (3); **erabateko iluntasunean** (3); **eta iluntasunean** (13); **eta iluntasunean desagertu** (3); **gauaren iluntasunean** (8); **gelako iluntasunean** (3); **iluntasunean desagertu** (4); **iluntasunean desagertu zen** (3); **iluntasunean eta** (5); **iluntasunean galtzen** (4); **iluntasunean murgildu** (3); **iluntasunera ohitu** (3); **zen iluntasunean** (4); **zion iluntasunean** (3); **ziren iluntasunean** (6); **zuen iluntasunean** (6)

---

# iluntsu *izond* iluntasunez betea.

Hitz horiek jakinduria hori modu **iluntsu** batean transmititzen dutela adierazten duen ideia. Xabier Arregi

## iluntto *izond ipar* ilun samarra.

Maite ginituen ateraldi horiek, eskapada batzu bezala baitziren eguneroko dorpe eta **iluntto** haitarik nolazbait. Herria

## iluntxa *iz* ilun samarra. ik **ilunxko**.

Bertan hiru arbola zeuden, haien enborrak antzigartuta, eta kukuluetan, berriz, hosto **iluntxa** batzuk, orain astoak ez zuen aurrera egin nahi. Pablo Sastre

## iluntxe ik **iluntze**.

## iluntxo *adlag* ilun samar. ik **iluntto; ilunxko**.

Horregatik, eguzkiarena **iluntxo** egokitu bada ere, beste aldeko saskian dagoen esanahia ziurragoa da igoal. Pello Zabala

## iluntze *(orobat **iluntxe** ipar)* **1** *iz* gauaren hasiera, gaueko lehen orduak. ik **ilunabar**.

**Iluntzea** gau bilakatu zen. Edorta Jimenez

Laster iluna izango da, eta **iluntze** horren epeltasuna irail-brisaren hozkirriak menderatuko du. Pako Aristi

**Iluntze** batean, Charlie, Big Joe eta hirurok etxera gindoazen, landa-bidean gora. Mirentxu Larrañaga

Horrexegatik nentorren hain zorabiatuta **iluntze** hartan ere. Mirentxu Larrañaga

Hitz eman zion idazgelatik pasatuko zela, **iluntze** aldera. Juan Garzia

Pub-era joan ohi zen **iluntze** gehienetan. Mirentxu Larrañaga

Ez zen lanbide nekosoa, eta hamaika gizaseme ezagutu zuen eta hamaika **iluntze** eman zuen haien konpainian. Mirentxu Larrañaga

Udako **iluntze** baten hondarrean izan zen. Mirentxu Larrañaga

Abuztuko **iluntze** hartan Mary ez zegoen Ernesten alboan, hantxe, Mundakako hilerrian. Edorta Jimenez

Damu dut **iluntzea** izorratu izana zuei. Oskar Arana

**Iluntzearen** azken hondarrean. **Iluntzearen** zain dago adulteriogilea. Elizen arteko biblia

Kashemirara **iluntzearekin** heldu nintzelarik, hiriko ateak itxirik topatu nituen. Patxi Zubizarreta

Bazkalondotik ia **iluntze** arte irauten zuen ohe-jardunaldi batean zirrika geundela [...]. Josetxo Azkona

Uste diat **iluntzea** baino lehen euria izango dugula. Juan Luis Zabala

**2** (zenondoekin)

Hitzaldiren bat eman eta, ilunabarrean (edo **iluntze** ertsian, sasoiaren arabera) amaitu, kalera irten eta denak, bai entzule, bai antolatzaile desagertu ondoren, bakar-bakarrik geratzen nintzenean. Pako Aristi

Arratsalde eta **iluntze** osoa egon nintzen zain. Xabier Aranburu

**Iluntze** oso bat, Herbierekin bakar-bakarrik, liskarrerako bide zen ezinbestean. Mirentxu Larrañaga

**Iluntze** goxo eta suspergarriak nahi zituen. Mirentxu Larrañaga

**Iluntze** nabarra da eta harbidean behera goaz Imanol eta biok. Joseba Sarrionandia

Hango **iluntze** infinituan Baltikoko itsasertzera joan ginen. Edorta Jimenez

Zeinen **iluntze** zoragarria igaro zuten eskertu ostean. Mirentxu Larrañaga

**3** (leku-denborazko atzizkiekin)

Goizean jaitsi, **iluntzean** igo. Arantxa Iturbe

**Iluntzean** iritsi zen Baionara. Elena Touyarou

**Iluntzean** futbola zegoela edo. Edorta Jimenez

**Iluntzean** itsasontzi batera bisitaldia egitekotan gara. Edorta Jimenez

Varsoviara iritsi ginen eguneko **iluntzean**. Edorta Jimenez

Bihar **iluntzean,** astelehenero bezala. Pedro Alberdi

Biharamuneko **iluntzean**. Elena Touyarou

Herengun **iluntzean** Jon Gaztelumendi presoari egin zioten ongietorria Errenterian. Berria - Euskal Herria

Giroa, berriz, hotz-hotza, urtarrilaren hemeretziko **iluntzean** espero zitekeenez. Pedro Alberdi

Goizetik **iluntzera** eta **iluntzetik** goizera, zenbakiek hizkiek baino leku gehiago hartzen zuten buru-hezur zabal haren barnean. Joxemari Urteaga

**Iluntzerako** bueltan ziren. Aingeru Epaltza

Han egongo naiz **iluntzerako**. Mikel Hernandez Abaitua

Zer asmo daukazu gaur **iluntzerako**? Oskar Arana

Guarda konpainia osoak hara-hona ibili ziren egunsentitik **iluntzeraino**. Elena Touyarou

Herbie ez zen ia behin ere etxean egoten **iluntzetan**. Mirentxu Larrañaga

**Iluntzeetan,** Arrate irratian musika egoten zen. Ana Urkiza

Igande **iluntzeetan** elkarrizketen zalaparta gozoak hartzen zuen etxea. Ander Irizar

Ez zen edozein moduzko gaua: negua **iluntzeetan** hasten da, ezari-ezarian, udazkenaren epelaldiak birrintzen, eta horretarako hiruzpalau egunez behin-edo bidaltzen dituen haize beltz horietakoa zebilen, ulu eta buhada, bazter guztiak astintzen eta hozten. Pako Aristi

**4** (hitz elkartuetan)

**Iluntze** partean, txakurkume maitagarri bati kontu egiten zion atezainak. Mirentxu Larrañaga

*ik beherago* 5. Askoren artean

Atzo, Ibaetan, **iluntze** partean Bolognako prozesua izan zuten hizpide. Berria - Euskal Herria

**Iluntze** orduetan izarrak ikusiko dituzue. Joseba Sarrionandia

· Astearteetako rugby entrenamendu **iluntzetan** salbu. Daniel Landart

Goiok beste bidaia bat egin zuen, ia aldi berean, arratsalde **iluntze** hartan. Joseba Sarrionandia

Udazken **iluntze** batean leihotik kalera begiratzeak. Lourdes Oñederra

Ostiral **iluntze** bateko hamaikak dira. Pako Aristi

Asteazken **iluntxean** sei orenetan izan da delako "Krexa bizia" haur ttipienekin. Herria

Astearte **iluntzean** herriko etxean hartu gintuzten. Edorta Jimenez

Ostiral **iluntzean** auto istripu larria gertatu zen Gorlizen.

**5** ***iluntzeko*** *izlag*

**Iluntzeko** kazetak poltsikotik atera eta haietako bat luzatu zion. Mirentxu Larrañaga

**Iluntzeko** trenean itzuli ziren herrira. Pedro Alberdi

Bart **iluntzeko** egoera bertsuan gara. Edorta Jimenez

**Iluntzeko** bederatziak jo artean ia. Mirentxu Larrañaga

Emanaldi horiek guztiak **iluntzeko** 20:00etan hasiko dira. Berria - Kultura

Kontzertuak irailaren 7tik 10era egingo dira, Gasteizko San Pedro elizan, **iluntzeko** 20:15etatik aurrera. Berria - Kultura

Atzo **iluntzekoa,** esaterako. Unai Elorriaga

Eguerdiko berriak eta **iluntzekoak,** besterik ez zuen ikusten. Xabier Mendiguren Elizegi

### 6 *iluntze alde*

Gehienak arratsalde eta **iluntze** aldean pilatuko badira ere, hasierako kontzertua eguerdian izango da. Berria - Kultura

Zatoz behean jarri dizudan helbidera, nire landetxe berrira, datorren ostiralean, hilak hamabost, **iluntze** aldean. Aitor Arana

**Iluntze** aldean zuri lagun egiteko urrutitik: orain aretora doa, orain esertzera doa. Eduardo Matauko

**Iluntze** aldeko berbaldietan. Xabier Montoia

**Iluntze** aldera Bilboko suhiltzaileak etorri ziren. Lutxo Egia

Hamabi gizon etxeratu omen ziren **iluntze** aldera. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atzo iluntzea artean** (5); **eta iluntze** (10); **eta iluntzea** (6); **iluntze aldean** (3); **iluntze aldera** (24); **iluntze arte** (4); **iluntze batean** (15); **iluntze berri** (4); **iluntze berri baten** (3); **iluntze hartan** (31); **iluntze partean** (3); **iluntzea baino lehen** (3); **iluntzea zen** (6)

**agintariek atzo iluntzean** (3); **astearte iluntzean** (13); **asteazken iluntzean** (11); **astelehen iluntzean** (5); **atzo iluntzean** (187); **atzo iluntzean abiatu** (3); **atzo iluntzean arnaldo** (3); **atzo iluntzean aurkeztu** (4); **atzo iluntzean bertan** (3); **atzo iluntzean bilboko** (3); **atzo iluntzean egin** (3); **atzo iluntzean emandako** (3); **atzo iluntzean ere** (3); **atzo iluntzean euskal** (3); **atzo iluntzean iritsi** (3); **atzo iluntzean utzi** (3); **atzo iluntzean zen** (3); **bart iluntzean** (10); **bihar iluntzean** (7); **biharamun iluntzean** (3); **du gaur iluntzean** (5); **dute gaur iluntzean** (6); **eguneko iluntzean** (4); **eta gaur iluntzean** (3); **eta iluntzean** (37); **eta iluntzean etxera** (3); **gaur iluntzean** (51); **hartako iluntzean** (4); **herenegun iluntzean** (33); **igande iluntzean** (7)

**iluntzean abiatu** (3); **iluntzean arnaldo** (3); **iluntzean arnaldo otegi** (3); **iluntzean aurkeztu** (4); **iluntzean aurkeztu zuten** (3); **iluntzean auto** (5); **iluntzean auto batek** (3); **iluntzean berriz** (3); **iluntzean bertan** (4); **iluntzean beste** (6); **iluntzean bezala** (3); **iluntzean bilboko** (5); **iluntzean donostiako** (3); **iluntzean donostian** (3); **iluntzean egin** (6); **iluntzean egindako** (5); **iluntzean eginiko** (3); **iluntzean emandako** (3); **iluntzean ere** (8); **iluntzean eta** (4); **iluntzean etortzen** (3); **iluntzean etxera** (6); **iluntzean euskal** (5); **iluntzean euskal herriko** (4); **iluntzean ez** (5); **iluntzean hainbat** (3); **iluntzean hasi** (5); **iluntzean hasi ziren** (4); **iluntzean iritsi** (7); **iluntzean iritsi ziren** (4); **iluntzean jakinarazi** (4); **iluntzean jokatu** (4); **iluntzean oraindik** (4); **iluntzean utzi** (4); **iluntzean zen** (3)

**larunbat iluntzean** (12); **ostegun iluntzean** (7); **ostiral iluntzean** (13); **zen atzo iluntzean** (9); **zen iluntzean** (5); **ziren atzo iluntzean** (21); **ziren iluntzean** (7); **zituzten atzo iluntzean** (4); **zuen atzo iluntzean** (24); **zuen herenegun iluntzean** (6); **zuen iluntzean** (3); **zuten atzo iluntzean** (19); **zuten iluntzean** (6)

**atzo iluntzeko** (6); **eta iluntzeko** (6); **eta iluntzerako** (7); **gaur iluntzeko** (7); **goizetik iluntzera** (3); **iluntzeko bederatziak** (4); **iluntzeko panelak** (6); **iluntzeko panelak kentzen** (3); **iluntzeko zortziak** (9); **iluntzeko zortziak aldera** (3); **iluntzeko zortziak arte** (3); **iluntzeko zortzietan** (4); **iluntzera arte** (17)

**iluntxe batez** (5); **joanden iluntxe** (3); **joanden iluntxe batez** (3); **ortzirale iluntxean** (3)

---

## **iluntzealdi** *iz*

Erretilu obal luze batean jarri zituen xerrak, **iluntzealdikoaren** arrats hartan Jonathani itzuri zitzaion hartantxe. Jon Muñoz

-Hori da, dagigun **iluntzealdiko** bat. Jon Muñoz

---

## **iluntzero** 1 *adlag* iluntze guztietan.

Egunero deitzen zion, **iluntzero** hutsik egin gabe. Joxemari Iturralde

Molly eta biok ia **iluntzero** biltzen ginen. Mirentxu Larrañaga

**Iluntzero** etxean, zintzo-zintzo, arratseko seiak eta erdietarako. Mirentxu Larrañaga

Esate baterako, **iluntzero** harekin afaltzeko betebehar neketsu hura.Eta ezinezkoa zen beti musuen eta gainerako zirrien mende egotea, **iluntzeroko** denbora-pasarako, behin zazpi urteko ezkon bizitzaren ostean. Mirentxu Larrañaga

**Iluntzero** bezalaxe, dendetako ateak itxirik zeuden eta kalezuloko auzokideak solasaldi bat egitera joanak ziren kafera. Patxi Zubizarreta

### 2 *iluntzero-iluntzero*

Goizero-goizero eta **iluntzero-iluntzero** Gerald belauniko makurtuko zitzaion Camillari alboan eta esku lurrintsu hura musukatuko zion eta "bihotzeko kutuna" deituko zion. Mirentxu Larrañaga

**Iluntzero-iluntzero** ordu eta leku jakin batean. Joxemari Iturralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**iluntzero iluntzero** (3)

---

## **ilunune** *iz* gune iluna.

Xakuto batetik makillaje lapitzak eta hautsak atera zituen eta begiak margotzen, masailetan **ilununeak** ezartzen hasi zen. Iñaki Zabaleta

Argi distiratsuekin batera kezkatzeko **ilununeak** ere badirela ikusten dugu-eta. Koldo Zuazo

Obra honetan ez naiz behin ere edonola mintzatu, zehaztasun osoaz eta egokitasun handiz baizik, eta ardura handia ukan dut **ilunune** bat bera ere argitu gabe gera ez dadin. Xabier Kintana

---

## **ilunxka** *izond* ilun samarra.

Oliba-koloreko azal **ilunxkak** argitan distira egiten zion. Urtzi Urrutikoetxea

Eguerdiko zeru garbi gardenak, eguzkia indarge baxutik dabilelako urdin **ilunxka** duenak, Sortzez Garbiaren zeru orbangabe zeharrargia gogoratzen omen du. Pello Zabala

---

## **ilunxko** *adlag* ilun samar. ik **iluntxo**.

Oila-lokak beren lanean ziharduten mandioko bazterren batean, **ilunxko** zegoen txokoan, lepa-saskiren baten pean. Pello Zabala

---

## **ilupa** 1 *izond* ganoragabea.

Atezain **ilupa** horrek polizia batekin tronpatu banau, berak dik errua, ez baitiot inolako biderik eman. Aingeru Epaltza

Baina zer lagunduko nindian **ilupa** horrek, negar eta negar, horretan baizik ez ariki eta. Aingeru Epaltza

**Ilupa** xoranda, xoxo alaena! Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

Arreba Jonek lehen jaunartzea egin orduko irabazia zuen mari-apain eta **ilupa** fama. Aingeru Epaltza

---

## ilupatu, ilupa, ilupatzen **1** da *ad* higatu, maiztu.

Frank Zappari ez zaio kasik bibote arrastorik gelditzen, hain baitago **ilupaturik** eta maizturik. Aingeru Epaltza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bakero **ilupatu** batzuk. Aingeru Epaltza

Eskuan darama norbaitek luzatu dion estalki **ilupatua**. Aingeru Epaltza

Jantziak zarpail, bizkarra makur, lumarik ez haren kapelu hega-zabal **ilupatuan**. Aingeru Epaltza

---

## ilusigarri *izond ipar* ilusionagarria.

Baginituen hor bi etxe hustuak gure huntarik ere urrun: bietan guhauk etxaldeak bizi ikusiak: ontasunez, kabalez, etxekoz, biak **ilusigarri** izanak. Herria

---

## ilusimendu *iz ipar* ilusioa.

Tresna ergel horrengatik gaitzeko **ilusimendua** sorturik haren gogo-bihotzetan! Janbattitt Dirassar

Ez duk hori **ilusimendu** bat baizik! Janbattitt Dirassar

Segidako amodio bero eta sano bat ez zitekeela enetzat **ilusimendu** huts baizik. Janbattitt Dirassar

---

## ilusimendukeria *iz ipar* ilusimendu gaitzesgarria.

Eta zer loria etzen guretzat jaun horien azken iker edo berriketa batzuen jakitea! ez, ez! etzela han ustekeri arin eta **ilusimendukeriarik**. Herria

---

## ilusio *(orobat **ilusino** g.er. **ilusi** g.er. eta **ilusione** g.er.)* **1** *iz* itxura faltsuak eraginiko hautemate okerra; zentzumenen bidez hautematen denaren interpretazio faltsua.

Irudi batek **ilusioa** eragiten duela esaten da irudi haren ikusleak estimuluaren ezaugarri fisikoren batekin bat ez datorren pertzepzio bat deskribatzen duenean. Josu Zabaleta

Zehazki hitz egin nahi bada, pertzepziozko hutsegite bat da **ilusioa,** irudiaren eta irudi hori ez den beste zerbaiten arteko erabateko nahastea edo hutsegitea. Josu Zabaleta

Ponzo-ren **ilusioan,** adibidez, goiko marra "urrutiago" balego bezala ikusten da, zehar-marren konbergentziak eragiten duen perspektiba-efektuak eraginik. Josu Zabaleta

Tamainaren eta distantziaren ebaluazioari dagozkion **ilusioak**. Josu Zabaleta

Hala gertatzen da irudi zinematografikoan, adibidez, itxurazko mugimenduak eratzen duen **ilusio** bete-bete horretatik ateratzen baitu irudi mota horrek dokumentua balitz bezala sinesgarri izateko gaitasuna; zinematografoa asmatu zen garaiko ikusleek filmeko irudiaren naturalismoaren berme gisa hartu zuten, beste ezeren gainetik, **ilusio** hori. Josu Zabaleta

Zinemak oso errealitate-**ilusio** eraginkorra sortzen duela, denboraz eta [...] sakontasunaz, baliatzeko gai delako. Josu Zabaleta

Pinturaren **ilusio** partziala, hain zuzen, baliabide hori bereziki egokia baita espazio-sakontasunaren **ilusioa** eragiteko. Josu Zabaleta

Irudi **ilusio**-eragilea eta irudi-antza ere bereizi beharra dago, orobat. Josu Zabaleta

Irudi errealista ez da nahitaez errealitate-**ilusioa** eragiten duena **(ilusio** hori gertatzeko oso-oso probabilitate gutxi dago gainera [...]). Josu Zabaleta

Edo artelan oro irudi birtuala dela **("ilusio"** eta "irudi birtual" sinonimotzat hartzen ditu). Askoren artean

Horrek egia nabaria dirudi, baina zergatik erabiltzen du **"ilusio"** hitza, horrek iruzurraren esanahia badu? Badirudi Langerrek, gainera, hori azpimarratu egiten duela, arteak ikuslea engainatzen duela esaten duenean. Askoren artean

**Ilusio** hori aspaldi apurtu zuen Saussurek, eta geroztik hizkuntz zeinuetan "adierazlea" eta "adierazia" bereizten ikasi genuen. Iñaki Arranz

Baina ez da hala gertatzen, **ilusio** bat da, zeren silaba eta bere azentua, ahoskatze ekintza bakar bat baizik ez baitira. Oskar Arana

**2** gogoa liluratzen duen iritzi faltsu edo uste okerra.

Ondo idatzitako hitz batzuk, Itxaso kontura zedin gutunen bidezko maitasun hura ezinezkoa zela, **ilusio** gaixo bat. Pako Aristi

Aukeratzeko aske ziren sentipena **ilusio** bat zela. Iñaki Mendiguren

Oraindik ere aukeraz beterik ikusten dut geroa, beharbada **ilusio** hutsa izango da baina. Xabier Mendiguren Elizegi

Ametsak dira, **ilusio** hutsak, zuetarik nehork ez baitaki non zaudeten. Xabier Montoia

Asmo horrekin etorri ginen hona, Euskal Herriko bazter lasai honetara, zertara gentozen jakinaren gainean, **ilusio** faltsurik egin gabe. Migel Angel Mintegi

**Ilusio** faltsuekin burua berotu zezan. Karlos Zabala

Zorion **ilusio** hori, ordea, lehenengo mokaduekin desagertzen zen. Joseba Urteaga

Euskal kultura benetan existitzen da ala **ilusio** politikoa da? Ana Urkiza

Ez dago indukzioaren inolako arazorik epistemologian, gaizki erabilitako hizkuntzari loturik agertzen den **ilusio** intelektuala besterik ez baita. Askoren artean

Hura ere ez baitzen izan, nire semea alegia, **ilusio** bat gehiago baino; ez bainuen sekula izan semerik batere. Juan Garzia

Errealitateak, ordea, indar gehiago izaten du gure aurreikuspen eta **ilusio** guztiek baino. Anjel Lertxundi

Halaz ere, bada jendea, elebakartasunaren **ilusioan** bizi dena. Ana Urkiza

**3** gogoa kitzikatzen duen poz edo itxaropena.

Ez dago hasierako **ilusio** hura, hasierako su hura. Luis Elberdin

Lana bere **ilusio** eta borondate osoarekin egiten duenak. ikerkuntzarako, eguneroko lan ixila eta eskerga egiteko, jendearen konpromisoa eta **ilusioa** behar izaten da. Patziku Perurena

Bere **ilusio** guztia Italiara heltzea zen. Bernardo Atxaga

Italia... nire **ilusioa** izandu da beti... Pablo Sastre

-Harek **ilusinoa** edonorako eukan eta bildurrik inorako bere ez. Xabier Amuriza

Bere ametsetan ez zegoen eragozpenik, hain ziur zegoen bere kemenaz, hainbesteko konfiantza zuen bere buruarengan eta hain **ilusio** handia zuen. Patxi Zubizarreta

**Ilusio** handiz kontatu zion dena. Unai Elorriaga

Eta bizimodua aldatzeko egarriz eta **ilusio** handiz geunden, Parisa [...] denboraldi luze bat pasatzera joateko. Ramon Saizarbitoria

**Ilusio** ikaragarriarekin etortzen naiz lan saioetara. Berria - Kirola

Haurrari eskainitako hainbeste denbora eta energia; hainbeste **ilusio** eta maitasun! Luis Elberdin

Idazleak gogoan du bai Gasteizko aurkezpen hura, gogoan du aurkezpenetara **ilusio** gehiagorekin joaten zen garai hura. Pako Aristi

Oraingo gazteak baino hobeto ibiltzen ginen gu orduan erromerian, hura **ilusioa**! Pako Aristi

Baina gazte jendeak balseoa nahi izaten zian; eta zer nahiko zitean bada sasoi hartan, bihotzari **ilusio** zerbait eta bizitzari gozoaldi izpiren bat ematea baino? Pako Aristi

Bada, gaur egun dagoeneko ez dituzun **ilusio** haiek guztiak berriro gogoratuz, gaur egun garai batean "ziren" bezalakoak "iruditzen" ez zaizkizun gauza haiek guztiak gogoratuta [...]. Josu Zabaleta

Beti plazaratzen naiz **ilusi** handiarekin. Berria - Kirola

Ez dugu disgustua eman diogun neskatilaren begirada lurrerantz eroriaren **ilusio** suntsitua bere benetako neurrian atzematen. Harkaitz Cano

Bataren edo bestearen **ilusio** edo kezken konfident nintzen. Piarres Aintziart

Eta horra lurrean azken **ilusioneak,** oraino baldin bagenituen. Marzel Etxehandi

Bakoitzak gure gorputza, gure biologia eta gure istorioa daukagu; bakoitzak gure bizipenak, desioak, gustuak, nahiak, esperantzak; gure ahultasunak, **ilusioak,** asmoak... Luis Elberdin

## **4** (aditzaren objektu gisa)

Tourvel andreak gaztaroaren **ilusio** xarmantak itzuli dizkit. Jon Muñoz

**Ilusio** haiek bazkatu genituen eta haiek bazkatu gintuzten. Anjel Lertxundi

Denborarekin, errotarriak gari ale asko xehatu eta gero, **ilusio** bat sortu zitzaidan: ohitu egingo nintzela egoera berrira, ahaztu egingo nintzela Angelez eta bere lagunez. Bernardo Atxaga

Sentituko du poza, **ilusioa,** itxaropena, baina bederatzi hilabeteak iparra galduta egiten dituzte gehienek. Arantxa Iturbe

Umeari **ilusioa** pizteko ezin al du aita batek deus egin, ala? Harkaitz Cano

Beraz, berriz maitemindu ahal gara eta **ilusioa** berreskuratu ahal dugu. Luis Elberdin

**Ilusioa** antzematen zaio aurpegian eta bultza egiteko eran. Arantxa Iturbe

-Damu dut zure **ilusio** hori hondatu beharra, baina gaur goizean harekin hitz egin ostean, uste dut ez duzuela zer ikustekorik batak bestearekin. Oskar Arana

Baina ez nuen lagunen **ilusioa** zapuztu nahi. Karlos Linazasoro

Graça ez zen ausartu amari kontra egiten, zertarako zapuztu **ilusio** hura. Bego Montorio

Ez da gehiago zuria; **ilusioak** urtzen direneko kolore horixkak bereganatu du arraso. Aingeru Epaltza

Ez dago abenturarik, ez dago une perfekturik... **ilusio** berberak galdu ditugu, bide berberak jorratu ditugu. Monika Etxebarria

**Ilusio** guztia galdurik, izarpeak niretzat gordetzen zuen tokia zein zen ezin kausiturik, une kritikora iritsi nintzen: suizidatzeko tentazioak eduki nituen, baina hala edo nola, aldi latza gainditu nuen. Jon Alonso

Ez atzera ez aurrera geratzen naiz, hezur-muinetaraino sartzen zait beldurra, eta ametsak eta **ilusioak** galarazten dizkit. Andoni Egaña

Sendagileak, baina, oharpen eta gomendioen poderioz, haren **ilusioak** porrokatu zituen eta bizitasun doi bat besterik ez zitzaion geratu. Patxi Zubizarreta

Eta horra non bat-batean **ilusio** horrek erreka jotzen duen. Josu Zabaleta

**Ilusioneak,** xapeldun ohiarenak, ez du iraun. Herria

Gutxi iraun zidan **ilusioak,** ordea. Xabier Mendiguren Elizegi

## **5** ***ilusioz*** *adlag*

Egindako guztia **ilusioz** egin dugu. Edurne Elizondo

Proiektu hau guztiok **ilusioz** hartu dugulako. Berria - Euskal Herria

Ondo sentitzen dira, pozik eta **ilusioz**. Luis Elberdin

Hasieran **ilusioz** inguratzen gara parkera. Arantxa Iturbe

Gramatikazko lezioak hartzeko **ilusioz** gogoberotzen den haurra. Josu Zabaleta

Kasinoetan aberasteko **ilusioz**. Iñaki Zabaleta

Oso pozik daude, **ilusioz** beterik. Luis Elberdin

**Ilusioz** beteriko ingenuo batzuk. Unai Iturriaga

**Ilusioz** beteta etorria zen Europara, zinemaren munduan tokitxo bat egiteko asmoz ustez "glamour" zerion Parisera, eta, ni bezala, bera ere konturatu zen geroak zer zekarkion ilusio faltsuzko paradisuan. Migel Angel Mintegi

## **6** ***ilusiozko*** *izlag*

Gaixo eskizofreniko haiei obsesio, haluzinazio eta **ilusiozko** aztoramenak. Xabier Olarra

Irudi primitibotik (irudiak gauzaren beraren ordezko bezala, idolo bezala balio duenetik) ikus daitekeenera igortzen duen **ilusiozko** irudira. Josu Zabaleta

Guk (bere burua eta gainerako Pertsonaiak seinalatuko ditu berriro), **ilusiozkoak** izatea beste errealitaterik ez badugu, ongi letorkizukeela zuri ere zure errealitateaz ez gehiegi fidatzea, arnasten duzun eta zure baitan ukitzen duzun errealitate horretaz askorik ez fidatzea, zeren -atzoko errealitatea bezala- ilusio irudituko baitzaizu bihar. Josu Zabaleta

## **7** ***ilusio optiko***

Haloa **ilusio** optiko hutsa da, aireko hezetasunak sortua, ortzadarraren antzera. Xabier Olarra

Honela adierazi zuen bere ustea: **"Ilusio** optikoa egia optikoa da!". Xabier Olarra

**Ilusio** optikoa egia neurologikoa da. Xabier Olarra

**Ilusio** optikoak erabiliz, mundu zeharo berri bat ondu dute, alde guztietatik irekita dagoen mundu bat. Juan Garzia

## **8** ***ilusioa egin***

Eta **ilusioa** egiten du lehendabiziko aldian. Arantxa Iturbe

**Ilusioa egiten** dit, bai, ona izango da niretzat berriro jokatu ahal izatea. Berria - Kirola

Txorakeriak ditun horiek, bazekinat, baina **ilusioa** egiten zigutenan, eta halaxe bizi gintunan, burua txoriz betetako nexka gaztea bainintzen ni artean. Xabier Mendiguren Elizegi

Niri **ilusioa** egiten didate oraindik jantzi politek, eta jende interesgarria ezagutzeak. Josu Zabaleta

**Ilusioa** egiten zidan hura elkarrizketatzeak. Jasone Osoro

Atzean ikusteak ere poxa ematen du, **ilusioa egiten**. Berria - Kirola

Sekulako **ilusioa** egiten dit, benetan, arratsaldean elkarrekin igarotzen dugun ordutxo horrek. Josu Zabaleta

Berebiziko **ilusioa** egin zion bere ideia ahalik eta zehaztasun handienaz paper batean marrazteko proposamenak. Ramon Saizarbitoria

Ikaragarrizko **ilusioa** egingo lidake nik jositako oihalak antzokian zintzilikatuak ikusteak. Jasone Osoro

· Beti egin dit **ilusio** handia hura ezagutzeak. Juan Garzia

Gazteei **ilusio** handia egiten die. Berria - Kirola

Ez dakit zer pentsatu duen, baina ez dio **ilusio** handirik egin. Alberto Barandiaren

Hala ere, garbi utzi zuen ez dela komeni, **oraingoz,** ilusio handirik egitea: «Arratoiekin jardun dugu lanean, eta oraindik esperimentu asko egin behar dira gizakietan aplikatu aurretik». Berria - Gaiak

-Ez **ilusio** handirik egin, Ibarra. Alberto Ladron Arana

Garaztarrek hastapenean baizik ez dute **ilusione** egin, aski laster amor eman behar izan dutelarik argentindar pare on baten kontra. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**are ilusio** (3); **baina ilusio** (7); **baino ilusio** (10); **baino ilusio handiagoa** (5); **bere ilusio** (4); **bere ilusio eta** (3); **da ilusio** (6); **dio ilusio** (3); **du ilusio** (3); **duen ilusio** (3);

**egiteko ilusio** (3); **ere ilusio** (5); **eta ilusio** (44); **eta ilusio handia** (10); **eta ilusio handiagoz** (3); **eta ilusio handiarekin** (3); **eta ilusio handiz** (7); **ez da ilusio** (3); **gero eta ilusio** (3); **halako ilusio** (4); **ilusio apur** (3); **ilusio bat** (14); **ilusio baten** (3); **ilusio berezia** (7); **ilusio bete** (3); **ilusio eta** (31); **ilusio eta itxaropen** (3); **ilusio falta** (4); **ilusio faltsuak** (3); **ilusio faltsurik** (4); **ilusio garaia** (4); **ilusio gehien** (4); **ilusio guztia** (6); **ilusio handia** (85); **ilusio handia daukagu** (4); **ilusio handia daukat** (6); **ilusio handia du** (5); **ilusio handia dugu** (3); **ilusio handia dut** (5); **ilusio handia dute** (4); **ilusio handia egin** (8); **ilusio handia egiten** (21); **ilusio handia nuen** (3); **ilusio handia zuen** (4); **ilusio handiagoa** (9); **ilusio handiagoarekin** (3); **ilusio handiagoz** (5); **ilusio handiarekin** (22); **ilusio handiko** (3); **ilusio handirik** (13); **ilusio handirik egin** (3); **ilusio handirik ez** (3); **ilusio handiz** (40); **ilusio handiz hartu** (7); **ilusio hori** (23); **ilusio hori ez** (3); **ilusio horiek** (3); **ilusio horrek** (3); **ilusio hura** (4); **ilusio hutsa** (10); **ilusio hutsa baino** (5); **ilusio ikaragarria** (4); **ilusio izugarria** (5); **ilusio optiko** (4); **ilusio optikoak** (4); **ilusio oro** (3); **ilusio partziala** (3); **ilusio punttu** (3); **inoiz baino ilusio** (4); **jokatzeak ilusio** (3); **oinarrizko ilusio** (3)

**baina ilusioa** (10); **baten ilusioa** (7); **bere ilusioa** (3); **beti duzu ilusioa** (3); **da ilusioa** (12); **dagoen ilusioa** (5); **du ilusioa** (8); **du ilusioa galdu** (3); **duen ilusioa** (5); **dugun ilusioa** (4); **duten ilusioa** (3); **duzu ilusioa** (3); **egiteko ilusioa** (8); **ere ilusioa** (5); **eta ilusioa** (50); **eta ilusioa berreskuratu** (3); **eta ilusioa egiten** (3); **eta ilusioa ez** (5); **ez du ilusioa** (3); **gazteen ilusioa** (3); **gizartean ilusioa** (3); **gogoa eta ilusioa** (9); **haurren ilusioa** (3); **horrek ilusioa** (5); **ilusioa baino** (3); **ilusioa berpiztu** (4); **ilusioa berreskuratu** (3); **ilusioa berreskuratzeko** (4); **ilusioa da** (6); **ilusioa daukat** (4); **ilusioa dugu** (5); **ilusioa egin** (8); **ilusioa egin zion** (3); **ilusioa egingo** (6); **ilusioa egiten** (22); **ilusioa egiten dit** (6); **ilusioa egiten du** (3); **ilusioa eragiteko** (5); **ilusioa eragiten** (4); **ilusioa ere** (6); **ilusioa eta** (45); **ilusioa eta indarra** (4); **ilusioa ez** (11); **ilusioa galdu** (11); **ilusioa galduta** (3); **ilusioa galtzen** (3); **ilusioa handia** (3); **ilusioa izan** (6); **ilusioa piztea** (3); **ilusioa pizteko** (9); **ilusioa pizten** (8); **ilusioa piztu** (8); **ilusioa piztu duen** (3); **ilusioa sor** (3); **ilusioa sortu** (6); **ilusioa sortzeko** (8); **ilusioa sortzen** (8); **ilusioa zapuztu** (6); **ilusioa zapuztu nahi** (3); **izateko ilusioa** (4); **jarraitzeko ilusioa** (6); **jendearengan ilusioa** (3); **jokatzeko ilusioa** (4); **nire ilusioa** (13); **poza eta ilusioa** (4); **sekulako ilusioa** (3); **sortu duen ilusioa** (3); **sortutako ilusioa** (6); **zalearen ilusioa** (3); **zelako ilusioa** (4); **zen ilusioa** (6); **zuen ilusioa** (4)

**ametsak eta ilusioak** (7); **baina ilusioz** (7); **du ilusiorik** (5); **duen ilusioari** (4); **dut ilusiorik** (5); **ere ilusioz** (3); **eta ilusioak** (19); **eta ilusioak galarazten** (5); **eta ilusioarekin** (4); **eta ilusioaren** (4); **eta ilusioen** (5); **eta ilusiorik** (10); **eta ilusioz** (32); **eta ilusioz beteta** (3); **eta ilusioz ekin** (3); **eta ilusioz gainezka** (6); **ez du ilusiorik** (3); **ez dut ilusiorik** (5); **gogoz eta ilusioz** (7); **ilusioak eta** (9); **ilusioak ez** (4); **ilusioak galarazten** (5); **ilusioarekin ari** (3); **ilusioarekin eta** (4); **ilusioari eusten** (4); **ilusiorik egin** (4); **ilusiorik ere** (3); **ilusiorik ez** (4); **ilusiorik falta** (3); **ilusiorik gabe** (14); **ilusiorik gabeko** (3); **ilusiorik galdu** (5); **ilusiorik handiena** (9); **ilusiorik handienarekin** (3); **ilusioz ari** (3); **ilusioz bete** (4); **ilusioz betea** (3); **ilusioz beterik** (12); **ilusioz beteriko** (4); **ilusioz beteta** (16); **ilusioz betetako** (4); **ilusioz betetako proiektu** (3); **ilusioz ekin** (6); **ilusioz eta** (15); **ilusioz eta gogoz** (3); **ilusioz gainezka** (28); **ilusioz gainezka dago** (5); **ilusioz gainezka nago** (3); **ilusioz hartu** (4); **ilusioz joan** (3); **jokatzeko ilusioarekin** (3); **jokatzeko ilusioari** (3)

**ilusione bat** (3); **ilusionez beterik** (3)

---

## **ilusiogabetu**, ilusiogabe(tu), ilusiogabetzen da *ad* ilusioa galdu.

Kaixo baino ez diote elkarri esan, sinesteko ere lanak, hainbeste promes inplizito eta gero, arrosen jolasa eta gero, emakumeak eman zituen urrats ausart horiek guztiak, eta gero hau, nork daki ez ote dagoen jada **ilusiogabeturik** harrera hau ikusirik. Jon Alonso

---

## **ilusionagarri** *izond* ilusionatzen duena.

Garai **ilusionagarriak** omen dira bizi ditugun hauek, historikoak, Mariok haserretzen denetan esaten duen moduan. Jokin Urain

Une historikoa eta **ilusionagarria** da. Berria - Euskal Herria

Geroari begira perspektiba berriak eta **ilusionagarriak** sortzea. Berria - Euskal Herria

---

## **ilusionante** *izond* ilusionagarria.

Horregatik, orain Chavez etortzea hori amaitzeko asmoarekin benetan **ilusionantea** izan da jendearentzat. Pako Aristi

---

## **ilusionatu**, ilusiona, ilusionatzen **1** da *ad* ilusioz bete, ilusioa piztu.

Aukera horrekin **ilusionatu** al zinen? Telefonoz deitzen zidaten bakoitzean gizon hura izango zela pentsatzen nuen, eta **ilusionatu** eta urduritu egiten nintzen, nerabe maitemindu berri baten antzera. Juan Luis Zabala

Gu erabat **ilusionatuta** gaude, dinamika diskreto baina arduratsu horrek hurrengo hilabeteetan eman ditzakeen fruituen inguruan. Berria - Euskal Herria

Etxera iritsi naizenean Txuspori nire aurkikuntzaren berri eman diot, **ilusionatuta**. Harkaitz Cano

-Hementxe, idatziz bizi nahian! -erantzun zidan **ilusionaturik**. Pako Aristi

**2** du *ad* ilusioa eragin.

Ez nau kezkatzen maila gorenean jokatu behar horrek, guztiz kontrakoa horrek gehiago **ilusionatzen** nau eta oso kontent nago. Berria - Kirola

---

## **ilusionatzaile** *izond* ilusionatzen duena, ilusionagarria.

Herri honen historia berriko momenturik **ilusionatzaileenak** unibertsitatean bizitzea tokatu zitzaigun. Ana Urkiza

---

## **ilusionismo** *iz* esku jokoak egiteko antzea.

Ez da **ilusionismoa** ez esku-jokoa ere, baina haien mugan dabil. Juan Garzia

**Ilusionismoaren** ordez ilusioa jartzeko, kontuan hartzeko gogoetak dira ELA eta Elkarri-renak. Berria - Euskal Herria

Zapaterok Euskalduna jauregian egindako efektu kolpeari **«ilusionismoa»** deitu dio Iñigo Urkullu EAJren BBBko lehendakariak. Berria - Euskal Herria

---

## **ilusionista** *iz* eskujokaria, esku jokoak egiten dituena.

**Ilusionista** baten emankizuna zirudien, edo antzerki bat. Juan Kruz Igerabide

Endrek arretaz entzuten zion Lajosi, **ilusionistaren** sekretuak ezagutzen dituenaren moduan. Ander Irizar

Han, bere bizpahiru lagunen aurrean, gure garaiko **ilusionistarik** txarrena ere lotsatuko lukeen esku-jokoa egin zuen, Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## **ilusitu**, ilusi, ilusitzen da/du *ad ipar* ilusionatu.

Ez nuela **ilusitu** behar, Magali ez zela enetzat, Jakesek partida irabazia zukeela. Janbattitt Dirassar

Tommy-ak heldu dira, ez **ilusi,** hunat helduko direlarik, zuetarik nehor ez da bizirik izanen, kalituko zituztegu denak! Michel Oronoz

Ez giten **ilusi,** petrolakia beti han zen halere itsasoan, itsasoak iretsia iduri bazuen ere... Herria

Beren zekenkeriaren estaltzeko eta herrialde askatu berrien **ilusitzeko** eta larrutzen jarraitzeko herrialde aberatsek asmatu ele huts gezurtiak baizik ez direla gure Deklarazio, Hitzarmen, itun eta araudi guztiak. Piarres Xarriton

---

## **iluso** *izond* ameslaria; inozoa

Gu beti holaxeko **ilusoak** (edo hipokritak?) izan gara: kanpoko uniformismoa imitatu eta geurean ergelkiro komertzializatu ondoren, jatorra eta "ugaria" hau dela esanez, hura gaitzetsi eta bapo! Patziku Perurena

Ez pentsa, beraz, **iluso** hutsa naizenik. Patziku Perurena

## ilustralari *iz* ilustratzailea.

**Ilustralari** sonoroa emankizun kulturalen arduradun eta berriemaile bilakatu zen, eta 1981ean Hego Amerikarako emanaldien zuzendari izendatu zuten. aurtengo ekaina arte. Berria - Mundua

## ilustratu[1], ilustra, ilustratzen **1** du *ad* irudiztatu.

Hautamenezko ahaidetasun bat dagoelako **ilustratu** zituen Agustin Ibarrolak, eta ez Oteizak edo Oteiza zale batek, Arestiren liburuak. Anjel Lertxundi

Alex Orbek **ilustratutako** *Groau!* antzerki lana. Berria - Kultura

*Paula en Nueva York* Mikel Valverdek **ilustratu** eta osoki berak idatzitako lehen liburua da. Berria - Kultura

Valverdek 1998tik Bernardo Atxagaren *Banbulo* saileko liburuak **ilustratzen** ditu. Berria - Kultura

Galdutako marrazki horiei dagokienez, Berpizkundetik aurrerako tratadistikak mito bihurtu zituen, eta erruz **ilustratutako** tratatu baten ideia finkatzen lagundu zuen. Santiago Iruretagoiena

**2** (era burutua izenondo gisa)

Beraz, 1511n, Venezian, argitaratu zen lehenengo edizio **ilustratua,** Fra Giocondo da Verona-k egindakoa. Santiago Iruretagoiena

Liburu **ilustratuekin** baino gehiago ikasi genuen gure jolas eta barreen zirkulu krudelean gatibaturiko izakiekin. Joseba Sarrionandia

Aldizkari **ilustratu** bateko argazki bitxi bati begira nengoela. Anjel Lertxundi

Trenerako ordua heldu artean, hoteleko bezeroentzat erosten zituzten aldizkari **ilustratu** horietako baten orri-pasa egon nintzen. Anjel Lertxundi

Jendea egunero harritzen zen asmakuntza berriekin: lurrun ontzia, trena, telegrafoa, argindarra, harako edo honako lurraldearen aurkikuntza... baina prentsa **ilustratuan** baizik ez zen haien berri zabaltzen. Karlos Zabala

Etengabe hitz egiten zuten nobela **ilustratuetan** irakurritako gauza haietaz. Pello Lizarralde

• **3** du *ad* argitu, azaldu.

Hitzak ondo **ilustratzen** dituen argazkia dator azpian: bi lagun, zein baino zein gihartsuagoak, pose erotikoak egiten. Patxi Iturritegi

Esan dudana ondo **ilustratzen** duen pasadizo bat konta dezaket -esan zuen Z-k. Bernardo Atxaga

Etsenplu batekin **ilustratuko** diat erran nahi diadana. Joan Mari Irigoien

Horrek kliman duen eragina **ilustratzeko** adibide adierazgarriak eman dituzte. Berria - Gaiak

Liebanako Beatoak bere apokalipsiaren komentarioa **ilustratzeko** mapa egiteko, bidaiarien testigantzak eta erlijio liburuak izango zituen erreferentzia. Joseba Sarrionandia

Balzac-en hitz batzuk ere baliatu ditu Gorteko giroa **ilustratzeko:** "Botere oro da konspirazio etengabea". Anjel Lertxundi

Hainbatek erabili du zuhaitza eta intxaurren metafora -batzuek arbola astindu eta beste batzuek intxaurrak jaso- jeltzaleen pragmatismoa **ilustratzeko** . Txema Ramirez de la Piscina

• **4** da/du *ad* jakituria hartu; jakituria eman.

Periodikua leituz **ilustratzen** gera. Iban Zaldua

Bukhara, [...] hiri loriosa, Avizenak eta X. mendeko beste jakintsu batzuek **ilustratua,** zientzia musulmanaren erdigunetzat hartzen da. Karlos Zabala

**5** (era burutua izenondo gisa) letraduna, ikasia, eskoladuna.

Vitruvio, batez ere, teknikari erromatar pragmatikoa zen, aski ongi **ilustratua,** baina espekulazioetan eta abstrakzio-lanetan hasteko batere zalea ez zena. Santiago Iruretagoiena

Amaren familia zeharo intelektuala zen, letretako jendea, jende **ilustratua** eta kultura handikoa. Ana Urkiza

Garai bateko hiritar **ilustratu** edo argituaren argitasun hura (egunkariak irakurtzetik, eta haietan, apaizen esanetan ez bezala, Egia irakurtzen zela sinestetik zetorkiona: ez pentsa besterik zenik). Iñaki Segurola

Gau-eskolara solfeoa ikastera joaten zenetik ez du Jexuxek eskolarik hartu, eta hala ere gizon **ilustratua** izan da, irakurtzeko izan duen zaletasunagatik. Xabier Etxabe

Gau-eskolara solfeoa ikastera joaten zenetik ez du Jexuxek eskolarik hartu, eta hala ere gizon **ilustratua** izan da, irakurtzeko izan duen zaletasunagatik. Xabier Etxabe

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

aldizkari ilustratu (4); ilustratu baten (3); ilustratu ditu (3); ilustratu du (5); ilustratzen ditu (4); ilustratzen gera (4); ilustratzen zuen (4); jokin mitxelenak ilustratutako (3); ongi ilustratzen (3)

## ilustratu[2] **1** *izond* argiduna; Argien Mendekoa.

Gizaki natural **ilustratu** hori, naturarekin edo arrazoimenarekin hain berdindurik, barne-eduki propiorik gabe geratu da. Joxe Azurmendi

Liburu hau azaldu baino lehen, Voltaireren prosak [...] ederki astindu zituen orduko giro **ilustratuak** . Juan Martin Elexpuru

Milanera itzuli zenean, gune **ilustratuetan** murgildu zen. Juan Martin Elexpuru

Orduko pentsamendu **ilustratuaren** arabera. Juan Martin Elexpuru

Orduko monarka **ilustratuen** erreforma ezagunak. Juan Martin Elexpuru

Gizarte-ituna ez zen monarkia **ilustratuen** abiapuntua. Juan Martin Elexpuru

Presokratikoen ahalegin **ilustratua** ukaezina da, Kultura unibertsal jator **ilustratu** hori tradizio frantses jatorrean beti egon dela eta orain ere han bilatu beharko dela nonbait. Askoren artean

Oro har, Ilustrazioa ez da oso **ilustratua** izan. Askoren artean

Islamdarrek arrazoimenik ez dutela, pentsatzen jarraitzen dugu beharbada Europa **ilustratuan**. Joxe Azurmendi

Diderot **ilustratuarekin** pentsa genezake, naturak aski irakasten diola gizon-emakumeari bere moral zuzena. Joxe Azurmendi

Condorcet jakintsu **ilustratuak** Instrukzio Publikoari buruzko txosten bat aurkeztu zuen Frantziako Batzar Nazionalaren aurrean. Bernardo Atxaga

• **2** *iz* pertsona letradua; Ilustrazioaren jarraitzaile den pertsona.

Nola jokatu **ilustratuek** bezala, naturaleza erloju edo makinatzat hartuz? Bernardo Atxaga

Eman ditzaket, ordea, egoerari buruzko zenbait argibide **ilustratu** baten eta erromantiko baten arteko elkarrizketa baten itxura eginez. Bernardo Atxaga

**Ilustratu** espainol puntakoenak antiabsolutistak ("despota **ilustratuaren"** aldezleak, ordea) eta, ondorioz, frantsestiak eta Jose Bonaparteren "collabo" izan dira. Joxe Azurmendi

Egia da, **ilustratu** liberalen batzuek ez dute Bourbon familiaren Baionako abdikazioa Bonaparteren alde onetsi. Joxe Azurmendi

Euskal **ilustratuak,** misiolariak, gerlariak, konkistatzaileak, Espainia egiten aritu dira beti. Patziku Perurena

Egungo **Ilustratuek** dioskutenez, Herder, Humboldt, Victor Hugok..., "mende erromantikoak" atondu omen zuen Euskal Herriaren irudia. Koldo Izagirre

Izan ere, behinola mistiko oinazetu, gero etakide sutsu, hurrena marxista porrokatu, ondoren posmoderno sumindu izanikoak **ilustratu** haserretu bilakatu zaizkigu orain. Markos Zapiain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ilustratu eta (3); ilustratua izan (3)

## ilustratutxo *iz peio* ilustratu ustekoa.

Eta gero **ilustratutxo** hauek baitira munduan ezagutzen direnak, ezin harritu, abertzaleak oraindik Tubalen kontuekin dabiltzala, serioski uste badute, ikertzaile amerikar edo ingelesen batzuek ez ezik, "espezialista" espainolek berek... Koldo Izagirre

## ilustratzaile *(41 agerraldi, 4 liburu eta 23 artikulutan)* *iz* ilustrazioak egiten dituen marrazkilaria. ik **ilustraziogile**.

Liébanako Beatoaren **ilustratzaileak** egindako mapan. Bernardo Atxaga

Haur-literaturako liburuen **ilustratzailea** zela. Iban Zaldua

Natalia, 32 urtekoa, ogibidez **ilustratzailea,** bere lagunek lehen bezala maite ez dutena. Bernardo Atxaga

Erresuma Batuko egungo **ilustratzaileen** lanaren berri ematen du, Artiumen, 'Magic Pencil'-ek. Berria - Kultura

Victoriak arrazoi zuen Rossetti, sortzailea baino gehiago, **ilustratzailea** zela esatean, eszena tragiko hori -elizkizunetan poemak zerraldoan sartzekoa- dozena bat urte lehenago sortu baitzuen bere arreba Christina Rossetti idazleak. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ilustratzaileak** (3)

## ilustrazio[1] 1 *iz* argigarria, iduria.

De Neuvillek Jules Verneren liburua **ilustratzeko** egindako marrazki haietako bat etorri zaio gogora idazleari. Imanol Zurutuza

Vitruvioren jatorrizko testuaren hainbat bertsio egin zituzten latinez, hainbat hizkuntzetara itzuli zen, eta komentario kritikoak egin ziren, exegesiak eta **ilustrazio** grafikoak. Santiago Iruretagoiena

Daniele Barbaro-ren edizio veneziarra, Andrea Palladio-ren **ilustrazioekin** jantzia. Santiago Iruretagoiena

Ipuin batzuk idatzi, beste batzuk garbira pasatu, **ilustrazioak** erantsi. Ana Urkiza

'Begira hauek, santuak!' esan zuen **ilustrazioak** seinalatuz. Joseba Sarrionandia

Zuri eta beltzezko **ilustrazioak**. Joseba Urteaga

Jose Mari Morzillo marrazkilariak koloreetan egindako **ilustrazioak**. Berria - Euskal Herria

**Ilustrazioak:** Asisko Urmeneta. Berria - Kultura

**2** ilustraziogintza.

**Ilustrazioaren** Liburu Zuria atera du IEPk, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako **ilustratzaileen** elkarteak. Berria - Kultura

**3** argigarria, azalpena.

Zuek badakizue, lagunok, badirela bizitzaren **ilustrazioa** izateko asmaturiko bidaia batzuk, existentziaren sinbolotzat har daitezkeenak. Joseba Sarrionandia

**4** jakituria.

Jakintzak hor heziera esan nahi du, argitasuna, **ilustraziñua,** aurrerapena. Iñaki Segurola

**5** (hitz elkartuetan)

Pierre Gros-ek demostratu du, aldiz, zein puntutaraino den faltsua gisa horretako **ilustrazio**-korpus exhaustiboa imajinatzea. Santiago Iruretagoiena

Latinezko argitaldari edota irakurle soilek liburu hori argitzeko azken bost mendeetan egin izan dituzten irudi edo **ilustrazio**-sailen historia. Santiago Iruretagoiena

Inolako zentzurik ez luke bost menderen joanean Vitruvioren obrak izan dituen **ilustrazio**-serie guztien egin gabeko historia sistematikoaren zirriborrorik eman nahi izatea. Santiago Iruretagoiena

Mattinen **ilustrazio** lana.` Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **da ilustrazioa** (5); **egindako ilustrazioak** (3); **eta ilustrazio** (5); **eta ilustrazioa** (3); **ilustrazio a** (3); **ilustrazio bat** (3); **ilustrazio eta** (4); **ilustrazioa bera** (3)

## Ilustrazio[2] *iz* Argien Mendea.

Erdi Aroan bezala **Ilustrazioan** eta XX. Mendean. Joxe Azurmendi

Berpizkundean, **Ilustrazioan,** Lehen Mundu Gerraren ondoan. Askoren artean

**Ilustrazioko** Arrazoimenaren gure nostalgikoek argitzen ez digutena da, **Ilustrazio** horrek gaur zer izan beharko lukeen. Joxe Azurmendi

Herderrek razionalismoari gogor eraso ziola, **Ilustrazioaren** gehiegikeriatzat ulertu zuela. Askoren artean

Europar **Ilustrazioak** kulturaren eta zientziaren unibertsaltasuna proposatu zuen gisa berean. Joseba Zulaika

"Ausart hadi heuk jakitera", hots, heure buruaz pentsatzera, izango da **Ilustrazioaren** maxima. Askoren artean

"Ausart gaitezen ulertzen", **Ilustrazio** berri bat galdatuz Nietzsche hisiatu den legez. Joxe Azurmendi

"Arima onaren aberria mundu guztia da", biribil dezake Demokritok **Ilustrazio** grekoan. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta ilustrazioaren** (5); **ilustrazioaren garaiko** (3)

## ilustraziodun *iz* ilustrazioa duena; ilustrazioak dituena.

Moda-kontuak, emakumeen atalari emandako orri **ilustraziodunean:** Hamalauzpamasei Andereñoentzakoak noski. Mirentxu Larrañaga

## ilustraziogile *(4 agerraldi, 4 artikulutan)* *iz* ilustratzailea.

Kanpotik ere onartzen dute Euskal Herriko produkzioa oso kalitate handikoa dela, bai testuen aldetik eta baita **ilustraziogileen** lana ere. Berria - Kultura

**Ilustraziogilea:** Joao Caetano. Berria - Kultura

## ilustraziogintza *iz* ilustrazioak egitea.

Erresuma Batuko **ilustraziogintza** urrezko bigarren aroan sartuta dago, gaia jorratzen duten adituen ustez. Berria - Kultura

Erresuma Batuko sortzaileek oso tradizio aberatsa dute **ilustraziogintza** berritzailearen esparruan. Berria - Kultura

Komikigintzaren eta **ilustraziogintzaren** iturrietatik datoz, testuaren aberasgarri, Garmendia sail honetako irudi ikusgarri eta biziak. Berria - Kultura

Iazko **Ilustraziogintzaren** Bratislavako Nazioarteko Biurtekoan parte hartu zuen. Berria - Kultura

---

## **ilustre** *izond* ospetsua.

Inoiz erresumara itzuliko ez den atzerriratu ospetsu, entzutetsu eta **ilustrea,** beti ezkutuan ibili behar duen pertsonaia distiratsua. J.M. Olaizola "Txiliku"

Galiarrek Erroma hartu zutenean, senatorerik **ilustreenak** egin zuten bere buruaz beste. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Familia **ilustre** bati itsatsitako ospe txarragatik. Juan Martin Elexpuru

Bilbo, Gasteiz eta Iruñeko kolpisten senitarteko **ilustreak** babesteko. Jokin Urain

Akiles eta apoarmatuaren problema **ilustrearen** soluzioak. Juan Garzia

Halakoetan ohi bezala, aretoa bete-bete dago; ez, gainera, entzule arrunt edo xumeez, oso jende **ilustreez** baizik; ez dira horien artean falta idazle, kazetari, apaiz, irakasle, literatur kritikoak."Katedra-sozialistak" (batzuk **ilustre** askoak gainera: G. Schmoller, L. Brentano, W. Sombart). Karlos Linazasoro

Horien artean, Mario Salegi **ilustrea,** Ameriketako euskal enbaxadorea. Berria - Kultura

Berriro jarri direla [dilistak] modan zenbait **ilustreren** dietan. Hasier Etxeberria

---

## **ilzahar** *(orobat* ***iltzar*** *g.er. eta* ***ilzar*** *g.er.) iz* ilbetea, ilargi zaharra.

Bizkai aldean eta Baxenabarren ere, **ilzaharrean** moztu behar dela ulea edo biloa diotsate. Hortxe sortu ziren zenbait esaldi, beti ere ilberri eta **ilzaharrarekin** kontatzen hasita. Pello Zabala

**Ilzarrean** moztu bear da ulea, urdindu eztaitean. Pello Zabala

-Martxoko **iltzarra,** horrek eraman du nire behor zarra. Pello Zabala

---

## **ilzahartu**, ilzahar(tu), ilzahartzen da *ad* ilargi zaharra izan.

Maiz galdetzen dizute kontu hau, ilargiak bere betealdia izan eta gero, **ilzahartu** eta gero, beheruntz abiatu denean, ea ilbeherako egunaren esperoan egon behar dugun ilbeheran garela esateko. Pello Zabala

---

## **imajina** *(orobat* ***imagina*** *g.er.)* **1** *iz* Jesukristoren, Ama Birjinaren edo santuen tailua edo eskultura.

Arantzazu eta bertako **imajina** gurgarria. Txillardegi

Ama Birjinaren **imajina**. Txillardegi

Bertan beren deboziozko santuaren irudi pintatua edo **imajina** izaten dute. Askoren artean

Berak goizean goiz jarritako kandelatxoak argitzen du **imajina**. Joan Mari Irigoien

Mila errezo-opari eskainka ari ziren Espainiako otoitz etxe eta **imajina** guztiei. Patxi Ezkiaga

Etorkizuneko belaunaldietan ere ez du inork pentsatuko, berak metalez, harriz edo zurez landuriko **imajinak** zerua eta lurra sortu dituela, eta horrek gobernatzen dituela ere ez. Xabier Kintana

**2** irudia.

**Imajina** enfokatzen, argia neurtzen. Joseba Sarrionandia

Ez duzu pentsatu nahi, gelditu nahi dituzu gogora datozkizun **imajinak,** etengabeko oroitzapen mingarriak. Lourdes Oñederra

Zaldibiako **imajinak** ikusten ari nintzela, telebisioan. Xabier Etxabe

Bizilagunek leporaino irensten dituzte europar orgia kontsumistaren isla diren **imajina** engainagarri eta anestesiagarri horiek. Patxi Zubizarreta

---

## **imajinaezin** **1** *izond* ezin imajinatuzkoa.

Haien arrazoibidearen arabera, **imajinaezina** da sala triangular edo pentagonalik. **Imajinaezina** da bera bezalako kontalari batek honen gisako komentariorik egitea [...]. Juan Garzia

Ipar Irlandan **imajinaezina** dena posible al da Euskal Herrian? Berria - Euskal Herria

Euskadi erreala askok amestutakoa baino hobea dela esango nuke; hizkuntza berreskuratzeko egin den bidea, **imajinaezina** hasiera hartan. Bernardo Atxaga

**Imajinaezina,** baina gaur egun ere gertatzen da, nik uste. Karlos Zabala

Urruna baino gehiago, **imajinaezina**. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** ***imajinaezinezko*** imajinaezina.

Hegoafrikara! hori da eskutik aukera ukan gabe hordagoa jotzea eta garaipena lortzea, **imajinaezinezko** bidaia, alegia. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **guztiz imajinaezina** (3); **imajinaezina da** (4)

---

## **imajinagarri** *izond* imajina daitekeena.

Gure gizarteetan naturan esku hartzea da haren izaera ukiezina eta hasierakoa ziurtatzeko modu **imajinagarri** (hots, erreal) bakarra. Berria - Gaiak

---

## **imajinarazi**, imajinaraz, imajinarazten *(orobat* ***imaginarazi****)* du *ad* imajinatzera behartu.

Lege hori iritzi arruntean baino ezin zen oinarritua egon; beldurrak, hainbeste gauzaren asmatzaile omen den beldurrak, **imajinarazi** izan ditu halakoak. Iñaki Iñurrieta

Atzeko historia **imaginarazten** du argazkiak. Berria - Kultura

---

## **imajinario** *(orobat* ***imaginario****)* **1** *izond* irudizkoa.

Pertsona errealak izaki **imajinarioz** beteta daude. Iban Zaldua

Gizarte **imaginario** bat sortu dugu, adin batean nebek arrebei ahoa josten dieten gizartea. Berria - Kultura

Bide **imaginarioak** sortzen ditut haien artean, distantziak handitu eta txikitu, eta poliki-poliki ikusten dudan hori abstrakziora eramaten dut. Berria - Kultura

Eta gero barrez lehertuko ziren biak, fular **imajinarioak** lepo inguruan kiribilduz. Harkaitz Cano

Bi pistola baleuzka bezala tiro **imajinarioak** botatzen hasten da. Berria - Kirola

Biraketaren ardatza polo bien arteko lerro **imajinarioa** dela. Joseba Sarrionandia

Literatura geografia **imaginarioa** da. Berria - Kultura

Badakigu hor dagoela horratik, geografia **imajinarioa** izanagatik lekuak benetakoak direla. Berria - Kultura

Esmalteaz egindako marrak, ametsetatik ihes egindako soldadu **imajinarioak** bailiran. Jasone Osoro

**2** *iz* irudíteria.

Familia zen zure **imaginarioa** eta bihotza babesten zituen aterpea. Ana Urkiza

Memoria historiko bat, esango genuke gaur apika; **imajinario** bat, mitologia bat. Halako eskema prospektibo bat nagusituz baitzihoan proiektu hartan sinesten zuen gizataldearen **imajinarioan** . Iñaki Iñurrieta

Euskal Herria Europako **imajinarioan** kokatu zen garai hartan: nahiz eta Euskal Herriak ez osatu batasun politikoa, Europan une hartan jakin zuten Euskal Herria bazela. Berria - Kultura

Hala heltzen zaizkio irakurleari, entzuleari eta ikusleari, eta halaxe fosiltzen dira **imajinario** kolektiboan, munduko gauzarik naturalena balitz bezala. Iñigo Aranbarri

**Imajinario** kolektiboaren sortzaile garen heinean, ekoizten eta igortzen ditugun edukietan ere jarri behar dugu ardura. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **imajinario bat** (4); **imajinario baten** (3

---

# imajinatibo *izond* irudimen-, irudimenezko.

Propietate komun hori ez da pertzepzio **imajinatiboek** soilik eskuratutako zerbait, enpirikoki beraz, baizik eta aldez aurretik emana zegoen, a priori, arimaren ideiarekin. Piarres Xarriton

Horren aurrean ez da nabarmendu behar harmen **imajinatiboa,** baizik eta adimenaren jarduera; ez hurrenez-hurrenezkotasun kronologikoa eta bere kausalitate koerlatiboa, baizik oinarriztapen-ordena. Piarres Xarriton

Harro puntua zeukana enpresarioa, on-ona zenak enpresa familiarrari jarraitu zion, serioak zirenak negozio-gizon eta abokatu eginik daude, **imajinatiboak,** berriz, kazetari, antzerkilari. Pako Aristi

---

# imajinatiboki *adlag*

Aztarna horien bitartez **imajinatiboki** hautematen dira kanpo-gorputzak. Piarres Xarriton

Puntu honetara iristean naturako ordena komunean **imajinatiboki** murgilduriko eta esperantza eta beldurra, segurtasuna eta segurtasun-eza, asetasuna ea ez-asetasuna, eta abar bezalako afektuen menpean dagoen gizaki batekin topo egiten dugu. Piarres Xarriton

---

# imajinatu, imajina, imajinatzen *(ETCn **10.321** agerraldi; orobat **imaginatu** g.er.; ETCn **184** agerraldi)* **1** *iz* irudikatu. (norbait)

**Imajina** ezazue Evans andrea mahai baten azpian gordeta. Koro Navarro

Michèle **imajinatzen** dut, biolontxeloa jotzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Esku luze finekin eta kontzerturako jantzian **imajinatu** nuen neska, pianoa niretzat bakarrik jotzen ari zela. Anjel Lertxundi

Hitz haiek entzun orduko, aita **imajinatu** nuen nik, aitzurra jasota eta adi-adi, satorra aitzur-buruaz jotzeko lorategiko lurra mugitzen ikusitakoan. Anjel Lertxundi

Klara bere giltzen bilaketa alferrean **imajinatu** nuen. Aingeru Epaltza

Irribarrez **imajinatu** nuen, alu zikina, haren betaurrekoak bezain beltzak ziren kotxe ofizialeko kristal ilunen atzetik. Aingeru Epaltza

Amagoia nire anaiaren txabusina zaharra bertze jantzirik ez zuela **imajinatu** nuen istant batez. Aingeru Epaltza

Bere zira transparentearekin jantzita **imajinatu** nuen, opari bila Hayes edo Union Squareko dendetan. Bernardo Atxaga

Ohean etzanda **imajinatu** nuen, deskantsatzen, oinutsik. Bernardo Atxaga

Ez Charly ez Ximurra **imajinatzen** ahal nituen egunkari bat eskuetan zutela. Aingeru Epaltza

**Imajinatu** dezaket tipoa txisteen kontrako elkarte bat sortzen -Gizon Serioen Batzarraren Eliza Unibertsala-. Karlos Zabala

Zergatik ez **imajinatu,** esate baterako, Aita Gojenola, 60 urte betetzetik gertu, krisi existentzialak jota? Iñaki Iñurrieta

Emaztearen ondoan **imajinatzen** zaitut, ez dakit hala zauden baina. Xabier Mendiguren Elizegi

Neskaren magalean atsedendurik **imajinatu** zuen bere burua. Anjel Lertxundi

Edo metro-geltoki hartan, metro aurrean erortzen **imajinatu** zenuenean zeure burua. Lourdes Oñederra

**2** (zerbait)

Labirintoen labirinto bat **imajinatu** nuen, labirinto bihurgunetsu gero eta handiago bat. Juan Garzia

Ez dakit hasperena entzun ala **imajinatu** egin nuen-. Bernardo Atxaga

Nire eskuak papar beltxaran horretan beheiti **imajinatu** nituen, guri sumatzen nuen larruazalaren beroaren hurrupatzaile. Aingeru Epaltza

Eta **imajina** dezaket udazkeneko arratsa Central Parkeko xendra orbeltsuetan. Joxerra Garzia

**Imajina** dezagun Oteizaren nerabezaroko eszena hipotetiko bat. Anjel Lertxundi

Gain zabal eta beratz horretan, nire andrearen eta Ximurraren arteko zilipurdiak **imajinatu** nituen. Aingeru Epaltza

Hartan ari zela, maniobra txarren bat egin eta inoiz **imajinatuko** ez nukeena gertatu zen: [...]. Anjel Lertxundi

Baina bat-batean emakume-hots **imajina** daitezkeen finenak entzun ditut. Anjel Lertxundi

Furgoi beltzean itzaleratu zutenean, gilotinaren mihi fin eta zorrotza lepondoan hotz lerratzen **imajinatu** eta trenputxartu zen. Itxaro Borda

Bere bizitza **imajinatu** zuen haietako etxe batean Andreasekin bizitzen jarririk. Anjel Lertxundi

Plaza osoa poliziaz beterik **imajinatu** zuen. Pedro Alberdi

**Imajinatu** egoera: Mutila zutik neskari begira, hautsonzia zigarro-muturrez beteta, eta Carme, amorratuta, minduta, dena pikutara bidaltzeko prest, Mutilari begira.Adibidez, euskararen desagerpena gauzatuko dela, hori hain epe laburrean nola gerta daitekeen ez dakidan arren; edo, zerbait gauzagarriagoa **imajinatzearren,** une horretan bertan amaituko dela euskal literatura. Iban Zaldua

**3** (mendeko perpausekin)

**Imajinatu** dezaket nola egiten duten, baina gustura ikusiko nuke. Karlos Zabala

**Imajinatzen** dut zer datorren. Anjel Lertxundi

Ez dut **imajinatu** nahi zer espero didan agertzen ez bada. Migel Angel Mintegi

Esku artean hartu eta zabaldu bitartean ez nuen **imajinatzen** ere zer topatuko nuen barruan. Xabier Mendiguren Elizegi

Aise **imajinatuko** duk orain nola hartu zuten nire ihesaldia. Anjel Lertxundi

Odola kopetan behera zetorkiola **imajinatu** zuen. Itxaro Borda

**Imajinatu** zuten gizon oro bi gizon dela eta benetakoa bestea dela, zeruan dagoena. Juan Garzia

**Imajinatu** ez dela deus aldatu. Monika Etxebarria

**Imajinatu** nuen eskumuturrean, erlojuaren lekuan, aparatu berezi bat neramala, zunda moduko bat, itsasoaren edo ibai baten sakonera neurtu beharrean, puntu geografiko bakoitzaren denbora-sakonera kalkulatzen zuena. Bernardo Atxaga

**Imajinatzen** dut gomazko eskularruak dituen gizon zuriz jantzitako batek astintzen nauen bitartean oihu egiten didala: "Ni ez naiz iturgina!". Joseba Urteaga

Egiteko latz bat aurrera atera nahi duenak hura jadanik burutua duela **imajinatu** behar du, iragana bezala aldaezina den etorkizun bat inposatu behar dio bere buruari. Juan Garzia

"Zeinek **imajinatu,** etxe txar honek honelako gela bat izan behar zuenik!", esan nien lagunei. Bernardo Atxaga

Erraz **imajinatu** genuen gutxi falta izan genuela arrain haiek bezala geratzeko. Juan Kruz Igerabide

Gaur goizean jantzi naizenean ez dut **imajinatu** eskuetan edukiko nuenik. Bernardo Atxaga

**4** (mendeko perpausetan)

Berak pentsatu bezain gozoa zuen ahotsa, tabernari konfiantza gehiegizkoarekin eta maila beheragoko emakume haiekin jolas alai eta urdurietan ibili aurretik **imajinatu** zuen bezalakoxea. Koro Navarro

Nik **imajinatu** baino lodixeagoak ziren, nik amestu baino motzagoak. Jasone Osoro

**Imajinatu** bezain primitiboa iruditu zitzaidan. Iban Zaldua

Harryk sakon gogoeta egin zuen, Halloween-gauean zer gertatu ote zen **imajinatu** nahian. Iñaki Mendiguren

Lizarriturrik hatzen mugimenduaren laguntzaz pentsatu egiten du, burutazioak **imajinaturiko** musika baten harira helduko balitzaizkio bezala. Pako Aristi

Berak **imajinatutako** mugimenduak burutzen dituela. Berria - Kultura

Beste begi baten pertzepzioaren arabera **imajinatutako** tresna besterik ez, hodei bat, kea. Jon Alonso

Honakoan Credenceko abeslaria nintzela **imajinatuz** etorri nauk: Oh Susie Q, oh Susie Q... Bernardo Atxaga

Mendekuaren zapore gozoa dastatu nuen, Isabel Sanjoseren muturra **imajinatuz** . Aingeru Epaltza

Ezereza **imajinatzeko,** beharrezkoa zen bertan egotea, munduan bete-betean eta begiak zabal-zabalik eta bizirik. Monika Etxebarria

Berehala hasi da Ines biluzik **imajinatzen** . Patxi Iturritegi

**5** (ezin-ekin)

Ezin nuen bizitza **imajinatu** etxetik, hiritik kanpo. Anjel Lertxundi

Amona Erikarengatik izan ez balitz, ezin dut **imajinatu** zein bide hartuko zuen nire bizitzak. Anjel Lertxundi

Ezin duzu ezta **imajinatu** ere, Walter: beren amatxorengana bezalaxe inguratzen zaizkizu, izugarria da! Joxe Austin Arrieta

Han, **imajinatu** ere ezin duzuen zerbait dago. Jon Maia

-Ama ikasle -esan zuen-, ezin dut **imajinatu** ere egin, ama gelaska batean bizitzen, ganbara batean, zuk esan bezala... horretaz ez dit sekula ezer kontatu. Baina sartu zuenean, sekulako oinazea sentitu nuen, ezin **imajinatu** hura baino oinaze biziagorik. Joxe Austin Arrieta

Esku bat luzatu zuen ohe ondoko argia pizteko, mugimendu harekin bere bizitzari amaiera emango ziola **imajinatu** ezinik. Aitor Arana

**6** (era burutua izenongo gisa)

Bizitza **imajinatuak** . Xabier Mendiguren Elizegi

Azkenean, zabar apurtzen nuen eszena **imajinatuaren** lilura. Patxi Zubizarreta

Bere imajinarioa asmatu behar baitzaio "Nazio espainol" berriari, haren nortasun augusto **imajinatuaren** duina alegia, mistikoa, ezen ez historiko, ez soziologiko eta ez politiko erreala. Joxe Azurmendi

**7** ***ezin imajinatuzko***

Egia hain begien bistako hori, zenbakiak idatzi eta idazketa hori manipulatuz emaitza sortzea, alegia, ezin **imajinatuzkoa** zen, berez, garai hartako gizaki gehienentzat - kalkulatzen zekien gutxiengo urriarentzat-. Jon Muñoz

Eta, guk ezin **imajinatuzko** sentsazio horiek.. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina imajina** (7); **baina imajina ditzagun** (3); **ere imajina** (6); **erraz imajina** (3); **eta imajina** (11); **imajina daiteke** (7); **imajina daitekeen** (7); **imajina daitezke** (3); **imajina daitezkeen** (7); **imajina dezagun** (10); **imajina dezake** (5); **imajina dezakegu** (4); **imajina dezakek** (3); **imajina dezaket** (19); **imajina dezakete** (4); **imajina dezakezu** (5); **imajina dezakezuen** (3); **imajina ditzagun** (4); **imajina ditzaket** (4); **imajina ez** (3); **imajina ezazu** (19); **imajina ezazue** (20); **imajina ezin** (3); **imajina nezakeen** (8); **imajina zezakeen** (4); **imajina zitekeen** (3); **nekez imajina** (10); **nola imajina** (3)

**bat imajinatu** (10); **bat imajinatu nuen** (3); **bizitza imajinatu** (3); **burua imajinatu** (3); **du imajinatu** (3); **dut imajinatu** (11); **duzu imajinatu** (7); **duzu imajinatu ere** (4); **duzue imajinatu** (6); **edo imajinatu** (5); **ere imajinatu** (4); **erraz imajinatu** (3); **eta imajinatu** (10); **eta imajinatu nuen** (3); **ez nuen imajinatu** (3); **ezin dut imajinatu** (9); **ezin duzu imajinatu** (7); **ezin duzue imajinatu** (6); **ezin imajinatu** (5); **ezin nuen imajinatu** (8); **ezin zuen imajinatu** (5); **ezta imajinatu** (3); **ezta imajinatu ere** (3); **hori imajinatu** (4); **horrela imajinatu** (3)

**imajinatu ahal** (15); **imajinatu ahal izango** (3); **imajinatu baitzuen** (3); **imajinatu behar** (6); **imajinatu dezaket** (3); **imajinatu du** (4); **imajinatu dugu** (3); **imajinatu dut** (6); **imajinatu edo** (3); **imajinatu egin** (5); **imajinatu egiten** (4); **imajinatu ere** (39); **imajinatu ere egin** (22); **imajinatu ere ezin** (6); **imajinatu eta** (10); **imajinatu ez** (5); **imajinatu ezin** (3); **imajinatu izan** (9); **imajinatu izan du** (3); **imajinatu nahi** (11); **imajinatu nahian** (3); **imajinatu nituen** (10); **imajinatu nola** (3); **imajinatu nuen** (49); **imajinatu ohi** (4); **imajinatu zer** (7); **imajinatu zituen** (11); **imajinatu zuen** (48); **imajinatu zuen bere** (4); **imajinatu zuenean** (3); **imajinatu zuten** (3)

**imajinatua zuen** (3); **imajinatuko duzunez** (3); **imajinatuko ez** (6); **imajinatuko zuen** (3); **inoiz imajinatuko** (5); **inoiz imajinatuko ez** (4); **nola imajinatu** (3); **nola imajinatuko** (3); **nuen imajinatu** (12); **nuen imajinatu ere** (3); **sekula imajinatuko** (4); **zela imajinatu** (8); **zela imajinatu zuen** (4); **zirela imajinatu** (3); **zuela imajinatu** (5); **zuela imajinatu zuen** (3); **zuen imajinatu** (7); **zuk imajinatu** (3)

**ama imajinatzen** (3); **baina imajinatzen** (4); **bat imajinatzen** (13); **bat imajinatzen nuen** (3); **bera imajinatzen** (3); **da imajinatzea** (6); **da imajinatzen** (4); **dut imajinatzen** (3); **ere imajinatzen** (5); **eta imajinatzen** (19); **eta imajinatzen nuen** (4); **ez dut imajinatzen** (3); **ez nuen imajinatzen** (5); **horrela imajinatzen** (3); **imajinatzea ez** (3)

**imajinatzen ahal** (4); **imajinatzen ahalegindu** (3); **imajinatzen ahalegindu zen** (3); **imajinatzen al** (13); **imajinatzen al duzu** (7); **imajinatzen ari** (7); **imajinatzen bainuen** (3); **imajinatzen diat** (5); **imajinatzen ditu** (4); **imajinatzen ditugu** (3); **imajinatzen ditut** (7); **imajinatzen du** (9); **imajinatzen dut** (44); **imajinatzen dut nik** (3); **imajinatzen duzu** (11); **imajinatzen duzue** (5); **imajinatzen genituen** (3); **imajinatzen genuen** (3); **imajinatzen hasi** (6); **imajinatzen hasten** (5); **imajinatzen nituen** (13); **imajinatzen nuen** (43); **imajinatzen ote** (3); **imajinatzen saiatu** (5); **imajinatzen zaitut** (4); **imajinatzen zituen** (10); **imajinatzen zuen** (26)

**nuen imajinatzen** (5); **ondo imajinatzen** (3); **zen imajinatzen** (4); **zirela imajinatzen** (4); **zuela imajinatzen** (3)

---

# imajinatze *iz* irudikatzea.

**Imajinatze** hutsak barruko sugarra pizten dit. Patxi Iturritegi

Galduko zaitudala **imajinatze** hutsak. Anjel Lertxundi

Baina haren gorputza besteen eskuetan **imajinatze** hutsa sabela arantzaz beteta izatea bezalakoa zen. Jasone Osoro

---

# imajinazio *(ETCn 1077 agerraldi; orobat* ***imaginazio*** *ETCn 35 agerraldi, eta* ***imajinazino*** *ETCn 9 agerraldi) iz* irudimena, asmamena.

Itzelak dira, inondik ere, **imajinazioaren** ahalmenak. Jon Alonso

Alabak baino **imajinazio** gutxiago izanki. Itxaro Borda

-Hik daukak **imajinazinoa** ! Iñaki Iñurrieta

Erabil ezazue **imajinazioa** . Pako Aristi

**Imajinazioa** lanean jarrita nola edo hala moldatuko nintzen. Migel Angel Mintegi

Mundua ulertzeko emanak izan zaizkigun dohain guztien artean **imajinazioa** da tresnarik zorrotz, ausart, eta osoena. Pako Aristi

Izan ere, bizitza **imajinazioaren** ariketa badaezpadako eta halamoduzko bat baino ez da, borroka bat aurrez irudikatu genuen guztiaren eta sasoi bakoitzak bere orenean dakarkigun egia ergelaren artean. Pako Aristi

Gaur, gizon-emakumeen barrenak gose dauden garaian, telebistak osatzen du horiei denbora nola pasa asmatzeko falta zaien **imajinazioaren** lekua. Pako Aristi

Margaritak gehitu zuen errazagoa zela horrelako esperientziak izatea telebista eta zinema zabaldu zirenez geroztik, hain zuzen ere **imajinazioak** hainbat eta hainbat irudiren euskarria zeukalako orain. Bernardo Atxaga

Eranzten saiatu nintzen, baina **imajinazioa** ikaratu egin zitzaidan flanelazko gonazpiko motzera eta belaunetaraino iritsiko zitzaizkion barneko galtza urdin ilunetara heldu zenean. Koro Navarro

**Imajinazioa** exijitzen diogu idazleari, eta hark hori bera itxaron du guregandik, ea bien artean liburua mediokritatetik salbatuko duen sendagai magiko antzekoa egosten duten. Pako Aristi

**Imajinazioak** kalea zapaldu behar du, eszena barregarriak klasiko bihurtzen zituen Fellini maisu berdin ezinak esango lukeenez. Berria - Kultura

Horregatik agertzen dira horrenbeste aipamen **imajinazioak** sorturiko mundu bati. Berria - Harian

**2** (izenondoekin)

**-Imajinazio** handia beharko dut, ez pentsa. Migel Angel Mintegi

**Imajinazio** lizuna zer den. Patziku Perurena

Ximurrak **imajinazio** eskasa zuen. Aingeru Epaltza

**3** (hitz elkartuetan)

Gizakiak bere baitan eratzen duen mundu-irudikapena, zientzian oinarritua izan zein mitoan, **imajinazio**-kontua da hein handi batez. Juan Garzia

Gero bizkarrak harrotu zituen, bere senarraren **imajinazio** falta barrutik deitoratuz. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta imajinazioa** (3); **imajinazioa da** (4)

---

## imajineria **1** *iz* imajina multzoa.

Atenas aldean eta Erroman berean, maiatzean egiten dira tenpluetako garbiketa urterokoak: hala zorua eta hormak, nola sabaialdeak, eta baita **imajineria** eta estatuak denak. Pello Zabala

**2** iruditeria.

Manta gaineko jipoiek, elektrodoek, bainerak edo plastikozko boltsek militantziaren alderdi beldurgarri baina aldi berean heroikoaren **imajineria** osatzen zuten. Aingeru Epaltza

---

## imam *(ETCn **576** agerraldi; orobat **iman, imman** eta **immam**)* **1** *iz* musulmanen erlijioan mezkitako otoitzaldiaren zuzendaria.

Mezkitetako **imamek** ez dute sinesleen herra hazi behar. Berria - Mundua

Sarkozy barne-minixtroak otoiztu ditu musulman erlisioneko **imam** predikari bero batzu, beira diten otoi prediku sutsu eta herratsuetarik. Herria

Eta, azkena, **imana,** hildakoa hilerrira eramatera. Patxi Zubizarreta

**2** musulmanen komunitate bat gidatzen duena.

Xiitek ohoratzen duten Ali **imamaren** mausoleoaren inguruetan guduka gogorrak gertatu ziren. Berria - Mundua

1920ko urteetan izandako elkarrizketa batek Sana-ko Yahya **iman** zaidiaren eta britainiar mandatariaren artean. Iñaki Mendiguren

Moktada al Sadr **iman** gaztearen aldekoek. Iñigo Aranbarri

Muktada al Sadr **imman** xiitaren gerrillariek sei polizia irakiar bahitu zituztela. Berria - Mundua

Muktada al-Sadr **immamaren** Mehdiko Armadako gerrillariek. Berria - Mundua

Abu Omar **imama** bahitzeaz daude akusatuta agente sekretuak. Berria - Mundua

Abu Hamza **imama** estraditatzeko epaiketa hasi da. Berria - Mundua

Autobus batek minutu gutxitan eraman baikaitu hiriko auzo aberats eta modernoenera, etortzeko dagoen hamabigarren **iman**-aren izena daukan Valiasr barrutira. Jon Arretxe

"Eta zenbat gerra-ontzi erasoezin ditugu kristau zerri horien bihotzak erdibitzeko?" galdetu zion Itsas Armada Beti Garaileko **Imamari**. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **abu hamza imama** (3); **al hadi imamaren** (4); **al sadr imam** (10); **al sadr imamaren** (18); **ali imamaren** (34); **ali imamaren mausoleoaren** (5); **ali imamaren mausoleoko** (3); **ali imamaren meskita** (5); **gazako meskitetako imamek** (3); **hadi imamaren** (4); **hussein imamaren** (7); **hussein imamaren heriotza** (3); **imam xiitaren** (7); **imam xiitaren mehdiren** (3); **imamaren aginduetara** (4); **imamaren aldeko** (5); **imamaren mausoleoa** (4); **imamaren mausoleoko giltzak** (3); **imamaren mausoleora** (4); **imamaren meskita** (5); **najafeko ali imamaren** (5); **sadr imam xiitaren** (7); **sadr imamak** (7); **sadr imamaren** (18); **sadr imamaren aginduetara** (4); **sadr imamaren aldeko** (5); **zuen imamak** (3)
>
> **al sadr iman** (3); **eta iman** (3); **iman ahmed** (3); **iman al** (4); **iman al hams** (3); **iman batek** (4); **iman baten** (3)
>
> **al sadr immam** (3); sadr immam xiitaren

---

## iman[1] **1** *iz* burdina eta kidekoak erakartzen dituen burdin atala.

**Iman** bat ipar orratz bati hurbildurik. Juan Garzia

Uretatik ateratzen nuen bakoitzean, hauts marroizko xerlo bat zekarren **imanak** atxikirik. Juan Garzia

Nikel metalikoa, burdina bezala, magnetikoa da, eta beraz, hipotesi horretan erraza izango zen gainerakotik bereiztea, hutsik zein burdinarekin, **iman** batez baliaturik, besterik gabe. Juan Garzia

**Iman** indartsu bati. Juan Garzia

Fardel beltza zen, eta **imanen** bidez auto azpian itsatsita zegoen. Berria - Euskal Herria

**2** *irud*

Nik esango nuke lehen aipatutako **imana,** gure protagonista halako indarraz erakartzen duena, haurtzaroa dela. Bernardo Atxaga

Egia da Chavezek indar handia daukala, energia izugarria, oso dinamikoa da, bera **iman** bat da, denak biltzen ditu ingurura, jendea zoratu egiten du. Pako Aristi

Ume-umetan ere, kalean harri edo potoren bat ikusten nuenean, automatikoki joaten zitzaidan hanka bertara, **iman** ezkutu batek-edo erakarrita. Joan Mari Irigoien

**Iman** batek nola, Parisek hala erakartzen zuen nabarmentzen zen jende oro. Anjel Lertxundi

**3** ***iman harri*** burdin oxido batez ($Fe_3O_4$) osatutako harria, burdina erakartzen duena.

**Iman**-harrizko mendia. Juan Garzia

---

iman[2] ik **imam.**

---

## imandu, iman(du), imantzen da/du *ad* imanaren tasunak eman edo hartu. ik **imantatu**.

Baina euliak igandea zela ohartu gabe eta paper zintzilikatuen beldurrik gabe ari ziren, burrunbari, batak bestea jo eta oso bizkor bereiziz, bata gora espiral zoroan, bestea kolpearen puntura bueltaka behin eta berriro, **imandurik** balego bezalako zorabioan. Joseba Sarrionandia

imanente ik **immanente**.

---

**imantatu**, imanta, imantatzen **1** du *ad* imandu; imanak bezala erakarri.

Soka gora eta gora, zerurantz, eguzki beroak **imantaturik** bezala. Gotzon Garate

**2** (era burutua izenondo gisa)

Burdina **imantatu** bereziez urre bila saiatzen ziren ur-bilatzaileak. Anjel Lertxundi

Hango itsasoa da guziz perilosa, harri **imantatuak** baitira han nonahi, hitze eta burdinezko piezak dituzten ontziak bereganatzen baitituzte eta ez baitira gehiago handik lekutzen ahal. Aurelia Arkotxa

Bera baino gehiago den zerbaiten bide edo mezutzat hartu du norbanakoa, noranzko **imantatuak** eskaini dizkio bere goraldiaren askatasunari. Josu Zabaleta

---

imertsio ik **immertsio**.

---

imigrante ik **immigrante**.

---

imigratu ik **immigratu**.

---

imigrazio ik **immigrazio**.

---

imini ik **ipini**.

---

**imintzio** **1** *iz* keinua.

Neskaren edozein keinu edo **imintzio** ederretsiz, haren gaztetasunaz liluraturik. Joxean Agirre

**Imintzioak** borondateren irmotasuna erakuts zezakeen. Joxean Agirre

Geunden-geundenean, **imintzio** hutsak hondamendia ekartzen ahal zuen. Aingeru Epaltza

Aspaldiko urteetan **imintzio** biziak, irriak eta hitz-jario oparoak eragiten zizkidan guztia azaletik lerratzen zait orain. Jose Morales

**Imintzio** txiki bat besterik ez. Javi Cillero

Hamidak halako **imintzio** galdetzailez eragin zion buruari. hobeto esanda, beso bat osoa eta bestearen puska zabaldu zituen, nagiak ateratzeko **imintzio** baldarrez. Patxi Zubizarreta

Bere jantziak ikusteak **imintzio** urduria eragin dio. Pello Lizarralde

Aldi berean bere urrezko erloju handiari josten zion begirakunea, eta sudurra ukitzen zuen **imintzio** mekanikoetan. Patxi Zubizarreta

Kapela jasotzeko **imintzio** labur batez agurtu ninduen. Anjel Lertxundi

Lepoa tente eduki beharraren **imintzioa** baino ez da izan. Hasier Etxeberria

Nahigabe, nazka eta desilusiozko **imintzio** bat ikusi zion aurpegian. Anton Garikano

Gero **imintzio** egin nion ezpainak zimurtuz. hatz-muturra aurpegian jarri eta goitik behera labanaz mozteko **imintzio** eginez. Koldo Biguri

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txitxikov, galdera-**imintzioa** marrazturik aurpegian, zain geratu zen. Jose Morales

Knot jaunak kilimusi egin zuen, zeremonia-**imintzio** isilez. Juan Garzia

Harridura **imintziorik** gabe erantzun dio. Imanol Zurutuza

Irabazle **imintzioak** eginez irten ziren jolastokitik.Umeek harridura **imintzio** nabarmenak egiten zituzten. Pedro Alberdi

Etsipen **imintzioa** egin zuen gizonak. Josu Landa

Aurpegi-**imintzio** eta keinu bitxiak egiten zituzten pertsonen kasuak edo nahi gabeko zantarkeria eta biraoak botatzen zituztenenak. Xabier Olarra

Eta buru **imintzio** bat egin zuen, "Zatoz" esan nahi balu bezala. Patxi Zubizarreta

Kezka **imintzio** bat eginik, gaineratu zuen [...]. Patxi Zubizarreta

Raduan Husainik gaitzespen **imintzio** bat eginez begiratu zion. Patxi Zubizarreta

Agureak, asaldura **imintzio** bat eginez, erresuminez esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Bi besoekin karpeta estutu zuen laineza **imintzio** bat eginez. Joxean Agirre

Don Pedrok disgustu **imintzio** bat egin zuen. Bernardo Atxaga

Gizontxoak nahigabe **imintzio** bat egin zuen. Koldo Biguri

Kolpe **imintzio** batzuk egin zizkion. Josu Landa

Lehengo handinahi **imintzio,** eta garaipen eta oldarkortasun berberarekin. Patxi Zubizarreta

Salto txikiak eginez dantza-**imintzio** baldarrean. Anjel Lertxundi

Apal **imintziozko** zirkin bat egin zuen gero. Anjel Lertxundi

**3 *imintzio bat egin***

Ni ikustean adeitasunezko **imintzio** bat egin zuen eskuarekin airean. Joxean Agirre

Neskak, atzerakako **imintzio** bat eginik, begiak jaitsi zituen. Patxi Zubizarreta

Lisak erdeinuzko **imintzio** bat egiten zuen. Karlos Zabala

· *(izenondoekin)* Ukabila airean itxiz **imintzio** garratz bat egin zuen amonak. Pablo Sastre

Amorruz eta suminez, bat-bateko **imintzio** zakar bat egin zuen. Jon Alonso

Esku batarekin ezpainak estali zituen, negar aieru bat, **imintzio** mutu bat eginez, besterik gabe. Joxean Agirre

**4 *imintzioa egin***

Berari buruaz **imintzioa** egin, eta oinez jarraitu zuen. Anton Garikano

Esku gainarekin bekokia estutuz diva baten alditxartzearen gezurrezko **imintzioa** eginez. Oskar Arana

Fusilaketaren **imintzioa** egin behar dute. Anjel Lertxundi

Harritu **imintzioa** egin zuen Joanesek. Felipe Juaristi

Gustatu zaiolako **imintzioa** egin du, ezpainak mihizkatuz. Felipe Juaristi

Mimo-**imintzioak** egin nizkien. Fernando Rey

Altxatzeko **imintzioa** egin zuen. Patxi Zubizarreta

Pepponek joateko **imintzioa** egin zuen baina On Camillok ez zion alde egiten utzi. Koldo Biguri

Gizon potoloak Lainezi sabelean ukabilkada jotzeko **imintzioa** egin dio. nik gainean tu egiteko **imintzioa** egin dut. Pello Lizarralde

Joateko **imintzioa** egin zuen. Inazio Mujika Iraola

Berak, bere aldetik, burua makurtzeko **imintzioa** egin zien. Jose Morales

Esku bat luzatu zuen, barkamena eskatzeko **imintzioa** eginez. Patxi Zubizarreta

· *(ezezkoetan)* Emakumetxoak esertzeko **imintziorik** egin ez zuenez, zutik iraun nuen neuk ere. Alberto Ladron Arana

Ez zidaten geratzeko **imintziorik** egin. Iban Zaldua

Olaf Pollackek enbidoa boa dio McEweni, baina etapa garailea ez du mugitzeko **imintziorik** egin. Berria - Kirola

## 5 *imintzioak egin*

Mugitu ordez **imintzioak** egiten dituzte, ez dute posturarik, jarrerak baizik. Xabier Olarra

**Imintzioak** egin genizkion Gwilymi eta gatza bota genion tera. Koro Navarro

Dabidek eta biok [...] baiezko **imintzioak** egin genituen. Patxi Zubizarreta

Gelditzeko **imintzioak** egin zizkigun parera iritsita. Iban Zaldua

Zorabiatzen ari zirelako **imintzioak** eginez. Juan Kruz Igerabide

Ikustekoa zela haien malgutasuna zerutik ia lurreraino abiada bizian jaitsi, bonbardaketen eta tiroketen **imintzioak** egin, eta berriro ere oso denbora laburrean altura hartzeko orduan. Anjel Lertxundi

Dantza geldi baten pauso nagiak edo **imintzioak** egiten dituzte, gorputza emeki eta malgutasunez mugituz. Joxean Agirre

Ez duk oso harritzekoa ere, ezen ene osaba Danimarkako errege duk, eta ene aita bizi zelarik aurpegira **imintzioak** egiten zizkiotenek hogei, berrogei, berrogeita hamar, ehun dukat dituzte orain ordaintzen beraren erretratu miniaturazko batengatik. Juan Garzia

Esku librearekin airean **imintzio** haserreak eginez. Joxean Agirre

**Imintzio** urduriak eginez. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baten imintzio** (3); **buru imintzio** (3); **esku imintzio** (6); **eta imintzio** (14); **halako imintzio** (4); **imintzio bat** (39); **imintzio bat egin** (18); **imintzio bat eginez** (6); **imintzio bat eginik** (3); **imintzio bat egiten** (4); **imintzio batean** (3); **imintzio batez** (5); **imintzio egin** (4); **imintzio eta** (7); **imintzio eta keinu** (3); **imintzio guztiak** (4); **imintzio labur** (4); **imintzio txiki** (4); **imintzio txiki bat** (4); **zuen imintzio** (5)
>
> **agur imintzioa** (3); **baten imintzioa** (5); **baten imintzioa egin** (3); **egiteko imintzioa** (3); **eta imintzioak** (12); **eta imintzioak eginez** (3); **eta imintzioak egiten** (5); **eta imintzioen** (3); **harridura imintziorik** (3); **imintzioa egin** (45); **imintzioa egin du** (4); **imintzioa egin zuen** (19); **imintzioa eginez** (9); **imintzioa egiten** (6); **imintzioak egin** (9); **imintzioak eginez** (15); **imintzioak egiten** (18); **imintzioak eta** (5); **imintziorik egin** (10); **imintziorik ere** (3); **imintziorik txikiena** (4); **joateko imintzioa** (4); **joateko imintzioa egin** (4); **keinu eta imintzioak** (3)

---

# **imintzioka** *adlag* keinuka.

**Imintzioka,** hitzik ahoskatu gabe, lapurrari kutxa hartzeko eskatu zion. Patxi Zubizarreta

**Imintzioka** adierazi zidan hantxe itxaroteko. Joxe Austin Arrieta

Ni **imintzioka** hasi, eta gainerakoak oihuka, dena izan da bat. Patxi Zubizarreta

Ispilu batean bere burua **imintzioka** ikusi izan balu legez, jarkera hieratikora itzuli zen Mentxu. Josu Landa

Beste pixka batean geratu zen han, nazka **imintzioka** plater eta azpilen gainetik. Karlos Zabala

-Halakoxe egia esan zezakeen Fernandok ere -jarraitu zuen Léak, **imintzioka**. Jon Muñoz

Haurrek -hiru mutiko eta bi neskato- isil-isil iraun zuten, Del Vallek, ahots goran eta **imintzioka,** bere ustezko arte-dohainen berri ematen zien bitartean. Alberto Ladron Arana

Oihuka eta esku-**imintzioka** ari baitzen. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eta imintzioka** (6); **imintzioka ari** (3)

---

# **imintziotu,** imintzio(tu), imintziotzen du *ad* imintzioa egin.

Txakur gorrail bat zen, sasikoa, jipoitu-itxura uzkurrekoa: hain zuzen ere, Sandrok kontatu zidanez, animali pasadizo hura bere gisara **imintziotuz,** zorigaiztoko enkontru bat izan zuen, artean txakurtxo, kateme batekin. Juan Garzia

---

# **imitaezin** *izond* ezin imitatuzkoa.

Azaleztatze gehienak antzinakoak ziren, denboraren poderioz liburu-azaletako larrutxek bakarrik izaten duten patina **imitaezin** hori eta guzti. Jon Muñoz

Munduko sudur ederrenaren jabe zen, sudur japoniarra, sudur **imitaezina**. Joxan Elosegi

Woody Allenen zinemagile **imitaezinak** hain gustuko dituen kontrasteak nabarmentzen dira. Berria - Kultura

Hor Boswell **imitaezinaren** sublimetasun maila jotzen du ia Diogenes Laerziok. Juan Garzia

Ez dio Erasmoren izenari zor margolan horrek **imitaezina** izatea. Juan Garzia

Ingeniaritza kimikoaren eta fluidoen mekanikaren aldetik giltzurrunak erakusten duen maisutasuna inbidiagarria da teknologoarentzat, baina **imitaezina**. Irene Aldasoro

Irudi honek gizabanako aszezi eta santutasunerako eredutzat hartzen zuen hura, erabat aparteko eta, beraz, **imitaezintzat**. Askoren artean

---

# **imitagarri** *izond* imitatua izatea merezi duena.

Gure (mundu ororen?) aurrekoak eta aitzinekoak, zintzoak dira eta leialak, nobleak eta azkarrak, argidotarrak eta bulardetsuak, ohoragarri, beneragarri eta **imitagarriak**. Iñaki Segurola

Ona hemen Anaia txikien Ordena santua, Apostoluei jarraitzen dieten gizonen biziera harrigarri eta **imitagarria**. Askoren artean

Horrexegatik, egoera penagarrian gertatu ziren: greziarren jokabideak eta biziera hartu nahi zituzten, eta eredu eta **imitagarritzat** hartu nahi zituzten greziarrak berak bihurtu zitzaizkien etsai eta borrero. Elizen arteko biblia

---

# **imitaketa** *iz* imitatzea.

-Jolas gaitezen animalia harraparien **imitaketan**. Lopez de Arana

## **imitarazi**, imitaraz, imitarazten du *ad* imitatzera behartu.

Gela zahar batean sartzen gintuen Matxinek, pareta guztiak bere koadroz beterik zeudela, eta bere pedagogia bakarra koadro haiek **imitaraztea** zen Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **imitatu**, imita, imitatzen **1** du *ad* antzeratu.

Oso gai berezia da hezurra; materialen zientziak esplikatu bai baina **imitatu** ezin dituen ezaugarriak ditu. Irene Aldasoro

Horixe baita biderik egokiena umeek ikusi, **imitatu** eta ikas dezaten. Luis Elberdin

Erromak laster **imitatu** zuen etsenplu hori. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ohitura gaiztoko jendeak nituen inguruan, eta haien bizioak **imitatu** nituen. Jon Muñoz

-Egun on! -egin nuen oihu, ahateen ahots sudurkaria **imitatuz**. Juan Kruz Igerabide

Laster, Pisak eta Genoak **imitatu** zuten Venezia. Koro Navarro

Hizketan hasi zen, erdi irribarrez, soldaduburua **imitatuz**. Anjel Lertxundi

Saskibaloiko jokalariak **imitatuz,** hiru bat metrora zeukan paperontzira bota zuen. Pedro Alberdi

**Imitatu** egin behar du naturaleza, eta baita antzinako maisuen idazteko modua ere. Bernardo Atxaga

Fikzioak errealitatea antzirudikatu, **imitatu** egiten omen du. muturra bihurritu eta McGonagall andereñoaren ahots zorrotza **imitatu** zuen. Joxerra Garzia

Adiskidea, ez dut **imitatuko** anitzetan gaitzetsi izan dudana. Jon Muñoz

Ikusi behar da ea mezuak nerbioan zehar igarotzeko duen kodea **imitatu** ote daitekeen korronte elektrikoa den bezain baliabide zakar baten bidez. Irene Aldasoro

Ingeniariak ezin du **imitatu** giza makinak bere burua ugaltzeko duen prozesu sotil, landu eta (lehenengo faseetan, behinik behin) bereziki atsegina. Irene Aldasoro

Tradizioa da, bestalde, idazle batek aurki dezakeen askatasun-eremurik bikainena: ereduak **imita** ditzake; iragana deitora dezake; kaosaren anabasan eskuak sarturik, sortu egin dezake. Anjel Lertxundi

Filosofian ezin da **imitatu** Matematikak definitzean erabiltzen duen metodoa. Ibon Uribarri

Guk, *steel* gitarra erabiliz, ahotsak **imita** ditzakegu. Berria - Kultura

**Imitatu** ezin horretan gauzak txarretik okerrera joan ziren, gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Hauxe dugu ofizioetan oparoena: **imitatuz** gizatxartu. Patziku Perurena

### **2** (era burutua izenondo gisa)

Baina beste legegile batzuek, ostera, ezjakinenak baina, ziur asko, **imitatuenak,** alderantzizko iritziari eusten diote-. Juan Martin Elexpuru

Kurrinka txiki batzuk egiten zituen ezin **imitatuzkoak,** Karlos Zabala

### **3** ***ezin imitatuzko*** *izlag* ik **imitaezin.**

Tea zerbitzatzeko ekialdetarrek duten keinu ezin **imitatuzko** hori eginez. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ahotsa imitatuz** (3); **ahotsa imitatzen** (3); **bat imitatuz** (5); **doinua imitatuz** (3); **eta imitatu** (4); **eta imitatzen** (4); **ez imitatu** (3); **haiek imitatzen** (3); **hura imitatuz** (4); **imitatu behar** (6); **imitatu egin** (4); **imitatu egiten** (3); **imitatu eta** (4); **imitatu ezin** (3); **imitatu nahi** (9); **imitatu nahian** (6); **imitatu zituen** (3); **imitatu zuen** (14); **imitatu zuten** (3); **imitatzen da** (3); **imitatzen dituzte** (4); **imitatzen du** (11); **imitatzen duela** (3); **imitatzen duten** (3); **imitatzen eta** (3); **imitatzen hasi** (11); **imitatzen hasi zen** (3); **imitatzen hasi ziren** (4); **imitatzen saiatzen** (12); **imitatzen saiatzen gara** (3); **imitatzen zituen** (5); **imitatzen zituzten** (3); **imitatzen zuen** (10); **imitatzerik ez** (3); **natura imitatuz** (3)

---

## **imitatzaile** **1** *iz* (zerbait) imitatzen duen pertsona.

Artista, hortaz, **imitatzailea** da. Askoren artean

Egokitzaileen, **imitatzaileen** eta berridazleen eskua ere ikusten da. Askoren artean

De Montemayorren liburuak arrakasta handia eta **imitatzaile** ugari izan zuen. Berria - Kultura

Leninen alderdi bakarreko erregimen diktatorialaren arrakasta haren **imitatzaileen** kopuruak erakusten du. Iñaki Mendiguren

Starbucksek epaiketa irabazi dio Txinako **imitatzaile** bati. Berria - Ekonomia

### **2** (norbait) imitatzen duen pertsona.

William Blakeren **imitatzaile** batek esango zukeen bezala, "lehoiari atzaparrak eta hortzak eman zizkion Berberak zebraren gorputza marraztu zuen". Bernardo Atxaga

Laurent Gerra frantses **imitatzaileari**. Herria

Aita guztiz onaren **imitatzaile** arduratsu bihurturik. Askoren artean

San Frantziskoren **imitatzailerik** zintzoenetakoa. Askoren artean

Kristoren bete-beteko **imitatzaile** izanik. Askoren artean

Ordu-erdiko elkarrizketa egin zion joan zen asteburuan McLaughlinek, elkarrizketa politiko seriotan galdera xelebreak tartekatzeagatik ezaguna den kazetariak, AEBetan hainbat **imitatzaile** ere badituen pertsonaiak. Berria - Harian

### • **3** *izond* imitatzen duena.

Ahalmen **imitatzailea** ez da sortzailea. Ibon Uribarri

Tragediaren definizioaren gainean eratzen du, gainera, artearen teoria orokorra (arte **imitatzailearena,** jakina). Askoren artean

Ezin da frogatu artelan oro **imitatzailea** dela (musika eta pintura ez-objektiboa ez dira **imitatzaileak),** ezta emozioak adierazten dituela ere (diseinu formalek ez dute emoziorik adierazten). Askoren artean

---

## **imitazio** *(orobat* ***imitazione*** *g.er.)* **1** *iz* imitatzea.

Irudikapenezko arteak izadia imitatzen du, eta **imitazio** horrek plazerra ematen digu. Josu Zabaleta

Artea bigarren mailako **imitazioa** dela esan baitzuen Platonek. Askoren artean

Errealitatearen **imitazio** optikoan. Josu Zabaleta

Orijinal handi eta inspiratuen **imitazio** mekaniko eta azalekoa. Iñaki Mendiguren

Ikusmenezko **imitazioaren** biribiltasun eta betetasun harrigarri hori osatzeko, ingurumenera guztiz eta harrigarriro egokitu ohi da **imitazioa,** eta, hala, erabat burutzen da engainua. Josu Zabaleta

Ea atzera begiratu eta "antzinakoen" mirespen eta **imitazioak** [...] garapen "modernoa" oztopatu ote zuen. Iñaki Mendiguren

**Imitazio** autistaren alderdi automatikoenak. Xabier Olarra

Betidanik jakin izan dut **imitaziorako** joera dudala. Xabier Olarra

Antzerkirako eta **imitaziorako** dohain apartak zituen. Xabier Etxabe

Egiazkoen **imitazio** ona. Migel Angel Mintegi

Tiro hotsen **imitazioak** egiten zituen. Joseba Sarrionandia

Literatura klasikoen **imitazioak** egiteko. Iñaki Mendiguren

-Hortaz, gazte -esan zion Fredek Harryri, Percyren **imitazio** harrigarria eginez-, porta zaitez ongi. Iñaki Mendiguren

Giza primateok **imitazioaren** bidez ikasten dugu normalean. Luis Elberdin

**Imitazioaren** teoria bat zen, zalantzarik gabe, baina oraingo honetan emozio eta sentimendu kontzeptuei egokitua. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan)

Espero izatekoa zenaz bestera, ez dago brodatuzko **imitazio**-lanik, ezta urmargoz era kaskarrean gauzatutako Vermonteko paisaia elurtuen irudirik, ezta Currier and Ives-en erreprodukziorik ere. Oskar Arana

**Imitazio** bidez ikasten dugu guztia.. Luis Elberdin

Arte-jardueraren sustraian betidanik egon izan den **imitazio**-premia. Josu Zabaleta

Beltzek **imitazio** sen txit garatua dute, haien inteligentzia biziaren seinale ageria baita hori, dio Aranzadi-k. Joxe Azurmendi

· Marmol-**imitaziozko** mahaiek. Joseba Urteaga

**3** ***imitaziozko***

Ez zen kobre gainurreztatuzkoa baino, **imitaziozko** harritzar arrosakolore batekin. benetako eta **imitaziozko** bitxiak. Juan Garzia

**Imitaziozko** artea, naturalista, Einfühlung hori den munduarekiko enpatiazko identifikazio-harreman horretan oinarritzen da. Josu Zabaleta

Italiako artista eta jakitun kartsuek **imitazioko** atenastar bihurtzeko joera izan zuten bezala. Iñaki Mendiguren

**Imitaziozkoa** ez den artea. Josu Zabaleta

Gurutze bat, aitaren esanetan marfilezko omen zen Kristo bat zuena, [...] gero jakin dudanez, egiaz **imitaziozkoa** zena, hain zuzen ere aluminiozkoa marfil kolorez margotua. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baten imitazioa** (4); **eta imitazio** (3); **imitazio bat** (5); **imitazioa da** (5); **imitazioa egiten** (3); **imitazioa eta** (5); **imitazioak ere** (3); **imitazioaren teoria** (6)

---

## immakulatu *(corpusean **inmakulatu** soilik)* *izond* orbangabea.

Lester txikia zen, John, arima garbia, kerubin **inmakulatu** bat... Karlos Linazasoro

---

## immam ik **imam**.

---

## imman ik **imam**.

---

## immanente *(**4** agerraldi, liburu **1** eta **2** artikulutan; orobat **imanente** **13** agerraldi, liburu **1**ean, eta **inmanente** **15** agerraldi, **9** liburu eta liburu **1**ean)* *izond* (zerbaiten) barnean, kanporanzko eraginik gabe, dagoena edo aritzen dena. ik**bere**[1] **7a**.

Oinarri-esakuneen aplikazioa esperientzia ahalgarriaren zedarrien barne gertatzen denean, hauei **imanenteak** deituko diegu, muga hauek gainditzen badituzte, transzendente. Ibon Uribarri

Lekua, lehenengo eta behin, ez da gorputzaren printzipio **immanentea** balitz bezala ikusi behar, ez baitu higidurarik jasaten. Askoren artean

Ongia unibertsal **immanentea** baizik ez baita. Askoren artean

Hala ere, arrazoimenaren erabilera izadiaren kontsiderazio arrazional honetan fisikoa edo hiperfisikoa da edo, hobeto esanda, **imanentea** edo transzendentea da. Ibon Uribarri

Fisiologia **imanenteak,** aitzitik, izadia sentsuen objektu ororen multzo gisa kontsideratzen du. Ibon Uribarri

Genero edo arte forma berri edo sendotu samar baten ikuspegi **immanente** batetik abiatuta. Berria - Kultura

Jainkoa gauza guztien kausa **inmanente** gisa agertzen dela. Piarres Xarriton

Idaztea egintza **inmanente** bat da, horizontala, erlatiboa. Piarres Aintziart

---

## immanentista *(orobat **inmanentista**)* *izond/iz* immanentismoari dagokiona; immanentismoaren aldekoa.

Bai, baina **inmanentista,** existentzia fisikotik haratago ez lihoakena. Herria

Barka diezadatela bekatu larri hau gure artean kontu hauen monopolioa duten **immanentistek**. Berria - Kultura

---

## immanentzia *(orobat **inmanentzia**)* *iz* immanentea denaren nolakotasuna.

Era berean, sorturiko argiaren gorputza, erran nahi baitut *-ekîn-h* ('**immanentzia**', 'Jainkoaren presentzia') ez da esferen edo argizagien gorputza, *-ekîn-h*-ren gorputza edota sorturiko hodei-adarrarena Jainkoaren gorputza (gorets bedi!) ez den bezalaxe. Xabier Kintana

[Mistikak] ez du esan nahi transzendentzia, baizik jainkozkoaren **inmanentzia,** esan nahi du Jainkoa altzoan bertan barrentzea "unio mystica"-ren bizipenaren bitartez. Joan Mari Lekuona

Hasieratik ohartarazi zuen Txillardegik hizkuntza «bere **inmanentziatik** hartuta» aztertuz eta jorratuz egindako ekarpena izango zuela hizpide. Berria - Kultura

---

## immaterial *(corpusean **inmaterial** soilik)* *izond* materiagabea.

Ondarea giza-multzo baten nortasuna oinarritzen eta multzo hori besteetatik bereizten duten osagai material eta **inmaterial** guztiek osatzen dute. Berria - Kultura

Ondare **inmaterialaren** zerrenda zabalduko du aurki Unescok. Berria - Kultura

Zeren argia ez baita materiaren beste edozein alderdi baino **inmaterialagoa,** maila berberekoa baizik. Josu Zabaleta

*Negligé* zoragarri batez jantzen zuten nire hatz **inmaterialek**. Joxan Elosegi

---

## immaterialitate *(corpusean **inmaterialitate** soilik)* *izond* immaterialtasuna.

Galtzarpa sorbaldan zintzilik daramaten artzainen **inmaterialitate** hurbilak. Itxaro Borda

**Inmaterialitate** sentimendu hutsal batek desjabetzen zuen neska. Itxaro Borda

---

**immaterialtasun** *(corpusean **inmaterialtasun** soilik)* *iz* immateriala denaren nolakotasuna.

Lana fabrikaren gunetik atera da, eta langile klasearen ziurtasun batzuen galerarekin batera lanaren **inmaterialtasuna** eta izaera intelektuala nagusitu da. Berria - Kultura

Ni neu, goizaldeko ordu tikietan, Charlyren eta Ttipiren arteko puntta saio bat baino gehiagoren lekuko izana naiz, batak eta bertzeak salgai zituzten produktuen "materialtasuna" eta **"inmaterialtasuna"** solas. Aingeru Epaltza

---

**immediato** *(corpusean **inmediato** soilik)* *izond* berehalakoa.

Irri egingo du irakurketa **inmediato** horren aurrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Punch gehiagoko zerbait behar diagu, **inmediatoagoa** den zerbait, Elioten mundu poetikoko milikerietan geratu gabe. Iñaki Iñurrieta

Gure belaunaldiko jendeak berehala ibiliko dira eremu ezagun eta **inmediatoetan**. Janbattitt Dirassar

---

**immensitate** *(corpusean **inmensitate** soilik)* *iz* neurrigabetasuna, baztergabetasuna.

"Sentibera sentigorrak", deitu zien norbaitek artistei, gerra betean itsasoaren **inmensitate** eta edertasunaz idazten zuten poetak gogoan hartuta. Bernardo Atxaga

---

**immertsio** *(corpusean **inmertsio, imersio, imertzio** eta **imerzio**)* **1** *iz* murgiltzea.

Urez egiten da, bi modutara: **inmertsioz** edo murgiltzez, eta aspertsioz edo zipriztinez. Xabier Olarra

**2** (hezkuntzan)

Alozeko ikastola lehen mailako eskola bat da eta **imertsioaren** bidez euskaraz ikasten da ; frantsesa aldiz, CE1-etik harat progresiboki ikasten da. Herria

Erran behar da langile guziak guttienez elebidunak direla eta euskara emaiten dutela, zeren **"imersioa** euskaraz" aipatzerakoan ez baita aski ikasgelan erakaslearekin euskaraz mintzatzea. Herria

**Imertzioan** ez diren elebidun sailek ez dutela euskalduntzen", oharra ez ttipia egin dute joan den astean erakasleek. Herria

Murgilpen edo **imertsio** sistemarentzat. Herria

Elkarteko lehendakari ordea den Mixel Estebanek murgiltze edo **imertsio** sistemari konparatuz esplikatu duen bezala. Murgilketa edo **imerzio** sarea hautaturik. Herria

Murgilpen edo **imerzio** sistemara (D modelora) pasatuak dira gela elebidunak herri hauetan: Azkaine, Donapaule, Donibane Lohizune, Hazparne, Itsasu, Kanbo, Urruña eta Uztaritze. Herria

Parada duzue **imersio** sistemaren ezagutzeko. Herria

---

**immigrante** *(166 agerraldi, 3 liburu eta 72 artikulutan; orobat **imigrante** g.er. eta **inmigrante** g.er.)* **1** *iz* immigratzen den edo immigratu berri den pertsona. ik **etorkin**.

Europarako bidean ehunka **immigrante** hil dira itsasoan azken hilabeteotan eta inork gutxi izan du heriotza horien berri. Berria - Mundua

Orotara 650 **immigrante** iritsi dira Lampedusa uhartera, bi ontzitan. Berria - Mundua

Espainiako Guardia Zibilak bi ontzitan zihoazen 68 **immigrante** atxilotu zituen Almeriako itsasertzera heltzear zeudenean. Berria - Mundua

Erroman bizi diren 33.000 **immigrante** legalek udaletxean euren ordezkariak izango direnak hautatu zituzten herenegun. Berria - Mundua

AEBetan bost urtetik gora daramatzaten **immigranteei** paperak ematea proposatu dute demokratek. Berria - Mundua

Ameriketara joandako **immigranteen** mundua. Berria - Kultura

Legez kanpoko **immigranteak** izatea edo immigrazio klandestinoa sustatzea leporatuta. Berria - Mundua

**Inmigranteak,** etorkinak, nonbaitetik etorritako pobreak. Lourdes Oñederra

Paperik gabeko **immigranteen** aldeko taldeek. Berria - Mundua

Saharaz hegoaldeko **immigranteak**. Berria - Mundua

**Immigranteen** gizarteratzea garaitu beharreko erronka da oraindik. Berria - Harian

Hola ditu 203 **imigranteren** naturalizatzeko galdeak onartu iragan aste hortan berean, 123 armeniar eta 40 bat vietnamdar. Herria

Hemen, Québec-en (ene herrian) Québec-eko frantsesa **imigranteei** erakasten diet. Herria

**Immigranteen** zentroak egiteko asmoak kezkak eragin ditu EBn. Berria - Mundua

**Immigranteen** sarrera murrizteko neurriak. Berria - Mundua

Hirian denok gara, definizioz, etorkin, dio Delgadok, eta absurdua da, esaterako, "bigarren" belaunaldiko **immigranteez** hitz egitea. Iban Zaldua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Immigrante**-trafikanteen artean zintzoak ere izango dira seguruenik. Joseba Urteaga

Hispanoek, **immigrante** talderik handienak, beren botere guztiarekin jo dute AEBen establishment-aren atean. Berria - Mundua

Parlamentuak urtero zehaztuko du behar duen **immigrante** kopurua eta horren arabera onartuko dira eskariak. Berria - Euskal Herria

• **3** *izond* immigratzen den edo immigratu berri dena.

Langile **immigranteak** egitura ekonomikoaren barruan direla. Berria - Harian

Prostituta **immigranteei** langile estatusa emanez gero, ez al lukete paperak eskuratzeko aukera gehiago. Berria - Euskal Herria

Prostituzioak gora egin du ikaragarri Espainia osoan, eta emakume **immigranteak** dira horretan ari diren gehienak, %90 inguru. Berria - Euskal Herria

Kanpotiar **imigranteeri**. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ehunka immigrante** (4); **immigrante artean** (5); **immigrante baino gehiago** (3); **immigrante berrien seme** (3); **immigrante deitzen** (3); **immigrante hil** (3); **immigrante inguru** (4); **immigrante iritsi** (11); **immigrante iritsi dira** (7); **immigrante iritsi ziren** (4); **immigrante zeuden** (4); **immigrante zihoazen** (3); **immigranteak dira** (3); **immigranteen aldeko** (3); **mila immigrante** (7); **mila immigrante inguru** (3)

---

**immigratu**, **immigra, immigratzen** ***(orobat imigratu g.er. eta inmigratu g.er.)*** **1** da *ad* herrialde batera atzerritik etorri eta bertan kokatu.

Euskaldunak **imigratu** zirelarik. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Langile kanpotiar **imigratuen** paperak xuxendu beharrez. Herria

**3** (era burutua izen gisa)

Beste 92 **immigratu** afrikar arrastatuak izan ziren Tenerifera joan berriak zirelarik. Berria - Mundua

Isaso zakarragatik eta hotzaren eraginez, antza, hil direnekin batera barku pneumatiko batean zeuden beste 11 **immigratu** albaniar sorostu zituzten Italiako Itsas Armadakoek. Berria - Mundua

Basamortuan Europa zaharretik etorri beste **immigratuekin,** hinki-hanka mintzatzen ikasiriko amerikar perpausaren bihotzean *fucking* elea edonon sakatuz. Itxaro Borda

Los Angelesko hondamendiak beste **immigratu** saldo bat ekarrarazia zuen Paris aldera. Joxan Elosegi

---

# immigratzaile *(corpusean **imigrazaile** eta **inmigratzaile** soilik)* *iz* immigrantea.

Hiru gune horietan, xori **imigratzaile** desberdinak ikuskatzen ahalko dira. Herria

Enpresa-izpiritua bultzatzeari, **inmigratzaileen** lana gogor ustiatzeari. Iban Zaldua

---

# immigrazio *(orobat **imigrazio** g.er. eta **inmigrazio** g.er.)* **1** *iz* immigratzea, immigranteen etorrera.

**Immigrazioak** klase ezaugarri nabarmenak ditu. Berria - Euskal Herria

Leizaola Fundazioak **immigrazioari** buruz antolatutako jardunaldietan. Berria - Euskal Herria

Film laburra **immigrazioari** eta etorkinen arazoari buruzko drama da. Berria - Kultura

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko herritarrek **immigrazioaz** duten jarrera aztertzeko.

Italiako agintariek **immigrazio** klandestinoa bultzatzea leporatzen diete. Berria - Mundua

Eusko Jaurlaritzak oso mugatuta dauka eskumena **immigrazioan** . Berria - Euskal Herria

**Inmigrazioa** murrizteko 1921 eta 1924an emandako Legeen aurretik. Iñaki Mendiguren

Britainiarrek juduen **inmigrazioa** geldiaraz zezaten, eta arabiarrak eta juduak berdintasunez erabil zitzaten. Pablo Sastre

Sarkozyk 2003an aurkeztu zuen **immigrazioa** gogortzeko lehen egitasmoa. Berria - Euskal Herria

**Immigrazioa** kontrolatzeko neurri zorrotzagoak eskatzeko. Berria - Mundua

**Immigrazioari** aurre egiteko politika murriztaileak sustatzen ditu. Berria - Mundua

Sarkozyk «pairatzen» den **immigrazioa** baztertu nahi du, hautuzkoa bultzatzeko. Generalitatearen esku geratuko dira, besteak beste, **immigrazioarekin** lotutako eskumenak. Berria - Euskal Herria

Frantziako gobernuaren xedea **immigrazioa** mugatzea da, eta etorkin mota bat hautatzea. Berria - Harian

Abokatu bat daukat **imigrazioko** paperak egiteko. Javi Cillero

**Immigrazioaren** fenomenoari ere aurre egiten ikasi beharko du kirolaren esparruak. Berria - Kirola

**Immigrazioaren** hazkundeak «gizatasun berri bat» eskatzen duela esan zuen. Berria - Mundua

**Immigrazioaren** Behatokiak lau mila herritarrei egingo die galdeketa. Berria - Euskal Herria

Ikerketa sakona egingo du **Immigrazioaren** Euskal Behatokiak. Berria - Euskal Herria

**Immigrazioaren** Mahaiak bilera egin du Iruñean. iazko abenduan onartutako Mugazaintza, Antiterrorismoa eta Legez Kanpoko **Immigrazioaren** Kontrolerako Legeari. Berria - Euskal Herria

**2** immigrante taldea.

Zein da Euskal Herrira etorritako **immigrazio** berriaren osasun egoera? Berria - Euskal Herria

Txinatar **imigrazioaren** seme-alaba ugari. Ramuntxo Etxeberri

Anelka, Henry, Govou, Luyindula, Saha... belaunaldi berrien ordezkariak dira, Frantzian jaio diren **immigrazioaren** semeak. Berria - Kirola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Immigrazio** fluxu horrek «gero eta eragin handiagoa» dauka Araba, Bizkai eta Gipuzkoako lan merkatuan. Iñigo Aranbarri

Legez kanpoko **immigrazio** trafikoan. Berria - Mundua

Hura lehenengo olatua besterik ez zen izan, **inmigrazio**-prozesuaren erpina 60ko hamarkadan jo baitzen. Iban Zaldua

Gure **immigrazio** sistemaren segurtasuna eta fidagarritasuna sendotzea. Berria - Mundua

Beste sei ere askatu zituzten, baina **immigrazio** delituak egotzita berriz atxilotu zituzten. Berria - Mundua

Integrazioa aldarrikatzen duen **immigrazio** eredu zaharrak porrot egin du. Berria - Euskal Herria

Lan, gizarte segurantza eta **immigrazio** eskumenak eskatu dizkio Espainiako Gobernuari. Berria - Ekonomia

**Glasgowko** immigrazio zentro bateko sarreran. Berria - Mundua

**Immigrazio** alorrean, Kanariar Uharteetara iristen eta iritsi nahian diren etorkin afrikarren inguruko auzian. Berria - Mundua

**Immigrazio** prozesuaren hastapenean baino ez gaude. Berria - Euskal Herria

Islama ez dela **immigrazio** kontu bat. Berria - Mundua

2001eko abuztuan atxilotu zuten Moussaoui, **immigrazio** arauak urratzeaz akusatuta. Berria - Mundua

Andoni Basterra **immigrazio** gaietako aholkularia. Berria - Euskal Herria

Nahiz eta **AEBetako** immigrazio bulegoak Boschen aurkako jarrera hartu zuen [...]. Berria - Mundua

Lege hori urratsa izan zen **immigrazio** politikaren aldaketan. Berria - Euskal Herria

**Immigrazio** arduradunek aireportutik ateratzen uzten ez diotenez. Berria - Kultura

**Immigrazio** Planaren konpromisoa beteta. Berria - Euskal Herria

Udal **Immigrazio** Plana gaurkotu eta egokitu behar dela nabarmendu zuten. Berria - Euskal Herria

Asiloa ukatu dieten errefuxiatuei eragiten die Rita Verdonk **Immigrazio** ministroaren plan eztabaidatsuak. Berria - Mundua

Consuelo Rumi Espainiako **Immigrazio** idazkariak. Berria - Euskal Herria

Barbro Holmberg **Immigrazio** ministroa. Berria - Mundua

Euskal Autonomia Erkidegoko **Immigrazio** zuzendariaren kargua hutsik dago. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzako **Immigrazio** Zuzendaritzan egin duen lana. Berria - Euskal Herria

Xurxo Martinez CIGko **Immigrazio** Saileko arduradunak Venezuelako EAJren **Immigrazio** Batzordearen akta liburua. Berria - Kultura

Frantziako **Immigrazio** Lege egitasmoa. Berria - Euskal Herria

Kartzelan sartu eta gutxira, **Immigrazio** Gaietarako Helegite Batzorde Berezira jo zuten. Berria - Mundua

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aebetako immigrazio** (4); **da immigrazio** (3); **du immigrazio** (5); **espainiako immigrazio** (3); **eta immigrazio** (10); **eusko jaurlaritzako immigrazio** (13); **immigrazio batzordearen** (3); **immigrazio eta** (9); **immigrazio klandestinoa** (4); **immigrazio lege** (4); **immigrazio legea** (8); **immigrazio legeak** (3); **immigrazio legearen** (3); **immigrazio plana** (5); **immigrazio politika** (19); **immigrazio politikak** (3); **immigrazio politikan** (3); **immigrazio zuzendari** (17); **immigrazio zuzendari bertin** (3); **immigrazio zuzendari ohia** (3); **immigrazio zuzendariak** (5); **immigrazio zuzendariaren** (4); **jaurlaritzako immigrazio** (18); **jaurlaritzako immigrazio zuzendari** (8); **jaurlaritzako immigrazio zuzendariak** (4); **oke jaurlaritzako immigrazio** (3); **sarkozyren immigrazio** (3)

**da immigrazioa** (4); **du immigrazioaren** (3); **dute immigrazioa** (3); **dute immigrazioaren** (5); **eta immigrazioa** (7); **eta immigrazioaren** (4); **immigrazioa arautzeko** (3); **immigrazioa eta** (9); **immigrazioa etorkinen** (7); **immigrazioa kontrolatzeko** (7); **immigrazioarekin lotutako** (3); **immigrazioaren alorrean** (6); **immigrazioaren aurkako** (5); **immigrazioaren errealitatea** (3); **immigrazioaren eta** (4); **immigrazioaren gaia** (4); **immigrazioaren gaineko** (6); **immigrazioaren inguruko** (8); **immigrazioari aurre** (8); **immigrazioari aurre egiteko** (7); **immigrazioari buruz** (7); **immigrazioari buruzko** (6); **kanpoko immigrazioa** (5); **kanpoko immigrazioaren** (7); **legez kanpoko immigrazioa** (5); **legez kanpoko immigrazioaren** (7)

---

## immobiliaria *(orobat **inmobiliaria**)* 1 *iz* etxe agentzia.

**Immobiliariako** akzioek beti behera egiten zuten, eta nik pentsatzen nuen orduko lurraren sakonean egonen zirela. Fernando Rey

Egia da, lehen egunetan, ikustaldiren bat egin nuela hiriko **inmobiliarietan**. Aingeru Epaltza

**Inmobiliariakoak** sartu ziren txaletean, bota egin zuten eta laster batean hasi ziren eraikuntza berria jasotzen. Joxemari Iturralde

**2** higiezinen akzioa.

Zuk Burtsan asko dakizu-eta, zer iruditzen zaizu, asmatuko nukeela **Immobiliariak** salduz? Fernando Rey

**Immobiliariek** behera egin dute. Fernando Rey

Zeren esperoan zaude zure **Immobiliariak** saltzeko? Fernando Rey

---

## immobiliario *(orobat **imobiliario** eta **inmobiliario**)* *izond* higiezinen, higiezin-.

Jukutria horren bidez, golf eremuarekin batera proiektu **immobiliario** baten eraikuntza ahalbideratu zen, eta aberatsendako 240 etxe eraiki. Berria - Euskal Herria

Agentzia **imobiliarioaren** murruak, leihoak eta ateak erraustu zituen eztandak. Itxaro Borda

Vatikanoaren operazio **imobiliario** erdi-mafiosoak. Berria - Kultura

Espekulazio **inmobiliarioa**. Jon Alonso

---

## immobilismo *(orobat **inmobilismo**)* *iz* ohiko egoera aldatu nahi ez izateko, aurrerabideari uko egiteko joera.

Azaldu zuen **«inmobilismo** politikoa» haustea lortu dela. Berria - Euskal Herria

Elizaren egiturak eta gure **immobilismoak** patriarkatuaren eskema betikotzen dute, gizarteak egiten duen aldaketaren aldeko apustuaren kontra. Berria - Euskal Herria

Adegiren **«immobilismoa»** ikusita, bi eguneko grebara deitu dute ELAk eta LABek.

Iduritzen zaie jujeak lehen aldikotz konprenitu duela batetik SNCF-aren **imobilismoa** ez doala nehora, eta bestetik demoek ez dutela gibelera eginen matraka edo kondenuen gatik. Herria

Bazela beste espazio bat, ETAren indarkeria nahi ez zuena, baina **immobilismoa** ere nahi ez zuena. Berria - Euskal Herria

Hamasek badaki **immobilismo** hutsean geratzeak mesede handia egingo liekeela Israelen benetako akordiorik nahi ez dutenei. Berria - Mundua

**Immobilismoa** ezaugarri zuen politikatik, itxaropenerako pausoa eman dugu. Berria - Euskal Herria

**Immobilismoa»** egotzi dio CCOOk ELAri metaleko hitzarmenean. Berria - Ekonomia

Geroz eta gehiago dira Frantzian **immobilismoa** alboratu eta herrien autonomia areagotu behar dela dioten ahotsak. Berria - Harian

---

## immobilista *(orobat **imobilista** eta **inmobilista**)* *izond* immobilismoak joa; immobilismoaren aldekoa.

PSOEko sektore **inmobilistenak**. Berria - Euskal Herria

Kataluniako Estatutuan ari gara ikusten, sektorerik zentralistenei eta **immobilistenei** amore ematen ari baita. Berria - Euskal Herria

Horrek esan nahi duena da errealitate objektiboa ez dela **immobilista**. Berria - Harian

Ezker Batua ez da inoiz jarrera «suntsitzaile, negatibo eta **immobilistan»** egon. Berria - Euskal Herria

Laborantza mundutik aparte so eginez, hemen, arrunt **imobilista** ez diren egitura guziek pentsatzen dute laborantza ganbera behar litekeela. Berria - Euskal Herria

Eskuindar izanik ere, ez zeukan bere burua **inmobilista** besalper haietakotzat. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **jarrera immobilista** (3)

---

## immobilizatu *(orobat **inmobilizatu**)*, immobiliza, immobilizatzen 1 du *ad* higiezin bihurtu; higidurarik eza atxiki.

Aldi berean, sorbalda **immobilizatzera** jartzen dira lepoko eta bularreko muskuluak. Irene Aldasoro

Zezenei aurre egiten diete esku hutsik, **inmobilizatu** nahian. Karlos Zabala

**2** kapitalez mintzatuz, epe laburrera diru ezin bihurtu diren ondasunetan inbestitu

Argitu gabe geratzen da zergatik nahiago duen enpresa horrek inbertsio baten arriskua hartu, alegia, kapitalak **immobilizatu,** eta ez produktu berrian edo ekoizpen-prozedura berrian interesaturiko enpresekin lizentziak negoziatu. Koro Navarro

Kapital handiak **immobilizatu** behar izaten direla. Koro Navarro

**Immobilizatzen** diren kapitalen zenbatekoa. Koro Navarro

---

## immobilizatzaile *(corpusean **inmobilizatzaile** soilik)* *izond* immobilizatzen duena.

Fontcalent-en egona da Jarraipen Bereziko Internoen Fitxategikoekin lanean, ohitua dago inoren harrotasunaz baliatzen, giltza **inmobilizatzaileak** egiteko. Koldo Izagirre

---

## immolatu *(orobat **inmolatu**)*, immola, immolatzen 1 da/du *ad* Jainkoari eginiko opari gisa hil.

Serhane Ben Abdelmajid Fakhet [...] joan den larunbatean Leganesen (Madril) **immolatu** ziren ustezko ekintzaile suiziden artean dagoela adierazi zuen atzo Espainiako Barne ministro Angel Acebesek. Berria - Mundua

Zinguak, Angolako erreginak, izan den emakumerik ankerrenak, beren maitaleak **inmolatu** egiten zituen, berarekin gozatu bezain laster. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere gorputz atal guztiak eskaintzen zituen opari, eta, gure alde **immolatua** izan den Bildotsa hartzean, bere espiritua **immolatzen** zuen, bere bihotzeko aldarean itzaltzen ez zen sutan. Askoren artean

Gaur egun, zinismoa besterik ez luke sortuko belaunaldi gazteagoetan "Beste" nagusi horren aldarean, "España una, grande y libre" betiko izan dadin, giza sakrifizioak **immola** daitezkeela pentsatze hutsak. Joseba Zulaika

Aberriaren alde bere burua **inmolatzera** bultzatzen du, ekintzaren aurreko fanatismoa delarik beren saria. Juan Martin Elexpuru

**2** *irud*

«Lan-Ikuskaritzan **immolatu** nahi duen enpresaburururik ez da», salatu du. Berria - Euskal Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

**Immolatuaren** patua are larriagotuko zen, zalantzarik gabe, hala jokatu izan banu. Joxan Elosegi

---

**immolazio** *(orobat **inmolazio**) iz* immolatzea.

Auto-**immolazio** moduak ziren azkenik, ihesbideak, kontraesan jasanezinetatik, Bilboko infernutik, Euskal Herri eroritik. Joseba Zulaika

Nik neuk ere ez nuen beste irtenbiderik ikusten: **inmolazioa** edo tortura. Agurtzane Juanena

Waltraud Meier sopranoaren gaixotasunak aldarazi egin zuen jatorriz ezohikoa eta mamitsua izango litzatekeen egitaraua, hau da, bigarren zatian Richard Wagnerren *Jainkoen gainbehera*-tik Brunhilderen **immolazio** eszena. Berria - Kultura

---

**immoral** *(corpusean **inmoral** soilik) izond* moralgabea; moralaren aurkakoa.

Maizenik, tradizioarekin bat datorrena, gizarteak moraltzat hartu ohi du; **inmorala,** etimologikoki, "ezohikoa" besterik ez da hain zuzen. Joxe Azurmendi

Poligamia **inmorala** ote da? Joxe Azurmendi

**Inmorala** da gizartearen elkartasuna iruzurraren diruarekin finantzatzea. Berria - Ekonomia

Gizon txit **inmorala,** txit susmagarria eta gizartearentzat txit lotsagarria. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zentzugabea bezain arriskutsua litzateke makinaren ibilera **inmoralari** etengabe eutsi behar dioten pertsonak moralak izatea eskatzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Irudimen sukartsu eta **inmoralekoa**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**immoralismo** *(corpusean **inmoralismo** soilik) izond* moral arruntaren arauen alderantzizko arauak proposatzen dituen doktrina.

Nietzscheren **inmoralismoa,** nolanahi ere, gutxienez sofistengan bezainbat, askoz gehiago seguruenik, moral "heroikoan" inspiratu da, aro "tragikoaren" espirituan. Joxe Azurmendi

---

**immoralista** *(corpusean **inmoralista** soilik) izond* ezaugarritzat immoralismoa duena; immoralismoaren aldekoa.

Lehengo filosofo moralisten aurka, sasimoral horren genealogia bastarta saiatuko da erakusten oraingo filosofo (agian hobe: "psikologo") **inmoralista**. Joxe Azurmendi

Funtsean bietan **inmoralistena,** hori da kontua, Diodoto "humanitarioa" baita; ez, denak hilarazi nahi lituzkeen Kleo gupidagabea. Joxe Azurmendi

---

**immoralitate** *(corpusean **inmoralitate** soilik) izond* immorala denaren nolakotasuna.

Neska baten bizipoza gehiegikerian eta **inmoralitatean** ez balego bezala, emakumerik zoriontsuena lohi eta lizunkerian murgilduta bizi dena ez balitz bezala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Orain preso politikoen **inmoralitatea** erakutsiko die preso sozialei, ohoinak eta trafikatzaileak besterik ez omen diren hauei. Koldo Izagirre

Zenbat eta **inmoralitate** handiagoa, zenbat eta plazer gehiago, orduan eta sehaska gutxiago eta zerraldo gehiago! Fernando Rey

---

**immoralki** *(corpusean **inmoralki** soilik) izond* moral arruntaren aurka.

Horrela, gizakiak, naturalki diharduenean, beti dihardu ongi: ekaitza sortu eta euriak harrapatzen bagaitu eta burutik behera blai-blai utzi, zeinek esaten du horregatik naturak **inmoralki** diharduenik? Joxe Azurmendi

---

**immoraltasun** *(corpusean **inmoraltasun** soilik) izond* immorala denaren nolakotasuna.

Politiko handiaren moral edo **inmoraltasun** arazorik ez dago beraz. Joxe Azurmendi

Haren **inmoraltasunaren** pozoiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**immortalitate** *(corpusean **inmortalitate** soilik) izond* hilezkortasuna.

Zer duk Joachim du Bellayren **inmortalitatea**? Mikel Hernandez Abaitua

Batzuentzat inportantea duk **inmortalitate** literarioa. Mikel Hernandez Abaitua

---

**immortalizatzaile** *(corpusean **inmortalizatzaile** soilik) izond* hilezkortzen duena.

-Bai, ukabilkadea zelan emoten deutsudan **inmortalizatzea** derrigorra da. Jon Arretxe

---

**immune** *(orobat **inmune** g.er.) izond* organismoez eta kidekoez mintzatuz, immunizatua, immunitatea duena.

Bakterio arriskutsuen seinalea jasotzen duten errezeptoreak blokeatzen dituzte, zelula **immuneetan**. Berria - Gaiak

Kakalardoarekiko **immuneak** diren arto-landare transgenikoak bilatzen dituzten laborategiek. Berria - Gaiak

Sistema **immuneak** sortarazten dituen errefusak. Berria - Gaiak

Sistema **inmunearen** parte diren CD4 motako zelulen heriotza. Berria - Gaiak

Kultur txaubinismoaren gaitzaren aurka **immune** bihurtzeko. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Gizarteak, azken batean, ez duela **immune** izan behar horrelako patu baten aukerarekiko. Iñaki Mendiguren

Norbera **inmune** eta zigorgabe uste izatea. Jon Alonso

---

**immunitate** *(144 agerraldi, 5 liburu eta 64 artikulutan; orobat **inmunitate** 17 agerraldi, 9 liburu eta 3 artikulutan)* **1** *iz* pertsonez mintzatuz, zenbait zigor, eginbide edo betebeharrez salbuetsia egoteko abantaila.

Paramilitarrek amnistia eta **immunitatea** eskatzen dute akordioa sinatu aurretik. Berria - Mundua

Gorenak Pinocheti **immunitatea** kentzeko erabakia berretsi du. Berria - Mundua

Helegite Auzitegiak **immunitatea** kentzea baztertu zuen.

Jose Efraim Rios Montt jeneral ohiak atzo **immunitate** parlamentarioa galdu zuen. Berria - Mundua

Lehen ministroari erabateko **immunitatea** ematen dion legea. Berria - Harian

Bosniatik soldaduak erretiratuko zituela ohartarazi zuen [...] AEBetako presidenteak, Nazioarteko Zigor Auzitegiak **immunitatea** eman ezean. Berria - Mundua

Eliza katolikoak, berriz, hirurak errugabeak zirela esan eta **immunitate** diplomatikoa eman zien. Berria - Mundua

2003ko ekainaren 18an Schifani legea onarrarazi zuen, korrika eta presaka, bere **immunitatea** bermatzeko. Berria - Mundua

Washington saiatu da bere inguruko enpresari eta mertzenarioentzat **immunitatea** lortzen. Berria - Mundua

Elizgizonek beren lurraldean justizia egiteko zuten eskubideari **inmunitate** deitu zitzaion. Iñaki Iñurrieta

Nazioarteko Zigor Auzitegian duten **immunitatea** beste urte batez luzatzen ahaleginduko dira AEBak. Berria - Mundua

Seguraski, horixe bera frogatzeko eman zuen elkarrizketa jeneralak, **immunitateak** edozertarako balioko ziola pentsatuta. Berria - Mundua

**Immunitatea,** agintean dauden bitartean eraginkorra izateaz gain, aurretik irekita dauden kasuetara ere hedatzen da.

Bere uharte-gotorlekuak ematen zion **immunitate** konparatiboaz baliatuz. Iñaki Mendiguren

Haietako biztanle behartsu, ahul, atzeratuei **immunitate** birtuala emateko militarista "zibilizatuen" adeitasun gogaikarriaren aurka. Iñaki Mendiguren

**2** organismoez mintzatuz, zenbait agente patogenok ezin erasana izatea.

Animaliatxo hori egokia zen **immunitatea** aztertzeko, baina immunologoek untxia erabiltzen zuten. Juan Garzia

Txerto bidez eragin daiteke **immunitate** artifiziala. Irene Aldasoro

**Immunitatea** ematen duen genea identifikatu dute. Berria - Gaiak

Antigorputzak eta **inmunitatea**. Irene Aldasoro

**3** *irud*

*A priori* justifikatuak izan diren usteak, ezezta al ditzake esperientziak? razionalistaren ustez, ezin da eraginik izan uste horien gain, ukiezinak dira, nahiz eta argi ez laga **immunitatea** nola den posible. Askoren artean

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Inmunitate**-pribilegioa eta, beraz, justiziarena, elizgizonenak eta seglarrenak zirela. Iñaki Iñurrieta

Berlusconiren **Immunitate** Legea ezeztatu du Italiako Justiziak. Berria - Mundua

Europako Legebiltzarreko Auzi Juridikoetarako Komisioak aho batez atzera bota zuen atzo Koldo Gorostiaga legebiltzarkide ohiak eginiko **inmunitate** eskaera. Berria - Euskal Herria

NBE pozik dago Estatu Batuek **immunitate** eskaera erretiratzeagatik. Berria - Mundua

Estatubatuarren **immunitate** epea ekainaren 30ean amaituko da. beste 89 estaturekin sinatu dituzte AEBek **immunitate** akordioak. Berria - Mundua

Nire **inmunitate**-gaitasunen prozesu salbatzaile bati esker. Joxan Elosegi

Legebiltzarreko **Immunitate** Batzordeak. Berria - Mundua

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ebidentzia klinikorik ez badago ere, zelula **immunitateari** kalte egin diezaioke, baina kaltea behin-behinekoa da. Berria - Harian

**6** ***immunitate sistema*** agente patogenoek ezin erasana izateko organismoaren sistema. ik **immunologia 2; immunologiko 2; immuno 2**.

Birus bat, bere transmisio bideak dituena eta gure **immunitate** sistemari eragiten diona, hau da, defentsarik gabe uzten gaituena. Luis Elberdin

Zenbait kasutan, birusak ez du lortzen **immunitate** sistema suntsitzea. Luis Elberdin

**Immunitate** sistemak ernaltzea galaraz dezake. Berria - Gaiak

Kutsadurak hartz zuriaren **immunitate** sistema ahuldu du. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**auzitegi gorenak immunitatea** (3); **auzitegiak immunitatea** (6); **auzitegiak immunitatea kentzea** (3); **eta immunitate** (4); **eta immunitatea** (3); **gure immunitate** (4); **helegite auzitegiak immunitatea** (5); **immunitate legea** (12); **immunitate legea onartu** (3); **immunitate legearen** (4); **immunitate sistema** (16); **immunitate sistema gogortzen** (3); **immunitate sistemak** (7); **immunitate sistemaren** (4); **immunitate sistemari** (4); **immunitatea ematen** (5); **immunitatea galdu** (3); **immunitatea kendu** (7); **immunitatea kendu zion** (3); **immunitatea kentzea** (8); **immunitatea kentzea baztertu** (3); **immunitatea kentzeko** (8); **immunitatea kentzeko erabakia** (3); **pinocheti immunitatea** (6); **pinocheti immunitatea kentzeko** (5); **zuen immunitate** (4); **zuen immunitate legea** (3)

---

**immunizatu**, immuniza, immunizatzen *(orobat **inmunizatu** g.er.)* **1** da/du *ad* agente patogenoek ezin erasana izateko prestatu.

Horrek esan nahi du gaur egun jende asko dagoela txertatu gabe eta, beraz, gaitzaren kontra **immunizatu** gabe. Berria - Gaiak

Gaitz bati aurre egiteko, demagun, antibiotikoak "egiaz" hartu behar dituenean, pazientea **immunizaturik** egotea. Edorta Agirre

**2** *irud*

Zer pentsa oroitzapen edo fantasia neurotiko edo histerikoez, denboraren higadurarekiko **immunizatuak** baitirudite? Xabier Olarra

Lagunekin hitz egiten hasi nintzen, eta ohartu nintzen jendea nolabait **immunizatuta** dagoela. Berria - Kultura

Sen estetikoa erabat itxuragabetua eta atrofiatua du hori dioenak, father Bill eta antzeko marikoiak bezala, beren burua alu baten edertasunaren kontra **inmunizatzeraino** iritsi zirenak. Karlos Zabala

---

**immunizatze** *iz* agente patogenoek ezin erasana zateko prestazea.

Joan zen abuztuan eten zuten **immunizatze** programa. Berria - Gaiak

---

**immunizazio** *(orobat **inmunizazio** g.er.)* *iz* immunizatzea.

Gaitza desagertu den arren, berriz agertzeko arriskua dagoen lekuetan **immunizazio** kanpaina bereziak bultzatu behar dira. Berria - Gaiak

**Immunizazioak** 10 urte irauten duela ziur dakite, baina hortik gora datuak kontrajarriak dira. Berria - Gaiak

**Immunizazioaren** aurkako zaplaztekoa da film hau. Berria - Kultura

Aire garbia hartzen dutenek eta janari kontuan neurritsu direnek **inmunizazioa** dute gaitz honen sarraskien kontra. Xabier Olarra

---

**immuno** *(orobat **inmuno**)* ik **immunoantisorkuntza; immunosupresore; immunoterapia**.

**1** ***immuno eskasia*** organismoaren gaitasunik eza infekzioei aurre egiteko.

Hiesa (Hartutako **Immuno** Eskasiaren Sindromea) gaitz bat da, GIB Giza **Immuno**-Eskasiaren Birusak eragiten duena. Luis Elberdin

Giza **Immuno-Eskasiaren** Birusak kutsaturikoak ia 40 milioi dira jada munduan.

Giza **Inmuno**-eskasiaren Birusa dutenek (GIB) eta GIBak kutsatu gabeko emakumezkoek osatutako bikoteek. Berria - Euskal Herria

Ugari dira Giza **Inmuno-eskasiaren** Birusa izan eta haurdun geratu direnean gaitza haurrari kutsatu dioten amak ere. Berria - Gaiak

**Inmuno**-eskasiak piztutako neumozistis bakterioaren aurkakoak. Joan Mari Irigoien

**2** ***immuno sistema*** immunitate sistema. ik **immunologia 2; immunologiko 2.**

*In vitro* zelulak eta **immuno** sistemarik bako saguak erabili genituen laborategian. Berria - Gaiak

Neutrofiloak **immuno** sistemako zelulak dira berez, koloratzaile neutroz tindatzen diren zelulak. Berria - Gaiak

Dendrita zelulak gizakiaren **immuno** sistemako zelulak dira. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **giza immuno** (3); **giza immuno eskasiaren** (3); **immuno eskasiaren** (4); **immuno sistemako** (4)

---

# immunoantisorkuntza *iz*

O'Randen taldeak urteak eman ditu **immunoantisorkuntza** izeneko teknika lantzen. Berria - Gaiak

---

# immunoglobulina *iz* odol gazuran eta beste isurkari organiko batzuetan aurkitzen den proteina, antigorputzak osatzen dituena.

Hain zuzen ere, bikoiztez bikoizte eratu dira, besteak beste, hemoglobinen moduko gene-familia asko, hainbat erregulazio-eragile eta **immunoglobulinaren** familiako geneak. Juan Garzia

---

# immunologia 1 *iz* organismoen immunitate gertakarien azterketa.

**Immunologiak** eta genetikak, bada, luze-zabal frogatu dute ezen, biki petoak izan ezik, gutariko bakoitza desberdina dela Lurraren gainean bizi izan diren, bizi diren edo biziko diren gizakien aldean. Juan Garzia

Era berean, mikrobiologiaren eta **immunologiaren** inguruko eskolak ere eman ditu. Berria - Gaiak

Bi atera nituen, *Artxibo mediko-kirurgikoak* eta ***Immunologiako*** *aldizkaria*. Joseba Urteaga

**Immunologia** eta onkologia departamentuko arduraduna. Berria - Gaiak

**2 *immunologia-sistema*** immunitate sistema. ik **immunologiko 2; immuno 2.**

Ondorioz, askok ikusmen arazoak dituzte eta **immunologia-sistema** ahulagoa dute, besteak beste. Berria - Gaiak

Era berean, **immunologia-sistema** ahultzen du, eta, ondorioz, gaitz infekziosoak errazago zabaltzen dira. Berria - Gaiak

Gorabehera handiko dietek **immunologi-sistemari** kalte egiten diotela esan dute. Berria - Gaiak

---

# immunologiko *(orobat **inmunologiko**)* 1 *izond* immunologiari dagokiona; immunitatearei dagokiona. ik **immunitate 4.**

Bihotzeko gaitzak eta zenbait gaixotasun **immunologiko** aztertzeko beste ate bat ireki dutela esan dute Pittsburgheko Unibertsitateko ikertzaileek. Berria - Gaiak

Antigorputzen tasun **immunologikoak**. Juan Garzia

Gai horren aurkako babes **inmunologikoa** sortuz. Berria - Euskal Herria

Erantzun **immunologikoa** bilatzen duen txerto hau esperimentazio fasean dago oraindik. Berria - Gaiak

Desberdintasun **immunologikoak,** bi modutara argituak. Juan Garzia

Erreakzio **immunologiko** bat sortzen da. Irene Aldasoro

**2 *sistema immunologiko*** immunitate sistema. ik **immunologia 2; immuno 2.**

Harik eta gorputzaren sistema **immunologikoa** gainditzeko teknika hobeak garatu ziren arte. Irene Aldasoro

Gorputza babesteaz arduratzen diren zelulak -sistema **immunologikoa** osatzen dutenak- berehala jotzen dute birusaren kontra. Berria - Gaiak

Sistema **immunologikoaren** antigorputzak. Iban Zaldua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erantzun immunologikoa** (3)

---

# immunologo *iz* immunologialaria.

Animaliatxo hori egokia zen immunitatea aztertzeko, baina **immunologoek** untxia erabiltzen zuten. Juan Garzia

Garai hartan, Institutuko animalia-erabiltzaile nagusiak **immunologoak** ziren, untxia zutela animalia kuttun. Juan Garzia

---

# immunosupresore *izond* sendagaiez mintzatuz, organismoaren immunitate erreakzioak ahultzen edo ezeztatzen dituena.

60ko hamarkadan sortu zituzten botika **immunosupresoreak** azatriopina eta ziklosporina kasu. Berria - Gaiak

Hartzaileak, esaterako, bizi osorako tratamendu **immunosupresorea** jarraitu beharko du.

---

# immunoterapia *iz* organismoaren immuniatea gehitzean datzan sendabidea.

**Immunoterapiaren** bidetik. Berria - Gaiak

---

# imoskapo *iz* zutabearen enborra hasten den zati kurbatua.

Tenplu eustiloaren kolometan ere, sistiloarenetan bezala, bederatzi zati eta erditan banatu behar da altuera, eta horietako zati bat izango da **imoskapoaren** lodiera. Santiago Iruretagoiena

Kolomaren fusteak finkatuta daudenean, honako proportzio honen arabera egin beharko dira kapitelak: joniarrak baldin badira, **imoskapoaren** zabalerari hamazortziren bat gehitu ondoren, abakoak haren luzera eta zabalera berdina izango ditu. Santiago Iruretagoiena

---

# imurtxi *(orobat **imurtzi**)* 1 du *ad* atximur egin.

Gero, titiburuak **imurtxi,** eta, gogortu zaizkionean, eskuineko hiru hatz luzeenen puntak zupatu, eta alura eraman ditu lizun. Batek egin diola besotik **imurtzi,** / bigarrenak masallen pixkabat igurtzi, / irugarrenak berriz ukittu ta utzi, / Orratx gure okerra zer dan erakutsi. Patxi Iturritegi

**2 *imurtxi egin*** atximur egin.

Jakingurak barrena **imurtxi** egiten zion eta gonbitea onartu zuen. Migel Angel Mintegi

---

# **in fraganti** *adlag* hutsegite edo delitu bat egiten den ume berean. ik**zopa 9**.

Nik **in fraganti** gezurretan harrapatu nuelako. Matías Múgica

Gasteizko Udalak enpresa bat **in fraganti** harrapatu zuen joan zen astelehen gauean, estoldetara azidoa botatzen ari zen bitartean. Berria - Euskal Herria

Leihotik oilo arrotz bat bere baratzean aztarrika ikusten zuen edonork eskubidea zuen fusila hartu eta bi aldiz tiro egiteko hari: **in fraganti** behar zuen, haatik. Juan Garzia

---

# inabilitazio ik **inhabilitazio**.

---

# **inakitibitate** *iz* jarduerarik eza.

Israelgo kokaguneen aurkako Bakea Orain taldeak Zisjordanian Israelgo Gobernuaren baimenik gabe eraikitako kokagune bat suntsitu zuen, Gobernuaren **inaktibitatea** salatzeko.

---

# **inaktibo** *izond* jardueragabea.

Aita ohean etzanda egoten zen, ilea orraztu gabe, begirada galduta, eskuak **inaktiboak**. Joseba Sarrionandia

Batzordearen arabera, «zaintza denboran **inaktiboak** diren aldiak ez dute behar aldi aktiboak bezain besteko babesik», eta, ondorioz, «zaintza denboraren zati jardueragabea ez da lan denbora». Berria - Ekonomia

---

# **inar**[1] *(orobat **inarri** g.er.)* **1** *iz* txinparta, pindarra.

Zigarroaren **inar** ilauna. Juan Garzia

Ez zen linterna bakar baten distirarik edota inongo suren **inarrik** ere ikusten. Agustin Otsoa

Burua jasorik, ikasketa-burua ikusi nuen ate zabaldu berriko argi-**inarri** hits baten erdian, nitaz galdezka. Anjel Lertxundi

Eta haren mihia bertze ezpata bat zen, xindak eta **inarrak** zerizkiona, suzkoa zenean; baina hotza eta zorrotza ere izan zitekeen... Joan Mari Irigoien

Eta, musu hura **inarra** bezain fite iragan eta iraungi zen arren eta iraute apurrekoa izan zen arren, izar finko bat bihurtu zen, handik aitzina, ene memorian. Joan Mari Irigoien

**2** *irud*

Harik eta osabaren begiek bi **inar** erakutsi zizkidaten arte, malizi puntu batek piztuak eta argituak. Joan Mari Irigoien

**3** ***inar bat*** poxi bat, apur bat.

Bi libra arroz, piper batzuk, gatz **inar** bat zeramatela.... Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta inarrak** (3)

---

# **inar**[2] *iz* ginarra, txilarra.

Udako solstizioaren egunari dagokion zuhaitza da *ainar* edo *añarra,* edo beste bailaratan ***inar*** edo *ginar* ere deitzen zaiona. Pello Zabala

Urrian, artoak burutzen eta **inarrak** buztantzen; **inarrak,** noski, inaurkinetako erabiltzen diren ihi eta garoei deitzen diete zenbait eskualdetan; baita txilar eta erratzak egiteko erabiltzen den isats luzexka horiei ere. Pello Zabala

---

# **inarrosaldi** *(orobat **inarrausialdi** g.er.)* **1** *iz* inarrostea.

Gaua heldu zaigu; treina badoa trinkili trankala, **inarrosaldi** ederrik hartzen dugula. Marzel Etxehandi

Irribarrez begietsi zituen ibilgailuaren **inarrosaldiei** amorerik ez emateko nire ahaleginak. Aingeru Epaltza

Debalde ene fereka amultsuak eta **inarrosaldi** bortitzak. Aingeru Epaltza

Baina hara non, bat-batean, **inarrosaldi** batek eraso egin zion, gorputz-arimak porrokarazi. Patxi Zubizarreta

**Inarrosaldi** handi bat sentitu nuen Yvanen bizkarrezur osoaren luzeran. Joxan Elosegi

Itsaso pean gertatu den **inarrosaldi** horrek uhainak haizatu ditu lur aterberat, hogei metra gora eta gehiagokoak, oro eremaiten zituztela, jende, kabala eta oihal etxola. Herria

**2** *irud*

Azkeneko mende honetan errealitatearen ikuskera artistikoan izan diren **inarrosaldiak** ere ez dira aski izan ohitura hori galtzeko. Josu Zabaleta

Jauntxoentzat **izugarriko** inarrosaldia izan da, sekulako zafraldia. Berria - Harian

**Inarrosaldi** handi baten ukaiteak on egiten du, hain segur, bainan dena dela nahiago dut ez abiatu! Menane Oxandabaratz

Diktatura pean, euskal kantagintzari eta euskal kulturari oro har gaitzeko **inarrosaldia** eman zuen talde hunek. Herria

Ukrainan beste **inarrosaldi** mota bat izan da Errusiaren hegietako herri hortako bozekin. Herria

Aurreneko **inarrausialdi** haien ondoren, zerbait argi geratu bada, zera da, demokrazia formala bada, formak galtzeak demokraziaren gainbehera besterik ez dezakeela ekarri. Berria - Euskal Herria

Bi egun baizik ez ziren haren menpeko Ramirezek bigarren **inarrosaldia** eman zidanetik. Aingeru Epaltza

Aurreneko sentimendu **inarrosaldia** igaro ondotik, senarrarekiko orain sentitzen duen amodioa handiagoa dela. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inarrosaldi bat** (4)

---

# **inarrosarazi,** inarrosaraz, inarrosarazten du *ad* inarrostera behartu.

Handik gutxira lurra mugitzen hasi zen eta etxeak erortzen, amets gaiztoko indar gaitz bat kaleak **inarrosarazten** balebil bezala. Pello Salaburu

Zuhaitz iharrak tankaz **inarrosaraziz** hegaldatzen ziren hogei bat sai, zeru gris hotzean jostatzen miretsi zituen Agatak. Itxaro Borda

Paris osoa irudiz bermeetan **inarrosarazteko** oihua askatu zuen Xarlesek. Itxaro Borda

## **inarrosi**[1], inarros, inarrosten *(orobat* ***inarrausi*** *g.er. eta* ***iharrausi*** *g.er.)* **1** du *ad* astindu, higidura bortitzez higitu. (norbait)

Hotzikara batek **inarrosi** ninduen. Aingeru Epaltza

Barru-barruraino **inarrosi** naute kolpe lehorrek. Alberto Barandiaren

Zirrara batek **inarrosi** nau. Txillardegi

Andereak atsedenik gabe xurgatzen zidan eta beste orgasmo batek **inarrosi** ninduen, lehenak bezain ezustean. Juan Martin Elexpuru

Ikaraldi batek **inarrosi** zuen Teresa. Migel Angel Mintegi

Emozioa, artetan **inarrosi** nauena. Piarres Aintziart

Graxik ere izigarrikeria haiek bizi izan zituela ohartzen dira eta laztura batek **inarrosten** ditu. Eneko Bidegain

Geldi-geldi geunden, zurbil, gertakizun izugarriren baten zain, belarria erne, bihotza taupadaka, edozein hotsek **inarrosten** gintuela. Josu Zabaleta

Bat-batean, sukar batek **inarrosten** du zaldun gaztea, bien gorputzak kordokatzen dira eta biak erortzen dira, ezin atxikia den ikarak pirripitan badaramatza lurraren gainean, harat eta honat, itzulipurdika, alderdi guzietara. Michel Oronoz

**2** (zerbait)

Eperrek borrokari eutsi diote, astinka, hegoak **inarrosiz,** lumak barreiatuz. Itziar Otegi

Filipinetako artxipelagoa azken egunotan **inarrosi** duten tifoiek 1.000tik gora hildako eta desagertu eragin dituztela. Berria - Mundua

Denon etxea den lurra **inarrosi** egin da: arma termonuklearrak lehergailu atomikoaren ordezkoak dira. Mendia **inarrosi** zuen erauntsi bat izan zen. Felipe Juaristi

Iparraizeak bazterrak **inarrosten** zituen martxoko egun batean. Joan Mari Irigoien

Neguko haize zakarrak **inarrosten** zituen haien kapa ilunak, denak itxura berekoak. Aingeru Epaltza

Burua eta besoak **inarrosi** zituen. Itxaro Borda

Burua **inarrosi** nuen, baietz alegia, baina keinu automatikoa izan zen gehiago, gogoeta baten ondoko erantzuna baino. Aingeru Epaltza

Dardara egin zioten hankek, zirrara hotz batek **inarrosi** zion gorputz osoa. Unai Iturriaga

Kafeak noski zainak **inarrosi** zizkidan, oilo larrua denetan hedatuz. Itxaro Borda

Joxek airean **inarrosi** du makila. Pello Lizarralde

Bereterrak are biziago **inarrosi** zuen urrezko intsentsu ontzia. Itxaro Borda

Klarak azukre-ontzia **inarrosi** zidan begi parean. Aingeru Epaltza

Haize deabruzko batek **inarrosi** balitu bezala biziberritu dira txingar likitsak. Aingeru Epaltza

Etxeak lehertzen ari, lur-ikara batek **inarrosi** balitu bezala! Janbattitt Dirassar

**3** *irud*

**Mundua** inarrosi duten aldakuntza handiak. Herria

Nazioarteko banku-sistema errotik **inarrosi** zuen 1980ko hamarraldiko zorraren krisiari. Koro Navarro

Irail hondarrean, berri batek Frantzia osoa **inarrosi** zuen: Legebiltzarra desegina izan zen erresumari konstituzio berri baten emateko. Elena Touyarou

Hots, bada saltsa bat ederra! zerbait on jalgiko ote da halere azkenean alderdia hola **inarrosiz** ? Herria

Euskal literaturaren putzu bare ia ustela gogotik **inarrosi** zuena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ideiak **inarrosi** nahi ditugu, eztabaida piztu. Berria - Euskal Herria

Legeak trabak ezartzen baditu, herriarengana jo behar dugu, kontzientziak **inarrosiz** . Berria - Euskal Herria

Atxiloketak bazterrak **inarrosi** ditu Baionako auzitegian. Berria - Euskal Herria

Hamida desagertzeak goitik behera **inarrosi** zuen bere bizitza. Patxi Zubizarreta

Tristura bulta batek **inarrosi** zion barnea. Itxaro Borda

Barne guzia **inarrosi** zitzaidan! Janbattitt Dirassar

Eta barrena **inarrosi** zidaten, hunkitu egin ninduten. Txillardegi

Ez ziren diru kontuak izan Migelen bihotza **inarrosi** zutenak. Aingeru Epaltza

Gogo bihotza **iharrausten** zait bi hitz horien entzütez. Herria

Istorio horrek biziki **inarrosi** zuen [ama]. Elena Touyarou

Zail suertatzen da irakurlea **inarrostea,** haren hunkidura eragitea. Berria - Kultura

Horrek guztiak kontzientziaren hondo iraultzailea **inarrosi** baitzidan une zehatz batean. Karlos Linazasoro

Seinanen hezurrak entzun ziren haltsarretan txertatzen, geldotasunaren oreka **inarrosiz,** jasanezinezko hats hiroa etxe barnean berriz barreiatzen zela. Itxaro Borda

· **4** da *ad* higitu.

Ikusi zuen nola **inarrosten** zen paradisu-arbola bere hostoak erortzen utziz. Juan Garzia

Bazirudien hango hautsak eta isiltasunak ere ezkutuko magiaren batez **inarrosten** zirela. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat inarrosi** (4); **batek inarrosi** (22); **batek inarrosi ninduen** (6); **bazterrak inarrosi** (6); **bazterrak inarrosi ditu** (4); **behera inarrosi** (3); **besoak inarrosi** (4); **bortizki inarrosi** (3); **burua inarrosi** (8); **burua inarrosi zuen** (6); **burua inarrosiz** (3); **eta inarrosi** (5); **goitik behera inarrosi** (3); **guzia inarrosi** (7); **haizeak inarrositako** (3); **horrek inarrosi** (3); **hotzikara batek inarrosi** (3); **inarrosi behar** (4); **inarrosi ditu** (13); **inarrosi dituzte** (4); **inarrosi du** (9); **inarrosi duen** (3); **inarrosi egin** (3); **inarrosi egiten** (4); **inarrosi eta** (15); **inarrosi nahi** (4); **inarrosi nau** (3); **inarrosi ninduen** (12); **inarrosi zen** (4); **inarrosi zion** (4); **inarrosi zituen** (8); **inarrosi zizkidan** (6); **inarrosi zuen** (38); **inarrosia izan** (3); **mundu guzia inarrosi** (3)

**bat inarrosten** (3); **batek inarrosten** (5); **bazterrak inarrosten** (9); **burua inarrosten** (7); **eta inarrosten** (7); **inarrosten ari** (5); **inarrosten da** (3); **inarrosten ditu** (5); **inarrosten dituen** (3); **inarrosten du** (8); **inarrosten duen** (4); **inarrosten dute** (3); **inarrosten eta** (5); **inarrosten hasi** (3); **inarrosten ninduen** (6); **inarrosten zituen** (3); **inarrosten zituztela** (3); **inarrosten zituzten** (6); **inarrosten zuen** (12); **inarrosten zutela** (3); **inarrosten zuten** (7); **nola inarrosten** (3)

## **inarrosi**[2] *iz* inarrosaldia.

Katuak, gorputzaren **inarrosiaz,** bizirik dagoela ageri du, baina ez du mugitzeko ahaleginik egin. Itziar Otegi

Bestea gertakarietan murgiltzea zen, bortizkeriaz eta malkoen, hasperen-**inarrosien** eta negar-zotinen eldarnioarekin. Fernando Rey

Bolidoak igarotzean eragiten duen **inarrosiak** kristaldu egiten du atmosferako ur lurruna. Josu Zabaleta

## **inarrositsu** *izond* inarrosiz betea.

Arestiren oskorri **inarrositsuan** bizi izan zuen nire belaunaldiak ETAren lehen hamarkada. Joseba Zulaika

## **inarroska** *adlag* astinduz.

Txakurra etorri zitzaien, isil, buztana **inarroska** . Koldo Izagirre

Eta pikondo ahul bat banintz bezala eragiten zidan **inarroska** . Koldo Izagirre

Bakoitza **inarroska** eta grimaska bere baitaratzen da. Marzel Etxehandi

Urgun handiak eginez besoak **inarroska** abiatu zaionean. Koldo Izagirre

---

# inarrosle 1 *izond* inarrosten duena.

Orain neure baitan dardara **inarrosle** bat sumatzen dut, metrokoa baino askoz bortitzagoa, azpi-azpian nuen desioa zuhaitzetako sustraiak bezala kanporatu nahian dabilena. Patxi Zubizarreta

• **2** *iz* zerbait inarrosten duen pertsona.

Bazter **inarrosleak** eta saloietako iraultzaileak ere trenpu txarrean uzten zituzten. Itxaro Borda

---

# inarroste *iz* astintzea, higidura bortitzez higitzea. ik **inarrosaldi**.

Horiek baitira mugimendu hori hots bihurtzeko miraria egiten duten maitagarriak, metamorfosi horren bitartez izadiaren **inarroste** mutua kantari egiten duen musika sorrarazten dutenak... Josu Zabaleta

**Inarroste** txiki horiek guztiak isolatu egiten ziren, berez ezartzen ziren. Monika Etxebarria

**Inarroste** bat ukan dute hor parioek, zenbaiten kaltetan naski. Herria

---

# inaugural *izond* inaugurazio bati dagokiona, inaugurazio-.

Bikoteengan gau **inauguralaren** memoria berritzeak sortzen duen atseginarekin. Joxean Agirre

---

# inauguratu, inaugura, inauguratzen 1 du *ad* eraikin, zerbitzu edo kideko zerbait jendaurrean lehen aldiz abian jarri.

Lehenagotik abian bazegoen ere, atzo **inauguratu** zuten ofizialki eraikin erraldoia. Berria - Euskal Herria

Bizkaiko Zubia Alberto de Palacio ingeniariak diseinatu zuen eta 1893an **inauguratu** zen. Berria - Kultura

Arasur plataforma **inauguratu** dute, etorkizunean merkantziak trukatzeko Euskal Herriko gunerik handiena izango dena. Berria - Ekonomia

Franco urtegi berria **inauguratzera** Gasteizera joan zenean. Mikel Hernandez Abaitua

Autobidea bi urte lehenago **inauguratu** zuten. Juan Luis Zabala

Oraingoz **inauguratu** duten bakarra lur azpiko aparkalekua da. Berria - Kultura

Obaban kirol zelaia **inauguratu** zuten egunekoa. Bernardo Atxaga

Gamesa Energiak AEBetako Ilinois-en parke eoliko bat **inauguratu** zuen atzo. Berria - Ekonomia

Nazionalistek 1931ko uztailaren 26an Euzko-Etxea edo batzokia **inauguratu** zuten Hondarribian, Monzon, Barrena eta Oruetaren mitinarekin. Berria - Kultura

On Camillo ikusten egon zen Herriaren Etxea **inauguratzeko** ekitaldia. Koldo Biguri

Malaysiako hotela, guztiz amaituta egonda ere, **inauguratu** gabe omen dago oraindik. Patxi Iturritegi

Gaur **inauguratuko** dute Artziniegako Museo Etnografikoa Araban. Berria - Kultura

BERRIAk Iparraldeko egoitza berria **inauguratu** du, Baionan. Berria - Euskal Herria

Hurrengo egunean, urriaren 7an, **inauguratuko** du Miren Azkaratek Frankfurteko euskal erakusmahaia. Berria - Kultura

Jorge Oteizaren 'Ertz hutsa' **inauguratuko** dute gaur Irunen. Berria - Kultura

Bilduma iraunkorreko lau erakusketa eta aldi baterako beste hainbeste **inauguratu** ditu Guggenheimek 2003an. Jaialdia asteazkenean **inauguratuko** du, Montxo Armendarizen *Obaba* filmak. Berria - Kultura

**2** hasiera eman.

Aurrenekoa, Italiako iparraldeko hiri estatuek **inauguratu** zutena, hazkunde lasterreko bidea izan zen. Koro Navarro

Gau gogoangarri bat **inauguratu** zuen jatetxeko ordainagiria. Joxean Agirre

Maitasun historia berri bat **inauguratuko** dute aireportuko behelainoan THE END agertzen den une berean. Joxerra Garzia

Leialtasun bat **inauguratzen** du subjektuarengan ekintza horrek, prozedura bat. Joseba Zulaika

Harro nengoen zulatua izan nintzelako nire odolaren tanta batzuen erdian, milikeriarik gabe, benetako emea benetako arrak **inauguratu** behar duen gisan. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atzo inauguratu** (18); **atzo inauguratu zuen** (4); **atzo inauguratu zuten** (10); **bat inauguratu** (10); **bat inauguratu zuen** (4); **berria inauguratu** (14); **berria inauguratu dute** (3); **berria inauguratu zuen** (4); **berria inauguratu zuten** (4); **egoitza berria inauguratu** (7); **erakusketa inauguratu** (3); **eskultura inauguratu** (4); **etxea inauguratu** (3); **frontoia inauguratu** (3); **inauguratu behar** (5); **inauguratu berri** (5); **inauguratu du** (12); **inauguratu dute** (17); **inauguratu gabe** (3); **inauguratu zen** (10); **inauguratu zituen** (3); **inauguratu zituzten** (3); **inauguratu zuen** (27); **inauguratu zuen atzo** (10); **inauguratu zuten** (50); **inauguratu zuten atzo** (8); **inauguratu zutenetik** (4)

**bat inauguratuko** (5); **bat inauguratuko dute** (5); **bat inauguratzen** (4); **erakusketa inauguratuko** (6); **erakusketa inauguratuko du** (4); **eskultura inauguratuko** (5); **eskultura inauguratuko dute** (3); **etxea inauguratzeko** (3); **gaur inauguratuko** (5); **gaur inauguratuko dute** (5); **inauguratuko da** (3); **inauguratuko ditu** (3); **inauguratuko du** (14); **inauguratuko dute** (29); **inauguratuko dute bihar** (3); **inauguratzen ari** (3); **inauguratzen da** (8); **inauguratzen dira** (5); **inauguratzen du** (3); **zubia inauguratzen** (3); **zubia inauguratzen da** (3)

---

# inaugurazio 1 *iz* inauguratzea.

Hiletak, ezkontzak, **inaugurazioak,** ekitaldi politikoak, omenaldiak, beste hainbat gizarte ekitaldi... J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Burdinbidearen **inaugurazioa** zela-eta jai handia egin zuten Donostian. Askoren artean

**Inaugurazio** ofiziala gaur egingo da, baina profesionalentzat atzo hasi zen azoka. Berria - Kultura

Lokalaren **inauguraziorako** zegoen pentsatua bertso bazkaria. Berria - Kultura

LABek Zangozan ireki duen bulegoaren **inaugurazioan**. Berria - Ekonomia

**Inaugurazioko** ospakizunean. Bernardo Atxaga

Herriko batzokiaren **inaugurazioko** esku-paper bat. Xabier Mendiguren Elizegi

**Inauguraziorako** [...] dena prest egongo dela uste dute. Berria - Kirola

Ondoren, **inaugurazioa** egingo dute, ikurrinaren igoera alegia. Berria - Kirola

**Inaugurazioa** publizitate handiz egin zuten agintariek. Berria - Mundua

**2** hasiera ematea.

Augustoren irudian gauzatu ziren forma unipertsonalen sorrera, Printzaldiaren **inaugurazioa** eta horren ondorengo barealdia. Santiago Iruretagoiena

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

2004ko Olinpiar Jokoen **inaugurazio** ekitaldian parte hartuko du Bjork abeslariak, Atenasen. Berria - Kultura

San Sebastian egunaren bezperan egin zen **inaugurazioko** ekitaldia. Askoren artean

**Inaugurazio** hitzak esan zituenean. Patxi Zubizarreta

**Inaugurazio** egunean zuk soinua jotzea gustatuko litzaidake. Bernardo Atxaga

Zerbitzu berria urtarrilaren 19an abian jarriko den arren, urtarrilaren 15ean egingo dute **inaugurazio** bidaia. Berria - Euskal Herria

Aldarea sagaratu ondorengo **inaugurazio** -jairako opariak. Elizen arteko biblia

**Inaugurazio** festan herri osoa zegoen. Koldo Biguri

Kontzertuaren aurkezpenean, Baluarteko **inaugurazio** emanaldiaz ere mintzatu zen Maria Bayo. Berria - Kultura

Ikasturteko **inaugurazio** hitzaldia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **den inaugurazio** (3); **egingo den inaugurazio** (3); **egoitzaren inaugurazio** (5); **inaugurazio egunean** (11); **inaugurazio eguneko** (3); **inaugurazio ekitaldia** (15); **inaugurazio ekitaldiak** (5); **inaugurazio ekitaldian** (35); **inaugurazio ekitaldian izan** (5); **inaugurazio ekitaldiarekin** (3); **inaugurazio ekitaldiko** (6); **inaugurazio ekitaldira** (4); **inaugurazio ofiziala** (4); **inaugurazioko ospakizunean** (3); **monumentuaren inaugurazio** (3); **zen inaugurazio** (3); **zinemaldiaren inaugurazio** (4); **ziren inaugurazio** (4); **zuen inaugurazio** (5); **zuen inaugurazio egunean** (3)

---

## inaurkin *(orobat **iñaurkin**)iz* azienden azpiak egiteko erabiltzen diren garoa, abarrak eta kidekoak.

Inarrak, noski, **inaurkinetako** erabiltzen diren ihi eta garoei deitzen diete zenbait eskualdetan. Pello Zabala

Han **inaurkinez,** lastoz, burusiz estaltzen gara. Urtzi Urrutikoetxea

Azpi horien guztien ondorioa simaurra zenez, ongarri mota honi berari ere **iñaurkin** deitu izan zaio baserrian. Pello Zabala

---


## inaurkin *(orobat **iñaurkin**)iz* azienden azpiak egiteko erabiltzen diren garoa, abarrak eta kidekoak.

Inarrak, noski, **inaurkinetako** erabiltzen diren ihi eta garoei deitzen diete zenbait eskualdetan. Pello Zabala

Han **inaurkinez,** lastoz, burusiz estaltzen gara. Urtzi Urrutikoetxea

Azpi horien guztien ondorioa simaurra zenez, ongarri mota honi berari ere **iñaurkin** deitu izan zaio baserrian. Pello Zabala


---

## inausi, inaus, inausten **1** du *ad* adar eta abar gehienak moztu. ik **murriztu**; **kimatu**.

Han gabarrak kargatu, hemen basoa **inausi,** soroetan zuhaitzak aldatu, eta sail guztiak aitzurtu. Jose Morales

Zuhaitza ez al duzue **inausten** adar gehiegi duenean? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hosto koxkaduna duten zuhaitzak, ilbeheran **inausi** behar dira; bestelakoak, ilberrian. Pello Zabala

Urte horretan ez duzue ereingo soroetan, ez mahastirik **inausiko** . Elizen arteko biblia

Ez konformatu adarrak **inaustearekin:** sustraitik atera hain fruitu kaltegarriak ematen dituen landarea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Mahatsondoari aihen zaharrak **inausi** behar zaizkio. Pasatutakoan ikusitako azken laguna nekazari zahar eta sendoa izan zen, hesia **inausteko** lanean ari zena. Pello Zabala

**Inausi** ahala, gero eta indartsuago emango dizkizu, baratze-lanetan balioko dizuten zarbak, makila luxeak, hagatsu, baba eta leka txut eusteko gauza izango diren zarbak. Pello Zabala

**Inausteko** artaziekin. Koldo Biguri

**2** *irud*

Teatro baroko espainolaren defentsan klasizismoaren aurka permatu da, baina "erromantizismoa" ere gehiegikeria frantsesetatik ongi **inausiz** . Joxe Azurmendi

Alderantziz, hasitako bideari jarraitzekotan da; nahiz kronikak, zenbaitetan, **"inausirik"** agertu izanari jadanik ohartua izan... Jose Angel Irigaray

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zuhaitz **inausien** artean egindako bide zuzenetan barrena ibiltzen ziren. Landare sail **inausiak** . Xabier Olarra

Baratze honek gisako xarma dauka, ongi begiratu beharrekoa dena: arbolaxka txukun **inausiak,** igali zuhaitzak lorez betetzear, marrubi landareak, mahastiak... Pako Aristi

Klaustroko patioa lorategi bat da, biziki ongi zaindua, ezpel **inausiek** hamazazpigarren mendeko arabesko zoragarri horiek denak osatzen dituztela. Koldo Izagirre

---

## inauskai *iz* inausteko erabiltzen diren guraize gisakoak.

Bai, mahatsa bildu baino lehen, loraldia igaro eta mahats-alea heltzen hastean, kimu berriak moztu egin ohi dira **inauskaiaz,** moztu eta bazterrera bota. Elizen arteko biblia

Lorezain-moduko bat hurbildu zen, **inauskai** bat eskuan. Jon Muñoz

---

## inausketa **1** *iz* inaustea.

Mahatsondo ilarak eskuin-ezker zabaltzen dira, ia bailararen mugetaraino, eta atzera aurrera luzean galdu, ohi baino soilduago **inausketa** egin berritan. Jokin Muñoz

Eskuan jo zuen **inausketako** guraizeez. Iñaki Mendiguren

Baita **inausketetako** eta lorezaintzako hondakinak ere. Berria - Euskal Herria

**2** *irud*

Santutegi oparo eta abarotsua bizi zuen kristau herriak sasoi batean, azken Kontzilioak entresaka eta **inausketa** kupidagabea egin zuen arte. Pello Zabala

**3** (hiz elkartuetan)

Lurra iratzartzen hasten deneko, zuhaitzak esnatu baino lehen, laborariak **inausketa** lanak hasten ditu, beroak dena nahastu dezan baino lehen. Pello Zabala

Aurreneko aldiz, halaber, **inausketa** lanetan zortzi etorkin aritu dira. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **inausketa eta** (3)

---

## inauste *iz* adar eta abar gehienak moztea.

Labore lanetan eta txertu eta **inauste** beharretan. Pello Zabala

**Inauste** kanpaina berezia agindu du Iberdrolak. Berria - Euskal Herria

Inauteri hitzak berak dioenez, inauteriak **inauste** garaian hasten dira. Berria - Kultura

---

## inaute *(ETCn **117** agerraldi; orobat **ihaute** ETCn **156** agerraldi, horietako **86** Herria aldizkarian; Euskaltzaindiaren Hiztegiak*

*2014an onartu zuen **ihaute**)* **1** *iz* inauteria.

Edonork daki, Nafarro aldean badirela **ihaute** berezi eta partikularrak. Pello Zabala

Apaizek azken mendean dantzez bakarrik osatutako kabalkadetara mugatu nahi izan badute ere, aurten, aspaldiko partez, zaldun **inaute** kari Libertimenduak hitza berreskuratuko du Donibane Garazin, antzerki eta bertsoei esker, dantza baztertu gabe, alabaina. Berria - Kultura

Martxoko lehen bi egunek ikusiko dute Sarako **ihautea**. Herria

**Ihaute** zoramenak jadanik estaltzen hasiak ditu bazterrak, dena mozorro, kantu, dantza eta besta. Herria

-Asteburu guzian, **ihaute** bestak Donostian. Herria

Urtero, **ihaute** irian "Marrazkirri" umore-marrazki erakusketa egiten da Haize Berri kulturetxean. Herria

Benetan **inaute**-astearte motela datorkiguna. Monika Etxebarria

**2** ***astearte-inaute***

Gaur astearte-**inautea** da, baina Bouvillen horrek ezer gutxi esan nahi du; hiri osoan ehun bat pertsona eskas ibiliko dira mozorroturik. Monika Etxebarria

Astearte-**ihautean** ez zaitez joan krepeak egingo ditugu-eta. Joseba Urteaga

**3** ***igande-inaute*** *(corpusean **igande-ihaute** soilik)*

Igandean Kaxkarrotak ibili dira ere karriketan bainan aurtengo igande **ihaute** hortan bukatu da bertze ausagailurik gabe. Herria

Handienak ez baitezpada asteburu huntan bainan bestean, **igande** ihaute otsailaren 22-an izanki-eta. Herria

Asko lekutan lehengo ohidura xaharrak segituz ospakizun horiek egiten dituzte igande **Ihaute** inguruan. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **igande ihaute** (4)

---

# inauteri *(**283** agerraldi, **49** liburu eta **54** artikulutan; ETCn **4.520** agerraldi; orobat **ihauteri** –**408** agerraldi, **14** liburu eta **185** artikulu -horietako **181** Herria aldizkarian–; ETCn **2.006** gerraldi –horietako **1.680** Herria aldizkarian–, eta **iñauteri** g.er.; Euskaltzaindiaren Hiztegiak 2014an onartu zuen **ihauteri**)* **1** *iz (singularrean)*

Iparraldeko kanten leloak datozkigu beti burura, eta Aleijadinho eskultore barrokoa, eta sanba eskolak, futbola, **inauteria** eta São Pauloko makarroiak. Karlos Zabala

Gainera, musikatik hurbilegi baikeunden eserita: egundoko zarata, batetik, eta, bestetik, noranahi begiratzen zenuela ere, **inauteri** nahasi hura, faroltxo haiek, zigarreten eta zigarroen lurrinetan gandutuak, [...]. Joxe Austin Arrieta

**Inauteriaren** musika haritzen adarrek urratua zetorren Cambados-eko plazatik. Koldo Izagirre

Lekuka, Frantzia behere hortan, **ihauteria** Pazko ondoan ere aintzina ospatzen dute, karro apaindu eta beste, aise lore gehiago izaiten den sasoin batean. Herria

Danborrada **Inauteriaren** aurrerakina dela. Askoren artean

**Ihauteriaren** burrunba handiena ixildua da, Xuberoko maskarada badoa haatik aintzina herriz-herri. Herria

Etengabeko **inauterian** bizi da Dominikar Errepublikan. Edorta Jimenez

Babestu egin nahi baitzuen alabatzakoa amerikar pop kulturaren **inauteri** erotik. Oskar Arana

**Inauteria** egiten dutenentzat gaur egungo ekintza da, propioa. Berria - Kultura

Aurten, usaiakoaren gainerat, bigarren **ihauteria** bat ere badugula sasoin berean, herriko bozek sei urtetarik ekartzen dutena omen... Herria

**2** (pluralean)

Sarri egokitzen dira **Inauteriak** eta Garizuma otsailean. Pello Zabala

**Inauteriak** pasatzera goaz. Pako Aristi

Iparralde huntan ere eskualde orotan ospatuko dira **ihauteriak**. Herria

Tolosako **inauterietan**. Berria - Kultura

**Inauterietan** joatekotan geratu da. Arantxa Iturbe

San Sebastianetako eta **Inauterietako** jaietan. Askoren artean

**inauterietako** azken egunean. Askoren artean

Ilunabarra zen, **inauterietako** eromen handieneko egunaren arratsa. Koro Navarro

**Inauterietako** soinekorik biziena eta ezezagun baten zapatak jantzita egon zen 124aren portxean. Anton Garikano

Literaturak Venezian kokatu dituen istorio erotikoek, **inauteriek** eta **inauterietako** mozorroek, kale estuetako enkontru klandestinoek... Anjel Lertxundi

Begira iezadak niri, **inauterietako** buruhandia ematen diat, lepoa jiratu ezinik. Hasier Etxeberria

**Ihauterietako** xaribarietako arizaleak iduri, bertze norbaitena jokatzen nuen astean behin, eta nire pertsonaiari ahalik eta fidelena izatera ahalegintzen nintzen. Aingeru Epaltza

Askotan ikusten omen zuten Unión Artesanako **Inauterietako** karrozak gogo biziz prestatzen. Askoren artean

Baina niri bestelako zerbait iruditzen zitzaidan, rockero zaharra barik pailazo berria, paseatzeko baino **inauterietarako** askoz aproposagoa izan zitekeen piura harekin. Jon Arretxe

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Inauteri** aurreko ostegunean, *ostegun gizen* delakoan. Pello Zabala

**Inauteri** gau alai bat zen. Karlos Zabala

**Inauteri** egunean, Joxe Krakaxek bere burutazio haietako bat izan zuen. Koro Navarro

Mardi Gras izeneko **inauteri** eguna da ezaguna New Orleansen, baina hura eromena omen da. Harkaitz Cano

Nekazariek **inauteri**-egunetarako bereziki apainduriko gurdiak iristen ziren aldirietatik. Jose Morales

**Inauteri**-astea zen, eta kaleak zarataz eta jendez beterik zeuden. Jose Morales

Mozorro-festak eta **inauteri** jaiak antolatzen. Askoren artean

**Inauteri** tankera apur bat zuten beren uniforme austriar, italiar eta frantses dotoreez jantzita. Koro Navarro

**Inauteri**-igandean aurkitu zituen jantzirik hoberenak hartu eta haiekin joan zen gozotegira. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bilboko inauteriak** (3); **bilboko inauterietan** (5); **eta inauteri** (8); **eta inauteriak** (4); **eta inauterien** (3); **eta inauterietako** (7); **eta inauterietan** (3); **inauteri eta** (4); **inauteri igandean** (3); **inauteria gaur** (3); **inauteriak eta** (3); **inauterien inguruan** (3); **inauterietako desfilea** (5); **inauterietako jaitsiera** (7); **inauterietako jaitsiera bertan** (3); **inauterietako jaitsieran** (3); **lapurdiko inauteria** (3); **lapurdiko inauteriak** (3); **tolosako inauterietan** (3); **zuberoako inauteri** (3)
>
> **aurtengo ihauteriak** (6); **baionako ihauteria** (3); **da ihauteria** (4); **dira ihauteriak** (4); **dire ihauteriak** (3); **ditugu ihauteriak** (4); **eta ihauteriak** (4); **igande ihautez** (4); **ihauteri bestak** (6); **ihauteria besta** (8); **ihauteria bestak** (8); **ihauteria eskual etxean** (3); **ihauteria famatuak** (4); **ihauteria gogoan** (3); **ihauteria kari** (6); **ihauteria merkatuan** (4); **ihauteriak entzunik** (4); **ihauteriak ganden** (3); **ihauteriak gure** (5); **ihauteriak gure herrian** (3); **ihauteriak iragan** (4); **ihauteriak itsasun** (3); **ihauteriak itsasun aurten** (3); **ihauteriak karrikako** (3); **ihauteriak karrikako besta** (3); **ihauteriak otsailaren** (4); **ihauteriko kadria** (3); **lantzeko ihauteria** (4); **lapurdiko plazan ihauteria** (3); **miarritzeko ihauteria** (4); **ospatuko ditugu ihauteriak** (3); **plazan ihauteria** (4); **plazan ihauteria merkatuan** (3); **ta ihauteriak** (3); **ta ihauteriak entzunik** (3)

---

inauteri *(**283** agerraldi, **49** liburu eta **54** artikulutan; ETCn **4.520** agerraldi; orobat **ihauteri** –**408** agerraldi, **14** liburu eta **185** artikulu -horietako **181** Herria aldizkarian–; ETCn **2.006** gerraldi –horietako **1.680** Herria aldizkarian–, eta **iñauteri** g.er.;*

*Euskaltzaindiaren Hiztegiak 2014an onartu zuen **ihauteri**)* **1** *iz (singularrean)*

Iparraldeko kanten leloak datozkigu beti burura, eta Aleijadinho eskultore barrokoa, eta sanba eskolak, futbola, **inauteria** eta São Pauloko makarroiak. Karlos Zabala

Gainera, musikatik hurbilegi baikeunden eserita: egundoko zarata, batetik, eta, bestetik, noranahi begiratzen zenuela ere, **inauteri** nahasi hura, faroltxo haiek, zigarreten eta zigarroen lurrinetan gandutuak, [...]. Joxe Austin Arrieta

**Inauteriaren** musika haritzen adarrek urratua zetorren Cambados-eko plazatik. Koldo Izagirre

Lekuka, Frantzia behere hortan, **ihauteria** Pazko ondoan ere aintzina ospatzen dute, karro apaindu eta beste, aise lore gehiago izaiten den sasoin batean. Herria

Danborrada **Inauteriaren** aurrerakina dela. Askoren artean

**Ihauteriaren** burrunba handiena ixildua da, Xuberoko maskarada badoa haatik aintzina herriz-herri. Herria

Etengabeko **inauterian** bizi da Dominikar Errepublikan. Edorta Jimenez

Babestu egin nahi baitzuen alabatzakoa amerikar pop kulturaren **inauteri** erotik. Oskar Arana

**Inauteria** egiten dutenentzat gaur egungo ekintza da, propioa. Berria - Kultura

Aurten, usaiakoaren gainerat, bigarren **ihauteria** bat ere badugula sasoin berean, herriko bozek sei urtetarik ekartzen dutena omen... Herria

**2** (pluralean)

Sarri egokitzen dira **Inauteriak** eta Garizuma otsailean. Pello Zabala

**Inauteriak** pasatzera goaz. Pako Aristi

Iparralde huntan ere eskualde orotan ospatuko dira **ihauteriak**. Herria

Tolosako **inauterietan**. Berria - Kultura

**Inauterietan** joatekotan geratu da. Arantxa Iturbe

San Sebastianetako eta **Inauterietako** jaietan. Askoren artean

**inauterietako** azken egunean. Askoren artean

Ilunabarra zen, **inauterietako** eromen handieneko egunaren arratsa. Koro Navarro

**Inauterietako** soinekorik biziena eta ezezagun baten zapatak jantzita egon zen 124aren portxean. Anton Garikano

Literaturak Venezian kokatu dituen istorio erotikoek, **inauteriek** eta **inauterietako** mozorroek, kale estuetako enkontru klandestinoek... Anjel Lertxundi

Begira iezadak niri, **inauterietako** buruhandia ematen diat, lepoa jiratu ezinik. Hasier Etxeberria

**Ihauterietako** xaribarietako arizaleak iduri, bertze norbaitena jokatzen nuen astean behin, eta nire pertsonaiari ahalik eta fidelena izatera ahalegintzen nintzen. Aingeru Epaltza

Askotan ikusten omen zuten Unión Artesanako **Inauterietako** karrozak gogo biziz prestatzen. Askoren artean

Baina niri bestelako zerbait iruditzen zitzaidan, rockero zaharra barik pailazo berria, paseatzeko baino **inauterietarako** askoz aproposagoa izan zitekeen piura harekin. Jon Arretxe

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Inauteri** aurreko ostegunean, *ostegun gizen* delakoan. Pello Zabala

**Inauteri** gau alai bat zen. Karlos Zabala

**Inauteri** egunean, Joxe Krakaxek bere burutazio haietako bat izan zuen. Koro Navarro

Mardi Gras izeneko **inauteri** eguna da ezaguna New Orleansen, baina hura eromena omen da. Harkaitz Cano

Nekazariek **inauteri**-egunetarako bereziki apainduriko gurdiak iristen ziren aldirietatik. Jose Morales

**Inauteri**-astea zen, eta kaleak zarataz eta jendez beterik zeuden. Jose Morales

Mozorro-festak eta **inauteri** jaiak antolatzen. Askoren artean

**Inauteri** tankera apur bat zuten beren uniforme austriar, italiar eta frantses dotoreez jantzita. Koro Navarro

**Inauteri**-igandean aurkitu zituen jantzirik hoberenak hartu eta haiekin joan zen gozotegira. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bilboko inauteriak** (3); **bilboko inauterietan** (5); **eta inauteri** (8); **eta inauteriak** (4); **eta inauterien** (3); **eta inauterietako** (7); **eta inauterietan** (3); **inauteri eta** (4); **inauteri igandean** (3); **inauteria gaur** (3); **inauteriak eta** (3); **inauterien inguruan** (3); **inauterietako desfilea** (5); **inauterietako jaitsiera** (7); **inauterietako jaitsiera bertan** (3); **inauterietako jaitsieran** (3); **lapurdiko inauteria** (3); **lapurdiko inauteriak** (3); **tolosako inauterietan** (3); **zuberoako inauteri** (3)

**aurtengo ihauteriak** (6); **baionako ihauteria** (3); **da ihauteria** (4); **dira ihauteriak** (4); **dire ihauteriak** (3); **ditugu ihauteriak** (4); **eta ihauteriak** (4); **igande ihautez** (4); **ihauteri bestak** (6); **ihauteria besta** (8); **ihauteria bestak** (8); **ihauteria eskual etxean** (3); **ihauteria famatuak** (4); **ihauteria gogoan** (3); **ihauteria kari** (6); **ihauteria merkatuan** (4); **ihauteriak entzunik** (4); **ihauteriak ganden** (3); **ihauteriak gure** (5); **ihauteriak gure herrian** (3); **ihauteriak iragan** (4); **ihauteriak itsasun** (3); **ihauteriak itsasun aurten** (3); **ihauteriak karrikako** (3); **ihauteriak karrikako besta** (3); **ihauteriak otsailaren** (4); **ihauteriko kadria** (3); **lantzeko ihauteria** (4); **lapurdiko plazan ihauteria** (3); **miarritzeko ihauteria** (4); **ospatuko ditugu ihauteriak** (3); **plazan ihauteria** (4); **plazan ihauteria merkatuan** (3); **ta ihauteriak** (3); **ta ihauteriak entzunik** (3)

---

# inauterizale *(orobat **ihauteri zale**)* *izond/iz* inauteriren zale den pertsona.

Dolu-gelan bildutako jendearen errezo-marmarrek kaleko ardaila estaltzea lortzen badute ere, **inauterizaleen** kantuak bisitariaren buruan segitu du Galtzaundiren zerraldoaren aurrean aitaren egin duenean ere: [...]. Anjel Lertxundi

Ostegun horri deitzeko [...] izen mordoxka zituzten, bailara bakoitz **inauteri-zale** horietan. Pello Zabala

---

inaztura ik **oinaztura**.

---

# inbaditu, inbadi, inbaditzen **1** du *ad* herrialde baten lurraldean beste herrialde bateko gerra osteak indarrez sartu.

Napoleonek Errusia **inbaditu** zuenean. Karlos Zabala

Alemaniarrek Belgika **inbaditu** zuten egunetan. Fernando Rey

Errusiak Asian duen inperioa osorik **inbaditzeko** gertu. Karlos Zabala

1996an Ruandak Kongoko ekialdea **inbaditu** zuen. Berria - Mundua

X. mendean, Malcolm I.a Eskoziako errege zela, jakin zuen bikingoak etortzekoak zirela Eskoziako lurrak **inbaditzera**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Biharamunean, Erresuma Batuak eta Frantziak unilateralki **inbaditu** zuten Sinai, aitzakia faltsu batekin. Berria - Mundua

Sei Eguneko Gerran **inbaditu** eta okupatu zuen *Golango Gaina* (Siria) eremua Siriari itzultzeko prest dagoela. Berria - Mundua

Israelgo Armadak Zisjordaniako Tulkarem hiria tankez eta ibilgailu blindatuz **inbaditu** eta sarekada egin zuen. Berria - Mundua

Israelgo 20tik gora tankek, 5 bulldozerrek eta hainbat *Apache* helikopterok **inbaditu** zuten mendebaldeko errefuxiatu kanpalekua. Berria - Mundua

Armada sobietarrak Hungaria **inbaditu** izana gaitzetsi zuen. Monika Etxebarria

Martetarrak Lurra **inbaditzen** ari ziren. Iñigo Aranbarri

**2** *hed*

Indigenei dagokien lur eremua zein den zehazten ez den bitartean, kolonoek, ehiztariek zein zur ustiatzaileek araren lurrak **«inbaditzen** eta suntsitzen» jarraituko dutela. Berria - Gaiak

Igelek **inbaditu** gaituzte. Unai Elorriaga

Proteina arrotzek (bakterioek, esate baterako) gorputza **inbaditzen** duten guztietan, granulozitoak, mobilizatu, eta gertalekura abiatzen dira prestu. erresumako ehundegiek banan-banan itxi zituzten ateak, atzerriko produktu merkeagoek herrialdea **inbaditu** zuten, eta hala bai langabezia nola txirotasuna zabaldu egin ziren hirietan. Iban Zaldua

**3** *irud.*

Kurduak Kirkuk **«inbaditzen»** ari direla salatu dute. Berria - Mundua

Etxeaz jabetzen zen higadura, ordea, muga guztiak gainditzen ari zen, eta, espazioa ez ezik, neure bizitzaren beste alderdi batzuk **inbaditzera** jo zuen. Arteak **inbaditzen** zaituenean. Iban Zaldua

Behin batean, telebistak gure etxeak eta garunak **inbaditu** baino lehen. Joxerra Garzia

Ez zen politikak hizkuntza **inbaditzen** zuen lehen aldia. Iñigo Aranbarri

Ilunpeek **inbaditutako** adimenak dagoeneko ez zuen gerran pentsatzen. Agustin Otsoa

Baina orain ulertzen dut bere borondateak hiriaren bihotza bera ere nola **inbaditu** zuen. Agustin Otsoa

ELAren ustez, PSOEren lege proiektuak **«inbaditu** egiten ditu Nafarroako eta EAEko instituzioek gizarte zerbitzuen arloan dituzten eskumen esklusiboak». Berria - Euskal Herria

**4** (era burutua izenondo gisa)

Eskualde **inbadituetan** barrena abiatuko ziren. Karlos Zabala

Lurralde **inbadituetan** zehar eraman beharreko mezu garrantzizkoren batek eragozten zion tsarraren mandataria zela esatea. Karlos Zabala

Siberiako probintzia **inbadituak** gezurrezko nortasunaz zeharkatu. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alemaniak polonia inbaditu** (3); **eta garunak inbaditu** (3); **garunak inbaditu baino** (3); **inbaditu baino lehen** (3); **inbaditu dute** (3); **inbaditu egin** (3); **inbaditu eta** (20); **inbaditu eta gero** (3); **inbaditu eta okupatu** (3); **inbaditu ondoren** (4); **inbaditu zuela** (4); **inbaditu zuen** (15); **inbaditu zuenean** (4); **inbaditu zuenetik** (4); **inbaditu zuten** (15); **inbaditu zutenean** (3); **inbaditzen ari** (6); **inbaditzen zituzten** (3); **irak inbaditu** (11); **irak inbaditu eta** (6); **irak inbaditzeko** (6); **irak inbaditzen** (3); **kuwait inbaditu** (3); **polonia inbaditu** (3)

---

## inbaditzaile *(76 agerraldi, 17 liburu eta 14 artikulutan)* **1** *iz* inbaditzen duen pertsona. ik **inbasore**.

Bidea libre zegoen **inbaditzaileentzat**. Karlos Zabala

Atzerriratuak **inbaditzaileekin** elkartuko direla. Karlos Zabala

Alta, **inbaditzaileek** kolaboratzaile-traidore parrasta bat ukan zuten Filipinetan. Ramuntxo Etxeberri

Negu gorrian, tatariar **inbaditzaileak** hirietan kantonatuko ziren. eta **inbaditzaileek** erraustutako alderdi haiek aukeran ez zeharkatu nahiago zuela. Karlos Zabala

Irtish eta Obi ibaien beste aldera aldatu zituzten beren dendak, **inbaditzaileen** harrapaketetatik ihesi. Karlos Zabala

Arabiar **inbaditzaile** musulman primitiboek. Iñaki Mendiguren

**Inbaditzaile** alienigenen istorio guztien iturburua. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Bata zein bestea behartuta zeuden **inbaditzaile** osteen artetik pasatzen ahalegintzera. Karlos Zabala

• **3** *izond* inbaditzen duena.

Handik zortzi urtera Jean Sobieskik 30.000 soldaduko armadarekin Viena askatu zuela turko **inbaditzaileen** atzaparretatik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Auzo hartan soldadu **inbaditzaile** bat hilik topatua zutela. Pello Lizarralde

Ivan Ogareffen soldadu osteak Feofarren tropekin bat egin eta armada **inbaditzailea** osaturik gelditubo zela. Karlos Zabala

Armada **inbaditzailearen** aurretik zihoazela. Karlos Zabala

Kanpo-proletalgo **inbaditzailearen** gerra-taldeek askoz geldiago egingo zituzketen beren harraparitzak Erromatar Inperioaren azken aldian. Iñaki Mendiguren

Zertarako jan eta edan itzal **inbaditzaile** honen azpian? Agustin Otsoa

Pagano izandako eskandinaviar barbaro **inbaditzaileengan**. Iñaki Mendiguren

Baina badaude beste espezie **inbaditzaile** batzuk ikusten ez direnak. Berria - Gaiak

Edozein proteina arrotz, hala nola mikrobio **inbaditzaile** bat. Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**inbaditzaile bat** (3); **inbaditzaileen esku** (3)

---

## inbaditze *iz* herrialde baten lurraldean beste herrialde bateko gerra osteak indarrez sartzea.

Arma hauen esistentzia izan zen Washingtonek Iraken **inbaditzea** justifikatzeko baliatu zuen aitzakia. Berria - Mundua

---

## inbaginazio *iz* mintz bat edo zelula geruza bat barnealdera biltzea.

Zenbait urrats nahitaezko baino ez dira, antza, guztietan gertatzen, hala nola "gastrulazioa", **inbaginazio** goiztiar moduko bat, bata bestearen gaineko zelula-"orrixkak" sorrarazten dituena. Juan Garzia

---

inbalditu ik **enbalditu**.

---

## inbalier **1** *iz ipar* elbarria, baliaezina.

Elbarritu eta **inbalieren** onetan kartsuki bermatzen diren elkarte kudeatzaile batzuk. Herria

-Haurrak eta **inbalierrak** gure nagusiak dira. Menane Oxandabaratz

Hango jendea **inbalierra** zen, behin-behineko edo behin-betiko 4/5000 gizon. Marzel Etxehandi

Zendako sinetsarazi nahi zenidan ama **inbaliera** zenuela eta aita mundu honetarik joana, bide ixtripu batean bizia galdurik? Janbattitt Dirassar

**2** *irud*

Ikasle txarra nintzen eta konplexu handiak nituen matematiketan **inbalierra** nintzelako. Ana Urkiza

---

## inbaliertu, inbalier(tu), inbaliertzen **1** da/du *ad ipar* elbarritu, inbalier bihurtu.

Aipatuko dut hemen euskaldun bakar bat, Durangokoa, zangoz **inbaliertua** , bidea egiten baitzuen bi makuluren gainean, egunean 20 kilometro. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Oraino ganden udan ikusten zen Auxtin bere emazte eri eta **inbaliertuaren** artatzen eta eskuko karrosa ttipi horietan pusatzen. Herria

---

# inbariante *iz* magnitudeez, erlazioez, tasunez eta kidekoez mintzatuz, eraldatze jakin batean aldatu gabe dirauena.

A priori, baldin trukerako joera, Adam Smith-ek pentsatzen zuen bezala, gizakiak berezkoa badu **-inbariante** unibertsala dela esango genuke gaur-, trukeen globalizazioaren fenomenoa berdin-berdin gerta zitekeen Ekialde Urrunean edo beste nonahi. Koro Navarro

---

# inbariantza 1 *iz* inbariantea denaren nolakotasuna.

**Inbariantzaren** hipotesia, hain zuzen, objektu multzo horren barnean, begiraleak bat bakarraren hautua egiten duela abiapuntutzat hartzea da. Josu Zabaleta

**Inbariantzaren** hipotesi honek lotura estua du, beraz, lehenago aipatu den pertzepzio-jarraitasunaren fenomenoarekin. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Eredu enpiristaren arabera, behin eta berriro beteko litzateke hipotesi hori, "saio eta huts egite" modura: behin aplikatuta, huts egin dela ikusten baldin bada, ikusmen-sistemak berriro aztertzen ditu bere **inbariantza** -hipotesiak, eta beste hipotesi batzuk proposatzen ditu, harik eta hipotesi guztiak (lehendiko esperientziaren eta asoziazioen arabera) posible den konfigurazio batekin ados datozen arte. Josu Zabaleta

Beste erredundantzia batzuk egiturazko erregulartasun nagusiek eragiten dituzte, simetriak batez ere, baina baita Gestalt-en legeak betetzeak ere (eta **inbariantza** -irizpide orok, oro har). Josu Zabaleta

---

# inbasibo *izond* medikuntzan, esploratze metodoez mintzatuz, esploratzen den organismoari erasateko arriskua duena.

Hala ere, gaixo askok ez dute nahi izaten «proba **inbasibo** eta nekagarri» hori egin diezaieten. Berria - Gaiak

---

# inbasio 1 *iz* inbaditzea.

Normandiarren **inbasioek** . Iñaki Iñurrieta

Erdi Aroko sarrazenoen **inbasioaz** geroztik. Patziku Perurena

Non egon zarete azken 37 egunotan, israeldarren **inbasiopean** ginelarik? Berria - Mundua

Georgiaren **inbasio** baten beldur, defentsa neurriak zorroztu dituzte Adjarian. Berria - Mundua

Iraken **inbasioa** prestatzeko plazaraturiko informazioaren inguruan ikerketa independentea abiatzea. Berria - Mundua

Izan ere, zurrumurrua zebilen ahoz aho herri kirgizak altxatu ote ziren eta tatariarrek **inbasioari** ekin ote zioten. Karlos Zabala

Nik uste **inbasio** bat antolatzeko amorratzen daudela. Pako Aristi

Errusiaren ekialdeko mugan zurrumurrua zebilen hara eta hona matxinada eta **inbasioa** etengabe hedatzen ari zirela bazterrik bazter. Karlos Zabala

Soldadu errusiarren osteak, berriz, urruti zeuden [...] eta ezin zioten **inbasioari** aurre egin. Karlos Zabala

Oinez joan behar, jakirik gabe, **inbasioak** errausturiko lurralde batean zehar. Karlos Zabala

Ez zirudien **inbasioa** berehalako batean geldiaraz zitekeenik. Karlos Zabala

**Inbasioaren** mehatxua hurbiltzerakoan. Karlos Zabala

**Inbasioaren** lehen fasea. Txema Ramirez de la Piscina

**Inbasioa** legezkoa izan zen argitzea eskatu diote Hagari. Berria - Mundua

Lurraren **inbasioa** kontatzen da bertan, zorri izurrite baten **inbasioa** hain zuzen ere. Iñaki Arranz

**2** (izenlagunekin)

Justinianoren erreinuaren ondoren lonbardiar, eslaviar eta arabiar **inbasioen** uholdea etorri zen laster. Iñaki Mendiguren

Alemaniar **inbasioak** Belgikan harrapatu du Lehendakaria. Edorta Jimenez

Nikaraguako iraultza sandinista, Afganistango sobietar **inbasioa** . Koro Navarro

Sekulako **inbasioa** egin zuten gure lurraldeetan. Michel Oronoz

**3** *hed/irud*

Odolean dauden globuluetariko batzuk dira germenen **inbasioen** aurka gorputzak duen babes-mekanismo nagusia. Irene Aldasoro

Izan ere, burmuinak ezin dio **inbasio** neurokimiko horri luzaroan eutsi. Luis Elberdin

Proteina arrotza gorputzaren barnean agertzen denean baino ez da aktibatzen **inbasioaren** aurkako defentsa. Irene Aldasoro

Pentsamendu ilustratu-jakobino modernoaren **inbasioaren** aurka. Joxe Azurmendi

Hugo baitan badago jada landaren landatasun defentsa bat, naturaltasunaren defentsa bezala, hiriaren eta modaren **inbasioen** aurka, modernizazio perbertitzailearen aurka hain zuzen. Koldo Izagirre

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Inbasio** indarren agintari gorena. Berria - Mundua

Nola da posible **inbasio** tropek erresistentziak baino askoz zibil gehiago hil izana albistegietan agertzen diren hildako guztiak hauen biktima badira? Iñigo Aranbarri

1961ean Playa Gironen (Bahia Cochinos) Gobernu iraultzailearen kontrako **inbasio** saioan. Berria - Mundua

**Inbasio** mota bakoitzak berariazko antigorputza sortzen du. Irene Aldasoro

Ez zekarren basamortuaren usainik, ezta mairuen **inbasio** -mehatxurik ere. Xabier Aranburu

Latinak [...] jasandako aldaketa nabarmenenak, hain zuzen **inbasio** garaietan gertatu zirela. Isabel Arrigain

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Agian garrantzitsua izango zen XIX. mendean eta hogeigarrenaren hasieran, mugek zerbait egiten zutenean, eta kultur **inbasio** bat geldiarazteko gai zirenean. Bernardo Atxaga

Suspertu nintzenean gertatu zen piraña **inbasio** hura. Joxan Elosegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta inbasioa** (4); **inbasio bat** (4); **inbasio baten** (5); **inbasio eta** (9); **inbasio hura** (3); **inbasio indarren** (7); **inbasioa abiatzeko** (3); **inbasioa eta** (5); **inbasioa hasi** (24); **inbasioa hasi aurretik** (4); **inbasioa hasi da** (3); **inbasioa hasi zenetik** (7); **inbasioa izan** (4); **inbasioa justifikatzeko** (5); **inbasioak eta** (4); **inbasioaren alde** (3); **inbasioaren aurka** (5); **inbasioaren aurkako** (9); **inbasioaren aurkako jarrera** (3); **inbasioaren aurretik** (5); **inbasioaren hirugarren** (4); **inbasioaren lehen** (4); **inbasioaren ondoren** (6); **inbasioari buruz** (4); **inbasioaz geroztik** (4); **inbasioen aurka** (3); **inbasiorik ez** (3); **irakeko inbasioa** (9); **irakeko inbasioan** (3); **irakeko inbasioaren** (14); **irakeko inbasioaren aurkako** (3); **iraken inbasio** (6); **iraken inbasio eta** (5); **iraken inbasioa** (17); **iraken inbasioa hasi** (4); **iraken inbasioak** (5); **iraken inbasioaren** (19); **iraken inbasioaren alde** (3); **iraken inbasioaren aurkako** (4); **iraken inbasioaz** (3); **tatariarren inbasioak** (3); **tatariarren inbasioaz** (3)

---

**inbasioaldi** *iz* inbasioa.

Sortaldeko **inbasioaldiak** atzera egin zuen azkenean. Iñaki Mendiguren

---

**inbasore** *(23 agerraldi, 9 liburu eta 8 artikulutan) iz* inbaditzailea.

Jadanik ez zegoen turkiar **inbasorearengandik** libratzerik. Fernando Rey

Lehergailuen eztandarekin **inbasoreei** tuneleko sarrera ixteko. Anjel Lertxundi

Gero, bonbardaketen kontra idazten hasi zen, eta orain, **inbasoreen** aurka. Txema Ramirez de la Piscina

---

**inbeia** ik **enbeia**.

---

**inbentariatu**, inbentaria, inbentariatzen du *ad* inbentarioa egin.

Balio etnografikoa duten piezak eskuratzen jarraitzeaz gain, azken urteotan eskuratutakoak ordenatu, siglatu eta **inbentariatzeko** lanean jarraitzen du, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetutako hitzarmenari jarraiki. Berria - Kultura

Baina agente isila **inbentariatzen** ari da beren oroitzapenak, mingostasunak, dezepzioak eta aladurak. Berria - Kultura

Orain **inbentariatu** egin behar dira irekitako norabideak. Xabier Arregi

Hondakin arriskutsuei dagokienez, 2002an **inbentariatutako** hondakin arriskutsuen %100 kudeatu ziren Berria - Euskal Herria

---

**inbentario** 1 *iz* pertsona, enpresa edo erakunde batenak diren edo toki jakin batean dauden ondasunen zerrenda egituratua.

Ondarearen **inbentarioaren** zain. Berria - Kultura

**Inbentarioan** sailkaturiko 196 eskuizkribuetatik 147 oinarri harturik. Askoren artean

Maila paradigmatikoan (esan nahi baita euskal hotsen **inbentarioan)** herskariez gainerako trabarien sailean gertatzen da. Lourdes Oñederra

**Inbentarioan** "kloruro demonio" izenez zetorren. Juan Garzia

IRAk deuseztatutako armen **inbentario** berriak aurreko desarmeetan egin genituen hirurak barne hartzen ditu. Berria - Harian

**Inbentarioa** bururatu zuenean. Itxaro Borda

**Inbentarioak** emango dizkigu zenbaki zehatzak. Karlos Linazasoro

Zer pentsatuko ote zuten nire noizbehinkako bisitariek ezpain-zapi haiek, paperontzian bota beharrean banan-banan jasotzen eta haien **inbentarioa** osatzen harrapatu izan banindute? Joxan Elosegi

Garai guztietako matematikarien halakoxe **inbentario** bat ezarri beharra zeukan. Jon Muñoz

IRAk deuseztatutako armen **inbentario** berriak aurreko desarmeetan egin genituen hirurak barne hartzen ditu. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzako Industria Ondarearen **Inbentarioak** «sailkatzeko industria ondare gisa» jasotzen ditu Orconerako etxeak. Berria - Kultura

**2 *inbentarioa egin***

Neuri zegokidan halaz ere amonaren poltsaren **inbentarioa** egitea. Joxan Elosegi

Galtzerdien **inbentarioa** egin behar duzu. Joxerra Garzia

Berehala, leku hartan zeuden janari guztien **inbentarioa** egiten hasi zen batetik bestera usainka ibiliz. Bernardo Atxaga

Esaterako, ondasunei zegokien atalean, ondasun higiezin eta higigarri guztien **inbentario** zabal, zehatz eta zorrotza egin zuen. Bego Montorio

Altzuzako bildumaren **inbentarioa** egin zenean. Berria - Kultura

Dendari txorrotx batek bere salgaien **inbentarioa** egingo lukeen bezain xehe. Xabier Mendiguren Elizegi

Berak ere bere aje eta oinazeen **inbentarioa** egin zigun. Xabier Mendiguren Elizegi

Lurzorua kutsatu dezaketen enpresak dauden lurren **inbentarioa** eginda dago dagoneko. Berria - Euskal Herria

Eskolatik irten eta, sarritan, *suscripciones patrioticas* deitzen zirenak egin behar genituen, donazioak bildu eta **inbentarioak** eginez: Juan Mari Anacabe, oilo bat; Irene Uribe, hiru membrillo; Lino Etxaburu, lau konejo; Gregorio Erroteta, lau zaku patata; Anisia Etxenagusia, urdaiazpiko bat, lau botila ardao, zerrikume bat bizirik; aurrekoaren neskameak, libra bat gurin. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> inbentarioa egin (9); inbentarioa egiten (5)

---

**inbentatu**, inbenta, inbentatzen *(10 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan)* du *ad* asmatu.

Bestalde, *Los Planetas*ena **inbentatuta** zegok aspaldi: betiko *pop*-a duk, ezer berririk ez. Iban Zaldua

Arras itxuragabeko filiazioak **inbentatuz** autore eta ideien artean. Koldo Izagirre

Espainia hori geroago **inbentatuko** da. Joxe Azurmendi

Mundua bere kasa idazten da, eta fotografiak irakurri egiten du, baina irakurketa Jorge Luis Borgesek aldarrikatzen zuen moduan: irakurtzea sortzea, **inbentatzea** da Berria - Kultura

---

inbento ik **inbentu**.

---

**inbentore** *iz* asmatzailea.

Baina gero oinazearen **inbentoreak** eta merkatariak etorri ziren, eta haragizko oinaze partikular hura, ideia edo pentsamendu publiko arrunt bihurtu zen. Patziku Perurena

Juaristik Ernazimentuan aurkitu du euskaldunaren inbentua; baina ez Ernazimentuan oro har [...] baizik pertsona konkretu gaizto batengan, intentzio makurrez juduen aurka propio asmatua, haiei lanbideak kentzeko apropos, eta "diferentziaren" **inbentorea** Lizentziatu Poza urduñarra izan da. Joxe Azurmendi

---

**inbentu** *(13 agerraldi 5 liburutan; orobat **inbento** 12 agerraldi 4 liburutan)* **1** *iz* asmazioa.

Liberalen **inbentua** da Estatu-Nazioaren kontzeptua. Joxe Azurmendi

Politikie kapitalisten **inbento** bat da dirue atatzeko. Iñaki Segurola

**2** asmakaria.

X. mende abiaeran, artean ere, **inbentu** askotxo baitzegoen asmatzeko... Pello Zabala

Gamma izpiak, pentsatu zuen, bai **inbentu** itzela. Harkaitz Cano

---

# inbentutxo *(corpusean **inbentotxo** soilik) iz*

Benetako plazera sortze lana da, lehen aipatu dizkizudan kontu txiki horiekin guztiekin: apurketak, **inbentotxoak,** kapritxoak. Berria - Kultura

---

# inbertitu, inberti, inbertitzen *(**403** agerraldi, **29** liburu eta **249** artikulutan; ETCn **7.559** agerraldi)* **1** du *ad* diru kopuru bat zerbaitetan ezarri edo erabili.

Atzerrian ezarri, mailegatu edo **inbertituriko** kapitalen irabaziak, eta etorkinek bidalitako diru-funtsak. Koro Navarro

Interesak %10ean baldin badaude, inor gutxik **inbertituko** luke %12ko errentagarritasuna eskainiko duela aurreikusten den negozio batean. Iñaki Heras

Interesak sei hilabetetik behin eskuratu ordez, hiru hilabetetik behin eskuratu, eta berriz **inbertitu** bahitu, urte bukaeran P(1 + 1/4)4 edukiko huke. Jon Muñoz

Hortaz, 50 milioi euro **inbertituko** duen lagun batek aukera izan behar du gero irabaziak lortzeko. Berria - Euskal Herria

Ingeles kapitalak Portugalen **inbertituko** balira. Koro Navarro

Herrialde zordunetan **inbertitzeko** interesa zuten enpresa multinazionalei. Koro Navarro

Epe luzera lehiakor izateko berrikuntza eta ikerketan **inbertitu** beharra. Koro Navarro

Herrialde hartzailean eskuratutako mozkinak berriro bertan **inbertituz**. Koro Navarro

Bost talentu hartu zituenak **inbertitu** egin zituen berehala eta beste bost irabazi. Elizen arteko biblia

1991tik 1996ra [...] eragile pribatuek 900.000 milioi dolar korronte inguru mailegatu, ezarri edo **inbertitu** zituzten garapen-bideko herrialdeetan. Koro Navarro

Txinak 500 milioi dolar **inbertituko** ditu Kubako nikel produkzioan. Berria - Mundua

Kataluniako aurrezki kutxak hiru milioi euro **inbertitu** zituen gizarte lanetan. Berria - Ekonomia

'Hedge funds'-etan **inbertitzeko** lehen funtsa sortu du BBK-k. Berria - Ekonomia

Badago funts solidario eta etikoetan **inbertitzea** errentagarritasunari uko egin gabe. Iñigo Aranbarri

Izan ere, urtegiaren mehatxua aurrean izanda, nork **inbertitu** behar zuen ezer bere etxeko teilatua edo paretak konpontzeko? Edurne Elizondo

Lanean hasteaz batera, dirua aurreratzen eta **inbertitzen** hasi nintzen. Jon Arretxe

Hor dago familia, hor dago gizartea bera, guregan **inbertitu** duena: mantendu gaitu, urte askotan itzuli behar ez zen dirua eman digu. Pako Aristi

Garapen emozionalean **inbertitzen** den guztia bueltan etortzen da: haurra lasaiagoa izango da, esplorazio aberatsagoa egingo du, harremanak errazago egingo ditu... Berria - Euskal Herria

**2** alderantzikatu.

Dezeleragailua **inbertitu** eta 2043 urtera itzultzeko agindua sakatu zuen. Iban Zaldua

**3** (era burutua izenondo gisa)

Espainian piramide **inbertituaren** eskemari zorrotz jarraitzen zaio normalean, eta Frantzian piramide **inbertitu** hori irekiagoa da. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asko inbertitu** (5); **berriz inbertitu** (3); **diru asko inbertitu** (4); **dolar inbertitu** (3); **eta berriz inbertitu** (3); **euro inbertitu** (28); **euro inbertitu ditu** (9); **euro inbertitu ziren** (4); **euro inbertitu zituen** (5); **euro inbertituko** (40); **euro inbertituko** (40); **euro inbertituko dira** (3); **euro inbertituko dira** (3); **euro inbertituko ditu** (22); **euro inbertituko ditu** (22); **euro inbertituko dituela** (3); **euro inbertituko dituela** (3); **euro inbertituko dituzte** (8); **euro inbertituko dituzte** (8); **gasteizen inbertitu** (3); **gehiago inbertitu** (9); **horretan inbertitu** (4); **inbertitu behar** (17); **inbertitu beharko** (9); **inbertitu beharra** (3); **inbertitu dira** (3); **inbertitu ditu** (16); **inbertitu du** (4); **inbertitu eta** (5); **inbertitu nahi** (6); **inbertitu ziren** (5); **inbertitu zituen** (5); **inbertitu zuten** (5); **inbertituko dira** (3); **inbertituko dira** (3); **inbertituko ditu** (27); **inbertituko ditu** (27); **inbertituko ditu aurten** (4); **inbertituko ditu aurten** (4); **inbertituko dituela** (4); **inbertituko dituela** (4); **inbertituko dituzte** (11); **inbertituko dituzte** (11); **milioi dolar inbertitu** (3); **milioi euro inbertitu** (25); **milioi euro inbertituko** (38); **milioi euro inbertituko** (38); **milioi inbertituko** (3); **milioi inbertituko** (3)

**atzerrian inbertitzeko** (3); **dirua inbertitzen** (3); **euro inbertitzeko** (3); **euro inbertitzeko asmoa** (3); **gehiago inbertitzen** (3); **gehien inbertitzen** (5); **gutxi inbertitzen** (3); **gutxiago inbertitzen** (5); **inbertitzeko asmoa** (3); **inbertitzeko eskatu** (3); **inbertitzeko eta** (3); **inbertitzeko prest** (3); **inbertitzen ari** (6); **inbertitzen ari dira** (3); **inbertitzen da** (3); **inbertitzen du** (4); **inbertitzen duen** (5); **inbertitzen dute** (6); **inbertitzen duten** (3); **milioi euro inbertitzeko** (3)

---

# inbertitzaile *(ETCn **1.308** agerraldi)* **1** *izond/iz* inbertitzen duena. ik **inbertsiogile; inbestitzaile**.

Era horretan nazioarteko **inbertitzaileek** hartzen dituzten arriskuak murrizten dira. Koro Navarro

Maileguen gainean ordaindutako interesak eta atzerritar **inbertitzaileek** beren herrira eramandako dibidenduak eta mozkinak kontuan hartzen badira. Koro Navarro

Maileguen gainean ordaindutako interesak eta atzerritar **inbertitzaileek** beren herrira eramandako dibidenduak eta mozkinak kontuan hartzen badira. Koro Navarro

Parmalateko **inbertitzaileek** auzitegietara joko dute. Berria - Ekonomia

• **2** *izond*

Talde **inbertitzaile** sendoa da, eta 50 milioi bezero ditu mundu osoan. Berria - Ekonomia

Erakunde **inbertitzaileen** erosketak dira prezioak etengabe igotzearen erantzuleak. Berria - Harian

---

# inbertsio *(ETCn **20.697** agerraldi)* **1** *iz* diru kopuru bat zerbaitetan ezarri edo erabiltzea. ik **inbestimendu**.

Bere independentziari harrotasunez atxikirik, Japoniak ez zituen kanpoko maileguak eta **inbertsioak** onartu. Koro Navarro

**Inbertsioa** sustatu eta enplegua sortzeko. Iñaki Heras

Energia berriztagarrietan eta kontsumo eraginkorrean 4.900 milioi **euroren** inbertsioak egingo ditu Eusko Jaurlaritzak.

Ikerketa bultzatzeko, Bill Gatesek sei milioi dolarreko **inbertsioa** egin zuen. Berria - Ekonomia

Katalunian, bestalde, **inbertsio** handia egin da osasun zerbitzuetan. Berria - Gaiak

Estatuak **inbertsio** masiboak egin zituen industria astunetan eta oinarrizko azpiegituretan. Koro Navarro

Ikasliburu baten egiten den **inbertsioa** berdintzeko hiruzpalau urte behar izaten ditu argitaletxe batek. Berria - Harian

Ikerketa-garapenean (IG) **inbertsiorik** handienak egiten dituzten herrialdeetako enpresek atzerrian ere egin ohi dituzte **inbertsioak,** beren berrikuntzak ustiatzeko. Koro Navarro

Enpresen **inbertsioa** zergagabetuko da. Berria - Ekonomia

Enpresen **inbertsioek** behera egin zuten urteko hirugarren hiru hilekoan (-%0,1). Berria - Ekonomia

Markoetan egiten ziren **inbertsioen** zenbatekoa. Koro Navarro

Merkataritza, nazioarteko **inbertsioa** bezalaxe, osagarritasunezko irizpideen gainean oinarritzen zen funtsean. Koro Navarro

Trukeen, **inbertsioen** eta kredituen fluxuen bitartez. Iñaki Heras

Beste lekuetan aurkitzen ez diren lehengaiak ustiatzeko ez bada, nazioarteko **inbertsioak** ez du periferiako lurraldeetara jotzen. Koro Navarro

Atzerriko **inbertsioa** jaitsi arren, esportazioak %15,6 igo ziren. Berria - Ekonomia

Urre-ereduaren erregimenaren baitan [...] nazioarteko maileguak, eta baita zuzeneko **inbertsioak** ere, sekula ez bezalako lastertasunez garatu ziren. Koro Navarro

Nazioarteko zuzeneko **inbertsioen** hazkunde indizea. Koro Navarro

Herrialde industrializatuen arteko **inbertsio** gurutzatuen nagusitasuna. Koro Navarro

**Inbertsio** pribatua sustatzeko. Iñaki Heras

**Inbertsio** ez errentagarriak. Koro Navarro

Zortzi urterekin, haurrak nekazaritza lanetan laguntzen hasiko ziren; beraz, karga ez, baizik eta **inbertsio** ona zen haur asko izatea. Luis Elberdin

Autodeterminazioaren aldeko botoa «gatazkaren konponbide demokratikoan **inbertsioa** egitea» dela erantsi zuen. Berria - Euskal Herria

**Inbertsiotzat** hartu nuen bidaia, gizon aberatsen bat aurkituko nuen ustean. Xabier Paya

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Beste aldetik, baliabideen kostua handitu egiten da, **inbertsio**-tresna errentagarriagoak agertzearekin (**inbertsio**-sozietate eta **inbertsio**-funtsak), familien aurrezkiak banku-gordailuetatik urruntzen baitituzte. Koro Navarro

Europako **Inbertsio** Bankuaren dirua erabil dadila. Berria - Mundua

Stephen O'Sullivan UFG **inbertsio** etxeko adituak. Berria - Ekonomia

Fininvest bere **inbertsio** enpresari lotutako auzi batean. Berria - Mundua

Permira eta Carbalek (Ballve anaien **inbertsio** elkarteak) akzioko 2,15 euro eskaini zituen. Berria - Ekonomia

Hein handi batean, kotoiaren esportazioak finantzatzen zuen **inbertsio**-ahalegina. Koro Navarro

Maileguz hartutako funtsak **inbertsio**-proiektu errentagarrietan erabili zirenean. Koro Navarro

Produktu manufakturatuen tokiko merkatuetan sorturiko urrialdiek **inbertsio**-aukera esperogabeak ekarri zizkieten bertako enpresaburuei. Koro Navarro

Makina-erreminta **inbertsio** ondasuna da. Berria - Ekonomia

**Inbertsio**-tasa hori BPGaren %22 zen 1993an. Koro Navarro

Herrialdean I+Gn eginiko **inbertsio** proportzioa «ona» dela azaldu zuen Camposek. Berria - Ekonomia

Orain arteko errentagarritasunari eta **inbertsio** mailari eustea du asmo. Berria - Ekonomia

**Inbertsio** plan errentagarriak finantzatzeko. Berria - Ekonomia

Haien **inbertsio**-estrategiak, dinamika berriak sortu baino areago, jadanik abian diren barne-dinamikei atxikitzen zaizkie gehienetan. Koro Navarro

**Inbertsio**-atonia iraunkorra. Koro Navarro

**inbertsio** dezifizita zuzentzea. Berria - Mundua

Txinara joango dela herrialdeak Asian dituen merkataritza eta **inbertsio** harremanak bultzatzen laguntzeko. Berria - Mundua

Manufakturen sektorean eta ekonomia dinamikoenetako zerbitzuetan egin diren **inbertsio**-forma berriak. Koro Navarro

1970eko hamarraldiaz geroztik garatu diren **inbertsio** molde berriei esker, bereizi egin daitezke ekoizpenaren kontrola eta kapitalaren ekarpena. Koro Navarro

**Inbertsio**-erregimenaren liberalizazio etengabearekin batera. Koro Navarro

Hala eta guztiz ere, datu horiek nahiko ondo islatzen dute **inbertsio-** ardatzen eta **inbertsio**-hartzaileen arteko hierarkia. Koro Navarro

## 3 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kreditu **inbertsioen** balioa 7.885 eurokoa da. Berria - Ekonomia

Enpresen kapital **inbertsioa** %5,1 hazi da. Berria - Ekonomia

Lizentziak ematea erraza izaten da gauzatzen, ez da garestia, eta teorian irabazi gehiago eman ditzake ekoizpen-**inbertsio** baten mozkin beti aleatorioek baino. Koro Navarro

Konpromisoak gauzatzeko aurrekontu-**inbertsio** handiak behar dira hezkuntzan, informazioan, partaidetzan eta komunikazioan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eskualde osoan bultzatu zen truke-tasen balioeste gehiegizkoari esker, eta lurreko oligarkiaren sarreren lepotik, industria-**inbertsioen** kostuak murriztu ahal izan ziren. Koro Navarro

Gai jakin batean, material berezi batean murgildurik, bestalde, egunean-egunean handituz doa denbora- eta lan-**inbertsioa**. Juan Garzia

I+G+I **inbertsioen,** prestakuntza iraunkorraren, azpiegituren, marketinaren, kudeaketaren eta malgutasunaren alorretan. Berria - Ekonomia

Esportazio eta barne-**inbertsioen** gorakadak eta nazioarteko ekonomiaren egoera onak eragin dute hazkunde hori. Berria - Ekonomia

## 4 alderantzizkatzea.

Horixe baita **inbertsioa:** segida baten osagaiak aldrebes jartzea. Iñaki Arranz

Permutazioaren aldaera bat da **inbertsioa,** baina hain da oparoa hitz jolasen munduan non atal berri bat egitea erabaki dugun, aurreko permutazioetatik bereizia. Iñaki Arranz

Labur esatearren, nigan **inbertsio** bat gertatu zen. Bernardo Atxaga

Zeinuaren **inbertsioak** ez du alternatibotasunaren bermea ziurtatzen. Txema Ramirez de la Piscina

## 5 *inbertsio funts*

Aurrezleak gehien erakarri dituzten produktuak **inbertsio** funtsak izan ziren joan den urtean. Berria - Ekonomia

Ageriko aurrezki, hipoteka mailegu eta **inbertsio** funtsen igoerek negozioaren bolumena %12,3 haztea eragin zuten. Berria - Ekonomia

Merkatu indartzen hasi guztietara zabaldu zen orduan mesfidantza, eta Long Term Capital Management estatubatuar **inbertsio**-funts handiaren porrota eragin zuen ia. Koro Navarro

**Inbertsio** funts, pentsio funts eta aseguru-etxe handiek mugitzen duten dirutza osoa 21 bilioi dolar ingurukoa dela kalkulatzen da. Iñaki Heras

FIDELITY AEBetako **inbertsio** funts taldeak partaidetza ugari eta handiak ditu geure burtsan. Berria - Ekonomia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aebetako inbertsio** (3); **aparteko inbertsio** (5); **arteko inbertsio** (3); **atzerriko inbertsio** (4); **baina inbertsio** (4); **baino inbertsio** (6); **diren inbertsio** (6); **du inbertsio** (3); **egindako inbertsio** (7); **egitasmo eta inbertsio** (3); **eta inbertsio** (44); **eta inbertsio funtsak** (4); **hainbat inbertsio** (5)

**inbertsio aukera** (3); **inbertsio bankuak** (5); **inbertsio bankuaren** (3); **inbertsio bat** (3); **inbertsio baten** (3); **inbertsio berriak** (6); **inbertsio eta** (13); **inbertsio eta pentsio** (3); **inbertsio funts** (9); **inbertsio funtsa** (3); **inbertsio funtsak** (10); **inbertsio funtsari** (3); **inbertsio funtsek** (4); **inbertsio funtsen** (4); **inbertsio gehiago** (6); **inbertsio gehiago egin** (3); **inbertsio gurutzatuak** (4); **inbertsio gurutzatuen** (4); **inbertsio gutxiago** (4); **inbertsio handi** (3); **inbertsio handia** (15); **inbertsio handia egin** (7); **inbertsio handiak** (20); **inbertsio handiak egin** (11); **inbertsio hori** (3); **inbertsio horiek** (6); **inbertsio horien** (5); **inbertsio horri** (3); **inbertsio maila** (3); **inbertsio ona** (3); **inbertsio oso** (3); **inbertsio plan** (5); **inbertsio plana** (5); **inbertsio pribatua** (5); **inbertsio proiektuak** (3); **inbertsio publiko** (3); **inbertsio publikoak** (4); **inbertsio zuzenen** (4)

**merkataritza eta inbertsio** (3); **nazioarteko zuzeneko inbertsio** (3); **zenbait inbertsio** (5); **zuzeneko inbertsio** (7); **zuzeneko inbertsio gurutzatuak** (3)

**atzerriko inbertsioa** (3); **beharreko inbertsioa** (3); **den inbertsioa** (4); **dolarreko inbertsioa** (4); **egin beharreko inbertsioa** (3); **egindako inbertsioa** (5); **enpresen inbertsioa** (6); **eta inbertsioa** (9); **euro inguruko inbertsioa** (6); **euroko inbertsioa** (77); **euroko inbertsioa aurreikusi** (4); **euroko inbertsioa egin** (25); **euroko inbertsioa eginen** (4); **euroko inbertsioa egingo** (11); **euroko inbertsioa egiteko** (3)

**inbertsioa aurreikusi** (5); **inbertsioa aurreikusi dute** (3); **inbertsioa beharko** (3); **inbertsioa berdintzeko** (4); **inbertsioa berreskuratu** (3); **inbertsioa da** (5); **inbertsioa dela** (3); **inbertsioa egin** (40); **inbertsioa egin behar** (7); **inbertsioa egin du** (11); **inbertsioa egin dute** (6); **inbertsioa egin nahi** (3); **inbertsioa egin zuen** (3); **inbertsioa eginen** (4); **inbertsioa egingo** (16); **inbertsioa egingo du** (10); **inbertsioa egitea** (7); **inbertsioa egiteko** (3); **inbertsioa egiten** (4); **inbertsioa eskatzen** (3); **inbertsioa eta** (8); **inbertsioa eta epeak** (3); **inbertsioa ez** (4)

**inguruko inbertsioa** (6); **milioi euroko inbertsioa** (66); **milioiko inbertsioa** (5); **nazioarteko zuzeneko inbertsioa** (3); **zenbateko inbertsioa** (4); **zenbateko inbertsioa egin** (3); **zuzeneko inbertsioa** (5)

**atzerriko inbertsioak** (4); **beharreko inbertsioak** (4); **bideratutako inbertsioak** (3); **diren inbertsioak** (4); **diru inbertsioak** (4); **dituen inbertsioak** (3); **dituzte inbertsioak** (3); **dituzten inbertsioak** (5); **egin beharreko inbertsioak** (4); **egindako inbertsioak** (6); **enpresen inbertsioak** (3); **eta inbertsioak** (19); **euroko inbertsioak** (11); **euroko inbertsioak egin** (6); **euroren inbertsioak** (8); **euroren inbertsioak egingo** (6); **g inbertsioak** (3); **hobetzeko inbertsioak** (3); **inbertsioak behar** (3); **inbertsioak bultzatu** (3); **inbertsioak dira** (4); **inbertsioak egin** (17); **inbertsioak egin dituzte** (3); **inbertsioak egin eta** (3); **inbertsioak eginez** (3); **inbertsioak egingo** (11); **inbertsioak egingo ditu** (5); **inbertsioak egingo dituzte** (4); **inbertsioak egitea** (5); **inbertsioak egiteko** (19); **inbertsioak egiten** (7); **inbertsioak ere** (6); **inbertsioak eta** (17); **inbertsioak ez** (7); **inbertsioak ez du** (3); **milioi euroko inbertsioak** (11); **milioi euroren inbertsioak** (8); **nazioarteko zuzeneko inbertsioak** (15); **ziren inbertsioak** (3); **zuzeneko**

**inbertsioak** (19)

**atzerriko inbertsioen** (6); **enpresen inbertsioei** (3); **eta inbertsioaren** (3); **eta inbertsioen** (10); **euroko inbertsioarekin** (4); **inbertsioei buruz** (6); **inbertsioen eta** (4); **inbertsioen fluxuen** (4); **inbertsioen munduko** (5); **inbertsioen munduko stockaren** (3); **inbertsioen parte** (6); **inbertsioen parterik** (3); **milioi euroko inbertsioarekin** (3); **nazioarteko zuzeneko inbertsioei** (4); **nazioarteko zuzeneko inbertsioen** (55); **zuzeneko inbertsioei** (4); **zuzeneko inbertsioen** (55); **zuzeneko inbertsioen fluxuen** (4); **zuzeneko inbertsioen munduko** (4); **zuzeneko inbertsioen parte** (5)

---

# inbertsiogile *(211 agerraldi, liburu 1 eta 160 artikulutan; ETCn 1.661 agerraldi) iz* dirua inbertitzen duen pertsona. ik **inbertitzaile**.

SFR-ren akzioak pikutara joan dira, eta **inbertsiogile** handi batek adio esan digu gaur. Patxi Iturritegi

Epe luzeko **inbertsiogileen** oinarri handi bat sortzeko. Berria - Ekonomia

Egunero diru kopuru handiak salerosten dituzten **inbertsiogile** pribatuei. Berria - Ekonomia

**Inbertsiogile** nagusia pribatua bada. Berria - Ekonomia

Herrialde bat **inbertsiogileentzako** erakargarria izateko baldintzak aipatu zituen, eta horrekin batera, **inbertsiogileak** uxatzen dituzten egoerak. Berria - Ekonomia

Txirula hartu eta **inbertsiogile** txiki eta handiak liluratu zituen bere musika alaiarekin. Berria - Ekonomia

· Ingelectric eta Murueta, balizko **inbertsiogile**. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atzerriko inbertsiogileek** (4); **diote inbertsiogileek** (3); **du inbertsiogile** (3); **eta inbertsiogile** (6); **inbertsiogile eta** (3); **inbertsiogile handiei** (3); **inbertsiogile handienen** (3); **inbertsiogile pribatuak** (4); **inbertsiogile pribatuek** (5); **inbertsiogile pribatuen** (15); **inbertsiogile pribatuen esku** (15); **inbertsiogileek eta** (5); **inbertsiogileen artean** (3); **naval inbertsiogile** (4); **naval inbertsiogile pribatuen** (4); **nazioarteko inbertsiogile** (3); **zuten inbertsiogileek** (4)

---

# inbertsiogintza *iz* inbestimenduak egitea.

Garaiko Mendebaldeko merkataritza-publizitatearen praktika, bere **inbertsiogintzaren** ugaritasunean eta "merkatu-ikerketaren" arduratasunean, propaganda komunistak nekez gainditu bazezakeen ere, desberdinak eta garrantzitsuagoak ziren emaitzetara jo zuen, eta bai lortu ere. Iñaki Mendiguren

---

# inbertsore *(28 agerraldi, 3 liburu eta 10 artikulutan; ETCn 394 agerraldi) iz* inbertsiogilea.

**Inbertsore** batek, 1990ean, azken enpresa horren 10.000 dolar erosi izan balitu, 2000. urtean 13,4 milioi dolar izango zituen. Iñaki Heras

Kanpoko **inbertsoreek** ez dutelako arrazoirik etekin txikia emango dieten herrialde horietako aktiboetan eta tituluetan inbertitzeko. Berria - Ekonomia

Egitasmoak behar duen diruaren erdia kanpaina handi baten bidez lortu diren **inbertsore** pribatuek eman dute. Berria - Mundua

Konpainia berriak ere sortu ziren **inbertsore** berrien eske zegoen euforia-giroari probetxua ateratzeko asmoz. Iñaki Heras

Parmalatek bere burua finantzatzeko **inbertsoreei** jaulkitako tituluei dagozkien dokumentuak. makina bat **inbertsore** harrapatu zuen ekonomia berriaren burbuilak. Iñaki Heras

· Espainia dela Boliviako **inbertsore** atzerritar nagusienetako bat. Berria - Mundua

---

# inbestidura *(orobat **inbestitura** g.er.)* **1** *iz* norbaiti aginte edo dignitate bat ematea.

EAE-ko lehendakariaren **inbestidura**. Zapateroren **inbestidura** babesteko, baldintzak jarri dituzte EAk eta ERCk. Berria - Euskal Herria

Zapateroren **inbestiduran** EAJ, seguruenik, abstenitu eginen dela esan zuen. Berria - Euskal Herria

2003an Rabanera eta Alonsoren **inbestiduraren** alde bozkatu zuen PSE-Eek. Berria - Euskal Herria

**Inbestidura** lortzeko. Berria - Euskal Herria

EHAKren babesa edo, bestela, PSE-EEren abstentzioa beharko du **inbestidurako** bozketan lehendakari aukeratua izateko. Berria - Harian

RPR-ren **inbestituraren** bila abiatu zen, baina azkenean, independente gisa aurkeztu zen, alderdi gaullistak Caset sostengatu baitzuen. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Gaur Mikhail Saakashvili Georgiako presidentearen **inbestidura** ekitaldia izango da Tbilisin. Berria - Mundua

Iazko ekainaren 22an Eusko Legebiltzarrean egindako **inbestidura** hitzaldian Kontseilu Politikoaren zeregin nagusiak aurreratu zituen lehendakariak. Berria - Euskal Herria

Azkaratek esan zuen Ibarretxek **inbestidura** saioan hartutako konpromisoei eutsi egiten diela. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ibarretxek inbestidura** (3); **inbestidura ekitaldia** (4); **inbestidura saioa** (6); **inbestidura saioan** (38); **inbestidura saioan hartutako** (3); **inbestidura saioan zer** (4); **inbestidura saioaren** (3); **inbestidura saioari** (3); **inbestidura saioko** (7); **lehendakariak inbestidura saioan** (4); **lehendakariaren inbestidura** (7); **presidentearen inbestidura** (4); **rodriguez zapateroren inbestidura** (5); **zapaterok inbestidura saioan** (4); **zapateroren inbestidura** (11); **zapateroren inbestidura saioa** (3); **zapateroren inbestidura saioan** (4); **zapateroren inbestiduran** (3)

---

# inbestigazio *iz* ikerketa.

Meteorologia azterketa eta **inbestigazio** sano bezain sakona. Pello Zabala

Bere **inbestigazioen** berri emateko, gauean bertan edo bestela biharamun goizean telefonatuko zuela sinfalta. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# inbestimendu *(40 agerraldi, 3 liburutan; ETCn 88 agerraldi) iz* inbertsioa. ik **inbestizamendu**.

Japonia **inbestimendu** handiak egiten ari da oinarrizko ikerkuntzan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Azpimarratzekoa da, hala ere, **inbestimendu** publikoei dagokiela EAE eta Europar Batasunaren artean dagoen alde handiena, **inbestimendu** pribatuei dagokiena txikiagoa baita, datu horietan ikusten den gisa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

"Ikerketa eta Garapenerako" (I+G) erabiltzen diren **inbestimenduak**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

I+Grako **inbestimenduak,** BPGaren ehunekoetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gizarteak ikasleko egiten duen **inbestimendua**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Inbestimenduetarako** gastu handia egiteak esan nahi du, normalean, unibertsitate sistema hazten ari dela. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gure inguruan zer egiten den ikusi behar da, eta ikusi behar da nola egiten den, zer **inbestimendu** mota egiten den, nork jartzen dituen baliabideak, nork erabiltzen dituen baliabideak, etab. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**diren inbestimenduak** (6); **egiten diren inbestimenduak** (5); **inbestimendu handiak** (3)

**inbestitu**, inbesti, inbestitzen *(16 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan)* du *ad* diru kopuru bat zerbaitetan ezarri edo erabili.

Hazparne ez du Arbelbidek sortua, diru ainitz **inbestitu** badu ere. Xipri Arbelbide

Sardinzarrak, alkaterna eta eltzeak saltzen ziren denda batean **inbestitua** zuen Peshek dotea, eta nekazariz gainezka egoten zen beti denda. Koro Navarro

Horrek esan nahi du AEBetan hemen baino askoz ere ahalegin handiagoa egiten dela, lau aldiz gehiago **inbestitzen** baita ikasleko, nahiz biztanleko errenta bi aldiz handiagoa izan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Baina irakaskuntzan **inbestitzen** dena da, benetan, beste herri horietatik urruntzen gaituena. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ezagutzan **inbestitzen** duenak etorkizunean **inbestitzen** du. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gehiago inbestitzen** (4); **inbestitzen dela** (3); **unibertsitatean inbestitzen** (3)

---

**inbestitzaile** *iz* inbertitzailea.

Beste **inbestitzaile** bat edo behar baduzu kontu horretan zurekin batera sartzeko, baliteke prest egotea laguntzeko. Oskar Arana

---

**inbestizamendu** *(35 agerraldi 23 artikulutan -denak Herria aldizkarian-; ETCn 113 agerraldi –denak Herria aldizkarian-; orobat **inbeztizamendu** 13 agerraldi 10 artikulutan -denak Herria aldizkarian-; ETCn 18 agerraldi –denak Herria aldizkarian-;) ipar* inbertsioa.

Aurtengo **inbestizamenduak** 61 milioi eurotarat heltzen dira. Herria

11 milioi euro ezarriak izanen dira **inbestizamenduetan,** azken bi urtetan baino xifra apalagoa. Herria

Haren ustez Hitzarmen **Bereziko** inbestizamenduak gotorrak dira, Frantzian kasik bakarrak hein horretakoak antolakuntza aldetik. Herria

Ekoizpen lerro berri horiek aterbetzeko, 6500 metro karratuko bastiza berri bat eraikiko dute, 12 milioi euroko **inbestizamendu** pentsatua dute. Herria

Jaurlaritzak Iparraldean egiten **dituen** inbestizamenduak. Herria

Kontatzen dituzte hogei milioi euro **inbeztizamendu**. Herria

22 proiektuak lerrokatuz 23 milioi euro **inbeztizamendu** beharko dela. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **euroko inbestizamendua** (4); **milioi euro inbeztizamendu** (4)

---

**inbezilitate** *iz* ergelkeria.

Batzuen fanatismoa goritzeko eta besteen **inbezilitatea** laketzeko. Joxe Azurmendi

---

**inbidia** *(412 agerraldi, 134 liburu eta 45 artikulutan; ETCn 2.641 agerraldi; orobat **enbidia** g.er.)* **1** *iz* norbaitek, berak ez duen zerbaiten jabe denaren aurka duen damua. ik **bekaizkeria**.

Gorde daitezela anaiak inolako harrokeria, handiuste, **inbidia,** diru-gose, mundu honetako ardura eta axolatik, eta gaizki esate eta marmarrean aritzetik. Askoren artean

Handiustea, kodizia, haragikeria, hira, jatunkeria, **inbidia** eta nagikeria izendatu zituen Tomas Akinokoak bekatu nagusi. Berria - Kultura

Gerra baino gehiago izan ziren hemen ezin eramana eta **inbidia**. Arantxa Iturbe

Denek egiten dute gizon horren esana, ikusezinik eta **inbidiarik** gabe. Elizen arteko biblia

**Inbidia** ederrak pasatutakoa naiz neska hark eskolara eramaten zuen txokolatearekin. Arantxa Iturbe

Kapa estreinatu berriaz gain, bazuen lagunen **inbidia** pizteko beste arrazoi bat. Arantxa Iturbe

Milaka pertsonen **inbidia** pizten zuen lanpostua. Arantxa Iturbe

Hango ileei begira zegoen, **inbidia** barneraino sartua. Karlos Zabala

**Inbidia sentitu** zuen neskatoaren senargaiaz. Joxemari Iturralde

Harryrentzat zaila zen Ronen **inbidiarik** ez sentitzea. Iñaki Mendiguren

**Inbidia** hartzen nien guztiei. Bernardo Atxaga

Eta **inbidiak** jana egoten nintzen neronek idatzi ez nuelako. Fernando Rey

-Aizan, zoragarria, **inbidiak** erreta hilko diren bizpahiru lagun ezagutzen ditinat. Antton Olano

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Buru-makur eta **inbidia**-punttu batez begiratu diete irabazleei. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez nion ezer esan, baina **inbidia** pixka bat sentitu nuen. Jasone Osoro

Besteen **inbidia** musua ikusi nuen, eta une hartan hori izan zen gehien gustatu zitzaidana. Juan Martin Elexpuru

Freden eta Georgeren **inbidia**-aurpegiak ikusteko itxaropena. ez dakit zergatik, zerbait falta nuen irudipena, **inbidia**-sentipena ere bai. Iñaki Mendiguren

**3** ***inbidiatan*** *(30 agerraldi, 16 liburu eta artikulu 1ean)* inbidiaz.

Ez zaitez gaiztoen **inbidiatan** egon, ez eta haiekin elkartzeko gogoz ere. Elizen arteko biblia

Ni **inbidiatan** egoten nintzaion begira. Joxean Agirre

Eta neska guztiak zure **inbidiatan** ibiliko dira. Patxi Zubizarreta

Labar gaineko kaio eta kuliskei jostailuzko kometa zuriak bailiren begiratzen nien euren hegaldi askearen **inbidiatan**. Hasier Etxeberria

Erdi harro erdi **inbidiatan** mintzatzen zen. Fernando Rey

**4** ***inbidiaz*** *(60 agerraldi, 35 liburu eta 9 artikulutan)*

Ez zaitez indarzalearen **inbidiaz** bizi, ez eta haren biderik hartu ere. Elizen arteko biblia

Gaiztoen arrakasta ikusirik, harroputz horien **inbidiaz** nengoen. Elizen arteko biblia

Autoan sartu direnean, ostatuko neskak **inbidiaz** begiratu dio Juliari. Alberto Barandiaran

**Inbidiaz** begiratzen zioten eskolako lagunek kapa berria jantzi eta trenbidera abiatzen zen bakoitzean. Arantxa Iturbe

Guri sekula ez digute hara joaten uzten -esan zuen Ronek **inbidiaz**. Iñaki Mendiguren

**5** ***indibiazko***

**Inbidiazko** bekatutik ihes egin. Askoren artean

Jainkoaren aldeko Maitasuna ez dezake kutsa ez **Inbidiazko** ez Bekaizkeriazko afekzioak; baina Maitasunezko lokarri berak Jainkoari lotzen dizkion jende gehiago irudikatu arau, maitatzenago dugu Jainkoa. Piarres Xarriton

Emakumeen suspirioei eta gizonezkoen **inbidiazko** begiradei jaramonik egiteke. Felipe Juaristi

**6** ***inbidia eman***

Miepek askotan esaten digu **inbidia** ematen diogula hemen dugun lasaitasunagatik. Josu Zabaleta

-O, Anshel, hori **inbidia** ematen didazuna -esan zion. Koro Navarro

Amorantea izango dela erabaki dugu eta **inbidia** eman digu agure xahar eztulkariak. Harkaitz Cano

Eta pena eta **inbidia** eman zidan aldi berean [...] bere burua puntu hartaraino engaina zezakeelako. Ramon Saizarbitoria

· Aspaldi honetan hortik zehar ibiliz ezagutu dudan jendilajea aztertuz gero, ez dit inork **inbidia** handirik ematen. Jon Arretxe

**Inbidia** puntu bat ematen zion garai hartan. Jokin Muñoz

**7** *(norbaiten)* ***inbidia izan*** du *ad*

Absurdua zen, baina iruditu zitzaidan beti izan nuela Marcel Martinen **inbidia**. Ramon Saizarbitoria

Beti izan dut haren **inbidia** pixka bat. Karlos Zabala

Korritzea gauza miragarria da, gizonen **inbidia** pittin bat dut nik hori dela-eta. Karlos Zabala

Ene **inbidia** dute, Raduan! Patxi Zubizarreta

Uste dut gaur egun EOSek ez duela izan behar beste orkestren **inbidiarik**. Berria - Kultura

**8** *(norbaiti)* ***inbidia izan*** dio *ad*

Hau **inbidia** diodana! Josu Zabaleta

Badakit **inbidia** didatela deabruek Jaunak bere onginahian egin dizkidan mesedeengatik. Askoren artean

Ondamua eragiten zidan horrek, Ulisesi bekaizkeria izugarria nion, **inbidia** gorria, · Giza salbamenaren etsaiek **inbidia** handia didate. Askoren artean

Neurri batean, beste bi belaunaldiei **inbidia** apur bat izateko arrazoiak baditugu tarteko belaunaldikook. Joxerra Garzia

Gure amak **inbidia** pixka bat zien beti Paolaren adiskideei. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baina inbidia** (4); **batzuetan inbidia** (3); **dio inbidiarik** (3); **dut inbidia** (3); **eta inbidia** (19); **eta inbidiak** (3); **eta inbidiaz** (5); **ez dio inbidiarik** (3); **haren inbidia** (4); **hau inbidia** (3); **horrek inbidia** (3); **inbidia apur** (8); **inbidia apur bat** (7); **inbidia diet** (4); **inbidia diot** (3); **inbidia eman** (3); **inbidia ematen** (11); **inbidia ere** (6); **inbidia eta** (4); **inbidia ez** (3); **inbidia handia** (3); **inbidia handiz** (3); **inbidia pixka** (12); **inbidia pixka bat** (10); **inbidia piztu** (3); **inbidia puntu** (3); **inbidia sanoa** (4); **inbidia sentitu** (4); **inbidia sentitzen** (4); **inbidia zion** (3); **inbidia zioten** (3); **inbidiarik ez** (10); **inbidiarik gabe** (5); **inbidiarik izan** (3); **inbidiatan egon** (4); **inbidiatan egoten** (3); **inbidiaz begiratu** (9); **inbidiaz begiratzen** (11); **zure inbidiatan** (3)

---

# inbidiagarri *iz* inbidia ematen duena.

Beren iraganeko garaipen egiazko edo alegiazkoetara jo zuten, edo beren nazioaren edota kultur izaeraren ezaugarri **inbidiagarrietara**. Reala egoera **«inbidiagarrian»** dagoela esan zuen Gari Urangak herenegun. Bernardo Atxaga

Inork bere buruari ez eta Idazleak bereari permititzen ahal zion heterodoxia **inbidiagarri -inbidiagarri,** modu ez batere osasungarrian- batekoa. Jon Alonso

**Inbidiagarri** zaizkidanak ez dira, ordea, ez gizarte honek **inbidiagarritzat** aurkezten dizkigunak ez handi-mandiak. Joxerra Garzia

Haien bizimoldeen jendetasuna, soinekoen brodatuak, haien sakela beteak **inbidiagarriak** zitzaizkion. Patxi Zubizarreta

Paperik gabeko etorkin guztien **inbidiagarri** izango ziren segurutik zeru hutsera begira jarritako milaka esku paperdun haiek. Iñaki Segurola

---

# inbidiatsu *izond* inbidiaz betea, bekaiztia.

Abasek, inork baino hobeki ezagutzen baitzuen lagunaren izaera **inbidiatsu** eta ozpina. Patxi Zubizarreta

Harroa da Luzifer, **inbidiatsua** Leviatan, Beltzebuk ez du sabela beste deus buruan. Anjel Lertxundi

Hau gaiztoa da eta **inbidiatsua**. Imanol Unzurrunzaga

---

# inbidiatu, inbidia(tu), inbidiatzen *(orobat enbidia g.er.;)* du *ad* inbidia izan.

Ez *nostri saeculi,* baina ezkutuan **inbidiatuko** zituztenak. Iñaki Mendiguren

Seguru eta **inbidiatua** sentitzen zen haren ondoan, Tarantinoren nobia bailitzan. Patxi Iturritegi

Izan ere, ezin da munduko herri seguruena izan, munduko herri mehatxatuena zarenean, gorrotatuena edo **enbidiatuena**. Berria - Mundua

---

# inbido ik **enbido**.

---

# inbitatu, inbita, inbitatzen du *ad* gonbidatu.

Dantzatokietan [...] Onintze **inbitatzen** zuen dantzara. Gotzon Garate

---

# inbitazio *iz* gonbita.

Aurtengoak ez dira izan lehenengo **inbitazioak**. Berria - Kirola

---

# inbokatu, inboka, inkokatzen du *ad* aipatu, ahotan hartu.

Zuak diskurtsoan kolaboratzeko irakurlearen ahalmena inbokatzen du, autorearen beraren maila **berdinean** dagoela esateraino. Xabier Amuriza

Bilbo gorri honentzat Brechten "ilargi zahar" zurbila **inbokatzea** probokazioa ere bazen, poesiara ihes egitea. Joseba Zulaika

Nire izena **inbokatzen** zuen Jainkoa **inbokatzen** balu bezala. Matías Múgica

Ostatuko maindireak zikindu ditut zu **inbokatuz,** baina errealitatera bueltatutakoan ez zinen hemen. Eider Rodriguez

Ez ditugu berdinduko arraza **inbokatzen** duten denak, eta Ortega horiekin guztiekin are gutxiago.Orain arte sakrifizioa **inbokatu,** eta abertzaleak uste zuen bide zuzenean zegoela. Joxe Azurmendi

---

# inbokazio *iz* inbokatzea.

Horregatik, **inbokazio** honen ondoren, berehalaxe pasatzen da lehen pertsona pluralera. Xabier Amuriza

Espiritismo-gaua aukera jeniala zen ondo pasatzeko, espirituen **inbokazioan** eta haien balizko agerpenean sinetsi gabe ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Erregetzaren legitimaziorako herriaren edo nazioaren **inbokazioak** berdin izan baitzezakeen irakurketa iraultzailea bezala ertarotarra. Joxe Azurmendi

**inbolukratu,** inbolukra, inbolukratzen da *ad* tartean sartu.

Subjektuarekin **inbolukratu** izan diren idazleak interesatu izan zaizkit. Ana Urkiza

**inboluzio** *iz* atzeranzko aldaketa edo prozesua.

Aspaldi esana zuen Frente Popularren gobernu ahulegiak ateak zabaltzen zizkiola **inboluzio** bati. Lutxo Egia

PPren eta PSOEren **inboluzio** demokratikoari erantzuteko. Berria - Euskal Herria

Alderdien Legearekin eta autonomia estatutuen erreformen kontrako jarrerekin, **«inboluzio** autonomiko» bat abiatu duela seinalatu dute askok. Berria - Mundua

**Inboluzio** bat espero izatekoa da agian gure espeziean. Harkaitz Cano

Ahalmenak, trebetasunak, garapen edo **inboluzio** mailak, inguruneari erantzuteko erak. Xabier Arregi

**inboluzionista** *izond* inboluzioarako joerari dagokiona.

Aurpegi antidemokratikoa eta **inboluzionista** erakusten ari da, ahoan bilorik gabe. Berria - Euskal Herria

inbusteria ik **enbusteria**.

**inbutu** *(orobat* **enbutu** *g.er.) iz* **I** tresna, alde estuan tutu bat duen kono barne-huts batek osatua; tutu formako lanabesa erpin aldean utu bat duena, likido bat ontzi aho-mehar batera isurtzeko erabiltzen dena. ik **onil**.

Har ezazu **inbutu** handi bat, ipini ahozpez, ahoa beheraka. Pello Zabala

Nola egoten den atsedenaldian boxeolaria kornerrean managerrak eskainitako **inbutuan** odol-listu eta lerde-aparrak tu egiten. Harkaitz Cano

**2** inbutua gogorarazten duen tresna.

Epaileak **inbutu** baten muturretik oihu egiten zion. Lopez de Arana

Gauza ederra zen ikusteko nola pasatzen ziren xehatzeko makinatik haragi puskak, bitan, hirutan, eta nola sartzen zituen haragi masan osagai guztiak, eta nola betetzen zituen hesteak **inbutu** batez. Josu Zabaleta

Ontzia zintzilik geratu zela zirudien, magiaz bezala, berehanzko bidearen erdian, zirkunferentziaz izugarri handia eta sakonean harrigarria zen **inbutu** baten barruko azalean. Koro Navarro

Ontziaren gainean tapa bat joango da alderantzikatutako **inbutu** baten itxurakoa eta ondo doituta. Santiago Iruretagoiena

Marielexako jende nagusia asko ikaratu ohi zelako irrati edo garaitsu haietan ezagutu zen fonografoaren soinu haiekin, gizonik inon ageri ez eta **inbutu** haien barruan zer sorgin ote zegoen! Pako Aristi

Une hartan, don Estebek eskuak bildu, aho parean jarri, haiekin **inbutu** bat osatu, eta hitzak isurtzen hasi zen, batean don Justinianoren belarrira eta bestean don Kosmerenera. Joan Mari Irigoien

**3** *irud*

Gure herriko errepide eta trenbide berri guztiak Pasaiako portuaren garapenaren mende utzi behar al ditugu, guztiak Pasaian amaitu edo jaiotzen diren **inbutu** bihurtuz? Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta inbutu** (3); **inbutu baten** (4)

**indaba** *(orobat* **indiaba** *g.er.)* **1** *iz* babarruna. (landarea)

Mutilak **indabetarako** zurkaitz bat hartu du eskuetan, eta txakurrari hurbiltzen ez uzteko darabil. Oskar Arana

**2** (alea)

Haize hegoa ona da artaburuak eta **indabak,** mizpirak eta gaztainak heltzeko. Joseba Sarrionandia

Arroza, **indabak** eta olioa banatu genituen euriteak kaltetutakoen artean. Berria - Mundua

Hauek dira gatz gehien duten prestatutako produktuetako batzuk: **indaba** erreak, zerealak, pizza, zopa edo saltxitxak. Berria - Gaiak

Bizitzen ikasi nuenetik artoz elikatu ninduten, eta **indiabaz**. Eskarne Mujika

**Indaba** batzuk jan ostean kafea eskatu nuen. Edorta Jimenez

Gaur **indaba** pintoak prestatu behar dizkio, eta biharko eltzeko bat geratu diren azenarioekin. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan)

Lenteja edo **indaba** zakuak garraiatzen. Joan Mari Irigoien

Eskaileran **indaba**-usaina zegoen. Unai Elorriaga

Atzo, hirurehun lagunentzako **indaba** jana prestatu zuten Erriberako merkatuan. Berria - Harian

**indar** **1** *iz* higitzeko edo aritzeko ahalmena, bereziki fisikoa. ik **kemen**.

Gizon garaia zen oso, eta **indar** beldurgarria zuen. Juan Kruz Igerabide

Kristo gurutziltzatua Jainkoaren **indar** eta jakinduria. Elizen arteko biblia

Gizon antzeko hark berriro ukitu ninduen eta **indar** berriak eman zizkidan. Elizen arteko biblia

Jauna dut **indar** eta babes, bera salbatzaile. Jose Antonio Mujika

Eta kalera irteten ahalegindu zen, bere **indar** guztiak baturik. banku gainera igo, barra lodiei heldu eta besoen **indarrez** altxatu zen, burdin saretik begiratu ahal izan zuen arte. Josu Zabaleta

*ik beherago* 14. Askoren artean

Bere besoen **indar** hutsez. Jon Muñoz

Pedalen gainean altxatu eta **indar** biziz hasi nintzaien eragiten. Koldo Biguri

Baina zuen gain jaitsiko den Espiritu Santuaren **indarra** hartuko duzue. Elizen arteko biblia

Josafaten **indar** militarra. Elizen arteko biblia

· Haizearen **indar** suminduak itsasoa astintzen eta ontzi eskergak iraultzen eta hodeiak sakabanatzen ditu. Xabier Amuriza

Haizearen **indarrez** martxan jartzen den makinak oso emaitza dotoreak ematen ditu bere artearen fintasunagatik. Santiago Iruretagoiena

Errobi ibaiaren hegian **indar** handiz zihoan ura. Berria - Harian

Eta natura, Lukreziorentzat [...] **indar** sortzaile ez ezik, **indar** suntsitzaile ere bada. Xabier Amuriza

Gorputzean duen zereginari ondo egokitutako **indar** eta gogortasuna du hezurrak. Irene Aldasoro

Erlijio erlikien antzera, armek **indar** berezia ditek. Alberto Ladron Arana

Sobera denbora eta **indar galdu** da herri honetan eztabaida antzuetan. Filipe Bidart

**2** gizarteari eragiteko ahalmena.

Zientziaren kontrako mugimendu akademikoak sortu dira, eta batzuetan nahiko **indar** hartu ere, batez ere Frantzian eta Estatu batuetako zenbait tokitan. Pello Salaburu

Gutxi dira eta **indar** gutxi dute, ez dutelako gobernuen edo bankuen laguntzarik jasotzen. Berria - Gaiak

Baina bizirik irtetea lortu zuen eta gaur egun **indar** handia du mugimendu errepublikanoan. Berria - Harian

Masoneriak **indar** etikoa du. Berria - Gaiak

Oraindik, hala ere, homofobiak **indar** handia du gizartean. Berria - Harian

Sektore guzietan barne dira eta 1996etik goiti, ezin ukatuzko **indar** bat dira. Herria

**3** betekizuna betetzeko edo eragina izateko ahalmena.

Leku horietan eguzkiak udan **indar** handia izaten baitu jaiotzen den unetik, eta eguerdian kiskali egiten baitu. Santiago Iruretagoiena

Ordenagailuen **indar** itzelarekin. Fernando Morillo

Zer **indar** ulergaitz eta misteriotsuk erakartzen nau, bada, zuregana? Jose Morales

Kontzientzia psikologiko, moral eta profesionalaren pisuak berak ere [...] **indar** jasanezinez estutu gaitzake batzuetan. Xabier Olarra

Oihartzun eta **indar** handiko irudiak. Xabier Olarra

Fundamentalismoa ageri zaigu bere **indar** guztiarekin. Pello Salaburu

Oso **indar** eskasekoak dira, ordea, plazaraturiko argudioak. Juan Garzia

Jaiki zen Elias, jan eta edan zuen, eta janari haren **indarrez** berrogei egun eta berrogei gau ibili zen. Elizen arteko biblia

*ik beherago* 14. Askoren artean

Neure **indarrez** egin dut hori guztia, neure trebeziaz, argia bainaiz. Elizen arteko biblia

Egipto utzi eta Jerusalem hartu zuen armen **indarrez**. Elizen arteko biblia

Pentsaera bakarrak pentsamendu propioa du etsai, nork bere gogoeta askeaz eraikitzen duen pentsamoldea, alegia; sedukzioaren **indarrean** sinisten duen gogoeta eta ekintza-bidea da. Txema Ramirez de la Piscina

*ik beherago* 11. Askoren artean

Baina guk juduok, Liburuaren herriak, sinesten dugu oraindik hitzaren **indarrean**. Koro Navarro

**4** *irud*

Eta **indar** goibel batek bultzaturik bideetan nabil. Piarres Aintziart

**Indar** ezkuturen batek era horretantxe txikitzen ditu giza asmoak. Xabier Amuriza

Arimaren **indar** goitiar hauek. Joan Mari Lekuona

**Indar** eta su ezezagun batek hartua zirudien zaldiak ere. Josu Zabaleta

**5** hertsatzeko ahalmena.

Bazekien, agintean jarraituz gero, **indarra** erabili beharko zuela okerrak zuzentzeko. Askoren artean

Jesuitek, **indarra** erabiliz, Ingalaterra herri katoliko bihurtzeko eta Karlos III.a (1630-1685) errailtzeko asmoa zutela. Juan Martin Elexpuru

Bazirudien giza bihotzetan lurperatutako guztia, usteldutako eta lirindutako guztia **indar** gupidagabe batez berpizten zela. Xabier Olarra

Gizon-emakumeak **indar** saihetsezinez lotzen dituen grina baino indartsuagoa. Xabier Olarra

Ongiak **indarra** baino zerbait gehiago behar du, eta hori ordena da: jakintsuenak dira ordena hobekien errespetatzen dutenak, dio Sokratesek. Askoren artean

**6** ondorio bat eragiteko ahalmena.

Sugarren **indarra** moteltzeko. Askoren artean

Frantziskoren kordoiaren mirarizko **indarra**. Askoren artean

Greccioko belar onduaren mirarizko **indarra**. Askoren artean

Gauzak aldatzeko **indarra** emango didan irribarre bat. Pako Aristi

**7** boterea.

Estatu Batuen **indar** hegemonikoaren babespean, globalizatu egin zen mundu ekonomia kapitalista. Koro Navarro

Erlijioaren **indar** nagusia hartan sinestean datza. Iñaki Iñurrieta

Ez dugu botere politikoa nahi, **indar** ebangelikoa baizik. Berria - Harian

Ejertzito horrek enpresarioen **indarra** areagotzen du, oro har langileen elkartasun ahalmenaren eta negoziazio indarraren kalterako. Iñaki Heras

Kapitalaren atomizazioa dela medio [...] enpresaren goi mailako zuzendarien **indarra** areagotu egin da. Iñaki Heras

Nola artikulatu nazioz gaindiko enpresen **indarra** mugatuko duen nazioz gaindiko indar eragile bat. Iñaki Heras

Kanufaktura-lanaren, merkataritzaren eta kolonia-hedapenaren apologia ziren doktrina honen gai nagusiak, estatuaren **indarra** sendotzeari baitzegoen osorik emana. Koro Navarro

**8** (fisikan) gorputz baten forma edo higiduraren norabidea edo lastertasuna alda dezakeen eragingarria.

Gizakiak 6 zaldi potentziako (zp) **indarra** egin dezake segundo batean edo bitan. Irene Aldasoro

Katuaren kasuan, kilo batzuen **indarra** (eskuaren presioak palankaren muturrean egiten duena) tona bat edo gehiagoren **indarra** bihurtzen da automobila jasotzeko. Irene Aldasoro

Normalean bi muskuluk edo gehiagok egindako **indarren** oreka delikatuak eusten dio hezurrari bere lekuan. Irene Aldasoro

Zientzia abstrakzioez arduratzen da: **indar,** atomo eta geneez, esate baterako. Irene Aldasoro

Habe solido batean, bada eskualde bat geruza neutral horren gainean eta azpian, konpresio- edo tentsio-**indar** nahiko txikiak jasaten dituena habea kargatzen denean. Irene Aldasoro

**indar** horiek formulen bidez adierazten saiatuko da mekanikari-matematikaria. Jon Muñoz

Atomoen barne-egitura hori zela eta, **indar** berriak agertu zitzaizkigun: **indar** nuklearrak. Fernando Morillo

Teoria honek ekarpen garrantzitsua egin zion Eredu Estandarrari, hau da, **indar** elektromagnetikoarekin, **indar** ahularekin eta **indar** azkarrarekin loturiko fisika guztia azaltzen duen teoriari», esan zuen atzo Suediako Akademiak. Berria - Gaiak

· Nire pubak zortzi bafle dauzka, eta 2.000 batioko **indarra** jaurtitzen dute lokalaren hesteetara. Pako Aristi

Presio aldaketaren intentsitate edo **indarra,** berez, wattetan neur daiteke. Lourdes Oñederra

**9** *pl* botere edo iritzi talde jakin bat ordezkatzen duen pertsona multzoa.

Italia bi **indar** politiko indartsuren artean erdibituta zegoen. Koldo Biguri

Babeserako Batzarrean ordezkaritza zeukaten **indar** politiko eta sindikalak ez ziren ados jartzen nola jokatu behar zuten. Inazio Mujika Iraola

Horregatik, **indar** demokratikoek aurrera egitea exijitu behar da. Berria - Harian

Bide horretan **indar** abertzaleek «prozesu soberanista abian jarri» behar dutela esan zuen. Berria - Harian

**Indar** autonomista eta independentistei dagokienez, egoera aski nahasia zen. Berria - Harian

**Indar** politiko independentista bateko burua. Berria - Mundua

**Indar** Nazionalen Fronte Batua eta Elkarrizketa Nazionala taldeak izan ditu solaskide egunotan. Berria - Harian

**Indar** bat sortu behar dugu gure herria aurrera ateratzeko; ez soilik bakea, baizik eta herria. Berria - Harian

Eskuineko **indarrek,** Elizaren alderdi kontserbadoreenen laguntzaz. Joxerra Garzia

Opus Deiren balioen araberako politika egiten duelako, eskuineko **indar** atzerakoien aldekoa. Berria - Harian

Jainkoaren kontrako nagusitza, aginte eta **indar** guztiak ezereztu ondoren. Elizen arteko biblia

**10** *pl* armada edo talde armatu bateko kideen multzoa.

Zati-zati egingo zukeen jendetzak **indar** armatuak azaldu ez balira. Josu Zabaleta

Bere erreinuko **indar** guztiak bildu eta gudaroste arras indartsua antolatzeko agindu zuen Antiokok. Elizen arteko biblia

Garai hartako **indar** okupatzaileekin kolaboratu zutenak. Eneko Bidegain

Bere **indar** guztiekin hegoaldeko erreinuaz jabetzea erabakiko du. Elizen arteko biblia

Errepublikaren **indarrek** faxisten erasoari azkenean ere aurre egiten asmatu zutelakoan. Juan Luis Zabala

Ratko Mladic jeneralaren **indar** serbiarrek 8.000 musulman bosniar hil zituzten. Berria - Harian

Bukharako khanerria [...] estatu ikaragarria da, eta Errusiak **indar** handiak beharko lituzke hari kontra egiteko. Karlos Zabala

Talibanak ihesi, **"indar** askatzaileak" boterean. Iñigo Aranbarri

Aurpegia zapi gorriz gorderik **indar** errepresiboak mehatxatzen zituzten gazteak. Itxaro Borda

Iragan asteetan hasitako operazioaren haritik, Iraken zabalduta dituzten okupazio **indarrak** berritzen jarraitzen du AEBetako Armadak. Berria - Mundua

Frantses **Indar** Libreak izeneko sarea osatzen zuten. Jokin Urain

**11** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Europa eta Japoniaren arteko **indar**-harremanen oreka berria. Koro Navarro

**Indar**-erlazio politiko berrien bila. Iñaki Heras

Orain **indar** metaketa hasi beharko da konponbiderako bidean jarri ahal izateko. Berria - Harian

Gizakietan, nabarmen laburragoa da besaurrea besondoa baino; lastertasun- eta **indar**-betekizun kontrajarrien arteko hautsi-mautsi bat adierazten du diseinu horrek. Irene Aldasoro

300 eta 350 bitarteko watt-en **indar**-gastu etengabea. Irene Aldasoro

**Indar** eta diru galera bat. Harkaitz Cano

Zenbaiti, odolberotasuna eta erronkazaletasuna, mugapen fisiko eta sozialekiko etengabeko **indar**-probaketa [nabari zitzaien]. Xabier Olarra

Irudia **indar**-eremu bat bezala ikusten du. Josu Zabaleta

Bazela Lajosengan **indar**-iturri misteriotsu bat. Ander Irizar

Ortzegun aratsean, Kanbon, herriko pilota plazan, euskal **indar** jokoak. Herria

**12** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Legeen barne-**indar** babeslea. Juan Martin Elexpuru

Negoziazio **indar** handia dutenek, hau da, nolabaiteko botere ekonomikoa dutenek. Iñaki Heras

Honen erakarmen-**indarra** atsegin-egarrian baino gehiago heziketan dago. Jainkoaren salbamen-**indar** hau Jesu Kristoganako sinesmenaren bidez heltzen da. Juan Martin Elexpuru

Gizarte **indarrek** hizkuntzan izan ohi duten eragina. Isabel Arrigain

Aristokrazia lurjabeak bere zapalkuntza-**indar** osoa berreskuratu zuen. Koro Navarro

Su berberak zintzoak janaritu zituela, berezko suntsipen-**indarra** ahaztuz. Elizen arteko biblia

Garaiko legegileak suntsipen-**indar** gobernaezinekin gudua galtzera erremediorik gabe bideratuta daudenean. Iñaki Mendiguren

Bide bazterrean ezkutatuko bonba batek zuen eztanda egin okupazio **indar** horien konboi bat albotik igarotzean. Berria - Harian

Zeharkakoak eta froga-**indar** eskasekoak ziren guztira emaitzak. Juan Garzia

Emozio-**indar** bitxi eta ilun bat. Xabier Olarra

Mahayanaren adimen-**indar** iraunkorra budismo primitiboaren filosofi eskolatik hartutako ondarearen parte zen. Iñaki Mendiguren

Bizirik ateratzen bada, erabat zigorkatua etorriko zaizu, toki hura benetan Jainko-**indarrez** inguratua baitago. Elizen arteko biblia

Festa hau lege-**indarrez** ezarriko duzue belaunez belaun. Elizen arteko biblia

Une saminak eta une pozgarriak, betiere bizi-**indarrez** eta itxaropenez gainezka, borborka. Juan Kruz Igerabide

Igeltseroak dira, linterneroak, peoiak..., beren esku **indarrez** edozelako gailuak erabilgarri, bizigarri, gozagarri bilakatzen dituen jendea. Pako Aristi

Lurrun-**indarrez** funtzionatzen zuen gaztalekua. Koldo Biguri

Dotzena bat ile-mozteko, elektrika **indarrez** ari direnak. Marzel Etxehandi

Lurrun **indarrezko** trena. Ibon Uribarri

Egun batean, alabaina, Errepublikako Seguritate **Indarrek** egin ziguten eraso. Rafa Egiguren

**13** ***indarrean***[1] *adlag* legeez, ohiturez eta kidekoez mintzatuz, balio duena edo erabiltzen dena.

**Indarrean** dagoen araudiaren arabera. Urtzi Urrutikoetxea

Indarrean dauden nazioarteko erregimenak zaintzeko, edo are nazioarteko ordena ere zaintzeko. Apartheid sistema egon da **indarrean** hainbeste urtez Hegoafrikan. Koro Navarro

Artean plan zaharra zelarik **indarrean,** bosgarren kurtsoan ematen nuen neure ikasgaia. Joxerra Garzia

1971ko martxo hartan Salbuespen Egoera zegoen **indarrean**. Rafa Egiguren

Heriotza zigorra **indarrean** dagoen lekuetan. Berria - Gaiak

Hemen "ateak zabalik" deritzan politika dago **indarrean,** aspaldisko. Jose Angel Irigaray

Izan ere, **indarrean** zegoen hiriko agintariaren erabaki bat, ez gauerdian bakarrik, baizik eta kanpaiaren hirugarren joaldiaz geroztik hirian barrena inor ibiltzea debekatzen zuena. Askoren artean

Oraindik ere **indarrean** dauden ideiekin. Juan Garzia

Gure administrazioan 35 orduko lanaldia **indarrean** jarri zenetik. Iñaki Heras

Diru-batasuna 1999ko urtarrilean jarri zen **indarrean**. Koro Navarro

Legeek **indarrean** iraun zuten artean, inor ez zen kexu izan feudoa kendu ziotela-eta, legeak ez baitzion betiko ematen. Iñaki Iñurrieta

Leninek duela ia ehun urte, sobietar iraultzaren garaian, landu zuen teoriak oraindik ere **indarrean** dirau zenbait tokitan. Txema Ramirez de la Piscina

Kyotoko Protokoloa **indarrean** sartzen denean, sinatzaileak behartuta egongo dira, legez, berotegi efektua eragiten duten gasen emisio mugak betetzera.

Napoleonen gerlen ondotik, lehengo erresumaren lege zaharra berriz **indarrean** sartu zelarik, Lapurdiko bazter hondatuetan ez ziren aitzineko desmasiak berehala ordaindu. Piarres Xarriton

**14** ***indarrean***[2] *adlag* indartsu, sasoian.

Bidegabez erasotzen zidaten etsaiak **indarrean** ziren. Askoren artean

1874an zuriek **indarrean** segitzen zuten. Anton Garikano

Existentzialismoa **indarrean** zebilenean. Joxe Azurmendi

**Indarrean** sentitzen zen, mendia azpikoz gora jartzeko lain. Josu Zabaleta

Arratsaldea **indarrean** dago oraindik. Pako Aristi

Haizea eta hotza sartzen ziren **indarrean** bagoiaren zirrikitu guztietatik. Anjel Lertxundi

Eta aitte eta ama bixak **indarrean** ageri dozak. Txillardegi

Bereziki Etcheto arras **indarrean** agertu da partida huntan, lehen finalerdia zelarik hau. Herria

## 15 ***indarrean***[3] *adlag* indarrez.

Ura **indarrean** zihoan Bilboko Alde Zaharreko kaleetatik dendak eta tabernak hondatuz. Bernardo Atxaga

Behin baino gehiagotan, **indarrean** sartu ziren ia hiri barruraino. Mirentxu Larrañaga

Esku batetik **indarrean** hartu eta [...] harritzar kubiko horietako baten kontra ipini ninduen erdi etzanik. Joxean Agirre

Baina inor ezin da **indarrean** eztei paliora eraman. Koro Navarro

Ukondo bat egiten bada, urak **indarrean** bultza eta hautsi egingo ditu hodi arteko junturak. Santiago Iruretagoiena

Munduaren jaun eta jabeek Operation Iraqi Freedom jarri zioten izena Mesopotamia zaharra **indarrean** irabazteko azio odoltsuei. Iñaki Segurola

## 16 ***indarrez***[1] *adlag* indarra erabiliz.

Emadazu berehala; bestela, **indarrez** kenduko dizut. Elizen arteko biblia

Aliatuak **indarrez** edo akordioen bitartez lortzen dira. Esteban Antxustegi

Baina eraso eta **indarrez** jabetu zen hiriaz. Elizen arteko biblia

Haien [Erdialdeko Europa eta Baltikoko herrialdeen] industrializazioa, historikoki, eremu komunistak **indarrez** beretu aurrekoa da. Koro Navarro

Izan ere, **indarrez** bahituta ekarri ninduten hebertarren herritik. Jose Antonio Mujika

Bisitariek **indarrez** atera zituzten bera, emaztea eta bi alabak, eta hiritik kanpo utzi. Elizen arteko biblia

Gotorleku bat **indarrez** hartzera doan gerlariaren antzera. Jose Morales

Estatu Batuek 1960 inguruan **indarrez** ezarritako blokeoari aurre egiteko. Jon Muñoz

Ez dakigu nahita alde egin zuen edo **indarrez** kanporatu zuten. Jose Morales

Handik aste betera **indarrez** Haarlem izeneko galeoi batean sartu zuten. Felipe Juaristi

Babiloniako errege Nabukodonosor gure lurraldean **indarrez sartu** zenean. Elizen arteko biblia

Esan zieten modu hartan amaituko zutela Arturren lurretan **indarrez sartzen** ziren guztiek. Juan Kruz Igerabide

Etxeetan **indarrez** sartze, ebaste, su emate, ukaldika erabiltze, emakume bortxatze, aihotzez kolpatze... nork bere istorio ikaragarria zekarren. Aingeru Epaltza

Han, polizia errukigaberen batek ontzira igotzea galaraziko zion **indarrez**! Karlos Zabala

Hiltzea nahi lituzketen atxilotuak berez hil daitezen, guziak **indarrez** hiltzea atzerritarren eskandalugarri bailitzateke. Jokin Urain

Hi **indarrez** edo amarruz hiltzen saiatu al da norbait? Juan Kruz Igerabide

Neskak uzkurtu egin ditu ipurdiak, baina gizonak **indarrez** zabaldu dizkio. Juan Martin Elexpuru

Eztarritik behera **indarrez** sartu zioten koñaka gizonari. Irene Aldasoro

## 17 ***indarrez***[2] *adlag*indartsu.

Haizea **indarrez** hasi zen, ipurdantzari, mendebaletik. Felipe Juaristi

Hari-laukotearen allegroari ekin zioten, gogoz eta kemenez ekin ere, tresnen sokak **indarrez** joz. Felipe Juaristi

Selifanek **indarrez** dantzatu zuen zigorra. Jose Morales

Hiru aldiz inarrosi zuen sorbaldatik, lehena poliki, bigarrena kemenez, hirugarrena **indarrez**. Jon Alonso

Bat-batean, eskua jaso eta **indarrez** jo ninduen matrailan. Fernando Rey

## 18 ***indarrezko*** *izlag*

Honela hasi zen gatazka, hasieran agiri-gerra gisara, laster **indarrezko** gerra izatera endekatu zena, non alde bakoitzaren baliabideak "dirua eta pistolak" baitziren. Iñaki Mendiguren

Oroit gaiten 2004ko maiatzaren zazpian Miarritzeko aireportuan gertatu zela **indarrezko** kanporaketa bat. Herria

Ez dut **indarrezko** neurririk hartu ordena publikoa berrezartzeko. Berria - Mundua

Globalizazioak merkatuen eta estatuen arteko **indarrezko** harremanak arras aldatzea esan nahi du; alegia, kapitalaren metaketaren legeen eta gizarteak gidatzen dituzten legeen arteko harremanak aldatzea. Koro Navarro

Homerok, darabilen **indarrezko** gizarte egituraren barruan ere, ez dio muzin egiten zuzenbideari zibilizazioaren hasiera deskribatzen duenean, errege zuzena aurkezten duenean edo herritarren eskubideak aipatzen dituenean. Askoren artean

Nola hari lezio bat eman **-indarrezko** mendekura iritsi gabe? Pablo Sastre

Halako **indarrezko** gerruntze moduko bat, oholtxoz eta sokaz egina. Josu Zabaleta

## 19 ***indar egin***

Nik **indar** egiten nuen, jiraka, daratuluaz egurra zulatzen ari banintz bezala. Juan Kruz Igerabide

Astiro eta jarraituki **indar** egiteko diseinaturik dago muskulu lisoa. besoak alde banatara luzatuz **indar** egin zuen, ibaiertzak bata batera eta bestea bestera aldenduz. Irene Aldasoro

Heldu egin dio, ukondotik gertu; aurreko hankekin **indar** eginez, tira egiten dio, orroka. Oskar Arana

Goraka **indar** eginez emakumea zaldi gainean eserarazi zuen, bere atzean. Felipe Juaristi

Lan horretan **indar** egiteko asmoa azaldu du EAJk. Berria - Harian

· Oso **indar** handia egin behar denean. Irene Aldasoro

Azkenean, soldaduak **indar** apur bat eginez askatu zizkion eskuak. Jose Morales

## 20 ***indar eman***

Zurrumurru horiei **indar eman** zien Dumbledorek... Iñaki Mendiguren

Beren asmoari **indar emateko,** sinadurekin batera Europako zenbait naziotan egiten dena azaldu dute. Gotzon Garate

Tatariarren prestalanek Ivan Ogareffen gomendioei **indar ematen** zieten. Karlos Zabala

Holako arrazoinek **indar eman** diote Egiptoko buruzagien esku gogorrari. Herria

Eskualde eta nazioak Europar Batasunean agente aktibo izatea lortzeko, beharrezko da estatuez azpiko erakundeek elkarlanari eustea eta **indar ematea**. Berria - Euskal Herria

## 21 ***indar gabe*** *(orobat* **indargabe***)* *adlag* indarrik gabe. ik **indargabe**.

Gorputza minduta nuen, **indar gabe** sentitzen nintzen eta negarrez blai nengoen. Berria - Euskal Herria

**Indargabe** sentitzen zen. Itxaro Borda

**Indar gabe** sortu da Enpleguaren Kontseilua. Berria - Ekonomia

Espainiako Gobernuak jarritako helegitea **indar gabe** uzten ahaleginduko direla azpimarratu zuten. Berria - Euskal Herria

Lege hauek indarrean dauden egun beretik, Erromako legeak, ordenantzak, ohitura orokor zein bereiziak, estatutuak eta araudiak **indargabe** geratzen dira. Andres Urrutia

Kanadako Auzitegi Gorenaren epaiak **indar gabe** utzi du, hala, 2002. urtean beste auzitegi batek erabakitakoa. Berria - Gaiak

Zintzotasunaren bertute nagusia ardurarik ezak eta iniziatiba hartu edo arriskatzeko joerarik ezak uzten baitzuen **indar gabe**. Iñaki Mendiguren

## 22 ***indar hartu***

**Indar hartzen** ari zen sua ezpalei itsatsirik, txinpartaka, gero eta sorgin-dantza biziagoan. Anjel Lertxundi

Apezik eta elizkizunik gabe, nahi ala ez, jende ainitzen fedea ahuldu zen, kartsuenenek **indar** hartu baldin bazuten ere. Xipri Arbelbide

Berrogei urtera hurbiltzen hasi zenean, zuhurtziak **indar hartu** beharrean, bizitzeko gogo eroak bultzatuta-edo, lehen egin ez zituen erokeriak egiten hasi zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Susmo batek gure baitan **indar** hartzen duenean ematen duen argiarekin irudikatu nuen idazlea zahartzaroan maitasun berri batek eman dezakeen [...] bozkarioa eta tortura aldi berean gozatzen. Joxean Agirre

## 23 *indarra/indarrak hartu*

XX. mendearen hasieran sekulako **indarra hartu** zuten kultur elkarteek eta aldizkariek. Askoren artean

Orijinaltasunaren kontzeptuak **indarra hartu** zuenetik, edo, txanponaren beste aldetik esanda, plajioa moralki gaizki ikusia eta lege aldetik ere kondenagarria izaten hasi zenetik, egonezina hedatu zen literatur gizartean. hizkuntza batek gizartean **indarra hartzen** duenean, orduan hasten dira hizkuntza horretan idatzitako obra literarioak -eta politikoak, legeei buruzkoak...- sortzen eta zabaltzen. Bernardo Atxaga

Baina orduko **indarra hartua** zuen gaitzak, eta, ezer egitekotan, mediku trebezia izugarria eta erremedio gogorrenak behar ziren. Askoren artean

Industriak **indarra hartzen** hasteko behar diren osagaietatik, hezkuntza da dudarik gabe garrantzitsuenetako bat. Koro Navarro

**-Indarra hartzeko** aukera eman behar zaiok gauean lanean ibili denari... -erantzun zidan, burlaizez. Inazio Mujika Iraola

Ogi-puska bat ekarriko dizut; jan ezazu, **indarrak hartzeko** eta bideari ekin ahal izateko. Elizen arteko biblia

Negua pasatu ondoren, samuaren kumea esnatzen denean, babarrun ale osoa dauka elikagai, **indarrak hartu** eta zeru zabalera irten aurretik. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 24 *indarrak batu*

Urtutzen ari zara, begiak itxi, **indarrak batu,** arnasa hartu eta zartatu, azkenean leher egin. Lourdes Oñederra

· Izan ere kontsumitzaileak benetako indar eraginkorra izateko, indar hori artikulatu egin behar baitu, **indarrak batu** eta bideratu, eta hori ez da, ez, lan makala. Iñaki Heras

Autodeterminazioaren alde **indarrak batzera** deitu du Barrenak. Berria - Euskal Herria

Tokian tokiko gobernuek, sektore pribatuak eta bestelako erakundeek **indarrak batzea,** «osasun publikoan diru gehiago inbertitu dadin. Berria - Gaiak

Gizakiek esperientziaz ikasiko dute, bizkitartean, elkar lagunduz dituztela eskuratuko biziki errazkiago eskas dituztenak eta beren **indarrak batuz** baizik ez dituztela nonahi mehatxatzen dituzten arriskuak saihesten ahalko. Piarres Xarriton

Erasoari aurre egiteko, Europak, Estatu Batuek eta Txinak euren **indarrak batuko** dituzte, baina dena alferrik izango da. Jon Arretxe

## 25 *indarrak bildu*

Altxatzeko **indarrak bildu** zituenean. Iban Zaldua

Carlosek, nola edo hala, **indarrak bildu** zituen irribarre egin eta 'pikutara kaka zahar hori guztia!' esateko. Bego Montorio

Bezperatik **indarrak bilduz,** BARATXARTE ostatuan, non Battittik berexiko dituen tripotxik hoberenak beti bezala ; igandean ere, mokoxuri ñapurrek hartzen ahalko dute beren plazerra. Herria

Hala, Euskal Herriko eragile politiko, sozial eta sindikalei **indarrak biltzeko** eta norabide horretan bultzatzeko deia egin zien Batasunak atzokoan. Berria - Harian

· Hauteskundeotan abertzale eta ezkertiarren **indarrak biltzeko** benetako saioa. Berria - Euskal Herria

«Konponbide demokratikoaren aldeko **indarrak biltzea»** dutela lehentasuna azpimarratu zuten. Berria - Harian

Hala, Euskal Herriko eragile politiko, sozial eta sindikalei **indarrak biltzeko** eta norabide horretan bultzatzeko deia egin zien Batasunak atzokoan. Berria - Harian

Denen **indarrak bilduz** geroz, iharduki dezakete menturaz tipiek eta gutiek boteretsuen oldarrari. Piarres Xarriton

## 26 *indarrak berritu* ik **indarberritu**.

Nekatuari **indarrak** berritzen dizkio, ezinduari ahalmena bihurtzen. Elizen arteko biblia

Trago bat edan behar dut **indarrak** berritzeko. Lopez de Arana

**-Indarrak berritu** behar dituzu -eta erretilua jarri zion neskari belaunen gainean. Anjel Lertxundi

Orduan ogi eta okela puskaren bat jan, basokada bat edo bi kwass edan, **indarrak berritzeko,** eta ordu baten buruan, bi orduren buruan gehienez ere, Irkutskeko bide amaiezinari ematen zion ahalegin guztian. Karlos Zabala

**Indarrak berritzeko** esertzen gara frantsesez Espace Détente deritzan pausalekuetan Atsedenaldi aspergarri eta gertakizunik gabeko bat besterik ez zuen desiratzen, **indarrak berritzeko** aukera bat. Oskar Arana

## 27 *indarrak neurtu*

-Ez dakit oso ondo nondik hasi -neure **indarrak neurtu** nituen. Jon Muñoz

Orduan behar izren **indarrak** neurtu, gorputzaren mugak entzun, behar den denboraz pausatu... eta jo aintzina! Herria

Antzinako tradizio bat errespetatzeagatik **indarrak neurtu** behar zituen berriz, norgehiagokan, Otomandarrarekin. Fernando Rey

Gimnastika erritmikoko Euskadi eta Alemaniako taldeek **indarrak neurtuko** dituzte gaur Gernikan.

Eta behar ziren ere, "Napoleon Errebidea" leher egin gabe igan nahi bagenuen, **indarrak neurtu**. Piarres Aintziart

Ez ziren berriro jaiki, baina elkarren **indarrak neurtu** ondoren berriro borrokari lotu ez lotu zalantzatan dauden bi olde elkarren arerio bezala hasi ziren elkar aztertzen. Josu Zabaleta

## 28 *indarrak probatu* indarrak neurtu.

Lehenengo mugimenduetan, **indarrak probatzeko** -edo, xakean jarri zituen piezak mendebaldeko frontean, Hegoaldean eta Iparraldean. Agustin Otsoa

Uste baitu hura dela tamainako etsaia, bere neurriko etsaia, bere **indarrak probatzeko** dina den etsaia, eta harekin nahi baitu ikasi zer den beldurra sentitzea. Iñaki Segurola

## 29 *indarraren indarrez*

Mende erdi bat geroago ere, Gaztela **indarraren indarrez** Nafarroa Garaiaren jabe egin zenean, Erasotarrek inbaditzaileekin bat egin omen zuten. Martin Anso

-Gu, orduan, mendez mende, herriz herri ele hori barreiatzeko lurrak aukeratutako ihiak baino ez gara! -esan du Kandidok indarraren **indarrez** ia zutituz. Pako Aristi

## 30 *besa-indar*

Zorabiaturik, hesteak errebentatzen, baina, **besa-indarraren** eragin hutsez, buelta eman dio harriari gerriraino. Pako Aristi

## 31 *erakar indar*

**Erakar** -indar horrek merezi luke funtsezko goratzea deitzea. Joan Mari Lekuona

## 32 *lan indar* (orobat **lanindar** g.er.) (ekonomia marxistan)

Era horretan hazi egiten ziren lur-jabeen errentak eta **lan-indarra** ugaltzearen kostua, eta, horren ondorioz, soldatak ere handitzen ziren. Koro Navarro

**Lan-indarraren** ordainketa da munduko espazio ekonomikoaren beste faktore desberdintasun-eragile egiturazko bat.Kapitalak ezin menderatu duen **lan-indarra** . Koro Navarro

Ez dioala sekula salduko heure **lan indarrik** hire ideologiarekin bat ez datorren inori! Unai Iturriaga

1990eko hamarraldiaren hasieran industriak **lan-indarraren** ia %40 hartzen zuen lehen belaunaldiko herrialde industrializatu berrietan. Koro Navarro

Hiriek, haietan eskuratzen ziren soldatak zirela-eta, indartsu erakartzen zuten landa-giroko lan- **indarra** . Koro Navarro

Fabrikatik askoz haratago doan **lan indar** mugikorra da, klase osaketa guztiz ezberdina duena: langile prekarioak, emigranteak... Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**adina indar** (24); **aldeko indar** (22); **are indar** (14); **are indar handiagoz** (8); **artean indar** (10); **arteko indar** (21); **aski indar** (25); **baina indar** (35); **baino indar** (86); **baino indar gehiago** (24); **baino indar handiagoa** (25); **baino indar handiagoz** (9); **barne indar** (14); **baten indar** (8); **bere indar** (142); **bere indar eta** (8); **bere indar guztia** (15); **bere indar guztiak** (10); **bere indar guztiarekin** (9); **bere indar guztiaz** (17); **beren indar** (22); **beste indar** (62); **beste indar bat** (14); **beste indar politiko** (9); **bi indar** (29);

bigarren indar (12); bizi indar (15); bizi indar hori (9); da indar (49); dauden indar (9); den indar (22); dira indar (10); diren indar (17); ditu indar (9); dituen indar (13); du indar (33); duen indar (32); dugu indar (8); dut indar (10); dute indar (15); duten indar (37); duten indar politiko (9)

ene indar (8); ere indar (49); ere indar handia (12); espainiako indar (37); eta bere indar (16); eta indar (370); eta indar gehiago (14); eta indar guztiak (10); eta indar guztiz (8); eta indar handia (9); eta indar handiagoa (26); eta indar handiagoz (10); eta indar handiz (10); eta indar metaketa (8); euskal herriko indar (11); euskal indar (35); euskal indar jokoak (16); ezkerreko indar (9); farc indar (25); farc indar armatu (24); farc kolonbiako indar (8); gero eta indar (43); geroz eta indar (8); geure indar (8); gure indar (29); hain indar (10); hainbat indar (8); halako indar (28); haren indar (12); herriko indar (13); honetan indar (9); hori indar (10); horrek indar (15)

indar abertzale (13); indar abertzaleak (12); indar abertzaleek (13); indar abertzaleen (19); indar apur (11); indar apur bat (11); indar armatu (69); indar armatu iraultzaile (30); indar armatuak (36); indar armatuek (36); indar armatuen (43); indar armatuetako (11); indar asko (13); indar bakarra (8); indar barik (19); indar bat (137); indar bat egin (18); indar batek (32); indar baten (15); indar bera (12); indar berarekin (8); indar berezi (47); indar berezi bat (37); indar berezia (39); indar berri (37); indar berri bat (18); indar berria (12); indar berriak (21); indar betean (19); indar biziz (9)

indar edo (12); indar egin (33); indar eginez (19); indar egiteko (9); indar egiten (22); indar ekonomikoa (8); indar erakustaldi (12); indar erakustaldia (30); indar erakustaldia egin (10); indar eta (184); indar eta kemen (9); indar ezezagun (10); indar ezkutu (9); indar fisikoa (12); indar gabe (10); indar gaitza (13); indar gehiago (121); indar gehiago izan (10); indar gehiagorekin (10); indar gehiagoz (9); indar gehiegi (9); indar gehien (21); indar gehienak (10); indar gutxi (10); indar gutxiago (22); indar gutxiko (8); indar guziak (16); indar guziez (10); indar guztia (69); indar guztiak (90); indar guztiak bildu (8); indar guztiarekin (36); indar guztiaz (56); indar guztiekin (31); indar guztien (16); indar guztiez (18); indar guztiz (37)

indar handi (19); indar handi bat (9); indar handia (226); indar handia dauka (8); indar handia du (36); indar handia dute (16); indar handia egin (10); indar handia eman (13); indar handia hartu (28); indar handia hartzen (8); indar handia izan (9); indar handiago (13); indar handiagoa (124); indar handiagoa du (8); indar handiagoa hartu (9); indar handiagoa izan (9); indar handiagoarekin (15); indar handiagoz (61); indar handiak (8); indar handiarekin (8); indar handiena (11); indar handiko (54); indar handikoa (10); indar handikoak (9); indar handirik (15); indar handiz (60); indar hartu (9); indar hauek (9); indar hori (72); indar horiek (27); indar horien (13); indar horrek (9); indar horren (8)

indar iturri (8); indar izan (9); indar joko (42); indar joko eta (11); indar jokoak (115); indar korrelazioa (15); indar metaketa (45); indar metaketaren (8); indar militar (9); indar nagusia (15); indar nahikorik (14); indar nuklearraren (10); indar okupatzaileek (10); indar okupatzaileen (12); indar osoa (12); indar osoz (16); indar pixka (10); indar pixka bat (10); indar politiko (144); indar politiko eta (19); indar politiko guztiek (11); indar politikoa (23); indar politikoak (27); indar politikoei (9); indar politikoek (26); indar politikoekin (8); indar politikoen (34); indar politikoen artean (11); indar polizial (12); indar polizialek (11); indar serbiarrek (13); indar sortzaile (8); indar txikiko (17)

irakeko indar (18); jainkoaren indar (8); kolonbiako indar (8); kolonbiako indar armatu (8); legebiltzarreko indar (8); nahikoa indar (20); nazioarteko indar (17); neure indar (12); nire indar (31); okupazio indar (13); oso indar (9); polizia indar (8); segurtasun indar (43); zein indar (8); zen indar (12); zenbat indar (8); zer indar (21); zeure indar (9); ziren indar (8); zituen indar (12); zuen indar (35); zuten indar (18)

baina indarra (11); baten indarra (17); benetako indarra (10); bere indarra (74); berebiziko indarra (9); beren indarra (16); bigarren indarra (10); boluntarioen indarra (11); buruko indarra (10); da indarra (12); den indarra (19); du indarra (21); duen indarra (69); dugu indarra (8); dute indarra (15); duten indarra (28); egiteko indarra (25); ere indarra (24); eta horrek indarra (12); eta indarra (180); gaitzeko indarra (8); grabitate indarra (8); gure indarra (18); haien indarra (11); haizearen indarra (10); halako indarra (10); haren indarra (15); hirugarren indarra (10); horrek indarra (22); horren indarra (16); horretarako indarra (8)

indarra atera (8); indarra baino (15); indarra behar (21); indarra bildu (9); indarra da (26); indarra dauka (15); indarra dela (9); indarra du (29); indarra duela (9); indarra duen (13); indarra dute (11); indarra egin (16); indarra eginez (8); indarra egiten (11); indarra eman (46); indarra emango (19); indarra emateko (16); indarra ematen (51); indarra erabili (17); indarra erabiltzea (13); indarra erabiltzeko (8); indarra erakusten (12); indarra erakutsi (20); indarra ere (21); indarra eta (214); indarra eta kemena (10); indarra ez (26); indarra falta (12); indarra galdu (78); indarra galdu du (21); indarra galdu dute (8); indarra galdu zuen (11); indarra galduko (14); indarra galtzen (48); indarra galtzen ari (12); indarra galtzen du (8); indarra hartu (64); indarra hartu du (17); indarra hartu zuen (16); indarra hartuko (12); indarra hartzen (40); indarra hartzen ari (14); indarra izan (60); indarra izan zuen (20); indarra jabetu (8); indarra jabetu zen (8); indarra kendu (9); indarra kentzen (10); indarra talde (8); indarra zuen (8)

izugarrizko indarra (9); jainkoaren indarra (9); jarraitzeko indarra (14); jaunaren indarra (9); kemena eta indarra (8); lan indarra (14); lehen indarra (8); militar indarra (8); nolako indarra (16); sekulako indarra (18); uraren indarra (8); zer nolako indarra (8); zuen indarra (29); zure indarra (10); zuten indarra (8)

alde indarrak (11); aldeko indarrak (32); aurka indarrak (9); autodeterminazioaren aldeko indarrak (13); azken indarrak (13); bake indarrak (8); begira indarrak (8); bere indarrak (34); beren indarrak (15); da indarrak (8); ditu indarrak (69); ditugu indarrak (9); dituzte indarrak (130); duten indarrak (8); egiteko indarrak (9); eta indarrak (72); gure indarrak (21); haren indarrak (9)

indarrak ahitu (8); indarrak ahultzen (8); indarrak batu (32); indarrak batu eta (8); indarrak batzea (15); indarrak batzeko (43); indarrak batzeko deia (9); indarrak berritu (8); indarrak berritzeko (9); indarrak bildu (46); indarrak bildu eta (18); indarrak bilduz (8); indarrak biltzea (25); indarrak biltzea eta (8); indarrak biltzeko (40); indarrak biltzen (11); indarrak dira (9); indarrak ere (14); indarrak eta (57); indarrak ez (28); indarrak gorde (12); indarrak hartzeko (8); indarrak metatu (8); indarrak neurtu (24); indarrak neurtuko (17); indarrak neurtuko dituzte (11); indarrak neurtzeko (14)

irakeko segurtasun indarrak (14); jainkoaren indarrak (9); nazioarteko indarrak (9); neurtu dituzte indarrak (9); neurtu zituzten indarrak (25); neurtuko ditu indarrak (54); neurtuko dituzte indarrak (109); nire indarrak (9); okupazio indarrak (70); polizia indarrak (10); segurtasun indarrak (93); zituen indarrak (11); zituzten indarrak (32)

bere indarraz (13); duen indarraren (9); eta indarraren (17); indarraren erabilera (9); indarraren eta (17); indarrari esker (23); indarrari esker (23); indarraz eta (8); lan indarraren (8); nazioarteko indarraren (9)

akordioa indarrean (10); alderdien legea indarrean (10); arte indarrean (14); artean indarrean (8); aurka indarrean (10); bat indarrean (32); bat indarrean jarri (12); batean indarrean (8); berria indarrean (19); berriro indarrean (25); berriro indarrean jartzeko (8); berriz indarrean (23); berriz indarrean jartzeko (11); da indarrean (93); dago indarrean (28); dira indarrean (21); ditu indarrean (10); dituzte indarrean (9); du indarrean (23); dute indarrean (22); egoera indarrean (10); egongo da indarrean (10); egun indarrean (62); egun indarrean dagoen (37); egun indarrean dauden (10); ere indarrean (22); eta indarrean (66); eta indarrean dagoen (9); etena indarrean (16); euskal herrian indarrean (9); gaur egun indarrean (23); geroztik indarrean (8); gobernuak indarrean (12); hau indarrean (8); herrian indarrean (9); hitzarmena indarrean (9); hori indarrean (16); horiek indarrean (10)

indarrean da (11); indarrean dago (39); indarrean dagoela (18); indarrean dagoen (175); indarrean dagoen legedia (9); indarrean dagoen sistema (8); indarrean dagoena (11); indarrean daude (17); indarrean daudela (15); indarrean dauden (71); indarrean den (37); indarrean diren (20); indarrean duten (13); indarrean egon (42); indarrean egon den (16); indarrean egongo (15); indarrean egongo da (8); indarrean egotea (10); indarrean eman (8); indarrean emana (10); indarrean eta (27); indarrean ez (10); indarrean ezarri (28); indarrean ezarriko (8); indarrean ezartzea (17); indarrean ezartzeko (12); indarrean ezartzen (8); indarrean izan (17); indarrean izango (13); indarrean jar (8); indarrean jarraituko (8); indarrean jarraitzen (30); indarrean jarraitzen du (8); indarrean jarri (182); indarrean jarri behar (9); indarrean jarri du (10); indarrean jarri eta (11); indarrean jarri nahi (11); indarrean jarri zen (15); indarrean jarri zenetik (8); indarrean jarri zuen (11); indarrean jarriko (48); indarrean jarritako (24); indarrean jarriz (8); indarrean jartzea (55); indarrean jartzeko (83); indarrean jartzen (33); indarrean sartu (66); indarrean sartu zen (12); indarrean sartuko (16); indarrean sartzeko (11); indarrean sartzen (9); indarrean zegoen (40); indarrean zeuden (11)

ituna indarrean (14); jada indarrean (9); jarri zen indarrean (23); jarri zuen indarrean (11); jarri zuten indarrean (13); jarriko da indarrean (20); jarriko dute indarrean (8); kyotoko protokoloa indarrean (9); legea indarrean (84); legea indarrean jarri (19); legea indarrean sartu (9); legeak indarrean (11); litzateke indarrean (8); nafarroan indarrean (9); neurriak indarrean (11); orain indarrean (10); oraindik indarrean (36); plana indarrean (16); protokoloa indarrean (11); sartu zen indarrean (18); sartuko da indarrean (20); su etena indarrean (16); urteetan indarrean (9); zen indarrean (52); zuen indarrean (22); zuten indarrean (18)

aldeko indarrek (15); bi indarrek (9); duten indarrek (9); espainiako segurtasun indarrek (14); estatuko segurtasun indarrek (10); eta okupazio indarrek (10); eta segurtasun indarrek (9); indarrei aurre (8); indarrei eta (13); indarrek egindako (8); indarrek eta (20); indarrek ez (24); indarrek ez zuten (9); indarrekin izandako (10); irakeko segurtasun indarrek (21); israelgo segurtasun indarrek (10); marokoko segurtasun indarrek (9); okupazio indarrei (46); okupazio indarrek (180); okupazio indarrek eta (9); okupazio indarrekin (22); oposizioko indarrek (14); polizia indarrek (18); segurtasun indarrei (39); segurtasun indarrek (213); segurtasun indarrek ez (8); segurtasun indarrekin (11); zuten okupazio indarrek (16)

aldeko indarren (14); bere indarren (11); duten indarren (10); erresistentzia indarren (15); eta okupazio indarren (32); eta segurtasun indarren (16); gure indarren (8); indarren arabera (15); indarren artean (29); indarren arteko (44); indarren aurka (21); indarren aurkako (31); indarren batek (8); indarren buruzagi (9); indarren esku (8); indarren eskutik (8); indarren eta (55); indarren eta irakeko (8); indarren kontra (12); indarren kontrako (13); irakeko segurtasun indarren (15); nazioarteko indarren (11); okupazio indarren (178); okupazio indarren artean (9); okupazio indarren arteko (10); okupazio indarren aurka (13); okupazio indarren aurkako (19); okupazio indarren eta (28); polizia indarren (10); segurtasun indarren (140); segurtasun indarren artean (8); segurtasun indarren arteko (10); segurtasun indarren aurkako (10); segurtasun indarren eta (13)

armen indarrez (9); bat indarrez (15); baten indarrez (11); bere indarrez (19); ere indarrez (8); espirituaren indarrez (9); eta indarrez (80); eta segurtasun indarretako (8); halako indarrez (25); indarretako kide (13); indarretako kideak (12); indarrez agintzen (12); indarrez atera (15); indarrez botatzen (12); indarrez edo (8); indarrez egin (8); indarrez eraman (8); indarrez estutu (8); indarrez eta (48); indarrez hartu (20); indarrez jo (13); indarrez sartu (26); irakeko segurtasun indarretako (11); obedientzia santuaren indarrez (9); okupazio indarretako (13); santuaren indarrez (14); santuaren indarrez agintzen (8); segurtasun indarretako (71); segurtasun indarretako kide (9); segurtasun indarretako kideak (9); segurtasun indarretan (10); zuen indarrez (8)

aski indarrik (14); baina indarrik (11); du indarrik (15); egiteko indarrik (12); eta indarrik (26); eta indarrik gabe (16); ez du indarrik (14); ez zuen indarrik (18); indarrik ere (22); indarrik ere ez (9); indarrik eta (11); indarrik ez (61); indarrik gabe (157); indarrik gabe geratu (8); indarrik gabe utzi (12); indarrik gabea (11); indarrik gabeko (12); indarrik handiena (14); indarrik izan (20); indarrik izango (11); zuen indarrik (22)

---

**indarberritu**, indarberri(tu), indarberritzen *(orobat **indar berritu** g.er.)* **1** da/du *ad* berriro indar hartu edo eman, indarra eraberritu. ik **indartu.** (norbait)

Ekarzu ura niretzat, **indarberritu** nazazu sagarrekin, maiteminak jota bainago. Lopez de Arana

Xanpainaren ondotik Hungariako ardoa edan zuten, eta horrek **indarberritu** eta are gehiago alaitu zituen guztiak. Jose Morales

Jendea barneberriturik, **indarberriturik** iratzarri zen, orakulu zaharraren utopiak jarri zuen martxan. lekukorik gabe nahi dituzu zeure zauriak miazkatu, ikuslerik gabe, ezagunik gabe etzan eta **indarberritu** edo betiko etzan. Iñaki Iñurrieta

Amodioaren indar sortzaile eta eraikitzailea sentitu zituen, izan ere amodioak **indarberritzera** eta asmatzera bultzatzen baikaitu. Patxi Zubizarreta

Zaude erne, eta **indarberri** ezazu oraindik bizirik daukazuna, erabat hil baino lehen. Elizen arteko biblia

Jende errukarri horiek, Gabarrariek, hitz horiek **indarberriturik,** lanari ekin zioten. Karlos Zabala

Mintzo hau entzutean, emakumea **indarberrituta** jaiki zen lotatik. Askoren artean

Baina erromatar andre debotoaren etorrerak **indarberrituta,** bazirudien zertxobait gehiago biziko zela. Askoren artean

Nork pentsatuko zuen Angeluarrak irabazle itzuliko zirela Libournetik? ala eguerditan jastatu duketen hango arno onak ditu **indar berritu** ? Herria

**2** (zerbait)

Haizea sortutakoan nagitzen hasitako arratsaldeko argia **indarberritu** egin zen. Anjel Lertxundi

Hirukoa **indarberritua** atera da hauteskundeetatik. Berria - Euskal Herria

Izendatu ziguten gudu-lerroa **indarberritzeko** asmoz. Mirentxu Larrañaga

Ez ditzakegu ere ahantz, aberria **indarberritu** beharrez egin lan handiak kulturaren sailean. Piarres Xarriton

Kale borrokaren **indar berritzea** . Berria - Harian

Esan nahi baita, "Estatu Arrazoia" etzi **indarberrituko** dela botoak eta abstentzioak kontatuz. Patziku Perurena

Beheraldi horrek, aldi berean, ELGE eremuko jardueraren suspertzea moteldu zuen, interes-tasek behera egin zuten arren, kreditua ezin baitzen **indarberritu** . Koro Navarro

Elkartasun hark biziki hunkitu ninduen eta xarma berezi batez **indarberritu** zuen nire grina filologikoa. Joxan Elosegi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Otsotzarmendi jaunak, zurbil aurpegia eta itzal begiak, mikrofonoa ezpaineratu zuen kemen **indarberrituaz;** hain kementsu, ezen alkatxofa irensteko zorian izan baitzen. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta horrek indarberritu** (3); **eta indarberritu** (9); **eta indarberrituta** (3); **horrek indarberritu** (5); **indarberritu behar** (4); **indarberritu egin** (15); **indarberritu egin zen** (5); **indarberritu egingo** (3); **indarberritu egiten** (4); **indarberritu eta** (3); **indarberritu zuen** (3); **indarberritzea porrota** (3); **indarberritzen ari** (4); **porrota indarberritzea** (3); **porrota indarberritzea porrota** (3)

---

# indarberritzaile *(orobat **indar-berritzaile**)* *izond* indarberritzen duena.

Denok berdintzen gaituen lo **indarberritzailearen** esku geratu da. Patxi Zubizarreta

Hona hemen XX. mendearen erdialdean erretorikaren **indar-berritzaile** nagusia izan zen Chaïm Perelmannek genero horretaz egin zuen deskripzioa: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gure garaiotako erantzukizun handiko agintariek duten atseden-premia sekulakoaz jabetu bainaiz, eta baita halakoek ondo merezia duten laketaldi espiritual **indar-berritzaileaz** ere. Anjel Lertxundi

---

# indarberritze *iz* berriro indar hartu edo ematea, indarra eraberritzea.

Honen azalpen bat zera izan liteke: estatu unibertsala **indarberritze** bat dela arazoaldiaren ondoren. Iñaki Mendiguren

Erregulartasunak porrot eta **indarberritzeen** txandaketetan. Iñaki Mendiguren

Asteotan entrenamenduak baino gehiago **indarberritze** saioak egin ditut. Berria - Kirola

Ez zait hain burugabea iruditzen kale borrokaren **indarberritze** bat baztertzea. Berria - Euskal Herria

Udalaren erabakian garrantzizkoa izan da Basauriko Komertzioen **Indarberritze** Ikerketa ere. Berria - Ekonomia

---

# indarbide *iz*

Zure aberastasun guztiak ez dira aski izango, ez zure urrea, ez eta **indarbide** guztiak ere. Elizen arteko biblia

---

# indarbiziagotu, indarbiziago(tu), indarbiziagotzen da/du *ad*

Gauzak zabarki orokortu eta **indarbiziagotzeko** joera zabarretik pobrezia datorrela. Juan Garzia

---

# indardun **1** *izond* indarra duena.

Bere lagunen batasun **indardunarekin,** axolatuko dire bihotz kartsuz, gure herriaren egoeraz. Herria

George Bushek berak proposatua du OTANen laguntza galdegin dezaten irakiar **indardun** berriek. Herria

J. M. Satrustegik esana: "Hamalau, euskaldunon **indardun** nagusiaren izena da". Patziku Perurena

**2** indarrean dagoena.

Horien betegarri egokia, zalantzarik ez, legea **indarduna** izateko aldarrikatu eta argitaratu beharra. Andres Urrutia

---

# indargabe **1** *izond* indarrik ez duena. ik **indarge; indar 16**.

Ilargiaren argi **indargabe** bat baizik ez zen beraienganaino iristen. Fernando Morillo

Kolore **indargabeak,** inpresionista samarrak, lasaitasuna zabaltzen dutenak. Berria - Kultura

Hasierako kolpeak, ukabila itxita, masaila bete-betean jo bazizkion ere, hurrena ukaldi **indargabe** sarriak eman zizkion, negarrak amorrua baretu izan balio bezala. Inazio Mujika Iraola

Neure buruari esan diot: ontasun hau **indargabea** da, eder eta **indargabe,** goizeko ihintza bezala. Felipe Juaristi

Zenbat eta zentzugabeagoa izan, zenbat eta itxuragabeago eta **indargabeagoa** izan, orduan eta handiagoa da. Felipe Juaristi

**Indargabearentzat** babesleku izan zara, behartsuarentzat larrialdian babesleku. Elizen arteko biblia

**2** ***indargabeko*** *izlag* indargabea.

Zein ederki laguntzen diozun ahulari eta eusten **indargabeko** besoei! Elizen arteko biblia

Emakumeek gatazken **indargabeko** ebazpenean betebehar garrantzitsua jokatzen dute. Berria - Euskal Herria

Harek erran du haundiena dela ttipiena, **indargabekoa,** haurra. Michel Oronoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta indargabe** (6); **indargabe utzi** (4)

---

# indargabearazi, indargabearaz, indargabearazten *(corpusean **indar gabe arazi** soilik)* du *ad* indargabetzera behartu.

Orroit 25 herriko etxek euskal departamenduaren aldeko elkarteari ekarri zioten diru lagunrtza **indar gabe** arazi duela berriki prefetak administrazio auzitegiaren aitzinean.

Herria

---

# indeterminismo *iz* doktrina filosofikoa, gertatze baldintzek ez dituztela nahitaez gertakariak determinatzen dioena.

Zein da kausaren eta lege edo azalpen kausalaren kontzeptuen izaera? zein da enuntziatu kausal singularren zentzua, bai eta azalpen kausalen egokitasunaren justifikazioarena? zein da determinismoaren eta **indeterminismoaren** arteko erlazioa? Askoren artean

---

# index 1 *iz* (l larriz) Eliza Katolikoak debekatzen dituen liburuen zerrenda.

Bederatzi urte iraun zuen oraino auziak: "Guztiz heretiko susmagarri" gisa kondenatua izan zen Carranza eta haren Katixima liburu debekatuen **"Index"-ean** sartu zuten. Piarres Xarriton

*Zientzietarako Argimenen Azterketa* liburu benetan ospetsua lehen aldiz 1575ean kaleratu zen eta 1581ean Inkisizioaren **Indexean** sartu zuten, 1966a arte; urte horretan Auzitegiak liburu debekatuen **Indexa** betiko desagerrarazi zuen. Askoren artean

**2**

*Philosopher's* ***Indexekin*** batera datu basean beste **index** batzuk ere aurki ditzakezu. Askoren artean

**3**

Gizartean argazkiak dokumentu-eginkizuna izatea gehienbat, eta, batez ere, bere izaeraz, argazkia "izan dena eta gehiago ez dena hatzaz erakusten duen" **index** bat izatea, fetixea den bezalatsu Josu Zabaleta

---

**indexatu**, indexa, indexatzen du *ad* datu edo argibide multzo bat irizpide bakar baten arabera ordenatu.

Haren pertzepzioa eta oroimena -saltoki, liburutegi edo artxibo handien pareko-, **indexatu** edo kategorizatu, edo asoziazioz elkarrekin metatu gabe. Xabier Olarra

Tasa **indexatutako** banku-kreditu sindikatuak. Koro Navarro

---

**indexatugabe** *(corpusean **indexatu gabe** soilik) izond* indexatu ez dena.

Argudio hori baliagarria da ekonomia **indexatu** gabeetan eta kanpora aski irekiak daudenetan (Estatu Batuak eta Japonia adibidez). Koro Navarro

---

**indexazio** **1** *iz* indexatzea.

Balio erantsiaren banaketa mozkinen kalterako aldatzea ez zen izan soldaten **indexazioaren** ondorio bakarra. Koro Navarro

Soldaten **indexaziozko** mekanismoek, herrialde industrializatu gehienetan indarrean zeudelarik, soldata errealak beherantz doitzea galarazi zuten. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan)

Praktikan ordea, **indexazio**-mekanismoek eragindako prezio-soldaten espiralak, inflazioaren gorakada izugarria ekarri zuen herrialde industrializatuetan Koro Navarro

---

**indexiko** *iz*

Esaldi batek adierazitako proposizioa ezagutzeko testuinguruaren bidez "osatu" beharreko osagaiak erakusleak ("hau", "hori"...), **indexikoak** ("ni", "hemen", "gaur"...) eta deskribapen zehaztu osagatubeak ("txakur bat") dira. Askoren artean

David Kaplan-ek dioenez, **indexikoak,** testuinguruan, erreferentzia zuzeneko adierazpenak dira. Askoren artean

Alegia, **indexiko** hori ageri duen perpaus batek adierazten duen proposizioari bere erreferentzia soilik eskainiko dio, eta ez, inondik ere, esanahi deskriptiborik edo erreferentziaren aurkezpen modurik. **Indexiko** puruen edukia testuinguruak finkatzen du zuzenean ("ni", "hemen", "gaur"...); benetako erakusleen edukia ez dago finkatuta erakuste bat egiten ez bada ("hau", "horiek"...). Askoren artean

---

**indexologiko** *izond*

Eta jakin ere badaki, zeren geroago beste zenbait kapitulu **indexologiko** aurkituko baititugu, hiztegia bukatu eta gero. Xabier Kintana

---

**indezente** **1** *izond* lizuna.

Santik, ostera, asko egiten zituen, nahiko **indezenteak** gehienak, eta kopla zaharren teknika erabiliz, jakina. Jon Arretxe

**2** lotsagarria, itxurarik gabekoa.

Bai... atxur ganorabako bat, mozkor **indezentea..** . Unai Iturriaga

**3** (adizlagun gisa)

Atxilotuari atxiki zitzaizkion karguak ez dira larriak; kalean **indezente** ibiltzea eta atxilotua izateari erresistentzia egitea baino ez, azken hori bortxarik gabe izan dela aipaturik gainera. Edorta Jimenez

---

**indi gaztaina** *(orobat **indigaztaina** g.er.) iz* zuhaitz handi eta abartsua, hostozabala eta lore-zuria *(Aesculus hippocastanum).*

**Indi** gaztainen gerizpean eseri eta jatetxetik ateratako garagardo eta limonadak edatera. Bernardo Atxaga

Tabernan edaria hartu eta kanpora atera ginen **Indi** gaztainen azpian esertzera. harrizko banku batean eseri eta **Indi** gaztaina baten azpian argiak utzi arte irakurtzen gelditu ahal izatea. Bernardo Atxaga

Kaleak **Indi** gaztainak zituen alde banatan. Fernando Rey

**Indigaztaina** erori berriei ostikadak emateko sekulako gogoa sortu zitzaidan. Iban Zaldua

Lehengo xendra orain bidea zen, baina oraindik **Indi** gaztainek arkupea egiten zioten beheko belarrari. Anton Garikano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **indi gaztainen** (5)

---

indi oilo ik **indioilo**.

---

**india** *iz* indiar emea.

Zer moduz Venezuela alde horretan? indio asko kristautu al dituzu, ala **indiak** gehiago interesatzen zaizkizu? Xabier Mendiguren Elizegi

---

indiaba ik **indaba**.

---

**indiano** **1** *iz* Ameriketara joandako euskalduna; bereziki, gero berriro Euskal Herrira aberasturik itzulia.

Triku berpiztu egin zen Montevideon, eta **indiano** aberats bihurturik dago orain, hiriko jatetxerik onenetakoaren jabe. Bernardo Atxaga

Elizondon dik jauregi moduko bat, **indiano** batek duela berrehun urte eraikitakoa. Hasier Etxeberria

**Indianoa** ohituta zegoen neskak aise errenditzera, dirua berogarri ezin hobea baita bakartien ohetarako. Anjel Lertxundi

Prest zegoela, esan zion, baita maizter-zorrak kitatzera ere, baldin neskak, lotara bertan gelditurik, konplitzen bazituen **indianoaren** gutiziak. Anjel Lertxundi

**Indianoaren** ondasun guztiak Juana Bixentaren eskuetara pasatu ziren legezko bedeinkapen guztiekin. Anjel Lertxundi

Fama da Joxe Joakin morroi beltzak **indianoaren** traje eta kapelu zuriak jantzen zituela emazteari besoa eman eta semearekin paseatzeko. Anjel Lertxundi

• **2** (izenondo edo izenlagun gisa)

Hauxe izango duk benetako mundializazioa, pentsatu zenuen, perutar batek egindako sukalde frantsesa, Elizondoko jauregi **indiano** batean eserita dastatzea. Hasier Etxeberria

**Indiano** girgileria sinbolikoz estalia zen Belgikako Jacquesek. Aurelia Arkotxa

• **3** *iz ipar* Ameriketako indiarra.

Innu **indianoak** gutartean ikusiko ditugu laster. Herria

Chiapaseko **indianoez** xehetasun zonbaiten emaiteko. Herria

Espainia, Ameriketako **Indianoak,** Txina eta Afrika. galdegiten diote ere mexikano deputueri bozka dezaten lege bat **indianoen** eta heien kulturaren eskubideak zainduko dituena. Herria

-Jende zuri gehienarentzat **indianoen** erreserbak jolas parkeak baizik ez dira... Aurelia Arkotxa

Quebec hiritik ez hain urrun, omen Huron-Wendat populuaren usaia zaharren atxikitzeko, bere burua wendat **indianotzat** zeukan ile hori, larru zuri eta begi urdineko gizon handi eta gotor hark. Aurelia Arkotxa

Kontrabandista eta guarda, **indiano** eta cow-boy jokotan. Michel Oronoz

Üdüriala gü gira denen **indianoa** . Herria

**4** *ipar* Asiako indiarra.

Bainan Estatu Batuek Pakiztana ere dute fagoratzen, Afganistaneko gerla hartan Amerikanoen alderdia baitute atxiki eta horrek ditu ere kexatzen **indiano** gobernu gizonak, haatik Muxarrak pakiztandar presidenta dutela bakarrik goraki gaitzesten, makila bi burutarik nahi baitu atxiki. Herria

**5** (izenondo gisa)

Zamarrak, oihal **indianoz** eginak eta kotoi gordinez estaliak. Karlos Zabala

**6** ***indiano itsaso*** ik **indiar 4; indiko 2.**

Urrunekoa, hala da zinez, hemendik 10 000 kilometrotan, **Indiano** itsasoan den Réunion deitu ugartea. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> diren indiano (3)

---

# indiar

**1** *izlag/iz* Indiari dagokiona; Indiako biztanlea.

Kontratupeko **indiar** eta txinatar langileen ondorengoak. Iñaki Mendiguren

**Indiar** kontrabandista batzuek. Gotzon Garate

Nire **indiar** lagunek. Gotzon Garate

Alfonbra lantegietan bakarrik 300.000 **indiar** haur daudela uste dute. Gotzon Garate

Inork ez luke, esate baterako, Georges Orwell **indiar** pentsalaritzat hartuko, Indian jaio zen arren. Askoren artean

Malba koloreko **indiar** sari itxurako bat eta sokazko sandaliak jantzita. Jon Muñoz

**Indiar** erlijioa oso erakargarria egiten zitzaion Oppenheimerri. Fernando Morillo

**Indiar** zenbakerak sekulako balentria egin zuen, alfabetoarena baino are miragarriagoa. Jon Muñoz

Haren bitartez ezagutu zituzten arabiarrek **indiar** zifrak. Jon Muñoz

Britainiar Inperioak **indiar** elitea erabili zuen, otomandar padishak Ekialdeko elite kristau ortodoxoa erabili zuen bezala. Iñaki Mendiguren

**Indiar** Batasuna eta Pakistan seinala daitezke Indiako herri-administrazio britainiarraren onuradun gisa. Iñaki Mendiguren

Ipar Indiako hindu-biztanleei urduera esaten zaion pertsiartutako hindiera herri-hizkeraren baliokidea emateko, hori **indiar** musulmanek landua zutelarik berentzat. Iñaki Mendiguren

Ez zegoen **indiarrik,** adibidez, Britainiar Inperioaren hilezkortasuna desiratzen edo iragartzen zuenik. Iñaki Mendiguren

**Indiarrek** sinesten dute Ganges ibaiko urek ahalmen santifikatzailea dutela. Iñaki Iñurrieta

Gaur egun erabiltzen ditugun zifrak **indiarrek** asmatu zituzten Indian. Jon Muñoz

**2** Ameriketan europarrak bertaratu aurretik bizi ziren herrietakoa; herri horiei dagokiena.

**Indiar** txabola hutsezko Palenque hartan, zinema egon bazegoela. Joxe Austin Arrieta

Garaiak ziren, sendoak, hezurtsuak, ilea gorri-antxa eta aurpegiak **indiar** eitekoak. Juan Garzia

Arizonako **indiar** erreserba batean bizi ziren zazpi **indiar** navahorekin. Josu Zabaleta

Navaho **indiar** batzuekin batera. Josu Zabaleta

Eta gogorat datozkit Indietan ezagutu nituen **indiar** haiek. Joan Mari Irigoien

Jakintsuagoak ziren **indiar** haiek konkistatzaileak baino. Joan Mari Irigoien

Ama Birjina **indiar** bat zen, bere bularrak erakusten zituena, nondik esnea edoskitzen ari baitzitzaizkion bular batetik Jesus haurra eta bertzetik san Jose. Joan Mari Irigoien

Ipar Amerikako **indiarrekin** hemezortzigarren mendean izandako harremanetan. Iñaki Mendiguren

**Indiarren** eta larruzurien arteko mugan salerosketan eta ehizan ibiltzen zen gizona. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bisonteari, "bi-adarreko" esaten diote Amerikako **indiarrek** . Jon Muñoz

Ameriketako **Indiarren** Museoa. Berria - Mundua

Kolonek, orduan, **indiarrak** zentzatzeko amarrua asmatu zuen. Martin Anso

Siuxen Hunkapa tribuko **indiarren** ohiturak. Berria - Kultura

AEBetako **indiarren** aldeko ekintzailea. Berria - Kultura

Telebistako **indiarrak** eta bakeroak. Sonia Gonzalez

**Indiarrek** izango al dute estatus berezirik Quebec independentean? Berria - Harian

**3** (hitz elkartuetan)

Turinen jaioa da, eta Rajiv Gandhi 1991. urtean hil zuten lehen ministro ohiarekin ezkontzean eskuratu zuen **indiar** herritartasuna.

Bi kausa horien eragina zorrotz aztertu du **indiar** -britainiar gizarte eta kultur harremanen historiaren hogeigarren mendeko aztertzaile ingeles batek. Iñaki Mendiguren

Indiako Ozeanoko merkataritza arabiar- **indiarra** . Koro Navarro

Mendebaldeko industri langileen eta asiar, afrikar eta **indiar** -amerikar nekazarien artean. Iñaki Mendiguren

· Konkistatzaile **indiar** -jale baten irudia zeraman paper puska. Aingeru Epaltza

**4** ***indiar ozeano/itsaso*** Afrikaren, Asiaren eta Australiaren artean dagoen ozeanoa. ik**indiko 2.**

**Indiar** ozeanotik zetozenak. Iñaki Mendiguren

Latindar aparailuko **Indiar** ozeanoko "karabela". Iñaki Mendiguren

Afganistan eta Pakistanen arteko mugaldean kokatua den Kohaten, **Indiar** Itsasoko Diego Garciako base militarrean. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aebetako indiarren** (3); **amerikako indiarren** (6); **amerikar indiarren** (3); **ameriketako indiarren** (4); **beltzak eta indiarrak** (3); **bi indiar** (12); **edo indiar** (5); **emazteki indiar** (3); **eta bi indiar** (3); **eta indiar** (21); **eta indiarrak** (7); **eta indiarrek** (7); **eta indiarren** (12); **ezen indiar** (4); **hiru indiar** (3); **indiar bat** (13); **indiar batek** (10); **indiar batzuk** (7); **indiar edo** (4); **indiar eta** (9); **indiar gorri** (19); **indiar gorri haiek** (5); **indiar gorri haiekin** (4); **indiar gorriak** (7); **indiar gorrien** (7); **indiar haiek** (10); **indiar horiak** (9); **indiar horien** (5); **indiar horien eta** (3); **indiarra eta** (3); **indiarra hil da** (3); **indiarrak eta** (8); **indiarrak eta beltzak** (3); **indiarren arteko** (5); **indiarren arteko harremanak** (3); **indiarren aurkako** (3); **indiarren eta** (9); **indiarren museoa** (3); **ziren indiarren** (3); **zuen indiar** (7)

## indiaratze *iz* Indiara joatea.

**Indiaratzea**. Gotzon Garate

## indiartu, indiar(tu), indiartzen da/du *ad* indiar bihurtu.

Harik eta egun zahar txarretan gizatiarregi **indiarturiko** "nabob" ingelesa britainiar funtzionario profesionalki akasgabe eta pertsonalki hurbilgaitz bihurtu zen arte. Iñaki Mendiguren

Indiar elite honek azkenean arrakasta izan zuen (fanariotek huts egin zuten lekuan) inperioa **indiartzen** eta ukitu gabe gordetzen, Pakistanen banakuntzaren salbuespen handiarekin Iñaki Mendiguren

## indiauts *iz*

Argoterako asmatzen hasita, hor dagoke **indiautsa,** "farlopa" edo "kokaina" esateko. Iñigo Aranbarri

**Indiautsaren** kontsumoak gora egin du Euskal Herrian. Iñigo Aranbarri

## indibidual 1 *izond* banakakoa, banakoari dagokiona.

Inbertsiogile **indibidualek** eta Banestok osatutako *Retos Cartera* taldeak. Berria - Ekonomia

Liburu Zuriak abertzaletasunari eskaintzen dion kapitulua pertsona **indibiduala** eta nazioaren pertsona kolektiboa bereiziz hasten da. Joseba Zulaika

Aberriarenganako adorez eta maitasunez betetako errepublikar zahar haiek ez zuten nazio modernoetan aurkitzen den erruki **indibidual** hau ezagutzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gogora dezagun erabilpen berri bat, beti, gertaera **indibidual** batzuetatik hasten dela. Isabel Arrigain

Gizakitxo durduzatuaren neurosi **indibidual** jasanezina gainditzeko. Joxe Azurmendi

Gertaera honek gogoeta **indibidual** eta kolektiboa eragingo du zuzenbide penalak estatu batean izan behar duen edukiaz. Juan Martin Elexpuru

Erakusketa **indibidual** nahiz taldekakoak jartzeko asmoa azaldu dute sustatzaileek. Berria - Kultura

Giza eskubide **indibidual** eta kolektiboen urraketa. Berria - Euskal Herria

Maila **indibidual** zein sozialean. Berria - Euskal Herria

Idaztea ariketa **indibiduala** da, transferiezina, eta intimoa. Ana Urkiza

Gizarte alderdiari eta alderdi **indibidualari** dagokie batera. Isabel Arrigain

Aberats bakan batzuek baino ez dute [berekoikeria eta dirua]; behartsuen artean, berriz, zentzu **indibidualik** ez da. Josu Zabaleta

**2** (logikan)

*A* formula bada eta *xi* aldagai **indibidual** sinbolo bat bada, orduan •xi • formula da. Askoren artean

A2 ={ai}•I: konstante sinbolo **indibidualen** multzoa da. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **askatasun indibidual** (3); **askatasun indibiduala** (3); **askatasun indibidualak** (4); **ekintza indibiduala** (3); **eskubide indibidual** (11); **eskubide indibidual eta** (8); **eskubide indibidualak** (6); **eskubide indibidualak eta** (3); **eta indibiduala** (3); **indibidual eta** (18); **indibidual eta kolektiboak** (5); **indibidual eta kolektiboen** (4); **indibidual zein** (4); **indibiduala da** (6); **indibiduala eta** (3); **indibidualak eta** (7)

## indibidualismo *(42 agerraldi, 15 liburu eta 12 artikulutan)* *iz* gizabanakoaren eskubide eta ikuspegiak garatzeko edo indartzeko joera. ik **indibidualtasun; indibidualitate; norbanakotasun.**

**Indibidualismoa** da askatasun pertsonalaren babesik onena. Iñaki Heras

Gizakiak berezkoa al du **indibidualismorako** joera? Iñaki Heras

Egoera iragankor honetan, gizarte-hutsunea **indibidualismoak** betetzen du. Iñaki Mendiguren

Bi muturrak, **indibidualismoa** eta estatalismoa, gaitzetsi ondoren. Joseba Zulaika

**Indibidualismoaren** eta komunitarismoaren arteko eztabaidarako. Joxerra Garzia

**Indibidualismo** unamunoarraren fruitua. Joseba Zulaika

Autoritarismo eta nagusikeria guztien erro-errotiko arbuioa, **indibidualismo** ezin garaituzko bat, formalismoen eta zurrunkerien gaitzespen sakona, epelak eta txepelak ezin jasan ia fisiologiko bat... Xabier Mendiguren Elizegi

Murrizketarik gabeko **indibidualismo** ekonomikoaren Eszilaren eta ekonomi jardueraz Estatuak egindako kontrol totalitarioaren Karibdisen artean bidea zabalduz. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta indibidualismoaren** (3); **indibidualismoa eta** (6)

## indibidualista *izond* indibidualismoari dagokiona; indibidualismoaren aldekoa.

Malinovski, Thurnwald, Polanyi eta beste hainbat antropologoren ikerketek azpimarratu izan dute joera **indibidualisten** aldean giza taldeari buruzko joera dela nagusi gizarte primitiboetan. giza baloreen eta balore tradizionalen gainbehera sumatzen da, izaera **indibidualista** nabarmenarekin batera, besteak beste. Iñaki Heras

Tellagorri uste osoko **indibidualista** zen. Koro Navarro

Traidoreak ginen, ezdeusak, sugeak, faltsuak eta, hona irain handiena, **indibidualistak**. Joxan Elosegi

1970eko hamarkadan garatu zen soziobiologiak determinismo genetikoa aldarrikatzen zuen giza portaera azaltzeko, eta politika sozial **indibidualista** eta liberalak bultzatzen zituen. Askoren artean

Beste mendietatik aparte dagoen mendi bat da -mendi **indibidualista-,** eta turista gutxi joaten da hara. Koro Navarro

## indibidualitate *(3 agerraldi, 2 liburutan)* *iz* banakotasuna. ik **indibidualtasun; indibidualismo.**

Herder-en herrien "izpiritua" -nortasuna, **indibidualitatea-** abere eta landareetara ere hedatzen da, beraz: Herder-en herri gogo edo izpiritua naturalista da, ez mistiko-metafisikoa. Joxe Azurmendi

Herri honetan komandoak sortzen dira komandoek bi gauza behar dituztelako: batetik, **indibidualitate** oso markatu bat, eta bestetik, **indibidualitate** hori babestuko edo indartuko duen taldea, eta, era berean, taldea ere oso markatua. Ana Urkiza

**indibidualizatu**, indibidualiza, indibidualizatzen **1** da *ad* banako bat edo talde bat bere motako gainerakoetatik bereizten duten ezaugarriak adierazi.

Jokabideak **indibidualizatu** behar ditu, delitu jakinak pertsona jakinei leporatu, alegia. Berria - Harian

Stendahlen eleberri bat edo Dostoievskiren eleberri bat ez al dira **indibidualizatzen** Balzacen La Comédie humaineren bi liburukiak **indibidualizatzen** diren bezala? Xabier Arregi

**2** *(era burutua izenondo gisa).*

Gorputz zehatz bat, nortasun **indibidualizatu** bat eta guregan eragina duen eta modu bateko edo besteko egiten gaituen inguru sozial bat gara. Luis Elberdin

Akusazioak oso orokorrak dira, ez dira **indibidualizatuak**. Berria - Harian

Ikusten dugu salaketak ez daudela oinarrituta froga **indibidualizatuetan**. Berria - Harian

---

## indibidualizazio *iz* indibidualizatzea.

Liburuaren **indibidualizazio** materiala: leku jakin bat betetzen du, balio ekonomiko bat du eta berez bere hasieraren eta bukaeraren mugak adierazten ditu zeinu kopuru zehatz baten bidez. Xabier Arregi

Arteetan bezala, iraupen ohargarria duen kalitate indibidual iraunkor hori aski da argazki on bat ere antolamendu eta **indibidualizazio**-printzipio batean oinarritzen dela erakusteko. Josu Zabaleta

---

## indibidualkeria *iz* indibidualtasun gaitzesgarria.

Jakina, finean indibidualtasuna eta **indibidualkeria** bereiztu beharko lirateke, edota buruzaletasuna eta burukoikeria, edota berekoitasuna eta berekoikeria. Iñaki Heras

Zikoizkeria, lukurreria eta xuhurkeria bezala, **indibidualkeria** edo berekoikeria ere nagusi dira egungo gizartean. Iñaki Heras

---

## indibidualki *adlag* era indibidualean.

Kolektiboki eta **indibidualki** bizitzen ditugun momentuetaz oroitzeko. Ana Urkiza

Ez dago ziur Jaungoikoak arimak banan-banan **indibidualki** sortu ote zituen edota gurasoen bitartez transmititzen ote diren. Imanol Unzurrunzaga

Baldin eta jendetza osatzen dutenek ez badituzte **indibidualki** egiten ekintza horiek. Esteban Antxustegi

Ez duelako bitarteko berezi eta egokirik eskaintzen adimen urritasuna duten haurrak **indibidualki** gizarteratzeko. Berria - Euskal Herria

---

## indibidualtasun *(18 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan)* *iz* indibiduala izateko tasuna. ik **indibidualitate; indibidualismo.**

Ustez ekonomilariak izan zirela **indibidualtasunari** balizko oinarri zientifikoa eman ziotenak, balizko darwinismo sozialari oinarriak ezarriz. Iñaki Heras

Jakina, finean **indibidualtasuna** eta indibidualkeria bereiztu beharko lirateke, edota buruzaletasuna eta burukoikeria, edota berekoitasuna eta berekoikeria. Iñaki Heras

Giza arimaren **indibidualtasuna** ukatu egin behar omen zen. Askoren artean

**Indibidualtasunaren** aldeko ideiak. Bernardo Atxaga

---

## indibiduo *iz* gizabanakoa, norbanakoa.

Liberalismoak egiten dituen proposamenen arabera, funtsezko giza eskubideak gizabanakoarenak dira, **indibiduoarenak**. Askoren artean

Etikaren balio absolutua erlatibatu edo **indibiduoaren** eskubideak ukatu. Joxe Azurmendi

Feministok ez diogu gizonezkoari, **indibiduo** gisa, errua botatzen. Berria - Euskal Herria

Bi **indibiduoren** arteko borroka zen. Harkaitz Cano

Esperientziarekin erlazionaturiko pentsamenduak, hausnarketak eta portaerak, ez beste ezerk, kontrolatzen zituztela **indibiduoaren** egoera psikologiko partikularrak. Askoren artean

Hala, bada, espezie bakoitzak, sexu bakoitzak eta **indibiduo** bakoitzak bere usaina dauka. Luis Elberdin

Espezieek eta, oro har, maila goreneko taxoiek ez dituztela klaseak adierazten, **indibiduoak** baizik. Askoren artean

---

## indie *iz (musika mota)*

*Rhythm King and Her Friend* hirukoteak Kitty-Jo disketxe alemaniar ezagunaren bidez kaleratu du *I am disco*, **indie**-popa eta electro-a modu bizian uztartzen dituen lana. Berria - Kultura

**Indie** estiloko musika folk eta zelta doinuekin uztartzen du. Berria - Kultura

Espainiako **indie** mugimenduan. Berria - Kultura

---

## indiera *iz*

Raj Kapoor, Satyajit Ray eta Guru Dutt zinemagileek altxatu zuten Indiako industria, 50eko urteetan, Madras, Calcutta eta Bombayn, **indieraz** eta bengaleraz eginiko lanei esker. Berria - Kultura

---

## indietronika *iz (musika mota)*

Post-rocketik **indietronikara** eraman zaituztete kritikariek. Berria - Kultura

Aspalditik datorkizu **indietronika** eta Lali Puna, mum edota Matt Elliottekiko interesa? Berria - Kultura

---

## indiferente *izond/iz* ezaxola, axolagabea.

Horra zergatik nahiago izan duten eraiki Jainko bat guztiz **indiferentea,** Bere borondate absolutuak kreatu nahi zuena baizik kreatu ez duena. Piarres Xarriton

Uste dut ez zela jendetza hartan begirada **indiferenterik;** begi batzuek jakin-mina adierazten zuten, gorrotoa besteek, eta, tarteka, malkoz betetako begiak ere ikusi nituen. Felipe Juaristi

Ekintza oro, berez, **indiferentea** da: bidezkoa ala bidegabea izatea, gobernariaren eskubideari dagokio. Esteban Antxustegi

Zerrategian antolatu beharreko eskola beste gairik ez zuen, eta guztiz **indiferentea** zirudien bere jaiotetxeko horma eta bazterrekiko. Bernardo Atxaga

Trukean, irribarre egiten zidaten, mundu handiko jendeak orori, adiskide, etsai nahiz **indiferente,** egiten dion irribarre horietako batez: hutsa eta fatala. Matías Múgica

**"Indiferenteok** ere nazkagarriak gara", esan liteke agian Célineren juzgua osatuz. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **guztiz indiferentea** (3)

---

# indiferentzia *iz* ezaxola, axolagabetasuna.

Sararen **indiferentziak** eragindako ohiko erantzunaren zain geratu zen Karmele: "Psss...". bazirudien lana leku berean egiten dutelako elkarrekin bidaiatu behar izaten dutenen **indiferentziak** lotzen zituela. Joan Mari Irigoien

Kritika txar bat baino okerrago hartzen dute **indiferentzia**. Berria - Kultura

Ziurrenik erdeinuzko esaldiren bat edo **indiferentziazko** jarreraren bat jasoko du. Pako Aristi

Begira nola malenkonia **indiferentziarekin** estaltzen duten. Pako Aristi

Gorrotoa eta mirespena sortzen du, baina inoiz ez **indiferentzia**. Berria - Kultura

Oisinek berak ere bere **indiferentzia** galdu eta mesfidantza puntu batez begiratu zion Goli. Joanes Urkixo

Bat-batean ikaragarrizko gorrotoa sentitu nuen gazte harenganako, eta aldi berean erabateko **indiferentzia** printze zaharrarenganako. Matías Múgica

**Indiferentzia** gure bihotzaren muin-muinean egon arren -bihotza arkaikoa da-, ikasi egiten dela bestearen ezbeharra konprenitzen. Bernardo Atxaga

Tolerantziaz mozorrotutako **indiferentzia** orokor bat proposatuz. Berria - Kultura

Baina demokraziak gizartean **indiferentzia** espazioak maite ditu: **indiferentzia** ideologikoa edo neutraltasun erlijiosoa bereziki. Joxe Azurmendi

**Indiferentzia** ukittu bat ematen ziok horrek hire jardunari. Jokin Muñoz

---

# indiferentziatu *izond* desberdintzen duen bereizgarririk ez duena.

Frenologoek, mende hasieran, gogameneko edo jokabideko ahalmen baten "egoitza" ikusi zuten garunaren gainazalaren zati bakoitzean; 1830etik 1850 ingurura arte, berriz, horren aurkako joera indartu zen, eta, ondorioz, garuna gibela bezain **indiferentziatua** zela uste zuten. Xabier Olarra

---

# indigaztainondo *iz* indi gaztaina.

Hantxe dago Eduardo, etxe aurreko **indigaztainondoan** bermatuta. Iban Zaldua

---

# indigena *(orobat **indijena** g.er.)* **1** *iz* herrialde bateko bertatiarra den pertsona.

Munduan, 300 milioi **indigena** inguru bizi dira, 70 herrialdetan banatuta. Berria - Gaiak

Agintariak **indigenak** kanporatzen hasi zirenean. Berria - Gaiak

Birjinitate kulturala galdua ez zuen **indigena** baten eran. Itxaro Borda

Amazoniakoak diruditen **indigenak**. Iñigo Aranbarri

**Indigenez** ari garelarik ez gara politikaz ari, antropologiaz baizik. Iñigo Aranbarri

Justiziak lurren jabe izateko eskubidea aitortu die Nama **indigenei**. Berria - Gaiak

Mexikoko **indigenen** zapalkuntza. Txema Ramirez de la Piscina

Mexikar **indigena** batzuen ahotik jasotakoa. Juan Garzia

Lurralde haietako **indigenen** osasun-egoera. Xabier Olarra

Marokon, esaterako, amazigh kulturako **indigenek** arabiar izenak jarri behar izaten dizkiete euren seme-alabei. aborigenak babestea eta **indigenen** parte-hartzea sustatzea, haien egunerokoan eragina izan zezaketen gobernu eztabaidetan. Berria - Gaiak

Nahiz eta Australiako biztanleen %2,1 bakarrik izan **indigena,** espetxean dauden %20 aborigenak dira. Berria - Mundua

Gezur horietako bat -diot- euskaldunak/-ok Europako azken indioak edo **indigenak** direlako/garelako ixtorioa da. Iñaki Segurola

**Indigenak** garenez, bestalde, ez gara agertzen ikerketa sozio-ekonomikoetan. Berria - Gaiak

Gaur egun, "garapena" esanez gero edozein gauza uler dezakegu ia-ia; bai azpiegitura handi bat eraikitzea bai **indigena** masai batek sakelako telefono bat izatea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zein da emakumearen rola **indigenen** aldeko mugimenduan? Berria - Gaiak

**Indigenen** hizkuntzak «gutxietsita» daudela salatu dute. Berria - Gaiak

**Indigenen** Kontuetarako Nazio Batuen Foroa biltzen den hirugarren aldia da aurten. Berria - Gaiak

**Indijenen** arte eta kulturarekin loturiko ondasunak saltzen dirutza handiak eskuratzen ditu urtero Australiak. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alabaina inozentziaren abantaila ez zitzaien pobreei eta **indigena** izaerakoei nehondik ere aplikatzen. Itxaro Borda

Gobernuak hartuko ditu orain arte ATSICenak ziren egitekoak, baina, horretarako aukeratutako **indigena** talde baten laguntza izango du. Berria - Gaiak

Kolonbian **indigena** talde asko desagertzeko arriskuan daude, gatazkaren erdian harrapatuta. Berria - Harian

Ona-k Suaren Lurraldea artxipelagoko **indigena** herrietako bat ziren. Berria - Gaiak

**3** *izond* herrialde bateko bertatiarra dena.

Haur **indigenek** nekez izaten dute euren hizkuntzan ikasteko aukera. Berria - Gaiak

Brasilpeko lurraldean multinazional ustiatzaileren batek [...] mehatxaturik dauzkan lurretan jaioa den emakume **"indigena** kaingang" bati. Iñaki Segurola

Alkandora eta galtza zabal haiek ongi ematen ziotela zamaketari **indigena** bati, baina ez berari. Talde-kontzientzia dugu, beste hainbat gizatalde **indigenak** bezala. Pello Lizarralde

Etiopiako eta Sudango komunitate **indigenak** baztertuta daudela salatu dute batzarrean bildutakoek. Berria - Gaiak

Komunitate **indigena** zapatistek beren buruak gobernatzeko erakundeen moldaketa. Berria - Mundua

Inuiten, samien eta Artiko inguruko beste herri **indigenen** ordezkariek Kyotoko Protokoloa sinatzeko exijitu zioten atzo Estatu Batuetako Gobernuari. Berria - Gaiak

Herri **indigenen** bizi-kalitatea hobetzeko. Berria - Gaiak

Herrialde **indigenek** eta beren komunitateek eta tokian tokiko beste komunitateek funtsezko lana dute ingurumenaren antolaketan eta garapenean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Rasur jainko **indigenaren** gainean izango da obra hau. Berria - Kultura

On eta gaiztoen, bizien eta hilen patuak berdintzen dituen fatalismo beltz hori ez zaio zor Mexikoko kultura **indigenaren** eraginari soilik. Juan Garzia

Hizkuntza **indigenak**. Berria - Gaiak

Lehen aldiz, komunikabide **indigenek** martxaren informazioa eman ahal izango dute. Berria - Mundua

Chiapasko estatuan zapatistek eremu **indigena** autonomoak sortu dituzte. Txema Ramirez de la Piscina

Tarcila Rivera Peruko Kultura **Indigenen** Zentroko burua da. Berria - Gaiak

Eskubide eta Kultura **Indigenen** Legea onetsia. Berria - Mundua

NBEk antolatutako Herri **Indigenen** Hamarkadari amaiera eman zitzaion atzo. Berria - Gaiak

Herri **Indigenen** Eskubideen Nazioarteko Aldarrikapena tresna garrantzitsua da. Berria - Gaiak

Conaie Ekuadorko Nazio **Indigenen** Konfederazioko presidentea da Macas. Iñigo Aranbarri

Kolonbiako **Indigenen** Erakunde Nazionala 1982an sortu zen. Berria - Mundua

Afrika Hegoaldeko Gutxiengo **Indigenaren** Aldeko Erakundeko (WIMSA) kidea. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**buruzagi indigenak** (5); **da indigenekin** (3); **diote indigenek** (4); **dira indigena** (3); **diren indigenak** (3); **dute indigenek** (7); **emakume indigena** (4); **emakume indigena batek** (3); **emakume indigenek** (4); **eta indigena** (7); **eta indigenak** (7); **eta indigenek** (4); **gutxiengo indigenaren** (3); **haur indigenek** (8); **hegoaldeko gutxiengo indigenaren** (3); **herri indigena** (8); **herri indigenak** (8); **herri indigenek** (11); **indigena bat** (3); **indigena batek** (10); **indigena hil** (3); **indigena hil zituen** (3); **indigena talde** (5); **indigenak bizi** (4); **indigenak bizi diren** (4); **indigenak dira** (3); **indigenak eta** (3); **indigenak ez** (3); **indigenek beren** (4); **indigenek bizi** (4); **indigenek eurek** (3); **indigenek euren** (5); **indigenek ez** (4); **indigenek ez dute** (3); **indigenek osatzen** (3); **indigenek osatzen dute** (3); **indigenekin hitz** (3); **komunitate indigena** (3); **komunitate indigenak** (3); **milaka indigena** (4); **presidente indigena** (3); **salatu dute indigenek** (4); **traidorea da indigenekin** (3); **zuten indigenek** (4)

**bizi diren indigenen** (4); **dira indigenen** (4); **diren indigenen** (4); **ekuadorko nazio indigenen** (7); **ekuadorko nazionalitate indigenen** (3); **emakume indigenen** (5); **emakume indigenen kontinente** (3); **eta indigenen** (16); **eta indigenen arteko** (5); **eta kultura indigenen** (4); **gobernuak indigenen** (3); **haur indigenen** (6); **herri indigenen** (41); **herri indigenen aldeko** (4); **herri indigenen eskubide** (3); **herri indigenen eskubideak** (3); **herri indigenen eskubideen** (3); **herrialde indigenen** (7); **herrialde indigenen aldeko** (3); **indigenen ahotsa** (3); **indigenen alde** (8); **indigenen alde egiteko** (3); **indigenen aldeko** (14); **indigenen aldeko erakundeak** (3); **indigenen aldeko nazioarteko** (4); **indigenen arteko** (7)

**indigenen egoera** (6); **indigenen eskubide** (3); **indigenen eskubideak** (10); **indigenen eskubideei** (4); **indigenen eskubideen** (10); **indigenen eta** (17); **indigenen eta nekazarien** (6); **indigenen hizkuntzak** (3); **indigenen konfederazioak** (4); **indigenen konfederazioko** (7); **indigenen konfederazioko presidentea** (3); **indigenen kontinente** (3); **indigenen kontinente arteko** (3); **indigenen kontra** (3); **indigenen kontuetarako** (5); **indigenen kontuetarako nazio** (4); **indigenen lur** (3); **indigenen lurrak** (5); **indigenen lurretan** (4); **indigenen nazioarteko** (3); **indigenen ordezkariak** (3); **kolonbiako indigenen** (4); **kultura indigenen** (6); **nazio indigenen** (7); **nazio indigenen konfederazioko** (6); **nazionalitate indigenen** (3); **nazionalitate indigenen konfederazioak** (3)

**herri indigenetako** (8); **herri indigenetan** (4); **herrialde indigenetan** (8)

---

## indigenismo *iz* indigenen nortasun politiko eta soziala aldarritzen duen higikunde politikoa.

**Indigenismoa,** hatz muturretan eramandako gaia izanik ere, zer den sarritan, aparteko karpeta bat besterik. Iñigo Aranbarri

**Indigenismoa** hartu du ardatz nagusitzat Ostiela! aldizkariak 33. zenbakian. Berria - Kultura

**Indigenismoak** literaturan duen lekuaz mintzatuko dira, (hilaren 30ean) eta polizia eleberriaz (urriaren 2an). Berria - Kultura

---

## indigenista *izond* indigenismoari dagokiona; indigenismoaren aldekoa.

Hona hemen Augusto Monterrosok euskaldun baten lepotik hartutako literatur mendeku **indigenista**. Martin Anso

Kriolloa [...] **indigenista** agertzen da europarron aurrean, indioen ondorengo eta aldezle, baina guztiz europar jokatzen du gero indio horiexen aurrean. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## indigestio *iz* janondo gaiztoa.

Betekada hark sekulako **indigestioa** eragin zidan. Patxi Zubizarreta

Jakin badakite, gainera, hura puskatuz gero, **indigestioa** ekarriko diela gainerako bazkaltiarrei. Josetxo Azkona

Ez bainuke zu **indigestio** batez hiltzerik nahi. Joan Mari Irigoien

---

## indignatu, indigna, indignatzen da *ad* (biziki) gaitzitu.

Batzuk, torturengatik berengatik **indignatu** dira. Joxerra Garzia

---

## indignazio *iz* gaitzidura.

Nola liteke? orduak pasatu ahala, harridura sumin, **indignazio** bihurtu zen. Joxerra Garzia

Salaketaren aurrean, jende askok azaldu du bere **indignazioa**. Joxerra Garzia

**Indignaziozko** jesturen bat, hitzen bat espero nuen agure haren ahotik. Matías Múgica

---

## indigo *iz* anila, belar-urdina.

**Indigo:** anila ere deitua, Indiako landare batzuen hostoekin lortzen den kolore urdin oso iluna. Xabier Kintana

Aho batez onartzen dute **indigo**-ontzian sarturiko eta tindaturiko oihal zuriaren kasuan, ez dela hura **indigoak** beltzarazi duena, beltztasuna **indigoaren** gorputzaren akzidentea baita, eta beste gorputz batera ezin iragan liteke. Xabier Kintana

Kondatu nion, nola Koilunen, izigarri bero egiten duen eta nola piperra berek landatu zuhaitzetarik maiatzean, ekainean eta uztailean biltzen duten, nola **indigoa** eguzkitan idorrarazten duten. Aurelia Arkotxa

Selinosko kreta edo bitxietako kreta grekoek *isatin* deitzen duten glasto edo pastelarekin nahastuz, kolore **indigoaren** imitazioa egiten dute. Santiago Iruretagoiena

---

## indigotu *izond* indigo bihurtu.

Ura blu **indigotua** zen. Aurelia Arkotxa

---

## indijena ik **indigena**.

---

## indikadore *iz* adierazlea. ik **indikatzaile**.

Europako **indikadorea** Hezkuntza Sailaren ardatza izango dela nabarmendu du, eta horretara iristeko neurriak hartuko dituela. Berria - Euskal Herria

Konpromisoa eta borondatea funtsezkoak direla euskal esparru ekonomikoaren berezko **indikadoreak** lortzeko. Berria - Ekonomia

---

# **indikatibo** *iz* adizki errealen gramatika modua.

*Izan*-en eta **edun*-en **indikatiboko** adizkiak. *Amare* aditzaren **indikatiboko** orainaldiaren lehen pertsona *amo* da. Koldo Zuazo

Nor-nori, zer-nork eta zer-nori-nork, nola **indikatibozko** hala subjuntibozko formetan jokatuak. Josetxo Azkona

Analogia, aktiboaren singularreko lehen pertsonan soilik gauzatu zen hasiera batean; gero, **indikatibozko** era burutuaren ia paradigma osoraino helduko zen. Isabel Arrigain

---

# **indikatzaile** *iz* adierazlea.

Orain arte erreferentzia SMI zuten laguntza eta prestazioetan beste **indikatzaile** bat hartuko da kontuan, ez gutxieneko soldata. Berria - Ekonomia

Sailburuak osasun-sistemaren **indikatzaile** onen zerrenda luzea eskaini zuen. Berria - Euskal Herria

Errauste plantak eraikiko diren herrietako herritarrei odoleko analisiak egingo zaizkie, beren **indikatzaile** biologikoen jarraipena egiteko. Berria - Euskal Herria

NDFren ustez, «barne kontsumoak ahul jarraitzen du» eta zenbait hazkunde **indikatzaile** «gelditu» egin dira. Berria - Ekonomia

---

# **indikazio** *iz* aholkua, oharra.

Ba, ez, poesiara ondo iristeko **indikaziorik** ez dago. Bernardo Atxaga

Transplante autologoaren **indikazio** bakarra helduen aplasia (kimioterapiaren zein radioterapiaren ondoriozko gaitza) sendatzeko dela. Berria - Gaiak

## **2** adieraztea, keinua.

Kontzertu guztian ikusi zenez, Wolff zuzendariak ez zituen tema ezberdinak behar den argitasunez aurkeztu eta bere keinu perkutiboarekin begi-bistako gauza gehiegi markatu zituen [...], nire ustez horrelako orkestra bateko musikariek behar ez dituzten **indikazioak** (subdibisio ugari, anakrusak...). Berria - Kultura

---

# **indiko** 1 *izond* indiarra.

Arabiar Kalifaldiak antzeko aukera eskaini zion Islamari, eta mundu **indikoan** gupta-rajak hinduismoari. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Zibilizazioa eta Kristau Ortodoxoa, Kristau Elizaren bidez, Zibilizazio Helenikoaren filialak ziren; Ekialde Urruneko Zibilizazioa, mahayanaren bidez, Zibilizazio Sinikoaren filial; Hindu Zibilizazioa, hinduismoaren bidez, **Indikoarena;** Zibilizazio Iranikoa eta Arabikoa, Islamaren bidez, Siriakoarenak. Iñaki Mendiguren

Zeilanen, uhartearen eurigabeko erdialdean loratu zen Zibilizazio **Indikoa** . Iñaki Mendiguren

Iraganean, jatorri judaikoko erlijio nagusiak zelaian zeudenean intolerantzia izan zen nagusi, eta ethos **indikoa** nagusitu zen lekuetan "bizi eta bizitzen uztea" izan zen erregela. Iñaki Mendiguren

Antzeratsu Tibeteko goi-ordokiak ia gotorleku iristezin bat eskaintzen zuen desagertua zen Gizarte **Indikoaren** mahayaniar fosil tantrikoarentzat. Iñaki Mendiguren

## **2** ***ozeano indiko*** indiar ozeanoa.

Iaz Ozeano **Indikoan** halako alerta sistemak jartzeko proposamenek oihartzun eskasa izan zuten. Berria - Mundua

New Yorketik Mediterraneora joko du, Aljerretik Haifa eta Tel Avivera joateko, gero Suezen barrena Jidara heldu eta Ozeano **Indikorantz** segitzeko, azkenean Kolonbon gelditzeko. Berria - Mundua

Ozeano **Indikoko** kostaldeetako hiri eta herriak. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **filosofia indikoaren** (3); **indiko eta** (6); **mundu indikoan** (4)

---

# **indikzio** 1 *iz*

*Indictio:* denbora neurtzeko sistema; **indikzio** bakoitzak hamabost urte zituen. **Indikzioa** hamabost urteko denboraldia da, Konstantinok 312an ezarria. Askoren artean

## **2** sinodo edo kontzilio bilkurarako deialdia.

Jaunaren 1221. urteko maiatzaren 23an, 14. **indikzioan,** Mendekoste egun santuan. Askoren artean

Jaunaren Gizakunde ondoko 1226. urtean, **indikzioko** hamalaugarren urtean. Askoren artean

## **3** lurraren gaineko zerga, indikzioari lotua.

Baina **indikzioak,** kapitazioak eta enperadoreen garaian gizon jareginen edo beren ondasunen gainean jasotako beste zergak, muga zaindu edo gerrara joan beharraren truke aldatu zituen. Iñaki Iñurrieta

---

# **indio** 1 *iz* indiarra, Indiari dagokiona.

Bigarren aldiko denbora laburrez 2 apez **indio** (Asiakoak) pasatu dira Baigorrin. Herria

Ingelesek utzi zuten hutsunea betetzeari ez zion **indioen** filosofia fatalistak asko lagundu. Gotzon Garate

**Indioak** musulmanen azpian gizaldietan egon ziren eta haien ikuspuntu asko bereganatu zuten. Gotzon Garate

**Indioek** erlijio-maisuei, guruei, begirune ez ezik, obedientzia handia ere erakusten diete. Gotzon Garate

## **2** Ameriketako indiarra.

Blufildarrak kalean: beltzak, mestizoak, zuriak, txinoak, arabiarrak, **indioak;** Indiakoak zein bertakoak. Joseba Sarrionandia

Venezuelan [...] hiru arraza nagusi nahastu izan dira mendeetan: zuria, beltza eta **indioa** edo bertakoa. Pako Aristi

Hego Ameriketako **indioak** ere horrela egoten dira. Gotzon Garate

Frai Petri Gantekoarentzat **indio** amerikarrak arrazoimenik gabeko abereak dira. Askoren artean

Eta legea indartsuenarena zen baina gu, biolentziaren poetika hartan, derrigorrezko galtzaile ziren **indioekin** identifikatzen ginen, iragan mingarriko cowboy hark tiro egin eta kiowak zerraldo barra barra erortzen zirenean. Joseba Sarrionandia

-Nahualt **indioen** testu batek. Pako Aristi

Beagleren bidaia hartan, **indio** ingelestuak ekarri zituzten, horien artean Jemmy Button, Ingalaterrara ia ume eramandakoa eta, ingelesa ondo ikasirik, yamanera ia ahaztuta zuena. oihal txikiez jantziriko **indio** matxetedunak. Joseba Sarrionandia

Hori izan zen **indioen** genozidioaren azken borroka handia. Pello Salaburu

Kriolloa[...] indigenista agertzen da europarron aurrean, **indioen** ondorengo eta aldezle, baina guztiz europar jokatzen du gero **indio** horiexen aurrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Mutikoek behintzat aski dute bainujantziaren gainean zapi zahar bat zintzilik uztea, **indioen** gerripekoa irudikatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

**Indioarena** egiten hasi dira haur taldeak han-hemen: zaldi gainean trostan, zurien karabanari erasoan, lehortea amai dadin euriaren dantzan. Xabier Mendiguren Elizegi

Gezur horietako bat -diot- euskaldunak/-ok Europako azken **indioak** edo indigenak direlako/garelako ixtorioa da. Iñaki Segurola

· Hargatik gara gu Europako lehenbiziko **indioak,** lehenbizikoak eta bakarrak. Iñaki Segurola

Imanol Muruak, beretik, Pirinioetako **indioentzat** sarbide ona daitekeen bere liburuan Geronimoren historia bere soilean eta zehatzean jasotzen du. Pablo Sastre

**3** (hitz elkartuetan)

Halako batean, **indio**-talde bat, Düsseldorfeko Hencke-Bosch S.M.ko enplegatuak alegia, beren "Señor" hila zela esan zigutenak. Joxe Austin Arrieta

Nash 55a [...] **indio**-txabola baten barruan zegoen, euritatik hosto-sabai soil batez babestua. Joxe Austin Arrieta

**Indio**-odolik balu ere hura ukatuz eta ezkutatuz. Xabier Mendiguren Elizegi

• **4** *izond*

Inguruko herri **indioekin,** naturarekin, beren jainko Usenekin bakean bizi ziren. Pablo Sastre

Nazio **indioen** eta AEBen arteko «adiskidetzea» da museoaren helburu behinena. Berria - Kultura

Indioen pelikuletako jefe **indioaren** uzkurtasuna imitatuz. Joseba Sarrionandia

Eskualde haietako biztanle **indioen** kontra. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ameriketako indioen** (5); **eta indio** (6); **eta indioa** (3); **eta indioak** (3); **eta indioek** (3); **indio bat** (3); **indio batek** (3); **indio eta** (4); **indio haiek** (4); **indio zahar** (4); **indioak ere** (3); **indioak eta** (3); **ipar ameriketako indioen** (3)

---

# indioilanda *iz* indioilo gaztea.

Indioilarrak elkarren artean lehian ibiltzen dira **indioilanda** bat bereganatzeko. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# indioilar **1** indioilo arra. *iz*

Zaldi bat ilargi-argitan grauska bazkan ari, eta esparru berean orkatz bat, baina zaratarik ez, eta urrunxeago ahardi beltz bat, eta **indioilar** bat, oinazturak izutu eta derrepente makakorroka hasi zena, eta harantzago antzara batzuk, **indioilarrak** asaldaturik, beraiek ere marraka. Joxe Austin Arrieta

**Indioilarra** aterpearen aurreko esparruan, eta haren kurrixkak, tximistak atsegin ez dituelako. Joxe Austin Arrieta

Paumak **indioilarra** lurrean etzanda eta lepoa luzaturik ikusten duenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

**indioilar** bikainen haragi samurra. Karlos Zabala

Hiru **indioilar** bikain, urdinez pikardatuak bizarra moztu berriko kokots baten irudira, bizkarraren gainean zeutzan lo, zintzurra josia, beren isats zabalek eratzen zuten haizemaile beltzean. Karlos Zabala

**Indioilar** errearen usaina aditzen zen nonahi. Oskar Arana

**Indioilar** industrialen hankak desitxuratuta daude. Edorta Agirre

**Indioilarren** lapurrak haiek biak ziren, bera eta txakurra. Juan Garzia

**Indioilarrak** hazten dituen etxalde batean kutsatutako hegaztiak dauden susmoa ere azaldu zuten atzo agintariek. Berria - Gaiak

Ostegunean bi etxaldetan hildako 1.000 **indioilarrak** H5N1 birusa zutela esan zuen atzo Israelgo Nekazaritza Ministerioak. Berria - Gaiak

11.000 **indioilar** zituen haztegi batean aurkitu dute birusa. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan)

**Indioilar**-jate haien ondoren, [...]. Fernando Rey

**Indioilar** haragizko sandwich bikoitzak. Oskar Arana

Haren okelaz ospe handiko "quaiëtta 'd pitô" **(indioilar**-opil) semi-ritual bat atontzen zelako Pazko jaietarako. Juan Garzia

**Indioilar**-bularki hotz horrek itxura ona du... Lopez de Arana

Azaz, sagarrez, pernilez, pepinoz eta tomatez eta **indioilar** zatiez egindako pintxoak. Urtzi Urrutikoeetxea

Afari-askaria egin zuten **indioilar**-ogitarteko, opiltxo bigun, trifle eta Eguberrietako pastelaz. buruan kapela luze mehea, **indioilar** luma bat tente zuena. Iñaki Mendiguren

Bud-en **indioilar**-lepo mehea zeharkatu zuen gero; eta azkenik, begirada hura haren begi ausartetan iltzatu zen lotsarik gabe. Lopez de Arana

**Indioilar** etxalde batean kutsatutako hegaztiak. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta indioilar** (5); **indioilar bat** (3); **indioilar luma bat** (3)

---

# indioilartasun *iz adkor* harrotasuna.

Lepoa panparroi gorantz begira duen nobleziako emakume adinean sartuaren **indioilartasuna** zaio bere morroiari mespretxuaren ikur. Harkaitz Cano

---

# indioilo *iz* oiloaren familiako hegaztia, jatorriz Ameriketakoa, etxe hegaztien artean handiena, lepoa luzea, biluzia eta gorrixka, eta luma beltzaxkak dituena, sukaldaritzan oso aintzat hartua *(Meleagris gallopavo).*

**Indioiloak** karkara egiten zuen, eta Lattes Jaunari eragozten. Juan Garzia

**Indioilo** andrea, ixo. Juan Garzia

**Indioilo** edo antzara puska bat erosten zuen beheko dendan hamabi sosean. Karlos Zabala

Baziren **indioilo** luma luze beltzak eta antzara luma zuri lauak, gazteei belarrietan kilimak egiten zizkietenak, ohatzean biratzen zirenean. Karlos Zabala

Eta hala behin eta berriz, desfilean, bere "armak" erakusten ari den indioilar baten antzera **indioiloa** limurtzeko erritoan. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **indioilo bat** (3)

---

# indiozale *izond* indioen zale dena.

Eta berak hasperen egin zian, Aaa, esanez bezala **Indiozale** alproja. Joseba Sarrionandia

---

# indipikondo *iz* zurtoin arantzedun eta oso mamitsuak dituen landarea, piku berde-horixka gozoak ematen dituena *(Opuntia ficus-indica)*

Kaktusen eta **indipikondoen** atzean. Monika Etxebarria

Gelaren azpian bazuen terraza itzaltsu bat, goroldio askokoa, loreontzi batzuetan **indipikondoak** eta agabeak zeudena, eta eguzkiak inoiz jotzen ez zuena. Josu Zabaleta

Hura urritu zenean gerezi-loreetara abiatu zen, gero magnolia, paradisuko melia, karia, intxaurrondo eta **indipikondoetara**. Anton Garikano

# indipiku *(orobat* ***indipiko****)* **1** *iz* indipikondoaren fruitua.

Bi ogi-xerra handi irensten ditu **indipiko**-marmeladarekin bustita, hura ere etxean egina. Oskar Arana

**2** indipikondoa.

**Indipikuz** estalitako ordeka batera iritsi ginen, eta azienda han zebilen alderrai, tarteka. Xabier Olarra

**Indipikoek** eta agabeek beren hosto zabalak hedatzen zituztela. Josu Zabaleta

# indiskretu *(orobat* ***indiskreto****)* *izond* diskreziorik ez duena.

Badakit ez duela asmo txarrez egiten, baina Dan oso jakinluze eta **indiskretoa** da. ez zegoelako bere koldarkeria barka zezakeen inolako lekuko **indiskreturik**. Patxi Zubizarreta

Begirada **indiskretuetatik** urruntzeko. Berria - Harian

Galdera **indiskretoei** erantzun behar izatea. Patxi Zubizarreta

Laster hasiko duk hizketan, baina ez dik belarri **indiskreturik** nahi. Anjel Lertxundi

# indiskrezio *iz* diskreziorik eza.

Maragallek joan den astean erabaki eskubidearen gaineko adostasunaz hitz egin zuenean, gaizki ulertzea baino gehiago **indiskrezioa** eman zuen, oraindik esan ezin diren gauzak esaten hasi zela. Berria - Euskal Herria

Batasuneko bozeramaileak dioena egia bada, informazioa nondik nora heldu zitzaion CiUri? ERCren **indiskrezio** batetik? Berria - Euskal Herria

Arrotz sentitzen nuen **indiskrezioa**. Joxan Elosegi

Motiborik gabe **indiskrezioan** erori, xederik gabeko bultzada batek eraginik. Xabier Olarra

# indiskriminatu *izond* bereizkuntarik gabekoa.

Hilketa **indiskriminatua** ezer baino bidegabeagoa zela sentitzea. Mikel Hernandez Abaitua

Al Jazeera telebistaren arabera, «eraso **indiskriminatuaren** biktima gehienak zibilak» dira. Berria - Mundua

Atentatu **indiskriminatua** egin nahi zutela ez da egia. Berria - Harian

Atxiloketa **indiskriminatuak,** egunkarien indarren bidezko itxiera, alderdi politikoen eta bestelako herri-erakundeen legez kanporatzea. Berria - Euskal Herria

Faxismoak gure ekintzei ematen dien erantzuna basatia eta **indiskriminatua** izaten da. Bernardo Atxaga

Europa lirain sortu berri horrek oraindik ez du debekatu antibiotikoen erabilera jeneralizatu edo **indiskriminatua,** horrelako substantzia edo botikak hartzeak populazioan ondorio tamalgarriak izan ditzakeela jakinik. Edorta Agirre

Ez baitzuten euren irenskortasun **indiskriminatuak** balia zezakeen deus aurkitzen. Jon Alonso

# indiskriminatuki *adlag* era indiskriminatuan.

Zaindaria sukaldeko laban batekin sartu zen goizean gela batera, eta **indiskriminatuki** labankadak ematen hasi zen. Berria - Mundua

# indize **1** *iz* adierazgarria.

Beste **indize** praktiko bat ere bada motorraren errendimendua neurtzeko: potentzia/pisua erlazioa. Irene Aldasoro

Hemezortzi hilabeteko epean, industria-ekoizpenaren **indizea** bi heren jaitsi zen. Koro Navarro

Guatemalan, 1998an, Giza garapenaren **Indizea** -besteak beste, bizi itxaropena, bost urtetik beherako haurren pisua, langabezia-tasa, generoari buruzko desberdintasunak, alfabetizazio, uraren erabilera, jaiotze tasak, hezkuntza eta osasun tasak kontuan izaten dituen adierazlea- landako biztanleriarentzat 0,536koa izan zen eta hirikoarentzat berriz 0,672. Iñaki Heras

Berehala nire Gorputz Masaren **Indizeaz** oroitu eta, oso gosetua ez banintzen ere, sartu egin naiz birritan pentsatu gabe. Patxi Zubizarreta

**Zahartze** indizea kalkulatuz gero (60 urtetik gorakoen kopurua zati 20 urte baino gutxiago dituztenen kopurua), Euskal Herriko **zahartze** indizea (130,0) Europako Batasuneko (EB) estatu guztietakoa baino handiagoa da: Espainia (102,7), Frantzia (81,1), Irlanda (50,4)... Berria - Harian

AEBetako manufaktura **indizea** martxoan uste baino gutxiago hazi arren. Berria - Ekonomia

Euskalduntze **indizeak** izoztuta jarraitzen du. Berria - Euskal Herria

Erdiko klasearen «miseria **indizea»** aurkeztuko du astelehenean John Kerryk. Berria - Ekonomia

**2** (ekonomian)

Kontsumo Prezioen **Indizeak** (KPI) gosaria mikaztu dio Ekonomia Ministerioari. Berria - Ekonomia

Kontsumo Prezioen **Indizeak** %0,2 egin zuen behera otsailean. Berria - Ekonomia

Maizenik, Kontsumorako Prezioen **Indizearen** (KPI) bilakaerarekin neurtzen da inflazioa. Iñaki Heras

Hazkunde ekonomiko negatiboa, inflazio **indize** altuak eta bizkor hazten zihoan langabezia zirela-eta. Berria - Mundua

Ibex **indizeak** %21 galdu du. Iñaki Heras

New York-eko burtsan ekonomia berriarekin zerikusia duten enpresen akzioen kotizazioak neurtzen ditu Nasdaq **indizeak**. Iñaki Heras

Alemaniako enpresaburuen konfiantza neurtzen duen IFO **indizea** 95,3 puntutaraino igo zen urrian.

Dow Jones **indizeak** behera egin du, bi puntu, eta urduritasuna zabaldu da diru-azoketan barrena. Joxerra Garzia

Alemaniako Dax **indizea** %4tik gora jaitsi zen. Berria - Ekonomia

Londresko FTSE-100 **indizea** %2,2 beheratu zen. Berria - Ekonomia

Eurostoxx-50 **indizeak** %3,03, CAC-40 **indizeak** %2,97 eta Alemaniako Dax **indizeak** %3,46 galdu zuten atzo. Berria - Ekonomia

Europako **indize** nagusien artean Parisko CAC-40 jaitsi da gehien: %2,12. Berria - Ekonomia

Euribor **indizea** %2,216ra jaitsi zen urtarrilean. Berria - Ekonomia

Etxebizitzen prezioen eta burtsako **indizeen** gorabeheretan beti goraka ageri diren zifren artean. Pako Aristi

Eusko Ganberek jakinarazi dutenez, 2003ko Industriaren Ekoizpen **Indizea** zertxobait jaitsi da, baina, hala ere, hazkundea «egonkortu» egin da. Berria - Ekonomia

Aspalditik ikusten ez ziren jaitsierak izan zituzten atzo Europako **indize** nagusiek. Berria - Ekonomia

**3** aurkibidea.

Nire lagunak *Lanark* izeneko nobelaren egilea hartzen zuen gogoan, zeinek liburuari bi **indize** jarri baitzizkion, bata atalena eta bestea egindako plajio guztiena. Bernardo Atxaga

**Indizeen** ugaritasunean tronpatu ez banaiz, behin bakarrik ere ez da ageri bestearen izena Migne-ren Patrologia mardulak dakarren Aurelianoren liburu mordoan. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan)

Sarri horrela mugitzen dira burtsa **indizeak**. Berankortasun **indizea** %0,28koa da. Berria - Ekonomia

Kontsumo Prezio **Indize** Harmonizatuaren urtarrileko datuak jakinarazi zuen atzo INEk, Espainiako Estatistika Institutuak. Berria - Ekonomia

1970eko hamarraldian, nazioarteko zuzeneko inbertsioen hazkunde-**indizea** munduko merkataritzaren maila berera iritsi zen. Koro Navarro

Michiganeko konfiantza **indizearen** jaitsierari eta petrolioaren bilakaerari jaramonik egiteke. Berria - Ekonomia

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako kontsumitzaileen konfiantza **indizea**. Berria - Ekonomia

Kornea, errefrakzio-ahalmenik handiena ematen duena, ez da guztiz esferikoa, baizik eta kurbatura handiagoa du erdialdean ertzetan baino; errefrakzio-**indizea** ere (edo errefrakzio-ahalmena) handiagoa da erdialdean. errefrakzio **indize** zehatzeko kristalak. Irene Aldasoro

Gernuaren eratze-**indizea** ez da minutuko 1 ml baino. Irene Aldasoro

Irakurketa **indizeei** dagokienez. Txema Ramirez de la Piscina

Munduko lehen superpotentzia, planetako 49.a da alfabetizazio **indizeari** dagokionez. Txema Ramirez de la Piscina

Hiru argitasun-**indizeen** konparazioa hiru uhin-bandentzat. Xabier Olarra

Transformazio bakoitzak denborazko "biskositate" **indize** berezia du. Xabier Arregi

Zenbatean jaitsarazi omen dituen kriminalitate-**indizeak** mundu osoan. Iban Zaldua

Heterogeneotasun **indize** bat erabili behar zela. Bernardo Atxaga

**5** ***azpi indize***

QLren funtzio-sinbolo bat bada, azpi-**indizeak** (i-k) funtzio-sinboloen arteko desberdintasuna adierazten du; goi-indizea (n-k), berriz, funtzio-sinbolo horren atzean zenbat termino egon behar duen termino berria osatzeko. Askoren artean

**6** ***goi indize***

QLren funtzio-sinbolo bat bada, azpi-indizeak (i-k) funtzio-sinboloen arteko desberdintasuna adierazten du; goi-**indizeak** (n-k), berriz, funtzio-sinbolo horren atzean zenbat termino egon behar duen termino berria osatzeko. Askoren artean

Sinboloaren goi-**indizea** 1 bada. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **berankortasun indizea** (4); **da indizea** (3); **den indizea** (3); **derrigortasun indizea** (3); **euribor indizea** (8); **europako indize** (10); **europako indize nagusiak** (4); **europako indize nagusiek** (4); **garapenaren indizea** (8); **giza garapenaren indizea** (8); **gorputz masaren indizea** (6); **hazkunde indizea** (3); **ifo indizea** (3); **indize hori** (7); **indize nagusia** (5); **indize nagusiak** (8); **indize nagusiak urteko** (3); **indize nagusiek** (8); **indizea gehi** (3); **indizea halako** (3); **indizea kpi** (5); **konfiantza indizea** (4); **kontsumo prezioen indizea** (17); **masaren indizea** (6); **prezioen indizea** (20); **prezioen indizea gehi** (3); **prezioen indizea kpi** (5)
>
> **burtsa indizeak** (5); **dow jones indizeak** (4); **eta indizeak** (3); **euribor indizeak** (8); **europako indizeak** (4); **gure indizeak** (5); **ifo indizeak** (5); **indizeak azken** (4); **indizeak behera** (4); **indizeak behera egin** (4); **indizeak bere** (3); **indizeak berriro** (3); **indizeak berriro ere** (3); **indizeak ere** (5); **indizeak eta** (4); **indizeak ez** (4); **indizeak gora** (7); **indizeak gora egin** (6); **ism manufaktura indizeak** (3); **jones indizeak** (4); **konfiantza indizeak** (6); **konfiantza indizeak gora** (4); **kontsumo prezioen indizeak** (6); **manufaktura indizeak** (3); **nasdaq indizeak** (3); **prezioen indizeak** (7); **ziren indizeak** (3)
>
> **batuketak osatutako indizearen** (3); **eman zizkioten indizeari** (3); **europako indizeek** (3); **europako indizeetan** (3); **gure indizeek** (10); **ifo indizearen** (3); **indizearen arabera** (4); **indizeek ere** (3); **indizeko enpresa** (3); **indizeko onena** (4); **konfiantza indizearen** (4); **kontsumo prezioen indizearen** (5); **osatutako indizearen** (3); **prezioen indizearen** (6); **zizkioten indizeari** (4); **zuten gure indizeek** (3); **zuten indizeek** (4)

---

# indizekide *izond* indize bera duena.

ACS eraikuntza enpresak Ibex-35ean **indizekide** duen Abertisen %16,77 bere esku du jada, Autostraderi %2,5 gehigarri bat erosi eta gero. Berria - Ekonomia

---

# indizio 1 *iz* injekzioa.

**Indizioaren** ziztadak min pixka bat eman zion. Gotzon Garate

Holakoetan on-onena zakurrari **indizioa** eman eta akabatzea da. Gotzon Garate

Edozein droga edo **indizio** eman ziotela ere, ez zirudien batere minik sentitzen zuenik. Ibon Uribarri

Etxetara ere joaten nintzen **indizioak** jartzera, eta baserrietara ere bai. Arantxa Iturbe

Zenbat aldiz ez ote nion kontatu, behin, lagun baten etxeko txakurrak aztaletan haginka egin, erietxera eraman, eta tetanoaren aurkako **indizioa** ipini zidatenekoa. Pedro Alberdi

Albaitariak **indizioa** sartu zien sufri ez zezaten. Gotzon Garate

**Indizio** batez intsulina gainezka eman omen zion. Gotzon Garate

**2** (hitz elkartuetan)

Nire bularrak agudo hazteko, hormona **indizioak** ematen zizkidaten. Gotzon Garate

Berarekin batera beste 600 giltzapeko herio-**indizioaren** zain daude. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **indizioa eman** (3)

---

# indizipilina *iz* diziplinarik eza.

Diziplina artekoa da, eta gustatzen zaigu **indiziplina** artekoa dela esatea ere. Berria - Kultura

Errektoreak **indiziplinen** zerrenda azaldua zion amari. Joseba Sarrionandia

---

# indiziplinatu *izond* diziplinagabea.

Eta bai bere inkontsekuentzia **indiziplinatuan** ere, arrazoiak onetsi ezin duena. Iñaki Mendiguren

Espainola arraza tirtiriku, egonarrigabe, **indiziplinatu** bat da. Joxe Azurmendi

---

# indoeuropar *(orobat **indoeuropear** g.er.)* 1 *izlag* ia Europa osoan eta Asiako hainbat lurraldetan hedatu ziren eta familia bereko hizkuntzez mintzatzen diren herrietakoa; herri horiei dagokiena; herri horietako kidea.

Asian ia ez da **indoeuropar** hizkuntzarik, hindia eta honen ahaideak baizik. Gotzon Garate

Hizkuntza askotan, **indoeuropar** hizkuntzan batez ere, bi artikulazio gutural bereizten dira garbi. Isabel Arrigain

**Indoeuropar** superlatiboak bi atzizki zituen. Isabel Arrigain

[Sanskritoak] hain zuzen **indoeuropar** "s" guztiak atxiki dituelako. Isabel Arrigain

Printzipioz problemarik ez luke egon behar "arraza" ez **indoeuropar** batek hizkuntza **indoeuropar** bat, edo, aldez beste, arraza **indoeuropar** batek, hizkuntza ez **indoeuroparra** mintzatzeko. Joxe Azurmendi

Abeltzain **indoeuroparrek** (eta heleniarrak hala ziren) barrutietan sailkatzen zituzten larreak. Patziku Perurena

Gu **indoeuroparrak** gara, amerikarrak bezalaxe. Juan Kruz Igerabide

**Indoeuroparrak** ez ziren beste hizkuntza batzuen hiztunak. Berria - Kultura

• **2** *iz* indoeuropar pertsona.

Beste **indoeuroparrek** bezalatsu, izartegiko jainkoa hartu zuten gureek jainkotzat. Pello Zabala

Ez dugu zertan alboko **indoeuroparren** txaloen edo errieten arabera aritu. Markos Zapiain

Euskaldunak Europako nazio zaharreneko seme-alabak dira, **indoeuroparren** aurrekoen seme-alabak dira. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **da indoeuroparra** (3); **eta indoeuropar** (4); **ez da indoeuroparra** (3); **ez indoeuroparra** (4); **hizkuntza indoeuropar** (4); **indoeuropar hizkuntza** (6); **indoeuropar hizkuntzak** (3); **indoeuropar hizkuntzan** (6); **indoeuropar hizkuntzaren** (8); **indoeuropar hizkuntzen** (4); **indoeuropar hizkuntzetan** (3)

---

## indoeuropartze *iz* indoeuropar bihurtzea.

Gaurko gure **indoeuropartze** azkarraren beste hitz fetitxeetako bat da hau, "transmisioa". Xabier Mendiguren Elizegi

---

## indoeuropeista *iz* indoeuropar hizkuntzetan aditua den hizkuntzalaria.

Izan ere, erromanistak, **indoeuropeistak** ez bezala, ezin hobetuzko egoeran zeuden lan horri ekiteko. Isabel Arrigain

Izan ere, **indoeuropeistek,** bilakaeraren poderioz dagoeneko askotariko hizkuntzez osaturiko familia handi bat izanik, pentsatu zuten halako zatikatzea geografikoki banakatzetik soilik etor zitekeela. Isabel Arrigain

---

## indoeuropeo *izond* jatorrizko indoeuroparren ustezko hizkuntza.

**Indoeuropeoaren** gramatika konparatua. Isabel Arrigain

**Indoeuropeoaren** historiaurrearen ikuskera. Isabel Arrigain

**Indoeuropeoaren** ahostun hasperenduak ahoskabe hasperendu bilakatu dira. Isabel Arrigain

**Indoeuropeoz,** singularreko akusatibo guztiek bukaerako -m bakarra agertzea zuten ezaugarri. Isabel Arrigain

**Indoeuropeozko** *-n* orok bereari eutsi dio grezieraz. Isabel Arrigain

---

## indoeuropera *iz* indoeuropeoa.

Beti **indoeuroperatik** abiatzea gomendatzen duen […] Schleicher-ek. Isabel Arrigain

---

## indogermaniar *iz* indoeuroparra.

Hori, eta horretan ez gaude oso urrun herri **indogermaniarrengandik,** eta mendian aurki daitekeen eguzki lorea *(Carlina acaulis).* Pello Salaburu

---

## indonesiar 1 *izlag* Indonesiakoa, Indonesiari dagokiona.

Bantu, **indonesiar** eta indiar jatorriko hego-afrikar herrikideen gain. Iñaki Mendiguren

Pramoedya Ananta Toer **indonesiar** idazleari Adierazpen Askatasunaren saria eman dio Norvegiako Egileen Batasunak. Berria - Kultura

**Indonesiar** armadaren kontra oldartuak zirenak. Herria

Ameriketako Estatu Batuetako Oregonen bazen droga saleroksetan jarduten zuen **indonesiar** talde amorratu bat. Gotzon Garate

Maria Ulfa **indonesiarrak,** Sajem Khan indiarrak, Joseba Basarte ordiziarrak eta Mikel Laboak abestu dute. Berria - Kultura

Bi libanoar eta bi emakume **indonesiar**. Berria - Mundua

Diru ahulenen erorikoak (bath thailandiarra, errupia **indonesiarra,** ringgit malaysiarra...), […]. Koro Navarro

• **2** *iz* Indonesiako herritara.

Hiru **indonesiar** droga ebastera joan ziren. Gotzon Garate

Poliziak berehalaxe **indonesiarren** susmoa hartu zuen eta atxilotu egin zituen. Gotzon Garate

Hildako guztiak **indonesiarrak** zirela. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **Ipeeko presidente indonesiarrak** (3)

---

## indostaniera *iz* Hindia edo urdua. ik **indostaniko**.

Inork ez luke George Orwell […] indiar pentsalaritzat hartuko 1903an Mothinari-n jaio bazen ere (Indiako iparraldean), eta bere bizitzako zati garrantzitsuak inguru haietan bizitzea erabaki (gaurko Birmanian) eta hango hizkuntza ezagutu bazuen ere **(indostaniera** eta, batik bat, birmaniera). Askoren artean

---

## indostaniko *izond* Hindia edo urdua. ik **indostaniera**.

Biziagoa da Kixotearen mamu aleman nahiz eskandinaviar nahiz **indostanikoa,** estilistaren hitz-sorkari asmotsuak baino. Juan Garzia

---

## indotxinar *izlag* Indotxinakoa, Indotxinari dagokiona; Indotxinako herritarra.

Orreaga aipatuz zaku berean sartzen ditu **Indotxinarrak** eta Euskaldunak. Herria

---

## induktibo *izond* indukzioari dagokiona; indukzio bidez ari dena. ik **indukzio 2**.

Nola justifika daiteke epistemikoki argudio **induktiboa**? Askoren artean

Ba al dago portaera **induktiborako** justifikazio razionalik? Askoren artean

Arrazoibide **induktiboen** eta probabilistikoen erabilpenarena. Xabier Arregi

Arrazoiketaren metodo **induktiboa** tresna osagabea baita nabarmenki proposamen negatibo bat frogatzeko. Iñaki Mendiguren

Irakaskuntzan ohitura da razionalismoa eta enpirismoa kontrajartzea: beharbada egokiagoa litzateke [...] razionalismo matematiko-deduktiboaz (metafisiko) eta razionalismo **induktiboaz** (enpirista) mintzatzea. Askoren artean

---

# induktiboki *adlag* indukzio bidez, indukzioz.

Lege eta kontzeptu horiek zentzumenen esperientziez ari dira, baina ezin deduzi litezke haietarik modu logiko batean edo **induktiboki,** halako moldez non gerta litekeena baita [...] bi oinarri teoriko eta esplikatzaile zeharo diferentek zeinek bere gisara esperientzia beraren berri eman eta esperientzia horrekin bat etortzea. Iñaki Segurola

---

# induktore *izond* eragilea.

Prentsa sentsazionalista zein kalitatezkoak, eskuinekoak zein laboristak, den-denek kritikatu zuten oso gogor Blair-en jokamoldea, Kellyren heriotzaren **induktore** izan zitekeela iradokiz. Txema Ramirez de la Piscina

---

# indukzio 1 *iz* datu jakinetan oinarrituta, hatsapen orokor batera iristeko egiten den arrazoibidea.

Azken batean, zelan operatzen du zientzian **indukzio** hedatzaileak? Askoren artean

Hortaz, **indukzioaren** arazoa, **indukzioa** razionalki sendoa -logikoa, cogent- ez izatea da. Askoren artean

Arazo tradizionalak - **indukzioa** barne- sasiarazoak dira, eta horien iturria hizkuntzaren erabilera traketsean aurki dezakegu. Askoren artean

Gabin **indukzioz** iritsi zen postulatzera liburutegiko lan hura guztia biltzen eta gauzatzen zuen koaderno haren existentzia. Iñaki Iñurrieta

Pentsa dezagun norbaitek A ustea duela eta A ustea B ustearen bitartez justifikatzen duela, bigarren horretatik ondorioztatuz **-indukzioz,** dedukzioz edo azalpen hoberenaren inferentziaz, esaterako-. Askoren artean

Halako edozein esakune orokor erabilgarria da arrazoimen-inferentzia bateko esakune nagusi gisa, esperientzia bertatik hartua izan arren **(indukzio** bitartez); ez da horregatik, ordea, printzipio bat. Ibon Uribarri

Esperientziatik jasotakoak orokortasun alderagarria besterik ez du, hots, **indukzioaren** bitartez lortutako orokortasuna. Ibon Uribarri

· Misterioaren hariak lotzeko erabili zituen **indukzioen** nolakoa ez baitzion inoiz agertu Prefektuari, ezta beste inori ere -niri izan ezik-, ez da noski harrigarria [...] Dupinen gaitasun analitikoak intuizioaren sona hartzea. Koro Navarro

**2** zirkuitu batean korronte elektrikoak sortzea, beste korronte elektriko baten edo iman baten eraginpean.

Kontua da, bateria hori azal azpian doala eta **indukzio** bidez kargatu behar dela. Berria - Gaiak

Horren ondoriozko hutsunea betetzeko, gainerako kulturek elementu eta fenomeno berriekin inbadituko dizkigute hainbat esparrutako sukaldeak (jantokietakoak, hotel eta jatetxe askotakoak, etc.; etxekoa izan ezik, agian): [...] orain arte oso ezagun ez ziren egospen berriak **(indukzioa,** gas likidoen erabilera). Edorta Agirre

**3** eragitea, bultzatzea.

Besteak beste, delituaren eragileak «egile jakin bat» eta «delitu jakin bat» zehaztu behar dituela dio legeak, **indukzioa** egon dela ondorioztatu ahal izateko. Berria - Harian

Beraz, kidetza, kolaborazioa eta **indukzioa** leporatzen dizkigu. Berria - Euskal Herria

**Indukzioari** buruzko jurisprudentziaren aipamena. Berria - Harian

Sexu-elkartzean profagoari induzituriko garapena ( **indukzio** erotiko delakoa, alegia). Juan Garzia

**4** ***indukziozko*** *izlag* ik **induktibo.**

**Indukziozko** metodoa defendatu ahal izateko, baldintza berri bat onartu behar dugu, epearena alegia. Askoren artean

Horren iritziz, **indukziozko** arrazoinamendua ez da benetako arrazoinamendu-mota, razionalki justifikatuta ez baitago. Askoren artean

Sortzen duen oinarrizko galdera esperientziari dagokio, hots, nola justifikatuko luke esperientziak **indukziozko** arrazoinamendua? hori jakiteko ez da nahikoa behaketa zuzena, **indukziozko** inferentziak behatu gabeko kasuei buruz ere baieztapenak egiten baititu. Askoren artean

Humeren ustez, **indukziozko** premisak eta ondorioak bi proposizio-mota oso desberdinak dira. Askoren artean

Arrazoinamendu-mota hori **indukziozkotik** eta dedukziozkotik bereizten da, datu-segida bat azaltzerakoan hipotesi bat aurreratzen duelako, eta bere justifikazioa azalpen hoberena dela uste izatea da. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **indukzioaren arazoa** (6); **indukzioaren bitartez** (3); **indukziozko arrazoinamendua** (6)

---

# induljentzia *(orobat **indulgentzia** g.er.)* **1** *iz* bekatuen zigorraren barkamena.

Kontatu zidan nola Leon X. aita sainduak Tetzel monjea igorri zuen Alemaniarat **indulgentzien** saltzeko. Joan Mari Irigoien

Hartzen ditut agintarien gomendiotzat gurutzada-buldak eta beste **induljentziak** . Patxi Altuna

Ea Gurutzadako buldan ematen diren **induljentzien** eta ordaintzen diren grazien artean izan behar ote den araberako neurririk. erraten dut gure delako bulda ematen ahal dela hain zuzen adieraziz eta finkatuz zer-nolako amoina eman behar den **induljentzien** irabazteko. Piarres Xarriton

**Indulgentziak** irabazten ahaleginak egiten dituzte. Joan Mari Lekuona

Lekuko apezpikuak edo bi kalonjek **induljentziak** iragartzea eta haiek berek amoinak biltzea. Piarres Xarriton

Irakurri berriak nituela Lutherok **indulgentzien** kontra skribatu zituen 95 tesiak. Joan Mari Irigoien

**2** barkaberatasuna; barkaberatasunezko barkamena.

Izan ezazu, mesedez, **induljentzia** . Anton Garikano

Emakume hark bere gain hartu zuen egiten ari zenaren ondorioa, horrexegatik eskatu zion **induljentzia** senarrari. Koldo Izagirre

---

# indultatu, indulta, indultatzen 1 du *ad* indultua eman, barkatu.

216 preso saharar, tartean 30 preso politiko, **indultatu** zituen Mohamed VI.ak. Berria - Mundua

Menemek orotara diktadurako 300 kide **indultatu** zituen bere agintaldian (1989-1999) sinatu zituen hamar indulturen bidez. Berria - Mundua

Nola ezabatu tortura, ikerketari muzin eginez (edo zigortuak **indultatuz)** zigorgabetasuna eskaintzen bazaie torturatzaileei? Berria - Euskal Herria

Grazia handia egingo zian hiri, ezta, Jeneralak ezin hinduela **indultatu** esan nuenean! Koldo Izagirre

Aita, **indultatu** zutenetakoa izan zuan. Joseba Sarrionandia

Hiltzaile bat zen, **indultatua,** esperimentu bitxi batean parte hartzearen truke aske utzia. Irene Aldasoro

Martxoan, **indultatutakoak** ateratzen hasi zirenean. Jokin Urain

**2** (era burutua izenondo gisa)

**Indultatuak** irten orduko Belgikara, Austriara, Danimarka eta Norvegiara kanporatu zituen gobernu espainiarrak. Jokin Urain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**indultatu zituen** (3)

---

# indultu *(orobat **indulto**)* **1** *iz* epai mugiezin batean ezarritako zigorraren barkamena.

Felipe Gonzalezek Veraren **indultua** eskatu dio PSOEko gobernuari. Berria - Euskal Herria

Kableak mozteagatik epaitutako eta zigortutako solidarioentzat **indultua** eskatu du. Edurne Elizondo

-Agian **indultua** emango diote. Jose Morales

Auzitegiaren irizpideen aurka **indultua** emateko asmorik ez du Gobernuak. Berria - Euskal Herria

Fiskaltza **indultuaren** aurka agertuko da. Berria - Euskal Herria

Gerora, baina, guardia zibil horiek **indultua** jaso zuten. Berria - Euskal Herria

Jose Ramon Goikoetxea, Franco hil eta gero jasotako **indultu** bati esker, 1975 hondarrean askatu zuten, Basauri, Carabanchel, Soria, Jaen eta Palentziako kartzeletan preso egon ondoren. Rafa Egiguren

Biek **indultua** lortu zuten azkenean. Berria - Euskal Herria

Mallonari fusilamenduaren ostean **indultua** etorri ei zitzaion. Edorta Jimenez

**Indultuaz** baliatzeko aukera eman zioten, baina berak zigor osoa jasan nahi izan zuen. Koldo Biguri

Putinen onespena behar da orain **indultua** indarrean sartzeko. Berria - Mundua

1945ean gerra garaian borrokatu zirenen aldeko **indultua** sinatu zuen Francok; gerra amaituta atxilotutakoek, ordea, preso segitu zuten. Berria - Kultura

Ez zuten **indulturik** onartu. Pako Aristi

Diktadurako agintarien **indultuak** baliogabetuta. Berria - Mundua

**Indultu** mugatua preso politikoentzat. Berria - Mundua

**Indultu** orokorra ezartzea debekatuta dago 62. artikuluan. hurrengo martxoan beste batzuk hasi ziren irteten, beste **indulto** izun bat bitarteko. Jokin Urain

Bera ez zela gaixo zegoen preso bakarra eta ez zuela **indultu** pertsonala onartuko. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

2003ko ekainean **indultu** lege egitasmoa eztabaidatu eta onartu zuen Txileko Senatuko Giza Eskubideen Batzordeak.

**Indultu** Legearen bozketa. Berria - Harian

Bi alderdietako batek galtzen zuenean, ez zegoen bakerik egiterik kondearen oniritzirik gabe , eta horrek zerikusia zuen gure **indultu** -zedulekin. Iñaki Iñurrieta

**Indultu** eskaeraren kontrako helegitea aurkeztu du Cristina Fanjulen abokatuak. Berria - Gaiak

Barrionuevo eta Vera kalean zirela, honentzat eta harentzat **indultu** eskaera zegoela... Hasier Etxeberria

Tsarrak ez dio uko egingo haren izenean ematen dudan **indultu** agiria onartzeari! Karlos Zabala

**Indultu** emaileak diren gobernuak. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**aldeko indultu** (3); **eta indultua** (3); **indultu eskaera** (6); **indultu eskaeraren** (4); **indultu lege** (5); **indultu lege egitasmoa** (3); **indultu legea** (4); **indultua eman** (14); **indultua eman zien** (3); **indultua eman zion** (4); **indultua ematea** (5); **indultua ematearen** (4); **indultua ematearen aurka** (3); **indultua emateko** (7); **indultua emateko asmorik** (3); **indultua eskatu** (11); **indultua eskatu du** (5); **indultua eskatzeko** (3); **indultuak ematen** (3); **rafael verari indultua** (4); **veraren indultua** (6); **verari indultua** (8); **verari indultua emateko** (3); **zuen indultu** (3)

---

# indusi, indus, industen du *ad* induskatu, hondeatu. ik **industu**.

Zubi bakarreko lubaki sakona **indusi** zuten. Agustin Otsoa

Elurkimarentzat […] hilobi handia **indusi** zuten. Agustin Otsoa

Haietako bakoitza mendian **indusia** eta harresi batek inguratua zen, eta harresi bakoitzak ate bana zuen. Agustin Otsoa

Gotorlekuaren sarrera ere ekialdera begira zegoen, baina arrokaren bihotzean **indusia**. Agustin Otsoa

Inurriak bezain langile, orkoak **indusi** eta **indusi** ari ziren gogo biziz, zirkulu itzela osatzen zuten lubaki sakonak egiten, harresietako arkuen helmenetik kanpo doiki. Agustin Otsoa

Haitzean **indusitako** eskaileratik. Agustin Otsoa

**Indusitako** materialak tratatzeko finantzaketa-baliabide eskasak daude, ikerkuntza arkeologiko proiektu askotan tratamendua zatikatua gertatzen da. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**indusi eta** (3)

---

# induska **1** *adlag* induskatzen.

**Induska** hasi nintzen, zula eta zula. Joxan Elosegi

Huggyns dk. egiptologo ospetsuak argitzen du hilobiak errugabeki **"induska"** daitezkeela barrukoak "kiratsa zabaltzeari" utzi bezain laster, ordurako arimak lekua alde batera hustua baitu. Xabier Olarra

**2** *irud*

Hala ere, Nora pasio erromantiko erreal mingarri baten porrota bizitzen ari zela adierazten zion bere adimenak, eta jakin-minaren harra ari zitzaion etengabe **induska**.

Norberaren hildakoen iraganean **induska** ibili behar denean. Anjel Lertxundi

Paper pertsonaletan **induska** ibiltzea, esku-poltsak zabaltzea, niri zuzendu ez zen posta ireki eta irakurtzea. Joxan Elosegi

---

# induskailu *(orobat **induskagailu**)* *iz* indusmakina.

Langile eta **induskailuen** ariketa geldoa. Unai Iturriaga

Dozenaka poliziarekin eta **induskagailuen** laguntzaz egun batetik bestera desagerrarazi zuten. Berria - Harian

---

# induskaketa ik **indusketa**.

---

# induskari *iz* induskatzen duen pertsona.

Denbora luze gabe, esklabo batzuk erosi ditut, niretzat **induskari,** eta diru apur bat aurreztu dudan bezain laster andre bat ere erosi dut. Juan Garzia

---

# induskatu, induska, induskatzen du 1 *ad* zerriak edo basurdeak, hazkurria-edo aurkitzeko, lurrean muturra sartuz aritu. ik **uxartu**.

Maiz begietsi zituzten lurra **induskatzen** zuten urde basatien bizkar marradunak. Juan Garzia

**2** lurrean, haitzetan edo kidekoetan zulo edo barrunbe bat egin.

Pikotxa kontu handiz sarturik, **induskatzeari** lotu zitzaion, lurra hanka artean metatuz. Patxi Zubizarreta

Espainiarrek meategiak zulatu, mendiak **induskatu,** eta ura ateratzeko, mea hausteko eta bereizteko makinak asmatu zituzten. Iñaki Iñurrieta

Koilara batez Ellen kontu handiz **induskatzen** ari zen aguakate erdia. Lopez de Arana

Harri zuria belar erkinaren gainetik nabarmentzen zen, eskumenean, eta aski zen bizpahiru arra **induskatzea** harri beltza aurkitzeko. Juan Garzia

**3** *irud*

Diferentzia, gertaera jakin baten inguruan putzuak eta meazuloak **induskatzen** dituen pentsamendu eragilearen eta pentsamendu inorendu, bizigabearen artean dagoena da. Jon Alonso

*Quixoteren Meditazioak* Ortega gaztearen aurreneko liburua da, eta ikerlan franko badago, saiotxo multzo horretan Ortega-ren "sistema filosofikoaren" lehen formulazioa **induskatu** guran. Joxe Azurmendi

---

# induskatzaile *izond* induskatzen duena.

"Deskonstruktore" zorrotzak dira eta edozein kausaren eta borroka ideiaren azpian ideologiko edo mitikotik dagoen guztiaren **induskatzaile** gupidagabeak. Joxe Azurmendi

---

# indusketa *(orobat **induskaketa**)* 1 *iz* induskatzea.

**Indusketa** abiatu berria zuten makinek Bartzelonatik gertuko Hostalets de Pierola herrian, zabortegi bat egiteko. Berria - Gaiak

Nafarroako Gobernuak ez baitu inolako **indusketarik** agindu eraitsitako herrietan. Edurne Elizondo

Zuhaitzak bota, **indusketak** egin eta etxolak eta etxeak nonahi eta nolanahi eraiki zituzten. Agustin Otsoa

Lurra atera bedi **indusketa** ahalik eta sakonena eginez. Santiago Iruretagoiena

Beraz, leku horietan aurkitzen badira ur beroko iturriak, eta egindako **indusketa** guztietan lurrun beroa ateratzen bada, [...]. Santiago Iruretagoiena

**2** (arkeologian)

Ponpeiako **indusketetan** aurkitutako hebrear eskuizkribu bat balitz bezala saltzen baitzuen liburuzaleak. Josu Zabaleta

Atapuerca Burgosko probintzian dago, eta hango **indusketan** gauza asko aurkitu dira, balio handikoak. Joxerra Garzia

Alvaro Arrizabalaga Aranzadiko elkarteko arkeologo eta Irikaizko **indusketen** arduradunak. Berria - Kultura

Herrialdean abiatutako **indusketen** emaitzari esker. Berria - Kultura

Debako koba batean ere **indusketak** hasi ditu Aranzadik. Berria - Kultura

**Indusketak** hasi dituzte Bosniako muino batean, piramide bila. Berria - Gaiak

Herriko etnografoarekin, eta bertako harrespil eta trikuharrietan egiten ari ziren **indusketen** berri eman zidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Ostegunean hasi ziren hobian **indusketak** egiten. Berria - Harian

Hasi besterik ez dira egin **indusketak,** baina dagoeneko hainbat aztarna aurkitu dute. Berria - Mundua

Los Arcosen egin **indusketek** frogatzen dute Euskal Herrian laborantza ezagutzen zutela duela 7.000 urte. Berria - Euskal Herria

Irikaitzen udan egindako **indusketek** garrantzi handiko aztarna arkeologikoak azaleratu dituzte. Berria - Kultura

Beriainen egin behar dituzten urbanizazio lanen aurretik **indusketa** arkeologikoak egiteko baimena eman du Nafarroako Gobernuak. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Galdames **indusketa** lantegiaren atarian bildu ziren, bezperan Artzentalesen behargin bat hil zela salatzeko. Berria - Ekonomia

**Indusketa** eremua babesteaz gain, bertaratutako bisitariek arkeologoen lanak ikusi ahal izatea erraztuko du plataforma batek. Berria - Kultura

**Indusketa** obrek aurrera egiten duten bitartean elizaren jarduera mantenduko da. Berria - Kultura

Eraikinaren hegoaldean kokatuta dago **indusketa** zona. Berria - Kultura

Iazko **indusketa** denboraldian gertatu zena dute gogoan arkeologoek. Berria - Harian

**4** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa*

Industria gehiegia, kutsadura, berotegi-efektua, itsas zolaren zulaketaz baliaturiko petrolio-**indusketa;** hots, munduaren andeagarritzat jotzen dugun guztia. Juan Garzia

Bildutako informazioa eta material kopurua hiri **indusketetan** biltzen ohi dena baino askoz handiagoa delako. Berria - Harian

Arkeologia **indusketa** baten antzekoa izango da. Berria - Gaiak

**5** ***indusketa lan***

Istripuaren unean, **indusketa lanetan** ari ei zen eta hondeamakina batek atzerantz maniobra arraro bat egitean gizona harrapatu zuen. Berria - Ekonomia

**Indusketa**-lanak areagoturiko makurdurarengatik. Jon Alonso

Zenbat Erroma diren elkarren gainean, arkitektuek **indusketa** lanen bati ekiten dioten orotan ageri da. Edorta Jimenez

**Indusketa lanak** amaitu bitartean, biltegian ere izango da bai lanik. Berria - Kultura

· *irud* Problema soin-enbor zigortua jasoz konpon nezakeen, baina beldur nintzen kasko barneko konpresoreak ta-ta-ta areagotuko zuen bere **indusketa** lana. Aingeru Epaltza

**6** ***indusketa makina*** ik **indusmakina**.

Istiluak 10:15 aldera hasi zirela azaldu zuen Gazte Asanbladako kideak; **indusketa** makinak agertu eta udaltzainak haiei bidea egiten saiatu zirenean. Berria - Euskal Herria

Eraikina beste biren erdian zegoenez, ezinezkoa egin zitzaien **indusketa** makinei kolpe batez ziplo lurrera botatzea. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **indusketa lanak** (4); **indusketa lanetan** (4); **indusketak egiten** (4)

---

# indusketaburu *(corpusean **indusketa buru** soilik)* *iz* indusketa lan baten burua.

Christian Tietze **indusketa** buruak adierazi duenez. Berria - Kultura

---

## **indusmakina** *iz* indusketa makina.

Israelgo tankeek lagundutako **indusmakina** militarrek beste hiru etxe bota eta landa hektarea bat suntsitu zuten Rafako hirian. Berria - Mundua

Soldaduak bertako errefuxiatu gunean **indusmakinaz** etxeak botatzen ari ziren. Berria - Mundua

Atzo Salfit eta Skaka herrietan soroak suntsitzen aritu ziren **indusmakinak** eta buldozerrak. Berria - Mundua

Normalean, lur mugimenduengatik edo **indusmakinengatik** mozten dira kableak, baina Telefonicak ez zuen atzoko matxuraren arrazoia zehaztu Berria - Euskal Herria

---

## **industria** **1** *iz* lehengaiak eskuratzea, ustiatzea eta lantzea helburutzat duten ekonomia-jardueren multzoa.

Ekonomia sektoreei dagokienez, **industria** eta zerbitzuak izan ziren hazkuntzaren motorra. Berria - Ekonomia

**Industria** eta nekazaritza bizkortu egin zirela. Berria - Ekonomia

Nafarroako CCOOek **industria** zaintzeko behatoki bat sortzea eskatu dio Miguel Sanz Nafarroako presidenteari. Berria - Ekonomia

**Industria** tradizionala gainbehera zetorren. Anjel Lertxundi

**Industria** nazionalizatuetako langileek. Iñaki Mendiguren

Euskal Herrian dauden **industria** publikoak suntsitu gura ditu PSOEk. Berria - Ekonomia

**Industria** laguntzaileari ere mesede egingo diote kontratu horiek. Berria - Ekonomia

**Industria** eta merkataritza kontrolatzen zituztenek. Iñaki Mendiguren

Bilbo hiria **industria** eta itsasketari emana da. Edorta Jimenez

**2** jarduera multzo horren adar jakin bat.

Gogoan hartu behar da garai hartan ingeles **industria** aski babestua zegoela. **Industria** astuneko inportazioak ordezkatzeko. Koro Navarro

**Industria** astunaren garapena bultzatzeko. Koro Navarro

Estatuak inbertsio masiboak egin zituen **industria** astunetan eta oinarrizko azpiegituretan. Koro Navarro

Gipuzkoako **industria** siderometalurgikoak pentsio osagarria zeritzona onartu zuen hitzarmen kolektiboan. Berria - Ekonomia

Hiru lurraldeetako 11 herri dira **industria** kimikoetatik hurbil daudenak. Berria - Euskal Herria

**industria** zinematografikoaren kontra jardun zuen atzo Woody Allenek. Berria - Kultura

Muga-sariak %5eraino jaitsarazi zituen, eta lur jota utzi zuen bertako **industria**. Koro Navarro

Gure ikus-**entzunezko** industria propioa behar dugu. Berria - Kultura

Sexuaren **industria** sarritan aipatu da gaurko eztabaida saioan. Berria - Euskal Herria

Euskararen gainean eraikitako **industria** euskararekin berarekin nahasten dutenak. Iñaki Segurola

**Industria** farmazeutikoa eta mafia kimikoak. Anjel Lertxundi

Depresio Handiak publizitatearen **industria** ahitu zuenean. Ramon Etxezarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa, orobat **industri**) ik **industrial**.

Estatu Batuak, Alemania eta Japonia, hirurak ziren **"industria**-herrialde berriak" XIX. mendearen bukaeran. Koro Navarro

**Industria**-zibilizazioak ezarritako ereduaren mehatxupean. Juan Garzia

**Industria**-garapenaren garrantziaz oharturik. Koro Navarro

Mendebaldeko **industri** gizartearen historia intelektualean. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko Alemaniako ekonomia, bere neurriagatik, **industria**-ahalmenagatik eta diru-sinesgarritasunagatik, nagusia zen Europan. Koro Navarro

Baina hala ere, ez da Txinan sortu, ez merkataritza kapitalismorik, ez **industria**-kapitalismorik. Koro Navarro

**Industria**-kapitalismo basatiaren aurka. Askoren artean

SEPIren **industria** plana goraipatu du Solbesek. Berria - Ekonomia

**Industria** eremuetako proletarioaren profila. Txema Ramirez de la Piscina

**Industria**-kontzentrazioa areagotu zelako, eta hirietako **industria**-jarduerak landa-eremuetara eta hiri handietatik txikietara desbideratu zirelako. Koro Navarro

Japonian, **industria**-enpleguaren ehunekoak bere horretan jarraitu zuela urte horietan. Koro Navarro

**Industria**-eraldaketarako behar ziren lehengaiak. Koro Navarro

**Industria** eta finantza-talde handiak (trust Estatu Batuetan, Konzern Alemanian, zaïbatsu Japonian). Koro Navarro

Ekainean, Eurogunekо **industria** ekoizpena %0,4 jaitsi zen. Berria - Ekonomia

Lurreko oligarkiaren sarreren lepotik, **industria-** inbertsioen kostuak murriztu ahal izan ziren, baina horrek **industria**-esportazioen garapena galarazi zuen. Koro Navarro

Munduko **industria**-esportazioen %27. Koro Navarro

Dela gordailu-banku, dela **industria**-banku. Koro Navarro

**Industria**-gaiei dagokienez. Koro Navarro

Andreas Renschler multinazionaleko **Industria** Ibilgailuen saileko arduradunaren ustez. Berria - Ekonomia

**Industria** patenteak oinarrizko ikerkuntza egiten denean bakarrik garatzen direlako herri aurreratuetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Atzerritar kapitalentzat erakargarria gerta daitekeen **industria**-kultura heredatu du komunismoaren garaitik. Koro Navarro

Mendebaldeko **industri** teknika militarraren gailu modernoetako batzuk. Iñaki Mendiguren

Parlamentuko **Industria** batzordera. Berria - Ekonomia

SEPI Espainiako **Industria** Partaidetzarako Estatuko Sozietate publikoak Sestaoko lantokia ATB Austriako taldeari saldu zion.

Eibarko **Industria** Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola. Koldo Zuazo

Gasteizko Merkataritza, Manufakturazio eta **Industria** Batasuna. Berria - Ekonomia

Jose Montilla **industria** ministroa. Berria - Euskal Herria

Ana Agirre **Industria,** Merkataritza eta Turismo sailburuak. Berria - Kultura

Merkataritza eta **Industria** Ganberak.

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Manufaktura-**industria,** gutxi garatua oro har, estatuek sortua da kasurik gehienetan. Izan zela ehungintza-**industria** goiztiar bat, Flandriako eta Italiako merkatari handien ekimenez sortua. Koro Navarro

Film **industria** Indiako mafiari oso lotua dago. Gotzon Garate

Zinema **industria** estatubatuarraren mesede. Aingeru Epaltza

Esklusibotasun-hitzarmen finkoak dauzkate farmazi **industria** handiekin. Juan Garzia

Haien ekonomia krisi larrian dago eta gerra-**industria** suspertzea komeni zaie. Alberto Ladron Arana

Berebil-**industria** garaikidearen maisulan honen atze-eranskinean. Xabier Olarra

Aeronautika **industria** krisian dago. Berria - Ekonomia

**5** *industria gune* ik **industriagune**.

**6** ***industria-gizon*** *(orobat **industriagizon** g.er.)*

Diru kontuetarako aholku-emaile zebilen **industria**-gizon batentzat. Fernando Rey

Diru kontuetarako aholku-emaile zebilen **industria-gizon** batentzat. Fernando Rey

Fiateko **industria-gizon** ahaltsuari. Anjel Lertxundi

Ttipirena han zen, tamaina erdikoa, ez handia, ezta tikienetarik ere, 93 urteko agure zendu berriaren eta **industriagizon** baten bigarren urtemuga iragartzen zuenaren artean. Aingeru Epaltza

**7 *industria-iraultza*** *(**25** agerraldi, **6** liburu eta **4** artikulutan)* ik **industrial 2.**

1800. urtean **Industria** Iraultza hasi zenetik, 118.000 milioi tona karbono dioxido xurgatu dituzte ozeanoek. Berria - Gaiak

**Industria** -iraultza arte, merkatuaren erakundeak, nahiz eta aspaldikoa izan, bigarren mailako eginkizuna baino ez zuen izan aldian aldiko egitekoak zibilizazioetan. Koro Navarro

Japonia da XIX. mendean **industria** -iraultza izan zuen Europatik kanpoko herrialde bakarra. Koro Navarro

Periferiako eremuez nagusitzeko borroka hau areago indartuko zen **industria-** iraultzarekin. Koro Navarro

Ilea baino 100.000 aldiz meheagoak dira, baina **«industria iraultza** berria» eragiten ari dira. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aebetako industria** (6); **agirre industria** (24); **agirre industria sailburua** (5); **agirre industria sailburuak** (12); **ana agirre industria** (24); **armendariz industria** (8); **arteko industria** (5); **atzo industria** (5); **baina industria** (7); **bere industria** (4); **bertako industria** (6); **beste industria** (4); **da industria** (8); **dagoen industria** (4); **dauden industria** (4); **den industria** (6); **dio industria** (8); **ditu industria** (5); **dituen industria** (4); **du industria** (27); **du industria sailak** (6); **duen industria** (10); **duen industria plana** (4); **dute industria** (7); **eaeko industria** (14); **edo industria** (5); **elikagaien industria** (4); **ere industria** (5); **espainiako gobernuko industria** (4); **espainiako industria** (70); **espainiako industria eta** (4); **espainiako industria ministerioak** (4); **espainiako industria ministerioaren** (5); **espainiako industria ministro** (4); **espainiako industria partaidetzarako** (33); **estatuko industria** (13); **estatuko industria partaidetzarako** (13); **eta espainiako industria** (4); **eta industria** (134); **eta industria ganberak** (4); **eta industria ganberako** (7); **eta industria plana** (4); **eusko jaurlaritzako industria** (36); **eusko jaurlaritzaren industria** (5); **ez industria** (4); **g industria** (4); **gipuzkoako industria** (11); **gipuzkoako industria jarduera** (4); **gobernuko industria** (8)

**industria alorrean** (5); **industria arloko** (4); **industria bat** (8); **industria da** (7); **industria ekoizpena** (6); **industria ekoizpenaren** (4); **industria ere** (7); **industria eta** (69); **industria eta energia** (4); **industria eta eraikuntza** (4); **industria eta lan** (6); **industria eta merkataritza** (12); **industria ganberak** (4); **industria ganberako** (7); **industria garatzeko** (4); **industria gizon** (7); **industria gune** (4); **industria hori** (5); **industria iraultza** (8); **industria iraultzak** (6); **industria iraultzaren** (4); **industria jarduera** (13); **industria jarduerek** (4); **industria kimiko** (6); **industria laguntzailea** (4); **industria lantegi** (4); **industria ministerioak** (7); **industria ministerioaren** (7); **industria ministerioko** (6); **industria ministro** (10); **industria ministro jose** (4); **industria ministroa** (11); **industria ministroak** (13); **industria ministroaren** (4); **industria nuklearrak** (5)

**industria ondarearen** (6); **industria ondarearen elkarteak** (4); **industria osagarriaren** (4); **industria osagarriko** (4); **industria oso** (6); **industria partaidetzarako** (56); **industria partaidetzarako estatuko** (28); **industria partaidetzarako sozietatea** (23); **industria partaidetzarako sozietateak** (5); **industria plan** (22); **industria plan bat** (7); **industria plan sendoa** (5); **industria plana** (73); **industria plana ezartzeko** (4); **industria planak** (4); **industria planaren** (12); **industria planari** (4); **industria planaz** (4); **industria planik** (8); **industria planik ez** (5); **industria politika** (12); **industria prozesuetan** (4); **industria saila** (10); **industria sailak** (34); **industria sailaren** (13); **industria sailaren irudiko** (4); **industria sailari** (6); **industria sailburu** (11); **industria sailburu ana** (6); **industria sailburua** (11); **industria sailburuak** (35); **industria sailburuak azaldu** (5); **industria saileko** (7); **industria sarea** (5); **industria sarearen** (4); **industria sektore** (5); **industria sektoreak** (4); **industria sektorean** (8); **industria talde** (4)

**jaurlaritzako industria** (50); **jaurlaritzako industria sailak** (12); **jaurlaritzako industria sailburu** (6); **jaurlaritzako industria sailburuak** (11); **jaurlaritzaren industria** (5); **javier armendariz industria** (8); **jose montilla industria** (5); **lan eta industria** (5); **lehen industria** (4); **merkataritza eta industria** (23); **montilla espainiako industria** (8); **montilla industria** (5); **musikaren industria** (4); **nafarroako industria** (4); **oraindik industria** (4); **petrolio industria** (4); **sepi espainiako industria** (9); **sepi industria** (7); **sepi industria partaidetzarako** (6); **sepik espainiako industria** (11); **sepik estatuko industria** (8); **sepirekin espainiako industria** (6); **sepiren industria** (21); **sepiren industria plana** (11); **sepiri espainiako industria** (4); **zen industria** (8); **ziren industria** (4); **zituen industria** (4); **zuen industria** (14)

**arrantza industriaren** (5); **ditu industriak** (4); **du industriak** (4); **edo industriako** (5); **elikagaien industrian** (4); **eta gazitze industriako** (4); **eta industriak** (8); **eta industriako** (7); **eta industrian** (12); **eta industriaren** (17); **eta industrien** (5); **euskal industriaren** (5); **gazitze industriako** (4); **industriak eta** (9); **industriak ez** (9); **industriak ez du** (5); **industrian eta** (16); **industrian eta zerbitzuetan** (4); **industrian lan** (6); **industrian lan egiten** (4); **industriaren alorrean** (5); **industriaren eta** (7); **industriaren garapen** (4); **kultur industriaren** (6); **musika industriaren** (4); **musikaren industriak** (4); **zinemaren industriak** (5)

**beste industri** (6); **beste industri plan** (5); **bizkaiko industri** (4); **du industri** (4); **espainiako industri** (4); **eta industri** (12); **industri iraultza** (9); **industri iraultzaren** (7); **industri jarduera** (11); **industri langileak** (4); **industri langileen** (4); **industri partaidetzarako** (9); **industri partaidetzarako estatuko** (7); **industri plan** (15); **industri plan bat** (7); **industri plana** (21); **industri planak** (4); **industri planaren** (7); **mendebaldeko industri** (6); **sepi industri** (4); **sepi industri partaidetzarako** (4); **sepiren industri** (8); **sepiren industri plana** (6)

---

**industriadun** *izond* industria duena.

Munduko zazpi herri **industriadun** handienen lehen buruzagiek. Herria

---

**industriagintza** *(orobat **industrigintza**)* *iz* industria.

Hemengo **industrigintzaren** lehiakortasuna, enpresen erantzuteko ahalmena eta eskainitako produktuen maila. Berria - Ekonomia

Azken batean esan daiteke dendari familia bateko oinordekoa zen Louis Beguerie mauletarrak ziola bultzada eman Zuberoako **industriagintza** tradizionalari. Berria - Harian

**Industriagintza** militarraren esparruan. Berria - Euskal Herria

Eraikuntzan, ostalaritzan, **industriagintzan** eta nekazaritzan aritzen direnak. Berria - Harian

Produkzio hazkundea %43 handitu denean **industriagintzako** enpresek %25 gutxitu dute isurtzen duten CO2a. Berria - Euskal Herria

Ekimen publiko eta pribatuak «ondo» uztartu dira **industrigintzan** . Berria - Ekonomia

**Industrigintzarekin,** energiarekin, eta birziklapenarekin lotutako enpresa taldea. Berria - Ekonomia

---

industriagizon ik **industria 5.**

---

**industriagune** *(orobat **industria(-)gune** eta **industrigune**)* *iz* industriak dauden eremua. ik **industrialde**.

Kostaldea Tolosa ondoko **industria** -gunearekin lotzen duen errepidetik. Bernardo Atxaga

Bustinzuri **industria guneko** enpresa batek egin zuen isuria. Berria - Euskal Herria

1939an **industria** gune garrantzitsu zen hiriarena. **industria gunetan** aurkitzen da aire kutsatuena, bereziki Bilboko eskualdean eta Arrasaten. Herria

Hiri hori, hortaz, **industrigune** garrantzitsua da, eta haren inguruko lurraldean ugariak dira fabrika metalurgikoak eta platinoa eta urrea garbitzeko ustiategiak. Karlos Zabala

Horiek dira Italiako benetako motoreak, han baitaude **industrigune** nagusiak eta enpresa txiki eta ertainak. **Industriagune** baten aurkako atentatua egin nahi zutela. Berria - Mundua

1939an **industria** gune garrantzitsu zen hiriarena. Edorta Jimenez

Urdaibaiko Erreserbako 12 hektarea inguru **industrigune** bezala sailkatzea eskatzen du. Berria - Euskal Herria

Etxegintza parkea eraberritzea, **industria guneak** osatzea eta bizi kalitatea hobetzea. Berria - Harian

Azalpenak eskatu zizkion Washingtonen ordezkaritzak ostegunean IAEAri **industriagune** hori ikuskatu ez izanagatik. Berria - Mundua

Lasarte-Oriako udalak **industria** gune bat nahi luke eraiki Teresategiko mazeletan. Herria

Hona beraz **industria gune** bat osoki zerbitzuetara pasatzen dena. Herria

---

**industrial** **1** *izond* industriari dagokiona. ik **industria 3.**

Estatu Batuak izan ziren gerrak suntsitu ez zuen herrialde **industrial** indartsu bakarra. Koro Navarro

Gipuzkoako herri **industrial** batean. Agurtzane Juanena

Gizarte **industrial** batean bizitzeagatik ordainsari bat ordaindu beharra daukagu. Berria - Euskal Herria

Nekazaritza **industrial,** intentsibo eta esportatzailea bultzatzen duten politika neoliberalek. Berria - Ekonomia

Moldaketa **industrial** asko sufritu ditugu, eta lan taldea murriztu dute beti. Berria - Harian

Plan **industrial** sendoa prestatzeko. Berria - Ekonomia

Elikadura alorreko enpresa **industrial** handien aholkulari izaten segituko du. Edorta Agirre

Langile-klase **industrial** berriak. Iñaki Mendiguren

Golfeko makila herdoilduak, makinaria **industrial** erabilezina. Harkaitz Cano

Ingurune **industrial** batean bizi ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

Dioxina gai **industrial** bat da. Berria - Mundua

Zutik jarraitzea merezi duten eraikin **industrial,** biltegi edo eskola zahar asko daude geure hirietan. Berria - Kultura

Bilboko lehengo ondare **industrial** hori guztia galdu da. Berria - Kultura

Hori gertatzen zaio John Grishamen tamainako idazle **industrialari** . Berria - Kultura

**2** ***iraultza industrial*** *(11 agerraldi, 5 liburu eta 3 artikulutan)* ik **industria 7.**

Iraultza **industrialak** eskulan merkea behar zuen. Luis Elberdin

Trena da **iraultza industrialak** ekarri zuen bizitza-estilo alienatuari plazerezko etekinen bat ateratzeko aukera bakarrenetakoa. Anjel Lertxundi

Ezin zaio eredu politiko bera eskaini nekazari gizarte bati eta, ekonomialarien arabera, «bigarren **iraultza industriala»** gauzatzen ari den herrialde bati. Berria - Mundua

Ondare kulturala suntsitua izan da **iraultza industrialaren** ondotik, bereziki XX. mendean. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ekoizpen industriala** (3); **eredu industriala** (3); **esnetegi industrialek** (3); **eta industriala** (3); **eta musika industrialaren** (3); **gizarte industrial** (3); **gune industriala** (4); **herri industrial** (3); **industrial bat** (9); **industrial batean** (4); **industrial eta** (6); **industrial hori** (4); **industrial sendoa** (3); **industriala da** (3); **industriala eta** (7); **industriala ez** (3); **industrialak eta** (3); **industrialaren arteko** (3); **industrialen eta** (3); **industrialik ez** (4); **interes industrialik** (3); **iraultza industriala** (4); **iraultza industrialak** (3); **jarduera industriala** (3); **modu industrialean** (3); **moldaketa industrial** (3); **musika industrialaren** (4); **nekazaritza industriala** (4); **plan industrial** (11); **plan industrial bat** (3); **plan industrial sendoa** (3); **plan industriala** (4)

---

# industrialari (g.er.; orobat **industrilari**) *iz*

Bestea Mixel Etxebest **industrialariak** kudeatzen duena "agir ensemble pour Mauléon" lemarekin. Schneidre familia Le Creusot-ko **industrilari** aberatsetenetarik bat da, Frantzia guzian ezagutua. Herria

Algortako **industrialari** xehe batek garajea utzi zigun bertako etxe batean. Rafa Egiguren

**Industrilari** partikular baten esku utzi du. Herria

Beraz Bush presidentak jakin arazi du delako tratua ez duela izenpetuko, ez baitezazke bortxa amerikano **industrilariak** hartan ezarriak diren arau garratzen onartzerat. Herria

---

# industrialde *(orobat **industriaalde** g.er.) iz* industriagunea.

Orain zelaiak eta soroak direnak, errepideak, **industrialdeak** eta etxebizitzak izan daitezke etorkizunean. inguruko lurretan 700 etxebizitza eta bi **industrialde** eraikitzeko proiektua dute. Berria - Euskal Herria

**Industrialde** berriak eskualdeka eratu behar direla. Berria - Harian

**Industrialdea** ere oraino zabaltzera doatzila. Herria

Epe laburrera Angeluko *Forum* **industrialdean** kokatuko dira. Berria - Euskal Herria

**Industrialdeko** kale nagusiaren hustasunean ez zen bertze ibilgailurik bistara. Aingeru Epaltza

Lebarioko **industriaaldeko** *Estampaciones Vizcaya* lantegian ziharduen. Berria - Ekonomia

285.000 metro koadroko **industrialdea** eraikiko du Txinan MCC korporazioak. Iñigo Aranbarri

Anoetako *Errota* **industrialdeko** dendan denetariko gaiak salduko diren gunea sortu dute. Berria - Ekonomia

Gamarrako **industrialdeko** pabiloian 111 langile ditu beharrean. Berria - Ekonomia

C-5 puntua hurbil zen, **industrialdeko** eraikin-multzoaren atzeko aldean. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**belartza industrialdean** (3); **eta industrialde** (4); **eta industrialde bat** (3); **eta usurbilgo industrialdean** (3); **industrialde bat** (7); **industrialde batean** (6); **industrialdean dagoen** (4); **inguruko industrialde** (3); **usurbilgo industrialdean** (3)

---

# industrialdu *izond* industrializatua.

Gizarte **industrialduetan,** heriotza gaitz kardiobaskularrekin [...] minbiziarekin eta diabetearekin lotzen da.. Berria - Euskal Herria

---

# industrialismo *iz* industria lehenesteko joera.

Errealitate "handiaren" aurrean, hau da, gerren, torturen, indarkeriaren, multinazionalen, arrazismoaren, **industrialismoaren,** gorputzaren hipersakralizazioaren, materialismoaren, antiekologismoaren eta horien guztien aurrean, idazlearen ahotsak ezer gutxi lor dezake. Ana Urkiza

**Industrialismoaren** eragina jabetza pribatuan, kapitalismoaren eta komunismoaren sorrerak argitzen duten bezala. Iñaki Mendiguren

Mendebaldeko **industrialismo** inportatuaren ondorio desmoralizatzailea, adibidez, bereziki nabarmena izan zen Hego-ekialdeko Asian. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**industrialismoaren eragina** (4)

---

# industrializatu, industrializa, industrializatzen *(orobat **industrialisatu** g.er.)* **1** du *ad* industriaren alderditik gararazi.

Gerra amaitzean Y... **industrializatzen** hasi zen. Joseba Urteaga

Iparraldea nola **industrializatu** . Rafa Egiguren

Integraziozko logika hau aspaldi **industrializaturiko** eskualdeetan dago kontzentratua. Koro Navarro

Kontua duk mendia pista narrasez, makinaz eta tramankuluz bete eta **industrializatzen** ari direla etengabe. Juan Luis Zabala

**2** zerbait industria-jardueraren pean ezarri.

Egun, metodoa **industrializatzeko** lanetan ari dira. Berria - Gaiak

Egiazko kalitatearen zerbitzuko, **laborantxa** industrializatu eta intensifikatu bat baztertuz... Herria

Elikagaiak **industrializatzearen** ondorioez. Edorta Agirre

**3** (era burutua izenondo gisa)

Mundu **industrializatuan** oro har zabalduz ari den efektua da hori. Iñaki Heras

Nazio **industrializatuak** jorratzen ari diren garapenerako bideetako asko benetan okerreko eta ezin gauzatuzkoak dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Herrialde **industrializatuen** inportazioen gaineko batez besteko muga-sariak. Koro Navarro

Herrialde **industrializatuen** arteko inbertsio gurutzatuen nagusitasuna. Koro Navarro

Garai horretan eratu ziren, herrialde **industrializatuenetan,** industria eta finantza-talde handiak. Koro Navarro

Eskualde **industrializatu** eta aurreratuetan. Koldo Zuazo

Zentro **industrializatua** eta periferia azpigaratua. Koro Navarro

Mendebaleko gizarte **industrializatuak** . Josu Zabaleta

Ekonomia **industrializatu** nagusien arteko harremanak. Koro Navarro

Kapitalismo **industrializatuan** lanak gizakiaren alienazioa eta suntsipena dakarrela azpimarratzen duen ikuspegia. Iñaki Heras

· Goi mailako gastronomia [...] vs. elikadura **industrializatua** . Edorta Agirre

**4 *industrializatu berri*** *izond*

Asiako herrialde **industrializatu** berriek bideratu zuten batez ere estrategia hori. Koro Navarro

Produktuen eduki teknologikoaren gorakadak, lehen belaunaldiko herrialde **industrializatu** berrietan, truke-tasa errealek gora egitea ekarri du. Koro Navarro

Ondorio hori ezin hobeto agertzen da azken hamarraldiotako herrialde **industrializatu berrien** eta Saharaz behetiko Afrikaren ekonomia-ibilbide guztiz desberdinetan. Koro Navarro

· **Industrializatu berri** diren herrialdeetan, esaterako, emakumeari ezarri zaizkion lan baldintzak kaltegarriak zaizkio osasunarentzat Berria - Euskal Herria

**5 *industrializatu gabeko***

Garapen bidean diren herrialdeak, edo garatu gabeko herrialdeak, **industrializatu gabeko** herrialdeak, herrialde txiroak eta abar. Iñaki Heras

Funtsak finantza tresna berriak sortu zituen, **industrializatu gabeko** herrialde zorpetuek beren ekonomiak neurri jakin batzuen arabera aldatzearen truke, epe luzerako finantzazioa eman ahal izateko. Iñaki Heras

Enpresa horiek ezartzen diren herrialdeen ekonomian eta gizartean, eta bereziki **industrializatu gabekoetan,** hazkunde eta garapen ekonomikorako bete dezaketen eginkizuna oso garrantzitsua izan daitekeela. Iñaki Heras

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asiako herrialde industrializatu** (7); **aspaldi industrializaturiko** (5); **aspaldi industrializatutako** (3); **belaunaldiko herrialde industrializatu** (4); **beste herrialde industrializatuetako** (3); **da herrialde industrializatuetan** (3); **eta herrialde industrializatuek** (3); **herri industrializatu** (4); **herrialde industrializatu** (35); **herrialde industrializatu berriek** (4); **herrialde industrializatu berrietan** (3); **herrialde industrializatu gehienetan** (3); **herrialde industrializatuak** (5); **herrialde industrializatuei** (7); **herrialde industrializatuek** (13); **herrialde industrializatuen** (24); **herrialde industrializatuen artean** (3); **herrialde industrializatuen arteko** (5); **herrialde industrializatuenak** (4); **herrialde industrializatuetako** (16); **herrialde industrializatuetan** (31); **industrializatu berriak** (3); **industrializatu eta** (4); **industrializatu gabeko** (6); **industrializatu gehienetan** (3); **industrializatuen artean** (3); **industrializatuen arteko** (5)

**industrializatzen ari** (3)

---

# industrializatzaile *izond* industrializatzen duena.

**Industrializatzaile** esaten zaien industrien estrategiak, petrolioen errentak dituzten herrialde batzuek bideratuak (Aljeria, Iran, Irak 1970eko hamarraldian), alderantzizko bidetik joan dira. Koro Navarro

---

# industrializatze *iz* industriaren alderditik gararaztea. ik **industrializazio.**

Garai berean, **industrializatzearekin** batean, bi mugimendu kontrajarri hedatzen hasi ziren liberalismoa alde batetik, eta sozialismoa bestetik. Piarres Xarriton

---

# industrializazio 1 *iz* industriaren alderditik gararaztea.

**Industrializazio** eta antolamendu ekonomiko moderno baten oinarriak ipintzen hasi. Koro Navarro

Independentzia lortu berria zuten estatuak izan ziren, jakina, **industrializazio** horren eragileak. Koro Navarro

**Industrializazioa** bizkorra izan zen, erabatekoa, eta emazteak osoki murgildu ziren lan munduan. Berria - Euskal Herria

Eskualde azpigaratuen **industrializazioa** . Joxe Austin Arrieta

Herrialde horietako **industrializazioa,** 1960ko hamarraldiaz geroztik, hidrokarburoen errenten ustiapenean oinarritzen da. Koro Navarro

Aljeria da estatuaren **industrializazioaren** estrategia horren eredurik argiena. Koro Navarro

Neurri zehatzen bidez galarazi zuten metropoliek hainbat koloniaren **industrializazioa,** lehiakide arriskutsuak zirelako. Iñaki Heras

Hegoaldearen **industrializazioa** geldiarazteko. Koro Navarro

Lurralde horietako **industrializazioa** oso azalekoa da oraindik ere. Koro Navarro

Garapen-bideko zenbait herrialderen **industrializazio** lasterrak eragin duen hirugarren munduaren zatiketaren ondorioz. Koro Navarro

Britainiar **industrializazioa** gizadi osoarentzat da onuragarria. Koro Navarro

Soldata apaletan oinarrituriko **industrializazioari** aurka egitea. Iñaki Heras

**Industrializazioak** eskulan beharra murriztu zuen erabat. Berria - Mundua

Beste sozializazio-bide batzuk, erlijioa adibidez, funtsezkoak ziren **industrializazioaren** aurreko gizarteetan. Koro Navarro

**2** zerbait industria-jardueraren pean ezartzea.

Epe ertain edo laburrean, dudarik gabe, pintxoen kulturaren **industrializazioa** (masifikazioa) jazoko denez [...]. Edorta Agirre

Sektorearen **industrializazioak** euskal haragiaren kalitateari kalte egingo dio. Berria - Harian

Gas kontsumoa bermatzea, gasaren **industrializazioa** sustatzea. Berria - Mundua

Nanopartikulen erabateko **industrializazioari** aurrea hartu nahi diote. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Industrializazio** garaian sortu zen kooperatiba. Berria - Ekonomia

Izan ere, arrisku handi bat zegoen, alegia, lubaki sakonegiak eratzea **industrializazio** -prozesuan aurreratutako herrialdeen eta gainerakoen artean. Koro Navarro

Lehen **industrializazio** -saioak. Koro Navarro

Bai Alemaniak, bai Estatu Batuek [...] protekzionismo zorrotz baten gainean egin zuten beren **industrializazio** -ahalegina. Koro Navarro

Industria-ahalmen aski handia badute ere, herrialde hauek munduko ekonomian txertatzeko duten arazoa ez da funtsean **industrializazio** -bidean dauden beste eskualdeenetatik desberdina. Koro Navarro

Hiru adibide aurkezten dira hemen, garapen-bideko herrialdeetan aplikatu diren hiru **industrializazio-** estrategiei dagozkienak. Koro Navarro

**4 *industrializazio aldi***

Adierazgarria da langileen erakundeak antolatzeko eta errenten banaketa aldatzeko egin diren saioak, nolabaiteko arrakastarik izan dutenean, **industrializazio**-aldi lasterretan eta kanpoko konkurrentziatik babesturik egin izan direla. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta industrializazioa** (4)

---

# industrializaziogune *iz*

Igaro den mende erdi honetan garapen-bideko herrialdeetan izan den **industrializazioguneen** ugaltzea ezin bereiz daiteke, beraz, kolonia-estatututik emantzipatu izanetik. Koro Navarro

---

# industrialki 1 *lag* industriaren aldetik.

Batasuneko lurralde zabalak **industrialki** gutxiegi populatuak zeudenez, [...]. Iñaki Mendiguren

Etxe berrian bizitza oso mugitua izan zuten, bai artistikoki bai **industrialki** -hasieran sotoetan jarri baitzuten okindegi berria, eta gero Rafael Caro Raggio-k bertan jarri zuen inprenta eta argitaletxea-. Josu Zabaleta

**2** era industrialean.

Berak ideia bat zuen [...] baina zerbitzu militarrean zegoen eta ez zuen nahikoa asti: nik ordezkatu egin behar nuen, laboratorioan esperimentatu beraren ideiok, eta gero, modurik bazen, berarekin batera, **industrialki** gauzatu. Juan Garzia

---

# industriategi *iz* industria instalazioa.

Baina liburu horretan berariaz utziko nuela albora kimika handia, **industriategi** kolosalen eta fakturazio-ustelkeria zorabiagarrien kimikatzar loriosa, hori lan kolektiboa baita eta, beraz, anonimoa. Juan Garzia

---

# industriatu *izond* industrializatua.

Kyotoko akordioan zortzi herri **industriatuenek** bazuten akordio bat, 1997an sinatua, industria horien gazakiez gutiago pozoindatzeko airea. Herria

---

# industriatxo *iz* industria.

Herri honek bere **industriatxoa** sortuz joan behar du. Berria - Harian

---

# industriaurre *iz* industrializatze aurreko garaia.

Baina lanak eta aisiak **industriaurrean** elkarrekiko zuten mendekotasun eta parekotasun hori desegina geratu zen langilea gau eta egun urte osoan lanean jarrai zezaketen makinen zaintzaile bihurtu zenean. Iñaki Mendiguren

Ematen zuen industri teknologiak ezarritako arauketak enpresa pribatuaren **industriaurreko** espirituari bizia kenduko ziola. Iñaki Mendiguren

Gainera, *entrepreneur* industrialaren **industriaurreko** askatasun-espirituak, industri iraultzaren iturri nagusi izanak, indar eragile izaten jarraitu zuen prozesuaren hurrengo atalean. Iñaki Mendiguren

---

# industu, indus, industen du *ad* induskatu, hondeatu. ik **indusi**.

Aztarnategietatik **industutako** materialarekin lan egin du. Berria - Euskal Herria

---

# industugabe *(corpusean **industu gabe** soilik) izond*

Guatemalan, zioen, ugari bai ugari omen ziren maiar guneak, batzuk ia batere **industu** gabeak. Joxe Austin Arrieta

---

# induzigarri *izond* induzitzen duena.

Jacques Monod-ekin gero, kolibaziloaren baitako proteina-sintesi **induzigarria** aztertzeko. Juan Garzia

---

# induzitu, induzi, induzitzen 1 du *ad* eragin.

Sexu-elkartzean profagoari **induzituriko** garapena (indukzio erotiko delakoa, alegia). Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gure laborategian martxan zeuden bi ikerlan motak -lisogeniari buruzkoa, André Lwoff-en eskutik, eta entzima-biosintesi **induzituari** buruzkoa, Jacques Monod-en eskutik-. Juan Garzia

Arau horien ondoren, pinturaren historian behintzat, helburu bera zuten beste arau batzuk etorri ziren, kolore **induzituen** "araua" adibidez. Josu Zabaleta

Ez baita plagioa, izan ere, ipuin **induzitu** bat baizik. Harkaitz Cano

---

# inedito *izond* argitaragabea.

Telesforo Monzonen zortzi poema **inedito** aurkeztu zituen atzo Koldo Izagirrek, gerra garaian idatziak eta egun Abertzaletasunaren Arteako Agiritegian gordeak. Berria - Kultura

Markiegiren fusilaketari buruz Telesforo Monzonek idatzitako poema **inedito** batzuk. Jokin Urain

Agosti Xahoren kantutegia eta XVIII. mendeko Zuberoako antzerki moldapen **ineditoen** bilduma. Berria - Kultura

XVIII. mendeko hamar antzerki lan **ineditoren** edizio kritikoa prestatu dut. Berria - Kultura

Abesti **ineditoak** disko batean bildu ditu Pascal Comeladek. Berria - Kultura

Disko **inedito**a eta omenaldia. Berria - Kultura

Bertsio gehienak **ineditoak** dira. harrigarria da, ez dakit **ineditoa** delako edo pixka bat gure garaiarekin bat egiten duelako. Pablo Sastre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
poema inedito (3)

---

# inefable *izond* ezin esanezkoa.

Garai hartan ederresten nuen hitz batekin esanda, agerpen hura **inefablea** izan zen niretzat. Bernardo Atxaga

-Benetakoak diruditen gauza guztien artean -esan nuen-, ez da denbora bezain iheslari, irristakor eta **inefablerik**. Bernardo Atxaga

---

# inefiziente *izond* ez-eraginkorra.

Nahiz eta jakin epe ertain eta luzera neurri hutsal eta **inefiziente** horiek atxikitzearen eraginkortasuna hutsaren hurrengoa den. Iñaki Heras

Baina desberdintasuna **inefizientea** al da, edo, ekonomilari askok errepikatzen duten legez, ekitate eta justizia arazoa al dakar soilik? Iñaki Heras

---

# inefizientzia *iz* eraginkortasunik eza.

Ezaguna da plangintzapeko ekonomiek porrot egin zutela, besteak beste, beren burokrazia, **inefizientzia** eta baliabide galera handiengatik. Iñaki Heras

Nekez ahaztu daitezke bertako burokrazia eta **inefizientzia** handiak. Iñaki Heras

Bai politika-sisteman bai ekonomia-sisteman gertatzen diren **inefizientziei** konponbiderik bilatzeko inongo arretarik gabe. Iñaki Heras

---

# inerte 1 *izond* bizigabea.

Oraingoan, lepoa okertu eta utzi egin zion Linok buru **inerteari** erortzen. Harkaitz Cano

Nire beso **inertetik** malguki bat atera zen. Harkaitz Cano

Eraztuna uztai **inerte** baten gisan uretan murgildu zenean. Harkaitz Cano

Edozein dogma edo balio absolutu **inerteren** ukoa. Joxe Azurmendi

**2** geldoa, erreakzio kimikoak eragiteko gaitasunik ez duena.

Sistema honen bitartez hazitako landareek ematen dituzten fruituek itxura perfektua dute, kolore eta ehundura ederra, uraren eta airearen arteko oreka kontrolpean baitago, eta, gainera, substratu **inerteak** dituenez, ez dago izurririk edo gaixotasunik jasotzeko arriskurik. Berria - Kultura

---

# inertzia 1 *iz* materiaren ezaugarria, gorputz batek bere egoeraren aldaketei kontra egitean datzana.

Julenen gorputzak, Newtonen lehen legea zintzo-zintzo betez, aurrera jarraitu zuen, **inertziak** bultzatuta. Fernando Morillo

Pendulu astun bat da sismografoa; duen **inertziagatik** geldi geratzen da lurrikara bizkor bat denean, inguruan lurra dardaraz dagoela. Irene Aldasoro

Bere pisuaren **inertziak** eramanda. Joanes Urkixo

Mugimendu horietan guztietan, buruarekin batera mugitzen dira kanalak, baina barruko jariakina, **inertziaren** eraginez, atzera geratzen da, eta ile-zelulek erresistentzia bat jasaten dute. Irene Aldasoro

Horretarako lubrikazioa eta motorraren osagaien pisua murriztu behar da, **inertzia** guztiak ahalik eta txikienak izan daitezen. Berria - Kirola

XVII. mendean lehenengo aldiz, Galileok aurre egin zien Aristotelesen teoriei, **inertziaren** printzipioarekin. Berria - Harian

**2** *irud*

**Inertziaren** antzeko zerbaitek bultzatuta segitu duzu bizitzen. Lourdes Oñederra

Ahulezia guzien ondorio, halako indar bat: gelditasunaren aisetasuna, **inertziaren** tema. Piarres Aintziart

**Inertziaren** indarrez ihardoki genuen. Marzel Etxehandi

Pentsamoldeen **inertzia**. Xabier Arregi

Batetik, sektore pribatuaren **inertzia,** eta, bestetik, industria bultzatzeko estatuaren egituretan sumatzen den estrategia falta erabatekoa. Koro Navarro

Gizarteak ezin du historiaren **inertzia** gelditu. Pello Salaburu

Tribuaren, tradizioaren eta **inertzien** kontra aritzea. Ana Urkiza

Han egon, ez ezer esan, ez ezer egin, eta **inertziari** utzi, beraz, bere bidea egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

Hankapalorenera jo nuen, aspaldiko **inertziak** eramanda edo. Xabier Mendiguren Elizegi

**Inertziaren** mende xahutuz joan zaizkiola urteak. Berria - Kultura

Lanaren **inertziak** bultzatzen duen amodioaren **inertzian**. Lourdes Oñederra

**3** (hitz elkartuetan, corpusean **inertzi** soilik)

**Inertzi** katea. Lourdes Oñederra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
eta inertzia (3); eta inertziaren (3); inertzia hori (3); inertziaren indarrez (3)

---

# inertzial *izond* inertziarena, inertziari dagokiona.

Zentzuzkoagoa da misilek eta itsaspekoek erabiltzen duten orientazio-sistema **inertzialarekin** konparatzea labirintoa. Irene Aldasoro

---

# inesentzial *izond* ez-oinarrizkoa.

Onartzen da egon behar duela maila bat [...] non lana errebelatzen den bere zatiki guztietan, baita txikienetan eta **inesentzialenetan** ere. Xabier Arregi

---

# inesentzialtasun *iz* inesentzaiala denaren nolakotasuna.

Gertakarizko historia ageriaren **inesentzialtasunak**. Joxe Azurmendi

---

# inesibo *iz non* kasua.

Hitz bati esaldian funtzioa ematen dioten kasu marka ezberdinek ere bat etortzen dira batzuetan: hizkuntzak (absolutu plurala, ergatibo singularra, ergatibo mugagabea),

Eibarren **(inesiboa,** genitiboa)... Iñaki Arranz

"Dei", "hodei", "gehi" eta **inesibo** mordoska bat baino ez. Andoni Egaña

---

**ineskrutabilitate** *iz* ezin asmatuzkoa denaren nolakotasuna.

Hiru dira itaun horien inguruan eztabaida daitezkeen tesiak: erreferentziaren **ineskrutabilitatea,** itzulpenaren indeterminazioa eta teoriaren azpideterminazio enpirikoa (arestian aipaturiko elkarneurgaiztasunaren tesiarekin batera). Askoren artean

---

**inestrikable** *izond* guztiz korapilatsua, ezin askatuzkoa.

Orduirako, minotauroak erabat nahasia zuen labirintoko haria kalexka sare **inestrikableetan** barrena, eta hari horretan harrapatuta zeuden -geunden? Iñaki Iñurrieta

Grabatu haien marrazki **inestrikable** haietan zetzan inskribatuta Klararen misterioa. Iñaki Iñurrieta

Agian guretzat ez dagoelako ezer **inestrikablerik**. Iñaki Iñurrieta

---

**inexistente** 1 *izond* existitzen ez dena.

Une batez, bikoiztasuna baliatuz fantasiazko Cesar aluzinatu eta **inexistenteak** benetako Cesar ordezkatu ote zuen iruditu zitzaion. Harkaitz Cano

**2** (adizlagun gisa)

XX. mende osoa **inexistente** deklaratu. Joxe Azurmendi

---

**infalible** *izond* hutsezina.

**Infaliblea,** aizu. Jose Angel Irigaray

---

**infalibleki** *adlag* era infaliblean,

Hastekotz eta bat: etxean ez izanki telebista pizturik ukaiteak, **infalibleki** ez, baina ebasteko menturan hurbil daitezkeenak ditzake uxa... agian. Jose Angel Irigaray

---

**infame** 1 *izond* zitala, doilorra.

Bide batez, nik heriotza-zigorrera kondenatzen dut Frédéric-Guillaume **infamea** (Prusiako erregea). J.M. Olaizola "Txiliku"

Piedade gabeko gizon **infamiak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** ezin txarragoa.

Gogoan dut esan nuela, hildakoa nahikotxo urrun garraiatu zutenean, lasai, lagunok, guk geure esku zegoen guztia egin dugu, edo horrelako zerbait, txorakeria **infame** bat nolanahi ere. Karlos Linazasoro

---

**infamia** 1 *iz* doilorkeria, zitalkeria.

Audientzia-maila jakin bat lortzeko zilegi ote da, finean, hainbeste **infamia,** nik jasan behar izan nuen tirania? Karlos Linazasoro

Artikuluaren amaieran, *Le Dépéche du Midi*-k onartu egiten du agentzia ohar okerra erabili zuela eta hortik laidoa, **infamian** amilarazi zuela Malika. Iñigo Aranbarri

**2** ***infamiazko***

Gogoan dut, nire izaeraren alderdirik beltzenak argitan ipintze aldera, hiru itaunlari prestuek hartu zuten bide **infamiazkoa**. Karlos Linazasoro

---

**infanta** *iz* erregeren alaba, erreginagaia ez dena. ik **infante.**

Eta geroxeago, paseatzen jarraitu eta salaz sala errege-erreginak, printze-printzesak, infante- **infantak** bere dotoreziaren dotorezian erretratuturik ikusi nituenean [...]. Bernardo Atxaga

Josefa Fernanda **Infantaren** haurra. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Honen aita, Francisco de Paula de Borbón, infantea, eta ama, Luisa Carlota **infanta**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Frantziako erregeren eta Espainiako **infantaren** ezkontza sonatu hartarik itzuli zelarik. Joan Mari Irigoien

---

**infante** 1 *iz* erregeren semea, erregegaia ez dena. ik **infanta.**

Eta geroxeago, paseatzen jarraitu eta salaz sala errege-erreginak, printze-printzesak, **infante** -infantak bere dotoreziaren dotorezian erretratuturik ikusi nituenean [...]. Bernardo Atxaga

Honen aita, Francisco de Paula de Borbón, **infantea,** eta ama, Luisa Carlota infanta. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

On Afonso **infantea,** halako agindu hain bakan hau entzun zuelarik, berriz makurtu zen lurrean. Jon Alonso

**2** infanteriako gudaria. ik **oinezko.**

Azaroaren 3an preseski, Moriones eta Primo de Riveraren agindupean, tropa liberalen elkarketa munstroa antolatu zen Sesman: 16.000 **infante,** 1.000tik gora zaldi, eta 24 kanoi astun (Krupp markakoak gehienak). Txillardegi

---

**infanteria** 1 *iz* armadan, oinezko osteak osatzen duten atala.

Harresietatik Morgulgo armadak zetozen; eta hegoalderago, zelaietatik, Haradtarren **infanteria**. Agustin Otsoa

Rohango Zaldizkoak Hegoaldeko Gizakien lerroen artera sartu ziren, zalditeria sakabanatuz eta **infanteria** zanpatuz. Agustin Otsoa

Euzkadiko gudarosteko **infanteriak**. Joan Mari Irigoien

Tankeen aurrean baionetaz armatuta doazen **infanteriako** soldaduek. Josu Zabaleta

Erromatar **infanteriako** soldaduak trumilka jaitsi ziren mendietatik. Jon Muñoz

Nire albotik igarotako **infanteriako** ofiziala. Jose Morales

Haren amaren aldetiko aitona lerroko **infanteriako** 2.eko gudari bat izan zen. Juan Garzia

Bradley ibilgailu batean patruilan ari ziren AEBetako Armadako 3. **infanteria** dibisioko hiru soldadu. Berria - Mundua

Berak ez zeukan bere burua militartzat, antza, **infanteriako** lotinanta zen arren. Koldo Izagirre

Aspaldian ezagutzen nuen eta ontsa, 14-18ko gerlan, **infanteriako** 34. erreximenduan omonier ukana bainuen. Marzel Etxehandi

**Infanteriaren** deskargak entzuten dira. Jon Alonso

Etengabeko bonbardaketa, artilleria eta **infanteria** blindatuak. Karlos Zabala

Gerla mundialean, 1914tik 1915era **infanterian** hamazazpi urterekin boluntario. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **infanteri**)

Vetvitski **infanteria**-kapitainak koronelak baino zaldi hobea zuela. Jose Morales

**Infanteria** Dibisioko militarrak. Berria - Mundua

Berrogeita hamarren bat emazte **infanteria** konpainia iduri ilara bakarrean lerrotuak. Koldo Izagirre

Fronte itxi batek edo **infanteria** sail on batek aurre egiten dio kirgiz talde bati hamar aldiz gutxiago izanik ere. Alfonso XII.aren armada "alfonsinoak" indar hauek zeuzkala "Nortean", batailarako prest: 131 **infanteri** batailoi, 11 zaldieri errejimentu, eta 174 kanoi; gehi gaztelu eta gotorlekuetakoak. Karlos Zabala

Espainiako Armadako Paraxutisten Brigadak eta **Infanteria** unitateek ariketak egingo zituztela Euskal Herrian. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Herri-**infanteriako** soldatapeko batek. Jon Alonso

Ingelesen lehorreratzeko txalupak alemaniarren itsas **infanteriaren** kontra borrokan ari dira. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta infanteria** (4); **eta infanteriako** (3); **infanteria dibisioko** (3)

---

# infantil

**1** *izond* haur-, haurrena; haurkara. ik **haur 3; ume 3.**

Agureak gauerdiko amesgaiztoa ahaztu zuen, eta neskatoaren xarmaren aurrean etsi egin behar izan zuenean, sentipen **infantila** jauzi zitzaion: neskak haurtxo bat bezala maite zuela. Ibon Uribarri

Egia da halako izaera **infantila** ez dela egokia Zalduak kritikari eskatu seriotasuna lantzeko. Markos Zapiain

Klitoriko orgasmoak zituztenak **infantilak,** berekoiak eta heldugabeak zirela, eta orgasmo maskulinoideak zirela. Luis Elberdin

**2** (kiroletan) haur-, haurrena.

Lau mailatan banatuta arituko dira: benjamin, alebin, **infantil** eta kadeteak. Berria - Kirola

Euskal Herriko txapela jasoko omen zuten **infantiletako** batelarekin haiek biak tostetan edukiz gero. Koldo Izagirre

Ordu laurden geroago **infantilak** ariko dira, 2.155 metroko zirkuituan. Berria - Kirola

Argazkian, Iñaki Gallastegiren Athleticeko **infantilen** futbol taldeko kideak. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **infantil eta** (3)

---

# infantilismo

*iz* haurrari dagozkion izaera eta jarduera.

Umekeriaz bustitako inkontzientzia batek hartu ditu gure garunak, gizartean larriki hedatzen ari den **infantilismoarekin** bat eginik. Pako Aristi

Independentzia heldutasun maila erakusten duen ekintza da, eta dependentzia, **infantilismoa**. Berria - Euskal Herria

Gaur egun, inoiz baino gehiago, Bestelako Komunikazioa matxinada-ekintza bat da: [...] **infantilismo** eta gorrotoaren aurka altxatzen den errebolta horizontala eta demokratikoa. Txema Ramirez de la Piscina

---

# infantilizatu

*izond* haur bihurtua.

Izan ere, kritikarien aburuz, Hego Afrikako beltzak guztiz **infantilizatuak** ageri dira *Country of my Skull* filmean: dantza egiten, kantatzen eta mozkorraren mozkorraz lurrera erori arte edaten. Berria - Kultura

---

# infantilizazio

*iz* haur bihurtzea.

Masa kulturak bultzatzen duen gizartearen **infantilizazioak** literatura ito behar duela diote, literaturari eman nahi zaion funtzioa entretenitzearena dela kritikatuz. Berria - Kultura

---

# infantizidio

*iz* haur hiltzea.

Atxilotuak izan ziren, epaileak behin baino gehiagotan iradoki zizkion prentsari haien erruari buruzko susmoak, eta egunkariek istorio izugarriak asmatu zituzten haien inguruan: promiskuitatea, **infantizidioa,** diruzalekeria, [...]. Pako Aristi

Azaldu nizun, Eugeni, zein garrantzi txikia duen erailketak munduan, eta, ondorioz, jabetuko zinen **infantizidioak** askoz ere txikiagoa duela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# infantzoi

*iz* bere lur eta funtsen gaineko aginte mugatua zuen kaparea.

Kaparedun etxe batekoa zen, **infantzoi,** beraz. Aingeru Epaltza

Antonio Borboikoak bere meneko lurraldeetako noble, **infantzoi** eta armagizon guztiak bildu zituen. Aingeru Epaltza

Hurrengo udaberrian, erreginaren kartak **infantzoi** bilakatu zuen. Aingeru Epaltza

Alabarendako senargai **infantzoia** aurkitzeaz bezainbatean, egotea hobetsi zuen noble gazteak. Aingeru Epaltza

Laster su galdatan erreko da Navarreria, eta Obanosko Biltzarreko **infantzoiak** han eta hemen feudo gaizkileek egindako hondamendiak estali nahian dabiltza. Patziku Perurena

---

# infartu

**1** *iz* organo bat, eskuarki bihotza, edo organo zati bat hiltzea. ik **bihotzeko**.

**Infartu** hura izan zuenetik bihotza zaindu beharra dauka. Patxi Iturritegi

Alain Sole diabetikoa da, eta kartzelan zegoela **infartu** bat izan zuen. Berria - Mundua

Bihotz bat **infartu** batez matxuratuta gelditu denean. Berria - Gaiak

· Bularreko angina bihotzeko **infartuaren** atariko eritasuna izaten da askotan. Berria - Gaiak

Aizpuruari medikuek azaldu diotenez, Gorostidiri bihotza gelditu egin zitzaion miokardioko **infartu** akutu baten ondorioz.

**2** (beste organo batekoa)

**Buruan** infartua eman zidan, eta buru erdia gelditu egin zitzaidan. Berria - Harian

Odolbilduen aurkako botikek Sharonen garuneko **infartua** erraztu zutela salatu dute. Berria - Mundua

*ik beherago* 3. Askoren artean

Pio Leiva abeslari kubatarra atzo hil zen, Habanako (Kuba) erietxe batean, **burmuineko** infartu batek jota. Berria - Kultura

**3 *garun infartu***

Gaur, AEBetan, hiru minutuan behin pertsona bat hiltzen da garun **infartuak** jota.

Ostiral iluntzean zendu zen, garun- **infartu** baten eraginez. Berria - Euskal Herria

**4** *adkor* guztiz kitzikagarria.

Harenak bai zango luzeak, eta ze titi parea... **infartukoa,** aizu! Kontuz, Mikel. Patxi Iturritegi

---

## infektatu, infekta, infektatzen 1 da/du *ad* izaki bizidun batek beste bati mikrobio patogenoak itsatsi. ik**pasmatu**.

Sinuak **infektatzen** direnean [...] hazi egiten da mukosa. Irene Aldasoro

Buru gaineko azalean dituen erredurak ez dira larriak, dio hark, baina kontuz ibili beharko du **infektatu** ez daitezen. Oskar Arana

Zeren oineko behatza **infektatu** egin baitzait eta pomada jarri behar dut. Josu Zabaleta

Kontua da gure gorputzak beti daudela **infektaturik,** mikrobio pila izaten baitute barruan; besteak beste, gaixotasun arruntak eragiten dituztenen koloniak. Irene Aldasoro

Behin birus batek pertsona bat kutsatzen duenean, pertsona horrek antigorputzak sortzen ditu gaitzaren kontra, eta birus horrek berriro ezin du **infektatu**. Berria - Gaiak

**2** (informatikan)

Aldaera berriak **infektatutako** ordenagailuen bidez zabaltzen dira. Berria - Gaiak

**3** (era burutua izenondo gisa)

Odol transfusio batean odol kutsatua jasoz gero, baita pertsona **infektatu** baten odolarekin kutsatutako xiringa, orratz edo beste edozein tresna erabiliz gero Luis Elberdin

---

## infekzio *(orobat **infezio** g.er.)* 1 *iz* mikrobio patogenoak organismoan zabaltzea, bai organismo osoan, bai zati batean. ik **pasmo**[1].

Hesi mekaniko gisa, garrantzi handikoa da larruazala osoa izatea, **infekzioa** eragozteko. Irene Aldasoro

**Infekzioa** izan den lekuan agertzen den zornea. Irene Aldasoro

**Infekzio** bat izan zuen Euler-ek, eta, sufrimendu ikaragarrien ondoren, bigarren begitik ezindurik geratu zen. Jon Muñoz

**Infekzioa** harrapatuko duzu! Luis Elberdin

Biriketako **infekzioa** du eta pneumonia izateko arriskua. Berria - Euskal Herria

Hesteetako **infekzioak** saihestuz. Juan Garzia

Odolaren **infekzioak** hil zituen emakumeak. Berria - Gaiak

Hainbat **infekziok** erasan zioten, tartean tuberkulosiak. Berria - Harian

Gero, hiru asteren buruan, **infekzioa** menderatu zuten. Xabier Olarra

**Infekzioa** agertu eta 12 ordu baino lehenago azaldu ohi dira biomarkatzaileak. Berria - Gaiak

Biriketan duen **infekzioa** larriagotzen ari da. Berria - Gaiak

Hiru egunen buruan, baina, hil egin zen, erreketak ekarri zion **infekzioarengatik**. Gotzon Garate

Belarriko **infekzio** batek eragin zion gaitza. Berria - Kirola

Mikrobio batek edo birus batek eragindako **infekzioari** zor zaio. Juan Garzia

Odoljario eta **infekzio** larriak gertatu ziren zenbait kasutan. Luis Elberdin

**Infekzio** larri baten ondorioz, eskuin zangoa ebaki behar izan zioten. Berria - Kultura

Askotan **infekzioak** sortzen dira. Luis Elberdin

Jariatzeak zailtasun handiagoak izaten ditu, eta **infekzio** kronikoa sor daiteke. Irene Aldasoro

Zaldiaren hanka zaurituan **infekzioaren** aurkako ukendu bat jartzen. Bernardo Atxaga

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Infekzio** eritasunen kasuan, adibidez, lehen Afrikara joaten zinenean han garatzen zenuen gaixotasuna, han inkubatzen zenuelako birusa. *ik beherago* 4; *ik* infekzioso. Berria - Gaiak

Hainbat **infekzio** kasu eragin dituelako haur jaioberrietan. Berria - Euskal Herria

Berehalaxe desegin zitzaion **infekzio** -gunea. Askoren artean

Ospitaletan hondamendia franko eragin duen **infekzio** -gurutzatzearen arriskua saihesteko. Irene Aldasoro

Hurbiltasun horrek areagotu egiten du **infekzio** arriskua. Berria - Gaiak

Kroazian beste **infekzio** -gune bat, bigarrena, agertu dela baieztatu zuten atzo osasun agintariek. Berria - Harian

Putzuak **infekzio** -fokuak dira. Berria - Mundua

Egun komertzializatzen den haragi asko **infekzio** -iturri denez, haragizko produktuek antibiotiko ugari txertatuak dauzkate. Edorta Agirre

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Borrokaldiaren ondorioz Sebas Lasak joan den astean gernu **infekzioa** izan zuela azaldu dute. Berria - Euskal Herria

**4 *infekzio gaitz*** ik **infekzioso 2.**

OMEren esanetan, ordea, N-9ak **infekzio** gaitzen arriskua handi dezake. Iragan astean Txinako **Infekzio** Gaitzen Kontrolerako Zentroak esandakoa berretsi du. Berria - Gaiak

Erromako Unibertsitateko **Infekzio** Gaitzen Institutuko zuzendariak. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste infekzio** (3); **biriketako infekzioa** (4); **eta infekzio** (4); **eta infekzioen** (3); **infekzio asko** (4); **infekzio bat** (3); **infekzio batek** (3); **infekzio gaitzen** (12); **infekzio gaitzen kontrolerako** (8); **infekzio gune** (3); **infekzioa du** (4); **infekzioa izan** (5); **infekzioen aurkako** (3); **pekingo infekzio gaitzen** (3); **txinako infekzio gaitzen** (5)

---

## infekzioso 1 *izond* infekzio-. ik **infekzio 2.**

Gaixotasun **infekziosoen** azterketak. Berria - Gaiak

Artsenikoa eta eritasun **infekziosoek** sorturiko toxinak. Irene Aldasoro

Gaixotasun **infekzioen** Nazioarteko Biltzarrean. Berria - Gaiak

**2** infekzioa eragiten duena.

Biziak ezinbestekoa du barne-ingurune berezi bat mantentzea, organismo **infekziosoetatik** eta ehun arrotzetatik babestua ez ezik, gai kimiko kaltegarrietatik ere libre. Irene Aldasoro

**3** ***gaitz infekzioso*** ik **infekzio 4.**

Immunologia-sistema ahultzen du, eta, ondorioz, gaitz **infekziosoak** errazago zabaltzen dira. Berria - Gaiak

Aurkikuntzak prostatako minbizia gaitz **infekzioso** batek eragin dezakeela iradoki du. Berria - Gaiak

Sendatzen errazak diren gaitz **infekziosoen** ondorioz hiltzen dira urtero milioika lagun. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **gaixotasun infekziosoen** (4)

---

# inferentzia

**1** *iz* ondorioztatzea; ondorioztatzearen ondorioa.

Filosofoak **inferentzia** razional baten beharra du, eta hori lortzea epistemologiaren oinarrizko auzien artean dago. Askoren artean

Egiten duguna **inferentzia** bat da, objektutik eta horren propietateetatik abiatuz horien kausara ailegatu arte, hots, objektura. Askoren artean

Azkeneko oinarria aurkitu arte **inferentziak** egiten jarraitzen badugu, arrisku handia dugu gurpil zoroan sartzeko. Askoren artean

Horrela legearen azterketak **inferentzia** induktiboaren logika soilik aztertu beharrean, aurkikuntzaren mekanismoaren -analogien, ereduen, metaforen, esperimentuaren edo behakuntzaren- aztertzeari ekingo dio. Askoren artean

Arrazoimen hutsak arimaren adigaitik abiatuta arimaren substantziatasuna, batasuna eta hilezkortasuna inferitzeko egiten duen saialdiak **inferentzia** okerren sistema bat sortzen du. Ibon Uribarri

**Inferentzia** bakoitzean oinarrian datzan esakune bat dago, eta honetatik segitzen den beste bat, hots, ondorioztapena, eta azkenik, **inferentziaren** ondorioa. Ibon Uribarri

"Ni bakuna naiz" esakunea apertzepzioaren adierazpen zuzen gisa ikusi behar da, "cogito, ergo sum" ustezko **inferentzia** kartesiarra egitatean tautologikoa den bezala, *cogito*-ak *(sum cogitans)* errealitatea zuzenki adierazten duen heinean. filosofoak, ordea, hori irudimenaren ondorioa besterik ez dela diote, hau da, ikusgai denaren bidez (hau da, gurengandik hurbil diren gorputzen arabera) ezin ikusizkoari ere **inferentziaz** iritzi nahi izatea. Ibon Uribarri

Pentsa dezagun norbaitek A ustea duela eta A ustea B ustearen bitartez justifikatzen duela, bigarren horretatik ondorioztatuz -indukzioz, dedukzioz edo azalpen hoberenaren **inferentziaz,** esaterako-. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **inferentzi** g.er.) ik **inferentzial.**

Oro har onartzen da **inferentzia** -katea ez dela lineala, holista baizik, eta uste batek bestea babesten duela, horietariko inor aurretiazkoa izan gabe, edo beste denak baino oinarrizkoagoa. Askoren artean

Lehenengotik bigarrenera abia gaitezen: **inferentzia** prozesu baten beharrean gaude, eta hau egokiro azaldu beharko genuke bere erabilera justifikatu ahal izateko. Askoren artean

Egiazkotzat jotzen diren proposizio batzuetatik, **inferentzi** -arauak bide-makulu harturik, beste proposizio batera iristen den arrazoiketa-modua. Anjel Lertxundi

Horietatik dedukzioak egiteko **inferentzia** -erregela batzuk zehazten dira eta, horrela, gure logikaren teoremak deduzituko dira. Askoren artean

**Inferentzia** -sistema batean. Xabier Arregi

Oso garbi jabetzen da (adimenez, **inferentzia** bidez bada ere) zer ari den galtzen bizitzan **Inferentzia** -ondorioa. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hiru eratakoak dira inferentziak, beraz, oro har judizio guztiak diren bezala, adimeneko ezagutzaren hartuemana adierazteko eran ezberdintzen diren heinean, hots, arrazoimen- **inferentzia** kategorikoak, edo hipotetikoak, edo disjuntiboak. Ibon Uribarri

Halako edozein esakune orokor erabilgarria da arrazoimen- **inferentzia** bateko esakune nagusi gisa. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arrazoimen hutsaren inferentzia** (3); **arrazoimen inferentzia** (28); **arrazoimen inferentziak** (3); **arrazoimen inferentziaren** (3); **arrazoimen inferentzien** (8); **arrazoimen inferentzietan** (4); **hutsaren inferentzia** (4); **inferentzia baten** (3); **inferentzia dialektiko** (5); **inferentzia dialektikoen** (3); **inferentzia era** (5); **inferentziaren ondorioa** (3)

---

# inferentzial

*iz* inferentziarena, inferentziari dagokiona. ik **inferentzia 2.**

Lukreziok gertaera sentsorialetan eta arrazoiketa **inferentzialetan** oinarrituriko argitasunez aurkezten ditu beti bere tesiak. Xabier Amuriza

Arrisku handia dugu gurpil zoroan sartzeko, segida **inferentzialean** aldez aurretik agertutako uste bat berriro ager daiteke-eta (A-B-C-D... -B-C-D-...). Askoren artean

Justifikazio **inferentzialeko** kateak zirkuluan -gurpil zoroan- ixten direla dio koherentismoak. Askoren artean

---

# inferiarazi,

inferiaraz, inferiarazten du *ad* inferitzera behartu.

Beste izate oro **inferiarazten** duen izatearen korrelato gisa.. Ibon Uribarri

---

# inferitu,

inferi(tu), inferitzen du *ad* ondorioztatu.

Esperientzia da soilik, kausaren eta efektuaren izatea eta mugak erakusten dizkiguna, eta objektu baten existentzia beste batenetik **inferitzeko** gai egiten gaituena. Patziku Perurena

Gogoeta egiteak beti aurrea hartzea esan nahi du, kuestionatzea, oinarriak bilatzea, ideiak eta gertakariak lotzea, **inferitzea,** hitz batez. Xabier Amuriza

Zuzenki ezagutua denaren eta **inferitua** besterik ez denaren artean. Ibon Uribarri

Hemen, bigarrena lehenengotik abiatuta **inferitzen** dut. Ibon Uribarri

Niri eman ahal zaizkidan oro harrezko objektuak pentsatzeko baldintzen totalitatetik abiatuta oro harrezko gauzen ahalgarritasunaren baldintzen batasun sintetiko absolutua **inferitzen** dut, h[au] d[a], beren adigai transzendental soilaren arabera ezagutzen ez ditudan gauzetatik abiatuta zerizan ororen zerizana **inferitzen** dut. Ibon Uribarri

Hortaz, munduko gauzen izatetik beren kausa **inferitzen** bada, orduan hau ez dagokio arrazoimenaren berezko erabilerari, baizik espekulatiboari. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **absolutua inferitzen** (3); **ere inferitu** (5); **inferi daitekeela** (3); **inferitu ahal** (5); **inferitu besterik** (3); **inferitzen du** (3); **inferitzen dugu** (3); **inferitzen dut** (6); **inolaz ere inferitu** (4)

---

# inferitze

*iz* ondorioztatzea.

Halako adigaiek, dena dela, baliotasun objektiboa baldin badute, orduan *conceptus ratiocinati* izena jaso dezakete (zuzenki inferitutako adigaiak); ez dutenean, itxurazko **inferitze** baten bitartez onartzen dira ezkutuan bederen eta *conceptus ratiotinantes* izena jaso dezakete (arrazoikeriaren adigaiak). Ibon Uribarri

**Inferitzea** beti behar dugunez eta azkenean bertara erabat ohitzen garenez, [...]. Ibon Uribarri

---

# infernal *izond* infernutarra.

Erakargarria zen putzu **infernal** hura. Harkaitz Cano

---

# infernu *(orobat **ifernu** g.er.)* 1 *iz* kristau erlijioan, kondenatuak betiereko zigorra hartzen duten lekua.

Eta Danteren **infernuko** zein zirkulutan eta zenbatgarrenean sartuko lituzkete gero ene errautsen errautsak? Joan Mari Irigoien

Hura **infernuko** deabrua balitz bezala. Joan Mari Irigoien

Egun hartan bertan hil zen **infernuko** morroi eta ilunpetako seme zen gizon zital hura. Askoren artean

Berak agintzen diguna egingo diagu, eta **infernuko** oinazeetatik libratuko dizkiagu geure arimak. Askoren artean

Irten zen **infernutik,** saiatu zen purgatorioa igarotzen, baina bere barruko **infernuko** sugar ikaragarrietan erre zen, paradisura iritsi gabe. Jose Morales

Aspaldi-aspalditik **infernuko** penak eta nekeak nozitzen dituen kriatura dohakabe bat. Koldo Biguri

Nola egingo diozue ihes **infernuko** zigorrari? Elizen arteko biblia

Zuk munduan hainbeste gaiztakeria eta bekatu egin zenuelako, **infernua** merezi duzu. Askoren artean

Mendearen bukaerarako **infernuak,** paradisuak, ardiak eta artzainak desagertu ziren, elizak hustu eta apez larderiadunak xuhurtu. Itxaro Borda

**Infernuraino** segituko nizuke. Anjel Lertxundi

Zeruak ez ahal nau zigortuko eta **infernuak** ez ahal du nire kontrako mendekurik hartuko ostatuan kontatu didatenarekin paper zuria belzteagatik. Anjel Lertxundi

Mundu guztiarekin larrua joz gero, bazoaz ala ez zoaz **infernura** ? Karlos Zabala

Paradisuko bidea **infernukoa** baino errazagoa zela. Itxaro Borda

Negozioarekin **infernuraino** jarraitzea beste biderik ez dut. Lopez de Arana

Zure laguna **infernuko** laugarren zirkuluan dago. Joseba Sarrionandia

Alak fundi eta **infernu** sakonera kondena dezala. Jon Alonso

**2**

-Hoa **infernura** ! -erantzun zuen Pepponek-. Koldo Biguri

Doala **infernura!,** nik, erabat amorraturik. Anjel Lertxundi

Nahiago **infernura** joan! Koldo Biguri

Doazela **infernura,** madarikatu arraio horiek! -oihu egin zuen agureak-. Koldo Biguri

Ederto, Jauna, bidal nazazu **infernura** . Mirentxu Larrañaga

Joan daitezela **infernura** bere auto madarikatua eta bere seme madarikatua! Koro Navarro

-Ez diat inor ez **infernura** ez zerura bidaliko... Paddy Rekalde

**Infernuan** erreko ahal da! -erantzun zioten. Martin Anso

· Doala **infernuko** zulora! Patxi Zubizarreta

**3** grekoen mitologian eta Testamentu zaharrean, hilen arimen egoitza.

Ulises ez al zen, ba, **infernura** jaitsi bere adiskide Elsenor zenduaren itzalaren bila, lagunak, itzala eskuraturik, betiko atsedena izan zezan? Anjel Lertxundi

**Infernu** aldera laku batetik sartzeak, [...] bataioaren errito kristaua murgilduz egiteari bide eman zion. Xabier Olarra

Greziar mitologian, **Infernuko** ibaietako bat. Oskar Arana

Alde banatan, urrezko eta zilarrezko zakurrak zeuden, Altzinooren etxea zain zezaten Hefesto **infernuetako** jainkoak eginak; zakur horiek hilezkorrak dira eta ez dira zahartzen. Juan Kruz Igerabide

-Ahal banu, bizia ere kenduko nikek, eta Hadesera ( **Infernuetara** ) bidali. Juan Kruz Igerabide

Hades eta Persefoneren jauregira ( **infernura** ) jaitsi behar duk, Tiresias igarle itsuari etorkizuna adierazteko eskatzera. Juan Kruz Igerabide

**4** *irud*

Lau egun, Gernikako **infernutik** ateratzea erabaki zuenetik. Alberto Ladron Arana

**Infernuan** emandako lau aste. Alberto Ladron Arana

Bilbora itzultzea **infernura** itzultzea zen. Joseba Zulaika

**Infernu** hartatik libratuko du, azkenik, soldadu talde batek. Berria - Kultura

Eta gero... gero zerutik **infernura** ! Migel Angel Mintegi

Gau hartantxe, **infernua** hasi zen: organotxoak, bozgorailuak, eztandak, uluak, kantuak, ezkilak, txistuak, danbakoak, marruak. Koldo Biguri

Paradisua eta **infernua,** txanponaren bi aldeak ezagutu nituen den-bora gutxian. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiru gizonek **infernu** bana garraiatzen dute, eta guztiak **infernu** bakarra dira, eritasunak, miseriak, ezjakintasunak eta malurak bazkatzen duten **infernu** grekoa. Berria - Kultura

Tortura izugarriak eragiten ditugula, **infernuaren** atari direla etxeotako sotoak. Anjel Lertxundi

**Infernu** batetik bertzera, Franco-ren haztaparretarik Frantses Estaduaren sare gaixtoetara, askorentzat hilobi bihurtuko zirenak, nun ez ziren Mauthausen-eko alanbre hilkorren barnetara igorriak... Herria

Parabisua [Bali] **ifernu** bilakatu da : 190 hil, 300 bat kolpatu, haien artean ehun bat gogorki zaurituak, batzu hil-zorian. Herria

Dachauko **infernutik** atera ziren herritar zenbait ezagutu ditugu halere 1945-1946ko urte haietan. Piarres Xarriton

Bazekien hura zela **"infernu** naziaren zirkuluetako bat", hala adierazi du. Urtzi Urrutikoetxea

Ni **infernuan** egona nauk, ez diat hara itzuli nahi. Bernardo Atxaga

Ostera komisaldegian nintzela iruditu zitzaidan, berriro **infernu** hartan... Jokin Urain

Bere haurtzaroa **infernua** izan zela aitortu zidan lagun batek. Bernardo Atxaga

Hantxe bertan genuen guk nahiko **infernu** latza. Edorta Jimenez

Hitlerren **infernutik,** Stalinen **infernutik,** eta baita beste pare bat **infernutatik** ere pasea naiz. Koro Navarro

**Infernua** bizi dugu eta **infernuaren** erdian bizi gara; bi modu daude **infernurik** ez bizitzeko: **infernua** onartu eta **infernuko** bihurtu, hala jokatuta ez baikara **infernuan** bizi garenik ohartuko. Anjel Lertxundi

Hots mingorra zen, gauaren behe-sotoetan edo **infernu** urrunen batean sortua. Edorta Jimenez

Itsuskeriaren **infernutik** atereak dirudite ostatuko parrokiano femenino bakanek. Aingeru Epaltza

Ez zeru eta ez **infernu,** minaren sentipenak eta plazerarenak nahasten diren linbo badaezpadakoa begitandu izan zaio beti bizartegia. Harkaitz Cano

Marrorekin izan nuenak beste **infernu** bat piztu zidan barruan. Juan Kruz Igerabide

Izan ere, asteak ez dira zazpi egunekoak **infernu** honetan. Arantxa Iturbe

Atletico Madril Bigarren Mailako **infernuan** zebilenean. Berria - Kirola

Alavesek puntu bakarrera du **infernua,** eta Athleticek hiru puntura. Berria - Kirola

Zerbaitegatik deitzen diote [Paris-Roubaix] probari iparraldeko **infernua** . Berria - Kirola

Zeru bakoitzak bere **infernua**. Joan Mari Irigoien

**5** (izenondo gisa)

Eta infernu hura, halarik ere, **infernuago** izan zitekeen -gaitz eta neke den arren halakorik imajinatzea-. Joan Mari Irigoien

**6** (hitz elkartuetan)

Oi Herio harro hori, zer festa duk antolatua heure **infernu**-zuloan, ukaldi odoltsu batez baituk hainbeste printze bet-betan kolpatu? Juan Garzia

**Infernu**-zulo guztietako ateak irekitzeko bidea eman zion Jexuxi. Xabier Etxabe

· Berak kontzentrazio-**infernua** ezagutu zuen soberan, erbesteratu baino lehen, Le Vernet d'Ariège eta Djelfa esparruetatik igaro zen eta. Berria - Kultura

Baina garrantzitsuena mundu osoak kartzela-**infernu** honetan arreta jartzea izan da. Berria - Mundua

**7**

**-Infernu** zolako bi mila deabruak! Elena Touyarou

**8** ***infernuko*** *izlag* infernutarra.

Etsairen bat edo beste badaukak **infernuko** ontzi honetan, Sebastian. Edorta Jimenez

Eta garrasika hitz egin behar zenuen, mota guztietako karranka, burrunba eta txistuen artean, **infernuko** kakofonia zen hura. Karlos Zabala

**Infernuko** etsai bi hainbeste aingeruz inguraturik... Inazio Mujika Iraola

**Infernuko** lana, horixe egin ditek alemanek. Anjel Lertxundi

Biluzik ikusi banu baino askoz gehiago zirraratu ninduen hiru kolore haien elkarketa ia **infernukoak; infernukoak,** ez dut beste hitzik aurkitzen hori adierazteko. Matías Múgica

Munstro ahoa zeukaten bi kapitxele beltzak gar bizien aitzinean nabarmendu ziren, eta **infernuko** bi zakur ematen zuten, sutan arnaska. Koldo Izagirre

**9** ***infernuko hauspo*** eskusoinua.

Soinu txikiak edo **infernuko** hauspoak, iraultza bat sortu zuen erromerietan. Berria - Kultura

Eta elizak **infernuko** hauspoari gogor erasoagatik, oinak dantzan sonujolearen inguruan. Iñigo Aranbarri

Gizarajo hura ez zen izan **infernuko** hauspoaren doinura dantza lotuan egiteagatik zigortu zuten bakarra. Berria - Kultura

Eta Zumarragako aldean jotzera prestatzen ginen soinujoleoi hasi zituan apaiz alditxartuak **infernuko hauspoa** jotzen genuela esaten. Pako Aristi

Zergatik uste duzue, bada, **infernuko** hauspoa deitzen zitzaiola eskusoinuari? Pako Aristi

**10** ***ez zerurako ez infernurako***

Garibai bere amonarekin oheratzen zelako omen dago haren arima ez zerurako ez **infernurako**. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere infernua** (3); **da infernu** (3); **da infernua** (5); **eta infernu** (9); **eta infernua** (17); **eta infernuak** (12); **eta infernuak ez** (9); **eta infernuan** (7); **eta infernuaren** (8); **infernu bat** (6); **infernu bihurtu** (4); **infernu bilakatu** (4); **infernu bilakatuko** (6); **infernu hartako** (3); **infernu hartan** (13); **infernu hartarik** (3); **infernu hartatik** (5); **infernu honetan** (5); **infernua baino** (3); **infernua bera** (3); **infernua bizi** (4); **infernua da** (4); **infernua ere** (4); **infernua eta** (10); **infernua izan** (3); **infernua merezi** (6); **infernua merezi duzu** (3); **infernuak ere** (4); **infernuak ez** (10); **infernuak ez ahal** (9); **infernuan baino** (3); **infernuan bizi** (3); **infernuan ere** (6); **infernuan ere ez** (3); **infernuan erreko** (3); **infernuaren erdian** (4); **infernuaren ideia** (3); **infernuetara jaitsi** (3); **iparreko infernua** (7); **orain infernua** (3); **zerua eta infernua** (5); **zigortuko eta infernuak** (9); **zuen infernua** (3)

**baina infernuko** (3); **da infernuko** (4); **edo infernuko** (3); **edo infernura** (4); **ere infernuko** (3); **eta infernuko** (20); **eta infernuko sua** (3); **eta infernura** (8); **ez infernurako** (3); **ez infernurik** (3); **hura infernuko** (3); **infernuko atea** (7); **infernuko ateak** (4); **infernuko etsaia** (5); **infernuko hauspoa** (10); **infernuko hauspoaren** (4); **infernuko makina** (3); **infernuko su** (4); **infernuko sua** (4); **infernuko sukaldean** (3); **infernuko sutan** (4); **infernuko sutara** (5); **infernuko zulo** (3); **infernuko zuloan** (6); **infernuko zulora** (12); **infernukoa baino** (3); **infernura eraman** (3); **infernura eramango** (3); **infernura eta** (3); **infernura jaisten** (5); **infernura jaitsi** (3); **infernura jaurtikia** (3); **infernura jaurtikia izan** (3); **infernura joan** (11); **infernura joango** (6); **infernura joaten** (3); **infernurako bidaia** (3); **infernurako bidean** (5); **infernurik ez** (4); **infernutik zerura** (3); **leizea infernuko** (3); **pagabasoko leizea infernuko** (3); **zerurako ez infernurako** (3); **zerutik infernura** (5); **zoaz infernura** (4)

---

# **infernuratu**, infernura(tu), infernuratzen da/du *ad* infernura joan edo eraman, infernura kondenatu.

Xedez, obraz eta hitzez bekatu eginen zuen eta zuzen-zuzen **infernuratuko** zen. Itxaro Borda

Bai, deabruak Koro Zaitegi du izena, tolosarra, irakaslea, eta arima ustez garbi bat **infernuratu** nahian ari zen. Joxean Sagastizabal

Zeren Luthero hil zen, Jainkoak **infernuratu** zuen, eta orain harat eta honat dabilkigu hura, Luziferren legioekin deabru bihurturik. Joan Mari Irigoien

Antzinako jendeek **infernuratzeko** sarbidetzat zeukaten lakua. Xabier Olarra

Geu infernuan kiskali ordez gure erruaren sinboloa **infernuratzeko** aukera. Pako Aristi

Hila eta **infernuratua**. Aingeru Epaltza

---

# **infernutar** *(orobat* ***infernutiar****) izond*

Aberastasuna berdintasunez banatzearen aldeko teoria **infernutarrek** kutsatua. Koldo Biguri

Aitzin egunetako tenperatura **infernutarra** ez zen batere eztitua, eta izerdi-uharretan nintzen. Aingeru Epaltza

Aberastasuna berdintasunez banatzearen aldeko teoria **infernutarrek** kutsatua. Koldo Biguri

Zertarako deskribatu zain eta etsita dagoenaren egoera **infernutar** hori. Eduardo Matauko

Pirro **infernutiarrak** Priamo aitaso zaharra bilatzen du. Juan Garzia

---

# **infernutsu** *izond* infernutiarra.

Baina ezin esango dut gertakizun goratsua edo behera-behar **infernutsua** izan denik. Anjel Lertxundi

---

# **infibulazio** *iz* norbaiti ernalkinetan eragozpen bat ipintzea, koitoa ezin gauza dezan.

**Infibulazioa:** Hirugarren modu hau are gordinagoa da. Berria - Gaiak

---

# **infidel** 1 *izond/iz* sinesgabea.

Egia absolutu bat badagoela, eta leku seguru batean dagoela gordeta, fidelek eta berak badakiten lekuan, **infidelak** beti haren mehatxu barbaroa izaten diren santutegian. Joxe Azurmendi

**Infidel** horiek, Jainkoaren existentzian sinetsi arren, beren sineskera faltsua Jainkoari besterik zor ez zaion zerbaiti aplikatzen ziotenez gero [...]. Xabier Kintana

Finkielkrauten Arrazoimenaren Elizak bere fidelak, **infidelak,** heretikoak, konbertituak eta Elizek behar izaten duten orotarik nahikoa dauka. Joxe Azurmendi

• **2** *izond/iz* desleiala.

Emazte **infidelak**. Itxaro Borda

Gizonok **infidel** fama daukagu konkistak bakarrik kontatzen ditugulako, engainatu gaituztela esatea gustatzen ez zaigulako. Mikel Hernandez Abaitua

## infidelitate *(10 agerraldi 3 liburutan)* *iz* desleialtasuna.

Noraren **infidelitatea** begien bistakoa zen. Mikel Hernandez Abaitua

Inoiz ez nuen pentsatu **infidelitate** batek hainbesteko sufrimendua sor zezakeenik. Mikel Hernandez Abaitua

Nire psikologoak zioen posible zela **infidelitatea** gainditzea. Mikel Hernandez Abaitua

## infideltasun *(4 agerraldi 2 liburutan)* *iz* desleialtasuna.

Senarrak emaztearen **infideltasunaren** kariaz, honengandik banatzea eska dezakeen bezala, emazteak ere eskatu ohi zuen behinola senarraren **infideltasunarengatik** . Iñaki Iñurrieta

· Oso bizkor geratu zen alargun, eta esamesa zebilen nire aitonak bere burua hil ote zuen, haren **infideltasunak** jasan ezinez. Juan Garzia

## infiltrazio 1 *iz* norbait erakunde, talde edo gune batean isilean sartzea, espiotza, sabotaia edo kideko ekintzak egiteko.

Banaketa hesia palestinar terroristen **infiltrazioa** saihesteko da. Berria - Mundua

Muga ez kontrolatzea eta «terroristen **infiltrazioa»** laguntzea leporatzen diete. Berria - Mundua

**Infiltrazioa** burutzeaz gain, Poliziak baimena ukanen du salaketa bultzatzeko talde horietako partaideen artean.

1947ko martxoan sindikatuetan eta administrazioan ez ezik, ikuskizunen munduan ere, eta Hollywooden bereziki, **infiltrazio** komunistaren kasuak aztertu behar zituen lehenengo batzordea sortu zen. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

**Infiltrazio** -prozesu neketsu hau. Iñaki Mendiguren

CIAkoak ofizialki Kubatik joanak ziren arren, **infiltrazio** lanetan segitu zuten. Edorta Jimenez

## infiltratu, infiltra, infiltzatzen 1 da/du *ad* norbait erakunde, talde edo gune batean isilean sartu, espiotza, sabotaia edo kideko ekintzak egiteko.

Kim Philby, britainiarren zerbitzu sekretuetan **infiltratu** zen agente sobietarra Gernikan izan zen. Edorta Jimenez

Miamin bizi diren disidente taldeetan **infiltratutako** bost kubatarrak berriz epaituko dituztela jakinarazi dute. Berria - Mundua

Kanpamentuan **infiltratu** ziren mairuen satorren lana izan zitekeela ahaztu gabe. Jon Alonso

Frantziatik **infiltraturiko** terroristak harrapatzeko. Joseba Sarrionandia

Erasotzaileek pertsona bat **infiltratu** zuten Kadiroven inguruan. Berria - Mundua

90eko hamarkadan Kubako Zerbitzu Sekretuen Zuzendaritza Nagusiak (DGI) hainbat kide **infiltratu** zituen terrorismo ekintzak egiten zituzten disidente taldeetan. Berria - Mundua

**2** iragazi.

Pixkanaka **infiltratzen** da nire baitan. Iban Zaldua

**3** norbaiti, min harturiko giltzadura batean, sendagai bat injektatu.

Nihatek **infiltratuta** jokatu du azken bi partidetan.

**4** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Handik aurrera, obsesio bihurtu zitzaion Fructuosori "santujale" **infiltratuak** bazter guztietan bilatzea. Inazio Mujika Iraola

Gerra hasi zenean bi apaiz **infiltratu** atxilo hartu zituen hura bera nauk... Inazio Mujika Iraola

Polizia **infiltratu** berberek agian. Markos Zapiain

· Lehendik ere bagenuela eskarmentua, eta **infiltratuak** egon zitezkeela organizazioan. Inazio Mujika Iraola

Gu ideia nazionalsozialistetara zorrotz lotzea izaten zen haren lana, baina baita gure artean egon zitezkeen **infiltratuak** detektatzea ere. Anjel Lertxundi

Esaten ahal dizut **infiltratuak** dauzkagula tropan, han berton, uhartean, eta lanean ari gara ideia sozialistak zabaltzen. Koldo Izagirre

Estatu Batuek trebaturiko 10 irakiarretik bat **infiltratu** lanetan aritu dela. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **infiltratu asko** (3); **infiltratu zen** (3)

## infinitesimal 1 *izond* guztiz txikia.

Ideia hori are gehiago indartu du telebistak, zuzeneko transmisioaren bidez, hartan gertaeraren denbora eta irudiarena bat baitatoz erabat, atzeramendu **infinitesimal** baten aldearekin, uhin hertziarrek iristeko behar duten denboraren aldearekin, mikrosegundo batzuk. Josu Zabaleta

Koktelaren apar **infinitesimalak** mihia eta eztarria leundu eta barnean dir-dir egiten zion Elleni. Lopez de Arana

Baina ttikiak, azkengabeki ttikiak, **infinitesimalak,** ez du bere ttikian azkenik, eta handiak, azkengabeki handiak edo infinituak ere ez handian (azkengabea, azkenik ezean, ez da, eta baldin bada, orduan ez da azkengabea). Iñaki Segurola

**2** (matematikan) azkengabe txikia.

Partikula elementalak puntu **infinitesimalak** lirateke onenean ere. Iñaki Segurola

Hamaseigarren menderako garbi zegoen egutegia hamar egun atzeratuta zihoala eta, hamar egun horiek kendu ondoren, ikusi zen posible zela bere desegokitasuna kuantu **infinitesimaleraino** murriztea bisusturteei buruzko araua aldatuz. Iñaki Mendiguren

Egoera bat aztertzeak ekarriko du, ezinbestez, garrantzi gutxiko aldaketak alde batera uztea, matematikagileek ere, hainbat eragiketatan -logaritmoen kalkuluan, esaterako- kopuru **infinitesimalak** baztertzen dituzten bezala. Isabel Arrigain

Zenbakien teoria, geometria, metodo **infinitesimalak,** optika, astronomia. Jon Muñoz

**3** ***kalkulu infinitesimal*** matematikaten adarra, kopuru infinitesimalekin egiten diren eragiketez aritzen dena.

Eta, **kalkulu** infinitesimalaren bidez, haiek ebazteko bidea erakutsi zuen. Berria - Harian

Kalkulu **infinitesimala** (kalkulu diferentziala, kalkulu integrala). Jon Muñoz

· Saguek larrutik ezagutzen dute kalkulu **infinitesimala:** zerotik oso hurbil dago jaio eta katuengandik babestu behar dutela ikasi bitarteko denbora. Anjel Lertxundi

## infinitibo *iz* zenbait hizkuntzatako aditzaren modu ez jokatuetako bat.

Hebreeraz, arabieraz bezalatsu, aditzak aipatzeko, latinez orainaldiko lehen pertsona, gaztelaniaz **infinitiboa** edo euskaraz partizipioa bezala, iraganeko hirugarren pertsona singularra erabiltzen da, era horretan aditzaren erroa, eskuarki hiru letrakoa, ondoenik agertzen delako. Xabier Kintana

Aditz baten **infinitiboa**. Joxan Elosegi

Alemanezko **infinitiboen** azken silaba. Lourdes Oñederra

[Frantsesezko geroaldia] latin arruntean sortu zen **infinitiboari** [...] aditzaren orainaldea erantsi zitzaionean. Isabel Arrigain

---

# infinitu *(orobat* ***infinito*** *g.er.)* **1** *izond* azkengabea, amaigabea, mugagabea.

Bakardade huts, **infinitua,** guztiz ere geldia. Juan Garzia

Jainkorik gabe, ni erabat neure buruaren jabe nintzen, neure erabakien jabe, askatasun **infinito** bat erdietsi banu bezala. Herria

Benerazio **infinitua** sentitu nuen, lastima **infinitua**. Juan Garzia

Emakumeak uste du seme edo alaba bat galtzen duenak atsekabe **infinitua** behar duela sentitu. Imanol Zurutuza

Neke geldigabea, neke bukaezina, neke **infinitua**. Lourdes Oñederra

Agurearen ondoan eseri zen, tortilla puska txiki-txikietan zatitu eta eraman **infinituz** puskak ahoratu zizkion. Jon Alonso

Ezjakinek uste dute zozketa **infinituek** denbora **infinitua** eskatzen dutela. Juan Garzia

Gertaeren, sentipenen, gogoeten baso berez **infinituan** bidezidor bat bereizi eta handik abiatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Zeren itsasoa **infinitua** eta mugagabea baita eta alde batetik kentzen diguna bertzetik emaiten baitigu... Joan Mari Irigoien

Zeren gero eta sinetsiago bainago ezen Jainkoa **infinitua** dela, bere formarik gabeko forman. Joan Mari Irigoien

Begirada zeruertz **infinituan** galdurik. Karlos Linazasoro

Itsaso **infinituranzt** begira geratu nintzen. Bernardo Atxaga

Inoiz aurkituko ez duen erantzunaren bila, aurrerabide **infinituan**. Askoren artean

Ezagutza horrek indar **infinituaren** sentsazioa ematen zion. Jon Alonso

Begira Esne Bidea, izarrezko ibai hori, eta egin kontu orban bat baizik ez dela zabaltasun **infinituan**. Josu Zabaleta

Biziaren aniztasun zabalaren ñabardura **infinituetan** laketzen zuelarik egile horrek bere fantasia. Juan Garzia

Funtzionario mezularia, borreroari hil-aginduak ekartzen zizkiona, Ministerioko pasabide **infinituetan** galdu zen. Karlos Linazasoro

Bi gauza dira **infinituak:** unibertsoa eta giza ergelkeria. Berria - Harian

Baina ttikiak, azkengabeki ttikiak, infinitesimalak, ez du bere ttikian azkenik, eta handiak, azkengabeki handiak edo **infinituak** ere ez handian (azkengabea, azkenik ezean, ez da, eta baldin bada, orduan ez da azkengabea). Iñaki Segurola

**2** (matematikan) kopuru aldakorrez mintzatuz, aldez aurretik ezarritako limite oro baino goragokoa dirauena.

Unibertsoa (bestelako deituraz, Liburutegia) galeria hexagonalez osaturik dago; galerien kopurua mugagabea da, eta beharbada **infinitua**. Juan Garzia

Kopuru izugarri handia; ez, hala ere, **infinitua**. Juan Garzia

Elementu kopuru **infinitu** baten "batuketak", eta are gehiago elementu infinituki txikien kopuru **infinitu** batenak. Jon Muñoz

Cavalierik, XVII. mendearen hasieran, esan zuen gorputz solido oro plano **kopuru** infinitu baten gainezarpenez osaturik dagoela.Liburu honen orri kopurua zehazki **infinitua** da. Juan Garzia

Aitzitik sinesten zuen denbora serie **infinituetan;** denbora dibergente, konbergente eta paraleloen halako sare gero eta zabalago, zorabiozko batean. Juan Garzia

Unibertsoa **infinitua** ez dela ere badakigu, Einsteini esker. Joxerra Garzia

**Infinitua** al da zenbaki lehen bikien kopurua? Jon Muñoz

**Infinituaren** ikurra. Jon Muñoz

A1 = {xn}n•N: aldagai indibidualen multzo **infinitua** izango da, **infinitu** zenbakigarria, hau da, zenbaki arrunt bezainbeste aldagai izango ditugu. Askoren artean

• **3** (zenbaki gisa)

**Infinitu** aldiz. Juan Garzia

Zeren bizitzaren indarraren eta kosmosaren artean **infinitu** funtzio desberdin baitaude. Josu Zabaleta

Proiektatutako irudi bat **infinitu** objektu posibleren proiekzioa izan daitekeela, izatez. Josu Zabaleta

Geometriaren ikuspegitik, proiekzio bera izan lezaketen **infinitu** objekturen irudia izan daitekeela perspektibazko irudi bat. Josu Zabaleta

Begian **infinitu** argi-izpi sartzen dira, eta erpina begian duen kono bat eratzen da. Josu Zabaleta

**4** (izen gisa)

**Infinituaren** eta ezerezaren artean kokatuta! Jon Muñoz

Eta bi dorre haiek ziren, bertzalde, bi lerro, xuxenak, paraleloak eta **infinituan** bat egiten zutenak. Joan Mari Irigoien

A liburua kausitzeko, aurrez B liburu batera jo eta hark A liburuaren tokia adieraziko digu; B liburua kausitzeko, aurrez C liburu batera jo, eta horrela **infinituraino..**. Juan Garzia

Denbora etengabea eta **infinituraino** zatigarria balitz. Xabier Kintana

Batura n berdin 1etik **infinitura**. Jon Muñoz

Minus **infinitutik** plus **infinituraino,** guztiak. Unai Elorriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

adimen infinituan (3); atsekabe infinitua (3); denbora infinitua (5); denbora infinitutik (4); duenak atsekabe infinitua (3); ere infinitua (4); espazioa infinitua (3); eta horrela infinituraino (3); eta infinitua (6); eta infinituraino (3); horrela infinituraino (4); infinitu bat (16); infinitu batean (5); infinitu baten (10); infinitu baten eta (4); infinitu batez (6); infinitu horretan (3); infinitua bada (3); infinitua baita (4); infinitua behar (3); infinitua da (10); infinitua dela (9); infinitua eta (3); infinitua ez (8); infinitua ez da (4); infinitua izan (4); infinitua izanik (3); infinituak direla (5); infinituak direla (5); infinituak izan (4); infinituak izan (4); infinituaren existentzia (3); infinituraino luzatzen (6); infiniturantz begira (3); kopuru infinitu (12); kopuru infinitu baten (3); kopuru infinitu batez (5); kopuru infinitua (7); kopuru infinituko (4); kopurua infinitua (5); kopuruz infinituak (4); kopuruz infinituak (4); modu infinitu (5); serie infinitu (3)

---

# infinituki *(orobat* ***infinitoki*** *g.er.)* **1** *adlag* era infinituan.

Cervantes-en testua eta Menard-ena berdin-berdinak dira hitzei dagokienez, baina bigarrena ia **infinituki** aberatsagoa da. Juan Garzia

**Infinituki** i meheak liratekeen orri kopuru infinitu batez osatua. Juan Garzia

Bi gauza dira **infinituak:** unibertsoa eta giza ergelkeria. Berria - Harian

Ez dakit zergatik zen hain **infinituki** patetikoa. Julen Gabiria

**2** (matematikan)

Kurba bateko arku **infinituki** txiki bat ukitzaileari dagokion zuzenkiarekin berdindu daiteke. Jon Muñoz

Funtzioaren aldaketa **infinituki** txiki baten eta aldagaiari zegokionaren arteko erlazioa kalkulatuz, besterik gabe; eta, ondoren, azken horri 0rantz joaraziz. Jon Muñoz

Berez aski da denbora **infinituki** azpizatikorra izatea. Juan Garzia

Integrala: laukizuzen **infinituki** txikien kopuru **infinituki** handiaren batura, zeinaren azalera osoa irudiaren azalera baita. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

infinituki txiki (3); infinituki txikien (3)

---

## **infinitutasun** *iz* infinitua denaren nolakotasuna.

**Infinitutasun** hori bat dator, guztiz modu harrigarrian etorri ere. Juan Garzia

Finitutasun espazial hau, ostera, **infinitutasun** tenporalez konpentsatzen dute. Xabier Amuriza

Halabeharraren zenbaki zigizagatsuekin eta platonikoek gurtzen duten Loteriaren Arketipo Zerutiar delakoarekin... berdin dela gauza infinituak aldi berean existitu edota haiek badenaz eta jada ez denaz osatuak direla uste izatea, hots, akzidentezko **infinitutasuna**. Juan Garzia

Haren **infinitutasuna** ene gorputzaren mugetarat ekarri ahal izaiteko. Joan Mari Irigoien

Neure mugak haren mugagabetasunean eta **infinitutasunean** urtu ahal izaiteko. Joan Mari Irigoien

---

## **infirmeria** *iz ipar* erizaindegia.

Geroago SS-en **infirmeriara** eramana, kanpalekutik kanpo, egun batez erran zidan: "Goiz huntan hasi niz zigaretari gustu zerbait harrapatzen. Marzel Etxehandi

---

## **infirmiersa** *(orobat **infirmiertsa**)* *iz ipar* andre erizaina.

Hemen Gurutze Gorriko **infirmiersa** andana handi batek ongietorri egiten digu. Marzel Etxehandi

Egun hauetan jujatua izan da eri artatzaile bat Christine Malevre **infirmiertsa,** zazpi eri haundieri, hiltzeko erremedioa eman diotelakotz ez baitzituen jasaiten ahal heien sofrikarioak. Herria

Zenbait urte bazuen eri handi zagola bazakien arta etxeetako berri, aldia egin ondoan berriz etxerat, hor bere lagunaren ondoan, alabaren eta **infirmiersen** arteri esker beti goxoki zagon. Herria

---

## **inflamazio** *iz* hantura.

**Inflamazio** bati aurre egiteko antiinflamatorioak oso eraginkorrak izaten dira. Iñaki Heras

---

## **inflazio** **1** *iz* prezioen maila orokorraren igoera egonkorra, diruak duen balioa txikiagotzen duena.

Prezioen maila orokorraren igoera egonkorra da **inflazioa**. Iñaki Heras

Maizenik, Kontsumorako Prezioen Indizearen (KPI) bilakaerarekin neurtzen da **inflazioa**. Politika murrizgarriek **inflazioa,** hau da, prezioen hazkundea kontrolatzea dute helburu. Iñaki Heras

Prezioen iraultzak [...] mozkinen **inflazioa** ekarri zuen, lasterrago handitu baitziren salgaien prezioak fabrikazio-kostuak (soldatak eta lehengaiak) baino. Koro Navarro

**Inflazioak** «traba» egiten dio bai lehiakortasunari, bai hazkunde ekonomikoari, bai enpleguari. Berria - Ekonomia

**Inflazioa** kaltegarriagoa izan daiteke hartzekodunentzat [...] zordunentzat baino. Iñaki Heras

Petrolioaren bigarren krisiak %13ra igoarazi zuen **inflazioa** ELGE eremuan. Koro Navarro

**Inflazioak** %0,7 egin zuen gora joan den hilabetean Hego Euskal Herrian.

Apreziazio horri berorri esker asko murritz zitekeen inportazioen prezioa; horrek **inflazioa** jaitsarazten zuen. Koro Navarro

Solbesek iragarri zuen martxoan **inflazioa** apaldu egin beharko litzatekeela. Berria - Ekonomia

Enpleguak gutxituz lortu zen leku guztietan **inflazioa** jaistea. Koro Navarro

Soldatak edo alokairuak eguneratzeko unean esaterako, **inflazioak** behera egin zuela diote estatistika hotzek. Iñaki Heras

Euroaren eremeuko **inflazioak** behera egin zuen urtarrilean %1,9ra. Berria - Ekonomia

Finantza publikoak behar bezala onbideratu edo **inflazioa** gutxiagotzeko. Koro Navarro

**Inflazioa** ezeztatu beharra dago. Iñaki Heras

Indexazio-mekanismoek eragindako prezio-soldaten espiralak, **inflazioaren** gorakada izugarria ekarri zuen herrialde industrializatuetan. Koro Navarro

Soldatak beheraka, **inflazioa** goraka. Pako Aristi

**Inflazioaren** eta langabeziaren aldi bereko igoaldiari aurre egin behar zitzaion bat-batean. Koro Navarro

**Inflazioaren** kontrola eta ekonomiaren bultzada uztartzea ez delako erraza. Berria - Harian

Petrolioaren krisiak **inflazioan** izandako eragina. Koro Navarro

Petrolio upelaren igoera islatu da apirilean euroguneko **inflazioan**. Berria - Ekonomia

Alemaniako historiako **inflaziorik** handiena. Oskar Arana

**2** *irud*

Telefono deien **inflazioa** iruditzen zait eragin dugula. Xabier Mendiguren Elizegi

Aldaketak euskal politikagintza osoan gertatzen ari direla uste du EBBko eledunak; «politikagintza pil-pilean dago», esan eta, inoiz baino proposamen gehiago mahaigaineratu direla adierazi zuen, «proposamenen **inflazioa** dago». balioen arazoa larri-larria bilakatu da gure gizartean; eta, horregatixe, Botereak eskuan hartu duen eta bizitza publikoan **inflazio** jasangaitz bat ikusten duen arazo bilakatu da, hain zuzen.

· Unibertsoaren **inflazioa,** energia ilunak sortzen duen azelerazioa. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **inflazionista.**

Era horretan Alemaniako **inflazio**-tentsioak gutxiagotuko ziren. Koro Navarro

Dena den, **inflazio** arriskuak direla eta, adi egoten jarraituko dutela adierazi dute. Berria - Ekonomia

**Inflazio**-tasa txikienak dituzten hiru herrialdeen interes-tasen batez bestekoa. Iñaki Heras

Urteko **inflazio** tasa altuenak. Berria - Ekonomia

Kontsumorako prezioan indizearen arabera neurtutako **inflazio**-tasa harmonizatuak. Iñaki Heras

Hazkunde ekonomiko negatiboa, **inflazio** indize altuak eta bizkor hazten zihoan langabezia. Berria - Mundua

**Inflazio**-diferentzialak eta gerraren ondoren finkatutako parekotasun sarritan artifizialak, truke-tasa errealen aldaketa garrantzitsuen eragileak izan ziren. Koro Navarro

Bi herrialdeen arteko **inflazio-** aldeek. Koro Navarro

Funtsezkoa da arrisku horiek epe ertaineko **inflazio** aurreikuspenei ez eragitea. Berria - Ekonomia

Horixe baitzen **inflazio**-iragarpenak aldatzeko eta prezioen egonkortasuna berreskuratzeko modu bakarra. Koro Navarro

Konkurrentziazko **inflazio**-murrizteak. Koro Navarro

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horrenbestez, eskari-**inflazioa** eta kostu-**inflazioa** bereizten dira. Iñaki Heras

Ondasunek edo zerbitzuek prezio bat dute, eta prezio horren osagaien kostuek gora egiten dutenean sortzen da kostu-**inflazioa**. Iñaki Heras

**5** ***azpiko inflazio***

Azpiko **inflazioa,** energia eta elikagai freskuak kontutan hartzen ez dituena oso prezio aldakorrak baitira, %2,1 hazi da azken urtean. Berria - Ekonomia

Energia eta elikagai freskoak kenduta lortzen den azpiko **inflazioa** %0,9ra jaitsi zen iragan hilean.

Azpiko **inflazioak** berdin jarraitzen du, eta, petrolioa ez bada garestitzen, **«inflazioa** neurrian» igoko dela pentsatzeko aztarnak badirela uste du patronalak. Berria - Ekonomia

Azpiko **inflazioa** %2,9an mantendu zen. Berria - Ekonomia

**6** ***inflazio-eragile*** *(orobat* ***inflazioeragile****)* *izond* ik **inflazionista.**

Politika horien eragin aldi berean errezesibo eta **inflazio-eragilearen** ondorioz [...] 1980ko hamarraldian Diru Funtsak bere mekanismoak ugaldu zituen, egiturazkoagoak ziren neurrien bitartez. Politika hori permisiboa eta **inflazioeragilea** gertatzen bada, interes-tasen beherakadak kapitalen irteera garbiak bultzatuko ditu. Koro Navarro

**7** ***urtearteko inflazio*** *(orobat* ***urte arteko i.****)*

Espainiako urtearteko **inflazioa** urrian %3,6 izan dela kontuan hartuz gero [...]. Berria - Ekonomia

Maiatzeko urte arteko **inflazioa** %3,4koa zen Hego Euskal Herrian. Berria - Ekonomia

Urtearteko **inflazioa** %2,7ra iritsi da Hego Euskal Herrian. Berria - Ekonomia

Urte arteko **inflazio** tasa txikiena, berriz, Gipuzkoarena da %1,8arekin. Berria - Ekonomia

Euroguneko urte arteko **inflazioa** ehunen bat jaitsi zen martxoan, otsailekoarekin alderatuta; %2,3tik %2,2ra, beraz. Berria - Ekonomia

Herrialdeka, urtearteko **inflazio** tasa handiena dutenak Grezia (%3,1arekin) eta Espainia, Irlanda eta Luxenburgo (%2,3arekin) dira. Berria - Ekonomia

**8** ***urteko inflazio***

Adibidez, 1993an, Ukrainan, urteko **inflazioa** %500ekoa izan zen eta Brasilen, berriz, %1.200ekoa. Iñaki Heras

Urteko **inflazioa** %0,2 gutxitu zen iaz abenduan euroa erabiltzen duten herriko datuak kontutan harturik. Berria - Ekonomia

Euroguneko urteko **inflazioa** 0,1 puntu murriztu da ekainean. Berria - Ekonomia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko inflazio** (3); **arteko inflazioa** (10); **arteko inflazioak** (3); **azpiko inflazioa** (7); **azpiko inflazioak** (4); **da inflazioa** (12); **donostia inflazioak** (3); **du inflazioak** (5); **eremuko inflazioa** (3); **eta inflazio** (8); **eta inflazioa** (13); **eta inflazioa kontrolpean** (3); **eta inflazioak** (3); **eta inflazioaren** (6); **euroaren eremuko inflazioa** (3); **euroguneko inflazioa** (11); **euroguneko inflazioaren** (3); **horrek inflazioa** (3); **inflazio arriskuak** (3); **inflazio tasa** (18); **inflazioa baino** (5); **inflazioa eta** (8); **inflazioa izan** (4); **inflazioa kontrolatzeko** (4); **inflazioa kontrolpean** (5); **inflazioa murriztu** (3); **inflazioak behera** (3); **inflazioak ere** (3); **inflazioak ez** (3); **inflazioak ez du** (3); **inflazioak gora** (4); **inflazioan eragin** (3); **inflazioaren aurkako** (4); **inflazioaren azpitik** (3); **inflazioaren eragina** (5); **inflazioaren eragina kontuan** (4); **inflazioaren eta** (4); **inflazioaren gaineko** (3); **inflazioaren gorakada** (4); **inflazioaren igoera** (8); **inflazioaren kontrako** (6); **inflazioaren kontrola** (4); **inflazioari buruzko** (3); **inflazioari eusteko** (6); **urte arteko inflazioa** (10); **urte arteko inflazioak** (3); **urtearteko inflazioa** (7); **urteko inflazioa** (9); **z inflazioa** (3); **zen inflazioa** (5)

---

# inflazioeragile ik **inflazio 6.**

---

# **inflazionista** *izond* inflazioa eragiten duena. ik **inflazio 6.**

Diruaren depreziazioaren eragin **inflazionistak**. Koro Navarro

Aldi berean, halako inertzia **inflazionista** bat ere ekarri zuen, zenbait herrialdek, Europan batez ere, oso nekez gaindituko zutena. Koro Navarro

Herrialde **inflazionistenetako** konkurrentziaren beherakadak. Koro Navarro

---

# **inflexio** *(orobat* ***inflesio*** *g.er.)* **1** *iz* aldaketa

Herrialde industrializatuetako jardueraren mugimenduarekin lotuta dauden **inflexio** ziklikoak gorabehera, nazioartekoturiko ekoizpenak munduko BPGean duen pisua (%9 1998an, eta %5 1985ean) handituz joango da. Koro Navarro

Bestalde, Batzarren ustez **«inflexio** une» batean daude orain. Berria - Euskal Herria

**2** doinu aldaketa.

-Baina hala ere -jarraitu zuen Gabrielek, ahotsari **inflexio** leunago bat emanez-. Irene Aldasoro

Bere haurrideenganako grina lakar eta goxoa begirada batez, bere ahotsaren **inflexio** batez sumarazten. Monika Etxebarria

Dantzarien mugimenduak estuki lotuta daude partituraren **inflexioei** eta oinen hotsek behearen kontra musikaren erritmo bortitza azpimarratzen dute. Berria - Kultura

8421 iluna da, kontzeptuala, guztiz hotza eta hermetikoa, eta Shostakovitxen musikaren **inflexioei** zehatz-mehatz atxikia. Berria - Kultura

**3** ***inflexio puntu***[1] kurba bat ganbil izatetik ahur izatera -edo alderantziz- igarotzen den puntua.

Maximoak eta minimoak: kurba gorenean edo beherenean dagoen lekua; **inflexio-puntuak**: kurbak kurbadura aldatzen duen lekua, gorantz irekia izatetik beherantz irekia izatera. Jon Muñoz

Une jakin batean, fisika legeen arabera ezinbestez beherantz jo behar zuen kurbaren **inflexio** puntu horren inguruan-edo, beheraka jo beharrean, gorago eta gorago jo zuen Svenek. Josetxo Azkona

Froga ezazu elkargune hori **inflexio**-puntu bat dela. Xabier Olarra

**4** ***inflexio puntu***[2] norabide aldaketa.

Programa **inflexio** puntu bat izan zen politika komunitarioan, zeren eta Lurraren Goi Bilerari (Rio 1992) emandako erantzun komunitarioa zen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

XX. mendeko hogeiko hamarkadan, ostera, epistemologia horretan **inflexio**-puntu bat nabarmentzen da. Askoren artean

Hazkunde eta Enplegurako Lisboako Adierazpenak [...] **inflexio** puntu bat erakusten digu iraunkortasuneranzko bidean. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Sara eta biok marrazten ari ginen historiaren lerroak, baina, izan behar zuen noizbait bere **inflexio**-puntua. Joan Mari Irigoien

Bigarren **inflexio** puntua alderdien mahaia sortzea izan behar du. Berria - Euskal Herria

Su-etenak eragindako **«inflexio** puntua. Berria - Euskal Herria

Dorre bikien erasoa **inflexio** puntua izan da giza eskubideen urratzean? Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bigarren inflexio** (3); **inflexio puntu** (21); **inflexio puntu bat** (10); **inflexio puntua** (28); **inflexio puntua izan** (7)

---

# **influentzia** *(orobat* ***influentzi*** *g.er.)* **1** *iz* eragina.

Etxarte ere Bozen **influentzia** argi pera erori ote zen? Itxaro Borda

Autore honek ere, Herder-en **influentzia** behin eta berriro aipatzen duen arren, ohi den eran, behin ere ez du argitzen **influentzia** horren nondik norako konkretua. Joxe Azurmendi

Mirande zegoen **influentzien** pean beste asko ere bazegoela adieraztearren. Joxe Azurmendi

Artetik erraiteko, **influentzi** edo eragin haundia ukan dute Euskal Herriko anitz apez gaztek haurren baitan, lehengo kirol eta ohidureri buruzko afizionea sortaraziz eta euskal nortasuna gora atxikaraziz. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** *pl* dezaketen adiskideak.

Ez zekiten ordea Francisco ez dela gizagaixo bat, eta **influentziak** dituela. Pako Aristi

Aurreneko aldia nuen, ez ninduten gogorregi zanpatu, kuartelilloan berriro entzun nuen **"influentziak"** neuzkala. Koldo Izagirre

Donatien bere faboreak beste emakume batzuei eskaintzen hasi zenean, guztiz jeloskortu eta zapuztu zen madame de Montreuil, hainbesteraino, non polizian zituen **influentzia** guztiak erabili baitzituen mendeku hartzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**3** ***influentzia trafiko*** ustelkeria politikoa.

Bolueta kasuan prebarikazioa eta **influentzia** trafikoa gertatu zirela dioen txostena. Berria - Euskal Herria

Paueko Thierry Pons epaileak Destrade auzian auzipetu zuen, **influentzia** trafikoa erabiltzea eta gizarte ondasun abusua erabiltzea leporatuz. Berria - Euskal Herria

Escartinentzat eta Sanchorentzat urtebeteko espetxe zigorra, 18 urtez gaitasungabetzea eta 7.800 euroko isuna eskatu du fiskalak, prebarikazioagatik, hondamendi arriskua eragiteagatik eta **influentzia** trafikoagatik. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta influentzia** (5); **influentzia trafikoa** (3) +

---

## **influentziatu**, influentzia(tu), influenziatzen du *ad* eragin.

Autoritatearen abusua da, irakasleak bere posizio pribilegiatua manupekoak ideologiko-politikoki **influentziatzeko** erabiltzea. Joxe Azurmendi

Liburu maitalea pazientziaduna da, librea, bere iritzia berak egiten dakiena, medioek eta kritika akademikoek luzaroko **influentziatuko** ez dutena. Ana Urkiza

---

## **infoaberats** *iz*

Hori guztia egia izanda ere, bistan da iraultza teknologikoak ez duela **infoaberatsen** eta infopobreen arteko amildegia murriztu. Txema Ramirez de la Piscina

---

## **infografia** *iz* ordenagailu bidez irudiak sortzeko teknika.

2002an Euskal Herrian ekoitzi zen film bakar hau berriztatzailea izan zen, animazioa, **infografia,** efektu digitala eta irudi errealak nahasi baitziren bertan. Berria - Kultura

Dantza garaikidea, bideoa eta **infografia** uztartu dituzte *3600* lanean. Berria - Kultura

Une jakin batzuk kenduta, gozotasun pasarte gutxi daude muntaian, eta egonezina areagotu egiten da amaieran, atzeko pantailan zubi eta eraikuntzetako **infografia** gogorra proiektatzen delarik. Berria - Kultura

---

## **infografista** *iz* infografian espezialista.

Joxean Apeztegia Berriako **infografistak** egin du grafikoa. Berria - Euskal Herria

---

## **infograma** *iz*

Era guztietako xehetasunez apainduta ematen dituzte komunikabideek horrelako heriotzen berri: ordu zehatza, grafikoak, **infogramak..** . Joxerra Garzia

Eta hala, alde batean irakurlearen sentimenduak kudeatzen dituzten albisteak daude, eta horregatik ematen zaigu mozkortu arterainoko informazioa: **infogramak,** aurpegiak, izenak, detailerik morbosoenak... Iñigo Aranbarri

---

## **infolio** *iz* folio tamainako liburua.

Petrarcaren obra guztiak bildu zituen lehenengo edizioak adibidez 1.500 bat orrialde ditu, eta 1554an inprimatutako **infolio** zarratu hauetatik 75 bakarrik dira italieraz idatziak. Berria - Kultura

**Infolioaren** edizio txukunak harritu ninduen. Anjel Lertxundi

Baltsamatzeari buruzko tratatuaren **infolio**-neurri berekoa zen. Anjel Lertxundi

---

## **infopobre** *iz*

Hori guztia egia izanda ere, bistan da iraultza teknologikoak ez duela infoaberatsen eta **infopobreen** arteko amildegia murriztu. Txema Ramirez de la Piscina

---

## **informal** 1 *izond* protokolo, zeremonia edo hotsandiaren arauetatik kanpo dagoena.

Politika publiko jakin baten garapena arautzen duten balore, printzipio eta arau formal zein **informalen** multzoa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Jantzi ohi dituen gorbata eta trajeak etxean utzita, alkandora **informal** bat eta panazko galtzak zeramatzan. Berria - Harian

Arropa **informal** baina dotorea du, *Armani* jeans-ak. Berria - Harian

Sare **informalak** sortu, familiari lagundu, boluntario programak egin. Berria - Euskal Herria

Elkarrizketa **informal** bat izan nahi nuke zuekin. Joxemari Urteaga

NBEren Segurtasun Kontseiluaren bilera **informala,** IAEAren txostena eztabaidatzeko. Berria - Mundua

Gobernuz Kanpoko Erakundea da eta UNESCO-rekin kontsultarako harreman **informalak** ditu. Berria - Kultura

Mahai inguru **informala** zen, izaera juridikorik gabekoa. Berria - Euskal Herria

Ahozko mintzabide mota batzuen bereizgarri nagusia izan liteke diskurtsoaren egiturarik eza (berriketa **informala,** kirol edo gizarte gertakarien zuzeneko emanaldia, eta abar). J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Izaera ezberdineko bertso-eskolak ditugu, hala ere: batzuk **informalagoak,** besteak etorkizuneko bertsolariak zailtzeko eta trebatzeko asmo zehatzagoarekin jokatzen dutenak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Taxismotik arte **informaleraino**. Josu Zabaleta

**2** (izen gisa)

**Informalaren** txanoa jantzi, eta lasterka txikian iritsi nintzen institutu aurreko autobus-geltokira. Anjel Lertxundi

**Informal** txanoduna hartzen dut, eta eskolako poltsa bizkarrean. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **berriketa informala** (3); **informal bat** (3); **musika tresna informalak** (3)

---

**informalismo** *iz* margolaritzan, materiaren adierazpen ahalmena ohiko formetatik eta forma geometrikoetatik at bilatzen den joera.

Ruiz Balerdi **informalismoaren** aitzindariaren erakusketa zabala. Berria - Kultura

1950eko hamarkadan **informalismoaren** ildoa landu zuten artistak dira. Berria - Kultura

Bilduma iraunkorreko lanekin antolatutako erakusketetako batek **informalismoaren** nondik norakoak ezagutzeko parada emango du. Berria - Kultura

---

**informalista** **1** *izond* informalismoari dagokiona.

Nolanahi ere, begiekin sabaiko orban **informalista** baino haratago behatzen asmatzen duela ematen du, ganbara eta gaineko teilatua baino ere harago. Hasier Etxeberria

**2** *iz* informalismoa lantzen duen artista.

**Informalistek,** esaterako, XVII edo XVIII. mendeetako tradizioa berreskuratu zuten. Berria - Kultura

---

**informalki** *adlag* era informalean

Ulergarria denez, espekulazioa aurrenik sistemako diru periferikoen ingurukoa izan zen, hau da, finlandiar markoaren eta suediar koroaren ingurukoa, **informalki** baino ez baitzeuden haiek alemaniar markoarekin lotuta. Koro Navarro

---

**informaltasun** *iz* informala denaren nolakotasuna.

Aurkezpenaren **informaltasunak** hori estal lezakeelako, garrantzitsua da hemen azpimarratzea. Itziar Laka

---

**informante** *iz* informatzailea.

Behar izango zuen Ministerioko karpeta, **informanteen** izenak eta helbideak eta hitzorduak zituena. Unai Elorriaga

**Informanteen** fitxak ere bete behar zituen, eta Martina eta Mercedesen fitxa bete zuen lehenengo. Unai Elorriaga

Ez zion, gainera, datu berririk eman **informanteak,** Jesusak. Unai Elorriaga

---

**informatibo** **1** *izond* informazioarena, informazioari dagokiona.

EITBren ildo **informatiboa** salatu dute 18 taldek. Berria - Euskal Herria

Estrategia **informatibo** nagusiak. Txema Ramirez de la Piscina

Egun bizi dugun saturazio **informatiboa** da zentsurarik perfektuena askotan. Txema Ramirez de la Piscina

Horra gure arreta bideratzeko bi gune **informatibo** bero. Iñigo Aranbarri

Gerra zikin **informatiboan** badago erantzukizunik. Berria - Euskal Herria

Informazioa eta gardentasuna eskatzea, eta manipulazio **informatiboa** gaitzestea. Berria - Euskal Herria

Presak ez du justifikatzen zorroztasun **informatiboa** alde batera uztea. Berria - Euskal Herria

Luciano Violantek «totalitarismo **informatiboa»** bultzatzea egotzi zion atzo Gobernuari. Berria - Mundua

Eskaintza **informatiboa** zabaltzeko. Berria - Harian

Irizpide **informatiboak,** irudiaren garrantzia informazioaren hautaketan, mezuaren hautaketa, albistegien egitura baldintzak, albisteen formak eta telebistaren errealitate soziala. Berria - Harian

**2** zerbaiten berri emateko dena.

Gutun **informatiboak** bidaliko zaizkie guraso, ikasle eta irakasle guztiei. Berria - Euskal Herria

13:00etan batzar **informatiboa** eta elkarretaratzea egingo dira Kantinan, «itsasertzak izango duen hondamendi beldurgarria salatzeko». Berria - Euskal Herria

Epaitegiak diligentzia **informatiboak** ireki zituen. Berria - Euskal Herria

Izenburuak **informatiboa** izan behar du, esaldi batean jaso behar du idazlana zertaz ari den. Askoren artean

Haien ustez, EITBn agertutako kanpaina, **informatiboa** izan beharrean, publizitarioa baino ez da. Berria - Euskal Herria

Udalerritan banatuko da txosten **informatiboa,** B eta D ereduetan matrikulatzera animatuko duen gutunarekin batera. eguneroko elkarretaratzeak egiten eta eskuorri **informatiboak** banatzen jarraitu zuten. Berria - Euskal Herria

Artxibo **informatiboak** ezabatzea. Berria - Harian

Goiz eta arratsalde mahai **informatiboak** jarriko dituzte Bulebarrean. Berria - Harian

**3** *iz* berriak emateko irratsaioa edo telebista emanaldia. ik **albistegi**.

Ez zuen **informatiboa** entzun ez eta zerura begiratu ere zein eguraldi egiten zuen jakiteko. Jasone Osoro

TVEko **informatiboetako** buru Alfredo Urdazi Iriarte kazetari iruindarra. Txema Ramirez de la Piscina

**Informatiboa** ikusten ari zen Dionisos. Unai Iturriaga

**4** (hitz elkartuetan)

*Buongiorno, notte*-n, garai hartako telebista **informatiboetako** irudiak erabili ditu Bellocchiok. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batzar informatibo** (3); **batzar informatiboa** (4); **gosari informatiboan** (3); **informatibo baten** (3); **informatiboa da** (3); **informatiboa egingo** (3); **informatiboa egingo dute** (3); **informatiboa eta** (3); **manipulazio informatiboa** (3); **totalitarismo informatiboa** (3)

---

**informatiboki** *adlag* informazioaren aldetik.

**Informatiboki,** ekonomiaren egoeraz erakundeak egiten zuen analisia zen garrantzitsuagoa. Berria - Ekonomia

Zuhur jokatu behar dugu irudi bereziki morbosoak ez emateko eta albisteok, gainera, **informatiboki** ez nabarmentzeko. Berria - Euskal Herria

Ildo beretik, **informatiboki** egon den jarrera eta hilketak lotu zituen parlamentario ohiak. Berria - Euskal Herria

---

**informatika** **1** *iz* informazioa automatikoki erabili ahal izateko tekniken eta jakintzen multzoa.

Gure eguneroko bizitza dago **informatikak** baldintzatua. Pello Salaburu

Gaztea da irakaslea, **informatikan** aditua. Lander Garro

Hitzaldietan, eztabaidetan eta baita **informatikako** ikastaroetan ere. Luis Elberdin
Poliziaren **informatikako** espezialistak. Aingeru Epaltza
**Informatikako** ingeniaritza teknikoko ikasketak egin zituen. Antton Olano
**Informatikaren** arloan ez zegoen erdi mailako titulurik orain arte. Berria - Euskal Herria
Microsoftek **informatikaren** merkatua kontrolatzen duelako. Berria - Ekonomia
**Informatika** kuantikoak atomoaren egoera kuantikoetan gordetzen den informazioa maneiatzea eskatzen du. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **informatiko.**

**Informatika** sistema batek zituen apustu guziak zentralizatzen eta tratatzen. Ramuntxo Etxeberri
**Informatika** sistemen ustiapena. Berria - Euskal Herria
**Informatika** instalazioetako segurtasun inguru berritzaile bat lantzen ari da. Berria - Gaiak
BBK-k interesik gabeko maileguak eskainiko ditu **informatika** ekipamenduen erosketarako. Berria - Ekonomia
**Informatika** programetan espezializatutako Decidia konpainiak. Berria - Mundua
Calmeyra deitu **informatika** proiektua. Herria
Aspalditik Microsoft **informatika** erraldoiak bere lehiakideek merkatuan duten eserlekuaz bereganatzeko estrategia hartu du. Berria - Ekonomia
XML **informatika** lengoaiaren onurez hitz egin du Iñaki Alegriak. Berria - Euskal Herria
Hego Amerikako nortasun agiri faltsuak, **informatika** materiala, matrikulak eta 12.700 euro. Berria - Euskal Herria
**Informatika** teknologia oso aurreratua erabiltzen omen zuten. Berria - Euskal Herria
Lanbidek izango duen **informatika** aplikazioa aurkeztu zien Azkarragak atzo prestakuntza zentroei. Berria - Ekonomia
Barneko elektrizitatea eta **informatika** sare guztia erabat kaltetu dira. Berria - Euskal Herria
Ikastetxeetako irakasleak, ikasleak, **informatika** ingeniariak, garbitzaileak, funtzionarioak eta militarrak. Berria - Euskal Herria
**Informatika** eta telematika tresneria berriak mila bider areagotu ditu Platonen mitoak idazketari erantsitako arriskuak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
Gunea sareratzeaz arduratu den Zuhar **Informatika** Zerbitzuko arduradun Osoitz Elkorobarrutiak azaldu zuenez. Berria - Euskal Herria
Microsoft **informatika** taldearen aurka. Berria - Ekonomia
**Informatika** multinazional handiek interes gutxi jarri dute proiektuan. Berria - Gaiak
Bill Gatesen **informatika** konpainiaren akzioek %11 gutxiago balio zuten atzo burtsa itxi zenean. Berria - Ekonomia
Apple **informatika** enpresa Mac OS sistema eragileko akatsak aztertzen ari da. Berria - Gaiak
Materiaren ezagutza mailan, ADNaren egitura mailan eta **informatika** kontuetan aurrerapen handiak egin ondoko urteetan. Pello Salaburu
**Informatika**-gelako ordenagailuetan. Xabier Etxabe
Lehengusuak ez ziren itzuli artean beren taekwondo eta **informatika** ikastaroetatik. Juan Kruz Igerabide
Bistan da **informatika**-teknikoa izateko ez dela beharrezkoa buru-argia izatea. Berria - Kultura
Bizkaiko Ezindu Fisikoen Koordinakundeko **Informatika** irakasleak. Berria - Euskal Herria
**Informatika** ikasle baten lagunak. Berria - Euskal Herria
Unibertsitatean nago gaur, **Informatika** Fakultatean. Xabier Etxabe

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**duen informatika** (3); **ehuko informatika** (3); **eta informatika** (16); **eta informatikan** (6); **eta informatikan formakuntza** (3); **eta informatikaren** (4); **fiskal eta informatikan** (5); **informatika enpresa** (9); **informatika eta** (16); **informatika fakultatean** (5); **informatika fakultateko** (11); **informatika fakultateko irakaslea** (6); **informatika gela** (3); **informatika ikastaldi** (6); **informatika ikastaldiak** (3); **informatika taldearen** (3); **informatika teknikaria** (3); **informatikak eta** (3); **informatikako oinarrizko** (3); **informatikako oinarrizko programen** (3); **informatikan formakuntza** (3); **informatikan formakuntza edo** (3); **informatikaz eta** (3); **microsoft informatika** (6)

---

# informatikari *(orobat* ***informatikalari*** *g.er.)* *iz* informatikan aditua den pertsona.

**Informatikarien** hizkuntzan esanda, softwarea litzateke zientzia, eta hardwarea teknologia. Irene Aldasoro
Eskolen azken saioan, Xabier Arregi **informatikaria** CVS eta XML teknologiei buruzko ezagutzak finkatzen saiatu zen. Berria - Euskal Herria
Hizkuntzalariei eta **informatikalariei** da jardunaldi hau zabaldua. Herria
Casablancan igarotako oporretatik itzultzen zen neskarena, treneko komunean larrua jotzetik zetorren **informatikariarena**. Iban Zaldua

---

# informatiko **1** *izond* informatikari dagokiona. ik **informatika 2.**

Sistema telematiko eta **informatikoen** ahalmen fisikoa (hardwarea) izugarri hobetu dela. Iñaki Heras
Eskuliburu, hiztegi eta programa **informatikoen** laguntzaz. Askoren artean
Beste aplikazio **informatikoetara** eramateko aukera eskaintzen da. Berria - Euskal Herria
Etxebizitzarako ekipamendu **informatikoa** eta Interneterako lotura. Berria - Ekonomia
Eraikinean zen langile bakanetako batek adierazi zuen poliziek «zerbitzari **informatiko** osoa» eraman zutela. Berria - Ekonomia
Euskarri **informatikoa** duten beste bilaketa tresna batzuekin batera. Askoren artean
Lau orduz jardun zuen bere produktu **informatikoen** xehetasunak, gorabeherak eta inguruabarrak azaltzen. Jon Alonso
Material **informatikoa,** osagai elektronikoak. Koro Navarro
Eredu mekaniko edo optikoetatik baino eredu **informatiko** edo zibernetikoetatik hurbilago dagoen informazioaren tratamendu baten bitartez. Josu Zabaleta
Sasser har **informatikoa** maiatzaren 1ean agertu zen lehen aldiz. Berria - Gaiak
Hiru mezu berri: kinieletan irabazteko metodo bat, birus **informatiko** berri baten aipamena eta... Mireiaren mezu bat. Fernando Morillo
Errotaburun bildutako informazio guztiaren kopia **informatikoak** daude beste egoitza batzuetan. Berria - Harian
Segurtasun **informatikoaren** alorreko enpresa. Berria - Gaiak

**2** informatika bidezkoa.

Gure *@Euskadi* aldizkari **informatikoak** informatzen zuen gisa. Pello Salaburu

**3** *iz* informatikaria.

1.100 biologo, **informatiko** eta teknikari ari dira lanean, 16 laborategitan eta 6 estatutan. Pello Salaburu
Lanbidez **informatikoa**. Patxi Iturritegi
"Retourn" tekla zanpatu eta, istant bat gabe, pantailak, "erabiltzaileak pribilegio aski ez" zuela egin zidan gaztigu, **informatikoen** ohiko hizkera txatxuan. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**birus informatiko** (3); **birus informatikoa** (8); **birus informatikoak** (12); **birus informatikoaren** (5); **enpresa informatikoak** (3); **har informatikoa** (4); **har informatikoak** (3); **informatiko bat** (5); **informatiko eta** (3); **informatikoa eta** (4); **informatikoen bidez** (3); **mydoom birus informatikoak** (4); **programa informatiko** (4); **programa informatikoa** (3); **programa informatikoen** (4); **sasser birus informatikoaren** (3); **segurtasun informatikoaren** (3); **sistema informatiko** (5); **sistema informatikoak** (8)

---

**informatikoki** *adlag* informatika sistemak erabiliz.

«**Informatikoki** erregistratuta» dauden datuak direla nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

Bertan pertsonaren xehetasunak bilduko dira **informatikoki** eta bost urteko iraupena ukanen du. Berria - Euskal Herria

Europako 17 gunetako izenak **informatikoki** landu ditu, orotara 20.000 sarrera eginez. Berria - Euskal Herria

---

**informatizatu**, informatiza, informatizatzen **1** du *ad* informatikaren baliabideak aplikatu.

Hil bukaeran etorri zen Unaji jauna nire lana **informatizatzera**. Joxan Elosegi

Udal Liburutegien katalogoak **informatizatzea**. Berria - Kultura

Herrialde hartako justizia bulegoak **informatizatzea**. Berria - Euskal Herria

Baina zaila omen daukat, garai hori ez omen dagoelako **informatizatua**. Agurtzane Juanena

Eta konputagailuen garaia eguzki honi arrotza balitzaio moduan, hemen barruan ez da fitxategi **informatizaturik**. Edorta Jimenez

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eta konputagailuen garaia eguzki honi arrotza balitzaio moduan, hemen barruan ez da fitxategi **informatizaturik**. Edorta Jimenez

---

**informatizazio** **1** *iz* informatikaren baliabideak aplikatzea.

Iraultza mikroelektronikoak -hots, **informatizazioak,** automatizazioak edota errobotizazioak-. Iñaki Heras

**2** (hitz elkartuetan)

Orokortze hau interesgarria da berez, baina ez ditu bete eragin zituen **informatizazio**-esperantzak. Josu Zabaleta

---

**informatu**, informa, informatzen **1** da *ad* berri jakin.

1942ko apirilean New Yorkeko Baskoen Ordezkaritzaren sinpatiak pro-Axis izan zitekeela **informatu** zen. Edorta Jimenez

**Informatuko** nintzen hobeto. Joxe Austin Arrieta

Irakurlea ez dabilela gaizki titulu hutsekin **"informatzen"** denean. bitartez **informatzen** ziren agertzen zitzaien arazo bakoitzean. Iñigo Aranbarri

Euskaldunok euskaraz **informatuak** izateko eskubidea dugu. Berria - Euskal Herria

Egilea **informatua** zegoen, bai, baina ez zekien zer zioen. Iñaki Segurola

**Informatuta** gaudela uste dugu, soilik antzezpenerako sarrerak dauzkagula konturatu gabe. Pako Aristi

**Informatuta** egoteak nekatu egiten du. Txema Ramirez de la Piscina

**Informatuta** gaudelako sentsazioa dugu, baina iturburu apur batzuen emaria baino ez gara jasotzen ari. Txema Ramirez de la Piscina

Ongi **informatutako** iritzi publikoaren oinarriak zabaltzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez kritikatu **informatu** aurretik; pentsatu lehen, egin agiraka gero. Elizen arteko biblia

• **2** du *ad* berri eman.

Gernika bonbardatu zutela **informatu** zuen Union Radioko esatariak. Lutxo Egia

Gobernu Ordezkaritzak **informatu** zuenez, 14:00etan, Espainiako Poliziari deitu zion egin zuena kontatzeko. Berria - Euskal Herria

PPren gobernuak ekimenaz hobeto **informatuko** zuela eta udaleko talde politikoen artean «adostasun zabalagoa» lortuko zela uste zuten sozialistek. Berria - Euskal Herria

Bai abokatuak eta bai Askatasunak **informatu** dutenez, hiru gazteak gaur goizean, 10:00etatik aurrera pasatuko dira epailearen aurretik. Berria - Euskal Herria

PSOE eta PP erakunde armatuarekin bildu zirenean herritarrak **«informatu»** zituztela eta segimendu talde bat zegoela nabarmendu zuen. Berria - Euskal Herria

Hauteskundeak baino hainbat aste lehenago herritarrak eta bereziki beltzen komunitateak beren boto eskubideei buruz **informatu** genituen. Berria - Mundua

Esaterako, Bushek terrorismoaz, Ekialde Hurbilaz eta abarrez **informatzen** duten txostenez egin duen erabilera ikertzeko. Berria - Mundua

Gerenteak ez digu ezer zehaztu, eta langileak gutun bidez bakarrik **informatu** ditu. Berria - Ekonomia

-Gaizki **informatu** zaituzte -azaldu zuen goxoki-. Koldo Biguri

-Amsterdamen izan dira duela bi aste **-informatu** nau Luisak alkoholaren aterrune batean-. Pako Aristi

Prentsa ageri honen bidez **informatu** nahi zaituztegu Uztaritzen eramaten dugun dinamikari buruz. Herria

Baina -kakazaharra!- atezainak aurki **informatu** ninduenez, idazlea La Jolla-ko misio batean zegoen entzerraturik, nobela berria amaitzeko aitzakiaz. Iban Zaldua

Iragarkien helburu nagusia gizartea **informatzea** zela adierazi zuen Amannek. Berria - Euskal Herria

Sare publikoko irakasleria sentsibilizatu eta **informatu** nahi dute kanpainarekin. Berria - Euskal Herria

• **3** (dio ad)

Birritan deitu diozu etxera, baina ez dagoela **informatu** dizu pisukide batek. Lutxo Egia

Argirantz bultzatu zuen, eta Gargantuaren txirristaren amaieran dauden koltxoien gainean erori zen Uxue, onik, udaltzaingoak Xabiren emazte ohiari **informatu** zionez. Iban Zaldua

Herriko astekariak **informatzen** zigunez, Sipsey eta Onzell zeuden sukaldari, Big Georgek, berriz, erretegiaren ardura zeukan. Pablo Sastre

Pilotariek pilotalekuko ikusleei **informatzeko** piketea eratu dute. Berria - Kirola

**4** (era burutua izenondo gisa)

Tonto **informatu** batek sinesteko moduan asmatua. Iñaki Segurola

Nazka-nazka eginda nengoen pertsona **informatua** izateaz. Juan Luis Zabala

"Oso turista **informatua** naiz", erantzun zidan berak burlati. Bernardo Atxaga

Tonto-falta izugarria datorkigula bizi garen sasoi **informatu** honetan. Iñaki Segurola

Iritzi publiko libre eta **informatua** lortzeko. Berria - Gaiak

Itsas-giroko jende ez-**informatu** eta kulturagabeena dela jakintsuena. Iñaki Segurola

· Jendea orain elkartera **informatuago** heltzen dela uste dut. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta informatu** (3); **eta informatzeko** (4); **gaizki informatu** (3); **herritarrak informatzeko** (4); **informatu eta** (5); **informatu nahi** (3); **informatu zion** (3); **informatuak izateko** (3); **informatzea eta** (3); **informatzeko eta** (9); **ondo informatuta** (3)

---

**informatzaile** *(orobat* ***informatzale*** *g.er.)* **1** *izond* informatzen duena.

Eztabaida garbi, luze eta **informatzailea** falta da, eta behar da. Pello Salaburu

Nekazarien ENBA sindikatuak hitzaldi **informatzailea** antolatu du bihar Tolosan (Gipuzkoa), gazteak nekazaritzan sartzeari buruz. Berria - Ekonomia

**2** informazioarena, informazioari dagokiona. ik **informatibo**.

Batetik, **politika** informatzailea hasieratik indartuko nuke, herria ongi informatzeko eta autobidearen aurkako koordinadorak hasieratik muntatu zuen estrategiari aurre egiteko. Berria - Euskal Herria

**3** *iz* informatzen duen pertsona.

Irail horretan **informatzaile** batek FBIri jakinarazi dio Lasarte, Arana, Monzon eta Irala New Yorkera iritsiak direla. Edorta Jimenez

Galindezek lau **informatzaile** finko ditu, gutxienez jota, Dominikar Errepublikan. Edorta Jimenez

Atxiki ezak gogoan **informatzaile** konfidentziala naizela, aditu? Aingeru Epaltza

Madrilen bildu dira Europa G8 eko bosten **informatzaile** arduradunen buruak (Frantzia, Ingalaterra, Espainia, Italia eta Alemania). Herria

Bazen garai hartan San Petersburgon poliziaren **informatzaile** bat, izenez Leibusch. Matías Múgica

Oro har oso sinesgarritasun ttipia ematen diogu artikulu horri, idazlearen **informatzalea** "norbait" baldin bazen ere. Xipri Arbelbide

Pello Zubiriaren izendapena aipatzen duen agirian, «KASeko **informatzaileak»** Zubiriaren aukera ez zuen egokitzat jotzen. Berria - Euskal Herria

**Informatzaile** pribatua tiroz hila bere bulegoan. Aingeru Epaltza

Datu-biltzaile arduratsu batek ziurrenik bikoteen froga erabiliko luke, bi **informatzailerekin** edo **informatzaile** bakarra eta grabagailuarekin. Itziar Laka

**Informatzaileek** eman xehetasunen arabera, [...]. Itxaro Borda

**Informatzaile** izateak eskatzen dizkion zereginei ekingo die. Edorta Jimenez

Ramírez kapitaina ez zen beraz, zehazki, espioia, **informatzailea** baizik. Fernando Morillo

· Horrentzako eta Enbaxadako bigarren idazkari Joycerentzat **informatzaile** jardun izan baitu. Edorta Jimenez

**4** (hitz elkartuetan)

Euzkadi'ko Jaurlaritzak Ameriketan antolaturik duen **informatzaile** Sarea-ren barruan espioitza zereginetan dihardutenek. Edorta Jimenez

Galdera ugari egin zioten horregatik, eta **informatzaile** eginkizunaren garrantziaz oharturik, eta bere albisteekin sentitzen zuen pozarekin erantzuten zien denei. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere informatzaile** (3); **eta informatzaile** (4); **informatzaile bat** (3); **informatzaile batek** (3); **poliziaren informatzaile** (3)

---

# informazio *(orobat **informazione** g,er., eta **informazino** g.er.)* **1** informatzea, berri ematea.

Itzulpengintzaz Masterra egin zuen Gasteizen, eta Hizkuntza, **Informazio** eta Komunikazioaz Donostian. Askoren artean

Besteak beste, EITBren **informazio** politika kritikatu zuten, bertsotan. Joxerra Garzia

Ikus-entzunezkoen, aisialdiaren eta **informazio** eta komunikazioaren teknologia berrien industriarako oinarrizko plan baten itxura izan beharko du sorta horrek. Berria - Kultura

**Informazioaren** euskarriak. Askoren artean

Eredu informatiko edo zibernetikoetatik hurbilago dagoen **informazioaren** tratamendu baten bitartez. Josu Zabaleta

Formaren teoria gainditzeko ahaleginak **informazioaren** kontzeptuaren inguruan bildu dira batez ere azken hamarraldi hauetan. Josu Zabaleta

**Informazioaren** gizartean bizi omen gara. Txema Ramirez de la Piscina

Ezinbestekoa da gauzen berri izatea, jakitea, kalitatezko **informazioa** eskura izatea alegia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Informazioaren** aroa ate joka ari zaigu. Iñaki Heras

**Informazioa** lortu eta prozesatzearen kostuen izugarrizko murrizketa. Iñaki Heras

**Informazioaren** transmisioa eta artaldearen jokabidea. Iñaki Heras

Komunikazio eta **informazioaren** inguruan gertatzen ari den guztia da aski harrigarria. Pello Salaburu

**2** argibidea.

Esperimentu eta behaketa sinple batzuek hainbat **informazio** ematen dute gogoratze-prozesuari buruz. Irene Aldasoro

Ikusmen-sistemak ez du aski **informazioa** kopiatzea, maila bakoitzean erabat tratatzen du berriro **informazio** hori. Josu Zabaleta

Ezin igaro daiteke hiru dimentsiotako eszena batetik bi dimentsioko irudi batera **informaziorik** batere galdu gabe. Josu Zabaleta

**Informazio** gutxi daukagu, eta, gainera, **informazio** interesatua eta manipulatua da. Luis Elberdin

Nancy-rekin izandako elkarrizketan bildutako **informazio** guztia eman nion azken xehetasunera arte. Oskar Arana

Nik **informazio** horixe besterik ez nion eman. Anton Garikano

Oharpen eta **informazio** jakingarriz beteriko, euskal historiaren eta gizartearen lekukotza paregabeak. Koldo Izagirre

Nik **informazio** konfidentziala lantzen diat, badakik. Aingeru Epaltza

**Informazio** ofizialak urriak zirelako. Berria - Euskal Herria

**Informazio** eguneratua eskuratzeko baliabideak. Askoren artean

**Informazio** praktiko uga.ri eskaintzen dituzte liburuxkek. Berria - Euskal Herria

Matxinatuen saioak iraun zuen bitartean **informazio** askea hedatzea lortu zuen hedabide bakarra. Txema Ramirez de la Piscina

Iritzi eta **informazioz** beteriko egunkari hau. Herria

Entziklopedia bat argitaratzea goitik behera gezurrezko **informazioz** osatua. Oskar Arana

**Informazio** kuantikoaren teoria: erronkak eta ikuspegiak. Berria - Harian

**Informazio** digitala kopiatzeko erreztasuna hutsaren hurrengoa da. Berria - Gaiak

**Informazio** jakin bat beste hitz batzuekin jakinaraz daiteke. Xabier Arregi

Eranskina: **Informazio** gehigarria. Askoren artean

Raimundo Silvak **informazio** osagarria nahi du. Jon Alonso

Lehenengo perpausak ("a=a" formakoak) ez du **informazio** berririk ematen; bigarrenak ("a=b" formakoak) bai. Askoren artean

Horrela posible da **informazio** genetikoa pasatzea organismo batzuetatik besteetara. Pello Salaburu

· Laborategikoan 120 giga **informazio** zegoen ia. Fernando Morillo

**3** albistea, berria.

Horrek sinesgarritasun handiagoa eman zion **informazio** sasiko hari. Txema Ramirez de la Piscina

**Informazio** horretan Al Kaeda eta Saddam Husseim-en arteko harremana konfirmatuta zegoela ere esaten zen. Txema Ramirez de la Piscina

6.637 karaktereko **informazio** nagusia eta 2.625eko zatidura. Aingeru Epaltza

Egunero jasotzen dituzten ehunka **informazio** eta estimulu analizatzeko, laburtzeko, eta hierarkizatzeko gai izatea. Txema Ramirez de la Piscina

Ondoren **informazio** hori prentsari igorri zitzaion. Berria - Mundua

Ez zuen baietsi, ezta gezurtatu ere joan den astelehenean *The Washington Post* egunkariak zabaldu zuen **informazio** bat. Berria - Mundua

Inork ez du gezurtatu **informazio** hori, eta horrek balio dit Sanzek esanak berresteko. Berria - Euskal Herria

**Informazio** hori gezurra da, demagogia hutsa. Berria - Euskal Herria

**Informazio** horiek Espainiako Gobernuaren aurka erabiltzen diren «espekulazioak» baino ez direla. Berria - Euskal Herria

**Informazio** hori Kellyren ahotik jaso zuela zioen kazetariak. Berria - Mundua

Helburua **informazioa** ematea zen. Berria - Euskal Herria

Badakit Gobernuak **informazio** hori ezagutzen zuela. Berria - Euskal Herria

Interneteko atari bat, albiste eta **informazio** atari bat... Antton Olano

Isilune bat etorri zen **informazio** bitxi horren ondoren. Jon Muñoz

**Informazio** faltsutu batzuetan oinarrituta, bidegabeki akusatu naute. Berria - Harian

Deitoratu egin du *El Mundo*-k «interesatutako filtrazioa» egin izana eta **informazio** hori SEArekin alderatu ez izana. Berria - Euskal Herria

Ripak erabakia hartuta zegoela erran zuen atzo goizean, eta **informazio** hori gezurtatu zuen Nafarroako kontseilariak arratsaldean. Berria - Euskal Herria

Tituluak dira **informazioaren** elementu nagusiak. Iñigo Aranbarri

Palestinarren aldetik jasotako **informazioek** ziotenez, [...]. Berria - Mundua

Atzo kaleratutako hainbat **informaziok**. Berria - Euskal Herria

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehengo **informazio**-funtziorik ez duela berreskuratuko bertso-paperak. Andoni Egaña

**Informazio**-gerra bat da hau. Berria - Kirola

Herritarrok dugun **informazio** eskubidearen alde. Adierazpen-askatasunarekin eta **informazio**-askatasunarekin lotutako edozein eskubide. Txema Ramirez de la Piscina

**Informazio**-fluxuaren analisian. Askoren artean

Indibiduo bakoitza taldeko besteekin komunikatu egiten da, **informazio**-trafiko batean hartzen du parte. Askoren artean

Gure esku dugun **informazio** kopurua ikaragarria baita. Txema Ramirez de la Piscina

**Informazio** teknologien gizartean buru belarri murgildurik gaude. Iñaki Heras

**Informazio** faltaren ondorioz. Luis Elberdin

**informazio**-sistema aldatua izan delako. Xabier Arregi

Bestalde, gogamena **informazio** prozesatzailea dela esatea ez ote da gogamenaz ikuspegi murritzegia izatea? Askoren artean

Kultur eta **informazio** transmisioa egunkari erdaldunetan finkatuz. Pako Aristi

Konputagailu baten memoria edo **informazio**-gordailua zinta magnetiko batean sar daiteke. Irene Aldasoro

Begien arteko konbergentzia, esate baterako, sakontasunari buruzko **informazio** iturri izan daiteke berez. egoera bakoitzari dagokion "ziurtasun eza" neur dezakegu eta hizkuntzaren **"informazio**-edukia" zehaztu. Josu Zabaleta

Peiok nere laguntzari esker ukan zituen **informazio** gakoak. Ramuntxo Etxeberri

Haren esanahiaz galdetu diot **informazio**-bulegoko arduradunari. Anjel Lertxundi

Badira mugimenduari dagozkion beste **informazio** mota batzuk ere: mugimenduzko paralaxia, esate baterako. Josu Zabaleta

Horretarako **informazio** eta heziketa lan handia egin behar da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Errepide berriaren helburuak zehaztu gabe **informazio** ikerketa bigarren fasean sartu izana salatu du Leiak. Berria - Harian

Planetan zehar kultur harreman eta **informazio**-erlazioak hedatzea. Askoren artean

Hiri bakoitzeko **informazio**-telefonoetara deitu. Oskar Arana

**Informazio** sailekoei jarraipena egiteko eskatu nien. Fernando Morillo

Sasoiko beharginei zein nekazariei zuzendutako doako **informazio** telefonoa martxan jarriko du. Berria - Ekonomia

Putz ez zen **informazio** aldizkaria, sormenekoa baizik. Berria - Kultura

"Albistegia" deitu **informazione** sailak ez du beste edozein katekoeri zorrik. Herria

Zenbait **informazio** hedabide (*The Wall Street Journal, Financial Times* eta *The Economist,* besteak beste). Iñaki Heras

**Informazio**-gizarteko aurrerapen teknologikoek abantaila handiak ekarriko diruzte. Joxerra Garzia

Poliziaren **Informazio** Unitate Zentralak. Berria - Mundua

**Informazio** eta Turismo Ministerioko zuzendari nagusiak. Berria - Kultura

**Informazio** Askatasunari Buruzko Ituna *(Freedom of Information Act,* edo FOIA). Edorta Jimenez

## **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

"Zerbait" horrek, "kokapen-**informazio"** horrek, martxan jarriko ditu guneko geneak, erdiak aitarengandikoak eta erdiak amarengandikoak. Juan Garzia

Angiek, ia intuizioz, irudimenak sor ziezazkiokeen esanahi elkarketak ekiditeko, soinu-**informazio** hura blokeatu zuen buruan eta eguneko eginbeharretan kontzentratu zen. telefono-**informazioari** buruzko publizitate kanpainak. Iñaki Zabaleta

Bath Erresuma Batuan dagoen georgiar estiloko hiririk zoragarriena dela dio turismo-**informazio** orok. Berria - Kirola

Aurkariei buruzko inteligentzia-**informazioa** bil zezaten. Edorta Jimenez

Ongi jabeturik geunden eguraldi-**informazioaren** balioaz. Pello Zabala

Eta horrela entretenitzen da gaztea gazte-**informazioarekin** bere burua janzten. Iñaki Segurola

## **6** ***informazio aldizkari***

*Putz* ez zen **informazio** aldizkaria, sormenekoa baizik. Berria - Kultura

## **7** ***informazio-emaile*** *iz* ik **informatzaile.**

Aurrerantzean etxeko **informazio**-emailerik izango ez denez, beste iturri baten bila abiatu beharko du eskatzaileak. Edorta Agirre

## **8** ***informazio gune***

Berria egunkaria, *berria.info* **informazio** gunea eta tokian tokiko hainbat egunkari. Berria - Euskal Herria

Ministerioen arteko **informazio** gunea sortzeko. Berria - Euskal Herria

Suediako **informazio** gunearen xedeetako bat herrialde horietako sami erakundeekin elkarlanean aritzea izango da. Berria - Mundua

## **9** ***informazio kanpaina***

Euskal sindikatuek **informazio** kanpaina abiatu dute langileei «PPren asmoak» zein diren azaltzeko. Berria - Ekonomia

## **10** ***informazio orri***

Bertako **informazio**-orrian irakurri nuenez. Anjel Lertxundi

## **11** ***informazio pikete***

Horrela, eraikuntza lanetara ez ezik, **informazio** piketeak higiezinen bulegoetara eta eraikuntza materialen biltegietara ere joango dira. Berria - Ekonomia

Sindikatuek jakinarazi zuten ez dituztela astelehenerako antolatutako **«informazio** piketeak» bertan behera utziko. Berria - Ekonomia

## **12** ***informazio zerbitzu***

**Informazio**-zerbitzuetan adituak izan eta espainolez hitz egiten zekiten gizon fidagarriak. Edorta Jimenez

Guardia Zibilaren **Informazio** Zerbitzuak txostena igorri zuen atzo Espainiako Auzitegi Nazionalera. Berria - Euskal Herria

Euskal **Informazio** Zerbitzuen egoitza zen. Alberto Ladron Arana

Francoren **Informazio** Zerbitzu Militarra. Alberto Ladron Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**informazio agentziak** (9); **informazio agentziaren** (10); **informazio agentziaren arabera** (10); **informazio agentziek** (11); **informazio askatasuna** (6); **informazio asko** (28); **informazio bakarra** (8); **informazio bat** (14); **informazio batzuen** (12); **informazio batzuen arabera** (7); **informazio berririk** (8); **informazio bila** (15); **informazio bilkur** (6); **informazio bilkura** (12); **informazio egokia** (6); **informazio eskaera** (6); **informazio eskasa** (8); **informazio eske** (18); **informazio eskubidea** (7); **informazio eta** (93); **informazio eta komunikazio** (16); **informazio eta plangintza** (9); **informazio eza** (9); **informazio falta** (30); **informazio faltsua** (14); **informazio garrantzitsua** (6); **informazio gehiago** (91); **informazio gehiago behar** (6); **informazio gehiago eman** (8); **informazio gehiago eskatu** (9); **informazio gehiagorako** (9); **informazio gehiegi** (6); **informazio gehien** (9); **informazio gehiena** (7); **informazio gehigarria** (7); **informazio genetikoa** (13); **informazio gune** (8); **informazio gutxi** (24); **informazio guztia** (82)

**informazio handia** (6); **informazio hau** (10); **informazio hori** (134); **informazio hori ez** (6); **informazio hori guztia** (9); **informazio horiek** (17); **informazio horien** (9); **informazio horrek** (9); **informazio horren** (16); **informazio hura** (13); **informazio iturri** (47); **informazio iturri izan** (6); **informazio iturriak** (18); **informazio iturriek** (19); **informazio iturrien** (11); **informazio iturrik** (43); **informazio iturriren** (63); **informazio iturrien arabera** (62); **informazio iturririk** (6); **informazio kanpaina** (18); **informazio konfidentziala** (7); **informazio kontrajarriak** (6); **informazio ministro** (14); **informazio ministroak** (6); **informazio nahikoa** (7); **informazio nahikorik** (7); **informazio okerra** (7); **informazio orokorra** (7); **informazio orriak** (11); **informazio osoa** (19); **informazio sekretua** (9); **informazio teknologien** (10); **informazio trukaketa** (7); **informazio ugari** (13); **informazio unitate** (6); **informazio urria** (7); **informazio zabala** (7); **informazio zehatz** (7); **informazio zehatza** (31); **informazio zehatzik** (9); **informazio zerbitzu** (11); **informazio zerbitzuak** (9); **informazio zerbitzuek** (12); **informazio zerbitzuen** (14)

**inguruan informazio** (8); **inguruko informazio** (40); **oso informazio** (10); **poliziaren informazio** (11); **samien informazio** (6); **zen informazio** (11); **zenbait informazio** (9); **zer informazio** (9); **zibilaren informazio** (10); **zion informazio** (6); **zuen informazio** (18); **zuten hainbat informazio** (11); **zuten informazio** (12)

**baina informazioa** (10); **bildutako informazioa** (8); **buruz informazioa** (11); **buruzko informazioa** (205); **buruzko informazioa bildu** (6); **buruzko informazioa eman** (6); **buruzko informazioa ematen** (9); **buruzko informazioa jaso** (10); **buruzko informazioa jasotzeko** (6); **da informazioa** (14); **dagoen informazioa** (7); **den informazioa** (26); **du informazioa** (20); **duen informazioa** (27); **dugun informazioa** (15); **dute informazioa** (9); **duten informazioa** (17); **egiteko informazioa** (6); **egoerari buruzko informazioa** (6); **emandako informazioa** (16); **eskuko informazioa** (9); **eta informazioa** (69); **gabeko informazioa** (6); **gaineko informazioa** (53); **horiei buruzko informazioa** (8)

**informazioa baieztatu** (6); **informazioa bilatzen** (7); **informazioa bildu** (25); **informazioa bildu eta** (6); **informazioa bilduko** (7); **informazioa biltzea** (12); **informazioa biltzeko** (10); **informazioa biltzen** (24); **informazioa da** (10); **informazioa dago** (6); **informazioa du** (6); **informazioa eman** (56); **informazioa emango** (7); **informazioa ematea** (23); **informazioa emateko** (33); **informazioa ematen** (37); **informazioa ematera** (6); **informazioa ere** (22); **informazioa eskaini** (6); **informazioa eskaintzen** (6); **informazioa eskatu** (26); **informazioa eskatzen** (6); **informazioa eskura** (6); **informazioa eskuratu** (9); **informazioa eskuratzeko** (14); **informazioa eta** (64); **informazioa euskaraz** (11); **informazioa ez** (32); **informazioa ez da** (7); **informazioa ezkutatu** (13); **informazioa ezkutatzen** (19); **informazioa ezkutatzen ari** (9); **informazioa helarazi** (8); **informazioa jaso** (43); **informazioa jaso eta** (9); **informazioa jasoko** (9); **informazioa jasotzea** (8); **informazioa jasotzeko** (33); **informazioa jasotzen** (20); **informazioa lortu** (12); **informazioa lortzea** (8); **informazioa lortzeko** (20); **informazioa nahi** (9); **informazioa oso** (11); **informazioa trukatzeko** (18); **informazioa urria** (6); **informazioa zabaldu** (14); **informazioa zabalduko** (6); **informazioa zabaltzea** (13); **informazioa zabaltzeko** (14); **informazioa zabaltzen** (11)

**inguruko informazioa** (117); **inguruko informazioa eman** (6); **inguruko informazioa emateko** (6); **jasotako informazioa** (9); **lehen eskuko informazioa** (7); **lortutako informazioa** (7); **oinarrizko informazioa** (6); **zen informazioa** (8); **zuen informazioa** (26); **zuten informazioa** (11)

**argitaratutako informazioaren** (7); **argitaratutako informazioaren arabera** (7); **buruzko informaziorik** (33); **buruzko informaziorik eman** (7); **buruzko informaziorik ez** (8); **den informazioaren** (7); **du informaziorik** (6); **dugun informazioaren** (6); **dute informaziorik** (6); **emandako informazioaren** (18); **emandako informazioaren arabera** (14); **eta informazioaren** (20); **ez du informaziorik** (6); **ez dute informaziorik** (6); **igorritako informazioaren** (8); **igorritako informazioaren arabera** (8); **informazioaren arabera** (77); **informazioaren eta** (9); **informazioaren gizartea** (7); **informazioaren gizartean** (9); **informazioaren truke** (8); **informazioari esker** (7); **informazioaz gain** (6); **informazioen arabera** (35); **informaziorik eman** (26); **informaziorik ematen** (10); **informaziorik ez** (48); **informaziorik jaso** (8); **inguruko informaziorik** (25); **inguruko informaziorik ez** (7); **inolako informaziorik** (11); **jasotako informazioak** (6); **zabaldutako informazioak** (6); **zabaldutako informazioaren** (7); **zabaldutako informazioaren arabera** (7)

---

## informe[1] *(61 agerraldi, 22 liburu eta 18 artikulutan)* *iz* txostena.

**Informe** edo raport hori osatzeko datuak. Edorta Jimenez

**Informeak,** azkenean, diagnostiko bat zekarren. Joan Mari Irigoien

Nork erredaktatuko du Miss Obaba eta bere lau damei buruzko **informea**? Bernardo Atxaga

-Nik **informeak** egiten ditut, **informe** faltsuak, konprenitzen duzu? Koldo Izagirre

**Informeak** zehatzak ziren, atentatua ongi planifikatua egon zen, baina dinamitak huts egin zuen. Koldo Izagirre

---

## informe[2] *iz* formagabea, eitegabea.

Hainbeste gorputz elkarren ondoan, hainbeste bular, hainbeste triangelu formako oihal-puska pubisa estaltzen: ez zegoen pertsonalizatzeko modurik, gorputzak masa **informe** batean galtzen ziren. Bernardo Atxaga

Nola joan den osatzen gaur egungo mataza **informe** hori. Berria - Kultura

---

## infra-razial *izond*

Egon litezkeela tarteko geruzak, ez arraza-esperientziak ez esperientzia pertsonalak metatuak, maila supra-pertsonal baina **infra**-razialeko talde-esperientziak baizik. Iñaki Mendiguren

---

## infrabalorazio *iz*

Truke-tasa errealaren **infrabalorazioa**. Koro Navarro

---

## infragastronomiko *izond*

Etorkizuna **infragastronomikoa** omen dator beraientzat, eta xerrada ekonomiko hori ez ei da Chavez eta bere ingurukoen erretratu zehatz bat baizik, anabasa nazkagarri bat alegia. Pako Aristi

---

## infragorri 1 *izond* irrada elektromagnetikoez mintzatuz, gorriaren azpiko argi espektroari dagokiona.

Kaser izpiak edo argi **infragorriak** jaurtitzen dituzten armekin. Berria - Gaiak

Izpi **infragorriak** erabili dituzte Erroman, museoetako ikusleen arreta zer-nolakoa den jakiteko. Berria - Kultura

**2** izpi infragorrizkoa; izpi infragorriz dabilena.

Calipsok kamera bat eta irudi **infragorriak** sortzeko gailuak ditu. Berria - Gaiak

Hawaiin jarritako teleskopio **infragorri** batek eta Txileko Behatoki batetik ere atzeman zuten iaz metanoa Marten. Berria - Gaiak

Maverick AGM-65 izeneko misil **infragorriak**. Berria - Euskal Herria

• **3** *iz* argi infragorria; erradiazio infragorria.

**Infragorria** bistaratzen duen erresoluzio handiko kamera sistema bat. Berria - Gaiak

**Infragorri** bidezko detektagailuak, ultrasoinu bidezko detektagailuak. Berria - Harian

**Infragorrien** bidezko behaketek galaxia guneak erakusten dizkigute. Berria - Gaiak

**Infragorriko** berogailu txikia esku artean hartuta ez balebil bezala aritu naiz jolasean kablearekin. Koldo Izagirre

Inoiz espazioratu den **infragorrizko** gailurik boteretsuena. Berria - Gaiak

**4** ***erradiazio infragorri***

Sudurreko usaimen-nerbioen zelulek erradiazio **infragorria** igortzen dutela. Irene Aldasoro

Kosmoseko objektuen berotasuna erradiazio **infragorrian** hedatzen da. Berria - Gaiak

Erradiazio **infragorriaren** gehiena gure atmosferak irensten duela. Berria - Gaiak

Han inguruko kafetegi batean eseri nintzen, beirazko aterpea eta izpi **infragorrizko** berokuntza zeuzkan batean. Joxe Austin Arrieta

---

## **infrakzio** *iz* lege haustea.

Helburua lege zabala egitea da, ahal bezainbat **infrakzio** kokatzeko bere barruan, ondoren gogor jotzeko. Berria - Euskal Herria

«Irregulartasun eta **infrakzio** prozesal guztiek automatikoki indefentsioa» ez dakarrela argudiatu du epaiak. Berria - Euskal Herria

---

## **infralapsario** *iz*

**Infralapsario** [...]: Adanek, gogora etorri zitzaion arte, bekatu egiteko premiarik ez zuela sentitu sinestera menturatzen den pertsona. Xabier Olarra

**Infralapsarioei** batzuetan Sublapsario izena ere ematen zaie, nahiz eta horrek ez izan eraginik Adani buruz duten ikuspegiaren garrantzi eta argitasunean. Xabier Olarra

---

## **infrarrealismo** *iz*

Mexikon bizi izandako **infrarrealismoaren** konkistatik salbatu ziren tributuak dira poemok. Berria - Kultura

**Infrarrealismo** mugimenduari esker. Berria - Kultura

---

## infrentzu ik **ifrentzu**.

---

## **infusio** 1 *iz* egoskina.

Estitxuk **infusioa** eskatu du. Berria - Harian

Itzuli zara tabernara eta tila **infusioa** gehiegi epeldu da. Eider Rodriguez

Hostoa herrialde askotan hartu ohi da te **infusioa** egiteko. Pello Zabala

Zaharrek gaur egun ere belar horren **infusioa** hartzen dute buruko minari aurre egiteko. Agustin Otsoa

Erizain batek katilu handi bat **infusio** utzi zuen mesanotxean eta esan zuen: "Hori dena edaten duzunean, ez duzu bularretako minik izango!". Joseba Urteaga

**2** *irud*

Gauez izarren **infusioa** dirudi batzuetan, zerua oskarbi denean. Joxean Agirre

---

## **infusorio** *iz* protozoo betileduna.

**Infusorioak** mikroskopio xafla baten gainean. Josu Zabaleta

Hor dituzu azinetido zurrupariak, beste **infusorio** batzuen protoplasma-gaia xurgatzen dutenak. Josu Zabaleta

Kieselgura **infusorio** -lur bat da, zeina erabiltzen baita dinamita egiteko. Karlos Linazasoro

---

## **ingelera** *iz* ingeles hizkuntza.

Aurreneko aldiz entzuten dut hotel horren izena -esan zidan frantses azentuz kutsatutako **ingeleraz** . **Ingelerazko** esaera batekin. Bernardo Atxaga

Rollin McCrash deitzen zioten, **ingelerazko** *roll* (irauli) eta *crash* (tupust egin) aditzetatik eratorriko ezizena. Berria - Kirola

---

## **ingeleratu**, ingelera(tu), ingeleratzen da/du *ad* ingeleseratu.

AEBetan 67.000 inguru bizi dira euskaldun sentitzen direnak, nahiz eta euskararik jakin ez, eta horiengatik **ingeleratu** ditut bertsoak. Berria - Kultura

---

## **ingeles** *(ETCn **39.190** agerraldi; orobat **ingles** ETCn **891** agerraldi, **angeles** g.er. eta **angles** g.er.)* **1** *izlag* Ingalaterrakoa, Ingalaterrari dagokiona.

**Ingeles** (edo britainiar) herriak, bere uharte-gotorlekuak ematen zion immunitate konparatiboaz baliatuz. Iñaki Mendiguren

**Ingeles** langileek debekatua zuten atzerrian lan egitea. Koro Navarro

Eta berak, ateratzean, **ingeles** beilari batek ahantzi duen makila eman dit opari gisa. Piarres Aintziart

**Ingles** politikatzalek zioten urrats bat gehiago zela hor egina gerlari buruz. Herria

**Ingeles** musikagile handienen lanak entzuteko aukera. Berria - Kultura

Frantziako kostaldean **ingeles** paraxutistak jaitsi dira. Josu Zabaleta

**Ingeles** kolonizatzaileek portu bat behar zuten Txinaren hegoaldearekin komertzio harremanetan aritzeko. Ramuntxo Etxeberri

Montgomery **ingeles** jeneralak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Tony Blair **ingles** lehen minixtroak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Thomas Hobbes **ingeles** protestanteak. Piarres Xarriton

Richardson **ingeles** idazlearen "Pamela" (1741) nobelaren eraginez. Jon Muñoz

**Ingeles** eta estatubatuar gudariak borroka bete-betean daude. Josu Zabaleta

**Ingeles** poeta (1770-1850), **ingeles** erromantizismoaren aitzindaria. Antton Olano

Ingalaterran ezin sar zitezkeen **ingeles** itsasontzietan garraiatzen ziren salgaiak baino. Koro Navarro

**Ingeles** irratiak hamaiketako emanaldian, alemanez: gudaroste buru den Dwight Eisenhower jeneralaren hitzaldia. Josu Zabaleta

Hiri gainetik igarotzen ziren **ingeles** hegazkinen kontra. Josu Zabaleta

Erran zidan, gau hartan berean **ingeles** airekoek, ehunka, Berlin bonbardatu zutela 3 orenez salbaiki. Marzel Etxehandi

*Daily Mirror* **ingeles** kaseta famatuaren burua bere kargutik kendu dute jestu gutiz. Herria

Gogora etorri zitzaion bere **ingeles** nortasun-agiria. Jose Morales

Sir Paul Rycaut-ek, Konstantinoplako **ingeles** enbaxadako idazkari argiak. Iñaki Mendiguren

**Ingeles** lurrean kokaturiko etxe batean. Iñaki Mendiguren

**Ingeles** hizkuntzaren urrezko eguerdi distiratsuan. Xabier Olarra

Gogoan hartu behar da garai hartan **ingeles** industria aski babestua zegoela. Koro Navarro

Antzinako greziarrekiko bere maitasuna ere, dio Hannak, **Ingeles** Lorategian erne zitzaion. Joxe Austin Arrieta

**2** (izenondo gisa)

Oso eruditoa den elizgizon **ingeles** bat. Jon Alonso

Kolonizatzaile **ingelesaren** lehen helburua landan bizitzea zen. Iñaki Mendiguren

Aristokrata **ingelesaren** emazte amerikarra. Xabier Olarra

Andrew Boorde **ingelesak** *The fyrst Boke of the Introduction of Knowledge* liburua idatzi omen zuen 1542an. Patziku Perurena

Eta Harry Blount, kazetari **ingelesak**. Karlos Zabala

Harantzago, bi marinel **ingeles** cockney-z ari ziren eztabaidan, mozkor-mozkor eginda. Lopez de Arana

Hogeigarren mendeko eleberrigile **ingeles** batek, poeta saritua ere bazenak. Iñaki Mendiguren

Ba al duk azken urteotako talde **ingelesen** berri? Iban Zaldua

Jarb, ordurako, zakur **ingelesa** musukatzen ari zen. Jose Morales

Ederki aski ezagutzen zuen irribarre **ingeles** gezurrezko hura. Lutxo Egia

Labana **ingeles** eta su-izkilu errusiarrak. Xabier Olarra

Izterren gainean jarri ohi zuen tapaki **ingelesak** irrist egin zion. Jon Muñoz

Etzanda, bere alkandora **ingelesaren** paparra zabalik. Josu Zabaleta

Zetazko gorbata dizdizka; zapata marroi **ingelesak**. Anjel Lertxundi

Oihal **ingelesa?,** edo, aukeran, hemengoa nahiago duzu, Errusiakoa bertakoa? Jose Morales

Eta orain diru **ingelesa** irabazten duk. Patxi Zubizarreta

Tabako **ingelesaren** usain lodia aditzen diat. Xabier Olarra

Espioitza film **ingelesetan** bezala. Karlos Zabala

Aldizkari **ingelesaren** arabera. Pello Salaburu

Leviatan, ordea, bi mastako goleta **ingelesa** zen, 200 tonakoa. Felipe Juaristi

Beherago urmael bat zegoen, aingira-belarrez estalia, zeren hori, bestetik, ez da batere bitxia Errusiako lurjabeen lorategi **ingelesetan**. Jose Morales

**3** (neurriekin)

Bukhara, zortzi milia **ingeles** baino luzeago den harresi batez inguratua. Karlos Zabala

Emanen dizkio sei oin **ingeles** lur eta, hain handia denez, bat gehiago. Juan Garzia

• **4** *izlag* ingelesezkoa.

Etxe honetan badira **ingeles** biblia batzuk, are lehenbizikoa bera, John Wiclif-ena. Juan Garzia

Pope-ren **ingeles** Iliadaren harpidedun egin nintzela. Juan Garzia

Plinioren lehenbiziko **ingeles** bertsioaren, Philemon Holland-enaren, ale bat. Juan Garzia

Edizio **ingelesa** 1651koa da: *De Cive, Philosophical Rudiments Concerning Government and Society.* Esteban Antxustegi

Ferrocarril Sud konpainiako ingeniari bat, gerora **ingeles** eskolak emango zizkidana. Juan Garzia

Josefa **ingeles** ikastaro batean ezagutu nuen. Bernardo Atxaga

Neskatxa, Jenny McBain, New Yorko Fordham Unibertsitatean **Ingeles** Filologia ikasten ari zen. Gotzon Garate

Doktoretza amaitzea, unibertsitateren bateko **ingeles**-sailen batean leku bat aurkitzea. Oskar Arana

Lord Byronen ondoren, Dylan Thomasen inguruan sortu dira segur aski mitorik handienak **ingeles** literaturaren munduan. Koro Navarro

• **5** *iz* Ingalaterrako herritarra.

Benetako **ingeles** bakar bat ere ez zagok hemen oraintxe bertan. Joxemari Iturralde

Bi gizon horietatik bata **ingelesa** zen, bestea frantsesa. Karlos Zabala

Hiruek frantsesez egiten badute ere, anfitrioi dirudiena **ingelesa** da. Anjel Lertxundi

Baina Milan Kunderaren solasari jarraikiz erran genezake, "frantses, errusiar, **ingeles** batek ez duela sekula horrelako arazorik asmatuko". Piarres Xarriton

OíConnor zeritzon **ingeles** bat. Juan Garzia

Gipuzkoan ez dituzte **ingelesak** maite. Koldo Izagirre

Niri, **ingeles** barbaro honi, eman zait misterio garden hori agerian jartzea. Juan Garzia

Ni ere **ingeles** egingo nauk! -hots egin zuen bihotz-berriturik. Patxi Zubizarreta

Ez zuen inortxo ere hastio, ez juduak, ez armeniarrak, ezta **ingelesak** berak ere. Patxi Zubizarreta

**Ingelesak** tiro eta tiro ari ziren Baionarantz iheska zihoakien ontzi baten kontra. Martin Anso

Arrats hartan bi gizon, **ingelesak,** mugaraino lagundu behar zituen, ekaineko aro eder eta epel batez, ilargi xuria lagun. Eneko Bidegain

**Ingelesen** ustez ez dela arrisku handirik izanen. Alberto Ladron Arana

**Inglesek** biziki maite dute Dordogne eskualdea.. Herria

**Ingelesek** utzi zuten hutsunea betetzeari ez zion indioen filosofia fatalistak asko lagundu. Gotzon Garate

**6** germaniar hizkuntza, batez ere Ingalaterran, Estatu Batuetan eta antzinako ingeles kolonietan mintzatzen dena.

Nire **ingeles** motzean, hala nahi izanez gero elkarrekin irten gintezkeela diotsot. Edorta Jimenez

Erdipurdiko **ingelesean,** Manausko komisario nagusiak [...] jakinarazten zuen Senhor Elgar Grosrouvre hila zela. Jon Muñoz

Nahiko **ingeles** kaskarrean omen dago. Fernando Morillo

Bere **ingeles** kaxkarrari nik alemanez erantzun orduko igarri zidan suitzarra naizela. nire bizitzaren laburpena egiteari eman diot, ahalik eta **ingeles** txukunena erabiliz. Joxe Austin Arrieta

Sir Charlesekin ikasi nuen, halaber, dakidan **ingeles** apurra. Joan Mari Irigoien

Berak nik baino **ingeles** eta geografia askoz ere gehiago dakiela. Josu Zabaleta

Ingelesak ez baitira **ingelesa** ulertzen trebeak. Ramon Saizarbitoria

-The Hollies -nahikoa ondo ebakitzen zuen **ingelesa-**. Bernardo Atxaga

Baina hemen erabiltzen duten **ingelesak** txinera dirudi. Koro Navarro

Eta **ingelesa** hitz egiten den herrialde batean, nola iritsi liteke aiton-amona izatera **ingelesa** menderatu gabe? Iñaki Mendiguren

**Ingeles** ikasten ari da, postaz. Josu Zabaleta

Gero, Estatu Batuetan, **ingelesa** ikasten ari zela [...]. Iñaki Zabaleta

Segurtatzen ahal dizut dantza eta **ingelesa** ikasten hasiko zarela. Patxi Zubizarreta

Helburu horri dagokio liburu azkeneko hiztegia **ingeles**-euskara hurrenkeran ere agertzea. Lourdes Oñederra

Astean bi oren **ingeles** ikasiko baitute. Herria

Gela honetan **ingelesaren** hastapenak irakasten dira. Patxi Zubizarreta

**Ingelesaren** eragina gehiegizkoa dela. Koldo Zuazo

**Ingelesaren** gramatikako hainbat gertakariren azterketa zorrotza. Itziar Laka

**Ingelesaren** aditzaren sistema morfologikoaren azterketa bikaina. Itziar Laka

Gaztelania eta **ingelesa** zituen ama hizkuntza. Fernando Morillo

Lehen hizkuntza **ingelesa** duenak. Lourdes Oñederra

Egun batean **ingelesak** irabaziko dio frantsesari. Hasier Etxeberria

-Dianne Short naiz -emakumea **ingelesera** pasatu zen orduan-. Fernando Morillo

Alemaniar azentu arin batekin hitz egiten zuela **ingelesez**. Oskar Arana

Indian **ingelesez** jakinez gero, batetik bestera traba handirik gabe ibiliko zara. Gotzon Garate

Komunikazioa baldin bada gure ardura, egin dezagun denek **ingelesez**. Pello Salaburu

Okinarekin **ingelesez** hastea. Pello Salaburu

Korrespondentzia **ingelesez** idazten hasi zen arte. Patxi Zubizarreta

Filosofian, jakina, dokumentu gehienak **ingelesez** daude. Askoren artean

Teresa gelako atean gelditu zen, pentsakor, **ingelesezko** hitzak xuxurlatuz. Bernardo Atxaga

Publizitate agentzia batean dabil lanean eta arratsaldeetan **ingeleseko** klaseak ditu. Harkaitz Cano

Bere aita **ingeleseko** irakasle zen. Koro Navarro

Psikopatia sexualei buruzko frantsesezko eta **ingelesezko** liburu batzuetatik oharrak hartzen ikusi omen zuen. Josu Zabaleta

**Ingelesezko** Biblia bat topatu zuen. Juan Garzia

Aurrean ditut **ingelesezko,** alemanezko, italierazko eta gaztelaniazko itzulpenak. Xabier Olarra

Tesiaren **ingelesezko** bertsioa. Pello Salaburu

Monet, Picasso, Renoir, Matisse-renak..., baina **ingeleseko** bertsioan, zoritxarrez. Ramon Saizarbitoria

**Ingelesezko** musika da nagusi disketxetan. Pako Aristi

Hainbat kasutan euskarazko siglak erabili dira, eta besteetan berriz **ingelesezkoak,** usadioaren arabera. Koro Navarro

Orotara 30.466 erran zahar dira aurkitzen liburu hortan: gutti gora behera, euskarazko 17.000 erran zahar, gaztelanezko 5.500, **inglesezko** 4.200 eta latinezko 3.700. Herria

Gainera, **ingelesetiko** itzulpenak egiten zituen. Fernando Rey

### 7 ***giltza ingeles/ingeles giltza*** giltza zabalgarria.

Giltza **ingelesari** heldu, eta hutsaren hodiari kolpeka ekin zion. Juan Garzia

Giltza **ingelesa** ekarri nuen landroverretik, eta Herbertek sarraila jauzarazi. Joxe Austin Arrieta

Giltza **ingeles** batekin jota lehertu zioan begia. Koldo Izagirre

Zubira igota lemaren ardatzean ipinia genuen giltza **ingelesa** estutzera. Koldo Izagirre

Nire aita mekanikari aparta zen eta eskuan **ingeles** giltza hartzen zuenean herri oso bat jarriko zuen ihesi. Koldo Biguri

### 9 ***ingeles hizkuntza*** ingelesa.

Berak bezala, **ingeles** hizkuntzako lizentziatura egin nuen nik ere unibertsitatean. Oskar Arana

Izumenezko eleberria genero herrikoia eta tradizio handikoa da **ingeles** hizkuntzazko erromantizismoan. Koro Navarro

Aurten, Nafarroan eta Euskal Autonomi Elkartean berdin, **ingeles** hizkuntzak markatzen ditu tantoak: astean bi oren ingeles ikasiko baitute lehen mailako haurrek Herria

### 10 ***ingeles hiztun*** ik **ingelesdun.**

Bokal eta kontsonante gutxiago ditu eskura euskal hiztunak **ingeles** hiztunak baino. Lourdes Oñederra

**Ingeles** hiztunentzat ere, berez, hu[k] errazagoa izango litzateke fisikoki. Lourdes Oñederra

Irlandako **ingeles** hiztuna, dublindarra. Edorta Jimenez

Europako aitzindari mendebaldar protestante **ingeles**-hiztunak. Iñaki Mendiguren

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)

**bere ingeles** (8); **blair ingeles** (3); **da ingeles** (7); **duen ingeles** (3); **emakume ingeles** (4); **ere ingeles** (3); **eta ingeles** (34); **frantses eta ingeles** (5); **ingeles airekoek** (3); **ingeles bat** (33); **ingeles bat eta** (3); **ingeles batek** (21); **ingeles batekin** (6); **ingeles baten** (17); **ingeles bati** (5); **ingeles erako** (3); **ingeles eta** (27); **ingeles eta gaztelania** (3); **ingeles filologia** (4); **ingeles filologia ikasten** (3); **ingeles hizkuntza** (7); **ingeles hizkuntzan** (3); **ingeles hizkuntzari** (3); **ingeles hiztunak** (8); **ingeles horiek** (3); **ingeles hura** (4); **ingeles irratiak** (8); **ingeles kasaka** (3); **ingeles lorategian** (4); **ingeles lur** (4); **ingeles maila** (5); **ingeles ontzi** (3); **jeneral ingeles** (3); **kanta ingeles** (5); **kazetari ingeles** (3); **nire ingeles** (5); **oin ingeles** (4); **oin ingeles lur** (4); **ontzi ingeles** (3); **sei oin ingeles** (4); **talde ingeles** (8); **zen ingeles** (3); **ziren ingeles** (4); **zuen ingeles** (7)

**anai joan ingelesa** (6); **baina ingelesa** (3); **benetako ingelesa** (3); **da ingelesa** (4); **edo ingelesa** (7); **eta ingelesa** (46); **euskara eta ingelesa** (4); **gaztelania eta ingelesa** (12); **geratu zen ingelesa** (3); **giltza ingelesa** (8); **hizkuntza ingelesa** (7); **idazle ingelesa** (3); **ingelesa da** (10); **ingelesa edo** (9); **ingelesa edo frantsesa** (4); **ingelesa ere** (7); **ingelesa eta** (33); **ingelesa eta frantsesa** (6); **ingelesa eta gaztelania** (3); **ingelesa ez** (7); **ingelesa gehiago** (3); **ingelesa hitz** (3); **ingelesa hitz egiten** (3); **ingelesa ikasi** (7); **ingelesa ikastea** (3); **ingelesa ikasteko** (5); **ingelesa ikasten** (18); **ingelesa ikasten ari** (3); **ingelesa ikasten hasi** (3); **ingelesa ikastera** (3); **ingelesa izan** (6); **ingelesa jakin** (4); **ingelesa jakin behar** (3); **ingelesa ulertzen** (3); **ingelesa zen** (9); **ingelesa zuen** (3); **izen ingelesa** (3); **joan ingelesa** (6); **lehen hizkuntza ingelesa** (3); **nire ingelesa** (5); **talde ingelesa** (5); **umore ingelesa** (3); **zen ingelesa** (9); **zuen ingelesa** (4)

**abeslari ingelesak** (3); **batean ingelesak** (3); **blair ingelesak** (3); **dira ingelesak** (4); **duten ingelesak** (3); **edo ingelesak** (3); **egunkari ingelesak** (3); **erantzun zion ingelesak** (4); **erantzun zuen ingelesak** (3); **esan zion ingelesak** (3); **esan zuen ingelesak** (9); **eta ingelesak** (20); **frantsesak eta ingelesak** (4); **ingelesak baino** (3); **ingelesak bere** (5); **ingelesak beste** (4); **ingelesak bezala** (3); **ingelesak dira** (4); **ingelesak ere** (6); **ingelesak eta** (15); **ingelesak ez** (13); **ingelesak irabazi** (5); **ingelesak irabazi zuen** (3); **ingelesak ziren** (3); **jokalari ingelesak** (3); **kazetari ingelesak** (7); **musikari ingelesak** (4); **talde ingelesak** (10); **tony blair ingelesak** (3); **zion ingelesak** (8); **ziren ingelesak** (7); **zuen ingelesak** (24); **zuzendari ingelesak** (3)

**da ingelesaren** (3); **den ingelesaren** (4); **eta ingelesarekin** (4); **eta ingelesaren** (10); **idazle ingelesaren** (4); **ingelesaren arteko** (3); **ingelesaren egitura** (3); **ingelesaren egiturari** (3); **ingelesaren egiturari buruzko** (3); **ingelesaren eragina** (4); **ingelesaren eta** (5); **ingelesaren eta alemanaren** (3); **ingelesaren gramatika** (8); **ingelesaren gramatikako** (3); **ingelesaren osagai** (3); **ingelesaren perpaus** (5); **talde ingelesaren** (4)

**baina ingelesek** (4); **da ingelesen** (5); **dituzte ingelesek** (3); **du ingelesen** (3); **dute ingelesek** (4); **eta ingelesek** (13); **eta ingelesen** (14); **eta ingelesen kontra** (3); **eta ingelesera** (5); **eta ingelesetik** (4); **ingelesei ez** (4); **ingelesek bezala** (3); **ingelesek ere** (5); **ingelesek esaten** (4); **ingelesek esaten duten** (4); **ingelesek eta** (13); **ingelesek ez** (20); **ingelesek ez dute** (7); **ingelesek ez zuten** (3); **ingelesek irabazi** (5); **ingelesek oso** (3); **ingeleseko klaseak** (4); **ingelesen artean** (4); **ingelesen arteko** (6); **ingelesen aurka** (16); **ingelesen defentsa** (3); **ingelesen esku** (4); **ingelesen eta** (7); **ingelesen kontra** (14); **ingelesen lehen** (3); **ingelesen mende** (3); **ingelesentzat lan egiten** (3); **ingelesera egindako itzulpenetik** (12); **ingelesera eta** (3); **ingelesera itzuli** (6); **ingelesera itzuliko** (3); **ingelesera itzultzeko** (3); **ingelesera itzultzen** (3); **mato ingeleseko** (3); **partida ingelesen** (3); **talde ingelesen** (3); **zien ingelesei** (3); **zuen ingelesen** (4); **zuten ingelesek** (13)

**baina ingelesez** (6); **bat ingelesez** (4); **batek ingelesez** (3); **batzuk ingelesez** (3); **beti ingelesez** (3); **da ingelesez** (13); **du ingelesez** (7); **dute ingelesez** (3); **duzu ingelesez** (3); **edo ingelesez** (13); **edo ingelesez abesten** (3); **ere ingelesez** (7); **eta ingelesez** (80); **eta ingelesez egin** (3); **eta ingelesez emango** (3); **eta ingelesez ere** (5); **eta ingelesez hitz** (5); **euskaraz eta ingelesez** (5); **ez ingelesez** (3); **frantsesez edo ingelesez** (3); **frantsesez eta ingelesez** (11); **gaztelaniaz edo ingelesez** (6); **gaztelaniaz eta ingelesez** (19); **gehienak ingelesez** (3); **gero ingelesez** (4); **hitzak ingelesez** (6)

**ingelesez abesten** (6); **ingelesez abesten zuen** (3); **ingelesez argitaratzen** (3); **ingelesez ari** (5); **ingelesez besteko** (11); **ingelesez besteko film** (6); **ingelesez dago** (3); **ingelesez dakien** (3); **ingelesez daude** (4); **ingelesez edo** (13); **ingelesez edo frantsesez** (6); **ingelesez egin** (13); **ingelesez egin zuten** (5); **ingelesez egiten** (8); **ingelesez emango** (3); **ingelesez emango dira** (3); **ingelesez ematen** (4); **ingelesez ere** (21); **ingelesez esan** (5); **ingelesez esan zuen** (3); **ingelesez eta** (33); **ingelesez eta alemanez** (6); **ingelesez eta frantsesez** (6); **ingelesez eta gaztelaniaz** (3); **ingelesez ez** (7); **ingelesez hasi** (3); **ingelesez hitz** (17); **ingelesez hitz egin** (3); **ingelesez hitz egiten** (12); **ingelesez idatzi** (5); **ingelesez idatzia** (5); **ingelesez idatzitako** (4); **ingelesez idazten** (4); **ingelesez irakurtzeko** (3); **ingelesez izanen** (4); **ingelesez izanen da** (4); **ingelesez jarri** (3); **ingelesez kantatzen** (5); **ingelesez mintzatu** (3); **ingelesez mintzatzen** (7); **ingelesez mintzo** (3); **ingelesez ondo** (4)

**da ingelesezko** (5); **edo ingelesezko** (3); **eta ingelesezko** (11); **ingelesezko bertsioa** (9); **ingelesezko eta** (12); **ingelesezko eta alemanezko** (3); **ingelesezko eta euskarazko** (3); **ingelesezko eta gaztelaniazko** (5); **ingelesezko first** (3); **ingelesezko fishing** (3); **ingelesezko fishing arrantza** (3); **ingelesezko hitz** (7); **ingelesezko hitz bat** (3); **ingelesezko hitzak** (4); **ingelesezko perpaus** (4); **ingelesik ez** (4); **liburua ingelesez** (5); **nik ingelesez** (3); **nuen ingelesez** (4); **zein ingelesez** (4); **zen ingelesez** (5); **zuen ingelesez** (8)

---

## **ingelesdun** *izond/iz* ingeles hiztuna dena.

Perpaus horiek aurkezten bazaizkio, hiztun **ingelesdunak** perpaus arrunt baten doinuaz irakurriko du. Itziar Laka

Adibidez, **ingelesdun** askorentzat, /aneim/ fonema-hurrenkera era bikoitz batean uler daiteke, bai *a name* "izena" eta bai *an aim* "xedea" bezala. Itziar Laka

**ingeleseratu**, ingelesera(tu), ingeleseratzen du *ad* ingelesera itzuli.

Unescorekin hiru liburu itzuliko dituzte datorren urtean; poesia itzuli eta ezagutaratzeko, AEBetako aldizkaria erabiliko dute, eta EIEren web orriaren atal nagusiak eta idazle bakoitzaren lanaren lagin bat **ingeleseratuko** dute. Berria - Kultura

---

**ingeleskume** *iz adkor* ingelesa.

Zera esango deutsut: behin edo behin ikusi neban **ingeleskume** ha. Lutxo Egia

---

**ingelestasun** *iz* ingelesa izateko nolakotasuna.

Irlandatik Ingalaterrara lan bila joan zirenen ondorengoen **ingelestasunaz** hitz egiten digu. Berria - Kultura

**Ingelestasunak** berez ez baitu zerikusirik chauvinismoarekin. Berria - Kultura

---

**ingelestu** *(orobat **inglestu**) izond* inglesdun bihurtua.

Beagleren bidaia hartan, indio **ingelestuak** ekarri zituzten, horien artean Jemmy Button, Ingalaterrara ia ume eramandakoa eta, ingelesa ondo ikasirik, yamanera ia ahaztuta zuena. Joseba Sarrionandia

Nahiz eskualde heietan mintzairaz ere aspaldian **inglestuak** diren, ez dute ahanzten bretoin eta euskaldun asko ibili dela denboran han gaindi, euskaldunak bereziki balearen ondotik, eta batzu han kokatu ere... Herria

---

**ingelestxo** *izond adkor* ingelesa.

Handik iritsi zitzaizuen Gerla Handia irabazteko burdina, **ingelestxook**! Urtzi Urrutikoeetxea

---

**ingeniari** *(441 agerraldi, 70 liburu eta 115 artikulutan; ETCn 5.733 agerraldi; orobat **injeniari** g.er.)* **1** *iz* mota guztietako makinak edo ibilgailuak, zubiak edo bideak, industria tresneria eta kidekoak marrazteko, eraikitzeko edo mantentzeko heziketa zientifiko eta teknikoa hartu duen pertsona. ik **injineru**.

**Ingeniari** batek makina bat diseinatzen duenean. Irene Aldasoro

Ekarrarazi zuten Iruñetik **ingeniari** bat urtegia berritzeko. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Itoizko urtegiko obren **ingeniari** Javier Sanchez Carok. Edurne Elizondo

Babcockeko hamar bat **ingeniari** Austrian trebatuko direla urtarriletik aurrera. Berria - Ekonomia

Hernandez Industriako **Ingeniari** Doktorea da. Herria

Bere aita Serafin meatzetako **ingeniariaren** ogibideak hartaratuta. Xabier Mendiguren Elizegi

Bihotzak, ponpa gisa begiratzen bazaio, mirespena eragingo dio **ingeniari** hidraulikoari. Irene Aldasoro

Aire Armadako **ingeniari** aeronautikoen agindupean. Berria - Euskal Herria

**Ingeniari** mekanikoari, hala ere, hainbat arazo sortzen dizkio giza gorputzaren azterketak. Irene Aldasoro

**Ingeniari** kimikoak zer miretsi ugari aurkitzen du usaimenean. Irene Aldasoro

Bi zentzutan erabiltzen ditu **ingeniari** biomedikoak ingeniaritzaren ideia eta teknikak. Irene Aldasoro

Eneko Lakuntza **ingeniari** informatikoa da. Berria - Gaiak

Atxilotutako gehienak informatikako **ingeniariak** eta telekomunikazio arloko enpresetako arduradunak dira. Berria - Euskal Herria

Alicia Fernandez San Millan **ingeniari** agronomoak garatu du tabako landareetatik albumina lortzeko teknika. Berria - Gaiak

Odol-zirkulazioa, gorputzean diren beste asko bezala, baina **ingeniari** proiektugilearen ahalmenetik kanpo dagoena. Irene Aldasoro

Bigarren gitarra jotzaile eta grabaketako **ingeniari** laguntzaile da egitasmo berri honetan. Berria - Kultura

Eusko Jaurlaritzako **ingeniari** tekniko batek esan zigunez. Berria - Harian

Hesiaren lehenengo arduraduna, Pablo Murga **Ingeniarien** kapitaina. Lutxo Egia

Bideetako, Ubideetako eta Portuetako **Ingeniarien** Elkargoak. Edurne Elizondo

• **2** (predikatu gisa)

Izan da filosofo gorte-gizonik, filosofo lente-leuntzailerik, are filosofo **ingeniari** eta estrategarik, baina ez da izan filosoforik, nik dakidala, handizkako saltzaile edo dendaririk. Juan Garzia

Tom lankide **ingeniariak** eta biok egin dezakegula. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **ingeniaritza 2**.

Lizentzia edo **ingeniari** titulua eskuratzeko ikasketak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Liejan **ingeniari** ikasketak egiten ari zela esan zion. Josu Zabaleta

Aipagarria da Bilboko **Ingeniari** Eskolaren kasua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Egileak **«ingeniari** lanak» egin ditu. Berria - Kultura

48 infanteri batailoi, 3 zaldieri errejimentu, eta 2 **ingeniari** batailoi. Txillardegi

Iritzia ematera hurbiltzen ziren **ingeniari**-saldoak eta aditu-andanak ez zetozen bat. Jon Alonso

Espainiako bi **ingeniari** elkargo horietan. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ekoizpen-**ingeniari** batek eragozpenak jarriko lizkioke begiari, oso kalitate-kontrol zorrotzik egiten ez duelako. Irene Aldasoro

Automobil-**ingeniariek,** orain dela gutxi arte, ezin eraman izan dute praktikara etengabeko lubrikazioaren kontzeptua. Irene Aldasoro

Atxilotu gehienak gizonezkoak dira eta atxilotuen artean daude, besteak beste, ikastetxeetako irakasleak, ikasleak, informatika **ingeniariak,** garbitzaileak, funtzionarioak eta militarrak. Berria - Euskal Herria

Jasoagoa zen Serafin Barojaren lankide izan zen beste mina **ingeniari** bat. Askoren artean

Nekazaritza-**ingeniari** honek zer egin lezakean gobernu berri batean. Berria - Mundua

-Hor duzun hori arrantza-**ingeniaria** da -kankailua seinalatuz, Sergiok. Edorta Jimenez

Telefonia-**ingeniariek** ondotxo ezagutzen dute arazo hori, eta linean anplifikagailu bat jarrita konpondu ohi dute. Irene Aldasoro

Habe- zutabe- eta zubi-lana egiten duten hezurretako arazoak ezagun zaizkio egitura-**ingeniariari**. Irene Aldasoro

Feedback-begizta asko eta beste hainbat automatismo ikusten ditu kontrol-**ingeniariak**. Irene Aldasoro

Osasun-**ingeniari** peto-petoa ematen duzu. Xabier Olarra

Michael Saunders ingurumen **ingeniariak**. Berria - Gaiak

Telarteko arduradunak, gainera, soinu **ingeniariak** dira, eta oso ondo menderatzen dute zuzenekoak behar duen teknika. Berria - Kultura

· Industria **ingeniari** titulua atera eta ekonomian lizentziatu zen. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bat ingeniari** (3); **bi ingeniari** (4); **bigley ingeniari** (3); **den ingeniaria** (4); **edo ingeniari** (5); **eta ingeniari** (11); **eta ingeniaria** (3); **eta ingeniariak** (6); **eta ingeniariek** (10); **eta ingeniarien** (6); **eta ingeniarien elkargoek** (3); **eta portuetako ingeniarien** (4); **geologoek eta ingeniariek** (4); **geologoen eta ingeniarien** (6); **ingeniari aeronautiko** (3); **ingeniari bat** (12); **ingeniari batek** (18); **ingeniari baten** (6); **ingeniari biomedikoak** (4); **ingeniari britainiarra** (3); **ingeniari elektroniko** (3); **ingeniari elektroniko batek** (3); **ingeniari esaten** (3); **ingeniari eta** (15); **ingeniari gazte** (3); **ingeniari izan** (3); **ingeniaria da** (4); **ingeniaria eta** (3); **ingeniariak eta** (6); **ingeniariek eta** (4); **ingeniarien elkargoak** (3); **ingeniarien elkargoek** (5); **kenneth bigley ingeniari** (3); **portuetako ingeniarien** (4); **zuen ingeniari** (3); **zuen ingeniariak** (3)

---

# ingeniaritza *(orobat **injeniaritza** g.er.)* **1** *iz* ingeniariaren ezagutza eta tekniken multzoa.

**Ingeniaritzako** ikasleak. Josu Zabaleta

Gero **ingeniaritzan** matrikulatu zen. Fernando Rey

Bera **ingeniaritza** ikasten ari zen. Iban Zaldua

Muskuluak, **ingeniaritzaren** ikuspegitik, erregai-pilen indarrez dabiltzan motor linealak dira. Irene Aldasoro

Giltzurruna, berriz, **ingeniaritza** kimikoko sistema bat da, ingeniari batek ezin berdinduzko maisutasunez diseinatua eta kudeatua. Irene Aldasoro

Maskuriekin eginiko saioak erakutsi digu ehunen **ingeniaritza** tresna egokia dela. Berria - Gaiak

Materia aldatzen eta osagai berriak sortzen, **ingeniaritza** atomikoari esker. Pello Salaburu

Gero Lausanara eraman zuten bost urtez **Ingeniaritza** Industriala ikastera. Mikel Hernandez Abaitua

Bizitza aldatzeko gai izango gara, **ingeniaritza** genikoari esker. Pello Salaburu

*ik beherago* 4. Askoren artean

Horretarako, elektronika ikasi beharra zagok, seme; **ingeniaritza** elektronikoa egitea onena. Juan Kruz Igerabide

Yemenen **ingeniaritza** hidraulikoko lan ikaragarri bat ikus zitekeela, Marib-eko eustorma edo dikea, alegia. Iñaki Mendiguren

**«Ingeniaritza** fiskala» saihesteko neurriak eskatu zituen, eta administrazioei galdegin zien fiskalitatea egokitzeko eta «langile apalenen zama arintzeko». Berria - Ekonomia

Gizarte-gorputzaren egiturari aplikaturiko **ingeniaritza** politikorik trebeenak inoiz ez luke balioko arimen berrerospen espiritualaren ordezko gisa. Iñaki Mendiguren

Giza giltzadura askoren marruskadura-koefizientea 0,005 eta 0,02 bitartekoa da: **ingeniaritzako** teknika aurreratuenek nekez hobe dezaketen emaitza. Irene Aldasoro

Industria diseinuko **ingeniaritza** teknikoko lizentziatura. Berria - Euskal Herria

Hemen **"ingeniaritza** tekniko" gisa ezagutzen ditugun titulazio horietan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Arturo Rebollo Bideetako, Ubideetako eta Portuetako **Ingeniaritzan** doktore da. Edurne Elizondo

18 enpresa izango dira: zerbitzuetakoak, **ingeniaritzakoak,** makina erremintakoak eta energiakoak, batik bat. Berria - Ekonomia

Eibarko Industria **Ingeniaritza** Teknikoko Unibertsitate Eskola. Koldo Zuazo

Erresuma Batuko **Ingeniaritzako** Errege Elkarteak. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **ingeniari 3**.

Gáborrek amaituak zituen **ingeniaritza**-ikasketak. Ander Irizar

Adrianak badaki **ingeniaritza** ikasiko duela. Berria - Euskal Herria

Lille-ko unibertsitatean ezagutu zuen, **ingeniaritza** eskolan. Eneko Bidegain

**Ingeniaritza** titulua. Aingeru Epaltza

Bilboko **Ingeniaritza** Eskolako zuzendaria da egun. Berria - Euskal Herria

Pablo Garcia Bringas Deustuko Unibertsitateko **Ingeniaritza** Fakultateko irakasleak. Berria - Gaiak

Nonbait, ikasleek -haietako asko **ingeniaritza** karrerakoak izaki- ez zuten hizkuntz kontuei buruzko interes berezirik erakusten. Itziar Laka

Klitoria **ingeniaritza** lan bikaina dugu, ukipen errezeptorez eta nerbio bukaeraz josia, eta pasiorik indartsuenak, sutsuenak, hezeenak eta atsegingarrienak iratzartzeko gai da. Luis Elberdin

Muga-lubrikazioa darabilten **ingeniaritza**-materialetan inoiz neurtu den frikzio-indar txikiena baino bost edo hamar aldiz txikiagoak dira giza giltzaduretan neurtutako frikzio-indarrak. Irene Aldasoro

Soinu horiek bibrazio mekanikoak dira, eta horiek garunean prozesatzeko moduko seinale bihurtzeak **ingeniaritza**-arazo interesgarri eta zailak sorrarazten ditu. Irene Aldasoro

Tunela Arlaban-Eskoriatza tarte osoko **ingeniaritza** obra nagusia da. Berria - Euskal Herria

Nafarren bizikidetza eta ongizatea bultzatzeko **ingeniaritza** zubiak ez eze, ideologikoak ere eraikitzen ditugu. Berria - Euskal Herria

Mondragon Unibertsitateko **Ingeniaritza** campuseko Ikasleen Batzordeak. Berria - Euskal Herria

Filial horrek energia, ingurumen eta industria alorretan **ingeniaritza** zerbizuak eskaini eta zehastasun handiko osagaiak ekoizten ditu. Berria - Ekonomia

Doxa, gainera, **ingeniaritza** aholkularitza da. Berria - Euskal Herria

**Ingeniaritza** eta aholkularitza enpresak. Berria - Ekonomia

ELAk dio gero eta ohikoagoak direla «finantzei lotutako **ingeniaritza** operazioak», eta Sidenor jarri du adibidetzat. Berria - Ekonomia

Ameriketako Jose Ramon Goikoetxea **Ingeniaritza** saileko lehendakariordeak. Berria - Ekonomia

AEBetako Armadako **Injeniaritza** Egiturako buruzagi batek. Berria - Mundua

Estatu Batuetako **Ingeniaritza** Akademia Nazionaleko kidea ere bada. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Kontrol-**ingeniaritzatik** edo datu-prozesaketa elektronikotik eratorritako ideiak. Irene Aldasoro

Meatze **ingeniaritzen** ikasketen kasua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Nekazaritza **Ingeniaritzako** ikasle Rebeka Fernandezek. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoan, Informatika **Ingeniaritzan** leku kopurua 190etik 150era gutxituko da. Berria - Euskal Herria

«Kultur **ingeniaritza»** deitu du Garmendiak berak. Berria - Kultura

Gasteizko Industria **Ingeniaritza** Teknikoko UE. Berria - Euskal Herria

· Finantza-**ingeniaritza** eragiketei onura handiagoa ateratzeko aukera. Iñaki Heras

Angeluko eraikuntza **ingeniaritza** eskolari. Herria

**4** ***ingeniaritza genetiko*** genei buruzko esperimentzate eta ikertze metodo eta tekniken multzoa.

Aplikaziook gerora baino ez dira iritsi, aukera ikusi zelarik organismoen geneetan beretan eragiteko, **ingeniaritza** genetikoa esaten zaionaren eskutik. **Ingeniaritza** genetikoak esperimentu bidezko sarbide erabat berria ematen digu hainbat auzi konplexu aztertzeko, hala nola enbrioiaren garapena, minbizia eta burmuinaren funtzionamendua. Juan Garzia

**Ingeniaritza** genetikoak [...] aukera ematen zuen zernahi ere organismotatik gene bat bakartu eta beste batean txertatzeko. Juan Garzia

**Ingeniaritza** genetikoak lortua du, izan ere, euli batean gene hori halako moduan atondurik sartzea, ezen aise ager baitaitezke begiak animaliaren hegaletan zein hanketan! Juan Garzia

**ingeniaritza** genetikoaren bidez eraldaturiko landareak erabiltzea. Juan Garzia

**Ingeniaritza** genetikoak, bada, goitik behera aldatu ditu ikerkuntzaren ikuspegi eta metodoak. Juan Garzia

Animalien **ingeniaritza** genetikoan aritzen diren ikerlarien helburua. genetikoko enpresen promesak ez direlako betetzen ari. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bilboko ingeniaritza** (10); **bilboko ingeniaritza eskolak** (3); **bilboko ingeniaritza eskolako** (5); **eleka ingeniaritza** (6); **eta bilboko ingeniaritza** (3); **eta ingeniaritza** (9); **finantza ingeniaritza** (3); **industria ingeniaritzako** (3); **ingeniaritza biomedikoa** (3); **ingeniaritza elektronikoa** (4); **ingeniaritza eskola** (4); **ingeniaritza eskolak** (5); **ingeniaritza eskolako** (9); **ingeniaritza eskolako zuzendaria** (6); **ingeniaritza eskolan** (3); **ingeniaritza eta** (7); **ingeniaritza fakultateko** (3); **ingeniaritza genetikoa** (9); **ingeniaritza genetikoak** (9); **ingeniaritza genetikoaren** (8); **ingeniaritza genetikoari** (3); **ingeniaritza ikasketak** (8); **ingeniaritza lan** (4); **ingeniaritza tekniko** (4); **ingeniaritza teknikoko** (8); **ingeniaritzako proiektua** (3); **ingeniaritzan doktorea** (3); **ingeniaritzari dagokionez** (4); **unibertsitateko ingeniaritza** (3)

---

# ingenio *(orobat **injenio**)* **1** *iz* asmamena.

Izaera **ingenioak** neurtzen du, doktrina zientziak, eta erabilera emaitzak. Imanol Unzurrunzaga

Beste batzuk badira haiek bezainbat ardura, **ingenio** eta trebetasun erakutsiz obra beteak eta apartak egin zituztenak bai beren herrikideentzat eta bai baliabide ekonomiko urriko jendearentzat. Santiago Iruretagoiena

Esperientzia gaixtoak **injenioa** eta adimendua iratzartzen dituela. Joan Mari Irigoien

Hori baino beharrezkoagoa izaten da, ordea, ingeniariak bere buru barruan daukana, zientzia, **ingenioa** eta artea. Jon Alonso

Zeren **injenio** handikoa baitzen, bizia eta xarma handikoa. Joan Mari Irigoien

**2** idazlea.

Jarraian, prologomania desegokietsi zuen, "aspaldian erabili baitzuen jada trufagai, Kixotearen aitzinsolas antzetsuan, **Ingenioen** Printzeak". Juan Garzia

---

# ingeniotsu *(orobat **ingenioso, injeniotsu** eta **injenioso**)* *izond* asmotsua.

Interesgarriago zeritzon, nahiz egikeran kontraesantsua eta axalekoa izan, Daudet-en asmo ospetsua: figura batean elkartzea, Tartarin-engan, hain zuzen, Aitorenseme **Ingeniotsua** eta haren ezkutaria... Juan Garzia

Badago beste makina-mota bat aski **ingeniosoa** eta azkar erabiltzeko izugarri baliagarria dena. Santiago Iruretagoiena

Bat-batean honako edo halako jokaldi sumatu duen futbolaria edo edozein arazoren aurrean bat-batean konponbidea asmatzen jakin duen teknikaria, pertsona talentudun, argi eta **injeniotsutzat** hartua izango da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

# ingenuitate *iz* tolesgabetasuna, xalotasuna. ik **ingenuotasun**.

Hortik aurrerakoa badakik: morriña, **ingenuitatea** (total, neri zer egingo zidatek ba), eta alde honetara pasa. Jokin Urain

Bere bizitzako garai eta une guztietan hain nabarmenki erakutsi zituen **ingenuitate** eta bihurrikeria, askatasun nahia eta libre izatearen harrotasuna. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# ingenuo **1** *izond* tolesgabea, xaloa.

Bera izan zen eusko gudarien errendizioa italiarrekin negoziatu zuena, arrakastarik gabe azkenean, zer **ingenuoak** ziren, benetan uste al zuten italiarrei entregatuz gero gudariak itsasoz ebakuatzen utziko zietela Francori bizkarra emanda, zer **ingenuoak** ziren. Mikel Hernandez Abaitua

Ez zuen ihes egin, *no voy a hacerme reo de un delito que no he cometido* errepikatzen zuen beti bere arrebek ihes egiteko esaten ziotenean, zer **ingenuoa,** edo adoretsua, edo ausarta, ez dakit. Mikel Hernandez Abaitua

· Dezepzionatua zirudien, nirekin konektatzeko esperantza **ingenuoa** baitzeukan. Mikel Hernandez Abaitua

Gyorgy Kovesen begirada inuzente, **ingenuo** eta batzuetan inpertinentearen esku uzten du Kerteszek narrazioaren gidaritza. Berria - Kultura

Ez dut eskandalizatuarena egin nahi, zientzia ez dela politizatu behar eta gisa horretako adierazpen **ingenuoak** eginez. Berria - Gaiak

**2** (adizlagun gisa)

Heu haiz saltsa honetan hain **ingenuo** eta inkontziente sartu den bakarra. Unai Iturriaga

---

# ingenuotasun *iz* tolesgabetasuna, xalotasuna. ik **ingenuitate**.

Ez da bat eta bera Elorriagaren eta Magdalenaren literatura egiteko modua, baina badute antzekotasun sakonik, funtsean, literatura eta bizitzaren aurreko jarrerari dagokionez: **ingenuotasun** eta xalotasun erabatekoaz, halaber baikortasun eta bizipozez, begiratzen diote munduari, eta hala irudikatzen beren lanetan. Berria - Kultura

---

# ingenuotu, ingenuo(tu), ingenuotzen du *ad*

Clunytarren eraginez egin zen Coyanzako kontzilioa 1050ean, eta juxtu handik urte bete baino lehen, "Vizkaia et Durango"ko eliza guziak laikoen agindupetik askatzeko **("ingenuotzeko")** dekretua zabaldu zuen Nafar Erregeak, besteen artean, honako agindu hau emanez: [...]. Patziku Perurena

---

# ingerada *iz* ingurua, silueta.

Eguzkiaren forma eta **ingerada**. Xabier Amuriza

*Euskalduna*tik gorde zuten garabi bakarraren **ingerada** azaldu da langar eta behe-laino artean. Urtzi Urrutikoetxea

Aurreko egunetakoen moduan, goiza hotza zen eta laino mehe batek berdintzen zituen gauzen **ingeradak**. Xabier Montoia

Berriro lantzen ari zen, nonbait, artean ere bizirik zeuzkan ikusmenezko modalitate guztiak -forma, **ingerada,** mugimendua, sakontasuna-, eta lehen baino irrika handiagoz ikertzen guztiak. Xabier Olarra

Horren arabera irudikatuta dagoenean, **ingerada**, ertza, markatuko da, kanpoko kurbatura gera dadin leun-leun biribilduta. Santiago Iruretagoiena

---

# inginadore *iz* *ipar* ingeniaria.

Philippe Mazeaud Bidetako **Inginadore** burua. Herria

Hor 2 000 deserritu badira hiru geletan zatituak, S.S., "kapo" eta "stubédient"-en menpean, gure lana zuzentzen dutela **inginadore** eta "meister"-ek. Michel Oronoz

Ukaldi txar bat egin dute tirokada batekin, bost hil eta kolpatu batzu eginez, hiletan bi amerikano, bi ingeles eta australiar bat petroliotegi batean beren lana zuten **inginadoreak**. Herria

---

**inginari** *iz* ingeniaria.

Ainitz lan tzarretan lekuko langileak ezin aurki, orduan kanpotiar imigranteeri dei egin behar ukan dute tokiko **inginari** eta arkitektoek. Herria

Carlos Bosgarrenaren semeaz ari naiz orain, jakina; "gerra-**inginari** gaitza" omen denaz. Txillardegi

---

**inginaritza** *iz* ingeniaritza.

Medikuntzako Anton Erkoreka, Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Ludger Mees, Geografia eta Historiako Jasone Cenoz eta **Inginaritza** Eskolako Juan Jose Unzilla aurkeztuko dira Perezekin batera. Berria - Euskal Herria

---

**inglandar 1** *izlag adkor* ingelesa, Ingalaterrari dagokiona.

**Inglandar** agente bat daukazue zeuen artean. Koldo Izagirre

**2** (izenondo gisa)

Sinets iezadak laborista **inglandarra** ez dela iristen Bermeoko sabindarrenaren hankapera paxismoari aurre egiteko tenorean. Koldo Izagirre

• **3** *iz* ingelesa, Ingalaterrako herritarra.

**Inglandarrak** sportman hutsak dira. Koldo Izagirre

Ez nuen konprenitzen doixtarren jokamoldea, ez **inglandarrena.** **Koldo Izagirre**

Orduan, esanen duk hik, zergatik zenieten halako herra **inglandarrei**? Koldo Izagirre

---

**inglandera** *iz adlag* ingelesa, ingelesa hizkuntza.

Horregatik hasi zen **inglandera** lardaskatzen. Koldo Izagirre

Egik **inglanderaz**! Koldo Izagirre

---

ingles ik **ingeles**.

---

**ingrat** *izond* eskergabea, esker gaiztokoa.

Haurrak **ingratak** zirela marmaratu eta loak hartu zuen. Itxaro Borda

Hoa hemendik lehenbailehen, bastart **ingrat** hori. Joan Mari Irigoien

· Gaurko menderako kanonekiko gorpuzkera **ingrata** zeukala ager genezake: txikia, lodikotea, papogabea, beltzarana, erdi-mutiko. Itxaro Borda

---

**ingrediente** *iz* osagaia.

---

**ingresatu,** ingresa, ingresatzen **1** du *ad* ospitaleratu.

Rioquemadoko erietxean **ingresatuta** geratu dela esan diot. Bi egun egin **zituen** ingresatuta Palentziako ospitalean, Espainiako bi poliziaren zaintzapean. Joseba Sarrionandia

Bertso Egunaren biharamunean, Donostiako Poliklinan **ingresatzekoa** zen Lazkao Txiki, bihotzeko ebakuntza egiteko. Berria - Kultura

Astelehenean **ingresatu** zuten gastroenteritis larri batengatik. Berria - Kirola

Hala ere, ez zuten zauri larririk, eta ez zituzten **ingresatu** behar izan. Berria - Euskal Herria

**2** sartu, -ratu.

2000ko udan egin zuten proba, zaharrentzako egoitza batean; ongi zainduta eduki zuten, amona ere itxuraz gustura, eta bertan **ingresatzea** erabaki zuten azkenean, udazken hartatik aurrera. Xabier Mendiguren Elizegi

2000ko udan egin zuten proba, zaharrentzako egoitza batean; ongi zainduta eduki zuten, amona ere itxuraz gustura, eta bertan **ingresatzea** erabaki zuten azkenean, udazken hartatik aurrera -Horra Vladimir, psikiatrikoan **ingresatua**! Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **asteazkenean ingresatu** (3); **ingresatu behar** (3); **ingresatu behar izan** (3); **ingresatu egin** (3); **ingresatu zuten** (15); **ospitalean ingresatu** (5)

---

**ingreso** *iz* sarrera, sartzea.

Neska bizia naizela esan diote, balio dudala ikasteko, eta merezi duela batxilerrerako **ingresoa** Oñatin egiteak. Arantxa Iturbe

Gure mutil ilegorriarekin joan da errebisio medikoa eta **ingresorako** paperak betetzera. Joseba Sarrionandia

Askotan, krisialdi laburren ostean, gaixo asko ez dira gertatzen ari zaienaz jabetzen; ingresatuta egon badira ere, askotan **ingreso** hori beren borondatearen kontra egindakoa izaten da. Berria - Harian

---

**ingude 1** *iz* burdina altzairatuzko masa, oinarri baten gainean finkatzen dena eta burdina eta metalak lantzeko erabiltzen dena.

Goritutako burdina sutegitik atera, **ingudean** jarri, mailuaz jo eta burdinatik aroztegi oso-osoa betetzeko adina txinparta atera ziren. Fernando Rey

Berdin **ingude** ondoan eserita dagoen errementaria, bere arreta burdingintzan jarria duelarik. Elizen arteko biblia

Tona banako muturrekoak izaten ziren haiek, **ingudean** jotako mailukadak bailiran astiro eta gupidagabe emanak. Koldo Biguri

Bihotzak bularra inarrosten zidan, nola mailuak **ingudea**. Joan Mari Irigoien

**Ingudean** mailuak eguna du hasi. Berria - Kultura

· Hiru lehiakide aritu ziren 18 kiloko **ingudearekin** laz Mugartegik jantzi zuen txapela, eta baita atzo ere. Berria - Kirola

*ik beherago* 5. Askoren artean

**2** (hitz elkartuetan)

Artisauak zilarginari ematen dio adore, mailukari leuntzaileak **ingude**-jotzaileari, esanez: "Ederra soldaketa!" Elizen arteko biblia

**3** *irud*

Arimaren **ingudean** nire arrazarentzat kontzientzia berria forjatzea. Joseba Zulaika

Hortxe dauzkak hire grafologo sena lantzeko **ingudea** eta mailua. Edorta Jimenez

Bere aurretik ihesi zihoazen guztiak mailuaren eta **ingudearen** artean harrapatuta gelditzen ziren. Agustin Otsoa

Mailuaren eta **ingudearen** arteko burdina goria gara, kolpea kolpearen ondoren jasatearen poderioz amatatu egiten dena. Jon Alonso

**4** belarriko hiru hezur txikietako bat.

Hiru hezur txikiz osaturiko kate baten bidez konektaturik daude tinpanoa eta leiho obala; mailua, **ingudea** eta estribua deritze hezurtxo horiei (duten formagatik). Irene Aldasoro

**5** ***ingude altxatze*** ingudea altxatzean datzan euskal kirola.

Lokotx-biltzea, **ingude** -altxatzea eta lasto-altxatzea izango dira txapelketako lehen hiru kirolak. Berria - Kirola

Txinga txapelketa, **ingude** altxatze txapelketa eta kadete mailako arpana txapelketa ere jokatuko dira. Berria - Kirola

**Ingude** -altxatzea izan zen hirugarren proba. Bizkaitarrak bi kiroletan gailendu ziren: sokatiran eta lokotx-biltzen; **ingude** -altxatzen eta lasto-altxatzen bigarren sailkatu ziren.

**Ingude** -altxatzen, lau kirolari ariko dira lehian 18 kiloko ingudearekin. Berria - Kirola

**Ingude** -altxatzen, berriz, Alain Bidart Gabadikoak 83 jasoaldi egin zituen. Berria - Kirola

Atzo izan zen **ingude** -altxatzean Nafarroako txapelketa. Berria - Kirola

· Izanen diren jokoak: harri altxatzea, **ingudea** , lasto altxatzea, dantza, toka, xiba, zerra, soka tira, jende zama, arto biltzea, esne untziak, zaku eremaitea. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ingude altxatzea** (9); **ingude altxatzen** (9)

---

# inguma

**1** *iz* amesgaiztoa; mamua.

Suaren xuxurlak **ingumez** hanpatu loarekiko sosegu amini bat ekarri zidan eta behinekoz jaikitzea erabaki nuen. Itxaro Borda

Bazuen bulta bat ez nintzela frantses estatuko hiri nagusian izan, nahiz gaueko **inguma** gaixtoek frankotan hango karrikak, gauak eta espaloietako kabina telefonikoak gogoaren ziliportatzera ekartzen zizkidaten. Itxaro Borda

Antzinako itzal eta **ingumen** ordez, isiltasuna hedatzen zen gero zubi gain konkorrean. Itxaro Borda

· Ez gira hautesle **ingumak** edo kanpotik etorriak, baizik eta Hazparneko seme alabak, gure herriari lotuak. Herria

**2** (pertsonifikatua)

Mendebaleko Pirinioetako alde bietan lan egiten duten deabru ugariak -Munttiot, Laxaborrete, Plaga, Xakerre, Kinkilimarro eta gainerako galtxagorri, intxixu, **inguma** eta etsaiak- pozik matxinatuko lirateke zazpi Matxino handien kontra. Anjel Lertxundi

Abentura nobela bat da, eta bi protagonista nagusi ditu: batetik, **inguma,** gaizkilea; eta, bestetik, Basajauna, zintzoa, besteei laguntzen diena.

**3** tximeleta.

Begiratu han hemenka zebiltzan tximeletei, eta "hau, mitxirrika", "hau, txoleta", "hau, **inguma"** . Bernardo Atxaga

Eta, bat-batean, zinezko tximeleta zuri bat -mitxirrika, **inguma,** txoleta- hegan etorri eta justu goroldio hartan pausatu zen Egiaz latsagia euri-ondoko uda-minetako laino arinek troxatzen zuten eta uretik jezartzen ziren hostozko **inguma** orlegiek haurraren izpiritua nahasi zuketen. Bernardo Atxaga

---

# ingumatu, inguma(tu), ingumatzen da *ad*

Kastelak, ametsetako kadrilla eskain asmoz, Yvonne bahitu zuen; emaztea, mutur, urrin txarra zerion gizonaren urratsean **ingumatu** zen. Itxaro Borda

---

# ingurabide

**1** *iz* zerbait inguratzen duen bidea.

Urlasterrak eta haizeak ez zien nabigatzaileei **ingurabidez** hurbiltzeko aukerarik ematen. Iñaki Mendiguren

Mendia inguratzea ez baldin bada oso luzea, **ingurabidea** egingo da, eta haranak ez baldin badira jarraituak, aldapan behera eramango dira bideak. Santiago Iruretagoiena

Bai goitik beherako bidea, bai **ingurabideak** eta bai sabelak eta ur-goraketak metodo honekin egin baitaitezke, iturburutik barru harresiturainoko aldapa orekatuta dagoenean. Santiago Iruretagoiena

**2** hirigune bat inguratzen duen errepide edo autobidea.

Donostiako bigarren **ingurabideak** 220 milioi euroko aurrekontua du. Berria - Euskal Herria

Hiriaren **ingurabidearen** ondoko hotel batean sartu nintzen. Joxan Elosegi

Autobia edo **ingurabide** bat pasatzen duk handik hurbil. Iban Zaldua

Aeroportutik **ingurabideetarako** tartean. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **donostiako bigarren ingurabidea** (4); **hiriaren ingurabidearen** (3)

---

# ingurada

*iz* bihurgunea.

Garden bihurtzen ari zen eta, segundo batzuen buruan, bere **inguradaren** lerro finak baino ez ziren ikusgai. Iban Zaldua

Eta hor hara, **ingurada** latzean, bi zaldiek ene buru muina inarrosten zutela Itxaro Borda

---

# inguraezin

*izond* ezin inguratuzkoa; hurbilezina.

Haren inguruan eraikin bat altxa zuten eta zaindari greko bat jarri zuten inork ez zezan barrukorik ikusi, eta agindu zuten leku hari*abaton* deitzea, **inguraezina** . Santiago Iruretagoiena

Galsoro sailak jo nituen begiz, **inguraezinak** eta biluziak, leihatilatik barrena: inor ez zen sekula handik pasatu. Karlos Linazasoro

Hizketan hotza eta zimurra bezain afektiboki **inguraezina** zen hango langileria, erran gabe doa. Harkaitz Cano

---

# inguraka

*adlag* inguruan.

Leihotik barnera jauzi egin du, [...] **inguraka** dabila marrumaz, ene ohantzetik hurbil asmuka ari da... Xipri Arbelbide

---

**inguraketa** *(orobat* **inguruketa** *g.er)* **1** *iz* inguratzea, ingurua ibiltzea. ik **inguraldi**.

Baltzak eta biok, alegia: oinez, Harkaizpeko Urtegiaren **inguraketa** . Txillardegi

Eta ezinbestean ezkontzaz pentsatzera behartua, atsegin hartzen zuen gizonaren **inguraketekin,** edota haren barrenari igarririk eta sentimenduak hitzez nola janzten zituen ikusirik. Patxi Zubizarreta

Talde osoa barnean hartzen zuen **inguruketa** bat eragin zion besoari. Irene Aldasoro

**2** hurbilketa.

Jaioterrian eman zioten, nonbait, nire helbidearen berri eta segituan hasi zuen -nik izendatu nuen moduan esanda- **inguraketa** operazioa. Joxemari Iturralde

Azkenean honeraino iritsi dena konturatzen da oso urruti ibili dela Jainkoaren bila eta **inguraketa** asko eginez. Joan Mari Lekuona

**3** setioa.

Setiatuak zeudenetako batzuek, hala ere, lortu zuten **inguraketari** ihes egitea. Elizen arteko biblia

Helenoen aurka mendeku hartu beharraren zama ikusten zuten beren gain,Troiako **inguraketa** eta suntsipenagatik. Iñaki Mendiguren

---

**inguralde** *iz* zerbaiten inguruko aldea.

Afrikan, zehaztu gabeko hiri bateko **inguraldeko** auzune txiroan girotu du idazle arabarrak bere lehen antzerki lana. Berria - Kultura

---

**inguraldi** *iz* inguratzea, ingurua ibiltzea. ik **inguraketa**.

Jaunaren kutxa hartu, eta **inguraldi** bat eman zioten hiriari; gero, kanpamentura itzuli ziren, gaua han igarotzeko. Jose Antonio Mujika

---

**inguramen** **1** *iz* ingurua.

**Inguramena** doi bat argitzen delarik ohartzen gira Lukenau-eko geltoki ttipian girela. Michel Oronoz

Familia euskaldun batean sortu nintzen, eta euskara bakarrik entzuten nuen **inguramenean** hazi. Pello Salaburu

Hirugarrenik, **inguramenaren** egituratzeko tartekaria da Hizkuntza. Piarres Xarriton

Hizkuntzalariak ohartuak dira, norberak bere ama-hizkuntzaren bitartez ordenatzen eta egituratzen duela bere **inguramen** osoa. Piarres Xarriton

Honek **inguramen** guzia, 14eko gerlaren ondotik, loeria gaizto batek hartua zeukala oharturik, gazte zenbaitekin "Aitzina" deitu oldar berria piztu nahi izan zuen. Herria

Tirabira horrek bete-betean harrapatu ninduen, eta, jakina, oztopo bat izan zen nire **inguramen** naturalean egokitzeko. Rafa Egiguren

Bere **inguramenez** erdi biarnes, erdi gaskoin haunditua, funtsean amarik ez goxatua eta aita eta biak ere ez luzaz, nola zituen berak [P. Lafittek] aurkitu, erraiteko maneran, euskararen bideak. Herria

**2** *ipar* ingurumena.

**Inguramena** eta natura dutelarikan laguntzen. Herria

Euskal-Herrian, nasaiki ezagutzen ditugu **inguramen** aberastasunak: itsasoa, mendiak, errekak, oihanak, abere edo jendeen bizi toki ederrak. Herria

**Inguramena** errespetatzen duten kalitateko ekoizpenak egin; laborantza iraunkor bat sustatu; laborantza ideki laborantza mundutik heldu ez diren gazteeri... Herria

Sabin Intxaurraga Eusko Jaurlaritzan Lurralde Antolamendu **eta** Inguramen saileko arduraduna. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> gure inguramena (3)

---

**inguramendu** *iz* ingurua, inguramena.

Iparrerantz, Karn mendien **inguramendua** udaberriko lehen egunetako zuritasun distiratsu lausoan hondoratzen da. Josu Zabaleta

Asasinatzaile ezezagun baten eskuetan hil behar zuen kondenatuak, iradoki zuen Nolan-ek, **inguramendu** berariaz dramatiko batean. Juan Garzia

---

**ingurarazi**, ingururaz, inguratazten du *ad* inguratzera behartu.

Navas de Tolosa-ko batailan miramamolinak burdinazko kate batez **ingurarazi** zuen bere eremua, baina Nafarroako erregeak aizkora ukaldi batez eten zuen. Koldo Izagirre

Suari begira denbora puska batez egon ondoren, besotik heldu eta bere gorputza **ingurarazi** zidan harekin. Xabier Olarra

Indar gaitzean igortzen zuen ura eihera harrien **ingurarazteko** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Don Kijotek bezalaxe egitea erabaki zuen; eta honela, burukiaz ongi babestua, zain egon zitzaion; ezin baitzuen bere mandoa harantz-honanzka **ingurarazi;** izan ere, neka-neka egina zegoen mandoa, eta honelako umekeriatan ohitu gabea izanik, ez zen gauza pauso bat emateko. Patxi Ezkiaga

---

**inguratu**, ingura, inguratzen **1** du *ad* norbaitek beste norbaiten ingurune osoa hartu.

Alde guztietatik **inguratu,** eta gogotik ekin zioten eskatzeari hirian beste pare bat astez gera zedila. Jose Morales

Horregatik **inguratu** zuten kazetariek ministroa. Berria - Euskal Herria

-Eman ezak, Eduardo, **inguratua** hago-eta. Aingeru Epaltza

Hantxe **inguratu** zuten, eta alde guztietatik tiro egiten zioten. Juan Kruz Igerabide

Hermione berarengana joan zen, eta besoaz **inguratu** zuen animatzeko. Iñaki Mendiguren

Itxasok maitekiro **inguratu** du bere besoetan. Pako Aristi

Carmona jauna soldaduz eta horrelako jendez **inguratua** ibiltzen zen beti. Jon Muñoz

Isekatzailez **inguratua** nago. Elizen arteko biblia

Haiek juduen gudarostea **inguratu** eta goizetik arratsera geziak jaurtikitzen ari izan zitzaizkion. Elizen arteko biblia

· Zitoplasmako antenak luzatuta, organismo sarkina **inguratu,** irentsi eta desegin egiten dute. Irene Aldasoro

· Oraiko lana, adixkide eta zerbitzari gazteagoez ahal bezainbatez **inguratzea** , euskal ohituren biziarazteko gogo jarraiki batean. Herria

**2** zerbaitek norbaiten ingurune osoa hartu

Herio-uhinek **inguratu** ninduten, uholde gaiztoek ikaratu. Elizen arteko biblia

Gorsehillgo oihan oparoak **inguratzen** ninduela. Koro Navarro

Eta beldur ikaragarri batek **inguratzen** ari ninduen. Daniel Landart

**Inguratzen** gaituen errealitatetik abiaturik, imajinatzen dugun mundua kontatzea. Anjel Lertxundi

Kalera irten bezain laster, udaberriko aire hezeak **inguratu** zuen, eta sudur azpia hezetu zitzaion. Jose Morales
Nire gizonaren hankek gerria **inguratu** zidaten bi sugek bezala. Juan Martin Elexpuru
Atea bultzatu, eta berehala **inguratu** zuen gizona kantu-taberna hartako giro heze eta eztiak. Jon Muñoz
Atorra sentitzen nuen nire titiburuak igurzten eta zurrunbilo koloretsu geldi batek **inguratu** nau eta heldu dit. Monika Etxebarria
Zirimola geldiezin batek **inguratu** ninduen, kemen basatiaz. Juan Kruz Igerabide
Luxuria jabetu zen nitaz eta **inguratu** egin ninduen bere traiziozko itzal mugikorrez. Karlos Zabala

## **3** norbaitek zerbaiten ingurune osoa hartu

Hein berean ihardetsi behar, eta gerri liraina **inguratu** nion. Aingeru Epaltza
Gero, sardexka eskuan, alde guztietatik **inguratu** zuten mahaia, eta [...] jaten hasi ziren denak, nor kabiarra, nor sardinzar ketuak, nor gazta. Jose Morales
Zelai osoa hesitu zuen, eta gero putzua kable elektrifikatuz **inguratu** zuen oso-osoa. Koro Navarro
Bahiketa gertatu eta berehala Errusiako Armadak eta Ipar Osetiako Poliziak eraikina **inguratu** zuten. Berria - Mundua
Espainiako Poliziak plaza **inguratu** zuen, eta ondorioz, antolatzaileek ekitaldia tokiz aldatu zuten. Berria - Euskal Herria
Egun haietan, Gazara hiria **inguratu** eta setiatu egin zuen Simonek bere gudarostearekin. Elizen arteko biblia
*ik beherago* 5. Askoren artean
Espioiek diote galiziarrak hamabi mila soldadu baizik ez dituela, ez da nahikoa hiria **inguratu** eta setioa estutzeko. Jon Alonso
Hilerriren bateko altzifreen artean, bide hilobiz **inguratuetan** zehar. Josu Zabaleta
· Horregatik agertzen ziren gauetan penaz beteriko arimak, [...]; horregatik ezin zen etxea hiru aldiz **inguratu;** horregatik zetorren zigorra agindu sakratua ongi betetzen ez zuenarentzat. Pello Salaburu

## **4** zerbaitek beste zerbaiten ingurune osoa hartu.

Haren bolalumak nire izena biribil batez **inguratu** zuen. Aingeru Epaltza
Urka-bilurrak Wardwellen lepoa **inguratu** zuenean. Anjel Lertxundi
Lurra urak **inguratzen** du, ura aireak, eta berau, azkenik, suak **inguratua** da. Xabier Kintana
Harresi beltz altu batek **inguratzen** du Urbia. Koro Navarro
Ur izoztuz betetako hobiz **inguratua** . Jon Muñoz
Lehen behakoan, ez zen aise hilketarik imajinatzea nire begiek **inguratu** zuten eremuan. Aingeru Epaltza
Torino **inguratzen** duten muinoetan. Anjel Lertxundi
Barrakoi xume bat lurrean zulatua eta lubakiz **inguratua** bera, frontetik ez oso urruti. Felipe Juaristi
Harresiak eraiki eta Sion mendia harlanduz **inguratu** eta gotortzeko agindu zien lan-arduradunei. Elizen arteko biblia

## **5** setiatu.

Eta helenoek mendekuz Troia **inguratu** zuten. Iñaki Mendiguren
Zaldiak eta gudu-gurdiak berekin zituela, Samaria hiria **inguratu** eta erasotzera igo zen. Elizen arteko biblia
Zuek hiria **inguratuko** duzue: sei egunez, egunero itzuli bat eginen duzue guda-gizon guztiok hiriaren inguruan. Elizen arteko biblia
Ondorioak izango ditu Mukata **inguratzeak** . Berria - Mundua

## **6** lur eremu, mendi edo kidekoren baten alde batetik bestera, haren ertzetik edo albotik joan.

Aintzira haietako bat [...] hogei verstako luzeran **inguratu** behar izan zuen, zailtasun galantak garaituz. Karlos Zabala
Lehenbizi Obi gurutzatu, gero Kolivanera, handik Tomsk **inguratu** Irkutskeko bidea utziz. Karlos Zabala
Amildegiaren alde batetik bestera, barruko zubi batek aukera ematen du eraikina zuzen zeharkatzeko, erdiko hutsunea **inguratu** behar izan gabe, beste solairu guztietan egin behar den bezala. Jon Muñoz
Autoa **inguratu** zuen aurretik gidariaren atetik sartzeko. Sonia Gonzalez
Portugaleko karabela batean Esperantza Oneko lurmuturra **inguratu** zuen. Iñaki Mendiguren
· 1490. urteaz gero, Afrika osorik itsasoz **inguratzeko** ideia zehazten ari ziren portugaldarrak. Koro Navarro
Mundua osoki **inguratu** zuten aurreko marinelek ez bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"
Ilargiak lurra **inguratzeko** behar duen denbora Pello Salaburu

## **7** lurralde edo eremu batean zehar ibili.

Ordu laurden geroago, izerditan **inguratu** nuen alde zaharrera ailegatzeko azken tartea: bi lorategi publikoren arteko karrika iluna, harresiz haratagoko auzoetara isurtzen zen errepide zabala zuena buruan. Aingeru Epaltza
Ataria **inguratu** orduko zain nuen Arrosko baroia. Aingeru Epaltza

## **8** *adkor* lortu, eskuratu.

Nondik edo handik txarro bat **inguratu** eta hantxe jarri zituen. Xabier Mendiguren Elizegi
Hyderabad-en 6.000 rupiagatik 13 urteko neska bat **inguratu** zuen, harekin ezkontzeko. Gotzon Garate
Nola **inguratu** droga erosteko sosak? Gotzon Garate
Xoxak nondik **inguratu** . Pello Zabala
Beatricerentzako kanten kopia bat **inguratu** zuen, eta pazientzia handiz konparatu zituen berak Becchinarentzat idatzi zituen bertsoekin. Juan Garzia
Nik jendea zuzentzen nian haien ostatura, edota janaria **inguratu,** azukre apur bat, ogia, gazta, okela. Pako Aristi
Salomonek mila eta laurehun gudu-gurdi eta hamabi mila zaldi **inguratu** eta hirietako gudari-tokietara eraman zituen, bai eta bere ondora ere, Jerusalemera. Elizen arteko biblia
Irakurle berriak **inguratzea** da arazoa. Berria - Harian
Zer egin dezakegu bizirik gelditu direnentzat emazteren batzuk **inguratzeko** ? Elizen arteko biblia
Zer bilakatzen da bezeroak **inguratzeko** grazia galdu duen puta? Iñaki Segurola

## **9** zerbaitekin bildu edo estali.

Ogia erditik pikatu, arrautzopilez bete, ogitartekoa paperez **inguratu** eta eskuetara eman zion. Eneko Bidegain
Cantoneko irris bihiketan, banana hostoz **inguratu** krema erreetan. Itxaro Borda
Bost guardia zibilek bi orduz zilarrezko paperez **inguratu** porra batekin zanpatu zuten. Berria - Euskal Herria
Zapi batez **inguratu** dio zauria. Imanol Zurutuza
Dutxatik atera, tarrapatan xukatu eta oihala bularretatik izterretara, gorputzean **inguratzen** du. Eneko Bidegain

## • **10** da/du *ad* hurbildu.

Uretan geundela, konturatu ginen zakur bat **inguratu** zela gure gauzak zeuden lekura. Joxemari Iturralde
Aulkitik zutitu eta Morales anaien mahairaino **inguratu** zen hautsontziaren bila. Joxemari Iturralde
Budur ikusminez **inguratu** zen zamaketa lanak ikustera. Patxi Zubizarreta
Ahal nuen guztietan **inguratzen** nintzen batzarra egiten ari zirenen artera. Juan Kruz Igerabide
Irri malizios batekin **inguratu** zait dantza eskatzera. Patxi Zubizarreta
Zarpail samar jantzitako emakume lodikote bat **inguratu** zaigu bere hogeita bost bat urteko seme atzeratua eskutik dakarrela. Harkaitz Cano
Behin baino gehiagotan **inguratu** nintzaion zerbait ote zuen begiratzera. Arantxa Iturbe

Gauak aurrera egin ahala, gero eta jende gehiago **inguratu** zen, leinu osoak, antza. Joxe Austin Arrieta

Nagusiarengana **inguratu** eta zerbait esan dio. Harkaitz Cano

Osakidetzako anbulantzia bat **inguratu** bazen ere. Berria - Euskal Herria

Basamortuan aurkitu zuen, uluz beteriko bakardadean; **inguratu** eta bere ardurapean hartu zuen, begininia bezala zaindu. Elizen arteko biblia

Gero, trena hirira **inguratu** ahala, paisajeak lirismoa galdu zuen. Bernardo Atxaga

-Ea, **inguratu** hona guztiok -esan zien Snapek. Iñaki Mendiguren

Sudurra **inguratu** zuen botilen muturrera. Harkaitz Cano

Arratsaldean, Danek mendi kasko batera **inguratu** du furgoneta, bidaiariok hango ikuspegia goza genezan. Patxi Zubizarreta

Argazki bat hartu kortxotik eta **inguratu** egin zuen hobe aztertzearren. Joxemari Iturralde

Kanpoan ez zen istilurik izan, Poliziak inor **inguratzea** eragotzi baitzuen. Berria - Harian

Epaileak erruduntzat jotzen baditu, hiru hilabetez pertsona horren etxera **inguratzea** debeka diezaiokete. Berria - Gaiak

Etxera **inguratzerako** jabetu nintzen bazela zerbait. Arantxa Iturbe

- **11** joan.

Bestelakoak: Jende asko **inguratu** zen Hernaniko Galarretara erremonteko binakako finala ikustera. Berria - Kirola

Aurten egun gutxiago izan diren arren, jende asko **inguratu** da emanaldietara. Berria - Kultura

**12** (era burutua izenondo gisa)

Ja ez omen baikara bizi Erdi Aroko bastida edo hiri harresitu bateko unibertso **inguratu** txikian. Joxe Azurmendi

Ibartxo hura harritsua zen, bi haitz handik ixten zuten, ez zuen irteerarik; eta otso **inguratua** itzuli egin zen. Josu Zabaleta

Hortxe isildu, tigre **inguratua** bezala pixka bat bizkortu, eta bi ukabilez pareta jotzen hasi zen. Xabier Olarra

Madiango oste setiatzaile guztia Israelgo defentsa **inguratuen** barrura. Iñaki Mendiguren

**13** ***inguratzearren*** *adlag*

Gudari-talde hura desegiteko asmoz, gudaroste osoa bildu zuen Judasek, jende hura **inguratzearren**. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

alde guztietatik inguratu (4); asko inguratu (3); bat inguratu (55); bat inguratu da (3); bat inguratu eta (8); bat inguratu zen (4); bat inguratu zitzaidan (3); bat inguratu zitzaion (4); bat inguratu zuen (8); batean inguratu (6); batek inguratu (19); batek inguratu nau (3); batek inguratu ninduen (4); batek inguratu zuen (4); batekin inguratu (5); batera inguratu (8); batez inguratu (17); batez inguratu eta (3); batez inguratu zuen (4); batzuk inguratu (4); berehala inguratu (9); beso batez inguratu (4); besoarekin inguratu (3); besoaz inguratu (6); besoekin inguratu (7); besoekin inguratu zuen (3); besoez inguratu (8); besoez inguratu zuen (3); bezala inguratu (3); distiraz inguratu (3); egoitza inguratu (3); egoitza inguratu zuten (3); ere inguratu (8); eskuez inguratu (3); eta etxea inguratu (3); eta inguratu (29); eta inguratu egin (16); eta leihora inguratu (4); etxea inguratu (10); etxea inguratu zuten (3); etxera inguratu (4); gabe inguratu (3); gehiago inguratu (6); gerria inguratu (13); gerria inguratu nion (3); gerria inguratu zion (3); gizona inguratu (4); gizonek inguratu (3); guregana inguratu (3); guztiak inguratu (4); guztietatik inguratu (4); hara inguratu (9); harengana inguratu (6); harresiz inguratu (3); hesiz inguratu (3); hiria inguratu (12); hiria inguratu eta (6); hura inguratu (3)

inguratu ahala (8); inguratu behar (10); inguratu behar izan (4); inguratu da (30); inguratu denean (3); inguratu dira (7); inguratu ditu (5); inguratu du (12); inguratu du eta (3); inguratu duen (6); inguratu dute (12); inguratu egin (52); inguratu egin dute (3); inguratu egin genituen (3); inguratu egin zituzten (6); inguratu egin zitzaion (4); inguratu egin zuen (5); inguratu egin zuten (7); inguratu egiten (10); inguratu ere (4); inguratu eta (149); inguratu eta eraso (4); inguratu eta estutu (3); inguratu gara (4); inguratu genuen (3); inguratu ginen (5); inguratu gintuen (3); inguratu gintuzten (4); inguratu hiria (3); inguratu nahi (4); inguratu naiz (5); inguratu nau (5); inguratu ninduen (11); inguratu ninduten (5); inguratu nintzaion (7); inguratu nintzen (18); inguratu nintzenean (4); inguratu nion (5); inguratu nuen (10); inguratu ondoren (9); inguratu orduko (6); inguratu zaio (6); inguratu zait (6); inguratu zela (4); inguratu zen (79); inguratu zen eta (7); inguratu zen neska (3); inguratu zenean (6); inguratu zion (9); inguratu ziren (22); inguratu zirenean (3); inguratu zituen (13); inguratu zituzten (10); inguratu zitzaidan (8); inguratu zitzaien (7); inguratu zitzaigun (6); inguratu zitzaion (23); inguratu zitzaizkion (5); inguratu zitzaizkionean (3); inguratu zuen (79); inguratu zuen eta (9); inguratu zuenean (3); inguratu zuten (58); inguratu zuten atzo (3); inguratu zuten eta (8)

jende asko inguratu (3); jende gehiago inguratu (4); karmelo inguratu (3); lagunek inguratu (5); lagunek inguratu dute (3); leihora inguratu (10); leihora inguratu zen (5); lepoa inguratu (9); mahaia inguratu (7); mahaia inguratu eta (3); mahaira inguratu (6); mahaira inguratu eta (3); neska bat inguratu (3); osoa inguratu (4); plaza inguratu (3); poliziak inguratu (3); ugari inguratu (3); zulora inguratu (3)

adixkideez inguratuak (3); argiz inguratua (3); batek inguratua (11); batez inguratua (26); eta adixkideez inguratuak (3); eta inguratua (4); handiz inguratua (6); harresiz inguratua (6); hilobiez inguratua (3); inguratua bera (3); inguratua bezala (3); inguratua bizi (5); inguratua da (6); inguratua eta (9); inguratua izan (4); inguratua nengoen (3); inguratua zegoela (4); inguratua zegoen (13); inguratua zen (8); inguratua zuen (4); inguratua zuten (4); inguratuak eta (4); inguratuak ziren (4); inguratuko da (8); inguratuko dira (3); inguratuko du (3); inguratuko dute (5); jendez inguratua (3); mendiz inguratua (3); ongi inguratua (3); ongi inguratuak (3); poliziaz inguratua (4); zuhaitzez inguratua (3)

adixkidez inguraturik (3); batek inguraturik (6); batez inguraturik (21); batez inguraturiko (4); ertzainez inguraturik (3); eta familiakoez inguraturik (3); familiakoez inguraturik (5); familiaz inguraturik (3); harresiz inguraturik (4); haurrez inguraturik (7); ilunpeak inguraturik (3); inguraturik bizi (18); inguraturik bizi dira (4); inguraturik dago (5); inguraturik egin (3); inguraturik egon (7); inguraturik egon arren (3); inguraturik egotea (3); inguraturik ere (3); inguraturik eta (11); inguraturik gaude (6); inguraturik ikusi (5); inguraturik zegoela (5); inguraturik zegoen (7); inguraturik zeuden (5); inguraturik zeukaten (3); jendeaz inguraturik (4); jendez inguraturik (6); lagunek inguraturik (3); lagunez inguraturik (3); poliziaz inguraturik (5); poliziek inguraturik (3); zuriz inguraturik (3)

inguruan ibili (38); inguruan ibili zen (10); inguruan ibiliko (13); inguruan ibiltzen (14); inguruan idatzi (17); inguruan ikerketa (9); inguruan ikertzen (9); inguruan ikusi (14); inguruan ikusten (20); inguruan indarrak (7); inguruan informazio (8); inguruan inor (7); inguruan iritzi (10); inguruan iritzia (7); inguruan itzuli (9); inguruan izan (70); inguruan izan diren (13); inguruan izan zen (9); inguruan izandako (26); inguruan izanen (10); inguruan izango (25); inguruan izaten (9); inguruan jardun (11); inguruan jarrera (20); inguruan jarri (35); inguruan jarri ziren (9); inguruan jarririk (11); inguruan jarrita (8); inguruan jartzen (8); inguruan jende (7); inguruan jendea (13); inguruan jira (12); inguruan jirabiraka (17); inguruan jiraka (24); inguruan kaleratu (7); inguruan kezka (10); inguruan kiribiltzen (7); inguruan kokatzen (8); inguruan lan (35); inguruan lan egiten (19); inguruan lanean (19); inguruan lanean ari (7); inguruan lau (7); inguruan lortutako (7); inguruan lotu (9); inguruan mintzatu (46); inguruan mintzatu da (11); inguruan mintzatu zen (22); inguruan mintzatu ziren (7); inguruan mintzatuko (9); inguruan mintzatzeko (9); inguruan mugitu (10); inguruan mugitzen (11)

inguruan orain (11); inguruan orain arte (9); inguruan oraindik (7); inguruan osatu (8); inguruan osatutako (7); inguruan oso (10); inguruan parte (13); inguruan parte hartu (8); inguruan pilatu (7); inguruan pilatzen (9); inguruan piztu (7); inguruan sortu (58); inguruan sortu den (20); inguruan sortu diren (9); inguruan sortu zen (11); inguruan sorturiko (13); inguruan sortutako (62); inguruan sortzen (34); inguruan sortzen den (9); inguruan sortzen diren (8); inguruan zabaldu (7); inguruan zabaldutako (8); inguruan zalantzak (10); inguruan zebilen (31); inguruan zebiltzan (16); inguruan zegoen (41); inguruan zein (7); inguruan zenbait (13); inguruan zer (37); inguruan zerbait (14); inguruan zeuden (60); inguruan zeuzkan (7); inguruan ziren (18); inguruan zituela (7); inguruan zituen (36); inguruan zuen (21); inguruan zutik (7)

itoitz inguruan (13); itoizko urtegiaren inguruan (22); itunaren inguruan (16); izar baten inguruan (8); izarraren inguruan (10); jardueraren inguruan (7); jarreraren inguruan (14); jauregiaren inguruan (7); kasuaren inguruan (7); konstituzioaren inguruan (25); kontsultaren inguruan (8); kulturaren inguruan (15); lagunak inguruan (7); laguntzen inguruan (9); lakuaren inguruan (7); lanaren inguruan (11); legearen inguruan (16); lepo inguruan (45); lepoaren inguruan (32); literaturaren inguruan (13); lurraren inguruan (23); lurraren inguruan biraka (9); mahai baten inguruan (67); mahai inguruan (115); mahai inguruan parte (10); mahaiaren inguruan (50); mahaien inguruan (8); mahain baten inguruan (9); mendiaren inguruan (7); munduaren inguruan (8); musikaren inguruan (10); nagusiaren inguruan (13); nagusiren inguruan (10); neure inguruan (15); neurrien inguruan (11); nire inguruan (124); nuklearraren inguruan (19); nuklearren inguruan (7)

ohe inguruan (12); on baten inguruan (60); ondorioen inguruan (14); orenen inguruan (8); partidaren inguruan (9); planaren inguruan (31); planten inguruan (11); plaza inguruan (7); plazaren inguruan (10); politikaren inguruan (18); politikoaren inguruan (16); politikoen inguruan (12); presoen inguruan (16); proiektuaren inguruan (24); proposamenaren inguruan (50); proposamenen inguruan (7); prozesuaren inguruan (16); realaren inguruan (14); ren inguruan (45); salaketen inguruan (9); senpereko aintziraren inguruan (7); sistemaren inguruan (10); su etenaren inguruan (13); suaren inguruan (41); taldearen inguruan (22); torturaren inguruan (11); torturen inguruan (9); tratuaren inguruan (7); uraren inguruan (7); urte inguruan (44); urtearen inguruan (10); urtegiaren inguruan (46); y aren inguruan (9); zegoen inguruan (7); zelai inguruan (7); zelaiaren inguruan (11); zen inguruan (29); zen nire inguruan (7); zenbait gairen inguruan (7); zeuden inguruan (8); zeukan inguruan (7); zeure inguruan (8); ziren inguruan (12); zituen inguruan (8); zuen bere inguruan (13); zuen horren inguruan (12); zuen inguruan (40); zuloaren inguruan (7); zure inguruan (45); zuten inguruan (7)

bere inguruaren (7); eta inguruaren (7); eta inguruari (12); eta inguruetako (49); eta inguruetan (75); eta inguruetara (8); etxe inguruetan (10); hiriaren inguruetan (11); inguruari begira (8); inguruari begiratu (9); inguruari begiratu zion (7); inguruetako herri (11); inguruetan bizi (11); inguruetan ere (14); inguruetan eta (15);

**inguruetan ez** (8); **inguruetara begira** (9); **inguruetara begiratu** (8); **mahai inguruaren** (8); **mahai inguruetan** (11)

---

# inguruabar *(73 agerraldi, 25 liburu eta 6 artikulutan)* *iz* zertzelada, zirkunstantzia.

Erran berri dizkiat saltsa honek niretzat dituen **inguruabar** bereziak. Aingeru Epaltza

Poliziak ez zuen "homosexuala" erran, "marikoia" baizik, eta hori, **inguruabar** ideologikoez aparte, ez da inoiz adiskide batez erabiltzeko hitza. Aingeru Epaltza

Batzuetan, jakina, izaten dira **inguruabar** aringarriak. Xabier Olarra

Gertakarien benetako nondik norakoa gobernatzen duten **inguruabarrak**. Juan Garzia

Esan ohi da klima jakin eta **inguruabar** zehatzen azpian, poligamia ere onargarriagoa izan daitekeela, beste **inguruabar** eta klima batzuetan baino. Andres Urrutia

Halako kasuetan, **inguruabar** horiek kontuan harturik, elkarteak erabakiko du hiltzailearen eta mendeku-eskubidea duenaren arteko auzia. Elizen arteko biblia

**Inguruabarrek** hartaraturik. Joan Mari Irigoien

Orain **inguruabarrak** aldatu egin dira. Berria - Euskal Herria

*Mofffou* diskoak argi utzi zuen Salif Keita berriz zela Afrikako musikari handienetakoa, **inguruabarrak** gaindituta (albino jaiotzea zorte txarrekotzat hartzen dute kultura askotan). Berria - Kultura

Baztertutako izaki kargamentu bat ginen: mozkorrak, inkonpetenteak, ahulak, eroskak, argi eta garbi, norbere lurraldeko egoera eta **inguruabarretara** egokitu eta arazo hauek gainditzeko gai izan ez ginen saldoa. Harkaitz Cano

Ez dut haien xehetasunik bat ere oroitzen, baina **inguruabarren** kateatze zorrotzaz ohartu naiz. Monika Etxebarria

Zenbait **inguruabar** argitzeko idazten dut. Monika Etxebarria

Lege zibilak **inguruabarren** arabera erabakitzen du; batzuetan arreta gehiago eskaintzen dio gaitza zuzentzeari, beste batzuetan gaitzari aurre hartzeari. Iñaki Iñurrieta

Bi ordain-modu horien abantaila kasuan kasuko **inguruabarren** araberakoa da. Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**inguruabarren arabera** (4)

---

# ingurubegi *iz ipar* ikuspegia.

Ibañetako kaskotik **ingurubegi** zabala ginuen, behako luze bat eman ginuen urrun urrunera. Michel Oronoz

Leon hiria aurrean daukat, bere **ingurubegi** ospetsuan. Piarres Aintziart

---

# ingurubila *iz* espira.

**Ingurubilak** marraztuko dituzte airean, jirabiraka, lehorreko harkaitz ilunetatik itsasora. Joseba Sarrionandia

Eta ezetzak, eta baietzak, eta **ingurubila** lako azalpenak emanen dira. Joseba Sarrionandia

---

# ingurubildu, ingurubil, ingurubiltzen du *ad* bildu.

Amildegi goria **ingurubiltzen** duen karel porotsuaren gainean. Juan Garzia

Hainbat kolorez tindaturik zeuden eta hosto berdez **ingurubildurik**. Juan Garzia

---

# ingurubira *(orobat **inguru-bira**)* **1** *iz* gauza biribil baten inguru osoa.

Kamera sinple batean [...] tutuak eskala bat izaten du ertzaren **ingurubiran,** distantzia desberdinetara dauden objektuak zehatz fokatzeko zenbaterainoko bira eman behar zaion adierazten duena. Irene Aldasoro

Zeruko esferaren **ingurubiraz** ari naiz. Xabier Kintana

Sei eltze zeuden suaren **ingurubiran**. Patxi Ezkiaga

Guztiz trebea zen gatibu bati bekokiaren **ingurubiran** metxa bat bihurdikatzen, begiak irtenarazteraino, edo aurpegia ferekatzen palma-hosto irazekiz. Juan Garzia

## 2 *ingurubira egin*

Irteera aldera joan zen, eta geltokiaren **ingurubira** egin zuen. Josu Zabaleta

· Baina, goiztiri beroa Ozeano lasai garbian gaindi altxatu, eta **inguru-bira** bera eginez segitzen zuen beti ere Algerreko Arrosak. Juan Garzia

Harkaiztiren batekin topo egiten bazuten, berriz, **ingurubira** handia egin behar izaten zuten. Xabier Aranburu

---

# ingurubiraka *(orobat **inguru-biraka**)* **1** *adlag* ingurubirak eginez.

Mars izeneko lekuetan sortzen da, inguratzen du [...] Meroe izeneko lurraldea, eta aintzira-lur horietatik Astansobas eta Astoboa ibaietatik eta beste hainbatetatik **ingurubiraka** luzatuz, mendietan barrena ur-jauzietaraino iristen da. Santiago Iruretagoiena

**2** intzulinguruka.

**Inguru-biraka** ibiltzeak zentzurik ez duela iritzita, ahalik eta modu neutroenean kontatu dio Txemik marisorgin emea espezieko arra baino askoz handiagoa dela, eme horrek arra inguratzen duenean kopulatu egiten dutela [...] eta, kopula horrek irauten duen bitartean, emeak jan egiten duela arra. Berria - Kultura

---

# ingurugiro *(95 agerraldi, 12 liburu eta 43 artikulutan; orobat **inguru-giro** g.er.)* **1** *iz* ingurumena.

Irailean sartuko da indarrean **ingurugiro** politika berria. Berria - Euskal Herria

Walonia eskualdeko **Ingurugiro** ministro Benoit Lutgnek. Berria - Mundua

**Ingurugiro** eskubideari buruzko Bizkaiko Adierazpena Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**2** inguruko giroa.

**Inguru-giroa** usnatzen nuen, eta hezetasuna erabat urrinztatua ailegatzen zitzaidan sudurretara. Pedro Alberdi

Kolonizazioak, menperatze modu bat baizik ez denak, **ingurugiro** desberdinetara hedaraziko du hizkuntza bat, eta gertakari horrek, bere aldetik, aldaketak ekarriko ditu hizkuntza horretan. banderaren antzera zegoen flotatzen pozezko **ingurugiro** batean, gorputzeko kirio bakoitza zeharo eta goxoki aseturik. Isabel Arrigain

Eskemek eta planteamenduek harrapatua, zeintzuek zeharo betetzen baitzuten **ingurugiro** kultural guztia. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eta ingurugiro** (9); **eta ingurugiroa** (5); **eta ingurugiroaren** (4); **eta ingurugiroari** (4); **ingurugiroaren eta** (3)

**ingurujira** *(orobat **inguru-jira**)* ingurubira.

Enplegatu askok beren baratze koxkorra zuten, bulego-etxe karratuaren **inguru** -jiran. Juan Garzia

Erraietaraino sartu gabe haragiaren **ingurujiran** hedatzen deneko muga zorrotzeraino iritsi zen atsegale hori. Juan Garzia

---

**inguruka** **1** *adlag* inguruan biraka.

Boxeoa: bi gizon txiki, txikiaren txikiz epaileari bularreraino baino heltzen ez zaizkionak, elkarri **inguruka,** oldarka, erasoka ari dira. Oskar Arana

**Inguruka** ari zaizkit hegazti harrapariak. Fernando Rey

Orro txikiz, ezker-eskuin **inguruka** ari zaio txakurra. Oskar Arana

Adela aintziran **inguruka** ibili zaio, haren burua jostetan urperatu nahian. Patxi Zubizarreta

Neska bat dabilkio **inguruka** . Oskar Arana

Etxera orduko, deskargatzea, lezafinak **inguruka** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** *irud*

Jakizu behingoz polizia **inguruka** dabilkigula. Patxi Zubizarreta

Heriotza **inguruka** ibilia zitzaidan bi hilabetez. Aingeru Epaltza

Eta aldian behin haien purrustaldiak iristen zaizkigu sarraski jadaneko sumatuari **inguruka** . Patziku Perurena

Eta luze gabe, bele sail baten gisara, oroitzapenak **inguruka** hasi zaizkit. Patxi Zubizarreta

**3** biraka, itzulika.

Jakin-minez, etxeari **inguruka** ibili nintzen, eta zementuzko eraikin handi batera hurbildu. Juan Kruz Igerabide

Txori txiki eta luzexka, enara iduri, **inguruka** hegalkatzen da arin uraren arrasean. Fernando Rey

Tangoa: atzera, aurrera, **inguruka** . Unai Elorriaga

Jandarmak beti **inguruka,** André-Hubert bildu nahiz. Herria

Perretteri, ordea, **inguruka** zebilkion bere ideia. Jon Muñoz

Infernura **inguruka** doan eskaileran geratu gara. Jokin Urain

Badoa **inguruka** borda barne ilunean. Michel Oronoz

**4** itzulinguruka.

**Inguruka** hasi zen Ivan, hara eta hona, niri deus esan gabe. Joxan Elosegi

**Inguruka** ari gara berriro ere, batzordeburu jauna. Oskar Arana

Ez du mingainean kozkorrik eta **inguruka** aritu gabe hitz egiten du. Xabier Etxabe

Gauzak bere izen zuzenez izendatzeko beldurrak bezala, zenbat imintzio eta zehar-ibilera, zenbat itzulika eta **inguruka,** esan beharreko hartarik ihesi beti, esan nahi eta esan ezinez. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta inguruka** (4); **inguruka ari** (5); **inguruka hasi** (5); **inguruka hasi zen** (3); **inguruka ibili** (4); **itzul inguruka** (4)

---

**ingurukari** **1** *izond* inguruka dabilena.

Beste batzuetan aire **ingurukariak** hautsitako exilioko trenen leihoetarik mendekatzen ziren altu-estratuak zituen pentsaide. Itxaro Borda

**2** (adizlagun gisa)

Belaunetan jarri eta Maialenek mihia ahoan sakatu zidanan, akuilu kolpeaz hautsi eta bihurdikatzen zen sugea bezala **ingurukari** . Itxaro Borda

---

ingurukatu ik **inguratu**.

---

inguruketa ik **inguraketa**.

---

**ingurumari** **1** *iz (singularrean nahiz pluralean)* ingurua.

Elgea mendikatean laster batean parke eoliko bat jarri behar dutela eta **ingurumari** hartara azken txangoa egitea erabaki du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ederki ezagutzea egokitu zitzaiola Mexiko eta **ingurumaria,** literaturaz eta bestez. Juan Garzia

Ongitxo genekien hamaika western filmatu direla **ingurumari** hauetan. Patxi Zubizarreta

Ilunabarrarekin, iluna ari zen auzuneaz nagusitzen eta **ingurumariak** hutsik ageri ziren. Patxi Zubizarreta

Bai kalezuloan bai **ingurumarietan** "doktore" esaten zioten. Patxi Zubizarreta

Abasek, **ingurumarira** arretatsu begiraturik, ilunabarreko iluntasunean bilatu zituen neskaren ezpainak. Patxi Zubizarreta

Eta ez bat eta ez bi, autora hurreratu, **ingurumarian** inor ez zebilela ziurtatu, eta gidariaren ateko kristala txiki-txiki egin zuten. Patxi Zubizarreta

Emakumeak, arriskuaz kontu egin gabe, jarraitu egin zion, eta **ingurumarietara** begira geratu zen gizonak ordaintzen zuen bitartean. Patxi Zubizarreta

Garrantzizkoa da **ingurumarietan** gertatzen diren gorabeherak garunari jakinaraztea. Irene Aldasoro

Eginahalak eta bi egin zituzten **ingurumariko** bazterrak azpiratu eta mendean hartu nahian. Mirentxu Larrañaga

**Ingurumariko** landare eta harriak. Xabier Mendiguren Elizegi

Ba al da zalditegirik **ingurumari** honetan, zaldi basatiak alokairuan dituenik? Mirentxu Larrañaga

**Ingurumarikoek** ziotena entzuteko gai izateko ahalegin etengabean. Mirentxu Larrañaga

Ongitxo genekien hamaika western filmatu direla **ingurumari** hauetan. Patxi Zubizarreta

**2** (-en atzizkiaren eskuinean, singularrean nahiz pluralean)

Kolivan hiriaren **ingurumaria** lasai-lasai zegoen, erabat abandonaturik, antza. Karlos Zabala

Eztainu koloreko portuaren **ingurumariak** itsasontziz beterik ikusi zituen. Lopez de Arana

Salzburgoko hiria eta bere **ingurumariak** menderatzen zituen gain batean geunden. Bernardo Atxaga

Gelaren **ingurumarian** gainbegiratu bat eman zuen, inspirazio-iturri bila. Bikarioak esan zuen ahalik eta jenderik gehien bilduko zuela herrixkako bilkura-aretoan, herrixkaren **ingurumari** osoan miatze-lana antolatzeko. Mirentxu Larrañaga

Nire **ingurumarian** ikusi ahal izan nuenez [...].Minutu batzuetan geratuko da Margaren etxearen **ingurumarietan,** eta joan egingo da ondoren. Mirentxu Larrañaga

Neskak lerro-lerro plazaren **ingurumarian** eserita, gehientsuenak nork bere bular beltxaranari haurtxo bana itsatsita. Joxe Austin Arrieta

Horixe zen azkenaldian jauregiaren **ingurumarian** zebilen lehoia. Patxi Zubizarreta

Etxearen **ingurumaritik** urrunduz joango dira taldeak, inguruko kamino, xendra, zidor eta estratetan barrena. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (-ko atzizkiaren eskuinean, singularrean nahiz pluralean)

Bazihoan gizon bat Asteasuko **ingurumarietan** ibilaldi bat egiten. Gotzon Garate

Txinako hiriburuan, Kaxgar-eko **ingurumarian**. Patxi Zubizarreta

Itsasgorak halako harro puztaldia agerrarazten zion Nerbioiko **ingurumariari**. Josu Landa

Haren Rolls Royce-a izan ezik, ez zen beste autorik hainbat miliatako **ingurumarian**. Mirentxu Larrañaga

**4** (gauza abstraktuena, singularrean nahiz pluralean)

Pertsona bat, bera eta bere **ingurumaria** omen da. Berria - Kirola

-Mami-mamia kontatuko diat: **ingurumaria** heuk jarri, kasurako nola bizi den italiar bat Alemanian; egona haiz eta, gainera, han. Juan Garzia

Bizkaian, bertsoaren **ingurumarian** dabiltzan gazte guztientzat. Berria - Kultura

Neolitikoan, gizonak bere burua **ingurumari** batera hesitu zuenez geroztik, **ingurumari** horrekin batera bere burua ere sakratu eta madarikatu bihurtu zuen. Patziku Perurena

Hala ere, gertakari haietaz eta beren **ingurumariaz** pentsatzen hasi eta zinez dramatikoa izango zela iruditzen zait orain. Xabier Mendiguren Elizegi

Kondenaren kausa eta **ingurumariak**. Anjel Lertxundi

Gaiaren **ingurumariko** ustez alde garrantzitsuenak jorratzen hasi ginen. Anjel Lertxundi

Damiano Cunego txirrindulariak aho bete hortz utzi du Giroko **ingurumarian** dabilen oro. Berria - Kirola

**Ingurumariak** axola du, baina mamiak gehiago. Berria - Ekonomia

**5** itzulingurua.

Arropa narraski kendu niola gogoratzen dut, eta baita ere, **ingurumaririk** gabe, titiak igurtzen hasi nintzaiola. Iban Zaldua

Esango nuke nahiago izaten dutela proposamen zuzena [...] gizonok askotan egitera beharturik sentitzen garen **ingurumari** korapilatsu eta lerdenak baino. Ramon Saizarbitoria

**Ingurumarietan** eta zeharka ibili ostean, egiazko gauza zehatz batera iritsi ote garen jakin nahi nuke. Imanol Unzurrunzaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere ingurumaria** (3); **eta ingurumaria** (3); **eta ingurumariak** (3); **ingurumari haietan** (4); **ingurumari hartan** (3); **ingurumari honetako** (3); **ingurumari honetan** (3); **ingurumari osoan** (3)

---

# ingurumarika *adlag* ingurubiraka.

Ez dezatela harresietara erasoan erraz iristeko modurik izan, baizik eta etsaiak **ingurumarika** eta leku malkartsu eta estuetatik eramanez, lortu behar da ateetara iristeko bideak ez daitezela zuzen egon, ezkerretara okertuta baizik. Santiago Iruretagoiena

---

# ingurumen *(2641 agerraldi, 34 liburu eta 1196 artikulutan)* **1** *iz* izaki bizidunen portaeran eta garapenean eragiten duten inguruko faktore fisiko eta biologioen multzoa.

**Ingurumena** eta lurralde antolaketa elkarri erabat loturik daudela. Berria - Euskal Herria

**Ingurumenaren** babesa eta hazkunde ekonomikoa. Iñaki Heras

Orain, animalia asko desagertu direnean, lur azalean urte askotan egin diren kalteak konpon ezinak diren une honetan, itsasoko arrain mota asko betiko galdu ditugunean, orain, mundua ekologismora itzuli da eta **ingurumenaren** zaindari egin. Pello Salaburu

**Ingurumenaren** aldeko neurriak arautu. Berria - Euskal Herria

**Ingurumenaren** kalterako. Herria

Frantziako Parlamentuak adostasunik gabe onartu du **ingurumenaren** ituna. Berria - Euskal Herria

**Ingurumena** kutsatzen eta hari kalte egiten dioten jarduerak gutxitzea. Berria - Euskal Herria

**Ingurumena** babesteko proposamenak. Berria - Euskal Herria

**Ingurumena** begiratuz, ekonomia dela azkartzen eta azkenean bakearen mentura gehiago ere izaiten dela. Herria

**Ingurumena** errespetatuko duen Europa gizatiar baten alde dagoela. Berria - Euskal Herria

Batzuk diote haatik ez dela oraiko bidea xoilki hobetuko, bainan gune batean bide osoki berri bat urratuko, pagodietan gaindi, **ingurumena** suntsituz. Herria

**Ingurumenean** eragina duten gertakariak. Berria - Euskal Herria

Urtegiak **ingurumenean** izanen zuen eragin kaltegarria. Edurne Elizondo

**Ingurumenari** egindako kalteak. Berria - Euskal Herria

**Ingurumenarentzat** kaltegarriak diren hainbat ekimen publiko geldiarazteko. Berria - Euskal Herria

Proiektuak **ingurumenean** eraginen zuen kalteari buruzko txostena. Edurne Elizondo

**Ingurumenaren** esplotazio eta ekonomia-esplotazioaren kontra. Askoren artean

Andres Herri Lan eta Garraioko diputatu izango da; Alaña, berriz, Hirigintza eta **Ingurumenekoa**. Berria - Euskal Herria

**Ingurumenaren** Eguna zela eta. Joxerra Garzia

Geoffrey Howard **Ingurumena** Babesteko Mundu Batzordeko (IUCN) kideak azaldu duenez. Berria - Gaiak

Nafarroan beste tokietan baino lehenago egin zen **Ingurumenaren** Aholku Kontseilua. Edurne Elizondo

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ingurumen** politiketan ere eragina du horrek. Edurne Elizondo

**Ingurumen**-legediaren aplikazio-epeak aurreratuko dituztela. Berria - Euskal Herria

**Ingurumen**-hezkuntzako masterra egiten aritua zen hiru urte lehenago. Imanol Zurutuza

**Ingurumen** alorreko gastu publikoa. Berria - Euskal Herria

**Ingurumen** inpaktuaren ebaluazio bateratua. Berria - Euskal Herria

**Ingurumen** eragina: Txikia. Ana Urkiza

**Ingurumen** faktoreek osasunean eragiten dituzten ondorioak. Berria - Euskal Herria

Ikuspegi integratua: lehentasuna du **ingurumen**-aldagaia sektore-politika guztietan txertatzeak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Herrialde garatuek besteekin duten **«ingurumen** zorra» ordaindu behar dutela nabarmendu zuen Kirchnerrek. Berria - Gaiak

Herrialde industrializatuetan **ingurumen** kutsadura. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Garraioak, energia-kontsumoak, airearen kalitateak, hondakinen sorrerak eta lurzoruaren erabilerak, aldiz, ez dutela gainditu urteroko **ingurumen**-azterketa. Berria - Euskal Herria

Horretarako **ingurumen** ikerketak egin behar dira oraindik. Berria - Euskal Herria

Badaioko zentraleko **ingurumen** txostena ez du berriro egingo Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

**«Ingurumen** kontzientzia» falta dela erantzun diote herritarrek Jaurlaritzari. Berria - Euskal Herria

Guardia Zibilaren Seprona **ingurumen** unitateak egindako azterketen ondorioz. Berria - Euskal Herria

2002-2020 Garapen Iraunkorraren **Ingurumen** Estrategian hartutako konpromisoak. Berria - Euskal Herria

Biodibertsitaterako eta **Ingurumen** Partaidetzarako Zuzendaritzak.

Zarauzko Udalak herenegun jaso zuen Donostiarekin batera EMAS **Ingurumenaren** Kudeaketaren Europako Ziurtagiria. Berria - Euskal Herria

**Ingurumen** Zuzendaritza Nagusia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Ingurumen** saileko arduradun Larrañagak. Berria - Euskal Herria

Barakaldoko Udaleko **ingurumen** zinegotziak. Berria - Euskal Herria

Josu Madariaga Bizkaiko **Ingurumen** foru diputatuak iragarri duenez. Berria - Euskal Herria

Sabin Intxaurraga **Ingurumen** sailburuak. Herria

Nafarroako Gobernuko **Ingurumen** kontseilariaren bulegoa. Edurne Elizondo

Espainiako **Ingurumen** Ministerioko buru Cristina Narbonak. Edurne Elizondo

Lurralde Antolamendu eta **Ingurumen** Sailak EAEko **Ingurumen** Adierazleen Txostena egin du.

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ezjakintasunez edo axolagabekeriaz kalte izugarri eta betikoak eragin diezazkiokegu gure bizitzaren eta gure ongizatearen oinarria den lur-**ingurumenari**. Nazio Batuen Giza **Ingurumenari** buruzko Konferentziak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**4** ingurua, ingurunea.

Apurka-apurka, urratsez urrats, bere **ingurumena** eraikitzen du umetxoak. Juan Garzia

Itxura batean, ez zen ohartzen besteez, eta ez zen arduratzen **ingurumenaz**. Xabier Olarra

**Ingurumen** fisikoaren eta moralaren ondorioz. Josu Zabaleta

Hortaz, zerbait egin nahi duenak, **ingurumen** txiki batera mugatu behar du, zure iritzian, bere justizia-ekimena. Josu Zabaleta

Orduko **ingurumenean** jartzen naiz, aspaldiko giroan nago jagoitik. ez nintzen ohartzen ene **ingurumenean** gertatzen ari ziren gizarte-aldaketei. Piarres Aintziart

Stephen liluratu egin zuen hitzak, haren hots-**ingurumenak,** eta atsegin agerikoz jardun zuen errepikatzen zenbait aldiz. Xabier Olarra

Zinemako pantailaren edo telebistako hodiaren ikuspena "eguneko" ikuspena da, "gau" **ingurumen** batean gertatzen bada ere. Josu Zabaleta

Bakoitza familia, gizarte eta kultura **ingurumen** batean bizi gara. Luis Elberdin

Gainazal baten argitasuna (psikologikoa) bere argi-**ingurumenarekiko** duen erlazioaren arabera erabakitzen da ia erabat; atzealdearen araberakoa izaten da batez ere. Josu Zabaleta

Krisztinaren iritzia zitzaian axola, batez ere beste klima batean jaiotako persona bat tropikoko bizi-**ingurumena** jasateko gauza izango ote zen.... Xabier Olarra

**5** *ingurumen zale* ik **ingurumenzale.**

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**antolamendu eta ingurumen** (28); **batasuneko ingurumen** (8); **batuko ingurumen** (4); **da ingurumen** (5); **den ingurumen** (4); **diren ingurumen** (5); **du espainiako ingurumen** (4); **du ingurumen** (13); **du ingurumen sailak** (4); **duen ingurumen** (5); **dute ingurumen** (4); **eaeko ingurumen** (13); **eaeko ingurumen sailburuak** (7); **ekonomia eta ingurumen** (4); **erresuma batuko ingurumen** (4); **espainiako gobernuko ingurumen** (10); **espainiako ingurumen** (65); **espainiako ingurumen ministerioak** (21); **espainiako ingurumen ministerioaren** (6); **espainiako ingurumen ministerioari** (4); **espainiako ingurumen ministerioko** (10); **espainiako ingurumen ministro** (6); **espainiako ingurumen ministroak** (5); **eta ingurumen** (111); **eta ingurumen sailak** (11); **eta ingurumen sailaren** (4); **eta ingurumen sailburu** (5); **eta ingurumen sailburuak** (8); **eta ingurumen saileko** (4); **etxebizitza eta ingurumen** (5); **europako batasuneko ingurumen** (8); **europako ingurumen** (10); **euskal ingurumen** (9); **euskal ingurumen estrategia** (4); **eusko jaurlaritzako ingurumen** (55); **eusko jaurlaritzaren ingurumen** (7); **frantziako ingurumen** (6); **gobernuaren ingurumen** (4); **gobernuko ingurumen** (40); **gobernuko ingurumen kontseilari** (4); **gobernuko ingurumen ministerioaren** (4); **gobernuko ingurumen sailak** (10); **hango ingurumen** (4); **hirigintza eta ingurumen** (5)

**ingurumen agentziak** (4); **ingurumen arazoak** (7); **ingurumen arloko** (10); **ingurumen baimen** (6); **ingurumen baimen integratua** (5); **ingurumen baldintzak** (4); **ingurumen batean** (6); **ingurumen batzordeak** (6); **ingurumen eragina** (9); **ingurumen eraginaren** (4); **ingurumen estrategia** (4); **ingurumen eta** (56); **ingurumen eta lurralde** (17); **ingurumen eta osasun** (4); **ingurumen foru** (6); **ingurumen foru diputatuak** (6); **ingurumen gaietarako** (13); **ingurumen hori** (4); **ingurumen inpaktuaren** (4); **ingurumen kontseilari** (12); **ingurumen kontseilari andres** (5); **ingurumen kontseilari jose** (6); **ingurumen kostuak** (4); **ingurumen mailako** (6); **ingurumen ministerioak** (38); **ingurumen ministerioaren** (14); **ingurumen ministerioari** (7); **ingurumen ministerioko** (18); **ingurumen ministro** (16); **ingurumen ministro cristina** (8); **ingurumen ministroa** (8); **ingurumen ministroak** (21); **ingurumen ministroek** (8); **ingurumen politika** (9); **ingurumen politikan** (4); **ingurumen saila** (7); **ingurumen sailak** (86); **ingurumen sailaren** (30); **ingurumen sailaren arabera** (5); **ingurumen sailari** (5); **ingurumen sailburu** (9); **ingurumen sailburu sabin** (7); **ingurumen sailburua** (15); **ingurumen sailburuak** (45); **ingurumen sailburuak atzo** (6); **ingurumen sailean** (6); **ingurumen saileko** (26); **ingurumen sariak** (4); **ingurumen zinegotziak** (6)

**intxaurraga eaeko ingurumen** (4); **intxaurraga ingurumen** (11); **intxaurraga ingurumen sailburuak** (5); **iraunkorraren euskal ingurumen** (5); **jaurlaritzako ingurumen** (77); **jaurlaritzako ingurumen eta** (10); **jaurlaritzako ingurumen sailak** (21); **jaurlaritzako ingurumen sailaren** (7); **jaurlaritzako ingurumen sailburua** (7); **jaurlaritzako ingurumen sailburuak** (15); **jaurlaritzako ingurumen saileko** (6); **jaurlaritzaren ingurumen** (11); **jaurlaritzaren ingurumen sailak** (5); **josu madariaga ingurumen** (4); **madariaga ingurumen** (5); **madariaga ingurumen foru** (5); **nafarroako gobernuaren ingurumen** (4); **nafarroako gobernuko ingurumen** (26); **nafarroako ingurumen** (21); **nafarroako ingurumen kontseilari** (6); **narbona espainiako ingurumen** (4); **sabin intxaurraga ingurumen** (11); **udaleko ingurumen** (5); **zuen ingurumen** (14); **zuen ingurumen sailburuak** (5); **zuten ingurumen** (5)

**da ingurumena** (4); **dira ingurumena** (7); **du ingurumena** (8); **dute ingurumena** (7); **eta ingurumena** (58); **eta ingurumena babesteko** (8); **giza ingurumena** (4); **gure ingurumena** (5); **ingurumena ahal** (4); **ingurumena arriskuan** (4); **ingurumena babestea** (9); **ingurumena babesteko** (42); **ingurumena babestu** (6); **ingurumena clemenceau** (5); **ingurumena eaeko** (5); **ingurumena ere** (4); **ingurumena errespetatu** (4); **ingurumena errespetatuz** (4); **ingurumena errespetatzen** (8); **ingurumena eta** (43); **ingurumena garbi** (4); **ingurumena giza** (4); **ingurumena greenpeacek** (4); **ingurumena hobetzeko** (7); **ingurumena itsas** (4); **ingurumena klima** (4); **ingurumena zaindu** (7); **ingurumena zaintzea** (5); **ingurumena zaintzeko** (6); **itsasoko ingurumena** (4); **osasuna eta ingurumena** (5)

**eta ingurumenak** (4); **eta ingurumenarekiko** (6); **eta ingurumenarekin** (8); **ingurumenarekiko errespetu** (4); **ingurumenarekiko errespetua** (5); **ingurumenarekiko inpaktuaren** (5); **ingurumenarekin eta** (6); **ingurumenarekin lotura** (6); **ingurumenarekin lotura duten** (5); **ingurumenarekin lotutako** (11); **ingurumenarekin zerikusia** (4)

**da ingurumenaren** (8); **du ingurumenaren** (7); **dute ingurumenaren** (8); **ere ingurumenaren** (4); **eta ingurumenaren** (62); **eta ingurumenaren arteko** (5); **eta ingurumenaren babesa** (6); **giza ingurumenaren** (4); **ingurumenaren alde** (24); **ingurumenaren aldeko** (44); **ingurumenaren aldeko elkarte** (4); **ingurumenaren aldeko erakundeen** (4); **ingurumenaren arloan** (10); **ingurumenaren arloko** (6); **ingurumenaren arteko** (5); **ingurumenaren aurkako** (8); **ingurumenaren babesa** (15); **ingurumenaren babesa eta** (6); **ingurumenaren babesaren** (4); **ingurumenaren babesean** (5); **ingurumenaren babeserako** (8); **ingurumenaren defentsa** (5); **ingurumenaren egoera** (7); **ingurumenaren egunak** (11); **ingurumenaren eta** (18); **ingurumenaren etikak** (5); **ingurumenaren gaineko** (13); **ingurumenaren ikuspegitik** (6); **ingurumenaren inguruko** (4); **ingurumenaren kalitatea** (4); **zuen ingurumenaren** (4)

**batuen giza ingurumenari** (4); **eta ingurumenarentzat** (7); **eta ingurumenari** (29); **eta ingurumenari buruzko** (7); **giza ingurumenari** (6); **giza ingurumenari buruzko** (5); **ingurumenari buruz** (8); **ingurumenari buruzko** (46); **ingurumenari buruzko informazioa** (4); **ingurumenari dagokionez** (10); **ingurumenari edo** (4); **ingurumenari egindako** (5); **ingurumenari egiten** (6); **ingurumenari egiten dion** (4); **ingurumenari eragiten** (5); **ingurumenari eragiten dioten** (4); **ingurumenari eta** (24); **ingurumenari eta garapenari** (5); **ingurumenari ez** (4); **ingurumenari kalte** (23); **ingurumenari kalte egin** (5); **ingurumenari kalterik** (14); **ingurumenari kalterik egiten** (5); **ingurumenari loturiko** (5); **ingurumenari lotutako** (5); **osasunari eta ingurumenari** (5)

**du ingurumenean** (5); **eta ingurumenaz** (8); **eta ingurumenean** (17); **eta ingurumeneko** (8); **eta ingurumenerako** (6); **horrek ingurumenean** (4); **ingurumenaz arduratzen** (4); **ingurumenaz arta** (5); **ingurumenaz axola** (4); **ingurumenean duen** (7); **ingurumenean eragin** (8); **ingurumenean eraginen** (15); **ingurumenean eraginen lukeen** (9); **ingurumenean eragingo** (6); **ingurumenean eragiten** (6); **ingurumenean eta** (10); **ingurumenean izango** (15); **ingurumenean izango duen** (8); **ingurumenerako eta** (4); **proiektuak ingurumenean** (5)

---

# ingurumenzale *(corpusean **ingurumen zale** soilik) izond/iz*

Zuek **ingurumen zaleok** ulertzeko moduan esanda, Espainiako arrano inperialen antzekoa da euskararen egoera. Joxerra Garzia

---

# ingurune **1** *iz* zerbaitek hartzen duen ingurua. ik **ingurumari.**

Lehenengo gizakien **ingurunea,** zentzu kimikoan, gaur egungoa baino askoz garbiagoa zen. Irene Aldasoro

Baina arraina lasai bizi da; ez du grabitatearen arazorik, ez eta gorputza **ingurunea** baino tenperatura handiagoan mantendu beharrik ere. Irene Aldasoro

Izugarri nozitzen dugu gure **ingurunearen** eragina. Josu Zabaleta

Ez da bere berezko **ingurunetik** ez fisikoki ez sinbolikoki ez ekonomikoki urruntzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hautetsiei presio egitea egotzi dio Imazek «Batasunaren **inguruneari»**. Berria - Euskal Herria

Nire **ingurunetik** ihes egiteko. Jon Muñoz

Gorputzaren barruko egituren eta kanpoko **ingurunearen** arteko kolpe-motelgailua den aldetik, ezaugarri praktiko asko ditu larruazalak. Irene Aldasoro

**Ingurunea** nolakoa den eta bakterioak zer elikagai behar duen. Juan Garzia

Babestutako **inguruneak:** Adituen arabera, arriskuan dauden espezieak babestu ahal izateko, oinarrizkoak da haien bizi-baldintzak bermatuko dituzten **inguruneak** sortzea. Berria - Gaiak

Erdi Aroko nekazari batek, bera bizi zen lekuko bost kilometroko **ingurune** batean eskuratzen zuen kontsumitzen zituen ondasunen %90. Koro Navarro

Bikietan egindako azterketen helburua genetikaren eta **ingurunearen** efektu erlatiboak aztertzea izan da. Berria - Gaiak

Horrela aurrekariak eta **ingurunea** hobeto ezagutuz. Xabier Arregi

*ik* testuinguru.

Zeren baiezta daitekeen gauza bakarra baita, hori bakarrik ezagutzen dugulako, **ingurune** honetan, testuinguru jakin honetan, erdarek euskarak baino erraztasun handiagoa dutela komunikatzeko. Pello Salaburu

Mendebaldekoa ez zen **ingurune** batean. Iñaki Mendiguren

**2** (izenondoekin)

**Ingurune** arrotz batean aurkitzen duen pertsonaren ziurtasun erabatekoarekin. Jose Morales

**Ingurune** zaratatsuetan, gai da belarria, arreta bilduz, soinu batzuk hautatzeko eta gainerakoak ez entzuteko. Irene Aldasoro

**Ingurune** industrial batean bizi ginen. Xabier Mendiguren Elizegi

Erraz erakuts daiteke lubrikazio hidrodinamikoa ezinezkoa dela **ingurune** biologikoan. Irene Aldasoro

Teknologia ez da azalpen beharrik duen zerbait, **ingurune** sozialean askotariko eraginak dituen kaxa beltza *(black box)* baizik. Askoren artean

Lehen frantziskotarren garaiko **ingurune** historiko kulturalean. Askoren artean

Eredu hori oso desegokia bihurtu zen orduko **ingurune** ekonomikoarentzat. Iñaki Heras

Izan dira meatzari-herriak **ingurune** guztiz euskaldun batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Berdin [b] / [ß] bikotean bigarrenaren jarraitutasuna da **ingurune** jarraituagatik esplikatzen dena. Lourdes Oñederra

Aurkakotasuna **ingurune** jakin batean gal daiteke. Lourdes Oñederra

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Biziak ezinbestekoa du barne-**ingurune** berezi bat mantentzea. Irene Aldasoro

Kanpo-**ingurunearen** arrisku termiko, mekaniko eta kimikoetatik babesten gaitu. Irene Aldasoro

Eta, orain herri txikietan etxez etxe doazen kamioitxo horien antzera, etorkizunean landa-**ingurunean** horrelako salmenta jeneralizatuko da. Edorta Agirre

Giza **ingurunearen** gaineko gero eta kontrol handiagoa. Iñaki Mendiguren

Gizarte-**ingurunearen** bat-bateko aldaketaren astindu gehigarria. Iñaki Mendiguren

Gizarte-**ingurune** atzerritar batean. Iñaki Mendiguren

Gainera, gizarte-, Eliz eta kultura-**ingurune** jakin batean sortu ziren eta ingurune horretan murgilduak daude. Askoren artean

AZTI Fundazioko Ozeanografia eta Itsas **Ingurunea** Saileko buruak. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako Foru Aldundiko Landa **Ingurunearen** Garapenerako Sailak. Berria - Euskal Herria

**4** ingurua.

Eta gero Erdialdeko Anatoliako lurraldea zeharkatu behar da, **ingurune** lehorra, hotza, monotonoa... Jon Arretxe

Gure **ingurune** honetako putre eta saiek. Pello Zabala

Egun hartan eta hurrengoetan **inguruneko** jauntxoak iritsi ziren. Joan Mari Irigoien

Ur-putzua edo datil-palmondoak zeuden **inguruneetan**. Jon Arretxe

Hiru zaku eta bi kaxa, hirurehun metroko **ingurunean** han-hemenka sakabanatuta. Joxe Austin Arrieta

Utzia zuten atzean Bilboko **ingurunea**. Joxemari Iturralde

**5** ingurumena.

Pertsonok elkarri min egiteko eta beste izaki batzuekin partekatzen dugun **ingurunea** suntsitzeko halako berezko gaitasun bat izateak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Ingurunearen** babeserako eta hobekuntzarako eskubidea nazioarteko legedian sartzeko kanpaina. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Giza eskubideak, ekologikoki osasungarria den **ingurunea,** garapen iraunkorra eta bakea elkarren mendekoak eta bereiztezinak dira. Berria - Kultura

**Ingurune**-irakaslearen semea. Josetxo Azkona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bere ingurunea** (6); **bere ingurunean** (5); **da ingurune** (7); **den ingurune** (5); **duen ingurune** (4); **eta ingurune** (19); **eta ingurunea** (8); **eta ingurunearen** (11); **gizarte ingurune** (4); **ingurune batean** (11); **ingurune fisikoa** (4); **ingurune hartan** (9); **ingurune horiek** (4); **ingurune horretan** (9); **ingurune jakin** (9); **ingurune jakin batzuetan** (5); **ingurune seguru** (4); **inguruneak ere** (4); **ingurunearen arteko** (6); **natur ingurunea** (4); **zen ingurune** (4); **zuen ingurune** (5)

---

# ingurunedun *izond* inguruneak eraginikoa. ik **ingurunegabe.**

Herskari ahostun eta ahoskabeak ingurune horretan ere bereizi behar direlako, ezin diogu amore eman ingurune ahostunetan trabariak ahostuntzeko bilakabide **ingurunedunari**. Lourdes Oñederra

Oro har esan dezakegu, gero eta hots unitate gehiago behar, ontasun fonetikoaren aldeko aukera oinarrizko gutxiago izango dituela hizkuntzak (bilakabide **ingurunedun** edo ingurune gabe gutxiago, beraz). Lourdes Oñederra

Nahiz eta jakin ahostuna eransketa **ingurunedun** bati dagokion. Lourdes Oñederra

---

# ingurunegabe *(orobat **ingurune gabe**)* *izond* inguruneak ez eraginikoa. ik **ingurunedun.**

Ontzat ematen bada hizkuntza bakoitzaren oinarrizko unitate edo fonema saila, tasun konbinaketa onena bermatzen duten fortitioek egituratzen dutela, esan behar da fortitio horiek **ingurunegabeak** direla. Lourdes Oñederra

Oro har esan dezakegu, gero eta hots unitate gehiago behar, ontasun fonetikoaren aldeko aukera oinarrizko gutxiago izango dituela hizkuntzak (bilakabide ingurunedun edo **ingurune gabe** gutxiago, beraz). Lourdes Oñederra

---

# ingurutar *iz ipar* aipatu inguruan bizi den pertsona.

Mugerre portualdeko **ingurutarrek** arrangura seriosak agertu dituzte Pleitalekuko enpresek ekartzen dituzten eneguen gatik. Herria

*Moderne* trinketak sortzen duen mugimenduak zenbait **ingurutar** arranguraturik uzten ditu. Herria

Idatziz proposatu galdeketari 300 **ingurutarrek** eman dute ihardespena, horietan hamarretik bederatzi lekukoak izanki. Herria

---

**ingurutsu** *iz* gutxi gorabeheherako ingurua.

Euskarazko *babalasto, babalore, babazaku, babazorro,* eta antzekoak ere, **ingurutsu** horretan dabiltzala ematen du. Patziku Perurena

Arano, Elduaien eta Goizuetako dermioak elkar mugatzen duten **ingurutsuan,** ezaguna da *Abaden Gurutzea* lekuizena. Patziku Perurena

---

**ingurutxo** *iz* euskal dantza baten izena.

Sendiko hilak oro bazerabilzkion halaber buru-onaren itzalean, dantza eta **ingurutxo** zoroan, batzuetan bizia trabatzen eta besteetan bizitzeko lotsa gerizatzen. Itxaro Borda

Nafarroa osoan hain ezaguna izan den **Ingurutxo** izeneko dantzari ere. Patziku Perurena

Juan Antonio Urbeltzek aipatu du zintzoki zer izan den bere ikerlana, **Auritzeko** ingurutxoa eskuratu beharrez. Herria

---

**ingushetiar** *izlag/iz* Ingushetiakoa, Ingushetiari dagokiona; Ingushetiako herritarra.

Ozdoiev fiskal **ingushetiarra** zen eta bere lana FSBren jarduna eta bahiketak ikertzea zen. Berria - Mundua

Txetxeniar eta **ingushetiarrek** harreman estuak izan dituzte historikoki. Berria - Mundua

1991n, txetxeniarrek independentzia aldarrikatu zutenean, **ingushetiarrek** erreferendum bat egin eta Errusia barneko errepublika izatearen alde bozkatu zuten. Berria - Mundua

---

**inhabilitatu,** inhabilita, inhabilitatzen du *ad* gaitasungabetu, gaitasunik gabe utzi.

Urtarrilaren 13an egindako adierazpenetan, **inhabilitatzen** bazuten politika utziko zuela iragarri zuen Juppek. Berria - Mundua

Jose Emilio Agote Donostiako EAko presidentea barne karguetarako eta kargu publikoetarako urtebetez **inhabilitatzea** erabaki du Eusko Alkartasuneko Kontrol eta Berme Batzordeak. Berria - Euskal Herria

---

**inhabilitazio** **1** *iz* gaitasungabetzea, gaitasunik gabe uztea.

Jupperen **inhabilitazioa** 10 urtetik bakarrera gutxitu dute epaileek. Berria - Mundua

Isunaz gain, **inhabilitazioa** eskatzen du akusazioak hirurentzat. Berria - Harian

Otegiri 8 urteko **inhabilitazioa** eta 15 hilabeteko kartzela ezarri diote. Berria - Euskal Herria

Urtebeteko kartzela zigorra eta 7 hileko **inhabilitazioa** du bere gain. Berria - Euskal Herria

Fiskalak 15 hileko espetxe zigorra eta beste horrenbesteko **inhabilitazioa** eskatu zuen hiru auzipetuentzat.

Zortzi urteko erabateko **inhabilitazioa**.

Urtebeteko espetxeratzea eta zazpi urteko **inhabilitazio** osoa agindu zuen. Berria - Euskal Herria

15 hileko espetxe zigorra eta beste horrenbesteko **inhabilitazioa** eskatu ditu fiskalak.

Espainiako Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak seina urteko espetxe zigorra eta hamarna urteko **inhabilitazioa** eskatu du hiru gazterentzat. Berria - Euskal Herria

**Inhabilitazio** bereziak 6 urtetik 12 urtera doan zigorra du. Berria - Euskal Herria

Eroskeria delituaren zigor nagusia espetxea eta **inhabilitazioa** dira. Berria - Euskal Herria

Bi **inhabilitazioaren** alde eta bi kontra. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Iragan urtarrilean ebatzitako **inhabilitazio** zigorra. Berria - Mundua

Jupperi emandako 10 urteko **inhabilitazio** zigorra. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste horrenbesteko inhabilitazioa** (6); **bitarteko inhabilitazioa** (3); **erabateko inhabilitazioa** (6); **erabateko inhabilitazioa eskatu** (4); **horrenbesteko inhabilitazioa** (6); **horrenbesteko inhabilitazioa eskatu** (4); **inhabilitazio osoa** (3); **inhabilitazio zigorra** (3); **inhabilitazioa eskatu** (10); **inhabilitazioa eskatu ditu** (3); **inhabilitazioa eskatu zituen** (3); **inhabilitazioa eskatu zuen** (3); **inhabilitazioa eta** (8); **inhabilitazioa ezarri** (3); **urteko erabateko inhabilitazioa** (5); **urteko inhabilitazio** (5); **urteko inhabilitazio osoa** (3); **urteko inhabilitazioa** (11); **urteko inhabilitazioa eta** (4); **urteko inhabilitazioa ezarri** (3); **zortzi urteko inhabilitazioa** (5)

---

**inhabitable** *izond* (bertan) ezin bizizkoa.

Espazioa harrizkoa bihurtua zen, **inhabitablea** eta monumentala. Berria - Kultura

---

**inhalatu,** inhala, inhalazen du *ad* arnastu.

Lanza-perfumea izeneko droga kloroformoz, zereal-alkoholez eta eterrez egiten da; **inhalatuta** hartzen da. Karlos Zabala

---

**inhalazio** *iz* arnastea.

Poxpolu-usaina, ke-**inhalazio** luzea, ke garratza, sarkorra, trinkoa, gozoa. Lopez de Arana

Hogei ordu zeramatzan han, salbutamol **inhalazioak** hartzen, aldizka oxigenoaren hodira konektatuta. Bernardo Atxaga

---

**inharmoniko** *izond* harmoniagabea.

Zer esanik ez moral estukoak eta heziketa **inharmonikokoak**. Unai Elorriaga

---

**inhazi** *iz*

Ikusten zuenean Beinatek Germena eta Laurendi zein hiski erabiltzen zituen, gizonaren bihurdikatzeko, haurren urkatzeko edo sangreatzeko gutiziaren **inhaziak** larranzten zion kolkoa. Itxaro Borda

---

**inherente** *izond* berezkoa zaiona, berezkoa duena.

Zergatik daukan gauza bakoitzak ahalmen mugatua eta zergatik zaion muga bat hain barneki **inherentea**. Xabier Amuriza

Espazioaren eta denboraren errealitate absolutua baieztatzen dutenak, hau subsistente gisa nahiz **inherente** gisa onartzen badute ere. Ibon Uribarri

Hartuemanaren batasun baldintzatugabea, h[au] d[a], norbere burua, ez **inherentea,** baizik subsistentea den aldetik. Ibon Uribarri

---

## inherentzia *iz* inherentea denaren nolakotasuna.

Hiru hartueman dinamikoak, beraz, **inherentzia,** kontsekuentzia eta elkarketarenak dira, eta beraietatik abiatuta sortzen dira gainerako guztiak. Ibon Uribarri

Hala ere, errealki horri substantzian izate bereziren bat atxikitzen bazaio (adibidez, higidura, materiaren akzidentea den heinean), orduan izate horri **inherentzia** deitzen zaio substantziaren izatetik bereiztearren. Ibon Uribarri

Pentsatzearen subjektu logiko jarraikorra **inherentziaren** subjektu errealaren ezagutzatzat jotzen duen heinean Ibon Uribarri

---

## inhibidore *iz* inhibitzailea.

Laboratorio-buruak ez zian sinetsi nahi bere begiek ikusten zutena: ez omen zian sekula ikusi hain **inhibidore** indartsurik Juan Garzia

---

## inhibitu, inhibi, inhibitzen **1** da *ad* epaiketa batean parte ez hartu.

Zortzi gazteren epaiketan **inhibitu** egin da Auzitegi Nazionala. Berria - Euskal Herria

Kontrol eta Berme Batzordea bost kidek osatzen dute, baina haietako bat, Ricardo Burutaran, **inhibitu** egin zen, Donostiako hautagaitza aukeratzeko prozesuan parte hartu zuelako. Berria - Euskal Herria

Donostiako epailea **inhibitua** zen ordurako, eta Auzitegi Nazionalak hartua zuen kasua. Berria - Harian

Donostiako Auzitegiari **inhibitzeko** eskatu zion fiskalak atzo. Berria - Euskal Herria

• **2** du *ad (medikuntzan eta biologian)* eragotzi, oztopatu.

Burmuineko neokortexa, hau da, kultur balioen eta gustu pertsonalen sistema, zeinek ekintzara bultzatuko gaituen edo **inhibituko** gaituen. Luis Elberdin

Hartzaile multzo bat zelula bati metaketazko konexioz lotuta baldin badago, zenbat eta hartzaileak kitzikatuago orduan eta kitzikatuagoa izango da zelula ere [...]; alderantziz, lotura inhibitzailea baldin bada, hartzailearen edo zelularen eraginak hurrengo zelularen jarduera **inhibitu** (=oztopatu) egingo du. Josu Zabaleta

Mikroorganismoen garapen eta hazkundea *in vitro* **inhibitzeko** gai den substantzia bat da *septrim.* Berria - Gaiak

Estatu Batuetako ikertzaile talde batek beta-amiloide proteinek sortzen dituzten plakak **inhibitu** ditu, laborategian, hazkuntza-hodietan egindako esperimentu batean.

**Diabetesa** inhibitu dute, odoleko zelulak pankreako zelulak bihurtuta. Berria - Gaiak

**3** (era burutua izenondo gisa)

Nahiz eta Bennett oso prestatua dagoen, are irrika duen, sindromeaz termino neurokimiko eta neurofisiologikotan pentsatzeko -berak anormaltasun kimikoaren hiztegia darabil halako kontuetan: "piztu eta itzaltzen diren zirkuituak", "bide ematen zaien jokabide primitibo, eskuarki **inhibituak"-,** sindromea nortasunaren zati bihurtu zaiola ere sentitzen du. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inhibitu egin** (3)

---

## inhibitugabe *izond* eragotzi gabekoa.

Ez dago garbi arreta hiper-fokatu hori -estu bezain zorrotza- autismoko fenomeno primarioa den ala erreakzio edo egokitzapen bat, sentsazio-zaparrada **inhibitugabe** baten aurrean garatzen duena. Xabier Olarra

---

## inhibitzaile *izond* inhibitzen duena, eragozlea.

Gerra biologikorako ekoitzi diren nerbio-gas batzuk kolinesterasaren **inhibitzaile** dira. Irene Aldasoro

Hartzaile multzo bat zelula bati metaketazko konexioz lotuta baldin badago, zenbat eta hartzaileak kitzikatuago orduan eta kitzikatuagoa izango da zelula ere [...]; alderantziz, lotura **inhibitzailea** baldin bada, hartzailearen edo zelularen eraginak hurrengo zelularen jarduera inhibitu (=oztopatu) egingo du. Josu Zabaleta

Sinapsiak, adibidez, ez dira errele soilak; eginkizun eraginkorra dute, "kitzikatzaile" baitira batzuk, eta **"inhibitzaile"** besteak. Josu Zabaleta

Badira, esate baterako, eremu bat bi azpieremutan, bata metaketazkoa eta bestea **inhibitzailea,** banatuta duten kortex-zelulak. Josu Zabaleta

*CDK **inhibitzaileak** eta minbizia* izenburuko berbaldia eskaini zuen Koffek. Berria - Gaiak

Masa gehitu diote **inhibitzaile** lanak egin behar zituen molekulari. Berria - Gaiak

---

## inhibizio *(orobat **inibizio** g.er.)* **1** *iz* lotutasuna, herabetasuna.

Bitxia da behin gizon baten aurrean biluztu direlarik nola galtzen duten erabat emakumeek gorputza erakusteko **inhibizioa**. Alkoholak azken **inhibizio** moraletik askatzen zuen. Ramon Saizarbitoria

Orobat zen egia, ordea, doluak bere baitan biltzen dituen sentimenak -nahigabea, tristezia, gogogabetasuna, **inhibizioa-** poliki-poliki atzean utziz joana zela, Freudek adierazi bezala. Imanol Zurutuza

Presondegian, nonbait, oso bere gogara sentitu zen, behingoz ongi eta bakean bere buruarekin, konplexuetatik eta **inhibizioetatik** libre. Fernando Rey

Eta gainera, horien espantu-imintzioak, zoriontsuak bailiran, amerikanoak direlako, **inhibiziorik** gabeak omen, nahiz eta benetan harroputz zaratatsuak besterik ez izan. Joxe Austin Arrieta

**2** (testuinguru teknikoagotan)

Behin Greg "esnatuz" gero, haren garun-azala iratzarriz gero, haren bizitasuna bera ere bitxia zela ikusten zen: **inhibiziorik** gabeko tankera berezi-berezi bat, lobulu frontalen alde orbitaletan (hots, begi ondoko aldeetan) lesioa izan dutenengan ikusten direnen antzekoa edo sindrome orbito-frontala izenekoa. Xabier Olarra

Halako atzera-pausoak, oharkabez bada ere, motibatutzat jotzekoak ziren: "oinarri funtzionaleko" **inhibiziotzat**. Xabier Olarra

Ikustun-identitatearen porrot edo **inhibizioa**. Xabier Olarra

Horrekin batera, sentsazioen **inhibizioa,** batzuetan erabat soraiotzerainokoa. Xabier Olarra

**3** parte ez hartzea.

Iztuetaren **«inhibizioa»** salatu du CCOOk. Berria - Euskal Herria

Alonsoren **inhibizioa,** utzikeria eta zabarkeria jarrera arduragabearen ondorioz, hiriak ez du parte hartuko salmenta operazioak utzitako gainbalio garrantzitsuetan. Berria - Ekonomia

Orokorrean testuari sostengua eman bazioten ere hainbat **«inhibizio»** izan zirela esan zuen: «Isiluneak, batzuetan, oso adierazgarriak dira». Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan)

**Inhibizio** mota ugarien aurkako borroka hasia da eta naski ez da bertan bururatuko. Itxaro Borda

Anaia Juan ikusten zuenean, munstroak ikustean sentitzen den nazka-inpresio hori, **inibizio** -inpresio hori sentitzen zuen. Josu Zabaleta

Oraindik, ordea, ez dugu konbinatoria honek eskatzen dituen haztaketa-mekanismoen egiazko eredurik batere: metaketa eta **inhibizio** legeek eragin handia dutela horretan guztian, hori besterik ez dakigu. Josu Zabaleta

· Psikomotrizitate aldetik ondo zebilela esan zigun, eta ez ziola buru- **inhibizio** nabarmenik sumatzen. Patxi Iturritegi

---

# inhumano *izond* gizagabea.

Toki bakarti horiek, hain zakarrak eta **inhumanoak,** fantasmak sortzen dituzte. Bernardo Atxaga

Baldintza tamalgarriak ziren Puertokoak -jarraitzen du aurrerago- **inhumanoak** ziren, Batere exajeratu gabe. badakit, era berean, hau dena oso gogorra dela zuentzat, **inhumanoa** ere esango nuke, baina nire nahia, gaurko egunez, horixe besterik ez da: gizakiaren eraman-ahalmena neurtzea. Karlos Linazasoro

---

# ininteligibletasun *iz* ulertezintasuna.

Euskara **ininteligibletasun** , inpronunziabletasun eta beste *inbletasun* batzuen izena da, euskara ezagutzen dutenentzat. Iñaki Segurola

---

# inizial 1 *iz* haste letra.

Justo Badiolak errotulagailu gorriz azpimarratu zituen **inizialak:** James Baldwin, Jean Baudrillard, [...], Joxemiel Barandiaran eta Joxe Bonaparte. Joxemari Urteaga

Etxeko arropa zurietan **inizialak** non josi erabakitzen. Mirentxu Larrañaga

Bultza egiten dio pare bat metro, apartatzen da, eta A.E.L. **inizial** urre-koloreak ikusten ditut hilkutxaren atzeko partean. Anjel Lertxundi

Gorpu horrek, kasualitate hutsez, nire **inizial** berberak zituen, eta nire adin berbera. Karlos Linazasoro

Egilearen abizena eta **iniziala** . Askoren artean

Erakundearen **inizialak** . Koldo Izagirre

Zilar trinkozko mahai-tresnaren bat, haren **inizialez** zigilatua. Juan Garzia

## 2 *izond* haste-, hasierakoa.

Alabaina, gerora asmaturiko kosmogonietan, pentsalari presokratikoek […] nahiago dute betiere elementu soileko singulartasun **iniziala,** ahalik eta bakartuena eta xinpleena, hala nola, sua, airea, ura, Jainkoa, edo Big Bang delakoa. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere inizialak** (3)

---

# iniziatiba 1 *iz* ekimena.

Nik deiadar egin nuen Hermannen **iniziatiba** goratzeko. Anjel Lertxundi

Aitaren familiakoak, aldiz, enpresa tradiziokoak ziren [...]: **iniziatiba** handikoak eta ausartak, erraz asko jo izan dutenak munduan zehar enpresa berriak martxan jartzera. Ana Urkiza

Niri, aldiz, iruditzen zait amonak ahultzat zuela aita, **iniziatibarik** gabetzat. Anjel Lertxundi

Zeren bakartasunaren helburu nagusia presoa arrunt kontrolatzea baita, arrunt **iniziatibarik** gabe uztea. Filipe Bidart

Juduari simaurra bota zionetik, Hermannek zeraman berriro **iniziatiba** guztia, eta horrek nire porrota adierazten zuen. nire baitakoak esaten zidan hobe nuela haren **iniziatibaren** zain egotea, alferrik izango nuela egoera bihurritzen saiatzea. Anjel Lertxundi

Berriro ere besteena izango zen nire bizitzari buruzko **iniziatiba** . Anjel Lertxundi

**Iniziatiba** nirea zenean batez ere. Joxan Elosegi

Gizakiek **iniziatiba** zuten, gizakiak patuaren aurka matxinatzen ziren. Anjel Lertxundi

Argi eta garbi geratu zen gutuna ezagutarazteko **iniziatiba** Hitlerren ingurutik irten zela. Anjel Lertxundi

Gurasoek amonari utzi zioten **iniziatiba** . Anjel Lertxundi

Bakartasuneko sistemaren pean ez erortzea, beti **iniziatiba** atxikitzea. Filipe Bidart

Faxistek **iniziatiba** berreskuratzeko hurrengo kolpea non jo erabaki behar dutela. Edorta Jimenez

**Iniziatiba** politikoa berreskuratzeko ahalegin honek. Berria - Euskal Herria

**Iniziatiba** berritzaile eta interesgarri horrek bi ahulezia zeuzkan eta ezin izan du emaitzarik lortu. Berria - Ekonomia

Islamdarrak gainerako ikasleengandik apartatzeko **iniziatiban,** debatea da ez al gauden aurrerakoitasun faltsuen izenean makilatu nahi den arrazakeria baten aurrean. Anjel Lertxundi

Herritarren **iniziatibaz** . Berria - Euskal Herria

## 2 ***herri iniziatiba*** herri ekimena.

Herri **iniziatibako** erreferenduma antolatzea eskatzeko izenpeak biltzeko kanpaina. Berria - Euskal Herria

Herri **iniziatibatik** sortu tokiko erreferendumak antolatzeko aukera ematen du legeak.

## 3 ***iniziatiba hartu***

Brastakoan ulertu nuen: **iniziatiba** hartu behar nuen eta adorerako irudimena erakutsi, hori zen froga. Anjel Lertxundi

**Iniziatiba** hartu behar duk, esaten zidan barruko ahots batek. Anjel Lertxundi

Konturatzen baitzen nolako klasea nintzen ni, **iniziatibarik** hartzen ez duten horietakoa. Juan Garzia

Ilegalizazioa salatzeko **iniziatiba** aktiboak hartzeko konpromisoa. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **atxilotzeko iniziatiba** (3); **eta iniziatiba** (5); **iniziatiba hartu** (15); **iniziatiba hartu duten** (5); **iniziatiba hartuko** (3); **iniziatiben hartzen jakitea** (5); **publikoan sartzeko iniziatiba** (5); **sartzeko iniziatiba hartu** (5)

---

# iniziatiko *izond* iniziazio-. ik **iniziazio 2.**

Heriotzaren eta berpizkundearen ziklo **iniziatikoa** . Joseba Zulaika

*Gorde nazazu lurpean* bidaia **iniziatiko** bat ere bada, espirituaren fenomenologia bat. Markos Zapiain

Poesia eta imajinazio **iniziatikoa** direla ezagupen ororen oinarri. Joseba Zulaika

Konbertsioaren egitura **iniziatikoak,** […] honako hauek ditu pauso obligatuak: infernuetara jaitsi, han heriotza sinbolikoa ezagutu, eta, bidean gora altxatuaz, pizkundea irabazi. Joseba Zulaika

Arestik ere "maldan gora eginiko gogoeta eroak" dakartza bere poema **iniziatikoaren** amaieran. Joseba Zulaika

Zentzu **iniziatikoa** eta erlijiozkoa baitzuen pikoak, eta horregatik omen ziren eremitak piko zale. Patziku Perurena

---

**iniziatu**, inizia, iniziatzen **1** da *ad* iniziazioa hasi, abiatu.

Halaber, Euskal Herrian ohitura zen ezkontza egunean andregaia hilerrira joatea, senargaiaren familian **iniziatzeko**. Berria - Kultura

Praktikaren zenbait misteriotan **iniziatu** berri dugu gure ikaslea: ez dezagun teoria baztertu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (era burutua izenondo gisa)

Demostenesek kontatzen du nola lohiaren bitartez purifikatzen zituzten **iniziatuak**, misterio orfikoetan. Juan Garzia

Egia zinezkoa besterik zen, gure teleskopioentzat iritsezina, **iniziatuen** eskura. Juan Garzia

Zentzu bikoitzeko mintzaira batean idatziak zeuden, eta bi interpretazio-mailaz baliatzen ziren: bata, mundu guztiak ulertzen zuena; bestea, berriz, **iniziatuentzat** bakarrik gordea. Jon Muñoz

Hizkuntzaren maratila guztiak menderatzen dituen aldetik paradoxak, barbarismoak edo **iniziatuentzako** keinuak tartekatzen ditu han-hemen. Unai Elorriaga

Pitagoras, berriz, "matematikari"en gidaria zen, **iniziatuena**. Jon Muñoz

---

**iniziatugabe** *iz* iniziatua ez dena.

Bistan denez, Hesiodoren Teogoniak, Upanishad-ek edo Bibliak kontatzen diguten Sorkuntza bezain irensgaitza zaie halako historia bat **iniziatugabeei**. Juan Garzia

---

**iniziatugai** *iz* iniziatua izatera doana.

Uharteko egonaldia errito iniziatikoetako katabasiaren pareko: arazte-errito batzuk jasaten ditu **iniziatugaiak,** biluzik, barau eginez bakardadean, eta lau elementuetara bidaiatzen du sinbolikoki: lurra, ura, sua eta airea. Iñaki Iñurrieta

---

**iniziazio** *(orobat **iniziazione** g.er.)* **1** *iz* talde jakin batean sartzera doan pertsona batek jasaten duen errituala.

**Iniziazioa** ez da heriotzan bukatzen. Joseba Zulaika

Hipaso izan zen lehenengoetariko pitagoriko bat; hura zen "akusmatiko"en buruzagia: **iniziaziorako** hautagaiena, alegia. Jon Muñoz

Felix Ibarrondoren musiketan **iniziaziorako** bidaia hasteko. Berria - Kultura

**2** hastapena; hastea, abiatzea.

Bi talde dirate: goizez, **iniziazionea** eta arrestiez hobekuntza. Herria

**3** (hitz elkartuetan) ik **iniziatiko**.

Haren asmazio hutsa zen, **iniziazio**-erritual basatien bertsio moderno eta tekniko bat. Juan Garzia

**Iniziazio** prozesu batean geundela esan zigun. Xabier Mendiguren Elizegi

Demagun **iniziazio**-proba bat izan zela hura. Iñaki Iñurrieta

Poeta gazte baten **iniziazio** zikloa onartzean, Danteren infernuetara jaitsi eta Gizon Zaharraren heriotza besarkatu beharra dauka, bere hiriarentzat Gizon Berria sortu nahi badu. Joseba Zulaika

N. jaun artistak hegoa maite badu, biziki maite ditu utopia, sentsualtasuna, beroaren koloreak eta koloreen beroa, indar atabiko ate bikoak, bat-bateko senaren emaitzak, **iniziazio**-bidaiak. Anjel Lertxundi

---

**injektagarri** **1** *izond* injekta daitekeena.

Lantegi horretan erremedio likidoak egiten dituzte eta berinazko untzietan ezartzen, flaskoak eta anpula **injektagarriak** bereziki. Herria

**2** (izen gisa)

Horrela osaturiko **injektagarriek** ez dute hotzik behar kontserbatzeko. Berria - Gaiak

---

**injektatu**, injekta, injetatzen **1** du *ad* xiringaren bidez sartu.

Emmanuel heroina **injektatzen** ari zunan. Joan Mari Irigoien

Eta nik lagundu egiten nion, estu sentitzen zenean lasaigarriak zainetatik **injektatuz**. Joan Mari Irigoien

Nik hurrena bolalumaren bolatxoa **injektatu** behar diat zainetan. Koldo Izagirre

Zerrien areetatik atera ondoren, zuzenean **injektatzen** dira gaixoaren organoan. Berria - Gaiak

Bere buruari **injektatzeko** baliatzen zuen tresneria bera erabiltzen zuen, ondoren, gaixoekin. Berria - Gaiak

Antiseptiko iododuna ipur-masailean kotoi-zati batez eman, eta anestesia lokala **injektatu** zion, batere dardararik gabe. Xabier Olarra

Orobat **injekta** daiteke gene bat gorputzeko zelula guztietan koka dadin. Juan Garzia

Batzuetan, nahikoa izaten da "hildako" txerto bat -bakterio edo birus hilak- **injektatzea**. Irene Aldasoro

Formola **injektatzea** bihotzean biki judu nahiz ijitoei, begi heterokromatikoak ateratzeko. Juan Garzia

Arrautza ernalduetan **injektatzea** ADNa, erdibitze ororen aurretik. Juan Garzia

Orain arte emailearen hezur-muina ezartzen zitzaion gaixoari, baina orain odoleko zelula amak **injektatzeko** aukera dago. Berria - Gaiak

Droga **injektatuta** hartzeko joera gora egiten ari da leku askotan eta horrek lagundu du infekzioa zabaltzen.

**2** *hed/irud*

Begira horiei: begiak alkoholez eta desiraz, odoletan **injektaturik**. Iñaki Iñurrieta

Odolez **injektatutako** begi haiek. Iban Zaldua

Bizitza halako lanbide zorigaiztokoa izan ez dadin, nork **injektatzen** ote dizkigu beharrezkoak zaizkigun proteina sinbolikoak? Patxi Zubizarreta

Hain zen zoragarria eta bizkorra ezen begiratu hutsarekin lasaitasuna **injektatzen** zizun. Fernando Rey

**3** (era burutua izenondo gisa)

Erakutsi gerta litekeela ADN **injektatua** onkogene-ezabatzaile batetik hurbil integratzea eta horrenbestez minbizi bat eragitea. Juan Garzia

---

**injektore** *iz* likido edo gas bat presioz gorputz baten barnean sartzeko gailua.

Hala, elektronikoki kontrolatutako nahasketa sartzen dute **injektoreek** zilindroetan; memento bakoitzean behar den erregai/aire proportzioan eta behar den presioan. Berria - Gaiak

Gizakiaren baginaren lana da zakila jasotzea, honek, tutu **injektore** edo mangera baten moduan, umetokitik ahalik eta gertuena utz ditzan espermatozoideak Luis Elberdin

---

**injekzio** **1** *iz* xiringa baten bidez organismo baten barnean sendagai bat sartzea. ik**indizio**.

**Injekzio** batzuk agindu zizkidan, hala ere, hilekoa etorrarazteko. Joseba Urteaga

Galderarik egin gabe jarri zidan **injekzioa** . Joseba Urteaga

Medikua etorri, **injekzioa** ipini eta halaxe pasatu zen. Edorta Jimenez

Ukendu bat ipini eta **injekzio** bat sartu zioten. Juan Kruz Igerabide

Ospitalean baita, hartutako zartadatik baretzeko **injekzio** batzuen eraginpean. Xabier Olarra

Herriko medikuaren **injekzioen** beldur izaten zelako. Joan Mari Irigoien

Lo terapeutikoan murgilduko dute **injekzio** gozo bat emanda. Koldo Izagirre

Sendagileak **injekzio** aringarri bat jarri zion. Joseba Urteaga

Autoan bertan dominikar mediku batek **injekzio** loeragilea sartu zion. Edorta Jimenez

Sara aise engaina nezakeen **injekzio** hilgarri batekin. Joan Mari Irigoien

**Injekzio** letala? Harkaitz Cano

Baziren hilekoa atzeratzeko **injekzio** batzuk ere. Karlos Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

**Injekzio** -kontua besterik ez da... Lopez de Arana

· Gaur egun ziur dakigu gure alabaren heriotza ez zuela suge-pozoiak eragin, berau serum- **injekzioaren** bitartez eraginkorki indargabetua izan baitzen. Joxe Austin Arrieta

Ergotina **injekzio** bat eman zion segituan, baina ezin izan zuen eragotzi Luluk hemorragia handi bat izatea. Josu Zabaleta

**3** (matematikan) egokitasun mota.

Izan bedi [...] B x-ren soingainekoaren botoien multzoa eta B' aipatutako botoi horien kokapen posibleak x' ren arabera, frogatu Btik B'ra doan **injekzioa** ez dela bijekzioa. Xabier Olarra

**4** (motorretan) erregaia zilindroan zuzenean, karburagailurik gabe, sartzeko sistema.

Hamasei balbula dauzka, **injekzioa,** zaldi piloa... Jon Arretxe

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ez didate injekziorik** (3); **injekzio bat** (6); **injekzio batzuk** (3); **injekzioa jarri** (5); **injekziorik jarri** (3)

---

injeniadore ik **injinadore**.

---

injeniari ik **ingeniari**.

---

injenio ik **ingenio**.

---

**injinadore** *(16 agerraldi, 2 liburu eta 9 artikulutan; ETCn 48 agerraldi; orobat **injeniadore** g.er.)* *iz* ingenaria.

Biharamunean, bada, galdeketa egin ondoren, Komrover judua **injinadore** uniformearekiko gazte dotore bat lagun zuela bueltatu zen zeldara. Matías Múgica

Dohain bat, Jainkoak emaiten duena, gogo oneko gizon eta emazteeri, **injeniadore** ala langile xumeeri, xuri ala beltxeri, aberats ala pobreeri. Herria

Bizi guzian arizana da oihanzaingoari loturikko **injinadore** lanetan. Herria

Lehen promozioko 27 ikasleei **inginadore** diplomak eman dizkie. Herria

Eraikuntzako **Injinadore** eskolako buruzagiek gomitaturik. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **injinadore eskola** (5)

---

**injinari** *(15 agerraldi 7 artikulutan; ETCn 45 agerraldi)* *iz ipar* ingeniaria.

ESTIA, Bidarteko **injinari** eskolan 107 ikasle berri sartu dira irail honetan. Herria

François Xavier Gamoy **injinari** gazteak sortu berria du enpresa bat Geomatika deitua. Herria

Enpresa bakoitzak 6700 euro laguntza eskuratuko du **injinari** bat hartzea gatik. Herria

Italiarra tekinikoki piloto hoberena da, aurkarien taldeek, bitartean, euren **injinariak** burubelarri lanean jarri dituzte Rossiren nagusitasunari aurre egiteko. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bidarteko estia injinari** (3); **estia injinari** (7); **injinari eskolak** (3)

---

**injineru** *(36 agerraldi, 14 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 143 agerraldi)* **1** *iz* ingeniaria.

gaztetandik nahi izan dut **injineru** izan, zubiak eta errepideak egitea gustatuko litzaidake niri. Hasier Etxeberria

Orduan ez lehenago jakin zuen Johanes van der Meer **injineruak** bere lana amaitua zela. Felipe Juaristi

**Injineru** tekniko izateko ikasketak egin bitartean. Rafa Egiguren

Emaztea galiziarra zen, maistra, eta, senarra, inguru hartan jaioa, **injineru** agronomoa, Donapaleun lan egiten zuena. Rafa Egiguren

Ez zait gehiegi gustatzen Eiffel-en garaian burdinari ahalik etekin gehien atera nahirik sortutako arkitektura exhibizionista: **injinerua** gainditzen zaio arkitektoari, teknika senari, ikuskizuna arimari. Anjel Lertxundi

Zelaiaren inguruan EHUk **Injineru** Teknikoen eskola, I+G zentroa, Herri Lan eta Meatzaritza eskola, Ikus-entzunezko Teknologia Berriak eta Telekomunikazio eskola eta liburutegia eraikiko ditu. Berria - Kirola

**2** (izenondo gisa)

Nik, besteak beste, lagun **injineruak** dauzkat, eta asuntoa ez zait, berez, komikoa iruditzen. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta injinerua** (3); **injineru aeronautiko** (3)

---

# injinerutza *iz* ingeniaritza.

Zazpi urte iraun zuten **injinerutza** lanek. Felipe Juaristi

Malagatik Donostiara **injinerutza** ikastera etorria. Joan Mari Irigoien

-Zer esan nahi duzu, **injinerutza** utzi, eta botijoak egiten hasi behar duzula? **Injinerutza** aeronautikoko lizentziaturaz gain, entrenamendu militarrak eta diziplina gogorrak urrearen pare jartzen zuen Agentziaren begietan. Joan Mari Irigoien

Zenbait zientzialariren kezka da biologia molekularra eta **injinerutza** genetikoa gizakia laborategian diseinatzeraino iritsi ahal izatea, genetikaren halabeharrari desafio eginez. Berria - Gaiak

---

# injustizia 1 *iz* bidegabekeria.

Merezitako zigorra ezartzean ez dago Harengan **injustiziarik** edo zitalkeriarik. Imanol Unzurrunzaga

Desordena baino, **injustizia** nahiago duen engranaje baten aurka ari ziren borrokan. Harkaitz Cano

Munduko **injustiziak** salatzeko. Ana Urkiza

**Injustiziak** gainditzeko ahaleginak egiten hasiak gara. Berria - Euskal Herria

Bakearen aitzakiarekin ezin liteke **injustizia** onartu. Gotzon Garate

Oharpen hauek, oro har, gizartearen oinarrian dauden **injustiziak** gorrotatzera eroan naute. Koldo Izagirre

**Injustiziari** aurre egin behar diozula gogoratu. Paddy Rekalde

Inork ez du lehenengo **injustizia** ahazten. Julen Gabiria

**Injustiziaren** aldekoak justiziaren aurka jardun ziren, eta esaten zuten errepublikak ezin zuela zutik iraun eta hazi **injustizian** oinarritzen ez bazen. Imanol Unzurrunzaga

Beren bizimoduak berak **injustiziaren** eta pertsekuzioaren biktima bihurtzen zituen gizartean. Askoren artean

Biktimei ematen dien errudun itxura hori, horra porrotaren **injustizia**. Josu Zabaleta

**Injustiziak** eragindako suminetik kontatu nuen kontatu beharrekoa. Joan Mari Irigoien

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Injustizia** hutsa izango litzateke legeaz zigortzea lege hori betetzeko gauza ez dena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Injustizia** osoa iduritzen zitzaigun. Ramuntxo Etxeberri

Pairatzen ari zen **injustizia** bidegabea. Mirentxu Larrañaga

Aurpegia zein erraiak bihurritzen dizkizun **injustizia** zikina. Fernando Rey

**Injustizia** izugarria litzatekeela egintza haren arabera baizik ez juzgatzea. Josu Zabaleta

Gizon argituenek ere baimendu zituzten **injustizia** kaltegarri eta onartu hauek. Juan Martin Elexpuru

Munduko **injustiziarik** handiena balitz bezala. Josu Zabaleta

Munduaren luze-zabalean gosea gero eta handiagoa da, **injustiziak** gero eta latzagoak. Pako Aristi

Ondorio gisa, itsustasuna errotiko **injustizia** dela esan behar. Xabier Mendiguren Elizegi

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **injustizi**)

Andresek zioen **injustizia**-egoera hori ezin aldaturik ez zegoela. Josu Zabaleta

**Injustizi** kateak hautsi eta uztarri-hedeak etetea, zapalduak libratu eta uztarri oro apurtzea. Elizen arteko biblia

Hizkuntzarekiko Kulturaren munduan jarduten zutenak **injustizia** sentimenduaz apaintzen ziren. Itxaro Borda

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizarte-**injustiziaz** zituen ideiak azaltzen zituenean, Julio Aracilek betiko senaz eta zentzuaz eteten zion. Josu Zabaleta

## 5 *injustizia (bat) egin*

Subiranoak ezin du bere grazia eskubidea erabili nolabaiteko **injustizia** bat egin gabe. Joseba Zulaika

Nire gaztetasunean egindako **injustizia** bat ordainarazi nahi diot neure buruari. Pako Aristi

Ez dio inori **injustiziarik** egingo. Imanol Unzurrunzaga

· Ez nuen dudan jartzen anai Jaxintok **injustizia** handia egin zidala. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egindako injustizia** (5); **eta injustizia** (16); **eta injustiziak** (6); **eta injustiziaren** (3); **eta injustiziaren kontrako** (3); **injustizia bat** (17); **injustizia bat da** (3); **injustizia bat dela** (4); **injustizia bikoitza** (3); **injustizia da** (3); **injustizia dela** (5); **injustizia eta** (13); **injustizia handia** (4); **injustiziak eta** (4); **injustiziaren aurka** (3); **injustiziaren kontra** (3); **injustiziaren kontrako** (5); **injustiziari aurre** (7); **injustiziari aurre egiteko** (4); **munduko injustizia** (3); **zen injustizia** (3)

---

# injustu *(orobat **injusto** g.er.)* 1 *izond* bidegabea.

Printze haiek hiltzaileak ziren, **injustuak** eta ankerrak, nazio osoa halakoa zelako. Iñaki Iñurrieta

Gerra **«injustua** eta bidegabea» izan dela esan du. Berria - Mundua

Heriotza-zigorra **injustua** da, eta ez da ez beharrezkoa eta ez eraginkorra. Juan Martin Elexpuru

Lau gipuzkoar hauek jasaten ari diren merezi gabeko tratu **injustua** eta iraingarria. Berria - Euskal Herria

Salaketak guztiz **injustuak** direla. Imanol Unzurrunzaga

Uruñuela auzipetzea «erabat **injustua»** dela. Berria - Euskal Herria

Ez dago gauza **injustuagorik**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bizitza **injusto** hau soilik merezi du bizitzea aldatzeko baldin bada. Berria - Harian

**Injustuak** diren gertaerak salatzeko altxatu beharko luke bere ahotsa. Ana Urkiza

## 2 (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa)

Peter zur eta lur utzi zuena ez zen haginkadaren mina izan, ezpada ekintzaren **injustua**. Julen Gabiria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **injustua da** (16); **injustua dela** (9); **injustua eta** (5); **injustua zen** (4); **oso injustua** (4); **oso injustua da** (3)

---

**injustuki** *adlag* bidegabeki.

Arima kaskar oilo-bustiak oker bezain **injustuki** epaitu ohi ditu handiaren ekintzak. Joxe Azurmendi

Ez dute onartu nahi Iñaki **injustuki** kartzelatu zutela. Berria - Euskal Herria

---

**inka** **1** *izlag* Egungo Perun eta inguruetan bizi zen herri batekoa.

Ollanta Humala militar ohiari **inka** inperioko banderekin eta musika herrikoiarekin egiten diote harrera. Berria - Mundua

**Inka** herriaren gune garrantzitsuak ez dira falta bere obran. Berria - Kultura

Hor agertzen dira oraino **Inka** populuak utzi herrestoak eta berantago, espainol konkistadorren obrak : eliza, gaztelu... kolonial itxuran. Herria

Maia, azteka, zapoteka, olmeka eta **inka** kulturei buruzko dokumentalak. Berria - Euskal Herria

Atahualpa **inka** Jende Zuzenbidearen arabera baizik ezin zen epaitu. Iñaki Iñurrieta

Cuzcon, enperadore **inkaren** gortean. Iñaki Mendiguren

Cajamarca hirian atxilotu zuen Francisco Pizarro konkistatzaileak, Atahualpa buruzagi **inka**. Berria - Gaiak

**2** *iz* inka herriko kidea.

**Inkek** hildakoaren ondoan opariak eta janaria utzi ohi zuten hark hil ondorengo bizian erabili zitzan. Berria - Gaiak

Halaber, **inkek** bideak erabili zituzten beren konkistak sendotzeko. Iñaki Mendiguren

Hastapenetan entretenimendu hauek hildakoen omenezko jaiak izaten ziren; horrelaxe egiten zituzten grekoek, *Nemeseia* izenaren pean, eta baita azteka eta **inkek** ere. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inken garaiko** (3); **inken inperioaren** (3)

---

**inkakor** *izond* itsaskorra.

Gero, testu hautamenaren desadostasunaz gehiago esan gabe, euli gose batek baino txaplata **inkakorrago** bati ekin dio, Adarbakoitzaz aritu ginen arratsalde hartakoa bezalako bakarrizketa luze bati: -Bo! Euli gosea baino bero **inkakorragoa** egiten zuen, baina Norak ez zuen sapa astunaren oharkera handirik. Anjel Lertxundi

---

**inkaminari** *iz* eskujokaria. ik **prestidigitadore**.

Gaur egun munduan diren eskujokari eta **inkaminari** guztiek ezagutzen baitute, eta aldiro-aldiro etortzen baitira ezer berririk baduen begiratzeko. Josu Zabaleta

Kristalak, **inkaminariaren** abiltasun ustekabekoarekin xurgatu eta itzuliko dizu figura. Joseba Sarrionandia

Moises ez zela izan **inkaminari** bat baino Juan Garzia

---

**inkaminatu**, inkamina, inkaminatzen du *ad* bat-batean desagerrarazi.

Nik itzal baten arrankura dut: Etxetoko zikin zabor pisuak, hilabete guziz, **inkaminatzen** zauzkiten, hori zen parte, herriaren garbitasunaren iturri". Herria

---

inkante ik **enkante**.

---

**inkarnatu**, inkarna, inkarnatzen da *ad* hezurmamitu.

Nekez **inkarna** zitezkeela ene ideia haiek Urbiaingo orduko bizimoldean eta jende haien baitan... Joan Mari Irigoien

Herri gogo edo izpiritua, esaten zuen, gutxiengo batean **inkarnatzen** da, horretan mamitzen da nazioaren funtsa. Joxe Azurmendi

Politikan bezala, filosofian ere ikus daitezke bata-bestearekin borrokan bi kontinenteak (kontinente bakoitzak printzipio bat **inkarnatzen** duela). Joxe Azurmendi

Lur honetan ez bada ere, bere mendean **inkarnatua** zen Arbelbide. Xipri Arbelbide

---

**inkarnazio** *(orobat **inkarnazione** g.er.)* **1** *iz*

Indibiduoa, bere moraltasun pribatuarekin, ezereztua ageri da berriro, arrazoimen naturalaren **inkarnazioa** ei den Estatuaren edo mekanika historikoaren barruan. Joxe Azurmendi

**2**

Erromako Jondoni Petrin emana, **Inkarnazionetik** landako 1567 urtean, azaroko kalendetan, gure Aita Sainduagoko bigarren urtean. Piarres Xarriton

Noizean behinka halere agertzen du komentuetako erlisionea ere, **inkarnazionearen** erlisionea dela, lur honetan errotu erlisionea. Xipri Arbelbide

---

**inkas** **1** *ipar* bada ezpada ere.

**Inkas** zerbeit gertatzen balitz. Herria

Izena eman **inkas**, telefonatuz [...] edo mezu birtual baten bidez. Herria

**2** ***inkas eta***

Reno-raz geroz, hoin aipatuak diren Joko etxe edo sos etxe horietan itzuliño bat egin gabe ez zen sori izanen, memento batez kilikatu ditugu makina horiek, **inkas eta** ere!! Herria

**Inkaseta** norbait animatzen bada ere, agian gauzak aldatuko dira. Pello Salaburu

---

**inkatu**, inka, inkatzen du *ad* itsatsi, finkatu.

Ama haurgabetuak, berriz, mendi berdeak oinkatuz, lurrean **inkaturiko** apatx bikoitzaren oinatzak ezagutu nahi ditu, bazter guztiak begiztatuz, ea nonbait ume galdua hautematen duen. Xabier Amuriza

Antzutasuna, izan ere, semen lodiegiak eragiten du eta, bestela, behar baino likido meheagoak: meheak ezin du dagokion tokian **inkatu** eta berehala lerratzen da eta fruturik utzi gabe itzultzen. Xabier Amuriza

Zu, irakurtzean sofan **inkatuta** geratu zinenean, nagusixeagoa zinen. Berria - Kultura

**inkesta** *(orobat* **enkuesta** *g.er.)* **1** *iz* arazo edo gai bati buruz, dagokienen uste edo iritziak bilduz egindako azterketa.

Zoriontasunari buruzko **inkesta** batean. Iñaki Segurola

*Yediot Ahronot* egunkariak plazaratutako **inkesten** arabera. Berria - Mundua

**Inkestak** kaleratutako emaitzak. Berria - Euskal Herria

Israelgo Yediot Ahronot egunkariak atzo ezagutarazitako **inkestaren** arabera, herritarren %65ek sostengatzen dute plana eta %26 kontra daude. Berria - Mundua

Dakiguna ere da, **inkestak** salaturik, % 70-ak ez duela deus aldatu nahi, % 18-ak aldiz bai, % 12-ak ez duela bere iritzia emaiten. Herria

**Inkesta** guztiek argi erakutsi dute irabaziko duela, baina, **inkestak** ez dakigu noraino diren sinesgarriak. Berria - Harian

Azken **inkestek** lehen postuan jartzen zuten Alderdi Sozialista. Berria - Mundua

**Inkestek** hamabi eta hamabost diputatu artean ematen dizkiote Likudi. Berria - Mundua

**Inkestek** besterik adierazten dute. Berria - Euskal Herria

Hala diote **inkestek**. Herria

**Inkestek** diotenez, ezkerrak bozen %39,5 jasoko du eta eskuinak %36,5. Berria - Mundua

Oleg Malishkin eskuineko ultranazionalistak bakoitzak botoen % 10 ere ez dituztela eskuratuko iragartzen dute **inkestek**. Berria - Mundua

**Inkestek** alde txikia erakusten dute bi alderdien artean. Berria - Mundua

Oposizioak agindutako **inkestek** ere Chavez hilaren 15eko erreferendumeko garailetzat jotzen dute. Berria - Mundua

**Inkestan** parte hartu zuten emakumeen %17k onartu zuten nahi gabe haurdun geratu zirela 16 urte bete aurretik. Berria - Gaiak

Konfiantzari buruzko **inkesten** manipulazioa. Iñaki Heras

**Inkesten** emaitzekin. Iñigo Aranbarri

Hauteskundeak aurreratu behar dira, egoera politikoa ikusita ez daukagu beste irtenbiderik; eta gainera **inkestak** gure alde daude. Migel Angel Mintegi

Foto-**inkesta** zen batez ere buruko minik gehien sortzen ziguna. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** (izenondoekin)

**Inkesta** kuantitatiboari **inkesta** kualitatiboa ere gehitu dio. Berria - Harian

Euskal Herriko **Inkesta** Soziolinguistikoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Azpienplegu hori ez da agertzen langabezia-mailari buruzko **inkesta** ofizialetan. Koro Navarro

Boto asmoari buruzko asteroko **inkesta**. Berria - Euskal Herria

Bezperako **inkestek** aurreikusi eta atzo egiaztatu zena. Berria - Mundua

**3** (egin aditzaren objektu gisa)

Kanpaina haren barruan, **inkesta** egin zuten Aralarko Mikel Donea ikastetxeko ikasleen artean. Berria - Euskal Herria

**Inkesta** euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez eginen da, buruz buruko elkarrizketetan. Berria - Kultura

Egin ezazu **inkesta** bat Baionan edo Iruñean, ea zer esaten dizuten. Bernardo Atxaga

Europako hizkuntzez **inkesta** egin zuen enpresa bera. Berria - Euskal Herria

Ez da ulertzen zergatik agindu zuten **inkesta** egitea, herritarren ordezkariek iritzia aurrez emana bazuten. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzak Euskal Herri osoko **inkesta** egiteko asmoarekin jarraitu baitzuen. Berria - Euskal Herria

**Inkesta** egiteko 4.000 pertsona pasa galdekatu dituzte Euskal Herrian. Berria - Harian

Eusko Jaurlaritzak **inkestak** egin zituen mahairik mahai, sistema berriaz boto emaileek zuten iritzia jakiteko. Berria - Euskal Herria

Jada ez dituzte **inkestak** egiten, Gobernuari komeni ez zaiolako. Berria - Mundua

2003ko urrian AEBetako Estatu Departamenduak egindako **inkesta** baten arabera. Txema Ramirez de la Piscina

Euskararen egoeraz egin **inkestaren** emaitzak plazaratzean. Herria

INRA agentziak eginiko **inkesta** baten arabera, flandestarren %84k Belgikaren barruan segitu nahi dute. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

CIS **inkesta** etxearen arabera, joan den martxoaren 11ko atentatuek «eragin zuzena» izan zuten handik hiru egunera egin ziren hauteskundeetan, Espainiako hautesleen %28,5en boto asmoan. Berria - Mundua

Ezkerrekoek eta eskuinekoek, liberalek eta kontserbadoreek, **inkesta** enpresek eta komunikabideek galtzailetzat jo dute Kerry aldez aurretik. Berria - Mundua

**Inkesta** elkarteek uko egin diote boto asmoaz azterketa egiteari. Berria - Mundua

**Inkesta** orriak banatu. Joxerra Garzia

Harridurarekin jakin dugu gertakari horri buruzko **inkesta** batzorde proiektu bat baztertu dutela abenduaren 19-an Bruselan. Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eusko Jaurlaritzak Nafarroako Gobernuarekin elkarlanean egiten zuen Soziolinguistika **Inkestari** zegokion Nafarroako azterketa. Berria - Euskal Herria

Iritzi **inkestek** erakusten dute estatubatuarrek ez dituztela musulmanak lurralde musulmanean borrokatu nahi. Berria - Mundua

Nortasun-**inkesta** moduko bat betearazi zigun. Joxerra Garzia

Gehien kontsumitzen diren izozki moten gaineko kale-**inkesta**-super-interesgarria. Aingeru Epaltza

168 diputatu eman die barne-**inkesta** batek. Berria - Euskal Herria

CIS **inkesta** gobernuzalearen datuak. Berria - Euskal Herria

Soldata-Egitura **Inkestak** agerian utzi du Nafarroako gizonezkoen urteko lansaria emakumezkoena baino 6.537 euro handiagoa dela. Berria - Ekonomia

Barne Mediku Egoiliarrek ospitale zerbitzuetan jasotako prestakuntzaren ebaluaketa-**inkestaren** azterketa estatistikoa. Berria - Euskal Herria

**6** *ipar* auzitegi ikerketa.

**Inkestak** abiatu ziren ohi bezala. Michel Oronoz

Auzitegiak ez zuen bere **inkesta** ongi egin. Xipri Arbelbide

Armand Riberolles eta Christophe Seys, orduan Baionan juje zirenek salatu dute, argi eta garbi, nolako traba ukan dituzten **inkesten** egiteko. Herria

Polizi **inkestaren** arabera, autodun norbaiten laguntza ukan zukeen Lopez de Lacallek. Berria - Euskal Herria

Emeki emeki, Florence Larrieu jujeak segitzen du **inkesta** eta, azkenean, mintzatzen hasten dira gehienak beldurrik gabe. Herria

Lille-tik dator polizia gazte bat eta haren **inkestari** esker sartzen gara hiri hartako ustelkerian. Herria

Bastidako jandarmek **inkesta** egin beharra omen dute. Herria

Beraz, kasketadunak eta kasketagabeak beren **inkesten** egiten ari zirelarik, argazki, marrazki, grabatze, neurketa eta abar, teknika berri guziak baliatuz, [...]. Michel Oronoz

Eleberri beltzaren lege narratiboak segituz, **inkesta** baten giroa izan zitekeen batzuetan. Ramuntxo Etxeberri

Noiztenka, gorputz bat aurkitzen zen Errobi gainean zihoala, baina alferrik ziren **inkestak**. Elena Touyarou

Iparrekopaetako bidea lekuz aldatzea Kristofe Legagnoak galdeginik, **inkesta** bururatua zen eta kontseiluak onhartu du aldaketa hori. Herria

**7** *ipar* ikerketa.

**Inkesten** arabera ez da dudarik Al Qaida dela hobenduna, hilak 200 baino gehiago direla. Herria

3 nobeletan Amaia Ezpeldoi emazte detektibearen **inkestek** Bretainia, Parise eta Herri Urratsera eramanen dituzte irakurleak. Herria

Bere **inkesta** egin zuen hitz horren jatorriaren ezagutzeko. Ramuntxo Etxeberri

Hori guztia oso arrazoizkoa zen: errazagoa da bataio-erregistroetara jotzea Petiri Pauloren seme den jakiteko, hori **inkesta** luze baten bidez frogatzea baino. Iñaki Iñurrieta

Eskerrak behar zaizkie eskaini filma egileei, Arthur Mac Caig eta Sylvie Garat-i, behar den bezala egin baitute **inkesta,** mintzaraziz egiazko lekukoak, parte hartu zuten batzu hala nola Lopez Carrillo edo Perote esplikatzen zutela nola hautatuak ziren hiltzaileak eta nola pagatuak ere. Herria

**8** ***inkesta publiko*** *ipar*

Sarako Herriko Etxeak adiarazten du **inkesta** publiko bat izanen dela hilabete batez Lezeko Harrobiaz. Herria

Negu honetan **inkesta** publikoa iragan eta, primaderan trenkatuko du auzia herriko kontseiluak. Herria

Azken kasu huntan herriak galdeginen du **inkesta** publiko baten egitea eta gero kontseiluak ondotik beharko du trenkatu. Herria

**Inkesta** publikoaren txostena ez da oraino agertua bainan kontrakoek aldarrikatu dute afera hortan jarraitzen badu auzitegi admistratiborat itzuliko direla. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argitaratutako inkesta** (6); **argitaratutako inkesta baten** (5); **artean inkesta** (6); **artean inkesta bat** (3); **artean inkesta egin** (3); **azken inkesta** (6); **baina inkesta** (3); **barne inkesta** (3); **batek inkesta** (3); **batek inkesta bat** (3); **bere inkesta** (3); **beste inkesta** (5); **buruzko inkesta** (14); **da inkesta** (8); **den inkesta** (8); **du inkesta** (15); **du inkesta publiko** (4); **duen inkesta** (9); **dute inkesta** (5); **duten inkesta** (3); **edo inkesta** (3); **egindako inkesta** (26); **egindako inkesta batean** (3); **egindako inkesta batek** (4); **egindako inkesta baten** (18); **eginiko inkesta** (10); **eginiko inkesta baten** (6); **eta inkesta** (11); **euskararen inkesta** (4); **hiru inkesta** (4)

**inkesta bat** (46); **inkesta bat egin** (13); **inkesta bat egingo** (3); **inkesta batean** (11); **inkesta batek** (14); **inkesta baten** (66); **inkesta baten arabera** (54); **inkesta baten berri** (3); **inkesta bati** (4); **inkesta bati jarraiki** (3); **inkesta bera** (3); **inkesta bere** (3); **inkesta beren** (3); **inkesta beren gain** (3); **inkesta bete** (3); **inkesta bururatua** (3); **inkesta egilea** (3); **inkesta egileek** (4); **inkesta egin** (31); **inkesta egin du** (4); **inkesta egin dute** (3); **inkesta egin zuen** (4); **inkesta egin zuten** (4); **inkesta eginen** (3); **inkesta egiteko** (4); **inkesta egiten** (5); **inkesta eta** (4); **inkesta etxeak** (5); **inkesta gehienek** (5); **inkesta guztiek** (11); **inkesta guztien** (3); **inkesta guztien arabera** (3); **inkesta guztietan** (3); **inkesta honen** (3); **inkesta hori** (6); **inkesta horrek** (4); **inkesta horren** (12); **inkesta horren arabera** (4); **inkesta horren emaitzak** (4); **inkesta horretan** (4); **inkesta horri** (3); **inkesta inguru** (3); **inkesta martxoaren** (3); **inkesta publiko** (10); **inkesta publiko bat** (6); **inkesta publikoa** (9); **inkesta soziolinguistikoa** (7); **inkesta soziolinguistikoak** (6); **inkesta soziolinguistikoan** (3); **inkesta soziolinguistikoaren** (5); **inkesta soziologiko** (3); **inkesta soziologiko bat** (3); **inkesta x** (4)

**azken inkestan** (4); **dio inkestak** (4); **du inkestak** (5); **egindako inkestak** (5); **egindako inkestan** (5); **eta inkestak** (6); **hainbat inkestak** (3); **inkestak agerian** (5); **inkestak agerian utzi** (4); **inkestak egin** (4); **inkestak egiten** (3); **inkestak erakusten** (4); **inkestak eta** (5); **inkestak eta beste** (3); **inkestak ez** (5); **inkestak ez du** (3); **iritzi inkesta** (4); **kaleratutako inkesta** (5); **plazaratutako inkesta** (3); **poliziak inkesta** (3); **zen inkesta** (5); **zuen inkesta** (3); **zuten inkesta** (3)

**aktiboaren inkestaren** (4); **aktiboaren inkestaren arabera** (3); **argitara emandako inkestaren** (3); **azken inkestaren** (8); **azken inkestaren arabera** (5); **biztanleria aktiboaren inkestaren** (3); **duen inkestaren** (3); **duen inkestaren arabera** (3); **dute inkestaren** (3); **egindako inkestaren** (13); **egindako inkestaren arabera** (11); **eginiko inkestaren** (4); **eginiko inkestaren arabera** (3); **emandako inkestaren** (4); **emandako inkestaren arabera** (4); **inkestaren arabera** (70); **inkestaren datuak** (3); **inkestaren emaitza** (3); **inkestaren emaitzak** (22); **inkestaren emaitzen** (3); **inkestari erantzun** (4); **izeneko inkestaren** (3); **jaurlaritzaren inkestaren** (3); **zuen inkestaren** (4)

**azken inkestek** (11); **azken inkesten** (35); **azken inkesten arabera** (30); **azken inkestetan** (3); **baina inkestek** (3); **diote inkestek** (13); **diren inkesten** (4); **diren inkesten arabera** (3); **du inkestetan** (3); **dute inkestek** (7); **egin inkestetan** (4); **egin inkestetan argi** (3); **egindako inkestek** (5); **egindako inkesten** (6); **egindako inkesten arabera** (5); **egindako inkestetan** (4); **ematen diote inkestek** (3); **eta azken inkesten** (3); **eta inkestek** (6); **eta inkesten** (5); **eta inkesten arabera** (5); **eta inkestetan** (4); **inkestei jarraiki** (3); **inkestek botoen** (4); **inkestek diote** (9); **inkestek diotenez** (5); **inkestek erakusten** (10); **inkestek erakusten dute** (4); **inkestek erakusten dutenez** (4); **inkestek ere** (5); **inkestek eta** (3); **inkestek iragarri** (3); **inkestek iragartzen** (3); **inkesten arabera** (133); **inkesten arabera erredakzioa** (3); **inkesten emaitzak** (4); **inkesten emaitzek** (3); **inkestetan argi** (3); **inkestetan gora** (5); **zioten inkestek** (3)

---

## inkestagile *iz* inkestak egiten dituen pertsona.

Sexua garrantzitsua den ala ez, kazetariek eta **inkestagileek** maiz egiten duten galderak, ez du zentzurik. Joxerra Garzia

Dabid maisuak klase partikularrak besterik lortzen ez zuela ikusirik, bestelako lanetan hasi zen izena ematen: etxez etxeko saltzaile, **inkestagile,** gauzaintzaile... Patxi Zubizarreta

· Epaileek berek ez dute onartu erranez mintzatuko zirela bakarrik justiziako **inkestagileekin** . Herria

---

## inkestalari *iz* inkestagilea.

Asteak, hilabeteak pasatu zitutzen **inkestalariek,** azkenean turistak iduri baitzuten eta ez baitzuten ahoan besterik, zinez bazter ikusgarriak zirela Euskal Herri honetan eta damugarri zela holako edertasunak eta ontasunak andeatzea balio gabeko ixtorio triste batekin... Michel Oronoz

---

## inkestatu *iz* inkesta baten galdeketari erantzun dion pertsona.

Ekialdean **inkestatuen** %12k dute jarrera hori eta mendebaldekoen %24k. Berria - Mundua

*The Washington Post* egunkariak kaleratutako inkesta baten arabera, **inkestatuen** %27k uste dute ekonomia dela auzi garrantzitsuena, Irak %26k, «terrorismoa» %19k eta osasuna %9k.

---

## inkestatzaile *iz* inkestagilea.

**Inkestatzaile** guztiek, baita oposizioarentzat lan egiten dutenek ere, Chavezi ehuneko hamarretik jaisten ez den abantaila ematen diote. Berria - Mundua

---

## inkiet 1 *izond* urduria, artega.

**Gizon** inkieta, sekula ez satisfos bezala. Herria

**2** (adizlagun gisa)

Ezpeleta zeharkatzen ari ginela, ikastolako arduradun bat hurbildu zitzaidan **inkiet,** hemen erraten den bezala. Itxaro Borda

---

## inkietagarri *izond* kezkagarria.

Begirakune **inkietagarria** . Jon Alonso

---

## inkietante *izond* kezkagarria.

Beldurra sentsasio **inkietantea** da. Berria - Kultura

---

## inkietatu, inkieta, inkietatzen da *ad* kezkatu, artegatu.

Mutil xifritua begira zegokidala ikustean hargatik, **inkietatu** nintzen. Itxaro Borda

Ez **inkieta** ! Menane Oxandabaratz

---

## inkisidore *(orobat* ***inkisitore*** *g.er.)* 1 *izond/iz* larderiaz galdekatzen duena.

Edo hik ere heure anaiaren **inkisidorea** izan behar ote duk? Joan Mari Irigoien

Haren idazkariak [...] edonolako heterodoxien **inkisidore** guztiz zorrotzaren ospea zuen. Juan Garzia

Ugazaba **inkisidorearen** begirada zorrotzetik aske. Jon Arretxe

Gabriel Celayaren edo Unamunoren memoria erasotu zein liburu-dendak erretzen dituztenak atzoko eta gaurko **inkisidoreen** zerrendetan sartzen direla beren kabuz. Anjel Lertxundi

Zerk sortzen du absurdo hori? -galdetu zuen Jonathanek, ikus-entzuleei finko begiratuz, **inkisidore**-begiradaz. Jon Muñoz

· *izond* Milaka dira, eta Bradburyrena bezalako salaketetarako abiapuntu ezin hobeak, gizakion espiritu **inkisidoreak** eragin dituen suntsiketak, erreketak, txikizioak, hilketa eta salaketak, kartzela-aldiak, desterruak, pertsekuzioak, torturak... Anjel Lertxundi

Haren begi **inkisidoreak** berehala hasi ziren dantzan, dena miatuz. Iban Zaldua

**2** Inkisizioko auzitegiko epailea.

Ofizio Sainduko **inkisidoreak**. Joan Mari Irigoien

Ulertu nahi du, halaber, zein zeruk onartzen duen Lancre **inkisidorea** euskal lurraldeetan egiten ari den sarraskia... Anjel Lertxundi

F. Tom. Lorenzo Matteucci-k, Ankonatar Markako **Inkisitore** orokor, Gaizkeria Heretikoaren kontra bereziki Ordezkari izendatuak, [...]. Juan Garzia

Apezpikuek, **inkisidoreek** eta bertze elizgizonek. Joan Mari Irigoien

1252an Inozentzio IV.ak akusatuak torturatzeko baimena eman zien **inkisidoreei**. Berria - Gaiak

Edonor epaitzeko eta zigortzeko ahalmena zuten **inkisidoreek**. Berria - Gaiak

**Inkisidore** Jaunek, Ikerle diren ber, ez dutela neholako eskubiderik nehongo apezpiku xumeenaren ala gaiztoenaren gain. Piarres Xarriton

Pertsonaien artean, bada bat garrantzi berezia hartzen duena: **Inkisidore** Nagusia. Berria - Kultura

Jaun Santiago de Tapioles y Villarrínen osabetarik bat **inkisidorea** izan baitzen. Joan Mari Irigoien

Elurra bezala hurbildu ziren **inkisidorearen** guardiak, paisajearen zurian hots handirik atera gabe. Joan Mari Irigoien

· -Zer nahi duk, jaun **inkisidorea** honat ekartzea, eta hi sutan erretzea, orain dela urte batzuk Lapurdiko sorgin haiek bezala? Joan Mari Irigoien

Zeren jaun Santiago de Tapioles y Villarrínek zinez izan behar baitzuen bere osaba **inkisidorearen** eskolakoa. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inkisidorea izan** (3); **jaun inkisidorea** (3); **jaun inkisidoreak** (6); **jaun inkisidorearen laguna** (3)

---

# **inkisitibo** *izond* zehatz arakatzen edo ikertzen duena.

Justizia penalaren izaera publikoa, auzi akusatzailea eta ez **inkisitiboa**. Juan Martin Elexpuru

---

# **inkisitorial** 1 *izond* inkisidoreari edo Inkisizioari dagokiona.

Artzapezpikuak izendaturiko Batzorde **inkisitorialaren** epaiarekin ados ez zegoelarik, Meister Eckhartek zuzenean eta pertsonalki Avignongo aitasantuarengana jo zuen. Joan Mari Lekuona

Prozesu **inkisitorial** bat irekitzen dio "fedearentzako doktrina arriskutsuak zabaltzeagatik herriari egindako alemanezko sermoietan". Joan Mari Lekuona

**2** inkisidore gisa aritzen dena.

Ikuspegi hori alderdikoia eta **inkisitoriala** izaten da, mugak eta hierarkiak ezartzera oso emana. inork ezin zuen haren presentzia mehatxagarria, **inkisitoriala,** harroputza eta lotsagabea jasan. Bernardo Atxaga

Garaiak eta zirkunstantziek hala eskatuta, eskuin **inkisitorialak** garatu du estreina *Volksgeist* espainolaren definizioa. Joxe Azurmendi

Buruzagien autonomia falta kezkagarria dago politikan, ortodoxia **inkisitoriala** sortzen duen iritzi egoera baten aurrean. Berria - Euskal Herria

---

# **Inkisizio** *(orobat **inkisizio** g.er.)* *iz* antzinako eliz auzitegia fedearen kontrako hutsak zigortzeko sortua. ik**ofizio 8.**

Nork sinetsiko luke garai batean izan zela **Inkisizioa** baino auzitegi izugarriago bat, eta auzitegi hau Karlomagno berberak ezarri zuela? Juan Martin Elexpuru

Espetxetik, gutun bat bidali zion Erromako Ofizio Santuari -**Inkisizio** beldurgarriari, alegia- aita salatuz. Jon Muñoz

Gorteko jendeak kementsu hauspotzen ditu kontuok, eta elizgizon ahaltsuenen eta **Inkisizioko** arduradun nagusien belarrietara helarazten dira. Anjel Lertxundi

1600, Giordano Bruno-ren heriotzaren urtea, filosofo "heretiko" hori izan baitzen **Inkisizioak** kiskalitako azkena. Askoren artean

**Inkisizioak** hamaseigarren mendean komisarioa zeukan Bermeon. Markos Zapiain

**Inkisizioak** 1774ko ekainaren 20an debekatu egin zuen liburua irakurtzea, baina liburuari baimena ematen jarraitu zuen Gaztelako Kontseiluak. Juan Martin Elexpuru

*Sanbenito:* **inkisizioak** zigor gisa inposatzen zuen ikurra, jantzita eramateko. Patxi Ezkiaga

Bisigodoen kodeari zor dizkiogu egungo **inkisizioaren** arau, printzipio eta ikuspegi guztiak. Iñaki Iñurrieta

**Inkisizioaren** epaiketa ekarri nuen gogora, eta hartatik abiatuta nire benetako egoeraren berri izaten saiatu nintzen. Koro Navarro

Eginahalak oro egin zituen Espainiako **Inkisizioaren** auzitegitik auziaren kentzeko eta Erromara eramateko, bere epaile naturalaren, hau da, Aita Sainduaren beraren aitzinera. Piarres Xarriton

Itxaropena zen, oinaze estiran gailentzen den itxaropen hori, **Inkisizioaren** leotzetan ere heriotzara kondenatuei belarrira mintzatzen zaiena. Koro Navarro

**Inkisizioaren** odol-egarriak luzeak ditu atzaparrak eta zorrotzak hortzak. Anjel Lertxundi

**Inkisizioa** Europan ezarri zuenaren eguna da. Koldo Izagirre

**2** (hitz elkartuetan)

Aulki elektrikoaren inspirazio iturri nagusia **inkisizio** garaiko galdeketa aulkian dago ziur aski. Harkaitz Cano

**Inkisizio** garaian gure alderdiotan epaitutako sorginik gehienak, bazuten zer ikustekorik zilibitu, firulin edo danbolinarekin. Patziku Perurena

**3** ikerketa; galdekatzea.

Denbora nolabait pasatzearren egiten zidan itaunketa, ni bere dotrinan leziatzearren eta bere buruari haize ematearren, inolako **inkisizio**-asmo benazkorik gabe: bera soldadu bat zen, ez borrero-morroi bat. Juan Garzia

Auzi penala erruztatuaren aitorpena lortzera bideratzea, **inkisizio**-prozedurak erabiliz. Juan Martin Elexpuru

Prebentzio orokorraz, edo **inkisizio**-auziarekin amaitu beharraz. Juan Martin Elexpuru

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inkisizio garaian** (3); **inkisizio garaiko** (3); **inkisizioaren aurrean** (3); **inkisizioari buruzko** (3)

---

# **inklinatu**, inklina, inklinatzen **1** da *ad* makurtu.

Habe bakar bat zutik jarrita erabiltzeak, beraz, abantaila hori du, alegia, aurretik nola jarri nahi den pentsatuz, albo batera **inklinatu** eta karga nahi den tokian utz daitekeela, ezkerrean edo eskuinean. Santiago Iruretagoiena

Makina hori sei eratara mugitzen zen: aurrera, ezkerrera eta eskuinera; bultzatuz gero, gora ere berdin altxatzen zen; eta **inklinatuz** gero, behera jaisten zen. Santiago Iruretagoiena

Gure ikuspen-ardatzari buruz **inklinatuta** . Josu Zabaleta

Hodiak jarriko dira zanga aldera **inklinatuta** . Santiago Iruretagoiena

**2** (era burutua izenondo gisa) ik **makur 2.**

Bi isuriko estalkia jarri zioten estalpeari, eta gailur **inklinatu** hori lohiarekin igurtziz, euri-ura kanpora botatzen saiatu ziren. Santiago Iruretagoiena

Galileok berak aukeratutako pisua zuten bolak plano **inklinatutik** eraitsi zituenean (...), argi bat piztu zitzaien natur zientzialari guztiei. Askoren artean

---

# inklinazio *(orobat **inklinazio**)* *iz* makurdura.

Argiak erretinan jotzen duen lekuak, eta argiak iristean duen **inklinazioak** eragiten. Josu Zabaleta

Pitagorasen triangelu angeluzuzenak duen proportzioaren araberako **inklinazioa** emango zaio. Santiago Iruretagoiena

Nire herriko lege zaharrak agintzen duen berrogeita bost graduko **inklinazio** prestu eta eskuzabal horrekin. Harkaitz Cano

Zodiakoaren **inklinazioaren** eta eguzkiaren ibilbidearen araberakoa. Santiago Iruretagoiena

---

# inklinometro *iz* ibilgailu edo paretan baten horizontalarekiko makurdura neurtzeko gailua.

Proposamen horien harira, Ingurumen Ministerioak beste hainbat sismografo eta **inklinometro** jarriko ditu urtegian, lurrikarak eta ezker hegala aztertzeko. Berria - Euskal Herria

---

# inklusibo *izond*

Eskola integratzailea eta eskola **inklusiboa** gauza bera da? Berria - Euskal Herria

Eskola **inklusiboaren** oinarriak sendotu nahi dituzte ikastolek, eta ikasle atzerritarren eskolaratzea marko horretan kokatu. Berria - Euskal Herria

---

# inklusio 1 *iz* barnean hartzea.

**Inklusioa** esaten dugunean da haiek gurean integratu behar badira, guk zer egin dezakegun, eskolak zer urrats egin behar dituen, nola ireki behar dituen ateak pertsona horiek eta kolektibo horiek egin behar duten ibilbidea errazteko. Berria - Euskal Herria

Hala ere, **inklusioak** ez die soilik etorkinei eragiten, gizartean beste ezberdintasun batzuk baitira. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

**Inklusio** estrategia bat da, eta horretan elkarrekiko erantzukizunaren printzipioa bere erabateko esanguraz ageri da. espazio eta geografia kokapenen eremu bat izango da, koordenada, distantzia, auzo-harremanak eta **inklusio** -harremanak eta guzti. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**3** masa baten barnean nabaritzen den gorputz arrotza.

Izan ere, Cullinanek bazuen erdigunean kristala lausotzen zuen **inklusio** bat, harribitxiaren edertasuna "zikintzen" zuen barneko akats bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# inkognita *iz* ezezaguna.

Hala ere, horrek ez zituen **inkognita** guztiak argitzen. Alberto Ladron Arana

Hor zegoen koska, korapilo itsua, **inkognita** edo ezezagun erraldoi eta beldurgarri bat zuen ekuazioa planteatzea zen. Jon Alonso

Hala ere, horrek ez zituen **inkognita** guztiak argitzen. Alberto Ladron Arana

Alderdien legeak markatu du kanpainako **inkognitarik** handiena. Berria - Harian

Zergatik X Films? **inkognita** zelako, ez genekielako zer izanen zen. Berria - Kultura

Nor zen, bada, Juan Perez Lazarragakoa? hori da **inkognita** handienetako bat. Berria - Kultura

---

# inkognito *adlag* nortasuna ezkutatuz.

Donostiara 1853an **inkognito** etorri zen bidaiari ingeles hark. Askoren artean

---

# inkoherente *izond* loturarik gabekoa.

Tresneria-enpresa bateko departamentua izateko femeninoegia iruditu zaizu beti diseinua, **inkoherentea** . Eider Rodriguez

Funtsean, esan daiteke bakoitzak badituela bere oinarri etikoak, eta oinarri horiek zenbaitetan koherenteak izan daitezke, eta beste batzuetan **inkoherenteak,** eta batzuetan norbaitek muzin egingo dio bere etikari, bekatu egingo du alegia. Berria - Kultura

Ohar interesgarriak, zalantza barik, baina zerikusi gabekoak, are **inkoherenteak** . Joxe Azurmendi

Ergelak! naturak atsegin hartzeko aholkatzen digu beti, inoiz ez digu bestelako zaletasunik, bestelako haizerik ematen; nola izango da hain **inkoherentea** ? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

# inkoherentzia 1 *iz* loturarik eza.

Kontraesan horiek denboran irauten dutenean, eta salbuespena zena zure bizitzaren oinarrizko arau bihurtzen denean, orduan sortzen da **inkoherentzia** . Pako Aristi

Jainkoaren kontzeptuarekin bat ez datozen **inkoherentziak** saihesteko. Askoren artean

Onartzen zituen nire mania eta **inkoherentziak,** jasaten zituen nire beheraldi ilunak. Oskar Arana

**Inkoherentziak,** kontraesanak, esan gabe gelditzen direnak. Berria - Kultura

Ez duzu **inkoherentzian** erori nahi. Rafa Egiguren

Guareschik **inkoherentzia** politikoa predikatzen duela esan daiteke. Koldo Biguri

Edonola, **inkoherentzia** etikoa baino larriagoa iruditzen zait **inkoherentzia** politikoa. Berria - Gaiak

Jende asko ezagutu dut **inkoherentziaren** zubiak erabiliz bere bizitza goitik beheraino aldatu duena aurpegiko irribarrerik galdu gabe. Pako Aristi

**2** loturarik gabeko gauza.

Nahiago Biblia neronek irakurri eta egoki iruditzen zaidana pentsatu irakurri dudanaz, zuzenean nahi dut jabetu berri onez, eta ez entzun apaizei gripeak jotako ahotsaz **inkoherentziak** botatzen. Karlos Zabala

## **inkomodatu**, inkomoda, ikomodatzen da/du *ad* deseroso sentitu edo sentiarazi.

Hirian jendea alferrik mugitzen zen, ez zegoen erne, edozergatik **inkomodatzen** zen. Pablo Sastre

Barkatu, kontatzen ari naizenak **inkomodatzen** bahau -gehitu zuen ahots apalez, tonu ia goxoz. Xabier Olarra

Nik ere hala uste dut! jauna, esan behar dizudana... -gelditu egin da, eta gorritu-: baina, **inkomodatzen** zaitut, beharbada? Monika Etxebarria

---

## **inkomodo** *izond* deserosoa.

Horregatik hartzen dute Turkian idazle **"inkomodotzat"**. Fernando Rey

Askotan izaten dut susmoa, balioak goraki aipatuz, azpitik morala sartu nahi izaten zaigula mozorropean, eta oso **inkomodo** sentitzen naiz. Joxe Azurmendi

---

## **inkomunikatu**, inkomunika, inkomunikatzen **1** du *ad* bakarkako ziegan komunikaziorik gabe jarri.

Azken 25 urteotan 10.000 euskal herritar atxilotu eta **inkomunikatu** dituzte. Berria - Euskal Herria

Guardia zibilek atxilotu, **inkomunikatu** eta torturatzen gaituzte. Berria - Euskal Herria

Torturatzeko **inkomunikatzen** dituztela diote TATek eta AAMk. Berria - Euskal Herria

Ertzaintzak ez du «sistematikoki» atxilotua **inkomunikatzen**. Berria - Euskal Herria

Legeri antiterroristaren babesean atxilotuak **inkomunikatzen** dira, Hori da zuri ezartzen dizuten zigorraren helburua: zu bakartzea, **inkomunikatzea,** bakarrik sentitzea eta damutzearen mugara eramatea. Berria - Euskal Herria

Hiru egun **inkomunikaturik** egon ondoren. Iban Zaldua

Emakumeak bi egun pasa ditu poliziaren eskuetan, **inkomunikaturik,** arropa artean legamia eramateagatik. Berria - Euskal Herria

Eta, kasik zazpi **egunez** inkomunikaturik eta egoera kaxkarrean atxiki dute, gizatasun izpirik gabe. Herria

1997an, elurte makur mardul batek lanak ematen ditu sei egunean penintsulako ordokian: 22 pertsona hil, eta 1000tik gora auzo eta herri **inkomunikatuta**. Pello Zabala

Atzo arratsaldera arte **inkomunikatuta** atxiki zuten, «Israelen segurtasunaren aurkako egitateak» leporatzen zizkiotelarik. Berria - Mundua

**2** bakartu, komunikaziorik gabe gertatu.

Eguraldi makurrak Kantabriako Liebana eskualdeko hamazazpi **herri** inkomunikaturik utzi zituen. Berria - Harian

Haitiko Gobernuak atzo adierazi zuenez, 662 gorpu bildu dituzte, baina ohartarazi zuten kopurua nabarmen haz daitekeela, larrialdi zerbitzuak **inkomunikatuta** dauden herrietara iristen diren heinean. Berria - Mundua

[Eraikinaren] teilatuan elur ugari zegoen eta haren pisuak eragin zuen hondamendia: «Ehunka pertsona **inkomunikatuta** gelditu dira barruan». Berria - Mundua

**3** (era burutua izenondo gisa)

Aniztasuna ona da, zalantzarik gabe, baina lubaki **inkomunikatuek** sortutako eta produzitutako lanek ez garamatzate inora, ez bada, gure irakurlegoaren eta eroslegoaren nahasmenera. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atxilotu eta inkomunikatu** (5); **biak inkomunikaturik** (3); **bost egunez inkomunikaturik** (6); **egunez inkomunikaturik** (8); **egunez inkomunikaturik egon** (3); **egunez inkomunikaturik izan** (3); **eta inkomunikaturik** (4); **inkomunikatu eta** (6); **inkomunikaturik dago** (3); **inkomunikaturik dauden** (5); **inkomunikaturik deklaratu** (4); **inkomunikaturik eduki** (7); **inkomunikaturik eduki zuten** (3); **inkomunikaturik egon** (17); **inkomunikaturik egon da** (3); **inkomunikaturik egon zen** (4); **inkomunikaturik izan** (8); **inkomunikaturik izan zen** (3); **inkomunikaturik jarraitzen** (3)

**arte inkomunikatuta** (5); **atxilotu eta inkomunikatuta** (3); **atxilotuak inkomunikatuta** (3); **bost egun inkomunikatuta** (3); **egun inkomunikatuta** (8); **egun inkomunikatuta egin** (3); **egun inkomunikatuta egon** (4); **egunez inkomunikatuta** (8); **egunez inkomunikatuta eduki** (6); **ere inkomunikatuta** (3); **ertzaintzak inkomunikatuta** (3); **esku inkomunikatuta** (9); **esku inkomunikatuta egon** (8); **eta inkomunikatuta** (14); **gazteak inkomunikatuta** (3); **guztiak inkomunikatuta** (3); **hiru egunez inkomunikatuta** (3); **inkomunikatuta dago** (4); **inkomunikatuta daude** (6); **inkomunikatuta deklaratu** (3); **inkomunikatuta eduki** (13); **inkomunikatuta eduki ondoren** (3); **inkomunikatuta eduki zuten** (5); **inkomunikatuta egin** (6); **inkomunikatuta egon** (29); **inkomunikatuta egon diren** (3); **inkomunikatuta egon eta** (3); **inkomunikatuta egon ostean** (4); **inkomunikatuta egon zen** (6); **inkomunikatuta eraman** (3); **inkomunikatuta izan** (11); **inkomunikatuta izan zuten** (4); **inkomunikatuta jarraitzen** (4); **inkomunikatuta zegoela** (4); **zibilaren esku inkomunikatuta** (6)

**ez inkomunikatzeko** (4)

---

## **inkomunikatze** *iz* bakarkako ziegan komunikaziorik gabe jartzea.

Askatasun, adierazpen eta defentsa eskubideak urratu dituztela, atxilotze, **inkomunikatze** eta kartzelatze neurrien erabilera gehiegizkoa egin dutela. Berria - Harian

---

## **inkomunikazio** **1** *iz* atitxilotu bat inkomunikaturik egotea.

Ertzaintzak **inkomunikazioa** ezarri ez dezan neurriak hartzeko. **Inkomunikazioa** Ertzaintzaren komisarietatik desagerrarazteko. Berria - Euskal Herria

**Inkomunikazioak** tortura ahalbidetzen duenez, **inkomunikazioa** arautzen duen legeria indarrik gabe uzteko eskatu zuen Van Bovenek.

**Inkomunikazioa** desagertzea, polizi-etxeetan kamerak jartzea. Berria - Harian

12 eguneko **inkomunikazioa** onartzen duen legeria bat. Berria - Harian

**Inkomunikazioa** amaitzeko eskatu dio Eusko Legebiltzarrak Madrili. Berria - Euskal Herria

Bestalde, Haritz Totorikari atzo kendu zioten **inkomunikazioa**. Berria - Euskal Herria

**Inkomunikazioa** erabaki judiziala da. Berria - Euskal Herria

Erdiek **inkomunikaziopeko** egunetan torturatu egin zituztela salatu zuten.

**2** komunikaziorik eza.

Telebistarik ez, **inkomunikazioa** dakar eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Hilabete gutxi egin zuen Ertzaintzak atxilo eraman zuenerako, bost eguneko **inkomunikazio** aldian torturak nozitu ondoren, Alcalan sartu zuten atzera. Jokin Urain

Hiperkomunikazioak **inkomunikazioa** dakarrela, hori ez al da topiko zahar ustela? Berria - Gaiak

Erabatekoa duk haien eta nire arteko **inkomunikazioa**. Juan Luis Zabala

Baina bi kultura horiek gero eta gehiago urrutiratzen badira elkarrengandik [...] bien arteko amildegia sakondu egingo da, bi kodeen arteko **inkomunikazio** erabatekoa eragiteraino. Anjel Lertxundi

Gutasuna pixkaka galtzen ari gara, mahaian ez ezik, hizkuntzan eta kontzientzian orobat, nitasunaren mesedetan, **inkomunikazio** eta indibidualismoaren eraginez. Edorta Agirre

Gehienez ere, **inkomunikazioaren** azpiko zirrikitutik sartzen zen argi izpi ahula baino ez bide zen beretzat komunikazioa une haietan. Imanol Zurutuza

**3** (hitz elkartuetan)

**Inkomunikazio** egoera euren kabuz ezartzen dute horiek. Hasier Etxeberria

Bost bilbotarrei, gainera, **inkomunikazio** egoera ezarri diete. Berria - Euskal Herria

**Inkomunikazio** epea amaitu arte zain egon eta tortura testigantzak entzutean kezkatzea nahikoa ez dela-eta. Berria - Euskal Herria

Mardonesek **inkomunikazio** hasieran -lehengo larunbatean atxilotu zituztenean- kolpeak eta presioak jasan zituela salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Snowek aipatzen zituen bi kulturetako bakoitzean daude **inkomunikazio** arazoak, kultura-klase bakoitzean ere **inkomunikazio** esparruak gero eta sakonagoak baitira.

Anjel Lertxundi

**Inkomunikazio** eredu xelebre honen ostean. Paddy Rekalde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atxilotuen inkomunikazio** (4); **bost eguneko inkomunikazio** (3); **den inkomunikazio** (3); **eguneko inkomunikazio** (3); **ere inkomunikazio** (3); **eta inkomunikazio** (11); **eta inkomunikazio aldian** (3); **inkomunikazio aldia** (6); **inkomunikazio aldia amaitu** (3); **inkomunikazio aldian** (14); **inkomunikazio aldian pairatutako** (3); **inkomunikazio alditik** (3); **inkomunikazio alditik atera** (3); **inkomunikazio egoera** (21); **inkomunikazio egoera salatu** (3); **inkomunikazio egoeran** (17); **inkomunikazio epea** (5); **inkomunikazio epea agortuta** (3); **inkomunikazio garaian** (7)

---

# inkomunikazioaldi *(orobat **inkomunikazio aldi**)* *iz* komunikaziorik gabeko aldia.

**Inkomunikazioaldian** torturak salatu zituen Altzugurenek. Berria - Euskal Herria

**Inkomunikazio**-aldiak iraun zuen bitartean pasatako izua eta larria ez dira errazak adierazten paperaren gainean. Xabier Mendiguren Elizegi

**Inkomunikazioaldian** galdera bat bera ere ez ziotela egin esan zuen. Berria - Euskal Herria

Hilabete gutxi egin zuen Ertzaintzak atxilo eraman zuenerako, bost eguneko **inkomunikazio** aldian torturak nozitu ondoren, Alcalan sartu zuten atzera. Jokin Urain

---

# inkonexo *izond* loturagabea.

Eta horrelako hainbat esaldi **inkonexo** esan zituen Luvinok, bata bestearen atzetik. Unai Elorriaga

---

# inkonformismo *iz* konformismorik eza.

**Inkonformismoaren** lasaikeriaren kutsua dute. Antton Olano

Gazteriaren **inkonformismoaz**. Koldo Izagirre

Errebeldia, **inkonformismoa** eta irudi estereotipatuen ukazioa. Ana Urkiza

*Bizitza nola badoa* zure lehendabiziko liburuan, jadanik, zure obran konstante bilakatuko den **inkonformismo** kutsua, etsipena eta iluntasuna nabari dira... Ana Urkiza

---

# inkonformista 1 *izond* inkonformismoarena, inkonformismoari dagokiona.

Makro-prozesu politiko, orokor eta ezkerreko gizarte mugimendu **inkonformisten,** zein euskara eta euskal kulturaren alde lan egiten duten taldeen aurka ad hoc eginak. Europako ingurune intelektualean entzun daitezkeen ahots ziztatzaileen eta **inkonformistenetako** bat.

Etsi duen jendeak hiritik betirako alde egin aurretik egiten duen azken keinu **inkonformista** besterik ez da, agian. Harkaitz Cano

**2** *iz* inkonformismoz jokatzen duen pertsona.

Zuen artean egon daitezkeen **inkonformista** guztiak babestuko eta euren lan eskubidea defendatuko dituzuelakoan nago. Berria - Kultura

---

# inkonfundible *izond* ezin nahasizkoa.

Edonoizko fasetakoak direla, **inkonfundibleak** ez ezik balio absolutuko poemak ditugu bereak. Berria - Harian

---

# inkongruente *izond* kongruentziarik gabea.

Alderantziz, berretsi egin zuen Jahve eta Kristoren elkartze **inkongruentea**. Iñaki Mendiguren

Erakundezko estalki handia [...] **inkongruentea** da eliza baten izaera espiritualarekin. Iñaki Mendiguren

Bi kasuetan ondorioa zera izan zen, gizarteari maila ekonomikoan egitura berri bat eman ziotela, maila politikoan zuten egiturarekin **inkongruentea** zena Iñaki Mendiguren

---

# inkongruentzia *iz* kongruentziarik eza.

«Gizonaren egiaren antropologiarekiko **inkongruentzia** garbia» direla dio. Berria - Gaiak

**Inkongruentzia** izan zen. Berria - Mundua

---

# inkoniatu *izond*

**Inkoniatua** (désolé) den irakurlea. Herria

---

# inkonparable *izond* ezin konparatuzkoa.

Pixka bat obsesionatuta zeudela denak marko **inkonparablearen** kontu harekin, horrexegatik agertzen zitzaiela nonahi. Iñaki Iñurrieta

---

# inkonpatible *izond* ezin bateratuzkoa, bateraezina.

Ezinegona sumatzen dugu horretaz jabetzen garenean, batez ere berdintsu erakartzen gaituzten bi aukerak **inkonpatibleak** direnean. Agurtzane Juanena

---

# inkonpetente *izond* ezgaia, gaitasunik gabea.

Eta inondik ere, **inkonpetente** hutsa da ohol biko zerraldo hau enkargatu duen ergela! Harkaitz Cano

Bere lana behar bezala bete ez duen langile **inkonpetenteari** esleitzea istripuaren ardura, eta ez sistemaren (giza osagaiak barne) konplexutasun konstitutiboari. Berria - Gaiak

---

# inkonpetentzia *iz* gaitasunik eza.

Arafati «agintekeria eta etsaiei aurre egiteko **inkonpetentzia»** leporatuta. Berria - Mundua

Beste askotan bezala, ideologia eta kontzeptu errepublikanoen inguruan sistema judizial britainiarrak duen **inkonpetentzia** eta ezjakintasuna erakutsi du. Berria - Mundua

Irribarrea eta lasaitasuna sortzen baitu besteen **inkonpetentziak**. Harkaitz Cano

---

**inkonpleto** *izond* osatugbea.

Nobela **inkonpletoa** zen Vredaman, beraz; idatzi den onenetakoa, hala ere. Unai Elorriaga

---

**inkonprentsio** *iz* ulertu ezina.

**Inkonprentsioaren** bakardade latzean murgilduak, ez dute familiarik, ez hiririk, ez deus ere; inork ez ditu nahi, maite. Jose Angel Irigaray

---

**inkonsistente** *izond* funsgabea.

Locke sonatuak adigai hauek esperientziatik eratorri zituen kontsiderazio honen gabeziagatik, eta berak adigai hutsak esperientzian aurkitu zituelako, eta hain era **inkonsistentean** jokatu zuen, non beraiekin esperientziaren mugaz erabat goiti doazen ezagutzak lortzeko saialdia egitera ausartu baitzen. Ibon Uribarri

---

**inkonstante** *izond* jarraikitasunik gabea.

Gure oroimena gara, forma **inkonstanteen** museo kimerikoa gara; apurtutako ispilu pila hori gara. Berria - Gaiak

---

**inkonstituzional** *iz* ez-konstituzionala.

Espainiako Gobernuak emakumearen aurkako indarkeriaz aurkeztutako lege-proiektua **inkonstituzionala** dela. Berria - Euskal Herria

Beraz, ezin esan baztertzailea denik, ezta **inkonstituzionala** ere. Berria - Euskal Herria

Ibarretxe plana erabat **inkonstituzionala** da, haren oinarrizko printzipioa hausten duelako. Berria - Harian

Diktadurako sei agintari militarrei ezarri zien indultua **inkonstituzionaltzat** jo zuen atzo Rodolfo Canicoba epaileak Berria - Mundua

---

**inkonstituzionaltasun** *(corpusean **inkostituzionaltasun** bakarrik)* *iz* konstituzionala ez denaren nolakotasuna.

Bardeako tiro eremua kentzea, A-15 autopistaren doakotasuna, eta Nafarroako lege batzuen aurkako **inkostituzionaltasun** helegiteak kentzea eskatuko du, besteak beste. Berria - Euskal Herria

---

inkonsziente ik **inkontziente**.

---

inkonszienteki ik **inkontzienteki**.

---

**inkontinente** *izond* neurribiderik gabea.

Jaiotzak kontrolatzen zituen ingeniari agnostikoak nekazari **inkontinente** eta superstiziosoagandik honek ingeniariagandik adina zeukan ikasteko Iñaki Mendiguren

---

**inkontinentzia** **1** *iz* gernu jarioa kontrolatzeko ezintasuna.

Adin handian, esate baterako, maskuriko irteera zaintzen duten muskuluek kontrola galtzen dute, eta **inkontinentzia** sortzen da, eritasun gogaikarri bat, uste baino arruntagoa. Irene Aldasoro

Maskuriko minbizia, **inkontinentzia** eta beste gaitz batzuk tratatzeko. Berria - Gaiak

Albo ondorioak: Orain arte inoiz ez du gernu **inkontinentziarik** eta inpotentziarik eragin. Berria - Gaiak

**2** neurribiderik eza.

Imajinatu ezazu eszena: astapotro ero amorratu bat, burmuina kokainaz edo anfetaminaz gainezka, eta, erreka amazoniko baten **inkontinentziaz,** *non sequiturs* eta *non sequiturs* bota eta bota sekula deus ulertu ez duten entzuleen gainera. Karlos Zabala

---

**inkontratu,** inkontra, inkontratzen da/du *ad* topo egin, aurkitu,.

Ubarnerat joan eta nekazari batekin **inkontratu** nintzela. Joan Mari Irigoien

Alferrikakoak izan ziren, handik aitzina, gure entseiuak eta itzul-inguruak, haren edireiteko eta **inkontratzeko**. Joan Mari Irigoien

---

**inkontrolatu** *izond* kontrolik gabekoa.

Aldaketa **inkontrolatuak**. Pello Zabala

Neskak atzazalak haginka desitxuratzeko zaletasun **inkontrolatua** izaten zuen eta inoiz ez zuen belarritakorik erabiltzen. Unai Elorriaga

**2** agintarien kontroletik at indarkeria erabiltzen duen pertsona.

Beisbol bateak eskuetan **inkontrolatuen** erasoetatik gazteari etxeraino lagundu zioten ahots bipilak ditu akorduan. Iñigo Aranbarri

**Inkontrolatuek** ez gaituzte kikilduko. Berria - Euskal Herria

**Inkontrolatu** talde batek Ander harrapatu eta bortizki jipoitu zuen. Iban Zaldua

---

**inkontru** **1** *iz* topo egitea.

**Inkontru** bakarra izan zuten bizkaitarren aurrelariekin. Aingeru Epaltza

Buruz buruko **inkontruetan,** batez ere, baionetazko kargetan garbiki, gutarrak urrundik hoberenak izan zirelako. Txillardegi

Ustekabeko **inkontrua**. Joan Mari Irigoien

Gartsutasuna itzaltzen hasi zitzaion, sentimenduak hozten, eta Abas Al-Helurekiko **inkontru** haien aurreko egoerara itzultzen sentitu zen, hunkiduraz eta itxaropenez gabetua. Patxi Zubizarreta

Darasa kaleko **inkontruaren** biharamunean. Patxi Zubizarreta

**2** ***inkontru egin*** topo egin.

Orduan erregek hurran etsitua zebilela, egin zuen **inkontru** baratzezain pobre baten emaztearekin, eta haren gernuaz edo ur-isuriaz begiak igurtzi zituen bezain fite, argitu zen. Patziku Perurena

Bortuko gerlariekin **inkontru** egin genuen lekutik hurbil. Aingeru Epaltza

-Heriotzarekin hiru aldiz egin dugu **inkontru,** eta ez nuke aitzina egin nahi... Joan Mari Irigoien

---

**inkontsekuente** *izond* esaten denaren eta egiten denaren artean egokitasunik atxikitzen ez duena.

Hirugarren munduko politika **inkontsekuentea** egin da eta gutaz inor fida ez dadin lortzen ari zara. Berria - Harian

---

**inkontsekuentzia** *iz* esaten denaren eta egiten denaren arteko egokitasunik eza.

Osterantzean kontraesan nabaria edo **inkontsekuentzia** egongo da. Xabier Arregi

Aldi berean, kritikatzen gaituzten batzuk esaten ari dira, eta ez **inkontsekuentziarik** gabe, gure irudi batzuek ez dutela izadiaren antzik batere. Josu Zabaleta

Jolasak, ingenioak, ironiak, subjetibitatea askatzen dute eta **inkontsekuentziara** bultzatzen. Karlos Linazasoro

---

**inkontziente** *(orobat **inkonsziente**)* **1** *izond* oharkabea, kontzietziarik gabea.

Zer bereizgarri **inkontziente** transmititu zizkidaten gurasoek berak ohartu gabe? Joxan Elosegi

Bi motatako arrazakeria dagoela garbi genuen, borondatezkoa eta nahi gabekoa edo **inkontzientea**. Berria - Euskal Herria

Prozesu **inkontzienteen** antolamenduari dagokiona (sintoma neurotikoak, ametsak). Josu Zabaleta

Erreflexu **inkontzienteak** eragindako hutsen hausnarrean. Anjel Lertxundi

Eragin kontzienteez gain, irakurketek, irudiek eta hotsek idazlearen ganbaran pilatu dituzten arrasto **inkontziente** bezain errotuak ditu sorkuntza-lan batek iturri nagusi. Anjel Lertxundi

Diskurtso primario, **inkontziente** baten sintoma-aztarrenak. Josu Zabaleta

Egutegian eskala-handiko erregulartasun egiturazkoak atzemateko, arau **inkontzienteak** eta algoritmoak ateratzeko. Xabier Olarra

Peter Panen lagunak izan arren, modu **inkontzientean** beharbada, etsaiak ere badira. bainuontziko laurehun tapoi lapurtu berri zituen gazte **inkontziente** bat zegoen. Julen Gabiria

**2** *iz* psikismoaren zatia, erabat kontzientziatik at gelditzen dena.

Ikusten ez den errealitatea biluzi zuen, arima, **inkontzientea,** desio eta beldur ezkutuen habia. Berria - Harian

Haurren **inkonszientea** era berezi samarrean osatzen da. Agurtzane Juanena

Objektu horiek gure **inkontzienteak** bakarrik ulertzen duen informazio bat eskaintzen dute. Pako Aristi

**Inkontzienteak** egindako aukera izango da akaso. Berria - Kultura

Hitz egitea, batez ere geure **inkontzienteari** gauzak esatea da. Pako Aristi

Literaturak **inkontzientean** ditugun irudiak kontzientera ateratzeko balio du, baina kontzientzia hori hartzerakoan badirudi irudiak lehortu, errausti egiten direla... Ana Urkiza

**Inkontzientearen** "hizkuntzan" eta haren lekualdaketa eta kondentsazio-prozesuetan oinarritzen den adierazpen subjektibo, neurotikoaren eremua. Josu Zabaleta

**Inkontzientearen** eta irudiaren arteko lotura estua. Josu Zabaleta

Hargatik, beharbada, beldurraren ibai hark **inkontzientearen** lurrak zeharkatzen zizkiolako. Joan Mari Irigoien

Munduaren Arimara (Jungek **"inkontziente** kolektiboa" deitu zuen hartara) heltzeko bide bakarra. Xabier Aranburu

**3** (hitz elkartuetan)

Adimena eta talentua oro har ulertzeko bidea irekitzeaz gain, orobat ireki zezakeela gaur egun kognizio-**inkontzientea** esaten zaion eremu zabalerakoa. Xabier Olarra

---

**inkontzienteki** *(orobat **inkonszienteki** g.er.)* *adlag* oharkabeki, era inkontzientean.

Diskriminazioa jarrera kolektiboa da, aspaldikoa, ohar gabe, anitzetan **inkontzienteki,** gizonezkoek eta emakumezkoek egiten dutena. Ana Urkiza

**Inkontzienteki** eta ilunki bazen ere, amodioaren indar sortzaile eta eraikitzailea sentitu zituen. Patxi Zubizarreta

Pertsona batek, denik eta zintzoena izanik ere, **inkontzienteki** jokatu arren, ez ote du deabruaren amarrukeriekin bat egiten? Patxi Zubizarreta

Eta egun baten, **inkonszienteki,** Germinal berba etorri zitzaidan ezpainetara. Koldo Izagirre

Eta eginkizun horrek denboralditxo bat entretenitu ninduen, halakoetarako neguko zamarra baten patrikan **inkontzienteki** ezkutaturiko pakete ia hasi gabea aurkitu nuen arte. Ramon Saizarbitoria

Ez ote dugun geuk **inkontzienteki** hil, gure mamuen gose aseezinaren eta oldarkortasunaren bitartez. Joxan Elosegi

---

**inkontzientzia** **1** *iz* oharkabetasuna.

Umekeriaz bustitako **inkontzientzia** batek hartu ditu gure garunak, gizartean larriki hedatzen ari den infantilismoarekin bat eginik. Pako Aristi

Funtsean, **inkontzientzia** eta ignorantzia suerte bat baitezpadakoa direla osasuntsu bizitzeko. Jose Angel Irigaray

**2** kontzientziarik eza.

Hitz egitea kontzientziaren eta **inkontzientziaren** arteko zubi bat eraikitzea besterik ez da. Pako Aristi

Zerbitzariek argiak itzaltzen dituzte eta [Fasquelle jauna] **inkontzientziara** lerratzen da: gizon hau bakarrik dagoenean loak hartzen du. Monika Etxebarria

Sentipen negatiboak dira, denboraren etengabeko igarotzeak **inkontzientzia** egoera batera bultzatu dituenak. Unai Iturriaga

---

**inkorporatu**, inkorpora, inkorporatzen da *ad* erantsi, gehitu.

Baina Jon Juaristik egindako salaketak **inkorporatu** egin ditugu geure diskurtsoan. Berria - Kultura

---

**inkorrekzio** *iz* gisagabekeria.

Editore batek nola onar zitzakeen halako **inkorrekzioak** galdetu zidan kritikari batek. Berria - Kultura

---

## inkriminatorio *izond* inkriminatzailea.

Auzitegi Gorenaren ustez, CESIDek pisua erosi izana «ezin da hartu zantzu **inkriminatoriotzat»** eta ezin da ondorioztatu jarduera deliktiboak burutzeko erosi zenik. Berria - Euskal Herria

---

## inkriminatu, inkrimina, inkriminatzen du *ad* egotzi.

Bere latinezko eta alemanezko obren 49 pasarte **inkriminatu** ziren heresia-susmopean. Joan Mari Lekuona

Eckartek berak emandako argibideak bere liburuan **inkriminaturiko** artikuluen defentsan. Joan Mari Lekuona

---

## inkriminatzaile *iz* inkriminatzen duena.

Ikuspegi **inkriminatzailea:** «Guardia Zibilaren esku dago garrantzitsuak zein agiri diren erabakitzea, epailearen esku zein agiri jarri erabakitzea, baina selekzioa ikuspegi **inkriminatzailetik** egiten du, inputatuaren kaltean, eta epaileari ez dizkio ematen izaera errugabetzailea duten agiriak. Berria - Euskal Herria

---

## inkriminazio *iz* inkriminatzea.

Eta akusazioa osatzeko, **«inkriminazio** ideologikora» jo du epaileak. Berria - Euskal Herria

Horiek guztiak Auzmendiren **inkriminaziorako** argudioak dira, auzipetze autoan, Elosuak diputatuei azaldu zienez. Berria - Euskal Herria

---

## inkrustatu, inkrusta, inkrustatzen du *ad* atal batean beste gai bateko zatiak txertatu.

Printzeari gustatzen zitzaion, bada, bere arrotzei tabakontzi horiek, urre pisuzkoak, marfilez eta esmeralda txikiz **inkrustatuak,** erregalatzea eta beti edukitzen zituen halako ontzi asko eginak. Matías Múgica

---

## inkrustazio *iz* inkrustatzea; inkrustatu den gauza.

Horma-ordulari handi bat, kaiola **inkrustazioz** beteta zuena, Inperi estiloko antzinako altzariak, zenbait ispilu apaingarridun eta Valentziako hiriaren XVII. mende hasierako plano bat. Urrea, askotan, eta batzuetan harribitxizko **inkrustazioak**. Josu Zabaleta

Igogailuzainaren aurpegia ebanozkoa zen, bolizko **inkrustazioez** hornitua. Lopez de Arana

---

## inkrustaziodun *izond* inkrustazioak dituena.

Arrosondo-zurezko **inkrustaziodun** eta belus gorriz forratutako kutxatila hura. Ander Irizar

---

## inkubadore *iz* inkubagailua.

Kontatu zuen, irakiar soldaduek bera borondatezko beharrean zegoen ospitalean sartu, eta armak eskuetan, hirurehun ume atera zituztela **inkubadoretatik,** hantxe, zoru gainean hiltzen uzteko. Iñigo Aranbarri

---

## inkubagailu 1 *iz* haur jaioberri goiztiarrak edo ahulak artatzeko tresna.

Ospitale batean sartu dira eta ama berrien atalean zeuden **inkubagailu** guztiak lapurtu dituzte, eta bertan zeuden haurrak lurrean utzi. Txema Ramirez de la Piscina

Erditze goiztiarretarako **inkubagailuak**. Joxe Austin Arrieta

**2** *irud* ik **inkubatzaile.**

Judatik Nabukodonosorrek deserritutakoen babiloniar gatibualdian, sortzen ari zen erlijio nagusi batentzat **inkubagailua** izan zen hiriburua, eta han ikuspegi estuaren ordez ikuspegi ekumenikoa hartuz bere arima aurkitu zuen. Iñaki Mendiguren

---

## inkubatu, inkuba, inkubatzen 1 du *ad (medikuntzan)* organismoak gaitz infekzioso bat garatu.

Infekzio eritasunen kasuan, adibidez, lehen Afrikara joaten zinenean han garatzen zenuen gaixotasuna, han **inkubatzen** zenuelako birusa. Berria - Gaiak

Hori da birusak **inkubatzeko** behar duen denbora. Berria - Gaiak

Txakur ahulak arkakuso asko, lehendik **inkubatua** izango zuela, ezkutuan, eta gorputza tratamenduarekin ahulduta zuelako agertua zitzaiola orain. Imanol Zurutuza

**2** *irud*

Agian aspaldi desagertutako mundu bateko izakia zen, eta bere espezieak, ilargiaren azpiko mendi ahaztu eta hotzen artean gordeta, habia nazkagarriren batean azken oinordeko gaizto hura **inkubatzeko** bizirik iraun zuen. Agustin Otsoa

---

## inkubatzaile *iz* inkubatzen duena. ik **inkubagailu 2.**

Eta honela, erlijio nagusi baten **inkubatzaile** gertatu ziren barbaroen legean sartzean, sumertar legeak, erromatar legeak bezala, marka handiagoa utzi zuen historian, bere motakoen artean ohikoa zen aintzagabeko irteera patutzat zuten barbaroengan eragiten aritu izan balitz baino. Iñaki Mendiguren

---

## inkubazio 1 *iz* inkubatzea.

Baziloak denbora luzea behar izaten du ugaltzeko eta, normalean, bost urte inguruko **inkubazio** epea izan ohi du. **Inkubazio** isileko gaitz bat besterik ez, oharkabean gugan garatzen doana. Bernardo Atxaga

**2** *irud*

Zergatik zitzaien hain mingarria bereiztu beharra, hain denbora gutxi izanik elkar ezagutu zutela? ez ziren ahaleginduko horri erantzuten, baina, bistan zen, **inkubazio** -aldi laburra behar zuten zenbaitetan loturarik estuenek. Imanol Zurutuza

## **inkubo** *iz* gizon itxura hartuz emakume batekin sexu harremanak dituen deabrua. ik**sukubo**.

Satanek berak batzuetan **inkubo**-arena egiten duela eta, oro har beren senarrei emandako hitzari fidel egon nahi duten emazteei deserosotasun eta aztoramen handia sortzen dizkiela. Xabier Olarra

Anitz baitziren historiak eta anekdotak jakinarazten zutenak ezen **inkuboek** haurdun uzten zituztela neskatoak eta emaztekiak. Joan Mari Irigoien

**Inkubo** eta sukubo guztien zerrenda osoa nahi duenak **-inkubo** eta sukubo emeak barne- jo beza Protassusen *Liber Demonorum*-era (Paris, 1328). Xabier Olarra

---

## **inkulpatu**, inkulpa, inkulpatzen **1** du *ad* norbait delitu batez akusatu.

Amaiak ez bazuen istiluetan parte hartu, eta garbi zegoen ez zuela parte hartu, orduan nola, zer irizpide eta zer froga erabili zuen erretorego taldeak Amaia **inkulpatzeko**? Joxerra Garzia

Arabako EB-IUko hiru biltzarkideek eta Gasteizko bi zinegotziek euren buruak **inkulpatu** zituzten atzo Arabako Probintzia Auzitegiko Fiskaltzan. Berria - Euskal Herria

Berantago 126 lagunek beren burua **inkulpatu** zuten, ekintza harekin zerikusia zutela aitortuz. Berria - Euskal Herria

SNCFak errepresio bortitzarekin ihardetsi du lau urte eterdi huntan Demoen ekintzeri: 131 presuna arrastatuak, 97 **inkulpatuak**, 11 auzi, 14 zauritu, 60.000 euro isun, 50 eguneko presondegi zigorra... Herria

Andoni Beroiz eta Xabier Arriluzea ere **inkulpatuta** zeuden, baina Auzitegiak aske utzi ditu, frogarik ez dagoela argudiatuta. Berria - Euskal Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eta gainerako **inkulpatuak** ere berdin izendatu ote zituen? Joxerra Garzia

---

## **inkulpazio** *iz* inkulpatzea.

Salatu zuenez, inkomunikazioa Salaberriaren **inkulpazioa** bilatzeko erabili da, eta «helburu politiko» garbia dauka. Berria - Euskal Herria

**Inkulpaziorik** eza: «Auzitegi Nazionalak bidalitako agirien artean, **inkulpaziorik** ezin ondorioztatzeko moduan aipatzen du Berasategi jauna Guardia Zibilak instruitutako txostenak». Berria - Euskal Herria

Martinez Lizarduikoa kezkatuta aurkitu zuela osasun egoeragatik eta epaileak egozten dizkion **inkulpazio** larriengatik. Berria - Euskal Herria

---

## **inkulto** *izond* ezikasia, ezjakina.

Aspaldikoa da euskararen (hizkuntza ezdeus barbaroa) eta euskaldunaren erdeinua: menditar tontoa dela, arlotea, ezjakina, **inkultoa,** Tubal eta ideologia barregarrien sinestuna, etab., etab. Joxe Azurmendi

---

## **inkultura** *iz* ezjakintzauna, kulturarik eza.

Deabrua ez da europarren edo amerikanoen inperialismoa, **inkultura** eta basakeria baizik. Joxe Azurmendi

Gure baiespenetan bezainbat ezespenetan, edo gure ezbaietan soil, gure egungo kulturan (hots, **inkulturan,** Finkielkrauten ebazpenean) Herder begieran dago beti. Joxe Azurmendi

Euskal idazlea ikuspuntu frailuno horren heredero eta depositario huts bihurtu da, batere ñabar pinttarik gabe, euskal **inkultura** letratuaren komentuko zoldan bakteria bat bezala birsortua. Patziku Perurena

---

## **inkunable** **1** *iz* 1500 urtea baino lehen inprimatua izan dena.

Liburuzaleen giroan, **inkunable** esaten zieten halakoei: "sehaskako" obrak, 1500 urtea baino lehen inprimatuak. **Inkunable** batzuk ere badauzkagu, baina horiek ez zaizkio edonori uzten. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** *irud*

Musikaren **inkunableak** mende gutxi barru. Pako Aristi

---

## **inkurtsio** *iz* sarraldia.

Haur literaturan obra gogoangarriak idatzi ditu, diskografian ere hainbat kanta ezagun, antzerkigintzan **inkurtsio** berritzaileak, irratirako gidoiak eta zer ez. Berria - Kultura

Margolaneko puntu jakin-jakin batean, konposaketaren gune nagusian, pausatzen duzu zuk begirada, eta, handik abiaturik, **inkurtsioak** egiten hasten zara, eta aurkikuntza bat egin orduko, berriro ere gunera itzultzen zara, erlea lorerik gozoenera itzuli ohi den bezala. Anjel Lertxundi

**Inkurtsio** eta eraso batzuen ondoren, alderdi biak negoziaketarako esertzen dira. Joxe Azurmendi

---

## inmakulatu ik **immakulatu**.

---

## **innatismo** *iz* gizakiak ideia innatoak dituela dioen dotrina.

Ikuspegi honek baditu ordezkariak XIX. mendetik bertatik hasita: **innatismoa** […] ikustea ikasi egiten dela oinarritzat hartzen duten teoria guztien kontra definitzen da, izenak berak argi dioen bezala. Josu Zabaleta

**Innatismoa** ukatuz hasten da: "adimena paper zuri bat da, inolako ideiarik ez duena". Askoren artean

Descartesen **innatismo** hori MMei eginiko objekzioetan beretan arbuiatu dute jada Gassendi-k eta Hobbes-ek, ezagutzaren teoria atomista-sentsualistaren tradizioan kokatuta. Askoren artean

---

## **innatista** *izond* innatismoari dagokiona, innatismoan oinarritzen dena.

Puntu honetan, bada, kontrako jarrerak daude teoria **innatista** baten, Gestalt-en, eta ikasketaren teoria baten, konstruktibismoaren, aldetik. Josu Zabaleta

---

## **innato** *izond* berezkoa, jaiotzetikoa.

Plazan milrraiazko praka, gerriko baltz, arkondara zuri, ohiko txapel eta bere zigarro ia **innatoa** ezpan ertzean behera eginean ebala agertuko zan. Xabier Amuriza

Bere jokamoldea berak antolatu, egokitu, doitu beharra daukan animalia dugu gizon-emakumea, hori berez doitzen dion instintorik edo mekanismo **innatorik** ez baitu bestela. Joxe Azurmendi

## **innoble** *izond* zitala.

Izan ere, **innoble** samarra izango litzateke kasualitatea probokatzea eta bainugelako atea braustakoan irekitzea, barruan dutxa-soinua entzutean edo dutxa gazte baten azken tantak entzutean tank-tank. Unai Elorriaga

---

## **inofentsibo** *izond* ez-kaltegarria, kaltegabea.

Baina ulertu behar da Ortega, bere arrazaren erabileran, ez dabilela filosofoaren zerugain teoriko soil **inofentsibo** batean filosofatzen. Joxe Azurmendi

---

## **inoiz** 1 *adlag (ik beheko konbinatorian* inoiz *adizlagunaren agerraldi maizkoenak)*

### 2 ***inoizko*** *izlag (ik beheko konbinatorian* inoizko *izenlagunaren agerraldi maizkoenak)*

### 3 ***inoiz edo behin***

**Inoiz edo behin** Hurtado etxera joan zitzaion ikusi bat egitera. Josu Zabaleta

**-Inoiz edo behin,** baina oso gutxitan. Sonia Gonzalez

**Inoiz edo behin** gau beranduan bakarrik ikusten omen zuten gautxorien biltegi diren nolabaiteko edaritegietan. Joxean Agirre

Kexu edo plazer aiuma txikiren batzuk egin eta lo jarraitzen zuen, nahiz eta **inoiz edo behin,** berariaz horretara jarri nintzelarik, lo egonik ere atsegin hartzen zuela zirudien. Joxean Agirre

Azken hilabeteotan burutik pasatu zait, **inoiz edo behin,** neronek deitzea. Xabier Mendiguren Elizegi

Peter Van Daan inoiz ez zen nire eskolako kideak bezain gogaikarria gai hauetarako; hasieran, **inoiz edo behin** bai, baina niri hitz eginarazteko inoiz ez. Josu Zabaleta

Banekien Adelak ez zituela inondik ere onetsiko nire asmoak, baina **inoiz edo behin** zerbait pizten zaio bati barruan, eta, ideiek kontrako bidea adierazten badiote ere, berak ezin du barneko su hori itzali, eta ideiak azkenean grinaren mende erortzen dira. Juan Kruz Igerabide

Izan diren heroirik handienek aitortu dutenez, borrokan hasi baino lehen, makalaldia sentitu dute **inoiz edo behin**. Julen Gabiria

Maitemintzea denoi gertatzen zaiguk inoiz edo behin. Unai Iturriaga

---

## **inoizka** 1 *adlag* inoiz edo behin.

**Inoizka,** borrokaldiak handik kanpo izaten zuen segida, leku bakartuagoetan. Iñaki Iñurrieta

Belusezko galtza-nasai belaunetarainokoz jantzirik etortzen zen eskolara, artile zakarrezko galtzerdiz, eta, **inoizka,** Renato Fucini1 gogorarazten zidan brusa batez. Juan Garzia

Hogeita hamar kiloko pardela eramaten zuen **inoizka,** baina normalean gabe joaten zen. Juan Garzia

Begi urdin argiak zituen, **inoizka** distiratsuak, alkoholak behin ere lainotu gabeak. Matías Múgica

Gerra-urtea gezur-urtea dela esan ohi zen, baina badaki gerrak egia gorria erakusten ere, egia bel-betza ez ezik, eta baita **inoizka** egia bera zer den ere. Iñaki Segurola

Bertsolariak pozez barre eragingo digu tarteka pailazoen antzera; zirrara ere bai **inoizka,** lehoiak gobernatzen dituen bezatzailearen moduan. Andoni Egaña

Barka iezadazu, **inoizka** lumari tanta garratzen bat badario, barka iezadazu... Eduardo Matauko

Joskerari dagokionez, nabarmena gertatuko zaio **inoizka** hegoaldeko irakurleari aditzaren sintaxi-jokoa. Juan Garzia

### 2 ***inoizkako*** *izlag* inoiz edo behingo.

**Inoizkako** mugimendu estereotipatuak, burukadak; hizkuntza hasi-masikoa. Xabier Olarra

Lekukotasunek horniturikο material-bilduma baldarrean, oso **inoizkakoak** dira pasarte berezi eta imitaezinak. Juan Garzia

**Inoizkako** zehar-aipu dramatikoki mozturen bat edo beste. Juan Garzia

---

## **inoizkari** *iz adkor* inoizka argitaratzen den aldizkaria.

Hain zuten bereganatua pertsonaia literario bihurtzeko borondatea, non beren lanak **inoizkarian** -halaxe deitzen zioten aldika, oso aldika, atera eta EUTGn banatu ohi zuten orri-sorta multikopiatuari- argitaratzean erabiltzen zituzten ezizenak izen bihurtuak baitzituzten, eta halaxe deitzen baitzioten elkarri, eta elkarri ez ezik baita bakoitzak bere buruari ere. Iñaki Iñurrieta

Poetika moduko baten bila dabiltza azken batean, eta literaturari buruzko **inoizkari** edo manifestu bat idatzi nahi dute, Pott bandakoen eta Ustelakoen bidetik. Berria - Kultura

-Zera bururatu zaidak, ea grabatu honek balio digun **inoizkariaren** azalerako. Iñaki Iñurrieta

---

## **inoizkotasun** *iz* inoizko izateko nolakotasuna.

Lekukotasunek horniturikο material-bilduma baldarrean, oso **inoizkakoak** dira pasarte berezi eta imitaezinak. Juan Garzia

---

## **inoiztxo** *adlag adkor* inoiz.

Ez dut **inoiztxo** ere emakumerik zakurra jotzen ikusi. Gotzon Garate

---

## **inokulatu**, inokula, inokulatzen **1** du *ad* organismoan agente patogeno baten birusa edo bakteria artifizialki barneratu.

Hienari gaixotasun bat **inokulatzea**. Karlos Linazasoro

Formola injektatzea bihotzean biki judu nahiz ijitoei, begi heterokromatikoak ateratzeko; edo tifoidea **inokulatzea** haurrei, biki unibitelinoen eta bibitelinoen erreakzioak erkatzeko. Juan Garzia

Isurkari pestizidak **inokulatu** edo lainoztatzeko gailuek. Iñaki Mendiguren

### 2 *irud*

Orain nahigabe berri bat **inokulatzen** zitzaielarik. Iñaki Mendiguren

---

## **inokulazio** *iz* inokulatzea.

Giza eriarengandik **inokulazioz** animaliei transmititzerik ba ote dagoen ez dakigu, esperimentuz frogatu gabe dagoen kontua baita. Xabier Olarra

---

**inokuo** *izond* ez-kaltegarria, kaltegabea.

Eta faltsifikazio batzuk txikiak ziren, **inokuoak**. Unai Elorriaga

---

**inola** 1 *adlag (ik beheko konbinatorian* inola *adizlagunaren agerraldi maizkoenak)*
2 ***inolako*** *izlag (ik beheko konbinatorian* inolako *izenlagunaren agerraldi maizkoenak)*
3 ***inolaz*** *adlag (ik beheko konbinatorian* inolaz *adizlagunaren agerraldi maizkoenak)*

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina inolaz** (21); **baina inolaz ere** (20); **bainuen inolaz** (3); **bainuen inolaz ere** (3); **baita inolaz** (4); **baita inolaz ere** (4); **baitan inolaz** (5); **baitan inolaz ere** (5); **baitzuen inolaz** (4); **baitzuen inolaz ere** (4); **bere baitan inolaz** (4); **da inolaz** (76); **da inolaz ere** (75); **dago inolaz** (9); **dago inolaz ere** (9); **daiteke inolaz** (4); **daiteke inolaz ere** (4); **dela inolaz** (12); **dela inolaz ere** (12); **dio inolaz** (3); **dio inolaz ere** (3); **dira inolaz** (9); **dira inolaz ere** (9); **ditu inolaz** (5); **ditu inolaz ere** (5); **du inolaz** (30); **du inolaz ere** (29); **duela inolaz** (8); **duela inolaz ere** (8); **dugu inolaz** (23); **dugu inolaz ere** (20); **dut inolaz** (8); **dut inolaz ere** (8); **dute inolaz** (12); **dute inolaz ere** (12); **dutela inolaz** (7); **dutela inolaz ere** (7); **eraikitakorik ezer inolaz** (4); **eta inolaz** (21); **eta inolaz ere** (20); **ez baita inolaz** (3); **ez da inolaz** (49); **ez dago inolaz** (7); **ez dela inolaz** (10); **ez dira inolaz** (4); **ez du inolaz** (24); **ez duela inolaz** (8); **ez dugu inolaz** (14); **ez dut inolaz** (4); **ez dute inolaz** (10); **ez dutela inolaz** (7)

---

**inon** 1 *adlag (ikus beheko konbinatorian* inon *adizlagunaren agerraldi maizkoenak).*
2 ***inondik*** *adlag (ikus beheko konbinatorian* inondik *adizlagunaren agerraldi maizkoenak).*
3 ***inondik ere*** (baiezko testuinguruetan) izan ere, dudarik gabe.

**Inondik ere**, auzoei galdetzea dugu onena. Jose Morales

**Inondik ere**, konortea galdu nuen, ezen gogoan dut egongelako sofan etzanik esnatu nintzela hurrena, eta ama nuela alboan eserita, lokiak igurtzika, eta berdin sorbaldak eta bularra, begi larriz niri begira-begira. Juan Kruz Igerabide

Idoiaren amak Parisen ezagutua zuen Paco, eta adiskide minak ziren **inondik ere**, ezen, hura Euskal Herrira etortzen zenean, behin baino gehiagotan hartu zuten etxean. Juan Kruz Igerabide

Kuarteletan zeuden, **inondik ere**, bat-batean abian jartzeko prest. Karlos Zabala

Egun batzuen buruan auzoko bat ezagutu nuen, 30-40 urte inguruko gizaseme bat, inoiz ikusi dudan gizasemerik bitxiena **inondik ere**. Josu Zabaleta

Lisak arrazoi zuen, **inondik ere**. Karlos Zabala

Adela emakume bulartsua eta bizia zen, ohi ez bezalakoa, lanerako ahalmen izugarria zuen, eta sexurako ere bai, **inondik ere**. Juan Kruz Igerabide

4 (ezezko testuinguruetan) inola ere.

Ez zara **inondik ere** ohartzen zure begiradaren indarraz, emakumeei oparo eskaintzen diezun samurtasunak oharkabean goxoago eta beroago bihurtzen duena. Eduardo Matauko

- **Inondik ere** ez -berretsi zuen Ruche jaunak-. Jon Muñoz

**Inondik ere** ez zen unerik egokiena, bistan zen. Patxi Zubizarreta

Odol jario bat suertatuz gero -eta ez zen **inondik ere** salbuespena-, Jainkoaren borondatea zela esaten zuen. Patxi Zubizarreta

Irudi horien ikusmenezko itxura gauza kontingentea zela guztiz, irudi horietan jokatzen zena ez zela **inondik ere** atzemangai denaren errepika izatea. Josu Zabaleta

Ez zuen ezetzik aditu nahi, ezta **inondik ere**. Juan Kruz Igerabide

5 ***inongo*** *izlag (ikus beheko konbinatorian* inongo *izenlagunaren agerraldi maizkoenak).*

---

**inondar** *(orobat* ***inontar****)* *izond* inongoa dena, tokiren batekoa dena.

Kristau ziren itxuraz eta hebrear muin eta zinez; federik gabeko kristau ziren eta jakiterik gabeko judu; kristauentzat judu ziren eta juduentzat kristau; atzerritarrak ziren atzerrian; Portugalen portugesez eta Gaztelan gazteleraz hitz egiten zuten arren, **inondar** ere ez ziren, hebrear ere ez. Zatoz **inontar** honi laguntzera. Felipe Juaristi

---

**inondiko** *izlag* inolako.

Ber denboran ohartu zen ere ez zuela haren ikusteko **inondiko** gogorik! Ramuntxo Etxeberri

Ez zeukan sendabiderik; funtsean ezin zuen **inondiko** erremediotan federik izan ere. Joxe Azurmendi

---

**inongotartasun** *iz* inongotarra denaren nolakotasuna.

Gustatzen zaio **inongotartasun** hau. Alberto Barandiaren

---

inontar ik **inondar**.

---

**inoperantzia** *iz* eraginkortasun eza.

Nahiago dut funtzionatzen duen pentsamendu bakarraren aldeko izan, pentsamendu utopikoaren **inoperantzian** militatu baino. Iñaki Heras

---

**inopia** *iz* txoritan egotea.

Ez zuen asko iraun, hala ere, Matiasen **inopia** -une horrek, eta berehala bueltatu zen lanera. Unai Elorriaga

---

**inor** *izord (ikus beheko konbinatorian* inon *izenordainaren agerraldi maizkoenak).*

---

**inora** 1 *adlag (ikus beheko konbinatorian* inora *adizlagunaren agerraldi maizkoenak).*
2 ***inorako*** *izlag*

Eta horrela, jiraketa etengabean, inolako helbururik gabe, **inorako** asmorik gabe, jiratze hutsagatik jiratuz. Bernardo Atxaga

Bat nentorrela esan nion, ez zuela noski hartan errurik, eta gero galde egin nion ea gure lurraldean **inorako** asmotan ote zegoen. Juan Garzia

Arrotz eta guzi egiten baitzait emakumea, zakotea bizkarrean duela **inorako** abieran. Patziku Perurena

Ez dugu adorerik hari esateko ez dela gehiago Ipar Alderako trenik izango, ez dela gehiago **inorako** trenik izango. Eskarne Mujika

Frantzisko santuak, **inorako** ihesbiderik gabe eta deabruaren itxura guztiz krudela jasan ezinik, bat-batean itzuli zen, eskuak, aurpegia eta gorputz osoa harkaitzaren kontra jarriz. Askoren artean

Gero, jende artean galdu da, poliki ibiliz, **inorako** presarik ez balu bezala. Patxi Iturritegi

• *adlag*

Etxerako nagok beste **inorako** baino... Anjel Lertxundi

Esan izan diot, behin baino gehiagotan, etortzeko Iruñera, baina bera ez omen dago **inorako**, nahiago omen du geratzen zaion denbora apurra etxe-jiran eman, arrotzen artean hil baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina Baionan egotea ere, oro har, inor gurutzatu gabe, eta **inorako** eta ezertarako gogorik gabe, zentzugabekeria zitzaidan. Txillardegi

Munstro bilakaturik, ez zeuden ez **inorako** ez inorentzat. Iñigo Aranbarri

Harek ez eukan bildurrik **inorako**. Xabier Amuriza

Harek ilusinoa edonorako eukan eta bildurrik **inorako** bere ez. Xabier Amuriza

Izanez ere, zinezko sorgina, hereje fina, ez baituzu **inorako**, ezta ezkerrerako ere. Patziku Perurena

---

**inoraezin** *iz* inora joan ezina.

Eguzkiaren tronupean mundu osoa geldi-geldi, eta ur xirripa bere zilar bidean, nere belarria goxatuz, marmarika bere burutik, bizitzaren **inoraezin** xalo eta fina erakutsiz. Patziku Perurena

---

inorant ik **ignorante**.

---

**inoratu,** inora(tu), inoratzen da *ad* inora joan.

Gainerakoan, egun haietan ez zen hegaztien lorratzik ere ageri eta basapiztia gizajoak ez ziren oihanetik **inoratzen:** gehienak, izurrira etsiak, bertan akabatzen ziren. Xabier Amuriza

Baina Ramsay jaunak hartantxe eduki zituen beti begiak josita, inoiz ez zion bere buruari utzi beste **inoratzea** edo saihestea. Anton Garikano

---

**inorendu,** inoren(du), inorentzen **1** da/du *ad* inorena bihurtu.

Biziarteko errenta **inorentzen** da; diru kopuru baten erabilera dohainezkoa, mailegu hutsa da; korriturik eta itzultzeko asmorik gabeko eskuzabaltasuna, dohaintza da. Andres Urrutia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Eroa, **inorendua,** da poeta; sortzeko gaitasuna ez da prozesu razionalean oinarritzen, jainkoren baten inspirazioan baizik. Diferentzia, gertaera jakin baten inguruan putzuak eta meazuloak induskatzen dituen pentsamendu eragilearen eta pentsamendu **inorendu,** bizigabearen artean dagoena da. Askoren artean

---

**inorentze** *iz* inoren bihurtzea.

Dohaintza eta mailegua eskuzabaleko ekintzak dira; akura eta **inorentzea,** ostera, inola ere ekintza ez-bidezkoak. Andres Urrutia

---

**inorez** *iz* inor iz izatea.

Ezer ez, / Horra izan ginena, garena eta / Izango garena, loretan beti: / Ezerezaren Arrosa, / **Inorezaren** Arrosa. Joxan Elosegi

---

**inoreztatu,** inorezta, inoreztatzen da/du *ad* norbait kontuak ez hartu, inor ez balitz bezala tratatu.

Ni neu, berriz, gutxitan sentitu izan naiz orduan bezain **inoreztatua**. Joxerra Garzia

---

**inorgabe** *izond* tokiez edo eremuez mintzatuz, inor ez dagoena.

Gurinaren pabiloian eta hegaztienean, saltoki txiki burdin-hesituak ageri ziren lerro-lerro, eta erdiko kale **inorgabeak** luze hedatzen ziren gas argiontzien ilaren azpian. Karlos Zabala

Esnatzen zara, eta berriro dakusazu aurrean estepa **inorgabea,** etxerik gabeko eremu zabala, dena berdina eta laua. Jose Morales

Konturatu gabe aspaldi zegoela kotxean eseririk, kotxea aspaldi irten zela bidera eta ordurako zelai **inorgabeak** besterik ez zeukala aurrean. Jose Morales

Zu, ordea, zabala zara, **inorgabea,** berdina; atzemangaitzak dira zure hiri zapalak eremu lau horretan, puntuak edo orbantxoak dirudite zabaldiaren erdian. Jose Morales

---

**inorgabetasun** *iz* inorgabea denaren nolakotasuna.

Sastrakaz eta basalandarez estalirik bazegoen ere, bera zen herri handi hartako bizi-eragile bakarra, bera zen, bere **inorgabetasun** xarmagarrian, gauza benetan eder bakarra. Jose Morales

---

**inorgabetu,** inorgabe(tu), inorgabetzen da/du *ad* inorgabe gertatu.

Ama nonbait enkarguren bat egitera joan da, umea dendakoen esku utziko zuen, hauei lana sartu da bat-batean, eta umea **inorgabetua** sentitu da bat-batean. Pako Aristi

---

**inorganiko** **1** *izond* egituratu gabea.

"Abstrakzioaren" poloa alde batetik, estilo zehatza **inorganikoa** duena, eremu planoan eta lerro zuzenean oinarritua, balio kolektiboak mamitzen dituena, eta *Einfühlung* poloa bestetik, naturalismoarena, organikoa, biribiltasunean eta hiru dimentsioko espazioan oinarritua, joera eta xede indibidualak mamitzen dituena. Josu Zabaleta

Esperientziak baino ezin dezake erabaki gorputz artikulatu baten organizazioa noraino irits daitekeen, eta ziurtasunez ezein zati **inorganikotara** iritsiko ez balitz ere, dena dela, hauek esperientzia ahalgarrian egon beharko lukete bederen. Ibon Uribarri

Bereiz eta bana al daitezke hizkuntza batean, bilakaera naturala, organikoa, alde batetik, eta literatura hizkuntza bezalako forma artifizialak, kanpoko faktoreen eraginez gertatzen direnak, eta horrenbestez **inorganikoak** direnak, bestetik? Isabel Arrigain

**2** (kimikan) gai konposatuez mintzatuz, osagaien artean karbonoa ez duena.

Mineral-edukiaren araberakoa da hezurraren sendotasuna, hau da, hezurrak duen gai **inorganiko** gogorraren kantitatearen araberakoa. Irene Aldasoro

Konposatu **inorganiko** bat da hezur-minerala, kaltzioz, fosforoz, oxigenoz eta hidrogenoz osatua. Irene Aldasoro

**3** ***kimika inorganiko***

Kimika **Inorganikoko** katedraduna da. Berria - Euskal Herria

---

## inortxo *izord adkor* inor. (ezezko testuinguruetan)

Hain dirudizu ninia eta errukarria, **inortxo** ez baitzaizu ausartzen errieta ematera, bihozgabe. Mirentxu Larrañaga

Eta, halaber, ez zuen **inortxo** ere maite. Patxi Zubizarreta

Ez zaio etorriko **inortxo** ere laguntzera. Elizen arteko biblia

**Inortxo** ere ez da agertu ikusi zuenik, egun horretan, amaren etxea utzi zuenez geroztik... Koro Navarro

**Inortxok** ez dio txakur txikirik emango. Patxi Zubizarreta

Ez zuen **inortxok** erantzun baina norbait behar zuen han barruan, sua piztuta aldegin ez baldin bazuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere gisara hizketan hasi da eta **inortxok** ere ezin izan dio fitsik ere ulertu. segituan joango naiz, bakar-bakarrik, **inortxok** ere agindu gabe. Patxi Zubizarreta

Han **inortxok** ere ez gaitu ikusiko. Patxi Zubizarreta

Eta banekien, era berean, munduan **inortxok,** ezta Nunuk ere, ezingo zidala lagundu. Ander Irizar

Baina gaur **inortxori** ere ez zaio bururatu kexuka hastea. Patxi Zubizarreta

Bera bizi zen bitartean **inortxori** ez esateko agindu zion. Askoren artean

Negozioaren ardura bere-berea izaki, ez zuen **inortxoren** laguntzarik izaten. Patxi Zubizarreta

Konturatu nintzen, konturatu nintzenez, beste **inortxorekin** ezin izan zenuela hitz egin. Mirentxu Larrañaga

Eta denbora guztian bakarrik ibiltzen ikusi dut, **inortxorekin** elkartu gabe. Patxi Zubizarreta

---

## inoxente *(22 agerraldi, 8 liburu eta 3 artikulu; ETCn 35 agerraldi; orobat **inoxent** 14 agerraldi, 6 liburu eta 2 artikulu; ETCn 40 agerraldi) izond adkor* inozentea. ik **inuxente**.

Arreske dagoen neska **inoxente** baten aurpegitxoa jartzen zuen. Karlos Zabala

Tomista momifikatu edo fededun **inoxent** baten argumentuak ez zaizkit aski. bere burua listotzat daukan makina bat **inoxenteri** ematen dio bazka. Piarres Aintziart

Edo zeinen **inoxenteak** diren moderno ustekook! Patziku Perurena

Hain haiz **inoxenta** ! **Inoxenta,** ni! ez banio bederen, ez banio Mathiasi deus aipatu. Daniel Landart

**Inoxente** Egunean asmatua dirudi gure historiak oraino. Fernando Rey

---

## inoxo *iz adkor* inozoa.

Badirudi txantxangorria ez dela batere txori onbera, **inoxoa** eta errukarria, guziz bestelakoa baizik. Patziku Perurena

Poliziaren teoriarekin osoki bat egiten ez nuela iradokitzeko bide **inoxo** bat. Aingeru Epaltza

Urte franko egina haiz heure inguruko kaken berri ematen, orain **inoxoaren** predikuan hasteko. Aingeru Epaltza

---

## inozente *(88 agerraldi, 29 liburu eta 15 artikulu; ETCn 539 agerraldi; orobat **inozent** 21 agerraldi, 2 liburu eta 7 artikulu; ETCn 35 agerraldi)* **1** *izond* tolesgabea, xaloa. ik **inoxente; inuzente**.

Neskak bere begi handi **inozenteekin** behatu dit. Koldo Izagirre

Belarri **inozenteetan** hitz hutsek egiaren oihartzuna hartu ohi dute. Sonia Gonzalez

Naina gaizkile likitsa [...] nor eta ni izatea, herri txiki bateko giro garbi eta **inozentean** jaiotako mutil jator bat. Bernardo Atxaga

Gu bezain nobato, gu bezain ezjakin eta **inozentea** zen Periko ere: karrera bukatu berria, huraxe zuen lehenengo lana, aurretik, itxura denez, probatu gabea. Xabier Mendiguren Elizegi

Betirako paradisu horrek, betirako poz horrek, nola ez zuen inor hunkitzen, eta gainera, buruan argi muttur bat zuenarendako, sari baino areago zigor zirudien, "infernu eternoa" asmatu behar izan zuen erlijio judukristauak, monoteismoa hedatzerakoan jende **inozentea** harrituko eta ikaratuko bazuen. Patziku Perurena

Liburu bizia egin nahi nuen, liburu **inozentea** beharbada, pasionala. Berria - Kultura

Ez, ni ez naiz, horren **inozentea,** ez dut federik nere arima hegatu ezin duten aingeru disekatuetan. Patziku Perurena

**Inozentearena** egin, honetarako? Koldo Izagirre

ETBk **inozente** egunean bota zuen Espainiako Kopako Eibar-Real Madril Anoeta estadioan jokatuko zela, jende gehiago joateko ikustera, eta askok, sinetsi. Berria - Kirola

**2** errugabea.

Alkateak herriko buru **inozentea** izan behar du, ez honen edo haren eskumakil politikoa. Patziku Perurena

Zeren hartzak lotsatiak baitziren, eta **inozenteak** Jainkoaren bildotsak bezala. Bernardo Atxaga

Meeka eta maaka zoatzin gaixoak azken merkatutik nik ez baitakit norat, kamiunaren orroak estaliz, hantxetarat orduko, kume **inozent** haien azken intziriak. Herria

Bost mila jente **inozenten** bizia [...] merexi düan borrokarik ez da ene ustez. Herria

Badakizue, biktima **inozenteen** aurrean elkartzen dira putreak. Joan Mari Irigoien

Odol hotzean hil dituzten **inozentak** . Herria

---

## inozentki *adlag* errugabeki.

Eman dezagun bada haur denboran inongo babesik gabe umekotxean eserita zegoenean, edo norbaiten belaunetan, gurdi bat ikusi zuela norbaiten oina jakin gabe eta **inozentki** mastrakatzen. Anton Garikano

---

## inozentzia *(orobat **inozentzi** g.er.)* **1** *iz* tolesgabetasuna.

Baina gerran ezinezkoa da **inozentzia** . Berria - Kultura

Hobe bai, **inozentzia** galdu ez banu aspaldi eta oraindik ere Olentzero zernahitarako gauza dela sinetsiko banu. Hasier Etxeberria

Hots, politika gaietan, gure **inozentzia** ala enuxentzia etikoa galdua genuen seminarista gutiz gehienek. Piarres Xarriton

Errudunaren oinazeak dastatu beharko ditu, eta, agian, bere jatortasuna irainduta ikusteak sortzen dion etsipenak bere **inozentziaz** damutzera eramango du. Juan Martin Elexpuru

*ik beherago* 3. Askoren artean

Zein eder, zein zoragarri eta aintzatsu agertzen zen Frantzisko bere bizi- **inozentziaz,** hitz-xalotasunaz, bihotz-garbitasunaz. Askoren artean

Elkartetxe berriak [...] agertuko du Dominique TROLLIET hazpandarraren obra andana bat (40 inguru) eta hain segur arrakasta ederrarekin, hain baitira koloretsu, argi eta **inozentzia** sortzale. Herria

**2** errugabetasuna.

Epaimahai honek akusatuaren **inozentzia** aldarrikatzen du. Patxi Zubizarreta

Gero, atxilotuen erabateko inpotentzia, **inozentzia** ere, inozenteak direlako. Berria - Euskal Herria

**3** ***inozentziaz*** tolesgabetasunez.

Nola desiratzen nuen [...] neskari adarra jo eta begiez jatea, eta neskak "lotsagabe zikina" esatea, eta "hi ere bahaiz batxo", neska hura **inozentziaz** eta lizunkeriaz kortejatzea, garagardo eroriaren eta edontzi pilatuen artean hutsean bukatuko zen maitasun batez. Koro Navarro

Hain garrantzitsu bihurtu al da ba?, bota zuen **inozentziaz** . Urtzi Urrutikoeetxea

---

# inozo

**1** *izond* adimen urrikoa; ergela. (pertsonez)

Madarikatua modako iritziak goraipatu baino egiten ez duen idazle **inozo** eta arrunta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Jedediah Buxton izeneko langile **inozo** batek. Xabier Olarra

Frontera zihoazen soldadu gazte, **inozo** eta eskarmenturik gabekoen moralari. Felipe Juaristi

Feminista amerikar **inozo** horiek bezala. Karlos Zabala

Stalinek amesgaizto bihurtu zuen Marx **inozoaren** utopia. Joxerra Garzia

Abertzaleen, idealisten eta **inozo** guztien gorpuen kiratsa helduko ez zen bazter ederren batera. Alberto Ladron Arana

Artean gazte eta **inozo** izan arren, den-dena genekiela uste genuelako. Patxi Iturritegi

Barbamiclín **inozoa** zen; Acqui-n begirune eta babesa ematen zioten, **inozoak** Jainkoaren haurrak baitira. Juan Garzia

Haren senarra **inozoegia** da, adarrez ez hornitzeko. Karlos Zabala

-Ez **inozoa** izan -esan zidan-. Koro Navarro

"Hori jende **inozoa** ! hori buru gutxi!", hots egin zuen halako batean. Bernardo Atxaga

**Inozo** behar du pertsonak, eguzkia jainkotzat hartu eta gurtzeko. Joxerra Garzia

-Atera hortik, Stan, **inozoa** halakoa... Lopez de Arana

Biek ere **inozotzat** hartuko nindutela pentsatu nuen. Ramon Saizarbitoria

Askok, haiek ikusi eta haiei entzun ondoren, engainatzaile edo **inozotzat** zeuzkaten. Askoren artean

**2** (beste izenondo batekin)

Mutila **inozo** handia zen. Karlos Zabala

"Kontxo!" esaten duten guztiak **inozo** hutsak dira, nire irudiko. Karlos Zabala

**Inozo** hutsa izan behar da gure espeziea munduarentzat behar-beharrezkoa dela sinesteko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Inozo** muturluzeak ziren haiek ere. Iñaki Mendiguren

Berriki, «abertzaleen **inozo** erabilgarria» izatea leporatu zion Madrazori. Berria - Euskal Herria

Bizitzaz deus ez zekien ergel bat bezala geratu zela sentitzen zuen, **inozo** ezjakin bat bezala. Jon Alonso

· Horrelako kaiku **inozo** bat inoiz irakasle izatera iritsi delako. Iñaki Mendiguren

**3** (gainerakoez) inozotasuna adierazten duena.

Uriel da Rua-ren begi **inozo** ongira eginek ez zuten sekula santan halako bortizkeriarik ikusi. Felipe Juaristi

Maitaldi ondorengo irribarre xume, **inozo,** tolesgabea iruditu zitzaion da Ruari. Felipe Juaristi

Irri **inozo** bat egin zuen zerbitzuburuak. Koldo Izagirre

Sineskeria **inozo** horietako bat zen. Harkaitz Cano

Galdera **inozoa** zen, baina zein galdera ez zen **inozoa** egoera hartan. Harkaitz Cano

Hori baino borroka **inozoagorik** ez da. Karlos Zabala

Traizio **inozoez** betetako moda-modako telesaila. Anjel Lertxundi

Txantxa **inozo** eta gustu txarrekoei. Xabier Montoia

Segur aski hura guztia haur joko **inozo** bat baizik ez zela. Alberto Ladron Arana

Gainera gol **inozo** xamar bat sartu digute. Berria - Kirola

Bi huts **inozo** egin zituen. Berria - Kirola

Zentzurik gabeko bizitza **inozo** batera zeraman zaldi mengelaren zelatik erori eta argia ikusi zuen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Haurtzaro **inozo** eta tolesgabea, auzoko haurrekin jolasean. Felipe Juaristi

Sublimetasun **inozoaren** kontrako borrokan. Juan Garzia

Nik ezin dut ulertu merezi duen jendea ez astintzeko dagoen joera txepel **inozo** hori. Iñaki Mendiguren

Wight uhartean oporretan egin ohi diren erokeriatxo **inozoetan** aritu ziren: dantza egin, parranda giroan ibili, gaueko festetara joan... J.M. Olaizola "Txiliku"

Bush ateratzen bazen irabazle, esan zuen, ahaztea geneukan "kontserbadore errukitsuen" gaineko kalaka **inozo** hori guztia. Oskar Arana

Errekastoko ur leiar, **inozo,** jostalaria. Felipe Juaristi

**4** (adizlagun gisa)

Baina beldur ziren, ezgai eta **inozo** sentitzen baitziren haren aurrean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina zuk botoa eman zenion, eta ez zenuen **inozo** jokatu horregatik, kontua ez baitzen hori. Karlos Zabala

Izan ere, Iruñeko taldeak **inozo,** oso **inozo** jardun zuen atzo. Berria - Kirola

-Hogeita bi? -bota dute denek batera, **inozo** . Koldo Izagirre

-Ohea? -morroiak, **inozo** . Martin Anso

**Inozo** bezain zintzo uste zuen, uste sendo-sendoz, hondamendiaren errudunak bi bakarrik zirela, erregea eta Galeazzo Ciano. Juan Garzia

**5** (-en azizkiaren eskuinean, izen gisa)

Ez zituen guti harrituko parrokianoak galderaren **inozoak** . Koldo Izagirre

Eta, nor zein den ezagutzen denean, nire **inozoan** eta bekatarian ere honetan nago ni, ez da amets-eraginik, hebaintze eta zoritxarra baizik. Patxi Ezkiaga

**6** (erkatetetan)

Antartikako pinguinoak bezain **inozo** . Xabier Mendiguren Elizegi

Reivitx ingeniaria, haur bat baino **inozoagoa** . Felipe Juaristi

**7** (hitz elkartuetan)

**Inozo** aurpegia jartzen nuela ikusita. Alberto Ladron Arana

**Inozo** -itxura handiegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Litekeena zen, oso, testamentuaren kontua **inozo** plantak egiteko asmatu izana. Monika Etxebarria

Pentsatzen jarri beharrean, sarrailak ipintzen besterik ez dakien **inozo** aldra baten erdian bizi naiz. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**8 *inozo-inozo*** *adlag*

Mezu faltsuaren misterioa **inozo-inozo** argitu nahian. Martin Anso

Unibertsoko lehen izakiak izateaz hain harro gaudenez, **inozo-inozo** pentsatzen dugu izaki goren horrek jasandako kalte oro krimen izugarria dela ezinbestez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Ez -erantzun zion Harryk, **inozo-inozo** jakin-mina erakusten saiatuz. Iñaki Mendiguren

Egun batez, **inozo-inozo,** ehun liberako billete bat diru xehez aldatzeko eskatu zion osabari. Karlos Zabala

---

# inozokeria 1 *iz* inozotasun gaitzesgarria.

Bertute naturalarena beti izango litzateke gardena eta nabarmena, baldin eta gizonen **inozokeria** eta grinek ilunduko ez balute. Juan Martin Elexpuru

Zenbaitetan lotsagarri ere utzi izan zuten haren **inozokeria** eta esperientzia falta zela-eta. Jokin Muñoz

Zehaztasun falta honek iraunarazi eta handitu egingo ditu nagikeria eta **inozokeria** . Juan Martin Elexpuru

**2** inozoari dagokion egintza.

**Inozokeria** litzateke besterik pentsatzea. Iñigo Aranbarri

**Inozokeria** galanta litzateke haize erroten kontra borrokan egitea... Karlos Zabala

Hara, Pavlusha, ikasi, zintzoa izan eta ez egin **inozokeriarik** . Jose Morales

Diru gehiago izanez gero, **inozokeria** gehiago egingo zituen beharbada. Karlos Zabala

**Inozokeria** bat egin nuen, aitortzen dut. Koldo Biguri

Beldur ziren **inozokeriak** esateko. Koldo Izagirre

Hainbeste **inozokeria** idazteko aukera. Patxi Ezkiaga

Etsipenari aurre eginda, **inozokeria** guztiak alde batera uzten saiatu zara. Rafa Egiguren

Ezin da sinetsi nolako **inozokerietan** eror gaitezkeen arrazoiaren zuzia bazterrean utzita argudiatzen saiatzen garenean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beti **inozokerietan!** **Fernando Rey**

Burtsan, ordea, ez zen atzo **inozokerietarako** betarik. Berria - Ekonomia

---

# inozoki *adlag* ergelki. ik **inozo 4.**

George, burutik zaude -zezeldu zuen eta bat-batean barreka hasi zen **inozoki** . Lopez de Arana

Gainera, a zer-nolako senargaia duen! -Ruthek **inozoki** egin zuen barre-. Edo sandiaren aita hil berriarena, aita ona izan zuan, eta norbaitek **inozoki** galdetu, zer, seme-alabekin mintzatzen zuan, seme-alaben edukazioaz arduratzen zuan [...] eta erantzuna labana kolpe bat bezala, ez, motel, ez, azkar hil zuan eta diru pixka bat utzi zian. Lopez de Arana

---

# inozomentean *adlag*

Soziedadera eraman ote zaituzte lagunek **inozomentean,** jakin ez dezazun zure alaba biluzik doala eguerdi zuritan herriko karrika nagusian barrena? Koldo Izagirre

---

# inozotasun *iz* inozoa denaren nolakotasuna. ik **inozokeria.**

Ikasia baitzuen ordurako norberaren **inozotasunak** errukira bainoago maltzurkeriara bultzatzen dituela besteak. Felipe Juaristi

Borondate oneko jendea oso arriskutsua da, **inozotasunarekin** estaltzen baitute ezjakintasuna, eta onbeharraren nahiarekin injustizia oro. Pako Aristi

**Inozotasun** axolagabeaz jokatzen zuen. Ibon Uribarri

Biziki hunkitu ninduen orduan **inozotasun** hark, eta lotsa sentitu nuen. Joxan Elosegi

-Ez, bada, jakin. -besteak, **inozotasunez** .

---

# inozotu, inozo(tu), inozotzen da/du *ad.* inozo bihurtu, ergeldu.

Olerki bakoitzari ezin hobeto gelditzen zaio bikotearen naif estilo goxoa, propio **inozotua,** baita bi ahotsetara egindako harmonia landuak ere. Berria - Kultura

---

# inpaktante *izond* zirraragarria, bortitza.

Ikuskizunen artean **inpaktanteenetako** bat *Banana voodoo* izenekoa da. Harkaitz Cano

Soinu hau indartsuagoa eta **inpaktanteagoa** da. Xabier Amuriza

---

# inpaktatu, inpakta, inpaktatzen du *ad* zirrara eragin; erasan.

**Inpaktatu** egiten duten irudiak erabili ditugu. Berria - Kultura

Ezin uka dezaket: neure zer guztiak paper beldurgarri hartan hizki larriz eta argazkiz inprimatuta ikusteak zeharo **inpaktatu** ninduen, erraz ulertuko den moduan. Karlos Linazasoro

---

# inpaktu *(orobat **inpakto** g.er.)* 1 kolpea, talka.

Tiroen **inpaktuek** ongi adierazten zutenez. Joan Mari Irigoien

Harrigarria da bala batek egiten duen **inpaktuaren** soinua. Karlos Linazasoro

· *irud* Lehen **inpaktuan** indar handia dute, eslogan publizitarioen antzera. Berria - Kultura

**2** eragina.

Errauste plantak eragingo dituen **inpaktuei** buruzko lau azterlan. Berria - Euskal Herria

Lurren eta uren kutsadurarekin eta beste zenbaitekin lotutako beste **inpaktu** batzuk. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Argi daukat energia eolikoak ez duela kutsatzen eta, gainera, inoiz atzera egin nahi izanez gero, **inpaktua** itzulgarria dela. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzak ingurumenarekiko **inpaktuaren** azterketa onartu eta gero. Berria - Euskal Herria

Gauez, jatorri artifiziala duen argi-fluxua intentsitate edota norabide desegokian zuzentzeak eragiten duen **inpaktuari** deritzo argi-kutsadura. Berria - Gaiak

Coca-Colari haurren esplotazioa, naturaren aurkako ekintzak, **inpaktu** soziala eta beste delitu batzuk ere leporatu zaizkio azkenaldian. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan)

Albisteen hautaketa gertaerok duten osagai dramatikoa eta jendearengana iristeko daukaten **inpaktu**-ahalmenaren arabera egiten dugu. Txema Ramirez de la Piscina

· Kartzelak Zubietan gizarte **inpaktu** eta eragin ekologiko izugarria izango duela nabarmendu du. Berria - Harian

**4** eragin bortitza, zirrara.

Fedetik kanpo osatutako sistema filosofiko hain erakargarriaren **inpaktua** gutxitzeko kristau-kultura tradizionalean. Askoren artean

Erakusketa didaktikoa egiten ahalegindu direla azpimarratu du Javier Gonzalez de Duranak, dramatismoa eta **inpaktoa** bilatu gabe. Berria - Kultura

Horrek bereziki interesgarri bihurtuko du egikera perfektuko eta **inpaktu** handiko pieza borobil hau. Berria - Kultura

Ederra zen konposizioa, **inpaktu** handikoa. Anjel Lertxundi

**5** ***ingurumen inpaktu***

Jarduera ekonomikoaren ingurumen **inpaktu** edo eraginak kanpoko elementutzat hartzen dituzte. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ingurumen-**inpaktuaren** inguruko ebaluazioak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ingurumen **Inpaktuaren** Memoriaren Lapurpenaz ari dira. Berria - Euskal Herria

**6** ***inpaktu ekologiko***

**Inpaktu** ekologikoa bat dator bizimodu batzuei eutsi ahal izateko kontsumitzen dugun natura kantitatearekin. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Biosfera osoaren gainean gertatzen ari den mundu mailako **inpaktu** ekologikoa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Azterketan ikusten diren aldeek agerian uzten dute naturaren gaineko **inpaktu** ekologikoa herrialde garatuetatik datorrela gehienbat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta inpaktu** (4); **ingurumen inpaktua** (3); **ingurumen inpaktuaren** (4); **ingurumenarekiko inpaktuaren** (5); **inpaktu ekologikoa** (4)

---

## inpartzial *izond* alderdikeriarik gabekoa, ez-alderdikaria.

Saio zintzoa da gurea, baina ez, inola ere, **inpartziala,** eta hori aitortu nahi dizugu, irakurle, hasieratik beretik. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Euskal Herrian itxitako hedabideei buruzko jarraipen-txosten **«inpartziala»** landuko du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

ELAk uste du laudoa ezartzea «greba eskubidearen aurkako erasoa» dela eta Jaurlaritza ez dela **inpartziala**. Berria - Ekonomia

Ez dela gertaerak argitzeko eta erantzuleak zigortzeko ikerketa **inpartzialik** egin. Berria - Harian

Beraz, begi elektroniko objektibo **inpartzial** batek egina omen da. Joseba Sarrionandia

Baina ez kezkatu: oso epaile zuzena eta **inpartziala** izanen dugu, Boggess epailea. Fernando Rey

Otegiren aurkako epaiketan «epaile **inpartziala** izateko eskubidea» ez zela bermatu. Berria - Euskal Herria

Lege itsu eta **inpartzialaren** esku. Juan Martin Elexpuru

Ez baitut etsaminatzaile aditu eta **inpartzialengan** gaizki-ulertzerik aurkitu. Ibon Uribarri

**Inpartziala** izan nahi du, eta sentimentalismo orori uko egiten dio. Koro Navarro

---

## inpartzialitate *(3 agerraldi 3 artikulutan)* *iz* inpartzialtasuna.

Aljeriarrek, hitz egiterakoan, argazkilaria bera gogor kritikatzen dute: europarrok herrialde hau nola epaitzen dugun, **inpartzialitate** falta... Berria - Kultura

---

## inpartzialki *adlag* alderdikeriarik gabe.

Hori dela eta, tortura salaketa guztiak «azkar, sakon eta **inpartzialki»** ikertu behar direla gaineratu zuten. Berria - Euskal Herria

---

## inpartzialtasun *(24 agerraldi, 5 liburu eta 13 artikulutan)* *iz* alderdikeriarik eza.

Epaimahaiburuaren **inpartzialtasunaz**. Berria - Euskal Herria

Espainiako Estatuko epaileen **«inpartzialtasuna»** zalantzan jarri zuen. **Inpartzialtasunaren** itxura egiteko, aurrena nire izena proposatu zuen eta, zalantza txiki baten ondoren, bere lagun Egurenena. Juan Garzia

Nazionalismoaren izaera eta iturriak; nazionalismoa eta **inpartzialtasunaren** eskakizunak. Askoren artean

Independentziaz eta **inpartzialtasunez** lan egitea nahi nuke. Berria - Euskal Herria

Legea betetzera eta **inpartzialtasunez** jokatzera. Berria - Euskal Herria

BBBrako hauteskundeak eteteagatik «ardura eta **inpartzialtasunik»** gabe jokatzea leporatu diote jeltzaleek alderdiko Justizia Auzitegiari. Berria - Euskal Herria

---

## inpazientzia *iz* egonarririk eza.

Alferrak **inpazientzia** onberaz tratatzen zuen aita. Fernando Rey

Besteak, aldiz, **inpazientzia** zorrotz eta mespretxuzkoaz tratatzen zuen. Fernando Rey

**Inpazientziaz** beteta eta erabat aztoratuta egon zen Demba zain. Anton Garikano

Ordura arte nazioak erakutsita zeuzkan **inpazientzi** eta arinkeri zantzuak nagusien hautapena edo jokabidea zela-eta. Iñaki Iñurrieta

---

## inpedantzia *iz* korronte aldizkatzaile batek zirkuitu kondentsadoredun edo harildun batean eragiten duen alegiazko erresistentzia.

Soinuak airetik uretara igarotzeko duen gaitasun kaskarra [...] ingeniari elektrikoek **inpedantzia**-parekatze izenez ezagutzen duten arazoaren adibide bat da, eta ura airea baino askoz dentsoagoa izateak eragina batik bat. Irene Aldasoro

---

## inpekable *izond* akatsgabea.

Traje ilunarekin **inpekable** jantzita zegoen. Pablo Sastre

# inpentsan *adlag* ustekabean.

Bryce Canyon liluragarrian gertatu da, zerua **inpentsan** ilundu, eta euria bota ahalean hasi duenean. Patxi Zubizarreta

Orduan, **inpentsan,** nik Ruben dantzara atera dut. Patxi Zubizarreta

Batzuetan horrela egiten dut, gezur bat botatzen dut **inpentsan,** harira datorrela uste dudanean. Aingeru Epaltza

Eta agertu badut, **inpentsan** izan da. Aingeru Epaltza

-Burutazio bat izan diat! -atera zitzaion **inpentsan** Husaini-. Patxi Zubizarreta

**Inpentsan** harrapatu zuen galderak. Koldo Izagirre

Bat-batean eta **inpentsan** sortutako laino sarri lodi batean sarturik. Felipe Juaristi

Egun batez, webgune batekin lanean ari nintzela, irudi desitxuratua sortu zitzaidan **inpentsan,** barra-kodea. Berria - Kultura

---

# inperadore ik **enperadore**.

---

# inperatibo 1 *iz* betebeharrezko egitekoa.

**Inperatiboren** bat izatekotan, hurkoaren aurpegian adierazia da: «ez duzu hilko». Berria - Kultura

Soldaduaren **inperatiboa** iheslaria salatzea da, fusilatzera kondenatutako etsaia baita. Joseba Zulaika

Ez al zituen gorroto dogma guztiak, demostratu gabeko baieztapen guztiak, **inperatibo** guztiak? Juan Garzia

**Inperatibo** moral batek indargetzen dizu irudimena jaregiteko bulkoa. Iñaki Iñurrieta

**Inperatibo** -klase horri **inperatibo** hipotetikoak kontrajartzen dizkio Kantek, agintzen duten ekintzaren ontasuna beren baitan ez dutenez, beste zerbait lortzeko bitarteko diren **inperatiboak** alegia. Askoren artean

**2** ***inperatibo kategoriko*** gizabanakoak bere buruari, arrazoiak adierazia denez gero, ezartzen dion arau etikoa.

Oinarri objektibo hori **Inperatibo Kategorikoaren** bitartez formulatuko du Kantek. Askoren artean

Haren ustez, moraltasuna **inperatibo kategorikoen** sistema da, hots, honela, ez bestela jokatzeko esaten diguten aginduen multzoa. Askoren artean

**Inperatibo kategorikoaren** adibide egokia izan daiteke "ez duzu hurkoa torturatuko"; hipotetikoarena, berriz, "ez duzu hurkoa torturatuko, zigor zaitzaten nahi ez baduzu". Askoren artean

Kostunbrismoak, errealitatea islatu baino, eder ustez mozorrotu du, beti ere iraganarekiko liluraren erakarmenez, ohitura onen eredupean eta **inperatibo** kategorikoaren aginduz. Anjel Lertxundi

Neketsua eta aspergarria ere bada geure buruei jartzen diogun **inperatibo kategorikoaren** etengabeko zama hori, "euskaldun naiz eta Euskadi dut maite" behin eta berriro frogatzen ibili behar hori, batez ere bat ez bazatoz euskalduntasuna ulertzeko modu batzuekin. Anjel Lertxundi

---

# inperatiboki *adlag* betebeharra adiraziz.

Inork ez dauzkalako, eskatzen dira hain **inperatiboki** (zeini eskatzen zaizkio?). Joxe Azurmendi

---

# inperfektibo *izond* aditzen erez mintzatuz, burutugabea. ik **perfektibo**.

Eslaviar hizkuntzek aditzaren bi aspektu bereizten dituzte erregularki: perfektiboak bere osotasunean, puntu gisa irudikatzen du ekintza, bilakatze orotatik kanpo; **inperfektiboak** gertatzen ari dela aurkezten du, eta denboraren lerroan. Isabel Arrigain

---

# inperfektibotasun *iz* inperfektiboa denaren nolakotasuna. ik **perfektibotasun**.

Errusieraz, perfektibotasunaren eta **inperfektibotasunaren** arteko bereizketa horrela gauzatzen da gramatika bideak erabiliz [...]. Isabel Arrigain

---

# inperfektu *izond* akastuna, ez-perfektua.

Legeak kontingenteak eta **inperfektuak** dira, alabaina eta, horregatik hain zuzen, politika da kontrajartzeko zein bateratzeko artea. Askoren artean

Atal **inperfektuek** osatzen baitute perfekzioa. Imanol Unzurrunzaga

Bietan gizakien izaera **inperfektua** ageri da. Berria - Kultura

450 milioi lagun, 450 milioi esperantza, kezka eta beldur, hamaika herri, kultura, hizkuntza, historia eta sentsibilitate biltzen dituen mosaiko eder eta **inperfektuan** bilduak. Berria - Harian

Badirudi zuzentasunak itsustu egiten duela eguneroko bizitza arrunt akatsez betea, deserosotasuna dakarkiola arrunton bizitza **inperfektuari** . Anjel Lertxundi

Perfektuen artean perfektuena zen arren, bestela ikusten zuen bere burua, guztiz **inperfektutzat** joz. Askoren artean

Destilatzen hasi orduko, jakitun zara aspaldiko mendeek sakratuztaturiko erritu bat errepikatzen ari zarela, erlijio-ekintza bat ia, zeinean materia **inperfektu** batetik esentzia lortzen baituzu, "usía" delakoa, espiritua, eta behin-behienenik alkohola, aldartearen alaigarri eta bihotzaren pizgarri hori. Juan Garzia

---

# inperfekzio *(orobat **inperfekzione**)* 1 *iz* perfekziorik eza.

Balizko perfekzioaren zain, **inperfekzioa** eta absurdua ditugu habitat naturalak, Patri. **Inperfekzioak** emakumea edertzen duela, defektu txikiek emakumea bakar bihurtzen dutelako. Hasier Etxeberria

Ihardetsiko digute, bada, ez dela gauzen baitan ez perfekziorik ez **inperfekziorik** eta Jainkoaren nahi soilari dagokiola gauzak beteginak edo huts eginak eta onak edo txarrak deitzea. Piarres Xarriton

**2** akatsa.

[Sudurraren] azpian, batek daki nola, are eta perfektuago egiten zaituen **inperfekzioa:** hortz handiak estaltzeko ezpain mehe ezinduak, baina, aitzitik, nire musua ozenki erakartzen dutenak. berezko simetria-akatsen ondorioz, arazo handiak agertzen ziren: **inperfekzio** txikienek prozesu osoa desegonkortzen zuten. Lander Garro

Nahiz eta demokrata konbentzitua izan, jakitun zegoen demokraziaren **inperfekzioez** . Berria - Kultura

Beharbada horixe da bizidunon ezaugarri eta patua: erantzukizunei heltzea, gure hoben eta **inperfekzioekin** aurrera segitzea... Daniel Landart

---

# inperial 1 *izond* inperiokoa, inperioari dagokiona.

Mongoliako goi-ordokiaren hego-ekialdeko ertzean zegoen toki batean, non baitzegoen estepa hiri **inperial** berritik hurbilen. Iñaki Mendiguren

Urtetan jauregi **inperialean** bizi izan zen, bisir handien artean. Fernando Rey

Erroma **inperialean**. Iñaki Iñurrieta
Erromatar gobernu **inperialaren** eta Elizaren artean. Iñaki Mendiguren
Ekialdeko erromatar gorte **inperialean**. Iñaki Mendiguren
Turkiera zen administrazio **inperialaren** hizkuntza ofiziala. Iñaki Mendiguren
Administrazio **inperialaren** makina ahaltsua. Iñaki Mendiguren
Erakunde **inperialen** erabilgarritasuna. Iñaki Mendiguren
Herri-administrazio **inperialeko** langile iraunkorrak. Iñaki Mendiguren
Sekula ez zitzaion bururatu indiar burokrazia **inperiala** sortzea Akbar-en mansabdar-en ereduaren arabera. Iñaki Mendiguren
Opera **Inperialeko** zuzendaria. Matías Múgica
Adalbert Füchsel Kontseilari **Inperialaren** etxean. Anton Garikano
Adineko konde **inperial** alargun bat. Eduardo Matauko
Lehenbizi, Frantses Errepublika sortu berriaren Konbentzioko gudarosteak etorri ziren, ia segida-segidan, Napoleonen gudaroste **inperialak**. Askoren artean
Polizia **inperialaren** bermearekin bidaiatzen. Karlos Zabala
Armarri **inperialen** zigiluaz. Karlos Zabala
Haren begiak zigilu **inperialaz** jantzitako gutuna ikusi zuen. Karlos Zabala
Ivan Ogareffek gutun **inperiala** atera zuen sakelatik. Karlos Zabala
Komunikabide-sistema **inperiala** erabiltzeko. Iñaki Mendiguren
Aro **inperialean**. Iñaki Mendiguren
Garaipen **inperialen** omenez eraikitako monumentuen aurrean. Ramon Saizarbitoria
Karlomagnoren harropuzkeria **inperialaren** kontra. Iñigo Aranbarri
Austriarren arrano **inperiala** nahi dut zure etxeko armarriaren parean. Joan Mari Irigoien
Egun arranoaren sinbologia **inperial** eta konkistatzailea nagusi da munduan. Berria - Mundua
AEBk politika **inperiala** egiten ari da. Berria - Kultura
Inbertsioa ez zen nazioartekoa, **inperiala** baizik; inperialista, Leninek ospetsu bihurtu zuen esapidearen arabera. Koro Navarro
Sophia Yaliraki Erresuma Batuko Eskola **Inperialeko** irakaslea. Berria - Gaiak
Munduko Ordena Berri **Inperiala**. Berria - Mundua

- **2** *iz* zalgurdi zaharretan, sabai gainerko gune aulkiduna.

Apezek jauzi egiten dute gurdiko **inperialera,** puruak erretzen dituzte, emazteen zangoei erreparatzen diete, lehoien antzera jaten dute eta iltzeak bezain mehe daude. Koldo Izagirre
**Inperialean** jarri naiz ostera, eta askatu dira idiak. Koldo Izagirre
Kapitain karlista ohi bat neraman lagun, ni bezala Baionako *Diligencias Peninsulares*-en **inperialean** jarrita. Koldo Izagirre

---

## inperialismo

**1** *iz* beste estatuak politikan edo ekonomian bere mendera ekarri nahi dituen estatuaren politika.

**Inperialismo** kulturala edo mestizajea. Iñigo Aranbarri
**Inperialismo** ustiatzailearen ikuspegia, sinpleki eta inongo ñabardura eta zalantzarik gabe azaldutakoa. Iñaki Heras
Ea Hong Kong eta Shanghai hazkunde-puntuak izango ziren Txinan britainiar **inperialismoarentzat,** Bonbay eta Kalkuta Indian izan ziren bezala. Iñaki Mendiguren
Ordena teknoglobalitarioaren inperiorik gabeko **inperialismoa** arakatzen du. Askoren artean
Espresionismoaren **inperialismo** honek gerra ondoren jo zuen agian gailurra. Josu Zabaleta
Palestinarrek sionismoaren eta **inperialismoaren** kontra zeramaten borroka. Juan Kruz Igerabide
**Inperialismoari** aurre egiteko bide egokiena. Berria - Mundua
Kapitalismoak ezinbestean dakarrela **inperialismoa**. Markos Zapiain
**Inperialismoaren** bihotza den hiri honetan. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Nazio eta **inperialismo** arazoak. Txillardegi
· Alemaniaren eta Frantziaren energia **inperialismoari** aurre egin behar diote besteek. Berria - Mundua
Honela Pireneren hilobia, orduz gero, halaber izango da hizkuntz **inperialismoen** hilobia ere. Berria - Kultura

---

## inperialista

*izond* inperialismoari dagokiona; inperialismoaren aldekoa.

Europako politika **inperialistak**. Joxe Azurmendi
AEBen gerra **inperialista** kaleetan salatzea. Berria - Kultura
Ameriketako Estatu Batuetako Gobernu **inperialistak**. Berria - Mundua
Ez zuen pentsatu Armada **inperialista** bateko kide izango zela. Berria - Mundua
Sindikatuak adierazi zuen «egungo globalizazio **inperialistaren»** erakusle dela BBVA, eta espekulazioa hartu duela lan tresnatzat. Berria - Ekonomia
Nazioarteko komunitateak ez zuen behar beste indarrik bildu AEBen asmo **inperialistei** aurre egiteko. Berria - Mundua
Baina halako harrokeria **inperialista** anakronikoaren aurkako oposizioa sendoa da britainiarrengan. Berria - Mundua
Azken finean, inbertsioa ez zen nazioartekoa, inperiala baizik; **inperialista,** Leninek ospetsu bihurtu zuen esapidearen arabera. Koro Navarro
Ez zuen bidaia liburuik irakurtzen, **inperialista** hutsak zirelakoan. Javi Cillero

---

## inperialki

*adlag* era inperialean.

Etxe bat ageri da, harrizko etxe handi balkoiduna, ikusi batean Espainiaren armarritzat hartu dudan blasoi batekin, hain arranditsu eta **inperialki** girgileztatua izaki. Koldo Izagirre

---

## inperio

**1** *iz* estatu batek bere nagusigoa beste zenbait herri edo lurralderen gainean hedatzen duen politika antolaketa; antolaketa hori osatzen duten lurralde guztien multzoa, burutzat enperadore edo errege bat duena.

Ez zegoen indiarrik, adibidez, Britainiar **Inperioaren** hilezkortasuna desiratzen edo iragartzen zuenik. Iñaki Mendiguren
**Inperioko** eskualderik atzeratuenetan. erromatarrek hizkuntza ofizialtzat latina ezartzerakoan beren **inperioko** probintzietan. Iñaki Mendiguren
Sardes-en, Lidiako **inperioko** hiriburuan. Jon Muñoz
Bizantziar **Inperioa** berreraikitzeari ekin ziotenean. Iñaki Mendiguren
Alexandrok K.a. laugarren mendean Akemenestar **Inperioa** suntsitzeak eta Erromak K.a. hirugarren mendean Kartagoar **Inperioa** suntsitzeak auzokoen gaineko

nagusitasuna eman zioten Gizarte Helenikoari. Iñaki Mendiguren

Inken **Inperioa** . Iñaki Mendiguren

Erromako **inperioa** gainbehera zetorren garaian hasi zen kontua. Juan Kruz Igerabide

*ik beherago* 6. Askoren artean

**Inperio** bat osatu nahi duten herriak. Berria - Gaiak

**Inperio** berri bat sortzeko haren [Karlomagnoren] ahaleginak huts egin zuen, ondorengo ahalegin guztiek huts egin zuten bezala. Iñaki Mendiguren

Errusiako **Inperioaren** menpe zegoen Georgiak independentzia lortu zuen. Berria - Mundua

**Inperio** austrohungariarra galduz gero, zer gertatuko da **inperio** horrek bere altzoan babesten dituen norabiderik gabeko herri eta gizabanakoekin? Anjel Lertxundi

**Inperioa** desegiteko mugimenduarekin bat egitea beste aukerarik ez daukagu. Berria - Mundua

Edozein elizaren ala herriren, **Inperio,** Erreinu edo beste karguren jabe direnei. Piarres Xarriton

**Inperioenak** ez diren hizkuntzak ez baitira existitzen. Berria - Kultura

Herri bat, **Inperio** bat, Führer bat. Alberto Ladron Arana

**2** (izenondoekin)

Erromatarrek **inperio** handia osatu zuten Europa, Asia eta Afrikan. Iñaki Iñurrieta

Mendebaldeko Europa osoa estatu edo **inperio** handi batean batzeko. Iñaki Mendiguren

Herbehereak, arrazoi dinastikoak zirela-eta, Karlos V.aren **inperio** zabalaren parte bihurtu ziren. Koro Navarro

Ezin izan zuen gizarte-aldaketaren bidea gerarazi Japoniar **Inperio** bakartuaren barruan. Iñaki Mendiguren

Mogolen **Inperio** musulmana. Iñaki Mendiguren

Pirinioetatik Indus ibaiaren ertzetaraino hedatzen zen **inperio** islamikoa. Jon Muñoz

**Inperio** Otomanoaren erorikoa. Koro Navarro

Europako gainerako **inperio** kolonialetan. Koro Navarro

Bai Bushek bai Kerryk **inperio** kapitalistari eusteko konpromisoa hartu dute beren hitz eta ekintzekin. Berria - Mundua

Estatu indartsu haiek berek, hau da Frantziako, Ingalaterrako, Errusiako **inperio** puxantek eta Alemaniako, Austriako, Turkiako **inperio** lehiakideek. Piarres Xarriton

**3** *irud*

Konturatzen zara herri askotan fabrika **inperio** bat zela, esate baterako Zumarragan. Berria - Kultura

Harro egon behar genuke **inperio** mediatikoen alboan euskal prentsak errealitatearentzako beste habia bat atondu duelako. Berria - Euskal Herria

Eraitsi egin behar baitira nazioak eta beste gauza batzuk, handienetatik hasita, Kapitalaren **inperio** antiterroristatik hasi eta beste guztietaraino. Iñaki Segurola

Enpresa hori **inperio** erraldoia da, oraindik ere. Txema Ramirez de la Piscina

Adimenezko zientziaren **inperio** osoa aldarrikatzen du. Jenaro Garate

Joera ia biologikoa du gau eta lainozko **inperio** bat eratzeko. Berria - Mundua

Legearen **inperioaren** pean. Esteban Antxustegi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **inperial.**

Erromatarren **inperio** garaian. Berria - Gaiak

Matxinada zeloteak orekatu egin zituen Erroman, ondorengo **inperio** -aroan, helenismora konbertituriko liberto siriakoen uholde herodetarrak. Iñaki Mendiguren

Hona AEBek Irak inbaditzeko izan zituzten benetako arrazoiak: hasteko, beren **inperio** asmoa gauzatzea [...]. Berria - Mundua

Horietako bat, Karlomagnok bere hiru semeen artean egindako **inperio** -banaketaren kapitularra da. Iñaki Iñurrieta

**Inperio** komisarioa. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Judu- **inperio** bat lurrean sortzeko hainbat ahalegin suizidatan. Iñaki Mendiguren

Urrutiko oasi-estatu horretatik sortu eta garatu zela arabiar mundu- **inperio** musulmana. Iñaki Mendiguren

Era berean, kolonia- **inperioen** osaerak ere ez zuen auzitan jarri Europako nazioarteko sistemaren mundu-ekonomiaren nolakotasuna. Koro Navarro

Portugal [...] hamarraldi batzuetan Brasildik Makaoraino iristen zen merkataritza- **inperio** baten ardatz bihurtu zen. Koro Navarro

Hor eraiki dira oraingo industria **inperio** asko. Berria - Kultura

Aspaldidanik bertan behera utzitako literatur **inperio** bat berriro hartzeko lehen urratsa. Iñaki Mendiguren

Komunikabide, banku eta argitaletxe **inperio** bat. Berria - Mundua

**6** ***erromatar inperio***

Erromatar **Inperio** berpiztua bermatzeko xedean. Iñaki Mendiguren

Erromatar **Inperio** Santuaren pizkunde helenikoa. Iñaki Mendiguren

Ekialdeko Kristandade Ortodoxoan sortu zuen Erromatar **Inperio** berria artean loratzen ari zen. Iñaki Mendiguren

Ekialdeko Erromatar **Inperio** batuan. Iñaki Mendiguren

Agustinek berak Erromatar **Inperio** berantiarrean baitu bere kokagune historikoa, Erdi Aroa esan zaiona baino zenbait mende lehenago. Askoren artean

Erromatar **Inperioaren** probintzietan. Iñaki Mendiguren

Erromatar **inperioko** gizonezko aske guztiak. Iñaki Mendiguren

· Egiatan, Erdi Aroa Mendebaldeko **Inperio** erromatarraren harrien gainean eraikitako gizarte-modu eta erakunde berrien eta ez hain berrien ekoizpena izan zen. Askoren artean

· Rodolfo Habsburgokoa, Germaniako Erromatar **Inperio** Santuko enperadorea, Bohemiako eta Hungariako erregea. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Inperio** erromatar-germanikoaren hiriburu izan zen. Berria - Mundua

**7** ***inperio-aurre***

**Inperio** -aurreko aristokraziak ez ziren inperiogileek behar zuten material bakarra beren herri-administrazioak antolatzeko. Iñaki Mendiguren

---

# inperiogile **1** *izond* inperioa egiten duena.

Botere **inperiogilearen** nagusitasu Iñaki Mendiguren

Mundu sinikoan, adibidez, batasun politiko iraunkorra ezarri zuen lehen aldiz Tsin-go estatu **inperiogileak** . Iñaki Mendiguren

**2** *iz* inperio bat egiten duen pertsona.

**Inperiogileek** nekez izaten dute nahikoa giza indar edo arma-lanbidearekiko aski ardura beren inperioari laguntzarik gabe eusteko eta defendatzeko. Iñaki Mendiguren

Etruskoak greziar bihurtuak ziren adopzioz erromatar **inperiogileen** agintepean jarri aurretik. Iñaki Mendiguren

Estatu unibertsal batzuk **inperiogile** atzerritarren egintza dira. Iñaki Mendiguren

**Inperiogileek** nekez izaten dute nahikoa giza indar edo arma-lanbidearekiko aski ardura beren inperioari laguntzarik gabe eusteko eta defendatzeko. Iñaki Mendiguren

---

# inperiogintza *iz* inperioa egitea.

Indiako Britainiar Inperioa da atzerritarren **inperiogintzaren** adibiderik nabarmenenetakoa. Iñaki Mendiguren

Mundu sinikoa heldua zegoen hura onartzeko, Tsin She Huang-tiren **inperiogintza** iraultzailea salbatuta geratu zenean Han Liu Pang-en esku trebeek baretu zutelako. Iñaki Mendiguren

---

**inperiozale** *izond* inperioaren zale dena.

Horregatik guztiagatik, «ideologikoki atzerakoi, eskuindar, monarkiazale, koloniazale, **inperiozale** eta abar izanagatik ere», Hiriart-Urruti oso idazle interesgarritzat du Altzibarrek. Berria - Kultura

---

inpernu ik **infernu**.

---

inpersonal ik **inpertsonal**.

---

**inperterrito** *izond* ezin ikaratuzkoa, izukaitza.

Esfinge baten aurpegiera **inperterritoa** beti-bat mantentzen duen maiordomoa. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**inpertinente** *izond* errespetugabea.

Gyorgy Kovesen begirada inuzente, ingenuo eta batzuetan **inpertinentearen** esku uzten du Kerteszek narrazioaren gidaritza. Berria - Kultura

Halatan ere, guk enpiristatzat jo arren, hizkera zientifikoak **inpertinentetzat** -desegokitzat, alegia- joko luke Larkinen poesia. Anjel Lertxundi

Agindu **inpertinente** batek. Unai Elorriaga

---

**inpertsonal** *(orobat **inpersonal** g.er.)* *izond* pertsona jakin bati ez dagokiona.

Bere Jainkoa, halako Izate **inpertsonal** bat, Osotasun batean murgildua, Naturarekin bat. Piarres Aintziart

Merkatuaren lege **inpertsonalen** mende. Koro Navarro

**2** aditzez mintzatuz, subjektu ageriko edo ezkuturik ez duena.

Aditz **inpertsonalez** edo epiteto deklinaezinez osaturiko hizkuntza batena. Juan Garzia

**3** nortasungabea.

Zalantza baten ondoren, barren-barreneko kezka bat inori aitortzean erabili ohi dugun ahots lau, **inpertsonal** horrez. Juan Garzia

Hiri handiak, hiri kosmopolitak, pertsonaien bakardadea areagotzen duten hiri **inpertsonalak** dira horiek. Berria - Kultura

Gela **inpertsonal** batean. Itxaro Borda

Kristal eta porlanezko olagarro **inpertsonal** hartan. Iñaki Zabaleta

---

**inpertsonaltasun** *iz* inpertsonala denaren nolakotasuna.

Literatura bat (idazlearen **inpertsonaltasuna** aldezten baitzuen, bat zen harentzat Literatura). Juan Garzia

---

**inpio** *izond/iz* fedegabea, erlijiogabea.

Honetan, beldur naiz ez ote duzun usteko zientziaren elementu **inpioetan** abiatu eta gaizkintza bidean sartzen ari zarela. Xabier Amuriza

Herriaren gogo eskergabe eta bular **inpioei**. Xabier Amuriza

---

**inpiokeria** *iz* fedegabetasuna; fedegabekeria.

Aitzitik, ordea, erlijioa bera da sarritan gaizkintzak eta **inpiokeriak** eragin dituena. Xabier Amuriza

---

**inpizta** *iz* erronka.

Ahopaldi, ele bero, gaizto, eztabaida, ez zen deusen eskasik halako kalda batean Eskual Herriko plazen atxikitzeko, aldekoak eta kontrakoak bazituztela batzuek eta besteek, eta pariatzaileak ez ziren azken **inpizta**-emaileak. Michel Oronoz

---

**inpiztatzaile** *izond* erronka egilea.

Inglaterra, Espainia eta Frantzia, hor zauden barrandan, aztaparrak kanpoan, bata bertzeari beha, zoin izanen zen lehen **inpiztatzalea**. Michel Oronoz

---

**inplakable** *izond* errukigabea.

ERCk gobernu hirukoitza muntatzeko momentuan adarra jo zion CiUri, baina transatlantikoen mugimenduak geldoak dira, urperatzean zurrunbilo handiagoa sortzen dute, baina behin ibilbide zehatz bat hartuta **inplakableak** dira. Berria - Euskal Herria

---

**inplantatu**, inplanta, inplantatzen du *ad (medikuntzan)* norbaiti protesi, ehun edo gairen bat gorputzean landatu.

Urratsik handiena bularrak **inplantatu** nituenean egin nuen. Berria - Euskal Herria

Egitura txiki pasibo batzuk arazorik gabe **inplantatu** ahal izaten dira batzuetan; ez hala sistema mugikorrak edo barne-organo edo -ehunetara ondo itsatsirik geratu behar duten gailuak. Irene Aldasoro

Oraindik ez da benetako posibilitaterik bihotz artifizial bat oso-osorik gorputzean **inplantatzeko,** ezta esperimentu-animalietan ere. Irene Aldasoro

## **inplantazio** *iz* ezartzea.

Merkatal eta Industria Ganbarako **inplantazio** sailarekin kolaborazio lanetan gaude helburu horrekin. Berria - Kultura

Frantziskori buruzko literaturaz gain, bada beste idazki multzo bat, Ordenaren bilakaera eta honen **inplantazioa** Europako lurralde ezberdinetan ezagutzeko garrantzizkoa dena. Askoren artean

---

## **inplante** 1 *iz* inplantatzea.

Enbrioietatik hartutako zelula amak edo enborreko zelulak oso erabilgarriak dira ikerkuntzak egiteko eta programa genetikoa hobeto ezagutzeko, baina animaliei edo gizakiei **inplanteak** egitean, tumoreak eragin ditzakete. Berria - Euskal Herria

[Polietilenoa] ontzietan eta botiletan erabiltzen dena dentsitate altukoa da (HDPE), eta pisu molekular oso-oso altua duena (UHMWPE) medikuntzan **inplanteak** egiteko ere erabiltzen da. Berria - Gaiak

Bular **inplanteak** gauzak asko aldatu zituen. Berria - Euskal Herria

**2** inplantatzen den gauza.

**Inplanteak** azal azpian, ezkutuan, jartzeko bideak aztertzen ari dira. Berria - Gaiak

Alaba zaharrari **inplante** bat jarri diote. Pablo Sastre

Arazorik izanez gero **inplante** horrek seinale bat bidaliko lioke medikuari. Berria - Gaiak

**Inplanteak** dituzten emakumeetan gainerakoetan baino txikiagoa da minbizia izateko arriskua. Berria - Gaiak

Bi kasu horietan **inplante** elektrikoak ezartzen dira kirurgiaren bidez. Berria - Gaiak

**Inplante** koklear hori azal azpian jartzea aztertzen ari dira. Berria - Gaiak

---

## **inplementatu**, implementa, inplementatzen da *ad* egitasmoez eta kidekoez mintzatuz, abian jarri, abiarazi.

NBEk begiratu beharko zuen ea aholkuak **inplementatzen** diren. Berria - Euskal Herria

1982an, arazo global garrantzitsuenei eta horiei begira **inplementatu** behar diren konponbide globalei buruzko azterketa bat egiteko agindu zioten Nazio Batuek Ingurumen eta Garapen Batzorde bati. argi egiazta dezakegu garapen iraunkor terminoaren erabilera progresiboak ez duela balio izan gorago aipatu ditugun arazo larri biak konpontzera bideratutako politika efektiboak **inplementatzeko**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Beraz, mina -edo beste edozein gogo-egoera- zertan **inplementatzen** den jakitea -burmuina, konexio elektronikoak, silikona...- ez da garrantzitsua mina identifikatzerakoan. Askoren artean

---

## **inplementazio** *iz* inplementatzea.

Elkarrizketa sozialaren **inplementazio** baketsua mobilizazioaren kaltean; horren ordainez, patronalen eta sindikatuen finantzaketa publiko oparoa; erakunde sindikalen barruan pobretze ideologiko ikaragarria... Berria - Euskal Herria

---

## **inplikarazi**, inplikaraz, inplikarazten du *ad* inplikatzera behartu.

Negoziazio mahai horietan Iparraldearen boza entzunaraztea eta Iparraldeko beste partaideak **inplikaraztea** da gure erantzukizun politikoa. Berria - Euskal Herria

---

## **inplikatibo** *izond* ondorioz ekartzen duena.

Badiou-ren unibertsaltasun kontzeptuak egitura **inplikatiboa** azpimarratzen du. Joseba Zulaika

Unibertsalak egitura **inplikatiboa** dauka. Joseba Zulaika

---

## **inplikatu**, inplika, inplikatzen **1** da/du *ad* zerikusia izan; parte harrarazi; nahasi.

Poliki-poliki meatzarien borroketan **inplikatzen** da Domitila. Pablo Sastre

Ez zegoela gu ekintzetan **inplikatzeko** batere frogarik. Berria - Mundua

Auzian zuzenean **inplikatu** dute, eta orain bere interesak defendatu beharko ditu. Berria - Kirola

[Gazte asanbladak] autogestioaren inguruan ehunka gazte **inplikatu** ditu. Berria - Harian

Ezinbestekoa da aldaketa egitea, gizarte osoa **inplikatuko** duen aldaketa. Berria - Euskal Herria

Jakin-min unibertsala, lanerako eta aferetan **inplikatzeko** gaitasun izugarria. Monika Etxebarria

Saddam Husseinen gobernua zuzenean **inplikatua** zegoela 2001eko irailaren 11ko atentatuetan. Berria - Mundua

Bruni-k bera **inplikaturik** egon zen kasu bat kontatu zigun. Juan Garzia

Bertsolaritzan hala edo hola **inplikaturik** sentitzen direnen elkargunea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Jende gehiegi dago **inplikatuta** mafien negozioetan. Mikel Hernandez Abaitua

**Inplikatutako** eragile guztien partaidetza eta konpromisoa behar da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Inplikatutako** guztiek, Valenciennes taldeko Robert jokalaria izan ezik, dena ezeztatu zuten. Berria - Kirola

Bere lanak erakutsi zion Oudin-i geneak zuzenean **inplikaturik** zeudela antigorputzen sintesian. Juan Garzia

Zuzenean **inplikatutakoak** ez ezik, beste hainbat lagun, lagun asko azkenean, harrapa zitzakeen gertaera hark. Iñaki Iñurrieta

**2** ondorioz ekarri.

Ez digute erakutsi emakume izatea zer den edo zer **inplikatzen** duen. Ana Urkiza

Sormenak, normalean ulertzen den moduan, "zer" bat ez ezik, "nor" bat ere **inplikatzen** du. Xabier Olarra

Estatua ez dela legearen iturri bakarra, eta Estatu subiranotasunak ez duela benetako boterea **inplikatzen**. Joseba Zulaika

Testuinguru honetan "mugarik gabe" hitzek zer **inplikatzen** duten gogoratu behar dugu. Iñaki Mendiguren

Lehen predikatuaren esanahiak bigarren predikatua **inplikatzen** du. Askoren artean

Afekzioen ideiek, aldi berean, giza gorputzaren eta kanpo-gorputzen izatasuna **inplikatzen** dute, zeren afekzioan bertan presente dagoen zerbait komunaren partaide baitira. Piarres Xarriton

Grinak edo gelditasunak aldaketa **inplikatzen** dute horiek jasaten dituen subjektuarengan. Xabier Kintana

Garai klasikoan, egiturazko ezaugarrien araberako espezieen sailkapenak **inplikatzen** du izakien jarraitasunaren hastapena. Xabier Arregi

Ez da mugimendu bat bera ere, jarrera bat bera ere, ondoren bat, gero bat, hurrengo unera pasatze bat **inplikatzen** ez duenik. Juan Garzia

**3** (era burutua izenondo gisa)

**Inplikatuen** borondatezko partaidetza. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Inplikatuen** abokatuek horiek ez argitaratzeko eskatzeko eskubidea dute. Berria - Mundua

---

**inplikazio** 1 *iz* inplikatzea, zerikusia izatea.

Irakurlearen **inplikazio** hau lortzeko, lau prozedura nagusi darabiltza: […]. Xabier Amuriza

«Milaka euskaltzaleren **inplikazioari** esker sortu eta hazi diren» Ikastolen eta Euskaldunon Egunkaria-ren sorrera ekarri zituen gogora. Berria - Euskal Herria

Erakunde publikoen **inplikazioa** bultzatzeko asmoz eginiko ekintza izan da. Berria - Ekonomia

Euskal nazionalismoak **inplikazio** zuzena duela krimenaren historian onartzea litzateke. Joseba Zulaika

**Inplikazio** emozionalek eragin zuzena baitaukate. Ana Urkiza

Ezinbestekotzat du «mobilizazioak eta **inplikazioa»** areagotzea. Berria - Euskal Herria

Bere obrarekiko **inplikazio** pertsonal erabateko. Santiago Iruretagoiena

**2** ondorioa.

Auzi honek ere baditu hainbat alde, hainbat zeresan eta **inplikazio**. Iñaki Heras

Garapen iraunkorrak osatzen duen "tandem" horren esangura eta **inplikazioei** buruzko gogoetan murgilduko gara. nekeza dela teoria zertzea, ondorio orokorrak ateratzea eta baita **inplikazio** guztiak eratortzea ere. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Inferentzien, ondoz ondoko **inplikazioen** eta arrazoiketa demostratiboen ordena. Xabier Arregi

Elurrak **inplikazio** harrigarriak ditu beti, baina, beste angelu batetik ikusita, edozein paisaia basamortu bihurtzen du. Bernardo Atxaga

Mekanika kuantikoaren paradoxen **inplikazioak**. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan)

Jakobson-en **inplikazio** legeez geroztik gutxienez, badakigu afrikatuak dituzten hizkuntzek herskariak ere izaten dituztela bere fonema sailetan. Lourdes Oñederra

Lehen zuzendaritzan nengoen, eta **inplikazio** maila txikiagoa zen. Berria - Kirola

· Noiz izan dira [...] (naturako) gertakari hutsak, inolako balio **inplikaziorik** gabe, mundua, itsasoa, eguzkia, edo gerra, familia, heriotza? Joxe Azurmendi

---

**inplizitu** *(113 agerraldi, 21 liburu eta 23 artikulutan; ETCn 1.540 agerraldi; orobat* ***inplizito*** *11 agerraldi, 5 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 57 agerraldi) izond* zerbaitek barne hartzen duen gauza, nahiz ageriki adierazten ez duen.

Horixe da, oinarri-oinarrian, ikusleak bere buruari egiten dion galdera **inplizitua**. gizadiaren eta naturaren arteko itun **inplizitua** nolabait berreskuratzea. Josu Zabaleta

Legez kanpo eraikitako bi jatetxeri su emateko agindu **«inplizitua»** eman izana aitortu zuen Bonnetek. Berria - Mundua

Ikaste espliziturako lobulu tenporalen erdialdeko sistemaren osotasuna beharrezkoa bada ere, ikaste **inpliziturako** bide primitiboago eta lausoagoak erabil daitezke. Xabier Olarra

Beste batzuk **inplizituak** dira, barruko kultur heziketan daude. horiek banku pribatuak izaten dira gehienetan, eta beren estatuen babesa izaten dute, **inplizitua** edo esplizitua, beren eskubideak betearazteko unean. Koro Navarro

---

**inplizituki** *adlag* era inplizituan.

Liburu honetan, aurrerantzean, ikuspegi kontruktibista hartzen da **inplizituki**. Josu Zabaleta

Irudikapen orok bere barruan **inplizituki** daraman "errealitatea baltsamatzeko" desiraren adierazpen nagusietako bat. Josu Zabaleta

Lege zibil orok zigorra daramala bere baitan, esplizitu edo **inplizituki**. Esteban Antxustegi

Kategoria horiek guztiz orokorrak direla ikusi dugu, eta, horregatik, **inplizituki** edo esplizituki erabiliak izaten dira izatearen edozein esparruri buruzko teoriak eraikitzen ditugunean. Askoren artean

Ea onartzen zituen nire liburuak, **inplizituki** nahiz esplizituki, ematen zituen epai-iritziak. Juan Garzia

Hitz hauekin, Venezuelako enpresarien buruak, **inplizituki** bada ere, erreferendumeko porrota onartu zuen atzo. Berria - Mundua

---

**inplosibo** *izond* kontsonanteez mintzatuz, bokal edo silabagune baten atzean dagoena.

Hots esplosiboen eta **inplosiboen** arteko bereizketa. Isabel Arrigain

Kontsonante eiektibo eta **inplosiboak,** aire-etorriari dagokiola, glotis-mekanismoaz (*glottalic airstream mechanism*) sortzen direla esan ohi da. Lourdes Oñederra

Itxierari inplosioa deitu zaio, eta irekierari esplosioa; p bati **inplosiboa** (p>) edo esplosiboa (p<) esaten zaio. Isabel Arrigain

Gogoan izan behar da kontsonante eiektiboak ahoskabe izaten direla, baina **inplosiboak** ahostun izaten direla. Lourdes Oñederra

Azterketak frogatzen digu sonanteak betiere **inplosiboak** direla. Isabel Arrigain

---

**inplosio** 1 *iz* barne presioa kanpo presioa baino txikiago den gorputz bat barnealderantz indarrez haustea.

Uhinaren presio positiboa iristean, burbuilako lurrina kondentsatu, eta prozesu osoan lortutako energia eskualde txiki batean biltzen da: burbuilaren **inplosioak** -hertsidura bortitzak alegia- mugatzen duena. Fernando Morillo

Lehenbizi musika egokia lortu, eta ondoren konprimitu, **inplosio** baten bitartez. Fernando Morillo

Horregatik ez dira errazak lortzen **inplosio** simetriko horiek. Fernando Morillo

**2** kontsonantez amaitzen den silaban gertatzen den aire irteeraren itxiera.

Itxierari **inplosioa** deitu zaio, eta irekierari esplosioa; p bati inplosiboa (p> ) edo esplosiboa (p< ) esaten zaio. Isabel Arrigain

Lehen **inplosio** baten eta lehen esplosio baten artean desberdintasun hau dago: esplosioak, ahoaren kokaera neutroa eragiten duenez, ez du hurrengo momentua oztopatzen; **inplosioak,** aldiz, beste edozein esplosioren abiapuntu izan ez daitekeen kokaera jakin bat sortzen du. Isabel Arrigain

---

**inpoildu,** inpoil, inpoiltzen du *ad ipar* enpoildu.

Nora doa gure lurra, zalapartek inarrosita, ondarkinek eta goitikoek **inpoildua**? norat ari dira, jo harat-jo hunat erabiliak diren langileak? Herria

---

**inponente** *izond* ikaragarria, sekulakoa.

Walt Whitmanen erretratu **inponente** bat zegoen entziklopedian. Unai Elorriaga

Mailukia **inponentea** zen. Unai Elorriaga

---

**inporta** *iz* garrantzia.

Laborarientzat maiatza ditake hilabete kargatuena eta aroak **inporta** haundia du. Herria

*ik* inporta izan 7.

---

## inporta izan, inportako 1 zaio *ad* axola izan.

Hori zuri ez zaizu **inporta**. Berari **inporta** ez bazaio, zergatik **inporta** behar zaizu zuri? Josu Zabaleta

"Eta zer **inporta** zaidak niri?", erantzun nion muturtuta. Bernardo Atxaga

Eni, **zer** inporta zait de Gaulle ala Mitterrand. Herria

Ez zait **inporta** etikari pixka batean huts egitea horrela justiziaren alde egiten badut... Fernando Rey

Ez zait **inporta** zer den -esan nuen-. Fernando Rey

Baietz ziotenen arrazoiak **inporta** zaizkigu. Pello Zabala

**-Inporta** zaizu hemen gelditzen banaiz bazkaltzera? Fernando Rey

**-Inporta** al zaizu probatzea? Jasone Osoro

Ez zaidak **inporta** hilabete txar bat pasatzea. Bernardo Atxaga

Ez zaio **inporta,** entzun beza. Eneko Bidegain

Nortaz ari nintzen ez zekien noski, baina guti **inporta** bide zitzaion. Aingeru Epaltza

Eta ez zait batere **inporta**! Fernando Rey

Ez omen zaio zipitzik ere **inporta..**. Pello Zabala

-Niri hainbeste ere ez zaidak **inporta** -esan zuen lagunak. Koro Navarro

Bizitza oso baten erreferentzia galdu dute pertsona horiek, baina badirudi inori ez zaiola **inporta**. Edurne Elizondo

Hitz egin dezaten **inporta** zaizkien gauzez. Berria - Kultura

Oraingo honetan ez zaio **inporta izan** ingurumena, ez bere eraikinen erabiltzaileen ongizatea. Patxi Iturritegi

**Inportako** ez zitzaion, ba, zein eguraldik lagunduko zion! Pello Zabala

Janariarenak, egia esan, ez lidake askorik **inportako,** beste gauza batzuk atseginagoak balira behintzat. Josu Zabaleta

### • 2 dio *ad*

Zu ere haren parte zara, baina ez dizut esango nola, ez dio **inporta**. Karlos Zabala

Bazekien, baina ez zion **inporta,** jarrera pragmatiko-egozentriko ibiltaria zen harena. Karlos Zabala

Baina, ez dio **inporta,** ez axola. Pello Zabala

Ez dit pipertxorik **inporta** zuhaitz dontsu honi buruzko sineskeriak. Pello Zabala

Aa **inporta** zien sozietatearen kide gisa agertzea. Karlos Zabala

-Eta irribarre egiten du **inporta** ez diola adierazteko. Koro Navarro

Azkenekoan ez zizun asko **inporta izan,** ezta? Iñaki Mendiguren

Ez nuen uste **inportako** zionik. Karlos Zabala

### • 3 da *ad*

Bost axola Eliotek beste ikuspegi bat izatea, **inporta** dena zera duk, niri zer esaten didan, nire galderentzat erantzunik baduen ala ez. Iñaki Iñurrieta

Eta horixe da, hain zuzen, **inporta** den gauza bakarra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

### • 4 du *ad*

-Horrek ez du **inporta**. Lourdes Oñederra

Zu baino zaharragoa naiz..., baina zer **inporta** du horrek? Fernando Rey

Eta hala balitz ere, zer **inporta** du? Fernando Rey

Zer **inporta** du ongi edo gaizki dauden, hemendik laster Hitler etorri eta denak akabatu behar bagaitu? Fernando Rey

Azken batean zer **inporta** du? Fernando Rey

Ez du **inporta** zer esaten den. Karlos Zabala

Hasieran, ez du **inporta,** baina gero aspertzen hasten zara. Karlos Zabala

-Ez dik **inporta**. Sonia Gonzalez

Baina gutxi **inporta** zuen nor zen. Fernando Rey

Inork ez du hitz egiten **inporta** duten gauzez. Berria - Kultura

Handik aurrera ezerk ez zuen **inporta** izan. Koro Navarro

Pilota Euskal Herrikoa da, bertzek **eztute** inporta. Herria

Herritar eta kidekoen artean gertatzen denak **inportako** ez balu bezala. Iñaki Segurola

### 5 (laguntzailea ezabaturik)

**Inporta** ez niri, arnasa hartzen utzi nion une batean eta gero berriz bultzatu nion burua eta orgasmo bat izan nuen hantxe bertan. Karlos Zabala

Asko **inporta** berari! Pello Zabala

-Eta niri asko **inporta**! -esan zion Ninik sorbaldak jasoz, alai, haserre punturik ere gabe. Josu Zabaleta

Hilabete errenazentistak izan ziren, florentziarrak, baina niri **inporta** ez, gustura ere ibili nintzen. Karlos Zabala

Eta zer **inporta**! hitz egitea da garrantzitsuena. Itxaro Borda

Etxarri lantegia likidatzeko xedea duzue: zer **inporta**? Itxaro Borda

**-Inporta**? -galdetu zion Einsteini, esku urdurian agertutako zigarroa erakutsiz. Fernando Morillo

### 6 *bost inporta*

Sutan zegoen, baina bost **inporta** zait, egia esateko. Eta okerrena, jende gehienari azken batean **bost inporta** zaiola herrietako euskal prentsa. Xabier Mendiguren Elizegi

Oso aztoratuta zebiltzan, baina bost **inporta** guri. Karlos Zabala

Bost **inporta** niri nor dagoen inguruan. Karlos Zabala

**Inporta** zitzaiguan bost. Josu Zabaleta

· Bost **inporta,** galgarritasun horrek ere: Urrian ehiztaria, goizean goiz atzarria. Pello Zabala

-Horri, ordea -esan zuen Eligiok-, **bost inporta** bonbardaketak ere: polita zen, e, Campoformido-ra joatea! Josu Zabaleta

### 7 *inportarik* (*4 agerraldi, liburu 1 eta artikulu 1ean] /i_nportik [10 agerraldi, 5 liburutan)* *izan*

Hark itxurak egiten zituen, ez zitzaiola **inportik,** baina mendekatu zen ederki. Koro Navarro

Niri ez zait batere **inportik** jaun honek zer iritzi duen gutaz, baina gustatuko litzaidake oker dabilela frogatzeko aukera izatea. Koro Navarro

Ez zaizue **inportik** zauden-zaudetenean abiatzen bagara, ezta? Aingeru Epaltza

· Pixka bat garestia ere bada, baina ez dio **inportik,** zeren bankuan kreditu pertsonala lortzea oso erraza da. Jon Arretxe

Horrek ez dio **inportarik** gure tenporen arabera. Pello Zabala

· Matxinoa baldin bazara, ez du **inportarik** Egipton bizi edo beste nonahi bizi. Berria - Kultura

---

**inportante** *(638 agerraldi, 104 liburu eta 212 artikulutan; ETCn 8.234 agerraldi; orobat* ***inportant*** *66 agerraldi, 5 liburu eta 27 artikulutan; ETCn 528 agerraldi)* **1** *izond* garrantzitsua.

ikustekoa zen nola bai batak bai bertzeak goraipatzen zuten liburuaren zati **inportant** hura. Joan Mari Irigoien

Eta huraxe zela esatekoa nuen gauza **inportantea**. Patxi Zubizarreta

Zigorra "pedagogiaren" tresna **inportantea** zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Estadoak lehen errefuxiatu **kanporaketa** inportanta egiten du 86 ko udan. Herria

Beote baserria bidegurutzea zen, toki **inportantea** Gerra garaian mugimenduak hasi zirenean. gizona erailtzen duenari edo idazki **inportante** bat faltsutzen duenari. Xabier Etxabe

Pasaporte berezia zen, aberrigabe **inportante** batzuei ematen zietena. Fernando Rey

Gure gizon handi eta **inportantea** zeinen txiki eta bihurri bilakatzen zen bere "maskulinitatea" nire mingainarekin inguratzen nuenean! Jasone Osoro

Nire bizitzako lehen erabaki **inportantea** hartu nuenean . Mikel Hernandez Abaitua

Aurki berri **inportanteak** izango ditugu. Txillardegi

Beste puntu **inportantea** : diplomadun guziek lana jadanik atxemana dutela. Herria

Sugea ere giza ahalmen bat da, irudimena, gizakiaren atal **inportantea,** baina deabruaren ekintzarako oinarri izan daitekeena. Xabier Kintana

Hauexek dira haren bi alderdi **inportanteenak,** haren bizitza osoa eta haren gogo osoa hartu zutenak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hori esanda, *Gidaria*ren irakurketari buruzko tesiaren gauzarik **inportanteenera** heldu gara. Xabier Kintana

Beste bazkari bat heldu zaigu, biziki **inportantea** . Herria

Oihenart gizon **biziki** inportanta izana da bere denboran. Herria

-Oso **inportantea,** epaile jauna -erantzun nuen-. Fernando Rey

Hori oso **inportantea** iruditzen zait. zuk emandako aginduak ez zaizkiola ahaztu esan du, baina gaia **inportantea** bezain presazkoa iruditu omen zaio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Inportantea** sentiarazi nau, baina ez dit ezer esan egunkariko argazkiaz. Anjel Lertxundi

**2** ***inportantea izan*** (inpertsonalean)

**Inportantea** da xehetasun garrantzitsu bat nabarmentzea. Xabier Kintana

**Inportantea** da denetarik zerbait ikastea, gero ere izango duzu gauza bakar bati heltzeko aukera. Anjel Lertxundi

Horregatik oso **inportantea** da bereiztea zer den konbentzio hauen ondorio eta zer gizonen arteko hitzarmen, gizonen arteko harremanetan lege-esparru batzuen barruan joka daitekeelako. Juan Martin Elexpuru

Auzi ideologikoa bezain **inportantea** zen irudiarena niretzat, eta halaxe ikusten nuen nik: partidu gaztea, jende gaztez osatua, konprometitua, eta modernoa gainera. Xabier Mendiguren Elizegi

Hiriarentzat **inportantea** izango dela iradoki diot. Anjel Lertxundi

· Euskal Herriak Québec-i erakasten ahal dio zoin **inportanteak** diren "frantseskiak" eta gurea nola salbatu, Québec-en. Herria

Zergatik uste duzue dela horren **inportantea** borondatea? Xabier Mendiguren Elizegi

Kontua da niretzat ikaragarri **inportantea** zela hark bi izen izatea, bata egiazkoa eta bestea faltsua. Matías Múgica

Hori preseski iduritzen zaut biziki **inportantea** dela: besteeri hitza ematea eta besteen hitzarekin kondatzea. Menane Oxandabaratz

Arras **inportanta** edo garrantzitsua da hitzen erran-nahi xuxenaren jakitea... Menane Oxandabaratz

Horixe duk **inportanteena**. Bernardo Atxaga

---

**inportantzia** *(97 agerraldi, 26 liburu eta 25 artikulutan; ETCn 879 agerraldi)* *iz* garrantzia. ik **garrantzi**.

Material etnologiko-folkloriko honek guztiak **inportantzia** handia izango du. Berria - Kultura

Aiten aitek landatua, haiengandik ukana, mahastiak bazuen garrantzi edo **inportantzia** gaitza. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Antso Handiaren bizian **inportantzia** handikoak izan ziren Urraka axama eta Ximena ama. Herria

Diferentzien **inportantzia** edo **inportantziarik** eza, ez dago diferentzietan, diferentzion kontsiderazio moldean baizik. Joxe Azurmendi

Gazte idealista bat zuan, heziketari sekulako **inportantzia** ematen ziona. Joan Mari Irigoien

Gazteria modernoaren gaitzik nabariena horrexetan sumatzen dut: nahiz eta arrunt desmaneratuak iruditu, artifiziozko manerari ematen dioten **inportantzia** osoan. Patziku Perurena

Atentatua saihesteak duen **inportantziak** baimentzen du zigorra. Juan Martin Elexpuru

Baina orduan amaren lotsak eta ez neureak ere ez zuten **inportantziarik**. Matías Múgica

Gure arbasoek, erlijio faltsu batek itsututa, kriminaltzat jotzen zituzten jokabide asko eta asko ezdeusak eta **inportantzia** gabeak direla. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Inportantziarik** gabeko ekintzei edota jendearentzat onuragarriak direnei. Juan Martin Elexpuru

---

**inportatu**, inporta, inportatzen du *ad* herrialde batek atzerriko salgaiak bertaratu.

Salgaiak **inportatu** edo esportatu ahal izateko behar den dibisen salerosketarekin. Iñaki Heras

Txinak 110 milioi tona petrolio **inportatzen** ditu urtero. Berria - Ekonomia

Janari eta edarien **%90** inportatu egin behar ditu. Berria - Mundua

Munduko eremu egongaitzetatik **inportatzen** den petrolioaren menpekoa da Amerika. Berria - Mundua

Armak **inportatzen** aritu dira azken asteotan. Berria - Mundua

Portugali, hortaz, ingeles oihala **inportatzea** interesatzen zaio. Koro Navarro

Venezuelak kontsumitzen dituen gauzen %70 **inportatzen** du. Pako Aristi

**Inportatu** baino %82 gehiago esportatu zuten enpresa arabarrek. Berria - Ekonomia

Londresetik arte lanak **inportatzen** zituela, Madrilen saltzeko batez ere. Ramon Saizarbitoria

Greziatik erromatar aberatsek **inportatzen** zituzten esklabo eskolatuen antzeko baikinen. Juan Garzia

Lan desatsegin eta oinarrizkoenak egiteko zuria ez zen jendea **inportatu** zen eskualdeetan. Iñaki Mendiguren

Asiatik **inportaturiko** zeta behar zuten. Koro Navarro

Merkatariek **inportaturiko** luxuzko ondasunak eskuratzeko. Koro Navarro

**2** *irud*

Dena den, demokrazia ezin dela **inportatu** uste dugu. Berria - Mundua

Badirudi Europan bertan azken hamar urteotan Reich-ek berak miresten ez zuen eredua **inportatu** dela, eta eredu hori ari dela nagusitzen. Iñaki Heras

Tira, adinaren kontua izango da, gorroto diot "hirugarren adina" esapide horri, amerikarren beste zurikeria bat, gaurgero **inportatuak** ditugun hainbesteren artean, amerikarrak eufemismo zuriaren erregeak dira. Karlos Zabala

**3** (era burutua izenondo gisa)

Ondasun **inportatuen** kontsumoa. Koro Navarro

Dibisen sarrerek produktu **inportatuen** kontsumoa areagotu zutenean. Koro Navarro

Izan ere, kapital faltak oso lotura estua izaten du aurrerabide teknikoak **inportatuak** izatearekin. Koro Navarro

«Kontsumoaren estandar **inportatuetatik** landa», jolasa, sormena eta parte hartzea bultzatzen duen astialdirako eskaintza berezia izango da. Berria - Kultura

---

# inportatzaile *izond/iz* inportatzen duena.

Herrialde **inportatzaileen** nazio-errentei eragindako diru-hustea handiagoa edo txikiagoa izan zen mendekotasun energetikoaren mailaren arabera. Koro Navarro

Italiak ahalik eta gas gehiena erostea gomendatu zien enpresa **inportatzaileei** abenduan. Berria - Mundua

Bezero **inportatzaileen** eskakizun gero eta handiagoen zioz. Bego Montorio

Gaien esportatzaile eta produktu manufakturatuen **inportatzaile** izaten jarraitu zuen. Koro Navarro

Alemania, Italia eta Frantzia dira Errusiako gasaren **inportatzaile** nagusiak. Berria - Mundua

India, kotoi-ehunen esportatzaile izatetik, **inportatzaile** izatera igaro zen 1830ean. Koro Navarro

Madrilgo **inportatzaile** jordaniar batek ekarria dela. Hasier Etxeberria

---

# inportazio 1 *iz* inportatzea.

**Inportazioaren** gaineko debeku oro ezabatzea. Koro Navarro

Gariaren **inportazio** librean. Koro Navarro

Bruselak debekatu egin baitzuen hormonaz gizendutako behikiaren **inportazioa**. Berria - Ekonomia

**Inportazioak** aseko du bertako eskaria. Koro Navarro

Alpapa eta ahuntz-larruak esportatzeari utzi, eta **inportazioetan** espezialdu ziren. Pablo Sastre

AEBetako produktu batzuen **inportazioa** zigortu du Ebk. Berria - Ekonomia

New Yorkeko **inportazio** eta esportaziorako enpresarik zaharrenetako eta prestigiotsuenetako bat... Lopez de Arana

**2** *pl* inportaturiko salgaiak.

Murriztu egingo da portugaldar **inportazioen** balio orokorra. Koro Navarro

Estatuak **inportazioen** kontrako oztopoak ugaltzen hasi zirelako. Koro Navarro

**Inportazioen** bolumena modu ikusgarrian hazi baitzen. Koro Navarro

**Inportazioak** geldotu eta esportazioak bultzatu nahian. Berria - Ekonomia

**Inportazioak** %2,1 handitu dira. Berria - Ekonomia

**Inportazioen** kontrolean, aurrekontu-laguntzetan, hobarietan eta kredituaren esleipenean oinarriturik. Koro Navarro

Salatu du zenbait ehunetan %1.000 hazi direla Txinako **inportazioak**. Berria - Harian

AEBetarako **inportazioak** 153.000 milioi dolarrekoak izan ziren eta esportazioak, berriz, 98.100 milioikoak. Berria - Ekonomia

Gerraren eraginez, Indiatiko **inportazioak** bertan behera geratuak ziren. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alabaina, ekonomiaren **inportazio**-ahalmena nekazaritza-sektoretik etorritako esportazioko sarreren mendeko zen. lana eman zidan **inportazio** negozioan. Koro Navarro

Kanpoko zorraren metaketari esker bakarrik eutsi ahal zitzaion **inportazio**-mailari. Koro Navarro

Herrialde batek, beraz, gehiago irabaziko du trukean zenbat eta sendoagoa izan **inportazio**-eskariaren prezio-elastikotasuna, eta zenbat eta ahulagoa izan esportazio-eskaintzaren prezio-elastikotasuna. Koro Navarro

Altzairuzko hainbat produkturen gainean ezarri zituen **inportazio** mugasaria. Berria - Ekonomia

**Inportazio** kopuru mugatuak bertan behera utzi direnetik. Berria - Harian

**Inportazio**-esportazio enpresa bateko bulegari zaildu eta trebatua. Joxemari Iturralde

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Txinako petrolio **inportazioak** %40,7 igo dira uztailean. Berria - Ekonomia

Altzairu **inportazioei** mugasaria ezarri die Txinak. Berria - Ekonomia

Banana-**inportazioen** bitartez. Juan Garzia

Makina-erreminta **inportazioak** apur bat suspertu dira Estatu Batuetan. Berria - Ekonomia

Labore **inportazio** eta esportazio kontuak. Matías Múgica

**4** ***inportazioko*** *izlag*

**Inportazioko** prezioen bilakaerak. Koro Navarro

**Inportazioko** merkataritza ere ikasten ari naiz. Lopez de Arana

Handik denbora gutxira, **inportazioko** Golf bat erosi nuen. Juan Kruz Igerabide

---

# inposaketa *(115 agerraldi, 5 liburu eta 87 artikulutan)* 1 *iz* inposizioa.

Bazekielako Marcel Martinen izaerari ez zegokiola **inposaketarik** onartzea. Ramon Saizarbitoria

Konstituzio markoaren **inposaketa** bermatzeko. Berria - Euskal Herria

Ezin dugu etorkizuna **inposaketaren** gainean eraiki. Berria - Euskal Herria

Ez inposatu inori zuri inposatu zizuten ezer, batez ere **inposaketa** horrek zuregan amorrua, tristura edo herra sortu baldin bazuen. Pako Aristi

Bilbon eta Baionan egin dituzte elkarretaratzeak «Espainiaren eta Frantziaren **inposaketaren** aurka». Berria - Euskal Herria

Espainiar **inposaketari** ez, frantziar mespretxuari ez. Berria - Euskal Herria

Noiz bukatuko da Espainiako Gobernuaren **inposaketa** eta indarkeria? Berria - Euskal Herria

**Inposaketei** aurre egiteko eskatzen diogu Azkunari. Berria - Euskal Herria

Hauteskundeak **«inposaketa** hori salatzeko» erabiliko dituztela. Berria - Euskal Herria

**Inposaketaren** bidea baztertzeko eskaera. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Ezker abertzaleko zenbait erakunderen ustez, baina, **«inposaketa** eguna» da gaurkoa. Berria - Euskal Herria

· Segik hizkuntz **inposaketa** salatu du Donostian. Berria - Euskal Herria

Estatu **inposaketaren** aurrean kateak apurtzeko konpromisoa berretsi dugu gazteok. Berria - Euskal Herria

---

**inposatu**, inposa, inposatzen **1** du *ad* bortxaz ezarri.

Herrietan berek nahi dutena **inposatzen** duten jauntxoak. Elena Touyarou

Iraultzaileek hika mintzatzea **inposatu** zuten frogatzeko denak, gizon edo emazte, orobat direla. Elena Touyarou

Uko egin bainion **inposatu** zidaten terapiari, apeztu aitzin, apez egiteko. Piarres Aintziart

Horrela **inposatzen** dizkiote gustuak eta higuinak. Itziar Otegi

Bi errauste planta **inposatu** nahi dituztelako. Berria - Euskal Herria

Osasun profesionalen iritzia aintzat ez hartzea, proiektua **inposatzea** eta herriari eztabaida eta erabakia lapurtzea. Berria - Euskal Herria

Bozkatu gabe, **inposatu** egin du Villepinek Berdintasunerako Legea. Berria - Ekonomia

Legea indarka **inposatzeko** . Elena Touyarou

Lege sinbolikoaz ari gara, arauen gainetik **inposatzen** den lege tautologikoaz. Joseba Zulaika

Lege sinkronikoa […] erabilera kolektiboaren hertsadura dela medio **inposatzen** da gizabanakoetan. Isabel Arrigain

Nafarrei inork ez die deus **inposatuko** . Berria - Euskal Herria

Ez **inposatu** inori zuri **inposatu** zizuten ezer, batez ere inposaketa horrek zuregan amorrua, tristura edo herra sortu baldin bazuen. Pako Aristi

**Inposaturiko** tradizioaren eta gizartearen ekintza librearen arteko balantza. Isabel Arrigain

**Inposaturiko** jairik gabeko egutegia eskatu die LABek erakundeei. Berria - Harian

Lizarraga jeneralak **inposatutako** ohiturari jarraituz. Txillardegi

Aurretik ezer pentsatua eduki gabe; **inposatutako** eredurik gabe. Luis Elberdin

Uste zuen gabezia mingarri bat **inposatzen** ziola bere buruari. Itziar Otegi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Adierazle hori erabiltzen duen gizatalde linguistikoari dagokionez, aldiz, ez da librea, **inposatua** baizik. Isabel Arrigain

LABen irudiko, erreforma **«inposatua»** izango da atzera ere. Berria - Harian

«Proiektu **inposatuak»** jendartean eragin duen desadostasuna. Berria - Euskal Herria

---

**inposatzaile** *izond* inposatzen duena.

Eusko Jaurlaritzaren jokabide **inposatzailea** arbuiatzeko. Berria - Euskal Herria

5.352 zornotzarrok proiektu **inposatzaile** horren kontrako botoa eman genuen. Berria - Euskal Herria

Bere ustez, gaur egun komunikazioaren paradigmatzat hartzen den Lasswell-en ohiko eredu hori -igorlea-kanala-hartzailea-(feedback)-igorlea- ez da benetakoa, guztiz hipotetikoa izateaz gainera, erabat autoritario, bertikala eta **inposatzailea** delako. Txema Ramirez de la Piscina

---

**inposatze** *iz* bortxaz ezartzea.

PSOEren gobernuak **inposatze** -egitasmo horrekin jarraitu nahi duela. Berria - Euskal Herria

---

**inposible** *izond* ezinezkoa.

Nik hire amodio **inposible** hura gogoratzen diat. Joseba Sarrionandia

Integrazio proiektu onest bat logikoki **inposiblea** da, beraz, a priori? Joxe Azurmendi

**-Inposiblea,** zergatik? Jesus Mari Mendizabal

Bonaparte ibilera arinez hurbiltzen ausartu da, baina **inposiblea** zaio Parisen sartzea. Iñigo Aranbarri

---

**inposizio** *(129 agerraldi, 6 liburu eta 95 artikulutan)* **1** *iz* inposatzea, bortxaz ezartzea.

Abusua, **inposizioa** eta indarkeria galaraztea. Luis Elberdin

Gizasemeak oso urrutira eraman zuen bere ereduaren **inposizioa** . Luis Elberdin

Servetek gertutik ezagutu zituen erreformatzaile gailenak [...] eta ez zuen inoiz arrazoiaz beste **inposiziorik** onartu nahi izan. Askoren artean

Gizarte eztabaidaren aurrean, **inposizio** hutsa, larderia askotan, jaso dugu. Berria - Euskal Herria

Ez du sektorearen oniritzia jaso, **inposizio** hutsa da. Berria - Harian

Bazakiat hau **inposizio** gaiztoa dela, baina norbaiten senarra sutan zagok eta kontu handiz ibili behar diagu. Lopez de Arana

Nazioarteko merkatu hori eraikitzeko, logika kapitalistaren **inposizio** ekonomikoen aurrean makurtu beharko dutela. Berria - Harian

Eta totalitarismo horien barruan, literatura politikaren luzapen edo apendize bilakatzen zuen **inposizioaren** aurka aritu zen. Berria - Kultura

Gizarte atzerakoiaren **inposizioetatik** ihes egiteko. Berria - Kultura

Ez zitzaidan iruditzen hautuz eta askatasun osoz sortutako harreman mota zenik, **inposizioz** baizik, eta, horregatik, familia kontzeptua gorrotatu egiten nuen. Ana Urkiza

Bortxaz eta **inposizioz,** mugak Ebrotik Bidasoara ekarri ziren. Joxe Azurmendi

**2** (hitz elkartuetan)

Gatazka eragiten duen **inposizio** egoera aplikatzen zaio Euskal Herriari. Berria - Euskal Herria

Jokaleku berrira iristeko, **«inposizio** garaiak» bukatu behar direla ohartarazi zuen. Berria - Euskal Herria

Haren "modernitate" primitibo haizejoaren eta zure ezezagutzaren atzean, Espainia modernoaren **inposizio** historia guztia dago ezkutatua. Joxe Azurmendi

---

**inposta** *iz* arku bati eusten dion harlandu irtena.

Ebakidura hori geratzen den lekuan koka bitez pasabideen **inpostak** ; horrekin behar adinako altuera izango du gangadurak. Santiago Iruretagoiena

---

**inpostatu** *izond* artifiziozkoa, itxurazkoa.

Bazeukan halako sentiberatasun berezi bat jendeak erakusten zuen kualitate fisikoarekiko, gehienetan erdizka berezkoa eta erdizka **inpostatua,** ikasia, faltsua izaten dena. Jon Alonso

Literatura ona egiteko fedea eta sentimendua askotan oztopo ere badirela erantzun nion, gaztetan egiten baita literaturarik mimetikoena, mediokreena, **inpostatuena** .

Joxean Agirre

---

**inpostazio** 1 *iz* ahotsa berezko tesituran kokatzea.

**Inpostazio** oso arinez. Berria - Kultura

2 *irud*

Bazeukan halako sentiberatasun berezi bat jendeak erakusten zuen kualitate fisikoarekiko, gehienetan erdizka berezkoa eta erdizka inpostatua, ikasia, faltsua izaten dena, primitibotasunetik gertuko aleetan baizik ezin baitzen topa ia **inpostaziorik** gabeko tesitura egiazkorik. Jon Alonso

---

**inpostore** *iz* beste pertsona batena egiten duen pertsona.

Haren adiskide batek hildakoarena egin, eta gure **inpostoreak** berpiztu egin zuen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez zen samurra izan, baina bahitu zuten azkenean **inpostore** nazkagarri hura, komediante askojakina. Harkaitz Cano

Adierazi nahi genuke Brown jauna errugabea zela, ez zela **inpostore** bat, eta, beraz, bere burua defendatzeko gezur errukitsu batzuk asmatu behar izan zituela ezinbestean, ez maltzurkeriaz, Karlos Linazasoro

---

**inpostura** *iz* nortasun iruzurra, engainua.

Benetako idazleak mozorroaren profesionalak dira, **inposturaren** maisuak, antzaldatzen iaioak. Joxean Agirre

Ez dut bereziki maite intelektualismoa, baina baserritarrismoa, nire kasuan, **inpostura** hutsa litzateke. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**inpotente** 1 *izond* ahalmenik gabekoa.

Pentsamendu berriak sistema hegeliar bera sistema **inpotentea** zela azpimarratu zuen, potentzialitate hutsez egina, baina Borondate irrazionalaren ekintzarik gabe gauzatu ezin dena. Joseba Zulaika

Eskuak magalean dauzkazu geldirik, etzanda bezala, **inpotente**. Lourdes Oñederra

• 2 *izond/iz (sexu ahalmenari dagokionez)*

Eunuko **inpotente** bati ez zaio ezer barkatzen, ez zaio ezer sinesten. Karlos Linazasoro

Pfizer konpainiaren arabera, gizonen %40 **inpotenteak** dira. Berria - Gaiak

Nire bigarren senargaia maritxu porrokatua zen eta erdi **inpotentea,** baina harekin ezkontzeko zorian egon nintzen. Karlos Zabala

**Inpotentea** zehazki, agian ez, baina antzua bai, Marilyn Monroerekin flirt-ean zebilen garaian. Ramon Saizarbitoria

Kartzelako egonaldiak **inpotente** bihurtu ote zuen? Migel Angel Mintegi

---

**inpotentzia** 1 *iz* ezintasuna.

Estatuak bere errepresio-indarraren azalpen nagusia egiten duelakoan, **inpotentzia** besterik ez du azaltzen. Joseba Zulaika

Jainkoaren **inpotentzia** jendearen sufrimenduari buruz, egite kreatzailearen ondorio bat da. ahots propioak, eztabaidak eta gure juja ahalmenak, indarrik ez balute bezala, erabateko **inpotentzian** barna amildu ziren. Piarres Aintziart

Eta Kako-oker itsasontziaren bizkarrean, **inpotentziaz** betetako ezpata-kolpeak botaz. Julen Gabiria

Kako-oker dohakabea, **inpotentziak** jota eta izerditan, aurrerantz erori zen, moztutako lore baten antzera. Julen Gabiria

Hurbileko norbaitek betiko alde egiten digunean ezinmina sentitzen dugunean bezala, **inpotentziaren** mina sentitzen dugunean bezala. Unai Iturriaga

2 sexu ezintasuna.

Isabel II.aren negela eta amorru erotikoa; haren senarraren **inpotentzia**. Josu Zabaleta

Internet bidez saltzen diren **inpotentziaren** kontrako zenbait botika arriskutsuak direla. Berria - Gaiak

Albo ondorioak: orain arte inoiz ez du gernu inkontinentziarik eta **inpotentziarik** eragin. Berria - Gaiak

3 (hitz elkartuetan)

Senarra, aldiz, **inpotentzia** arazo gaindiezinak alegatuz, berriro itzuli zen muino bakartu hartara. Josetxo Azkona

Halako kasuetan **inpotentzia** sentsazioa sortzen da. Berria - Euskal Herria

Paueko prefetak erraten duenean ez duela euskal departamendurik aipatu nahi, ez eta ere euskal presoen hurbiltzerik Espainiari begira, **inpotentzia** aitorpen bat egiten du. Berria - Euskal Herria

---

**inprebisible** *iz* ezin aurreikusizkoa, ustekabekoa.

Ukitu literarioa eman behar horretan, **inprebisiblea** eta perbertsoa zen batzuetan samurtasun eta drama gehiegizkoetatik aparte. Berria - Kultura

---

**inpregnatu**, inpregna, inpregnatzen **1** du *ad* biziki barneratu

Ez da harritzekoa izango hain lur-zabalera handian ezin konta ahala zuku-barietate egotea ere, eta lur horren zainetatik dabilen uraren indarra haiekin **inpregnatuta** egotea iturrietatik kanpora irteten denean. Santiago Iruretagoiena

2 biziki kutsatu

. Ortega-ren ikusmoldeak arrazialismo sarkor batek **inpregnatuak** dira. Joxe Azurmendi

---

**inprenta** *(91 agerraldi, 36 liburu eta 21 artikulutan; ETCn 974 agerraldi)* **1** *iz* inprimatzea, paperaren edo kideko gairen baten gainean testu edo irudi batean hatza mekanikoki uzteko tekniken multzoa.

Noiz asmatu zuen Gutenbergek **inprenta**. Joxerra Garzia

Merkataritza suspertu egin da **inprentak** zabaldu dituen egia filosofikoen argira. Juan Martin Elexpuru

Pragako kopistek deabruaren asmaziotzat jo zuten **inprenta** eta matxinatu ere egin ziren lehendabiziko **inprenta** hirira heldu zenean. Anjel Lertxundi

**Inprentak** kulturaren "demokratizazioa" baitzekarren. Anjel Lertxundi

Teknikak kultura batetik bestera doaz, gurpil, uztarri, iparrorratz edo **inprentaren** kasuetan bezala. Askoren artean

**Inprentaren** teknologiak liburua du ikur nagusi. Joxerra Garzia

Horrek **inprentako** gastuak ordaintzeko baino ez du ematen. Berria - Kultura

1829. urterako, Sequoyahk asmatutako ikurrak **inprentako** tipoak egiteko egokituta zeuden, eta aldizkariak argitaratu ziren cherokee hizkuntzan, Sequoyahk asmatutako idazkera-sisteman. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nire izena **inprentako** karaktere gotikoekin idatzia zegoen gutuna. Fernando Rey

**Inprentako** hutsak dira lapsus hauetako batzuk. Iñaki Arranz

**2** (hitz elkartuetan)

**Inprenta** -akats bat izan zitekeela pentsatu nuen. Iban Zaldua

Ez da **inprenta** hutsa, ez. Joxean Sagaztizabal

**Inprenta** -probak zuzentzen. Fernando Rey

**Inprenta** -letrak golde muturrak bezala metalezkoak baitziren. Felipe Juaristi

**Inprenta** lanetan aritzen ez zenean, itzultzailearen nekeak hartzen zituen gainean. Felipe Juaristi

Gastuei egunero egin behar diegu aurre; soldatak, **inprenta** gastuak, banaketa... Berria - Harian

**Inprenta** usaina baino gehiago duten liburuak. Berria - Kultura

Emakume hura bizi-gogoz beterik zegoen hantxe agertu zitzaigularik bere **inprenta** -kutxa freinetarrarekin, bere ipuinekin, gu tratatzeko modu adeitsu eta eztiarekin. Juan Kruz Igerabide

**3** inprimategia.

Gero Rafael Caro Raggio-k bertan jarri zuen **inprenta** eta argitaletxea. Josu Zabaleta

Kontatu zidan hiriko **inprenta** ofizialean bando bat ari zirela inprimatzen. Felipe Juaristi

**Inprenta** batean lan egiten du. Felipe Juaristi

**Inprentako** lur zolan bata bestearen gainean anabasa ederrean pilatzen ziren, paper zaharrarekin batera -letrazko gerraren hondakin, orri idatziak izatera iritsi ez zirenak [...]. Felipe Juaristi

Biografoaren lana, hainbat eta hainbat eskuizkribuz osatua, prest dago **inprentara** eramateko. Anjel Lertxundi

*Gara* egunkariaren urtekaria daramat, **inprentatik** atera berria. Pako Aristi

---

## **inprentaratu**, inprentara(tu), inprentaratzen da *ad* inprimatzera eraman.

Gure euskara **inprentara** zenerako, galdua genuen geure buruaganako konfiantza eta harrotasun hura. Patziku Perurena

---

## **inprentari** *iz* inprimatzailea, inprimategi bateko langilea.

Haren aitona Bernabek, jaiotzez bitoriar eta ofizioz **inprentari,** lantegia izan zuelako Katedraleko atarira jotzen zuen kale kantoi batean. Felipe Juaristi

**Inprentariarena,** lanbide soil eta arrunt barik, mundua ikusteko era zitzaion. Felipe Juaristi

---

## **inprentatu**, inpreta(tu), inprentatzen da/du *ad* inprimatu.

Eta **inprentaturik** ez dut inoiz ikusi. Txillardegi

"La Gaceta Oficial" izenaz argitaratu zen egunkaria ere, hantxe nonbait **inprentatzen** zela entzuna nuen. Txillardegi

---

## **inpresentable** *izond* petrala.

Sedano neurotiko obsesiboa agian ez, baina arrunta eta **inpresentablea** delako. Ramon Saizarbitoria

**2** ezin onartuzkoa.

Gaztelera **inpresentable** baten exhibizioa egiten dutenez. Patziku Perurena

---

## **inpresio** *(ETCn **3.300** agerraldi; orobat **inpresione** g.er.)* **1** *iz* zirrara; bihotzondokoa. ik **zirrara**.

Hark ere **inpresioa** egin zidan, arrasto bat espirituan. Bernardo Atxaga

Bezperako eszena gorpurik gabe ikusteak zer **inpresio** egingo zidan jakin nahi nuen batetik. Anjel Lertxundi

Ez dakit ziur zer **inpresio** eragin dion; ez naiz gogoratzen zer esan duen. Josu Zabaleta

Hegazkinak oso baxu pasatzen dira Mendelu auzoaren gainetik [...] eta **inpresio** pixka bat egiten duela diote batzuk. Berria - Harian

Hauek gaitzeko **inpresionea** egin daukute. Herria

Gogoan dut oraindik berriak sorrarazi zidan halako magia deserosozko **inpresio** hura. Juan Garzia

**Inpresio** gutxi ezagutzen ditut hura baino latzago eta gogorragorik. Monika Etxebarria

Eta "lehen harritze" horietan, "aurreneko **inpresio"** horietan, zailtzen da, inon ez bezala, jendaki bakoitzaren nortasuna. Patziku Perurena

Gauzen izaeraz liburuaren gaurko irakurleak bi **inpresio** jasaten ditu ezinbestean: zalantza, filosofiako tratatu bat bertsoz idatzita aurkitzearen aurrez, eta ezustea, atomismoa, hots, oraingo fisikaren ikuskera, dagoeneko antzinako munduan hain esplizituki eta biribilki formulatua izanaz. Xabier Amuriza

Esandako hitza gure belarriak jasotzen du, eta tonuaren arabera **inpresio** bat sortzen du guregan. Pako Aristi

Unean uneko sentsazio eta **inpresioei** soilik erantzuten zieten. Xabier Olarra

Paisaia **inpresio** bat da. Alberto Barandiaren

**2** (izenondoekin)

Zeren animalia basatiek, nire txikitako bizipenengatik-edo, **inpresio** handia egin izan baitidate. Bernardo Atxaga

**Inpresio** handia egin zidan fabrikatzar hark. Jon Maia

Halako **inpresione** edo zirrara bitxi bezain arraro bat ukan nuen. Daniel Landart

Gizon haiek sabai apaleko zoko hartan izerditan eta mugitzen ikusi zituenean, **inpresio** ezatsegin bat eragin zion. Josu Zabaleta

**3** irudipena, ustea.

Lehen **inpresioak** ez zion zirrara berezirik eragin. Joxemari Iturralde

Lehen **inpresioari** ez egin kasurik. Joseba Sarrionandia

Ondo jaso al ditut nire paperotan hiriak sortu dizkidan **inpresioak** ? Anjel Lertxundi

Itzulitakoan, hizketan hasi eta txangoaren [...] **inpresioak** kontatu genizkion elkarri. Bernardo Atxaga

**Inpresioa** baitut historia aldatzea gogokoegi dugula batzuetan. Pello Salaburu

Zoramenean erori garelako **inpresioa** dut batzuetan. Pello Salaburu

Bere egoeraz seguruegi zegoelako **inpresioa** hartu nuen. Josu Landa

Zoramenean erori garelako **inpresioa** dut batzuetan. Pello Salaburu

Nik, behinik behin, gazteria jadanik ulertzen ez nuelako **inpresioa** neukan. Joxe Austin Arrieta
Gogoan dauzkat erortzen ari naizelako **inpresioa,** zartakoaren aurreko unea eta ondokoa. Agurtzane Juanena
Nire **inpresioa** da Espainian tendentzia bat dagoela iragana estaltzeko. Berria - Euskal Herria
Egia esan, ezagutu zintuenetik izan du Luisek zurekiko **inpresio** hori. Lourdes Oñederra
**Inpresio** hori eman nahi zuen. Unai Elorriaga
Nik ez dut **inpresio** hori atera. Sonia Gonzalez
Ni ez nabil Parisen, eta hemen, leku askotan, **inpresio** egiten dit ari garela Bruselan bagina bezala. Berria - Kultura
**Inpresio** hori ematen ditek Rohmerren filmek, oso distantzia gutxi dagoela pantailako bi aldeen artean. Iñaki Iñurrieta
42 pintore inpresionistaren 42 **inpresio**. Unai Elorriaga

**4** (izenondoekin)

Zutik gelditu zen, begira, hemen lehen aldiz sartu delako **inpresio** arraroarekin. Jon Alonso
Azken batean diziplina apur bat, lanpostua, **inpresio** berriak eta josteta pixka bat espero nituen lanetik. Urtzi Urrutikoetxea
Hondarribiak **inpresio** pindartsu bat utzia zidan. Joxerra Garzia
Goizean izandako **inpresio** gogobete bera sentitu nuen baltsamatzearen liburuko azal eta bizkarreko letra urre-koloreak hatz-puntez ferekatzen hasi nintzenean. Anjel Lertxundi
Etorkin baten bihotzaren erdiko **inpresio** sarritan garratzak atzemango ditugu nobela txiki honetan. mojetara pasatzeak nik uste baino **inpresio** sakonagoa egin zidan zeren eta beste mundu batera pasatzea izan zen. Pablo Sastre
Horren **inpresio** nahasi lauso bat ez zitzaion eskapatu Gabini. Iñaki Iñurrieta
Agian muturreraino eramaten ari naizela irudituko zaio bat edo bati **inpresio** hutsa besterik ez dena. Anjel Lertxundi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Inpresio**-sekuentzien bidez antolatzen dituzte itsuek beren munduak (ukituzko, entzunezko, usnazko munduak, alegia). Xabier Olarra

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Halako harridura-**inpresio** bitxia. Denborak ematen digun bertigo **inpresioari** hurbiltzen zaion zerbait. Ana Urkiza
Anaia Juan ikusten zuenean, munstroak ikustean sentitzen den nazka-**inpresio** hori, inibizio-**inpresio** hori sentitzen zuen. Josu Zabaleta
Iradoki zuen existitu behar zirela ikusmen-gune bereizi batzuk, ikusmen-kortex primarioan, "argi-**inpresio",** "kolore-**inpresio"** eta "forma- **inpresio** "entzat. Xabier Olarra
Zinemak eragiten duen errealitate-**inpresio** indartsuaren kariaz. Josu Zabaleta
Liburutxo honek, hasi eta buka etenik gabe irakurtzean, nahaspila-**inpresioa** egiten du. Askoren artean

**7** inprimatzea.

*Egunkaria*-k bere **inpresio** zentro propioa nahi duela-eta *Egunkaria*-koekin berriro hitz egin behar dutela aipatzen da. Berria - Euskal Herria
Erietxean eginiko argazki bat erakusten zidaten: erizain oso polit baten besoetan azaltzen nintzen, gelako kristalaren beste aldean nire aita gazte samurkiro hunkituaren irudia, bere umeari irribarre eginez, gain-**inpresioan** bezala ageri zela. Joxan Elosegi

**8** ***inpresio on***

Gutiérrez, gizon txaparroa zen, lodikotea, baxua, ez zidan **inpresio** ona egin, ez zitzaidan konpetentea iruditu. Mikel Hernandez Abaitua
**Inpresio** ona egin zion Maddalenek lehen hizketaldi haren ondoren. Joxemari Iturralde
Hurtado **inpresio** txarra hartuta joan zen etxera. Josu Zabaleta
**Inpresio** ona hartu zuten eta berriz irekitzea erabaki zuten. Berria - Harian
· Lehiaketatik kanpo aurkeztu ziren beste bi filmek askoz **inpresio** hobea utzi zuten Berlinalen. Berria - Kultura

**9** ***inpresio txar***

Neure onera hasi nintzen etortzen, lehen **inpresio** txar hura gaindituta. Joxemari Iturralde
Zure atzoko gutunak halako **inpresio** txar bat utzi dit. Josu Zabaleta
**Inpresio** txarra ere eragin dezake. Josu Zabaleta
Jokaera honek **inpresio** guztiz txarra eragin zion Dembari, eta haserre bizian jarri zen. Anton Garikano
Begi bat okertu zitzaidala diote ordudanik, **inpresio** txarretik. Juan Garzia
Kanpotik begiratuta, bada, ez zaio muskuluari motor baten helburuak betetzeko itxurarik hartzen; are **inpresio** txarragoa ateratzen da, hala ere, azterketa xehe bat eginda. Irene Aldasoro

---

# **inpresionagarri** *izond* zirrara eragiten duena.

Makati auzoko betoi eta berinazko 'building' **inpresionagarri** baten hamaseigarren estaian kokatzen ziren Frantziako errepublikako administrazioko bulegoak. Trafikoa **inpresionagarria** zen. Ramuntxo Etxeberri
Gondoleroaren bizitza hagitz **inpresionagarria** iruditu zitzaidan. Jon Alonso
Gondoleroaren bizitza hagitz **inpresionagarria** iruditu zitzaidan. Jon Alonso

---

# **inpresionante** *izond* inpresionagarria.

Santiago Errekan egiten zituen erromeria batzuek **inpresionanteak** izaten ziren. Pako Aristi

---

# **inpresionatu**, inpresiona, inpresionatzen **1** du *ad* zirrara eragin; hunkitu.

Marie Cardinal-en *Les mots pour le dire* obrak ikaragarri **inpresionatu** ninduen. Ana Urkiza
Santiagoko bide honetan, egunero **inpresionatzen** nau armen burrunben ondotik, erdi hustuak diren herrien isiltasunak. Piarres Aintziart
Solaskidea **inpresionatzeko** asmo hark, ordea, nahi baino nabarmenago uzten zuen argitan halako urduritasun puntu bat. Iñaki Iñurrieta
-Beharbada frantsesez esan banio gehiago **inpresionatuko** nuen. Iñaki Iñurrieta
Ni **inpresionatzeko** ez daukazu horrelako tramankuluen beharrik. Josu Landa
Kabuki-antzerkian erakusten den borroka batez ere **inpresionatzeko** da, baina hori ez nuen nahi film honetarako. Berria - Kultura
Pelegrinoak oso **inpresionatua** baitirudi. Koldo Izagirre
Redin oso **inpresionatuta** geldituko zela, Hemingway oso ospetsua zelako Espainian. Bernardo Atxaga

**2** irarri.

Hogeita hamalau urtean piano horretan jo dena fonografo batek **inpresionatu** izan balu, ziur naiz hainbat urte beharko liratekeela **inpresionatutako** hori erreproduzitzeko eta gustu guztiek izango zutela zer entzun. Askoren artean

**3** (era burutua izenondo gisa)

Aprendiz **inpresionatuaren** zurriburri zentzubakoa. Joxe Azurmendi

**inpresionismo** 1 *iz* XIX. mendearen bukaeran bereziki Frantzian garatu zen margolaritza higikundea, argiaren eta gauzen alderdi aldakorrak marra eta ukitu arinez irudikatzen saiatzen zena.

Argiaren inguruko lana da **inpresionismoaren** oinarrietako bat. Berria - Kultura

XIX. mendean, Courbet baten errealismoak, edo, argiago, **inpresionismoak,** "ikusten dena" margotu behar zelako ideia aldeztu nahi izan zuen. Josu Zabaleta

**Inpresionismoak** desitxuratu egiten du ikusmenezko errealitatea. Josu Zabaleta

**Inpresionismotik** eta espresionismotik edan zuen Parisen. Berria - Kultura

**Inpresionismoak,** fauvismoak eta postinpresionismoak nabarmen eragin zuten Etxebarriaren obran. Berria - Kultura

**Inpresionismoaren** ondorengo formaren berreskurapena Ingresen marrazkian oinarritu zen. Berria - Kultura

**2** musikan edo literaturan, teknika beraz baliatzen den estiloa edo idazkera.

XX. mendearen hasieran musikak hiru tendentzia zituen: Claude Debussyren **inpresionismoa,** Vienako eskola eta eskola nazionalistak. Berria - Kultura

Ondorioz Aita Donostiaren konposizioetan eragin frantsesa igertzen hasi zen, Parisko **inpresionismo** zantzuak azalduz. Berria - Kultura

---

**inpresionista** 1 *izond* inpresionismoaren teknikaz baliatzen dena.

Hogeigarreneko hamarraldiko frantses zinema-eskolak, eskola **"inpresionista"** deituak. Josu Zabaleta

Horregatik maite ditut nik horrenbeste, poeta **inpresionista** guziak. Patziku Perurena

42 pintore **inpresionistaren** 42 inpresio. Unai Elorriaga

Koadro **inpresionista** baten imitazioa. Unai Elorriaga

Denetara 15 margolan dira ikusgai daudenak; paisaia **inpresionistak** islatzen dituzte obra guztiek. Berria - Kultura

Kolore indargabeak, **inpresionista** samarrak, lasaitasuna zabaltzen dutenak. Berria - Kultura

Ezin **inpresionistagoa** izan liteke farolen argi horiskaren azpian elurrak osatu duen margoa. Pako Aristi

**2** *irud*

Beraz, **inpresionista** izan daiteke ene idazteko modua; pintzeladak emanaz noa eta pintzelada ezberdinek osatzen dute koadroa. Ana Urkiza

Liburuak egin dira Arestiz eta datuetarako Anjel Zelaietaren biografia oso garrantzitsua da, baina barnealdera begiratuz, irakurketa **inpresionista** bat egin dut nik. Berria - Kultura

Busti eta bustikuntza bezalako hitzak terminologia **inpresionistari** dagozkio, nolabait esan. Lourdes Oñederra

Dardarkari bakun (bigun, terminologia **inpresionistan)** ere deitu izan zaio. Lourdes Oñederra

• **3** *iz* inpresionismoaren teknikaz baliatzen den margolaria.

Zolarentzat **Cezanne,** inpresionisten artean koloreak hobekien menperatzen zituena zen. Berria - Kultura

**Inpresionisten** museoa. Ramon Saizarbitoria

Komodako ispiluan **inpresionisten** postalak zituelako itsatsita. Ramon Saizarbitoria

**inpresionistei** buruzko liburu bat kontsultatzeko. Jon Muñoz

---

**inpreso** *izond* inprimatua.

Elektronikaz osatu hainbat zirkuito **inpreso** ttiki, eta dijitalizaturiko hainbat gune ordenadoretako eta beste. Pello Zabala

---

**inpresora** *(9 agerraldi, 4 liburu eta 5 artikulutan)* *iz* inprimagailua.

Paskinek bi txandatan eginak dirudite, paper mota ezberdinez, **inpresora** ezberdinez, letra mota ezberdinez. Iban Zaldua

Bi ordenagailu eta **inpresora** bat eraman zituzten. Berria - Kultura

**Inpresora** jakin batzuek, adibidez, nanoteknologia erabiltzen dute irudiak eta testuak zehatzago landu ahal izateko. Berria - Gaiak

Barruan dozena bat ipuin zeuden, **inpresorako** paperean atera berriak. Joxean Agirre

---

**inpresore** *iz* inprimatzailea.

Bestalde, eta Oihenartek jasotakoaren arabera, Adrian Morront **inpresoreak** egun ezagutzen ez den beste edizio bat prestatu zuen. Berria - Kultura

---

**inprimagailu** *(13 agerraldi, 9 liburu eta 8 artikulutan)* **1** *iz* inprimatzeko makina.

**Inprimagailu** hura oso oso makina txikia zenez, eta besoz mugitzekoa, Peña Platako gelatxo batean kokatu genuen, kasernako atariaren ondoan. Txillardegi

**2** (ordenagailuari dagokiona)

Pantailak, **inprimagailuak,** ohiko teklatu urdinxka luzeak. Txillardegi

Ordenagailuren bateko **inprimagailutik** ateratakoa, ziurrenik. Fernando Morillo

Laser **inprimagailu** bakoitzak bere marka uzten du agirietan. Berria - Gaiak

Stand-by egoeran joaten da ordenagailuek, fotokopiagailuek, **inprimagailuek** eta faxek kontsumituriko argindarraren %90. Berria - Gaiak

**Inprimagailu** bakoitzak agiriak inprimatzeko era berezia duela aurkitu dute eta egilea identifikatzeko programa bat garatu dute. Berria - Gaiak

**Inprimagailuentzako** tinta. Berria - Ekonomia

**Inprimagailuetako** edo ordenagailuetako kartutxa hustu eta baliatuen bilketa bat antolatzen duela. Herria

---

**inprimagarri** *izond*

6 diaporama 157 argazkirekin eta lau bideo ttipi [...] bai eta **inprimagarri** diren pastoralaren hitzak eta argazki zonbeit. Herria

---

**inprimaketa** *iz* imprimatzea.

Gure aldizkariaren **inprimaketaz** arduratzen zen. Txillardegi

Zerbaitetarako balioko didate, horretara, "El Cuartel Real"en **inprimaketan** emandako urteek... Txillardegi

Oraingoz -erantzun nion- **inprimaketa** hutsezko lanak egiteko asmoa dut. Txillardegi

**Inprimaketa** eta promozio kostuak. Anjel Lertxundi

· Zauri sakratuen **inprimaketa,** eta mundu honetatik zerura igarotze aintzatsua. Askoren artean

---

**inprimaki** *(orobat* ***inprimakin*** *g.er.)* **1** *iz* Orri inprimatua.

Bertze zerbait bilatzen bide zuten... armak, Erresistentziaren **inprimakiak..** . *Boletín Meteorológico* deitu **inprimakia** ateratzen zuen, estimu eta arrakasta betean hartzen zena. Eneko Bidegain

Alemaniako iheslari-talde baten buletin bat zela; baroiak uste ez zuen bezalako mesedea egin ziola, ordutik aurrera aiseago ateratuko zituela-eta astero ateratzen zituzten **inprimakiak;** banatu zituela orri gehienak eta gutxi batzuk baizik ez zitzaizkiola geratzen. Anjel Lertxundi

Eta nire **inprimakinak** gero eta itxura hobean lortzen nituen. Txillardegi

**2** betetzeko laukiak dituen orri imprimatua.

Iruñeko Udalak bi hizkuntzetan jarri behar dituela idazpuruak, **inprimakiak** eta bestelako agiriak, Bada eskabideak egiteko **inprimaki** bat *Zein erratz?* liburuaren atzean. Iñaki Mendiguren

Donazioak egin nahi dituztenek Herriko Etxean edo zerga bulegoetan eskatu beharko dute **inprimakia** . Berria - Ekonomia

3 ereduko C7 **inprimakia** bete. Bego Montorio

Atzerriko enpresaburuak internet bidez ere bete ahal izango ditu **inprimaki** eta paper guztiak. Berria - Harian

Komisariara joan nintzen nortasun agiriaren **inprimakiak** betetzera. Javi Cillero

Lau atal sinple dituen **inprimaki** bat betetzea baino ez da behar. Txema Ramirez de la Piscina

Inspektoreak **inprimaki** batzuk eskuratzen dizkie bertan sinatzeko. Antton Olano

**Inprimaki** bat jaso zuen, hau idatzita zekarrena: "Adierazi ohore-dominak eta meritu bereziak". Fernando Rey

Mutualitateko **inprimakiak** . Juan Garzia

**Inprimaki** bakarra nahikoa izanen da bederatzi etxe promozioetan parte hartzeko. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Pasaporte **inprimakiak** ziren, behar bezala zigilatuak eta sinatuak. Matías Múgica

Posta eta oroigarriak, banku-agiri, telefono eta argi fakturak, aseguru-prima edo zerga **inprimakien** aldakien ondo-ondoan. Joxan Elosegi

---

inprimakin ik **inprimaki**.

---

**inprimarazi,** inprimaraz, inprimarazten du *ad* inprimatzera behartu.

Bosgarren zatia liburu-saltzaileak **inprimarazi** zuen. Jon Muñoz

Sei orrialdekoa zen, eta Abelek bere kontura **inprimarazi** behar izan zuen. Jon Muñoz

Columbiak diskoaren azala diseinatu eta milaka ale **inprimarazi** zituen. Berria - Kultura

Eta orduan kartelak **inprimarazi** eta kantoi guztietan jarraraziko ditut. Koldo Biguri

**Inprimarazi** duen bandoaren kopia bat. Koldo Biguri

---

**inprimategi** *iz* orriak, liburuak eta kidekoak inprimaten diren lantegia.

Atzera egin, eta **inprimategira** itzuli zen. Anjel Lertxundi

Ez zuen liburuaren eskubideak zentaboz zentabo eztabaidatzen zizkioten **inprimategiko** editore zeken haiekin fabore eske ibiltzea atsegin. Bere lan denbora guzia iragan du Kanbon, bere emaztearekin atxikitzen zuten **inprimategian** . Anjel Lertxundi

Asteburu honetan atera da **inprimategitik** . Berria - Kultura

Hark eman baitzuen 1976 eta 1985 artean argitara Zarauzko Itxaropena **inprimategian** . Patxi Ezkiaga

**Inprimategian** lehen arramak montatzen ariko dira, inprimatzaileak, espezialista bereizten duten keinu geldo eta zehatz horiekin. Jon Alonso

---

**inprimatu,** inprima, inprimatzen **1** du *ad* paperean edo kideko gairen batean izkribu edo marrazki baten hatza utzi; paperean edo kideko gairen batean testu edo irudi baten aldakiak egin, hartarako makina edo tresnen bidez..

Eraztunetik argizarira irudia **inprimatzen** den moduan. Imanol Unzurrunzaga

Seigarren zatia, berriz, hirugarren mailako ekuazioaren ebazpenari buruzkoa izan behar zuena, ez zen sekula **inprimatu** . Jon Muñoz

Adrian Anberesek Lizarran 1561ean **inprimatua** . Berria - Kultura

Liburu hau Itxaropenak **inprimatu** du, AGaramond letra-tipoa erabiliz, 2000. urteko azaroan. Harkaitz Cano

Mapa horren 60.000 kopia **inprimatu** dituzte. Berria - Kultura

1500 **aletan** inprimatu liburu baten bidez. Herria

Enuntziatu bat berdina izan daiteke ahoskatua, txartel batean **inprimatua** edo magnetofono batean erreproduzitua. Xabier Arregi

Urre-koloreko letretan **inprimaturiko** izenburuarekin. Iñaki Mendiguren

Egun batean ohar bat iritsi zen, gainean **inprimaturik** haize-errota bat zeukana. Fernando Rey

Txikia zen; estu-estu **inprimatua** . Anton Garikano

Badio beldur piska bat **inprimatutako** hitzari. Pako Aristi

Taldearen irudia eraman dezatela, A3 formatuan **inprimatuta** . Berria - Euskal Herria

Kartzelara bidali ninduten grebarako paperak **inprimatzeagatik** . kartel txukun bat edo pegatina ikusgarri bat **inprimatzea** . Javi Cillero

Bozka-orriak Internetik **inprimatzea** . Berria - Euskal Herria

Prentsarekin **inprimatzea,** gainera, sekulako lana da: orri bat aldi bakoitzean. Koldo Biguri

Vietnamitaz **inprimatzen** genuen aldizkari hura. Iban Zaldua

**Inprimatzeko** materialez beteta dagoen gela batean. Rafa Egiguren

**Inprimatzeko** tresneria berritzeko premian zegoen erakundea. Rafa Egiguren

Hizki kaxa pare bat eta 1870eko **inprimatzeko** makina txiki bat zeuzkan, eta denda gainean "Moldiztegia" ipini zuen. Koldo Biguri

Inprimagailu bakoitzak agiriak **inprimatzeko** era berezia duela aurkitu dute eta egilea identifikatzeko programa bat garatu dute. Berria - Gaiak

Liburuak **inprimatzeko** berunezko karaktereak. Xabier Arregi

Testu bat **inprimatzean** gertatu ohi den huts oro. Juan Garzia

· Goiko partearen eskuin aldera, zigilu karratu batez **inprimatuta,** zerbitzu militarretik libre gelditzen zela zioen Freistellung vom Wehrdienst oharra, letra gotiko urdinetan. Anjel Lertxundi

**2** (ordenagailuaren inprimagailuaren bidez)

Maikak Mikelen mezua **inprimatu** eta, ikerketa hasi zuen. Ramuntxo Etxeberri

Web orrialdean agertzen zen artikulua **inprimatu** zuen. Ramuntxo Etxeberri

Artxiboa **inprimatu,** eta beti gainean zeraman motxilan sartu zuen.. Fernando Morillo

Txostena **inprimatu** egin zuen, gero hobeto aztertzeko. Fernando Morillo

Istant batean bidali dut mezua, eta bitartean ordenadore ondoan **inprimatu** berria dagoen papera ikusi dut. Xabier Etxabe

**Inprimatu** orrialdeak eta egongelara itzuli naiz. Bernardo Atxaga

Azken zirriborroa idatzi eta gero, hura **inprimatu** eta material horren gainean egin ukituak. Askoren artean

Iritsitako gutun batzuk Internetetik **inprimatuen** fotokopiak dira. Berria - Euskal Herria

**3** irarri.

Ordutik aurrera, ikur sakonez **inprimatu** zitzaion bihotzean Jaunaren nekaldiaren oroitzapena. Askoren artean

Errege gorengo eta gupidatsuak [...] Frantziskoren gorputzean Gurutzearen ikurra **inprimatu** nahi izan zuen. Askoren artean

Ideia moralak ere ez dira buruan **inprimatzen,** ez badira gogoan behin eta berriro gogor sakatzen. Juan Martin Elexpuru

Handik egun gutxira, Jainko biziaren behatzaz Jesus Jaunaren Zauriak **inprimatu** zitzaizkion Frantziskori. Askoren artean

Ikuskariak, desagertzean, halako kartsutasun miragarri bat utzi zion bihotzean, eta hori bezain seinale miragarriak haragian **inprimatuak**. Askoren artean

Kristoren benetako estigmak alegia, bere gorputzean **inprimaturik** zeramatzala. Askoren artean

Pertsonaia horrek edozein objekturi begia eman, eta gogoan **inprimaturik** geratzen zitzaion, talismana bailitzan. Iñaki Iñurrieta

Tarteka, gehiago makurtzen zen xehetasunen bat arakatzeko; ikusten zuena betiko **inprimaturik** geratuko zitzaion garun-azalean. Xabier Olarra

**4** (era burutua izenondo gisa)

*Letra Gorrimina*ren ale **inprimatu** bat. Oskar Arana

Liburuaren lehendabiziko edizio **inprimatua**. Berria - Kultura

Paperezko diru **inprimatua** Sung gobernuak, bai, jaulki zuen K.o. 970ean. Iñaki Mendiguren

Konstrukto teoriko horrek -ahozkotasun primarioa, kultura idatzi **inprimatua,** ahozkotasun sekundarioa- badu bere egituran kutsu ia bibliko halako bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Eta xingolan zenbaki **inprimatu** bat, nirea adibidez 64921 da. Urtzi Urrutikoetxea

Irudi **inprimatuak** argia behar du ikusi ahal izateko. Josu Zabaleta

Irakur daitekeen paper **inprimatua**. Josu Zabaleta

Aljebrako lehen idazlan **inprimatua**. Liburu **inprimatuen** katalogo nagusia. Jon Muñoz

---

## inprimatzaile **1** *iz* inprimategi bateko langilea.

1545ean Bordelen Morpain **inprimatzaileak** egina. Berria - Kultura

Garibai bere lanekin agertzen zaionean, Plantin **inprimatzaileak** ezin du sinetsi ikusten ari dena. Anjel Lertxundi

Gero itzuli zen Salamancara, Antonio Portonariis **inprimatzailearen** etxera. Piarres Xarriton

Bai argitaratzaileak bai **inprimatzaileak** uko egiten zioten liburua bere horretan argitaratzeari. Irene Aldasoro

Inprimategian lehen arramak montatzen ariko dira, **inprimatzaileak,** espezialista bereizten duten keinu geldo eta zehatz horiekin. Jon Alonso

**2** inprimatzen duena.

**Inprimatzailea:** itxaropena, s.a. -Araba kalea, 45-Zarautz Harkaitz Cano

---

## inprimatze **1** *iz* paperaren edo kideko gairen baten gainean testu edo irudi batean hatza mekanikoki uzteko tekniken multzoa; inprimatzeko antzea.

**Inprimatzea** sortu zen garaian liburu-saltzaile izatea! Jon Muñoz

**Inprimatze,** fotoestatika eta beste teknika batzuen bidez. Iñaki Mendiguren

**2** paperean edo kideko gairen batean izkribu edo marrazki baten hatza mekanikoki uztea.

Ez zitzaion gauza berriak ikastea axola, eta era guztietako **inprimatze** teknikak erabili zituen. Berria - Kultura

Obra grafikoa lortzeko erabiltzen diren hainbat **inprimatze** sistematan. Berria - Kultura

Margo akrilikoak, oihalean eta paspartu paperean, eta **inprimatze** digitala oihalean dira Urrutikoetxeak erabili zituen teknikak margolan horietan. Berria - Kultura

Bigarren ezaugarri honek eramaten gaitu bideo-irudia irudi inprimatu bezala irudikatzera, **inprimatze** hegaskor eta beti berritu batez inprimatua bada ere; horretan ere, ordea, garbi ikusten da ez dela **inprimatze** egiazko bat **(inprimatze**-inpresio bat baizik, esateak balio badu). Josu Zabaleta

**Inprimatze**-data bilatu zuen Ruche jaunak Jon Muñoz

---

## inprimazio *iz* inprimatzea. ik **inprimaketa**.

Marra argiak eta **inprimazio** biziak ageri zituzten oihal baliotsu haiek. Joxan Elosegi

---

## inprimeria **1** *iz ipar* inprimatzea, paperaren edo kideko gairen baten gainean testu edo irudi batean hatza mekanikoki uzteko tekniken multzoa.

[Martin Azpilikueta] munduratu baino apur bat lehentxeago, Konstantinopla hiriaz jabetzen ziren Turkoak eta **inprimeriak** egiten zituen lehen urratsak. Piarres Xarriton

**2** inprimategia.

Gure irarkola edo **inprimeriaren** interneteko helbidea. Herria

Robert hobeki ezagutua zen Kanbon, bere **inprimeriako** lantegia hor baitzuen. Herria

Parisko **inprimeria** batean bi sosen truke lanean. Inazio Mujika Iraola

Baionako **inprimeria** xahar batean egina zuen aprendizgoa eta "conducteur offset" kalifikazioa erdietsi ondoan, araberako lana zeukan. Daniel Landart

75 harpidedun behar zituela **inprimeria** gastuen pagatzeko. Herria

Ez baitut ahanzten langile bat naizela eta bereziki esku-langilea izan naizala 25 urtez **inprimerian**. Menane Oxandabaratz

---

## inprimiki *iz ipar* inprimakia.

Herriko Etxeak jakinarazten du badituela oraino **inprimikiak** ardi-sarien galdea egiteko. Herria

Hortako paperak edo **inprimikiak** behar dira hartu Herriko Etxean. Herria

Herriko Etxean badira **inprimikiak** betetzeko, gero behar den lekurat helarazteko. Herria

## **inprimitu**, inprimi, inprimitzen du *ad* inprimatu.

Finala aldiz asteazkenean, guk kaseta hau **inprimitu** ondoan. Herria

Zenbat bozka-orri **inprimitu** dituzue? Berria - Euskal Herria

Bestetik, jakina da halaber, ene liburu guztiak argitaratu aitzin, Gaztelako Errege Jaunaren Kontseiluak aztertu izanak zirela eta **inprimiturik** izateko baimena bazutela. Piarres Xarriton

[Liburutegi digitalak] aukera ematen du liburuaren orrialde bakoitzean sartzeko, tamaina handitzeko, gordetzeko edota **inprimitzeko** . Berria - Kultura

## **inprimitzaile** *iz ipar* inprimatzailea.

Argitaletxe hau orain sortu dute Jean Claude Larronde historialariak, Patrick Delprat **inprimitzaileak** eta Txomin Laxaltek, hunen obra delarik argitaletxe berriaren lehen argitalpena. Herria

## **inprobabilitate** *iz* gertagaiztasuna.

Deliturik ankerrenak, edota ilun eta kimerikoenak, **inprobabilitate** handikoak, alegia. Juan Martin Elexpuru

## **inprobable** *izond* gertagaitza.

Berak gauza **inprobableak** esaten zituen eta hamasei urterako nirekin maitemindurik zegoela gogorarazten zidan berriro. Joxean Agirre

## **inprobisadore** *izond* inprobisatzailea.

Hamar herrialdetako bertsulari eta **inprobisadoreak** dira Bertsozale Elkarteak antolatutako topaketa horietan aurkituko: Kuba, Jamaika, Mexiko, Portugal, Georgia, Sardinia, Menorca, Maroko, Sahara eta Argentina-Uruguaikoak. Herria

## **inprobisaketa** *iz* inprobisatzea.

[Antzerkia] idazteko materia, ikasleen **inprobisaketetatik** jalgi da. Berria - Kultura

Euskal musika mundukoari josia, musika **inprobisaketen** bidez, batzu eta bertzen talenduak onturik. Herria

## **inprobisarazi**, inprobisaraz, inprobisarazten du *ad* bat-batean eginarazi, inprobisatzera behartu.

Drama bat **inprobisarazi** nahi digu, hutsetik? Josu Zabaleta

## **inprobisatu**, inprobisa, inprobisatzen **1** du *ad* bat-batean egin, bat-batean aritu.

Gai zen, ordea, musika-pieza landuak gogoratzeko eta ikasteko; eta are zuzendari aritzeko, interpretatzeko edota organoan **inprobisatzeko** . Xabier Olarra

Sei urte zituela, bere kasa **inprobisatzen** hasi zen Tom. Xabier Olarra

Bertsolariak bertsoak sortzen ditu, **inprobisatu** egiten du. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Esperantza baino gehiago, erronka zen Dorrean hitzetik hortzera **inprobisatu** zuen abestia. Agustin Otsoa

Jon Sarasuak **inprobisaturiko** bertsoa da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertsolariaren gaitasun erretorikoak segundo gutxi batzuetan sortzen du, bat-batean **inprobisatuz,** ahozko diskurtso egituratu bat. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Edozeri buruz **inprobisatzen** . J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bat-batekotasunak baditu -izan behar ditu- bere trikimailuak eta saxofoiak edo gitarrak **inprobisatu** behar duena **-inprobisatu** lezakeena- behin eta berriro errepikatzen aritzen da musikaria. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jakina, horrelako saio batean ez da ezer **inprobisatzen,** ondo pentsatuta egongo da dena aldez aurretik. Patxi Iturritegi

Askotan eszenak **inprobisatu** behar ditugu margolan batetik abiatuta. Berria - Kultura

Aretoko izkina batean bi mahairekin **inprobisaturik** zeukaten tabernara eraman nuen. Anjel Lertxundi

Hamaiketakoa biltzeko zilarrezko paperarekin **inprobisaturiko** pilota. Harkaitz Cano

Jokalariak sortu egin behar duela zelaian, une-uneko jokaldia **inprobisatu** . Berria - Kirola

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bakarka jotzen den jazz-saio **inprobisatu** baten gisan. Karlos Zabala

Talde dantza **inprobisatu** bat gero. Irene Aldasoro

**inprobisatua** zelako itxurak eginez. Jon Alonso

Ahozko erretorika **inprobisatuak,** idatzizkoarekin bat dituen baliabide testualez gainera, egoeraren araberako baliabideak ere baditu. hautaturiko bukaerak baldintzatzen du bertsoaren atal **inprobisatua,** eta ez soil-soilik errima kontuetan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Dezima eta Bertso **Inprobisatuaren** Iberoamerikako IV. Jaialdi-Jardunaldietan. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Azterturiko bertso ia guztiak dira bertso ez **inprobisatuak** . J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Zuzeneko emanaldi **inprobisatuak** egingo dituzte. Berria - Kultura

Lagunarteko hizketaldietatik eta antzeko **egoera** inprobisatuetatik sortzen dira ideiak. Berria - Kultura

Amak sukaldean lo egiten zuen, kamaina **inprobisatu** batean. Matías Múgica

Malgobernu bufoikara eta **inprobisatu** bat. Juan Garzia

## **inprobisatzaile** *iz* bertsoak edo ahalpaldiak bat-batean sortzen dituen pertsona.

Kanpoko **inprobisatzaileek** poetatzat dute euren burua. Andoni Egaña

Bi faktore garrantzitsu ahazten dituzte **inprobisatzailea** poetatzat hartu nahi dutenek. Andoni Egaña

Kuban, gurean bezala, hedabideetan bere lekua daukan jarduera da **inprobisatzaileena** . Andoni Egaña

Beste **inprobisatzaileen** jardunak ezagutzeak izugarri lagundu digu bertsolaritza hobeto ezagutzen. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Munduan zehar ezagutu ditugun beste **inprobisatzaile** gehienek (kubarrek, mexikarrek, kolonbiarrek, mallorkarrek... musika-tresnaren baten laguntzaz egiten dute beren lana. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

## inprobisatze *iz* bat-batean egitea, bat-batean aritzea. ik **inprobisazio.**

**Inprobisatzeak** denboraren kudeaketarekin du zerikusi zuzena. Andoni Egaña

Aste guzian, astelehenetik ortziralera, izanen dira bertsu eta **inprobisatze** saioak Donostiako Lugaritz kultur etxean, arastiriko 7etan. Herria

## inprobisazio 1 *iz* inprobisatzea, bat-batean egitea, bat-batean aritzea.

Music-halleko artistak ere agertzen ziren; eta Sheridanek balsak eta polkak jo eta **inprobisazioak** egiten zituen. Irene Aldasoro

Zuloetako piano aurrean eserita egiten omen zituen bere **inprobisazioak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Bat-batekotasuna prestatuz, **inprobisazioa** bilatuz. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Inprobisaziorako** jarrera eta gaitasunak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ahozko **inprobisazioa** ezagutzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Inprobisazioaren** benetakotasuna. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Hortik aurrera, **inprobisazio** hutsean aukeratutako puntu-hitzen arabera moldatuko ditu bertsoa osatzeko erabiliko dituen gainerako argudioak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Izan ere, bertsolariek oholtza konpartitzen dute, bertsotan elkarrekin gaiak eta temak partekatzen dituzte, **inprobisazioa** elkarrekin txirikordatzen dute. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kantu bidezko **inprobisazioaren** aukerak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Inprobisazioari** buruzko teoria-lanetan. Andoni Egaña

Leslie [...] izugarri ospetsua da **inprobisaziorako** ahalmenengatik eta musikarako oroimen sinetsezinagatik. Xabier Olarra

**2** *pei*

Gehienetan, zabarkeria da nagusi, **inprobisazioa**. Iñigo Aranbarri

ISO 9000 arauek enpresetan kalitate sistema bat ezartzea dute helburu, enpresak **inprobisazioak** alde batera utzi eta enpresan egin beharreko eginkizunak idatziz zehaztutako arau batzuei jarraiki beti taxuz egitea. Iñaki Heras

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bertsolarien **inprobisazio**-artearen funtsezko alderdia. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Arazoa hori da **inprobisazio** eredu gehienentzat. Berria - Kultura

Emakumeak **inprobisazio**-saioa amaitu zuenean, baritono ahotseko gizonak beste aldaera bati ekin zion. Anjel Lertxundi

Dantza klasiko eta garaikideko klaseak, **inprobisazio** tailerrak, mugimenduaren azterketa, dantzaren historia. Berria - Kultura

Giant Sanden diskoek **inprobisazio** kutsua dute zenbaitetan. Berria - Kultura

**Inprobisazio** lanaren emaitza. Berria - Kultura

AMM **inprobisazio** taldeko kide finko bihurtu zen John Tilbury, Eddie Prevost perkusio jotzailearekin eta Keith Rowe gitarristarekin batera. Berria - Kultura

Udazkenean egin ziren Nazioarteko **Inprobisazio** Jardunaldiei erreferentzia eginez. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hauxe da abesbatzak jazz **inprobisazioa** egingo duen estreinako aldia. Berria - Kultura

## inproduktibo *izond* ez-emankorra.

Adibidez, behin eta berriz errepikatzen da gastu soziala oso dela **inproduktiboa,** eragin negatiboa duela altxor preziatu bilakatu den lehiakortasun santifikatuarentzat. Iñaki Heras

## inpromatu, inproma, inpromatzen du *ad*

Ahal bezala gorde nintzen ni, binilo arrosaz itxuraturiko mangleondo baten azpian, baina mutiko talde bat ari zen inguru haietan ni **inpromatu** nahian, iraindu ninduenaren aginduetara. Joxan Elosegi

Gaitzeko parrandan bizi ginen han barruan, sinets iezadazue, inortxok ere ez gintuen **inpromatzen**. Joxan Elosegi

Nire sentiberatasun madarikatu hori gabe, oraindik ere bizirik egongo zen beharbada Yvan, neu baino ez ninduten **inpromatuko**. Joxan Elosegi

## inpromptutsu *izond*

Hiru kontinentetako arraza gorbizien mestizajearen emaitza izan da gizamota espainola, tenperamentu **inpromptutsua,** kartsu sinestean, ez lan eta estudiozale ekuru, egonarriko, baizik matxin bihurri, grinatsu. Joxe Azurmendi

## inpronta 1 *iz* marka, eragina.

Zilegi bekit esatea egun hartan gertatutakoak sakon markatu ninduela; nire pupitre-lagunaren hitz aparteko haiek behin betiko **inpronta** utzi zutela nire baitan. Bernardo Atxaga

Gure Antzinako Bihotzean hain tinko ezarritako **inpronta** hura. Bernardo Atxaga

Ohi denez, musika lagungarria izan zen **inpronta** itsatsita gera zedin; zauria bezala, ildoa bezala, ariman ebakia bezala. Bernardo Atxaga

**2**

"**Inpronta** esaten zaio horri", argitu du Elik, psikologiako ikasleak: "Animalia batzuek, txitoek adibidez, jaio eta berehala ikusten duten lehenengoa amatzat hartzen dute eta estu-estu lotzen dira harekin, beste espezie batekoa izan arren". Xabier Mendiguren Elizegi

## inpronunziable *izond* ezin ahoskatuzkoa, ahoskaezina, ebakiezina.

Amutxastegi -nere ama-aldeko deitura- **inpronunziablea** zela esan zidan behin batean Planplona/Iruñeko alaba asko estudiatutako batek. Iñaki Segurola

Aitzitik, **inpronunziablea** bere baitan da ahoskatu ezina, zeren "guk ahoskatu ezina" besterik gabe bihurtu baita "ahoskatu ezina", halako moduan non munduan diren hiztun guztien artean gu bakar bat baita aintzakotzat hartua. Iñaki Segurola

Zenbat bazter, zenbat giza ale eta jainkotxo **inpronunziable** izan ote dira Historia pronunziablearen eskuz ezdeustuak eta lurraren azaletik erauziak! Iñaki Segurola

## inpronunziabletasun *iz* ahoskaezintasuna.

Euskara ininteligibletasun, **inpronunziabletasun** eta beste inbletasun batzuen izena da, euskara ezagutzen dutenentzat. Iñaki Segurola

## **inpudiko** *izond* lotsagaldua, lotsagabea.

Zer eskubide zenuen nire aurrean agertu eta zure bihotza horrela biluzteko, erakusaldi ia **inpudiko** batean? Xabier Mendiguren Elizegi

Ni asko haserretu nintzen Armando Bonillaren heriotz **inpudikoarekin:** klasikoek beste errespetu bat merezi dute. Karlos Linazasoro

Nire beste alde bat azaldu dut liburuan, edo nire barruko beste norbait, eta ipuinak nahiko **inpudikoak** dira Berria - Kultura

---

## **inpudikoki** *adlag* lotsagalduki.

Animaliarik txikienak, fisikoki ahulenak zirenak akabatu egiten zituztela, **inpudikoki,** eta zinpeko zaintzaile zolien baimen isilekoarekin? Karlos Linazasoro

---

## **inpudikotasun** *iz* lotsagaldutasuna.

Ez daukat neure burua Claude Lelouchentzat, baina gizon eta emazte haren ibilaldia konta diezazuket, agian haien aditzen **inpudikotasun** publikoak naizen herabea inoxenta inarrosi zuelako. Itxaro Borda

---

## **inpugnatu**, inpugna, inpugnatzen du *ad* erabaki bat ezeztatzea eskatu. ik **kontestatu.**

EHUko errektorea aukeratzeko hauteskundeak epaitegietan **inpugnatuko** dituela iragarri zuen atzo Francisco Doñate errektoregaiak. Berria - Euskal Herria

Emaitza **inpugnatu** zuten, baina ordu erdian baztertua izan zen bere eskaera. Berria - Kirola

Lege ez diren ebazpenak ere **inpugnatu** daitezkeela argudiatzen du Auzitegiak. Berria - Euskal Herria

Gobernuak HZ **inpugnatu** du, Batasunaren ondorengotzat jota. Berria - Euskal Herria

PSOEko gobernuak HZren hautagaitza **inpugnatu** izana kritikatu zuen Ibarretxek. Berria - Euskal Herria

HZren zerrenda **inpugnatzeko** erabakia jakinarazi zuten. Berria - Euskal Herria

Espainiako Kirol Kontseilu Gorenak erabakia **inpugnatuko** du. Berria - Kirola

Mallorcak igandeko partida **inpugnatu** du, Aloisi legez kanpo zelairatu zelakoan. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hautagaitza inpugnatzeko** (3); **hzren hautagaitza inpugnatzeko** (3); **inpugnatu du** (4); **inpugnatu egingo** (3); **inpugnatzeko erabakia** (4); **partida inpugnatu** (3)

---

## **inpugnatzaile** *iz* inpugnatzen duena.

Lukreziok nahiago izan duela epikureismoaren alde mintzatuko direnen eskuetan arma kontzeptual sendoak ipintzea, sendotzen hasiak zeuden [...] bere garaiko **inpugnatzaileen** aurka borrokatzeko. Xabier Amuriza

---

## **inpugnazio** *iz* erabaki bat ezeztatzea eskatzea.

Aznarren Gobernuak Eusko Jaurlaritzaren Estatutu Proposamenaren aurkako **inpugnazioa** aurkeztu zuenean [...].

Hurrengo egunean bertan Auzitegi Gorenean **inpugnazioa** aurkezteko. Berria - Euskal Herria

Espainiako Estatuko abokatuek Ondarroa eta Lekeitio UEMAn sartzeko erabakiaren kontra jarritako **inpugnazioa**. Berria - Harian

Gobernuak eta Fiskaltzak HZren aurkako **inpugnazioa** iragarri dute. Berria - Euskal Herria

Estatuko Fiskal Nagusi Candido Conde Pumpidok ere «berehalako **inpugnazioa»** iragarri zuen. Berria - Harian

Espainiako Fiskaltzaren eta Estatuko Abokatuaren **inpugnazioei** alegazioak aurkeztu zizkien atzo Herritarren Zerrendak Auzitegi Gorenean. Berria - Euskal Herria

Hautagaitzaren **inpugnazioaren** bidez. Berria - Euskal Herria

Espero dut epaileek **inpugnazioa** ez onartzea. Berria - Euskal Herria

EAEko Auzitegi Nagusiak udazkenean ebatziko ditu **inpugnazioak**. Berria - Euskal Herria

Nahiago izan dute Arabako Foru Aldundiaren **inpugnazioari** buruzko erabakia hartu arte itxaron. bost egun ditu Ibarretxeren gobernuak helegitearen **inpugnazioa** eskatzeko. Berria - Euskal Herria

Espainiako Auzitegi Konstituzionalak [...] Espainiako Gobernuak ezarritako **inpugnazioa** atzera botatzea erabaki baitzuen atzo. Berria - Euskal Herria

Konstituzionalak atzera bota du HZren kexua, agirien **«inpugnazio** generikoa» egin duelako, Aurreneko txostena, **inpugnazioa** onartzearen aldekoa, Guillermo Jimenez magistratuak egin zuen. Berria - Euskal Herria

**Inpugnazioaren** edukiagatik. Berria - Euskal Herria

---

## **inpultsibo** *izond* oldarkorra, jauzkorra.

Intuiziozkoa, **inpultsiboa** zen sorkuntza bestelako begiz ikusteko eta aztertzeko aukera du egileak kontzientzia hartze horrek bere bidea eginda. Berria - Kultura

Bennettek zuen sindromearen beste agerkari bat -oso bestelakoa, bat-bateko ukitu-behar **inpultsibo** eta konpultsiboaren aldean- honako bitxikeria hau da: [...]. Xabier Olarra

---

## **inpultsio** *iz* bulkada.

Horregatik, mota bereko **inpultsio** bat eta tentsio bat jarraiarazten badira, efektua etengabea da hasieratik bukaeraraino. Isabel Arrigain

---

## **inpultsu** *(orobat **inpultso**)* *iz* bulkada, oldarra.

Alanbrearen aurrean sentitzen dugun **inpultsu** hori. Harkaitz Cano

Botoi edo palanka horiek, beren aldetik, bat-batean azaleratzen diren ezusteko **inpultsoek** mugitzen dituztela. Jon Alonso

---

## **inpune** *adlag* zigorrik gabe.

Halako izugarrikeriak ezin daitezke **inpune** gelditu, eta neuk bilatu ditut erantzuleak. Koldo Izagirre

---

**inpuneki** *adlag* zigorrik jasan gabe.

**Inpuneki** euren presoentzat indultuak eta amnistia eskatzeagatik. Berria - Euskal Herria

---

**inpunitate** **1** *iz* zigorgabetasuna.

Honelako dekretuek bikaindu egiten dituzte legeak, eta **inpunitatearen** bide guztiak ixten. **Inpunitatearen** eta kanpoko babesaren artean ez dago alde handirik. Juan Martin Elexpuru

Tortura gehienak funtzionarioei **inpunitatea** eskaintzen dien legeria antiterroristaren esparruan egiten dituzte. Berria - Mundua

Delitu baten konplize salatariari **inpunitatea** aginduko balio. Juan Martin Elexpuru

Lege horrek «torturatzaileen **inpunitatea»** babesten du. Berria - Euskal Herria

Epaileek zigorrak leuntzen dituztenean, elikatu egiten dute gaizkileengan **inpunitatearen** itxaropena. Esteban Antxustegi

Torturak duen **«inpunitatea»** salatu zuten. Berria - Euskal Herria

Okupatzaileen «itxurazko **inpunitatea»** salatu du Aik. Berria - Mundua

Proxenetaren **inpunitatea** dago lehenik, bezeroarena jarraian. Berria - Euskal Herria

Honelako lege batek, gainera, salatzailearen **inpunitatearekin** batera, honen erbesteratzea ekarri beharko luke. edozein lege hausteren gainetik eta **inpunitate** osoz jokatzen dute. Jokin Urain

Batasunak **«inpunitate** osoz» jarduten duela. Berria - Euskal Herria

Lavalas Alderdiko bidelapurrak oraindik indarrean daude eta **inpunitatez** ari dira jokatzen. Berria - Mundua

**2** (hitz elkartuetan)

Delitu hauen maiztasuna ez **inpunitate** -arriskuagatik baizik eta beste arrazoi batzuengatik gertatzen denez [...].Euskal Herriaren kasuan, «salbuespenezko mekanismoak eta **inpunitate** guneak» martxan jarri dituztela salatu du Gizarte Foroak. Juan Martin Elexpuru

**Inpunitate** dekretu publiko bat. Juan Martin Elexpuru

---

**inpuru** *(orobat* **inpuro***)* *izond* ez-garbia.

Arraza espainola **inpurua** da: […]. Joxe Azurmendi

Mairuak, odol **inpuro** ezespainolekoak; aristokrazia, odol godo espainol garbikoa. Joxe Azurmendi

---

**input** **1** *iz* prozesu baten hasiera elementua; datu sarrera. ik**output.**

Garrantzitsua da egoera horrek zer egiten duen jakitea, zein den horren rol kausala sarreraren **(input)** eta irteeraren (output) tartean, baita gainerako gogo-egoeren sarean ere. Askoren artean

Ondoren agindu sinpleak ematen dira, honako honen modukoak: makina S egoeran badago eta I **inputa** jasotzen badu, orduan O outputa emango du eta S' egoerara pasatuko da. Askoren artean

Ez da munduak eskaintzen duen **input** -a ukatzen, ezagutza oro, nahiz eta soziala izan, esperientzian oinarrituta baitago. Askoren artean

Beldurra ez litzateke kasu bakoitzean erreakzio hori eragiten duen eragilearekin identifikatu behar, propietate abstraktuago batekin baizik, **input** horretatik output hori eragiten duen rol kausalarekin, alegia. Askoren artean

Irudian teoria lanabes gisa itxuratzen da: corpusa du sarreran **(input),** eta gramatika irteeran (output). Itziar Laka

Ekoizpen funtzioaren **inputen** kostu egitura. Iñaki Heras

Komunikabide modernoenek ere, hala nola telebistak, konputagailuek eta sateliteek, ezin dute lanik egin begirik eta belarririk gabe; begiak eta belarriak behar dituzte mutur bakoitzean **input** -a prestatzeko eta output-a interpretatzeko. Irene Aldasoro

Ikusmen-aparatuaren eginkizuna ez da, haren iritzian, ez **inputak** "deskodetzea", ez pertzeptuak "eratzea", informazioa ateratzea baizik. Josu Zabaleta

Bertsogintzan ikusle eta entzulearen erreakzioak, begiak, txaloak, barreak, isiltasunak... sortzailearentzat lehentasunezko **inputak** dira. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**2** (hitz elkartuetan)

Itxura guztien arabera, argi-bizitasunarekin erlazionaturik dago begiaren sentikortasuna, halako moduz ezen askoz konstanteago mantentzen baita output-seinalea argi- **inputa** baino, gorabehera handiak izaten baititu argi- **inputak** : irrati-hargailuetan erabiltzen den bolumen-kontrol automatikoarekin konpara daitekeen baliabidea da hori. Irene Aldasoro

---

**inputatu,** inputa, inputatzen **1** du *ad* egintza zigorgarri bat leporatu.

Hiru adingabe **inputatu** dituzte Donostian, ustez ikaskide bati jazartzeagatik. Berria - Euskal Herria

Villanueva ere **inputatu** dute Pegenaute aferan. Berria - Euskal Herria

Felipe Bayo eta Enrique Dorado guardia zibilak **inputatu** zituzten, baina auzipetu ez. Berria - Euskal Herria

Ezker Batuak, bestalde, Fiskaltzak Bizkaiko Ogasuneko beste bi kargu **inputatu** izana «oso kezkagarria» dela esan zuen. Berria - Euskal Herria

Udalbiltzako 11 kide **inputatu** eta deklaratzera deitu ditu Garzonek. Berria - Euskal Herria

Xakiren eta ezker abertzaleko nazioarteko sarearen aurkako operazioan **inputatu** zuelako. Berria - Euskal Herria

Batasunaren kontrako auzian **inputaturik** daude. Berria - Euskal Herria

Oraingoz, 36 lagun daude **inputatuta** 35/02 sumarioan. Berria - Euskal Herria

Udabiltza auzian **inputatu** ditu. Berria - Euskal Herria

Itoizko urtegiaren aurkako borrokagatik **inputatu** eta espetxe zigorra jaso izanak hainbat gauza erakutsi zizkion solidarioari. Edurne Elizondo

Iturritxa eta Natalia Rojo **inputatzea** arbuiatu dute EAJk eta PSE-Eek. Berria - Euskal Herria

**Inputatzen** badute eta auzibidea abiatzen badute. Berria - Euskal Herria

**Inputaturiko** 11 lagunak zein diren ikusita, berretsi egiten da erabaki horren izaera politikoa. Berria - Euskal Herria

**Inputatutako** guardia zibilen bertsioa berresten duten medikuek. Berria - Euskal Herria

Dutrouxek emazteari eta auzian **inputatutako** bi gendarmeri egotzi zizkien hilketak. Berria - Gaiak

**2** (era burutua izenondo eta izen gisa)

Martin **Ugalde** inputatua izateko aukera zabalik zegoela hil zen. Berria - Euskal Herria

11 atxilotu eta 40 **inputatu**. Berria - Euskal Herria

**Inputatu** guztiei delitu bera leporatu arren. Berria - Euskal Herria

22 **inputatu** galdekatu eta miaketatan atzemandako milaka agiri aztertu ostean. Berria - Euskal Herria

Atzo, baina, **inputatu** bakoitza bere aldetik joan zen auzitegira. Berria - Euskal Herria

Ikerketa bukatu arte **inputatu** biak espetxean egotea nahi zuen Fiskaltzak. Berria - Ekonomia

Lekuko eta Perituak Babesteko Legeak soilik horiek babesten dituela dio, eta ez **inputatuak** . Berria - Euskal Herria

Zorroa **inputatuen** etxean aurkitu zuten.

Oleagaren auzian lau guardia zibilek deklaratuko dute gaur, **inputatu** gisa. Berria - Euskal Herria

Greba egunaren harira **inputatu** gisa deklaratu du Olanok. Berria - Euskal Herria

Hilaren 9ko greba eta mobilizazioen harira hainbat liskar izan zirela eta haien bultzatzaile izan zela egotzita **inputatu** gisa deitu zuen epaileak. Berria - Euskal Herria

---

## inputazio 1 *iz* inputatzea.

Ondorioz, Permachen kontrako **inputazioari** buruz erabakitzeko eskumena galdu zuen Garzonek. Berria - Euskal Herria

**Inputazioa** jakinaraztea izan zen Grande Marlaskak egin zuen lehen gauza. Berria - Euskal Herria

Balzaren aburuz, ministro batek presoen aurkako **inputazioak** «eraikitzeak» zigor bermeen sistema «apurtzea» dakar. Berria - Euskal Herria

Olabarriaren aburuz, zuzenbidea errotik urratzen du **inputazio** berriak eraiki nahi horrek. Berria - Euskal Herria

Hurrengo pausoak **inputazioak** kentzea izan beharko luke. Berria - Euskal Herria

Villanuevaren **inputazioa** eskatu du Euskara Kultur Elkargoko abokatuak. Berria - Euskal Herria

Egiten zaizkien 'terrorismo' **inputazioei** erreparatuta, atxilotuak ETAko kide direla pentsa daiteke. Berria - Euskal Herria

Rafa Diezen zein beste bost lagunen aurka Grande Marlaska epaileak eginiko **inputazioak** salatzeko. Berria - Harian

### 2 *inputazio (orokorraren) indize*

Metodologian aldaketarik eskatuko duzue? esaterako, **inputazio** indizea (EAEko errenta Estatukoarekin harremanetan jartzen duen kopurua) jaistea? Berria - Ekonomia

Sinplifikatzeko asmoz, beti hartzen da **inputazio** orokorraren indizea deritzona erreferentzia gisa, %6,24 famatua. Berria - Ekonomia

---

## insatisfazio *(orobat **insatisfakzio** g.er.)* *iz* asegabetasuna, kontentagaiztasuna.

Errotiko **insatisfazio** bat bizi nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Nerabezaroko larrujotze urrun eta idealizatu baten ondorengo **insatisfakzio** kateatuen minberagarritasuna. Harkaitz Cano

Liburu bat amaitzean beti gelditzen zait **insatisfazio** puntu hori. Berria - Kultura

Gizakiaren **insatisfakzio** egoera eternala. Berria - Kultura

Bikoteen bakardadea, jeloskortasuna, **insatizfakzioa..** . lagunekin eta maiteekin sortzen diren arazo eta ezin ulertuak kontatzen ditu. Berria - Kultura

---

## insaturatu *izond* gai kimikoez mintzatuz, asegabea.

Dagoeneko, adibidez, oilo-arrautzarekin eta behi-esnearekin hainbat saiakuntza egin dira, gantz azido aseen partez arrauzkiek eta esnekiek asegabeak **(insaturatuak)** eduki ditzaten. Edorta Agirre

---

## inseguritate *iz* segurantzarik eza.

**Inseguritate** juridiko gehiegi dago. Berria - Ekonomia

---

## insegurtasun *(orobat **intsegurtasun**)iz* segurtasunik eza.

Nire zalantza eta **insegurtasun** eta laino guztietatik. Joxe Azurmendi

Eta hola, batarekin eta bestearekin, jakinaren **intsegurtasunarekin** edo ezjakinaren segurtasun ezarekin, euskaldunak ez gara gai hizkuntza behar bezalako erraztasun eta aberastasunarekin erabiltzeko. Pello Salaburu

---

## inseguru *(orobat **insegur** eta **intseguru**)* *izond* ez-segurua.

Pauta bat jarraitzen ez dutenekin **inseguruago** sentitzen nauk, ez dakik zer baloratzen duten! Pako Aristi

Lurzorua burdinaz apurtzen hasi ziren eta gerra **insegurreko** burrukak berdindu egin ziren. Xabier Amuriza

Eguraldiaren eguneroko eta ordu oroko gurpilean, aroaren hegada pinpilinpauxa xotil **intseguru** baten antzekoan. Pello Zabala

---

## inserto *iz* tartekia, zinema edo telebista eszena batean tartekatzen den idazpuru esplikagarria.

**Insertoak:** alegia, hitz egiten ari nintzen bitartean beti nire aurpegia ager ez zedin irudiak behar genituen. Pako Aristi

Orduan programa hartako zuzendariaz gogoratu nintzen: hark **insertoak** behar zituen nire jarduna apaintzeko, osatzeko, biribiltzeko. Pako Aristi

Poema ondo girotu ondoren, han-hemenka **inserto** indartsuak sartuko ditut, tarteka sakontasun eta zorroztasun-uneak nabarmenduz Pako Aristi

---

## insertzio *(orobat **inzerzio**)* *iz*

Halaber, bi aldeak ados jarri dira **insertzio** kontratua «kasu oso berezietara» mugatzeko eta errelebukoa bultzatzeko. Berria - Ekonomia

**Inzerzio** edo orientazio mailan lanean ari diren egitüreekin harremanak hobeki finkatzea. Herria

---

## insigne 1 *izond* argidotarra.

Grilo poeta **insignea** eta Castelar diputatu ezaguna besarkada baten bildu baitira portikoan. Koldo Izagirre

### 2 ik **insignis**.

---

## insignis *(orobat **insigne**)* **pinu** *iz* pinu mota, Euskal Herrian ohikoa. *(Pinus radiata)*

Haranetako nekazaritza uztearekin eta **insignis** pinuaren ezarpenarekin paisaia erabal aldatu da ekosistemaren kalterako. Berria - Euskal Herria

Baina baso natural bat eta **insigne** pinuen sail bat ez dira gauza bera, ezta? Baina, noski, basoen eremuaren inguruko datuetan, basoak hazi egin direla pentsa dezake batek. Berria - Gaiak

---

insinuazio ik **intsinuazio**.

---

**insistentzia** *(orobat* ***intsistentzia****)* *iz* behin eta berriz ekitea.

Axola gehiago zitzaidala zure adiskidetasuna esan nahi dut, zure **insistentziak** sortzen zidan gogaidura baino. Xabier Mendiguren Elizegi

Gombrichen **insistentzia** ia didaktikoak margolaritzaren giroan berez sortu ziren teoriak ditu gogoan. Josu Zabaleta

**Insistentzia** horren arrazoia Frantziskoren garaiko testuinguru erlijioso-sozialean dago zalantzarik gabe. Askoren artean

Elkarrekin atera ginen kalera eta bere ondoan, ibilian, ohartu nintzen lehen aldiz **insistentzia** puntu batekin begiratzen zidala, nigan beste norbait ikusi edo nik beste norbait gogoratuko banio bezala. Joxean Agirre

---

**insistitu**, insisti, insistitzen *(orobat* ***intsistitu****)* du *ad* behin eta berriz ekin.

"Ezta hitzik ere", **insistitu** dute behin eta berriz, eta denek bete dute agindutakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Probatu, **insistitu** zenuen, eta zer egiten nuen pentsatu gabe sartu nuen atzamarrean. Xabier Mendiguren Elizegi

Funtzionarioak **insistitzen** zuela ikustean, kartzelako zuzendariarekin egon nahi zuela esan zion. Iban Zaldua

Eta **insistitu** egiten zuen, beharrezkoa zela Lilyrentzat, beharrezkoa Mintarentzat, beharrezkoa zela ezkontzea denentzat. Anton Garikano

Garaiko autore gehienek arraza eta nazioa ez direla nahastu behar **insistitu** ohi dute, Unamuno-k, etab. Joxe Azurmendi

Honetaz ere ez dut gehiegi **insistitu** nahi, lehen ere aski luze jardun dut eta. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**inskribatu**[1], inskriba, inskribatzen **1** da/du *ad (geometrian)* figura bat beste baten barruan marraztu, halako moduz non, elkar ebaki gabe, zenbait puntutan elkar ukitzen baitute.

Zirkuluaren azalera jakiteko, karratu bat **inskribatzen** da haren barruan, eta bikoiztu egiten da gero alde kopurua. Jon Muñoz

Karratu batean **inskribatutako** oktogonoa. Jon Muñoz

Planoan, zirkulu batean **inskribatutako** ezin konta ahal poligono erregular dago. Jon Muñoz

Esferan **inskriba** daitezkeen bost poliedro erregularrak. Jon Muñoz

**2** *irud*

Baina artxiboa da, halaber, eragiten duena esandako gauza horiek guztiak ez daitezen metatu mordo amorfo batean, ez daitezen **inskribatu** etendurarik gabeko linealtasun batean. Xabier Arregi

Teoria ekonomikoan eta bere joko kontzeptualaren arauetan **inskribatutako** bi posibilitateok, bi aukera ezberdinetarako bidea ireki dute, elementu beretatik hasten direnak. Xabier Arregi

Espazioan bezalaxe **inskribatzen** da denboran kontaketa, eta, horrenbestez, narraziozko irudi oro, eta berdin irudikapenezko irudi oro, narratibotasunaren "kodeek" markatuta dator, narratibotasun hori sekuentziatze baten bidez agertu baino lehen ere. Josu Zabaleta

Kondekorazioekin batera ageri ziren txarteletan irakurri nituen oroimenean, neure baitan, sekula gorde eta **inskribatu** ezin izan nituen datak. Joxan Elosegi

Grabatu haien marrazki inestrikable haietan zetzan **inskribatuta** Klararen misterioa. Iñaki Iñurrieta

**3** (era burutua izenondo gisa)

Zirkulu zirkunskribatua poligonoaren kanpoaldean dago eta haren erpin guztietatik pasatzen da; zirkulu **inskribatua** poligonoaren barrualdean dago, eta haren alde guztiak ukitzen ditu. Jon Muñoz

Aldi bakoitzean lortzen den poligono **inskribatuaren** azalera gero eta handiagoa da, baina zirkuluarena baino txikiagoa, betiere. Jon Muñoz

---

**inskribatu**[2], inskriba, inskribatzen *(orobat* ***inskribitu****)* da/du *ad* izena eman.

Erakundea handitu guran, **inskribitzeko,** karlistek egiten zuten galdera bakarra hau zen: [...]. Joseba Sarrionandia

Lehenengotatik Euzkadi'ko Jaurlaritzaren begirale legez **inskribatu** banintz ere, jardun, ordezkari jardun dut. Edorta Jimenez

-Zer uste duzu, gero?, badela erroldan **inskribaturiko** arima bakoitza hogei kopekeko prezioan salduko lizukeen ergelik? Jose Morales

Kristalezko atetzarra zabaldu eta alabastrozko hallean berehalaxe eskuratzen dizkizute zure gelako giltzak, zuk zeuk **inskribatu** bezalaxe izendatuak: [...]. Joxe Austin Arrieta

Enpresa bakoitzak bi bizkartzain **inskribatu** ditu. Berria - Kirola

Joaquin Maza Erauskin eta Jordi Cantillo Fontanals akziodunek egun horretan onartutako kontuak forma akats bategatik Gipuzkoako Merkataritzako Erregistroan ez **inskribitzeko** eskatu diote erregistratzaileari. Berria - Kirola

Federazio Ligan aritzeko **inskribatu** zituela. Berria - Kirola

---

**inskripzio**[1] *(orobat* ***inskripzione****)* *iz* esakunea.

Gerra-oroitarrietako eta hilarrietako **inskripzioak**. Xabier Olarra

Iturri horretan, hain zuzen, **inskripzio** bat dago harrian idatzia. Santiago Iruretagoiena

Diognetok hiri-barrura sartu zuen hiriak setiatzeko makina hura, eta **inskripzio** hau jarri zion: "Diognetok opari hau eskaini dio herriari etsaiari kendutako harrapakin gisa"."Ca custa lûn ca custa, Viva l'Austa" dio oinean daraman **inskripzioak**. eta eskeletoaren inguruan, letra ezin tipiagoetan, **inskripzione** bat: [...]. Santiago Iruretagoiena

Eta **inskripzio** bat ipini nion azpian. Unai Elorriaga

**Inskripzio** hau idatzi du: [...]. Jon Alonso

Maillotak Euskal Herria **inskripzioa** du erdian, ikurrina ondoan. Berria - Kirola

Libertè, Ègalitè, fraternitè **inskripzioa** zuen petakak, eta hitz haien ondoan, itsasoan ubera utziz zihoan belaontzi baten grabatua. Harkaitz Cano

Hizkuntza arkaiko edo ilun batean idatziriko **inskripzioak** argitu eta esplikatzeko. Isabel Arrigain

Ez dut **inskripzioa** ulertu, noski. Iban Zaldua

**Inskripzioa** deszifratzerik ez balute ere. Iban Zaldua

---

**inskripzio**[2] *iz* izen ematea.

Herrian falangistarik ez zegoenez gero, falangistak egiteko **inskripzio** boletinak zabaldu ziren, alderdi berriaren programa azalduz. Joseba Sarrionandia

**Inskripzio** boletinak kartzelan ere banatu ziren-. Joseba Sarrionandia

---

## insolent *izond* ozarra, errespetu gutxikoa.

Eta, bere soa bizkaitarrarenganat desbideratzen zuela, irritsu bezain **insolent,** gaineratu zuen-: [...]. Joan Mari Irigoien

---

## insolidario *izond* elkartasunik gabekoa.

Enpresa txikietako langileak abandonatuta uzten dituen negoziazio kolektibo **insolidarioaren** nagusitzea. Arduragabeak eta **insolidarioak** izango ginateke prozesu horretan lagunduko ez bagenu. Berria - Ekonomia

Esan nien idazlea, berez, ez dela beste edozein giza abere baino justuago edo sentiberago [...] eta bai direla, duda izpirik gabe, beste edozein giza abere baino egolatrago eta handiusteagoak, eta baita **insolidarioagoak** ere. Karlos Linazasoro

---

## insolidaritate *iz* elkartasunik eza.

Eginen nikek ez dela oheratu, **insolitaritatea** irudituko zitzaioan. Koldo Izagirre

---

## insomne *izond* logabea, lo galdukoa.

Z zolia eta I **insomnea** ez beste guztiak erdi-lo zeuden. Gain hartatik ikusita, uhartearen hego-kostaldeko urbanizazioek larregi argitutako hiri **insomne** baten atalak ziruditen. Bernardo Atxaga

Errezatu egin nien Jainkoari eta eliza populatzen zuten igeltsuzko, egurrezko eta marmolezko irudi nekatu eta **insomneei**. Joseba Sarrionandia

---

## insomnio *iz* loezina, lo galdua.

**Insomnioak** hartuko zaituen beldur zara. Anjel Lertxundi

**Insomnioa** eragiten dizute. Xabier Montoia

Gau asko eman dituzu **insomnioaren** eraginpean. Rafa Egiguren

Normalean hila banengo bezala lo egiten nuen gauez, baina garai hartan **insomnioak** jota nengoen. Koro Navarro

**Insomnioak** joen emendatzea, presoen emendatzearekin batean gertatu zen. Xabier Montoia

Goian, gauez, **insomnioa** dutenak "entretenitzen" aritzen dira... Agurtzane Juanena

Segidan, entretenimenduak bizitu egingo zaitu, eta **insomnioa** ezinbestekoa bihurtuko zaizu. Anjel Lertxundi

Izan ere, **insomnio** kronikoak depresioa ere eragin dezake. Berria - Gaiak

**Insomnio** sekulakoa, **insomnio** gauerokoaren erdian. Anjel Lertxundi

Adiskideak esan zidan, **insomnio**-gau petral baten ondotik, bere buruaz beste egitea erabaki zuela. Josetxo Azkona

**Insomniozko** hutsarteetan. Harkaitz Cano

Zenbatez argiago Maitearen begiak, hainbatez gehiago bihurtzen ziren **insomniozko** erreten begi haiek, garai batean sekula alde batera begiratzen ez zutenak. Anton Garikano

**Insomnioa:** THCak hipnosioaren eragin berak ditu: REM fasea laburtu eta loaren 4. fasea luzatzen du. Berria - Harian

---

## insoportable *izond* eramangaitza, ezin eramanezkoa.

Bainan horrek ekartzen du besteentzat batzutan **insoportable** gertatzen ahal zirela, eta orduan ez dakit noraino den defauta... Menane Oxandabaratz

**-Insoportablea** da. Unai Elorriaga

---

## inspektatu, inspekta, inspektatzen du *ad* ikuskatu.

Beha ginauden libratzaleak dira! Inginadoreak **inspektatzen** gitu eta oihu egiten dauku: "Tommy-ak heldu dira, ez ilusi, hunat helduko direlarik, zuetarik nehor ez da bizirik izanen, kalituko zituztegu denak!" Michel Oronoz

---

## inspektore *(orobat **inspektur** g.er., **inzpektore** g.er., **inzpektur** g.er.)* *iz* **1** ikuskaria, ikuskatzailea.

Zergen **inspektorea** itxaroten ari zara. Ramuntxo Etxeberri

Errioxan Ogasun arloko **inspektore** gisa. Berria - Mundua

Olivier Beth laborantzako **inspektore** nagusiak. Berria - Ekonomia

SGS portuetako **inspektoreen** elkarte independenteak adierazi zuen petrolio kargak bidali gabe geratuko direla grebaren ondorioz. Berria - Ekonomia

Prestige kostaldetik urruntzea «erokeria» izan zela dio Louzanek, eta petroliontzira joan zen **inspektoreak** egindako lana, «lotsagarria». Berria - Gaiak

Nazio Batuen Erakundeak Irakera bidalitako **inspektoreek** ez zuten ordea armen inongo aztarnarik aurkitu. Berria - Gaiak

Egun batez, kasketadun eta kasketagabeko **inspektoreek** prentsaurreko bat antolatu zuten. Michel Oronoz

ONUko **inzpektore** kontrolatzaileen buru den Hans Blix jaunak. Herria

**2** (eskoletakoa)

Eskolok [...] toleratuak izatera pasa ziren, hezkuntzako **inspektoreen** bisitak eta guzti. Joxerra Garzia

Bere biziko anabasa izaten zen ikastolan **inspektorea** etorri aurreko egunetan. Joxerra Garzia

Hasi gara, bada, zazpi-zortzi urteko ikasleak **inspektorearen** balizko galdeketarako prestatzen. Joxerra Garzia

Ume menditarrak dira -jakinarazi zion maisuak **inspektoreari** bisita egitera etorri zitzaigunean. Bernardo Atxaga

Idatzi zion **Inzpekturrari** galde egiteko erreint postu bat eskola publikoan. Herria

-¡Ven aquí, desgraciado! -egin zuen garrasi **inspektoreak**. Bernardo Atxaga

-Nahikoa izango da, **inspektore** jauna -esan zuen maisuak aurpegi zurbilez. Bernardo Atxaga

Hiriart, Archu eta Carresson hezkuntza frantseseko **inspektoreek** euskararen alde egin lana goraipatzen zuen Arbelbidek. Xipri Arbelbide

Jacques Lasserre Departamendu burua, Jean Castaing kontseilari orokorra, bai eta Arielle Pouchou-Fahier Akademiako **inspektorea**. Herria

Akademiako **inspektura** lekura jin da. Herria

Ikustekoa zen **inspektore** andrearen aurpegia. Joxerra Garzia

**3** uniformerik gabeko sail berezi bateko poliziakidea

-Badauzkazu Llumen etxeko giltzak? -galdetzen dio Martorell **inspektoreak**. Antton Olano

Jendarmeak eskua kokotsean zuela harrapatu zuen **inspektorea,** koaderno txiki batean idatzitako oharrak irakurtzen ari zela. Joxemari Urteaga

**Inspektorearen** ustez, klanen arteko kontu-garbiketa argia. Patxi Iturritegi

**Inspektorearen** bulegora eraman zaituzte goizean, eta bezperako polizia ezezagunak, dotore jantzita, Madrilgo ordezkaritzari buruzko galderak egin dizkizu. Rafa Egiguren

**Inspektoreak** bukatutzat eman du oraingoz galdeketa. **Inspektoreak** zure agenda hartu du eskuan, harrapatu zintuztenean puskatzen saiatu zinen hori, eta, zabaldu ondoren, martxoaren 12ari dagokion orrialdea erakutsi dizu. Rafa Egiguren

**Inspektoreak** ezkutuko erruaren onarpen gisa ulertu behar du zure mututasuna. Rafa Egiguren

**Inspektorearen** "eredua" aplikatu dizute berriro, helbidea behingoz aitor dezazun. Rafa Egiguren

-Ez haugu ia ukitu -jarraitu du **inspektoreak-,** hiri egindakoagatik inork ez dik konorterik galtzen. Rafa Egiguren

Ordu erdi daramazu galdeketa-gelan **inspektoreak** alde egin duenetik. Rafa Egiguren

-Argazki bat erakutsi nahi diat -esan dizu **inspektoreak-,** ea ezagutzen duan. Rafa Egiguren

**Inspektoreak** amua irentsi du berriro. Rafa Egiguren

Amaiak [...] Ertzaintzako **inspektore** izatea zuen amets. Fernando Morillo

**Inspektore** nagusiak oso legetsu hartu zuen. Gotzon Garate

**4** (hitz elkartuetan)

Bertan, 60 lagunez osaturiko mediku eta **inspektore** talde batek lan egingo du. Berria - Harian

Taddei, 63 urtekoa, 1961ean sartu zen Polizian, eta **inspektore** kargua lortu zuen. Berria - Mundua

-Non dago? -galdetzen dio polizia bati, **inspektore** -plaka erakutsiz batera. Antton Olano

· Istorioak kontatzen hasi eta polizia **inspektoreekin** trukaturiko ukabilkadak eta gortera egindako bisitak nahasten zituen. Karlos Zabala

Polizi **inspektoreak** adi-adi irakurri zuen. Karlos Zabala

---

## inspektoreorde *iz* inspektorearen azpiko kargua duen poliziakidea.

**Inspektoreordea** duk, berak ere hartuko dik hire kasuan parte. Rafa Egiguren

-Utz ezazu nire eskuetan -sartu da **inspektoreordea** tartean, borra astintzeko prest-. Rafa Egiguren

**Inspektoreordeak,** ileetatik tiraka berriro, altxatzera behartu zaitu. Rafa Egiguren

-Merezi duzuena jasoko bazenute... -gaineratu du **inspektoreordeak,** bere nagusiaren hitzekin ados- orduan jakingo zenukete zer den makila. Rafa Egiguren

Hiltzailea neroni nintzela sentiarazi zidaten: galderak, galderak eta galderak, horixe baizik ez zidaten egiten, **inspektoreorde** madarikatu horrek bereziki. Aingeru Epaltza

---

## inspekzio **1** *iz* ikuskatzea.

Kontua da Franco bizi zen bitartean **inspekzioa** pasatu behar izaten zutela ikastolek. Joxerra Garzia

-Tira, hementxe amaitzen da **inspekzioa:** oso ume jatorrak dituzue. Joxerra Garzia

Errutinazko **inspekzioa** egitera gatoz, jauna. Harkaitz Cano

Poliziak **inspekzioa** egiten du, ikerketa martxan jarri eta, ahal izanez gero, lapurrak atxilotzeko. Berria - Harian

Ez diagu inolaz ere **inspekzioa** gaindituko. Harkaitz Cano

Maria ohera hurbildu eta, aulkian eseri aurretik, **inspekzio** akustikoa pasatuko ez lukeen musu bat eman zion. Unai Elorriaga

Arratsalde hartan lantegiko kontrola, **inspekzioa**. Eneko Bidegain

Araudiak ahalmena emango dio Ogasunari **inspekzioaren** aurretik zergadunen datuak erkatzeko eta enpresen kontabilitate liburuak aztertzeko. Berria - Ekonomia

**2** ikuskaritza.

**Inspekzio,** Zaintza eta Egiaztatze Batzordeak eta okupazio indarrek jasotako dokumentazio guztia Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluari aurkezteko eskatu zuen Moskuk.

Ertzaintzako barne **inspekzioa** pertsona horrekin harremanetan jartzen da, eta ikertu egiten da. Berria - Euskal Herria

---

## inspirabide *iz* inspiratzeko bidea.

Hauen obra eta joera gogoratuz zaio eman erakusketari "Higidura eta oreka" gaia, artistei **inspirabidea** eta ekitaldiari funtsa eman beharrez. Herria

---

## inspiratu, inspira, inpiratzen **1** du *ad* eragin, bulkatu.

Mirande, Baroja, Ortegari entzun dizkiegun protestak, Nietzschek **inspiratuak** dira gehienak. Joxe Azurmendi

Liburu Santuetan idatzirik dagoen guztia Jainkoak **inspiratua** da. Elizen arteko biblia

Garbi ikusten zuen haren egintzak Jainkoak **inspiratuak** zirela. Askoren artean

Jainkoak **inspiraturik,** kapitulu-gelako aterantz begiratu zuen, eta bere begiz Frantzisko ikusi zuen, airean jasota. Askoren artean

Bestelako goiburu batek **inspiratu** zituen jesuita misiolari aitzindariak. Iñaki Mendiguren

Egunsentiak **inspiraturik,** margotzeari ekin zion berriro. Xabier Olarra

Eugenesia-mugimendua **inspiratu** zuten ideia gehienek ez zutela zentzurik. Juan Garzia

Istriako natura karstikoak **inspiratu** duen testurik ederrenetik. Anjel Lertxundi

Literaturak musika sortzen du, edo gutxien-gutxienik **inspiratu**. Berria - Kultura

Harro zegoela hitz haiek **inspiratu** nizkiolako. Ramon Saizarbitoria

-Ikaragarri **inspiratzen** zaitut orduan. Ramon Saizarbitoria

• **2** da *ad* ideia hartu, oinarria hartu.

Globalizazioak bultzada erabakigarria izan zuen, eta hautsita utzi zituen garai zaharkitu batean **inspiratzen** ziren ahalegin diplomatikoak. Koro Navarro

Nietzscheren inmoralismoa, nolanahi ere [...] moral "heroikoan" **inspiratu** da, aro "tragikoaren" espirituan. Joxe Azurmendi

Ebanjelioan **inspiraturiko** bere bizimoldearen jatortasuna osorik gordetzea. Askoren artean

Lege arbitrario bat maitasunean edo gorrotoan berdin **inspira** daiteke. Iñaki Mendiguren

Liburu honen proposamenetan **inspiratu** zen garaiko zenbait monarka ilustratu beren berrikuntzak egiteko. Juan Martin Elexpuru

Zazpi hiriburutan **inspiratutako** beste hainbeste film labur. Berria - Kultura

Azken hori, Nietzscheren *Zarathustra*-n **inspiraturikoa**. Berria - Kultura

Baina **inspiraturik** geunden, nonbait, eta abesti ugari atera zitzaizkigun. Berria - Kultura

Errematean ere aurrekoetan baino **inspiratuagoa** egon zen. Berria - Kirola

Horrelaxe **inspiratzen** zen. Askoren artean

Apuleioren Urrezko astoa irakurri behar huke **inspiratzeko**. Anjel Lertxundi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Salmoak, gorazarreak eta kantu **inspiratuak** abestuz. Elizen arteko biblia

Profeta erotua dago -diozue-, gizon **inspiratua** burutik egina. Elizen arteko biblia

Orijinal handi eta **inspiratuen** imitazio mekaniko eta azalekoa. Iñaki Mendiguren

Lagun eta ikaskidearen bat-bateko hitzaldi bero, **inspiratua** miresten zuen eta aldi berean ikara zion. Imanol Unzurrunzaga

Menelik II.a enperadorea gizon **inspiratua** zen, ordea. Harkaitz Cano

---

# **inspiratzaile** *izond/iz* inspiratzen duena.

Goiko solairuan aurki zezakeen, hala esatea gustatzen zitzaion, isiltasun **inspiratzailea** . Joxemari Urteaga

Oinarri **inspiratzaileak** . Berria - Euskal Herria

Dokumentu honetan garrantzi handiagoa du alderdi **inspiratzaileak** alderdi juridikoak baino. Askoren artean

Fede **inspiratzailea** baina sinpleegia zen, agian; izan ere, zenbait ilusiotan oinarritua zegoen. Iñaki Mendiguren

Poema haiek sortu, ez dakit nola sortu nituen [...] baina inoiz ez nuen izan inori erakusteko asmorik, ezta amodio haren **inspiratzaileari** ere, halakorik izan bazen. Xabier Mendiguren Elizegi

Fonologia mota horren **inspiratzaile** ziren hizkuntzari buruzko galderak. Lourdes Oñederra

Jainkoa baita gauza guztien Egilea, adimenaren Emailea eta bizitza zoriontsu eta egokira garamatzan maitasunaren **Inspiratzailea** . Imanol Unzurrunzaga

Artisten **inspiratzaile** baita pilotaAustro-marxistek eduki dute [Herder] maisutzat eta nazio zapalduetako nazionalistek **inspiratzailetzat,** Joxe Azurmendi

---

# **inspirazio** *(orobat* ***inspirazione*** *g.er)* **1** *iz* goi arnasa.

Izan ere, **inspirazioak** lanean aurkitu ohi gaituela esan du norbaitek. Ramon Saizarbitoria

Musen **inspirazioak** lagundu ziola pentsatuz. Santiago Iruretagoiena

Jakina denez, **inspirazioaren** kontzeptua erromantikoa da. Joxerra Garzia

**Inspirazioa** bera bezala, jenialtasuna dohain sekretua zen, esoterikoa, sorleku ezezagunekoa. Bernardo Atxaga

Filosofikoari dagokionez, **inspirazio** platoniarra eta neoplatoniarra ziren nagusi haien artean. Askoren artean

Barruan baitzeraman **inspirazioaren** garra. Askoren artean

Erlijio nagusi batzuk **inspirazio** atzerritarrak animatu izan ditu. Iñaki Mendiguren

**2** goiargia.

Eta hori Jainkoaren **inspirazioz** eta Jesu Kristoren borondatez gertatu zela. Askoren artean

Jainkoaren borondateak eta **inspirazioak** eraginda. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Koadroa ederra da [...] eta begi bistakoa Klimt-en **inspirazio** iturri izan zela. Ramon Saizarbitoria

Horretan Asisko Frantzisko hartzen du **inspirazio**-iturritzak. Askoren artean

Erlijio nagusi baten **inspirazio**-sorburu izandakoa. Iñaki Mendiguren

Artista handi askoren **inspirazio** kolpeak ez dira garunean, bekokiko lobuluan, jasaten dituzten epilepsia erasoen ondorio baizik. Joxean Agirre

Sinesteak emaiten duela **inspirazione** isla bat. Menane Oxandabaratz

**Inspirazio** krisia daukazula esan diezu. Lourdes Oñederra

Eta isuritako odola **inspirazio** kaliz bilakaturik, orriak eta orriak eta orriak bete izan ditut idazketa sukartsuz. Eider Rodriguez

---

# **instalakuntza** *(20 agerraldi, 4 liburu eta 12 artikulutan)* **1** *iz* instalazioa.

Esparru militarraren ertzean gelditu ginen, Firestone enpresak dauzkan **instalakuntzen** beste aldean. Rafa Egiguren

Arma nuklearrak garatzeko **instalakuntza** guztiak euren zaintzapean daudela. Berria - Mundua

Iaz arte ikuskatzen zituzten **instalakuntzak** «sistematikoki eraitsi» dituztela zehaztu zuen erakundeak. Berria - Mundua

Groenlandiako Gobernua, ordea, Thuleko erradarraren **instalakuntzak** bakarrik berritzearen alde agertu zen atzo. Berria - Mundua

**Instalakuntza** zibilen identifikazioa. Berria - Mundua

**Instalakuntzak** erakutsi zizkigun, frontoi ederra, dutxak, liburutegia. Koldo Izagirre

Realak gaur aurkeztuko ditu harrobia lantzeko atondu dituen Zubieta XXI izeneko **instalakuntza** berriak. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Erinys enpresak, esaterako, 14.000 gizon ditu Iraken ustez petrolio **instalakuntzak** babesteko. kirol **instalakuntza** itxietan ere debekatuta egongo da erretzea. Berria - Mundua

Zinema tresneria eta **instalakuntza** hobeak izateko laguntzea. Berria - Kultura

**3** (artearen alorrean)

Hainbeste liburu eta aldizkari, hainbeste margo, eskultura, **instalakuntza** eta perfomance. Juan Luis Zabala

Koadroez gain, badira argazki, bideo, eta **instalakuntzak** ere. Berria - Kultura

---

# **instalatu**, instala, instalatzen **1** du *ad* makina, zerbitzu edo kideko bat, dagokion tokian eta funtzionatzeko eran ezarri.

Holakoetan teleskopioa **instalatu** eta arratsalde osoa ematen du begira. Xabier Mendiguren Elizegi

Bost espazio agentziak hitzarmena egin dute, 2010. urterako estazioan falta diren laborategiak **instalatzeko** eta bertan astronauta gehiago bizitzen jartzeko . Berria - Gaiak

18 MWeko haize errotak, bederatzi guztira, **instalatuko** ditu. Berria - Ekonomia

Eta horra hor zergatik **instalatu** zen, 1812an uste dut, ontziolan dagoen sokategi handia, nik hainbeste mesprezatu nuena. Koldo Izagirre

Eta ur beroa eta hotza **instalatu** zituen. Julen Gabiria

Plastikozko oihal baten azpian, mahai txiki bat **instalatu** zuten eta jatetxe inprobisatu horretan hiru gizon ari ziren eltzekari baten irensten. Ramuntxo Etxeberri

New Yorkeko kaleetan **instalatutako** megafonian. Harkaitz Cano

Ez da software berezirik **instalatu** behar. Txema Ramirez de la Piscina

Aipagarria da nola amak enbrioiarentzat **instalatzen** duen aurre-atze ardatza amaren aurre-atze ardatz bera den. Juan Garzia

Erabiltzaile bakarreko eta anitzeko informatika sistemak **instalatzea** eta mantentzea. Berria - Euskal Herria

Ordenagailuan **instalatzen** den edozein programaren oharrak arretaz irakurri. Berria - Euskal Herria

Automatikoki **instalatzen** da artxibo hori sistema eragilean. Berria - Gaiak

RealPlayer, ordea, norberak jaitsi eta **instalatu** behar du makinan, bideoak ikusi ahal izateko. Berria - Ekonomia

• **2** da *ad* kokatu.

Kolonizazioaren historiaz eta han **instalatutako** lehen familiez hitz egin zuen. Bego Montorio

Bisitatik egun batzuetara, Margarita, Andres eta Luis etxean **instalatu** ziren. Josu Zabaleta

Lagunak **instalatuak** ziren anartean, nor fardo baten gainean ene gisa, nor zoruan zegoen zelaren baten gainean. Koldo Izagirre

Setiatuak nahiko eroso **instalaturik** baitaude, oraindik, hirian. Jon Alonso

Bertan **instalatu** zen feriatik feriako nomaden tropa. Berria - Kultura

Izan ere, ugalketa eta sexualitatea, izaki bizien bihotz-bihotzean **instalatuak** egoteaz gainera, orobat daude kokaturik, giza espezieari, kultura izadiarekin uztartzen den puntu horretantxe. Juan Garzia

Nire eginkizunean **instalaturik** nago azkenik. Josu Zabaleta

Bitsustasunaren atzean bere bertutean ondo **instalaturik** dagoenari. Josu Zabaleta

Logika zentrifugoan **instalatuta,** erdiguneari ekiteko oso garai ilunak bizi ditugu. Berria - Euskal Herria

---

# instalatzaile *izond/iz* instalatzen duena.

EVEk gomendatu zizkigun enpresa **instalatzaileek** iruzur egin zigutelako. Berria - Euskal Herria

Erabiltzaileak eta **instalatzaileak** trebatzeko ikastaroak. Berria - Euskal Herria

---

# instalatze *iz* kokatzea.

Lurren espekulazioa saihesteko eta lehentasunez laborari gazteen **instalatze** politika bat bultzatzeko. **Instalatze** primak erabiliz, etxaldea handitzeko zein barruki eta arditegiak berritzeko asmoa zuen. Itxaro Borda

---

# instalazio *(450 agerraldi, 31 liburu eta 243 artikulutan)* **1** *iz* instalatze lanean erabiltzen diren elementuen multzoa. ik **instalakuntza; muntadura**.

Argitekariak **instalazioa** jartzen; beste lankide batzuk barra egokitzen. Berria - Euskal Herria

**Instalazioak** egokiak dira, eta zerbitzu ona ematen dute. Berria - Harian

Mundu osotik etortzen dira hegazkinak Calgaryra lan berezi eta mantenimendurako; bertako **instalazioak** [...] Ipar Ameriketako onenetakoak dira. Xabier Olarra

Gasari hezetasuna kentzeko, **instalazio** batetik pasarazten dute, aurrena gasa hoztuz eta gero berotuz. Berria - Euskal Herria

Japoniarren **instalazioen** bonbardatzera. Ramuntxo Etxeberri

3.300 arma kimiko eta hainbat **instalazio** suntsitzeari ekin diote. Berria - Mundua

**Instalazioan,** 180 ardi eta 15 behi nitian. Daniel Landart

Hornidura elektrikoa: eguzki panelen 23 **instalazio**. Berria - Euskal Herria

**Instalazio** nuklearrek inguruetan bizi diren pertsonen osasunean dituzten ondorioak aztertzeko. Berria - Euskal Herria

Moldaketa-hareak tratatzeko beste **instalazio** bat egin beharko dute. Berria - Euskal Herria

Zaborra tratatzeko **instalazio** bat jartzeko lur sailak. Berria - Euskal Herria

**Instalazioak,** tresneria eta prozesuak kontrolatzeko. Berria - Ekonomia

**Instalazioetan** eraberritze lanak egiteko. Berria - Kultura

Eibarren, enpresaren **instalazioetan**. Berria - Kultura

Beharginei egotzi zien «pertsonen eta **instalazioen** kontra» indarkeria erabiltzea. Berria - Ekonomia

**2** (artearen alorrean)

Ikuspen eskotopikoa oso gutxitan gertatzen da irudiei dagokienean, eta hala nahita gertatzen da gertatzen denean ere: **"instalazio"** artistiko batzuetan, esate baterako. Josu Zabaleta

Telebista-pantaila sail bat erakusten duen Nam June Paik-en **instalazio** bat. Josu Zabaleta

Duchampen **instalazio** surrealista bat. Hasier Etxeberria

Berak **instalazioa egin** du erakusketan, usaimenarekin jokatzeko. Berria - Kultura

Gonzalo **Etxeberria-ren** instalazioak salatzen du lurra karioegi dela... Herria

Hirurehun lagunekin egingo du Tunickek Kursaaleko **instalazioa**. Berria - Kultura

2005eko apirila arte egongo da **instalazioa** Bilbon. Berria - Kultura

Azken urteotan eginiko koadro eta eskulturekin **instalazioa** paratu du Suzy Gomez artista mallorcarrak Nafarroako Museoan. Berria - Kultura

**Instalazioak** Eugenie elizpean jarriko dituzte. Berria - Kultura

**3** kokatzea.

Martxoaren 18 an, lurraren problematikaz eta **gazteen** instalazioaz. Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Oihalez estaliko zituzten apalak, **instalazio**-lanek sortutako hautsetik babesteko. Jon Muñoz

**Instalazio** proiektua asmatzean, [...] paperean eskribatua eta errealitatezkoa ez dituk berdin joan. eguneratze kostuak, sistemen bateragarritasun arazoak edo **instalazio** arazoak. Daniel Landart

Museoak lau solairu ditu, sei **instalazio**-mailatan banatuak. Edorta Jimenez

Spezial Material Zuricheko musika-artista taldeak bi **instalazio**-emanaldi eskainiko ditu Euskal Herrian. Berria - Kultura

**Instalazio** moduan aurkeztutako erakusketa da. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ziklo edo bolada teknologikoetan bi epe bereiz daitezkela: **Instalazio** epea eta hedapen epea, Ohiko argindar-**instalaziora** konektatzea besterik ez zegoen. Iban Zaldua

Argindar, ur-berokuntza eta aireztapen-**instalazioak**. Joxe Austin Arrieta

Hark diseinatu du grabazio horiek guztiak entzun ahal izateko soinu **instalazio** berezia. Berria - Kultura

Munduko saneamendu-**instalaziorik** onena. Joxe Austin Arrieta

Luzera osoan aire edo argi **instalazioa** zeukaten. Urtzi Urrutikoetxea

Informatika **instalazioetako** segurtasun inguru berritzaile bat. Berria - Gaiak

Gibela da gorputzaren kimika-**instalazioa**. Irene Aldasoro

Protesta baten irudiaren lekuan, arte **instalazio** bikaina ikusi nuen nik hartan, Patri. Hasier Etxeberria

Pasaialdea biziberritzeko eta portu **instalazio** berriak sortzeko. Berria - Euskal Herria

Sarrera doan daukate udal kirol **instalazioetan**. Txema Ramirez de la Piscina

Jendea biluztuz, argazki **instalazioa** egingo du Donostian Tunickek. Berria - Kultura

instante ik **istant**.

**instantzia** 1 *iz* Justizia gorabeherak erabakitzeko eta epaia emateko, legeak mugatuak dituen jurisdikzio mailetako bakoitza.

Epaitegi hori da azken erabakia har dezakeen **instantzia** eta, hark, hamabost eguneko epea du epaia kaleratzeko. Berria - Euskal Herria

Azkenik, Auzitegi Gorenak **instantzia** prozesal guztiak agortzen dituen kasazio organoa izaten jarraitzen duela salatu zuen Olabarriak. auzia Mexikoko Auzitegi Gorenak konpondu beharko duela baieztatu zuen, bitarteko **instantzia** legal guztiak agortu eta gero.

«Estatuko hainbat **instantzia** judizial eta hedabideren aldetik lau gipuzkoar hauek jasaten ari diren merezi gabeko tratu injustua eta iraingarria» salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Niri nahi baino gehiagotan tokatzen zait neure burua ordezkatzea **instantzia** ofizial horietan. Patziku Perurena

Lotsagarria da euskaldunon arteko eztabaidek Madrilgo **instantzien** baimena behar izatea. Berria - Euskal Herria

60 eguneko epeak auzia nazioarteko **instantzietara** eramateko tartea ematen duela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Hona zein diren bost jujeak: Daniel Trouvé presidentea, Chantal Wagenaar **instantziako** auzitegi burua, Isabelle Monterosso haur auzitegi burua, [...]. Herria

**2** aginpide maila; erabakimena duen agintaritza edo korporazioa.

Zientziaren Filosofian justifikazioaren arazoa legeen eta teorien justifikazioaren arazoa da, eta horretarako **instantzia** berresle edo konfirmatzaile jakin batzuk erabiltzen ditu. Askoren artean

**Instantzia** honek biltzen du bere baitan, orobat, diskurtsoaren jabe egiteko erregimena eta prozesua. Xabier Arregi

Balio eta arrazoien arteko konfliktoan erabakitzeko, balio eta arrazoien artetik kanporako **instantzia** bat hartzen da, matematikoa eta -moralki- neutrala itxuraz: gehiengoa. Joxe Azurmendi

Parlamentuak erresumako ia auzi guztiak epaitu zituen azken **instantzia** gisa. Iñaki Iñurrieta

Ez dago gertaeren sakoneko esanahia edo pertsonaien motibazioak argituko lituzkeen narratzailerik edo **instantzia** nagusi orojakilerik. Itziar Otegi

Baina, bitartean, zer gehiago egin dezakete **instantzia** politikoetan, Egunkaria-ren auzia bezalakoetan? Berria - Euskal Herria

Subjektua hartzen dela arrazionaltasunaren **instantzia** fundatzaile modura, edo hartzen dela sintesiaren funtzio enpiriko bezala. Xabier Arregi

**3** agintari egiten zaion eskaera.

**-Instantzia** bat idatzi behar didak epaitegira, nire kasua kontatuzøø. Koldo Izagirre

**Instantzia** bat egin dut ea itzultzerik ba ote duten, nire osasunerako ezinbestekoa dela-eta kefirraøø. Koldo Izagirre

Helegite eta **instantzia** guztiak agorturik zeuden. Harkaitz Cano

Hilabeteak igaro dira eta **instantziak** ez du erantzunik izan. Jokin Urain

Epailearen **instantziaren** arabera. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan)

Prokuraketa horren betetzeko joan behar da: edo **instantzia** auzitegira, edo jandarmeriara edo polizetxera. Herria

Harremana, alde batetik, medikuntza-erabakitze **instantziaren** eta, bestetik, epai-erabakitze **instantziaren** artean. Xabier Arregi

Erregimen demokratikoetan, zigor eskubidearen kontrol sozialak beste kontrol- **instantzien** norabide berean jokatuko du. gainerako presoei **instantzia** eta paper kontu guztiak egiten laguntzen zielako. Juan Martin Elexpuru

**5** ***azken instantzia***

Hau zioen autonomia erkidegoko justiziako auzitegi nagusiei buruz: bere esparruko auzibideetan azken **instantzia** izan daitezela. Berria - Euskal Herria

Lege batetik besterako aldian, hala ere, bada aurreko ezeztatzearen salbuespenik, baldin eta oker eta abusu horiek finkatu eta irmotu badira transakzio, azken **instantziako** epai edo arbitro ebatzien bidez eta gauza epaituaren indarraz. Andres Urrutia

Joachimek ezin eraman zezakeelako, beti ere, Hannak bere buruari eta ez beste inori iriztea, haurrei dagozkien zeretan, **instantzia** azken eta bakarra. Joxe Austin Arrieta

Hau zioen autonomia erkidegoko justiziako auzitegi nagusiei buruz: bere esparruko auzibideetan azken **instantzia** izan daitezela. Berria - Euskal Herria

**6** ***goi instantzia***

Hala ere, Creteileko Goi **Instantziako** Auzitegiko epaile batek prozedura bat ireki dio. Berria - Euskal Herria

Honek, Goi- **Instantzietara** bideratu ordez, zakarretara botatzen ditu zuzenean, agintariek agindu dioten moduan. Karlos Linazasoro

**7** ***lehen instantzia***

Bilboko 10 zenbakiko lehen **instantziako** epaitegiak urtarrilaren 9an hartutako erabaki baten harira. Berria - Harian

Haurra hari eman eta zazpi egunetara erantzuten dio lehen **instantziako** epailearen irailaren 2ko eskaerari. Koldo Izagirre

Hala erabaki du Tolosako Lehen **Instantziako** epaitegiak. Berria - Euskal Herria

Tafallako Instrukzioko eta Lehen **Instantziako** bigarren epaitegiak hartu du bere gain auzia. Berria - Euskal Herria

Paueko dei gorteak atzo Baionako auzitegiak aurtengo urtarrilaren 8an lehen **instantzian** ezarritako isunak emendatzea erabaki zuen. Berria - Euskal Herria

**instintibo** *izond* instintuari dagokiona. ik **instintu 4**.

Senoko zuloa, hara bueltatu eta handik ez ateratzeko gogo **instintiboa**. Harkaitz Cano

Baina orain ez zen lehenagoko inprobisazio **instintiboa,** orain keinu oro pentsatu egiten baitzuen, eta pentsatu zuen musukatu behar zuela eta musu eman zion. Bego Montorio

Arraza materialista, **instintiboa** da. Joxe Azurmendi

Hitzekin eta eskuekin komunikatzen gara, baita begiradarekin ere, baina eskuak **instintiboagoak** dira. Ana Urkiza

Gizakiaren alde **instintiboena**. Berria - Kultura

Harro nago egin dudan lanaz, nahiz eta **modu** instintiboan egin dudanez ez dudan harro egoteko arrazoirik. Berria - Kultura

Orain, berriz, askoz modu **instintiboagoan** egiten ditugu kantuak. Berria - Harian

**instintiboki** *adlag* era instintiboan. ik **instintu 3**.

Burua biratzen da, **instintiboki,** bi belarrietako seinaleen denboren edo indarren diferentzia handiena bilatzeko. Irene Aldasoro

Ez zuen begirada jaso egunkaritik, baina nik neurea jaitsi nuen **instintiboki:** bera izan zitekeen nire izen-emateaz arduratuko zen militarra! Anjel Lertxundi

Nik begirada jaitsi nuen **instintiboki,** oinezkoren batekin gurutzatzen nintzen guztietan bezala. Anjel Lertxundi

**instintiboki** makurtu zuen linternaren norabidea lurrera. Josu Landa

**instintu** *(34 agerraldi, 13 liburu eta artikulu 1ean; orobat* ***instinto*** *15 agerraldi, 6 liburu eta 2 artikulutan)* **1** *iz* sena.

Zakurrarengan [...] **instintua** da oraindik nagusi; tximinoarengan, berriz, arrazoibideak hartzen du gaina. Josu Zabaleta

Espeziearen **instintua** seme-alabak izan nahia da, jarraipena izan nahia. Josu Zabaleta
Badagoela jendea zeinarentzat giza sexualitatea **instintu** edo sen bat besterik ez den, edo, behar primario hutsa. Berria - Harian
Ohar bedi, holakoetan herriaren arima **instintoarekin** berdintzen dela nolabait. Joxe Azurmendi
**Instinto** berak eraginda, altxatu eta gorputz zurrundutik nagiak atera zituen. Joanes Urkixo
Gizartearen **instintu** kontserbazaleak. Josu Zabaleta
Bere **instintu** antisoziala handitzen ari zitzaion. Josu Zabaleta
-Ba, maitasuna [...] **instintu** fetixistaren eta **instintu** sexualaren bateratzea da. Josu Zabaleta
Neskatila hauek badakite hatzak sorbaldan kokatzean/belarrira hitz egin eta **instintua** pizten. Harkaitz Cano
Seigarren **instintoak** eraginda. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan)

Gizarte-gorputzaren kontserbazio-**instintuak** nahiko indar du digeritu ezin duen guztia arbuiatzeko. Josu Zabaleta
Sexu-**instintuak** gizona emakumearenganantz eta emakumea gizonarenganantz bultzatzen ditu. Josu Zabaleta
Subertsio **instintu** bakoitzak -eta naturala dena subertsiboa da beti-, ondoan du bere jendarmea. Josu Zabaleta

**3** ***instintuz*** ik **instintiboki.**

**Instintuz** Rekexorengana begiratu zuen, honen azalpenaren bila bezala. Joxemari Iturralde
Lotsatzeko moduan hasi gintuan garrasika, **instintuz**. Josu Zabaleta

**4** ***instintuzko*** ik **instintibo.**

Arimak (arrazoimenak) gorputzaren (animaliaren) egintza **instintuzkoak** menperatu eta kontrolatuko balitu bezala. Piarres Xarriton
**Instintozko** edo naturala. Joxe Azurmendi

---

# institutu *(orobat **instituto** g.er.)* **1** *iz* Espainiako hezkuntza sisteman, bigarren irakaskuntzako ikastetxe publikoa.

Hurrengo kurtsoa -BUPeko lehenengoa alegia- **institutu** batean egingo nuela. Iban Zaldua
Galarazita genuen **institutu** barruan erretzea. Anjel Lertxundi
**Institutu** aurreko aparkalekuan. Iban Zaldua
Aitak La Salleko ikastetxetik atera ninduenean, **institutuan** matrikulatzeko. Joan Mari Irigoien
Emaztea neska gaztea zen, **institutuan** ikasitakoa. Jose Morales
**Institutuan** adiskidetu, eta harrezkero elkarrekin ibili gara. Xabier Montoia
**Institutuan** neskak neskekin jarri gintuzten; mutilak, mutilekin. Arantxa Iturbe
**Institutuko** lau urteak elkarrekin egin genituen Margak eta biok. Iban Zaldua
**Institutuko** irakasle guztien artean. Anjel Lertxundi
Sestaoko bi ikastetxeetan elkarretaratzeak egin zituzten eta Deustuko **institutu** aurrean bidea moztu zuten. Berria - Euskal Herria
Euskal Herriko **institutu** eta unibertsitateetan. Berria - Euskal Herria
Abenduaren 6an, 7an eta 8an, EAEko **institutu** publikoak haserre daude irakasgaien dekretuarekin. Berria - Kultura
Bigarren hezkuntzako **institutu** publikoen asanbleak. Berria - Euskal Herria
Egun **institutu** batean lanean hasten den irakasle batek, unibertsitatean hasten den beste irakasle batek baino 5.500 euro gutxiago jasotzen ditu urtean.

**2** zenbait ikerteta edo ikasketa erakunderi ematen zaien izena.

Unibertsitate baten menpekoak dira **institutu** gehienak; izan ere, 14 **institutu** horietatik, 9k dute nolabaiteko harremana unibertsitate batekin edo birekin, eta hori Frantzian dagoen joera orokorraren isla da. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Gainera, Unibertsitateetan egiten den ikerketa jardueraren osagarria denez **institutu** horietan egiten den lana, zeharka, horrek ere baldintzatzen du Unibertsitateetan egiten den ikerkuntza. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu
Integrazio gela digitala inauguratu dute Easo Lanbide Pasteur **Institutuko** gure laborategian. Berria - Euskal Herria
Heziketako **Institutu** Politeknikoan. Berria - Euskal Herria
Valence-tik iparrera 30 kilometrora... Grandchamps **Institutu** Teknikoa... baina ez da ikastetxe ikastetxea.... Jesus Mari Mendizabal
Caltech-en, Kaliforniako **Institutu** Teknologikoan. Fernando Morillo
Ikerketa JPL laborategiko eta **Kaliforniako** Institutu Teknologikoko adituek egin dute. Berria - Gaiak
Princetoneko Ikasketa Aurreratuen **Institutua**. Berria - Kultura
**Institutu** Onkologikoa uda aurretik hasiko dira egiten. Berria - Euskal Herria
Erresuma Batuan [...] Hetforshireko Biologiako Arauen Kontrolerako **Institutu** Nazionalean. Berria - Gaiak
Pariseko **Institutu** katolikoko aita Tesson irakasle argia. Piarres Xarriton
Jean Jacques **Casteret** Institutu Okzitanoan etnomusikologo dena. Herria
Historia eta Antropologia **Institutu** Nazionaleko ikertzaile eta irakasle Felipe Echeniquek esan zuenez. Berria - Euskal Herria
Gaitasun pedagogikoko proba praktikoak Lyongo **institutu** batean egin nituen. Joseba Urteaga
Itsuentzako **Institutu** Juduarekin harremanetan jarri ginen ikastaldi trinko batean sar zedin. Xabier Olarra
Giza genoma proiektua" hartzen du izena eta batez ere Estatu Batuetako Osasun **Institutu** Nazionalak (NIH) eta Erresuma Batuko Welcome Trust daude atzean. Pello Salaburu
Aholku eskatu zitzaien zientzialarien artean egokitu bainintzen, iradoki nuen egoki zatekeela saguaren **institutu** edo bat eraikitzea. Juan Garzia

**3** interes publikoko hainbat erakunderen izena.

Gorpua Bilboko **Institutu** Anatomiko Forentsera eraman zuten autopsia egiteko.
Meteorologia **Institutu** Nazionalak urtero prestatzen duen Almanaka batean. Pello Zabala
Espainiako **Institutu** Geografikoak, etenik gabe, estatuan gertatzen diren lurrikarak erregistratzen ditu. Berria - Euskal Herria
Espainiako Estatistika **Institutu** Nazionalak jakinarazi zuenez. Berria - Euskal Herria
Cervantes **Institutuak** gonbidaturik. Edorta Jimenez
Estrada almiranteak, Itsas **Institutu** Sozialeko lehendakari-delegatu gisa, Askatzailearen arrantzarako zaletasunaz jardun zuen. Koldo Izagirre
Espainiako Enplegu **Institutu** Nazionala. Berria - Euskal Herria
Hala esan du Frantziako Defentsa Ministerioaren **Institutu** Geografikoak. Berria - Euskal Herria
Italiako Astrofisika **Institutu** Nazionaleko astro[no]moek. Berria - Gaiak
Ikerketa JPL laborategiko eta Kaliforniako **Institutu** Teknologikoko adituek egin dute. Berria - Gaiak
Moskuko Marx-Engels **Institutuak**. Iñaki Heras
Gure dirua [Venezuelako] Kirolaren **Institutu** Nazionalak dauka, eta urriaren 13tik banka paralelo batean sartua dauka, interesak irabaziz gure kontura. Pako Aristi

**4** (hitz elkartuetan)

Susmoa du **institutu** garaian Beatriz harekin maitemindurik egon zela. Iban Zaldua
Gorago aipatu dugu Ikerketa **Institutuak** sortzeko beharra. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Arkeologi **Institutu** batean ari dela lanean orain. Joxe Austin Arrieta

Meteorologia **Institutuan** lan egiten zuen adiskidearengana. Karlos Linazasoro

Europa eta Estatu Batuetako unibertsitate eta filosofia-**institutuetan** . Askoren artean

Kimika **institutu** batean leherketa bat izan eta pertsona bat hil da. Berria - Mundua

Azterketa egiteko lana MIT […] ikerkuntza-**institutuko** talde bati eman zioten. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Alabaina ile-apaindegian mutu geratu zen eta Sybele edertze-**institutuan** doi-doia hitz egin zuen. Itxaro Borda

## 5 ***Frantziako Institutua*** *mug*

Frantziako **Institutua** frantziar kultura munduan zabaltzeaz arduratzen da eta ordezkaritzak ditu munduko hainbat hiritan. Berria - Kultura

Frantziako **Institutuko** liburutegia. Jon Muñoz

Etorriko diren adituen artean daude Kenneth Fowler Edimburgoko Unibertsitateko irakaslea, Milango Unibertsitateko Nadia Covini eta Philippe Contamine, **Frantziako Institutukoa** . Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arauen kontrolerako institutu** (3); **aurreratuen institutua** (4); **da institutua** (4); **donostiako institutu** (5); **espainiako institutu** (10); **espainiako institutu geografikoak** (8); **estatistika institutu** (3); **estatistika institutua** (4); **eta institutu** (7); **euskal soziolinguistika institutua** (3); **ikasketa aurreratuen institutua** (4); **ikerketa institutu** (4); **institutu anatomiko** (5); **institutu anatomiko forentsera** (3); **institutu aurrean** (3); **institutu bat** (7); **institutu batean** (14); **institutu batean lanean** (3); **institutu eta** (5); **institutu garaian** (13); **institutu garaiko** (4); **institutu geografikoak** (9); **institutu horretan** (3); **institutu nazional** (3); **institutu nazionala** (3); **institutu nazionalak** (10); **institutu nazionalean** (3); **institutu nazionaleko** (7); **institutu politeknikoko** (3); **institutua da** (3); **institutua eta** (5); **institutua sortu** (7); **kontrolerako institutu** (3); **nintzen institutu** (3); **soziolinguistika institutua** (3)

**arangiz institutuak** (6); **cervantes institutuak** (8); **emakumearen institutuak** (19); **eskubideen institutuak** (3); **espainiako estatistika institutuak** (11); **espainiako geografia institutuak** (18); **espainiako toxikologia institutuak** (4); **estatistika institutuak** (16); **estatistika institutuak emandako** (4); **geografia institutuak** (19); **geografia institutuak jaso** (4); **giza eskubideen institutuak** (3); **ikerketa institutuak** (3); **institutuak antolatu** (3); **institutuak antolatutako** (3); **institutuak atzo** (3); **institutuak bere** (4); **institutuak du** (3); **institutuak egindako** (5); **institutuak emandako** (5); **institutuak emandako datuen** (3); **institutuak eta** (10); **institutuak jakinarazi** (6); **institutuak jakinarazi du** (3); **institutuak jaso** (4); **institutuak jaso du** (4); **institutuak sortu** (3); **kultura institutuak** (3); **nafarroako emakumearen institutuak** (16); **nazioarteko institutuak** (5); **osasun institutuak** (3); **osasun publikoaren institutuak** (4); **publikoaren institutuak** (5); **robles arangiz institutuak** (6); **toxikologia institutuak** (6)

**arangiz institutuaren** (3); **aresti institutuan** (4); **beasaingo institutuan** (3); **bertendona institutuan** (5); **cervantes institutuan** (4); **cervantes institutuaren** (3); **espainiako estatistika institutuaren** (5); **espainiako geografia institutuaren** (7); **estatistika institutuaren** (9); **estatistika institutuaren arabera** (8); **eta institutuan** (3); **eta institutuaren** (3); **gabriel aresti institutuan** (4); **geografia institutuaren** (7); **geografia institutuaren arabera** (4); **gizarte institutuan** (3); **hondarribiko talaia institutuan** (3); **institutuan egin** (3); **institutuan egongo** (3); **institutuan eta** (4); **institutuan ez** (3); **institutuan hasi** (6); **institutuan ikasi** (3); **institutuan ikasten** (5); **institutuan izan** (3); **institutuan lan** (6); **institutuan lan egiten** (5); **institutuan sartu** (3); **institutuaren arabera** (17); **institutuaren arteko** (3); **institutuaren esanetan** (3); **institutuaren eta** (4); **institutuaren zuzendaria** (3); **itsasoko gizarte institutuan** (3); **ondarroako institutuan** (3); **pasteur institutuan** (10); **robles arangiz institutuaren** (3); **talaia institutuan** (7)

**biomedikuntza institutuko** (3); **cervantes institutuko** (3); **emakumearen institutuko** (11); **emakumearen institutuko zuzendari** (5); **eta institutuko** (6); **frantziako institutuko** (3); **georgiako teknologia institutuko** (3); **goddard institutuko** (3); **hondarribiko talaia institutuko** (7); **ikerketa institutuko** (3); **ikerketarako institutuko** (9); **institutuko adituek** (5); **institutuko arduradunek** (3); **institutuko atarian** (3); **institutuko azken** (3); **institutuko beste** (3); **institutuko buru** (7); **institutuko eskola** (3); **institutuko eskola kontseiluan** (3); **institutuko eta** (3); **institutuko hainbat** (4); **institutuko ikasle** (9); **institutuko ikasleak** (5); **institutuko ikasleei** (3); **institutuko ikasleek** (4); **institutuko ikertzaileek** (4); **institutuko irakasle** (7); **institutuko irakaslea** (8); **institutuko irakasleak** (9)

**institutuko kide** (3); **institutuko kidea** (9); **institutuko kidea da** (5); **institutuko kideak** (6); **institutuko presidente** (3); **institutuko presidentea** (3); **institutuko presidenteak** (4); **institutuko talde** (3); **institutuko zientzialari** (4); **institutuko zientzialari talde** (3); **institutuko zientzialariak** (4); **institutuko zientzialariek** (6); **institutuko zientzialarien** (3); **institutuko zuzendari** (18); **institutuko zuzendari teresa** (4); **institutuko zuzendaria** (15); **institutuko zuzendaria da** (5); **institutuko zuzendaria eta** (3); **institutuko zuzendariak** (13); **institutuko zuzendariaren** (3); **kaliforniako teknologia institutuko** (4); **karolinska institutuko** (4); **massachussetseko teknologia institutuko** (3); **medikuntza institutuko** (3); **nafarroako emakumearen institutuko** (9); **nazioarteko institutuko** (4); **osasun publikoaren institutuko** (3); **pasteur institutuko** (4); **publikoaren institutuko** (3); **roslin institutuko** (4); **talaia institutuko** (26); **talaia institutuko irakasleak** (4); **teknologia institutuko** (17)

**eta institutura** (3); **institutura bidean** (3); **institutura eraman** (7); **institutura eraman zuten** (4); **institutura etorri** (3); **institutura joan** (8); **institutura joaten** (6); **institutura sartu** (3); **medikuntza institutura** (3); **zen institutura** (4)

---

# instituzio

*(**837** agerraldi, **42** liburu eta **507** artikulutan; ETCn **17.795** agerraldi; orobat* ***instituzione*** *g.er.; cf* ***erakunde*** ***11901*** *agerraldi, **148** liburu eta **5888** artikulutan; ETCn **155.143** agerraldi)* **1** *iz* erakundea.

Baina **instituzio** zaharrek hiritar guztiak ezkontzera behartzen zituztenez [...]. Iñaki Iñurrieta

Goi mailako burgesia [...] ez da gauza **instituzio** burges demokratikoak eraikitzeko. Rafa Egiguren

Konstituzioak **instituzio** eraginkor eta demokratikoak sortuko ditu. Berria - Euskal Herria

Nafarroa Behereko **instituzio** gorenean. Aingeru Epaltza

Nazio eraikuntza, **instituzio** propioak, hizkuntzaren ofizialtasuna... Itxaro Borda

**Instituzio** nazional bati, Udalbiltzari alegia. Berria - Euskal Herria

**Instituzio** politiko eta errepresiboekin hautsi. Rafa Egiguren

**instituzio** publikoek bertsolaritzari eskaintzen dioten laguntza. Berria - Kultura

Munduko gobernamenduaren nondik norakoa gidatzen duten **instituzio** globaletan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Platonen legea **instituzio** lazedemoniarren gainean eratua zen, non magistratuaren aginduak erabatekoak baitziren. "Zinema esperimentala" [...] **instituzio** zinematografiko guztietatik horixe baita berariaz "arte plastikoetara" gehien hurbiltzen dena. Iñaki Iñurrieta

Artea **instituzio** soziala bilakatu da. Josu Zabaleta

Departamendua Napoleonen garaiko **instituzio** bat da. Berria - Euskal Herria

Ipar Euskal Herrirako berezko **instituzio** baten proposamena. Berria - Euskal Herria

Israelgo **instituzio,** ordezkaritza eta produktuei boikota egitea. Berria - Harian

Sobera sari, sobera **instituzio..** . Ana Urkiza

## 2 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **instituzional**.

Herri elkargoa **instituzio** mota aski berria da. Berria - Harian

Estatuak euskara errespetatu, sustatu eta babestu egingo du, **instituzio arlo** guztietan. Berria - Euskal Herria

Gure borroka elkarte egituratik **instituzio** mailara pasatzea izanen da, eta ofizialtasuna lortzea.

Nola bultzatu komunitateak eta bere gizarte zein **instituzio** egiturak, elkarbizitza bakezkoago eta orekatuago bat ahalbidetzearren. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ez baitute kontuan hartzen Ipar Euskal Herrian **instituzio** ezagupenaren aldeko eskakizuna. Berria - Harian

Ipar Euskal Herriko **instituzio** taldeak.

**Instituzio** xedea aurkeztu dute, «eztabaida pizteko tresna» gisa. Berria - Euskal Herria

**Instituzio** proposamenak jarraipenik izanen du. Berria - Euskal Herria

**Instituzio** proiektu horrekin «eztabaida luzatu eta lagundu» nahi dute. Berria - Euskal Herria

Italiako **Instituzio** Erreformarako ministro eta Lega Nord alderdiko diputatu Roberto Calderolik. Berria - Mundua

Gure borroka elkarte **egituratik** instituzio mailara pasatzea izanen da, eta ofizialtasuna lortzea.

Artearen **instituzio**-teoria, ebaluazio-proposamen berriak. Askoren artean

Aldi berean, forma artistikoen arteko autonomiaren kontzientzia garbiagoa ekarri du, orobat, arte abstraktuak [...] eta baita arte deitzen duen horren **instituzio**-indarraz kontzientzia garbiagoa ere. Josu Zabaleta

**Instituzio** eta Giza Harremanetarako ahalduna . Berria - Kirola

**Instituzio** Harremanetarako Gipuzkoako diputatu Fernando Tapia. Berria - Euskal Herria

· Udalbiltza, udalen eta udal hautetsien biltzarra den neurrian, prozesua udalerrietaraino eramanen duen nazio **instituzio** erreferentzia bilakatzeko borondatea azpimarratzen dugu. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Karitate **instituzio** gisa, mirespena sortzen duzue. Xabier Olarra

Galdeketa bat bideratu nuen kontsumo-gune nipondarretan eta beste osasun-**instituzio** batzuetan. Joxan Elosegi

---

## instituzional *izond* instituzioarena, instituzioari dagokiona. ik **instituzio 2**.

Arlo **instituzional** bat finkatzeko. harreman **instituzionalaren** forman. Xabier Arregi

Maila **instituzionalean**. Berria - Euskal Herria

Egitura **instituzional** baten premiaren azalpena. borondatea dago harreman **instituzionalak** berreskuratzeko mugarik gabe. Berria - Euskal Herria

Europak, kondu hartu beharko duela ezagutza **instituzionalik** oraino ez duten hanbat populu edo herrietaz. Herria

Terrorismoaren kontrako erantzun **instituzionala**. Berria - Euskal Herria

Orduirako Frantzisko anaien gaineko aginte **instituzionalari** uko egina zen. Askoren artean

Zenbait aldaketa politiko eta **instituzional** ere gertatu ziren. Iñaki Heras

Arabako Foru Aldundiak adierazpen **instituzionala** onartu zuen. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzaren eta Trebiñuko eta Argantzongo udalen arteko laguntza **instituzionalerako** formulak. Berria - Harian

Gaur egun feminismo **instituzionala** da nagusi. Berria - Gaiak

Kutsu **instituzionala** hartu zuen omenaldiak. Berria - Harian

Estatu arrotzek inposaturiko errealitate **instituzionalak** ezin duela gure naziogintza zedarritu. Berria - Harian

Ezker abertzalearen eta abertzaletasun **instituzionalaren** arteko etena. Berria - Harian

Zapaterok nazionalismo **instituzionalarekin** itun estrategikoa sinatu nahi du. Berria - Euskal Herria

Baina alde handia zegoen hasierako fraternitas xumearen eta eliz ordena **instituzionalean** gero eta integratuagoa zegoen Ordenaren artean. zientzialarien helburu indibididualak eta **instituzionalak**. Askoren artean

Ondorioz, iraunkortasunak eredu ekonomiko, **instituzional,** kultural, estetiko eta etikoaren goitik beherako aldaketa bat eskatzen du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eskualdeko ekonomia multzoen eraketaren ezaugarri nagusia izaera **instituzionala** da, izaera **instituzional** horrek ematen baititu trukeen eremua antolatzen eta mugatzen dituzten arauak. Koro Navarro

Konkurrentziaren printzipioaren egituratze **instituzionala**. Koro Navarro

«Rrrespetuz eta erantzukizun **instituzionalez»** jokatu nahi duela. Berria - Euskal Herria

Mexikon, Alderdi **Instituzional** Iraultzailea, 1910eko Iraultzaz geroztik 2000a arte boterean egon dena. Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **adierazpen instituzional** (7); **adierazpen instituzional bat** (6); **adierazpen instituzionala** (24); **adierazpen instituzionala egin** (3); **adierazpen instituzionala irakurri** (4); **adierazpen instituzionala onartu** (5); **batzorde instituzional** (4); **batzorde instituzional batek** (4); **batzorde instituzionalak** (5); **egitura instituzional** (4); **egitura instituzionalak** (3); **ekitaldi instituzionala** (5); **elkarrizketa instituzionala** (4); **elkarrizketa instituzionalak** (3); **esparru instituzional** (4); **eta instituzional** (6); **eta instituzionala** (11); **eta instituzionala kontuan** (3); **eta instituzionalak** (7); **harreman instituzionalak** (8); **instituzional bat** (16); **instituzional bat onartu** (4); **instituzional batek** (4); **instituzional batek zuzenduko** (3); **instituzional baten** (3); **instituzional berri** (3); **instituzional eta** (5); **instituzional hori** (3); **instituzionala egin** (4); **instituzionala eta** (12); **instituzionala irakurri** (4); **instituzionala irakurri zuen** (4); **instituzionala izan** (5); **instituzionala kontuan** (3); **instituzionala onartu** (7); **instituzionala onartu zuen** (5); **politiko eta instituzional** (3); **politiko eta instituzionala** (5); **politiko instituzionala** (6); **zein instituzionalak** (4)

---

## instituzionalizatu, instituzionaliza, instituzionalizatzen **1** instituzio izaera eman.

1995ean, [...] Eusko Jaurlaritzak eta Euskaltzaindiak elkar hartu zuten eta Euskararen Nazioarteko Eguna **instituzionalizatu** zuten. Berria - Euskal Herria

Frogagarritasunerako joera dutenei, zientzia modura jasotzen, **instituzionalizatzen,** transmititzen eta batzuetan irakasten direnei.Aarkitekturaren irakaskuntza berria **instituzionalizatzeko** ahalegin borbonikoa. Santiago Iruretagoiena

Higuina ematen didate gazteen ekimenak **instituzionalizatu** nahi dituzten agintari guztiek. Berria - Kultura

Kritikaren prozesatze instituzionalak, gero, erregulazio politiko-legalaren forma hartzen du gure gizarteetan, zilegitutako **(instituzionalizatua** izan den hertsadura den heinean) erresistentzia edo kontra-indar gisa. Berria - Gaiak

**2** (era burutua izenondo gisa)

Botere-harremanak aspalditik daude gizarte-konpromiso **instituzionalizatuen** gisara kodetuak. Koro Navarro

Herrialde osoan gauzatu ziren tortura **instituzionalizatu** haietan parte hartu zuten guztiak, zibilak zein militarrak, zigortzen dituztenean. Berria - Mundua

Daktilografo **instituzionalizatuek** ere onartu zuten egia izango zela. Jokin Urain

---

## instituzionalizatze *iz* instituzionalizatzen duena.

Honek, nahiz eta Frantziskoren esku-hartzea eta presentzia nabaria izan, kutsu juridiko handiagoa izango du, handiagoak ziren-eta **instituzionalizatze**-bidean zen erakundearen erregulazio-premiak ere. Askoren artean

---

## instituzionalizazio *iz* instituzionalizatzea.

Alor ekonomiko, politiko eta sozialen arteko harremanen berrantolaketa hau, nazioarteko mailan, nazioarteko harreman ekonomikoen **instituzionalizazioari** zegokion. Koro Navarro

Baieztatzea anaiartearen **instituzionalizazioa** eta Ordena bilakatzea ez dela kaltegarri izan. Askoren artean

Politika globalaren **instituzionalizazio** izugarri zabal bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

*Batera* plataformak Euskal Herriaren **instituzionalizazio** bidean herri kontsulta antolatzeko xedea aurkeztu du. Berria - Euskal Herria

---

## instituzionalki *adlag* instituzio gisa; instituzioen aldetik.

Baxe-Nafarroa, Xiberoa eta Lapurdi **instituzionalki** ez dira ezagutuak. Herria

Gutxiengo serbiarren eskubideek eta segurtasunak **instituzionalki** bermatuta egon behar dute. Berria - Mundua

Politikoki, **instituzionalki** eta sozialki, Euskal Herri berri baterako indarrak aktibatu nahi ditugu. Berria - Euskal Herria

Oso adierazgarria izango litzateke, honetarako, bigarren mailakotzat hartu ohi den alor bat **(instituzionalki** behintzat), komikia hain zuzen, aztertzea. Josu Zabaleta

Bideo-arteak ez du arazo larririk izan **instituzionalki** zinema komertzialetik bereizteko. Josu Zabaleta

---

## instruitu, instrui, instruitzen du *ad (epaietan)* zuzemenak egin.

61 lagun daude auzipetuta guztira, Baltasar Garzon epaileak **instruitutako** auzian. Berria - Euskal Herria

Auzitegi Nazionalak bidalitako agirien artean, inkulpaziorik ezin ondorioztatzeko moduan aipatzen du Berasategi jauna Guardia Zibilak **instruitutako** txostenak Berria - Euskal Herria

---

**instruktore** 1 *izond (zuzenbidean)* instruitzen duena.

Erreforma helegiteez epaile **instruktoreek** erabakitzen dute. Berria - Euskal Herria

*ik* instrukzio 7.

Kasua artxibatzeko eskatu diote epaile **instruktoreari** *Egunkaria*-ren itxierari buruzko sumarioko zazpi auzipetuen abokatuek. Berria - Euskal Herria

Juan del Olmo epaile **Instruktoreak** agindutako auzipetze autoak bertan behera uzteko eskatu zuen atzo Iruinek.

Grabazioa dagoeneko Elena Rodriguez Donostiako Auzitegiko epaile **instruktorearen** eskuetan dago. Berria - Euskal Herria

Epaiketan gertatutako forma akatsak ugariak izan ziren, bai eta Fiskaltzaren eskariz lekuko gisa deklaratu zuen ertzain **instruktorearen** kontraesanak ere. Berria - Euskal Herria

**2** (izen gisa)

**Instruktoreak** erreforma helegiteak atzera botatzen baditu, zigor aretoari dei helegitea aurkeztu ahal izango diote. Berria - Euskal Herria

Gainera, **instruktorearen** akusazioa ez dela loteslea esaten du, akusazioek -fiskala nahiz herri akusazioa- hori alda dezaketela euren behin-behineko ondorioetan. Berria - Euskal Herria

Orain, dagoeneko Jaurlaritzaren zigor prozedura martxan dela, Emakundek **instruktore** bat izendatuko du. Berria - Euskal Herria

Guardia zibilekin «hitzartutako» deklarazioa egin zuen, beraz, Guardia Zibileko **instruktorearen** aurrean. Berria - Euskal Herria

---

**instrukzio** 1 *iz (epaietan)* instruitzea, zuzemenak egitea.

Arabako Probintzia Auzitegian salaketa horien harira irekitako **instrukzioan**. Berria - Euskal Herria

**Instrukzioa** abiatu eta horren harira hartu zion atzo goizean deklarazioa Nekane Bolado epaileak Javier Balzari. Berria - Euskal Herria

Orain sumarioaren **instrukzioa** daraman Maria Pilar Rubio epaileak froga gehiago eskatzeko epe berria zabaldu du. Berria - Euskal Herria

*Egunkaria* auziko **instrukzioa** jada oso aurreratua dagoela. Berria - Euskal Herria

Guardia Zibilak eginiko **instrukzio** maltzur bati. Berria - Euskal Herria

**Instrukzioan** parte hartu duten 11 guardia zibil eta 18 polizia. Berria - Harian

**Instrukzio** honek ikertzen dituen gertakariak argitu ditzaketen elementuak. Berria - Euskal Herria

Atzo kaleratu zuen epaileak **instrukzioari** amaiera ematen dion autoa. Berria - Euskal Herria

Orain arteko **instrukzioa** baliogabetzeko eta Garzoni itzultzeko eskatu diote Auzitegi Nazionaleko Zigor Salari. Berria - Euskal Herria

Garzonek zuzenduriko **instrukzioan** jardun duten hiru epailek osatuko dute 18/98 sumarioari dagokion auzien epaimahaia. Berria - Euskal Herria

Tortura salaketaren **instrukzioan**. Berria - Euskal Herria

**2** soldaduzkoa.

Gu **instrukzioa** egiten aritu ginen: armak nola erabili eta gauza horiek. Xabier Mendiguren Elizegi

Zergatik egin behar du kontsul alemanak halako eskandalua gazte alemanak **instrukzioa** egiten erakusten ditugulako? Fernando Rey

Hiru hilabeteko **instrukzioa** egingo nuen; esan daiteke gauero egoten nintzela kuartel barruan edo irteteko baimenik gabe. Koldo Biguri

XIX. mendean **instrukzioa** Frantziako akademia militarretan egin zuten zuberotar gazteen eskutik iritsi ziren dantza urrats zail horiek Zuberoako herri ohituretara. Berria - Kultura

**3** irakaskuntza.

Gure aitak lizeora bidali zuen ikastera, uste baitzuen, horrela, bere semeak ez zituela berak nagusien morroi gisa nozitutakoak nozituko, eta aberatsen umeek izandako **instrukzioa** izatea nahikoa zela dirua egiteko. Pello Lizarralde

Condorcet jakintsu ilustratuak **Instrukzio** Publikoari buruzko txosten bat aurkeztu zuen Frantziako Batzar Nazionalaren aurrean, Frantziako umeek zein gazteek zer eta nola ikasi behar zuten aditzera emanez, eta euskal hizkuntzaz hitz-erdirik ere esan gabe. Bernardo Atxaga

**4** *pl* erabilbideak, jarraibideak.

**Instrukzioen** arabera, institutu aurreko aparkalekuan egon behar zuen autoak. Iban Zaldua

**Instrukzioak** paper honetan idatzi dizkizut. Joxemari Urteaga

Ondo irakurri dituzu **instrukzioak**? Joxemari Urteaga

-Eta gainera **instrukzioak** gaizki zeuden. Joxemari Urteaga

**Instrukzioak** jarraituko zenituela banekien eta... Joxemari Urteaga

Konputagailu batean, gelditzearen eta jarraitzearen arteko hautua ez da zorizkoa izaten, diseinatzailearen **instrukzioen** araberakoa baizik. Irene Aldasoro

RNA molekularen helize bikoitzean dauden **instrukzio** kodetuek arautzen dute gorputzeko zelulen proteina-ekoizpena. Irene Aldasoro

**Instrukzio** kontrajarriak ematen jardutea. Irene Aldasoro

Hiltzen naizenerako **instrukzioak**. Unai Elorriaga

Aaiunen ez sartzeko **instrukzio** bereziak ditugu. Berria - Harian

· Setheren **instrukzio** bakarra izan zen "Eraman 'zak Soilgunera", eta bera saiatu zen. Anton Garikano

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

300.000 orriko sumarioa osatu du **instrukzio** fasea zuzendu duen Garzon epaileak. Berria - Euskal Herria

**Instrukzio** fasea amaitu da eta urtarrilerako edo otsailerako espero dute epaiketa. Berria - Euskal Herria

**Instrukzio** lanetan aritu zen ertzaina izan zen ikasleek azaldutakoaren aurkako bertsioa eman zuen bakarra. Berria - Euskal Herria

**Instrukzio** magistratuak eta prokuradoreak. Berria - Mundua

Josteko makinaren **instrukzio**-liburua. **Instrukzio**-liburua da: gogojardunak ematen dituenari gogojardunak nola eman esaten dion liburua. Patxi Altuna

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mintzamenarekin -eta hitzean oinarritutako pentsamendu mota ugarien programazio-**instrukzioekin**- zerikusia duten oroimen-arrastoak ezkerreko hemisferioan kontzentratzen dira. Irene Aldasoro

**7** ***instrukzio epaile***

Bermutier jaunak irribarre egin zuen, handizki, **instrukzio** epaile batek irribarre egin behar duen bezala. Josu Zabaleta

Besoak **instrukzio**-epaile batek bezala antxumatuz. Ander Irizar

**Instrukzio** epaileak ez zegozkion eskumenak bere gain hartu zituela. Berria - Euskal Herria

**Instrukzio** epailearen aurrean inolako lekukorik gabe agertu zen. Karlos Zabala

Parisko auzitegiko finantza arloko lege hausteen magistratu berezia den Philippe Corroye **instrukzio epaileak** du auzipetu, «gizarte ondasun gehiegikerian jardutea, dirua mehatxupean eskuratzea eta terrorismoari sosez laguntzea» akusaziopean. Berria - Mundua

**8** ***instrukzio epaitegi*** *(orobat)* ik beherago **9.**

Fiskaltzak eta Auzitegi Nazionaleko **Instrukzio** Epaitegiak haiekin «elkarlanean» jardun zutela. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Hirugarren **Instrukzio** Epaitegian irekitako sumarioari. Berria - Euskal Herria

Litekeena da auzia 6. **instrukzio** epaitegiak bere gain hartzea. Berria - Euskal Herria

**Instrukzio** Epaitegia sei salaketa ikertzen ari da. Berria - Euskal Herria

**Instrukzio** Epaitegiak artxibatu egin zuen salaketa. Berria - Euskal Herria

Kereila, Bilboko **Instrukzio** Epaitegian. Berria - Euskal Herria

**Instrukzio** Epaitegiko epaileari. Berria - Euskal Herria

**Instrukzio** Epaitegi Zentralak. Berria - Euskal Herria

### 9 *instrukzio ganbera* ik beherago **8.**

Gaur aztertuko du Paueko **instrukzio** ganberak Segiko hiru lapurtarren aurka dagoen euroagindua. Berria - Euskal Herria

Monseko **Instrukzio** Ganberak Espainiak Belgikara igorritako euroagindua betetzeari uko egin zionean argudiatu zuenez [...]. Berria - Euskal Herria

**Instrukzio** ganberak hogei eguneko epean eman behar du erabakia. Berria - Euskal Herria

Apirilaren 13an Pariseko Auzitegiko **instrukzio** ganberak hartuko du eskaera horren gaineko erabakia. Berria - Euskal Herria

### 10 *instrukzio prozesu*

Orain arteko **instrukzio** prozesuan emandako urratsak baliogabetzeko. Berria - Euskal Herria

18/98 sumarioko **instrukzio** prozesua. Berria - Euskal Herria

Zigor Salak **instrukzio prozesua** Garzoni dagokion 5. epaitegiari itzultzeko «nahikoa arrazoi» egon badaudela diote. Berria - Euskal Herria

### 11 *instrukzioko epaile* instrukzio epailea.

Ajaccio-n nintzen **instrukzioko** epaile. Josu Zabaleta

Zuzenbide-ikasketak egiten ari zen, eta **instrukzioko** epaile gazte batekin ezkontzekotan zen. Jon Muñoz

Jose Sainzek egin zuen aitorpenari buruzko txostena, eta ondoko hitzak sartu zituen, Bilboko Epaitegi Militarreko **Instrukzioko epaile** komandanteak bere asmoen alde egin zezan. Rafa Egiguren

**Instrukzioko epailearen** ebazpen proposamena. Berria - Kirola

### 12 *instrukzioko epaitegi* instrukzio epaitegia.

**Instrukzioko** Epaitegiak ikerketak abiatu zituen salaketa horiek ikusita. Berria - Euskal Herria

· Gasteizko **Instrukzioko** seigarren epaitegiak. Iban Zaldua

Iruñeko **instrukzioko** hirugarren epaitegiko buruak. Edurne Elizondo

Tafallako **Instrukzioko** eta Lehen Instantziako bigarren epaitegiak hartu du bere gain auzia. Berria - Euskal Herria

### 13 *lehen instrukzio*

Barkatu jauna, epaitegiko idazkaria naiz eta lehen **instrukzioa** egin behar dut. Koldo Izagirre

Tuterako **Lehen Instrukzio** Epaitegiko autoaren arabera. Berria - Euskal Herria

**Lehen Instrukzioko** Epaitegiak sekretua kendu dio iazko otsailaren 23an hasitako ikerketari. Berria - Euskal Herria

---

## **instrumental** 1 *izond* instrumentuen bidezkoa.

Gizartearen babesa pertsona batek duen harreman multzoa da, inguruko informazioa eta babes **instrumentala** nahiz emozionala ematen diona. Berria - Euskal Herria

Estatuen ahalmen **instrumentala**. Joseba Zulaika

Jarduera horrek, asko jota, erabilitako modu **instrumentalen** (hau da, bitartekoen) (des)egokitasuna irekiko du eztabaidara. Ekonomiaren eta komunikabideen globalizazioak Estatuaren funtzio **instrumental** nagusiak murriztu dituela. Joseba Zulaika

Nola identifikatu [...] teoriaren balio erregulatzaileak, mundu-ikuskera, edo haren teknika **instrumentalak** integratzeko? Askoren artean

Horrekin nahikoa ez bada, [hemorroideen] tratamendu **instrumentalera** joko genuke. Berria - Gaiak

### 2 (gramatikan) kasuez mintzatuz, bidea edo instrumentua adierazten duena.

Kasu **instrumentala** erabiliz eratutako buruz buru sailekoak (ahoz aho, aldez alde, gainez gain, hurrenez hurren, orpoz orpo, parez pare...). Iñaki Arranz

Gure deklinabideak badu **"instrumentala"**. Herria

### 3 musika tresna soilez joa.

12 abesti dira: zazpi euskaraz, bat ingelesez eta lau **instrumentalak**. Berria - Kultura

Lanak liburuki bi izango ditu; musika **instrumentalari** buruzkoa lehena, eta ahots musikari buruzkoa bigarrena. Berria - Harian

Pieza **instrumentalekin** tartekatuta. Berria - Kultura

Liburutxo honetan daukazuen diskako lehen kantua trikitixa bat da, zortzi zati **instrumental** eta zortzi kopla-doinu dituena. Koldo Izagirre

Haren oniritziarekin *Txoria txori* abesti **instrumentala** erabili dute Artzeren poema laguntzeko. Berria - Kultura

Azaroaren 4an Gasteizko Talde **Instrumentalaren** emanaldia izango da. Berria - Kultura

70eko hamarkadako hard-rock doinuetara jo du, bere aurreko hiru lanetako paisaia **instrumentalak** alboratuz. Berria - Kultura

---

## **instrumentalismo** *iz* doktrina filosofikoa, teorien eta ideien balioa beren ekintza-ahalmenean datzala dioena.

Errealismoaren eta **instrumentalismo** konbentzionalistaren (Poincarérena eta Le Roy-rena esaterako) ikusmoldeen artean, Duhemek hirugarren bide bati ekiten dio. Askoren artean

Artearen instituzio-teoria, ebaluazio-proposamen berriak, **instrumentalismoa** edo auzi estetiko zehatzen azterketa analitikoak. Askoren artean

---

## **instrumentalista** *iz* instrumentalismoari dagokiona.

Errealismoaren eta instrumentalismo konbentzionalistaren (Poincarérena eta Le Roy-rena esaterako) ikusmoldeen artean, Duhemek hirugarren bide bati ekiten dio (horrek zailtzen du Duhem eskema klasikoen arabera kokatzea, ez baita konbentzionalista, errealista, **instrumentalista,** etab.). Askoren artean

---

## **instrumentalizatu,** instrumentaliza, instrumentalizatzen du *ad* instrumentu bihurtu, instrumentu gisa erabili.

Pertsona ezin da **instrumentalizatu** ez eta beste baten zerbitzurako bitartekoa bailitzan erabili. Berria - Gaiak

Bultzada politikoko ekimenak dira auziok; eskubide zibil eta politikoak nabarmen urratu dira eta Zigor Kodea helburu politiko batekin interpretatu eta **instrumentalizatu** da. Berria - Harian

Hizkuntzaren, Lurraren eta Historiaren alderako borrokan tematzen zarenean, etsaia ez ezik, zure jendetasuna ere **instrumentalizatua** suertatzen da. Itxaro Borda

---

## **instrumentalizazio** *iz* instrumentalizatzea.

Hitzaren **instrumentalizazio** politikoa eta hegemonia mediatikoa ere salatu zituen. Berria - Kultura

Indarkeria baliatzen duen mugimenduak desobedientzia zibilaren **«instrumentalizazioa»** egiteko arriskuaz ere ohartarazi zuen. Berria - Euskal Herria

Pentsioen sistema bezalako gai garrantzitsuan hauteskundetan egiten ari diren **instrumentalizazio** arduragabearekin oso kezkatuta dago saila. Berria - Ekonomia

---

**instrumentalki** *adlag* instrumentu gisa

Indarkeria **instrumentalki** erabiltzea erabaki zuelako. Joseba Zulaika

---

**instrumentatu,** instrumenta, instrumentatzen du *ad* musika lan bat zenbait instrumentuk joa izateko egokitu.

Hainbat tabernatan pianoa jotzen aritu zen, musika lanak sortu eta **instrumentatzen** zituen bitartean. Berria - Kultura

---

**instrumentazio** *iz* musika lan bat zenbait instrumentuk joa izateko egokitu.

Diskoak oso **instrumentazio** aberatsa duela, jazz munduko osagaiak betiko baxu-bateria-gitarra formazioarekin uztartuz. Berria - Kultura

Gero, kantu berriagoak etorri ziren, oso bestelakoak -*Picasso Moon* esate baterako-, eta haiek harmonia ilun eta sakonekoa eta **instrumentazio** elektronikoa zuten. Xabier Olarra

Konposaketa eta **instrumentazio** katedraduna. Berria - Kultura

---

**instrumentista** *iz* musika tresna bat jotzen duen musikalaria.

Zazpi **instrumentista** eta hiru kantari, musikari zailduak denak ere. Berria - Kultura

Alfonso Etxeberria abeslaria eta Pablo Sarasateko **instrumentistak**. Berria - Kultura

Saxofoiaren alorrean **instrumentista** asko ezagutu ditut. Berria - Kultura

Gipuzkoako Aldundiak babestuta, harizko **instrumentistentzako** Nikanor Zabaleta musika beka jaso zuen udan. Berria - Kultura

---

**instrumentu** *(192 agerraldi, 21 liburu eta 109 artikulutan; orobat **instrumento** g.er.)* **1** *iz* musika tresna.

**Instrumentu** bat behar zuen, eta txirula bat egin zuen kanaberarekin, Orkestra osatzen duten musikari guztien zerrenda dator, jotzen duten **instrumentuaren** arabera sailkatuta. Julen Gabiria

Jazzaren arloan **instrumentu** hutsezko diskorik onenaren grammya Wayne Shorterren *Alegria* lanarentzat izan zen. Berria - Kultura

Klarinete, Arpa, Piano eta Hari-**instrumentuetarako** Kontzertua. Berria - Kultura

Perkusio, korda eta haizezko **instrumentuen** bitartez. Berria - Kultura

Haizezko **instrumentu** akastun eta herdoilduak. Berria - Kultura

Modu distiratsuan hasi zen gure orkestra Richard Strauss-en *Macbeth* izeneko poema sinfonikoan, **instrumentuen** familia guztien lanari esker. Berria - Kultura

**Instrumentu** akustikoak erabiltzen dira batik bat, baina efektu elektronikoak baztertu gabe. Berria - Gaiak

Tritikilari zaharrek ez eben euren **instrumentua** larregi ezagutzen. Xabier Amuriza

Afrikako *cora* **instrumentuaren** bertsio elektrikoa. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Deitura zailak zituzten askok: poloniar, txekiar, hungariar... harizko **instrumentu**-joleek batez ere. musiko profesionalak ez diren abeslari eta **instrumentu** jotzaileez osatuta. Xabier Mendiguren Elizegi

· Gospela koru askorekin erlazionatzen badugu ere, kasu honetan musika **instrumentuak** nagusitzen dira, ahots bakarra baitago Berria - Kultura

**3** neurtzeko, aztertzeko edo kontrolatzeko tresna.

Adimen zientifikoak erabilpen guztiak aurkitzen dizkio **instrumentu** optikoari. Berria - Gaiak

**4** helburu jakin baterako erabiltzen den gauza.

Britainiarrek garapen instituzionalerako **instrumentuak** eta autonomia handiagoa eman zizkioten Gibraltarri. Berria - Mundua

Planean aurreikusten diren jarduera guztien atzean **instrumentu** juridiko bat dago. Berria - Euskal Herria

Jaurlaritzak [...] programa bat jarri nahi du abian eta Euskadiko Pilota Federazioarekin elkarlanean garatuko duela jakinarazi du, hura delako horrelako ekimenak aurrera eramateko **instrumentu** egokiena. Berria - Kirola

Gazteak produktibismorako **instrumentuak** baino gehiago gara. Berria - Ekonomia

**5** *adkor* zakila.

**-Instrumentu** ona daukak, eta orain jotzea bakarrik falta zaik, je-je-je. Joan Mari Irigoien

**6** ***instrumentu taula*** auto, hegazkin eta kidekoetan, pilotoaren aurrean dagoen adierazgailuen multzoa, taula moduko batean bildua.

Instrumentu **taula** ikusten dut. Josu Zabaleta

---

**insulto** *(orobat **insultu**)* *iz* iraina.

Egin ditu... hiru delitu gelan; patioan beste bi; portaera txarragatik eta **insultoengatik** ere baditu parteak; anonimoak bidali ditu... Pablo Sastre

Hori ez da **insultu** bat, definizio bat da. Berria - Kultura

---

**insurgente** *(corpusean **intsurgente** soilik)* *iz* matxinatua.

Horrekin batera, **intsurgenteak** inguruko estatuetatik sartzea ahalbidetu zuten. Berria - Mundua

---

**insurgentzia** *iz* matxinada.

**Insurgentziak** hogei lagun hil zituela. Iñigo Aranbarri

Bete-betean jotzen ari zirela **insurgentzia** babestua dagoen auzo eta etxeetan. Iñigo Aranbarri

---

## **insurrekto** *iz* matxinatua.

Maniguako palmondo baten bala arrastoak ageri direnean, **insurrektoek** tiroketa saioak dituztela esan gura dik. Koldo Izagirre

Hamabostetik hamarrera jaitsia zegoen valentziar bat jausi zuan hamakatik, **"Insurrekto** bat gutxiago! " esanez. Koldo Izagirre

Manzanilloko portuan preso hartutako **insurrektoei** ikasi zien argudio xume bat errepikatzen duela. Koldo Izagirre

---

## **insurrekzio** *iz* matxinada.

Auzoko india politarekin oheratzearenaz aparte, **insurrekzioa** oso morfosintaktikoa dela esango nuke. Joseba Sarrionandia

Saia naiteke zerbait lekuz aldatzen, piztuz amodioak, katastrofeak eta eklipseak, eta gauzen **insurrekzioa** eraginez. Joseba Sarrionandia

Baina non dago gauzen **insurrekzioa** ? Joseba Sarrionandia

---

## **inta** *iz* ur mehe geldizko hedadura, gehienetan landare asko dagoena.

Denbora haietan ez zen biderik eta Santa Catalinako **inta** famatuak [...] pasatu behar zituzten. Herria

---

## **intagune** *iz* intak dauden gunea.

Bisitatu dituzte Naturaren Etxea, Ilbarritzeko **Intaguneak,** Urdazubiko Harpeak, argitasunak profesionalek ematen zizkietela. Herria

---

## **intatsu** *izond* intak daudena.

Dachau-ko kanpalekua toki **intatsu** batean, urtsu batean eraikia zen. Marzel Etxehandi

Lehengo denboretan, Tardajos eta Rabé de las Calzadas herrien artean, ibar **intatsu** bat zegoen Piarres Aintziart

---

## **integral** **1** *izond* osoa; alde guztiak hartzen dituena.

Horren azterketa **integralak,** zientziaren alde metodologikoak ez ezik, Zientziaren Soziologiatik, Zientziaren Historiatik, Zientziaren Ikasketa Sozialetatik eta abarretik eratorritako ezagupenak ere aintzat hartu behar ditu. Askoren artean

Unibertsitateko «eztabaida **integrala»** eskatu du ikasle eta irakasle talde batek. Berria - Euskal Herria

Uholdeak saihesteko proiektu **integrala** «oso aurreratuta baitago». Berria - Euskal Herria

Genero indarkeriaren kontrako lege **integrala** lehenbailehen arautzeko. Berria - Euskal Herria

Nola izango da lege hau **integrala,** arlo penala, arlo zibil garrantzitsuenak eta lan eta gizarte segurantzaren eremu juridikoa kanpo uzten baditu? Berria - Euskal Herria

Nafarroako Parlamentuak 2002. urtean onartutako indarkeria sexistaren kontrako neurri **integralak** hartzeko legea. Berria - Euskal Herria

Administrazio bakoitza bere megaproiektua bultzatzen ari da, beste administrazioekin inolako koordinaziorik gabe eta inolako planteamendu **integralik** gabe. Berria - Euskal Herria

Gaitzaren ikuspegi osoa izan behar da beraz, **integrala..** . Berria - Gaiak

Irakaskuntza **integrala** lantzen dute eta denetik dakite denek. Berria - Kultura

Behin betiko konponbide justua nahi dugun guztion artean gatazkaren erresoluziorako proposamen **integral** bat osatzea. Berria - Euskal Herria

Garraio publikoaren eredu eta diseinu **integral** bat . Berria - Euskal Herria

Paper lantegi **integrala** sortzea. Berria - Ekonomia

«Telekomunikazio sistema **integralak»** eskainiko dizkie bezeroei. Berria - Ekonomia

Polizia **integrala** baita Ertzaintza, bete-betekoa. Jokin Urain

Kosmosa, bere konplexutasun guztiarekin ere, batasun **integrala** da. Xabier Kintana

Hortaz, edozein aldetatik heltzen diogula arazoari, inon ez dugu hizkuntzalaritzaren helburu osoa, **integrala** aurkitzen, guztietan bi irtenbide elkarren kontrakoren aurrean aurkitzen baikara. Isabel Arrigain

Nahasketa gertatu da hazkunde eta garapen terminoen artean, eta garapenaren dimentsio **integrala** desitxuratu egin da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Garapen **integral** baterako funtsezkoak diren beste kontu asko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Lehen legea hau da, kultur irrada **integral** bat, argi-irrada **integral** bat bezala, bere osagaien espektroan difraktatzen dela, gauzaki errefraktario batera sartzean. Iñaki Mendiguren

Alde Zaharreko Birmoldaketa Plan **Integrala** . Txema Ramirez de la Piscina

Gipuzkoako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plan **Integralaren** Jarraipen Batzordeak

• **2** *iz*

**Integrala:** laukizuzen infinituki txikien kopuru infinituki handiaren batura, zeinaren azalera osoa irudiaren azalera baita. Jon Muñoz

Totalizazio hori ikur bidez adierazteko, *S* luzatu bat sortu zuen Leibnizek: **integralaren** ikurra. Jon Muñoz

**3** musikagile baten lan guztien edo lan sail oso aten emanaldia edo grabaketa.

Beethovenek piano eta orkestrarako egindako kontzertuen **integrala** egingo du. Berria - Kultura

1998tik Gustav Mahler konpositore austriarraren sorkuntza sinfonikoa aztertzeko Hamabostaldia egiten ari den **integralari** amaiera ematea. Berria - Kultura

**4** ***kalkulu integral*** kalkulu infinitesimalaren zatia, funtzioen integrazioaz aritzen dena.

Kalkulu infinitesimala (kalkulu diferentziala, kalkulu **integrala)** . Jon Muñoz

Eudoxo Knidekoa, exauzioaren metodoa -kalkulu **integralaren** aurrekoa- sortu zuena, Antifonekin batera. Jon Muñoz

Hala, Hassan Sabbahek ez zuen armaz hartu Alamuteko gotorleku garaiezina, kalkulu **integralaren** bitartez baizik. Jon Muñoz

---

## **integrapen** *iz* integratzea, gizarteratzea.

Maylis de Menditte lehen axuantaren esku izanen da Angeluar berrien **integrapena,** hilabete bakoitz 150/200 familia berri baitira Angelun. Herria

---

## **integratu,** integra, integratzen **1** da/du *ad* osotasun bat eratu; barnean hartu.

Funtsezkotzat jotzen du gai sozio-ekonomikoak eta ingurumenekoak **integratzea** . ETNek bertikalki **integraturik** izaten dituzte hornitzaile eta bezero sareak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Baina ezkuta ezinak zaizkion maileguak testuan **integratzen** ditu idazleak: biluzik eta lotsagabe. Anjel Lertxundi

Nola **integratu** hiru mailako egituran aspektu pragmatikoak? Askoren artean

Euskalkiak **integratuak** dituen euskara batu aberatsean. Ana Urkiza

Izan ere, ikusten zuen guztia atzemanagatik, kanpoko eta **integratu** gabeko zerbaitzat atzematen zuen nolabait. Xabier Olarra

Yassin **integratuta** zegoen gure errutinan. astea joan astea etorri, gertakari berriak bizitzen ari nauk eta horiek nobelan **integratu** nahian nabilek. Xabier Etxabe

Nortasun eta iritzi ezberdinak **integratuko** dituen akordioa egitea.

Eraikina ondoren harresian **integratzea** pentsatu zuten. Berria - Kultura

**2** (talde edo kideko batean)

Horretaz gain, gizarte honetan **integratzeko** ere arazoak izan nituen; beste kultura, ohitura, hizkuntza, harreman mota, gastronomia eta bizimodu batean egokitu behar duzulako. Berria - Euskal Herria

Bertakoa dirudi Xabierrek, oso **integratua** dago. Pako Aristi

Bertan du familia eta bertako gizartean ondo **integratua** dago. Pako Aristi

Ikasturtea hasi eta hilabete batzuetara etorri zen eskolara, jadanik oso berandu zenean lagunak egiteko edota herriko lagun talderen batean **integratzeko**. Bernardo Atxaga

Taldean **integratua** sentitu izan zara betidanik? Ana Urkiza

Nik, berriz, ez nuen inongo taldetan **integratzeko** gogorik. Xabier Mendiguren Elizegi

Nire borondatea ahalik eta azkarren **integratzea** da, eta klubaren ideiak neureganatzea. Berria - Kirola

Japonian **integratu** nahi duen atzerritar orok Inperioko usadioen errespetua bihurtzen du bere ohorearen giltzarri. Joxan Elosegi

Euskadi ez dago Espainian **integraturik,** hori da Euskadiko benetako arazoa. Berria - Euskal Herria

Lurralde eta bizimodu horretan **integratzeko** prest nago? Joseba Sarrionandia

Ez nintzen inoiz lar **integraturik** sentitu pisu berrian. Jon Arretxe

Hala, iaz ahalmen urriko zortzi haur **integratu** ziren, Donibane Garazi, Sohũta, [...] eta Hendaiako ikastoletan. Berria - Euskal Herria

Europan **integratutako** Euskal Herri independentea. Berria - Euskal Herria

**3** (era buruta izenondo gisa) osotasun homogeneoa eratzen duten elementuz osatua.

Jaurlaritzaren eta aldundiaren laguntzekin, paper lantegi **integratua** sortu zuen Jofel taldeak. Berria - Ekonomia

Belarri hegalak belarri-tutu **integratu** gisa egiten duen lana oso eraginkorra da katuetan. Irene Aldasoro

Bihotz-muskuluak ere kontrol-sistema **integratu** bat du, eta taupada erregularrak ematen ditu bizitza osoan ahalegin kontzienterik gabe. Irene Aldasoro

Diru-konkurrentziak finantza-espazio **integratu** batean sortutako arazoak. Koro Navarro

Europako sare elektriko **integratua** sortzea. Berria - Mundua

Asentamendu sare **integratu** bat osatzea eta landa inguruetatik hiri inguruetarako migraziora maila minimora jaistea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eboluzioaren teoriak osotasun **integratu** bezala aztertu beharko lituzke organismoak. · Ekonomia globalki **integratu** batek nazioarteko lan banaketa hobea ekarriko baitu. Askoren artean

Gizarte global harmoniatsu eta kulturalki **integratua**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

EAEko Lurraren Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol **Integratuei** buruzko Legea. Berria - Euskal Herria

Nafarroako Gobernuaren Ingurumen Baimen **Integratua**. Berria - Harian

**3** integrala egin.

Nola **integratzen** dituzu, Saint-Exupéry ikasle jauna, Bernouilliren ekuazioak? Josu Zabaleta

**5** ***integratzearren*** *adlag* integratzeko.

Ataturkek oso gogoko zituen Frantziako iraultza garaiko pentsalariak, eta, Turkia mendebaldeko zibilizazioan **integratzearren,** erreforma sakonak egin zituen. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**batean integratzeko** (4); **erabat integratuta** (3); **gizartean integratzeko** (4); **gizartean integratzen** (3); **haur integratu** (3); **ingurumen baimen integratua** (5); **integratu ahal** (5); **integratu bat** (3); **integratu behar** (6); **integratu beharko** (4); **integratu dira** (3); **integratu eta** (6); **integratu gabeko** (3); **integratu nahi** (9); **integratu nahi ez** (3); **integratu zen** (3); **integratuko da** (3); **integratuko dituen** (5); **integratzea da** (4); **integratzea eta** (4); **nola integratu** (3); **ongi integratu** (3)

---

# integratzaile *izond* integratzen duena.

Sistema **integratzaileak,** izan ere, espazioak ezarriz ezberdintasuna errespetatzen dutenak dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bizimodu normalizatuagoa eta **integratzaileagoa** egin dezakete familian egoitza batean baino. Berria - Euskal Herria

Logika **integratzaile** pribatuak nagusi diren egoera ekonomiko batean. Koro Navarro

Garai hartan, ingurumen/garapen harremana ez zen gaur ematen zaion ikuspegi **integratzaileaz** ulertzen. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Nazio-estatuaren eremua gainditzen duten prozesu **integratzaile** berriak sortu dira mundu osoan. Iñaki Heras

Jadanik lurraldetasunaren ideia **integratzaileak** Iparraldea Hegoaldeari itsuki beha jartzen du. Itxaro Borda

Bata **integratzailea** da, zibikoa; bestea baztertzailea, etnikoa. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**akordio integratzailea** (5); **aterabide integratzaileak** (4); **eskola integratzailea** (3); **eta integratzailea** (4); **integratzaile eta** (3); **integratzailea eta** (3)

---

# integratze *iz* gizarteratzea.

Hor ageri da agoteek **integratze** mail desberdinak zituztela. Herria

---

# integrazio *(orobat* ***integrazione*** *g.er.)* **1** *iz* integratzea.

Merkataritza-sareen zabalkuntza dago XV-XVI. mendeetako planeta mailako **integrazio** handiaren sorburuan. Koro Navarro

Europan, truke-tasen egonkortasun falta **integrazio** ekonomikoaren eragozpen handitzat hartzen da. Koro Navarro

Ezinbestean gizarte, ekonomi eta ingurumen dimentsioen erabateko **integrazioa** behar duen eredu berri bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Herrialde industrializatuetako espazio ekonomikoaren homogeneizazio eta **integrazio** gero eta handiagoa. Koro Navarro

Planeta mailako **integrazioaren** ondoren eraturiko espazio ekonomikoa. Koro Navarro

Mundu ekonomia hori kontinenteko espazioen **integrazioaz** eta txertakuntzaz garatu zen. Koro Navarro

Etorkinen **integrazioa**. Berria - Euskal Herria

Esperientziak aitzindiari bilakarazi du Seaska ahalmen urriko haurren **integrazioan**. Berria - Euskal Herria

Goragoko mailetan gertatzen da **integrazioa,** eta hala elkartzen dira koloreak eta oroimena. Xabier Olarra

**Integrazionea** eta inposaketa ez dira elgarrekin untsa uztartzen. Herria

Hori **integrazioa** ez, segregazioa da. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Integrazio**-lan hori, dio Renardek, irakurleak egin behar du ezinbestean. Itziar Otegi

**Integrazio** gela digitala inauguratu dute Easo Lanbide Heziketako Institutu Politeknikoan. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko merkatuek oso urruti dute oraindik herrialdeetako barne merkatuen **integrazio** maila. Iñaki Heras

Europaren **integrazio**-prozesua XI. mendetik aurrera. Koro Navarro

Malgutasunez jokatu behar da, **integrazio** egitasmoa baldintzatzen duten hainbat irizpide kontuan hartuz eta erregularki ebaluatuz. Mendebalde kristauak XV. mendean abiarazi zuen **integrazio**-higikunde handia. Koro Navarro

Esra Ersen turkiarrak etorkinek izaten dituzten **integrazio** eta egokitze arazoak erakusten ditu. Berria - Kultura

Ez dago inolako **integrazio** estrategiarik. Berria - Kultura

Globalizazioa, ororen gainetik, pribatutzat jo daitezkeen **integrazio**-logiken emaitza da. Koro Navarro

**Integrazio-** eta baztertze-fenomeno bikoitza. Koro Navarro

Elkartearen aurkezpenean **Integrazio** Batzordeko kideek Frantziako Hezkuntzak dituen eskasiak azpimarratu zituzten. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Barne-**integrazio** hobea lortzeko helburuaz. garraio sistema horren bidez, arraza eta gizarte **integrazioa** sustatu nahi ziren. Iñaki Heras

Familia egituren aldaketek edota emakumearen lan-**integrazioaren** areagotzeak. Iñaki Heras

Eskualde-**integrazioaren** dinamika [...] eskualde arteko inbertsioen fluxu horietan oinarritzen da batez ere. Koro Navarro

Finantza-**integrazioa** eta diru-pluralismoa. Koro Navarro

1960ko hamarraldian abian jarri zen finantza-**integrazioaren** dinamikaren aurrean estatuek egiten duten atzerakada. Koro Navarro

· Gizarte **integrazio** mailako gatazkak sortarazten ditu. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**4** (matematikan) integrala egitea.

"Gauza ezin txikiagoen" kopuru infinitu bat batzea da **integrazioa,** eta batuketa horrek gauza ondo definitu bat ematen du, azkenean. Jon Muñoz

Urte gutxiren buruan, ordea, diferentziazioa eta **integrazioa** sortu ziren. Jon Muñoz

Diferentziazioa eta **integrazioa** bata bestearen alderantzizkoak ziren. Jon Muñoz

Leibnizek eta Newtonek mendearen hasieran plazaraturiko problemen askabideak urrats handiak egin zituen: koadraturak, ekuazio diferentzialen **integrazioa**. Jon Muñoz

---

# integrismo **1** *iz* erlijio edo ideia sistema baten osotasuna atxiki nahi duen doktrina.

Heresia orok **integrismo** edo ortodoxia bihurtzeko joera duela. Josu Zabaleta

**Integrismoak** estatuen antolaketa politikoaren gainetik ezartzen du erlijioa. Berria - Mundua

Komunismoaren **integrismoari** erlijioaren **integrismoak** segitu zion. Pello Salaburu

**2** zernahi bilakaerari uko egiten dioten kristauen edo musulmanen jarrera.

Apaizek errazago esekitzen dute sotana beren **integrismoa** baino. Anjel Lertxundi

**Integrismo** katolikoa sasoi bizian zegoen garaian. Berria - Kultura

Bush jauna, esaterako, oso lotua dago **integrismo** kristauari. Berria - Kultura

**Integrismo** islamikoaren sareetan harrapatu dutela. Berria - Harian

Aberatsa balitz, Hassanek beste zeozer hobetsiko luke, liberalismo ekonomikoa esate baterako, eta erlijiotasun arin eta itxura hutsekoa edo; baina, ez denez, **integrismoa** aukeratzen du. Bernardo Atxaga

Moussaouik erakutsi digu **integrismoa,** etxekotua dugula. Iñigo Aranbarri

Fanatismoa esatea **integrismoa** esatea baino egokiagoa baita. Berria - Harian

**3** *hed*

Jose Luis Rodriguez Zapatero Espainiako gobernuburuak iragarritako erreformen harira, bi aukeren artean hautatu beharra duela uste du Ibarretxek: edo **«integrismo** konstituzionalaren» bidetik jo edo «konstituzionalismo baliagarria» aukeratu.

---

# integrista **1** *izond* integrismoari dagokiona.

Islamismo **integristen** diru iturri handiena. Berria - Mundua

Jakin dut geroztik Lefèvre apezpikuaren ingurune **integristean** ibili zela. Piarres Aintziart

Teoria horren oinarrian monogamia absolutu eta **integrista** bat dago, metafisikoa ia-ia. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** integrismoaren aldekoa.

Islamista **integristen** atentatuak. Itxaro Borda

Ariel Sharon sionista **integrista** arrazistaren alde. Berria - Mundua

George Bushek zuzentzen dituen kristau **integristei**. Berria - Mundua

Edozein erlijio talde **integristak** eskola, osasun zerbitzuak edo Administrazioak babestutako beste edozein jarduera baldintzatzeko eduki ditzakeen asmoak galaraziz. Berria - Euskal Herria

Musulman talde **integristaren** aldarrikapena berea eginez. Ramuntxo Etxeberri

Atentatua Lashkar-e-Khangvi talde sunita **integristari** egotzi zion Poliziak. Berria - Mundua

Ustezko ekintzaile **integrista** baten testua argitaratzeagatik. Berria - Mundua

Zelula **integristak** Almeriako 'ijito' bati erosi behar zizkion lehergailuak. Iñigo Aranbarri

Hassan **integrista** zen, inondik ere, eta are **integristagoa** izango da talde batek bereganatu eta orain daukana baino teoria zabalxeagoa ematen dionean. Bernardo Atxaga

**3** XIX. mendeko Espainiako alderdi integristakoa; alderdi integristaren ideologiakoa.

Foru Liga Autonomiazalearen presidentea, boto **integristek** eta karlistek aukeratua. Askoren artean

Jauntxo guztiak karlistak edo monarkiko **integristak** zirenean. Xabier Mendiguren Elizegi

Kirikiño, garaiko abertzale gehienak bezala, kritikatzen zituen karlistak bezain **integrista** zen alor askotan. Koldo Izagirre

Tolosako, Azkoitiko, Errezilgo eta Amezketako erretore **integristek** auzitara eraman zuten. Berria - Kultura

Don Mateo Múgica apezpikua, idiazabaldarra bera, **integrista** izan arren euskal nazionalismoaren kontra beraiek nahi bezala agertu ez zenez [...]. Mikel Hernandez Abaitua

**Integrista** katolikoa zen Azkoitiko giroa. Berria - Kultura

• **3** *iz* integrismoaren aldeko pertsona.

Justinianoren txanda etorri zen gero; garai hartako **integristek** "unibertsitate paganoak" esaten zietenak ixteko agindua eman zuen hark: Akademia, lehenik; gero, Atenasko beste eskola guztiak. Jon Muñoz

**Integristen** menpean egon dira eta orai, zertan diren gaixo Afganistandarrak nehork ez daki. Herria

**Integrista** islamikoen intolerantzia Grekoz ari baitzen hastapenean Erromako eliza eta ez latinez, besterik sinetsarazi nahi badigute ere **integrista** amorratu ezjakin batzuek.

Piarres Xarriton

Aristoteleszale porrokatua baitzen, gorroto zituen **integristak** . Jon Muñoz

· **Integrista** batzuek Aita Santu "liberalaren" konbertsiorako errezatzen zuten orduan. Joxe Azurmendi

---

# integritate *iz* integroa denaren nolakotasuna.

Nik integroa izatea bilatzen badut ere, ez dago **integritate** osoa erdiesterik. Ana Urkiza

Emazte haien nortasuna zein **integritate** psikologikoa. Itxaro Borda

Biziarekiko errespetua, askatasuna, justizia eta zuzentasuna, elkarrekiko errespetua, elkartasuna eta **integritatea** . Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bere **integritatea** gordetzeko bere homosexual papera jokatu behar zian denen aurrean. Pako Aristi

---

# integro *izond* pertsonez mintzatuz, erabat osoa eta zintzoa dena.

Nik **integroa** izatea bilatzen badut ere, ez dago integritate osoa erdiesterik. Ana Urkiza

Txarra al da, bada, erlatibismoaren garaian pertsona **integroa,** osoa, oinarri sendoak dituena izatea? Berria - Harian

**2** *hed*

Itxura **integro** eta dotore horren atzean gizagaixo bat ezkutatzen da, lar sofritzen duen gizonkilo bat. Karlos Linazasoro

---

# intelektu *(orobat **intelekto**)* **1** *iz* adimendua.

Munduarekin harremantzen dena ez dela **intelektu** bat ("tabula rasa"), nahimen eta sentimenduzko norbait aktibo baino. Joxe Azurmendi

Beti esan izan da guk, Mendebaldean, **intelektua** lantzen dugula batik bat. Berria - Kultura

Horretarako nire intuizioan fidatzen naiz, ez bakarrik **intelektuan** , intuizioa **intelektuak** harrapa ez ditzakeen eremuetara hel baitaiteke. Ana Urkiza

Meharra eta zarpaila izatea desiratu izan dut maiz, fisikoaren eta **intelektoaren** arteko orekak ematen dion osotasuna zapuzteko eta ahuldadearen zirrikitu horretan nireago egiteko. Eider Rodriguez

**2** (hitz elkartuen lehen osagai gisa) ik **intelektual.**

Kristal beltza zentzuen sinboloa da; gero arrazoia dator zentzuzkoa galbahetzen duena eta **intelektu** -produktua eskaintzen. Joan Mari Lekuona

---

# intelektual **1** *izond* adimenduari dagokiona.

Badago batasun-dibertsitate zerebral, psikologiko, afektibo, **intelektual** eta subjektibo bat. Askoren artean

Bere kemen **intelektual** eta emozionala gehienbat harantz bideratuz. Xabier Olarra

Hemen transzendentziaren modu batera itzultzen gara, endelgura, *Nous* delakoan datzan printzipio **intelektual** horretara hain zuzen. Askoren artean

Beste autista batzuk, ordea, ezintasun **intelektual** handia izaten dute. Berria - Gaiak

Gizadiaren historia **intelektual** guztia nahi du erakutsi Hegelek. Askoren artean

Irudimena da indar eragilea, elementu sortzailea, artean nahiz beste zeinahi jarduera **intelektualetan** bezala zientzian ere. Juan Garzia

Ez da ariketa **intelektualik** azken finean alferrikakoa ez denik. Juan Garzia

Emeki emeki lan **intelektualaren** gustua joan zitzaidan. Piarres Aintziart

Irudikapenezko arte kanonikoa, berriz, ezin da existitu konbentzio **intelektual** batzuei esker ez bada, konbentzio matematiko batzuei esker, azken finean. Josu Zabaleta

Bere gisa hazi zen, aparte, nirekiko inolako harreman afektiborik ez **intelektualik** gabe. Josu Zabaleta

Solasaldi **intelektual** bat. Joseba Urteaga

Altxatu behar genuen eraikuntza **intelektual** eder bezain sendoaren lehen esaldia ipintzeari ekin nion. Bernardo Atxaga

Mundu **intelektual** eta burgesaren irudipen ideal bat, erabat lausoa. Joseba Urteaga

Bizkaia da nik ikusi dudan herri bakarra non kultura **intelektuala** eta morala benetan herrikoia baita. Anjel Lertxundi

Ez iritzi artikuluetan, non larderia **intelektuala** ez baitzen inoiz sobran. Jon Alonso

Eskubide horien urraketa jabetza **intelektualaren** aurkako delitu bezala har daiteke. J.M. Olaizola "Txiliku"

Jabetasun **intelektualaren** legea. Iñaki Segurola

Unibertsitateko bere lagun **intelektualei** . Piarres Xarriton

Gure errealitate politikoaren arazo erabakigarriak **intelektualak** dira. Joseba Zulaika

Metropoliko zinema kazetariak **intelektualegiak** dira, nonbait, halako dinosauro populistak ikonotzat hartzeko. Berria - Kultura

Pertsona ez-ikasi, "ez- **intelektual"en** baitan. Xabier Olarra

• **2** *iz* gehienbat adimena erabiltzea eskatzen duten lanetan aritzen den pertsona, buru-langilea.

**Intelektual,** filosofo, politikari, artista eta pentsalariz osaturiko presio talde eraginkor bat. Harkaitz Cano

**Intelektualak** gogoeta deserosoak egin behar ditu, batzuei deserosotasun hori mingarri gerta badakieke ere. Txema Ramirez de la Piscina

Bertako kafetegietara artista eta **intelektual** ugari biltzen omen zen garai batean. Xabier Montoia

Eta **intelektual** anitzek Sartre zeukaten gidari. Piarres Aintziart

Ezkerreko **intelektual** baten begiez begiratu diozu beti euskaltasunari. Xabier Montoia

Euskal kulturaren inguruko **intelektual** eta artisten artean. Txema Ramirez de la Piscina

Erdi Aroko **intelektualak** logikaren aldetik aristotelikoak ziren. Askoren artean

Liberalismo ekonomikoaren aldeko **intelektual** askori. Askoren artean

Pasolini mende honetako **intelektual** librearen eredu handietako bat da. Josu Zabaleta

Garai hartako **intelektual** aurrerazale guztiek sutsuki goraipatu zuten Gogol. Jose Morales

Gerra Hotzaren garaian **intelektual** disidenteen jazarpena, giltzapetzea eta hilketa ohiko kontuak izan ziren ekialdeko erregimenetan. Iban Zaldua

Entzuleen artean, berriz, euskal **intelektualik** ospetsuenak han ziren. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Galindez **intelektualak** gertaera haren irakurketa zuzena egin zuen. Edorta Jimenez

**Intelektualen** gauzak, badakizu. Xabier Mendiguren Elizegi

**Intelektualak** kaka zaharra dira, Nathan. Oskar Arana

**Intelektualak** eta politika. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Alemaniar artista eta **intelektual** belaunaldi oso bat. Josu Zabaleta

Oso gaztea zen, eta betaurreko txiki batzuk zeramatzan, **intelektual** itxura ematen ziotenak. Bernardo Atxaga

Betiere harrokerian ibiltzeko edo **intelektual** plantak egiteko asmorik gabe. Xabier Olarra

**Intelektual**-kutsuko piroteknia tontolore horretara erakarriak baitzeuzkan berarekin lan egiten zuten guztiak ere. Anjel Lertxundi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hori bera gertatzen da, helburu **intelektual**-asmoko batez, hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarraldietako artista "kontzeptualengan" ere. Josu Zabaleta

· Edo, hobeto esanda, ez ote ginen sasi-**intelektual** klasista batzuen gisara jokatzen ari? Bernardo Atxaga

Nik beti izan baitut kultura pixka bat, eta hura erdi-**intelektuala** baitzen. Karlos Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**

**arlo intelektualean** (4); **dute intelektualek** (3); **eta intelektualari** (3); **eta intelektualei** (3); **eta intelektualek** (7); **eta intelektualen** (6); **historia intelektualean** (3); **intelektualaren arteko** (3); **intelektualaren aurkako** (5); **intelektualaren aurkako delitua** (3); **intelektualaren gaineko** (3); **intelektualaren legea** (3); **intelektualaren legeak** (3); **intelektualek eta** (3); **intelektualen artean** (10); **intelektualen eta** (4); **intelektualen jarrera** (3); **intelektualik ez** (3); **jabego intelektualaren** (6); **jabetza intelektualaren** (24); **jabetza intelektualaren aurkako** (5); **lan intelektualaren** (4); **lan intelektualen** (3)

---

## intelektualeria *iz* intelektualak. ik **intelektualitate**.

Eskuin-eskuin frantsesean eta Espainiako **intelektualeria** batean bakarrik, nik uste, XIX. eta XX. mendeen arteko itzulian dagoen *Volksgeist*aren loraldi txundigarri halakoan, kontzeptuak arras bestelako esanahia eta balioa dauka hartua. Joxe Azurmendi

---

## intelektualillo *iz pei* intelektuala.

Zer esanik bahuela **intelektualillo** haien aurrean, eta zer eta "barruan badiat konfiantzazkorik" bota huen, bai, eta seriotan hartu zitean. Jokin Muñoz

---

## intelektualismo *iz* adimenari dagokionari lehentasuna emateko joera. ik **intelektualtasun**.

**Intelektualismoa** antzua da. Josu Zabaleta

**Intelektualismoa** izan da usu ene aterbea. Piarres Aintziart

Zer ez du maite oroz gainetik? ideologia, abstrakzioa, **intelektualismoa**. Berria - Kultura

Dryer-ek, bere lanaren **intelektualismo** hotza gorabehera, berezko dohain ikaragarriak zeuzkan marrazkilari eta margolari kolorista gisa. Oskar Arana

Ez dut bereziki maite **intelektualismoa,** baina baserritarrismoa, nire kasuan, inpostura hutsa litzateke. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## intelektualista *izond* adimenari dagokionari lehentasuna emateko joera duena.

Hori guztia beharrezkoa zela iruditzen zitzaion batzuetan; axolagabetasun **intelektualistan,** adierazpen horiek, bizitzaren azalpen bortxazkoak, ikusiz gozatu eta guzti egin zitekeela iruditzen zitzaion batzuetan. Josu Zabaleta

Gure arrazoimen-ezagutza ororen objektuari begira filosofo batzuk sentsualista soilak izan dira, besteak, filosofo **intelektualista** soilak. Ibon Uribarri

---

## intelektualitate *iz* intelektualak, intelektualeria.

Manuel Lekuonak 1930ean Bergaran egindako hitzaldia har daiteke [...] euskal **intelektualitatearen** iritzi aldaketaren arrazoi nagusitzat, bat-bateko bertsolaritza beste begiz ikusten hasten baita harrezkero **intelektualitate** hori. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Euskal **intelektualitateak** ordura artekoan trikitixari buruz zituen keriak baztertzeko lana hartu behar izan zuen. Iñigo Aranbarri

Nahiz eta alemaniar **intelektualitatean** Sloterdijk baztertzeko deialdia hedatu, jadanik haren itzulpenak munduko bazter guztietara iritsi dira. Berria - Kultura

---

## intelektualizante *izond* intelektualizatzen duena.

Baina bizipen horiek hoztasun **intelektualizante** batetik begiratuta ordenatzeko modu berezi horrek nolabaiteko duintasuna ematen dio aitortutakoari. Berria - Kultura

---

## intelektualizatu, intelektualiza, intelektualizatzen du *ad* izaera intelektuala eman.

Leibnizek agerpenak **intelektualizatu** zituen, Lockek, berriz, bere aldetik adimenaren adigaiak [...] osotara sentsifikatu zituen. Ibon Uribarri

Denboraren eta espazioaren bere irakaspide sonatua, sentimenaren forma hauek **intelektualizatzen** zituen irakaspidea, hausnarketa transzendentalaren iruzur berberatik baino ez zen sortu. Ibon Uribarri

---

## intelektualizazio *iz* intelektualizatzea.

Askotxotan errepikatu dugu [...] ikusmenezko pertzepzioa **intelektualizazio** bat dela egiaz. Josu Zabaleta

---

## intelektualkeria *(orobat **intelektualeria**)* *iz* intelektualismo gaitzesgarria.

Beren ofizioa ikasten duten epean, gaztek ikasle estatutua eskuratuko lukete, araberako karta eta abantail partikularrekin; eta **intelektualkeria** luzeak ez baitituzte gogoko, bi urte edo gehienik hiru aprendizgoren ondotik segidan ofizioa eskutan lirateke, lanean hasteko prest, ikasle klasikoak baino biziki lehenago. Herria

Fazoinak eta **intelektualeriak** baztertuz. Herria

---

## intelektualki *adlag* alderdi intelektualean.

Etikoki eta **intelektualki** antzua den kontenplazio batera kondenatzen du artista. Josu Zabaleta

Alegia, **intelektualki** ez ezik moralki ere gaitzesten da aurkaria. Iñaki Heras

Fraintzik iraultza politikoa egin du, baina **intelektualki** erreakzionarioa izaten jarraitzen du barrendik. Patziku Perurena

Beste guztiok, bada, hainbestean bizi gara, eta ez dugu agian soluzio baten premia larririk sentitzen; **intelektualki** beharbada bai, baina gorputzarekin ez, gorputza nahikoa ondo gobernatuta baitaukagu. Bernardo Atxaga

Emeki emeki sentitu dut, baina **intelektualki** ene ustez. Piarres Aintziart

Jokalaria **intelektualki** prestatzen dute, profesional gisa goi-mailan zentzuz jokatzen jakiteko, eta bestela ere bizitzan aurrera egiteko. Berria - Kirola

Baina gauza bat da hau guztia **intelektualki** geureganatzea, auzia ezberdintasun guztiak adosten dituen erlatibotasunaren bitartez aztertzea [...] eta beste gauza bat da, izugarria gero, telefonistari aurre egitea, bere begirada lotsagabea jasatea. Jon Alonso

**inte** *iz* intelektuala izateko nolakotasuna; intelektualismoa.

Gizonezkoek **intelektualtasuna** gehiago garatzen dutela esaten da, eta emakumeek emozioei eta sentipenei garrantzia handiago ematen dietela... Ana Urkiza

**Intelektualtasunaren** aldeko apustua egitea ez al da gizonezkoen ezaugarria? sarritan ahalegin berariazkoa egin behar izaten dugu **intelektualtasunaren** mundu horrek eskatzen duen partida jokatzeko. Ana Urkiza

Bizitza urlaster zalapartatsu eta oharkabeko bat zen; ulertzen ez zuten tragedia bat antzezten zuten aktoreek bertan, eta gizonek, **intelektualtasun** -egoera batera iritsirik, errukizko eta onginahizko begirada batez begiratzen zuten eszenara. Josu Zabaleta

---

# intelekzio *iz* ulermenaz hautematea.

Nolabait esateko, esku batean gauzaren **intelekzioa** daukagu, eta bestean gauza, objektua; eta bien arteko konparaketa egiten dugu, gure gauzaren **intelekzioa** egokia -egiazkoa- den ala ez erabakitzeko. Jenaro Garate

---

# inteligente *(61 agerraldi, 21 liburu eta 24 artikulutan; orobat* ***intelijente*** *6 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan)* **1** *izond/iz* buruargia, azkarra.

Elmira emakume zuhur eta **inteligentearen** eredua da Molière-ren *Tartuffe* antzerkian. Koldo Izagirre

Zorte handikoa naiz nire lagun hoberenak gizonezkoak eta **inteligenteak** direlako, eta **inteligenteak** diren neurrian, sentiberak ere badira. Ana Urkiza

Ez ote da Kerry **inteligenteegia** AEBetako presidente izateko? Berria - Mundua

Soldadu bihoztun eta lider **inteligentearen** ospea zuen. Edorta Jimenez

Irakurlea izaki **inteligentetzat** hartzen duen kritika behar dugu. Berria - Kultura

Oso **inteligenteak** dira erleak bidaiak egiten dituztenean. Unai Elorriaga

Eraikin **inteligente** ergel hauetako giro kaltegarria ongi jasaten dute. Iñaki Zabaleta

Ideia handiak bihotzean jaiotzen dira, **inteligenteak** buruan. Berria - Kultura

Bizitza betetzea eta modu **intelijentean** betetzea, besteren zoritxarra sorrarazi gabe. Lourdes Oñederra

Prokofiev-en lan honen bertsio berezia entzuteko aukera izan genuen astelehen arratsez; bertsio **intelijentea,** latza eta disdiratsua. Berria - Kultura

**2** adimenduna.

Horrekin bakarrik makina gai da hainbat operazio **"inteligente"** gauzatzeko. Askoren artean

Kasu batzuetan kreazionismoari Diseinu **Inteligentearen** Teoria esaten zaio. Askoren artean

Entusiasmoa ez duk, ez, **inteligenteen** jarrera. Jokin Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta inteligenteak** (4); **inteligentea eta** (3); **inteligentea izan** (4)

---

inteligentsia ik **intelligentsia**.

---

# inteligentzia *(253 agerraldi, 22 liburu eta 109 artikulutan; orobat* ***intelijentzia*** *5 agerraldi, liburu 1 eta 3 artikulutan)* **1** *iz* buruargitasuna, azkartasuna.

Gizon argia eta **inteligentzia** handikoa zan ha. Xabier Amuriza

Harrigarria duk sendagile horien **inteligentzia**. Irakurleari den-dena eginda, janda ematen bazaio, bere **inteligentzia** gutxiesten eta bere irudimena kamusten ari gara. Xabier Etxabe

Espero dugu herri honetako eragile soziopolitikoek nahiko **inteligentzia** izanen dutela proposamen konkretu horri baikor erantzuteko. Berria - Euskal Herria

Jainkoak gizakia bere irudira egin bazuen, eta **inteligentzia** eman bazion, **inteligentzia** hori erabil dezan izango da, noski. Herria

Herritarren **inteligentziaren** kontrako iraina. Berria - Mundua

Hautu horrek ELAren kemena eta **inteligentzia** erakusten ditu. Berria - Ekonomia

Nire doktrinaren ezaugarri nagusia, orain arte izandako guztiekin kontrajartzen duena, nahimenaren eta **inteligentziaren** artean ezartzen duen erabateko bereizpena da. Askoren artean

Ile eta begi argiak izango ditu, **inteligentzia** bizikoa izan daiteke. Berria - Gaiak

PPk Gobernuarekiko jarrera aldatzea **«inteligentzia** politikoa izatea» litzateke, PSEko buruaren ustez. Berria - Euskal Herria

'Ez duzu **inteligentzia** emozionalik batere,' esango dizu. Joseba Sarrionandia

Konputagailua neurozientziekin lotzen dugunean **inteligentzia** artifizialaz hitz egiten hasiko gara. Pello Salaburu

**Inteligentzia** anizkunaren teoria. Txema Ramirez de la Piscina

Haren xarma eta **inteligentziaz** inbidia sentitzen nuen. Mikel Hernandez Abaitua

Eta ordenadorea ez daiteke **intelijentziaz** harro, zeren dena dakielarik, ez baitu ezer ulertzen. Jon Alonso

«ETAren **bukaera»** inteligentziaz kudeatzeko eskatu dio PSOEri Erkorekak. Berria - Euskal Herria

Buruarekin erantzun du, **inteligentziarekin**. Berria - Euskal Herria

**2** ezkutuan lorturiko argibideak, bereziki politkoak edo militarrak.

**Inteligentzia** Nazionaleko zuzendaria ez da CIAko zuzendari bera izango. Berria - Mundua

Arriskua handia zuten **Inteligentzia** Militarraren esku torturaren pareko den tratua jasotzeko. Berria - Mundua

1979. urtean **Inteligentzia** Militarreko kide egin zuten eta koronel kargua eman zioten. Berria - Mundua

**Inteligentzia** Militarreko Zerbitzuak. Edorta Jimenez

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **inteligentzi** g.er.)

Zerbitzu sekretuetako **Inteligentzia** arloko analista gisa. Berria - Mundua

**Inteligentzia** prozesuaren politizazioagatik. Berria - Mundua

FBIren operatiboak [...] ailegaturik Ernesten **inteligentzia**-lana amaitu zenean. Edorta Jimenez

**Inteligentzia** zerbitzuen garrantziaz. Edorta Jimenez

Benitez jenerala ez da edonor; Kubako **Inteligentzia** Zerbitzuen burua da. orain Espainiako **Inteligentzi** Zerbitzuek (CNI) eman behar dituzte argibideak. Edorta Jimenez

Bi israeldarrak **Mossad** inteligentzia zerbitzuaren aginduetara ari ziren lanean. Berria - Mundua

Ameriketako Estatu Batuen **inteligentzia,** informazio zein espioitza zerbitzuen dokumentuetako batzuk. Edorta Jimenez

John Negroponte **Inteligentzia** zuzendari nazionala. Berria - Harian

Honek boterea eskuratzeko lehian zituen aurkariei buruzko **inteligentzia**-informazioa bil zezaten. Edorta Jimenez

Nazioartearen eremuko **'inteligentzia'** arloa CIAk hartuko du eta FBI 'etxe barruko' arazoetara mugatuko da. Edorta Jimenez

JIC **Inteligentzia** Batzorde Bateratuak. Berria - Mundua

Kongresuaren **Inteligentziarako** Hautazko Batzorde Iraunkorreko kide eta buru gisa. Berria - Mundua

CIA **Inteligentzia** Agentzia Zentraleko zuzendari berria izango da Michael Hayden.

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Estatu Batuen kanpo-**inteligentzia** eta kontraespioitza zerbitzuetako bat da hori. Edorta Jimenez

---

# inteligentziadun *izond* adimenduna.

Garai berean hasi ziren ikerketa berezi batzuk egiten bonba **inteligentziadunak** indarrean jartzeko. Pello Salaburu

Satelite bidezko telefonoa, ahotsa mekanikoki ezagutzea, txartel **"inteligentziadunak",** giza genomaren mapa. Pello Salaburu

---

# inteligible *izond* ulergarria, adierraza.

Hau, ordea, mundu **inteligiblean** besterik ezin da gertatu sortzaile eta gobernari jakintsu baten menpean. Ibon Uribarri

Nahimena askea izan daiteke, baina hau gure nahi izatearen kausa **inteligiblearen** kontua besterik ez da. Ibon Uribarri

Egoeren ilara bera absolutuki (kausa **inteligible** baten bitartez) hasi balitz bezala ikus daitekeela. Ibon Uribarri

Arrazoimenaren kausalitatea izaera **inteligiblean** ez da sortzen, edo ez da hasten denbora batean, honela efektu bat sortzearren. Ibon Uribarri

---

# intelligentsia *(30 agerraldi, 3 liburu eta 3 artikulutan; orobat* ***inteligentsia*** *3 agerraldi, 3 liburutan)* *iz* intelektualeria, intelektualak.

Errusiar **intelligentsiak** jada burgesiaren aurka hartua zuen norabide horren argitan, [...]. Britainiar Inperioak hazitako hindu-**intelligentsia** horrek. Iñaki Mendiguren

**Intelligentsia** hauek azkenean beren ugazaben aurka bihurtzen dira. Iñaki Mendiguren

**Intelligentsia** paristar kutsukoa, unibertsitate jendea, aktore-ikasleak... Iñaki Iñurrieta

Baina Gorteko etsaiak ez daude Garibaik egin zien itzala ez ahazteko ez barkatzeko, eta, batez ere, ez daude Gortean gero eta indar handiagoa duen euskal **inteligentsiari** bidea libre uzteko. Anjel Lertxundi

Kexu ginen oraintsu, non ote ziren ezkutaturik Espainiako **inteligentsia** eta intelektualak, non ote zen haien gidaritzaren ahots kritiko betierekoa. Hasier Etxeberria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **intelligentsia baten** (3)

---

# intelokratiko *izond*

Zera adierazi zuen gero, erregimen **intelokratiko** kapitalista etnia anizkunak Nobel saria edo nik dakit zer eman ziola Knut urliari, eta hura bai, hura subertsibotasunaren froga ukaezina zela. Joxan Elosegi

---

# intendente 1 *iz* armadan, administrazio zerbitzuen nagusia.

Baita Espartza **intendentea** ere, eta Eusebio Zubizarreta politikaria, eta gure Iparragirre jeneral leial zaharra, perlesiak jota ia-ia erabat ezindurik. Txillardegi

**2** probintziako gobernadorearen kideko administrazio funtzionarioa.

Bestetik, han ziren Kongresuko lau diputatu, Santiago[ko] **intendentea** eta bi unibertsitateko errektoreak. Berria - Euskal Herria

**3** pilota enpresetan, hornitze ardura duen pertsona.

Pilota enpresetan **intendenteek** gozotegietan obradoreek egiten duten lan berbera egiten dute. Berria - Kirola

«Lehen mailako bi partida izanen dira egunero», azpimarratu zuen enpresako **intendente** Kike Elizaldek. Berria - Kirola

Handik Tampara itzuli zen, Gerrikabeitia eibartarrarekin batera, **intendente** aritzeko. Berria - Kirola

Pilota gehiago zergatik ez duen eskatu? «horretarako **intendenteak** daude». Berria - Kirola

Teknologia berriek ekarri dituzten aldaketek **intendenteen** lana hankamotz utzi dutela dio Arregik. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan)

Hiksoen erregimenaren azken egunetan ekonomi **intendente** gisa, zetozen gabezi urteetarako oparotasun-urteetan horniketa egitea. Iñaki Mendiguren

Jokatzeari utzi zionean bi urte egin zituen kantxako epaile bezala, Ocalako pilotalekuko **intendente** postua onartu aurretik. Berria - Kirola

Miguel Zestauk ez du jarraituko **intendente** karguan, eta Kike Elizaldek ordezkatu du. Berria - Kirola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **elizalde intendenteak** (3); **enpresako intendenteak** (3); **intendente kike elizaldek** (3)

---

# intendentzia *iz* armadetan, hornitze gorputza.

Euzko Gudarosteko **intendentzia** komandantea, 1937ko ekainean faxistek fusilatua. Juan Luis Zabala

Estatuak, garai hartan, armategiak eta **intendentzia**-zerbitzuak ez ezik, falta zituen banku zentrala, altxortegi publikoa eta funtzionario gaituak ere. Koro Navarro

Ama bere **intendentzia** arazoez atzendu baitzen une batez. Aingeru Epaltza

**Intendentzia** arazoek, arazo logistiko eta domestikoek izorratzen gaituztela, ez digutela literatur asmoetan aurrera egiten uzten. Iñaki Iñurrieta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **intendentzia arazoez** (3

---

# intenporal *izond* denboragabea.

Horiek ez dira osagai aztoratzaileak, diskurtsoaren forma huts, neutro, **intenporal** eta isilari gainjartzen zaizkionak [...] haatik bere osagai eratzaileak izango lirateke. Xabier Arregi

Pitzadura zuri eta paradoxikoi **intenporal** batean. Xabier Arregi

Soinu **intenporal** eta modernoa lortu nahi genuen. Berria - Kultura

## **intenporaltasun** *iz* denboragabetasuna.

Diskurtsoa garapenaren legetik erauzten da eta jarraitasunik gabeko **intenporaltasun** batean ezartzen da. Xabier Arregi

**Intenporaltasunaren** zentzua, adibidez, viktoriar garaiaren hirurogei urteetan hazi egin zela ematen zuen. Iñaki Mendiguren

---

## intensibo ik **intentsibo**.

---

## **intensio** *(orobat **intentsio**)* *iz* edukiera.

Nola bereizten zituen hark [Port Royal-eko Logika deritzanak] ideien *compréhénsion* edo, geroagoko izenez, **intensioa** (ideiak bere baitan hartzen edo biltzen dituen tasun edo ezaugarrien multzoa), eta *étendue* edo estensioa (ideia aplika dakiekeen gauzen multzoa); ideia batek zenbat-eta **intensio** eskasagoa, orduan-eta estensio handiagoa du, eta, alderantziz, **intensioa** ugariagoa eta estensioa urriagoa; *gauza* hitzak **intensio** eskasa du (oso ezaugarri gutxi ditu bere baitan edo izaeran) eta estensioa berriz oso handia, ia edozeri aplika baitakioke; aitzitik, *borragoma* hitzak **intensio** handiagoa du (ezaugarri asko behar ditu definitua izateko) eta estensioa, jakina, hagitzez urriagoa. Iñaki Segurola

Mundu posibleen semantikak Fregeren zentzu kontzeptuaren pareko den bat darabil: termino singular batek edo predikatu batek estentsio bat eta **intentsio** bat (edo "zentzu" fregear bat) dauzka. Askoren artean

**Intentsioa,** ostera, estentsioa determinatzen duen funtzio bat da: mundu posibleetatik estentsioetara doan funtzio bat. Askoren artean

Adibidez: "gorri"ren **intentsioak** mundu guztietan begiratu eta mundu bakoitzean gorri diren gauzen klaseak hartzen ditu. Askoren artean

Estatuen izenek -kartografia politikoaren izenek oro har- ez dute, bistan denez, **intensiorik,** ez diote ezer eta ez dute beren baitan funtsik, izaterik edo zertasunik; estensio, eremu edo hedadura huts dira, ez dute nondik-norainokotasuna beste tasunik Iñaki Segurola

---

## **intensional** *izond* intensioari dagokiona.

Mende horretako logikan, aniztasun eta eztabaida ugari aurki dezakegu, esate baterako, logika formala zertan datzan, zein diren oinarrizko forma logikoak edota logikak, oro har, estensionala edo **intensionala** behar duen izan. Askoren artean

Besterik da euskal herri semantikoa, zerbait esan nahi duena eta dioena ("euskarazko herria, euskaraz mintzatzen -eta mintzatzen aditzen!- den tokia"), bestela esanda, **intensionala:** intensio jakina duena, baina estensio jakinik eta betibateko edo iraunkorrik ez duena eta izan ez duena. Iñaki Segurola

Euskal herri **intensional** edo semantikoak, bere zertasunarekin batean, bere pluraltasuna ere galdu du. Iñaki Segurola

---

## **intensionalitate** *(corpusean **intentsionalitate** soilik)* *iz*

Honek ziola kontzientzia ez dela substantzia bat, bere oinarriaz bizi dena, pentsamendu garbi bat, baizik **intentsionalitate** bat, gauzei eta jendeei idekia, eta beraz harremanetan sortua. Piarres Aintziart

---

## intensitate ik **intentsitate**.

---

## **intentatu**, intenta, intentatzen du *ad* saiatu.

Gerard-ek (1558-1584) gauza bera **intentatu** zuen, eta lortu ere bai. Juan Martin Elexpuru

Beste batek ihes egitea **intentatu** du leihotik salto eginez. Pako Aristi

---

## **intentsibo** *(orobat **intensibo** g.er.)* **1** *izond* nekazaritzaz mintzatuz, ekoizpenaren hazkundea eremu mugatu batean kapital edo lan hornidura handiaz lortzen duena.

Nekazaritza praktika **intentsiboek** lurraren emankortasuna ahultzen dute. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Mexikoko nekazariak derrigortuta daudela laborantza ez **intentsiboari** uko egitera. Berria - Gaiak

· Nekazari eta abeltzain **intentsiboak** aise konturatuko dira: beren ustiategiak humanizatzeko inbertsioa merkeagoa izango da merkatu **intentsiboan** segitzeko egin beharko luketen ahalegina baino. Edorta Agirre

**2** *hed*

Industria sektore **intentsiboek** Ekialdeko herrialdeen eskulan merkeari neurria hartu beharko diote, ezinbestean. Berria - Ekonomia

Babes bereziko guneetan turismo **intentsiborik** ez dutela onartzen nabarmendu zuen Karrerak. Berria - Euskal Herria

Hazkundea, estentsiboa izatetik, **intentsiboa** izatera igaro zen, eta gizartearen sektore zabalagoei gertatu zitzaien onuragarri. Koro Navarro

**3** intentsitate handia ezaugarri duena.

Mekanizazio hori ekipamendu espezializatuan eta kapital **intentsiboan** oinarritzen da. Iñaki Heras

Eskulan **intentsiboa** behar duten hainbat produktu ekoizterakoan. Iñaki Heras

Errauste planta birziklatze **intentsiboarekin** bateraezina dela gaineratu zuen Lozanok. Berria - Euskal Herria

Handitasun **intentsiboa,** eta honi jarraiki hautemapenaren objektu denei, hautemapenak sentsazioa barnebiltzen duen heinean, handitasun **intentsiboa** egotzi behar zaie, h[au] d[a], sentsuaren gain duten eraginaren maila. Ibon Uribarri

**4** ikastaroez eta kidekoez mintzatuz, trinkoa.

Ibarretxek ikastaro **intentsiboek** emaitza ona eman dezaketela frogatu zuen ederki. Hasier Etxeberria

Ikerketa labur eta **intentsibo** baterako. Xabier Olarra

**5** ***arta intensiboko sail*** arta intentsiboko gunea.

Eramaten ditugu beraz arta **intentsiboko** sailera, eta hantxe jarraitzen dute biek bi astez, ahaleginean, gero eta hobeto denean. Koro Navarro

**6** ***zainketa intentsiboko/intentsiboetako unitatea*** arta intentsiboko gunea.

Ospitaleko Zainketa **Intentsiboetako** Unitatean dago. Berria - Euskal Herria

Gizona ZIU Zainketa **Intentsiboko** Unitatean dago oso gaixo. Berria - Euskal Herria

**Zainketa Intentsiboetako** Unitatea utzi du. Berria - Kirola

Orihuelako ospitaleko **Zainketa Intentsiboetako** Unitatera eraman zuten, koma egoeran. Berria - Kultura

**intentsiboki** *adlag* era intentsiboan.

Agerpen oro hedakorki zein **intentsiboki** hartuta handitasun jarraitua bada, "aldaketa oro (gauza baten igarobidea egoera batetik bestera) jarraitua da" esakunea aise eta ebidentzia matematikoarekin frogatu ahal izango litzateke. Ibon Uribarri

---

**intentsifikatu** *(orobat **intensifikatu** g.er.)* *izond* intentsitatea areagotu.

Ikusten genuen gaixotasuna abeltzaintza eredu **intentsifikatu** batetik zetorrela. Egiazko kalitatearen zerbitzuko, laborantxa industrializatu eta **intensifikatu** bat baztertuz... Patxi Iturritegi

---

intentsio ik **intensio**.

---

intentsional ik **intensional**.

---

intentsionalitate ik **intensionalitate**.

---

**intentsitate** *(ETCn **6.338** agerraldi] orobat **intensitate** g.er.)* **1** *iz* egitate, gertakari, nolakotasun, sentsazio eta kidekoen indar maila.

Presio aldaketaren **intentsitate** edo indarra, berez, wattetan neur daiteke. Lourdes Oñederra

Leherketaren **intentsitatea** ikusita. Berria - Mundua

Begiak baduela mekanismorik garunari adierazteko noiz gehitzen edo gutxitzen den argitasunaren **intentsitatea**. Irene Aldasoro

Iluntasunaren **intentsitateak** zapaltzen eta itotzen ninduela zirudien. Koro Navarro

Pentsa daiteke hain sudur sentikorra duen animalia zorabiatuta ibiliko dela **intentsitate** normaleko usainen artean. Irene Aldasoro

Liburu bat lehen aldiz eskuetan hartzen duenean sentitzen duen zirrararen sakontasuna, **intentsitatea,** urduritasunaren neurria eta emozioaren handitasuna. Pako Aristi

Gatazka ez dugu guk sortu, eta gatazkaren **intentsitatea** ere ez dugu guk erabakitzen. Berria - Euskal Herria

Askorentzat globalizazio prozesuaren **intentsitatea** eta hedapena erabat agerikoak eta ezinbestekoak dira. Iñaki Heras

Eta alda daiteke bilakaera hori gertatzen den lastertasuna zein **intentsitatea**. Isabel Arrigain

Atea jotzeko badago kadentzia eta **intentsitate** jakin bat. Harkaitz Cano

Informalismo abstraktutik **intentsitate** handiko kolore formak margotzera igaro zen. Berria - Kultura

Partida gaitzak, gogorrak, **intentsitate** eta tentsio handikoak jokatu gura izaten ditu. Berria - Kirola

Luzaz ixilik egon eta, ekintza armatuak berriz hasten ditu 1977an, **intensitate** gehiagorekin. Herria

Pixkana, **intentsitatea** galtzen doa, ikuslea gogaitu arte. Berria - Kultura

Mahaitxoa, armairu beltza eta **intentsitate** erregulagarriko lanpara. Aingeru Epaltza

**Intentsitatea** jartzen zuen egiten zuen guztian. Anjel Lertxundi

Europako Kopan aritzeak **intentsitatez** aritzea eskatzen du. Berria - Kirola

**4** (hitz elkartuetan)

Kontzentrazioa, pentsamendu-**intentsitatea,** ziurtasuna, tinkotasuna, itxurakeriarako gaitasunik eza. Xabier Olarra

Beldur naiz, izan ere, irakurle arruntari interes **intentsitate** nerbioso hau adieraziko dion beste modurik ez ote den izango. Koro Navarro

1990-2002 bitartean, energia **intentsitatea** %13 murriztu zen, hau da, hobetu egin da energia erabileraren eraginkortasuna. Berria - Euskal Herria

**2** uhinen nolakotasuna, bibrazioen anplitudaren araberakoa dena.

Soinu baten ozentasuna haren **intentsitatearen** (hau da, daraman energia kantitatearen) eta maiztasunaren mende dago. Irene Aldasoro

**Intentsitate** handiko soinu uhinak erabiltzen ditu LFAS sonarrak. Berria - Gaiak

Ahotsaren tonua eta **intentsitatea**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**Argiaren** intentsitatea eta maiztasuna nolakoak diren, metalak elektroi gehiago edo gutxiago askatuko ditu. Berria - Harian

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Soinuaren **intentsitate** mailak dezibeletan adierazten dira (dB, forma laburtuan). Irene Aldasoro

Espektroaren zati horretan, bada, bilioitik bateko **intentsitate**-eskala jasan dezake belarriak. Irene Aldasoro

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Luminantzia [...] objektu argitsuak azalera-unitate bakoitzeko duen argi-**intentsitatea** da. Josu Zabaleta

180 dezibeliotik gorako soinu **intentsitateak**. Berria - Gaiak

Kolorea, argi distiratsu baten errainu-**intentsitatearen** poderioz, gris-aluminiozkora hurre zegoela esan liteke. Josu Landa

---

**intentsu** *(**12** agerraldi, **5** liburu eta **3** artikulutan; ETCn **241** agerraldi; orobat **intentso** **12** agerraldi, **4** liburu eta **8** artikulutan; ETCn **242** agerraldi)* *izond* intentsitate handikoa.

Ordubeteko bilera **intentsua** izan zen, baina kafe bat edateko tartea ere hartu zuten. Berria - Harian

Bolada **intentsoa** izan zen. Alberto Barandiaren

Rubalkabaren esanetan, «bereziki **intentsoa** eta irekia» izan zen Fiskaltzak Euskadiko Erkidegoan izango duen antolaketa eta jardueraren gaineko eztabaida. Berria - Euskal Herria

Iraungo duten gauzen alde saiatzeak gehiago merezi baitu galdu egingo direnen alde saiatzeak baino, sarritan azken hauek gozamen **intentsoagoaren** erakarpena daukaten arren. Pako Aristi

Plazer **intentsuegia** izan zuen Alaznek. Fernando Morillo

Bai **intentsua** Txillardegiren bizitza! gu berriz beti etzanda. Markos Zapiain

---

**intentzio** *(orobat **intentzione** g.er. eta **intentziño** g.er.)* **1** *iz* asmoa.

Moralak ez du gaiztotasun horren berririk, epaileak ekintzak bakarrik juzkatzen baititu; erlijioak, ordea, **intentzioak** ere epaitu nahi lituzke. Patziku Perurena

Inoiz ez da jakiten haizeak ze **intentzio** duen. Unai Elorriaga

Ez dut inoiz halako **intentziorik** izan, eta hobe ez izatea gainera, barregarria bailitzateke asmo hutsa. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez zioten sinetsi hiltzeko **intentziorik** gabe joan zela. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hitzok entzutean nahigabe handia izan zuen Frantzisko santuak, gizonaren **intentzioaz** ohartu baitzen: hain zuzen, nekazariak uste zuen anaiek etxea etxeari erantsiz lekua handitzeko bizi nahi zutela han. Askoren artean

Bakarrik geratu ginen orduko, **intentzioz** egin zidan irribarre. Jon Muñoz

Hasiera batean hura harrapatzeko eta agurtzeko **intentzioarekin** jokatu dut horrela. Iban Zaldua

Frantziskoren Testamentua, bere asmoen berri jakiteko testu nagusietakoa, ez da **"intentziorik** gabeko" testua. Askoren artean

Isilunerik gabe [ez da] ez herio ez misterio, ez tentsio ez **intentzio**. Iñaki Arranz

**2** (izenondoekin)

Gure **intentzio** on gehienak bidean galtzen dira. Herria

Tamalez **intentzio** onei loturiko erretorika izaten da nagusi eta gauzak, hein batean, bere horretan jarraitzen dute edo are okerrago. Iñaki Heras

Diruak, ordea, ez asmo onek eta ez **intentzio** hobeek menderatu ezin ditzaketen hainbat eranskin izaten ditu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Barkamenari helburu bat jartzen zaionean, nahiz eta **intentziorik** onenarekin izan, barkamenaren nozioa kutsatu egiten da. Joseba Zulaika

**Intentzio** txarrik ez duenari traba egiten baitio manera zaindu beharrak. Patziku Perurena

Ez da lurbira guztian giza naturaren etsaiaren pareko basapiztirik bere **intentzio** galgarriari hain zitalki jarraituko dionik. Patxi Altuna

**Intentzio** jakinik gabeko ekintza soil bat. Eider Rodriguez

Anaiek, haren **intentzio** santu eta debozitsua jakitean, etsenplu ona hartu zuten harengandik. Askoren artean

**3** (hitz elkartuetan)

Liderrarekin %5 igo dugu boto-**intentzioa**. Jon Alonso

**4** (testuinguru teknikoagotan)

Espirituaren talentuak (ulermena, asmamena, juzgatzeko gaitasuna) edo tenperamentuaren propietateak (erabakimena, **intentzioetan** tematzea) ontzat har badaitezke ere, ezin dira berez on bezala definitu. Askoren artean

Jatorrizko **intentzioak** bereizten ditu berezko funtzioa eta funtzio akzidentalak. Askoren artean

Izan ere, ideia praktikoan bi aldeak funtsezko moduan daude lotuak, baina **intentzio** moralak, baldintza den aldetik, zoriona lortzea ahalbidetzen duelarik, eta ez alderantziz, zorionaren ikuspegiak **intentzio** morala. Ibon Uribarri

Hau sinesmen negatiboa litzateke, moraltasuna eta **intentzio** ona sortu gabe ere hauen analogoa sortzen duena, hots, **intentzio** gaiztoen sorrera boteretsua saihets dezakeen sinesmena. Ibon Uribarri

Ez nago ni (Weber bera ez zegoen bezala) gizarte modernoan **intentzio** edo intuizioa, konbentzimendua, etikatik desterratu beharra dagoela uste dutenekin. Joxe Azurmendi

Ikonografia-unea da, eta tradiziozko kodeak (eta **intentzio**-kodeak, azpimarratzen du Panofskyk) ezagutzea eskatzen du. Josu Zabaleta

---

## intentzional 1 *izond* asmoei dagokiena, asmo-.

Emakumeon lanari benetako balorea ematen hasten garenean berez marraztuko dira irudi horiek: bai auto-irudia eta baita irudi **intentzionala** ere eta, hauek, legitimatzen denarekin bat egingo dute. Ana Urkiza

Abestien letrei «oso gogor, kritiko eta ikuspegi soziologikotik errefusatzeko modukoak» iritzi arren, zigor arauek eskatzen duten **intentzionalitaterik** ez zutela esan zuen epaileak. Berria - Kultura

**2** (testuinguru teknikoagotan)

Judizio eta objektu materialen arteko erlazioa, hortaz, **intentzionala** eta zuzena da. Askoren artean

Judizioa eta horren objektu **intentzionala** desberdinak dira, haluzinazio-kasuetan ikus daitekeen moduan. Askoren artean

Azalpenak beti testuinguru linguistiko jakin batzuetan emanda daudenez gero, hitzen produkzio **intentzionalaren** testuinguruari estuki lotzen zaiena, edo azkenik, azalpenaren alderik azpimarragarriena ulertzea (zergatik? zer? nola?...) dela adierazten duena. Askoren artean

Quale bat **intentzionala** ez den gogo-egoeren aspektua da, alegia gogo egoeren eite fenomenikoa, modu introspektiboan, lehen pertsonan, ezagutzen dena. Askoren artean

---

## intentzionalitate *(orobat **intentzionalidade** g.er.)* 1 *iz* asmoa.

Liburu honetan ez da falta **intentzionalitate** literariorik. Berria - Kultura

Ezkutuko **intentzionalidadez** gidaturiko jokabide hauek guda zikina eta manipulazioari bidea zabaltzen diete. Berria - Harian

Testuari balioa, lehenik, idazlearen **intentzionalitateak** ematen dio eta, ondoren, artea egiteko gaitasunak, gaitasunik edukiz gero. Ana Urkiza

**2** (testuinguru teknikoagotan)

**Intentzionalitatea:** Zerbaiti erreferentzia egitea da **intentzionalitatea**. Askoren artean

Argazkian arreta erakarri zuen lehenengo gauza bere **intentzionaltasunik** eza izan zela: argazkiaren "idi-begiak" objektiboaren aurrean dagoena erregistratu baizik ez du egiten. Josu Zabaleta

XX. mendeko lehenengo hamarkadetako fenomenologiaren hasieran, Franz Brentano-k berreskuratutako kontzientziaren **"intentzionalitatea"** eta bere psikologia deskribatzailea aurkitzen ditugu. Askoren artean

Egoera fisikoek, aldiz, ez dute **intentzionalitaterik**. Askoren artean

Banakakoen arteko identitateak ez ditu behar bezala jasotzen gogoaren berezko hainbat ezaugarri, besteak beste, qualia eta **intentzionalitatea**. Askoren artean

---

## interahots *iz* interfonoa.

Eta **interahotsez** bere guardia pretorianoko kideak deitu zituen. Itxaro Borda

---

## interaktibitate *iz* eragin-trukea.

Ziberespazioa, iraultza digitala, **interaktibitatea..** . hitzetik hortzera dabilkigun hitz-jario berriaren erakusle dira. Txema Ramirez de la Piscina

«Ikuskizun freskoa» izango dela azaldu du Mayak, «musikarien eta ikusleen arteko **interaktibitatea»** erraztuko duena. Berria - Kultura

---

## interaktibo *izond* eragin-trukatzailea.

Haitzuloetako lehenengo marrazki eta grabatuetatik bideo-arteko komikietara edo irudi **interaktiboetara**. Josu Zabaleta

Musika kontsumitzeko lekua baino gehiago, ekintza **interaktiboena** izan nahi du. Berria - Kultura

Arte **interaktiboa,** ikuslearen nahitaezko parte-hartzea behar duena interesatzen zaie, oroz gaindi. Berria - Kultura

Bideojokoek eta jolas **interaktiboek** tarte zabala izango dute. Berria - Kultura

Telebista digital **interaktiboa**. gela digital **interaktibo** bat izango dugu. Berria - Euskal Herria

Webgune **interaktiboa** osatu nahi dugu. Berria - Euskal Herria

Antzerki **interaktiboa**. Berria - Kultura

3.619 metro koadroko liburutegi **interaktiboa**. Berria - Kultura

Gure politika behar bezain **interaktiboa** al da? Berria - Harian

Gure politika behar bezain **interaktiboa** al da? Berria - Harian

---

# interaktiboki *adlag* eragin-trukez.

Neurri batean **interaktiboki** inprobisazioaren garapenean partaide izatea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

# interaktibotasun *iz* eragin-trukatzailea denaren nolakotasuna.

Konpartitzeak plazer handia ematen dio eta mundu berriak **interaktibotasunari** eta komunikazioari esker bakarrik eraiki daitezkeela uste du. Ana Urkiza

---

# interaktuatu, interaktua, interaktuatzen du *ad iz* eragin-trukea egin.

Musikak testuarekin **interaktuatzen** du. Berria - Kultura

**Interaktuatu** beharrean, aktoreak adiskideari idatzi dion gutuna errezitatuko du. Berria - Kultura

---

# interakzio 1 *iz* eragin-trukea, elkarrekintza.

Eta gero begien arteko **interakzioa** zegoen. Harkaitz Cano

Ustezko quark-ak elkarrengandik oso gertu daudenean, haien arteko **interakzioa** hain da ahula non ia partikula libreen gisan portatzen baitira, eta, aitzitik, quark-ak elkarrengandik urrunago, eta **interakzioa** handiagoa baita. Iñaki Segurola

Izpiok oso energia handikoak dira [...] eta indar nuklearraren eta elektromagnetikoaren arteko **interakzioaren** bidez sortzen dira. Berria - Gaiak

Organismo baten (bere elementu guztiak solidarioak izango dituena) eta ingurune [...] baten arteko **interakzio** moduen azterketarekin. Xabier Arregi

Bere esanetan, hizkuntzen **interakzioak** «oso konplexuak» dira. Berria - Euskal Herria

Ideolab diseinu grafikoa eta **interakzioa** lantzen dituen laborategia da. Berria - Kultura

Azken urteotan supersoken teoriari ekarpen garrantzitsuak egin dizkio, betiere partikulen oinarrizko **interakzio** guztiak azaltzeko teoria bateratuaren bila. Berria - Gaiak

**2**

Nik honela definitzen dut globalizazioa: giza **interakzioaren** ezaugarririk funtsezkoenak aldatzen ari den prozesu konplexu bat da. Berria - Gaiak

---

# interbalika *iz*

Otamendi zuzendaria [...] bakarlari gisan aritu zen Santiagoren Goratzarre berezi batean, **interbalika** aberatsarekin eta latina eta grekera nahastuz. Berria - Kultura

---

# interbalo *iz* denbora-bitartea.

Hiru-lau minutuko **interbalo** irregularrekin. Unai Elorriaga

---

# interbenitu, interbeni, interbenitzen 1 du *ad* atzeman, atzitu.

Naziek ondasun gehienak **interbenitu** baitzizkieten. Anjel Lertxundi

**2** esku hartu.

Lehenengo Mundu inperialistatik Hirugarren Mundu kolonialean gure "arrazoiarekin" **interbenitu** nahita ere, ez dugula ezer egiten, interbentzionismo koloniala ("morala" orain!) itsuski jarraitu baino. Joxe Azurmendi

---

# interbentore *iz* kontralatzailea, ikuskatzailea.

Janzkeraz jendarmea zirudien **interbentore** batek azaldu zion bere litera-konpartimenduaren kokapena. Unai Iturriaga

Udaleko **interbentorearen** emaztea. Josu Landa

EAJk eta EAk ez zituzten mahaietan egoteko **interbentoreak** jarri eta botoen zenbaketara ere ez zen inor azaldu. Berria - Euskal Herria

---

# interbentzio (*orobat* ***interbentzione*** *g.er.*) 1 *iz* esku hartzea.

Ez dela gauza bera aurretiko arreta eta ondorengo eskuhartzea, prebentzioa eta **interbentzioa**? Joxe Austin Arrieta

Hemen ez gara ari masa-hedabideetan bestelako **interbentzio** motak proposatzen bakarrik. Txema Ramirez de la Piscina

Estatu Batuetako Federal *Reserve Board* erakundeak **interbentzio**-tasa puntu-laurden bat jaistea erabaki zuen. Koro Navarro

Amerikar **interbentzio** armadak. Itxaro Borda

Estatu Batuek Kolonbian dituzten **interbentzio** egitasmoetan. Berria - Mundua

Intelektualak idazteko beste modu bat ere bilatu beharra dauka, Roland Barthesek **interbentzioko** idazketa deitzen zuena: egunkarietan idatziz, irrati eta telebistetan iritzia emanez... Berria - Kultura

**2** mintzaldia.

Intentzioak aparte, Unamuno-ren **interbentzioa** Bilboko Lore Jokoetan euskararen biziraupenari atake bat zuzen-zuzenekoa izan da. Joxe Azurmendi

Espainia «nazio, hizkuntza eta kultur aniztasunean oinarritutako Estatu Konstituzionala» dela gogorarazi zuen Ibarretxek, bere **interbentzioan**. Berria - Euskal Herria

**3** ikuskatzailetza.

Seguru nago bere ilusiorik handiena udaletxeko funtzionarioa izatea dela, kontadurian edo **interbentzioan**. Josu Landa

**4** ***Interbentzio Ezaren Batzorde*** Esku Ez Hartzeko Batzordea.

**Interbentzio** Ezaren Batzordearen jarrera zuria lotsagarria izan zen. Edorta Jimenez

**5** ***interbentzio kirurgiko*** kirurgia ebakuntza.

Hematoma epidurala omen deritzana, **interbentzio** kirurgiko batez (geroztik esan izan zaidanez) aise sendatu ahal izanen omen zatekeena. Joxe Austin Arrieta

---

**interbentzionismo** *iz* Estatuak herrialdeko ekonomian edo politikan, edo nazioarteko arazoetan gehiegi esku hartzeko joera.

Autodeterminazio nazionala, subiranotasuna eta **interbentzionismoa** dira aztergai, besteak beste, lan kolektibo izugarri honetan. Askoren artean

Bilakaera horrek XIX. mendean jo zuen gailurra, eta, ekonomiari dagokionez, estatuen **interbentzionismo** gero eta handiagoarekin batera gertatu zen. Koro Navarro

Lehenengo Mundu inperialistatik Hirugarren Mundu kolonialean gure "arrazoiarekin" interbenitu nahita ere, ez dugula ezer egiten, **interbentzionismo** koloniala ("morala" orain!) itsuski jarraitu baino. Joxe Azurmendi

---

**interbentzionista** *izond* interbentzionismoaren aldekoa, esku-hartzailea.

**«Interbentzionista** neokolonial» ospea garbitu eta mertzenario garaiko oroitzapenak lurperatu nahi ditu. Berria - Mundua

Felipe Puig bozeramaileak hirukoari «sektarismoz aritzea» salatu zion: «Argi dago hirukoak borondate **interbentzionista** duela». Berria - Mundua

---

**interbiu** *iz* elkarrizketa.

-Hik ez duk etsiko heure **interbiua** lortu arte... Koldo Izagirre

Ustezko hiltzaileari frantziartasuna ukatu ez dion prentsak, **interbiua** Moussaouiren amari, Aicha El Wafi-ri: [...]. Iñigo Aranbarri

-Hemen grabatuko diagu gero hire **interbiu** nagusia. Koldo Izagirre

---

**interdependente** *izond* elkarren mendekoa.

Lurraren natura osoa eta **interdependentea,** gure etxea, dela onartuta. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

---

**interdependentzia** *iz* elkarren mendekotasuna.

Independentzia, gaur egun, hainbat eta hainbat **interdependentzia** onartu, antolatu eta bizitzeko eskubidea baino ez dela. Joxerra Garzia

XXI. mendea ez da independentzia garaia, **interdependentzia** eta partekatutako burujabetzaren garaia baizik», azaldu zuen. Berria - Euskal Herria

Kultur aniztasunak egoera bat adierazten du: bi kulturaren edo gehiagoren presentzia fisikoa gizarte batean; kultur artekotasunak, ordea, **interdependentzia** adierazten du, bestearekin elkarrizketa, trukea. Berria - Euskal Herria

Artista, obra eta museoaren arteko **interdependentziari** buruzko metafora bisuala da. Berria - Kultura

---

**interdiziplinar** *(orobat **interdisziplinar**)* *izond* jakintza adarren artekoa.

Oraingoan lan **interdisziplinarra** osatu dute. Herria

*Gau bakar bat* antzerki obraren ondotik idatzitako eta liburu berean argitaratutako poeman oinarritutako ikuskizun **interdiziplinarra**. Berria - Kultura

Lehen pertsona batek alor asko hartu behar zituen kontuan, baina zientzia hau, gero eta gehiago, zientzia **interdiziplinarra** bilakatu da. Berria - Euskal Herria

---

**interdiziplinario** *izond* interdizipilinarra, jakintza adarren artekoa.

Funtsean, diziplina artistikoen arteko mugak suntsitu nahi dituzte, dantza, performance eta arte eszenikoen eremuan proposamen **interdiziplinarioak** eginez. Berria - Kultura

---

**interes** *(orobat **intres** g.er.)* **1** *iz* norbaiti axola diona, doakiona, onuragarri zaiona.

Norberaren **interes** zuhurraren kalkulu hotzak. Iñaki Mendiguren

Une horretan bat etorri ziren ingeles kapitalismoaren interesak eta britainiar **interes** nazionala. Koro Navarro

Humanitatearen **interesa** aldarrikatzen duten nire proposamenengatik. Juan Martin Elexpuru

Gure helburua: herriko **intres** orokorraren "zerbitzari" izaitea. Herria

**Interes** komunaren mesedetan. Juan Martin Elexpuru

Planeta osoaren **intereseko** politikak bultzatu ahal izateko erakundeak. Koro Navarro

Jainkoa izan zedin helburua eta ez beren **interesa**. Joan Mari Lekuona

Hauek dira gogoz behartsu direnak, beren buruei eta beren **interesari** uko egin dietenak. Joan Mari Lekuona

Ez da kontu pribaturik administrazio publikoak **intereseko** ez duenik. Andres Urrutia

Diputatuak debekuaren alde hitz egin zuen atzo, «gizartearen **interesa** babestu baitzen».

Haurraren **interesa** dela lehentasuna azpimarratu du. Berria - Euskal Herria

**2** *pl*

Hark, ordea, merkataritzaren **interesen** atzetik jarri ditu beti **interes** politikoak. Iñaki Iñurrieta

Oraindik ere, garapen iraunkorra epe laburrera begirako **interes** ekonomikoen mendean jarriz bideratzen da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Alde bakoitzak bere **interesak** defendatzen jarraituko du. Edurne Elizondo

Herrialde hegemonikoak bere **interesen** arabera baino ez du jarduten. Koro Navarro

Salerosketa mota hori oso zorrotz arautua baitzegoen, ekoizleen **interesen** alde. Koro Navarro

Guztien **interesak** errespetatuko diren eta ingurumenaren sistema osoa eta munduko garapena babestuko dituen nazioarteko akordioa. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Merkantilismoak printzearen zerbitzura zegoen merkataritza-klasearen **interesak** aldezten zituen. Koro Navarro

Morala zenbateraino den agintari-klasearen **interesak** babesteko arma. Askoren artean

Damu zaiola [...] Errusiaren edo Vienaren aldeko espioi-lanetan ibili delarik, inoiz Veneziako **interesak** kaltetu izana. Anjel Lertxundi

Irakurleak aukera dezala, beraz, bere **interesen** arabera. Askoren artean

Pertsona horrek, agian **interes** zitalek bultzatuta, ekimenari muzin egiteko gomendatu zion. Bego Montorio

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Egungo sistema sozio-ekonomikoaren, giza garapenaren eta naturaren babesaren lehentasunen arteko **interes**-gatazka. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Bi gizarte horiek elkarrengandik aldenduta baitzeuden ethos desberdinengatik eta **interes**-gatazkagatik. Iñaki Mendiguren

Berdin baitzen zer alderdik, zer enpresak edo zein familia ahaldunen arteko **interes**-uztarketak lagundu zioten unean uneko kargura igotzen. Jon Alonso

Hau da kezka eta **interes**-ingurua. Joxe Azurmendi

Osterantzean, Foroak ikusten zuen proposatutako dialogo prozesua oso burokratizatuta zegoela bost **interes**-talderen artean, honakoak baitziren: langile sindikatuak, GKE ak, herri indigenak, nekazarien sindikatuak eta multinazionalak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Baina beldur naiz, izan ere, irakurle arruntari **interes** intentsitate nerbioso hau adieraziko dion beste modurik ez ote den izango. Koro Navarro

Bioi piztu zitzaigun euskal kulturarako **interes** apur bat erdal basamortu hartan. Xabier Mendiguren Elizegi

Iruditzen zitzaidan nik esandako guztiak ez zuela **interes** mikorik haientzat. Xabier Mendiguren Elizegi

Inori gera dakiokeen zaletasun eta **interes** hondarra zapaldu eta itotzeko baino ez! Juan Luis Zabala

Baina **interes** falta gezurrezko honek ere ez du lasaituko. Jon Alonso

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **interes** handiko gauzak. Lopez de Arana

Giza **interesaren** ikuspegia zibilizazioen helmuga diren idealetatik erlijio nagusien helmuga direnetara aldatzen denean. Iñaki Mendiguren

Ez Frantziak ez Ingalaterrak ez zutela inolako ekonomia-**interesik** gure herrian. Alberto Ladron Arana

Ekonomia eta estrategia **interesen** arabera. Alberto Ladron Arana

Alderdi **interesak** albo batean utzi behar ditugu. Berria - Euskal Herria

Beste nazio batzuek interes politikoen atzetik jarri dituzte merkataritza-**interesak**. Iñaki Iñurrieta

Udal **interesekin** kezkaturik. Bego Montorio

Islama -hasieran, batez ere, beren gizarte-**interesezko** arrazoiengatik hartu zutena- sustraitu egin zen haien bihotzetan. Iñaki Mendiguren

**5** garrantzizkoa dela edo arreta merezi duela uste denaren aurrean ernatzen den gogo egoera edo jarrera.

Gezurra esateko inolako **interesik** ez dutenean. Juan Martin Elexpuru

Ohartu zen ez zuela **interes** handirik -edo bat ere ez- askatasun horretaz baliatzeko.. Oskar Arana

Batak erosteko **interesa** badu, besteak saltzekoa, eta batasun guztiak elkarren premiaren gainean oinarritzen dira. Iñaki Iñurrieta

Azken finean, konkurrentzia-abantaila handia eskaintzen dion aktibo oro internalizatzeko **interesa** izaten du enpresak. Koro Navarro

Kalumnia sinesteko **interesik** egonez gero, sinetsi egingo ditek eta, horra! Edorta Jimenez

Oso galdera interesgarria da hori, eta emakumeen euren **interesa eragin** du, eta baita gizonena eta sexualitatearen ikertzaileena ere. Luis Elberdin

Nik uste dut, bultzada handiagoarekin, **interesa sortuko** litzatekeela. Berria - Kultura

Beren bizitzeko arrazoia den bezeroa ez dadin haserre, arreta eta **interes** handia erakusten dutela. Jon Alonso

Ikusi behar zen eskolako haur horien **intres** handia, Liliane itsuari dena galde eta galde. Herria

Batere **interesik** gabe entzun zuen haraino eraman ninduen arrazoia. Anjel Lertxundi

Hizkuntzarekiko **interes** filosofikoa antzinatikoa da. Askoren artean

Jaimek, nire lehengusuak, Kandinskyrenganako nire **interesaz** galdetu dit. Anjel Lertxundi

Jackie-k segidan erakusten du halako **interes** bat. Eneko Bidegain

Arrisku txiki horrek [...], normala denez, jendearen **interesa** piztu zuen. Juan Garzia

**Interes** berezia piztu zitzaion mutiko harenganako. Karlos Zabala

Kanpainak herritarren **interesa** ez zuela piztuko zirudien. Berria - Euskal Herria

Irudi artistikoari helburu jasoago bat, **interesa** pizteko duinagoa aitortzen baitzaio. Josu Zabaleta

Guztiz galdua nuen hastapenetako **interesa** eta bizipoza. Juan Luis Zabala

Inoren **interesik** pizten ez duten gauzaz betetako entziklopedia bat bezala gelditu nintzen. Iñaki Segurola

Rawls-ek *A Theory of Justice* izeneko liburua plazaratu zuenean, filosofia politikoari buruzko **interesa** berriro ere berpiztu egin zen. Askoren artean

Galdera hori ez zen jende askoren **intereseko** kontua. Jon Muñoz

**Interesik** ez liburuez eta politikaz. Oskar Arana

Horregatik, haien solasak inoiz ez zuen **interes** izpirik galtzen. Jose Morales

**6** interesgarria denaren nolakotasuna.

Nozio honek **interes** berezia du irudiei dagokienez. Josu Zabaleta

Metodo horren **interes** osoa honetan datza: [...]. Jon Muñoz

Bada Erromako San Ignazio elizan **interes** handiko margolan bat, elizako habearte nagusiaren ganga osoa hartzen duena. Josu Zabaleta

**Interes** handiko liburua, guretzat, bederen. Askoren artean

Premiazko **interesa** izango balute bezala eginiko galdera haiek. Joseba Urteaga

Ikusmenezko informazioaz edo algoritmoez hitz egiteak badu **interesa,** baina ez du argitzen nork taxutzen dituen algoritmo horiek, nor baliatzen den informazio horretaz. Josu Zabaleta

Nahiz eta bertan bildutako testu batzuk ez ditugun sartu, argitalpen honetarako **interes** urria dutelako. Askoren artean

Egunkaria irakurtzerakoan ez al ditugu bilatzen **intereseko** albisteak, identifikatuko garen iritziak? Pako Aristi

Hau da **Interes** Publikoko Erakundea berrikitan sortu dena Baionan. Herria

**7** korritua.

Urritu egin zituen kapitalak; jaitsi **interesak**. Iñaki Iñurrieta

**Interesa** hileko ehuneko batean finkatzeko. Iñaki Iñurrieta

Horrexek bihurtu zuen dolarra nazioarteko diru nagusia: urrea bezain segurua zen aktibo likidoa, **interesak** sortzen zituena gainera. Koro Navarro

Soldataren erdia, mailegua eta **interesak** ordaintzeko. Anjel Lertxundi

Maileguen gainean ordaindutako **interesak**. Koro Navarro

Mailegua lukurreriaz egin eta **interesak** kobratzen ditu. Elizen arteko biblia

Politika berri horrek, epe laburreko **interes** errealen tasa altuekin batera, Estatu Batuetarantz bultzatu zuen munduko aurrezkia. Koro Navarro

Lukurreriazko **interesekin** maileguan hartu eta emateko tentazioa. Iñaki Mendiguren

Epe luzeko **interesen** igoaldi horrek. Koro Navarro

**8** ***interes gabeko*** *izond* ik **interesgabe.**

Ninak **interes gabeko** galderak pausatzen zizkion bere izebari. Ramuntxo Etxeberri

Ohartzen ari naiz ene biziko apez lanez guti kontatzen dudala: **interes gabeko** gauzak. Piarres Aintziart

%60 **interes gabeko** maileguetara bideratu ditu, eta %40 interes txikikoetara. Berria - Kultura

Bederatzi milioi euro banatuko ditu maileguetan, eta maileguen artean **interes gabekoak** eta interes txikikoak bereizi ditu. Berria - Kultura

**9** ***interes tasa***

Inflazioari eusteko, %4,75era igo ditu Fedek **interes** tasak. Berria - Ekonomia

Horren ondorioz, **interes**-tasek gora egiten dute, eta eskariak, ekoizpenak eta enpleguak berriz behera. Koro Navarro

**Interes**-tasen igoerak ez du familien ekonomia «kaltetuko». Berria - Ekonomia

**Interes** tasak jaitsi ostean, suspertzea ahula izan da. Berria - Ekonomia

**Interes** tasak murrizteko zain. Berria - Ekonomia

**Interes** tasa baxuen laguntzaz, BPGa asko hazten ari da azkenaldian. Diru politika, bi hitzetan esanda, diru eskaintzaren eta **interes** tasen kontrolean datza. Iñaki Heras

---

# interesante *(65 agerraldi, 28 liburu eta 10 artikulutan; orobat **interesant** g.er.)* *izond* interesgarria.

Adinik **interesanteenean** omen dago Aurora, emakumeak, bizi esperientziaren jabe, edertasun umotuenera iristen diren puntu horretan. Iñaki Iñurrieta

Badaude autore **interesante** askoak. Ana Urkiza

Itxuraz, planta ederreko beltzaran **interesante** horietako bat zen. Anjel Lertxundi

Amonak beti esan izan dik aitona goapoa baino gehiago zera... **interesantea** zela. Jon Muñoz

Gai horren inguruan Kongresuan piztutako eztabaida oso inportantea eta **interesantea** izan zen. Berria - Euskal Herria

Bere burua **interesantetzat** jo eta kasorik egiten ez diotelako samurtzen den mutikoxkorrak bezalatsu. Patziku Perurena

---

# interesarazi, interesaraz, interesarazten du *ad* interesatzera behartu.

-Edo **interesarazi** behar dun -mozten du Kattalinek. Eneko Bidegain

Politikariek behar den bidea hartzen ote dute kanpaina hauetan jendea Europaz **interesarazteko**? Berria - Euskal Herria

---

# interesatu, interesa, interesatzen *(orobat **intresatu** g.er.)* **1** da *ad* interesa hartu. (zertan osagaiaz)

Tales ez zen askorik arduratu zenbakiez; irudi geometrikoetan **interesatu** zen bereziki. Jon Muñoz

Liz ez dago paisaian edo ikusmira zabaletan **interesatua**. Bernardo Atxaga

Hain zuzen gogoeta historiko-sozial eta politikoetan **interesatuko** naiz orain gutxien-gutxiena. Koldo Izagirre

Ez zegoen beste hitzetan **interesatua**. Harkaitz Cano

Kurt Goldstein bereziki **interesaturik** zegoen ahalmen global horretan "ahalmen abstraktu-kategoriko" edo "jarrera abstraktu" deitzen zion berak. Xabier Olarra

Izan ere, bai Foreign Office, bai Deuxième Bureau oso **interesaturik** daude gure argibideetan. Alberto Ladron Arana

Bizi-bizia bera, eta oso **interesatua** saguaren azterketa genetikoan. Juan Garzia

Akustika-arazoetan **interesaturiko** ingeniari elektroniko batek. Irene Aldasoro

**2** (zertaz osagaiaz)

-Harritzen naiz nola **interesatzen** zaren garai haietaz... Eneko Bidegain

Ikusmolde anatomista-naturalista batetik **interesatuko** dira gizakiaz. Askoren artean

Irakurtzen ari nintzen liburuaz **interesatu** zen. Anjel Lertxundi

Filosofiaz **interesatzen** den edonork, diziplina honetan erakargarrien zaizkion gaietan nondik hasi eta nora jo ikusi ahal izango baitu. Askoren artean

Orain hamabost-hogei urte nazioarteko gizarte literarioa hasi zen beronen obraz benetan **interesatzen**. Jon Alonso

Biziki **interesatzen** zen nire lagunei zegokien guztiaz. Joseba Urteaga

Aitortzen dut, ez naizela gehiegi **interesatu** izan [...] azken urteotan Europan egiten diren hausnarketak arazo hauei buruz. Joxe Azurmendi

Eta hara, sekulako fenomeno horretaz, inor ez da **interesatzen,** profesional bakan batzuk izan ezik. Juan Garzia

Eta neska nitaz **interesatua** ikusi nahi nuen. Aingeru Epaltza

Gero eta **interesatuagoa** zegoen Stephenez, bai pertsonaz, bai artistaz. Xabier Olarra

· Baina bere burua ez zegoen **interesatua** etorkizunarekin. Anton Garikano

Zurekin **interesatua** zegoen, eta dena utzi eta berarekin ihes egiteko erregutzen zizun. Ander Irizar

**3** (nori osagaiaz)

Nori **interesatzen** zitzaion Miren Arteaga hilda egotea? Migel Angel Mintegi

-Barkatu, menturaz istorio horiek ez zaizkizu batere **interesatzen**. Eneko Bidegain

**Interesatzen** zait ene lagun handienaren aitatxiren gorabeheren ezagutzea... Eneko Bidegain

Ez uste izan, gero, kontu hori ez zaidanik **interesatzen**. Jon Muñoz

Hori, inori **interesatzekotan,** poliziari **interesatzen** zaiok, ez niri. Aingeru Epaltza

Bestetik, hizkuntz gaietan Chomskyk hartutako ikuspegi kognitiboa, hizkuntzalariei ez ezik, filosofoei eta psikologoei ere **interesatu** zitzaien laster. Itziar Laka

-Niri ez zait futbola **interesatzen** -esan zuen Z zaharrak. Bernardo Atxaga

-Zer ekarri diadan ere ez zaik **interesatzen**? Aingeru Epaltza

Argazki asko egin zizkiguten ikasturte hartan, eta orain, aurrenekoaren ostean, bost hilabete geroagoko beste bat daukat eskuan, gehien **interesatzen** zaidana. Bernardo Atxaga

Italiar bikotea gehiago **interesatzen** niri, ordea, hango estatua guztiak baino. Joxe Austin Arrieta

Ezin omen zuen ulertu nola zitekeen guri hondakin-kontuak batere ez **interesatzea**. Joxe Austin Arrieta

Orain dena **interesatzen** zitzaidan Kubari, Castrori eta "Che"ri buruz. Jon Muñoz

**Interesatzen** zitzaigulako estudiatzen genuen. Rafa Egiguren

Liburu sakratu bat erakuts diezazuket, agian **interesatuko** zaizuna. Juan Garzia

**4** (objekturik gabe)

-Gustura egon zara hemen? **-interesatu** zen Maria. Unai Elorriaga

Bistan zen **interesaturik** zegoela. Aingeru Epaltza

Hori horrela, hangoak eta hemengoak, den-denak, egon litezke **interesaturik**. Migel Angel Mintegi

Oso **interesatua** nintzen, baiki. Itxaro Borda

Oso **interesatuta** zeudek, goiko jendea batez ere, eta txosten politiko interesantea egin genezakek. Rafa Egiguren

-Zein gauza? -Alexek benetan **interesaturik** zirudien. Fernando Morillo

Joder, ni ere **interesatuta** nengoen. Alberto Barandiaren

Oso **interesaturik** sartu ziren senar-emazteak. Pablo Sastre

-Ez dakizu mutilaren izena? -bisitariak, itxura batean **interesaturik**. Edorta Jimenez

· **5** du *ad ipar* interesa sortu.

Bigarren gerla mundialeko gertakizunek **interesatzen** eta hunkitzen badute ere, ez du ahanzten hogeita batgarren mende hastapen honetan, munduan zehar izigarrikeria eta miseria gorriak badaudela oraino. Eneko Bidegain

Okupazio garaiko istorioek ez zaituzte **interesatzen**. Eneko Bidegain

Amerikako familiako gertakariek biziki **interesatzen** ninduten. Herria

Proëllari dagokionez, herio erritoa baldin bada, egiazki **interesatzen** nau. Itxaro Borda

Ni, "Salon Mozart" gelako ateak ninduen **interesatzen** . Daniel Landart

Lehenbiziko hurrupaldiñoari lotzen zaio eta **iritzi** artikulu batek interesaturik, irakurtzen hasten da. Eneko Bidegain

**6** (era burutua izenondo gisa)

Solaskide **interesatu** eta adi bat aurkitu duela konturatu da Peter. Josu Zabaleta

Herritar **interesatu** guztiek dagokien mailan parte hartzea. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Guk, gizaki denborazkoak izaki, hautamen **interesatua** egiten dugu denborak aurrera egin ahala. Anjel Lertxundi

Informazio gutxi daukagu, eta, gainera, informazio **interesatua** eta manipulatua da. Luis Elberdin

Gizonaren zinezko gaiztotasuna, ez da ekintzazko eta itxurazko gaiztakeria ikasi **interesatu** hori, baizik eta gizabereak bere muinean gorde duen gaiztotasun geldo eta zakar hori, kasik gaiztakeria ere ez den horixe. Patziku Perurena

Neurekoia, ergela, koldarra, **interesatua,** eta ez dakit zer gehiago omen naiz, esaten dutenez. Josu Zabaleta

Pentsatzen zuten zurrumurru **interesatuak** zirela. Anjel Lertxundi

Beren iritzi **interesatu** eta apetatsuen mende daudenei aurre egiteko. Juan Martin Elexpuru

-Berak erran dik? **-interesatuari** begira. Aingeru Epaltza

---

## interesdun *izond/iz* interesa duena.

Nire ustez, emakume abandonatu baten lekukotasuna ematen duena ezin da berarekin ezkondu, zeren Legeak "alderdi **interesdun"** deitzen baitu. Koro Navarro

Artearekin zerikusia zutenak izaki, oso desberdinak ziren argazkiak, baina denak egiten zitzaizkidan kilikagarriak, **interesdunak,** deigarriak, garden eta zehatzak... Anjel Lertxundi

Holako gizon **interesdunik** .../... maiz izan det parez pare .../... dirua atera nahi liokeena .../... baita haizeari ere! J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gai hauetan zintzoki kezkaturik dena **interesdun** bezain eroapen handikoa izango delakoan. Pello Salaburu

Jo beza **interesdunak** aipatu Fischer-JØrgensen-en liburu zinez gomendagarrira. Lourdes Oñederra

**Interesdunek** berek sena edo talentua dela esaten dute; haien etsaiek berriz, kasualitatea, suertea dela diote. Koro Navarro

---

## interesgabe *izond* interesik ez duena. ik **interes 8**.

Mapetako puntu interesgarri eta **interesgabe** guztietatik tarte berbera edo oso antzekoa dagoela lurraren erdira, eta bazter guztiak direla hemen, orotan hemen esaten dela, ez hemen bakarrik. Iñaki Segurola

Ni ez naiz inoiz horrelakoa izan: **interesgabeak** iruditzen zitzaizkidan nire aitaren autoa, nire familia, nire gauzak oro har, eta miretsi egiten nituen horrelako bizitza aberats eta kilikagarria zeukaten lagunak. Xabier Mendiguren Elizegi

Gramatika hau, baina, hain izango da konplexua, non erabilgaitza eta **interesgabea** izango baita. Itziar Laka

---

## interesgai *iz* intereseko gaia.

Beste batzuek, dodoa baino zorion gehiago edo gutxiagokoek, batere nabarmendu gabeko bizitza eraman zuten, antropologoen **interesgai** bihurtuta, giza "zoo" edo erreserbetan. Iñaki Mendiguren

---

## interesgarri *(**2048** agerraldi, **206** liburu eta **873** artikulutan; orobat **intresatu** g.er.)* **1** *izond* arreta erakartzen duena; interesa duena. ik **interesante.**

Liburuak badu dibulgaziozko dimentsio **interesgarri** bat. Askoren artean

Beste adibide **interesgarri** asko ere aipa litezke gai honi buruz. Josu Zabaleta

Hirurok gertatu zitzaizkidan **interesgarri** oso. Txillardegi

Azken hilabete haietan gauza **interesgarri** franko gertatu zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Behin batean Oñatin gauza guztiz **interesgarri** bat ikusteko aukera izan nuen. Koro Navarro

Bizpahiru gauza **interesgarri** eta harrigarri ikasi dut berarekin. Urtzi Urrutikoetxea

Mapetako puntu **interesgarri** eta interesgabe guztietatik tarte berbera edo oso antzekoa dagoela lurraren erdira. Iñaki Segurola

Ingeniaritza-arazo **interesgarri** eta zailak. Irene Aldasoro

Ideia baliagarri eta **interesgarri** batzuk atera dituztela obra horretatik. Jon Alonso

Batetik bestera badira aldaketa txiki baina **interesgarri** batzuk. Edorta Jimenez

Edozein gai **interesgarri** bihurtzea kontatzeko edo adierazteko moduaren bitartez. Ana Urkiza

Thomas Friedman eta Ignacio Ramonet-en arteko eztabaida **interesgarri** bezain demagogikoa. Iñaki Heras

Ideia **interesgarria** zirudien. Irene Aldasoro

Muskuluak ez dirudi oso material **interesgarria** motor bat egiteko. Irene Aldasoro

Eztabaida **interesgarria** izan zen: egia/gezurra, literatura/bizitza... Pako Aristi

Istorio **interesgarria** da guztiz. Karlos Zabala

Konplexua bezain **interesgarria** da auzia. Iñaki Heras

**Interesgarriak** dira gizakiaren egitura, funtzio, egokitzapen eta mekanismo biokimikoak, baina ez apartekoak, biologoarentzat behintzat. Irene Aldasoro

Nik erantzun, eta dena iruditu zitzaion **interesgarria** . Fernando Rey

**Interesgarria** aurkituko duzu. Jose Morales

Begira zein gizon **interesgarria** ematen duzun", esan zuen orduan. Bernardo Atxaga

Gizon ezin **interesgarriagoa** . Oskar Arana

Proposamen **interesgarriak,** bai, inondik ere, hiri honetako kultura ofizialarenak baino **interesgarriagoak** behintzat. Paddy Rekalde

Erran nion egun batez, Angel Ainciburu luzaidar adiskideari, Euskal Irratietan zabaltzen dituen emankizun **interesgarriek** idaztea eta argitaraztea merezi luketela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pasadizoz jositako antzinako ixtorio baten xehetasun **interesgarrienak** aletzen ari balitz bezala. Xabier Olarra

Odola da gorputzaren organo **interesgarrienetariko** bat. Irene Aldasoro

Kontu handiz farola lurrean utzi, eta hondoko apalean begiratu zuen itxura **interesgarriko** libururen baten bila. Iñaki Mendiguren

Ez zen, haren iduriko, deus **interesgarririk** gune hartan. Elena Touyarou

Nire bizierak ez du ezer **interesgarririk,** eta nik neuk ere ez. Txillardegi

Neska mordoa zegoen gure gelan, baina gehienak ez zitzaizkidan **interesgarriak** iruditzen, ezta politak ere, eta **interesgarri** irudi zekizkidakeenek ez ninduten **interesgarritzat** jotzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Honegatik bestegatik ez balitz ere, **interesgarritzat** hartuko nukeen Palazio-eneko neure egonaldi luzakorra. Txillardegi

**2** (izan aditzaz)

Zubererazko kontsonanteak aztergai **interesgarria** dira. Lourdes Oñederra

**Interesgarri** ez diren gaiak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Orokortze hau **interesgarria** da berez. Josu Zabaleta

Neska **interesgarria** omen zen, **interesgarri** bezain misteriotsua. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezin **interesgarriagoak** dira ahozkotasunaren hipotesia sendetsi duten Parry, Havelock, Nagy eta gainerako autoreen ekarpenak. Askoren artean

---

## interesgarritasun *iz* interesgarria denaren nolakotasuna.

Baina grabatuaren berezko **interesgarritasunaz** gainera, badu niretzat balio erantsi bat, ikusleen test baten modura baliatzen baitut: [...]. Anjel Lertxundi

Argi eta garbi esan nahi dut aipuen berritasunak ez duela inola ere obraren **interesgarritasuna** bermatzen. Joxerra Garzia

---

## interesgune *(21 agerraldi, 10 liburu eta 9 artikulutan; orobat* ***interes(-)gune*** *6 agerraldi, 3 liburu eta 3 artikulutan) iz* intereseko gunea.

Mediterranear mundura aldatu zuen bere **interesgunea** eta hiriburu nagusia Siriako Antiokian ezarri zuen Orontesen ahotik hogei miliara. Iñaki Mendiguren

Batez ere Iruñean zegoen Inaxiorentzat **interes**-gunea egun hartan. Pako Aristi

Kolore anitzetakoak dira euskaldunon **interesgune** eta zaletasunak. Iñaki Arranz

Atzo Orion, dena dela, ez zen estropada izan **interes gune** bakarra. Berria - Kirola

Beste **interesgune** bat ere bazuen zazpi urte zituenean: bat-bateko hondamendiek txoratzen zuten, eta batik bat lurrikarek. bi izan baitira erredakzio nagusia Gipuzkoa-Bizkaietan duten hedabideen **interesguneak:** Vienaraino joan eta Athleticen partida ikusi gabe itzuli ziren 4.000 jarraitzaileak eta U2 taldeak abuztuan Donostian eman behar duen kontzerturako sarreren gorabeherak. Xabier Olarra

---

## interfaze *iz* informatikan, osagai batek sortzen dituen seinaleak beste osagai batentzat ulergarri diren seinale bihurtzen dituen gailua.

**Interfaze** grafikoan, ordea, pantailan agertzen diren objektuen bidez komunikatzen da ordenagailua erabiltzailearekin. Berria - Gaiak

Jobs bisitan joan zen Xerox enpresaren laborategira eta han ikusi zuen lehen aldiz **interfaze** grafiko bat. Berria - Gaiak

Macintosh ordenagailua egin zuen orduan Applek, **interfaze** grafikoarekin. Berria - Gaiak

Ikusmenean, ukimenean eta audioan oinarritutako **interfaze** naturalak. Berria - Gaiak

---

## interferentzia **1** *iz* seinale batek uhin luzera bereko beste seinale batean eragiten duen nahasmendua.

Beste harri batek sortutako uhinekin elkartzen direnean, **interferentziak** gertatzen dira: uhin handiagoak sortzen dira edo erabat deuseztatzen dira. Berria - Harian

Badirudi telefono-linean **interferentziak** daudela. Jon Alonso

Aitonak, oraindik, errosarioak entzuten ditu egunero, Herri Irratitik grabatuak, **interferentzia** eta guzti. Alberto Barandiaren

Gure aparatuak, behintzat, ez zien **interferentziarik** egiten berenari. Iban Zaldua

Transmisio forma hori, korrontearen indarra aldatu ordez bulkada batetik besterako tartea aldatzen duena, oso ezaguna da komunikazioen industrian, eta baditu hainbat abantaila; bat, kanpoko **interferentzietatik** nahikoa libre egotea; **interferentzia,** izan ere, arazo larria litzateke garunean, kontuan izanik axoi kopuru handiak ari daitezkeela, elkarrengandik oso gertu, aldi berean lanean. Irene Aldasoro

Zuzen-zuzen eta zuon bion arteko **interferentziarik** gabe, haren seinalea argi iristen zitzaizun burmuinera. Hasier Etxeberria

**2** *irud*

Erdararen **interferentzia,** ordea, gero eta handiagoa da. Berria - Euskal Herria

Edukia **interferentziarik** gabe eskaini ahal izatea. Hasier Etxeberria

Taiwaneko gatazka barne afera bat da eta atzerriko **interferentziarik** ez egotea espero dugu. Berria - Harian

Konduktisten esanetan, gordetako informazioa ahaztu egiten da berreskuratze prozesuan **interferentziak** gertatuz gero. Berria - Gaiak

Frantziako Futbol Federazioaren erabakian «ez dago arrazoi politikorik, ez da **interferentziarik** izan», adierazi zuen. Berria - Kirola

Aniztasun eta desberdintasunerako joera uniformetasunerako joerak ordezten du, eta honek bere ahalmena erakusten du lehentxeago edo geroxeago bai kanpotiko **interferentziak** bai barnetiko aurkakotasuna garaituz. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan)

**Interferentzia** elementua izan liteke. Berria - Harian

Batzuek testu baten barruko konfigurazioa definitzen dute, beste batzuek testu ezberdinen arteko harreman eta **interferentzia** moduak. Xabier Arregi

---

## interferometro *iz* interferentzia gertakarietan oinarritzen den neurgailua.

Egitasmo honen helburua aurrerago martxan jarriko den LISA Laser **Interferometroaren** Espazioko Antena proiektuari bidea irekitzea da. Berria - Gaiak

---

## interfono *iz* barne komunikazioetan, bereziki bizitza etxeetan, erabiltzen den telefono sarea; sare horretan erabiltzen den tresna.

Segundo gutxira **interfonoaren** hotsa entzun zuen. -Matilde -galdetu zuen **interfonotik-** ailegatu al da Morales? Iñaki Zabaleta

Kristina berriz ere **interfonoaren** bertzaldetik. Aingeru Epaltza

**Interfonoa** ere hondatuta dago, badakizu. Karlos Linazasoro

**Interfonorantz** makurtu zen eta kafe bat eskatu zuen. Jon Alonso

**Interfonoko** botoia sakatu, eta etxeko atea zabalik utzi zuen. Fernando Morillo

**Interfonoko** botoiari sakatzen dio, eta halako indarrez gainera, ezen botoia hondoratuta geratzen baita. Anjel Lertxundi

**Interfonoaren** txirrin lodia. Joxemari Urteaga

---

## intergalaktiko *izond* galaxiartekoa.

Bataila **intergalaktiko** frankotan parte hartu duela ematen dik. Aingeru Epaltza

Agian ez ziren gerlari **intergalaktiko** besobakar baten faltan. Aingeru Epaltza

Haurtzarotik zahartzarora iraganen nintzen, neronen tiriatzeko eta segurtatzeko ahala zeukan zulo beltz **intergalaktikoa** hedatzen zitzaidala bien artean. Itxaro Borda

## interim *iz ipar* aldibaterako lan moldea.

Hots, **Interim** lan moldea goititzen da, laneko gai diren anitzek hori hautatzen dute, ANPE-ko bulegoetan beti markatuak egonez. Herria

Gaur egun 230 langile ditugu, **interim** -ekoak kontatu gabe. Herria

## interimario *izond/iz ipar* langileez mintzatuz, aldi baterakoa, interimekoa. ik **interino**.

Hemengo kargudunei berriz ere errana izan zaie hetsiko dela Baionako Chupa Chups xurga lantegia, 67 langile finkoak eta 30 **interimarioak** deusik gabe utzirik. Herria

67 langile eta 30 **interimario** dira lantegi hortan orain langabeziara kondenatuak. Herria

## interino *iz heg* langileez mintzatuz, aldi baterakoa. ik **interimario**.

**Interinoen** eta behin-behinekoen prekarietatea eta antzinatasuna. Berria - Euskal Herria

Era berean, beste gai batzuk negoziatzeko prest agertu zen Osakidetzaren zuzendaria, besteak beste, **interinoen** antzinatasuna aitortzea. Berria - Euskal Herria

## interiorista *iz* barnealdeak diseinatzeko edo dekoratzeko lanbidea duen persona.

Ez zalantzarik izan, hurrengo bizitzan **interiorista** izango naiz. Patxi Iturritegi

## interjekzio *iz* hiztunak bihotz egoerak bizitasunez adierazteko erabiltzen duen oihu hitza, perpausetik at ematen dena.

Karmeleren hitzak aditu bezain laster, amaren keinuak gogorretik bigunera eta ekaitzetik barera egin zuen, apurka-apurka irri bat bihurtzeraino, **interjekzio** bat haren ezpainetan: "A!". Joan Mari Irigoien

Neurekiko daukat, ordea, bigarren mailako hiruzpalau atsegin horiei -metaforaren begi-jolas, erritmoaren belarri-gozo, **interjekzioaren** nahiz hiperbatonaren ustekabe harrigarriei- lekurik ez emateak frogatu ohi digula darabilen gaiaren grina nagusitzen dela idazlearengan. Juan Garzia

**Interjekzioa:** zaldiei aurrera egin dezaten esaten zaien hitza. Iñaki Arranz

## interklasismo *iz* klaseartekotasuna.

**Interklasismoa,** nik uste berdintsua zela: inork ez zeraman kopetan idatzita bere etxean zenbat diru sartzen zen, baina janzkeraz eta jarreraz identifikatu uste nituen jatorri proletarioko trauskil airekoak eta burgeskume finagoak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Interklasismoa** eta euskaldun guztion arteko anaitasuna. Xabier Mendiguren Elizegi

## interklasista *izond* klaseartekoa.

CiUri beti interesatu zaio ezkertiarren eta eskuindarren eztabaidetatik aldentzea eta [...] alderdi **interklasista** bezala definitu izan da. Berria - Mundua

Gizarte-maila guztietakoak ibili ohi ziren ikastetxe erlijiosoetan, arragoa **interklasista** eta ideologikoa ginen alde horretatik. Xabier Mendiguren Elizegi

Akelarre biziko larrujotze **interklasista** . Juan Garzia

## interkomunikazio *iz* elkarrekiko komunikazioa.

Teknologia berriak **interkomunikaziorako** eta norabide bakarreko fluxuen eraginak gainditzeko bide berriak urratzen ari badira ere, aitortu beharrekoa da egungo mendebaldeko hiritarrak kontsumitzen dituen ekoizpen gehien-gehienak diferituan, bakarka eta parte hartzeko nahiz elkar ekintzarako aukera gutxirekin kontsumitzen dituela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ahozko inprobisazioko mugimenduen arteko **interkomunikaziorako** tresna. Berria - Harian

## interkonektatu *izond* interkonexioa duena.

"Hiri" hitzaz izendatzen duguna, sistema **interkonektatu** hori, jende eta zerbitzu dentsitate handi batekin-eta, hori mamitzen ari da. Bernardo Atxaga

## interkonexio *iz* elkarrekiko konexioa.

Nekez hitz egin daiteke merkatu bateratu batez: **interkonexioak** ez dira %3ra heltzen, liberalizazioa Espainian eta Ingalaterran soilik da egia, legeak ezberdinak dira herrialde batetik bestera eta, orobat, lehiakideok ez dauzkagu joko arau berberak. Berria - Ekonomia

Unibertsoko elementu guztien **interkonexioan** sinesten dute. Berria - Gaiak

## interkontinental *izond* kontinenteartekoa.

Amatxik ez zuen segida entzuteko gogorik eta elkarrizketaren hari **interkontinentala** moztu zuen, tresna berritz goxoki pausatuz. Ramuntxo Etxeberri

Zeru bideetako turista **interkontinentalak** behin bederen ezagutu dituen bi lanjerren artean zegoen Mikel. Ramuntxo Etxeberri

## interkooperazio *iz* elkarrekiko lankidetza.

Kooperatibak Arrasate Taldean bildu zirenean ezarri zituzten gaur egun indarrean dauden printzipio Kooperatiboak: atxekimendu librea, [...], kudeaketan parte hartzea, ordainsarietako elkartasuna, **interkooperazioa,** gizartearen eraldaketa, unibertsaltasuna eta hezkuntza. Berria - Harian

## interkulturalitate *iz* kulturartekotasuna.

**Interkulturalitatea** eta Europako identitatea garatzea. Berria - Euskal Herria

## **interlokutore** *iz* hizketakidea, elkarrizketako kidea.

Elkarrizketak testuan bertan txertatzen ditu, **interlokutore** biak esaldi berean mintzatzen dira, bataren ahotsa bestearenaren segidan agertuz. Berria - Kultura

Gehiegi mintzo baldin banaiz beldur naiz **interlokutorea** aspertzeaz. Ana Urkiza

Bi gauza egitea erabaki genuen: hizkuntzaren arloan bakarrik mugitzea; eta Espainiako Estatua bihurtzea gure **interlokutore**. Berria - Euskal Herria

Gau mutua zen gure **interlokutore** bakarra. Itxaro Borda

Eragile guztiek **interlokutoretzat** hartzen dutena espetxeratzea. Berria - Euskal Herria

---

## **interlokutorio** *iz* behin betiko epaiaren aurreko erabakia, arazoaren muinaz ari ez dena.

Esate baterako, **interlokutorio** batengatik borrokatzen baziren, **interlokutorioa** besterik ez zen galtzen. Iñaki Iñurrieta

---

## **interlokuzio** 1 *iz* solasaldia, elkarrizketa.

Eragile politiko, sozial eta sindikalekin bilerak egiten saiatuko direla iragarri zuen, **interlokuzioa** abiatu eta haiek ere borroka horretan inplikatu daitezen. Berria - Euskal Herria

IUk lehentasunezko **interlokuzioa** izatea garrantzitsua da. Berria - Euskal Herria

Euskal **Interlokuzio** Nazionala osatzea «ezinbestekotzat» jo zuen HZk. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Erkidegoetako gobernuen eta justizia organoen artean kooperazio eta **interlokuzio** mekanismoak egotea onuragarria da. alderdi, sindikatu eta eragileekin aurrera eramandako **interlokuzio** lanari buruzko azalpenak. Berria - Euskal Herria

· Permachek herri **interlokuzioren** aldeko deia zabaldu zuen. Berria - Euskal Herria

---

## **interludio** 1 *iz* bi musika zati nagusiren artean jotzen den pieza laburra.

Frank-en *Redemption*-eko **interludioarekin**. Berria - Kultura

Errealismoaren, espresionismoaren eta inpresionismoaren artean koka liteke Ono musika zuzendariak Britten-en partituratik egindako irakurketa, batez ere lau **interludioetan**. Berria - Kultura

Drama lirikoa izaki, **interludio** sinfoniko ugari ditu Brittenen lanak. Berria - Kultura

**2** *hed*

Whiskyak edontzietara isurtzean egiten zuen musika arinak **interludio** atsegin bat eratu zuen. Irene Aldasoro

---

## **intermedio** *iz* bitartekoa.

Eta Matias **intermedio** bat zen andrearentzat. Unai Elorriaga

---

## **intermitente** 1 *izond* aldizkakoa, etenkaria.

Hotelaren izenak, bere neoizko letrero **intermitentearekin,** zantzu arraro eta tristeak eskaintzen ditu. Joseba Sarrionandia

• **2** *iz (ibilgailuetan)* keinukaria.

Autoak ez dauka **intermitenterik,** baina handia da, indartsua, leun-leuna. Pako Aristi

Erretrobisorea kendu eta atzeko eskuineko **intermitentea** ostikada batez izorratu nuen, Iban Zaldua

**3** ikuskarietako aldizkako profesionala.

Arte eszenikoetako aldi bateko langileek, **intermitenteek,** Cannesko Nazioarteko Zinemaldirako beren aldarrikapenak zabaltzeko bozgorailu moduan baliatzeko asmoa iragarri zuten. Berria - Kultura

**Intermitenteen** grebak ez du galaraziko Cannesko jaialdia. Berria - Kultura

Prekarietatean dauden **intermitenteak** laguntzeko 20 milioi euroko kutxa izanen dela ere erran du. Berria - Kultura

Azken hiru urte hauetan, alta, **intermitente** estatutua hartua zuen. Berria - Kultura

Larrialdiko funtsa **intermitenteentzat**. Berria - Kultura

Pianoak lagunduta azalduko da Elton John gaur Baionako zezen-plazan, eta **intermitenteek** emanaldia oso garestia dela salatuko dute. Berria - Kultura

Ikusgarrietako **intermitenteek** ere bat egin zuten atzoko manifestazioarekin. Berria - Euskal Herria

---

## **intermodal** *izond* hainbat garraio mota biltzen dituena. ik **multimodal**.

Donostian eraikitzeko asmoa duten geltoki **intermodala**. Berria - Euskal Herria

Etorkizunean Abiadura Handiko Trenak nahiz Irungo geltoki **intermodalak** izango duten eraginagatik. Berria - Euskal Herria

Errepidean oinarritutako eredutik trenak garrantzia nabarmena izango duen eredu **intermodalera** pasatu behar dugu Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **geltoki intermodala** (3); **geltoki intermodalak** (3)

---

## **intermodalitate** *iz* intermodala izateko nolakotasuna.

**Intermodalitatea** erraztu beharko da. Berria - Euskal Herria

---

## **internalista** *izond*

Alderdi hau, **internalista,** lehendik datorren tradizio batek landu du, morfologia razionala deritzanak hain zuzen. Askoren artean

---

## **internalizatu**, internaliza, internalitzatzen du *ad* barneratu.

Azken finean, konkurrentzia-abantaila handia eskaintzen dion aktibo oro **internalizatzeko** interesa izaten du enpresak; bestela esanda, aktibo horiek merkatuan zabaltzea

eragotzi nahi izaten du. Koro Navarro

# internalizazio *iz* internalizatzea.

Nazioartekotzea, beraz, **internalizazioarekin** lotua ageri da hemen, merkatuaren hutsuneei emandako erantzun gisa, oligopolio-konkurrentziazko egoera batean. Koro Navarro

Herrialde industrializatuen arteko nazioarteko zuzeneko inbertsio gurutzatuak, **internalizazio** multinazional horren ondorioa direnak. Koro Navarro

Produktuaren ziklotik **internalizaziora**. Koro Navarro

# internamendu *iz* barnetegiratzea.

**Internamendua** adingabe bati inola ere aplikatu ezin zaion zigorra dela dio. Berria - Harian

Atzo goizeko 9:00etan Oier Gomez atxilotu zuen Ertzaintzak, eta Aramaioko Adin Txikiko **Internamenduan** sartu. Berria - Euskal Herria

# internatu, interna, internatzen du *ad* eritetxe psikiatriko batean sartu.

Hamalau erizainek lan egiten omen dute, hogei gaixo omen daude **internaturik,** eta ikusi ditugu erizainak beren bata zuriekin, eta gaixoak beren begi larriekin. Joseba Sarrionandia

# internauta *iz* Interneten edo kideko sare baten zerbitzuak erabiltzen dituen pertsona.

Pantaila bidezko harreman elektroniko hura nahikoa ez eta, buruz buru elkar ezagutzeko irrikak bultzaturik, hitzordu bat adostu zuten bi **internautek**. Josetxo Azkona

Badakit **internautak** ez direla nirekin ados egongo baina "kopiatu-itsatsi" pentsakera gailentzen ari zaigu, eta ez zait ondo iruditzen. Ana Urkiza

Makina bat herritako **internautek** erantzun diote www.nontzeberri.com atariaren gonbitari. Berria - Kultura

Euskal **internauten** animazio lanak mundura zabaltzeko. Berria - Kultura

**Internautok** saretik filmak jaitsi eta elkartrukatu zituzten, eta horregatik hiru hilabeteko kartzela zigorra eta 2.000 eta 5.800 euro arteko isuna ordaindu beharko dute. Berria - Kultura

Eustaten arabera, **«internauten** %20k euskara erabiltzen dute Interneten nabigatzeko». Berria - Euskal Herria

EAEko gazteen %67 **internautak** dira. Berria - Ekonomia

SGAEk auzitara eraman du **Internauten** Elkartea. Berria - Kultura

# internazional *(323 agerraldi, 39 liburu eta 181 artikulutan; ETCn 2.205 agerraldi)* 1 *izond* nazioartekoa. ik **nazioarteko**.

Palestinarren eskubide zibil urratuen berri emango duen delegazio **internazional** bateko kideak. Berria - Kultura

Bada prosa egiteko era **internazional** bat, behintzat sartaldeko herri eta kultura denek onartua. Patxi Altuna

Kultura garaikideko zentro **internazional** bat behar dela. Berria - Harian

Ezeiza Aireportu **Internazionala**. Herria

Artista guztiak **sare** internazionaletan daude sartuta. Berria - Harian

Angel Uranga artistak bira **internazionala** hasiko du laster eta olioz egindako bere margolanak New York, Miami, Toronto eta Arabiar Emirerri Batuetan erakutsiko ditu. Berria - Kultura

Bi Mundu Gerren ondoren, erakunde **internazionalak** abian jartzea ezinbestekoa zela. Askoren artean

Alemania eta Italia faxisten porrotak, Franco-ren bakartze **internazionalak**. Joxe Azurmendi

Amnistia **Internazionaleko** ordezkariak. Berria - Harian

• **2** *izond/iz* nazioarteko partidak jokatzen dituena.

Jokalari **internazionala**. Berria - Kirola

Baumann atzelari **internazionala**. Berria - Kirola

69 aldiz izan da **internazionala** Frantziarekin. Berria - Kirola

Etorkizun handiko jokalaria baita eta **internazionala** Frantziarekin. Berria - Kirola

Noiz egiten da atezaina **internazional**? Berria - Kirola

Betsenek eta Thionek izan ezik, Miarritzek dituen **internazional** guztiek jokatu zuten. Berria - Kirola

Larunbateko hamabostekoan hamar **internazional** aritu ziren. Berria - Kirola

Italiako **internazional** ohia eta Parisko Stade taldeko jokalaria. Berria - Kirola

Marlu **internazional** ohiak pausatu zuen baloia entsegu marraz bestalde. Berria - Kirola

Ackford ingeles **internazional** ohi handia. Berria - Kirola

**3** ***Internazionala**[1] mug (abestia)*

Mikrofonoaren parean **Internazionala** jotzen hasi zen. kanposantu hartan **Internazionala** kantatu genuen guztiok. Jon Maia

Ur gainean hasperen bihurturik, **Internazionalaren** doinua pixkanaka-pixkanaka aienatuz zihoaan lainoaren baitan. Lopez de Arana

**Internazionala**-rekin ezkondu ginen, eta sobietar tronpetista batek jo zuen, gainera, zer iruditzen zaizu? Jon Maia

"Eusko Gudariak" eta **"Internazionala"** elkarren segidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Arestik euskaratutako **Internazionalak** dioen gisan. Xabier Montoia

**4** ***Internazionala**[2] mug* munduko hainbat naziotako langileen elkartea.

Bata gerra izan zen, Napoleon III.ak deklaratu eta Bismarkek gogo onarekin hartu zuena, izan ere, **Internazionala** ez zen gauza izan egoismo nazionalen gainean egoteko... Pablo Sastre

**Internazionalaren** manifestu berria egin nahi huen, ala? Unai Iturriaga

**Internazionalaren** tradiziotik kanpoko komunismo baten aldarria zabaltzen jarraitzen du, irmo eta suhar. Berria - Kultura

Anarkismoaren eta komunismoaren arteko auzi hura zela-eta, I. **Internazionalean** egon bagina bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

70eko hamarkadaren hasieran ezkutuko lan politikoan ari ziren alderdi komunista ugariek -Hirugarren **internazionalekoek,** laugarrenekoek, maoistek- ez zuten planteamendua onartzen. Bernardo Atxaga

**5** ***Brigada Internazional***

**Brigada Internazionala,** Garibaldi italiar batailoia barruan duena, hain zuzen. Edorta Jimenez

Brigada **Internazionalaren** komandantea bilakatu zen gizona. Edorta Jimenez

Hogeita bost urte zituenean Espainiara joan zen **Brigada Internazionalekin**. Bernardo Atxaga

**6** ***Internazional Sozialista***

Venezuelako presidente ohi eta **Internazional** Sozialistako kide Carlos Andres Perezek. Berria - Mundua

**Internazional** I Sozialistako kide izaten saiatu zen. Berria - Mundua

**Internazional** Sozialistako lehendakariorde Cuathemoc Cardenas. Berria - Euskal Herria

---

## internazionaldu *izond* internazional bihurtua.

Gure euskalerdaltze **internazionalduari** esker. Iñaki Segurola

---

## internazionalismo 1 *iz* muga nazionalak gainditzearen eta nazioarteko elkarlana sustatzearen alde egiteko joera.

Bi eginkizun nagusi dauzka langileriak: bere diktadura ezarri eta **internazionalismo** proletarioa gauzatu. Rafa Egiguren

Unibertsalarekin loturik **internazionalismoaren** arazoa agertzen da. Joseba Zulaika

Muga nazional guztien gaindi **internazionalismo** sozialista baten aukera ikusi behar zen urrunean. Joseba Zulaika

Abertzaletasuna eta **internazionalismoa** uztartu zituen. Berria - Kultura

**Internazionalismoak** zerbait badu, politika lana du. Berria - Euskal Herria

**2** (hitz elkartuetan)

Garai batean nahiko indarra izan zuen **internazionalismo** ideia horrek. Berria - Euskal Herria

Halako **internazionalismo** besarkada bat eskaini beharko genieke desesperaziotik alde egiten dutenei. Paddy Rekalde

---

## internazionalista 1 *izond* internazionalismoarena, internazionalismoari dagokiona.

Lehengo ETAren utopia **internazionalista** eta sozialista, ekonomia globalaren nahia, justizia sozialarena, nazioen arteko ordena, eta abar, hor daude denak zain. Joseba Zulaika

Elkartasun **internazionalista** adierazteko. Rafa Egiguren

ETA ren zatiketaren ondoren sestakoak borroka politiko eta sindikalera lerratu baitziren, eta mugimendu estatalistetan sartu, ikuspegi **internazionalista** bultzatzeko. Juan Kruz Igerabide

Hango ezker mugimenduaren joera **internazionalistak**. Pako Aristi

Talde ekologistetan sarturik zebilen, kolektibo feministetan, komite **internazionalistetan** eta beste bizpahiru mugidatan. Xabier Mendiguren Elizegi

Orain ugari dira Gobernuz Kanpoko Erakunde zibilak, hirugarren mundu deritzan horretan laguntzen dabiltzanak, edo kooperante **internazionalistak** bestela. Xabier Mendiguren Elizegi

Hango eta hemengo milizianoz osatutako Batailoi **Internazionalistak**. Jon Maia

Nazionalista bezain **internazionalista** naizela. Berria - Kultura

• **2** *iz* internazionalismoaren aldeko pertsona.

**Internazionalista** talde batekin zegoen kafetegi batean. Berria - Euskal Herria

**Internazionalista** presoen barrutia inguratzen duen itxiturako hesolak harrapatzen dituzte gauez, etxolak egiteko. Jokin Urain

**Internazionalistena** zen Gurseko talderik dinamikoena. Jokin Urain

---

## internazionalizazio *iz* internazional bihurtzea.

80ko urte hasieran arrazoibide bera zen: lehen ez zen globalizazioa, orduan **internazionalizazioa** zen; ez ziren Txina eta India, Japonia eta Brasil baizik. Berria - Ekonomia

**Internazionalizaziorako** korporazioaren bigarren plan estrategikoaren arabera, 2004an MCCren arlo industrialaren ekoizpenaren %16a atzerrian egingo dute 42 filialek. Iñaki Heras

---

## internazionalki *adlag* nazioartean.

Euskal literaturak **internazionalki** existitzen diren mugimendu literarioekin fasean izan behar du. Ana Urkiza

**Internazionalki** Estatuen ahotsek bakarrik balio badute, eta subiranotasunean gotortuta beste ezer ulertzen ez duten Estatuen baitan independentzia beharrezko baldin bada, segidan erantsi beharra dago Rubertentzat baieztapen hauek duten zentzu ironiko eta dialektikoa. Joseba Zulaika

---

## internet *(orobat **Internet**)* *iz* mundu mailako sare informatikoa, informazioa telefono linearen bidez ematen bidaltzen duena.

Gutenbergek XV mendean inprimategia asmatu zuenez geroztik **Internet** izan daiteke informazio munduan berrikuntzarik handiena. Hedabideen edo **interneten** aurrean, eperik laburrenean tokirik urrutienera heltzeaz batera, laguna, urtaroak, bizitza, gorputza, sentimenduak, hausnarra, arrotz bilakatzen zaizkigu. Pello Salaburu

Minutu batean, planeta honetako biztanle bakoitzeko eragiketa bat egin dezake **interneten** bidez. Pello Salaburu

Hitzeman zien Ninak arlo ezberdinetako idazlanak **interneten** bidez, 'e-mailez', eskolara igorriko zituela. Ramuntxo Etxeberri

**Internet** ultramotel batean bueltaka, futbol gabeko igandeak ezin jasan. Berria - Kirola

Bazar Nagusiko saltoki zaharrak nahiz Taksim auzoko denda modernoak; haragi errezko ogitartekoak dastatzeko postu ugariak nahiz multinazionalen hanburgeseriak; ur-pipatik erretzeko te-etxe tradizionalak nahiz **internetetik** nabigatzeko zibertokiak. Jon Arretxe

Gaur, lasai asko suntsi dezakezu Bagdadeko barazkien azoka **internet** bidez. Hasier Etxeberria

Linux **internet** bidez lor daitekeen sistema operatiboa da, eta adituek diotenez, fidagarriagoa Windows baino. Berria - Ekonomia

**Interneten** kontsultatzen ahalko da, aipatu www.paysbasquenumerique.net gunean. Herria

COM **interneteko** irrati berriarendako kazetari animatzaile bat xekatzen da Hazparnen lan egiteko. Herria

**2** (hitz elkartuetan)

'Cyber-café' **internet**-ostatuaren sartzearen ondoko xokoan zegoen telefonoa utzi zuelarik, Mikel itzuli zen bere eserlekura, alokatzen ari zen ordinagailuaren parean jartzeko. Ramuntxo Etxeberri

Horrelako **internet** atariak bost autobus aterbetan aurkitzen dira: herriko etxe gibelekoan, tren geltokikoan, departamenduko egoitza aitzinekoan, San Leon itzulgunekoan eta Camus kolegio aitzinekoan. herriko etxeak ideki du gune berezi bat **internet** sarean. Herria

Aurrerantzean, agintarien jarduera nagusia ez da izango jendaila leku batean zarratzea eta arimetan diziplina ezartzea, baizik kontrol orojakilea, kontrolatua sentiaraztea, are itsaso zabalean, **internet** sare infinituan, "kontrol jarraitua" hezkuntzan. Markos Zapiain

Ansar al Sunna erakundeak hartu zuen bere gain erasoa **internet** gune batean zabaldutako agiri baten bidez. Berria - Mundua

Lan horren helburua delarik **internet** gune baten sortzea gure herria ezagutarazteko. Herria

**Internet** lotura puntu iraunkorra zabalik dago Donapauleko mediatekan. Herria

### inte *iz*

Baina, zer da **internismoa**? auzi epistemologikoak pertsona baten ikuspuntu kognitiboaren barruan sortua eta maneiatua izan behar duela dio **internismoak,** eta pertsona horrek soilik ikuspuntu horretatik eskuragarri dituen gauzak har ditzakeela kontuan. Askoren artean

Baina ezin dugu esan **internismoa** hasierako kartesianismoarekin guztiz bat datorrenik, errealismo zuzenarekin baizik, ez baitu ukatzen, besteak beste, pertsona baten ikuspuntutik gertakizun eskuraezinik dagoenik. Askoren artean

Kartesianismotik at, dena den, eszeptizismoa errefusatzeko asmoz makina bat alternatiba aurki dezakegu: fundazionismoaren aurrean, koherentismoa; **internismoaren** aurrean, esternismoa; baina baita pragmatismoa ere. Askoren artean

---

## **internista** 1 *izond* internismoari dagokiona.

Epistemologia kartesiarra **internista** da; hau da, ezagutzaren justifikazioa subjektuaren errepresentazioen barneko gauzen mende dagoela esaten du. Askoren artean

Oro har, eta bere aniztasunaz ahaztu gabe, kartesianismoa **internista** eta fundazionista da, eta horiek dakartzaten arazoei egin behar die aurre. Askoren artean

• **2** *iz* internismoaren aldeko filosofoa.

**Internistak** ezin du azaldu "oso sinpleak" diren subjektu epistemikoen baldintza epistemikoa -animalia gorenak, haur oso txikiak, etab.-. Askoren artean

**Internistak,** ez zakur bizi-bizkorrei ez zakur lelo-motelei ez die arrazoitzeko gaitasunik onartuko, eta, jakina, gaitasun hori ez badute, justifikatzeko gaitasunik ere ez dute eta, hortaz, ez dute ezagutzen. Askoren artean

---

## **interno** 1 *izond* barnekoa.

Errealitatearen ezagutza **interno** hori (pentsamenduen edukia) esplizitu egiteko bidea da hizkuntza; beraz, errealitatea, pentsamendua eta hizkuntza bereizi ezinezko erlazioan azaltzen zaizkigu. Askoren artean

Organismoen ezaugarri guztiak inguruari aurre egiteko garatu diren moldaketak dira, eta beste kausa **internoagoak** [...] ez dira kontuan hartzen. Askoren artean

• **2** *iz* barneko ikaslea.

**Interno** gehienak asteburua pasatzeko etxera joaten ziren. Joseba Sarrionandia

**Internoen** gelako leihotik. Joseba Sarrionandia

Adrian, Carmelo, ni neroni, baita **interno** zeuden beste morrosko batzuk ere [...] ikasle onak ginen. Bernardo Atxaga

Gurasoek Kalaportuko ikastetxean matrikulatu ninduten, **interno** gainera. Joseba Sarrionandia

Fontcalent-en egona da Jarraipen Bereziko **Internoen** Fitxategikoekin lanean. Koldo Izagirre

---

## **interparrokial** *izond* parrokien artekoa.

"Europar" gerra **interparrokialetan** Britainiak uharte-boterearen papera eta Espainiak, Frantziak eta Alemaniak ondoz ondo Britainiaren etsai kontinental izateko papera jokatu zuten bezalaxe. Iñaki Mendiguren

---

## **interpelatu,** interpela, interpelatzen du *ad* zerbaiti buruzko azalpenak eskatu, bereziki aginpidea edo eskubidea duenak.

Berriketan hasten da ama, nondik norako argirik gabe, batzuetan aita **interpelatuz,** besteetan niri hitz eginez. Anjel Lertxundi

Lukreziok ez du bere azalpenean irakurlea ikusle huts bihurtuko zuen bakarrizketarik erabiltzen, hasiera-hasieratik elkarrizketaz **interpelatzen** baizik. Xabier Amuriza

Niretzat idaztea **interpelatzea** da. Ana Urkiza

Irakurlea **interpelatu** nahi dut, hausnar egin dezan. Berria - Kultura

---

## **interpelazio** 1 *iz* interpelatzea.

Ikustekoa zen biktima leial honek nolako adeitasunez jarraitzen zuen jendetzaren **interpelazioei** erantzuten. Iñaki Mendiguren

Poeta oinazetuaren lanak, **interpelazioaren** bidetik, otoitzaren itxura hartzen du, Xabier Leteren azkenaldiko poema askotan bezala. Anjel Lertxundi

Diskurtsoaren edo Augustori zuzendutako **interpelazioaren** forma erretorikoa erabiliz. Santiago Iruretagoiena

Baieztapen hau egiatzat hartuz gero, **interpelazioa** ez al doakio hobeto kazetaritzari, literaturari baino? Ana Urkiza

**2** legebiltzar batean, gobernuari edo mahaiari legegaiez kanpoko eztabaida bat eskatu.

Gainera, PSE-EEk Eusko Legebiltzarrean **interpelazio** bat aurkeztuko duela iragarri zuen.

Aralarrek aurkeztutako **interpelazio** bati erantzun zion Balzak Eusko Legebiltzarrean. Berria - Euskal Herria

Batzordearen zeregina gatazka politikoa konponbidean jartzea dela berretsi zuen, eta orain, **interpelazio** lanaren ostean, eragile politikoek, sindikalek eta sozialek eginiko ekarpenak jasotzen ari dela. Berria - Euskal Herria

---

## **interplanetario** *izond* planetartekoa.

Bidaia **interplanetario** honetan eraman nahi gaituztenak. Berria - Kultura

Nire mundua zara, nire zera **interplanetarioa,** ni eta nire bihotzaren arteko zubia. Lander Garro

---

## **interpolatu,** interpola, interpolatzen du *ad* hurrenkera bat osatzen duen gauza sail baten barnean tartekatu.

Izan ere, diploma gehienak berreginak, **interpolatuak,** makillatuak eta beranduago asmatuak ere badira Berria - Kultura

---

## **interpolazio** *iz* interpolatzea; interpolatzen den testua.

Ataltxo hori -eskuizkribu batean ez baita agertzen- zenbait ikertzailek **interpolaziotzat** jo du. Askoren artean

Luxuzko edizioa zunan, hamazazpigarren mendekoa, Calpurnius Siculus-en edizio bat Amsterdameko *Enschede&Söhne* inprimategikoa, **interpolazioekin,** glosekin eta marjinako oharrekin. Anton Garikano

---

## **interpositibotasun** *iz*

**Interpositibotasun** konfigurazio bat ez da auzokoak diren diziplinen multzoa; ez da antzekotasun-fenomeno behagarri hutsa; ez da zenbait diskurtsoren diskurtso jakin honekiko edo bestearekiko harreman hutsa; euren komunikazioaren legea da. Xabier Arregi

Arkeologiak gogoan duen ostertza, ez da zientzia bat, pentsamolde bat, kultura bat, **interpositibotasunen** nahasketa da, non mugak eta gurutzatze-puntuak ezin diren batbatean finkatu. Xabier Arregi

Horrela, filologia sartuta zegoen **interpositibotasun**-sistema sakonki birmoldatu zen XIX. mendeko bigarren erdian, filologiaren positibotasuna auzitan jarri gabe Xabier Arregi

---

## interpretagarri *izond* interpreta daitekeena.

Esaldi gramatikalen estatusa ematen diete **interpretagarriak** diren multzoei, baldin eta zuzen eratuak izan diren. Xabier Arregi

"Bestelako Komunikazioa" terminoa nahiago dut, zabalagoa eta **interpretagarriagoa** ere badelako. Txema Ramirez de la Piscina

Horrek gauza biotako batera eramanen baitzintuzke: zeure arreta alegoriaren helburutik saihestera, edo **interpretagarri** ez diren eta horretarako jarri ez ziren hitzak interpretatzera. Xabier Kintana

---

## interpretapen *iz* interpretatzea.

Hemen, bikotearen bi terminoen **interpretapen** berri bat dugu. Isabel Arrigain

Orain ikusten da ikurraren eskemaren benetako **interpretapena**. Isabel Arrigain

---

## interpretarazi, interpretaraz, interpretarazten du *ad* interpretatzera behartu.

Ikusten dutenaren esanahia gaizki **interpretarazi**. Agustin Otsoa

Antzerki bat **interpretarazi**. Fernando Rey

Agian, Bilbo-Lizarra kontrasteak gauzak ikustea eta **interpretaraztea** eskaini zidan eta ez nintzen konformatzen esaten zidatenarekin. Ana Urkiza

---

## interpretari 1 *iz* interpretatzen duen pertsona. (testu bat)

**Interpretari** berri bat hartu zuenetik [...]. Migel Angel Mintegi

**Interpretari** baten zerbitzuez baliatuta. Oskar Arana

Ama zuen gidari, **interpretari,** irakasle. Mirentxu Larrañaga

**Interpretari** pribatu eta ilunek liburukote ulertezinetan taxutuak. Juan Martin Elexpuru

**2** (musika lan bat)

Carlos Alvarezek beste hamaika aipamen jaso ditu mundu osoan zehar; musika klasikoko **interpretari** latindar onenaren Grammy saria, Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Portoko gotzainak gaztigatu zuen erregeak bere predikua egin behar zuela, eta berak egingo zuela, fidelki, **interpretari**-lana. Jon Alonso

Formakuntza hori dute beraz 14 su-hiltzaileri hemengoek eman 15 egunez, **interpretari**-itzultzaile baten laguntzarekin. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta interpretari** (4); **eta interpretarien** (4); **interpretari lana** (3); **zuzentzaile eta interpretarien** (4)

---

## interpretaritza *iz* interpretariaren jarduera.

Euskal filologian, itzulpengintzan eta **inerpretaritzan** lizentziatua da Errasti, eta Jaurlaritzako Justizia Sailean egiten du lan, itzultzaile. Berria - Kultura

---

## interpretatibo *izond* interpretazioarena, interpretazioari dagokiona. ik **interpretazio 3**.

Generoaren eskema **interpretatiboei** jarraitzen die Zelanok, Frantzisko santutasun-eredutzat aurkeztuz, hori baitzen tankerako obren helburua. Askoren artean

Arriskuko itzulpena iruditzen zait; jauzi **interpretatiboa** oso handia izan da. Bernardo Atxaga

Nolabaiteko hutsunea ikusten dut sistema **interpretatiboak** garatzeko. Berria - Harian

Musika idatziaren alderdi **interpretatiboa** lantzen dugu. Berria - Kultura

Lortu dugun puntu **interpretatiboarekin** oso gustura gaude. Berria - Kultura

---

## interpretatu, interpreta(tu), interpretatzen 1 du *ad* esaldi edo kideko bati esanahi jakin bat eman.

Jatorrizko testua **interpretatu** eta ulertu. Askoren artean

Entzuleak ez badu hiztunaren hizkuntza ezagutzen, horren esanak ez ditu inola ere **interpretatuko,** kode ezberdinak erabiltzen dituztelako. Iñaki Arranz

Milaka liburu idatzi dira bere obra **interpretatzeko,** bere estiloa disekzionatzeko, bere ideologia aztertzeko. Jon Alonso

Eraketa diskurtsibo jakin batek, konstelazio berri batean berrartuta, kokatuta eta **interpretatuta,** aukera berriak agerraraz ditzake. Xabier Arregi

Sofista handien testu guztiak bigarren eskukoak direla jakin behar du eta, beraz, **interpretatuta** etorri zaizkigula. Askoren artean

Nola **interpretatu** egungo krisia? Joxe Azurmendi

Noizbait idatz nezala nahi zuen, edo hala **interpretatu** nuen nik orduan. Koldo Izagirre

Baimena ematen geniola **interpretatu** zuen Enbeitak. Koldo Izagirre

**2** (nola adizlagunekin)

Azkuek oker **interpretatu** zian, esaldia ez baita orduez ari, etxeko ateez baizik. Anjel Lertxundi

Oker **interpretatua** izan den idazlea ez da zentsuratu behar. Imanol Unzurrunzaga

Lege batek senaren kontra egiten badu, edo txarra da, edo gaizki **interpretatuta** dago. Berria - Euskal Herria

San Mateoren pasarte bat oso estu **interpretatu** zuelako. Juan Martin Elexpuru

Entzuleak ez du formulazioa hitzez hitz **interpretatu** behar. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Araubidea malgutasunez **interpretatuta**. Berria - Euskal Herria

Esperimentu asko egin dira gai honi dagokionez, baina benetan **interpretatu** ahal izateko moduko emaitzak aurkeztu behar direnean, porrot egiten dute ia guztiek, ia tautologikoak baitira izatez. Josu Zabaleta

**3** zerbaiti esanahi bat egotzi.

Bidean, eskutik heltzeko keinu hura **interpretatu** nahi izan nuen. Ramon Saizarbitoria

Keinu-sorta oso bat, mutilek era batean edo bestean **interpretatuko** dutena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ametsak **interpretatzen** zekien emakume batengana joatea besterik ez zuen egin. Xabier Aranburu

Baina orduan inork ez zukeen horrela **interpretatuko** gertaera. Iñaki Iñurrieta

Askok **interpretatu** dute Eudel eta Lakuaren arteko ika-mikan besterik zegoela. Berria - Euskal Herria

Baina lagunek nola **interpretatuko** zuten ene egitea? Daniel Landart

Alderdi sozialistak beti jakin du, eta beti jakingo du, herritarren borondatea ondo **interpretatzen** . Berria - Euskal Herria

Esperimentu horiek behar bezala **interpretatzea** ez da gauza erraza. Josu Zabaleta

Ikusmen-sistemak ikusten ari dena **interpretatzeko** behar dituen elementu guztiak eskura ez baldin baditu [...]. Josu Zabaleta

Usaimen-mukosak 50 milioi zelula hartzaile inguru ditu [...]; horietan sortzen dira garunak gero usain-sentipen gisa **interpretatuko** dituen seinaleak. Irene Aldasoro

Analisi kimiko bat egiten denean, **interpretatu** egin behar izaten dira emaitzak. Irene Aldasoro

Zuzen **interpretatu** baldin badugu Herodes Handiaren politika, herodianismoaren heroe eponimo hark sinesten zuen [...] helenismo-dosi homeopatiko bat izango zela bitartekorik onena judaismoaren iraupena ziurtatzeko. Iñaki Mendiguren

Zakurrek beraiek badakite nola **interpretatu** usain hori Gotzon Garate

**4** musika lan bat jo.

Campo, Rebotier eta Nono konpositoreen lanak **interpretatuko** dituzte. Berria - Kultura

Straussen eta Tomas Araguesen piezak **interpretatuko** dituzte Eguberrietan egingo duten biran. Berria - Kultura

Michel Portalek eta Bordeleko Orkestrak John Adams konpositorearen 'Gnarly buttons' obra **interpretatuko** dute gaur Miarritzen. Berria - Kultura

Emanaldiaren bigarren zatian ere musika erlijiosoa **interpretatuko** dute. Berria - Kultura

Wagner **interpretatzeko** sopranorik onenetakoa dela. Berria - Kultura

Begiak ixten zituenean, Yehudi Menuhinen biolinak **interpretatutako** Brahmsen sehaska kantaren konpasean. Joan Mari Irigoien

OLBEk sarritan eman du opera lan hori eta zuk ere askotan **interpretatu** duzu Mimiren papera. Berria - Kultura

Georges Bizeten 'Les pecheurs de perles' operako Leila **interpretatuko** du Bilbon Elena Zarembak. Berria - Kultura

Asmatzeko daude oraindik bere pentagramak ongien **interpretatuko** dituzten musika-tresnak. Harkaitz Cano

**5** antzeztu.

Bernardo Atxagaren *Lezio berri bat ostrukari buruz* testuan oinarritutako ikuskizuna **interpretatuko** dute.

Pertsonaia gardena da Nadir, baina, era berean, **interpretatzeko** zailtasun ugari ditu. Berria - Kultura

Alberto San Juan eta Emma Suarezek Juan Jose Garfia eta Marimar **interpretatuko** dituzte. Berria - Kultura

Poncelak sarri askotan **interpretatu** ditu pertsonaia homosexualak, eta denak egin ditu gustu eta begirune handiz. Berria - Kultura

Gazteak ezagutu zuen gizona Jesus Caramesek **interpretatuko** du eta hiruren artean dantzatik baino antzerkitik hurbilago dagoen produktua osatuko dute. Berria - Kultura

Javier Bardemek benetako istorioa **interpretatzen** du han. Berria - Kultura

Katuak hartu zuen nire lekua gure etxean egunero **interpretatzen** zen ipuinean. Pako Aristi

Hamlet **interpretatzeko** nahi beste modu daudela sinetsita dago. Berria - Kultura

Erronka tankerako ikuskizuna, *Mahai gainekoa,* **interpretatuko** dute dantzariek, abesbatzak eta bertsolariek guztiek elkarrekin. Berria - Kultura

**Interpretatzeko** teknika oinarrizkoenak irakatsi zizkigun aitak, eta beti izan ditut gogoan: **interpretatzea** ez da dagokizun esaldia esatea soilik, konpartitzea da. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 0 aldiz agertzen direnak)**

**arabera interpretatzen** (5); **bezala interpretatzen** (4); **eta interpretatzea** (4); **eta interpretatzeko** (8); **eta interpretatzen** (7); **gisa interpretatzen** (3); **hau interpretatzeko** (3); **honela interpretatzen** (3); **horiek interpretatzeko** (3); **interpretatzea ez** (4); **interpretatzea ez da** (3); **interpretatzeari ekin** (3); **interpretatzeko aukera** (4); **interpretatzeko eta** (8); **interpretatzeko gaitasuna** (3); **interpretatzeko modu** (4); **interpretatzeko modu bat** (3); **interpretatzen da** (4); **interpretatzen dituen** (3); **interpretatzen dituzte** (3); **interpretatzen du** (11); **interpretatzen duen** (4); **interpretatzen dut** (3); **interpretatzen dute** (5); **interpretatzen duten** (3); **interpretatzen hasten** (4); **interpretatzen hasten da** (3); **interpretatzen zuen** (6); **nola interpretatzen** (5)

---

# interpretatzaile

**1** *izond/iz* testu edo kideko bat interpretatzen duena. ik **interprete 2.**

Eta badakigu bitan banatze hauek zer zailtasun sorrarazten dizkieten azterketa **interpretatzailean** dihardutenei. Xabier Arregi

Ez da diziplina **interpretatzailea:** ez du bilatzen ezkutuagoan dagoen "beste diskurtso" bat. Xabier Arregi

Guztiek ote dute sendatzeko dohaina? guztiak mintzo ote dira hizketa arrotzez? guztiak ote dira hizketa arrotzen **interpretatzaile** ? Elizen arteko biblia

Izen hori mende batzuk geroago Aristotelesen testuaren **interpretatzaileek** ezarritakoa da. Askoren artean

Euskal Itzultzaile Zuzentzaile eta **Interpretatzaileen** Elkartea. Edorta Jimenez

**2** musika edo antzerki lan bat interpretatzen duena. ik **interprete 3.**

Aditu askoren ustetan XXI. mendeko piano **interpretatzaile** garrantzitsuenetakoa da John Tilbury ingelesa. Berria - Kultura

Birgit Nilsson sopranoa hil da, Wagnerren **interpretatzaile** ospetsua. Berria - Kultura

Riccardo Frizza zuzendari italiarra pozez zoratzen agertu zen bildutako **interpretatzaile** taldearekin: «Lehen mailako taldea dugu: munduko onentsuenak daude». Berria - Kultura

---

# interpretatze

*iz* musika edo antzerki lan bat jokatzea.

Baina ez gaude sekulako **interpretatze** lan baten aurrean, arintasuna eta pertsonaia klixedunak hobetsi direlako itxurakeria eta kritika satirikoari lehentasuna ematearren. Berria - Kultura

---

# interpretazio

*(orobat* ***interpretazione*** *g.er. eta* ***interpretazino*** *g.er.)* **1** *iz* interpretatzea. (esaldi eta kidekoak)

Eskrituristen artean pasarte honek bi **interpretazio** ditu. Xabier Kintana

Esaldiak bi **interpretazio** onartzen ditu, beraz. Iñaki Arranz

"Egiazko" predikatuari buruz **interpretazio** ugari egin da. Askoren artean

Bohr eta abarrena **"interpretazio** ortodoxoa" da teoria kuantikoan. Iñaki Segurola

Vitruvioren deskripzioen **interpretazio** literala egiteko kezka edo ardura. Santiago Iruretagoiena

Identitatearen **interpretazio** arrunta (baina ez bakarra) berdintasuna izango da. Askoren artean

Ez du egin arauen **interpretazio** malgurik. Berria - Euskal Herria

Irudien interpretazioa **interpretazio** ikonologiko bat izaten da gaur egun normalean, eremu guztietan. Josu Zabaleta

**2** (musika, antzerki edo kideko lanak)

*Disserratevi, i porte d'Averno* ariaren **interpretazio** zoragarriarekin. Berria - Kultura

Esteban Elizondoren **interpretazio** ezin hobeak, Bergarako San Pedro elizako Stolz organoaren doinu-ezaugarrien edertasunak eta aurkezpen grafiko eta literarioaren egokitasunak argitalpen honen interesgarritasuna gehitu baino ez dute egiten. Letoniako kantariek irabazi zuten Euskal Obra baten **interpretazio** hoberena. Herria

Liburuaren oinarri diren pertsonaia, istorio, kantu eta abarren irakurketa edo **interpretazio** pertsonala egiten du kontalariak. Berria - Kultura

Iazko azaroan, *New European Film Festival* zinemaldian (NEFF), **interpretazio** onenaren saria eraman zuten *Eramos pocos*-eko aktoreek.

*Conversaciones con Mama* filman eginiko **interpretazio** bikainagatik. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **interpretatibo**.

Iraganeko irudiak izaten dira askotan **interpretazio**-ahalegin handiena eskatzen dutenak. Josu Zabaleta

**Interpretazio**-tarte murriztuarekin jokatu dela beti. Santiago Iruretagoiena

Zentzu bikoitzeko mintzaira batean idatziak zeuden, eta bi **interpretazio**-mailaz baliatzen ziren: bata, mundu guztiak ulertzen zuena; bestea, berriz, iniziatuentzat bakarrik gordea. Jon Muñoz

Bide horrek, hala ere, **interpretazio-** edo ondorioztatze-lan gogorra ezarri zion. Xabier Olarra

Gero Eviek **"interpretazio"** ariketa bat jarri zion, astero bezala. Xabier Olarra

Sartu barik egin zuen antzerkitxoa atetik, norbaiten aurrean **interpretazio** saioren bat burutzen egongo balitz bezala. Josu Landa

Boz ederrenaren saria, Amaia Patalagoity eta Camille Bacqué; **interpretazio** sari berezia, Maddalen Larrory. Herria

Gertatua, nire ustez, **interpretazio** kontua izan da, gaizki-ulertu bat zure aldetik. Migel Angel Mintegi

Berrikuntza analogikoak, **interpretazio** aldaketen sintomak. Isabel Arrigain

Tratatu erromatar horren inguruan egin nahi ziren **interpretazio**-lizentziak. Santiago Iruretagoiena

Orainaren **interpretazio** ahalmena galtzen hasi zitzaion. Pako Aristi

Erregelaren **interpretazio**-prozesua jarri zen berehala abian. Askoren artean

Bizitzeko eskubidearen **interpretazio**-joera horrek ondorioak izan ditzake. Berria - Gaiak

Konstante ez-logikoek, aldiz, interpretazio desberdinak onartzen dituzte **interpretazio**-eremuaren arabera. Askoren artean

Aldagai hori **interpretazio**-unibertsoko elementu guztiekin ordezkatu behar dugu. Askoren artean

J **interpretazio**-funtzioa da. Askoren artean

---

## interprete

**1** *iz* ahozko esaldien itzulpen lanetan aritzen den pertsona.

**Interpretea** itzultzen hasi da. Berria - Harian

Gure frantsesa ez denez oso airosoa, **interpreteren** bat edo beste beharko dugula etsi dugu. Jokin Urain

Omochi jaunaren diskurtsoaren aldi bereko **interpretea** izan behar izan banu, hona hemen nire itzulpena: [...]. Joxan Elosegi

Eztabaida guztia [...] latinez egingo baita, **interprete** eta bat-bateko itzultzaileen bidez. Jon Alonso

Da Longa Espadarekin zetorren fraide **interpreteak** itzuli zuenean, uzkur, bere ahoak hainbeste sarkasmo gordetzen zuten hitzak ahoskatzeari uko egiten baitzion, [...].Deialdi bat da, prozesu batean **interprete**-lana egin dezadan; akusatua nire herrialdeko errefuxiatu bat da. Jon Alonso

Administrazioko itzultzaile-**interprete** emandako urteetan. Berria - Kultura

Idazle, itzultzaile, **interprete,** zuzentzaile, hizkuntzalari eta abarren artean. Berria - Harian

Verneren euskarazko itzulpen guztien zerrenda kontsulta daiteke Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta **Interpreteen** Elkartearen (EIZIE) webguneko katalogoan Berria - Harian

**2** testu eta kidekoen interpretatzailea.

Nor izango da orduan legearen **interprete** legitimoa? Juan Martin Elexpuru

Nor izango da orduan legearen **interprete** legitimoa? Juan Martin Elexpuru

-Alkate gisa diotsuet hau, eta alkate gisa eta biztanle guztien borondatearen **interprete** gisa. Koldo Biguri

**3** musika, antzerki edo kideko lanen interpretatzailea.

**Interprete** gazteen zikloaren barruan, sei kontzertu eskainiko dituzte aste honetan Miramar jauregian. Berria - Kultura

Musika klasikoko **interprete** onenaren saria, berriz, Ainhoa Artetak edo Alejandro Zabala euskaldunek irabazi ahal izango dute. Berria - Kultura

Bizi egiten zuten musika **interpreteek**. Berria - Kultura

---

## interprezio *iz*

Hau guztia ez da, egia esan, **interprezio** bat egunean jartzea, oinarri bat aurkitzea, egintza eratzaileak askatzea; ez da, ezta ere, arrazionaltasun bati buruz erabakitzea edo teleologia bat zeharkatzea. Xabier Arregi

---

## interrail *iz*

**Interrailaren** bidez Italiara noala esan zieat, eta erantzun zidatek ea zer egin behar dudan halako batean tripako minez hasten banaiz. Jon Muñoz

---

## interregno

**1** *iz* herrialde bat errege edo bururik gabe dagoen denbora bitartea.

150 urteko benetako **interregno** baten ondoren, Bizantziar Inperioa berreraikitzeari ekin ziotenean. Iñaki Mendiguren

**2** *irud*

Kronologikoki hiru aldi horiek zibilizazio zaharraren desintegrazio-aldiarekin, **interregnoarekin** eta zibilizazio berriaren sorraldiarekin pareka daitezke gutxi gorabehera. Iñaki Mendiguren

Aro Heroikoa gizarte-**interregno** bat dela. Iñaki Mendiguren

---

## interrelazio *iz* elkarrekiko erlazioa.

Berehalatik ateratzeko ondorioa: ez gara gauza **interrelazio** konplexu hauek azaltzeko eredurik, ezta sinplifikaturik ere, emateko (zenbait teoriatan, hala ere, debekatutzat dauzkate halakoak). Josu Zabaleta

---

## interrogatorio *iz* galdeketa.

Gero komisariara, **interrogatorioak,** artxibotik fitxa aterako lukete, kolpeak, mehatxuak. Iñaki Zabaleta

Gorra zen eta galderak egiten zituen, baina **interrogatorioa** ez zen gure erantzuna entzuteko, baizik eta konklusioak eta ondoriozko zigorrak ezarteko. Joseba Sarrionandia

## **interrogatu**, interroga, interrogatzen du *ad* galdekatu, galdeketa egin.

Herenegungo istiluak orain arteko gogorrenak izan ez dira ere 928 pertsona **interrogatu** zituen Poliziak asteartean. Berria - Ekonomia

Berak **interrogatu** gintuen. Joseba Sarrionandia

## **interrogazio** *iz* galdera marka.

Ziur al zaude, **Interrogazio** hankaduna eta zalantza besoduna zara, izan ere, Burua baino ez dut falta. Jon Alonso

Oi bai, begi zuri eta handiak dira orain **interrogazio** ikur berriak, aspaldiko zerri-gako itxurako haiek baztertu ditugu, orain biribilak eta zuriak dira galdera ikurrak. Harkaitz Cano

## **interruptore** *iz* etengailua.

**Interruptorea** zen Matiasen ilea, eta burkoaren kontra jotzen zuenean zerbait amatatzen zen klak Matiasen buru barruan; amatatzen zen, esate baterako, Matiasen espiritua klak. Unai Elorriaga

## **intersektorial** *izond* sektoreartekoa.

Guk pentsatzen dugu legearen eragina eraginkor egiteko akordio **intersektorialak** bultzatu behar direla. Berria - Euskal Herria

## **intersekzio** 1 *iz* multzo teorian, elkarketa.

Gero B letra eta C letra zentro bezala hartuz, D puntuan ebakiko diren zirkuluak egingo dira; ondoren, D **intersekzioa** eta zentroa hartuz, lerro bat botako da muturreraino eta lerro horretan egongo dira E eta F letrak. Santiago Iruretagoiena

2 *irud* Oraina ez baita [...] bere horretan / hasten, / ez bukatzen, baizik eta **intersekzio** puntu bat baita / izandakoaren eta izateko denaren artean Imanol Zurutuza

## **intersindikal** *izond* sindikatoartekoa.

Horietako bat izan zen Kataluniako Alternatiba **Intersindikala**. Berria - Mundua

## **interstizial** *izond* landare edo animalia ehun baten zirrituetan dagoena.

Likido horrek fluido **interstiziala** eratzen du. Irene Aldasoro

Hodi horietara pasatzen den fluido **interstizialari** esaten zaio linfa. Irene Aldasoro

## **intersubjektibo** *izond* subjektu bi edo gehiagotan gertatzen edo gauzatzen dena.

Psikologiak zientzia izan nahi badu **"intersubjektiboa"** izan behar du, hots, hirugarren pertsonaren ikuspegitik egina. Askoren artean

Kontzeptuek **intersubjektiboak** dira, hau da, ez dira izaki pribatuak, izaki partekatuak baizik. Askoren artean

Balioen baliagarritasuna, zinezko objektibitatea zertzen duena (onargarritasun **intersubjektiboa),** gizarte bizitza eratzen duen gizatasuna edo giza esperientzia da. Joxe Azurmendi

## **intersubjektiboki** *adlag* era intersubjektiboan.

Termino batek esanahia izan dezan eta termino hori zientzian erabilgarria izan dadin **intersubjektiboki** egiaztagarria izan behar du positibisten ustez. Positibista Logikoek psikologia egiteko modu "introspektiboa" gogor kritikatu zuten, haien ustez publikoki **(intersubjektiboki)** kontrastagarriak ez diren terminoek ez baitute inolako esanahirik. Askoren artean

## **intertestual** *izond* testuartekoa.

Baina, batez ere, *Soinujolearen semea*n literatura klasikoari egiten zaio gorazarre **intertestuala**. Berria - Kultura

Dickensen *Eguberriko ipuin* famatu bat da hemen alibi **intertestuala**. Berria - Kultura

## **intertestualitate** *iz* testuartekotasuna.

**Intertestualitateari** ere (testuartekotasunari, nahiago bada) lotzen zaizkio testu batek beste batekin edo batzuekin dauzkan harremanak, baina literaturaren ur handitan murgiltzen gara ia ohartu gabe. Iñaki Arranz

Berea ez omen da plagioa, **intertestualitatea,** testu-artekotasuna baizik. Joxerra Garzia

**Intertestualitatea** deitzen zaion lapur-zaku hondorik gabea. Anjel Lertxundi

Nik ulertzen ditut filologoak, testu horren bertsio on bat egin behar da [...] niri aldiz, **intertestualitatea** eta kontestualizazioa interesatzen zaizkit. Berria - Kultura

Biografien saileko liburuen arteko harremanak jasotzen dituzte, eta literatura honen guztiaren **"intertestualitate"** trinkoa agerian jartzen. Askoren artean

## **intifada** 1 *iz* palestindarren kale borroka.

Palestinan bigarren **intifada** hasi zenez gero. Iñigo Aranbarri

Oraingo **Intifadan** argi dugu zeren kontra borrokatzen ari garen, baina ez zeren alde borrokatzen garen. Berria - Mundua

Lehenbizikoan, okupazioaren kontrako borrokaz gain, beste hamaika herri borroka zeuden, eta **Intifadari** zentzua eman zioten. Berria - Mundua

PANeko presidentearekin batera erbestean egon ostean Palestinara itzuli ziren buruzagiak eta azken bi **'intifadetan'** parte hartu zutenak. Berria - Mundua

**Intifada** bultzatu duten taldeak. Berria - Mundua

**2** *hed*

Xiiten **intifada** deitu dutena aurrera doa, etengabe, igandean izandako oldarraldiaren ondoren. Berria - Mundua

Matxinada honek zantzu guztiak ditu Irakeko **Intifada** bilakatzeko. Berria - Mundua

Sahararrek **Intifada** abiatu dute. Berria - Harian

---

# intimidazio *iz* larderia.

Beste biak berriz [...] zentimetroak, kiloak eta defentsa lanaren ahulezia estali beharko lukeen **intimidazioa** eskainiko dute. Berria - Kirola

---

# intimismo *iz* barne bizitzaren edo barneko sentimen eta zirraren adierazpenak ezaugarri dituen arte joera.

Gune biribilak osatzeko premia ikusten dut, **intimismoari** lekua egingo dioten gune biribilak. Ana Urkiza

«Nitasunik gabea da Monzonen poesia, **intimismorik** gabea», Izagirrek dioenez. Berria - Kultura

Barneratuegi dugu estereotipoa: gizonezkoa berdin burua berdin agerikotasuna berdin garrantzitsua; emakumea berdin bihotza berdin **intimismoa** berdin ez hain garrantzitsua. Ana Urkiza

Gaur egun, joera dago eraikinak egiteko, kultura kalera ateratzeko, baina **intimismoa** edo intimitaterako joera galtzen ari gara. Ana Urkiza

---

# intimista *izond* intimismoari dagokiona, barrenkoia.

Kantu **intimistak** dira oro har, AEBetako folk talde berri batzuek landu duten ildokoak. Berria - Kultura

Hitz **intimistekin** jantzi ditu 'Oinetan kea' estreinako laneko rock, hardcore, metal eta pop erritmoak. Berria - Kultura

Pucciniren alderdi **intimista** . Berria - Kultura

Estilo aldetik, pop eta jazz **intimistaren** arteko zerbait. Berria - Harian

Beste gizakien artean lekua aurkitzeari buruzko eleberri **intimista** eta hunkigarria. Berria - Kultura

Idazlearen egitekoaren ikuspegi guztiz **intimista** defendatzen zuen, esanez literatura, ezer izatekotan, nitasunaren laborategia dela, geure nortasun hondatua konpontzeko balio duen tailerra. Joxean Agirre

Gizartearen baitan gutxi samar errebelatzen diren emakumeei **intimistak** direla esaten zaie, arrosak. Ana Urkiza

---

# intimitate *(247 agerraldi, 80 liburu eta 61 artikulutan)* **1** *iz* intimoa denaren nolakotasuna; barrukotasunezko harremana. ik **intimotasun**.

Nola esango nuke, norbaitekin berriro **intimitatea,** konplizitatea -bai, konplizitatea da hitza- lortzea ez zitzaidan oraintsu arte bururatu ere egiten. Patxi Zubizarreta

Eta hura zuan gure arteko **intimitatearen** frogarik nabariena. Xabier Olarra

Nahiko dute uztartu sexua eta eztitasuna, pasioa eta samurtasuna, plazera eta **intimitatea,** kitzikapena eta bat-egitea. Luis Elberdin

Haien arteko harremana profesionala da, kortesiazkoa bai, baina hotza, **intimitaterik** gabekoa. Patxi Iturritegi

**Intimitatezko** aldi horiek aprobetxatuz, euren barne jarioa isuri zuten nire aurrean. Jon Arretxe

Senar-emazteen arteko maitetasun eta **intimitatezko** harremana. Juan Garzia

**2** gune intimoa.

Bere **intimitatean** sartzen nintzela iruditu zitzaidan. Ramon Saizarbitoria

Zerbait zuen bere gorputzaren **intimitatean,** higuingarria izan gabe, atsegina gertatu ez zitzaidana. Ramon Saizarbitoria

Pasaporte bat **intimitaterako**. Bernardo Atxaga

Honen hatz potoloa arrakalan barneratu da, nekez ireki du sarrera debekatua, **intimitate** sutsuan hondoratu da. Juan Martin Elexpuru

Badira besteren **intimitateko** ateak bortxatzeko inolaz ere gauza ez diren pertsonak. Jon Alonso

Intimismoa edo **intimitaterako** joera galtzen ari gara. Ana Urkiza

**Intimitatean,** ordea, koraza horiek galtzen zituenean [...] arras bestelakoa izaten ere ba omen zekien, zorrotza, okurrentea eta umore onekoa. Joxean Agirre

Amodio zaharrek ez daukate **intimitatearen** estalki beharrik. Pako Aristi

Minak gizakumeari **intimitate** guztia kentzen diola pentsatu zuen, min hori pasatzeko besteen beharra daukagun piztia bakarrak garelako. Pako Aristi

**3** (aditzaren objektu gisa)

Barka ezazu, ez nuen zure **intimitatea** hautsi nahi... Koldo Izagirre

Itxuraz, min handia egin zion bere **intimitatea** bortxatzeko modu hark. Patxi Iturritegi

**Intimitatea** galtzea zekarren horrek, baina okerragoa zen hotzaren zastada. Xabier Mendiguren Elizegi

Neure **intimitatea** eta askatasuna babesteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Hurkoaren **intimitatea** errespetatuz. Joxemari Iturralde

Bere **intimitatea** gordetzeko. Anjel Lertxundi

**Intimitatea** zainduko da era horretan. Berria - Euskal Herria

Estatuak edonoren telefonoa, komunikabideak, **intimitatea** kontrola ditzake. Berria - Mundua

Familiak gutxieneko **intimitatea** (logela pribatua...) eskaini beharko dio. Herria

Berak irrati edo telebistako hitzaspertu luzeetan ateratzen du bere **intimitatea** denen begi bistara. Pako Aristi

**4** (hitz elkartuetan)

Koitoak beste atsegin klase bat emango dio, bat-egite eta **intimitate** sentipenak ematen duena. Luis Elberdin

Ez zidan amodio eta **intimitate** premia ordezkatzen. Itxaro Borda

Non dago adierazpen askatasunaren eta **intimitate** eskubidearen arteko muga? Berria - Gaiak

Azido sulfidrikoaren gelara, hilgarria baitzen han atmosfera, **intimitate** -irrikaz zeuden bikoteak erretiratzen ziren, eta bakartiren bat mokadu bat jatera. Juan Garzia

Ez erabiltzeko adizki hori egoera intimoetan, **intimitate** -zapuztailea da eta. Joxerra Garzia

---

# intimo **1** *izond* barru-barrukoa, barne sentimenei dagokiena.

Badira bizitzaren zoko-moko **intimo** eta ilunenak lotsa handirik gabe publikoari aitortzen dizkioten autobiografiak. Janbattitt Dirassar

Sentimendu **intimoei** buruzko azalpen ñabarduraz beteak. Bernardo Atxaga

Aitorpen **intimo** bat egitea. Bernardo Atxaga

Ahotsak biltzen zituen irrika **intimoenak** atzemango banizkio bezala. Jon Alonso

Borreroak amets **intimo** bat dauka: udalak, noizbait, seme kuttun izendatuko duela. Karlos Linazasoro

Izatez filosofia, literatura, horixe da: galdera **intimo** bati ematen diogun erantzuna. Patziku Perurena

Orrien artean gordetako gutun **intimoren** bat... Anjel Lertxundi

Hezetasun **intimoenak** eta erekzio bihurrienak eragiteko. Luis Elberdin

Ordudanik larruari atxikirik eraman zuen babesleku hura, presondegi **intimo** hura. Joxan Elosegi

Eragina izan zuela nire izatearen gune **intimoenetan** ere. Bernardo Atxaga

Errabino asko higikunde honen kontra agertu zen, hasidismoak Jainkoarekiko komunikazio **intimoa** eta katartikoa proposatzen baitu. Koro Navarro

Oraingoan, baina, ez zinen kontu akademikoekin hasi; **intimoa** izan gabe ere pertsonala zen behintzat bota zenidan galdera, eta ildo beretik jarraitu zuen solasak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Intimoagoak** dira liburuko beste pasadizo batzuk. Berria - Kultura

Xalotasun naif berberaz dira kantatuak drama politikoak eta bizi **intimokoak**. Berria - Kultura

Varisco ere andregaiturik zegoen, eta elkartasun sakona eta isilberri **intimozko** truke ugaria zebilen horrenbestez bien artean. Juan Garzia

Estatua ez zaio gizabanakoari kanpotiarra, baizik barne-barnetarra, **intimoa,** bere buruaren identikoa, bere kontzientzia, bere arima. Joxe Azurmendi

· Eguneroko ene etsai **intimo** horiek. Filipe Bidart

**2** bakartasunari dagokiona, bakartasunean edo bakarka egiten dena.

Zer dago **intimoagorik** isiltasuna baino? Joxean Agirre

Espazio biribil eta **intimo** horiek. Ana Urkiza

Biok betiko lotzen gintuen ekintza **intimo** bat partekatu genuela sentitzen nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Benetako izenak argi epela zabaltzen zuen, **intimoa**-edo; faltsuak, berriz, ezin sinistuzko distira zuen, erregezkoa. Matías Múgica

Bizitza pribaturik gabeko pertsona bainoago, bizitza **intimorik** gabeko pertsona iruditzen zaizu. Berria - Kultura

Argi-ilun baten laguntzarekin giro **intimoago** batean sartzen da bisitaria. Berria - Kultura

Kontu **intimo** bat publiko egiteak sorrarazten dituen ahalkea eta babes-eza. Agurtzane Juanena

Sormena berez jardun partikular eta **intimoa** baita. Berria - Kultura

Jatetxe lasai eta **intimo** bat. Oskar Arana

Bisita **intimoak** ukaiteko eskubidea ukatzen die Frantziak. Berria - Euskal Herria

Gaur egun, bi aurrez aurreko izaten dituzte hilero, familiarra bata, **intimoa** bestea. Berria - Euskal Herria

Beti besta **intimoak** izan dira eta gaur ere hiru bikote bildu gara. Patxi Zubizarreta

Erizain baten esku utzi behar du komunean esertzea bezalako ekintza **intimoa..**. Anjel Lertxundi

Gorputzaren hustubehar **intimoak** egiteko tokia. Josu Landa

---

## **intimoki** *iadlag* barrukotasunez.

Eta irizpide horien arabera ibiltzen diren editore zenbaitek esaten dutenean "liburu hau oso ona da", badakit, **intimoki,** nire gustukoa ez dela izango. Ana Urkiza

---

## **intimotasun** *(13 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean)* *iz* intimitatea, barnekotasuna..

Monikaren nobela maitasun historia baten bilakabidea da eta, aldi berean, **intimotasunari** buruzko gogoeta bat. Joxean Agirre

Handik goiti, gauak, aitzina egin ahalean, bere logika ezarri zigun, elkarrenganako distantzia laburtuz hizketagaiak **intimotasunera** lerratu bezala. Aingeru Epaltza

Neurriz goitikoak iruditzen zaizkidan **intimotasunetara** iritsi gara, ohartu ere egin gabe. Josu Zabaleta

Eta eskuetan hondar aleak nahastu ziren, eta gorputz hura eskuen artean izateak, **intimotasunaren** ataka hura gainditu izanak, harrotasunez bete ninduen. Lander Garro

Etxeko **intimotasuna** zubi bihurtzen da. Berria - Harian

---

## **intolerante** 1 *izond* intolerantziazkoa. ik **intolerantzia 3**.

Erlijio-fanatismo **intolerantetik** erlijiogabeko tolerantziara. Iñaki Mendiguren

Integrista **intoleranteak**. Berria - Euskal Herria

*Gasteiz Izan* plataforma abertzaleak PPko udal gobernuaren jarrera **«intolerantea»** dela salatu zuen atzo. Berria - Euskal Herria

Harrigarria ere egiten zaigu katoliko izateak Frantziskorengan duen erradikaltasuna, katoliko ez direnekiko **intolerante** bihurtzeraino. Askoren artean

Normalean, mozorro **intolerante** eta handiuste horien atzean lohikeriaz eta lizunkeriaz betetako putzu hondogabea ezkutatzen da. Karlos Zabala

**2** (adizlagun gisa)

Nola bizi nintekeen kinka hartan, eta are gehiago gazte-denboran, denak erradikal eta **intolerante** agertzen garen adin horretan? Karlos Zabala

---

## **intoleranteki** *adlag* era intolerantean.

Erromatar munduan paganismoaren erauzketaren historian, **intoleranteki** erlijiozalea zen kristau jaiotako Teodosio I.a enperadoreak pagano izandako Konstantino I.a konbertituari jarraitu zion. Iñaki Mendiguren

---

## **intolerantzia** 1 *iz* gainerakoen ideiak edo jarrerak errespetazen ez dituenaren jarrera.

Integrista islamikoen **intolerantzia**. Patxi Iturritegi

EBn musulmanen kontra dagoen **intolerantzia** eta bazterkeria. Berria - Harian

Zentzugabekeria, itsukeria eta **intolerantziaren** biktima izan direnak. Berria - Euskal Herria

Genetikaren bidea hartzea, bada, nirekiko, zera zen: uko egitea arrazoiaren lekuan **intolerantzia** eta fanatismoa ipintzeari. Juan Garzia

Euskotarra, alegia, **intolerantzian** eta gogorrean jarrita, zeharo eta osotoro dela kastillanotzen. Iñaki Segurola

Espainiako Legebiltzarrak Indarkeriaren, Arrazakeriaren eta **Intolerantziaren** aurkako lege aurreproiektua onartu zuen herenegun. Berria - Kirola

**2** organismo batek janari edo sendagai jakin batzuk onartzeko gaitasunik eza.

Erretzaile ez izan arren besteen kea denbora luzez arnastu dutenen %17k ere glukosarekiko **intolerantzia** garatu dute. Berria - Gaiak

Produktu batzuek (glutena, esnea, kakahuetea, etab.), pertsona zenbaitengan **intolerantzia** eta alergiak sorrarazten dituzten arren. Edorta Agirre

**3** (hitz elkartuetan) ik **intolerante.**

**Intolerantzia** jarrera oro baztertu eta neurriak hartzeko plana hitzartu dute. Berria - Mundua

**Intolerantzia** izpiritu berberaren ekoizpenak dira Inkisizioa eta gurutzadak, eta Estatu-Nazioa. Joxe Azurmendi

Arrazakeria, bazterketa, eta **intolerantzia** eredu berriak sortu dira eta gizartea ohartarazi behar dugu. Berria - Gaiak

**Intolerantzi** historiak. Iñaki Mendiguren

---

**intonatu**, intona, intonatzen *(orobat* ***entonatu****)* du *ad* abesti bat edo abesti hasiera bat doinu egokian kantatu.

Gero, zuzenean murmuriatzen du doinu goxo, melodiatsu bat, astoak gaueko izarrari bere otoitza **intonatzen** dionean egiten duenaren antzekoa. Xabier Olarra

Barrenean musika tresnen akordeak entzuten ziren, eta saxofoiaren soinua *Americano non voglio cantar...* **entonatzen**. Josu Zabaleta

Miretsi egiten zuten gure ahotsa, gure doinuen errepertorioa, gure **entonatzeko** gaitasuna, gure geldotasuna, gure kontzentrazio erdi-mistikoa... Andoni Egaña

Miretsi egiten zuten gure ahotsa, gure doinuen errepertorioa, gure **entonatzeko** gaitasuna, gure geldotasuna, gure kontzentrazio erdi-mistikoa... Andoni Egaña

Barrenean musika tresnen akordeak entzuten ziren, eta saxofoiaren soinua Americano *non voglio cantar...* **entonatzen**. Josu Zabaleta

---

**intonazio** *(orobat* ***entonazio****)* *iz* entonatzea; entonatzeko modua.

Ahotsaren **entonazio** egokia erabiltzen erakutsi dit. Jasone Osoro

Kantaerari dotoretasuna ematen ziotela uste zuen **entonazio** eta ahoskeraren manierismo modaz pasatu guzti haiekin. Irene Aldasoro

Beste momentu batzuetan, Iesus Dominus-en adibidez, desajuste erritmiko eta **entonaziozkoak** egon ziren. Berria - Kultura

Beste momentu batzuetan, *Iesus Dominus*-en adibidez, desajuste erritmiko eta **entonaziozkoak** egon ziren. Berria - Kultura

Tupustean, **intonaziorik** gabeko ahotsaz esan dit: [...]. Monika Etxebarria

Ikusita nolako apainkeria zaharkituarekin adierazten zituen esaldiak, eta zein **intonazio** handitsu eta eztiz melatua erabiltzen zuen ideiarik txikiena adierazteko ere. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gizona hitz egiten ari da, goranzko eta beheranzko **intonazio**-aldi borobilduetan harilkatutako hitzaldia ematen. Oskar Arana

---

**intoxikatu**, intoxika, intoxikatzen **1** da/du *ad* pozoitu. ik **toxikatu**.

Lau pertsona **intoxikatu** dira karbono monoxidoa arnasteagatik, Asteasun. Berria - Euskal Herria

Lan ideala da kontsulta; eskuak zikindu gabe, bizkarrezurrik hautsi gabe eta kixkalirik edo **intoxikaturik** amaitu gabe ospea eta sosak ematen dizkizuna. Juan Garzia

**Intoxikatuetariko** bi portugaldarrak dira, eta beste biak espainiarrak. Berria - Euskal Herria

**2** informazio faltsua edo alderdikoia hedatu, norbaiten iritzia edo jarrera aldatzeko.

Espainiako Gobernuak «gardentasun osoz» informatu zuela eta **«intoxikatzen»** aritu zirenek «beste batzuk» izan zirela esan zuen. Berria - Mundua

**3** (era burutua izenondo gisa)

Dena den, lau **intoxikatuak** atzo bertan atera ziren erietxetik. Berria - Euskal Herria

---

**intoxikatzaile** *izond* intoxikatzen duena, informazio faltsua hedatzen duena.

Gaurkoan hedabide **intoxikatzaile**-kriminalizatzaile horien rola agerian utzi eta aurre egin nahi izan die Segik. Berria - Euskal Herria

---

**intoxikatze** *iz* pozoitzea.

Masturbazioa, larru jotzea, era guztietako **intoxikatzeak**. Oskar Arana

---

**intoxikazio** *(23 agerraldi, 3 liburu eta 13 artikulutan)* **1** *iz* pozoitzea. ik **toxikazio**.

Askotan aritzen da erietxetan **intoxikazioa** gertatzen denean pozoitu denak zer jan duen identifikatzen saiatzen. Berria - Gaiak

**Intoxikazioa** bizkorra izanik, espasmorik edo gonbitorik ez zion eragin, nonbait. Josu Zabaleta

Euskal Herrian, gehienetan **intoxikazio** arinak izaten dira. Berria - Gaiak

**Intoxikazio** etilikoengatik. Unai Iturriaga

Euskal Herrian **intoxikazio** gutxi gertatzen dira, jendeak gehiago irakurtzen duelako eta informazio gehiago duelako. Berria - Gaiak

Elikagai bidezko **intoxikazioak**. Berria - Harian

Kopa bat jerez hartzea sekulako mozkorraldi baten hasiera gertatzen zitzaion; eta gutxitan iristen bazen ere **intoxikaziora,** eskandalu izugarriak sortu zituen behin baino gehiagotan. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan)

Baliteke urte batean perretxiko pozoitsu bat asko ateratzea eta **intoxikazio** kasu asko gertatzea. Berria - Gaiak

Perretxikoak janda eragindako **intoxikazio** mota berriak jaso ditugu. Berria - Gaiak

**3** intoxikatzea, informazio faltsua hedatzea.

Arzalluzi «gezurra eta **intoxikazioa** erabiliz herri honi ezer ez eskaintzea» egotzi zion. Berria - Euskal Herria

Espainiak eta Frantziak Euskal Herriaren errealitatea desitxuratzeko **«intoxikazio** informatibo sendoa» zerabiltela uste zuten. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan)

Biktimen inguruan ateratako inkestaren ondorioak PPren gobernuaren «**intoxikazio** politikaren» emaitza dira. Berria - Euskal Herria

EAk ere «UPNk bake prozesuaz abiatutako **intoxikazio** eta gezur kanpaina» salatu zuen. Berria - Euskal Herria

---

**intrabenoso** *izond* zain-barnekoa, zain barrutikakoa.

Kafeina **intrabenosoa** hartuko nuke. Pako Aristi

---

**intrahistoria** *iz* Herri baten ohiko bizitza, historialariek aztertzen dituzten gertakarien azpian datzana.

Unamuno-k joera dauka **intrahistoria** (herriaren arima) jende xumeari hurbiltzeko. Alabaina, **intrahistoria** isil geldi hori ei da herri eta jendeei bizia eta ekimena ematen dien iturria, karakterea ezartzen dien indarra, eta egiazko historiaren egiazko egilea: teologia da politikaren azpiko fundamentua. Joxe Azurmendi

Errepublikan ala monarkian, orain festan, gero hiletan (historian), nola belaunaldi batean hala hurrengoan, sakonean gizarte bat beti gizarte bera da **(intrahistorian,** edo iraunaldi luzeko historian). Joxe Azurmendi

Ematen du, historia eta **intrahistoria,** esentzia eta akzidenteak edo jarduna eta egona bezala kontrajartzen direla, izana eta bilakaera. Joxe Azurmendi

---

**intrahistoriko** *izond* intrahistoriari dagokiona.

Unamuno hau da, herri espainol **intrahistorikoaren** erredentore, eta horren salbazioaren amorez Estatu oligarkiko eta zentralistaren apostolu bilakatua, Bilbora etorri dena.

Joxe Azurmendi

---

**intralinguistiko** *izond* hizkuntza barnean gertatzen dena.

Ohartuko da arrazoi **intralinguistiko** eta soziolinguistiko ezberdinenak nahasian dabiltzala. Joxe Azurmendi

---

**intramarginal** *izond*

Dirua erasopean duten herrialdeei epe laburreko eta epe ertaineko finantza-laguntza emateko aukerak ugalduz, eta diruak beren mugako kotizaziotik modu arriskutsuan aldentzen zirenean esku-hartze **intramarginalen** zama banku zentralen artean banatuz, Europar Diru Sistemak Bretton Woodseko sistemaren eraketan nagusi izan ziren printzipioak zabaltzen eta hobetzen zituen. Koro Navarro

---

**intransferible** *izond* ezin transferituzkoa, ezin eskualdatuzkoa.

Gero gitarraz jo zion zerbait Romari, komunera joateko gogo **intransferiblea** sentitu zuen arte. Unai Elorriaga

---

**intransitable** *izond* ezin ibilizkoa, igaroezina.

Itinerario imajinarioa jarraitzen dut, baina ezinezkoa da, marra amaitzen delako, marrak leku **intransitableetara** naramalako, marra bitan banatzen delako. Joseba Sarrionandia

---

**intrantsigente** *(orobat* ***intransigente****)* *izond* amore ematen ez duena.

Ordutik erabaki nuen gai horretan terrorista bat bezain **intrantsigentea** nintzatekeela. Itxaro Borda

Ortodoxia nagusi **intrantsigenteak** ez bezala, [...]. Joxe Azurmendi

Gogorrenak, **intransigenteenak** ez dira izan gerran sartuen egon direnak. Joxerra Garzia

Bera oso **intrantsigentea** da, eta, auskalo, agian bota egingo luke Toshiro. Bernardo Atxaga

Abertzalego suhar zein **intransigentearekiko** identifikazio hurbilegia mendratzen bide du euskararen hedapena. Berria - Kultura

---

**intrantsigentzia** *(orobat* ***intransigentzia****)* *iz* amore ez ematea, amore eman ezina.

Eliz agintari batzuek egoera ikusi zuten bezala, elizei geratzen zitzaien itxaropen bakarra erabateko **intrantsigentzia** zen. Iñaki Mendiguren

Errege katolikoen denboretan iritsi baitzitzaigun uholdea, **intransigentziaren** eta pertsekuzionearen uholdea. Joan Mari Irigoien

Marokoren **intrantsigentzia** salatu zuen. Berria - Mundua

---

**intrantsitibo** *izond* iragangaitza.

Aditz **intrantsitiboaz** deklinatzen da maitemina, zeure gogo-gabea bailitzan. Pako Aristi

---

**intraokular** *izond* begi barnekoa.

Glaukoma: Kalamuak begi presio **intraokularra** jaisten du eta glaukoma saihesteko egokia izan daiteke horregatik. Berria - Harian

---

**intraszendente** *izond* garrantzigabea, gorabehera gabekoa.

Erantsi nahi nuke *Ostegunak*-eko ipuinak, *per se,* literarioki erabat **intraszendenteak** direla, divertimento bezala ere funtzionatzen ez dutenak. Jon Arretxe

---

**intrauterino** *iz* umetoki barnekoa.

Eta sorterrira itzultzeko gogo hori erein zuen gugan [...] Orozkoko Itakara itzultzeko behar hori, eta edozein psikoanalistak esango lizuke hori bizimodu **intrauterinoa** errekuperatzeko gogoa dela... Joseba Sarrionandia

---

intres ik **interes**.

---

**intriga** **1** *iz* kantakizun batean jakin-mina pizten duten osagiak.

Flaubert-en liburuan erabat desagertu da **intriga,** desagertu da abentura: ez da istoriorik kontatzen. Juan Garzia

Nire testigantza hau ez da eleberri bat, **intrigarik** ere ez du -egia da, bestaldetik, **intriga** ez dela beti garrantzizkoena eleberrietan [...]. **Intrigazko** nobela on batean bezala. Karlos Zabala

Abenturazko liburuak, **intrigazkoak,** poliziakoak eta zientzia fikziozkoak. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Ondo idatzitako **intriga** -nobeletan ohi bezala. Rafa Egiguren

Cornelia Funkeren 'Lapurren Burua' abentura eta **intriga** liburua. Berria - Kultura

Baina, hala ere, gelditzen da **intriga** -puntu bat: Carbayok, Borgesek Tukumangoa akabatuko zuela jakinik, nola ez zekien, ordea, Mendizaleak edo Pioletadun Hiltzaileak bera akabatuko zuela? Jon Alonso

**3** azpijokoa.

Badakit konspirazioak, konplotak eta **intrigak** oso modan daudela. Fernando Morillo

Askatasuna jauregi- **intriga** batek eman dion herri baten bozkario denboraz kanpoko eta prekarioa. Juan Garzia

---

**intrigante** *izond* azpijokaria.

Ez du agerian uzten, iradoki egiten du, eta haren metodoak, zurbil eta koloregabea, ezin du arrakastarik izan bere tankera bereko gizonekin ez bada, arrazoiak onar ditzaketen **intriganteekin,** politikariekin. Monika Etxebarria

---

**intrigategi** *izond adkor*

Guk iratzarria izan arren, **intrigategi** handi bat legez ulertzen zuen Jean Claudek jardun politikoa. Koldo Izagirre

---

**intrigatu,** intriga(tu), intrigatzen da/du *ad* jakin-mina piztu.

**Intrigatu** egin ninduen izenak, ez ote zuen liburu hark nitaz ere zerbait esango? Joxan Elosegi

Halatan, gorteko jendeak kementsu hauspotzen ditu kontuok, eta elizgizon ahaltsuenen eta Inkisizioko arduradun nagusien belarrietara helarazten dira; **intrigatu** egiten dute gortean eta kantzilerietan. Anjel Lertxundi

**Intrigatuta** zegoen Matias Iduseko kale-izenekin. Unai Elorriaga

Parez pare geneukan Roth, eta nik ez nion begirik kentzen, oso **intrigatuta** nindukan-eta haren idatzi-behar sukartsuak. Anjel Lertxundi

Gaur goizean, erabat **intrigatuta,** Lincoln Memorialera jo dut berriro. Harkaitz Cano

---

**intrintseko** *(orobat **intrinseko**)* *izond* berezkoa, inguruabarren mende ez dagoena.

Begiradaren balio **intrintsekoa**. Sare kontzeptuala deskribatzen da diskurtsoaren erregulartasun **intrintsekoetatik** irtenda. Xabier Arregi

Gizakitik geratzen den gauza bakarra bere izaera da, bere animalia-alderdi **intrintsekoa** eta horregatik bereganatu du mendekuak halako indarra. Berria - Kultura

**Intrintsekoak** erraten dut, estrintsekoa dena baztertzeko, hots, ideiaren eta honen objektuaren arteko egokitasuna izendatzeko. Piarres Xarriton

---

**intrintsekoki** *adlag* berez.

Arrazoimenaren lorpen epistemikoak ezin koka daitezke esparru analitiko a priorian, gertaera historiko eta sozialetatik haraindi, **intrintsekoki** eta berez razionalak balira bezala Askoren artean

---

**intro** *iz* sarrera.

Zazpi kantu oso eta **intro** bat eskaintzen ditu zuzeneko disko honek. Berria - Kultura

*Una mujer rota* kantu berriaren **intro** luzea. Berria - Kultura

---

**introbertsio** *iz* barrenkoitasuna.

Espresionismoa **"introbertsiora** daraman, eta errealitate enpirikoarekiko harreman arrazional eta nahimenezko guztiak desegiten dituen autismo baten eraginpean erortzen da, etikoki eta intelektualki antzua den kontenplazio batera kondenatzen du artista". Josu Zabaleta

---

**intromisio** *iz* tartean sartzea.

Horixe pentsatzen dute, **intromisio** lazgarria izan zela hura, guztiz salagarri eta arbuiagarria, zaila baita pentsatzea, inoren mesedetan aritu zirenik liskar haietan eskuhartu zutenak. Hasier Etxeberria

Politiko bat baino gehiagorengandik entzun izan dira Euskal Herriari bere hitz propioa, **intromisiorik** gabea eta bere buruaren jabea, aitortu xedean oinarritutako hautagai zerrenda bateratuak, kontsentsuatuak, osatzearen aldeko adierazpenak. Berria - Euskal Herria

Positibista Logikoek psikologia egiteko modu **"introspektiboa"** gogor kritikatu zuten Askoren artean

---

**intron** *iz* ADN segmentua, genean dagoena baina proteinaren inongo zatirik kodetzen ez duena. ik **exon**.

Proteinak kodetzen dituzten sekuentziak -exonak- etenez, badira, gehien-gehienetan, sekuentzia ez-kodetzaile batzuk -**intronak**- tartekatuak. Juan Garzia

Ez dagokie genearen segmentu ez-kodetzaile edo **intronei**. Juan Garzia

Intronak eta inguruko ADN **segmentuak** zeinahi moldetakoak izan daitezke, kasuan kasu. Juan Garzia

---

**introspektibo** *izond* introspekzioari dagokiona. ik **introspekzio 2**.

Erantzunak sentimen-esperientziara eta esperientzia **introspektibora** jotzen du. Askoren artean

Heldutasun handiko koreografia honetan mugimenduaren alde aratz eta **introspektiboak** izan dira nagusi. Berria - Kultura

Positibista Logikoek psikologia egiteko modu **"introspektiboa"** gogor kritikatu zuten, haien ustez publikoki (intersubjektiboki) kontrastagarriak ez diren terminoek ez baitute inolako esanahirik. Askoren artean

Zenbait gauza "barrutik" bakarrik ezagut daitezkeelako, **introspekzioz:** "Some things can only be understood from the inside". Askoren artean

---

**introspekzio** 1 *iz* norbaitek bere barnea eta gogo aldarteak aztertzea.

Garai hartan, ustea zebilen autistaren adimena ez zela gai ez bere burua ez beste inor ulertzeko, eta, horrenbestez, ez **introspekzio** ez erretrospekziorako ere. Aspergerren sindromean, berriz, badago auto-kontzientzia, eta **introspekziorako** eta kontaketarako ahalmen nolabaiteko bat ere bai, behintzat. Xabier Olarra

**introspekziorako** biderik ederrena. Bernardo Atxaga

Nork bere esperientziatik abiatu behar du, **introspekzioa** egin eta egiatan barnean duzun hori atera behar duzu. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **introspektibo**.

Batetik, bera da zer den pentsatzeko **introspekzio**-ahalmena duen izaki bakarra. Irene Aldasoro

Aprioriko ezagutzaren kasuan, horren justifikazioak ez du zerikusirik esperientziarekin -sentimen, memoria edo **introspekzio**-esperientziarekin-. Askoren artean

Pascalen **introspekzio** antropologia espiritualaren gailurrarekin. Askoren artean

---

## **intrusio** *iz* bidegabe sartzea. ik **sarkinkeria**.

Baffinek, uharteko lehen esploratzailea zen partez, segur aski **intrusiotzat** jo zuela gure etorrera. Bernardo Atxaga

**Intrusio** honek, gogoeta gorenak eta ondorio lasaigarrienak eragiteko eszena hartan, beren urratsa mantsotu zuen. Anton Garikano

---

## **intrusismo** *iz* bidegabe sartzea. ik **sarkinkeria**.

**Intrusismorik** gabeko giroan, oligopolioak sortutako keak airean. Berria - Kirola

Bikandik ere trikiti irakaskuntzako **intrusismo** hori salatu zuen. Berria - Kultura

---

## **intruso** *izond/iz* sarkina.

Txantxangorri **intrusoak** aldegin nahiko ez balu, burrukarako prest dagoela adieraziko dio lurraren jabe zaharrari, eta bien arteko burruka gaizto batek erabakiko lurraldearen jabe eta nagusi zein gelditu. Patziku Perurena

Ez zuen adorerik izan, gainera, manpara pixka bat zabaldu eta **intrusoa** nor zen begiratzeko. Unai Elorriaga

Andere batek parrokoarengana jo omen zuen galdetzera ea ilunpetan nola bereiz zezaketen emakumeek **intruso** lotsagabea eta senarra. Xabier Olarra

---

## intsegurtasun ik **insegurtasun**.

---

## intseguru ik **inseguru**.

---

## **intsektiboro** *iz* intsektujalea.

Diskoa osatzen duten zortzi kantuak *KW Nuklearra, Danger, Sumiso, Bat eman eta bi hartu, Stoner,* ***Intsektiboro,*** *Denbora* eta *Herri politizatua,* taldearen beste batzuekin batera. Berria - Kultura

---

## **intsektizida** *iz* intsektu-hiltzailea.

DDT **intsektizida** erabili nahi dute malaria zabaltzen duen eltxoa hiltzeko. Berria - Gaiak

Kirol-hegazkin batek **intsektizida** barreiatuko balu bezala. Javi Cillero

Guri zer nork bota duen **intsektizida** ! Joxemari Urteaga

**Intsektizida** edo pestiziden beharrik ez izateko. Berria - Gaiak

**Intsektizida** bik umekiei kalte egiten dietela baieztatu dute Estatu Batuetan. Berria - Gaiak

Berun tetraetiloa (gasolinak eduki ohi duena) eta *paration* **intsektizida,** berez toxikoak ez izanagatik, oso konposatu pozoitsu bihurtzen dira gibeleko entzimen eraginez. Irene Aldasoro

Zilborresteko odolean **intsektizida** maila zenbatekoa den neurtu zuten Berria - Gaiak

---

## **intsektu** **1** *iz* animalia artropodoa, sei hanka dituena eta gehienetan hegoduna dena, itxuraldaketak jasaten dituena.

Beroaldiak **intsektuak** ugaritzen dituenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Badut ingelesezko hitz bat buruan bueltaka, **intsektu** bat lanpararen inguruan bezala. Karlos Zabala

Gizona hantxe egongo zen uzkurturik **intsektu** bat bezala. Xabier Olarra

Armiarmak harrapaturiko **intsektu** bat bezala. Juan Garzia

Duela bi urte […] dendatxo lotsagabe batek erakusgai zuen, artean ere, Tu-pu-nez, **intsektuak** hiltzeko produktuaren iragarki bat. Monika Etxebarria

**Intsektuen** ziztadak ere ohikoak izaten dira garai honetan. Berria - Harian

*Pyrophorus* generoko **intsektu** bat dela. Jon Alonso

Atomotxoa han da, **intsektuaren** mila begietariko batean. Juan Garzia

Oro har, munduko animalia espezie guztien hiru laurdenak **intsektuak** baitira. Berria - Euskal Herria

**Intsektua** ernaldurik gertatzen da, arrautzak jartzen ditu eta hiltzen da. Juan Garzia

**Intsektuaren** larbak [...] petrolio putzu txikietan bizi ohi dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Efemeropteroak **intsektuen** arteko ordena bat dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (izenondoekin)

Larba horietatik imagoa jaiotzen da, itxuraldaketa edo metamorfosiaren bidez **intsektu** heldu bihurtuko dena. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Intsektu** argi-emaileak dira. Jon Alonso

Litekeena da fosila **intsektu** hegalari batena izatea. Berria - Gaiak

Gergor Samsak, ohean zetzala, bere burua **intsektu** izugarri bat bihurtuta ikusi zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Kakalardoak (hau dugu koleopteroen familiako **intsektu** beltz bat) zilatzen du zumarraren enborra. Herria

Ezin ihes egin eskualde zingiratsu horren bazter guztiak betetzen dituzten **intsektu** dipteroen ziztadei. Karlos Zabala

**3** zomorroa.

Lau zangoko beste **intsektu** hegadun guztiak debekatuak dituzue. Elizen arteko biblia

**Intsektu** eta tximeleta bildumak egiten baitzituen bere txolarteetan. Joan Mari Irigoien

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Amazoniako oihaneko zuhaitz bakar batek 1.500 **intsektu** -espezie eduki ditzake bere baitan!. Jon Muñoz

Europako beste zenbait herrialdetan ere agertu da **intsektu** mota hori. Berria - Gaiak

**Intsektu** hodeiak nekazaritzan kalterik ez duela eragin. Berria - Gaiak

Gizonak bakar-bakarrik, [...] ahoa zabalik, beren **intsektu** -mihia hegoak astintzen doala. Monika Etxebarria

Gogoan ditut haren koaderno koadrikulatuak [...] tipografia-ikur bitxiak eta **intsektu** -letra hura. Juan Garzia

**ints** *(orobat* ***intsektu-jale****)* *iz* intsektuak janez elikatzen dena.

**Intsektujaleak** . Xabier Olarra

Horrela, babestuta geratzen da arrautza, **intsektu** -jaleek ez baitute ikusten han barruan dagoen arrautza. J.M. Olaizola "Txiliku"

**intseminatu**, intsemina, intseminatzen *(orobat **inzeminatu**)* **1** du *ad* harraren hazia emearen obulura helarazi.

Artifizialki **intseminatzeko** ere espermatozoideak ezinbestekoak baitira. Ramon Saizarbitoria

**2** (era burutua izenondo gosa)

Axuriak burrustan sortzen ari baitira bereziki ardi **inzeminatu** horietan. Herria

---

**intseminatzaile** *(corpusean **inzeminatzaile** soilik)* intseminatzen duena.

Azkenean, hasi ziren **inzeminatzaile** independiente batzu biziki merkeago, 94-ean osatu zuten hauek AGP elkartea. Herria

---

**intseminazio** *(orobat **inzeminazione** eta **inzeminazio** g.er.)iz* intseminatzea.

**Intseminazio** artifizala, *in vitro* ernalketa eta espermatozoide-injekzio intrazitoplasmatikoa (ICSI). Berria - Harian

**Intseminazioak** badu muga; *in vitro* ernalketak ez hainbeste. Berria - Harian

Umea **intseminazio** artifizialaren bidez sortua izan balitz. Ramon Saizarbitoria

Bazen Ann Arbor-eko aldirietan **intseminazio** artifizialeko klinika bat. Oskar Arana

**Intseminazio** *post mortem*-a hildako gizon baten izoztutako hazia erabiltzea emakume bat ernaltzeko. Berria - Gaiak

Hura baino lehen izan ziren beste **intseminazio** teknika batzuk. Ramon Saizarbitoria

AGP **inzeminazione** elkartea. Herria

Gaur egün 14 langile dütü, *prodüzio eta **inzeminazioa*** sailean. Herria

---

**intsentsatu** *izond* zentzugabea, burugabea.

Zer genioen jakitetik izen, ideia eta kontzeptu **intsentsatuetara** erori gara. Iñaki Segurola

---

**intsentsu** **1** *iz* gai erretxinaduna, erretzen denean urrin gozoa barreiatzen duena eta batez ere elizkizunetan erabiltzen dena.

Beren kutxatilak zabalduz, eskuerakutsiak eskaini zizkioten: urrea, **intsentsua** eta mirra. Elizen arteko biblia

Sagarapenetarako gantzuketa-olioa eta **intsentsu** usaintsu garbia ere prestatu zituen. Elizen arteko biblia

Eta **intsentsua** erre ohi zuen Jaunaren aitzinean zegoen aldarean. Elizen arteko biblia

Berak ere muinoetan eskaini ohi zituen opariak eta erretzen **intsentsua**. Elizen arteko biblia

Erre-opariak eta **intsentsua** eskaintzen zituzten. Elizen arteko biblia

Jaunaren aurrean, **intsentsua** ikatz gorietara botako du. Elizen arteko biblia

Ez dio oliorik isuriko gainera, ezta **intsentsurik** ezarriko ere. Elizen arteko biblia

**Intsentsuz** beteriko ontzi ketsu bat zeramala agertu zen. Lopez de Arana

*ik beherago* 3. Askoren artean

Abegi ona **intsentsuaren** usaina bezala nonahi sumatuko duzu. Gotzon Garate

Higuingarri zait **intsentsuaren** lurrina. Elizen arteko biblia

Egiaren aldareko **intsentsu** mareagarri horrek. Anjel Lertxundi

**Intsentsua** erretzea autoaren ihes-hodiaren muturrean arnastea bezala da. Berria - Gaiak

Jolas bat zen, euren buruari **intsentsua** emateko erabat, baina ez zuten neurtu euren ausardia noraino iristen zen eta benetako jainkoak (Zeus eta Hera) haserretu egin ziren J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Bi eskukada **intsentsu**-hauts usaintsu hartuz. Elizen arteko biblia

Handik laster eliza batean sartu zen eta orotan barreiaturiko **intsentsu** usainak haurtzarora eroan zuen: negar gutizia piztu zitzaion. Itxaro Borda

Ezkoargi sagaratuak bezalako zurbil ageri zen eta **intsentsu**-sutontzi gisako dirdai biguna zerien begiei. Juan Garzia

*ik beherago* 3. Askoren artean

**Intsentsu**-keak egoitza santuan bezala. Elizen arteko biblia

**Intsentsu**-kiribilak erabat desagertuak zirenez, errazago hartzen zuen arnasa Ruche jaunak. Jon Muñoz

Eskuak bildurik, erretzen ari ziren **intsentsu** makiltxoak atxikitzen zituen. Ramuntxo Etxeberri

**Intsentsu**-ziriak. Xabier Olarra

Mirrari aldaxka bat jaiotzen zaio, **intsentsu**-alea daraman kimua. Joan Mari Lekuona

Arratsaldeko **intsentsu**-eskaintza egin ohi zen ordu berean. Elizen arteko biblia

Bai eta zenbat urre garbi behar zen **intsentsu**-mahaia egiteko ere. Elizen arteko biblia

Tenpluko sala handira sartu zen, **intsentsu**-aldarean intsentsua erretzeko asmoz. Elizen arteko biblia

**3 *intsentsu ontzi***

Har ezazue denok zeuon **intsentsu**-ontzia, nork berea, eta intsentsua jarrita aurkez ezazue Jaunaren aurrean. Jose Antonio Mujika

Intsentsua erretzeko **intsentsu**-ontzia eskuan zuela. Elizen arteko biblia

Isur-opariak egiteko ontziak, azpilak, urrezko **intsentsu**-ontziak, oihala eta koroak ostu zituen. Elizen arteko biblia

Urre nahiz zilar hutsezko tresnak hartu zituen: **intsentsu**-ontziak eta ixipu-ontziak. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta intsentsu** (17); **intsentsu aldarea** (7); **intsentsu eskaintza** (3); **intsentsu eskaintza egin** (3); **intsentsu eta** (8); **intsentsu guztiarekin** (3); **intsentsu guztiarekin batera** (3); **intsentsu ontzi** (3); **intsentsu ontzia** (7); **intsentsu ontziak** (7); **intsentsu usaina** (8); **intsentsu usaintsua** (5); **urrezko intsentsu** (4)

**arrotzei intsentsua** (7); **arrotzei intsentsua erre** (3); **aurrean intsentsua** (5); **baali intsentsua** (3); **beren jainkoei intsentsua** (3); **egin eta intsentsua** (3); **ereginari intsentsua** (3); **eskaintzen eta intsentsua** (5); **eta intsentsua** (34); **eta intsentsua erre** (5); **eta intsentsua erretzeko** (4); **eta intsentsua erretzen** (6); **eta intsentsuaren** (3); **gainean intsentsua** (3); **intsentsua ere** (3); **intsentsua erre** (22); **intsentsua erre eta** (5); **intsentsua erre ohi** (3); **intsentsua erretzeko** (15); **intsentsua erretzeko aldareak** (3); **intsentsua erretzen** (23); **intsentsua erretzen jarraitu** (3); **intsentsua errez** (3); **intsentsua eskaini** (3); **intsentsua eskaintzeko** (4); **intsentsua eskaintzen** (3); **intsentsua eta** (13); **intsentsua eta mirra** (3); **intsentsuaren usaina** (4); **jainko arrotzei intsentsua** (7); **jainkoei intsentsua** (5); **opariak eta intsentsua** (4); **zeruko ereginari intsentsua** (3)

---

**intsignia** **1** *iz* pertsona, talde eta kidekoen adierazgarria eta ezaugarria den ikur edo gauzakia.

Slytheringoen zutoinen atzean, ordea, berrehunen bat lagunek **intsignia** berdeak zeramatzaten. Hagrid ikusi zuen, bularra **intsignia** gorriz estalita. Iñaki Mendiguren

Bibote luzea zuen, urre kolorezko botoiak ageri zituen jakan, eta **intsigniak** kapelan. Koro Navarro

Panazko uniformea zeraman, primeran doitua, Rainbow Division izenekoaren **intsigniez** apaindua eta xingolez eta galoiz hornitua. Lopez de Arana

"Jugoslavian lan egiteko", erantzun zioten berehalaxe mutilek, botoi-zuloan komunisten **intsignia** baitzeramaten eta harro zeuden harengatik. Josu Zabaleta

Gonzalez Txabarrik Gipuzkoako ohorezko **intsignia** jarri zien ahaldun nagusiei. Berria - Euskal Herria

Urrezko **intsignia** bazkide gisa 50 urte egin dituztenei. Berria - Kirola

Realak denboraldiaren amaieran urre eta harribitxizko **intsignia** jarriko dio, «lehen taldean hamar denboraldian jokatzeagatik». Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Konstantinoplan urruti zegoen Anastasio enperadoreagandik prokontsul-titulua eta kontsul-**intsigniak** eskuratu zituen. Iñaki Mendiguren

Pontifize-**intsigniez** apaindua, urrez bordaturiko eta harribitxi zizelkatuz ederturiko jantzi sakratuak ditu soinean. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta harribitxizko intsignia (3)

---

## **intsinuatu**, intsinua, insinuatzen du *ad* iradoki, hitz erdika esan.

Nik ez nuen ezer **intsinuatu,** ezer adierazi. Joxean Agirre

Beren hegada pausatu eta ero samarraz zeru-sabaian lorratz ikusezinak **intsinuatzen** dituzten kalatxorien txilioak. Xabier Mendiguren Elizegi

Nik **intsinuatu** nuen haren harrotasuna jo zitekeela, agian, akastzat. Iban Zaldua

---

## **intsinuazio** *(orobat **insinuazio** g.er.)* *iz* iradokizuna, hitz erdia.

Sara eta bion artean ez baitziren **intsinuazioak,** keinuak eta aieruak baizik izan. Joan Mari Irigoien

Xehetasun asko ditu konposizioak, eta «beste musika batzuen **intsinuazioa»** azpimarratu zuen Letek. Berria - Kultura

Berez eta ez **insinuaziozko** jolas zuhur batez adierazkorrak ziren hitzak. Jon Alonso

---

## **intsolazio** **1** *iz* eguzki kolpea.

Zehazki zer gertatu zitzaion jakin nahi izango zuten, bihotzekoa ala **intsolazioa**. Joseba Urteaga

Beste 559 lagun osasun arazoengatik hil ziren, batez ere **intsolazioak** jota. Berria - Mundua

Larri zeuden, **intsolazio,** egarri eta gosearen eraginez. Berria - Harian

**2** (meteorologian) eguzkialdia.

Taula baten begiratuz, hiruko erregela medio, eguneko **intsolazioa** zenbatekoa den kalkulatu... Pello Zabala

---

## **intsonorizatu**, intsonoriza, intsonorizatzen **1** du *ad* hotsgabetu.

Musika entzuteko **intsonorizatutako** gela bat. Josetxo Azkona

Hormak-eta **intsonorizatuak** daude, eta telebista ere baxu egoten da. Joan Mari Irigoien

**2** (era burutua izenondo gisa)

Sabai **intsonorizatuari** so gelditu nintzen. Aingeru Epaltza

Begiak kafetegi zaratatsuko goialde **intsonorizaturat** zuzendu nituen, zeruari pazientzia eske. Aingeru Epaltza

---

## **intsula** *iz lit* uhartea.

Mississippiren deltako beso ugarietako batean antolatu zuen bere gotorlekua, Baratariako **intsula** edo uhartean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Balizko erroten kontra borrokatzen lagundu ziolako bere nagusiak **intsula** bat oparitu zion eskudero haren istorioaren berri balu bezala. Harkaitz Cano

---

## **intsuldatu**, intsulda, intsuldatzen du *ad* diru kopuru bat kontu batetik beste batera aldatu.(irud)

Orduantxe sortzen dira legeak, Protagorasek ere onartu digunez, indarrezko egoera hori **intsuldatzeko**. Askoren artean

---

## **intsulina** **1** *iz* odoleko azukrea kontrolatzen duelako diabetearen aurka erabiltzen den proteina hormona.

Gorputzak ez duela ekoizten behar beste **intsulina** odolean daukagun glukosa maila kontrolatzeko. Berria - Gaiak

**Intsulinarik** gabe ez dago odoleko glukosa metabolizatzerik. Berria - Gaiak

Zelula horiek **intsulina** sortzea dute eginkizun. Berria - Gaiak

**Intsulina** ekoizten duen ehuna sortu dute, sagu baten zelula pankreatikotik abiatuta. Berria - Gaiak

Hamar urte barru **intsulina** egiteko gai diren zelula amak txertatu ahal izango zaizkie diabetikoei. Berria - Gaiak

Indizio batez **intsulina** gainezka eman omen zion. Gotzon Garate

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Urte horretan Sunny von Bulow **intsulina** koma batean sartu zen. Gotzon Garate

Solek lau urte daramatza kartzelan eta diabetikoa izanik, **«intsulina** grebari» ekin dio. Berria - Mundua

Tratamentu kardiobaskularrari eta **intsulina** injekzioei uko eginez. Berria - Mundua

· *izond* Zelula **intsulina**-ekoizleak areako zelula ametatik sortzen dira gure gorputzean. Berria - Gaiak

**3** ***intsulina-mendeko*** *(orobat **menpeko**)*

Horietako kasu bat I motako diabetes mellitus-a da, eta zehatzago **intsulina** menpeko diabetes mellitusa. Berria - Gaiak

Bada era horretako joera mordoa, halako edo halako HLA haplotipoarekin loturikoa; besteak beste, haurraren diabetes **intsulinamendekoa** eta hemokromatosi idiopatikoa, burdinaren metabolismoaren gaitz larri samarra Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta intsulina (3); intsulina ekoizten (6)

---

**intsumisio** **1** *iz* nahitaezko soldadutzari uko egitea.

*Armada Invencible* delakoaren garaian **intsumisioa** itzela zen. Markos Zapiain

1961ean, "121en manifestu" ospetsua izenpetu zuen, Aljeriako gerrari **intsumisioa** egiteko eskubidearen aldekoa. Monika Etxebarria

**2** lege jakin bat betetzeari uko egitea

«Frantziako eta Espainiako estatuen inposizioaren aurkako» **intsumisioaren** aldeko borroka. Berria - Euskal Herria

«Trebiñu Euskal Herria da, muga inposatuei **intsumisioa»** zioen pankarta ezarri zuten. Berria - Euskal Herria

Hiru mila emakumetik gora batu ziren Bilbon derrigorrezko zaintzari **intsumisioa** egiteko eskatzen zuen pankartaren atzean. Berria - Harian

**2** (hitz elkartuetan)

**Intsumisio** kanpaina abiatu zutenetik, hainbat eta hainbat ekintza egin dituzte Segiko gazteek. Berria - Euskal Herria

**intsumisio** ekimenak antolatzen. Berria - Euskal Herria

Euskal naziotasunaren aldeko **Intsumisio** Eguna. Berria - Euskal Herria

Bretainiako **Intsumisio** Mugimenduko eledun ohi Alan Couraudek. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **derrigorrezko zaintzari intsumisioa** (3); **intsumisio astean** (3); **intsumisio eguna** (3); **intsumisio egunaren** (3); **intsumisio ekimenak** (3); **intsumisio jarrera** (3); **intsumisio kanpaina** (5); **intsumisioa egin** (3); **intsumisioaren aldeko** (5); **intsumisioari buruzko** (6)

---

**intsumiso** **1** *iz* nahitaezko soldadutzari uko egiten dion pertsona.

Ekintza haren errua **intsumisoei** edota feministei egoztea ere ez zaie bidezkoa iruditu. Karlos Linazasoro

Gernika-Lumoko **intsumisoei** babes ofizial eta publikoa eskaintzea. Berria - Euskal Herria

Epaitegian erdaraz egiteari uko egiten dioten 2.000 **intsumiso** daude dagoeneko Gernikan. Berria - Euskal Herria

**Intsumisoak** dira, oso modu baketsuak erabiltzen dituzte dauden gabeziak azaleratzeko. Berria - Euskal Herria

Abokatuek erran nahi izan zuten **intsumiso** nintzelako sartuko nindutela kartzelan, baina hori ez zen egia. Edurne Elizondo

**2** lege jakin bat betetzeari uko egiten dion pertsona.

Konstituzioarekiko **intsumiso** deklaratu zituzten beren buruak. Berria - Harian

**3** (hitz elkartuetan)

Berak, ordea, aurrez epaitegi horren aurrean **intsumiso** jarrera hartua zuen, eta ez zen joaten sinatzera. Berria - Euskal Herria

• **3** *izond* gizartearen hertseketen aurrean amore ematen ez duena.

Artista gehienak Oteizaren aldekoak dira, artista **intsumisoaren** eredua erakutsi zielako. Berria - Kultura

«Gazte mugimendu **intsumisoa»** antolatzea du helburu behinena Segik. Berria - Euskal Herria

Identitate arrotzen kontrako jarrera **intsumisoak**. Berria - Euskal Herria

Urraketa horren aurrean jarrera **intsumisoa** hartu duen beste inor atxilotzen badute. Berria - Euskal Herria

· Euskal Udal **Intsumisoen** Mankomunitatea. Berria - Euskal Herria

**4** (adizlagun gisa)

Hala eta guztiz ere, Donatienek tinko jarraitzen du, borrokalari, **intsumiso**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aurrean intsumiso jarrera** (3); **horren aurrean intsumiso** (3)

---

**intsumitu** *iz/izond* intsumisoa.

**Intsumitu** gehiago lortzeko ahalegina egiteaz gainera, [...]. Berria - Euskal Herria

Gobernu militarraren aurrean, **intsumitu** talde bat bildu zen beren egoeraz protesta egiteko. Txema Ramirez de la Piscina

Naziotasunaren, lurraldetasunaren eta autodeterminazioaren eskubideen inguruan dinamika **intsumitua** antolatzea. Berria - Euskal Herria

EUDIMA Euskal Herriko Udal **Intsumituen** Mankomunitateak Gasteizko Andra Mari Zuriaren jaietan egitekoak diren erakustaldi militarra gelditzeko eskatu dio Alfonso Alonso Gasteizko alkateari.

---

intsurgente ik **insurgente**.

---

**intsusa** *(orobat **intxusa**)* **1** *iz Caprifoliaceae* familiako zuhaixka, zura oso arina eta fruituak mulkoetan dituena.

Otsaihenak **intsusen,** otsalizarren eta hurritzen behealdea itotzen zuen. Jose Morales

Den-dena aprobetxatzen baita **intsusatik:** hostoak, loreak, freskotan bezala ihartuta, fruituak, azal-mintza barrukoa... zer ez? Pello Zabala

Akazia zuria eta **intxusa** bereizten ez zekiten bi hiri-haize emango genuen. Anjel Lertxundi

Lasai ari dira jolasean **intxusa** erne berrien pean. Josu Zabaleta

Judasek **intsusatik** zintzilik urkatu zuen bere burua. Pello Zabala

Deabrua etxean sartzea omen zen **intsusa** erretzea. Pello Zabala

**Intxusen** kimue egosi, eta aren lurriñen jarri begiak eta sendatzen da begiko miñe. Pello Zabala

**2** intsusaren zura.

Haurtxo bat **intsusaz** egindako sehaskan ipiniko balitz, haren galera izango litzateke, ubelduraz eta atximurrez belztuta utziko lukete sorginek. Pello Zabala

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **intsus**)

Lorategi hark, gainera, lili- eta **intsusa**-zuhaizti txiki bat zeukan baratzearekin bat egiten zuen lekuan. Koro Navarro

Satorrak lurra erabili eztezan, satorra dagoan tokian **intxusa**-adarrak sartzen dituzte. Pello Zabala

Erredurak eta kimio-saiotan ahuldu eta erretako azala goxatzeko probatu duenak, badaki zer den **intsus**-ukendua. Pello Zabala

**4** ***intsusa beltz*** mulko ale-beltzak dituen intsusa.

Aspaldidanik, eta kultura askotan, sorginekin lotua dator **intsusa** beltza: ukendu eta botiken sekretu sortarengatik, akaso? Pello Zabala

**Intsusa** beltzaren urteko adar lerdena. Pello Zabala

**5** ***intsusa lore***

**Intsusa**-loreak ere asko balio du: aundituta aide-miñe daukenean **intxusa**-lorak egosi eta aan lurriñe artu. Pello Zabala

Eta, zaurian emateko, botika miragarri bat, kobre-sulfatoa, ‰1ean, **intsusa** loretan. Imanol Zurutuza

Erreka inguruan, uraren soinuak eta **intsusa** lorearen gozoak eternalak dirudite. Pello Lizarralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta intsusa** (4); **intsusa beltza** (3)

---

# intsusti *iz* intsusa saila.

Ez zuen fama batere onik **intsusti** bateko lore usain sarkor berezi horrek: herioa zekarrela uste zuten noizbait, eta hori, sendagai eta botiketarako hain egokia zela jakinik. Pello Zabala

---

# intuitibo *izond* intuizioari dagokiona. ik **intuizio 3; intuizio 5.**

Grekoen lege natural **intuitiboa**. Liburu argia da eta teoria azaltzeko hainbat adibide **intuitibo** erakusten ditu. Askoren artean

Nortasun handiko gaztea da, argia, **intuitiboa**. Askoren artean

Beraz, halako adimen baten ezagutza, giza adimen batena bederen, adigaien bidezko ezagutza da, ez **intuitiboa,** diskurtsiboa baizik. Ibon Uribarri

Zelotearen ethos berezia emozionala eta **intuitiboa** da. Iñaki Mendiguren

Eskema **intuitiboa: intuitibo** eta desordenatuak direnentzat, analisian sintesian baino hobeki defendatzen diren horientzat hain zuzen, ideiak sorraraz ditzakeen eskema da egokiena. Askoren artean

---

# intuitiboki *adlag* intuizioaren bidez.

**Intuitiboki** eta kontzeptu horri buruzko eztabaidan sartu gabe. Askoren artean

Eguneroko bizitzan ez dago zalantzarik, **intuitiboki** atzematen dugulako izaki bat bizirik dagoen ala ez. Askoren artean

Hori guztia **intuitiboki** nekien. Ramon Saizarbitoria

**Intuitiboki** esanda, burmuina den organo berezi horrek sortzen duena, edo sor dezakeena, da gogoaren erreinukoa. Askoren artean

---

# intuitu, intui, intuitzen du *ad* intuizioa izan.

Droga horrekin kontuz ibili behar nuela **intuitu** nuen hamabost urterekin, eta geroztik beti kontuan izan dut. Patziku Perurena

Ukatzen du, beraz, edertasuna, edo hori zuzentzen duten erregelak, razionalki **intuitu** egin ditzakegula. Askoren artean

Haren asmoa **intuitzen** jakin nuelako. Ramon Saizarbitoria

---

# intuizio *(orobat **intuizino** g.er.)* **1** *iz* senaren bidezko ezaguera edo hautematea, berehalakoa eta arrazoibideaz kanpokoa. ik **sen[1] 4.**

Senak gidatzen du, **intuizioak**. Juan Garzia

**Intuizioak** ez dit huts egin. Iban Zaldua

**Intuizioak,** ordea, ez dio askotan kale egiten. Iban Zaldua

**Intuizioari** kasu egin zion zientzialaria. Berria - Harian

Horretarako nire **intuizioan** fidatzen naiz. Ana Urkiza

Konfiantza falta dago norberaren **intuizioan**. Iñaki Iñurrieta

Ez da Makelele bezain indartsua, baina **intuizio** gehiago du. Berria - Kirola

Guk dugun Jainkoaren ezaguera intuitiboa da, edo **intuizio** hutsa, hau da, **intuizioa** baino ez. Karlos Linazasoro

Ikerketa sistematikorik egin nahi izan gabe, eta **intuizio** soiletik abiatuta, [...]. Berria - Kultura

Gizakiaren ametsen hutsaltasunaren halako **intuizio** bat. Berria - Kultura

Analisi formaldatzaileak, [...] asimetria honen azalpen erraza eskaintzen du, gramatikalariek hizkuntzari buruzko **intuizio** zuzen bati men egin diotela onartuz. Itziar Laka

Haren **intuizio** zientifikoak huts egiten ez bazion, huraxe zen La Jollako neskarik motxin-beroena. Patxi Iturritegi

**Intuizioari** lotutako nozio ilunek. Itziar Laka

Zer motatakoa da aprioriko **intuizioa**? ez-diskurtsiboa dela diote razionalistek: **intuizio** hura aipatzen dugunean ez gara ari arrazoinamendu-prozesu bati buruz, bitartekaririk gabe zerbait ezagutzen uzten zaigun gertakizun bakunaz eta zuzenaz baizik. Askoren artean

Gai zen, **intuizioz** edo, edozein zenbaki handiren biderkatzaileak asmatzeko. Xabier Olarra

Liburu bat editatu edo ez, **intuizioz** erabakitzen da. Berria - Kultura

Ez noski analisi teorikoen bidez, berezko senez eta **intuizioz** baizik. Askoren artean

**2** *pl*

Gure **intuizio** gehienak ase gabe geratzen baitzaizkigu. Askoren artean

Garai berriek eskatzen dituzten desafioei aurre egiteko **intuizio** gidariak izan ditu. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Asmamen handia behar da -maltzur-puntu bat, ia-ia-, sentsuei bistako zaien ororen aurka, **intuizio** ororen aurka, bidea egiteko. Juan Garzia

Anaia txikiaren nortasuna baieztatzen du Bigarren Erregela-k ere, Lehen Erregela-ko **intuizio** nagusiak berretsiz. Askoren artean

Uste dut egon daitezkeela euskaldun batzuk nik liburuan agertu ditudanen antzeko **intuizioak** dauzkatenak, hizkuntzaren inguruan dauden diskurtso nagusien aurrean beren buruak identifikaturik ikusten ez dituztenak eta agian beste formulazio baten bila ibil daitezkeenak. Berria - Euskal Herria

Bat-bateko **intuizioei** ez omen zaie behar duten baino garrantzi gehiago eman behar. Anjel Lertxundi

Inongo planik gabe, **intuizioei** edo unean uneko apetari jarraituz. Iñaki Iñurrieta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **intuitibo.**

Autoeraketa honen oinarriak hauek izan litezke, guztiak ere elkartearen ibilbidean **intuizio** mailan garatuak: [...]. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Garai hartan ez nuen artean ezagutzen enpresa-agirien anestesia-ahalmen izugarria, **intuizio-** zirkin oro eta asmamen-txinpart oro oztopatzeko. Juan Garzia

**Intuizio** kolpe baten zain zegoen. Berria - Harian

Baina horretarako jarrera berezia behar, aldez aurretik sumatutako **intuizio**-izpi bat... Iñaki Iñurrieta

Darabilten diskurtso dotorean **intuizio**-arrastorik ere ez duen jendea. Joxerra Garzia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emakume **intuizioaz** baliatzen zen Marga nire inteligentzia maskulinoak eragotzia zuen lekuraino iristeko. Ramon Saizarbitoria

Kalkuluz, halako errealitate batera iristen dira, non gauzek hala behar dutelako ebidentzia matematikoak muturrez mutur jotzen baitu sentsu-**intuizioaren** datu guztiekin. Zergatik kristautasunak, Jainkoa maitasun den judu-**intuizioa** onartu eta aldarrikatu ondoren, onartu ote zuen berriro horrekin bat ez datorren Jainko jeloskorraren judu-

kontzeptua? Juan Garzia

**5** ***intuiziozko*** ik **intuitibo**.

Esaldien **intuiziozko** antzekotasuna. Itziar Laka

Egia arrazionalaren eta **intuiziozko** egiaren arteko aldearen izaera. Iñaki Mendiguren

Ez direla nahastu behar **intuiziozko** ulermen hau eta geometria bera. Josu Zabaleta

Gure azken helburua, aurkeztutako gramatika bat ebaluatzeko, eta proposatutako beste gramatikekin erkatzeko bide objektiboa eskaintzea da, ez **intuiziozkoa** . Itziar Laka

Lege horiek konbinaketa erdi-enpiriko, erdi-**intuiziozkoak** dira, izatez. Josu Zabaleta

Oraindik orain egin diren aurreramenduek guztiz egiaztatzen dituzte bere garaian zientifiko baino **intuiziozkoago** ziren Filmologia eskolaren hipotesiak. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baina intuizio** (3); **bere intuizioa** (3); **buruzko intuizioa** (3); **eta intuizio** (3); **eta intuizioz** (3); **intuizio bat** (3); **intuizio eta** (3); **intuizio hori** (3); **intuizioa eta** (6); **intuizioaren aldetik** (3); **intuizioren bat** (3); **intuizioz edo** (4)

---

# intuizionismo

*iz* beste ezaguera eren gainetik lehentasuna intuizioari ematen dion ikuspegi filosofikoa.

**Intuizionismoarentzat** judizio etikoak egiazkoak ala faltsuak izan daitezke. Askoren artean

Teoria honen helburuetako bat teoria objektibistek -naturalismoak eta **intuizionismoak,** adibidez- jasandako kritikak gainditzea da. Askoren artean

**Intuizionismoak,** sentikortasun sakonak eta horrelako ideiek osatzen zuten ekimen horien erroa, naturalismoaren eta kritika sozialaren aurka. Ibon Uribarri

---

# intuizionista

*izond* intuizionismoari dagokiona.

Erabaki genezake logika klasikoan betetzen den legeren bat ez onartzea ere, esaterako, "hirugarren baztertuaren legea", hau da, •=A •-A (logika **intuizionista),** etab. Askoren artean

---

# intxaur

*(orobat **intzaur** g.er.)* **1** *iz* intxaurrondoaren fruitua, ihartu eta laster erortzen den azal berde batez, gogortzen den oskol batez eta jateko on den mami arrakalatsu eta oliotsu batez osatua. ik **eltzaur**.

Atera poltsikotik piku lehorrak, **intxaur** batzuk edo ogi zati bat, eta elkarren artean banatzen genituen. **Intxaur** jaten ari ginela. Juan Kruz Igerabide

Umea **intxaur** batzen bezala aritu nintzen. Iñigo Aranbarri

Nireak, ordea, **intxaur** batu berriak bezalakoak dira, aukera-aukerakoak denak. Jose Morales

**Intxaurrak** hausteari ekin nion, aitak erakutsi bezala, esku bakar batez. Eider Rodriguez

Nola kraskatu behar ziren etxean **intxaur** eta hurrak. Fernando Rey

Inork ez zuen **intxaurrak** kraskatzekoa aurkitzen. Irene Aldasoro

*ik beherago* 9. Askoren artean

Flash baten ondoren, ahuspez aurkitu zuen bere burua, **intxaur** baten eran kraskatu zen autotik kanpo, baso izoztu baten erdian. Harkaitz Cano

Kirrinka egin zuen oholak, **intxaur** kraskatuaren zaratuz. Jon Muñoz

Tamainaz, Brasilgo **intxaur** baten antzeko ponpoilo bat. Xabier Olarra

**Intxaur** eta txokolatezko izozki bat. Iñaki Mendiguren

Flanelazko ohe-ator zuriaren gainetik txaleko gorri bat zeraman jantzia, **intxaurren** tamainako latorrizko botoiez apaindua. Koro Navarro

Hasi gazpatxotik eta etxean egindako pekan **intxaurrezko** gozopileraino. Oskar Arana

Komunikabide berriei esker, esku-eskura ditugu orain urrutiko **intxaurrak** . Joxerra Garzia

Liluramenduak edonon egoten dira, ideologiekin ala urrutiko **intxaurrekin** . Joxe Azurmendi

Urrutiko **intxaurrak** hamalau, bertaratu eta lau. Patziku Perurena

Betidanik, zer gerta ere, lau **intxaur** eskura nahiago, urrutiko hamalauak baino. Aingeru Epaltza

· Zorro bete **intxaur** opari eman ziotela esanez. Urtzi Urrutikoeetxea

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Erromatarrek, **intxaur** aleari, giza buruaren tankera hartzen omen zioten. Patziku Perurena

Leihoan **Intxaur** eta ezti entsalada prestatu zion. Eider Rodriguez

Izozkia (txokolate, mugurdi eta **intxaur** -zatiz egina) jan bitartean. Iñaki Mendiguren

**Intxaur** puskak, ogia edo kakahueteak ipintzen nizkien. Gotzon Garate

Horren ondotik, **intxaur** -olio epela isuri zuen nire zaurien gainera. Aingeru Epaltza

Berak egindako **intxaur** -galletak zerbitzatu zituen,.Abasek osaba Kamili **intxaur** pastel zoragarri bat egiteko agindua eman zion. Mirentxu Larrañaga

Oin azpian zapaldutako **intxaur** -oskol hutsen antzera. Jose Morales

Baina gizon batek bere konpromisoak izaten ditu, ezin da beti **intxaur** oskolaren barruan bizi. Patxi Iturritegi

Ihaurkinketa lanak, babarrunparda, **intxaur,** gaztaina eta sagar bilketak. Pako Aristi

Virgil gustura egon zen **Intxaur** -kraskatzailearen emanaldian. ondoren, Changek eta *ik beherago* 9. Xabier Olarra

Bis bezala, Txaikovskiren ***Intxaur*** *-hauskailua*-tik, lehen ekitaldiko bukaera. Berria - Kultura

Mihia latz sumatu zuen, **intxaur** -birringailu baten antzera. Lopez de Arana

Bikote gazte horrek ez baitzakien lehenbizian zendako zen **intzaur** hausteko hura. Herria

**Intxaur** tankerako pilotak. Berria - Kirola

· Santa Madalena euriak, **intxaur** -gaztainak usteltzen. Pello Zabala

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Emigrazioa kola-**intxaurra** bezalakoa da: behin dastatuz gero, ez da samur bazterrera lagatzea Pablo Sastre

**4** (itsasontziaren irudi gisa)

Eta gau hartan, ilargia bete-beteta zegoela, eta txoriak lotan zeuden bitartean, bere **intxaur** -oskolean sartu (halaxe esango zukeen Francis Pretty kapitainak) eta urruntzen hasi zen. Zeren **intxaur** -azal bat bertzerik ez baikinen haize haserreen eta uhin are haserreagoen menean. Julen Gabiria

Baina Montse uholde bat zen, esana dut, eta ezer gutxi zezakeen ni bezalako **intxaur** -azal batek itsas ikara hari aurre egiteko. Joan Mari Irigoien

Egun haietan Indalexio bera ere itsasora irten zen, bere **intxaur** azalaren barruan. **Intxaur** azaltxoa zen Sinbadek askatu nahi zuen ontzia. Edorta Jimenez

**5** intxaurrondoa.

Beoten dagoen **intxaur** gainera igota ikusi zuela dantza-apustua eta Amak irabazi zuela. Xabier Etxabe

Baserri aurreko **intxaur** gainean. Xabier Etxabe

Benaibordako behi beltxa etorri, eta [...] han hasi zen **intxaur** hostoak jaten. Patziku Perurena

**6** intxaur zura.

Eibarren **intxaurra** gehiago estimatzen zen kulata eta beste egiteko. Pello Zabala

Haren ehorzketan izan nintzen; **intxaurrezkoa** zuen zerraldoa. Juan Garzia

Lacik behin esan zuenez, Nunuk berniza galdua zuen, **intxaurrezko** altzari zahar baten moduan. Ander Irizar

**7** zintzur sagarra.

Tiroidearen ertza -hizkera herrikoian **"intxaurra"** deitzen den hori- ongi nabaritzen da gizonezkoen lepoan Lourdes Oñederra

**8** ***intxaur arbola*** intxaurrondoa.

Beldur handiz **intxaur** -arbolaren puntaraino igo zen intxaurrak botatzera. Askoren artean

Apaiza balitz, oraintxe bertan labana sartu, eta, hesteak aterata, lepoaren jiran jarri, eta hor kanpoko **intxaur** -arbolatik jarriko nikek zintzilik! Inazio Mujika Iraola

**9** ***intxaur beltz***

**Intxaur** beltza zen, bizkarralde jaso-ederrarekin, eta belus granatearekin tapizaturiko ipurdikoan kutxatxo bat zeukan. Pako Aristi

Burduntzalia, **intxaur** beltzezko mahaia, Arantzazuko egutegia, telebista... irudiak pilatu egiten zaizkio begien aurrean, Pako Aristi

**10** ***intxaur kraskagailu*** *(orobat **kraskailu**)*

**Intxaur** -kraskagailua da beste palanka mota bat: mutur batean du euste-puntua, harengandik hurbil karga eta harago indarra. Irene Aldasoro

· Halaber, Tchaikovskyren ***Intxaur*** *kraskagailua,* Brahmsen Dantza hungariarra eta Manciniren *Tribute to Mancini* obrak ere interpretatuko dituzte. Berria - Kultura

*Casse-Noisette* **(Intxaur** kraskagailua) balet ezagunaren bertsio eraberritua aurkeztuko du Biarritz Balletak gaur eta bihar. Berria - Kultura

Clavelek **Intxaur** kraskailua-n oinarritutako beste koreografia batekin jarraituko du emankizunak. Berria - Kultura

**11** ***intxaur muskatu*** *Miristika fragans* zuhaitzaren fruitua, intxaur txiki baten antzekoa, janarien bizigarri erabiltzen dena.

Pipermina eta kanela, iltzea eta **intxaur** muskatua. Felipe Juaristi

Oraingoak baino askoz birringailu zorrotzagoak baliatuko dira[...] gazta, **intxaur** muskatu, zitrikoen azal... eta era guztietako elikagai izoztuak xehatzeko. Edorta Agirre

Uso arren haragi zatiekin eta **intxaur** muskatu doi batekin nahasirik egon ohi zen Selim Aluanek eguerdiro jaten zuen gari xehatua. Patxi Zubizarreta

Natilla-azpil bat, **intxaur** muskatu hautsez gaineztatua. Irene Aldasoro

**12** ***intxaur oskol***

**Intxaur** -oskolak eta zuhaitz-azala erabiltzen ziren ogia egiteko. Askoren artean

**13** ***intxaur saltsa***

Bi ordu geroago, postrea irabazia genuen: soingaineko-botoi bat... **intxaur** -saltsan. Xabier Olarra

**14** ***intxaur zur*** intxaurrondo zura.

Armairu landu bateko **intxaur** -zurezko atea berez ireki zen. Jose Morales

**Intxaur** -zur landuzko armairu beltzurietatik, han irten ziren zimitzak osteka. Juan Garzia

**Intxaur** zurezko zoru eder bernizatuak. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eta intxaur** (12); **eta intxaurrak** (7); **intxaur azal** (5); **intxaur bat** (5); **intxaur baten** (4); **intxaur eta** (8); **intxaur kraskagailua** (3); **intxaur muskatu** (3); **intxaur oskol** (3); **intxaur zurezko** (4); **intxaurrak eta** (5); **intxaurrak hamalau** (4); **urrutiko intxaurrak** (7); **urrutiko intxaurrak hamalau** (4)

---

# intxaurdi *iz* intxaurrondoak landatu diren saila, intxaurrondo basoa.

Neure **intxaurdira** jaitsi naiz, ibarretako landaretza ikustera, mahastiak kimuberritzen, granadondoak loratzen ikustera. inguruko **intxaurdi** eta olibadien lurrina. Xabier Olarra

---

# intxaurki *iz* intxaur zura.

Gurasoek **intxaurki** ilunari eta Vermont-eko marmolari gustua hartua zieten. Lopez de Arana

Argi bizi batek **intxaurkiz** apainduriko jangela hura gainezkaturik zeukan. Lopez de Arana

**Intxaurki** beltzezko bibliotekan. Lopez de Arana

---

# intxaurrondo *(orobat **intzaurrondo** g.er.)* **1** *iz* tamaina handiko zuhaitza, itzalpe handikoa eta zur oso onekoa, hostoak elkartuak eta loreak dilinda dauden gerbatan dituena, fruitua intxaurra duena *(Junglans regia).* ik **intxaur 5**.

Eskuin aldean **intxaurrondo** handia, fotoa egitean hostoz josia. Txillardegi

Atzealdeko **intxaurrondo** sendoan. Txillardegi

Plazatxo estu eta luze baten erdian, **intxaurrondo** adaburu-zabal ikaragarri bat dago. bidezidorrak, soroak, auzolurrak, **intxaurrondo** emankorrak eta hesi loratuak. Koro Navarro

Bakaiku inguruko haritzetatik eta **intxaurrondoetatik** atera du egurra bi sailetako eskulturak egiteko. Berria - Kultura

**Intxaurrondo** baten itzalean lotan gelditu zen. Askoren artean

Gure etxean, atariko koska gainean izaten ziren **intxaurrondo** koskor batzuk, aitak Artikutzatik ekarri eta aldatuak. Patziku Perurena

**Intxaurrondo** haietakoren baten itzalean etzanez gero. Patziku Perurena

**Intxaurrondoaren** motzondoa erdibituta zegoen, haizemaile baten antzera. Anton Garikano

Hor gaude umeok, makila luzeaz **intxaurrondoa** astintzen, eta erortzen diren intxaurrak biltzen. Joseba Sarrionandia

**Intxaurrondoaren** erro batean jarririk nago. Piarres Aintziart

Aparte samar, **intxaurrondoz** inguratuta, burdin hesi batek zaintzen zuen bere txaleta. Rafa Egiguren

Osabidea erraza da, nahi eta ahal izanez gero; baina berarentzat [...] urrutiko **intzaurrondoa** bezalakoa da. Jose Angel Irigaray

**2** (hitz elkartuetan)

**Intxaurrondo** hostoz bildurik. Karlos Zabala

Hala nola lehertzen den **intxaurrondo** enbor tinkatua, edo larruzko zeruan tximista horzduna. Anton Garikano

**Intxaurrondo** -adar batekin eragiten ziela. Anton Garikano

**Intxaurrondo** -egurrez egindako su bat dauka aurrean. gelako bazter batean **intxaurrondo** -zurezko idazmahai sabel-handi bat zegoen. Anton Garikano

Gurinaren irudia, **intxaurrondo** -usaina. Anton Garikano

---

# intxixu *iz* euskal mitologiako izakia.

Zeren, etxea guztiz hertsirik zenuela sartu bainintzaizun, eta horrek ahaltsu egin ninduen, ipuinetako iratxoak, **intxisuak** eta gainerako spirituak bezainbat. Joan Mari

Irigoien

---

intxusa ik **intsusa**.

---

intzaur ik **intxaur**.

---

## intzestu 1 *iz* senideen arteko sexu harremana.

Aho batez aitortzen dute etnologoek unibertsala dela **intzestuaren** debekua. Juan Garzia

Kultura bakoitzak baditu bere arauak, zenbait elkartze mota galarazten dutenak, sarritan **intzestuarekin** lotuak. Juan Garzia

**Intzestua** gauza arrunta zen Egipto zaharrean, Juno Jupiterren arreba eta emaztea zen, mundu guztiak jotzen zuen larrua mundu guztiarekin, naturala da, **intzestua** berez txarra dela pentsatzea da artifiziala, ez dago berez deus txarrik **intzestuan,** alderantziz, Naturaren indarra da, guztiz naturala! Karlos Zabala

Komunitate batzuek lapurreta toleratzen zuten; beste batzuek hilketa; beste batzuek, berriz, sodomia, **intzestua** eta animaliazalekeria. Juan Garzia

Ia espezie guzti-guztietan etengabe gertatzen da **intzestua** -amak semeekin, aitak alabekin eta arrebak anaiekin-. Luis Elberdin

Ez utzi Danimarkako errege-ohea izan dadin lizunkeriaren eta **intzestu** ezainaren etzalekua. Juan Garzia

**2** (hitz elkartuetan)

Ahizpa, ipuinetako amaordearen alaba, itsusia bai behintzat [...]; gurasoak, **intzestu** -ezkontza eginak, ze igual-igualak ziren. Joxean Sagaztizabal

Abortuaren kontrakoa da, bortxaketa eta **intzestu** kasuetan edota emakumearen bizia arriskuan denean izan ezik. Berria - Mundua

**3** ***intzestuzko***

Aita-alaben arteko harreman **intzestuzkoen** madarikazioa. Anjel Lertxundi

Oi, lehiaren makurra, hain agudo laster egitea **intzestuzko** maindire artera! Juan Garzia

Mozkorrik lo zurrun datzala, edo amorruak harturik, edo bere oheko atsegin **intzestuzkoan,** jokoan biraoka, edo halako egintza salbazio-arrastorik ere ez dukeen batean... Juan Garzia

**4** *intzestu-egile* ik **intzestugile**.

---

## intzestugile *(orobat **intzestu-egile**) iz*

Lizunak dira, libertinoak, homosexualak, **intzestugileak,** eta sodomizatu, jo, zauritu, hil egiten dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ai, piztia **intzestu** -egile, ezkon-nahasle horrek. Juan Garzia

---

## intzestutsu *izond* intzestuzkoa. ik **intzestu 2**.

Daniar errege **intzestutsu,** hiltzaile, kondenatua. Juan Garzia

---

## intzidente *iz* gertakaria, gorabehera.

Gisa horretako **intzidente** diplomatikoaren ondotik. Itxaro Borda

Oroitzen zen nitaz, jakina, batez ere mugako **intzidenteagatik,** nire deituragatik eta baita bagoian pasatako orduarengatik ere. Matías Múgica

---

## intzidentzia *iz* eragina.

Gaixotasun horren **intzidentzia** eta banaketa geografikoa ezagutzeko. Berria - Harian

Minbiziaren **intzidentzia** eta beste patologia batzuk aztertzeko. Berria - Euskal Herria

Erresuma Batuko populazioan (59,2 milioi 2002an) eskizofreniak izan ohi duen **intzidentziaren** arabera, 5.923 kasu gertatu behar ziren. Berria - Gaiak

Sindromearen **intzidentziari** eta ezaugarriei buruz. Xabier Olarra

Savantismoak autisten artean zuen **intzidentzia** -ehuneko 10 doi-doi- atzeratuen artean duenaren berrehun halako zela, eta biztanleria normalean duenaren mila halako. Xabier Olarra

---

## intziditu, intzidi, inziditzen du *ad* eragina izan.

Gutxi-asko ikus nezake, esparru honetan eta zeregin honetan ETAren indargintzak nola **intziditzen** duen. Joxe Azurmendi

---

## intzigar *iz* ihintz izoztua. ik **antzigar**.

Prezipitazio deituko diogu lurzoruan bertan ekoiztuko zaigun ihintzari, **intzigar** edo izotz zuriari ere. Pello Zabala

Neguko giroa bada, gehiegi hozten da: orduan, kondentsazio hori ur-krixtal txuri hotz jelatuan izan ohi da; izotz txuria edo **intzigarra**. Pello Zabala

Udazkenean eta, batez ere, goizean **intzigarra** egiten hasten den sasoian. Jose Morales

Ihintza joan zenean, **intzigarraren** antzeko hauts xehe eta fin bat gelditu zen lur gainean. Jose Antonio Mujika

Samovar **intzigarrez** estalia; pinuzko horma ondo leunduak; hiru ertzeko alasa zoko batean, teontzi eta katiluz beterik. Jose Morales

---

## intzigartsu *izond* intzigarrez betea.

Parisko hezetasunean, eta hango eguraldi hodeitsu eta **intzigartsuan** liziuntzen egon ordez, Alexandria Zurian egoteko garesti ordaintzeko prest zeudela esatea gutxi esatea da. Jon Muñoz

---

## intziri *(orobat **intzirin** g.er.)* **1** *iz* ahozko adierazpena, berez oinaze edo atsekabezkoa eta hitzik gabekoa. ik**zinkurin; aiuma**.

Egun hartan, jauregiko kantuak **intziri** bihurtuko dira. Elizen arteko biblia

Zotin eta **intziri** artean behin eta berriz laztantzen eta besarkatzen du. Askoren artean

Dena zen barau, dena negar eta **intziria;** eta haietako asko zaku eta errauts gainean etzan ziren. Jose Antonio Mujika

Oso bare, **intziri** eta suspiriorik gabe, jarraitu zuen negarrez. Joxean Agirre

Lo hartzerakoan, alde batetik aitaren morsearen tik-tik etengabea entzuten nuen, eta bestetik zaurituen **intziriak**. Juan Kruz Igerabide

Lokomotoraren **intziriarekin** batera. Eider Rodriguez

Lokomotoraren ziztuak garabien **intziria** birakoan bagoien talkak. Koldo Izagirre

Begiak zabal-zabalik, baina begiradarik ez, **intziri** soil bat, egarri zela xuxurlari, ahots erabat erlatsez. Joxe Austin Arrieta

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Orduan, **intziri** ahul bat iritsi zen ganberaren ertzetik. Iñaki Mendiguren

Ahots asaldatuen hotsa entzun zen, eta, hotsarekin nahastuta, pena edo oinazezko **intziri** isilak. Koro Navarro

Neskaren **intziri** itoa, aska nezan erregutu nahirik. Anjel Lertxundi

Tristuraz betetako **intziri** lazgarri hartan. Jose Morales

Kanpai hotsez oratutako **intzirin** metalikoak inarrosi ninduen. Txillardegi

Kanpokoak ordea **intziri** goibel luzeak botatzen zituen orain. Josu Zabaleta

Sartu eta atera, sartu eta atera hasi zen, ganoraz, neska **intziri** zorrotz batez korritu zen arte. Juan Martin Elexpuru

**Intziri** mehe batek sorbaldak jaso zizkion. Anjel Lertxundi

Paseko hegaztien **intziri** urrunaren antzera. Jose Morales

Hontzuriaren **intziri** ikaragarria entzungo zuen. Joseba Sarrionandia

Lurrun-makina **intziri** bakartian. Anton Garikano

Ahoa zabaldu zuen, ikarazko **intziri** bat atera zitzaion. Anjel Lertxundi

## **3** (hitz elkartuetan)

Ez zerion doinurik edo kanturik, baizik eta **intziri**-auhen jarraitu bat. Mirentxu Larrañaga

· Ulua entzuten hasi bezain azkar, bi tiro atera eta uluaren ordez oinaze-**intziri** bat entzun zuten. Koldo Biguri

Halako oinaze **intziri** bat bezala egin zuen orduan: [...]. Josu Zabaleta

Oinaze-**intziritan** haur askoz erdi dena. Askoren artean

Nork baino nork orgasmo **intziri** erraldoiena eta entzungarriena botaz lehiatzen ziren. Itxaro Borda

Ronen min eta amorru-**intziri** itoak bakarrik entzuten ziren. Iñaki Mendiguren

Beraz, ihesi joan nintzen lurraren gainean noraezean negar-**intziri** bizitan. Askoren artean

Norbaiten pausoak sentitu nituen etxolatik hurbil, eta arnasa-**intziri** batzuk. Bernardo Atxaga

Zakurraren zaunka-**intziriak,** herioari. Itxaro Borda

## **4** ***intziriz*** ik **intzirika.**

**Intziriz** eta negar-zotinka nago, garrasi bizian Moabengatik. Elizen arteko biblia

Egurkari txiro bat, abarrez arras kargaturik, **intziriz** eta makur, pauso motelez zihoan. Imanol Zurutuza

Baso eta bakarlekuetan otoitz egiten zuenean, basoak **intziriz** betetzen zituen. Askoren artean

Intziriaren **intziriz,** hezur eta azal bihurtua nago. Elizen arteko biblia

-Egia da -onartu zuen inudeak, **intziriz**-. Xabier Olarra

· Markesek **intzirizko** protesta bat zirudien zaunka apal batez erantzuten zien irain haiei, isatsari pendulu bat bailitzan eragin eta sigi-saga ibiltzen hasten zen, nonahi usnaka. Koro Navarro

## **5** ***intziri-aldi***

Tomek amesgaiztoak aipatu zituen, bat-bateko negar- eta **intziri**-aldiak, isilaldi eta beheraldi luzeak. Oskar Arana

## **6** ***intziri-egile***

Haize hiltzaile, ziztugile, **intziri** egile, orro egile hori, ikusi al duzu, ikusi ahal dezakezu? mamua ez zen mindu behar, bestela agian, are tzarragoa iratzar zitekeen edo **intziri** egileen kontra bihur zitzakeen pistolak eta fusilak. Itxaro Borda

## **7** ***intziri egin***

**Intziri** egingo dute, atsekabearen atsekabez, Kir-Hareseteko mahats-opilez oroituz. Elizen arteko biblia

Mason andreak **intziri** egin zuen arima herratuak bezala. Iñaki Mendiguren

Faraoiari, berriz, besoak hautsiko dizkiot, eta hilzorian **intziri** egingo du haren aurrean. Elizen arteko biblia

Ezer esaten hasi aurretik, **intziri** dagit, eta bada zertaz. Askoren artean

Egizu **intziri** bihotzeko irrika eta maitasunik sutsuenaz. Askoren artean

Eta oihu mingots haiek ez ziren izan hipokritak; hipokresiak ez daki hain gordin **intziri** egiten. Karlos Linazasoro

Arnasa, estua, ai **intziri**-hots batean kanporatua, kondentsatu egiten zitzaion neguko airean. Irene Aldasoro

Animaliatxoak **intziri** egin zuen bigarren aldiz. Bernardo Atxaga

· Eta zuk, gizaseme, egin negar eta **intziri** beraien aurrean. Elizen arteko biblia

Bertan egiten diren higuingarrikeria guztiengatik **intziri** eta negar egiten dutenen bekokian. Elizen arteko biblia

· Neskak **intziri** bat egin du, **intziri** ito bat. Hasier Etxeberria

Barren-barrendik **intziri** handiak egiten zituen. Askoren artean

Zakurkumeak **intziri** errukarria egin zuen. Jose Morales

Zakur jipoitu batenak bezalako **intziriak** egiten zituen. Anjel Lertxundi

Alaitasunezko **intziri** bat eginez. Jose Morales

· -Ezin dut **-intziri** egiten zuen andreak-. Koro Navarro

-Ez duk nire errua -egin zuen **intziri** Steffik, begiekin barkamen eske-. Anton Garikano

-Hik ez - **intziri** egin zuen neskak-, hire etxeko zital horien biktima baino ez haiz hi... Koldo Biguri

## **8** ***intziri hots*** *(orobat* ***intziriots*** *g.er.)*

Erabateko isiltasuna dago beti Zaron, elizako erlojuaren ahots erlastuak baizik ia eteten ez duena, **intziri**-hots batekin mekanikoki emanez orduak. Koro Navarro

Arnasa, estua, *ai* **intziri**-hots batean kanporatua, kondentsatu egiten zitzaion neguko airean. Irene Aldasoro

Uraren emana gelditu egin zen; kirrika eta **intziriots** txikiz bete zen mundua. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahalako intziriz** (3); **basoak intziriz** (3); **basoak intziriz betetzen** (3); **baten intziria** (4); **baten intziriak** (3); **batenak bezalako intziriak** (3); **bezalako intziriak** (3); **edo intziri** (3); **egin intziri** (6); **egin zuen intziri** (7); **eta intziri** (28); **eta intziri artean** (3); **eta intziri egin** (3); **eta intziri txikiak** (3); **eta intziriak** (11); **eta intziriz** (3); **gero intziri** (3); **haur baten intziriak** (3); **intziri ahul** (3); **intziri ahul bat** (3); **intziri apal** (4); **intziri apal bat** (3); **intziri artean** (4); **intziri bat** (18); **intziri bat atera** (3); **intziri bat entzun** (3); **intziri batez** (3); **intziri batzuk** (3); **intziri burges** (3); **intziri burges guztien** (3); **intziri egin** (26); **intziri egin zuen** (19); **intziri eginez** (3); **intziri egingo** (4); **intziri egiten** (11); **intziri egiten du** (3); **intziri egiten zuen** (4); **intziri eta** (18); **intziri eta negar** (5); **intziri mehe** (3); **intziri txiki** (4); **intziri txikiak** (4); **intziri txikiak eginez** (3); **intziriak eginez** (3); **intziriak egiten** (4); **intziriak eta** (9); **intziriz betetzen** (3); **intziriz betetzen zituen** (3); **intziriz eta** (3); **negar eta intziri** (4); **negar intziri** (3); **zuen intziri** (7)

**intzirika** 1 *adlag* intziri eginez, intziriz.

Negarrez eta **intzirika** zihoan bidean bera bakarrik. Imanol Zurutuza

Dardarka eta **intzirika** ari zen. Koro Navarro

Negarrari eman zioten **intzirika** eta oihuka nahigabez. Askoren artean

Malko ugariz, **intzirika** eta bular joka. Askoren artean

**Intzirika** egiten zuen negar. Anjel Lertxundi

Lur jota geldituko zara, lurrean **intzirika**. Elizen arteko biblia

Minez **intzirika** ari zen. Iñaki Mendiguren

Ni ikusi eta **intzirika** hasten zen, mesedez askatzeko. Gotzon Garate

Txakur gazteenak bozkarioz jartzen dira bera ikustean, lasterka hasten dira atzera eta aurrera beren kaiola barruan, irrikaz **intzirika**. Oskar Arana

Trena bafaka zihoan, **intzirika,** astinka, bihurgunetik bihurgunera. Josu Zabaleta

-Baina, fusilatu egin behar al gaituzte? -galdetu zuen **intzirika**. Koro Navarro

-Dagoeneko behar baino gehiago egin dau niregaitik -esan zion Hagridek **intzirika-**. Iñaki Mendiguren

-Ezin dut sinetsi! -Hermionek **intzirika-**. Iñaki Mendiguren

· Israeldarrek, bitartean, **intziri** eta deiadarka ziharduten esklabotzapean. Elizen arteko biblia

Hiltzear, **intziri** elkor, heren eta minberaka. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

Lasterka hurbilduko zaizkio poz-**intzirika** eta jauzika. Gotzon Garate

**3** ***intziri-mintzirika***

Hutsaren hurrengoa gaitun, neska! -esan zion **intziri**-mintzirika Jonathanek. Jon Muñoz

**4** ***negar-intzirika***

Momentu batez lasaitzea lortu nuen, baina berehala hasi zen berriro ere negar-**intzirika**. Ramon Saizarbitoria

-Hi al haiz? -esan zuen negar-**intzirika**. Koro Navarro

Hortxe hasi zen zakurtxoa negar-**intzirika** Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta intzirika** (30); **eta intzirika ari** (3); **eta intzirika hasi** (5); **intzirika ari** (15); **intzirika ari zen** (8); **intzirika egiten** (3); **intzirika eta** (14); **intzirika hasi** (9); **intzirika hasi zen** (3); **intzirika hasten** (4); **intzirika hasten zen** (3); **negar intzirika** (9); **negarrez eta intzirika** (7); **zion intzirika** (3); **zuen intzirika** (3)

---

**intzirikarazi**, intzirika, intzirikarazten *(corpusean **intzirika arazi** soilik)* du *ad* intzirikatzera behartu.

Metroa etorri zen, geltokiaren eremua haizez betez eta errotak **intzirika** araziz andatik zentimetro apurretan pausatuz, altzairuzko txoria bailitzan. Itxaro Borda

---

**intzirikatu**, intzirika, intzirikatzen du *ad* intzirika esan.

Jendarmeak zetozela, Ttotte eta *kaguensos me salbatu nauk* **intzirikatzen** zion neska bidean zeuden jada. Itxaro Borda

---

intziriots ik **intziri 7**.

---

**intziritsu** *izond* intziriz betea.

Maite dutenari zaunka laburrak, **intziritsuak**. Gotzon Garate

Errekondoko haritzek eta pinu **intziritsuek** inguratzen eta xurgatzen zizkieten algarak. Anton Garikano

---

**intziritxo** *iz* intziri txikia.

Hau egiten nuen bitartean, haurtxo batenak ziruditen **intziritxoak** irteten zitzaizkion, orduan eta beroago jartzen ninduenak Juan Martin Elexpuru

---

**inude** *(orobat **iñude** g.er. eta **unide** g.er.)* **1** *iz* beste emakume baten haurrari bularra ematen dion emakumea.

Amak eta bi **inudek** bularra eman zioten, eta lehoikume bat bezain indartsu hazi zen. Patxi Zubizarreta

Neguriko etxeetan, garai batean, ez zen neskamerik falta, ezta **inuderik,** etxeko morroirik, lorezainik edo txofer kapeladunik ere. Berria - Euskal Herria

Berak ez zuen **inude** edo haur-zaintzaile bati pagatzeko dirurik. Gotzon Garate

Makina bat haurtzain izan zuen, haurtzain idorrak eta **inudeak,** eta kantak erakutsi zizkioten. Fernando Rey

Lau urterekin, erabat gortu zitzaion eskuineko belarria, **inudeak** behar bezala zaindu ez zuelako. Jon Muñoz

Umea **inudearekin** esertzen zen pikondoaren azpian eguerdian. Xabier Olarra

Orduan, **inudeak** haurra hartu eta ihesari eman zion. Elizen arteko biblia

Bere **inudearen** titiari hozka egiten dio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Egun haietan hil zen Debora, Rakelen **inudea**. Elizen arteko biblia

Ez, denak isilik zeudean, baita Nini ere: gogoan al duk **inude** zaharra? Xabier Olarra

Emazteki bikaina zen Felisa, jaun André, ene haz-ama eta **inudea** izan zena. Joan Mari Irigoien

**Inude:** presta ezazu ohea, etzan nadin. Juan Kruz Igerabide

Kukuak txantxangorria **iñude;** eguterak masail bat aiñube. Pello Zabala

**2** *irud*

Hitzek inon ikasi gabeko jakite bat dakarte berekin, ezjakinak edo jakinezak gozatutako jakite bat, eta hargatik dira pentsamenduaren ama eta ume, arrazoiaren **inude** eta titi-ume. Iñaki Segurola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakume batek bere umeari eta beste norbaiten umeari ematen badie bularra, eta **inude**-sari txikia ematen badiote, zer egin dezake gehiago jasotzeko? Koldo Biguri

Egia da, ordea, erditzeak zituen gastuak, **inude** saria eta elikadura izateko eskubidea baizik ez zekarrela horrek. Ramon Saizarbitoria

Goi mailako auzoetan **inude** lana egin ahal izango nuen itxaropena ere eman zidaten. Joxan Elosegi

Umeak jostari topatzen genituen, ama gazteen eskutik edo **inude** janzkerako emakumeen besotan. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta inudeak** (6); **euriklea inudeari** (3); **galdetu zuen inudeak** (3); **inude baten** (4); **inude eta** (3); **zuen inudeak** (10)

---

**inude** *(orobat* ***iñude*** *g.er. eta* ***unide*** *g.er.)* **1** *iz* beste emakume baten haurrari bularra ematen dion emakumea.

Amak eta bi **inudek** bularra eman zioten, eta lehoikume bat bezain indartsu hazi zen. Patxi Zubizarreta

Neguriko etxeetan, garai batean, ez zen neskamerik falta, ezta **inuderik,** etxeko morroirik, lorezainik edo txofer kapeladunik ere. Berria - Euskal Herria

Berak ez zuen **inude** edo haur-zaintzaile bati pagatzeko dirurik. Gotzon Garate

Makina bat haurtzain izan zuen, haurtzain idorrak eta **inudeak,** eta kantak erakutsi zizkioten. Fernando Rey

Lau urterekin, erabat gortu zitzaion eskuineko belarria, **inudeak** behar bezala zaindu ez zuelako. Jon Muñoz

Umea **inudearekin** esertzen zen pikondoaren azpian eguerdian. Xabier Olarra

Orduan, **inudeak** haurra hartu eta ihesari eman zion. Elizen arteko biblia

Bere **inudearen** titiari hozka egiten dio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Egun haietan hil zen Debora, Rakelen **inudea**. Elizen arteko biblia

Ez, denak isilik zeudean, baita Nini ere: gogoan al duk **inude** zaharra? Xabier Olarra

Emazteki bikaina zen Felisa, jaun André, ene haz-ama eta **inudea** izan zena. Joan Mari Irigoien

**Inude:** presta ezazu ohea, etzan nadin. Juan Kruz Igerabide

Kukuak txantxangorria **iñude;** eguterak masail bat aiñube. Pello Zabala

**2** *irud*

Hitzek inon ikasi gabeko jakite bat dakarte berekin, ezjakinak edo jakinezak gozatutako jakite bat, eta hargatik dira pentsamenduaren ama eta ume, arrazoiaren **inude** eta titi-ume. Iñaki Segurola

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Emakume batek bere umeari eta beste norbaiten umeari ematen badie bularra, eta **inude**-sari txikia ematen badiote, zer egin dezake gehiago jasotzeko? Koldo Biguri

Egia da, ordea, erditzeak zituen gastuak, **inude** saria eta elikadura izateko eskubidea baizik ez zekarrela horrek. Ramon Saizarbitoria

Goi mailako auzoetan **inude** lana egin ahal izango nuen itxaropena ere eman zidaten. Joxan Elosegi

Umeak jostari topatzen genituen, ama gazteen eskutik edo **inude** janzkerako emakumeen besotan. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta inudeak** (6); **euriklea inudeari** (3); **galdetu zuen inudeak** (3); **inude baten** (4); **inude eta** (3); **zuen inudeak** (10)

---

**inuit** *(orobat* ***enuit*** *g.er.)* **1** *iz/izond* Ameriketako eta Groenlandiako iparburuko lurraldeetako biztanlea; biztanle horiei dagokiena.

**Inuiten** herriak milaka urte zeramatzan bizitzen Europa-ko, Asiako eta Amerikako iparraldeko lurraldeetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Knud Rasmussen 1910. urtean Qaannaaqera iritsi zenean, **inuiten** kolonia txiki bat besterik ez zen hura. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Inuitak** zuriaren aldaera ugari bereizteko gai dira. Berria - Mundua

**Inuit** ehiztariez gain (hiru adiskide), ekialdeko groenlandiar bat (Hendrik Olsen) eta bi zientzialari eraman zituen Knudek berekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ama **inuita** eta aita daniarra zituen, eta **inuiten** artean hazi zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Berak ongixko ezagutzen zituen herritar **inuitekin**. Pablo Sastre

'Milesker,' esango du andretxo **inuit** zahar batek, saretik libratu eta bere bizilekurantz abiatu orduko. Joseba Sarrionandia

**2** (hitz elkartuetan)

**Inuit** herriaren ordezkaria. Berria - Gaiak

**Inuit** jendeen sinesmenean, itsas sakonean jarraitzen du Sednak, gizakien aurka itsas ekaitzak sortzen. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zuten inuitek** (3)

---

**inulina** *iz*

**Inulina** da prebiotikoetako bat. Berria - Gaiak

Zainzurietan, orburuetan, patatetan... aurki dezakegu **inulina**; normalean, landare jatorriko produktuetan beti. Berria - Gaiak

---

**inurri** *(167 agerraldi, 58 liburu eta 17 artikulu)* **1** *iz* intsektu himenoptero txikia, arrez, emeez eta langileez osaturiko talde handiak eratuz inurritegian bizi dena *(Formicidae* familia). ik **txindurri; xinaurri.**

**Inurriak,** herri ahula izan arren, udan beren ogia ziurtatzen dutenak. Elizen arteko biblia

**Inurriek,** langile nekaezin burutsu horiek, guztiz samurtzen zuten. Josu Zabaleta

Zoaz **inurriagana,** alfer hori! begira nola jokatzen duen, eta ikasi. Elizen arteko biblia

**Inurriak** bezain langile. Agustin Otsoa

Haren lana **inurri** batena izanen baitzen. Joan Mari Irigoien

Gu lanean aritu baikara, isilean bai, baina baita etengabe ere, **inurriak** bezala. Joan Mari Irigoien

Bata bestearen atzean, **inurrien** gisan. Hasier Etxeberria

Omsk barnean soldadu tatariarrak **inurriak** bezain ugari ageri ziren karrika eta plazetan. Karlos Zabala

Inbaditutako lurraldean **inurriak** bezala ohi dabiltza zelatariak. Karlos Zabala

Armada portugaldarra **inurri** zurien multzoa bezalakoa da. Jon Alonso

Gero, **inurri**-langile saldo bat bailiran, txosnak desmuntatu eta joan egin ziren. Xabier Aranburu

**Inurrien** kontrako hautsak hartu eta goizeko kafesnean pitinka zerbitzatu. Josetxo Azkona

**2** (izenondo gisa)

Zeren, baldin anaiak hartza akabatzen bazuen, are jigantago eginen baitzen ene begien aitzinean, eta ni tipiago eta **inurriago**. Joan Mari Irigoien

**3** *irud*

Orduan kezka zahar baten **inurria** igan zitzaigun bihotzaren mimikoraino. Koldo Izagirre
Umeek haren gorputza ukitzen zuten bakoitzean **inurriak** sentitzen zituzten goitik behera. Julen Gabiria
Idazleen gauza da, denbora eta sarritan bizitza osoa letrak diren **inurrien** ilara amaigabeak antolatzen ematea. Joseba Sarrionandia
Zeren zinez baitzirudien ezen gaitzari gaitzagoa zerraiola, fortuna gaixtoaren **inurriari** hegalak sortu balitzaizkio bezala. Joan Mari Irigoien

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)
Mahai gainean azukreontzia, **inurri** ilara batekin. Joseba Sarrionandia
**Inurri** ilara bat ere ikusi nuen koadrotik irteten. Unai Elorriaga
Nahi duzunean **inurri** errenkada bat jar dezaket zure azalean, sabelean nahiz bizkarrean. Joan Mari Irigoien
**Inurri** izaerako jendea. Berria - Kultura
Bere hazpegi ilaun ederrak gogortzen zituen eta **inurri** lanari ekiten zion. Monika Etxebarria
Sumindu egiten nau nire atzean begi eta gogoeta galduen **inurri** mugimendu hori sentitzeak. Monika Etxebarria
Bere **inurri**-zuhurtasunarekin, diru kopuru bakoitzarekin zenbat plazer lor zitekeen kalkulatzen zuen. Josu Zabaleta
Batzuetan **inurri** orbanak agertzen ziren lurrean, beren hegalekin, edo landare-zorrien tortikak landareetan. Josu Zabaleta
Erle-abaraskak eta **inurri**-koloniak. Juan Garzia
Haren hanka iharrek burdin hariak ziruditen; haren luma hautsez eta lurrez zikinduek sorgin-belarren buruen antzera egiten zuten **inurri**-azkura. Juan Kruz Igerabide
**Inurri** itxura hartzen duten armiarmak, atzealdean beste "buru" bat duten tximeletak. Josu Zabaleta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)
Altzairuzko lehoi-**inurriak** eta mantikorak, zementuzko zikoinak, zurezko neskato abstraktuak eta alanbre herdoilduz egindako mutikote geometrikoak. Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi inurri** (3); **eta inurri** (8); **inurri bat** (12); **inurri ilara** (3); **inurri lana** (4); **inurriak bezala** (5); **inurrien moduan** (3)

---

# inurridura *iz* gorputzaren adar bat inurritzean sentitzen den azkura mingarria. ik**txindurridura**.

Oinak babaz beteta zeuzkan eta leher eginda zegoen, baina ferrya ontziralekutik ibaiaren ur izurtuaren gainean zamalkatzen aldentzean, halako **inurridura** bero bat sentitu zuen zainetan. Lopez de Arana
Pilula bat irentsi eta halako **inurridura** bat sentitu zuen zainetan, ohiko **inurridura**. Lopez de Arana

---

# inurrijale *izond* inurriak jaten dituena.

Tximino, suge, krokodilo, hartz **inurrijale** edota arantzurdekia, horra eskaintzen zitzaigun aukera parebakoa Xabier Montoia

---

# inurriola *iz*

Eguraldi onak inurritegia **inurriola** egiten du. Pello Zabala

---

# inurritegi **1** *iz* inurrien bizilekua, lurpean edo zuhaitzen enborrean eginiko igarobidez eta gelatxoez osatua. ik **txindurritegi**.

**Inurritegi** bat zirudien gure etxeak. Joan Mari Irigoien
Zinez, **inurritegi** bat zen Amsterdameko auzo hura, gauerat zabaldua...! Joan Mari Irigoien
Nik **inurritegi** bat daukat buruan. Koldo Izagirre
Ene etorrerak lanean jarria zuen mamuen **inurritegi** hau. Koldo Izagirre
Arrantzako txalupek **inurritegi** duten portu zaharragatik. Koldo Izagirre
Metroko atariko **inurritegiaren** inguruan ahal zuen apurra bizkortu du pausoa. Urtzi Urrutikoeetxea
Gizonaren gurtzan oinarritu nahi izan ditu, norbanakoaz harago, nork bere buruarekiko eta hurkoarekiko duen jokaera ez dadin izan termita **inurritegiko** ohituretarako konformismo itsua, maitasun jarduera librea baizik. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)
Geroago, ordoki soil zabalak [...] jende **inurritegi** bihurtzen dira. Josu Zabaleta
Zantarra iritzi nion Atenasi, balkanikoa, [...], hiriska bat, ia herriska bat esango nuke, levantinoa, jende-**inurritegiak** karrika erdian, eta ostera berriz bakar-mortua. Joxe Austin Arrieta
N. jaun artistak, iparreko hiri **inurritegi** langile batean jaioa izan arren, oso gogoko duela hegoaldeko hiriak eta lurraldeak bisitatzea, usaintzea, dastatzea. Anjel Lertxundi
Banuela galdera anitz egiteko: nire burua galdera-**inurritegi** asaldatua zen. Alberto Ladron Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **inurritegi bat** (3)

---

# inurritu, inurri(tu), inurritzen da/du *ad* gorputzaren adar batean, jarrera txar baten ondorioz edo, azkura mingarria sentitu. ik **txindurritu**.

Hura joan eta gero, planetak jiraka jarraitu zuen, baina jiratze hark ez zidan ekartzen lehen bezalako zorabio gozorik, urdailaren ahoa **inurritzen** zidan hura bezalakorik. Juan Kruz Igerabide
Elbarria ez balitz, hankak **inurrituak** zituela esango zukeen Ruche jaunak. Jon Muñoz
Whiskyaren beroa sabelean eta atzamarrak **inurriturik,** Jimmy Herf zazpietan iritsi zen Park Avenuera. Lopez de Arana
Jimmy bere aulkian eserita zegoen hankak **inurrituta** zeuzkala. Lopez de Arana
Belaunak minduta eta oinak guztiz **inurrituta** bukatzen dugu beti. Patxi Iturritegi

---

# inurritxo *iz adkor* inurria.

Imajina ezazue burdinazko bola bat, mundua bezain handia, eta bola hartan **inurritxo** bat korrika txikian jira eta bira etengabean. Joxerra Garzia
Berak ez zituela behar bostehun zendu haiek arratsalde-pasa pollit bat egiteko, nahikoa zuela **inurritxoekin**. Karlos Linazasoro

---

**inusturi** *(2 agerraldi, liburu 1ean; orobat **iñusturi** 2 agerraldi 2 liburutan)* *iz* trumoia. ik **ihurtzuri**.

Autoan sartuta **inusturiak** legez igaroko zuten Sukarrieta. Edorta Jimenez

Arbolaren adarretarik hara airean hedatu da izua, ortzian **inusturia** baino biziago. Edorta Jimenez

Zugaitz, etxe, laño, danak dardarizaturik, zeuzkan aldagoik eta **iñusturik**. Patziku Perurena

---

**inusturi** *(2 agerraldi, liburu 1ean; orobat **iñusturi** 2 agerraldi 2 liburutan)* *iz* trumoia. ik **ihurtzuri**.

Autoan sartuta **inusturiak** legez igaroko zuten Sukarrieta. Edorta Jimenez

Arbolaren adarretarik hara airean hedatu da izua, ortzian **inusturia** baino biziago. Edorta Jimenez

Zugaitz, etxe, laño, danak dardarizaturik, zeuzkan aldagoik eta **iñusturik**. Patziku Perurena

---

**inutil** 1 *izond* gauzaeza.

Pierranoren seme **inutilaren** soldadugora ez joateko eskaera. Itxaro Borda

Norbera baino **inutilagoen** premia bada beti. Itxaro Borda

Ezagutza mota hau eta logika binarioa morrontzak kontsideratzen ditu, gauza pobre eta idorrak, bakarrik **inutilenak** agintera [...] eramateko balio dutena. Berria - Kultura

Ez zen harritu batere, erabat **inutiltzat** nindukan eta. Joxean Sagaztizabal

Ez dakit beste ezer egiten, **inutil** bat naiz. Berria - Kultura

Auherretan kontatzen ninduten, **inutiletan,** independentista anitz eta friboloetan. Itxaro Borda

**2** alferra, alferrikakoa.

Loak eraman aitzin, bilkuraren tentsio bizkar mazelatik are urruntzen ninduten bizpahiru gogoeta **inutil** neramatzan oraino. Itxaro Borda

Anderearen solasei kasu egiteko baztertu nituen ene pentsamendu **inutilak**. Itxaro Borda

Ardiak eta dortokak direla animaliarik **inutilenak**. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> inurritegi bat (3)

---

**inutilidade** *iz* ezgaitasuna.

Ez omen diote **inutilidade** totala eman nahi. Iñaki Iñurrieta

---

**inutilkeria** *iz* alferrikakotasun gaitzesgarria.

Azpi izenburua, berriz, ***Inutilkeriaren*** *balioaz bi solas*. Berria - Kultura

Ironia doi bat, **inutilkeriatik** fitsik ez duen horretaz mintzatzeko. Berria - Kultura

---

**inutiltasun** *iz* alferrikakotasuna.

**Inutiltasunaren** unibertsaltasunaren ateak jotzen ditut. Itxaro Borda

---

**inuxente** *(53 agerraldi, 28 liburu eta 4 artikulu; ETCn 273 agerraldi; orobat **inuxent** g.er.)* *izond adkor* inuzentea. ik **inoxente**.

Irribarre eginez, begirada **inuxente** batekin. Fernando Rey

Ausaz garai **inuxente** haietan baizik posible ez zen gauza. Jon Alonso

Zozoak beti ahoa zabalik ibiltzen dira, deneri konfiantza egiten... aire **inuxenta** batekin... Menane Oxandabaratz

Haren akatsak **inuxenteak** iruditzen zitzaizkion, ume-akatsak, errukia eta gupida merezi zutenak. Fernando Rey

Amona, bere berekoian, bularreko haur bat bezain **inuxente** eta tolesgabea zen. Fernando Rey

Nire zalantzak ditut, ez naiz hain **inuxentea**. Joxerra Garzia

**Inuxentea** zara, oso, eta emakume bat zuri galtzak jaisten saiatu arte ez zenioke susmorik hartuko. Fernando Rey

Makinazioaren engranajearen beste zati txiki bat ziren, ala, neu bezala, **inuxente** dohakabe batzuk? Karlos Linazasoro

-Hauxe **inuxenta**! Itxaro Borda

Nik, badaezpada ere, bihar egingo diet proposamena, **Inuxente** egunez. Joxerra Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta inuxente (3); inuxenten eguna (3)

---

**inuxentekeria** *iz adkor* inuzentekeria.

Neskatoei **inuxentekeriak** esaten. Jon Arretxe

-Ezebez, **inuxentekeri** itzelak, txorakeriak, baserria, baserria txuria zela, zerua urdiña, gure baso berdeak eta dena holako txotxolokeriak! Pako Aristi

Demokrazia sakralizatu duen [...] aingerukeria edo **inuxentekeriatik** bakarrik uler daitezkeela objekzio horiek. Joxe Azurmendi

---

**inuxenteki** *adlag* inuzenteki.

Balzac idazlearengan **«inuxenteki»** identifikatzen omen zen. Berria - Kultura

---

**inuzente** *(58 agerraldi, 31 liburu eta 14 artikulu; ETCn 821 agerraldi; orobat **inuzent** g.er.)* **1** *izond* tolesgabea, xaloa; ergela. ik **inozente; inuxente**.

Neskatila **inuzent** eta xalo batekin esposatzea lortu zuen. Patxi Zubizarreta

Hain begirada goxo eta **inuzentea** zuen! hain berba leun eta faltsua! Patxi Iturritegi

Bazekien maitasun hura ez zela **inuzentea** eta aldi berean ez zela haragizkoa. Bego Montorio

Edozer gauza esan, modurik **inuzenteenean** ere, eta irainduta sentituko zen berehala. Koro Navarro

Egunik egun **inuzenteagoa** da koitadua. Urtzi Urrutikoeetxea

Ez nion behatu, nik **inuzentarena** jokatzen jarraitu behar nuen, ez ninduen nire aitorpenaren emaitza ikusteko irrikak galdu behar. Koldo Izagirre

Egizu orain **inuzentearena** ! Patxi Iturritegi

Eta urtero-urtero herriko **inuzentea** alkate aukeratzen zuten. Koro Navarro

Eta **inuzente** honek zakur hori adiskide nuela pentsatzea ere. Fernando Rey

• **2** (-en atzizkiaren eskuinean, izen gisa)

Eta Polly, berriz, ez gisa horretako aipamenak beti deseroso jartzen zutelako bakarrik, baizik eta, bere **inuzentean,** zuhurki, amaren tolerantziaren atzean zegoen asmoa asmatu zuela pentsatzerik nahi ez zuelako egon zen deseroso. Irene Aldasoro

**3** (hitz elkartuetan)

**Inuzente** -itxurak eginez. Iñaki Mendiguren

Hara bi belarri zuri eta begi beltz parea, mihi txiki bat ahotik aterata, **inuzente** aurpegitxo hori. Harkaitz Cano

Han bertan bukatuko dugu, **Inuzente** Egunean. Berria - Kultura

**4** (adizlagun gisa)

'Ni ez,' esan zuen Inazitok, **inuzente** . Joseba Sarrionandia

Zenbat denbora ibili ote zen Adan zorion harekin, erabat **inuzente** ? Bernardo Atxaga

---

## **inuzentekeria** *iz* tolesgabekeria.

Haren narrazioek xalotasunari eta **inuzentekeriari** ihes egiten diote. Berria - Kultura

**Inuzentekeriak** iruditzen zitzaizkidan niri haren mintzagaiak, baina berak munduko gauzarik inportanteenak balira bezala jorratzen zituen. Jon Arretxe

Arropak garbitu, musika entzun, CNN ikusi hotelean, egunkari honetan **inuzentekeriak** idatzi... denetik apur bat egin dut okupatuta egoteko. Jon Arretxe

Joxe Martin da Elvirak zaintzen duen bigarren edadetua, zaharra, agurea, jubilatua... garai bakoitzeko **inuzentekeriak** aukeratzen ditu bere hitzak. Pako Aristi

UCI Pro-Tour desagertu egingo zela irakurri zuela dio norbaitek eta gero, bukaeran, **inuzentekeria** zela jartzen zuela. Berria - Kirola

---

## **inuzentetu,** inuzente(tu), inuzentetzen da *ad* ergeldu.

Paisajegintzaren lainopean galduak gabiltza, eta nik Fernando artzainaren begiradatik puska bat eskatzen dut gure begi **inuzentetuentzat** . Iñaki Segurola

---

## **inuzentzia** *iz* tolesgabetasuna.

**Inuzentzia** edo tolesgabetasun moduko hori ez zen zintzotasunetik sortua, baizik eta itxurak eta tolesak ("munduaren tresneria ustela", Traherneren hitzetan) ulertzeko ezgaitasunetik; ia autista guztiengan izaten da. Xabier Olarra

Ez dut nire **inuzentzia** aldarrikatzen. Koldo Izagirre

**Inuzenziaz** edo emozioz erreakzionatu dutenak askoz ere argiagoak dira Berria - Harian

---

## inzeminatu ik **intseminatu**.

---

## inzeminazione ik **intseminazio**.

---

## inzerzio ik **insertzio**.

---

## **inzibilizatu** *izond* ez-zibilizatua.

Beraz, **inzibilizatua** omen zen basajende gerrazale horri, zibilizazioa ere dexente aitortu ahal dakioke. Joxe Azurmendi

Arrantzale eta bateleren Pasaia ez da **inzibilizatua,** baizik naturala; Donostia hiritartua -liberala- ez da zibilizatua, baizik desnaturaldua soil-soil. Koldo Izagirre

---

## **inziblilizazio** *iz* gizalegerik eza.

Zibilizazio egoeran da arriskutsua krudeltasuna, kaltetutako izakiak ia sekula ez duelako izaten laidoari erantzuteko beste indar; baina **inzibilizazio** egoeran, indartsuaren aurka gauzatzen bada, honek erantzun egingo dio, eta ahularen kontra egiten bada, berriz, naturaren legeen arabera, indartsuari men egiten dion izaki bat kaltetzen denez soilik, ez da inolako arazorik sortuko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## **inzineradora** *iz* erraustegia.

**"Inzineradorarik** ez", "estradiziorik ez", "agresiorik ez"... Iñigo Aranbarri

---

## inzpektore, inzpektur ik **inspektore**.

---

## **iodatu** *izond* iododuna.

Gatz **iodatuaren** aldeko kanpaina. Berria - Gaiak

OMEk dio egunean 5 gramo gatz **iodatu** hartu behar dela gehienez. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gatz iodatua** (3); **gatz iodatuaren** (5); **gatz iodatuaren aldeko** (4); **iodatuaren aldeko** (4)

**iodo** 1 *iz* gai bakuna, halogenoen sailekoa, berotzean lurrin moreak eratzen dituena (I; zenbaki atomikoa 53).

**-Iodoa** eman duzu. Izan ere, lurrak **iodorik** ez badu, han hazitako landare eta animaliek ere nekez izango dute. Berria - Gaiak

Tindufeko uraren gehiegizko **iodoak** zikindutako hortzak agerian dituzte. Berria - Harian

Jatorrizko molekulan han-hemenka kloroa, bromoa, **iodoa** eta beste atomo batzuk erantsita. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Edari beroak, gargarak egitea, **iodo** igurtziak. Valium potoa **iodo** potoaren alboan herdoilari itsatsirik ikusi zuenean. Lander Garro

**Iodo** pilulak ordezkatzen zituzten gozokiak ere banatu ziren. Berria - Euskal Herria

Aireak **iodo** usain bortitza hartzen duelarik haizea itzultzen den aldian. Ana Urkiza

**Iodo** faltak sortzen dituen osasun arazoak. Berria - Gaiak

OME Osasunerako Mundu Erakundeak ***Iodo*** *gabeziak munduan* izenburuko txostena argitaratu zuen herenegun. Berria - Gaiak

**3** ***iodo tintura***

Gaza esterilizatuekin eta **iodo**-tinturarekin. Fernando Rey

**Iodo**-tintura urratu eta harramazketarako, metileno-urdina eztarriko minerako, eta "bir" delakoa hazpizarretarako. Fernando Rey

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ioien bidezko** (4); **sodio ioiak** (3)

---

**iododun** *izond* iodoa duena. ik **iodatu.**

Gatz **iododuna** ohikoa da denda espezializatuetan. Presta-lana amaiturik, hor ekin zion Bennettek lan benetakoari: antiseptiko **iododuna** ipur-masailean kotoi-zati batez eman, eta anestesia lokala injektatu zion, batere dardararik gabe. Edorta Agirre

---

**iodoformo** *iz* iodoz, hidrogenoz eta karbonoz osaturiko gaia, antiseptiko gisa erabiltzen dena.

Hango airean alkohola eta **iodoformoa** antzeman zitezkeen. Lopez de Arana

---

**ioduro** *iz* iodo gatza.

Zilarrezko **ioduroz** Pekin gainean dauden hodeiak bonbardatuko dituzte, euria egin dezan. Berria - Gaiak

Hodeiak zilar **iodurozko** partikulekin bonbardatuz sortzen zuten euria. Berria - Gaiak

---

**ioi** 1 *iz* karga elektrikoa duen atomoa edo atomo saila.

Atomoen desintegratze elektrolitikoaren bidez, oraindik ondo ezagutzen ez diren **ioi** eta elektroi horiek azaltzen dira. Josu Zabaleta

Izatez, **ioien** mugimenduaren bidez transmititzen da seinalea, modu korapilatsu baina eraginkorrean. Irene Aldasoro

Koralak, maskordunek eta zenbait plankton motak itsasoko **ioi** karbonatuen beharra dute. Berria - Gaiak

Gaur dakigunaren arabera, ikusmeneko unibertsoa atomo baten parte txiki bat izan liteke, **ioiz** osatua, animaliaren baten bizi isurkinetan (eter argiduna) flotatuz legokeena. Xabier Olarra

Pentsamendu zientifikoaren gaurko joerak **ioien** teorian bilatzen du oinarria. Xabier Olarra

Xenon gasaren **ioiak** jaurtita lortzen du bultzada motorrak. Berria - Gaiak

Eguzkiaren indarrak elikaturiko **ioien** bidezko propultsioa erabili baitu ESAren zunda batek. Berria - Gaiak

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ioi** multzo handi batek kapilarretarako bidea egin duenean, haien karga positibo metatuak karga negatiboa duten ioiak (kloroa, adibidez) erakartzen ditu gai irazitik odolera. Irene Aldasoro

**Ioi** bidezko propultsio motorra. Irazi egiten zian, ordea, ur hori, eta **ioi**-trukezko araztailu batetik pasarazten. larru-zurragarri organikoak polifenolak dituk, ez duk munduan erretxina **ioi--trukezkorik** hura geldiaraziko duenik. Juan Garzia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Sodio **ioiek** karga positiboa dute. Irene Aldasoro

Kaltzio **ioien** kontzentrazioa. Irene Aldasoro

Zitrato edo oxalato **ioiek** berehalaxe desagerrarazten dituzte kaltzio **ioiak**. Irene Aldasoro

Zundak xenon **ioizko** motorea abiatu zuen astelehen arratsaldean. Berria - Gaiak

---

**ioniko** *izond* ioiei dagokiena.

Elikagai falta, tenperaturaren gorakadak eta inguruko baldintza **ionikoen** aldaketak ura falta denean edo ur gehiegi dagoenean gertatzen diren aldaketak horietako batzuk besterik ez dira. Berria - Gaiak

---

**ionizatu**, ioniza, ionizatzen **1** da/du *ad* ioi bihurtu; ioiak eratu.

Haizea **ionizatu** egiten da, eta elementu positiboak eta negatiboak banatzen ditu. Joseba Sarrionandia

Gasa **ionizatzeko,** eguzkiaren indarra erabiltzen du zundak. Berria - Gaiak

X eta gamma izpien erradiazioak, ordea, ez du atomoaren energia aldatzen, baina elektroiekin topatu bezain laster, atomoa **ionizaturik** (elektroi gutxiagorekin) utziko du. Berria - Gaiak

**2** (era burutua izenondo gisa)

Behaketen bidez ikusten ahal da zulo beltzen inguruetan hodei **ionizatuak** daudela. Berria - Gaiak

---

**ionizazio** *iz* ionizatzea.

**Ionizaziorik** gabeko erradiazioak giza osasunean duen eragina. Berria - Gaiak

---

## **ionosfera** *iz* atmosferaren goialdeko geruza ionizatua.

**Ionosfera** atmosferaren hirugarren geruza da, eta Lurretik 50 kilometrora hasi eta 500 kilometroko altueraraino iristen da. Berria - Gaiak

HAARP antenez baliatzen da **ionosferara** uhinak bidaltzeko. Berria - Gaiak

Lur planetaren atmosfera inguratzen duen burbuila bat da **ionosfera**. Berria - Gaiak

Uhinak **ionosferako** puntu bakarrean biltzen dira, eta 10 gigawateko indarra lor dezakete. Berria - Gaiak

---

## **iota** *iz*

Ez ziren **iota** batez ere aitzinatuak, greziarrek esango zutenez; eta abenduan sartuxeak ziren, dagoeneko. Jon Muñoz

Dogmatik ez zuen **iota** bat kenduko. Piarres Aintziart

---

## **ipar** *(orobat **ifar** g.er.)* **1** *iz* iparraldetik datorren haize hotza. ik beherago **12.**

**Ipar** hotza zebilela, ipar gorria. Pello Zabala

Denean sartzen baitu muturra **ipar** finak. Pello Zabala

Hark nahi duenean hegohaizeak jotzen du, bai eta **ipar** bortitzak eta haize erauntsiek ere. Elizen arteko biblia

**Iparra** muturra sartu nahian dabilkeenean. Pello Zabala

**Iparra** ta hegoa alkarri obeditzen hasiz gero, lehortea. Pello Zabala

Euri xehea, **iparra** laster. Pello Zabala

**Iparra** dagonean, jakea soiñean. Pello Zabala

Aire-pistan, izotza botatzen ari du ia, eta **iparrak** jotzen du. Xabier Olarra

**Iparrak** euria dakar, mihi gaiztoak aurpegi ilunak. Elizen arteko biblia

**2** iparraldea.

Guk ez dugu ez **ipar** ez hegorik, ez ekialde ez mendebalik. Felipe Juaristi

**Ipar** zein Hegoko pertsona pobre guztien beharrak asetzera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eskerrak **ipar** samarrean bizi garen... Pello Zabala

Sortzeko ametsa **ipar** hartuta. gero eta gatazkatsuagoak ziren hegoalde garatu gabearen eta **ipar** industrialaren arteko harremanak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Tamalgarria, halaber, **ipar** urruneko jendeen nondik norakoak ulertzeko ez gauza izatea ni. Edorta Jimenez

**Ipar** urruneko erresuma batean eta hizkuntza barbaro batean. Juan Garzia

**3** *irud* ik **iparrorratz 2.**

Bazekien saiakera edo dena delako haiek nobela zutela jomuga, itu, **ipar**. Iñaki Iñurrieta

Orain, noraezean dabil, **iparra** galduta, ikurrik gabe, gose diren jokalaririk gabe. Berria - Kirola

Arratsaldeko 7'00etan, jautsi baino lasaiago igan gira denak autobuserat, oroigarriak eskuan, xapelak buruan eta **iparra** galdu gabe... Herria

Partidaren erritmoa aldatu eta arriskatzeari ekitearekin bat, Barriolaren defentsa apurtu, eta **iparra** galarazi zion. Berria - Kirola

Ez berak ez taldeak ez dute **iparra** aurkitu. Berria - Kirola

Espainiako Auzitegi Nazionaleko fiskala [...] da epaileari **iparra** markatzen diona. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Haren ile grisak, halako gris uher batekoak, **ipar** herri batzuetako biztanleak erabiltzen dituzten ilezko kapeluen antza-edo zuen. Josu Zabaleta

Ez litzaioke gure **Ipar** herrialde ergeletan [...] egingo arrotzari honelako harrerarik. Josu Zabaleta

Apartamentu txiki bat hartu zuten errentan hiriaren **ipar**-aldiriko bizigunean. Mirentxu Larrañaga

Espainiako **ipar** eskualdea polliki polliki urratzen ari naiz, urratsez urrats. Piarres Aintziart

Lapurdiko **ipar** kostaldea. Berria - Kultura

Matterhorneko **ipar** hormaren eitea hartu dio Txusmak lehen eta bigarren kanpamenduen artekoari. Xabier Montoia

Zehazkiago, gazteluaren **ipar** dorrea. Alberto Ladron Arana

**Ipar** aire karroinduak bizi-haztu isiltasun bat. Itxaro Borda

**Ipar** latitudearen 80 gradutan nago. Joxean Agirre

**Ipar** latitudeko hogeita bost graduan jarri zuela bere ezarlekuen muga. Iñaki Iñurrieta

Batez ere **ipar** partean eta mendialdean. Joseba Sarrionandia

Duckbill delakoa uhartearen **ipar** muturra da. **Ipar** puntatik zuzen honuntz haize polarra abiatuz. Juan Garzia

Hotz ikaragarriak eta kizkurgarriak sortzen diren **ipar** eremu haietatik. Pello Zabala

Mediterraneoko eta **Ipar** Itsasoko portu-hirietan. Koro Navarro

Edo **Ipar** Carolina edo Hego Carolina izan behar du. Oskar Arana

Mundu islamikoko asiar eta **ipar** afrikar probintzietan. Iñaki Mendiguren

Hegoaren ondotik, **ipar** euria gogotik. Pello Zabala

**Ipar**-euria, hogei eta lau orduko euria. Pello Zabala

**5** ***iparreko*** *izond* ik **iparralde 2.**

**Iparreko** herrialdeetan. Pello Zabala

**Iparreko** Errusian eta Siberian. Isabel Arrigain

**Iparreko** hizkuntza batzuek kontsonanteak metatu dituzte. Isabel Arrigain

Baina **Iparreko** alaba da, izatez; lainoa bezala uxatzen du eguzkiak. Josu Zabaleta

**Iparreko** Itsasoan eta Itsaso Baltikoan. Koro Navarro

**Iparreko** hiriren bat. Urtzi Urrutikoetxea

**Iparreko** mito paganoei buruz. Alberto Ladron Arana

Azpiko lur horietan, ez da **iparreko** izarra ikusten baizik eta bertze bat, […] Antartika deritzana. Aurelia Arkotxa

Usmatuak zituen **iparreko** haizea, haizeboladek bultzatuta ailegatzen ari ziren musika berriak. Fernando Rey

**Iparreko** dorrearen bila gabiltza gu. Iñaki Mendiguren

Katalunia **iparreko** lurraldeak. Pello Zabala

Ternuako **iparreko** lehorretaraino. Aurelia Arkotxa

Haizea **iparrekoa** dela usnatu eta ezkerraldetik zeharkatu du kalea. Alberto Barandiaren

**6** ***frantzi ipar*** ipar haize mota bat. ik beherago **11.**

Haren babesean, haize kontinentala, gurean frantzi-**iparra** deitzen dioguna, bidaltzen digula, zerualdeak lehortu eta garbitu ohi dira. Pello Zabala

Frantzia aldetik datorrena, frantzi-**iparra** deitzen zaion hori, goia lainoz garbitu, eta giro lehor hotza ekarriz. Pello Zabala

**7 *ipar bele*** bele mota bat.

Evans jauna, ez duzu bada **ipar-beleak** hiltzeko riflerik izango? Koro Navarro

Beleen krazkak, belatxingen marrakak eta **ipar-beleen** karrankak. Jose Morales

**Ipar-beleek** karranka lakarra egiten zuten. Koro Navarro

**8 *ipar beltz*** ipar haize mota bat.

Haize polarra esanda ez dakit antzemango dion gure baserritarrak, **ipar** beltza deitzen baitio berak. Pello Zabala

Ipar-haundi, itsasaldetiko trumilkakoa, **ipar**-beltza, zapa datorrenean; ipar-gorri, Frantzia aldetik lehorrago baina seko hoztuta datorrenean... Pello Zabala

Bai zera, **ipar** beltza zabilek, ekaitza dakarren haizea. Koldo Izagirre

**Ipar** beltz horrekiko fronteak. Pello Zabala

**Ipar** baltz petralarekin. Pello Zabala

Ez da **ipar** beltz horietakoa iritsi zaiguna, udazkena sendo kastigatzen duen horietakoa; hau, itsasoko ipar-mendebal umela da. Pello Zabala

Laino eta hodei-masaok azpi-azpitik, tripa-beltz dakartzanean, **Ipar**-beltza. Pello Zabala

Horren arriskua ohi du, gutxitan bada ere, **ipar** beltz narrastiak: **Ipar** beltzak ondore gaitzak. Pello Zabala

**9 *ipar-ekialde*** (*244 agerraldi, 24 liburu eta 69 artikulutan; orobat **iparekialde** g.er. eta **iparrekialde** g.er.)* ostertzeko zortzi puntu nagusietako bat, iparraldearen eta ekialadearen erdian dagoena. ik beherago **21.**

Austrasiak gaur egungo Frantziako **ipar**-ekialdea, Alemaniako hego-mendebaldea eta Herbehereetako zati bat hartzen zituen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kurdistanen, Irak **iparekialdean**. Berria - Mundua

Danimarkaren mendeko uhartea, Kanadaren **ipar**-ekialdean, Australiaren ondoren munduko handiena. Bernardo Atxaga

Eskuin aldera jarria dut arreta, **ipar**-ekialdera. Jokin Urain

Ramalatik 50 kilometro **iparekialdera**. Berria - Mundua

Hego ekialdetik **ipar** ekialdera zihoan lur arrasetik ia nabarmendu gabe, estepa bera zuela haran bakar. Karlos Zabala

**Ipar**-ekialdeko haize hotz kontinentala iristen zaie. Pello Zabala

**Ipar**-ekialdeko anatoliar barrutiak. Iñaki Mendiguren

Mediterraneo Itsasoaren siriar ertzetik *Homo Agricola*-ren **ipar**-ekialdeko aurrepostuetaraino. Iñaki Mendiguren

Elurra ere egingo du toki askotan, **ipar**-ekialdeko haizeak eraginda. Berria - Euskal Herria

Indiako hegoaldeko salerosgaiak Indo eta Oxus ibaietatik eta Kaspio itsasotik iristen ziren mendebaldera, eta **iparrekialdekoenak,** berriz, Seratik. Iñaki Iñurrieta

· Depresio horrek berak haize indartsurik ez normalean, baina bero lamadak bidaltzen ditu goranzka eta **ipar** / **ipar**-ekialderantz. Pello Zabala

**Ipar-ipar**-ekialdez baino ez nago zoro; haize hegoarekin ongi bereizten dut belakitik belatza. Juan Garzia

**10 *ipar-ipar***

Klima polarra deitzen dioguna, Alaskan, Kanadan, Groenlandian eta Errusiako **ipar**-iparrean daukagu, eta noski, Antartidan. Pello Zabala

**Ipar** iparreneko parajeotan. Pello Zabala

**11 *ipar gorri*** *(orobat **ipargorri** g.er.)* ipar haize mota bat. ik gorago **6.**

Eta zein da **ipar**-gorria? Frantzia aldetik datorrena, frantzi-iparra deitzen zaion hori, goia lainoz garbitu, eta giro lehor hotza ekarriz. Pello Zabala

Ipar-haundi, itsasaldetiko trumilkakoa, ipar-beltza, zapa datorrenean; **ipar**-gorri, Frantzia aldetik lehorrago baina seko hoztuta datorrenean... Pello Zabala

Haize bilauak eta beldurgarriak izaki, izen asko erantsi zaizkie: **Ipar**-gorria, Haize gorria, gose haizea, izotz haizea... Pello Zabala

Artean ere, ipar hotza zebilela, **ipar** gorria. Pello Zabala

Nafarroako Erriberan, hain ezaguna den **ipargorriak** bortitz jo zuen atzo han. Berria - Kirola

Nafarro aldetik datorren **ipar** gorri sarkor txorrotx horrek. Pello Zabala

**12 *ipar haize*** *(orobat **iparraize** g.er.)* iparra.

**Ipar**-haizeak, halere, hodei ilunak zekartzan itsasaldetik. Migel Angel Mintegi

Haize-erauntsia hegoaldetik irteten da eta hotza **ipar**-haizetik. Elizen arteko biblia

Bertako mitologian **ipar** haizearen seme Butes erlezaina omen zen. Pello Zabala

**Ipar** haize fina zebilen, bide bazterreko gaztainondoen hosto artean txistuka. Anjel Lertxundi

**Ipar** haize meheak. Itxaro Borda

Aski goizetik hasi ziren ume-multzo zalapartariak **iparraize** hotza nolazpait goxatzen. Txillardegi

**Ipar** haize beltzak, kilin kalanka darabilzki lehiatilak aitonaren etxean. Patziku Perurena

Uda partean, **ipar** haizetan, arratsaldez, iturriaren gerizpean biltzeko ohitura zutela apaizek euren tertuliak egiteko. Pako Aristi

**13 *ipar handi*** ipar haize mota bat.

**Ipar**-haundi, itsasaldetiko trumilkakoa, ipar-beltza, zapa datorrenean; ipar-gorri, Frantzia aldetik lehorrago baina seko hoztuta datorrenean... Pello Zabala

Zakar eta gozakaitz datorrenean, bolada astinzale bortitzekin, **Ipar** haundia. Pello Zabala

Ez halere, barrualdetik eta Nafarroako mendi babesetan direnek, Erribera aldean-eta: **Ipar** handia sartu da, eta badator lanbroa. Pello Zabala

**14 *ipar-hego***

Teoriaren printzipio orokorra baliagarria gertatzen da oraindik ere sektore mailan eta orobat **Ipar-** Hego harremanetan **Ipar**-Hego inbertsioen fluxua. Koro Navarro

1970eko hamarraldiaren erdialdean **Ipar**-Hego elkarrizketak hasi ziren. Koro Navarro

Era horretan, **Ipar**-Hego zorpetze ziklo berria jarri da abian. Koro Navarro

Ilargiak ez dakit, baina aztertzekoa litzateke **ipar**-hegoek eragiten dieten edo ez. Pello Zabala

Lau burdinak seinalatzen zuten **ipar**-hegoak eta sortalde-mendebalak norantz ziren. Pello Zabala

**15 *ipar hemisferio***

Keopsen piramidea Gize-n dago, 30°ko latitudean, **ipar**-hemisferioan. Jon Muñoz

Izekok egindako artilezko jertsea **(ipar**-hemisferioko lodiena, egilearen esanetan). Unai Elorriaga

Berotzea **ipar** hemisferioaren iparraldean gertatu da batez ere. Berria - Gaiak

Esne Bideko **ipar** hemisferio osoa arakatu nahi dute teleskopio horrekin. Berria - Gaiak

**16 *ipar-mendebal*[1]** *(orobat **iparmendebal** g.er.)* ipar-mendebaldeko haizea.

Mendebala eta **ipar**-mendebala ohi baitira nagusi neguaren bihotzean. Pello Zabala

**Ipar** mendebala ez denean, hodei busti umelez bazterrak zirtatzen. Pello Zabala

Ez da ipar beltz horietakoa iritsi zaiguna, udazkena sendo kastigatzen duen horietakoa; hau, itsasoko **ipar**-mendebal umela da. Pello Zabala

**Iparmendebalaren** enbata sartzen baita zapa-zapa, euri merke eta umela noiznahi botatzen duela. Pello Zabala

**16b *ipar-mendebal*[2]** *(orobat **iparmendebal** g.er.)* ipar-mendebaldea.

Zorigaiztoz, goi **ipar**-mendebalaren aldetik sartzen zitzaigun haizearen mende. Edorta Jimenez

Haize bolada **iparmendebaletiko** horiek tentetzen badira. Pello Zabala

San Petersburg **Ipar-Mendebaldeko** koroa, muga eta atea da. Edorta Jimenez

**17** ***ipar-mendebalde*** *(**236** agerraldi, **25** liburu eta **70** artikulutan; orobat **iparmendebalde** g.er.)* ostertzeko zortzi puntu nagusietako bat, iparraldearen eta mendebaldearen erdian dagoena. ik beherago **20.**

Hego-mendebalde eta **ipar-mendebaldera** begira dagoen Kretako portu horretan. Elizen arteko biblia

**Ipar-mendebaldea** izan da Justxenkoren garaipen eremua. Berria - Mundua

Irango **ipar-mendebaldean** ez baitute egiten farsiz, hizkuntza ofizialaz alegia. Jon Arretxe

Afrikako **ipar-mendebaldeko** kostaldera. Koro Navarro

Hudson ibaian jotzen zuen **iparmendebaldeko** haize indartsuan gaindi hegaz zebilen kearen pare. Lopez de Arana

Indiako Britainiar Inperioaren **ipar-mendebaldeko** mugan. Iñaki Mendiguren

**18** *ipar-orratz* ik **iparrorratz.**

**19** ***Ipar Polo*** *(orobat **ipar polo**)* ik **Iparburu.**

Peary iritsia zen **Ipar** Polora. Pello Salaburu

**Ipar** poloko aire poltsa handi hori. Pello Zabala

Iberiar penintsulatik Uraletaraino eta **Ipar** Polotik Afrika iparralderaino. Alberto Ladron Arana

Ibaietatik iristen zen ur hotza, ur gazi pisua baino arinagoa izanik, itsas gainean zabaldu, eta han jelatzen da, hotzari eta **ipar** poloetako jela hormatuei eutsiz. Pello Zabala

Ilargiko **ipar**-poloko puntu batean. Berria - Gaiak

**Ipar** eta hego poloaz harengak egiten zizkidan. Pello Lizarralde

**20** ***ipar-sartalde*** *(corpusean **iparsartalde** soilik; **3** agerraldi **2** liburutan)* ipar-mendaebaldea.

Paradisua ipini zuen maparen **iparsartaldean,** eta Europa, Asia eta Afrikaz gainera terra incognita bat itsasoaz bestaldean. Joseba Sarrionandia

**Iparsartaldeko** haizeak joko du, euriarekin eta behelainoarekin. Joseba Sarrionandia

· **Ipar**-iparsartaldez, bestela ez da berdin. Juan Garzia

**21** ***ipar-sortalde*** *(**3** agerraldi **2** liburutan; orobat **iparsortalde** **10** agerraldi liburu **1**ean)* ipar-ekialdea.

**Iparsortaldean** giroa argiagoa da. Joseba Sarrionandia

Ebro ibaiaren adar bat, Lleidatik pasatzen dena, Espainiaren **ipar**-sortaldean. Juan Garzia

Beribila ahal bezain zuhurki zihoan, zuzen, **ipar** sortaldeari buruz. Aurelia Arkotxa

**Iparsortaldeko** haizea izango duzue. Joseba Sarrionandia

Eta iltze herdoildu berbera erabiliko duzu, letreroa **iparsortalderantz** apuntaturik lotzeko. Joseba Sarrionandia

**22** ***ipar tente*** ipar haize mota bat.

Goiko iparrekoak dauzkagu gero, **Ipar**-tentea, hotza, elurretara aise jotzen duena, baina prezipitazio gutxiagoz. Pello Zabala

**23** ***ipar txiki*** ipar haize mota bat.

Eta ekialdeko ukitua duela, baina Pirinio eta Auñamendi elurtuetatik pasatutakoan, hozkirria eraginez datorrena, ahulago, horri **Ipar** ttikia deitu izan zaio, nafar gorria ere bai, Ipar gaiztoagoaren koloretik baduelako, eta nafar-haize ere bai. Pello Zabala

Aldiz, etzanago ia, nafarraldetik, barreneko parajeetatik datorkigun haizexka mantsoago horri, **ipar** ttikia deitzen diogu, edo eguzki-haizea deitu izan zaio. Pello Zabala

Kontuz, bada, **ipar** ttiki negukoarekin, ez da batere beroa-eta. Pello Zabala

**24** ***ipar zuri*** ipar haize mota bat.

Ipar beltzetik **ipar** zurira aldatzen ari zen haizea, eta airea altzairu-koloreko distira fina hartzen ari zen. Anjel Lertxundi

Ibaiaren kanaletik sartzen zen **ipar** zuriak ez zekarren, ordea, euri-usainik. Anjel Lertxundi

**Ipar** zuriak zerutik erauzia du hezetasun eta lanbro gehiena, eta autotik ikusten den perspektiba garbia da. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**apaizek ipar** (16); **apaizek ipar haizeari** (16); **atzo ipar** (7); **bai ipar** (8); **baina ipar** (10); **baina ipar euskal** (8); **baiona ipar** (19); **baiona ipar euskal** (15); **baita ipar** (12); **baita ipar euskal** (8); **bat ipar** (12); **batek ipar** (5); **batuko ipar** (14); **batuko ipar irlandarako** (14); **da ipar** (68); **da ipar euskal** (48); **dago ipar** (8); **dago ipar euskal** (7); **dagoen ipar** (5); **dela ipar** (9); **dela ipar euskal** (5); **den ipar** (10); **dio ipar** (5); **dira ipar** (22); **dira ipar euskal** (15); **diren ipar** (12); **diren ipar euskal** (8); **ditu ipar** (15); **ditu ipar euskal** (6); **dituzte ipar** (9); **donostia ipar** (5); **du ipar** (43); **du ipar euskal** (24); **duen ipar** (6); **dute ipar** (28); **dute ipar euskal** (19); **duten ipar** (5); **edo ipar** (25); **edo ipar euskal** (6); **egin zuten ipar** (5); **egun ipar** (5); **ere ipar** (12); **erresuma batuko ipar** (14); **eta ipar** (271); **eta ipar ameriketan** (6); **eta ipar europako** (6); **eta ipar euskal** (117); **eta ipar irlandako** (7); **eta ipar korea** (7); **eta ipar mendebaldeko** (5); **ez du ipar** (8); **frantzia ipar** (11); **frantzian eta ipar** (7); **gaur ipar** (5); **gure ipar** (6); **hego eta ipar** (15); **hego zein ipar** (5); **honen apaizek ipar** (16); **igandean ipar** (5); **indiako ipar** (8)

**ipar afrikako** (12); **ipar afrikan** (11); **ipar aldean** (11); **ipar aldeko** (19); **ipar aldera** (10); **ipar aldetik** (7); **ipar amerika** (19); **ipar amerikak** (6); **ipar amerikako** (44); **ipar amerikan** (24); **ipar amerikarrek** (5); **ipar ameriketako** (41); **ipar ameriketan** (46); **ipar ameriketan gaindi** (5); **ipar ameriketarat** (8); **ipar ameriketatik** (6); **ipar atlantikoko** (15); **ipar atlantikoko itunaren** (7); **ipar baiona** (6); **ipar baionako** (9); **ipar baionan** (12); **ipar beltza** (6); **ipar buru** (15); **ipar buru batzarreko** (10); **ipar ekialdea** (7); **ipar ekialdean** (38); **ipar ekialdean dagoen** (5); **ipar ekialdeko** (43); **ipar ekialdera** (20); **ipar eta** (118); **ipar eta hego** (70); **ipar eta hegoaldeko** (9); **ipar europako** (15); **ipar europan** (9); **ipar euskal** (1419); **ipar euskal herri** (51); **ipar euskal herria** (73); **ipar euskal herriak** (34); **ipar euskal herrian** (459); **ipar euskal herriarekin** (9); **ipar euskal herriaren** (42); **ipar euskal herriarentzat** (17); **ipar euskal herriari** (22); **ipar euskal herriaz** (5); **ipar euskal herriko** (597); **ipar euskal herrikoak** (10); **ipar euskal herrikoek** (5); **ipar euskal herrira** (50); **ipar euskal herrirako** (10); **ipar euskal herritik** (16); **ipar gorria** (7)

**ipar haize** (16); **ipar haizea** (10); **ipar haizeak** (14); **ipar haizearen** (6); **ipar haizeari** (16); **ipar haizeari aldarea** (16); **ipar hego** (19); **ipar hegoa** (7); **ipar hemisferioan** (12); **ipar hemisferioan negua** (6); **ipar ipar** (12); **ipar irlanda** (13); **ipar irlandak** (6); **ipar irlandako** (88); **ipar irlandako legebiltzarra** (5); **ipar irlandako polizia** (9); **ipar irlandako poliziak** (5); **ipar irlandan** (15); **ipar irlandarako** (31); **ipar irlandarako estatu** (14); **ipar irlandarako ministro** (5); **ipar itsasoan** (9); **ipar itsasoko** (20); **ipar itsasoko brent** (6); **ipar karolinako** (12); **ipar katalunia** (13); **ipar katalunian** (11); **ipar korea** (52); **ipar korea eta** (7); **ipar koreak** (38); **ipar koreako** (44); **ipar koreako agintariek** (6); **ipar koreako gobernuak** (5); **ipar korean** (13); **ipar korearen** (10); **ipar koreari** (8); **ipar koreatik** (6); **ipar mendebaldea** (7); **ipar mendebaldean** (37); **ipar mendebaldean dagoen** (9); **ipar mendebaldeko** (41); **ipar mendebaldera** (14); **ipar osetia** (10); **ipar osetiako** (30); **ipar osetiako beslan** (6); **ipar osetian** (14); **ipar poloan** (6); **ipar poloko** (5); **ipar polora** (7); **ipar renania** (5); **ipar uribe** (14); **ipar uribe eta** (5); **ipar uribek** (10); **ipar uribeko** (12); **ipar zein** (11); **ipar zein hego** (6)

**iran eta ipar** (5); **izan da ipar** (6); **kilometro ipar** (9); **nafarroa eta ipar** (8); **nafarroako eta ipar** (5); **nafarroan eta ipar** (5); **nato ipar** (5); **nato ipar atlantikoko** (5); **nola ipar** (5); **sumatrako ipar** (5); **zein ipar** (6); **zen ipar** (31); **zen ipar euskal** (15); **zion ipar** (7); **ziren ipar** (14); **ziren ipar euskal** (9); **zituen ipar** (8); **zuen ipar** (25); **zuen ipar euskal** (7); **zuten ipar** (10)

**da iparra** (5); **eta iparra** (10); **eta iparraren** (5); **eta iparreko** (13); **hegotik iparrera** (5); **iparra eta** (21); **iparra eta hegoa** (12); **iparra galdu** (12); **iparra galduta** (22); **iparra hegoa** (13); **iparraren eta** (9); **iparraren eta hegoaren** (9); **iparreko infernua** (7); **iparretik hegora** (10)

---

iparamerikar ik **iparramerikar.**

---

# Iparburu *(orobat **iparburu** eta **Ipar Buru** g.er.)* *iz* Ipar Poloa.

Hegoburuan eta **Iparburuan** izotza nola urtzen ari den aztertu behar zuen. Berria - Gaiak

Ondorioz, itsasoak goiti ari, **Iparburuko** hormaguneak urtzen, sasoinak aldatzen. Herria

Edo bestenaz arrunt hormatua, **Ipar** Buruko izotzak estalia bezala. Janbattitt Dirassar

Noranahi joanen naiz zure bila, baita Alemaniara ere, baita **Iparburura** ere. Fernando Rey

Bizkarrean, **iparburura** doazen haitz biluzi alimaleak. Aurelia Arkotxa

Gero, **Iparbururaino** iristeko grina sortu zitzaion gizon zuri europarrari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mikel Alvarez bizkaitarrak **Iparbururainoko** espedizioa kausitu du. Herria

· Mars Expressen gailu sofistikatuek hartutako irudiek urtarrilaren 18an hartutako irudiak dira, gainera, «garbi» erakusten dute karbono dioxido banaketa desberdina dela

**iparburuan** eta hegoburuan  Berria - Gaiak

---

iparekialde ik **ipar 9**.

---

# ipargoi *iz* ipar haizea.

**Ipargoia-** hau da erderazko *Norte*ri dagokiona. **Ipargoiko** aizea, geiago barik, bat batera ta guztizko asarre amorratuan sartu zan Arranondoko erritxoan.  Patziku Perurena

---

ipargorri ik **ipar 11**.

---

# iparkorear *(orobat **ipar korear** g.er.)* *izlag/iz* Ipar Koreakoa, Iparkoreari dagokiona; Ipar Koreako herritarra.

Lehenik, **Ipar-Korear** Pyongyangeko gobernu komunistak aitortua du bide hortarat heldua dela.  Herria

Gaur egun, Kim Jong Il presidente duen herrialdetik alde egin duten 5.000 **iparkorear** bizi dira hegoaldean.  Berria - Mundua

Gaur Seulera beste 200 inguru **iparkorear** iristea espero da.  Berria - Mundua

Betiereko presidentea da Kim Il Sung, **iparkorearren** betiereko eguzkia, Armada Gorriaren eguzkia.  Berria - Mundua

---

iparmendebal ik **ipar 16**.

---

iparorratz ik **iparrorratz**.

---

iparraize ik **ipar 12**.

---

# iparralde *(orobat **ipar alde** g.er.)* **1** *iz* ostertzeko lau puntu nagusietako bat, hegoaldeari aurrez aurre dagoena. ik**ipar**.

V-X mende bitarteko Europa gotorleku setiatu bat zen, ekialdean hungariarren inbasioei, hegoaldean musulmanenei eta **iparraldean** normandiarren erasoei ahal zuen moduan aurre egiten ziena.  Koro Navarro

Eudonen dukatuak sekulako lurralde-sailak zituen -Rodano ekialdean eta Bizkaiko itsas golkoa mendebaldean, Loira **iparraldean** eta Ebro ibaia hegoan-, eta musulmanak zituen hego eta mendebaldean eta merovingiarrak ipar eta ekialdean.  J.M. Olaizola "Txiliku"

Alboko gela batean **iparralde** hotzeko olerkariak irakurraldia prestatzen zuten.  Edorta Jimenez

Asiako **iparralde** osoa.  Pello Zabala

Alemaniako enperadore Frederiko II.ak Italia **Iparraldea** kontrolatzen zuen eta Bi Sizilietako erreinua. Inperio horren **iparraldea** , alegia Kaspio itsasoa Ponto Euxinotik bereizten duen partea.  Askoren artean

Kaiondotik **iparraldera** han zegoen beti itsasoa, zelai hondozorurik gabea.  Joseba Sarrionandia

Berrehunen bat metro **iparraldera** zegoen zumardira.  Ramon Saizarbitoria

Italiako **iparraldean** lehenik, Alemanian eta Herbehereetan gero.  Koro Navarro

Gerora, programa horiek Europa **ipar** aldean garatu ziren bereziki.  Iñaki Heras

Fraideak inperioaren **ipar** aldetik zetozen.  Karlos Zabala

Rietitik **iparralderantz,** 4 km t'erdira.  Askoren artean

Egun haietan ikus zitekeen kometa erakutsi nion, **ipar** alderantz.  Joxe Austin Arrieta

Orduan, gu **iparralderantz** joanen gara, kanal magallanikoetara.  Joseba Sarrionandia

Artista-lantegi guztiak bezala, **iparralderantz** orientaturik zegoen hura ere.  Jon Muñoz

Veracruz-etik **iparralderanzko** gasometro bat.  Juan Garzia

**2** ***iparraldeko*** *izond* ik **ipar 5**.

Eta **iparraldeko** abstemio bat, ikuspuntuetan erradikala, jokamoldeetan puritanoa eta bere lanean ikusmen garbikoa. **Iparraldeko** herriak.  Oskar Arana

**Iparraldeko** lurretako mitologiak.  J.M. Olaizola "Txiliku"

Haren gogoak **iparraldeko** lurralde hotz hezeak maite zituen.  Felipe Juaristi

Biztanleak **iparraldeko** lautadetara joanak ziren babes bila.  Karlos Zabala

**Iparraldeko** muga zaintzen.  Felipe Juaristi

1570etik aurrera **iparraldeko** merkatari-itsaslapurrek sistematikoki ostu zituzten Mediterraneoko herrialdeak.  Koro Navarro

Espainiarren zapalkuntza eta **iparraldeko** probintzia protestanteen boikota pairatzen zuelarik.  Koro Navarro

**Iparraldeko** itsasoan eta Baltikoan. Iturburuak batez ere mendietan eta **iparraldeko** lurretan bilatu behar dira.  Santiago Iruretagoiena

Itsaso hau **iparraldeko** ozeanoko zati bat zela.  Iñaki Iñurrieta

**Iparraldeko** konstelazioak.  Santiago Iruretagoiena

Frantzia **iparraldeko** Valenciennes-eko frantziskotar komentuan.  Askoren artean

Estatu Batuetako **iparraldeko** hiritarrak.  Iñaki Mendiguren

Europako **Iparraldeko** larru esne kolorekoa.  Edorta Jimenez

Bi polo daudela esan zigun, goikoa **iparraldekoa** eta behekoa hegoaldekoa.  Joseba Sarrionandia

Lekurik **iparraldekoenetan** ere.  Josu Zabaleta

Skagen hirira, Danimarkako iparralderik **iparraldekoenean** dagoen hirira abiatu ginen nire zalgurdian.  Felipe Juaristi

· **Ipar** eta hegoaldeko euskaldunen artean idazkera bateratzeko.  Koldo Zuazo

Gainera, itzala oinarriarekiko zut izateko, **ipar** -hegoaldeko orientazioan egon behar du oinarriak.  Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alkartasuna iparralde** (6); **ametsak iparralde** (3); **ametsak iparralde izoztuan** (3); **da iparralde** (10); **da iparralde huntako** (4); **dira iparralde** (3); **du iparralde** (5); **ea iparralde** (6); **eta iparralde** (13); **eta iparralde huntako** (3); **eusko alkartasuna iparralde** (6); **gure iparralde** (4); **iparralde eta** (27); **iparralde eta hegoaldeko** (7); **iparralde guzian** (10); **iparralde hau** (6); **iparralde honetan** (20); **iparralde hontan** (7); **iparralde hortan** (3); **iparralde huntako** (43); **iparralde huntako euskal** (3); **iparralde huntakoak** (3); **iparralde huntan** (47); **iparralde huntan ere** (8); **iparralde huntara** (4); **iparralde huntarik** (21); **iparralde huntarik ere** (9); **iparralde izoztuan** (3);

**iparreuropar** *izlag/iz* Ipar Europakoa, Ipar Europari dagokiona; Ipar Europarko herritarra

**Iparreuropar** batentzat beti ez da erraza izaten Hegoaldeko moduetara ohitzea. Joxe Azurmendi

---

**iparrizar** *(orobat **ipar izar**)* *iz* Hartz txiki konstelazioko izarra, izar ikusgaien artean zeruko Iparburutik gertuen dagoena.

Konstelazio horretatik **Ipar** -izarra deitzen dena ikusten da dirdirka Hartz Handiaren buruaren ondoan. Santiago Iruretagoiena

**Iparrizarraren** inguruan etengabean itzulika ari den izar batetik hasi omen zen konstelazioa. Berria - Kultura

**Ipar-izarraren** inguruan jiratzen diren zazpi izarrak ez direlako inoiz itsasoko uretan hondoratzen. Berria - Kultura

Mollyk primeran ezagutzen zituen izarrak -Hartz Handia, Esne Bidea, **Iparrizarra-** . Mirentxu Larrañaga

Mediku psikiatra hura [...] nire gau ilunean piztutako **ipar-izarra** bezalakoa gertatu baitzitzaidan. Joan Mari Irigoien

---

**iparrorratz** *(orobat **ipar orratz** g.er. eta **iparorratz** g.er.)* **1** *iz* iparraldea seinalatzen edo adierazten duen burdin atal imandu birakorra, hondoan haize-arrosa duen kutxatxo gehienetan kristaldun batean finkatzen dena.

Historiak irakasten digu **iparrorratza** aurkitu baino lehen lau aldiz saiatu zirela Afrikako itzulia egiten. Iñaki Iñurrieta

**Iparrorratzak** mundua zabaldu zuen, nolabait esateko. Iñaki Iñurrieta

**Iparrorratzak** unibertsoa ireki zuen; merkataritzak, aldiz, berori gizarteratu du. Andres Urrutia

**"Iparrorratza** ekarri dut", esan zuen Mikelek esploratzaile jarrera hartuz eta bere motxilatik kutxatxo bat atereaz. planoa eta **iparrorratza** hartuta, hor abiatu dira lurralde miresgarriaren bila. Bernardo Atxaga

Letoizko **iparrorratz** txiki bat. Iñaki Mendiguren

Inprimeria, kanoi-bolbora eta **iparrorratz** magnetikoa. Koro Navarro

Ez al zekizkien **iparrorratzaren** lau muturrak? galdetu zion. Anton Garikano

-Zuzenean iparraldera -esan zuen Ronek, aginte-koadroko **iparrorratzari** begira-. Iñaki Mendiguren

Juanek esnatu orduko esan zuen bezala, **iparrorratzean** North East twenty one norabidea aurkitu, eta hari jarraitzeko eskatu zigun. Bernardo Atxaga

Iman bat **ipar** orratz bati hurbildurik. Juan Garzia

Molekula batzuek dipolo elektriko bat daramate beren baitan, hots, **ipar** orratz ñimiñoak bezala jokatzen dute eremu elektriko batean. Juan Garzia

Gauza ezezagunez betetako kaos honetan funtzionatzen ez dakien **iparorratz** ero bat da egia. Josu Zabaleta

Garai hartan, nabigatzaileak behartuta zeuden itsas bazterrari jarraitzera; horixe zen, nolabait esan, haien **iparrorratza** . Iñaki Iñurrieta

Paperetatik irteteak, ordea, **iparrorratzik** gabeko marinel bihurtzen zuen askotan. Fernando Morillo

**2** *irud* ik **ipar 3**.

Ez zuen beste gairik izan, ahotik jaurtitzen zituen hitzek beti norabide bera hartzen baitzuten, deabruaren azpi-jokoak eta jukutriak **iparrorratz** . Joan Mari Irigoien

Susmoa bainuen aski nuela urrats bat haratago egitea, bihotzaren **iparrorratzak** markatzen zidan norabidean doi, zeru oskarbiko eguzki haiek guztiak neure egiteko... Joan Mari Irigoien

**SEPIri** iparrorratza eman diote: pribatizazioa. Berria - Ekonomia

Gure **iparrortatz** magnetikoa prezioen egonkortasuna baino ez da.

Halako lan bat noraezeko **iparrorratza** da, nora ezean ez ibiltzeko. Berria - Harian

Martxoaren 7an galdu zuen **iparrorratza,** Racingen aurka Ronaldok min hartu zuenean, eta hiru txapelketako uretan ito egin da. Berria - Kirola

Literaturaren gai klasiko eta betierekoak omen direnak dira liburu honetan ere ardatz, **iparrorratz** . Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan)

Beste eskuan, berriz, gaileta bat zeukan, **iparrorratz** -kutxaren ondoko apal batean kokatutako kafe kikaran busti berria. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iparrorratz magnetikoa** (3); **iparrorratzik ez** (3); **iparrorratzik gabe** (4)

---

**iparrosetiar** *izlag/iz* Ipar Osetiakoa, Ipar Osetiari dagokiona; Ipar Osetiako herritarra.

Beslango eskola batean izandako bahiketa gerrillari txetxeniar, ingush eta **iparrosetiarrek,** besteak beste, egina eragozten ez asmatzeagatik. Berria - Mundua

---

iparsortalde ik **ipar 20.**

---

**ipartar** *izlag* iparraldekoa, iparraldeari dagokiona. ik **nordiko.**

Sekula antzemango ez nuen "maelström" **ipartar** hura bertago zen, eta altuago, eta erraldoiago. Txillardegi

Himmler Erdi Aroak eta mitologia **ipartarrak** lilluraturiko gizona da. Alberto Ladron Arana

Weberren ustez, musika alemanak ezin hobeki islatzen ditu bi kultura-ildo horiek, bere baitan biltzen baititu kondaira **ipartarrak** eta ideia kristauak. Alberto Ladron Arana

Sekula antzemango ez nuen "maelström" **ipartar** hura bertago zen, eta altuago, eta erraldoiago. Txillardegi

---

**ipi-apa** *iz* xehetasunak, zertzeladak.

Behin batean **ipi-apa** guztiekin planeatu zuen berrogeita hamar kilometroko bidaia bat emakume bat ikusteko. Anton Garikano

Larunbata noiz iritsiko pasatu nuen aste osoa, **ipi-apa** guztiekin planeatu nuen zer esango nion eta zer egingo genuen zinean eta zinetik irten ondoren. Anjel Lertxundi

**Ipi-apa** guztiekin esplikatu behar zaizu dena. Anton Garikano

---

**ipinarazi,** ipinaraz, ipinarazten du *ad* ipintzera behartu.

Oholesi bat **ipinarazi** zuen jauregiaren lurren inguruan. Joan Mari Irigoien

Pasabide batzuetan guardiak **ipinarazi** zituen, agindu honekin. Askoren artean

Berari bizkarra emanda jarri ninduen, eskuak sukaldeko gainestalkiaren kontra **ipinarazi** zizkidan. Juan Martin Elexpuru

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ipinarazi zuen** (3); **kontra ipinarazi** (3)

**ipini**, ipin, ipintzen *(orobat **ipiñi** g.er. eta **imini** g.er.)* **1** du *ad* norbait edo zerbait toki edo egoera berri batean gerta dadin egin. ik **jarri.**

Herritarrek bandera zuria **ipini** zuten; eta armada, jenerala buruan, hirian sartu zen. Koro Navarro

Azkenean dorre handiagoa **ipini** behar izan nuen. Gotzon Garate

**"Ipini** behar al dugu salmahairik?" galdetzen dio Lucyri. Oskar Arana

-Onena hortzeria berria **ipintzea** duzu. Patxi Zubizarreta

Atezainak keinu egin zidan, ondoko bulegora sar nendin, "Debekatua sartzea" **ipintzen** zuen hartara. Juan Kruz Igerabide

Neurgailuak **ipin** ditzakezu. Juan Kruz Igerabide

Ekonomia- eta gizarte-harremanen erregulazio-eredu keynestarrak [...] ezohiko hazkunde baten oinarriak **ipini** zituen. Koro Navarro

Hiru zigor **ipintzen** dizkizut aukeran; hautatu horietarik bat eta huraxe ezarriko dizut. Elizen arteko biblia

Beste nahi adina adibide **ipin** ditzakegu. Jenaro Garate

Ordu bata **ipini** dute sarrera-ordua. Agurtzane Juanena

Mahai gainean oparigaiak **ipintzen** ziren. Elizen arteko biblia

Mundu guztia jakinean **ipintzen** saiatu zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Joxe Mari eta biak joan ziren epaitegira, salaketa **ipintzera**. Juan Kruz Igerabide

**2** (zerbait nonbait)

Bost zapata pare atera zituen handik, eta egunkari orrien gainean **ipini**. Juan Kruz Igerabide

Esku bat **ipini** zuen kopetan, bisera gisa. Juan Kruz Igerabide

Belarria **ipini** haren bularrean, eta bizirik zegoela jakin zuen. Felipe Juaristi

Abiatu aurretik, txapel handi bat **ipini** zuen. Jon Muñoz

Zuloaren inguruan jarri beharreko babes-hesia **ipini** gabe. Jon Muñoz

Ez nekien non **ipini** hankak. Juan Kruz Igerabide

Zerrenda itsaskorra **ipini** nuen zirrikituan. Juan Kruz Igerabide

Saltzaileak kaiola batean sartu zuen txakurra; bizikleta gainean **ipini,** eta abiatu egin zen. Juan Kruz Igerabide

Naziek erloju bonba bat **ipini** zuten gure bulegoan. Koro Navarro

Ez zen ausartu haren eskuan txanpon bat **ipintzen**. Karlos Zabala

**Ipin** ezazue itsasertzean kanpamentua. Jose Antonio Mujika

Zeus Kronosen semeak hodei beltz bat **ipini** zuen itsasontziaren gainean. Juan Kruz Igerabide

Amaren belaunen gainean **ipini** nuen burua. Juan Kruz Igerabide

Sukarra dugunean bekokian zapi busti bat **ipintzeak** ondoeza arintzen du. Irene Aldasoro

· Ikusmolde horrek oso dilema zailen aurrean **ipini** zituen ekonomia-politika nazionalak. Koro Navarro

Esperientzia bitxi hark, hala ere, mugarri bat **ipini** zuen nire bizitzan. Joan Mari Irigoien

Ez dezatela beren itxaropidea aberastasun galkorretan **ipin**. Elizen arteko biblia

**3** (norbait nonbait edo zerbaitetan)

Eserlekuan **ipini** ninduen, trapuzko panpina baten antzera. Juan Kruz Igerabide

Pareta baten kontra **ipini** ninduen. Juan Kruz Igerabide

Bosgarren urteko hirugarren gelan **ipini** ninduten. Juan Kruz Igerabide

Historiak hitzontzien artean **ipini** du Gall, baina haren oinarrizko ideiak zuzenak ziren. Irene Aldasoro

Eta guardiaburuak, hain zuzen, Jose **ipini** zuen haien zerbitzari. Jose Antonio Mujika

**4** (zerbait norbaiti)

Eraztuna **ipini** diot sudurrean eta eskumuturrekoak eskumuturretan. Jose Antonio Mujika

Zalantzan egon zen, baina, azkenean, sorbaldan **ipini** zidan eskua. Juan Kruz Igerabide

Gizonak emakumea jo zuen eta errebolber bat **ipini** zion lokian. Koro Navarro

Hartu zuen Abrahanek oparitarako egurra, eta bizkar gainean **ipini** zion Isaak semeari. Jose Antonio Mujika

Amak te on bat **ipini** zigun, eta familia guztia eseri ginen. Juan Kruz Igerabide

Lo gelditzen direnean lepoko bat **ipintzen** diete, emisore ttipi batekin, nondik nora dabiltzan jakiteko. Gotzon Garate

Merkurokromo eta ukendu bat **ipini** zioten eskolako erizaindegian. Juan Kruz Igerabide

Ordutik aurrera, Barka-Franklin gaitzizena **ipini** genion. Oskar Arana

Esana diet morroiei trabarik ez **ipintzeko** zuri. Jose Antonio Mujika

Egun batean, lagun batek problema zail bat **ipini** zion ebazteko. Juan Garzia

Ordutik aurrera, Barka-Franklin gaitzizena **ipini** genion. Oskar Arana

Aurkitua nuen psikiatra batek tratamendua **ipini** zion. Juan Kruz Igerabide

Zilan **ipini** zioten izena alabatxoari. Juan Kruz Igerabide

**5** (zerbait beste zerbaiti)

Hamar urterekin, kometak egiten zituen, eta linterna piztuak **ipintzen** zizkien kometei. Jon Muñoz

Juduak, duda egin ondoren, agindu-txartelak bete eta zigiluak **ipini** zizkien. Koro Navarro

Ez nion sekula trabarik **ipintzen** hark erabakitakoari. Pedro Alberdi

XX. mendeak muga berriak **ipini** zizkion formalizatzeko eta aurreikusteko gure gaitasunari. Juan Garzia

Ez zenidaten jaramonik egin semeen gehiegikeriei muga **ipintzeko** abisatu nizuenean. Juan Kruz Igerabide

Biztanleriari mugak **ipintzeko** biderik artezena haur galtzea da. Gotzon Garate

Beti aitzakia bera **ipintzen** zion genetikari: materialismo dialektikoarekin bateraezina izatea. Juan Garzia

**6** (nola, zertan)

Estalkia kendu, ezpata utzi, soka batez baliaturik aizkorak lerro-lerro **ipini,** eta lurra bota zuen inguruan. Juan Kruz Igerabide

Datu hark hankaz gora **ipini** zidan ordura arte osaturik neukan puzzlea. Juan Kruz Igerabide

Leunkeriak batere maite ez zituen Prim jeneralak, ordea, Erregetza bera nahi zuen hankaz gora **ipini**. Txillardegi

Isil bedi Demodoko, beraren kantuak negarrez **ipintzen** baitu atzerritarra. Juan Kruz Igerabide

Hartu nire ezkutua, hoa Kamelotera, eta **ipini** Esteban Donearen elizan zintzilik. Juan Kruz Igerabide

Marrok pistola tirabidean **ipini** zion, tiro egitera balihoa bezala. Juan Kruz Igerabide

Ez zuen izaten eztarria urratu beharrik batere, aski baitzuen mingostasun zakar hura auzo guztiko haurrak izu-laborrian **ipintzeko**. Juan Kruz Igerabide

Karrozeria berritu nion, eta motorra puntuan **ipini**. Juan Kruz Igerabide

Motorrera igo, martxan **ipini** eta alde egiten du. Antton Olano

Lanpara bere oinen gainean zut **ipini** zuen berriz Maxek. Jon Muñoz

Aitaren atzetik nindoala, belarria tente **ipini** nuen. Juan Kruz Igerabide

Baina atsoak halako eran **ipini** zuen argiontzia, non eskaileraren hasiera argitzen baitzuen. Koro Navarro

Har ezazu dirua eta bankuan irabazian **ipini**. Gotzon Garate

Saudi Arabiara heldu bezain laster, haurrak eskean **ipintzen** dituzte. Gotzon Garate

## **7** (zerbaitetarako)

Ura berotzen **ipini** zuen tea egiteko. Petrolioaren prezioa 1974ko mailara eramanez [...] baldintza egokiak **ipini** zituzten munduko kontsumoa ere lehengo maila berera itzul zedin. Koro Navarro

Artaldeak zaintzeko mastin zakurrak **ipintzea** omen da biderik onena. Gotzon Garate

Lakioak **ipintzen** zituen lorategian txoriak harrapatzeko. Josu Zabaleta

## **8** (bestelakoetan)

Gero, atzeratu egin zen, aurpegi serioa **ipini,** eta begira-begira egon zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

Kopeta iluna **ipintzen** zuen eta pixka bat haserretu ere bai. Gotzon Garate

Mundu guztia jakinean **ipintzen** saiatu zen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Ipini** arreta pittin bat. Jesus Mari Mendizabal

Behar-beharrezko da gehiegikeria sokratikoa, arrazoizkoa, kulturalista bere neurritan **ipintzea**. Patziku Perurena

Amak ez zuen oztoporik **ipini**. Juan Kruz Igerabide

Txikitandik gorderik nekarren zama hustu, nire historia sekretuaren jakitun **ipini,** koipea erabat garbitu behingoz. Juan Kruz Igerabide

## • **9** da *ad*

Aurpegia guztiz distiratsu eta alai **ipini** zitzaion, anaia guztiak harrituta uzteraino. Askoren artean

## **10** ***begiak ipini***

Geure begiak ez ditugu **ipintzen** ikusten diren gauzetan, ikusten ez direnetan baizik. Elizen arteko biblia

Gero, bere itzalaren muturrean **ipini** zituen begiak. Jon Muñoz

Harik eta Jaunak bere begiak harengan **ipini** zituen arte. Askoren artean

Begitxoak **ipintzen** eta igurtzitxo batzuk egiten hasi nintzaionean. Juan Martin Elexpuru

## **11** ***bekozkoa/bekozko iluna ipini***

Hagridek **bekozkoa ipini** zien. Iñaki Mendiguren

Paul D-k bakozkoa **ipini,** baina ez zuen ezer esan. Anton Garikano

Ronek bekozko iluna **ipini** zion Percyri. Iñaki Mendiguren

Bekozko iluna **ipintzen** zuela ikusi zuen Harryk ilargiaren argitan-. Iñaki Mendiguren

-Zer gertatzen da? -esan zuen Woodek, **bekozkoa ipinita,** ziztu bizian beraiengana hurbilduz-. Iñaki Mendiguren

-A, jakina! -esan zuen McGonagall andereñoak, bat-batean bekozko iluna **ipinita-**. Iñaki Mendiguren

## **12** ***urduri ipini***

Eltxoen burrundara edonor urduri **ipintzeko** bezalakoa da. Gotzon Garate

Hura kalean ibiltzeak urduri **ipintzen** zituen auzotarrak. Juan Kruz Igerabide

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**abian ipini** (4); **arretarik ipini** (4); **artean ipini** (18); **artean ipini eta** (5); **atzean ipini** (6); **aurpegia ipini** (7); **aurre ipini** (6); **aurrean ipini** (32); **aurrean ipini zion** (7); **aurrean ipini zituen** (4); **aurrez aurre ipini** (6); **azpian ipini** (11); **bana ipini** (6); **bat ipini** (142); **bat ipini du** (7); **bat ipini eta** (7); **bat ipini zion** (17); **bat ipini zuen** (41); **bat ipini zuten** (9); **batean ipini** (25); **baten gainean ipini** (4); **batzuk ipini** (7); **begira ipini** (9); **belarrian ipini** (6); **belaunen gainean ipini** (4); **bere lekuan ipini** (12); **berezia ipini** (4); **berria ipini** (6); **berriak ipini** (7); **betaurrekoak ipini** (4); **bi ipini** (5); **bidean ipini** (5); **bigungarri bat ipini** (4); **bularrean ipini** (4); **buru gainean ipini** (6); **disko bat ipini** (4); **ere ipini** (14); **esku ipini** (6); **eskua ipini** (5); **eskuan ipini** (5); **eskuetan ipini** (9); **eta aurrean ipini** (5); **eta ipin** (5); **eta ipini** (21); **ez ipini** (7); **gainean ipini** (97); **gainean ipini du** (7); **gainean ipini eta** (8); **gainean ipini zituen** (10); **gainean ipini zuen** (23); **gainean ipini zuten** (4); **gainetik ipini** (5); **gerrian ipini** (5); **gora ipini** (8); **handia ipini** (6); **hankaz gora ipini** (6); **hantxe ipini** (6); **harria ipini** (7); **hori ipini** (4); **hormaren kontra ipini** (4); **horregatik ipini** (5); **hura ipini** (6); **indarrean ipini** (5); **ipin ezazu** (6)

**ipini ahal** (9); **ipini ahal izateko** (6); **ipini arte** (4); **ipini aurretik** (4); **ipini behar** (47); **ipini behar dira** (4); **ipini beharko** (12); **ipini beharreko** (4); **ipini berria** (6); **ipini da** (4); **ipini den** (4); **ipini dio** (5); **ipini diot** (4); **ipini dit** (5); **ipini ditu** (26); **ipini dituela** (5); **ipini dituen** (5); **ipini dituzte** (19); **ipini du** (54); **ipini duen** (5); **ipini dugu** (4); **ipini dut** (13); **ipini dute** (25); **ipini duten** (8); **ipini duzu** (4); **ipini edo** (5); **ipini egin** (4); **ipini ere** (5); **ipini eta** (115); **ipini ez** (5); **ipini gabe** (14); **ipini genituen** (4); **ipini genuen** (7); **ipini gura** (5); **ipini izan** (6); **ipini nahi** (42); **ipini nahi izan** (5); **ipini ninduen** (5); **ipini nion** (18); **ipini nire** (4); **ipini nituen** (7); **ipini nuen** (40); **ipini ohi** (10); **ipini ondoren** (8); **ipini orduko** (8); **ipini zen** (12); **ipini zidan** (14); **ipini zidaten** (5); **ipini zion** (76); **ipini zioten** (26); **ipini ziren** (8); **ipini zituen** (88); **ipini zituztela** (5); **ipini zituzten** (35); **ipini zitzaion** (5); **ipini zizkien** (5); **ipini zizkieten** (6); **ipini zizkion** (15); **ipini zuela** (8); **ipini zuen** (241); **ipini zuen bere** (4); **ipini zuen eta** (8); **ipini zuen haien** (4); **ipini zuenean** (5); **ipini zuten** (76); **ipini zutenean** (6)

**askoren buru ipiniko** (4); **aurrean ipiniko** (6); **bat ipiniko** (18); **buru ipiniko** (7); **ere ipiniko** (4); **ipinia zuen** (7); **ipiniko da** (4); **ipiniko diozu** (5); **ipiniko ditu** (8); **ipiniko dituzte** (18); **ipiniko du** (10); **ipiniko dugu** (5); **ipiniko dut** (13); **ipiniko dute** (14); **ipiniko duzu** (5); **ipiniko nuke** (5); **ipiniko zuen** (7); **izena ipini** (12); **izena ipini zioten** (4); **izena ipiniko** (4); **kontra ipini** (15); **larrian ipini** (4); **lehergailu ipini** (4); **lekuan ipini** (15); **lepoan ipini** (4); **lurrean ipini** (8); **mahai gainean ipini** (19); **mahaian ipini** (4); **martxan ipini** (12); **moduan ipini** (4); **nik ipini** (4); **non ipini** (10); **nork ipini** (5); **oinarriak ipini** (5); **ondoan ipini** (14); **parean ipini** (7); **salaketa ipini** (12); **sorbaldan ipini** (5); **sutan ipini** (6); **tente ipini** (6); **txiki bat ipini** (4); **zalantzan ipini** (8); **zergatik ipini** (4)

**agerian ipiniz** (4); **bat ipinita** (7); **bat ipiniz** (6); **bat ipintzea** (5); **bat ipintzeko** (7); **bazterrean ipinitako** (6); **bazterrean ipinitako lehergailu** (4); **bekozko iluna ipinita** (8); **bekozkoa ipinita** (6); **bide bazterrean ipinitako** (6); **bilurrak ipinita** (5); **gainean ipinita** (7); **gainean ipiniz** (6); **gainean ipintzeko** (7); **iluna ipinita** (8); **ipinitako bonba** (4); **ipinitako lehergailu** (4); **ipinitako lehergailu batek** (4); **ipiniz gero** (15); **ipintzea erabaki** (4); **ipintzea eta** (4); **ipintzea izan** (6); **ipintzea lortu** (4); **ipintzeaz gainera** (4); **ipintzeko eskatu** (5); **izena ipintzea** (5); **kontra ipinita** (7); **lurrean ipinita** (4)

**artean ipintzen** (4); **bat ipintzen** (31); **bat ipintzen zuen** (4); **bat ipintzen zuten** (4); **batzuk ipintzen** (7); **berak ipintzen** (5); **bidean ipintzen** (4); **dantzan ipintzen** (4); **eta ipintzen** (5); **gainean ipintzen** (13); **gora ipintzen** (4); **hala ipintzen** (4); **ipintzen ari** (15); **ipintzen ari zen** (5); **ipintzen da** (6); **ipintzen den** (5); **ipintzen dira** (4); **ipintzen diren** (7); **ipintzen ditu** (10); **ipintzen dituen** (6); **ipintzen dituzte** (14); **ipintzen dituzten** (8); **ipintzen du** (33); **ipintzen duen** (20); **ipintzen dugu** (5); **ipintzen dute** (10); **ipintzen ez** (6); **ipintzen ninduen** (4); **ipintzen zidan** (4); **ipintzen zion** (8); **ipintzen zituela** (5); **ipintzen zituen** (17); **ipintzen zituzten** (10); **ipintzen zuela** (12); **ipintzen zuen** (29); **ipintzen zuten** (17); **kartelak ipintzen** (4); **kontra ipintzen** (4); **musika ipintzen** (5); **ondoan ipintzen** (6); **zalantzan ipintzen** (4)

---

# **ipinkera** *iz* ipintzeko modua.

Paper bat eta kartazal bat ezarri zituen mahai gainean ezker-eskuma, eta bien artean aukeratzeko beharra adierazi zion Santosen esku **ipinkerak**. Josu Landa

---

# **ipitz** *iz* izpia.

Haietako batean zuritasun ukitu bat, eta sastraka **ipitz** berde bat harkaitz gainean. Anton Garikano

Ez du **ipitzik** utzi, ezta **ipitz** bakar bat ere. Anton Garikano

---

# **ipizki** *iz* labea garbitzeko eskuila.

Labe aldean ez zen gauza handirik: abar batzuk, ia erdi erretako pala zatar bi, ta labe-ohea garbitzeko **ipizkia**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **ipizta** *iz ipar* erronka, borroka.

Hor jakin nuen Garaziko hiru jaunen **ipizta** zela hori : Pierre Narbaitz Azkaratiar bikario jenerala eta Ttotte Lecuona jaun erretora ziren Louis Inchauspe Donibaneko jaun mera eta kontseilu nagusiko buru zenarekin hitzartuak laborantzako Eskola baten sortzeko, 14-17 urteko putikoentzat. Herria

Badabiltza berri batzu, Hussein haren dei bat ere menturaz, diotenak gerla eta **ipiztak** beti bizi dauzkatela zenbaitek, lehengo tirano higuin harekin berarekin ez bada oraino, nunbaitik. Herria

---

## **ipotx** **1** *iz* nanoa.

Samurki maite zuten elkar nexka txikiak eta **ipotx** konkordunak. Xabier Mendiguren Elizegi

Horko jendeak **ipotxak** bezain ttipiak dira, baina ez pigmeoak bezainbat. Aurelia Arkotxa

Burua galduta, Harry lasterka ihes egiten saiatu zen, baina **ipotxak** belaunetatik heldu eta danba! lurrera bota zuen. Iñaki Mendiguren

Adoretsu, beste guztiekin batera barre egiten saiatu eta zutitu egin zen, hankak sorgortuta **ipotxaren** pisuagatik. Iñaki Mendiguren

**Ipotx**-oin ñimiñoarekin. Fernando Rey

Edurne Zuri eta zazpi **ipotxak**. Juan Kruz Igerabide

• **2** *izond*

Bi fraide **ipotx**. Berria - Kultura

Emakume ttiki-ttikia zen, **ipotxa** kasik. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bi ipotx** (3); **eta moviles ipotxak** (6); **eta zazpi ipotxak** (3); **ipotxa eta** (7); **ipotxak ere** (9); **ipotxak eta** (6); **ipotxaren kotizazioa** (3); **moviles ipotxa** (4); **moviles ipotxak** (16); **moviles ipotxak ere** (4); **tpi ipotxa** (14); **tpi ipotxa eta** (4); **tpi ipotxak** (11); **tpi ipotxak eta** (3); **zazpi ipotxak** (4)

---

## **ipuin** *(orobat **ipui** g.er.)* **1** irudimenak sortutako alegiazko kontakizuna, jostatzeko helburua duena. ik **alegia**2.

Kontaidazu **ipuin** bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Dunyadad ahizpak ipuinari zoragarria iritzi zion, eta Xerazadek are **ipuin** zoragarriagoa kontatuko zuela hitzeman zuen, baldin eta Xariar sultanak bizia beste egun batez luzatzen bazion. Patxi Zubizarreta

Hemen jasotzen diren errezitaldietako gidoiak eta **ipuinak** idazteko. Patxi Zubizarreta

Eta **ipuina** irakurtzen hasi zaio. Pako Aristi

**Ipuinak** entzuteko, antzezteko, irakurtzeko eta ikusteko gune bat egingo da aurki Asteasun. Berria - Kultura

Gau argitan esandako **ipuina** harilkatzen, ez dakigu zenbatgarren aldiz. Felipe Juaristi

Postariaren lanbidea guztiz ogibide literario eta kilikagarria zela, horretan oinarrituta hainbat **ipuin** asma zitezkeela. Xabier Mendiguren Elizegi

Azken finean, zer da nobela bat, **ipuin** puztu bat baino? Iban Zaldua

**Ipuin** luze, nobela labur edo dena delakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Borgesen "Funes el memorioso" **ipuinak** oroimenaz egiten duen irakaspen motzaz. Patziku Perurena

Humirzahren **ipuinak** ez ziren sekula bukatzen. Koro Navarro

Dürrenmatt-en **ipuineko** tren haren antzera. Anjel Lertxundi

Jack Londonen **ipuineko** protagonistak heriotzan aurkitu zuen duintasunik gabeko bizitzaren ihesbidea. Joxerra Garzia

**Ipuinaren** gai nagusia seme-alaben adopzioa da. Berria - Kultura

Eta hirugarren **ipuineko** Gaiztaindizahar baserriko Joxepa [...] laugarren **ipuineko** hiltzailearen iloba da. Markos Zapiain

Loti Ederraren **ipuinarekin** gogoratzen naiz batzuetan. Iban Zaldua

Joan liburutegira eta begiz jotako lehen liburua hartu nuen eskuetan, Villiers de L'Isle-Adam idazlearen **ipuin** aukeratuak biltzen zituena. Bernardo Atxaga

Sutondoan edo artazuriketan kontatutako **ipuinak**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ataunen entzundako **ipuinak** transkribatzean. Xabier Mendiguren Elizegi

Zientzia fikziozko **ipuin** batzuk egin nituen. Iban Zaldua

Lehen pertsonan kontatutako **ipuin** mitologikoak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Neu izan bainintzen zuzendariarengana jo zuenetako bat Öchlerrek neskame desatsegin bati buruzko **ipuin** lizun dekadente bat irakurri zigula salatzera. Anjel Lertxundi

**Ipuin** likits bat, nire libidoa kitzikatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

**Ipuin** mitikoetan, garia eta oloa ezin ditu bereizi bahe labirintikoak. Joseba Zulaika

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ipuin** tonu orokorra eten zezakeen saiakerarik ez sartzea. Juan Garzia

Nire aurreko **ipuin** liburuan. Iban Zaldua

Hori esatean, estalki batean bildurik, **ipuin** sorta luzatu omen zion. Joxean Agirre

Egiazko gertaeretan oinarritutako **ipuin** bilduma egin nahi dut. Jon Arretxe

Maupassanten obretan, Parisko **ipuin** zikloan batez ere. Josu Zabaleta

Nire fakultatean bertan antolatzen zuten **ipuin** lehiaketa batera aurkeztu nuen. Iban Zaldua

**Ipuin** kontaketaz ari dela. Iñaki Arranz

Handik aurrera bakantzen hasten dira **ipuin** argitalpenak. Josu Zabaleta

Mendez mende sortu eta osatu zen, ahotik belarrira, **ipuin** kontalarien bidez. Patxi Zubizarreta

Elkarrizketatzaileak **ipuin** idazleari egingo dion bigarren edo hirugarren galdera. Iban Zaldua

Ipuinen eta **ipuin** ahaleginen koadernoa erretzen ari zela, ama sartu zen sukaldera. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mito-**ipuin** baten bidez kontatzen du alfabetoaren asmakuntza, Fedro izeneko dialogoan. Joxerra Garzia

Ez dago herri-**ipuin** horietaz fidatzerik. Iñaki Iñurrieta

Han, maitagarri-**ipuin** batean bezala, uraren ertzean, ostatu zahar bat, dena beiratez inguratua, teilatua lastozkoa zuena: Txalupazainen topalekua. Jon Muñoz

*Don Pacheco eta Doña Incarnacion* izeneko irri-**ipuina** txertatu zuen Jean Baptiste Elizanburuk bere Piarres Adame eleberrian. Anjel Lertxundi

"Izu-**ipuinak"** omen zirenen garaia zen. Joxe Austin Arrieta

Haur **ipuinen** artista. Xabier Montoia

Umetan, peto-peto sinesten nuen nik amandre-**ipuinetan**. Juan Garzia

Herioak amodio bekaitzak lurrintzen zituen, egiazko maitasun **ipuinak** zilegitzeko. Itxaro Borda

Bada artzai **ipuin** klasiko bat gure artean hagitz ezaguna dena. Patziku Perurena

Eguberri **ipuina**. Josetxo Azkona

· Gutun bat bidali zidan hango herri-**ipuin** bilduma batekin. Bernardo Atxaga

**4** egiazkoa ez den esana.

Enpresen edo estatuen arteko espioitza Interneten bidez egiten da benetan, ala **ipuina** da hori? Berria - Gaiak

Globalizazioaren **ipuinarekin** -eta has gintezke hemen, baina ez dut merkekerietarako gogorik. Xabier Mendiguren Elizegi

Kontu horiek **ipuinak** dira, mitologia. Aitor Arana

Zuek, belebeltzok, inbutuz sartutako **ipuinak**! Inazio Mujika Iraola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**are ipuin** (18); **are ipuin zoragarriagoa** (18); **aurreko ipuin** (7); **baina ipuin** (6); **bat ipuin** (5); **bere ipuin** (5); **bertze ipuin** (4); **beste ipuin** (24); **beste ipuin bat** (4); **beste ipuin batean** (5); **bi ipuin** (15); **bost ipuin** (5); **buruzko ipuin** (10); **da ipuin** (21); **den ipuin** (4); **dira ipuin** (5); **ditu ipuin** (5); **du ipuin** (5); **duen ipuin** (9); **dut ipuin** (6); **edo ipuin** (26); **edo ipuin batean** (4); **edo ipuin hutsa** (4); **eleberri edo ipuin** (8); **en ipuin** (4); **ere ipuin** (13); **eta ipuin** (70); **eta ipuin bat** (5); **euskal herriko ipuin** (4); **euskal ipuin** (5); **euskaldunei buruzko ipuin** (5); **girotutako ipuin** (4); **hainbat ipuin** (13); **hainbeste ipuin** (4); **hamabost ipuin** (4); **hamabost zauri ipuin** (4); **hamar ipuin** (6); **haren ipuin** (4); **herri ipuin** (7); **herriko ipuin** (4); **hiria ipuin** (4); **hiru ipuin** (4); **idatzitako ipuin** (14); **idazlearen ipuin** (5)

**ipuin amodiozko** (5); **ipuin antzeko** (6); **ipuin antzeko alegi** (4); **ipuin asko** (8); **ipuin bakarrak** (5); **ipuin bakoitza** (6); **ipuin bana** (4); **ipuin bat** (157); **ipuin bat baino** (4); **ipuin bat eskatu** (5); **ipuin bat irakurri** (5); **ipuin bat kontatu** (11); **ipuin bat kontatzen** (8); **ipuin batean** (37); **ipuin batean bezala** (6); **ipuin batek** (11); **ipuin batekin** (4); **ipuin bateko** (11); **ipuin bateko pertsonaia** (4); **ipuin baten** (18); **ipuin batetik** (5); **ipuin batzuk** (15); **ipuin bera** (4); **ipuin bilduma** (49); **ipuin bilduma bat** (4); **ipuin bildumak** (4); **ipuin bilduman** (7); **ipuin bildumaren** (4); **ipuin eder** (4); **ipuin edo** (14); **ipuin erotiko** (4); **ipuin erotikoak** (8); **ipuin erotikoen** (4); **ipuin eta** (49); **ipuin gehienak** (5); **ipuin gogoangarriak** (6)

**ipuin guztiak** (13); **ipuin guztien** (4); **ipuin haiek** (9); **ipuin harrigarri** (4); **ipuin hau** (20); **ipuin hauek** (15); **ipuin hauen** (4); **ipuin hauetako** (5); **ipuin hauetan** (10); **ipuin honen** (8); **ipuin honetako** (6); **ipuin honetan** (4); **ipuin hori** (18); **ipuin horiek** (13); **ipuin horrek** (5); **ipuin horren** (11); **ipuin horretan** (6); **ipuin hura** (19); **ipuin hutsa** (9); **ipuin izugarriak** (7); **ipuin kiowa** (5); **ipuin klasikoak** (4); **ipuin kondaketa** (10); **ipuin kondaketa bat** (4); **ipuin kondalaria** (4); **ipuin kontaketa** (5); **ipuin kontalari** (13); **ipuin kontalaria** (8); **ipuin kontalariak** (16); **ipuin kontalarien** (5); **ipuin labur** (10); **ipuin labur bat** (4); **ipuin laburrak** (4); **ipuin lehiaketa** (23); **ipuin lehiaketaren** (5); **ipuin liburu** (23); **ipuin liburu bat** (5); **ipuin liburua** (30); **ipuin liburua argitaratu** (4); **ipuin liburuak** (9); **ipuin liburuan** (4); **ipuin liburuaren** (4); **ipuin luze** (8); **ipuin miresgarri** (5); **ipuin orokorra** (6); **ipuin orokorraren** (4); **ipuin polita** (8); **ipuin sariketa** (4); **ipuin sorta** (6); **ipuin tradizionalak** (6); **ipuin zahar** (5); **ipuin zoragarriagoa** (18); **ipuin zoragarriagoa kontatuko** (18); **ipuinez ipuin** (4); **izeneko ipuin** (4)

**koldo ameztoi ipuin** (4); **lau ipuin** (7); **liburuko ipuin** (6); **lile ipuin** (4); **maitagarrien ipuin** (4); **metafora edo ipuin** (4); **mujika ipuin** (4); **nire ipuin** (8); **oso ipuin** (4); **sei ipuin** (6); **sei ipuin amodiozko** (4); **tene mujika ipuin** (4); **xerazadek are ipuin** (18); **zauri ipuin** (4); **zazpi ipuin** (5); **zein ipuin** (5); **zen ipuin** (5); **zenbat ipuin** (5); **zituen ipuin** (7); **zuen ipuin** (12)

**asiako ipuina** (4); **azken ipuina** (8); **bere ipuina** (4); **buruzko ipuina** (6); **da ipuina** (17); **erdialdeko asiako ipuina** (4); **eta ipuina** (18); **ez da ipuina** (4); **galduko ipuina** (6); **idatzitako ipuina** (8); **ipuina amaitu** (5); **ipuina argitaratu** (6); **ipuina baino** (6); **ipuina da** (8); **ipuina edo** (6); **ipuina eman** (6); **ipuina ere** (7); **ipuina eta** (9); **ipuina ez** (9); **ipuina idatzi** (4); **ipuina irakurtzen** (5); **ipuina izan** (5); **ipuina kontatu** (6); **ipuina kontatzen** (7); **ipuina lantzeko** (4); **izeneko ipuina** (5); **lehen ipuina** (5); **lehenengo ipuina** (4); **mariaren ipuina** (6); **nire ipuina** (4); **uharte galduko ipuina** (6); **zen ipuina** (5); **zuen ipuina** (10)

**asmatutako ipuinak** (4); **begiz jotako ipuinak** (5); **bi ipuinak** (4); **du ipuinak** (6); **eta ipuinak** (35); **eta ipuinak idazteko** (4); **fantasiazko ipuinak** (7); **idatzitako ipuinak** (5); **ipuinak asmatzen** (7); **ipuinak bildu** (4); **ipuinak dira** (10); **ipuinak edo** (5); **ipuinak entzuteko** (4); **ipuinak ere** (6); **ipuinak eta** (25); **ipuinak eta poemak** (4); **ipuinak ez** (11); **ipuinak hurrup** (5); **ipuinak hurrup eta** (5); **ipuinak idatzi** (8); **ipuinak idazteko** (6); **ipuinak idazten** (14); **ipuinak irakurtzen** (6); **ipuinak kontatzea** (4); **ipuinak kontatzen** (18); **jotako ipuinak** (5); **liburuko ipuinak** (5); **nire ipuinak** (4)

**ahizpak ipuinari** (18); **ahizpak ipuinari zoragarria** (18); **amandre ipuinetako** (5); **bere ipuinaren** (4); **dunyadad ahizpak ipuinari** (18); **eta ipuinen** (5); **euskarazko ipuinen** (4); **gaztelaniazko ipuinen** (4); **herri ipuinetako** (6); **herri ipuinetako peru** (4); **ipuinaren azken** (4); **ipuinaren eta** (5); **ipuinaren hasieran** (4); **ipuinari zoragarria** (18); **ipuinari zoragarria iritzi** (18); **ipuinean bezala** (4); **ipuinean ere** (6); **ipuinek ez** (8); **ipuinek ez dute** (4); **ipuinek osatzen** (4); **ipuinek osatzen dute** (4); **ipuineko pertsonaia** (4); **ipuineko protagonistak** (4); **ipuinen atalean** (4); **ipuinen bat** (5); **ipuinetako pertsonaia** (6); **ipuinetako peru** (5); **ipuinetako peru eta** (4); **ipuinetan bezala** (6); **ipuinetan ere** (4); **ipuinik gabe** (4); **izeneko ipuinean** (4); **liburuko ipuinetan** (8)

---

## ipuinaldi *iz* ipuin saioa.

Xan Errotabeherek abendoaren 14ean, astezken arratsaldean, emanen duen **ipuinaldia** haurrentzat. Herria

Igande aratsaldean, Ainhoan, euskal **ipuinaldia** Koldo Amestoy-ekin. Herria

---

## ipuingile *(15 agerraldi, 7 liburu eta 6 artikulu)* *iz* ipuinak ontzen dituen idazlea. ik **ipuinlari**.

Raymond Carver poeta eta **ipuingilea** izan zen. Koro Navarro

Argi dago **ipuingileak** *La Chanson de Roland*en haritik zabaldutako elezaharra ezagutzen zuela. Martin Anso

**Ipuingile** saritu ugariren lanak. Berria - Kultura

Beti pentsatu izan dut nobelagile baino, **ipuingile** hobea dela Millas. Berria - Kultura

---

## ipuingin *(agerraldi 1, artikulu 1ean)* *iz* ipuingilea.

Hiru ikerlan eskaintzen ditu *Idatz & Mintz*-en zenbaki berriak: Adolfo Arejitaren *Lauaxeta* ***ipuingin,*** [...]. Berria - Kultura

---

## ipuingintza 1 *iz* ipuinak ontzea.

**Ipuingintza,** nobela, poesia, antzerkia, apunteak, ia genero guztiak ditu landuak. Berria - Kultura

Maupassanten **ipuingintza** oparoan. Josu Zabaleta

Errusiako **ipuingintzaren** joera berritzaile zabaleko idazlea izan zen. Jose Morales

Estatu Batuetako XX. mendearen bigarren erdiko **ipuingintzaren** maisuak. Berria - Kultura

Animazio hori **ipuingintzan** oinarritzen da. Herria

Euskarazko **ipuingintzaren** arloan. Berria - Kultura

Urte gutxian bide oparoa egin du Iban Zalduak **ipuingintzan**. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan)

Erabat **ipuingintza** -tradizio iparramerikarraren baitan kokatzen da ipuin hauen nolakoa. Berria - Kultura

· Peru Abarkak, liburuko pasarteetako batean, Peru eta Marixeren herri-**ipuingintza** arbuiatzen du. Anjel Lertxundi

---

## ipuinka *adlag*

Baina haren alaba gaztea Xerazade zela esanez gero, seguruenik gehientsuenek *Mila gau eta bat gehiago* liburu miresgarriaz oroituko dute, eta hark, omenka-omenka, **ipuinka-ipuinka,** nola lortu zuen Xariar erregearen bihotza sendatzea. Patxi Zubizarreta

---

## ipuinlari *(9 agerraldi, 4 liburu eta 3 artikulu; orobat **ipuilari** g.er.)* ipuingilea.

Ipuin kondaketa bat (euskaraz) Koldo Ameztoi **ipuilariarekin**. Herria

Izan ere, nire uste apalean, McEwan **ipuinlari** hobea zen, nobelagile baino. Berria - Kultura

Baina, beste ezeren gainetik, idazle da Schwob, **ipuinlari** dotore eta prosa poetikoaren maisu. Juan Garzia

Querini matematikaria da ofizioz eta arrakasta dezenteko **ipuinlaria** dibertimenduz. Anjel Lertxundi

Kazetaritzan ikasi zuten **ipuinlari** askok. Berria - Kultura

## **ipuintxo** *iz* ipuin laburra.

Haren oroitzapen-giroan egin nuen **ipuintxo** hau ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Bestela, **ipuintxoak** asmatzen segitzen nuen nik, Portugalgo kazetariaren onerako, hark irratirako erabiltzen zituen eta. Edorta Jimenez

Oso erraza da atsotitz bat hartu eta **ipuintxo** bat osatzea. Gotzon Garate

Jeneral ohiak **ipuintxoa** kontatu zion Agirreri. Edorta Jimenez

## **ipuinzale** *izond* ipuinen zalea dena.

Badakik alaba oso **ipuinzalea** dudala eta hamaika ipuin erosi izan dizkiodala. Joan Mari Irigoien

Leire bezala, **ipuinzalea** zen, eta eritasunak are **ipuinzaleago** egin zuen. Joan Mari Irigoien

## **ipular** 1 *iz ipar* alor baten ertza.

Urtarrileko hormek **ipularrak** zuritzen zituzten. Itxaro Borda

Besoak besoetan, neska **ipularrean** berme mantentzen zuen. Itxaro Borda

**Ipularretik** bat-batean bi argi-iturri borobil miretsi nituen. Itxaro Borda

**Ipularrean** hedailo, hatsanka zegoen azeriari. Itxaro Borda

**Ipularrean** utzi autotik aldenduz. Itxaro Borda

**2** *hed*

Bozatarrak, agotak gituk, jendetzearen **ipularrean** bizi gituk, ikusten gituenak burua itzultzen dik, kurutzatzen gituena baztertzen duk. bertsetaren buruan eta bertsuaren **ipularrean** itzuliz, neurtitz bat edo bertze berriz hartuz. Michel Oronoz

## **ipurbeltz** 1 *izond* ipurdia beltza duena.

Pazia zaharrak pertzari: ken hadi **ipurbeltz** hori! Josu Zabaleta

"Zozoak beleari **ipurbeltz",** baina ez nion deus erran... Joan Mari Irigoien

Eta barazkiari dagokionez, begira nor ari zaion esaten beleari **ipurbeltz**. Josu Zabaleta

**2** (adizlagun gisa)

Makarroi erreen ontziak **ipurbeltz** jarraitzen du, eta gosaldu bitartean ur bero xaboituarekin eduki ondoren, ekin dio espartzuarekin hondo erre ikaztua mehetzeari. Iñaki Iñurrieta

## **ipurbelztu,** ipurbelztu/ipurbeltz, ipurbelzten du *ad* zerbaiten ipurdia belztu.

Neurrigabe garestitzen ari da […] urre beltza (40 dolarrera iritsi da) eta, horrek, beherakoa eragin dio akzioen azokari, burtsari, burtsa kopeta eta **ipurbelztuz** Berria - Ekonomia

## **ipurbero** *izond* ipurdia beroa duena. ik **ipurdi 13**.

Charlyren erranetan, auzoetako neskak **"ipurberoagoak"** eta "errazagoak" ziren, gu hazi gintuen Zabalguneko mojakume motz-estuak baino. Aingeru Epaltza

[Fenix] gaurko "txori **ipurberoa"-ren** aurrekari klasikoa. Xabier Olarra

## **ipurdantzari** *izond*

Haizea indarrez hasi zen, **ipurdantzari,** mendebaletik, izenik gabeko lurralde luzetik joka. Felipe Juaristi

## **ipurdi** *(orobat **eperdi** g.er.)* **1** *iz* giza enborraren behe eta atzeko aldea, esertzean gorputzari eusten diona.

Lehen bihurgunearen ondotik, agertu zitzaizkidan haren ile horail franko bitxiki moztuak, bizkar irmea, **ipurdi** pottoloa, hanka leun eta finak. Daniel Landart

Estropezu egin eta **ipurdi** gainean erortzen da atzerantz. Oskar Arana

Mesedeetako zubirantz joan da kalean behera, **ipurdi** bikain hori berak bakarrik dakien gisan mugituz. Urtzi Urrutikoetxea

Ahaztu beharko ditut neskaren beso txuriak, haren **ipurdi** tenteak. Pako Aristi

Nik atsegin dudan guztia duzu: titi txikiak eta **ipurdi** gogorra. Juan Martin Elexpuru

Joango zen ez titi ez **ipurdi** ez duten marimutil horietako batekin eta badakizu... Xabier Mendiguren Elizegi

- **Ipurdia** gorrituta al dauka? Arantxa Iturbe

**Ipurdian** irtendako erlakaiztena da. Hasier Etxeberria

Nire atzetik hasi zen lasterka **ipurdian** sekulako ostikoa emateko. Pello Lizarralde

**Ipurdian** ostikoz jo ez dezaten. Xabier Olarra

**Ipurdian** hartutako kolpe itsusi hura zela eta. Pello Lizarralde

Gaueko guardiaaldian telegrafistari gonak altxatu eta **ipurdian** geltokiko zigiluak jarri zizkiola. Fernando Rey

Orduan, berak eskua sorbalda artetik **ipurdiraino** jaitsi dizu bizkarrean lerro zuzen bat marraztuz, leun, erdiko hatz-puntarekin. Lourdes Oñederra

Sermoi luzeak **ipurdia** mugiarazten du, eta motzak bihotza. Pako Aristi

Tximinoa gorago, eta **ipurdia** ageriago. Joxerra Garzia

**2** (sexu gozamenaren iturri gisa)

Haien **ipurdi** trinkoak ikusteko. Karlos Zabala

Makurtu egin nintzen berak nire **ipurdiaren** arrakala hobeto ikusi ahal izateko. Juan Martin Elexpuru

Nire **ipurdiko** erretenean zehar isuri zen hazia. Juan Martin Elexpuru

*ik beherago*10.

**Ipurdi eder** bat aurrean jarri eta harekin gozatzeko erregutu zidanean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Estutu **ipurdia,** urdanga hori, estutu **ipurdia**. Ramon Saizarbitoria

Ez badiozu **ipurdiari** eragiten […] zigorra hartu eta hainbeste plazer ematen didan ipurdi eder hau jipoituko dut larrutu arte. Juan Martin Elexpuru

Eugeni xarmangarria, laztanik gozoenez ase nahi dut **ipurdi** hori. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Ipurdia** miaztu behar diot kanpaia jotzen diodan bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hark den-dena zekien niri buruz, baita osaba Afonsori Los Angelesetik bueltan **ipurdia** agindu niola ere. Karlos Zabala

Hator, maitea, hator, Sodomako sugarren merezitzaile izan nadila hire **ipurdi** bikainean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Honen **ipurdian** atzera-aurrera batzuk egin ondoren. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Emearen gainean jarri zen eta sutsu bezain arduratsu zulatu zion **ipurdia** . Aitor Arana

Eskaintzen dizudan **ipurdi** hau zulatu duen gizon ikaragarriena izateko ohorea ere ez duzu izango! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Neure bizitza osoan ez dut hain **ipurdi** ederrik izorratu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nola egon behar du hartzailearen **ipurdiak** emailearen atseginak oso-osokoak izan daitezen? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Minutu gutxiren buruan, bero-bero eginda, esnea bota nuen **ipurdi** eder hartan. Aitor Arana

Laster isuriko duelarik bere hazi ugari bezain sendoa gozagaiaren **ipurdiaren** hondoan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere buztana eskaintzen zidan tente-tente nik txupatu eta bustitzeko eta gero oso-osorik sartzen zidan **ipurditik** ni lauoinka jarrita. Karlos Zabala

**Ipurditik** joko diat larrua, zerri horri! Juan Martin Elexpuru

Emakumeei **ipurditik** larrua jotzea, erdizka izatea baino ez da: fantasia hori gizonak gizonarekin betetzea nahi izan du naturak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## **3** *pl* ipurmasailak.

Zelako sabel laua, zelako **ipurdi** gozoak. Juan Martin Elexpuru

**Ipurdi** ikaragarri haietara hurbildu nintzen eta gorri-gorri jarri arte astindu nituen. Juan Martin Elexpuru

Ea, altxa **ipurdi** horiek, gauza asko dauzkagu ikusteko-eta. Xabier Mendiguren Elizegi

Silikonazko **ipurdi** berriak ondo ezartzeko gai dena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ikusi nola zabaltzen zaizkion **ipurdiak,** ikusi bular puztua. Juan Kruz Igerabide

Eroso al dituzu nire **ipurdiak,** Dolmancé? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zu nire beso artera etorriko zara, zure **ipurdi ederrok** ahalik eta zabalduen eskaintzen dizkiozularik Mugitu zure **ipurdiak,** Eugeni, zure uzkiak estutu dezala nire zakila. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eragin **ipurdiei,** eragin urdanga horrek. Juan Martin Elexpuru

## **4** (hitz elkartuetan)

**Ipurdi** zuloan sartu aurreko istanteetan. Itxaro Borda

*ik* ipurtzulo.

Eta bizi ederrenaren eramaiteko, azkarrenari **ipurdi** milikan aritzea baino bide hoberik ez zuten ezagutzen. Eneko Bidegain

Ahal genuena eginez, **ipurdi** -heltzen, titi-jorran eta musuka, han errenditzen gintuan. Pako Aristi

-Hauxe da berri- **ipurdi** koadrila! Joxemari Urteaga

Lurrean luze eta **ipurdi** -bizkarrak mindurik. Xabier Montoia

· Beraz, ikus dezadan hain grinatsu desiratzen dudan jainkosa- **ipurdi** zoragarri hau! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta zer eta tuntun- **ipurdi** hau babo arraio horrekin maitemindu behar, aizu! Antton Olano

Zakur- **ipurdiko** ametsak! Anjel Lertxundi

## **5** abere eta animalia batzuetan, uzkiaren aldea.

Eta ez pentsa gero, zakurrek **ipurdi** zikinarekin ibiltzea laket dutenik. Gotzon Garate

Tximino erraldoi bat ikusi zuen, bere **ipurdi** gainean eserita. Josu Zabaleta

Bere zaldi irenduaren **ipurdi** higatuaren kontra bridez jota, esnetegira bidean zen berriro ere, bueltan. Lopez de Arana

Begiak biraka eta ahoa antzararen **ipurdia** bezala jarrita. Josu Zabaleta

Zozoak ere beleak baino **ipurdi** zuriagoa duela uste du. Gotzon Garate

## **6** (zuhaitzetan)

Kalte handiak dira: arbolak **ipurditik** aterata, adarrak erorita... Berria - Harian

Bost arbol sakratuok **ipurditik** bota eta erre zituen sasoi hartan iritsi zen erlijio berriak, Erromakoak noski. Pello Zabala

Ahuntz bat leizezulora hurbildu eta zuhaiskaren **ipurdiko** belarra bazkatzen hasi zen. Koldo Biguri

Sutan, arbola- **ipurdi** bat, zain eta guzti. Itziar Otegi

Nirea baietz bota arbola- **ipurdi** hura baino urrutirago. Iñaki Mendiguren

Pago **ipurdi** batean eseri zen, atseden hartzera. Felipe Juaristi

## **7** (galtzena)

-Eltzen badizut galtzen **ipurditik** sartuko zaitut emen, Merke Trefe! Iñaki Arranz

**Ipurdian** adabakiak eraman behar nituelako. Pello Lizarralde

## **8** (ontzietan eta) hondoa.

**Ipurdi** horituko te-kikara bat; aurreko urteko egunkariak. Jon Muñoz

Kafe-hondarra astindu zuen kikararen **ipurdian** . Inazio Mujika Iraola

Lapiko zahar baten **ipurdia** konpontzera etorritako gailegoren bat. Iñigo Aranbarri

Ontziko marinelak dado-jokoan hasi dira barrika irauli baten **ipurdi** gainean. Anjel Lertxundi

Juan Jose Urtiaga Inchaurraga, edalontzi **ipurdi** lako betaurrekoak zituena. Joseba Sarrionandia

Nahiz eta miopiak betaurrekoak -edontzi- **ipurdi** halako lodiak- orritik hiru hatzetara edukitzera behartzen zuen. Juan Garzia

Paderari teflonezko **ipurdia** jarri ala ez. Edorta Agirre

Haren lagunek esan zioten farfailginari orga- **ipurdi** batean zurratu zutela gizona eta Paristik egotzi. Juan Garzia

Artilleroetako batek odoletan zeukan ezkerreko besoa; kanoi- **ipurdi** lodi-biribil baten azpian. Edorta Jimenez

Ordenagailuaren pantailaren **ipurdia** ferekatu zuen berriz, ia-ia likitsa gertatu zitzaidan keinu batean. Aingeru Epaltza

Baten batek pikotxaren **ipurdiaz** ebaki zion burua. Koldo Biguri

Eta hau esanik, puruari kosk txikia egiten zion **ipurdian** . Jon Alonso

Kixok, bitartean, pankarta atera du furgonetaren **ipurditik,** bi makilaren inguruan biribilkatua. Aingeru Epaltza

Segovian, Eresma ibaia bere bidetik atera eta 2 zubi eraman zituen **ipurditik** . Pello Zabala

Sorgin-haize hurakan kutsuko batek hiru errota atera zituen **ipurditik** . Pello Zabala

## **9** fusil, pistola eta kidekoetan, atzealdea, helduleku edo bermaleku gisa erabiltzen dena.

Astra bat, 7,62 mm, zazpi tiro, **ipurdi** zilarkara. Aingeru Epaltza

Gerrikopean estuturik ontziburu berriak pistola zeukan, eta harexen **ipurdiari** laztan egiten ziharduen. Edorta Jimenez

Nire lagunak hiru ordu lehenago niri erakutsitako pistola **ipurdi** zilarkaradunak ikusmiran zuen morroi zurbildua. Aingeru Epaltza

Domingok armaren **ipurdia** besagainean bermatzearekin egin zidan bere ondoan makurtzeko keinua. Aingeru Epaltza

Soldado batek, harma **ipurdiaz,** bi kaska emaiten dizkio buruan. Marzel Etxehandi

Gero, nabal baten **ipurdiaz** harri bat joz, pindarrak atera eta ardagaia piztu zuen Pablo Sastre

## **10** (esapideetan) ik **ipurtzulo 2.**

Mokoz **ipurdi** eginez. Patziku Perurena

Andreasengandik orpoz-**ipurdi** ihes egin, eta berriro Ameriketara eramango zuen ontziren batean ezkutatu. Anjel Lertxundi

Eta halako imintzioa egin zian begiak trabes eta aho-**ipurdi** eginez. Josu Zabaleta

Sator-lanen batean ari zelakoan nengoen ni, eta ez agintariei **ipurdia** miazkatzen. Anjel Lertxundi

Zutitu zen gizona eta kaiolatutako abere amorratu baten moduan hasi zen, aurrera eta atzera, **ipurdia** non zuen ere ez zekiela. Anjel Lertxundi

Gutxi kobratu baina telefonorik ez zuten zurginak, eta zakurraren **ipurdian** zeuden oihal-dendak. Fernando Rey

Judasen **ipurdia** baino zuriagoak dituk eta. Patxi Iturritegi

-Katolikoek eta protestantek, guztiek ere **ipurdian** zuloa...! Joan Mari Irigoien

**-Ipurdia** garbitzen ahal duk horrekin -teman tinkatua ni. Aingeru Epaltza

Primo Levik *Anus mundi* (Munduaren **ipurdia)** deitu zion Auschwitzi. Anjel Lertxundi

Haren enpresak hedatu nahi zuen plantazioa munduaren **ipurdian** zegoela iruditu zitzaidan, hor nonbait, Guatemala aldean. Joxe Austin Arrieta

Han nengoen ni, gazte aleman sasoiko bat, goitik behera bustita, bihotzaren taupa bizia entzuten nuela eta munduaren **ipurdian** usnaka. Anjel Lertxundi

-Oraingoan ere **ipurditik** sartu behar izan dute bere armarria -esan zuen egun hartan Zaratiegik-. Xabier Mendiguren Elizegi

Sar zitzala bere egunak **ipurditik**! Daniel Landart

### 11 ***ipurdiko*** *izlag* ik **ipurdiko.**

Horrenbestez, **ipurdiko** min hori ez zitzaion sekula osatzen. Pello Lizarralde

Eta horien moda... sartu dezatela **ipurdiko** zuloan. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina modu horien guztien artean, **ipurdikoa** da atseginena, zalantzarik gabe. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zin dagizuet ez dudala aluko gozamena baino gauza aspergarriagorik ezagutzen, eta behin **ipurdiko** gozamena frogatutakoan, zuk bezala madame, ez dut ulertzen nola itzul daitekeen besteetara. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

### 12 ***ipurdi alde*** *(7 agerraldi, 6 liburutan)* ik **ipurtalde.**

Biluztu egin du eta haren **ipurdi** aldera zuzendu ditu bere lehen begiradak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Mendian zein gaueko ekintzetan zainartu mutikoen **ipurdi** alde gogor eta gotorrak desiragarri zitzaizkien "gixon" melengei. Itxaro Borda

Agustinen **ipurdi aldera** itzuli eta laztandu egin du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bai, ikusia nuen, Opel zuri bat, eserlekuak hautsita zeuzkana **ipurdi** aldean. Fernando Rey

### 13 ***ipurdi-bero*** *izond* ik **ipurbero.**

Hik uste duk beharbada neska atrebitu **ipurdi**-bero bat naizela. Janbattitt Dirassar

### 14 ***ipurdi-bistan*** ipurdi agerian

Ez nazak utz **ipurdi**-bistan. Anjel Lertxundi

Biek ala biek uretarantz jo zuten, kurrixka bizian lasterka eta **ipurdi**-bistan. Mirentxu Larrañaga

Bera zen bakarrenetakoa gure burgeskume-kontraesanak **ipurdi** bistan jartzen. Anjel Lertxundi

### 15 ***ipurdi dantza*** *(corpusean **ipurdidantza** soilik)* ipurdiaren danza.

**Ipurdidantzari** ekin nion berriro, gorputz atal horri gora eta behera eraginez. Aitor Arana

### 16 ***ipurdi-handi*** (orobat **haundi**) *(3 agerraldi, 2 liburu eta artikulu 1ean)* *izond* ipurtandia.

Zelako diferentzia, antzinako gris **ipurdi**-handi motel haien eta zipaio kankarro hauen artean! Iban Zaldua

Zonbait aldiz badira emazte -den bezala erraiteko- **ipurdi** haundi batzu... Menane Oxandabaratz

**Ipurdi** handia, jenio txarrekoa, usain txarrekoa: ezer onik ez. Berria - Kultura

### 17 ***ipurdi-harro*** *izond*

**Ipurdi**-harro haiek egunak zituen ordu guztiak esamesaka ematen zituztelako eta bera haiek isilarazteko gauza ez zelako. Karlos Zabala

· Clémence da -La Sarriettek moztu zion-, luze ihar bat, **ipurdi** harro dabilena, barnetegi batean ikasi zuelako Karlos Zabala

### 18 ***ipurdi masail*** *(8 agerraldi, 6 liburutan; orobat **ipurdimasail** g.er.)* ipurmasaila.

Sustraiek zango-sagarrak, izterrak, **ipurdi**-masailak urratu dizkiote. Itziar Otegi

**Ipurdi**-masaila bat estutu nion nire izterren artean. Karlos Zabala

Ipurdia altxatzen nuen zakila sartzekotan zegoela eta txoratu egiten nintzen **ipurdi**-masailetan jotzen zizkidan pintzel-kolpe moduko haiekin. Karlos Zabala

Beisboleko bate bat hartu eta kristoren ostiakoak eman zizkioan **ipurdi** masailean. Pako Aristi

**Ipurdimasail** gizen, zuri eta bigun batzuk agerian utziz. Juan Martin Elexpuru

### 19 ***ipurdi mazela*** *(16 agerraldi, 7 liburutan)* *ipar* ipurmasaila.

Joanesi **ipurdi** mazelak ontsa minberatu zitzaizkion, zurezko jarleku gogor haien kontra segundu oro kaska eta kaska. Eneko Bidegain

Bere borondatez **ipurdi** mazela presentatu zion, pikura egin ziezaion. Itxaro Borda

Gustatzen zitzaidan **ipurdi**-mazela oparo haiek ene sabelpe gosetiaren jo-mugatzat sentitzea. Itxaro Borda

Kapitain galtzak kitatzen zituenean Janinaren begiak ez ziren haren **ipurdi** mazela zainart eta ilezuetarik kantitzen. Itxaro Borda

### 20 ***ipurdi-miazkatzaile*** *(orobat **ipurdimiazkatzaile**)* *izond*

Preso asko eta asko kartzelarien laguntzaile, **ipurdi-miazkatzaile,** salatari dira. Berria - Euskal Herria

Noizbait Richard seminarista **ipurdimiazkatzaileak** eta sarjentuak gure errespetu apur bat merezi izan bazuten [...] egun hartantxe galdu zuten betirako. Harkaitz Cano

### 20a *ipurdi zulo* ik **ipurtzulo.**

### 21 ***ipurdi(a) agerian*** *(orobat **ipurtagirian**)* ik gorago **14.**

Eta ez baitzeraman azpikogonarik, **ipurdi** agerian geratu zen. Patxi Zubizarreta

Ez die utziko hanka-hutsik eta **ipurtagirian** hazten, beraiek hazi ziren bezala. Arantxa Iturbe

Asiriako erregeak ere halaxe eramango ditu egiptoar presoak eta etiopiar erbesteratuak, zahar eta gazte, larrugorritan eta oinutsik, **ipurdia** agerian dutela. Elizen arteko biblia

"Bestela, **ipurdia** agerian joanen dira!", esaten zuen. Fernando Rey

Oro har ez, baina erne ibili beharra zegon, beti uzten dinagu-eta norbait **ipurdia** agerian. Migel Angel Mintegi

Ziur al zaude ez zela izan, besterik gabe, **ipurdia** agerian harrapatu zintuztela? Oskar Arana

Ez dakizu markaren izena, ezta ba ote duten ere, eta **ipurdia** agerian gerta zaitezke. Rafa Egiguren

### 22 ***ipurdiko zulo*** *(17 agerraldi, 6 liburutan)* ipurtzuloa.

**Ipurdiko zuloa** garbitzen hasi zen. Jon Arretxe

Etzan zaitez eta **ipurdiko zuloa** inguratzen duten giharrak indarrez uzkur itzazu. Luis Elberdin

Erakutsi zure **ipurdiko zuloa**, andere, gogoak ematen didan bezala milika dezadan. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

### 23 ***ipurditik eman***

Beti eman nahi izan zidan **ipurditik,** eta nik behin ere ez nion utzi. Karlos Zabala

Mutil edo neska bati **ipurditik** ematen dion gizonak sodomia aktiboa egiten dihardu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Honek alutik sartuko dit, zuk **ipurditik** emango didazu. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eugenik, kontsolagailu honekin armatuta, **ipurditik** emango dit. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

### 24 *ipurditik hartu* ik **ipurtzulo 3**.

Antisorgailurik bazen orduan, baina metodorik ziurrena **ipurditik** hartzea zen. Karlos Zabala

Orduko ezin hobeto pasatzen nuen **ipurditik** hartuz. Karlos Zabala

Txakurra baino hoberik ez duzu, haren hitzetan, **ipurditik** hartzea gustuko baldin baduzu. Karlos Zabala

### 25 *ipurdiz gora* (*orobat* ***goiti***)

**Ipurdiz** gora daude hiriaren zentroko hainbat kale nagusi ere. Anjel Lertxundi

Baionako Katedrala **ipurdiz** gora botatzeko. Hasier Etxeberria

Estatua nahi dute **ipurdiz** gora ezarri eta gu harekin. Michel Oronoz

Viña Albinak, beharbada, bigarren botila **ipurdiz** goiti emana baikenuen orduko. Aingeru Epaltza

Orduan subil moduko batekin zabaltzen zuen masa mahai gainean, eta anisa hartzeko kopa txikiak **ipurdiz** gora ahotik masatan sartu eta pasta biribil eta pottolo batzuen forma ematen zion masari, garai bateko txanpon handien neurrian gutxi gorabehera. Pako Aristi

### 26 *oilo ipurdi* persona baten azala, hotzaren edo beldurrarengatik oilo lumatuaren itxura artzen duenean.

Oilo-**ipurdia** egin zitzaidan: emakumeak lehengo eguneko zapata takoidunak zeramatzan. Aingeru Epaltza

Supiztaileari buruzko gogoeta horrek oilo-**ipurdia** eragin zion. Lopez de Arana

Ni ere hotzak nago, esan zuen Karmenek, besoetako oilo **ipurdia** lagunari erakutsiz. Xabier Montoia

Mila! -atera zitzaion osabari eta niri oilo **ipurdia** jarri zitzaidan. Aitor Arana

Ximurraren karkailak oilo-**ipurdia** jarri zidan. Aingeru Epaltza

Eta ostiko eta hasperenak egiten zituztela entzuten nuen, eta oilo-**ipurdia** jartzen zidaten. Pello Lizarralde

Oilo-**ipurdi** jarri zitzaidan azala albistea irakurri nuenean. Hasier Etxeberria

Gizakietan ere badira oraindik mekanismo horren aztarnak, hotzak edo beldurrak eragindako oilo-**ipurdiak** erakusten duen bezala. Irene Aldasoro

Ene... ordu haiek, oilo **ipurdiz,** burua lehertzeko zorian. Jon Muñoz

Ez dakit nola azaldu, baina dardaran bezala jartzen zidan larru-azala soinu hark, **oilo-ipurdia** ateratzeraino. Alberto Ladron Arana

### 27 *zakurraren ipurdira bidali* pikutara bidali. ik **ipurtzulo 5**.

Gradellek bere iloba errepublikazalea zakurraren **ipurdira** bidaltzen zuen. Karlos Zabala

Gurasoek hots egiten zuten aldiro, zakurraren **ipurdira** bidaltzen nituen. herria uxatzen duten jokamoldeak sustatzen ditu babaztoak, ezker abertzalea zakurraren **ipurdira** bidaliz. Jesus Mari Mendizabal

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta ipur** (5); **ipur masailak** (3); **ipur masailean** (5)

**baina ipurdia** (3); **baten ipurdia** (5); **bati ipurdia** (3); **bere ipurdi** (10); **bere ipurdia** (4); **du ipurdia** (3); **elkarri ipurdia** (3); **ere ipurdi** (3); **estutu ipurdia** (5); **eta ipurdi** (13); **eta ipurdia** (28); **eta ipurdiak** (4); **eta oilo ipurdia** (4); **haren ipurdi** (5); **haren ipurdia** (4); **hire ipurdi** (4); **ipurdi aldean** (3); **ipurdi aldera** (3); **ipurdi azpian** (7); **ipurdi batean** (3); **ipurdi bistan** (3); **ipurdi eder** (10); **ipurdi gainean** (11); **ipurdi handia** (3); **ipurdi hau** (3); **ipurdi hori** (5); **ipurdi horiek** (4); **ipurdi masailak** (3); **ipurdi mazela** (4); **ipurdi mazelak** (7); **ipurdi milikan** (3); **ipurdi polita** (3); **ipurdi politak** (3); **ipurdia agerian** (9); **ipurdia altxatzen** (3); **ipurdia baino** (3); **ipurdia bezalakoa** (3); **ipurdia bezalakoa da** (3); **ipurdia bistan** (4); **ipurdia emanez** (3); **ipurdia eragiten** (3); **ipurdia ere** (9); **ipurdia eta** (8); **ipurdia igurzten** (3); **ipurdia jarri** (12); **ipurdia jarri zitzaidan** (4); **ipurdia jartzeko** (6); **ipurdia jartzen** (6); **ipurdia oso** (3); **ipurdiak eta** (3); **munduaren ipurdia** (3); **nire ipurdi** (8); **nire ipurdia** (11); **nire ipurdiak** (3); **oilo ipurdia** (37); **oilo ipurdia eragiten** (3); **oilo ipurdia jarri** (10); **oilo ipurdia jartzeko** (5); **oilo ipurdia jartzen** (6); **ustea ipurdia** (3); **ustea ipurdia bezalakoa** (3); **zuen ipurdia** (4); **zure ipurdi** (3); **zure ipurdia** (9)

**bat ipurdian** (3); **bat ipurditik** (3); **baten ipurditik** (3); **ere ipurdian** (3); **ere ipurdian zuloa** (3); **ere ipurditik** (4); **eta ipurdian** (9); **eta ipurdiko** (6); **eta ipurdiko zuloa** (4); **eta ipurdiz** (3); **guztiek ere ipurdian** (3); **haren ipurdian** (4); **haren ipurdiaren** (4); **ipurdian eserita** (3); **ipurdian eta** (3); **ipurdian jarri** (4); **ipurdian zuloa** (4); **ipurdiko mina** (3); **ipurdiko zuloa** (12); **ipurdiko zuloa inguratzen** (3); **ipurdiko zuloan** (3); **ipurditik atera** (4); **ipurditik eman** (9); **ipurditik emango** (6); **ipurditik ematen** (10); **ipurditik sartu** (3); **ipurditik sartuko** (3); **ipurdiz gora** (11); **nire ipurdian** (3); **nire ipurdiaren** (3); **nire ipurdiaz** (4); **nuen ipurdian** (3); **zakurraren ipurdira** (6)

---

## ipurdidantza ik **ipurdi 15**.

---

## **ipurdieder** *izond* ipurdi ederra duena.

Ederrago gerritik beheiti zirenei **"ipurdieder"** deitzen zien, konparazio batera kondesa andreari. Fernando Rey

Eta emakume tiroles hori, nik ikusten nuen bezala, **ipurdiederra** eta titiederra zen. Fernando Rey

---

## **ipurdikada** 1 *iz* ipurdiarekin emandako kolpea.

Mandoa, halako kolpetzar hartaz izututa, landan barrena abiatu zen korrika, eta **ipurdikada** gutxitan lurrera bota zuen bere jabea. Patxi Ezkiaga

**2**

Soinuak jotzen zuenean dantza soltean egiten zuten [...] eta **ipurdikada** prestatzen zen: une horretan mutil bakoitzak gustukoen zuen neska ipurdiaz jotzen zuen, eta hala harik eta soinuak berriro doinuari ekiten zion arte, non denok askatu eta dantza soltean jarraitzen baitzuten. Berria - Kultura

Txistulariak sarraraziz, hauekin **ipurdikada**rik ez zen-eta Berria - Kultura

---

## **ipurdikeria** *iz*

**Ipurdikeria** gizen arruntetarat lerratzea ez dut onartzen... Janbattitt Dirassar

---

## **ipurdiko** *iz* ipurdian hartzen edo ematen den kolpea. ik **ipurdi 11**.

Agustinen txanda da gero; honek ere berdintsu jokatzen du, eta bukatzerakoan **ipurdiko** eta bizkarreko batzuk eman dizkio. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Maimieri **ipurdiko** on batzuk ematera. Julen Gabiria

Sethe eta Paul D elkarri hatzak harrapatzen eta heltzen hasi ziren berriro, batak besteari **ipurdiko** arinak ematen. Anton Garikano

Errekan bi urrats egin, oreka galdu eta **ipurdikoa** hartu zuen. Anton Garikano

Izotz-puska malapartatu bat zegoen espaloian, ordea, eta eserarazi egin zintuen, brasta; **ipurdiko** ikaragarria hartu zenuen, gizagaixo maite horrek. Mirentxu Larrañaga

Zure amatxok den-dena kontatu dio nireari eta **ipurdiko** ederrak jaso ditut. Itziar Otegi

-Etzan tontakeriarik esan eta emaion karneta -Natxok, **ipurdiko** goxo bat jota. Xabier Mendiguren Elizegi

Bartolok egin omen du lastozko zubia / haretan pasatzeko bera ta nobia, / pasatzen asi omen da, ta erori zubia. / Bartolok **artu** omen du ipurdiko haundia. Patziku Perurena

**ipurdikoka** *adlag* ipurdikoak emanez.

Beharrondoko, **ipurdiko** eta ostikoka. Jose Angel Irigaray

ipurdimasail ik **ipurmasail**.

**ipurditxo** *iz adkor* ipurdia.

A zer nolako **ipurditxoa** duen! probokazio hutsa! Patxi Iturritegi

Zuk **ipurditxo** goxo hori emango didazu, ez zaizu gustatzen nola ferekatzen dizudan? Karlos Zabala

Laster ikusiko dugu Agustin zangarra **ipurditxo** polit hau geure begien aurrean urratzen, eman ahala guztian. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere **ipurditxoa** itxi egin zen eta estutu egin ninduen, inoizko plazerrik handiena ematen zidalarik. Juan Martin Elexpuru

**ipurfin** *iz* ipurdi fina duena.

Hogei urte lehenago ere haren presentzia bermagailu zen, gisako tokietan gu bezalako **ipurfinek** kausitzen ahal genituen arriskuetara. Aingeru Epaltza

**ipurgain** *iz* ipurdiaren gaina.

Zaldi bat ikusi zuen hilda, **ipurgaina** txikiturik eta erraiak barreiaturik. bizkarrezurrak eta **ipurgainak** bat egiten duten toki geografikoan. Jose Morales

**Ipurgainean** elkarturik zituen eskuak aurrera aldatu zituen, oraingoan sabel gainean elkartzeko. Aitor Arana

**Ipurgainean** jarri zituen gero eskuak, paretaren kontra. Koldo Izagirre

Eta halako batean, abere basati baten gisa orroe eginez, isuri egin zen, hazi guztia nire **ipurgainean** hustuz. Juan Martin Elexpuru

**ipurgarbitzaile** *iz adkor* lausengaria.

Ministro, diputatu eta **ipurgarbitzaile** guztiak. Patziku Perurena

Hala usteko du noski, zure bizi-denborako eta hil-ondoko **ipurgarbitzaileen** samalda azkengabeak, hitz zuri faltsua aho-beteka botatzen bestetan ez dakien jende-modu horrek. Iñaki Segurola

Baina gure idazleak ez bide du arrazoizko jabegorik bilatzen [...] ezta **ipurgarbitzaileen** segizio bat ere. Patziku Perurena

**ipurkonkor** *iz* ipurtezurra. ik **ipurmokor**.

**Ipurkonkorreko** min hura, berriz, noiz hasi zitzaion? Imanol Zurutuza

**Ipurkonkorra** libre antzera geratuko zitzaion hartara, eta hobeto eramango zuen hainbeste denboraz eserita egotea. Imanol Zurutuza

Pauso txar bat eman zuen orduan, eta min bizia sentitu zuen **ipurkonkor** alde hartan. Imanol Zurutuza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ipurkonkorreko min** (4); **ipurkonkorreko min hura** (3)

**ipurmami** *(12 agerraldi, 8 liburutan)* *iz* ipurmasaila.

Gimnasia saioak egiten nituen gordeka, **ipurmamiak** mehetzeko. Joxan Elosegi

Nire lehengusuari hotzikarak eragiten zizkion eskuak bere amaren **ipurmamietan** jartzen zituela pentsatze hutsak, baina ikaragarri berotzen zen ideia harekin. Pello Lizarralde

Nire **ipurmamiak** hartu ditu bere eskuekin, oretu ondoren, ongi ireki ditu. Juan Martin Elexpuru

Bi eskuez **ipurmamiak** bereizi nizkion eta hantxe ikusi nuen une hartako ene irrikaren helburu eta xede gorriska: Imanolen uzkia. Aitor Arana

Nire esku biluzia pasatu nuen haren bizkarrean behera, **ipurmamietaraino**. Juan Martin Elexpuru

**ipurmasail** *(151 agerraldi, 47 liburu eta 8 artikulutan)* *iz* ipurdiko bi alde mamitsuetako bakoitza, ipurdi masaila. ik **ipurmami; ipurdi 3**.

Aurpegia, lepoa, belarriak, sorbaldak, bizkarra, **ipurmasailak,** izterrak, oinak. Luis Elberdin

Eskuin gluteoan edo **ipurmasailean**. Berria - Kirola

Adarra sartu zion zezenak ezkerreko **ipurmasailean**. Berria - Euskal Herria

Makurtzen denean, musker laranja-berde bat agertzen zaio **ipurmasailen** arteko erretenaren gainean, tatuatuta, jakina. Berria - Kultura

Ikatza begietan, **ipurmasail** zabalak eta gerri fina... Patxi Zubizarreta

Hanka puntetan zutik, **ipurmasailak** tente dituztela. Joxean Agirre

**Ipurmasaileko** giharrak nabarmen minberatu zitzaizkiola. Berria - Kirola

**Ipurmasail** mamitsuak eta begi beltz liluragarriak. Berria - Kultura

Aulki batean eseri da; haren **ipurmasail** tinkatuek bizkarra ukitzen dute eta haren soin tentea aurrerantz makurturik dago. Monika Etxebarria

**Ipurmasailak** ubelduak dauzkadala ikusi ahal izan dut. Agurtzane Juanena

Orain lauhankan zegoen nire aurrean, bere **ipurmasaila** kolore-gorriak ikusten nituen. Juan Martin Elexpuru

Gizonak **ipurmasailetatik** heltzen ninduen eta berarenganantz erakartzen. Juan Martin Elexpuru

**Ipurmasailak** bereizi eta ipurtzuloa erakutsi du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Ipurmasailak** estutzen hasi nintzen berak eskatzen zidan bezala. Juan Martin Elexpuru

Nik neure mingainaz ipurdiko zulotxo polita arakatuko diot, **ipurmasailetan** zapladatxoak ematen dizkiodan bitartean. ezkerreko besoa **ipurmasailetarantz** jiratuta zuen gizonak, sorpresagaia bizkarrean ezkutatzeko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zaldien **ipurmasailetan** esku-zarta haserreak jorik, [...]. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **emakumearen ipurmasailak** (3); **eta ipurmasailak** (4); **ipurmasailak laztantzen** (3); **ipurmasailak tente** (3); **ipurmasailetatik heldu** (3); **nire ipurmasailak** (4); **nire**

**ipurmasailetan** (4); **zure ipurmasailak** (4)

# ipurmasailtxo *iz* inpurmasail txikia.

Gero [...] tabako makinara abiatu da, soineko azpiko tanga ñimiñoak markatzen dizkion **ipurmasailtxo** irtenak doi dantzatuz. Patxi Iturritegi

# ipurmazela *(5 agerraldi, 4 liburutan; orobat **ipur(-)mazela** 7 agerraldi, 4 liburutan)* *iz* ipurmasaila.

Xaflako bat **ipurmazelean** -alde minberatuan ez, bertzean- eta galtzontziloa bere lehengora itzuli zen. Aingeru Epaltza

Ni mukiak ezin xukatuz nenbilen, haren **ipur-mazela** sendoak ferekatzetik gelditu gabe alabaina. Aingeru Epaltza

Neskatila freskoak, izter, **ipurmazel** eta titi oparokoak. Jon Alonso

Enperadoreari gerla eman zion, **ipurmazelak** tronuan jarri orduko. Aingeru Epaltza

Zakurrek gehienetan izterretik eta **ipur mazeletatik** heltzen dute. Gotzon Garate

# ipurmokor *iz* ipurkonkorra.

Carabanchelgo ospitalera hiru-lau aldiz eraman zuten Jokin ebakuntzak egitera **ipurmokorrean** eta eskuineko hankan Jokin Urain

# ipursalto *iz adkor* jauzia, saltoa.

Haien **ipursalto** eroak eta aiuma ikarazkoak mugimendu berriak dira naturaren baitan. Pako Aristi

ipursarde ik **ipurtsarde**.

ipurtagirian **ik ipurdi 18**.

# ipurtalde *(36 agerraldi, 18 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* ipurdi aldea. ik **ipurdi 12**.

Bularrean ile ugari zeukan Joxemari orduan ezagutu berriak eta hanketan ere bai, **ipurtaldean** bezala. Aitor Arana

Beharrak egin eta gero, urez garbitzen dira **ipurtaldeak**. Gotzon Garate

Amgad-ek ez zuen etsi eta, zartailu bat harturik, ukaldi ttiki batzuk eman zizkion **ipurtaldean**. Patxi Zubizarreta

Atximur egingo dizut **ipurtaldean**. Patxi Iturritegi

Lehenbiziko amazonak kolpe bat eman zion **ipurtaldearekin**. Fernando Rey

Bular eta **ipurtalde** estu-estuak. Hasier Etxeberria

Zein **ipurtalde** ederra! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gizon batzuek titiak atsegin zituzten, beste batzuek hankak, eta beste batzuek **ipurtaldea**. Patxi Zubizarreta

Ipurdian Antonio zunba-zunba zebilkidan **ipurtalde** dena goxatuz. Aitor Arana

· Zaflatxo goxo batzuk jo astoari **ipurtaldean**. Gotzon Garate

Orain astinduak sentitzen zituen atzera eta aurrera, hipogrifoaren **ipurtaldea** bere hegoekin batera goratu eta beheratu ahala. Iñaki Mendiguren

**2** *hed*

Beste abereek kaskarrekoa hartu zuten aurreko gurdien **ipurtaldearen** kontra, eta ilara gelditu egin zen. Karlos Zabala

Jaka zikin eta mila bider adabatua zuen jantzita, praka **ipurtaldean** zulatuak, kilometro asko egindako oinetakoak... Jon Arretxe

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**bere ipurtalde** (3); **beste ipurtaldeko mugimendu** (3); **besteak beste ipurtaldeko** (3); **ipurtaldeko mugimendu bitxiez** (3)

# ipurtandi *(13 agerraldi, 9 liburutan; orobat **ipurtaundi** g.er.)* *izond* ipurdia handia duena.

Alaba **ipurtandiak** ere bi pauso eman ditu bisitaria dagoen aldera. Anjel Lertxundi

**Ipurtandia** zarataka sumatu zuen artean. Joxemari Urteaga

**-Ipurtandi** mutur-zikina! Juan Kruz Igerabide

Nola zuen izena **ipurtaundi** beltzaran horrek, nik egunkaritik martxa egin baino urtebete lehenago etorri baitzitzaigun...? Aingeru Epaltza

· Aurrean du behi **ipurtandi** pintoa. Joxerra Garzia

Lehen planoan, lagunaren Volvoa, nirekin batean azken orduetan kilometro franko irentsitako **ipurtandi**-muturrandia. Aingeru Epaltza

# ipurtargi **1** *iz Lampyrudae* familiako intsektu gorputz-biguna, emeek eta beldarrek argi ahul berdaxka bat egiten duen organo argikor bat dutena *(Lampis noctiluca)*.

**Ipurtargiak** pindarka, bazterrik bazter. Joxe Austin Arrieta

**-Ipurtargiak** bilatzen ibili gara... -esan didate. Patxi Zubizarreta

Kilkerrak eta **ipurtargiak** harrapatzen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ene indarra euli batena zuan, eta ene argia **ipurtargi** batena. Joan Mari Irigoien

Ilargia goian ezin argitsuago, **ipurtargi** jigant bat iduri. Joan Mari Irigoien

**Ipurtargiak** dirudite lastargiek Sakabia bidean. Iñigo Aranbarri

Izarrak **ipurtargien** moduan hasi dira itsasoaren larru zabal ilunaren sabaian dirdiratzen. Joseba Sarrionandia

Eta egunez esnezko eraikina denak, gauez, **ipurtargiaren** itxura hartzen du. Berria - Kultura

**2** *irud*

Nigan betiko zizelkaturik geratuko da argia destilatzen zuen Adela hura, eguneroko gauzetan urtez urte ageri zen **ipurtargi** langile hura. Juan Kruz Igerabide

Ilunabarrean, **ipurtargi**-trenak han-hemenka zebiltzan lainoan murgilduta. Lopez de Arana

**3** argi guztiz ahula.

Hitz zuzenaren eta ia zuzena den hitzaren artean dagoen desberdintasuna, tximistaren argiaren eta **ipurtargiaren** artean dagoena bezalakoa da. Berria - Gaiak

---

**ipurtargidun** *izond* argi guztiz ahula duena.

Zergatik zegoen gizon aurpegi-biguna, deabru otzan baten bekain haiekin, harrizko irudi **ipurtargidun** bat bezala han jarrita? Koro Navarro

---

**ipurtarin** **1** *izond* geldirik ezin egon daitekeena.

Gazte asko hasi zen Trinity Collegen irakasle, baina, gerakaitza eta **ipurtarina** izaki, Ingalaterrako zientzia ofizialaren egonkortasunak eta irakasle langintzak sortzen zioten asperdurak ez zuen batere asetzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina ni **-ipurtarina,** desleiala, iheslaria- leial izan natzaio beste lege horri; moralaren eskuliburuetan jasota egon ez arren, egiazko lege bakarra den horri. Ander Irizar

Eta laugarrena, txikia, mehea, **ipurtarina,** zikintzeko beti pronto zegoena. Koro Navarro

Kalakari isilezina, bidaiari **ipurtarina,** gautxori nekaezina, edale zoroa eta emakumezale gogorra. Aingeru Epaltza

Bizia itsasoan sortu zen, duela 3.000 milioi urte, eta hantxe egon zen, harik eta arrain **ipurtarin** batzuek erabaki zuten arte denbora gehiago igarotzea uretatik kanpo. Luis Elberdin

**2** (adizlagun gisa)

Aulkian batera eta bestera mugitu zen **ipurtarin** . Mirentxu Larrañaga

---

**ipurtats** **1** *iz* ugaztun haragijalea, arre iluna, txikia eta gorputz-luzea, Europa, Asia eta Ipar Afrikako basoetan bizi dena eta usain nardagarria botatzen duena *(Mustela putorius)*.

Hienaren ezurdurak dira nagusiki atxemanak izan, bainan ere beste abere andana handi batenak: lepahoria, **ipurtatsa,** otsoa, harpetako lehoina, hartza, azeria, oreina, bisontea eta bertze... Herria

Hildako **ipurtats** bat zekarren bere esku handian dilindan. Iñaki Mendiguren

Bazuen zerbait arratoiarenik, **ipurtatsarenik** eta zakur lasaiarenik, bilatzaileen, marruskatzaileen, ehiztarien eta nekaezinen familiakoa zela, alegia. Josu Zabaleta

Bultzaka ari zaizkigu, eta Fermin **ipurterre** antza dakusat. Pako Aristi

**2** ***ur-ipurtats*** europar bisoia.

Bisoi europar edo ur-**ipurtatsa** ugaztun haragijalea da, tamaina txikikoa (katu txiki baten tamaina du). Berria - Gaiak

---

**ipurterre** **1** *izond* erretxina, berehala haserretzen eta espaka hasten dena.

Gizon **ipurterrea** da, betidanik hala izan da. Elena Touyarou

Berba barik zaunka egiten duen agure **ipurterrea** . Jon Arretxe

Oteiza haur sentibera izan zela erakutsi nahi du Marañak, eta ez askok oroitzen duten agure **ipurterre** hura soilik. Berria - Kultura

-Ezta pentsatu ere! -oihukatu zuen pisukide **ipurterreenak,** haserre biziz. Jon Arretxe

-Egon hadi lasai Telleria, ez hadi **ipurterrea** izan. Harkaitz Cano

Diziplina sobietarra izango zen nonbait, baina **ipurterre** samarra nintzen ni hartan etsitzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** ipurtarina.

Mutilak geldi egon ezin direlako lan handiagoa ematen diotela konturatuko da, baina erantzuna automatikoki etorriko zaio: mutilak **ipurterreagoak** dira eta neskak isilagoak. Berria - Euskal Herria

Giza primateok jakin-min handia izaten dugu, eta **ipurterreak,** ausartak eta irudimentsuak gara. Luis Elberdin

---

**ipurteste** *iz* heste larriaren azken zatia, uzkian bukatzen dena.

Gaur egun, **ipurtestea** ukituz eta prostatak sortutako antigenoa neurtzeko odol analisi baten (PSA) bidez egiten da gaitzaren diagnostikoa. Berria - Gaiak

Poltsa txiki bat sartzen da **ipurtestean** eta plastikozko hodi bat zakil azpian. Berria - Kirola

---

**ipurtezur** *iz* bizkarrezurra amaitzen den hezurra, ipurdiaren gainaldean dagoena. ik **ipurkonkor**.

Modu berean, Natura ere kontserbatzailea baita, *koxis* delakoan, **ipurtezurrean,** buztan desagertu baten aztarna daramagu. Juan Garzia

Hori bai, kuxin bat jarri behar izaten dut gainean esertzeko, **ipurtezurra** gehiegi ez hondatzeko. Josu Zabaleta

---

**ipurtikara** *iz* ipurdi ikara.

Nire **ipurtikara** biribilak gero eta biziagoak ziren, eta nik banekien, bere arnasarengatik, bere onetik ateratzen ari nintzela. Juan Martin Elexpuru

Dotoreziaz eta **ipurtikara** leunez zuzendu da urotsa entzuten den atera, eta esan du: [...]. Juan Martin Elexpuru

---

**ipurtoker** *izond* ipurdia okerra duena.

Jakintza-adar prestu hura jardun enpiriko ilunetara beheratzeagatik kargu hartu zioten Léari bi ikasle **ipurtokerrek,** haserre bizian. Jon Muñoz

---

**ipurtondo** *iz* ipurdia, fusilena eta kidekoena.

Guardia batek fusilaren **ipurtondoarekin** bati buruan eman dio eta lurrera erori da... Jon Maia

---

**ipurtsarde** *iz* ipurtaldean sarde modukoa duen intsektu txiki gorputz-zapala *(Forficula auricularia)*.

Izan duen amesgaiztoan zomorroz josita ikusi du lorategia: larbak, beldarrak, kotxorroak, ehunzangoak, **ipurtsardeak,** armiarmak, kilkerrak, tximitxak, katu-bizarrak... denetarik! Berak senar defuntuaren pala du eskuan, baina ezin ditu momorro guztiak nahi bezain azkar akabatu, eta berehala hanketatik gora igotzen hasi zaizkio. Patxi Iturritegi

Hagridek **ipurtsardez** beteriko lore-sorta bat bidali zion, aza horien antzekoak. Iñaki Mendiguren

Farre eta farre aritu ziren, umeak baino areago, zer eta Ramsay jaunak, gosalorduan **ipursardea** aurkitzean bere esnetan, den-dena airean barrena bidali zuelako hegan kanpoko terrazaraino. Anton Garikano

Zenbateraino sentitu ote zen Prue errudun esneko **ipursarde** harengatik! Anton Garikano

---

## ipurtxuntxur *iz* ipurkonkorra.

Azpil obalatu batean, untxi larrutu bat zegoen etzanda, barren hustua, lau gorputz adarrak zabal-zabalik, burua odoletan, sabelaren azala urraturik, bi giltzurrunak agerian; odol xirripa bat isuri zitzaion **ipurtxuntxurretik** isatseraino, eta, tantaz tanta, portzelanaren zurbiltasuna zikindu zuen. Karlos Zabala

---

## ipurtxuri ik **ipurtzuri**.

---

## ipurtzulatu, ipurtzula, ipurtzulatzen *(corpusean **ipurzulatu** soilik)* du *ad* ipurdia zulatu.

Lemari ero batek gidatu belaontzi mastagabetuko txo, eskifaia hordi batek etengabe **ipurzulatua** . Aingeru Epaltza

---

## ipurtzulo *(61 agerraldi, 30 liburu eta 4 artikulu; orobat **ipurzulo** g.er. **ipurdi zulo** g.er. eta **ipurdizilo** g.er.)* **1** *iz* ipurdiko zuloa. ik **ipurdi 22; uzki**.

**Ipurtzuloak** gaur bezain minbera ez ziren garaietan, periodiko paperarekin garbitzen genuen ipurdia. Iñaki Segurola

Zakurrek **ipurtzulo** inguruan glandula usaintsuak dituzte eta kaka egiterakoan lurra markaturik gelditzen da. mandoaren **ipurtzuloa** . Gotzon Garate

Medikuak tutu bat sartu zion eztarritik behera, eta plastikozko ziri bat **ipurtzulotik** . Javi Cillero

Zatozte eta ezpata sartuko dizuegu **ipurzulotik** ! Aingeru Epaltza

Ostiko bat **ipurtzuloan** . Josu Zabaleta

Ipurmasailak bereizi eta **ipurtzuloa** erakutsi du. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nire anderearen atzamarrek nire atzeko arrakala aztertu zuten, eta baita laster aurkitu ere nire **ipurzuloa** . Juan Martin Elexpuru

Komeni da elkarri ipurmamietatik heltzea eta batak besteari **ipurtzuloan** zirriak eta kili-kiliak egitea, lizunkeriaren osagarri beharrezkoak baitira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Beste eskuaz nire adarrari eragiteari utzi gabe, **ipurtzuloan** gustua ematen zidan. Aitor Arana

**2** (esapidetan) ik **ipurdi 10**.

Higuindu zuen boterea arras gustukoa zitzaion orain, eta nola boterea boteretik heldu baita, boterearen **ipurdiziloaren** milikatzen ari zen. antolatzaileak putakume horren **ipurtzuloan** miazka ari zituan. Michel Oronoz

Zer esango diot Basagoitiri bestela, txartela **ipurtzulotik** sartzeko, ala? Patxi Iturritegi

-Ez, benetan, **ipurtzuloraino** nago garagardoz. Unai Iturriaga

Eta ez munduko **ipurtzulo** honetan gelditu, nekazari eta ezkabiadun haien artean. Jon Alonso

**3** ***ipurtzulo-milikari*** *izond*

Zuzendariaren gelatik irteterakoan, Jon Ozamizek eta Lurdes Arrondok, **ipurtzulo** milikari haiek, begiratu gaiztoa egin zioten. Gotzon Garate

**4** ***ipurtzulotik hartu*** ik **ipurdi 24**.

-Hoa **ipurtzulotik** hartzera! Aingeru Epaltza

**5** ***zakurraren/txakurraren ipurtzulora*** ik **ipurdi 27**.

Bestela, hoa txakurraren **ipurtzulora** ! Patxi Iturritegi

Ero bat bezala jarri zitzaidan hura, joan nendila zakurraren **ipurtzulora** nire hortz madarikatuarekin. Karlos Linazasoro

· Eni berdin zaidak Parisen ala zakurraren **ipurzuloan** izan hizan! Itxaro Borda

Agindutako txostena tarteko ez balitz, mandoaren **ipurtzulora** igorriko nukeen, inondik ere. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ipurtzulotik sartu** (3); **zakurraren ipurtzulora** (4)

---

## ipurtzuri *(orobat **ipurtxuri** eta **ipurzuri**)* **1** *iz* alferrontzia.

Ekarridazue txakolina eta Bilbo ezezagunaren istorioa kontatuko dizuet... merke aterako zaizue, **ipurtzuriok!!** ! Paddy Rekalde

Baita politika linguistikako arduradun, euskara teknikari, kultur zinegotzi eta gisako teknokrata **ipurtxuri** franko ere, ergelkeriarik politenetan miloiak xahutzen eta tajuzko lan bakanei arnasa ere ukatzen. Patziku Perurena

**2** pitxartxar mota bat *(Saxicola oenanthe)*

Ez nuen uste hainbeste txori motaren izenak nekizkienik, azaldu ahala izendatu ditut han behean kaiolatuon elkartasunetik alatu diren hegaztitxoak: karnabak, tarinak, zozoak, eperrak, hegaberak, kulixkak, istingorrak, tortoilak, pirripioak, urretxindorrak, txantxangorriak, **ipurzuriak,** birigarroak [...] Koldo Izagirre

**3** ***enara ipurtxuri*** enara azpizuria *(Delichon urbica)*.

Enara **ipurtxuriak** auskalo zenbat multzo eta saldo osatzen dituzten Arantzazun bertan. Pello Zabala

Enara arreak ziren, sendokote indartsuak, ez **ipurtxuriak,** baina hemen genituen, negu gogor hotz baten ostean. Pello Zabala

---

## ipuru[1] *(orobat **epuru** g.er.)* **1** *iz* altzifrearen familiako zuhaixka, hosto-zorrotza, oso urrintsuak diren fruitu beltz edo moreak ematen dituena *(Juniperus communis)*.

Gero, etzan zen eta loak hartu zuen **ipuru** haren azpian. Elizen arteko biblia

Zatoz, ene maitea, goazen landara, **ipuruen** babesean emango dugu gaua. Elizen arteko biblia

Garizumako "su handiaren egunean", leku askotan txaparrak ebaki, batez ere **ipurua,** eta arratsean su haundiak egiten dituzte muinoetan. **"Ipuru** ardoa" izeneko diuretikoa, 60 gr. Patziku Perurena

**ipuru** ale, 10 gr. limoi azal, eta litro bete ardo zuriz egiten da, zortzi hamar egun ontzen edukiz. Patziku Perurena

**2** (hitz elkartuetan)

Kareharrizko eskualde bat da *Il Carso,* **ipuru** -landarez betea. Anjel Lertxundi

**Epuru** alez gozatutako jinebra. Patziku Perurena

Gudari-gezi zorrotzen, **ipuru**-ikatz gorien antzeko zaren hori! Elizen arteko biblia

---

## ipuru[2] 1 *iz ipar* alor ertza.

Errebidearen bi bazterrak berde jori batean zeuden, irailako euri goxoek pizturik, lehengo **ipuruak** bezala perfektuki marraturik. Piarres Aintziart

**2** *irud*

Parte bat atxikia da bazterketa sozialaren **ipuruetan** dabiltzanen aloimendu eskaintzaren emendatzeko. Herria

---

## ipuruketa *(corpusean **epuruketa** soilik) iz* ipuru zuhaixken bila.

Leitzara etorri berri hartan, hura poza gurea, herri inguruko bazterretatik Sanjoan sutarako **epuruketan**. Patziku Perurena

---

## ipurzabal *(corpusean **ipur-xabal** soilik) izond* ipurdi zabala duena.

Mehea, baina **ipur-xabala**. Aingeru Epaltza

---

## ipurzapi *iz* ipurdiko zapia. ik **pixoihal**.

Besoetan hari elektrikoa bildua zuen eta **ipurzapiak** bustita zeukanez gero, elektrokutatua hil zela esan zitekeen. Gotzon Garate

---

## ipurzikin *izond* ipurdia zikina duena.

Handik gutxira, tonelaje bereko neskatila **ipurzikin** bat iritsi zen, Gina izeneko bat, bi urtekoa, Filottiren lehen ilobatxoa. Koldo Biguri

---

## ipurzintzur *iz* ipurkonkorra.

Jo ostikada bat **ipurzintzurrean**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## ira *(12 agerraldi, 6 liburutan)* 1 *iz* garoa, iratzea.

Bizkai aldean, **ira** eta ihearekin egingo zizuten, beste horrenbeste: azienden azpitarako beharrezko zirenak bildu behar, sasoia hilabete honen inguruan, azken aldera, izaten baitzen normalean. Pello Zabala

Abu ihia bezain luzea da, **ira** iharra baino iharragoa. Pablo Sastre

**Ira** ikusi zuen eta garia zela pentsatu. Iñaki Arranz

**2** (hitz elkartuetan)

Nolanahi ere il honetako **ira**-lanak ez ziren preseski eskolan ikasi ohi zirenak, baserriko eskola partikularrean baino. Pello Zabala

Iraila margotu beharko bagenu, noski, euskaldunok garo, ihi eta **ira** bilketa lanak ipiniko genituzke. Pello Zabala

Eta arbeletan **ira** enbor fosilak aurkitu dira. Joseba Sarrionandia

**3** ***ira-belar***

**Ira-belarra** edo azeri-buztana, berriz, landare bera da, akonito izena ere hartzen duena. Iñaki Mendiguren

Greziako mitologiaren arabera, Herkulesek, Euristeoren aginduz, Zerbero zakur ikaragarria infernuetatik arrastaka ekarri zuenean, ahotik zerion bitsa lurrera eroritako lekuetan sortu zen **ira-belar** pozoitsu hori. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sua egin eta txori horiek jateko **ira-belarraren** zotzak erabili zituzten burruntzi gisa. J.M. Olaizola "Txiliku"

**4** ***ira sail*** *(corpusean **irasail** soilik)*

Eta preseski beste gauza batetik ere ageri da oihanak bazirela Luzaiden nasaiki, ezen oraino ikusten ahal dira mendi eta **irasailetan** ikatz egiteko tokien herrestoak edo hatzak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## irabazarazi, irabazaraz, irabazarazten du *ad* irabaztera behartu.

-Nor izan dira sekulako dirutza **irabazarazi** dizutenak? Elena Touyarou

Oratoriarako gaitasun berezi bat, Ramos Mejía ingeles ikastetxean sari bat baino gehiago **irabazarazia** ziona. Juan Garzia

Hobeto ohoratzen baitira Jaunaren eta beste santuen jaiak, zerua **irabazarazi** dieten gabezia eta pobretasunaz, arima zerutik urruntzen duten gauza eder eta alferrikakoez baino. Askoren artean

Eta horrenbesteko beldurrak bahago, alde-egintzak bazterrera eta utz nazak bakarrik, ni bakarrik aski nauk-eta nik laguntzen diodanari **irabazarazteko**. Patxi Ezkiaga

Demokratei boza ematen dieten errepublikanoak eta independenteak dira hauteskunde bat **irabazarazten** duen jendea. Berria - Mundua

---

## irabazbide ik **irabazpide**.

---

## irabazdun ik **irabaztun**.

---

## irabazi[1], irabaz, irabazten 1 du *ad* (norbaitek) lanaren edo jardunaren ondorioz, diruzko edo bestelako sari bat eskuratu.

Behin, bihurritutako hanka sendatu nion mando bati, eta 10 erreal **irabazi** nituen, gazta bat erosteko adina. Bernardo Atxaga

Batez beste indioek 35.000 pezeta **irabazten** dute urtean. Gotzon Garate

Orduan **irabazi** zuen estreinako dirua soinua jotzen. Pako Aristi

Kolonietan eta nabigazioetan **irabazitako** diruez egina zen harrizko etxe itzel hura. Edorta Jimenez

Lehen soldata Mutrikuko Antzumendin **irabazi** zuen. Pako Aristi

Dirua **irabazi** zuen; dirutza! Jon Muñoz

Mafiak diru asko **irabazi** du zuri esker. Ramuntxo Etxeberri
Dirua erraz **irabazteko** plan bat asmatu zuten. Oskar Arana
Zurekin sekula ez dut txakur txikirik **irabazi**. Patxi Zubizarreta
Egin eta ogia **irabazi**. Elizen arteko biblia
Diru hari ispiluekin **irabazi** nuena gehiturik. Juan Garzia
Bost talentu hartu zituenak inbertitu egin zituen berehala eta beste bost **irabazi**. Elizen arteko biblia
Chavezek, igoera horrekin, gutxienez 1.500 milioi dolar **irabazi** ditu. Pako Aristi
*Azkar* [...] garraio enpresak 18,5 milioi euro **irabazi** zituen iaz, aurrekoan baino %14 gehiago.
Etxekoak eroso bizitzeko lain **irabaziko** zuen bertan. Xabier Mendiguren Elizegi
Barre haren azpian, kexa bat bazen gehiago **irabazte** horren kontra. Karlos Zabala
· *iron* Muturreko bat **irabazi** behar duk oraindik! Koldo Izagirre

**2** (jokoan, zozketa edo kideko batean)

Karta jokoan diru asko **irabazi** izango zuela, eta hura xahutzen ariko zela, edo auskalo. Asteko gure aurrezki guztiak kartetan **irabazi** ondoan. Felipe Juaristi
Eskutik **irabazi** diote azken partida, eta etsi beharra dauka. Patxi Iturritegi
Gaurko teologo muslariari jakineko kartak, ongi nahasi gabeak badaezpada ere, jartzen dizkio beti munduak eskura, eta handian paso eman eta ttikitik jotzen du hordago, eta ttikian ez dio inork **irabazten,** eta horrela du jakin-usteko ustela bereganatzen. Iñaki Segurola
Haren arabera Carranzak **irabazi** zuen "handira", nahiz gosta zaion "ttipia". Piarres Xarriton
Gabon gau hartan kinan -halaxe esaten zitzaion gure etxean bingoari- **irabazi** zigun denoi. Jon Maia
Robespierreren beraren pasa-agiri benetako batez horniturik, Bertrandek jokoan **irabazia** bera, abiatu ziren bi zaldi beltzez. Felipe Juaristi
Umeak banatutako kartekin apustua **irabazi** zuenean. J.M. Olaizola "Txiliku"
Ezin izan nuen sinetsi aitak *Eguneroko Igarlea*-ren zozketa **irabazi** zuenean. Iñaki Mendiguren
Ustekabean neskaren aitak loterian milioi bat pezeta **irabazi** zuen. Gotzon Garate
Tonbolan **irabazitako** panpina. Joseba Urteaga

**3** onura edo abantail bat lortu edo bereganatu.

Zer **irabazten** den galtzen denean. Iñaki Segurola
Urte horretan **irabazi** zuten eskubide hori. Pello Salaburu
Ongi dakizue esku hauek **irabazi** dutela niretzat eta neurekin nituenentzat beharrezko guztia. Elizen arteko biblia
Fraide demonioei dirua emanda zerua **irabaziko** zuela sinesten ote zuen? Aingeru Epaltza
Zertarako du gizakiak mundu guztia **irabaztea,** bere burua galtzen eta hondatzen badu? Elizen arteko biblia
Dudarik gabe, erlijioak **irabazi** egin du astronomia, biologia eta dagoeneko zerrendatu ditugun gainerako arlo intelektual galduak zientziari uztean. Iñaki Mendiguren
Bakea **irabazi** du, alaitasuna, oreka, eta kilo batzuk; ilusioa bakarrik falta du. Pako Aristi
Leku berezi bat **irabazia** du Pierre Narbaitz-ek euskal kulturaren arloan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Uste osoa dut, gure oinaze honen guztiaren ondoren, **irabazia** dugula beste bizitza bat. Anjel Lertxundi
· Animalia askok ez dute oso ikusmen zorrotza izaten, eta sentikortasunean **irabaztea** garrantzizkoa da gau-ikusmenerako. Irene Aldasoro
Indarrean galtzen dena lastertasunean **irabazten** da. Irene Aldasoro

**4** (pisua eta kidekoak)

Neguan asko hazia nintzen, eta Uilek berriz zentimetro bat ere ez zuen **irabazi**. Juan Kruz Igerabide
Aurpegia erabat puztua zeukaan, eta ematen zian hogei kilo **irabazi** zituela jantzen zuen trajea erosi zuenetik. Bernardo Atxaga

**5** (besteren onginahia edo kideko zerbait) lortu edo beretu.

**Irabazi** zuen herriaren oniritzia. Elizen arteko biblia
Zure abegi ona nahi nuen **irabazi**. Elizen arteko biblia
Aise **irabazi** zuen emakumearen estimua. Jose Morales
Horregatik egin nuen, zure errespetua **irabazteko**. Bernardo Atxaga
Ondo **irabazia** daukagu ospea. Bernardo Atxaga
Lehendabizi turkoaren aurka **irabazi** zuen soldadu onaren ospea, eta ongi merezitako itzala areagotu egin zen holandarraren aurka. Felipe Juaristi
Aski zuen hori, ikusten zuten guztien ederra **irabazten** baitzuen Esterrek berez. Jose Antonio Mujika
· Mundu guztiaren gorrotoa **irabazi** dut ekintza honekin. Koldo Biguri
Hedabideetan halako oihartzuna eta sona **irabazi** badu, zeresana zuelako eta duelako izango da. Pello Zabala
Jakinik (uste dut) ene bihotza betiko zuela **irabazia**. Oskar Arana

**6** borroka, lehiaketa, txapelketa batean saria eskuratu, garaile gertatu.

**Irabazi** edo galdu, ez da erdi-biderik. Xabier Etxabe
Gerrak galdu edo **irabazi** egiten dira eta guk galdu egin dugu. Jon Maia
Baina lege onean **irabazi** hion, bai, jauna. Anjel Lertxundi
**Irabazten** badidak, Lancelot ohorerik gabe joango duk hemendik; nik **irabazten** badiat, salatari gezurti bat besterik ez haiz izango. Juan Kruz Igerabide
1054an bere anaia Fernando I.ak, Kastilla eta Leongo erregeak, gerla **irabazi** zion eta bizia kendu. Piarres Aintziart
Iruditzen zitzaidan gudu bat **irabazi** nuela, txikia baina erabakigarria. Juan Garzia
Harry eta Dudley berehala hasi ziren borroka sutsu baina isilean [...] Dudleyk **irabazi** zuen. Iñaki Mendiguren
Norbaitek bizkarrean kolpetxoak eman zizkion maratoia **irabazi** izan balu bezalaxe. Iñaki Mendiguren
Nola berreskuratuko dugu punturik ezin badugu quidditcheko partidarik **irabazi**? Iñaki Mendiguren
Partida ez zen oso ona izan, baina bat eta huts **irabazi** genion Murtziari. Joan Mari Irigoien
Hiru eta bat Bartzelonari **irabazi**. Patxi Iturritegi
Athleticek **irabaztea** merezi zian. Sonia Gonzalez
Ukabilketako borrokaldi guztiak **irabazi** zituen. Jon Muñoz
Alberto Fujimorik erraz **irabazi** ditu hauteskundeak. Joseba Sarrionandia
Beste kuku batek joko liguke orain, hauteskundeetan Carrillok **irabazi** izan balu... Joan Mari Irigoien
Aluak dira **irabazi** uste duten bakarrak. Monika Etxebarria
· Urte hartan Nobel saria **irabazi** zuelako. Jon Alonso
Iaz hirugarren saria **irabazi** genuen, eta aurten lehenaren bila goaz. Josu Landa
Erromako Joko Olinpikoetan urrezko medaila **irabazi** zuen. Ramuntxo Etxeberri

**7** (auziak eta kidekoak)

Auzia **irabazi** egin nuen eta horrek ezagutzera eman ninduen zenbait jende garrantzitsuren aurrean. Lopez de Arana
Drobiajkini, hilik zegoenez, auzia **irabazteak** ez zion inolako onurarik ekarriko. Jose Morales
Auzia **irabazteko** xantza guziak alde zituzten. Xipri Arbelbide

## 8 (lurralde edi kidekoak)

Italiak ere lur puska zenbait **irabazi** zituen, aliatuei eman laguntzaren sari. Piarres Xarriton

Zuretzat izango da Siken -amortarrei ezpataz eta uztaiaz **irabazi** nien lurraldea-, zu baitzaitut hobetsia semeetan. Jose Antonio Mujika

Beraz, inon ezin pausatu, ez gauaz eta ez egunez: Etxamendiren formulazioak gaurko ere berdintsu balio du, gospel berri horrek eremu handiak **irabazi** baititu bere fedearentzat. Iñaki Segurola

## **9** (era burutua izenondo gisa)

Eta basoerdi bat atera diot neure kontura, bere eskubide **irabazia** onartzearekin batera, mingaina eta eztarria bustiaz hizketa bizkortuko zaiolakoan. Pako Aristi

Ondotxo zekien berak, isiltasunari nekez **irabazitako** lurraldea baita musikarena. Felipe Juaristi

## **10 *denbora irabazi***

-Pentsatuko dut -agindu nien, **denbora irabazteko**, nahiz eta garbi eduki ez nintzela joango eta ahaleginak egingo nituela Idoia ere joan ez zedin-. Juan Kruz Igerabide

Erantzun aproposaren bila **denbora irabazteko**, ez nintzela oroitzen esan nion. Ramon Saizarbitoria

**Denbora irabazteko** taktika zaharra. Jon Alonso

Maiatza iritsi zen, eta liburuak irensten hasi zen Andres, ea horrela galdutako **denbora irabazten** zuen. Josu Zabaleta

Era horretan beste edonola baino **denbora** gehiago **irabaziko** dut. Koro Navarro

Produktibitatea, bestalde, eginkizunen espezializaziotik dator, espezializazioari esker aski **denbora irabazten** baita. Koro Navarro

**Denbora irabazi** beharra daukazu, eta irabazten den denbora diruz bakarrik irabaz dezakezu, zure denboratxoa salduz irabazitako diruaz, hain oker ere. Iñaki Segurola

## **11 *irabaztearren*** irabazteko.

Bere ikasliburuaren edizio berri baten zuzenketak egiten laguntzen nion, hartara diru pixar bat **irabaztearren**. Hik ere edozein kontakizun asmatuko duk, tunika bat eta estalki bat **irabaztearren**. Gizonak, gero, igurtzi eta laztan egin zion, emakumearen konfiantza **irabaztearren**. Joxe Austin Arrieta

Gerra **irabaztearren** giza-duintasuna galtzen duenak, berriz, horixe bakarrik irabaz lezake: gerra. Joxerra Garzia

Bat-bateko burutazioa izan zen, denbora **irabaztearren** botatakoa. Alberto Ladron Arana

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)

**edozeinek irabaz** (16); **ere irabaz** (12); **eta irabaz** (16); **irabaz dezake** (48); **irabaz dezakeela** (15); **irabaz dezaketela** (11); **irabaz dezaketen** (10); **irabaz dezala** (10); **irabaz zezakeen** (11); **partida irabaz** (9)

**aise irabazi** (129); **aise irabazi du** (21); **aise irabazi dute** (15); **aise irabazi zion** (14); **aise irabazi zuen** (21); **aise irabazi zuten** (12); **ak irabazi** (15); **aldearekin irabazi** (23); **aldeaz irabazi** (22); **aldiz irabazi** (127); **aldiz irabazi du** (61); **aldiz irabazi dute** (9); **aldiz irabazi zuen** (15); **alemaniarrak irabazi** (12); **arazorik gabe irabazi** (16); **asko irabazi** (39); **aurka irabazi** (51); **aurka irabazi zuen** (14); **australiarrak irabazi** (16); **australiarrak irabazi zuen** (10); **auzia irabazi** (15)

**baiezkoak irabazi** (11); **baina irabazi** (33); **baina irabazi egin** (10); **baino errazago irabazi** (9); **baino gehiago irabazi** (10); **baita irabazi** (9); **bakarra irabazi** (42); **bakarra irabazi du** (22); **bakarrik irabazi** (23); **bana irabazi** (30); **bandera irabazi** (15); **bartzelonak irabazi** (9); **bartzelonari irabazi** (11); **bat ere irabazi** (14); **bat irabazi** (208); **bat irabazi behar** (12); **bat irabazi du** (25); **bat irabazi eta** (10); **bat irabazi zuen** (39); **batek irabazi** (28); **batek irabazi du** (9); **batekin irabazi** (13); **batez irabazi** (10); **behin irabazi** (14); **beka irabazi** (11); **belgikarrak irabazi** (12); **belgikarrak irabazi zuen** (9); **berak irabazi** (48); **berak irabazi zuen** (19); **berriro irabazi** (11); **berriz irabazi** (12); **beti irabazi** (10); **bi aldiz irabazi** (10); **bi domina irabazi** (9); **bi irabazi** (45); **bi irabazi ditu** (19); **bi irabazi eta** (10); **bi partida irabazi** (34); **bi partidak irabazi** (46); **bi tiraldiak irabazi** (11); **biak irabazi** (14); **bigarren aldiz irabazi** (10); **bigarren etapa irabazi** (9); **bigarren partida irabazi** (17); **bigarren taldeak irabazi** (13); **bigarrenez irabazi** (11); **birritan irabazi** (9); **bitan irabazi** (19); **bitan irabazi du** (11); **borroka irabazi** (12); **bost aldiz irabazi** (16); **bost domina irabazi** (9); **bost irabazi** (32); **bost irabazi ditu** (9); **bost partida irabazi** (13); **bost partidak irabazi** (9); **bozak irabazi** (82); **bozak irabazi eta** (12); **bozak irabazi zituen** (33); **brontzezko domina irabazi** (11)

**da irabazi** (14); **dena irabazi** (24); **denbora irabazi** (24); **derrigor irabazi** (10); **diru irabazi** (10); **dirua irabazi** (22); **ditu irabazi** (14); **dolar irabazi** (16); **domina irabazi** (91); **domina irabazi nahi** (10); **domina irabazi zituen** (12); **domina irabazi zuen** (31); **du irabazi** (54); **du partidarik irabazi** (10); **dugu irabazi** (9); **dute irabazi** (24)

**edo hala irabazi** (10); **edo irabazi** (18); **ek irabazi** (18); **ere irabazi** (115); **ere irabazi du** (11); **ere irabazi egin** (19); **ere irabazi zuen** (18); **eroso irabazi** (15); **erraz irabazi** (81); **erraz irabazi zion** (12); **erraz irabazi zuen** (11); **erraz irabazi zuten** (24); **errazago irabazi** (9); **eskasa irabazi** (24); **esker irabazi** (40); **esker irabazi zuen** (11); **eskubidea irabazi** (10); **espainiako hauteskundeak irabazi** (12); **espainiako kopa irabazi** (15); **espainiarrak irabazi** (24); **espainiarrak irabazi zuen** (17); **esprintean irabazi** (11); **estatubatuarrak irabazi** (14); **eta aise irabazi** (13); **eta bat irabazi** (9); **eta biak irabazi** (9); **eta hirurak irabazi** (11); **eta irabazi** (216); **eta irabazi egin** (61); **eta irabazi egingo** (9); **eta partida irabazi** (10); **etapa bat irabazi** (22); **etapa irabazi** (87); **etapa irabazi du** (17); **etapa irabazi eta** (9); **etapa irabazi zituen** (14); **etapa irabazi zuen** (18); **etxean irabazi** (24); **euro garbi irabazi** (13); **euro irabazi** (113); **euro irabazi ditu** (37); **euro irabazi zituen** (56); **euroko irabazi** (16); **euroko irabazi garbiak** (10); **eurokopa irabazi** (9); **europako kopa irabazi** (12); **ez ditu irabazi** (12); **ez du irabazi** (36); **ez dute irabazi** (15); **ez irabazi** (21); **ez zuen irabazi** (18); **ez zuten irabazi** (9); **ezer irabazi** (9); **ezezkoak irabazi** (9); **ezustean irabazi** (10)

**filmak irabazi** (12); **filmak irabazi du** (12); **finala irabazi** (51); **finala irabazi dute** (11); **frantziak irabazi** (16); **frantziak irabazi du** (11); **frantziarrak irabazi** (17); **frantziarrak irabazi zuen** (12)

**gabe irabazi** (51); **gabe irabazi zion** (9); **gabe irabazi zuen** (12); **galdu edo irabazi** (9); **garbi irabazi** (21); **gehiago irabazi** (96); **gehiago irabazi du** (25); **gehiago irabazi zuen** (19); **gehien irabazi** (22); **gerra irabazi** (17); **giroa irabazi** (10); **goleko aldearekin irabazi** (10); **goleko aldeaz irabazi** (12); **guk irabazi** (21); **gutxiago irabazi** (14); **guztiak irabazi** (105); **guztiak irabazi ditu** (20); **guztiak irabazi dituzte** (12); **guztiak irabazi zituen** (34)

**hala irabazi** (11); **han irabazi** (9); **hanka batekin irabazi** (10); **hau irabazi** (10); **hauteskundeak irabazi** (85); **hauteskundeak irabazi ondoren** (10); **hauteskundeak irabazi zituen** (19); **hiru aldiz irabazi** (10); **hiru irabazi** (21); **hiru partida irabazi** (29); **hiru partidak irabazi** (31); **hirugarren partida irabazi** (10); **hirurak irabazi** (13); **hirutan irabazi** (10); **hori irabazi** (16)

**iaz irabazi** (12); **inoiz irabazi** (17

**irabazi ahal** (40); **irabazi ahal izateko** (28); **irabazi ala** (10); **irabazi arren** (50); **irabazi arte** (30); **irabazi asmorik** (25); **irabazi asmorik gabeko** (22); **irabazi aurretik** (9); **irabazi baititu** (19); **irabazi baitituzte** (12); **irabazi baitu** (27); **irabazi baitute** (21); **irabazi baitzion** (17); **irabazi baitzituen** (13); **irabazi baitzuen** (39); **irabazi baitzuten** (13); **irabazi bazuen** (12); **irabazi behar** (249); **irabazi behar dio** (20); **irabazi behar ditu** (15); **irabazi behar ditugu** (14); **irabazi behar du** (34); **irabazi behar dugu** (17); **irabazi behar dute** (15); **irabazi behar zuen** (9); **irabazi beharko** (78); **irabazi beharko dio** (10); **irabazi beharko du** (13); **irabazi beharko luke** (10); **irabazi beharra** (57); **irabazi beharra dago** (10); **irabazi beharreko** (29); **irabazi beharreko partida** (12); **irabazi berri** (38); **irabazi berri du** (16); **irabazi dio** (119); **irabazi diote** (11); **irabazi ditu** (516); **irabazi ditu aurten** (11); **irabazi ditu aurtengo** (10); **irabazi ditu bozak** (9); **irabazi ditu eta** (45); **irabazi ditu jarraian** (12); **irabazi dituela** (16); **irabazi dituen** (39); **irabazi ditugu** (12); **irabazi dituzte** (137); **irabazi dituzten** (16); **irabazi dituzue** (11); **irabazi du** (1194); **irabazi du aurten** (14); **irabazi du aurtengo** (12); **irabazi du bigarren** (10); **irabazi du eta** (24); **irabazi du jarraian** (14); **irabazi du lehen** (20); **irabazi du munduko** (10); **irabazi duela** (40); **irabazi duelako** (16); **irabazi duen** (80); **irabazi duena** (18); **irabazi dugu** (36); **irabazi dut** (27); **irabazi dute** (347); **irabazi dutela** (23); **irabazi duten** (44); **irabazi dutenak** (9); **irabazi duzu** (15); **irabazi duzue** (12)

**irabazi edo** (40); **irabazi edo galdu** (17); **irabazi egin** (435); **irabazi egin behar** (72); **irabazi egin beharko** (9); **irabazi egin ditu** (31); **irabazi egin dituzte** (10); **irabazi egin du** (26); **irabazi egin dute** (14); **irabazi egin genuen** (15); **irabazi egin nahi** (22); **irabazi egin zion** (32); **irabazi egin zuen** (67); **irabazi egin zuten** (37); **irabazi egingo** (45); **irabazi egingo dugu** (10); **irabazi egiten** (29); **irabazi ere** (44); **irabazi eta** (338); **irabazi eta beste** (9); **irabazi eta bi** (13); **irabazi eta gero** (26); **irabazi ez** (51); **irabazi ezean** (12); **irabazi ezinda** (15); **irabazi gabe** (66); **irabazi garbia** (14); **irabazi garbiak** (15); **irabazi genituen** (11); **irabazi genuen** (48); **irabazi handiak** (19); **irabazi izan** (31); **irabazi izana** (19); **irabazi izanak** (29); **irabazi nahi** (181); **irabazi nahi du** (24); **irabazi nahi dugu** (10); **irabazi nahi dut** (9); **irabazi nahi dute** (11); **irabazi nahian** (15); **irabazi nahiko** (15); **irabazi nituen** (9); **irabazi nuen** (29)

**irabazi ondoan** (42); **irabazi ondoren** (201); **irabazi ostean** (152); **irabazi zien** (20); **irabazi zieten** (94); **irabazi zion** (467); **irabazi zion atzo** (38); **irabazi zion herenegun** (9); **irabazi zioten** (32); **irabazi zituela** (18); **irabazi zituen** (481); **irabazi zituen bozak** (13); **irabazi zituen eta** (16); **irabazi zituen hauteskundeak** (9); **irabazi zituen iaz** (35); **irabazi zituen jarraian** (9); **irabazi zituenetik** (14); **irabazi zituzten** (86); **irabazi zizkion** (15); **irabazi zuela** (52); **irabazi zuelako** (25); **irabazi zuen** (1740); **irabazi zuen atzo** (127); **irabazi zuen azken** (17); **irabazi zuen bere** (11); **irabazi zuen eta** (43); **irabazi zuen etapa** (14); **irabazi zuen herenegun** (23); **irabazi zuen iaz** (42); **irabazi zuen igandean** (13); **irabazi zuen jarraian** (18); **irabazi zuen joan** (15); **irabazi zuen lehen** (17); **irabazi zuen partida** (10); **irabazi zuen proba** (11); **irabazi zuen urrezko** (11); **irabazi zuena** (14); **irabazi zuenean** (28); **irabazi zuenetik** (26); **irabazi zutela** (15); **irabazi zuten** (483); **irabazi zuten atzo** (44)

**irekia irabazi** (11); **italiarrak irabazi** (16); **italiarrak irabazi zuen** (9); **itzulia irabazi** (24); **jarraian irabazi** (43); **jokatu eta irabazi** (23); **k irabazi** (27); **ke irabazi** (9); **ke irabazi arte** (9); **kontra irabazi** (45); **kontra irabazi zuen** (12); **kopa irabazi** (109); **kopa irabazi zuen** (32); **kostata irabazi** (26); **lakersi irabazi** (9); **larri irabazi** (10); **lasterketa irabazi** (18); **lau aldiz irabazi** (16); **lau irabazi** (23); **lau partidak irabazi** (13); **laugarren partida irabazi** (9); **legebiltzarrerako bozak irabazi** (9); **lehen aldiz irabazi** (14); **lehen partida irabazi** (40); **lehen saria irabazi** (12); **lehen taldeak irabazi** (25); **lehia irabazi** (15); **lehiaketa irabazi** (48); **lehiaketa irabazi zuen** (21); **liga irabazi** (79); **liga irabazi zuen** (19); **madrili irabazi** (9); **merezita irabazi** (21); **miarritzek irabazi** (21); **milioi dolar irabazi** (10); **milioi euro irabazi** (102); **milioi euroko irabazi** (14); **milioi irabazi** (31); **milioi irabazi ditu** (12); **milioi irabazi zituen** (14); **munduko kopa irabazi** (25); **munduko txapelketa irabazi** (20); **nagusia irabazi** (34); **nagusia irabazi zuen** (12); **nagusitasunez irabazi** (22); **nahitaez irabazi** (38); **nahitaez irabazi behar** (32); **nazionala irabazi** (9); **nik irabazi** (9); **nola irabazi** (21); **norgehiagoka irabazi** (9); **nork irabazi** (18); **nork irabazi zuen** (9)

**onenaren saria irabazi** (9); **ongi irabazi** (20); **oscar saria irabazi** (9); **oso erraz irabazi** (9); **osoz irabazi** (15); **ozta irabazi** (11); **ozta ozta irabazi** (10); **partida bakarra irabazi** (17); **partida bana irabazi** (9); **partida bat irabazi** (35); **partida guztiak irabazi** (40); **partida irabazi** (342); **partida irabazi behar** (23); **partida irabazi ditu** (37); **partida irabazi dituzte** (16); **partida irabazi du** (34); **partida irabazi dute** (9); **partida irabazi eta** (34); **partida irabazi ondoren** (9); **partida irabazi zuen** (39); **partida irabazi zuten** (21); **partida jarraian irabazi** (17); **partidak irabazi** (143); **partidak irabazi ditu** (32); **partidak irabazi dituzte** (12); **partidak irabazi egin** (22); **partidak irabazi ondoren** (11); **partidak irabazi zituen** (13); **partidak irabazi zituzten** (10); **partidarik irabazi** (44); **partidarik irabazi gabe** (12); **pasa irabazi** (45); **pasa irabazi zuten** (32); **presidentetzarako bozak irabazi** (15); **proba irabazi** (36); **proba irabazi ditu** (10); **puntu irabazi** (18); **puntuak irabazi** (12); **realak irabazi** (10)

**sailkapena irabazi** (10); **sari bat irabazi** (9); **sari irabazi** (20); **sari nagusia irabazi** (18); **saria irabazi** (149); **saria irabazi du** (31); **saria irabazi zuen** (61); **sei irabazi** (10); **seigarren partida irabazi** (11); **soilik irabazi** (10); **taldeak irabazi** (83); **taldeak irabazi du** (27); **taldeak irabazi zuen** (10); **taldeari irabazi** (9); **tiraldi bana irabazi** (9); **tiraldi guztiak irabazi** (35); **tiraldiak irabazi** (12); **torneo irabazi** (10); **torneoa irabazi** (26); **tour irabazi** (11); **tourra irabazi** (20); **txapel irabazi** (19); **txapel irabazi ditu** (11); **txapela irabazi** (30); **txapeldunen liga irabazi** (15); **txapelketa irabazi** (113); **txapelketa irabazi zuen** (51); **ugari irabazi** (11); **urrea irabazi** (28); **urrezko domina irabazi** (28); **urtean irabazi** (10); **zazpi irabazi** (12); **zer irabazi** (19); **zigor eskasa irabazi** (9); **zuen irabazi** (25); **zuten irabazi** (18)

**irabazia du** (9); **irabazia zuen** (19); **irabazia zuten** (13); **ondo irabazia** (10); **ongi irabazia** (9)

aise irabaziko (11); asko irabaziko (17); bat irabaziko (27); duenak irabaziko (14); duenak irabaziko du (11); ere irabaziko (9); erraz irabaziko (10); eta irabaziko (9); euro irabaziko (15); gehiago irabaziko (20); hauteskundeak irabaziko (11); irabaziko balu (20); irabaziko ditu (37); irabaziko dituzte (9); irabaziko du (102); irabaziko duela (37); irabaziko duen (34); irabaziko dugu (49); irabaziko dut (13); irabaziko dute (26); irabaziko dutela (17); irabaziko ez (11); irabaziko luke (17); irabaziko ote (11); irabaziko zuela (19); irabaziko zuen (28); irabaziko zutela (11); nork irabaziko (49); nork irabaziko duen (18); nork irabaziko zuen (10); partida irabaziko (11); zer irabaziko (20)

bat irabazita (13); bat irabaziz (9); bozak irabaziz (12); bozak irabaziz gero (10); eta irabaziz (13); eta irabaziz gero (13); etapa irabazita (10); gaur irabazita (9); gaur irabaziz (12); gaur irabaziz gero (11); guztiak irabazita (17); hauteskundeak irabaziz (18); hauteskundeak irabaziz gero (18); irabazita ere (19); irabazita eta (9); irabazitakoa da (15); irabaziz gero (232); partida irabazita (35); partida irabaziz (10); partidak irabazita (19); tiraldi guztiak irabazita (11)

aurka irabaztea (14); bat irabaztea (51); da irabaztea (13); dirua irabaztea (14); du irabaztea (11); eta irabaztea (24); etxean irabaztea (12); euro irabaztea (11); ez irabaztea (21); finala irabaztea (13); gaur irabaztea (15); gehiago irabaztea (11); helburua irabaztea (10); irabaztea baino (19); irabaztea besterik (9); irabaztea besterik ez (9); irabaztea da (74); irabaztea dela (11); irabaztea du (10); irabaztea edo (11); irabaztea ere (14); irabaztea espero (23); irabaztea eta (23); irabaztea ez (39); irabaztea ez da (16); irabaztea ezinbestekoa (15); irabaztea ezinezkoa (9); irabaztea garrantzitsua (17); irabaztea izango (9); irabaztea lortu (57); irabaztea lortu zuen (14); irabaztea lortu zuten (12); irabaztea merezi (15); irabaztea nahi (18); irabaztea oso (28); irabaztea oso garrantzitsua (12); irabaztea oso zaila (10); irabaztea zaila (11); irabaztea zer (25); irabaztea zer den (22); irabazteak ez (16); irabazteaz gain (43); jarraian irabaztea (11); kopa irabaztea (19); liga irabaztea (23); milioi euro irabaztea (11); partida irabaztea (52); partidak irabaztea (26); puntuak irabaztea (10); taldeak irabaztea (10); txapelketa irabaztea (15); zuen irabaztea (9); zuten irabaztea (11)

asko irabazteko (10); aurka irabazteko (10); baina irabazteko (14); bat irabazteko (60); baten irabazteko (9); bozak irabazteko (28); bozak irabazteko faboritoa (10); da irabazteko (32); dena irabazteko (9); denbora irabazteko (24); dira irabazteko (15); dirua irabazteko (39); domina irabazteko (11); du irabazteko (21); dugu irabazteko (16); eraztuna irabazteko (12); ere irabazteko (14); eta irabazteko (73); etapa irabazteko (19); finala irabazteko (27); gehiago irabazteko (15); giroa irabazteko (22); guztiak irabazteko (9); hauteskundeak irabazteko (24)

irabazteko asko (16); irabazteko asmoa (13); irabazteko asmorik (14); irabazteko asmoz (25); irabazteko aukera (175); irabazteko aukera asko (14); irabazteko aukera gehien (17); irabazteko aukera izan (11); irabazteko aukera izango (9); irabazteko aukerak (46); irabazteko aukerarik (25); irabazteko behar (13); irabazteko bi (10); irabazteko bidea (14); irabazteko bidean (11); irabazteko borrokan (15); irabazteko eta (33); irabazteko ez (9); irabazteko faborito (55); irabazteko faborito nagusia (26); irabazteko faboritoa (42); irabazteko faboritoak (21); irabazteko faboritoen (14); irabazteko faboritoen artean (12); irabazteko gai (57); irabazteko gai dela (9); irabazteko gai izan (9); irabazteko gaitasuna (9); irabazteko gakoa (9); irabazteko gogo (11); irabazteko gogoa (15); irabazteko grina (23); irabazteko hautagai (77); irabazteko hautagai nagusia (17); irabazteko hautagaia (31); irabazteko hautagaiak (18); irabazteko hautagaien (24); irabazteko hautagaien artean (18); irabazteko itxaropena (13); irabazteko lehian (32); irabazteko lehiatik (9); irabazteko moduan (31); irabazteko moduko (12); irabazteko premia (18); irabazteko zorian (13)

itzulia irabazteko (44); jarraian irabazteko (12); kopa irabazteko (35); lasterketa irabazteko (11); liga irabazteko (77); ogia irabazteko (9); partida irabazteko (88); partidak irabazteko (24); proba irabazteko (26); puntuak irabazteko (12); saria irabazteko (17); titulua irabazteko (19); torneoa irabazteko (29); tourra irabazteko (34); txapela irabazteko (36); txapelketa irabazteko (60); txapelketa irabazteko hautagai (9); urrezko domina irabazteko (10

ari zen irabazten (11); asko irabazten (24); baina irabazten (10); baino gehiago irabazten (10); baino gutxiago irabazten (10); bat irabazten (27); batek irabazten (10); beti irabazten (19); bozak irabazten (11); denbora irabazten (10); diru asko irabazten (12); diru gehiago irabazten (13); diru irabazten (10); dirua irabazten (22); dolar irabazten (12); duenak irabazten (11); ere irabazten (17); eta irabazten (39); euro irabazten (11); gaur irabazten (18); gehiago irabazten (43); gutxiago irabazten (19); hauteskundeak irabazten (12); hori irabazten (10)

irabazten ahal (22); irabazten ari (67); irabazten ari da (10); irabazten atera (9); irabazten badio (12); irabazten baditu (19); irabazten badu (82); irabazten badugu (27); irabazten badut (14); irabazten badute (24); irabazten da (13); irabazten ditu (25); irabazten dituen (14); irabazten dituzte (15); irabazten du (71); irabazten duela (29); irabazten duen (66); irabazten duena (14); irabazten duenak (30); irabazten dugu (12); irabazten dut (13); irabazten dute (40); irabazten dutela (17); irabazten duten (23); irabazten eta (11); irabazten ez (47); irabazten ez badu (9); irabazten ez badugu (11); irabazten hasi (32); irabazten joan (9); irabazten nuen (11); irabazten saiatu (15); irabazten saiatuko (35); irabazten saiatuko da (16); irabazten saiatuko gara (9); irabazten zituen (11); irabazten zuela (10); irabazten zuen (50); irabazten zuten (16)

eta irabaztera (10); irabaztera behartuta (15); irabaztera goaz (12); nork irabazten (11); partida irabazten (38); partidak irabazten (20); puntuak irabazten (10); tourra irabazten (9); txapelketa irabazten (12); zen irabazten (14); zer irabazten (18)

---

## irabazi[2] 1 *iz* irabazten den gauza.

Zure **irabazi** guztiez jabetuko dira. Elizen arteko biblia

Ba dakik nork jasotzen dituen negozio honen **irabaziak**? Josu Landa

**Irabazien** erdia jasoko nuela ordain gisa. Bernardo Atxaga

Enpresen **irabazien** gaineko zerga.. Berria - Mundua

Gastuak **irabaziak** baino handiagoak izango zirelako. Jose Morales

**Irabaziak,** ostera, haren bizimolde apalaren neurrikoak ziren. Patxi Zubizarreta

Okerreko **irabazien** goseak eraginda. Elizen arteko biblia

Urtebete baino luzeago jo zuen jokoak, eta, tarte horretan, hogei margolan saldu ziren, eta ia bi milioi dolarreko **irabaziak** egin. Oskar Arana

Banakako interesa eta epe laburrerako **irabazia**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ehuneko hamabosteko **irabazia**. Hasier Etxeberria

Zein den ikastolatik unibertsitaterakoan gertatzen den galera funtsezkoena, beste gainerako **irabazi** ustekoek estaltzen ez duten zulo beltz esentziala. Iñaki Segurola

Balizko **irabaziak** ospatzen. Migel Angel Mintegi

Holandarrek ere horrelatsuko **irabaziak** ateratzen dituzte. Iñaki Iñurrieta

**2** (izenondoekin)

Horrekin batera, estraperloak **irabazi** eder askoak bideratu zizkion. Patxi Zubizarreta

Bere igarpenen bidez **irabazi** ederra ematen zien nagusiei. Elizen arteko biblia

Hobe ondasun gutxi zuzentasunez, **irabazi** handiak bidegabekeriaz baino. Elizen arteko biblia

Bulegari asko ari dira **irabazi** handiko karguak eskuratu nahirik. Jose Morales

-Ez zarete nehoiz helduko: **irabazi** txikiko kaka-jaleak zarete. Itxaro Borda

Gaiztoak **irabazi** hutsalak izaten ditu, zuzentasuna ereiten duenak sari segurua. Elizen arteko biblia

Ezkondu eta gero, baserriko **irabazi** ziztrina osatzeko-edo, fabrikan hasi zen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez nuke **irabazi** errazeko kargu badaezpadakorik onartuko. Jose Morales

Merkataritzak **irabazi** netoa ekar diezaioke munduari. Iñaki Heras

Enpresa-lorpenik gabe, ez dago **irabazi** kapitalistarik, ez bultzada kapitalistarik. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Denak, txiki eta handi, **irabazi**-gose dira, apaizak eta profetak faltsukeriari emanak. Elizen arteko biblia

Berezko bide zuzenean ohi zion justiziak nori berea; mesede egin-nahiak edota **irabazi**-usteak ez zioten bide hori nahastuko edo galaraziko. Patxi Ezkiaga

Japoniako sei merkataritza konpainia handienen **irabazi** kopurua Hego Ameriketako herri guztien BPG baina handiagoa da. Pello Salaburu

**Irabazi**-kostu kalkulua eginik. Iñaki Heras

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berentzat diru-**irabazi** izugarriak ateratzeko tentazioan erori ziren. Iñaki Mendiguren

Txanpongintzaren kudeaketak bide batez ekar ziezazkiokeen finantza-**irabazi** huts guztiak. Iñaki Mendiguren

Abian den iraultza teknologikoak bideratzen dituen produktibitate-**irabazi** izugarrietan. Koro Navarro

Produktibitate-**irabaziak** handitzeko lasterketa. Koro Navarro

**4** ***irabazian*** *adlag*

**Irabazian** irten nintzen. Anjel Lertxundi

Kapitalistak eta bi herrialdeetako kontsumitzaileak **irabazian** aterako lirateke dudarik gabe, oihala nahiz ardoa Portugalen ekoitziko balira. Koro Navarro

Ikusten duzue nola ateratzen den bat **irabazian** edo galduan halako ergelkeriengatik? Fernando Rey

Har ezazu dirua eta bankuan **irabazian** ipini. Gotzon Garate

Barruak gauza bat eta kanpoak edo goiak beste bat nahi dutelarik, barrua gelditzen da **irabazian**. Iñaki Segurola

**Irabazian** geratu zelakoan zegoen, batere galdu gabe. Patxi Zubizarreta

Ama euskara putatu, prostitutatu, **irabazian** jarri eta haren proxeneta bihurtu. Iñaki Segurola

Santa Luzia egunean hasten dela eguzkia arratsaldetik **irabazian** esan ohi da. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko irabaziak** (3); **aurten irabaziak** (3); **baina irabaziak** (4); **balizko irabaziak** (3); **bere irabaziak** (5); **dira irabaziak** (4); **diren irabaziak** (3); **diru irabaziak** (5); **ditu irabaziak** (7); **dituen irabaziak** (4); **dituzten irabaziak** (4); **dolarreko irabaziak** (9); **enpresen irabaziak** (3); **ere irabaziak** (5); **ere irabaziak izan** (3); **eta irabaziak** (24); **euren irabaziak** (3); **euro inguruko irabaziak** (3); **euroko irabaziak** (33); **euroko irabaziak izan** (15); **euroren irabaziak** (6); **euroren irabaziak izan** (3); **guziak irabaziak** (4); **inguruko irabaziak** (4)

**irabaziak baino** (3); **irabaziak banatu** (3); **irabaziak ditu** (7); **irabaziak dituzte** (7); **irabaziak egiten** (3); **irabaziak eman** (3); **irabaziak emango** (3); **irabaziak erdibana** (4); **irabaziak ere** (6); **irabaziak eta** (14); **irabaziak eta galerak** (3); **irabaziak ez** (8); **irabaziak handitzeko** (8); **irabaziak izan** (39); **irabaziak izan ditu** (5); **irabaziak izan zituen** (16); **irabaziak izan zituzten** (6); **irabaziak izango** (6); **irabaziak izango ditu** (3); **irabaziak lortu** (4); **irabaziak lortzeko** (6); **irabaziak lortzen** (3); **irabaziak zituen** (5); **irabaziak zituzten** (3)

**izandako irabaziak** (3); **kutxaren irabaziak** (3); **lortutako irabaziak** (3); **milioi dolarreko irabaziak** (8); **milioi euroko irabaziak** (27); **milioi euroren irabaziak** (6); **partida guziak irabaziak** (3); **partidak irabaziak** (3); **sekulako irabaziak** (4); **zituen irabaziak** (5)

**beren irabazien** (4); **dituen irabazien** (4); **enpresen irabazien** (4); **eta irabazien** (10); **irabazien erdia** (3); **irabazien gaineko** (7); **irabazien gaineko zerga** (5); **irabazien kopurua** (3); **irabazien parte** (5); **irabazien parte bat** (5); **irabazien zati** (6); **irabazien zati bat** (3); **urteko irabazien** (3)

---

# **irabazizale** *izond* irabazien zale dena.

Hain gogorki aipatzen zuen klase **irabazi**-zale horretako kide sentitzen al zuen bere burua, edo haiengandik apartekoa, kasu berezia zelakoan? Bego Montorio

---

# **irabazki** *iz* irabazia. ik **irabazkin**.

2003an «sektoreko enpresek uste baino emaitza kaskarragoak» lortu zituztela ziurtatu arren, ez zituen **irabazkiak** zehaztu nahi izan: «fakturazioa igo egin da nabarmen, baina horrek ez dakar, ezinbestean, etekinen igoerarik». Berria - Ekonomia

---

# **irabazkin** *iz* irabazia.

Irakurketak ez dakar **irabazkinik**. Anjel Lertxundi

Ekintzak, **irabazkinik** gabea dirudienean ere, badu zentzurik, bizitzarako zein etorkizunerako prestatzen baikaitu. Anjel Lertxundi

---

# **irabazle** 1 *iz* irabazi duen pertsona.

Gizartean, gizarte honetan eta edozein gizartetan, **irabazleak** eta galtzaileak daude. Iñaki Heras

**Irabazle** guziak Konpostelara joan ziren, Apostoluari eskerrak bihurtzeko. Piarres Aintziart

I. Mundu Gerlako **irabazleak** saiatu ziren herri eskubideen edo bederen herri gutiengoen aldeko neurriak hartzen. Piarres Xarriton

Lehen sariaren **irabazlea** izan zen Joanes Garaztarra, Constantin medikuaren aita. Michel Oronoz

Charles Martel, aldiz, hiru heroien borrokako **irabazle** garbia izan zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Irabazle** argirik gabe amaitu da lehia. Berria - Kirola

**irabazle** petoa da. Berria - Kirola

*Olibondoa* koalizio izan da, bere hitzetan, bozen **«irabazle** handia». Berria - Mundua

Frantses eta ingeles **irabazleen** arteko kidetasun ederra laster desegin zelakotz. Piarres Xarriton

Entzuleek igorritako botoek erabaki zuten Txomin Garmendia izatea **irabazle**. Iñigo Aranbarri

Hermann eta Zezenko deitzen genion mutil kankarro bat izaten ziren beti **irabazle**. Anjel Lertxundi

Errealitatea normaltasunez asumitzen, irensten, jaten erakutsi gaixoari edo gaixo-ustekoari, eta, azken buruan, galtzaileari **irabazle** dela sinetsarazi. Iñaki Segurola

Kerryk zenbaki eta datu franko aipatu zituela eta, horrenbestez, ezagutza eta eduki aldetik **irabazletzat** jo zutela. Berria - Mundua

Dominguez eta Jurado **irabazle** Bilboko Milian. Berria - Kirola

Estitxu Arozena **irabazle** Nafarroa Oinez Sarian. Berria - Kultura

Airbus, zeruko lehiaren **irabazle**. Berria - Ekonomia

Pla Sariaren **irabazle** Robert Saladrigasen hitzak. Berria - Kultura

**Irabazlerik** ez Akordeoi Lehiaketan. Berria - Kultura

Zorionak **irabazleari**! Koro Navarro

· Benetako **irabazlea** gizarte zibila izan zen Txema Ramirez de la Piscina

**2** (hitz elkartuetan)

Faustinok nahiago izan zuen **irabazle** txapelarekin erretiratu. Iñigo Aranbarri

Baina bata da irabaztea eta bestea, desberdina oso, **irabazle** maila hartzea. Felipe Juaristi

**Irabazle** sena dute, eta borrokalari finak dira. Berria - Kirola

Kandido eta Paulo elkarri harrokeriak botaz eta **irabazle** imintzioak eginez irten ziren jolastokitik. Pedro Alberdi

Pairatzen dugun **irabazle**-feriako irabazleetakoa. Aingeru Epaltza

· Gizartean diru-**irabazle** hutsarena ez zen papera izateko amets erregarria. Bego Montorio

Arauak jende arruntagoarentzat ziren, ez quidditcheko kopa-**irabazleentzat**. Iñaki Mendiguren

• **3** *izond* irabazi duena.

Zaldi **irabazleari**. Ramon Saizarbitoria

Kartoi **irabazlea** hartu eta eskuan eutsi zion, oholtzako emakumeak zenbaki **irabazleak** irakurtzen zituen artean. Koro Navarro

Errexago da funtsean bihotza aberri **irabazle** batetik deslotzea. Piarres Aintziart

Genetikaren loteria eskuzabalegia izan zen berarekin, eta zenbaki **irabazle** guztiak egokitu zitzaizkion. Oskar Arana

Bi talde **irabazle** haiek. Bernardo Atxaga

• **4** (predikatu gisa)

Pilotan ez bezala, posible dela bertsotan hogeita bina egitea, teman ari diren biak **irabazle** suertatzea. Andoni Egaña

Ipuina **irabazle** suertatuz gero. Patxi Zubizarreta

Gu **irabazle** sentitzen gara. Berria - Euskal Herria

Catherinek, lehen saioaldi honetan bere burua **irabazle** ikusiz, musika jarri zuen eta mutilaren ondoan eseri zen. Iñaki Zabaleta

Zeharkatu genituen harri irristakorrak, eta, azkenean, heldu ginen, **irabazle,** gailur haizetsura. Koro Navarro

Eta puruari beste zupada bat eman nion, zaldiaren gainean, **irabazle**. Jon Maia

Munduko txapelketetan lau aldiz **irabazle** agertu da. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Miarritzek galdu egin zuen (22-27), ehuneko laurogeita hamarrek **irabazle** jotzen zutenean. Berria - Kirola

### 5 *irabazle atera/irten*

Halabeharra eta zoria elkartzen direnean, zorigaiztoa ateratzen da gehienetan **irabazle** . Joxean Agirre

Arrakastaren edo hutsegitearen edo erruaren ondoren, **irabazle** nahiz galtzaile irtendakoan. Juan Garzia

**Irabazle** irten denak zer ospatu duelako, galtzaileak pena nonbait ito behar duelako, edateko arrazoia dute denek. Xabier Montoia

Bush ateratzen bazen **irabazle,** esan zuen, ahaztea geneukan "kontserbadore errukitsuen" gaineko kalaka inozo hori guztia. Oskar Arana

**Irabazle** ateratzen dena txapeldun izango da, dudarik gabe. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldiz irabazle** (7); **baitzen irabazle** (3); **berriz irabazle** (3); **beti irabazle** (7); **bi irabazle** (19); **bi irabazle horiek** (8); **bi irabazle horien** (4); **bozen irabazle** (3); **da irabazle** (17); **dela irabazle** (3); **denak irabazle** (5); **dira irabazle** (7); **ditugu irabazle** (3); **ere irabazle** (11); **eta irabazle** (15); **ezkerra irabazle** (3); **iazko irabazle** (4); **irabazle ala** (3); **irabazle ala galtzale** (3); **irabazle atera** (25); **irabazle atera da** (3); **irabazle atera dira** (8); **irabazle aterako** (4); **irabazle ateratzen** (3); **irabazle bakoitzak** (3); **irabazle bat** (4); **irabazle beraz** (3); **irabazle ere** (7); **irabazle eta** (28); **irabazle eta galtzailerik** (4); **irabazle eta galtzale** (4); **irabazle ez** (3); **irabazle garbia** (3); **irabazle hauk** (15); **irabazle haundi** (3); **irabazle horiek** (16); **irabazle horien** (7); **irabazle irten** (3); **irabazle izan** (11); **irabazle izana** (5); **irabazle izanen** (4); **irabazle izango** (3); **irabazle sena** (5); **irabazle sentitzen** (3); **irabazle suertatu** (4); **izan da irabazle** (6); **izan irabazle** (3); **izanen da irabazle** (3); **lau aldiz irabazle** (3); **sariaren irabazle** (6); **zen irabazle** (4); **zuten irabazle** (3)

**ataleko irabazlea** (6); **aurtengo irabazlea** (5); **beste irabazlea** (4); **bigarren partidaren irabazlea** (3); **bikote irabazlea** (6); **da irabazlea** (14); **eta iazko irabazlea** (3); **eta irabazlea** (7); **euskadi sariaren irabazlea** (4); **hunen irabazlea** (3); **huntako irabazlea** (3); **iazko irabazlea** (16); **irabazlea da** (9); **irabazlea ere** (5); **irabazlea eta** (18); **irabazlea eta frantziako** (3); **irabazlea izan** (12); **irabazlea izan da** (3); **irabazlea izan zen** (6); **irabazlea izango** (6); **irabazlea izango du** (4); **irabazlea nor** (7); **irabazlea nor den** (5); **irabazlea zein** (4); **izan da irabazlea** (6); **izan zen irabazlea** (4); **jazko irabazlea** (5); **ko irabazlea** (4); **lehen irabazlea** (3); **lehiaketaren irabazlea** (6); **partidako irabazlea** (5); **partidaren irabazlea** (6); **partidaren irabazlea eta** (4); **sariaren irabazlea** (24); **sariaren irabazlea izan** (3); **talde irabazlea** (3); **z irabazlea** (7); **zen irabazlea** (5); **zuen irabazlea** (3)

**aritu ziren irabazleak** (3); **atzoko irabazleak** (4); **aurtengo irabazleak** (5); **azken irabazleak** (4); **baina irabazleak** (3); **bakoitzeko irabazleak** (7); **bi irabazleak** (16); **bikote irabazleak** (5); **bote irabazleak** (3); **bote irabazleak eta** (3); **dira irabazleak** (18); **diren irabazleak** (3); **ditu irabazleak** (5); **du irabazleak** (9); **du zain irabazleak** (3); **eko irabazleak** (4); **eta irabazleak** (23); **gaurko irabazleak** (4); **horietako irabazleak** (4); **horretako irabazleak** (6); **huna irabazleak** (3); **iazko irabazleak** (7); **irabazleak aise** (3); **irabazleak ariko** (3); **irabazleak ariko dira** (3); **irabazleak azken** (4); **irabazleak baino** (4); **irabazleak beti** (7); **irabazleak beti aintzinean** (3); **irabazleak beti aitzinean** (3); **irabazleak biziki** (3)

**irabazleak dira** (4); **irabazleak disko** (3); **irabazleak disko bat** (3); **irabazleak ederki** (3); **irabazleak ere** (4); **irabazleak eta** (24); **irabazleak ez** (9); **irabazleak ez dira** (3); **irabazleak hasieratik** (3); **irabazleak izan** (6); **irabazleak izan dira** (4); **irabazleak martinez** (3); **irabazleak nortzuk** (5); **irabazleak nortzuk diren** (3); **irabazleak olaizola** (4); **irabazleak olaizola ii** (3); **irabazleak oso** (4); **irabazleak patxi** (3); **irabazleak ziren** (4); **irabazleak zuzenean** (4); **jazko irabazleak** (5); **joan dira irabazleak** (8); **kanporaketako irabazleak** (6); **lehiaketaren irabazleak** (4); **obra irabazleak** (3); **partida horretako irabazleak** (5); **partidako irabazleak** (14); **sariaren irabazleak** (5); **sarien irabazleak** (6); **talde irabazleak** (3); **zain irabazleak** (3); **ziren irabazleak** (10); **zuen irabazleak** (4)

**arteko irabazlearen** (4); **arteko irabazlearen aurka** (3); **du irabazlearen** (3); **eta irabazleari** (3); **irabazlearekin neurtuko** (3); **irabazlearen alde** (3); **irabazlearen aurka** (9); **irabazlearen aurka jokatuko** (7); **irabazlearen eta** (3); **irabazlearen izena** (7); **irabazlearen kontra** (4); **irabazlearentzat puntu** (3); **irabazlearentzat puntu bana** (3); **partidako irabazlearekin** (4); **partidako irabazlearen** (5)

**atzoko irabazleek** (7); **baina irabazleek** (3); **bakoitzeko irabazleek** (3); **bi irabazleek** (21); **dute bi irabazleek** (6); **dute irabazleek** (24); **egin dute irabazleek** (4); **eta irabazleek** (4); **gaurko irabazleek** (3); **haatik irabazleek** (3); **irabazleek elkarren** (4); **irabazleek elkarren aurka** (3); **irabazleek eta** (11); **irabazleek gaur** (3); **irabazleek hiru** (3); **irabazleek jokatuko** (3); **irabazleek olaizola** (4); **irabazleek partida** (3); **irabazleek titin** (3); **irabazleek titin iii** (3); **jokatuko dute irabazleek** (3); **partidako irabazleek** (4); **zuten atzoko irabazleek** (3); **zuten irabazleek** (9)

**bi irabazleen** (6); **da irabazlerik** (3); **euro irabazleentzat** (3); **goresmenak irabazleeri** (3); **irabazleen alde** (4); **irabazleen artean** (16); **irabazleen arteko** (3); **irabazleen eta** (6); **irabazleen izenak** (5); **irabazleen kontra** (4); **irabazlerik eta** (3); **irabazlerik eta galtzailerik** (3); **irabazlerik gabe** (4); **irabazlerik izan** (5); **irabazletzat jo** (4); **ko irabazleen** (3); **zen irabazleen** (3)

---

## **irabazlegai** *iz* irabazteko aukera duena.

Lastoan, Bereau nafarra eta Bustintza bizkaitarra izango dira **irabazlegai** . Frantzia, Irlanda eta Ingalaterra **irabazlegai** . Berria - Kirola

---

## **irabazmin** *iz*

Athleticeko jokalariei dagokienez, Guzmanek motibazio sistemak sortzeko asmoa dutela aurreratu zuen, jokalariengan autoestimua sendotu, **irabazmina** finkatu eta talde kontzientzia sendotzeko. Berria - Kirola

---

## **irabazpen** *iz* irabaztea.

Askatasun demokratikoak, **irabazpen** sozialak, elkartasuna, lan orduen murrizketa eta denentzako paperak aldarrikatuz. Berria - Euskal Herria

Hezkuntza mailak eta **irabazpenak:** Lanaren bidez lorturiko **irabazpen** erlatiboak herri zenbaitetan (Goi mailako bigarren hezkuntza hartzen da erreferentziatzat: 100). Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Gol ezinezko hori gabe ez dago desiraren amaierarik, ez **irabazpenik,** ez lehen mailan irauterik, ezer ez. Joseba Zulaika

---

## **irabazpide** *iz* zerbait irabazteko era edo bidea; etekina ateratzen den jarduera. ik **negozio; dirubide.**

Horiek erlijioa **irabazpide** bihurtzen dute. Elizen arteko biblia

Gerrak ekimen eta **irabazpide** berriak sortu zituen, hala nola Selim Aluanek lehenengoz zerabilen tearen salerosketa. bertako **irabazpide** bakarra liburu zaharren salmenta izan zen. Patxi Zubizarreta

Laborarientzat **irabazpide** berri bat sortzen du. Herria

-Beraz, horrek esan nahi du **irabazpide** txarra dela etxalde hau orain erostea, bai? Jose Morales

Erresumatik deserritu zituzten kasik, eta beste leku batzuetara joan behar **irabazpide** bila. Karlos Zabala

Putakume bat duk, gu denak saltzeko gauza, horretan **irabazpide** izanen badu. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**irabazpide txarra** (3)

---

## **irabazte** *iz* lanaren edo jardunaren ondorioz, diruzko edo bestelako sari bat eskuratzea; garaile gertatzea.

**Irabazte** horrekin segurtatzen dute gure jokolariak beren mail ederrean egoitea helduden urteko sasoinari buruz. Herria

Munich eskualdea burua gora jarri da azken **irabazte** horren ondotik. Herria

Eta besteak, diru irabazteaz itsuturik batetik eta diru **irabazte** haren mantsotasunaz etsirik bestetik, gero eta diru multzo gehiago jokatzeko eskatzen zioten begibakarrari, presaka zebiltzala argudiatuz. Felipe Juaristi

Frantzia den herrialde aberatsean, bere futbolariak diru- **irabazteen** sailkapenetan gora daudela. Berria - Kultura

---

## **irabaztun** 1 *iz ipar* partida edo apustu batean irabazten duen pertsona.

Milafrangan maiatzaren lehenean: 4 orenetan, Duhauren kontra aintzineko **irabaztuna** . Herria

Bi **irabaztunak** joan dira aitzinean partida gehienean, 7-8 ren abantailarekin doi batez. Herria

Finala 30ean aratsaldeko 6 orenetan bi **irabaztunen** artean. Herria

8 bote **irabaztunak** eta 5 galtzaleak. Herria

• **2** *izond* partida edo apustu batean irabazten duena.

Bizi zen segurki trofeoko ortzegun aratsean 9 orenetan pilotari **irabaztun** hauekin, finalarendako. Herria

Huna hemen Arrosako kermezan zozketan atera diren zenbaki **irabaztunak** : 333-1169-5053-[...]. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi irabaztunen artean** (3); **bote irabaztunak eta** (3); **irabaztun horiek** (4); **kontra aintzineko irabaztuna** (3)

---

# irabia

**1** ***irabia eta irabia aritu***

-Odola **irabia, irabia** eta **irabia** aritzen naiz, ezta? -jarraitu zuen mutilak, eskua airean mugitzen zuela esnegaina harrotzeko. Karlos Zabala

---

# irabiagailu *iz* irabiatzeko gailua.

1910ean asmatu zen **irabiagailua,** gaur egun arrautzak edo bestelako lehengaiak jotzeko sukaldean egunero erabiltzen dugun tresna. Pello Salaburu

Gauzak jaurtitzen dizkiot -lisaburdina, **irabiagailua,** zartagina, edozer-. Xabier Olarra

Esate baterako, bakterioen sexu-elkartzea aztertu nahian genbiltzala nire lagun Élie Wollman-i bururaturiko ideia bitxi hauxe: inolako gupidarik gabe banantzea bikote zoriontsu haiek, sukaldeko **irabiagailu** batean sarturik: bakterioentzako coitus interruptus moduko bat, alegia. Juan Garzia

Izeba Petuniak bere **irabiagailuan** birrindu zituen gutunak. Iñaki Mendiguren

Galdarara zuzenean jo, **irabiagailua** martxan jarri, eta sua piztu zuen. Juan Garzia

Ausartzea erabaki genuen, eta hala eginarazi genion auzoko errementariari latorri beltzezko erreaktor zilindriko halamoduzko bat, eskuzko **irabiagailu** eta guzti. Juan Garzia

---

# irabiaka *iz* irabiatzen, nahasten.

Gero, buruan **irabiaka** zerabilen galdera egitera ausartu zen-: Zer gertatu behar zuen, bada? Anjel Lertxundi

Herriak beti ibili dira **irabiaka,** eta mendeen poderioz, migratze horiek guztiz nahastu dira, puntu askotan transizio linguistikoen oroimena erabat desagertzeraino iritsiz. Isabel Arrigain

---

# irabiaketa *iz* irabiatzea.

Airea eta beste gas batzuk ia beti izaten direnez urdailean, bor-bor entzungarri bat sortzen du batzuetan **irabiaketa** horrek. Irene Aldasoro

---

# irabiaki *iz* esnea edo izozkia eta beste osagai batzuek ontzi batean irabiatuz egiten den edaria. ik**batido**.

Han joan zen bere taxiarekin Metropolitan Diner izeneko Iparraldeko Bulebarreko jatetxe batera; barran eseri eta txokolatezko **irabiaki** bat, bi hanburger eta plater bat patata frijitu eskatu zituen. Oskar Arana

---

# irabiatu, irabia, irabiatzen **1** du *ad* (janari edo edari gaiak) irauliz nahasi.

Esnegaina **irabiatuz** gurina ateratzen da. Elizen arteko biblia

Arrautzak **irabiatzen** jarraitu zuen. Unai Iturriaga

Botako zituen ehun gramo gurin, beste hainbeste azukre eta bi arrautza sopera handi batean, eta haiek ondo-ondo **irabiatu** ondoren limoi arrailatua nahastuko zion, eta irina, masa pixka bat loditu arte. Pako Aristi

Lehengo moduko koktel bat **irabiatzen** ari zen. Lopez de Arana

Zergatik ez eskatu Snape maisuari Bi ontzi haietako isuriak, gero, beste handiago batera pasatzen ziren, hantxe nahastu eta **irabiatzeko** . Iñaki Mendiguren

Maitasun edabea **irabiatzen** erakusteko? Iñaki Mendiguren

Horietarikoak dira urdailean eta hesteetan (janaria **irabiatu** eta bultzatzeko) [...] dauden muskulu lisoak. supazterrean, altzairuzko neskato baten gainean pausaturik zegoen eltzekariaren **irabiatzeko** . Irene Aldasoro

Odola isurtzen denean pertzean jaso eta eskuz **irabiatzea** . Karlos Zabala

**2** *irud* irauli, nahasi.

Haizeek **irabiaturiko** itsasoak ibai barrurantz hondarra jaurtitzean. Xabier Amuriza

Ontzi zabala labain zihoan, izarrez ereina zirudien zerurantz ke beltzezko suge lodi bat jaurtiz; eta, gure ondotik, ura, zuri-zuri, ontzi astuna igarotzeak astindurik, helizeak **irabiaturik,** apar eta bits ari zen. Josu Zabaleta

**3** *irud*

Irainak aditzeaz odola **irabiaturik** bainuen. Edorta Jimenez

Haren ezpainak eta bular-lepoak laztandu zituen gero, eromen bridarik gabe batez, mutilaren zainetako odola guztiz **irabiaturik** baitzegoen ordurako. Anjel Lertxundi

Amorruak barrua **irabiatu** zidan. Anjel Lertxundi

Irudi horrek **irabiatu** egin zidan barrena. Xabier Mendiguren Elizegi

Egun bi, Mihurubiko Martinen hitzak gogoan **irabiatuz** igaro nituenak. Edorta Jimenez

· Niri, behintzat, bihotza **irabiatzen,** malgutzen, oretzen dit. Anjel Lertxundi

**4** (era burutua izenondo gisa)

Arrautza egosia eta esne **irabiatua** hartuko zuten. Koro Navarro

Aurrean, mahai gainean, tul pilo handi argitsu bat zuen, zuringo **irabiatu** bat zirudiena. Lopez de Arana

Hozkailuaren gainean gaueko postrea zegoen: esnegain **irabiatuzko** meta handi bat eta azukrezko bioletak. Iñaki Mendiguren

Kartoizko eraikinen gainean, zeruak berun **irabiatuzko** ganga bat irudikatzen zuen. Lopez de Arana

Gorantz jaso zuen bekokia, eta zimurrez josirik zeukan alderik alde, behazun **irabiatuaren** mugimendu haserrearen seinale. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irabiatu eta** (3)

## irabio *iz* astinaldia, iraulaldia.

Azkeneko **irabioak** eragin zizkion ziriarekin lapikoan, eta itzuli zuen polenta. Josu Zabaleta

Itsasoaren dantzaren **irabiotik** libre ginen-eta, barruko bakez eta bihotzez ekuru etzan nintzen kamainan. Edorta Jimenez

Eguzkiaren isla altzairuzko ispilu hartan zelan dantzatzen zen ikusi nuen, eta horrexetan igarri nuen nire galderak eragin zion **irabioa**. Edorta Jimenez

Barruan nuen **irabioa** ez zen hartan amaitu, ostera. Edorta Jimenez

---

## iradoki, iradokitzen *(orobat **idaroki, iradokitu** g.er.)* **1** du *ad* norbaitengan halako gogoeta, ideia edo sentipena ernarazi.

Idazkera melodikoa bilatzen du horren bidez, gauzak zuzenean esan beharrean, **iradoki** egiten dituena. Ibon Uribarri

Nire ezkondu nahi eza printzipio-kontua dela behin baino gehiagotan esana nion, edo **iradokia** behinik behin. Joxe Austin Arrieta

Artistak **iradoki** nahi duenaz gain, materialak hitz egiten duela dirudi. Berria - Kultura

Zerbitzarien joan-etorriek eta beren begiratuek alde egiteko garaia zela **iradoki** ziotenean altxatu zen. Migel Angel Mintegi

Ronek, itxaropen handirik gabe, ikusezintasun-kapa erabiltzea **iradoki** zion, baina Hermionek erabat baztertu zuen aukera hura. Iñaki Mendiguren

Jantzi luze loreduna zeraman soinean [...] kulero argiak **iradokitzen** eta zorrorik gabeko titi-puntak nabarmentzen zizkiona. Aingeru Epaltza

Haren aurpegiak barren noblea **iradoki** zidan eta xehetasun horrek biziki lasaitu ninduen. Anjel Lertxundi

Usainek **iradokitzen** omen dituzte oroitzapenak azkarren. Ibon Uribarri

Ondoan lo zuen neskatoaren gaztetasunak **iradoki** ote zizkion oroitzapenok? Ibon Uribarri

Musikaltasuna **iradokitzen** duten soinu errepikakorrak. Iñaki Arranz

Ikertzaileek **iradoki** dutenez, txinpantzeak homo generoan sailkatu beharko lirateke aurrerantzean. Berria - Gaiak

A!, ez ahaztu errimelari ere ukitu txiki bat ematea **-iradoki** zion ondotik pasatzerakoan. Migel Angel Mintegi

-Zer iruditzen zaizu datorren astelehenean? **-iradoki** zion. Migel Angel Mintegi

-Deitu Margeri **-iradoki** zuen osaba Vernonek. Iñaki Mendiguren

Zingiregi izenak besterik **iradoki** arren, berezko zingirarik ez dut etxe aurrean. Txillardegi

J. E. Amoore-k zera **iradoki** zuen 1952an: usaimen-mukosaren azaleran dauden forma bereziko kokaleku huts batzuekin loturik daudela zazpi usain mota nagusi. Irene Aldasoro

Baina hori zuzendariak **iradokitako** ustea baizik ez zen. Aingeru Epaltza

Herritarrek hitz erdiz **iradokitakoa** argiago adierazi zigun don Tirsok berak. Xabier Mendiguren Elizegi

Lizunkerian ez dagoela izugarrikeriarik, lizunkeriak **iradokitzen** duen oro naturak **iradokitakoa** delako. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Diafragman zanpatuko balute bezala sentitzen du, eta ez ausentziarengatik berarengatik, hutsaren, azken abandonoaren inpresio samingarri batengatik baizik, objektuen taxukeraren zorrotzak **iradokitua**. Jon Alonso

**2** (konpletiba batekin)

Eusko Jaurlaritzaren Estatutu Proposamena Europarako arriskua dela **iradokitu** zuen: «Ibarretxe Plana aurrera aterako balitz, Euskal Herria Atlantikoko Albania bat izango litzateke». Berria - Euskal Herria

Hartan, Baionako apezpikuak, hitz erdika bazen ere, **iradoki** zion deserriratzeari akabantza emateko parada zuela. Aingeru Epaltza

Inori ez zitzaion bururatu **iradokitzea** itzuli bat egitera joana zela eta laster itzuliko zela. Juan Kruz Igerabide

Hori dela eta, **iradoki** izan da animalia batengandik beste batengana transferitu ahal izango litzatekeela oroimena, RNA injektatuz. Irene Aldasoro

Loewenthal-i telefonoz hots egin eta **iradoki** zion grebari buruzko zerbait esateko zeukala, eta ez zuela nahi lagunek jakiterik, eta hitz eman zion idazgelatik pasatuko zela, iluntze aldera. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asmoa duela iradoki** (3); **atzo iradoki** (6); **bat iradoki** (7); **batek iradoki** (6); **batek iradoki zuen** (3); **batzuk iradoki** (3); **berak iradoki** (4); **dagoela iradoki** (8); **dagoela iradoki dute** (3); **daitekeela iradoki** (7); **daitekeela iradoki zuen** (3); **daitezkeela iradoki** (3); **dela iradoki** (9); **dezakeela iradoki** (5); **dezakeela iradoki du** (3); **direla iradoki** (8); **duela iradoki** (21); **duela iradoki du** (3); **duela iradoki dute** (5); **duela iradoki zuen** (9); **dutela iradoki** (4); **egitea iradoki** (3); **ere iradoki** (10); **ere iradoki zuen** (3); **eta iradoki** (8); **hori iradoki** (5); **horixe iradoki** (3); **ikertzaileek iradoki** (3)

**iradoki arren** (3); **iradoki baino** (3); **iradoki behar** (4); **iradoki bezala** (8); **iradoki den** (4); **iradoki die** (3); **iradoki diot** (3); **iradoki du** (51); **iradoki dute** (25); **iradoki dutenez** (8); **iradoki edo** (3); **iradoki egiten** (6); **iradoki ere** (3); **iradoki eta** (6); **iradoki izan** (10); **iradoki izan da** (6); **iradoki nahi** (13); **iradoki nahi izan** (4); **iradoki nion** (6); **iradoki ohi** (3); **iradoki ote** (3); **iradoki zezakeenik** (3); **iradoki zidan** (7); **iradoki zien** (4); **iradoki zion** (31); **iradoki zituen** (3); **iradoki zizkidan** (3); **iradoki zizkion** (3); **iradoki zuen** (121); **iradoki zuen atzo** (4); **iradoki zuenean** (3); **iradoki zuenez** (8); **iradoki zuten** (10)

**bat iradokiko** (3); **bat iradokitzeko** (3); **izan daitekeela iradoki** (3); **kapituluan iradoki** (3); **mugimendua iradokitzeko** (3); **zela iradoki** (10); **zela iradoki zuen** (6); **zera iradoki** (3); **zerbait iradoki** (4); **zientzialariek iradoki** (3); **zientzialariek iradoki dutenez** (3); **zirela iradoki** (3); **zitekeela iradoki** (3); **zuela iradoki** (4)

**bat iradokitzen** (9); **bat iradokitzen du** (3); **berak iradokitzen** (4); **besterik iradokitzen** (9); **besterik iradokitzen ez** (3); **dela iradokitzen** (5); **duela iradokitzen** (3); **hori iradokitzen** (4); **horixe iradokitzen** (3); **horrek iradokitzen** (4); **iradokitzen ari** (3); **iradokitzen baitu** (4); **iradokitzen digu** (5); **iradokitzen digute** (3); **iradokitzen ditu** (6); **iradokitzen dituen** (4); **iradokitzen dituzte** (4); **iradokitzen dizkigun** (3); **iradokitzen dizu** (4); **iradokitzen dizuet** (3); **iradokitzen du** (46); **iradokitzen duen** (20); **iradokitzen duen moduan** (4); **iradokitzen duenez** (5); **iradokitzen dute** (18); **iradokitzen duten** (10); **iradokitzen dutenez** (4); **iradokitzen ez** (5); **iradokitzen zidan** (4); **iradokitzen zion** (4); **iradokitzen zuen** (13); **iradokitzen zuena** (4); **iradokitzen zuten** (11); **izenburuak iradokitzen** (4); **izenburuak iradokitzen duen** (4); **zela iradokitzen** (4); **zer iradokitzen** (5); **zera iradokitzen** (5); **zera iradokitzen du** (4); **zerbait iradokitzen** (3)

**iradokiz eta** (3); **zela iradokiz** (3)

---

## iradokigarri *izond* iradokitzailea.

Lehen ere esana zitzaigun, oso modu ugari bezain **iradokigarrietan,** gure izaera garbia gorde behar genuela hilzorian zegoen hizkuntzaren hatsa gehiago labur ez zedin. Anjel Lertxundi

---

## iradokipen *iz* iradokitzea.

Egiaren errateko, Iker erori zen egunean, Edmeak ere ez zion barneko zauriari **iradokipenik** zilegitu: hortzak trinko eta zintzurra lehor zeukan, FR3ko sei minutuko emankizunean semea ETAko organigramako hirugarrenaren konpainian Miarritzeko ostatu batean bazkariten zegoela gelditu zutela ikasi zuenean. Itxaro Borda

---

## iradokitzaile *(50 agerraldi, 19 liburu eta 23 artikulutan)* *izond* iradokitzen duena. ik **iradokigarri; iradokor.**

Batzuei irudiak lehorrak direla irudituko zaie, eta besteei, **iradokitzaileak**. Ana Urkiza

Hausnarraldi hitza ez dago gaizki hautatua, **iradokitzailea** da. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gau epel batean urtu zen kandelaren eite **iradokitzailea**. Eider Rodriguez

Sinbolo **iradokitzaileen** bidez. Berria - Kultura

Emakumeak, senez, haurra nahi du lehendabizi; baina naturak beste forma poetikoago, **iradokitzaileago** batez jantzi behar du desira hori, eta maitasuna osatzen duten gezur horiek, errezel horiek sortzen ditu. Josu Zabaleta

Bidaian zehar emakumearekin hizketan hasiko da narratzailea, eta gezur **iradokitzailez** beteriko istorio bat entzungo haren ezpainetatik. Iban Zaldua

Gure legeek debekatu egiten dituzte **iradokitzaileak** deituriko itaunketak epaiketetetan [...] delituarekin zerikusi zuzena dutelarik, erruztatuari bat-bateko erantzuna

iradokitzen diotenak, alegia. Juan Martin Elexpuru

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eta iradokitzaileagoa** (3); **iradokitzaile eta** (4); **iradokitzailea eta** (3)

---

# iradokitze *iz* norbaitengan halako gogoeta, ideia edo sentipena ernaraztea.

Heriotza hain garbi **iradokitze** hura, iragarpen baten antzera. Juan Kruz Igerabide

EAren Gipuzkoako zuzendaritzaren haserrea eragin du aukera hori **iradokitze** hutsak. Berria - Euskal Herria

---

# iradokizun 1 *iz* iradokitzea, iradokitzen den gauza.

Errudun delako **iradokizun** horrekin. Koro Navarro

Eskaintzen diren **iradokizun** asko "sen oneko **iradokizunak**" dira, edozein pertsonak normaltzat edo logikotzat joko lituzkeenak. Askoren artean

Edozein **iradokizun** onartzeko prest nago. Oskar Arana

Eskertuko nizkizuke **iradokizunak**. Anjel Lertxundi

Kontuan izango diat **iradokizuna**. Migel Angel Mintegi

**Iradokizunak** aintzat hartuz. Xabier Olarra

Ez zuen jakin nahi izan esaldiaren **iradokizunaren** norainokoa. Jon Alonso

Hala ere, **iradokizun** hauek harrera ona eta zabala jaso dutelako, merezi du beharbada horietako batzuk laburki aztertzea. Itziar Laka

Bitartean, damen aho urrintsuetatik mota guztietako **iradokizunak** eta galderak iristen zitzaizkion, sotiltasunez eta adeitasunez mukuru beteak. Jose Morales

Dupinen **iradokizunei** jarraituz, aitorpen idatzien azterketa xehe-xehea egin nuen. Koro Navarro

Idazlearen mamu kuttunak eta obsesio zaharrak; [...]; ideien ibilbideak, iturriak, maileguak, **iradokizunen** nondik norakoak, ispiluak, imitaziorako gaiak. Anjel Lertxundi

Bere metafora **iradokizunez** betearekin. Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

Senari buruzko **iradokizun** labur hura. Jon Alonso

Hura **«iradokizun** hutsa» izan zela ziurtatu zuen atzo Agirrek. Berria - Ekonomia

**Iradokizun** gogo-pizgarri bat. Xabier Olarra

**3** (hitz elkartuetan)

Irudiak adierazpen modu global bat, **iradokizun**-ahalmen handikoa, jartzen du idatzizko formaren ordez. Josu Zabaleta

Jurisprudentzian dihardutenei egotzi zaie ñabardura, bilduma eta **iradokizun** multzoak larregi ugaltzeko eraspena. Andres Urrutia

Ñabardurak eta iradokizunak zentsurapean jartzen dituen hori berori da, izan ere, berari dagokion auzi batean, **iradokizun** egilerik ñabarduratsuena eta setatiena. Andres Urrutia

Josephine Quintavalle Ugalketaren Etikari buruzko **Iradokizun** taldeko kidearen esanetan, [...]. Berria - Gaiak

**4** ***iradokizunak egin***

Zuzenketak eta **iradokizunak** egin nahi dituztenei helbide elektronikoa eskaintzen die Susak. testuak orraztu, zuzendu, **iradokizunak** egin... Berria - Kultura

Eta haien guztien inguruan Lockhart batetik bestera, **iradokizunak** eginez. Iñaki Mendiguren

· Jon Barrutiak ere irakurri, eta **iradokizun** batzuk egin dizkigu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bake egitasmo hori ezartzea nahi dugu eta **hainbat** iradokizun egingo ditugu. Berria - Mundua

Pepponek On Camillori buruzko **iradokizun** iraingarri batzuk egin eta "kantzilerraren belea" deitu zion. Koldo Biguri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**buruzko iradokizun** (3); **ekarpenak eta iradokizunak** (3); **eta iradokizun** (10); **eta iradokizunak** (10); **hainbat iradokizun** (6); **iradokizun asko** (5); **iradokizun bat** (9); **iradokizun bat da** (3); **iradokizun batzuk** (3); **iradokizun hau** (3); **iradokizunak egin** (4); **iradokizunak egiteko** (3); **iradokizunak eta** (8); **iradokizunez betea** (3); **iradokizunez beteriko** (3)

---

# iradokor *(11 agerraldi, 5 liburu eta 6 artikulutan)* *iz* iradokitzailea.

Atzera begiratu eta Maribel ikusten du, *deshabillé* polit eta **iradokor** batez jantzirik. Xabier Mendiguren Elizegi

Gizakiaren plazerak eta minak modu **iradokorrean** islatzen zituen emanaldia eskaini zuten. Berria - Kultura

Nobela historikoaren bidez bere garaiko arazoen metafora **iradokorrak** sortzen dituen idazlea. Berria - Kultura

---

# iraduko *izond* presakakoa.

Testuinguruen arabera, naturari itsatsi geldoa edo izpiritu enpresarial eta komertzial **iradukoa**; barbaroa edo banako ahulenen babeslea. Joxe Azurmendi

---

# iragaile *izond/iz ipar* iragaten dena.

Xori **iragaileen** kondaketa bururatu du *Organbidexka Col Libre* elkarteak, azaroaren 24 ean. Herria

· Txipietan (6-11 urte) hogei **iragaile** baziren tauletan, eta handietan aldiz (11-15 urte) sei **iragaile** ziren. Herria

---

# iragaite *(orobat **iragate** g.er.)* *iz* igarotzea.

Ez zuten maite kontrolpean dagoen bizitzari darion **iragaite** monotonoa, ezusterik gabekoa. Kausatik efektura **iragate** hori behatzailearen oharkabean burutu bada ere. Pako Aristi

Hasieran maitaleak izan ziren; eta gero, inolako **iragaite** agerikorik gabe, etsai bilakatu ziren. Mirentxu Larrañaga

Bikote bakotxak, elgarrekilako **iragaite** luze hori beren familiekin goxatu dute. Herria

Naturaren jarraitasuna eta bere betetasuna, duela gutxiko formen eta klimaren arteko harremana, ez-bizidunetik bizidunerako **iragaite** ia sumaezina. Xabier Arregi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**artizarraren iragaitea** (6); **baten iragaitea** (3); **denboraren iragaitea** (3); **goxo baten iragaitea** (3)

---

**iragaitza** 1 *iz* iragaitea, egoera batetik beste batera igarotzea.

XIX.etik XX. menderako **iragaitza** horretan. Joxe Azurmendi

Gizaldien **iragaitza** eta denboraren iragatea sinbolizatzearren. Patxi Zubizarreta

Haietako bakoitzari, bere azken minutuak izango diren horietan, arretarik handiena eskaintzen dio Bev-ek, laztanduz, hitz eginez, **iragaitza** hori samurragotuz. Oskar Arana

Garapen iraunkorrerako **iragaitza**. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Eredu sozio-ekonomiko iraunkor bateranzko **iragaitzan** pauso sendoak egiteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekintzak, garatzen hasi ahala, berez dakarzkio akordeen modulazio eta **iragaitzak**. Oskar Arana

**2** ***iragaitzaz***[1] nonbaitetik etorririk norabait joateko.

Napoleon enperadorea, Irunen **iragaitzaz** zela, zutabe honetan jarri zen bizkarrez. Koldo Izagirre

Herrian **iragaitzaz** zegoen kulak bat. Jose Morales

Hirian **iragaitzaz** zegoen emakume ezezagunen batek. Jose Morales

**Iragaitzaz** zeuden itsasontziei. Jon Muñoz

**3** ***iragaitzaz***[2] bide batez.

"Auskalo nondik bahitua izango duzuen", esan nuen, **iragaitzaz** bezala, eta trago luzea jo nion. Inazio Mujika Iraola

Erranen dizut, **iragaitzaz** bada ere, ezen [...]. Joan Mari Irigoien

Poemako gertaera eta gorabehera nagusiak ez dira haien inguruan harilkatzen, eta noizean behin soilik ukitzen dituzte, azaletik eta **iragaitzaz** beti. Jose Morales

**4** ***iragaitzazko*** *izlag*

**Iragaitzazko** biztanleak. Askoren artean

Pentsatu zuen Midak kalezuloan **iragaitzazko** bisitari bat zela. Patxi Zubizarreta

Polemikarako aitzakia G. de Azcárate-ren **iragaitzazko** esaldi batek piztu du: [...]. Joxe Azurmendi

**5** ***iragaitzez*** iragaitzaz.

Soberaxko, inoren etxean **iragaitzez** egoteko. Neronek ere **iragaitzez** baizik ez nuen han ikusten neure burua. Aingeru Epaltza

Bere lagun batek beste bati telefono kabinaren kontua **iragaitzez** aipatu zion, Louisek entzuten ez zuelakoan. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta iragaitzaz** (3); **iragaitzaz bezala** (4); **iragaitzaz zegoen** (3)

---

**iragan**[1], iragaten *(202 agerraldi, 46 liburu eta 33 artikulutan orobat iragaiten 626 agerraldi, 52 liburu eta 316 artikulutan)*, iraganen *(991 agerraldi, 22 liburu eta 823 artikulutan; orobat iragango 8 agerraldi, liburu 1 eta 7 artikulutan)* *(guztira 9744 agerraldi, 240 liburu eta 5091 artikulutan)* **1** da *ad* igaro.

Tranbia **iragan** da: argi gorria sabaian. Monika Etxebarria

Printania Hotelaren aurretik **iragaten** den tranbiak. Monika Etxebarria

Zatika eroriak ziren pareta haien erditik **iragan** zen. Elena Touyarou

Bazkaldu ondoren, erretzeko gelara **iragaten** ziren. Monika Etxebarria

**Iragan** nauk Iparrera Hegoaldetik. Piarres Xarriton

Aintziratik errekara **iragan** ziren. Jose Morales

Tonneliers karrikatik **iragan** zen, zakuaren hartzeko eta Graxiri eta haren senar itsasturiari adio errateko. Elena Touyarou

Aterako bidean, bikotearen ondotik **iragan** nintzen. Aingeru Epaltza

Ukitzeko bezain gertu **iragan** naiz haren aldamenetik. Monika Etxebarria

Botila vodka Ttipiren eskuetaraino **iragan** zen. Aingeru Epaltza

• **2** du *ad*

Patar xut eta luze bat **iragan** dut. Piarres Aintziart

Portal de Castilla-ren argazkia hartu, Odron ibaia **iragan** eta banoa. Piarres Aintziart

Gero erromesak behar du Rua vieja, karrika zaharra **iragan**. Piarres Aintziart

Ezen eskualde hartako Zuzendaritzak mendiak paperik gabe **iragaiten** zituzten guziak horrela deitzen zituen. Elena Touyarou

• **3** (denborazko banakoekin)

Dio hiru aro **iragaten** dituela bere bizian jendeak: estetikoa, morala, erlijiosoa. Piarres Aintziart

**Iragan** zen negua eta **iragan** zen udaberria. Felipe Juaristi

Zortzi hilabete **iragan** dira Kattalinek Sophie azken aldikotz ikusi zuenetik. Eneko Bidegain

Lau egun **iragan** zituen jadanik bere lanpostutik urrun. Elena Touyarou

Iluntze hartan, mutiko gaztea kaia bazterreko putetxera agertu zen, eta gau osoa **iragan** zuen han. Elena Touyarou

Gaineratikoetan, eguna oharkabe **iragan** zen. Elena Touyarou

Segundoak banan-banan **iragaten** sentitzeko behar den denbora tarte zehatza. Monika Etxebarria

Azken batez, une atseginak **iragan** ditugu elkarrekin hondar hilabeteetan. Aingeru Epaltza

Bizi guzia ahaiderik gabe **iragan** ondoan, lanak zituen gogoan hartzea egiazki bazituela. Elena Touyarou

Beste bi urte **iragan** nituen ulertu gabe. Monika Etxebarria

Oso hilabete latzak **iragan** nituen. Monika Etxebarria

Antolaturiko denboran egun bat **iragana** duzu. Jose Angel Irigaray

Gehienez ere bi ordu lehenagoko irudiak ziren, baina tartean mende bat **iragana** zela ematen zuen. Aingeru Epaltza

Hamaikak **iraganak** ziren. Aurelia Arkotxa

Gogoratu antzinako egunak, pentsatu **iraganeko** urteetan. Elizen arteko biblia

Haiek naute gehienik ezagutzen, haurtzaroa elgarrekin **iragana** baiginuen. Piarres Aintziart

· Irail erditsutan **iragaitekoa** zen Glissexpo saloinari uko egin diote azkenean antolatzailek berek. Herria

**4** (gauza abstraktuez)

Irailaren bigarren astean, herriko bestak arazorik gabe **iragan** ziren. Elena Touyarou

Gero, gauzak nola **iragan** ziren, ez naiz oroit. Daniel Landart

Historiaren diziplina batzuk jarraitasunetik jarraitasun-ezera **iragan** direla. hustutze hori bere begien aitzinean **iragan** da, ezin sinetsizko gisan. Xabier Arregi

Guk badakigu heriotzatik bizira **iragan** garena. Elizen arteko biblia

**Iragan** da bigarren zoritxarra! baina laster etorriko da hirugarrena. Elizen arteko biblia

Neskaren bisaia Josurenganako mirespen agerikotik hasperen etsira **iragan** zen segundo gutitan. Aingeru Epaltza

Erdietsi zituen horrela bi eliza errenta bakun, haiei esker ikasketak ordaindu ahal izan baitzituen doktoretza **iragan** arte. Piarres Xarriton

Mundua eta beronen grinak **iragan** egiten dira; Jainkoaren nahia betetzen duenak, berriz, betiko irauten du. Elizen arteko biblia

Eta hortik *Jehova* forma hibridoa sortu zen, latinetik europar hizkuntzetara **iragana**. Xabier Kintana

· Lagunari pausatuki so egin zion, eta gogoan **iragan** zuen aspaldiko partez atera zela bere zulo hartarik. Elena Touyarou

Eta ausartziak bultzatu zuen gogoan **iragan** zitzaionaren paperean ezartzera. Daniel Landart

## 5 (modua adieraziz)

Aingerua hegaldaka **iragan** zen. Itxaro Borda

Hiria zalu zalu **iragan** dut. Piarres Aintziart

Apurka-apurka, eskasia gorrian **iragan** hilabeteek makaldu osagarria hobetzen ari zitzaion. Elena Touyarou

Denbora laster **iragan** zen, eta berekin eraman zuen biziko gauzarik hoberena: lilura. Elena Touyarou

Egun osoa ene haurrak gogoan **iragan** dut. Piarres Aintziart

Elkarrizketa biziki ongi **iragan** zen. Ramuntxo Etxeberri

Kristalez bestaldean, objektu urdinxkak oldarka **iragaten** dira bata bestearen atzetik. Monika Etxebarria

Joanesek eguna zorri miran **iragaiten** zuen. Eneko Bidegain

## 6 muga jakin bat baino areago joan.

Atea **iragan** nuen orduko ahal nuen guztietan erdirekitako gelen barrura behatu nuen. Koldo Izagirre

Zuhaurek txapelketetan parte hartzen duzu eta Euskadiko txapelketetaraino ere **iragan** zira. Menane Oxandabaratz

Aspaldi **iragana** dut mende erdiaren marra. **Iragana** zuen Sarak seme-alabak izateko garaia. Aingeru Epaltza

Bazekiten, beraz, muga haren **iragaitea,** bertze eskualde batzuetan baino errexagoa zutela. Eneko Bidegain

## 7 pairatu, jasan

Ez, hainbestean, salatu diren arriskuengatik -ez baitira handiagoak bakterioekin eta birus patogenoekin egindako saioak direla-eta aspaldītik **iragaten** ditugunak baino-, baizik eta, batez ere, asalduak hartzen gaituelako geneak organismo batetik hartu eta beste batean txertatzearen ideiaren aurrean. Juan Garzia

## 8 (era burutua izenondo gisa)

Hizketan ari dela ematen du itsas kantuz betetako garai **iragan** batekin. Anjel Lertxundi

Baina ez du hitzik esan zer egin duen, non ibili den zazpi hilabete **iragan** berrietan. Anjel Lertxundi

Idatziz ulertzen dut bizi **iragana,** erreala izan ez den biziari mamia emanez. Piarres Aintziart

Ederra da gaitzaldi **iraganak** kontatzea. Juan Garzia

## 9 (era burutua izenlagun gisa)

**Iragan** udazkenean ongi zen, orain... ez dakit. Elena Touyarou

Mizel Lehu, **iragan** uztailean ezkondua zen Raymonde Xuberotarsarekin. Daniel Landart

**Iragan** martxoaren 22an hain zuzen. Antton Olano

**Iragan** astean, beste bihotzeko bat jasan zuen. Elena Touyarou

Jatsuko komentuan lau pareta artean **iragan** urte parrasta hura. Elena Touyarou

Hemen, **iragan** mendeetan bezalatsu daudela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Fabrika zaharrarekin lotuta daude hiriaren **iragan** mendeko oroitzapen nagusiak. Anjel Lertxundi

Pentsamendua urrutira joaten zaio, **iragan** garaietara. Bernardo Atxaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aratsaldean iragan** (19); **aratsaldean iragan dira** (14); **arrakastatsuki iragan** (11); **arras ederki iragan** (13); **artean iragan** (15); **aste iragan** (11); **baigorri bataio iragan** (8); **baigorrin iragan** (8); **baina iragan** (28); **bat iragan** (98); **bat iragan da** (20); **bat iragan dute** (14); **bat iragan zen** (9); **bataio iragan** (14); **batean iragan** (21); **batean iragan da** (11); **bere iragan** (13); **bestak iragan** (14); **bestak iragan dira** (8); **bezala iragan** (14); **biltzar nagusia iragan** (15); **bozak iragan** (23); **bozak iragan dira** (9); **da iragan** (84); **da iragan astean** (22); **da iragan igandean** (11); **dago iragan** (8); **den iragan** (14); **denbora iragan** (17); **dira iragan** (87); **dira iragan aste** (9); **dira iragan astean** (17); **dira iragan larunbatean** (26); **ditu iragan** (20); **dituzte iragan** (13); **donostia iragan** (25); **du iragan** (37); **dugu iragan** (8); **dute iragan** (28)

**ederki iragan** (98); **ederki iragan da** (60); **ederki iragan dira** (22); **egin zuen iragan** (10); **egun iragan** (26); **eguna ederki iragan** (8); **eguna iragan** (30); **eguna iragan da** (15); **ehorzketak iragan** (23); **ehorzketak iragan dira** (21); **elizan iragan** (44); **elizan iragan dira** (24); **eman zuen iragan** (9); **ere iragan** (26); **erredakzioa iragan** (20); **esposatu dira iragan** (8); **eta iragan** (122); **eta iragan astean** (10); **eta iragan sasoian** (11); **etxean iragan** (11); **etxetik iragan** (8); **ezin hobeki iragan** (13); **ezkondu dira iragan** (18); **ezkontza iragan** (18); **ezkontza iragan larunbatean** (9); **ezkontze iragan** (24); **ezkontze iragan larunbatean** (18); **finalak iragan** (8); **gabe iragan** (22); **gaindi iragan** (12); **gasteiz iragan** (8); **giro onean iragan** (12); **goxo bat iragan** (17); **goxoa iragan** (11); **goxoan iragan** (8); **goxoki iragan** (11); **han iragan** (13); **hazparne hiltze iragan** (31); **hazparne sortze iragan** (19); **heriotze iragan** (37); **heriotze iragan astean** (20); **herrian iragan** (14); **hilabete iragan** (16); **hiltze iragan** (73); **hiltze iragan astean** (61); **hobeki iragan** (16); **hoberenean iragan** (10); **hor iragan** (8); **hori iragan** (17); **hori iragan da** (8); **horiek iragan** (9); **horrela iragan** (10); **huntan iragan** (10); **hura iragan** (8); **igandean iragan** (21); **igandean iragan da** (9)

**iragan abenduan** (31); **iragan abenduaren** (20); **iragan abuztuan** (10); **iragan abuztuaren** (20); **iragan agorrilaren** (8); **iragan ahala** (8); **iragan apirilaren** (32); **iragan apirilean** (10); **iragan arte** (14); **iragan aste** (45); **iragan aste hortan** (22); **iragan astean** (524); **iragan astean bere** (8); **iragan astean egin** (9); **iragan astean zendu** (50); **iragan asteartean** (35); **iragan asteazkenean** (41); **iragan asteburu** (56); **iragan asteburu hortan** (53); **iragan asteburuan** (88); **iragan asteburuko** (11); **iragan asteko** (37); **iragan astelehenean** (51); **iragan azaroan** (23); **iragan azaroaren** (32); **iragan baita** (8); **iragan bat** (10); **iragan behar** (38); **iragan beharko** (8); **iragan beharra** (19); **iragan berri** (18); **iragan bi** (12); **iragan da** (540); **iragan da ederki** (8); **iragan da eta** (11); **iragan da joan** (17); **iragan da joanden** (25); **iragan dadin** (10); **iragan dela** (22); **iragan den** (98); **iragan dena** (21); **iragan denbora** (13); **iragan denboraldia** (8); **iragan denboraldian** (64); **iragan denboraldiko** (46); **iragan dira** (351); **iragan dira eta** (27); **iragan dira gure** (11); **iragan dira joanden** (9); **iragan dira ortzaizeko** (11); **iragan dire** (19); **iragan direla** (26); **iragan diren** (47); **iragan ditela** (10); **iragan ditu** (41); **iragan du** (50); **iragan dugu** (16); **iragan dut** (18); **iragan dute** (48)

**iragan ebiakoitzean** (31); **iragan egun** (22); **iragan egun hauetan** (14); **iragan ekainaren** (35); **iragan ekainean** (24); **iragan eta** (62); **iragan ez** (12); **iragan hilabetean** (23); **iragan hilean** (18); **iragan hori** (8); **iragan hurbila** (8); **iragan igande** (16); **iragan igandean** (194); **iragan igandean gure** (8); **iragan igandeko** (14); **iragan ilabete** (25); **iragan ilabete hortan** (18); **iragan irailaren** (20); **iragan irailean** (10); **iragan jardunaldian** (19); **iragan larunbat** (18); **iragan larunbatean** (216); **iragan larunbatean ezkondu** (18); **iragan larunbateko** (10); **iragan maiatzaren** (27); **iragan maiatzean** (31); **iragan martxoan** (31); **iragan martxoaren** (61); **iragan mende** (34); **iragan mende hortan** (20); **iragan mendean** (13); **iragan mendearen** (11); **iragan mendeko** (18); **iragan nintzen** (8); **iragan nituen** (9); **iragan nuen** (16)

**iragan ondoan** (38); **iragan ondoren** (19); **iragan orduko** (11); **iragan ortzegunean** (9); **iragan ortzirale** (11); **iragan ortziralean** (21); **iragan ostegunean** (58); **iragan ostiralean** (85); **iragan otsailaren** (25); **iragan otsailean** (18); **iragan sasoian** (110); **iragan sasoian baino** (11); **iragan sasoiko** (23); **iragan sasoiko azken** (8); **iragan udan** (27); **iragan urrian** (19); **iragan urriaren** (37); **iragan urtarrilaren** (38); **iragan urtarrilean** (14); **iragan urte** (17); **iragan urtean** (103); **iragan urtean baino** (9); **iragan urteko** (79); **iragan uztailaren** (25); **iragan uztailean** (21); **iragan zen** (137); **iragan ziren** (78); **iragan zituen** (29); **iragan zituzten** (9); **iragan zuen** (38); **iragan zuten** (22)

**ea iragan** (9); **iruñ izan da iragan** (28); **izan zen iragan** (10); **izatera iragan** (8); **joanden igandean iragan** (8); **larunbatean iragan** (13); **legebiltzarrak iragan** (9); **lortu zuen iragan** (8); **nagusia iragan** (17); **nagusia iragan da** (13); **nola iragan** (56); **nola iragan den** (12); **nola iragan diren** (8); **ondotik iragan** (17); **onean iragan** (21); **ongi iragan** (49); **ongi iragan da** (18); **ongi iragan dira** (9); **ontsa iragan** (25); **ontsa iragan da** (16); **osoa iragan** (15); **ostatuan iragan** (8); **parisen iragan** (11); **pausatu da iragan** (9); **polliki iragan** (9); **sortze iragan** (29); **sortze iragan ilabete** (19); **urte iragan** (51); **urte iragan dira** (15); **urte iragan ditu** (8); **urteak iragan** (16); **xarmanki iragan** (9); **xarmanki iragan da** (9); **zen iragan** (67); **zen iragan igandean** (8); **zendu dira iragan** (16); **zion iragan** (16); **ziren iragan** (26); **zituen iragan** (41); **zituzten iragan** (12); **zuen iragan** (122); **zuen iragan astean** (14); **zuen iragan igandean** (8); **zuen iragan larunbatean** (13); **zuten iragan** (53); **zuten iragan astean** (9); **zuten iragan igandean** (8)

**hilabete iraganak** (4); **iraganak dira** (6); **iraganak direla** (5); **iraganak direlarik** (3); **iraganak eta** (10); **iraganak ez** (3); **iraganak iragan** (4); **iraganak izanen** (5); **iraganak izanen dira** (4); **iraganak ziren** (4); **urte iraganak** (5)

**bat iragaiten** (9); **baten iragaiteko** (16); **goxo baten iragaiteko** (9); **hortik iragaiten** (11); **iragaiten ari** (30); **iragaiten ari da** (13); **iragaiten da** (25); **iragaiten dela** (9); **iragaiten den** (30); **iragaiten dira** (33); **iragaiten diren** (15); **iragaiten zen** (26); **iragaiten ziren** (16); **iragaiten zituen** (8)

---

# iragan[2] 1 *iz* iraganaldia.

**Iragana** orain eta oraina **iragan** bihur daitezen. Felipe Juaristi

Auzoak geruza sepia kolore bat zuen, **iraganarena,** haurtzaroarena, oroimenena. Anjel Lertxundi

**Iragana** eta oraina eta geroa errerik utzi nahi zituen ke isats luzea zuten ikur. Felipe Juaristi

"Gaur zortzi" **iragana** izan liteke, eta izan liteke etorkizuna ere. Joxerra Garzia

**Iragana** orainaldiaren bila joango zen, azkenik, eta orainaldiak **iragana** zapuztuko zuela espero zuen Agnèsek. Felipe Juaristi

Neronek ere banekien **iragana** arbuiatzeak oraina beti jartzen duela dantzan eta nortasuna kolokan.Ez zait historia gustatzen, ezta **iragana** ere. Hasier Etxeberria

**Iragana** ezagututa, hobeto bideratuko dugu geroa eta, geroa ziurtatuta, **iraganean** sakontzeko oinarri sendoagoa eta bitarteko ugariagoak izango ditugu. Koldo Zuazo

Ezin da erresuma bat itxuraldatu, **iragana** ezabatu, bidegabekeriak ezeztatu kriskitin-kraskitin bat eginez. Elena Touyarou

Badakit **iragana** ezin dela ezabatu, behin gertatua betirako dela gertatzen. Agurtzane Juanena

Zure **iragana** astuna da. Piarres Aintziart

Eta hona, nire **iragana** zulo izugarri bat besterik ez da. Monika Etxebarria

Zientzia bat sortzean bere **iraganeko** ideologiaz askatuz eta **iragan** hori ideologiko bezala agerraraziz. Xabier Arregi

**Iraganaren** zatiak bata-bestearekin itsastea dut lana... Joxe Austin Arrieta

**Iraganari** adabakiak jartzen dizkiogula diozu... Ana Urkiza

Orain eta betiko, **iraganak** markaturik nago. Oskar Arana

**Iraganean,** bere ile bikain nahasia luze eraman izan zuen. hobe familiaren **iraganean** handitasun bila arakatzen ez hastea. Oskar Arana

Autoa nire **iraganeko** bizitzako aztarna bat zen. Oskar Arana

**Iraganetik** datozkion hitzekin oraina interpretatzen duten bihozkadak idatziz. Pako Aristi

**Iragana** ez dago atzean, alboan baizik. Harkaitz Cano

**Iraganaren** bila dabilena, urre bila dabilena bezala, erotu egiten da. Anjel Lertxundi

**Iragana** leku arrotza da, beste modu batean hitz egiten dute han. Bernardo Atxaga

**2** (izenondoeekin)

Ez etorkizun berri baten atarian, **iragan** ilun baten lauzapean baizik. Joxe Azurmendi

**Iragan** ezkutu baten misterioa. Joxean Agirre

Iragana legitimatzearen aurka zegoen ETA, iragan hori Lauaxetaren **iragan** heroikoa bazen ere. Joseba Zulaika

**Iragan** hurbilak ez zeukan jada mezularien premiarik. Bernardo Atxaga

Lehenbailehen ezabatu nahi zituzten beren **iragan** frankistaren arrasto guztiak. Juan Kruz Igerabide

Euliak bazuen jada atzetik **iragan** luze bat zientziaren munduan, luzaro izan baitzen genetisten material hauta. Juan Garzia

Iragana **iragan** huts zen, atzean lagatako denbora alferrikakoa. Hasier Etxeberria

Munduaren **iragan** osoa guztiz alferrikakoa izanen litzateke. Monika Etxebarria

Antzinatasuna eta aretoan barrena barreiatutako dibanak, horra bere **iragan** loriatsuaren ezaugarri bakarrak. Patxi Zubizarreta

Zer ote zerabilen gogoan? haren **iragan** ohoretsua, orotaz mintzatu eta orotan azken hitza berea izateko eskubidea ematen ziona. Monika Etxebarria

**Iragan** ahaztu baten argi dirdai igarokor batzuk. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan)

Ahaztu beharreko **iragan** zati baten gisa ikusten dutela esan zidan Ritak. Hasier Etxeberria

**4** (gramatikan) lehenaldia, iraganaldia.

Honela, ingelesez, maila morfemikoan *the, boy, S,* ***iragana,*** *come,* eta antzeko sinboloak dauzkagu, eta hauekin *the boys came* "mutilak etorri ziren" esaldia itxuratzen duen *the+boy+S+come+iragana* katea osa dezakegu. Itziar Laka

Hau da, ***iragana*** elementua *ISsing* edo *ISpl* elementuaren ondotik ager daiteke. Itziar Laka

Gadierazpenean, esanahiaren antzekotasuna ez da iluntzen, ***iragana*** morfema agertu egiten baita bai *took* eta bai *baked* aditzen itxurapen morfemikoan. Itziar Laka

Plurala osatzeko, berriz, *-zki* aukeratu zen (*zaizkit,* ez *zaitzit / jataz*), eta *zit*-dunak **iragana** egiteko: *zitzaidan* (ez *zaitan / zautan / jatan*). Koldo Zuazo

**5** igarotzea.

Denboraren **iraganak** bere dimentsio osoa hartzen du bakartasun eremu horietan. Filipe Bidart

Denboraren eta astiaren **iraganak** bertze kadentzia bat hartuko du egoera berri horretan. Filipe Bidart

Marrubiak bil ditzakegula denboraren **iraganak** nekez hondatzen dituenak. Pello Salaburu

**6** ***iragan-min*** *(orobat* ***iraganmin****)* nostalgia. ik **oroimin**.

Izan garenaz eta garenaz badihardu ere, ez dago Oteizaren begiradan **iragan**-minik eta nostalgiarik batereHamabi urterekin, eta **iragan**-minez... Joxerra Garzia

Baina ez da **iragan**-mina Rothek bizi duena. Anjel Lertxundi

Zikoinak, ostera, azkenik Marrakexera onik heldu den honetan ez du oroimin edo **iraganminik** eta, pozarren, bizpahiru itzuli egin ditu Hiri Gorriko Xmáa el Fná azoka gainean. Patxi Zubizarreta

Ez nuen beste behin goizean esnatu eta ohe zabalean **iragan**-minik edo inoren ausentziarik sentitu nahi. Joxean Agirre

Inork ez daki oraindik zer den funtsean batzuetan etorkizunaren grina bihurtzen den **iragan**-min, xangrin edo dena delako gaitz hori. Joxean Agirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina iragana** (8); **bere iragana** (20); **bere iragana eta** (3); **da iragana** (7); **dela iragana** (4); **den iragana** (7); **denboraren iraganak** (4); **du iragana** (4); **duen iragana** (3); **dugu iragana** (3); **dut iragana** (3); **edo iragana** (4); **ere iragana** (3); **eta iragana** (28); **etorkizuna eta iragana** (3); **euskararen iragana** (4); **euskararen iragana eta** (3); **geure iragana** (4); **gure iragana** (5); **haren iragana** (4); **herriaren iragana** (3); **hori iragana** (9); **hori iragana da** (6); **hura iragana** (3); **iragana ahazteko** (3); **iragana ahaztu** (13); **iragana ahaztu eta** (4); **iragana beste** (3); **iragana bezala** (5); **iragana da** (37); **iragana ere** (9); **iragana eta** (62); **iragana eta etorkizuna** (16); **iragana eta geroa** (9); **iragana eta oraina** (16); **iragana ez** (19); **iragana ez da** (4); **iragana ezagutzea** (3); **iragana ezagutzen** (5); **iragana gogoan** (5); **iragana gogora** (3); **iragana orainera** (3); **nire iragana** (13); **zait iragana** (3); **zuen iragana** (5)

**bere iraganarekin** (3); **bere iraganaren** (6); **bere iraganari** (7); **bere iraganari eta** (3); **bere iraganaz** (7); **da iraganaren** (3); **elizen iraganaren** (3); **eta iraganarekin** (3); **eta iraganaren** (10); **eta iraganaren arteko** (4); **eta iraganari** (8); **eta iraganaz** (9); **iraganarekiko lotura** (4); **iraganarekin hausterat** (4); **iraganarekin hautsi** (3); **iraganarekin lotzen** (7); **iraganaren arteko** (4); **iraganaren bila** (5); **iraganaren eta** (20); **iraganaren eta etorkizunaren** (4); **iraganaren eta geroaren** (3); **iraganaren eta orainaren** (5); **iraganaren zama** (6); **iraganaren zati** (3); **iraganari begira** (7); **iraganari begiratzeko** (4); **iraganari buruz** (10); **iraganari buruzko** (3); **iraganari dagokio** (3); **iraganari eta** (6); **iraganari ihes** (3); **iraganari ihes egin** (3); **iraganari so** (4); **iraganaz ari** (3); **iraganaz eta** (8); **iraganaz eta orainaz** (3); **iraganaz hitz** (10); **iraganaz hitz egin** (4); **iraganaz hitz egitea** (3); **neure iraganarekin** (3); **neure iraganarekin hausterat** (3); **nire iraganari** (5); **nire iraganari buruz** (4); **nire iraganaz** (3); **orainaren eta iraganaren** (6); **zuen iraganaren** (3)

---

# iraganaldi 1 *iz* denbora iragana.

Horra zergatik, gauza baten irudia, bere soilean harturik, berdina den, nahiz geroaldiari nahiz **iraganaldiari** nahiz orainaldiari dagokiola. Piarres Xarriton

Ez naizela nire etorkizun eta **iraganaldi** posibleez gehiago arduratuko. Iban Zaldua

Lisaren gertutasunak lagundu zion **iraganaldia** garden ikusten. Migel Angel Mintegi

Garagardo zurrutada batek ekarri zuen **iraganalditik**. Migel Angel Mintegi

Emazte xaharraren buru ona eritasunak higatu, leundu eta klikatu zuen, sailez sail ezabatu, orainalditik **iraganaldirako** bidaian, geroaren irudikatzeko ahalmenaz arras desjabetua zela. Itxaro Borda

**2** (gramatikan) lehenaldia.

**Iraganaldiko** hirugarren pertsonetan *ø-* dago mendebaleko hizkera gehienetan. Koldo Zuazo

Bizkaiko herri batzuetan batez ere, orainaldiko adizkiei -n gehituaz eratzen dira **iraganaldikoak**. Koldo Zuazo

Euskara nafarreko alderdi baten *-a-* erroa erabili ohi da trinkoen **iraganaldian:** *zakien, zagoen, zabilen* tankerakoak. Koldo Zuazo

**Iraganaldi** burutugabea, geroaldia eta aoristoa desagertzea. Isabel Arrigain

**iraganarazi**, iraganaraz, iraganarazten *(orobat* ***iraganerazi*** *g.er.)* du *ad* iragatera behartu. ik **igaroarazi**.

Gaur berriz ere alemanen okupazioa gerta baledi eta Kattalin mugalari balitz, iheslariak nondik **iraganaraziko** ote lituzkeen karkulatzen ari da. Eneko Bidegain

Hodian, kanpotik beroturik, hidrogeno-korronte bat **iraganarazi** genuen. baina asmatzen duguna ere adimenduaren galbahetik **iraganarazi** beharko genuke, metaforak ere bai. Joan Mari Irigoien

Zorrotzegi izan delako irudipen horrek arrats guzia arrangurak janik **iraganaraziko** diola beldur da. Eneko Bidegain

Zure aurrean neure ontasun guztia **iraganaraziko** dut. Xabier Kintana

Ondikotz, karrozazainak operaren aurretik **iraganarazi** ninduen, eta irteeraren zurrunbiloan gertatu nintzen. Jon Muñoz

Keinu txikiena egiteko ere ez dira kapaz izan, ezta familia bati goiz errukitsuagoa **iraganarazteko** ere. Berria - Euskal Herria

Memento onik **iraganarazi** daukuten herritar gazteak antzerkian. Herria

Paper eta arrazionamendu txartel faltsuak marrazteko lehena zen Chadefaud: bazuen zenbait eta zenbait jende Espainiara **iraganarazirik,** judioak, komunista iheslariak, erresistenteak eta ingeles aireko gidatzaileak. Itxaro Borda

---

**iraganbide** *iz* iragateko bidea. ik **igarobide**.

**Iraganbide** meharretan. Juan Garzia

**Iraganbideetako** hormetan. Gotzon Garate

**Iraganbide** estuan bazterreratu behar izan nuen bidea uzteko. Aingeru Epaltza

Lautadaren ekialdeko bidetik edo mendebalderako **iraganbidetik** ekingo zioten bilaketari. Agustin Otsoa

Arima korporalaren eta izpirituaren arteko zubia eta **iraganbidea**. Joxe Azurmendi

Geroago, eguzkiak bere **iraganbide** zerutiarrean zenbait maila jaitsiak zituelarik [...]. Xabier Olarra

Orainean jarrita dauzka begiak, konbentzituta baitago, bizitza hau **iraganbide** bat baizik ez dela. Ana Urkiza

Txiki-txiki egindako herrixka hondatuak, **iraganbideko** gudu-ospitale zabalak, hilkutxa hutsak zerraldoen esperoan. Mirentxu Larrañaga

Euskal Herria **iraganbide** edo trantsito lekua izanik, beti ibili da modu askotako jendea. Koldo Izagirre

---

**iraganezin** 1 *iz* ezin iraganezkoa.

Isabel ezkondurik zegoen eta hura marra **iraganezina** zen enetzat. Joan Mari Irigoien

Gure artean zegoen oihana murru **iraganezin** bat zela, zeren oihanak mila urratseko bihur baitzezakeen urrats bakoitza. beharrezko zen hesi **iraganezina** hezkuntza eman behar zutenen eta hartu behar zutenen artean. pentsamendu eta sentimendu benetakoak ezagutzea galarazten duen muga **iraganezina**. Joan Mari Irigoien

Egunero 10.000 auto baino gehiago dituzten errepideak oztopo **iraganezinak** dira animalientzat. Berria - Euskal Herria

Lubaki **iraganezinen** gainetik. Agustin Otsoa

Konstituzioa **«iraganezina** den mugatzat» hartzea. Berria - Euskal Herria

2 ***iraganezinezko*** iraganezina.

Pirinio mendiak ere ez dira, dagoeneko, **iraganezinezko** hesi. Koldo Zuazo

---

**iragangaitz** 1 *izond* bertatik ia ezin iragan daitekeena.

Aberatsen eta pobreen arteko zubia ez da **iragangaitza**. Anjel Lertxundi

Denborari, beraz, **iragangaitza** eta geldikorra izaki, izatean **iragangaitza** dena dagokio agerpenean, h. d., substantzia. Ibon Uribarri

2 ***aditz iragangaitz*** argumentu bakarra duena. ik **iragankor 2**.

Aditz **iragangaitzak** zero-objektuak dituzten aditzak direla proposatzen duen ideia. Itziar Laka

Aditz **iragangaitzaren** erabilera iragankorra. Itziar Laka

· Ingelesez, *growl* **iragangaitza** da nahitaez, eta *raise* iragankorra nahitaez. Itziar Laka

---

**iragangarri** *izond* bertatik iragan daitekeena.

Lau motatako eraikinak daude egun: ibilerrazak, lege guztiak betetzen dituztenak; oztoporik gabeak, 1983ko legea bai, baina 1997 eta 2000koa betetzen ez dituztenak; **iragangarriak** irizpide guztiak betetzen ez dituztenak, eta ez **iragangarriak** lege bakar bat ere betetzen ez dutenak. Berria - Euskal Herria

---

**iragangarriki** *adlag*

Beraz, segidaren ikuspuntutik denborak ezaugarritutako **iragangarrikiaz** osatzen denez gero, orduan iraunkorkia da aldatzen den guztiaren azken subjektua aldagarriki ororen substratu gisa, h[au] d[a], substantzia. Ibon Uribarri

---

**iragankor** 1 *izond* igarokorra.

Argi **iragankorraren** lekua betiko argiak hartzen duenean. Askoren artean

Betiko ondasunak mespretxatuz [...] ondasun **iragankorrak,** [...] gauza handi eta miresgarritzat geureganatzea. Imanol Unzurrunzaga

Kontsolamendu gisa, **iragankorra** ere betierekoa dela pentsatzen zuen, *l'éphémère est éternel*. Imanol Zurutuza

Iraunkorra erran dut, ekintza eta lan **iragankorretarik** bereizteko. Piarres Xarriton

Bere lanean, izan ere, [...] eskerrona **iragankorra** eta herra iraunkorra zen. Migel Angel Mintegi

Beraz, **iragankor** zena ospez betea bazegoen, iraunkor denak askoz ospe handiagoa izanen du. Elizen arteko biblia

Bistan da dena dela iheskor eta **iragankorra**. Jon Alonso

Hobe da gure iraupenaz arduratzea, atsegin **iragankorrez** baino. Iñaki Iñurrieta

Bizitza **iragankor** honetako ondasunetan eta erosotasunean lurreko bakearen bila dabiltza. Imanol Unzurrunzaga

Une **iragankor** hori zein laburra izan zen kontuan izanda. Iñaki Mendiguren

Egoera **iragankor** honetan, gizarte-hutsunea indibidualismoak betetzen du. Iñaki Mendiguren

Munduko zibilizazioetako gidari **iragankorrengandik** Jainkoagana. Iñaki Mendiguren

Eztul ahul batzuk egin zituen, aztoramen **iragankor** eta oso arin baten mende, une batez, egon izan balitz bezala. Jon Alonso

Gogoeta **iragankorrak** baino ez ziren, ordea. Mirentxu Larrañaga

Itzal **iragankor** bat izan da, ordea, Josebak umorez eta abileziaz aienatu duena. Xabier Mendiguren Elizegi

Aitaren begien distira **iragankor** hori. Iban Zaldua

Egun bakarra irauten zuten lore dotore haiek ekartzen zioten gogora zein **iragankorra** den bizitza. Imanol Zurutuza

Saudade moduko zerbait da hori, udazkeneko hosto ihartuei behatzean sortzen den sentipena, gauza guztiak beren edertasunean **iragankorrak** direla eta. Ibon Uribarri

Poesiaren eta fedearen arteko lotura edo bederen harreman **iragankor** misteriotsuak. Piarres Aintziart

Substantzia, Izpiritu unibertsala da, honen historia; herrien izpirituak haren akzidente aldakor **iragankorrak** baino ez dira. Joxe Azurmendi

Irudiak arina izan behar du, azkarra, **iragankor** -suntsikorra. Jose Angel Irigaray

**2** zerbaitetatik zerbaitetara iragaten dena. ik **traszendente**.

Jainkoa da, beraz, gauza guztien berebaitako kausa, baina ez kausa **iragankorra**. Herria

**3** ***aditz iragankor*** bi argumentu dituena. ik **iragangaitz 2**.

Argi dago perpaus pasiboei boz aktiboko perpausak dagozkiela sistematikoki, ezaugarri erabat espezifikoak dituztenak, hala nola aditza **iragankor** akusatiboa izatea. Itziar Laka

Orain, *be+en* elementuak aditz **iragankorra** eskatzea, *A+IS* aurretik ezin agertzea, *A+by+IS* aurretik agertu beharra (*A* **iragankorra** denean), inguruko izen sintagmen hurrenkera iraultzea, denak (34) erregelaren ondorio automatikoak ditugu. Itziar Laka

Bitara itxura litekeela *shoot* "tirokatu" aditz **iragankor** edo iragangaitz gisa hartuz gero. Itziar Laka

· Aditz iragangaitzaren erabilera **iragankorra**. Itziar Laka

**4** ***xedapen iragankor*** iraupen mugatua duena.

Errege dekretuaren hirugarren xedapen **iragankorrean,** etorkinen ezohiko «normalizazio» prozesu bat arautu zuen, etzi hasi eta maiatzaren 6an amaituko dena. Berria - Harian

Espainiako Gobernuak Euskal Unibertsitate Sistemaren Legearen zortzi artikuluren eta bi xedapen **iragankorren** kontrako helegitea jarri du.

Xedapen **Iragankorra** ordezkatuko duen edozein formulak nafar guztien eskubide demokratikoak bermatu behar ditu. Berria - Euskal Herria

Xedapen **Iragankorra** ez du baliogabetu nahi Espainiako Gobernuko presidente Jose Luis Rodriguez Zapaterok. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aditz iragankor** (5); **bizitza iragankor** (3); **eta iragankor** (3); **gauza iragankor** (4); **gauza iragankor guztiak** (3); **iragankor bat** (11); **iragankor baten** (6); **iragankor baten idolatria** (3); **iragankor eta** (5); **iragankor guztiak** (3); **iragankor honetan** (3); **iragankor hori** (4); **xedapen iragankor** (3)

**a iragankorra** (4); **a iragankorra denean** (3); **eta iragankorra** (8); **gogora zein iragankorra** (3); **iragankorra den** (5); **iragankorra den bizitza** (3); **iragankorra denean** (3); **iragankorra ere** (3); **iragankorra ez** (3); **iragankorra ezabatzeko** (6); **iragankorra izan** (6); **iragankorra izango** (3); **iragankorra kentzearen** (6); **iragankorra kentzearen aurka** (4); **iragankorra kentzeko** (10); **laugarren xedapen iragankorra** (16); **xedapen iragankorra** (50); **xedapen iragankorra ez** (3); **xedapen iragankorra ezabatzeko** (6); **xedapen iragankorra kentzearen** (6); **xedapen iragankorra kentzeko** (10); **zein iragankorra** (3); **zein iragankorra den** (3)

**gauza iragankorren** (4); **iragankorrak baino** (4); **iragankorraren ezabaketa** (3); **iragankorrik ez** (3); **laugarren xedapen iragankorraren** (3); **ondasun iragankorrak** (3); **xedapen iragankorraren** (9); **xedapen iragankorraren ezabaketa** (3); **xedapen iragankorrari** (3)

---

# iragankortasun *iz* iragankorra denaren nolakotasuna.

**Iragankortasun** krudel harexek, bizialdia egun bakarrera mugatzen zuelarik, ezin egokiago emango zion aditzera irakurleari lore haien dotoretasuna. Imanol Zurutuza

**Iragankortasun** atzeraezinezko horretan, bat-batean ari denaren amildegi txiki horretan du zentzua bertsoak, hor sortzen dira bai lastoaren arruntasuna eta bai alearen miraria. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Arima ez da materiagabeko batasuna eta ezin da **iragankortasunetik** askatu. Ibon Uribarri

«Botere hutsunea eta **iragankortasun** egoera» saihesteko. Berria - Euskal Herria

Helbide-agenda itxi zuenean [...] halabehar, **iragankortasun,** beldur sentsazio bat izan zuen Ferrisek. Bernardo Atxaga

---

# iraganleku *iz* iragateko lekua.

Egokitu zidaten lehenengo lantokia zen, lehenengo eta azkena, inork ulertu ez baina nik ongixko nekizkien arrazoiak zirela-eta inoiz ez bainuen alde egin nahi izan beste guztientzat hiri handiagoetarako **iraganleku** huts besterik ez zen herrixka honetatik. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# iraganmin ik **iragan**[2] **5**.

---

# iragapen *iz* igarotzea.

Tartean ezuste handirik ez bada, EAEko Ararteko izango da datozen urteetan, eta amaiera emango dio talde politikoen desadostasun giroaren eraginez hiru urte baino gehiago jardunean egondako Mertxe Agundezen **iragapen** aldi luzeari. Berria - Euskal Herria

---

# iragarki **1** *iz* hormetan, aldizkarietan eta kidekoetan ezartzen den izkribua, zerbaiten berri ematen duena.

Bigarren solairuaren parean, **iragarki** zuri batek informatzen zuen, Jacob Haiken Real State Inc. Iñaki Zabaleta

Puerto de Erro, dio **iragarkiak**. Piarres Aintziart

Hona azkenean espero nuen seinalea: **iragarki** urdin bat: goian Santiagoko maskorra, erdian bidekaria eta azpian gezi bat, Bidea ezker hartu behar dudala erakusteko. Piarres Aintziart

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak kontratatutako **iragarki** bat ere bazen gehigarri hartan. Juan Luis Zabala

Telebistarako **iragarki** bat prestatu behar da. Iñaki Zabaleta

Camel enpresak, adibidez, hainbat buruhauste izan zituen bere **iragarki** animatu bat zela medio. Harkaitz Cano

**Iragarki** erraldoien neonezko argiek. Ramuntxo Etxeberri

**Iragarki** elektronikoen urrezko hautsak dar-dar egiten zuen zeruan. Lopez de Arana

Hilabetekariko **iragarki** sailkatuen aldera. Itxaro Borda

Lan-poltsa, **iragarki** laburrak, eskelak... Txema Ramirez de la Piscina

Ate gaineko **iragarki** koloretsuari bi letra falta zaizkio, eta beste bat erortzear dago. Iban Zaldua

Teledendako **iragarki** abailgarriak ikusten. Xabier Mendiguren Elizegi

Produktu argalgarrien **iragarkietan**. Jon Muñoz

**Iragarki** eta mezu publizitarioetan. Koldo Zuazo

Edozein ohar, mezu eta **iragarki** euskaraz idazteari ekin zitzaionean. Koldo Zuazo

Ez nintzen **iragarki** haiek zer iragartzen zuten jabetu. Juan Luis Zabala

Zuri-zuria, **iragarkietan** bakarrik ikus litekeen zuri mota batekoa. Arantxa Iturbe

· Zeren nirea hitzezko **iragarki** bat baita. Jon Muñoz

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **publizitario**.

**Iragarki**-taula zahar eta higatuan agertu zen oharrera keinu eginez. Iñaki Mendiguren

Gauza bat da elizako **iragarki**-ohola, eta bestelakoa alderdi politiko batena. Koldo Biguri

Haritzak moztu eta **iragarki**-panel handi bat ipini zuten. Joxan Elosegi

**Iragarki** paper horietako batean irakurri nuen, *Rencontres-Relations* delako sailean: [...]. Bernardo Atxaga

Nire ustez, hauxe adierazi nahi zuen **iragarki**-jartzaileak: "Norbaitek mantentzea nahi dut". Bernardo Atxaga

Irakasleendako, politikariendako, **iragarki** egileendako, itzultzaileendako, hizlari eta ipuin kontalariendako... Koldo Zuazo

Geroago, arte-zuzendari eta **iragarki**-diseinatzaile aritu zen. Xabier Olarra

**Iragarki**-txartelak egin eta programa-zerrenda osatzea bezalako gai delikatuetan. Irene Aldasoro

Hantxe ibili behar, lerroz lerro, **iragarki**-irribarrea eginez. Joxe Austin Arrieta

Bai baitzekien ez zitzaiola **iragarki** mota horien prestaketa atsegin. Iñaki Zabaleta

Izan ere, [...] **iragarki** tartea komunera joateko baliatzen den tartea izaki, eta Super Bowla denez EEBBtan audientzia gehien duen partidua, minutu gutxitako tartean jende kopuru eskergak komuneko kateari aldi berean tira egiten dionez [...]. Harkaitz Cano

**3** (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Kalean berriro, Coca-Cola **iragarki** bat ikusi dut. Edorta Jimenez

Automobil **iragarki** batek. Joan Mari Irigoien

Baina Siemens-en telebista-**iragarkia** jarriko diegu gero. Andoni Egaña

Bizitza ez da telebistako serie bat, ezta mundua kolonia **iragarkia** ere. Sonia Gonzalez

Dendetako erakusleihoetako antzerki-**iragarkiak** irakurriz bidean. Irene Aldasoro

Egunkarietako sexu **iragarkietan** adierazten zuten modura. Joxemari Iturralde

Hauteskunde **iragarkiez** betea ageri zen irten nintzen kalea. Joxan Elosegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baten iragarkia** (11); **beste iragarki** (4); **beste iragarki bat** (3); **buruzko iragarkiak** (5); **diren iragarki** (4); **edo iragarki** (3); **eta iragarki** (12); **eta iragarkiak** (8); **eta iragarkietan** (7); **eta iragarkiz** (3); **iragarki bat** (43); **iragarki bat ere** (3); **iragarki bat jarri** (5); **iragarki batean** (11); **iragarki batek** (4); **iragarki bati** (4); **iragarki batzuk** (3); **iragarki edo** (6); **iragarki eta** (12); **iragarki haiek** (3); **iragarki hau** (3); **iragarki taulan** (3); **iragarki taularen** (3); **iragarkia ikusi** (6); **iragarkia irakurri** (3); **iragarkiak dira** (3); **iragarkiak eta** (10); **iragarkiak ez** (3); **iragarkietan bezala** (3); **iragarkietan ere** (3); **iragarkietan eta** (3); **iragarkietan ez** (4); **ohar eta iragarkietan** (5); **publizitate iragarki** (3); **ziren iragarkiak** (3); **zuen iragarki** (10); **zuen iragarki bat** (3); **zuten iragarki** (3)

---

## iragarkidun *izlag*

Aurkitzen ditudan paisaiak, **iragarkidun** etxeak, posterrak, errege bat bezala iragaiten ditudan erakusleihoak, liburu honetako izaerak diren egingai berekoak dira denak. Iñaki Zabaleta

---

## iragarkizun *iz* etorkizun dena iragartzea. ik **iragarpen 2**.

**Iragarkizunak** eta magia zuria. Aingeru Epaltza

Nagitasunez egon nintzaion begira, neskek **iragarkizunak** esateko erabiltzen dituzten zurtoin berde horietako bat mastekatuz. Irene Aldasoro

-Ea, esaguzu **iragarkizuna**. Jose Antonio Mujika

---

## iragarkunde *iz*

Konpainiak, jainkozko apaltasunez, saihets egiten dio **iragarkunde** orori. Juan Garzia

---

## iragarle 1 *izond/iz* iragartzen duena.

Aurki ezagutu nuen harengan mezulariaren figura, arimak gidatzen dituen Merkurioarena edo, nahi bada, aingeru **iragarlearena**. Juan Garzia

Aztien bezero sarria zen eta amets **iragarlerik** ere izaten zuen. Juan Garzia

Aurrena, zeinu **iragarleak** egoten dira. Monika Etxebarria

Alkatearen bulegoan sartutakoan, beraz, bere susmoak beltzak ez ezik, lainotsuak ere baziren; ekaitz **iragarle** inondik inora. Felipe Juaristi

Garondoraino iristen zitzaion halako hotzikara bat sentitu zuen, balizko zorabio baten **iragarle**. Lopez de Arana

Gorpua belzten hasia zen, heriotzaren kiratsaren **iragarle**. Aingeru Epaltza

Zirru-kumulu multzoak mirets zitzakeen, eguerdi aldera masa borobilago batean biltzen eta arratsaldean itsasotik altxatzen zen haizeari esker berriz barreiatzen, etzirako eguraldi onaren **iragarle** xume. Itxaro Borda

· Da Ruak bazekien Sirenen kanta heriotza **iragarle** dela beti. Felipe Juaristi

Maitagarri herio-**iragarlea** desagertarazi zuen sorginak erbi-ezpaina zeukan. Iñaki Mendiguren

Berri ez dakit pozgarri edo zorigaitz-**iragarle** hura. Ander Irizar

Ba al dakizu ardiak eguraldi-**iragarle** ezin hobeak direla? Joan Mari Irigoien

• **2** *iz* etorkizuna iragartzen duen pertsona.

Abeslaria hegan doanean, albiste onen **iragarlea** da eta ez du gezurrik esaten... J.M. Olaizola "Txiliku"

Sineskerietan erraz erortzen zen gizona izanik, **iragarle** eta aztiz inguratu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Orduan, Haliterses Mastorida zaharrak hartu zuen hitza; **iragarlea** zen. Juan Kruz Igerabide

**Iragarle**-begi zorrotzez, horra aitaren eskuak idatzia semearen etorkizuna. Jon Muñoz

**Iragarle** zaharrei, eguraldi-gizon eta emakumeak hartu die tokia. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baten iragarle** (3); **eta iragarle** (4); **iragarlea da** (3); **iragarlea zen** (3)

---

## iragarmen *iz* iragartzeko ahalmena.

Hilzorian direnek batzuetan izaten duten **iragarmen**-edo horrez, dena ulertu zuen, dena asmatu zuen, eta esaten zuen: [...]. Josu Zabaleta

---

## iragarpen 1 *iz* gertatu dena edo gertatuko dena iragartzea.

Danborrada Inauterien aurrerapen bat, **iragarpen** bat dela. Askoren artean

Izan ere, 1939ko martxoa zen, eta egun gutxi lehenago, ia **iragarpen** hotsandiko berberaz ("Habemus Papam") eman zitzaion amaiera Eugenio Pacelli kardinala Petriren Aulkira jaso zuen elizburuen bilkurari. Juan Garzia

Urak botatzeak, eta ondoko erditzearen **iragarpen** jakinak, bizkarra okertu zion. Anton Garikano

Zuhurtziaz eta mesfidantzaz hartu du Nafarroako Gobernuak ETAren su-eten **iragarpena** . Berria - Harian

ETAren su-eten **iraunkorraren** iragarpena «baikor» hartzen dutela esan zuen. Berria - Harian

Desarme **iragarpena** taktikatzat jotzen dute Londresko gobernuak «kontzesioak» egin ditzan. Berria - Harian

Londresko gobernuak ere iritzia eman zuen su-eten **iragarpenaz** . Berria - Harian

Behar zen bulegora eraman nituen gure paperak, egunkarian azaldu zen gure ezkontza- **iragarpena** . Joxe Austin Arrieta

Laster gertatzekoa zen zerbait handiaren **iragarpen** gisa. Askoren artean

Frantziskorentzat, hitz eta gertakari, **iragarpen** eta historia da Eukaristia. Askoren artean

Arnasa sakon hartu zuen goragale **iragarpena** eteteko. Josu Landa

## 2 iragarkia.

Gilda filmaren **iragarpen** kartela zen, "inoiz ez da izan Gilda bezalako andrerik!" esloganaren azpian Fordek Hayworthi jotako zaplaztekoaren unea jasotzen zuena. Josu Landa

Telebistan ikusten zuen **iragarpen** bakoitzeko [...]. Unai Elorriaga

## 3 igarle batek edo, zerbait gertatuko dela esatea.

Eta **iragarpen** bat egingo dizut: hilabete hau amaitu eta hurrengoa hastean izango duzu hementxe. Juan Kruz Igerabide

**Iragarpen** izugarri bat irakurri zuen han: Lilavati ezkontzen baldin bazen, hil egingo zen. Jon Muñoz

Eta **iragarpen** bat ere esango diat, eta bete egingo dela uste diat, ez azti naizelako edo hegaztien bidez iragartzen dakidalako, hilezkorrek bular barruan hitz horiek jarri dizkidatelako baizik. Juan Kruz Igerabide

Heriotza-zigorra ezarri zion inguruan aholkulari gisa erabiltzen zuen astrologoetako bati, bete ez ziren -edo erregeren gustukoak ez ziren- **iragarpen** zenbait egin zituelako edo. J.M. Olaizola "Txiliku"

Aspaldiko **iragarpen** bat bete zaidak. Juan Kruz Igerabide

Kiromantzia, etorkizunaren **iragarpena,** magia beltza... J.M. Olaizola "Txiliku"

Berarengana etorri zen etorkizunerako **iragarpen** eske. Felipe Juaristi

Beharrak ekarri nau Hadesera, Tiresiasi **iragarpena** eskatu behar bainion. Juan Kruz Igerabide

-Telemako: hegazti hori **iragarpen** bat zuan. Juan Kruz Igerabide

Poztu zaitez, Ikarioren alaba; hau ez da amets bat, **iragarpen** bat baizik. Juan Kruz Igerabide

Ikuskari hutsalak eta **iragarpen** gezurtiak dituzte; "Jaunaren mezua" esaten dute, Jaunak bidali ez dituen arren. Elizen arteko biblia

Horregatik bada, hain sarri egiten diren **iragarpen** horietakoren bat, halabehar soilez, betetzen baldin bada eta heriotzaren batekin batera gertatzen bada, miraria aldarrikatzen da ber-bertatik, bertatik ahazten baitira bete ez diren gainerako amets guztiak, **iragarpen** guztiak, zorigaitzaren profezia guztiak. Josu Zabaleta

## 4 zerbait gertatuko dela zantzuetan oinarrituz iragartzea.

1960ko Iraultza abian ipini zen sasoi hartan, sarri egin ohi zen honako **iragarpen** hau: Euskara eskolan eta telebistan sartzen denean, betiko salbatuta izango da. Koldo Zuazo

Ekonomilariek bizitza erdia pasatzen dutela **iragarpenak** egiten, eta beste erdia zer dela eta ez duten asmatu azaltzen. Iban Zaldua

Pertzepzio sistemak egiazko pertzeptuak sortzen ditu […] aldagaiak zenbait arauren arabera konbinatuz gero aurretiazko **iragarpenak** egiteko aukera ematen dutenak. Josu Zabaleta

Datuak larriak dira, eta **iragarpenak** ez dira hobeak. Berria - Gaiak

**Iragarpenak** egiteko ahalmena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Inflazio- **iragarpenak** aldatzeko eta prezioen egonkortasuna berreskuratzeko. Koro Navarro

**Iragarpena** a posteriori da igarpen -"Ene, asmatu ere, asmatu egin zuen!"-. Edorta Agirre

## 5 (meteorologian)

Gaur goizean egin du **iragarpen** bat, sekulako zaparradak, mendebaleko haizea, terrala, eta abar izango direla. Pello Zabala

Saiatu naiz meteorologiaz jarduten, **iragarpenak** taxutzen, dakizkidanak erakusten eta zabaltzen. Pello Zabala

Eta euria agintzen bazuen **iragarpenak,** ez zenekien noiz iritsiko zen. Pello Zabala

Albistegietako **iragarpen** laburrak. Pello Zabala

Egun seinalatu horretan egin behar zuen eguraldiaren **iragarpena** . Iñaki Segurola

Eguraldi **iragarpen** batek diru puxkatxo bat ekar zezakeenik ere ez zitzaidan burutik pasatu. Pello Zabala

Meteorologia **iragarpen** zerbitzuak antolatzeko. Pello Zabala

Ez dakit 1916ko Nekazarientzako Eguraldi **Iragarpen** kanpaina horretan parte hartuko zuten Arantzazutik. Pello Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**da iragarpen** (3); **dira iragarpen** (3); **eguraldi iragarpen** (4); **eta iragarpen** (20); **halako iragarpen** (3); **iragarpen bat** (18); **iragarpen batek** (4); **iragarpen eta** (3); **iragarpen gehienak** (3); **iragarpen gezurtiak** (3); **iragarpen gisa** (4); **iragarpen guztiak** (8); **iragarpen guztien** (6); **iragarpen guztien kontra** (5); **iragarpen hau** (7); **iragarpen honek** (3); **iragarpen hori** (9); **iragarpen horrek** (7); **iragarpen horrekin** (3); **iragarpen horren** (5); **zuen iragarpen** (3)

**andereñ baten iragarpena** (6); **da iragarpena** (3); **du iragarpena** (4); **dute iragarpena** (4); **egin zuen iragarpena** (21); **egindako iragarpena** (9); **eguraldiaren iragarpena** (5); **etaren iragarpena** (6); **eten iragarpena** (6); **etenaren iragarpena** (8); **gobernuaren iragarpena** (5); **hazkuntza iragarpena** (4); **iragarpena bete** (3); **iragarpena egin** (13); **iragarpena egin du** (3); **iragarpena egiteko** (4); **iragarpena ere** (4); **iragarpena eta** (3); **iragarpena ez** (8); **iragarpena ez zen** (3); **iragarpena izan** (5); **iragarpena oso** (4); **iragarpena txalotu** (5); **jo zuen iragarpena** (3); **judasen saldukeriaren iragarpena** (3); **lehen iragarpena** (3); **nire iragarpena** (4); **oaren iragarpena** (3); **oaren iragarpena** (3); **pedroren ukoen iragarpena** (3); **saldukeriaren iragarpena** (3); **su eten iragarpena** (6); **su etenaren iragarpena** (8); **trelawney andereñ ukoen iragarpena** (3); **zuen iragarpena** (28); **zuten iragarpena** (4)

**adituen iragarpenak** (3); **bere iragarpenak** (3); **dira iragarpenak** (3); **egindako iragarpenak** (5); **eguraldi iragarpenak** (6); **eguraldi iragarpenen** (6); **eguraldi iragarpenen arabera** (4); **eguraldi iragarpenik** (3); **eguraldiaren iragarpenak** (5); **eta iragarpenak** (9); **eta iragarpenaren** (3); **eta iragarpenen** (3); **etaren iragarpenaren** (4); **etaren iragarpenaren ondoren** (3); **eten iragarpenaren** (3); **eten iraunkorraren iragarpenak** (4); **etenaren iragarpenaren** (3); **iragarpenak bete** (4); **iragarpenak egitea** (4); **iragarpenak egiteko** (4); **iragarpenak egiten** (7); **iragarpenak ere** (3); **iragarpenak eta** (7); **iragarpenak ez** (13); **iragarpenak ez dira** (5); **iragarpenaren ondoren** (6); **iragarpenen arabera** (13); **iragarpenen bat** (3); **iragarpenik ez** (3); **iraunkorraren iragarpenak** (4); **su eten iragarpenaren** (3); **su etenaren iragarpenaren** (3)

---

# iragarpentxo *iz* iragarpen laburra.

*Egin* egunkarian tartetxo bat eskaini zidaten, **iragarpentxoa** bezperatik bidali eta han ipintzeko. Pello Zabala

Esan dezadan, lehenbiziko urte haietan, aro- **iragarpentxoa** elkarrizketa labur batean ehoa zihoala. Pello Zabala

---

# iragarrarazi, iragarraraz, iragarrarazten du *ad* iragartzera behartu.

Nire buruaz **iragarrarazi** nuen, inprimaki bat bete, eta paparreko botoizuloan eransteko txarteltxo horietako bat eman zidaten. Juan Garzia

Urrian zeudenez eta euri hilabetea izan ohi denez, kontzientzia lasaitze aldera irratian **iragarrarazi** zuen Araujo Lda. enpresak euritako sorta txiki bat jaso berri zuela. Bego Montorio

**iragarrezin** *izond* ezin iragarrizkoa.

Jakinik patua ez dela ez kasualitate ez istripu, gertakizun kateatu, **iragarrezin** eta ulergaitzen emaitza natural baizik. Xabier Olarra

Apika haren destinoa eta nirea zalapartatsu irtengo ziren bertan karriletatik, etorkizun elkarkide guztiz **iragarrezin** baterantz. Juan Garzia

Ulert eta **iragarrezina** bilakatua zen. Itxaro Borda

---

**iragarri**, iragar, iragartzen **1** du *ad* zerbaiten berri jendaurrean eman.

Gonbidatuen etorrera **iragarri** zidaten. Jon Muñoz

-Tea - **iragarri** zuen neskameak, tupustean atean kukuka agertu zelarik. Mirentxu Larrañaga

**Iragarri** ziguten bakarra zen gura zuen orok eman zezakeela izena Alemanian lan egiteko. Urtzi Urrutikoetxea

Tapa altxatu, liburu bat atera, eta hotsandiz **iragarri** zuen: *Introductio in analysin infinitorum,* Euler. Jon Muñoz

2ren erroaren irrazionaltasuna absurdoaren bidez frogatua **-iragarri** zuen Léak ozen, Maxek lehen hezkuntzan erabiltzen zuen arbeltxoa atereaz. Jon Muñoz

1753ko abuztuaren 4an, hau frogatu berri zuela **iragarri** zuen Euler-ek: [...].1970eko hamarraldiaren hasieran gertatu ziren diru- eta energia-krisiek nazioarteko ordena horren amaiera **iragarri** zuten. Jon Muñoz

Martxoak 22, 2006. ETAk su-eten iraunkorra **iragarri** du. Joseba Zulaika

Egunkarian nire piano-jardun bat **iragartzen** zuen ohartxoaren bila nenbilela, kartzelatik irten berri zen bati buruzko albiste labur bat ikusi nuen. Anjel Lertxundi

Frantzia eta Kanada ere prest daude antzeko neurriak **iragartzeko**. Berria - Ekonomia

Bi amoranteak beren habian, bat-batean emakumearen senarraren bisita **iragarri** gabea jasotzen dutenak. Aingeru Epaltza

Distira argi batek eguna zabaltzen hasia zela **iragartzen** zuen. Karlos Zabala

**bat iraindu** (3); **edo iraindu** (3); **epailea iraindu** (3); **ere iraindu** (7); **erregea iraindu** (3); **eta iraindu** (25); **eta iraindu egin** (9); **eta iraindu egiten** (4); **eta iraindua** (6); **ez iraindu** (4); **gogor iraindu** (3); **hitzez iraindu** (3); **inor iraindu** (6); **iraindu behar** (3); **iraindu besterik** (3); **iraindu besterik ez** (3); **iraindu ditu** (3); **iraindu du** (5); **iraindu duela** (3); **iraindu duzu** (3); **iraindu edo** (5); **iraindu egin** (37); **iraindu egin gaituela** (3); **iraindu egin naute** (3); **iraindu egin zuen** (4); **iraindu egiten** (23); **iraindu egiten du** (3); **iraindu eta** (36); **iraindu eta mehatxatu** (5); **iraindu gabe** (7); **iraindu izana** (5); **iraindu nahi** (17); **iraindu zituen** (3); **iraindu zituzten** (4); **iraindu zuen** (7); **iraindu zuten** (7); **iraindua sentitu** (4); **iraindua sentitzen** (3); **irainduta sentitu** (5); **irainduta sentitzen** (3); **jainkoa iraindu** (3); **jendeak iraindua** (3); **mehatxatu eta iraindu** (6);

zergatik iraindu (3)

bat iraintzen (4); bera iraintzen (3); erregea iraintzea (3); erregea iraintzeagatik (4); espainiako erregea iraintzeagatik (3); espiritua iraintzen (3); espiritua iraintzen duenak (3); eta iraintzen (8); gabe iraintzen (3); horrela iraintzen (3); inor iraintzea (3); iraintzea da (4); iraintzea egotzi (3); iraintzea ere (3); iraintzea eta (5); iraintzea leporatu (3); iraintzea leporatuta (3); iraintzeagatik eta (3); iraintzeko asmorik (3); iraintzeko erabiltzen (4); iraintzeko eta (4); iraintzen ari (3); iraintzen badu (4); iraintzen bazaitu (3); iraintzen ditu (3); iraintzen du (4); iraintzen duen (3); iraintzen duena (4); iraintzen duenak (8); iraintzen duenari (3); iraintzen dugu (3); iraintzen dute (3); iraintzen eta (7); iraintzen hasi (6); iraintzen zituen (3); iraintzen zituzten (4); iraintzen zuen (7); iraintzen zuten (4); iraintzen zutenean (4); izena iraintzen (3); natura iraintzen (3); ni iraintzeko (7); nola iraintzen (4); zergatik iraintzen (3)

---

# iraingarri 1 *izond* iraintzen duena. ik **iraintzaile**.

Puxika bat baino ez nintzen ja, giza izaeraren karikatura **iraingarri** bat. Karlos Linazasoro

Beste askok ere barre egiten zioten eta hitz **iraingarriak** esaten. Askoren artean

Emaztearen aurrean hitz gogor eta **iraingarri** batzuk esateko zorian egon zen. Jose Morales

Hala adierazi zuen, askoz ere hizkera **iraingarriagoarekin** . Julen Gabiria

-Koldarra haiz gero -errepikatu zuen gazteak, ahots **iraingarriagoarekin** . Karlos Zabala

Egin dezatela barre, asma ditzatela txantxa **iraingarriak:** aspertuko dira. Anjel Lertxundi

Grialaren bila ari dira naziak? -galdetu nion, ironia kutsu ia **iraingarri** batez. Alberto Ladron Arana

Montanerrek halako segurtasun **iraingarri** samar batez hitz egiten zuen gauza guztiez. Josu Zabaleta

Mugitzean, haren aldakak eta bular harroa modu **iraingarri** samarrean nabarmentzen ziren. Josu Zabaleta

Bidenabar, gauza **iraingarri** samarrak esan zituzten gizon argalei buruz: besteak beste, ez zirela gizakiak, zotzaren antzeko zerbait baizik. Jose Morales

Ama, ordea, hitz **iraingarri** haiek ezin jasanik, kolpetik zutitu zen. Joan Mari Irigoien

EAri **iraingarriak** iruditu zaizkio Aznarren agur hitzak. Berria - Euskal Herria

Probokazio **iraingarria** eta onartezina da. Xabier Mendiguren Elizegi

Kaleratze **iraingarri** baten laidotik libratu baitzen. Jon Alonso

Gero, zerri-gorotza bota dute egur-pilaren gainera, emakumearen heriotza **iraingarriagoa** gerta zedin. Anjel Lertxundi

Esklabo berria otzana izaten da boteretsuekin, zuria goian dauzkanekin, koldarra indartsuagoekin; irentsiko du umiliaziorik **iraingarriena** ere ordaindu beharreko tasa baten moduan. Pako Aristi

**2** (izan aditzarekin)

-Eskutitz hori **iraingarria** da -esan zuen bisitariak. Edorta Jimenez

Nondik nora da **iraingarria** *hi* hitza? Jose Morales

Ez al da, orduan, **iraingarria** besteen harrokeriaren jostailu bihurtu beharra? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Urkatu behar zuten gizonaren alaitasun zentzugabe hori **iraingarria** zen espetxearentzat eta exekuzioarentzat berarentzat. Jose Morales

Barregarria duk hire harropuzkeria, hire jokabidea **iraingarria,** eta hi hemen, nire loretegian egotea guztiz zentzugabea. Antton Olano

**Iraingarria** eta mingarria da Erramun Osak egin duen egoeraren azterketa aseptikoa. Berria - Euskal Herria

Faxisten laguna izatea baino **iraingarriago** zaio idazleak katuei jaten okela ematen diela ikustea. Edorta Jimenez

Haren irribarrea **iraingarri** zitzaidan, laneko gauzetan, birritan aipatu dudan bezala, arduratasun pertsonifikatua bainaiz. Joxe Austin Arrieta

**3** (adizlagun gisa)

Errukia bertute bat dela, errukitzaileak maiz ezkutatu eta mozorrotu beharrekoa, errukituari apalgarri eta **iraingarri** gerta ez dakion. Joan Mari Irigoien

Sendatu ninduten eta mundura bota ere bai, zakur herrena botatzen den bezala, denen **iraingarri,** denen ostikoen jomuga. Felipe Juaristi

Egun ere txiroak dira inguru haiek, uralitazko teilatuen gaineko telebista antenek **iraingarri** egiten duten txirotasun modernoan. Koldo Izagirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

adierazpen iraingarriak (3); biktimentzat iraingarria (4); da iraingarria (3); eta iraingarri (4); eta iraingarria (9); eta iraingarriak (4); hitz iraingarri (5); hitz iraingarriak (3); hori iraingarria (3); iraingarri bat (8); iraingarri batzuk (3); iraingarri eta (4); iraingarria da (19); iraingarria dela (4); iraingarria ere (3); iraingarria eta (3); iraingarria iritzi (3); iraingarria iruditzen (5); iraingarria izan (7); iraingarria izan zen (3); iraingarria jasan (3); iraingarria zen (9); iraingarriak dira (3); iraingarriak direla (4); nagusitasun iraingarria (3); tratu iraingarria (4); tratu iraingarria jasan (3)

---

# irainka *adlag* irainduz, irainak esaka.

Zaldun gaizto bat agertzen da une hartan, gorriz jantzirik, **irainka** . Juan Kruz Igerabide

Aurrena **irainka** eraso zidan, nire arrazoiak ezin baitzituen ezeztatu. Joxe Austin Arrieta

**Irainka** hasi zitzaizkion zakarki. Askoren artean

Zintzilik zeuden gaizkileetako bat Jesusi **irainka** ari zitzaion, esanez: -ez al haiz, bada, hi Mesias? salba ezak heure burua eta salbatu gu ere! Elizen arteko biblia

Gizontxoa berean tematu zen eta espainiarrei **irainka** hasi zen azkenean. Josu Zabaleta

Iritsi zen, bada, eta Ulisesi ekin zion **irainka:** [...]. Juan Kruz Igerabide

Aitak Rajab lasaiarazi zuen, eta hura deabruari **irainka** joan zen. Juan Kruz Igerabide

Gehiengoa izorratu dutela esan eta **irainka** erantzun digute, Konturatu orduko, elkarri deiadarka, **irainka,** mehatxuka hasten ginen fakultateko kafetegian. Xabier Montoia

Eguzkiak neurriz gain jotzean madarikatu egiten dute, eta **irainka** hartu, gizonak eta beuren lurrak kiskaltzen dituelako. Patziku Perurena

Munduko zenbait aldetan **irainka** hartzen zituzten, gizon mespretxagarri eta ezezagun bezala. Askoren artean

Hauek, borroka nahian, inguratu, geldiarazi, eta **irainka** erabili zuten. Felipe Juaristi

**Irainka** eta kolpeka erabili zituzten. Txema Ramirez de la Piscina

**Irainka** eta laidoka eraso zion emazteari. Askoren artean

Erruduna, berriz, zigorgabe, garaile irteten da auzitegitik, errugabeari **irainka** . Imanol Unzurrunzaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

etsaiak irainka (3); irainka ari (14); irainka hasi (15); irainka hasi zen (3); irainka hasi zitzaizkion (3); irainka hasten (5)

---

# irainkatu, irainka(tu), irainkatzen du *ad* iraindu.

Zaldiz sartu ziren hunoak monasterioko liburutegian, eta liburu ulertezinak hautsi eta **irainkatu** eta erre zituzten, letren estalkian beren jainkoaren aurkako biraorik ote zegoen beldurrez. Juan Garzia

---

# irainkiro *adlag* era iraingarrian.

Leihoko kristalak **irainkiro** zikin ageri ziren, paretak beltzuak, eta tabako zaharmindu usain goibel bat zirauen airean istilkaturik. Juan Garzia

**iraintsu** *izond* irainez betea.

Sindikalista izenaren eratorri **iraintsu** ezberdinak. Itxaro Borda

**iraintzaile** *izond* iraintzen duen pertsona. ik **iraingarri**.

**Iraintzailearen** hitzak jaki goxoak bezalako: barren-barreneraino iristen dira. Josu Zabaleta

Egun osoan sufriarazten didate **iraintzaileek,** nire kaltea beste asmorik ez dute. Elizen arteko biblia

Mikel Strogoffek ez du ez iraina ez **iraintzailea** ikusi, baina Nikolasek bai. Karlos Zabala

**Iraintzaileari** kasurik egin gabe. Joan Mari Irigoien

**irainzale** *izond* irainen zale dena.

-Kresipo **irainzalea** -esan zion idizainak, berak jo baitzuen-: hori, Ulises eskean ari zela eman hion ostikadagatik. Juan Kruz Igerabide

**iraitzi**, iraitz, iraizten *(orobat* ***iraizi****)* **1** du *ad* jaurtiki, bota.

Promes egin baitu ez duela kanpora **iraitziko** ate joka datorkionik inor. Juan Garzia

Enplegatu azal-ilunak euren lanpostuetatik **iraitzi** zituzten eta inork ez zien beste lanik eman nahi. Mirentxu Larrañaga

Senarraren etxekoek **iraizi** egin zuten etxetik eta ondasun guztiak kendu. Gotzon Garate

Spinoza hiru bider izan zen gizaki: pertsona zen aldetik lehena, judua zelako bigarren […] eta, hirugarren, sinagogatik ere **iraitzia** zuten. Markos Zapiain

Askotan eragileak hil egin zituzten (Ariztimuño eta Lauaxeta fusilatu egin zituzten) eta beste batzuetan kartzelan sartu edo erbestera **iraitzi**. Askoren artean

Kromatozko herdoil–aurkakoak eta amonio kloruroak, denboran atzera **iraitzi** ninduten eztandan, 1946ko urtarril gogorreraino. Juan Garzia

Aurretik teila horien barruko aldea pikearekin ondo igurtziko da, ura **iraitz** dezaten. Santiago Iruretagoiena

Sumendiaren kraterrak sugar azao bat **iraizten** zuen goitika. Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gurdi ttipi bat pasatu zitzaien aitzinetik, eta haiek zeuden tokitik harri **iraitzi** baten heinean edo, baratu zen. Elena Touyarou

**3** gorputzetik kanpora jaurtiki.

Lehorreko animalietan, enbrioiak ezingo luke bizirik iraun kanpoko ingurune gogorrean, eta arrautza formako bere espazio-ontzian **iraitzi** behar izaten da mundura. Irene Aldasoro

Tututzat du bere burua, hots, jan eta **iraitzi** baino ez du egiten. Berria - Kultura

Gorotz batzuk **iraizten** ditu lurrera. Oskar Arana

Gernuan **iraizten** dira hondakinok. Irene Aldasoro

Kutsatu eta hiltzen ez diren hegaztiek, hamar egunez **iraizten** dute birusa, ahotik eta gorotzetan. Berria - Gaiak

Edandako ardo bolumenaren ia berdina baita **iraizten** den gernua. Irene Aldasoro

Larru-zulo sakonetarik **iraizten** zen hizkuntzaren, lurraldearen eta etorri sozialaren gutxiestea. Itxaro Borda

**4** erauzi.

Jean Etchepareri Nietzschek **iraizi** omen zion errotik, Seminarioan lehendik kordokatua zuen fedea. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta iraitzi** (3)

**iraizean** **1** *adlag* gaingiroki, bidenabar.

Ez gara, beraz, barrurago sartuko, **iraizean** iruditeria inkontziente horren eta bestelako "barne", "buruko" iruditeria batzuen arteko hurbilketa egiteko ez baldin bada. Josu Zabaleta

Deustan ezin liteke tajuz ari gizon okupatua […] dena **iraizean** bezala hartzen du, norbaitek bortxaz erakutsiko balio bezala. Patziku Perurena

Inoizka eta **iraizean** egina nintzen berarekin topo gerra ondoren. Juan Garzia

Jurisprudentziak ere, azken batean, baitaratu behar ditu norberak alferrik aurreikusi nahiko lituzkeen objektu guztiak edota **iraizean** egindako aurreikuste batek barneratuko ez lituzkeenak. Andres Urrutia

**2** ***iraizeko***[1] *izlag* bidenabarrezkoa.

Hala eta guzi, OEH.k ez dakar ez *alka* ez *alke* hitzik; *alga* hitzean egiten duen aipamen **iraizeko** hauxe baizik: […]. Patziku Perurena

**3** ***iraizeko***[2] gutxi irauten duena.

Horren lehen gauzatze artistikoa da, era ikararazlean **iraizekoa** eta galkorra den mundu honetako guztiaz ohartarazten duena. Joan Mari Lekuona

Pausoak, hotsak, kantuak lausotzen ariko balira bezala, **iraizeko** esanahia balute bezala. Josu Zabaleta

Neure gainetik hain garai entzuten nuen ostera erruki adigabe eta **iraizekoz** oraturiko hitz haiek, “zergatik duzu halako itxura artega?”. Juan Garzia

iraizi ik **iraitzi**.

**iraizkin** *iz* gorputzetik iraizten den hondakina.

Azido urikoa, gizonaren eta ugaztunen jariakinetan urri-urria, txorien **iraizkinen** ehuneko 50 dela, eta narrastien **iraizkinen** ehuneko 90. Juan Garzia

Nor uste nuen nintzela, beren aurrean horrela aurkezteko, alegia deus ez, pitoi-**iraizkinak** eskatuz? Juan Garzia

**iraizoztar** *izlag* Iraizozkoa, Iraizotzi dagokiona.

Bertso Ligan, bost gaztek lehen aldiz parte hartu dute: Xabi Salbador barañaindarrak, Ekaitz Astiz **iraizoztarrak,** Iker Iriarte astiztarrak, Mizel Mateo bidarraitarrak eta Iñaki Aleman iruritarrak. Berria - Kultura

**iraizpen** *iz* iraiztea.

**Iraizpen,** [...] hitzontzikeriaren aurkako erremedio frogatua. Xabier Olarra

---

## iraka *iz* landare lastoduna, gariaren antzekoa, laboreentzat kaltegarria eta erauzten zaila *(Lolium tremolemtum).*

Alferrik dela bizitzako kasuak garia eta **iraka** bereiztea balitz bezala epaitu nahi izatea. Jon Alonso

**Iraka** eta bertze belar gaixto guztiak ebaki egin behar zirela eta sutarat jaurtiki. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iraka eta** (3)

---

## irakas (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **irakats** g.er.; ik **irakatsi**[1])

Vaquerizaren **irakas**-teknika ez dakit Sobiet Batasunekoa ala berak asmatua ote zen, ez dakit eragingarria zen ere: gela batean edukitzen gintuen, dena estatua txuriz betea, eta haietakoren bat marraztu behar genuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez noski **irakas**-jarduna denentzat denean, ikasleei banaka ari natzaienean baizik. Joxerra Garzia

Ondorio horretara heldu da **Irakas**-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea (ISEI), Pisa ebaluazio azterketaren emaitzaren bigarren irakurketa egitean. Berria - Harian

Teknologia berriak **irakas** eta ikas-baliabide moduan erabiltzea, curriculum arruntean txertaturik. Berria - Euskal Herria

Hau nire **irakats** gela izan zen hiru urtez. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irakas sistema** (7); **irakas sistema ebaluatu** (6)

---

irakasaldi ik **irakastaldi**.

---

## irakasbide *(ETCn 184 agerraldi; orobat **irakaspide** ETCn 15 agerraldi, eta **erakasbide** g.er.)* **1** *iz* zerbait irakasteko bidea. ik **ikasbide**.

**Irakasbide** hauetan hezten zituen aita onberak bere seme berriak, ez hitzez eta ahoz bakarrik, baizik eta egitez eta egiaz batez ere. Askoren artean

**Irakasbiderako** liburu aproposak. Monika Etxebarria

Wolffen **irakaspidea** eta aldi berean arrazoimen hutsaren jardunbidea bera ere arbuiatzen dituztenek zientziaren girgiluetatik askatzeko asmoa besterik ez dute, eta lana jolas, ziurtasuna iritzi eta Filosofia filodoxia bihurtzeko asmoa. Ibon Uribarri

Horrenbestez, honako hau zen **irakasbidea:** norbera prestua izanda ere, bizitzako ezbeharrak onddoak bezala ateratzen dira eta piztiak bezala sufritzera behartzen zaituzte. Pello Lizarralde

**Irakasbidea:** Zein da ipuin honetatik atera behar duguna? J.M. Olaizola "Txiliku"

Sentimenduaren bide errazetik jotzea bertuterantz, eta gaiztakeriatik urruntzea, arazoei ihes egin beharra azpimarratuz, hutsik egiten ez duen **irakasbidea** baita hau. Juan Martin Elexpuru

Lehenari behatu eta aukeren ondorio noraezekoak baino ezin ikus ditzakegu, eskarmentu edo **irakasbide**. Berria - Kultura

Eskola elebidünetan beste 140 haurrek ikasgei zonbait eüskaraz dütüela kontütan hartürik ere, eüskararen **irakasbidea** zinez kinta txarrean dela erraiten ahal da, zorigaitzez. Herria

**2** (izenondo batekin)

Iazko Ligako Finala **irakasbide** ona izan da eta ikasi dugu. Berria - Kirola

**Irakasbide** ederra izango da horrelako gizon bat ezagutzea. Jose Morales

Berezko buruargitasunari esker, susmatzen zuen ez zela horrela irakatsi behar, baina ez zekien zein zen **irakasbide** zuzena. Jose Morales

Orain erretiratua delarik ere segitzen du **erakasbide** elebidunaren inguruan bai eskola publikoetan bai Seaskako ikastoletan. Herria

---

## irakasgai *(orobat **erakasgai** g.er.)* **1** *iz* ikasketa plan bat osaten duten gaietako bakoitza. ik **ikasgai**.

Orduraino **irakasgaiak** hartzen ziren kontuan: ikasketa bakoitzak honenbeste **irakasgai** ditu, ikasturteetan honela antolatuak daudenak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Irakasgai** gehienak lauhileko bihurtzen dira ikasketa plan berrian. Joxerra Garzia

**Irakasgai** hauek, aldi berean, anitzez ere gehiago ziren kopuru aldetik, eta anitzez ere beteago ikasi behar ziren gaien aldetik. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ikasturte horretan hartu nahi zituen **irakasgaiez** hitz egiten hasi ginen, zikloez eta kredituez, eta matrikula baldintzez. Iban Zaldua

Matematika da **irakasgairik** desatseginena. Berria - Harian

**Irakasgai** horretako ekaineko azterketa sekulako pagotxa izan zen. Iban Zaldua

Lau **irakasgai** gainditu zituen, eta azkenean, Kimikako azterketan gutxiegi eman zioten. Josu Zabaleta

Ezingo da ikasturtea igaro bi **irakasgai** gainditu gabe utziz gero. Berria - Euskal Herria

Enborreko **irakasgaiak**. Berria - Euskal Herria

**Irakasgai** horiek hautazkoak dira filologiako ikasleentzat. Berria - Euskal Herria

Laster **irakasgai** guztiak euskaraz eskainiko direla. Berria - Euskal Herria

Artearen Historia **irakasgairako** lan bat egitea erabaki genuen. Iban Zaldua

Bete behar diren baldintzak: **irakasgaiari** loturiko lizentzia.

**Irakasgai** bakarra neukan, baina bi talde. Joxerra Garzia

**2** irakasten den gaia; ikasi behar den gaia.

Titinek **irakasgai** zailenaren azterketa jarri zuen: erremateena. Berria - Kirola

Goi mailako futbolean hasi berria den gazte batentzat, horrelako jokalariak dira **irakasgairik** gogorrena. Berria - Kirola

Paranoia krisia jasan nuen eta nabaritu ere klandestinitate osoaren lehen **irakasgaiaren** egiaztatzeko ordua jin zitzaidala. Itxaro Borda

Ez zela komeni alde egitea, alde eginez gero galduko zutela iraultzaren **irakasgaia**. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bi irakasgai** (4); **da irakasgai** (3); **eta irakasgai** (3); **euskarazko irakasgai** (3); **hainbat irakasgai** (3); **irakasgai bat** (9); **irakasgai batzuk** (3); **irakasgai guztiak** (4); **irakasgaiari loturiko** (7); **irakasgaiari loturiko lizentzia** (7)

## irakasgarri *(orobat **erakasgarri**)* *izond* zerbait irakasten duena.

Pasadizoa **irakasgarria** da: irakasten duelako, ez batak eta ez besteak ezagutzen duela Herder. Joxe Azurmendi

Nahiago dut besteentzat **irakasgarri** izango diren bost hitz ulergarri esan, hizkera ulertezinean hamar mila baino. Elizen arteko biblia

Oren pare bat iraun du ohart gabean, hain ziren ohargarri eta sarkor hor entzun ditugun solas **erakasgarriak**. Herria

Apez suhar bat, bide **erakasgarria** bizi duena. Herria

---

## irakaskera *iz* irakasteko era.

Rufino Arrolak **irakaskera** bitxia eukan. Xabier Amuriza

---

## irakasketa *(orobat **erakasketa**)* *iz* irakastea. ik **ikasketa**.

Gure eskolan ibiltzen diren haurren burrasoek, joanden astean bi egunez, okupatu dute eskola, erakasle bat gutiagorekin nahi baidiote eginarazi **erakasketa**. Herria

**Irakasketa**-prozesu luzea. Karlos Linazasoro

---

## irakaskide *iz* ikastetxe bereko irakaslea. ik **irakaslekide**.

**Irakaskide** gehienak kontrako iritzikoak ziren. Joxerra Garzia

Hori zela eta, **irakaskide** batzuk irakasle izan nituen bolada batez. Joxerra Garzia

Halako klabe ezezagun batean hasi dela hizketan orain, "ikastolako hizkeran", eta hola mintzatzen dela **irakaskideekin**. Pello Salaburu

Leioan **irakaskide** dudan MLk ere merezi du esker oneko aipamena. Joxerra Garzia

---

## irakaskintza *iz* irakaskuntza.

Hinduismoa, bere izatez eta **irakaskintzaz,** beste er-lijioekin eta pentsamoldeekin nahiko eramankor eta begirunetsu da. Gotzon Garate

---

## irakaskizun *iz* irakastea, irakaspena. ik **ikaskizun**.

Teoria etiko horien garapen historikoari dagokionez, Erdi Aroko filosofian Tomas Akinokoa da, moral eta politika arloan, aristotelismoaren **irakaskizunak** lantzen dituen filosofoa. Askoren artean

---

## irakaskuntza *(orobat **erakaskuntza** g.er.)* **1** *iz* irakastea; irakastea hornitzen den bitarteko, bide eta pertsonen multzoa.

Ikerketa **irakaskuntza** bezain inportantea den leku batean bizi. Lourdes Oñederra

1904an **erakaskuntza** debekatua zaie kongregazioei. Xipri Arbelbide

Maimonek **irakaskuntzon** xedeak azaltzen ditu, eta beraiez ohar gaitezen lortzen saiatzen da. Xabier Kintana

Ez da egokia, hortaz, **irakaskuntzan,** zailen eta sakonenetik hastea. Xabier Kintana

Nola antolatzen den **irakaskuntza,** nola ikerkuntza, eta nola unibertsitateak gizarteratzen duen bere jakinduria. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Baliabideak **irakaskuntza** eta ikerkuntza egokiagoak egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Herri hizkerak **irakaskuntzan** aintzakotzat hartu beharraz. Koldo Zuazo

1900ean, bigarren **irakaskuntzako** 59 Institutu zibil bakarrik zegoen Estatu espainol guztian. Joxe Azurmendi

**Irakaskuntza** ertaineko ikasleentzat. Berria - Kultura

Iraila iristean, bigarren mailako **irakaskuntzan** sartuko ziren. Iñaki Mendiguren

Irakasleak ez dira **irakaskuntzan** parte hartzen duten langile bakarrak. hemezortzi urte egin ditut **irakaskuntzan**. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Liburu hau urtetako **irakaskuntzaren** emaitza da. Lourdes Oñederra

Atenasera itzultzean, Akademian jarraitu zuen **irakaskuntzan**. Askoren artean

Aristotelesek dozena bat urtetan jarraitu baitzion Platonen **irakaskuntzari**. Askoren artean

Helburua euskarazko **irakaskuntza** sustatzea da. Berria - Euskal Herria

Bertsolaritza hizkuntza edo literaturaren **irakaskuntzarako** eduki eta osagarri bezala erabiltzea. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Urteetako fraide eta apaizen **irakaskuntzak** ateo eta ezkertiar bihurtu ninduten. Xabier Mendiguren Elizegi

**Irakaskuntzako** hiru sareek, pribatuak, publikoak eta Ikastolek. Berria - Euskal Herria

Arturo Martinez Rosek, CCOOko **Irakaskuntzako** arduradunak. Berria - Euskal Herria

**Irakaskuntzako** profesionalei dei egin zien hedabideak erabiltzeko. Berria - Euskal Herria

Europako Goi **Irakaskuntzako** Eremua diseinatzeko prozesua. Berria - Euskal Herria

Euskadiko **Irakaskuntzako** Langileen Sindikatuak. Berria - Harian

Espainiako **Irakaskuntzaren** Kalitate Legearekin (LOCE). Berria - Euskal Herria

**2** (izenondo batekin)

**Irakaskuntza** publikoko kide batek. Jesus Mari Mendizabal

76 haurren gurasoek **irakaskuntza** elebiduna eskatu dute. Berria - Euskal Herria

**Irakaskuntza** akademikoarekin zuzenean loturik dauden arazoetan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Baliabideak **irakaskuntza** eta ikerkuntza egokiagoak egiteko. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Irakaskuntza** ez unibertsitarioan euskal curriculumaren inguruko eztabaida zabaldu dela. Berria - Euskal Herria

**Irakaskuntza** Publikoko Ministerioan. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Pentsamenduaren historia periodo eta eskolatan sailkatzea [...] **irakaskuntza**-sisteman ezinbestekoa izan arren, arras artifiziala da. Lehen **irakaskuntza** maila bukatu zuen Hemiteko lehenbiziko haurra izan zen. Askoren artean

**Irakaskuntza**-programen interesen arabera. Askoren artean

Berarentzat **irakaskuntza** prozesua ez zen soilik ezagueraren transmisioa. Txema Ramirez de la Piscina

Elkarrizketa berreskuratzea, **irakaskuntza** metodo gisa. Berria - Euskal Herria

Unibertsitateko **irakaskuntza** eta ikerketa jardueretan.

Literatura, publizitatea, **irakaskuntza** testuak, kazetaritza, esaera zaharrak, [...] denetan zer ikusi eta zer ikasi izango dugu. Iñaki Arranz

Eta asmoz eta asmamenaz itzuli nintzen **irakaskuntza** urteetara, orain bezala. Piarres Aintziart

Euskarazko **irakaskuntza** mota guztien eskaintza bermatzeko. Berria - Euskal Herria

Hitzarmen Berezitik kanpo gelditu zen **irakaskuntza** alorreko neurriak indarrean jartzea.

Ikastolen **irakaskuntza** eredua. Itxaro Borda

**Irakaskuntza** gaitasunak. Herria

Ez da inoiz zinezko irakaslea izan; **irakaskuntza**-erakunde eraldatu eta, bere irudiko, zikiratu honetan inoiz baino lekuz kanpoago dago. Oskar Arana

Generalitateko **Irakaskuntza** kontseilari Josep Bargallok. Berria - Euskal Herria

MITeko mintegi batean erabili zuen **irakaskuntza**-materialaren bilduma. Itziar Laka

Mende berriko **irakaskuntza** estiloei. Jon Arretxe

Lehenengo eta behin, **irakaskuntza** hizkuntzak euskara izan behar du. Berria - Euskal Herria

**Irakaskuntza** mundua betidanik berea izanen zuela argi zuen. Berria - Kultura

Gaur egun dauden **irakaskuntza** zentroak. Berria - Euskal Herria

Oihal batek bitan banatzen zuen **irakaskuntza**-gela. Jon Muñoz

**Irakaskuntza** Berrikuntzarako errektoreordea. Berria - Euskal Herria

· Udako ikastaroen **«irakaskuntza**-bilgune» izaera nabarmendu zuen mintzaldian. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Unibertsitate **irakaskuntzarako** egiten den ahalegin ekonomikoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Hizkuntz **irakaskuntzan** fonetikaren erabilera bultzatzea. Lourdes Oñederra

Nazioarteko kirol **irakaskuntzako** adituak ekarri eta kirolerako talentua duten 10 urtetik gorako mutilentzako eskola berezia sortu dute. Berria - Kirola

Gizaki guztiengandik [...] espero da erlijio-**irakaskuntzak** entzun ditzaten. Xabier Kintana

Kongresua egin zuten atzo CCOO-**Irakaskuntza** sindikatuko kideek. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bere irakaskuntza** (3); **ccoo irakaskuntza** (3); **da irakaskuntza** (3); **den irakaskuntza** (3); **derrigorrezko irakaskuntza** (5); **dute irakaskuntza** (6); **eta euskarazko irakaskuntza** (3); **eta irakaskuntza** (28); **eta irakaskuntza eta** (6); **euskal irakaskuntza** (3); **euskara irakaskuntza** (3); **euskararen irakaskuntza** (9); **euskarazko irakaskuntza** (20); **goi irakaskuntza** (4); **historiaren irakaskuntza** (3)

**irakaskuntza alorrean** (3); **irakaskuntza alorreko** (6); **irakaskuntza arloko** (3); **irakaskuntza bermatzeko** (4); **irakaskuntza bermatzen** (3); **irakaskuntza edo** (3); **irakaskuntza elebiduna** (6); **irakaskuntza ere** (4); **irakaskuntza eredua** (5); **irakaskuntza ertaineko** (3); **irakaskuntza ertaineko ikasleentzat** (3); **irakaskuntza eta** (30); **irakaskuntza eta ikerketa** (14); **irakaskuntza eta ikerkuntza** (5); **irakaskuntza ez** (4); **irakaskuntza hobetzeko** (3); **irakaskuntza izan** (3); **irakaskuntza mota** (4); **irakaskuntza oso** (3); **irakaskuntza programa** (3); **irakaskuntza prozesuan** (3); **irakaskuntza publikoa** (4); **irakaskuntza publikoak** (4); **irakaskuntza publikoan** (10); **irakaskuntza publikoaren** (6); **irakaskuntza publikoko** (18); **irakaskuntza publikoko eragileek** (3); **irakaskuntza publikoko mahaia** (3); **irakaskuntza sistema** (9); **irakaskuntza sistemak** (3); **irakaskuntza sisteman** (4); **irakaskuntza sistemaren** (4)

**eta irakaskuntzako** (6); **euskadiko irakaskuntzako** (3); **euskadiko irakaskuntzako langileen** (3); **euskararen irakaskuntzak** (3); **euskarazko irakaskuntzak** (6); **goi irakaskuntzako** (3); **irakaskuntzak eta** (3); **irakaskuntzak ez** (4); **irakaskuntzako hiru** (3); **irakaskuntzako langileen** (4); **lab irakaskuntza** (3); **mailako irakaskuntza** (3); **ohiko irakaskuntza** (3); **unibertsitateko irakaskuntza** (4); **unibertsitateko irakaskuntza eta** (3); **zen irakaskuntza** (3); **zuen irakaskuntza** (6)

**bereziki irakaskuntzan** (3); **bertsolaritza irakaskuntzan** (3); **esperientzia irakaskuntzan** (9); **esperientzia irakaskuntzan frantsesaren** (3); **estresa irakaskuntzan** (3); **eta irakaskuntzan** (13); **euskal irakaskuntzan** (3); **euskara irakaskuntzan** (7); **euskara irakaskuntzan sartzeak** (3); **euskaraduna esperientzia irakaskuntzan** (4); **irakaskuntzan aitzindari** (3); **irakaskuntzan aurrera** (3); **irakaskuntzan diharduten** (3); **irakaskuntzan egin** (5); **irakaskuntzan ere** (7); **irakaskuntzan eta** (8); **irakaskuntzan ez** (5); **irakaskuntzan frantsesaren** (3); **irakaskuntzan frantsesaren ezagutza** (3); **irakaskuntzan izan** (3); **irakaskuntzan lan** (4); **irakaskuntzan sartzeak** (3)

**da irakaskuntzaren** (3); **espainiako irakaskuntzaren** (3); **espainiako irakaskuntzaren kalitate** (3); **eta euskarazko irakaskuntzaren** (6); **eta irakaskuntzaren** (8); **euskal irakaskuntzaren** (3); **euskararen irakaskuntzaren** (4); **euskararen irakaskuntzari** (3); **euskarazko irakaskuntzaren** (25); **euskarazko irakaskuntzaren alde** (5); **euskarazko irakaskuntzaren aldeko** (4); **euskarazko irakaskuntzaren eskaintza** (3); **euskarazko irakaskuntzari** (10); **euskarazko irakaskuntzari behar** (3); **irakaskuntzaren alde** (7); **irakaskuntzaren aldeko** (4); **irakaskuntzaren alorrean** (4); **irakaskuntzaren bitartez** (3); **irakaskuntzaren eskaintza** (3); **irakaskuntzaren esparruan** (3); **irakaskuntzaren inguruko** (3); **irakaskuntzaren kalitate** (5); **irakaskuntzaren kalitatea** (6); **irakaskuntzaren munduan** (3); **irakaskuntzari behar** (3); **irakaskuntzari buruz** (4); **irakaskuntzari dagokionez** (5)

---

# irakasle *(orobat* ***erakasle*** *g.er.)* **1** *iz* irakasten duen pertsona; irakaskuntzan ari den pertsona. ik **maisu**.

**Irakasle** asko izan ditut, maisu gutxi. Joxerra Garzia

Zure prezeptorea naizen neurrian, **irakasle** ez ezik zure lagun ere izan nahi nuke. Joan Mari Irigoien

**Irakasle** hori unibertsitateko katedraduna baldin bada. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Irakasle** bati eraso diogu. Iñaki Mendiguren

Bila ezazu beste bizimodu bat, **irakasle** jauna. Oskar Arana

Zer eta eskola barregarri bat topatzen zuen, ikasleek **irakasleari** iseka egiten ziotena. Josu Zabaleta

Binns **irakaslea** bere oharrak hartu eta irakurtzen hasi zen ahots motel monotonoarekin. Iñaki Mendiguren

**Irakasleok** jendeak uste baino fantasia gehiago dugu. Bernardo Atxaga

Ondoren, nire **irakasleengandik** jasotakoak azalduko ditut. Santiago Iruretagoiena

Haydn **irakasletzat** zuen Mozartek, eta haren omenez sei koarteto konposatu zituen. Berria - Kultura

· Bilbao Orkestra Sinfonikoko bederatzi **irakasle** Joan Krisostomo Arriagaren eta Pablo Sarasateren obrari buruzko mintegi bat ematen ari dira. Berria - Kultura

**2** (izenondo batekin)

Nolanahi ere, unibertsitatearen zama **irakasle** ikertzaileek izango lukete. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Irakasle** finko gehiago egoteko. Berria - Euskal Herria

**Irakasle** egonkorren auzian. Berria - Euskal Herria

Gera nintekeela han uda bitartean ere, **irakasle** laguntzaile moduan. Joxerra Garzia

Ordurako **irakasle** titularra bilakatua zen. Iban Zaldua

Gerta liteke katedrari uko egin behar izatea **irakasle** kontratatu gisa baldintza hobeak izango lituzkeelako, baina orduan **irakasle** "oso" horren estatusa galduko luke. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**Irakasle** funtzionarioen eta kontratatuen arteko desoreka. Berria - Euskal Herria

**Irakasle** ez-funtzionarioak kontratatzeko modua. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Legeak dio unibertsitateak gehienez ere lau urterako kontratatuko dituela **irakasle** atxikiak. Berria - Euskal Herria

EHUn dauden **irakasle** elebidunak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Institutuko **irakasle** doktore batek. Berria - Euskal Herria

Walsh Atzerri Eskolan, **irakasle** gonbidatu gisa, Lidergo Globalari buruzko seminarioan. Berria - Euskal Herria

**Irakasle** ohi batek argitaratutako artikulu txiki bat. Fernando Morillo

**Irakasle** kaleratuen auzian. Berria - Euskal Herria

Gymnasiumeko **irakaslerik** gogaikarriena, herr Haspern, filosofiakoa. Anjel Lertxundi

**Irakasle** euskaltzaleak izan zituen, Don Manuel Lekuona eta Don Joxemiel Barandiaran besteak beste . Mikel Hernandez Abaitua

Hori bera ezin argiago adierazten du gure **irakasle** kartsu eta jakintsuak bere 3. liburuko 12. kapituluan. Piarres Xarriton

**Irakasle** heldu bat, bere andreaz aspertuta kutizia ero bat hartua bere ikasleetariko batekin. Xabier Mendiguren Elizegi

**3** (izenlagun batekin)

Martin Azpilkueta nafartar **irakasle** Frantziatik etorri berriari. Piarres Xarriton

Ikastoletako **irakasle,** guraso eta laguntzaileen iritziak. Berria - Euskal Herria

Institutuko **irakasle** eta langileek. Berria - Euskal Herria

Leyden-go Unibertsitateko **irakasle** egin berri zaituzte. Joan Mari Irigoien

EHUko **irakasle** Asier Fullaondok ongi ezagutzen du transgenikoen gaia. Berria - Harian

Etikako **irakaslea** ez da etikaren **irakaslea**. Joxe Azurmendi

Latin literaturako **irakasle** bati entzundakoa ekarri nuen harira. Bernardo Atxaga

Matematikako **irakaslea** oso bestelakoa zen biologiako **irakaslearen** aldean. Eskarne Mujika

Latineko **irakaslea** zen Columbiako Unibertsitatean. Xabier Olarra

Hizkuntza Modernoetako **irakasle** izan zen garai batean. Oskar Arana

Jaime euskarako eskolak ematen hasi zen institutu batean, behin-behineko **irakasle** gisa. Iban Zaldua

Eskarmentu handiko **irakasle** bat jarri ziguten. Joxerra Garzia

• **4** (predikatu gisa)

Hori zela eta, irakaskide batzuk **irakasle** izan nituen bolada batez. Joxerra Garzia

-Eta nor izango ote dugu **irakasle**? -esan zuen Hermionek. Iñaki Mendiguren

Leongo mendialdeko herrixka batera joan da **irakasle**. Patxi Zubizarreta

Irratian hasi nintzenean, ez nuen uste atzera berriz **irakasle** hasiko nintzenik inoiz. Joxerra Garzia

Hogeita bi urte nituela hasi nintzen Arrasateko ikastolan **irakasle**. Berria - Kultura

Aznar **irakasle** ez hartzeko eskatu dio IBOk Georgetowngo Unibertsitateari. Berria - Euskal Herria

Hainbat urtez Oinarrizko Heziketan eta IRALEn **irakasle** jardun ondoren. Ana Urkiza

Hurrena Tolosan jardun nuen, BBBn eta UBIn **irakasle**. Joxerra Garzia

Estatubatuarrak pinturaren **irakasle** ziharduen 60ko hamarkadaren amaieran, baina laster batean ekin zion bideoa eta argazkiak lantzeari. Berria - Kultura

Jabier Muguruza Liverpoolen **irakasle**. Berria - Kultura

· Normalean, AEBetan, adibidez, unibertsitate batek askoz ere langile ez-**irakasle** gehiago ditu, irakasleak baino. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

**5** (izenondo gisa)

Irakasle eskola ez da eskola **irakaslea,** zahar etxea ez da etxe zaharra. Aipatu ditugun teologo gehienak eta beste aita **irakasle** guztiak ere. Iñaki Arranz

Jesuita **irakasle** batek gomendatuta. Berria - Euskal Herria

**6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

EHUko **irakasle** talde batek egindako ikerketa baten arabera. Txema Ramirez de la Piscina

**Irakasle**-mahairantz joan zen. Iñaki Mendiguren

**Irakasle**-gelako ate ondoan bertan geratu zen. Iñaki Mendiguren

Ordu arte ikusitako **irakasle**-bulego guztietatik, Dumbledorerena zela dudarik gabe interesgarriena. Iñaki Mendiguren

Garbi daukat zein den nire **irakasle**-eredua. Joxerra Garzia

Bere azal argiari esker onartu zuten neska beltzen **irakasle**-eskolan Pennsylvanian. Anton Garikano

Bere merituz irabazitako **irakasle** plaza ukatu nahi diote. Joxerra Garzia

Eskola pribatuetako **irakasle**-lanpostu guztiak orduantxe bete berriak zeuden. Oskar Arana

Adeitsu onartu baitu Arte Ilunen Aurkako Defentsako **irakasle**-postua betetzea. Iñaki Mendiguren

**irakasle** titulua eskuratzeko formazioan. Berria - Euskal Herria

Osunako unibertsitatean hartua dut **irakasle** gradua. Patxi Ezkiaga

**Irakasle**-jardunean hartutako erraztasun batez ahotsa goratuz. Oskar Arana

Alkoholizatuta zegoen [...] baina nahiko itxuran eusten zion, eguerdi arte behintzat, **irakasle**-jardunbideari. Anjel Lertxundi

Basozain-lanaz gain **irakasle**-lan hori ere egitea onartu baitu. Iñaki Mendiguren

Donostiako **Irakasle** Eskolara. Berria - Euskal Herria

Sekula izan dudan **irakasle**-urterik gogoangarrien eta gozagarrienean. Joxerra Garzia

**Irakasle** kopurua gastuaren erreferentziatzat hartzen badugu. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Ez nuen topatu **irakasle**-maila onik. Xabier Mendiguren Elizegi

Enpresaburuen nahiak eta unibertsitateko **irakasle**-ikertzaileenak ez datozela beti bat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Batzar irekia izan zen eta, gehienbat, idazle eta **irakasle** jendea bildu zen bertara. Koldo Zuazo

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jose izeneko fraidea genuen filosofia **irakasle** eta tutore. Joxerra Garzia

Hamazazpi urte zituela, Edinburgon kimika-**irakasle** zen Lyon Playfair-en irakaspenak jasotzera bidali zuten. Irene Aldasoro

Boris Ephrussi-k, Frantzian izan den lehenbiziko genetika-**irakasleak**. Juan Garzia

Hilabete batzuez musika **irakasle** aritu zen Munichen. Alberto Ladron Arana

Eski-**irakasle** batek bezala daki eskiatzen! Fernando Rey

Nahiz [...] bost unibertsitatetan berrogei urtez hurbil **zuzenbide** irakasle izan naizen [...]. Piarres Xarriton

Andre Virginiak ikastetxe bateko hizkuntza-**irakasle** italiartzat aurkeztu zuen. Josu Zabaleta

Matxin Labaien zen Tolosako pintura-**irakasle** hura. Xabier Mendiguren Elizegi

Hoa ahoskatze-**irakasle** on batengana eta eskaiok azentu hori moldatzeko. Fernando Rey

Kerrn haren moduko goi-**irakasle** batek. Juan Garzia

· Eskuin besoa galdu nuen, ezingo nion aurrerantzean nire piano **irakasle** postuari eutsi. Harkaitz Cano

Hainbat urtetan euskara **irakasle** lanetan ibili ondotik, banuen aldatzeko gogoa. Berria - Kultura

**8** ***irakasle agregatu*** katedratikoaren hurrengo maila duen irakaslea.

**Irakasle agregatu** izan nahi duten hautagaiek eskakizun hauek bete behar dituzte: doktore titulua izatea; gutxienez hiru urteko esperientzia egiaztatzea unibertsitateko irakaskuntza eta ikerketa jardueretan; eta irakaskuntza eta ikerketa jarduera horien gaineko ebaluazio positiboa edukitzea. Berria - Euskal Herria

EAEko Unibertsitate Legearen bost pasarte eraman ditu auzitara Espainiako Gobernuak: **irakasle agregatu** eta laguntzaile bihurtzeko hautagaien gaitasuna epaitzeko metodoa; unibertsitate titulu propioak emateko ahalmena. Berria - Euskal Herria

**Irakasle agregatuak** arautzen ditu. Berria - Euskal Herria

**9** ***irakasle-ordezko***

Azpilkuetak behin batean **irakasle-ordezko** baten lanik baizik ez zuen egin ahal izan. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**anatomiako irakasle** (5); **aurkako defentsako irakasle** (5); **baina irakasle** (14); **batean irakasle** (13); **batean irakasle edo** (5); **batek irakasle** (5); **bere irakasle** (17); **beste**

irakasle (29); beste irakasle bat (5); bi irakasle (17); da irakasle (16); defentsako irakasle (5); den irakasle (10); deustuko unibertsitateko irakasle (6); dira irakasle (8); diren irakasle (8); du irakasle (9); duen irakasle (6); dut irakasle (5); dute irakasle (8); duten irakasle (7); edo irakasle (12); ehuko irakasle (39); ehuko irakasle eta (11); ekonomia irakasle (6); ere irakasle (5); eskolako irakasle (13); eta ehuko irakasle (6); eta irakasle (143); eta irakasle bat (6); eta irakasle lanetan (5); euskara irakasle (6); ez irakasle (5); fakultateko irakasle (10); filosofia irakasle (12); gero eta irakasle (5); gure irakasle (17); hainbat irakasle (9); herriko unibertsitateko irakasle (8); historia irakasle (5); ikasle eta irakasle (21); ikasle irakasle (9); ikastetxe batean irakasle (5); ikastolako irakasle (6); ikastolan irakasle (5); institutuko irakasle (7)

irakasle alu (5); irakasle aritu (5); irakasle asko (16); irakasle askok (15); irakasle bakar (9); irakasle bakoitzak (7); irakasle bat (80); irakasle bat behar (6); irakasle batek (70); irakasle batekin (11); irakasle baten (30); irakasle bati (26); irakasle bati eraso (5); irakasle batzuek (12); irakasle batzuen (8); irakasle batzuk (16); irakasle berriak (10); irakasle bezala (7); irakasle da (17); irakasle den (8); irakasle edo (20); irakasle edo hezkuntza (5); irakasle ere (10); irakasle eskolako (10); irakasle eskolan (14); irakasle eta (205); irakasle eta gurasoak (5); irakasle eta gurasoek (7); irakasle eta idazle (5); irakasle eta idazlea (5); irakasle eta idazleak (8); irakasle eta ikasle (11); irakasle eta ikertzaile (7); irakasle euskaldun (6); irakasle euskaldunak (6); irakasle euskaldunen (8); irakasle ez (10); irakasle ez diren (5); irakasle funtzionarioen (6); irakasle gazteak (5); irakasle gehiago (7); irakasle gehienak (12); irakasle gelako (5); irakasle gisa (25); irakasle gonbidatu (8); irakasle guztiak (16); irakasle guztiek (19); irakasle guztien (9); irakasle harekin (5); irakasle haren (5); irakasle hark (8); irakasle honek (5); irakasle hori (11); irakasle horiek (18); irakasle horien (9); irakasle horrek (6); irakasle hura (9)

irakasle izan (61); irakasle izan zen (21); irakasle izana (6); irakasle izandako (5); irakasle izateko (20); irakasle izendatu (5); irakasle jardun (7); irakasle jauna (16); irakasle juduak (5); irakasle juduaren (5); irakasle kontratatu (10); irakasle kontratatuen (16); irakasle lagun (8); irakasle laguntzaile (10); irakasle laguntzaileak (9); irakasle lanean (7); irakasle lanetan (13); irakasle moduan (6); irakasle mota (5); irakasle ohi (10); irakasle ohiak (13); irakasle on (5); irakasle ona (14); irakasle onak (6); irakasle oso (6); irakasle plaza (6); irakasle postu (12); irakasle postuak (11); irakasle talde (14); irakasle talde batek (9); irakasle titularra (5); irakasle titulua (6); irakasle txarra (6); irakasle zaharrak (14); irakasle zein (5); irakasle zen (9)

izan zituen irakasle (8); izan zuen irakasle (9); lehen irakasle (5); literatura irakasle (5); literaturako irakasle (5); matematika irakasle (6); matematikako irakasle (8); musika irakasle (12); neure irakasle (5); nire irakasle (16); nuen irakasle (5); oso irakasle (6); psikologia irakasle (6); publikoko irakasle (5); sei irakasle (5); unibertsitate irakasle (9); unibertsitatean irakasle (14); unibertsitateko irakasle (84); unibertsitateko irakasle eta (21); zaragozako unibertsitateko irakasle (8); zein irakasle (5); zen irakasle (22); zion irakasle (6); ziren irakasle (11); zituen irakasle (13); zuen irakasle (26)

da irakaslea (8); dantza irakaslea (5); deustuko unibertsitateko irakaslea (8); duen irakaslea (5); ehu ko irakaslea (8); ehuko irakaslea (47); ehuko irakaslea eta (8); ehuko kimika irakaslea (7); ekonomia irakaslea (6); eskolako irakaslea (18); eskolako irakaslea da (9); eta ehuko irakaslea (7); eta irakaslea (24); euskara irakaslea (6); fakultateko irakaslea (32); fakultateko irakaslea da (8); filosofia irakaslea (9); frantseseko irakaslea (7); genetika irakaslea (8); gure irakaslea (7); historia irakaslea (14); informatika fakultateko irakaslea (6); institutuko irakaslea (8); irakaslea da (122); irakaslea da eta (9); irakaslea ere (14); irakaslea eta (59); irakaslea eta idazlea (5); irakaslea ez (13); irakaslea izan (37); irakaslea izan da (5); irakaslea izan zen (14); irakaslea izango (6); irakaslea naiz (13); irakaslea zen (16); kimika irakaslea (9); ko irakaslea (11); lehen irakaslea (5); literatura irakaslea (5); literaturako irakaslea (7); lurie irakaslea (5); matematika irakaslea (5); matematikako irakaslea (8); nire irakaslea (8); psikologia irakaslea (6); soziologia irakaslea (14); unibertsitateko irakaslea (68); unibertsitateko irakaslea da (19); unibertsitateko irakaslea eta (7); unibertsitateko irakaslea izan (5); unibertsitateko soziologia irakaslea (6); zen irakaslea (7); zibileko irakaslea (5); zientzien fakultateko irakaslea (6); zuzenbide zibileko irakaslea (5)

baina irakasleak (10); bartzelonako unibertsitateko irakasleak (7); behar du irakasleak (7); binns irakasleak (8); da irakasleak (5); dira irakasleak (7); diren irakasleak (8); ditu irakasleak (5); du irakasleak (22); duten irakasleak (12); ehuko irakasleak (73); ehuko irakasleak eta (9); eskolako irakasleak (14); eta ehuko irakasleak (10); eta irakasleak (69); ez irakasleak (6); fakultateko irakasleak (11); genetika irakasleak (7); gure irakasleak (10); historia irakasleak (5); idazle eta irakasleak (9); ikasleak eta irakasleak (5); institutuko irakasleak (9); irakasleak azaldu (10); irakasleak azaldu zuenez (5); irakasleak berak (5); irakasleak bere (18); irakasleak beste (5); irakasleak bilatzen (5); irakasleak bilatzen ditu (5); irakasleak dioen (7); irakasleak dira (15); irakasleak egin (5); irakasleak ere (22); irakasleak eta (55); irakasleak euskalduntzeko (7); irakasleak ez (18); irakasleak ez zuen (6); irakasleak izan (5); irakasleak izango (5); irakasleak kontratatzeko (8); irakasleak prestatzeko (7); irakasleak ziren (5); kontratatutako irakasleak (6); matematikako irakasleak (5); nire irakasleak (6); nupeko irakasleak (5); truxa irakasleak (11); unibertsitate irakasleak (12); unibertsitateko irakasleak (57); zein irakasleak (6); zigun irakasleak (7); zion irakasleak (9); zuen irakasleak (26)

berlingo irakaslearen (6); diren irakasleek (12); dute irakasleek (9); duten irakasleek (8); ehuko irakaslearen (12); ehuko irakasleek (13); eta irakaslearen (15); eta irakasleei (7); eta irakasleek (34); eta irakasleek ez (5); eta irakasleekin (11); euskaltegietako irakasleek (7); hezkuntzako irakasleek (5); ikasleek eta irakasleek (6); irakaslearen aburuz (5); irakaslearen arabera (18); irakaslearen esanetan (17); irakaslearen eta (6); irakaslearen etxeko (5); irakaslearen hitzak (10); irakaslearen ustez (16); irakasleei buruz (6); irakasleei eta (8); irakasleek beren (10); irakasleek ere (16); irakasleek eta (21); irakasleek ez (27); irakasleek ez dute (12); irakasleekin eta (6); unibertsitateko irakaslearen (12); unibertsitateko irakaslearen esanetan (6); unibertsitateko irakasleek (10); zion irakasleari (6)

bi irakaslek (6); da irakasleen (9); diren irakasleen (11); duten irakasleen (16); ehuko irakasleen (7); eta irakasleen (41); eta irakasleentzat (6); ez duten irakasleen (5); galdu duten irakasleen (5); ikasle eta irakasleen (7); irakasleen aldetik (7); irakasleen artean (25); irakasleen arteko (8); irakasleen egonkortasuna (11); irakasleen eta (20); irakasleen eta ikasleen (5); irakasleen kopurua (8); irakasleen lan (5); irakasleen lana (14); irakasleen prestakuntza (11); irakasleen soldata (6); irakasleen soldatak (6); irakasleetako bat (6); irakasleren bat (12); irakasleren batek (7); unibertsitateko irakasleen (5); zen irakasleen (5); zenbait irakaslek (7); ziren irakasleen (5)

---

## irakaslegai *iz* irakasle izateko prestatzen ari den pertsona.

Estatuak, bestalde, irakasleen prestakuntza bermatu eta **irakaslegaien** kopurua handitu beharko du. Berria - Euskal Herria

Gaur irakasle titulua eskuratzeko formazioan, **irakaslegaiak** formazio teorikoa egin behar du lehen urtean. Berria - Euskal Herria

Sindikatuek prekarietate sistemaren desagertzea eta **irakaslegaien** titularizazioa bultzatuko dute. Berria - Euskal Herria

---

## irakaslego 1 *iz* irakasletza.

Portugaleko erreinua utzi zuen, **irakaslegoari** uko egin ondoan idazlanetan soilik eraunsteko gisan. Piarres Xarriton

**Irakaslegoa** utzia zuela eta gehienetan Baionako izeba mutxurdinaren etxean bizi zela. Daniel Landart

**2** irakasleria, irakasleak.

PSOEren Gobernuaren testuak dio bermatuko dela **irakaslegoaren** berezko trebakuntza. Berria - Euskal Herria

---

## irakaslekide *(orobat **erakaslekide**)* *iz* ikastetxe bereko irakaslea. ik **irakaskide**.

Bazuen ordea, garai berean, Martin Azpilkuetak, Salamancako Unibertsitatean, asko miresten zuen **irakaslekide** bat, Frantzisko Vitoriakoa. Piarres Xarriton

Ikastolan **irakaslekideak** agurtu eta nire ikasgelan sartzen naiz. Iñaki Zabaleta

Milesker **erakaslekideen** partez ere. Herria

---

## irakasleria *iz* irakasleak, irakasle multzoa.

Carmen Santiago: **Irakasleria** errektoreordea. Berria - Euskal Herria

**Irakasleriaren** prestakuntzaz. Txema Ramirez de la Piscina

Campusaren sarrera nagusian, **irakasleria** propioaren aldeko aldarria degien pankarta baten atzean. Joxerra Garzia

Sare publikoko **irakasleria** sentsibilizatu eta informatu nahi dute kanpainarekin. Berria - Euskal Herria

1980. urteko hastapen haietan **irakasleria** gazteagoa zen. Berria - Euskal Herria

Ondoko urteotan **irakasleriaren** erdia berritzea aurreikusten da. Berria - Euskal Herria

**Irakasleriaren** batez besteko adina. Berria - Euskal Herria

Ikasturte hartan 92 ikasle elebidun baino ez zeuden, **irakasleriaren** %3,45, hain zuzen. Berria - Harian

Joan den asteazkenean EHU Euskal Herriko Unibertsitateko **irakasleria** grebara deitu zuten sindikatuak baikor daude. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

irakasleria propioa (5)

---

## irakaslesa *iz* emakumezko irakaslea.

Gure irakaslea, **irakaslesa,** moztaka eta nor-nori itxurakoa. Joxean Sagaztizabal

**irakasletza** **1** *iz* irakaslearen lanbidea edo jarduna.

**Irakasletzan** sorta gazte mardula genbiltzanez, lagunduko geniola agertu genion, eta bera pozik. Pello Zabala

**2** irakasle ikasketak.

Egin ezazu **Irakasletza,** sar zaitez lanean, eta hitz egingo dugu. Berria - Euskal Herria

---

**irakasmen** *iz* irakaspena.

Jainko Salbatzaileak Jondoni Petiriri hitzeman dio ez dela sekulan enganatuko bere **irakasmenetan** . Xipri Arbelbide

---

**irakaspen** *(orobat* ***erakaspen****)* **1** *iz* norbaitek irakasten dituen ideien, adigaien, jokamoldeen multzoa.

Hango senideei **irakaspen** hau ematen hasi ziren: "Moisesengandiko usadioaren arabera erdaintzen ez bazarete, ez zaitezkete salba". Elizen arteko biblia

Mundu, jende guziei Jesusek eman **irakaspena** :"Denek elgar maita ezazue". Herria

Esopok **irakaspena** ateratzen du ondoren: jainkoaren aurrean ezin da ezer ezkutatu, hari ezin zaio zioirik sartu. Juan Kruz Igerabide

Jaits bedi nire **irakaspena** euria bezala, isur bitez nire esanak ihintza bezala. Elizen arteko biblia

Ene seme, ez ahaztu nire **irakaspena** eta izan gogoan nire aginduak. Elizen arteko biblia

Zeren haren Espirituak dena irakasten baitizue, eta **irakaspen** hau egiazkoa da eta ez gezurrezkoa. Elizen arteko biblia

Nire onetik ateratzen nau Elizaren **irakaspenak** . Karlos Zabala

Ez dezagun bederen nehoiz ahantz bizitze iraganak eman **irakaspena** ! Piarres Xarriton

Beharbada ahaztu dugu Lafitte-Tournier-en **irakaspena** *cité, pays* adieran, herria baita eta *citoyen,* herritarra. Andres Urrutia

**Irakaspen** ona izan liteke izurria. Gotzon Garate

Irlandako prozesuko **«irakaspen»** bat aipatu zuen: prozesua zenbat eta gertuago, aldeetako batek -hots, ezker abertzaleak- orduan eta eraso gehiago jasango dituela. Berria - Euskal Herria

**Irakaspena,** ez da gandorra behar baino gorago ibili behar. Joseba Urteaga

Zein da zuen ikerketatik atera behar den **irakaspen** nagusia? Berria - Gaiak

**2** *pl*

Nik emandako **irakaspenak** zintzo gordetzen baitituzue. Elizen arteko biblia

**Irakaspen** okerrak zabalduz. Elizen arteko biblia

Denak apostoluen **irakaspenak** entzuteari eta elkarte-bizitzari emanak bizi ziren. definizio Horrek bere baitan biltzen zituela Pio XII.aren, eta Vatikanoko II. kontzilioaren **irakaspenak** . Elizen arteko biblia

Seme, entzun aitaren oharrak eta ez baztertu amaren **irakaspenak** . Elizen arteko biblia

Entzun arretaz jakintsuen esanak, gogoan hartu nire **irakaspenak** . Elizen arteko biblia

Krisiaren **irakaspenak** . Berria - Euskal Herria

2001eko irailaren 11tik atera dituen **irakaspenak** . Edurne Elizondo

Historiak eman zien horretarako **irakaspenik** ugari. Jokin Urain

Arrazoimen hutsaren kritika bi zatik osatzen dute aurkibideak dioenaren arabera: osagaien **irakaspen** transzendentalak eta metodoaren **irakaspen** transzendentalak. Ibon Uribarri

Sabethek hasieratik hartua zuen bere gain Baedeker-a zabaldu eta niri **irakaspenak** emateko erantzukizuna. Joxe Austin Arrieta

Hamazazpi urte zituela, Edinburgon kimika-irakasle zen Lyon Playfair-en **irakaspenak** jasotzera bidali zuten. Irene Aldasoro

Sarriegik arretaz jarraitu zien Santesteban maisuaren **irakaspenei** . Askoren artean

Errepublikako eskoletan ezin omen da frantsesez ez den **irakaspenik** eman. Herria

Onartzen ere dugu, ederresten, holako ikastetxe batean **erakaspenak** euskaraz litezkela behar eman, Euskal Herri guziak buruzagi berak ukanez geroz, bai eta mintzai bera. Piarres Xarriton

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

D **irakaspen** modeloari ateak zabaltzen dizkio erakaskuntza publikoak. Herria

Ez gaitezen haur izan, edozein **irakaspen** -haizek astinduak eta harat-honat eramanak. Elizen arteko biblia

Gauza ote zen isiltzeko, eta **irakaspen** -saioetan entzun zuena bere baitan gordetzeko? Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Astronomia, kosmogonia, kronologia, biologia, fisika, psikologia... txandaka guztiak hartu eta berregin ziren erlijio- **irakaspen** ezarriarekin bateraezinak ziren bideetatik. Iñaki Mendiguren

Arras zaila da kokaren urrezko garai haren laburpena egitea, baina bizitza- **irakaspen** handia eman zigun. Karlos Zabala

Bizi- **irakaspen** ederra. Jose Angel Irigaray

Apaltasun- **irakaspena** izan beharko genuke, badaezpada ere, liburuak egiten ditugun guztiok. Xabier Mendiguren Elizegi

Nork ikasten ditu errazago etika **irakaspenak,** ikasleek edo politikariek? Berria - Euskal Herria

Ez diezadala eman demokrazia **irakaspenik** . Berria - Euskal Herria

Haren bake, harmonia eta apokalipsi **irakaspenak** jaso zituzten Botticellik eta Lippik, zuzenean lehenengoak eta Savoranolaren jarraitzaileen bitartez bigarrenak, eta biek ala biek beren obretara eraman zituzten. Berria - Kultura

Esprinterrak kokapen eta konfiantza **irakaspena** eman zion Zabel zailduari. Berria - Kirola

**5** irakastea, irakaskuntza.

Euskararen **irakaspena** bermatzea. Herria

Hizkuntzaren **irakaspena** haur orori helarazteko. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

arimaren irakaspen (17); arimaren irakaspen arrazionala (3); arimaren irakaspen arrazionalaren (4); arimaren irakaspen hutsaren (3); beste irakaspen (3); eta irakaspen (19); gure jaunaren irakaspen (3); irakaspen arrazionala (3); irakaspen arrazionalaren (4); irakaspen bat (11); irakaspen ederra (3); irakaspen egiazkoaren (3); irakaspen egiazkoaren eta (3); irakaspen eta (7); irakaspen eta oinatzei (3); irakaspen hau (8); irakaspen hauek (3); irakaspen hori (3); irakaspen horren (3); irakaspen hutsaren (3); irakaspen transzendental (3); irakaspen transzendentala (4); irakaspen transzendentalaren (12); irakaspen transzendentalaren lehen (3); jaunaren irakaspen (3); jaunaren irakaspen eta (3); juzgamenaren irakaspen (5); juzgamenaren irakaspen transzendentalaren (3); metodoaren irakaspen (8); metodoaren irakaspen transzendentalaren (4); osagaien irakaspen (7); osagaien irakaspen transzendentalaren (3); zenbait irakaspen (3)

bere irakaspenaren (3); den irakaspena (3); elizaren irakaspenak (4); emandako irakaspena (3); eta irakaspenez (4); haren irakaspenak (4); haren irakaspenaz (3); haren irakaspenaz txunditurik (3); irakaspena ahaztu (3); irakaspena da (8); irakaspena dut (3); irakaspena eman (4); irakaspena ematen (3); irakaspena eta (6); irakaspena ez (5); irakaspena izan (5); irakaspenak eman (3); irakaspenak ere (3); irakaspenak eta (3); irakaspenaren arabera (3); irakaspenaren aurka (4); irakaspenaz txunditurik (3); irakaspenaz txundituirk zegoen (3); irakaspenik eman (3); irakaspenik gabe (3); izadiaren irakaspenak (3); nire irakaspena (8); nire irakaspenak (3); zure irakaspena (14); zure irakaspena dut (3)

**irakaspengarri** *(corpusean **erakaspengarri** soilik) izond* erakutsia izatekoa.

Ikus arte Jean Louis! Ereman dukan gudua **erakaspengarri** uzten daukuk, bainan hire urrats hatzetarik ibiltzea ez duk edozoinen ahaletan. Herria

---

irakaspide ik **irakasbide**.

---

**irakastaldi** *(ETCn **51** agerraldi; orobat **irakasaldi** ETCn **3** agerraldi, eta **erakatsaldi** ETCn **2** agerraldi )* irakaspena; irakasten den aldietako bakoitza.

1533ko bere **irakastaldietan,** botere politiko orori muga zehatzak jarri zizkion, hala nola, idatzi zuelarik zorrozki: *Imperator non est dominus totius orbis,* "Enperadorea ez da mundu osoaren jabea". Piarres Xarriton

Hona zein izan zen Pedro Pacheco kardinale bisitadore eta erreformazaleak Martin Azpilkueta nafartar irakasle Frantziatik etorri berriari, bere lehen **irakastaldiarentzat,** proposatu zion tesia: [...]. Piarres Xarriton

**Irakasaldi** akademikoetara ohitua dagoen gazteria. Ibon Uribarri

Bere **irakasaldian,** beste hau ere esan zien: zabiltzate kontuz lege-maisuekin! Elizen arteko biblia

---

**irakaste** *iz* zerbait ezagutaraztea, bereziki irakaspenen edo ikasgaien azalpenaren bidez.

**Irakaste** hutsa ez nuke defendatuko, baldin eta hizkuntza irakasteko baldintzak aldatzen ez badira. Berria - Euskal Herria

Elkartea ongi zuzentzen duten arduradunek estimu bikoitza merezi dute, prediku- eta **irakaste** -lanetan ari direnek batik bat. Elizen arteko biblia

---

**irakastegi** *(orobat **erakastegi**) iz* irakasteko lekua.

Errege Jaunak ordea, ez zuen izendatu epaile bat baizik eta hau biziki Argia eta Jakintsua izanagatik bere **irakastegian,** ez da gisa horretako auzien egiteko gizona. Piarres Xarriton

Gurekin zen alabainan Josette Laharrague Untxineko itsas-**erakastegiko** idazkaritzan lan egiten duena. Herria

---

**irakastordu** *iz* irakasteko ordua.

Ikasle/irakasle ratioen jaitsiera, 55 urtetik gorakoentzako murrizketak, **irakastorduen** jaitsiera. Berria - Euskal Herria

---

**irakastun** *iz* irakaslea.

Ez zakitek zer **irakastun** ona galtzen duten neskatarako. Aingeru Epaltza

Joanes! -bere besoetan estutu ninduen ezpondatar haurren **irakastunak** . Aingeru Epaltza

---

**irakatsarazi**, irakatsaraz, irakatsarazten du *ad* irakastera behartu.

Anitz gauza ikasi dut harengandik: oroz lehena, beira puzt daitekeela: hain laket zitzaidan sistema hura, ezen **irakatsarazi** ere baitiot, eta egunen batean badut asmo beruna edo brontze urtua puzten saiatzeko ere. Juan Garzia

---

**irakatsi**[1], *(orobat **erakasi** g.er. eta **erakatsi** g.er.)* , irakats *(orobat **irakas** g.er.)* , irakasten **1** du *ad* zerbait ezagutarazi, bereziki irakaspenen edo ikasgaien azalpenaren bidez.

Honela **irakatsi** zidan aitak: hartu gogoan nire hitzak eta gorde nire aginduak, bizi nahi baduzu. Elizen arteko biblia

Haiei **irakatsi** behar dizkiezun agindu, lege eta erabakiak adierazi behar baitizkizut. Elizen arteko biblia

Nork eman dio kontseilu eta argibide, nork **irakatsi** jokabide zuzena? Elizen arteko biblia

Zuzenbide kanonikoa eta zibila ikasi eta **irakatsi** baitut anitz urtez Frantzian. Piarres Xarriton

Frantseseko klaseak hartzen genituen gela berean **irakasten** nizkion zientzia gaiak. Bernardo Atxaga

Musikaren Historia **irakatsi** beharra egokitu zitzaion zenbait urtez. Imanol Zurutuza

Bertako ikasketek ez omen dute unibertsitatekoen antzik, deabruak arte magikoa, astrologia edo nekromantzia bezalako gaiak **irakasten** omen ditu-eta. Anjel Lertxundi

Gaitzespenaren doktrina Kalbinek **irakatsi** zuen. Xabier Olarra

Ahalik eta gauza gehien euskaraz **irakatsi** behar dela pentsatuz eta eskatuz. Pello Salaburu

Antropologia euskaraz **irakatsi** zuen lehen irakaslea izan zen. Berria - Kultura

Beraz, **irakatsi** dizudanez, lehen gorputzek, solidoak eta hutsune gabeak badira, eternalak izan behar dute. Xabier Amuriza

**Irakatsi** zaizuen ikasbidea bihotzez onartu duzue. Elizen arteko biblia

Nagusiak **irakatsi** zuhurtasun eta determinazioaz jokatzen zen Txoko. Itxaro Borda

Semeei **irakasten** zien hura zela perfekziorako bidea, hura betiko ondasunen bermea. Askoren artean

Gai horietarik ez dira **irakatsi** behar lehen hastapenak besterik. Xabier Kintana

Belgikako lubakiek **irakatsi** zidaten gerraz aberasten diren enpresa-gizon eta politiko ustelak gorrotatzen. Alberto Ladron Arana

Sokratesentzat bertutea ezin delako **irakatsi** . Askoren artean

Beren erretorek eta predikariek ez baitie aski **irakasten** arimak eta aingeruak ez direla gorpuztunak eta are gutiago oraino Jainko Jaun Handiena eta Hoberena. Piarres Xarriton

Jainkoaren suminak **irakatsiko** dizue haren onginahiak **irakatsi** ez dizuena. Askoren artean

Ikasi zuen tokian, hantxe **irakatsi** zuen. Askoren artean

1990. urtean Paris VIII Unibertsitatean **irakatsi** zuen. Askoren artean

Bizimodua ateratzeko jarraitzen du **irakasten,** eta lanbide horretan apaltasuna ikasten duelako ere bai. Oskar Arana

Erlatibismoak bereizketak egiten **irakats** diezaguke. Joxe Azurmendi

Zeren aipatu dugun aitzineko nozio hartaz besterik badela **irakats** bailiezaguke Hannah Arendtek. Piarres Xarriton

Hik **irakats** iezadak nola funtzionatzen duen eta neure gain bertze guztia. Koldo Izagirre

Nola **irakats** frantses gramatika ulergarri bilaka dadin. Herria

Joan eta **irakas** jende guztiei, Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean bataiatuz. Patxi Altuna

**2** zerbait egiteko jakituria edo trebetasuna eman. ik **erakutsi**[1] **2**.

Ruche jaunak ofizioa **irakatsi** zion. Jon Muñoz

Ondikotz, inork ez zidan **irakatsi** Erromako printzearen ofizialekin nola gobernatu. Aingeru Epaltza

Zahardadea nola bizi irakatsi ordez, zahardadea nola eraman **irakasten** digute. Anjel Lertxundi

Zapata-dendan ikasi zuen ofizioa eta hantxe **irakatsi** zioten bizitzen. Jasone Osoro

Ikasten **irakatsi** didan Christian Metz-i eskaintzen diot liburu hau. Josu Zabaleta

Eta zer zen azetilenoa **irakatsi** zion, zer zen oxigenoa, zein zen lehenik itxi behar zen balbula, nola hustu behar ziren hodiak gero. Koldo Izagirre

Peterrek basoaren sekretuak **irakatsi** zizkien umeei. Julen Gabiria

Zuzenak izaten **irakatsi** ziguten. Ana Urkiza

Baina ez digute geure burua maitatzen **irakatsi**. Luis Elberdin

Nik ez nekien frontoia zer zen ere berak **irakatsi** zidan arte. Berria - Kirola

Doinua ere jarri zien gorespenoi, eta bere lagunei esaten eta kantatzen **irakatsi** zien. Askoren artean

Olatu gazien gainean oinez joaten **irakatsi** ziena. Xabier Amuriza

Baina ez ziguten **irakatsi** nola fabrikatzen den bonba bat, ez eta fusila nola erabiltzen den ere. Juan Garzia

Elkar txunditzen **irakastea** ez da eskolaren egitekoa, nonbait. Joxerra Garzia

Guri hauspoa zaratarik gabe eta notak garbi jotzen **irakatsi** digute. Xabier Amuriza

Aitak **irakatsi** zian hiri katukia jaten, ez ala? Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dituzten higuingarrikeriak irakats** (3); **eta irakats** (3); **higuingarrikeriak irakats ez** (3); **irakats diezaion** (3); **irakats ez diezazkizueten** (3); **irakats iezadazu** (3); **irakats niri** (3)

**aitak irakatsi** (4); **asko irakatsi** (6); **baina irakatsi** (4); **baino gehiago irakatsi** (3); **bat irakatsi** (7); **batek irakatsi** (5); **berak irakatsi** (10); **berak irakatsi zigun** (3); **beretik irakatsi** (3); **beretik irakatsi behar** (3); **beti irakatsi** (4); **bizitzen irakatsi** (3); **dela irakatsi** (5); **deus irakatsi** (4); **dialektikak irakatsi** (3); **egin eta irakatsi** (4); **egiten irakatsi** (11); **egiten irakatsi zidan** (3); **erabiltzen irakatsi** (3); **ere irakatsi** (10); **eta berak irakatsi** (3); **eta irakatsi** (27); **euskara irakatsi** (6); **euskaraz irakatsi** (6); **ezer irakatsi** (6); **frantsesa irakatsi** (3); **gauza irakatsi** (3); **gehiago irakatsi** (4); **haiek irakatsi** (3); **hala irakatsi** (3); **hark irakatsi** (11); **hark irakatsi zidan** (5); **hark irakatsi zizkidan** (3); **hori irakatsi** (6); **horrela irakatsi** (3); **ikasi eta irakatsi** (4); **ikasten irakatsi** (3)

**irakatsi ahal** (6); **irakatsi behar** (54); **irakatsi behar dela** (4); **irakatsi behar zaie** (3); **irakatsi behar zaio** (4); **irakatsi beharko** (10); **irakatsi beharra** (6); **irakatsi beharrean** (3); **irakatsi beharreko** (4); **irakatsi beharrik** (5); **irakatsi bezala** (7); **irakatsi digu** (5); **irakatsi digute** (7); **irakatsi dio** (3); **irakatsi dit** (8); **irakatsi edo** (3); **irakatsi egin** (6); **irakatsi egin behar** (5); **irakatsi egingo** (3); **irakatsi egiten** (4); **irakatsi ere** (3); **irakatsi eta** (18); **irakatsi eta praktikatzen** (3); **irakatsi ez** (8); **irakatsi ezin** (3); **irakatsi gabe** (4); **irakatsi hau** (3); **irakatsi izan** (8); **irakatsi nahi** (26); **irakatsi nahi zidan** (3); **irakatsi nahian** (4); **irakatsi niri** (5); **irakatsi niri zeure** (4); **irakatsi nuen** (3); **irakatsi ondoren** (3); **irakatsi zaizuen** (3); **irakatsi zer** (3); **irakatsi zidan** (26); **irakatsi zidaten** (7); **irakatsi zien** (29); **irakatsi zigun** (8); **irakatsi ziguten** (8); **irakatsi ziola** (5); **irakatsi zion** (24); **irakatsi zioten** (9); **irakatsi zituen** (6); **irakatsi zizkidan** (6); **irakatsi zizkigun** (4); **irakatsi zizkion** (4); **irakatsi zuen** (19); **irakatsi zuten** (3)

**irakatsia dudanez** (3); **irakatsia izan** (3); **irakatsiaren arabera** (3); **irakurtzen irakatsi** (5); **israeldarrei irakatsi** (4); **izaten irakatsi** (3); **jotzen irakatsi** (3); **maitatzen irakatsi** (3); **nik irakatsi** (4); **nola irakatsi** (5); **nork irakatsi** (4); **ofizioa irakatsi** (5); **umeei irakatsi** (3); **une beretik irakatsi** (3); **zela irakatsi** (4); **zer irakatsi** (6); **zerbait irakatsi** (8); **zerbait irakatsi nahi** (3); **ziguten irakatsi** (3)

**bidez irakastea** (3); **edo irakastea** (3); **egiten irakatsiko** (3); **eta irakatsiko** (5); **euskara irakastea** (5); **ez irakastea** (4); **gehiago irakatsiko** (3); **giza jakinduriak irakatsitako** (3); **hala irakatsirik** (3); **irakastea baino** (5); **irakastea da** (4); **irakastea ere** (3); **irakastea eta** (5); **irakastea ez** (5); **irakastea nahi** (3); **irakatsiko dizut** (9); **irakatsitako hizkeraz** (3); **jainkoak irakatsita** (3); **jakinduriak irakatsitako** (3); **jakinduriak irakatsitako hizkeraz** (3); **neuk irakatsiko dizut** (3)

**bizitzen irakasteko** (3); **egiten irakasteko** (6); **eta irakasteko** (18); **euskara irakasteko** (16); **euskaraz irakasteko** (6); **hizkuntza irakasteko** (4); **irakasteko agindu** (5); **irakasteko eta** (4); **irakasteko ez** (3); **irakasteko gai** (4); **irakasteko gai izango** (3); **irakasteko gauza** (3); **irakasteko ikasten** (6); **irakasteko ikasten eta** (3); **irakasteko modu** (3); **irakasteko orduan** (3); **irakasteko prest** (5); **israeldarrei irakasteko** (3)

**asko irakasten** (3); **atzerriko hizkuntza irakasten** (3); **bat irakasten** (3); **batean irakasten** (3); **behar bezala irakasten** (4); **berak irakasten** (6); **berean irakasten** (3); **berriak irakasten** (3); **bezala irakasten** (5); **bidez irakasten** (5); **deus ere irakasten** (3); **egiten irakasten** (7); **erdaraz irakasten** (3); **ere irakasten** (15); **eskoletan irakasten** (5); **eta irakasten** (20); **eta irakasten hasi** (5); **euskara irakasten** (16); **euskaraz irakasten** (6); **ezer irakasten** (8); **filosofia irakasten** (5); **gaztelaniaz irakasten** (4); **guztia irakasten** (3); **hala irakasten** (3); **hark irakasten** (3); **hastapenak irakasten** (3); **hau irakasten** (3); **herriari irakasten** (4); **hizkuntza irakasten** (6); **ikasten eta irakasten** (3)

**irakasten ari** (22); **irakasten ari zela** (3); **irakasten ari zen** (3); **irakasten arimak** (3); **irakasten aritu** (3); **irakasten bada** (3); **irakasten baitzien** (3); **irakasten da** (11); **irakasten den** (9); **irakasten die** (4); **irakasten diegu** (4); **irakasten dien** (3); **irakasten diete** (5); **irakasten digu** (20); **irakasten digun** (8); **irakasten digute** (6); **irakasten dio** (3); **irakasten diozu** (4); **irakasten dira** (4); **irakasten diren** (4); **irakasten ditu** (8); **irakasten dituzte** (3); **irakasten du** (20); **irakasten duela** (3); **irakasten duen** (13); **irakasten duen bezala** (3); **irakasten duena** (9); **irakasten dut** (4); **irakasten dute** (9); **irakasten duten** (7); **irakasten dutenak** (4); **irakasten duzu** (4); **irakasten duzula** (3); **irakasten eta** (15); **irakasten ez** (10); **irakasten hasi** (24); **irakasten hasi zen** (5); **irakasten hasi zitzaien** (7); **irakasten ibili** (4); **irakasten ibili zen** (4); **irakasten omen** (4); **irakasten saiatu** (3); **irakasten saiatzen** (3); **irakasten zaie** (3); **irakasten zen** (6); **irakasten zidan** (3); **irakasten zien** (12); **irakasten zigun** (6); **irakasten ziguten** (3); **irakasten zion** (6); **irakasten zituen** (4); **irakasten zizkion** (4); **irakasten zuen** (24); **irakasten zuten** (7)

**irakastera eta** (3); **jotzen irakasten** (3); **kontuak irakasten** (3); **literatura irakasten** (3); **matematika irakasten** (3); **musika irakasten** (4); **nork irakasten** (3); **sinagogetan irakasten** (3); **tenpluan irakasten** (9); **tenpluan irakasten ari** (3); **zehazki irakasten** (3); **zen irakasten** (3); **zer irakasten** (11)

---

# irakatsi[2] *iz* irakaspena.

Ez zuen **irakatsi** hau ahaztu. Askoren artean

Norbait zuengana joan eta **irakatsi** hau ez badarama, ez onartu etxean. Elizen arteko biblia

**Irakatsi** hau ez baduzue kontuan hartzen eta lagun hurkoarekin haserretuta bazaudete, galduko duzue Jainkoa eta honen grazia. Joan Mari Lekuona

Balaamen **irakatsiei** jarraitzen dieten batzuk. Elizen arteko biblia

Gure Jaunak ikasbide on bat adierazi digu jainkozko **irakatsietan** sendo iraun dezagun. Joan Mari Lekuona

Kontu izan zuk ere horrekin, gogor jarri baitzen gure **irakatsien** kontra. Elizen arteko biblia

Horiek arretaz aztertu eta apalik ikasten dituenak, **irakatsi** salbagarriez jantzita, bizkor barrenduko duela haren jakinduria gorena. Askoren artean

**Irakatsi** benetan santua! Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dizkidazun irakatsiak eman** (4); **eman dizkidazun irakatsiak** (4); **eta irakatsiak** (3); **irakatsiak eman dizkiet** (4); **irakatsiak eta** (3); **irakatsiei esker** (3); **irakatsiei jarraitzen** (3)

---

# irakiano *izlag/iz ipar* irakiarra.

Bertzalde bildu diru hortarik parte bat baliatua da herriz kanpo **Irakianoen** laguntzeko. Herria

---

# irakiar 1 *izlag* Irakekoa, Irakeki dagokiona.

Oi, **irakiar** herria, aurrerantzean herrialde guztia garbituko dut etsaiez. Juan Kruz Igerabide

Irak okupatzen duten soldadu estatubatuarrek **irakiar** herritarren kalteetan ustez egindako lapurreta kasuak. Berria - Mundua

**Irakiar** kurdo bat Ameriketan bizi zena azken hamar urteetan. Herria

**Irakiar** armadaren mende geunden orain. Juan Kruz Igerabide

Savak-ekoek zelaiko kurdu guztioi dei egin ziguten, **irakiar** ministro bati entzutera joan gintezen. Juan Kruz Igerabide

Xihita den Ali Al Sistani **irakiar** alderdiburua bezalako batzuek ez dute trufarik edo mespretxurik onartzen. Herria

Beste aldean, **irakiar** soldaduak ageri ziren. Juan Kruz Igerabide

Horrela jakin dugu marineak nola hil duen **irakiar** zauritua Falujan! Iñigo Aranbarri

Istiluak tropa estatubatuarren eta **irakiar** erresistentziaren artekoak izan ziren berriz. Berria - Mundua

**2** (izenondo gisa)

Aurrean, sei polizia **irakiar** zeuzkaten, arma gabeturik, gerrikorik gabe. Juan Kruz Igerabide

Nasirian, tropa italiarrek 15 ekintzaile **irakiar** hil eta hainbat zauritu zituzten.

Bakuban bi polizia **irakiar** hil ziren bonba-autoz egindako erasoan.

Denok orpoen gainean eserita geunden, soldadu **irakiarren** begirada garailearen pean. Juan Kruz Igerabide

Gure gizonek harrapatutako polizia **irakiarrak** ikusi nituen. Juan Kruz Igerabide

Estatubatuarrek preso **irakiarrei** jasanazitako tratu txarrak. Berria - Mundua

Gazte **irakiarrek** txukunak eta diziplinatuak izan behar dute. Juan Kruz Igerabide

Lau emakume **irakiar** kristau hil zituzten ekintzaileek Bagdad ondoan. Berria - Mundua

**3** *iz* Irakeko herritarra.

Ingelesek asmatu zuten Irak, eta orduan aitona **irakiar** egin zuten, baina berak ez zuen inoiz ulertu hitz berri horren esanahi ezkutua: Irak. Juan Kruz Igerabide

Ez da **irakiarra,** afrikarra da. preso diren **irakiar** batzuen aurka eginiko gehiegikeriak argitzea da. Juan Kruz Igerabide

43 **irakiar** eta AEBetako sei soldadu hil dira Bagdad, Kerbala, Faluja eta Tikriten. Berria - Mundua

Estatubatuarrek hamar **irakiar** hil dituztela. Pako Aristi

'Gizarte' edo 'zibilizatu' hitza merezi al du lau turista 56 **irakiar** baino garrantzitsuagoak zaizkion herrialde batek? Pako Aristi

Nolanahi ere, **irakiar** asko ez dira estatubatuarrekin batere fio. Berria - Mundua

Hogeita hamar mila **irakiar** Saudi Arabiara. Berria - Mundua

Kurduek [...] eta **irakiar** sunitek zein xiita laikoek erabat errefusatzen zuten Al Jaafariren hautagaitza. Berria - Mundua

**Irakiarren** mezuak harrapatu eta deskodetzeko. Juan Kruz Igerabide

Armada irandarrak turkiarren eta **irakiarren** laguntza izan zuen. Juan Kruz Igerabide

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**adingabe irakiar** (3); **bat irakiar** (13); **bat irakiar hil** (5); **bederatzi irakiar** (3); **beste bi irakiar** (7); **beste bost irakiar** (6); **beste irakiar** (3); **bi irakiar** (27); **bi irakiar hil** (18); **bi polizia irakiar** (12); **bi zibil irakiar** (8); **bizi diren irakiar** (3); **bost irakiar** (20); **bost irakiar eta** (6); **bost irakiar hil** (13); **bost soldadu irakiar** (3); **diren irakiar** (6); **dozenaka irakiar** (4); **dozenaka irakiar hil** (3); **du irakiar** (5); **ehunka irakiar** (4); **ehunka irakiar hil** (3); **ekintzaile irakiar** (5); **ekintzaile irakiar hil** (3); **emakume irakiar** (9); **emakume irakiar hil** (3); **eta bi irakiar** (5); **eta irakiar** (19); **eta lau irakiar** (3); **eta sei irakiar** (3); **guardia nazional irakiar** (4); **gutxienez bi irakiar** (3); **gutxienez hiru irakiar** (3); **gutxienez zazpi irakiar** (3); **hamaika irakiar** (4); **hamar irakiar** (3); **hamar irakiar hil** (3); **hiru irakiar** (22); **hiru irakiar atxilotu** (3); **hiru irakiar hil** (14); **hiru polizia irakiar** (4); **hiru zibil irakiar** (4); **hussein irakiar** (4); **indar irakiar** (4)

**irakiar askatu** (4); **irakiar atxilotu** (9); **irakiar atxilotu zituen** (3); **irakiar atxilotu zituzten** (3); **irakiar bahitu** (5); **irakiar bahitu zituzten** (3); **irakiar bat** (52); **irakiar bat ageri** (3); **irakiar bat hil** (29); **irakiar batek** (11); **irakiar baten** (8); **irakiar bati** (3); **irakiar batzuei** (4); **irakiar batzuekin** (3); **irakiar batzuen** (5); **irakiar batzuk** (3); **irakiar daude** (4); **irakiar ere** (7); **irakiar ere hil** (4); **irakiar erresistentziaren** (3); **irakiar eta** (38); **irakiar eta aebetako** (5); **irakiar eta bi** (5); **irakiar eta soldadu** (4); **irakiar gobernu** (4); **irakiar guztiak** (3); **irakiar guztiek** (4); **irakiar hil** (217); **irakiar hil dira** (26); **irakiar hil ditu** (5); **irakiar hil dituzte** (14); **irakiar hil eta** (37); **irakiar hil ziren** (82); **irakiar hil zituen** (15); **irakiar hil zituzten** (25); **irakiar hilda** (6); **irakiar horien** (3); **irakiar inguru** (3); **irakiar kargudun** (3); **irakiar preso** (3); **irakiar sunitak** (4); **irakiar zauritu** (10); **irakiar zauritu ziren** (7)

**lau irakiar** (14); **lau irakiar hil** (10); **lau polizia irakiar** (7); **lau zibil irakiar** (3); **milaka irakiar** (3); **nazional irakiar** (5); **polizia irakiar** (51); **polizia irakiar bat** (8); **polizia irakiar eta** (4); **polizia irakiar hil** (27); **preso irakiar** (20); **preso irakiar bat** (4); **saddam hussein irakiar** (4); **sei irakiar** (12); **sei irakiar hil** (8); **sei polizia irakiar** (8); **soldadu irakiar** (15); **soldadu irakiar eta** (4); **soldadu irakiar hil** (9); **ume irakiar** (3); **ume irakiar bat** (3); **zazpi irakiar** (6); **zazpi irakiar hil** (6); **zibil irakiar** (38); **zibil irakiar bat** (7); **zibil irakiar hil** (20); **zibil irakiar zauritu** (5); **ziren hiru irakiar** (4); **zortzi irakiar** (6); **zortzi irakiar hil** (4)

**dauden emakume irakiarrak** (6); **deitu dituzte irakiarrak** (3); **direla irakiarrak** (3); **dituzte irakiarrak** (6); **emakume irakiarrak** (10); **emakume irakiarrak askatzeko** (7); **erresistentzia irakiarrak** (22); **erresistentzia irakiarraren** (16); **eta irakiarrak** (8); **gehienak irakiarrak** (3); **gobernuburu irakiarrak** (3); **herri irakiarraren** (3); **indar irakiarrak** (4); **irakiarra hil** (3); **irakiarra izan** (3); **irakiarrak askatzeko** (10); **irakiarrak askatzeko eskatu** (3); **irakiarrak dira** (3); **irakiarrak ere** (4); **irakiarrak eta** (10); **irakiarrak ez** (6); **irakiarrak hil** (3); **irakiarrak izan** (3); **irakiarrak nola** (3); **irakiarrak torturatzea** (3); **irakiarrak zapaltzen** (3); **irakiarrak ziren** (4); **polizia irakiarrak** (11); **polizia irakiarrari** (3); **preso irakiarrak** (20); **preso irakiarrak torturatzea** (3); **segurtasun indar irakiarrak** (3); **zibil irakiarrak** (6); **ziren irakiarrak** (5)

**agintari irakiarrek** (6); **bat irakiarrek** (5); **da irakiarrek** (3); **dituzte irakiarrek** (3); **dute irakiarrek** (6); **ekintzaile irakiarrek** (8); **erresistentzia irakiarreko** (4); **estatubatuarrek preso irakiarrei** (6); **eta irakiarrek** (8); **hamar bat irakiarrek** (3); **indar irakiarrek** (4); **irakiarrei boterea** (4); **irakiarrei burujabetza** (3); **irakiarrei eginiko** (7); **irakiarrei eginiko torturen** (4); **irakiarrei eta** (5); **irakiarrei jasanarazitako** (3); **irakiarrei jasanarazitako tratu** (3); **irakiarrei subiranotasuna** (4); **irakiarrei tratu txarrak** (5); **irakiarrek aebetako** (4); **irakiarrek berek** (7); **irakiarrek beren** (7); **irakiarrek bizia** (13); **irakiarrek bizia galdu** (12); **irakiarrek bozak** (4); **irakiarrek eta** (7); **irakiarrek ez** (3); **irakiarrek jasandako tratu** (4); **milioi irakiarrek** (4); **polizia irakiarrek** (6); **preso irakiarrei** (23); **preso irakiarrei eginiko** (6); **preso irakiarrei jasanarazitako** (3); **preso irakiarrei tratu** (4); **preso irakiarrek** (11); **preso irakiarrek jasandako** (4); **segurtasun indar irakiarrek** (4); **soldadu irakiarrek** (5); **soldaduek preso irakiarrei** (3); **subiranotasuna irakiarrei** (3); **zibil irakiarrek bizia** (3); **zien irakiarrei** (4)

**agintea irakiarren** (3); **boterea irakiarren** (9); **boterea irakiarren esku** (8); **eta irakiarren** (8); **hainbat irakiarren** (3); **irakiarren artean** (14); **irakiarren arteko** (5); **irakiarren aurka** (4); **irakiarren aurkako** (6); **irakiarren esku** (32); **irakiarren esku utzi** (8); **irakiarren esku uztea** (3); **irakiarren esku uzteko** (7); **irakiarren eskuetan** (4); **irakiarren eskutan** (3); **irakiarren eta** (5); **irakiarren gorpuak** (6); **irakiarren kontra** (6); **irakiarren kontrako** (10); **irakiarrez osatutako** (3); **polizia irakiarren** (8); **preso irakiarren** (14); **soldadu irakiarren** (4); **subiranotasuna irakiarren** (13); **subiranotasuna irakiarren esku** (11)

---

## **irakiatar** *izlag/iz ipar* Irakiarra.

Irakiaren eta Iraniaren arteko gerla bururatu zelako urte mugaz baliatu da **irakiatar** populuari mintzatzeko. Herria

**Irakiatar** jaun batzuen bisita ukana zuten serbiar herri gizonek. Herria

Badira omen Hungrian hiru mila **Irakiatar,** herri kudeatze gora beheretan Amerikanoek eskolatuak. Herria

---

## **irakidura** **1** *iz* dirakienaren egoera.

Mitxa bat piztu eta, barrikaren kaskoan hiltzen bazen, erran nahi zuen karboniko laspela oraino jalgitzen ari zitzaiola eta **irakidura** ez zuela bukatua. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** haserre bizia.

Barneko **irakidura** sumatu nuen eta ahobetekoak esatekotan nengoen. Gotzon Garate

Neure mendeku nahiaren eta neure odol-**irakiduraren** lehen abiatze eta oldartze hartan. Joan Mari Irigoien

---

## **irakin**, irakiten *(orobat **erakin** g.er.)* **1** du *ad* isurkari bat, beroaren eraginaz bere barnean sortzen eta azalean lehertzen diren lurrin burbuilez inarrosia gertatu.

Ura iragazi eta **irakin** beharko dugu. Josu Zabaleta

Ura **irakiten** jarri kobrezko ontzi batean. Santiago Iruretagoiena

Ur pixka bat **irakin** eta eskua bete irin bota. Anton Garikano

**Irakiten** hasi zen oilo-salda, lehenengo suan. Jon Muñoz

Urak **irakin** egiten du erradiadore batzuetan. Josu Zabaleta

Hartu arkume onena; gero, pilatu azpian egurra, **irakin** dezala borbor, hezurrak ere ongi egosteko. Elizen arteko biblia

Kanilatik ura hartu genuen, tea eta kafea egin, esnea **irakin** eta kafearen ordua zenerako mahaia jarri genuen. Josu Zabaleta

Kafeak **irakin** egin du. Sonia Gonzalez

Karlosen telefono zenbakia markatu du sukaldetik, mikrouhinean kafesne batek, berotu baino, **irakin** egiten duen bitartean. Sonia Gonzalez

Potasako xaboiz **irakindako** uretan. Bego Montorio

Sua handitu zuen Ruche jaunak, eltzekoak **irakiten** jarrai zezan, eta azafraia bota zuen. Jon Muñoz

Kea irteten zaio sudurretik, borbor **irakiten** dagoen pertzetik bezala. Elizen arteko biblia

**2** dirakien uretan eduki.

Berak esan zuen nire begiak uretan **irakindako** arrautza ematen zuela, baina morea. Koro Navarro

Azpiko arropa **irakin** eta anileta pasatzen zuen, ondorio txarrik gabe sukarra joan zedila errezatuz. Anton Garikano

**3** hartzitu.

Goizean goiz ardogilearekin joana zen hara, ea **irakiten** hasitako bi kupelekin zer egin zitekeen aztertzera. Xabier Olarra

Gero barriken betetzea mimurreta deitu arno ezti saltsa hortaz... zenbait egunez behar zuten **irakin** edo fermentatu, taulez eta hagez behar bezala puntzuindaturik edo sustengaturik. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aski izanen da euri zaparradaren batek bustitzea zimaur hori, **irakiten** hasi eta bere kaka-lurrunetan irentsita gera daitezen betiko. Hasier Etxeberria

**4** *irud*

Itsasoa **irakiten** ari zela zirudien, borborka, aparra zeriola. Juan Kruz Igerabide

Odol gazteak berez **diraki**. Juan Garzia

Odola **irakiten** jarri zitzaidan. Migel Angel Mintegi

Haren borondatea bizia zen eta tematia, eta haren lasaitasuna asaldakaitza, baita gizon bat etsia hartzeko zorian edo odolak **irakin** beharrean jarriko zuten egoeretan ere. Karlos Zabala

Haragiak bortitz **irakin** zidan. Karlos Zabala

Horretan pentsatzen duen bakoitzean **irakin** egiten dio barrenak. Patxi Iturritegi

**Irakiten** dut barrua, atsekabe-egunak heldu zaizkit. Elizen arteko biblia

Harryk burua **irakiten** zuen eta adore gabe sentitzen zen. Iñaki Mendiguren

**Irakiten** zegoen Ruche jauna. Jon Muñoz

Buruan ideia bat zuela beste guztien gainetik, ideia bat gorde ezinik eta **irakin** beharrean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Dena jakin usteko ezjakin arrunt pedanteen kontra **irakiteraino** asaldatzen zena. Iñaki Segurola

Ikasia nuen haren ondoan egoten garai bateko gorrotoak barnean **irakin** gabe. Aingeru Epaltza

Amorruak **irakinda** neukan barrua. Joxerra Garzia

Bazen zerbait Henneren barruan **irakiten** zuena. Koro Navarro

Jakin-minak **irakiten** nengoen zer ote zen. Oskar Arana

Bihotza borborka du desiraz **irakiten**. Oskar Arana

Naturaren kontrakoa da **irakiten** ari den pasioari ur hotza botatzea. Anjel Lertxundi

Joanes Haroztegirekiko aferak bizi-bizi **zirakien,** eta kontrako epaia emana zioten Lapurdiko nahiz Bordeleko epaileek. Aingeru Epaltza

Lurra, eurite handiak usteltzen duenean, harrez **irakiten** ikusten dugunez gero. Xabier Amuriza

Zure potxotxa **irakiten** dago. Juan Martin Elexpuru

**5** (era burutua izenondo gisa) dirakiena; irakin duena.

Ur xorta **irakin** hura berehala horma puska bihurtu zen. Eneko Bidegain

Borborka ari zen ontzitik ur **irakina** bota baitzion gainera. Iñaki Mendiguren

Eta bihotzak bor-bor egiten dit ur **irakinak** bezala. Mirentxu Larrañaga

Horietan ikatz piztua aurkitzen da, ur **irakinaren** antzera borboka dagoena. Joan Mari Lekuona

Te-ontzia erotu egin zen eta ur **irakin** txorrotadak botatzen zituen alde guztietara. Iñaki Mendiguren

Teontzi urdin bat esku batean eta eltze bat ur **irakin** bestean. Lopez de Arana

Gorputz osoa ur **irakinean** errea zuela irudi zuen. Imanol Zurutuza

Hurren azala, ur **irakinetan** egosita, pixa errazteko onuragarria da. Pello Zabala

Ur **irakinetan** botatako dilista-ale bakan murgilariak balira bezala. Anjel Lertxundi

Ur **irakinezko** iturburu bikainak sortzen ziren han-hemenka. Karlos Zabala

Alkohol **irakinaren** usainak hartuak zituen bazter guztiak. Anjel Lertxundi

Eros ezazu laurden bat esne **irakin**. Koro Navarro

Horrela babesteko koipe **irakinaren** zipriztinetatik. Anton Garikano

Lapurrak jaitsi ziren banaka-banaka tximiniako zulotik, eta denak olio **irakinetan** kiskalduta gelditu ziren. Patxi Zubizarreta

Negu hotz hartan eta, bertzenaz ere, tenore hartan, barnearen pixteko, edozein edari **irakin** on zen. Eneko Bidegain

Berun **irakinez** beteriko pertz batean. Irene Aldasoro

Niri, batez ere, perretxikoz, arrozez, tipulaz, porruz eta piperrez beteak gustatzen zitzaizkidan, tartean arrautza **irakin** gorringo-bigunak zituztela. Juan Kruz Igerabide

· Horko jendeek aurpegia burdin **irakin** batekin markatua dute. Aurelia Arkotxa

Almadiapean, ur **irakina** ari zitzaigun bultzaka. Berria - Harian

Aire **irakinezko** bafada. Joxe Austin Arrieta

Maitasun **irakinaren** adierazpenekin. Xabier Mendiguren Elizegi

Gaztaroko berezko izaera **irakin** eta izpiritu kezkatsuagatik. sekulako hustualdia eman nion neure barru **irakinari**. Xabier Kintana

**6** (era burutua izen gisa) ik **irakinaldi; irakite**.

Norbaitek gorputzean sukarraren **irakina** hartzen badu. Xabier Amuriza

Ezin diozu deitu maitasun; zeren zure adinean odolaren **irakina** bezaturik baitago, apala da, eta zentzuaren meneko. Juan Garzia

Hizketan ari zenak ezin zion eutsi barneko **irakinari** haserrearen haserrez. Karlos Zabala

Erlauntzaren burrunban, lanaren **irakinaren** erdian, hankapeko oztopo dira erlemandoak. Anjel Lertxundi

Horrek berriz ere bizkortu zuen plazaren **irakina**. Jon Maia

Ez zuen ezer ikusten; hala ere, lurra **irakin**-borborrez beterik zegoela iruditu zitzaion, euria egin eta harrez pikortatzen denean bezala. Juan Garzia

**7** *irakitan* ik **irakitan**.

**8** ***ur irakinaren froga***

Turingiarren legearen arabera, adulterioz salatutako emakume bat ez zuten ur **irakinaren** frogara kondenatzen, salbu eta haren defendatzailerik aurkezten ez bazen. Iñaki Iñurrieta

Egiaren arragoa gaizto hau antzinako legeria basatiaren monumentu bizia da, suaren eta ur-**irakinaren** frogei eta armen zori ezustekoari Jainkoaren epai deitzen zitzaion garaikoa. Juan Martin Elexpuru

Hortaz, hauxe diot: garai hartan, borroka bidezko froga eta burdina goriaren eta ur **irakinaren** froga erabiltzen ziren gorabeheretan, hain zetozen bat legeak ohiturekin, non legeok ez baitzuten bidegabe askorik egin, nahiz berez bidegabeak izan; ondorioak kausak baino errugabeagoak izan zirela; ekitatearen kontra zihoazela, baina eskubideak zapaldu gabe; zentzugabeak izan zirela, tiranikoak baino gehiago. Iñaki Iñurrieta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta irakin** (3); **eta ur irakinaren** (6); **irakin egin** (3); **irakin egiten** (4); **irakin eta** (6); **ur irakin** (4); **ur irakina** (10); **ur irakinaren** (16); **ur irakinean** (4); **ur irakinetan** (6); **ur irakinez** (4)

**amorruz irakiten** (3); **barnean irakiten** (3); **barrena irakiten** (3); **barrenak irakiten** (4); **burua irakiten** (5); **eta irakiten** (7); **gainean irakiten** (3); **irakiten ari** (19); **irakiten ari den** (4); **irakiten ari zen** (4); **irakiten ari ziren** (4); **irakiten dago** (5); **irakiten du** (4); **irakiten eta** (5); **irakiten hasi** (15); **irakiten hasi eta** (3); **irakiten hasi zenean** (4); **irakiten hasten** (8); **irakiten hasten da** (3); **irakiten jarri** (18); **irakiten jarri zitzaidan** (3); **irakiten jartzen** (9); **irakiten nengoen** (3); **irakiten zegoen** (7); **irakiten zeukan** (3); **irakiten zuen** (6); **odola irakiten** (20); **odola irakiten jarri** (3); **olioa irakiten** (5); **ura irakiten** (7); **ura irakiten jarri** (4)

---

# **irakinaldi** *iz* zerbaitek irakiten duen denbora eta aldi bakoitza. ik **irakin 6**.

**Irakinaldiaren** burbuilak. Eider Rodriguez

Lehen, hotzikarak sentitzen hasi naiz; orain, aldiz, halako **irakinaldi** bat heldu zait matelezurretara. Pako Aristi

Bere gaztetasunaren berezko **irakinaldiaren** ondorio. Lopez de Arana

Ikus dezagun gainez egin arteko **irakinaldia** duzun, ninitxo. Mirentxu Larrañaga

Imazi **irakinaldi** bat falta zaio indarkeriaren amaierari buruzko eztabaida lideratzeko. Berria - Euskal Herria

**Irakinaldia** igaro eta ehunka emakume alarguntsa gelditu ziren. Gotzon Garate

Kafe-hautsa, ura eta azukrea ibrik izeneko ontzi berezian jartzen dira [...], hiru aldiz irakinarazten zaio, eta **irakinaldi** bakoitzean kafea ontzitik ihes egin nahian hasten denean sutatik kendu. J.M. Olaizola "Txiliku"

Interes partikularren barne- **irakinaldiak** baretu eta gidatu ahal izateko. Juan Martin Elexpuru

---

# **irakinarazi**, irakinaraz, irakinarazten **1** du *ad* irakitera behartu.

Eta ura dagonean ere, ur hori ez da osasungarria izango, zeren eta itzalik ez dagoenez, eguzkiaren indar zakarrak **irakinaraziz** lehortu eta erabat xurgatzen baitu zelaietako azal gainetik ura. Santiago Iruretagoiena

Gazura, berriz **irakinarazten** zen, gatzagiz hornitzen, bigarren gasnaren moldatzeko. Itxaro Borda

Eta hodei kargatua itsasoaren azalera jaurtiz batera, bat-batean bera ere osorik uretara oldartzen eta itsasoa inarrosten du, orroe itzeletan **irakinaraziz**. Xabier Amuriza

Maitasunaren sua da, bihotza gozotasun eta alaitasunez **irakinarazten** duena. Joan Mari Lekuona

Jauregira itzuli eta zain gelditu zen, ezinegonak barrena **irakinarazten** bazion ere. Fernando Rey

• **2** dio *ad*

Ai jaitsiko bazina, sastraka erretzen edo urari **irakinarazten** dion sua bezala! Elizen arteko biblia

Kafe-hautsa, ura eta azukrea ibrik izeneko ontzi berezian jartzen dira [...], hiru aldiz **irakinarazten** zaio, eta irakinaldi bakoitzean kafea ontzitik ihes egin nahian hasten denean sutatik kendu. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# **irakingailu** *iz* ura irakiteko gailua.

**Irakingailu** elektrikora joan zen Ruche jauna. Jon Muñoz

---

# **irakintasun** *iz* irakitan dagoenaren nolakotasuna.

Ez dut adin nahikorik, eta gaztaroko berezko **irakintasun** eta arinkerian nago oraino. Xabier Kintana

---

# **irakitan** *adlag* irakiten, dirakiela.

Haren gorputz txikia dardarka zegoen, odola **irakitan**. Gorputzak sutan, odola **irakitan,** ez genekien gehiago non ginen. Karlos Zabala

Mila gogoeta egin eta egin, batzuetan gorputza **irakitan** banu bezala, bestean horma beltzak hartua iduritzen zitzaidalarik, amaz nintzen oroitzen. Janbattitt Dirassar

Ikaretan eta **irakitan** nintzen. Daniel Landart

Urte hartan berean, Mundu Berria aurkitu zuen Cristobal Colonek, **irakitan** zeudelarik Europan Berpizkundea eta Humanismoa. Piarres Xarriton

Baina noiz arte kontrolatuko da **irakitan** jartzen ari den herri hori? Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**odola irakitan** (5)

---

# **irakite** **1** *iz* isurkari bat, azalean lehertzen diren lurrun burbuilez inarrosia gertatzea.

Mark-1 izeneko oinarrizko euskarria dauka, eta **irakite** bidezko ur erreaktorea edota zuzenean Ebro ibaitik hartutako uraren hozte sistema erabiltzen du. Berria - Euskal Herria

**2** *irud*

Haizearen indarra itsasoaren kontra oldartzen da eta olatuetan **irakite** harrigarria jasotzen du.Jainkoaren laguntzaz badezake, beti berekin baitu, nahiz eta beti ez nabarmen sentitu; Jaunak kendu diolako **irakite** handia, maitasun bizia eta grazia sutsua, gelditzen zaiolarik betiko bizitzarako grazia nahikoa. Xabier Amuriza

Mark-1 izeneko oinarrizko euskarria dauka, eta **irakite** bidezko ur erreaktorea edota zuzenean Ebro ibaitik hartutako uraren hozte sistema erabiltzen du. Berria - Euskal Herria

---

# **irakurbide** *iz*

Berdin liburu bat irakurtzea bazkal aitzinean edo bazkal ondoren, eri egonik edo osasuntsu... eta zeren eguraldiak ere bere eragina izan baitzezakeen, halako moldez, non orzkarbiak, bertzerik gabe, arrai eta alegera jar baikintzakeen, eta lainoak triste, oraingo arraitasunak eta geroko tristeziak, bakoitzak bere oinatzak eta aztarnak utz ziezazkiokeelarik irakurleari, bere **irakurbidean**. Joan Mari Irigoien

---

# **irakurgai** **1** *iz* irakurtzeko idazlana; bereziki, atsegin hartuz irakurtzeko idazlana, batez ere prosazkoa.

Egunean atal bat bakarra irakurtzen duenak 101 egunerako (edo gauerako) **irakurgaiak** badituela liburu honetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zure lehendabiziko **irakurgaiak**. Ana Urkiza

Autobusean eta metroan ere irakurtzeko moduko **irakurgaiak**. Ana Urkiza

Giltzapean sartu zuten eta bere poz bakarra igandeetan mezetara joan eta **irakurgaiak** irakurtzea zen. Gotzon Garate

Antza denez, **irakurgai** galgarriak lerratu dira testuan. Antton Olano

**Irakurgai** gomendagarria da guztiz euskararen historia hurbila eta maileguen gaiaren inguruan Mitxelenaren "Euskal hitzen jatorri eta itxura desberdinaz " artikulua. Lourdes Oñederra

Euskarazko **irakurgaiak** debekatzen dizkiote eta mugimendu guztietan zaindari bat dauka bizkar gibelean. Apezari behako antsiatsua igorri eta bigarren **irakurgaiari** lotu zitzaion. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

Maisua **irakurgai** liburua azaltzen ari zitzaigun bitartean. Pello Lizarralde

• **3** *adlag*

Horra zergatik, hor dauzkagun oraino, gaur egun, aberasgarri eta **irakurgai,** orduko idazle handien obrak. Piarres Xarriton

Uste dut Joxe Austin Arrietaren *Abuztuaren 15eko bazkalondoa* nuela **irakurgai-**. Joan Mari Irigoien

Egia da garai hartan ideia bera [...] **irakurgai** genuela narratzeko arteari buruzko era askotariko ikerlanetan. Juan Garzia

Txistu y tamboliñ literatur aldizkariaren bosgarren zenbakia Interneten dago **irakurgai**. Berria - Kultura

Fito Rodriguez idazle eta EHUko irakasleak *Konkordia bila* izeneko fikzio-net-a jarri du **irakurgai** sarean.

Ben Jellounen bi liburu, euskaraz **irakurgai**. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **daude irakurgai** (4); **irakurgaiak egiteko** (3); **irakurgaiak egiteko erabiltzen** (3); **jakin irakurgaiak** (3); **maitinetako irakurgaiak** (3); **maitinetako irakurgaiak egiteko** (3)

---

## irakurgailu 1 *iz* euskarri elektromagnetikoan dagoena ikus edo entzungai bihurtzen duen gailua.

**Irakurgailutik** Beethovenen musikaren KDa kendu zuen Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

*Techno 98* jarri zuen azkar laser **irakurgailuan**. Itxaro Borda

DVD **irakurgailurik** ez daukatenek. Berria - Kultura

CD **irakurgailuan** ragga kanta bat daukagu, Shaggy-ren ragga indartsu bat. Paddy Rekalde

Yvesen opus 80 musika airosa jartzen zuen zinta- **irakurgailuan**. Itxaro Borda

Azantzarekin batera kasete- **irakurgailuan** zebilen *Stingen Sacred Love* zinta berriko melodiak korrok bitxietan amildu ziren. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dvd irakurgailu** (9); **dvd irakurgailu bat** (3); **irakurgailu bat** (4); **laser irakurgailuan** (3)

---

## irakurgaitz *izond* idazkeragatik nahiz mamiagatik irakurtzeko nekeza gertatzen dena, ia irakurtezina.

Liburu bat **irakurgaitza** egiten zitzaionean, gupidarik gabe uzten omen zuen bertan behera. Ramon Saizarbitoria

"Eskuizkribuan" hitz asko **irakurgaitzak** edo irakurtezinak zirenez, […]. Jose Morales

Krimena artelan gisa ulertzen zuen, artelan gisa edo adimenaren joko bezala gutxienez, joko konplexu eta **irakurgaitz** baten moduan. Joxean Agirre

---

## irakurgarri 1 *izond* irakurtzeko modukoa.

Itzulpen 'literala' egitea baino areago, testu **irakurgarriak** idaztea izan dugu helburu. Jose Antonio Mujika

Horixe baitzen gure helburu nagusia: testuok modu **irakurgarrian** eskaintzea haietara hurbildu nahi duenari. Jose Antonio Mujika

Euskaraz kontatutako gauza asko molde ezberdin batez erran behar dira frantsesez **irakurgarriak** eta onargarriak izateko. Ana Urkiza

Ikusgarria ez baita **irakurgarria**. Iñaki Arranz

• **2** *pred*

Beste txosten askotan legez, **irakurgarri** diren datuak gutxi dira; txostena San Francisco Kalifornian datatua dela eta 1942ko apirilaren 30ean osatu dela, horra. Edorta Jimenez

Pagotxa, hi!, liburu osoa **sarean** irakurgarri. Berria - Kultura

Interneten jarri dituzte **irakurgarri** Elhuyar aldizkariaren lehen bost urteetako zenbaki guztiak. Berria - Gaiak

• **3** *iz* irakurgaia.

Hemengo guziez galdekatuak izan dira jendeak: telebista, irratiak, diskak eta kazetak eta **irakurgarriak,** egunkariak, aldizkariak eta liburuak. Herria

Nobela berri bat dut **irakurgarri** bakarra, egoiliar bat ere aspertuko lukeena. Jon Muñoz

---

## irakurgarritasun *iz* irakurgarria denaren nolakotasuna.

Horri baino gehiago begiratu diogu testuen **irakurgarritasunari**. Jose Antonio Mujika

Beste zerbait da liburuari gaurkotasuna eta **irakurgarritasuna** ematen diona: umorea, alegia. Berria - Kultura

---

## irakurgela *iz* irakurtzeko prestaturiko gela. ik **irakurketa 5**.

Liebknecht liburutegiko **irakurgela** apal hau betetzen doa. Edorta Jimenez

Hori da, beraz, sukaldea, eta hori Van Daan senar-emazteen logela, denon egongela, jangela eta **irakurgela**. Josu Zabaleta

Ezker aldean egon behar zuen **irakurgelak,** beheko solairuko komunaren ondoan. Aitor Arana

**Irakurgelara** igo naiz, lehenengo solairura. Txillardegi

Bi orduz aritu naiz lanean **irakurgelan**. Monika Etxebarria

Atsegin du arratsalde-hondarrean **irakurgelan** izaten den isiltasuna. Oskar Arana

-Ez gara oraindik **irakurgelan** izan, eta ez dakigu etxeko zein aldetan dagoen. Aitor Arana

---

## irakurketa 1 *iz* irakurtzea.

Kontua da, halaber, idazketa bezain ekintza sortzailea dela **irakurketa**. Anjel Lertxundi

Euskarazko **irakurketa** sustatzeko xedearekin.

Ixtorio laburren **irakurketa** eta jokoak haurrentzat, Hendaiako Mediatekan. Herria

Pasarte honen **irakurketak** eragindako inpresioa adierazteko. Pedro Alberdi

Harridura bozkariotsua da Leibnizen **irakurketak** eragiten duena. Markos Zapiain

Tupustean eten zuen Ruche jaunak **irakurketa** . Jon Muñoz

Fitxa berriz irakurtzeari ekin zion, **irakurketa** utzia zuen lekuan. Jon Muñoz

Fitxa amaiezinaren **irakurketa** bukatu arte. Jon Muñoz

**Irakurketan** murgiltzen saiatu nintzen, Stendhalen Italia argitsuan babesleku bat bilatzen. Monika Etxebarria

Teknika horrek **irakurketa** errazten duela uste dut. Berria - Kultura

Ezin dut azterketa egin, ez dut-eta **irakurketa** egin. Oskar Arana

Besteak beste, testamentuaren [...] **irakurketa** elkarrekin egiteko. Txillardegi

Eskolako oharretan bazen xehetasun bat, lehen **irakurketan** itzuri zitzaidana. Juan Garzia

Jauzikako **irakurketa** . Iñaki Arranz

Ahozkotasunaren bat-batekotik **irakurketaren** patxada geldira igarotzea. Pako Aristi

**"Irakurketako** gai nagusia: traizioa", erantzun dit. Bernardo Atxaga

**2** (izenondoekin)

**Irakurketa** dramatizatuak, Bilbon eta Donostian. Berria - Kultura

**Irakurketa** atsegin bat osasungarriagoa da gorputzarentzat ariketa fisikoa baino, Kantek esana. Anjel Lertxundi

**Irakurketa** soila da, eta efektu espezialak ez ditut gustuko. Berria - Kultura
**eta irakurtzerakoan** (6); **irakurtzera eta** (13); **irakurtzerik izan** (7); **izenak irakurtzen** (6); **lanak irakurtzen** (9); **liburu bat irakurtzen** (31); **liburu hau irakurtzen** (6); **liburua irakurtzen** (48); **liburua irakurtzen ari** (6); **liburua irakurtzen hasi** (6); **liburuak irakurtzen** (45); **liburuak irakurtzen zituen** (7); **libururik irakurtzen** (19); **literatura irakurtzen** (7); **maiz irakurtzen** (6); **naiz irakurtzen** (13); **nintzen irakurtzen** (16); **nobela irakurtzen** (6); **nola irakurtzen** (8); **norbait irakurtzen** (8); **norbait irakurtzen ari** (8); **nuen irakurtzen** (6); **ongi irakurtzen** (6); **ozen irakurtzen** (12); **testuak irakurtzen** (7); **zara irakurtzen** (12); **zekien irakurtzen** (6); **zen irakurtzen** (27); **zer irakurtzen** (21); **zerbait irakurtzen** (11); **zerrenda irakurtzen** (9); **zituen irakurtzen** (8); **zuen irakurtzen** (15)

---

# **irakurterraz** *izond* irakurtzen erraza dena.

Liburu argiak eta **irakurterrazak** ziren. Koldo Zuazo

O. Marquardenak, biziki testu inportanteak, ez dira **irakurterrazak**. Askoren artean

Arturo Graf-en *Il diavolo* liburua [...] deabruak mendebaldeko artean bete duen tokiari buruzko saio sakon **irakurterraza**. Anjel Lertxundi

Artikulu xumeak argitaratzen ditugu, **irakurterrazak,** inoiz notizia izango ez liratekeen notiziak. Unai Iturriaga

Lau ixtorioz osatutako kontakizun **irakurterraza**. Berria - Kultura

Aspaldi honetan modan dagoen literatura **irakurterraz** arrunkeriaz beteaz kutsa ez nadin. Jon Arretxe

Ahalik eta **irakurterrazen** eta erakargarrien idazten saiatzen dela dio. Berria - Kultura

---

# **irakurtezin** *(orobat* ***irakurrezin****)* **1** *izond* ezin irakurrizkoa.

"Eskuizkribuan" hitz asko irakurgaitzak edo **irakurtezinak** ziren. Jose Morales

*Clarel,* Melvilleren olerki epiko itzel eta **irakurtezina**. Oskar Arana

1925ean hildako gizon baten izena zegoen idatzia harrian, iragandako urte luzeek ia-ia **irakurtezin** bihurtzeraino higatua. Juan Luis Zabala

Barruan, paper busti ia deseginean mezu **irakurtezin** bat egongo da, tinta urtua dataren arrastoetan bakarrik nabari dela. Joseba Sarrionandia

Nor arraiok idatzi zuen liburu malapartatu eta **irakurrezin** hori? J.M. Olaizola "Txiliku"

Ohartxo bat jaso zuen, Marioren idazkera ñimiño ezagun eta ia **irakurrezinarekin** egina. Fernando Rey

Lerroak arrotz iruditu zitzaizkidan, **irakurtezin,** eta paragrafo bakoitzean sei bider, zazpi bider, mila bider geratu behar izan nintzen, motel, ezereza ulertzeko. Lander Garro

**2** *irud*

Polizia bat bota beltzekin oinez, tente, bakarrik, bere uhaleria ilunetik bere arma astuna zintzilik, sonbreiruaren biserak begiak gerizpean uzten dizkiola, bere aurpegia **irakurtezina** eginez. Joseba Sarrionandia

---

# **irakurtzaile** *(**12** agerraldi, **3** liburu eta **6** artikulutan; orobat* ***irakurtzale*** *g.er. eta* ***erakurtzaile*** *g.er.)* *iz* irakurlea.

Kazeta hunen moldatzaile diren buruzagi eta langile suharreri bai eta ere kazetaren **irakurtzaile** guzieri. Herria

Jatortasuna bilatzen duten argitaratzaileentzat irakurtzen duten **irakurtzaileak**. Xabier Olarra

Ator beraz, **erakurtzaile** maitea, harrait, eta nerekin entzun ezak neurtizlari zaharra. Xipri Arbelbide

· Erran dezagun Geexan izan dela Eliz gizona, 36 urtez **irakurtzaile,** brankardier, baleako hautetsi, 24 urtez axurant, 12 urtez auzapez, ikusten da hor ainitz zerbitzu egin duela, Elizan, herrian eta balean. Herria

Hor elgarri erran dugun bezala nahi dugu kazeta hunen **irakurtzaleeri** bai eta ere herritar guzieri erran: Jainkoak dautzuetela urte berri on bat bereziki osagarri on batekin. Herria

irakurtzale ik **irakurtzaile; irakurzale**.

---

**irakurtze** **1** *iz* testu idatzi bateko ikurren saila jarraitzea; horrela krituz, idazlan baten mamiaz jabetzea.

Beti prest egin ahalaren egiteko, dela **irakurtze,** komunione emaite ala eliza garbitze. Herria

**Irakurtze** eta otoitzetan parte hartu dute ahaide hurran zenbaitek euskaraz, frantsesez edo inglesez. Herria

Alferrikako **irakurtze** mingarri horrek. Patxi Ezkiaga

Zalduneria liburu nazkagarrien etengabeko **irakurtze** mikatzak. Patxi Ezkiaga

Arratsetan nor bere etxera goizik bilduz, bai eta **irakurtze** ona frango eginez. Xipri Arbelbide

Horrela bada, hainbesteraino sartu zen **irakurtze** horretan, irakurriz pasatzen zitzaizkion gauak argirik argi eta egunak ilunik ilun eta honela, lo gutxi eta asko irakurri, garuna lehortu zitzaion. Patxi Ezkiaga

Aski ohikotzat jotzen zuen jendeak "pentsamendua **irakurtze** hori". Fernando Rey

Baina ez naiz ongi oroitzen **irakurtze** horiez. Ana Urkiza

Gertaera frogatuen **irakurtze** hutsa. Berria - Euskal Herria

Eta harrezkero mandamendua **irakurtze** hutsak haragia pizten zidala. Edorta Jimenez

**2** (hitz elkartuetan)

Beren kantu, **irakurtze** eta antolakuntza parteak prestatuak zituzten jatsuarrek. Herria

Ezkongai guztiei zergatik ez eskatu, nazio hizkuntzaren ahoskatze, **irakurtze** eta izkribatze probak egitea. bere asaldura ezkutatzeko, egin zuen letra hura lerro pasan **irakurtze** irudi bat, ez egon arren irakurtzeko egoeran. Piarres Xarriton

Nire izena jartzen besterik ez dakit-eta idatzi-**irakurtze** horretan. Patxi Ezkiaga

---

**irakurzale** *(orobat* ***irakurtzale****)* **1** *iz* irakurtzaletasuna duen pertsona.

Gauza ezaguna da, **irakurzaleon** artean, nolako garrantzia izaten duen liburu baten hasierak. Xabier Mendiguren Elizegi

Opari erredundanteak izan ohi dira hauek: erretzaile bati hautsontzia, bizikleta zale bati bizikleta, **irakurtzale** amorratu bati liburua. Joxerra Garzia

Liburutegi atsegina da hau, oso bisitatua, **irakurzaleek** estimatua. Berria - Kultura

Ez dago liburu on bat utzaraziko duen berri onik **irakurzalearentzat**. Koldo Izagirre

• **2** *izond* irakurtzaletasuna duena.

Kalesako neska **irakurzalearen** agerraldi hura. Anjel Lertxundi

Baltzari bidali nion testua, lagun **irakurzale** moduan bere iritzia eskatzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Cienfuegosek edo Azkaratek edo ezpainean behera sakaila duen Eibarko armagile batek edo tabernari **irakurtzale** batek zure berba esplikatuko zuten urteetan, tipografo klandestinoak balira legez: [...]. Koldo Izagirre

Nire aitak esandako hitzez oroitu ninduan, zeren, nahiz eta oso **irakurzalea** izan ez, ikasiak baitzitian egia batzuk, bere bakardadean eta bizi eskarmentuan oinarrituak. Xabier Olarra

Mutil azkarra zen, **irakurzalea**. Pako Aristi

---

**irakurzaletasun** *(orobat* ***irakur zaletasun*** *g.er.)* *iz* irakurtzeko zaletasuna.

Ritxarrek piztu zuela nire **irakurzaletasuna,** eta hark egin ninduela irakurle. Joan Mari Irigoien

**Irakurzaletasuna** bultzatzeko bideak. Berria - Kultura

Haur eta nagusien artean **irakurzaletasuna** sustatzeko asmoz. Berria - Kultura

Indarrean dagoen hezkuntza sistemak ez du **irakurzaletasunik** sorrarazten. Berria - Kultura

Zeure jakin-min horrek gidatzen, bazkatzen dizu **irakurzaletasuna**. Iñaki Iñurrieta

Nire ustez, tranpa bat egiten da liburugintza eta literatura edota liburugintza eta **irakurzaletasuna** identifikatzean. Berria - Kultura

«Egia da salmenten galera gertatzen ari dela», azaldu zuen Landak, «baina aipatzen diren kopuruak ez dagozkio **irakurzaletasunaren** zirkuituari, beste zirkuitu batzuei baizik, erosle gatibuen zirkuituei». Berria - Kultura

Transgresioa oso inportantea izan da nire **irakur zaletasunean**. Ana Urkiza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irakurzaletasuna bultzatzeko** (6)

---

**irakurzaletu**, irakurzale(tu), irakurzaletzen da *ad* irakurzale bihurtu.

Verne irakurriz **irakurzaletu** gara bai gure belaunaldia, bai aurrekoak ere. Berria - Harian

---

**iraleku** *iz* ira dagoen lekua, garo saila. ik **garoman**.

Malda beheiti jo du jarraian, **iraleku** bakanduan barrena, uraren marmar hurbilaren bila. Pello Lizarralde

Oro har halere toki frangotan bazterrak zoin diren xuku, iturrotxak agortuak, pentzeak larrutuak eta **iralekuak** jadanik larrazkeneko jauntzitan. Herria

---

**irandar** *(ETCn* ***1.018*** *agerraldi)* **1** *izlag* Irangoa, Irani dagokiona.

**Irandar** agintarien erretratuez apainduta dago toki hau. Jon Arretxe

Muga igaro genuen, **irandar** polizien begiradapean. Juan Kruz Igerabide

Gure bizkarrean, **irandar** soldaduen atzean zeuden gutarrak arretaz begira zeuden ea nola hartzen gintuzten. Juan Kruz Igerabide

**Irandar** mutil biak ondo zaindu dituztela. Berria - Euskal Herria

Shirin Ebadi: **Irandar** emazte honek ukan du bake Nobel saria. Herria

Hemengo emakumeek ez dizutelako jaramonik egiten **irandarra** zarela esanez gero, ezta prostitutek ere. Jon Arretxe

Armada **irandarrak** turkiarren eta irakiarren laguntza izan zuen. Juan Kruz Igerabide

Film **irandar** bat ematen zuten. Juan Kruz Igerabide

2.000 **irandarrek** eman dute izena [...] ekintza suizidak egiteko zabaldu duten zerrendan. Berria - Mundua

**2** *iz* Irango herritarra.

Savak-en beldurrez, ezin genuen **irandarren** saldukeria salatu. Juan Kruz Igerabide

Turkian esaten zidaten kontu handiz ibiltzeko **irandar** fanatikoekin, eta **irandarrek** afganoak arbuiatzen dituzte. Jon Arretxe

Mustafa Barzani jenerala, azkenera arte aritu zen borrokan **irandarren** kontra, amore eman gabe. Juan Kruz Igerabide

2.000 **irandarrek** eman dute izena Iraken, Palestinan eta Salman Rushdie idazlearen aurka ekintza suizidak egiteko zabaldu duten zerrendan. Berria - Mundua

---

# iraniar *(ETCn 339 agerraldi) izlag/iz* irandarra.

**Iraniar** goi-ordokiko pertsiar inperiogileek. Iñaki Mendiguren

Keyvan Cheminari **iraniar** perkusionista xoragarria. Herria

Azar Nafisi **iraniarraren** nobelak. Berria - Kultura

Shirin Ebadi abokatu **iraniarrak**.

**Iraniarrak** kontent zeuden hark proposatutako erreformekin. Berria - Mundua

Manifestazioan 402 pertsona hil ziren, tartean 275 **iraniar**. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iraniarrak ez** (3)

---

# iraniko *izond* Irangoa, Irani dagokiona. ik **irandar**.

Kazan izan baitzen mundu **iraniko** musulmanaren ipar-ekialdeko gotorlekua. Iñaki Mendiguren

Zibilizazio **Iranikoa** eta Arabikoa. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iraniko eta** (3); **iraniko eta** (3); **musulman iraniko** (3); **musulman iraniko** (3)

---

# iranio *iz* indoeuroparra banatzen zen hizkuntzetako bat.

Ezaugarri horien arabera, eslabiera legoke **iranioaren** eta germanikoaren artean, eta hori guztiz bat dator hizkuntza horien banaketa geografikoarekin. Isabel Arrigain

---

# iraotu, irao(tu), iraotzen du *ad*

Hona hemen zenbait adibide, San Martinek berak jarritako erdal itzulpenarekin batera: *barauts* 'broca', *barauts-etxe* 'porta-brocas', *harixa ixo* 'pasar de rosca', ***iraotu*** 'revenir', *jo ta pasa* 'trabajo de batalla', *lokan ipiñi* 'poner en punto muerto', *maratilla* 'destornillador'... Koldo Zuazo

---

# irargailu *iz* irartzeko gailua.

Bi ordu eta erdiz etxea arakatu ostean, guardia zibilek lau kaxa eta **irargailu** bat atera zuten bertatik. Berria - Euskal Herria

---

# irarkola *iz* inprimategia.

Senpereko emazte gazte bat da, bi emazte gazte ere dira inprimerian eta **Irarkolan..**. Menane Oxandabaratz

Datari, zuzendariari, arduradunei, argitalpenaren izaerari eta **irarkolari** dagozkion datuak frantsesez idatzi beharko ditu engoitik. Berria - Euskal Herria

Baionako egun hortan, **irarkola**-lantegian bazen kortxela xume bat, han ari ginen Lafitte eta biak. Herria

---

# irarlan *iz* grabatze lana, gainazal batean egiten dena. ik **grabatu 2**.

Zurezko **irarlanaz** baliatzen ziren antzeztokiko iragarkiak eta eleberrietako irudiak prestatzeko. Javi Cillero

Hormetan hainbat margolan zeuden esekirik, estu-estu eta nahas-mahas: gudaldi baten **irarlan** luzea, horizkaturik eta kristalik gabe. Jose Morales

**Irarlanaren** aldamenean, olio-pintura belztu batek hormaren erdia betetzen zuen; loreak, fruituak, angurri erdibitu bat, basurde baten muturra eta buruz behera zintzilikaturiko ahate bat ikus zitezkeen han. Jose Morales

---

# irarle *iz* irartzen duena.

Pikutara frogak eta **irarleak**, esan diat, egun batzuetarako. Irene Aldasoro

---

# irarrarazi, irarraraz, irarrarazten *(orobat **irarriarazi**)* du *ad* irartzera behartu.

Ez nintzen oroitzen hemen **irarrarazi** nituela eskuzabal nengoen batean. Antton Olano

-Al Kashi-k, Samarkandan, 14 hamarren; Ludolph van Ceulen-ek, 35 hamarren, bere hilobian **irarriarazi** zituenak... Jon Muñoz

---

# irarri, irar(i), irartzen 1 du *ad* grabatu.

hain zegoen Bernoulli asmakizun horretaz harro, non bere hilobian **irar** zezatela agindu baitzuen. Jon Muñoz

W. P. Weber izena irakurri nuen, letoizko txapatxo batean **irarrita**. Alberto Ladron Arana

Artzain anitzek milaka eta milaka mezu, izen eta data utzi dituzte lertxunetan **irarriak,** gure luzaidetarrak bezala. Pello Salaburu

Mahaiaren azpian, marmol argizko zoruan **irarrita,** ikur handi bat ikusi nuen. Alberto Ladron Arana

Harrian **irarriko** zituela. Jon Muñoz

Jahvek Moisesi, Jainkoaren beraren eskuak harlauzetan **irarrita,** eman omen zizkion hamar aginduetako bigarren agindu esplizitu hau: […]. Iñaki Mendiguren

Hau ez baitzen erraz **irarria** izan buztin bigunean, harri gogorrean nekez grabatua baizik. Iñaki Mendiguren

Selinont-ko herritarrek gurtu egin zuten eta tenplu bat eraiki zioten, bai eta dominak **irarri** ere, non Apoloren irudiaren aurrez aurre kokaturik baitzegoen haren irudia. Juan Garzia

Beste aldean, berriz, Siziliako armarria zuen **irarria**. Jon Muñoz

Ingalaterrako erreginak bezainbesteko eskubidea zuela berak dirua **irartzeko**. Juan Garzia

Ceccok poltsa bete florin **irarri** berri ikusia zuen salan. Juan Garzia

Gainera, ez al zeukan, bada, metalean **irarria:** bere nagusiaren ahotsa! Jon Muñoz

**2** *irud*

Hiri haren izen bitxia gogoan **irarrita** gelditu zitzaidan: Stalingrado. Alberto Ladron Arana

Irudipenak egiazkotzat edukitzeko, jatorri duen objektuak ariman **irarrita** egon behar duela. Imanol Unzurrunzaga

Gure ariman **irarrita** daramagun betiko legearen nozio laburra. Imanol Unzurrunzaga

Noizbait sentitu dugunaz galdetzen bazaigu, ez ditugu ematen aditzera gauzak, haiek oroimenean utzi eta **irarritako** irudiak baizik. Imanol Unzurrunzaga

Gizarte-irudi horietako bat, hazkunde-prozesuan zegoen zibilizazio bateko jendearen bizitza psikiko subkontzientean sakon **irartzeko** gaitasun nabarmena zuena, parroki estatu subiranoaren idoloa zen. Iñaki Mendiguren

Zentzu zabalean, giza bizimodu baten ezaugarri eta alderdi guztiak dira kultura, eta, zentzu estuan, bizimodu horretan **irarritako** balio-sistema. Askoren artean

· Arrautza horretan daude eraikuntza-materialak: proteinak, koipeak, azukreak, mitokondrioak, eta gunea, hantxe baitaude **irarrita** eulia sorrarazteko behar diren aginduak. Juan Garzia

Aurrerantzean, termino kimikotan **irarrita** egongo da arrisku horixe bakoitzaren genoman, norberaren osagai ezabaezin gisa. Juan Garzia

---

## irartoker *iz* inprimatze-hutsa.

Aurreneko **irartokerrak** neronek zuzendu eta bigarrenak Tolosara bialtzen nizkion. Patziku Perurena

---

## irasagar *iz* irasagarrondoaren fruitua, udarearen antzekoa, baina hura baino biribilagoa, mamia latza eta garratza baina urrintsua duena, eta merlaturik edo erreta jaten dena. ik **kodoin**.

Izan ere, bailarako etxeetan gazta egingo zuten, eta suerte pixka batekin **irasagarra** ere ez zuten faltako. Bernardo Atxaga

**Irasagarrak** eta pepinoak irentsi zituzten. Pello Lizarralde

Autodidaktaren begitartea, horia eta gogorra **irasagar** baten gisa, gaitzespenezko asaldura tinko bihurtu da. Monika Etxebarria

Ezabagoma, **irasagarra** bezain lodia. Jon Muñoz

**Irasagarrak** usteldu arte, Ericek ez zuen jakiterik izan bere filmaren bukaera. Berria - Kultura

Bakailao tortilla, piperrez lagundutako bakailao frijitua, txuleta eta postrea (gazta, intxaurrak eta **irasagar**-gozokia). Edorta Agirre

---

## irasagarrondo *iz* udareondoaren familiako zuhaitza, irasagarrak ematen dituena *(Cydonia oblonga).*

Intsusaren baia batek herrenka zeharkatu zuen Pasealekua, eta **irasagarrondo** gazte batzuekin hizketan geratu zen, eta denek zituzten makuluak. Julen Gabiria

Irail bukaeran **irasagarrondoa** margotzea erabaki zuen, eta bere etxera deitu ninduen. Berria - Kultura

Ez du argazki bat aurrean duela margotu nahi **irasagarrondoa**. Berria - Kultura

---

## irasail ik **ira 4**.

---

## irato, iratotzen **1** *ad* itoarazi.

Senarrak eta beraren etxekoek -emaztea erre, urkarazi edo **irato** egin badute-, epailea, medikua eta polizia igurtzi egiten dituzte, emazteak bere buruaz beste egin duela esan dezaten. Gotzon Garate

Tazitok dioenez, germaniarrek delitu larriak baizik ez zituzten ezagutzen: urkatu egiten zituzten traidoreak, eta **irato** egiten zituzten koldarrak. Iñaki Iñurrieta

Kartagok Jende Zuzenbide berezia zeukan: **irato** egiten zituen Sardinian eta Herkulesen zutabeen aldean merkataritzan aritzen ziren atzerritar guztiak. Iñaki Iñurrieta

**2** *irud*

Bi harritzar jausarazten zituen oihuak **iratotzeko**. Juan Garzia

Afaldu ostean irratian aurrera eta atzera eginez bilatzeari ekin genion, Euzkadiko Fronteko berriak jakin guran; eta arerioaren irratiek **irato** egin gintuzten ia-ia, Gernikako sarraski sadikoari buruzko berrien berriez. Itsasoak ezpataren boterea k **iratoko** zituela. Edorta Jimenez

---

## iratsi, irats, irasten dio *ad* erantsi, itsatsi.

Eguzkiak, Ararateko mazelei **iratsirik,** hagitz argi gorria ematen zuen. Fernando Rey

Gero berriz **iratsi,** eta berriz, nekez, bereizi zen azkenean mendiaren parez pare gelditu arte. Fernando Rey

Piza paretari **irasteko** gauza ez eta, zer habila hemen harrokeritan! Patziku Perurena

Begiak paretari **irastea** aski. Patziku Perurena

---

## iratxo **1** *iz* gizakiei batez ere kalte egiten omen dien izaki alegiazkoa. ik**mamu.**

**Iratxo** haiek urdin-urdinak ziren, eta hogei zentimetro inguru ziren altu. Iñaki Mendiguren

Ez dakit bakardadeak eragin zuen, ala denok hor barruan dauzkagun eta behar ez den lekuan sartzen gaituzten **iratxo** horien lana izan zen. Juan Martin Elexpuru

Plazer apur bat ere igarri nuen, zeren, etxea guztiz hertsirik zenuela sartu bainintzaizun, eta horrek ahaltsu egin ninduen, ipuinetako **iratxoak,** intxisuak eta gainerako spirituak bezainbat. Joan Mari Irigoien

Onezko izpiritu izan zein **iratxo** madarikatu, zeruko haize gozo ekarle zein infernuko zafrada. Juan Garzia

Dobby etxeko **iratxoa** da... etxe batean eta familia batean betiko zerbitzatzera behartua... Iñaki Mendiguren

Peeves ikastetxeko **iratxo** bihurria zen, hondamena eta istiluak eragiteko aireko mehatxu burlatia. Iñaki Mendiguren

**Iratxoak** sudurra zimurtu zuen. Iñaki Mendiguren

**2** (hitz elkartuetan)

Zilarrezko ateetatik igarotzean, **iratxo**-pare bat makurtu zitzaien agurtzeko. Iñaki Mendiguren

Ez da sinestekoa jabearen alaba izatea, haren arras aurkako eitea baitu, miragarriro, elfo ilunen **iratxo**-tankera. Mirentxu Larrañaga

· Ez nuke lotsagabea izan nahi, baina... ez da niretzat unerik egokiena etxe-**iratxo** bat neure logelan izateko. Iñaki Mendiguren

Manolok eta Genisek osatzen duten bikotea gaur egungo talde dibertigarrienetarikoa da; Almodovar & McNamara edo Tino Casal zena bistaz galdu gabe, aspaldiko

telebistako elektro-**iratxo** haien bertsio berria izan daitezke. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **dator gure iratxo** (3); **edo iratxo** (6); **esan zuen iratxoak** (3); **etxe iratxo** (3); **gure iratxo** (3); **gure iratxo ona** (3); **iratxo bat** (7); **iratxo batek** (4); **iratxo ona** (3); **zion iratxoak** (3); **zuen iratxoak** (5)

---

iratzararazi ik **iratzarrarazi**.

---

# iratzargailu 1 *iz* iratzartzeko gailua.

**Iratzargailua** goizeko bostak eta erdietan ezarria nuen. Piarres Aintziart
Orduari begiratu gabe, **iratzargailua** jarrita zegoela ziurtatu nuen. Koro Navarro
Aldameneko gelatik, zortzi eta erdiak zirela jakinarazi zidan Edurneren **iratzargailuak**. Aingeru Epaltza
Aurpegia garbitu, **iratzargailuaren** alarma zazpietarako prest utzi eta argia amatatu du. Eider Rodriguez
**Iratzargailuaren** txirrina. Xabier Mendiguren Elizegi
**Iratzargailuaren** begirada fluoreszentearen mehatxupean. Aingeru Epaltza
**Iratzargailuak** jo baino askoz ere lehenagotik nengoen esna. Koro Navarro
Begi bat behartu nuen **iratzargailuaren** aldera; oraindik hogei minutu baino gehiago diana jo arte. Aingeru Epaltza
Itzartu orduko eguzkia askoz goxoagoa da **iratzargailu** madarikatua baino. Sonia Gonzalez
**Iratzargailua** gelditzeko besoa beti bezala luzatu zuenean. Karlos Linazasoro
Ohe ondoko mahaitxoaren gainean zegoen **iratzargailuaren** biribilkian segundoen orratzak tai gabe egiten zuen arkuari jarraituz. Oskar Arana
Izan ere, zein aitzakia asmatuko zuen?: ez zuela **iratzargailurik** entzun? Karlos Linazasoro
Gas botila bat, **iratzargailua,** bolbora beltza eta elektrika hariek osatzen zuten lehergailua. Berria - Euskal Herria
Kontzentrazio-esparru bateko **iratzargailuak** iratzartzen ez dituen bakarrak gehiago iratzarriko ez direnak baitira. Urtzi Urrutikoetxea

## 2 *irrati-iratzargailu*

Hiru liburuek osatutako behin-behineko mahaitxoaren gainean Gipuzkoako Kutxaren irrati-**iratzargailua**. Eider Rodriguez
Informazioaren garaiotan, **irrati-iratzargailuaz** esnatzen gara. Andoni Egaña

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iratzargailu bat** (3); **iratzargailuak jo** (4)

---

# iratzarketa *iz* iratzartzea.

Euskal Herriak beranduegi esnatu ziren, horregatik izan da hain odoltsua **iratzarketa,** erromantiko europarrek esnatu gintuzten lozorrotik, ezjakintasunetik, gerra zibilak eta diktadurak ere eman ziguten **iratzarketa** moduko bat, **iratzarketa** odoltsu bat. Mikel Hernandez Abaitua

---

# iratzarpen *iz* iratzartzea.

Jardunbide eszeptikoak arrazoimenaren etsamina zehatz baten **iratzarpenean** izan dezakeen eraginari dagokionez [...]. Ibon Uribarri
Hala ere **iratzarpen** hori ez da aski Angeluarrak goragoko mailaratzeko. Herria

---

# iratzarraldi *iz* iratzartzea; zerbait edo norbait iratzartzen den aldi bakoitza.

Erakutsi zuen horrela, Europako nazio xumeenak harrotzera zihoan **iratzarraldian,** euskaldunek parte har zezaketela. Piarres Xarriton
**Iratzarraldiko** protestantismoa. Iñaki Mendiguren
Da Ruak bazekien min sorgin, ametsean iratzartzaile, **iratzarraldian** lo eragile garela. Felipe Juaristi

---

# iratzarrarazi, iratzarraraz, iratzararazten *(orobat **iratzarrazi** g.er., **iratzar(-)arazi** eta **iratzararazi** g.er.)* 1 du *ad* iratzartzera behartu.

Hotzak **iratzarrarazi** ninduen. Daniel Landart
Urteetan amesgaiztoek **iratzarrarazten** zuten. Eneko Bidegain
Goizeko hirurak eta hamalauko *Lapsus Tempo* delakoak bristadan **iratzarrarazi** ninduen. Itxaro Borda
Ortzegun sainduz, martxoaren 29an, kanoi ukaldiek **iratzarrazten** gituzte. Michel Oronoz
Begiak berez irekitzen zitzaizkion arte egingo zuen lo, edo, sarri gertatzen zen legez, eraikinean beste nonbaitetik etorritako zarataren batek ikaraz **iratzarrarazten** zuen arte. Oskar Arana
Donibane Lohizun eta Ziburun, hartza **iratzar-arazia** dute eta ihauteriak segitzen ahal du airoski. Herria

## 2 *irud*

Holako bilkurak, holako hizlariekin behar litzateke egin Euskal Herriko xokoetan, euskaldunen euskaltasunaren **iratzarrarazteko**. Herria
Gure fede nekatua **iratzar-arazi** du! Herria
Ez zizkion, ez, etxeko ardi gasnaren usainak urrunetik ere sudur xiloak **iratzarrarazi**. Eneko Bidegain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iratzarrarazi zituen** (3)

---

# iratzarri, iratzar, iratzartzen *(670 agerraldi, 141 liburu eta 48 artikulutan)* 1 da *ad* esnatu. ik **iratzartu; itzarri**[1].

Gauean hainbat aldiz **iratzarri** zen, asaldaturik, norbaitek inarrosi izan bailuen. Jon Alonso
Dardaraka **iratzarri** naiz. Mirentxu Larrañaga
Maitea hasperenka **iratzarri** zen. Itxaro Borda
Goizean **iratzarri** zenean, eta gertatutakoa gogoratu zuenean. Jon Alonso
Bat-batean **iratzarri** nintzen. Itxaro Borda

Haren oheraino heldu nintzen, baina ez zen **iratzarri**. Jon Muñoz

Ikuskizunaren dorpetik **iratzarri** nintzen, Halles aldetik zetorren polizia auto baten sirena hautematean. Itxaro Borda

Spinola hitza entzuteak bere lozorrotik **iratzarri** balu bezala. Felipe Juaristi

**Iratzarri** egingo dira hilobietan dauden asko: batzuk betiko bizitzarako, besteak betiko lotsarako. Elizen arteko biblia

**Iratzarriak** ziren merkatariek Nina irri handi batekin urrundik agurtzen zuten. Ramuntxo Etxeberri

Amesten dugu, azkenik, [...] **iratzarriak** gaudenean egitera ausartzen ez garenak. Piarres Xarriton

Noizbait ere justu izango den bestelako izate baten ilusiotik **iratzarririk,** eta zorionaren mirariez desengainu harturik. Josu Zabaleta

*ik beherago* 4. Askoren artean

Eguraldi bero-argiaren aurpegi distiratsuaz **iratzarri** den udaberri betearen hats uhinak. Pako Aristi

Zakila **iratzarri** egiten da, aztoratu, handitu, gogortu, berotu, eta burua altxatu. Luis Elberdin

Behin Greg "esnatuz" gero, haren garun-azala **iratzarriz** gero, haren bizitasuna bera ere bitxia zela ikusten zen. Xabier Olarra

Hartzak, bada, [...] kobre sulfato soluzioa, tanta bat bota heure azido sulfurikoan, eta horra hor erreakzioa abian: zinka **iratzarri** egiten duk, hidrogeno-burbuilatxozko geruza batek estaltzen dik. Juan Garzia

Goxo-goxo egotea, elkarrenganako pasioa **iratzartzea** eta geure burua joaten uztea. Luis Elberdin

Ametsetako urrea, **iratzarritakoan** gorotz! Anjel Lertxundi

• **2** du *ad*

Herbert **iratzarri** nuenean, asaldatu egin zen. Joxe Austin Arrieta

Telefonoak **iratzarri** zuen Angie. Iñaki Zabaleta

Biharamunean, eguerdi irian agian, Iratxeko kanpai-hotsek **iratzarri** ninduten. Txillardegi

Sekulako barre algarak **iratzarri** ninduen. Jon Muñoz

Airearen freskurak eta euriaren zurrumurru lehiatuak **iratzarri** ninduten. Juan Garzia

Maskuria husteko premia larriak **iratzarri** zuen. Migel Angel Mintegi

Eguzkia mendien atzetik joana zen Arinen zaunkek **iratzarri** gintuztenean. Aitor Arana

Badirudi alemaniarren armada osoa **iratzarri** dugula. Mirentxu Larrañaga

Otoi, ez **iratzarri** ene maitea, utzi lo egiten, nahi duen arte. Joan Mari Lekuona

Barkatu, **iratzarri** egin haut. Urtzi Urrutikoetxea

Berrogei minutu edo lotan egon ondoren, berriro zabaldu nituen begiak, bestelako zirkinik ere egin gabe, halako zirrara nahasi bitxi batek **iratzarririk**. Josu Zabaleta

*ik beherago* 4. Askoren artean

Eta hatz-mutturretako ukittuak gozamen zabalenaren alderdi lokartuak **iratzarriko** dizkizu. Pello Zabala

Horra hor bere obraren bi mugarri, bi emaitza probokatzaile, kontzientzia lokartuak **iratzarri** eta arkitekturaren tenplua zimentarrietatik astindu dutenak. Patxi Iturritegi

Haren eskua sentitu orduko karranpa bortitz bat nabaritu bainuen, odolean lotan nuen amorrua **iratzarri** zidana. Joan Mari Irigoien

## 3 (era burutua izenondo gisa)

Aje hauek berauek gertatzen dira adimen **iratzarrietan** ere espiritu zital eta gezurtien eraginpean Imanol Unzurrunzaga

## 4 *iratzarririk* esna.

Hura lo nahiz **iratzarririk** egon [...]. Elizen arteko biblia

Zaudete beraz **iratzarririk**. Aingeru Epaltza

**Iratzarririk** egin behar da amets. Josu Zabaleta

Gau osoak **iratzarririk** edukitzen ninduen nerbioetako ezinegon bat. Josu Zabaleta

Eta erakuts iezadazu non den zapelatz ederra, haren ondoan **iratzarririk** egon behar baitut zazpi egunez segidan, demendreneko lo kuluxkarik egin gabe. Aurelia Arkotxa

Monikak gau osoa adiskide batzuekin **iratzarririk** igaroa zuen arren, erabat argi omen zuen burua. Joxean Agirre

Azkenean oheratu ginen kuluxka baten egitera, baina ez nuen lorik egin ahal izan, sobera zainetan bainintzen, hainbeste sentsazione berrik ene gorputza eta izpiritu guzia **iratzarririk..**. Filipe Bidart

## 5 *iratzarrita* esna

Haurrak logura afal ostean, eta begiak argi, argiegi aukeran, goizetik gu baino lehen, esna eta **iratzarrita,** nahi baino lehen. Pello Zabala

Dotorezia neurritsu batez jantzita dago, eta horrek kontraste handia egiten du, goizegi **iratzarrita,** baldarkeria gainetik kendu ezinik gabiltzan gainerako bidaiariokin. Iban Zaldua

Beharko egon lur jota eta etsita, gau osoa ernai eta **iratzarrita** emanez gero! Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat iratzarri** (5); **batean iratzarri** (3); **batek iratzarri** (10); **da iratzarri** (3); **eta iratzarri** (6); **ez iratzarri** (4); **ez iratzarri ene** (4); **ez zen iratzarri** (5); **gehiago iratzarri** (3); **goizean iratzarri** (3); **hotsak iratzarri** (3); **iratzar hadi** (3); **iratzarri arte** (3); **iratzarri den** (3); **iratzarri dira** (3); **iratzarri du** (8); **iratzarri egin** (16); **iratzarri egin zen** (5); **iratzarri egiten** (3); **iratzarri ene** (4); **iratzarri ene maitea** (4); **iratzarri eta** (22); **iratzarri ez** (3); **iratzarri gabe** (3); **iratzarri gintuen** (3); **iratzarri nahi** (7); **iratzarri naiz** (5); **iratzarri nau** (6); **iratzarri ninduen** (8); **iratzarri ninduenean** (4); **iratzarri ninduten** (8); **iratzarri nintzen** (3); **iratzarri nintzenean** (8); **iratzarri orduko** (3); **iratzarri zara** (3); **iratzarri zelarik** (3); **iratzarri zen** (23); **iratzarri zenean** (10); **iratzarri ziren** (5); **iratzarri zituen** (7); **iratzarri zuen** (25); **iratzarri zuten** (3); **zaratak iratzarri** (3); **zen iratzarri** (5)

**batean iratzartzen** (3); **batek iratzarririk** (3); **batek iratzartzen** (3); **ez iratzartzeko** (5); **iratzarriko zuen** (3); **iratzarririk egon** (3); **iratzartzen ari** (4); **iratzartzen den** (3); **iratzartzen dira** (3); **iratzartzen du** (4); **iratzartzen hasten** (3); **iratzartzen naiz** (3); **iratzartzen nintzen** (6); **iratzartzen zen** (7); **iratzartzen zuen** (3)

---

# **iratzartu**, iratzar, iratzartzen *(340 agerraldi, 83 liburu eta 58 artikulutan)* da/du *ad* esnatu. ik **iratzarri; itzartu**.

Goizalderat **iratzartu** ginen, biak elkarren besoetan oraino ahantziak... Janbattitt Dirassar

Lehenik **iratzartu** zena Basoi izan zen. Michel Oronoz

**"Iratzartu,** Lucy", esan nion. Oskar Arana

Ardoaren lozorrotik **iratzartu** zenean, jakin zuen Noek bere seme gazteenak egin ziona. Jose Antonio Mujika

Amesgaizto batetik **iratzartu** banintz bezala. Daniel Landart

Beharko dute **iratzartu** Bordelesek. Herria

Hartza **iratzartzen** dea ihauteria hor delakotz ala ihauteria hasten izaitekotz hartza **iratzartu** delakotz? hori, dakienak daki, nik ez dakit! Herria

Bai, ongi **iratzartu** orduko, gustatzen zitzaidan bezperako lan eta hara-honatak arra-gogoratzea. Daniel Landart

Lo zegoen, ez nuen **iratzartu**. Marzel Etxehandi

Gaua han harat joana zitekeen bagoiko atea bat-batean ideki zenean S.S. en orroek **iratzartu** gintuzten. kontzentrazio-esparru bateko iratzargailuak **iratzartzen** ez dituen bakarrak gehiago iratzarriko ez direnak baitira, eta horiek hor daude hilotz. Marzel Etxehandi

Sorterria **iratzartu** eta salbatu nahi zuen. Markos Zapiain

Francori eskerrak emateko, zeren harek min asko egin du Euskal Herrian bainan **iratzartu** du abertzaletasuna. Menane Oxandabaratz

Iraun ezak **iratzarturik** zazpiak arte, orduan jaikiko baitzaik aita lanera, eta ama haren atzetik, gosarikoak prestatzera. Pako Aristi

Goizetan, jeikitzean, berehala **iratzartua** zirea eta behar duzu zonbait denbora eleketa hasteko? Menane Oxandabaratz

Bortz minuturen buruko lagun guziak **iratzartuak** ziren. Eneko Bidegain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iratzartuko zen** (3)

---

## iratzartzaile *izond* iratzartzen duena.

Da Ruak bazekien min sorgin, ametsean **iratzartzaile,** iratzarraldian lo eragile garela. Felipe Juaristi

Gaua zetorren, izuen **iratzartzaile,** izarren pizgarri. Felipe Juaristi

Baina borondaterik onena ere zorigaitzaren **iratzartzailerik** konplituen eta sostengurik fermuen bihur daiteke. Joan Mari Irigoien

---

## iratzartze *iz* esnatzea.

**Iratzartzea** bat-batean etorri zen. Mirentxu Larrañaga

-Igandean, Ziburun eta Donibane Lohizunen, ihauteria-kari, hartzaren **iratzartzea** eta lehen ateraldia. Herria

Zure begiradaren **iratzartze** horrek. Ameskaitz bat da, **iratzartze** zoragarri bat dukeena. Jon Muñoz

Eta ene amets gaixtoa behar balitz akabatu **iratzartze** goxo batekin [...]. Herria

Zarata eta zalaparta horiek guztiek halako **iratzartze** bikain burrunbatsu baten xuxurla goxoaz betetzen zuten artean lokarturiko giro hura. Karlos Zabala

**Iratzartze** gero eta hurbilagoa, itzal dardarati haren hondoan sumatzen zenez. Karlos Zabala

Jakintsuen arabera **iratzartzeak** sortzen zuen estresa ezabatzea eta lotarik kontzientziarako zubiaren erraztea zen hormona honen helburua. Itxaro Borda

Beraz gure baserrietan izan da **iratzartze** haundi bat aspaldiko urteetan lagungo horier buruz. Herria

Berak jotzen zuen goizetan **iratzartze**-txistua, berak kontrolatzen zuen atzera dena gauez. Urtzi Urrutikoetxea

Leku bat, gorputz pasionatuaren uda luzatzeko grina baten eta ahazturaren lo luzetik **iratzartze** nagi baten artekoa. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **hartzaren iratzartzea** (6); **kontzientziaren iratzartzea** (3)

---

## iratzartzearren *adlag* iratzartzeko.

Tournebride-ra joan bainintzen lotara, jauregikoak ez **iratzartzearren**. Jon Muñoz

Apalki egiten dute, ni ez **iratzartzearren**. Xabier Montoia

Oso astiro mugitu nintzen, ez **iratzartzearren**, eta patchworkezko edredoia gainetik bota nion Sonia Gonzalez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ez iratzartzearren** (3)

---

## iratze *(116 agerraldi, 37 liburu eta 27 artikulutan)* **1** *iz* lurpeko zuztarra duen landarea, aski gora igotzen diren hosto elkartu handiak dituena *(Pteridium aquilinum* etab.); landare horien saila. ik**garo**, **ira**.

Garo eta irak (edo **iratzeak)** gorri-iluntzen hasitakoan. Pello Zabala

Mendi mazeletan **iratzeak** gorritzen hasi dira eta zuhaitzak kolore hori eta erdoil ederrez beztitzen. Herria

Ibili naiz pagoen erdian, ni bezain handi diren **iratzeak** bi eskuz baztertu ondoan eta artetan landareari lotuz ez erortzeko. Piarres Aintziart

Aldamenean zeukan **iratze** bati heldu eta sustraitik atera zuen. Askoren artean

Bidetik sobera urrundu gabe etzan ginen, **iratze** batzuen itzalpean. Aingeru Epaltza

**Iratze** erraldoien artean erdi ezkutatuta. Josetxo Azkona

**Iratze** kulunkarien artetik. Alberto Ladron Arana

**Iratze** xuria deitzen zuten ekain ondarrean moztu **iratzea**. Herria

**Iratzeen** freskotasuna, haizearen fereka, pinudi hurbilaren xuxurla magikoa... Alberto Ladron Arana

, berriz, haitzaren horma izerditsua, goroldio, **iratze** eta zuhaixkaz estalia. Pello Lizarralde

**Iratze** bustiaren usaina du Gotzoneren gorputz biluziak. Aingeru Epaltza

Berrehun milioi urteko jakinduria omen daukaten **iratzeetan** barrena. Koldo Izagirre

**Iratze** guti da orai segaz pikatzen. Herria

Ote eta **iratze** biltzera [...] gindoazenean bezala. Itxaro Borda

**Iratzeak** mendian berean metatzen zirela edo orgataraka etxerat ekartzen, etxe sahetsean metatzeko. Herria

Huna **iratzeen** egiteko tenorea jina. Herria

San Jil, **iratzeak** ebaki trankil. Pello Zabala

Txokolatea suarekin bigundu eta bota dut tabako artera: polen gozagarria **iratze** okreen artean. Pako Aristi

'Archipiélago'-k jaso du Bidasoaldeko jaialdiko Urrezko **Iratzea**. Berria - Kultura

**2** ira saila.

Han **iratzearen** bestaldetik eroaren moduan korrika zihoala. Joseba Sarrionandia

**Iratzeari** helduta, pendizean irristaka ailegatu ginen errepidetik metro gutxira zegoen errekaren ondora. Rafa Egiguren

Bidexka anitz iragaiten zen oihan, **iratze** eta pentzeetatik. Eneko Bidegain

**3** (hitz elkartuetan)

Laukian sartutako argazki bat, non ageri baitziren **iratze**-landare baten aurrean irribarrez Annie, osaba Jim eta Gwilym. Koro Navarro

Mahaiaren gainean ontzi bat **iratze** landare batekin, zilarreria bere kaxan sartuta eta disko-jogailu bat. Koro Navarro

Bordan sartu ninduan eta, biziki nekatua izanez, **iratze** metaren gainean etzan. Daniel Landart

**Iratze** eta mahats hostoak saltzen zituzten, libra laurdeneko sortetan kontu handiz bildurik. Karlos Zabala

Mendi horietan zauzkaten othe-**iratze** ihaurkinak eta ere etxeko suko egurra. Herria

Udaberriko ote eta **iratze** sailetan behera. Itxaro Borda

**Iratze** baso batek betetzen du sakonduraren gaina. Koldo Izagirre

Erresalbu batzu egitea lohi eta **iratze** leku batzutan. Herria

Bere gorputzaren **iratze** usain mikatza. Hasier Etxeberria

Haitzek egindako labar izugarriak hantxe genituela buruz gain, zintzur apartsuak barren-barrenean, eta pinudi, goroldio eta **iratze** mota zoragarriak alboetan. Xabier

Olarra

Ihaurgairako **iratze** biltzera. Itxaro Borda

**Iratze** ta larre garbitze guti egiten duten azken urte hauk berek. Herria

Ardi deizte, ile moxte, **iratze** pikatze, mendiko sute, artzain joko eta bertze... Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta iratze** (8); **eta iratzeak** (3); **iratze eta** (11); **iratze eta harri** (4); **iratzea eta** (4); **urrezko iratzea** (4)

---

# **iraularazi**, iraularaz, iraularazten *(orobat* ***irauliarazi*** *g.er.)* du *ad* iraultzera behartu.

Halako batean haizeak ontzia **iraularazi** eta gilaz gora ez ote gintuen utziko. Edorta Jimenez

Nik, berriz, beste pare bat arraun kolpe jo nuen, txanela kasik bertan **iraularaziz**. Edorta Jimenez

Gozotasun eztia sentitu zuen orduan bizkar biluzian behera, eta sorbaldak **iraularazi** zituen, berokipean aske eta epeletan goxo izan zitezen. Mirentxu Larrañaga

Gau hartan emakumearen sexua itsaso izan baitzitzaion Irisarriri, itsaso itogarri, barrenak **iraularazi** zizkiona. Felipe Juaristi

Hauek, bai, hauek dira gogo keinu eta bat-bateko ongiketa moduko batez, Estatu baten egitura osoa **iraularazteko** gai direnak. Andres Urrutia

---

# **iraulerraz** *izond* erraz iraultzen dena.

Giza tamainako panpina bat **iraul**-erraza da; aukera gehiago ditu erortzeko, zutik egoteko baino. Irene Aldasoro

---

# **iraulezin** *izond* ezin iraulizkoa.

Semeak, berriz, **iraulezina** ikusiko zuen erresumaren hondamendia. Aingeru Epaltza

Sendotasun **iraulezin** betierekoa. Patziku Perurena

---

# **iraulgile** *izond* iraultzen duena.

Horregatik bere egitekoa kontrajartzea izanen da; erakundeei, herria; kultura filisteoari, kultura **iraulgilea;** kultura aristokratikoari, kultura herrikoia. Berria - Harian

---

# **irauli**[1], iraul, iraultzen **1** du *ad* zerbait azpikoz gora jarri; zerbait albo baten gainean bermatua jarri. ik**uzkaili**.

Hats egin du dado-potoaren ahoan, eta, potoa airean astindu eta gero, mahai gainean **irauli** du. Anjel Lertxundi

**Iraulita** jarritako katilu bat. Santiago Iruretagoiena

Oihal-etxola batera heltzean, jo eta **irauli** egin du, eta oihal-etxola azpikoz gora erori da. Elizen arteko biblia

Tinta-ontziak hartu eta gela osoa zipriztindu zuten, liburuak eta paperak birrindu, horma-irudiak urratu, paper-ontziak **irauli**. Iñaki Mendiguren

Gerra-gizonek, upela **irauli,** eta mutiko bat aurkitu zuten hantxe. Juan Garzia

Eta trukalarien diruak sakabanatu eta mahaiak **irauli** egin zituen. Elizen arteko biblia

Autobian **irauli** omen da kamioi bat, platerez kargatuta zihoana. Pablo Sastre

Jendearen bultzadak gero eta bortitzago, **iraultzeko** zorian zegoen kalesa. Anjel Lertxundi

Gudu-gurdiak eta gurdikoak **irauliko** ditut, eta zaldiak eta zaldizkoak eroriko dira, batak bestea ezpataz jota. Elizen arteko biblia

Erantzuteko presaren presaz, Harryk ia **irauli** zuen tinta-botilatxoa. Iñaki Mendiguren

Golderik ez bazuen, aitzurraz **iraul** zitzakeen soroak. Jose Morales

Baratzeko lurra **irauli** arren, Eugeniaren hondarrik ez zen kausitu. Itxaro Borda

Mendiak erroetatik **iraultzen** ditu. Elizen arteko biblia

Arineketan igoko zara ontzi gainera eta astia izango duzu oraindik izotz tontor handi bat zatiak galtzen eta **iraultzen** ikusteko. Joseba Sarrionandia

**2** (itsasontziak eta kidekoak)

Baina zoritxarrez ontzi txikia **irauli** egin zen; gidariak igeri egiten zuen bitartean, Jakobo anaia hondora joan zen. Askoren artean

Batel bat, ordea, **irauli** egin zen; patroi zihoan mutil kozkorra, ez ni baino askoz handiagoa, ibaiaren erdialdera erori zen, beste bi arraunlarirekin. Juan Kruz Igerabide

**Iraulitako** txalupa baten azpian, oinez. Koldo Izagirre

**3** *irud* azpikoz goratu.

Gobernua **iraultzeko** arriskuan jartzeraino. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Emakumeak Historia **iraultzen** ari dira. Luis Elberdin

Hesi sozialak hautsi eta lege guztiak **iraultzearen** lilura. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Errai guztiak azpikoz goiti ezarriak neuzkan, ingeniari pitzatu batek diseinaturiko atrakzio deabruzkoak **irauliak**. Aingeru Epaltza

Eta, berriro ere bihotza **irauli** zion goibelaldiari eusteko indarrik gabe. nekazariei buruzko klixea **irauli** nahi zuen. Jose Morales

Horrela, Maltzurkeriak mundu osoa erraustuko du, bidegabekeriak ahaltsuen tronuak **irauliko**. Maistra berriaren etorrerak azpikoz gora **irauli** zuen nire bizitza. Elizen arteko biblia

Erabat **irauli** zuen auzia. Jon Muñoz

Kantek gure ezagutzaren eta izatearen adigaiak **irauli** ditu. Ibon Uribarri

Bere iluntasuna **iraultzen** duen lur zahar honen dardaraldia. Juan Garzia

Kuhnen "paradigma" nozioak **irauli** egin zuen zientzia ulertzeko modu estandarra. Askoren artean

Mendebaldeko moralaren historian, menderatuek, kristauek, ahulek, nagusia indarrez garaitu ezinik, balio horiek **irauliko** dituzte. Askoren artean

Hitz ordena **iraultzeak** dakartzan ondorioak. Iñaki Arranz

· Zanpatzen gaituen historia intelektual dogmatiko guztia errotik **iraul**-gainedituz. Joxe Azurmendi

**4** ontzi baten edukia beherago dagoen beste batera hustu.

Txanbilak gora jasoko dira, eta ardatzera iritsi ahala, **iraultzen** joango dira jasotako ur guztia depositu batera isuriz. Santiago Iruretagoiena

Eltze bat ikusten dut irakiten, iparraldetik hegoalderantz **iraultzear**. Elizen arteko biblia

Nor da hodeiak zenbatu eta zeruko pegarrak **iraultzeko** bezain jakintsu. Elizen arteko biblia

Petaka neure ezpainartera **irauli** nuen; bere onera itzultzean, hutsik zegoen. Aingeru Epaltza

Poltsa komun-ontziaren gainean **iraultzen** dut. Joseba Urteaga

· Lucyk garbituta ekarri ditu patatak: saski handi batera **iraulita** garbitu ohi ditu. Oskar Arana

Hondarrez beteriko kamioiek bezala: bidearen amaieran zama **irauli,** hondarra hustu, eta beste bidaia bat hasi, hondar gehiagoren bila. Juan Kruz Igerabide

• **5** da/du *ad* biratu, itzuli. ik **iraulkatu**.

Gure Super-Constellationa apur bat aurrerantz **iraulia** zetzan, ez gehiegi: aurreko gurpilak zeuzkan bihurrituta, hondarretan hondoratua zelako. Joxe Austin Arrieta

Bere gorputzaren pisu guztia txakurraren gainera **iraultzen** du. Oskar Arana

Lurrean etzan eta nire gainera **irauli** dut zakarrontziaren edukia. Joxan Elosegi

Trena esparruaren gainera **irauli** zen eta oroitarria txikitu zuen. Oskar Arana

Jerusalem, estali dolu-jantziz, **irauli** hautsetan. Elizen arteko biblia

Gero, harri bat **irauliz,** hilobiko sarrera itxi zuen. Elizen arteko biblia

Eskuak bihotzera eramaten zituzten, begiak gora **iraulita**. Juan Kruz Igerabide

Xuxurlaka hitz egiten hasi zitzaion, begiak bizi-bizi **irauli:** [...]. Jose Morales

Baina begiak zerurantz **iraulirik,** akabatu zuen: [...]. Joan Mari Irigoien

Eguzkia **irauliz** joan zen gauzen gainetik eta beren itxura itzuli zien. Juan Garzia

Nire alde **irauli** zituen bere indarrak. Joan Mari Irigoien

Giza bizitzaren zergatia eta zertarakoa aztertzera **irauli** zuen bere ahalmen osoa. Imanol Unzurrunzaga

Laneko kontuetara **irauli** nintzen. Aingeru Epaltza

Bere idealetara **iraulia** bizi izan zelako. Joan Mari Irigoien

Borrokan isuri nintzen teklatura **iraulitako** ene eri gogortuekin. Aingeru Epaltza

-Denetarik dun zaku miresgarri horretan -solasa bertze noranahi **iraultzeko** gogoz. Aingeru Epaltza

Dianaren irriñoaren oroitzapenak lagundu ninduen orria **iraultzera**. Aingeru Epaltza

Baina opila mozten hasi zenean, platera altzora **irauli** zitzaion. Koro Navarro

Okerbidean **iraulitako** gaua kolpe bakarrean zuzentzeko bezainbat. Aingeru Epaltza

Mundua itzultzen hasten da, mundua hitzetara **iraultzen** eta bihurtzen. Iñaki Segurola

Itzulpen hori, ordea, modu lasai eta egokituan egin dugu, testua hitzez hitz **iraultzeko** xederik gabe. Jose Antonio Mujika

**6** (gogoan) erabili.

Gauza zerutarrak gogoan **iraultzen** zituen bitartean. Askoren artean

Baina Frantzisko, bidean geldirik, anaiari esan ziona buruan **iraultzen** hasi zen. Askoren artean

Burutapenok barnean **irauli** ostean, ikuskariaren interpretazioa eman zuen: [...]. Askoren artean

**7** (era burutua izenondo gisa)

Marinelak dado-jokoan hasi dira barrika **irauli** baten ipurdi gainean. Anjel Lertxundi

Kanpai **irauli** bat zen, edo, nahi bada, kukufraka-korola bat, lau metro zabal eta altzairu trinkoan egina. Juan Garzia

Ur zikinen ontzi **irauliei**. Anton Garikano

Hilotz usainak erakarria zuen, inola ere, zaborrontzi **irauliak** hegal-usoak bezala. Aingeru Epaltza

Argazki batean txalupa **irauli** bat ageri zen. Koro Navarro

Etxabere hilak, basapizti galduak, arbola **irauliak** edo pareta zahar eroriak. Patziku Perurena

Adibide erraz eta garbi bat [...] perspektiba **iraulia** deitzen denarena da. Josu Zabaleta

Ikur nagusiaren azpian zubi **irauli** itxurako diakritikoa jartzea. Lourdes Oñederra

Euskalki batzuetan eta garai batzuetan txistukari apikariak **irauliak** ere badiren edo izan ote diren ikertzea merezi lukeen arazoa da. Lourdes Oñederra

· Hobi bat, sei txakur heldurentzat: lur **irauli** berrian ere, ia ordubete behar du, eta amaitzen duenerako minbera du bizkarra, minbera besoak, eta min du eskumuturrean ere. Oskar Arana

Lur **irauli** berriaren hezea zekarren haizeak. Anjel Lertxundi

**8** ***azpikoz gora irauli***

Itzultzeko irrikaz, grinatsu **irauli** dugu lurra azpikoz gora, lubakitik kanpora egin nahian. Mirentxu Larrañaga

Maistra berriaren etorrerak azpikoz gora **irauli** zuen nire bizitza. Juan Kruz Igerabide

**Irauli** egin dira balioak azpikoz gora. Joxe Azurmendi

**9** ***goitik behera irauli*** (orobat ***gainetik beheiti***)

Eta zer da gertatzen? ume erdaldunek euskara ikasi baino lehenago dutela bere eskolakide euskaldunek ikasten erdara, helburua gainetik beheiti **irauliz**. Pello Salaburu

Goitik behera **irauli** zuten hiria; asaldaturik zebilen mundu guztia, nahiz eta inork ez zuen tutik ulertzen. Jose Morales

Baina badabiltza hor norbaitzuk zuek nahasten eta Kristoren berriona goitik behera **irauli** nahian. Elizen arteko biblia

Hego Amerika goitik behera **irauli** eta gero al hator hona, Euskal Herria ere iraultzera? Xabier Mendiguren Elizegi

**10** ***iraul-orga*** iraulki orga,

Belarretarako gurdiak eta kamioiak, omnibusak eta **iraul**-orgak. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atera eta irauli** (3); **auto bat irauli** (7); **barrena irauli** (3); **barrenak irauli** (3); **bat irauli** (27); **bat irauli da** (3); **bat irauli egin** (10); **bat irauli zen** (5); **batek irauli** (3); **behera irauli** (6); **bihotza irauli** (7); **bihotza irauli egin** (4); **dena irauli** (3); **egoera irauli** (14); **egoera irauli egin** (3); **egoera irauli nahian** (3); **erabat irauli** (5); **eta irauli** (19); **eta irauli egin** (8); **gainera irauli** (5); **goitik behera irauli** (6); **gora irauli** (3); **hori irauli** (7); **irauli ahal** (3); **irauli behar** (8); **irauli beharko** (4); **irauli beharra** (6); **irauli berriaren** (3); **irauli da** (7); **irauli du** (7); **irauli dute** (3); **irauli edo** (3); **irauli egin** (64); **irauli egin da** (3); **irauli egin du** (4); **irauli egin zen** (22); **irauli egin zituen** (3); **irauli egin zitzaion** (4); **irauli egin zuen** (6); **irauli egingo** (5); **irauli egiten** (7); **irauli eta** (36); **irauli ez** (4); **irauli nahi** (7); **irauli nahi zuen** (3); **irauli nahian** (4); **irauli nuen** (3); **irauli ondoren** (4); **irauli zen** (23); **irauli zen atzo** (3); **irauli zituen** (7); **irauli zitzaion** (6); **irauli zuela** (3); **irauli zuen** (31); **irauli zuten** (6); **kamioi bat irauli** (13); **lur irauli** (5); **lur irauli berriaren** (3); **lurra irauli** (5); **mahaiak irauli** (3); **markagailua irauli** (3); **mundua irauli** (4); **traktorea irauli** (5); **traktorea irauli eta** (3); **zeharo irauli** (3)

**atera eta iraulita** (3); **autoa iraulita** (5); **autoa iraulita geratu** (3); **baiona iraultzen** (21); **baiona iraultzen plataformak** (4); **bat iraulita** (3); **egoera iraultzeko** (17); **eta baiona iraultzen** (3); **eta egoera iraultzeko** (3); **eta iraulita** (6); **eta iraulita geratu** (5); **eta iraultzeko** (4); **iraulita geratu** (10); **iraulita geratu zen** (9); **iraultzea lortu** (3); **iraultzeko asmoz** (3); **iraultzen ari** (5); **iraultzen ditu** (3); **iraultzen du** (5); **iraultzen duten** (3); **iraultzen eta** (5); **iraultzen hasi** (3); **iraultzen hasi zen** (3); **iraultzen plataformak** (4); **iraultzen zituen** (3); **iraultzen zuten** (3); **lurra iraultzen** (5)

---

# irauli[2] *iz* iraulaldia, iraulketa.

Horren bitartez, hain zuzen ere, asaldurarik eta **iraulirik** gabe, herriek lege makurren justizia egiten diote euren buruari, eta halaber, gizartea bera babesten dute, legegileari emandako ustekabekoetatik eta legegilea bera ere bere buruaren hutsetatik. Andres Urrutia

**Irauliaren** erdian, Napoleonen barealdi gudatsua Andres Urrutia

---

# irauliera *iz* iraulketa.

Berrogeita hamar urteren **iraulieran,** lodia, handia eta, haize girotua gorabehera, lepoko korbataren atzetik izerdika. Aingeru Epaltza

Argazkiari kasu egitera, 80 urteen **iraulieran** ibiliko zen buru-soil sotanaduna. Aingeru Epaltza

---

iraulika ik **iraulka**.

---

iraulikatu ik **iraulkatu**.

---

# irauliko *iz* iraultzea, iraulketa.

Gero, autoaren edo motorraren edo kamioiaren deskontrola ikusgarria izaten zen, zirraragarria: **iraulikoak,** itzuli-mitzuliak, oinezkoen harrapaketak... Karlos Linazasoro

---

# iraulka *(orobat* ***iraulka****)* **1** *adlag* irauliz, iraulkatuz, biraka.

Gero **iraulka** bidebazterrera joan nintzen, justu saiheska etzanda zetzan soldadu aleman horren ondora. Fernando Rey

Aita Rentería **iraulka** zebilen ohean lorik egin ezinik. Juan Garzia

Hermione ez zen ohartu ere egin Malfoy eta Ron bere aulki azpian **iraulka** zebiltzala. Iñaki Mendiguren

Elurretan itzulika eta **iraulka** ibili ginen, odolaren arrasto gorriak uzten zurian. Jon Maia

*ik beherago* 2. Askoren artean

Eguzkitan jartzen ginen terrazan, eta **iraulka** jostatzen ginen. Joxan Elosegi

Ziklopea, berriz, minez oihuka eta **iraulika** zebilen. Juan Kruz Igerabide

Negar egiten zuen saminki eta lurrean **iraulka** zebilen ero baten pare. Askoren artean

Haren aulkiaren atzean, txakurra, belarretan **iraulka**. Imanol Zurutuza

Lau hankatan ibiltzen zen, hautsetan **iraulika** aritzen zen bere zakurrarekin. Josu Zabaleta

Putekin egongelan **iraulka** ibiltzea, nonbait hor! Fernando Rey

Gizakien golkoetan **iraulka** diharduten kezka-olatu tristeak. Xabier Amuriza

Aspalditik buruan **iraulka** nituen hainbat ale elkarrekin eskuz esku ipini nahia, horixe izan da bultzatu nauena.· Ni ere atera nintzen egun hartan plazako hareara, taberna ingurutik zezenetara zuzenean; xexen haiek inguruan lasterka eta jende-**iraulka** sumatu bezain laster, ordea, ikaratu egin nintzen. Pello Zabala

**2** ***itzul-iraulka***

Itzul-**iraulka** lorik egin ez, / egunez arlo zakarra; / alare, Iriondok naiago omen du / etzauntza artako iñarra. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **belarretan iraulka** (3); **eta iraulka** (4); **eta lurrean iraulka** (4); **iraulka eta** (4); **iraulka hasi** (3); **iraulka ibili** (6); **iraulka ibiltzen** (3); **iraulka zebilen** (4); **lurrean iraulka** (11); **lurrean iraulka hasi** (3); **lurrean iraulka zebilen** (3)

---

# iraulkatu, iraulka(tu), iraulkatzen **1** da/du *ad* nork bere burua, etzanik dagoela, alde batera eta bestera biratu.

Deiadar egingo dute zuregatik, garratz egingo garrasi, errautsez burua estali eta lurrean **iraulkatuko**. Elizen arteko biblia

**Iraulka** zaitezte hautsetan Bet-Leafran. Elizen arteko biblia

Kumeak bihurritu eta **iraulkatu** egiten ziren, atzera eta aurrera ipurdiaren eta sabelaren gainean biraka, batak bestea zokoratuz, elkarri atximurka, amaren inguruan elkarri bultzaka. Koro Navarro

Arnasa nola aldatzen zaion entzutea, plazerez nola **iraulkatzen** den, aurpegia nola pizten zaion... Luis Elberdin

**• 2** du *ad* alde batera eta bestera birarazi.

Guri txanotik heldu, lurrera bota, elurretan **iraulkatu** eta makilaren kozkor guztiekin astintzen gaituenean. Askoren artean

Lurraren bizkar azpian ibai ezkutu asko dabilela, olatu indartsuetan harri murgilduak **iraulkatzen** dituena. Xabier Amuriza

Horrela sua urrun botatzen du, eta hautsa lekutara zabaltzen eta belztasun zarratuko kea **iraulkatzen** du, eta aldi berean pisu izugarriko haitzak jaurtitzen. Xabier Amuriza

**3** *irud*

Zintzoak urrundu egiten dira horrelakotik eta ez dira bekatuetan **iraulkatzen**. Elizen arteko biblia

Adela sartzen eta salmahaira hurbiltzen ikusi nuelarik, bihotza **iraulkatu** zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

Bere lanetan hainbat kultura, hizkuntza, erlijio eta ideologiatako narrazio nagusiak berrirakurtzea, **iraulkatzea,** interpretatzea, narrazio teknika berriak trebeziaz baliatuz. Berria - Kultura

Emakumeak historia **iraulkatzen** ari dira. Luis Elberdin

---

# iraulkatzaile *(corpusean* ***iraulkatzale*** *soilik) izond* iraulkatzen duena.

Gure mututasunen erdian **iraulkatzale** argi hori. Herria

---

# iraulkatze *iz* alde batera eta bestera biratzea.

Desioa sedukzioan azaleratzen dugu, maitasunezko musu samurretan, **iraulkatze** grinatsuetan, laztan hezeetan. Luis Elberdin

---

# iraulketa **1** *iz* iraultzea, azpikoz goratzea.

Egia dela aita izatea ezin erranezko sentimentu sakona dela, izatearen egiazko **iraulketa**. Piarres Aintziart

Gaur egungo legediaren **«iraulketa»** bultzatu beharra dago, arautegi berria sortuz. Berria - Euskal Herria

Bere bizitzari erabateko **iraulketa** eman aurretik, Frantziskok krisi existentzial sakona jasaten du. Askoren artean

**Iraulketa** ikusgarria Oiartzunen: 14-6tik 14-22ra. Berria - Kirola

Haserreak kantxan, **iraulketa** markagailuan eta nola ez, Titinen garaipena. Berria - Kirola

**2** (hitz elkartuetan)

Urdinak 18-14 hurreratu zirenean, azkaindarrak txapa jo zuen eta bere hotsak **iraulketa** itxaropenak desegin zituen. Berria - Kirola

· Bi generoen arteko «lan **iraulketa»** beharrezkoa dela Nahi zintuztedan entzun, egunkaria komentatzen, [...], jatea ahanzten duten ttirrittak bezala kantatzen, jakinez hamar mila urteko bizi-**iraulketa** batean zuen arimek bederazka Izatea miretsi dutelako geltoki honetan zaudetela. Itxaro Borda

Azken txanpako markagailu **iraulketan**. Berria - Kirola

## iraulki 1 *iz* kamioietan, gailu berezi bati eraginda irauli daitekeen kaxa.

Langile bat kamioiaren **iraulki** gainean belaunetaraino zaborrean sartuta ontziak husten. Joseba Sarrionandia

Etxolen eta [...] txabolen artetik igaro zen, zaborrez eta gurpilez mukuru beteta zeuden hondakindegiak atzean utzita, non **iraulkiak** errautsak eta zaborra deskargatzen ari baitziren. Lopez de Arana

Kamioi militarraren **iraulkian** buruz behera etzanda gaude Gorria eta biok, eskuak atzealdean lotuta ditugula. Joseba Sarrionandia

**2** ***iraulki orga***

Azez beteriko **iraulki orga** batzuk karga husten ari ziren oraindik. Karlos Zabala

Deskargatu eta deskargatu jarraitzen zuten; **iraulki orgek** beren barazki karga botatzen zuten lurrera. Karlos Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iraulki orga** (3); **iraulki orgen** (3)

---

## iraultza 1 *iz* herri edo estatu batean, talde edo klase batek aginpidea hartzen eta gizarte hierarkia iraultzen duenean jazotzen diren gertaeren multzoa. ik **matxinada.**

Emakumeek lan munduan sartu eta independentzia ekonomikoa lortuz geroztik erabateko aldaketa **-iraultza-** gertatu dela gizartearen egituran. Luis Elberdin

Informazio teknologia berrien **iraultza**. Iñaki Heras

Han Castroren gerrillarekin borrokatu zela, eta **iraultza** egin zuela. Jon Muñoz

Nekazari tradizional haiek **iraultza** egin beharko zuten lurra lantzeko eta lurren jabetzako metodo tradizionaletan. Iñaki Mendiguren

**Iraultza** gertatzen bada, hazkundea arriskutsu bihurtzen da. Iñaki Mendiguren

Gure bizitza afektibo, sozial eta ekonomikoaren zuztarretaraino heldu den **iraultza** gertatzen ari da. Luis Elberdin

Inork ez dik musika idazten, inork ez dik **iraultzarik** pizten edota inor ez duk maitemintzen. Lopez de Arana

Kopernikok sortutako astronomiaren **iraultza**. Ibon Uribarri

Euskararen bilakaeran izan den azken **iraultza**. Koldo Zuazo

**Iraultza** guztien gainetik gizona zegoela, eta emakumea. Inazio Mujika Iraola

**Iraultza** aurreko monarkiaren oinordekoen aldekoa. Markos Zapiain

Zenbat irauten du iraultzaren edo **iraultzen** fase honek? Joxe Azurmendi

**2** (izenondoekin)

1917ko urriko **iraultza** sozialista. Jose Morales

Errusian **iraultza** komunista gertatu baino askoz lehenagoko garaietan. Iñaki Mendiguren

Ezta **iraultza** nazionalista edo sozialistaren profetarik odoltsuenen artean ere. Iñaki Mendiguren

**Iraultza** proletarioaren egunean. Koldo Biguri

Khomeiniren 1979ko **iraultza** islamistaren gaia aipatu diodanean. Jon Arretxe

**Iraultza** faxista martxan dago. Koldo Biguri

XIX. mendeko **iraultza** industrialaren ondorioz. Luis Elberdin

**Iraultza** ekonomiko, sozial eta, batez ere, psikologikoaren ordainetan. Iñaki Mendiguren

Emakumeei esker, benetako **iraultza** sozio-ekonomikoa, kulturala eta sexuala gertatzen ari da. Luis Elberdin

Txinan, **Iraultza** Kulturalaren garaian zeuden. Rafa Egiguren

Kuhnen ***Iraultza*** *zientifikoen egitura* liburuaren argitalpenaz geroztik. Askoren artean

Gurea ez da **iraultza** ezkertiar bat; gurea **iraultza** nazionalista bat da! Pako Aristi

Nikaraguako **iraultza** sandinista. Koro Navarro

**3** (izenlagunekin)

1821eko Mexikar **Iraultzaren** ondoren 1910eko **Iraultza** etorri zen. Iñaki Mendiguren

K.o. 1789ko Frantziar **Iraultza**. Iñaki Mendiguren

Frantziako **iraultza** denboran, 1793 eta 1796a artean, anitz herri suntsiturik gelditu zen Nafarro gain honetan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Errusian K.o. 1825ean zertutako Abenduko **Iraultza**. Iñaki Mendiguren

Belusezko **Iraultza** izan zen, ordea, sistema politikoa aldarazi zuena, 1989an. etorkizuneko **iraultza** egiteko "indar biologiko" hori izan behar dugu kontuan. Koldo Zuazo

Irudien egiazko **iraultza,** iraultzarik bada, aspaldi gertatua da. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **iraultzaile.**

Europan nagusi diren **iraultza** mugimenduei. Joseba Zulaika

Garai hartarako, ordea, fanarioten nagusitasuna azpijana zegoen Mendebaldeko **iraultza**-gertaeren ondorioengatik. Iñaki Mendiguren

**Iraultza**-batzorde bat osatu dugu. Lopez de Arana

Zinezko **iraultza**-proiektu bat. Joxe Azurmendi

Izugarri txarto kantatzen zuen, eta tonutik ateratzen zen are **iraultza**-abestietan ere. Jose Morales

Alemaniar sozialdemokraziaren **iraultza**-nahia gelditzearren. Iñaki Heras

Kantek berak bere Filosofia eta bereziki Arrazoimen hutsaren kritika **iraultza**-ekintza gisa ulertu zuen. Ibon Uribarri

**Iraultza** hasierako garaian. Andres Urrutia

Garat anaiek, **Iraultza** denboran, euskal departamenduaren alde eraman eta galdu zuten gudua. Piarres Xarriton

**Iraultza**-egunak kitzikagarriak zitzaizkion, abentura berrien iturburu. Felipe Juaristi

Leninek erran omen zuen, XX. mende hasieran, mende berria gerla eta **iraultza** mende izanen zela. Piarres Xarriton

Gerra eta **iraultza**-hotsak edonon. Askoren artean

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

1956an Hungarian herri **iraultza** bat izan zen, boterean zegoen Alderdi Komunistak erroz zapaldu zuena. Pello Salaburu

Gizartean odolik gabeko gizarte- **iraultza** eragiteko. Iñaki Mendiguren

Garrantzizko gizarte- eta politika- **iraultza** ari zela gertatzen. Iñaki Mendiguren

Industri **iraultza** gertatu zenetik. Iñaki Mendiguren

Horrelako egoeretan, hots, zientzia- **iraultzetan,** teoria bat beti da zokoratua ala biek aurrera egin dezakete? Askoren artean

Bada, zenbaitek dio egungo teknologia **iraultza,** garrantzitsua izanik, ez dela benetako iraultza. Iñaki Heras

Ondorengo ia milurtekoan, gizarte- eta kultur **iraultzen** aniztasun txundigarria gertatu zen. Iñaki Mendiguren

Maok kultura **iraultza** jarri zuen abian Txinan. Pello Salaburu

Macintosh **iraultza**. Berria - Gaiak

**6** *irud* egoera jakin bat iraultzen duen aldaketa.

Filosofiaren **iraultza** kopernikarra. Ibon Uribarri

**Iraultza** berdearen defendatzailerik sutsuenetakoak. Joan Mari Irigoien

Diru-ekonomia Japonian sartzeak... **iraultza** geldo baina geraezina eragin zuen. Iñaki Mendiguren

**Iraultza** mikroelektronikoak -hots, informatizazioak, automatizazioak edota errobotizazioak- produkzio modu berriak ahalbidetu ditu. Iñaki Heras

**7** ***Iraultza Handia*** frantziar iraultza.

1793-an, oraino **Iraultza** handiaren urte heietan beraz [...]. Herria

Frango aipatua izan den beste erretor bat, **Iraultza** Handiaren aintzineko azkena, Xavier de Saint-Esteben. Herria

**Iraultza** handiaren keinka hartan. Iñigo Aranbarri

Donibane Lohizune **iraultza** handiko denbora hetan. Herria

Euskal-Herriko parropiez eta **Iraultza** handiko gertakariez. Herria

· Frantziako **iraultza** handiaren denbora hartan. Herria

Frantziako **Iraultza** handia nola iragan zen Euskal-Herrian. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aldeko iraultza** (4); **azken iraultza** (5); **baina iraultza** (4); **barne iraultza** (6); **benetako iraultza** (10); **bere iraultza** (5); **beste iraultza** (6); **da iraultza** (22); **dela iraultza** (6); **den iraultza** (9); **du iraultza** (5); **duen iraultza** (8); **edo iraultza** (10); **egiazko iraultza** (4); **ere iraultza** (8); **eta iraultza** (46); **etaren iraultza** (8); **etaren iraultza zerga** (5); **etari iraultza** (19); **etari iraultza zerga** (19); **frantziako iraultza** (50); **frantziako iraultza handia** (4); **frantziako iraultza handiaren** (7); **gizarte iraultza** (4); **gora iraultza** (4); **gure iraultza** (5); **industri iraultza** (9); **industria iraultza** (8); **irakeko iraultza** (19); **irakeko iraultza islamikoaren** (12); **irakeko iraultza islamikorako** (6); **iraken iraultza** (7); **iraken iraultza islamikoaren** (5); **irango iraultza** (4)

**iraultza ala** (4); **iraultza ari** (4); **iraultza baino** (4); **iraultza bat** (39); **iraultza bat izan** (4); **iraultza baten** (13); **iraultza berdea** (5); **iraultza da** (5); **iraultza denboran** (10); **iraultza egin** (12); **iraultza egin behar** (4); **iraultza egingo** (4); **iraultza egiteko** (9); **iraultza egiten** (4); **iraultza ekarri** (12); **iraultza ekarri zuen** (7); **iraultza ere** (4); **iraultza eta** (13); **iraultza etorri** (4); **iraultza ez** (10); **iraultza frantsesak** (6); **iraultza frantsesaren** (7); **iraultza garaiko** (5); **iraultza gertatu** (7); **iraultza gertatzen** (5); **iraultza gertatzen ari** (4); **iraultza guztiak** (5); **iraultza guztiek** (4); **iraultza handi** (6); **iraultza handi bat** (4); **iraultza handia** (11); **iraultza handiaren** (16); **iraultza handiaren keinka** (6); **iraultza hasi** (9); **iraultza hau** (4); **iraultza honen** (6); **iraultza hori** (4); **iraultza horren** (11); **iraultza hura** (8); **iraultza industriala** (4); **iraultza islamikoa** (5); **iraultza islamikoak** (5); **iraultza islamikoaren** (26); **iraultza islamikoaren kontseilu** (18); **iraultza islamikorako** (7); **iraultza islamikorako kontseilu** (7); **iraultza izan** (14); **iraultza izan zen** (7); **iraultza laranja** (10); **iraultza moduko** (4); **iraultza partarrieu** (5); **iraultza piztu** (4); **iraultza politikoa** (4); **iraultza sandinista** (6); **iraultza sandinistaren** (5); **iraultza sexuala** (4); **iraultza sortu** (4); **iraultza sozialista** (6); **iraultza txiki** (8); **iraultza txiki bat** (7); **iraultza zerga** (60); **iraultza zerga delakoa** (10); **iraultza zerga eskatu** (5); **iraultza zerga ordaindu** (22); **iraultza zergaren** (5); **iraultza zientifikoen** (4); **iraultza zientifikoen egitura** (4); **iraultza zuria** (4)

**dira iraultzak** (5); **eta iraultzaren** (17); **frantziako iraultzak** (15); **frantziako iraultzan** (8); **frantziako iraultzaren** (28); **frantziako iraultzatik** (5); **frantziako iraultzaz** (4); **industri iraultzaren** (7); **industria iraultzak** (6); **industria iraultzaren** (4); **iraultzak ere** (4); **iraultzak eta** (6); **iraultzaren alde** (7); **iraultzaren bidez** (6); **iraultzaren eta** (10); **iraultzaren garaian** (10); **iraultzaren lehen** (7); **iraultzaren ondoren** (17); **iraultzaren ondotik** (6); **iraultzari buruz** (7); **iraultzari esker** (4); **iraultzarik handiena** (5); **iraultzaz geroztik** (6); **krabelinen iraultza** (5); **krabelinen iraultzaren** (4); **kubako iraultzaren** (5); **pentsakeraren iraultza** (5); **sciri irakeko iraultza** (8); **sekulako iraultza** (6); **teknologia iraultza** (8); **zen iraultza** (11); **zen iraultzaren** (6); **zuen iraultza** (13); **zuen iraultzaren** (5); **zuten iraultza** (4)

---

# **iraultzaburu** *iz* iraultza baten buruzagia.

"Argien mende" famatuaren umeek [...] ez zuten izan orduan beren helburuen betetzeko astirik, beharrik! zeren eta, hamar urte barne, **iraultzaburu** gehienek, zuriek ala gorriek, elkar jan baitzuten. Piarres Xarriton

---

# **iraultzaile** *(orobat* ***iraultzale*** *g.,er.)* **1** *izond* iraultzaren aldekoa, iraultzaren alde aritzen dena;. ik**iraultza 4.**

Kubatar mugimendu **iraultzailearekin** kolaboratzen du. Edorta Jimenez

*Uztailaren 26* Higikunde **Iraultzailea** sortu zuen eta borrokari lotu zitzaion berriz bere herria Batistaren tiraniatik askatzeko. Jon Muñoz

Bere eri tinkatuen artean zeukan Chauvin-Dragon herriko epaitegi **iraultzailearen** erabakia. Elena Touyarou

Erakunde **iraultzaile** baten oinarri politiko eta ideologikoak. Rafa Egiguren

Béla Kun-ek gidatutako gobernu **iraultzaileak** 133 egun iraun zuen. Urtzi Urrutikoetxea

Talde **iraultzaile** armatu batek zer jokaera hartu behar ote zuen Espainian hala moduzko demokrazia bat apailatzen bazuten. Bernardo Atxaga

Kubako azken gerra **iraultzailearen** historia. Edorta Jimenez

Suizidio dialektikoa, esango nuke nik orain, bazegoelako arrazoi **iraultzaile** bat presaka bizi behar hartan. Koldo Izagirre

Harrokeria naziaren biktimak izan ziren batzuk; frankismoarenak, gulagetakoak, kastrismoarenak, Pinochetenak; hango eta hemengo faxismoarenak, hango eta hemengo moral **iraultzailearenak**. Anjel Lertxundi

ETA inguruan sortu den abertzaletasun **iraultzaile** negartiak. Patziku Perurena

Esnatzen ari zen gehiengoaren gurari **iraultzaileak** asetzeko. Iñaki Mendiguren

Hori izan zen beren praktika **iraultzailearen** osagai oinarrizkoa. Joseba Zulaika

Ukabila altxatu du keinu **iraultzaile** bat eginik. Harkaitz Cano

Errepublikar kartsu honek mintzaldi **iraultzaile** sutsuak idazten zituen. Elena Touyarou

"Bortizkeria **iraultzailea"** deitzen zutena. Piarres Xarriton

Betiere kapitalismoaren kontrako eginbide politikoarekin eta pedagogia **iraultzailearekin** estu-estu uztartua. Juan Kruz Igerabide

Berba bat, berba xume bat esan ahal izateko egin dut egin dudana, apiril **iraultzaile** bat iragarriko duena, gizarte honen hegaldia udabarrirantz. Koldo Izagirre

Badirudi Jazinto Errepublikak ekarri zuen haize berri eta **iraultzaileak** eraman zuela Eibarrera, nahikoa helduta utzi zuela baserria. Koldo Izagirre

Zientziak ez du zerikusirik horrekin; ez da kristaua, ez da ateoa, ez **iraultzailea,** ez erreakzionarioa. Josu Zabaleta

Grégoire delako apezpiku **iraultzaile** famatu hori. Piarres Xarriton

Errepublikak bete zuen Grégoire apez abertzaleak eta haren lagun **iraultzaile** jakobinoek egin ametsa: […], hots, "gure arbaso baserritarren frantsestea". Piarres Xarriton

Ia egunero, hiltzera kondenatutako ekintzaile **iraultzaileak** exekutatzen zituzten. Jose Morales

Izan zitekeen ere, Güell-tarrak erreboluzionario edo **iraultzale** izaiteaz akusatuak zirela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

-Hi, hago isilik, oilartxo sasi **iraultzailea** ! Paddy Rekalde

Izan ere, erasoaren zamari aurre egin ahal izateko, zanpatzaileen aurkako masa-mugimendua bildu ez ezik, abangoardia **iraultzailearen** gidaritzapera ekarri beharra dago. Rafa Egiguren

Liga Komunista **Iraultzaleak** agertzen du ezkerburuan bere zerrenda. Herria

**2** egoera jakin bat iraultzea dakarrena.

Geneetan oinarrituriko sendagai **iraultzaile** berriak. Askoren artean

Fregeren logika **iraultzailea** ere une horietan atera zen argitara. Askoren artean

Nolabait esatearren, esaldia, testuinguru hartan, **iraultzailea** suertatu zen. Bernardo Atxaga

**3** *iz* iraultzaren alde aritzen den pertsona.

Hemingwayk berak, zioen albisteak, **iraultzaileen** eledunarena egin zuen. Edorta Jimenez

Hainbeste **iraultzaileren** ahalegina eta odola hutsaren hurrengo uztea. Juan Kruz Igerabide

Disidenteek, asaldatzaileek, **iraultzaileek,** anarkoek eta bihurriek ordaintzen dute garestien beren ausardia, baina haiek aldatzen dute mundua. Luis Elberdin

Frantziar **iraultzaileak** sekula ez ziren nekatu Solon eta Likurgo aipatzen. Iñaki Mendiguren

Horra euskal **iraultzaile** parasitoa, nere izenarekin nere bihotza erre nahian. Patziku Perurena

Negoziaketak has ditzan FARCeko **iraultzaleekin** andere bahituaren libratzeko. Herria

Ez, ez da garaiko **iraultzaile** edo ezkertiar idealista utopiko anakroniko baten aldarrikapena. jakinekoa baitzen zeukaten diru apurra multikopista eta tinta erosten gastatzen zutela **iraultzaile** bulartsu haiek. Iñaki Heras

Ezinezkoa zela halakorik gertatu izana sinestea bera bezalako **iraultzaile** peto bati. Hasier Etxeberria

B **iraultzaile** ustezko bati. Joan Mari Irigoien

Errepublikazaleak eta **iraultzaile** ohiak baikinen gehienok. Juan Kruz Igerabide

Edozein **iraultzailek** errepresioari buruz jakin behar duena. Rafa Egiguren

Iraultza egitea da **iraultzaile** guztien eginbeharra. Rafa Egiguren

Zertako balio izan digute beren gezurra iraultzen ez dakiten **iraultzale** gizajo horiek? Patziku Perurena

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Mota eta joera guztietako **iraultzaile** talde txikiak zeuden Errusian. Jose Morales

Beshir aldamenean neukan une oro itsatsita muki bat bezala, nire **iraultzaile** -talaka nazioartekoari adi-adi, liluraturik, begiak ezin irekiago, harrituta nire buru-argitasuna zela-eta. Fernando Rey

-Lana topatzen duanean, ez ezak gero galdu bigarren egunerako, **iraultzaile** plantak egiteagatik! Koldo Biguri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**alderdi iraultzaile** (11); **alderdi iraultzaile eta** (3); **armatu iraultzaile** (31); **armatu iraultzaile kolonbiarrak** (19); **armatu iraultzaile kolonbiarrek** (4); **batzorde iraultzaile** (3); **edo iraultzaile** (4); **eta iraultzaile** (8); **indar armatu iraultzaile** (30); **iraultzaile bat** (18); **iraultzaile baten** (7); **iraultzaile bi** (3); **iraultzaile edo** (3); **iraultzaile eta** (14); **iraultzaile eta modernoa** (3); **iraultzaile hau** (3); **iraultzaile honek** (4); **iraultzaile izan** (5); **iraultzaile kolonbiarrak** (20); **iraultzaile kolonbiarrak atzo** (3); **iraultzaile kolonbiarrak gerrilla** (4); **iraultzaile kolonbiarrak gerrillak** (3); **iraultzaile kolonbiarrek** (4); **iraultzaile talde** (3); **isilpeko batzorde iraultzaile** (3); **mugimendu iraultzaile** (7); **pri alderdi iraultzaile** (6); **talde iraultzaile** (8)

**aldaketa iraultzailea** (3); **alderdi iraultzaileak** (3); **armada iraultzailea** (5); **armada iraultzaileak** (5); **armatu iraultzaileak** (5); **borroka iraultzailea** (3); **bretainiako armada iraultzailea** (5); **bretainiako armada iraultzaileak** (5); **erakunde sozialista iraultzaileak** (10); **eta iraultzailea** (5); **eta iraultzaileak** (7); **indar armatu iraultzaileak** (5); **iraultzailea da** (7); **iraultzailea eta** (7); **iraultzailea izan** (7); **iraultzailea izan zen** (6); **iraultzailea sortu** (4); **iraultzailea zen** (7); **iraultzaileak dira** (3); **iraultzaileak edo** (3); **iraultzaileak izan** (4); **kontseilu iraultzaileak** (3); **mugimendu iraultzailea** (3); **sozialista iraultzaileak** (10); **teoria iraultzailea** (3); **zerga iraultzailea** (10)

**armada iraultzailearen** (3); **armada iraultzaileari** (8); **armada iraultzaileari leporatutako** (3); **armada iraultzaileko** (4); **bretainiako armada iraultzailearekin** (3); **bretainiako armada iraultzaileari** (8); **bretainiako armada iraultzaileko** (4); **eta iraultzaileen** (3); **iraultzaileari leporatutako** (3); **iraultzaileek ez** (3); **iraultzaileko eta** (4); **iraultzaileko kide** (5); **kontseilu iraultzaileko** (3); **mugimendu iraultzaileko** (4)

---

# **iraultzailetu**, iraultzaile(tu), iraultzailetzen *(corpusean **iraultzaletu** soilik)* da/du *ad* iraultzale bihurtu.

Eta nago, euskal sena kristautu, abertzaletu, **iraultzaletu** ahalean ugaldu ote den txori xipotx honenganako sentiberatasuna ere. Patziku Perurena

---

# **iraultzakide** *izond* iraultza berekoa.

Adinkideak ziren biak, **iraultzakideak,** burkideak, eta, seguru asko, hainbat aldiz Frantziako Batzarretan Iraultzaren eta Arrazoiaren aldeko hitzaldi sutsuak egindako Jean-Baptistek oso gustura entzungo zizkion burkide hari azken orduan Iraultzaren aurrerapenak eta abantailak goresteko zuzendu zizkion hitz loratu eta kementsuak... J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# **iraultzakume** *izond adkor* iraultzaren ondorio dena.

Baina pentsamendu demokratiko modernoa, **Iraultzakumea,** "burgesa" nahi bada, edo errepublikanoa, liberala, hori bai, berek deskubritu zuten, karlistakumeen belaunaldi abertzaleak, eta bere odolarekin defendatu zuten gerra-zelaietan. Joxe Azurmendi

---

# **iraultzalari** *(orobat **iraultzari**)* *iz* iraultzailea.

Gazte denboran adixkide minak izanak dira Klein eta Fisher, biak **iraultzalariak**. Herria

**Iraultzariek** egoera hori "Terrorea" deitzen zuten, eta bortizkeria zen terroristek errepublikako lurralde guzietan sortzen zutena. Elena Touyarou

---

# **iraultzaldi** *iz* irualtzea, iraultza.

**Iraultzaldi** bakoitzaren izaera, erradikaltasuna, fase horren luze-laburra, etab., dio Ortega-k [...] arraza bakoitzaren karakterearen araberakoa da. Joxe Azurmendi

---

# iraultzale ik **iraultzaile**.

---

# **iraultzaletze** *iz* iraultzale bihurtzea.

Pasarte hunkigarri horretan ederki suma liteke, ongi erreparatuz gero, aldez aurretik aipatzen nuen sinbologia, papagorriaren kristautze, abertzaletze, **iraultzaletze** kontua dela eta. Patziku Perurena

---

# iraultzari ik **iraultzalari**.

---

# **iraultzatxo** *iz adkor* iraultza txikia.

Aipatua izan da 1968ko **iraultzatxoa,** nola geroztik aldatu diren gauzak Frantziako Unibertsitateetan. Herria

Nork bere herrian ezin, eta hantxe egin genuen **iraultzatxoarekin** konformatu behar. Joxerra Garzia

Zer deabru dira frantses horiek: sekulan ez kontent, beti zerbait berri nahi, **iraultzatxoz iraultzatxo** dabiltzalarik, **iraultzatxoak** baitira sortzen dituzten aldaketak. Herria

Eta itzulipurdi eta **iraultzatxo** hori termikoa da, bero-kontuarena delako, alegia. Pello Zabala

---

# **iraultzazale** *izond iz* iraultzaren zale dena.

Abraham Lincolni eskuz esku eman omen zion bikote **iraultzazaleak** idatziriko Manifestu Komunista, gero esklabotza deuseztatzearen defendatzaile ospetsua izango zen presidentea Illinoisko senataria besterik ez zenean... J.M. Olaizola "Txiliku"

Txomin Agirrerenean espero ditugu langile-auzoetako giro **iraultzazale** horren kontrako herra, jende-nahasteak sortzen dion beldurra. Xabier Mendiguren Elizegi

Kantari ederra lehena, **iraultzazalea** bigarrena. Herria

---

# **iraultzazaletasun** *iz* iraultzazale denaren nolakotasuna.

Bere **iraultzazaletasun** eta gorrotoak beretzat gordetzen zituen, ez ziren bere gelatik ateratzen. Josu Zabaleta

---

# **iraultze** *iz* azpikoz goratzea; iraultza.

Erabateko aldaketa da, komunikazio prozesuaren **iraultze** osoa. Txema Ramirez de la Piscina

Kristautasuna izan da, nagusiki, balioen **iraultze** hori bideratu eta ekarri duena. Askoren artean

Antolaketaren **iraultzeari** dagokionez, arau berriak ezartzeko asmorik ez dago, dauden arauak nahastekoa bai, ordea. Iñaki Arranz

Antifrasia, **iraultze** semantikoa, beharrak sortutako artea da. Iñigo Aranbarri

Etxeverri-ren ondotik Frantziako **iraultze** handia arte Ziburun erretor egon ziren gehienak sortzez ziburutarrak ziren eta lehenik herrian berean bikari egonak... Herria

Ez, ez daki holako barne-**iraultze** eta barne-hazkurritze horien berri. Herria

---

# **iraultzika** *adlag* iraulka.

Sakana eta Larraun ibarrak goiti datoz hodei beltzak **iraultzika**. Patziku Perurena

Bakanak baitira oso, zeremonia arteko hutsarte fin ttiki horiek aintzat hartu, eta gogoan **iraultzika** paratzen dituztenak. Patziku Perurena

---

# **iraumen** *iz* iraupena.

Hochedéren **iraumena** ere ederra da. Josu Zabaleta

---

# **iraun,** iraun, irauten **1** du *ad* egoera berean jarraitu, egoera jakin bati eutsi. ik **atxiki**; **mantendu**.

Horrela, sistema aurrera doa, **iraun** egiten du. Luis Elberdin

Bizi, ez **iraun**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Harrobiko harea, berriz, azkarrago lehortzen da eraikuntzetan, eta zarpeatuak **iraun** egiten du. Santiago Iruretagoiena

Mundua eta beronen grinak iragan egiten dira; Jainkoaren nahia betetzen duenak, berriz, betiko **irauten** du. Elizen arteko biblia

Larruazalaren ukimena duen dardaragailu bat, pila alkalinoak dituena, **iraun** eta **iraun** eta **iraun** egiten duten horietakoak. Juan Martin Elexpuru

Ea noiz arte **irauten** duen. Ramon Saizarbitoria

Menelaok, berriz, agintean **iraun** zuen, handikien diruzalekeriari esker. Elizen arteko biblia

Zeruko hegaztietatik ere zazpina bikote, ar-emeak, hauen arrazak munduan **iraun** dezan. Elizen arteko biblia

**Iraun** dezazuela benetako penitentzian. Askoren artean

Ukabilkada bat eman nion buruan, isilik negar egiten ikas zezan, besteren etxean **iraun** nahi izanez gero nola portatu behar zuen ikas zezan. Juan Kruz Igerabide

Euzkadiren izaerari buruzko gure ideiak -gure sentimenduak- bere horretantxe **iraun** zuen. Bernardo Atxaga

Nafarrek uda arte **iraun** zuten bortupean. Aingeru Epaltza

Idoiaren eta bion arteko harremanak ez baitzuen **iraun** uda arte ere. Juan Kruz Igerabide

Emanaldiak **irauten** duen bitartean. Xabier Olarra

Gosariak **iraun** bitartean, neskari ez zitzaion irribarrea suntsitu. Aingeru Epaltza

Diana Andoinskoak aditzera eman zidan delako liburua atxikitzen ahalko nuela Bidaxuneko nire egonaldiak **iraun** artean. Aingeru Epaltza

Bidaiak **iraun** zuen denbora guztian. Anjel Lertxundi

Teresak kuxkurtuta eduki zituen begiak irakurketak **iraun** bitarte guztian. Bernardo Atxaga

Francori beti **iraun** zion Pontitora itzultzeko fantasiak. Xabier Olarra

Bere goxoak nire baitan betiko **iraun** dezan. Martin Anso

Horrek ekain-uztail-abuztuetan **irauten** du. Iñaki Iñurrieta

Bururaino **irauteko,** gaizki eta sobera laster ari den bihotza artatu behar da. Marzel Etxehandi

**2** (modua adieraziz)

Nork **iraun** dezake zutik Jainko Jaun santu honen aurrean? Elizen arteko biblia

Egon erne, **iraun** sendo sinesmenean, joka gizonki eta izan indartsu. Elizen arteko biblia

Bizirik **iraun** zutenak sakabanatu egin ziren, bi lagun batera ez gelditzeraino. Elizen arteko biblia

Bizirik **irauteko** grinak gaiztoturik, herio larrian. Juan Kruz Igerabide

Nik eseririk **iraun** nuen, burumakur. Juan Kruz Igerabide

Interes partikularrek elkartuta **iraun** dezaten beharrezkoa den lokarria. Juan Martin Elexpuru

Maryk, ikaragaitz **iraun** zuen azken-azkeneraino. Mirentxu Larrañaga

Sinesmenean osasuntsu **iraun** dezaten. Elizen arteko biblia

Euskaldun gazteen egitekoa, egundaino bezala, euskaldun eta fededun **irautea** zen. Piarres Xarriton

Halaxe **iraun** zuten denbora batean, Enrike lurrean luze, Gabin fitxekin ari zelakoa egiten, biak geldi, biak isilik. Iñaki Iñurrieta

Pentsakor **iraun** zuen, ordea, larria barrenean sartuta, korapilo handiren bat askatu ezinez. Karlos Zabala

Baldin **iraun** izan banu neure hitzari leial zuk zeureari leial **iraun** duzun bezain gutxi, hartuko ote zenuke nigandik erantzun bat bakarra ere? Jon Muñoz

Kristinak ezbaian **iraun** zuen pixka batean, eta gero, dendako zokora jo zuen, enplegatuendako gelatxora. Aingeru Epaltza

Isilpean gorde nahi zituen demostrazioak; isilpean **iraun** dute. Jon Muñoz

Bakoitzari egoera onean **irauteko** behar duena ematen diona. Xabier Kintana

Ondikotz, nik ez dut inoiz luzaz **iraun** haize-kontra. Aingeru Epaltza

Autoan zarratua, zigarroak zigarroei **iraun** nuen, ataritik begirik galdu gabe. Aingeru Epaltza

**3** (ezezko esaldietan)

Ez zuen **iraun** hausnarketak. Piarres Aintziart

Baina horrek ez du irauten, ezin du **iraun,** eta ondotik berriz ere ilun erabatekoa, nora eza. erregimenak ezingo luke **iraun** minutu bakar batez ere galera esentzial gurea, eta denona, eta norberarena, galdu-uste ustela besterik ez dela sinetsarazteko gauza ez balitz. Iñaki Iñurrieta

Gehiago ezin **iraun** izan nuenean, eskuak askatu gabe, belauniko jarri nintzen, eta, hala, burua atera ahal izan nuen. Koro Navarro

Jainko goren eta bakarragandik aldendu baitziren, ezin **iraun** beraien arteko batasunak ere. Askoren artean

Orduan ere hirukotea osatu zuten, baina ez zuen askorik **iraun**. Jon Muñoz

## **4** aipatzen den iraupena izan. (denbora banakoekin)

Jaiak zazpi egun **iraun** zuen. Elizen arteko biblia

Berrogei egunez **iraun** zuen uholdeak. Berria - Harian

Hamabi egun **iraun** zuen oraino zendu aitzin. Aurelia Arkotxa

150 bat urte **iraun** zuen eskola pitagorikoak, eta 218 pitagoriko bildu bere baitan. Jon Muñoz

Berrogei urte luze **iraun** duen Gerla Hotzak. Piarres Xarriton

Hogoi urte **iraun** dut han. Piarres Aintziart

Daviden garaian, hiru urtez **iraun** zuen gosetea izan zen. Elizen arteko biblia

Horrela **iraun** zuen hiru urtez. Juan Kruz Igerabide

Egoera gogor hartan, urtetan **iraun** zuten. Juan Kruz Igerabide

Hilabete **iraun** zuen Noto haizeak, jo eta jo. Juan Kruz Igerabide

Lau hilabete **iraun** zuen abenturak, Tiro-trukaketak bizpahiru oren **iraun** zuen. Piarres Aintziart

Orduak **irauten** duen une hori. Arantxa Iturbe

Bi ordu eskas **iraun** zuen bilerak. Joxe Austin Arrieta

Oren erdia pasa **iraun** zuen gure elkarrizketak. Marzel Etxehandi

Oso bizitza laburra dute dastamenaren zelula hartzaileek; egun batzuk besterik ez dute **irauten**. Irene Aldasoro

Mexikoko Tamaulipas basamortuko gure egonaldiak lau egun eta hiru gau **iraun** zuen, 85 ordu guztira. Joxe Austin Arrieta

Maitasun horrek urte erdi **iraun** zion, nahiz eta gehiegizko sugar hura etengabea ez izan. Askoren artean

Galdeketak ordu laurden inguru **iraun** zuen. Anjel Lertxundi

**Iraun,** pare bat aste baizik ez zuen **iraun**. Aingeru Epaltza

Segundo gutxi batzuk **iraun** zuen horrek. Jon Muñoz

Unetxo bat **iraun** zion nahasmenduak, eta berehala eutsi zion neurritasunari: [...]. Anjel Lertxundi

Pareta horiek ezin dutela laurogei urtetik gora **iraun**. Santiago Iruretagoiena

## **5** (adizlagunekin eta kidekoekin)

Amari labur **iraun** dio, ordea, ikuskizunaren pozak. Anjel Lertxundi

Gerra beldurrez, gurasoek ez zuten luze **iraun** Berlinen, Sara mundura ekartzeko denbora doia. Felipe Juaristi

Luze **iraun** zidan isilik gelditu izanaren damuak. Anjel Lertxundi

Zori on eskeko zeremoniek ez zuten luzaro **iraun**. Juan Garzia

Garaipen honek denbora luzez **iraun** zuen. Askoren artean

Hala **iraun** zuen denbora luzean. Juan Kruz Igerabide

Ikaratu zen Agerre, baina ikarak guti **iraun** zion. Aingeru Epaltza

Isiltasunak ohi baino gehiago **iraun** du. Rafa Egiguren

Eta gehiago **iraun** zezaten, teila batekin estali omen zituen. Santiago Iruretagoiena

Gertatu ohi da izenak **irauten** duela izanak baino gehiago. Juan Martin Elexpuru

Zenbat **iraun** zuen Diofanteren bizitzak? Jon Muñoz

Irailean ekin zioten birari, eta 2000. urteko ekaina bitarte **iraun** zuen. Edurne Elizondo

## **6** ***iraun-nahi*** *iz*

Zuhurtziak edo **iraun** -nahiak bultzaturik, mihian zituèn hitzak irentsi zituen beste behin. Joan Mari Irigoien

Jaiotako denek bizitzan **iraun nahia** behar baitute. Xabier Amuriza

Bizi-nahiak eta **iraun-nahiak** hartaraturik. Joan Mari Irigoien

· Garaion behin-behinekotasun hori, axalekotasun hori, **iraun** -nahi-ez hori bermatuko zion bidea behar zuen. Joxerra Garzia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

arte iraun (103); arte iraun behar (6); arte iraun du (6); arte iraun zuen (37); arte iraun zuten (12); artean iraun (6); asko iraun (33); askorik iraun (22); aste iraun (23); aste iraun du (5); aste iraun zuen (5); astebete iraun (7); atxik eta iraun (6); baina gutxi iraun (7); baina iraun (5); baino gehiago iraun (35); bakarrik iraun (12); bat iraun (40); bat iraun du (8); bat iraun duen (6); bat iraun zuen (17); bat pasa iraun (6); batez iraun (8); batzuk iraun (6); bere hartan iraun (19); bere horretan iraun (5); bertan iraun (7); beti iraun (6); betiko iraun (5); bi aste iraun (8); bi egun iraun (5); bi oren iraun (8); bi urte iraun (10); bilerak iraun (5); bitartean iraun (5); bizirik iraun (101); bizirik iraun ahal (5); bizirik iraun behar (7); bizirik iraun dezaten (7); bizirik iraun nahi (5); bizirik iraun zuen (9); bizirik iraun zuten (8); bost urte iraun (6); dakit zenbat iraun (5); denbora iraun (11); du iraun (25); du luze iraun (7); edo iraun (5)

egun iraun (46); egun iraun duen (8); egun iraun zuen (17); egunez iraun (9); egunez iraun zuen (5); epaiketak iraun (5); erdi iraun (33); erdi iraun du (5); erdi iraun zuen (17); ere iraun (14); eskas iraun (14); eskas iraun zuen (7); esker iraun (5); eta bizirik iraun (8); eta erdi iraun (29); eta iraun (40); eta laurden iraun (5); ez du iraun (12); ez zituen iraun (5); ez zuen iraun (36); ez zuten iraun (5); ezin du iraun (9); ezin iraun (8); gabe iraun (19); gabe iraun zuen (5); gau iraun (5); gau osoa iraun (5); gaur arte iraun (7); gehiago iraun (68); gehiago iraun zuen (18); gehiegi iraun (9); gehien iraun (5); gerrak iraun (11); gerrak iraun zuen (7); gora iraun (5); grebak iraun (11); grebak iraun duen (5); guti iraun (8); gutxi iraun (60); gutxi iraun du (7); gutxi iraun zuen (31); gutxiago iraun (6); halaxe iraun (5); han iraun (7); hark iraun (11); hark iraun zuen (7); hartan iraun (21); hilabete iraun (35); hilabete iraun du (5); hilabete iraun duen (8); hilabete iraun zuen (12); hilabeteak iraun (6); hiru aste iraun (8); hiru egun iraun (6); hiru laurden iraun (8); hiru ordu iraun (8); hiru oren iraun (6); hiru urte iraun (11); horrek iraun (17); horrek iraun du (5); horrek iraun egin (5); horrela iraun (10); horretan iraun (9); indarrean iraun (6); inguru iraun (25); inguru iraun zuen (12); inguru iraun zuten (6)

iraun ahal (31); iraun ahal izan (6); iraun ahal izango (6); iraun ahal izateko (15); iraun artean (11); iraun badu (6); iraun baitu (5); iraun baitzuen (11); iraun behar (76); iraun behar du (11); iraun behar dute (5); iraun behar zuen (10); iraun beharko (11); iraun beharra (6); iraun beza (8); iraun bitartean (89); iraun dezake (36); iraun dezakeela (7); iraun dezakeen (17); iraun dezakete (9); iraun dezala (24); iraun dezan (50); iraun dezaten (28); iraun dituen (7); iraun du (172); iraun du eta (9); iraun du partida (10); iraun du partidak (11); iraun duela (13); iraun duen (179); iraun duen bitartean (14); iraun duen denbora (5); iraun duen gatazka (5); iraun duen lau (5); iraun duen partida (14); iraun duena (26); iraun dute (30); iraun dutela (5); iraun duten (33); iraun egin (28); iraun egin zuen (16); iraun egingo (5); iraun egiten (27); iraun egiten du (14); iraun eta (32); iraun ez (16); iraun ezazue (8); iraun genuen (7); iraun izan (13); iraun izan balu (5); iraun izana (5); iraun lezake (5); iraun nahi (22); iraun nahi du (5); iraun nuen (17); iraun ohi (9); iraun omen (6); iraun omen zuen (5); iraun ondoren (5); iraun sendo (5); iraun zabaleta (5); iraun zezakeen (10); iraun zezan (9); iraun zezaten (7); iraun zian (5); iraun zidan (9); iraun zien (5); iraun zion (33); iraun zituen (12); iraun zuela (19); iraun zuen (699); iraun zuen artean (10); iraun zuen bilerak (7); iraun zuen bitartean (64); iraun zuen denbora (17); iraun zuen denboran (8); iraun zuen eta (11); iraun zuen horrek (8); iraun zuen saioak (5); iraun zuena (14); iraun zuten (103); iraun zuten bitartean (6)

bizirik iraundako (6); isilik iraun (11); isilik iraun zuen (6); kanpainak iraun (5); lau hilabete iraun (8); lau urte iraun (8); laurden iraun (14); laurden iraun du (7); luzaro iraun (33); luzaro iraun zuen (8); luzaroago iraun (6); luzaroan iraun (18); luzaz iraun (30); luze iraun (83); luze iraun duen (5); luze iraun zuen (17); luze iraun zuten (5); luzeago iraun (5); minuta iraun (8); minutu iraun (31); minutu iraun zuen (22); nekez iraun (6); nola iraun (18); nork iraun (7); ordu inguru iraun (6); ordu iraun (41); ordu iraun zuen (27); ordubete inguru iraun (5); ordubete iraun (12); ordubete iraun zuen (9); oren bat iraun (7); oren iraun (24); oren iraun du (5); oren iraun duena (6); oso gutxi iraun (5); osoa iraun (15); osoa iraun zuen (5); osoan iraun (9); pasa iraun (15); pasa iraun du (7); saioak iraun (6); segundo iraun (9); segundo iraun zuen (5); segurik iraun (5); sendo iraun (11); soilik iraun (5); tinko iraun (14); urte iraun (91); urte iraun du (6); urte iraun duen (23); urte iraun duten (6); urte iraun zuen (30); urteak iraun (10); urtebete iraun (5); urtez iraun (9); urtez iraun zuen (5); zazpi egun iraun (5); zazpi urte iraun (5); zehar iraun (7); zenbat denbora iraun (7); zenbat iraun (21); zenbat iraun zuen (11); zituen iraun (5); zuen asko iraun (15); zuen askorik iraun (9); zuen iraun (39); zuen luzaz iraun (7); zuen luze iraun (17); zuten iraun (7); zutik iraun (27); zutik iraun zuen (7)

a arte iraunen (7); arte iraunen (38); arte iraunen du (22); bat iraunen (10); bost egun iraunen (6); egun iraunen (16); egun iraunen du (7); egun iraunen dute (8); eta iraunen (8); guzia iraunen (7); hilabete iraunen (8); horrek iraunen (5); iraunen baitu (5); iraunen du (104); iraunen duela (5); iraunen duen (31); iraunen duena (10); iraunen dute (35); iraunen duten (10); iraunen ote (5); iraunen zuela (5); iraunen zuen (6); luze iraunen (6); noiz arte iraunen (10); raino iraunen (5); urte iraunen (8); zenbat iraunen (7)

arte iraungo (90); arte iraungo du (36); arte iraungo duela (5); arte iraungo duen (11); arte iraungo dute (14); arte iraungo duten (6); asko iraungo (11); askorik iraungo (10); aste iraungo (5); baino gehiago iraungo (8); bat iraungo (8); bat iraungo du (5); bere horretan iraungo (7); beti iraungo (10); beti iraungo du (8); betiko iraungo (13); bi urte iraungo (5); bizirik iraungo (20); denbora iraungo (7); du iraungo (11); du luze iraungo (8); egun iraungo (17); egun iraungo du (11); ere iraungo (7); ez du iraungo (9); gehiago iraungo (21); gutxi iraungo (5); hilabete iraungo (15); hilabete iraungo du (6); hiru egun iraungo (8); horretan iraungo (7); inguru iraungo (9); inguru iraungo du (7); iraungo badu (17); iraungo badute (9); iraungo baitu (6); iraungo balu (5); iraungo ditu (7); iraungo du (180); iraungo du eta (10); iraungo duela (48); iraungo duela uste (5); iraungo duen (60); iraungo dute (46); iraungo dute eta (5); iraungo duten (19); iraungo ez (7); iraungo luke (12); iraungo lukeen (9); iraungo ote (13); iraungo ote zuen (6); iraungo zuela (14); iraungo zuen (27); iraungo zuten (7); luzaro iraungo (11); luzaroan iraungo (7); luze iraungo (35);

minutu iraungo (11); noiz arte iraungo (17); ordu iraungo (8); ordu iraungo du (5); osoa iraungo (7); sendo iraungo (6); urte iraungo (23); zenbat denbora iraungo (5); zenbat iraungo (24); zenbat iraungo duen (11); zutik iraungo (19); zutik iraungo duela (6)

arte irautea (7); bere izanean irauteko (9); bizirik iraute (47); bizirik irauteko (124); eta bizirik irauteko (6); eta iraute (9); eta irauteko (10); gehiago iraute (5); iraute da (8); iraute eta (7); iraute ez (5); iraute lortu (7); irauteko behar (6); irauteko eta (5); irauteko gaitasuna (7); irauteko gisan (6); irauteko indarra (6); irauteko modu (5); irauteko moduan (5); irautekoa zen (5); izanean irauteko (9); luzaroan irauteko (5); zutik irauteko (12)

arte irauten (23); arte irauten duen (5); arte irauten zuen (5); asko irauten (10); aste irauten (7); azkeneraino sendo irauten (5); baino gehiago irauten (12); bat irauten (18); bat irauten du (7); batzuk irauten (5); bere izanean irauten (5); berez irauten (5); bertan irauten (6); beti irauten (8); betiko irauten (8); bizirik irauten (38); bost urte irauten (7); du irauten (16); dute irauten (8); egun irauten (18); egun irauten du (9); erdi irauten (6); ere irauten (12); eta erdi irauten (5); eta irauten (8); ez du irauten (15); ez dute irauten (6); ez zuen irauten (5); gabe irauten (10); gehiago irauten (22); gutxi irauten (11); gutxiago irauten (8); han irauten (6); hartan irauten (5); hersketak irauten (5); hersketak irauten duen (5); hilabete irauten (13); horrek irauten (7); horretan irauten (8); inguru irauten (9)

irauten ahal (23); irauten ahalko (7); irauten badu (28); irauten badute (11); irauten baitu (9); irauten baitzuen (6); irauten baldin (5); irauten ditu (5); irauten du (151); irauten du eta (9); irauten duela (24); irauten duen (169); irauten duen artean (10); irauten duen bitartean (56); irauten duena (19); irauten dute (57); irauten dutela (13); irauten duten (53); irauten duten bitartean (11); irauten dutenak (11); irauten ez (13); irauten zion (6); irauten zuela (7); irauten zuen (67); irauten zuen bitartean (7); irauten zuten (31); irauten zuten bitartean (5); izanean irauten (5)

luzaro irauten (8); luzaz irauten (11); luze irauten (28); minutu irauten (16); minutu irauten du (8); oraindik irauten (5); osoa irauten (6); segundo irauten (8); sendo irauten (13); sendo irauten duena (7); tinko irauten (13); urte irauten (19); zenbat irauten (14); zuen irauten (5); zutik irauten (5)

---

# iraunaldi 1 *iz* zerbaitek irauten duen denbora.

Hiru urteko **iraunaldia** izango du itunak. Berria - Ekonomia

Izen-abizenak eta bidai txartelaren **iraunaldia** . Berria - Euskal Herria

Bizitza baten **iraunaldian** . Iñaki Mendiguren

Horrela desintegrazioaldiak, osotasun gisa, prozesu uniforme baten itxura duela, kasu bakoitzean **iraunaldi** uniformearekin. Iñaki Mendiguren

Intrahistorian, edo **iraunaldi** luzeko historian. Joxe Azurmendi

Zer da hobe, baina, seme: maitasunezko egun zoragarri bat, edo urtebeteko **iraunaldi** antzua? Joan Mari Irigoien

**2** (hitz elakartuetan)

Bidai txartela bere **iraunaldi** epean jaioterrira bueltatzeko erabiltzen ez bada Berria - Euskal Herria

---

# iraunarazgarri *izond* iraunarazten duena.

Berriz ere argi utzi zen garapen **iraunarazgarria** erdiesteko ezinbestekoak zirela oinarrizko aldaketak. Iñaki Heras

*ik* iraunkor.

---

# iraunarazgarritasun *iz* iraunarazgarria denaren nolakotasuna.

Hazkundeak **iraunarazgarritasuna** sustatzen omen du nolabait. Iñaki Heras

---

# iraunarazi, iraunaraz, iraunarazten du-dio 1 *ad* irautera behartu.

Jaiotzen dena sorrarazten eta horren existentzia halako denbora batez **iraunarazten** duena. Xabier Kintana

Indar gauzen sortzaile eta hazleek ere ezin dituzte sorkariak **iraunarazi** . Xabier Amuriza

Bi erregai onak, biok ere, sua piztu, bizitu eta **iraunarazteko** . Anjel Lertxundi

Betierean **iraunaraziko** dut zure erregetza Israelen gainean. Elizen arteko biblia

Ziurrenik desberdintasun horrexek **iraunarazi** zuen beren adiskidetasuna. Patxi Zubizarreta

Sistema bere burua **iraunarazteko** diseinatutako munstro bat da. Jon Alonso

Oroitzapenak **iraunarazten** zuen Martha Cory, irakurketak Hester Prynne. Anjel Lertxundi

Zertarako etorkizunaz kezkatu, zertarako gure gaurko ondasunak **iraunarazi,** etorkizun hori ikusi, bizi eta gozatuko ez badugu? Anjel Lertxundi

Halako egonezin batek esna **iraunarazten** zuen Mikel Strogoff. Karlos Zabala

Gu geure izanean **iraunarazten** gaituen ahalmenaren arabera. Piarres Xarriton

Harridurazko deiadarra eraspen izugarriarekin, sorkari guztietan pentsatuz, nola utzi nauten bizirik eta hala **iraunarazi** nauten. Patxi Altuna

Charlie da bat eginda **iraunarazten** diguna, berak baretzen ditu gure arteko liskarrak. unibertsoa ex nihilo sortzen duena, eta etengabeko kreazio-egintza batez **iraunarazten** diona. Mirentxu Larrañaga

Pentsatu du zorionekoa dela maitasunari beti **iraunarazten** diona. Patxi Zubizarreta

Haserre hotza **iraunarazteko** indarrik ez nuen. Piarres Aintziart

Gauzei **iraunarazteko** kultura. Ramon Saizarbitoria

Zoriona datza gizakiak bere izatea **iraunarazi** ahal izatean. Piarres Xarriton

**2** (nola adizlagunekin)

Legatzari hamalau hilabetez bizirik **iraunaraztea** lortu dute Donostiako akuarioan. Berria - Gaiak

Bizirik **iraunaraztera** behartzen haute... Xabier Olarra

Horiekin guztiekin aski ez eta burua hautsi behar nire buruzagitza nola zutik **iraunaraz** ! Aingeru Epaltza

Berak sendo **iraunaraziko** dizue azkeneraino. Elizen arteko biblia

Esklabotasunaren erakundeari setati **iraunaraztea** . Iñaki Mendiguren

Osasuntsu **iraunaraziko** nauzu, zutik eutsiko zeure aurrean betiko. Elizen arteko biblia

**3** (era burutua izenondo gisa)

Bera ez da berridazketa bat baino gehiago ezta ezer ezberdina ere: alegia, ez da kanpokotasunaren forma **iraunarazia,** dagoeneko idatzitakoaren arautuko eraldaketa. Xabier Arregi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

bizirik iraunaraziko (3); bizirik iraunaraztea (5); bizirik iraunaraztea lortu (3); bizirik iraunarazten (3); eta iraunarazi (5); eta iraunarazteko (3); eta iraunarazten (5); iraunarazi behar (5); iraunarazi eta (6); iraunarazi nahi (8); iraunarazi zuen (3); iraunaraziko du (4); iraunaraziko dut (3); iraunaraztea lortu (3); iraunarazteko faktore (3); iraunarazten du (3); iraunarazten duen (3)

---

# iraunarazle *izond* iraunarazten duena.

Arimaren izaera hau, beraz, gorputz osoak hartuta dago, eta bera da, halaber, gorputzaren jagole eta **iraunarazle;** biak erro komunez elkarri atxikita baitagoz, eta ez dirudi hiltzeke bereiz daitezkeenik Xabier Amuriza

---

**iraunarazte** *iz* irautera behartzea.

Oker handia egingo genuke proiektuak bizirik **iraunarazte** hutsarekin konformatuko bagina, pauso berriak emateko modurik izan gabe, eta, tamalez, gehienetan, gaur egungo egoera hori da. Berria - Harian

Ekaingo leize-zuloaren errepikak behar dituen zuzendaritza, kudeaketa, **iraunaraztea** eta sustapena ziurtatzeko helburuarekin Berria - Kultura

---

**iraunbide** *iz* irauteko bidea.

Kontuak atera, eta garbi ikusi genuen sare publikoan sartzea beste **iraunbiderik** ez zuela gure ikastolak. Joxerra Garzia

---

**iraunbizi**, iraunbizitzen *(6 agerraldi, 2 liburu eta 2 artikulutan; cf **biziraun** 109 agerraldi, 39 liburu eta 42 artikulutan)* du *ad* biziraun.

Husainek seguruenik arrazoia zuen: bere bizimoldearekin, apenas ateratzen zuen **iraunbizitzeko**. Auzo txiroan **iraunbizitzen** ahalegintzen den Gonzalo gaztea. Patxi Zubizarreta

Gustatuko litzaidake normalean komertzialtasunera edo **iraunbizitzera** bideratutako ildo komertzialaz gain, hauek gustukoak izanik ere, esperimentaziora bideratutako nolabaiteko fundazio bat egitea. Berria - Kultura

---

**iraungabekeria** *iz*

Modu horretan, legeek dute, eduki ere, halako indar eta boterea, kontraturik santuena nahikeriaren edo **iraungabekeriaren** joko hutsa izan ez dadin. Andres Urrutia

---

**iraungaitz** *izond* ia ezin iraunezkoa.

Garapenerako baliabideen kontserbazio eta kudeaketa (herrialde aberatsetako kontsumo joera **iraungaitzak** salatuz). Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ezinezkoa litzateke hori, baldin eta gure pertzepzioak, berez, gure hargailuak blaitzen dituzten estimulu ustekabeko eta **iraungaitzen** isla pasibo hutsak balira. Xabier Olarra

Bertako hareak ere berehala xurgatzen zuen gora-nahi haren azken hondarra, oihartzun apartsu **iraungaitzaren** itxuran. Anjel Lertxundi

---

**iraungarritasun** *iz* iraungarria denaren nolatotasuna.

Nagusiak **iraungarritasun** plano bat presentatua du, 140 langiletarik 20 erretretan emaitea proposatuz. Herria

---

**iraungi**, iraungitzen *(orobat **iraungitu** g.er)* **1** du *ad* itzali; guztiz moteldu.

Anak, argi nagusia **iraungi** eta mahaiaren gaineko lanpara ttipiaz ordezkatu zuen. Aingeru Epaltza

Banan-banan lanpara guztiak **iraungi** ziren, Carmichael jaunarena izan ezik. Anton Garikano

Nola **iraungitzen** den izarren argia eguzkiarenaren parean. Joan Mari Irigoien

Bigarren lerroan gelditu zen, atariaren parean, ez motorra ez argiak **iraungi** gabe. Aingeru Epaltza

Su hura aspaldi **iraungi** zitzaidaan, ordea. Joan Mari Irigoien

Apurka-apurka suaren apaltze moduko bat sumatzen zela esango nuke; ez amatatzea, ez **iraungitzea,** baina bai mantsotzea, hizketagaietan amodioaren zoroak arimaren bestelako zokoei tokia egin balie bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Bere oroimenean artean **iraungi** gabe zegoen Rhin-en soinua. Lopez de Arana

· Bi hilabete gabe, **iraungia** zen erreboltaren txinparta, eta hilik edo preso espainolari buru ematera ausartu ziren gehienak. Aingeru Epaltza

**2** *irud*

Sentsazioa oso arin **iraungi** zen. Jon Alonso

Begitxo txikiak oraindik **iraungi** gabe zeuzkan, eta bizkor higitzen zituen bekain ilesarrien azpian. Jose Morales

Luis Lizarralderi anaiaz zituen oroitzapen ilunak erabat **iraungi** zitzaizkion. Gotzon Garate

Urgulldikako kolpe-zaratak eta oihu urrunak ahuldu egin bide ziren, moteldu, eta pixkanaka **iraungi**. Txillardegi

Eztarrian **iraungi** zitzaion Mariaren aipua, eta negar zotin batez hil zen. Juan Garzia

Gau hartan, suz **iraungi** zuen bere gorroto-egarria. Juan Garzia

Une horiek **iraungi** dira ene oroimenetik. Aingeru Epaltza

Ahmet ehizan zen bitartean ez zuen ikusi behar bekoz beko, ez zuen ikusi behar bakardadeak nola **iraungitzen** zion bizia. Fernando Rey

Ez literaturaren historia, baizik eta alboko zurrumurruarena, eguneroko idazketarena, hain arin **iraungitzen** dena. Xabier Arregi

Zeren kolorea bera ere **iraungi** -hila baitu. Juan Garzia

Halako izu oraindik guztiz **iraungi** gabe bat. Jose Morales

**3** (espezie, giza multzo, hizkuntza eta kidekoez) desagertu, galdu.

Nahitaezkoa da animalia espezie asko orduantxe **iraungi** zedin eta ez zezan, ugalduz, ondorengorik izan ahal. Xabier Amuriza

Hau bezalako uneetan estoikoak irribarre egingo zuen, baldin eta espezie klasiko hori ez bada erabat **iraungi** ziniko modernoaren joan-etorriei toki zabala uzteko. Jon Alonso

Naturalisten ustez maitagarriak orain **iraungiak** dira, nahiz eta Ingalaterrako Elizako apaiz batek hiru ikusi zituen Colchester ondoan 1855ean. Xabier Olarra

Protestante sekta bat, orain **iraungia,** Europatik etorri zena joan den mendearen hasieran. Xabier Olarra

Familia partikularrak **iraungi** egin daitezke; hortaz, ondasunak ez dituzte betiko. Iñaki Iñurrieta

Elizgizonak **iraungi** ezin den familia dira: beraz, ondasunak betiko dituzte, eta ezin dira haiengandik irten. Iñaki Iñurrieta

Euskalkietan zatituta zegoen hizkuntza osoki **iraungi** ez zedin. Koldo Zuazo

**4** ahitu; hil.

Oso mantso hasi zen liburu horren bizitza, eta, gaia dela medio asko saltzekoa ez zen arren, txakalaldirik gabe egin du bere bidea hogei urteotan, hasierako 4.000 aleko tirada erraldoia **iraungitzeraino**. Pako Aristi

Izan ere, Aristolelesen aburuz higidura zirkularra ez zen sortzen ez eta **iraungitzen** ere. Xabier Kintana

Bertatik ezin dut inolaz ere inferitu, zerizan pentsatzailea naizen heinean, berez irauten dudala, ez naizela ez sortzen ezta **iraungitzen** ere berezko eran. Ibon Uribarri

**5** (epe, hitzarmen eta kidekoez) amaitu; indarrean egoteari utzi.

Ordubeteko epea **iraungi** zela. Jon Alonso

Apartamentuaren errenta-epea **iraungitzear** zelarik. Mirentxu Larrañaga

Martxoan **iraungitzen** baitzen hiru urteko kontratua. Berria - Kultura

Hitzarmen hori joan den abenduan **iraungi** zen. Berria - Ekonomia

Zorrak konpentsazioz **iraungitzeko** sistema bat sortu zen konderrian. Koro Navarro

Arauetako zenbait artikulu **iraungi** direlako eta beste zenbait Europako Auzitegiak bertan behera utzi dituelako, arautegia moldatzeko beharra dagoela dio Bruselak. Berria - Ekonomia

REPSOL-YPF: Urrezko akzioa (mugimendu korporatiboak eragozteko ahalmen berezia) **iraungi** zaio Espainiako Gobernuari. Berria - Ekonomia

Nafarroako gizartearekin duten erantzukizun morala ez da **iraungitzen**. Berria - Euskal Herria

Ahalordea **iraungi** egin da eta lurreratutako salgaiak galtzeko arriskuan gaude. Bego Montorio

Auzian epaitutako lagunen eroskeria delituak **iraungi** egin direla ondorioztatu zuen Nafarroako Auzitegiak. Berria - Euskal Herria

Ohartu naiz gainean eraman ohi dudan agiria **iraungia** dagoela joan den aspaldian, eta, beraz, daukadan agiri nazional bakarra nere españoltasun **iraungiaren** agiria dela. Iñaki Segurola

Atea nire txartel **iraungiaz** trabatuz. Joxan Elosegi

Gauza bera gertatu zitzaien bisa **iraungi** zitzaien edota AEBetako immigrazio legeak urratu zituztenei. Berria - Mundua

**6** (janariez eta kidekoez)

Denak beherakoarekin, eta laster lotu zituzten kausa-ondorioak, eta poteen iraungipen-dataren bila hasi eta datarik ez, eta halaxe ohartu aspaldi **iraungiak** behar zutela. Iñaki Iñurrieta

Azkar kontsumitu behar dira, **iraungi** baino lehen. Berria - Kultura

**7** (era burutua izenondo gisa)

Argi **iraungi** horretarik bertze mila piztu, eta argi berretua mundurat heda daitekeela eta barreia. Joan Mari Irigoien

Haren ezpain xahar eta **iraungiak** isilik mugitzen ziren; zenbatzen ari zen, batuketak egiten. Ander Irizar

Zenbaitetan irainek eta biraoek birbiltzen zituzten elikagai **iraungiak** saldu izanaren salaketak. Josu Landa

**8** ***iraungi-data*** iraungitze data.

Badugula denok nork bere **iraungi** -data, gizaki izan edo herri. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bat batean iraungi** (3); **batean iraungi** (4); **delitua iraungi egin** (3); **erabat iraungi** (3); **eroskeria delitua iraungi** (3); **eta iraungi** (5); **eta iraungitzen** (5); **iraungi arte** (3); **iraungi egin** (7); **iraungi egin dela** (3); **iraungi egiten** (3); **iraungi gabe** (5); **iraungi zen** (15); **iraungi ziren** (3); **iraungi zitzaion** (4); **iraungitzen ari** (7); **iraungitzen da** (3); **iraungitzen den** (6); **iraungitzen zen** (5); **iraungitzen ziren** (3); **iraungiz joan** (3); **iraungiz joan zen** (3); **nola iraungitzen** (4); **nola iraungitzen den** (3)

---

# iraungiezin *izond* ezin iraungizkoa.

Agian erorarazi du kristauen armadaren gainean zeruko su **iraungiezina**. Jon Alonso

Sandrari begiratu nionean pizturik zituen begiak, ez bezperako pattarraren ondorioz baizik eta nik ongi asko ezagutzen nion justizia-gosearen su **iraungiezinaz**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# iraungigaitz *izond* iraungitzen zaila dena, ia iraungiezina.

Forma ideal berorrek fantasiazko lainoaren gainetik argitzen dit arrazoimen garbi, **iraungigaitz** eta betikotasun narea duen argiarekin. Imanol Unzurrunzaga

Edertasun espiruatalagoen eta delizia **iraungigaitzen** harmoniarantz garamatzan neurritasunari jaramonik egin gabe. Imanol Unzurrunzaga

Munduak hasiera bat duela, nire Norbera pentsatzaileak izaera bakuna, eta beraz, **iraungigaitza** duela, bera aldi berean bere hautazko ekintzetan askea dela eta izadiaren hertsapenez goiti dagoela, eta azkenik, mundua osatzen duten gauzen ordena osoa jatorrizko zerizan batetik datorrela, eta helburuzko batasuna eta elkarlotura oro bertatik hartzen dela, hauek guztiak Morala eta Erlijioaren oinarrizko hainbeste zutabe dira. Ibon Uribarri

---

# iraungikor *izond* iraungitzen dena.

Agiri hori **iraungikorra** da eta noizean behin berritu beharra dago: 5 urtez behin aurrena, 10 urtez behin hurrena, eta gero... batere ez. Iñaki Segurola

Irauteko esperantza gutxiena daukan sasoian **-iraungikorrena,** itzalkorrena eta erorkorrena den garaian- egiten da bere nortasuna egundo ez bezain iraunkor eta are behin-betikoa. Iñaki Segurola

---

# iraungikortasun *iz* iraungikorra denaren nolakotasuna.

Gure nahimena askea ez bada eta arimak materia beraren zatigarritasuna eta **iraungikortasuna** badu, orduan ideia eta oinarri-esakune moralek baliotasun oro galtzen dute. Ibon Uribarri

---

# iraungipen 1 *iz* iraungitzea.

Bere *Fedon*ean benetako deuseztapena litzatekeen **iraungipen** hori sahiesten saiatu zen, zerizan bakunak inoiz izateari utzi ezin diola frogatzera ausartuz. Ibon Uribarri

Denbora sinbolizatzeko oso baliabide ahaltsuak ditu, gainera, zinemak: **iraungipen** kateatua, gaininprimaketa, bizkortzea, adibidez. Josu Zabaleta

Agindu baten **iraungipena** zeremonia egoki batekin ospatu. Xabier Olarra

**2** ***iraungipen data*** iraungitze data.

Babarrun pote **iraungipen** datarik gabeak. Iñaki Iñurrieta

**Iraungipen** data jakinik gabeko erreportajeak altxatzen ditu, gertakariek jai hartzen duten egun latzetako salbabide. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **iraungipen data** (3)

---

# iraungitze 1 *iz* itzaltzea.

Edonon efektuen eta kausen katea ikusten dugu, helburuen eta baliabideen katea, sortzearen eta **iraungitzearen** erregulartasuna. Ibon Uribarri

**2** amaitzea; indarrean egoteari uztea.

Irabazien zerga ordainketa %18tik %15era murriztu da, eta etxebizitza kontuen **iraungitze** epea urtebete atzeratu da, bost urtetik sei urtera.

**3** ***iraungitze data***

Jogurtaren **iraungitze** data produktuaren galera arriskuak markatzen du. Ana Urkiza

Badaezpada ere, ez zion **iraungitze** -data begiratu poteari. Migel Angel Mintegi

Badirudi laster gainditukoko duela bere **iraungitze** data. Patxi Iturritegi

Prozesuak badu **iraungitze** data, eta ezin da usteltzen utzi. Berria - Euskal Herria

Ama euskarak zahartzera egin duen bezala, poeten esperimentuek ere nahi baino azkarragoa dute **iraungitze** -data. Xabier Mendiguren Elizegi

Hitzaren **iraungitze** data. Berria - Kirola

Poeten esperimentuek ere nahi baino azkarragoa dute iraungitze- **data** . Xabier Mendiguren Elizegi

Noiz arteko **iraungitze** data du diktadore lanbideak? Iñigo Aranbarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iraungitze data** (11)

---

# iraunkor 1 *izond* irauten duena, irauteko joera duena.

Egiazko bake zuzen eta **iraunkor** bat eraiki beharretan gabiltzalarik Euskal Herrietan. Piarres Xarriton

Su-eten **iraunkor** bat eskatuz. Herria

Siberia osoa hainbat hilabetetako gau **iraunkor** horrek inbadituko balu! Karlos Zabala

Haustura **iraunkor** bat eragiteko. Oskar Arana

Alderdi abertzaleek sortu dute dinamika **iraunkor** bat Abertzaleen Batasuna plataformaren inguruan. Herria

Gogoeta egitea eragozten duen sentimendu huts bat uste **iraunkor** bilakatzea. Pako Aristi

Adimenaren bizitza baizik ez da **iraunkorra,** edo ia **iraunkorra** . Josu Zabaleta

Mendebaldeko pentsamenduaren espirituan [...] marka **iraunkor** hori utzi zuen Aristotelesen arimak haren substantzian ere utzi zuen efektu iragankorra. Iñaki Mendiguren

Ekuatore aldeko [...] elur **iraunkorrekiko** mendi bakar altua. Pello Zabala

Bakea ez dela izaten lore **iraunkorra** . Hasier Etxeberria

Erakusketa **iraunkorreko** geletatik paseatzen ari nintzela. Iban Zaldua

Aldakuntza oro zerizan **iraunkor** bat eta berberaren egoeretakoa balitz bezala kontsideratzea. Ibon Uribarri

Lurraren laborantza **iraunkor** oro gorrotatzen duten nomada antzekoek. Ibon Uribarri

Hortik sortu zen batzorde **iraunkor** bat eratzeko ideia. Berria - Harian

Nutrizioari buruzko NBEko Batzorde **Iraunkorrak** . Berria - Gaiak

-Talde **iraunkor** bat osatuko da -adierazi zuen Einsteinek-. Fernando Morillo

Sei kide iraunkor berri eta beste hamahiru ez- **iraunkor** . Berria - Mundua

Helburu berdin bati begira jarritako askoren borondatearen batasuna ez da bakea gordetzeko eta modu **iraunkorrean** defendatzeko aski. Esteban Antxustegi

## 2 (beste izenondo batekin)

Zibilizazio Helenikoak konkista **iraunkor** baketsuak egin baitzituen Alexandro Handiaren belaunaldia baino lehen. Iñaki Mendiguren

Bikote monogamiko **iraunkorra** . Luis Elberdin

Sei kide **iraunkor** berri. Berria - Mundua

Olatuetan barrena aldian-aldian bi distira azkar eta ondoren luze **iraunkor** bat bidaliz, faroko argia zegoen. Anton Garikano

Elkarri zioten mirespen geroz eta handiago hura adiskidetasun sendo **iraunkor** bihurtu zen. Oskar Arana

Hitzen irudi grafikoa gauza **iraunkor** eta sendotzat daukagu. Isabel Arrigain

Zirrara gogorragoak eta **iraunkorragoak** . Juan Martin Elexpuru

Bertsolaritzaren historian, bikoterik arrakastatsu eta **iraunkorrenetan** , ongi banatuak zeuden paper hauek. Andoni Egaña

Izaera egonkor eta **iraunkorrekoa** . Xabier Kintana

Bake **iraunkor** betikoa. Imanol Unzurrunzaga

Badela izaki bat, unibertsoko gorputz guztiak ez bezalakoa, [...], bat, **iraunkor** eta betierekoa, kausarik gabea eta aldaezina: eta izaki hori Jainkoa da. Xabier Kintana

## 3 (izan aditzarekin)

Hiru gauza ditugu oraindanik **iraunkor** direnak: sinesmena, itxaropena eta maitasuna. Elizen arteko biblia

Beraz, iragankor zena ospez betea bazegoen, **iraunkor** denak askoz ospe handiagoa izanen du. behin ziurtatuz gero denboran **iraunkor** izango direla objektuok, posible zen, horrenbestez, irudikapen hori oroitzea. Elizen arteko biblia

Zelai horren zorua seguru eta **iraunkorra** zela pentsatuko balu. Iñaki Zabaleta

· Azaleko historiak, batera eta bestera zoro-zoro dabilela ematen duen artean, sakonean barnehistoria bere horretan **iraunkor** dago. Joxe Azurmendi

Bere asmoan **iraunkor** eta guztiz sutsu jainko-maitasunaren desiran. Askoren artean

Hauetan [jainkoen tenpluetan] bai gauza ederrak eta bai akatsak betiko geratzen baitira nabarmen eta **iraunkor** . Santiago Iruretagoiena

Memoria elurra bezalakoa baita: erori berri xapatxetan aise urtzen da eguraldiak epeltzera eginez gero, baina egun askotan mara-mara gainezka pilatutakoa lurrera itsasten da **iraunkor** . Pako Aristi

## 4 (ekologian) ingurumenaren ikuspegitik bideragarria dena.

"Hazkunde **iraunkorra"** terminoak kontraesan bat du bere baitan. Natur baliabideen erabilera **iraunkorrerako** irizpideak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Arlo horiek [...] kritikotzat hartzen dira, zeren eta garapena baldintzatu egiten baitute epe luzera, hau da, baldintzatu egiten dute eredu **iraunkor** oro. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Garapen eredu **iraunkor** baten alde. Berria - Euskal Herria

Eredu sozio-ekonomiko **iraunkor** bateranzko iragaitzan pauso sendoak egiteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Laborantza **iraunkor** bat sustatu. Herria

Etxaldeen kudeaketa **iraunkor** baten aldeko zerbitzu bereziak. Berria - Ekonomia

Gizarte Global **Iraunkorra** eraikitzeko bide bakarra. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Basoen Ustiaketa **Iraunkorrerako** Printzipioei buruzko Adierazpena. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Sojaren Ekoizpen **Iraunkorrari** buruzko Nazioarteko Mahai-inguruan. Berria - Gaiak

## 5 *garapen iraunkor* (*626 agerraldi, 3 liburu eta 115 artikulutan*)

**Garapen iraunkorra** alderdi politiko, gizarte mugimendu eta abarren agenda politikoan txertatu den terminoa da. Berria - Euskal Herria

**Garapen iraunkor** kontzeptua argitzeko lehen pausoa hazkundearen eta garapenaren arteko bereizketa egitea da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Garapen iraunkor** batek [...] ingurumena babestu behar hori betetzen duen produkzio sistema bat behar du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Basoen **garapen** iraunkorra lortzeko akordioa adostu dute Araban. Berria - Euskal Herria

Gipuzkoako Aldundiko **Garapen Iraunkorreko** diputatuak. Berria - Euskal Herria

AHT **garapen iraunkorrerako** garraiobiderik egokiena dela. Berria - Euskal Herria

**Garapen Iraunkorraren** Aldeko Nazio Batuen Erakundearen menpeko Batzordeak. Berria - Gaiak

· Bestelako balio batzuk beharko ditugu, zinez nahi baldin badugu gure **garapena iraunkor** izan dadin. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**bake iraunkor** (13); **bake iraunkor bat** (5); **batzorde iraunkor** (6); **batzorde iraunkor bat** (3); **bezain iraunkor** (3); **dinamika iraunkor** (5); **erakunde iraunkor** (3); **eredu iraunkor** (8); **eredu iraunkor baten** (3); **eta iraunkor** (22); **eta iraunkor bat** (7); **eten iraunkor** (6); **eten iraunkor bat** (5); **ez iraunkor** (5); **garapen iraunkor** (28); **garapen iraunkor kontzeptua** (8); **garapen iraunkor kontzeptuaren** (3); **gauza iraunkor** (3); **gauza iraunkor eta** (3); **hazkunde iraunkor** (3); **horretan iraunkor** (3); **ikasgela iraunkor** (3); **ikasgela iraunkor bat** (3); **iraunkor bakarra** (3); **iraunkor bat** (60); **iraunkor bat sortzeko** (5); **iraunkor bat sortzen** (3); **iraunkor batean** (4); **iraunkor batek** (4); **iraunkor baten** (23); **iraunkor baten alde** (6); **iraunkor baten aldeko** (3); **iraunkor batez** (3); **iraunkor bati** (4); **iraunkor bihurtu** (4); **iraunkor bihurtzen** (3); **iraunkor eta** (44); **iraunkor gisa** (4); **iraunkor hori** (5); **iraunkor horrek** (3); **iraunkor horren** (3); **iraunkor izan** (4); **iraunkor izateko** (4); **iraunkor kontzeptua** (8); **iraunkor kontzeptuaren** (3); **iraunkor oro** (3); **kide iraunkor** (13); **kide iraunkor izateko** (3); **kontseiluko kide iraunkor** (4); **laborantza iraunkor** (6); **su eten iraunkor** (6); **talde iraunkor** (4)

**armatuen etenaldi iraunkorra** (8); **bake iraunkorra** (20); **bake iraunkorra eta** (3); **bake iraunkorra lortzeko** (6); **basoen garapen iraunkorra** (3); **batzorde iraunkorra** (10); **bezain iraunkorra** (4); **bikote monogamiko iraunkorra** (6); **bilduma iraunkorra** (8); **da garapen iraunkorra** (5); **da iraunkorra** (7); **dela iraunkorra** (3); **dinamika iraunkorra** (3); **egonkor eta iraunkorra** (3); **elkarrizketa iraunkorra** (3); **eraikuntza iraunkorra** (3); **eredu iraunkorra** (3); **eta garapen iraunkorra** (7); **eta iraunkorra** (56); **eta iraunkorra dela** (3); **eta iraunkorra izango** (3); **eten iraunkorra** (58); **eten iraunkorra aldarrikatu** (5); **eten iraunkorra baloratzeko** (3); **eten iraunkorra behin** (3); **eten iraunkorra eman** (4); **eten iraunkorra iragarri** (7); **etenaldi iraunkorra** (11); **ez da iraunkorra** (5); **ez iraunkorra** (3); **foro iraunkorra** (4); **garapen iraunkorra** (103); **garapen iraunkorra eta** (8); **garapen iraunkorra kontzeptua** (3); **garapen iraunkorra lortzeko** (11); **garapen iraunkorra terminoa** (4); **hain iraunkorra** (3); **hazkunde iraunkorra** (4); **heziketa iraunkorra** (5)

**iraunkorra aldarrikatu** (5); **iraunkorra antolatzeko** (3); **iraunkorra atzeraezina** (3); **iraunkorra baloratzeko** (3); **iraunkorra behin** (3); **iraunkorra bermatzeko** (3); **iraunkorra bultzatzeko** (3); **iraunkorra da** (18); **iraunkorra dela** (10); **iraunkorra den** (12); **iraunkorra dena** (3); **iraunkorra edo** (4); **iraunkorra egin** (4); **iraunkorra egingo** (3); **iraunkorra ekarriko** (3); **iraunkorra eman** (6); **iraunkorra emango** (3); **iraunkorra emateko** (3); **iraunkorra eraikitzeko** (3); **iraunkorra eratzea** (3); **iraunkorra ere** (4); **iraunkorra eta** (43); **iraunkorra eta bakea** (3); **iraunkorra ez** (8); **iraunkorra ez da** (3); **iraunkorra ez dela** (3); **iraunkorra ezarri** (4); **iraunkorra iragarri** (7); **iraunkorra izan** (21); **iraunkorra izan behar** (5); **iraunkorra izan dadin** (3); **iraunkorra izango** (12); **iraunkorra izango da** (5); **iraunkorra izatea** (3); **iraunkorra izateko** (9); **iraunkorra izaten** (3); **iraunkorra kontzeptua** (3); **iraunkorra lortzeko** (19); **iraunkorra osatu** (3); **iraunkorra ote** (3); **iraunkorra sortzea** (3); **iraunkorra sortzeko** (4); **iraunkorra terminoa** (4); **iraunkorra zen** (3)

**armada iraunkorrak** (3); **batzorde iraunkorrak** (20); **bost kide iraunkorrak** (4); **departamenduko batzorde iraunkorrak** (3); **eta iraunkorragoa** (7); **eta iraunkorragoak** (4); **eta iraunkorrak** (18); **eten iraunkorrak** (19); **garapen iraunkorrak** (16); **harreman iraunkorrak** (6); **harreman sexual iraunkorrak** (3); **iraunkorrago eta** (3); **iraunkorragoak eta** (3); **iraunkorrak bi** (3); **iraunkorrak dira** (9); **iraunkorrak diren** (6); **iraunkorrak eta** (8); **iraunkorrak ez** (5); **iraunkorrak izan** (6); **iraunkorrak zer** (3); **justu eta iraunkorra** (3); **kide iraunkorra** (5); **kide iraunkorrak** (13); **kide iraunkorrak dira** (4); **konponbide iraunkorra** (4); **kontseiluko kide iraunkorra** (3); **kontseiluko kide iraunkorrak** (4); **kudeaketa iraunkorra** (3); **laborantza iraunkorra** (7); **luze eta iraunkorrak** (3); **monogamiko iraunkorra** (6); **ondasun iraunkorrak** (4); **organiko iraunkorrak** (3); **politiko iraunkorra** (4); **sexual iraunkorrak** (3); **su eten iraunkorra** (58); **su eten iraunkorrak** (19); **talde iraunkorrak** (3); **zerbait iraunkorra** (5)

**batzorde iraunkorraren** (8); **batzorde iraunkorraren bileraren** (3); **bilduma iraunkorraren** (7); **bizitza iraunkorraren** (4); **eta garapen iraunkorraren** (8); **eta iraunkorraren** (3); **eten iraunkorrarekin** (5); **eten iraunkorraren** (17); **eten iraunkorraren albistea** (3); **eten iraunkorraren iragarpenak** (4); **etenaldi iraunkorraren** (4); **garapen iraunkorrarekin** (6); **garapen iraunkorraren** (72); **garapen iraunkorraren alde** (3); **garapen iraunkorraren aldeko** (7); **garapen iraunkorraren euskal** (5); **garapen iraunkorraren inguruan** (3); **garapen iraunkorraren inguruko** (3); **garapen iraunkorraren ingurumen** (3); **garapen iraunkorrari** (10); **garapen iraunkorrari buruz** (3); **garapen iraunkorraz** (7); **garapen iraunkorraz hitz** (3); **garraio iraunkorraren** (3); **iraunkorraren albistea** (4); **iraunkorraren alde** (9); **iraunkorraren alde egin** (3); **iraunkorraren aldeko** (8); **iraunkorraren bileraren** (4); **iraunkorraren eta** (4); **iraunkorraren euskal** (5); **iraunkorraren euskal ingurumen** (5); **iraunkorraren inguruan** (3); **iraunkorraren inguruko** (3); **iraunkorraren ingurumen** (3); **iraunkorraren iragarpenak** (4); **iraunkorraren izenean** (3); **iraunkorrari buruz** (6); **iraunkorrari buruzko** (3); **iraunkorraz hitz** (4); **laborantza iraunkorraren** (3); **prestakuntza iraunkorraren** (5); **psoeren batzorde iraunkorraren** (3); **su eten iraunkorrarekin** (5); **su eten iraunkorraren** (17)

**aldundiko garapen iraunkorreko** (10); **batzorde iraunkorrean** (11); **batzorde iraunkorreko** (5); **batzorde iraunkorreko kide** (3); **bilduma iraunkorreko** (13); **bilduma iraunkorreko lanekin** (3); **diputazio iraunkorreko** (3); **diputazioko garapen iraunkorreko** (3); **eta iraunkorrean** (3); **eta iraunkorren** (3); **eta iraunkorrena** (3); **eta iraunkorrik** (3); **garapen iraunkorrean** (10); **garapen iraunkorrean oinarritutako** (4); **garapen iraunkorreko** (22); **garapen iraunkorreko diputatu** (10); **garapen iraunkorreko diputatuak** (4); **garapen iraunkorrerako** (30); **garapen iraunkorrerako diputatuak** (3); **hosto iraunkorreko** (4); **iraunkorrean oinarritutako** (4); **iraunkorreko diputatu** (10); **iraunkorreko diputatu luis** (10); **iraunkorreko diputatuak** (4); **iraunkorreko kide** (3); **iraunkorreko lanekin** (3); **iraunkorrerako diputatuak** (3); **iraunkorrerako irizpideak** (3); **iraunkorrik ez** (7); **iraunkorrik gabe** (3); **kide iraunkorrek** (8); **kide iraunkorren** (5); **kontseiluko kide iraunkorrek** (4); **lege iraunkorren** (4); **modu iraunkorrean** (14); **oiarbide garapen iraunkorreko** (3); **ondasun iraunkorren** (6)

---

## iraunkorki 1 *adlag* era iraunkorrean.

**Iraunkorki** gaiztoa denak zigorra jasoko du. Ibon Uribarri

Zientzia modernoari **iraunkorki** dagozkion metodo logikoenetan. Askoren artean

Aitortzen dut [...] ez ditudala aski **iraunkorki** jarraitu azken urteotan Europan egiten diren hausnarketak arazo hauei buruz. Joxe Azurmendi

Tortura, Permachen ustez, estatuek **«iraunkorki** erabiltzen duten tresna» da. Berria - Euskal Herria

Bi hauen harrizko obrak Izuran **iraunkorki** finkatuak izan dira, Konpostelako beilarien argigarri. Herria

**2** (izen gisa) gauza irakunkorra.

Agerpen guztietan **iraunkorkia** objektua bera da, h[au] d[a], substantzia *(phaenomenon)*. Ibon Uribarri

**Iraunkorki** hau gabe, beraz, ez dago denbora-hartuemanik. Ibon Uribarri

Denbora-hartuemanak, beraz, **iraunkorkian** baino ez dira ahalgarriak (izan ere, aldiberekotasunarena eta segidarena dira denbora-hartueman bakarrak), h[au] d[a], **iraunkorkia** denbora beraren errepresentazio enpirikoaren substratua da, eta bertan besterik ezin da izan denbora-determinazio oro. Ibon Uribarri

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**eta iraunkorki** (3); **iraunkorki honek** (3)

---

## iraunkortasun 1 *iz* iraunkorra denaren nolakotasuna.

Gaien identitatea eta **iraunkortasuna**. Xabier Arregi

**Iraunkortasuna** eta betikotasuna, ezaugarri hauek bere baitan biltzen dituen ondasun bakarra Jaungoikoa da. Imanol Unzurrunzaga

Hezurrak, berriz, **iraunkortasun** handia erakusten baitu tenkatzean edo okertzean. Irene Aldasoro

Erabilpen ezberdinak baimentzen dituen jarraitasun batez, denborazko **iraunkortasun** batez hornitua. Xabier Arregi

Erretinako irudiaren egitura-aldaketak jarraitasun baten (gainazalen jarraitasunaren) eta **iraunkortasun** baten (gauzen **iraunkortasunaren)** arabera hautematen dira. Josu Zabaleta

Begiespenen kantitatea eta kualitatea, beren substantziatasuna edo **iraunkortasuna,** beren kausazko harremana, kausa eta efektua diren aldetik. Ibon Uribarri

Substantziaren izaerari halabeharrez dagokion **iraunkortasunari** begira. Ibon Uribarri

Lege horrek **iraunkortasunik** ezaren alde egiten du berez iraunkorra den egoera batean. Iñaki Iñurrieta

Basatiki jotzen zuen, **iraunkortasun** hotz eta ankerrez. Jose Morales

*ik* jarraikitasun.

Amodioaren denbora, berriz, **iraunkortasunaren,** jarraikitasunaren, gelditasunaren denbora da. Jon Muñoz

Lan seriosa, **iraunkortasunean** finkatua. Herria

**2** (ekologian)

Garapen iraunkorrak bere baitan hartzen dituen oinarrizko eta funtsezko ideiak **iraunkortasuna** eta globalitatea dira. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Ekonomiaren hazkundea eta **iraunkortasuna** bateraezinak dira. Gizarte **iraunkortasunari** eta ingurumenari loturiko arazo sorta bat iritzi publikoari aurkezteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gizarteko sektore guztiek dute zeregina **iraunkortasunerako** prozesuan. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Iraunkortasunerantz** aurrera egiteak ingurumen, gizarte, ekonomia eta kulturako etekinak jaso eta besteentzat uztea nahi du. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Etorkizuneko hirigintzak **iraunkortasunean,** lehiakortasunean eta kohesioan oinarrituta egon behar duela diozu. Berria - Gaiak

Autore gehienen iritziz, hazkunde ekonomikoa ezin da **iraunkortasunaren** ideiarekin uztartu, «oinarri ezberdinetatik abiatzen direlako». Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan)

Turismoari sobera sakrifikatuz, behar bada, gure urte guziko ekonomia **iraunkortasun** hura sakrifikatzen zutelakotz. Menane Oxandabaratz

Zenbat eta begia ilunpetara egokituago egon, hau da, zenbat eta atsedenduago, "freskoago" egon, orduan eta luzeagoa izaten da irudi **iraunkortasun** hori. Josu Zabaleta

Proiektatzen diren irudien argitasunak ia segundo laurden bateko irudi- **iraunkortasuna** eragiten baitu. Josu Zabaleta

Pertzepzio- **iraunkortasuna** guk egiten dugun konparazio etengabea da, ikusten dugunaren eta ikusi dugunaren arteko konparazio etengabea. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere iraunkortasuna** (6); **berriaren iraunkortasun azterketa** (3); **erretinako irudi iraunkortasuna** (3); **erretinako irudi iraunkortasunak** (3); **erretinako irudi iraunkortasunaren** (3); **eta iraunkortasuna** (14); **eta iraunkortasunaren** (4); **iraunkortasun eta** (3); **iraunkortasun hau** (3); **iraunkortasun hori** (4); **iraunkortasun horren** (3); **iraunkortasun txostenean** (3); **iraunkortasuna da** (3); **iraunkortasuna eta** (6); **iraunkortasunaren aldetik** (4); **iraunkortasunaren oinarri** (3); **iraunkortasunari eta** (3); **iraunkortasunari eta** (3); **irudi iraunkortasuna** (4); **irudi iraunkortasunak** (3); **irudi iraunkortasunaren** (3); **sare berriaren iraunkortasun** (3)

---

# **iraunkortu**, iraunkor(tu), iraunkortzen du *ad* iraunkor bihurtu.

Epe laburrean lana **iraunkortzeko** bideak landuko dituzte erakundeekin. Berria - Ekonomia

Gatazkak **iraunkortzen** dituzten oinarrietan lan egin behar da, gatazka horiek elikatzen dituen giroa amaitu nahi bada. Berria - Euskal Herria

Eginkizun hori egituratu behar da, lana **iraunkortu**. Berria - Euskal Herria

Iruditzen zaigu zoriona gauza askok osatutako egoera bat dela, betirako **iraunkortzea** nahi genukeena. Pako Aristi

---

# iraunpen ik **iraupen**.

---

# **irauntza** *iz* irautea.

Boterea eskuratu arte, iraultza; boterea eskuratu, eta **irauntza**. Iñaki Arranz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta irauntza** (3)

---

# **irauntzaile** *izond* irauten duena.

**Irauntzailea** atera zaio keinua. Harkaitz Cano

---

# **iraupen** 1 *iz* irautea, egoera berean jarraitzea, egoera jakin bati eustea.

Denbora atzemateko modu normala **iraupena** da, **iraupen** laburra bada ere. Josu Zabaleta

**Iraupena** da existentziaren jarraipen mugagabea. Piarres Xarriton

Gauzen **iraupenaren** ezagutza ezegokia baizik ez dezakegu izan Denboraren sentipena ez dator, bada, gertaeren **iraupen** objektibotik, denboraz dugun sentipenean gertatzen diren aldakuntzetatik baizik. Piarres Xarriton

Badago, jakina, kontaketaren **iraupen** bat, baina gertaera-segidaren ordenaren arabera ere definitzen da kontaketa. Josu Zabaleta

Gizartearen **iraupen** eta ordena egokiak familien egonkortasunean dutela oinarri. Andres Urrutia

Hor zeuden, zutik, hotzak hotzari, **iraupen** fisiko fisiologikoaren mugak norainokoak zeuzkaten aztertzeko. Itxaro Borda

[Nekazari-herri primitiboak] mendez mende **iraupen** hutsaren mugetan bizitzera ohituta egonak. Iñaki Mendiguren

Espeziearen **iraupena** ziurtatzeko. Luis Elberdin

Omeiatar erregimenaren **iraupena**. Iñaki Mendiguren

Euskararen beraren **iraupena** segurtatuta ikus zitekeen han. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Desobedientziaren **iraupenak** beste zigor bat merezi zuela. Iñaki Iñurrieta

Zakilaren ahalmenak hobetzea (neurria, gogortasuna, **iraupena)**. Luis Elberdin

Ez du **iraupenik**, **iraupen** bera baita. Felipe Juaristi

**2** zerbaitek bere hartan dirauen denbora; gertakari baten hasieratik amaierara igarotzen den denbora bitartea.

Ikasketek ez dutela guztiek **iraupen** bera. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Charly trinkotasunaz eta kalitateaz baliatzen zen, harremanen **iraupen** laburra orekatu beharrez. Aingeru Epaltza

*ik beherago* 7. Askoren artean

Azkenean Lucyk eskertu egin zuen ibilaldiaren **iraupen** ez oso luzea. Joxemari Iturralde

Inoiz ez esan gezurrik zeure buruari, amarru horrek **iraupen** gutxiko eragina izaten baitu gehienetan. herrialde hartan dena zen ziurtasunik gabea, dena zen **iraupen** gutxikoa. Pako Aristi

Bost film emango dituzte gaur Donostiako Aquariumean: hiru labur [...] eta **iraupen** ertaineko beste bi. Berria - Kultura

Ibiltari azkarra eta **iraupen** handikoa. J.M. Olaizola "Txiliku"

Disko luzegoa osatzea, ohiko **iraupenekoa**. Berria - Kultura

Goma hutsak baino **iraupen** hobea du nahasturak. Irene Aldasoro

**Iraupen** mugagabeko kontratuekin. Berria - Harian

**Iraupen** bereko zatitan. Lourdes Oñederra

Batzuek, beste batzuek, agian ez dute korapilorik egiten amodiozko istorioetan, sexuaren lotura ere **iraupen** mugatuko lokarri askaerraza gertatzen bide zaie. Lourdes Oñederra

**Iraupena:** 97 minutu. Patxi Iturritegi

Ikasketa tekniko luzeen [...] batez besteko **iraupena** 7'5 urtekoa da, **iraupen** teorikoa bost urtekoa baldin bada ere. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bost bat asteko **iraupena** dute *stratum corneum* delakoaren zelulek. Irene Aldasoro

AEBetan lanaldiaren **iraupenak** gora egin duela eta langabeziak berriz behera: […], Ameriketako Estatu Batuetan, berriz, batez besteko 1.996 ordu lan egiten dela, langabezia-tasa erdia izanik. Iñaki Heras

Urtebeteko **iraupenera,** berriz, ehun kontratutik hiru baino ez ziren iritsi. Berria - Ekonomia

Hamar mila urtetik beherako **iraupen** bakar bat ere ez dun kontuan hartzekoa. Joxan Elosegi

**3** (hitz elkartuetan)

Atzo sinatutako hitzarmenak ez du **iraupen** mugarik. Berria - Kultura

Forma, intentsitatea eta **iraupen** moduak izan daitezke estimulu horiek. Josu Zabaleta

Neurri, gogortasun eta **iraupen** gorabeherak. Luis Elberdin

Filma [...] bloke horietako multzo bat (planoak) "ordena eta **iraupen** -baldintza jakin batzuetan" kateatuta eratzen den muntaketa bat da. Josu Zabaleta

**Iraupen** -irudi deitzen dugun hori, denboraren jarioa erregistraturik jasotzen duen denborazko irudia, alegia. Josu Zabaleta

**4** (kiroletan)

Martin Strel **iraupeneko** igerilari esloveniarrak sekulako balentria egin nahi du: Txinako Yangtse ibaiko 4.600 kilometro osatu.Serrano Tourreko lehen hamarren artean sailkatu den txirrindularia da, **iraupen** handiko karrerista. Berria - Kirola

Indarreko eta **iraupeneko** aizkolarien arteko neurketa Gazte Mailako finalean. Berria - Kirola

Ljungskogek Munduko Txapelketako **iraupeneko** lasterketan urrezko domina eskuratu zuen iaz. Berria - Kirola

**Iraupen** -lasterketa egiten duten atletentzat. Berria - Gaiak

Dena dela, **iraupen** -lasterkari batek ere oxigeno-zorra ordaindu beharko du lasterketaren amaieran. Irene Aldasoro

Javier Otxoak eta Amador Granadok **iraupen** eta erlojupeko probetan parte hartuko dute, eta pistan ere arituko dira. Berria - Kirola

Bi probatan bakarrik parte hartu dugu: Espainiako **Iraupen** Txapelketan (laugarren) eta Espainiako Pista Txapelketan (hirugarren eta bigarren). Berria - Kirola

**5** irautea, jarraikitasuna.

Orduan deabruek, haren **iraupen** eta pazientziaren aurrean lotsatuta eta garaituta, alde egin zuten. Askoren artean

Legegizon jakintsu batek, ikusiz eta kontsideratuz halako **iraupen** eta bertutea inolako nekek edo irainek ezin zuela asaldatu [...].Halako **iraupen** handiz zerbitzatzen duzun Jainkoak bakarrik salba zaitzake! Askoren artean

Hauek sustrairik gabeak eta **iraupen** gutxikoak dira, denboraldi baterako sinesten baitute. Askoren artean

Gotzainak, berriz, Jainkoaren gizonaren adorea arretaz kontsideratuz eta haren kartsutasunaz eta **iraupenaz** harriturik, besoak zabaldu eta bere kapaz estali zuen. Askoren artean

Bai hark bere fedean zuen **iraupenagatik,** bai harengan ikusten zuen munduaren mespretxuagatik. Askoren artean

Frantziskoren buruargitasuna eta gogo- **iraupena,** eta Honorio Aita santuaren aurrean egin zuen predikua. Askoren artean

Adore honek eraginik **iraupenez** eraman ahal izan ditzazuen guk geuk ere eramaten ditugun sufrimenduak. Elizen arteko biblia

**Iraupenaren** iraupenez lortuko duzue bizia. Elizen arteko biblia

**6** ***iraupen eski***

Eski jauziak, eski alpinoa, **iraupen** eskia, motza, skeletona, lugea eta snowboarda. Berria - Harian

**Iraupen** eskia: Taldekako esprinta (gizonezkoak). Berria - Harian

**Iraupen** eskia, 30 kilometrokoa (emakum.). Berria - Harian

**Iraupen** eskiko taldekako esprintean. Berria - Kirola

Italiarrak hamar domina irabazi zituen **iraupen** eskian Olinpiar Jokoetan. urrezko domina irabazi zuen **iraupen** eskian Salt Lake Cityn. Berria - Kirola

**7** ***iraupen laburreko/luzeko***

**Iraupen** laburreko ikasketak. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Neke da neurtzea tendentzia iraunkorra ala **iraupen** laburreko moda den. Herria

Aldi berean **iraupen** luzeko diskoak asmatu ziren. Pello Salaburu

**Iraupen** luzeko merkuriozko pilaz funtzionatzen duena. Irene Aldasoro

**Iraupen** luzeko langabeziaren gorakada kezkagarriak. Koro Navarro

Japoniak **iraupen** luzeko atxiloketa gune batean sartu du Bobby Fischer. Berria - Kirola

Askok aukeratu zuten Donostia udaldirako eta **iraupen** luzeko egonaldietarako egonleku. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**atzoko finalak iraupen** (6); **baino iraupen** (4); **bere iraupen** (3); **edo iraupen** (3); **eta iraupen** (30); **eta iraupen eskia** (3); **finalak iraupen** (6); **finalak iraupen eskia** (6); **iraupen bat** (3); **iraupen bera** (3); **iraupen eskia** (30); **iraupen eskian** (8); **iraupen eskiko** (5); **iraupen eta** (15); **iraupen gutxiko** (3); **iraupen gutxikoa** (6); **iraupen gutxikoak** (3); **iraupen handiko** (4); **iraupen hori** (6); **iraupen laburra** (5); **iraupen laburreko** (9); **iraupen luze** (4); **iraupen luzea** (3); **iraupen luzeko** (25); **zen iraupen** (4); **zuen iraupen** (3)

**arteko iraupena** (8); **bere iraupena** (5); **betiko iraupena** (3); **bi urteko iraupena** (10); **bizitzaren iraupena** (3); **bost urteko iraupena** (5); **du iraupena** (3); **eguneko iraupena** (5); **eta iraupena** (12); **eta orduen iraupena** (3); **euren iraupena** (4); **euskal herriaren iraupena** (4); **euskararen iraupena** (3); **gorputzaren iraupena** (3); **gure gorputzaren iraupena** (3); **herriaren iraupena** (5); **herriaren iraupena bermatzeko** (3); **hilabeteko iraupena** (6); **hiru urteko iraupena** (5); **horien iraupena** (7); **horren iraupena** (4); **ikasketen iraupena** (3)

**iraupena arriskuan** (3); **iraupena bera** (3); **iraupena bermatzeko** (10); **iraupena da** (7); **iraupena du** (22); **iraupena duen** (4); **iraupena duen arren** (3); **iraupena dute** (4); **iraupena duten** (5); **iraupena eduki** (3); **iraupena ere** (6); **iraupena eskatzen** (4); **iraupena eskatzen du** (3); **iraupena eta** (29); **iraupena ez** (4); **iraupena ezin** (3); **iraupena hiru** (4); **iraupena izan** (6); **iraupena izango** (9); **iraupena izango du** (7); **iraupena izaten** (4); **iraupena luzatzeko** (3); **iraupena ukanen** (3); **iraupena ukanen du** (3); **iraupena ziurtatzeko** (9); **iraupena ziurtatzen** (3); **iraupena zuen** (4)

**bere iraupenerako** (5); **eta iraupenaren** (8); **eta iraupenaren arabera** (3); **eta iraupenez** (4); **iraupenaren arabera** (8); **iraupenaren ezagutza** (5); **iraupenaren ezagutza guztiz** (3); **iraupenari dagokionez** (3); **iraupenerako baliagarri** (3); **iraupenerako eta** (3); **jokoaren iraupena** (3); **kontratuaren iraupena** (7); **kontratuen iraupena** (3); **lantegiaren iraupena** (3); **lau urteko iraupena** (4); **minutuko iraupena** (9); **minutuko iraupena du** (4); **orduen iraupena** (5); **orduko iraupena** (3); **partidaren iraupena** (4); **ruiz iraupena** (3); **urteko iraupena** (31); **urteko iraupena du** (7); **urteko iraupena eskatzen** (3); **urteko iraupena izango** (4)

---

## **iraupentsu** *izond* iraupenez betea.

Bizi zaitezte itxaropenean alai; izan eramanpen handiko ezbeharrean eta **iraupentsu** otoitzean. Elizen arteko biblia

Izan **iraupentsu** otoitzean, beti erne Jainkoari eskerrak emanez Elizen arteko biblia

---

## **iraur-belar** *(corpusean **iraurbelar** soilik) iz* belar landare errizomaduna *(Cyperus longus).*

Gerroarren lurraldean, erregea hil dakienean, gorpu osoa argizaritu, sabela ireki garbitu eta **iraurbelar** xehetuz eta lurringaiz gainera apio eta aneta haziz betea duelarik, berriz josi egiten diote, eta bere hilobian ipini. Patziku Perurena

---

## **irausialdi** *(corpusean **irausi aldi** bakarrik) iz* araldia.

Beste animalien deia sentitu nuen neure arterietan, liskarra eta estaltzea, ene arrazaren **irausi** aldietako lurrin desiragarria. Joxan Elosegi

---

## **iraute** *iz* egoera berean jarraitzea, egoera jakin bati eustea.

Analogia, berritzearen eta **irautearen** oinarri gisa. Isabel Arrigain

Batzuek elikatze-organoen antzera, banakoaren kontserbazioa dute helburu; beste batzuek, hala nola ugaltzeko organoek, espeziearen **irautea** . Xabier Kintana

Guretzat hil edo biziko kontua da **irautea** . Ana Urkiza

Handik aurrera bere bizirik **iraute** horrek ematen zion ospearen markarekin geratu zen Vitruvioren liburua. Santiago Iruretagoiena

**2** zerbaiten hasieratik amaierara igarotzen den denbora bitartea.

Aurreko prestatze-ikasketen **iraute** luzea. Xabier Kintana

Musu hura [...] **iraute** apurrekoa izan zen arren, izar finko bat bihurtu zen, handik aitzina, ene memorian. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iraute hori** (3)

---

## **irazeki**, irazekitzen **1** du *ad* sua itsatsi.

Tximist batek zuhaitzak **irazeki** zituen. Ez duzue sumeta bat **irazekitzen,** suzko labirinto bat baizik. Juan Garzia

Zeren gela barrenean kandela bat baitzegoen, eriaren gelaz arduratzen zen morroiak **irazekia**. Eguneko hirugarren zigarroa **irazekiz** ospatu nuen neure garaipen tikia. Joan Mari Irigoien

-Urkamendian? -zinez harrituta begiratu dit tabakoa **irazekitzeari** lagata. Koldo Izagirre

Zerutik eroritako meteorito bat bailitzan, Erdi Aroko erlijio-eguratsean sartzean ikusgarriro **irazeki** zena azkenean bere goritasuna galdu arte. potasio tinditxo bat geratu bide zen ontziaren beirari itsatsirik, eta nahikoa izan bide zen nik gainera botatako urarekin erreakzionatu eta bentzeno-lurrunak **irazekitzeko**. Joan Mari Lekuona

Deabru bakarrak ez du infernua egiten, baina labea **irazeki** dezake. Koldo Izagirre

· dio *ad* Alabaina jende andana suziekin eta lasto idorrarekin saiatzen ari zen egur bustiari **irazekitzen,** Aingeru Epaltza

**2** *irud*

Argiak izerdi tantak **irazekitzen** dizkio ezpainetan. Juan Garzia

Gerra luzea eta odoltsua izan zen heikeen eta gengien artean, gorroto barkaezinak **irazeki** eta itzaltzeko aukera eta denborarik gabe pizturik mantenu zituena. J.M. Olaizola "Txiliku"

Berak uste baitu horrela hasten dela pertsona hiltzen, egunero hitzen harridura ahalmena **irazekitzeko** kezkari uzten dionean. Pako Aristi

Barneko harrotasunak **irazekita**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Harik eta neroni nire Semearen baitan agertzen naizen arte, eta berau sutu eta **irazeki** dadin arte Izpiritu Santuaren maitasunean. Joan Mari Lekuona

Oroimenak **irazeki** baitio itxaropen hori Pako Aristi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Ezbeharrez ahoko zulotik suziri **irazeki** bat sartu zitzaionean. Iñaki Segurola

Eskaileretan gora, zuzi **irazekiz** argiturik zegoen atari zabaleraino. Iñaki Mendiguren

Ikusi zuen kandela piztua eskuekin hesitzen eta gero argimuki **irazekiaren** kontra jartzen aurpegia. Juan Garzia

Bolbora **irazekiaren** abaila, Aurpegia ferekatzen palma-hosto **irazekiz**. Juan Garzia

Ni emaztearen oroimen urdinetik ihesi nentorren, bere lili **irazekiaren** berotasunetik itzurika. Karlos Linazasoro

Goizaldeko eguzkiak ezin du zulatu gorritzen hasitako zeru **irazekia**. J.M. Olaizola "Txiliku"

Maitasun **irazekiaren** agerpen garbiarekin ekin baitzenion. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## **irazgaitz** **1** *izond* ura edo beste isurkari bat igarotzen uzten ez duena.

Itsasoan erabiltzen den [...] txano **irazgaitza**. Koro Navarro

Baina alde batera bakarrik da **irazgaitza** larruazala, ez bi aldeetara; izan ere, gorputzaren azaletik ur asko galtzen da izerditzean. Irene Aldasoro

Benetako jantzi **irazgaitz** baten gisa funtzionatzen dute ezkatek. Irene Aldasoro

Malgua, arina eta bikainki **irazgaitza** baita [polietilenoa]. Juan Garzia

Teilak alkaternaz margotu zituzten, **irazgaitz** egiteko inondik ere. Josu Zabaleta

**2** *irud*

Eta ontzat ematen da, gainera, komunitate horiek nahiko **irazgaitzak** direla, normalean entzuten duten hizkera bakarra tokian tokiko hori dela. Pello Salaburu

---

## **irazgaiztasun** *iz* irazgaitza denaren nolakotasuna.

Itsasoan igeri egitean, larruazalaren **irazgaiztasunak** babesten gaitu uzkurtzetik. Irene Aldasoro

---

## **irazi**, iraz, irazten *(31 agerraldi 8 liburutan)* **1** du *ad* iragazi.

Oker berdindutako zangetatik hezetasuna sartu, ura **irazi** eta sabaia bertan behera amil zitekeen. Harkaitz Cano

Ukuiluan ekaitzaldi bakoitzean itoginak izaten ziren, goitik, lastategitik **irazten** baitzen ura. Juan Garzia

Bigarren fasean, beste prozesaketa bat pasatzen du **irazitako** gai urtsuak. Irene Aldasoro

**Irazi** egiten zian, ordea, ur hori, eta ioi-trukezko araztailu batetik pasarazten. Juan Garzia

Odolaren osagai batzuk kapilarretatik kanpora **irazten** dira. Irene Aldasoro

Horren ondoren, tubulu estuetan barrena igarotzen da **irazitako** fluidoa. Irene Aldasoro

Odoletik **irazitako** likidoaren % 99 baino gehiago itzultzen da atzera zirkulaziora. Irene Aldasoro

Haitzulo berriaren zirritu guztietatik **irazten** zen zilarbizia tanta-intzirika. Juan Garzia

Eta hormei bazirudinan murmurrak zerizkiela tantaka, artesi eta zartaduren artetik **iraziko** balitzaizkie bezala. Juan Garzia

Argi trebes eta mugikor bat zuen begietan, zilarbiziarena berarena bezalakoa; zilarbizi bihurtu zela zirudien, huraxe zebilkiola zainetan eta begietatik **irazten** zitzaiola. Juan Garzia

**2** *hed/irud*

Kanpotik iristen zaizkigun informazio-izpi ugariak etengabe **irazten** dira: batzuk atzera botatzen dira, eta beste batzuk, berriz, denboraldi luzeko oroimenean gordetzen dira. Irene Aldasoro

Atea zabalik zegoen eta zeru gris baten argi-isla **irazten** uzten zuen. Juan Garzia

Ilargiaren izpiak hire aurpegi gainera **irazten**. Juan Garzia

Idazle baten literatur hastapenek [...] oroimenaren galbahea ezagutu dute -horixe du iraganak alde eta kontra-, eta nirearen galbahetik **irazi** denaren arabera, Mikel Lasarekin uztartuko dut beti Rimbaud. Anjel Lertxundi

Egia da denboraren galbaheak ez duela sarritan guk nahi genukeen bezain zehatz **irazten:** aleak, hondarra, hautsak, oinazeak igaro egiten dira galbahearen saretik behera. Anjel Lertxundi

Idazlana aurrera doan heinean, atzean geratzen dira zirriborroetako hainbat zati, galbahetik **irazi** ez direnak. Askoren artean

**3** (beste aditz batez elkarturik)

Euri temati batek tona asko amianto ikuz-**irazi** zituen harrobiaren hormetatik beretatik. Juan Garzia

Hirugarrena -barrokismoa, dekadentismoa, formaren gurtza aratz-**irazi** bezain fanatikoa?- bi hemistikio bikiz osatua da. Juan Garzia

**4** (era burutua izenondo gisa)

Gai **iraziak** eta odolak oso antzekoa dutenez sodio-kontzentrazioa, ez da garbi ikusten zergatik itzuli behar duen sodioak atzera odolera. Irene Aldasoro

Ioi multzo handi batek kapilarretarako bidea egin duenean, haien karga positibo metatuak karga negatiboa duten ioiak […] erakartzen ditu gai **irazitik** odolera. Irene Aldasoro

---

**irazki**[1] *(48 agerraldi, 27 liburutan)* **1** *iz* ehun edo paperezko hondoa duen bahe modukoa, bertatik igaroaraziz isurkariei lohitasunak kentzeko erabiltzen dena. ik **iragazki**.

Badakit, apatz handitik **irazki** batean hedatu oihal mehar baten bidez, esnea ferblankazko pertzera iragaten zela. Itxaro Borda

Baina gutiziak ez ninduen aldatzeko xendetan plantatzen: errealitatea **irazkia** bezain zulatua neukan. Itxaro Borda

**Irazkiekin** alderatu izan ditu inoiz pertsona autistak, etengabe besteren nortasunak xurgatzen baitituzte, ezeini eusteko edo bereganatzeko ahalmenik gabe. Xabier Olarra

· Cliffen **irazki** gabeko zigarretetako bat erre nuen. Koro Navarro

**2** *irud*

Ustekeria hori askotan gogoaren **irazkitik** iragaten nuen, baina gogo hazkatzeak ez zidan sendatzerik bideratzen. Itxaro Borda

Gauzak nolakoak ziren oroitzen garela uste dugu, baina ez gara oroitzen, **irazkiak** daude beti, oroimenaren **irazkiak,** neurosienak, boluntarismoarenak, mota guztietako **irazkiak**. Karlos Zabala

**3** (hitz elkartuetan)

Laboratoriora itzulirik, **irazki**-orri bat hartu, bi puntutxo gorri egin bi laginekin, eta estufan ipini nuen, 80°C-ra. Juan Garzia

Ez nuen, ordea, akabatu behar [armiarmatxoa] , baizik eta **irazki**-pisaontzi batean ezarri eta kanpora loresailera atera. Juan Garzia

Bi giltzurrunetako **irazki**-unitateetatik ateratzen den kantitatea minutuko 130 ml inguru da, baina gernuaren eratze-indizea ez da minutuko 1 ml baino. Irene Aldasoro

---

**irazki**[2] **1** *iz* ehundegian elkarri paraleloak ezartzen diren harien multzoa, haien artetik bilbea igaroaraziz ehuna egiteko; ehunean, luzarako harien multzoa. ik **bilbe**.

**Irazkia** eta bilbea gurutzatzen dituen bezala ehuleak ehunean. Piarres Xarriton

Ehutean **irazkiaren** artetik pasaz bilbea osatzen alderik alde joan-etorrian dabilen tramankulua. J.M. Olaizola "Txiliku"

Sukaldean bakarrik aditzen zen pedalek eragin ehundegi-zuren kriskitina, tarteka **irazkian** lerratzen zen ehun-orrazearen zizikak hautsirik. Elena Touyarou

Bilbe-**irazkien** luze-zabal osoan. Iñaki Iñurrieta

Nire buruko zazpi mototsak **irazkiarekin** txirikordatzen badituzu eta ehulearen ziriekin. Jose Antonio Mujika

Sanson esnatu, eta eten egin zituen zirien ardatza eta **irazkia**. Jose Antonio Mujika

**2** bilbea.

Verneren eleberrien **irazkia** bidaia harrigarria da ia beti, pertsonaia karikaturizatu batzuek egiten dutena. Karlos Zabala

Hortik datoz glosei erantsi oharñoak, gero barreiatuak direnak Azpilkuetaren beraren idazlanen **irazkia** ehotzen duten "Notabilia" ohargarrietan. Piarres Xarriton

**3** abere eta gizakien mintzatuz, tamaina.

Beti izan naiz handia eta sendoa; mutikotan ere **irazkiz** eta indarrez nire lagunak baino sendoagoa. Matías Múgica

Han **irazki** aski txikiko gizon bat baizik ez nuen ikusi, burges aberatsaren estiloan jantzia. Matías Múgica

**4** (hitz elkartuetan)

Testuaren **irazki**-bilbe baten hari ikusezinei. Anjel Lertxundi

Memoriaren mapak eta mapen memoria, biak **irazki**-bilbe berera erakartzen ditu literario deitzen dugun testu batek eta bilgune horretara erakartzen gaitu irakurleok. Anjel Lertxundi

Ehunak burdinaren ondorengo dira, ehundegiak burdinaz egiten baitira, eta ez dago **irazki**-hariak, anezkak eta ardatz kantariak bezalako tresna hain xumeak beste inola egiterik. Xabier Amuriza

Tapizaren bilbe-**irazkien** askotarikoari. Iñaki Iñurrieta

---

**irazkitu,** irazki, irazkitzen du *ad* irazkia egin, bilbatu.

Gertaki haien guztien eta arrazoin haien guztien bilbatzea eta **irazkitzea,** denboraren ehundegietan. Joan Mari Irigoien

Minutu gutxi batzuen buruan, **irazkitua** nuen plana. Juan Garzia

Askotariko mitologia dibergenteak **irazkitu** zituzten histrioiek; batzuek aszetismoa predikatu zuten, beste batzuek lizentzia, denek nahasmena. Juan Garzia

Baldin beldurra eta sinesberatasuna ehun berean bilbatzen eta **irazkitzen** badira. Joan Mari Irigoien

---

**irazkor** *iz* ura edo beste isurkari bat igarotzen uzten duena. ik**iragazkor**.

Prozesua bizkortu egiten da berehala, mintzaren barruko karga elektriko pixka bat galtze hutsak **irazkor** bihurtzen baitu mintza, eta barrura sartzen baitira horrenbestez karga positibozko kanpoko sodio ioiak. Irene Aldasoro

Erakutsiko zen badirela agente **irazkor** batzuk, gerora birus izena ipiniko zitzaienak. Juan Garzia

---

**irazkortasun** *iz* irazkorra denaren nolakotasuna.

Bulkada kimikoak zelula-mintzaren **irazkortasuna** aldatzen du gune batean, eta sodio ioiak (normalean kanpoan eusten zaienak) barrura sartzen dira. Irene Aldasoro

Dagoeneko ikusi dugu zelularen mintzaren **irazkortasunean** gertatzen den aldaketak abiarazten duela nerbio-bulkada. Irene Aldasoro

Kasu batean zein bestean, espazio politikoaren **irazkortasunak** eta pluraltasunak (hau da, inperio burokratiko ez bihurtu izanak) zabaldu zuten merkataritza hiri beregainetan. Koro Navarro

---

**irazpaper** *iz* irazteko papera.

**Irazpaper** zati idor baten gainean ezarri nuen [ilar erdia]. Juan Garzia

Uretatik ateratzen nuen bakoitzean, hauts marroizko xerlo bat zekarren imanak atxikirik: **irazpaper** puska batekin kontuz-kontuz biltzen nuen osatuz zihoan gordailura, aldiko miligramo bat edo. Juan Garzia

---

**irazte** *iz* iragaztea.

Hodi labur samar bat da giltzurrun-arteria, eta horrek asko laguntzen dio **irazte** -prozesuari. Irene Aldasoro

---

**iraztegi** *iz* irazteko planta.

Hiru hirietako estolderiak egokitu eta luzatzeaz gain, lau **iraztegi** egin behar izan dituzte. Berria - Euskal Herria

---

**iraztor** *iz ipar* iratze saila.

Jakesek nahi zuen atsolutoki Lakabira bereganatu, zedarrietan han hara zegoen **iraztor** heze baten trukean. Itxaro Borda

---

**ireki**[1], ireki *(orobat irek g.er.)*, irekitzen *(orobat **iriki** g.er. eta **ideki** g.er.)* **1** du *ad* sarrera edo irteera eragozten duena higitu edo kendu.

Leihoa **ireki** zuen. **Ireki** itzan apur bat leihoak. Harkaitz Cano

Nigandik bereizirik, bere poltsatik giltzak atera eta atea **ireki** zuen. Aingeru Epaltza

Hiriko jendeak, beldurraren beldurrez, **ireki** egin zizkien ateak. Nork **ireki** zion mendekuari atea? Felipe Juaristi

Alboko gelako atea giltzaz **ireki** zuen. Ibon Uribarri

Zuzendariak brastako batez **ireki** du bere izena erakusten duen atea. Aingeru Epaltza

Mugak **ireki** zituztenean. Arantxa Iturbe

Hala ere, ez zieten sarrera **ireki** nahi izan. Elizen arteko biblia

Itsasora ateratzeko irteera **ireki** eta bere flota portu txikitik atera zuen. Santiago Iruretagoiena

Ezpainak **ireki** zituen, mihitxo zorrotz eta gorri bat atera […]. Juan Martin Elexpuru

**Ireki** leize-zuloko ahoa eta ekarri niregana bost errege horiek. Elizen arteko biblia

Atzeko atearen sarraila **ireki** eta sartu egiten da. Oskar Arana

Martak irribarre egin zuen eta Olatzek leihoko kisketa **ireki** zuen. Harkaitz Cano

Maletako hesgailuak **ireki** eta zaku-oihalezko fardeltxoa atera nuen. Alberto Ladron Arana

Bildotsak laugarren zigilua **ireki** zuenean, laugarren izakiaren ahotsa entzun nuen hau esaten: "zatoz". Elizen arteko biblia

Atera zen eguzkia, **ireki** ziren hodei zilarkarak eta lanbro distiratsua pausatu zen elurraren gainean. Fernando Rey

Uraren giltza **ireki** nuen. Juan Garzia

Biluztu nintzen, ur beroaren kanila **ireki** eta […]. Fernando Rey

Hannak ur hotzaren txorrota **ireki** zuen. Joxe Austin Arrieta

Gasa **ireki** eta bere buruaz beste egin zuen. Koro Navarro

**2** zerbaiten barnealdea irispidean jarri.

Ganbera **ireki** egin dute..., zer esan nahi ote du horrek? Iñaki Mendiguren

Gero armairua **ireki** eta bertatik atorra bat atera zuen. Fernando Rey

Orduan sorbaldak goratu eta erregistro-kutxa **ireki** zuen. Fernando Rey

Harryren idazmahaian jarri nintzen, eta goiko erdialdeko tiradera **ireki** nuen. Oskar Arana

Autoa **ireki** eta bolantera jarri orduko. Aingeru Epaltza

Argentinan hegazkinetako sabela **ireki** eta handik botatzen zituzten, bizirik, militarren kontra ahotsa goratzen zutenak. Pello Salaburu

Hilobiak **ireki** eta ixtea. Jon Muñoz

Denda **ireki** orduko joango naiz film horren bila, hemendik ordu erdira. Jon Muñoz

Hiri honetan, asteazken triste batean, zer uste duk dagoela **irekia** goizaldeko bortzetan? Aingeru Epaltza

Poto bat **ireki** eta zakurrari jaten eman zion. Koro Navarro

Ogitartekoa **ireki** eta lau xerra mortadela zenbatu ditu. Xabier Mendiguren Elizegi

Berriz ere **ireki** nuen kartera: bi kondoiak hor ziren beti. Aingeru Epaltza

Dilindan zeraman poltsa **ireki** zuen. Aingeru Epaltza

Josek aletegi guztiak **ireki** eta alea egiptoarrei saldu zien. Elizen arteko biblia

Gari-zakuak **ireki** genituen eta nork bere dirua aurkitu zuen zaku-muturrean. Elizen arteko biblia

Kastelak ardo zakar pinta bat **ireki** eta botila, inguruan bilduak zirenei eskaini zien. Itxaro Borda

Botilak **ireki** eta airera botatzen ari dira likidoa. Jon Arretxe

Paketea **ireki** zuen Ruche jaunak, eta Rhind papiroa atera zuen handik. Jon Muñoz

**Ireki** zuen zerua eta jaitsi zen, oinpean hodei-lainoa zekarren. Elizen arteko biblia

Hermioneren eskutitza **ireki** eta ozen irakurtzen hasi zen. Iñaki Mendiguren

Perrettek han utzitako gutun-azala hartu, **ireki,** eta bi argazki atera zituen handik. Jon Muñoz

Hegalei eragin, eta mokoa **ireki** zuen zabal-zabal. Jon Muñoz

Bidaiari egarritua ahoa **ireki** eta edozein ur edateko prest dagoen bezala. Elizen arteko biblia

**Ireki** ahoa zuzentasunez epaitzeko, dohakabe eta behartsuen eskubideak babesteko. Elizen arteko biblia

Oraingo aldian bai, ahoa **ireki** nuen, oker-aditua zuritzeko asmoz. Aingeru Epaltza

Kolpeak burua **ireki** zion. Pako Aristi

Saihets aldera etzanik, zauria **ireki** egin zitzaion, eta odoletan hasi. Juan Kruz Igerabide

**Ireki** ipurdi bikain hori nire irrika lohiari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bihar **ireki** egingo naute, dagoeneko badakitena ziurtatzearren: ez dagoela zer eginik. Joxe Austin Arrieta

· Lakua **ireki** zuen itsasora eta lakuarekin hiribilduarentzat portu eder bat egin zuen. Santiago Iruretagoiena

Pista nagusia, konponketetarako itxia baita, azkar **ireki** beharra dago. Xabier Olarra

*ik beherago* 5. Askoren artean

**3** (bideez eta kidekoez mintzatuz)

Nik **ireki** nuen bidea itsasoan, ur oldartsuetan zehar. Elizen arteko biblia

Indarrez bidea **ireki,** hiriko ateetatik igaro eta libre aterako dira. Elizen arteko biblia

Badirudi garai hartan egindako aurrerapenek **ireki** ziotela bidea geroago etorriko zen guztiari. Pello Salaburu

Hobbesen ondotik, bide berriak eta ez beti hain okerrak **ireki** bazituzten ere […]. Piarres Xarriton

Behin ildo hori **ireki** zenez gero […]. Askoren artean

Zirritua **ireki** nuen bular-zorroaren eta larru-azalaren artean. Aingeru Epaltza

Zuloa **ireki** zuten barrukoek harresian, eta hiriko gudari guztiek ihes egin zuten. Elizen arteko biblia

Zulo bat **ireki** zuten lurrean eta hantxe lurperatu. Felipe Juaristi

Ura nondik eraman, iturririk ez badaukagu, orduan putzuak **ireki** beharko ditugu. gure ondoko belaunaldiak duela berrogeita zenbait urte **ireki** zuen frontea hestera doalarik eta agian egiazko bake zuzen eta iraunkor bat eraiki beharretan gabiltzalarik Euskal Herrietan [...]. Piarres Xarriton

**4** zerbaiten osagai higikorrak elkarrenganik urrundu.

**Ireki** eskua jauna, etorkizuna iragarriko dizut. Berria - Kirola

Tomek besoak **ireki** zituen, eta neskatoa berehala oldartu zitzaion beso artera. Oskar Arana

Izterrak **ireki** . arrain bat hartu eta zakatzak **ireki** zizkion freskoa ote zen ikusteko. Koro Navarro

Hire sinadura baizik ez diat ikusten egunkaria **ireki** orduko. Aingeru Epaltza

Nylonezko poltsaren kremailera **ireki** eta kanoi motzeko eskopeta bat atera. Patxi Iturritegi

Gristasunaren erdian guardasola **ireki** nahian. Lourdes Oñederra

Eta ez zen inor ez zeruan, ez lurrean, ez lur azpian liburua **ireki** eta irakur zezakeenik. Elizen arteko biblia

Svevo-ren eleberria **ireki** eta irakurtzen hasi nintzen. Oskar Arana

Niregana makurtua zegoen bitartean, musu ematen, eskotea **ireki** zitzaion.Txabusinaren hegalak **ireki** baitzitzaizkion, ezker izterraren ikuspegi eskuzabala oparituz. Aingeru Epaltza

**5** *hed/irud*

**Ireki** begiak eta ikusi! Elizen arteko biblia

Begi bat besterik ez zuen **ireki,** erdizka. Juan Kruz Igerabide

**Ireki** itzak begiak, Sebas. Itxaro Borda

**Ireki** nire begiak, ikus ahal ditzadan zure legearen dohain harrigarriak. Elizen arteko biblia

Hiru emakumeen betazalak itxi-**ireki** egin ziren bizi-bizi, urre pila ikusi izan balute bezala. Karlos Zabala

*ik beherago* 10. Askoren artean

Belarriak **ireki** dizkidazu, zuri entzuteko. Elizen arteko biblia

Zabal-zabalik **ireki** dizuet neure bihotza. Elizen arteko biblia

Zergatik, bada, ezingo liokete elkarri bihotza **ireki** ? Oskar Arana

-Zatozte orain, barrua **ireki** baitit Sansonek. Jose Antonio Mujika

Hain nintzen zoriontsu arima **ireki** nizun egunean! Jon Muñoz

Aspaldiko zauri bat **ireki** da. Paddy Rekalde

**6** (bestelakoetan)

Igerileku publikoetako uren azterketaren emaitzekin **ireki** behar genian gaur ordu bateko albiste-saioa. Aingeru Epaltza

TKEk espedientea **ireki** zion Astillerori. Berria - Kirola

Prestaturik gabe zegoela sentitzen baitzuen beraren aurrean **ireki** ziren aukera ugarien aurrean. Oskar Arana

Hainbertzeko asotsa atera zuen aferak, Bordeleko Parlamentuak ikerketa **ireki** baitzuen. Aingeru Epaltza

Behin prozesu bat **ireki** ondoren on dela, urteak igarotzen direnean. Pello Salaburu

Edozein jarreratara **irekia** dagoen ikuspegitik. Joseba Zulaika

**7** bezeroak hartzen dituen etxe edo merkataritza gune bat sortu.

Jatetxe japoniar **ireki** berri batean erreserbatua nuen mahaia. Aingeru Epaltza

Hurrengo urtean Harryk arte-galeria **ireki** zuen, Bette-ren diruarekin osoki. Oskar Arana

Gero, gure poliklinika **ireki** zuten, eta ni kalera bota ninduten, beste sendagile judu batekin batera. Felipe Juaristi

Amaetxe bat **ireki** dute; hobeto esan, amaetxe itxura duen zerbait. Felipe Juaristi

Lau urte geroago, makineria ultramodernoaz hornituriko ikuztegi berria **ireki** zuen, Zabalgunearen erdi-erdian. Aingeru Epaltza

Hiri ondoan **ireki** berriko golf-zelaian entrenatzen ziren neofito apain baina irrigarrien jarreran. Aingeru Epaltza

Gorte Gorenak itxiarazi zuen, ilegalki **irekia** izan baitzen. Ramuntxo Etxeberri

Zortzi auto enpresa interesatuak dira Basusarriko golfa eta Maignon-eko itzulgunearen artean "automobilaren herria" **idekitzeko** . Herria

**8** (era burutua izenondo gisa)

Taxiaren ate **irekiaren** aurrean. Lopez de Arana

Askoz ere errazago hitz egiten zen leiho **irekiaren** ondoan, ilun samarrean. Josu Zabaleta

Leku **irekian** egin beharreko itxiturak direla-eta. Santiago Iruretagoiena

Zutunik jarritako artazi **ireki** batzuen forma zeukan Museoak. Unai Elorriaga

Eskopeta **irekian** bi kartutxo sartu zituen. Joxemari Urteaga

Txanpon urrezko bat utzi zuen bentariaren esku **irekian** . Felipe Juaristi

Hartu bi agiriok, zigilatua eta **irekia,** eta sartu buztinezko pitxer batean, luzaro iraun dezaten. Elizen arteko biblia

Tiradera bat zabaldu eta gutunazal **ireki** bat atera zuen. Alberto Ladron Arana

Bosgarrenean, Sanbalatek bere laguntzaile bat bidali zidan gutun **ireki** batekin. Elizen arteko biblia

Beti liburu **ireki** bat aurrean neukala. Oskar Arana

Trenaren azken bagoia furgoi **ireki** bat zen. Fernando Rey

Haren hazpegi **ireki** eta bizitasunez beteen aurpegiera ia biluzia. Jon Muñoz

· Beste kutxa alderik alde **ireki** batzuetatik, ordea, aldiro zihoazen ihesi beste liburu batzuk. Jon Muñoz

Zauri **ireki** berritik odolusten ari balira bezala. Joxean Agirre

Haren aho erdi-**irekiari** lokarri batek eusten zion. ik ireki[2]. Juan Garzia

**9** ***begi(en) itxi-ireki batean*** *(orobat* ***hertsi-ireki****)* une guztiz labur batean.

Unetxo batean, begien itxi-**ireki** batean. Elizen arteko biblia

Begi itxi-**ireki** batean desagertu ziren. Iñaki Mendiguren

Bat-batean galgatu, eta, begi itxi-**ireki** baten bitartean. Jon Muñoz

Egiazaleak betiko irauten du, gezurtiak begien hertsi-**ireki** bat. Elizen arteko biblia

Begien hertsi-**ireki** batean desagertu da! Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**ahoa ireki** (79); **ahoa ireki eta** (17); **ahoa ireki gabe** (10); **ahoa ireki zuen** (8); **aldea ireki** (6); **armairua ireki** (9); **armairua ireki eta** (8); **aro berria ireki** (6); **asko ireki** (13); **ate bat ireki** (22); **ate ireki** (11); **atea ireki** (445); **atea ireki bezain** (8); **atea ireki du** (15); **atea ireki egin** (10); **atea ireki eta** (105); **atea ireki nuen** (13); **atea ireki orduko** (10); **atea ireki zen** (28); **atea ireki zien** (7); **atea ireki zion** (14); **atea ireki zuen** (49); **atea ireki zuenean** (13); **ateak ireki** (139); **ateak ireki ditu** (6); **ateak ireki dizkio** (6); **ateak ireki eta** (19); **ateak ireki ziren** (8); **ateak ireki zituen** (9); **ateak ireki zizkion** (11); **atzo ireki** (9); **aukera ireki** (6); **azkar ireki** (6); **baina ireki** (9); **bat ireki** (246); **bat ireki behar** (10); **bat ireki da** (12); **bat ireki du** (24); **bat ireki dute** (11); **bat ireki eta** (24); **bat ireki nahi** (11); **bat ireki zen** (12); **bat ireki zuen** (36); **bat ireki zuten** (9); **batean ireki** (8); **batek ireki** (22); **batek ireki zuen** (9); **batez ireki** (6); **batzuk ireki** (11); **begi bat ireki** (7); **begi itxi ireki** (6)

**begiak ireki** (160); **begiak ireki ditu** (6); **begiak ireki eta** (25); **begiak ireki nituen** (12); **begiak ireki zituen** (41); **begien itxi ireki** (27); **berak ireki** (17); **berehala ireki** (13); **berri**

bat ireki (26); berria ireki (31); berriak ireki (27); berriro ireki (25); berriz ireki (20); bide bat ireki (9); bide berriak ireki (12); bidea ireki (78); bidea ireki du (9); bidea ireki zuen (8); bidea ireki zuten (6); bideak ireki (10); botila ireki (10); da ireki (6); denda ireki (8); epea ireki (7); erabat ireki (7); erdi ireki (25); ere ireki (32); eskua ireki (7); espazio ireki (6); espediente ireki (6); espedientea ireki (20); eta atea ireki (18); eta begiak ireki (13); eta ireki (70); eta ireki egin (11); eta ireki egiten (9); eta leihoa ireki (8); etxeko atea ireki (11); ez ireki (9); eztabaida ireki (11); gainean ireki (6); ganbera ireki (11); gehiago ireki (8); gelako atea ireki (23); gutun ireki (9); guztiak ireki (14); handia ireki (8); handiz ireki (7); herrian ireki (6); hori ireki (6); horrek ireki (6); hozkailua ireki (6); hura ireki (11); ikerketa ireki (7)

ireki ahal (22); ireki ahal izateko (7); ireki aitzin (6); ireki arte (15); ireki atea (11); ireki ateak (7); ireki aurretik (20); ireki baino (11); ireki bat (53); ireki batean (47); ireki baten (17); ireki begiak (13); ireki behar (77); ireki behar izan (9); ireki beharko (18); ireki beharra (11); ireki berri (20); ireki berria (9); ireki bezain (19); ireki bezain laster (14); ireki bitartean (9); ireki da (52); ireki daiteke (7); ireki dela (15); ireki den (26); ireki die (9); ireki dio (21); ireki diote (6); ireki ditu (34); ireki dituen (8); ireki dituzte (17); ireki dizkio (8); ireki du (129); ireki duela (9); ireki duen (13); ireki dugu (11); ireki dut (12); ireki dute (49); ireki dutela (7); ireki edo (12); ireki egin (73); ireki egin zen (15); ireki egin zuen (14); ireki egingo (7); ireki egiten (23); ireki egiten da (6); ireki ere (16); ireki ere egin (6); ireki eskua (8); ireki eta (548); ireki eta bere (12); ireki eta berehala (6)

ireki eta itxi (16); ireki eta kanpora (6); ireki ez (17); ireki ezak (9); ireki ezazu (16); ireki gabe (36); ireki izana (8); ireki nahi (64); ireki nahi izan (8); ireki nion (7); ireki nituen (21); ireki nuen (66); ireki ondoren (15); ireki orduko (28); ireki zen (109); ireki zen atea (6); ireki zen eta (10); ireki zenean (14); ireki zidan (14); ireki zidan atea (9); ireki zien (26); ireki zien atea (6); ireki zion (50); ireki zioten (13); ireki ziren (36); ireki zituen (118); ireki zituen eta (10); ireki zituenean (7); ireki zituzten (33); ireki zitzaion (16); ireki zitzaizkion (7); ireki zizkien (6); ireki zizkion (29); ireki zuela (8); ireki zuen (361); ireki zuen atea (16); ireki zuen eta (19); ireki zuena (6); ireki zuenean (42); ireki zuten (142); ireki zuten atea (6); ireki zutenean (12); ireki zutenetik (7)

itxi eta ireki (13); itxi ireki (36); itxi ireki batean (29); kajoia ireki (7); kaxa ireki (7); kaxoia ireki (6); komuneko atea ireki (7); kutxa ireki (25); kutxa ireki eta (10); kutxa ireki zuen (8); leihatila ireki (6); leiho ireki (7); leihoa ireki (52); leihoa ireki eta (16); leihoa ireki zuen (12); leihoak ireki (9); liburua ireki (12); liburua ireki eta (6); logelako atea ireki (6); maleta ireki (7); minutuko zuloa ireki (8); nik ireki (6); nola ireki (7); nork ireki (6); pare ireki (6); parez pare ireki (6); pixka bat ireki (10); politiko berria ireki (6); politikoa ireki (6); poltsa ireki (9); prozedura ireki (6); prozesu bat ireki (10); prozesua ireki (7); sabela ireki (9); tartea ireki (14); tartetxoa ireki (6); tiradera ireki (16); tiradera ireki eta (8); txiki bat ireki (11); zabal ireki (12); zabal zabal ireki (10); zigilua ireki (6); zigilua ireki zuenean (6); zuen ireki (7); zuloa ireki (23); zuloa ireki zuen (7); zuloa ireki zuten (8); zuloak ireki (6)

aebetako irekia (8); arabako irekia (7); ate irekiaren (9); ate irekiaren (9); australiako irekia (22); baino irekiago (7); bat irekia (7); batzar irekia (6); bizkaiko irekia (10); erabat irekia (6); erdi irekia (9); eta irekia (29); eta irekiagoa (6); eta irekiak (8); eztabaida irekia (17); eztabaida irekia eta (6); gune irekia (6); gutun irekia (8); guztiei irekia (8); guztiz irekia (6); irekia baita (6); irekia da (58); irekia dago (14); irekia dagoela (8); irekia dela (23); irekia du (9); irekia eta (65); irekia irabazi (11); irekia irabazi zuen (7); irekia izan (28); irekia izan behar (9); irekia izan zen (6); irekia izango (40); irekia izango da (26); irekia izatea (8); irekia zegoen (9); irekia zen (20); irekiagoa da (7); irekiak dira (11); irekiak eta (14); irekiak ziren (7); irekiaren aurrean (6); irekiaren aurrean (6); jarrera irekia (31); jarrera irekia eta (8); jarrera irekiagoa (6); joko irekian (6); kontzeptu irekia (6); leku irekietan (7); oso irekia (16); partida irekia (6); txapelketa irekia (8)

atea irekiko (19); ateak irekiko (26); bat irekiko (33); bat irekiko du (6); bat irekiko dute (6); begiak irekiko (14); berri bat irekiko (6); berri irekiko (6); berriak irekiko (7); bidea irekiko (17); bulego irekiko (10); bulego irekiko ditu (6); erdiko irekiko (14); ere irekiko (6); espedientea irekiko (6); gaur irekiko (12); gaur irekiko dute (6); irekiko da (26); irekiko den (10); irekiko dira (21); irekiko ditu (35); irekiko ditu ateak (6); irekiko dituzte (25); irekiko dizkio (9); irekiko du (50); irekiko duela (6); irekiko duen (7); irekiko dut (11); irekiko dute (49); irekiko final (16); irekiko final laurdenak (7); irekiko finala (14); irekiko luke (8); irekiko zain (6); irekiko zuen (6); noiz irekiko (12); noiz irekiko zain (6)

ahoa irekita (7); ate erdi irekitik (10); ate irekitik (9); atea erdi irekita (10); atea irekirik (8); atea irekita (37); atea irekita utzi (8); ateak irekita (30); aurka irekitako (9); bat irekita (26); begiak irekirik (7); begiak irekita (14); beti irekita (6); bidea irekita (18); bideak irekita (11); da irekita (11); egongo da irekita (7); erdi irekirik (13); erdi irekita (32); erdi irekita zegoen (9); erdi irekitik (13); eta irekita (9); eztabaida irekita (7); guztiak irekita (11); irekirik zegoen (7); irekita aurkitu (7); irekita dago (55); irekita dagoela (15); irekita dagoen (11); irekita daude (10); irekita daudela (6); irekita dauden (10); irekita egon (14); irekita egongo (18); irekita egongo da (11); irekita egoten (8); irekita eta (13); irekita geratzen (9); irekita jarraitzen (9); irekita utzi (33); irekita zegoen (25); irekita zeuden (13); irekita zeukan (9); irekitako aro (6); irekitako bidea (9); irekitako bideari (6); irekitako bidetik (6); leiho irekitik (12); leihoa irekita (10); oraindik irekita (8); oso irekita (8)

atea irekitzea (13); atea irekitzean (21); atea irekitzeko (17); ateak irekitzea (10); ateak irekitzeko (24); bat irekitzea (38); bat irekitzeko (56); bat irekitzeko asmoa (6); bat irekitzeko aukera (8); begiak irekitzea (6); begiak irekitzeko (6); berri bat irekitzea (6); berri bat irekitzeko (9); berria irekitzea (7); berria irekitzeko (7); berriak irekitzeko (8); berriro irekitzeko (6); berriz irekitzea (7); berriz irekitzeko (6); bidea irekitzea (8); bidea irekitzeko (18); bideak irekitzea (7); bideak irekitzeko (7); ez irekitzeko (11); eztabaida irekitzeko (7); irekitzea da (9); irekitzea erabaki (15); irekitzea espero (7); irekitzea eta (13); irekitzea lortu (24); irekitzea lortu zuen (9); irekitzea lortu zuten (6); irekitzearekin batera (9); irekitzearen alde (6); irekitzeko agindua (7); irekitzeko asmoa (13); irekitzeko aukera (14); irekitzeko eskatu (38); irekitzeko eskatu dute (7); irekitzeko eskatzen (6); irekitzeko eta (15); prozesu bat irekitzeko (11); prozesua irekitzeko (10); tartea irekitzea (9); tartea irekitzea lortu (7)

ahoa irekitzen (23); ate bat irekitzen (6); atea irekitzen (64); atea irekitzen ari (6); atea irekitzen du (8); atea irekitzera (26); atea irekitzera joan (12); ateak irekitzen (33); aukerak irekitzen (6); bat irekitzen (63); bat irekitzen du (10); begiak irekitzen (13); berri bat irekitzen (10); berria irekitzen (6); berriak irekitzen (16); bidea irekitzen (39); bidea irekitzen du (6); bideak irekitzen (8); eta atea irekitzera (6); eta irekitzen (11); guztiak irekitzen (7); irekitzen ari (58); irekitzen ari den (13); irekitzen ari zen (8); irekitzen da (23); irekitzen den (16); irekitzen denean (9); irekitzen die (6); irekitzen dio (17); irekitzen dira (13); irekitzen ditu (16); irekitzen dituen (6); irekitzen dituzte (9); irekitzen dituzten (6); irekitzen dizkio (7); irekitzen du (53); irekitzen duela (8); irekitzen duen (17); irekitzen entzun (6); irekitzen eta (21); irekitzen eta ixten (8); irekitzen ez (15); irekitzen hasi (16); irekitzen hasi zen (9); irekitzen ikusi (6); irekitzen saiatu (11); irekitzen zen (17); irekitzen ziren (9); irekitzen zituela (6); irekitzen zituen (12); irekitzen zituzten (6); irekitzen zuen (21); irekitzen zuten (9); irekitzera joan (20); irekitzera joan zen (11); nola irekitzen (6)

---

**ireki**[2] **1** *izond* oztopo edo hertsikeriarik gabea.

Ekonomia azpisistema **ireki** bat dela, baina beti ere itxia den ekosistema mugatu batean txertatutakoa. Iñaki Heras

Iraganerako ate bitxi eta psikologikoki **ireki** hura. Xabier Olarra

Lehen urteetako ETA hau intelektualki **irekia** da, bilaketa batean dabil. Joseba Zulaika

Eztabaida guztiz **ireki** haietan. Juan Garzia

Logika, adibidez, hizkuntza **irekia** da, onartzen baitu hizkuntza metalogikoa. Askoren artean

Estilo **ireki** eta aktibo bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**2** ideia eta jarrera berriak onartzen dituena.

Oso mutil **irekia** zen eta denekin zuen harreman ona. Jokin Urain

Praktika hegemonikoak gizarte osaezin eta **irekiaren** artikulazioak dira. Joseba Zulaika

Donostia, merkatari herri bat eta gotorleku militar itxia izatetik, hiri **irekia** izatera igaro zen. Askoren artean

Gu "itxiak" garen bezala, haiek **"irekiagoak"** direla esan ohi dute, izpirituz **irekiagoak,** eta ez dakigu izpiritua pitzatua, zulatua edo gaizki josia dutelako den. Iñaki Segurola

Erlijioaren Filosofia, erlijioei buruzko gaiez egiten den hausnarketa kritiko **irekia,** zehatza eta konfesioetatik apartekoa. Askoren artean

**3** bokalez mintzatuz, aho-irekiera handienarekin ahoskatzen dena.

Frantsesez, latinezko *o** oro, silaba **irekian,** *eu* bilakatzen zen azentuduna zenean. Isabel Arrigain

---

**ireki**[3] (orobat **I** larriz) **1** *iz* maila guztietako kirolariak onartzen dituen kirol norgehiagoka. ik**open**. (tenisean)

AEBetako tenis **irekia,** US Opena alegia. Berria - Kirola

11 torneo irabazi ditu (*grand-slam*-eko Australiako **Irekia,** Wimbledon eta AEBetako **Irekia** tartean). Berria - Kirola

AEBetako **Irekiak** bi protagonista izan ditu: Federer eta Svetlana Kuznetsova. Berria - Kirola

Ingelesak irabazi zuen Donostiako **Irekia,** eta Gomez izan zen lehen euskal jokalaria, 10. postuan. Berria - Kirola

Federer nagusi Australiako **irekian**. Berria - Kirola

Australiako **Irekian** aritu zen, baina ez zen final-hamaseirenetatik pasatu. Berria - Kirola

**2** (pilotan)

Buruz Buruko Bizkaiko **Irekia** hasiko da gaur Muskizen (19:00), eta hiru kanporaketa partida jokatuko dituzte. Berria - Kirola

Lau t'erdiko Arabako **Irekiari** . Berria - Kirola

Frontisek antolatzen duen buruz buruko Bizkaiko **Irekia** irabazi zuen atzo.

Frontisek gaur aurkeztuko du Arabako **Irekia,** PZA zirkuituko laugarrena, Arabako Pilota Federazioak Gasteizen dituen bulegoetan (11:00). Berria - Kirola

Nafarroako **Irekian,** Arretxe eta Errandonea I.a aurrera. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

aebetako irekiko (3); arabako irekiko (10); arabako irekiko final (4); australiako irekian (23); australiako irekiko (35); australiako irekiko final (3); australiako irekiko finala (6); australiako irekiko finalean (3); australiako irekiko lehen (6); bizkaiko irekiko (10); bizkaiko irekiko final (3); eta australiako irekiko (3); irekiko final (16); irekiko final laurdenak (7); irekiko final zortzirenetako (3); irekiko finala (14); irekiko finala jokatuko (6); irekiko finalean (7); irekiko finalean ariko (3); irekiko finalerdiak (6);

**irekiko itzulpen** (3); **irekiko lehen** (12); **irekiko lehen zerrendaburuak** (3); **irekiko txapeldun** (4)

---

## irekialdi *iz* zerbait irekitzen den aldietako bakoitza.

Pixkanaka, multzokatuz doaz eta ate automatikoaren **irekialdi** batean hogei bat atera dira elkarren ondoan, elkarren segidan. Lourdes Oñederra

Hori izan zen liburuaren lehen **irekialdian** atera zitzaion pasartea. Askoren artean

Liburuaren **irekialdi** bakoitzean. Askoren artean

Nola esaten zaio saltoki handietako **irekialdi** berezi horri? Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**lehen irekialdian** (3)

---

## irekiarazi, irekiaraz, irekiarazten *(orobat* ***irekarazi****)* du *ad* irekitzera behartu.

Kontrolean gerarazi eta maleteroa **irekiarazi** zioten. Jokin Urain

Otoitz luze eta beroa egin ondoren, Ebanjelioen liburu santua aldaretik hartu eta bere lagunari [...] **irekiarazi** zion, Hirutasun santuaren izenean. Askoren artean

Oihu zainartaz begiak **irekiarazi** nizkion eta lo horditik aharrausika jalgi zen. Itxaro Borda

Lagunen bat izan banu nirekin, gure ezpatak batuko genituen laborari etxeren bateko atea **irekiarazteko,** ohantze eta janari eske. Aingeru Epaltza

Ziur nengoen ehortzi baino lehen zerraldoa **irekiaraziko** zuela edukia ikusteko. Ramon Saizarbitoria

Arrosak **irekiarazten** dituen zurrumurru mina. Jon Alonso

Horregatik, 1974an Hok **irekiarazi** zuen euskaldunok arras gustukoa dugun jokoaren praktikatzeko lekua. Ramuntxo Etxeberri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**begiak irekiarazi** (3)

---

## irekidura 1 *iz* gune irekia. ik **irekigune**.

Putzuko ur-gaina izozturik zegoen, eta gorputz bat kabitzerainoko **irekidura** txiki bat zabaldu behar izan dute pikotx baten laguntzaz. Anjel Lertxundi

Albo batean eta bestean ate eta **irekidura** ugari zeuden. Atearen **irekidura**. Agustin Otsoa

Gorputzaren zatirik erotikoenak jantzien **irekidurek** doi-doi bistaratzen dituztenak omen dira. Joxean Agirre

Gerrialde baten ebakera, papar baten **irekidura** biribila, papar-hegal baten lerroa. Joxan Elosegi

Oinetakoen **irekidura** airosak. Karlos Zabala

Gangaren erdian argia sartzeko **irekidura** bat utzi behar da. Santiago Iruretagoiena

Xafla horiek elkargainka antolaturik daude, erdian zirkulu formako **irekidura** bat uzteko moduan, **irekidura** horren diametroa doitu ahal izateko objektiboaren tutuan kokaturiko uztai baten bidez. Irene Aldasoro

**Irekidura** bakoitzak begiak bezala jokatzen zuen: argi gehiegirekin, itxi egiten zen. Jon Muñoz

Gora biltzen zituen atorraren mahukak [...] eta eskutxo mehe iharrak **irekidura** zabaletatik irteten zitzaizkion. Jose Morales

Horietatik bost parte eta erdi **irekidura** edo baoaren zabalerari emango zaizkio bere beheko aldean. Santiago Iruretagoiena

Saiatu nintzen [...] **irekiduratik** zerbait ikusten. Koro Navarro

Kontzientzia jarioaren eredua, non orainak etengabe ihes egiten dion bere buruari etorkizunaren **irekiduran** eta iraganaren atxikipenean. Xabier Arregi

V-aren formako **irekidura**. Matías Múgica

**2** (hizkuntzalaritzan) hotsak sortzeko artikulazio organoek airea igarotzeko uzten duten zabalera. ik **irekiera 6**.

Artikulazio guneak, kokapena gorabehera, beti **irekidura** bat azaltzen du, hau da, irekiera maila bat. Isabel Arrigain

Erabateko oklusioari dagokion **irekidura** graduarekin. Isabel Arrigain

**Irekidura** maila bat gainditz gero, ahoak erresonatzaile gisa jokatzen du batez ere. Isabel Arrigain

Ez da inon gertatzen bokalen **irekidura** mailak esanahia ezin bereizi izatea: horregatik hizkuntza batean azal daitezkeen bokal fonemak gutxienez bi dira (bata ahalik eta itxiena, bestea irekiena). Lourdes Oñederra

**3** irekia denaren jokaera. ik **irekiera 6**.

Tokiko kulturari errespetua eta **irekidura** adieraztea normala da. Berria - Euskal Herria

Horregatik, lehen bileretan egiazko **irekidura** bat bazen Frantziako Estatuaren partetik, eta abertzaleei toki handia eman zieten. Berria - Euskal Herria

Landetakoa da, baina Euskal Herriari eta euskal nortasunari buruzko **irekidura** erakutsi izan du beti. Berria - Euskal Herria

Garrantzitsua da kultur mailako **irekidura**. Berria - Euskal Herria

Epe laburrera ez dugu **irekidura** keinurik espero gatazkaren konponbiderako bidean. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**da irekidura** (3); **eta irekidura** (7); **irekidura bat** (5); **irekidura maila** (4)

---

## irekiera *(orobat* ***irikiera*** *g.er.)* 1 *iz* irekitzea.

**Mugaren** irekieraren ondoren, Gazako portua eraiki beharko dela [...] gogorarazi zuen PANeko presidenteak. Berria - Harian

«Aurrerapausoa» da egoitza zaharraren itxiera eta BECen **irekiera,** gaurdainoko jabeek azaldu dutenez. Berria - Ekonomia

Gernikako, Markinako, Durangoko eta Donostiako pilotalekuen **irekiera** dela-eta. Berria - Kirola

Saltoki handien **irekiera** eteteko eskatu dute Bizkaiko dendariek. Berria - Ekonomia

«Aurrerapausoa» da egoitza zaharraren itxiera eta BECen **irekiera,** gaurdainoko jabeek azaldu dutenez. Berria - Ekonomia

Haren testamentuaren **irekiera** segitu eta, beraz, haren egoera ekonomikoaren sendotasuna egiaztatu ahal izan zutenak. Bego Montorio

Ikerketa mota horiek, hala ere, oso gutxitan dakarte akademi espedientearen **irekiera**. Iban Zaldua

**2** (izenondoekin)

Legebiltzar berriaren **irekiera** ofizialean. Berria - Mundua

Ikasturtearen **irekiera** ofiziala egiteko. Berria - Euskal Herria

Napumoceno da Silva Araujo adiskide min eta gogoratuaren testamentu itxiaren **irekiera** nagusiaren lekukoetako bat izan zela. Bego Montorio

**3** (hitz elkartuetan)

Mahai Nazional "zaharraren" askapena Mayor Orejaren jokaldi makiavelikoa zatekeen, HBko buruzagitza "berriaren" **irekiera**-prozesua oztopatu nahian. Iban Zaldua

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 1996ko ikasturtearen **irekiera** hitzaldia. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Bere katedraren **irekiera**-hitzaldian. Ibon Uribarri

Megaparken **irekiera** egunean. Berria - Euskal Herria

Kongresuan legealdiaren **irekiera** ekitaldian. Berria - Euskal Herria

· Kanpaina **irekieran** Nafarroa Europara UPNrekin bakarrik joan daitekeela esan zuen.

EDF argindar enpresaren kapital **irekiera** urtebete atzeratzeko. Berria - Ekonomia

**4** gune irekia. ik **irekidura; irekigune**.

Meza-jantziaren alboko **irekieratik** eskua sartu, mukizapia atera eta, gorputza alde batera jiratuz, zintz egin zuen. Objektiboaren **irekiera** eta obturadorearen kontrola doitzeko. Joxemari Urteaga

Esposimetroa, objektiboaren **irekiera** jakin baterako eta filmaren lastertasun jakin baterako zenbateko esposizioa behar den adierazten duena. Irene Aldasoro

**Irekiera** txikiak eta esposizio luzeak adina argi utziko dute igarotzen **irekiera** handiak eta esposizio laburrak. Irene Aldasoro

Hobe da, beraz, [...] **irekiera** labur bat aukeratzea. Irene Aldasoro

Oso **irekiera** handia du begiaren kristalinoak: f/2 edo gehixeago. Irene Aldasoro

**5** (hizkuntzalaritzan) hotsak sortzeko artikulazio organoek airea igarotzeko uzten duten zabalera. ik**irekidura 3**.

Erabateko oklusioaren eta **irekiera** handienaren artean. Isabel Arrigain

Itxierari inplosioa deitu zaio, eta **irekierari** esplosioa. Isabel Arrigain

2, 3, 4 **irekierako** fonemak (sudurkariak, likidoak, erdibokalak). Isabel Arrigain

Bigarren esplosiboaren **irekiera** graduan. Isabel Arrigain

Artikulazio guneak, kokapena gorabehera, beti irekidura bat azaltzen du, hau da, **irekiera** maila bat. Isabel Arrigain

**6** xake jokoan, partida abiatzeko jokaldi saila.

Hasiera-hasieratik argi eduki nuen neure sudur aitzinean nuela nire xake liburu kuttunak **"irekiera** espainarra" deitzen zuena. Alberto Ladron Arana

Joko sendo baina seguru bat egiteko, **irekiera** eskoziarra. Berria - Kirola

Zuriak aukeratu zituen [...] eta nik urrundik ere ezagutzen ez nuen **irekiera** bat egin zidan. edertasunaren kontzeptu berria, **irekiera** eta mundua beste begi batzuekin ikusten duenaren begirada pertsonala. Alberto Ladron Arana

–Ah... -esan zuen, eta pentsakor jarraitu nire ganbito-**irekierari** nola aurre egin. Joxe Austin Arrieta

**7** irekia denaren jokaera. ik **irekidura 3**.

Unibertsitateko irakasle batzuk ere konprometituak izan ziren [...] eta, garairako, **irekiera** handiz egin ahal izan nituen nire ikasketak. Ana Urkiza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere irekiera** (3); **bere irekiera maila** (3); **irekiera ekitaldian** (9); **irekiera ekitaldiko** (3); **irekiera ekitaldira** (3); **irekiera eta** (4); **irekiera handia** (4); **irekiera handiena** (3); **irekiera maila** (5); **irekierako fonemak** (3); **laugarren irekierako** (3); **objektiboaren irekiera** (6)

---

# irekigabe *(orobat **ireki gabe**)* **1** *izond* ireki ez dena, irekia ez dagoena.

Lehenik bukaerako leherkari hasperendun batez eta gero leherkari glotalaurreko **irekigabe** batez. Itziar Laka

**2** ***irekigabeko*** *(corpusean **ireki gabeko** soilik)* *izlag* irekigabea.

Ez zegoen aterik guk **ireki gabekorik,** ez zegoen ezer miatu eta ukitu ez genuenik. Juan Kruz Igerabide

Dar-dar-dar, **ireki gabeko** ateek ere hala egiten dute mendialdean. Harkaitz Cano

Ez zegoen aterik guk **ireki gabekorik,** ez zegoen ezer miatu eta ukitu ez genuenik. Juan Kruz Igerabide

Kutxa bat topatu genuen, egundo **ireki gabeko** gutunez beterik. Joseba Sarrionandia

---

# irekigailu *iz* ontziak irekitzeko gailua.

Marinel mozkorti batek pote-**irekigailu** batez egina dirudi. Javi Cillero

Ontziak (botilak, latak, flaskoak...) irekitzeko sistemak soildu egingo dira, berariazko **irekigailu** edo tresnarik maneiatu beharrik ez izateko. Edorta Agirre

"Giza botila-**irekigailu"** bat zunan. Xabier Paya

**Irekigailuaren** bila. Koldo Izagirre

---

# irekigune *(orobat **irekiune**)* *iz* gune irekia. ik **irekidura**.

**Irekigune** handiak ziren; arkatzez egindako batuketez josirik zeuden haien hiru pareta zikinak, eta saski eta fruitu pilak erakusten zituzten, gasaren argi biziaren pean. Karlos Zabala

**Irekiguneetatik** sartzen den argiak energia berria ematen dio [Oteizaren] obrari. Berria - Kultura

Ate baten tamainako **irekigunea** gelditu zen, eta handik atera zen Brent. Xabier Olarra

Berriro leihoko **irekigunetik** sartu nintzen. Xabier Olarra

Soka osorik horman behera joan zenean [...] ateratako barrak uzten zuen **irekiunetik** gorputza pasatu, eta horman behera jaisten hasi zen irristaka. Koro Navarro

Hankekin eragindako indarrez birarazten denean, danborraren aurreko aldean dauden **irekiguneetatik** ura hartu eta ardatzen ondoko zuloetatik isurtzen da azpian jarrita dagoen [...] egurrezko ontzi batera. Santiago Iruretagoiena

Kanpora begiratu zuen gero berak ere, herabeki, larruzko errezelen arteko **irekigunetik**. Jose Morales

Gizon batzuek zakilaren mokoko azalaren **irekigunea** oso estua izaten dute. Luis Elberdin

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **larruazalaren irekigunea** (3)

---

# irekitasun **1** *iz* irekia denaren nolakotasuna.

Arte figuratiboetan, espazioaren irudikapenaren figura bera izango litzateke eszena, eta eremuz kanpoa [...] baliatzen delarik, ongi gauzatzen du espazioaren **irekitasunaren** eta itxitasunaren arteko konpromisoa. Josu Zabaleta

**2** ik **ireki**[2].

Idoiaren **irekitasunak** pixka bat herabetu egiten ninduen, zuzen-zuzen botatzen baitzituen gauzak, baina gero eta gehiago gustatzen zitzaidan ni tratatzeko modu fresko hura. Uste dut edertasuna eskaintzen dudala, **irekitasuna** eta mundua beste begi batzuekin ikusten duenaren begirada pertsonala. Juan Kruz Igerabide

Gobernuaren **irekitasuna** terroristekin negoziatzeko prestutasuna bezala ulertzea akatsa da. Berria - Mundua

Ahalik **eta** irekitasun handiena erakutsi nahi dute Demokratek. Berria - Mundua

Euskaldunekin bat egin nahi duelako Sebastianek, eta, gainera, «Elizaren **irekitasuna** euskal kulturarekiko» erakutsi nahi duelako. Berria - Euskal Herria

Tolerantzian, parte hartzean, **irekitasun[e]an** eta etengabeko eztabaidan oinarritua. Berria - Euskal Herria

Gurekin daramagun infinitu osaezinaren **irekitasuna** da gure benetako egia. Joseba Zulaika

Erabateko argitasuna eta **irekitasuna** sendagileen aldetik haurren eutanasia gauzatzen dutenean. Berria - Gaiak

Eskuzabaltasuna eta buru-**irekitasuna** lagun zutela. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta irekitasuna** (6); **irekitasuna eta** (3)

---

**irekitzaile** 1 *izond* irekitzen duena.

Gizartearen norabide berriekiko konprometitua, halaber, bide **irekitzailea,** oso aktiboa eta, era berean, intsumisoa. Ana Urkiza

**2** (hizkuntzalaritzan) hotsak sortzeko artikulazio organoek airea igarotzeko uzten duten zabalera handitzen duena.

Zentzu berean hots itxitzaileez eta hots **irekitzaileez** hitz egin dezakegu. Isabel Arrigain

Orobat *k* **irekitzaile** bat ahoskatu ondoren. Isabel Arrigain

Artikulazio **irekitzaileen** eta itxitzaileen artean. Isabel Arrigain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta irekitasuna** (6); **irekitasuna eta** (3)

---

**irekitze** *iz* ***ireki*** aditzaren aditz izena.

Liburuetan deskribatzen diren sekulako udaberri horiek, eztanda, leherketa, **irekitze** erraldoiez betetako horiek. Monika Etxebarria

Horra, beraz -amaitu zuen Ruche jaunak, goi mailako ikastegian **irekitze**-hitzaldiko azken esaldia esaten ari den diplomaduna bailitzan-. Jon Muñoz

Jaialdia **irekitze** gaualdiarekin hasiko da bihar, Gare du Midi aretoan. Berria - Kultura

Aspaldiko amets baten gauzatzea izan zen Harryrentzat [...] eta eginahalak egin zituen **irekitze**-ekitaldiak arrakasta izan zezan. Oskar Arana

1853an gertatu zen "Japoniaren **irekitze"** delakoa baino lehentxeago. Iñaki Mendiguren

Interneterako lotura finantzatzeko maileguak eskainiko ditu %0ko interesean eta **irekitze,** amortizazio eta kantzelazio komisiorik gabe. Berria - Ekonomia

Hanken ixte-**irekitze** akonpasatuak. Eider Rodriguez

**Irekitze**-ixte laster eta erregularki errepikatuek. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irekitze ekitaldian** (3)

---

irekiune ik **irekigune**.

---

**iren** 1 *izond* zikiratua, ernalkinak erauzi zaizkiona. ik **irendu 3**.

Basti erreginaren bila bidali zituen Asuerok bere zerbitzuko zazpi morroi **irenak**. Han ikusi zuen etiopiar **iren** bat: Etiopiako Kandaze edo erreginaren ministraria zen, haren ondasun guztien administratzailea. Jose Antonio Mujika

• **2** *iz* ernalkinak erauzi zaizkion pertsona.

Bagoas izeneko **irena** zen zerbitzarien buru. Jose Antonio Mujika

Felipe eta **irena,** biak uretara jaitsi ziren eta Felipek bataiatu egin zuen. Elizen arteko biblia

Hemen Hegek, erregearen **iren** emakumezainak, hartuko ditu bere ardurapean eta behar dituzten apaingarri guztiak emango dizkie. Jose Antonio Mujika

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta irenak** (3)

---

**irenarazi**, irenaraz, irenarazten du *ad* irentzera behartu.

Fulbertok, amorrarazita, **irenarazi** egin zuen Abelardo. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**irendu**, iren, irentzen **1** du *ad* zikiratu.

-Zuk ikusi zenuen nola **irendu** zuten Muxi? Josu Zabaleta

Badira bere burua **irendu** dutenak zeruko erreinurako. Juan Martin Elexpuru

Zikiro-jana egin zuten: gauza jakina da **irendutako** haragiak aparteko zaporea izaten duela. Xabier Etxabe

Joan egingo haiz, edo, bestela, aitonari kontatuko zioat nirekin lotsagabetu haizela eta hi **irentzeko** aginduko dik, hire osaba Roque zena **irentzeko** agindu zuen bezala. Karlos Zabala

Tissotek hainbat metodo "terapeutiko" planteatzen du, eta "gaixotasunak" jarraitzen badu, beharrezkoa ikusten du **irentzea** edo klitoria moztea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

· Hobe zuek nahasten ari diren horiek erabat **irenduko** balira! Elizen arteko biblia

**2** *irud*

Elur bola erraldoia bilakatzen du denborak memoria, baina, egiatan, xehetasun eta bitxikerien artean entresaka egiteko ahalmena **irendu** ondoren. Pako Aristi

Gizon batekin ari bazara, kondoiak sustraitik **irentzen** du plazerra, esperma ez botatzea krudela baino krudelagoa da emakumearentzat. Karlos Zabala

**3** *(era burutua izenondo gisa).* ik **iren**.

Gusek bere zaldi **irenduaren** ipurdi higatuaren kontra bridez jota, esnetegira bidean zen berriro ere, bueltan. Lopez de Arana

Zizare **irendua**! -egin zidan oihu. Aingeru Epaltza

Barrabilak zanpaturik dituenak nahiz **irenduak** ez du esku hartuko Jaunaren batzarrean. Elizen arteko biblia

**Irenduak** ere ez dezala esan: "Zuhaitz ihartua besterik ez naiz". Elizen arteko biblia

Neskatxa bortxatu nahi duen **irendua** bezalakoa da justizia indarrez ezarri nahi duena. Elizen arteko biblia

· *irud* Hitz hezi **irendu** horixe da teologoek eta teleologoek maite dutena, hotsik gabeko hitza, esanahiaren sasiak jana, aho-mihiz ebaki baino lehen noraino iritsiko den ikusia

dagoena. Iñaki Segurola

---

**irengarri** *izond* irentzen duena.

Autoritatezko argumentua umetako "aitak esan du" otxan **irengarriaren** luzamen patologikoa baizik ez da, patologikoa baina akademikoki txit onetsia. Iñaki Segurola

Mundua bere betean, "gizarte osoa kontuan harturik", konpondu nahi duenak... ba horixe: konpondu egin nahi du, edertu eta orraztu, onargarriago, irensgarriago eta **irengarriago** egin dadin. Iñaki Segurola

---

**irenketa** *iz* irentzea.

Baina gaurko ikuspegitik, eta heziketak eraman duen bidea ikusita, zuzenagoa da esatea Sadek "heziketa sexuala" egin zuela, eta Rousseau eta haren jarraitzaile burgesek, ostera, egungo terminologia erabiliz, "hezi- **irenketa** ". Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**irensgailu** *iz* irensteko gailua.

Fotokopiagailura itzuli nintzen, ustez orriak **irensgailuan** gaizki sarrarazi nituela. Joxan Elosegi

Fotokopiagailura itzuli eta **irensgailuari** eman nion lana. Joxan Elosegi

**Irensgailuak** hamar bat minutuan bukatu zuen lana. Joxan Elosegi

---

**irensgaitz** *(orobat* ***irenskaitz****)* *iz* irensten zaila dena, ia irentsezina.

Hori dela-eta, **irensgaitza** bezain mingarria zitzaion herriko gazteok Telleriari genion gorrotoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Bistan denez, Hesiodoren Teogoniak, Upanishad-ek edo Bibliak kontatzen diguten Sorkuntza bezain **irensgaitza** zaie halako historia bat iniziatugabeei. Juan Garzia

---

**irensgarri** *izond* irents daitekeena; irensteko modukoa.

Frantsesek, diotenez, beste edozein herrik baino ogi per capita gehiago jaten dute, harritzekoa ez dena; izan ere, haiek dira **irensgarri** nola egin dakiten bakarrak. Xabier Olarra

Mundua bere betean, "gizarte osoa kontuan harturik", konpondu nahi duenak... ba horixe: konpondu egin nahi du, edertu eta orraztu, onargarriago, **irensgarriago** eta irengarriago egin dadin. Iñaki Segurola

Halaxe egin nuen bere garaian, eta koma batzuk eranstera eta hitzen ordena txukuntzera mugatu naiz orain, **irensgarriago** egiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**irenskor** *izond* irenslea.

Badator gure Jainkoa, eta ez isilean: su **irenskorra** aurretik, erauntsi zakarra inguruan. Elizen arteko biblia

Hementxe dago Karibdis **irenskorra,** eta Etnaren urrumak hementxe ari dira mehatxuka, haren garren sumina berriro pilatzeko eta su bortxaz egotzia ahutzetatik okaztatzeko eta garrezko tximistak berriro zerura jaurtitzeko. Xabier Amuriza

---

**irenskortasun** *iz* irenskorra denaren nolakotasuna.

Zabortegietan, orain, berehala aprobetxatzeko edo edonola jateko moduko bihurtzeko balio zezaketen hondakinak bilatzen ziren, eta bilaketa hain zen sutsua non azken arratoiek, gau beltzaren erdian ikusiezinetik sortzen zirenean, ez baitzuten euren **irenskortasun** indiskriminatuak balia zezakeen deus aurkitzen. Jon Alonso

---

**irensle** **1** *izond* irensten duena.

Arrantzale batek sareak hedatzen ditu, erraiak jatera datozen arrain arre **irensleak** harrapatzeko. Gotzon Garate

Zuk itsaso beltz **irenslearen** aurrean geldirik aurkitu zenuen zeure burua, bakarrik. Eider Rodriguez

Aho handi **irensleak,** aho hortz gabeak, aho gosetiak. Felipe Juaristi

Morse andrea ispiluko islari so egon zen, hotz eta motz, [...] eztarri **irenslearen** mugimendu jauzkariak adi-adi aztertzen. Mirentxu Larrañaga

Patrikek baditek berezko joera **irensle** bat, zulo beltzen pareko halako indar desagerrarazle bat. Harkaitz Cano

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, izenondo balioarekin)

"Maitemintze" hitzaz pentsatu nuen; izan ere, sentipen menderatzaile edo adimen- **irenslea** iradokitzen duenez, gerta zitekeen hitzik egokiena ez izatea. Xabier Olarra

Paper kontsumitzaile itzelak dira liburuak, baso **irensle** azkarrak. Pello Zabala

Amesgaiztoa zen niretzat ura, munstro oro- **irenslea** . Karlos Linazasoro

• **2** *iz* irensten duen pertsona.

Zenbat eta ondasun gehiago, hainbat eta **irensle** ugariago. Elizen arteko biblia

· Zer jan eta edaten dute, bada, milikari horiek, ardoa zer den ere ez baitakite, vitamina- **irensle,** te hotz-edale eta kotoi-murtxikatzaile horiek, ogia zer den ere ez baitakite... Joxe Austin Arrieta

Eta tren bagoi pilo batekin, elefanteekin, lehoiekin, tximinoekin, pailazoekin, ezpata **iresleekin,** emakume bizardunekin. Joseba Sarrionandia

Higuin zituen Maxek halako pertsonak: hitz- **irensleak,** puntuazio-ikur oroen tripazainak. Jon Muñoz

---

**irenstaile** *izond* irenslea.

Ez nintzela itzuliko berriz bere atzaparretan erortzera, hark bestela bezala bizioaren bideko irin- **irenstaile** bihurtuko ninduela, saiatu zela jada sudurrekoaren eskaintzekin. Fernando Rey

---

irenstarazi ik **irentsarazi**.

---

**irenste** *iz* eztarritik igaroaraztea.

Gustatzen zitzaidan garagardoaren zaporea, apar zuri bizia, sakontasun latoi-kolorea, edontziaren horma ilun bustien barreneko mundu bat-batekoa, ezpainetarainoko

makurtze lasterra eta sabelerainoko **irenste** mantsoa, gatza mingainean, aparra ezpainen ertzetan. Koro Navarro

Une batez, Pierrak, hortzen martzilika, zintzurren **irenste** hotsa eta euriaren kolpeka baino ez zituen entzun. Itxaro Borda

---

irenstezin ik **irentsezin**.

---

irenstezintasun ik **irentsezintasun**.

---

**irentasun** *iz* irena denaren nolakotasuna.

Emakumezkoaren **irentasuna** egiaztatzeko. Josu Zabaleta

---

**irentsarazi**, irentsarazten *(orobat **irenstarazi** g.er., **iretsarazi** g.er. eta **irentsiarazi** g.er.)* **1** du *ad* irenstera behartu.

Mina nuela esan nionez, pilula bat **irentsiarazi** zidan. Aitor Arana

Herriko mutiko bat, eskarlatina izan ostean bizkortzen ari zela, gonbitoka hil zen itota **irentsarazi** zizkioten oilasko eta indioilar pusketengatik. Joseba Urteaga

Hemendik bi ordura, ur gazia **irentsarazi** behar zaie. Karlos Zabala

Lehen-lehenik zikiratuko haut; gero zakila **irentsaraziko**. Aingeru Epaltza

**2** *irud/adkor*

Blair jaunak ere lanak izanen ditu bere angles oposizionekoeri pikor horren **iretsarazten,** Esadazu nor den, eta gaur bertan **irentsaraziko** diot gezur hori. Herria

Sermoilariak **irenstarazi** zizkidan hitzak eta gezurrak. Joan Mari Irigoien

Eskola ertainean **irentsarazten** zizkiguten poesia guztiak. Juan Garzia

Irakaslearen prestigioa babestearren haurrari okerra **irentsarazi**? Joxerra Garzia

Nire emazteari gisa bereko lukainka **irentsaraztea** ameskeria zen: elkarrekin egindako urteak eginda, neketan sinetsiko zidan horrelako zaflako bat hartzeko moduko etxekolanetan ari izana. Aingeru Epaltza

Gezur handiak esaten dituzte liburuen kontrazalek batzuetan, irakurleari amua **irentsarazteko**. Berria - Kultura

---

**irentsezin** *(orobat **irenstezin**)* *izond* ezin irentsizkoa.

Globalizazioari buruzko liburukote **irentsezin** bat. Eider Rodriguez

Han zebilen gizon beltz handikote bat ere, musikarien doinu zeltei afrikar estiloko dantza mugimenduak erantsiz, halako nahaste **irenstezina** sortuz. Jon Arretxe

Lautada **irenstezina** da nire begientzat, baina ura ere bai lautadarentzat. Pako Aristi

Buru zuritze saio hori, hain merke eta faltsua, **irentsezina** izan zen azkenik Lucyrentzat. Joxemari Iturralde

---

**irentsezintasun** *(corpusean **irenstezintaun** soilik)* *iz* irentsezina denaren nolakotasuna.

Emaitza zinez hurbil zegoen jatorrizkoaren **irenstezintasun** mailatik. Aingeru Epaltza

---

**irentsi**, irents, irensten *(orobat **iretsi** g.er.)* **1** du *ad* eztarritik igaroarazi.

Ezin dut ezer solidorik **irentsi** oraindik. Hasier Etxeberria

Ia mastekatu gabe **irentsi** zuen azenario gordinak urdaila urratzen zion. Karlos Zabala

Di-da baten **irentsi** nituen telebista aurreko mahaitxoan zeuden gominola guztiak. Jon Arretxe

Zazpi-zortzi mazapan eserialdi batean **irensteko**. Jokin Muñoz

Mikelek ito beharrean **irentsi** zituen espagetiak. Unai Iturriaga

Garagardoa tragoan **irentsi**. Unai Iturriaga

Halako batean, azken vodka tragoa **irentsi,** [...] eta, masailetan muxu bana eman ondoren, agur esan dit Beatricek. Iban Zaldua

Burua altxatu eta txistua **irentsi** zuen. Iñaki Mendiguren

Listua **irentsi** nahi izan nuen, baina, tamalez, azken hezetasun arrastoak aspaldi aienatuak ziren nire aho-zulotik. Alberto Ladron Arana

Otsoak eta itxainak dira holakoak : lehenek besteak janez eta bigarrenek besteren odola **iretsiz**. Herria

Zerbait esatera zihoala bazirudien ere, arnasa **irentsi,** eta isilik geratu zen. Anjel Lertxundi

Ez zitzaion komeni kea **irenstea**. Fernando Morillo

Kea **irentsi,** ahoa Adaren bularren artera eraman, eta kea jaurtikitzen hasi nintzen. Anjel Lertxundi

Harryk eskuak garbitu eta azkar **irentsi** zuen bere afari ziztrin hura. Iñaki Mendiguren

Luze jo zion hogei pastillak **irensteak**. Mirentxu Larrañaga

Galoi bat berun urtu **irentsi** izan banu bezala. Oskar Arana

Lixiba errautsa **irenstera** behartu zuten. Itxaro Borda

Baina birusa ez duela seguru ez dakizun norbaitekin baldin bazaude, ez miazkatu genitalak, ezta **hazia irentsi** ere, jakina, Kontsolatzeko ahalegin horrek ez dio garraztasun poxi bat ere kentzen **irentsi** beharreko ozpinari. Luis Elberdin

Loroak ahokada batean **irentsi** zituen abokateak. Jon Muñoz

· Eta Loreren alu sakon aseezinak ene sabeleko isuria **irentsi** zuen. Aitor Arana

**2** *irud*

Bere memoria-liburuak **irentsi** egin nituen. Ana Urkiza

Etxeminak jota dago Leire, baina ez du agertu nahi; malkoak barruan **irentsi** eta irribarre zabal batekin hartu ditu gurasoak bisita-egun honetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Bizitza osoan ez zuen sekula hainbeste zifra **irentsi**. Jon Muñoz

"Eta nor ez?", galdetzeko gogoa **irentsi** nuen. Anjel Lertxundi

Berehala damutu nintzen esandakoaz, baina ezin hitzak atzera xurgatu eta **irentsi**. Juan Kruz Igerabide

Orduantxe esan behar niokeen ez nuela kaka zahar hori guztia **irentsiko**. Oskar Arana

Porrot hura **irentsi** nahi ez. Txillardegi

Nik etxean ez nuen hitz erdi bat ere esaten; dena **irentsi,** eta ahal nuen moduan eusten nion egoerari. Juan Kruz Igerabide

Buruak **irentsi** ezin zuena bihotzak, arimak sinetsi nahi zuen. Alberto Ladron Arana

Bizia bere soilean **irentsi** ezinik, bixiaren eta biziagoaren minak darabil gure kasta hau. Iñaki Segurola

Itxuraz mundua berak **iretsi** behar zinan. Itxaro Borda

Ez dakik zenbat kostatu zaidan hori **irenstea**. Juan Kruz Igerabide

Baina irain hori **irenstea** ere! Karlos Zabala

Etsaiaren publizitatea zen, eta guk **irentsi**. Koldo Izagirre

Emakumeak kontatzen dion guztia **irensteko** prest. Karlos Zabala

Ziria **irentsi** ezinik, hitzik gabe geratu zen kartzeleroa. Jokin Urain

Ergela izanda ere, hori ez dut **irentsiko**. Koro Navarro

Badira ezin **iretsiak** enetzat: hala nola "Tourra" Frantziako itzuliarentzat. Herria

Entzundako edo **irrentsitako** iritzi eta sinesmen pertsonal guztiak. Iñaki Segurola

## **3** zerbaitek bere barnean hartuz desagerrarazi edo suntsitu.

Urek zubiak **irentsi,** ezpondak apurtu eta meatzeak bete egingo dituzte. Koldo Biguri

Berriro indar guztiekin igeri eginez, denbora luzean, harik eta, akiturik, putzuaren erdiko zurrunbiloak **irentsi** eta betiko murgildu ziren arte. Juan Kruz Igerabide

Mutilak suak **irentsi** zituen, neskatxentzat eztei-kantarik ez. Elizen arteko biblia

Su emango diet Gazako harresiei, eta bertako jauregiak **irentsi** egingo ditu. Elizen arteko biblia

Ez zen izan elizarik suak **irentsi** ez zuenik, ez apezik arbola batetik zintzilikatu ez genuenik. Aingeru Epaltza

Ur higatuetako pozoia **iretsiko** duten landareak. Herria

Bidea oihanean sartu da, oihanak **irentsi** du bidea. Piarres Aintziart

Baina alferrik, lurrak **irentsi** dik, antza. Migel Angel Mintegi

Zoruak **irentsi** behar ninduela iruditu zitzaidan. Anjel Lertxundi

Sodoma eta Gomorra sumendi zahar batzuen ahoan eraikita zeuden, eta Vesubioko labak **irentsi** zituen Italiako beste hiri haiek bezalatsu desegin ziren. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zabor-itsaso bat ni **irentsi** beharrean zegoen eta, horrela gerta ez zedin, olatu ilunetan argi-une bat bilatzea nuen aterabide bakarra. Aingeru Epaltza

Isiltasunak **irentsi** gintuen. Itxaro Borda

Gauak **irentsi** zituen argia eta mendia. Koro Navarro

Bigarren artikulu hori bozkatua izan zela inglesak ez frantsesa **iresteko**. Herria

Sugarra piztu zen; baina aurrean distiratzen zuen argiak, aldaretik atera eta **irentsi** egin zuen sua. Elizen arteko biblia

Ama-semeak hegazkinean sartzen ikusi nituenean, ezerezak **irentsi** zidan barrena. Hasier Etxeberria

Idealaren eta dagoenaren arteko amildegiak **irentsiko** zaitu. Markos Zapiain

Errepublika txiki haiek guztiak handi batek **irentsi** zituen. Iñaki Iñurrieta

1512an Nafarroa-ko erreinu ttipia **iretsi** zuen. Michel Oronoz

Ia 180 kilometro egin zituen ihesean, baina kilometro pasatxo geratzen zela **irentsi** zuten. Berria - Kirola

Hurrengo Plan Partzialak noiz **irentsiko,** ibai bazterreko alde horretan oraino gelditzen diren baratze bakanetariko baten pareko bazterbide estuan. Aingeru Epaltza

Porlanezko erraldoi bat ibarra **irensteko** prest. Aingeru Epaltza

## **4** animalia batek beste bat osorik-edo jan.

Ea, hil dezagun eta putzu batera bota; basapiztiaren batek **irentsi** duela esango dugu. Jose Antonio Mujika

Oilaskoa itxikitu eta **irentsi** nahi duen otso bat iduri, Tino niregana jiratu zen. Fernando Rey

Behi argal eta itxura txarreko hauek **irentsi** egin zituzten behi gizen eta itxura ederrekoak. Jose Antonio Mujika

Ez al da bera izango munstroa, marinel bat **irentsi** duena [...]? Harkaitz Cano

Han, izarape bukagaitz hartan, bakardadearen mamu galanta zegoen kizkurturik eta **irentsi** egin ninduen, zurp, urreburuak zizarea bezala. Hasier Etxeberria

Zitoplasmako antenak luzatuta, organismo sarkina inguratu, **irentsi** eta desegin egiten dute. Irene Aldasoro

Jauna, mantis religiosa bat naiz, mokaduz mokadu **irentsi** nahi zaituena. Joan Mari Irigoien

Behera begiratzean, piztitzar izugarri haiek ikusten zituen buruak uretatik aterata eta ahoak zabalik, bera erori bezain laster **irensteko** prest. Askoren artean

## **5** ***amua irentsi*** engainatua gertatu.

Denok **irentsi** genuen amua. Iñigo Aranbarri

Ez zidan amua **irentsi**. Edorta Jimenez

Ostolazak, nola ez!, itsu-itsuan **irentsi** zuen amua, Gabriellek ezin hobeto bete baitzuen lana. Migel Angel Mintegi

Berun eta guzti **irentsi** dinagu amua. Harkaitz Cano

Berehala **irentsi** zuen amua katxaloteak: "gustatzen zaizkizu?" eta erosi egin zizkion. Jon Arretxe

Sauronek **irentsi** egin zuen amua, eta altzairuzko barailekin gainera. Agustin Otsoa

· Amu gozoa, saihestezina agian, nahita jarrita zure lagunak **irentsi** zezan. Migel Angel Mintegi

Aprobatu egin zuen adar jotzailea, haren amua ez ezik, amua **irentsi** izanaren amorrua ere irentsita. Joxerra Garzia

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**amua irentsi** (11); **arnasa irentsi** (3); **asko irentsi** (3); **baina irentsi** (3); **basapiztiaren batek irentsi** (3); **bat irentsi** (24); **bat irentsi eta** (4); **bat irentsi zuen** (5); **batean irentsi** (9); **batek irentsi** (11); **batek irentsi zuen** (3); **batez irentsi** (3); **berehala irentsi** (9); **berehala irentsi zuen** (6); **bertako jauregiak irentsi** (3); **bezala irentsi** (3); **bizkor irentsi** (3); **dena irentsi** (12); **denak irentsi** (5); **du irentsi** (6); **elkar irentsi** (3); **erabat irentsi** (3); **ere irentsi** (6); **erraz irentsi** (3); **esateko gogoa irentsi** (4); **eta guzti irentsi** (3); **eta irentsi** (48); **eta irentsi egin** (15); **eta irentsi egingo** (4); **eta irentsi egiten** (7); **ez irentsi** (4); **ezer irentsi** (3); **gabe irentsi** (8); **gabe irentsi zuen** (6); **gehiago irentsi** (5); **gogoa irentsi** (5); **guk irentsi** (3); **guzti irentsi** (3); **guztia irentsi** (8); **guztiak irentsi** (6); **haiek irentsi** (3); **harryk listua irentsi** (5); **hauek irentsi** (6); **hauek irentsi egin** (6); **hori irentsi** (8); **hori irentsi behar** (3); **hura irentsi** (9)

**irentsi ahal** (4); **irentsi ahala** (5); **irentsi arte** (4); **irentsi aurretik** (3); **irentsi baino** (3); **irentsi behar** (43); **irentsi behar izan** (15); **irentsi behar izaten** (3); **irentsi behar nituela** (3); **irentsi beharko** (4); **irentsi beharra** (8); **irentsi beharrean** (8); **irentsi beharrik** (3); **irentsi ditu** (11); **irentsi du** (21); **irentsi duela** (6); **irentsi duen** (5); **irentsi dut** (3); **irentsi dute** (5); **irentsi duten** (3); **irentsi egin** (69); **irentsi egin behar** (3); **irentsi egin beharko** (3); **irentsi egin du** (7); **irentsi egin nituen** (3); **irentsi egin nuen** (4); **irentsi egin zituen** (12); **irentsi egin zituzten** (9); **irentsi egin zuen** (9); **irentsi eginen** (3); **irentsi egingo** (19); **irentsi egingo ditu** (7); **irentsi egiten** (37); **irentsi egiten du** (5); **irentsi egiten dut** (3); **irentsi egiten nituen** (3); **irentsi egiten zaitu** (3); **irentsi egiten zituen** (3); **irentsi egiten zuen** (3); **irentsi eta** (81); **irentsi eta gero** (4); **irentsi ez** (7); **irentsi ezin** (4); **irentsi ezinik** (8); **irentsi gabe** (6); **irentsi genuen** (4); **irentsi gintuen** (4); **irentsi izan** (5); **irentsi izan balu** (3); **irentsi nahi** (20); **irentsi nahi duen** (3); **irentsi nahian** (6); **irentsi nituen** (5); **irentsi nuen** (35); **irentsi ondoan** (4); **irentsi ondoren** (8); **irentsi orduko** (6); **irentsi ostean** (3); **irentsi zituen** (34); **irentsi zituen tropelak** (3); **irentsi zituzten** (12); **irentsi zuela** (4); **irentsi zuen** (132); **irentsi zuen arte** (4); **irentsi zuen eta** (5); **irentsi zuen tropelak** (3); **irentsi zuten** (11)

**itsasoak irentsi** (4); **jauregiak irentsi** (6); **jauregiak irentsi egingo** (6); **kea irentsi** (6); **kilometrora irentsi** (3); **lana irentsi** (3); **liburu hori irentsi** (3); **liburua irentsi** (3); **listua irentsi** (47); **listua irentsi eta** (8); **listua irentsi nuen** (10); **listua irentsi zuen** (21); **listurik irentsi** (3); **lurrak irentsi** (5); **mehar hauek irentsi** (3); **mendiak irentsi** (3); **osorik irentsi** (6); **pilula bat irentsi** (3); **suak irentsi** (9); **tropelak irentsi** (3); **ttua irentsi** (6); **txistua irentsi** (17); **txistua irentsi zuen** (12); **zabaldu eta irentsi** (4); **zirela irentsi** (3); **zuen irentsi** (3); **zurrunbiloak irentsi** (4)

**bat irentsiz** (3); **batek irentsiko** (3); **bezala irentsiko** (3); **bizirik irentsiko** (3); **ere irentsiko** (4); **guztiak irentsiko** (4); **irentsia izan** (3); **irentsia izateko** (3); **irentsiko baitu** (3); **irentsiko ditu** (16); **irentsiko dituen** (4); **irentsiko dituzte** (5); **irentsiko du** (15); **irentsiko dute** (5); **irentsiko ez** (3); **irentsiko zaitu** (3); **irentsiko zaituzte** (4); **irentsiko zituen** (4); **laocoonte irentsia** (6); **laokoonte irentsia** (3); **lurrak irentsiko** (3); **osoa irentsiko** (3); **osoa irentsiko du** (3); **suak irentsiko** (8); **suak irentsiko ditu** (4); **suak irentsiko du** (3); **zakurrek irentsiko** (3)

**haiek irensteko** (3); **hori irenstea** (3); **hura irensteko** (5); **irensteko prest** (13); **irensteko zorian** (5); **jonas irensteko** (3)

**bat irensten** (5); **bezala irensten** (4); **dena irensten** (10); **dena irensten eta** (3); **du irensten** (3); **errazago irensten** (3); **eta irensten** (11); **gabe irensten** (6); **gizakiak irensten** (3); **guztia irensten** (3); **guztiak irensten** (6); **hitzak irensten** (3); **irensten ari** (11); **irensten ditu** (10); **irensten dituen** (11); **irensten ditugu** (3); **irensten ditut** (3); **irensten dituzte** (9); **irensten dituzten** (3); **irensten du** (18); **irensten du eta** (3); **irensten duela** (3); **irensten duen** (18); **irensten dugu** (3); **irensten dut** (4); **irensten**

**dute** (9); **irensten duten** (5); **irensten eta** (7); **irensten ez** (5); **irensten hasi** (4); **irensten hasi zen** (3); **irensten jarraitu** (3); **irensten nau** (3); **irensten nuen** (5); **irensten saiatu** (6); **irensten zituela** (3); **irensten zituen** (15); **irensten zituzten** (3); **irensten zuela** (4); **irensten zuen** (20); **irensten zuten** (10); **irrikaz irensten** (3); **kea irensten** (5); **liburuak irensten** (5); **listua irensten** (3); **nola irensten** (3)

---

**irentzaile** 1 *izond* irentzen duena.

Doanekoak ez diren agentzia iraintzaile eta **irentzaileen** preso da kazetaria, eta bertsio ofizialena, eta ezjakintasunarena. Iñigo Aranbarri

• **2** *iz* irentzen duen pertsona.

Elosuko **irentzailea** da hasia pregoia jotzen. Koldo Izagirre

---

**irentze** *iz* zikiratzea, ernalkinak erauztea.

Baina oraindik ere gordetzen dute **irentze** boterea, barneko nazionalismo periferikoekin batik bat. Joseba Zulaika

---

**iretargi** *iz* ilargia.

Barikuko **iretargia** txarra izaten da. Pello Zabala

Heldu gara **-iretargiaren** argi urriak ez dizue elkarren aurpegiak ondo ikusten uzten-. Sonia Gonzalez

---

**iri** 1 *iz* ingurua.

15-16 urte **iri** hortan ukan nuen keinka bat frango txarra ene bizian. Menane Oxandabaratz

Anartean, Sarkozy, errekontru handiz kanpo segurik, hiru hilabete gabe, azaroaen 20-a **iri** hortan jarriko da UMP alderdiaren buru. Herria

Pazkorekin batean hain xuxen eta Pazko **iri** hortan. Herria

Errepausurik gabe euntsi ziren lanean eguerdi **iria** izan arte. Elena Touyarou

Ihiztarientzat urtxo sasoina, Jondoni Martine **iria** arte segitzen dena ardura. Herria

Aurten, bospasei erakusketa izanen dira hor Omiasaindu **iria** arte huntan. Herria

Omiasaindu **irikotzat** ez direa saltegi frango Eguberriri buruz apaintzen? Herria

**2** ***irian*** inguruan.

Handik ukan nuen, eguerdi **irian,** lehen bisita, iguzki arrai bat. Marzel Etxehandi

Goizeko biak **irian** joan dira mendiz mendi. Marzel Etxehandi

Erdi lo geundelarik, goizeko oren bat **irian,** arrabotsa. Marzel Etxehandi

Arratsean, 6ak **irian** .

Beraz Luzaideko herriak bere oihana saldu zuen I932a **irian** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Gogoratzen zait bada, duela aspaldi, 1520 **irian,** Tolosan nengoelarik, [...]. Piarres Xarriton

Funtsean, hogei urte **irian,** auzo-herriko Martzel laborari-seme karana ezagutu zuelarik eta harekin bestaz besta ibili... denek hori sinetsi genuen. Daniel Landart

**3** ***iriko*** *izlag* ingurukoa.

Eguerdi **iriko** haize hegoez baliatzen ginen soroa itzulikatzeko. Aurten Urtats **iriko** hotzaldia ardura izaiten den baino bortitzagoa ukan dute. Piarres Aintziart

Arratsaldeko biak **iriko** pentsamendu lirikoak airatu zaizkit eta akidura bizkarrean behera jautsi zait. Piarres Aintziart

1930 **iriko** egun batez. Piarres Xarriton

Berrogeita hamar urte **iriko** jaun bizardun bat sartu zen. Daniel Landart

Han ginen beraz larunbatean, Baionako komertsaldegian, aratsaldeko 3-ak **iriko** . Herria

Hilabete huntan, Jondonane **iriko** hain segur. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ak irian** (13); **andredena maria irian** (4); **bata irian** (7); **biak irian** (6); **eguberri irian** (8); **eguerdi iria** (3); **eguerdi irian** (32); **erdiak irian** (3); **eta erdiak irian** (3); **gauerdi irian** (6); **hamarrak irian** (3); **hiruak irian** (5); **iri hortan** (3); **iria arte** (6); **iria zen** (3); **irian edo** (3); **irian edo hola** (3); **jondoni martine iria** (3); **lauak irian** (4); **maria irian** (5); **martine iria** (3); **martine iria arte** (3); **omiasaindu irian** (6); **oren bata irian** (7); **orenak irian** (5); **pazko irian** (6); **pazko iriko** (3); **urtats irian** (10)

---

**iridio** *iz* Gai bakuna, metal zuria, hauskorra eta oso gogorra, ia urrea bezain pisua (Ir; zenbaki atomikoa 77).

Horrez gain, **iridioa** ote dagoen ikusi nahi dute. Berria - Gaiak

Baliagarria zen jakitea urre kilo batek zenbat balio zuen garai hartan, baina baliagarriagoa prezio hori platino, **iridio,** uranio eta radio kilo baten prezioarekin alderatzea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gaztelania zen ordenamendu sintaktikoaren **iridiozko** platinoa, gaztelaniaren eskemak bihurtzen zuen bata ibiltzeko erraza eta bestea bihurria. Anjel Lertxundi

---

iriki ik **ireki**[1].

---

**irin** *(orobat* ***urun*** *g.er.)* **1** *iz* gariaren alearen mamia ehoz ateratzen den hauts modukoa, janariak prestatzeko erabiltzen dena.

Azukre, olio, **irin** eta ardotan zenbat zor zuten. Alberto Barandiaren

**Irin** garbiz, eztiz eta olioz elikatzen zinen. Elizen arteko biblia

Hara hor Armando eta **irin** finaren xamurtasuna bere amantal zuriarekin ogia prestatzen. Joseba Sarrionandia

**Irin** zuria bota nuen gainera. Juan Kruz Igerabide

Arraultze freskoak eta **irin** naturala. Herria

**Irinak,** berriz, harriaren gogortasuna hartzen zuen sotoetan. Jose Morales

Hartu errota eta egin **irina** . Elizen arteko biblia

Hitzik gabe geratu zen don Tasio, **irin** egin berria baino zurbilago. Joan Mari Irigoien

Gregoriok esku **irinez** zuritua atera du. Pello Lizarralde

Han badira **irina,** eztia, ardoa edo pozoina ematen duten zuhaitzak, arbola klasearen arabera. Aurelia Arkotxa

**Irin** guztiak zuri ez direla ere ohartarazi digu, hala ere, Stephensek. Berria - Kirola

Horiek ez dira **irin** bereko opilak. Koldo Izagirre

Lanera itzultzeaz mintzo zen, eta hirurogei urterekin erretiroa hartzeko asmoaz, etorkizunaz, balizko errotako **irinaz** . Imanol Zurutuza

Alerik gabeko galburuak **irinik** ez. Elizen arteko biblia

**2** (neurri banakoekin)

Huskeria batean erosi ahal izango dituzue Samariako merkatuan zazpi kilo **irin** garbi nahiz hamalau kilo garagar. Elizen arteko biblia

Lau kilo **irin** zuri, litro bat olio garbiz oratua. Elizen arteko biblia

Sei litro olio berrogei kilo **irineko** . Berria - Euskal Herria

Hogeita hamar anega **irin** garbi eta beste hirurogei **irin** arrunt. Jose Antonio Mujika

Jainkoaren erregetza legamiaren antzekoa da: emakume batek anega bat **irinetan** nahasten du, eta oraldi guztia harrotzen da. Elizen arteko biblia

Hauxe baizik ez dut: eskutada bat **irin** eltzean, eta olio pittin bat pitxerrean. Jose Antonio Mujika

Hirira joan eta katilukada bat **irin** prestarazi zuen. Askoren artean

Ur pixka bat irakin eta eskua bete **irin** bota. Anton Garikano

· Lehen, aski zuten berrogeita hamar kopek eta zaku bete **irina** ahoa josirik edukitzeko; orain, aldiz, gurdikada garia eta hamar errubloko billete bat eskatzen dizute. Jose Morales

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Nire **irin** -zakuak zabaldu dizkiot, betetzen has zedin. bata bestearen gainean pilatutako **irin** zakuen gainean. Anjel Lertxundi

Hauxe baizik ez dut: eskutada bat **irin** eltzean, eta olio pittin bat pitxerrean. Jose Antonio Mujika

**Irin** orea egiteko arrabolaz jo eta jipoitu egin zuelako. Felipe Juaristi

Ogi zati bat eta bezperako **irin** opiltxo batzuk eman zizkion. Jon Maia

Bere eskuek eta gorputzak **irin** usaina zutela. Felipe Juaristi

**Irin** albondigei buruz, Gobernuaren irinez, urez eta altxagarriz egiten ditugula esatea falta zen. Josu Zabaleta

Olioz oraturiko **irin** -oparia. Elizen arteko biblia

Baziren lau **irin** eihera eta gainera oihalen tindatzeko okrea egiten zuen bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Inork ez dit egundaino eman **irin** -meta batean alberdaniatzeko aukerarik. Anjel Lertxundi

Apaizek [...] birritan inguratu zuten atxilo-etxeko sua **irin** arrasto batez eta gari ale batzuez. Juan Garzia

Normalean, Gazako zazpi **irin** lantegiek 30-60 egunerako gari stocka izaten dute badaezpada. Berria - Mundua

Mubaiadako **irin** merkatari bat zen. Patxi Zubizarreta

**Irin** -saltzailea astelehenero bezala bere irinaren fintasuna laudatzen ari zitzaidalarik [...]. Anjel Lertxundi

GKE batzuk eta **irin** ekoizleak. Berria - Mundua

Hondoraturik dago, **irin** -aska batera botatako txanpon bat baino galduago. Berria - Kultura

Mustapha Shurab Gaza iparraldeko Palestinako **Irin** Konpainiako zuzendari nagusia da. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gatza, gari- **irina,** esnea, eztia. Elizen arteko biblia

Ia zazpi tonelada ogi- **irin** garbi eta hamalau tonelada ogi- **irin** arrunt. Elizen arteko biblia

Elur-geldo, elur- **irin,** elur-izpi, elur-gazura, elur-kixika, elur-zirin... pentsa zenbat izen, elur ttiki xume eta xehe horrentzat. Pello Zabala

Atzean ur- **irinezko** zipriztin bat zegoen. Anton Garikano

**5** (bestelako laboreena)

Arto **irin** pixka bat, zahiarekin nahasirik. Elena Touyarou

Urez bete eltzea, arto **irin** eskukada bat, belar zahar batzuk, patata batzuk jarri zituen egosten. Pablo Sastre

Belarrak, basarto- **irina,** kakahuete-koipea eta patata gozoak erostera. Juan Garzia

Belar gainean zeuden garagar- **irinez** edo zahiz egindako hiruzpalau ogi koskor. Askoren artean

Lau kilo garagar- **irin** eskainiko ditu oparitzat. Elizen arteko biblia

Zekale- **irina** behar baduzu, edo gari-irina, edo alea, edo okela. Jose Morales

· *hed* Almaitz batean ondo birrindutako kakahuete- **irinetik** 30 gramo. J.M. Olaizola "Txiliku"

Madrilerat igorri ere dituzte irinak analizatzerat eta handik jakin da abere **irin** eta arrain **irinak** bazituztela. Herria

Arrain- **irinez** betetako kamioi bat. Bernardo Atxaga

Abere **irinekin** egindako pentsuekin. Berria - Gaiak

Hormona sintetikoz zein abere **irinez** hazi urde gurintsuak. Itxaro Borda

**6** *adkor* kokaina.

A, **irin** magikoa! esan nuen nik. Fernando Rey

Ez nintzela itzuliko berriz bere atzaparretan erortzera, hark bestela bezala bizioaren bideko **irin** -irenstaile bihurtuko ninduela, saiatu zela jada sudurrekoaren eskaintzekin. Fernando Rey

**7** ***irinetan***

Haragi-pilotatxoak egiten bukatu, **irinetan** pasa eta frijitzen hasi zen. Jon Alonso

**Irinetan** igurtzi eta zartaginera bota ditu. Pako Aristi

Moztu tomateak zentimetro bateko xerretan, gatz-pipertu, arto- **irinetan** pasa. Pablo Sastre

· Alberjiniak, **irin** -arrautzetan bildu eta binaka frijituak. Juan Kruz Igerabide

Arrain eta haragi piezak platerean gerora zerbitzatuko diren tamaina eta forman ebakita, arrautza- **irinetan** bilduta. Edorta Agirre

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat irin** (9); **berrogei kilo irin** (3); **berrogei kilo irineko** (4); **egin irinarekin** (3); **eskukada bat irin** (3); **eta irin** (10); **eta irina** (11); **irin eskainiko** (3); **irin eta** (7); **irin garbi** (12); **irin garbi nahiz** (3); **irin garbia** (6); **irin garbiz** (6); **irin guztiak** (4); **irin guztiak ez** (3); **irin zaku** (5); **irin zakuak** (3); **irin zakuen** (3); **irin zakuen gainean** (3); **irina bezain** (3); **irina eskainiko** (6); **irina eskainiko duzue** (5); **irina eta** (10); **irina hartu** (3); **irina khakamada** (4); **irina khakamada liberalak** (3); **irinez betetako** (5); **kilo irin** (12); **kilo irin garbi** (5); **kilo ogi irin** (4); **ogi irin** (13); **ogi irin garbi** (6); **ogi irina** (4); **oliotan oraturiko irina** (6); **oraturiko irin** (4); **oraturiko irina** (6); **oraturiko irina eskainiko** (5); **zazpi kilo irin** (3)

---

**irindu,** irin(du), irintzen **1** da/du *ad* irin bihurtu.

Grezian ere, gariarekin nahaste, **irindurik** erabiltzen omen zuten baba, ogia egiteko. Patziku Perurena

**2** *irud*

Han hemenka itaitzurak, gapirio batzu mutzituak edo **irinduak,** paretak tokika arrailduak... Herria

---

**irineztatu,** irinezta, irineztatzen **1** da/du *ad* irinez estali.

Aurpegia **irineztatuegi** zeukan. Lopez de Arana

**Irineztatutako** ileordea darama jauntxo itxurako beste horrek. Iban Zaldua

**2** (era burutua izenondo gisa)

Olagarro puska **irineztatu** eta frijitu goxo-goxoak. Jon Muñoz

---

# irinki *iz*

Bidarterat jina oporretarat, bere bost laguni postaz igorri diote alegia-eta deusez **irinki** zerbait. Herria

---

# irintsu *izond* irin asko daukana.

Ilberriko alea, aizu, lastotsu omen, eta ilbeherakoa, burutsu eta **irintsu** . Patata bero **irintsu** batzuk, eskuzapi zuri batean bilduak. ikusten dut galleta saltzailea bere pauso astunak harea sakon eta **irintsuan** hondoratzen, bidoi astuna bizkar konkortuan daramala. Pello Zabala

---

# irion, irioiten du *ad* zuzendu, bideratu.

Ordea, nola ezin itzal bainezakeen su hura ukabilez, desiraren alorretarik bideratu eta **irion** nuen neure su hura. Joan Mari Irigoien

Zeren dibarsorotarrak Baionako jauntxoetarik baitziren, bertze familia aberats batzuekin arnoaren monopolioa gidatzen eta **irioiten** zutenak. Joan Mari Irigoien

Eta zaldia geure meneko dugunean, erdiesten dugu harat edo honat **irioitea** eta bideratzea. Joan Mari Irigoien

---

# iris 1 *iz* ostargi-belarra.

**Iris** horiak (ostargi-belar horiak) ikusi zituen ilunean, eta, jakinez landare horiek ur apalekoak direla, handik zeharkatu zuen ibaia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Greziarrek **iris** deitzen zioten lore horri, Iris jainkosaren omenez edo hura gurtzeagatik. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** begiko mintza, kornearen atzean dagoena, erdian ninia duena.

Esklerotika apur bat zimurtua zegoen, eta gogortua, antza; ninia nabarmen zabaldua; **irisaren** urdina lehen baino ilunagoa; betileak eta bekainak pixka bat erreak. Karlos Zabala

Hain zuten argia eta bizia kolorea, non **irisa** gainditu, eta begi globo osoa hartzen baitzuen. Ramon Saizarbitoria

Begi bateko **irisaren** erdian garbi-garbi ikusten zitzaion zuriunea, hodei bat bezain zuria. Juan Kruz Igerabide

Kornearen atzean **irisa** dago, mugimendu erreflexuko esfinter gihar bat, erdian hutsune bat mugatzen duena: begi-ninia, 2-8 milimetro bitarteko diametroa izaten duena. Josu Zabaleta

Kameraren diafragmak begiko **irisa** imitatzen du. Irene Aldasoro

Ikusiko duzu nola zabaltzen den beste begiko **irisa** argi gehiago pasatzen uzteko. Irene Aldasoro

Teknologia handiko txartelak izango dira eta, besteak beste, herritarraren aurpegiaren erradiografia, **irisaren** inguruko datuak eta hatz markak bilduko ditu. Berria - Mundua

**Iris**-diafragma batek kontrolatzen du objektiboaren irekiera. Irene Aldasoro

---

irisarazi ik **iritsarazi**.

---

# irisartar 1 *izlag* Irisarrikoa, Irisarriri dagokiona.

Maitena Etchegaray **Irisartar** andere gaztearekin. Herria

Jean Minondo **Irisartar** okina lotu da sail horri. Herria

Jende multxo bat bildu da, bai herritar, **Irisartar** andana bat ere, eta beste auzo herrietarik ere. Ez da dudarik ondoko urtetan ere ikusiko ditugula oraino heletar, suhuskundar eta **irisartar** adixkideak elgarrekin kantuz kermeza egunean... Herria

**Irisartar** lehen taldea nagusitu da iragan larunbatean, Airoski salan, Thuir-eko taldeari 32-30. Herria

Zinez sasoin ederra egin dute, gure **irisartar** gazteek. Herria

• **2** *iz* Irisarriko herritarra.

Suhuskundar eta **Irisartar** guzientzat. Herria

Iragan uztailaren 31an, departamendu-buru eta herriko hautetsiekin betan, **irisartarrek** bisitatu ahal izan zituzten Ospitaleko gela berriak. Herria

Bertzalde oraino, mediatekaz bereziki ongi baliatzen ahalko dira hor berean **irisartarrak..** . Herria

Gero, 9 orenetan, izanen da **Irisartar** eta Baionesen arteko partida. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta irisartar** (4); **indaburu irisartarra** (3); **irisartarra eta** (5); **irisartarrak dira** (4); **irisartarrak elkartea** (3); **irisartarrak elkarteak** (6); **irisartarrak elkartearen** (3); **irisartarrak elkarteko** (3); **irisartarrak esku** (15); **irisartarrak esku baloi** (15); **irisartarrak eta** (3); **irisartarrak pilota** (3)

---

# irisatu, irisa, irisatzen 1 da/du *ad* ostargiaren koloreekiko zerrendak agertu.

Usoaren lumak, garondo eta lepo inguruan koroa egiten dutenak, eguzkitan **irisatu** egiten dira. Xabier Amuriza

**2** (era burutua izenondo gisa)

Harrien artean esne-belarra, erabelarra eta akamailua hazten ziren, eta eguzkitan belzten ziren musker **irisatu** handiak. Koro Navarro

Halako batean, kremaileratik tiratu eta latex **irisatuzko** top ñimiñoa zorura bidean joan zaio. Patxi Iturritegi

---

# irisazio *iz* ostargiaren koloreekiko zerrenden multzoa.

Aurpegia ez zitzaien ongi ikusten, kataloxa, irismen gutxikoa izateaz gainera, ez baitzen akromatikoa ere, eta **irisazio** handia ematen zien gauza guztiei. Josu Zabaleta

Gustura sentitu genuen *Obsidieene* estreinako asmakizunarekin, klarinete, piano, biolin eta saxorako egindakoarekin: harri bolkaniko horrek sortzen dituen **irisazioak** entzun genituen instrumentuen muturreko erregistroekin eginda, portamento eta cluster-en arteko konbinazioak tentsioarekin uztartuak. Berria - Kultura

---

**irisgaitz** 1 *izond* pertsonez mintzatuz, beregana iristea zaila dena. ik **iritsezin.**

Mutiko hori erabat mutu eta **irisgaitz** zen hamabi urte zituenean. Xabier Olarra

Filmaz duen etengabeko ardurak eta kasetean behin eta berriz aditzeak ez dute desbideratu marrazkigintzatik [...] baina **irisgaitzago** egin dute Stephen elkarrizketarako eta harreman sozialerako. Xabier Olarra

Ume autista baten gurasoak konturatzen direnean umea berengandik urruntzen ari dela edo bakarti, **irisgaitz,** erantzungabe bihurtzen ari dela. Xabier Olarra

**2** tokiez mintzatuz, bertara iristea zaila dena.

Manpararena egin zezaketen angelu **irisgaitzak**. Jon Alonso

Alde batera haurtzaroa eta gaztaroa zituan gelditak, hi eta iraganeko bizitzak adierazten zuen guztia, eta beste aldean ongi mugatu gabeko eremu **irisgaitza** gelditzen zuan, handik aurrerako bizitzan ibili beharko nuena. Xabier Olarra

---

**irisgarri** 1 *iz* irits daitekeena.

Errealitateak duen esanahia adieraztea da, beraz, axola diona; ilusioa, **irisgarria,** bigarren mailako helburu bat baizik ez da. Josu Zabaleta

**2** eraikinez eta kidekoez mintzatuz, elbarritasunen bat dutenak irits daitezkeena.

Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak onartu berri duen ibilerraztasun planaren arabera, 2010ean Foru Aldundiaren eraikin gehienak **irisgarriak** izango dira, pertsona guztiei, berdintasunean, ondasun eta zerbitzu publiko guztietara iristeko aukera eskainiko zaie. Berria - Euskal Herria

**irisgarriak** ez diren eraikinak egitea legearen aurkakoa da. Berria - Euskal Herria

---

**irisgarritasun** 1 *iz* irisgarria denaren nolakotasuna.

**Irisgarritasun** gutxiko beste arlo bat da jende askorentzat. Berria - Euskal Herria

**2** (eraikinez)

Birmoldaketa fasean diren ikastetxe guztiek **irisgarritasuna** oso aintzat hartzen dutela ziurtatzea. Berria - Euskal Herria

Bizkaia 2003 **Irisgarritasun** Plan Berezia. Berria - Euskal Herria

---

**irismen** *(50 agerraldi 24 liburutan)* **1** *iz* zerbaiten eragina heltzen den eremua. ik **irispide; helmen.**

Hitzarmenaren **irismen** eta erabilerari buruz gauza gehiago jakiteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zentzu honetan, zuhurtasun printzipioaren **irismen** eta esanahia hedatu egiten da, [...]. Berria - Gaiak

Antolamenduak elkarrengandik urrun dauden komunitateak lotzen ditu, botere harremanen **irismena** areagotuz gainera mundu osoko lurralde eta kontinenteetan zehar. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Multzoak lautada begien **irismeneraino** estaltzen zuen. Pablo Sastre

Ezin dut hemen ikasi, jangelan; idazgelara joan beharra daukat, lanpara **irismenetik** kanpo dudan leku batera. Xabier Olarra

Betiko joanik bata, **irismenetik** at bestea, biak ikusezineko munduan bizi. Oskar Arana

Agintarien **irismenetik** urruti edukitzeko. Josu Zabaleta

Kameren **irismenetik** kanpora eraman zuten. Berria - Mundua

Arin ihes egin Harryren **irismenetik** eta gutun-sorta lodi bat atera zuen soinean zeraman burko-azalaren barrutik. Iñaki Mendiguren

**2** (izenondoekin)

Baina parte handi bat maila horretatik beherago gertatzen zen, kontzientziaren edo kontrolaren **irismen** zuzenean ez zegoen nerbio-sistemako prozesu baten mailan. Xabier Olarra

**Irismen** unibertsaleko lanabes juridiko bat. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Kataloxa, **irismen** gutxikoa izateaz gainera, ez baitzen akromatikoa ere. Josu Zabaleta

**3** jaurtikitzen den zerbait iristen den punturainoko bitartea. ik **irismen 3.**

**Irismen** handiko misil balistikoak. Berria - Mundua

Saddam Husseinek **irismen** handiko sistemak garatzen zituen eta ez krispetak jaurtitzeko sistemak. Berria - Mundua

Iranen esku dauden **irismen** luzeko misilek. Berria - Harian

Orotara 800 kiloko buru nuklearra garraiatzeko gai den **irismen** erdiko misil bat. Berria - Mundua

2.000 kilometroko **irismena** duen misila probatu du Armadak. Berria - Mundua

**4** ***irismenean*** irispidean.

**Irismenean** genituen gauzez nahiz eguneroko irudiez baliatuz. Xabier Olarra

Bizitza oso bat zuen koloretan jasoa, baina aspaldiko kontua zen hori orain, ez berak **irismenean** zuen eta zuzenean senti zezakeen ezer. Xabier Olarra

Giza adimenaren **irismenean** dauden lege batzuen bitartez. Juan Garzia

Ez daude gorputzaren zentzuen **irismenean,** gure begiramenetik eta ukimenetik urrun daudelako. Imanol Unzurrunzaga

Hor zegoen loria, beraz, eskuaren **irismenean**. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> irismenetik at (3); irismenetik kanpo (11)

---

**irispide** *(48 agerraldi 18 liburu eta 11 artikulutan)* *iz* **1** zerbaiten eragina heltzen den bitartea. ik **irismen; helmen.**

Ezin gaitezke ziur egon gure **irispidera** ekarri dugunik giza historia osoa, maila primitibotik gorakoa. Iñaki Mendiguren

Agureak urrats bat atzera egin zuen harrera-mahaiaren gibelean, badaezpada ere agente amorratuaren **irispidetik** kanpo jarriz. Alberto Ladron Arana

Grezieraren **irispidetik** kanpo zeuden mendekoei eta aliatuei [...] latinaren erakargarritasuna areagotzeko gai izateko egoera bikainean zeuden erromatarrak. Iñaki Mendiguren

Gauza ederra litzateke giltzurrun naturalaren tamaina bertsuko baliokide artifiziala izatea, baina gaur egungo tekniken **irispidetik** oso urrun geratzen da posibilitate hori. Irene Aldasoro

Ignazia bere **irispidetik** atereaz eta bere arreba konkistatuz. Koro Navarro

**2** (izenondoekin)

Sir John Herschelen **irispide** luzeko teleskopioaren bidez ikusitakoaren arabera. Xabier Olarra

Tximinoetan, besondoa baino bi aldiz luzeagoa da besaurrea, eta **irispide** luzeagoa eta eskua oso bizkor mugitzeko ahalmena ematen die horrek tximinoei. Irene Aldasoro

**3** jaurtikitzen den zerbait iristen den punturainoko bitartea. ik **irismen 3.**

Balista eta katapulta-bateriak organo baten hodiak bezalaxe doituak zituen Arkimedesek, bakoitza **irispide** desberdin batera iristeko eran kokatuak. Jon Muñoz

Arkimedesen makinek hain ahalmen handia eta hain **irispide** luzea dute, non ez baitira kokaleku honetara hurbiltzeko gauza izango, eta gure gain-gainetik igaroko dira jaurtigaiak. Jon Muñoz

**4** iristeko bidea.

Uharterako **irispidea** debekatuta zegoela ikerketak iraun bitartean. Iñaki Iñurrieta

**Irispide** zailekoa ez ezik, ihesbiderik gabea zen babes bila hara joaten zenarentzat. Iñaki Iñurrieta

Lehenik eta behin, etxekoen ardura hartu behar du, hauenganako **irispide** errazagoa eta aholku egokiagoa ematen baitio naturaren antolamenduak eta gizartearenak. Imanol Unzurrunzaga

Erretinaren estimulazioak, [...] ikusmenezko mundu horren berezko ezaugarririk sakonenetarako **irispidea** ematen duelako ideia du oinarrian. Josu Zabaleta

**5** ***irispidean*** ik **irismen 4**.

Bistakoa zen sukaldariak unean uneko etorriaren arabera jokatzen zuela; **irispidean** zer eduki, horrixe heltzen zion. Jose Morales

Biologia molekularraren teknikek **irispidean** jartzen digute ondoretasunaren euskarri materiala. baina nik segitzen nuen alemanen parabellum, errebolber eta metraileten **irispidean** . Juan Garzia

Ezin zen zuhaitzaren sustraietara inola ere hurbildu, haren kolpeen **irispidean** jarri gabe. Iñaki Mendiguren

Turin inguruko mendiak, egun argietan ikusmenean, eta bizikletaz **irispidean,** gureak ziren, ordezkaezinak. Juan Garzia

· Natura ezagutzea gizakiaren buru- **irispidean** dago, eta ezagutze hau boterea da. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irispidetik kanpo** (5)}

---

**iriste** *iz* (toki batera) heltzea.

Zaldi-lurralde ideal hartara zaldiaren **iriste** berantak ondorioak izan zituen etorkinaren nahiz bertakoaren bizitzan. Iñaki Mendiguren

· Gutunek, Hitlerren boterera **iriste** hasieran, nazismoaren benetako izaera salatzen dute. Ramon Etxezarreta

---

**iristear** *adlag* iristeko zorian.

Hau iritsi gabe zegoen artean, **iristear** omen. Migel Angel Mintegi

Motor hotsak autoa **iristear** dagoela adierazi dionean senak hala aginduta, Abelek atzera egin du. Pello Lizarralde

Haiek Goxena **iristear** zirela, Josek bere zalgurdia prestarazi eta bere aita Jakobi bidera irten zitzaion. Jose Antonio Mujika

Cassini espazio zunda Saturnora **iristear** da zazpi urteko ibili luzea eginda. Berria - Gaiak

Bistak huts egiten ez bazion bederen (fidagarria ez emakumezkoen adin kontuetan), hogeita hamarreko muga **iristear** edo pasa berria zeukan. Migel Angel Mintegi

**Iristear** geunden sailaren beste muturrera. Bernardo Atxaga

-Baina... **Iristear** gaude, mein führer... Amerikarren ehiza-hegazkinak agertzear egon daitezke... Harkaitz Cano

Uda **iristear** zegoen. Berria - Kultura

Errespetatu zuzenbidea, egin justizia, **iristear** baitago nire salbamena, agertzear nire garaipena. Elizen arteko biblia

Argazkia arte-jarduera guztiz zilegiztatua izatera **iristear** dago, merkatuari dagokionez behinik behin. Josu Zabaleta

Ziur nengoen nire oharra zela **iristear** zegoena. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iristear dago** (8)

---

**iritsarazi**, iritsaraz, iritsarazten *(orobat **irisarazi** g.er. eta **iritsiarazi** g.er.)* du *ad* helarazi.

Sumatra uhartean daude, memento honetan, giza laguntza **iritsarazteko** eta banatzeko arazo larrienak. Berria - Harian

Horiengana literatura **iritsarazi** . Opariek ateak zabaltzen dizkiote gizakiari, handikien aurreraino ere **iritsarazten** . Elizen arteko biblia

Horrela, behartsuen deiadarra harenganaino **iritsarazi** dute, Eta hark entzun egin du dohakabeen oihua. Elizen arteko biblia

Garzonek Marcos, Moreno eta Martinez Lizarduikoari egozten die ETAri dirua **iritsiarazi** izana. Berria - Euskal Herria

Lehenik, konfiantza **iritsarazi** nahi nieke. Berria - Kirola

---

**iritsezin** *(orobat **iritsiezin**) izond* ezin iritsizkoa.

Azken urteetan gizaseme **iritsezina** izan delako belgikarra komunikabideetarako. Berria - Kirola

Silfideak, aireko txoriak bezala, arrak eta emeak ziren, alferrik, dirudienez; izan ere, ondorengorik izan balute, leku **iritsezinetan** egingo zuten habia, kumerik ez baitie inork sekula ikusi. Xabier Olarra

*Work-in-progress* horren azken helburua, helburu **iritsezina,** liburutegiko liburu guztiak beste ordena batean paratzea bide zen. Iñaki Iñurrieta

Bera bakarrik da hilezkorra, eta **iritsezineko** argitan bizi da. Elizen arteko biblia

Budismoa urrun geratzen zitzaidan, oreka **iritsezin** gisa. Juan Kruz Igerabide

Egia zinezkoa besterik zen, gure teleskopioentzat **iritsezina,** iniziatuen eskura; bide luzea zen hura, eta nekez, miraz eta bozkario sakonez egiten ari zen bera ibilbide hori. Juan Garzia

Printzesa dorrean, **iritsezin,** misterio guztien baso sorginduan. Fernando Rey

---

**iritsi**, irits, iristen **1** da *ad* heldu (toki batera).

Itsasontzi bat **iritsi** zen kaira, galeoi bat, Ainhoa izen distiratsua ikusgarri brankan. Felipe Juaristi

Eskailera gehiago igo eta Gryffindor dorreko sarrera ezkutura **iritsi** ziren. Iñaki Mendiguren

Mazedoniara **iritsi** nintzenean. Elizen arteko biblia

Eguzkia jaio eta egunsentiko brisa **iristen** denean hiribildura. Santiago Iruretagoiena

Gutuna Norvegiara **iritsi** zenean, lurperatuta zegoen jadanik Niels. Jon Muñoz

Irudia erretinara **iristen** da [...] eta handik garunera bidaltzen dira seinaleak. Irene Aldasoro

Bere luzera halako bi falta zitzaion gabarrari ibai ertzera **iristeko** . Karlos Zabala

Gorputzaren gainazalera **iristen** den uraren lurrunketan, energia asko galtzen da bero sor gisa. Irene Aldasoro

Oso urduri **iritsi** zen Ruche jauna Ravignan kalera. Jon Muñoz

Peppone handik gutxira **iritsi** zen apaizetxera arnasestuka. Koldo Biguri

Amsterdamera **iritsi** ginen, trenez. Felipe Juaristi

Feaziarren lurrera hurbiltzean, igeri **iristeko** hara. Juan Kruz Igerabide

Arete eta Altzinooren aurrera **iritsi** arte. Juan Kruz Igerabide

Zu etorri eta bost bat minutura edo **iritsi** da. Iñaki Mendiguren

Zure argibideak berandu samar **iritsi** dira... Karlos Zabala

Ondo diseinaturiko makina bat da bihotza, eta helburura **iristeko** adinako presioan bidaltzen du odola arteria-sistemara (kapilarretara **iristeko** adinako presioan, alegia), baina ez hori baino handiagoan. Irene Aldasoro

Egiptotik irten eta hona **iritsi** arte. Berria - Kultura

Ezohiko isiltasuna **iritsi** zen gaztelura. Iñaki Mendiguren

Esadazu nola **iritsi** bide nagusira. Jose Morales

Noraino **iritsi** ote nintzen jakin nahirik. Iñaki Mendiguren

Naufragioaren berria Obabara **iritsi** zen unea imajinatzen nuen. Bernardo Atxaga

Joniarra eta egiptoarra ibai-bazterrera abiatu ziren; feluka bat **iritsi berria** zen. Jon Muñoz

*ik beherago* 7. Askoren artean

· Nire kontra amorruz zaudelako eta zure harrokeria nireganaino **iritsi** delako. Elizen arteko biblia

**2** *irud*

Beraz, ez gara oraindik **iritsi** erailketa horren maleziaren kausara. Imanol Unzurrunzaga

Gogoan dut nik ere ondorio argi honetara **iritsi** garela. Imanol Unzurrunzaga

Ulertzen dut, bai, hau zigor handia dela eta erabat zuzena, jakinduriaren tronura **iritsi** eta libidoaren morroi izateko handik jaistea erabaki duenarentzat. Imanol Unzurrunzaga

Estatu-buru izatera **iritsi** zen. Iñaki Mendiguren

Jeneral-mailara **iritsi** direnek. Jose Morales

Sineskor izatetik, sinesgogor izatera **iritsi** zen. Felipe Juaristi

Ilargia egin zait maitagarri, anitz estimatzera **iritsi** naiz. Pello Zabala

Eta, orain, adin honetara **iritsi** naizelarik, nire ondoreaz hasi naiz pentsatzen. Oskar Arana

Denbora laburrean heldutasunera **iritsi** eta bizitza luzearen betetasuna lortu zuen. Elizen arteko biblia

Biak **iritsi** ziren ulertzera ez zutela sekula jakingo zer izan zen Jacques eta Luizaz. Felipe Juaristi

Jainkoaren maitasuna bere betera **iritsi** da. Elizen arteko biblia

Kristoren betetasunaren neurriko izatera **iritsi** arte. Elizen arteko biblia

**3** (norbaiti zerbait edo beste norbait)

Belarriak zolitu zituen eta soinua garbi **iritsi** zitzaion. Felipe Juaristi

Ateak kirrinka egin zuenean, orro luzeak **iritsi** zitzaizkien belarrietara. Iñaki Mendiguren

Bigarren biolin baten doinua **iritsi** baitzitzaion garbi. Felipe Juaristi

Aurreko astean **iritsi** zitzaion eskutitza. Iñaki Mendiguren

Asisen **iritsi** zitzaion heriotza, 1226ko urriaren 3ko ilunabarrean. Askoren artean

Oinarri sendoz esan daiteke Frantziskoren 30en bat idazki **iritsi** zaizkigula. Askoren artean

**Iritsi** zaizu, beraz, atseden hartzeko garaia. Migel Angel Mintegi

Atzerritar hau **iritsi** zaigu jauregira, etxera itzultzeko laguntza eske. Juan Kruz Igerabide

**4** (une edo garai jakin bat)

Hartu igitaia eta ekin uzta-biltzeari, **iritsi** baita igitaitzeko ordua. Elizen arteko biblia

Elkar agurtzeko ordua **iritsi** zen. Anjel Lertxundi

Halako batean [...] **iritsi** zen Margeren egonaldiaren azken arratsa. Iñaki Mendiguren

Gaua **iritsi** zenean. Juan Kruz Igerabide

Pazkoa **iritsi** zen. Koldo Biguri

Haserretu egin ziren herriak, baina **iritsi** da [...] hilak epaitzeko garaia. Elizen arteko biblia

Erditzeko garaia **iritsi** zenean, bizkiak izan zituen. Jose Antonio Mujika

**Iritsi** baita haren haserrearen egun handia, eta nor egon zutik? Elizen arteko biblia

Urtarrila ia oharkabean igaro eta otsaila **iritsi** zen. Iñaki Mendiguren

Zazpigarren hila **iritsi** zenean. Elizen arteko biblia

Garaia **iritsi** bezain laster. Elizen arteko biblia

· Ordaintzeko txanda **iritsi** zitzaion Maxi. Jon Muñoz

• **5** du *ad* helmuga edo helburu jakin bat lortu.

Handik berehala **iritsi nuen** gailurra. Txillardegi

Jainkoaren neurrigabetasunean ezkutaturik, haren Probidentzia Jainkozkoaren atzean, non nik ezin baihaut **iritsi** ez ikusi, eta nora ez baitira heltzen nire hitzak. Juan Garzia

Ardatzetik hurbileko argi-izpiak nabarmenago desbideratzen dira eta, beraz, kristalinoaren ertzetatik igarotzen diren izpien leku bertsuan **iristen** dute fokua; hala, aberrazio esferikoaren efektua desagertu egiten da ia. Irene Aldasoro

Barkamena **iristeko** bidea. Askoren artean

Heldutasun-gradu hori ere **iritsi** genuen, urtebeteko atzerapenarekin bada ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Askapen-borrokak, hari esker, **iritsi** zuen bere xedea. Elizen arteko biblia

Jokaera aldatu zuen bere helburua **iristeko**. Askoren artean

Oso gutxik lortzen duten pribilejioa ere **iritsi du:** tesi hori argitaraturik ikustea. Xabier Mendiguren Elizegi

1933an, Hitlerrek agintea **iritsi** zuen urte berean. Alberto Ladron Arana

Beretzat **iritsi** zuen Menelaok apaizgo nagusia. Elizen arteko biblia

Bere baitan egin zuen ea **iritsiko** ote zuen zoriontasun irrikatua. Patxi Zubizarreta

Ez dakit zenbat denboraz egon nintzen han eguzkia sartzen ari ziren bitartean, baina ia-ia alfa egoera **iritsi** nuen. Jon Muñoz

Abdul Kasemek **iritsi** zuen lehenik aintza. Jon Muñoz

Bost minutu geroago, itsaso osoa, Vurrgh-eraino, amorru ezin gobernatuzkoan lehertzen zen; baina Moskoe eta kostaldearen artean **iristen** zuen amorru hark bere gorena. Koro Navarro

Bere izatearen muga **iritsi** duelako baizik hilko ez dena. Josu Zabaleta

Batak besteari beren eraikuntzetan egindakoak erakusten zizkioten, eta hala elkarren arteko lehian beren talentuak landuz, egunetik egunera beren **irizmena** hobetzen joan ziren. Santiago Iruretagoiena

Egiazkoa eta gezurrezkoa bereizteko **irizmenik** gabeengana. Xabier Kintana

Okerreko **irizmenekin** buruak itsututa, [...]. Santiago Iruretagoiena

Goranzko zentzuan (unibertso osoaren Kausa) ez dela ez arima, ez gogamena eta ez duela irudimenik edo **irizmenik** edo arrazoimenik edo adimenik; ez da ez logos ez noesi, ez da mintzamenaren edo adimenaren gaia. Joan Mari Lekuona

---

# irizmolde *iz*

Besterik izango litzateke utziko balute jainkozko eta naturaz gaindiko argiak kudea ditzan beren **irizmoldeak**. Joan Mari Lekuona

---

# irizpen 1 *iz* gai edo arazo bati buruzko aditu baten iritzia, bereziki izkribuzkoa.

Abenduaren 15ean Erakunde eta Herrizaingo Batzordeak lan taldeak egindako **irizpena** eztabaidatu eta bozkatuko du.

Bidezko irizten dionean, bere ekimenez ere eman dezake **irizpena**. Berria - Harian

Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari aholkua eskatzen zaionean, Europako Parlamentuak, Kontseiluak edo Batzordeak Eskualdeetako Lantaldeari jakinaraziko diote **irizpena** eskatu izan dela. Berria - Harian

Eusko Legebiltzarreko Industria, Merkataritza eta Turismo batzordeak oniritzia eman dio Industriaren Legea aztertu duen lan-taldeak igorri duen **irizpenari**. Berria - Ekonomia

Epe bat jarriko diote Lantaldeari bere **irizpena** aurkez dezan. Berria - Harian

Hil ondoren "askatu" zutenean, ordea, beste bat izan zen medikuen **irizpena:** minbizia aurkitu zioten saihetsean. Bernardo Atxaga

Egun haietan urduri egon zen denbora guztian; laborategiaren **irizpena** lasaitzekoa izan zen; esku-zapiko odoletan ez zen aurkitu Koch-en bazilorik. Josu Zabaleta

Urrats bakoitzean, zientzialaria beharturik dago kritikaren eta esperientziaren **irizpena** jasotzera. Juan Garzia

**2** (izenondoekin)

Bestalde, Abokatutzaren Kontseilu Nagusiak, **irizpen** mamitsu bat egin ondoren, gauza bera eskatu dio Espainiako Arartekoari. Berria - Euskal Herria

Ezingo dio ihes bere garaiko irizpideari, bere garaikideen **irizpen** itxurazale eta sentiberatasunik gabeari: berak maitasun handiz sorturiko obrak hutsalak eta kaskarrak direla esango dute, [...], berak pintaturiko pertsonaien ezaugarri berberak egotziko dizkiote, ozen aldarrikatuko dute ez duela bihotzik, ez arimarik, ez jainkozko karrik bere antzean. Jose Morales

**3** irizpidea, irizmena.

Etengabeko harreman bat behar zuen, ikus-eremuaren alde bakoitzaren eta bere inguruaren arteko konparazio bat, sintesi orokor hartara iristeko: Helmholtzek **"irizpena"** deitzen ziona. Xabier Olarra

Ez zait inoiz damutuko hau idatzi izana, zuetariko baten batek **irizpen** zuzenez noizbait irakurri eta heresia abandonatuko duelakoan. Imanol Unzurrunzaga

Ekintza bereziei buruz inolako **irizpenik** ez ematea; aldiz, legearen **irizpenaren** pean uztea. Esteban Antxustegi

Horregatik, arrazoi zuzenaren **irizpena** da bakea lortzeko itxaropenik dagoen tokian bakearen bila jardutea. Esteban Antxustegi

Era berean gauza ulergarriei buruz **irizpena** osatzeko, arrazoia dela medio, barne egiari kontsultatzen badiogu, nolatan esan dezakegu belarriak ukitzen dituen soinua baino ezer gehiago ikasten dugula hitzen bidez? Imanol Unzurrunzaga

**4** (hitz elkartuetan)

Ardura handiz hartuko du Hezkuntza Sailak soziolinguistek landu behar duten **irizpen** txosten hori. Berria - Euskal Herria

Bazirudien, beraz, zelula horietako bakoitzak Landen korrelazionatzaile edo Helmholtzen **"irizpen**-emaile" gisa ziharduela. Xabier Olarra

---

**irizpide** *(1769 agerraldi, 100 liburu eta 807 artikulutan; orobat* ***erizpide*** *g.er.)* **1** *iz* zerbait epaitzeko araua; epai edo erabaki baten oinarria. ik **kriterio**.

Delitua zer den esateko **irizpidea,** beraz, eragiten duen kalte soziala da. Juan Martin Elexpuru

Zein da bertuteak hautatzeko **irizpidea**? Askoren artean

Errentagarritasunaren **irizpidea** lege duen batek ez du onargarri inork liburu bat kultur akuilu soilez idaztea edo argitaratzea. Anjel Lertxundi

**Irizpide** hauek izan ditut kontuan nire zortzikotea hautatzeko. Ana Urkiza

**Irizpide** hau ontzat hartzen bada, [...]. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zer edo zer baieztatzen dugunean, zer **irizpide** ase behar ditugu hura zuzena edo ez zuzena dela esateko? Askoren artean

Kantitatea **irizpide** harturik, [...].Prest bainago gogor aurre egiteko giza **irizpidez** jokatzen dudala esaten duten horiei. Elizen arteko biblia

Teoria arau-emaileek gure ekintzak ebaluatzeko **irizpideak** ematen dizkigute. Askoren artean

Zuen **irizpideak** hedatzeko duzuen grinak bultzatuta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (izenondoekin)

**Irizpide** orokorrak. Berria - Ekonomia

Gizartearen interesak jarri ditugu gorago tituluak eskaintzeko **irizpide** nagusitzat. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Giza ingurumena babesteko eta hobetzeko bidean munduko herriei jarraibidea eta gidaritza eskainiko dieten **irizpide** eta printzipio komunen beharraz jabeturik [...]. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Horrek, trebatzea eskatzen du, **irizpide** jakin batzuen arabera behin eta berriz saiatzea. Askoren artean

**Irizpide** ortodoxoen arabera. Iñaki Mendiguren

Nazioan erroturiko **irizpide** faltsu batetik sortzen diren ondorio negargarriei. **Irizpide** nazionalista gailentzen zaio **irizpide** nazionalari abertzaleen erdal prentsan. Juan Martin Elexpuru

Erotismo eta pornografia terminoak ez dira **irizpide** egonkorretan sustraitzen. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Irizpide** estatistikoa normaltasunaren irizpidetzat hartu behar dugu? Luis Elberdin

**Irizpide** juridikoei jarraituta aukerarik ez zela adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

**Irizpide** eta arau guztiz estuak. Askoren artean

Edukiari eta hartzaileei erreparatuz gero, gutunak multzo ezberdinetan sailka daitezke, jakinik ezin direla hemen ere **irizpide** zurrunegiak erabili. Askoren artean

Depresioa diagnostikatzeko esaterako, gaixoak **irizpide** estandar batzuk bete behar ditu. Berria - Gaiak

**Irizpide** enpirista hori hizkuntzaren esanahiaren jatorrian ezarri ohi da. Askoren artean

Agerpenen substantziatasunaren **irizpide** enpirikoa zein ote den galdetzen bada. Ibon Uribarri

Zaila da, baina, sailkapenerako **irizpide** formal bat aurkitzea, arbitrarioa eta *ad hoc* ez dena. Itziar Laka

Kontuan izan beharreko **irizpide** formalak ere eskaintzen baitira. Askoren artean

**Irizpide** formaldatzaileen arabera. **Irizpide** zuzen eta argiz jokatzen ohitzen bagara. Andoni Egaña

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Irizpide** desberdintasun nabariak daude ikerketa ebaluatu eta balioztatzeko orduan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Aralarrek, ohar baten bidez, **irizpide** ezberdintasuna «lotsagarria» dela esan zuen. Berria - Harian

**Irizpide** desadostasun hori eragiten duten arrazoiak aztertzeko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Irizpide** batasunak oinarri izan behar du une honetan. Berria - Euskal Herria

**Irizpide** eta hautaketa sistema pertsonalizatuak. Txema Ramirez de la Piscina

Bere **irizpide** askatasunak eta heterodoxotasunak. Josu Zabaleta

'Euskal Herria Bai' ekimena aztertu eta berari buruzko **irizpide** trukaketa egin zuten alderdiotako ordezkariek herenegun. Berria - Euskal Herria

Erregeri berari eman zion eskutitzez **irizpide**-aldaketa guztizko honen berri: [...].Udalak Plan Orokorraren **irizpide** dokumentua onartu du osoko bilkuran. Txillardegi

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez ote duzue giza **irizpide** hutsez jokatzen? Elizen arteko biblia

Egia-**irizpide** batean oinarrituriko jakintza espekulatiboarena da ikusmolde hori. Juan Garzia

Nik ez bezala kolorea baitzuen berak gustu-**irizpide,** bost axola alderdi teknikoa. Joxe Austin Arrieta

Multzoek identitate-**irizpide** garbia dute, unibertsalek ez bezala: A eta B multzo bera dira elementu berak baldin badituzte. Askoren artean

Itzulpen-**irizpide** egokiagorik! Patxi Altuna

Zuzentasun-**irizpide** objektibo onartuak badaudenez, horiei jarraitzeko aholkatzen dizugu. Askoren artean

Hiztunen erantzunetan oinarritutako gramatikaltasun-**irizpideak**. Itziar Laka

Baldintza hauek elkartzean, hizkuntz egituraren teoria orokor baterako egokitasun-**irizpide** sendoa lortzen dugu. Itziar Laka

Guztiz beharrezkoa da sintesi-ahalmena edukitzea, nork bere sailkatze-**irizpide** propioak ezartzea, hain zuzen. Txema Ramirez de la Piscina

Ezizenen kudeaketa **irizpide** jakin batzuen arabera. Iñigo Aranbarri

Maastrichten ezarritako finantza-**irizpideak** iraunkortzat hartuz, Amsterdamgo hitzarmenak aurrekontu-diziplinari ematen dio lehentasuna, finantza-politiken koordinazio benetakoaren kaltetan. Koro Navarro

Zer periodizazio-**irizpide** hartu behar dugu serie bakoitzarentzat? Xabier Arregi

Enuntziatuarentzako batasun-**irizpide** estrukturalak. Xabier Arregi

Zientifikotasun-**irizpide** formal eta esperimentalei. Xabier Arregi

Baita Gestalt-en legeak betetzeak ere (eta inbariantza-**irizpide** orok, oro har). Josu Zabaleta

Ezagutzazko esanahigarritasun-**irizpide** enpirista: arazoa eta aldaketak. Askoren artean

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurrerapenaren irizpide** (3); **baina irizpide** (9); **baino irizpide** (3); **beharreko irizpide** (4); **bere irizpide** (7); **beste irizpide** (12); **beste irizpide batzuk** (3); **beti irizpide** (3); **bi irizpide** (9); **buruzko irizpide** (5); **da irizpide** (10); **dago irizpide** (5); **den irizpide** (4); **dira irizpide** (4); **diren irizpide** (10); **diren irizpide berberak** (3); **dituen irizpide** (5); **du irizpide** (7); **dute irizpide** (6); **dute irizpide hori** (3); **duten irizpide** (5); **ebbren irizpide** (3); **edo irizpide** (3); **egiaren irizpide** (3); **erabakia irizpide** (3); **erabilitako irizpide** (3); **erabiltzen diren irizpide** (3); **ere irizpide** (9); **ere irizpide bera** (3); **eta beste irizpide** (3); **eta irizpide** (37); **eta irizpide hori** (4); **eta irizpide horiek** (3); **ez da irizpide** (3); **ez dago irizpide** (4); **ez dira irizpide** (3); **giza irizpide** (6); **giza irizpide hutsez** (5); **gure irizpide** (4); **gutxieneko irizpide** (3); **hainbat irizpide** (12); **hiru irizpide** (3); **horrek irizpide** (5); **inolako irizpide** (3)

**irizpide argirik** (5); **irizpide argirik gabe** (3); **irizpide asko** (5); **irizpide bakarra** (12); **irizpide bat** (16); **irizpide bateraturik** (3); **irizpide batzuen** (4); **irizpide batzuk** (20); **irizpide bera** (13); **irizpide bera erabiliko** (4); **irizpide berak** (6); **irizpide berberak** (11); **irizpide berri** (3); **irizpide berriak** (6); **irizpide bezala** (3); **irizpide bi** (3); **irizpide dokumentua** (3); **irizpide dokumentua onartu** (3); **irizpide edo** (4); **irizpide egokia** (3); **irizpide ekonomikoak** (3); **irizpide enpirikoa** (3); **irizpide erabili** (10); **irizpide erabili duten** (3); **irizpide eta** (21); **irizpide ezberdinak** (8); **irizpide falta** (5); **irizpide faltsu** (4); **irizpide finkatu** (3); **irizpide finkorik** (3); **irizpide formal** (3); **irizpide garbirik** (5); **irizpide gisa** (4); **irizpide guztiak** (7); **irizpide hartu** (4); **irizpide hau** (8); **irizpide hauek** (11); **irizpide hauen** (4); **irizpide honen** (5); **irizpide honen arabera** (3); **irizpide hori** (31); **irizpide hori ez** (5); **irizpide horiek** (25); **irizpide horiek ez** (4); **irizpide horien** (10); **irizpide horien arabera** (6); **irizpide horietan** (6); **irizpide horrek** (4); **irizpide horren** (3); **irizpide horri** (4); **irizpide hutsez** (5); **irizpide izango** (4); **irizpide jakin** (5); **irizpide jakinik** (3); **irizpide jarraitu** (3); **irizpide juridikoak** (3); **irizpide moral** (3); **irizpide nagusi** (6); **irizpide nagusia** (20); **irizpide nagusiak** (18); **irizpide oker** (3); **irizpide orokor** (3); **irizpide orokorra** (3); **irizpide orokorrak** (7); **irizpide politiko** (4); **irizpide politikoak** (5); **irizpide politikoen** (6); **irizpide politikoen arabera** (4); **irizpide politikoetan** (4); **irizpide tekniko** (3); **irizpide teknikoak** (3); **irizpide zehatz** (3); **irizpide zehatzik** (4); **irizpide zorrotzak** (3)

**bere irizpidea** (3); **da irizpidea** (6); **eta irizpidea** (3); **irizpidea erabili** (4); **irizpidea eta** (5); **irizpidea ez** (7); **irizpidea ez da** (3); **legaltasun irizpidea** (3); **lehen irizpidea** (3); **ocderen irizpidea** (3); **oinarrizko irizpide** (4); **orokorraren aurrerapenaren irizpide** (3); **oso irizpide** (9); **zehazteko irizpide** (3); **zein irizpide** (13); **zein irizpide erabili** (4); **zen irizpide** (3); **zenbait irizpide** (12); **zer irizpide** (15); **zer irizpide erabili** (4); **zer irizpide izango** (3)

**aukeratzeko irizpideak** (3); **banatzeko irizpideak** (4); **behar diren irizpideak** (5); **beharreko irizpideak** (6); **bere garaikideen irizpideak** (3); **bere irizpideak** (14); **beren irizpideak** (3); **diren irizpideak** (17); **dituen irizpideak** (10); **dituzten irizpideak** (16); **duten irizpideak** (3); **egiteko irizpideak** (6); **emateko irizpideak** (6); **erabiltzen diren irizpideak** (6); **eta euren irizpideak** (4); **eta irizpideak** (11); **euren irizpideak** (5); **euren irizpideak aintzat** (4); **ezarritako irizpideak** (9); **ezarritako irizpideak betetzen** (3); **garaikideen irizpideak** (3); **garaikideen irizpideak ez** (3); **gobernuaren irizpideak** (3); **gure irizpideak** (3); **idatziz emateko irizpideak** (4); **inguruko irizpideak** (5); **iraunkorrerako irizpideak** (3)

**irizpideak aintzat** (8); **irizpideak aintzat hartuz** (4); **irizpideak aldatu** (9); **irizpideak aldatu eta** (3); **irizpideak aldatzeko** (3); **irizpideak aurrera** (3); **irizpideak bateratzeko** (7); **irizpideak betetzen** (10); **irizpideak betetzetik** (3); **irizpideak daude** (3); **irizpideak dira** (5); **irizpideak ditu** (3); **irizpideak ematako** (3); **irizpideak ematen** (3); **irizpideak ere** (7); **irizpideak eta** (13); **irizpideak euskal** (3); **irizpideak ez** (17); **irizpideak ez baitu** (3); **irizpideak ezarri** (5); **irizpideak finkatu** (4); **irizpideak hartu** (3); **irizpideak indarrean** (3); **irizpideak jarraitu** (3); **irizpideak jarraitzen** (4); **irizpideak kontuan** (7); **irizpideak zehazteko** (3); **irizpideak zehazten** (4); **irizpideak zehaztu** (5); **irizpideak zorroztu** (3)

**irizpidearen arabera** (5); **kirol irizpideak** (7); **kyotoko protokoloko irizpideak** (3); **nire irizpideak** (4); **oinarrizko irizpideak** (7); **protokoloko irizpideak** (3); **zehaztutako irizpideak** (3); **ziren irizpideak** (5); **zituen irizpideak** (4); **zuen irizpideak** (4)

**bere irizpideekin** (3); **diren irizpideei** (3); **dituen irizpideen** (4); **eta irizpideen** (4); **euren irizpideen** (4); **inolako irizpiderik** (3); **irizpideei buruz** (3); **irizpideei buruzko** (3); **irizpideei dagokienez** (3); **irizpideei jarraituz** (4); **irizpideek ez** (3); **irizpideekin bat** (7); **irizpideekin ez** (3); **irizpideen arabera** (42); **irizpideen artean** (3); **irizpideen aurka** (8); **irizpideen berri** (4); **irizpideen inguruan** (3); **irizpideren arabera** (18); **irizpiderik ez** (4); **irizpiderik gabe** (9); **irizpidetzat hartu** (3); **kirol irizpideei** (3); **zein irizpideren arabera** (6); **zer irizpiderekin** (6); **zer irizpideren** (8); **zer irizpideren arabera** (7)

---

# irizpidedun *izond* irizpidea duena, irizpide zuzenez jokatzen duena.

Behialako garai batean nire erosteko ahalmena zuhurki administratzen zekien erosle **irizpideduna** nintzela amestu banuen ere [...]. Jon Alonso

Musikari eta musikagile **irizpidedunek,** Bixente Martinezek, Joseba Tapiak... esan izan digute inoiz, miresgarria dela elkarren segidan eta tonu desberdinetan kantatzeko gaitasun hori. Andoni Egaña

---

# irizte *iz* uste izatea.

Aingeru **irizte** hark edozein susmo uxarazten ziola-eta, kontent izaten ei zen, ontziburuaren gogoa egiteak gerora izan zezakeen paguaren fedez, fede on ezin hobean. Edorta Jimenez

---

# irla *(375 agerraldi, 50 liburu eta 50 artikulutan; cf* ***uharte*** *2260 agerraldi, 151 liburu eta 710 artikulutan)* **1** *iz* uhartea. ik **uharte**.

**Irlak,** ostera, zein kontinenteri dagozkion, ez dago horren argi. Edorta Jimenez

**Irla** eguzkitsu batera helduak ziren biak. Anton Garikano

Elkarrizketa ergel horietako batean **irla** bakarti batera zer eramango zukeen galdetuko baliote. Unai Iturriaga

**Irla** artifiziala, Burumendi itsaslabarraren parean. Berria - Harian

**Irla** txiki batean naufrago dagoenari. Joxerra Garzia

Harik eta, **irla** batean, zuhaitz baten hostotzaren erdian ezkutatu zen arte. Patxi Zubizarreta

Erraza da Manhattango **irla** barruan metroa erabiltzea. Harkaitz Cano

India Handian bada eremu bat Fede-Lurra edo Brameyko **irla** deritzana. Aurelia Arkotxa

Munduan zehar zenbait bidaia egin ondoren, Sandwich **irletan** hil, eta hango basatiek jan zuten. Xabier Olarra

Habanako Hegoaldean den Pinos **Irlan** bildu dituzte, atxilo. Edorta Jimenez

Aurrena Britaniar **Irletarantz** sartuko ziren. Patziku Perurena

Kanariar **Irletako** Parlamentuak. Berria - Kultura

Itsasontzia **irlarik irla** zihoan. Patxi Zubizarreta

Ahanzturaren artxipelagoko **irla** bihurtzen baitira izenok. Edorta Jimenez

**2** (hitz elkartuetan)

Aulkiekin eta mahai-zapiarekin **irla**-jokoan ari zaretenean. Julen Gabiria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste irla** (4); **bi irla** (3); **eta irla** (9); **irla bat** (6); **irla bat da** (3); **irla batean** (6); **irla batera** (4); **irla de** (3); **irla horiek** (3); **irla txiki** (7); **irlak korrontean** (6); **kanariar irlak** (3); **manhattango irla** (5); **zen irla** (3); **zen irlara** (3)

---

# irlandar *(489 agerraldi, 56 liburu eta 211 artikulutan)* **1** *izlag* Irlandakoa, Irlandari dagokiona. ik **irlandes**.

**Irlandar** whisky erdi bat hartuko zuela. Irene Aldasoro

**Irlandar** pub ospetsu horren aurrean. Edorta Jimenez

**Irlandar** baso guztiak bezala, ez zen oso zarratua. Joanes Urkixo

Bilboko **irlandar** lagun batzuk Mary zirikatzen aritu ziren, txantxetan noski. Berria - Kultura

Kathleenek **irlandar** doinu hautatu batzuk jo zituen. Irene Aldasoro

**Irlandar** abertzaletasuna indarrean zegoen garai haietan. Irene Aldasoro

**Irlandar** Berpizkundea indartzen hasi zenean. Irene Aldasoro

Alleyne jaunaren ipar **irlandar** azentua imitatzen ari zen. Irene Aldasoro

**Irlandar** adeitasun gizabidetsu, bihotzezko eta benetakoa. Irene Aldasoro

**Irlandar** jatorriko amerikar artista gazte bat. Xabier Olarra

Lady Gregory bezalako anglo- **irlandar** aristokraten edo Synge bezalako nekazari erromantiko eta idealisten erara. Irene Aldasoro

Gogora ekarri zuen Dowland **irlandarra** katolikoa zela. Felipe Juaristi

**-Irlandarra** naizen arren, egonaldi luzetxoa egin nuen Orion. Martin Anso

DUPeko buruak IRA **Irlandar** Armada Errepublikanoaren «desarmea» eskatu zuen.

**2** (izenondo gisa)

Aita euskalduna, ama **irlandarra** . Aurelia Arkotxa

Lokal country batera lehenbizi eta **irlandar** batera gero. Harkaitz Cano

Geriatrikotik hurbil dagoen kafetegi batean geunden kafe **irlandar** bana hartzen. Anjel Lertxundi

Behin Edward Kilkenny izeneko merkatari **irlandar** bat etorri zen Pragara. Felipe Juaristi

Familia amerikar guztietan falta ezin daitekeen osaba **irlandar** musugorri mozkortia. Harkaitz Cano

Erromako Ikastetxe **Irlandarrean** ikasia zen. Irene Aldasoro

• **2** *iz* Irlandako herritarra.

Etorriak ziren 35.000 **Irlandar** Parisera eta entzun ditugu haien kantuak. Herria

Uste duzu **irlandarrek** neutral jarraituko dutela? Koldo Izagirre

Lia Fail zen, **irlandarren** harri sakratua. Joanes Urkixo

**Irlandarren** errege izendatu zutenean. Joanes Urkixo

Senarra **irlandar** peto-petoa zela. Oskar Arana

Zaharra ez zen inoiz joan **irlandar** basati horiek ikustera. Irene Aldasoro

**Irlandar** talde isil bat Taran berreskuratutako gorpuen ilarari so zegoen. Joanes Urkixo

Bi gaztigu-ostiko eta entsegu emendatu batekin, 22 eta 3 **Irlandarren** alde. Herria

**3** irlandera.

Esaldi hori makina bat bider errepikatu zuten atzoko **ekitaldian,** irlandarrez zein euskaraz. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **apaiz irlandarrak** (9); **du irlandar** (3); **dute irlandarrek** (3); **eta irlandar** (18); **eta irlandarrak** (5); **eta irlandarrek** (6); **eta irlandarren** (6); **ira irlandar armada** (28); **irlandar armada** (37); **irlandar armada errepublikanoa** (5); **irlandar armada errepublikanoak** (16); **irlandar armada errepublikanoaren** (9); **irlandar armada errepublikanoari** (3); **irlandar bat** (6); **irlandar batek** (3); **irlandar eta** (6); **irlandar gerlari** (3); **irlandar hil** (3); **irlandar preso** (3); **irlandarra da** (3); **irlandarra ere** (3); **irlandarra eta** (6); **irlandarrak eta** (4); **irlandarrak ez** (3); **irlandarrek ez** (4); **irlandarren kontra** (6); **mezu berria irlandarrei** (3); **reid apaiz irlandarrak** (8); **zuten irlandarrek** (7)

---

# irlandera *iz* irlandar gaelikoa.

Hori bada kontua, badakizu, **irlandera** ez da nire hizkuntza. Irene Aldasoro

Zeltak (bretoiera, **irlandera,** galesera, eskoziera). Herria

Gabriel Conroy, dublindar idazlea, nazionalistak eta **irlandera** gutxiesten dituena. Markos Zapiain

**Irlanderaz** hasi dut prentsaurrekoa nire hizkuntza delako. Berria - Harian

Irlandar Berpizkundea indartzen hasi zenean, alabaren izenari onura ateratzea erabaki zuen Kearney andreak eta **irlandera** -irakasle bat ekarri zuen etxera. Irene Aldasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eta irlandera** (3)

---

# irlandes *(54 agerraldi, 7 liburu eta 38 artikulutan)* **1** *izlag/iz* irlandarra.

Artilezko **irlandes** trikota lodi bat zeukan soinean. Ramuntxo Etxeberri

Igande arratsaldez **Irlandes** musikari ta kantarien aldi "Ceipre Cinu"rekin. Herria

Bobby Sands **irlandes** borrokalari famatuaren presondegiko idazkiak. Herria

Musikari multxo batez inguraturik, tartean Alan Griffin **irlandesa,** Joserra Senperena eta Juan Mari Beltran. Herria

'Guinness' garagardo **irlandes** bat adibidez. Ramuntxo Etxeberri

Nork asmatuko zuen, joan den ortziralean **Irlandesek** irabaziko zutela Ingelesen kontra. Herria

**Irlandesaren** koilaratxoa. Jokin Muñoz

Tony Blair ingles lehen minixtroa kexu da eta mehatxuka ari Sinn Fein ipar **irlandes** taldeari buruz. Herria

Stade français Pariseko taldeak irabazi du **Irlandesen** kontra. Herria

• **2** irlandera.

Gero gaelikoa sakontzen hasi zen, eta **irlandesez** idatzi behar zuela konturatu zen. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **irlandesen kontra** (6)

---

# irlatar *iz* uhartetarra.

**Irlatarren** senaren hain kontrakoa zen intolerantzia hartan. Bego Montorio

---

# irlatxo *iz* uhartetxoa.

Kariben barnako **irlatxoak**. Edorta Jimenez

Gorpua erretzea edo hilkutxa **irlatxoaren** ondoan urperatzea. Bego Montorio

Kanadako Sari Nagusia Gilles Villeneuve zirkuituan korritzen da, Notre Dame **irlatxoan** kokatua dagoena. Berria - Kirola

Orduan **irlatxo** bat osatzen zuen eremu batean... Paddy Rekalde

---

**irmo** 1 *izond* kanpoko eraginari erraz amore ematen ez diona, koloka edo zalantzan ez dagoena. ik **sendo**.

Izotz gogorra, bide zabala, lur **irmoa** nonahi! Karlos Zabala

Lizunki begiratu zion, goitik behera, bular **irmoetatik** hasita. Migel Angel Mintegi

Fidel gizon **irmoa** dun, eta zuzena. Antton Olano

Biek indar askatu haien uhalei esku **irmoz** eutsi behar baliete bezala. Xabier Olarra

Esku **irmoarekin** ipini zuen oihal garbia astoaren gainean. Anton Garikano

Sakonera paregabeko begirada **irmo** harekin. Anton Garikano

-Weasley andereñoak eritegira joan behar luke oraintxe bertan -eten zuen Dumbledorek ahots **irmoz-** . Iñaki Mendiguren

Ahotsa **irmoa** eta argia. Jose Morales

Haren ibilera bizia eta **irmoa** da oraindik. Monika Etxebarria

Marfa Strogoff urrats **irmoz** ofizialari jarraitu eta posta etxetik irten zen. Karlos Zabala

Zer zela eta segurtamen **irmo** hura? Patxi Zubizarreta

Zu ikusteko eta zuri hitz egiteko borondate **irmoak** . Eduardo Matauko

Nork bere ikastetxean irratia antolatzeko erabaki **irmoarekin** . Joxerra Garzia

Erantzunak deus ez aitortzeko erabaki **irmoa** hartua zuela frogatzen zuen. Karlos Zabala

Adierazpen ugariak bezain **irmoak** . Askoren artean

Gelditzeko eskaera **irmoak** . Hasier Etxeberria

Beti izan zen haren lanaren defendatzaile **irmoa** . Oskar Arana

**2** (adizlagun gisa) ik **irmoki**.

-Orain ez -erantzun zion Lupinek **irmo-** . Iñaki Mendiguren

-Ergelak! -esan zuen, erdeinuz eta **irmo** . Jose Morales

Jansonek denbora izan zuen **irmo** eta larderiaz berriro esateko: [...]. Jose Morales

Neskak ahopeka egiten zituen galderak, baina zuhurki eta **irmo** . Jose Morales

Zeremonia magiko bateko berbak tonu **irmoan** ahoskatuz. Josu Landa

Erratzari **irmo** heldu isatsetik. Iñaki Mendiguren

Burdinazko barandari heldu zion **irmo** bi eskuez. Irene Aldasoro

Garrasi egin nuen, nire kontra **irmo** estutuz. Joxan Elosegi

Gorputzean, muskulu asko daude hezurrei **irmo** loturik. Irene Aldasoro

Fedearen egia **irmo** sinesten eta xalo aitortzen. Askoren artean

Bakoitzak bereari **irmo** eutsiz. Josetxo Azkona

Tradizioari **irmo** atxikirik. Isabel Arrigain

Zer dela eta eutsi zieten bi emakume horiek beren jarrerei hain **irmo** ? Ramon Saizarbitoria

Besoak eta zangoak, **irmo** tinkaturik, lau palanka ziren, indarrezko lanei ekiteko mekanikoki prestatuak. Karlos Zabala

EAk **irmo** gaitzetsi du Etxebarriko leherketa. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko komunitateak modu **irmo** eta bateratuan jokatu behar du. Berria - Mundua

Ateak ixtean atera zuen hotsa entzun zen, giltzari **irmo** eragitearen karranka hurrengo, eta gero bat-batean ur lasterren jarioa. Mirentxu Larrañaga

Estropezu egin zuen tximiniaren ertzean, baina hala ere arroka bat bezain **irmo** jarraitu zuen esku librean zeukan garagardoak. Koro Navarro

Ahotsa goratu gabe, emeki baina **irmo** . Xabier Olarra

Bennettek, eskua **irmo,** arrautza gisako ebaki sakon bat egin. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurka irmo** (3); **aurrean irmo** (5); **baina irmo** (14); **bezain irmo** (7); **erabaki irmo** (3); **erantzun irmo** (3); **ere irmo** (4); **eta irmo** (26); **fede katolikoan irmo** (3); **hain irmo** (6); **harryk irmo** (4); **irmo atxiki** (3); **irmo baina** (3); **irmo bat** (7); **irmo egon** (3); **irmo erantzun** (6); **irmo erantzun zion** (3); **irmo esan** (3); **irmo eta** (36); **irmo eta argia** (3); **irmo eusten** (8); **irmo eutsi** (11); **irmo eutsi zion** (3); **irmo gaitzetsi** (4); **irmo heldu** (5); **irmo jarraitu** (3); **irmo jarri** (5); **irmo jokatuko** (3); **irmo mintzatu** (3); **irmo sinesten** (3); **jarrera irmo** (3); **katolikoan irmo** (3); **modu irmo** (3); **modu irmo eta** (3); **oso irmo** (3); **zion irmo** (6); **zuen irmo** (8)

**aldeko jarrera irmoa** (5); **asmo irmoa** (6); **begirada irmoa** (3); **borondate irmoa** (16); **borondate irmoa duela** (5); **da irmoa** (7); **defentsa irmoa** (7); **defentsa irmoa eginen** (3); **epai irmoa** (3); **erabaki irmoa** (17); **erabaki irmoa hartu** (9); **erabaki irmoa hartua** (3); **erabakia irmoa** (4); **erantzun irmoa** (3); **eta irmoa** (15); **ez da irmoa** (5); **irmoa agertu** (4); **irmoa agertu du** (3); **irmoa azaldu** (5); **irmoa da** (6); **irmoa dela** (3); **irmoa duela** (9); **irmoa eginen** (3); **irmoa eman** (4); **irmoa erakutsi** (3); **irmoa erakutsi dute** (3); **irmoa eskatu** (3); **irmoa eta** (13); **irmoa ez** (4); **irmoa hartu** (11); **irmoa hartu gabe** (3); **irmoa hartu nuen** (3); **irmoa hartua** (4); **irmoa izan** (6); **irmoa zuen** (3); **jarrera irmoa** (19); **jarrera irmoa erakutsi** (3); **konpromiso irmoa** (10); **sendoa eta irmoa** (3); **sostengu irmoa** (3)

**ahots irmoz** (5); **baina irmoak** (3); **baina urrats irmoz** (3); **erabaki irmoaren** (3); **eta irmoagoak** (4); **eta irmoak** (4); **gaitzespen irmoena** (4); **irmoak izan** (3); **irmoz ari** (3); **irmoz ari naiz** (3); **jarrera irmoagoa** (3); **jarrera irmoak** (4); **pauso irmoak** (3); **urrats irmoz** (7); **urrats irmoz ari** (3)

---

**irmoki** *adlag* irmotasunez, irmo.

"Ezta Inglaterrako Erreginagatik ere", esan zuen Ramsay andreak **irmoki** . Anton Garikano

Itxaropenaren aingura **irmoki** Kristogan finkatua. Askoren artean

Hari beti finko eta **irmoki** lotuta. Imanol Unzurrunzaga

Luze eta **irmoki** iraungo zuela uste genuenak. Imanol Unzurrunzaga

Lucyk, eztiki, **irmoki,** eragotzi egiten du besarkada. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina irmoki** (4); **eta irmoki** (8); **irmoki defendatu** (3); **irmoki errefusatu** (3); **irmoki eta** (4); **irmoki salatu** (4); **irmoki sinesten** (3); **zuen irmoki** (4)

---

**irmotasun** 1 *iz* irmoa denaren nolakotasuna.

Lotura batzuen **irmotasuna** zein soka batzuen tenkada egokia egiaztatzeko. Jon Alonso

Indar ikaragarri handia eta lasaia adierazten zuen, ezin garaituzko **irmotasuna,** adore hotz eta ozarra. Jose Morales

Harria bezalako seta eta **irmotasuna** igartzen zitzaizkion masail irtenetan. Jose Morales

Norak tematsu begiratzen zion Andreasi, bere erabakiaren **irmotasuna** azpimarratzeko. Anjel Lertxundi

Imintzioak borondateren **irmotasuna** erakuts zezakeen. Joxean Agirre

**Irmotasun** berberaz mintzatzen zitzaien handiei nahiz txikiei. Askoren artean

Ohartu gabe intolerantziak, gogor-irteerak, **irmotasunak,** gutarrismo eriak, ideien purutasunak, koherentzia iraunkorrak eta abarrek, Plá-ren arabera, norekin eta kastillanoekin dituztela senidetzen eta berdintzen euskotarrak. Iñaki Segurola

Nabaria zen batere **irmotasunik** gabe mintzo zela. Jose Morales

Nire erantzunaren **irmotasuna** gorabehera, ataka gaiztoan sartu berria nintzen. Edorta Jimenez

Ikusten duzue nolako **irmotasunarekin** dioten maitasuna ez dela haientzat egina. Pako Aristi

Bere ausardiaz, bere adoreaz, **irmotasunaz,** loriarekiko maitasunaz eta bertuteaz beraz. Iñaki Iñurrieta

-Jakina -ni sasi- **irmotasunean** ari-. Txillardegi

**2** (izenondoekin)

Tuterako alkatearekin ere bildu ziren atzo, eta enpresa abiatzeko **«irmotasun** handiagoa» eskatu zioten. Berria - Ekonomia

Bota altu haien zarata martziala, pausoen **irmotasun** ozen perfektua. Karlos Linazasoro

Etsipen eszeptikoan erortzeko, edo **irmotasun** dogmatikoa onartzeko. Ibon Uribarri

Ahalegin handiz lortutako **irmotasun** etsi horrekin. Jose Morales

Kemen hutsa da Lucy, **irmotasun** hutsa. Oskar Arana

Adimen urriko haur batekin aritzeko baliatuko lukeen samurtasun osoz, baina Gibraltarko itsasartearen **irmotasun** ezkutukoaz-. Mirentxu Larrañaga

**3** ***irmotasunez***

Aihen-belarrak gora egin du **irmotasunez**. Araupeko bizitza daramatenen oinarriak lauki baten **irmotasunez** sendo iraun dezan. Eider Rodriguez

Manifestariek **irmotasunez** salatu zituzten gipuzkoar agintarien asmoak. Berria - Euskal Herria

**Irmotasunez** aritzeko ere eskatu zuen. Berria - Harian

**Irmotasunez** erantzun die, baina, Sharonek gobernukideen kritikei: [...]. Berria - Mundua

Buruari baretasunez eta **irmotasunez** eragin, eta esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Sendagilea oker egon liteke -esan zuen Willemek, eztabaidarik onartzen ez zuen **irmotasunez-**. Anjel Lertxundi

· Ezohiko **irmotasun** erabatekoz. Mirentxu Larrañaga

Garbi utzi nion, **irmotasun** otxanez, ez nengoela prest Aleph-az ezbaian jarduteko. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **duen irmotasun** (3); **eta irmotasun** (7); **eta irmotasuna** (5); **eta irmotasunez** (6); **haren irmotasuna** (3); **irmotasun berarekin** (4); **irmotasun handiagoa** (3); **irmotasuna eta** (7); **irmotasunez erantzun** (5); **irmotasunez eta** (3); **irmotasunez gaitzetsi** (3)

---

# **irmotu**, irmo(tu), irmotzen **1** da/du *ad* irmo edo irmoago bihurtu; irmo ezarri edo finkatu.

Gizona gelditu egiten da, **irmotu** eta arnasa hartzen du sakon. Oskar Arana

Berez kirasdunak diren lekuak neguan osasungarri bihurtzen direla, zeren eta hotzarekin sendotu eta **irmotu** egiten baitira. Santiago Iruretagoiena

Ohe gainean jarri zen; maindirearen tolesen artean ispilu bat **irmotu,** tindu-paleta atera, eta aurrealdeko xerloak urdintzeari ekin zion. Jon Muñoz

Ardatzak ziriez baizik ez zeuden itsatsirik gurtetxean, eta, hobeki **irmoturik** egon zitezen, zurezko haga bat jarri zuten batetik bestera eta bernoz eta azkoinez josi. Karlos Zabala

Hark azaldu zuenez, «Euskal Herrian auzitegi espainiarrek zilegitasunik ez dutela agerian gelditu zen joan den asteburuan Kursaalean», eta horixe bera da Bilbon **«irmotu»** nahi dutena. Berria - Harian

Baldin eta oker eta abusu horiek finkatu eta **irmotu** badira transakzio, azken instantziako epai edo arbitro ebatzien bidez eta gauza epaituaren indarraz. Andres Urrutia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Lerak aise eta trabarik gabe doaz irristan Barabaren azal **irmotuan** aurrera. Karlos Zabala

---

# **irobala** *iz*

Bezperan karramarro bat harrapatu eta etxera eraman nuen, **irobala** batetik helduta ipini nuen karramarro hura mahai gainean paseatzen. Joseba Sarrionandia

Eta karramarroa mahai gainean **irobalatik** lotuta paseatzen hasi nintzen. Joseba Sarrionandia

---

# **iroitsu** *izond* iraintsua.

Halaz, Edmeak Sebas eta aitari luzatu zien soako **iroitsuaz** axolarik ez bailuan, gainerakoak baino asko gorago zerraikan kantan, askoz gorago eta, itsusiago zena, okerrago. Itxaro Borda

---

# **irokesera** *iz* irokesen hizkuntza.

Egun jende asko txunditu egingo litzateke **irokeseratik** itzulitako eleberri edo poema baten aurrean, baina ez dio kasurik ere egiten Quebeceko edo Montrealgo kolono batek frantsesez idatzitako liburu bati. Berria - Mundua

---

# **irol** *iz* ahula.

Bisustu urte denean, bizki asko egin eta ume asko **irol** jaiotzen dira. Pello Zabala

---

# **iroldegi** *iz* komuna.

Goizeko 9etan eta arratsaldeko 4etan, 10 minutu ematen zaie atxilotuei, **iroldegirako** eta garbitegirako. Jokin Urain

---

# **ironia** **1** *iz* zerbaitez edo norbaitez iseka egiteko era, adierazi nahi denaren kontrakoa esatean datzana; zerbait esatean erabiltzen den isekazko moldea.

**Ironia** erremedio zuhurragoa da minaren kontra, kinina sukarraren kontra baino. Patziku Perurena

**Ironia** sarkasmotik bereizten duena **ironiak** objetuarekiko duen afektibitatea dela, sarkasmoak ez duena. Berria - Kultura

Ez dakite **ironiak** eta anbiguotasunak bereizten gaituela animaliengandik. Anjel Lertxundi

**Ironiaren** distantzia hori. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez da **ironia,** arraileria baizik. Berria - Kultura

Satira, sormena, **ironia,** irudimena... horiexek dira gerrilla komunikatiboaren osagaiak. Txema Ramirez de la Piscina

Begietan **ironiaren** su txikia eta etsipenaren langarra bat eginik. Joan Mari Irigoien

**Ironia** sumatu dio azken hitzetan. Arantxa Iturbe

Umorea eta **ironia** darie bere testuei, tristura eta garraztasunarekin batera. Itziar Otegi

Historiaren **ironia** badirudi ere, herrialde garatuenak dira [...] lehentasunezko baldintzak eskatzen dituztenak, eta ez simetrikoak, garapen-bideko herrialdeekiko trukeetan.

Koro Navarro

**Ironiaren** galbahea hautatu nuen haserrea kanporatzeko. Aingeru Epaltza

Umorea esaten dudanean, ez naiz algaraka aritzeaz ari, baizik eta **ironiarako** lizentziaz. Ana Urkiza

Historiaren **ironiaz,** Napoleonek bere karrera Waterloon bukatu zuen uneantxe hasi zuen Bernadotte kondeak berea: Suediako tronura igo berria zen, eta, horren bitartez, hura zen Norvegiako agintaria. Jon Muñoz

*ik beherago* 3. Askoren artean

**Ironiak** tindatzen zituen haren hitzak. Fernando Morillo

Hi gabe gu bakarrik, hau da **ironia** . Herria

**2** (izenondoekin)

"Orain hirugarren pisuko txalet batean bizi haiz, ez?" esaten zidan **ironia** mindu batekin. Patziku Perurena

Freskoa, mamitsua, umore onekoa eta **ironia** handikoa. Paddy Rekalde

**Ironia** fina erabiliz. Txema Ramirez de la Piscina

**Ironia** mehe bat sumatzen da orriz orri, hasieratik bertatik. Unai Elorriaga

-Ezkondu? **-ironia** goxo bat balitz bezala esan zuen-. Jon Muñoz

Entzungor egin diot bere **ironiari;** jarraitu dut: [...]. Monika Etxebarria

Bizitzak **ironia** garratzak zituen. Alberto Ladron Arana

**Ironia** garratzagorik esan zezakeen ordea gizon txikiak, baldin eta komediantearen film gehiago ikusi izan balitu. Harkaitz Cano

Bere ohiko **ironia** maltzurraz Keynesek buelta eman zion txantxari: [...]. Iñaki Heras

**3** (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa; orobat **ironi** g.er.) ik **ironiko**.

Denak balakatzen zituen, baina asmo oneko **ironia** tonu batez beti. Koro Navarro

Zer gura duk egitea? **-ironi** tonuaz saiatu zen Mentxu. Josu Landa

Erbesteratze horrek bazuen, preso ohiarentzat, **ironia** ukitu bat: askeago sentitzen zen, nonbait, Errusiarengandik askatasuna lortu berria zuen herrialde batean. Iban Zaldua

Jatera eta edatera eman hidan -gehitu zuen Ebanjelioko hitzak gogoratuz, halako **ironia** kutsu batekin- eta hire etxean aterpetu nindUan. Elena Touyarou

Behin sua baretuta, **ironia puntuarekin** hitz egin zuen Luis Marik. Berria - Harian

-Baina tronua beti hor dago, Versaillesen dago! -ausartu zinen erantzuten, **ironia** tanta batez. **Ironia** -aire amiñi bat. Koldo Izagirre

Inolako **ironia** -arrastorik gabe diot hori. Joxerra Garzia

Halako **ironia** sentimendu batek hartaratuta erosi nuen. Alberto Ladron Arana

· Infernu- **ironia** . Berria - Kultura

**4** ***ironiaz*** ik **ironikoki**.

Lagun batzuek **ironiaz** behatu zidaten aurrenekoz, mesederen bat erostekotan ote nenbilen edo morrontzarainoko izuan eroria ote nintzen. Koldo Izagirre

Mentxuk **ironiaz** egin zion barre bere buruari. Josu Landa

*Le Monde*-k, **ironiaz** irakur daitekeen titulua ezarri zion: "Rainier III de Monaco, le patron". Iñigo Aranbarri

Heriotzaren inguruan **ironiaz** aritzeko edo gertakizunak lazki eta, aldi berean, samurki aipatzeko... Ana Urkiza

Gizon gazteak barre egin du **ironiaz** . Monika Etxebarria

Zenbait ekonomilarik, **ironiaz,** kasino-ekonomia esaten diote ekonomia ez-erreal horri. Iñaki Heras

'Ilargia zela uste nuen,' esanen duzu **ironiaz** . Joseba Sarrionandia

-Zer, lapurren beldur? -galdetu zion **ironiaz** . Migel Angel Mintegi

**5** ***ironiazko*** *izlag* ik **ironiko; ironiatsu**.

Kontrarioa apaltzeko asmoz botatako **ironiazko** hitzak. Jon Alonso

Arestiren hori jolas bat izan zen, **ironiazko** ariketa bat. Xabier Mendiguren Elizegi

Horrek eragotzi zion nahi zukeen **ironiazko** doinua ematea. Koldo Izagirre

Zuzendari literarioaren haserrea nabarmena izan zen, are eta gehiago ondorengo hitzetan jarri zuen **ironiazko** zamarengatik. Jon Alonso

Moda-modako kirol-soineko batez jantzia, bi azeri-larru iletsu lepoan eta halako irribarre **ironiazkoa** ageri zuela, mindua eta zain dagoenaren irribarrea. Ander Irizar

Inork ez zidan sinetsiko, ertzainak erabili zuen hizketa lehor **ironiazko** bera erabiliko luke mundu guztiko poliziak ere: [...]. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina ironia** (3); **bere ironia** (6); **bere ohiko ironia** (3); **da ironia** (5); **du ironia** (3); **edo ironia** (3); **eta ironia** (40); **eta ironia ez** (3); **eta ironia fina** (3); **halako ironia** (5); **historiaren ironia** (6); **inolako ironia** (3); **ironia apur** (7); **ironia apur batez** (4); **ironia bat** (4); **ironia da** (3); **ironia erabili** (3); **ironia erabiliz** (4); **ironia eta** (33); **ironia eta umorea** (3); **ironia ez** (6); **ironia ezin** (3); **ironia fina** (6); **ironia hori** (5); **ironia iluna** (3); **ironia kutsu** (4); **ironia mehe** (6); **ironia nabarmenez** (3); **ironia pixka** (6); **ironia pixka batez** (3); **ironia puntu** (5); **ironia puntuarekin** (3); **ohiko ironia** (3); **oso ironia** (3); **umorea eta ironia** (9); **zidan ironia** (3); **zion ironia** (3); **zuen ironia** (5)

**bere ohiko ironiaz** (4); **da ironiaren** (3); **du ironiaz** (4); **esan zuen ironiaz** (4); **eta ironiarako** (3); **eta ironiaren** (8); **eta ironiaz** (15); **ez ironiarik** (4); **ez ironiarik gabe** (3); **ironiarako joera** (3); **ironiaren su** (3); **ironiarik gabe** (7); **ironiaz ari** (4); **ironiaz erantzun** (9); **ironiaz erantzun zien** (3); **ironiaz esan** (4); **ironiaz eta** (14); **ironiaz mintzatu** (4); **ironiaz mintzatu zen** (3); **ohiko ironiaz** (5); **zuen ironiaz** (13)

---

## ironiatsu **1** *izond* ironiaz betea, ironiazkoa.

Izenburu **ironiatsua** zuen artikuluak (¿Existe realmente Borges?). Anjel Lertxundi

Irribarre **ironiatsua** ageri zen emakumearen ezpain meheen ertzetan. Ibon Uribarri

Mintza-doinurik **ironiatsuena** hautatu nuen. Aingeru Epaltza

Marco Bellocchio-ren *La Cina è vicina* (Txina hurbil dago) filmeko izenburuaren alarma-dei **ironiatsua** . Anjel Lertxundi

Gazteak irri antzeko zerbait egin zion, keinu **ironiatsu** bat hobeki erran. Elena Touyarou

**2** (adizlagun gisa)

-Eta zuek zuen aitzur eta igitaien bidez geldiaraz gogo dituzue? -galdegin zien, **ironiatsu** . Elena Touyarou

-Horko kanpoko guda-oinean topatu dut -esan nion, **ironiatsu,** kazetarien diziplina ezarekin moldatzea zein zaila zen ulertarazteko moduan. Edorta Jimenez

Berari farrez ari zen, **ironiatsu,** goxotasunez iseka eginez bezala egunargitan lo zegoelako. Anton Garikano

---

## ironiatxo *iz adkor* ironia.

Antzina bateko egoeratxoei **ironiatxo** berritu batez begiratzeko moduko mezuak, alaxede! Anjel Lertxundi

---

## ironiazale *izond* ironiaren zale dena.

Itxaro Borda pertsona alaia eta pesimista da batera, **ironiazalea,** zorrotza eta kritikoa. Ana Urkiza

## **ironiko** *izond* ironiari dagokiona; ironiaz betea. ik **ironia 3; ironiatsu; ironia 5.**

-Zer? Azpikeria lanetan? -galdegin zien, boz lodiari doinu **ironikoa** erantsiz. Elena Touyarou

Eta badu gauza guztien gainean ipintzen duen ukitu **ironikoa**. Jon Alonso

Gurekiko, hots, bere adiskideekiko harremanek kutsu **ironiko** bat izaten zuten beti. Fernando Rey

Irribarre **ironiko** batekin agurtu nuen, esanez bezala: "Hik erakutsiko didak niri...! Joan Mari Irigoien

Erlojuaren barre **ironikoari** odola dario: hamarrak eta hamar. Sonia Gonzalez

Han "Liberté" izen **ironikoa** daraman dorrean itxiko dute. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez da galdera erretorikoa, ezta **ironikoa** ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Bisita labur **ironiko** horiek bizitzan kale egin dudala erakustearren egiten ote dizkit? Monika Etxebarria

Jainkoen begirada ezaxola eta **ironikoaren** azpian. Jon Alonso

Haren irribarre lotsak eragotzixe eta jaunkiro **ironikoan**. Juan Garzia

Izan ere, zer **ironikoago** subiranotasunaren esentzia baino, Michael Keating analista politiko ezagunaren hitzetan "post-subiranoa" den mundu honetan. Joseba Zulaika

Agure eszeptiko eta **ironiko** bat zen, erretorika guztien etsai. Juan Garzia

Heretikoa, **ironikoa,** emankorra... bai, pertsona bitxia izan zen Keynes. Iñaki Heras

Leihoak behar dira **ironiko** izateko. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **doinu ironikoa** (3); **eta ironikoa** (10); **eta ironikoan** (3); **ironiko bat** (12); **ironiko eta** (8); **ironiko izateko** (4); **ironikoa baino** (3); **ironikoa da** (8); **ironikoa eta** (8); **ironikoa izan** (3); **ironikoa zen** (3); **irribarre ironiko** (7); **irribarre ironikoa** (3); **izen ironikoa** (3); **oso ironikoa** (3); **oso ironikoa da** (3); **ukitu ironikoa** (3)

---

## **ironikoki** *adlag* ironiaz, era ironikoan.

Batere jan beharrik ez duena baina, **ironikoki,** guregan mila nahikari eta behar jarri zituena. Jon Alonso

-Hau duk hau jende xehearen altxatzeko mintzaldi hauta -komentatu zion Joanttok **ironikoki,** berantxago elkarrekin sagarno baso bana edan zutelarik. Elena Touyarou

Rantxitoak dira, hala deitzen baitiete **ironikoki** txabolei, barriotako jendearen bizilekuak. Pako Aristi

Annek buruaz baietz egin zuen **ironikoki**. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zuen ironikoki** (4)

---

## **ironizatu**, ironiza, ironizatzen du *ad* ironiaz esan.

Huskeria bat **-ironizatu** zuen. Fernando Morillo

«Kakamarlo batzuek zeharka dezakete, beraz autobiderik ez» **ironizatu** zuen. Berria - Euskal Herria

Ez dugu gure eredu ondratua islatu eta eredu horren alde txarrei buruz **ironizatuko** zuen joerarik ezagutu. Anjel Lertxundi

Irribarrea ezpainetaratu zitzaion Joseluren gizontzeaz isilean **ironizatuz,** dagoeneko mutikoa ez zela hain ume eta beregan eragindako portaera-aldaketa zuela haren froga zuzena. Josu Landa

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ironizatu zuen** (6)

---

## **ironizatzaile** *izond* ironizatzen duena.

Izan ere, ironiak ez ote du oinarri, umoreak ez bezala, **ironizatzaileak** bere burua ironiak joa baino gehiagotzat hartzea? Markos Zapiain

---

## **irozgarri** *izond* irozotzen duena, euskarria.

Nahi bainuke inork ere oraka ez baleza gure hizkuntza, hizkuntzarekin zerikusirik ez duten [...] ñabardura arrotzak nahi edo ez nahi hizkuntzari atxikiaraziz, ustez edo **irozgarri** egokiak direla, ez baitira batere hala. Pello Salaburu

Gure biktima gaixoak: haien sufrimendua gure Ideiaren **irozgarria** da; haiek biktimago eta gu arrazoidunago. Iñaki Segurola

---

## **irrada** 1 *iz* erradiazioa.

Argiaz izan diren kontzeptuen arrastoa ere erakutsi beharko luke, argia **irrada** bezala hartu denekoa, uhin bezala hartu denekoa, giro bezala hartu denekoa. Josu Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Lehen legea hau da, kultur **irrada** integral bat, argi- **irrada** integral bat bezala, bere osagaien espektroan difraktatzen dela, gauzaki errefraktario batera sartzean. Iñaki Mendiguren

**3** ***irradan*** abiada handian.

Handik, **irradan** zabaldu zen gero munduko laborategi eta unibertsitate guztietara. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irrada integral** (3)

---

## **irradagrama** *iz*

Man Ray-ren **irradagrama** (1898an argazkilariek "argizko eskulturak" egin zituzten berriro, tartean optikazko mekanismorik sartu gabe, paper fotosentibera zuzenean esposiziopean jartzeko printzipio horretantxe oinarrituta). Josu Zabaleta

---

## **irradatu**, irrada, irradatzen du *ad* irradak jaurti. • *irud*

Hondar-ale batzuk **irradatu** dizkiot garondo aldera, baina berak lo segi. Joxe Austin Arrieta

## **irradatze** *iz* irradak jaurtitzea.

Areagotu egin daitezke, hala ere, hainbat prozeduraz: **irradatzea,** tratamendu kimikoa, eta abar. Juan Garzia

Zeren iluntasun hura, berez baletor bezala, unibertso fisiko eta moraleko objektu guztietara zabaltzen baitzen, tristuraren **irradatze** etengabean. Koro Navarro

Beroaren **irradatzea** quant-erauntsi batekin parekatzera. Juan Garzia

---

## **irradiagailu** *iz* autoetan, motorreko beroa irradiatzeko gailua.

Egun bero batean, edo ariketa gogorra egiten denean, automobilaren **irradiagailuak** bezala funtzionatzen du larruazalak, airera igorriz beroa. Irene Aldasoro

---

## **irradiaktibitate** *iz*

Eguzkiaren **irradiaktibitatean** izandako fluktuazioen efektuak. Iñaki Mendiguren

---

## **irradiatu,** irradia, irradiatzen **1** du *ad* argia, beroa... hainbat norabidetan igorri.

Galaxia zaharrak baino askoz argi ultramore gehiago **irradiatzen** dute galaxia gazteek. Berria - Gaiak

Eguzkiak **irradiatzen** duenetik, 0,000.000.000.5 bakarrik. Pello Zabala

Beroa goraka **irradiatzean** . Pello Zabala

**2** *irud*

Endelegu egileak eragina du lurrean, eta berarengandik **irradiatuak** dira gure jakintzak. Xabier Kintana

Izan ere, horrezaz gain askoz ohore gehiago egiten dio, pertsona bezala eta bere jakinduriatik **irradiatuta** beste askorengana iristeko berezko eskuzabaltasunak Berria - Kultura

---

## **irradiatzaile** *izond* irradiatzen duena.

Bigarren legea, difrakzioa gerta daitekeela, halaber, gizarte-gorputz arrotzean inolako inpakturik gabe, gizarte **irradiatzailea** dagoeneko kolapsoa izan eta desintegratzen ari bada. Iñaki Mendiguren

---

## **irradiazio** **1** *iz* irradiatzea.

Argiaren **irradiazio** fisikoarekin. Iñaki Mendiguren

Iristen zaizkigun **irradiazio** horretatik kopuru dezentekoa atmosferako geruzek iragazten dute. **Irradiazioa** erradioaktibitate iturri batetik gertuegi zaudenean gertatzen da. Pello Zabala

Kasu honetan are larriagoa da, kutsadura izan delako eta ez **irradiazio** soila. Berria - Gaiak

**Irradiazioz** edo beste zerbaitez ikusteko ahalmena nolanahi izanda ere, ezingo dugu ikusmenez ikusi ahalmen hori; arimaz aztertu behar dugu eta agian arimaz hura ulertzera iritsi gaitezke. Imanol Unzurrunzaga

**2** *irud*

Kultur eragin siriako eta helenikoek Arabiarantz izandako **irradiazio** luze eta iraunkorrak gizarte-ondorio metakorra sortu zuen. Iñaki Mendiguren

Zibilizazioaren **irradiazio** difraktatuak. Iñaki Mendiguren

Gizarte-inguruneak historiaz hitz egiten dion gutxiengoarentzat, gizarte-ingurune historiko baten **irradiazioaren** mende egotea berez ez zen nahikoa historialari bat inspiratzeko. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan)

Azterlan honetan beste nonbait kulturaren gizarte-**irradiazioa** argiaren irradiazio fisikoarekin alderatu dugu. Iñaki Mendiguren

Gizarte horietan zibilizazioa bere hazkundealdian maila ezberdinetan eragiten ari zelarik bere kultur **irradiazioaren** bidez. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **kultur irradiazioaren** (3)

---

## **irrati** **1** *iz* haririk gabeko telefonia.

Lee Forest, **irratiaren** asmatzaileetako bat. Pello Salaburu

**Irrati** edo telebistako hitzaspertu luzeetan. Pako Aristi

**Irrati** eta telebistako programa berezien bidez. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Berehala, baita **irrati** bidez ere, lau haizeetara hedatu dute berria. Txillardegi

**Irrati** -gizona zen, batik bat, Mario Kaplun. Txema Ramirez de la Piscina

Hego Euskal Herriari dagokionez, Espainiako Gobernua da **irrati** -espektroaren jabe. Berria - Harian

**Irrati** frekuentzien banaketari erreparatuz gero. Berria - Harian

Gela **irrati** -laborategi eta mintzatoki bihurtzea predikatzen nuen ikastaro haietan. Joxerra Garzia

**Irrati** -muntaiak eskuz egiten genituen. Joxerra Garzia

Euskal Herria sukaldarien herria da, euren esku dauzkate telebista eta **irrati** programak, egunkarietako gehigarriak. Pako Aristi

**Irrati** teknika ikasteko gaitasuna. Herria

Zutabeak idazten, **irrati** -kolaborazioak egiten, komikiak marrazten. Andoni Egaña

**Irrati** -narrazio bat egiteko. Bernardo Atxaga

Patziko auzoa Marseillan galdu zuen, zertifikata erdietsia zuelakoan **irrati** -transmisioetara bideratu zuten. Itxaro Borda

**Irrati** emisio bitartez zabaltzen hasi zen mezuan desobedientziarako deia egiten zuen. Berria - Mundua

**Irrati** Kazetaritzako teknikak. Herria

Zure Barne Ministroak esan du bart, **irrati** tertulia batean. Koldo Izagirre

Hala zioen 1934an **irrati** -elkarrizketa batean: [...]. Iñaki Heras

Egiptoko portuetako administrazioak ontziarekiko **irrati** lotura galdu zuen ostegun gaueko hamarrak inguruan. Berria - Mundua

710 **irrati** iragarki eta 906 telebista iragarki zabalduko ditu Hezkuntza Sailak. Berria - Euskal Herria

Bost herri telebista, 30 **irrati**-emandegi, 60 herri aldizkari, 63 aldizkari espezializatu, 60 berripaper eta 34 eskoletako argitalpen. Txema Ramirez de la Piscina

Telebista eta **Irrati** Hedapenerako Europako Batasuna. Berria - Kirola

Lurreko **irrati**-teleskopioen bidez. Berria - Gaiak

**3** irrati igorgailua. ik beherago **10.**

1982an, Euskadi **Irratia** abian jarri zenean. Pello Zabala

Hiru eskual **irratiak,** Xiberoko Botza [...] Irulegiko **Irratia** eta Gure **Irratia,** beharbada, ondoko egunetan elkarrekin irrati bat egin lezakete. Menane Oxandabaratz

Bost urte egin nituen **irratian,** Andia kalean. Joxerra Garzia

**Irrati** lokaletan ere, denek nahi dute eguraldiaren berri gertutik jarraitu. Pello Zabala

Arratsean **irrati** frantsesa aditzen genuen. Fernando Rey

Zulo horretan Alemaniako **irrati** bat entzuteak harritu zaitu. Lutxo Egia

Kabulgo **irrati** baten arabera. hark bere behinolako bulegoan alemaniar **irratia** sintonizatu du eta ateari giltza eman dio. Josu Zabaleta

**Irrati** guztietako berriak entzun ondoren (Bagdad **Irratia**, Israel **Irratia**, Mosku **Irratia** eta Amerikako Ahotsa), aitak liburu lodia hartzen zuen, eta olerkiak irakurtzen zizkigun. Juan Kruz Igerabide

Erresistentziaren **irrati** pirata zen. Juan Kruz Igerabide

**Irrati** publiko eta bestelakoak. Andoni Egaña

Euskal **irrati** publiko bateko kazetaria. Iñigo Aranbarri

Urte bakar batean 2.000 **irrati** libre sortu ziren. Txema Ramirez de la Piscina

**Irrati** klandestino batek. Josu Zabaleta

Kristau **irrati** bat, hori baita Lapurdi Irratiaren berezitasuna. Herria

"RadioKultura.com" interneteko **irrati** elebidunaren egitasmo berria. Herria

Kasik 30 euskal **irrati** daude Arrosa sare horren barnean Herria

**4** (hitz elkartuetan)

Hiriburuetako **irrati**-estudioak. Pello Zabala

Jose Antonio Uriarte Itxaso kazetari eta **irrati** zuzendaria. Berria - Kultura

Cadena Ser Espainiako **irrati** sareak ziurtatu duenez. Berria - Mundua

Iruñeko **irrati** lizentziak banatzeko. Berria - Harian

40 Principales **irrati** formularen 40. urteurrena ospatzeko. Berria - Kultura

Gerraren **irrati**-babel koxkorra zen, heriotza-mezu askotarikoak, itsasontzi zein hegazkinetatik igorriak. Juan Garzia

· Aparatu **irrati**-hartzaile bat zen funtsean, maiztasun-alde txiki-txikiak atzematen zituena. Juan Garzia

**5** irrati hargailua. ik beherago **7.**

Altzari ilun dotore askoak, zorua linolioz eta alfonbraz estalia, **irrati** bat, lanpara eder bat, dena zoragarria, benetan. Josu Zabaleta

**Irrati** hura aurikularren bitartez entzun behar zen eta. Pako Aristi

Koru bat La Marseillaise kantatzen hasi zen **irratian**. Anjel Lertxundi

Hauxe besterik ez geneukan etxe hartan: armairu bat eta aitaren **irrati** sobietarra; hura aditzen egoten zen aita egun osoan. Juan Kruz Igerabide

**Irrati** baten dialari eragiterakoan ateratzen diren hotsak iruditu zitzaizkidan. Anjel Lertxundi

Ez zuen **irratia** piztu. Jasone Osoro

**Irrati** txikia isiotu eta ohea egiteari ekin nion. Jokin Urain

Hori entzunda **irratia** amatatu zuen aitak purrustada bat eginez. Koldo Izagirre

**Irrati** bat frekuentziatik kanpo sintonizatuta dagoenean bezala. Harkaitz Cano

**6** (hitz elkartuetan)

Egunean zehar ez zen entzuten **irrati**-hotsa besterik. Juan Kruz Igerabide

Gauean entzundako **irrati**-hotsekin gogoratu nintzen. Anjel Lertxundi

**Irrati**-denda batean lan egiten zuela. Fernando Rey

**Irrati**-saltzaile harekin ezkondurik egon zitekeen. Fernando Rey

· Transistore **irratia** asmatu zen 1954an, eta urte berean sortu zen lehenbiziko indarretxe nuklearra. Pello Salaburu

**7** ***irrati aparatu*** irrati hargailua.

**Irrati** aparatu urrun bateko marmari monotonoa. Aingeru Epaltza

**Irrati** aparatu baten musika zetorren patiotik. Javi Cillero

Atsegina egin zitzaidan inguruko gauzek erakusten zuten tinkotasuna, zein seguru zegoen **irrati** aparatua alfonbraren gainean. Bernardo Atxaga

**Irrati aparatu** urrun bateko marmari monotonoa. Aingeru Epaltza

**8** ***irrati emanaldi*** ik **irratsaio.**

Alexis Díaz Pimientak kontatzen digu azken urteetan zer gertatzen den **irrati**-emanaldietan. Andoni Egaña

Nola ibiltzen ginen gu **irrati** emanaldiekin, batetik bestera aldatuz, hala zabiltza zu egun telebistarekin ere. Pello Salaburu

Mahai inguru sakonak, **irrati** emanaldi sonatuak. Itxaro Borda

Gure **irrati** emanaldiak hobetzea, satelite bidezko telebista bat abiatzea. Berria - Mundua

**9** ***irrati emankizun*** irrati emanaldia.

Patrick Cassanek egun horietako prentsa artikulu, **irrati emankizun** eta telebista erreportaiak bildu ditu. Berria - Euskal Herria

Integrazio Batzordeak sei orenetako **irrati emankizun** berezia antolatua zuen iragan larunbatean, "Irrat' 6" izenekoa. Herria

Azti-Begia elkarteak **irrati** emankizuna satelitez ere hedatuko du. Berria - Euskal Herria

**10** ***irrati emisore*** *(orobat* ***emisora****)* irrati igorgailua.

Mentxuk paretaren kontra zegoen **irrati** emisorea seinalatu zuen. Josu Landa

**Irrati-emisoreentzat** kontzesioa exijitzea. Berria - Euskal Herria

**Irrati emisoraz** aldatu eta Jan Garberren musika ematen ari zen bat aukeratu nuen. Fernando Rey

Katalanezko lau **irrati emisora** publikoak. Berria - Euskal Herria

**11** ***irrati esatari***

Nik al dakit zer goraipatzen jardundako **irrati**-esatari guztiak. Joxe Austin Arrieta

Ekitaldiak musikazale eta **irrati** esatari ezaguna izango du aurkezle: Pello Zabala. Berria - Kultura

Desobedientzia zibilaren kriminalizazioaz aritu ziren Joxe Mari Elosua eta Enrique Lertxundi abokatuak atzo Donostiako Miramar Jauregian, Txema Auzmendi **irrati esataria** moderatzaile zutela.

Tokitan daude [...] **irrati-esatariak** berri emaile lanak egiteko errepide ertzeko tabernen bila ibiltzen ziren garaiak Berria - Kirola

**12** ***irrati hargailu*** ik **irratigailu.**

**Irrati**-hargailuetan erabiltzen den bolumen-kontrol automatikoarekin konpara daitekeen baliabidea. Irene Aldasoro

### 13 *irrati igorgailu*

**Irrati** -igorgailu batek sortzen ditu seinale elektriko horiek. Irene Aldasoro

**Irrati** igorgailu txiki bat daraman tandem bizikleta honek. Berria - Mundua

### 14 *irrati iratzargailu* (*orobat* ***esnagailu***)

Hiru liburuek osatutako behin-behineko mahaitxoaren gainean Gipuzkoako Kutxaren irrati- **iratzargailua** . Eider Rodriguez

Informazioaren garaiotan, **irrati-iratzargailuaz** esnatzen gara. Andoni Egaña

Atzo goizean, berriro ere, madarikatu egin nuen **irrati** -esnagailua erosi izana. Joxerra Garzia

### 15 *irrati-kasete* (*orobat* ***iratikasete***)

Autoetako **irrati** -kaseteak. Aingeru Epaltza

Gidariak eskularruen kutxa ireki zuen, kasete bat atera, eta **irrati-kasetean** ipini zuen. Juan Kruz Igerabide

**Irrati** -kasetea, ordea, konpontzera eraman nuen, eta merkatuko baflerik indartsuenak gehitu nizkion. Iban Zaldua

Goizean ikusitako **irrati** -kasete antzeko hartatik entzungailuak ateratzen ziren. Fernando Morillo

Bere besaulkira doa eta ondoan jartzen du **irratikasetea** . Xabier Mendiguren Elizegi

### 16 *irrati kate*

Espainiako **irrati** kate publikoan. Berria - Harian

Onda Cero **irrati** kateak Eibarren (Gipuzkoan) duen egoitzan. Berria - Euskal Herria

Irratia piztean frantsesezko **irrati** kate bat gaztelerazko batekin nahastuta entzun zuen. Harkaitz Cano

**Irrati** kate hispanoen aldetik. Berria - Mundua

**Irrati** kate komertzial eta pribatu guztiek zerga ordaindu behar dute publizitateagatik. Berria - Harian

### 17 *irrati saio* (*11 esaldi, 3 liburu eta 6 artikulutan*) irratsaioa.

Ordu txikietan entzundako **irrati** -saio bateko raï musikaz. Iban Zaldua

Turkiak kurduerazko telebista eta **irrati** saioak abiatu ditu. Berria - Mundua

Entzule kopuru handien duten telesailak, edo harrera handien duten **irrati** saioak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

### 17a *irrati-taxi* ik **radio**[1] **2.**

Kasurik ez egiteko estaziorako **irrati** -taxikoen deiei. Iban Zaldua

### 18 *irrati-telebista* *pl* irrati eta telebista.

Frantsesa baita eta franses prentsan edo franses **irrati** -telebixtetan frantsesek bakarrik merezi dituzte laudorioak. Herria

**Irrati** -telebistetako iritzi emaile askok. Txema Ramirez de la Piscina

Euskara **irrati** -telebista publikoetan erabiltzea. Berria - Euskal Herria

Azkenean, Euskal Herria aipatua izanen da prentsa- **irrati** -telebixtetan. Herria

### 19 *irrati teleskopio* ik **irratiteleskopio**.

### 20 *irrati uhin*

**Irrati uhinak** zapuzteko tresneria. Berria - Harian

Horrez gain, Lurrarekin komunikatzeko modu berriak probatu dituzte: **irrati uhinak** beharrean, laser izpiak eta oso maiztasun handiko transmisioak erabili dira. Berria - Gaiak

**Irrati** -uhinen arteko txanparik gailurrena harturik etxe guztietara iritsi da bere ahotsa. Pako Aristi

Irain, mespretxu eta jauntxokeria merkea barra-barra darabilen **irrati** -uhinetako izar itzaltsuak. Joxerra Garzia

Hainbat jabe dituzte euskal **irrati** uhinek. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**and roll irrati** (5); **arrosa irrati** (5); **bat irrati** (5); **cero irrati** (4); **da irrati** (6); **den irrati** (4); **duen irrati** (5); **dute irrati** (4); **edo irrati** (5); **eko irrati** (9); **eko irrati lizentzien** (4); **ere irrati** (5); **erriko irrati** (6); **erriko irrati lizentzien** (4); **espainiako irrati** (15); **eta irrati** (61); **eta irrati publikoak** (4); **eta irrati publikoaren** (4); **euskal herriko irrati** (6); **euskal irrati** (15); **euskarazko irrati** (6); **gure irrati** (10); **hainbat irrati** (5); **herriko irrati** (6); **irrati bat** (26); **irrati batean** (16); **irrati batek** (4); **irrati batekin** (4); **irrati bateko** (4); **irrati baten** (11); **irrati bati** (7); **irrati bidez** (15); **irrati edo** (7); **irrati elkarrizketa** (7); **irrati elkarrizketa batean** (5); **irrati emisora** (6); **irrati esatari** (7); **irrati esatariak** (5); **irrati espektroa** (6); **irrati espektroaren** (5); **irrati eta** (92); **irrati eta telebista** (26); **irrati eta telebistako** (5); **irrati eta telebistaren** (4); **irrati eta telebistetan** (12); **irrati eta telebixtek** (6); **irrati eta telebixtetan** (5); **irrati hori** (4); **irrati horrek** (4); **irrati kate** (24); **irrati kateak** (11); **irrati katean** (7); **irrati katearen** (9); **irrati kateari** (6); **irrati libre** (4); **irrati libreak** (4); **irrati libreen** (8); **irrati lizentziak** (7); **irrati lizentzien** (14); **irrati lizentzien banaketa** (4); **irrati lizentzien banaketan** (4); **irrati publikoak** (8); **irrati publikoan** (8); **irrati publikoaren** (5); **irrati saio** (5); **irrati telebista** (11); **irrati telebistak** (5); **irrati telebistako** (4); **irrati telebistetan** (5); **irrati telebixta** (4); **irrati telebixtak** (4); **irrati telebixtek** (4); **irrati telebixtetan** (6); **iruñ iruñ iruñ iruñ israelgo irrati** (5); **madrilgo irrati** (5); **onda cero irrati** (4); **ser irrati** (14); **ser irrati kateak** (4); **ser irrati katearen** (4); **telebista eta irrati** (24); **zegoen irrati** (5); **zen irrati** (6); **zuen irrati** (4)

**antxeta irratia** (6); **batean irratia** (4); **da gure irratia** (4); **da irratia** (5); **du euskalerria irratia** (4); **du irratia** (4); **edo irratia** (4); **egin irratia** (11); **eta egin irratia** (5); **eta gure irratia** (7); **eta irratia** (45); **eta irratia entzuten** (4); **eta irratia piztu** (11); **eta irulegiko irratia** (5); **euskadi irratia** (30); **euskadi irratia sariaren** (4); **euskalerria irratia** (44); **gure irratia** (88); **gure irratia eta** (6); **gure irratia gure** (4); **herri irratia** (5); **irratia amatatu** (4); **irratia da** (4); **irratia edo** (5); **irratia entzun** (11); **irratia entzunez** (8); **irratia entzuteko** (5); **irratia entzuten** (36); **irratia entzuten ari** (4); **irratia ere** (9); **irratia eta** (40); **irratia eta telebista** (5); **irratia eta xiberoko** (6); **irratia ez** (5); **irratia gure** (4); **irratia itxi** (4); **irratia itzali** (10); **irratia itzali zuen** (6); **irratia izan** (4); **irratia jarri** (8); **irratia jartzen** (5); **irratia pizten** (10); **irratia piztu** (54); **irratia piztu dut** (7); **irratia piztu eta** (15); **irratia piztu nuen** (7); **irratia piztu zuen** (12); **irratia piztuta** (11); **irratia sariaren** (4); **irratia sortu** (4); **irulegiko irratia** (35); **irulegiko irratia eta** (8); **lapurdi irratia** (12); **sartu eta irratia** (4); **telebista eta irratia** (6); **zen irratia** (6); **zuen irratia** (10)

**antxeta irratiak** (7); **du euskalerria irratiak** (5); **du gure irratiak** (5); **eta euskal irratiak** (4); **eta irratiak** (16); **euskadi irratiak** (25); **euskadi irratiak atzo** (4); **euskal irratiak** (42); **euskalerria irratiak** (31); **gure irratiak** (55); **gure irratiak bere** (4); **gure irratiak eta** (5); **gure irratiak lanpostu** (4); **herri irratiak** (8); **ingeles irratiak** (8); **irratiak atzo** (8); **irratiak bere** (10); **irratiak ere** (5); **irratiak esan** (5); **irratiak eta** (26); **irratiak ez** (12); **irratiak lanpostu** (4); **irulegiko irratiak** (24); **lapurdi irratiak** (13); **ser irratiak** (4); **zuen irratiak** (8)

**arrate irratian** (7); **atzo euskadi irratian** (11); **bilboko herri irratian** (5); **da gure irratian** (4); **eta irratian** (19); **euskadi irratian** (67); **euskadi irratian egin** (5); **euskadi irratian egindako** (6); **euskadi irratian eginiko** (4); **euskalerria irratian** (4); **gasteiz irratian** (4); **gure irratian** (21); **herri irratian** (27); **irratian adierazi** (4); **irratian atzo** (4); **irratian edo** (6); **irratian egin** (14); **irratian egin zioten** (6); **irratian egindako** (19); **irratian egindako adierazpenetan** (5); **irratian egindako elkarrizketan** (5); **irratian eginiko** (7); **irratian entzun** (21); **irratian entzun nuen** (4); **irratian entzuten** (9); **irratian ere** (5); **irratian eta** (18); **irratian eta telebistan** (6); **irratian euskaraz** (12); **irratian euskaraz fm** (6); **irratian ez** (5); **irulegiko irratian** (21); **lapurdi irratian** (35); **lapurdi irratian euskaraz** (10); **loiola irratian** (6); **loiolako herri irratian** (8); **meza irratian** (7); **zuen irratian** (4)

**eta irratiaren** (5); **euskadi irratiaren** (4); **euskadi irratiari** (28); **euskadi irratiari atzo** (4); **euskadi irratiari eskainitako** (18); **euskalerria irratiaren** (10); **euskalerria irratiari** (9); **gure irratiaren** (20); **gure irratiari** (5); **herri irratiari** (5); **irratiaren alde** (16); **irratiaren aldeko** (8); **irratiaren arabera** (7); **irratiaren bidez** (6); **irratiaren bitartez** (4); **irratiaren bolumena** (5); **irratiaren egoitza** (4); **irratiaren eta** (4); **irratiaren inguruan** (4); **irratiaren kanpaina** (8); **irratiari atzo** (8); **irratiari eskainitako** (24); **irratiari eskainitako elkarrizketa** (8); **irratiari eskainitako elkarrizketan** (16); **irulegiko irratiaren** (31); **irulegiko irratiaren alde** (10); **irulegiko irratiaren kanpaina** (6); **irulegiko irratiari** (9); **lapurdi irratiaren** (8); **ser irratiari** (4)

**eta irratiek** (8); **eta irratietan** (8); **euskal irratiek** (42); **euskal irratiek zabalduko** (8); **euskal irratien** (13); **euskal irratien barne** (4); **euskal irratietako** (7); **euskal irratietan** (32); **irratiek eta** (8); **irratiek zabalduko** (8); **irratiek zabalduko dute** (5); **irratien barne** (4); **irratien barne akordioaren** (4); **irratien bidez** (9); **irratietan eta** (8); **telebista eta irratietan** (4)

**du irratiko** (5); **edo irratiko** (5); **eta irratiko** (11); **eta irratiz** (4); **euskadi irratiko** (37); **euskadi irratiko madrilgo** (7); **euskalerria irratiko** (36); **euskalerria irratiko kideak** (4); **euskalerria irratiko kideek** (5); **euskalerria irratiko kideen** (5); **euskalerria irratiko zuzendari** (8); **euskalerria irratiko zuzendariak** (6); **frankfurteko irratiko** (4); **frankfurteko irratiko orkestra** (4); **gure irratiko** (8); **herri irratiko** (6); **irratiko esatari** (8); **irratiko esataria** (5); **irratiko kazetariak** (5); **irratiko kideak** (7); **irratiko kideek** (10); **irratiko kideen** (6); **irratiko madrilgo** (7); **irratiko musika** (4); **irratiko orkestra** (13); **irratiko orkestra sinfonikoa** (4); **irratiko orkestra sinfonikoak** (6); **irratiko zuzendari** (11); **irratiko zuzendari mikel** (10); **irratiko zuzendaria** (6); **irratiko zuzendariak** (14); **irratiz entzun** (5); **irulegiko irratiko** (7); **koloniako irratiko** (7); **koloniako irratiko orkestra** (6); **segura irratiko** (5); **zuen irratiz** (4)

---

## irratigailu *iz* irrati hargailua.

1945etik haste Tolosako irratiak hedatzen zituen aste oroz orkestra horren piezak, mazurka, polka eta beste, segur aditzaile anitz hurbiltzen baitziren beren **irratigailura** ordu

goxo baten pasatzeko menturan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Irratigailu** edo radiorik ez zen kasik batere, 1930eko hamarkadan oraino... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

# **irratigintza** *iz* irrati jarduera.

Euskarazko **irratigintzaren** historian. Joxerra Garzia

Nolakoak izan ziren euskararen hastapenak iparraldeko **irratigintzan** ? Berria - Euskal Herria

Irulegiko Irratiak 241.000 euroko aurrekontua du aurten; **irratigintza** garapen funtsak finantziatuko du aurrekontuaren %25, publizitateak %24 eta gazte kontratuek %10. Berria - Euskal Herria

---

# irratikasete ik **irrati 15**.

---

# **irratikide** *iz* irrati berekoa.

Paolo kazetariak han ezagutzen duen **irratikide** bati buruz hitz egiten dit. Edorta Jimenez

---

# **irratilari** *iz* irratian aritzen den pertsona.

Sophie Hontaas eta Alexandre Aguerre **irratilariek** kudeatu duten mahain-inguruan. Herria

Berri agentzietako ordezkariak, **irratilariak** [...] telebista kamerak eta teknikariak, argazkilariak. Aingeru Epaltza

WKFM irratiko **irratilarien** argazkiak behar ditut. Iñaki Zabaleta

Hogeita lau orduz **irratilari,** edo hogeita lau orduz idazle. Arantxa Iturbe

---

# **irratitelefonogailu** *iz* uhin hertziarren bidez dabilen telefonoa.

Telefonoz, telegrafoz, fonografoz horniturik, **irratitelefonogailuz,** zinematografoz, linterna magikoz, hiztegiz, ordutegiz, arautegiz, albistariz... Juan Garzia

---

# **irratitelegrafo** *iz* uhin hertziarren bidez dabilen telegrafoa.

**Irratitelegrafoen** ganbaran eman nituen gau eta egun asko hegoaldeko itsasoetan, Hego Barearen itsasbidea egiten zuten ikatzez betetako kargaontzi haietan. Javi Cillero

---

# **irratiteleskopio** *iz* argizagi eta kidekoak igortzen dituzten irrati uhinak atzematen dituen hargailua.

Lurreko **irrati-teleskopioen** bidez, izotz aztarnak aurkitu dituzte latitude altuetan dauden inguruetako krater eta gerizpeetan. Berria - Gaiak

**Irrati-teleskopioa** estreinatu du aurten, Donostian, Miramongo Zientziaren Kutxagunean. Berria - Kultura

---

# **irratitxo** *iz* irrati hargailu txikia.

Ordubata: denak adi-adi BBC irratiko berriak entzuten, **irratitxoaren** inguruan jarrita. Josu Zabaleta

Eltzo lepaluzea azaldu zen, belarrian **irratitxoa** zuela. Pablo Sastre

---

# **irratizale** *izond* irratiaren zalea dena.

Nire laguna ez zela inoiz ez **irratizale** ez prentsa irakurle izan oroitu eta trankildu nuen neure burua. Aingeru Epaltza

Irulegiko Irratiak gomitatzen ditu laguntzaile, entzule eta **irratizale** guziak 2003ko otsailaren 1an eginen duen Biltzar Nagusirat. Herria

---

# **irratsaio** *(**33** esaldi, **4** liburu eta **14** artikulutan)* *iz* irrati emanaldia.

Goizaldeko **irratsaio** batean. Patxi Zubizarreta

Hala Bedi irratiko *Puntu eta Koma* kultur **irratsaioan** . Jon Arretxe

Poemen liburuko irakurketa "normalagatik" ez ezik, **irratsaioen** eta zuzeneko irakurketen bitartez -izugarri ondo irakurtzen omen zuen-, rockeko izar baten fama bildu zuen. Koro Navarro

Zuzeneko **irratsaio** baten antza izango du antzezlanak. euskal musikari eta dantzari eskainitako **irratsaio** batean.

Bakartientzako **irratsaio** nahiz telebista saioek gauetan izan ohi dute arrakasta gehien. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irratsaio bat** (4); **irratsaio batean** (5); **irratsaio baten** (5); **irratsaio eta** (3); **irratsaio honetan** (4)

---

# **irrazional** **1** *izond* arrrazoiaren araberakoa ez dena.

Animalia **irrazionalen** sentimenei. Imanol Unzurrunzaga

Izatasun **irrazional** eta bizigabeak. Imanol Unzurrunzaga

Arima **irrazionalaren** bakea ezinezkoa da gorputzaren bakerik gabe. Imanol Unzurrunzaga

Alde **irrazionala** edo arrazionala azaleratzen du idazleak? Ana Urkiza

Arrazoimenak, adimenak edo espirituak arimaren mugimendu **irrazionalak** menderatzen dituenean, orduan eta orduantxe bakarrik esan daiteke gizakiarengan nagusitzen dela nagusitu behar duena. Imanol Unzurrunzaga

Neure burua distantziaren bidez babesteko sen **irrazionalari** amore emanez. Aingeru Epaltza

Harrotasunezko seta **irrazional** batengatik. Juan Garzia

Nahiago ditugu bizidunak bizigabeak baino, sentiberak sentitzen ez dutenak baino, adimendunak **irrazionalak** baino. Imanol Unzurrunzaga

**Irrazionalak** al dira osasunari buruzko ideia puritano baten mende bizi direnak? Bernardo Atxaga

Zientzien azken oinarria **irrazionala** da. Askoren artean

· Gure diziplinan [filosofian], "razional" adierazteko "arrazional" hitza erabiltzeak muga kontzeptual bat suposatzen duela uste dugu, "razional", **"irrazional"** eta "arrazional" hitzek kontzeptu filosofiko desberdinak adierazten baitituzte. Askoren artean

**2** zenbakiez mintzatzuz, bi zenbaki osoren zatidura gisa ezin eman daitekeena.

Al Karaji, kantitate **irrazionalak** zenbakitzat hartu zituen lehena. Jon Muñoz

Zenbaki **irrazionala** zenbaki gorra da. Jon Muñoz

Ordu arte erabilitako zenbakiei, berriz, -positiboei eta negatiboei, arrazionalei eta **irrazionalei** - zenbaki erreal deitu zitzaien. Jon Muñoz

Ba al da aljebraikoa ez den zenbaki **irrazionalik**? Jon Muñoz

Magnitude **irrazionalak** bazirela onartu zuten greziarrek, halabeharrez agertzen zirelako. Jon Muñoz

2ren erroa **irrazionala** zela frogatzeaz gainera, [...]. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta irrazionala** (4); **irrazionala da** (4); **irrazionala dela** (3); **irrazionala eta** (3); **irrazionala zela** (4); **irrazionala zen** (3)

---

# irrazionalismo *iz* irrazionaltasuna.

Humerekin, izan ere, jadanik ez gaude razionalismoan, beren-beregi anti edo **irrazionalismo**-mota batean baizik. Askoren artean

Munduaren **irrazionalismo** etikoa. Joxe Azurmendi

---

# irrazionalkeria *iz* irrazionaltasun gaitzesgarria.

Ideologiak eta **irrazionalkeriak** psikoanalizatzea eta desmaskaratzea. Joxe Azurmendi

Gure txoko honetan **irrazionalkeria** bultzatzen da eten gabe. Berria - Harian

---

# irrazionalki *adlag* irrazionalkeriaz.

Begira orain, arren, zeinen itsuki eta **irrazionalki** esan ohi den: Jaungoikoak nire nahimenaren geroko egintzak aurrez jakin baditu, hark aurrejakindakoa derrigor egin behar dut, ezin baita deus izan berak aurreikusi duen eran baizik. Imanol Unzurrunzaga

Aurresentipen arraro bat izan zuen, eta **irrazionalki,** berriro ere bainuontzia bete eta bigarren bainu bat hartu zuen. Harkaitz Cano

---

# irrazionaltasun 1 *iz* irrazionala denaren nolakotasuna.

Erlijioaren **irrazionaltasunak**. Askoren artean

Jainkoen beldurra ezjakintasunaren **irrazionaltasunetik** datorrenez, [...]. Xabier Amuriza

Zientziaren demokratizazioa lehenbailehen uxatu behar**reko** **irrazionaltasunaren** mamua besterik ez dela. Askoren artean

Kaosaren **irrazionaltasuna**. Esteban Antxustegi

Kapitalismoaren harraparitzaren **irrazionaltasunak**. Iñaki Heras

Katolikotasunean Unamuno faszinatzen duena **irrazionaltasuna** da -eromena- eta ideal baten infinitua. Joxe Azurmendi

Ororen gainetik pentsamolde arrazionala gurtzen duen zibilizazio horren gainean **irrazionaltasunak** duen indarra. Koro Navarro

Beste behin zientzia **irrazionaltasunari** nagusitu zaio. Berria - Mundua

Biziaren **irrazionaltasunaz** kontziente izan ondoren hura bizitzea, hartaz gozatzea dagokiola banakoari. Berria - Kultura

**2** (matematikan)

2ren erroaren **irrazionaltasuna** absurdoaren bidez frogatua. Jon Muñoz

Teodorok [...] 17 arteko zenbaki oso guztien erro karratuen **irrazionaltasuna** frogatu zuen. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irrazionaltasuna frogatu** (3); **irrazionaltasuna frogatu zuen** (3); **irrazionaltasuna frogatzea** (3)

---

# irreal *izond* erreala ez dena, ez-egiazkoa. ik **erreal[1] 4.**

Behelainoak gauzen forma lausotu eta giro **irreala** sortuko du. Joseba Sarrionandia

Egun batetik bestera mundu **irreal** batean sartuak ginen. Daniel Landart

Ekialdeko dantzariek orekan aldaketa ugari egiteko ohitura dute, baina estetika **irreal** batean. Berria - Kultura

Baina imajinazioa ez da **irreala**. Joseba Sarrionandia

Kontakizunaren samurtasun **irreal** hori laket zait egiazki. Ana Urkiza

Alegoria guztiek ematen dutela **irrealak** harik eta konkretatzen eta itzultzen diren arte. Bernardo Atxaga

Uste nuen zain nengoen emakumea ezezaguna zela, ederra, **irreala**. Eskarne Mujika

-Maitasuna, Asier, konplikatua duk, baina ez duk **irreala**! Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta irreala** (5); **ia irreala** (3); **irreal baina** (3); **irreal batean** (3); **irreala da** (5); **irreala dela** (5); **mundu irreal** (4)

---

# irrealismo *iz* errealismorik eza.

Izan dira eskolak **irrealismoan,** ez-errealismoan, surrealismoan kokatzen zirenak. Josu Zabaleta

---

# irrealista *iz* errealismorik gabea.

Sistema **irrealista** iruditzen zaigu, guretzat nagusia den argazki-perspektibaren antzik ez duelako. Josu Zabaleta

Errinozero baten grabatuak egin zituela, eta **"irrealistak"** direla erabat grabatu horiek. Josu Zabaleta

Lehiakideen prezio «txikiegi» eta **«irrealistei»** egotzi zien erantzukizuna. Berria - Ekonomia

**«Irrealista»** izango litzatekeela Israeli eskatzea kokaguneak ezabatzeko. Berria - Mundua

---

# irrealitate *(11 esaldi, 7 liburu eta artikulu 1ean)* *iz* irrealtasuna.

Dena bat zetorren isilune honekin, hustasun honekin eta egunsentiko **irrealitatearekin**. Anton Garikano

Halako **irrealitate** babesle batean. Joxan Elosegi

**Irrealitate** osoan murgiltzen nintzen segurki. Itxaro Borda

---

# irrealtasun *(16 esaldi, 12 liburutan)* **1** *iz* irreala denaren nolakotasuna.

Euskarazko izkribu hark halako **irrealtasun** bat ematen zien armen jabeei. Joseba Sarrionandia

Eguna argitzen ari zuen, eta horrek **irrealtasun** kutsu handiagoa eman zion Bixkiturriko geltokian [...] argia pizturik pasa zen lokomotorari. Pako Aristi

Infernuko gauzen ezaugarrietako bat **irrealtasuna** da. Juan Garzia

Argien joko kromatikoak **irrealtasunez** tindatu du neskaren gorputz biluzia. Patxi Iturritegi

Oraingo hau niretako zen, ordea, eta horrek anarteraino ohartu gabeko ñabardurak eransteaz gain [...] halako **irrealtasuna** zekarkion egoerari. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

Egungo teorizazio handiaren ondorioz lortu den **irrealtasun** maila, Erdi Aroko eskolastikarekin soilik aldera daiteke. Iñaki Heras

**Irrealtasun** sentipena nagusitu zitzaien. Alberto Ladron Arana

Herriaren **irrealtasun** irudipen hura are gehiago indartzen zen. Josu Zabaleta

**Irrealtasun**-lanbro batean bildurik. Xabier Mendiguren Elizegi

Bat-batean denak **irrealtasun** airea hartu zuen. Jon Alonso

---

# irreberente *(orobat **irreberent**)* *izond* begirunegabea, errespeturik gabekoa.

Hirugarren liburuan munduari barre egin behar zaio, **irreberente** izan beharra dago, errespetua galdu idazleei eta irakurleei. Harkaitz Cano

Gazte **irreberent** bat bainintzen orduko. Piarres Aintziart

---

# irreberentzia *iz* begirunegabetasuna, errespetugabetasuna.

Delituen benetako neurria hau izango balitz, izakien Izakiari egindako **irreberentzia** bat monarka baten erailketa baino gogorrago zigortu beharko litzateke. **Irreberentzia** hori gabe, nola irakurri orduko berripaperak? Juan Martin Elexpuru

Eta barkatuko ahal didazu **irreberentzia,** jaun André, zeren [...]. Joan Mari Irigoien

---

# irredentismo *iz* lurralde jakin bat nazio jakin batekoa dela eta, hura anexionatzearen alde egiten duen higikunde politikoa

**-Irredentismoa,** bereziki -bere hariari heldu dio-, guztiz kaltegarri iruditzen zait. Txillardegi

**Irredentismo** batek (Palestina-Israel arazoan ikusten dugun bezala) beste **irredentismo** bat dakarrelako; eta honek, atzerago begiratuz, beste bat. Txillardegi

---

# irredentista *iz* irredentismoaren aldekoa den pertsona.

Gure aitak, **irredentista** baitzen, Austriako titulu haiek saltzeko konbentzitu nahi izan zuen amona, baina alferrik. Fernando Rey

---

# irrefrenable *izond* ezin eutsizkoa.

Gogo **irrefrenablea** pertsona gustura dagoenean baino ez da sentitzen. Unai Elorriaga

---

# irregular **1** *izond* forma, tamaina edo kidekoez mintzatuz, erregularra ez dena.

Korridore estu batean aurrera, eskailera **irregular** batera iritsi ziren; sigi-saga igotzen zen etxean gora. Iñaki Mendiguren

Ezkaratz iluneko harrizko zoru **irregularrean** oiloak zebiltzan. Xabier Mendiguren Elizegi

Sentsazioa izan genuen tatami lodi, gozo eta **irregular** samar baten gainean genbiltzala. Bernardo Atxaga

Harrobitzat jo nituen halako sakan **irregular** batzuk itzulinguratu behar izan nituen. Juan Garzia

Zoladura **irregularrak,** azoka zalapartatsuak. Berria - Mundua

Uniformedun neskek binakako ilara **irregularra** osatzen dute maldan behera. Patxi Iturritegi

Eraikin kasik karratu eta horma **irregularrekiko** baten ezker hegala hartzen zuen. Patxi Zubizarreta

Lekua formaz oso **irregularra** zela. Koro Navarro

Burezurra osatzen duten molde **irregularreko** hezurrek. Irene Aldasoro

Horma batetik besterako koska **irregularrak**. Lander Garro

Forma geometriko erregular eta **irregular** guztiak sor ditzake. Joan Mari Irigoien

**2** legearen edo ereduen araberakoa ez dena.

Frantsesean gogotik ari naiz lanean, eta egunean bost aditz **irregular** sartzen ditut buruan. Josu Zabaleta

Gauaren erdian kadentzia **irregular** batekin apartamentu paretik igarotzen ziren auto madarikatu haien zarata. Harkaitz Cano

Maimonek esfera exzentrikoak aipatzen ditu, Ptolomeoren sistema astronomikoan argizagien mugimendu **irregular** batzuk azaltzeko balio zutenak. Xabier Kintana

Hermioneren arnasa arina eta **irregularra** zen. Iñaki Mendiguren

Multijabetzan oinarritutako salmenta **irregularrak**. Berria - Euskal Herria

Kontratu **irregularra** duen langileak bere egoera salatzea utopia hutsa da. Berria - Ekonomia

Egoera erregularrean eta **irregularrean** dauden etorkinak kontrolatzeko. Berria - Euskal Herria

Jarduera administratibo **irregularra**. Berria - Euskal Herria

**3** (adizlagun gisa)

Bertsolariak **irregular** aritu ziren oro har. Berria - Harian

Giordani tenorraren hutsunea nabaria izan zen, bere ordezkoa, Very tenorra, **irregular** aritu baitzen maitalearen rolean. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aditz irregularrak** (3); **baina irregularra** (3); **egoera irregularrean** (9); **eta irregular** (3); **irregular eta** (3); **irregularra da** (10); **nahiko irregularra** (3); **oso irregularra** (5)

---

# irregularki *adlag* era irregularrean.

Zurrumurru elkor hura, ahoko pipen sartu-atereak **irregularki** hautsia. Anton Garikano

Liseriketarako kaltegarria duk **irregularki** jatea, nik egiten dudan bezala. Lopez de Arana

Boliviako emakume etorkin bat abokatuari abisatu gabe **irregularki** kanporatzea leporatzen die epaitegiak. Berria - Euskal Herria

**Irregularki** bizi diren etorkinak Berria - Euskal Herria

---

# irregulartasun 1 *iz* irregularra denaren nolakotasuna.

Halako "profilak" ohikoak dira autisten artean: adimen-test direlakoetan, "barreiamendua" edo muga-mugako **irregulartasuna** erakutsi ohi dute. Xabier Olarra

Gizarte-desintegrazioko fenomenoen erregulartasun eta uniformitatearen eta gizarte-hazkundeko fenomenoen **irregulartasun** eta aniztasunaren arteko kontraste harrigarri hau. Iñaki Mendiguren

Lokatza lehorraren koloreak irabazi egiten dio **irregulartasunez** belarraren berdeari, geometria oro eginez ezinezko. Hasier Etxeberria

Bere jokoaren **irregulartasunak** bere ezina azaleratu zuen. Berria - Kirola

**2** gauza edo egite irregularra.

Hormape beltzak ez zuen erakusten **irregulartasun** apurrik ere, murru betiberdinek ez bide zuten onartzen ate bakarrik ere. Juan Garzia

Bere ikerkuntza-metodoetan aurkitutako **irregulartasun** batzuez hitz egiten zuten batzuek. Iban Zaldua

Beste eredu horren desegokitasunek eta sortzen dituen **irregulartasun** ugariek iradokitzen dute hori ere ez dela hizkuntzarako eredu egokia. Itziar Laka

Gobernuaren **irregulartasunak**. Iñaki Iñurrieta

Aldaketa fonetikotik sorturiko **irregulartasunak**. Isabel Arrigain

Egiaztatuko al ditu berak **irregulartasunen** bat hitzen erabileran, bateraezinak diren zenbait proposizio, elkarri egokitzen ez zaizkion esanahiak, batera sistematizatu ezin diren kontzeptuak? Xabier Arregi

**3** (auzietan eta kidekoetan)

Auzitegi Gorenaren epaiak hauteskundeetan izandako **«irregulartasun** larri asko» aipatzen ditu. Berria - Euskal Herria

Sumarioa **irregulartasunez** josia dago. Berria - Euskal Herria

**Irregulartasun** ekonomikoei buruzko beste eginbide batzuk ere zabalik daude Auzitegi Nazionalean. Berria - Euskal Herria

13 urteko espetxe zigorra eskatu du fiskalak haien aurka, egindako **irregulartasunak** direla eta.

Sei euskal herritarren aurkako prozesuan egon diren **irregulartasunak** salatu zituen. Berria - Euskal Herria

Igandeko bozetan **irregulartasunak** izan zirela. Berria - Mundua

Euskal Jai pilotalekua eraisteko lanen inguruan gertatu omen diren **irregulartasunen** inguruan argibiderik jasotzen ez badu, IUN-NEB prest dago Iruñeko Udala auzitara eramateko. Berria - Euskal Herria

Oteiza Museoko zuzendariak kudeaketan antzeman **irregulartasunen** berri eman beharko du. Berria - Kultura

Udaletako zozketetan inongo **irregulartasunik** ez zuela onartuko ohartarazi zuen. Berria - Euskal Herria

Ustezko **irregulartasunak** lanak esleitu zituzten une berean hasi ziren, lehiaketa irabazi zuten enpresen aukera ez zelako merkeena, ezta azkarrena ere. Berria - Euskal Herria

Ustezko **irregulartasun** horiek eraman dituzte Ekuadorreko etorkinak Iruñeko epaitegian salaketa jartzera. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Adituak ez datoz bat, pertsona bat gaixo dagoen esan ahal izateko, aurkitu beharreko **irregulartasun** kopurua zehazterakoan. Berria - Gaiak

26 urteko gaztea **«irregulartasun** egoeran» dago, bere abokatuak esandakoaren arabera. Berria - Euskal Herria

Erreferenduma egin ahal izateko sinadura bilketan **«irregulartasun** zantzu handiak» egon zirela. Berria - Mundua

**Irregulartasun** salaketak aztertzeko eta ondorioak txosten batean biltzeko. Berria - Mundua

Etorkinen etorrera hori ez dute etengo ez kostako ontziek, [...] ez klandestinitate eta **irregulartasun** mehatxuek, ez eta lankidetza politika zaharkituek ere. Berria - Euskal Herria

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ikerketak ondorioztatzen duenez, ustez hainbat kontabilitate eta finantza **irregulartasun** atzeman daitezke Egunkaria-ren diru mugimenduetan. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bozetan irregulartasun** (5); **eta irregulartasun** (5); **hainbat irregulartasun** (12); **hainbat irregulartasun izan** (4); **irregulartasun batzuk** (6); **irregulartasun eta** (4); **irregulartasun izan** (4); **irregulartasun larriak** (3); **irregulartasun nabariak** (3); **irregulartasun salaketak** (3); **irregulartasun ugari** (12); **irregulartasun ugari egin** (3); **irregulartasun ugari izan** (4); **prozesuaren irregulartasuna** (3); **ustezko irregulartasun** (4); **zenbait irregulartasun** (4)
>
> **diren irregulartasunak** (6); **du irregulartasunak** (3); **egon diren irregulartasunak** (3); **ere irregulartasunak** (5); **eta irregulartasunak** (10); **gertatutako irregulartasunak** (3); **hauteskundeetan irregulartasunak** (4); **hauteskundeetan irregulartasunak izan** (3); **irregulartasunak agerian** (3); **irregulartasunak atzeman** (3); **irregulartasunak daude** (3); **irregulartasunak direla** (5); **irregulartasunak direla eta** (4); **irregulartasunak egin** (5); **irregulartasunak egon** (7); **irregulartasunak egon zirela** (3); **irregulartasunak eta** (3); **irregulartasunak gertatu** (5); **irregulartasunak gertatu direla** (3); **irregulartasunak izan** (19); **irregulartasunak izan zirela** (12); **irregulartasunak salatu** (12); **irregulartasunak salatu ditu** (3); **irregulartasunak salatu zituen** (4); **irregulartasunak salatzeko** (4); **izandako irregulartasunak** (6); **ustezko irregulartasunak** (7)
>
> **diren irregulartasunen** (3); **inolako irregulartasunik** (8); **irregulartasunen bat** (4); **irregulartasunen berri** (9); **irregulartasunen berri eman** (3); **irregulartasunen berri izan** (3); **irregulartasunen inguruan** (4); **irregulartasunik ez** (3); **ustezko irregulartasunen** (3)

---

# irrelebante *izond* hutsala, garrantzigabea.

Ni etxean egon ala beste pixka batean hemen egon, **irrelebantea** duk. Anton Garikano

---

# irrelijiostasun *iz* erlijiogabetasuna.

Testu horietan datzan asmoa ez da espekulaziorako atea erabat itxi eta adimenari bere helmenean duena ulertzen galaraztea, ezjakinek eta arduragabeek [...] uste duten bezala, hura akats eta **irrelijiostasuna** balitz bezala, "iluna argi eta argia ilun" bihurtuz. Xabier Kintana

---

# irrespontsable *izond* arduragabea.

Demagogia egitea da, zergak ordaintzen dituztenen diruarekin **irrespontsablea** eta ideologizatua den paktu bat finantzatzea. Iñaki Heras

# irri 1 *iz* barrea, bereziki isekazkoa-edo.

Gidariak **irri** antzeko zerbait egin zuen. Aingeru Epaltza
**Irriak,** irainak, burla-haizezko oihuak. Anjel Lertxundi
Hobe negarra, **irria** baino; begitartea goibel egon arren, bihotza ondu egiten baita. Elizen arteko biblia
Bortz minutu abantzu atxiki ninduten beirateaz harata esperoan, oro **irri** eta solas. Aingeru Epaltza
Beste motor batean, berriz, bost lagun, dena **irri** eta keinu. Gotzon Garate
Eltzepeko zotzaren txinpart-hotsa bezalakoa ergelaren **irria,** huskeria hutsa. Elizen arteko biblia
Gaizki zaude ala...? -erran zidan kondesak, hala-holako **irria** ezpainetan. Joan Mari Irigoien
Kalapita horren erdian, Ezpondak, **irria** ezpainetatik galdu gabe, bere kokots bizar gabea ferekatzen zuen. Aingeru Epaltza
Entzuten ahal ez den **irri** bat. Ramuntxo Etxeberri
**Irri** batekin erantzuten dio, buruaz agur eginez, lotsatia baino gehiago maleziazkoa den **irri** batekin. Oskar Arana
Oraingo **irria** urduria izan zen. Aingeru Epaltza
Ez zen hori denen gustukoa izan, izan zen **irri** eta trufa. Michel Oronoz
Azaroaren 16an, 4.30etan, antzerki, kantu eta **irri**. Herria
**Irria** eragiteko esaten diren hitz likits antxak. Fernando Rey
*ik beherago* 8. Askoren artean
Lagunei **irria** eragin zien nire jarrerak. Anjel Lertxundi
**Irriari** eutsi ezinik. Fernando Rey
Ni **irriak** salbatzen nau. Menane Oxandabaratz

**2** (izenondoekin)

Baina nolako **irri** goxoa! Janbattitt Dirassar
Bere **irri** argiarekin eta bere musu goxoekin. Janbattitt Dirassar
"Ikus arte" erranik pollikiño, **irri** ezti-ezti batekin. Amona Sinforosak barre egin zuen, saltzaileak **irri** zabala, eta amak **irri** inozo bat. Joan Mari Irigoien
-Zertan ari haiz? -Martin Mihurubikoak harridurazko **irri** mehe batez itaundu zidan. Edorta Jimenez
**Irri** xaloa lorarazi nuen neure ezpainetan. Aingeru Epaltza
Begiraden eta **irri** mutuen esangura irakurtzen trebatzen. Xabier Mendiguren Elizegi
Bistan da **irri** xuri batekin egin nion galde hori... Marzel Etxehandi
72 urte, xuxen xuxena zegoen, ona, lañoa, zuhurtziaz betea, **irri** xuri bat ezpainetan, enetzat zinezko anaia. Marzel Etxehandi
-Zinez manera eztiak dituzu, Ermita adixkidea -dio **irri** larri batekin marexalak-. Michel Oronoz
Izeba Petuniaren **irri** faltsu ozena iritsi zen egongelatik. Iñaki Mendiguren
**Irri** sarkastiko batez askatu nintzen. Itxaro Borda
-Jaiki bai, esnatu ez oraindik -ihardesten diegu **irri** etsia ezpainetan, begiak idor eta mihiak totel. Itxaro Borda
Haren **irri** ozenak bezero guztiak birarazi zituen. Aingeru Epaltza
Artegatasuna **irri** bortxatu batez kukutu nuen. Aingeru Epaltza
**Irri** osasuntsua ezpainetan. Itxaro Borda
-Maialen zunan... -azaltzen zion anaiak, **irri** kokina begietan-. Itxaro Borda
Bere betiko **irri** zozoaz. Aingeru Epaltza
-Gauza fina -erantzun zuen Barchinik **irri** gaiztoz. Koldo Biguri
Gizonak, orduan, **irri** isekariz: […]. Patxi Zubizarreta
Afifi andereak, orduan, **irri** asaldatu batekin: [...]. Patxi Zubizarreta
Isilka ia dena esaten zuen **irri** maltzur-aire batekin. Juan Garzia
*ik* irrimaltzurka.
Jauntxoari **irri** ikus ezina eskapatu zitzaion. Elena Touyarou

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ttipiren **irri**-algarak egun horietako eguzkia bezainbat gorritu ninduen. Aingeru Epaltza
Afifi anderea, **irri** firfira ezpainetan, adeitasunez mintzatu zen. Patxi Zubizarreta
**Irri** gogoa bermatu zitzaidan. Itxaro Borda
-Harekin **irri** partida ederrak egiten genituen. Itxaro Borda
Zer duk hik eskua hain idorra, Kattinak ez nahi ukaiteko?, eta gaitzeko **irri** zafla bota zuen. Janbattitt Dirassar
Egun batez, ordea, denen **irri**-bazka izateaz nazkaturik, mututasun erabatekoan kiribildu zen. Anjel Lertxundi
"Zer esaten duzu?" sinesgaitz, **irri** doinuz, Larraitzek. Pablo Sastre
Sinbadek begietan beti izaten zuen **irri**-keinu zorrotz harekin begiratu zidan. Edorta Jimenez
**Irri**-joko haiek egiatzat hartzeko. Patxi Ezkiaga
**Irri**-esanak eta hitz politak ez dira burugogorretan sortzen. Patxi Ezkiaga
Babiloniako erregeari **irri**-kanta. Elizen arteko biblia
Neska txarrei buruzko **irri**-kopla lizuna kantatzen. Anjel Lertxundi
Ez duzu **irri** antzerki bateko tonto lapikoa izan nahi, ezta? Karlos Zabala
Orduan nirekin heldu den emaztekia eranzten hasi da, baita biluzgorri gelditu ere **irri**-arra batean. Aingeru Epaltza
Mundu guztia **irri**-ajajaka hasi zen. Fernando Rey
· *izond* Zirikatzaile eta **irri**-gaizto samarra. Josu Zabaleta
Bera da hemengo jostakina eta **irri**-ontzia. Oskar Arana
Ttipi bere bulegoko atean nuen, **irri**-zabal. Aingeru Epaltza
· Biok **irri**-algaraka hasi baikinen, inguruko ikusleen bekozko beltzei soraio. Alberto Ladron Arana
Halakorik adituta, ordea, Charly **irri**-ajataka lotuko zitzaidan bere hartan. Aingeru Epaltza

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eta irri garden bat, ume **irri** bat, lokarturiko etxearen isiltasun handian txirula baten txorrotxio samurra zirudiena. Karlos Zabala
Orduan agureak, berriz fartsa honetako errege, garaipen-**irri** zoroak, basatiak, bota zituen. Jon Alonso
Aitatxiren soa ikusiz, garaipen **irria** ezin izan zuen saihestu. Elena Touyarou
Hala nola, Amanda Aizpuriete hor aurrean, lotan ere zorion-**irria** dario eta. Edorta Jimenez
Harryri batere atsegina ez zen iseka-**irria** egin zion amaren beso artetik. Iñaki Mendiguren
Etxarteren ezpainek burla **irria** marraztu zuten. Itxaro Borda
Gutizia hark eragindako irribarre onbera bat zebilkion jostalari aho aldean, eta behin tranbiara igo eta txartela ordaindu zuelarik, gidariari egindako adeitasunezko diosal-**irri**

zabal bilakatu zitzaion. Mirentxu Larrañaga

Itzuli zenean, alimaleko pizti-**irria** zeraman: [...]. Itxaro Borda

[...] -esan zuen Peevesek santu-ahotsez, baina begietan deabru-**irria** zuela-. Iñaki Mendiguren

## 5 *irriz* ik **irriz.**

## 6 *irri-belar* (*corpusean* **irribelar** *soilik*) urrebotoiaren eta irabelarraren familiako landarea (*Ranunculus sceleratus*).

Hara da hura heldu girlanda fantasiatsuz hornituri k, **irribelar,** asun, bitxilorez, eta orki-lili luzangoz. Juan Garzia

## 7 *irri egin*

Guk **irri** egin dugu denak irrika hastean, eta txalo ere egin dugu denak esku zartaka hastean. Patxi Zubizarreta

Harekin batean egin nuen **irri,** ozenegi beharbada. Aingeru Epaltza

**Irri** egin genion, eta gordinkeriaren bat bota ere bai. Anjel Lertxundi

**Irri** egiten zuen eguzkiak, soroko ihintzetan dirdirka. Patziku Perurena

Hauteskundeak: bada **irri** egitekoa. Herria

-Niri ere bai! **-irri** egin zuen gizonak-. Elena Touyarou

Diru sobera diagu guk, gero! **irri** egin zuten. Xabier Montoia

**Irri** egin zuen halako batean berak, eta **irri** gero nik. Edorta Jimenez

Hain suturik egon ez banintz, muturrera eginen niokeen **irri**. Aingeru Epaltza

Mugitu gabe zintzilik zegoen katua ikustean **irri** egin zuen maltzur. Iñaki Mendiguren

Ederki egingo dute **irri** gure kontura. Jon Alonso

Zaindariak gogotik egin zuen **irri**. Aingeru Epaltza

Hamidak, ostera, ez zion **irri** egiteari utzi: [...]. Patxi Zubizarreta

Neskatxak, **irri** egitearekin batera: [...]. Patxi Zubizarreta

Saski beteak ikusiz atseginez **irri** egin zuen. Elena Touyarou

Bere buruari **irri** egin nahi balio bezala. Joan Mari Irigoien

Nik biziki maite dut **irri** egitea eta irri eginaraztea. Menane Oxandabaratz

· Guztiok egin genuen **irri** eta barre. Joan Mari Irigoien

Atera behar duzu, hemengo mutilak ezagutu, **irri** apala egin zuen, niri beha. Xabier Montoia

**Irri** zabar bat egin zuen. Koldo Izagirre

**Irri** xitala egiten du fededunak jeneralean. Patziku Perurena

Gorriak **irri** gaiztoa egin zuen. Koldo Biguri

Potzolok **irri** burlatia egin zuen. Aingeru Epaltza

Raduan Husainik berak ere **irri** zabala egin zuen. Patxi Zubizarreta

Gazteak **irri** antzeko zerbait egin zion. Elena Touyarou

Denek begiratu zuten On Camilloren leihorantz, **irri**-gaizto eginez. Koldo Biguri

## 8 *irri eginarazi* (*orobat* **irrieginarazi** *g.er.*)

Baztertzen ninduten eta errientsa nitaz trufatzen zen, gaineratiko haurrak **irri** eginaraziz. Itxaro Borda

Nik biziki maite dut irri egitea eta **irri** eginaraztea. Menane Oxandabaratz

**Irri** eginarazteko jokoak. Menane Oxandabaratz

**Irri** eginarazi zidan bat-bateko burutazioak Juan Luis Zabala

## 9 *irri-egingarri* (*orobat* **irriegingarri**) *izond* ik **irringarri.**

Karikaturak dira, baina mamuak dira; batzuk **irri**-egingarriak dira, denak dira izugarriak. Koldo Izagirre

-Biziki **irri egingarria** zara Amaia... Itxaro Borda

Bakoitzak berea egiten du eta filma guzian irri egiten da nasaiki, hain **irri egingarriak** diren jokolarien arteko harremanak. bat-batean oroitu nintzen, irakasleak nola hormetan edo eskola gelaren minean zegoen berogailuaren inguruan, gehiengoaren **irri egingarri,** hitz bat edo beste trebes ahoskatzen zutelako, auzoko lagunak dekalkatzen zituen. Herria

## 10 *irri-emangarri* (*orobat* **irriemangarri**) *izond*

Gutun luzeak idazten zizkidan bere estilo dotore eta **irri**-emangarrian. Fernando Rey

Gertaera grotesko eta **irriemangarriek,** dena dela, ez diote gizatasun izpirik ere kentzen historiari. Fernando Rey

## 11 *irri eragin*

Aireak **irri** eragiten zigunan; gure begien soa elkartzen zinan. Juan Garzia

## 12 *irri-eragingarri* (*orobat* **irrieragingarri**) *izond*

Bere antzezlan **irri**-eragingarri bateko pertsonaia baten hitzak. Juan Luis Zabala

Portaera **irri**-eragingarriak. Xabier Olarra

Gattermannaren esanera bromobentzenoa edo metilo-bioletoa prestatzea dibertigarria zen, are **irrieragingarria**. Juan Garzia

Gauza sinple hunkigarriak, omore onezko hitz eztiak, **irriegingarriak** ere artetan irakurtuz. Piarres Aintziart

## 13 *irri karkaila* (*orobat* **irri karkail**)

Mariri beste **irri** karkaila bat atera zitzaion, eta beste biek ere irriño bat egin zuten. Elena Touyarou

Bere hitzei **irri**-karkail ozen batzuekin eman zien azken puntua. Aingeru Epaltza

Mentxuren algarak luzatu zuen Santosen **irri**-karkaila. Josu Landa

· **Irri**-karkailaka lotu zen. Aingeru Epaltza

## 14 *irri-karkaraka* *adlag*

Leher gaizto egiteraino hasi zen irri **karkaraka**. Anjel Lertxundi

Unetik unera irri **karkaraka** itotzen zen. Jon Muñoz

Eta bizkaitarrak trufaka eta irri-**karkaraka** ekin zion berriro. Joan Mari Irigoien

## 15 *irri-mirri* (*orobat* **irrimirri**)

Galdetu nion, **irrimirri** apur batez baina betiere errespetuz, ea zein aldartez ari zitzaidan, kosmikoaz ala beste batez. Karlos Linazasoro

· *adlag* Pepponek, mahaian ukabilkada bat joz, besteak isilarazi zituen, **irri**-mirri hasiak zeuden eta. Koldo Biguri

Ehun zaldun nabarrak ere bai zaldien gainetan, denak bibotedun, denak irribarretsu, denak **irri**-mirri. Felipe Juaristi

## 16 *irri-mirrika* *adlag*

Ohe-buruan, anaia nagusi Felix eta arreba Ernestina **irri**-mirrika daude begira. Itziar Otegi

## 17 *irri-murrika* *iz*

Azkenean motorra muntatu eta martxan jarri nuenean, berak irri-**murrika** egin eta "Bravo" esan zuen, besterik ez. Joxe Austin Arrieta

Haren **irri** -murrika bizarpetik. Joxe Austin Arrieta

· *adlag Baina* tipoak ez du deus esatekorik, bere Louvre osoa neska ukitu ahal izateko aitzakia besterik ez, agure lizun halakoa, eta gainera, niri irri- **murrika** . Joxe Austin Arrieta

### 18 ***irri-murritz*** *(orobat **irrimurritz** eta **irrimurritx**) iz*

Felicitasek bere lehen **irri** murritza oparitu zidan, kukuka, bere ezpain artetik. Aingeru Epaltza

**Irri** murritza utzi eta barre algarari eman nion. Xabier Mendiguren Elizegi

Neskak eskua eman eta begiratu zidanean, **irrimurritza** egin zidanean, esan zidanean seguraski zineman lan eginen zuela, berarengatik interesatzen hasia zela zinemaren mundua ere. Fernando Rey

Eta neskak **irrimurritzaz:** "Baina maniobrari jauna, nik itsuitsuan ere saltzen ahal ditut txartelak". Fernando Rey

### 19 ***irri xafla*** *adkor* irri karkaila.

Medikua, abokata, lege gizona, armadako aitzindaria, erregea, teologoa eta predikaria, bakoitzaren berezitasunak xeheki azalduz eta irakurleari zenbait **irri xafla** eginaraziz ber denboran. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Aperitifa hartu, afaldu, **irri xafla** batzu bota eta Gérard ere lasaitzen da, hastapeneko mutur tzarra alegeratzen zaio. Eneko Bidegain

Bazkari denboran eta ondoan ere entzun izan baita bakarren **irri xaflak** eta kantuak. Herria

### 20 ***irri zafla*** irri karkaila.

Zer **irri zaflak** eta karkailak egin ditugun horier begira, ez baita kalte artetan bederen, egun guzietako griñetarik baztertzeko. Herria

Itxura horien aitzinean zer balio du asko borondate oneko politikariek piztu eztabadak, afera irringarria balitz, zer **irri zaflak** egin ginezazken zuen astokeriez. Herria

Zonbat karkaila ta **irri zafla** ba ote dituk sorturik. Herria

Jendearekin elgarrizketa bat baitzen, denen **irri zafla** eder batzuez noiztenka moztua. Herria

Ostatura bertze hiru lagun sartu dira, xutik daude eta nahiko azantz egile handiak dira, **irri zafla** ozenak botatzen dituzte noiz nahi. Eneko Bidegain

-Zer duk hik eskua hain idorra, Kattinak ez nahi ukaiteko?, eta gaitzeko **irri zafla** bota zuen. Janbattitt Dirassar

### 21 ***irri zuri***[1] *iz* irribarrea; irri faltsua.

Kristinak **irri zuri** bat egin zuen. Aingeru Epaltza

-Bejondeiola! -esan zuen txinpartaka **irri zuriz-** . Jon Muñoz

Irujori bost, zeharkako begirada eta **irri zuria** ezpainetan, bera da oilategiko oilarra. Berria - Kirola

Baina duela zenbait hilabete, hemen Irlandakoa bezalako prozesu bat egin zitekeela erraten genuenean, beste diputatuek **irri zuriarekin** erantzuten ziguten. Berria - Harian

-Bikaina! **-irri zuriz** erantzun Teresak-. Migel Angel Mintegi

Hipokrisiak eta **irri zuriek** gela osoa gainezkatu zuten. Fernando Morillo

Hots, lan ederretan sartzen ari da Blair ere, **irri zuria** egiten dioten beste europearen artean. Herria

*Eskalatzaileak* **irri zuri** batez eman zion azkenburu esaldiaren nabarrari, gibelasmoaz inolako dudarik geldi ez zekidan.· Osabak berak lotsa handirik gabe eta **irri zuritxo** batekin aitortzen du mozkor galanta eta emakumezale porrokatua dela. Aingeru Epaltza

### 22 ***irri-zuri***[2] *(orobat **irrizuri**) izond* zuria, faltsua.

Baina sobera ageri da zein **irri** zuria den. Eneko Bidegain

Zer moduz hemengo oporretan? galdetu zioten **irrizuri** . Xabier Montoia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**ala irri** (4); **aldiz irri** (6); **amak irri** (6); **are irri** (4); **baina irri** (12); **berak irri** (6); **bere irri** (23); **bertze irri** (9); **beste irri** (12); **beste irri bat** (4); **buruari irri** (5); **da irri** (6); **dena irri** (7); **du irri** (7); **edo irri** (4); **egin zidan irri** (6); **egin zuen irri** (7); **ere irri** (37); **ere irri egin** (10); **ere irri egiten** (6); **eta irri** (166); **eta irri egin** (20); **eta irri egiteko** (5); **eta irri egiten** (19); **eta irri hura** (6); **eta irri karkaraka** (8); **eta irri maltzur** (4); **eta irri zabala** (4); **ez irri** (4); **ez zuen irri** (4); **ezpainetan irri** (10); **gaitzeko irri** (4); **gizonak irri** (5); **guztiek irri** (5); **halako irri** (6); **haren irri** (11); **hari irri** (4); **herriz irri** (4); **hire irri** (4)

**irri ajataka** (8); **irri algara** (13); **irri algarak** (5); **irri algaraka** (4); **irri artean** (9); **irri bat** (48); **irri bat ezpainetan** (8); **irri batean** (6); **irri batek** (4); **irri batekin** (18); **irri baten** (5); **irri batez** (14); **irri bortxatu** (5); **irri bortxatua** (5); **irri ederrak** (4); **irri edo** (6); **irri egin** (225); **irri egin du** (13); **irri egin eta** (10); **irri egin gabe** (4); **irri egin genuen** (6); **irri egin nahi** (6); **irri egin nion** (6); **irri egin nuen** (12); **irri egin zidan** (19); **irri egin zion** (12); **irri egin zuen** (73); **irri egin zuten** (8); **irri eginarazi** (8); **irri eginarazteko** (4); **irri eginarazten** (9); **irri eginen** (16); **irri eginez** (20); **irri egingo** (8); **irri egitea** (14); **irri egiteari** (5); **irri egiteari utzi** (5); **irri egiteko** (49); **irri egiteko gogoa** (7); **irri egiteko parada** (4); **irri egitekoa** (4); **irri egiten** (156); **irri egiten du** (4); **irri egiten dut** (5); **irri egiten dute** (5); **irri egiten ere** (4); **irri egiten hasi** (5); **irri egiten nuen** (4); **irri egiten zidan** (5); **irri egiten zion** (5); **irri egiten zioten** (5); **irri egiten zuela** (5); **irri egiten zuen** (14); **irri egiten zuten** (13); **irri egiterat** (4); **irri eragingarria** (4); **irri eta** (82)

**irri eta barre** (4); **irri eta irri** (6); **irri eta solas** (6); **irri eta trufa** (7); **irri etsi** (14); **irri etsi bat** (10); **irri ezin** (8); **irri ezin zabalagoa** (6); **irri ezti** (6); **irri firfira** (25); **irri firfira bat** (9); **irri firfira ezpainetan** (5); **irri gaizto** (6); **irri gaiztoa** (7); **irri gaiztoz** (9); **irri goxo** (7); **irri goxoa** (7); **irri gozoa** (4); **irri handi** (4); **irri herabe** (4); **irri hura** (24); **irri hura egin** (6); **irri inozo** (5); **irri inozo bat** (4); **irri karkail** (4); **irri karkaila** (25); **irri karkailak** (10); **irri karkailaka** (10); **irri karkailetan** (4); **irri karkara** (6); **irri karkarak** (7); **irri karkaraka** (34); **irri karkaraka hasi** (18); **irri labur** (7); **irri malizios** (5); **irri malizios bat** (4); **irri maltzur** (25); **irri maltzur bat** (7); **irri maltzur batekin** (4); **irri maltzurra** (16); **irri maltzurrez** (8); **irri murrika** (5); **irri o** (4); **irri oa** (4); **irri pikaro** (5); **irri pikaro bat** (4); **irri pollit** (4); **irri solas** (4); **irri txiki** (8); **irri txiki bat** (6); **irri urduri** (6); **irri urduri bat** (4); **irri zabal** (20); **irri zabal bat** (4); **irri zabal batek** (4); **irri zabal batekin** (5); **irri zabala** (27); **irri zabala egin** (13); **irri zafla** (6); **irri zuri** (7); **irri zuri bat** (4)

**baina irria** (5); **bere irria** (6); **eta irria** (14); **eta irriak** (8); **gaztearen irria** (5); **gure irriak** (5); **haien irriak** (5); **haren irria** (11); **haren irriak** (4); **irria ahoan** (4); **irria baino** (4); **irria egin** (4); **irria eragin** (6); **irria eragiten** (5); **irria eta** (14); **irria ezin** (4); **irria ezpainetan** (43); **irria sortzen** (5); **irriak eta** (15); **irriak ez** (4); **irriz irri** (5); **lehen irri** (4); **maria sarak irri** (4); **nik irri** (8); **nik irri egin** (4); **nuen irri** (4); **sarak irri** (6); **sarak irri egin** (6); **zen irri** (11); **zer irri** (5); **zidan irri** (10); **zion irri** (4); **zitzaion irri** (4); **zuela eta irri** (4); **zuen irri** (27); **zuen irria** (6); **zuten irri** (6)

**beti irriz** (6); **denak irriz** (7); **dio irriz** (4); **erdi irriz** (10); **ere irriz** (6); **eta irriaren** (5); **eta irriz** (27); **eta irriz hasi** (5); **ez zen irririk** (4); **hasi zen irriz** (4); **irriari eutsi** (7); **irrien artean** (4); **irririk egin** (5); **irririk ez** (5); **irriz ajataka** (4); **irriz ari** (36); **irriz ari zen** (14); **irriz ari ziren** (5); **irriz eta** (19); **irriz hartu** (4); **irriz hasi** (47); **irriz hasi zen** (28); **irriz hasi ziren** (7); **irriz hasten** (4); **irriz irri** (5); **irriz karkailaka** (48); **irriz karkailaka hasi** (24); **irriz lehertu** (7); **irriz lehertu zen** (6); **irriz lehertzen** (7); **kantuz eta irriz** (4); **mona irriz** (4); **mona irriz hasi** (4); **zen irririk** (4); **zen irriz** (5); **zuen irriz** (7)

---

## **irriarazi**, irrriaraz, irriarazen du *ad* irri eginarazi.

Harri zaharrak aipatuz, Mayola **irriarazi** zuen bi dantzen artean. Ramuntxo Etxeberri

Eter beti oskarbiak estaltzen eta argi ugariko isuriz **irriarazten** . Xabier Amuriza

---

## **irribarre** *(orobat **irrifar(re)** g.er.)* **1** *iz* barre xumea, begitartearen keinu sotil batez adierazten dena. ik**irriño.**

Esker oneko **irribarre** batekin. Patxi Zubizarreta

Eta, handiustezko **irribarrea** aurpegian, gaineratuko duzue: [...]. Jose Morales

Une batez **irribarre** baten itzala agertu zen Heydrichen ezpain finetan. Alberto Ladron Arana

Lerro txiki beltz bat aulkian zehar doana itxura misteriotsu eta bihurriarekin, ia **irribarre** bat. Monika Etxebarria

Nagusiak, **irribarrea** ezpainetan, zalantzati erantzun zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Istant bat geroago, **irribarrea** loratu zitzaion berriz. Aingeru Epaltza

Oilarrak kantatu du jada eta eguzkiaren **irribarrea** du uraren gainak. Anjel Lertxundi

Ezin izan nion **irribarreari** eutsi irudipen hori finkatu zitzaidanean. Ramon Saizarbitoria

Bere malkoak xukatu zituen arrebak, nola-hala **irribarreari** eusten ziolarik. Txillardegi

-Tira, bada -gehitu zuen, **irribarrea** ezabatu gabe-. Juan Kruz Igerabide

Bizkarretik helduta dauka gizonak emaztea, eta, **irribarrea** behartu gabe ere, poza erakusten dute. Imanol Zurutuza

Mespretxuzko **irribarreaz** muzin eginez. Mirentxu Larrañaga

**2** (izenondoekin)

Betile beltz luzeak eta **irribarre** zoragarria zituen. Eta lo xarmagarriak, **irribarre** zabalez, bi masailak laztandu zizkion bere masail iletsuekin. Lopez de Arana

**Irribarre** alaiko gazte beltzaran txiki hark Adela zuen izena. Juan Kruz Igerabide

**Irribarre** lotsati bat ezkutatzen zuela ikusi nuen. Alberto Ladron Arana

Obispoak **irribarre** jostarina eskaini zigun Karmeni eta bioi. Inazio Mujika Iraola

**Irribarre** eztia, gozoa, inozoa, batzuetan lerdejarioaren atarikoa. Arantxa Iturbe

Oraindik ere **irribarre** mutiri hori ote du? Patxi Zubizarreta

**Irribarre** tristea itzuli zitzaion ezpainetara. Karlos Zabala

**Irribarre** sotila saiatu zuen, baina ez zitzaion zirkin neketsu bat besterik atera. Anjel Lertxundi

Gutizia hark eragindako **irribarre** onbera bat zebilkion jostalari aho aldean. Mirentxu Larrañaga

Ahotik **irribarre** ergela une batez ere galdu gabe. Juan Kruz Igerabide

Orduan, apal-apal, **irribarre** eztia ezpainetan, esan zuen: [...]. Karlos Zabala

Biharamun goizean, Tomek ohiko **irribarre** horzgabearekin eta kikarakada tearekin esnatu zuen Harry. Iñaki Mendiguren

**Irribarre** inozo batez, pastelak oso-osorik sartu zituzten ahoan. Iñaki Mendiguren

Ruthen **irribarre** inozoa barre-algara bihurtu zen. Lopez de Arana

**Irribarre** okertuan halako bozkario bat antzeman nion, barre-haize bat. Joxean Agirre

-Horrela behar **-irribarre** asean-. Aingeru Epaltza

-Dementorren musua deitzen diote -esan zion Lupinek, **irribarre** bihurritu samar batez-. Iñaki Mendiguren

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Irribarre** izpi batek argitzen zizkion begi esmeralda kolorekoak. Ramon Saizarbitoria

Eginahalak eta bi egiten zituzten denek ere **irribarre**-tankerako bat itxuratzen. Mirentxu Larrañaga

**Irribarre**-mamu antzeko bat aurpegiratu zitzaion amari orduan. Mirentxu Larrañaga

Urrundik antzeman diot guganako begirada arrotza, ulertezintasunezkoa, eta aho ertzean **irribarre** modukoa. gozotasunik ez zuen **irribarre** saiakera haietako bat. Urtzi Urrutikoetxea

-Ezbehar bat? **-irribarre** suerte bat agertu zen neskaren bisaia suminduan. Aingeru Epaltza

Izugarriko ahaleginean iduri, **irribarre**-erdi bat piztu zitzaion nonbaitetik. Aingeru Epaltza

Eta espero nuen **irribarre**-truke hura izatea aurrerakoan ere, edo luzarorako, gure ezagun izatearen agerpide bakarra. Matías Múgica

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Telegrafoari beti adi, parte militar hotzetan murgildurik, neure ondoan aspaldisko hartan emakume-**irribarre** leunik gabe idorturik, [...]. Txillardegi

Han ikusi genuen atzera Fructuoso, haur-**irribarrea** ezpainetan, harro asko zetorrela. Inazio Mujika Iraola

Aingeru-**irribarre** samur batez begiratu zidan zuzendariak, euskararekiko nire jarrerari sutsuegi iritzita edo. Joxerra Garzia

Bere gaizto-**irribarrearekin**. Fernando Rey

Müllerrek bekoki distiratsua garbitu zuen gabardinaren mahukaz, bere zakur-**irribarrea** ezpainetan. Alberto Ladron Arana

Hantxe ibili behar, lerroz lerro, iragarki-**irribarrea** eginez, denoi banan-banan galdezka ea gustura geunden nor geure igeri-jakaren barruan. Joxe Austin Arrieta

Biltegira itzuli zen zorion **irribarrearekin** aterkiz mukuru zegoen Lisboa kaletik zihoala. Bego Montorio

Wallace Reiden eta Valentinoren eta aspaldiko denboretako gainerako izarren trufa-**irribarrea** ikusten nuen. Fernando Rey

Orain, tratuak zer edo zer gozatua baitzuen irudi hura, ezpainetan onginahi-**irribarrea** erakusten zuela ageri zitzaien. Imanol Zurutuza

**5** ***irribarrez*** (*657 agerraldi 146 liburu eta 25 artikulutan*) *adlag* ik beherago **7;** ik **irribarreka; irribarrezka.**

Emakume bat ageri zen, **irribarrez,** aintzira baten ondoan. Monika Etxebarria

Ezker-eskuin **irribarrez** agurtzen hasi zen, printze bat nola bere herriaren erdian. Josu Zabaleta

Eskuak lehortu zituen mantelean, **irribarrez** beti, odola izotz. Karlos Zabala

Nire lehengusina **irribarrez** ari zen, oso sinesgogor hura ere. Josu Zabaleta

Goiza **irribarrez** hasten ari zen zeruan. Josu Zabaleta

**Irribarrez** dago, pozik. Anjel Lertxundi

Quenu **irribarrez** zegoen; Lisa, tankera egokian. Karlos Zabala

Senarra parean du neskatxen diosalei **irribarrez** erantzuten. Arantxa Iturbe

**Irribarrez** erantzun nion: [...]. Josu Zabaleta

-Horixe -erantzun zuen Samek, **irribarrez-**. Fernando Rey

Senarra parean du neskatxen diosalei **irribarrez** erantzuten. Arantxa Iturbe

Hala, **irrifarrez** jarraitu zuen, hantxe eserita. Anton Garikano

Gorritu da eta, gero, **irribarrez** esan du: [...]. Monika Etxebarria

**Irribarrez** begiratzen zion eskuinean zuenari. Monika Etxebarria

-Ez dut ezetzik esango -esan zuen Kernan jaunak, urduri-antzean **irribarrez**. Irene Aldasoro

Lo zegoen lasai asko, **irribarrez**. Joxe Austin Arrieta

-Aurrera -animatu nuen nik **irribarrez**. Bernardo Atxaga

Zer egiten ari zinen, Percy? -galdetu zion Ronek, **irribarrez-**. Iñaki Mendiguren

-Pozten naiz -Agustinak, **irribarrez-**. Aitor Arana

Odoletan blai, baina **irribarrez**. Txillardegi

· Batzuek eta besteek, **irribarrezkoek** eta latzek, guztiek batera, zeinek bere doinu berezia joaz, orkestra bikaina osa dezaten nahi izan dut. Gotzon Garate

**6** ***irribarre egin***

Um Hamidak **irribarre** egin zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Neskak **irribarre** egin zion. Iñaki Iñurrieta

Ronek **irribarre** egin eta begia keinatu zion. Iñaki Mendiguren

-Zergatik ez? **-irribarre** egin zuen. Fernando Morillo

Ama guztiek egiten dute **irribarre**. Arantxa Iturbe

Crabberi eta Goyleri maltzur **irribarre** egin, eta harmailetan gora joan ziren hirurak gaztelurantz. Iñaki Mendiguren

**Irribarre** egiten dute denek, ez baitakite ezer. Jose Morales

**Irribarre** eta negar egiten duzu aldi berean? Jon Muñoz

Eskuan krisantemo zuri bat zeukan, eta **irribarre** egiten zion kamerari. Bernardo Atxaga

Txakurrak buztana dantzatu eta **irribarre** egiten du lepotik eskegitzera daramatenean, baina zu gizakia zara. Jose Morales

Egunak **irribarre** egiten zuen. Jose Morales

-Ez al didazu ba esango inoiz ez zuela...? -Ceciliak asmo txarrez egin zuen **irribarre**. Jon Muñoz

Gizonak bere buruari egiten zion **irribarre,** txantxa on bat egitera doanaren gisa. Monika Etxebarria

· Harryk **irribarre** zabala egin zuen, eta gero maitekiro begiratu zion Tomi. Oskar Arana

Lolak ezpainak mingainarekin busti, eta **irribarre** lizuna egin dio lodikoteari. Patxi Iturritegi

Angelek **irribarre** hutsal bat egin zuen. Bernardo Atxaga

**Irribarre** konplizea egin zuten biek. Anjel Lertxundi

**Irribarre** samurra egin, eta zain geratu zen. Jose Morales

Aitak **irribarre** mehe bat egin zidan. Alberto Ladron Arana

**Irribarre** txikia egin eta zakarki erantzi zuen xala. Jose Morales

Nikolaik amultsuki begiratzen zion, **irribarre** xumea eginez eta negarrez. Jose Morales

Dudleyk **irribarre** ergel eta inozo bat egin zuen. Iñaki Mendiguren

**Irribarre** laburra, lotsatia, egin zien. Fernando Morillo

Harry harrituta utzi zuen **irribarre** disimulatua egin zuen Ronek. Iñaki Mendiguren

## 7 *irribarre eginez* *(150 agerraldi 31 liburutan)* *adlag* ik gorago **5**.

**Irribarre eginez** begiratzen dit. Agurtzane Juanena

Guregana etorri zen, **irribarre eginez,** eta bostekoa eman zigun. Fernando Rey

Izterrak zabaltzen dizkit **irribarre eginez,** esku batez hankartea tentatzen, eta besteaz narras-narras egiten dit bular aldean. Javi Cillero

Gazteak, begiratu egin zion eta, begiekin **irribarre eginez,** erantzun zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

-Zergatik egiten duzu barre? -galdetu zion neskak, gogorik gabe **irribarre eginez**. Jose Morales

Hortaz, kezkaturik dago -esan zuen Weasley jaunak, pozik **irribarre** eginez-. Iñaki Mendiguren

Zeatik ez diguzu esan nor zean, e, Neville? -esan zion Stanek, Harryri **irribarre eginez**. Iñaki Mendiguren

Ikusiko duzu, dena ondo aterako da -Pedrok **irribarre eginez-**. Jon Maia

Eta Ama Birjina ere gure aurrean zegoen, kristalezko urna batean sartuta, goxo **irribarre eginez**. Bernardo Atxaga

**Irribarre eginez** hortzak erakustea; horixe gure eredua. Txema Ramirez de la Piscina

Keinu bat igorriz edo **irribarre eginez**. Piarres Aintziart

Burlaizez **irribarre** eginez. Jose Morales

· Goxoki bat agindu baliote bezalako **irribarrea** egin zuen. Xabier Olarra

## 8 *irribarre eginarazi*

Idazlan baten izenburuak jakin-mina piztu, eta **irribarre** eginarazi zion pentsamendu bat eragin zion Ruche jaunari: [...]. Jon Muñoz

Eta halere **irribarre** eginarazten du zenbaitetan. Bernardo Atxaga

Louri atzera **irribarre eginarazi** zion eta esanarazi, O'Brien jaunaren begiratu bekaiztiaren gainetik:[...]. Koro Navarro

Euskaldunoi geronen buruaz barre eginaraztea izan da Gallegoren xedea, eta hori behintzat, barre edo, gutxienez, **irribarre eginaraztea** lortu ez duenik ezin esan. Berria - Kultura

## 9 *irribarre eragin*

Haren lore sortak ez ziren mundu guztiaren gogoko; **irribarre** eragiten zuten, baina baita kezka ere, xaloak eta ankerrak ziren batera. Karlos Zabala

Eta gero, **irribarre** eragin zidan doinu batez, gehitu zuen: [...]. Josu Zabaleta

· **Irribarrea** eragiten dit hain bizi ikusteak: taberna hutsik egoten den orduetan burua ere husten zaio. Monika Etxebarria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**aitak irribarre** (10); **alexek irribarre** (5); **alexek irribarre egin** (5); **altxatu eta irribarre** (7); **amak irribarre** (8); **andereñ andreak irribarre** (12); **andreak irribarre egin** (10); **aurpegian irribarre** (14); **baina irribarre** (17); **batek irribarre** (9); **begiratu eta irribarre** (7); **berak ere irribarre** (9); **berak irribarre** (14); **bere irribarre** (42); **berriro irribarre** (7); **beste irribarre** (8); **du irribarre** (13); **duen irribarre** (5); **dut irribarre** (5); **egin zuen irribarre** (20); **egiten zuen irribarre** (9); **elkarri irribarre** (6); **emakumeak irribarre** (12); **emakumeak irribarre egin** (7); **emazteak irribarre** (5); **ere irribarre** (37); **ere irribarre egin** (22); **esan eta irribarre** (5); **esan zuen irribarre** (8); **esker oneko irribarre** (5); **eta emakumeak irribarre** (5); **eta irribarre** (265); **eta irribarre egin** (84); **eta irribarre egiten** (31); **eta irribarre txiki** (5); **eta irribarre zabal** (11); **eta irribarre zabala** (7); **eta neskak irribarre** (5); **ezpainetan irribarre** (15); **gabeko irribarre** (6); **gero irribarre** (7); **gizonak irribarre** (7); **halako irribarre** (10); **haren irribarre** (14); **hark irribarre** (11); **harryri irribarre** (5); **oak irribarre** (5)

**irribarre antzeko** (5); **irribarre arin** (6); **irribarre artean** (7); **irribarre atsegina** (7); **irribarre bat** (77); **irribarre bat eskaini** (6); **irribarre batean** (5); **irribarre batek** (10); **irribarre batekin** (29); **irribarre baten** (14); **irribarre batez** (43); **irribarre behartu** (5); **irribarre behartua** (9); **irribarre bitxi** (6); **irribarre eder** (7); **irribarre egin** (732); **irribarre egin behar** (8); **irribarre egin dio** (11); **irribarre egin dit** (6); **irribarre egin du** (38); **irribarre egin eta** (61); **irribarre egin genion** (5); **irribarre egin nion** (19); **irribarre egin nuen** (19); **irribarre egin zidan** (45); **irribarre egin zien** (8); **irribarre egin zion** (80); **irribarre egin zioten** (9); **irribarre egin zuen** (317); **irribarre egin zuten** (16); **irribarre eginarazi** (6); **irribarre eginen** (5); **irribarre eginez** (75); **irribarre egingo** (19); **irribarre egitea** (8); **irribarre egiteko** (18); **irribarre egiten** (241); **irribarre egiten du** (41); **irribarre egiten saiatu** (10); **irribarre egiten zidan** (12); **irribarre egiten zion** (13); **irribarre egiten zioten** (5); **irribarre egiten zuela** (7); **irribarre egiten zuen** (38); **irribarre egiten zuenean** (7); **irribarre egitera** (9)

**irribarre erdi** (7); **irribarre erdia** (5); **irribarre ere** (7); **irribarre ergel** (6); **irribarre ergel bat** (5); **irribarre eta** (19); **irribarre ezti** (7); **irribarre eztia** (8); **irribarre gaizto** (6); **irribarre goibela** (6); **irribarre goibela egin** (5); **irribarre goxo** (9); **irribarre goxoa** (5); **irribarre gozo** (9); **irribarre gozoa** (12); **irribarre handi** (15); **irribarre handi bat** (7); **irribarre hori** (16); **irribarre horrekin** (5); **irribarre hotz** (5); **irribarre hura** (7); **irribarre inozo** (5); **irribarre inozoa** (7); **irribarre ironiko** (7); **irribarre labur** (6); **irribarre leun** (7); **irribarre lotsati** (8); **irribarre lotsati bat** (5); **irribarre maltzur** (20); **irribarre maltzur bat** (8); **irribarre maltzurra** (23); **irribarre maltzurra egin** (7); **irribarre maltzurrez** (18); **irribarre mingots** (7); **irribarre oker** (5); **irribarre onbera** (5); **irribarre samur** (6); **irribarre triste** (14); **irribarre tristea** (9); **irribarre txiki** (28); **irribarre txiki bat** (15); **irribarre txikia** (25); **irribarre txikia egin** (12); **irribarre txikia eginez** (5); **irribarre urduria** (5); **irribarre xaloa** (5); **irribarre xume** (13); **irribarre xume bat** (8); **irribarre xumea** (7); **irribarre zabal** (50); **irribarre zabal bat** (15); **irribarre zabal batekin** (9); **irribarre zabal batez** (5); **irribarre zabal zabala** (5); **irribarre zabala** (50); **irribarre zabala aurpegian** (6); **irribarre zabala egin** (13); **irribarre zabalaz** (5); **irribarre zabalez** (5)

**jaunak irribarre** (7); **kristok irribarre** (10); **kristok irribarre egin** (10); **llumek irribarre** (6); **llumek irribarre egiten** (6); **neskak irribarre** (22); **neskak irribarre egin** (13); **nik ere irribarre** (6); **nik irribarre** (10); **nik irribarre egin** (7); **niri irribarre** (5); **nuen irribarre** (5); **ohiko irribarre** (7); **oneko irribarre** (5); **sethek irribarre** (11); **sethek irribarre egin** (9); **zen irribarre** (11); **zidan irribarre** (9); **zion irribarre** (10); **zitzaion irribarre** (6); **zuen irribarre** (61)

**baina irribarrea** (9); **baten irribarrea** (5); **bere irribarrea** (9); **du irribarrea** (6); **eta irribarrea** (30); **ezpainetan irribarrea** (7); **haren irribarrea** (19); **irribarrea agertu** (6); **irribarrea ahoan** (10); **irribarrea atera** (18); **irribarrea atera zitzaion** (8); **irribarrea desagertu** (5); **irribarrea egin** (15); **irribarrea egin zuen** (8); **irribarrea egiten** (8); **irribarrea eragin** (5); **irribarrea eragiten** (7); **irribarrea eskaini** (6); **irribarrea eta** (14); **irribarrea ez** (9); **irribarrea ezabatu** (5); **irribarrea ezpainetan** (41); **irribarrea ezpainetatik** (5); **irribarrea galdu** (16); **irribarrea galdu gabe** (10); **irribarrea ikusi** (7); **irribarrea ikusten** (5); **irribarrea itzuli** (5); **irribarrea loratu** (5); **nire irribarrea** (7); **zen irribarrea** (6); **zion irribarrea** (5); **zitzaion irribarrea** (9); **zuen irribarrea** (13)

**baina irribarrez** (5); **bere irribarrearekin** (5); **bere irribarrerik** (7); **beti irribarrez** (7); **du irribarrez** (6); **erantzun zuen irribarrez** (6); **ere irribarrez** (8); **esan zidan irribarrez** (5); **esan zion irribarrez** (5); **esan zuen irribarrez** (9); **eta irribarreak** (12); **eta irribarrez** (59); **eta irribarrez esan** (5); **haren irribarreak** (9); **irribarreak eta** (11); **irribarreari eutsi** (12); **irribarrerik egin** (14); **irribarrerik egin gabe** (5); **irribarrerik gabe** (6); **irribarrez ari** (19); **irribarrez ari zela** (6); **irribarrez ari zen** (7); **irribarrez begiratu** (6); **irribarrez begiratzen** (14); **irribarrez begiratzen zion** (6); **irribarrez dago** (9); **irribarrez erantzun** (12); **irribarrez esan** (14); **irribarrez eta** (25); **irribarrez hasi** (7); **irribarrez ikusi** (6); **irribarrez zegoen** (24); **kristok irribarrez** (17); **zen irribarrez** (5); **zidan irribarrez** (11); **zion irribarreari** (6); **zion irribarrez** (9); **zuen irribarrez** (24); **zuen kristok irribarrez** (13)

---

# irribarreka *(41 agerraldi 17 liburutan)* *adlag* irribarrez, irribarre eginez. ik **irribarrezka**.

Lisak sorbaldak jasotzen zituen eztiro, **irribarreka**. Karlos Zabala

Florentek, **irribarreka,** ezetz zioen denbora guztian. Karlos Zabala

**Irribarreka** zihoan, eta haren hortz zuriak kandelak ziren, gau bigunean. Felipe Juaristi

**Irribarreka** zegoen, baina, berriro ere, gaitzaren ondorengo aurpegia zeukan. Bernardo Atxaga

Haietariko zenbait **irribarreka** ari ziren. Mirentxu Larrañaga

Estreinako zurrutada emandakoan **irribarreka** begiratu zion Maizari. Migel Angel Mintegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta irribarreka** (7); **irribarreka ari** (4)

---

**irribarreño** *iz* irribarretxoa.

Curtisek eskua luzatu zion aitaordeari, aurrez aurre baitzuen, eta adeitasunezko **irribarreño** bat egin. Mirentxu Larrañaga

-Etorri nintzenean hori bezain argal nengoen, edo are flakoago -esan zuen berriro korearra seinalatuz, eta jarraitu zuen **irribarreño** batez- eta begira ezazue orain nolakoa nagoen. Joxemari Iturralde

---

# irribarretsu *(orobat **irribartsu** g.er. eta **irrifarretsu** g.er. eta **irrifartsu** g.er.)* **1** *izond*

Malkin andrea sorgin mozkote eta **irribarretsua** zen, dena malba-kolorez jantzita. Iñaki Mendiguren

Meharra eta kopetiluna zen, beraz, senar sendo, osasuntsu, ziur eta **irribarretsuaren** kontrara. Patxi Zubizarreta

**Irribarretsua** zuen ahotsa. Ramon Saizarbitoria

Haren piura **irribarretsu** eta tolesgabea ikusirik. Monika Etxebarria

Izozki-postuko emakume **irribarretsuak** zer nahi zuen galdetu ziolako. Iñaki Mendiguren

Jendearen begi **irribarretsuak** zeure begitartean landatuak ikusiko dituzu. Gotzon Garate

Landare horien artean, lorategi **irribarretsu** horren sakonean. Monika Etxebarria

Ohiko "egun on" diosal **irribarretsua** egin zion. lehengo asteko maleta bera zegoen, Popeye marinelaren irudi **irribarretsuak** apaintzen zuena. Mirentxu Larrañaga

Gizon ederra zen, berrogei bat urtekoa, **irribarretsu** eta onbera. Karlos Zabala

Ilegorri hankaluze kankailu **irribarretsua**. Edorta Jimenez

**2** (adizlagun gisa)

Gau batez, **irribarretsu,** asmatu ote zuen galdetu zion. Karlos Zabala

Biak zeuden **irrifarretsu,** bertan zutik. Anton Garikano

Platera saldaz eta godaleta arnoz betetzen, **irri** barretsu, baina galderarik ez egiteko ahaleginetan aldi berean. Elena Touyarou

-Ez dakit ba... **-irribarretsu** begiratu zion-. Migel Angel Mintegi

**Irribarretsu** hurbildu zitzaidan, mihi gorria kasik ezker gingileraino luzaturik. Karlos Linazasoro

Hala bada, bihotza pilpiran, **irribarretsu** erantzun zion: [...]. Patxi Zubizarreta

-Ahal izango nuke? -galdetu zuen Wendyk, **irribarretsu-**. Julen Gabiria

Gizonak, orduan, **irribarretsu:** [...]. Patxi Zubizarreta

Nora zoaz horren **irribarretsu,** zaldiko? Joxerra Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aurpegi irribarretsua** (7); **aurpegia irribarretsu** (3); **baina irribarretsu** (6); **begitarte irribarretsua** (3); **berak irribarretsu** (3); **beti irribarretsu** (3); **dio irribarretsu** (10); **emakume irribarretsu** (4); **erdi irribarretsu** (4); **ere irribarretsu** (4); **eta irribarretsu** (44); **eta irribarretsu ageri** (3); **eta irribarretsu begiratu** (3); **eta irribarretsu zegoen** (3); **eta irribarretsua** (4); **irribarretsu ageri** (6); **irribarretsu ageri zen** (3); **irribarretsu agertu** (9); **irribarretsu agertu zen** (5); **irribarretsu agertzen** (3); **irribarretsu atera** (5); **irribarretsu bat** (7); **irribarretsu batek** (4); **irribarretsu baten** (3); **irribarretsu begiratu** (7); **irribarretsu begiratu zidan** (3); **irribarretsu begiratzen** (4); **irribarretsu dago** (5); **irribarretsu erantzun** (5); **irribarretsu esan** (5); **irribarretsu eta** (29); **irribarretsu eta alai** (3); **irribarretsu ikusi** (3); **irribarretsu jarraitzen** (3); **irribarretsu zegoen** (10); **irribarretsua egin** (3); **irribarretsua eta** (5); **pozik eta irribarretsu** (4); **zen irribarretsu** (5); **zion irribarretsu** (7); **zuen irribarretsu** (6)

---

# irribarretu, irribarre(tu), irribarretzen da/du *ad*

Zuhaitzei isil-isilean hitz eta mintzo xotilak **irribarretzen**. Pello Zabala

---

# irribarretxo *iz* irribarre txikia.

**Irribarretxo** bat saiatu zuen: [...]. Anjel Lertxundi

Katek begiratu egiten dio, zerbitzariaren irribarre lausoari beste **irribarretxo** batez erantzunda. Sonia Gonzalez

-Tira, Olga eta Xavier, egin **irribarretxo** bat. Patxi Zubizarreta

Beltzaran txikiak ez zuen erantzun, baina ia antzeman ezinezko **irribarretxo** bat egin zuen. Monika Etxebarria

Errektore jaunak **irribarretxo** fin bat egin zuen Dekano jaunari begiratuz. Josu Zabaleta

**Irribarretxo** herabetia egin zidan. Anjel Lertxundi

Bere bulldog aurpegian **irribarretxo** errukarri bat igar zitekeen. Gotzon Garate

**Irribarretxo** bat bota diozu eta aurrera jarraitu duzu. Sonia Gonzalez

Ezpainetan **irribarretxo** antzeko bat marraztu zitzaion. Unai Iturriaga

-Bai, beti errespetua joan behar du aurretik -errepikatu zuen ironia **irribarretxo** batez neskatoak. Joxemari Iturralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta irribarretxo** (3); **irribarretxo bat** (22); **irribarretxo bat egin** (7); **irribarretxo batez** (7); **irribarretxoa egin** (6); **irribarretxoa luzatu** (3)

---

# irribarrezka *(**9** agerraldi **3** liburutan)* *adlag* irribarreka.

-Etxea konpontzen buru-belarri ibili naiz -azaldu zuen **irribarrezka**. Joanes Urkixo

"Zer egiten duzu horrela, David?", esan zidan **irribarrezka**. Bernardo Atxaga

Baina berak, **irribarrezka,** Birgha ezpataren kirtena jo zuen, konfiantza erakutsi nahian. Joanes Urkixo

Poz atseginez **irribarrezka**. Joanes Urkixo

---

irribelar ik **irri 6**.

---

# irribera *(**13** agerraldi **12** liburutan)* **1** *izond* alaitasuna adierazten duena. ik **irrikor**.

Kimono handiegi batean sartutako portzelanazko emakume ñimiño eta **irribera** batek. Aingeru Epaltza

"Zuretzat, Agurtzane", esan zidan aurpegi **irriberaz**. Agurtzane Juanena

Kristalaren lurrun atzean bisaia **irribera** dakarren aurpegi bat dakusat. Pako Aristi

Aitormenezko hitzerdi **irribera** bat. Jon Alonso

Zenbat eta moralina estuagoan hezi, orduan eta **irriberago** eta negarberago jendea. Patziku Perurena

Nahasmendua sortzen zion aire **irribera** aurpegian so zitzaion osabari behakoa eman zion. Elena Touyarou

**2** (adizlagun gisa)

Klara adi-adi zegoela Hausterri begira, adi-adi eta **irribera** . -Oker ez banaiz, jaun gazte horrek zerbait gehiago jakin nahiko du bere familiaz -komentatu zuen Marik, **irribera-** . Iñaki Iñurrieta

---

## **irribide** *iz* irri egiteko motiboa.

Makur ari gaituk, hain maiestatetsua izaki halako bortxa ageria erakutsiz, zeren zaurtezina baita bera airearen pare, eta gure ukaldi alferrok **irribide** gaizto. Juan Garzia

Baina bada gehiagorik eta okerragorik, gure eta gure langintza ondo **irribidean** uzten duenik. Juan Garzia

---

## **irribidekeria** *iz*

Gainera, mendekuak ez du barkamenak baino banitate eta **irribidekeria** gutxiago erakusten. Juan Garzia

---

## irriegile ik **irrigile**.

---

## irrieginarazi ik **irri 8**.

---

## irriegingarri ik **irri 9**.

---

## irriemangarri ik **irri 10**.

---

## irrieragingarri ik **irri 12**.

---

## **irrieragingarritasun** *iz* irri-eragingarria denaren nolakotasuna.

**Irrieragingarritasun** oharkabez, honela esanez amaitzen zuen testuak: [...]. Juan Garzia

---

## **irrigai** *iz* irri egiteko gaia.

Bere neurrian eduki behar du daukanak, bertso gizatxarretan eta **irrigai** zikinetan barrena ibilarazi gabe. Lapurtar triunfalismuak zuberotar azentua, fonetika, **irrigai,** parregai bezala dauka, eta jende bezala mespretxatzen gaituzte "buru arinak" garelakoz. Patxi Ezkiaga

---

## **irrigarri** **1** *izond* irri eragiten duena.

Gauza **irrigarri** bat kontatu behar dizut. Ramon Etxezarreta

Moldakaitzak dira trajedunak, gorbata **irrigarri** horiek lepoan loturik. Lander Garro

Zer zirrara [...] eragin zizkidan osaba gartzelatik ateratzen ikusteak, paperezko txano **irrigarri** hura buruan. Joan Mari Irigoien

Eta hiltzeko ere prest zeuden horrelako abenturazale **irrigarri** baten goranahia asetzearren. Koro Navarro

Egiaz, zure ikaslea neskatxa arras **irrigarri** bat da! Jon Muñoz

Jeloskortasun funsgabe eta **irrigarri** batek bultzatuta. Ander Irizar

Huskeria ia **irrigarri** hauek guztiak. Eduardo Matauko

Guraso inozoek zuen buruan sartutako agindu **irrigarri** guztiak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (-en atzizkiaren eskuinean)

Mundu guztiaren **irrigarri** bihurtu naiz. Fernando Rey

Grina txarrak jabea galbideratzen du, etsaien **irrigarri** bihurtzen. Elizen arteko biblia

Amorruz arnaska, mehatxu-egarriz dardarka, hilketa-gogoz irakiten, baina halere ezinduta, eskas, denen **irrigarri** . Anton Garikano

Hik dantzan ez dakik! ez nauk hirekin ariko, denen **irrigarri** ! Janbattitt Dirassar

Ez nikek bertze jauntxoen **irrigarri** izan nahi. Joan Mari Irigoien

Zuen, ene lagunon, **irrigarri** naiz, ni, erantzun eske Jainkoari deika ari natzaion hau. Elizen arteko biblia

Judua, aberatsa izanik ere, judu besterik ez zela, presondegi bateko biztanle, judu ez ziren guztien **irrigarri** eta azpiko, behe mailako beti. Felipe Juaristi

**3** (adizlagun gisa)

**Irrigarri** zegoen, nire billete biribilkatua sudur zulotik zintzilika. Aingeru Epaltza

**Irrigarri** sentitu zen une batez. Iñaki Iñurrieta

Gertaldi etsipenezkoak **irrigarri** gertatzen zirela luzeegiak izanez gero. Jon Muñoz

Horien aldean, **irrigarri** gelditzen ziren nire lagunen sastagaiak. Aingeru Epaltza

Trenputxartua, burumindua, neska puska baten aitzinean **irrigarri** gelditua. Aingeru Epaltza

Ingalaterra **irrigarri** utzi nahian. Berria - Kultura

Harrigarri bezain **irrigarri** . Patziku Perurena

Erortzen dira, halakoetan, maskarak, eta garen bezalakoak azaltzen gara, orain guztiz **irrigarri,** orain guztiz nigargarri. Joan Mari Irigoien

ELAk **«irrigarri»** iritzi dio SEAk eskainitako soldata igoerari. Berria - Ekonomia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aski irrigarria** (3); **bera irrigarri** (3); **bezain irrigarri** (3); **da irrigarria** (3); **denen irrigarri** (3); **erretolika irrigarriak** (5); **eta irrigarri** (9); **eta irrigarria** (4); **eta irrigarriak** (3); **irrigarri bat** (14); **irrigarri batzuk** (3); **irrigarri eta** (9); **irrigarri hori** (4); **irrigarri sentitu** (3); **irrigarri utzi** (3); **irrigarria da** (6); **irrigarria iruditu** (3); **irrigarria iruditzen** (5);

**irrigarria izan** (4); **irrigarria zen** (6); **irudi irrigarri** (3)

---

**irrigarrikeria** **1** *iz* irrigarritasun gaitzesgarria.

Hamabortz urte hituenetik irrigarria izan haiz, eta gaur, noiz eta gaur, goia jo duk hire **irrigarrikerian**. Aingeru Epaltza

Orain sumina baretu zaidalarik, ez dut **irrigarrikeria** baizik ikusten zure ikaslearen jokabidean. Jon Muñoz

**2** egite irrigarria.

Gizon arriskutsu horiek lor zezaketen fidantzia **irrigarrikeriaz** edo gezur beltzaz aldez aurretik itotzen. plazer handia hartzen nuelarik emakume hura bizioz eta **irrigarrikeriez** halatan apaintzen. Jon Muñoz

---

**irrigarriki** *adlag* era irrigarrian. ik **irrigarriro**.

"Aitatxorekin joan gura dut! aitatxorekin joan gura dut!" zioen oihuka, intzirika eta garrasika, oinetako zuriekin hartxintxar zurian eta hauts zuritan **irrigarriki** ostikoka eta aztalka. Urtzi Urrutikoetxea

---

**irrigarriro** *adlag* era irrigarrian. ik **irrigarriki**.

Armada erregularrak errege berriaren aurrean **irrigarriro** galdu zuelarik, karlistak adoretu egin ziren. Koro Navarro

Hauteman ere diot amodioak beti atxiki ohi duen horietako baliakizun bat, zeinaren eraginez neska ttipi hori **irrigarriro** gertatu baita kaltedun. Jon Muñoz

---

**irrigarritasun** *iz* irrigarria denaren nolakotasuna.

Literaturan, etxe-etxeko intsektua dugu eulia, **irrigarritasunaren** eta gogaikarritasunaren ikur. Juan Garzia

---

**irrigatu,** irriga, irrigatzen du *ad* likidoez eta, hedaduraz, argiaz edo beroaz mintzatuz, zerbaiten zehar barreiatu.

Argi gardenaren iturri oparoak ere, eguzki etertarrak, ortzia etengabe distira berriz **irrigatzen** eta argia bet-betan argi-berritzen du. Xabier Amuriza

Gauzen barren-barrenetik kanporatuak diren gorpuzñoak, halanola eguzkiaren argia eta beroa, une batean ortzialde guztian zabaltzen eta itsas-lehorrak hegatzen eta ortzia **irrigatzen** ikusten baditugu, [...]. Xabier Amuriza

---

**irrigazio** *iz* irrigatzea.

Eskuetako odol **irrigazioarekin** arazoak izan dituzten pilotari ugari. Berria - Kirola

**Irrigazio** arazoak dira min ohikoenak pilotariarengan. Berria - Kirola

---

**irrigile** *(orobat* ***irriegile****)* *izond* irri egiten duena.

Neskatxa ttipi hori **irriegilea** da; eta, haren alaitasunari bide emateko, bururatu zitzaidan burutik pasatzen zitzaizkidan abentura eskandalugarriak oro, gure pausaldietan, hari kontatzea. Jon Muñoz

Itsaso jabalaren lausengu traidoreak ezin zuen inor erakarri bere uhin **irrigileen** engainura. Xabier Amuriza

---

**irrigura** *iz* barregura.

Mutila, berriz, kilimaka hasi zaio saihets aldean, eta Angela **irriguraz** bihurritu da aulkian, besoak bular gainean gurutzatuta. Patxi Iturritegi

---

**irrika**[1] *(ETCn* ***6.372*** *agerraldi; orobat* ***irriki*** *ETCn* ***405*** *agerraldi)* **1** *iz* zerbaitetarako grina edo nahi bizia. ik **irrits; joran**.

**Irrika** orok du alde iluna, jelosia da amodioaren egia. Markos Zapiain

Gogoak sen bat dauka, grina bat, **irrika** bat: maitatzea. Jenaro Garate

**Irrikaren** lehenengo osagarria den bultzada horretaz gainera, **irrika** bere xedearen arabera **(irrika** asetzea izaten da beti), bere objektuaren arabera **(irrika** bere xedera iristeko bidea), eta iturburuaren arabera **(irrika** gorputzean ainguratzen den gunea) definitzen da. Josu Zabaleta

Emaztearen **irrikak,** desioak eta izaera ez dira kontuan hartzen. zulotik zure hitzak entzuten aritu naiz, eta zure gorputzaren **irrikak** bete nau. Gotzon Garate

Neurri guztiak galduak eta gorputz osoa dardaraz jartzen zidan **irrika** batez astindua. Karlos Zabala

Gaztaroaz geroztik zeuen desira beste hesirik, zeuen **irrika** beste legerik ez duzuenok. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Edertasunak liluratu zaitu eta **irrikak** bihotza okertu. Elizen arteko biblia

Kontsumorako **irrika,** grina bizia, desioa. Iñaki Heras

Ordu arte bizi izan ez nuen **irrika** bat hasi zitzaidan barru--barruan ernaltzen. Anjel Lertxundi

Esan dugunez, bere **irrika** ez zen bete. Gotzon Garate

**Irrika** tanpez desagertu zitzaion, eta haren ordez, matelak sutan sentitu zituen. Elena Touyarou

Ez omen nuen ezer esan, ez agindu, ez adierazi, baina begiradan sumatu omen zidan **irrika**. Joxean Agirre

**2** (izenondoekin)

Dutxa on baten **irrika** bizia nuen, nonbait ere. Joxan Elosegi

Gaztetako **irrika** eutsiezin hura sentitu nuen barruan, erraiak dardararazten. Juan Luis Zabala

Nire izate guztia inarrosi zuen, geroz eta handiagoa zen **irrika** eutsiezinez bete zuen. Urtzi Urrutikoetxea

Ahotsean arnas-estua, egarri aseezina, **irrika** ezkutua nabari zituen. Xabier Olarra

**Irrika** suharrez desiratzen nituen. Koro Navarro

Herriko nahiz kanpoko neskekin eta emakumeekin larrutarako **irrika** erabatekoarekin. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Irrika** eskopikoa deitu ohi dena irrikaren kontzeptu orokorraren kasu berezi bat da. Josu Zabaleta

Bere **irrika** ase gabea harekin gogor jokatuz berdintzen zuela. Patxi Zubizarreta

**3** (-tzeko atzizkia duen aditz forma batekin)

Frantziskoren karitate kartsua, eta martiri izateko **irrika**. Jose Morales

Supituan bera besarkatzeko gogoak hartu zidan barrena, nire kontra estu-estu egin eta haren bularrak sentitzeko **irrikak**. Anjel Lertxundi
Zein koloretako barruko arropa zeraman jakiteko **irrika**. Jasone Osoro
Ikasteko **irrika** izugarria omen zuen Johnek. J.M. Olaizola "Txiliku"
Gutun hori hartzeko **irrika** bizian nintzen. Jon Muñoz
Hil arte iraungo diola Trabukori urre-goseak eta Berdabio inguruak zulatzeko **irrika** eroak. Anjel Lertxundi
Berri jakinarazteko **irrika** menderaezina sumatzen zuen barnean. Jose Morales
A ze **irrika** dudan zu ikusteko! Lopez de Arana
Izugarrizko **irrika** nuen arrakasta lortzeko. Lopez de Arana
· Berak jakinarazi zizkidan ni ikusteko duzuen **irrika,** zuen damu-negarra eta nirekiko maitasuna. Elizen arteko biblia
**Irrika** bizia dugu jakiteko nor garen, nondik gatozen eta zer egiten dugun hemen. Juan Garzia
Berebiziko **irrika** piztu zitzaidan musika klasikoa entzuteko. Juan Kruz Igerabide

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina ikusten da badela **irrika** mota bat, haserrea, kontrakorik ez duena, ez baitzaio besterik gelditzen uko egitea baizik. Piarres Xarriton
**Irrika**-uhin batek zeharkatzen du alderik alde. Oskar Arana
Pultsio edo **irrika** kontzeptua oinarri-oinarrizkoa da Freuden psikoanalisian. lehen planoak eragiten dituen **irrika**-efektuak. Josu Zabaleta
-Ederki, zurekin joango naiz dantzara, begietan txantxangorri habiak dituzun neska -esan zuen mutilak, **irrika**-minak erretzen balego bezala-. Felipe Juaristi
Beren **irrika**-kargarekin. Josu Zabaleta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eskolan, lagun-**irrika** zuen Templek. Xabier Olarra
El Doradokoak aberetu egiten gaitu, Colonek -giza **irrikak-** deskubritutakoa konkistatu behar [...] basatia ahalbideratzeko asmatzen baitira urrearen inguruko sineskeria eta fabulak. Anjel Lertxundi
Ikusle-**irrikak** eta irudia. Josu Zabaleta
Arestiko asmo guztiak ahaztuta eta haragi-**irrika** guztiaz nolabait libratua. Matías Múgica
Hor kokatzen dira emozio primitiboak -gosea, beldurra, atsegina, sexu-**irrika-,** banakoa nahiz espeziea arriskutik babesten dutenak. Irene Aldasoro
Bere handinahia eta botere **irrikak** asebetetzeko. Patxi Zubizarreta
Gobernura noa hemendik egun gutxira eta diru-**irrika** bizian noa. Patxi Ezkiaga
Diru-gosea eta ohore **irrika** itsua. Xabier Amuriza
Gorrotoa giza arimaz erabat jabetzen denean, mendeku-**irrika** ere piztuta egoten duk su horren ondoan... Xabier Olarra
Maitasun-**irrika** serafikoz jainkoaganatzen. Askoren artean
Bere hedapen-**irrika** espekulatiboaren ateraldietan gustura zedarriztatzen uzten ez den arrazoimena. Ibon Uribarri
Norberaren edukitze **irrika** asetzen eta beste gainerakoena zapuzten duen edozer. Xabier Olarra
Gure atxikitasunean badelako halako gurekoikeria eta jabego-**irrika** bat. Joan Mari Lekuona
Izatea eman zion Harenganako konbertsio **irrika** duen arimak aurrena existitu beharra zuen. Imanol Unzurrunzaga
Jan-**irrika** sartu zitzaien basamortuan. Elizen arteko biblia

**6** ***irrikan*** (*339 agerraldi 80 liburu eta 139 artikulutan*) *adlag* irrikaz.

**Irrikan** nengoen arma berriak gazteluko guztiei erakusteko. Aingeru Epaltza
Buruiritzia izaki, hura noiz hurreratuko zitzaion egon zen, **irrikan,** bereak eta asto beltxarenak esateko eta dardaran ezartzeko. Patxi Zubizarreta
Esklaboa bezala, atsedenaren **irrikan** dago. Elizen arteko biblia
Jakinduriaren **irrikan** zauden horrek, bete aginduak eta erruz emango dizu Jaunak. Elizen arteko biblia
Horren **irrikan** egon nauk azken urtean. Agustin Otsoa
Ezkutuan larrutan ari direnak zelatatzen omen ditu, giza haziaren **irrikan** beti ere. J.M. Olaizola "Txiliku"
Nahita berandutu nintzen, banekien hura **irrikan** zegoela, baina, iritsi nintzenean, ez nintzen ibili luzamendutan. Karlos Zabala
-Baina nolatan jakin dute? -galdetu zien Mikel Strogoffek, jakin-minez **irrikan,** baina berrien egiatasunaz erabat fidatu gabe. Karlos Zabala
Urduri, zain zegoen, **irrikan,** Memok bere gutizia noiz adieraziko. Fernando Rey
· Irakurtzeko **irrikan** dago. Rafa Egiguren
Zer nahi zuten jakiteko **irrikan** zegoen Maiza. Migel Angel Mintegi
Logura, eta etzateko **irrikan**. Txillardegi

**7** ***irrikatan*** (*52 agerraldi 19 liburu eta artikulu 1ean: ETCn 360 agerraldi*) *adlag* ik **irrikitan.**

Tomen konpainiarik gabe, bereziki **irrikatan** nintzen asteartean hura ikusteko. Oskar Arana
Rachel bereziki **irrikatan** zegoen Lucy ezagutzeko. Oskar Arana
Kleiman jaunak hamaikak eta erdiak arte jakin-minez **irrikatan** eduki gaituelako. Josu Zabaleta
Martxoak bere euri eta eguzki, belar ugari ekartzen ere badaki, eta behiak larre-**irrikatan** muuuka jartzen ere bai. Pello Zabala
Gaur egungo Alemanian ia filosoforik ez da, bizitza praktikoaren **irrikatan** daude denak. Josu Zabaleta
Petrus, nire iritzirako, **irrikatan** dago Lucyk dena bertan behera utzi eta alde egin dezan. Oskar Arana
-Noiz ikusiko dugu printzesa? **Irrikatan** nago! Felipe Juaristi

**8** ***irrikaz*** (*496 agerraldi 120 liburu eta 50 artikulutan; ETCn 2.341 agerraldi*) *adlag* irrikatuz.

**Irrikaz** irensten dituzte ostrak, karramarroak eta bestelako jaki bitxiak. Jose Morales
Harryk **irrikaz** begiratu zuen kartazalaren barruan. Iñaki Mendiguren
Gustura ikusiko omen zuen, beisbol partida bat zuzenean, eta, udaberrian, denboraldia noiz hasiko **irrikaz** zegoen. Xabier Olarra
Beldur zen, baina **irrikaz** ere bai.Nik, urduri eta **irrikaz,** zakilburua bere uzkiaren kontra jarri nuen. Aitor Arana
-Bai -esan zuen Bain andreak **irrikaz-**. Mirentxu Larrañaga
**Irrikaz** nengoen berarekin batera han egoteko, bera lanean ikusteko. Xabier Olarra
**Irrikaz** daudela jakiteko kutxa nolakoa zen barrutik eta nola zegoen antolaturik. Jose Morales
Maitasunaren **irrikaz** bizi zen, eta ihes egiten zion. Koro Navarro
Heriotzaren **irrikaz** zeuden, aitzitik, hura baitzen Hassanek hitz emana zien paradisurako pasaportea. Jon Muñoz
Ni neure maitearena naiz, eta nire **irrikaz** dago bera. Elizen arteko biblia
-Ezer aurkitu duzu, aita? -galdetu zion Fredek **irrikaz**. Iñaki Mendiguren
Leihotik kanpora **irrikaz** begiratuz. Iñaki Mendiguren
**Irrikaz** itxaroten dut amore eman eta loak hartzeko unea. liluramenduz eta pertzepzio **irrikaz** betea izan zen S.B.rentzat erietxean emandako denbora. Mirentxu Larrañaga
Ehiza-**irrikaz** dagoen lehoiaren antzera. Elizen arteko biblia
· Goseak akabatzen nago, festara joateko **irrikaz..** -erantsi zuen Ronek. Iñaki Mendiguren
Fangek leihora salto egin zuen irteteko **irrikaz**. Iñaki Mendiguren

Gobernadorearen emaztea eta alaba nora joan ote ziren jakiteko **irrikaz**. Jose Morales

**9** ***irrikazko*** *izlag*

Mutilei **irrikazko** edo maitasunezko kanta flamenkoak abesten egon ohi zen neska-koadrila, esku-zartaka. Urtzi Urrutikoeetxea

**10** ***irrika izan*** du *ad* ik **irrikatu.**

Hala agintzen du halabeharrak, hala eskatzen du adimenak, eta, batez ere, halaxe **irrika du** nire borondateak. Patxi Ezkiaga

Zizeronengandiko Jakinduria kontzeptua nahiko abstraktua zen, Agustinen bihotzak **irriki** zuenaren soslaia besterik ez. Imanol Unzurrunzaga

Askok gauza bera **irrika** izanaz. Esteban Antxustegi

Gizon noble baten semeak, jaiotzatik itsu zenak [...] **irrika zuen** ikusmena eskuratu zuen, eta, gertaera horren oroigarriz, *Iluminato* izena eman zioten. Askoren artean

· Campionek ipurdi haren **irrika zuen,** eta lasterka joaten zitzaion ipurdia gordean haztatzera osaba ez zegoen bakoitzean. Pello Lizarralde

Marrazoak ikusteko **irrika zuen**. Imanol Zurutuza

Ikusi dituzun gizon horiek soldaduak dira eta bakoitzak bere **irrika du** eta bakoitza bere grinak bizi du. Felipe Juaristi

**11** ***irrika izan*** da *ad*

Jainko, ene Jainko, lehia biziz nabilkizu bila, zure egarri da nire barrena, zure **irrika** naizen guztia, lur lehor, agor, urgabea bezala. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arabera irrika** (3); **are irrika** (3); **ateratzeko irrika** (3); **baina irrika** (3); **baino irrika** (6); **baita irrika** (3); **bere irrika** (12); **bereganatzeko irrika** (3); **beren irrika** (4); **da irrika** (4); **den ikusteko irrika** (3); **duen irrika** (4); **duten irrika** (3); **egiteko irrika** (6); **ekiteko irrika** (3); **entzuteko irrika** (4); **esateko irrika** (4); **eta irrika** (35); **eta irrika bizian** (3); **eta irrika biziz** (3); **ezagutzeko irrika** (8); **gero eta irrika** (3); **gure irrika** (3); **guztien irrika** (3); **hain irrika** (6); **halako irrika** (6); **haren irrika** (4); **hartzeko irrika** (4); **ikusteko irrika** (20); **ikusteko irrika bizia** (3); **ikusteko irrika bizian** (4); **irrika bat** (6); **irrika bizia** (26); **irrika bizia zuen** (4); **irrika biziagoz** (3); **irrika bizian** (45); **irrika bizian nintzen** (6); **irrika bizian zegoen** (5); **irrika biziaz** (4); **irrika biziz** (21); **irrika biziz itxaroten** (3); **irrika bortitza** (4); **irrika da** (3); **irrika du** (5); **irrika edo** (4); **irrika ere** (3); **irrika eskopikoa** (6); **irrika eta** (20); **irrika ez** (5); **irrika ezazue** (3); **irrika guztiak** (3); **irrika hain** (3); **irrika handia** (5); **irrika handiagoa** (3); **irrika handiagoz** (4); **irrika handirik** (3); **irrika handiz** (5); **irrika hori** (8); **irrika horiek** (3); **irrika horrekin** (3); **irrika hura** (5); **irrika nuen** (4); **irrika piztu** (7); **irrika sartu** (3); **irrika sentitu** (4); **irrika sortu** (8); **irrika sortu zitzaion** (3); **irrika zapuzten** (3); **irrika zuen** (12); **izateko irrika** (9); **jakiteko irrika** (12); **jakiteko irrika bizian** (4); **joateko irrika** (6); **martiri izateko irrika** (3); **nire irrika** (10); **zeukan irrika** (3); **zuen irrika** (3); **zuen jakiteko irrika** (3); **zure irrika** (4); **zuten irrika** (4)

**bere irrikak** (4); **eta irrikak** (11); **ikusteko irrikak** (3); **irrikak bultzatzen** (3); **irrikak eta** (6)

**alde egiteko irrikan** (3); **atseden hartzeko irrikan** (3); **denboraldia hasteko irrikan** (3); **egiteko irrikan** (18); **egiteko irrikan nago** (3); **emateko irrikan** (3); **entzuteko irrikan** (5); **eta irrikan** (8); **eta irrikan zegoen** (4); **eta jokatzeko irrikan** (5); **hartzeko irrikan** (8); **hasteko irrikan** (22); **hasteko irrikan gaude** (3); **hasteko irrikan nago** (4); **hitz egiteko irrikan** (3); **ikusteko irrikan** (21); **ikusteko irrikan daude** (3); **irabazteko irrikan** (5); **irakurtzeko irrikan** (5); **iristeko irrikan** (8); **irrikan da** (10); **irrikan dago** (23); **irrikan dagoela** (13); **irrikan dagoen** (3); **irrikan daude** (20); **irrikan daudela** (5); **irrikan dira** (5); **irrikan egon** (10); **irrikan egongo** (3); **irrikan egotea** (3); **irrikan egoten** (9); **irrikan gaude** (9); **irrikan nago** (24); **irrikan nengoen** (15); **irrikan zaude** (8); **irrikan zegoela** (10); **irrikan zegoela esan** (3); **irrikan zegoen** (20); **irrikan zeudela** (4); **irrikan zeuden** (9); **itzultzeko irrikan** (5); **jakiteko irrikan** (15); **joateko irrikan** (9); **jokatzeko irrikan** (28); **jokatzeko irrikan da** (4); **jokatzeko irrikan dago** (6); **jokatzeko irrikan nago** (4); **jokatzen hasteko irrikan** (3); **jotzeko irrikan** (3); **lortzeko irrikan** (7); **partida jokatzeko irrikan** (4); **sartzeko irrikan** (5)

**eta irrikatan** (3); **irrikarik ez** (3); **irrikarik handiena** (6); **irrikatan dago** (3); **irrikatan egongo** (4); **irrikatan nago** (8); **irrikatan nengoen** (3); **irrikatan zegoela** (3)

---

## irrika[2] *adlag* barreka.

"Berrehun eta berrogei gramo galdu ditut azken aste honetan", edo "kilo eta laurehun irabazi ditut", zehazten zuen don Pedrok, eta berarekin biltzen ziren adiskideak […] **irrika** eta zirika hasten zitzaizkion. Bernardo Atxaga

Gelakideak, astakirten galantak, ez zuten zeregin hobeagorik aurkitzen, noski, beren habailak […] nire zirkuluetarantz keinatu baino, **irrika** eta trufaka, irakasleak bizkarra ematen zigunean. Eskarne Mujika

Neska batzuk -mutil handia ez ezik, egokia zen Ubanbe- **irrika** hasi ziren. Bernardo Atxaga

-Hi! Aita Martzelino zirudik! -esan dio Joxek, **irrika**. Jokin Muñoz

---

## irrikagarri *izond* irrika eragiten duena.

Oroimin asegaitz, **irrikagarri** eta gazi-gozoa. Xabier Olarra

Erdi-mailako jaun horiek bai, horiek badute halako dohain **irrikagarri** bat, zeruaren opari! aintzira galant baten ur-azal **irrikagarria** ikusirik. Jose Morales

Une hartan harritu zuenaren eta handik aurrera **irrikagarri** bihurtuko zitzaionaren lekuko izan zen Gustavo. Felipe Juaristi

Gero eta **irrikagarriagoa** egiten zitzaion liburuaren sekretua argitzea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bazirudien haren finantzak ere ez zeudela oso egoera **irrikagarrian**. Jose Morales

---

## irrikaitz *iz* irribarrea, gehienetan maltzurra.

Txitxikov ohartu zen dama askok **irrikaitz** maltzurrez begiratu ziotela elkarri eta halako espresio zimarditsu bat agertu zela aurpegi batzuetan, eta horrek barneko nahasmendua areagotu zion. Jose Morales

Haiek izanen dira hurrengoak, dio, ezpainetan **irrikaitza**. Xabier Montoia

---

## irrikatsu *(orobat **irrikitsu** g.er.)* **1** *izond* irrikaz betea.

Marinelaren begi **irrikatsuak** sumatu zituen bere lepoan, iztarretan eta orkatiletan iltzaturik. Lopez de Arana

Begirada **irrikatsua**. Jon Alonso

Zakil egarriz zegoen potxon **irrikatsu** bati ene esnea eskaini nion. Aitor Arana

"Zer dago?", haur gosetu baten galdera **irrikatsua**. Xabier Mendiguren Elizegi

Harresi hauen aurka hautsiko dira zuen hezurrak, hemen moztuko ditugu zuen esku **irrikitsuak**. Jon Alonso

Perla baliotsu baten jabe pribilegiatuekiko inbidia **irrikatsua**. Iñaki Mendiguren

**2** (adizlagun gisa)

Gizonaren ahoa itsumustuan ari zen masaila batean, sudurraren azpian, emakumearen ahoaren xerka, **irrikatsu**. Lopez de Arana

Eta, mesedez, gogoan izan beti laguntzeko benetan **irrikatsu** naukazuela. Lopez de Arana

Donatienek **irrikatsu** maite zituen bi gauza hauek: uzki-koitoa eta talde-sexua. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Egunero miatzen zuen egunkaria, **irrikatsu,** euren balentriak irakurtzeko. Lopez de Arana

Heriotzaren zain daude, eta ez zaie etortzen, altxorrak baino **irrikatsuago** bilatu arren. Elizen arteko biblia

---

## irrikatu, irrika(tu), irrikatzen *(orobat **irrikitu** g.er.)* **1** du *ad* irrikaz nahi izan.

Dagoeneko lortu dut zerupean **irrikatu** nuena. Askoren artean

Dena dela, **irrika** itzazue dohainik onenak. Elizen arteko biblia

Ez dut inoren zilar-urrerik edota jantzirik **irrikatu** izan. Elizen arteko biblia

Joana zuen Hadassenganako desira, eta bazekien Yentl **irrikatuko** zuela, baina ez zen ausartzen hari hura esaten. Koro Navarro

Kondena bera **irrikatu** behar ote dugu, bada, **irrikatzen** hasita? Juan Kruz Igerabide

Eta ez ditzatela axola biziz sendagaiak eskatu, ez eta neurriz kanpo **irrikatu** aurki hiltzekoa den eta arimaren etsai den lurtar gizakiaren osasuna. Askoren artean

Jakin-minak **irrikaturik,** mailu bat hartu, eta txiki-txiki egin zuen erregeak sarraila-zuloko diamantea. Anjel Lertxundi

Bizitza gelditu egin zaio; lausoki, erretiro lasai bat hasi da **irrikatzen**. Oskar Arana

Eta inor zenbat eta gutiago maite, orduan eta maitakorrago azaltzen dira, eta gero eta jende gehiagok adora ditzan **irrikitzen** dute. Patziku Perurena

**Irrikatzen** nago bihar *Unità*k zer dioen irakurtzeko! Koldo Biguri

**Irrikatzen** egoten gara larunbata noiz iritsiko. Josu Zabaleta

Lortzeko **irrikatzen** dauden hori luzaroan ukatu ezin zaien pertsonak. Jon Muñoz

Eskumenean zuen **irrikatzen** zuen guztia. Gotzon Garate

Hain biziki **irrikatzen** duena bilatzeko. Patxi Altuna

Argindarra: huraxe **irrikatzen** nik gehiena. Joxe Austin Arrieta

Etorri niregana **irrikatzen** nauzuenok. Elizen arteko biblia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Bere baitan egin zuen ea iritsiko ote zuen zoriontasun **irrikatua**. Patxi Zubizarreta

Aireak jasoa zuen haren hats **irrikatuaren** lurrina. Patxi Zubizarreta

Traidorearen eta heroiaren bular barnera bala **irrikatu** bat oldartu zen arte. Zeure bihotzeko desira osoz zerbitzatzen duzun hark ontzat eman dezala, zuri sari **irrikatuok** ematea. Juan Garzia

Alabaina, barealdi **irrikatu** hura lortu beharrean, bizimolde berriak areagotu egin zion familiarekiko eta karrikarekiko sentitzen zuen hastioa. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**biziki irrikatzen** (7); **biziki irrikatzen zuen** (4); **egiteko irrikatzen** (3); **eta irrikatzen** (6); **etorri niregana irrikatzen** (3); **irrikatu behar** (5); **irrikatu hura** (3); **irrikatu zuen** (4); **irrikatu zuten** (4); **irrikatzen du** (6); **irrikatzen dudana** (3); **irrikatzen duen** (5); **irrikatzen duten** (3); **irrikatzen eta** (8); **irrikatzen nago** (8); **irrikatzen nauzuenok** (3); **irrikatzen nuen** (3); **irrikatzen zuen** (22); **niregana irrikatzen** (3); **niregana irrikatzen nauzuenok** (3); **santuak irrikatzen** (3); **santuak irrikatzen zuen** (3)

---

irriki ik **irrika**[1].

---

**irrikitan** *(65 agerraldi 33 liburu eta 20 artikulutan; ETCn 360 agerraldi; cf* ***irrikatan*** *ETCn 260 agerraldi)* *adlag* irrikaz ik **irrika**[1] **7**.

**Irrikitan** naukazu! -adarra jo nahian edo-. Txillardegi

Joxerramon Iruretagoiena Izeta II.-a **irrikitan** dago urriaren 24a noiz helduko. Berria - Kirola

Belarri guztiak jarri ziren neuri erne, nire ekintza izugarriaren arrazoia nola agertuko nuen **irrikitan**. Hasier Etxeberria

Hirekin noiz ezkonduko **irrikitan** nagok, begiak ateratzeko! Koldo Biguri

**Irrikitan** geunden horrelakoak ikasteko. Karlos Zabala

Aspaldi handian **irrikitan** nengoan hiri noiz erranen, Edu, eta gaur diat parada: hamabortz urte hituenetik irrigarria izan haiz, eta gaur, noiz eta gaur, goia jo duk hire irrigarrikerian. Aingeru Epaltza

Zu begien bistatik galtzeko **irrikitan** nago. Antton Olano

Luze-luze lo egiteko **irrikitan** dagoela erraten digu halakoetan. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**egiteko irrikitan** (5); **ikusteko irrikitan** (4); **irrikitan dago** (5); **irrikitan gaude** (3); **irrikitan nago** (3); **irrikitan zegoela** (3); **irrikitan zegoen** (4)

---

irrikitsu ik **irrikatsu**.

---

irrikitu ik **irrikatu**.

---

**irrikor** *(5 agerraldi 5 liburutan)* **1** *izond* alaitasuna adierazten duena. ik **irribera**.

Aire **irrikorra** darien indioilar aldrak Xabier Amuriza

**2** (adizlagun gisa)

Ai, hik ere Alex nahi huen -aurpegiratu zion Arantxak, **irrikor**. Fernando Morillo

Emaztea une batez begira gelditu da aho zabalik, aurpegia atezuan eta **irrikor,** lehertu beharrean dagoenaren antzera. Monika Etxebarria

---

**irrilari** *iz* irri egiten duena.

Guztiei egun on **irrilariak** emanez sartu zen Angie Publicity House-n. Iñaki Zabaleta

---

**irrimaltzurka** *adlag* ik **irri 2**.

-Ikusiko dinagu -esan zuen Angiolierik **irrimaltzurka**. Juan Garzia

---

**irrimarra**[1] *iz* karikatura.

Urriaren 29an ortziralearekin aratsaldeko 4,30etarik 6ak arte, **Irrimarrak,** marrazki ikastaldiak ordinadorean eta argazki arramoldatzeak, beti ordinadorean. Herria

Eusko Jaurlaritza prest dago etorkizuneko proiektua laguntzeko, baina ez gaude prest egungoaren **irrimarra** defendatzeko. Berria - Ekonomia

---

**irrimarra**[2] *iz* irri-mirria.

Datu zehatzik inork ez du eman nahi artzainek zenbat ardi dauzkaten esaten ez duten arrazoi berberengatik, baina aurten, analisiaz galdetu, eta denen ahotan **irrimarra** zegoen. Berria - Kultura

irrimirri ik **irri 14**.

irrimurritz ik **irri 16**.

**irringarri** *izond* **1** irri-egingarria, irrigarria.

Bertze errorik ezin izan mintzatzeko molde **irringarri** horrek, gauza batez eta haren kontrakoaz aldi berean bozkariatzera eramaten zuenak. Aingeru Epaltza

Zer egoera **irringarria**! Ramuntxo Etxeberri

Tentsio unetik historio **irringarri** baten medioz ateratzeko usaia baitut, errespetu eta zentzu izpirik gabeko silogismo hau asmatu dut. Piarres Aintziart

Ikusgarri **irringarri** bat eskainiko du "To Be Quatre" laukoteak Donibane Garaziko Vauban zinegelan. Herria

C.an "Kutxidazu bidea, Ixabel" antzerki **irringarria**. Herria

Sketx labur eta **irringarriak**. Herria

**2** (adizlagun gisa)

Alabaina, berehala etxeratuz, **irringarri** agertuko nintzaien. Daniel Landart

Ez nuen ez susmagarri ez **irringarri** gelditu nahi. Aingeru Epaltza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **antzerki irringarria** (3); **irringarri bat** (5); **irringarri ere** (3)

**irringarrikeria** *iz* irrigarrikeria.

Solasa biziagotu nuen, **irringarrikeriaren** mugan: [...]. Aingeru Epaltza

**irriño** *(orobat* ***irrino*** *g.er. eta* ***erriño*** *g.er.)* *iz* irritxoa.

Goitik beheiti so egin eta **irriñoa** loratu zitzaion. Aingeru Epaltza

Gogoeta horiek alaiturik, **irriño** bat pizten zait ezpainetan. Filipe Bidart

Ez zuen sekulan **irriño** batek haren aurpegia argitzen, baina bihotz haundikoa zen eta bazekien zerbitzu egiten. Michel Oronoz

Urrats bat egin orduko, ordea, itzuli eta **irriño** erdi batez zabaldu zizkidan bere beso gotorrak. Aingeru Epaltza

**Irriño** mehe batek bizi pizar bat eransten zien haren mazelei. Aingeru Epaltza

Begitarte mehatxa, sudurra puxka bat luzea, ezpainak bata besteari tinke lotuak, **irriño** samin batekin xokoan. Michel Oronoz

-Amadis ez da, beraz, Briolanie xarmantarekin oraino elkartu... -emakumearen **irriñoa** jostaria zen. Aingeru Epaltza

**Irriño** murritz batek eztitzen zion arestiko behako harroa. Aingeru Epaltza

Neskameari **irriño** ergel bat atera zitzaion. Mirentxu Larrañaga

Zuzendaria aspaldi ohartu zaie haien **irriño** konplizeei. Aingeru Epaltza

**Irriño** egin die, baina ez da irriz ari. Aingeru Epaltza

Gizonak **irriño** bat egin zion eta, zutiturik, bidean barna abiatu zen. Elena Touyarou

Pantxikaren ondorat heldu nintzelarik, **irriño** bat egin zidan. Janbattitt Dirassar

Joantto izan zen **irriño** bat bera egin ez zuen bakarra. Elena Touyarou

Lotsazko **irriñoa** egin zuten neskaren begiek. Anjel Lertxundi

Biharamun eguerditan, bazkal orduko Maite heldu zait **irriño** bat ezpainetan. Janbattitt Dirassar

Ene zaintzale troparen buruzagiak, xefak, biziki airosa iduri du, **irriño** bat ezpainetan, baina ez irri gaixtoa. Filipe Bidart

Kattinak berriz ere **irriño** bat ezpainen xokoan. Janbattitt Dirassar

Gure thenoria jin ondoan, **erriño** batekin, errezebi gitzatzü. Herria

Sigi-sagaka bere zeldara bazihoan gero, aingeru **irriñoak** begitartea apaintzen ziola. Itxaro Borda

Berlusgoñik azeri-**irriñoa** egin zuen. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beti irriño** (14); **beti irriño** (3); **ere irriño** (3); **eta irriño** (4); **eta irriño** (6); **halako irriño bat** (3); **halako irriño bat** (5); **haren irriño bat** (5); **irriño bat** (75); **irriño bat egin** (17); **irriño bat egiten** (3); **irriño bat ezpainetan** (14); **irriño batek** (9); **irriño batekin** (32); **irriño baten** (4); **irriño batez** (15); **irriño egin** (10); **irriño egin zuen** (3); **irriño ezti** (3); **irriño goxo** (4); **zuen irriñoa** (3); **irriñoa begietan** (3); **irriñoa egin** (4); **irriñoa ezpainetan** (4)

**irriñoka** *adlag* irriñoak eginez.

Karrikan barrena ikusita, auzotarrak marmarka eta **irriñoka** hasten diren horietakoa. Alberto Ladron Arana

**irrintzi** *(orobat* ***irrintzin(a)*** *g.er.)* **1** *iz* zaldiaren eta kidekoen oihua.

Zaldien **irrintziak** eta astoen arrantzak dantzatzen zituena. Joan Mari Irigoien

Zaldien **irrintzi** izutua entzun zen tupustean. Anjel Lertxundi

Zaldi baten **irrintzi** zorrotza iritsi zen niganaino. Txillardegi

Gau ilunpe beltz horretan jendeen solasak entzun daitezkeela, eta ere oilarren kukurrukuak eta ere zaldien **irrintzinak**. Aurelia Arkotxa

Zalditzar zuri batek egin zuen jauzi bere aurrean, **irrintzi** beldurgarria jaurtiz. Xabier Aranburu

Gameluaren **irrintzia** entzun nuen irrintzia besterik ez zenean; gero, arrisku-seinale bilakatu zen, eta, azkenik, **irrintzi** bihurtu zen berriro. Xabier Aranburu

**Irrintzi** horiek Giomar hil zuen adarbakar haren ondorengoenak omen dira. Martin Anso

**2** giza oihu berezia.

Mendi gailurretatik **irrintzi** baten hots ozena heldu zen. Joanes Urkixo

Janis Joplinen **irrintzi** basa eta Dylanen sudur-mintzoa. Sonia Gonzalez

Oreinak bezala salto egingo du herrenak, pozaren pozez **irrintzi** mutuak. Elizen arteko biblia

Jerikoren konkista, tronpeta hotsez eta herriaren bat-bateko **irrintzi** beldurgarriari esker lortutakoa. Jose Antonio Mujika

Nik bi pauso ematerako, ordea, garaipenezko **irrintzi** ero bat entzun nuen nire atzean. Anjel Lertxundi

Souad Massiren musikak pizturik, guztiak irria ahoan, txaloka, zutik, eskuak airean edo gerria dantzan, arabiar **irrintzinak** entzun daitezkeela han-hemenka. Berria - Kultura

**3** euskal oihua.

Bat-batean, Orrondok **irrintzi** bat bota zuen trikitrixaren piezari lagunduz. Pedro Alberdi

Martinek **irrintzi** bat bota zuen, barre-algara luze bat ematen duena, edo zaldiaren oihua, barre burlati batez bukatua. Koro Navarro

Edan eta **irrintzina** harrigarri bat botatzen du Elur-ek gauaren bihotzean. Michel Oronoz

Hurbiltzean, Marik **irrintzi** bat bota zuen, biztanleen abisatzeko. Elena Touyarou

Angel Berruetaren seme Imanolek aitaren alde egindako oihuarekin eta **irrintzi** batekin eman zion azkena omenaldiari. Berria - Euskal Herria

Esme eta Gotzone Sestorainen **irrintziek** biribildu dute lana. Berria - Kultura

**4** *hed*

Eta ateak ere, lehen bere erroetan atseginez **irrintzi** egiten zuenak, isilik dirau eskaratzean. Patziku Perurena

Gurpilei negar, enbrageari **irrintzi** eta martxa-aldagailuari karrank eginarazten zien. Aingeru Epaltza

Eta soinu txikiaren **irrintziak** gure gurasoen odola irakiten jartzen bazuen [...]. Pako Aristi

Zelan soinua besoek emon ahala zabaltzen eta izten eban eta zelako **irrintzia** ataraten eutsan. Xabier Amuriza

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Irrintzi** deiak ikaraldi batez iratzarri zituen. Joanes Urkixo

Aurtengo **Irrintzi** lehiaketako irabazlea. Hasier Etxeberria

Urkoiko plazan, **irrintzina** lehiaketa. Herria

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Orduantxe entzun ziren zaldi **irrintziak,** zamariei zuzendutako oihuak. Felipe Juaristi

Gamelu-**irrintzia** arrisku bilaka zitekeen bezalaxe, datilondo ilara batek mirakulua adieraz zezakeen. Xabier Aranburu

Diotenez, oraindik ere entzun daitezke adarbakar-**irrintziak,** gauez, Betelu aldeko baso-mendietan. Martin Anso

Belaunaldi askotako borroka **irrintzi** menderakaitza, euskal garaipenaren oihu harroa. Jon Alonso

Agure kabroiak sekulako algara-**irrintzia** egin zuen. Jon Alonso

Egin poz-**irrintzi,** mendiok! Elizen arteko biblia

Egiogun poz-oihu Jaunari, poz-**irrintzi** salbatzen gaituen harkaitzari!. Elizen arteko biblia

Gudu-**irrintzi** zolia eginez, etsaiei bulartsu aurre emanez. Elizen arteko biblia

Buruzagien aginte-hotsak eta gudu- **irrintziak**. Elizen arteko biblia

Herri osoak gerra-**irrintzi** handia egingo du. Jose Antonio Mujika

**7** ***irrintzi egin***

**Irrintzi** egin zuen behorrak, eta artzain txakurrak hankartean sartu zuen buztana. Joxemari Urteaga

Egin zilipurdika zekorrak zelaian bezala, egin **irrintzi** zaldiak bezala. Elizen arteko biblia

Jakin ezak, bertzalde, zaldiak **irrintzi** egiten duela, eta astoak arrantza. Joan Mari Irigoien

Pottokak **irrintzi** egin zuen, asaldaturik. Agustin Otsoa

Jo turuta Sionen! egin **irrintzi** nire mendi santuan! Elizen arteko biblia

Ez egin hitzik ere, nik **irrintzi** egiteko esan arte. Elizen arteko biblia

Egin pozez oihu eta **irrintzi** Jainkoari. Elizen arteko biblia

Burdina trinkoko gontzetan **irrintzi** egiten duen gotorlekuren bateko borta astuna etxean sartzeko. Koldo Izagirre

· Zaldi batek **irrintzi** mehe bat egin zuen. Bernardo Atxaga

Herriak izugarrizko **irrintzia** egin zuen, eta harresiak behea jo zuen. Elizen arteko biblia

**8** ***irrintzi eginarazi***

Ardi galdua sasiz sasi bezala ibili zen bazterrik bazter hauspoari negar eta **irrintzi** eginarazten irakasten. Koldo Izagirre

**9** ***irrintzi eragin***

Pentsetakoa da Rufinok zelako **irrintziak** eragingo eutsazan soinu barriari. Xabier Amuriza

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aingo irrintzia** (3); **barañ egin dezagun irrintzi** (3); **egin irrintzi** (14); **egin irrintzi jaunari** (4); **egin poz irrintzi** (3); **eta irrintzi** (9); **eta irrintziak** (3); **gudu irrintzia** (3); **irrintzi bat** (9); **irrintzi bat bota** (4); **irrintzi bat entzun** (4); **irrintzi egin** (13); **irrintzi egin zuen** (7); **irrintzi egin zuten** (3); **irrintzi egiten** (6); **irrintzi eta** (11); **irrintzi jainkoari** (3); **irrintzi jaunari** (4); **irrintzi taldearen** (3); **irrintzia egin** (5); **irrintzia egin zuen** (3); **oihu eta irrintzi** (3); **poz irrintzi** (7); **poz irrintziak** (3); **zaldi irrintziak** (4)

---

# irrintzika *(orobat **irrintzinaka** g.er.)* *adlag* irrintzi eginez.

Beyaziteko ibarrean, zaldi bat **irrintzika** ari zen, eroturik, urduri, izu. Fernando Rey

Gure zaldia, alde batera eta bestera zebilen **irrintzika,** eta eperrak, eroturik, kaiolako burdinak mozten saiatzen ziren mokoaz, erabat larri. Juan Kruz Igerabide

Hauek **irrintzinaka** hasten diren bezain laster lauhazka itzultzen dira behorrak urrez kargatuak diren ontziekin. Aurelia Arkotxa

Uztar batez **irrintzinaka** du joiten zaldiak. Herria

Ezproinak kilis kalaska, harmadurak kirriz karrazka, izerditan **irrintzika** eta sudur ziztuka zaldiak. Patziku Perurena

Eta herri osoak pozez oihuka eta **irrintzika** goresten zuen Jauna. Elizen arteko biblia

Astelehen gauean, bertze leiho batetik, preso batek oihuka eta **irrintzika** jakinarazi zion askatuko zutela. Berria - Euskal Herria

Baina Vanessak **irrintzika** jarraitu zuen zoroen pare: [...]. Jon Arretxe

Haren ondoren barrabas olde hura lasterka, jauzika, zilipurdika, oihuka, marruka, miauka, **irrintzika,** orroka, kukurrukuka, eta beste mila gauza barregarri asmatzen. Josu Zabaleta

Mendi eta muinoek poz-**irrintzika** ekingo diote, landako zuhaitz guztiek txalo joko. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eta irrintzika** (5); **irrintzika ari** (3); **irrintzika hasi** (5); **irrintzika hasteko** (3); **oihuka eta irrintzika** (4); **poz irrintziz** (3)

---

# irrintzilari *(orobat **irrintzinalari** g.er.)* *iz* irrintzi egiten duen pertsona.

Jaialdia janzte aldera, zazpi **irrintzilari** ere deitu ziren. Iñigo Aranbarri

Meza eta bazkariaren ondotik baziren egunaren alaitzeko, pilotari, dantzari, kantari, bertsulari, txistulari, **irrintzilari,** hots, denbora hartako eskual kultura egiten zutenetarik. Michel Oronoz

Eta bertsularien ondotik **irrintzinalarien** aldi. Michel Oronoz

---

irripar(re) ik **irribarre**.

---

irripartsu ik **irribarretsu**.

---

**irrirudi** *iz* irri modukoa.

-Hitzordua ipini eta gero damutu zitzaidan, ez pentsa -atzamar potoloak txalekoko faltrikeretan gakotuta zeuzkan Luigiri begiratu zion, eta haren **irrirudiaz** ohartu zen-. Josu Landa

---

**irris** *(orobat* ***irrisa****)* *iz ipar* arroza.

Ogi, **irris** eta bertze hainbat hazkurriz bete zakuak garraiatu behar dituzue kamioietara. Xabier Montoia

**Irrisaren** prezioa. Herria

Somaliako portuetara mendebalde aberatsak kargoak mukuru betez igorri zituen **irrisa** mutzituak. Itxaro Borda

**Irrisaz** beterik diren soro hezeak, arratsaldeko euri epel nasaiak. Ramuntxo Etxeberri

Herriko adiskideak elizaren maldan zeuden **irris** pikorrak aurtikitzen, oraiko moldean. Itxaro Borda

Kizkira entsaladetan, urdeki saltsetan, Cantoneko **irris** bihiketan. Itxaro Borda

Bi **irrisa** zaku ekarriz. Herria

---

**irriskatu,** irriska, irriskatzen du *ad ipar* arriskatu.

Egia da **irriskatzen** dutela beren bizia. Herria

Diktatore ohiak aldiz herio gaztigua **irriskatzen** du irakiar legean. Herria

Astearte aratsalde huntan, Paueko dei-auzitegian ziren, eta isuna ez badute ordaintzen, 75 eguneko presoaldia **irriskatzen** dute. Herria

Bakoitxak **irriskatzen** duela urte bat eterdiren presondegia eta 15.000 euroko isuna. Herria

Auziperatua izaitea **irriskatzen** du. Herria

Telefonak **irriskatzen** duela ere polliki kariotzea. Herria

Hiru gizon hauekin ez duzu deusik **irriskatzen,** badakit, konfiantza osoa egiten baitiet, Argonen erreinura salborik helduko zarela. Aurelia Arkotxa

Zer prest zira **irriskatzeko** harremanetan?... Menane Oxandabaratz

Orduan nork **irriskatuko** zuen galtzaleen alde? Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irriskatzen ditu** (3); **irriskatzen du** (7); **irriskatzen duela** (3)

---

**irrisku** *(orobat* ***irrixku*** *g.er.)* *iz ipar* arriskua.

-Zirurikan badiaxu anbulantzia Iruñera buruz... gaua zuxun eta karabineruen **irriskua** ere hor... Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Egon lasai beraz, ez duk enekin eskualde horretarik deusen **irriskurik**. Janbattitt Dirassar

Sobera **irrisku** zela beste presoentzat eta bereziki administrazionearentzat. Filipe Bidart

**Irrisku** handiena izan ditakeen tokietan, sare berezi batzu hedatu dituzte. Herria

**Irriskurik** gabeko bidean ibiltzerik ez da beraz. Herria

Nolako egoeran bizi behar izan duten 20 egunez, zerraturik, baldintza prekarioetan, biziaren **irriskuan,** elgarren artean metan. Herria

Errumanian hasi dira garbitasun baten egiten, **irriskuan** diren ainitz ihizi hilez eta jendea xertatuz. Herria

Lurrerat abiatzeko **irriskuan** zen jauregi zaharra erostea. Herria

Zer lanak, soinekoak ezin idorraraziz atertu ondoan! erreka batzutan sartuz belaunetaraino, lerratzeko **irriskuan..** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bonba bat zapartatzera zoala Barnabeuko zelaian, han ziren 70.000 ikusleen bizia **irriskuan** ezarriz. Herria

Batzutan kexatzen zira, zeren eta ikusten baitituzu […] elkarrekin finkatuak diren helburuak, gauzak gaizki doatzilarik, orduan **irriskutan** jartzen direla. Menane Oxandabaratz

Zerratzeko **irriskutan** diren bulegoak. Herria

Ageri da hor zer **irriskutan** ginen. Michel Oronoz

Beren bizia **irriskutan** ezarriz, Beharrik norbait ohartu baitzen aski goiz **irrisku** haunditan zegoela! Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ihesaldi **irriskuak** bazirela... Filipe Bidart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **deusen irriskurik** (6); **ere irrisku** (3); **galtzeko irriskuan** (3); **holako zerbaiten irriskurik** (3); **irrisku bat** (7); **irrisku handiak** (4); **irrisku handiena** (3); **irrisku handitan** (5); **irrisku haunditan** (5); **irriskuak ere** (3); **irriskuan ezarriz** (4); **irriskurik batere** (3); **irriskurik hartu** (3); **irriskutik kanpoan** (3); **izaiteko irriskuan** (3); **ortzi irriskuak** (4); **zerbaiten irriskua** (7); **zerbaiten irriskurik** (3)

---

**irriskudun** *izond* irriskua duena.

Holakoa da lekua, beti dardara baten **irriskuduna,** 1935an ezagutu zen azkena, Quetta hiria suntsitu zuena 50000 jende ezbaian hilik utziz. Herria

---

**irriskuño** *iz ipar* arrisku txikia.

Untsalaz ez litake holakorik gertatu behar bainan bada halere **irriskuño** bat. Herria

---

## **irriskutsu** *izond ipar* arriskutsua.

Beren itsasuntzia arras **irriskutsua** zuten. Herria

Hori badut uste **irriskutsua** den... Menane Oxandabaratz

Elementu guztiz **irriskutsua** da "ur-ozeanoa". Ana Urkiza

Zuraren artatzeko tinduak eta gudronezko estali bereziek erretzean ke beltz eta **irriskutsua** bota du. Herria

Euskal-departamenduari ezetz eta ezetz, Euskal-Herriaren ezagupenean sobera urrun joaitea litakeela eta sobera molde **irriskutsuan**! Herria

---

## **irrist** 1 *adlag*

Binako pauso bat, binako pauso bat, beste bat, **irrist, irrist** eta eragin gerriari. Anton Garikano

Nire gelakideak barrabil aldean finkatu zuen atzamarren mugimendua, eta ingurua laztantzeari eman zion, emeki-emeki, **irrist** eta **irrist,** begirada lurreko aldizkarian eta nigan ezarriz tarteka. Jon Arretxe

### 2 ***irrist egin*** *(orobat **irrista egin** g.er.)* irristatu, labaindu.

**Irrist** egiten zuen aldamio labainkorretan. jelan **irrista** egin eta, besoa apurtu zuen. Pablo Sastre

Ematen zuen bere eserlekutik **irrist** egin eta lurrera erori zela. Iñaki Mendiguren

Altxatu nintzenean, galtzek beheraka **irrist** egin baitzuten, nire galtzontziloen mutur bat bistara agerian zen. Jesus Mari Mendizabal

Autoaren atzeko gurpilak **irrist** egiten hasi ziren. Berria - Kirola

Urtegi horren ezkerreko magalak **irrist** egiteko arriskua zuela. Edurne Elizondo

Batzuetan, nahi gabe, **irrist** egiten da; nork ez du noizbait mihiaz huts egin? Elizen arteko biblia

Literatura eta aingira **irrist** eta ihes eginez bizi dira. Anjel Lertxundi

### 3 ***irrist eragin*** irristarazi.

Askuari apropos **irrist** eragin eta hatzak saihetseko zaurian ipini zizkion. Askoren artean

Ez diezazula mihiak **irrist** eragin, lakioa jartzen dizunaren aurrean eror ez zaitezen. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **autoak irrist** (3); **batek irrist** (3); **behera irrist** (3); **behera irristan** (3); **eta irrist** (6); **irrist egin** (61); **irrist egin eta** (14); **irrist egin ez** (4); **irrist egin zion** (3); **irrist egin zuen** (9); **irrist egin zuten** (6); **irrist eginez** (8); **irrist egiteko** (4); **irrist egiten** (22); **irrist egiten zuen** (3); **irrist eta** (3)

---

## **irrista** 1 *iz* irristada.

Kontrabandista irri eta jolas zebilen, noiznahi **irrista** eta eroriko bailitzango plantak eginez. Pablo Sastre

Jakituria gutxikoa litzateke, **irrista** beldurgarrien erresuman sartuta, laburregi jokatzea eta seme-alaben erabakia eta gurasoen zuhurtzia fermuki estekatzen dituen denbora laburtzea. Andres Urrutia

Inoiz baino okertuago zihoan, oinez, **irrista**-beldurrez. Pako Aristi

### 2 ***irristan*** *adlag* irristatzen.

Hirurak zihoazen eskutik helduta, hautsaren gainean **irristan**. Anton Garikano

Hosto artean **irristan** zihoan odolezko orbanari segitu zion. Anton Garikano

Elurra eta izotza nonahi, eta lera aise eta agudo doa aurrera **irristan**. Karlos Zabala

[Zaldiak] muino harrigarri horien bestaldeko maldan behera amiltzen dira **irristan**. Josu Zabaleta

Gure madarikazioak isilarazi behar izan ditugu, lokatzetan **irristan** lerratzen garelarik, bata besteari helduta betiere, bertan behera eror ez gaitezen. Mirentxu Larrañaga

Hiriko zerugain kuadrikulatuan, kaio bat, bakardadean **irristan,** mezu bat brodatuz, harat-honat llabur, bizi, urdurietan. Joxerra Garzia

Adela azkar ihartu zen, aldapa elurtuan behera **irristan** datorrena bezala. Juan Kruz Igerabide

---

## **irristada** *iz* irristatzea.

Bere haragiaren kontra aihenen **irristada** arina sentitzearen pozez. Josu Zabaleta

Aldaketa hura oroimenaren **irristada** edo nahastetzat har zitekeen. Galderatik harridurara garamatzan **irristada** horretan. Xabier Olarra

Tren-geltoki bateko arropazaindegia oso leku egokia izan daiteke inoren **irristada** ezkutatzeko. Antton Olano

Motorea gelditu eta **irristada** eginez iritsi zen ate aurreraino. Koldo Biguri

Kontrako biran jaurti dut hegazkina, edo kontrako **irristadan,** zehatz esateko (utikan bira legezkoak!). Josu Zabaleta

---

## **irristadatxo** *iz adkor* irristada.

Etxean ez zuen aitortu nahi izan **irristadatxo** hori, eta azterketara ez zela aurkeztu asmatu zuen. Josu Zabaleta

---

## irristagailu ik **irristailu**.

---

## **irristagarri** 1 *izond* irristakorra.

Urmaelera igo eta urratsak kontu handiz eginez dabil hondo **irristagarriaren** gainean. Oskar Arana

Aurreko egunetako euri sarrien eraginez, bidean hosto pila erdi ustelduak ageri ziren han-hemenka, eta olioz igurtzia balego bezain **irristagarria** bihurtzen zuten bide hezea. Juan Kruz Igerabide

Animaliak gara [...]; izerditan jartzen gara, hark [etsaiak] heldu nahi izanez gero gure azala **irristagarri** gerta dadin. Ramon Saizarbitoria

### 2 *irud*

Gai **irristagarria**. Kontzeptuak berak ere -"Estatua", "independentzia", "subiranotasuna"- erasopean daudela azken aldi honetan, eta beren edukiak uste genuena baino askozaz ere **irristagarriagoak** direla. Joseba Zulaika

### • 3 *iz* zerbait irristarazten duen gaia.

Gizonak **irristagarriz** igurtzi ditu bere zakil ezin tenteagoa eta neskaren uzkia. Juan Martin Elexpuru

### 4 ***ate irristagarri*** ate irristazailea.

Galeria txiki bat dirudi, erabat irekia, eta ate **irristagarri** batekin. Juan Kruz Igerabide

**irristailu** *(ETCn* ***63*** *agerraldi; orobat* ***irristagailu*** *ETCn* ***32*** *agerraldi; cf* ***patin*** *ETCn* ***768*** *agerraldi)* **1** *iz* irrist egiteko gailua oinean finkatzen dena. ik **patin.**

Goxokiz, **irristailuz**, bizikletaz eta arrantza-tresnaz betetako denda batean. Fernando Rey

Neguan, gaixoek izotz-pista egiten zuten, eta eskietan edo **irristailuetan** ibiltzen ziren. Jose Morales

-Hoa arotzarengana eta gurpiletan **irristagailuak** ipintzeko eskatu -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

· Norbaitek asmatu zuen monopatina, handik hainbeste urtera milaka ume eta gaztek erabiliko zuten **irristagailua** alegia. Pello Salaburu

---

**irristaka** *adlag* irristatuz.

Harkaitzera iritsi ziren, eta han osaba Vernonek, **irristaka** eta labainka, etxetxo zaharkitura gidatu zituen. Iñaki Mendiguren

Menditik zuzenean jaisten hasi ziren, saltoka, elurraren gainean **irristaka,** ia erorian amildegian behera. deabruz mozorrotutako animazio-talde bat patinetan **irristaka** eta suziriak botatzen. Koro Navarro

Horman ezkutaturiko harrizko ate bat ireki zen **irristaka**. Iñaki Mendiguren

Bere burua ardatz harturik, jira eta biraka hasi zen, zoruaren gainean **irristaka**. Felipe Juaristi

Beti daukazu suge bat bezala **irristaka** ihesi doakizun zerbait. Iñigo Aranbarri

**Irristaka** joan zen harrizko txirristan behera. Iñaki Mendiguren

Malko lodiren bat sentitu duzu masailetik behera **irristaka**. Rafa Egiguren

Autoa kostaldeko bidetik **irristaka** doa, eta eguraldiak onera egin du. Iñigo Aranbarri

Gurpilak **irristaka** hasi zitzaizkidan eta errepide bazterrera joan nintzen zurrunbilo zuri baten erdian harrapaturik. · Autoa bidetik atera eta, frenoei eragin arren, **irrista**-irristaka. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **behera irristaka** (5); **eta irristaka** (4); **gainean irristaka** (5); **irristaka eta** (6); **irristaka hasi** (3); **zen irristaka** (3)

---

**irristaketa** **1** *iz* irristalarien jarduera edo kirola. ik **irristatze.**

DBH 1ean **irristaketa** egiten badute, DBH 2an hipika, eta DBH 3an arraunean hasten badira, hurrengo urtean DBH 3koei arrauna eginarazi diezaieten eskatu nahi diegu eskolei. Berria - Kirola

Kataluniako **irristaketako** selekzioak nazioarteko txapelketetan ofizialki lehiatzeko aukera izango du aurrerantzean, Nazioarteko **Irristaketa** Federazioaren (FIRS) baimena jaso ondoren. Berria - Kirola

**2** ***irristaketan*** *adlag*

Izotza ari duenean, eta besteak **irristaketan** dabiltzanean, pista txiki bat antolatzen du berarentzat, aparte, izotzaren ondoan, belarretan. Itziar Otegi

Txuri-urdin izotz jauregian **irristaketan** ibiltzeko aukerari ez zioten muzin egin ikasleek arratsaldean. Berria - Euskal Herria

---

**irristakor** **1** *izond* bertan irrist egitea erraza gertatzen dena. ik **labainkor; lerrakor.**

Zeharkatu genituen harri **irristakorrak,** eta, azkenean, heldu ginen, irabazle, gailur haizetsura. Koro Navarro

Horma bat zen, harriz egina itxuraz, oso leuna, **irristakorra** eta hotza. Koro Navarro

Zaldiak lehia bizian jardun zuen, zangoak zola **irristakorrean** tinkatzeko ahaleginean. Mirentxu Larrañaga

Hartara, basoaren gune sarri eta etengabe ilunekin egokitu ginen, eta hezetasunak **irristakor** bihurtzen zituen pendizekin. Bernardo Atxaga

Karlstad inguruko errepide estu eta **irristakorrak**. Berria - Kirola

Ikusten ez den izotz hau **irristakor** eta labainkor gertatzen baita. Pello Zabala

**2** irud/hed

Haren eskuek, hitzak bezain **irristakorrak** itxuraz, biolina ekarri zuten sabel gainera [...] eta bihotz ondoan utzi zuten, ama batek bere ume maitea ekartzen duen bezala. Felipe Juaristi

Baina hori oso arazo **irristakorra** da eta ezin da erabat mekanikoki hartu. Lourdes Oñederra

Lokatzezko oinarri **irristakor** horrekin, edozein epailek botako duela auzia atzera. Hasier Etxeberria

Neurri hori oso **irristakorra** da. Berria - Euskal Herria

**3** irrits egiten duena.

karpa zilarkarak, perka hegalgorriak, aingira **irristakorrak**. Koldo Biguri

Horixe da sumintzen ninduena: noski, ez zegoen inongo arrazoirik larba **irristakor** hura existitzeko. Monika Etxebarria

Eta La Torre, laino **irristakorren** atzean eder eta isil. Aritz Gorrotxategi

Negarrez hasi zen, anpulu **irristakorrez**. Unai Iturriaga

Gaur Anoetako zelaia bustia egongo da eta baloia **irristakor**. Berria - Kirola

· *irud* Benetakoak diruditen gauza guztien artean -esan nuen-, ez da denbora bezain iheslari, **irristakor** eta inefablerik. Bernardo Atxaga

Horregatik, ideia **irristakor** haiek zehazki taxutzeko orduan berehala konturatzen zen, ahoskatu barik, bere golkorako esan orduko, zentzurik gabeko hitzak zirela Ramon Saizarbitoria

**3** ***ate irristakor*** ate irristazailea.

Egurrezko egitura eta paperezko leihoak dituen ate **irristakorra**. Ibon Uribarri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta irristakorra** (4); **irristakor bihurtu** (3); **irristakor eta** (3); **irristakorra da** (3)

---

**irristakortasun** *iz* irristakorra denaren nolakotasuna.

Halako gainestaldurak eskien **irristakortasuna** eta abiadura areagotzen ditu Berria - Gaiak

---

**irristalari** *iz* irristagailuarekin higitzen den pertsona.

Hotz handiko egunetan uzkurtzen ziren, izozten, Norvegiako badien irudira, non **irristalariak** patinetan ibiltzen baitira. Karlos Zabala

**Irristalari** gurpildunak palmondora erabat biluzik igoz eman zion bukaera saioari. Joxan Elosegi

Izotz-**irristalariak** edo antzerkian Satanena egiten dutenak gogorarazten zituen Urtzi Urrutikoetxea

## irristaldi 1 *iz* irrastada.

Gero Denver zutitu eta **irristaldi** luze bati ekin zion, bere kabuz. Anton Garikano

Karlosek Martin zaldi gainean errekan sartzen ikusten zuenean, **irristaldi** arriskutsuren bat opa izaten zion. Koro Navarro

**2** *irud*

Karlos Zabalaren saio honek eremu labanak zapaldu behar izan ditu, halere, zorionez, ez du **irristaldi** arriskutsurik jasan. Berria - Kultura

Bazekien osaba Silverio ez zuela benetako aita, baina [...] nahiago izan zuen **irristaldi** baten fruitua zela pentsatu. Bego Montorio

---

## irristaleku *iz* irrist egiten den lekua. ik **lerraleku; lerragune**.

Hara, **irristalekuan** jarriak dituzu eta hondamendira amiltzen. Elizen arteko biblia

---

## irristarazi, irristaraz, irristarazten du *ad* irristatzera behartu. ik **lerrarazi**.

Atsegin dut ukitzea, nire eskuan igurtzen nauen sedazko azal hori **irristaraztea**. Léak, oinetakoak kendu, eta besaulki azpira **irristarazi** zituen, oin-puntaz. Josu Zabaleta

-Bentariaren pabana -esan zuen Damián itsuak, urrutiko, oso urrutiko zirudien ahotsaz, hitzak **irristaraziz** bezala. Felipe Juaristi

Amak erantzun zion, aitaren ordez, ahots gozoz, hitzak **irristaraziz,** kantuan bezala, "uharte bat musika da, eta musika uharte bat da, zeruz eta itsasoz betea". Felipe Juaristi

---

## irristari 1 *iz* irristatuz mugitzen dena.

Tranpal **irristaria** abiarazten duen biradera. Josu Zabaleta

**2** (fonetikan)

Baina **irristariak** ez dira bokal, ez dutelako berez silaba osatzen. Lourdes Oñederra

Horregatik esan ohi da diptongoan bokal bat eta **irristari** bat daudela. Lourdes Oñederra

Gehienetan, bokal itxiena **irristaritzat** hartzeko joerari ematen zaio amore. Lourdes Oñederra

**Irristariak** alofonoak dira euskaraz. Lourdes Oñederra

**3** ***ate irristari*** ate irristazailea.

Gela handiaren horman [...] ate **irristari** bat zegoen. Juan Kruz Igerabide

---

## irristaritasun *iz* irristaria denaren nolakotasuna.

Hobeto esan, **irristaritasuna** alofonikoa da. Lourdes Oñederra

---

## irristatu, irrista, irristatzen *(orobat **irristratu** g.er.)* **1** da *ad* gainalde leun batean herrestan joan.

Galtza bustiak bildu eta harkaitzean behera **irristatu** zen. Koro Navarro

-Hosto horietan **irristatuko** zen -esan zuen gidariak. **-Irristatu** egin hintzen horma-gune ezin labanago batean. Txillardegi

Obus-zulo batean **irristatu** gara eta hantxe ezkutatuta egon gara puska batean, badaezpada ere. Mirentxu Larrañaga

**Irristatu** eta kolpe txar bat hartu du harkaitz puntaren batekin. Bernardo Atxaga

Pijama bat jantzi eta maindireen artean **irristatu** zen. Aritz Gorrotxategi

Ohetik kontu handiz **irristatu** zen ez baitzuen John iratzarri nahi. Lopez de Arana

Neskatoaren aurpegia Egutxiren sorbaldan **irristatu** zen. Ibon Uribarri

Bere bi hatz **irristatu** ziren blusaren azpitik eta bularretakoaren ertza ukitu zuten. Karlos Zabala

Neskak sentitu zuen beste haragi hura berearen barrenean **irristatzen**. Monika Etxebarria

Une hartan zigarreta hatzen artetik **irristatu** eta kuxinen artera erori zitzaion. Koro Navarro

Jo eskuin, jo ezker, aingira baten gisa **irristatu** zen mahaipera. Josu Zabaleta

Zaindarien artetik sigi-saga suge baten moduan **irristatu** eta gero. Felipe Juaristi

Aulki gurpildunetik tapakia **irristatu** zitzaion. Jon Muñoz

Soka, zorionez, ez zitzaion **irristatu**. Koro Navarro

Malko bat **irristatu** zitzaion masailean behera. Aritz Gorrotxategi

Justinak pauso batzuk eman zituen aurrera, zoru gainean **irristatuz** bezala. Felipe Juaristi

Burdinazko errail bakarraren gainetik **irristatuz** baztertzen ziren ateak. Txillardegi

Berokiak jantzi eta kalera atera ginen, leran **irristatzera**. Bernardo Atxaga

**2** *irud*

Eguzki eder bat **irristatzen** zen hostoen artetik. Josu Zabaleta

Hezurretan barrena beldurra **irristatzen** zitzaidala sentitzen nuen. Josu Zabaleta

Kristala eskuz garbitu eta hotzikara lepotik **irristatzen** sentitu du Juliak. Alberto Barandiaren

Eskote baten ertzetik behera amiltzen zaigu begirada edo gona baten barrenetik gora **irristatzen** zaigu grina. -Hitzen artetik **irrista** ez zitezen eztabaidak. Joxean Agirre

Hori pentsatu zuen da Ruak, hitzak **irristatzen** zituela itsuak, biolinaren arkua hariak jotzean irristatzen den bezala. Felipe Juaristi

Ahotsa **irristatu** eta desagertu egiten da. Monika Etxebarria

Bizitza erdizka eta pozik gabe **irristatu** zaik, eta ustekabean ohaburuan heriotza agertu zaik. Xabier Amuriza

Antzerki gaietara **irristatu** zen hizketa. Irene Aldasoro

Hamar hilabete bero eta gozo **irristatu** ziren Menendez gaztearen bizitzan. Aritz Gorrotxategi

Minutuak behatzen artean **irristatzen** sumatzen zituzten. Monika Etxebarria

• **3** du *ad* gainalde leun batean herrestan eraman.

Ezker eskua **irristatu** zuen maitalearen sabelean gora. Aritz Gorrotxategi

Bere hatz luzeetako bat **irristatzen** zuen Martini koparen ertzetik. Alberto Ladron Arana

Eta eskua nire kamiseta azpira **irristatu** duenean bertigoa da sentitu dudan zirrara mota. Patxi Iturritegi

Beira puskak ez zapaltzen saiatuz, [...] errezelak **irristatu** nituen. Alberto Ladron Arana

· Laztan iheskorrak esku eta masailean, gutiziak **irristatzen** dituzten berbak. Sonia Gonzalez

-Damutuko zara oraindik **-irristatu** egin zituen hitzak. Iñaki Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

artetik irristatzen (4); bat irristatu (9); bat irristatu zitzaion (4); bat irristatzen (4); behera irristatu (16); behera irristatu eta (3); behera irristatu zen (4); behera irristatuz (5); behera irristatzen (15); eta irristatu (6); eta irristatu eta (3); gainean irristatu (3); gainetik irristatu (5); irristatu da (6); irristatu egin (11); irristatu egin zen (3); irristatu egiten (5); irristatu eta (39); irristatu nintzen (5); irristatu zen (27); irristatu ziren (3); irristatu zitzaidan (4); irristatu zitzaion (11); irristatu zitzaizkion (4); irristatuz bezala (3); irristatzen ari (7); irristatzen da (8); irristatzen den (4); irristatzen diren (4); irristatzen eta (3); irristatzen hasi (4); irristatzen sentitu (4); irristatzen utzi (7); irristatzen zen (10); irristatzen zirela (3); irristatzen ziren (7); irristatzen zitzaion (5); irristatzen zitzaizkion (7); lurrera irristatu (3); nola irristatzen (4); nola irristatzen zen (3)

---

# irristatzaile 1 *iz* irristatzen dena.

Dorre moduko bat, oholez babestutako eskailera **irristatzailezko** sistema batez eratua. Jon Muñoz

**2 *ate irristatzaile*** irristatuz higitzen den atea. ik **irristagarri 4; irristakor 3; irristari 3.**

Ate **irristatzaileak** erdi ireki eta zeharka begiratu zuen gela hotzera. Lopez de Arana

Gero gure atzean ate **irristatzailea** itxi eta kanpotik kolpe batzuk jo dituzte. Urtzi Urrutikoetxea

Bi eskuak erabili behar izan ditu ate **irristatzailea** ireki ahal izateko. Pello Lizarralde

---

# irristatze 1 *iz* gainalde leun batean herrestan joatea.

Itoizko urtegian, ezkerreko magalean dago **irristatze** handia. Berria - Euskal Herria

Ezkerreko magalean **irristatze** bat dago, 20 hektometro kubikokoa. Berria - Euskal Herria

**Irristatzearen** ondorioz urtegira eror daitekeen materialen kopurua. Edurne Elizondo

**2** irristalarien kirola. ik **irristaketa.**

Kataluniak selekzio ofizialak eduki ahal izango ditu lau kiroletan: patin hockeyan, lerroko **irristatzean,** abiadura **irristatzean** eta **irristatze** artistikoan. Berria - Kirola

Bere alaba da, behiala eskolara, ballet-eko klaseetara, zirkura eta **irristatze**-pistara eraman ohi zuena. Oskar Arana

Kirol ezagunak al dira **irristatze** kirolak Katalunian? Berria - Kirola

**Irristatze** hockeya ez da olinpiar kirola. Berria - Kirola

Inor konturatu gabe lortu du Kataluniako **Irristatze** Federazioak Nazioartekoaren kide izatea. Berria - Kirola

Nazioarteko **Irristatze** Federazioak. Berria - Kirola

Ekainean, Kanadan, Munduko Lerroko **Irristatze** Txapelketan, irailean Munduko Abiadura **Irristatze** Txapelketan. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

irristatze federazioa (4); irristatze federazioak (18); irristatze federazioak azaroaren (3); irristatze federazioak nazioarteko (3); irristatze federazioko (5); irristatze hockeya (3); kataluniako irristatze (16); kataluniako irristatze federazioa (4); kataluniako irristatze federazioak (9); nazioarteko irristatze (9); nazioarteko irristatze federazioak (6)

---

# irrits 1 *iz* grina bizia, batez ere haragizkoa.

Eta Venusek maitaleen gorputzak oihanetan biltzen zituen; elkarrenganako **irritsa** nagusitzen baitzen, edo gizonezkoaren indarra eta grina bortitza. Xabier Amuriza

Grina txarrak hilduratzen eta haragizko **irritsak** menpean hartzen. Askoren artean

Bera inondik ere ez zen **irritsek** eta desirek menderatua zuten emakume mendeko bat. Patxi Zubizarreta

Neskatxa **irritsen** amildegian jausi zen eta bizioak harrapaturik dabil. Patxi Zubizarreta

Uste du negar hotsa datorrela Garner andrearen leihotik, baina zernahi izan liteke, nornahi, baita kateme bat ere bere **irritsa** adierazten. Anton Garikano

**Irritsak** senarrarengana bultzatuko zaitu, eta hura izango duzu nagusi. Elizen arteko biblia

Halakoxe **irritsez** katigatuak dagoz Venusen lakioetan. Xabier Amuriza

Ez dakizu soilik **irritsak** duela amodioaren lotura urratzeko eskubidea? Jon Muñoz

Nerabezaroko lehenbiziko urteetatik aurrera, bere sexualitatearen historia izan zen alde batera eta bestera jo ohi zuten grinen eta **irritsen** katalogo orotariko bat, bereizkuntzarik gabea. Oskar Arana

Gogoan bazenitu oraino sentimendu arras amoltsu, gure bihotzen elkargarri haiek; arimaren **irrits** hura, betiere berpiztua eta betiere biziago sentitua. Jon Muñoz

Mundu guztiak zekien Parisek sekulako **irritsa** sortzen ziela naziei. Anjel Lertxundi

Aurkikuntza hori arakatzeko **irritsez**. Juan Garzia

Promiskuitatean bizi izan zen, **irritsezko** zurrunbilo baten erdian. Oskar Arana

**2** (izenondoekin)

Hondar zuriko ur berdeak eta haragiaren **irrits** gozoa ziren bere nahien muga. **Irrits** lotsagarri hura ez izatera, munduko gizonik onena irudituko zitzaion. Jon Muñoz

Mina, jelosia eta **irrits** sutsua. Anton Garikano

Nire **irrits** ezegoki hauek sendatzeko? Oskar Arana

**Irrits** eutsiezina? Oskar Arana

**Irrits** sadikoak zapalduz, gure beste griña txarrak bezela. Harkaitz Cano

Lizunkeria, zikinkeria, **irrits** eta grina txarrak eta idolatria den diru-gosea. Elizen arteko biblia

Mundua haiek liluratu nahian zebilen eta haragia bere **irrits** gaiztoz lanean. Askoren artean

**Irrits** ezezagun batek goitik behera zeharkatu nauelarik, sexuan pausatu zait. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hala ere, **irrits** zimiko bat sentitzen du harenganako. Oskar Arana

· Amodio lizuna, hau da, eder itxuraren ernaltze **irrits** sortzailea [...] Herra bilakatzen da errazki, non ez den, okerrago oraino, eldarnio mota bat bihurtzen. Piarres Xarriton

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ez dio neskari sexu-**irrits** huts hori antzematen, baina oraindik gazteegia delako da hori, ez beste ezergatik. Oskar Arana

Zaldia eta gizona, alabaina, ugaltzeko irritsak bultzatzen ditu biak, baina bata zaldi **irritsak,** eta bestea giza **irritsak**. Piarres Xarriton

"Haragiaren borondatea" esatean adierazten du, haragi-**irritserako** isuria, gizakiaren borondatearen aurka dagoena. Joan Mari Lekuona

Haragi **irritsaren** katixima suerte bat ontzen. Jon Muñoz

Errebantxa-**irritsez**. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

bere irrits (3); irritsak senarrarengana bultzatuko (3); nire irritsa (4)

---

**irritsaldi** *iz* irritsa.

Haren **irritsaldiak** ematu nituen. Jon Muñoz

---

**irritsatu,** irritsa(tu), irritsatzen du *ad* irritsez desiratu, irrikatu.

Valmont jauna gaur goizean partitu da, andrea; iruditu zait partitze hori hain zenuela **irritsatzen,** non jakinarazi behar nizula uste izan baitut. Jon Muñoz

---

**irritsu** *(orobat* ***irrizu*** *g.er.)* **1** *izond* irriz dagoena.

Bere begi **irritsuekin,** oihal oneko arropak jantzi arren itxura zarpaila zuen tipoa zain zeukan. Elena Touyarou

Begirakune **irritsua** josi zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Emakume gaztea eta **irritsua** dugu Kirsty. Berria - Kultura

Distira bereko errainu **irritsua** zerien jauregi aurreko platanondo, zumar eta ezkien adaburuei ere. Anjel Lertxundi

**2** (adizlagun gisa)

Aurrez aurrekoetan, berriz, beti bezain neurritsu jokatzen zenuen, alai eta **irritsu** ere bai. Xabier Mendiguren Elizegi

Eta, hala, osaba goibel eta **irritsu** uzten nuela, **irritsu** eta goibel, igande hartan bakarrik ibili nintzen. Joan Mari Irigoien

Eta adiskideturik-edo itzuli ziren handik, biok ere **irritsu**. Joan Mari Irigoien

• **3** *izond* irrigarria.

Hausnarketa **irritsuan** egon nintzen pixka batez, liburuetako azpimarrek Adak dantza makabroaz eta Danelen jarreraz erakutsitako destainarekin zuten loturaren kariaz. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irritsu eta** (3)

---

**irritu,** irri(tu), irritzen da *ad* irristatu.

Orduan ez arrazoimenari ez bisaiari eusten diet beren onezkoan, eta malkoak **irritzen** zaizkit isilka maisailetan behera. Patziku Perurena

---

**irritxo** *iz* irri txikia. ik **irriño**.

On Camilloren **irritxo** ironikoa aditu zen isiltasunean. Koldo Biguri

Txapeldun federalak sorbaldak jaso zituen, **irritxo** batez. Koldo Biguri

Barchinik **irritxo** bat egin zuen. Koldo Biguri

-Bai... ez... bueno... zeozer bai -esan zuen emakumeak, **irritxo** egiten saiatuz. Juan Martin Elexpuru

Andereñoa [...] **irritxo** memeloak egin eta gorritu egin zela, kapela alde batera okertuta. Iñaki Mendiguren

**Irritxoa** egin diogu elkarri, sakelakoari fidatzen segitzen baitiogu gure enkontruen fortuna. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irritxo bat egin** (3)

---

**irritzi** *iz adkor (cf* ***irri****)* iritzia.

Oihu pare batez amaitzea, epaiketa apurtzeko modurik zabarrena da, nire **irritzian**. Koldo Izagirre

Konparantzarik barregarriena nork asmatuko ibili zarete, aitortzen ausartzen ez zineten kezka batek jota zeundetelako; zuen **irritzian** pitzatua zegoen honek sator lana egin dizue. Koldo Izagirre

---

irrixku ik **irrisku**.

---

**irriz 1** *adlag* irri eginez, barrez.

Preso ohiak trenetik atera ziren, **irriz,** nigarrez, hunkiturik, zoriontsu, bozik gabe. Eneko Bidegain

Eta beti **irriz,** umore onean, eta trenpuan agertu, ahulezia ttipiena ere erakutsi gabe. Filipe Bidart

Yves hilik eta hi **irriz**! Itxaro Borda

Aitak aldiz, bere burua bortxatuz, **irriz**: [...]. Michel Oronoz

**Irriz** eta laidoz hasten zaizkit. Xipri Arbelbide

Prokuradorea **irriz** hasi zen eta gaineratikoak, halaber. Elena Touyarou

Gutik egin zuen ez baitzen **irriz** hasi. Elena Touyarou

Magali **irriz** ari zen, aurpegia lore, begiak ñir-ñir... Janbattitt Dirassar

**Irriz** ari nintzen ene baitan, eguneroko ene etsai intimo horiek gisa horretan kakinarazirik. Filipe Bidart

Ikusi zuen **irriz** ari, kantua amaitzean zoriontsu. Elena Touyarou

**Irriz** lehertu zen goraki, balentria bikainaz espantuka. Itxaro Borda

Zainengatik menturaz, Ttale **irriz** lehertu zen: [...]. Itxaro Borda

Biltzarrera eraman ninduen kideak **irriz** ihardesten zidan. Itxaro Borda

Gartzia **irriz** karkailaka hasi zen bere izterrean zartako bat joz. Elena Touyarou

**Irriz** ase ondoan, bota zuen aitzina beretik: [...]. Janbattitt Dirassar

-Hara bertze tipula Uste nuen arras loriaturik entzuten ninduzula -botatzen dio Kattalinek alegia haserre eta erdi **irriz**. Eneko Bidegain

**2** ***irrizko*** *izlag*

**Irrizko** istorioak ez dira, ordea, ugariak izaten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Denbora bizkortuari, berriz, balio komikoa eman izan zaio ia beti, **irrizko** generoan asko erabili izan delako inondik ere. Josu Zabaleta

**3** ***irriz irri***

Baina **irriz** irri egoten ginen, ni beti berdin xoratua. Janbattitt Dirassar

Urrunetik plantatu zitzaidan, irriz **irri,** gaitzeko berria bazuela enetzat. Janbattitt Dirassar

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **beti irriz** (6); **beti irriz ari** (3); **biak irriz** (3); **denak irriz** (7); **dio erdi irriz** (3); **dio irriz** (4); **erdi irriz** (10); **ere irriz** (6); **eta irriz** (27); **eta irriz hasi** (5); **eta irriz karkailaka** (3); **gizona irriz** (3); **hasi zen irriz** (4); **irriz ajataka** (4); **irriz ari** (36); **irriz ari zen** (14); **irriz ari ziren** (5); **irriz erran** (3); **irriz eta** (19); **irriz hartu** (4); **irriz hasi** (47); **irriz hasi zen** (28); **irriz hasi ziren** (7); **irriz hasi zitzaidan** (3); **irriz hasten** (4); **irriz irri** (5); **irriz karkailaka** (48); **irriz karkailaka hasi** (24); **irriz karkailaka lehertzen** (3); **irriz lehertu** (7); **irriz lehertu zen** (6); **irriz lehertzen** (7); **kantuz eta irriz** (4); **mona irriz** (4); **mona irriz hasi** (4); **ni irriz** (3); **nina irriz** (3); **nion irriz** (3); **zen irriz** (5); **zidan irriz** (3); **zuen irriz** (7)

---

# irrizale *izond* irriaren zale dena.

Errektore **irrizaleak** zioenez, une horretan kimikalariren batek analizatu izan balu, doktorearen osaeraren bi herenak paper zaharrak hartzen zituela aurkituko omen zuen. Josu Zabaleta

Lagun atsegin baina izugarri **irrizale** batzuek. Jose Morales

**Irrizalea** eta txantxazalea baitzen nehor ez bezala. Joan Mari Irigoien

Bazuen dukeak otsein bat, otsein-burua, **irrizale** lotsagabea zena. Patxi Ezkiaga

---

# irrizto *iz*

Kontua da testu xehea eta ikusiezina berrezartzea, idatzitako lerroetako **irriztoak** zeharkatu eta noizbehinka astintzen dituena. Xabier Arregi

---

# irrizu ik **irritsu**.

---

# irrupzio *iz* oldarka sartzea.

Beraz, **irrupzio** bat dago, zer edo zer berri sortu nahi da. Berria - Euskal Herria

---

# irteera *(orobat **urtekera** g.er.)* **1** *iz* irtetea.

Nire goizean goizeko lehenengo **irteera** hau. Patxi Ezkiaga

Aitak arratseko **irteera** eragotzi nahi zidan, baina nik ez nuen onartu. Pello Lizarralde

Aste osoan hura zen **irteera** bakarra, festa-gune bakarra. Pako Aristi

Bere laneko **irteera** horietako bat aprobetxatu zuen aitak ni eskola berrira eramateko. Jesus Mari Mendizabal

**Irteera** atzeratzeko asmatu nituen aitzakiak. Juan Garzia

Haien **irteera** zelatatzen zuela. Pedro Alberdi

Kapitalen **irteerek** ere goranzko mugimendu ikusgarria izan zuten 1840 eta Lehen Mundu Gerraren artean. Koro Navarro

Moisesen aldi hau Egiptoko **irteerarekin** abiatzen da. Jose Antonio Mujika

Egiptotiko **irteera** mirakuluzkoa. Xabier Kintana

Donostiarako autobusaren **irteera** iragarri zuten bozgorailuetatik. Xabier Montoia

Tolosarako trenaren **irteera**. Iban Zaldua

Jaurtikitako granaden **irteera**. Txillardegi

Nazioarteko **irteeren** terminalera. Joxemari Iturralde

**Irteera** bat egin duzue destakamendu tatariar bati kontra egiteko. Karlos Zabala

Gustatzen zitzaion fabrikako lagunekin ostiral gauero bola-jokoan aritzera egiten zuen **irteera**. Koro Navarro

Eguzkiak bere **irteera** egin aurretxoan. **Irteera** eta txango laburrak egiten. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez nintzen lagunekin irteten, asteburuak jo eta ke ikasteko aprobetxatzen bainituen, tartean-tartean mendira **irteeraren** bat edo beste soilik eginda. Juan Kruz Igerabide

**Irteera** laburrak izaten ziren hasieran, pare bat ordu baino gehiago ez. Ramon Saizarbitoria

Itsasportuetako ontzien sarrera eta **irteeren** mugimendua... Jokin Urain

Badaezpada ere, **irteerakoan** topaldi gaiztorik izan ez genezan, aldean eraman diat artilleria. Aingeru Epaltza

Ikastetxetik **irteeran** Ariane ikusi zuen eta haren atzetik joan zen. Joseba Sarrionandia

Basotik **irteeran,** bi anaiak, [...] inguruko pendoitz, haitzarte, txaraka eta dena argiroago ikusten hasi dira. Pako Aristi

· Ikaztegiko sarrera-**irteeren** kargu egingo nintzela. Anjel Lertxundi

## **2** pertsonak edo gauzak irteten diren gunea.

Etxetik ehun bat metrora, herriko **irteera** bat erakutsiz, Said-ek esan zigun norbait izango genuela zain handik kilometro batera. Juan Kruz Igerabide

Billabonako **irteeran** aurkitu zuten. Harkaitz Cano

Geltoki nagusiko **irteera**. Fernando Rey

Bagina, bada, uteroko **irteera** da, erditze kanala. gelako **irteera** guztiak ongi itxita ote nituen begiratzera. Josu Zabaleta

Tunelaren **irteera** gertu dagoela. Rafa Egiguren

Zuloak sarrera eta gibeleko **irteera** izaten ditu. Gotzon Garate

Ustekabean **irteera** aurkitu duelako. Javi Cillero

Ez zuen norabidez aldatzeko eta ekialderanzko **irteera** bilatzeko asmorik. Agustin Otsoa

Kapela ongi jarri eta **irteerarantz** abiatu zen. Iñaki Zabaleta

Olatz ezkaratzean geratu zen, **irteera** zaintzen. Harkaitz Cano

Itsasora ateratzeko **irteera** ireki eta bere flota portu txikitik atera zuen. Santiago Iruretagoiena

**-Irteera** bat! etorri hemendik! -oihukatu zien Arantxak besteei-. Fernando Morillo

**Irteerako** ateetara zihoazen bitartean. Iñaki Mendiguren

Sarrerako hodiak zabaltzen badira eta **irteerakoak** ixten. Luis Elberdin

Begien parean alderantziz jarrita irakurri zuten gure igaro-baimena **irteerakoek**. Inazio Mujika Iraola

Teoria lanabes gisa itxuratzen da: corpusa du sarreran (input), eta gramatika **irteeran** (output). Itziar Laka

## **3** *irud*

Badirela Euskadin, alderdi guztietan, **irteera** bat proposatzeko gai diren politikari argiak eta zintzoak. Bernardo Atxaga

Prostituzioa da neska erromes askoren **irteera** bakarra. Gotzon Garate

Emakumeek asmatutako **irteera** bat, gizonari bere eskubidea osteko. Anton Garikano

**-Irteera** bat besterik ez duzue hona etorri zaretenok. Felipe Juaristi

Ez duzu zereginik, **irteerarik,** norabiderik. Lourdes Oñederra

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Juliaren eta Iñakiren sarrera eta **irteera** orduak. Aingeru Epaltza

**Irteera** bezperan portua bonbardatu eta zamaontzi batzuk hondoratu zituztela kontatzen du. Jokin Urain

Egunkariek deitoratzen zituzten **"irteera** edo itzulera operazioaren" minean bagina bezala. Itxaro Borda

**Irteera** marrako bigarren lerroan. Lander Garro

**Irteera** -kableak bihotzaren kanpoaldeari itsasten zaizkio, bentrikuluen uzkurtzea estimula dezaten. Irene Aldasoro

**Irteera** -hodi handi batetik zurrupatuko balute bezala sentitu zuen. Iñaki Mendiguren

Neskak buru-ukaldi bat egin zuen **irteera** aldera. Aingeru Epaltza

Akuarioko **irteera** aurrean dauden eskaileretatik jaistean. Fernando Morillo

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Igandetan egin ohi zuten asteko mendi-**irteera,** astelehenetan inoiz ez. Pako Aristi

Kanpaldiak, mendi **irteerak,** txangoak. Edurne Elizondo

Urak geratuta dituzten zingirak, ordea, eta ibai edo zanga bidezko ur-**irteerarik** ez dutenak. Santiago Iruretagoiena

Aurreko kapituluetan ikasi dugu zer edo zer seinale-sarreraren mekanismoez, eta aipatu ditugu seinale-**irteeraren** mekanismo batzuk ere. Irene Aldasoro

Kapital-**irteera** horiei aurre egiteko. Koro Navarro

Ezkerrean albo **irteera** bat, sukaldera. Josu Zabaleta

Tximinia-**irteeraren** atzean gorderik. Juan Kruz Igerabide

Lucyk Camden Towneko metro **irteeraraino** jo zuen. Joxemari Iturralde

Korrika atera ginen, herri **irteerarantz**. Jon Maia

Ziztu bizian larrialdi-**irteerarantz** joan zen. tenpluaren egitura eta banaketa, sarrera-**irteerak** eta antolamendu osoa. Migel Angel Mintegi

Bertsolari etorriari azkar-**irteerarekin** erantzunez. Pako Aristi

Intolerantziak, gogor-**irteerak,** irmotasunak, gutarrismo eriak, ideien purutasunak, koherentzia iraunkorrak eta abarrek, Plá-ren arabera, norekin eta kastillanoekin dituztela senidetzen eta berdintzen euskotarrak. Iñaki Segurola

**6** (I larriz) Bibliako bigarren liburuaren izena.

Moisesi Sinai Mendian errebelatutako lege judua, eta Pentateukoan edo Moisesen bost liburuetan dagoena: Genesia edo Hasiera, Exodoa edo **Irteera,** Lebitarren Liburua, Zenbakiak eta Deuteronomioa. Koro Navarro

Inspirazioa ez zetorkien ez Legetik, ez Profetengandik, baizik eta **Irteera** eta Josue liburuetako narrazioetatik. Iñaki Mendiguren

Herodotoren obratik, Odiseatik eta **Irteera** liburutik ateratako adibideak ere badira. Iñaki Mendiguren

**7** ***irteera eman***

Merkantilisten arabera, metaketa hori eraginkorragoa izan zitekeen merkataritza-soberakinei **irteera** emango zieten politika-bideak erabiliz. Koro Navarro

Hitz egitea ez da adierazteko daukagun sentipen tropelari **irteera** emateko bidea besterik. Pako Aristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**balmasedako irteera** (4); **bere irteera** (5); **beste irteera** (4); **beste irteera bat** (4); **bi irteera** (4); **da irteera** (9); **da irteera operazioa** (3); **duen irteera** (4); **egindako irteera** (3); **egiptoko irteera** (3); **eta irteera** (15); **haien irteera** (3); **irteera aldera** (11); **irteera aurkitu** (3); **irteera bakarra** (6); **irteera bat** (31); **irteera da** (4); **irteera egin** (5); **irteera eman** (5); **irteera ematen** (4); **irteera eta** (9); **irteera eta itzulera** (3); **irteera gabeko** (3); **irteera galarazteko** (3); **irteera guztiak** (8); **irteera guztiak ixten** (3); **irteera hori** (3); **irteera izan** (5); **irteera izango** (4); **irteera operazioa** (12); **irteera operazioan** (6); **irteera ordena** (3); **irteera puntuan** (4); **irteera zaintzen** (3); **lehen irteera** (3); **sarrera eta irteera** (3); **sarrera irteera** (5); **sarrera irteera guztiak** (3); **zen irteera** (4); **zuen irteera** (4)

**benetako irteerak** (3); **eta irteerak** (5); **eta irteerako** (3); **irteerak eta** (6); **irteerak itxi** (3); **irteerako atea** (4); **irteerako lehen** (3); **mendi irteerak** (4); **sarrera irteerak** (8); **sarrerak eta irteerak** (3)

**autobideko irteeraren** (3); **bergarako irteeran** (3); **dira irteeran** (3); **ere irteeran** (4); **eta irteeran** (14); **eta irteerarantz** (3); **eta irteeraren** (3); **eta irteeretan** (4); **ez zen irteeran** (3); **geltokiko irteerara** (3); **irteeran egongo** (3); **irteeran eta** (4); **irteeran ez** (3); **irteeran izango** (18); **irteeran izango da** (4); **irteeran izango dira** (3); **irteerarantz abiatu** (7); **irteerarantz abiatu zen** (4); **irteeraren bat** (3); **irteerarik ez** (6); **irteerarik gabeko** (19); **irteerarik gabeko kale** (3); **izango dira irteeran** (3); **zen irteeran** (3)

---

# irteerabide *(orobat **irteera-bide**)* *iz* irteteko bidea.

Izan ere, kontsonante horien ekoizpenean hersketa bat gertatzen den arren (ahoskunea ematen diena), **irteerabide** aski irekiren bat ere izaten dute hersketak irauten duen bitartean. Lourdes Oñederra

Kamino berria egiteke, Marielexako baserri askoren **irteera** -bidea Aginetara jaistea zen. Pako Aristi

---

# irten, irteten *(orobat **irtetzen** g.er.)* **1** da *ad* (toki batetik) kanpora joan. ik **jalgi**, **ilki**; **atera.** (norbait)

Eskuak-eta garbitu, etxetik **irten,** eta eskolako atarira joan nintzen. Juan Kruz Igerabide

**-Irten** zaitez ontzitik, emazte, seme eta errainekin. Jose Antonio Mujika

Guardia zibilak agertu zirenean, frontoiko atakatik **irten** nintzen. Juan Kruz Igerabide

Erregearenetik **irten** eta berehala, emakumeak zurgin batengana jo zuen. Patxi Zubizarreta

Baina berak ihes egin zuen komisariatik, eta egunkarietan **irten** zen haren ekintza. Juan Kruz Igerabide

Gero, uretatik **irten,** eta buruz behera etzan da lehor-zapiaren gainean, negarrez. Juan Kruz Igerabide

Kalera **irten** aurretik. Anton Garikano

Hala **irten** ginen Idoia eta biok Côte d'Azur aldera. Juan Kruz Igerabide

9 mm-ko errebolberra atera, milizianoen aurrera **irten,** eta hitz bat besterik ez zuen esan: *djaxe.* Eserlekuraino eraman ninduen, eta agurrik egin gabe **irten** zen. Juan Kruz Igerabide

Presaka **irten** ziren autorantz, emakumea berekin eramateko denborarik gabe. Juan Kruz Igerabide

Ziztu bizian **irten** ginen handik. Inazio Mujika Iraola

Koadrila ihesi **irten** zen tabernatik. Juan Kruz Igerabide

Kamiseta hutsean **irten** zen, begiak igurtziz. Juan Kruz Igerabide

Hurrengo goizean, oso goiz **irten** zen. Juan Kruz Igerabide

Bat-batean, ez zuen gauez **irten** nahi. Antton Olano

**2** (norbait zerbaitetara)

Nagusia **irten** zen Marro lasaitzera, eta nire laguna atzetik. Juan Kruz Igerabide

**Irten** dadila herria egunero, egunean behar dutena biltzera. Jose Antonio Mujika

Telemako aitaren bila **irten** zela jakinik, haien bihotzak amorru handiak jo zituen. Juan Kruz Igerabide

Horregatik **irten** naiz zure bila. Elizen arteko biblia

Kamiseta hutsean **irten** zen, begiak igurtziz. Juan Kruz Igerabide

Nire laguna auto bat probatzera **irten** zen. Juan Kruz Igerabide

Gu bainua hartzeko asmotan **irten** baina, […]. Joxe Austin Arrieta

**3** (norbait beste norbaitekin)

Amarekin **irten** zen. Arantxa Iturbe

Hurrengo egunetan, elkarrekin **irteteko** deitzen zidan Idoiak, hondartzara joateko, edo mendira. Juan Kruz Igerabide

Elkarrekin **irten** ziren anai-arrebak. Juan Kruz Igerabide

· Haietara Marisarekin batera joaten nintzen [...] nirekin **irteten** hasia baitzen; elkarrekin joaten ginen zinera edo beheko auzoan paseatzera. Juan Kruz Igerabide

**4** (zerbait)

Hurrengo egunean, eguzkia **irten** baino lehentxeago. Juan Kruz Igerabide

Baina Telemakok brontzezko lantza sartu zion bizkarretik, eta bularretik **irten** zitzaion. Juan Kruz Igerabide

Nire zakilak sartu eta **irten** egiten zuen haren ahoan, atzera-aurrera jakintsuak egiten zizkidan. Juan Martin Elexpuru

Begiak itxi, zabaldu, eta malko beroak **irten** zitzaizkidan. Juan Kruz Igerabide

Buruan adats luze kiribilduak **irten** zitzaizkion, ihazintoaren antzekoak. Juan Kruz Igerabide

Lurruna **irten** zitzaion ahotik, hitzekin batera. Anjel Lertxundi

Algara asmatikoa **irten** zitzaion. Juan Kruz Igerabide

Hura ikusi, eta ezin konta ahala ahots hasi zitzaizkidan barrutik **irten** beharrean. Juan Kruz Igerabide

Ezpain artetik odol-hari bat **irten** zitzaion, masailean behera, leporaino. Juan Kruz Igerabide

-Arranoa! **-irten** zitzaidan. Edorta Jimenez

Kurt?, **irten** zitzaidan. Anjel Lertxundi

-Bai, baina beti herren izango naiz; horrek ez du bueltarik **-irten** zitzaidan, ia pentsatu gabe. Juan Kruz Igerabide

Argi eta garbi geratu zen gutuna ezagutarazteko iniziatiba Hitlerren ingurutik **irten** zela, Anjel Lertxundi

**5** zerbait, egon behar lukeen tokitik kanpora joan.

Bihotza ia **irten** zitzaidan bularretik. Juan Kruz Igerabide

Bihotza **irten** beharrean jartzen zaigu, ezpainak lehortu egiten zaizkigu eta arnasa azkarrago hartzen hasten gara. Luis Elberdin

Bularretakoa pixka bat jaitsi, eta bular bat **irten** zitzaion. Juan Kruz Igerabide

Dardarka zeukan kokotsa, begiak **irten** beharrean. Anjel Lertxundi

Bidetik **irten** eta mendian behera erorita amiltzeko. Aitor Arana

Araua haustea ezarritako **bidetik irtetea** da. Luis Elberdin

**6** toki edo egoera jakin batean egoteari utzi.

Medikuntza-eskolatik **irten** zenean, lurralde urrunei buruz zuen jakin-minari leku eman zion. Xabier Olarra

Hurrengo hilabeteetan, jende ugari **irten** zen espetxeetatik. Juan Kruz Igerabide

Kartzelatik **irteten** zirenei edo atzerritik itzultzen zirenei. Juan Kruz Igerabide

Zenbat estualditatik ez ote zara **irten** ! Juan Kruz Igerabide

Hondamenaren eta pobreziaren putzutik **irten** gaitezen. Patxi Zubizarreta

Kalezulotik hiriaren bihotzera irtetean, lo trinko batetik **irten** eta munduaren zaratara agertu zirela. Patxi Zubizarreta

Eta ez zaie inolaz ere zilegi izango Elkarte honetatik **irtetea** . Askoren artean

Mahaiko ogi-apurrak biltzen hasi zen, nik jarritako trantzetik **irteteko** . Anjel Lertxundi

**7** gertatu.

Ez zaizkio gauzak behar bezala **irten** -dibortziatu zen, ez ditu seme-alabak ia ikusten-, eta bere aire abailduak ni abailtzen nau. Anjel Lertxundi

Hala bada, neska xarmantarengana asko nahian joan, eta hutsean **irten** zen Bakbaka errukarriak, burua makur, hiritik alde egin behar izan zuen. Patxi Zubizarreta

Ez zen **galduan irten,** edariak balio zuena baino lau aldiz gehiago eskatu zuen eta. Jose Morales

Balio duena **garaile irteten** da. Juan Garzia

"Che" medikua zen, eta Granmatik bizirik **irten** zirenek bazuten halako kultura maila bat. Jon Muñoz

-Lasai zaitez -esan zion Mahmudek-, salburik **irten** zara, eta, bizitzaren aldean, ondasunak hutsa dira. Patxi Zubizarreta

*ik beherago* 10. Askoren artean

Zeure idazkera biribil polit hori irudikatu eta antzeratu nahian egindako saio eta ahaleginak erabat **ustel irten** zitzaizkidan. Xabier Mendiguren Elizegi

**8** (era burutua izenondo gisa)

Gerria oso makurtua zuen, bularra oso **irtena** . Josu Zabaleta

Aurpegi oreztatsua eta gaztaina-koloreko begi **irtenak** zituena. Irene Aldasoro

Eskuak txikiak; hatzak luzeak; azazkalak **irtenak** . Askoren artean

Boxeolari sudurra zuen eta kokots **irtena,** bizarrak gorritua. Koro Navarro

Aurpegiko hezurrak **irtenak** zituen. Josu Zabaleta

Zainak, guztiz **irtenak,** lehertu beharrean zeuzkan. Anjel Lertxundi

Soineko azpiko tanga ñimiñoak markatzen dizkion ipurmasailtxo **irtenak** . Patxi Iturritegi

· Begiak irten- **irtenak,** tik berezi bat masail puztuetan. Iñaki Mendiguren

· Annieren argazki margoztatu bat, ile-harrotua eta bular- **irtena** azaltzen zena. Koro Navarro

Bere aurpegi luxe kokots- **irtena** zurbil zegoen. Fernando Rey

**9** *–en* ***alde irten***

Batzuetan, haren **alde irteten** nintzen Endreren eta Tiborren aurrean. Ander Irizar

Horrelakoak dituk hiri triste honetako zorigaiztokeriak, entzun nion esaten nire **alde irtendako** gizonari. Anjel Lertxundi

**10** *(norbait)* ***bere onetik irten***

-Nor dago bere **onetik irtenda** ? -esan zuen neskak-. Mirentxu Larrañaga

Jauregian irain egiten badidate, ez hadi heure onetik **irten,** ezta hanketatik arrastaka banaramate edo geziak botatzen badizkidate ere. Juan Kruz Igerabide

Berehala, beren onetik **irten,** eta txorakeriak esaten hasi ziren. Patxi Zubizarreta

Begira, masturbatzen ari natzaio, musukatzen, burua galtzear nago... aha! aha! aha! lagunak, ezin dut gehiago! [...] alajainkoa! neure **onetik irtenda** nago! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**10** ***bidera irten***

Zirze edabezalearen jauregira iristear nengoela, Hermes **irten** zitzaidan bidera. Juan Kruz Igerabide

Zergatik ez zorteari bidera **irten** eta besteen antzera aurrera egin? Patxi Zubizarreta

Lehi-ra iritsi zenean, filistearrak bidera **irten** zitzaizkion, pozez oihuka. Jose Antonio Mujika

Behia **irten** zitzaien bidera. Arantxa Iturbe

**Bidera irteniko** txakur ozarregiak paretik kentzeko. Juan Garzia

## 11 *onik irten*

Jose Antonio Agirre eta Manuel Irujo onik **irten** ziren […] 1937ko hondarrean izan zuten auto istriputik. Jokin Urain

Herr Haspern, ordea, onik **irten** zen lehendabiziko epaiketan, eta Hermannek beste irakasleen epeltasunari egotzi zion zigorrik gabe atera izana. Anjel Lertxundi

Badirudi bere txarrean ere onik **irten** nintzela, hots, petrikiloak ondo egin zuela bere lana. Juan Kruz Igerabide

Ibaiak ura gelditu zuen, eta Ulises onik **irten** zen itsasotik. Juan Kruz Igerabide

Sorginkeria batetik onik **irten,** eta hara non okerrago batean sartu naizen. Patxi Zubizarreta

## 12 *sartu-irten iz*

Hainbeste **sartu-irten** eta joan-etorri susmagarri. Edorta Jimenez

Arraunen sartu-**irtena** bizkortu genuen, horra gure erantzuna. Edorta Jimenez

Garrasien Etxeak ere merezi du **sartu-irten** bat. Iñaki Mendiguren

Behiala merkantzia **sartu-irten** eta jarduera handia izan zuten lokal orain hautseztatu eta leihorik gabeak.Txitxikovek, orobat, **sartu-irten** bat egin zuen hiriko lorategian. Harkaitz Cano

Sartu-**irten** bat egin zuen atezainarenean. Joxemari Urteaga

Etxera **sartu-irten** bat egitea komeni zitzaiola. Pedro Alberdi

Hiruzpalau aldiz egin zuen Ruche jaunak liburu-dendan sartu-**irtena**. Doktoreak Posta etxera egunero egiten zituen sartu-**irtenak**. Jon Muñoz

Erosleak **sartu-irten** etengabean zebiltzan, bultzaka. Mirentxu Larrañaga

Begirada zorrotz eta biziko erizainak **sartu-irten** azkarrean nonahi. Mirentxu Larrañaga

· *adlag* Begirada galduta etxetik **sartu-irten** nenbilela. Migel Angel Mintegi

**Sartu-irten** zebilen jendeari begiratu zion Georges Berniardek. Lutxo Egia

## 13 *sartu-irtentxo*

Bulegotik goiz antza irten, loradendan sartu-**irtentxoa** egitera geratu eta etxerantz abiatu zen Camillarengana. Esan dezakegu, zientziaren asmazioetan sartu-**irtentxo** bat eginaz […]. Mirentxu Larrañaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

**ahotik irten** (11); **airean irten** (7); **alde irten** (29); **alde irten zen** (25); **aldera irten** (7); **aretotik irten** (18); **aske irten** (30); **aske irten zen** (12); **atarira irten** (22); **atarira irten zen** (8); **atetik irten** (31); **atetik irten eta** (7); **atetik irten zen** (8); **atzetik irten** (18); **atzo irten** (10); **aurrera irten** (9); **autotik irten** (29); **autotik irten eta** (11); **azpitik irten** (12); **balkoira irten** (11); **barrutik irten** (7); **bat bidetik irten** (8); **bat errepidetik irten** (7); **bat irten** (85); **bat irten da** (9); **bat irten zen** (37); **bat irten zitzaion** (13); **batean irten** (14); **batera irten** (25); **batera irten ziren** (11); **batetik irten** (33); **batetik irten eta** (9); **batzuk irten** (11); **begiak irten** (7); **berehala irten** (18); **berehala irten zen** (10); **berriro irten** (9); **bezala irten** (18); **bezala irten zen** (7); **bidera irten** (42); **bidera irten eta** (8); **bidera irten zitzaion** (12); **bidetik irten** (23); **bidetik irten eta** (7); **bidetik irten zen** (9); **bila irten** (34); **bizian irten** (12); **bizirik irten** (24); **bulegotik irten** (20); **dendatik irten** (16); **egiptotik irten** (18); **egiptotik irten eta** (9); **egitera irten** (20); **eguzkia irten** (16); **elizatik irten** (10); **elkarrekin irten** (7); **ere irten** (24); **errepidetik irten** (25); **errepidetik irten eta** (8); **errepidetik irten zen** (10); **eskolatik irten** (14); **espetxetik irten** (17); **eta etxetik irten** (12); **eta gelatik irten** (17); **eta irten** (92); **eta irten egin** (44); **eta kalera irten** (31); **eta kanpora irten** (38); **etxetik irten** (118); **etxetik irten eta** (20); **etxetik irten gabe** (11); **etxetik irten zen** (11); **etxetik irten zenean** (7); **ez irten** (10); **ez zen irten** (8); **gabe irten** (42); **gabe irten zen** (11); **garaile irten** (18); **gaztelutik irten** (9); **gelatik irten** (79); **gelatik irten eta** (17); **gelatik irten zen** (33); **geltokitik irten** (9); **gizon bat irten** (7); **goiz irten** (10); **goizean goiz irten** (7); **guztiak irten** (7); **handik irten** (46); **handik irten eta** (12); **hartatik irten** (12); **hemendik irten** (9); **herritik irten** (14); **herritik irten eta** (7); **hiritik irten** (16); **hiritik irten eta** (9); **honetatik irten** (8); **horretatik irten** (11); **hoteletik irten** (8); **ikustera irten** (12); **ikustera irten zineten** (8)

**irten ahal** (21); **irten ahal izateko** (8); **irten ahala** (9); **irten arren** (9); **irten arte** (23); **irten aurretik** (72); **irten baino** (41); **irten baino lehen** (36); **irten baitzen** (9); **irten barik** (9); **irten bat** (22); **irten bat egin** (10); **irten bazen** (7); **irten behar** (111); **irten behar izan** (18); **irten behar zuen** (10); **irten beharko** (24); **irten beharra** (13); **irten beharrean** (24); **irten berri** (15); **irten berri den** (7); **irten berria** (29); **irten berria zen** (7); **irten berriak** (8); **irten berritan** (9); **irten bezain** (48); **irten bezain laster** (45); **irten da** (145); **irten dadila** (7); **irten dadin** (7); **irten daiteke** (8); **irten dela** (9); **irten den** (12); **irten denean** (9); **irten dira** (66); **irten diren** (8); **irten egin** (118); **irten egin da** (7); **irten egin ginen** (7); **irten egin nahi** (8); **irten egin nintzen** (14); **irten egin zen** (46); **irten egin ziren** (7); **irten egingo** (20); **irten egingo da** (7); **irten egiten** (39); **irten egiten da** (29); **irten ere** (15)

**irten eta** (610); **irten eta atea** (12); **irten eta berehala** (10); **irten eta beste** (8); **irten eta gero** (15); **irten ez** (19); **irten ezinda** (13); **irten ezinik** (22); **irten gabe** (59); **irten gaitezen** (7); **irten gara** (25); **irten ginen** (80); **irten ginenean** (15); **irten nahi** (59); **irten nahi izan** (9); **irten nahian** (10); **irten naiz** (40); **irten naizenean** (9); **irten nintzen** (129); **irten nintzenean** (23); **irten ondoren** (48); **irten orduko** (47); **irten ostean** (11); **irten ote** (7); **irten zaio** (7); **irten zait** (12); **irten zaitez** (15); **irten zara** (13); **irten zedin** (10); **irten zela** (24); **irten zelarik** (13); **irten zen** (926); **irten zen atzo** (14); **irten zen bere** (10); **irten zen berriro** (8); **irten zen espetxetik** (7); **irten zen eta** (27); **irten zen etxetik** (16); **irten zen gelatik** (13); **irten zen handik** (9); **irten zen kalera** (11); **irten zen kanpora** (8); **irten zena** (7); **irten zenean** (87); **irten zenetik** (8); **irten zineten** (8); **irten zirela** (9); **irten ziren** (375); **irten ziren atzo** (11); **irten ziren eta** (8); **irten zirenean** (43); **irten zitzaidan** (26); **irten zitzaien** (11); **irten zitzaion** (77); **irten zitzaion bidera** (8); **irten zitzaizkion** (15); **irten zuen** (14)

**itsasora irten** (10); **jangelatik irten** (8); **jauregitik irten** (10); **kalera irten** (203); **kalera irten behar** (7); **kalera irten da** (7); **kalera irten eta** (25); **kalera irten ginen** (8); **kalera irten naiz** (13); **kalera irten nintzen** (20); **kalera irten zen** (28); **kalera irten ziren** (21); **kanpora irten** (169); **kanpora irten eta** (23); **kanpora irten ginen** (9); **kanpora irten nintzen** (9); **kanpora irten zen** (34); **kanpora irten ziren** (17); **kanpora irten zirenean** (7); **kantxara irten** (7); **kartzelatik irten** (14); **komunetik irten** (13); **lanetik irten** (7); **lasterka irten** (20); **lasterka irten zen** (9); **lehenago irten** (9); **leihora irten** (9); **lekutik irten** (7); **logelatik irten** (9); **lorategira irten** (7); **merriman irten** (7); **merriman irten egiten** (7); **noiz irten** (7); **nola irten** (22); **nondik irten** (17); **ohetik irten** (7); **ondo irten** (22); **onetik irten** (8); **ongi irten** (20); **onik irten** (25); **onik irten zen** (10); **ospitaletik irten** (9); **ostatutik irten** (7); **patiora irten** (19); **pozik irten** (10); **presaka irten** (8); **sartu eta irten** (16); **sartu irten** (49); **sartu irten bat** (20); **sekula irten** (10); **sukaldetik irten** (19); **tabernatik irten** (14); **uretatik irten** (10); **zelaira irten** (15); **zen irten** (10); **zer ikustera irten** (9); **ziztu bizian irten** (12); **zuela irten** (9); **zuela irten zen** (7); **zulotik irten** (22)

**alde irtengo** (8); **begi irtenak** (8); **bezala irtengo** (8); **bizirik irtengo** (8); **handik irtengo** (8); **irtena zen** (16); **irtenez gero** (21); **irtengo da** (117); **irtengo da gaur** (8); **irtengo dela** (13); **irtengo den** (15); **irtengo dira** (57); **irtengo diren** (7); **irtengo gara** (16); **irtengo naiz** (24); **irtengo ote** (7); **irtengo zain** (7); **irtengo zara** (15); **irtengo zarete** (7); **irtengo zela** (11); **irtengo zen** (10); **irtengo ziren** (9); **kalera irtengo** (8); **kanpora irtengo** (8); **kanpora irtenik** (7); **laster irtengo** (10); **noiz irtengo** (12); **onik irtengo** (9); **sartu irtena** (18); **sartu irtenak** (11); **sartu irtenean** (16)

**aske irtetea** (11); **aske irteteko** (13); **bizirik irtetea** (7); **eta irteteko** (15); **etxetik irtetean** (10); **ez irtetea** (8); **ez irteteko** (14); **gelatik irtetean** (8); **handik irtetean** (10); **handik irteteko** (19); **hartatik irteteko** (9); **honetatik irteteko** (12); **horretatik irteteko** (7); **irtetea erabaki** (17); **irtetea erabaki zuen** (8); **irtetea lortu** (16); **irteteko agindu** (12); **irteteko agindua** (8); **irteteko aukera** (20); **irteteko baimena** (9); **irteteko bide** (8); **irteteko esan** (8); **irteteko eskatu** (7); **irteteko eta** (7); **irteteko prest** (9); **irteteko zorian** (20); **kalera irtetea** (8); **kalera irteteko** (35); **kanpora irteteko** (21); **onik irteteko** (9); **zulotik irtetea** (7); **zulotik irteteko** (14)

**ahotik irteten** (10); **atetik irteten** (7); **bat irteten** (19); **batetik irteten** (18); **bezala irteten** (12); **egitera irteten** (7); **eguzkia irteten** (7); **ere irteten** (7); **eta irteten** (17); **etxetik irteten** (34); **ez zen irteten** (8); **gelatik irteten** (7); **handik irteten** (16); **irteten ari** (72); **irteten ari zela** (11); **irteten ari zen** (20); **irteten ari ziren** (7); **irteten bada** (25); **irteten da** (60); **irteten den** (44); **irteten dena** (8); **irteten denean** (20); **irteten dira** (45); **irteten diren** (31); **irteten direnak** (9); **irteten direnean** (9); **irteten eta** (15); **irteten ez** (18); **irteten gara** (11); **irteten hasi** (31); **irteten hasi zen** (9); **irteten hasi ziren** (9); **irteten ikusi** (35); **irteten ikusi zuen** (8); **irteten naiz** (16); **irteten nintzen** (11); **irteten utzi** (16); **irteten utziko** (7); **irteten uzteko** (10); **irteten uzten** (10); **irteten zaizkio** (8); **irteten zen** (86); **irteten ziren** (71); **irteten zirenean** (8); **irteten zitzaizkion** (17); **kalera irteten** (29); **kanpora irteten** (23); **nola irteten** (12); **ondo irteten** (9); **ongi irteten** (8); **tabernatik irteten** (7); **zen irteten** (16)

---

# irtenaldi 1 *iz* irtetea; norbait edo zerbait irteten den aldi bakoitza. ik **irteera**.

Handik hiru egunetara emango dio Don Kijotek hasiera hirugarren **irtenaldiari**. Oso gustuko zuen Pasaiako **irtenaldi** hura. Islandiarako **irtenaldia** Berberiako itsaslapurrek egin zuten balentriarik handienetakoa da. Patxi Ezkiaga

Baimenik gabeko **irtenaldietan**. Joseba Sarrionandia

**Irtenaldia** egin zuten gure kontra zelai zabalera; guk, aldiz, kontraerasoa egin genien hiri-sarreraraino. Elizen arteko biblia

**Irtenaldi** bat egitera goaz. Irene Aldasoro

Altzatik egiten zituzten **irtenaldiez** oroitzen zen Sara oharkabean. Joan Mari Irigoien

Mendira-eta egiten ditugun **irtenaldi** urriak. Anjel Lertxundi

## 2 (hitz elkartuetan)

Taldea bentan geratu zen, inguruetan arakatze-**irtenaldi** batzuk eginez tarteka. Koro Navarro

Jaunak garaipena eman zion Davidi gudu-**irtenaldi** guztietan. Elizen arteko biblia

Osabaren gogozko itxialdi hura han beheko kafetxean billarrean jokatzera joateko gau-**irtenaldiz** etena izan zela. Juan Garzia

## 3 *sartu-irtenaldi*

Eskolako sartu-**irtenaldietan** jendea pasilloan pilatzen zenean. Pedro Alberdi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**davidi gudu irtenaldi** (3); **gudu irtenaldi** (5); **gudu irtenaldi guztietan** (3); **irtenaldi bat** (7); **irtenaldi guztietan** (3); **irtenaldi hura** (3); **irtenaldia egin** (3)

---

**irtenalditxo** *iz* irtenaldi laburra.

Anaia Simon hirian utzirik, Jonatanek **irtenalditxo** bat egin zuen gudari-talde txiki batekin eta herrialdean zehar ibili zen. Elizen arteko biblia

---

**irtenarazi**, irtenaraz, irtenarazten du *ad* irtetera behartu.

Beraz, zergatik **irtenarazi** ninduzun sabeletik? Elizen arteko biblia

**-Irtenarazi** itzazu etxean sartu zaizkizun gizon horiek. Jose Antonio Mujika

Gero, hango jendea **irtenarazi** eta zerraz, burdinazko pikotxaz eta burdinazko aizkoraz lan egitera behartu zuen. Elizen arteko biblia

Pedrok denak **irtenarazi** zituen eta, belaunikaturik, otoitz egin zuen. Elizen arteko biblia

Nik **irtenaraziko** zaituztet hilobitik, oi ene herri, eta Israelgo lurraldera eramango. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**handik irtenarazi** (4); **irtenarazi eta** (8); **irtenarazi ninduen** (4); **irtenarazi ondoren** (3); **irtenarazi zituen** (4); **irtenarazi zituzten** (3); **irtenarazi zuen** (4); **kanpora irtenarazi** (5)

---

**irtenbide** *(orobat* ***urtenbide*** *g.er.)* **1** *iz* irteteko bidea. ik **aterabide**.

Ubideak, putzua luzetara gurutzatuz, **irtenbide** bat egina zuen beste muturrean, eta bihurritu egiten zen gero, urrutiago ibaiarekin elkartzen zen arte. Koro Navarro

Emaginak esan zuen: "Hik bai duala urratu **irtenbidea!"** horregatik, Peretz, "Urradura", eman zioten izen. Elizen arteko biblia

Nik, haurrari **irtenbidea** ematen diodan honek, ez ote nion, bada, jaiotzen utziko? haurrak jaioarazten ditudan honek, irtetea eragotziko ote nion? Elizen arteko biblia

Bizitzan beste asko bezala, **irtenbiderik** gabeko kalea zen hura ere. Harkaitz Cano

· Ikasketak egiten ari naiz baita ere, baina hemen ez dugu **irtenbide** handirik. Jon Muñoz

**2** *irud.*

**Irtenbideetan** jarri behar dugu arreta eta ez arazoan. Berria - Gaiak

Arazorik ez **irtenbiderik** gaberik. Jon Muñoz

Palestinako gatazkaren **irtenbidea** . Berria - Mundua

Gurpila baino **irtenbide** hobea da hori, alderdi askotatik. Irene Aldasoro

Konplikatua da gatzatze-mekanismoa, baina **irtenbide** eraginkor bat ematen dio arazo zail bati. Irene Aldasoro

Ataka latza benetan, oso latza, eta gainera ez duzu **irtenbide** argirik ikusten. Rafa Egiguren

Pentsatu nuen izan zitekeela psikiatrarena baino **irtenbide** hoberik. Juan Kruz Igerabide

Nazioarteko elkartasunak babes ditzake **irtenbide** baketsuak bilatzen dituzten erakundeak. Berria - Euskal Herria

Ainarak esan zidan **irtenbide** bakarra ikusi zuela -horri **irtenbidea** deitu ahal bazaio behintzat-: itxurak egitea. Luis Elberdin

**Irtenbide** bat bakarrik zegoen: hilketa. Gotzon Garate

Zorrak kitatzeko **irtenbide** bakarra. Migel Angel Mintegi

**Irtenbide** batzuk saiatu dira, baina ez da lortu arazoa guztiz argitzea. Isabel Arrigain

Arazoaren **irtenbidea** aldez aurretik ebatzia baitzegoen. Juan Kruz Igerabide

Krisiari **irtenbide** bateratuak bilatzeko. Koro Navarro

Helburua, hortaz, arazo honi **irtenbidea** ematea izango da. Askoren artean

Gero, gogoeta egin, eta hortxe aurkitu dut **irtenbidea..** . beste liburu batean. Jon Muñoz

Egoera ezerosoari **irtenbidea** ematearren. Migel Angel Mintegi

Ba al zuen beste **irtenbiderik,** ordea? Migel Angel Mintegi

Hemen geratu beste **irtenbiderik** ez dugu. Josu Zabaleta

Atzera egitea beste **irtenbiderik** ez du, Ez zegoen beste **irtenbiderik** . J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Ez atzera ez aurrera gaude gu: **irtenbiderik** gabe... Jesus Mari Mendizabal

**3** (hitz elkartuetan)

Semantikaren arazo nagusia [...] ebatziko lukeen **irtenbide** -eredua proposatzen du Davidsonek. Askoren artean

**4** *irtenbide gabe* ik **irtenbidegabe**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**arazoari irtenbide** (5); **auziari irtenbide** (7); **baino irtenbide** (4); **bakezko irtenbide** (4); **bati irtenbide** (4); **beste irtenbide** (27); **beste irtenbide bat** (16); **beste irtenbide batzuk** (7); **bi irtenbide** (7); **da irtenbide** (12); **dela irtenbide** (4); **den irtenbide** (5); **du irtenbide** (9); **duen irtenbide** (10); **dute irtenbide** (5); **edozein irtenbide** (6); **egiteko irtenbide** (4); **ere irtenbide** (8); **eta gatazkari irtenbide** (5); **eta irtenbide** (60); **eta irtenbide bakarra** (9); **eta irtenbide bat** (8); **ez da irtenbide** (6); **gatazka politikoak irtenbide** (4); **gatazka politikoari irtenbide** (8); **gatazkaren irtenbide** (8); **gatazkari irtenbide** (30); **gatazkari irtenbide bat** (5); **gatazkari irtenbide demokratikoa** (6); **gatazkari irtenbide negoziatua** (4); **gatazkari irtenbide politikoa** (5); **honi irtenbide** (5)

**irtenbide argirik** (4); **irtenbide bakar** (6); **irtenbide bakarra** (74); **irtenbide baketsua** (8); **irtenbide bat** (107); **irtenbide bat aurkitu** (4); **irtenbide bat aurkitzeko** (9); **irtenbide bat aurkitzen** (4); **irtenbide bat bilatu** (11); **irtenbide bat bilatzeko** (6); **irtenbide bat bilatzen** (6); **irtenbide bat eman** (6); **irtenbide bat emateko** (9); **irtenbide baten** (10); **irtenbide baten bila** (5); **irtenbide batzuk** (8); **irtenbide berriak** (4); **irtenbide bila** (16); **irtenbide demokratiko** (6); **irtenbide demokratikoa** (18); **irtenbide demokratikoa emateko** (6); **irtenbide demokratikoak** (6); **irtenbide demokratikoaren** (7); **irtenbide demokratikoaren alde** (4); **irtenbide demokratikorako** (5); **irtenbide diplomatikoa** (4); **irtenbide duina** (5); **irtenbide egokia** (13); **irtenbide egokiena** (8); **irtenbide elkarrizketatua** (4); **irtenbide erraza** (4); **irtenbide eta** (4); **irtenbide gehiago** (7); **irtenbide gisa** (8); **irtenbide hori** (4); **irtenbide negoziatu** (6); **irtenbide negoziatua** (9); **irtenbide ona** (10); **irtenbide onena** (4); **irtenbide orokorra** (5); **irtenbide politiko** (21); **irtenbide politiko eta** (7); **irtenbide politiko negoziatua** (5); **irtenbide politikoa** (29); **irtenbide politikoa behar** (10); **irtenbide politikoa emateko** (4); **irtenbide politikoak** (5); **irtenbide politikoaren** (4); **irtenbide politikoen** (5); **irtenbide politikorako** (5); **irtenbide posible** (5); **irtenbide posibleak** (4); **irtenbide txarra** (5); **irtenbide zaila** (4)

**konpontzeko irtenbide** (4); **litzateke irtenbide** (4); **oinarritutako irtenbide** (4); **oso irtenbide** (4); **politikoak irtenbide** (4); **politikoari irtenbide** (8); **zein irtenbide** (4); **zen irtenbide** (8); **zen irtenbide bakarra** (4); **zer irtenbide** (8); **zituen irtenbide** (4); **zuen irtenbide** (5)

**arazoaren irtenbidea** (4); **arazoari irtenbidea** (20); **arazoari irtenbidea emateko** (7); **arazoei irtenbidea** (6); **auziari irtenbidea** (5); **batek irtenbidea** (4); **bati irtenbidea** (5); **bati irtenbidea emateko** (4); **behin behineko irtenbidea** (5); **behin betiko irtenbidea** (9); **behineko irtenbidea** (5); **bere irtenbidea** (7); **betiko irtenbidea** (9); **da irtenbidea** (35); **dela irtenbidea** (9); **den irtenbidea** (5); **du irtenbidea** (6); **duen irtenbidea** (4); **dugu irtenbidea** (5); **egoerari irtenbidea** (14); **egoerari irtenbidea aurkitzeko** (5); **egoerari irtenbidea emateko** (4); **eskasari irtenbidea** (4); **eta gatazkari irtenbidea** (4); **eta irtenbidea** (17); **euskal gatazkaren irtenbidea** (4); **euskal gatazkari irtenbidea** (8); **ez da irtenbidea** (12); **ez dela irtenbidea** (6); **gatazka politikoaren irtenbidea** (4); **gatazka politikoari irtenbidea** (13); **gatazkaren irtenbidea** (20); **gatazkari irtenbidea** (43); **gatazkari irtenbidea aurkitzeko** (4); **gatazkari irtenbidea bilatzeko** (12); **gatazkari irtenbidea emateko** (14); **honi irtenbidea** (5); **horri irtenbidea** (14); **horri irtenbidea emateko** (4)

**irtenbidea aurkitu** (21); **irtenbidea aurkitu behar** (6); **irtenbidea aurkitu nahian** (4); **irtenbidea aurkitzea** (6); **irtenbidea aurkitzeko** (28); **irtenbidea aurkitzen** (4); **irtenbidea bilatu** (13); **irtenbidea bilatuko** (4); **irtenbidea bilatzea** (7); **irtenbidea bilatzeko** (47); **irtenbidea bilatzeko asmoz** (6); **irtenbidea bilatzen** (9); **irtenbidea da** (9); **irtenbidea ekarriko** (4); **irtenbidea eman** (32); **irtenbidea eman behar** (9); **irtenbidea eman nahi** (5); **irtenbidea emango** (13); **irtenbidea ematea** (9); **irtenbidea emateko** (68); **irtenbidea ematen** (11); **irtenbidea eta** (5); **irtenbidea ez** (12); **irtenbidea ez da** (6); **irtenbidea izan** (6); **irtenbidea izan daiteke** (4); **irtenbidea topatzea** (4)

**arazoei irtenbideak** (5); **eta irtenbideak** (25); **eta irtenbideak bilatzeko** (5); **eta irtenbideak ere** (4); **eta irtenbidearen** (4); **gatazkaren irtenbidean** (6); **gatazkaren irtenbiderako** (6); **gatazkari irtenbideak** (4); **irtenbideak aurkitzeko** (9); **irtenbideak bilatu** (10); **irtenbideak bilatu behar** (4); **irtenbideak bilatzea** (4); **irtenbideak bilatzeko** (24); **irtenbideak bilatzen** (8); **irtenbideak emateko** (4); **irtenbideak ere** (7); **irtenbideak eskatu** (4); **irtenbideak eskatzen** (5); **irtenbideak ez** (4); **irtenbidean parte** (4); **irtenbidearen alde** (7); **irtenbidearen parte** (6); **irtenbideren bat** (24); **irtenbideren bat aurkitu** (7); **irtenbideren bat aurkitzeko** (5); **krisiari irtenbidea** (10);

**politikoaren irtenbidea** (4); **politikoari irtenbidea** (16); **politikoari irtenbidea emateko** (5); **zen irtenbidea** (5); **zuen irtenbidea** (4)

**baina irtenbiderik** (5); **beste irtenbiderik** (138); **beste irtenbiderik ez** (62); **beste irtenbiderik ikusten** (4); **beste irtenbiderik izan** (4); **bestelako irtenbiderik** (4); **da irtenbiderik** (5); **dago beste irtenbiderik** (12); **dago irtenbiderik** (6); **du irtenbiderik** (8); **dute beste irtenbiderik** (5); **egitea beste irtenbiderik** (5); **eta irtenbiderik** (7); **eta irtenbiderik ez** (4); **ez dago irtenbiderik** (5); **ez du irtenbiderik** (7); **inolako irtenbiderik** (7); **irtenbiderik aurkitu** (5); **irtenbiderik egokiena** (7); **irtenbiderik eman** (6); **irtenbiderik ematen** (7); **irtenbiderik ez** (89); **irtenbiderik ez dagoela** (7); **irtenbiderik ez du** (5); **irtenbiderik ez dugu** (4); **irtenbiderik ez zuen** (5); **irtenbiderik ez zuten** (4); **irtenbiderik ezean** (4); **irtenbiderik gabe** (11); **irtenbiderik gabeko** (16); **irtenbiderik ikusten** (7); **irtenbiderik izan** (5); **irtenbiderik izango** (4); **irtenbiderik onena** (10); **joatea beste irtenbiderik** (4); **nuen beste irtenbiderik** (4); **zegoen beste irtenbiderik** (8)

---

## irtenbidegabe *(corpusean **interbide gabe** soilik)* **1** *izond* interbiderik ez duena.

Gogoaren goibeltasun **irtenbide** gabea, irudimenaren ezein ernegarrik bikaintasunaren aldera ezin desbideratu zuena. Koro Navarro

**2** ***interbidegabeko*** *izlag* interbidegabea.

Ozeano gehiengotarrean ez badu bere nortasun eta euskalduntasuna galdu eta urtu nahi, bere legearen arabera nahi izaten badu kultura [...] bereganatu eta aitzinarazi, materialki marjinazioko lagunarte kultural txiroagoan kausituko da, estuago, erkinago, **irtenbidegabekoago,** zailagoan. Joxe Azurmendi

---

## irtenbidetxo *iz adkor* irtenbidea.

Bistan da euskaraz argitaratzeak eta euskal argitaletxeek laguntzak behar dituztela, hori ez dut nik ukatuko, baina zirkuluek beti behar lukete **irtenbidetxoren** bat kontuak normalizatu nahi baditugu, eta ezin dira hain itxiak izan. Pello Salaburu

---

## irtengune *(31 agerraldi 7 liburutan)* *(orobat **irtenune** 17 agerraldi 15 liburutan)* *iz* gauza batean, gainerakoak baino kanporago den aldea edo zatia.

Handik lasterrera, bideak arroka hutsak osatutako **irtengune** handi bat inguratu zuen. Agustin Otsoa

Harrizko hormak, **irtengune** eta arrakaladurarik gabeak. Agustin Otsoa

Hutsartetik hutsartera joanez, **irtenune** bakoitzaren atzean babestuz. Agustin Otsoa

Gotorlekuko **irtenunearen** muturrean geldiarazi zuen don Ottaviok aulki gurpilduna. koskak, koskorrak eta **irtenuneak** berdintzea eta biribiltzea. Jon Muñoz

Kaiola teilatuaren **irtengunean** zintzilikatu zuen Yi jaunak. teilape eta **irtengune** haietan zehar. Juan Kruz Igerabide

Erlaitzen **irtenguneak** bota egingo ditu tantak pareta-lerrotik kanpora. Santiago Iruretagoiena

Hizketa-hotsen ekoizpena biriketan hasi eta ezpain- edo sudur-**irtenunean** bukatzen den ariketa anatomikoa da. Lourdes Oñederra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**edo irtengunea** (3); **proiekzio edo irtengunea** (3)

---

## irtenkeria *iz* aterladi gaitzesgarria.

Ustez mozkorti sabelkoi baina azken batean *engagé* baten zoroaldiak ziren **irtenkeriak,** denak barkagarri horiek, Errepublikaren aldeko idazle ospetsuaren **irtenkeriak** zirenez gero. Edorta Jimenez

---

irtentxo ik **sartu 8**.

---

## irtete *iz irten* aditzaren aditz izena.

Eremuz kanpoa zineman [...] eta pinturan [...]: begirada kontua beti, sartze edo **irtete** kontua. Josu Zabaleta

Nik, haurrari irtenbidea ematen diodan honek, ez ote nion, bada, jaiotzen utziko? haurrak jaioarazten ditudan honek, **irtetea** eragotziko ote nion? Elizen arteko biblia

Faraoiak **irtetea** galarazten zigulako. Elizen arteko biblia

Bere baitatik kanpora **irtete** horren bitartez. Piarres Xarriton

Andres Nocionik bere **irtete** klausula ordaindu eta Baskonia utzi du. Berria - Kirola

Ostro **irtete,** arto ereite; ostro erortze, gari ereite. Pello Zabala

---

## irtirin *izond* koketa.

Azafata **irtirinek** beren gorputz lerdenak eskaini zizkiguten opari gisa. Karlos Linazasoro

Amak irakatsi dio horrela pintatzen, hura ere **irtirin** hutsa da-eta, baina alabak amaren marka guztiak hautsi ditu. Jose Morales

Jaitsi ahala hobeto atzeman zion neskatoaren ibilera **irtirinari,** minigona beltzean aldakak mugituz eta nerabe bularrak mahuka gabeko atorran harrotuz. Urtzi Urrutikoeetxea

---

## irudi **1** *iz* izaki edo gauzaki bat adierazten duen lerroen, koloreen edo formen multzoa.ik**imajina**.

Ohe gainean, lehengo asteko maleta bera zegoen, Nabukodonosor erregeak urrezko **irudi** bat egiteko agindu zuen, hogeita hamar metro gora eta hiru metro zabal, eta Babilonia eskualdeko Dura lautadan ipini zuen. Aingeru Epaltza

Gizaki-antzeko **irudi** bat ikusi nuen: gerrialdetik behera suzkoa zen; gerrialdetik gora metal goriaren distira bezalako argitasunez inguratua.. Elizen arteko biblia

Jenerala garbi-garbi oroitzen zen, **irudi** bat lupaz ikusten ari balitz bezain garbi. Xabier Olarra

**Irudi** batek mila hitzek baino gehiago balio duela esan ohi da, baina batzuetan, hizki batek (x hizkiak) mila **irudik** baino gehiago esan dezake. Harkaitz Cano

**2** (izenondo edo izenlagunekin)

Popeye marinelaren **irudi** irribarretsuak apaintzen zuena. Aingeru Epaltza

Elizetako Ama Doloreetakoaren **irudi** margotuek. Josu Zabaleta

**Irudi** zizelkatuak. Elizen arteko biblia

Hartz itxurako **irudi** handi batek. Anjel Lertxundi

Budaren **irudi** txikiak. Javi Cillero

Aitak bere antzera moldekatu zuen **irudi** noblea. Joan Mari Lekuona

Kearekin **irudi** multiformeak marrazten. Unai Iturriaga

**Irudi** itsasgarri batzuk eskuratu zituen andreak handik edo hemendik, eta haietako bat egin zion opari. Imanol Zurutuza

Eguzkiak dirdira egiten du goi eremuetan **irudi** iheskorrak eratuz. Javi Cillero

Ez baitziren Jainko, zurezko nahiz harrizko **irudi** huts baizik. Elizen arteko biblia

Pirografiaz grabatutako **irudi** bat zen, neska bat esgrima-jantzian. Mirentxu Larrañaga

Haien erretratuak egitea pentsatu nian, baina sekula ez diat jakin hezurrik gabeko **irudi** biribil horiek marrazten... Karlos Zabala

Bizantziar estiloko **irudi** hau. Askoren artean

**3** itxura-edo.

Betiko geratuko zaio **irudi** hori gogoan atxikia: emaztea, hil hurren, ohean etzanda, kantuan. Imanol Zurutuza

**Irudi** bat dakarkio larritasunak gogora, nondik ez dakiela: Hidra, bederatzi buruko herensugea. Imanol Zurutuza

Zoriondunek zeruan ez dituzte sorkariak ezagutzen beren sorkari-irudietan, baizik eta jatorrizko **irudiaren** argitan, **irudi** hau Jainkoa bera denez, eta **irudi** horretan Jainkoak ezagutzen du, eta maitatzen bere burua, mundu osoarekin batean. Joan Mari Lekuona

Amaren **irudi** berbera bihurtu zen, zango luzeko eta ile beltzeko emakume eder bat, June bera bezain zalua eta malgua. Oskar Arana

**4** (izenondoekin)

"Euskal" emakumearen **irudi** berria. Ana Urkiza

Kristoren **irudi** berria deskubritzen du Frantziskok. Askoren artean

Ohorea mantentzeko irrikagatik, ez beza inola ere justiziaren **irudi** sendoa ahuldu. Askoren artean

Intelektual konprometituaren ospea gehitu zion bere idazle **irudi** gorrotatu bezain goraipatuari. Karlos Zabala

Hurrengo hilabeteetan, maistra berriaren irudiak bete zuen nire gogoa; orain konturatzen naiz zer-nolako **irudi** idealizatua osatu nuen nire barruan. Juan Kruz Igerabide

Gizakiaren baitan dagoen **irudi** jainkozkoa. Imanol Unzurrunzaga

Bisaia ilun, bekain luze eta iletsuak, sudurrak zabalak, buruko soila... aitaren **irudi** bizia zen. Jon Maia

Hindenburg zeppelinaren **irudi** nahastezina ikusten zen egunkariaren azalean. Anjel Lertxundi

Nola eraiki dezake emakume batek bere **irudi** publikoa? Ana Urkiza

**Irudi** latz haiek ekarri nituen berriro gogora, baina han. Alberto Ladron Arana

Ideiak deitzen ditudanak ez dira ez **irudi** hutsak, begi zolan edo, nahi bada, garunaren erdian sortzen direnak, baina bai Pentsamenduaren kontzeptuak. Piarres Xarriton

Esan zidaten ez zenuela **irudi** ona eman. Oskar Arana

· Itzulipurdika eta herrestan iritsi nintzen Sewastengo plazaraino, non, erdi aldean gelditu gero, **irudi** femenino bat ikusi bainuen niregandik gertu. Josetxo Azkona

**Irudi** txanodun bat gazteluko eskailerak jaisten ari zen isil-isilik. Iñaki Mendiguren

Trena igarotzean, garrasi egiten genuen, ahoa oso zabalik, haren **irudi** amaigabea erabat desagertzen zen arte. Juan Kruz Igerabide

**5** idazlan batean testuaren argigarri edo apaingarri ezartzen den marrazki edo argazkia.

Erka bedi 2.1 **irudiko** trabekulen ereduarekin. Irene Aldasoro

Atzealdearen araberakoa izaten da batez ere (4. **irudia)** . Josu Zabaleta

Hona lege horietako ezagunenak (ikus 14. **irudia):** [...]. Josu Zabaleta

Testua edertzen zuten **irudi** ikusgarri samarrek ere bazuten isilpekorik: [...]. Aingeru Epaltza

Dena mahairatu nion, testu eta **irudi** . Aingeru Epaltza

Titular handietan beti, letra gutxi eta **irudi** handiak, publizitatearen erregistrotik oso gertu. Iñigo Aranbarri

Bibliarako eginiko **irudi** apaingarriak. Xabier Aranburu

**Irudi** batzuek aldizkarietatik ateratakoak ziruditen. Iban Zaldua

**6** gauzaki batetik irteten diren argi izpiak, optika sistema batetik igaro ondoren biltzen diren puntuen multzoa.

Efekto hori saihesteagatik jaso da, hain zuzen, proiekzio-lastertasuna [...] lehenik segundoko 12 **iruditik** 16 **iruditara,** eta gero poliki-poliki 24 **iruditaraino** . Josu Zabaleta

**Irudi** horren argitasuna handitu nahi baldin bada. Josu Zabaleta

Bideo irudia segundoko 25 **irudiko** lastertasunean produzitzen da. Josu Zabaleta

Bideoko **irudia** inprimatu eta proiektatu, biak egiten dira batera, baina ez da inprimatua, argazki-irudia inprimatua izan daitekeen bezala, ez eta proiektatua ere, zinemako **irudia** proiektatua izan daitekeen bezala. Josu Zabaleta

**7** (izenondoekin)

Hasierako proiektoreek sarri eman ohi zuten halako **irudi** dardaratsu bat. Josu Zabaleta

Erretinan **irudi** fokatua eratzeko. Irene Aldasoro

Foku-luzerarena bera izan behar du objektiboaren eta filmaren arteko distantziak, **irudi** garbia lortuko bada. Irene Aldasoro

**Irudi** finkoan, izan ere, eremuz kanpokoa ikusi gabe geratzen da betiko, irudimenez baizik ezin daiteke irudikatu; **irudi** mugikorrean, berriz, eremuz kanpo dagoena beti azal daiteke agerira. Josu Zabaleta

**Irudi** holografiko bat puntu eta orban sail zentzugabe bat da begi hutsarentzat. Irene Aldasoro

Jatorrizkoaren **irudi** negatiboa. Ibon Uribarri

Irudi autonomoa vs. sekuentziako **irudia** . Josu Zabaleta

**Irudi** digitalen aldi bereko bost proiekziok. Berria - Kultura

**Irudi** faltsuak benetakoak direla sinetsaraztea biziki erraza da. Berria - Kultura

Ispiluak beti bidaltzen baitu **irudi** bat... zera... izoztua, irudikatzen duenaren berdin-berdina izatearen poderioz. Jon Muñoz

8 (geometrian) puntuak, lerroak, gainaldeak, bolumenak bere hartan hartuak. ik**figura 2**.

**Irudi** geometrikoetan interesatu zen bereziki: zirkuluak, zuzenak, triangeluak. Jon Muñoz

Lerro beltz zuzen edo **irudi** geometriko erregularrei jarraituz. Josu Zabaleta

Egituren kurba dotoreek, teilatuen **irudi** geometrikoek. Karlos Zabala

Zirkuluak, patuaren **irudi** unibertsal horrek. Josu Zabaleta

Kurba baten luzera kalkulatu, **irudi** baten azalera zehaztu, solido baten bolumena kalkulatu, **irudi** baten grabitate-zentroa kokatu. Jon Muñoz

Hura izan zen **irudi** kurbatu baten lehen koadratura. Jon Muñoz

**Irudi** lerrozuzen itxien artean sinpleena da triangelua. Jon Muñoz

Gero, **irudi** lerrozuzen mota guztiak. Jon Muñoz

Noiz dira bi **irudi** kideko? -galdetu zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

**Irudi** lauen eta esferikoen ezagutzaren liburua. Jon Muñoz

**9** gauza edo ideia bat gogorazten edo iradokitzen duen gauza.

Bere agintearen **irudi** den makilari eusteaz batera. Felipe Juaristi

Bi eskuak magalean bildurik, amatasunaren **irudi** baten moduan. Joxean Agirre

Orain arte **irudi** bidez hitz egin dizuet; baina badator ordua **irudi** bidez hitz egingo ez dizuedana, baizik eta Aitaren berri argi eta garbi emango dizuedana. Elizen arteko biblia

Bi emakumeak bi itunen **irudi** dira. Elizen arteko biblia

Bestea, ordea, libre dena, goiko Jerusalemen **irudi** da, eta bera da gure ama. Elizen arteko biblia

Antropologiaren eta humanismoaren **irudi** bizkiak. Xabier Arregi

Diskurtsoa kontraesanek har dezaketen **irudi** enpirikoa da. Xabier Arregi

Tatuajeak karmaren **irudi** haragiztatuak dira. Javi Cillero

· Ikur linguistiko horien adierazpenerako balio duten **irudi** akustikoekin. Isabel Arrigain

Edo artelan oro **irudi** birtuala dela ("ilusio" eta **"irudi** birtual" sinonimotzat hartzen ditu). Askoren artean

Mimogrametan, hitzaren **irudi** idatzia erreferentearen **irudia** ere bada. Iñaki Arranz

· **Irudi** eta metaforak baino haratago. Edorta Jimenez

## 10 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Irudi**-gurtzari buruzko liskarrean. **Irudi** sortzaile abila da Izua. Patziku Perurena

**Irudi** multzo bakoitzak bertute bat sinbolizatzen du: adorea, leialtasuna, atxikimendua, edota beharra. Javi Cillero

Nire atxiloketaren oroitzapenak oldartu zitzaizkidan, **irudi** segida izugarri batean. Alberto Ladron Arana

**irudi**-Jario bat hasten da isurtzen bere gogora. Oskar Arana

Zirrimarren **irudi**-oste zorabiagarriak. Xabier Olarra

Torizu, gogorra nahiz biguna, nire bularra; / bertan ezarri nahi duzun **irudi**-marra; / zin dagit-eta beti gordeko dudala. Patxi Ezkiaga

Izango da ikustea **irudi**-ikuspenez Nazaretetik Belenerako bidea. Patxi Altuna

Erretinako **irudi**-iraunkortasuna. Josu Zabaleta

**Irudi**-gurutzamenduak, **irudi**-trukeak eta **irudi**-emaitzak geroz eta sarriago gertatzen dira. Josu Zabaleta

Koloretako txalupa baten **irudi**-test klasikoa. Xabier Olarra

Txantxangorrien **irudi**-arduradunak. Joxerra Garzia

Kongresuan H&K-eko **irudi**-aholkulariek erakutsitakoa ongi asko antzeztu zuen. Txema Ramirez de la Piscina

Chavezek ez du asmatu bere **irudi** politikarekin. Pako Aristi

· Batez ere kristau **irudi**-gurtzailea. Juan Garzia

## 11 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jainko-**irudi** bat egiten du eta aurrean ahozpezturik gurtzen. Elizen arteko biblia

Loten emazteak atzera begiratu zuen, eta gatz-**irudi** bihurtu zen. Elizen arteko biblia

-Harri-**irudi** bat bezala egon behar al duzu denbora osoan hor? Iñaki Zabaleta

Erori da Babilonia, erori da! haren jainko-**irudi** guztiak lurrean gelditu dira apurtuta. Elizen arteko biblia

Giza **irudi** tiki betaurreko-lodi bat plastikozko poltsa bat kulunkatzen ari zen gure begien parean. Aingeru Epaltza

Etengabe gorantz tenkaturiko sei beso, balizko hiru emakume-**irudi** zizelkatuetatik. Mirentxu Larrañaga

Txapin izpiliku-koloreak ziren, erromes-maskor eta lore-**irudi** soilez apainduak. Mirentxu Larrañaga

Irudi espezifikoak (zinema-**irudia**, argazki-**irudia**, eta abar), edota, hala behar izanez gero, irudi jakin batzuk aztertzeko. Josu Zabaleta

Filmeko **irudia** argazki-**irudia** da; bideo-**irudia,** aldiz, euskarri magnetikoan egoten da grabatuta. Josu Zabaleta

Arte-**irudi** modernoak ere bai, erreprodukzioetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Hondo-**irudi** modura, Mexiko osoko jendeak pairaturiko Historia ere ageri zaigu. Juan Garzia

Mundu-**irudi** berriak estreinako aldiz sortzen zituen galderak. Askoren artean

Denbora-epe hori edozein motatako eraso eta larrialdiren iraupen **irudi** bihurtu da. Askoren artean

Beharbada drogaren munduak duen hondamen-**irudi** horrengatik. Anjel Lertxundi

Zoriondunek zeruan ez dituzte sorkariak ezagutzen beren sorkari-**irudietan**, baizik eta jatorrizko irudiaren argitan. Joan Mari Lekuona

Amets-**irudi** berriak agertzen zitzaizkion, sabelduak, astunak, kolorez margotutako zuhaitz-enborren antzekoak, pentsamenduak baino are lasterragoak. Jose Morales

Amak barre-**irudi** bitxia egin zuen. Jose Morales

Barre-**irudi** bat azaldu zen gizonaren aurpegian. Bernardo Atxaga

Hizkuntzan, berriz, hots **irudia** dago soil-soilik, eta ikus-**irudi** etengabe gisa atzeman ahal daiteke. Isabel Arrigain

Jaltako giro burges dekadentearen literatur **irudi** ezin hobeak utzi zizkigun: itsas-pasealekua, txutxu mutxuak, asperdura infinitua... Iban Zaldua

Konbentzio bat da, erretorika-**irudi** hutsa. Itziar Otegi

Ez nituen lepo-mozte **irudi** haiek, karotidari zerion odol hura [...] burutik kendu ahal izan. Joxan Elosegi

Leihoko kristalak opako zeuden, eta beste aldean malko **irudiko** hari loditan irristatzen ziren tantak. Juan Garzia

Atorra luze holandarra soinean, eskumuturretan arrosa **irudiko** loreak josita. Felipe Juaristi

## 12 *-en **irudiko** izlag* -en irudi bereko, -en antzeko. ik**irudiko**.

Eta lurtarraren **irudiko** garen bezala, zerutarraren **irudiko** ere izango gara. Elizen arteko biblia

Eta gu haren **irudiko** izatera deituak gara. Gure **irudiko** den gauza bat maite dugunean, hark ere, ordainez, maita gaitzan bermatzen gara. Askoren artean

Hark antzaldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren **irudiko** eginez. Elizen arteko biblia

Zeren **irudiko** da Jainkoaren erregetza? zeren antzeko dela esango nuke? Elizen arteko biblia

Beraren **irudiko** gauza bat maite duena, lehiatzen da, ahal bezainbatean, gauza horrek hura maita dezan, ordainez. Jainkoak gizakia egin zuenean, bere **irudiko egin** zuen. Piarres Xarriton

Berea bezalako indarrez jantzi zituen eta bere **irudiko egin**. Elizen arteko biblia

Eta gu, zeure antzeko eta **irudiko eginik,** paradisuan ezarri gintuzulako. Askoren artean

Hark antzaldatuko du gure gorputz ezerez hau, bere gorputz aintzatsuaren **irudiko eginez,** gauza guztiak bere menpe jartzeko duen ahalmenari esker. Elizen arteko biblia

Eta edozeinizakiren **irudiko** idolorik egiten baduzue [...]. Xabier Kintana

## 13 ***irudizko***[1] ik **imajinario**.

Geure burmuinak sorturiko mundu batean bizi gara, etengabeko joan-etorrian errealaren eta **irudizkoaren** artean. Juan Garzia

Langile **irudizkoak** .../... mugez haraindítik ekarriak. Jon Muñoz

Hori da Kanten **irudizko** 'jaiotze lurra', gizakia bera. Jenaro Garate

Hantxe ari zitzaidan, bai, **irudizko** Hipokrates, hatza altxaturik, mehatxuka: [...]. Joan Mari Irigoien

Soinua bi belarrien artetik igarotzen den **irudizko** lerro baten puntu batetik datorrenean gertatzen da efektu maximoa, hots, behatzailearen ezkerraldeko edo eskuinaldeko puntu batetik datorrenean. Irene Aldasoro

Batera eta bata bestearen lagun erabiliz zentzumenok, hasieratik sortzen baitugu **irudizko** mundu bat: ikusten dugunaz, kontzeptuz eta esanahiz osatutako mundu bat. Xabier Olarra

Nik are gehiago miresten nituen Kepa eta Pello, biak ere heroi bihurtu arteraino, neure mundu **irudizko** bezain haragi-hezurrezkoan. Joan Mari Irigoien

**Irudizkoa** baino ez da elkarrizketa hori. Joxan Elosegi

**Irudizko** italiera bateranzko joera etengabearekin. Oskar Arana

Makina bat pertsonaia kimeriko, egiazko eta **irudizkoaren** arteko poliexistentzia. Askoren artean

Hitzezko adieraziei buruz mintzatzean **irudizko** adiera esaten zaionaren parekoa. Josu Zabaleta

Adigai **irudizkoak** saihestu eta hizkuntza erreferentzialean idazten ahalegindu zaitez. Askoren artean

Gauzak berezko zentzuan harturik beti ere, ez erabilera **irudizko,** hedatu eta norgauzatuetan. Iñaki Segurola

### 14 ***irudizko***[2] (matematikan) zenbakiez mintzatuz, zenbaki negatibo baten erro koadrotik sortzen dena. ik**konplexu 6**.

Zenbaki negatiboetan, irrazionaletan, **irudizkoetan** . Jon Muñoz

Unitate negatiboaren **irudizko** erro bat. Jon Muñoz

Formula, *i* **irudizkoa,** alegia. Jon Muñoz

Errealitateko zein ordenatan kokatzen zituen adierazteko, **irudizko** zenbaki deitu zien! Baldin eta kontuan hartzen baziren **irudizko** erroak. Jon Muñoz

Alor matematiko berriak zabaldu ziren; tresna berriak asmatu (taldeak, matrizeak...) **irudizko** aldagai baten funtzioen teoria nagusitu zen mende hasieran: Cauchy, Riemann, Weierstrass. Jon Muñoz

Ohar bedi, bide batez, matematikariek zenbakiei eskainitako kalifikatzaileen nolakotasuna: hautsiak, absurdoak, ezinezkoak, gorrak, puskatuak, **irudizkoak,** konplexuak, idealak eta, bukatzeko, traszendenteak. Jon Muñoz

### 15 ***irudizko***[3] irudiak dituena.

**Irudizko** liburu batean. Josu Zabaleta

### 16 ***horma-irudi*** *(orobat **hormairudi** eta **hormiduri** g.er.)*

Haritz egurrezko **horma** -irudi handi bat zizelkatzen eman zuen. Monika Etxebarria

Euriak ia ezabaturiko **horma** -irudiak ikus zitezkeen nonahi. Jose Morales

Liburuak eta paperak birrindu, **horma** -irudiak urratu, paper-ontziak irauli. Iñaki Mendiguren

Leihatilaren gainean *Quex hitlerzale gaztea* pelikularen **horma** -irudi handi bat zegoen. Anjel Lertxundi

Egiptoko faraoien hilobietako **horma** -irudien antzera. Anton Garikano

Lanak iragartzen dituen **horma** -irudia zintzilik dago, aldiz, azken bi urtetan. Berria - Euskal Herria

**Hormirudietako** batzuk alderantziz zeuden zintzilikatuak. Harkaitz Cano

Antzeko lanetan aritu zen Asisko Urmeneta, Iruñean egindako **hormairudi** batean aurrena eta *Napartheid* fanzinearen bigarren zenbakian gero. Iñigo Aranbarri

Logelako **horma** irudi eta izkribuz beterik du Josuk. Joseba Sarrionandia

### 17 ***irudi egin***

Ez nuen ordu arte hartu urruntze **irudi** bat egiteko xedea. Jon Muñoz

Kantaren hitzak kantatu **irudi** egin zuen ezpainez Oskar Arana

### 18 ***irudi izan***[1] du *ad* ik **iduri 9**.

**Irudi** du loraldi bat izan zuela leku honek. Edorta Jimenez

Gengis Khan moderno bat **irudi** zuen, ausarta eta lotsagabea. Karlos Zabala

Ipuin beldurgarrietako sugetzarra **irudi** zuen. Edorta Jimenez

Gangak dekorazio aberatsa zuen eta [...] argi puntuz izartuta zegoela **irudi** zuen. Karlos Zabala

Une batez **irudi** izan zuen Rachel negarrez hastera zihoala. Oskar Arana

Ez zuen **irudi** ezer susmatzen zuenik. Karlos Zabala

**Irudiko** luke haize bafada batek eraman eta hauts hodei baten gisan desegin behar zuela lur erre, lehorraren gainean. Josu Zabaleta

Arimaren erdigune guztiz nobleak halako indarrez du erakartzen, non **irudi** bailuke hara zuzentzen direla hezur-muinak eta zainetako odola. Joan Mari Lekuona

Ez zuen **irudi** ontziaren geroan sinesten zutenik. Edorta Jimenez

**Irudi** zuen, bada, asturuek ez zutela nahi Armada Txit Zorionekoa inoiz abia zedin. Edorta Jimenez

### 19 ***irudi izan***[2] zaio *ad* ik **iduri 10**.

**Irudi** zait ongiaren eta gaizkiaren artean hautatzeko kanpoko norbaiten beharra dugula. Ana Urkiza

**Irudi** zitzaion aski zuela eri ttittilaren altxatzea pulindak oro koro-koroka bere altzoan edukitzeko. Itxaro Borda

Jostunak, makinak eta lan-mahaiak edonola pilatuta daudela **irudi** dakioke kanpotik datorren behatzaileari. Iban Zaldua

Ohitu ezak Julie orori beha egotera eta oro mezutzera, bai eta huskeria **irudi** dakiokeena ere. Jon Muñoz

Zein sakrifizio **irudi** lekidake neketsu, zure bihotzak sarituko lidakeela jakinik? Jon Muñoz

### 20 ***irudi izan***[3] (adizkia ezabaturik; ik **iduri 13**)

Badoaz nire indarrak, ur isuria **irudi;** koloka ditut hezur guztiak, urtzen ari zait bihotza, argizaria **irudi** . lekua mendi mazelako buztinean ireki sarraski itsusia zen, sake gorri bat, **irudi** odola zeriola. Itxaro Borda

Hegazkineko eserlekuan uzkurtuta, errezoan **irudi,** Urtzen ari zait bihotza, argizaria **irudi** . Imanol Zurutuza

Kondesa ederra zen, baina, era berean, edertasun gogorrekoa iruditu zitzaion, lorategi batetik ateratako harrizko emakume bat **irudi** . Felipe Juaristi

Ariannak, ilea ordurako solte, odolezko ibaia **irudi,** *Lamento d´Arianna*ko zati bat kantatu zuen. Felipe Juaristi

#### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)

**baina irudi** (17); **baino irudi** (7); **barre irudi** (10); **bat irudi** (31); **bateko irudi** (7); **baten irudi** (21); **bere irudi** (29); **beste irudi** (35); **beste irudi bat** (14); **bestelako irudi** (8); **bi irudi** (30); **buruaren irudi** (7); **da irudi** (29); **dela irudi** (10); **den irudi** (27); **dira irudi** (11); **diren irudi** (20); **du irudi** (14); **duen irudi** (19); **dugu irudi** (10); **duten irudi** (16); **edo irudi** (18); **egindako irudi** (7); **emaniko irudi** (7); **ere irudi** (17); **erretinako irudi** (11); **eta irudi** (194); **eta irudi horiek** (8); **ez irudi** (9); **frantziskoren irudi** (8); **gabeko irudi** (8); **giza irudi** (29); **giza irudi bat** (9); **hainbat irudi** (14); **halako irudi** (13); **haren irudi** (18); **harrizko irudi** (11); **hori irudi** (7); **horma irudi** (8); **horren irudi** (9)

**irudi artistikoak** (8); **irudi asko** (11); **irudi baitzuen** (9); **irudi bakar** (17); **irudi bakar bat** (9); **irudi bakarra** (10); **irudi bakoitza** (7)irudi bat (232); **irudi bat egin** (7); **irudi bat egiteko** (7); **irudi batean** (22); **irudi batek** (21); **irudi batekin** (9); **irudi baten** (44); **irudi batez** (8); **irudi bati** (10); **irudi batzuek** (8); **irudi batzuk** (33); **irudi beltz** (9); **irudi bera** (8); **irudi berbera** (9); **irudi berri** (8); **irudi berria** (13); **irudi berriak** (7); **irudi bidezko** (7); **irudi bihurtzen** (7); **irudi bizi** (10); **irudi bizia** (8); **irudi da** (12); **irudi du** (17); **irudi eder** (10); **irudi ederra** (7); **irudi ederrak** (7); **irudi edo** (14); **irudi eskasa** (16); **irudi eskubideak** (7); **irudi eta** (90); **irudi gehiago** (12); **irudi gisa** (9); **irudi guztiak** (22); **irudi haiek** (21); **irudi handi** (14); **irudi haren** (8); **irudi hark** (9); **irudi hartan** (7); **irudi hau** (18); **irudi hauek** (7); **irudi hori** (103); **irudi horiek** (71); **irudi horien** (15); **irudi horietako** (11); **irudi horietan** (11); **irudi horrek** (28); **irudi horren** (22); **irudi horretan** (8); **irudi horri** (7); **irudi hura** (37); **irudi hutsa** (8); **irudi ilun** (7); **irudi izan** (8); **irudi izugarri** (7); **irudi jakin** (10); **irudi kanpaina** (7); **irudi lauso** (7); **irudi lezake** (18); **irudi luke** (36); **irudi mota** (20); **irudi ona** (35); **irudi oro** (11); **irudi pornografikoak** (8); **irudi publikoa** (8); **irudi txarra** (10); **irudi txiki** (12); **irudi txikiak** (8); **irudi zait** (10); **irudi zuen** (88)

**jainkoaren irudi** (9); **oso irudi** (27); **zela irudi** (11); **zela irudi zuen** (7); **zen irudi** (16); **zenbait irudi** (11); **zer irudi** (10); **ziren irudi** (8); **zituen irudi** (8); **zuela irudi** (13); **zuen irudi** (25); **zuten irudi** (9)

**aitaren irudia** (9); **amaren irudia** (11); **argazki irudia** (9); **azken irudia** (11); **baina irudia** (7); **baten irudia** (98); **benetako irudia** (7); **bere irudia** (59); **bideo irudia** (11); **birjinaren irudia** (7); **da irudia** (14); **den irudia** (25); **duen irudia** (27); **dugun irudia** (10); **duten irudia** (17); **emakumearen irudia** (8); **en irudia** (7); **erretinako irudia** (9); **eta irudia** (41); **euskal herriaren irudia** (8); **filmeko irudia** (10); **gauza baten irudia** (7); **haren irudia** (58); **herriaren irudia** (11); **hots irudia** (7); **irudia agertu** (14); **irudia agertu zen** (7); **irudia agertzen** (11); **irudia baizik** (8); **irudia bera** (12); **irudia burutik** (9); **irudia da** (36); **irudia dela** (8); **irudia egin** (15); **irudia eman** (17); **irudia ematen** (17); **irudia ematen du** (7); **irudia ere** (32); **irudia eta** (70); **irudia etorri** (20); **irudia etorri zitzaidan** (10); **irudia etorri zitzaion** (8); **irudia ez** (38); **irudia ez da** (12); **irudia gogoan** (8); **irudia hobetzeko** (7); **irudia ikus** (10); **irudia ikusi** (16); **irudia ikusten** (20); **irudia izan** (16); **irudia zen** (9); **jainkoaren irudia** (7); **lehen irudia** (9); **nire irudia** (16); **taldearen irudia** (7); **zen irudia** (8); **zuen irudia** (12); **zuten irudia** (7)

**antzeko irudiak** (8); **argazki irudiak** (7); **bateko irudiak** (9); **baten irudiak** (22); **bere irudiak** (11); **bideo irudiak** (9); **dira irudiak** (9); **diren irudiak** (23); **ditu irudiak** (7); **dituen irudiak** (10); **duten irudiak** (15); **eta irudiak** (69); **etxe jainkoen irudiak** (10); **filmeko irudiak** (7); **gauza baten irudiak** (7); **gauzen irudiak** (10); **giza irudiak** (9); **haien irudiak** (15); **handiko irudiak** (7); **haren irudiak** (12); **hartutako irudiak** (16); **irudiak ageri** (7); **irudiak agertzen** (12); **irudiak baino** (7); **irudiak berak** (7); **irudiak dira** (24); **irudiak edo** (8); **irudiak egin** (7); **irudiak ematen** (11); **irudiak erabili** (7); **irudiak erabiltzen** (10); **irudiak erakusten** (14); **irudiak ere** (25); **irudiak eta** (69); **irudiak ez** (22); **irudiak hartzen** (9); **irudiak ikus** (11); **irudiak ikusi** (19); **irudiak ikusten** (9); **irudiak jaso** (9); **irudiak jasotzen** (12); **irudiak sortzen** (12); **irudiak zabaldu** (11); **irudiak ziren** (15); **jainko irudiak** (10); **jainkoen irudiak** (18); **kometaren irudiak** (7); **lehen irudiak** (11); **santuen irudiak** (8); **telebistako irudiak** (10); **zituen irudiak** (9); **zituzten irudiak** (7)

**argazki irudiaren** (10); **bere irudiaren** (7); **da irudiaren** (8); **den irudiaren** (10); **edozein irudik** (3); **eta irudiaren** (42); **eta irudiaren arteko** (8); **eta irudien** (32); **filmeko irudiaren** (7); **haren irudiaren** (7); **hartutako irudiekin** (7); **ikusleak irudiarekin** (7); **irudiarekin duen** (9); **irudiaren arteko** (13); **irudiaren aurrean** (16); **irudiaren eta** (23); **irudiaren tamaina** (7); **irudiari begira** (7); **irudiari buruz** (11); **irudiari eta** (7); **irudiei begira** (7); **irudiei dagokienez** (12); **irudiekin batera** (7); **irudiekin eta** (7); **irudien**

**artean** (14); **irudien arteko** (8); **irudien bidez** (14); **irudien bitartez** (8); **irudien eta** (11); **irudien lurra** (11)

**irudiko luke** (3)

**antz eta irudikoa** (3); **baten iruditik** (6); **baten iruditik sorturiko** (3); **bere irudikoa** (3); **eta irudikoa** (3); **gauza baten iruditik** (4); **gure irudikoa** (6); **gure irudikoa den** (5); **irudikoa den** (5); **irudikoa den gauza** (4); **iruditik gora** (4); **iruditik sorturiko** (3); **pornografia iruditik** (3); **pornografia iruditik gora** (3)

---

# irudidun *izond* liburuez eta kidekoez mintzatuz, irudiak dituena.

Handik gutxira, liburu **irudidun** batekin itzuli zen eta bere fardeltxoaren ondoan utzi. Monika Etxebarria

Egunkari bat edo aldizkari **irudidun** bat. Anton Garikano

Entziklopedia **irudidun** batean ikusi dudala uste dut. Iban Zaldua

---

# irudietsi, irudiets, irudiesten du *ad* irudikatu.

Egin ariketa hori, ederra da: **irudietsi** Van Gogh, Matisse, Dali edo Toulouse-Lautrec bera, treneko korridore estuetan emakume gizenekin gurutzatzean *pardonnez moi, pardonnez moi,* elkarri traba egiten. Harkaitz Cano

---

# irudigai *iz* irudiaren gaia.

Suikodenko heroietako irudi bat aukeratu nuen **irudigai,** indarra eta kemena berez garatuko zitzaizkidalakoan. Javi Cillero

Beste zerbait hori fonema da, haren hitzetan: *Lautidee* ('hots ideia'), *Lautvorstellung* ('hots **irudigaia'),** edo *Lautabsicht* ('hots asmo' edo 'intentzioa'). Lourdes Oñederra

---

# irudigile 1 *iz* marrazkilaria.

José, animaliak eta landareak marraztea baitzuen gogoko, botanikako liburuen eta belar-liburuen **irudigiletzat** irudikatzen nuen. Xabier Olarra

Mikel Valverde komikigile eta **irudigile** gasteiztarraren obra. Berria - Kultura

Mikel Urmeneta **irudigile** eta diseinatzaile iruindarrak irabazi du aurtengo sanferminetako kartelerako lehiaketa. Berria - Euskal Herria

Erakusketa batek **irudigilearen** 200 marrazki inguru bilduko ditu, 1920 eta 1930eko hamarkadetan eginikoak. Berria - Kultura

· Badaki ametsak, **irudigile** aparta bera, errainu ederrak sortzen dituela. Felipe Juaristi

Biolin doinuek hegan egin zuten kezko zeruan barrena eta, musika **irudigile** aparta baita, bizitza ekarri zuten lur mortura. Felipe Juaristi

**2** zizelkaria.

Felipe Arrese Beitia [...] arotza zen ogibidez, **irudigile** edo santugina. Berria - Kultura

**Irudigileak** Roxanaren aurpegi urregorrizkoa zizelkatu zuen. Felipe Juaristi

**Irudigile** batek buztin ilunez egiten duen artelana balitz bezala. Felipe Juaristi

Mesede horren ordainetan irudikatzen dute [Atlas] pintoreek eta **irudigileek** mundua eusten. Santiago Iruretagoiena

Egiptoko pintore eta **irudigileek** Panen irudia ahuntzburudun eta akerhankadun marrazten eta zizelatzen dute. Patziku Perurena

[Jorge Oteiza] oriotar **irudigile** eta pentsalari handiarentzat. Andoni Egaña

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**irudigile aparta** (3); **irudigile eta** (3)

---

# irudigintza *iz* irudiak egitea.

Ezta, bestalde, irudimen berritzaileak lekarkeen **irudigintza** anitza eta nabarra ere, hedarazitako irudiak baino, telebistatik, bideotik, zinematik jasotako irudiak. Xabier Mendiguren Elizegi

Orduan aitak garaiko **irudigintza** erlijiosoaz zekizkien apurrak esaten zituen. Anjel Lertxundi

Irudikapenezko **irudigintza** ispiluko irudiaren, uretan, beira batean, metal leunduan berez eratzen den irudiaren imitazioa da beharbada. Josu Zabaleta

---

# irudikabide *iz* irudikatzeko bidea.

Primitiboetatik barrokoetaraino, aldiro ahalegindu dira margolariak beren **irudikabideak** hobetzen. Juan Garzia

---

# irudikaezin *izond* ezin irudikatuzkoa.

Mundu **irudikaezin** eta arrotz batean bizi den haur baten barnera iristeko. Xabier Olarra

Gaur egun **irudikaezinak** izango liratekeen lekuetan izaten ziren erakusketa horiek. Berria - Kultura

Guretzat, **irudikaezina** da une bateko emaitza, ez baitugu inoiz bere horretan jasotzen; maila goragokoetara bidaltzen da, eta han berehala prozesatzen, kolorea pertzibitu ahal izateko. Xabier Olarra

Zeren nire begiek ikusia baitzuten asmabidez baizik iristerik ez dugun zer ezkutu hori, zeinaren izena gizonek bidegabeki aipatzen baitute, baina ezein gizonek ez baitio so egin: unibertsoa, **irudikaezina** baita. Juan Garzia

---

# irudikagai *izond* irudikatzeko gaia.

Mexikoko lur bazter bat dugu **irudikagai,** Comala, hautsez eta nekez lurrarekin berdindutako bere jendeekin. Juan Garzia

---

# irudikagaitz *izond* irudikatzen zaila dena, ia irudikaezina.

Ez ditut alferrik gogora ekartzen analogia **irudikagaitzok;** badute zerikusirik Aleph-arekin. Juan Garzia

Itxurazko orri bakoitza bi berdinantzekotan banatuko litzateke: erdiko orri **irudikagaitzak** ez luke ifrentzurik. Juan Garzia

---

# irudikagarri *izond* irudika daitekeena; irudikatzeko modukoa.

Uste dute, **irudikagarria** den guztia, era berean arrazoimenerako onargarria dela. Xabier Kintana

Eguneroko errealitateko objektuak hautemateko, tratua izateko iragan gogoangarri batekin eta etorkizun **irudikagarri** batekin. Juan Garzia

Mutur bi horietako biztanle guztiek burua zerurantz eta oinak haien antipodenetara begira dauzkate, eta, halere, ez da inola ere posible ez eta **irudikagarria** ere, horietako inor erortzea, ez baitaude batzuk goian eta besteak behean. Xabier Kintana

---

**irudikapen** **1** *iz* irudikatzea, irudi bidez adieraztea.

Zientziaren eginkizuna, hain zuzen, munduaren, izakien eta gauzen **irudikapen** bat eskaintzea da, zenbait eskakizuni erantzunez: [...]. Juan Garzia

Fisikak objektu bati buruz eratzen duen **irudikapena,** bada, eraikuntza teorikoa da. Juan Garzia

Biologia ere saiatzen da bere objektuen, organismo bizien, **irudikapen** bat eraikitzen. Juan Garzia

Ahots ikurraren **irudikapenari** ikurrari berari adina garrantzi, edo gehiago, ematen diogu. Isabel Arrigain

Datorkeenaren **irudikapen** horri egokitzen dizkiogu desirak eta arbuioak. Juan Garzia

**Irudikapenaren** historikotasuna. Josu Zabaleta

· **Irudikapena** ideia bat da, zeinaren bidez Izpirituak gauza bat kontenplatzen baitu presenteko bezala. Piarres Xarriton

Baina Izpirituaren **irudikapenek** gehiago adierazten dituzte gure Gorputzaren afektuak kanpoko gorputzen izaera baino. Piarres Xarriton

Burua leunki astindu zuen burkoaren gainean, eta **irudikapena** desagertu egin zen. Ibon Uribarri

Semearen etorkizun bakartiaren **irudikapena** izan zitekeen bat-bateko zirraraen eragilea. Aingeru Epaltza

**Irudikapenetan,** Hermann bakarrik agertzen zen hasierako momentuan. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Urteen joanean are **irudikapen** zantarragoak bururatu zitzaizkien, adibidez Henry Matsonen haurrek zer-nola xahutzen zieten diru guztia. Mirentxu Larrañaga

Antzinako ofizioen eta bizimoduaren **irudikapen** ikusgarria lortu du Artziniegako Etnografia museo berriak. Berria - Kultura

Paper-txoria txoritxo baten **irudikapen** figuratiboa da, eta, haatik, bere lerroak sinpleak eta harmoniaz beteak dira. Berria - Kultura

Bakoitzak bere buruaz duen ideia da, norberaz dugun **irudikapen** mentala. Berria - Euskal Herria

Ekialdea **irudikapen** hutsa da, Mendebaldeak eraikitako diskurtsoa, eta Mendebaldekoen buruan besterik ez dago. Berria - Gaiak

Bi saio horietan, gazteen muturreko **irudikapen** bat eskaintzen dute. Berria - Harian

Ametsetako **irudikapen** batek baino trinkotasun gutxiago zuen-eta beti puntua egiten aritzen zen emakumearen oroitzapenak. Anjel Lertxundi

**3** (irudiei buruz)

**Irudikapen** oro konbentziozkoa da, baita analogikoena ere. Josu Zabaleta

Irudikatzaileak [...] irudikatzen duenaren lekua hartzen duen prozesu bat da **irudikapena/** ordezkapena. Josu Zabaleta

Zuri-beltzeko argazkiak eta zuri-beltzeko filmak munduaren **"irudikapenak"** direlako onartzen ditugu; [...] haietatik beste alde batera begiratzeko moduko irudiak direlako. Xabier Olarra

Filmean [...] espazioaren **irudikapena** sintesi-prozesu bat da; **irudikapen** horretan eszenografia-lana lekuz aldatuz joaten da, eta segidan datozen ikuspegien koherentzia gordetzea izan behar du helburua. Josu Zabaleta

Erretinako irudia [...] ikusten den eszenako gainazal desberdinen luminantzien proiekzio bidezko **irudikapen** bat da. Josu Zabaleta

Irudi mentala ez da, beraz, errealitatearen halako barne "argazki" gisako bat, errealitatearen **irudikapen** kodetu bat baizik. Josu Zabaleta

Ezin dira pinturak ontzat eman ez baldin badira errealitatearen **irudikapen**. Santiago Iruretagoiena

Inpresionistak iritsiko ziren gero: hauek erabat urrundu ziren, haren arabera, ikusmenezko **irudikapenetik**, eta argitasunaren sentsazioa bera irudikatzera iritsi ziren. Josu Zabaleta

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Helburu errealista baten mende jarri nahi izan baita beti **irudikapen**-analogia. Josu Zabaleta

Irudi jakin batean erabili den **irudikapen**-sistemaren eta indarrean dagoen **irudikapen**-arauaren arteko erlazioaren neurria baizik ez da erealismoa. Josu Zabaleta

Irudiaren balioetako bat baizik ez dugu kontuan hartuko hemen, **irudikapen**-balioa, errealitate sentigarriarekiko erlazioa. Josu Zabaleta

Pinturan, eta geroago argazkilaritzan, aplikatzen den perspektiba geometrikoa, partez arbitrarioa den **irudikapen**-konbentzio batetik datorrena [...]. Josu Zabaleta

Artistak bigarren eskuko irudi eta sinboloz beterik egoten dira, eta, umetan bereganatutako **irudikapen**-konbentzioak ez ezik, mendebaldeko artearen historia osoa ekarri ohi dute beren marrazkietara. Xabier Olarra

**Irudikapen** kontzeptua: ilusioa irudikapenean. Josu Zabaleta

Hauxe da, oinarrian, **irudikapen** kontzeptuaren arazo nagusietako bat: zenbateraino da irudikapenaren helburua irudikatzen duen objektutzat hartua izatea? Josu Zabaleta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizakiak bere baitan eratzen duen mundu-**irudikapena,** zientzian oinarritua izan zein mitoan, imajinazio-kontua da hein handi batez. Juan Garzia

Dirudienez, kanpoko munduaren gogo-**irudikapena** aberastuz joan da *Homo sapiens*era eraman duten entzefalizazio-urratsetan zehar. Juan Garzia

Hark esana errepikatzen du hitzez hitz adieraziz fonema dela *Lautidee* ('hots-ideia'), *Lautvorstellung* ('hots-**irudikapena'),** *Lautabsicht* ('hots-asmoa'). Lourdes Oñederra

**6** ***irudikapenezko*** *izlag* irudikapenaren bidezkoa.

**Irudikapenezko** arteak izadia imitatzen du, eta imitazio horrek plazerra ematen digu. Josu Zabaleta

Espazioaren arazoa **irudikapenezko** arteetan. Josu Zabaleta

Filostratorengan, mimesis hitzak **irudikapenezko** imitazioa nahi du esan. Josu Zabaleta

Errealitate-efektuak **irudikapenezko** irudi batean (koadroa, argazkia ala filma izan, axola gutxi du, printzipioz) analogia-aztarren guztiek ikuslearengan eragiten duten efektua esan nahi du. Josu Zabaleta

**Irudikapenezko** irudia narraziozko irudia izan ohi da, beraz, oso maiz, nahiz eta kontatzen den gertaera hori hedadura gutxikoa izan askotan. Josu Zabaleta

**Irudikapenezko** funtzioaren eta funtzio sinbolikoaren arteko bereizkuntzarekin. Josu Zabaleta

Koadroak [...] eratzen duen ikuspen-indizea are gehiago indartzen da irudi hori **irudikapenezkoa,** edota narraziozkoa, kontaketazkoa, irudimen-balio ohargarri batekoa denean. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arabiar irudikapen** (6); **arabiar irudikapen garaikideak** (6); **baten irudikapen** (6); **baten irudikapena** (5); **beste irudikapen** (3); **den irudikapen** (3); **errealitatearen irudikapen** (4); **eta irudikapen** (11); **eta irudikapenezko** (5); **irudikapen bat** (16); **irudikapen eta** (3); **irudikapen garaikideak** (6); **irudikapen hori** (6); **irudikapen horrek** (3); **irudikapen horren** (3); **irudikapen horretan** (3); **irudikapen konbentzio** (3); **irudikapen modu** (6); **irudikapena da** (5); **irudikapena ez** (3); **irudikapenak ez** (3); **irudikapenaren eta** (4); **irudikapenari dagokionez** (3); **irudikapenezko arte** (5); **irudikapenezko arteen** (4); **irudikapenezko irudi** (3); **irudikapenezko irudia** (4); **irudikapenezko irudiak** (3); **irudikapenezko irudiaren** (3); **izpirituaren irudikapenek** (3); **mundu irudikapen** (3)

---

**irudikarazi**, irudikaraz, irudikarazten du *ad* irudikatzera behartu.

Norbait zegoela berarekin **irudikarazten** zion komedianteari. Harkaitz Cano

Ezin, ordea, neure buruari deus ere **irudikarazi,** hau asaldura. Joxe Austin Arrieta

Eman dezagun kontzeptu batek dagokion irudi akustikoa **irudikarazten** duela burmuinean. Isabel Arrigain

Orobat aldarazi digute gizakiaren eta beste espezieen arteko erlazioei buruz genuen ustea, eta eboluzioa brikolaje gisa **irudikarazi**. Juan Garzia

Zale duzu guztiz eldarnioa halako agerkari mamigabeak **irudikarazten**. Juan Garzia

---

# **irudikatu**, irudika, irudikatzen **1** du *ad* irudimenean sortu edo eratu. ik **imajinatu**.

**Irudikatu** bai, ordea, **irudikatzea** libre baita, oraingoz, amestea eta pentsatzea bezalaxe, oraingoz, norberaren barne-muinak mugarri, oraingoz. Felipe Juaristi

Kutuzov luzaroan ahalegindua zen **irudikatzen** zer maniobra-aukera zituen Napoleonek. Juan Garzia

Mundu-sistema harrigarri bat **irudikatu** zuen. Bere gorputza nik behin eta berriz **irudikatu** bezalakoxea zela ohartu nintzen. Jon Muñoz

Fikzioa: aireportutik aireratutako hegazkinean doan emakumezko bat **irudikatu** du alargunak, eta alaba Londresen duela. askotan **irudikatu** nuen elkar ikusiko genuen momentua. Imanol Zurutuza

Uda eta aita belar epaiten **irudikatu** zituen. Itxaro Borda

Alegiazko lurralde jori eta aberatsak **irudikatu** zituen mundu urrunetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Asaldaturik, agian zerbait amestu edo **irudikatu** dudalako, urratsak entzuten nituela-edo. Joxe Austin Arrieta

Astebete bada gauzak nik **irudikatu** ez bezala direla. Antton Olano

Neure burua **irudikatu** nuelarik telefonoa hartzen eta haren zenbakia markatzen, ohartu nintzen ziur asko alferrik izango zela. Oskar Arana

Etorkizuna **irudikatu** beharra eta hura ezagutu ezina. Juan Garzia

Badira 'hura ezagutu ez banu' pentsatuz hura ezagutu gabeko bizitzarik **irudikatu** ezin dutenak. Pako Aristi

Ezin duzu **irudikatu** ere egin nola larritu naizen. Alberto Ladron Arana

Nola **irudikatu,** ordea, nozio arrunt eta hala eta guztiz ere konplexu hori? Jon Muñoz

Gizon batek etxeko biziaren gozoak **irudikatu** dituelako izan duela etxe baten eraikitzeko guraria. Piarres Xarriton

Objektu konkretuak **irudikatu** egiten dira, (objektuen) balio abstraktuak adierazi egiten dira. Josu Zabaleta

Ez dagoela espazioa irudikatzerik ekintza bat **irudikatu** gabe, diegesirik gabe. Josu Zabaleta

Erraz **irudikatzen** du gertatutakoa Ruche jaunak. Jon Muñoz

Behin baino gehiagotan aritu izan naiz asmatzen zein ote litzatekeen eurenganako mendeku egokia, baina sekula ez zait aski begitandu nire irudimenak **irudikatua**. Hasier Etxeberria

Nola nuen **irudikatua** nire sorterrira itzultzea? Aingeru Epaltza

Ametsik zoroenean ere **irudikatzerik** ez dagoen mirari aparta. Anjel Lertxundi

## **2** irudi bidez adierazi.

Biribiltxo batez **irudikatzen** da zeroa. Jon Muñoz

Piramidearen itzal makurtua **irudikatzen** zuen triangelu ilunaren muturreraino. Jon Muñoz

Justizia itsu **irudikatu** izan dute beti artistek, eta, aukeran, hala behar luke. Joxerra Garzia

Operazioen teatroa mahai handi batean jarritako mapan **irudikatua** dago. Harkaitz Cano

Ezagutzen nauzu; ez dizut neure sumina **irudikatu** beharrik. Jon Muñoz

Eguzkia, besteak beste, lauburuarekin **irudikatu** izan dugu gure historian zehar. Pello Salaburu

Pintoreak errealitatearen detaileak baino ezin ditu **irudikatu,** zati ñimiño eta berez hutsalak. Alberto Barandiaren

Ile ordez sugeak, atzamar zorrotzak eta hagin beldurgarriak zituztela **irudikatu** ohi ziren. Antton Olano

Segidan, kandela eta zuzi batzuk pizturik, egunsentia **irudikatu** dute. Anjel Lertxundi

Inpresionistak iritsiko ziren gero: hauek erabat urrundu ziren, haren arabera, ikusmenezko irudikapenetik, eta argitasunaren sentsazioa bera **irudikatzera** iritsi ziren. Josu Zabaleta

Negua **irudikatu** nahi du elurrak, sasoiz kanpo, baina kontra egiten diote txorien udaberri kantuek. Imanol Zurutuza

Bisaian keinu aingerutar bat **irudikatu** zitzaion. Unai Iturriaga

Biluzik zegoen nire ametsean eta bere soin paregabea eskultore greziar eta erromatar onenek ere ezingo zuketen **irudikatu**. hormetako margolanek guantxeen historiako eta bizitzako uneak **irudikatu** nahi zituzten. Aitor Arana

Uste dut arrain mota honek giza jakituria oso ongi **irudikatu** eta sinbolizatu duela. Xabier Olarra

Mundu zabaleko sinbologian, batik bat arima **irudikatu** du mariposak. Patziku Perurena

Irudi erreala bada, argi izpiak marra arrunten bidez **irudikatu** behar da grafikoan; irudikeria hutsa denean, aldiz, puntutako marra etenen bidez. Joxerra Garzia

Azalean bi gizon ikusten ziren elkarri ukabilak eskainka, trakeski **irudikatuak**. Bernardo Atxaga

## **3** (era burutua izenondo gisa)

Mahaien arteko hutsuneek osatzen zituzten porteria **irudikatuetan** golak sartuz. Aritz Gorrotxategi

Ikusleak irudian espazio **irudikatu** bat pertzibitzen duen aldetik. Josu Zabaleta

Artazi **irudikatu** batzuekin zekien mozten euren bien arteko harremana. Hasier Etxeberria

Haren etxea betetzen zuten txori **irudikatu** eta piztia margotu mordoarengatik. Juan Garzia

Gauza **irudikatua** iruditzat hartzen dugulako. Xabier Kintana

Ordena joniarrean gapirioen proiekzioa **irudikatu** nahi dute dentikuluek. Santiago Iruretagoiena

Analistak artelanaren aurrean duen egitekoa ez da, horrenbestez, **irudikatua** interpretatzea, **irudikatu** horren bidez erreprimitzen dena interpretatzea baizik. Josu Zabaleta

## **4** ***aurre-irudikatu***

Aurre- **irudikatu** ere bai nik, neure artean, hogeita lau ordu barruko banantze-unea. Joxe Austin Arrieta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aise irudika** (3); **asko irudika** (3); **bereiziki irudika** (3); **bezala irudika** (3); **bidez irudika** (3); **dela irudika** (4); **dela irudika bageneza** (4); **ere irudika** (9); **erraz irudika** (4); **eta irudika** (5); **ezin irudika** (17); **ezin irudika dezaket** (3); **irudika bageneza** (9); **irudika bageneza baino** (9); **irudika daiteke** (7); **irudika daitekeen** (7); **irudika daitezke** (3); **irudika daitezkeen** (5); **irudika dezagun** (7); **irudika dezake** (3); **irudika dezakeen** (4); **irudika dezakegu** (8); **irudika dezaket** (8); **irudika dezakezu** (6); **irudika ditzakegu** (3); **irudika eta** (3); **irudika ezazu** (4); **irudika ezin** (3); **irudika genezake** (3); **irudika idurika** (4); **irudika lezake** (3); **irudika liteke** (4); **irudika nezakeen** (6); **irudika zezakeen** (11); **irudika zitekeen** (4); **nekez irudika** (7); **nekez irudika daiteke** (3); **nola irudika** (5)

**askotan irudikatu** (4); **aurrez irudikatu** (4); **bat irudikatu** (23); **bat irudikatu nahi** (3); **bat irudikatu zuen** (3); **baten gisa irudikatu** (3); **bezala irudikatu** (6); **bizitzarik irudikatu** (3); **burua irudikatu** (3); **da irudikatu** (3); **dela irudikatu** (5); **dela irudikatu nahi** (4); **du irudikatu** (3); **dut irudikatu** (3); **duzu irudikatu** (6); **duzu irudikatu ere** (4); **edo irudikatu** (5); **ere irudikatu** (5); **eta irudikatu** (6); **ez irudikatu** (3); **ezin dut irudikatu** (3); **ezin duzu irudikatu** (5); **gabe irudikatu** (3); **gisa irudikatu** (4); **guztiak irudikatu** (3); **hau irudikatu** (3); **hori irudikatu** (6); **horrela irudikatu** (4)

**irudikatu ahal** (7); **irudikatu bai** (3); **irudikatu behar** (16); **irudikatu behar da** (4); **irudikatu beharko** (4); **irudikatu beharra** (5); **irudikatu bezain** (3); **irudikatu bi** (3); **irudikatu ditu** (11); **irudikatu dituzte** (3); **irudikatu du** (16); **irudikatu duen** (3); **irudikatu dugun** (4); **irudikatu dut** (6); **irudikatu dute** (6); **irudikatu duten** (3); **irudikatu egin** (5); **irudikatu egin beharko** (3); **irudikatu egiten** (6); **irudikatu ere** (15); **irudikatu ere egin** (8); **irudikatu eta** (16); **irudikatu ez** (7); **irudikatu ezin** (3); **irudikatu izan** (9); **irudikatu nahi** (47); **irudikatu nahi dute** (3); **irudikatu nahi izan** (16); **irudikatu nahian** (3); **irudikatu nituen** (5); **irudikatu nuen** (39); **irudikatu ohi** (9); **irudikatu zen** (3); **irudikatu zer** (3); **irudikatu zituen** (18); **irudikatu zituzten** (6); **irudikatu zuela** (3); **irudikatu zuen** (56); **irudikatu zuen bere** (3); **irudikatu zuen ruche** (3); **irudikatu zuten** (20)

**bat irudikatuko** (3); **bezala irudikatuko** (3); **espazio irudikatua** (3); **irudikatua dago** (3); **irudikatua zuen** (4); **irudikatuko ditu** (6); **irudikatuko du** (12); **irudikatuko dugu** (6); **irudikatuko nuke** (3); **irudikatuko zuen** (4); **moduan irudikatu** (3); **nola irudikatu** (7); **zela irudikatu** (3); **zuela irudikatu** (4); **zuen irudikatu** (3); **zuen irudikatua** (3)

**bat bezala irudikatzea** (3); **bat irudikatzea** (5); **bat irudikatzeko** (9); **bezala irudikatzea** (6); **da irudikatzea** (4); **denbora irudikatzeko** (4); **egoera irudikatzeko** (3); **etorkizuna irudikatzeko** (3); **ez irudikatzea** (4); **ez irudikatzeko** (3); **hori irudikatzeko** (4); **irudikatzea baizik** (3); **irudikatzea eta** (3); **irudikatzea oso** (4); **irudikatzeko ahalmen** (4); **irudikatzeko ahalmen hori** (3); **irudikatzeko asmoz** (3); **irudikatzeko aukera** (4); **irudikatzeko balio** (4); **irudikatzeko eta** (5); **irudikatzeko gauza** (3); **irudikatzeko joera** (3); **irudikatzeko modu** (4); **irudikatzeko modua** (8); **irudikatzeko oso** (3); **mundua irudikatzeko** (5)

**arbuiatzen dutela irudikatzen** (3); **baita irudikatzen** (3); **bat irudikatzen** (50); **bat irudikatzen du** (12); **bat irudikatzen duen** (4); **bat irudikatzen zuen** (8); **batean irudikatzen** (4); **batek irudikatzen** (4); **batez irudikatzen** (6); **batzuk irudikatzen** (6); **batzuk irudikatzen ditugu** (3); **berean irudikatzen** (3); **bezala irudikatzen** (20); **bezala irudikatzen dugun** (8); **bidez irudikatzen** (6); **bikain irudikatzen** (3); **bikain irudikatzen du** (3); **bizitzak irudikatzen** (3); **buruan irudikatzen** (3); **da irudikatzen** (5); **daramala irudikatzen** (4); **daramala irudikatzen dugun** (3); **dela irudikatzen** (39); **dela irudikatzen baldin** (5); **dela irudikatzen du** (3); **dela irudikatzen duena** (9); **dela irudikatzen duenak** (3); **dela irudikatzen dugun** (12); **dituela irudikatzen** (4); **dituela irudikatzen duena** (4); **du irudikatzen** (3); **duela irudikatzen** (32); **duela irudikatzen badugu** (5); **duela irudikatzen baldin** (6); **duela irudikatzen duen** (3); **duela irudikatzen dugun** (7); **duen zerbait irudikatzen** (3); **duena irudikatzen** (3); **dugula irudikatzen** (3); **dutela irudikatzen** (8); **dutela irudikatzen dugun** (4); **egiten irudikatzen** (3); **ere irudikatzen** (9); **eta irudikatzen** (9); **eta irudikatzen dut** (3); **eta odola irudikatzen** (3); **ezintasuna irudikatzen** (3); **gauza batzuk irudikatzen** (4); **gauzak irudikatzen** (4); **gisa irudikatzen** (5); **gizon bat irudikatzen** (5); **gorrotatzen duela irudikatzen** (4); **haiek irudikatzen** (7); **hala irudikatzen** (6); **hark irudikatzen** (5); **hark irudikatzen duen** (4); **hegaldia irudikatzen** (3); **hori irudikatzen** (4); **horrek irudikatzen** (3); **horrela irudikatzen** (6); **horrela irudikatzen du** (3); **hunkitua dela irudikatzen** (17); **hunkitzen dituela irudikatzen** (4); **hunkitzen duela irudikatzen** (12); **hura irudikatzen** (3); **irudiak irudikatzen** (5); **irudian irudikatzen** (5); **irudian irudikatzen den** (3)

**irudikatzen ahal** (4); **irudikatzen al** (7); **irudikatzen ari** (3); **irudikatzen badu** (6); **irudikatzen badugu** (8); **irudikatzen baititu** (3); **irudikatzen baitu** (4); **irudikatzen baldin** (24); **irudikatzen baldin badu** (9); **irudikatzen baldin badugu** (14); **irudikatzen da** (16); **irudikatzen den** (16); **irudikatzen dena** (4); **irudikatzen dira** (7); **irudikatzen diren** (8); **irudikatzen ditu** (20); **irudikatzen dituela** (5); **irudikatzen dituen** (11); **irudikatzen dituena** (5); **irudikatzen dituena da** (3); **irudikatzen ditugu** (8); **irudikatzen ditugun** (5); **irudikatzen ditut** (6); **irudikatzen dituzte** (8); **irudikatzen dituzten** (8); **irudikatzen dituzu** (3); **irudikatzen du** (85); **irudikatzen du eta** (3); **irudikatzen dudan** (4); **irudikatzen duela** (13); **irudikatzen duelako** (5); **irudikatzen duen** (70); **irudikatzen duena** (24); **irudikatzen duenak** (6); **irudikatzen duenean** (5); **irudikatzen duenik** (3); **irudikatzen dueno** (3); **irudikatzen dugu** (7); **irudikatzen dugula** (4); **irudikatzen dugun** (52); **irudikatzen dugun bezainbatean** (8); **irudikatzen dugun gauza** (11); **irudikatzen dugun guztia** (8); **irudikatzen dugun heinean** (4); **irudikatzen duguna** (3); **irudikatzen dut** (17); **irudikatzen dute** (13); **irudikatzen dutela** (5); **irudikatzen duten** (22); **irudikatzen dutenak** (4); **irudikatzen duzu** (5); **irudikatzen edo** (3); **irudikatzen eta** (8); **irudikatzen ez** (4); **irudikatzen hasi** (4); **irudikatzen hasten** (3); **irudikatzen nituen** (11); **irudikatzen nuen** (34); **irudikatzen nuen nik** (3); **irudikatzen saiatu** (6); **irudikatzen saiatzen** (4); **irudikatzen zen** (5); **irudikatzen ziren** (4); **irudikatzen zituen** (22); **irudikatzen zituzten** (4); **irudikatzen zuela** (7); **irudikatzen zuen** (63); **irudikatzen zuen eta** (3); **irudikatzen zuena** (9); **irudikatzen zuten** (15)

**irudikatzera iritsi** (3); **irudikatzerik ez** (4); **izpirituak irudikatzen** (5); **kontingente bezala irudikatzen** (5); **maite duela irudikatzen** (3); **mundua irudikatzen** (5); **mundua irudikatzen duen** (3); **nola irudikatzen** (12); **nola irudikatzen duzu** (4); **norbaitek irudikatzen** (4); **odola irudikatzen** (5); **ongi irudikatzen** (3); **poztasunera daramala irudikatzen** (3); **zen irudikatzen** (5); **zer irudikatzen** (3); **zerbait irudikatzen** (5); **zihoazenen bizitzak irudikatzen** (3)

---

# irudikatzaile 1 *izond* irudikatzen duena.

Antzin Aroko pentsamenduan jakite-diziplina nagusia ontologia zen [...], Erdi Aroko filosofian teologia [...]), eta Modernitatean subjektu **irudikatzailearen** ezagutza-teoria, edo gnoseologia/epistemologia. Askoren artean

• **2** *iz* irudikatzen duen pertsona.

**Irudikatzaileak,** testuinguru mugatu jakin batean, irudikatzen duenaren lekua hartzen duen prozesu bat da irudikapena/ordezkapena. Josu Zabaleta

---

# irudikatze 1 *iz* imajinatzea.

Norbaitek gauza bat gozatzen duela **irudikatze** soilagatik. Piarres Xarriton

Bizimodu berria **irudikatze** hutsak beste gizon bat bihurtu duela ematen du. Oskar Arana

Izuz dardarka hasten zen Sergeiren eta gurasoen arteko topaketa **irudikatze** hutsarekin. Jose Morales

Min ematen zidalako Danelen jokoaren txantxaz haratagoko aukera mingarri bat **irudikatze** soilak. Anjel Lertxundi

**2** irudi bidez adieraztea.

Keinu horiek lotsagabekeriaren **irudikatze** hutsa ziren. Julen Gabiria

Hunkituta egin zuen topo bere gaztaroko **irudikatze** grafikoarekin. Jon Muñoz

Naturaren **irudikatze** errealistaren maisutzat jo dute adituek Carlos de Haes. Berria - Kultura

Errealitate eta bizitzaren **irudikatze** poetikoa. Berria - Kultura

Zer eratakoa eta zeren bidezkoa da **irudikatze** hori, nola tratatzen ditu **irudikatze** horrek espazioa eta denbora, errealitateaz dugun ikusmoldearen kategoria nagusiak diren horiek? Josu Zabaleta

**Irudikatze** horrekin jarraituz, esan daiteke B-k A ordezkatzen duela, zerbaitetan B Abaino hobea delako. Lourdes Oñederra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**irudikatze hori** (5); **irudikatze hutsak** (3)

---

# irudikazio *iz* irudipena.

Aitor zezatela ez zutela gizon beltzez jantzirik aurkitzeko kemenik izan, pentsa zezatela lanperna-biltzaile edo dena-delakoak arrazoi ezkuturen batzuk izango zituela poliziaren aurrean ez agertzeko, baina ez zezatela esan salbatu ninduena nire **irudikazio** bat zenik! Anjel Lertxundi

Bete-bete egin zitzaizkion begiak **irudikazioaren** ederrez Anjel Lertxundi

---

# irudikeria *iz* begien irudipena.

Errealitatea eta **irudikeria** ez dira beti marra mota desberdinen bidez bereizten ahal. Joxerra Garzia

Presaka autora joan eta etxerantz abiatu zen, bere irudipenak izango ziren itxaropenez, ordu arte inoiz kezkatu ez zuen gauza, hark ez zuelako **irudikeriarik** izaten. Iñaki Mendiguren

Hasieratik izan zuen begien aurrean, baina **irudikeria** baten moduan, hurbiltzen hasterako desagertu egiten zen. Fernando Morillo

Soa automobilean finkatu zuen, tinko, zekusana egiazkoa zela eta ez **irudikeria** bat erabat ziurtatzeko. Migel Angel Mintegi

Bihozkada bat, dena **irudikeria** gaizto bat izana ote zen. Aingeru Epaltza

Ispiluz beste aldean sortzen den irudia noiz erreala eta noiz begien **irudikeria** hutsa den. Joxerra Garzia

Gero konturatu nintzen esferak bere baitan zeuzkan ikuskizun zorabiagarriek sorturiko **irudikeria** zela mugimendu hura. Juan Garzia

Ezin esango dut hildakoak deika edo animoka ari zaizkidala, **irudikeria** hutsa litzateke hori, baina bideko seinaletzat hartu nahi ditut nik, aurrera segitzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

**Irudikeria** baino ez den botereagatik eta oraingoagatik ari dira lehian Gazan. Berria - Mundua

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**irudikeria hutsa** (4)

---

# irudikizun *iz* irudipena.

Eta, horrela, eguzkiari behatzen diogularik irudikatzen dugu gutarik nonbait han berrehun oinbetetan aurkitzen dela, baina gure errakuntza ez datza **irudikizun** huts horretan, baizik eta irudikatze hori egiten dugularik ez baitakigu zer den ez egiazko distantzia ez zer den gure **irudikizunaren** kausa. Piarres Xarriton

---

# irudiko *iz (-en atzizkiaren eskuinean)* -en iritziz. ik **irudi 12**.

Jessicaren **irudiko** anaiaren itzala xerkatzen zukeen oraino ere amatxik. Itxaro Borda

Galderren **irudiko** sarriago berba egin beharko zuten haren gainean. Lutxo Egia

Haren **irudiko** ni ez nintzen italiarra. Fernando Rey

Bere **irudiko,** alemaniar izen bereziaren eta frantses zehatzailearen arteko loturak halako nahasmendu txundigarri eta arras atsegingarri bat eragingo zuen bere bezeroen gogoetan. Oskar Arana

Ene **irudiko,** ederki hasi perpausa bururaino eramaten ahalko zuen, bidaiaz eta agerraldiaz balia: [...]. Itxaro Borda

Nolanahi ere, Txitxikoven **irudiko,** hango nekazariak esne-mamitan bizi zirela erakusten zuten, denak egoera onean zeuden eta. Jose Morales

Hura guztia harro sentitzeko modukoa zen, nire **irudiko,** berezko sen baten jabe naizela aitortu behar, hautatua izan nintzen, jainkoek hautatua, ezin bestela izan. Karlos Zabala

Baina, ene **irudiko** bederen, ez du bere jeinu handiaren zorroztasuna erakutsi besterik egin, dagokion lekuan frogatuko dudan bezala. Piarres Xarriton

Gure itzalak ilargitan: guraizez ebakitako siluetak!, Sabethen **irudiko**. Joxe Austin Arrieta

Hobe izanen zen, ene **irudiko,** Pitagorasen hirukiaren teoriaren zehaztea! Itxaro Borda

Ez zen emanaldirik hoberena ene **irudiko**. Itxaro Borda

"Kontxo!" esaten duten guztiak inozo hutsak dira, nire **irudiko**. Karlos Zabala

Hori bezain sinplea da, gure **irudiko**. Xabier Olarra

Gogotxartu ninduen neskaren aierukadak: bakardadea omen nire tristeziaren iturri, bere **irudiko**. Joxe Austin Arrieta

•

Ene **irudi** soileko, gisa horretako kultura ekoizpenak, garapen estrategia ekonomikoaz hazi lau lantegi mega guayek baino gehiago ekarriko lioke euskarari. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aralarren irudiko** (6); **aranaren irudiko** (3); **aresen irudiko** (4); **azkarateren irudiko** (3); **barrenaren irudiko** (7); **batasunaren irudiko** (14); **bere irudiko** (68); **bere irudiko egin** (4); **bozeramailearen irudiko** (4); **buenen irudiko** (4); **buruaren irudiko** (8); **buruzagiaren irudiko** (4); **diezen irudiko** (3); **earen irudiko** (3); **edozein izakiren irudiko** (3); **egibarren irudiko** (4); **elkarri ren irudiko** (4); **elkartearen irudiko** (3); **elorrietaren irudiko** (3); **en irudiko** (3); **ene irudiko** (11); **ere irudiko** (4); **ere irudiko ez** (3); **erraztiren irudiko** (4); **eta bere irudiko** (3); **eta irudiko** (4); **etxerat en irudiko** (3); **friasen irudiko** (5); **gure irudiko** (13); **haien irudiko** (5); **haren irudiko** (45); **horren irudiko** (3); **ibarretxeren irudiko** (6); **idazkari nagusiaren irudiko** (7); **imazen irudiko** (4); **industria sailaren irudiko** (4)
>
> **irudiko bi** (3); **irudiko den** (3); **irudiko egin** (5); **irudiko eta** (4); **irudiko ez** (5); **irudiko gauza** (4); **irudiko gauza bat** (3); **irudiko idolorik** (3); **irudiko izan** (5)
>
> **aren irudiko** (3); **izakiren irudiko** (3); **izakiren irudiko idolorik** (3); **jainkoaren irudiko** (4); **jaurlaritzaren irudiko** (5); **kidearen irudiko** (3); **koordinatzailearen irudiko** (4); **laben irudiko** (4); **larreinaren irudiko** (3); **lehendakariaren irudiko** (6); **llamazaresen irudiko** (3); **lopezen irudiko** (4); **madrazoren irudiko** (4); **martinezen irudiko** (3); **mayor orejaren irudiko** (3); **mendigurenen irudiko** (3); **nagusiaren irudiko** (7); **nire irudiko** (45); **orejaren irudiko** (3); **otegiren irudiko** (4); **parlamentariaren irudiko** (3); **peñ ppko buruaren irudiko** (3); **presidentearen irudiko** (8); **ramirezen irudiko** (3); **ren irudiko** (6); **sailaren irudiko** (5); **sailburuaren irudiko** (10); **salhaketaren irudiko** (3); **sanzen irudiko** (7); **semearen irudiko** (3); **sinatzaileen irudiko** (3); **sindikatuen irudiko** (5); **udalbiltzaren irudiko** (4); **zabaletaren irudiko** (7); **zuzendariaren irudiko** (4)

---

## **irudikor** 1 *izond* besteren hitz eta egiteetan gaiztakeria edo asmo txarra ikusteko joera duena.

Aljeria da estatuaren industrializazioaren estrategia horren eredurik argiena, kanpokoari buruz **irudikorra,** industria astunean oinarritua eta petrolioaren errentaren mendekoa. Koro Navarro

Urduriago bilakatu zen, **irudikorrago** eta zekenago, alargun guztiei gertatzen zaien legez. Jose Morales

Agian **«irudikorra»** izango dela aitortu dio *Berria*ri, baina «dirua eskaintzen dutenek irabaziak izan ditzaten ezin hobeki hausnartutako prozesua» dela berretsi du. Berria - Harian

Lady Madeline gaztaro betean hilobiratu zuen eritasunak […] arrosa kolore arin baten iseka utzi zion bularrean eta aurpegian, eta irribarre **irudikor** bat ezpainetan, zenduengan hain ikaragarria izaten dena. Koro Navarro

**2** (adizlagun gisa) ik **irudikorki.**

Presaka egiten zuen bere bidea, **irudikor** eta larri. Irene Aldasoro

Triste begiratu zidan, **irudikor**. Koro Navarro

• **3** *izond* irudimentsua.

Behin Enperadore Horiak gizonari koadro bat pintatzeko agindu zion, koadro **irudikor** bezain sotila. Felipe Juaristi

---

## **irudikorki** *adlag* irudikor.

Euskaltasuna euskal "espirituetan" mamituz, oso **irudikorki** deskribatzen digu mehatxua. Joxe Azurmendi

---

## **irudikortasun** irudikorra denaren nolakotasuna.

Horrela, arrazoimenari uko eginen lioke, hartatik urrunduz, bere erlijioan kalte eta galera jasan duelako ustean, eta, horrelako **irudikortasunetan,** kezkak eta urduritasunak harturik, bihotzean etengabeko min eta estuasun larriak pairatuko ditu. Xabier Kintana

Nire **irudikortasunak** geroz eta arbuio handiagoa eragiten baitio. Josu Zabaleta

---

## **irudilogo** *iz*

Egungo egunean, **irudilogoa** nagusi, ideialogoa maizter. Jose Angel Irigaray

---

## **irudimen** 1 *iz* gogoak irudiak edo ideiak sortzeko edo irudikatzeko duen ahalmena.

**Irudimena** da atseginaren akuilua; era honetako gozamenetan **irudimenak** gobernatzen du dena [...]; ez al dugu ba berari esker gozatzen? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Memoriaren eta **irudimenaren** ezteietatik sortutako istorioak. Anjel Lertxundi

**Irudimenari** hegoak libre utzita. Iñaki Iñurrieta

**Irudimenari** ateak zabalduz. Iñaki Iñurrieta

Gero haietaz hitz egiten zigun, **irudimenari** bidea zabalduz. Juan Kruz Igerabide

Laster seneratu ziren, konturaturik gehiegi lasaitu zituztela **irudimenaren** hedeak eta errealitatea bestelakoa zela. Jose Morales

Eugeni, erabili zure **irudimen** guztia, lizunkeria azken muturreraino eramateko. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Guztia hire **irudimenaren** asmazio bat besterik ez dun izan! Xabier Paya

Gure **irudimenari** utzi beharko diogu lan egiten. Luis Elberdin

Iritzi honen arabera espazioaren eta denboraren apriorizko adigaiak **irudimenaren** sorkariak baino ez dira. Ibon Uribarri

**Irudimena** baretu eta menderatzeko. Koro Navarro

Gure **irudimena** kaldan da eta egoera ikaragarriak sortzen ditu. Michel Oronoz

Gizakiaren **irudimenak** ezin asmatu du hura baino ikuspegi goibel eta negargarriagorik. Koro Navarro

Bi gisetara ulertzen dugula kantitatea: hau da, abstraktuan eta azaletik, **irudimenak** asmatu bezala; edo substantzia bezala, adimenak baizik egin ez dezakeenaren arabera. Piarres Xarriton

Ni neu ere bat naiz eta nire gorputza hemen dagoela sentitzen dut; baina **irudimenak** eraginda, nahi dudan lekura aldatzen naiz, nahi dudanarekin solastatzera. Imanol Unzurrunzaga

Berriz ere katedralaren inguruan dabilkio **irudimena** hegaldaka. Javi Cillero

Jendeak, normalean, arauak alde batera utzi eta **irudimenez** jokatzen du. Luis Elberdin

## **2** (izenondoekin)

**Irudimen** biziko pertsonek. Koro Navarro

Burke jaunaren **irudimen** emankorra. Juan Garzia

Saderen liburuetako fantasiak haren **irudimen** sukartsuaren fruitu dira. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nire **irudimen** sukartuaren gorabeheraren bat zela pasatu zitzaidan burutik. Anjel Lertxundi

Ez zen dena **irudimen** hutsa. Aingeru Epaltza

Gaitz gehien-gehienak **irudimen** hutsa direla. Gotzon Garate

**Irudimen** trebea eta buruargitasun zorrotza. Juan Garzia

**Irudimen** hegalaria. Imanol Unzurrunzaga

**Irudimen** lizunena. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Bere **irudimen** likitsari askabidea eman ziolarik, etorkizuna aukera dirdaitsuz beterik agertu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Juduen **irudimen** gaixotuak asmatutako ergelkeria. Anjel Lertxundi

Utikan gazteriaren **irudimen** galgarria! Fernando Rey

**Irudimen** handia du irainak asmatzeko. Lander Garro

Zenbait saltoki **irudimen** handiz eraikiak ziren. Karlos Zabala

**Irudimen** handiko plano eta koadro fantastikoak egin zituen Antzinako Erromaren arkitekturan oinarrituta. Koldo Izagirre

Baldin eta zinabrioa batzuetan gorria eta besteetan beltza, batzuetan arina eta besteetan pisua balitz,[...] orduan nire **irudimen** enpirikoak inoiz ez luke zinabrio pisua pentsatzeko aukerarik izango. Ibon Uribarri

Irudia **irudimen** produktiboaren ahalmen enpirikoaren produktu bat dela. Ibon Uribarri

Berehala erabaki nuen nire **irudimen** asaldatuak engainatu ninduela. Koro Navarro

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zientziaren jardunbidearen **irudimen** fasean funtzionatzen du zientzialariak artistak bezala; hipotesiak eratzeko orduan, alegia. Juan Garzia

Apenas dagoen eleberrigilerik, fisikariek unibertsoaren historia kontatzen duteneko **irudimen**-erakustaldi bikaina berdindu dezakeenik. Juan Garzia

Zeren heriotza, **irudimen** kontuan, biziaren paretsukoa baita. Xabier Olarra

Giza izaeraren **irudimen-**. ausardia- eta aldakortasun-ahalmenak. Iñaki Mendiguren

Bere lehengo mundu koloretakoa, eta are haren oroimena, ahultzen eta barnean itzaltzen ari zitzaizkion bitartean, ikusmen-, **irudimen-** eta sentiberatasun-mundu berri bat ari baitzitzaion aldi berean jaiotzen. Xabier Olarra

**Irudimen** apur batekin, itsusia ere ez zela erran zitekeen, gauzen izaera sobera bortxatu gabe. Aingeru Epaltza

Mesfidatia, harroa, mutua, setatsua, jokatzekotan beti behar du xake taula aurrean, ez baitu **irudimen** izpirik ere. Markos Zapiain

· *izond* Baina bertsolariarentzat ez da gauza tristeagorik eta **irudimen**-moztaileagorik, pareta zuriari eta argi gorriari begira aritu beharra baino. Andoni Egaña

Kasu hura, hilketa arrunt, itsusi eta nardagarri bat zela, eta ez liburu eta nobeletan agertzen diren amodio-istorio **irudimen**-galgarria. J.M. Olaizola "Txiliku"

## **4** *(hitz elkartuetan bigarren osagai gisa*

Giza **irudimenaren** sorkari baten jaiotza. Josu Zabaleta

Nire haur **irudimen** gaixoa saiatzen zen haien kontaeren hutsuneak betetzen. Joxan Elosegi

Herri-**irudimenaren** xalotasuna. Anjel Lertxundi

## **5** irudikapena.

Ikustetik **irudimenera** igaro garenean, hasiak gara dagoeneko begiralea kontuan hartzen. Josu Zabaleta

## **6** irudipena, susmoa.

Baina, gutienez, hiru metro gorako hesi xixtadun eta tinke haien artetik, aleman armatuen zangopetik, zenbait minutuz ihes joaiten zirelako **irudimena** zeukaten. Eneko Bidegain

## **7** ***irudimenezko***[1] irudimenaren araberakoa.

**Irudimenezko** hautematea oinarritzeko. Xabier Kintana

Gerra gehiagoren bila zebiltzan umeek, **irudimenezko** beren abenturentzako gerra erreal bat nahi zutenek. Berria - Kultura

## **8** ***irudimenezko***[2] irudizkoa.

Frantsesez "image" (´irudi´) hitzetik zuzenean eratorri den izenlagun bakarra "imaginaire" **(irudimenezko)** da, eta irudimenarekin lotzen duen zentzu espezializatu bat hartu du. Josu Zabaleta

5. irudian **irudimenezko** paisaia bat erakusten da perspektiba linealean. Josu Zabaleta

Irudia gainazal plano bat bezala pertzibitzen delako pertzibi daiteke hobeto irudian irudikatzen den **irudimenezko** hirugarren dimentsioa. Josu Zabaleta

Fikziozko hiru dimentsioko espazio bat, **irudimenezkoa,** baina analogiazko zantzu batzuen bidez espazio errealari atxiki dakiokeena. Josu Zabaleta

Hona nola definitzen duen distantzia psikiko hori Pierre Francastelek: "alde batetik irudikapeneko objektuen arteko erlazioa, eta, bestetik, irudikapeneko objektuaren eta ikuslearen arteko erlazioa arautzen dituen **irudimenezko** distantzia tipikoa". Josu Zabaleta

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ametsa eta irudimena** (3); **baina irudimena** (3); **baina irudimenak** (3); **bere irudimen** (5); **bere irudimena** (14); **bere irudimena eta** (4); **bere irudimenak** (4); **da irudimena** (5); **ere irudimen** (3); **eta bere irudimena** (5); **eta irudimen** (17); **eta irudimena** (27); **eta irudimenak** (11); **eta nire irudimenak** (3); **gure irudimena** (8); **haren irudimena** (3); **irudimen apur** (3); **irudimen asaldatuak** (3); **irudimen handia** (7); **irudimen handiko** (9); **irudimen handikoa** (3); **irudimen hutsa** (8); **irudimen hutsaren** (3); **irudimen pixka** (3); **irudimen produktiboaren** (6); **irudimen sukartsuaren** (3); **irudimena baizik** (3); **irudimena da** (4); **irudimena erabili** (4); **irudimena erabiltzen** (4); **irudimena ere** (4); **irudimena eskatzen** (3); **irudimena eta** (30); **irudimena ez** (4); **irudimena izan** (5); **irudimena landu** (4); **irudimena pizten** (4); **irudimenak bere** (4); **irudimenak edo** (4); **irudimenak edo dena** (4); **irudimenak ere** (4); **irudimenak eta** (4); **irudimenak ez** (5); **irudimenak ezin** (6); **nere irudimen** (5); **nire irudimen** (9); **nire irudimena** (18); **nire irudimenak** (18); **nire irudimenak edo** (4); **zure irudimen** (3)

**bere irudimenaren** (7); **bere irudimenean** (12); **bere irudimeneko** (3); **beren irudimenaren** (3); **da irudimenaren** (5); **den irudimenezko** (3); **duen irudimenaren** (3); **duen irudimenezko** (5); **edo irudimenaren** (4); **edo irudimenezkoa** (4); **ere irudimenaren** (3); **eta irudimenarekin** (5); **eta irudimenaren** (7); **eta irudimenari** (3); **eta irudimenaz** (3); **eta irudimenean** (4); **eta irudimenez** (4); **eta irudimenezko** (7); **giza irudimenaren** (4); **gure irudimenaren** (5); **gure irudimenaz** (4); **gure irudimenean** (4); **haren irudimenean** (4); **irudimenaren ahalmen** (3); **irudimenaren arabera** (6); **irudimenaren bidez** (6); **irudimenaren bitartez** (4); **irudimenaren eta** (8); **irudimenaren funtzio** (3); **irudimenaren sintesi** (11); **irudimenean baino** (5); **irudimenean baizik** (3); **irudimenean eta** (4); **irudimenean ez** (3); **irudimenez eta** (3); **irudimenezko mundu** (3); **irudimenik gabe** (4); **irudimenik gabeko** (4); **nire irudimenaren** (9); **nire irudimenari** (4); **nire irudimenean** (12); **orduan irudimenaren** (3); **zure irudimenaren** (3); **zure irudimenean** (3)

---

# **irudimenkeria** *iz* irudimen gaitzesgarria.

Hebainduta nengoen, egun hark zeharo abailduta, eta hortixek nire erabaki ezina, zer hori nire izaerarekin batere bat ez datorren arren, eta hortixek nire **irudimenkeria** ere (bainuontziari sarkofagoaren antza hartzen nik: etruskoa!): erabaki-ezintasun hotz-dardarti baten eldarnioa, hain zuzen ere... Joxe Austin Arrieta

---

# irudimentsu *izond* irudimena handikoa; irudimen handia adierazten duena.

Giza primateok jakin-min handia izaten dugu, eta ipurterreak, ausartak eta **irudimentsuak** gara. Luis Elberdin

Bereziki Pete, Nipper eta biok baino **irudimentsuagoa** baitzen istorioak asmatzen. Mirentxu Larrañaga

Eskoziarra jokalari tinkoa da, eta Aussel, bizia eta **irudimentsua;** elkarrekin ongi moldatzeko biko egokia. Berria - Kirola

Literatura asmakari bat da beste bizitza batzuk bizitzeko, bizitza paraleloak, alternatiboak, **irudimentsuagoak,** alaiagoak edo tragikoagoak. Ana Urkiza

Hauen oroitzapena oso laburra eta ahula izaten dela jakinda, baldin eta gizadiarengan ezohikoa den indar **irudimentsu** batek ez badu bere boterearekin objekturainoko distantzia gainditzen. Juan Martin Elexpuru

Ekintza baketsua, **irudimentsua** eta sinpatikoa. Berria - Euskal Herria

Konponbide **irudimentsua** izan da Anekdotarik sinpleenak Dick Turpinenak baino abentura arriskutsuago edo Casanovarenak baino enkontru galaiago bilakatzen ziren haren hitz **irudimentsuetan**. Anjel Lertxundi

Dramaturgia **irudimentsua** eta aktore-lan sendoa. Berria - Kultura

Richardsonen pase azkarrak eta **irudimentsuak** baliatuz. Berria - Kirola

Burua nekatzen hasi zen enperadoreari, ministerioari, gobernuaren soldatapeko guztiei, goikoengatik hasi eta azken udaltzainaganaino, modu aski **irudimentsuan** adarra nola jo aurkitu nahirik. Karlos Zabala

Une batez, suz inguraturiko izotz puska bat, arrautzopil sorpresadun bat nintzelako **irudipen** tristea izan dut. Monika Etxebarria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta irudimentsua** (3); **eta irudimentsuak** (4); **irudimentsua eta** (3)

---

# irudipen 1 *iz* irudimenak osaturiko ustea.

Gauez entzuten nituen hotsak nire **irudipenak** izan zitezkeen. Anjel Lertxundi

Geure sentsuen eta geure burmuinaren izaerak eragiten dizkiguten **irudipen** ustelak. Juan Garzia

Zirriborroetan **-irudipen** hori nuen-, bere begiei eta bere ezpainei deitzeko modua bakarrik salbatzen zen: *North Cape eyes, Thule lips.* -Atera burutik **irudipen** horiek -esan zidan nire gidariak-. Bernardo Atxaga

Ezin dut **irudipen** bat burutik kendu: ama izatearekin alderatuta, aita izatea nahiko zeregin abstraktua dela, alegia. Oskar Arana

Jainkozko **irudipen** eta berokeria mistiko haiei guziei. Patziku Perurena

**Irudipen** hark bultzatuta, alegia Williamen adiskidetasuna berreskuratu, dena berriro bere oneratu, estuasuna amaitu, eta orain bai garaipena eta bai isekarako libre zegoela [...]. Anton Garikano

Berriro nagusitu zitzaion egun hartako **irudipen** bera, bakearena, atsedenarena. Anton Garikano

Dena bere **irudipena** eta gezurkeria izan ote zen? Patxi Zubizarreta

Zeure **irudipena** besterik ez duzu hori, Hanna... Joxe Austin Arrieta

Ene **irudipena** da, Joanes Paulo II.ak […] New Yorkeko Nazio Batuen Biltzar Nagusian eman zuen hitzaldi garrantzitsuan, giza eskubideen oinarriak eta eremuak finkatu nahi izan zituela. Piarres Xarriton

Edo agian nire **irudipena** izango zen, atari zurbil hartako eta lehengusuaren harrera gela ilun hartako argi eskasiak sortua. Jon Muñoz

Gure moduko kalezulotarren **irudipena** izaten da nekazaria lurrarekin halako batasun mistiko goxo batean bizitzen dela. Iñaki Segurola

Urrunetik, oso urrunetik, garrasi batzuk entzutea ere iruditu zait, baina **irudipenak** izan daitezke, ez nago batere ziur. Patxi Zubizarreta

**Irudipena** ematen diate etsai-gudaroste buru-itsu eta maltso baina kopuruz eta pisuz ikaragarri baten aurkako gerra azkengabe batean borrokatzen ari haizela, eta bataila guztiak galtzen dituala. Juan Garzia

Engainuzko **irudipenetan** erori nahi ez badute. Isabel Arrigain

## 2 (izenondoekin)

**Irudipen** hutsa zen barrearena, noski, hortz haiek handiegiak baitziren. Joxe Austin Arrieta

Baliteke neure **irudipen** hutsa izatea. Patziku Perurena

Argia **irudipen** hutsa baita, zarata **irudipen** hutsa baita. Josu Zabaleta

**Irudipen** txoro bat izan nuen: andre-gizon haiek Goizederren gurasoak zirela. Juan Luis Zabala

Postaburuaren **irudipen** xelebreek eraginik. Jose Morales

Lehenbizi, inondik ere ikusten ez dena badela sinetsi, eta gero, sinetsi dugun hura ikustera iritsi (benetan edo **irudipen** hutsez den berdintsu dio hemen: biak dira errealak eta gezurrezkoak). Iñaki Segurola

Bere izakerari buruz zeukan **irudipen** ilun bat baieztatzen zuen horrek. Anton Garikano

· Ikuskizun bakan eta gehienbat lazgarriak iradokiko zidan, seguru aski, honako **irudipen** objektiboki guztiz ulergarri hau: gu ere, Lurra, ilunpetan zintzilik, hots, ziztuka gabiltzala. Joxe Austin Arrieta

## 3 irudimenak osaturiko ikuspena.

Ikusten zuen ikusi gizajoak bere buruan koroia, Trebisondako erresuma nagusiko koroia gutxienez, bere besoaren indarrez irabazia noski; eta **irudipen** hauek zemaioten gozamenak bultzatua […]. Patxi Ezkiaga

Fedezko zera hauetan, izan ere, nork bere joera, gustu, nortasun, debozio edo teorien araberako **irudipenak** ikusten baititu. Iñaki Segurola

Deabrua **irudipen** gaiztoen bidez Frantzisko haietatik urruntzen saiatu zen. Askoren artean

Loretegi publikoan antzeko **irudipen** bat izan dut, arestian: landareek, soropilek, Olivier Masquereten iturriak itxura tematia zuten, hain adierazpen gabeak izatearen poderioz. Monika Etxebarria

Lurraren beste agerkera gezurrezko bat da "gure bazterrak" dei genezakeena, hots: [...] sasoi bateko paisajistek ikusi uste zuten natura-puska apaingarri huts bihurtua; Lizardik bultzi-leiotik ikusten zuen **irudipen** hura bera. Iñaki Segurola

Edo mundu intelektual eta burgesaren **irudipen** ideal bat, erabat lausoa. Joseba Urteaga

## 4 susmoa.

Gauzak sakon aztertuz gero, **irudipen** hori okerra dela konturatzen gara. Jose Morales

Urduritasunak eragindako **irudipen** paranoikotzat hartu nituen begirada izutu haiek. Alberto Ladron Arana

Hala ere, gizona aspaldidanik ezagutzen nuelako **irudipen** zentzugabea izan nuen: garaia, argala, lirain samarra... Alberto Ladron Arana

Susmo hura ez zen hutsetik sortutako **irudipena** izango, baizik aurretik irakurritako zerbaiten oihartzuna. Pedro Alberdi

Beharbada oker egongo naiz, baina nire **irudipena** da ez garela leku horretatik asko mugitu. Bernardo Atxaga

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lehen hitzaurrea irudipena da; hemen **irudipen**-ikusmenaz infernuaren luzera, zabalera eta sakontasuna ikustea. Patxi Altuna

Ez ote zen dena **irudipen** kontua izango? Josu Zabaleta

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Berez, ez dihardu barrez, burezur hilek ez baitute barrerik egiten, barre- **irudipen** soila da. Joxe Austin Arrieta

Urruntasun **irudipena** inoiz baino bortitzagoa izan zen. Bernardo Atxaga

Aurpegi zurbila dute, karminik gabea eta batzuek serioa; eta zeregin zehatza dute: zintzotasun **irudipena** ematea horrexen bila doazenei. Jose Morales

Mututasuna, bakartasun **irudipen** horrekin ezkontzen joan zitzaidan. Itxaro Borda

Izaeraz biguna zen; ezagutu berritan halako garraztasun- eta irmotasun- **irudipena** ematen zuen; hori, ordea, haren familiako giro gogor eta garraztuaren isla baizik ez zen. Josu Zabaleta

### 7 ***irudipenezko*** *izlag*

Hortik, beraz, psikiatraren **irudipenezko** ustea. Iñaki Segurola

Ez ginen oinarritu **irudipenezko** ipuinetan, geure esperientzian baizik, geure begiz ikusi baikenuen haren handitasuna. Elizen arteko biblia

Errealitate izeneko mundu **irudipenezko** hau. Iñaki Segurola

### 8 ***irudipena eduki*** irudipena izan.

- **Irudipena** daukat norbait zelatan ari dela lainoaren atzetik. Josu Landa

**Irudipena** neukan nigandik zerbait jakin gura zutela, baina burua higitzea zen egin nezakeen gauza bakarra: ez nuen ezer ulertzen. Urtzi Urrutikoetxea

Baina orain **irudipena** daukat gaixoa edo eria baino hobeki ez ote datozkion mina eta minarekikoa gure baitan joka darabilgun morbo-haize honi: mina, minduna, minbera eta mindua. Iñaki Segurola

**Irudipena** daukat lurralde hori egilearentzat zerbait obsesiboa dela. Patxi Zubizarreta

Hala ere, **irudipena** daukat -edo neukan, berarekin hitzegin bitartean- Hassanek ez zuela esandakoa benetan sinisten, baizik eta sinistu egin nahi zuela. Bernardo Atxaga

Gainera, **irudipena** daukat, urteetan aurrera, 35etik gora-edo doazenentzat, istorioak ez ote diren soberan gelditzen; eurek daukate kontatzeko aski. Pako Aristi

### 9 ***irudipena izan*** du *ad*

"Ez dakit", erantzun du Egeak, **"irudipena** dut". Felipe Juaristi

**Irudipena** dut jendartean nagoenean gustagarri gertatzeko desira gehiegizkoak naturaltasunez jardutea eragozten didala. Ramon Saizarbitoria

Ez zekien aberatsek zer jaten zuten, eta **irudipena** zuen okela, okela eta okela besterik ez zutela jaten. Patxi Zubizarreta

**Irudipena** nuen ez ote zuen maitaleren bat han, eta, seguruena, negozioak ere izango zituen. Koro Navarro

Zuri entzunda, David, **irudipena** dut ez ote duzun uste bidegabeki jokatzen ari garela zurekin. Oskar Arana

**Irudipena** izan zuen kontakizun ona eta umoretsua aterako zitzaiola. Mirentxu Larrañaga

Zerbitzariak ea elkarrekin gindoazen galdetu zuenean, baietz erantzun nion, eta **irudipena** dut ahotsa hautsi zitzaidala hitz egitean. Ramon Saizarbitoria

Une batez, Varsovian nengoelako **irudipena** izan nuen. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baina irudipen** (4); **bere irudipen** (3); **edo irudipen** (6); **eragindako irudipen** (3); **eta irudipen** (6); **irudipen bat** (8); **irudipen eta** (7); **irudipen hori** (24); **irudipen horiek** (5); **irudipen horrek** (4); **irudipen horrekin** (3); **irudipen hura** (8); **irudipen huts** (3); **irudipen hutsa** (19); **nintzelako irudipen** (3); **nire irudipen** (6); **nire irudipen hutsa** (3); **zer irudipen** (3); **zuen irudipen** (5); **zuen irudipen hura** (3)
>
> **baina irudipena** (11); **baina irudipena dut** (5); **baten irudipena** (4); **bigarrena irudipena** (5); **bigarrena irudipena da** (5); **da irudipena** (3); **duen irudipena** (3); **ene irudipena** (3); **ene irudipena da** (3); **eta irudipena** (16); **eta irudipena dut** (5); **eta irudipena izan** (5); **hitzaurrea irudipena** (4); **hitzaurrea irudipena da** (4); **irudipena baino** (3); **irudipena besterik** (5); **irudipena besterik ez** (5); **irudipena da** (24); **irudipena dauka** (4); **irudipena daukagu** (4); **irudipena daukat** (29); **irudipena du** (6); **irudipena dut** (33); **irudipena duzu** (3); **irudipena ematen** (7); **irudipena ere** (4); **irudipena eta** (3); **irudipena izan** (44); **irudipena izan dut** (5); **irudipena izan nuen** (15); **irudipena izan zuen** (13); **irudipena izango** (13); **irudipena izango zen** (7); **irudipena izaten** (7); **irudipena izaten nuen** (3); **irudipena neukan** (7); **irudipena nuen** (10); **irudipena sortzen** (3); **irudipena zeukan** (3); **irudipena zuen** (11); **izandako irudipena** (3); **lehen hitzaurrea irudipena** (4); **lehen irudipena** (3); **nengoelako irudipena** (4); **neure irudipena** (3); **neure irudipena izango** (3); **nintzelako irudipena** (3); **nire irudipena** (17); **nire irudipena da** (4); **nire irudipena izango** (4); **nuen irudipena** (3); **zelako irudipena** (3); **zen irudipena** (4); **zuelako irudipena** (6); **zuelako irudipena izan** (4); **zuen irudipena** (4)
>
> **bere irudipenak** (8); **eta irudipenak** (3); **eta irudipenezko** (4); **irudipenak ikusten** (3); **irudipenak izan** (3); **irudipenak izango** (3); **nire irudipenak** (6)

---

## **irudipentxo** *iz* irudipen apurra.

Eskolak ez ninduen jada gaixotzen; hain zuzen ere, **irudipentxoa** nuelako ez nenbilela eskolara. Jesus Mari Mendizabal

---

## **iruditarazi**, iruditaraz, iruditarazten du *ad* irudikarazi.

Bekatu larriz bekatu larri dabiltzanei etsaiak gehienetan atsegin faltsuak eskaini ohi dizkie, haragi-gozakeriak eta atseginak **iruditarazirik,** beren bekatu eta grina txarretan lotu eta luzaroago iraunarazteko. Patxi Altuna

---

## **iruditatu**, irudita, iruditatzen du *ad* irudikatu.

Ikusi baizik, nik bederen, beste nonbait bainuen **iruditatzen** edo hobeki errateko beste norbait ikusten karrikan ibilki, Orreagan utzia nuen Maria, bost urte lehenago. Piarres Aintziart

---

## **iruditegi** *iz* irudіteria.

Nire ustez, Bibliako istorioek, Itun Zaharrekoek bereziki, eragin handia izan dute nire **iruditegian**. Ana Urkiza

---

## **iruditeria** *iz* irudi multzo egituratua.

Poeta gazteari ez zaizkio baliagarri poesia kanonikoak erabilitako **iruditeria** eta lexikoa. Berria - Kultura

Poesiaren **iruditeria** kanonikoaren antipodetan. Berria - Kultura

Zubietan, joaldunaren ondoan mozorroaren inguruko **iruditeria** izugarri aberatsa gorde da. Berria - Kultura

Erlijiozko **iruditeria,** figuratiboa izan ala ez, oparoa baita, eta bizirik baitago oraindik. Josu Zabaleta

Kristau Elizaren **iruditeria** militarraren bilakaeran "Jainkoaren soldadua" lehenengo misiolaria zen. Iñaki Mendiguren

Kronopioa, Julio Cortazarren **iruditerian,** jaiaren eta artearen izakia zen. Berria - Kultura

Irudi orok topatzen du **iruditeria,** identifikazio-sareak eragiten ditu, eta ikusleak bere buruarekin ikusle begirale bezala duen identifikatzea eragiten du. Josu Zabaleta

Eguzkia femeninoa da alemanez, jakina, baina andrazkoa da mundua alemanez ikusten dutenen **iruditerian**. Joxerra Garzia

Gerraren kolorezko **iruditeria**. Josu Zabaleta

Bai ederki gezurresten duela errealitateak arnasestukako itsumustuaren **iruditeria** hori! Josu Zabaleta

Oso ipuin maitea izan dugu euskal gizarte idilikoarena, eta ez bakarrik indar tradizionalistek bultzatua, **iruditeria** bera landu eta aberastu baitute ezkertiar ustekoek ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Ohar bedi hizkuntza zermugatzeko erabiltzen den **iruditeria** ugaria: herriarentzat da haren arima [...], odola, azala, ekoizpena, etc., halaber pentsamenduarentzat horren jantzia, etab. Joxe Azurmendi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eta iruditeria** (4); **iruditeria eta** (3)

---

# iruditsu *izond* irudiz betea.

Paradoxa badirudi ere, ordea, esango litzateke ustez **"iruditsuagoa"** den prozesu semantiko hori, "ikusmenezko pentsamenduari" atxikiago behar lukeen prozesu semantiko hori, hitzari ez ezik literaturari zehazki atxikirik ez bada ezin uler daitekeela. Josu Zabaleta

Figura, jakina den bezala, egitura gutxi-asko bakandu bat da hitzezko adierazpenaren barruan; zentzua era bereziago, **"iruditsuago"** batean adierazteko asmoz egina delako bereizten da diskurtsoaren erregulartasunetik. Josu Zabaleta

---

# iruditu[1], irudi, iruditzen **1** zaio *ad* (zerbaitek edo norbaitek beste norbaitentzat) delako itxura izan, itxuraz halakoa izan; itxuren arabera uste izan.

Hilzorian dagoen norbaiten marranta **iruditu** zitzaidan. Aztorea **iruditu** zitzaion Zeunerri, behekoen peskizan goian hegaka dabilen aztorea. Bernardo Atxaga

Errespetu falta **iruditzen** zaidak! Teresa hilzorian eta zuek borrokan. Bernardo Atxaga

Urteak egunak **iruditu** zitzaizkion, hainbeste maite zuen hura. Jose Antonio Mujika

Orduan beste doinu bat etorri zitzaion belarria, doinu hits malenkoniatsua, entzutera Lituaniako herri eztei-kanta **iruditu** zitzaiona. Felipe Juaristi

Ez zait **iruditzen** zure pareko arerioa. Oskar Arana

Niri ez zait gehiegikeria **iruditzen** abadeak esandakoa: 1960an […] Obabako nekazariek antzinako mendeetako aire hori zuten, eta, zentzu hertsian, beste aberri batekoak ziruditen. Bernardo Atxaga

Liburu bat idazteko asmoa ezin zitzaion huskeria **iruditu** hura bezalako pertsona bati. Bernardo Atxaga

-Geiger hori ez zitzaidan gustatu, bufoi bat **iruditu** zitzaidan. Koro Navarro

Edgar Poe-ren pertsonaiak **iruditu** zitzaizkidan segituan; baina bazuten halako xarma bat, xarma dohakabe bat; patu gaiztoaren biktimak **iruditu** zitzaizkidan. Josu Zabaleta

Urrutira nire aitaren ahotsa entzutea **iruditu** zitzaidan. Jon Maia

"Adios, Felisa" entzutea **iruditu** zitzaion Josu R-ri, emakumearen irudia jadanik haren bistatik kanpo. Pedro Alberdi

Ubanbe burdinazko palankarekin lur hura zapaltzen; Pantxo eta Sebastian *kopa* esaten zitzaion saski bati heldu eta, **iruditu** zitzaidanez, hondarra garraiatzen. Bernardo Atxaga

Hartan geundela, hots batzuk **iruditu** zitzaizkidan. Anjel Lertxundi

Agote-enea izeneko etxera iristear nintzela, nota batzuk **iruditu** zitzaizkidan, gitarra elektriko batenak edo. Bernardo Atxaga

"Pozik zaude ala **iruditu** egiten zait?", galdetu nion. Bernardo Atxaga

Zer **iruditzen** zaizu jantzeko modu hau? *Prêt à porter* esaten diote, eta izugarri gustatzen zaie frantsesei. Bernardo Atxaga

-Zer **iruditu** zaizu? -galdetu zion Iturbidek presondegitik irten zirenean. Migel Angel Mintegi

Zer **iruditzen** zaizu Heleni deitzea? Ondo egongo gara elkarrekin. Bernardo Atxaga

-Zer **iruditu**? -txistu egin zuen harriturik-. Migel Angel Mintegi

Izan zezakeen zentzurik nerabe batek esperientzia umilgarria bizi izandako halamoduzko hotela deskribatzeak, baina museoko momia aretoarekin gauza bera egiteak, ez zitzaidan **iruditzen**. Bernardo Atxaga

## 2 (izenondoekin)

Bitxia **iruditu** zitzaidan ukoa. Joxe Austin Arrieta

Ez al zaizkizue zuhurregiak, epelegiak **iruditu**? Bernardo Atxaga

Ikaragarria **iruditu** zitzaidan hura guztia. Juan Kruz Igerabide

Harrigarria **iruditu** zitzaidan bat-batean ezezagun bati horrelako aitorpena egitera ausartzea. Oskar Arana

Sabethi zinikoa **iruditu** nintzaion, barreari eutsi ezinik niharduelako. Joxe Austin Arrieta

Hannaren portaera oso arraroa **iruditu** zitzaidan. Joxe Austin Arrieta

-Tira, jakina -esan zuen neskak-, niri ere halakoxea **iruditu** izan zait beti, baina ez dakit. Mirentxu Larrañaga

Beti **iruditu** izan zaizkit ikusgarriak halako egiturak. Joxe Austin Arrieta

Zutik ederragoa **iruditu** zitzaion detektibeari. Migel Angel Mintegi

Ni adi-adi nengoen, Angeloren isiltasuna susmagarria **iruditu** baitzitzaidan. Anjel Lertxundi

Egitasmo ausarta **iruditu** zitzaidan, baina inola ere ez burugabea. Joxe Austin Arrieta

Gehienei mukizu ahobero bat **iruditu** izanen nintzaien. Aingeru Epaltza

Hori bai **iruditu** zitzaiola guztiz sinestezina. Joxe Austin Arrieta

Den-dena kontatu nien eta benetan harrigarria **iruditu** zitzaien gizajale haiengandik ihes egin izana. Patxi Zubizarreta

Kixotea -dio Menard-ek- izugarri interesatzen zait, baina ez zait **iruditzen,** nola esan?, ezinbestekoa. Juan Garzia

Askoz ere magikoagoa **iruditzen** hasi zitzaidan telebistak egitea, motor mekaniko zikinak askatu eta osatzea baino. Juan Kruz Igerabide

Hark aipatu zituen gertaerak hain harrigarriak **iruditu** zitzaizkidan, non sinesgogor azaldu bainintzen erabat haiei buruz. *Azken fusila* oso ondo dago, azken aldian irakurri dudan onenetakoa **iruditu** zait. Josu Zabaleta

Akitua edo gutxienez abaildua **iruditu** omen zitzaion, nahigaberen baten itzala zeraman nonbait arrastaka. Joxean Agirre

Begiratu zion bai bentariak, baina ez zitzaion Don Kijotek zioen bezain ona **iruditu**. Patxi Ezkiaga

Haizea batzuetan ez zen izaten hasieran **iruditu** bezain indartsua. Koro Navarro

## 3 (nola adizlagunekin)

Nire guraso burges eta kezkatsuei ere ongi **iruditu** zitzaien guk karroza eta guztiko eztei arranditsurik egin nahi ez izana. Joxe Austin Arrieta

Martini ez zitzaion hura batere ondo **iruditu,** hartz gaixoak ez baitzuen inolako defentsarik. Koro Navarro

Luisi ez zaio inoiz hori gaizki **iruditu**. Lourdes Oñederra

Ez zitzaion hain ongi **iruditu** bere nagusiaren oharra. Patxi Ezkiaga

Ez zekien non paratu begirada, arakatzen zuten begi haietatik ihesi nahian, bere anatomiaren beste eremuren batean finkatzea ere ez zitzaion egoki **iruditu,** batez ere kamiseta zuri estu haren azpian bularretakorik ez zerabilela konturatu ostean. Sonia Gonzalez

Lotan **iruditu** zitzaidan hasieran. Aingeru Epaltza

Bi gizaje errukarri ziren, hala **iruditu** zitzaigun, zarpaz jantziak. Josu Zabaleta

Historia bat, hasi eta bukatu, idazten ikasi aurretik, historia kontatu gabe bere eragina kontatzera igarotzea gehiegi **iruditu** zitzaion. Pako Aristi

## 4 (mendeko esaldiekin)

Etxean norbait sartu zela **iruditu** zitzaidan. Josu Zabaleta

Epaitegirako atea irekia dagoela **iruditu** zaio zuzendariari, argitasun zirrinta bat iruditu zaio behintzat, norbait ibiliko balitz legez. Koldo Izagirre

Behin baino gehiagotan **iruditu** zitzaidan ukiezinezko esku batek, edo hobeto esanda, atzeman ezinezko gorputz batek, ileak ozta-ozta ferekatzen zizkidala. Josu Zabaleta

**Iruditu** zitzaidan, une-unean baina argi eta garbi, ez zigula aurpegira begiratzen, irri nahiz barre egin eta arretaz entzun arren. Xabier Olarra

Ozta-ozta nabaritu zinan, **iruditu** baitzitzaion beraren oinak, ordura arte bakarrik eta hotzik egonak, zerbaitetan biltzen zirela. Juan Garzia

Inori ez zitzaion **iruditzen** onik aterako zirenik. Koro Navarro

Maitasunak ere baditu horrelako amarruak, ez zaizu **iruditzen** inoiz bukatu behar duenik... Pako Aristi

-Niri ez zait **iruditu** alta salmenta handirik badela eskualde honetan... Elena Touyarou

Galtzaileari kobratzeak errukia ematen didala-edo **iruditu** baitzaio. Pako Aristi

Horretan, hesi baten ondotik zihoala, elurretan arrautza bat ikusi ote zuen **iruditu** zitzaion. Josu Zabaleta

Gertatukoaren ondoren bien artean harreman berezi bat hastera ote zihoan **iruditu** zitzaion Olatzi. Harkaitz Cano

Nire albotik pasatzean, atzeko eserlekuan Adelaren irudia ikusi ote nuen **iruditu** zitzaidan. Juan Kruz Igerabide

**5** (era burutua izenondo gisa)

Hegazkineko leihatilatik Andes mendikatea bere xapel xurituekin ikustea! haur denboran, geografiako liburuan, karta bat begiratuz **iruditua,** gure begien bistan, zeru urdin-urdin baten azpian. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**aproposa iruditu** (9); **ari nintzela iruditu** (6); **ari zela iruditu** (41); **arraroa iruditu** (18); **arrotza iruditu** (6); **arrunta iruditu** (7); **atsegina iruditu** (10); **baina iruditu** (24); **baina iruditu zitzaidan** (12); **baina iruditu zitzaion** (7); **barregarria iruditu** (6); **bat iruditu** (50); **bat iruditu zitzaidan** (16); **bat iruditu zitzaion** (11); **bat zela iruditu** (8); **batean iruditu** (7); **batez iruditu** (9); **behar nuela iruditu** (11); **behar zuela iruditu** (10); **beharrezkoa iruditu** (13); **beti iruditu** (27); **beti iruditu izan** (13); **bidegabea iruditu** (8); **bidezkoa iruditu** (10); **bikaina iruditu** (6); **bitxia iruditu** (37); **bitxia iruditu zait** (6); **bitxia iruditu zitzaidan** (8); **bitxia iruditu zitzaion** (7); **dagoela iruditu** (13); **daudela iruditu** (6); **dela iruditu** (38); **dela iruditu zaio** (8); **dela iruditu zait** (8); **direla iruditu** (6); **duela iruditu** (21); **duela iruditu zaio** (7); **duela iruditu zait** (11); **dutela iruditu** (7); **ederra iruditu** (23); **ederra iruditu zitzaion** (7); **edo hala iruditu** (9); **egin dela iruditu** (6); **egin zela iruditu** (7); **egin zuela iruditu** (12); **egiten zuela iruditu** (7); **egoki iruditu** (15); **egokia iruditu** (53); **egokia iruditu zait** (7); **egokia iruditu zitzaidan** (7); **egokia iruditu zitzaion** (9); **egokiagoa iruditu** (7); **entzutea iruditu** (12); **entzutea iruditu zitzaidan** (6); **erakargarria iruditu** (9); **ere iruditu** (17); **erraza iruditu** (6); **eta iruditu** (65); **eta iruditu zitzaidan** (23); **eta iruditu zitzaion** (23); **ez iruditu** (7); **ez zait iruditu** (11); **ez zitzaidan iruditu** (11); **ez zitzaion iruditu** (9); **ezinezkoa iruditu** (8); **gaizki iruditu** (11); **gehiegizkoa iruditu** (18); **gogorra iruditu** (7); **hala iruditu** (70); **hala iruditu zitzaidan** (25); **hala iruditu zitzaion** (20); **halaxe iruditu** (9); **handia iruditu** (10); **handiegia iruditu** (6); **harrigarria iruditu** (25); **harrigarria iruditu zitzaidan** (9); **harryri iruditu** (7); **harryri iruditu zitzaion** (7); **hori iruditu** (15); **horregatik iruditu** (7); **hutsa iruditu** (6); **ideia ona iruditu** (7); **ikustea iruditu** (9); **interesgarria iruditu** (34); **interesgarria iruditu zitzaidan** (12)

**iruditu ahal** (9); **iruditu arren** (30); **iruditu baitzait** (8); **iruditu baitzitzaidan** (26); **iruditu baitzitzaion** (33); **iruditu behar** (8); **iruditu bere** (6); **iruditu bide** (7); **iruditu ere** (6); **iruditu eta** (15); **iruditu ez** (8); **iruditu izan** (59); **iruditu izan zait** (31); **iruditu ohi** (8); **iruditu omen** (15); **iruditu omen zitzaion** (11); **iruditu zaidak** (8); **iruditu zaidala** (6); **iruditu zaidan** (18); **iruditu zaidana** (8); **iruditu zaie** (25); **iruditu zaigu** (48); **iruditu zaik** (8); **iruditu zaio** (125); **iruditu zaion** (12); **iruditu zait** (337); **iruditu zait beti** (8); **iruditu zait eta** (7); **iruditu zait niri** (6); **iruditu zaizkidan** (7); **iruditu zaizkio** (23); **iruditu zaizkit** (20); **iruditu zaizkizu** (9); **iruditu zaizu** (67); **iruditu zaizun** (6); **iruditu zitzaidaan** (10); **iruditu zitzaidala** (7); **iruditu zitzaidalako** (7); **iruditu zitzaidan** (858); **iruditu zitzaidan eta** (15); **iruditu zitzaidan ez** (8); **iruditu zitzaidan hori** (7); **iruditu zitzaidan hura** (7); **iruditu zitzaidan nire** (6); **iruditu zitzaidan niri** (11); **iruditu zitzaidan orduan** (8); **iruditu zitzaidana** (17); **iruditu zitzaidanez** (9); **iruditu zitzaien** (97); **iruditu zitzaigun** (80); **iruditu zitzaiola** (22); **iruditu zitzaiolako** (14); **iruditu zitzaion** (859); **iruditu zitzaion behintzat** (11); **iruditu zitzaion bere** (9); **iruditu zitzaion eta** (13); **iruditu zitzaion ezen** (7); **iruditu zitzaion gabini** (8); **iruditu zitzaion harryri** (9); **iruditu zitzaion hori** (6); **iruditu zitzaion matiasi** (6); **iruditu zitzaion orduan** (8); **iruditu zitzaiona** (10); **iruditu zitzaionean** (10); **iruditu zitzaizkidan** (73); **iruditu zitzaizkien** (7); **iruditu zitzaizkion** (47); **iruditu zitzaizun** (14)

Aski dute beren borondate **iruzurgilearen** nahikunde bat, eta printze, enperadore edo jainko bihurtzen dira, munduko aberastasun guztien jabe bihurtzen dira. Josu Zabaleta

Trama **iruzurgilean** parte hartu zuela egiaztatuta baitago.` Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta iruzurgile** (3); **eta iruzurgileek** (3)

---

# iruzurkeria *iz* iruzurra.

Zintzoek zuzentasuna dute gogoan, gaiztoek **iruzurkeria** besterik ez. Elizen arteko biblia

Gaiztakeria sortzen du, zoritxarra ematen argitara, **iruzurkeriaz** bete-betea du barrua. Elizen arteko biblia

Ulpiano legelariak **Iruzurkeriaz** eta Lekukotasunaz egin liburuen lehen orrialdeetan. Piarres Xarriton

---

# iruzurkor *izond*

Baina gizakia Jaungoikorik gabe **iruzurkor** eta ulertezin izatetik gizakiaren ezagumenarentzat. Jenaro Garate

---

# iruzurle *iz* iruzur egilea.

Langintza, hala ere, sotilki **iruzurlea;** alegia, ez denaren kolore eta itxura emanez, azpian dagoena gordetzeko xedea duen arte oro bezala. Juan Garzia

---

# iruzurmen *iz* iruzur egiteko ahalmena.

Garaipen horrek ikasgai bat du, batez ere, guretzat: engainatuak izateko prestasunak duen garrantzia, zeren, Zeuxisek begi-iruzur hura hasieratik ikusi izan balu, izango ote zuen horrenbesteko **iruzurmena** koadro hark? Josu Zabaleta

---

# iruzurti *(87 agerraldi, 31 liburu eta 9 artikulutan)* **1** *izond* iruzur egiten duena. ik **iruzurgile**. (pertsonei buruz)

Jakob zuri eta **iruzurti** hura bihurtu zen juduen buruzagi. Oskar Arana

Edozein **iruzurtik** ziria sartu eta zaborra salduko dizu arimen ordez. Jose Morales

Hi, **iruzurti** eta gezurrontzi, deabrukume eta zuzenbide ororen etsai hori, ez ote haiz Jaunaren bide zuzenak okertzen aspertuko? Elizen arteko biblia

Batzuen ustez, ilusioen saltzaile **iruzurti** eta moralista; beste batzuentzat, azken urteotako istorio narratzailerik trebeena. Berria - Kultura

Behatz ttikiko azazkala labanaren modukoa zuen txerpolari **iruzurtia**. Fernando Rey

Bere ezkon-eraztuna kendua duen **iruzurtiaren** gisa. Joxe Austin Arrieta

**Iruzurti** bat, proxeneta bat, droga-trafikatzaile eta kontrabandista izateaz gainera, jakina. Fernando Rey

Hamaika entrenatzaile **iruzurti** daude Ligan. Berria - Kirola

**2** (gauzei buruz)

Gu guztion ohitura **iruzurtiak** direla-eta. Urtzi Urrutikoetxea

Errepubliketan, hauteskunde **iruzurtiz** moderaturiko aginte gorena duena. Xabier Olarra

Borboiko Juan Carlosen eta Adolfo Suarezen irudian oinarriturik trantsizio **iruzurti** batek gure historia ezagutzea galarazi digu. Berria - Kultura

Salmenta **iruzurtia** gero. Anjel Lertxundi

Egia, izadiaren ilunagatik edota antzekotasun **iruzurtiengatik,** ezkutuan eta nahasita zegoela. Imanol Unzurrunzaga

Inongo fantasiarik eta irudi **iruzurtirik** gabe. Imanol Unzurrunzaga

Aurkikuntza **iruzurtia** izan zen, eta beharbada anaiek asmaturiko iruzurra. Askoren artean

Bere sofismakeria **iruzurtizko** sare artifiziosoak. Jon Alonso

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iruzurti bat** (5); **iruzurtia izan** (3); **txerpolari iruzurtia** (3); **txerpolari iruzurtien** (4)

---

# iruzurtsu *izond* iruzurrez betea.

Nire gogoan sortzen diren asmo, iritzi, ekintza guztiak, ikur horrekin datoz: maitajardunak izatearen ikurrarekin, batzuetan **iruzurtsu** badira ere. Jenaro Garate

Nire gogoaren aurrera azaltzen zaidan 'egia' edo 'ezaguera' hori **iruzurtsua** izan ohi dela. Jenaro Garate

---

# iruzurtu, iruzur(tu), iruzurtzen **1** du *ad* iruzur egin.

Esate baterako, tabako-kontrabandistaren espetxeratzea ezin da izan sikarioarena edo lapurrarena bezalakoa; lehenak **iruzurtu** duen alor berean zerbitzu-lanak eginez zuritu behar du delitua, hau zigorraren izaerarekin hobeto dator eta. Juan Martin Elexpuru

Jainkoak hutsegiterik egingo balu bere egian, edo bere hitzekin **iruzurtuko** bagintu, ez litzateke Jainkoa izango; bere hitza Egia da. Joan Mari Lekuona

Horrelakoetan naturak gizakia **iruzurtzen** du, tentaldi galgarrien arriskuz. Joan Mari Lekuona

Han zegoen kalean Demba, iraindua, jota, **iruzurtua** eta azken itxaropena ere galduta. Anton Garikano

Bere lilurakeria bera aurkitu ondoren ere **iruzurtzeari** eta beti konpondu behar diren uneko nahasketak jarraituki sortzeari uzten ez dion Dialektika. Ibon Uribarri

**2** (era burutua izenondo gisa)

Sineskorrek eta **iruzurtuek**. Iñaki Heras

---

# iruzurtxo *iz* iruzur txikia.

Ez zen kikila ez gorra ez zinikoa; ez zen egokitu: iraganarekiko kontuak egiten zituen eta ezin xuxen orekatu kontuok: orekatzen saiatzen zen, haatik, horretarako **iruzurtxoren** bat egin behar bazuen ere. Juan Garzia

---

# iruzurzale *iz* iruzurren zale den pertsona.

**Iruzurzaleen** lagun handi hark. Xabier Olarra

---

# isabeldar **1** *izond* Isabel Espaniako erreginaren aldekoa.

Hartan foruzaleek, karlistek, euskal diputatuek eta **isabeldarrek** bat egin zuten Gasteizen, Espartero kendu, Maria Kristina berrezarri eta foruak berriz indarrean jartzeko. Koldo Izagirre

**Isabeldarren** soldadu kaskodunak. Askoren artean

**2** Isabel Ingalaterrako erreginaren jarraitzailea.

Ez zuen Shakespeare irakurtzen, **isabeldarren** ingelesez ez bazen, ez eta Dostoievski ere San Petersburgoko zirilikoaz ez bazen. Javi Cillero

---

**isabelino** *izond* isabeldarra.

Erregerekin edo Errege gabe, federalak izan zein konstituzionalak, hemen Espainia legebakar **isabelinoa** zetorkiguk. Txillardegi

---

**isasti** *iz* isatsa dagoen eremua.

Hondar berbera, tirain berbera, bare, uhinska batzuen joan-etorria besterik ez, ia-ia aparrik harrotu gabe, eguzki berbera, haize berbera **isastian** barrena. Joxe Austin Arrieta

**Isastia,** asfaltoa eta itsasoa. Joxe Austin Arrieta

---

**isastu,** isats/isastu, isasten du *ad* erratzatu, eskobatu.

Eta, izan ere, bera igarotakoan, ez zegoen kalea **isastu** beharrik: ofizialen batek ezproia galtzen bazuen, begien itxi-ireki batean Pliushkinen etxeko pilara joaten zen ezproia; emakumeren bati, oharkabeturik, putzu alboan suila ahazten bazitzaion, Pliushkinek etxera eramaten zuen suila. Jose Morales

---

isastun ik **isatsdun**.

---

**isats**[1] **1** *iz* animalia askoren bizkarrezurra aaitzen den luzakina. ik **buztan**.

Nicobar irletan bizi ziren gizonek **isatsa** zeukatela. Xabier Olarra

Gorputza, atzeko hankak eta **isatsak** zaldienak zituzten, baina aurreko hankak, hegoak eta buruak arrano erraldoienak. Iñaki Mendiguren

Katua lozorroan zegoen, sabelez gora, hanka bat sudurraren gainean, **isatsa** saihetsen kontra bildua lastaira bailitzan. Karlos Zabala

Zakurrek ez zuten zaunkarik egin, **isatsa** astindu baizik. Juan Kruz Igerabide

Arrainak hormatuak zeuden, **isatsa** bihurriturik. Karlos Zabala

Eskorpioiek bezalako **isatsak** zituzten, eztenez hornituak. Elizen arteko biblia

Asperturik zegoen batera eta bestera ibiltzen, deabruari **isatsetik** tira egiten. Irene Aldasoro

Munstroaren ipur-konkorrari edo **isats**-aldeari zegokion tokian. Joan Mari Irigoien

Harryk lasaituta leiho-ertzari heldu zion, ezagutzen baitzuen isipu-itxurako **isats** hura. Iñaki Mendiguren

Ilunabarrean artilezko bi **isats** eraman behar ditu beltzez pintaturik. Xabier Olarra

Oilarra beltza zen arren, luma berde batzuk ere bazituen **isats** aldean. Joan Mari Irigoien

Tauroren **isats** aldera eta Pleiadeen konstelazioaren aldera. Santiago Iruretagoiena

Capricornioren azpian Piscis australa dago, Balearen **isats** aldera begira. Santiago Iruretagoiena

Literatura baten loraldietan itzulpenak berez datoz, gorputzaren ondoren **isatsa** datorren bezala. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Isats** ile-gorri bat erakutsi zion, handi-handia, behor sendoren bati kendua. Karlos Zabala

**Isatsa** apaldua duen txakurraren antzera. Patxi Zubizarreta

**Isats** urdineko hainbat txoriren ziztu-burrunba bazterretan. Joxe Austin Arrieta

Urre-koloreko **isats** distiratsua zuen, paumarena bezain luzea. Iñaki Mendiguren

Balea bera baino handiagoa zen, oso lepo eta **isats** luzekoa, dinosaurio baten itxurakoa. Bernardo Atxaga

Soilgune baten ertzean boa bat erdizka ikusi zuelako, **isatsa** kiribil, burua tente. Karlos Zabala

Gero, mugimendu azkar ustekabeko batez, Pitagoras gaixoaren **isats** motosdunari heldu zion bi eskuez. Josu Zabaleta

Bere **isats** iletsuaren muturra astinduz. Iñaki Mendiguren

Brontzezko lehoien zenbait **isats** zorrotz. Xabier Olarra

Eta faisaiak, faisai paregabeak, txano gorrimina, [...] sugarrezko **isatsa,** herrestan orain, gorteko soineko baten gisa. Karlos Zabala

**3** *irud*

Gibelean **isats** bakarrean bilduriko adatsek, hemen ohitura den bezala, kolore gorrixka bat hartzen dute kokotean, aire librean utzi diren zeta puskak bezala, kolorea higatuta. Koldo Izagirre

Hala, eguzkira gerturatzean izotz konglomeratura lurrundu egiten zela esan zuen, eta lurrundutako partikulek **isats** luze eta ikusgarria sortzen zutela. Berria - Gaiak

Kometa baten **isatsa** zen. Julen Gabiria

Gero, kometa **isatsetik** hartu eta tiraka hasi zen, berarengana erakarriz. Julen Gabiria

Kanpoan, izarloka baten **isats** iheskorra dirdaitu zen abuztuko izartegian. Aingeru Epaltza

Beren argizko **isats** erraldoiak atzetik dituztela datoz izar distiratsurantz. Josu Zabaleta

Askok izarra deitzen zioten, baina haren **isats** luzeak ez zion zalantzari aukerarik ematen. Xabier Etxabe

Bigarren arazoa, Montseren soineko luzetik etorri zitzaigun: izan ere, bazkalondoko dantzarako ere ez zen eragozpen txikia izan **isats** luze hura... Joan Mari Irigoien

Eztei-jantziaren **isats** luzeak arrastaka darraiola. Iban Zaldua

Bere **isatsari** hozka egitera kondenatuta ote zegoen matematika? Jon Muñoz

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Garisoroan zut iltzatzen zuten zerriaren **isats**-hezurra tente. Pello Zabala

Urre-koloreko **isats**-luma luzeak astintzen ari zen. Iñaki Mendiguren

Fenixen **isats**-lumak eta herensugeen bihotz-zuntzak. Iñaki Mendiguren

**Isats**-pianoa gure gelako zentro neuralgiko garrantzitsuena da. Harkaitz Cano

Zuzi batzuk prestatu zituen gero, eta, azeriak bata besteari isatsetik lotuta, zuzi bat jarri zuen **isats** korapilo bakoitzean. Jose Antonio Mujika

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Pauma **isatsaren** irudira. Karlos Zabala

Sabelaldea urdin argiz pintaturik eta behi **isats** bat erantsirik badarama. Xabier Olarra

Zenbat arratoi-**isats** bota behar zaion Ilea Hazteko edabeari. Iñaki Mendiguren

**6** zerbaiten atzeko zatia.

Hegazkinaren **isats** eta motoretik gertu zegoen eserita. Berria - Mundua

Aparte xamar eseri ginen, jendearen solasik entzun beharrik ez izateko lain, [hegazkinaren] **isats** lemaren gerizpean, arropak erantzita. Joxe Austin Arrieta

**7 *isats-luze*** *izond* isatsa luzea duena.

Hiru zaldikoa izaten da kibitka eskuarki, baina honek bat bakarra zeukan, ile-luze, **isats**-luze, indar eta adore handikoa odol mongoliarraren kariaz. sagukume erraldoi batzuez erditu zen Amama Otso; denak ere, **isats**-luzeak eta bibote dardaratidunak. Karlos Zabala

Kea baitzuten salatari, ke lodia, ke beltza, ke biribilkaria; iragana eta oraina eta geroa errerik utzi nahi zituen ke **isats** luzea zuten ikur. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baten isatseko** (3); **bere isats** (3); **eta isats** (4); **eta isatsa** (8); **eta isatsak** (4); **eta isatsaren** (3); **eta isatsetik** (3); **heldu isatsetik** (3); **isats aldera** (4); **isats astinduka** (3); **isats eta** (6); **isats luze** (5); **isats luzeak** (3); **isatsa astindu** (3); **isatsa astinduz** (3); **isatsa ere** (3); **isatsa eta** (4); **isatsa mugituz** (3); **isatsetik hartu** (3); **isatsetik helduta** (4); **isatsetik tira** (5); **isatsetik tira egiten** (3); **kometa baten isatseko** (3); **kometaren isatsean** (3)

---

# isats[2] **1** *iz* zuhaixka lekadun lore-horia, abar mehe eta malgu ugari, eta hosto gutxi dituena*(Cytisus scoparius)*.

Haritz, **isats** eta txilarren artean doa errepidea. Piarres Aintziart

Pinuaren bila nenbilen ni, han behean behar zuen, **isats** artean, eta nik ulertzen ez zergatik Hannak ez zuen kotxean itxaron nahi. Joxe Austin Arrieta

Erratzak egiteko erabiltzen den **isats** luzexka horiei. Pello Zabala

**2** erratza.

Kiratsa lurrin bihurtu nahian **isats** eta garbikari guztiak hartu eta etxea behin betikoz garbitu eta ikuztera sartzeko prest daudenak. Pello Salaburu

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Zirauki eta Mañeru herrietako inguruak miatzen genituen xehe-xehe, okin-labeetarako **isats** landare ihartuak etengabe zapaltzen genituelarik. Txillardegi

Burua **isats**-zuhaixka baten atzean gordeta. Anjel Lertxundi

Eta arbola bakoitzak bazuen buruan, urrezko koroa bat bailitzan, **isats**-belar sorta luze bat loretan! Josu Zabaleta

Sasi artean basalandareak biltzen zituzten, **isats**-sustraiez elikatzen. Elizen arteko biblia

Beraz, azkenean, eta etsi-etsian, **isats**-erratzaz baliatu behar izan zuen saguak etxetik kanpora uxatzeko. Mirentxu Larrañaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Iñar-**isats** deitu izan zaio erratzetarako baliagarri zen txilar motari. Pello Zabala

---

# isatsdun *(orobat **isastun**)* **1** *izond* isatsa duena.

Lord Monboddok deskribatutako gizon **isastunak** gaur egun irudimenak sortutzat hartzen dira. Xabier Olarra

[Protestantak] deabruak bezalakoak direla eta, halatan, adardun eta **isatsdun-**. Joan Mari Irigoien

**2** irud/hed

Emakume ederregi bat bezain iritsi ezinezko, garraizkio gure patuari, gure izotzezko izar **isatsdun** jantzia geldiro garraiatuz. Josu Zabaleta

Emakumeek soineko **isastunak** janzteko duten ohituran. Xabier Olarra

Hona gorteatzaileak, gure **isatsdun** jantziari jarraika. Josu Zabaleta

**3 *piano isatsdun*** hariak horizontal ezarriak dituen piano luzea.

Rec grabazio estudioan, **piano isatsduna** eskura izateaz gain, musika jo bitartean, edo grabatutakoa entzutean, filmaren irudiak gela berean dagoen pantaila handi batean ikusteko aukera izan du Salvadorrek. Berria - Kultura

---

# isatsondo *(corpusean **isats ondo** soilik)* *iz* isats landarea.

Badirudi, ordea, **isats** ondoa dela, erratzetarako erabiltzen den zuhaixka, alegia. Xabier Mendiguren Elizegi

---

isba ik **izba**.

---

# iseiatu, iseia(tu), iseiatzen da *ad* saiatu.

1512ko atakatik landa, erresumaren berriz biltzera **iseiatü** ziren Albret errege xüxenak. Herria

---

# iseka **1** *iz* norbait edo zerbait barregarri edo irrigarri uzteko erabiltzen diren egite edo hitzak. ik**burla**, **trufa[1]**; **irri**.

**Iseka** eta iraina harroaren gauza dira, baina mendekua du zelatan lehoia bezala. Elizen arteko biblia

**Iseka** da, gorroto dugun gauza batean zerbait mespreziagarri badela irudikatzetik sorturiko Poztasuna. Piarres Xarriton

Tira, aita, **iseka** bat dirudi zure ateraldi horrek! Anjel Lertxundi

Handik hara, altzari bat gehiago bihurtu nintzen ikasgelan; alde batetik, mesedegarri gertatu zitzaidan hori, halaxe amaitu baitziren **isekak** eta irainak. Juan Kruz Igerabide

Beste batzuek **isekak** eta zigorrak, kateak eta kartzelak jasan zituzten. Elizen arteko biblia

**Isekak** eta irainak jasaten. Patxi Altuna

Xeto, triste, bere tristura ezkutatzen saiatu zen, gure **isekaren** beldur. Juan Kruz Igerabide

Berebiziko beldurra zuen gaizki aterako ote zen, aitaren **isekagatik** batez ere. Josu Zabaleta

Hondaturik utzi zaituztete eta zuek berenganatzeko irrikaz zeuden beste nazioak zuetaz jabetu dira, **isekaz** eta irainez bete zaituztete. Elizen arteko biblia

*ik beherago* 5. Askoren artean

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hori, egiaz, **iseka** hutsa besterik ez baita. Xabier Kintana

Hark niri plazan egindako **iseka** zirikatzailea: "E'tzea koldarra izango, ezta ba?". Mirentxu Larrañaga

Bost axola zitzaizkion amaren gaitzespeneko begiradak edo jendearen ageriko **isekak**. Anjel Lertxundi

Estoikoen kontrako **iseka** bat irakurri zuen. Juan Garzia

Bere jarreraren aurkako **isekak** eta ziriak eraman behar zituelako etengabe. Anjel Lertxundi

Ezingo nuke jasan beren errukia, ez beren asmo oneko **isekak** onez eraman. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Musu emango nizuke kalean aurkitzean, inoren **iseka**-beldurrik gabe. Elizen arteko biblia

Aurrez aurre Draco Malfoy aurkitu zuen, ohiko **iseka**-aurpegiarekin. Iñaki Mendiguren

**Iseka** barreak egin dizkiote Korreori. Pako Aristi

Harryri batere atsegina ez zen **iseka**-irria egin zion amaren beso artetik. Iñaki Mendiguren

Ahotsak nolabaiteko **iseka**-doinua zuen. Jose Morales

Amonak **iseka**-keinu bat egin zuen. Juan Kruz Igerabide

Ahotsean **iseka**-gogoa igartzen zitzaiola, esan zuen: [...]. Iñaki Mendiguren

**Iseka**-antzean begiratzen dio. Oskar Arana

Basatia eta aparta zuan [...] baina krudeltasun ukitu batekin, **iseka** oldar batekin. Karlos Zabala

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ahaztuta al nituen lagun batek nik liburu batean azpimarratutakoekin bota zituen algarak eta egunetan jaso behar izan nituen irri-**isekak**? Anjel Lertxundi

## • **5** *adlag*

Barre algaraka hasten dira pertsonaiak **iseka** eta irainka hasten direnean beren artean. Oskar Arana

Irainka eta **iseka** hasi ziren hirugarrenarekin. Elizen arteko biblia

**Iseka** ari dira eta zitalkeriak esaten. Elizen arteko biblia

## **6** ***isekaz*** *adlag*

Lagunak **isekaz** ari zaizkit. Elizen arteko biblia

Baina emakumeak, **isekaz** ari zitzaiolakoan, lotsaz esan zion: "Utz nazazu bakean zeure mantuarekin". Askoren artean

Tsiganokek zakar eta **isekaz** erantzuten zion beti. Jose Morales

Etxeko nagusia Sanchezen herri berekoa zen, eta Jose zuen izena; baina Pepinito esaten zioten herri osoan, **isekaz**. Josu Zabaleta

Horrelako ezaguerarik ez duenak, **isekaz** hartuko nau; baina barre eta burla hauek ez didate minik emango, beren itsukeriak ematen didan tristurarena besterik. Joan Mari Lekuona

**Isekaz** eta txistuz hartu zituzten besteek Alberten hitzak. Jon Muñoz

Beraren gizonak **isekaz** sarri esaten zion: "Ez zara mundura mottiko bat ekartzeko gauza izan". Gotzon Garate

Beste batzuek, aldiz, honela zioten **isekaz:** "Edanak daude". Elizen arteko biblia

Zorte handia beharko duzue! -esan zuen ahots batek, **isekaz**. Iñaki Mendiguren

-Zeatik eroi zea, ba? -Stanek **isekaz**. Iñaki Mendiguren

-Bere eskola prestatzera! -Ronek, atzetik, **isekaz** eta mespretxuz-.-Zu gabe joango ginela uste nuen -esan zion kazetari ingelesak, erdi **isekaz** erdi benetan. Karlos Zabala

## **7** ***isekazko*** *izlag*

**Isekazko** barre-algara labur bat egin zuen. Iñaki Mendiguren

**Isekazko** algara batek erantzun zion ateraldi hari. Anton Garikano

Eta honekin guztiarekin Guilhermek lotsagorritu beharko zukeen, baina ez zen horrelakorik gertatu, aitzitik, bazirudien **isekazko** irribarrea bihurritzen zitzaiola ahoan. Jon Alonso

Harry Blount itzuli zelarik, Alcide Jolivet **isekazko** ahotsez kantuan ari zela entzun zuen. Karlos Zabala

Eta **isekazko** ateraldi batekin trufa egin ordez, azalpen oso eta neurtu bat eman zion. Oskar Arana

Hortxe dago! ez duzu entzuten? eta ziur nago **isekazko** imintzioak ere egiten dituela. Jose Morales

Bazirudien emakumearen hizkera lasaiak **isekazko** irri lotsati bat uzten zuela agerian-. Ibon Uribarri

## **8** ***iseka egin***

Gaizkiaz **iseka** egitea ez da sekula gaizto. Anjel Lertxundi

Nire izumenari **iseka** egiten zioten! Koro Navarro

Jentil arrotz horiek jo ez nazaten eta **iseka** egin ez diezadaten. Elizen arteko biblia

Arrainak **iseka** egitera agertzen ziren urertzera, bizi-bizirik. Juan Kruz Igerabide

Badakit erori egin zela -esan zuen **iseka** egiteko inongo asmorik gabe. Jon Muñoz

Ez zuen barre egiten **iseka** egiteko; haren barrea ondokoaren pozaz benetan alaitzen den emakume batena zen. Karlos Zabala

Egitasmoan Nafarroaren eskumenak eta araubidea urratzen dira, eta nafarrei **iseka** egiten zaie. Berria - Euskal Herria

Aralarrek esan du aldaketek Legebiltzarrari **«iseka»** egiten dietela. Berria - Ekonomia

«Lotsa gabe **iseka** egin dute», gaitzetsi zuen Arizabalok. Berria - Ekonomia

Nori egin diozu irain eta **iseka**? Elizen arteko biblia

-A zer filma kontatzen ari haizena! **-iseka** egin zion Léak. Jon Muñoz

· Nahiko **iseka** egin ondoren, kapa erantzi eta bere soinekoak jarri zizkioten. Elizen arteko biblia

Bazela bidelapur bat, Istanbuleko Sultanaren agintariei barre eta **iseka** gaiztoa egiten ziena. Felipe Juaristi

Haiei barre edo **iseka** egiteko baimena ere eman behar litzaiguke. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Emaztearen anaiak eta haren lagunek egindako **isekak** eta txantxak zituela gogoan erabaki hura hartzean. Jokin Muñoz

Ez niri egin **isekarik,** badut eta nahikoa samin bestela ere. Juan Kruz Igerabide

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **barre eta iseka** (3); **batek iseka** (3); **estatuari iseka** (3); **eta iseka** (27); **eta iseka egingo** (3); **eta iseka egiten** (9); **eta isekak** (4); **eta isekaz** (4); **ez iseka** (3); **irain eta iseka** (5); **iseka egin** (34); **iseka egin nahi** (3); **iseka egin zien** (3); **iseka egin zion** (4); **iseka eginez** (10); **iseka egingo** (11); **iseka egingo diote** (4); **iseka egitea** (12); **iseka egiteko** (11); **iseka egiten** (81); **iseka egiten dio** (6); **iseka egiten zien** (4); **iseka egiten zion** (9); **iseka egiten zioten** (13); **iseka egitera** (4); **iseka eta** (12); **iseka hasi** (3); **isekak eta** (8); **isekak eta irainak** (3); **isekaz ari** (8); **isekaz ari zitzaiolakoan** (3); **isekaz eta** (10); **zuzenbide estatuari iseka** (3)

---

# **isekabide** *(corpusean* ***iseka-bide*** *soilik) iz* isekarako bidea.

Zure hitza iragartzen dudalako, oi Jauna, irain- eta **iseka-bide** naiz egun guztian. Elizen arteko biblia

---

# **isekagai** *iz* iseka egiteko gaia.

Hona hemen gu orain erbestean, sakabanatu gaituzun herrietan, berauen **isekagai** eta madarikazio bihurtuak. Elizen arteko biblia

Hiri hau hondamen bihurtuko dut eta jendearen **isekagai**. Elizen arteko biblia

Madarikazio eta izu, lotsakizun eta **isekagai** izango dira jaurtikiko ditudan nazio guztietan. Elizen arteko biblia

Hondamendi egina utziko zaitut eta **isekagai** bihurtuko inguruko nazioentzat. Elizen arteko biblia

Auzoko herrien **isekagai** egin gaituzu, ingurukoen burla eta barregarri. Elizen arteko biblia

Horregatik, nazio arrotzen **isekagai** egiten zaitut eta herrialde guztien barregarri. Elizen arteko biblia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta isekagai** (10); **eta isekagai bihurtuko** (3); **eta isekagai izango** (3); **isekagai bihurtu** (3); **isekagai bihurtuko** (3); **isekagai eta** (4); **isekagai eta madarikazio** (3); **isekagai izango** (3); **jendearen isekagai** (3)*

---

# isekagarri *iz* iseka merezi duena.

Disekzio-eskolan, heriotza **isekagarri** gisa ikustea gustatzen zitzaien ikasleei; gorpu bati paperezko kono bat jarriko zioten ahoan, edo paperezko kapela bat buruan. Josu Zabaleta

---

# isekari 1 *izond* iseka egiten duena.

Gizon atsegina zen, berritsua, **isekaria,** baina betiere errespetuz jarduten zuena. Askoren artean

Profetaren **isekarien** aurka. Elizen arteko biblia

Mutil gazte gizen eta baldarra zen, ilun eta **isekari** antzekoa, eta etengabe kliskatzen zituen begiak. Ander Irizar

Haurdunaldiak erabat aldatu zuen Lulu; **isekari** eta alai zena, triste eta sentimental bihurtu zen. Josu Zabaleta

Portuan, atoiontzi **isekariak** uluka eta aiko-maiko kezko zuhaitzen azpian. Lopez de Arana

Barre-algara **isekari** bat entzun du bere atzean. Itziar Otegi

Irri **isekari** bat atera zitzaion. Patxi Zubizarreta

Aurpegiera **isekari** batez begira. Patxi Zubizarreta

Are gehiago harritu ninduen begiratzeko era **isekari** hark. Urtzi Urrutikoetxea

-O, Mr. Salomon Levy bere judu arroparik onenarekin -garrasi egin zuten ahots **isekari** batzuek-. Lopez de Arana

Gizonak, orduan, irri **isekariz:** [...]. Patxi Zubizarreta

Doinu erdi atsegin, erdi **isekariaz**. Agustin Otsoa

Gutxiespen **isekariaren** bidez. Ibon Uribarri

**2** (izen gisa)

Inguruan ditudan **isekariek** hortzak erakusten dizkidate. Elizen arteko biblia

Profetaren **isekarien** aurka. Elizen arteko biblia

**3** (adizlagun gisa)

Ivors andereñoak bere bekainen azpitik begiratu zion une batez **isekari,** eta Gabrielek irribarre egin behar izan zuen. Irene Aldasoro

Baina emazteak, sumindurak ahotsa dardaran jarria, **isekari** galdegin zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Beldurrak al hago? -leporatu zion Husainek, **isekari**-. Patxi Zubizarreta

-Ni ez behintzat-erantzun zuen emakumeak barrez, **isekari**. Koro Navarro

-Eguerdiko ordu batean, jaun agurgarria! -egiten zuen durundi lehengo esaldiak, ahots-doinuaren aldaera guztietan esanik, noiz alai- **isekari,** noiz haserre, noiz temati eta sor. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **irribarre isekari** (3); **isekari bat** (6)

---

# isekati *izond* isekaria.

Eta **isekati** iruditu zitzaion ikusten zuela Ramsay andrea hantxe urteen pasilo bukaeran esaten, [...]. Anton Garikano

Jamesek agerian zeukan belauna zerbaiten adaskarekin kilimatzeko makurtu zenean, apetatsu eta **isekati,** emazteak purrust egin zion "gazte gizarajo hura", Charles Tansley, ondotik bialdu zuelako. Anton Garikano

---

# isekatsu *izond* isekaz betea.

Ohartu zen bera zein barregarri zegoen bere musuzapia eskuetan zuela, atezain beltzak **isekatsu** esaten zion bitartean: "Egun on, Mr. Baldwin, badirudi egun ederra datorrela". Lopez de Arana

Tonu **isekatsua** hautatu zuen, Fernando eta Orrondoren txoro-haizea baretzeko asmoz. Pedro Alberdi

---

# isekatu, iseka(tu), isekatzen du *ad* iseka egin.

Jainkoaren Semea gurutziltzatzen ari baitira eta mundu guztiaren aurrean **isekatzen**. Elizen arteko biblia

Eta horrela **isekatua** eta iraindua, hantxe egon zen egun hartako aldi luze batean. Askoren artean

Horrez gain, bahitua zeukatenek **isekatzen** zuten. Patxi Altuna

---

# isekatzaile *iz* iseka egiten duen pertsona.

**Isekatzaileen** oihuak han eta hemen entzun zireni. **Isekatzailez** inguratua nago, lorik ere eginezinik haien lotsagabekeriaz. Askoren artean

---

# isil *(6052 agerraldi, 273 liburu eta 463 artikulutan; orobat* ***ixil*** *611 agerraldi, 35 liburu eta 328 artikulutan)* 1 *izond* hotsik, soinurik, zaratarik gabea; zarata gutxikoa.

Urruti-minaren minak eragindako oihu **isila**. Felipe Juaristi

Etzanik hiru ordu laurdenez, jalgi behar nituen kanpora barneko mamuen oihu **ixilak**. Piarres Aintziart

Milaka garrasi **isil** mutu aditu dut. Mirentxu Larrañaga

Ulu eta kurrinka **isil** bat entzun ziren. Iñaki Mendiguren

Biharamunetik aurrera, zurrumurru **isil** bat ibili zen merkatu nagusian zehar. Karlos Zabala

Xuxurla **isil** eta asaldatu bat entzuten zuen. Iñaki Mendiguren

Herbail-aulki baten erroten zirri-zarra **isila** hauteman zuen Agatak. Itxaro Borda

Baiezko **isila** egin nion nire adiskideari. Alberto Ladron Arana

Otoitz **isil** labur bat egin nion Jainkoari. Koro Navarro

Donibane Lohizunen,larunbat eguerditan egin da manifestaldi **ixil** bat. Herria

Barre karkara egin zuen, sakona baina **isila;** abegitsua. Fernando Morillo
Mespretxuzko barre **isil** bat atera zitzaion Malfoyri. Iñaki Mendiguren
Abeli negar **isil,** antzinako bat korapilatu zaio eztarrian. Pello Lizarralde
Tarteka negar-zotin **isil** batzuek astintzen zioten gorputz osoa. Joxean Agirre
Sekula hasi eta sekula amaitzen ez zen musika **isila**. Felipe Juaristi
Haren olesari agur **isil** batez erantzun nion. Edorta Jimenez
Batek agur **ixil** bat keinuz igortzen dit. Piarres Aintziart
Obusen erauntsi **isila,** haserre bizian, nire inguruan. Mirentxu Larrañaga
Lankide guztiok ulertu genuen mezu **isila:** gerra galdu dugu. Txillardegi
Ordenagailu ondoan dagoen telefono **isilean** pausatzen dut begirada. Iban Zaldua
Hain zuen **isila** motorra, non kontaktua etenda zeukala uste izan baitzuen Ruche jaunak. Jon Muñoz
Beste ahotsak, **isilagoa** eta sakonagoa zenak, nagitasunez eta apal erantzun zion: [...]. Ander Irizar
Mintza zaitez **isilago,** Graziana. Joan Mari Irigoien
Koloniako hoteleko gela **isilean**. Alberto Ladron Arana
Gela zabal **ixilean**. Iñaki Segurola
Henrikek txanpon bat ematen zion kotxezainari, kale **isilean** gelditzen zen, atari zaharraren aurrean eskularruak kentzen zituen, […]. Xabier Olarra
Irakaslearen eta atzealdekoen borroka ia **isil** hura irabazi ez bagenuen ere [...]. Iban Zaldua
Urrats **isileko** morroi batek gidatu ninduen. Koro Navarro
· Miresle **isilik** ez zaio falta. Patxi Iturritegi

## **2** irud/hed

Igande **isil** eta eguzkitsuaren zama hiri gainean sumatzen zen. Lopez de Arana
Denbora hila, **isila**. Lourdes Oñederra
Bizirik dirauenaren poz **isil** garailea. Joxan Elosegi
Amairik gabeko langar **isila**. Txillardegi
Bakardade **isil** iraunkor honetan, nornahi bihurtzen don fiolosofo. Txillardegi
Lagunen arteko kalaka baino, nahiago du maitasun **isila** eta artistaren bakardadea. errezelek iragazten duten argitasun motela, erantzitako arropen lekukotasun **isila**. Markos Zapiain
Adiskidetasun **isil** eta diskretu batek. gu geu ere animatzen ginen, noizbehinka, goikoen emulazioan; emulazio **isilean,** erants dezadan, eta ez lehia zaratatsuan. Xabier Mendiguren Elizegi
Amorostuarentzat jakinduria ez da mintzozkoa, baizik intimitate **isila**. Markos Zapiain
Naturaren konpainia **isilean** nago eta nabil. Piarres Aintziart
Ezkutuko tristura **isil** batek astintzen zion bihotzaren hondoa. Jose Morales
Zorion publikoaren banatzaileek legeriari egiten dioten laido **isila**. Juan Martin Elexpuru
Alabaina, norbaiten presentzia **isila** suma zezakeen, behatxulotik begira. Migel Angel Mintegi
Zeruak ere baditu, ikusmirazalearentzat, bere baldintzak: ederreste **isila** besterik ez du onartzen, begirada bakartiaren irakurketa biluzia. Pako Aristi
Eta errekei egokituz, sugearen erraztasun **ixilarekin** lerratzen da bidexka. Piarres Aintziart
Hiru eguneko jarraipen **isil,** zail eta neketsu baten ondoren. Jon Alonso
Hitzez adieraz ez daitekeen egintza heroiko **isil** baten oroitzapenak irauten duen bezala. Xabier Olarra
Urteetako lan **isila**. Ana Urkiza
Hantxe zeukan muga aitak, gerran; handixe hedatzen zen amildegi ilun **isila**. Juan Kruz Igerabide
Hautsa irentsi zuen, hildakoen hautsa, hildakoen hauts **isila**. Felipe Juaristi
Inkubazio **isileko** gaitz bat besterik ez, oharkabean gugan garatzen doana. Bernardo Atxaga

## **3** gutxi hitz egiten duena.

**Isila** bilakatu zen, eta bakan erantzuten zuen silaba bakarra baino gehiagoko hitzez. Jendez gainezka zeuden kaleen zokoetan geratutako gizon **isil** zarpailtsuak. Elena Touyarou
Barda ikusi dudan ingeles gizon **ixil** eta iduriz adin onekoa. Piarres Aintziart
Espainiar **isil** bat nuen lagun. Koldo Izagirre
Presuna **ixil** eta langilea. Herria
Jonas gaztea mutil **isil** eta liburuzalea zen. Oskar Arana
Bi emakume **isil** haiek, amona-bilobak irudi, halako errespetua ematen zuten sufrikarioak saminduriko dohakabe saldo haren erdian. Karlos Zabala
Bere behinolako lagun **isil** begiratuarengana itzulirik. Josu Zabaleta
Bederatzi urte eta erdiko Lucy **isil** bat, ile beltz motzarekin eta amarenak bezalako begi biribil marroixkekin. Oskar Arana
Stanley Chowder **isil** baina lagunkina, soropil moztaile eskarmentuduna, poker jokalari maltzur eta ping-pong jokalari aparta. Oskar Arana
Mamu talde bitxia zen hura; Donostiako egunsentiaren misterioan, lekuko **isil**. Txillardegi
Eliz ataria jende **isil** eta kopetilunez beterik zegoen. Koldo Biguri
Jende bakartia, **isila**. Joseba Sarrionandia
Elurrak etxea bakarturik utzi zuen, erabateko setioa ezarri zion, iparraldetik iritsitako gudaroste **isil** eta ilun batek gaztelu bat setiatzen duen bezala. Xabier Olarra
Hainbat soldadu alemaniar daude lurpeko babeslekuan zehar, hanka-zabalik; denak **isil** geldi, denak hilik. Mirentxu Larrañaga
**-Isila** zara... edo isilik zaude? -galdetu zion Julenek. Fernando Morillo
Baina, bera ere izaera **isilekoa** izanik, ez zen ibili egokiera bila neskarekin solasean hasteko. Karlos Zabala
· Piztiarik maltzurrenak diren zakur **isil** horienak bezalakoak. Xabier Olarra

## • **4** (predikatu edo adizlagun gisa)

**Isil** eta bare dut barne-gogoa. Elizen arteko biblia
Kanpoan, denak **isil;** noizean behin zentinelaren urratsak. Marzel Etxehandi
Etxean arrotz, hango margolanak, estatuak eta kaletik sartzen zen isiltasuna lagun, bera ere **isil** eta lauso zegoelarik, […]. Jose Morales
**Ixil** dago kaiolan kokorikaturik. Xipri Arbelbide
Lucy **isil** dabil, ez du sentimendurik agertzen. Oskar Arana
Bat-batean **isil** eta geldirik geratu zen dena, denboran harrapatua bezala. Patxi Iturritegi
Dena bare eta **isil** gelditu arte. Xabier Mendiguren Elizegi
Elurra **isil** ari du kanpoan, teilatu gainetan mutu. Iñaki Mendiguren
Egun batean goian, hurrengoan behean; muturrekin eta **isil** goizean, eta barrez eta trufaz gauean. Oskar Arana
Eta ziurrenik ere hitzak **isil** mugituko ziren bere gogoan, zalapartarik gabe. Bernardo Atxaga
Pertsiana guztiak jaitsita eta dena **isil**. Xabier Mendiguren Elizegi
Gero, ezponda handira heldurik, hortxe dago ibai zabala, mortu, geldi eta **isil**. Koldo Biguri

-Ibiltzeko moduagatik, uso bat ematen duzu, arin eta **isil**. Koldo Izagirre

**5** (erkaketetan)

Ni, halabeharrez, harria baino **isilago** geratu naiz. Patxi Zubizarreta

Hirurak, ordea, harria baino **isilago** egon dira. Patxi Zubizarreta

Hildako bat bezain **isil**. Patxi Zubizarreta

Azkenik trenaren geltoki berria, plazatxo karez zuritu eta hautsez betean, lazareto bat bezain **isil**. Josu Zabaleta

Sugea bezain **isila** izan haiz beti, baina. Aingeru Epaltza

Berriro ere sofatik alde egina zen, narrasti bat bezain **isil**. Harkaitz Cano

Usoa bezain **isil** mugitzen den neska horren azken behako bat espero nuen nik. Koldo Izagirre

Soilik agure kankailu bat azaldu zen, bakardadearen mamua bezain **isila**. Alberto Ladron Arana

**6** isilekoa.

Felipe II.-ari bidali eskutitz **isila,** 1562ko otsailaren 25ean. Piarres Xarriton

-Tratu **isil** bat, bai, apaizaren geroaz. Txillardegi

Alargun gazteak ez zuela tratu **isilaren** berri izan behar. Ramon Saizarbitoria

Sinbolikoki, idazleak eta diktadurak elkarbizitza baketsuaren antzeko itun **isila** sinatu dute. Edorta Jimenez

Txosten **isila**. Piarres Xarriton

Esadazu hitz bakar bat, Martin, eta zure etxera iritsi ez bada, egin ezazu, ahal baduzu, ikerketa **isil** bat. Ramon Etxezarreta

Beti bezain burugabe segitzen nuela adierazi zidan amak, poltsa **isila** osatzeko beta izanagatik, oso inozo utzi bainuen neure buruaz zernahi egitea. Joxan Elosegi

*ik beherago* 23. Askoren artean

Modu **isil** sekretu batean komunikatzen ziren euren desirak. Aritz Gorrotxategi

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Sekulan ez nuen usteko nik […] **isil**-ehiztari ikusiko nuenik nor eta inoren gauzak errespetatu behar direla predikatzen diguna bera. -Maite ditut loreak -esan zuen, tupusteko **isil**-aitorpentxo haietako batean. Koldo Biguri

Atsedena akabatuta, lerrokatzen hasiak ginen bazkaltzera abiatzeko, baina oraindik ez ziguten emana **isil**-agindua. Aingeru Epaltza

**Isil**-trebetasun horretatik idazketa soil-soilik ideografikora [...] distantzia ahitezina dago. Juan Garzia

Guk biok emakume batek baino gehiago iraun diagu -jarraitzen du **isil**-kontuetako tonuan-. Xabier Olarra

-Gure agintariek ere ez omen ditek buruz burukorik nahi, halaxe esan zidak aitak -esan zuen, **isil** keinu batez-. Edorta Jimenez

Batak bestearen aurpegi gorri akitua, **isil**-negar baten malko-jarioa ikusten du. Antton Olano

**Isil** deiak entzun ziren jende artean, eta epaile-longainaz jantzitako agure erkindu batek igo zituen urkamendiko eskailera-mailak. Anjel Lertxundi

Frantzia garaituaren aurpegia, **isil** orduetan. Josu Zabaleta

Mundua sortzen laguntzen ari ziren ezkutuko **isil**-batzar solemne haren entzule. Josu Zabaleta

Ez zekiten zer jukutria eta **isil**-joko ustel erabiltzen ariko ziren. Aingeru Epaltza

Salara iritsirik, amonak **isil**-lekuren batetik bonboi-kaxa ateratzen zuen. Juan Garzia

*ik beherago* 25. Askoren artean

Bihotz beratuko al zara, andere, zure-zurea den bihotz honen alde, hainbesteko **isil**-minetan mindurik baituzu. Patxi Ezkiaga

Hala amildu zen Cyril Tourner jainko ezezagun batenganantz zeruaren zirimola **isil**-itunean. Juan Garzia

**8** (izen gisa) ik **isiltasun.**

"Badakik noren kontra jokatzen duen Realak?", galdetu dio, **isila** nolabait hausteagatik. Jokin Muñoz

**Isila** bezain ilun badator elurra .../... Iñaki Arranz

Elurra bezain ilun badator **isila**... Iñaki Arranz

**Isilaren** barnean baitira hitz mutuak eskura jausten. Piarres Aintziart

Espero zuen papera zabaldu ondoko **isila**. Jokin Muñoz

Gauaren **isila** aprobetxatuz. Jon Alonso

Eta gero, isilik geratzen naiz, **isilak** bere besoetan har nazan amoreakatik, eta halatan dadin neure izena **isilaren** izanean disolba eta barreia. Joan Mari Irigoien

Haur arbuiatuaren gertakizuna **isilaren** altzoan galdu zen. Gotzon Garate

Gauaren **isilean,** bat-batean eginiko sokak erabiliz, harresiak jaitsi zituzten. Jon Alonso

*ik* isilean 3.

**9** ***isil-asmo*** *(corpusean **isilasmo** soilik)*

Berariaz, **isilasmoz** eta azpikeriaz egin du leku bat, bortxaz, Altzabeheititik 848 kilometrora dagoen espetxe honetako bigarren galeriako presoen mahaian. Koldo Izagirre

**10** ***isil-entzule*** *(corpusean **isilentzule** soilik)*

Zeren Burke jaunaren jeinu ahalguztidunak aurki lerrarazi baitzuen hura ohiko tragediaren arau eta erregeletatik kanpo, zeinean beti kontakizun bat eta **isilentzule** bat baitzegoen. Juan Garzia

**11** ***isil-ezkutuan***

**Isil**-ezkutuan hasiko nintzen lanean, izenik gabe edo izen faltsuz. Juan Garzia

Napoleonen garaiko frantziar gobernuak, britainiar salerosgaiak baztertzeko komedia egin zuen Berlingo dekretuarekin, baina **isil**-ezkutuan britainiar botak eta gainjantziak inportatu zituen Napoleonen armadetan erabiltzeko. Iñaki Mendiguren

**12** ***isil-geldi*** *(corpusean **isilgeldi** soilik)* isila eta geldia.

Historia progresista eta aitzinaketariaren apar eta zirimoletatik intrahistoria **isilgeldira,** utopia historiko guztietatik salbaziozko esentzialismo katoliko eta espainolera. Joxe Azurmendi

**13** ***isil-gorde*** *(orobat **isilgorde**)* *iz* sekretua, isilpekoa.

Errespetatu beharreko **isil** gordea. Berria - Kultura

Izan ere, begi-bistan dut haien jokabidea; niretzat ez dute **isil**-gorderik haien erruek. Elizen arteko biblia

Hortik aurrera, ozenki segitu dute, lehengo **isil-gordeak** zentzua galduta bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Zortzi egun baditu alabaina neure eder horren **isilgordeen** jakitun naizela. Jon Muñoz

**Isilgorderako** joera bera zuten batak nola besteak. Jon Muñoz

· *izond* Gainera, motel samarrak begitantzen hasiak zitzaizkidan bakterioak, **isil-gorde** samarrak. Juan Garzia

Ea zer ezkutatzen nuen, arrazoi **isil gorde** bat izango nuela hainbeste aitzakia jartzeko. Anjel Lertxundi

Haren belar tarteko ibilera **isilgordeak**. Patziku Perurena

· Ttipi eskola-emaile, Ttipi **isil**-gordezale, Ttipi sekretu-ebasle. Aingeru Epaltza

Aldiz, berari zegozkionetan, **isil**-gordekeria setatia zuen bertzeen gaineko jakin-gose ezin-asearen gehigarria. Aingeru Epaltza

**14** ***isil-gordean*** *(31 agerraldi, 12 liburu eta artikulu 1ean: orobat **ixil-gordean** g.er.)* *adlag* isilean.

Izokinak harrapatu zizkidan **isil-gordean** ibaitik. Mirentxu Larrañaga

Ingurumarietara begiratu zuen **isil**-gordean. Patxi Zubizarreta

**Isil**-gordean negar egin dut nire begi bilduen atzealdetik, zinkurin ozenik ez egiten ahaleginduz. Mirentxu Larrañaga

**Isil-gordean** negar egin dut nire begi bilduen atzealdetik, zinkurin ozenik ez egiten ahaleginduz. Mirentxu Larrañaga

Eta Fishguardeko atera iritsi ginen, gizon bat, Evans jauna bezala lepoko batean bildua, tabernatik **isilgordean** ateratzen zen une berean. Koro Navarro

Baina **ixil-gordean,** ezkutuan, ezinean, jende prestuen begiratu gaiztoaren pean, ohore gezurrezko guztietatik garbi eta eredu izatetik ezin urrunago. Iñaki Segurola

## 15 ***isil-gordeka*** *(**51** agerraldi, **19** liburu eta **2** artikulutan; orobat isilgordeka g.er.) adlag* isilka.

**Isil**-gordeka jarraitu zion Harryk. Iñaki Mendiguren

Ez dut uste Harryk **isil**-gordeka ibili behar duenik ikastetxetik kanpo, Black libre dabilen bitartean... Iñaki Mendiguren

Gau hartan ikastetxera itzuli nahi bazuen, denbora behar zuen berriro Honeydukesera **isil**-gordeka sartzeko. Iñaki Mendiguren

Pertsona bakar bati **isil**-gordeka kontatzea, baldinbaitere, pertsona gehiegiri kontatzea bezalakoxea zen. Mirentxu Larrañaga

Gaizkileen gorpuak **isil-gordeka** lurperatzea eskatu zion. Patxi Zubizarreta

Gizon batek baino gehiagok **isil-gordeka** kontatu dit ez lukeela inolaz ere atzetik hartuko. Karlos Zabala

Baina beti jarri nau sutan niretzat munduko gauzarik naturalena zena **isilgordeka** eduki beharrak. Karlos Zabala

## 16 ***isil-gordeko*** *izlag* isilpekoa.

Bazen lagunartekotasun halako bat, **isil**-gordeko kontu hura partekatzeak elkarren lagun minago bilakatu izan balitu bezala. Mirentxu Larrañaga

Weldon andreak bazuen beste zaletasuntxo **isil**-gordekorik ere, noizik behin aitortu ohi zuenik. Mirentxu Larrañaga

Betiereko burutazio arin eta **isil-gordekoa** zuen akuilu, agian gau hartan gauzak onbideratzen has zitezkeelakoa. Mirentxu Larrañaga

## 17 ***isil-isila*** *(**56** agerraldi, **16** liburu eta **4** artikulutan; orobat **ixil-ixila** **71** agerraldi, **6** liburu eta **43** artikulutan)* isil-isilik

Betiko atea ireki zuen, **isil-isila** eta, behin sartuz gero, berehala hetsi zuen. Eneko Bidegain

Minutu batez aitatxi **isil-isila** egon zen. Daniel Landart

Jendeak **isil-isila** eta kontent zeuden. Aurelia Arkotxa

Karrika **isil** isila zegoen. Michel Oronoz

Apalen artean eskuin ezker **isil-isila** ibili zara. Ramuntxo Etxeberri

Bestea, baina, bere baitara bildua egon zen, **isil**-isila. Patxi Zubizarreta

Liburu Sainduen eta Elizako Aiten iturrietara itzulia zen **isil**-isila. Piarres Xarriton

Afifi anderea **isil**-isila geratu zen Hamida kafearen azpilarekin sartzen ikusi zuelarik. Patxi Zubizarreta

Beti **isil-isila,** beti beltzez bezti, soa apal. Elena Touyarou

Bi gasna zerra eder jan genituen **ixil-ixila**. Janbattitt Dirassar

Eta han gelditu nintzen, tente, **ixil-ixila,** kamiunttoari beha eta beha. Janbattitt Dirassar

## 18 *isilean* ik **isilean**.

## 19 *isileko* ik **isileko**.

## 20 *isilik* ik **isilik**.

## 21 *isil-mandatari* ik **isilmandatari**.

## 22 ***isil-misilik*** *adkor* isilik.

Eskola-txirrinak jo du eta ilara bitan lerrokatu gara, **isil**-misilik, hogeina haur inguru. Mirentxu Larrañaga

Aita joan egin zitzaigun, eta gu guztiok haren heriotzagatik negarrez ari ginen, **isil-misilik,** nor bere kasa. Mirentxu Larrañaga

## 23 ***isil-misilka*** *(**35** agerraldi, **10** liburu eta artikulu **1**ean) adkor* isilka.

**Isil-misilka** aldendu nintzen emakumearengandik, mantso-mantso. Mirentxu Larrañaga

-Tira -erantzun zion Malfoyk, **isil**-misilka-, alde batetik, bai, Potter. Iñaki Mendiguren

Ondotxo ikasia zuen **isil**-misilka mugitzen lanean zebilelarik. Mirentxu Larrañaga

Norbait pasabidean zebilen **isil**-misilka. Iñaki Mendiguren

Gaineratekoan, Nabarrenkoxetik **isil-misilka** atera zen mutikoa izenez baizik ez zen Garrüze gordean utzi zuen bera. Aingeru Epaltza

## 24 ***isil-ostuka*** *(orobat **isilostuka**) adlag* isilka.

Haren zalgurdia **isil**-ostuka zebilen aurrera, kaleko buxaduraren erdian galdurik. Karlos Zabala

Gurinaren pabiloira bihurtu zen **isil**-ostuka. Karlos Zabala

Eruditüei, jakinmina dutenei, **isilostuka** ibili eta ahopeka aritzeko aldi luzean autore bila zebiltzanei. Berria - Kultura

## 25 ***isil-poltsa***

Demagun erakundeei sos batzuk geratzen zaizkiela **isil**-poltsan. Joxerra Garzia

## 26 ***isil-toki*** *(corpusean **isiltoki** soilik)*

Baina Gorriaren ahoa **isiltokia** da. Joseba Sarrionandia

## 27 ***isil-zulo*** *(corpusean **isilzulo** soilik) izond*

Sakrilegio haren esalea Sandro zen, Sandro **isilzuloa**. Juan Garzia

## 28 ***meza isil*** abesten ez den meza.

Egun horretan, penitentzian, Probidentziak naraman lekuan, meza **isil** bat entzunen dut. Joan Mari Irigoien

Azaroaren 11ko omenezko **meza isiletan** batez ere, orduan zuelako egiazki sentitzen zinez laxoa eta herabetia izan zela. Itxaro Borda

· Lehen meza, **isila** zen. Marzel Etxehandi

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**ahots isil** (4); **arin eta isil** (3); **arte isil** (3); **arte isil isilik** (3); **baiezko isil** (3); **baina isil** (10); **baina isil nadin** (3); **bat bezain isil** (5); **bezain isil** (13); **borroka isil** (3); **dena isil** (5); **denak isil** (7); **denak isil isilik** (4); **dut isil** (3); **edo isil** (4); **ere isil** (9); **ere isil isilik** (3); **eta isil** (70); **eta isil gordean** (5); **eta isil gordeka** (5); **eta isil isila** (7); **eta isil isilik** (21); **ezkutuan eta isil** (4); **gau isil** (5); **gela isil** (5); **geldi eta isil** (3); **gizon isil** (4); **gizon isil eta** (3); **guztiak isil** (3); **guztiak isil isilik** (3); **harry isil** (4); **harry isil isilik** (3); **hermione isil** (3); **hots isil** (4); **irudi isil** (3)

**isil ari** (3); **isil baina** (4); **isil bat** (56); **isil bat egin** (4); **isil bat egiten** (3); **isil batean** (11); **isil batek** (5); **isil baten** (4); **isil batez** (6); **isil eta** (74); **isil geldi** (3); **isil geratu** (3); **isil gordean** (32); **isil gordeka** (51); **isil gordeka gaztelutik** (3); **isil gordeka ibili** (3); **isil haren** (4); **isil hark** (5); **isil horrek** (3); **isil hura** (5); **isil isil** (5); **isil isila** (57); **isil isila egon** (8); **isil isila eta** (3); **isil isila geratu** (10); **isil isilean** (13); **isil isilik** (294); **isil isilik dago** (6); **isil isilik egon** (16); **isil isilik egongo** (4); **isil isilik egoten** (3); **isil isilik entzun** (4); **isil isilik entzuten** (4); **isil isilik eta** (6); **isil isilik gelditu** (7); **isil isilik geratu** (25); **isil isilik joan** (4); **isil isilik zegoen** (8); **isil isilik zeuden** (7); **isil isilka** (6); **isil mandatari** (5); **isil misilean** (6); **isil misilka** (35); **isil nadin** (10); **isil ostuka** (3); **isil samarra** (4); **isil zaitez** (28); **isil zaitezte** (3); **isil zedin** (12); **isil zegoen** (3); **keinu isil** (3); **lagun isil** (3); **lan isil** (4); **lan isil eta** (3); **lekuko isil** (4); **modu isil** (4); **mutil isil** (3); **ni isil** (4); **ni isil isilik** (3); **nintzen isil** (4); **nintzen isil isilik** (3); **nola isil** (3); **oihu isil** (3); **orduan isil** (3); **oso isil** (4); **osoan isil** (3); **otoitz isil** (3); **soinu isil** (3); **soinu isil bat** (3); **zen isil** (9); **zen isil isilik** (4); **ziren isil** (3); **zuen isil** (12)

**baiezko isila** (5); **baiezko isila egin** (5); **baina isila** (3); **barre isila** (5); **bezain isila** (6); **elkarretaratze isila** (5); **eta isil isila** (7); **eta isila** (29); **eta isila zen** (5); **gizon isila** (11); **hain isila** (4); **isil isila** (57); **isil isila egon** (8); **isil isila eta** (3); **isil isila geratu** (10); **isila bezain** (3); **isila da** (18); **isila darion** (3); **isila delako** (3); **isila den** (3); **isila egin** (17); **isila egin zuen** (4); **isila egin zuten** (3); **isila egiten** (3); **isila egon** (8); **isila egon zen** (5); **isila ematen** (3); **isila ere** (3); **isila eta** (33); **isila geratu** (10); **isila geratu zen** (10); **isila izan** (18); **isila izan zen** (10); **isila izango** (8); **isila izango da** (3); **isila izanik** (3); **isila zen** (23); **lan isila** (8); **lekuko isila** (8); **lekuko isila izan** (3); **mailu isila** (3); **manifestazioa isila** (3); **musika isila** (5); **nahiko isila** (4); **negar isila** (5); **negar isila darion** (3); **oso isila** (5); **pertsona isila** (4)

**are isilago** (7); **baino isilago** (22); **baino isilago egon** (3); **baino isilago geratu** (4); **baino isilagoa** (3); **elkarretaratze isilak** (7); **eta isilago** (10); **eta isilagoa** (4); **eta isilak** (9); **eta isilak ziren** (4); **eta isilaren** (3); **gero eta isilago** (5); **harria baino isilago** (7); **hitz isilak** (6); **inoiz baino isilago** (5); **iraultza isilaren** (3); **iraultza isilaren hitzak** (3); **isilago egon** (3); **isilago eta** (5); **isilago geratu** (5); **isilago hitz** (7); **isilago zegoen** (3); **isilagoa eta** (4); **isilak dira** (4); **isilak egin** (4); **isilak egin ziren** (3); **isilak ere** (3); **isilak eta** (7); **isilak izan** (7); **isilak izan ziren** (3); **isilak izango** (3); **isilak izango dira** (3); **isilak ziren** (8); **isilaren hitzak** (3); **malko isilak** (3); **ohi baino isilago** (4); **oso**

isilak (4)
bere isilean (3); elkarretaratze isilean (3); erabateko isilean (3); gauaren isilean (4)

# isilaldi *(orobat **ixilaldi** g.er.) iz* isiltasunezko bitartea. ik **isilune**.

Orain, bost minutuko **isilaldia**. Joseba Sarrionandia

**Isilaldiak** bi minutu inguru iraun zuen **Isilaldi** kezkagarri bat etorri zen. Jose Morales

Azkenean, beste **isilaldi** labur baina astun baten buruan [...]. Migel Angel Mintegi

**Ixilaldi** llabur bateko porrot eder baten aurretik edo ondotik. Patziku Perurena

**Isilaldi** luzea igaroko da Sorayak hitz egin aurretik. Oskar Arana

**Isilaldi** luze setatsu bat etorri zen ondoren. Koro Navarro

Orduan **isilaldi** trinkoa gauzatu da. Txillardegi

Barealdia eta **isilaldia** ziren orain amaren baitan, goibeltasun halako bat etxe inguruan. Mirentxu Larrañaga

Beste **isilaldi** bat izan zen. Pablo Sastre

**Isilaldia** egin du jarraitu aurretik. Pello Lizarralde

Orduan, gure **isilaldia** eten, eta esan zuen: Bere burua zigortu beharra zeukan **isilaldia** beste egun batez luzatuz. Oskar Arana

Irri urduriak, kalaka funsgabeak eta bat-bateko **isilaldiak** tartekatu dira jokoa hasi aurreko uneetan. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazen hor tentsio-puntu bat, hitzetan adierazten ez zena, ekintzetan ere gauzatzen ez zena, baina **isilaldietan** sumatzen zena, begiradetan nabarmentzen zena. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

beste isilaldi (7); beste isilaldi bat (4); eta isilaldi (7); isilaldi bat (17); isilaldi bat egin (3); isilaldi bat izan (8); isilaldi baten (12); isilaldi baten ondoren (7); isilaldi baten ondotik (3); isilaldi luze (12); isilaldi luze bat (4); isilaldi luze baten (5); isilaldi luzea (11); isilaldi luzeak (4); isilaldia egin (6); minutuko isilaldia (4)

# isilalditxo *iz* isilaldi laburra.

**Isilalditxo** bat; Ane, haurra kulunkatzen, isilka: [...]. Pablo Sastre

**Isilalditxo** bat egon zen, gero Filotti zaharrak keinu egin eta Gina sartu zen. Koldo Biguri

Ez -gehitu zuen jeneralak, **isilalditxo** baten ondoren, eta gero, ahots apalagoz-. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

isilalditxo bat (3)

# isilarazi *(354 agerraldi, 125 liburu eta 101 artikulutan; orobat **ixilarazi** 22 agerraldi, 3 liburu eta 18 artikulutan)*, isilaraz, isilarazten **1** du *ad* isiltzera behartu. (norbait)

Saiatu nintzen keinuka eskatzen Monari Johnny **isilarazteko**. Fernando Rey

Danik, biei begira, eskutik heltzen dio Joanari **isilarazteko,** baina Joana ez da isiltzen. dago hura **isilarazterik** ardoa edan duenean. Antton Olano

Ezbeharren minak **isilarazten** nau. Askoren artean

-Zergatik **isilarazi** nauzu? -esan zion Ronek haserre. Iñaki Mendiguren

Besoa goitituz **isilarazi** ninduen. Aingeru Epaltza

**Isilarazten** duzunean, mutu; mintzarazten duzunean, etorri oneko. Jon Muñoz

- **Isilaraz** ezazu atso hori! -bortiztu zen apeza-. Itxaro Borda

"Hush up, silly!", **isilarazi** zuen Lizek zakar. Bernardo Atxaga

Antzina, deabrua erabili zuen boteréak, herritarrak **isilarazteko** eta kikiltzeko. Joan Mari Irigoien

Auskalo zer ez ote duten asmatuko kazetariak **isilarazteko**. Migel Angel Mintegi

Kepak, zutituta eta lurrari ostikoka **isilarazi** ditu oihulariak. Aingeru Epaltza

Lagunak mihiari eragiten hasi zirenean, Kearney jaunarekin [...] ezkondu eta **isilarazi** zituen denak. Irene Aldasoro

Batzu eta besteak **ixilarazi** ditu Abbas jaunak. Herria

· Hasieran, adar meharrak astindu eta txoriak **isilarazi** dituzte. Itziar Otegi

Harrondoko zakurrak lo-hautsez **isilarazi** zituzten. Itxaro Borda

**2** (zerbait)

Ez **isilarazi** goresten zaituztenen ahoa. Elizen arteko biblia

Dumbledorek eskua jaso zuen azalpen-zaparrada hura **isilarazteko**. Iñaki Mendiguren

Bere barrengo harrak **isilarazi** nahi dituen aberaskoteak ez du abadia bat jasoarazten, museo bat baino. Anjel Lertxundi

Zure kanta-hotsa **isilaraziko** dut, zure zitara-soinua ez da berriro entzungo. Elizen arteko biblia

Hatz-kolpe batez **isilarazi** nuen Ximurraren erantzungailu automatikoko emakume ahots konputerizatua. Aingeru Epaltza

Egun horretan, Anarekiko hitzorduaren ondorioz-edo, bakan jotzen nauten zirimola baikor horietariko batek **isilarazten** zizkidan sabel hutsaren arrangurak. Aingeru Epaltza

Tonuerdiko maiztasun-aldaketa batek nerbio-zuntz horietariko 400 **isilaraziko** ditu eta beste 400 aktibatu. Irene Aldasoro

Historia irabazleek idazten dute jakina denez, baina, hori baino areago, **isilarazi** egiten zaigu gure izen eta izate propioaren historia txikia ere. Jokin Urain

Gerrako kontuak errezel gisako tabu baten ostean ezkutatu edo **isilarazi** ziren Euskal Herrian luzaroan. Jokin Urain

*Bizkaia* bouaren zeregina Lagako kanoiak **isilaraztea** zen. Edorta Jimenez

Erran behar da trabak izan zituela irratiak, ez ttipiak, behin baino gehiagotan **ixilarazia** izaiteraino. Herria

**3** (era burutua izenondo gisa)

Arrazoi sozio-politiko-kulturalengatik ahots **isilaraziak** badirela dio eta horien berri eman nahi duela. Ana Urkiza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

ahotsa isilarazi (5); artekariak isilarazi (3); asko isilarazi (4); batek isilarazi (4); batez isilarazi (6); batez isilarazi zuen (4); berehala isilarazi (4); betiko isilarazi (3); dena isilarazten (3); edo isilarazi (3); eta isilarazi (6); eta isilarazi egin (3); eta isilarazten (5); hura isilarazteko (3); isilarazi behar (5); isilarazi ditu (6); isilarazi du (5); isilarazi egin (9); isilarazi egiten (6); isilarazi eta (7); isilarazi nahi (25); isilarazi nahi ditu (3); isilarazi nahi izan (3); isilarazi nahi izatea (3); isilarazi zituen (13); isilarazi zituzten (3); isilarazi zuen (17); isilarazi zuten (8); isilaraziko ditu (3); isilarazten saiatu (4); isilarazten zuen (3

**isilarazle** *(corpusean **ixilarazle** soilik) izond* isilarazten duena.

Kausa [...] beti edo gehienean da kausa eragozlea, zapuztailea, galarazlea eta **ixilarazlea,** hitzaren eta arrazoiketa garbiaren etsaia. Iñaki Segurola

---

isilasmo *ik* **isil 9**.

---

**isilberri** *izond* isileko berria.

Burusoil, gorpuzkera sendokoa, doluz jantzia, [...] hantxe zegoen, leiho ondoan zutik, Zunz behargin neskaren **isilberrien** zain. Juan Garzia

Hala, halako urtemuga malenkoniaz eta erotismo hutsalez beteetan, Carlos Argentino Daneri-ren **isilberriak** jasotzen hasi nintzen pixkanaka. Juan Garzia

Varisco ere andregaiturik zegoen, eta elkartasun sakona eta **isilberri** intimozko truke ugaria zebilen horrenbestez bien artean. Juan Garzia

---

**isilbidezko** *izlag* isileko.

Bigarrena Homerotik Hesiodora pasatzen da **(isilbidezko** omenaldi ez nolanahikoa eginez, eraikuntza jaukalaren frontisean, poesia didaktikoaren aitalehenari). Juan Garzia

Adiskide edo maitale berriren bat hautatzen dutela, ez dituk elkarrekiko loturez askatuko, ez bada bestearen baimen ezkutuko eta **isilbidezkoaz** . Xabier Olarra

---

**isildegi** *iz*

Noizbait idatz nezala nahi zuen, edo hala interpretatu nuen nik orduan, kontu hau egundaino **isildegian** gorde dudan arren. Koldo Izagirre

---

**isildu**, isil(du), isiltzen *(orobat **ixildu** g.er.)* **1** da *ad* isilik gelditu. (norbait)

Ama ez zen **isiltzen** . Egor Timofeievitx ere **isildu** egin zen azkenean. Jose Morales

**Isildu** egin nintzen ni, eta **isildu** egin zen bera. Inazio Mujika Iraola

**Isildu** ginen biak. Piarres Aintziart

Ni sartzean, **isildu** ziren. Daniel Landart

**-Isil** hadi behingoan, emakumea. Juan Garzia

**-Isildu** zaitez, baina, neska! -esaten zion amak-. Josu Zabaleta

**-Isildu** ! Joxan Elosegi

**Isildu** ! -ikaratu zen koronela. Jose Morales

Harryk bortizki buruaz ezezkoa egin zion Nevilleri, **isil** zedin. Iñaki Mendiguren

Esanahia argitzeko inor ez bada, hizketa arroztuna **isil** dadila batzarrean. Elizen arteko biblia

Hizketan jarraitu zuen Albertek, **isildu** ezinik, nonbait: [...]. Jon Muñoz

Eta orduak eta orduak ematen zituen, **isildu** gabe, bere haurtzaroko kanta frantsesak kantari: [...]. Joxe Austin Arrieta

Gero **ixildu** ziren eta ixiltasunak bete zuen eliza. Michel Oronoz

Biltzar guztia **isildu** egin zen Paulo eta Bernaberi entzuteko. Elizen arteko biblia

Abesbatza **isildu** zenean. Jon Muñoz

Jerry une batez **isildu,** eta begiak itxi eta ireki zituen. Koro Navarro

Esaldi hori bukatzean ikara egin nuen, eta, une batez, **isildu** nintzen. Koro Navarro

Gizonak **isildu** egin ziren eta Führerra hasi zen hizketan. Koro Navarro

Gero denak **isildu** ziren istant batean. Karlos Zabala

Hor ari zen, tar-tar-tar **isildu** gabe, toki zoldazu horren dohainak kantari. Aingeru Epaltza

Aldian behin, norbaitek emandako hizpideari lotu eta orduak eta orduak pasatzen zituen **isildu** gabe. Bernardo Atxaga

Doi-doi **isildu** naiz. Mirentxu Larrañaga

Seko **isildu** zen ate ondoko morroi oihukaria. Aingeru Epaltza

Kolpetik **isildu** zen Héraclius. Josu Zabaleta

**Isildu** gabe hizketan ari naizelako. Josu Zabaleta

**Isildu** behar luze bat etorri zitzaigun denoi. Koldo Izagirre

**Isiltzea** erabaki nuen. Bernardo Atxaga

Hobe nuen **isiltzea** . Monika Etxebarria

Higuinez mukuru, **isiltzea** zuhurrena. Txillardegi

Gizonetan zaharrenak ahots leunez, hitz-dardaraz, **isiltzeko** esan zien emakumeei. Felipe Juaristi

Behingoz **isiltzeko** eskatu zigun norbaitek. Joxe Austin Arrieta

**Isiltzeko** hotsak ere entzun ziren. Anjel Lertxundi

*ik* isiltzeko.

**Isiltzeak** sendatzen baitu mina, batez ere, min asma ezina. Patziku Perurena

· Eta gidariak irratia itzali zuen eta dobermana **isildu** egin zen. Patxi Zubizarreta

-Gaur bertan izan balitz bezala gogoratzen dut, nola **isildu** ziren inguruko txori denak. Imanol Zurutuza

Baina zubira heldu orduko, igelak oro **isildu** zaizkit. Piarres Aintziart

**2** (zerbait)

Arnasarik ere ez zen entzuten; bihotzen taupadak ere **isildu** egin ziren. Agustin Otsoa

Garrasiak ozenak ziren, baina berehala **isildu** omen ziren. Koro Navarro

Noizbait **isildu** ziren oihuak. Imanol Zurutuza

Ahotsak **isildu** egin ziren. Juan Kruz Igerabide

Kanpaiak **isildu** ziren eta hizlariak berriro ekin zion bere jardunari. Koldo Biguri

Ekaitza haizekirri bihurtu zuen eta olatuen orroa **isildu** . Elizen arteko biblia

Musika **isiltzen** da eta Algernon sartzen da, alaitsu. Antton Olano

Gramofonoa **isildu** zen. Anjel Lertxundi

**Isildu** da danbolin-soinu alaia, amaitu da festazaleen zarata-hotsa, **isildu** da zitara-soinu alaia. Elizen arteko biblia

Eskua altxatzen du Ermitak eta berehala **isiltzen** dira haizea eta huntza. Michel Oronoz

Danborren arrada une batez handitu eta gero **isildu** egin zen. Agustin Otsoa

Zalaparta **isildu** arte itxaron zuen Ruche jaunak. Jon Muñoz

Iduri izan zuen den-dena **isildu** zela gurekin batera. Bernardo Atxaga

Korapiloa **isildu** egiten da, baina hor dago, gordeta, harik eta garrasi batean esnatu eta azaltzen den arte. Lander Garro

Arnasaren txistua ez zaio **isiltzen**. Xabier Etxabe

· **3** du *ad* zerbait ez esan, ez adierazi.

-Ortzegunean konpromiso bat zenuela erran zenidanean, ederki **isildu** zenuen ez zinela gauaz itzuliko. Aingeru Epaltza

Zerbait nik esan bezala ez bada edota **isildu** badut, ez da nire borondatez izan. Imanol Unzurrunzaga

Zure maitasun eta fintasuna ez ditut batzar nagusian **isildu**. Elizen arteko biblia

Datu hori badakit interesatu egingo zitzaizuna, eta **isildu** egin nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Zalantzaz ito beharrean zegoen, zer egin ez zekiela: ikusitakoa azaldu ala **isildu**. Askoren artean

Sekretu moduko bat zen; nerabeek helduen aurrean **isildu** ohi dituzten barne-kontuetako bat. Bernardo Atxaga

Faxistak hau guztia **isiltzen** saiatu ziren. Pello Salaburu

Amodioarenak ordea alferrik **isildu** dituzu: ez ditut zuk bezala isilean gordeko; interes sobera handi batek behartzen nau neure isiltasuna haustera. Jon Muñoz

Funtsezko elementua da zein datu ematen duzun eta zein **isiltzen** duzun. Xabier Mendiguren Elizegi

Zuen amak asko daki **isiltzen** denaz, esaten ez denaz. Arantxa Iturbe

Zigor zaitzala gogor Jainkoak, esan dizkizun hitzetarik bat ere **isiltzen** badidazu. Elizen arteko biblia

Hori da, hortxe dago gaur egun **isiltzen** den egietako bat: [...]. Bernardo Atxaga

**4** isilarazi.

Airearen dardarak **isildu** egin gaitu instante labur batez. Anjel Lertxundi

Erakundea alderdi politiko bihurtzearen alde zegoen buruzagia betiko **isildu** zutenean. Bernardo Atxaga

Eztarriko minak eta bakar-bakarrik nengoela ohartzeak **isildu** ninduten. Aingeru Epaltza

Eta hala, eztarrian erdi itotako garrasi batzuk entzun ziren, lantza kolpez berehalakoan **isildu** zituztenak, eta karrika inor gabe geratu zen istant batean. Karlos Zabala

Betiko **isildu** zituzten beste garai batean herriko plazan entzundako barreak. Edurne Elizondo

Goizeko ordu txikietan, auzo guztia lotan eta ni, berriz, umearen negarra **isildu** ezinik. Arantxa Iturbe

**Isildu** eta desagertarazi nahi den iragana porlanez estali, eta fini! Jokin Urain

Gauzak gaizki bazihoazkion, Ttipik lehengo astean erran bezala, ederki **isildu** zuen, dena kalitate, informatika eta kontabilitate. Aingeru Epaltza

Ordena barruko tirabirak **isildu** nahi ziren horrela. Askoren artean

Berak zioenez, azken aldiko historian Espainiako ilustrazioa **isildu** egin zuten, eta, azkenerako, ez zela existitu sinestarazi ziguten. Ramon Saizarbitoria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**isil bedi** (4); **isil hadi** (33); **isil hadi eta** (4)

**ahotsa isildu** (6); **ahotsa isildu egin** (3); **ahotsak isildu** (5); **aita isildu** (3); **ala isildu** (3); **aldi baterako isildu** (3); **andrea isildu** (3); **asko isildu** (3); **aurrean isildu** (6); **azkenean isildu** (3); **baina berehala isildu** (3); **baina isildu** (34); **baina isildu egin** (26); **baitzen isildu** (3); **bat batean isildu** (24); **batean isildu** (35); **batean isildu egin** (8); **batean isildu eta** (5); **batean isildu zen** (7); **batean isildu ziren** (3); **batera isildu** (3); **baterako isildu** (3); **baterako isildu eta** (3); **batez isildu** (19); **batez isildu egin** (7); **berehala isildu** (16); **berehala isildu zen** (7); **berriro isildu** (7); **berriro isildu zen** (6); **berriz isildu** (3); **betiko isildu** (4); **bezala isildu** (3); **biak isildu** (3); **da isildu** (11); **dena isildu** (3); **denak isildu** (13); **denak isildu eta** (3); **denak isildu ziren** (6); **doinua isildu** (3); **dut isildu** (3); **ederki isildu** (3); **edo isildu** (4); **erabat isildu** (4); **erdian isildu** (3); **ere isildu** (20); **ere isildu egin** (10); **ere isildu zen** (3); **eta berehala isildu** (4); **eta gero isildu** (5); **eta gitarra isildu** (3); **eta isildu** (92); **eta isildu egin** (54); **eta isildu egingo** (4); **eta isildu egiten** (10); **ez baitzen isildu** (3); **ez da isildu** (9); **ez isildu** (3); **ez nintzen isildu** (4); **ez zen isildu** (13); **ez ziren isildu** (5); **gehiago isildu** (3); **gero isildu** (15); **gero isildu egin** (9); **gitarra isildu** (3); **gitarra isildu da** (3); **guztiak isildu** (6); **halako batean isildu** (3); **hartan isildu** (4); **hotsa isildu** (7); **hotsa isildu egin** (3)

**isildu behar** (16); **isildu behar dute** (3); **isildu behar izan** (4); **isildu beharra** (4); **isildu da** (33); **isildu denean** (4); **isildu dira** (8); **isildu edo** (4); **isildu egin** (382); **isildu egin baitzen** (4); **isildu egin behar** (12); **isildu egin da** (30); **isildu egin dira** (9); **isildu egin gara** (4); **isildu egin ginen** (6); **isildu egin naiz** (6); **isildu egin nintzen** (35); **isildu egin zara** (3); **isildu egin zela** (4); **isildu egin zen** (208); **isildu egin ziren** (44); **isildu egingo** (14); **isildu egingo naiz** (3); **isildu egiten** (64); **isildu egiten da** (15); **isildu egiten dira** (11); **isildu egiten gara** (3); **isildu egiten nintzen** (6); **isildu egiten zen** (13); **isildu egiten ziren** (4); **isildu ere** (14); **isildu ere egin** (4); **isildu ere egiten** (3); **isildu eta** (63); **isildu eta arraun** (3); **isildu eta ez** (4); **isildu ez** (6); **isildu ezin** (3); **isildu gabe** (37); **isildu gabe hizketan** (3); **isildu ginen** (6); **isildu hadi** (6); **isildu nahi** (10); **isildu naiz** (3); **isildu nintzen** (8); **isildu ondoren** (4); **isildu zaitez** (5); **isildu zela** (3); **isildu zen** (124); **isildu zen arte** (3); **isildu zen eta** (3); **isildu zen une** (3); **isildu zenean** (20); **isildu ziren** (41); **isildu ziren denak** (3); **isildu zirenean** (6); **isildu zituen** (5); **isildu zituzten** (3); **isildu zuen** (5)

**ezin isildua** (6); **ezin isildua zen** (3); **isildua izan** (3); **isildua zen** (6); **isilduak ziren** (5); **kolpetik isildu** (3); **laster isildu** (5); **literarioa isildu** (3); **musika isildu** (11); **musika isildu egin** (4); **ni isildu** (3); **nintzen isildu** (4); **nuen isildu** (3); **orduantxe isildu** (3); **segituan isildu** (7); **segituan isildu zen** (4); **seko isildu** (3); **une batez isildu** (14); **zen isildu** (15); **zergatik isildu** (5); **ziren isildu** (6); **zuen eta isildu** (3); **zuzendari literarioa isildu** (3)

**da isilduko** (3); **eta isilduko** (4); **ez da isilduko** (3); **ez naiz isilduko** (3); **isilduko al** (17); **isilduko al haiz** (3); **isilduko al zara** (8); **isilduko al zarete** (5); **isilduko balira** (5); **isilduko hiza** (3); **isilduko naiz** (3); **isilduz eta** (3); **isilduz joan** (7); **isilduz joan zen** (4); **naiz isilduko** (3)

---

# isildura *iz* isiltasuna.

**Isildura** honen barne barnean gauzak nahi ditut erran, ez besterik. Piarres Aintziart

Eta itsasoaren istilua eta **isildura,** nola gizon bat gora eta behera ibili eta bertan gelditu zen, tente, beren aurrean. Anton Garikano

---

# isilean *(641 agerraldi, 162 liburu eta 81 artikulutan orobat* ***ixilean*** *25 agerraldi, 6 liburu eta 15 artikulutan)* **1** *adlag* ezkutuan, gordean; aditzera eman gabe. ik **isilpe 2.**

Bi agenteak **isilean** abiatu ziren Parisko karrika zaratatsuetan barrena. Alberto Ladron Arana

Badakigu hainbat aldiz elkarrizketatu zela **isilean** Frantziskorekin. Askoren artean

On da **ixilean** jokatzea hori baita diplomatikoen lana. Herria

Beti goseak egoten nintzen eta **isilean** lapurtzen nuen ogia kalean paseoan nenbilen bitartean jateko. Pello Lizarralde

Gizonak **isilean** behatu zion, eta hortik segitu zuen ezen hobe zuela ez hitz egitea. Patxi Zubizarreta

Tratua **isilean** egingo da. Itziar Otegi

Ez zuen hura salatu nahi, eta **isilean** uztea erabaki zuen. Elizen arteko biblia

Hura zer ote zen galdetzen zion **isilean** bere buruari. Askoren artean

Orduan **isilean** egin zuena "Orion" sarean, orain badakigu zer izan zen. Marzel Etxehandi

Gaur egun arte emakume askok **isilean** pairatu dute indarkeria klase hori. Luis Elberdin

Zu **isilean** biziki maitatzeari askietsirik, neure amodioaz gozatzen nuen bederen. Jon Muñoz

Baina hainbeste urtez hegaldi haren inguruan sortutako zenbait anekdota **isilean** egon dira. Pello Salaburu

Nik neuk, **isilean,** eskuineko zaldiaren gainean etorri ohi zen "postilloi" mutikoa miresten nuen bereziki. Txillardegi

Eta esaten zidan **isilean:** guk odol noblea diagu zainetan. Pello Lizarralde

Jada ezin da **isilean** nabigatu, eta inork ezin du bermatu, era berean, Internet bidezko posta trukea ere isilekoa dela. Berria - Gaiak

**2** (-en atzizkiaren eskuinean) -ak jakin gabe, -a jabetu gabe.

Enrike Labritekoa enperadorearekin tratuan ari ez ote den bere koinatuaren **isilean,** Iruñea bakez berreskuratzeko ametsean. Aingeru Epaltza

Biharamunean Diharce-ri idatzi zion erranez afera hori osoki haien **ixilean** tratatu zela. Xipri Arbelbide

Errege Henrike lehenago airatua zen, bere soldadu guztien **isilean** eta bere koinatu ezaxola madarikatzen. Aingeru Epaltza

Nire **isilean** elkarri zerbait erran nahi diotelarik zuen mintzairan aritzen dira aita-semeak. Aingeru Epaltza

Napolesetik Veneziara joan ziren Damián Tuterakoa eta Paolo Zubia, gauaren estalki beltza baliaturik, ezkutuan eta inoren **isilean,** lapur edo gaizkile gisa. Felipe Juaristi

Besteen **isilean** joan nendin, non dagoen jakin beharko nukeela-eta eraman ninduen. Edorta Jimenez

Aita-amen jakinean ala **isilean..**. Aingeru Epaltza

**3** (-ko atzizkiaren eskuinean) isiltasunean ik **isil 8**.

Ez iraindu erregea, ez eta zeure baitan ere; ez mintza aberatsaren aurka, ez eta zeure gelako **isilean** ere. Elizen arteko biblia

Arrantzaka noizean behin astoren bat, eta kurrinka txerriak, eta miauka katuak; gaueko **isilean**-eta biziago mintza soinu horiek guztiak. zer daukan hark bere bihotzeko **isilean** gordeta Patxi Ezkiaga

**4** isilik, hitz egin gabe.

Denbora tarte luze batez **isilean** bidaiatu genuen, nor bere pentsamenduetan murgilduta. Alberto Ladron Arana

Herritik irten arteko tartea **isilean** egin genuen. Edorta Jimenez

Batzuetan pazientziaz eta **isilean** jasotzen zituen, bestetzuetan garrasika eta auhenka. Patxi Zubizarreta

Une batez **isilean** egon ostean, gizonak, irribarrez, gaineratu zuen: [...]. Patxi Zubizarreta

Gotainerakoan, eliza hirukunak errezebitu ninduen, **isilean**. Txillardegi

Ikasi dugu dagoeneko **isilean** irakurtzen, zorionean ikasi ere. Juan Garzia

-Sei eta erdietan abiatu -esan zuen, eta ezpainak **isilean** mugitzen hasi zen, zenbaketan ari balitz bezala-. Xabier Olarra

**5** ***isil-isilean*** *(13 agerraldi, 10 liburu eta 2 artikulutan)*

Eta handik denbora asko baino lehen, **isil**-isilean ari ginela eta bigarren ateari heldu nionean juxtu, esan zidan. Jesus Mari Mendizabal

Gero **isil isilean** irten, atea kontuz itxi eta kalean goazen esan nion Josemariri. Joseba Sarrionandia

Eta laztana ematerakoan, **isil** isilean belarri zulo-zulora hitzok esan zizkion: [...]. Gotzon Garate

Zuhaitzei isil-**isilean** hitz eta mintzo xotilak irribarretzen. Pello Zabala

**6** ***isilean gorde***

Berria **isilean** gordetzeko agindu zion Arturrek. Juan Kruz Igerabide

Entzun ondoren inori azaldu gabe **isilean** gorde behar nuela. Ramon Saizarbitoria

Baina, noski, hori aipatzea ez zitzaion komeni, eta **isilean** gorde zuen. **Isilean** gordeko nizula hitz emana nion neure buruari. Ramon Saizarbitoria

**Isilean** gorde nahiko dituzten abenturen berri badudala. Jon Muñoz

Alabaina, ez zen ausartzen hari hitz erdi bat ere esatera, eta **isilean** gordetzen zuen bere maitemina. Juan Kruz Igerabide

Amodioarenak ordea alferrik isildu dituzu: ez ditut zuk bezala **isilean** gordeko; interes sobera handi batek behartzen nau neure isiltasuna haustera. Jon Muñoz

Zure sekretua **isilean** gordetzera behartu nauzu. Oskar Arana

Hacquinek **isilean** gorde zuen aitortza hori 1953ra arte, eta orduan gutun bat bidali zuen *Libération* egunkarira, Zolaren hiltzaileak bere krimena aitortu ziola esanez. Karlos Zabala

-Hain da gizon **isilean** gorde zalea. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arte isilean** (3); **baina isilean** (8); **batez isilean** (4); **erabateko isilean** (3); **ere isilean** (7); **ere isilean gorde** (3); **esan zuen isilean** (4); **eta isilean** (52); **eta isilean egon** (3); **guztia isilean** (3); **hau isilean** (3); **hori isilean** (4); **isil isilean** (13); **isilean alde** (3); **isilean ari** (6); **isilean baina** (3); **isilean begira** (4); **isilean bere** (3); **isilean eduki** (5); **isilean egin** (14); **isilean egin zuen** (4); **isilean egindako** (3); **isilean egon** (8); **isilean eta** (19); **isilean gelditu** (4); **isilean geratu** (4); **isilean gorde** (40); **isilean gorde behar** (3); **isilean gorde dute** (3); **isilean gorde nahi** (5); **isilean gorde zuen** (3); **isilean gordeko** (6); **isilean gordetzea** (6); **isilean gordetzeko** (5); **isilean gordetzen** (13); **isilean hasi** (3); **isilean ibili** (7); **isilean ibili ziren** (3); **isilean iraun** (3); **isilean jaiki** (4); **isilean jarraitu** (3); **isilean joan** (5); **isilean lan** (3); **isilean sartu** (5); **ni isilean** (3); **nuen isilean** (5); **sekretua isilean** (3); **une batez isilean** (3); **zen isilean** (6); **ziren isilean** (5); **zuen isilean** (10); **zuten isilean** (3)

---

# isileko *(orobat **ixileko** g.er.)* **1** *izlag* isilean dagoena, isilean ari dena, isilean egiten dena. ik**isilpeko; ezkutu**[2]**; gorde; sekretu**.

**Isileko** semeaz arrunt ahantzirik. Aingeru Epaltza

-Hori **isileko** maitaleren batek bidali dik. Xabier Etxabe

Huraxe zen gure **isileko** lotura. Joxan Elosegi

Berak hartu zuen tiroka polizia eta **isileko** agente bat zauritu zuen buruan. Jose Morales

**Isileko** poliziek epaileen aurrean ematen zituzten azalpenak entzuten. Jose Morales

Azken bi egunetan **isileko** poliziakoek orpoz orpo jarraitzen zioten. Jose Morales

Martin Irati aldeko **isileko** arrantzaria izana zen. Aingeru Epaltza

**Isileko** lanak egiteko eguraldi ezin hobea. Edorta Jimenez

Diskrezioa eta egiten ari diren **«isileko** lanarekiko» errespetua eskatu zuten. Berria - Euskal Herria

**Isileko** ekonomia desegiteko. Berria - Harian

Multinazionaleko zuzendariak eskatu zuen enpresak egindako azkeneko eskaintzei langileek **isileko** bozketarekin erantzuteko. Berria - Ekonomia

**Isileko** hitzarmen batengatik. Oskar Arana

Delako **isileko** arma haieri esker. Marzel Etxehandi

Gaixoen bekaitz zen, baita begiralearen bekaitz ere -doktoreak **isileko** mandatu misteriotsuak eginarazten baitzizkion-. Jose Morales

Charlieren burutazioa izan zen **isileko** ehizan edo arrantzan ibiltzekoa. Mirentxu Larrañaga

Aita **isileko** arrantzan edo ehizan aritutakoa zen. Mirentxu Larrañaga

Gau ezin hobea aukeratu genuen **isileko** arrantzarako. Mirentxu Larrañaga

Nazioen artean **isileko** gerra industriala piztu da. Juan Martin Elexpuru

Bolo-bolo dabilen **isileko** eztabaida. Berria - Harian

Arrazoiaren jarraitzaile ilun eta baketsuen **isileko** eskerrak. Juan Martin Elexpuru

Don Facundo burkidearen berbak entzuten ditut egunero **isileko** mitin batean, *La Lucha de Clases* irakurtzen dut txapelokerren ezkutuan. Koldo Izagirre

C hepatitisa **«isileko** izurria» dela dio Europako Droga-menpekotasunaren Behatokiak. Berria - Gaiak

· Ohiko belarriak ez ditu bereizten **isileko** hots horiek. Isabel Arrigain

**2** (izenondo gisa)

Zinegite **isileko** eta zehatz baten ondorio gisa. Juan Martin Elexpuru

Iraneko polizia **isilekoa**. Juan Kruz Igerabide

Komandoa **isilekoa** zenez, nire komando-lagunek bakarrik zekitean ETAn ibilia nintzela. Juan Kruz Igerabide

Ekitaldia **isilekoa** izan zen arren, argazkiak atera ziren. Ramon Saizarbitoria

Jada ezin da isilean nabigatu, eta inork ezin du bermatu, era berean, Internet bidezko posta trukea ere **isilekoa** dela. Berria - Gaiak

**3** (izen gisa) ik **isiltzeko**.

Mutilak bazeukan **isilekoren** bat, errespetatu beharrekoa. Karlos Zabala

Iturri onetik jaso duten **isilekoa** jakinarazi diote Factorykoek. **Isilekoak** esaten dizkiote elkarri, eta aldizka ozenki egiten dute algara. Edorta Jimenez

Baina lasai egon haiteke niregatik, nik bazekiat **isilekoak** gordetzen. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta isileko** (8); **isileko arrantzan** (4); **isileko ehizan** (5); **isileko lan** (5); **isileko lana** (3); **isileko polizia** (3); **isilekoak esaten** (3)

---

isilentzule ik **isil 10**.

---

**isilezin** *izond* ezin isilduzkoa.

Kalakari **isilezina,** bidaiari ipurtarina, gautxori nekaezina, edale zoroa eta emakumezale gogorra. Aingeru Epaltza

Ahots nagusiak, noski, Rychard Feynman fisikari gaztea, George Gamow txantxazalea eta Bertrand Russell **isilezina** ziren. Fernando Morillo

---

**isilgailu** *iz* zarata jakin bat isiltzeko gailua.

**Isilgailua** aske dut eta erortzeko zorian dago. Lopez de Arana

Goazen Dingoren **isilgailua** konpontzera. Lopez de Arana

Pistolak **isilgailua** jarrita zuenez, ardo botila bat zabaltzean bezalako zarata atera zuen. Aitor Arana

Nahiz eta pistolari bezala **isilgailua** ipini. Patxi Zubizarreta

---

**isilgailudun** *izond* isilgailua duena.

Aurreko gauean beren aitak erabilitako pistola **isilgailuduna** artean han ote zegoen begiratzera zihoala. Aitor Arana

---

isilgeldi ik **isil 12**.

---

isilgorde ik **isil 13**.

---

**isilik** *(3134 agerraldi, 253 liburu eta 235 artikulutan orobat* ***ixilik*** *217 agerraldi, 29 liburu eta 124 artikulutan)* **1** *adlag (norbait)* ezer esan gabe, hitzik egin gabe.

-Zaude **isilik**! -egin zuen oihu zaintzako beste soldadu batek, haserre. Jose Morales

-Zaude **isilik,** Nora! Anjel Lertxundi

Hago **isilik,** atso zatar hori! Jose Morales

-Hago **isilik,** eroa, hago **isilik**. Josu Zabaleta

Hago **isilik,** aho-handi! Aingeru Epaltza

Emakumeei ez zaie zilegi batzarrean hitzegitea; beude **isilik,** beraz, eta ager bitez menpeko, Moisesen legeak agintzen duen bezala. Elizen arteko biblia

Goazen -esan nion-, gauden **isilik**. Joxe Austin Arrieta

**Ixilik** zaudete, baina badakit zuen ixiltasun hori irakurtzen. Iñaki Segurola

Duela aste pare bat, larunbat batez, soberaxko edan nuen, eta gauza batzuk erran nituen, **isilik** egonik hobeko bainuen. Elena Touyarou

**Isilik** egin genuen Elsbethen etxerainoko bidea. Anjel Lertxundi

**Isilik** ageri zen eszena haietan, batzuetan lotsaz, gehienetan beldurrez. Anjel Lertxundi

Hamar bat segundo **isilik** egon eta gero, hitza hartu du berriz ere Xabik. Xabier Etxabe

**Isilik** geratu nintzaion, argazkietako bat sudur parean nuela. Juan Kruz Igerabide

Une honetan, hitzik egin gabe, **isilik** gelditzen bazara, etorriko zaie juduei norbaiten laguntza eta salbatuko dira. Elizen arteko biblia

Ondorioa espero ez genuena izan zen, berehala **isilik** gelditu baitziren etsaiak, **isilik** eta adi, hobeto esanda, musikak iraun zuen bitartean. Felipe Juaristi

Jendearekin ez ezik, animaliekin ere **isilik** egoten zen beti: **isilik** ematen zion edaten zaldiari, **isilik** uztartzen zuen, astiro eta nagiki mugitzen zen haren inguruan. esfortzurik gabe ikasleak **isilik** edukitzeko dohaina zeukan Snapek. Jose Morales

Hurrengo segundoak **isilik** egin zituen emakumeak. Aingeru Epaltza

**Isilik** ekin zion bere poltsa tikian arakatzeari. **Isilik** eutsi zion pixka batean, eta gero gehitu: […]. Aingeru Epaltza

**Isilik** hartu zuen txokolatea, ogi xigortuak emeki bustiz. Juan Kruz Igerabide

Pozak zoratzen egon naiz, baina **isilik,** oso **isilik** eman ditugu denok Francis etorri arteko minutu luzeak. Koldo Izagirre

**Isilik** jarraitu genuen bide luzean, eta berriro ere ustekabean harrapatu ninduen. Juan Kruz Igerabide

Alferrik dena; zeren Heriotzak, **isilik** inguratuta, bere itzal beltzean bildu baitzuen biktima. Koro Navarro

Tabakoaren ke gozoa **isilik** arnasten. Harkaitz Cano

Geldirik eta **isilik** irautea lortu nuen. Juan Kruz Igerabide

**Isilik** utzi zituen hiru gizonak mahaian, eta **isilik** eta ilun, gero eta ilunago, joan zen berriro bere txokora. Felipe Juaristi

Lerden eta zut, eta **isilik,** estatua bat irudi. Joxe Austin Arrieta

Bentaria etorri zen, **isilik**. Felipe Juaristi

Bi emakumeek elkar besarkatu zuten **isilik**. Felipe Juaristi

-Aginduak dituk, gu **isilik**. Koldo Izagirre

Ni, **isilik**. Joxe Austin Arrieta

· Txoriak **isilik** zeuden zuhaitz adarretan. Bernardo Atxaga

Bazirudien hontza ere konturatu zela haren garrantziaz eta lasai eta **isilik** zegoen. Iñaki Mendiguren

**2** (zerbait) zaratarik edo soinurik egin gabe.

Eguna joan eta eguna etorri, artilleria **isilik** egon zen. Mirentxu Larrañaga

Gaztelua isil- **isilik** zegoen; festa bukatu zela ematen zuen. Iñaki Mendiguren

Gotorleku guztiak **isilik** zeuden, mutu lubaki karlistak. Koro Navarro

Dorretxe inguruak **isilik** zeuden. Elena Touyarou

Gela isil-**isilik** zegoen, hutsik. Fernando Rey

Borda **isilik**. Koldo Izagirre

Jangela **isilik** geratu zen. Iñaki Mendiguren

Eta, haizerik gabe, hostoak ere **isilik** zeuden. Bernardo Atxaga

Azken hondarrak biltzen saiatzen ziren zalien latoi hotsak erantzun, euliak ere **isilik**. Koldo Izagirre

Bazterrak **isilik** zeuden, loaren longainaz estalirik bezala. Felipe Juaristi

Eseri ziren hirurak, eta hegaldia **isilik** abiatu zen. Joxemari Iturralde

Elizako kanpandorreko ezkila **isilik** dago oraingoan. Aingeru Epaltza

Piano mekanikoa **isilik** zegoen. Lopez de Arana

Han zegoen [biolina] mahai gainean distiraka, **isilik** eta atezuan, **isilik** eta esna, isileko bizian, edozein unetan isiltasuna hausteko prest. Felipe Juaristi

Bat-batean dena **isilik** geratu zen behean. Iñaki Mendiguren

## 3 isilka.

Hain **isilik** esaten zuen *yous,* ezen ez baitzen igartzen, eta ez zuen esnea baino edari biziagorik edaten, ahotsa zaintzeagatik. Irene Aldasoro

Ongi bainekien orduko ezen gai batzuk **isilik** mintzatzekoak zirela. Joan Mari Irigoien

Ahotsak entzuten zituen txutxu-mutxuka, **isilik** mintzatu nahian, eta gero masailezurren hotsa zetorkion, eta zimurtzen ziren paperena. Karlos Zabala

Besarka nezala eskatu zidan, **isilik**. Juan Kruz Igerabide

## 4 (erkaketetan)

Halaxe dabiltza kale eta bide suntsitu horietan barrena, oihalezko euren kartzela barruan, hilak **bezain isilik**. Estatua bat bezain **isilik** geratu zen denbora guztian. Hasier Etxeberria

Loroa, aldiz, esna-esna zegoen, harrizko sagu bat **bezain isilik,** Dontsuak hasieran bezala jarraitzen zuen, etxeko laratza **bezain isilik**. Xabier Paya

Riddlek, itzala **bezain isilik,** atetik irten eta jarraitu egin zion, Harry atzetik hanka-puntetan zihoala. Iñaki Mendiguren

Tunela hilobi bat **bezain isilik** zegoen Iñaki Mendiguren

## 5 (-en atzizkiaren eskuinean) -en isilean.

'Aitaren **isilik** nator', aitortu dio mutilak abadesari. Anjel Lertxundi

Nire senarraren **isilik,** berarekin geratu nintzen bere gogoa betetzeko eta, bide batez, nik neure jakinmina asetzeko. Juan Martin Elexpuru

Eta Florentek, azkenean, senarraren **isilik** zerbait ere ematea eskaini zion herabeti. Karlos Zabala

Mateoren **isilik** egotearen arrazoia zein ote zen galdetu nion nire buruari. Edorta Jimenez

## 6 *isil-isilik* (*304 agerraldi, 121 liburu eta 29 artikulutan*)

**Isil-isilik** klasean, isilik patioan, isilik bazter batean. Sonia Gonzalez

**Isil-isilik,** galtzak eta alkandora jantzi nituen, gimnasiako arropa izerdituaren gainetik. Anjel Lertxundi

Baindarrak **isil-isilik** geratu ziren, harri eta zur. Mirentxu Larrañaga

Quenu **isil-isilik** zegoen, arnasarekin ere hotsik ateratzen ez zuela. Karlos Zabala

Burua jiratu eta isil-**isilik** egon da zenbait segundoz. Pello Lizarralde

Selifan oso luzaz egon zen isil-**isilik** entzuten. Jose Morales

Ohean etzanda geratu zen, **isil-isilik,** sarrerako mugimenduei adi. Koro Navarro

Eta bizimina hazi ahalean, luzatuz doazkio ixil **ixilik,** negu minean osotara luzatu eta nabarmen ikusteraino. Patziku Perurena

Atzealdetik hurbildu nintzen **isil-isilik,** eta ez zen konturatu ere egin. Xabier Mendiguren Elizegi

Taibele ohean etzanda geratu zen, isil-**isilik,** sarrerako mugimenduei adi. Koro Navarro

Gainerako bezeroak geldirik zeuden, **isil-isilik**. Juan Kruz Igerabide

Orduan ere **isil-isilik** ni. Joxe Austin Arrieta

Katua bere lekura itzuli zen isil-**isilik**. Koro Navarro

Zozoak, isil-**isilik,** elorri txuriaren pipitta gorri-gorri horiek xanpa eta xanpa jaten. Pello Zabala

Artean ilun egoten zen, eta etxea **isil-isilik**. Anjel Lertxundi

## 7 *isilik gorde*

Marinelek ere **isilik** gorde zuten Hornosen gertatutakoa. Felipe Juaristi

Ene lagunarena **isilik** gordetzeko zeukan arrazoi berberagatik. Edorta Jimenez

Zaila da askotan ozenki salatzea **isilik** gorde nahi izaten den zerbait. Pello Salaburu

Hago lasai, **isilik** gordeko diat eta. Hasier Etxeberria

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)

**ahal bezain isilik** (6); **aita isilik** (7); **ama isilik** (6); **arte isilik** (23); **arte isilik egon** (6); **artean isilik** (5); **aurrean isilik** (21); **baina isilik** (43); **baina isilik geratu** (9); **bat isilik** (10); **batean isilik** (20); **batean isilik egon** (10); **batez isilik** (39); **batez isilik egon** (16); **batez isilik geratu** (11); **batzuk isilik** (9); **bazterrak isilik** (6); **bera isilik** (5); **beti isilik** (7); **bezain isilik** (21); **biak isilik** (12); **bitartean isilik** (6); **da isilik** (21); **dena isilik** (16); **denak isilik** (35); **denak isilik geratu** (12); **denak isilik zeuden** (6); **denok isilik** (6); **dira isilik** (10); **du isilik** (8); **du isilik egon** (6); **dugu isilik** (6); **edo isilik** (12); **egon hadi isilik** (7); **egon isilik** (24); **egon zen isilik** (6); **erabat isilik** (5); **ere isilik** (29); **eta isil isilik** (21); **eta isilik** (228); **eta isilik egon** (15); **eta isilik egoten** (6); **eta isilik gelditu** (8); **eta isilik geratu** (49); **eta isilik geratzen** (8); **eta isilik zegoen** (7); **ez da isilik** (5); **ez zen isilik** (8); **ezin dugu isilik** (5); **ezin isilik** (5); **geldi eta isilik** (7); **geldirik eta isilik** (9); **gero isilik** (15); **gero isilik geratu** (5); **ginen isilik** (6); **gizona isilik** (10); **guztia isilik** (5); **guztiak isilik** (10); **hadi isilik** (7); **hago isilik** (49); **haiek isilik** (5); **hain isilik** (12); **hobe isilik** (12); **ia isilik** (5); **inguruan isilik** (5); **isil isilik** (294); **isil isilik dago** (6); **isil isilik egon** (16); **isil isilik eta** (6); **isil isilik gelditu** (7); **isil isilik geratu** (25); **isil isilik zegoen** (8); **isil isilik zeuden** (7)

**isilik abiatu** (8); **isilik ari** (5); **isilik begiratu** (9); **isilik begiratzen** (5); **isilik beti** (6); **isilik dago** (31); **isilik dagoen** (5); **isilik daude** (22); **isilik eduki** (6); **isilik egin** (33); **isilik egin genuen** (9); **isilik egin zuten** (7); **isilik egoiten** (7); **isilik egon** (293); **isilik egon behar** (14); **isilik egon da** (12); **isilik egon dira** (5); **isilik egon eta** (14); **isilik egon ginen** (20); **isilik egon hadi** (17); **isilik egon ondoren** (11); **isilik egon zen** (62); **isilik egon ziren** (26); **isilik egongo** (20); **isilik egonik** (6); **isilik egotea** (48); **isilik egoteak** (5); **isilik egoteko** (59); **isilik egoteko agindu** (9); **isilik egoten** (51); **isilik egoten zen** (10); **isilik egotera** (7); **isilik eman** (8); **isilik entzun** (12); **isilik entzuten** (6); **isilik eta** (134); **isilik eta geldi** (5); **isilik eta pentsakor** (6); **isilik ez** (11)

**isilik gelditu** (132); **isilik gelditu da** (6); **isilik gelditu dira** (6); **isilik gelditu eta** (5); **isilik gelditu ginen** (7); **isilik gelditu nintzen** (11); **isilik gelditu zen** (44); **isilik gelditu ziren** (12); **isilik gelditzen** (18); **isilik gelditzen da** (5); **isilik geratu** (394); **isilik geratu da** (22); **isilik geratu dira** (13); **isilik geratu gara** (5); **isilik geratu ginen** (29); **isilik geratu nintzen** (25); **isilik geratu zen** (180); **isilik geratu ziren** (60); **isilik geratuko** (11); **isilik geratzea** (14); **isilik geratzeko** (8); **isilik geratzen** (54); **isilik geratzen da** (7); **isilik geratzen dira** (7); **isilik geratzen nintzen** (6); **isilik geratzen zen** (10); **isilik geunden** (10); **isilik gorde** (21); **isilik gordetzeko** (5); **isilik ibili** (14); **isilik iraun** (11); **isilik iraun zuen** (6); **isilik jarraitu** (36); **isilik jarraitu zuen** (14); **isilik jarraitzen** (20); **isilik jarraitzen zuen** (6); **isilik joan** (18); **isilik joan ginen** (5); **isilik lotu** (7); **isilik nengoen** (5); **isilik segitu** (15); **isilik segitu zuen** (7); **isilik segitzen** (6); **isilik utzi** (7); **isilik zaude** (5); **isilik zegoela** (6); **isilik zegoen** (93); **isilik zegoen eta** (5); **isilik zeuden** (45); **isilik zihoan** (9)

**ixone isilik** (5); **jendea isilik** (6); **ni isilik** (19); **nik isilik** (8); **nuen isilik** (6); **orain isilik** (9); **ordu arte isilik** (7); **ordura arte isilik** (7); **oso isilik** (10); **pixka batean isilik** (8); **une batez isilik** (23); **zaitez isilik** (5); **zaude isilik** (80); **zaudete isilik** (8); **zen isilik** (34); **zen isilik egon** (5); **ziren isilik** (11); **zuen isilik** (17)

---

# isilikako ik **isilkako**.

---

# isilka *(288 agerraldi, 75 liburu eta 2 artikulutan; orobat* **ixilka** *26 agerraldi, 5 liburu eta 17 artikulutan)* **1** *adlag* ahopeka, apalki. ik **isilik 3**.

-Ez -esan zuen **isilka** eta haserre-. Iñaki Mendiguren

-Biak -erantzun zion Hermionek **isilka**. Iñaki Mendiguren

-Prest? -galdetu zion Hermioneri **isilka-**. Iñaki Mendiguren

-Ez dela ezer aldatu? -Dumbledorek, **isilka-**. Iñaki Mendiguren

Ondoren, Marta bere ahizpa Mariari dei egitera joan zen, eta esan zion **isilka:** "Maisua hemen dun eta hots egiten din". Elizen arteko biblia

Belarrian **isilka** esaten zion: hire amak titi ederrak ditik? Pello Lizarralde

Munduko maitale guztiek belarrira **isilka** esaten dituzten hitzak. Aitor Arana

Gero, **isilka-:** gauza batek asko harritu nau: Euklidesi batuketak bost axola izateak! Jon Muñoz

**Isilka** mintzatu ziren bikiak, George eta Celia, ez esnatzeko. Koro Navarro

-Osaba Jim, osaba Jim! -deitu nuen, **isilka,** gizon botadunak entzun ez zezan. Koro Navarro

Herrian **isilka** esaten zuten Gaiztoa agian alde egina izango zela Hennerengandik. Koro Navarro

**Isilka** hitz egiten zioten elkarri eta begi keinuak egiten zituzten. Koro Navarro

Bill harro sentitu zen Carolek behin, **isilka,** Linda "zinezko pertsona" zela esan zionean. Koro Navarro

Hurrengo ostiralean, bederatzietan puntu-puntuan -erantsi zuen **isilka-**. Koro Navarro

Nor dela uste duzue? -galdetu zuen Ronek **isilka**. Iñaki Mendiguren

Mutilak irakurri zuen, baina **isilka** eta neskaren izenean geratuz, Tennysonen poema hautatuen lehen aleko lehen orrian idatziak zeuden hitzak: [...]. Koro Navarro

**Isilka** ari bazarete, urrutiratu txokoren batera. Bernardo Atxaga

Lenehanek **isilka** barre egin zuen. Irene Aldasoro

Negar egiten ari da **isilka**. Xabier Paya

-Azkenean! -egin du hasperen **isilka**. Imanol Zurutuza

· Gabrieli kontatu zion istorioa kontatzen hasi zen berriro ahots **isilka**. Irene Aldasoro

Patrizio kapitaina bere ganberan baitzegoen sukarraren aurka borrokan, eta beste bost marinelak berenetan madarikazio **isilka**. Felipe Juaristi

**2** isilean.

Bi gizon bidali zituen kanpamentutik, lurraldea **isilka** ikertzera. Jose Antonio Mujika

**Isilka** eta gordeka espaloian geldi zegoen tipoaren ondoraino iritsi zen. Migel Angel Mintegi

Ezkutuka eta **isilka,** jakina. Joan Mari Irigoien

**Isilka** Weasleytarrengana hurbiltzen saiatu zen. Iñaki Mendiguren

Tartaroak dira, Europara **isilka** sartu eta bertan laketuak. Matías Múgica

**isilka** harrapatzen zaituen sugearen gisa. Patxi Zubizarreta

**Isilka** igo ginen atikoraino. Koro Navarro

Emaztea bainugelan zegoen bitartean, senarrak **isilka** leihora joan eta kanpora begiratu zuen, etxaurreko lorategira. Iñaki Mendiguren

Gudarostea **isilka** sartu zen hirira, gudutik ihesi datorren gudarostea lotsaz **isilka** sartu ohi den bezala. Elizen arteko biblia

Zergatik alde egin duzu **isilka** eta engainuz, niri ohartarazi beharrean? Elizen arteko biblia

Familiartasun amultsuz hartu ninduen, eta **isilka** ia dena esaten zuen irri maltzur-aire batekin. Juan Garzia

**Isilka** sartu, eta egongelan lotan topatu nuen ama, nire zain. Juan Kruz Igerabide

Etorri bezain **isilka** irten nintzen, ama ez esnatzeko. Juan Kruz Igerabide

Eta beste galde frangoren artean hauxe oraino: diru hori oneski beretua bazuen, zendako ezarri duen **ixilka** Suisako banko batean... Herria

**3** ***isil-isilka***

Azkenekoz ikusi genuenean, isil-**isilka** ari zen irla zeharkatzen. Julen Gabiria

Urteak pasatu zituen galtzerdia isil-**isilka** betetzen. Julen Gabiria

**4** ***isilka-isilka***

**Isilka-isilka,** urek goraka egin zuten, eta oinak ere ukitu zizkieten. Julen Gabiria

**5** ***isilka-misilka***

**Isilka**-misilka mintzo zitzaidan, besotik helduta. Fernando Rey

Osabak esku batean zuzia zeraman, eta, bertzeaz besotik atxikitzen ninduela, baita ahoa belarrirat hurbiltzen ere, **isilka**-misilka erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Alde egiteko ordua iritsi zenean, bere garagardoa ordainduko nion galdetu zidan **isilka**-misilka. Fernando Rey

Nesken txutxu-mutxuak eta berbaroa apurka-apurka amatatu arte itxaron dute, gero, **isilka**-misilka, beren planari ekiteko. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxean **isilka**-misilka aterpetu ziren. Itxaro Borda

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**dumbledorek isilka** (5); **esan zion isilka** (10); **esan zuen isilka** (8); **eta isilka** (13); **harryk isilka** (6); **hermionek isilka** (8); **isil isilka** (6); **isilka ari** (3); **isilka esan** (3); **isilka esaten** (3); **isilka eta** (12); **isilka eta haserre** (4); **isilka hitz** (7); **isilka joan** (4); **isilka mintzatu** (3); **isilka misilka** (10); **isilka sartu** (7); **malfoyk isilka** (3); **riddlek isilka** (3); **ronek isilka** (7); **zen isilka** (5); **zien harryk isilka** (3); **zien isilka** (3); **zion dumbledorek isilka** (4); **zion harryk isilka** (3); **zion hermionek isilka** (4); **zion isilka** (17); **ziren isilka** (4); **zuen hermionek isilka** (3); **zuen isilka** (13); **zuen ronek isilka** (5)

---

# isilkako *(orobat* **isilikako***)* **1** *izond* isilka esana edo egina, isilpekoa.

Judeako bere lagun guztiei **isilkako** idazkia bidali zien, Jonatan eta lagunak harrapatzeko eskatuz. Elizen arteko biblia

Pesimistak **isilkako** armen beldur ziren. Marzel Etxehandi

**Isilkako** sare berean arizanak ziren, alemanen kontra. Marzel Etxehandi

Alemana frantsesa bezala baitzerabilen, denak bazekizkien, **isilkako** irratien bidez. Marzel Etxehandi

Egia bestelakoa zen; Gavardi mingaina dantzarazi nahi zion, **isilkako** kontuak ager zitzan. Karlos Zabala

Ezkutuko opariak sumina baretzen du, **isilkako** erregaloak haserrerik biziena. Elizen arteko biblia

Prozesuaren parte bakoitza bere arrazoiak agertzen ari zaio, **isilkako** mixkili-muxkuluan, Jaungoiko ahaltsuari. Pako Aristi

**2** isila.

Negarrarekin batean **isilkako** intziri bat ateratzen zitzaion. Joxean Agirre

Anitzi bakarkako edo **isilkako** otoitza ez zitzaien aski. Marzel Etxehandi

---

# isilkari *izond*

**Isilkari** gindoazen, leiho batzuetatik sartzen ziren argi zerrendek lantzean behin ezpaten moduan argitzen gintuztela. Joseba Sarrionandia

## isilkeria *iz* isiltasun gaitzesgarria.

*Txingudi Bizirik*-ek agintarien **isilkeria** ere salatu zuen. Berria - Euskal Herria

Nazioarteko exekuzio kopuruen gaineko **isilkeria** salatu du Aik. Berria - Mundua

Oso interesgarria litzateke agintariei galdetzea zergatik jokatzen duten halako **isilkeriaz** exekutatzen dituzten pertsonen kopuruaren inguruan. Irrikak, gutiziak, malkoek edo haserreak ez zuten honezkero **isilkeriarik** ez arbuiorik jasotzen: legeak ebatziko zuen gure orde. Joxan Elosegi

Bestela **isilkeria** horiek ez nitizkek ulertuko, ez barkatuko. Txillardegi

---

## isilketa *(orobat* ***ixilketa****)* *iz* isiltzea.

Nahiz Eriksonek exenplurik ez jarri -baztertutako testuen exenplurik, esan nahi dut-, lan hori neronek hartu eta hitzaldia osatzea erabaki nuen, exenpluak ondo etortzen baitira beti, eta areago **isilketaren** aurka jokatzen dutenean. Bernardo Atxaga

Urte askuan egon naiz ixillik, baiña kontau egin gura dot, eztot gehixago **ixilketarik** gura. Xabier Mendiguren Elizegi

---

## isilki *(orobat* ***ixilki****)* *adlag* isilik, isilka. ik **isilkiro**.

Beraz, hiri handietan zehar daramatela, hilkorrak agur mutuz **isilki** bedeinkatzen dituenean, ibilbide guztia brontzez eta zilarrez leuntzen diote, opari mardulez aberasturik, eta arrosen elurra jaurtitzen dute, ama eta segizio andanak estaliz. Xabier Amuriza

Bainan, zuk, ardi tropak mendian egiten duen gisan, emeki emeki, **ixilki** eta egun oroz, bidexka berri bat ideki duzu zure urratsez, *Ikas Bi*-ren bidean. Herria

---

## isilkide *iz*

**Isilkide,** [...] Urliaren sekretuen berri duen Sandia bat, eta Berendiari kontatzen dizkiona. Xabier Olarra

---

## isilkiro *adlag* isilik, isilka. ik **isilki**.

Josebak kontu handiz eta **isilkiro** zabaldu zuen atea. Iñaki Zabaleta

**Isilkiro,** ezpainak mugituz berrirakurri zituen bi zatiak. Iñaki Zabaleta

Une hartan, don Estebek eskuak bildu, aho parean jarri, haiekin inbutu bat osatu, eta hitzak isurtzen hasi zen, batean don Justinianoren belarrira eta bestean don Kosmerenera, **isilkiro,** beldur balitz bezala, beste norbait paretaren atzetik entzuten ari ote zen. Joan Mari Irigoien

---

## isilkoi *izond* isilkorra.

Benetan **isilkoi** nengoela esan zidan. Joxe Austin Arrieta

---

## isilkor *izond* isilik egoteko joera duena.

-Tira, tira, aski duk, adiskidea, zein **isilkorra** haizen! Jose Morales

Jacques Chirac Frantziako presidenteak ere, jarrera **«isilkorra»** izan du proposamenaren inguruan. Berria - Ekonomia

Ezpata-sagarra laztandu zuen, leuna eta **isilkorra**. Fernando Morillo

---

## isilmandatari *(22 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean; orobat* ***isil-mandatari*** *7 agerraldi liburu 1ean)* *iz* isilmandatuak egiten dituen pertsona.

Iñakik, aldiz, gero eta amorostuago zirudien, ez zuen beste gairik izaten, eta Montseren bi ikaskide egin zituen lagun, eguerdiro haiekin bildu eta bere kausaren aldeko **isilmandatari** bihurtzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Haren **isilmandatari** batengandik jakina naiz ezen atsekabe handia eman ziola haietako bat baratu beharrak. Jon Muñoz

Bertzenaz, badakizunez geroztik nor duen **isilmandatari,** ez ezazu dudarik egin haren gutun bakoitzak ez dukeenik prediku ttipi bat bederen. Jon Muñoz

Ez dakit gaztigatu dizudan ezen duela lau edo bortz egunez geroztik ohore handiz **isilmandatari** naukala. Jon Muñoz

Parisen zela erran zion agenteari, **isil**-mandatari euskaldun baten atzetik. Alberto Ladron Arana

Herrialde anitzetako agente sekretuak, espioiak eta espioi-ehiztariak, era guztietako **isil**-mandatariak, ekintzaileak, iheslariak, soldadu ohiak eta soldadu izatea amesten zutenak... guztiak koktel lehergarri batean. Alberto Ladron Arana

**Isilmandatari** eta gaizkide, Sangarre, aberririk gabe, familiarik gabe, bere bizitza noragabea eskaintzen zuen atseginez Ivan Ogareffek Siberiara bidali behar zituen inbaditzaileen zerbitzuan. Karlos Zabala

---

## isilmandatu 1 *iz* isilpeko mandatua, isilkako mezua.

Irrikaz begiratu eta begi kliskak egiten zizkion, ahopean mintzatzen zitzaion munduko gauzarik hutsalenak esateko, **isilmandatu** masonikoak itsasten zizkion elkarri emandako bostekoei. Karlos Zabala

-Ez dizut deus esanen gizon horren aurrean -esan zidan **isilmandatua** emanez bezala-. Monika Etxebarria

Baina baldin adiskide bat balu, haren **isilmandatua** hartzeko bezain mina, [...]. Jon Muñoz

**2** norbaitek berari dagokion sekretu bat adieraztea.

Baina erregu egiten dizut pentsa dezazula ez naizela eroa, hain zuzen ere, egin behar dizudan **isilmandatuaren** bitxitasuna neuk esaten dizudanez. Josu Zabaleta

Anitz emakume kausitu ditut, pentsa dezakezunez, gaitz arriskutsu horrek jota; haietariko batzuen **isilmandatuak** entzuna naiz. Jon Muñoz

---

## isilmandatuka *adlag* isilmandatuak eginez.

Maiz ohartu izan natzaio **isilmandatuka** aritzeko emakume baten premiari, eta nahiago nuke neska hori, bertze edozein bainoago. Jon Muñoz

---

## isilostuka ik **isil 24**.

---

**isilpe** *(590 agerraldi, 128 liburu eta 102 artikulutan; orobat* ***ixilpe*** *10 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* ezkutua, sekretua.

**Isilpe** osoa, beraz, ezinbestezkoa duk. Txillardegi

Lauzpabost gazte irten ziren, **isilpe** erabatekoan, taberna txikitik: haien itzalak uzkurturik eta hormarekin bat eginda urrutiratu ziren. Anjel Lertxundi

Zenbait egunez mintzatuak zirela **isilpe** osoan Don Manuel eta Don Juan Nepomuceno Orbe markesa. Txillardegi

Balizko zure gaixotasuna **isilpe** halakoan gorde zenuelarik, [...]. Mirentxu Larrañaga

Biak bizi izan ziren **isilpe** eta itzalpe samarrean, haien lanak ez zirelako XX. mendea arte argitara atera. Koldo Zuazo

-Hemen da, hirian -esan zuen jeneralak ahopetik, garrantzi handiko berri bat, **isilpe** -isilpeko bat, ematen ari balitzaio bezala-. Xabier Olarra

Ez dela lehenengo aldia, matematikaren historian, inor **isilpeaz** baliatu dena. Jon Muñoz

**2** isiltasuna.

Eta **isilpe** osoan entzun dute. Txillardegi

Gure artean **isilpe** osoa sortu da, astuna, iraunkorra. Txillardegi

Neure gelaren **isilpean** pazientzia luzez eginiko esperimentuen fruitu. Juan Garzia

**Isilpea** egingo da kafearen lurrin gozoaren ingurumarian, ez zara berritsua, Andoni ere ez da berritsua, eta isilik egongo zarete luzaroan. Joseba Sarrionandia

**3** ***isilpean***[1] isilean, ezkutuan. ik **isilka 2**.

Ni, **isilpean,** Arkimedesen aldekoa ninduan. Jon Muñoz

Osaba Joanikot etorri zitzaidan, **isilpean,** bisita egiterat. Joan Mari Irigoien

Gor batekin hizketan bezala, poliki-poliki, zure izen berria **isilpean** adierazten ahalegindu zara ezpainekin. Rafa Egiguren

-Zer gertatzen duk? -galdetu nion **isilpean** ondoko bati. Rafa Egiguren

**Isilpean** egin omen zuen, Arrietak ezer jakin gabe. Migel Angel Mintegi

Salaketa haiek **isilpean** eta ezkutuan egiten zirela: hain **isilpean** eta hain ezkutuan, non akusatuak ez baitzuen salatzailearen eta lekukoen berri jakiten. Joan Mari Irigoien

Jatekoa ere zuloan ezkutaturik jaten zuen, eta bestelako zerbitzuak ere **isilpean** egiten zizkioten. Askoren artean

**Isilpean** bizitzea dagokizula urte batzuetan. Joan Mari Irigoien

Gordean eta **isilpean** eduki dute haren izena 150 urtean. Hasier Etxeberria

Gogoeta ez batere samurren buruan, aurkikuntza **isilpean** edukitzea erabakitzen du. Juan Garzia

Jainkoek dituzte lurpean metal-meen zainak hazarazten, baina **isilpean** dauzkate, ezkutaturik. Juan Garzia

Zu bazarela gauza sekretua **isilpean** edukitzeko. Oskar Arana

-Ez dut nik deusik ere gorde **isilpean**. Jon Muñoz

Grosrouvrek, aitzitik, bere lanak **isilpean** gordetzeko erabakia hartu zuen. Jon Muñoz

Gorde **isilpean** mezu hau eta itxi zigiluz liburua azken garaira arte. Elizen arteko biblia

Ea isilpekoa **isilpean** behar bezala gordetzen dugun biok. Xabier Olarra

**Isilpean** gorde nahi zituen demostrazioak; **isilpean** iraun dute. Jon Muñoz

Bonabenturak **isilpean** uzten ditu Perugiaren aurkako guda eta Frantziskoren presoaldia. Askoren artean

Bertze zenbaitek, anarteraino **isilpean** ibilita, lehen aukera zuten hura denen aitzinean higanot agertzeko. Aingeru Epaltza

Beraz, **isilpean** pasatu beharko zuten muga Kataluniatik. Rafa Egiguren

Ezezaguna **isilpean** lurperatu zuten, Carril ezizeneko hura lurperatu behar zutela baliatuz zulo bakarrean gorpu bi sartuz. Edorta Jimenez

**Isilpean** aterako dituzte, kamioi ustez huts horietan. Xabier Montoia

Ijitoen moduan **ixilpean** eta gauez gainera. Patziku Perurena

**4** ***isilpean***[2] (-en atzizkiaren eskuinean) -en isilean, -a jabetu gabe.

Bien **isilpean,** ni izana nintzen eztabaida horren lekuko, espaloitik beretik barrandan. Aingeru Epaltza

Otoi, orain arte ezkutuan gorde baduzue ikusia, aurrerantzean ere zuen **isilpean** bego. Juan Garzia

Nonbait, ez oso aspaldi lankideren batekin abentura bat izan zuen eta, Xavierren **isilpean** gorde ahal izango zuela uste izan bazuen ere, gure epaiketaren kontu horrek zuzenean eragin dio. Patxi Zubizarreta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**asko isilpean** (3); **baina isilpean** (4); **dena isilpean** (3); **duzu isilpean** (3); **ere isilpean** (4); **eta isilpean** (25); **etorri zait isilpean** (5); **ezkutuan eta isilpean** (3); **gauzak isilpean** (3); **gorde isilpean** (7); **guztia isilpean** (4); **hau isilpean** (4); **hauek isilpean** (3); **isilpean ari** (4); **isilpean bizi** (3); **isilpean egin** (6); **isilpean egiten** (6); **isilpean eraman** (4); **isilpean esan** (4); **isilpean eta** (10); **isilpean gorde** (31); **isilpean gorde behar** (7); **isilpean gorde nahi** (6); **isilpean gordeta** (3); **isilpean gordetzea** (6); **isilpean gordetzeko** (5); **isilpean gordetzekoa** (3); **isilpean gordetzen** (6); **isilpean uzteko** (3); **isilpean uzten** (4); **zait isilpean** (5); **ziren isilpean** (3); **zuen isilpean** (4); **zuten isilpean** (3)

---

**isilpeka** *adlag* isilka.

Eta Harri Arokoa izanik, hizkuntza honek ez zuen tokirik XX. mendeko hezkuntzan, **isilpeka** eta altxapeka ez bazen, ez zuen tokirik Punta Galeako golfean edo medikuen kontsultazioetan, ez zuen tokirik silizioaren gizartean. Pello Salaburu

---

**isilpeko** *(orobat* ***ixilpeko*** *g.er.)* **1** *izlag* isilekoa, ezkutukoa.

Sare horrek Reichetik ateratako **isilpeko** informazioa jaso, antolatu eta Ingalaterrara bidaltzen dik. Alberto Ladron Arana

**Isilpeko** zerbitzu baten egoitza. Alberto Ladron Arana

Estatu Batuetako gobernuaren **isilpeko** ordezkari bat jarri zen gurekin harremanetan. Alberto Ladron Arana

1938ko apirilean, Himmlerren aginduz, Ahnenerbek **isilpeko** espedizio bat antolatu zuen. Alberto Ladron Arana

Hori **isilpeko** gauza da. Iñaki Mendiguren

Etnia, abertzaletasuna, independentzia, kapitalismoa, sozialismoa eta antzeko kontzeptuak aztertu genituen taldean, eta, aldi berean, **isilpeko** lanetan sartu ginen gero eta gehiago. Rafa Egiguren

**Isilpeko** kontua zen beti, klandestinoa. Karlos Zabala

Nafarroan ere badira **isilpeko** ehizan aritzen diren pertsonak. Berria - Euskal Herria

**Isilpeko** ehiztari asko trofeoak lortzeko aritzen dira. Berria - Euskal Herria

**Isilpeko** irratiak ere badira B.B.C. ingelesa entzuten dugu. Marzel Etxehandi

**Isilpeko** salaketak. Juan Martin Elexpuru

Gure **isilpeko** adiskidetasunari izena emaiteko modu bat. Joan Mari Irigoien

Gure belarrietara iristen ez zen **ixilpeko** mundu bat. Iñaki Segurola

Nafarroa ofiziala baino Nafarroagoa izan daitekeen **isilpeko** bertze Nafarroa horretan. Joan Mari Irigoien

Aitortza komunitariotik **isilpeko** aitortzara pasatu. Anjel Lertxundi

Giza anaitasuna aldarrikatzen duen eta kideen arteko elkartasuna helburu duen **isilpeko** elkartea. Berria - Gaiak

Zelanoren hitzen azpian **isilpeko** kritika nabari daitekeela anai Eliasen aurka. Askoren artean

EZLNko **Isilpeko** Batzorde Iraultzaile Indigenaren Komandantzia Nagusiak. Berria - Harian

Jakinarazpena -**isilpekoa** dioen gainazal batean iritsi zaio- jokabide-araubidearen kopia batekin batera igorri diote. Oskar Arana

· -Zaindu ardoen kontua -erantzun zuen jeneralak, oso-oso **isilpeko** ahotsez. Xabier Olarra

Kontuan hartu ezin ditugun **isilpeko** hots horietako bat ez bada. Isabel Arrigain

**2** (izenondo gisa)

Nadiak igarri zuen Mikel Strogoffen ekintza guztiak eragile **isilpeko** batek zuzentzen zituela, bazegoela ezkutuko arrazoiren bat bere buruaren jabe izaten uzten ez ziona. Karlos Zabala

Lantokian bazela pizgailu-industria **isilpeko** bat. Juan Garzia

Horrelakoxea duk adiskidetasuna, balentria bat duk, hitzaren zentzu **isilpeko** eta halabeharrezkoan. Xabier Olarra

"Gerra zurrumurruengatik, badakizu, jendea asaldaturik dabil", erantsi zidan ahotsa apalduz, kontua **isilpekoa** balitz bezala. Alberto Ladron Arana

Abokatuak bere bezeroarekin antolatzen duen estrategiak **isilpekoa** behar baitu izan. Koldo Izagirre

**3** (izen gisa)

Azkenean, zeharo asperturik, barruan zeraman **isilpekoa** agertu zion: [...]. Jose Antonio Mujika

Ea **isilpekoa** isilpean behar bezala gordetzen dugun biok. Xabier Olarra

Fresnesko hormatzarrek **isilpeko** asko gordetzen dute, oinaze eta tristezia asko. Jokin Urain

**Isilpekoren** batez jabetu edo azpijokoren bat egin nahi zuenean. Karlos Zabala

Berritsuak **isilpekoak** ere azaltzen ditu, pertsona fidagarriak dena gordetzen. Elizen arteko biblia

**Isilpekoak** azaltzen dituenak konfiantza apurtzen du, ezin izango du adiskide minik aurkitu. Elizen arteko biblia

Jaunak zure **isilpekoak** azalduko ditu eta zu batzarraren aurrean apalaraziko. Elizen arteko biblia

**Isilpeko** profesionalaren izenean, badakizue. Berria - Kultura

Bere **isilpeko** sekretuak argitzen. Juan Martin Elexpuru

**4** isilpekotasuna.

Ezerk ere ezin zidak hautsiarazi aitorpenaren **isilpekoa**. Koldo Biguri

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta isilpeko** (9); **eta isilpekoa** (4); **isilpeko bat** (4); **isilpeko batzorde** (3); **isilpeko batzorde iraultzaile** (3); **isilpeko ehizari** (3); **isilpeko eta** (5); **isilpeko txostenak** (3); **isilpekoa da** (3)

---

# isilpekotasun *iz* isilpekoa denaren nolakotasuna.

**Isilpekotasuna** behar-beharrezkoa zen hor, ezinbestekoa, zeren jentilek ulertzeak sakrilejio-salaketaren arriskua ekar baitzezakeen berekin. Juan Garzia

Zentzuari eta **isilpekotasunari** jaramon egiteke. Juan Garzia

---

# isilperatu, isipera(tu), isilperatzen du *ad* isilpera ekarri.

Gaua trinkoa zen; euri sarkor batek **isilperatzen** zituen zarata guztiak. Juan Garzia

---

# isilpetu *izond* isilpean jarria.

Naturak matutien otoitzerako deika ari diren kanpai hots **isilpetuak** jasoko lituzkeen kalostra izuti eta alargundua zirudien, izarren zilar hutsez osaturiko estalpe karroindua bakardadearentzat. Pako Aristi

---

# isilpide *iz* isiltasuna.

Hutsetik hautsera hedatu zen **isilpidea**. Iñaki Arranz

---

# isiltasun *(2290 agerraldi, 230 liburu eta 246 artikulutan; orobat **ixiltasun** 111 agerraldi, 6 liburu eta 95 artikulutan –gehien-gehienak Herria aldizkarian-)* **1** *iz* hotsik edo soinurik eza; ezer entzuten ez den toki baten egoera..

Besteren logelako **isiltasun** eta bakardadean. Jose Morales

**Isiltasuna** da nagusi berriz ere; ez da lehengo **isiltasun** bera, ordea. Monika Etxebarria

Gauak bere hegalekin bildu zuen kalezuloa eta nonahi **isiltasuna** zen nagusi. Patxi Zubizarreta

**Isiltasuna** zabaldu da, amesgaiztoa bezala. Felipe Juaristi

Neguan, seietarako iluntzen duenean, **isiltasuna** da hotzaren lagun bakarra. Pako Aristi

**Isiltasuna** genuen etxe, neurririk gabeko jauregi, formarik gabeko lorategi eta zuhaitz mataza; **isiltasuna** genuen arkitekto hilezkorrek minaren gainean eraikitako baseliza, betikotasunean irauteko egina: denboraren sua poliki-poliki, unetik unera, erre gabe erretzen duena. Felipe Juaristi

Gauerdian **isiltasuna** zabaldu da eta ez da entzuten gauzainen ahotsa besterik orena ematen. Koldo Izagirre

Orduan, txaloen eta algaren ostean zabaldu zen **isiltasuna,** otzara batean inoiz sartu den hustasunik mingarriena izan zen. Koldo Izagirre

-Eta zer gertatzen da baten batek **isiltasun** hori hausten badu? Oskar Arana

Ziztu bakarti batek hautsi du altzairuzko **isiltasuna**. Patxi Zubizarreta

Bizkarra emanik itxi zuen atea, bortitz, gauaren **isiltasuna** urratuz hartara. Patxi Zubizarreta

Gelako **isiltasuna** [...] txonta baten txio-txioak urratzen zuen noizik behinka. Karlos Zabala

Leihotik filtratzen den argiak gauzen ertzak leuntzen ditu, **isiltasunak** arnasa hartzen duela dirudi. Jon Alonso

**Isiltasunaren** altzoan, begiak biltzen hasi zitzaizkidan. Aingeru Epaltza

**Isiltasunean** lau begi zelatari zeudela ohartu zen. Felipe Juaristi

Ilunbean eta **isiltasunean** sendimenduek libertate gehiago baitute. Michel Oronoz

**Isiltasuna** egin zen gelditasunaren gainean. Felipe Juaristi

**Isiltasuna** atsedena da, ez nekearen ondoren eta nekearen ordain sortzen den atsedena, baizik eta nekearen aurretikoa: ezer egin aurretiko gelditasun atsedengarria. Felipe Juaristi

**2** isilik egotea, isilik dagoenaren jarrera.

Zuhurtziak **isiltasuna** du lagun min. Anjel Lertxundi

Azkenean, Al Gazteak hautsi zuen **isiltasun** hura. Oskar Arana

**Ixiltasun** haren samina muinetaraino sartu zitzaidan. Janbattitt Dirassar

Une labur batez, lehengo bere **isiltasun** horretan erortzen da berriro, buruarekin baietz eginez nire galderari erantzuteko. Oskar Arana

**Isiltasuna** gordeko dute beti elizan eta logelan ere. Askoren artean

Erabateko **isiltasuna** egin zen, eta epailea irakurtzen hasi zen [...]. Anjel Lertxundi

**Isiltasuna** ere erantzun bat da, pentsatu nuen. Harkaitz Cano

**Isiltasunak** erantzun zion gizajoari. Bernardo Atxaga

Faxismoak **isiltasunera** kondenatuak zituen hogei urtez. Juan Garzia

Egia da badaudela **isiltasunera** edo otoitzera bultzatzen gaituzten lekuak eta baita barrenean larria edo izua eragiten digutenak ere. Joxean Agirre

Orain etxea **isiltasunez** betea da. Jon Alonso

**3** (izenondoekin)

**Isiltasun** bareak inguratzen zuen dena. Elizen arteko biblia

**Isiltasun** bero bat erortzen zen zeru eguzkitsutik behera. Karlos Zabala

Kandela erretzen ari zen **isiltasun** handiaren erdian, sugar luze triste batez. Karlos Zabala

Neuk eten nuen orduan **isiltasun** pisu hura: [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

**Isiltasun** trinko batek betetzen zituen gogo-bihotzak. Michel Oronoz

Kaleko **isiltasun** beltzak ezustean hartu izan balitu bezala. Karlos Zabala

Hiri gainbeheratu hartako ohiko **ixiltasun** hits eta zapala. Iñaki Segurola

Erlojuak etenik gabe jotzen zituen orduak, **isiltasun** sakona urratuz. Jose Morales

**Isiltasun** izugarri hartan, ihesi zihoazen minutuen soinu goibelak kulunkaturik, bizidun ororengandik urrun, bost pertsona -bi emakume eta hiru gizon- gauaren, egunsentiaren eta exekuzioaren zain zeuden. Jose Morales

**Isiltasun** itogarri, heriozko batek hartzen du dena. Josu Zabaleta

Jabalaldian ere, musikarik gabe, **isiltasun** hilgarrian, hondora jo daiteke. Felipe Juaristi

Gelako **isiltasun** goibelean bi bihotzen taupadak entzuten ziren. Jose Morales

**Isiltasun** anonimoa zen hirian nagusi, ibai baten antzera karrika guztiak hartuak zituen **isiltasun** zabal eta arrea. Felipe Juaristi

**Isiltasun** osoa eta ezin hautsizkoa. Oskar Arana

**Isiltasun** eta bildutasun osoan gindoazela, gutienik ustean, Emmaren itxura agertu zitzaidan. Daniel Landart

Bat-batean, iluntasun eta **isiltasun** arrotz batek infinitoraino inguratzen zaitu. Filipe Bidart

Isiltasuna, ez besterik, jaso zuen erantzun gisa, **isiltasun** lodia, **isiltasun** zorrotza, **isiltasun** gogorra, hitzek gaindi ez zezaketena. Felipe Juaristi

Zeuk iradokitako **isiltasun** administratibo hori praktikatzea. Xabier Mendiguren Elizegi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Isiltasun**-giro hartan beldurra ematen zuen ia hotsik txikiena egiteak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Isiltasun**-laino batek inguratuta, barrura sartzen da. Oskar Arana

Ezarritako **isiltasun**-orduetan hitz egiten bazuten. Askoren artean

**Isiltasun**-egunak asteko unerik ederrenak eta gogobetegarrienak bihurtzen dira. Oskar Arana

**Isiltasun** une laburraren ondotik, klarinetearen hots eztia altxatu zen errauts zutoin baten pare. Itxaro Borda

Harekin egindako **isiltasun**-tratua, gaur arte zintzo asko gorde dudana. Xabier Mendiguren Elizegi

**Isiltasun** zama astuna. Itxaro Borda

Izu-lekua zen hiria, **isiltasun**-lekua, isiltasunak kea bezala zulo guztiak estaltzen zituen. Felipe Juaristi

Ez zekizkiten **isiltasun**-estalki munstrokara baten pean jazotzen ari zen sarraskiaren xehetasunak. Juan Garzia

Senarrak **isiltasun** tantez erantzuten zionez, [...]. Felipe Juaristi

**Isiltasun**-botoa egitea, eta bere burua mutu edukitzera behartzea. Oskar Arana

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hilerri **isiltasuna** izan zen klasean une batez. Joseba Sarrionandia

Hilobi-**isiltasuna** nagusitu zen orduan. Aurrera egin behar dugu, deituak izango garen eguna iritsi arte" esanaz apurtu zuen don Martinek jaunartu ondorengo gogoeta-**isiltasuna**. Fernando Morillo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**baina isiltasun** (4); **bere isiltasun** (9); **den isiltasun** (4); **ere isiltasun** (6); **eta isiltasun** (53); **eta isiltasun hartan** (4); **gero isiltasun** (4); **isiltasun astun** (8); **isiltasun bareak** (6); **isiltasun bareak inguratzen** (6); **isiltasun bat** (6); **isiltasun batean** (4); **isiltasun baten** (6); **isiltasun erabatekoa** (13); **isiltasun erabatekoan** (5); **isiltasun eta** (14); **isiltasun handi** (7); **isiltasun handia** (9); **isiltasun hartan** (19); **isiltasun hau** (7); **isiltasun hori** (14); **isiltasun horrek** (8); **isiltasun horrekin** (4); **isiltasun horren** (9); **isiltasun horretan** (4); **isiltasun hura** (18); **isiltasun ia** (4); **isiltasun luzea** (5); **isiltasun osoa** (10); **isiltasun osoan** (12); **isiltasun pisu** (5); **isiltasun sakon** (10); **isiltasun sakona** (6); **isiltasun sakonean** (4); **isiltasun une** (8); **zen isiltasun** (10); **zuen isiltasun** (15)

**aitaren isiltasuna** (4); **arteko isiltasuna** (7); **baina isiltasuna** (7); **bateko isiltasuna** (6); **bere isiltasuna** (4); **berriro ere isiltasuna** (4); **bildotsen isiltasuna** (4); **da isiltasuna** (9); **den isiltasuna** (6); **du isiltasuna** (4); **erabateko isiltasuna** (23); **erabateko isiltasuna egin** (5); **ere isiltasuna** (11); **eta gero isiltasuna** (7); **eta isiltasuna** (54); **eten zuen isiltasuna** (4); **etxean isiltasuna** (4); **ezohiko isiltasuna** (5); **gauaren isiltasuna** (5); **gero isiltasuna** (14); **haren isiltasuna** (11); **hau isiltasuna** (5); **inguruko isiltasuna** (4)

**isiltasuna apurtu** (4); **isiltasuna baino** (7); **isiltasuna berriro** (4); **isiltasuna da** (22); **isiltasuna da nagusi** (7); **isiltasuna dago** (6); **isiltasuna dela** (5); **isiltasuna dela eta** (4); **isiltasuna egin** (27); **isiltasuna egin zen** (22); **isiltasuna egiten** (5); **isiltasuna erabatekoa** (15); **isiltasuna erabatekoa zen** (9); **isiltasuna ere** (9); **isiltasuna eskatu** (9); **isiltasuna eskatu zuen** (7); **isiltasuna eta** (42); **isiltasuna eten** (5); **isiltasuna ez** (15); **isiltasuna ez da** (5); **isiltasuna genuen** (8); **isiltasuna gero** (4); **isiltasuna gordetzen** (6); **isiltasuna hausteko** (5); **isiltasuna hausten** (8); **isiltasuna hautsi** (18); **isiltasuna hautsi zuen** (4); **isiltasuna izan** (15); **isiltasuna izan da** (4); **isiltasuna izan zen** (6); **isiltasuna nagusi** (15); **isiltasuna nagusi zen** (4); **isiltasuna nagusitu** (39); **isiltasuna nagusitu da** (5); **isiltasuna nagusitu zen** (28); **isiltasuna sortu** (4); **isiltasuna urratu** (8); **isiltasuna urratzen** (6); **isiltasuna zabaldu** (5); **isiltasuna zegoen** (8); **isiltasuna zen** (22); **isiltasuna zen nagusi** (13)

**bere isiltasunarekin** (4); **du isiltasunak** (4); **erabateko isiltasunean** (8); **eta isiltasunak** (12); **eta isiltasunaren** (17); **eta isiltasunean** (23); **eta isiltasunez** (4); **gauaren isiltasunean** (6); **haren isiltasunak** (4); **isiltasunak ere** (5); **isiltasunak eta** (6); **isiltasunak ez** (6); **isiltasunaren adabakiak** (6); **isiltasunaren aurrean** (7); **isiltasunaren erdian** (9); **isiltasunaren eta** (6); **isiltasunaren ostean** (4); **isiltasunean eta** (11); **nire isiltasuna** (5); **nire isiltasunak** (4); **urratu zuen isiltasuna** (4); **zen isiltasuna** (28); **zen isiltasunaren** (4); **zen isiltasunean** (4); **zuen isiltasuna** (17); **zuen isiltasunak** (6); **zuen isiltasunaren** (5); **zuen isiltasunean** (5); **zure isiltasuna** (4); **zuten isiltasuna** (4); **zuten isiltasunean** (6)

---

isiltoki ik **isil 26**.

---

**isiltsu** *izond* isiltasunez betea.

Aretoa, jendez urri eta **isiltsu**, porrotaren iragarpen penagarria zen. Irene Aldasoro

**Isiltsu** zetzan ibaia destilategi hutsaren ondoan. Irene Aldasoro

---

**isiltxorik** *adlag adkor* isilik.

Jarraitu nion **isiltxorik** eta hantxe basoko zirkilu batean ikusi nuen etzaleku apropos bat eginda zuela, eta hantxe hezur pila galanta. Anjel Lertxundi

Otsoen etzalekuen berri dakiten artzainak badira gure mendi hauetan, janari bila otsoa noiz irteten den kanpora kontuan **isiltxorik** egon, eta otsokumeak zortzina eta hamarna habian dauden tokietatik harturik beren etxeetara ekarri izan dituztenak. Anjel Lertxundi

---

**isiltze** *iz* isilik gelditzea.

**Isiltze** gihartsu horretan sumatzen diat poetaren indarrik handiena. Patziku Perurena

Musikaren **isiltzea** txortaldiaren bukaeratzat jotzen genuen. Xabier Mendiguren Elizegi

---

**isiltzeko** *iz* isilik gordetzeko gauza.

Behin baino gehiagotan, ahoaren beteaz, **isiltzekoren** bat erranen nuen noski, baina nik, dama horren arreta nireganatu bertze gogorik ez nuen. Aingeru Epaltza

---

**isilune** *(orobat* **ixilune** *g.er.)* **1** *iz* isiltasunezko une edo denbora laburra. ik **isilaldi**.

Jipoiak bakarrik entzun ditugu, eta makilakada batetik besterako **isiluneak**. Mirentxu Larrañaga

Minutu bateko **isilunearen** ondoren, Nellie McNiel altxatu egin zen. Lopez de Arana

Joan naiteke orain? -galdegin zion Xanek, hiruzpalau minutuko **isilunearen** ondotik. Elena Touyarou

Um Hamidak **isilune** bat egin zuen, bere garaipena hobeki dastatzearren. Ni txunditzeko helburu garbia zuen **isilune** bat egin eta gero. Patxi Zubizarreta

Erabateko **isilunea** egin zen gelan. Alberto Ladron Arana

**Isilune** bat izan zen, eta laurek elkarri begiratu zioten so uherrez. Karlos Zabala

**Isilune** bat izan genuen hori esan eta gero. Inazio Mujika Iraola

E letraren saio egokiaren ondoren, **isilune** bat egon zen, gogoetarako erabili genuena. Bernardo Atxaga

Minutu bateko **isilunea** dator gero, HIESAk jota hil diren guztien omenez. Harkaitz Cano

**Isilune** bat etorri zen informazio bitxi horren ondoren. Jon Muñoz

**Isilune** bat gertatu da. Txillardegi

**Isilune** bat sortu da, agian oso lehiatsu mintzatu naizelako. Bernardo Atxaga

Aita izan zen azkenean **isilunea** urratu zuena. Alberto Ladron Arana

Ordu arteko **isilunea** hautsiz, Marsauani printzesari buruz galdezka hasi zitzaion. Patxi Zubizarreta

Oraingoan berak eten zuen **isilunea**: [...]. Inazio Mujika Iraola

**Isilunea** zabaltzen da, Llumek urduri aldatzen dituen telebista kanal desberdinetako ahotsek baino hausten ez dutena. Antton Olano

**Isilunea** betetzeko, ez nuela zehazki Joe Costellorekin bazkaldu argitu nion. Ramon Saizarbitoria

Edonor asaldarazi eta kikilarazten dute halako **isiluneek**. Mirentxu Larrañaga

Potzolo bat-bateko **isiluneaz** baliatu zen nire aldera lehenbizikoz begiratzeko. nire liburu hau **isilunez** beterik dago, narrazio etenez josia. Aingeru Epaltza

Astiro irakurri ere, **isiluneak** neurtuz. Jon Muñoz

Hitzak eta **isiluneak** tartekaturik. geure **isiluneen** jabe gara, eta geure hitzen esklabo. Joxerra Garzia

**Isilune** batetik lehen inplosiora (>) igarotzen garen gunean. Isabel Arrigain

Ekitatea lege naturalerako itzulera da, lege positiboen **isilune,** kontraesan edo gorabeheretan. Andres Urrutia

Izan daiteke epailearen txistu-hotsa **isilune**-minutu baten aurretik harmailetako zarata isilarazten duena. Andoni Egaña

**2** (izenondoekin)

**Isilune** luzea heldu da ondoren. **Isilune** luze baten ondoren. Monika Etxebarria

Helduek, **isilune** luzeen artean, gero eta luzeagoak ziren **isiluneen** artean, geroaz hitz egin zuten, ahots apalez. Felipe Juaristi

Eta ondoren, bat-batean, **isilune** pisu bat; piztuak dituzun zentzumen erne eta zorrotzen galderei erantzuten ez dien **isilune** luze bat. Filipe Bidart

**Isilune** labur haren ondotik hitz egiten jarraitu zuenean. Alberto Ladron Arana

**Isilune** amaiezin bat etorri zen gero. Jon Muñoz

Espero ez nuen **isilune** astuna. Txillardegi

Adak berak urratu zuen **isilune** deserosoa: [...]. Anjel Lertxundi

Izan ere, ez ziren **isilune** abegitsu eta lagunartekoak, jendea elkartuta dagoenean tarteka gertatu ohi diren horietakoak. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko isilune** (3); **bertze isilune** (4); **beste isilune** (16); **beste isilune bat** (12); **eta isilune** (23); **eta isilune baten** (4); **eta isilune luze** (4); **gero isilune** (3); **isilune adierazgarri** (3); **isilune bat** (70); **isilune bat egin** (21); **isilune bat egon** (3); **isilune bat izan** (14); **isilune bat sortu** (5); **isilune batean** (4); **isilune baten** (53); **isilune baten ondoren** (23); **isilune baten ondotik** (25); **isilune baten ostean** (3); **isilune bitxi** (3); **isilune bitxi bat** (3); **isilune deserosoa** (4); **isilune eta** (4); **isilune hura** (3); **isilune labur** (19); **isilune labur bat** (3); **isilune labur baten** (14); **isilune laburra** (3); **isilune luze** (40); **isilune luze bat** (14); **isilune luze baten** (18); **isilune luzea** (16); **isilune luzearen** (3); **zen isilune** (3); **zuen isilune** (5)

**arteko isilunea** (3); **bateko isilunea** (28); **bateko isilunea egin** (10); **bateko isilunea gorde** (4); **bateko isilunea gordeko** (3); **bost minutuko isilunea** (5); **erabateko isilunea** (3); **ere isilunea** (3); **eta isilunea** (4); **eten zuen isilunea** (3); **isilunea egin** (31); **isilunea egin zen** (11); **isilunea egin zuen** (7); **isilunea egin zuten** (11); **isilunea egon** (3); **isilunea egon zen** (3); **isilunea eta** (3); **isilunea ez** (3); **isilunea gertatu** (3); **isilunea gorde** (8); **isilunea gorde zen** (3); **isilunea gorde zuten** (5); **isilunea gordeko** (3); **isilunea izan** (4); **isilunea izan zen** (3); **minutu bateko isilunea** (25); **minutuko isilunea** (13); **minutuko isilunea egin** (6); **minutuko isilunea gorde** (4); **ondoko isilunea** (3); **zen isilunea** (4); **zuen isilunea** (9)

**bateko isilunearen** (3); **eta isiluneak** (4); **isiluneak eginez** (3); **isiluneak eta** (4); **isiluneak sortzen** (3); **isilunearen ondoren** (7); **isilunearen ondotik** (4); **isilunearen ostean** (3); **isiluneaz baliatu** (3); **minutu bateko isilunearen** (3)

---

**isilunetxo** *iz* isilune laburra.

**Isilunetxo** bat utzi dut. Txillardegi

**Isilunetxo** baten ondoren, onartu egin zuen: [...]. Joxemari Iturralde

Baina berriro heziketaren gaira itzuliz, atzo, **isilunetxo** bat izan zen andre horren hitzalditxoaren ondoren. Josu Zabaleta

---

**isilzulo** *izond adkor* isila.

Sakrilegio haren esalea Sandro zen, Sandro **isilzuloa**. Juan Garzia

---

**isiotu** *(ETCn* ***352*** *agerraldi; orobat ETCn* ***6*** *agerraldi eta* ***iziotu*** *ETCn* ***64*** *agerraldi)* , isio, isiotzen **1** du *ad* piztu.

Sua garretan **isiotzen** denean. Xabier Amuriza

Honela inoiz uztak eta galburuak txinpart bakarretik sutean **isiotzen** ikusi ohi ditugu. Xabier Amuriza

Ez al dakusu, halaber, liho itzungi berria kriseilura hurreratzean, nola garrari ukitu aurretik **isiotzen** den, eta berdin zuzia ere? Xabier Amuriza

Oraindik ez dakite zerk **isiotu** zuen sutea. Berria - Euskal Herria

**Isiotzen** den pospoloaren karraska, eta bat-batean sutan dago, su urdinkara hotz batean bilduta. Oskar Arana

Orduan **isiotuz** joan ziren beste ontzietako argiak. Edorta Jimenez

Lehorrera bidali zuen txaneltxo bat, popako kriseilua **isioturik** zeramala. Edorta Jimenez

40 watteko bonbilla kanpotik **isiotu** eta itzaltzen zuten. Jokin Urain

Ez piztu telebistarik, ez **isiotu** irratirik. Iñigo Aranbarri

Gero, telebista **isiotzen** zuen eta lokarturik geratzen zen besaulkian. Eskarne Mujika

Caponek zigarreta bat **isiotu** zuen. Lutxo Egia

Hautsontzia hartu eta ohean etzanda **isiotu** zuen zigarro egin berria. Josu Landa

Gintonika, erabaki du beste winston bat **isiotzean,** horixe eskatuko diat hurrena. Paddy Rekalde

Gaur, aldiz, Ogeta pilotalekua beteko du **isiotu** berriko habanotzarren keak. Berria - Kirola

Bigarrenez **isiotu** zuen ezpainetan eskegirik zeukan txirria. Xabier Montoia

Hor inguruan **isiotu** dute egunotan, bestalde, Zabalgarbi errauskailua. Berria - Euskal Herria

Puruari erdian bokila ezarri eta alde bietatik **ixiotuta** erretzen zuen... Koldo Izagirre

**2** *irud*

Zertatik liteke sentimena bat-batean lohadarretan **isio,** garra hausberotik bezala? Gizon hau, beraz, gaztetako sugarrez bekatutan **izioturik** zegoen. Xabier Amuriza

Sentimen ia iraungiak **isiotu** egiten dituztela. Xabier Amuriza

Ikatz goria balitz bezala, den-dena jainko-maitasunaren sugarretan **isiotua** zirudien. Askoren artean

Maila horretatik behera, miseriak ez du kontzientziarik **isiotzen,** amatatu baizik. Pako Aristi

Ez zituen ankerraren gudu argitsuak **isiotuko** . Xabier Amuriza

Zeruko distiraz argitua eta naturaz gaindiko sugarretan **isiotua,** suzko gurdi dirdaitsuaren gainean. Askoren artean

Materiaren bihotza hutsune bat omen da, non energiaz betetako izpiak etengabe mugitzen diren batera eta bestera, ulertzen ez dugun mugagabetasun sentipen batek **isiotuta** . Pako Aristi

Badaki ez duela ezer sinetsiko, baina hala ere zalantza baten ezinegona **isiotu** nahi du neskarengan, dantzan joan dakion sabeletik eztarrira, eztarritik garunera. Pako Aristi

**3** (era burutua izenondo gisa)

Haren ondoan, argimutil bateko kandela **isiotuek** aurpegia berotzen zioten. Karlos Zabala

Zigarro **isiotu** bat eskaini eta esku odoldua toallan bildu zuen, odoljarioa gelditu nahian. Paddy Rekalde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bat isiotu** (23); **bat isiotu du** (6); **bat isiotu zuen** (6); **isiotu du** (9); **isiotu eta** (7); **isiotu zuen** (11); **sugarretan isiotua** (3); **zigarro bat isiotu** (17); **zigarroa isiotu** (3)

---

**isipu** *(orobat* ***ixipu*** *g.er.)* **1** *iz* elizetan ur bedeinkatua jaurtitzeko erabiltzen den tresna.

**Isipua** keinu leunez jaso, eta goitik behera zirtatu zuen ur bedeinkatua. Juan Garzia

Gero, hegazti bizia, zedro-zura, purpura gorrimina eta **ixipua** harturik, iturburuko uraren gainean hildako hegaztiaren odoletan bustiko ditu, baita hegazti bizia ere. **Isipua** eta otoitz-liburua altzoan estutzen zituela. Elizen arteko biblia

Laugarrena, lehen orrialderako, plano orokorra, erdian apeza zuela **isipuari** eragiten. Aingeru Epaltza

Ezpata eta **isipua,** erregeek! Jon Muñoz

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Harryk lasaituta leiho-ertzari heldu zion, ezagutzen baitzuen **isipu** -itxurako isats hura. Iñaki Mendiguren

Crookshanksek arin salto egin ohetik eta lehenengo prestatu zen gelatik irteteko, bere **isipu** -isatsa tente-tente zuela, lerden asko. Iñaki Mendiguren

Pertzak, hauts-palak eta **ixipu** -ontziak ere egin zituen Hiramek. Elizen arteko biblia

Bildu odola ontzi batean eta, **ixipu** -sorta bertan bustirik, zirtatu zeuen etxeko ategainak eta alboak. Elizen arteko biblia

---

**iskanbila** **1** *iz* oihuen, jolas edo borroka hotsen zarata; nahasmendua. ik **istilu**.

Hura zen **iskanbila** eta ardaila, hura zarata eta nahaspila. Karlos Zabala

-Zer dela-eta honelako asaldua eta **iskanbila** ? Iñaki Mendiguren

Haurren **iskanbila** eta joan-etorriak. Jose Morales

Hango buila eta hango **iskanbila** ! Xabier Etxabe

Telebista gelako zarata eta **iskanbilatik** ihesi. Jokin Urain

**Iskanbilak,** manifestaldiak zeuden kaleetan. Josu Zabaleta

Atzera egin zuen, bere inguruan piztutako **iskanbila** ikusita. Koldo Zuazo

Behe-mailako jendea da beti **iskanbila** sortzen dabilena. Mirentxu Larrañaga

Sekulako **iskanbila** antolatu zuen zorioneko bururdi hori zela-eta. Josu Zabaleta

Biltzarraren inguruan zegoen jendearen **iskanbila** baretzean, [...]. Elizen arteko biblia

Barazkien, loreen eta fruituen pabiloietan, **iskanbila** handiagotuz zihoan. Karlos Zabala

Mel Gibsonen *The passion of Christ* filmak eragindako **iskanbilak,** borrokak eta haserreak ez dira itzali oraindik.

Bat ez, hogei hildako ekarriko dituen **iskanbila** eragin dezake. Koldo Biguri

Alabaina, munduaren **iskanbilatik** bakartua egon arren, kalezuloak bizi burrunbatsu berezkoa du. Patxi Zubizarreta

Animalia izutuen **iskanbilaz** barre egiten zuen oraindik. Karlos Zabala

Ederra 1848ko **iskanbila,** ezta? Karlos Zabala

Txoriak txorrotxioka aritzen dira **iskanbila** zalapartatsuan. Koro Navarro

**2** (izenondoekin)

Hantxe nenbilen, larri asko, Las Vegasko joko-etxe horietako batean [...] **iskanbila** galanta bazterretan, eta gainera bozgorailuen burrunba. Joxe Austin Arrieta

**Iskanbila** galanta sortu zian, ezta, Ern? Iñaki Mendiguren

Une hartan, **iskanbila** handia izan zen bidean. Karlos Zabala

Ezpata zein ezkutuekin **iskanbila** handia atereaz. Joanes Urkixo

Horrek **iskanbila** madarikatu bat piztu eta giro gaiztoa eragingo likek hire kontra eta, beraz, gotzain jaunaren kontra. Koldo Biguri

Han habiak eginak zituzten enarek beren kirrinkekin sortzen zuten **iskanbila** izugarriagatik. Askoren artean

Barre algara handi bat entzuten zen hondoan, sukaldean, lapikoen **iskanbila** pozgarriarekin batera. Karlos Zabala

Hor non datorkion deabru talde handi bat, oso ankerrak, zalaparta eta **iskanbila** betean. Askoren artean

Gizon-emakumeak leihoak zabaldu eta hantxe eserita aritzen ziren berriketan eta elkarri ahots goraz deika, **iskanbila** biziki alai eta zalapartatsuan. Mirentxu Larrañaga

**3** (hitz elkartuetan)

Lur idor eta hutsezko zerrenda batean zehar, lehenbiziko txabola-lerrotik, **iskanbila**-hotsak datoz. Oskar Arana

Aitortza, garai batean krimenaren galgarik handiena izana, honen bultzatzailerik onena bihurtu da azpikeria eta **iskanbila** garaietan. Juan Martin Elexpuru

· Jendearen atsegin-**iskanbila** entzuten zen. Elizen arteko biblia

**4 *iskanbilan ibili***

Zergatik dabiltza **iskanbilan** nazioak, eta asmo ustelak asmatzen herriak? Elizen arteko biblia

Gu hor **iskanbilan** eta astrapalan genbiltzan bitartean, Potoloak isil-isilik... Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**a zer iskanbila** (3); **arteko iskanbila** (4); **da iskanbila** (7); **du iskanbila** (3); **ere iskanbila** (3); **eta iskanbila** (32); **eta iskanbila sortu** (5); **gabeko iskanbila** (3); **halako iskanbila** (6); **hango iskanbila** (3)

**iskanbila antolatu** (3); **iskanbila bat** (6); **iskanbila batean** (7); **iskanbila ederra** (8); **iskanbila ederra sortu** (4); **iskanbila entzuten** (3); **iskanbila eragin** (8); **iskanbila eragin du** (3); **iskanbila eta** (16); **iskanbila gogorra** (3); **iskanbila handia** (16); **iskanbila handia sortu** (8); **iskanbila hasi** (3); **iskanbila hau** (9); **iskanbila hau guztia** (3); **iskanbila hura** (6); **iskanbila izan** (8); **iskanbila piztu** (4); **iskanbila sortu** (33); **iskanbila sortu du** (4); **iskanbila sortu zen** (13); **iskanbila sortu zuten** (4); **iskanbila sortuko** (5); **iskanbila sortuz** (3); **iskanbila sortzen** (5); **izugarrizko iskanbila** (5)

**eta iskanbilak** (5); **iskanbilak eta** (6); **iskanbilaren erdian** (4); **iskanbilaren inguruko** (3); **iskanbilarik gabe** (3); **iskanbilarik nahi** (3); **sekulako iskanbila** (17); **sekulako iskanbila sortu** (6); **sortutako iskanbila** (3); **surik gabeko iskanbila** (3); **zalaparta eta iskanbila** (3); **zarata eta iskanbila** (3); **zen iskanbila** (10); **zer iskanbila** (5)

---

# iskanbilaka *adlag* iskanbila sortzen.

Baina hura irenstear zegoela, zaldizainak oihuka eta **iskanbilaka** irten ziren, eta zaldia berehala babestu zen itsasoan. Patxi Zubizarreta

---

# iskanbilatsu *izond* iskanbila handikoa.

Itxura basatiko belagileak, ipotx **iskanbilatsuak**. Iñaki Mendiguren

Azti-talde **iskanbilatsu** bati zerbitzatzen. Kantariak, dantzariak, zaldi lasterketa **iskanbilatsuak** izango ziren, eta jarraian orgia eta zalaparta. Iñaki Mendiguren

Borroka **iskanbilatsu** eta festa zaratatsuen idealizazio poetiko hau. Iñaki Mendiguren

Urte **iskanbilatsu** haietan egin ziren bidegabekeriak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Harro eskolako bere ekintzengatik eta asmakeria **iskanbilatsuengatik**. Elkarrizketa aurrera joan zen, **iskanbilatsuago** eta sutsuago, orain elkartea osorik zegoenez gero. Pello Lizarralde

---

# iskanbilazale *izond* iskanbilaren zale dena.

katedraduna ez zegoen oraindik, eta, ikasleen artean jende **iskanbilazale** asko zegoenez, baten bat lurrean bastoiaz kolpetxoak jotzen hasi zen. Josu Zabaleta

Aracilek, zer gertatzen zen eta Txoriburuak iragarritako bisitaren berri jakinik, alde egingo zukeen, **iskanbilazalea** ez zelako; baina, koldar baten gisa ez agertzeko, hantxe geratu zen. Josu Zabaleta

---

# iskemia *iz* odol zirkulazioa organo edo ehun batean etetea eta gutxitzea.

Bularreko angina **iskemia** transitorio bat da; odolak bihotzera heltzeari lagatzen dio, baina aldi batez, gero, berriro ere bere onera etortzen da. Berria - Gaiak

**Iskemia** bat zeukan eta atzamarra gangrenatzeko arriskua zegoelako egin zion ebakuntza Ander Letamendia doktoreak. Berria - Kirola

---

# iskemiko *izond* iskemiari dagokiona.

Gaixotasun zabalduenen zerrendan hirugarren lekuan ageri dira errepide istripuen ondoriozko traumatismoak, kardiopatia **iskemikoa** eta depresioaren atzetik. Berria - Gaiak

---

# iskildura *iz*

Urliak poemari damaio **iskildura**. Juan Garzia

---

# iskilimotz *iz*

Eta arrotzak ezpataz edo **iskilimotzaz** hilko. Txillardegi

---

# iskilinba *(orobat **ixkilima**)* **1** *iz* orratz buruduna, orratza. ik **orratz 2**.

Laukiekiko txalekoa zuen eta, txakur-buru batez apaindutako **iskilinba** bat ere, brokatuzko gorbatan iltzaturik. Lopez de Arana

Behar ziren igorri xingola batzu, **ixkilimekin,** eta gero **ixkilimak** behar ziren untsa plegatu, xixta sobera hartu gabe. Menane Oxandabaratz

Eta gero, bi kortxo txatal, batetik, eta dozena bat **iskilinba** bestetik, kaiolatxo borobilak eraiki. Txillardegi

**Iskilinba**-buruen moduko bere begi-nini beltzak pixkanaka-pixkanaka handitu egin ziren. Lopez de Arana

Ohorea aldi berean zorrotz eta merke zen mende batean bizitzea egokitu zitzaiola gogoan atxikitzen zuen artzainak, kolko gantzatsuan **ixkilima** herdoilduez medailak itsasten zizkioten bitartean. Itxaro Borda

**2** (hitz elkartuetan)

Baginakian gure ekintzak **ixkilima** ukaldien parekoak zirela. Herria

---

# iskilinbatu, iskilinba(tu), iskilinbatzen *(orobat **ixkilimatu**)* du *ad* iskilinbez finkatu.

Jatok, gizon famatua baita, egunkarietan beraz ari diren […] artikuluak murruetan, ateetan, **iskilinbatu** edo kolatu ditu. Piarres Aintziart

Zonbait medaila papoetan **ixkilimaturik,** Irratian goizeko seietan entzuna egun osorako daramazu gogoan **ixkilimatua,** saihets eta ekidin ezin. Itxaro Borda

---

# iskilu *(orobat **izkilu** g.er.)* **1** *iz* arma.

Zaldiak, zalgurdiak, **iskiluak,** munizioa, dena dago prest. Txillardegi

Isilaldi betean zain zegoelarik jaso zuen **iskiluen** deskarga bortitza. Txillardegi

Han ziren beste bi foral, **iskiluak** prest-. Edorta Jimenez

Frantziar herriak, **izkiluen** bidez askatasuna eskuratu duenak, legearen bitartez gorde eta finkatuko du askatasun hori. Andres Urrutia

Lapur batengana bezala atera zarete ni hartzera makilez eta **iskiluz** . Patxi Altuna

Beso bi izanez gero, nahikoa **iskilu** ez al da aitzurra? Juan Garzia

Har itzazu ehizarako **iskiluak,** uztaia eta geziak, zoaz oihanera eta harrapa ezazu piztiaren bat. Elizen arteko biblia

Kanoiek huts eginez gero,eskuko **iskiluekin** egin beharko ote genion aurre erasoaldi bati; abordaiari. Edorta Jimenez

Euskal Herriko mendietan barrena, eta su- **iskiluak** neure besoetan harturik. Txillardegi

**2** *hed/irud*

**Iskilu** nagusiak, hortaz, parabellum-ak eta bonbak barik, berebiziko abailaz jaurtiriko birusak eta antibirusak izango dira. Markos Zapiain

Euskara politika **iskilu** gisa erabiltzeak, horrenbestez, kalte baino ez dio egiten bere estatusari. Markos Zapiain

Ederki makilatzen ditu **iskilu** bakar dituen hitzez eta bertsoez. Markos Zapiain

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta iskiluak** (4)

---

# iskiludun *iz* armaduna.

Lehenbiziko **iskiluduna** izan zuan. Juan Garzia

---

# iskimau *iz* eskimala, inuita.

*Eta* bazekiten, bidaiant euskaldunek, marinel haiek ez zirela euskal kantu zahar batzuetan aipatzen diren "indiano salbaiekin" eta **"iskimau** gizabestiekin" beti ontsa portatu. Aurelia Arkotxa

---

# iskin ik **izkina**.

---

# iskintxo

**1** ***iskintxo egin*** *(ETCn **51** agerraldi; orobat **izkintxo egin** ETCn **28** agerraldi)* higidura egokia eginez saiestu. ik **izkina 6**.

Kartzelatik itzuli zenean ez zuten gonbidatzen tertulietara, eta jendeak **iskintxo** egiten zion, orain iraultzaile arriskutsuaren sona zuelako Turinen. Fernando Rey

Haurrei eta gaztetxoei zuzendutako literaturak ez diela zertan **izkintxo** egin bizitzaren gai nagusiei; heriotzari, edo minari, eta ezta gazteen kezka eta egonezinei ere. Berria - Kultura

Oztopoei **iskintxo** eginez iritsi ginen Sheila Helmekin dantzan ari zen lekura. Xabier Olarra

Aristotelesen filosofiarekin lotua, irakasten zuen bitartean batetik bestera ibiltzen baitzen, ikasleen erreparoei **iskintxo** egiteko. Xabier Olarra

Ez nuen asmatu legeari **iskintxo** egiteak exijitzen zuen jokoa azken harirano jokatzen. Joseba Urteaga

*Cause celebre* haren paper sorta lodietan ez da ageri errudunek aginduari **iskintxo** egin zioten ala harrera gaiztoko jurisdikzio hartatik berehala alde egin zuten. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **iskintxo egiteko** (3)

---

# iskiotibal *iz* aldaka aldeko giharra.

Bost partida jokatu ondoren, **iskiotibalak** apurtu zituen, eta ordutik 15 minutuan baino ez zuen jokatu. Berria - Kirola

Karpin ordezkatuko du eskuin hegalean, errusiarrak minberatuta daukalako oraindik ezker izterreko **iskiotibala** . Berria - Kirola

Jauregiri ez zaio osatu **iskiotibaletan** zuen gainkarga. Berria - Kirola

---

# iskiriatu ik **izkiriatu**.

---

# isku ik **idisko**.

---

# isla[1] **1** *iz* zerbaitek argitzen duen gorputz batek norabide berean, edo beste norabide batean, jaurtikitzen duen argia.

Begi haien sakonguneetako **isla** putzuko urarena bezalakoa zen. Lopez de Arana

Behin ikusi zuen urrearen distira, baina Weasley bikietako baten eskumuturreko erlojuaren **isla** zen. Iñaki Mendiguren

Ispilua nolako, halakoxea izaten da **isla** . Joxerra Garzia

Ispilutik hain hurbil zegoenez, Harryren sudurra ia ukitzen ari zen bere **isla** . Iñaki Mendiguren

Bere aurpegiaren **isla** edalontzian atzematera saiatu zen. Aritz Gorrotxategi

Gora egiten ikusi nituen, pauso geldiekin, hiru orban beltz ziruditen asfaltoaren **islaren** gainean. Monika Etxebarria

Argi egiten duen argitik **islara** dagoen alde bera dago jakinduria sortzailea eta sortuaren artean. Imanol Unzurrunzaga

Ilargiak uretan egiten zuen **isla** ere deskribatzen ahal dizuet. Fernando Rey

Ispiluetan dirdizka mila **islatan** ugaltzen zen ehun lanpararen argipean. Karlos Zabala

Eta zer egin behar du hurrena maitasunak erotutatako txoro batek?, galdetu zion bere **islari** isilka, Victoriako taberna hutseko ispilu itxuraldatzailean ikusten baitzuen. Koro Navarro

Morse andrea ispiluko **islari** so egon zen, hotz eta motz. Mirentxu Larrañaga

Egongelako argiak **isla** egiten zuen hormigoi bustian. Lander Garro

Suaren **isla** hartzen zuten dendako neskameak han utzitako tentelkeria xalo handiak. Karlos Zabala

**2** (izenondoekin)

Farolak etorbidean gaindi izekitzen ari ziren eta **isla** berdeak jaurtikitzen zituzten etxe-bloke moreen gainean. Ilunabarraren **isla** gorriez gozatzea. Lopez de Arana

Alde batean, ez oso urrun, pinudi urdinxka baten **isla** iluna atzematen zen. Jose Morales

Nire kilkerra beltza da, **isla** gorrizta ttikiekikoa. Patxi Zubizarreta

**Isla** ilunak hauteman ditu autoaren karrozerian. Pello Lizarralde

Han argitasuna zen nagusi, leihoen argiaren **isla** angeluzuzenek eta banaketa-autoen 8 itxurako nikelezko osagarriek sortzen zituzten dirdaiek eraginda. Lopez de Arana

**Isla** hutsa da ametsetan ikusten dena: benetako aurpegiaren aurrean, aurpegiaren irudia. Elizen arteko biblia

**3** *irud*

Gizarte forma edo eredu baten **isla** naiz. Ana Urkiza

Gai horiek izan al dute **islarik** literaturan? Ana Urkiza

Agian albo-herrikideen arteko gorroto eta ezinikusien **isla** baino ez dira halako hitzak. Jon Arretxe

Bere garaiko iritzi nagusiaren **isla** baino ez da Etxegarairena. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Garaipenaren **isla** zen haren begien distira. Aingeru Epaltza

Zinez esan daiteke Maupassanten barne bidearen **isla** dela haren obra gehiena. Josu Zabaleta

Giza adimenak errealitatea errepresentatzen du, errealitatearen hala holako **isla** bat da. Askoren artean

Oro har, X katea bere "ispiluaren aurreko **isla** den" (hots, atzekoz aurrerakoa den) X kateak jarraiturik eraturiko perpausak. Itziar Laka

Euskal Herriko gatazka politikoaren **islarik** ere bada han-hemenka liburuan. Berria - Kultura

**4** (izenondoekin)

Odolaren **isla** lauso bat da linfa: odol-plasmaren itxurako likido bat, funtsean. Irene Aldasoro

Ez zuen bete-beteko sentipenik adierazten, ezpada sentimendu baten **isla** ahula. Jose Morales

Etorkizunak, berriz, ez du aurpegi eta **isla** jakinik. Anjel Lertxundi

Hizkuntza baten bereizkuntza fonemiko orok du bere **isla** grafikoa hizkuntzaren ortografian. Lourdes Oñederra

Zeharo murgildurik gauden suntsipen zurrunbilo hori gizarte, produkzio eta kontsumo sistema baten **isla** zuzena dela. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Munduan azken urteotan izan diren gertaerek **isla** zuzena izan dutela zineman. Berria - Kultura

Estrukturalismoak **isla** oparo eta aberatsa izan du euskararen ikerketan Mitxelanaren fonologiazko maisu lanetan. Lourdes Oñederra

**Isla** zehatzik gabeko arerio-kide beldar-irudi hori aurrean definituz baitoakizu. Juan Garzia

Egun iraganen **isla** atzeratuak. Joseba Sarrionandia

**5** (hitz elkartuetan)

Mugitzen den gorputz batek mugi-ezinezko beste bat, geldirik dagoena, jotzen duelarik, aitzina mugitzeko gisan isladatua da, eta jo duen gorputz geldiaren planoarekin **isla**-marrak osatzen duen angeluak, plano berarekin jotze-marrak osatzen duen angeluaren neurri bera du. Piarres Xarriton

· Atea zabalik zegoen eta zeru gris baten argi-**isla** irazten uzten zuen. Juan Garzia

Eta azkenean haritxo gorrizko amaraun itsusi bat osatzen da, ezpain-**isla** lausotuz eta efektu guztia hondatuz. Juan Garzia

Mailaren behereneko partean, eskuin aldera, dirdir-**isla** zuen esfera koxkor bat ikusi nuen, nekez jasan zitekeen distira zeriona. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldaketaren isla** (3); **aniztasunaren isla** (8); **aniztasunaren isla da** (4); **arimaren isla** (3); **asmoaren isla** (3); **aurpegiaren isla** (5); **baten isla** (33); **baten isla dira** (3); **benetako isla** (3); **bere isla** (13); **beren isla** (3); **bizitzaren isla** (4); **dira horren isla** (3); **du isla** (5); **duen isla** (7); **egoeraren isla** (5); **eguzkiaren isla** (4); **ere isla** (6); **ere isla izango** (3); **ereduaren isla** (4); **errealitatearen isla** (6); **eta horrek isla** (4); **eta horren isla** (9); **eta isla** (9); **ezinaren isla** (4); **gizartearen isla** (12); **gizartearen isla izan** (3); **haren isla** (6); **horrek isla** (10); **horrek isla izan** (4); **horrek isla izango** (4); **horren isla** (65); **horren isla da** (15); **horren isla dira** (12); **horren isla izan** (5); **horren isla zuzena** (4); **ingurunearen isla** (3); **irudiaren isla** (6)

Erantzuna mineraletako **isotopoek** emango dute. Berria - Gaiak

Hidrogenoaren **isotopoa** da, eta itsaso zein ibaietako uretik ateratzen da. Berria - Gaiak

Zesio-137 **isotopo** erradiaktiboak 45.260 kilometro koadro kutsatu zituen, Ukrainaz, Bielorrusiaz eta Errusiaz landa. Berria - Gaiak

Bonba atomikoak egiteko eta erreaktore nuklearretan erabiltzen da [uranioa], horretarako, berez duen 235 **isotopoaren** kopurua handitu egin behar da. Berria - Mundua

Zazpi urtean, plutonio **isotopoz** betetako zortzi ontzi eduki ditu gordeta garajean Errusiako gizon batek. Berria - Gaiak

---

# isotropia *iz* isotropoa denaren nolakotasuna.

Erakustea guztiz ezberdinak diren kontzeptuek [...] leku analogoa betetzen dutela euren positibotasun-sistemaren adarkatzean **-isotropia** arkeologiko batez hornituak daudela erakustea, alegia-. Xabier Arregi

---

# isotropo *izlag* norabide guztietan tasun berak dituen gorputz edo ingurunea.

Perspectiva artificialis-ari dagokionez, Berpizkundean "espazio sistematikoa" (matematikoki ordenatua, infinitua, homogeneoa, **isotropoa**) azaldu zenean egin zen posible (edo beharrezko). Josu Zabaleta

---

# isozianato *iz*

**Isozianatoa** produktu toxikoa da, Fagor Etxetresna Elektrikoak konpainiak hozkailuak termikoki isolatzeko erabli ohi duena. Berria - Harian

Metil **isozianato** gai arriskutsua egiten hasi ziren Bhopalgo lantegian. Berria - Gaiak

---

# ispahandar *izlag/iz* Ispahangoa, Ispahani dagokiona; Ispahango herritarra.

**Ispahandarrak**, soka eskuan, / goibel negarrez zioen: / "Apaltasunez bizi izan banintz, / betiko ospea nukeen". Xabier Olarra

---

**ispilatu**, ispila, ispilatzen **1** da/du *ad* ispiluan islatu. ik **ispilukatu**.

[Miraila] haietan **ispilatzean,** hagitz handi edo hagitz ttiki ikusten duzu zeure burua, edo eta erabat bihurriturik. Juan Garzia

Neure beldurra, neure ezustea, neure mina ikusi nituen, Potzolo ene haurretako ikaskidearen betaurreko beltzetako kristaletan **ispilaturik**. Aingeru Epaltza

Eguzkia eguzkiago iruditu zaie biei BBVAren kristal dorrean **ispilatua**. Patxi Iturritegi

**2** *irud* islatu.

Bere begietan aingeruen xalotasuna **ispilatzen** da. Ispilatze hori, bizi izan diren eta bizi diren gainerako gizakien garunetan **ispilatutako** irudiekin batera eta haiekin kontrastatuta, hori da munduaz dugun ezagutza, hori da gure mundua. Gotzon Garate

Kontraste horrek beste bat **ispilatzen** du. Juan Garzia

Hor daude, esate baterako, bohemio jende narrasen ibiliak, Rafael Villasús poetaren heriotzan **ispilatuak**. Josu Zabaleta

Orobat imajinatu zuten gure egintzak alderantziz **ispilatzen** direla beste aldean, halako moldez ezen, beila egiten badugu, besteak lo egiten du, fornikatzen badugu, bestea kastua da, ebasten badugu, bestea eskuzabala da. Juan Garzia

**3** (era burutua izenondo gisa)

Argi **ispilatutan** aztertu. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **ispilatzen da** (4)

---

**ispilatze** **1** *iz* desberdin beroturiko bi aire geruzetan gertatzen den islatzearen ondoriozko lilura optikoa. ik**ispilukeria; espejismo.**

**Ispilatzeen** berri entzuna zuen, eta ikusi ere egin zituen batzuk: basamortuko harearen gainean gauzatzen ziren desirak ziren. Xabier Aranburu

**2** ispiluan islatzea.

Hotsaren lilurazko **ispilatze** moduko bat bide da, beraz, danbor hori. Josu Zabaleta

Badira irudi opakoak, argiaren erreflexioz, **ispilatzez** ikusteko eginak, uki daitezkeenak. Josu Zabaleta

Misteriozko gauza da harentzat, gauza sakon, ezezaguna, **ispilatzeen** eta fantasmagorien eremua, izatez ez diren gauzak ikusten direna, gauez, ezagutzen ez diren hotsak entzuten direna. Josu Zabaleta

Dudarik ez dago senti daitekeen horizonteko kosmos-parteak gure garunean duen **ispilatzearen** ondorioa dela ezagutzen dugun mundua. Josu Zabaleta

---

**ispilu** *(orobat* **ixpilu** *g.er.)* **1** *iz* beira eztainuztatuzko gainazal leun batek osatzen duen gauzakia, argia islatzen eta pertsona eta gauzen irudia ematen duena. ik **mirail**.

**Ispiluan** gizon arrunt bat ikusi zuen, aurpegi maiztukoa eta bizar-zuria. Bernardo Atxaga

**Ispiluan** begiratzen dut berriro. Anjel Lertxundi

Bere buruari begiratzen dio **ispiluan**. Oskar Arana

**Ispiluan** islatua ikusten du, ohean, egunkaria irakurtzen, gauero bezala. Jokin Muñoz

Xole eta Anamari **ixpiluaren** aurrean apain apain orraztu, ezpainak pinta pinta egin eta, abiatu dira herri aldera. Patziku Perurena

Norberaren irudiaren ordez ezerezarena erakusten duen **ispilua**. Juan Garzia

Behebarruan **ispilu** bat bada, zintzo-zintzo itxurak bikoizten dituena. Juan Garzia

**Ispilu** baten irudia bezain erraz ezabatzen dena. Eduardo Matauko

Ikusi nituen planetako **ispilu** guztiak eta batek ere ez ninduen islatu. Juan Garzia

**Ispilua** nolako, halakoxea izaten da isla, eta hori da kalkulatu behar dena: **ispiluz** beste aldean sortzen den irudia noiz erreala eta noiz begien irudikeria hutsa den. Joxerra Garzia

Leihoetako kristalak **ispilu** bihurtzen ziren tuneleko paretaren hondo ilunarengatik. Iñaki Zabaleta

Nor nintzen, ordea, ni?, hori zen **ispiluak** berdinduko ez zidan koska. Anjel Lertxundi

Gustatu egiten zaizu **ispiluko** irudia. Lourdes Oñederra

**Ispiluzko** betaurrekoduna albotik igaro zitzaion, eta Ronda kalean sartu. Unai Iturriaga

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Ispilu** handi, pitzatu eta zikin baten azpian. Iñaki Mendiguren

Konketa, komun zikin bat eta **ispilu** txiki bat zeuden han. Jon Maia

Bere aurpegia islatuta ikusi zuen hauts-kutxako **ispilu** biribilean. Lopez de Arana

Aldagelan zegoen, hiru orriko **ispilu** baten aurrean. Matías Múgica

Apaintze-mahaiko **ispilu** aurrean eserita. Lopez de Arana

**3** *irud*

Haren begiak **ispilu** sakon bi ziren, non neure burua ikus bainezakeen. Nork bere burua bere ezerezaren **ispilu** aurrean ikustea ez baita kontu atsegina. Joan Mari Irigoien

Izango ote zen gai handik ateratzean aspaldiko **ispilu** ezagunetan bere aurpegiari aurrez aurre begiratzeko, zekien bezala jakinik, askoz azkarrago zahartzen dela bat egunero bere aurpegia oparitzen ez dioten **ispilu** haien baitan. Harkaitz Cano

Nigeriak **ispilua** ipini zidan begien aurrean, eta nire burua ikusi nuen. Ana Urkiza

Kazetaritza edo hitzak behar zituen Ugaldek mundu erreala islatzeko informazioaren **ispiluan**. Berria - Harian

Eleberria **"ispilu** bat da, bidean aurrera doana". **Ispilu** honetan, hain zuzen, dirdai egiten du pobretasun zoriontsuak. Askoren artean

Egingo nuke apeta horietako mordotxo bat atzeman dituzula zure atzerako **ispilu** horretatik. Oskar Arana

**4** isla.

Haren begitarteari, arimaren **ispilu,** edertasun miresgarria zerion. Patxi Zubizarreta

Argitaletxea ez da batere sektarioa, orduko kulturaren **ispilu** baizik. Anjel Lertxundi

Askoren iritziz, *alter ego* edo **ispilu** izan zuen Brechtek Keuner jauna. Berria - Kultura

Egoera eta garai horien **ispilu** eder hunkigarria da *Edale santuaren kondaira* testu labur ezaguna. Anjel Lertxundi

Errepublika historikoak errepublika utopikoa du **ispilu**. Anjel Lertxundi

Haren bisaia bozkarioaren **ispilu** zen, martini-itsaso gozoak amets zituelako marka. Aingeru Epaltza

Zeren **ispilu** dira nire testuak? Anjel Lertxundi

Gure ezjakintasunaren **ispilu** gara askotan. Pello Salaburu

Liburutegi pertsonal oro bizitza baten egitasmoa eta **ispilua** da. Anjel Lertxundi

**5** eredua, jarraibidea.

Banketxean dirua daukan gizon baten aurpegia zen, arrakastaren **ispilu** ezin hobea. Lopez de Arana

Guk nahi dugu kontinente hau besteen **ispilu** izatea, batez ere demokrazia kontuetan. Pello Salaburu

**Ispilu** eta jarraibide izan daitezen munduan bizi direnentzat. Askoren artean

Berri ezazu gure bizitza lehengo erara, perfektuen **ispilu** eta eredu zaren horrek. Askoren artean

Irlandako **ispiluari** so. Berria - Harian

Fededunendako eredu eta **ispilu**. Aingeru Epaltza

Aita, zure biziera eta jokabidea argi eta **ispilu** izan dira eta hala dira orain ere. Askoren artean

Izan ere, zu zinen gazteon **ispilu,** zu gure hegoa eta iparra, ereduetan gorena eta maisuetan maisuena. Xabier Montoia

Eta Sarak heu hauka **ispilu..**. Joan Mari Irigoien

## 6 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Ispilu** -denda bateko erakusleihoaren aurrean. Iban Zaldua

Kaiola barruko **ispilu zatia** lurrunez estalirik zegoen. Juan Kruz Igerabide

Denbora-tarte batez alde batetik bestera artega ibili ondoren, **ispilu** -atetik irten eta esekitako jantziz beteriko korridore batera heldu zen. Lopez de Arana

**Ispilu** -joko bat izaki, literaturak errealitatearen errepresentazioa bilatu nahi du. Anjel Lertxundi

**Ispilu** -irudiz dena erlatibizatzeko joera zuen batentzat. Iban Zaldua

Hasi da bidaia, portu miresgarrien ametsa, altxor preziatuenen desira, miseria gogaikarrienen **ispilu** -lana. Anjel Lertxundi

Analogia **ispilu** -alderdiari dagokiola esan daiteke, eta errealismoa mapa-alderdiari. Josu Zabaleta

## 7 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Ahalegin handiz jaiki eta esku- **ispilua** hartu du. Xabier Paya

Barne- **ispilu** horren aurrean jarri eta deus ez ikustea jasangaitza zaigula. Joxerra Garzia

Erlijiosoak santutasun- **ispilu** ziren, eta jende santu asko hilobi zurituen itxurakeriaz kutsatu gabe zegoen oraindik. Askoren artean

## 8 *atzerako ispilu* auto gidariari atzealdean dagoena ikusten laguntzen dion ispilua.

Olatz etengabe ari zen **atzerako** ispiluan begira, noiz azalduko ote ziren. Harkaitz Cano

**Atzerako** ispiluari begira hitz egin zion txoferrak. Ramon Saizarbitoria

**Atzerako** ispilutik begira ari zait gidaria. Anjel Lertxundi

Atzerako **ispiluan** bidaiariari begiratu ondoren. Jon Muñoz

-Hik garbi ikusten al duk? -galdetu zidan, Romanek azalpenak bukatu, eta **atzerako** ispiluan berari begira ageri ziren nire begi biei finko begira. Inazio Mujika Iraola

## 9 *ispilu itxuraldatzaile*

Eta zer egin behar du hurrena maitasunak erotutatako txoro batek?, galdetu zion bere islari isilka, Victoriako taberna hutseko **ispilu** itxuraldatzailean ikusten baitzuen. Koro Navarro

· **Ispilu** itxura-aldarazleak iragartzen zituen iragarki apurtu bat haraxeago. Harkaitz Cano

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aurrean ispilu** (3); **batean ispilu** (4); **baten ispilu** (7); **beraren ispilu** (3); **beste ispilu** (3); **bi ispilu** (3); **bizitzaren ispilu** (3); **burua ispilu** (3); **da ispilu** (7); **du ispilu** (5); **edo ispilu** (5); **elkarren ispilu** (4); **eredu eta ispilu** (3); **errealitatearen ispilu** (5); **eta ispilu** (38); **eta ispilu aurrean** (3); **eta ispilu izan** (4); **gizartearen ispilu** (5); **herriaren ispilu** (3); **horren ispilu** (9); **ispilu aurrean** (62); **ispilu aurrean jarri** (6); **ispilu aurreko** (4); **ispilu aurrera** (5); **ispilu baizik** (3); **ispilu bat** (52); **ispilu bat da** (4); **ispilu bat eta** (3); **ispilu bat zegoen** (3); **ispilu batean** (19); **ispilu batean bezala** (5); **ispilu batek** (4); **ispilu baten** (15); **ispilu baten aurrean** (8); **ispilu batera** (3); **ispilu bati** (3); **ispilu beltz** (3); **ispilu da** (7); **ispilu dira** (10); **ispilu edo** (3); **ispilu ere** (5); **ispilu eta** (20); **ispilu ezin** (3); **ispilu gara** (3); **ispilu gardena** (3); **ispilu gisa** (9); **ispilu guztiak** (3); **ispilu handi** (10); **ispilu handi bat** (6); **ispilu handia** (3); **ispilu handian** (3); **ispilu handiaren** (5); **ispilu hartan** (3); **ispilu honek** (3); **ispilu hori** (5); **ispilu horrek** (4); **ispilu horren** (5); **ispilu horren aurrean** (3); **ispilu horretan** (4); **ispilu horri** (3); **ispilu izan** (22); **ispilu izan behar** (3); **ispilu izan zen** (6); **ispilu izatea** (5); **ispilu joko** (3); **ispilu joko bat** (3); **ispilu jokoak** (3); **ispilu lana** (4); **ispilu moduko** (3); **ispilu ona** (3); **ispilu txiki** (11); **ispilu txiki bat** (7); **ispilu zen** (3); **munduan ispilu** (3); **munduaren ispilu** (4); **ondoko ispilu** (3); **zegoen ispilu** (3); **zen ispilu** (4); **zeruaren ispilu** (4); **zion ispilu** (3); **zuen ispilu** (10); **zuen ispilu aurrean** (3)
>
> **atzerako ispilua** (3); **atzerako ispiluan** (7); **aurpegia ispiluan** (3); **baina ispiluak** (3); **bainugelako ispilua** (3); **bere burua ispiluan** (11); **bere ispilua** (3); **burua ispiluan** (16); **burua ispiluan ikusi** (5); **buruari ispiluan** (5); **da ispiluan** (3); **duen ispilua** (7); **dut ispiluan** (3); **egoeraren ispilua** (3); **erakusten duen ispilua** (3); **eta ispilua** (14); **eta ispiluak** (6); **eta ispiluan** (11); **eta perfekzio ispilua** (6); **gaineko ispiluan** (4); **gelako ispiluan** (3); **ikusten ispiluan** (3); **ispilua apurtu** (4); **ispilua baino** (3); **ispilua da** (9); **ispilua dela** (5); **ispilua eta** (7); **ispilua izan** (6); **ispilua k** (5); **ispiluak dira** (3); **ispiluak eta** (3); **ispiluak ez** (3); **ispiluak itzultzen** (4); **ispiluan barrena** (5); **ispiluan begiratu** (15); **ispiluan begiratu eta** (4); **ispiluan begiratuz** (4); **ispiluan begiratzea** (3); **ispiluan begiratzen** (10); **ispiluan begiratzera** (3); **ispiluan bere** (14); **ispiluan bere burua** (5); **ispiluan bere buruari** (5); **ispiluan eta** (3); **ispiluan ikusi** (20); **ispiluan ikusi zuen** (3); **ispiluan ikusten** (12); **ispiluan ikusten nuen** (4); **ispiluan islaturik** (3); **ispiluan itsatsita** (3); **ispiluan neure** (8); **ispiluan neure burua** (4); **ispiluan neure buruari** (3); **komodako ispiluan** (4); **nuen ispiluan** (4); **ondoko ispiluan** (4); **perfekzio ispilua** (19); **perfekzio ispilua k** (5); **salako ispiluan** (3); **zegoen ispiluan** (3); **zen ispiluan** (3); **zuen ispilua** (4); **zuen ispiluan** (9)
>
> **burua ispiluaren** (3); **eta ispiluaren** (10); **eta ispiluaren aurrean** (6); **eta ispiluari** (7); **eta ispiluari begira** (3); **eta ispiluen** (3); **ispiluaren atzean** (3); **ispiluaren aurrean** (87); **ispiluaren aurrean bere** (4); **ispiluaren aurrean jarri** (8); **ispiluaren aurrean jartzen** (3); **ispiluaren aurrean zegoen** (4); **ispiluaren bestaldean** (3); **ispiluaren beste** (5); **ispiluaren beste aldera** (3); **ispiluaren kontra** (4); **ispiluari begira** (21); **ispiluari begiratu** (9); **ispiluari begiratzen** (3); **ispiluen gainean** (4); **ispiluen gainean lo** (4); **ispiluen zaldunaren** (3); **komuneko ispiluaren** (4); **komuneko ispiluaren aurrean** (4); **nuen ispiluaren** (3); **nuen ispiluaren aurrean** (3); **zen ispiluaren** (5); **zen ispiluaren aurrean** (3); **zion ispiluari** (4); **zuen ispiluari** (3)
>
> **atzerako ispilutik** (13); **atzerako ispilutik begiratu** (3); **eta ispiluko** (3); **eta ispilura** (4); **eta ispilutik** (4); **ispiluko bere** (3); **ispiluko hori** (3); **ispiluko irudia** (3); **ispilura begira** (5); **ispilura begiratu** (7); **ispilura begiratu eta** (3); **ispilura begiratu zuen** (3); **ispilura hurbildu** (6); **ispilura joan** (7); **ispilura joan zen** (4); **ispiluren bat** (4); **ispilurik ez** (3); **ispilurik gabe** (5); **ispilutik begira** (3); **ispilutik begiratu** (6); **ispilutik ispilura** (3); **ispilutik ispilura** (3); **ispiluz bestaldeko** (3)

---

# ispiludun *izond* isipilua duena; ispiluak dituena.

Atzean, armairu handi **ispiludun** bat. Josu Zabaleta

Hiru ateko armairu **ispiludunak** gizon erdibiluzi baten irudia itzultzen zuen. Juan Martin Elexpuru

Ukipen-lente **ispiludun** bat erabiliz, ez da zaila begiaren mugimendu naturala konpentsatzea. Irene Aldasoro

Armairu **ispiluduneko** eta komodako kaoba distiratsuan. Karlos Zabala

Begiak ikusezin egiten zizkioten eguzkitako betaurreko **ispiludunak**. Patxi Zubizarreta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **armairu ispiludun** (3); **ispiludun bat** (3)

---

# ispilugile *iz* ispiluak egiten dituen langilea.

Eztainua [...] eztainu kloruro bihurtu eta **ispilugileei** salduz. Juan Garzia

Baina, kontuak kontu, bezeroak arrazoi du beti, bereziki kimikaz ezer gutxi dakienean, horixe baita, hain zuzen, **ispilugileen** kasua. Juan Garzia

---

# ispilukatu, ispiluka, ispilukatzen du *ad* ispilatu.

Hodibihurrezko hoztailuaren muturretik, harribitxien moduko argi-izpiak **ispilukatzen** zituzten tanta lodi urrekoloretan erortzen zen azidoa. Juan Garzia

---

# ispilukazo *iz adkor* ispilu isla.

Garbi-garbia balego, agian norbaitek ispilurik ez dela pentsatu eta sekulako **ispilukazoa** hartuko likek. Iñaki Iñurrieta

Horrelako espekulazioetan hasi, eta **ispilukazo** galanta har dezakek, esan nian orain hurrengo. Iñaki Iñurrieta

---

# ispilukazoka *adlag adkor*

-Hi ere **ispilukazoka** hasi al haiz? -egiten du Hausterrek orduan. Iñaki Iñurrieta

---

# ispilukeria *iz* ispilatzea; lilura hutsala.

Saio guztiak, esperantza guztiak, **ispilukeria** guztiak, behin eta berriz apurtzen eta zirtzilatzen dira kalexka hauen egunerokotasunaren, ezdeusaren, epika faltaren kontra. Iñaki Iñurrieta

---

# ispiluketa *iz*

-Zer moduz **ispiluketan**? Iñaki Iñurrieta

---

# ispiluratu, ispilura(tu), ispiluratzen **1** da *ad* ispilura joan.

Baina ispilua sentitzen duguneko, guregandik irtendako irudi bat **ispiluratzen** da, eta handik berriro, atzera jaurtirik, gure begietara itzultzen da, Xabier Amuriza

**2** du *ad* ispilura eraman.

Eta zeozer denik azkarren eta noiznahi **ispiluratzen** baduzu ere, irudia hantxe dukezu beti; hortik dakizu gorputzaren gainazalari ehundura xumeak eta figura xumeak etengabe jareiten zaizkiola. Xabier Amuriza

---

# ispilutxo *iz* ispilu txikia.

Berrogei urte inguruko emakume bat erakutsi zidan, oraindik ederra, besaulki handi batean eserita, eskuko **ispilutxo** batean bere aurpegia etengabe aztertzen ari zena. Josu Zabaleta

Aurrean ipini zion beti zorroan erabiltzen zuen **ispilutxoa**. Xabier Montoia

Gure aita zenak, larunbatean kentzen zuen asteko bizarra, **ispilutxoa** leihoko maratiltxoaren ertzean esekita... Pello Zabala

Neska haien aurrealdean bizi zen mutil batek eguzki-izpiak botatzen zizkien **ispilutxo** batez. Josu Zabaleta

Raukina saiatu zen modu baretsuan neskatoari hitz egiten, **ispilutxotik** atzerantz begiratzen zuen bitartean. Joxemari Iturralde

---

# ispilutze *iz* ispilatzea.

**Ispilutze** hutsa izan zen, Pamesak zuloa egin zuen berriro. Berria - Kirola

---

ispiritu ik **izpiritu**.

---

# israeldar *(orobat **israeltar** g.er., **izraeldar** g.er. eta **israeltiar** g.er.)* **1** *izlag* Israelgoa, Israeli dagokiona. ik **judu**.

Palestinar gazte bat, 16 urtekoa, hil dute **israeldar** soldadoek Gazako zerrendan. Herria

Kutxaren aitzinean bildua zegoen **israeldar** batzar osoak. Elizen arteko biblia

**Israeldar** gudarosteko bi mila gizon inguru galdu ziren egun hartan. Elizen arteko biblia

**Israeldar** obusak palestinar kanpamendu baten kontra. Herria

**Israeldar** herrialdea bakean bizi izan zen berrogei urtez, Gedeon bizi izan zen artean Bi haur **israeldar** tiroz hilak. Elizen arteko biblia

Herenegun ekintzaile palestinarrek bost soldadu **israeldar** hil zituzten Eretzen eta Hebronen. Berria - Mundua

Egiptok ustezko espioi **israeldar** bat askatu zuen. Berria - Mundua

Horrek areagotu egin du judu **israeldarren** haserrea. Berria - Kultura

Sari Nussebeh palestinarrak eta Amos Oz **israeldarrak** jasoko dute Katalunia saria. Berria - Kultura

Ilan Volkov **israeldarraren** zuzendaritzapean ariko dira musikariak. Berria - Kultura

**2** *iz* Israelgo herritarra.

Ez joan zeuen senide dituzuen **israeldarren** kontra borrokatzera. Elizen arteko biblia

Hara, nireganaino iritsi da **israeldarren** deiadarra. Jose Antonio Mujika

Baina Jaunak setatsu bihurtu zuen Faraoia, **israeldarrei** joaten ez uzteko. Elizen arteko biblia

**Israeldarrek** lehorbide horretatik igaro zuten itsasoa, ur harresiak zituztela ezker eta eskuin. Jose Antonio Mujika

Bake hitzarmena egin zuten **israeldarrekin**. Jose Antonio Mujika

Judit **israeldarren** sinbolo bilakatu da. Jose Antonio Mujika

Sderot hirian bi **israeldar** hil dituzte. Berria - Mundua

Bilarazi zituen Davidek **israeldar** guztiak Jerusalemen. Elizen arteko biblia

Eta **israeldar** askok ere onartu zuen haren erlijioa. Elizen arteko biblia

Berrikitan hautsi mautsi bat egina zuten Palestindar eta **Israeldarrek** Gaza lurraldeaz eta Betleme hiriaz. Herria

Nazioarteak uste baino interes komun gehiago ditugu palestinarrek eta **israeldarrek**. Berria - Harian

**Israeldarren** kontrolpean jarraitzen dute palestinarrek. Berria - Harian

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**aaronek eta israeldar** (3); **baina israeldar** (3); **bat israeldar** (3); **benetako israeldar** (3); **bi israeldar** (6); **bi israeldar hil** (5); **bi soldadu israeldar** (3); **bizi ziren israeldar** (4); **bost soldadu israeldar** (3); **dira israeldar** (4); **emakume israeldar** (3); **espioi israeldar** (3); **eta israeldar** (56); **eta israeldar elkarte** (4); **eta israeldar guztiak** (7); **eta israeldar guztiei** (5); **eta israeldar guztiek** (12); **eta israeldar guztien** (4); **eta israeldar leinuetako** (3); **eta soldadu israeldar** (3); **israeldar asko** (6); **israeldar askok** (4); **israeldar bat** (26); **israeldar bat eta** (4); **israeldar bat hil** (10); **israeldar bat zauritu** (3); **israeldar batek** (9); **israeldar baten** (7); **israeldar batzuk** (4); **israeldar elkarte** (13); **israeldar elkarte osoa** (6); **israeldar elkarte osoaren** (3); **israeldar elkartea** (3); **israeldar elkarteak** (3); **israeldar eta** (18); **israeldar eta palestinarren** (5); **israeldar gudari** (3); **israeldar gudariak** (3); **israeldar guztiak** (39); **israeldar guztiei** (22); **israeldar guztiek** (28); **israeldar guztiek harrika** (3); **israeldar guztiekin** (18); **israeldar guztien** (13); **israeldar guztien aurrean** (7); **israeldar hil** (35); **israeldar hil dira** (3); **israeldar hil ditu** (3); **israeldar hil dituzte** (3); **israeldar hil eta** (4); **israeldar hil ziren** (4); **israeldar hil zituen** (4); **israeldar hil zituzten** (7); **israeldar lehen** (3); **israeldar leinu** (4); **israeldar leinuak** (3); **israeldar leinuetako** (4); **israeldar palestinarrak** (3); **israeldar zauritu** (5); **israeldar zauritu ziren** (3); **israeldar zein** (3); **josue israeldar** (4); **josue israeldar guztiekin** (3); **josuek eta israeldar** (3); **josuek israeldar** (6);

josuek israeldar guztiekin (5); lau israeldar (5); mila israeldar (3); moisesek israeldar (5); moisesek israeldar guztiei (3); semeei eta israeldar (3); soldadu israeldar (24); soldadu israeldar bat (12); soldadu israeldar hil (4); zen israeldar (4); zeuden israeldar (3); zien israeldar (4); ziren israeldar (14); ziren israeldar guztiak (5); zuen josuek israeldar (5); zuten israeldar (3)

abiatu ziren israeldarrak (3); begirale israeldarrak (3); bizi ziren israeldarrak (3); dira israeldarrak (3); ditu israeldarrak (5); ditut israeldarrak (3); eta israeldarrak (27); ez zedin israeldarrak (3); gainerako israeldarrak (8); israeldarra eta (3); israeldarra nahiz (3); israeldarra naiz (4); israeldarrak basamortuan (3); israeldarrak beren (7); israeldarrak berriro (4); israeldarrak egiptotik (16); israeldarrak egiptotik atera (4); israeldarrak egiptotik ateratzeko (3); israeldarrak ere (8); israeldarrak eta (20); israeldarrak ez (3); israeldarrak hiltzen (3); israeldarrak nor (5); israeldarrak nor bere (5); israeldarrak sinai (3); israeldarrak zigortu (3); israeldarrak ziren (5); izan ziren israeldarrak (3); jainkoak israeldarrak (3); jaunak israeldarrak (8); kolono israeldarrak (5); langilezain israeldarrak (3); palestinarrak eta israeldarrak (4); soldadu israeldarrak (14); zedin israeldarrak (3); ziren israeldarrak (33); ziren israeldarrak eta (4); zituen israeldarrak (11); zituzten israeldarrak (5)

agindu israeldarrei (8); die israeldarrei (3); diezu israeldarrei (5); egin zien israeldarrei (3); esan israeldarrei (39); esan zien israeldarrei (8); esango diezu israeldarrei (5); eta israeldarrei (17); eta israeldarrei joaten (3); ez zien israeldarrei (5); israeldarrei aurre (3); israeldarrei eman (4); israeldarrei emango (8); israeldarrei emango diedan (7); israeldarrei erasotzera (3); israeldarrei eta (8); israeldarrei irakasteko (3); israeldarrei irakatsi (4); israeldarrei joaten (12); israeldarrei joaten ez (3); israeldarrei joaten utzi (3); israeldarrei joaten uzteko (3); jainkoak israeldarrei (4); jaunak israeldarrei (7); moisesek israeldarrei (4); soldadu israeldarrei (3); zien israeldarrei (24); zien israeldarrei joaten (3); zieten israeldarrei (5); zitzaien israeldarrei (6)

agintari israeldarrek (3); atzo soldadu israeldarrek (5); baina israeldarrek (5); berriro israeldarrek (5); beste israeldarrek (5); beste israeldarrek bezala (3); bizi ziren israeldarrek (4); dituzte israeldarrek (8); dute hau israeldarrek (3); dute israeldarrek (11); egin zituzten israeldarrek (5); egin zuten israeldarrek (11); eta israeldarrek (34); hau israeldarrek (4); israeldarrek bere (3); israeldarrek beren (8); israeldarrek bezala (4); israeldarrek bi (7); israeldarrek bi palestinar (3); israeldarrek erabat (4); israeldarrek erabat eta (3); israeldarrek ere (6); israeldarrek esan (5); israeldarrek esan zioten (4); israeldarrek eta (16); israeldarrek eta palestinarrek (5); israeldarrek ez (12); israeldarrek ez zuten (5); israeldarrek ezin (4); israeldarrek garaitu (3); israeldarrek gaza (3); israeldarrek gazan (3); israeldarrek ihes (4); israeldarrek ihes egin (4); israeldarrek jauna (3); israeldarrek jaunari (8); israeldarrek menperatu (4); israeldarrek menperatu zituztela (3); israeldarrek nork (3); israeldarrek nork bere (3); israeldarrek palestinar (4); josuek eta israeldarrek (3); militar israeldarrek (4); moisesek eta israeldarrek (3); naute israeldarrek (3); palestinarrek eta israeldarrek (7); soldadu israeldarrek (61); soldadu israeldarrek bi (7); soldatu israeldarrek (3); zieten soldadu israeldarrek (3); ziren israeldarrek (7); zituzten israeldarrek (10); zituzten soldadu israeldarrek (8); zuten berriro israeldarrek (4); zuten israeldarrek (27)

eta israeldarrekin (3); israeldarrekin batera (5); israeldarrekin eginiko (3); israeldarrekin eginiko itunaren (3); israeldarrekin eta (3); jaunak israeldarrekin (3); jaunak israeldarrekin eginiko (3)

amortarrak israeldarren (3); beste israeldarren (4); bizi ziren israeldarren (3); da israeldarren (10); ditut israeldarren (3); du israeldarren (4); dut israeldarren (3); eta israeldarren (55); eta israeldarren alde (3); eta israeldarren artean (11); eta israeldarren arteko (14); eta israeldarren elkarte (3); eta israeldarren eta (3); ez da israeldarren (3); filistearrak israeldarren (4); filistearrak israeldarren aurka (3); gainerako israeldarren (4); haserrea israeldarren (3); hiru soldadu israeldarren (3); israeldarren abererik (3); israeldarren alde (6); israeldarren artean (48); israeldarren artean bizi (9); israeldarren arteko (15); israeldarren arteko gatazka (3); israeldarren artetik (12); israeldarren artetik eta (3); israeldarren aurka (16); israeldarren aurka borrokatzeko (3); israeldarren aurkako (7); israeldarren aurkako erasoak (4); israeldarren aurrean (20); israeldarren aurretik (13); israeldarren aurretik egotziak (3); israeldarren biltzar (9); israeldarren biltzar osoa (3); israeldarren biltzar osoaren (3); israeldarren buruzagi (5); israeldarren elkarte (22); israeldarren elkarte osoa (11); israeldarren elkarte osoaren (4); israeldarren elkarte osoari (5); israeldarren elkartea (4); israeldarren esku (3); israeldarren eta (35); israeldarren eta palestinarren (22); israeldarren eta palestindarren (3); israeldarren gorpuak (4); israeldarren izen (6); israeldarren izen bilketa (4); israeldarren izenak (3); israeldarren izenean (3); israeldarren kontra (13); israeldarren kontrako (7); israeldarren lehen (8); israeldarren lehen semeen (4); israeldarren lurraldean (3); israeldarren ondoren (3); iturri israeldarren (3); jaunak israeldarren (9); jaunak israeldarren aurretik (7); judu israeldarren (3); lebitarrak israeldarren (3); palestinarren eta israeldarren (7); palestindar eta israeldarren (3); santutasuna israeldarren (3); santutasuna israeldarren aurrean (3); soldadu israeldarren (21); soldadu israeldarren gorpuak (3); zen israeldarren (7); zioten israeldarren (3); ziren israeldarren (10); zituen israeldarren (5); zuen israeldarren (3); zuten israeldarren (3)

---

# **israelita** *izlag* israeldar.

Lehen jazartokia beraz Casablanca erdian, bigarren bat izan dute Safir hotelaren aintzinean, hau delarik **israelita** biltokia. Herria

---

# istaklok ik **ixtaklok**.

---

# istalakuntza ik **instalakuntza**.

---

# **istant** *(ETCn **1.981** agerraldi: orobat **ixtant** g.er., **ixtan** g.er., **istante** g.er. eta **instant** g.er.)* **1** *iz* unea.

"Denbora **istantez** osatua da"; erran nahi baita, denboraldi txiki ugariz osaturik dagoela, beren iraute laburrarengatik gehiago ezin zati daitezkeenez. Xabier Kintana

Lau zango airean, jauzi egiteko **istantean**. Pello Lizarralde

*ik beherago* 4. Askoren artean

Eta milaka gar ikusi nituen hosto haien lekuan [...] goiti nahi balute bezala, gero eta goitiago, suaren **istanteko** hegaldian betiko... *ik beherago* 5. Joan Mari Irigoien

Ekarpen hori konbentzionala da, kodetua, eta oso desberdina ere izan daiteke, argazkiak zer atzeman duen: iraupen bat, luzeagoa ala laburragoa, ala **instantea** deitzen dena. Josu Zabaleta

Bizitzako gertakizun arruntetan ere izaten dira minututan neurtzerik ez dagoen **istant** bereziak, ia betierekoak dirudítenak. Xabier Mendiguren Elizegi

Zu gabe ezin naiz **istant** bakar batez ere bizi. Patxi Zubizarreta

**Istant** berean, biriketaraino barneratu zitzaidan garbigailu usain mina. Aingeru Epaltza

Haren soan ez baitzen **istant** hartan lainorik: oskarbi zen, eta oskarbi hartan mila eguzkik egiten zuten dir-dir. Joan Mari Irigoien

Bigarren **istant** hartatik aurrera, ez zitzaizkidan aski bere belarriak, bere begiak, bere ilea, ezta bere ezpainak ere, eta beldur handi bat sartzen zitzaidan, ez ote nion, hitz egiten hasiz gero, erokeriaren bat esango: "Virginia, orain dela lau urte baino ederragoa zaude, mihia ibili nahi nizuke bularretan". Bernardo Atxaga

**2** (bat-en ezkerrean; orobat **ixtanpat** g.er.)

**Istant** bat izan zen, pindar ñimiño bat. Elena Touyarou

**Ixtant** bat iraunen dute negoziaketek. Herria

Mila eta bat alfonbren gelan, lasaitasunak **istant** bat iraun zuen. Bernardo Atxaga

**Istant** bat geroago, atari barnean nintzen. Aingeru Epaltza

Itxi baino **istant** bat lehenago arteratu nuen oina. Aingeru Epaltza

Ez nintzen **istant** bat gehiago hor luzatuko, Charly izan ez banu gibelean bulkaka. Aingeru Epaltza

**Istant** bat gabe, eztarria eta birikak bor-bor nituen. Aingeru Epaltza

**Istant** bat gabe, mariaren usain sarkorrak gainerakoak jan zituen jantoki tikian. Aingeru Epaltza

**Istant** bat ere ez zuen galdu nirekin. Aingeru Epaltza

**Istant** bat baizik ez zen izan. Aingeru Epaltza

Zaude **ixtanpat**. Ramuntxo Etxeberri

· **Istant** batzuk lehenago baino askozaz ere okerrago zegoela zirudien, bere odolean zebilen alkoholak azken kolpea eman balio bezala. Bernardo Atxaga

**Istant** baten buruan, kokoriko dagoena zutitu egin da eta, orduan, mistoaren argiak dardara egin eta Joxeren soslai gorritua erakutsi du. Pello Lizarralde

**Istant** baten buruko, odolez zipaturik geunden, eta azken hatsean edo hilik ziegako preso guztiak. Aingeru Epaltza

Baina soraio gelditu zen eta, **istant** batzuen buruan, leihotik urrundu. Elena Touyarou

· **Ixtant** goxo bat iragan dugu aspaldian prestatua zuen "kolazionearen" inguruan. Herria

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Plazer **istant** ziztrin, minimo eta soilik *a posteriori* idealizatu hori. Harkaitz Cano

Hedadura etengabea dela onartuz gero, beharrezkoa zela zatiezintzat edukiriko denbora-**istant** horren zatigarritasuna ere onestea. Xabier Kintana

Axenario, zalantza **istanterik** gabe, pozez zoratzen agertu da. Itziar Otegi

**4** ***ixtante*** laster, berehala.

**Ixtante**, Marsellarat helduak izanen gara. Janbattitt Dirassar

Hala ere ez du odola gelditzea erreusitu, eta gizon gaztea **ixtante** hil da. Herria

Hogei bat urte eginen du **ixtante** Piarres Lafitte kalonjea joan zela. Herria

**5 *istantean*** *(**103** agerraldi, **39** liburu eta artikulu **1**ean; ETCn **725** agerraldi)*

Hark **istantean** bete zuen agindua. Patxi Zubizarreta

**Istantean** janen duguna ikusi nahi duzu? Ramuntxo Etxeberri

Baina Aladinen jeinua erne egon eta, senarrari emaztea laztantzeko astirik ere eman gabe, haien ohea hartu, eta **istantean** ezarri zuen Aladinen logelan. atalondoan une batez geratu zen, eta gero gauera jaurtiki zuen bere burua eta **istantean** desagertu. Patxi Zubizarreta

Sarak **istantean** ulertu zidan mezua. Joan Mari Irigoien

Amari deitu behar nion **istantean**. Karlos Linazasoro

**6 *istanteko*** istantean.

**Istanteko** lasaitu zen. Matías Múgica

**Istanteko** piztu ziren lehen marmariak: nolaz atzerritar fedegabe batek Nafarroaz aholku? Aingeru Epaltza

**Istanteko,** di-da esanen zioat: maite zaitut! Fernando Rey

Honek eta honen gizonek oihukatu abisuek, portuan lotu ontzietako marinelak ernarazi zituzten, eta **istanteko** dena hankazgora aurkitu zen. Elena Touyarou

**7 *istantera*** istantean.

Leizea **istantera** zabaldu zitzaion, eta, sumatu bezala, han topatu zuen lapurren gordelekua. Patxi Zubizarreta

Aktore famatu bihurtu den garai haietako nire irakasleak **istantera** ezagutu ninduen, duda izpirik gabe. Iban Zaldua

Eta une batean zenbat gauza atsegin ez ote dit ekarri gogora! **istantera,** joandako denboraren nostalgiaz bete naiz. Patxi Iturritegi

**8 *instant batean***

**Istant** batean galdu nituen begi bistatik. **Istant** batean ikusi nuen zehatz-mehatz non ginen. Rafa Egiguren

Ron-errazio bikoitza atera digute, eta **istant** batean berotu naiz. Mirentxu Larrañaga

Dena **istant** batean jazo zen, *Toki-Ona*ko sarreran. Pedro Alberdi

Gure gorputz porotsuek **istant** batean bere odol guztia galdu balute bezala. Xabier Mendiguren Elizegi

Baietz esan beharrean, txanela brankaz lehorrera begira jarri zuen, **istant** batean. Edorta Jimenez

**9 *instant bateko*** *adlag*

Zorionez, **istant** bateko ito beharra baizik ez zen izan. Aingeru Epaltza

**Istant** bateko estura izan zen, laster amonaren ahotsa entzun baikenuen bera zela esaka. Anjel Lertxundi

**10 *istant batez***

**Istant** batez moteltzea lortu nuen. Aingeru Epaltza

**Istant** batez isilik egon zen. Aingeru Epaltza

Horra zer ibili zitzaidan, **istant** batez, gogoan. Aingeru Epaltza

Halako batean, tximista bat, eta **istant** batez Santa Klara, Urgull eta Igeldoren soslaiak agertu zaizkio. Iñaki Iñurrieta

Sartu ez sartu egon zen **istant** batez. Unai Iturriaga

**Istant** batez baino ez. Edorta Jimenez

Zintzurra bustitzeko artean mahainak ezarriak ziren bazkaiteko, **ixtant** batez zanpez bete da barnea. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**baina istant** (9); **baina istant batean** (3); **baino istant** (7); **baino istant bat** (6); **da istant** (6); **da istant batez** (4); **dena istant** (5); **dena istant batean** (5); **du istant** (3); **duzu istant** (3); **egon zen istant** (5); **ere istant** (4); **eta istant** (39); **eta istant bat** (4); **eta istant batean** (6); **eta istant batez** (12); **eta istant hartan** (6); **ezta istant** (3); **geratu zen istant** (3); **handik istant** (3); **handik istant batera** (3)

**istant bakar** (12); **istant bakar batez** (10); **istant bat** (96); **istant bat ere** (8); **istant bat gabe** (7); **istant bat gehiago** (4); **istant bat gelditu** (3); **istant bat geroago** (22); **istant bat lehenago** (14); **istant batean** (78); **istant batean ere** (3); **istant batean gertatu** (3); **istant bateko** (7); **istant baten** (10); **istant baten buruan** (6); **istant batera** (3); **istant batez** (149); **istant batez ere** (8); **istant batez eta** (4); **istant batez isilik** (3); **istant batzuen** (3); **istant batzuetan** (3); **istant batzuez** (3); **istant batzuk** (8); **istant berean** (16); **istant ezin** (3); **istant ezin laburrago** (3); **istant haiek** (3); **istant haietan** (4); **istant hartan** (45); **istant honetan** (3); **istant hori** (7); **istant horretan** (13); **istant hura** (4); **istant labur** (11); **istant labur batez** (5)

**duen istantean** (3); **eta istantean** (10); **hark istantean** (3); **istantean hasi** (3); **istantean ohartu** (6); **naiz istant** (4); **nik istant** (4); **nintzen istant** (4); **nuen istant** (9); **nuen istant batez** (3); **plazer istant** (3); **zen istant** (21); **zen istant batean** (7); **zen istant batez** (13); **zidan istant** (3); **ziren istant** (4); **zuen istant** (5)

**bainan ixtanteko** (5); **eta handik ixtanteko** (3); **eta ixtant** (4); **eta ixtantean** (4); **eta ixtanteko** (6); **handik ixtanteko** (11); **ixtant bat** (15); **ixtant batean** (3); **ixtant baten** (3); **ixtant batez** (12)

---

# **istantekotasun** *iz* istantekoa denaren nolakotasuna.

Eta istant haren **istantekotasunak** betikotasunerako bidean jarri ninduen, denbora bere baitarik jalgi izan balitz bezala. Joan Mari Irigoien

---

## **istantño** *iz* unetxoa.

**Istantño** bat iraun zuen. Elena Touyarou

**Istantño** bat izan zen, hasperen baten denbora. Elena Touyarou

---

# **istape** *(orobat **iztape** eta **ixtape**)* **1** *iz* iztarren arteko bitartea. ik **izterpe**.

Apez bat, ostia kontsagratua landatzen emakume baten **iztape** beltzean. Aingeru Epaltza

Zakila ezin ederragoa zuen, delikatua baina erabakigarria eta Alemaniaren kontzientzia baino gogorragoa, adimena aparta, **istapeak** usain zoragarrikoak, planeta honetako ilerik leunena. Karlos Zabala

Hainbeste hazi dituk laharrak, **istapetan** ere sartzen zaizkiguk dagoeneko peto-peto. Juan Garzia

Ezpainak Amagoia-Felicitasenak ditu, izterrak Edurnerenak, aldakak Kristinarenak, **ixtapea** Klararena eta titiak Anarenak. Aingeru Epaltza

**2** urratsa.

Ehun bat **istapera** gelditua zen, gure kulebrinen tiramenetik at. Aingeru Epaltza

---

# **istapeka** *(corpusean **iztapeka** eta **ixtapeka** soilik)* **1** *adlag* zangalatrau.

Ibanteliko mendi paretek ikusi dituzte 175 amorratu, patarra goiti bermatzen, **iztapeka** beren pirripit VTT famatuaren gainean. Herria

Itsasuarra pirripitan **ixtapeka** jarri zelarik, izeba lasterka hurbildu zitzaion, bi sagarrekin. Eneko Bidegain

**2** *irud*

Bi hitzez erran dezagun Orbaizetan erreka **iztapeka** hartu zutela fabrikarekin, ura errexago ibiltzeko nahi zuten gisan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

# istil *(orobat **ixtil** g.er.)* **1** *iz* euria egiten duenean eratzen den ur geldizko hedadura txikia, bereziki bideetan edo espaloietan gertatzen dena. ik **putzu**.

Hemen ere, etxe ilun eta pobreak, karriketan ur eta **istil,** eta zakurrak, beti zakurrak. Piarres Aintziart

Kale erdiko **istil** bat zen gauza berri bakarra. Jose Morales

**Istil** bat zapaldu zuen, pentsatzen zihoala. Anton Garikano

Hartan barneratzen da, ostera, Irkutskeko bidea, hango **istil,** urmael, aintzira eta zingiren erditik igarotzen da. Karlos Zabala

Etxalde bat halere, istilez **istil** ibiliz atzeman dudana, eta bera lohiz inguratua. Piarres Aintziart

Ilargi argiak **istila** bustitzen duen bezala elkar bustitzen hasi dira, larruz larru eta bularrez bular. Felipe Juaristi

Itogina ondo itsutzen ez bada, beti berritzen da **istila**. Anjel Lertxundi

Charlierekin eskolara bidean, udazkeneko orbel-pilatan kriski-kraska, eta **istil**-putzuetako izotzetan zinpi-zanpa. Mirentxu Larrañaga

**2** (izenondoekin)

Gure bidexketan zangopean zapaltzen dugun **istil** beltzaren antzera aspalditik geldirik dagoen ur uherra. **Istil** uherrean palastaka, lokatz beroan haztamuka. Pello Salaburu

**3** (hitz elkartuetan)

Otea eta txilarra hazten ziren ur **istilen** arteko sastraketan. Karlos Zabala

Iluntzen ari zuen, eta euri-**istiletan** distiratzen zuten gasezko sugarrek ñirñirka. Anton Garikano

Odol **istil** baten erdian. Gotzon Garate

Odol **istila** zeukan inguruan, eta bi hankak itxuraz izterretik behera falta. Txillardegi

**4** *ipar* lohia, lokatza.

Handik laster, **istilez** ihaurri ziren baratzeetan barna abiatu ziren. Elena Touyarou

Egia da ongi jaten dela Auch-en baina errugbi partidan zelaiko **ixtila** jastatzeaz gain 25/6 eko emaitzarekin itzuli zaizkigu etxera. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta istil (4); istil bat (5); istilak eta (3)

---

# istilkatu, istilka, istilkatzen da *ad* zipriztindu.

Leihoko kristalak irainkiro zikin ageri ziren, paretak belztuak, eta tabako zaharmindu usain goibel bat zirauen airean **istilkaturik**. Juan Garzia

---

# istilkor *(corpusean **ixtilkor** soilik) izond*

Horregatik, erantsi zion iparraldeko laborariren batek bere ukitua aldi honi ere: Ihauteri **ixtilkor,** Pazko urikor, moltsa betekor. Pello Zabala

---

# istiltsu *(orobat **ixtiltxu** g.er.) izond* lohitsua.

Parkea blai eta **istiltsu** zegoen aste haietan. Txillardegi

Lur **istiltsuan**. Xabier Olarra

Soldadu tatariarren zutabeentzat ezinezkoa zelako eskualde **istiltsu** hartan barneratzea. Karlos Zabala

Geroztik Errobik karreatu du hainitz ur, Ezterenzubitik hunaraino, garbi ala **ixtiltxu**. Herria

---

# istilu **1** *iz* iskanbila, anabasa, kontu korapilotsua.

**Istiluaren** zalaparta zabaldu da berehala giroan, pauso arin batzuk antzeman dituzue pasilloan barrena; zuen bila datoz. Rafa Egiguren

Sinagogako buruzagiaren etxera heltzean, ikusi zuen Jesusek hango **istilua,** jendea negarrez eta garrasika. Elizen arteko biblia

Parisko ia matxinada eta **istilu** guztietan parte hartu du. Jon Muñoz

Ertzaintzaren bi furgoi heldu dira, baina ez da **istilurik** egon. Iban Zaldua

Kalean **istilu** pixka bat atera dute, etorri da Pitito Kapitaina. Pablo Sastre

La Salleko pasillo eta gelak goibelak iruditzen zitzaizkidan; [...]; gure arteko **istiluak** -herri txikietako ikasleek lehia gogorra geneukan hirikoekin- txoroak, arinak. Bernardo Atxaga

Peeves ikastetxeko iratxo bihurria zen, hondamena eta **istiluak** eragiteko aireko mehatxu burlatia. Iñaki Mendiguren

Urtebete geroago, **istiluak** hasi ziren, eta Geronimo gerra bidean jarri zen. Pablo Sastre

-Segi, Mona, goazen! -esan nion, besotik helduta, beste **istilu** batean sartuko ote zen beldurrez. Fernando Rey

Han goitik bere ikaragarritasun osoan ikusi ohi nituen manifestazioak, eta, egia esateko, poza ematen zidan neure burua **istilu** hartatik libre ikusteak. Ramon Saizarbitoria

-Ez zakinat zer **istilu** darabilten denda horretan -esan zuen neskazaharrak-, baina nik ez zionat usain onik hartzen... Karlos Zabala

**2** (izenondoekin)

Alberto Fujimorik erraz irabazi ditu hauteskundeak eta, **istilu** handiak zabaldu diren arren, bere hirugarren agintaldia hasiko du. Joseba Sarrionandia

Agintariek bere buruaz beste egin zuela esan zuten [...] baina **istilu** larriak piztu ziren Alemania guztian haren hileta egunetan. Hasier Etxeberria

**Istilu** gorriak izan ziren atzo Navalen. Berria - Ekonomia

1984 urtealdian, baina, Punjaben askatasuna iristeko grina areagotu eta **istilu** gorriak sortu ziren gobernu zentralaren eta sikhen artean. Gotzon Garate

**Istilu** ozenena plazan entzun, eta pentsatu ninan han jendearen artean jaitsi egingo zitzaidala beldurra. **Istilu** eta borroka ikaragarria zegoen gau eta egun hiri osoan, aspalditik elkarren etsai ziren bi alderdiren eraginez. Juan Garzia

Gauez ateratzen naizen bakoitzean, **istilu** politikoren batean sartu behar dudala pentsatzen ditek. Rafa Egiguren

Jai baketsuak izan dira, **istilu** politikorik gabeak. Unai Iturriaga

Charleroy inguruan **istilu** are gogorragoak izan ziren. Edorta Jimenez

**3** arazoa, gorabehera.

Jabeak buruhauste eta **istilu** nahikorik izana zuen Tigrerekin. Gotzon Garate

Gehienak etxeko **istilu** eta gorabehera beltzekin hurbiltzen zaizkigu. Gotzon Garate

Egunero izango dituzu **istiluak** eta buruhausteak. Gotzon Garate

Naziorik aurreratuenetan ere **istilu** gorriak sortzen dituzte arratoiek. Gotzon Garate

**Istilu** galantean sartu nauzu! Txillardegi

Charlie eta biok **istilu** larritan sartu ginen, kontu harengatik. Mirentxu Larrañaga

Geroztik gurasoekin **istilu** latzak izan zituen. Gotzon Garate

Enpresek **istilu** ezagunak izan dituzte beren jarduera ekonomikoaren ondorioa dela medio **(istilu** ekologikoak, finantzarioak, lan egoerari buruzkoak, eta abar). Iñaki Heras

**Istilu** bat izan zuen ikaskide batekin: tresna bat lapurtu zioten neskari, eta hark ikaskide bati egotzi zion errua. Javi Cillero

Orain badakit, zergatik izaten duten hainbeste **istilu** oinetakoekin gure emakumeok. Patziku Perurena

Drogazaleek beren **istiluak** pistola dantzatuz konpontzen dituzte. Gotzon Garate

Beste gazte batek [...] Andrew Glover Youth Programm sortu zuen, legearekin **istiluetan** zebiltzan gazteei laguntzeko erakundea, hain zuzen. Gotzon Garate

### **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Istilu** usaina dago, giro arraroa. Harkaitz Cano

Segundo gutxitan kale baketsua **istilu** gune bihurtu da. Paddy Rekalde

Guztira 36 poliziak eta 5 suhiltzailek zauriak jasan zituzten eta 395 ustezko **istilu** eragile atxilotuak izan ziren. Berria - Mundua

Lan zama ez ezik, negoziazio kolektiboa eta industria plana ere **istilu** iturri bihurtu dira. Berria - Ekonomia

### **5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Algortako bizitegi-auzora iritsi ziren arazorik gabe, Bilbotik atera ondoren ez baitzen trafiko **istilurik** izan. Joxemari Iturralde

Arma **istilu** batzuk izan zirela eta, frantsesek Tidjani preso sartuko dute. Pablo Sastre

Esaterako pentsiodunek: ez dira, ez, oso ohikoak beren erosketa ahalmena atxikitzeko erretiratuek egindako greba eta kale **istiluak**. Iñaki Heras

Ezkontza **istiluak** daudenean, emazteak alferrik jotzen du poliziarengana. Gotzon Garate

Little Rocken arraza **istiluak** gertatzen ari ziren bitartean, […]. Pello Salaburu

Honatx beste Bartolo ezagun baten aipamenak nola egiten diren, amodio **istilu** berdintsutan: [...]. Patziku Perurena

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arteko istilu** (3); **beste istilu** (3); **ere istilu** (6); **eta istilu** (22); **ez zen istilu** (3); **istilu artean** (3); **istilu asko** (4); **istilu bat** (8); **istilu bat izan** (4); **istilu batzuk** (5); **istilu batzuk gertatu** (3); **istilu ederra** (3); **istilu eta** (17); **istilu gehiago** (3); **istilu gogorrak** (6); **istilu gorriak** (8); **istilu guztiak** (3); **istilu handirik** (3); **istilu hartatik** (3); **istilu honetan** (3); **istilu horiek** (4); **istilu horietan** (6); **istilu hura** (4); **istilu larriak** (23); **istilu larriak izan** (7); **istilu larririk** (3); **istilu latzak** (3); **istilu ugari** (5); **istilua sortu** (6); **izandako istilu** (4); **zen istilu** (6); **zuen istilu** (4)

**artean istiluak** (4); **artean istiluak izan** (3); **arteko istiluak** (8); **arteko istiluak izan** (3); **baina istiluak** (4); **batean istiluak** (3); **dira istiluak** (3); **ditzaketen istiluak** (3); **ditzaketen istiluak ekiditeko** (3); **ere istiluak** (9); **ere istiluak izan** (6); **eta istiluak** (27); **eta istiluak izan** (6); **gertatutako istiluak** (4); **halako istiluak** (3); **hasi ziren istiluak** (4); **herenegungo istiluak** (3); **istiluak egon** (5); **istiluak ekiditeko** (4); **istiluak eragin** (6); **istiluak eragitea** (7); **istiluak eragiten** (3); **istiluak eta** (13); **istiluak gertatu** (10); **istiluak gertatu ziren** (6); **istiluak gertatzen** (6); **istiluak gertatzen ari** (3); **istiluak hasi** (12); **istiluak hasi ziren** (7); **istiluak izan** (63); **istiluak izan dira** (10); **istiluak izan ziren** (40); **istiluak izan zituen** (3); **istiluak izan zituzten** (3); **istiluak izango** (3); **istiluak izaten** (3); **istiluak piztu** (3); **istiluak salatu** (3); **istiluak salatu ditu** (3); **istiluak sortu** (6); **istiluak sortzen** (5); **istiluak zirela** (3); **izan ziren istiluak** (7); **izandako istiluak** (10); **kale istiluak** (5); **ziren istiluak** (20)

**arteko istiluetan** (5); **eta istiluetan** (6); **gertatu istiluen** (3); **gertatutako istiluen** (3); **istiluei buruz** (3); **istiluekin lotu** (3); **istiluen aurkako** (5); **istiluen berri** (4); **istiluen egunean** (3); **istiluen kontrako** (5); **istiluen ondoren** (4); **istiluen ondorioz** (7); **istiluen ostean** (4); **istiluetan atxilotutako** (3); **istiluetan parte** (14); **istiluetan parte hartu** (6); **istiluetan parte hartzea** (4); **istiluetan sartu** (4); **izan ziren istiluen** (3); **izan ziren istiluetan** (3); **izandako istiluen** (5); **izandako istiluengatik** (5); **izandako istiluetan** (8); **izaniko istiluetan** (5); **kale istiluetan** (5); **kale istiluetan parte** (4); **ziren istiluen** (4); **ziren istiluetan** (6)

**da istilurik** (3); **eta istilurik** (10); **eta istilurik ez** (4); **ez da istilurik** (3); **ez zen istilurik** (14); **inolako istilurik** (9); **istiluren bat** (6); **istilurik egon** (3); **istilurik eragin** (3); **istilurik ez** (13); **istilurik ez zen** (7); **istilurik gabe** (13); **istilurik gertatu** (8); **istilurik izan** (21); **istilurik izan ez** (4); **istilurik larrienak** (6); **istilurik nahi** (9); **istilurik sortu** (7); **istilurik sortu gabe** (7); **istilutan sartu** (3); **istilutan sartuko** (5); **istilutan sartzeko** (3); **zen istilurik** (15); **zen istilurik gertatu** (5); **zen istilurik izan** (8); **zuen istilurik** (3)

---

## **istiluka** *adlag* istiluak sortzen.

1/3 jarrita zeukan edalontzia hartu, eta 1/2 jartzen zuenera **isuri** zuen Maxek. Jon Muñoz

Gazteak, bi botilak ireki eta gero, tanta batzuk **isuri** zituen batetik eta bestetik bi kopatara. Anjel Lertxundi

Ur beroa limoiaren gainera **isuri** zuen. Karlos Zabala

Harraska txiki bateko zuloan behera **isuri** zituen edari-hondarrak. Josu Landa

Edith behean zegoen, sukaldean, indioilarrari salda **isurtzen** erre bitartean lehortu ez zedin. Oskar Arana

Katilu tea eskuan hartu, frutazko gozagarria **isuri,** eta honela mintzatu zen: [...]. Jose Morales

**Isuri** olioa ontzi guztietara eta, bete ahala, eraman denak bazterrera. Elizen arteko biblia

Hartu zuen, orduan, Samuelek oliontzia eta Sauli burura **isuri** zion. Elizen arteko biblia

Eskua luzatu genion elkarri mahaiaren gainetik eta aldi berean Elosegik kafea **isuri** zuen mahukaren ertzarekin. Hasier Etxeberria

Beste batzuen arabera, arrebaren maitaleak **isuri** omen zion pozoia. Jon Muñoz

Luma behatzetatik erori eta tinta **isuri** zuen. Monika Etxebarria

Mila litro aluminio **isuri** zituen kamioi batek, atzo, AP-68 autobidean. Berria - Euskal Herria

Irailean onartu zuten ontziak 65.000 tona **isuri** zituela. Berria - Euskal Herria

**2** (nork osagairik gabe)

Ura basora bota nahi izan nuenean, ezer ez zen **isuri;** hutsik zegoen! Josu Zabaleta

Erdialdean, itzal zurbilaren pean, bi iturri **isurtzen** dira. Karlos Zabala

Tanta bat ere ez zen edontzitik kanpora **isuri**. Lurrera **isuri** eta berriro bildu ezin den ura bezala gara. Jon Muñoz

Aldarea zartatu egin zen eta errautsa aldaretik behera **isuri**. Elizen arteko biblia

**3** *hed*

Txuna ibaiak banantzen ditu bi Siberiak, urak Jeniseira **isuri** aurretik. Karlos Zabala

Eguneko eta gaueko ordu bakoitzean, 70 mila milioi litro ur **isurtzen** ditu Amazonasek! Jon Muñoz

Lurra ikaratu egin zen, ortzia dardaratu; hodeiek euria **isuri** zuten. Elizen arteko biblia

Giza isurkari oro **isuri** izan da noizbait nire taxiko atzeko eserlekura. Oskar Arana

Barne-muinetaraino hunkitu eta errukiturik, malkoak **isuri** zituen Antiokok. Elizen arteko biblia

Negar-malko mardulak **isuri** zituen bere begi jadanik ilaunduetatik. Jose Morales

Bat-batean, ibaika **isuri** zituen malkoak bi begietatik. Jose Morales

Gizon gerraria izan zara zu eta odola **isuri** duzu; horregatik, ez didazu zuk eraikiko tenplua. Elizen arteko biblia

Tenpluko ate handiari su eman eta errugabeen odola **isuri** zuten. Elizen arteko biblia

Ortzia bera odol **isuri** berria bezain gorri ageri zitzaigun. Edorta Jimenez

Gizarteak onargarri deritzon moduan **isurtzeko** gernua. Irene Aldasoro

Izerdi zurruzta ederra **isuri** nuen denbora gutian. Aingeru Epaltza

Kondoi barruan **isuri** nuen nire hazi zuri, bero eta ugaria. Aitor Arana

*ik beherago* 5. Askoren artean

Handik segundu batzuetara hazia **isuri** zuen eta, barrabilak ferekatzen ari bainintzaion, ene beso gainera erori zen esne beroa. Aitor Arana

Minutu eskas bat baino ez zuen behar izan esne sendoa Imanolen ahoan **isurtzeko**. Aitor Arana

Ez dago sexurik esperma **isuri** gabe. Karlos Zabala

Edengo paradisuan amets erotiko bat izan omen zuen lehen gizon hark eta lurrera **isuri** zuen bere hazia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ikatza zakura **isurtzen** hasi nintzen apurka-apurka. Anjel Lertxundi

· *(nork osagairik gabe)* Batetik Kantabrikora eta bestetik Mediterraneora **isurtzen** diren iturri bizi batzuk besterik ez baitu inguruan Uitzik. Patziku Perurena

Argi urrun bat **isuri** zen ene gainera. Juan Garzia

Negar malko mardul beroak **isuri** zitzaizkion begietatik. Karlos Zabala

Sudurretik, kokotsetik eta ahotik **isuri** zitzaion odola. Patxi Zubizarreta

Ponpatuz bezala eragiten zaio lagunaren zakilari; atzera-aurrera batzuen ondoren, hazia **isuri** egiten da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**4** *irud*

Urteak **isuri** ziren, odola bezainbeste, elur ura bezainbeste, negarra bezainbeste. Felipe Juaristi

Gertaerak ere **isurtzen** uzten dituzu. Monika Etxebarria

Horrela, gainezka **isuri** zidan gure Jaunak bere onginahia. Elizen arteko biblia

Ustekabean zetorkion etorkinaren kontra **isuri** zuen bere haserrea. Josu Zabaleta

Beraz, neure amorrua beraien gain **isuri** dut, neure suminaz suntsitu ditut. Elizen arteko biblia

Bere eskuzabaltasunaren dohainak oparo **isuri** ditu gure gainera. Elizen arteko biblia

Halako plazer uher bat **isuri** zuen Ximurraren bisaiak. Aingeru Epaltza

Mendi kasko horietarik apezak **ixuri** ditu bere benedizioneak herriaren lau hegaletarat. Herria

Baina putzura **isuri** zitzaidan poza berehala. Koldo Izagirre

Atsekabe horiek adiskide fidel eta segur baten baitan **isurtzeko** premian naiz. Jon Muñoz

Besotik indarrez heltzen niola, belarrira **isuri** nizkion hitzak, arestian berak niri bezala: […]. Joan Mari Irigoien

Emakumeak zerumugari begiak altxatu eta izen bat **isuri** du ezpain artetik harresi muturretik behera: Montrol. Javi Cillero

Ez nuen beste asmorik **-isuri** nuen, istant batez aho-zabalik egon ondoren. Anjel Lertxundi

## **5** ontziez eta kidekoez mintzatuz, edukia erorarazi.

Joan zen lehen aingerua eta **isuri** zuen lurraren gainera bere ontzia. Elizen arteko biblia

Seigarrenak Eufrates ibai handiaren gainera **isuri** zuen bere ontzia, eta urak agortu egin ziren. Elizen arteko biblia

Zoazte eta **isuri** lurraren gainera Jainkoaren haserre-zigorraren zazpi ontziak. Elizen arteko biblia

## • **6** da *ad* orgasmoa izan.

Dolmancé, **isur** zaitez, **isuri,** ene maitea... baserritar kankailu honek blai egin behar nau. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Une honetan, gizon biak **isuri** egin dira, bata neskaren baginan eta bestea ahoan. Juan Martin Elexpuru

Haren zakila nire ipurdian tenkatzen sentitu nuenean, zoroa bezala igurtzi nion [pipitatxoari], eta berriro **isuri** nintzen. Juan Martin Elexpuru

Hezitzaile bien erdian **isuri** da neska. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

## **7** (era burutua izenondo gisa)

gizonaren burua zinez baitago apaingarrietarat emanago eta **isuriago** biluztasunerat baino... Joan Mari Irigoien

Lanera berriz ere **isuria,** ez zuen nire aldera so egiten. Aingeru Epaltza

Hortik dator nehor ez izatea Bekaizkeriari **isuriagorik,** beren burua apalesten dutenak baino. Piarres Xarriton

Bide erdian gelditu zen tupustean, eta kafe **isuriak** eskuak erre zizkion. Koldo Izagirre

## **8** ***isur-opari***

Debekatua zuten juduek tenpluan erre-opariak, sakrifizioak eta **isur**-opariak eskaintzea. Elizen arteko biblia

Gainera, aker bat barkamen-oparitarako, eguneroko erre-opari eta berauei dagozkien labore- eta **isur-opariekin**. Elizen arteko biblia

Oparigaiei **isur-opari** hauek dagozkie: zekor bakoitzari hiru litro ardo, ahariari bi litro eta arkume bakoitzari litro eta erdi. Elizen arteko biblia

Egin azpilak, erretiluak, pitxerrak eta katiluak, **isur-oparietarako**. Elizen arteko biblia

Bete egin behar omen dituzue, zeruko erreginari intsentsua erre eta **isur-opariak** eskaintzeko hitz emandako botoak. Elizen arteko biblia

Ez al zuten haiek jaten erre-oparietako gantza, eta edaten **isur-oparietako** ardoa? Jose Antonio Mujika

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ardoa isuri** (5); **asko isuri** (3); **bat isuri** (34); **bat isuri du** (3); **bat isuri zen** (3); **bat isuri zitzaion** (6); **bat isuri zuen** (8); **batean isuri** (4); **batzuk isuri** (4); **behera isuri** (7); **bestea isuri** (3); **bezala isuri** (3); **burura isuri** (4); **burura isuri zion** (3); **ere isuri** (4); **erregai isuri** (15); **erregai isuri zuen** (11); **erregaia isuri** (4); **erruz isuri** (5); **erruz isuri zen** (4); **eta isuri** (32); **ez isuri** (5); **gain isuri** (3); **gainean isuri** (4); **gainera isuri** (10); **gainera isuri zuen** (5); **gas isuri** (9); **gas isuri baten** (5); **gasolina isuri** (3); **gasolio isuri** (3); **gehiago isuri** (13); **gutxiago isuri** (8); **hazia isuri** (10); **ibaika isuri** (4); **ibaika isuri zituen** (3); **ibaira isuri** (3)

**isuri arte** (3); **isuri arteraino** (3); **isuri aurretik** (7); **isuri baino** (3); **isuri baino lehen** (3); **isuri baitzuen** (3); **isuri behar** (11); **isuri berria** (3); **isuri bizigai** (4); **isuri da** (6); **isuri den** (5); **isuri dira** (6); **isuri ditu** (8); **isuri dituzte** (6); **isuri du** (14); **isuri duela** (3); **isuri duen** (4); **isuri duen odola** (3); **isuri dut** (5); **isuri dute** (3); **isuri egin** (6); **isuri ere** (6); **isuri eta** (45); **isuri eta isuri** (3); **isuri ez** (6); **isuri ezin** (4); **isuri ezinik** (3); **isuri ezinik gelditu** (3); **isuri gabe** (16); **isuri hori** (7); **isuri izan** (6); **isuri nahi** (3); **isuri nintzen** (4); **isuri nituen** (3); **isuri nuen** (14); **isuri olioa** (4); **isuri ondoren** (5); **isuri zaizkio** (3); **isuri zen** (36); **isuri zen eta** (3); **isuri zien** (5); **isuri zion** (13); **isuri zioten** (3); **isuri ziren** (19); **isuri ziren itsasora** (3); **isuri zituen** (42); **isuri zituen malkoak** (4); **isuri zituzten** (5); **isuri zitzaidan** (3); **isuri zitzaion** (15); **isuri zitzaizkion** (4); **isuri zuela** (3); **isuri zuen** (81); **isuri zuen bere** (10); **isuri zuen haren** (3); **isuri zuria** (3); **isuri zuten** (21)

**itsasora isuri** (3); **izerdia isuri** (3); **kloro isuri** (3); **litro erregai isuri** (5); **litro petrolio isuri** (3); **lurrean isuri** (3); **lurrera isuri** (5); **malko bat isuri** (8); **malko batzuk isuri** (3); **malko isuri** (8); **malko ugari isuri** (6); **malkoa isuri** (3); **malkoa isuri ezinik** (3); **malkoak isuri** (18); **malkoak isuri zaizkio** (3); **malkoak isuri zituen** (3); **malkoen isuri** (3); **malkorik isuri** (10); **malkorik isuri gabe** (5); **milioi tona isuri** (3); **nola isuri** (4); **odol asko isuri** (3); **odol isuri** (9); **odola erruz isuri** (5); **odola isuri** (25); **odola isuri eta** (3); **odola isuri zuten** (3); **odolik isuri** (7); **olio isuri** (4); **olioa isuri** (8); **olioa isuri zuen** (3); **oparo isuri** (4); **orduan malkoa isuri** (3); **otoitza isuri** (3); **petrolio isuri** (8); **petrolio isuri zituen** (3); **pixka bat isuri** (3); **tanta isuri** (3); **tona erregai isuri** (10); **tona isuri** (6); **tona isuri zituen** (4); **tona petrolio isuri** (3); **toxikoak isuri** (4); **toxikoak isuri zituen** (3); **ugari isuri** (8); **ur isuri** (7); **ura isuri** (4); **zikinak zuzenean isuri** (3); **zuzenean isuri** (3); **zuzenean isuri ziren** (3)

**aldare oinean isuriko** (3); **atmosferara isuritako** (3); **beraren oinean isuriko** (3); **bezala isuriko** (3); **espiritua isuriko** (8); **espiritua isuriko diet** (5); **eta isuritako** (5); **eta malkoak isuriz** (4); **haiengan isuriko** (3); **haiengan isuriko dut** (3); **isuriko da** (6); **isuriko diet** (6); **isuriko dio** (5); **isuriko ditu** (4); **isuriko du** (4); **isuriko dut** (9); **isuriko dute** (3); **isuriko zuen** (4); **isuritako hitz** (3); **isuritako karbono** (3); **isuritako odol** (4); **isuritako odola** (10); **isuritako odolak** (4); **isuritako ur** (4); **isuritako ura** (4); **isuritako usain** (3); **isuritako usaina** (15); **isuritako usainari** (4); **isuritako usainari antzeman** (3); **isuriz eta** (4); **kristok isuritako** (3); **lurrera isuriko** (4); **malko ugari isuriz** (8); **malkoak isuriz** (6); **neure espiritua isuriko** (6); **odola isuriko** (6); **odola isuriko da** (3); **odola isuriz** (4); **oinean isuriko** (6); **olioa isuriz** (7); **ontziak isuritako** (3); **sumina isuriz** (3); **ugari isuriz** (9); **ura isuriko** (3)

**dioxidoa isurtzeko** (3); **ez isurtzea** (4); **ez isurtzeko** (3); **gasa isurtzeko** (3); **hazia isurtzeko** (4); **isurtzeko eskubideak** (9); **isurtzeko eskubideen** (6); **isurtzeko zorian** (5); **karbono dioxidoa isurtzeko** (3); **odola isurtzea** (6); **odola isurtzeko** (7)

**ardoa isurtzen** (3); **artetik isurtzen** (4); **asko isurtzen** (5); **asko isurtzen du** (3); **atmosferara isurtzen** (6); **atmosferara isurtzen den** (3); **baitara isurtzen** (3); **barnera isurtzen** (4); **bat isurtzen** (15); **bat isurtzen zen** (3); **batera isurtzen** (6); **batzuk isurtzen** (3); **behera isurtzen** (5); **bezala isurtzen** (6); **burrustan isurtzen** (4); **dioxidorik isurtzen** (3); **edo isurtzen** (5); **ere isurtzen** (7); **eta isurtzen** (9); **etengabe isurtzen** (3); **gai toxikoak isurtzen** (5); **gainera isurtzen** (5); **gehiago isurtzen** (9); **gutxiago isurtzen** (6); **guztia isurtzen** (3); **guztietatik isurtzen** (3); **handik isurtzen** (3); **hazia isurtzen** (9); **hazia isurtzen zuen** (3); **hondakin isurtzen** (3); **ibaira isurtzen** (5)

**isurtzen ari** (34); **isurtzen ari da** (6); **isurtzen ari den** (4); **isurtzen ari naiz** (3); **isurtzen ari zela** (4); **isurtzen ari zen** (6); **isurtzen bada** (6); **isurtzen da** (35); **isurtzen da ura** (3); **isurtzen dela** (3); **isurtzen delarik** (3); **isurtzen den** (22); **isurtzen dena** (3); **isurtzen dira** (11); **isurtzen direla** (3); **isurtzen diren** (15); **isurtzen diren ur** (3); **isurtzen ditu** (15); **isurtzen dituen** (9); **isurtzen dituzte** (16); **isurtzen dituzten** (14); **isurtzen du** (18); **isurtzen duen** (22); **isurtzen duena** (5); **isurtzen dute** (22); **isurtzen dutela** (3); **isurtzen duten** (20); **isurtzen duten nitrogeno** (3); **isurtzen eta** (7); **isurtzen ez** (9); **isurtzen hasi** (14); **isurtzen hasi zen** (8); **isurtzen utzi** (5); **isurtzen uzten** (3); **isurtzen zela** (4); **isurtzen zen** (47); **isurtzen zen eta** (3); **isurtzen ziren** (19); **isurtzen zituen** (17); **isurtzen zituzten** (4); **isurtzen zitzaiola** (4); **isurtzen zitzaion** (13); **isurtzen zitzaizkion** (4); **isurtzen zuen** (31); **isurtzen zuen hazia** (3); **isurtzen zuena** (5); **isurtzen zuten** (9)

**itsasora isurtzen** (11); **itsasora isurtzen den** (4); **kanpora isurtzen** (3); **lurrera isurtzen** (3); **lurrera isurtzen zuen** (3); **malkoak isurtzen** (13); **malkoak isurtzeraino** (6); **malkorik isurtzen** (3); **minek isurtzen** (3); **minek isurtzen duten** (3); **nola isurtzen** (11); **nola isurtzen den** (4); **odola isurtzen** (18); **odola isurtzera** (3); **plantek isurtzen** (3); **plantek isurtzen dituzten** (3); **toxikoak isurtzen** (6); **ugari isurtzen** (4); **ur isurtzen** (3); **ura isurtzen** (5); **zorrotadaka isurtzen** (4)

---

# isuri[2] *(orobat **ixuri** g.er.)* **1** *iz* isuri den gauza.

Harkaitzaren **isuri** hezeek bustiak. Koldo Izagirre

Kolakaoaren marroiak kutsatuko du, estoldaren **isuriak** ibaia bezala. Lander Garro

Emaztearen hankartetik **isuri** gorri eta beroa bazetorren burrustan. Itxaro Borda

Gozatzeko momentuan, gizonak [...] ezin du neska utzi hainbeste esanahi eta sinbolo gordetzen duen **isuri** hori gabe, ezin du neska utzi hain **isuri** misteriotsua jaso gabe. Karlos Zabala

Joan-etorri sakoneko mugimendu bati ekin eta, azkenik, plazerrez arnasestuka, **isuri** bizigai epela botatzen dio erraietan. Karlos Zabala

Zakil bat zurrupatu nahi du eta haren **isuri** itsaskorra eztarria bustitzen sentitu. Karlos Zabala

Malkoen **isuri** errazak areagotzen dio mintzoari sentikortasuna. Jon Muñoz

Ostiralean itxi zuten, lantegian **isuri** erradioaktiboak igarri ostean. Berria - Ekonomia

**Isuri** kutsagarrien kezka dute Mantxako itsasartean. Berria - Gaiak

1997ko urrian izan zen lehendabiziko **isuri** garrantzitsua: butanol isuria izan zen. Berria - Euskal Herria

Lidia, badakizu Ternik pleurako **isuria** duela? Fernando Rey

## **2** *irud*

Lehenengo maila, [...] energia psikikoaren **isuri** "librearen" eremua da. Josu Zabaleta

Irakurriz arintzen zuen orduen **isuri** geldia. Anjel Lertxundi

-Baina, gizona -esan zuen azkenean Txitxikovek, itxuraz amaierarik ez zuen erretolika haren **isuri** oparoak harriturik-. Jose Morales

Gaueko begiraldi horrek gogoeta asaldagarrizko halako **isuri** gisako bat eragiten zion. Josu Zabaleta

Testuari eman nahi izan dion **isuri** gozoa. Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bafada bat etorri zitzaion bat-batean sudur zuloak mintzera, mingotsa oso, janari gaziaren eta giza **isuri** izerdituaren arteko nahasmenaren adierazle. Felipe Juaristi

Aurpegian jasotako kolpeek burmuinean eragindako odol **isuri** baten ondorioz hil zen aktore frantziarra, autopsiak argitu zuenez. Berria - Kultura

Hagaxka berarekin bi kono horiek lasaituz edo estutuz lortuko da ontzian erortzen den ur-**isuria** indar gehiagorekin edo gutxiagorekin erortzea. Santiago Iruretagoiena

Badoaz nire indarrak, ur **isuria** irudi; koloka ditut hezur guztiak. Elizen arteko biblia

Gas **isuri** motel eta ikusgai baten argi naturaz kanpokoan. Koro Navarro

Ez zen sumatzen ez zuzi ez bestelako argi iturri artifizialik; hala ere bazen izpi indartsuzko argi **isuri** bat. Koro Navarro

Azido kloridriko eta amoniako **isuri** puska ez nolanahikoa lurrunarazten zuen aire zabalera. Juan Garzia

Ezin eutsi izan nion hazi-**isuriari**.. Juan Kruz Igerabide

Ateraldi eta bertso **isuri** ezin agortuzkoaz alaitzen zituen oraindik ere ezkontzak, gazte denboretan bezalaxe. Koro Navarro

Gelatxo zen harrobia, iturria, amaitzen ez zen pieza-**isuria**. Pako Aristi

**4** teilatuaren eta kidekoen makurdura.

Zoladura egingo da bi hatz inguruko lodiera duten teserak erabiliz, eta bi hatzeko **isuria** emanez hamar oin bakoitzeko Tinpanoaren gainean gailurra, astazaldiak eta petralak jarriko dira, kontuan hartuz **isuriak** teilatu osoaren heren batekoa beharko duela izan. Santiago Iruretagoiena

Piezak jarrita daudenean eta beren **isuri** egokia eman zaienean, ondo igurtziko dira. Santiago Iruretagoiena

Lurra zanpatu ondoren hartxintxar edo adreilu birrinduzko zoladura zabaltzen da, **isuria** emanez hodiak erreten aldera jaisteko moduan. Santiago Iruretagoiena

**5** isurialdea.

Hantxe bereizten baitira bi aldeetarako **isuriak**. Patziku Perurena

Han mendebal **isurian** dauden harkaitz-mendiak joz. Pello Zabala

Mediterranear **isurian** laborantzaren mekanizazio handiak eraldaketa sakonak gauzatu ditu ingurumenean. Berria - Euskal Herria

**6** jaidura, joera.

Lehen mendigoizale nintzena mendibehezale bihurtu nintzen, neure arima barruko **isuri** ilunari men eginik. Juan Luis Zabala

Jesusen errukia eta behartsuenganako **isuria**. Pello Zabala

Ez zela hori Leizarragaren berezko **isuria**. Koldo Zuazo

Azkarateren bertsoen gaiak ugariak dira, baina **isuri** berezia ageri du egileak politikarako. Berria - Kultura

Kristau erlisioan badaude bi alderdi, teilatu batean bezala, bi eskualde, bi joera eta **isuri**: bata dinamikoa, ernea, beti aitzina joailea, konkistatzailea, [...]; bestea lasaia, baketxua, amultxua. familiako tradizioz zetorkion karlistenganako **isuria** eta zaletasuna. Herria

Gure lagun maiteari hortik heldu ote zaio edertasunaren zeru urdinerat deraman **ixuria**? Herria

"Haragiaren borondatea" esatean adierazten du, haragi-irritserako **isuria,** gizakiaren borondatearen aurka dagoena. Joan Mari Lekuona

Euskara giputzarenganako **isuria** sumatu dute Aranon, Areson eta Leitzan, hizkera horiek aztertu berri dituzten Juan Jose Zubirik eta Mikel Olanok ere. Koldo Zuazo

Urak maldan beherako **isuria** hartzen du. Pello Zabala

Barruko **ixuria** eta hotsak lehenago dira legearen letra baino. Iñaki Segurola

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Izan al liteke sasoi beteak eta gainez egindako osasun eta bizi-indar batek ekarritako gogo-**ixuri** bat, gauza gogor, espantagarri, gaizto eta bizi-nahasgarrietara garamatzana? Iñaki Segurola

Ondorioz, palmondoak zimeldu egin ziren, eta maitasun **isuria** ahitu. Bernardo Atxaga

**8** ***isurian*** *adlag*

Ura **isurian** bezala joango zaizkio etxeko aberastasunak. Elizen arteko biblia

Baina, **isurian** dator, harri tartean jauzika, murmurio eta apar dariola inoizka. Patziku Perurena

Alaitasun iturria, **isurian** hasiz gero erresuma osoa irri algaraka jartzeko modukoa. Agustin Otsoa

**Isurian** sartzen zen argi hotza beiratetik. Jon Muñoz

Gastoni, berriz, **isurian** ateratzen zitzaion hitza, haserrerik edo gorrotorik gabe, harrotu ere gabe, soilik eta biluzik, begia apaltzeko moduan. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **dioxido isuriak** (4); **eta isuria** (6); **eta isuriak** (6); **eta isurien** (3); **garun isuria** (3); **garun isuria izan** (3); **garuneko isuria** (3); **garuneko isuria izan** (3); **gas isuri** (9); **gas isuri baten** (5); **gas kutsagarrien isuria** (3); **gas kutsakorren isuriak** (3); **gertatu zen isuria** (3); **hazi isuria** (3); **isuri bat** (15); **isuri bat izan** (3); **isuri batek** (6); **isuri baten** (11); **isuri baten ondorioz** (9); **isuri baten ondorioz** (9); **isuri hori** (7); **isuri kutsagarrien** (4); **isuri oparoa** (3); **isuria du** (4); **isuria eragin** (3); **isuria eragoztea** (4); **isuria eragoztea da** (3); **isuria eta** (7); **isuria hain** (3); **isuria izan** (20); **isuria izan zuen** (6); **isuria zuela** (3); **isuriak eta** (4); **isuriaren jatorria** (6); **isuriaren ondorioak** (4); **isuriaren ondorioz** (6); **isuriaz eta** (3); **isurien ondorioz** (3); **isuriren bat** (5); **isuririk ez** (3); **karbono dioxido isuriak** (4); **kutsagarrien isuria** (4); **kutsakorren isuriak** (3); **malko isuri** (8); **odol isuri** (9); **odol isuria** (25); **odol isuria eragoztea** (4); **odol isuria eta** (3); **odol isuria izan** (8); **odol isuriak** (7); **odol isuriaren** (3); **odolaren isuria** (3); **olio isuri** (4); **petrolio isuri** (8); **pleurako isuria** (3); **ur isuri** (7); **ur isuria** (6); **zen isuria** (3); **zuen isuria** (3); **zuten isuria** (3)

---

isurialdatze ik **isuraldatze**.

---

## isurialde *iz* ura isurtzen den aldea.

Bi solairuko baserri zabala da, hormak harrizkoak eta sendoak, teilatua bi **isurialdekoa** eta gorria. Joseba Sarrionandia

Beste **isurialdean** esne urtsuaren tonua ematen dio ilargiak mendi hegal zabalari. Pello Lizarralde

Hala, Etruria eta Kanpania aldera begiratzen duen **isurialdea** eguteran geratzen da eta egun guztian hartzen du eguzkiak bere ibilian duen indarra. Santiago Iruretagoiena

Beste **isurialdea** Adriatikora begira gelditzen da eta iparraldeko eskualderantz etzaten da, eta etengabeko lur-eremuak ditu itzalean eta laiotzean. Santiago Iruretagoiena

Portugal aurrena [...] Brasildik Makaoraino iristen zen merkataritza-inperio baten ardatz bihurtu zen, Afrikako bi **isurialdeak,** eta, horren ondorioz, Indietarako itsasbidea bereturik. Koro Navarro

---

## isurialdi *iz* isurtzea.

Atzamarrak Pietatearen ipurmasailetan iltzaturik, segundo gutxi batzuetako atsegin eternala, gerri kolpez laguntzuriko **isurialdia,** esprinterrek helmugako marra gainean jotzen duten giltzurrun kolpea-a-a-a... Unai Iturriaga

---

## isurika *(orobat **ixurika**)* *adlag* isurtzen.

Eta ondo ankerra, hala ere, espetxea: aldiro-aldiro lanbroa egiten zian, **isurika,** aldiro eurijasa, eta bospasei zentimetro uretan plastaka gintuan, barrenean. Josu Zabaleta

Ikusgarri gaitza da ez **ixurika** "Ura ahoz-aho" hori. Herria

---

# **isurkai** *iz* isurkaria.

Kobrezko ontzia ura berotzeko, saltxitxa-pakete zanpatu samar bat, su-pala, te-ontzia, zenbait katilu koskadun eta botila bat anbar koloreko **isurkaiarekin** . Iñaki Mendiguren

---

# **isurkari** *(42 agerraldi, 22 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 344 agerraldi; orobat **ixurkari** g.er.)* **1** *iz* daukan ontziaren formara egokitzen den eta presioak tamainari eragiten ez dion gaia edo gorputza. ik **likido; isurki**, **isurkin**.

Beste pitxer bateko **isurkariaz** bete zuen gero edalontzia. Jose Morales

Hanka zabalik datzan artean, **isurkari** batez bustitzen dute burutik oinetaraino. Oskar Arana

Nafta likidoa botatzen dute itsasora, eta **isurkari** hori gainean geratzen da, urak baino dentsitate txikiagoa izanik. Karlos Zabala

Janari sendo trinkoak ez zituzten inoiz ukitu, eta **isurkarietan,** ura eta esnea edan zuten batez ere. Josu Zabaleta

Buluzten gituzte, bilo-bizarrak mozten, produktu batekin emokatzen eta gorputz eta buru alimaleko untzi batean murgiltzen gituzte, barnean den **ixurkariak** larrua erretzen baitauku. Michel Oronoz

Nire barne muinetako **isurkari** zurixka, etsimenduaren zuku mindua. Aingeru Epaltza

Erasogileek dendaren erakusleihoa hautsi eta **isurkari** sukoia jaurti zuten. Berria - Euskal Herria

**2** (izenondo gisa) ik **isurkor**.

Erregai **isurkariak** bultzaturik 2,5 segundo besterik ez zen egon airean eta 56 metro kurritu zituen. Pello Salaburu

Jakina da Asiaren erdialdeko lurra belaki bat bezalakoa dela, hidrogeno karburo **isurkariz** blaitua. Karlos Zabala

Odola, malkoak eta tinta: emakumeak izaki **isurkariak** dira eta, bareak bezala, lorratz limur bat uzten dute iragaiten diren lekuan. Joxean Agirre

**3** (hitz elkartuetan)

Latexak bai, latexak bete-betean ematen du **isurkari**-itxura. Joxerra Garzia

Bihotzeko gutxiegitasunak eragindako **isurkari** -euspenari zor zitzaizkion kilootako batzuk. Xabier Olarra

· Giza **isurkari** oro isuri izan da noizbait nire taxiko atzeko eserlekura. Oskar Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta isurkari** (3); **isurkari bat** (4)

---

# **isurketa** *(orobat **ixurketa** g.er.)* **1** *iz* isurtzea.

Ondoren, 1997. urtean Kioton, $CO_2$-aren **isurketak** arautzen saiatu ziren. Iñaki Heras

Alemaniaren **isurketek,** esate baterako, %18 behera egin dute. Iñaki Heras

**Isurketak** %13 handitzeko baimena eman zioten, ekonomia aski atzeratua zuelako. Berria - Harian

Programa ezarri zenetik, 3.898 familiak %15 gutxitu dute $CO_2$ren **isurketa** . Berria - Euskal Herria

Prestige-ren **isurketek** eragindako arazoez. Berria - Euskal Herria

Iragan irailean egin **zuen** isurketa horietako bat. Berria - Euskal Herria

Barakaldoko enpresak gai toxikoen **isurketa** larriak egin ditu azken urteotan. Berria - Euskal Herria

Etengabeko **isurketa** toxikoek denei egiten dietela kalte. Berria - Euskal Herria

**Isurketa** baten ondorioz 300 arrain hil dira Zumaiako Narrondon **Isurketen** %55aren erantzule diren herrialdeek. Berria - Euskal Herria

Hondakin uren **isurketari** buruzko jardunaldia egin dute egunotan, Bilbon. Berria - Euskal Herria

**Isurketa** atsegingarri hau gabe hilik nengoke honezkero. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ikusten duzunez, Eugeni, masturbaldi baten ondoren, hazi-guruinak handitu egiten dira eta azkenean likido bat isurtzen dute; **isurketa** honek zoramenik eztienera eramaten du emakumea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Onartzen den **isurketa** muga 150.000 kilokoa da. Berria - Euskal Herria

**Isurketa** azokaz gain, Kiotoko Itunak garapen garbirako mekanismoa abiatu zuen indarrean jarri zenean. Berria - Gaiak

2005-2007 urte bitarterako **isurketa** eskubideak banatuko dira lehen planean, dohan. Berria - Ekonomia

**Isurketa** Araudia berritzen ari zarete. Berria - Euskal Herria

· Instalaziokako emisio **isurketa** eskubideen zerrenda. Berria - Ekonomia

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gas **isurketa** baten ondorioz izan zela. Berria - Kirola

Karbono dioxido **isurketei** zerga ezartzea proposatu dute. Berria - Gaiak

Ur **isurketak** bizitza bezala, odolarenak heriotza dakar ondorioz. Felipe Juaristi

Zoritxarrekoa zu, hiriak odol-**isurketaz** jasotzen eta herriak bidegabekeriaz handitzen dituzun hori! Elizen arteko biblia

Odol **isurketa** handiena Bagdad hiriburutik 110 kilometro mendebaldera kokatua den eta sunitak gehiengo diren Ramadi hirian gertatu zen. Berria - Mundua

Sartu gehiago mihia, andere, ez miaztu klitoria bakarrik; barneratu mihi likits hori umetokiraino: hazi-**isurketa** azkar-azkar eragiteko modurik hoberena da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Badirudi emearen portaera basatiak erraztu egiten duela arraren esperma **isurketa** . J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez bainion gorputzari gau **isurketak** egiteko adina atseden ematen. Aitor Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **datozen urteotan isurketa** (3); **dira isurketen** (3); **duten gasen isurketa** (8); **eta isurketa** (3); **gas isurketa** (3); **gas isurketak** (7); **gasen isurketa** (10); **isurketa egin** (3); **isurketa eragin** (3); **isurketa gehiago** (3); **isurketa muga** (3); **isurketa murrizteko** (6); **isurketa murrizteko helburuak** (3); **isurketak gutxitzeko** (4); **isurketak murrizteko** (5); **isurketak murriztu** (5); **isurketak murriztu behar** (3); **isurketari buruzko** (3); **isurketarik gabe** (3); **odol isurketa** (19); **odol isurketarik** (6); **odol isurketarik gabe** (3); **urteotan isurketa** (3); **urteotan isurketa murrizteko** (3)

---

# **isurki** *(30 agerraldi, 13 liburu eta artikulu 1ean; orobat **ixurki** g.er.)* **1** *iz* isurkaria, bereziki gorputzak isuria.

Eskuan, uraren koloreko **isurkiaz** beteriko kopari kontzen zion. Aingeru Epaltza

Esnea ugaria da, ibaika ari da **isurki** zuria. Berria - Kultura

Beltz-beltzak ziren gorputzen **isurkiak,** gernua eta odola, gorotza eta odol lodia bezala. Felipe Juaristi

Haiek, esandako sua ez, baizik eta **isurki** lodia aurkitu zuten. Elizen arteko biblia

Oparigaiak erre zirenean, sobera gelditutako **isurkia** harri handi batzuen gainera isurtzeko agindu zuen Nehemiasek. Elizen arteko biblia

Baina hilekoarekin bezala **isurki** epel bat sentitu nuen izterretan behera: ez odola, baizik eta beherakoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Hantxe etorri zen, plop, agurearen dardarizo eta arnasotsen artean, eskua likindu zidan **isurki** lirdinga hura, biziaren iturritzat goretsi ohi duguna, neure bizian lehenengoz ikusten nuena. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** isurialdea.

Haitza bustirik zegoen eguzkiak jotzen zuen **isurkian,** eta lei beltzez estalia itzalpekoan. Juan Garzia

Indioiloa uhurika, zilipurdika joan zen teilatu-**isurkian** beheiti, hegatzean ezin gelditu eta erori egin zen goitik behera lurreraino. Gotzon Garate

---

# isurkin *(29 agerraldi, 13 liburutan; orobat **ixurkin** g.er.)* **1** *iz* isurkaria.

Ez da ura gehien estimatzen duen **isurkina**. Ardo zuria atera zuen Mirandek, bi edalontzi ttikitan, **isurkin** hura emakumearen azalera lehenbailehen kanporatu eta aingeru aurpegi hura izerdituago ikusteko irrikaz. Harkaitz Cano

Hor dago ingelesek kafea deitzen dioten **isurkin** hori. Anton Garikano

Dakizuenez, lapiko batek gehiegi irakiten duenean, **isurkinak** gainezka egiten du ezinbestez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nire desioa piztuta zegoen eta nire **isurkinak** nire iztarretan behera iragazten sentitzen nituen. Juan Martin Elexpuru

Gure gorputzaren osaketak, gure organoek, gure **isurkinen** ibilerak, gure abere-sen indartsuak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Idatzi egin nahi nuen, arimara **isurkin** ezezagun bat baitzetorkidan. Edorta Jimenez

**2** isurialdea.

Sabaia lastozkoa zuen, bi **isurkinekoa,** eta adreiluzko korridore bat. Juan Garzia

---

# isurkor *izond* isurtzeko joera duena.

Ura bezain **isurkor** eta iheskor. Felipe Juaristi

Urgain geldiak ispilua zirudien; Urumea bera lakua bailitzan, eta ez ibai **isurkorra**. Txillardegi

Erretako etxeen usain **isurkorra,** itsatsita geratzen zena, noranahi joanda ere atzean utz ez zitekeena. Felipe Juaristi

Gezurra da naturak hazi **isurkor** hori ugalketarako jarri duela oso-osorik eta bakar-bakarrik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Tinta **isurkorregia** badute, lumaren muturretik ihes egin ohi du hark, eta alkandora-poltsikoetan orban ezabaezina utzi. J.M. Olaizola "Txiliku"

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **isurkor eta** (3)

---

# isurle *(ETCn 44 agerraldi; orobat **ixurle** g.er.)* *iz* aipatzen dena isurtzen duena. ik **isurtzaile**.

Hala gelditu zen eskarnio egin ustea eskarniatua eta odol-**isurle** ustezkoa odolustua. Joan Mari Irigoien

Israelek dio ez dituela ahanztekoak palestinar odol **ixurleak**. Herria

---

# isurpen *(ETCn 478 agerraldi; orobat **ixurpen** g.er.)* *iz* isurtzea.

Berotze globala sortzen duten gasen **isurpena** mugatzeko egutegia ez zuten onartu Ameriketako Estatu Batuek. Iñaki Heras

**Isurpenaren** ondoren txilina makaldu egin zitzaidan eta zulo irristakorretik atera zen. Aitor Arana

---

isurrarazi ik **isurarazi**.

---

# isurtoki *iz*

**"Isurtokiak"** non diren, aaieka hartara arrimatuak ginen, jakiteko ea zergatik ari zen urritzen ura. Juan Garzia

---

# isurtzaile *iz* isurlea.

Izan ere, Espaniako Gobernuak gai horren inguruan Europako Batasunak onartutako araua bakarrik bete du, eta, hortaz, **isurtzaileen** zati bat besterik ez du arautu: gutxien isurtzen dutenen ingurukoa(%40). Zerua begien aurrean dugu egunero, batzuetan argi-emaile eta bestetan euri-jasen **isurtzaile** errukigabea, baina beti gure eskuetatik at. Pako Aristi

Konplexuz edota apetaz betetako pertsona faltsuak, gizonezko ahobero baina inpotenteak edo **isurtzaile** azkarrak, emakumezko ezin maltzurragoak edo ezin sufritzaileagoak. Jon Arretxe

---

# isurtze *(orobat **ixurtze** g.er.)* *iz* (isurkari bat) dagoen ontzia irauliz edo makurtuz erorarazteа. ik **isurketa; isurpen**.

Aitaren birika zulatuen **isurtze** hotsaz. Ramon Saizarbitoria

Jainkoaren dohaina gugan **isurtze** soila baizik ez da. Joan Mari Lekuona

Gizakiak harrigarriro atxikitzen zaizkie beren lege eta ohiturei […]; haiek aldatuz gero, nekez saihestuko dira nahasmendu eta odol-**isurtze** handiak, herrialde guztien historiek erakusten digutenez. Iñaki Iñurrieta

Odol **isurtze** izugarri bat. Oskar Arana

Baina euriaren **isurtze** doinu erregularra baizik ez zuen entzun. Ramuntxo Etxeberri

Urtean lau libururen harpidetza hartu [...] banku bidez diru-**ixurtze** automatikoa eginez argitaletxearen kondura. Herria

Sendagileak esan zidan garaiz aurreko **isurtze** arazoak seriotasunez kontuan hartzekoak zirela. Josetxo Azkona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **isurtzerik gabe** (3); **odol isurtze** (10); **odol isurtzerik** (3); **odol isurtzerik gabe** (3)

---

# isuski-garratz *(corpusean **isuskigarratz** soilik)* *iz* zuhaixka arantzaduna, lore horiak eta fruitu gorri jateko onak ematen

dituena *(Berberis vulgaris)*.

Bidea hutsik zegoen erabat; lahar edo intxusa adarren bat, soilik, **isuskigarratz** mordoskaren bat, odola bezain gorri, azaltzen zen bakarrik han-hemenka, zanga ertzetik. Zanga ertzean nahasirik zeuden errubia bezain gorri ziren **isuskigarratzak**. Josu Zabaleta

---

**isuskitxo** *iz* erratz txikia.

Berriro butxatu dira isurbideak, ezin dugu ura jariatzen utzi, tantaka ez bada, ezin dugu komuna erabili, **isuskitxoa** erabiliz ez bada, eta ur zikina terreina handi batean gorde behar dugu. Josu Zabaleta

---

itaitzur ik **itaizur**.

---

itaixur ik **itaxur**.

---

**itaizur** *(orobat **itaitzur**)* *iz* itaxura, itogina.

Nagiaren sabaia erraz eroriko, zabarraren etxean **itaizur** franko. Elizen arteko biblia

Han hemenka **itaitzurak,** gapirio batzu mutzituak edo irinduak, paretak tokika arrailduak. Herria

---

**itakar** *izlag/iz* Itakakoa, Itakari dagokiona; Itakako hiritarra.

Hala ere, ezkongaiak hil badituk jauregian, **itakarrek** mezulariak bidaliko ditiztek alde guztietara. Juan Kruz Igerabide

-Entzun orain niri, **itakarrok:** Ulisesek jainkoen nahia besterik ez du egin. Juan Kruz Igerabide

-Utzi, **itakarrok,** borroka gogorra, eta ez isuri odol gehiagorik! Juan Kruz Igerabide

---

**italiano** **1** *izlag* italiarra.

Berlusconi **italiano** gobernu buruak. Herria

**Italiano** lehen minixtroak ihardesten diote ez duela hortako astirik. **Italiano** airekoak Saboya 79 motakoak ziren, 1 000 kilo bonba garraiatzeko eginak. Herria

Musu ematen zion atzerritar **italiano** gazte batekin zegoelako. Josu Zabaleta

Domenico Latti apez **italianoak**. Piarres Aintziart

Alemaniarra zen jatorriz, baina ikasia zen, eta Italian sarritan izana, eta estimatzen zituen **italianoak**. Josu Zabaleta

**2** italiera.

**Italianoz** hitz egin zidan. Joseba Sarrionandia

Frantsesez edo **italianoz** bagenekien galdetu ondoren. Bernardo Atxaga

Kroazian, bada egunkari bat, "La Voce", **italianoz** egiten dutena. Herria

Ingelesezko, alemanezko, **italianozko** liburuak arakatzen nituen. Matías Múgica

Nik frantsesezko hitzak entzun nahi ditudan bezala, berak ere agian **italianozkoak** entzun nahi dituelako egoten gara. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **apez italianoak** (3); **eta italiano** (4); **gasperi italianoa** (3); **italiano bat** (5); **italiano batek** (3)

---

**italiar** **1** *izlag* Italiakoa, Italiari dagokiona. ik **italiano**.

**Italiar** jatorriko erromatar hiritarren kolonia hau. Iñaki Mendiguren

Boloniako Eskolako **italiar** matematikariek. Jon Muñoz

Boloniako **italiar** eskola. Jon Muñoz

Hamabosgarren mendeko **italiar** humanistek. Iñaki Mendiguren

**Italiar** merkatariek bazterrera utzi ahal izan zituzten bitartekari musulmanak Ekialdeko aberastasunetara iristeko. Koro Navarro

**Italiar** kulturaren astea antolatu zuen udalak. Alberto Ladron Arana

**Italiar** mafiak, baina, mespretxatu egiten du errusiarrena. Harkaitz Cano

Bera eta **italiar** putakume hura. Alberto Ladron Arana

Noiz entzun eta ikusi dituzue Klöden alemana edo Basso **italiarra**? Herria

Urte berean Enrico Fermi fisikari **italiarrak** Chicagoko Unibertsitatean erreaktore nuklearra asmatu zuen. Pello Salaburu

Bi naufrago **italiar** aurkitu ditut, Gaetano di Amalfi eta Andrea di Noli. Juan Garzia

Larruzko zapata **italiarrak**. Felipe Juaristi

Dino de Laurentis, 1970a, koprodukzio **italiar**-sovietarra. Aingeru Epaltza

Calvino **italiarra** zen; Monterroso, Guatemalakoa; Tolkien, ingelesa. Bernardo Atxaga

Uste nuen **italiarra** edo amerikarra zela. Irene Aldasoro

• **2** *iz* Italiako herritarra.

Munduko lau bazterretako jendeei ematen diet ostatu: frantsesei, **italiarrei,** flandestarrei, saboiarrei, bretoiei, alemaniarrei... Aingeru Epaltza

Gaur **italiar** haien ondorengoek hemen jarraitzen dute. Anjel Lertxundi

**Italiar** peto horietako bat. Anjel Lertxundi

Jendeak uste du pasta dela **italiarren** gailur gastronomikoa. Anjel Lertxundi

Ingelesek aise irabazi dute **Italiarren** kontra: 80 eta 23. Herria

1870, **Italiarrek** Erroma hartzen diote buru-lehenari. Xipri Arbelbide

Orain **italiarrarentzako** lan bila omen zabilen, hemen, Gasteizen. Patxi Zubizarreta

Spinola, **italiar** faltsua, kristau faltsua. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bahitu italiar** (3); **bahitu italiar bat** (3); **baina italiar** (3); **bi italiar** (5); **ekintzaile italiar** (3); **emakume italiar** (3); **eta italiar** (18); **hainbat italiar** (3); **hiru italiar** (3); **hura italiar** (3); **italiar bat** (32); **italiar bat hil** (4); **italiar batek** (11); **italiar baten** (10); **italiar batera** (6); **italiar erara** (3); **italiar eta** (20); **italiar hil** (3); **italiar hori** (5); **italiar idazle** (3);

italiar jatetxean (3); italiar jatorriko (4); italiar kasetari (4); italiar kutsuko (3); italiar literaturako (3); italiar peto (3); italiar txiki (3); jatetxe italiar (5); jatetxe italiar batera (4); lau italiar (3); mendeko italiar (3); soldadu italiar (12); zen italiar (3); zuen italiar (3)

andrea dovizioso italiarra (4); da italiarra (3); eta italiarra (5); gidari italiarra (4); idazle italiarra (5); italiarra baino (3); italiarra da (10); italiarra dira (3); italiarra edo (3); italiarra eta (12); italiarra fassa bortolo (3); italiarra fitxatu (5); italiarra hil (3); italiarra izan (7); italiarra izan zen (3); italiarra izan ziren (3); italiarra izango (5); italiarra izango da (3); italiarra nagusitu (4); italiarra nagusitu zen (3); italiarra zela (3); italiarra zen (8); ivan basso italiarra (5); paolo bettini italiarra (3); piepoli italiarra (3); scarponi italiarra (3); txirrindulari italiarra (8); valentino rossi italiarra (4); zuzendari italiarra (3)

bahitu italiarrak (3); baina italiarrak (8); bettini italiarrak (3); bi italiarrak (7); cunego italiarrak (3); damiano cunego italiarrak (3); davide rebellin italiarrak (3); dira italiarrak (5); ditu italiarrak (4); du italiarrak (5); eta idazle italiarrak (5); eta italiarrak (14); gidari italiarrak (7); idazle italiarrak (8); italiarrak askatu (4); italiarrak atzo (3); italiarrak azken (3); italiarrak bere (4); italiarrak dira (6); italiarrak egin (6); italiarrak entziklopedia (3); italiarrak entziklopedietan (3); italiarrak ere (4); italiarrak eta (18); italiarrak ez (16); italiarrak ez du (3); italiarrak irabazi (16); italiarrak irabazi du (7); italiarrak irabazi zuen (9); italiarrak izan (4); italiarrak izan ziren (3); italiarrak oso (4); italiarrak ziren (3); italiarrak zuzenduko (3); rebellin italiarrak (3); soldadu italiarrak (4); talde italiarrak (8); txirrindulari italiarrak (8); ziren italiarrak (4); zituen italiarrak (4); zuen italiarrak (9); zuzendari italiarrak (3)

baldoni kazetari italiarraren (3); eta italiarrei (3); idazle italiarraren (4); italiarraren atzetik (3); italiarraren gorpua (3); italiarraren hilketa (3); italiarraren kontra (4); italiarraren le (4); italiarraren le conseguenze (3); italiarraren ordez (3); italiarrari buruzko (3); kazetari italiarraren (5); paolo sorrentino italiarraren (3)

atzerriko italiarren (3); baina italiarrek (4); bi italiarren (3); bizi diren italiarren (4); diren italiarren (4); dute italiarrek (5); dute italiarren (3); eta italiarrei (3); eta italiarrek (10); eta italiarren (12); eta italiarren arteko (3); italiarrek ez (5); italiarrek oso (3); italiarrekin batera (4); italiarren artean (9); italiarren arteko (8); italiarren arteko lehia (3); italiarren aurka (4); italiarren boto (3); italiarren boto egiteetan (3); italiarren kontra (8); italiarretako batek (3); jatorri italiarrekoa (3); milioi italiarrek (5); soldadu italiarren (4); zen italiarren (4); zuten italiarrek (6); zuten italiarren (3)

---

## **italiaratu**, italiara(tu), italiaratzen da/du *ad* Italiara joan; Italiara eraman.

Besteak beste, Brigada Gorriko ekintzaile ohi Enrico Villimburgo eta Roberta Cappelli **Italiaratu** nahi ditu. Berria - Mundua

---

## **italiartasun** *iz* italiarra denaren nolakotasuna.

**Italiartasuna** deitzen dioten balio aberkoi horrek. Anjel Lertxundi

**Italiartasunaren** eskuzabaltasun suizidatzat dute Bolzanon alemana koofiziala izatea ere, edo Triesten esloveniera. Anjel Lertxundi

Triestera iritsi nintzenetik inoiz edo behin sumatua nuen gai polemikoenari oratu zion etxekoandreak, Trieste inguruko lurraldeen **italiartasunari** buruz aritu baitzitzaidan luzaz eta kartsu Anjel Lertxundi

---

## **italiartu**, italiar(tu), italiartzen **1** da/du *ad* italiar bihurtu.

Alpeez bestaldeko Mendebaldeko herri gehienen **italiartzea** ikusi zuen belaunaldia. Iñaki Mendiguren

**2** (era burutua izenondo gisa)

Mendebaldeko kristau-kultura **italiartu** estandarizatu baten partaide bereizgabea. Iñaki Mendiguren

---

## **italiera** *iz* Italian mintzatzen den latin hizkuntza. ik **italiano 2**.

**italiera** batuaren eta dialektoaren arteko tentsioa. Anjel Lertxundi

Piamontera hizkuntza mintzatua baita funtsean, eta gure **italiera** marmolezko hau, berriz, hilarriak idazteko egokia. Juan Garzia

**Italieraren** dialektoak ere osagai inportanteak dira, **italiera** estandarra ondo jakinagatik ere arrotz batek askotan usaindu ere egiten ez dituenak. Anjel Lertxundi

**Italiera** ez ofizialean. Pello Lizarralde

Aurten iritsi garenok izan ezik, denek egiten dute **italieraz,** ulertzeko lain behintzat. Berria - Kirola

**Italiera** garbian egiten nuen nire ustez. Fernando Rey

Nik **italiera** garbi-garbia egiten dut. Fernando Rey

Gutxi hitz egiten zuen, oso **italiera** traketsa zuelako beharbada. Anjel Lertxundi

Aleman-**italiera** hiztegi bat. Anjel Lertxundi

**Italierara** itzuli zuen latinezko testua. Askoren artean

Graffitia, pintadaren izen internazionalena, **italieratik** hartua da. Berria - Kultura

**Italierako** ikasleak. Fernando Rey

*Sciopero* izan baitzen ikasi nuen **italierazko** lehendabizikotako hitza. Anjel Lertxundi

Alemanentzako **italierazko** gramatika batekin. Fernando Rey

Niccoló Tartagliaren **italierazko** itzulpen bat, 1543an Venezian argitaratua. Jon Muñoz

Wren-ek, **italiera**-eskola batzuen truke, lehen urratsak ematen lagundu zidala ingeles hizkuntza infinitu horren ikasketan. Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

alemanentzako italierazko (3); dago italiera (4); eta italiera (14); eta italieraz (9); eta italierazko (4); frantsesa eta italiera (3); italiera eta (6); italiera ez (6); italiera pixka (3); italiera pixka bat (3); italierara itzuli (4); italierarekin batera (3); italieraz eta (5); italieraz ikasi (5)

---

## **italieradun** *izond/iz* italeraz dakiena.

1914tik 1918ra bitarteko gerran Austriak zituen lurralde **italieradunak** askatzearen aldekoa. Fernando Rey

Italierazko itzulpena ez da oraindik argitaratu, baina irakurri duten **italieradunen** aldetik etorri zaidan iritzia ere antzekoa da: ezustea, idazteko moduagatik, kontaeragatik eta emakumearen ikuspegiaren gordintasunagatik, omen. Ana Urkiza

· *hed* Han-hemen puskatu egunkari eta aldizkariei, haiek husturiko latak kuxinak zigarrokinak paperak diskoak eta zabor **italieraduna** gehitu behar zaizkie. Lutxo Egia

---

## **italieratu**, italiera(tu), italieratzen du *ad* italierara itzuli.

Vazquez Montalbanen liburuen italierazko itzultzailea da Lyria; haren 40tik gora liburu **italieratu** ditu. Berria - Kultura

---

## **italika** *iz*

Bazen Zesarean Kornelio izeneko gizon bat, **"Italika"** zeritzan gudu-taldeko ehuntaria. Elizen arteko biblia

---

## **italiko** **1** *iz* italiar penintsulan mintzatzen zen indoeuropar hizkuntzaren adarra.

**Italiko** komunaren sistema fonologikoan. Zeltikoak, bestalde, oso lotura hertsiak ditu **italikoarekin**. Isabel Arrigain

• **2** *izond* hizkuntzen mintzatuz, italikoaren multzokoa dena.

Italian bere senide zituen oskoera eta unbriera dialekto **italikoekin** borrokatu behar izan zuen [latinak], eta mesapiera eta veneziera iliriar dialektoekin. Iñaki Mendiguren

**3** Italiari, bereziki antzinakoari dagokiona.

Askatasun **italikoa** harrapatu zuten otsoak beti gurekin izango ditugu, ezkutaleku gisa erabiltzen duten basoa goitik behera bota ezean. Esteban Antxustegi

**4** letra motez mintzatuz, etzana.

Biziki komeni da, beraz, komatxoak ez erabiltzea hitzak nabarmendu, berezi edo azpimarratzeko, nahiz hitz horiek adiera markatua izan edo beste hizkuntza batzuetatik hartuak izan (halako hitzak letra **italikoz** idatziko ditugu) Iñigo Aranbarri

---

# italiota *iz/izond* italikoa.

Greziar **italiotak** oskoen eta etruskoak zelten kontraeraso barbaroaren mende erori ondoren, erromatarrek helenismo latinizatua eraman zuten [...] Danubioren deltatik Rhinen bokaleraino eta, Dover-eko itsasartean zehar, Britainiaraino. Iñaki Mendiguren

Hizkuntza erkidego bat ez ezik, erakunde komunak zeudela, etnismo **italiotaren** eta etnismo germanikoaren artean. Isabel Arrigain

---

# itandu ik **itaundu**.

---

# itaun **1** *iz* galdera.

Buruan, berriz, banuen hamaika **itaun**. Edorta Jimenez

Estiloari, gaiari edo tonuari buruzko galderak egiteaz gainera, idazleak entzuten ditu **itaun** deserosoagoak ere. Anjel Lertxundi

Ez da galdera erretorikoa, ezta ironikoa ere, zuk zeuk erantzun beharreko **itauna** baizik. Xabier Mendiguren Elizegi

"Nor dabil hor" **itaun** marrantatua entzun zuen. Josu Landa

Aitzinean Ximurra edo Charly izanez gero, **itaun** jakina etorriko zen ondotik: "baina jo huen, bai ala ez?". Aingeru Epaltza

Nedak ere ez daki **itaun** horri erantzuten. Jon Arretxe

**Itaun** guztiei erantzuten saiatu nintzen ni epaiketan. Hasier Etxeberria

-Gustatu al zaik? -osabaren **itauna**. Aitor Arana

-Ez duzu berriz ere ikusi **-itauna** baino areago, egiaztapena zen. Aingeru Epaltza

Hortik aurrera **itaun** andana luzea etorri da. Jon Arretxe

**Itaun**-erantzunak begitantzen eman nuen gaua. Koldo Izagirre

**2** ***itaun egin*** itaundu.

-Eta jainkoa? **-itaun** egin zidan. Edorta Jimenez

Zein fedetakoak ote ziren haiek **itaun** egin nion neure buruari. Edorta Jimenez

Dena ongi, Joanes? -begirune hutsez egin zion **itaun**. Edorta Jimenez

Inor ez zen ausartu, ordea, gai hartaz **itaunik** egitera. Karlos Zabala

· Haatik, bost ardura zion, itxuraz, hark Igeldokoari, ez baitzion hartaz beste **itaunik** egin. Edorta Jimenez

Andreak eta seme-alabak **itaun** asko egin zizkidaten baina ez nien ia ezertxo ere erantzun. Gotzon Garate

Horregatik harritu da tabernaria kanpotarrak berriro **itaun** bera egin dionean handik ordu erdira. Iñigo Aranbarri

-Ez hintzen geroztik ezkonduko, ala bai? -batentzako tokia zegoen eskailera hartan, eta bera aurretik zihoanez, Mentxuk burua jiratu zuen **itauna** egiteko. Josu Landa

**Itauna** egiteko moduan zorabioaren halako aire bat bazen. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beste itaun** (4); **beste itaun bat** (3); **eta itaun** (4); **itaun bat** (4); **itaun egin** (8); **itaun egin zidan** (3); **itauna egin** (5), itaunei erantzuten (3)

---

# itaundu, itaun(du), itauntzen **1** du *ad* galdetu.

-Komuna hor aurrean da, ezta? **-itaundu** zuen Eusebiak. Josu Landa

-Rigakoa zara? **-itaundu** zion lehenbizi. Karlos Zabala

Baina **-itaundu** nion nik- zergatik egin zuen ihes Rosemundek? Aritz Gorrotxategi

-Izotzik? **-itaundu** zion, bertan zegoela jakin zezan. Migel Angel Mintegi

-Zertan ari haiz? -Martin Mihurubikoak harridurazko irri mehe batez **itaundu** zidan. Edorta Jimenez

Rufinoren estiloaz **itauntzean,** dino: [...]. Xabier Amuriza

Ea Mentxu goian zegoen **itaundu** zion Joseluk amari. Josu Landa

Kafe bat hartu nahi ote zuen **itaundu** zion. Aritz Gorrotxategi

Emakumezkoen literaturaren balioez aritzeko, nahitaez nazioartean arrakasta lortu behar ote den **itaundu** nion neure buruari. Ana Urkiza

Euren buruari **itaunduko** deutsee ea zer egin behar daben. Jon Arretxe

Ez nion **itaundu** zer aditu zuen. Edorta Jimenez

Gehien zeinetan gozetan dauen **itaundurik,** berari danerik gustetan ei jako, baita kantetea be. Xabier Amuriza

**2** galdekatu.

-CIAk behin baino gehiagotan **itaundu** ninduen. Harkaitz Cano

Gainera, 50 bat gizonezko **itaundu** zituzten. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bat itaundu** (3); **besterik itaundu** (3); **ez nion itaundu** (7); **itaundu behar** (3); **itaundu eustan** (3); **itaundu gura** (3); **itaundu izan** (3); **itaundu nion** (27); **itaundu nuen** (3); **itaundu zidan** (16); **itaundu zien** (6); **itaundu zion** (49); **itaundu zuen** (30); **itaundu zuten** (3); **itauntzen du** (3); **nion itaundu** (7); **ote zuen itaundu** (4); **zuen itaundu** (4)

---

# itaungarri *izond*

Onezko izpiritu izan zein iratxo madarikatu, zeruko haize gozo ekarle zein infernuko zafrada, hire asmoak makur izan zein onbera, hain heldu haiz hi itxura **itaungarrian** ezen mintzatu behar bainatzaik. Juan Garzia

---

**itaunka** *adlag* galdezka.

Bus geltokiaren inguruan ibili naiz **itaunka** denbora luzean, eta azkenean lau gizonekin elkartu eta denon artean taxi-gidari batekin egin dugu tratua. apur bat harriturik begiratu zidaten kontalari bizardunari **itaunka** hasi nintzaionean. Jon Arretxe

Bide bertsutik jarraitu dut **itaunka:** [...]. Jon Arretxe

Zorionaz **itaunka** ematen dugu bizitza osoa. Pako Aristi

Lecœur andrea bere buruari **itaunka** jardun zen luze. Karlos Zabala

---

**itaunketa** *(90 agerraldi, 28 liburu eta 24 artikulutan)* **1** *iz* galdeketa.

Abaildurak jota zegoen, polizien **itaunketa** bere azalean bizi izan balu bezala. Anjel Lertxundi

Batek berehala eraman zuen Anjel handik, bigarrena etxe guztia hasi zen miatzen eta hirugarrenak **itaunketa** azkar bat egin zidan. **Itaunketek,** kriminalisten arabera, espiralean garatu behar dute gertakizuna, nolabait esateko, baina sekula ez zuzen-zuzenean. Mikel Hernandez Abaitua

Berrogei bat minutu iraun zuen **itaunketak**. Juan Kruz Igerabide

**Itaunketak** alferrikoak dira, delituaren aitorpena alferrikoa den bezala, beste froga batzuek baieztatzen dutenean erruduntasuna. Juan Martin Elexpuru

Inkisizioaren **itaunketa**. Unai Iturriaga

Tsarrak **itaunketa** eten zuen une batez. Karlos Zabala

**Itaunketari** ekin zion, izena emateko eta abar. Koldo Izagirre

Erantzunaren zain egon gabe, hainbat abarretan banatutako **itaunketa** bati ekin zion. Anjel Lertxundi

1979aren hasieran, **itaunketa** egin nionean, "errukarria" zela esan zuen, "gorputz aldetik, behintzat", eta gero: "Bizimodu petrala da, hauxe". Xabier Olarra

Halako batean **itaunketak** hasten dira, eta egun batean B. jaunak, tortura gelara itzuli aurretik, liburu bat lapurtzen du, berak nahi bezala Homero edo Goetherena izan beharrean, xake maisuen partidak jasotzen dituena. Markos Zapiain

**2** ***itaunketa egin***

**Itaunketa** egin zitzaien gazteei, errudunaren aurrez aurre jarri zituzten, eta esan zuten kili-kili etengabea sentitzen zutela gorputzeko parte batzuetan, eta deabrua zutela barruan. Juan Martin Elexpuru

**Itaunketa** egingo zigutela eta bertan fusilatuko gintuztela agindurik, gure inguruan arranditsu kokatu ziren, eta han abiatu ginen mendatera bidean. Juan Garzia

-Ez niri egin **itaunketarik,** epaile jauna, nik ez dakit ezer horretaz -esan zuen, bere betile luzeak beheititzeaz batera. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itaunketa egin** (5); **itaunketa egiteko** (4); **zuen itaunketa** (3)

---

**itaunlari** *iz* galdekatzailea.

Gogoan dut, nire izaeraren alderdirik beltzenak argitan ipintze aldera, hiru **itaunlari** prestuek hartu zuten bide infamiazkoa. Karlos Linazasoro

---

**itauntze** *iz* galdetzea.

Eta zoritxarretik aldenduko dituen ez-**itauntze** horri ez diote koldarkeria deitzen, konformitatea baizik. Pako Aristi

---

**itaurre** **1** *iz* idiak gidatzea.

Irailekoan, **itaurre**-itzuli gutxi. Pello Zabala

**2** ***itaurrean*** *adlag* idiak gidatzen.

Nik oso gogoko nuen mutikotan **itaurrean,** ittulian, itzuli eta itzuli, idien aurrean ibiltzea. Pello Zabala

**3** ***itaurreko***[1] *izlag*

San Migeletako atsotitzak, ia denak irailekoak badira ere, hor dago San Migel ipui, soroan itturi dioena, lehenagoko maiatzeko data gogora ekartzen diguna, **itaurreko** garaiak, artoa erein behar zeneko ittule-lanetakoak, maiatzeko lehen egunetakoak baitziren. Pello Zabala

**4** ***itaurreko***[2] *iz* idiak gidatzen dituen pertsona.

"Ittulea" itularia da, **itaurrekoa,** idi aurrekoa: jubilatuek batetik bestera tokiak ikusteko euren aurretik ibili duten gida turistikoa, alegia. Iñigo Aranbarri

· Gurdia lastoz zamatu eta etxera itzuli dira hirurak; Asun eta Martin atzean, Andres **itaurreko**. Alberto Barandiaren

---

**itaxur** *(16 agerraldi, 7 liburu eta 4 artikulutan; orobat* ***itaixur*** *g.er.)* **1** *iz* itogina.

Urte osoak iraganen dire nihor ohartu gabe **itaxur** hetaz. Xipri Arbelbide

Orduan ziren ohartu **itaxur** bat ederra bazela gainean, ezkerretik. Aurelia Arkotxa

**Itaxurak** barnean estaia batetik bestera, kanpoan euriaren nigar herresta hitsak murruetarik behera, lehen xuri izanak, orain huntz-ostoak janak. Michel Oronoz

**Itaxurak** abiatzen zaizko lehenik. Xipri Arbelbide

**2** *irud*

70 urte eta beti berdin gazte, ez da deneri emana, adin hortako jende ainitzek badituzte **itaxurak,** elkarte frangok ere ba! Herria

---

**item** *iz* alea, multzo bateko banakoa.

"Ez, ez da halakorik gertatuko"; honela erantzuten dio galdetegiaren hamabigarren **itemari,** artikuluaren eranskinean ageri denez. Iban Zaldua

Ikasleek proba bakoitzaren **itemen** %20 gainditu behar izan dituzte. Berria - Harian

-Lopeztarren argazki-albuma... -murmurikatu du aitak, amak emandako zerrendatik lehenengo **itema** errepikatuz-. Iban Zaldua

Izan ere, guk euskaraz hitz egiten genuen -euskaraz ere bai-, eta horrek **item** berri bat eransten zion sinonimoen zerrendari: *aldeano* esaten zuenak *palurdo* zioen, *palurdo* zioenak *cashero*, *cashero* zioenak *vasco* edo *vascorro*. Bernardo Atxaga

Aurreko **itemari** jarraituz, natur ingurunea menderatuz aurrerapen zientifikoa sortzen da, eta fenomeno soziokulturalak aurrerapen zientifikoaren arabera garatzen dira. Askoren artean

Oinarriaren eta eraikinaren gainerako guztiaren arteko erlazioa ezin da, hortaz, kontzeptuala izan; ez da logikoa ezta inferentziala ere, erlazio horiek **item** proposizional edo kontzeptualen artean gertatzen baitira. Askoren artean

---

**iteuli** 1 *iz* behiei eta kidekoei erasotzen dien ezpara *(Tabanus bovinus).*

**Iteulia** [...] erabili dugu berriz *tabanus bobinus* izendatzeko. Patziku Perurena

Dena den, liztorrak, erleak bezalatsu, zirikatu edo amorratuz gero, eraso lezake ganadua, baina nekez abeak, ezpadak edo **iteuliak** bezala senez odol bila zuzenean ganadua eraso. Patziku Perurena

**2** *irud*

*Limes* mehatxatuaren atzeko botereak ahalegin bat egin behar du, giza indar edo ekipamendu edo dirutan neurtuta, batere proportziorik gabea bere aurkako **iteulien** baliabide eskasekiko. Iñaki Mendiguren

---

**itinerario** *iz* ibilbidea.

Lehenengo bere oinetakoari begiratzen zion, ea apurtu ote zuen, eta zapata apurtu ez bazuen baloiaren **itinerarioa** miresten zuen. Joseba Sarrionandia

**Itinerario** imajinarioa. Joseba Sarrionandia

---

**ito**, itotzen **1** da *ad* arnasa hartu ezinik hil.

Uste dut bi hijacker **ito** direla. Lopez de Arana

Zergatik ez ote nintzen hil amaren sabelean? zergatik ez **ito** jaiotzerakoan bertan? Elizen arteko biblia

Doi-doi izan zuten Linori **ito** aurretik gerrikoa lepotik kentzeko astia. Harkaitz Cano

Ontzigaltzea erabatekoa gertatu zen eta, marinela franko **ito** zen arren, Badr erregeak, ohol bati eutsirik, kostaldera iristea lortu zuen. Patxi Zubizarreta

Eroaldi batean jotzen zuen ura, **itotzen** ari balitz bezala. Koro Navarro

Ur handiegietan sarturik **itotzeko** arriskuan ez ote nintzen izanen. Aingeru Epaltza

13 bainuzale **ito** ziren kataluniako itsasertzean. Pello Zabala

Olatx mundura jaio zen egun berean arnasarik hartu ezinez **ito** zen umeari. Iñaki Segurola

Txerri-taldea ezpondan behera aintzirara amildu zen eta **ito**. Elizen arteko biblia

Ez nintzela gai lepotik heldu eta **ito** arte estutzeko. Ramon Saizarbitoria

San Blas, **ito** arte arnas. Pello Zabala

Ez zen, ikerketak gorabehera, **ito** egin zen ala ito egin zuten jakin. Felipe Juaristi

**Itotzeko** zorian egon zen behin Venezian. Jon Muñoz

**2** *hed/irud*

Denbora gehiegi edan gabe egonez gero, **ito** egiten naiz. Jose Morales

**Ito** arte edan behar izan zian elefantiasiak jota ez hiltzeko. Lopez de Arana

**Ito** ez zarenean halako zerrenda luzea ahoskatzean! Javi Cillero

**Ito** egiten zen hostaila azkengabe haren azpian. Karlos Zabala

San Blas, doministikuka **ito** behar naz! Pello Zabala

Lanpeturik, **ito** antzean pixka bat, baina gaizki ez. Oskar Arana

Ezin gintezkeela beti bizi nazkaren uretan **ito**-ez-**ito** nekagarri horretan. Karlos Linazasoro

· Azken hitza eztarrian **ito** zait: hori aurkitzeko baldin bazen, hobe nuen isiltzea. Monika Etxebarria

Handikien ahotsa **ito** egiten zen, mihia ahosabaiari erantsita geratzen. Elizen arteko biblia

Ez da batere harritzekoa, beraz, egoera horretan, hazkundea berehala **ito** izana: %4,5 zen 1990ean, eta %0,7 1993an. Koro Navarro

• **3** du *ad* norbaitek beste norbait, arnasa hartzea eragotzirik -lepoa estuturik edo- hil. ik**itoarazi.**

Uste dut denoi ere jaulier oilartu ziniko hura lepotik heldu eta bertan **itotzeko** gogoak eman zigula. Koldo Izagirre

Bi egun geroago, andre noblearen neskatoa **ito** zuten Arga ibaian. Aingeru Epaltza

Lepoa bihurrituko zien, **ito** egingo zituen. Anjel Lertxundi

Aurpegi gainean bigungarri bat ipini eta **ito** egin zuen. Gotzon Garate

Baserriko beste zakurrarekin elkartu eta biok antxumea **ito** zuten. Gotzon Garate

Eritegia utzi eta gizonak lepotik heldu eta **ito** egin nahi izan zuen. Gotzon Garate

Beltz batek zerbait izugarria egina zion eta gero, **ito** egin zuen... Lopez de Arana

Borrokan egin zuten pixka batean, ileetatik tiraka, elkar **ito** nahian. Karlos Zabala

· Hurrengo goizean, ordea, hilik aurkitu zuten musikaria bere gelan, biolin hari batez **itoa,** leiho txikiko burdinsaretik zintzilik. Felipe Juaristi

**4** *hed/irud (norbait)*

Kartzelako giroak **ito** egiten nau. Sonia Gonzalez

Egarriak **itotzen** bainengoen. Koro Navarro

Mozkorzale ezdeus bat, bizian deus onik egin ez zuena eta, emeki-emeki, bere burua alkoholean **ito** zuena. Elena Touyarou

Uste nuen haserreak **ito** behar zuela eta joko ninduela. Marzel Etxehandi

Tristura itzelak **ito** ninduen luzaroan. Txillardegi

Madarikazio bat **ito** nuen hortzartean. Aingeru Epaltza

Bere ugazaba beldurtua guztiz epiteto itsusizko olde batean **ito** ondoren, ustekabean zetorkion etorkinaren kontra isuri zuen bere haserrea. Josu Zabaleta

Hemen gelditu zen beilari bat, leher egina eta egarriak **itoa**. Piarres Aintziart

Zorrez **itoak** zirela eta, sekula ez zutela hainbeste lan egin eta... Daniel Landart

Gero eta lanean **itoago** ikusten dut. Txillardegi

Lan horiek guztiak irentsi behar dituelako dago emakumea **ito**-larrituta. Joxerra Garzia

**5** *hed/irud (zerbait)*

Portomarin hiri ohia, Miño ibaiaren urek, urtegi bilakaturik, **itoa** dute. Piarres Aintziart

Sasiek, haztean, **ito** egin zuten hazia eta ez zuen fruiturik eman. Elizen arteko biblia

Bere bi titiek **ito** nahirik bezala estutu zuten nire txilibitua. Juan Martin Elexpuru

Haiek bai harmaila malkartsuak, zabaleraz eta goieraz juxtu behar lukeenaren alderantziz eginak, edonori arnasa **itotzeko** ere. Joxe Austin Arrieta

**Ito** nuen, bada, kontzientziaren boz hertsatzaile baina sumaezina. Matías Múgica

Barrengo harra **ito** nahian zebilela. Karlos Zabala

Amak aurpegira eraman zituen eskuak, oihu bat **itotzeko**. Juan Kruz Igerabide

Barrea **ito** ezinik. Iñaki Mendiguren

Negar zotinak aurpegia eskuekin estaliz **ito** nahi lituzke. Edorta Jimenez

Sen atabikoak tabernara gidatu ninduen, penak Coca-Colatan **ito** nitzan. Joxean Sagaztizabal

Haren adeitasunak usu **itotzen** zuen haren amodioa. Jon Muñoz

Maitasuna eta bizia **itotzen** duten hainbat arau. Luis Elberdin

Arrazoimena asmakeria eta itxurapenen azpian **ito** ez dezaten. Ibon Uribarri

Beren zuzengabekeriaz egia **ito** egin dutelako. Elizen arteko biblia

Oihuka laguntza eskatzen badut ere, **ito** egiten du nire erregua. Elizen arteko biblia

Industria pribatuari mozala ipini zion eta jende anitzen ekimenak **ito**. Gotzon Garate

## 6 (era burutua izenondo gisa)

Lurrean hobiratzea bezalakorik ez dago marinel **itoarentzat**. Bizia itzuli baitzion lekaide **ito** bati. Pako Aristi

Berehala berriro hondoratzen diren gorputz **itoak** bailiren. Jon Alonso

Hementxe dago, mela-mela, katu **ito** baten gisa nire oinetara makurtua. Joxe Austin Arrieta

Gero giza ahots batek, ahots **ito** batek, galdetu zuen: [...]. Josu Zabaleta

Giro **itoa** zen zuzendariordearen bulegoan. Aingeru Epaltza

Liburu-dendako mugarte **itoan** jaten genituen gure sandwichak eta edaten gure kafe izoztuak. Oskar Arana

Garrasi **ito** baten oihartzuna. Iñaki Mendiguren

Hots mehe **itoa** zen, ikarak arima hartu duenean sakonenetik irteten dena. Koro Navarro

Xotin **ito** batzuen artean xifrituriko irribarre bat zen haren mintzabidea. Joxan Elosegi

Mastetan behera baldan-baldan erortzen uzten zituen haizetxo bigun **ito** batek. Josu Zabaleta

Gaixoak gelaxka **ito** batean lo egiten du orain. Karlos Zabala

Irundik gora Erlaitz gaina, Euskal Herriko aldapa **itoenetakoa**. Berria - Kirola

## 7 (era burutua izen gisa) ito den pertsona. ik **itotako 3.**

East River ibaiak bere **ito** guztiak paseora ateratzen ditu, baina paseoa urpean da gaur, urpean da desfilea. Harkaitz Cano

Morillons inguruan atera duten **ito** bat begiratzera noa. Josu Zabaleta

Iruditzen zitzaidan heriotza emandako haiek guztiak, lepoa moztutako haiek guztiak, pozoitu haiek guztiak, urkatu haiek, **ito** haiek, saldo beldurgarrian, botoa ematen duten herritarrak bezala zetozela, gizarteari esatera: [...]. Josu Zabaleta

Bera zen **itoak** sekula gehiago ur azalera ez azaltzeko moduan non eta nola bota behar izaten diren zekien bakarra. Harkaitz Cano

-Heriotza itsusia da **itoarena** -erraten zigun halakoetan, adoretu nahirik. Aingeru Epaltza

Horra, ordea, biak, igerilaria eta **itoa,** fantasmazko agindu bila. Josu Zabaleta

## 8 ***itoan*** ik beherago **15.**

Eta usoak, kontra egiten ahalegintzen ziren, **itoan,** kutxen hondoetara itzultzen zituen bitartean, begiak zuri, bortxaz irentsitako elikagai hark mozkorturik. Karlos Zabala

Ezin zaio bildotsari, ia **itoan** daukan otsoagatik, "otsoa ere hemengoa da" esan. Iñaki Segurola

Orduan, Florentek, ia **itoan,** aski ikusi zuela adierazi zuen, ulertu zuela. Karlos Zabala

· Erdi **itoan** nengoen, hotzak gogorturik, azazkalak odoletan. Aingeru Epaltza

Oso gaixorik eraman dute: erdi **itoan,** burua galduta. Xabier Etxabe

## 9 ***itoenean*** (-en edo -ko atzikien eskuinean)

Goizean, lanaren **itoenean,** neska gaztea sukaldera etorri eta bien eskuek topo egiten zuten haragi xehatuaren erdian. Karlos Zabala

Eta nire laztura areagotzeko, inoizko **itoenean:** [...]. Koldo Izagirre

## 10 ***barrez ito***

Barrez **ito** zirela nire kontura. Iban Zaldua

**Barrez ito** behar zuen dukesak Santxoren esanak entzunda. Patxi Ezkiaga

Nik uste nuen bertan **ito** behar zuela barrez. Joxan Elosegi

Barrearen barrez **ito** gintuan ia, baina, ligatzeari dagokionez, lehen bezalatsu. Xabier Mendiguren Elizegi

Soina aurrera eta atzera zerabilen, **barrez itota**. Lopez de Arana

Bere bizkar ari ziren barrez, **barrez itotzen,** barrez leher gaizto egiten, bere amorru ezinduaren bizkar. Anton Garikano

Hura **barrez ito** beharra... Jesus Mari Mendizabal

## 11 *ito behar* ik **itobehar.**

## 12 ***ito beharrean*** *(orobat* ***itobeharrean*** *g.er.)*

Harakinen karrikan, gizon bat **ito** beharrean ari ziren soldaduak, lepoa uhalez inguratu eta tiraka, bere diruen altxatokia erran ziezaien. Aingeru Epaltza

Diru pixka bat zor zion zerbitzu-lagun batekin egin zuen topo eta, lepotik heldurik eta **ito** beharrean, esaten zion: "emadak zor duana". Elizen arteko biblia

· Eztulka hasi zen **itobeharrean**. Anjel Lertxundi

Hau kiskali beharra; **ito** beharrean gaude, eta egiten duen bero sapa honekin oinez joan behar alde guztietara. Josu Zabaleta

Emakumeak barre egiten zuen beti, **ito** beharrean, aitak kilimak egiten zizkionean. Juan Kruz Igerabide

Belauniko erori nintzen, **ito** beharrean, zotinka, arnasestuka. Josu Zabaleta

**Ito** beharrean hitz egin zuen, birikek arnasa hartzea galaraziko baliote bezain hats-bahiturik. Anjel Lertxundi

Zalantzaz **ito** beharrean zebilen, zer egin ez zekiela: ikusitakoa azaldu ala isilik gorde. Askoren artean

Aitak abandonatu gintuenetik **ito** beharrean ibiltzen da beti, korri hona eta korri hara. Patxi Iturritegi

Strogoffen hitz erdi bat entzun orduko barrez **ito beharrean** jartzen baitzen. Pello Lizarralde

· Burua lehertu eta birikak **ito beharrean,** oka egin nuen. Anjel Lertxundi

Bihotza **ito** beharrean zebilkidan taupadaka. Josu Zabaleta

## 13 ***ito beharrez*** *(orobat* ***itobeharrez****)* ito beharrean.

Dobbyk hots bitxi bat egin zuen **ito** beharrez eta gero burua paretaren kontra jo zuen eroa bezala. Iñaki Mendiguren

Izadia arnasa hartu ezinik zegoen, antza, **ito** beharrez ia. Karlos Zabala

Arnasa hartzen saiatuz, Malfoyk Harryren belaunetara zuzendu zuen bere makila magikoa, eta "Tarantallegra!" esan zuen **itobeharrez**. Iñaki Mendiguren

## 14 ***ito eginda***

Hantxe bertan, harkaitzen kontra jota, edo uretan **ito** eginda, hil zitezen denak. Felipe Juaristi

## 15 ***ito-itoan*** ik gorago **8.**

Hona! -garrasi egin zuen Karlosek **ito**-itoan. Koro Navarro

Hona! -garrasi egin zuen Karlosek ito-**itoan**. Koro Navarro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahots ito** (5); **artean ito** (4); **baina ito** (8); **barrez ito** (6); **barruan ito** (3); **bat ito** (23); **bat ito da** (3); **bat ito du** (3); **bat ito egin** (4); **bat ito zen** (4); **bat ito zuen** (3); **batean ito** (8); **batek ito** (4); **bertan ito** (9); **bertan ito zen** (3); **da ito** (3); **du ito** (3); **emakume bat ito** (3); **erabat ito** (3); **ere ito** (8); **erori eta ito** (4); **eta bertan ito** (3); **eta ia ito** (3); **eta ito** (47); **eta ito beharrean** (5); **eta ito egin** (11); **eta ito egingo** (4); **eta ito egiten** (4); **euskaltegiak ez ito** (5); **ez ito** (8); **garrasi ito** (3); **gizon bat ito** (6); **guztiak ito** (4); **han ito** (3); **hantxe ito** (3); **harra ito** (3); **heldu eta ito** (4); **hots ito** (3); **ia ito** (10); **ibaian ito** (3)

**ito arte** (12); **ito aurretik** (4); **ito bat** (20); **ito batek** (3); **ito batekin** (3); **ito baten** (3); **ito behar** (33); **ito behar izan** (4); **ito behar nuela** (3); **ito behar zuela** (4); **ito behar zuen**

(3); **ito beharra** (6); **ito beharrean** (42); **ito beharrean zegoen** (3); **ito beharrez** (4); **ito da** (11); **ito dira** (5); **ito du** (8); **ito edo** (6); **ito egin** (73); **ito egin behar** (6); **ito egin da** (6); **ito egin nahi** (5); **ito egin nintzen** (4); **ito egin zen** (15); **ito egin ziren** (4); **ito egin zuen** (8); **ito egin zuten** (8); **ito egingo** (26); **ito egingo haiz** (3); **ito egingo naiz** (3); **ito egiten** (65); **ito egiten da** (5); **ito egiten ditu** (4); **ito egiten du** (5); **ito egiten dute** (3); **ito egiten naiz** (5); **ito egiten nau** (4); **ito egiten nintzen** (3); **ito egiten zen** (5); **ito egiten ziren** (4); **ito ere** (6); **ito eta** (21); **ito eta galdu** (3); **ito ez** (15); **ito ezinik** (3); **ito gara** (3); **ito izana** (3); **ito liteke** (3); **ito nahi** (28); **ito nahi izan** (7); **ito nahian** (8); **ito nintzen** (3); **ito nuen** (4); **ito ondoren** (3); **ito zela** (6); **ito zen** (29); **ito ziren** (15); **ito zituen** (7); **ito zituzten** (3); **ito zuen** (22); **ito zuten** (10)

**ahots itoaz** (7); **artean itoa** (4); **erdi itoan** (4); **erritmo itoa** (3); **eta itoa** (8); **eta itoak** (3); **gero eta itoago** (3); **ia itoan** (7); **itoa da** (4); **itoa dela** (3); **itoa eta** (7); **itoa izanen** (3); **itoa izanen dela** (3); **itoak dira** (3); **itoak eta** (3); **itoak ziren** (3); **itoen artean** (3); **itsasoan ito** (4); **jausi eta ito** (3); **oihu ito** (6); **oihu ito bat** (5); **oro ito** (3); **sehaskan ito** (3); **uretan ito** (3); **zorrez itoa** (5); **zorrez itoa dela** (3)

**itoko dira** (3); **itoko ez** (4); **itoko naiz** (3)

**artean itota** (4); **bat itota** (6); **bat itota hil** (3); **batean itota** (4); **da itota** (3); **dira itota** (4); **egarriak itota** (4); **erdi itota** (9); **erori eta itota** (3); **eta itota** (8); **gizona itota** (3); **hil da itota** (3); **hil dira itota** (4); **ibaian itota** (4); **itota agertu** (7); **itota agertu da** (3); **itota bizi** (8); **itota dago** (5); **itota eta** (5); **itota hil** (30); **itota hil zela** (5); **itota hil zen** (6); **itota hil ziren** (4); **itota hilko** (3); **itota hiltzen** (4); **itota ikusten** (4); **itota sentitzen** (3); **itotakoen gorpuak** (5); **itotakoen gorpuak uretara** (3); **keak itota** (4); **uretan itota** (3)

**arnasa itotzeko** (3); **bat itotzeko** (3); **bertan itotzeko** (4); **eta itotzeko** (8); **ez itotzeko** (14); **hartan itotzeko** (3); **itotzea da** (3); **itotzeko arriskuan** (7); **itotzeko asmoarekin** (3); **itotzeko moduan** (3); **itotzeko zorian** (21); **itotzeko zorian egon** (5); **itotzeko zorian zegoen** (3); **oro itotzea** (3)

**artean itotzen** (3); **aurkaria itotzen** (4); **bat itotzen** (3); **batean itotzen** (4); **bere burua itotzen** (4); **burua itotzen** (4); **egarriak itotzen** (6); **erdian itotzen** (3); **erdian itotzen ari** (3); **eta aurkaria itotzen** (3); **eta itotzen** (18); **itotzen ari** (46); **itotzen ari naiz** (3); **itotzen ari nintzen** (3); **itotzen ari zela** (5); **itotzen ari zen** (10); **itotzen da** (5); **itotzen du** (6); **itotzen duela** (4); **itotzen duen** (3); **itotzen duten** (4); **itotzen eta** (3); **itotzen ez** (3); **itotzen gaituen** (3); **itotzen hasi** (5); **itotzen hasi zen** (3); **itotzen nau** (3); **itotzen nauen** (3); **itotzen ninduen** (4); **itotzen ninduten** (3); **itotzen saiatu** (7); **itotzen saiatuko** (4); **itotzen saiatuko da** (3); **itotzen zen** (6); **itotzen ziren** (3); **itotzen zituen** (3); **itotzen zituzten** (3); **itotzen zuen** (14); **jokoa itotzen** (3); **jokoa itotzen saiatuko** (3); **zapaltzen eta itotzen** (3)

---

# **itoaldi** *iz* itotzea.

Beste askok kontrolik gabe jatea dute larritasuna eta **itoaldia** gainditzeko modua. Berria - Harian

Haurraren deserosotasun edo **itoaldi** horretan pizten da gizakiok definitzen gaituen existentziaren sentimendu tragikoa, eta **itoaldi** hori bera da espirituaren salbaziorako hiru bide posibleetatik [...] batera hurbiltzen gaituen sentimendua. Berria - Kultura

Valentziak gora egin zuen eta Osasunak zortzi-hamar minutuko **itoaldia** jasan zuen. Berria - Kirola

Hamasek Israel onartu eta terrorismoa utzi behar omen du, hango herritarrak **itoaldi** ekonomikotik irteteko. Berria - Mundua

**Itoaldi** mikatz bat. Hasier Etxeberria

---

# **itoarazi**, itoarazi, itoarazten du *ad* ito, itotzera behartu.

Heriotzera zigortutakoak uretan **itoarazi** edo hil ondoan uretara botatzea. Patziku Perurena

Gogoan dut haurra nintzenerako ere horrelaxe maite nituela katuak, nire eskutxoetan **itoarazteko** bat-bateko gogo horiekin. Josu Zabaleta

Zomorro-samalda jaisten zaizu kortina lizunetik behera: nik uretan **itoarazi** nituela uste, baina handik pixka batera berriro azaldu zitzaizkidan hustubidean gora. Joxe Austin Arrieta

Baina ikusi egin zenuen ibaian itota, **itoarazita,** besoa bihurrituta, enbor ustela bezala urazalean jirabueltaka. Hasier Etxeberria

Plost iraunarazi nahiko baligu bezala, gero bertan behera zurrupatzeko eta **itoarazteko**. Mirentxu Larrañaga

Gero, zinkurin sakon bat **itoarazi** ondoan, argia itzali eta ohean sartu zen. Lopez de Arana

Oihu bat **itoarazi** behar izan dut. Iban Zaldua

Eta haserrea zen **itoarazi** nahi nuena, ez soilik atsekabea. Mirentxu Larrañaga

Halakoetan inoiz baino gehiago edaten dut, nire atsekabeak **itoarazteko**. Mirentxu Larrañaga

Begi itsasoak ziren, gertatutakoa oroimenaren uretan **itoarazi** zutenak. Felipe Juaristi

Kilometro batzuk ihesean egin zituen Barakaldokoak, baina Lampre eta Rabobank taldekoen ekimenak ihesaldi denak **itoarazi** zituen. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat itoarazi** (4); **itoarazi nahi** (3); **itoarazi zuen** (3); **uretan itoarazi** (4)

---

# **itobehar** *(orobat* ***ito(-)behar****)* *iz* arnasa hartzeko eragozpen handia.

Erretasun gero eta ezagunago bat hesteetatik gorantz, **itobehar** bat aurpegiraino, zeure burkideen zabarkeria ezin mesprezatuaren amorrua. Koldo Izagirre

Udako gau izartsua genuen, [...] paseatzeko apropossa, egun argiko **ito**-beharra ahantzaraztera etorritako haixe mehe baten kulunkan. Aingeru Epaltza

Ametsa ote bularreko oinazearena, eta ondoriozko **ito**-beharra? Txillardegi

Irtenbide txiki bat frankismoaren **ito** behar hartan bere seme-alabentzat. Joxerra Garzia

Alprojari sos bat eman dion lukurreroa **ito**-behar handiagoan dago. Koldo Izagirre

Sobera dago esatea, **itobeharren** ondorioz, izua ez ezik herioa ere zabaldu zela hiri osoan zehar. tabakoaren keak eta koktelek sortarazitako **itobeharraren** eta solasaldi gogaikarriaren ondoren. Josetxo Azkona

---

# **itodura** *iz* itomena,

Amaia! -atera zitzaion Agustinari **itodura** handiz, ahotsa kordokaturik, bere ahizparengana arin-arin joan bitartean. Aitor Arana

---

# **itogarri** *izond* itolarria sentiarazten duena. ik **itotzaile**.

Atera egin behar nuen zulo **itogarri** hartatik. Alberto Ladron Arana

Soto ilun **itogarri** hartan. Alberto Ladron Arana

Gelako giro **itogarrian**. Lopez de Arana

Bagoi **itogarrietan** pilatuta. Imanol Zurutuza

Bizi diren gizarte itxiak, familiako giro **itogarri** eta etsigarriak eragiten dizkie emakumeei horrelako gaiztakeriak. Gotzon Garate

Sufre usain **itogarri** batek bete zuen airea. Karlos Zabala

Petrolioaren kirats **itogarria** eta zaldien simaurra gorabehera. erdararen hemengotasun **itogarria**. Mirentxu Larrañaga

Bi kultura edo gehiago elkarren artean liskarrean hastean sortzen diren gatazka **itogarri** eta hondagarriekin alderatuz. Iñaki Mendiguren

Naturaren joritasun **itogarriaren** aurrean, araztasunik aratzena eta sinpletasunik erabatekoena bilatu nitian. Jon Muñoz

Izara, manta eta edredoiaren pisua **itogarria** da. Sonia Gonzalez

Izua torloju **itogarria** da, begirada lausotzen duena. Karlos Linazasoro

Hezetasuna ukigarria zen ia, **itogarria**. Alberto Ladron Arana

Uda hura **itogarria** izan zen. Josu Zabaleta

Altzariei distira darie, gelaren garbitasuna **itogarria** da. Oskar Arana

Gero eta **itogarriagoa** zen gobernu kolonialaren zerga-sistema. Anjel Lertxundi

**Itogarria** zitzaidan inguruko isiltasuna. Aingeru Epaltza

Abuztu erdiko bero **itogarriko** arratsalde batean. Oskar Arana

Eguzki **itogarriaren** azpian nagi eta busti luze-luze eginda. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bero itogarri** (5); **bero itogarria** (12); **bero itogarria egiten** (3); **bero itogarriak** (5); **bero sapa itogarria** (3); **beroa itogarria** (3); **beroa itogarria zen** (3); **besarkada itogarri** (3); **bezain itogarria** (3); **defentsa itogarria** (9); **egoera itogarri** (3); **ere itogarria** (3); **eta itogarri** (7); **eta itogarria** (5); **eta itogarriagoa** (4); **gero eta itogarriagoa** (3); **giro itogarri** (5); **giro itogarria** (9); **giro itogarriak** (3); **giro itogarrian** (3); **giro itogarritik** (5); **giroa itogarria** (3); **itogarri bat** (7); **itogarri batean** (3); **itogarri batek** (6); **itogarri bihurtzen** (3); **itogarri eta** (5); **itogarri hartan** (11); **itogarri hartatik** (5); **itogarri samarra** (3); **itogarria da** (10); **itogarria egin** (8); **itogarria egiten** (10); **itogarria egiten zuen** (3); **itogarria eta** (4); **itogarria izan** (6); **itogarria zen** (12); **presentzia itogarria** (4); **presio itogarria** (5); **sapa itogarria** (3)

---

## itogarritasun *iz* itogarria denaren nolakotasuna.

Gidoiak eskatzen duen **itogarritasunezko** eta eromenezko gero eta inpresio kargatuago bat eragiteko. Josu Zabaleta

**Itogarritasun** hura, ordea, bestelakoa zen, jertse berdearen atzean ezkutatzen zen misterioa arnastu ezean itoko balitz bezala, Aritz Gorrotxategi

---

## itogin *(57 agerraldi, 22 liburu eta 9 artikulutan; orobat* **itokin** *6 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* ura tantaka erortzen den sabaia edo teilatuaren gunea; tantaka erortzen den ur hori bera. ik **itaxur**.

Teilatuak **itoginak** ditu. Harkaitz Cano

Ukuiluan ekaitzaldi bakoitzean **itoginak** izaten ziren, goitik, lastategitik irazten baitzen ura. Juan Garzia

Putzu bat zegoen lurrean, elizak **itokinak** zeuzkan seinale. Aitor Arana

**Itogina** ondo itsutzen ez bada, beti berritzen da istila. Anjel Lertxundi

Gelaren izkina batean, beste **itogin** baten zarata entzuten zen. Juan Kruz Igerabide

Erabat aldatuko du orain duen sabai zaharkitu, zulatu eta **itoginez** betea. Berria - Kirola

**Itoginez** jositako aterpe batetik bestera. Xabier Paya

**Itokin** eskerga zeukan ziega ziztrin batean, kopetan jo zidan ur tanta lekuko. Javi Cillero

Gora, sabaira joan zitzaizkion begiak, bat-batean, **itogina** egon behar zuen lekura. Joxemari Urteaga

Gure neskato bikain, kementsu eta trufaria **itogina** bera baino gogaikarriagoa bihurtu zen. Oskar Arana

Betiko **itoginak** harria zulatzen duela diote. Xabier Amuriza

**2** *irud*

Nahiago dute itsuak izan sistema zaharrari egiten ari zaizkion pitzadura, zirrikitu eta **itoginen** aurrean. Anjel Lertxundi

Hau ere itunaren **itogina** da, bertan ez dagoelako mugaz gaindiko lankidetzaren onarpen juridikorik. Berria - Euskal Herria

Arranguraren **itoginak**. Jokin Urain

Hitz jarioa ideien **itokinetatik** sortu ohi da sarri. Joxerra Garzia

---

## itogune *iz* itotzeko gunea.

Lehen sektorearen egoera latza, nekazarien **itogune** ekonomikoa eta administrazioaren parte hatze urria salatu zituen Karrerak. Berria - Ekonomia

---

## itoitz *iz* euri ura.

Plaza inguru huntako ur higatuak eta **itoitzak** (euri urak) biltzea denak beheraxago ordokian moldatuak izan diren haska horietara. Herria

Horrat bilduko dira alabaina, Moulin Barbot auzo guneko **itoitzak** edo euri urak. Herria

Galde zenbait ere abiatu dira, **itoitz** uren hodieriak aski handiak ezarriak ote diren, eta egoitza kolektiboak behar bezainbeste gerizatuak diren horrelako uhasteen kasuan. Herria

Hiru urte barne ur higatu eta **itoitzen** ixurpena behar dugula pikoan eman. Herria

---

## itoiztar *izlag* Itoizkoa, Itoitzi dagokiona; Itoizko herritarra.

**Itoiztar** anaiek uste baino gehiagokoak aurkitu ote dituzte uztariztarra eta saratarra? Herria

Berehala erraiteko, beren joko xuxen eta bortitza erakutsi dute makear-lekondarrek hastetik, batere xantzarik ez uzteko gisan **Itoiztarreri**. Herria

---

## itoka **1** *adlag* arrapaladan; itotzeko zorian.

Egun osoan **itoka** lanean arizan ondoan. Eneko Bidegain

Gosea engainatu nuen **itoka** janez ostatu triste batean. Piarres Aintziart

Aho itxia eskuz bermatzen nuela kanporatu nintzen, **itoka**. Aingeru Epaltza

Itsurik, **itoka,** durundia belarrietan, urdaila estu-estu ikusitako guztiarengatik. Karlos Zabala

Txelu bai, ordea, zauriturik; ene ondoan erori da odoletan eta **itoka** antza. Pozez negar **itoka** hasi zen. Txillardegi

**2** *irud*

Aldiro eztulka eta **itoka** hasten den abioneta horietakoa izango da. Joseba Sarrionandia

**3** (izen gisa)

Halere ez lehenagoko finala haundien **itoka** hura eta jendea ez hain gaztea oro har, bainan ederki hola. Herria

---

## itokarrean *adlag* itotzeko zorian.

Bai erori ez erori zebilen galtzadan botata zeuden azal eta zurtoinen geruza lodian irristaka, **itokarrean** zegoen, hosto zapalduen usain sarkorra zela eta. Karlos Zabala

Poztu egin naiz **itokarrean** banauka ere sudurretara itsasten zaidan plastiko honek. Koldo Izagirre

Ezin didate erantzun, barre egiten baitute **itokarrean**. Koldo Izagirre

---

## **itoketa** *iz* itotzea.

Borreroak **itoketa** hasten duelarik, zure gorputz osoa bihurritua ageri da, buruak atzeraka egiten duela, begiak itxita. Koldo Izagirre

Euskal karlismo gogorraren **itoketa,** dena dela, lehenagotik prestatu zen Madrilen. Txillardegi

---

## itokin ik **itogin**.

---

## **itolarri** 1 *iz* itotze sentipen larria. ik **itobehar**.

Ez dut inoiz idunekorik jantzi orain arte eta **itolarria** eragiten dit. Mirentxu Larrañaga

**Itolarria** sentitu duzu, atzamar bat lepoaren ingurua tinko estutuz, bulego horretatik alde egin beharra. Eider Rodriguez

Poltsa buruan jarri eta lepoan estututa **itolarria** eragin ziotela. Berria - Euskal Herria

Butanol isuria izan zen, eta arnasketa arazoak, zorabioak eta **itolarria** eragin zuen auzokideen artean. Berria - Euskal Herria

Halako batean, zerbait ahaztu zuelako usteak **itolarria** eragin zion. Lopez de Arana

Aztarrika dabilzkit hatzak lurrean, eroen moduan atzaparka, baina **itolarria** sartu zait. Mirentxu Larrañaga

Sekulako **itolarria** sentitzen zuen, eta neskaren birikek eztarritik irten nahi zutela zirudien. Anjel Lertxundi

Kalamuaren TCH sustantziak bronkodilatazioa areagotzen du; hala, asma eta horrek dakarren **itolarria** arintzen ditu. Berria - Harian

**Itolarririk** edo osteoporosis arazorik ez duten 50 eta 60 urte arteko emakumeek ez lukete hormonarik hartu beharko. Berria - Gaiak

Aroa beroa zen; **itolarria** autobusaren barnean. Berria - Harian

"Hau **itolarria!",** pentsatu nuen. Bernardo Atxaga

Kulpabilitatez, **itolarriz,** gogorazen zara Luisez, norbaiti zerbait zor bazenio bezala. Lourdes Oñederra

**Itolarriko** hiria Bonbai. Gotzon Garate

Gaztelu isil hark **itolarrizko** sentipen pisu bat eragiten zidan. Alberto Ladron Arana

**2** *irud*

Ez dakit nola egin genuen topo biok behe-ur hartan, korrontearen **itolarri** geldoa orkatiletan sentitzen genuela. Jon Alonso

Hona non diru aldetik **itolarrian** kasik aurkitzen den helduen euskalduntze elkartea. Herria

Egunkariaren **itolarri** ekonomikoa. Berria - Euskal Herria

**3** (hitz elkartuetan)

Hauexek jasan baitzituzten, bete-betean, kearen erasoak eragindako lehen **itolarri**-kasuak. Josetxo Azkona

Haren ahotsean bada **itolarri**-zantzu bat. Oskar Arana

Graemetarren jauregia izan zitzaion babesleku, baina, egoitza dotore hura ere estua eta **itolarri**-eragilea bilakatu zitzaionean, Edinburgo hirira joaten hasi zen barrena pozoitzen zion atsekabetasunetik ihesi. J.M. Olaizola "Txiliku"

**4** ***itolarrian*** *adlag*

Eztulka ari naiz, goitika egiteko ahaleginean, **itolarrian**. Hor da, tente, besoak zabalik, estigmen zain balego bezala; ahoa irekia du, **itolarrian**. **Itolarrian** nintzen, izerdi hotz batek gorputz osoa hartu zidan, hildakoa bezain zurbil geratu nintzen eta ezin arnasa hartu. Edorta Jimenez

Eztulka ari naiz, goitika egiteko ahaleginean, **itolarrian**. Mirentxu Larrañaga

Hantxe nengoen ni, behiala ura horren maite izan nuen hau, han, [...], **itolarrian,** bihotza pilpira bizian, izu laborrian, ur hartatik nola irten asmatu ezinik. Joxan Elosegi

Hura Exkaluren nahasmena, **itolarriaren** eta mozkorraren artean, "Apolok ihes egin zidak", "segiok azkar" eta gisakoak heriosuharrean esaten zituela. Pako Aristi

Arrantzale tipiak **itolarrian** dira. Berria - Euskal Herria

Gobernuak, diru laguntzak murriztuta, ikerkuntza **«itolarrian»** utzi duela salatu dute ikertzaileek. Berria - Gaiak

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **estututa itolarria eragin** (3); **eta itolarria** (5); **itolarria eragin** (10); **itolarria eragiten** (4); **itolarria sentitu** (8); **itolarria sentitzen** (3)

---

## **itolarrika** *adlag* italarrian.

Askotan gertatu zen jana ahoan zuela **itolarrika** hastea, agian irensterakoan izango zen, eta behin, mastekatua zuen jana trabatu eta atera egin zitzaion dena eta mahaia eta platera eta zorua zikindu zituen Bego Montorio

---

## **itolarritasun** *iz* itolarria.

**Itolarritasun** puntu bat badauka, sentsazioa handik jalgi nahia eta hala ere jalgi ezina baita. Jose Angel Irigaray

---

## **itolarritu,** itolarri(tu), itolarritzen du *ad* itolarria eragin.

Neu naiz gertatzen ari dena edo naizena, neure buruaren betekadaz lehertzen naiz, neure arnasak **itolarritzen** nau eta mila izpitan xehatzen naiz, listen naiz, baina izpi eta lits horiek oro neure gorputzaren erdi-erdiko muinean biltzen dira atzera, indarka bezala. Iñaki Segurola

---

## **itomen** 1 *iz* itotzea; itobeharra.

Barreak eztula eragin zidan, eztulak **itomena,** Beroak eragindako **itomena** arintzeko. Anjel Lertxundi

Sabaia beheratu egin dela iruditu zaio, gelak **itomena** sortzen baitio. Anjel Lertxundi

Hamabigarren tronkoan **itomena** sentitu zuela, eta hortik aurrera ez zela ezertaz gogoratzen. Pako Aristi

Ez nuen jada bularrean lehenagoko **itomena** sentitzen. Ramon Saizarbitoria

**Itomen** hartan, goragalea irten zitzaion ahotik. Anjel Lertxundi

Birikak bildu zitzaizkion arnasa hartu beharraren **itomenez,** eta hitzik esan ezinik gelditu zen une batez. Anjel Lertxundi

Zoriona droga gogorra da gorputzarentzat, hasierako dosietara gorputza ohitu egiten da, eta hurrena gehiago behar du, eta hurrena askoz ere gehiago, hasiera batean hain modu atseginez liluratu gintuen zorion mailara iristeko, eta hor hasten da zorabioa, **itomena**. Pako Aristi

Goragalezko zorabio jarraitu batean, **itomenezko** indar ikaragarri batean. Karlos Zabala

**2** (testuinguru teknikoagoetan)

**Itomen** handia izaten dute H5N1 gaitzak jotako pertsonek. Berria - Gaiak

Batzuetan apoplexia edo **itomen** histerikoen kasuan gertatzen den bezala. Xabier Kintana

Antzinakoek "umetokiaren herste edo **itomena"** esaten ziotena da, Aristotelesek, Galenok eta Pliniok aipatua, eta "organo horren gaitza da, eta emakumeek horretan espasmo-mugimenduak sentitzen dituzte eta eztarrian bola bat (globus hystericus) bezalako bat nabari uste dute, itoarazten dituena". Xabier Kintana

**3** (hitz elkartuetan)

Neronek ere aditu ahal izan nuen Ximurraren **itomen** hotsa. Aingeru Epaltza

Eta hemengo kontuen eragina ere nabari da liburuan, **itomen** sentsazio bat: Euskaldunon Egunkaria-ren itxiera eta beste.

---

# itotako 1 *izlag* ito dena.

Ikusi egin nahi zenuen errekako putzuan **itotako** lagunaren eitea. Hasier Etxeberria

Uretan **itotako** lehen amuarraina, Senpe. Hasier Etxeberria

Uholdeetan **itotako** milaka abereen gorpuak. Berria - Mundua

Atxilotuta zeudela **itotako** 78 musulmanen kasua. Berria - Mundua

Funtzionarioak luma tintontzian berriz busti, tintan **itotako** euli bat harrapatu eta atera zuen. Matías Múgica

Nor arduratuko zen itsasoan **itotako** luxuzko emagaldu batez? Migel Angel Mintegi

Itsasoan **itotakoak**. Paddy Rekalde

Hainbat eta hainbat [...] urak eraman eta **itotakoak**. Pello Zabala

**2** *irud*

Biriketako arnasa faltaz **itotako** ahots eten ilaun batez hitz egin zuen Norak: [...]. Anjel Lertxundi

Eztarrian erdi **itotako** garrasi batzuk entzun ziren. Karlos Zabala

Baldar **itotako** irribarreak. Jon Muñoz

Naturaren gorazarrean **itotako** poesia zen harena. Pako Aristi

Pila haiek, ibai hura, perla koloreko itzal delikatuez hornitzen ziren, more bigunez, esnez moteldutako arrosez, horian **itotako** berdeez. Karlos Zabala

• **3** *iz* ito den pertsona. ik **ito 7**.

**Itotakoen** gorpuak uretara jaurtikitzen badira [...] seitik hamar egunerako bitartea behar izaten du gorpuak usteltzen hasi eta, usteltze horren ondorioz, ur azalera igotzeko. Koro Navarro

Hildako, **itotako,** galdutako asko izan zen. Anjel Lertxundi

Ezpainak ez ditu inolaz ere moreak, **itotako** bati legokiokeen bezala. Ramon Saizarbitoria

**Itotakoen** urteroko omenaldian. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itotakoen gorpuak** (5)

---

# itotasun *iz* itomena duenaren egoera.

**Itotasunetik** aterako da laugarren atalean, «nahiz eta munduak bere hartan jarraitzen duen». Atzamarrak poliki mugituz, ezkerreko botoiak ia sakatzeke, hauspoaren nekea entzuten genuela, arnasestuan baina **itotasunik** gabe. Berria - Kultura

---

# itoti *iz* itogina.

***Itoti*** *urdinaren azpian* obra idatzi du, «urruntasunari, nostalgiari eta mugagabetasunari buruzko poemak biltzen dituen lana», egilearen hitzetan. Berria - Kultura

Teilatuko hegatzetatik ari duen **itoti** soinu bakanak bestek ez du jotzen aiton iloben belarrietan. Patziku Perurena

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itoti urdinaren** (4); **itoti urdinaren azpian** (4)

---

# itotzaile 1 *izond* itotzen duena. ik **itogarri**.

Askotan **itotzaileak** ez dira otsoak, zakur basatiak baizik. Gotzon Garate

Gizonek, normalean, ageriko tiraniaren aurka hormarik sendoenak jartzen dituzte, baina ez dute ikusten zomorro nimiñoa, poliki-poliki horma janez, ibai **itotzaileari** bide isila bezain segurua zabaltzen diona. Juan Martin Elexpuru

Erdiko despotismoa desegin baitute, ankerragoa, segurtasun gutxiagokoa eta herri-gogoaren **itotzailea** zen despotismoa. Juan Martin Elexpuru

• **2** *iz* itotzen duen pertsona.

"The Poor Strangler" deitzen zioten, **"itotzaile** gaixoa edo estranguladore gaixoa". J.M. Olaizola "Txiliku"

Patinekin errazagoa lukek gaizkileengandik, **itotzaileengandik** eta lapurrengandik ihes egitea. Lopez de Arana

---

# itotze *iz* arnasa hartzea eragotzirik hiltzea.

Bi saio jasan nituen, **itotze** sentsazio larria sentitu nuen. Berria - Euskal Herria

Sakrifizioa kontatzen ziola Jessicari, hatsanka, amatxik zintzurra ferekatzen zuen, urkatze eta **itotze** ekintzak berak pairatzen bailituan. Itxaro Borda

Kontua da **itotze** estrategia horretan prozesua bera oxigenorik gabe uzteko arriskua dagoela. Berria - Euskal Herria

---

# itotzear *adlag* itotzeko zorian.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itotzear dagoen** (3)

---

# itotzeke *adlag* ito gabe.

Argia da bustitzen gaituena, izarren izerdiak bezala, gu sekula santan **itotzeke**. Felipe Juaristi

---

# itsas (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; orobat **itxas** g.er.; ik **itsaso 5.**)

Zuria zen, mendiko elurra, hego haizea, sua, itsasargia, ezkontza izarak, uso mezulariak, esnegaina, **itsas** aparra bezain zuria. Felipe Juaristi

Bibloseko artisau trebatuenak zenituen zeure **itsas** arotz. Elizen arteko biblia

Izan ere, lanak izan ditut nire txalupatxora igotzera bairatzeko bikotea, Desolaziotik bereizten gintuen tarte laburra, ehun bat **itsas** besabete, zeharkatu behar zela eta. Juan Garzia

Behean, betiko soinu errepikatuak, tabernetako usainak, **itsas** brisa, umeen oihuak. Fernando Morillo

Baionara iritsitakoan, bere iraganaz damutzeke, hala ere geroroko esperantza odolgabeaz fidaturik, **itsas** borrokak, **itsas** sarraskiak, **itsas** nahigabeak, **itsas** ibilerak oro uzteko ordua bazela iritzirik. Felipe Juaristi

Halako batean haizea aldatu eta iparretik hasi zen joka, goi-goitik eta lehen baino kementsuago, lehen baino gorroto handiagoz, **itsas**-gose balitz bezala, **itsas** sorotik jateko garia bildu nahiko balu bezala bere esku handiez. Felipe Juaristi

Inguru haiek estaltzen zituen hondar hodei eta **itsas** gandua zabalduxea egoteagatik, jakin zuen Almak ganbaratik erraz asko ikus zitekeela Westerborkeko patioa. Felipe Juaristi

Lotsa zaitez orain, Sidon, **itsas** gotorleku! Elizen arteko biblia

Lau hormak **itsas** harri zuriz eginak ziren. Felipe Juaristi

Adiskideok, ikusten nago **itsas** ibilaldi honek kalte eta galera handiak ekarriko dituela, ez karga eta untziarentzat bakarrik, bai eta guretzat ere. Elizen arteko biblia

Aleutiar uharteetako **itsas** igaraben [...] bizilekua da. Berria - Gaiak

Erran dizut nola Bretainiako kostan **itsas** istripu bat izan genuen, eta nola istripu hartan behatz bat galdu nuen. Joan Mari Irigoien

Euskal kostaldeko portuetan ugariak ziren itsasontzietako bat harturik, entzuna denez euskaldunak iaioak baitira **itsas** kontuetan, Londreserainoko bidea egingo zuten. Felipe Juaristi

Antonio ere, aita bezalaxe, **itsas** lanetan hasi zen. Joan Mari Irigoien

Ozeanoa edo **Itsas** Mamua ote naiz zaintzailea jar diezadazun? Elizen arteko biblia

Ez al zenuen zuk **itsas** munstroa txikitu eta herensugea sarraskitu? Elizen arteko biblia

Horrela, italiarrak itsas aurrean jotzen irakatsi zion Irisarriri, **itsas** musikaren gainetik biolin musika jartzen, **itsas** musikari berea nagusitzen. Felipe Juaristi

Egokiak ziren abeslarien arropa desberdinak, eta Basalduak jarritako **itxas**-nasako eszena minimala. Berria - Kultura

Eta beste hirurek onartu, irribarrez onartu, **itsas** oihuari aurre egiten zion irribarre laino eta sotilez. Felipe Juaristi

Zuk baretzen duzu **itsas** olatuen burrunba, zuk baretzen herrien zalaparta. Elizen arteko biblia

Gezi-uztaiez eta lantzaz armatuak datoz; ankerrak dira eta gupidagabeak; **itsas** orroa bezalako deiadarrez. Elizen arteko biblia

Nire bistatik **itsas** putzuan barrena galdu arren. Elizen arteko biblia

**Itsas** sakonera bota ninduzun, hondo-hondoraino: zurrunbiloak inguratu ninduen, zure uholde eta uhinek azpian hartu. Elizen arteko biblia

Saiatzen zela bere ahotsa **itsas** soinuaren gainetik altxatzen. Felipe Juaristi

Bere **itsas** urteetan ere buru baino bular gehiagorekin jokatu baitzuen beti. Felipe Juaristi

Kontua da Kilkennyren biolina Saltzen dendan azaldu zela, Sardiniako gatz-harriz landuriko biolin batzuen erdian, **itsas** usaina, itsas soinua jario. Felipe Juaristi

Zortzikoa berez amaitzera zihoanean, doinua leun, **itsas** zurrumurrua bezala atertzera zihoanean. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**cf. itsaso itsas abere** (4); **itsas adar** (3); **itsas ainarak** (3); **itsas aingira** (3); **itsas aingirak** (3); **itsas aintzira** (4); **itsas alde** (4); **itsas aldean** (10); **itsas aldera** (8); **itsas alderat** (4); **itsas aldetik** (21); **itsas aparra** (4); **itsas arazoetako** (3); **itsas argi** (6); **itsas argia** (6); **itsas arloko** (3); **itsas armada** (21); **itsas armadak** (14); **itsas armadako** (34); **itsas armadan** (7); **itsas armadaren** (11); **itsas arranoa** (3); **itsas aurrean** (5); **itsas aurreko** (4); **itsas azalaren** (3); **itsas azalean** (3); **itsas azpitik** (3); **itsas bazter** (25); **itsas bazterra** (8); **itsas bazterrak** (7); **itsas bazterraren** (4); **itsas bazterrean** (37); **itsas bazterreko** (19); **itsas bazterrera** (7); **itsas bazterretako** (3); **itsas bazterretan** (3); **itsas bazterretik** (7); **itsas begia** (19); **itsas bela** (3); **itsas belar** (13); **itsas belarra** (5); **itsas belarrak** (4); **itsas belarraren** (3); **itsas beltzak** (4); **itsas beltzeko** (5); **itsas bidaia** (20); **itsas borroka** (5)

**itsas erakundeak** (7); **itsas erakusketa** (5); **itsas erakustegi** (4); **itsas erakustegian** (3); **itsas erdian** (4); **itsas erditik** (3); **itsas eremu** (6); **itsas errimak** (7); **itsas ertz** (5); **itsas ertzean** (10); **itsas ertzeko** (6); **itsas eta** (5); **itsas foroak** (4); **itsas foroko** (3); **itsas gainean** (16); **itsas gaineko** (5); **itsas garraio** (5); **itsas garraioa** (4); **itsas geroa** (7); **itsas gizon** (27); **itsas gizona** (8); **itsas gizonak** (4); **itsas gizonen** (8); **itsas haize** (11); **itsas haizea** (3); **itsas haizeak** (8); **itsas haizearen** (5); **itsas haraindiko** (3); **itsas hegazti** (5); **itsas hegaztien** (3); **itsas hegi** (39); **itsas hegia** (17); **itsas hegian** (43); **itsas hegiko** (51); **itsas hegira** (4); **itsas hegiraino** (4); **itsas hegirat** (4); **itsas hegitik** (9); **itsas hegiz** (8); **itsas herri** (3); **itsas herriak** (4); **itsas hondarra** (9); **itsas hondoa** (14); **itsas hondoak** (3); **itsas hondoan** (9); **itsas hondoko** (7); **itsas hondora** (15); **itsas hondoraino** (3); **itsas hondotik** (7)

**itsas ibilaldi** (3); **itsas ikara** (15); **itsas ikarak** (3); **itsas inguruan** (3); **itsas ingurumenari** (3); **itsas izar** (5); **itsas kanta** (4); **itsas kantuak** (4); **itsas kapitain** (3); **itsas kirol** (3); **itsas kirolak** (5); **itsas kolpe** (6); **itsas komandantziako** (3); **itsas komandantziaren** (3); **itsas korronte** (3); **itsas kotsadura** (12); **itsas kurkuilua** (3); **itsas lamia** (6); **itsas lamiak** (7); **itsas lamiek** (3); **itsas lamien** (3); **itsas lapur** (8); **itsas lapurrak** (4); **itsas lapurrek** (3); **itsas lapurren** (6); **itsas lasterkari** (3); **itsas lautada** (3); **itsas lehiaketa** (6); **itsas lehorrak** (6); **itsas lehorretan** (5); **itsas lerra** (5); **itsas maila** (6); **itsas mailak** (4); **itsas mailaren** (6); **itsas mailatik** (5); **itsas margolan** (3); **itsas marraren** (3); **itsas mendi** (20); **itsas merkataritza** (3); **itsas milia** (14); **itsas miliara** (4); **itsas munstro** (3); **itsas munstroa** (4); **itsas museoa** (5); **itsas museoko** (3)

**itsas ofizial** (3); **itsas ondarea** (7); **itsas ondarearen** (3); **itsas ondoan** (4); **itsas ondoko** (11); **itsas ontzi** (4); **itsas ontziak** (3); **itsas ontzietan** (3); **itsas orro** (3); **itsas orroa** (10); **itsas pasealeku** (3); **itsas portu** (6); **itsas portua** (4); **itsas salbamenduko** (15); **itsas segurtasunari** (3); **itsas segurtasunerako** (3); **itsas soinua** (5); **itsas trikuaren** (3); **itsas txakur** (13); **itsas txakurrak** (5); **itsas txakurrek** (4); **itsas txakurren** (5); **itsas txori** (4); **itsas ugaztun** (3); **itsas ugaztunak** (3); **itsas ugaztunen** (4); **itsas uhin** (3); **itsas uhinak** (3); **itsas uhinei** (3); **itsas uhinen** (5); **itsas untzi** (28); **itsas untzia** (4); **itsas untzian** (3); **itsas untziaren** (3); **itsas untziz** (5); **itsas ura** (4); **itsas urak** (6); **itsas urde** (3); **itsas urek** (3); **itsas uretan** (3); **itsas usaina** (3); **itsas xori** (3); **itsas xoriak** (3); **itsas zabala** (4); **itsas zabalean** (20); **itsas zabaleko** (7); **itsas zabalera** (5); **itsas zakurren** (3); **itsas zaldi** (7); **itsas zolan** (3)

---

# itsas aho *iz* bokalea.

Atoiontzi bat ikusi zuen, itsasontzia **itsas** ahoraino eramatera etorria. Felipe Juaristi

Atoiontzi bat ikusi zuen, itsasontzia **itsas ahoraino** eramatera etorria. Felipe Juaristi

---

# itsas aingira *iz* aingiraren antzeko itsas arraina, ezkatarik ez duena *(Conger conger).*

**Itsas aingira,** kolore urdin lokaztuko suge lodi hori, begi txiki beltzak buruaren alde banatan, hain likatsua, ezen bizirik dagoela eta narrasean dabilela pentsarazten baitio ikusleari. Karlos Zabala

**Itsas aingirak,** xerrak markatzeko balio duen orratz beltzarekin ziztatuak. Karlos Zabala

Harik eta **itsas aingirak** ate aurrean lehortzen zeuzkan etxe txiro batera iritsi ginen arte. Edorta Jimenez

Gizon batek arkaitz zilo batetarik atera du, oren erdi bat segurik borrokatu ondoan, alimaleko **itsas-aingira,** mota hortako arrain guti ikusten baita hein hortakoa denik! pentsa, 38 kilo pisu, ez baita harritzeko holako arraina ezin menperatuz azkarki penatu behar izan bada ere gure gizona...! Herria

---

# itsas animalia *iz* itsasoan bizi den animalia.

Poloniatik zaldi-zezina eta chucruta; Norvegiatik izokina eta narbal **itsas** animaliaren adarra, hauts egina bera. Felipe Juaristi

**Itsas animaliak** ez dira, ordea, estresak jota dauden bakarrak. Berria - Gaiak

IMOk dioenez, atzerritik ekarritako **itsas animalia** eta landareen arazoa ez da berria, eta urtero handituz doa garraiatutako espezie kopurua. Berria - Gaiak

**Itsas animaliak** eta itsas landareak ikertzen direla laborategi horretan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

---

## itsas animaliatxo *iz* itsas animalia txikia.

Lehenengoz lehorreratu zirenean, ordu arte ezagutzen ez zuten arraza bateko **itsas animaliatxo** kaltegabeen itxura zuten. Iñaki Mendiguren

---

## itsas armada *(orobat **itsasarmada** g.er.)* *iz* estatu baten itsas indarren multzoa.

Britainia Handiko **itsas armadak** -*Royal Navy*k- marinel ugari behar zituen Frantziako iraultzaileen kontrako gerrarako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Veneziako **Itsas** Armadan marinel lanetatik bizi zirenek. Felipe Juaristi

Otomandar **itsas armadaren** lingua franca italiera [zen]. Iñaki Mendiguren

**Itsas armadako** soldadu ohia. Oskar Arana

Errusiako **Itsas Armadako** buruak. Berria - Mundua

Estatu Batuetako **itsas armadako** Pinkerton tenienteak. Imanol Zurutuza

**Itsas Armadaren** egoitza nagusia. Berria - Mundua

Donostiako **Itsas Armadako** Komandantziatik abiatuta. Berria - Euskal Herria

Frantziako **itsas armadak** Angelun duen eremuan. Herria

"Belle-Poule" frantses **itsas-armadako** untzi beladun famatua. Herria

Frantziako **Itsas Armadako** hegazkin bat. Berria - Mundua

Aitak etxetik bidali zuenean, **Itsas Armadako** akademian sartu zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Itsas Armadako** Ministerioan sartu zen funtzionario. Josu Zabaleta

Armada, **Itsas Armada** eta Aire Armadak osatzen dituzten Indar Armatuen zeregina. Pello Salaburu

Lur- eta **itsas armadako** urtekaria. Anton Garikano

---

## itsas arrain *iz* itsasoan bide den arraina.

Verlaque jaunak **itsas arrainen** saltokietara eraman zuen berriz Florent. Karlos Zabala

Ospakizun handietan ibai eta **itsas arrainak** kontsumituko ditugu; eguneroko dietan, berriz, artifizialki ekoitzitako arrain eta itsaskitik geroz eta gehiago. Edorta Agirre

· Jainkoak **itsas** arraintzarrak sortu zituen. Elizen arteko biblia

---

## itsas arrano *iz* arranoaren antzeko hegaztia, ur ertzean bizi dena *(Haliaetus albicilla).*

Hurrengo hauek, ordea, ezin izanen dituzue jan: arranoa, gabiraia, **itsas** arranoa, Hegaztien kaiolan txori bakar bat dago, **itsas arrano** gazte bat, hegal hautsia ohol batekin lotua daukana. Oskar Arana

**Itsas arrano** buztangorria: Zerrenda gorriak eta kontserbaziorako ahaleginek egoera aldatzeko ahalmena badutela erakusteko froga da, IUCN taldeak dioenez. Berria - Gaiak

---

## itsas azpi *(5 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean; orobat **itsaso azpi** 3 agerraldi, liburu 1 eta 2 artikulutan)* *iz* itsasoaren azpialdea. ik **itsaspe**.

**Itsas azpian** margotutako koadroak. Berria - Kultura

**Itsaso azpiko** lur geruzak aztertuz ulertu dute zientzialariek lehen zer gertatu zen, eta orain gerta daitekeena aurreikusi nahi dute iragan urrunari begira. Berria - Gaiak

Zuek **itsaso azpiko** sumendiak zarete enetzat; eta erre egiten nauzue, eta ito ere bai. Josetxo Azkona

**Itsas azpitik** irten eta hegan joan zen Ulisesen ondora, kaio baten antzera. aurreko bizialdiak ur-korronteak baitira edonorentzat, bizitzako **itsas azpitik** tiraka ari direnak. Juan Kruz Igerabide

Inor ez zen inorekin gelditzen hizketan, ihes egiten zioten denek elkarri, halako likintasun bat soinean, **itsas azpiraino** hondoratzen gaitu faxismoak. Koldo Izagirre

---

## itsas belar *(31 agerraldi, 11 liburu eta 4 artikulutan; orobat **itsasbelar** 6 agerraldi 5 liburutan)* **1** *iz* itsasoan hazten den alga.

Zernez harantzago itsasoa ez dela nabigagarria han hondo gutxikoa delako, limoz eta **itsas belarrez** betea. Iñaki Iñurrieta

Apar lehertuak plai ertzeko hondarrean lagatako **itsasbelar,** konpresa, plastiko eta lata hutsak, Neptunoren opari.Ura leporaino heldu zitzaidan, itsas leizeak inguratu ninduen, **itsas** belarrak buruan bildu zitzaizkidan. Xabier Mendiguren Elizegi

Aingura altxatzen ari ziren, **itsas belarrak** eta lapak nabaritzen ziren kate handian itsatsirik. Joseba Sarrionandia

Hezeak zeuden, eta **itsas belarren** usain freskoa zerien. Karlos Zabala

**Itsas-belar** biltzale horiek aste huntan badoatzi berriz itsasorat, zikin eta ondarkin biltzen artzeko. Herria

Arbola bakoitzak bazuen buruan, urrezko koroa bat bailitzan, **itsas-belar** sorta luze bat loretan! Josu Zabaleta

Orain arte adituek ezagutzen ez zituzten 12 **itsas belar** espezie. Berria - Gaiak

**2** *irud*

Ahizpatasuna uhartea zenez, mihiz eta ezpainez emaztearen bahiak oro milikatzekoak ziren, **itsas belar** malgu gazien sasiak errotik kendu ondoan, norberaren uhartearen bila, antsiaz lehertu errauts arin bilakatu aitzin. Itxaro Borda

---

## itsas bele *iz*

Belabeltza, uroiloa, **itsas belea**. Elizen arteko biblia

Hontza, **itsas belea**, ibisa. Elizen arteko biblia

---

Itsas Beltz ik **itsaso 2**.

---

## itsas dortoka *(corpusean **itsaso dortoka** soilik)*. Itsasoan bizi den dortoka.

**Itsaso**-dortokek hondartzetan erruten dituzte arrautzak. Berria - Gaiak

---

## itsas elefante *(orobat **itsaselefante**) iz* itsas txakurraren familiako ugaztuna, azala gris ilunekoa, zeinaren arrak mutur luzea baitu *(Mirounga* sp.).

Haragi gehiegirekin eta larru handiegiarekin aldi berean, **itsas elefantea** bezala. Monika Etxebarria

Eta **itsaselefanteak** ere ikusiko dira, izotzen artetik, beren buru bizkarren dirdira erakutsiz. Joseba Sarrionandia

---

## itsas erdi *(9 agerraldi, 3 liburu eta artikulu 1ean; orobat **itsaso erdi** 7 agerraldi, 6 liburutan) iz (leku atzizkiekin)* itsasoaren erdi.

Nor Tiroren pareko, **itsas** erdian gotorleku zenaren pareko? Elizen arteko biblia

**Itsaso erdian** banengo eta igerian ez baneki. Koldo Biguri

Literatik jaisteko unean, sekulako botagura nabaritzen dut; iruditzen baitzait, iruditzen, **itsaso erdian** nagoela ontzian. Jesus Mari Mendizabal

Pintatzailearen harridurako Luisak distira egiten zuen bere zurian, nola perla batek **itsaso erdian**. Felipe Juaristi

Hilen tokira jaitsaraziko zaituzte, heriotza bortitzez hilko zara **itsas erdian**. Elizen arteko biblia

Argi-zutoinak **itsas erdiko** harkaitzetan eraikiak dira. Itxaro Borda

Egiptoarrak, faraoiaren zaldi, gurdi eta zaldun guztiak, israeldarrei erasoka **itsas erdiraino** sartu ziren. Elizen arteko biblia

Israeldarrak, ordea, oinak busti gabe igaro ziren **itsas erditik,** ur-harresiak zituztela ezker eta eskuin. Jose Antonio Mujika

---

## itsas gain *(29 agerraldi, 18 liburu eta 2 artikulutan; orobat **itsasgain** 21 agerraldi, 10 liburu eta 2 artikulutan eta **itsaso gain** 22 agerraldi, 10 liburu eta 5 artikulutan) iz* itsasoaren gainaldea.

Eskuinean, eguzki betea, **itsas gain** gardenean distiratsu. Anjel Lertxundi

Amaigabeko **itsasgain** urdinkara. Xabier Amuriza

Egun hartan, bada, eguzki jaiki berria distiratsu baino distiratsuago zegoen, eta ez gutiago **itsas gaina**. Joan Mari Irigoien

Mara-mara ari zen argia **itsasgaina** zilarreztatuz. Anjel Lertxundi

Dutxa hartu nuen eta leihotik **itsaso gaina** arrosa bilakatzen begietsi. **Itsasgainak** altzairuzko xafla bat zirudien. Itxaro Borda

Zoaz eta hartu, **itsas gainean** eta lehorrean zutik dagoen aingeruak eskuan duen liburu irekia. Elizen arteko biblia

Kristo **itsas gainean** zebilen. Patxi Altuna

**Itsas gainean** ehunka eta milaka kilometro hegan egiten duten txoriek. Juan Kruz Igerabide

Arraunek arrasto apartsu biziak sortzen dituzte **itsaso gainean**. Anjel Lertxundi

Kostan, izotz-puskak ikusten omen ziren **itsas-gainean**. Pello Zabala

Iparra zebilen, eta eguzkiak altzairu-koloreko distirak eragiten zizkien **itsas gaineko** olatu apartsu ugariei. Anjel Lertxundi

Ezin da ahaztu izotz-mendiaren azpikaldea **itsasgainekoa** baino askoz handiagoa dela beti. Berria - Euskal Herria

Luzatu zuen Moisesek eskua **itsaso gainera** eta Jaunak atzerarazi zuen itsasoa. Jose Antonio Mujika

Sekulako lanbro-mintz zabalak altxatzen hasi ziren, trumilka eta parrastan, **itsasgainetik** zerurantz, eta euri-adar sarriak zetozen zerutik itsasora. Anjel Lertxundi

Itsas azaletik baino areago **itsas gainetik** hegan. Koro Navarro

---

## itsas haize *iz* itsasotik datorren haizea.

**Itsas haizeak** jotzen duenean. Felipe Juaristi

Florenten aurpegian **itsas haize** bolada hozkirri batek jo zuen. Karlos Zabala

Zeren, hegoa bizkortzen hasi orduko, lotsagabetzen denean, **itsas haizea** ekartzerainoko buelta hartzen baitu: Hegoaren ondotik, ipar euria gogotik. Pello Zabala

Egunez, gora igoarazten zituzten txandaka, […] **itsas haizea** har zezaten. Karlos Zabala

Baserri bat eraiki zuen bertan, **itsas haizetik** gordea, hormak zuri eta teilatua gorri. Felipe Juaristi

**Itsas haize** goxoko gau izarratuak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Itsas haizearen** zapore gazi mingots ezaguna. Karlos Zabala

**Itsas** haizearen ziztuen gibeletik. Joan Mari Irigoien

Txirula joka hasi zen: haize txikia **itsas** haize handiarekin lehian. Felipe Juaristi

Hala sartzen zen **itsas haizea** ontziko zirrikuetatik, ontziko mastartetik. Felipe Juaristi

---

## itsas handi *(7 agerraldi, 5 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 61 agerraldi: orobat **itsaso handi** eta **itsasandi** g.er.; ik **itsaso 18**)* **1** kostaldetik ikusten ez den itsaso zatia. ik **itsas zabal**.

Itsasoa gogorra eta gaiztoa izaten da askotan, egia, baina oihu egiten du, garrasi egiten du, leiala da-eta **itsaso handia;** ibaia ordea, isila da eta maltzurra. Josu Zabaleta

Itsasontzi ederra zela, bitxia oso, txopako gaztelu barroko izugarri landutakoa zuena, **itsas handietako** mirakulu, marinel guztien bekaitz-min. Felipe Juaristi

Mugagabeko zeru-barrutietan, **itsas handietan** edo baso zabal-ederretan. Gotzon Garate

Han, **itsasandia** ilun eta irakiten dago. Koldo Izagirre

Matxitxako muturrari, gure itsaso txikiaren eta munduko **itsaso handien** artean mugarri egiten duen adar luzeari. Edorta Jimenez

**2** *irud*

Bigarrenak behinik behin kai txikiaren babesa eta aterpea uzten dizu, lehenengoak, berriz, **itsas handira** botatzen zaitu, merkatu globalaren espazio amaigabera, ahazturara. Berria - Kultura

Merkatu askearen **itsaso handian**. Iñaki Heras

**3** uhin handiak dauden itsasoa.

Haien esanetan, **itsas handia** zegoen eta olatu batek ontzia irauli zuen. Berria - Mundua

**Itsaso handia** orduantxe hasi zen baretzen. Edorta Jimenez

Hara, **itsaso handiak** etorri baino lehen iritsiko ote ginen, hori zen zalantza. Edorta Jimenez

Goiz hartan, hiru kanpai doinu entzunda, denak mugitzen hasi ziren, **itsaso handia** zegoelako eta Tootles, kontramaisua, euren artean zebilelako, soka baten muturra eskuan hartuta eta tabakoa mastekatzen. Julen Gabiria

---

## itsas hegazti *iz* itsasoan bizi den hegaztia.

Ekaitz txoria Europan bizi den **itsas hegaztirik** txikiena da. urrunera begira **itsas hegazti** zuriak ikusi zituen, ibaiaren gainean eguzkitan hegan. Agustin Otsoa

Ur sakonetan murgiltzen den **itsas hegazti** bat bezala. Patxi Zubizarreta

Itsasora iristen diren plastikozko hondakinek milioi bat **itsas-hegazti,** 100.000 itsas-ugaztun eta milioika arrain hiltzen dituzte urtero-urtero. Berria - Gaiak

**Itsas hegaztiak** bizi luzea dute. Berria - Gaiak

---

# itsas hegi *(orobat **itsasegi** g.er.)* *iz* itsasbazterra, itsasertza.

**Itsas hegi** hauetara itsas urde edo foken bila jaisten dira. **Itsas hegia,** eraikuntza enpresen interesen tentazioa. Aurelia Arkotxa

**Itsas hegi** ordokia, guztiz ordokia, guztiz sakona, itsasoa bera baino beherago dagoena, dirudienez. Josu Zabaleta

Fox Island Riverreko **itsas-hegia** . Argi dorre gorria **itsas-hegi** muturrean. Aurelia Arkotxa

Zipreko **itsas** hegiaren babesean ibili ginen, haizea kontra baikenuen. Elizen arteko biblia

Xefela **itsas** hegian hazten diren basapikuak. Elizen arteko biblia

**Itsas hegian** den betoizko 'art deco' eraikuntza haundiko La Pergola dantzalekuan. Ramuntxo Etxeberri

**Itsas hegiko** etxola mixerableetan bizi ziren arrantzaleekiko erlazio estuegirik ere ez zuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Hozten hasia den aireak Lapurdiko **itsas hegiko** udazkenetako arratsak gogorarazten ditu. Aurelia Arkotxa

**Itsas hegiko** etxola mixerableetan bizi ziren arrantzaleekiko erlazio estuegirik ere ez zuen Itsasoak kokaina poltsa gehiago bultzatu ditu Lapurdiko **itsas hegira** . Xabier Mendiguren Elizegi

Laurogei metro gora den Rajabai dorretik **itsasegira** arte ez zen etxe bat bera ere. Gotzon Garate

Ez da gehiago deus eraikitzen ahal untsalaz **itsas hegi** -hegian, bakarrik ehun bat metro barnago gutienetik. Herria

---

# itsas herensuge *iz* itsasoan bizi den herensugea.

Egun hartan, Lebiatan, suge iheskor eta makurra, zigortuko du Jaunak bere ezpata zorrotz, handi eta bizkorraz: hil egingo du **itsas** herensugea Elizen arteko biblia

---

# itsas herri *(orobat **itsaserri** g.er.)* *iz* itsasbazterrean kokatua dagoen herria.

Atlantiar kostako **itsas herriak** . Iñaki Mendiguren

Donostian eta beste **itsas herri** askotan. Patziku Perurena

Ptolomeo erregea itsasaldeko Seleukiara bitartean zeuden **itsas** herriez jabetu zen. Elizen arteko biblia

**Itsas** herrietako printze guztiak beren tronuetatik jaitsiko dira. Elizen arteko biblia

Giro, klima, zoluaren osaketa eta ohitura bereziek (mendiko herrietakoenak eta **itsas herrietakoenak** desberdinak bide dira, adibidez) eragina izan dezaketela. Isabel Arrigain

---

# itsas hondar *iz* itsasoko hondarra.

Erruz pilatu zuen garia, **itsas** hondarra bezain ugari. Elizen arteko biblia

Zeruko izarrak eta **itsas hondarra** bezala ugalduko ditut neure zerbitzari Daviden eta neure zerbitzari lebitarren ondorengoak. Elizen arteko biblia

Egun batez, israeldarrak, **itsas hondarra** bezala, neurtezin eta kontaezin izango dira. Elizen arteko biblia

**Itsas hondarra,** euri-tantak, mendez mendeko egunak, nork zenbatu? Elizen arteko biblia

---

# itsas hondo *(orobat **itsaso hondo** g.er.)* *iz* itsasoaren hondoa.

Ur gardena, **itsas hondoa** garbi-garbi ageri, aurpegia uretan murgildurik noa igeri, **itsas hondoa** ikustearren; nire itzal **itsas hondoan** islatua: igel ubela. Joxe Austin Arrieta

**Itsas** hondoa agertu zen, lurraren oinarriak agerian jarri Jaunaren orroaz, haren haserre-ziztuaz. Elizen arteko biblia

Haren kutxa guztiak, milaka landare eta intsektu aleak, haren ohar-koadernoak, haren idazkiak: **itsas hondoan** galdu zen den-dena! Jon Muñoz

Ez lur azalean ez **itsas hondoan** ez duzu haren parekorik topatuko. Patxi Zubizarreta

**Itsas hondoko** belarrek. Karlos Zabala

**Itsas** hondora amildu zenituen, ostera, haien erasotzaileak, harria ur sakonera bezala. Elizen arteko biblia

Beren kantuekin marinelak erakarri eta **itsas hondora** eramaten zituzten, betiko eraman ere. Martin Anso

Eta hiru bira eman zituen gure ontzi ederrak, hiru bira... eta **itsaso hondora** joan zen. Lopez de Arana

Goserik daudenean, **itsas hondotik** irteten zaie kantua; pozik daudenean, berriz, olatu gain apartsuetatik... Anjel Lertxundi

Igerian dakienak **itsas hondotik** perlak ateratzen ditu, baina igerian ez dakiena ito egiten da. Xabier Kintana

"Historian" bi maila dago: ageriko eta axala, gertakariena, kroniketan agertzen dena, hori deitu ohi da historia; eta barnekoa, isila, historiaren substantzia, ur gaineko uhinen azpi-azpian dagoen **itsas hondoa,** intrahistoria. Joxe Azurmendi

---

# itsas inguru *(orobat **itsaso inguru**)* *iz* itsasoaren ingurua.

**Itsas** inguru hartan geunden, bada, non baitzeuden arestian aipatu dizkizudan uharteak. Joan Mari Irigoien

Trinidadeko irlako **itsas** inguruan. Joan Mari Irigoien

Zingira horiek **itsaso inguruan** badaude [...]. Santiago Iruretagoiena

**Itsaso inguruan** gagozenean, hezetasun gazia datorkigu ahora. Xabier Amuriza

---

# itsas izar *iz* itsas hondoan bizi den izar itxurako ekinodermoa.

Goizetan, itsasoak behera egiten zuenean, harkaitzetako zuloak atzapar iletsuko itsas armiarmaz, malba-koloreko **itsas izar** likaz eta sabelalde gorriko karramarroz betetzen ziren. Xabier Olarra

Itsas trikuen fosilak -bost puntako **itsas izarraren** antzeko irudia izaten duten sagar baten antzeko harri biribilak-.Zenbaitzuetan neskatoak bere eskutxo itsas **izar** tankerakoa luzatzen zion. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# itsas jende *iz* itsasoarekin harremanean bizi den jendea.

Jainkoak ezkontza ezarri zuenean, lehorreko jendea izan zian gogoan, ez **itsas** jendea... Joan Mari Irigoien

Ezin zuten aintzakotzat hartu **itsas jendearen** jokamoldea. Iñaki Iñurrieta

Zeren ezagutzen baitut Cumanáko portuko marinelengan eta gainerako **itsas jendeengan** eraginik duen gizonik... Joan Mari Irigoien

---

## itsas kolpe *iz* itsasoak eraginiko kolpea.

Bi **itsas kolpek,** bata bestearen atzetik, zabu-zabuka utzi zuten ontzia. Jon Muñoz

**Itsas** kolpe batek irauli du itsasontzia, Gran Soleko itsasoaren erdian Osaba Julian, hor berean hil zuan, igeri ez zekielako, **itsas** kolpe batek eramanik. Berria - Kultura

Handik hilabetera jakin zen, baietz, aita hilik zela, **itsas kolpe** batek ontziaren zubitik eramanda. Josu Zabaleta

---

## itsas landare *iz* itsasoan hazten den landarea.

Itsas animaliak eta **itsas landareak** ikertzen direla laborategi horretan. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

· IMOk dioenez, atzerritik ekarritako **itsas** anilmalia eta **landareen** arazoa ez da berria, eta urtero handituz doa garraiatutako espezie kopurua. Berria - Gaiak

---

## itsas lehoi *iz* Itsaso Baketsuko eta Hego itsasoetako ugaztuna, itsas otsoaren antzekoa baina belarriduna eta hura baino lepo-luzeagoa *(Otaria* sp.)

Bukaeran Pribiloff irlak aipatzean dituenean hitz jokoa egiten du, seal = zigilu / seal = **itsas-lehoi** homonimian oinarritua. Xabier Olarra

Haren arabera, baleek, itsas txakurrek eta **itsas lehoiek** 500 edo 600 milioi tona itsas izaki jaten dituzte urtean. Berria - Gaiak

Galtzeko zorian diren *steller* **itsas-lehoien,** [...] bizilekua da. Berria - Gaiak

---

## itsas marraskilo *iz* itsasoan bizi den marraskiloa.

Bada, hauek **itsas** marraskilo batenak dituk, eta bertze hauek txirla jigant batenak... Joan Mari Irigoien

---

## itsas milia *(orobat **itsaso milia** g.er.)* itsasketan erabiltzen den bide neurria, 1852 m-ren baliokidea.

1.450 **itsas milia** (2.687 kilometro) egin dituzte hirugarren etapan. Berria - Harian

38.000 **itsas milia** nabigatu ostean, itsasoan lau urtez noragabean ibili eta gero. Patxi Zubizarreta

Ontzia Indiako kostaldetik 700 **itsas miliara** zegoen atzo. Berria - Gaiak

Neure artean pentsatu nuen leku literarioak **itsas miliak** zirela, infinitu birtualak. Bernardo Atxaga

Baudelairek dio infinituaz ideia bat edukitzeko aski dela **itsas milia** bat ikustea. Azterketak itsas hegian eta itsasoan ere burutuko dira, **itsas milia** bat arte. Bernardo Atxaga

---

## itsas ondo *(orobat **itsasondo** eta **itsaso ondo**)* *iz* itsasoaren ondoko aldea

Gaurtik ekainaren amaiera bitartean hiru rally jokatuko dira **itsas ondo** horretan. Berria - Kirola

Lau mega-hiritik hiru **itsaso ondoan** daude. Berria - Gaiak

Antonio zuen izena eta Andaluziako Malaga hirian jaioa zen, **itsas ondoan**. Felipe Juaristi

Atsedentoki bat **itsas ondoan**. Antton Olano

Bidea **itsas ondoan** zihoan, bi kilometroan. Baina geroztik ospetsu egin du **itsas** ondoko bidea, Jordanez haranzko lurraldea, eta Galilea, jentilen eskualdea. Elizen arteko biblia

Ezagunak zituen hizlariak baino hobea izan nahian, bere ahotsa **itsas** ondoko ibilaldi eta pasieretan trebatzen zuela. Felipe Juaristi

**Itsas ondoko** udaleku bat antolatzeko beharra uler dezan. Koldo Biguri

Menditik **itsas ondora,** bien arteko aldea nabarmentzen zen bertatik. Pello Zabala

Kostako **itsasondoak** bai, hor itsasoak badu termostatoarena egiteko enpeinua. Pello Zabala

---

## itsas otso 1 *iz* itsas txakurra.

Zinez ikustekoa! Bazterretako mahainetan, zernahi abere motaren ezurdurak badaude: azeri, zaldi, orkatz, pitotx, **itsas-otso,** xori, arrain, gau-iñara, apo, suge eta bertze... Herria

**2** itsasgizon zaildua.

Ez neukan zure osaba **itsas otsotzat** -esan zion-. Migel Angel Mintegi

Badia barruko **itsas otsoa,** otu zitzaion Gabini Iñaki Iñurrieta

---

## itsas sagarroi *iz* itsasoan bizi den sagarroia.

Osabak eskurat eman zidan fosila: **itsas** sagarroi batena zen, ederra zinez. Joan Mari Irigoien

Bai, **itsas sagarroia** hil zuan, baina harri honetan utzi zian bere azken bihotz-kolpea... Joan Mari Irigoien

---

## itsas suge *iz* itsasoan bidi zen sugea.

Gizon bat eta emakume bat biluzik ageri ziren, **itsas suge** batek indarrez estekaturik. Lopez de Arana

[Laokoonte] Apoloren apaiz troiatarra, bi semeekin batera **itsas suge** batzuek hil zutena. Xabier Olarra

Karmel mendi gainean gorde arren, han ere aurkitu eta harrapatuko ditut; nire bistatik itsas putzuan barrena galdu arren, han ere **itsas** sugeak zizta ditzan egingo dut. Elizen arteko biblia

---

## itsas triku *iz* trikuaren itxurako itsas animalia ornogabea *(Echinoidea)*.

**Itsas trikuaren** enbrioia ez da parekatzekoa igelaren, saguaren edo euliaren enbrioiekin. Juan Garzia

Eta, **itsas trikuarekin**, igelarekin, oilaskoarekin, are saguarekin, azterketa genetikoa, luzaroan, edo ez da batere halakorik, edo eskas geratzen da. Juan Garzia

**Itsas trikuen** fosilak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Elikadurazko produktu berriak onartzeko era biziki aldatzen da sektore, herri, garai, eta abar batetik bestera: zaldia, borraja, txakurra, barraskiloa, galanperna, arratoia, **itsas trikua**, txerria, saguzarra, txikoria, gamelua, patata, dortoka, indaba, intsektuak, tomatea, alkohola, etc. Edorta Agirre

---

**itsas txakur** *(orobat **itxastxakur** eta **itxas txakur**)* **1** *iz* ugaztun itsas-lehortarra, aurpegia zakurraren antzekoa baina belarririk gabekoa, ilea motza eta gorputz adarrak igerian egiteko egokituak dituena *(Phoca vitulina)*. ik **foka**.

**Itsas txakurrek** koipezko geruza baten babesa dutenez, beti daude bero. Lopez de Arana

**Itsas txakurrek** ehundaka milia egiten dituzte inon gelditu gabe. Lopez de Arana

350.000 **itxas txakur** ehizatzea baimendu du Kanadak. Berria - Gaiak

Ehiza talde bat ere antolatuko da, **itsastxakurrak** harrapatzeko, bestela pinguinoak. Joseba Sarrionandia

**Itsas txakur** aurpegia zeukan gizona ere gogoan dut. Urtzi Urrutikoetxea

Irlandan **itsas txakurrek** emakume itxura har dezakete. Martin Anso

Emakume bihurtutako **itsas txakur** bat. Martin Anso

**2** (hitz elkartuetan)

**Itsastxakur** saldoak iparralderantz joango dira, eta baleak ere han urrun ugari pasatuko dira. Joseba Sarrionandia

Nahikoa zuten gorputza **itsastxakur** koipez igurztearekin Joseba Sarrionandia

**3** ***itsas txakur fraide*** Mediterraneo itsasoan bizi den itsas txakur mota *(Monachus monachus)*

Horra hor zergatik, hain handiak izanik ere arrainen eta ugaztunen arteko aldeak, guztiek dituzten ia gene berak, eta berdin krokodiloek zein **itsas txakur** fraideek. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta itsastxakur (3)

---

**itsas txori** *iz* itsasoan bizi den txoria.

Itsasoan ekaitza denean, **itsas txoriak** Oria errekan gora joaten dira. Patxi Zubizarreta

**Itsas txorien** karranka urrunak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Itsas txori** erraldoien heiagorak hauteman ziren, galernaren ondotik. Itxaro Borda

Horretaz gain, milioika izokin, 250.000 **itsas txori,** 2.800 igaraba, 300 itsas txakur, 250 arrano eta 22 orka inguru hil ziren. Berria - Gaiak

Adituen arabera, garai hartan Alaskako kostaldean zeuden **itsas txori** eta itsas ugaztun asko hipotermiak jota hil ziren. Berria - Gaiak

---

**itsas ugaztun** *iz* itsasoan bizi den ugaztuna.

Mazopak **itsas ugaztunak** dira, baleak, katxaloteak, zereak edo orkak bezala. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Itsas ugaztunak** babesteko. Berria - Gaiak

Zenbait **itsas ugaztunen** eta babestutako dortoken bizileku. Berria - Gaiak

Itsasora iristen diren plastikozko hondakinek milioi bat itsas-hegazti, 100.000 **itsas-ugaztun** eta milioika arrain hiltzen dituzte urtero-urtero. Berria - Gaiak

Adituen arabera, garai hartan Alaskako kostaldean zeuden itsas txori eta **itsas ugaztun** asko hipotermiak jota hil ziren. Berria - Gaiak

---

**itsas uhin** *iz* itsasoko uhina. ik **olatu**.

**Itsas uhinak** soilik zutitzen dira ortzi-muga urrunaren eta lehorraren artean. Anjel Lertxundi

Haiek Egiptoko itsasoa igarotzean, **itsas uhinak** baretuko ditut. Elizen arteko biblia

**Itsas uhin** erraldoiak. Imanol Unzurrunzaga

Gizona baino handiagoa zelakoan, **itsas uhinei** agindu eta mendi-gailurrak balantzan pisa zitzakeela uste zuena. Elizen arteko biblia

**Itsas uhinen** leherketa geldoa. Txillardegi

Pianoaren notak soilik zutitzen ziren, **itsas-uhinen** gisako itxura bat harturik. Anjel Lertxundi

---

**itsas ur** *iz* itsasoko ura.

**Itsas** urak biltzen eta lur gainera isurtzen dituena. Elizen arteko biblia

Euriaren musika maite zuen, euriaren musika itsasoa joz, euri urak **itsas ura** joz. **Itsas** eta ibai-uretako bizidunen artean. Felipe Juaristi

**Itsas ur** kontzentratua diluitzeko. Irene Aldasoro

---

**itsas urde** *iz* mazopa.

Itsas hegi hauetara **itsas urde** edo foken bila jaisten dira. Aurelia Arkotxa

Ziztuan Lampauletik atera nintzen, Enez Eussa III ospetsuaren **itsas urde** marraka marrantatuak entzuteko justu heldu nintzen portura. Itxaro Borda

Jendearen isiltasuna, usainak, ibilerak, so gatibatuak, etorkizunez jadanik biluziak eta metroaren **itsas urde** marrakak enetako orduan, ama ontzia bezain premiazkoak ziren Itxaro Borda

---

**itsas zabal** *(44 agerraldi, 24 liburu eta 12 artikulutan; orobat **itsaso zabal**)* **1** kostaldetik urrun dagoen itsaso alderdia. ik **itsas handi**.

**-Itsas zabalean** oraindik, kostatik berrogeita hamarretik gora kilometrora. Jon Muñoz

Egiptoko Hurgada portutik 70 kilometro **itsas zabalean** hondoratu zen ontzia. Berria - Mundua

1.500. urtean, **itsas zabalean** nabigatzen ari zela, Amerikaren parean, eremu marroi itzel harekin egin zuen topo espainiar kapitain batek. Jon Muñoz

Uretara suil bat bota, eta ura dastatu zuen: ur geza **itsas zabalean**! Jon Muñoz

Arranoaren bidea ortzian, sugearen bidea haitzean, ontziaren bidea **itsaso** zabalean. Elizen arteko biblia

**Itsas-zabaleko** eginak diren hamalau ontzi handi. Aurelia Arkotxa

**Itsaso** zabaleko ontziek garraiatzen zituzten zure merkantziak. Elizen arteko biblia

Uztailetik protestan ari **dira itsas** zabaleko plataformetako langileak. Berria - Ekonomia

Hango ontzioletan, berriz, askotariko ontziak egiten dira: bai **itsas zabalekoak,** bai Nilo ibaian barrena joango direnak [...] eta bai hondoa laua dutenak, hiri inguruko zingiretarako. Jon Muñoz

Azaroaren 13an hasi zen itsasuntzia kraskatzen Galiziako kostaldetarik hurbil eta, Aznar-ek **itsas zabalera** urrunarazirik, azaroaren 19an urperatu zen bere petrolaki guziarekin. Herria

Nire DC-4-a, Mexico-Cityranzko bidean, [...] **itsas zabalaren** gainean bihurkada egin eta zeru gorian murgilduz. Joxe Austin Arrieta

**2** *irud*

Jendea hain gaztetxotan bizitzaren **itsas zabalean** gurutzatzen denean, euren arteko elkar ezagutza oso azalekoa izanen da derrigor. Harkaitz Cano

Pertsonaiak deserrotuta agertu zaizkigu, giza harremanak arront urriak dira, sustrai ezak bakardadearen **itsas zabalera** bultzatzen du gizakia. Berria - Kultura

---

# itsasadar *(orobat **itsas adar** g.er. eta **itxasadar** g.er.)* *iz* lehorrean aski sakon sartzen den itsas zatia.

**Itsasadar** bat bere hondartzarekin begiztaturik, ahal bazen untzia bertan sartzea erabaki zuten. Elizen arteko biblia

Beren herrian **itsasadar** egokirik ez dagoela, moilarik ez dutela. Berria - Kirola

Zaldi lasterketak egiteko kristalezko plataforma erraldoia ipini nahi dutela **itsasadar** gainean, Guggenheim paretik Areatzako zubiraino... Paddy Rekalde

**Itsasadar** ondoko igarobideetatik. Berria - Harian

Vigoko **itsasadarrean,** marisko haztegiak dira nagusi. Berria - Kirola

Bizkaiko beste **itsasadar** handia, Urdaibaiko erreserba. Urtzi Urrutikoetxea

**Itsasadarreko** ur ilunei begira. Paddy Rekalde

Udaletxeko zubia zeharkatu dugu **itsas adarraren** ur geldoa hor behean dugula. Javi Cillero

Zazpiak puntuan baitaukat lehenengo katamarana **itsasadarra** pasatzeko... Pako Aristi

Pasaiako **itsas adarraren** muturrean dago, atzera egitean mareak lehorrean uzten duen leku batean. Koldo Izagirre

**Itsasadarreko** bokaletik gertu zeuden hondartzak eta itsaslabarrak. Joxemari Iturralde

**Itxasadarrean** zenbat eta gorago, aldaketa handiagoa. Berria - Euskal Herria

Hilotzak **itsasadarrean gora** eta behera. Paddy Rekalde

Ezagutzen dituzue **itsasadarraren** babesa utzi eta ortzi-muga zabalera, ekaitzen legera aurreratzen diren amilburu zorrotzak. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bilboko itsasadarra** (4); **bilboko itsasadarrean** (9); **burdinazko itsasadarra** (3); **eta itsasadarraren** (3); **itsasadarraren alde** (4); **itsasadarraz bestaldeko** (3); **itsasadarrean barrena** (4); **itsasadarrean gora** (4); **itsasadarrera ematen** (3)

---

# itsasalde *(**139** agerraldi, **35** liburu eta **38** artikulutan; orobat **itsas alde** **52** agerraldi, **18** liburu eta **20** artikulutan)* *iz* **1** itsasoko aldea, itsasoa dagoen aldea. ik **itsasbazter**.

Igo eta begira **itsasaldera**. Elizen arteko biblia

Kale nagusitik **itsasaldera** eramaten zuen kale estu batetik. Anjel Lertxundi

Karratua eta asentu ederrekoa ikusten zen etxea hondartzatik begiratuta, eta dadoaren itxura areagotzen zuten **itsasaldeko** leiho txiki haiek. Anjel Lertxundi

**Itsasaldetik** amildegiak eta beste hiru hegaletatik burdinazko hesi batek babesten zuen etxea sarkinengandik. Migel Angel Mintegi

Une hartan ateri zen, eta **itsasaldeko** zerua garbitzen ari zen. Anjel Lertxundi

Ipar-haizeak, halere, hodei ilunak zekartzan **itsasaldetik**. Migel Angel Mintegi

Jaunak haizea atera zuen, eta haizeak, **itsasaldetik** joz, galeper-multzoa ekarri eta kanpaleku inguruan bota zuen. Elizen arteko biblia

Inguratu zuen hiria eta, aldi berean, gudu-ontziak hurbildu ziren **itsasaldetik**. Elizen arteko biblia

Eta mapagileen begiak zentroren batetik begiratzen du, eta [...] zentro horretatik erabakitzen da, adibidez, zer dagoen eskuinean eta zer ezkerrean, eta erabakitzen da ez diola axola urak nondik norako bidea egiten duen, baina bai zer gelditzen den hiriburutik eskuinetara eta zer ezkerretara, eta hala Bilbotik -ez **itsasaldetik-** begiratuta dago Sestao ezkerrean eta Algorta eskuinean, eta Mauletik -ez bortuetarik- begiratuta dago Altzai eskuinean eta Ligi ezkerrean. Iñaki Segurola

**2** itsaso inguruko aldea, itsaso ondoko lurraldea. ik **kostalde**.

-Hona **itsasalde** honetako karta. Edorta Jimenez

Harralde hartan oso harkaitz-zulo politak daude lanpernetarako, sona handia du **itsasalde** osoan. Anjel Lertxundi

Uharte santuak bisitatu zituzten, Kareliako **itsasaldetik** hurbil. Karlos Zabala

Judea osotik, Jerusalemdik eta Tiro eta Sidongo **itsasaldetik** etorria. Elizen arteko biblia

Trogloditen leinu basatikoak ziren, Arabiako Golkoaren **itsasaldeetan** eta Etiopiako harpeetan arrunt hedaturik den piztijende horien leinu higuinekoak. Juan Garzia

Eritreako **itsasaldeko** portu batean ainguratu behar izan zuen. Juan Garzia

Lapurdiko **itsasaldeko** hizkerak, Donibane-Lohizune eta Sara ingurukoak. Koldo Zuazo

Piperbeltzaren **Itsasaldeko** eta Gabon Ibaiko beltzek. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta **itsasalderago,** lakuko urgain zabalean, tiburoiaren bizkarreko hegatsak ur azala ebaki duela iruditu zait. Joseba Sarrionandia

San Franciscotik Renora natorrenean, ito egiten naiz **itsasaldetik** basamortura etorrita. Javi Cillero

**Itsasalde** austral hauetara misionero anglikanoak heldu ziren. Joseba Sarrionandia

Asuero erregeak zergak ezarriz menperatu zituen, nola lehorrekoak hala **itsasaldekoak**. Elizen arteko biblia

Jendea ez zen itzultzen joandako lekutik: landaldetik, mendialdetik, **itsasaldetik,** nonahitik; jendea ez zen Parisera itzultzen, besterik gabe. Jon Muñoz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itsasaldeko** (3); **itsasalde osoan** (3); **lapurdi itsasaldean** (4); **lapurdi itsasaldeko** (6)
> **[3] itsasaldi haren** (3); **itsasaldi luze** (4); **miarritzeko itsasaldiak** (3)

---

# itsasaldi *(orobat **itsas-aldi** g.er.)* **1** *iz* itsasoak, Eguzkiaren eta Ilargiaren eraginpean aldizka gora eta behera egiten duen higidura. ik **marea; itsasgora; itsasbehera**.

Hortaz, zenbat eta goragoa **itsasaldia,** orduan eta beherago joaten da ura bere erorian. Koro Navarro

Hantxe geratzen ginen, harik eta ia **itsasaldi** bitartea ailegatzen zen arte, eta orduan aingura jaso eta etxera abiatzen ginen. Koro Navarro

Baina **itsasaldiaren** aldaketaren unean bakarrik gertatzen dira soseguzko tarteak. Koro Navarro

**Itsasaldi** harroa den guztietan izaten da arrantza ona. Koro Navarro

Hondartzetan **itsasaldiek** hondarra lekuz aldatzen dute; ibai eta zingiretan, berriz, edozeinek bota dezake zerbait hondora. Berria - Euskal Herria

**2** itsasoz egiten den ibilaldia.

Oroitu nuen neure Italiarako **itsasaldia,** ezin bareagoa eta ezin jabalagoa. Joan Mari Irigoien

Atlantikoan zeharreko **itsasaldi** hura. Juan Garzia

Asteburuetan **itsasaldi** luzeak egin ditugu elkarrekin. Migel Angel Mintegi

Bere ibilaldi edo **itsasaldi** haietan, zetak, oihalak, alfonbrak eta alkatifak kargatzen ohi zituen Turkian, gero Espainian, Frantzian, Holandan edo Ingalaterran deskargatzeko. Joan Mari Irigoien

Karga-ontzi baterako bidai txartel bat inguratu dut: baina neguan ez da **itsasaldirik,** beti dabil tramontana, edo mistrala, edo [...]. Juan Garzia

Karel artekoa korta bihurturik eroaten zutela **itsasaldi** luzeetan. Edorta Jimenez

Halako itsasontziek lau arraun ere eramaten baitituzte, haize gabeko **itsasaldietarako** Felipe Juaristi

**3** itsasoan ematen den denbora.

Hamaika eguneko **itsasaldiaren** ondoren iritsi gara uhartearen ikusmenera. Juan Garzia

Eta azpimarratu behar da aurreneko ihesaldi jakinaren eta bigarren ihesaldi ustezkoaren arteko denbora bitartea, itsas armadako gizonen **itsasaldiena** baino hilabete batzuk luzexeagoa dela. Koro Navarro

---

## itsasandi ik **itsas handi**.

---

## itsasargi *(74 agerraldi, 27 liburu eta 10 artikulutan; ETCn 1941 agerraldi; orobat* ***itsas(-)argi*** *13 agerraldi, liburu 1 eta 7 artikulutan) iz* itsasaldean, marinelen lagungarri eta gidari, eraikitzen den dorre argiduna. ik **farola**[1]**; faro**.

**Itsasargiaren** izpiak. Koro Navarro

Uharteko **itsasargiaren** klisken isla zuzen-zuzen luzatzen da uretan zehar beraganantz. Iñaki Iñurrieta

Eta **itsasargitikako** dirdirek aldizka argitzen zituzten Miarritzeko etxeak. Txillardegi

Piztu zen aurreneko argia Callebotte **itsasargiarena** izan zen. Monika Etxebarria

Aurrealdeko **itsasargiak** pizten hasiak ziren, banan-banan, eta Capbretoneraino: Igeldo, Iger, Miarritze... Txillardegi

Nik hiru **itsasargi** ezagutzen nituen: Igeldokoa, izpi bat, eta gero bi hutsarte labur; Iger muturrekoa, Hondarribian, bi izpi labur, eta gero oso luzaz itzalia; eta azkena (edo azkenurrena: ez nago ziur) Miarritzekoa, bi izpi segidan, eta hutsune luzakorra ondoren. Txillardegi

Obrak Miarritzeko **itsas-argian** . Herria

Alexandriako **itsasargiaren** argi-azaoa utzirik, lanpara baten argi-konoari ekin zion oraingoan Ruche jaunak. Jon Muñoz

Egia da Miarritze eta Miarritzeko itsasoa ederrak direla iguzkia sartzera doalarik itsasoan, horiek guziak **itsas-argia** eraikia den tokitik ikusirik. Herria

Ellen altxatu egin zen, hotza eta zuria, iristezina, **itsasargi** baten modura. Lopez de Arana

Matxitxakon **itsasargiko** zaindariarekin telefono deia lotu bitartean. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itsasargi bat** (3); **itsasargi baten** (6)

---

## itsasargizain *(corpusean* ***itsasargi zain*** *soilik iz* itsasargi baten ardura duen pertsona.

**Itsasargi** zainaren gibeletik eta Maien eskutik, ehun eta laurogeita hamasei eskailera mailak igo genituen. Itxaro Borda

---

## itsasarte *iz* bi itsas hegiren arteko itsaso zatia.

Zibilizazio Arabiko musulmanak artean bazuen atlantiar itsasertza Afrikan Gibraltarreko **itsasartetik** Senegaleraino. Iñaki Mendiguren

Danubioren deltatik Rhinen bokaleraino eta, Dover-eko **itsasartean** zehar, Britainiaraino. Iñaki Mendiguren

Bering **itsasarteko** izotz-pusketan zehar. Iñaki Mendiguren

Nahikoa da Bosforo **itsasartea** zeharkatzea kontinente batetik bestera igarotzeko. Jon Arretxe

Manchako **itsasarteko** olatu gris dentso eta zakar haiek. Mirentxu Larrañaga

Zeelanda Berriaren eta Urville uhartearen arteko **itsasartea** gurutzatzea ez omen da gauza erraza. J.M. Olaizola "Txiliku"

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itsasartea zeharkatu** (3); **itsasarteko uhartetarren eta** (3); **torresko itsasarteko uhartetarren** (3)

---

## itsasbazter *(117 agerraldi, 26 liburu eta 14 artikulutan; orobat* ***itsas(-)bazter*** *127 agerraldi, 24 liburu eta 82 artikulutan - gehien-gehienak Herria astekarian-, eta* ***itsaso bazter*** *g.er) iz* itsasotik hurbil dagoen lur eremua eta lehorretik hurbil dagoen itsas zerrenda. ik **itsas hegi; itsasalde**.

**Itsasbazterreko** hondarra bezain ugari. Elizen arteko biblia

Egiptoarren gorpuak ikusi zituzten **itsasbazterrean** . Elizen arteko biblia

**Itsasbazterrean** loturik zegoen txalupa batera egin zuen salto. Elizen arteko biblia

Kaltetutako **itsas bazterrak** garbitzen 5.000 milioi eurotik gora xahutu zituztela. Berria - Gaiak

Ibilian noa berriro **itsas bazterrerantz** . Joxe Austin Arrieta

**Itsasbazterreko** pasealekuan. Jon Arretxe

Berrogei egunetan egin zuten Malabarko **itsasbazterretik** Itsaso Gorrirako bidea. Iñaki Iñurrieta

Harkaitz hartatik aurrera, non hasten baita Ozeanoko **itsasbazterra,** ez zen ezer ezagutzen. Iñaki Iñurrieta

Zarauz eta Zumaia gipuzkoar **itsas bazterreko** bi herrietan. Herria

Lapurdiko **itsasbazterreko** hizkera -"kostatarra" deitu dena-. Garai hartan, nabigatzaileak behartuta zeuden **itsas bazterrari** jarraitzera. Iñaki Iñurrieta

Amazonas baporea **itsasbazterretik** urrundu zen, Liverpoolera bidean. Jon Muñoz

Antzinakoak ez ziren **itsasbazter** haietatik aldentzen monzoiez eta alisioez baliatzen zirenean baizik. Iñaki Iñurrieta

Delako erakunde berezi horrek beretu dituela **itsas-bazterreko** eremu frango. Herria

Obra asko egitekoa dutela Getarian **itsas-bazterreko** ezponda batzuen azkartzeko. Herria

Bostehun talentu bidali zituen Fenizia eta Siriara, marinelak bidal zitzaten, **itsasbazterrean** zabaltzen zituen kolonietan kokarazi nahi baitzituen. Iñaki Iñurrieta

Pertsiarrek iktiofagoen, oriten eta beste herri barbaro batzuen esku utzen zuten **itsasbazter** osoa. Iñaki Iñurrieta

**'Itsaso** bazterreko andreak!' esan zuen Hamaikak. Joseba Sarrionandia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itsasbazterrean** (3); **itsasbazterrean bizi** (4); **lapurdiko itsasbazterreko** (3); **zituzten itsasbazterrean** (3)

**itsasbazterreratu,** itsasbazterrera(tu), itsasbazterreratzen da/du *ad* itsasbazterrera joan; itsasbazterrera eraman.

Deitoragarritasun, gaitzesgarrikeria, gurutzefikatzaile, **itsasbazterreratu,** mendigoizaletasun... Iñaki Arranz

---

## itsasbehera *(orobat **itsas behera** g. er.)* **1** *iz* itsasoaren egoera batez-besteko maila baino beherago dagoenean. ik **marea 6**; **itsasgora**; **itsasaldi**.

**Itsasbehera** zen, eta hondartzak mugagabea zirudien. **Itsas behera** zegoen, bezperan bezala. Iñaki Iñurrieta

Itsaslaster hau itsasoaren gora-beherek arautzen dute, alegia, sei orduz behin izaten diren itsasgora eta **itsasbeherek**. Koro Navarro

**Itsasbeherak** lehorrean uzten du badiaren erdia eta bereizi egiten du Donostiatik, bera ere mundutik bereiz egonik. Koldo Izagirre

**Itsasbeherak** agerian utziak zituen ibaiaren erraiak, basatza gris ilun ura, zerriaren hesteak hil berritan. Koldo Izagirre

10,70 metroraino handitu dute ainguralekuaren sakonera **itsasbeheran**. Monika Etxebarria

**Itsasbeheraren** kresal usaina ekarri du haizeak gelara. Patxi Iturritegi

**2** *irud*

Gurutzaden itsasgora eta **itsasbeherak**. Iñaki Mendiguren

**Itsasbehera** Wall Street-en, itsasgora Bronx-en. Lopez de Arana

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itsasbehera** (3); **eta itsasbeherak** (3); **itsasbehera zen** (4)

---

## itsasbide *(21 agerraldi, 8 liburu eta 4 artikulutan;orobat **itsas(-)bide** 9 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean)* **1** *iz* itsasoan zeharko bidea.

Bela-untzian, "Route du rhum" **itsasbideko** golko gaixtoenak beharko ditu iragan, uhain eta ekaitz ikaragarriak gainditu, Pointe à Pitre-raino heltzeko. Herria

Eta garraio pisuak berdin **itsasbidez** edo treinbidez egin ditezkelarik, nolaz ez dira bada oraino abiatzen hortarako behar litezken obrak? Herria

Ameriketarako edo Afrikarako joan-etorriak, harako **itsas** bideak eta zilipurdiak ezagunak zituen. Felipe Juaristi

Arinki jaioak, arinki ibiliak lur eta **itsas** bideetan barrena, atzera begiratzeko astirik gabe, arinki galduak eta haizearen mende, azkenik. Felipe Juaristi

Cervera itsasontzi faxista zebilela aste guztian Hondarribiatik Zarautza bitarteko **itsasbidea** egiten, eta alferrik zela. Inazio Mujika Iraola

Duba eta Safagako portuen arteko **itsasbidea** egiten ari zen Salem Express ontzia. Berria - Mundua

Afrikako ipar-mendebaldeko kostaldera iritsi eta Sudango urrearen aldera **itsasbide** bat zabaltzeko. Koro Navarro

Brasildik Makaoraino iristen zen merkataritza-inperio baten ardatz bihurtu zen [Portugal], Afrikako bi isurialdeak, eta, horren ondorioz, Indietarako **itsasbidea** bereturik. Koro Navarro

**2** itsasaldia.

**Itsasbiderako** behar ziren janariak. Elizen arteko biblia

Gu Tirotik Ptolemaidara joan ginen, hala geure **itsasbidea** bukatuz. Elizen arteko biblia

---

itsasegi ik **itsas hegi**.

---

itsaserri ik **itsas herri**.

---

## itsasertz *(orobat **itsas(-)ertz**)* *iz* itsasoa ukitzen duen lur zerrenda. ik **itsas hegi; itsasbazter**.

Akemenestarrek etsipenez onartu behar izan zuten beren mendebaldeko anatoliar **itsasertza** galtzea. Iñaki Mendiguren

**Itsasertza** bazterrik bazter ezagutzen zuen. Edorta Jimenez

**Itsas-ertza** eta ibai-bazterra biak batera jangteagatik. Iñaki Segurola

Ozeano Barearen mendebaldeko **itsasertzetik** Baltikoaren ekialdeko **itsasertzeraino**. Iñaki Mendiguren

**Itsas ertzean** bizi den jendeak era berezi batez elkarlotzen dituela errealitatea eta fantasia. Anjel Lertxundi

**Itsasertzean** dagoen Dora hirira joan zen ihesi. Elizen arteko biblia

Eslavonia aldeko **itsasertzean** lehorreratzera behartu zuten.-Ez, **itsasertzean** ez, Hendaiatik sei bat miliatara. Ni behean nengoen, jendearen artean isilik, hondar ale bat **itsas** ertzean bezala bat gehiago multzoan. Askoren artean

**Itsasertzeko** herri batean. Harkaitz Cano

**Itsasertzeko** lerro luzeari begira egon zen, lehenik Bizkaian galtzen zen lerro hautsiari, eta gero, iparralderantz zihoan Landetako lerro zuzenari. Migel Angel Mintegi

**Itsasertzeko** errepidetik joan zen mugarantz. Migel Angel Mintegi

**Itsasertzeko** hondarra bezain ugari. Elizen arteko biblia

Seleukoren seme Demetriok Erromatik ihes egin eta Siriako **itsasertzeko** hiri batera jo zuen giza taldetxo batekin. Elizen arteko biblia

Atzo Alaskako [...] **itsasertzean** hondoa jo zuen petroliontzi batek. Berria - Gaiak

Aurreneko zelula duela ehunka milioi urte agertu zen, **itsasertzeko** lohian. Koro Navarro

Oriol, berriz, Mediterraneo **itsasertzekoa** zen. Xabier Mendiguren Elizegi

· Jauregi eroria zegoen orube hartan, **itsas ertz**-ertzean. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aldeko itsasertzean** (3); **eta itsasertzean** (4); **eta itsasertzeko** (11); **eta itsasertzeko hondarra** (3); **itsasertz osoan** (4); **itsasertzean aurkitu** (3); **itsasertzean dagoen** (5); **itsasertzeko hondarra** (7); **itsasertzeko hondarra bezain** (6); **itsasertzera iritsi** (3); **itsasertzera jo** (3); **itsasertzetik hurbil** (3); **zen itsasertzean** (3)

---

## itsasgarri **1** *izond* itsasten dena.

Zoruko estalki plastikoa altxatu, eta zementuaren pitzadurak zerrenda **itsasgarri** zabal eta sendo batez estali zituen. Juan Kruz Igerabide

Goiburu horren azpian lerro bat dago idatzita, egunero zer ordutatik zer ordutara dagoen irekita azaltzen duena, baina estali egin dute zinta **itsasgarri** batez. Oskar Arana

Zementu **itsasgarriz** eta oliozko pinturaz, aurki konpondu ahal izango da komuneko ontzia. Josu Zabaleta

Paper **itsasgarri** bat eman zion Perretteri. Jon Muñoz

Irudi **itsasgarri** batzuk eskuratu zituen andreak handik edo hemendik. Imanol Zurutuza

• **2** *iz* itsasteko erabiltzen den gaia.

Aitari esker, nire posta txartelen bilduma osoa eta nire zinemako izarren argazkiak lehendik ekarriak baitzituen, horrekin guztiarekin horma oso bat apaindu ahal izan dut, horiek **itsasgarriz** itsatsiz. Josu Zabaleta

Modu honetako nahasteak ditugu hormetako pinturetan, bernizetan, **itsasgarrietan..** . Berria - Gaiak

**3** *irud*

Bikotekideak elkar lotzen dituen **itsasgarria** da sexua. Luis Elberdin

Ulertu nuen ezin zela harekin bizi, haren izaerari eta jokabideari gizakien arteko harremanek behar duten **itsasgarria** falta zitzaiela. Ander Irizar

**4** itsasten den gauza.

Atean, **itsasgarri** bat. Jon Muñoz

---

# itsasgintza *(orobat **itxaskintza**)* *iz* itsasketa eta itsasontzi eta itsasbideekin zerikusia duten gauzen multzoa.

Barneko gunea, 7.000 m2-koa, non ikus daitezken itsas-portu, merkatu eta untzioletako gauzeriak, itsasuntzi maketak, hots **itsasgintzari** loturiko guzia... Herria

Euskal **itsasgintzari** buruzko liburu gotorra, ikerle andana eder baten fruitu. Herria

**Itsasgintzako** artxibak ikerturik [...] interesatu da gehien bat 17. mendeko euskal arrantzale eta mariñelen biziari, berezikiago itsas-lasterkarieri, eta orduko ingurugiroari. Herria

**Itsasgintza** eta lurlantza. Xabier Amuriza

---

# itsasgizon *(77 agerraldi, 31 liburu eta 8 artikulutan; ETCn 1.085 agerraldi; orobat **itsas(-)gizon** 51 agerraldi, 8 liburu eta 35 artikulutan –gehien-gehienak Herria astekarikoak-)* *iz* lanbidez itsasoan ibiltzen den gizona. ik **itsasturi**; **marinel**.

Sinbad **Itsasgizonaren** bidaiak. Juan Garzia

Arraunlari guztiek bertan behera utziko dute ontzia, marinel eta **itsasgizonak** lehorrean gelditukо dira. Elizen arteko biblia

Itsas bidaia batean xahutu nahi nuen urrea, itsasoa eta **itsasgizonak** ezagutzeko. Juan Garzia

Goretsazue, **itsas** gizon eta piztia guztiok, goretsi urrutiko bizilagunok. Tiroko errege Huramek, funtzionario batzuen bidez, itsasontziak eta **itsasgizon** trebeak bidali zizkion Salomoni. Elizen arteko biblia

**Itsasgizon** ospetsu eta zaildua zen aholkua eman zion Nelson kapitain hura. J.M. Olaizola "Txiliku"

Behar duzu alabainan frogatu **itsas-gizon** ernea eta atrebitua zirela. Herria

Norvegiako **itsasgizon** zaharrenak ere ez du sekulan halakorik ikusi. bukatu dira zazpi itsasoetako **itsas gizonen** abenturak, Txinako tabernetan muturrekoka borrokatzen ziren marinelen abenturak. Koro Navarro

Igandean, Donibane Lohizunen, Kortsario deitu **itsas-gizonen** kofradiak bere biltzarra eta besta. Herria

Baina ekaitz zakarra sortu zen eta **itsasgizonek** egun luzeetan jardun behar izan zuten arraunean gogor. Askoren artean

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta itsasgizon (3); eta itsasgizonak (3); itsasgizon bat (3); itsasgizon trebeak (3)

---

# itsasgora *(orobat **itsas gora** g.er.)* **1** *iz* itsasoaren egoera, batez-besteko maila baino gorago dagoenean. ik**marea 9; itsasbehera**; **itsasaldi**.

Itsaslaster hau itsasoaren gora-beherek arautzen dute, alegia, sei orduz behin izaten diren **itsasgora** eta itsasbeherek. Koro Navarro

Lekuka, ixurgi eskasez eta bereziki **itsas-gora** zelarik, urak ateratu dira. Herria

**Itsasgora** denean, habailetan egiten du itsaslasterrak Lofoden eta Moskoe arteko bitartea. Koro Navarro

Ibaiak ekartzen ditu, baina batzuetan **itsasgorak** ibaira itzultzen ditu. Joseba Sarrionandia

Yangtse ibaian, **itsasgorak** uhin harroak eragiten ditu. Pablo Sastre

Behin batean, ordea, behar baino gehiago luzatu zirelako bertan, **itsasgorak** ustekabean harrapatu eta kobazuloan ito ziren gazteak. Martin Anso

Morencambeko badia arriskutsua da **itsasgora** azkar igotzen delako. Berria - Mundua

Pauso bizkorrez nindoan, ezertan pentsatu gabe, **itsasgoraren** ertzetik. Josu Zabaleta

Betetzen ari da Akropolis, **itsasgora** baletor bezala. Pako Aristi

**2** *irud*

Gurutzaden **itsasgora** eta itsasbeherak. Iñaki Mendiguren

Orduan, lelotua guztiz, gelditu egin zen, bere burua abandonatu zuen batzuen bultzaden eta besteen irainen artean; olatuek jo eta **itsasgorak** hondora zeraman piltzar bat besterik ez zen izan handik aurrera. Karlos Zabala

Itsasbehera Wall Street-en, **itsasgora** Bronx-en. Lopez de Arana

30eko urteetan, Errepublikarekin berehala zapuztu eta gero, ematen du bere itxaropenak Europako **itsasgora** autoritarioan ipini dituela. Joxe Azurmendi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> itsasgora eta (5)

---

# itsasgune *iz*

Hunaindikoak ez batere ados, izaitekotz alde bat debekatu behar litakeela Bordeleko alde hortan eta hor bakarrik, antxua ardura berritzen den **itsasgune** batean. Herria

Bizkaiko Golkoan, txoko horretako **itsasgune** hori dela euri gehien sartzen denekoa. Pello Zabala

---

itsasi ik **itsatsi**.

---

# itsasikara *(53 agerraldi, 7 liburu eta 22 artikulutan; orobat **itsas(-)ikara** 17 agerraldi, 2 liburu eta 14 artikulutan)* *iz* itsas hondoan gertatzen den lurrikara olatu bortitzak eragiten dituena.

Handik beste astebetera, ordea, beste **itsasikara** batek astinduko zituen. Joan Mari Irigoien

Igandeko **itsasikarak** 132 hildako eta 150 zauritu eragin ditu. Berria - Mundua

**Itsasikarak** kaltetutako herrialdeei. Berria - Mundua

Sumatrako uhartean **itsasikarak** dozenaka eraikin suntsitu eta 27.174 pertsona hil ditu. Berria - Mundua

Historiako **itsasikararik** suntsitzaileenetako bati aurre egin behar izan zion joan den igandean. Berria - Mundua

Tsunami deitu **itsas ikara** haren desmasiak ari baitituzte gero eta gehiago xifretan ezartzen. Herria

Aurten lur-ikara batek [...] sortu du **itsas-ikara** ikaragarriko desmasiak eginez. Herria

**Itsasikararen** epizentrotik hurbil egon arren. Berria - Mundua

Igandeko **itsasikararen** erreplikak izan ziren atzo Indonesian. Berria - Mundua

Adituen esanetan, **itsasikara** 7,5 gradu baino handiagokoa denean soilik sortu ohi dira olatu erraldoiak. Berria - Mundua

Lur eta **itsasikara** izigarri harekin. Herria

Herio musika jotzaile aparta da, tresna guztiak bereak dira, tximista eta ostots, lurrikara eta **itsas** ikara, sumendi eta Jainkomendi, suzko eta berunezko su, hari eta altzairu. Felipe Juaristi

Iruditzen zitzaidan ezen bizitzaren gauzarik behinenek beren bideari jarraitzen ziotela, geldiezin, gure ahaleginen gainetik, uholde batek edo **itsasikara** batek bezala arrastaka eramaten gintuzten bitartean. Juan Kruz Igerabide

Baina Montse uholde bat zen, esana dut, eta ezer gutxi zezakeen ni bezalako intxaur-azal batek **itsas ikara** hari aurre egiteko. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **beste itsasikara** (3); **itsasikara bat** (3); **itsasikarak kaltetutako** (5); **itsasikararen eraginez** (3)

---

## *itsasketa*[1] **1** *iz* ontzi batean itsasoz ibiltzea. ik **nabigazio**.

Ateneak irakatsiak zizkion astronomia, matematika, arkitektura, **itsasketa,** medikuntza eta "beste arte hagitz baliagarri" batzuk. Juan Garzia

Hamar eguneko **itsasketa** hartan. Koldo Izagirre

Itsas zabaleko **itsasketan** ontziak probatuak zituztenek. Iñaki Mendiguren

Era horretan, zabalik geratu zen Flandriako eta Ingalaterrako bidea, **itsasketaren** aurrerapenei esker laster ustiatu ahal izan zena. Koro Navarro

Eskaintzak ziren, Bonantzako Kristori egindako otoitz-erreguak, ontziek **itsasketa** ona egin zezaten. Koldo Izagirre

Karlos II.ak Normandia aldera egin zuen 1355eko **itsasketa** sonatuan. Patziku Perurena

Pfenning berri hura sakelatik atera eta beha gelditzen nintzen, eginak nituen **itsasketa** gaitz guztiak gogoan. Koldo Izagirre

Mendebaldeko Kristau Zibilizazioak **itsasketa** ozeanikoaren teknika menderatu zuen arte. Iñaki Mendiguren

Britainiar ***Itsasketaren*** *Legeak* delakoan azaldu zen merkantilismoaren nolakotasun agresiboa. Koro Navarro

**2** (hitz elkartuetan) ik **nautiko**.

**Itsasketa** ikasketak egiten ziharduen. Edorta Jimenez

Merkataritza ontzietako kapitaina, Deustuko **Itsasketa** Eskolako irakaslea. Edorta Jimenez

Arrantzontzien eta **itsasketa** ontzien argazkiak ageri ziren paretetan. Koro Navarro

Agian Frisiako itsas marka-gizonengandik ikasia zuten ontzigintza eta **itsasketa**-teknikari hain probetxu ona atera ziotenez, itsasoko agintea eskuratu zuten. Iñaki Mendiguren

Zaldiz borrokatzeko frankoen antzea frisiarren **itsasketa**-antzea bezain ongi ikasia baitzuten. Iñaki Mendiguren

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itsasketa ozeanikoaren** (3)

---

## itsasketa[2] *iz* itsastea.

Batzuek ohiko kartel **itsasketak** egin zituzten arazorik gabe, eta beste batzuek arazoekin. Berria - Euskal Herria

EAEko Legebiltzarrerako hautagai gehienek jada ohiko bihurtu den **kartel** itsasketaren bidez abiatu zuten bi aste pasatxo iraungo duen lasterketa. Berria - Harian

---

## itsasketari *iz* itsasketak egiten dituen pertsona.

Espainian ez bezala, "zakurrak elizan edukitzeko eskubidea" zabaldua baitzen Bretaña, Ingalaterra, Flandes eta Ipar Europako elizetan, eta euskal **itsasketariek** ekarri zutela uste da. Patziku Perurena

Shetlandeko **itsasketariek** oraindik ere haizea erosten die, korapildutako zapi edo soka gisan, ekaitzak menperatzeko ahalmena omen duten emakume zaharrei. Patziku Perurena

---

## itsaski[1] **1** *iz* zernahi itsas ornogabe jateko ona, bereziki oskoldunak eta moluskuak.

**Itsaskiek** duten hezurrezko estalkia gorputzaren kanpoaldean dago. Irene Aldasoro

Eguneroko dietan, berriz, artifizialki ekoitzitako arrain eta **itsaskitik** geroz eta gehiago. Edorta Agirre

Izozturiko arrain eta **itsaskiei**. Edorta Agirre

Itsasoa ezagutzen ez zuten eta **itsaski** gatzaturik jaten ez zuten jendeak aurkitu arte. Juan Kruz Igerabide

Haitzetan alderrai ibiltzen ziren, eta **itsaskietatik** eta indigenekiko salerosketaz lor zezaketen gari apurretik bizi ziren. Juan Garzia

Jatetxe asko ere aipatzen dira, bereziki arrain eta **itsaskiari** emanak direnak. Herria

**Itsaskiz** beteriko hostorea, onttozko moussea eta ez dakit zenbat gauza gehiago atera ziguten. Xabier Mendiguren Elizegi

Kanabera bat eta txiki-txiki egindako **itsaski**-buruen apasta on bat. Anjel Lertxundi

ICESek 135 arrain eta **itsaski** espeziei egiten die jarraipena. Berria - Mundua

· Badaezpada, aldez aurretik egin zuten jaia zaleek joaneko bidaian ez ziren faltatu Cava, **itsaskia,** kantuak.... Berria - Kirola

**2** ***itsaskitan***

Bertan behera utzi dute EAEn **itsaskitan** ibiltzeko debekua. Berria - Euskal Herria

**Itsaskitan** ari ziren 19 immigrante hil dira itota. Berria - Mundua

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itsaski** (5)

---

## itsaski[2] *iz* itsasgarria, lekeda.

Eskutitz zorroak itxi egiten dira txisturik eman gabe, zorroaren **itsaskia** busti egiten delakotz. Gotzon Garate

Ontzia, **itsaskia** hautsiz, beste ertzerantz zihoan. Pablo Sastre

Koko azala bete **itsaski** edan baietz. Gotzon Garate

---

## **itsaski**[3] *iz* itsasoa gorabehera handiz inarrosten duen higidura; meteorologian, 1.25 eta 2.50 metro bitarteko uhinak dauden itsas egoera.

Inbasioa oso ongi doa, eguraldia txarrik txarrena bada ere, sekulako ekaitz, euri jasa eta **itsaskiarekin** . Josu Zabaleta

Eta ez da besterik izango, arnasa mugimendu geldiak baizik, landetako maindire zurrunen azpian, itsasoan, ekaitzaren ondoren, **itsaski** hondar bat bezala. Josu Zabaleta

Badia bateko ur arbeltsu hilak ikusten zituen, **itsaskiaren** higidura urrunak ozta-ozta inarrosten zituenak. Karlos Zabala

---

## **itsaskirri** *iz* itsaski arina; meteorologian, 0.5 eta 1.25 metro bitarteko uhinak dauden itsaso egoera.

**Itsaskirria** izanen da eta olatuak nabarmenak izanen dira atrakalekuan. Joseba Sarrionandia

---

## **itsaskor** 1 *izond* berez edo erraz itsasten dena.

Bikearen kolorekoa eta bikea bezain **itsaskorra** du ilea. Anjel Lertxundi

Munduko gauzarik **itsaskorrena** da hazia, ez da hala? Aingeru Epaltza

Zakil bat zurrupatu nahi du eta haren isuri **itsaskorra** eztarria bustitzen sentitu. Karlos Zabala

Kola gris **itsaskorraren** antzeko zerbaitez estalita zegoen. Iñaki Mendiguren

Zerrenda **itsaskorra** ipini nuen zirrikituan. Juan Kruz Igerabide

Hankak zinta **itsaskorrez** loturik. Gotzon Garate

Eskaileretan behera, baranda **itsaskor,** dardartiei helduta, kulunka eginez zoruko lauza zabukarietan. Koro Navarro

Esku hil eta **itsaskor** bat atera zuen kapa azpitik. Iñaki Mendiguren

Ellenek globoen hariak ipini zituen txapel gorriko hiru neskato tximino-aurpegidunen esku zikin-**itsaskorretan** . Lopez de Arana

Gailu **itsaskor** batzuk erabiliz, nahi erara apain daitezke Tetrak, posterrekin edo are koadroekin ere. Iban Zaldua

Gogaiturik nindukan lur **itsaskor** eta bigun hark. Juan Garzia

Momentu bat eta paper tolestu horren barruko edukia ez da existitzen, zainetatik dabilkit, hegal artifizialak ematen dizkit basatza **itsaskor** honetatik alde egiteko. Sonia Gonzalez

Bero **itsaskor** kiskalgarriaren antzeko zerbait. Txillardegi

Zauriok [...] zornatu egiten ziren, eta **itsaskor** bilakatu: hala, denbora igaro ahala ezin genituen zapatak ere askatu, ezin ziren erantzi, oinetara itsasten ziren, gorputz atal berriak ziren, oinetan haziak. Urtzi Urrutikoetxea

Beltz eta **itsaskor** dirauen lohiaren erdian. Karlos Zabala

**2** *irud*

Jendea atsegina da baina ez **itsaskorra;** nolabaiteko tartea gordetzen dute. Xabier Olarra

Meritua azalduko zaio, kontzeptu madarikatu eta **itsaskor** legez. Lander Garro

Oroitzapen **itsaskor** hori. Josu Zabaleta

Ukitu epel, umel eta apur bat **itsaskorra** sentitu nuen. Urtzi Urrutikoetxea

Hatsaren eta zerabilen perfume **itsaskorraren** nahasketa barru-barruraino sartu zitzaion Maizari. Migel Angel Mintegi

Sargori sapa **itsaskorraren** aztarnarik ez. Txillardegi

Gau tropikala, beroa eta **itsaskorra** . Joseba Sarrionandia

Eguraldi likits eta egurats **itsaskorra** . Joxe Austin Arrieta

Ganduaren gisako isiltasun **itsaskorra** hedatu ohi zen bat-batean ikasgela osoan. Imanol Zurutuza

**3** (abesti eta kidekoetan)

Surfari, autoei eta neskei buruzko abesti **itsaskor** eta sinple samarrak. Berria - Kultura

Haren proposamena *mainstream* kutsuko pop melodia **itsaskorretara** mugatzen zen. Patxi Iturritegi

Soinu **itsaskor** tematia, belarrietatik sartu eta burmuinetan geratu zitzaiena. Felipe Juaristi

*Catch my disease* single **itsaskorrak** . Berria - Kultura

Goldweiserren esaldi **itsaskor** eta gozoetan gatibu. Lopez de Arana

**4** kutsakorra.

Gaitz **itsaskor** horren kontrako beste erremedio guziak pasakorrak edo alferrikakoak baitira. Patziku Perurena

**itsa** *iz* itsaskorra denaren nolakotasuna.

Orain ere, asko aldatzen da pistaren **itsaskortasuna** goizean goizetik arratsaldera. Berria - Kirola

Espektakuluaz bastante nekaturik, handik alde egitekotan nengoen; hala ere, ipurdiaren **itsaskortasunagatik** edo zerbait hobea ikusteko irrikaz, bertan geratu nintzen azken momentuan, fedea ez baita hain erraz galtzen. Xabier Mendiguren Elizegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itsaskor** (6); **eta itsaskorra** (3); **itsaskor eta** (3)

---

## **itsaslabar** *(35 agerraldi, 8 liburu eta 12 artikulutan; orobat* ***itsas(-)labar*** *10 agerraldi 8 liburutan)* *iz* labarra.

Itsasadarreko bokaletik gertu zeuden hondartzak eta **itsaslabarrak** . Joxemari Iturralde

Jaizkibelgo **itsaslabarren** magalean. Berria - Euskal Herria

Egeo zaharra zain dago, **itsaslabarraren** ertzean, Teseo semea bizirik ala hilik itzuliko ote den. Juan Kruz Igerabide

**Itsaslabarraren** gainean dagoen txalet bat. Anjel Lertxundi

**Itsaslabarretan** egiten du habia eta planktona du elikagai. Sekulako kolpe batez bide-bazterreko burdinazko hesia hautsirik, **itsaslabarrean** behera erori nintzen amilka. Anjel Lertxundi

Irudi guztiz heteroklitoen videoclip baten gisa oroitzen dut orain **itsaslabarrean** beherako erorialdia. Anjel Lertxundi

Baina handik ez da oihurik atera, mina zabaldu da, laino itxia **itsas** labarretan bezala. Felipe Juaristi

Hudson ibaia ikusten zen, arrastiriak zilarreztaturik, bai eta Manhattango etxeek eratzen zuten **itsas-labar** zuria ere. Lopez de Arana

**Itsas labarren** ertzean banindoa bezala sentiarazten zidan zerbaitek. Juan Kruz Igerabide

Bularrak heriotzari dei egiten dio ezerezaren **itsas labarrean** . Aritz Gorrotxategi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

---

**itsaslamina** (g.er; orobat **itsaslamia** g.er. eta **itsas(-)lamia**) *iz* itsasoan bizi den lamina. ik **sirena**.

**Itsas lamiak,** edo lehorrekoak, galbidea dira gizasemearentzat, sirena kantaren lilurak hondamendira darama marinela. Joxean Sagaztizabal

Ipar itsasoetan, Thule inguruko ur hotzetan, egun baino askoz **itsas lamia** edo sirena gehiago omen zegoen Harald erregearen garaian. Martin Anso

**Itsas-lamiek** barne-hezetasuna zurrupatu eta azal huts bihurtu zutela kapitaina diote zenbaitek. **Itsas-lamiak** arrain-ahoz xukatu zizkidan begiak. Harkaitz Cano

Marcosen belarri ondotik, **itsas lamia** batek baino adats luzeagoa zuen eulitzar bat pasatu zen zortzigarrenez. Unai Elorriaga

**Itsas lamia** beltzaran bat ageri zen irla txiki baten ondoan. Paddy Rekalde

Eta hodei baten gainean etzanda **itsaslamia** bat, bular oparoen jabe. Paddy Rekalde

**Itsaslamiaren** baten herdoilezko kantu etorkizunez fosildua. Joxerra Garzia

Horixe zen funtsezko bakarra eta horrixe behar lotu, boz ustez prestuaren **itsas lamien** kanta zorarazle orori sorgor. Aingeru Epaltza

---

**itsaslapur** *(19 agerraldi, 6 liburu eta 2 artikulutan; ETCn 219 agerraldi; orobat **itsas(-)lapur** 25 agerraldi 6 liburu eta 3 artikulutan; ETCn 75 agerraldi)* **1** *iz* lapurretan egiteko itsasontziei erasoz bizi zen pertsona. ik **pirata**; **kortsario**.

Afrikako kostaldean kortsario lanetan zebiltzan **itsaslapur** musulmanek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Baina zein zen maltzurkeriarik gabeko eskua **itsaslapur** eta beltz-tratularien herri hartan? J.M. Olaizola "Txiliku"

Gudukak zirelarik pizten erresumen artean, erregearen manuz itsas gizonak bilakatzen ziren **itsas lapur**; saratar asko bide horri ziren jarraiki. Herria

Zeren urte luzeetan izan baitzen Trinidadeko uhartea **itsas** lapur ingeles eta holandesen habia. Joan Mari Irigoien

Atxiki ninduen **itsas** lapur begibakarrak paparretik, eta irriz erran zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Emakumea Sidonen jaioa zen; **itsaslapur** batzuek bahitu, eta Eumeoren aitari saldua zioten. Juan Kruz Igerabide

**Itsas lapurren** atzaparretarik libratu gintuen. Joan Mari Irigoien

Lehen greziarrak **itsaslapurrak** ziren denak. Iñaki Iñurrieta

**Itsaslapurren** uhartea baitzen Hispaniola. Juan Garzia

**2** *hed*

XXI. mendeko piratak dira, zientziaren izenean, eurenak ez diren baliabide genetikoen jabe egin nahi duten **itsaslapurrak**. Berria - Gaiak

**3** (hitz elkartuetan)

Beste batzuk, ordea, langile "autonomo" gisa aritzen ziren [...] eta kortsario izen estimatu hura izan beharrean pirata edo **itsaslapur** deitura mespretxuzkoa eraman behar izaten zuten. J.M. Olaizola "Txiliku"

· 1570etik aurrera iparraldeko merkatari- **itsaslapurrek** sistematikoki ostu zituzten Mediterraneoko herrialdeak, haien aberastasunak beretuz eta, haien produktuak imitatzen eta faltsutzen baitzituzten, industria hondoratuz. Koro Navarro

---

**itsaslapurreta** *(orobat **itsas lapurreta**)* **1** *iz* itsaslapurren jarduera.

Alde bakarreko gertakariak ditugu mintzagai, hala nola ehiza, bidelapurreria edo **itsaslapurreta,** *trade*-tik baino areago, *raid*-etik gertuago zeudenak. Koro Navarro

AEBekin borrokatu zuen britaniarren aurka, eta modu horretan agintarien barkamena jaso zuen, baina hura amaituta, **itsas lapurretari** ekin zion berriz. Berria - Kultura

Izan ere, **itsaslapurretari** behar duen garrantzia eman behar zaio, militarra nahiz intelektuala. Koro Navarro

Han, Campeachy izeneko herri batean, antolatu ziren [Laffittetarrak) edozein langintzatarako: kontrabandoa, **itsas lapurreta**, kortsario lanak, beltz esklaboen garraioa... J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** ***itsaslapurretan*** *adlag*

Hurrengo urteetan aberastasun asko eskuratu zituzten Janssenen aginduetara **itsaslapurretan** aritutako marinelek. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**itsaslaster** *(orobat **itsas laster** g,er.)* *iz* itsasoan gertatzen den urlasterra.

Tenperaturak gora egin dezake Iberiar penintsulan, Lurraren berotze orokorra dela eta, baina baliteke, halaber, tenperaturak behera egitea golkoko **itsaslasterraren** moteltzeagatik. Berria - Gaiak

Hego Pazifikoko *El Niño* **itsaslasterraren** eraginak Europaraino heltzen direla ondorioztatu du Suitzako klimatologoek eginiko ikerketa batek. Berria - Gaiak

Itsasgora denean, habailetan egiten du **itsaslasterrak** Lofoden eta Moskoe arteko bitartea. Koro Navarro

**Itsaslaster** hau itsasoaren gora-beherek arautzen dute, alegia, sei orduz behin izaten diren itsasgora eta itsasbeherek. Koro Navarro

**Itsaslasterra** gogorrenean dagoenean, eta ekaitz batek areagotzen badu lasterraren indarra, arriskutsua izaten da norvegiar milia bat baino barrurago sartzea. Koro Navarro

Goiz tamalgarri hartan mendebalderantz zihoan **itsas lasterrak,** Kon-Tiki almadia 4.300 milia Ozeano Barean zehar eraman zuenak, orain Raroia uharrietarantz zeraman. Iñaki Mendiguren

Antarktikako izotz barreratik askatutako zatiak direla, eta handiak izan daitezkeela, eta jitoan datozela haizeak baino gehiago **itsaslasterrak** bultzaturik. Joseba Sarrionandia

Olatuen, ur azpiko **itsaslasterren** eta haizearen mende. Berria - Harian

---

**itsasleize** *(corpusean **itsas leize** soilik)* *iz* itsas hondoan dagoen leizea.

**Itsas** leizea zure aurka altxarazi eta ur handiek estaliko zaituztenean. Elizen arteko biblia

**Itsas** leizea itxi nuen, haren urlasterrak eta ur handiak geldiaraziz. Elizen arteko biblia

Ura leporaino heldu zitzaidan, **itsas leizeak** inguratu ninduen, itsas belarrak buruan bildu zitzaizkidan. Elizen arteko biblia

Zuhaitzik ezin da, bada, zeruan egon, ez hodeirik **itsas leizeetan,** ez arrainik lehorrean bizi. Xabier Amuriza

---

**itsasmuga** *(corpusean **itsas muga** soilik)* **1** itsas barrutiaren muga. *iz*

Wessex-eko erresumaren **itsas mugetan**. Kanarietako Legebiltzarrak **itsas mugak** kontrolatzeko eskatzea erabaki duela. Iñaki Mendiguren

**2** itsasoko zerumuga.

Zirkulua ezarri du **itsas** mugan, argia eta iluntasuna bereizteko. Elizen arteko biblia

Nahiz argiaren sorlekurantz hegaldatu, nahiz mendebaldeko **itsas** mugetan kokatu. Elizen arteko biblia

**itsasmutil** *(orobat **itxasmutil** g.er.) iz* itsasontzietan mutil gisa aritzen den gaztea.

Goio aparte uzten zuten, kaletarra zela, edo **itsasmutila** zela, edo sehaskakoa zela oraindik, ez zioten baserriko beharrik egiten egundo uzten. Joseba Sarrionandia

-Tira ba, gizontxook -esan zuen, indarrez-, zuetako sei oholean paseatuko dira gaur gauean, baina bi **itsasmutil** behar ditut. Julen Gabiria

**Itsasmutilak** ekipajea metatzen ari ziren eskaileren behealdean. Lopez de Arana

Azken hoeita hamar urteak Hinman-en eta White Star Lines-en eman ditut **itxasmutil** -lanetan, eta oain zarra naizenez, bota ein naute. Lopez de Arana

---

**itsaso** *(orobat **itxaso** g.er.)* **1** *iz* Lurraren azalaren zatirik handiena estaltzen duen ur gazizko hedadura zabala.

Lehorrari "lur" eman zion izena eta ur-multzoari **"itsaso"** . Jose Antonio Mujika

Iparraldeko itsasoan eta Baltikoan, [...] **itsasoa** ez da guztiz **itsasoa** eta lehorra ez da guztiz lehorra. **Itsasoa** gogorra eta gaiztoa izaten da askotan, egia, baina oihu egiten du, garrasi egiten du, leiala da-eta itsaso handia; ibaia ordea, isila da eta maltzurra. Joseba Sarrionandia

Zuk egin zenituen zeru-lurrak eta **itsasoa,** eta horietan bizi diren guztiak. Elizen arteko biblia

Hodeiak pilatu eta **itsasoa** astindu zuen, eskuan hiruhortzekoari eutsirik. Juan Kruz Igerabide

**Itsasoa** zeharkatu eta Persefoneren lurraldeko basora iritsiko haiz. Juan Kruz Igerabide

Israeldarrek lehorbide horretatik igaro zuten **itsasoa** . Jose Antonio Mujika

Lurra baino luzeagoa da, **itsasoa** baino zabalagoa. Elizen arteko biblia

Haren garaian egin zen urtegia, **itsasoa** bezain urtegi zabala. Elizen arteko biblia

Begira emakumeen begi urdinak, **itsasoa** bezain sakonak. Josu Zabaleta

Nire maitasuna **itsasoa** bezain zabala da. Jose Morales

**Itsasoa** labar ilunak astintzen ikusiko duzu istriborreko bandan. Joseba Sarrionandia

**Itsasoa** biziki haserretu zen, ontzia lehertzeko zorian jarriz. Elizen arteko biblia

Haizeak **itsasoa** harrotu, hauspotu eta bere onetik atera nahian ekin zion. Felipe Juaristi

Zer egin behar dizugu orain zuri, **itsasoa** baretu dadin? Jose Antonio Mujika

Norbait juduberri egiteagatik **itsaso** eta lehor zabiltzate, eta egin duzuenean, zeuek baino gaituago bihurtzen duzue infernurako! Elizen arteko biblia

Ogia **itsaso** -kolorekoa dun / goseegi nagon jateko. Anton Garikano

**Itsaso** ardoa bezain gorrian zehar noak neure gizonekin Temesako hirira. Juan Kruz Igerabide

Bazakiat zenbat lan nozitu duzuen **itsaso** arrainez betean. Juan Kruz Igerabide

Panormoko kairaino, nondik, **itsaso** kolore sakonez tindatuaren gainean, Samos-en lerro gandutsua ikusten baitzen. Juan Garzia

Hara heltzeko hiru urtetan zehar hamaika **itsaso** nabigatu behar baitziren itsasontzi handi batean. Xabier Mendiguren Elizegi

Nabigatu gabeko **itsaso,** zeharkatu gabeko basamortu edo gainditu gabeko mendikateren baten forman. Iñaki Mendiguren

Argi baltsa bat urrutian, **itsasoa** mareabeheran. Monika Etxebarria

Bazituen erregeak **itsasoan** ur handietarako merkataritza-ontziak. Elizen arteko biblia

Gau-egun osoa eman nuen **itsasoan** galdurik. Elizen arteko biblia

**2** *pl*

Gorets bezate zeru-lur eta **itsasoek** eta bertan bizi diren guztiek. Elizen arteko biblia

Munduko **itsaso** eta ozeanoak ez dira ez zabortegiak, ez baliabide naturalen iturri agortezinak ere. Berria - Gaiak

Nahi duen guztia egiten du Jaunak zeru eta lurrean, **itsaso** eta ozeanoetan. Elizen arteko biblia

**Itsasoetan** petrolioarekin, esaterako, gertatzen diren hondamen ekologikoak. Pello Salaburu

Gutzi-guztiek gizakiarentzat latz diren lekuetan izan zuten sorterri, edo zehatzago esatearren, garai batean [...] oso bakarti eta mortu ziren desertu, mendi eta **itsasoetan**. Bernardo Atxaga

Hiri birrinduetan eta **itsaso** galduetan. Edorta Jimenez

Ondorioz, glaziarrak urtu eta **itsasoek** gora egiten dutenean, euren etxeak utzi eta barnealdera egingo dute ihes milioika pertsonek. Berria - Gaiak

**Itsasoetan** barrena dabil oraindikanen, damurik. Koldo Izagirre

**3** (izenondoekin)

Mendiak bezain gora dira, olatu horiek, guztiak desberdinak, ondokoa ez bezalakoak, **itsaso** amorratua bezala jasoak, baina hura baino handiagoak oraindik. Josu Zabaleta

Zuk menperatzen duzu **itsaso** arranditsua, zuk baretzen uhin harrotuak. Elizen arteko biblia

Udaberri kanta bat entzungo da izotzezko **itsaso** basamortu horren gainean. Joseba Sarrionandia

"Eromena" deitu ohi den **itsaso** beldurgarri, haserrekor, uhin harroz, lainoz, ekaitzez bete horretan galtzen zen haien pentsamendua. Josu Zabaleta

**Itsaso** bixi haserre-tankerako batean. Iñaki Segurola

Agian **itsaso** eguzkitsuetatik jasotako euri gozoren baten azken arrastoa zen. Agustin Otsoa

Marseilla, nahitaezko aterbe **itsaso** ekaiztsu baten erdian. Iñaki Iñurrieta

**Itsaso** estu eta harkaitzez bete baten bazterrean bizi zirenez. **Itsaso** gaiztoa bezala, asaldaturik, egonezinik daude. Iñaki Iñurrieta

Arkua zubian bezala, oihalontzia **itsaso** geldian bezala. Felipe Juaristi

**Itsaso** gozoaren usaina du, azukrezko itsasoaren usaina. Felipe Juaristi

Izkinadatik hurbil jarraituko duzue itsasketa, harri hegalen masa iluna luzatuko da **itsaso** grisaren gainean istriborreko bandatik. Joseba Sarrionandia

**Itsaso** haserre, mutu eta geldi horren gainean. Josu Zabaleta

**Itsaso** haserrea zeharkatzeko asmoz ontziratzeko dagoela. Elizen arteko biblia

Txalupa txiki bat **itsaso** haserrean bezala. Fernando Morillo

Irudimenaren **itsaso** hondogabetik. Iñaki Segurola

Hitzak, une hartan, bustita zetozelako, **itsaso** ilun eta sakon batetik irtendako antxetak bezala. Felipe Juaristi

Bigarren mailako itsasoa baita, **itsaso** itxia. Felipe Juaristi

O, **itsaso** izugarria! Koro Navarro

Hegomendebaldeko haizeak eta behelaino zerrendek, **itsaso** izurtuak eta lanbro iraunkorrek. Joseba Sarrionandia

**Itsaso** lanbrotsua doi-doi argitzen zen pittin bat. Txillardegi

Popa aldetik galduko dira **itsaso** luze, zabal, sakonean. Joseba Sarrionandia

Iratzederren poesian **itsaso** materialetik **itsaso** metafisikora zuzenki doa bidea, metaforaren bidez: Jainkoa da **itsaso** mistiko. Ana Urkiza

**Itsaso** mediterraneoetan uharte maite baten bila dabilen ontzi galdu batena. Juan Garzia

Urruti, **itsaso** misteriotsu eta itsasbazter ziurgabeekin. Iñaki Mendiguren

Beren ahotsak ozen entzuten ziren **itsaso** mortuan etzaten ari zen eguzkiaren argitara. Josu Zabaleta

**Itsaso** mugaezina dago beherago, harantzago. Jenaro Garate

Sekula amaitzen ez den itsasoraino, **itsaso** nahasi eta haserreraino. Felipe Juaristi

Gure izpiritua **itsaso** bat da hitzezko arrainak bertan ibil daitezen. Bernardo Atxaga

**Itsaso** Ozeanoan barna uharte horietarik eguzki sartzera buruz joanez. Aurelia Arkotxa

Hondoratuak **itsaso** sakon beltzean. Felipe Juaristi

Ez zuen ezein **itsaso** urrunetan galdua, ezta loriazko gerraren batean ere. Edorta Jimenez

**Itsaso** urrunen batetik datozen uhinek. Koldo Izagirre

Eskozia aldean, **itsaso** zakarrena duten parajeetan. Pello Zabala

**4** hedadura horren zati jakina, eskualde batean aurkitzen dena.

**Itsaso** hori arakatzera joan zen, Indietakoa arakatu zuen bezala. Iñaki Iñurrieta

**Itsaso** berekoak gaituk. Paddy Rekalde

Hainbat **itsaso** eta ia kontinente oso bat zeharkatu ostean. Xabier Montoia

Nola ez daitekeen ontziz **itsaso** hori gurutza, ez daiteke ere jakin zer den **itsaso** horren bertzaldean. Aurelia Arkotxa

Londresetik abiatu eta Kantauri **Itsasoa** iragaiten da Fisterra parean. Felipe Juaristi

Kaspio **itsasoa** Ponto Euxinotik bereizten duen partea. Iñaki Iñurrieta

Mendebaldeko muga Mediterraneo **itsasoa** izango da. Elizen arteko biblia

**Itsaso** Atlantikoa maparen erdi erdian. Joseba Sarrionandia

Ipar **Itsasoko** ur beti hotzetan harturiko bakailao gazitua. Felipe Juaristi

**Itsaso** Baltikoa ez da Atlantikoa, eta XVIII. mendeko errusiar bela-ontzia ez da XX. mendeko brasildar zama-ontzia. Jon Muñoz

Hurrena, Atlantiko **Itsasoa** zeharkatu eta Riora, bertan sukurtsala baitu konpainiak Irlandako **itsaso** berde sakona. Felipe Juaristi

Txinako **itsasoko** herrialdeek. Koro Navarro

Sokoa edo Donibane aldeko **itsaso** harro bizia. Xabier Montoia

**5** (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa) ik **itsas**.

Ongi aditzen zen soro helduen usain gozoa eta uhinek hondartzan utzitako belarren **itsaso** usaina. Josu Zabaleta

**itsaso** lanetan zaildutako mutilak denak. Felipe Juaristi

Amerikar kontsulatuak zerrenda hori aztertu eta **itsaso**-konpainiari itsasontziak zein marinelekin ezin nabigatu duen ohartarazten du. Edorta Jimenez

Lehenbizikoak zerikusi zuzena du dauden **itsaso**-baliabideekin. Jon Alonso

Jendeak uharteen arteko **itsaso** hutsuneak hurbilduko dituzten zubiak eraikiz agortzen du bere bizitza osoa. Aritz Gorrotxategi

Misio buruak, berriz, Kubako **Itsaso** Ontzidiaren aholkulari jardungo du. **Itsaso**-seguritateko agentearentzat. Edorta Jimenez

Denen goi-buruzagitza Estatu Batuetako Navyren **Itsaso**-Mugaldeetako komandantearengan izango delarik. Edorta Jimenez

Denbora gutxi barru, zeru-lurrei eta **itsaso**-lehorrei dardara eragingo diet. Elizen arteko biblia

**6** *irud*

Merkatuko lurra lohi likidozko **itsaso** bihurtzen ari zen. Karlos Zabala

Lainozko **itsaso** bat, erraiten den bezala. Piarres Aintziart

Pico Urrielluren oinarrira iritsi ginen egunean, hodei-**itsaso** bat ageri zen gure oinen parean. Juan Kruz Igerabide

Iritsi ginen ekintza-lekura, Walt Whitman-ek kantatutako belar-**itsaso** horietako bat. Joxean Sagaztizabal

Zabor-**itsaso** bat ni irentsi beharrean zegoen. Aingeru Epaltza

Zeru-lurrak gar-**itsaso**. martini-**itsaso** gozoak. Fernando Rey

Isiltasun **itsaso** betidanikotik / irten ginen. Pako Aristi

Nahigabe-**itsaso** baten aurka altxaturik. Juan Garzia

Hastean, nora ezean haztamuka ibili ondoan, azkenean ikerketa-**itsaso** batean murgildu nintzen. Aurelia Arkotxa

Gure literaturaren **itsaso** barean dezenteko olatuak harrotu zituen nobela bat. Joxean Agirre

Topikozko **itsaso** batean itotzen zarete. Jon Alonso

**Itsaso** jainkozkoa da maitasun sendoari erantzunez gainez egina. Joan Mari Lekuona

Gorputzeko ehunak bustiko zituen barne-**itsaso** bat garatu zuen. Irene Aldasoro

Banderatxoen **itsaso** bat osatu behar omen dugu. Anjel Lertxundi

Eta kapelak ikusten ditut, **itsaso** bete kapela. Monika Etxebarria

**Itsaso** bete orrialde, beraz. Edorta Jimenez

Nik nire hatua eta ontziburuak **itsaso** beteko haserrea generamala. Edorta Jimenez

**7** ***itsasoko*** ik **itsas**.

**Itsasoko** parke eolikoak Europa osoa hornitzeko gai izan litezke. Berria - Gaiak

**Itsasoko** gai toxikoek mutazio genetikoak eta minbizia eragiten dizkiete bertakoei. Berria - Gaiak

Azidotasun horrek **itsasoko** espeziei egiten dien kalteaz. Berria - Gaiak

**Itsasoko** azidotasunak eta ozeanoen berotzeak ondorio larriak ekar ditzake, bai **itsasoko** espezientzat eta ondorioz, baita lurrekoentzat ere. Berria - Gaiak

**Itsasoko** kutsadurarenkausa nagusiak. Berria - Gaiak

**Itsasoko** salbamendu taldeak jakinarazi duenez. Berria - Euskal Herria

**Itsasoko** segurtasuna hobetzeko zenbait neurri onartu zituen atzo Europako Legebiltzarrak Estrasburgon egin zuen bileran. Berria - Gaiak

Richard Tesore SOS **Itsasoko** Faunaren Erreskaterako Erakundeko burua da. Berria - Gaiak

**Itsasoko** Biziaren Errolda (COML). Berria - Gaiak

Ertzaintzaren artezilariak Mutrikuko **Itsasoko** Gizarte Institutura joan ziren. Berria - Euskal Herria

Vigoko **Itsasoko** Ikerketarako Institutuko zientzialarien arabera. Berria - Gaiak

Bertan **Itsasoko** Ingurumena Babesteko Batzordea osatu zen. Berria - Gaiak

**8** *itsaso azpi* ik **itsas azpi**.

**9** ***itsaso bare*** bare dagoen itsasoa.

Feaziarrek arraun egingo ditek **itsaso** barean, hire etxera edo nahi duan lekura iritsi arte. Juan Kruz Igerabide

**Itsaso** barearen distira. **Itsaso** barez jo zuten Hispaniola, eguzki kiskalgarri baten pean. Juan Garzia

Marinelak aurrera egiten du bere itsasaldi luzean, presarik gabe, egun gazi, geza eta gozoekin, noiz **itsaso** barean noiz ekaitztsuan. Patxi Zubizarreta

Baina zer litzateke adiskidantza ika-mikarik gabeko **itsaso** barean? Pako Aristi

**10** ***Itsaso Bare*** Ozeano Barea.

Pazifiko edo **Itsaso Bareko** uharteetan, Java eta horietan. Pello Zabala

Lau egun geroago **Itsaso Barean** itsasoratu ziren eta gero Honolulura eraman zituzten ontzi batean. Pello Salaburu

Sententzia horrek Afrikako, Karibeko eta **Itsaso Bareko** herrialdeei ere eragin diezaieke. Berria - Harian

Juan Ignacio Silesek Boliviako Atzerri ministroak atzo adierazi zuenez, **Itsaso Barerako** sarrera berreskuratzeko hitzarmena sinatzea proposatuko dio Txileri.

Orduan denentzako galeriatik kendu eta **Itsaso** Bare handitik ekarritako zohi baten kontra ur hari bat murmurka doan beirazko gelatxo batean sartzen dut. Josu Zabaleta

**11** ***itsaso beltz*** (*orobat* ***itsas beltz*** *g.er.*) kolore beltzeko itsasoa.

**11 *itsaso beltz*** *(orobat* ***itsas beltz*** *g.er.)* kolore beltzeko itsasoa.

**Itsaso beltza** gora doa. Lutxo Egia

Zikindu eta lokaztu duen elur beltza, haize zirimolak harrotu duen **itsaso** beltza. Felipe Juaristi

Gauaren **itsaso** beltza urratzen zuen faro gisako hura ikustean. Patxi Zubizarreta

Gozo zetorren udazkena, eta zakar **itsaso beltza**. Iñigo Aranbarri

Eta zuk **itsaso beltz** irenslearen aurrean geldirik aurkitu zenuen zeure burua, bakarrik. Eider Rodriguez

· Eta nire gogoak denboraren **itsaso beltzetan** nabigatu zuen, antzinako nire herrikide haren buruan barrentzen ahaleginduz. Alberto Ladron Arana

Memoriaren minak / **itsas beltzetako** / uharte isiletan urtzen / direlarikan... Anjel Lertxundi

**12 *Itsaso Beltz*** *(**53** agerraldi, **10** liburu eta **18** artikulutan; orobat* ***Itsas Beltz*** ***12*** *agerraldi,* ***4*** *liburu eta* ***7*** *artikulutan)* Europa eta Asia arteko barne itsasoa, besteak beste Ukraina eta Turkia artean dagoena.

**Itsas** Beltzeko kolonietatik ekarritako esklaboen sal-erosketak. Felipe Juaristi

Lurraren bazter hartara bilduak ziren India, Txina eta Persiako salgaiak oro, **itsaso beltz** eta kaspiarreko produktu guztiak. Karlos Zabala

Zarbo biribila, esaterako, Kaspiar Itsasoan eta **Itsaso Beltzean** hazten da. Berria - Gaiak

**Itsaso Beltzeko** bazterrak lasaiak ikusten ziren. Felipe Juaristi

**Itsas** Beltzak bustitzen dituen urrutiko lurraldetik. Felipe Juaristi

Baltikotik ia **Itsaso** Beltzeraino iristen zen Polonia zabal eta definigabe hartan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Geroago greziarrek hainbat kolonia sortu zituzten **Itsaso Beltzeko** kostaldean. Berria - Mundua

Txinatik **Itsaso Beltzeko** errusiar kostaldeetaraino. Koro Navarro

**Itsaso Beltzaren** iparraldeko lehorrekoentzat [...] Europa eta Asiaren arteko bereizketak ez zuen zentzu ulergarririk. harik eta Stalinek lagun ohia **Itsaso Beltzera** erbesteratu zuen arte. Iñaki Mendiguren

**13 *itsaso bidez*** *adlag*

Marokotik **itsaso bidez** ihes egin nahi duen emakume gazte baten komeriak kontatzen ditu. Berria - Kultura

Pazifikoko kostaldeko Perevoznaiara bideratuko da gero, eta **itsaso bidez** Txina, Japonia, Hego Korea, Indonesia eta Australia hornitzeko. Berria - Ekonomia

Bizirik zeudenetatik bi barkuaren gidatzaileak zirela zehaztu zuten italiarrek zein albaniarrek eta biak atxilotuak izan zirela, Italian **itsaso bidez** legez kanpo sartze honen antolatzaileetatik zirelakoan. Berria - Mundua

**14 *itsaso bidezko*** *izlag*

Handik **itsaso** bidezko bidaiak kontinente eta herrialde guztietara joateko. Fernando Rey

Gizon horien egitekoa izango da **itsaso** bidezko komunikazio guztia etetea, inor ez bedi itsasotik barna sar edo irten. Jon Alonso

Premiazkoa da **itsaso bidezko** garraioa sendotzea eta errepide sarea txukuntzea. Berria - Ekonomia

Guk ez dugu bakarrik burdinbideetako garraioa aholkatzen, baina baita **itsaso bidezkoa** ere. Berria - Euskal Herria

**15** *itsaso gain* ik **itsas gain**.

**16 *itsaso gorri*** kolore gorriko itasoa.

Bere buruaren sermoiak ardotan eta ketan itoak ziren, **itsaso** gorrian laino egun batean naufragatzen duten potinak legetxe. Unai Iturriaga

**17 *Itsaso Gorri*** *(**101** agerraldi, **7** liburu eta **13** artikulutan; orobat* ***Itsas Gorri*** ***9*** *agerraldi,* ***3*** *liburu eta* ***5*** *artikulutan)* Afrikaren eta Arabiar Penintsularen artean dagoen barne itsasoa.

**Itsaso Gorria** zeharkarazi zien, ur handien artetik eramanez. Elizen arteko biblia

Moisesek atera zituen Egiptotik, egintza harrigarri eta mirariak eginez Egipton, **Itsaso** Gorrian eta berrogei urtez basamortuan. Elizen arteko biblia

Egiptoko gerletan, Berenize-n, **Itsas Gorriari** bekoz beko, kokatua zen legio bateko tribunoa nintzen. Hiri hau Elat ondoan zegoen, **Itsaso** Gorriaren ertzean, Edom lurraldean. Juan Garzia

**Itsaso Gorriaren** ertzeko goi-lurretan zehar. Iñaki Mendiguren

Ez nengoela alegia **Itsas Gorri** edo Tirrenoan, ezta Atlantiko edo Mediterraneoan ere. Bernardo Atxaga

Bira egin eta basamorturantz jo genuen, **Itsaso** Gorrirantz. Elizen arteko biblia

**Itsaso Gorriko** bokalean zeuden portuetara. Iñaki Iñurrieta

Joan den urriaren 7an Sinai-**Itsaso Gorriko** (Egipto) eremu turistiko batzuetan izandako erasoak. Berria - Mundua

Zuek, berriz, itzuli zaitezte basamortu aldera, **Itsaso Gorriko** bidean. Jose Antonio Mujika

**18 *itsaso handi*** eremu handia hartzen duen itsasoa. ik **itsas handi**.

Bere herria suaz zigortzera zetorren bera, eta suak lurpeko **itsaso** handia eta Israel, Jainkoaren ondarea, irentsi behar zituen. Elizen arteko biblia

Hala ere, itsasoaren kopuru osoaren aldean, ekarri horien denen batura apenas den tantatxo bat; ez da harritzekoa, beraz, hain **itsaso handia** ez handiagotzea. Xabier Amuriza

Zalaparta hark **itsaso** handiren baten azal urdinak inguratu eta alde guztietatik isolatu zuela amets eginarazten zion. Karlos Zabala

**Itsaso** handiaren erdira bota ninduzun, / hondo-hondoraino. Jose Antonio Mujika

· **Itsasoa** hain da handi leku horietan non hedoietarik dilindan dela duen iduri Aurelia Arkotxa

**19 *Itsaso Hil*** Israel eta Jordaniaren artean dagoen barne itsasoa.

Muga **Itsaso** Hilaren hego-ertzean hasten zen. Elizen arteko biblia

Bidaiarien bailaran -bidaiariei pasabidea mozten dien bailaran-, **Itsaso Hilaren** ekialdean. Elizen arteko biblia

**Itsaso Hilaz** bestaldetik, Edom lurraldetik, etsai-talde ugaria datorkizu. Elizen arteko biblia

Jordanen ekialdeko Araba haran guztian zehar Pisga mendiaren magaleko **Itsaso** Hileraino. Elizen arteko biblia

Jazer-eraino iristen ziren aihenak, basamorturaino hedatzen, **Itsaso** Hileraino luzatzen. Elizen arteko biblia

**Itsaso Hileko** idatziak ez direla eseniarrenak esan dute Israelgo adituek. Berria - Gaiak

**20 *itsaso hondargabe*** *(orobat* ***itsas hondargabe****)*

Ez nadin **itsaso hondargabe** horretan sar, ordea. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dakit zer **itsas** hondargabetan hondoratu zitzaidan. Joan Mari Irigoien

**21** *itsaso hondo* ik **itsas hondo**.

**22** *itsaso ondo* ik **itsas ondo**.

**23 *itsaso txiki***

**Itsaso** txikia zegoen, are apalagoa. Txillardegi

"Kresala usaintzeko, **itsaso** txikitan sarkorrago" neure artean. Txillardegi

**24 *itsaso zabal*** *(**133** agerraldi, **39** liburu eta **41** artikulutan; orobat* ***itsas zabal*** *g.er.)* zabala den itsaoa. ik **itsas zabal**.

Kantauri **itsaso** zabala. Txillardegi

Baina **itsaso** zabal, sakon eta amaigabetik zetozen. Joseba Sarrionandia

Eta ibaietan hasi zena **itsaso** zabalera da ixurtzen, egoki eta bidezko den bezala. Iñaki Segurola

**Itsaso** zabalak zeharkatu dituzte Homerorekin, infernuak bisitatu dituzte Danterekin. Joxean Agirre

Ikusleentzat ikusgarriagoa da ibaia, baina arraunlarientzat erosoagoa **itsas zabala**. Berria - Kirola

Zenbat aldiz ez ote duen amestu **itsas** zabal hura zeharkatu eta mendean hartzea. Harkaitz Cano

## 25 *itsasoz itsaso*

Nora-ezean ibiliko dira, itsasoz **itsaso,** iparraldetik eguzkialdera, Jaunaren hitzaren bila, baina ez dute aurkituko. Elizen arteko biblia

Egun hartan, itsasoz **itsaso** eta mendiz mendi etorriko zaizkizu zeure seme-alaba sakabanatuak. Elizen arteko biblia

Beti itsasoz **itsaso** ibiliz Panteira heltzen zara. Aurelia Arkotxa

Zeruak ailiotsa gure lagunak, itsasoz **itsaso** dabiltzanak, halatsuko sentimenduek bizi litzaten! Juan Garzia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**cf. itsas itsaso adriatikoaren** (3); **itsaso aldera** (13); **itsaso aldetik** (9); **itsaso baltikoan** (5); **itsaso bare** (6); **itsaso barea** (3); **itsaso bareak** (3); **itsaso barean** (9); **itsaso barearen** (6); **itsaso bazterrean** (5); **itsaso bazterreko** (3); **itsaso beltz** (4); **itsaso beltza** (9); **itsaso beltzaren** (17); **itsaso beltzean** (11); **itsaso beltzeko** (7); **itsaso beltzera** (5); **itsaso beltzeraino** (3); **itsaso berde** (3); **itsaso bete** (5); **itsaso beteko** (4); **itsaso bidez** (3); **itsaso bidezko** (5)

**itsaso erdian** (6); **itsaso gainean** (7); **itsaso gaineko** (3); **itsaso gainera** (8); **itsaso gorri** (3); **itsaso gorria** (17); **itsaso gorrian** (26); **itsaso gorriaren** (9); **itsaso gorriko** (13); **itsaso gorrira** (9); **itsaso gorriraino** (5); **itsaso gorrirantz** (5); **itsaso gorritik** (11); **itsaso guztia** (3); **itsaso guztiak** (7); **itsaso guztietako** (5); **itsaso guztietan** (4); **itsaso handia** (8); **itsaso handiaren** (3); **itsaso hila** (4); **itsaso hilaren** (4); **itsaso hilean** (3); **itsaso hileko** (4); **itsaso hilera** (3); **itsaso hileraino** (5)

**itsaso ilun** (3); **itsaso ilunean** (3); **itsaso izoztua** (3); **itsaso ondoan** (3); **itsaso ozeanoan** (3); **itsaso sakona** (3); **itsaso sakonean** (4); **itsaso txarra** (3); **itsaso urdin** (3); **itsaso urdina** (4); **itsaso usaina** (4); **itsaso zabal** (10); **itsaso zabala** (24); **itsaso zabalak** (3); **itsaso zabalaren** (6); **itsaso zabalari** (3); **itsaso zabalean** (48); **itsaso zabaleko** (7); **itsaso zabalera** (21); **itsaso zabalerantz** (3); **itsaso zahar** (6); **itsaso zakar** (4); **itsaso zakarra** (10); **itsaso zakarrak** (3); **itsaso zakarraren** (6); **itsaso zakarrean** (3); **itsaso zati** (3)

**agurea eta itsasoa** (13); **aral itsasoa** (4); **baina itsasoa** (7); **barentseko itsasoa** (5); **da itsasoa** (20); **dela itsasoa** (4); **den itsasoa** (6); **du itsasoa** (10); **dut itsasoa** (5); **edo itsasoa** (6); **ere itsasoa** (5); **eta itsasoa** (129); **eta itsasoa bare** (4); **eta itsasoa eleberriko** (6); **ez itsasoa** (4); **gabeko itsasoa** (4); **gero itsasoa** (6); **goitik itsasoa** (7); **goitik itsasoa ikusten** (5); **han goitik itsasoa** (6); **itsasoa baino** (6); **itsasoa bare** (23); **itsasoa bare bare** (6); **itsasoa baretu** (8); **itsasoa baretu egin** (4); **itsasoa bera** (10); **itsasoa bera baino** (4); **itsasoa bere** (4); **itsasoa beti** (4); **itsasoa bezain** (12); **itsasoa bezain zabala** (4); **itsasoa bezala** (6); **itsasoa biziki** (4); **itsasoa da** (12); **itsasoa eleberriko** (6); **itsasoa erdi** (4); **itsasoa erdi bi** (4); **itsasoa ere** (17); **itsasoa eta** (60); **itsasoa eta bertako** (4); **itsasoa eta mendia** (4); **itsasoa ez** (25); **itsasoa ez da** (10); **itsasoa ezagutzen** (5); **itsasoa gero** (9); **itsasoa gero eta** (9); **itsasoa gora** (4); **itsasoa hor** (5); **itsasoa ikusi** (16); **itsasoa ikusten** (15); **itsasoa ikusten da** (7); **itsasoa ikustera** (5); **itsasoa izan** (8); **itsasoa izan zen** (4); **itsasoa lehortu** (4); **itsasoa maite** (5); **itsasoa oso** (5); **itsasoa utzi** (7); **itsasoa zakar** (7); **itsasoa zakartzen** (4); **itsasoa zeharkatu** (14); **itsasoa zeharkatu eta** (6); **itsasoa zeharkatzen** (5); **itsasoa zen** (7); **kantauri itsasoa** (8); **kontzertua itsasoa** (4); **lurrak eta itsasoa** (4); **maitasuna itsasoa** (4); **maitasuna itsasoa bezain** (4); **mediterraneo itsasoa** (9); **munduko itsaso** (12); **nire maitasuna itsasoa** (4); **nuen itsasoa** (5); **zegoen itsasoa** (9); **zen itsasoa** (17); **zerua eta itsasoa** (6); **zuen itsasoa** (8); **zuten itsasoa** (8)

**baina itsasoak** (4); **baina itsasoan** (4); **baltiko itsasoan** (5); **barents itsasoan** (4); **barentseko itsasoan** (8); **bat itsasoan** (9); **da itsasoak** (4); **da itsasoan** (10); **dela itsasoan** (4); **den itsasoan** (6); **dira itsasoan** (11); **direla itsasoan** (8); **dituzte itsasoan** (5); **du itsasoak** (7); **du itsasoan** (5); **dute itsasoan** (9); **edo itsasoan** (11); **eta itsasoak** (31); **eta itsasoan** (40); **eta mediterraneo itsasoan** (5); **ipar itsasoan** (9); **iparraldeko itsasoan** (4); **itsasoak ere** (8); **itsasoak eta** (18); **itsasoak ez** (8); **itsasoak irentsi** (4); **itsasoan aurrera** (7); **itsasoan barna** (4); **itsasoan barrena** (13); **itsasoan berean** (5); **itsasoan bizi** (5); **itsasoan bizi diren** (4); **itsasoan bukatzeko** (4); **itsasoan dabiltzan** (5); **itsasoan dagoen** (4); **itsasoan edo** (7); **itsasoan egin** (6); **itsasoan egindako** (4); **itsasoan ere** (9); **itsasoan eta** (20); **itsasoan ez** (12); **itsasoan galdu** (10); **itsasoan galduta** (6); **itsasoan galdutako** (6); **itsasoan hil** (11); **itsasoan hiltzen** (4); **itsasoan hondoratu** (6); **itsasoan hondoratzen** (4); **itsasoan ibili** (10); **itsasoan ibiltzeko** (7); **itsasoan igeri** (6); **itsasoan ito** (4); **itsasoan izan** (5); **itsasoan murgildu** (4); **itsasoan sartu** (5); **itsasoan urak** (8); **itsasoan urak handi** (7); **itsasoan zehar** (9); **kantauri itsasoan** (8); **karibe itsasoan** (4); **mediterraneo itsasoan** (16); **oraino itsasoan** (4); **zen itsasoan** (10); **ziren itsasoan** (6); **zituen itsasoak** (4); **zuen itsasoak** (6); **zuen itsasoan** (4)

**aral itsasoaren** (4); **baina itsasoaren** (4); **da itsasoaren** (6); **dira itsasoaren** (5); **du itsasoaren** (5); **eta itsasoarekin** (6); **eta itsasoaren** (69); **eta itsasoaren artean** (6); **eta itsasoaren arteko** (7); **gora itsasoaren** (4); **gora itsasoaren mailak** (4); **itsasoaren alde** (4); **itsasoaren artean** (7); **itsasoaren arteko** (7); **itsasoaren aurrean** (7); **itsasoaren bazterrean** (4); **itsasoaren bazterrez** (6); **itsasoaren bazterrez bazter** (6); **itsasoaren besta** (18); **itsasoaren beste** (10); **itsasoaren beste aldean** (5); **itsasoaren egoera** (6); **itsasoaren eguna** (4); **itsasoaren erdian** (28); **itsasoaren ertzean** (8); **itsasoaren eta** (16); **itsasoaren gainean** (12); **itsasoaren gainetik** (6); **itsasoaren hegiz** (4); **itsasoaren hegiz hegi** (4); **itsasoaren hondoan** (8); **itsasoaren hotsa** (4); **itsasoaren inguruan** (5); **itsasoaren kontra** (6); **itsasoaren kotsadura** (7); **itsasoaren maila** (5); **itsasoaren mailak** (6); **itsasoaren ondoan** (7); **itsasoaren ur** (5); **itsasoaren usaina** (5); **itsasoaren zabala** (6); **itsasoaren zati** (4); **itsasoaren zolan** (11); **kaspiar itsasoaren** (5); **lurraren eta itsasoaren** (4); **lurrazpiko itsasoaren** (4); **mediterraneo itsasoaren** (4); **zen itsasoaren** (10); **zuen itsasoaren** (8)

**eta itsasoari** (28); **eta itsasoari begira** (8); **eta itsasoaz** (5); **eta itsasoetan** (5); **itsasoari begira** (64); **itsasoari beha** (4); **itsasoari buruz** (12); **itsasoari buruzko** (14); **itsasoari eta** (4); **itsasoari so** (7); **itsasoaz bestalde** (4); **itsasoaz bestaldeko** (7); **itsasoaz bestaldera** (11); **itsasoaz eta** (4); **itsasoetan barrena** (4); **zen itsasoari** (6)

**da itsasoko** (5); **dira itsasoko** (4); **du itsasoko** (4); **edo itsasoko** (8); **egeo itsasoko** (7); **eta itsasoko** (47); **ezkio itsasoko** (8); **ezkio itsasoko santa** (5); **ipar itsasoko** (20); **ipar itsasoko brent** (6); **itsasoko ama** (6); **itsasoko arrain** (5); **itsasoko arrainak** (7); **itsasoko brent** (6); **itsasoko energia** (7); **itsasoko eta** (9); **itsasoko gaietan** (4); **itsasoko gizarte** (5); **itsasoko haize** (9); **itsasoko haizea** (4); **itsasoko haizeak** (8); **itsasoko ingurumena** (4); **itsasoko nagusi** (4); **itsasoko olatu** (4); **itsasoko olatuen** (4); **itsasoko parke** (6); **itsasoko parke eolikoak** (4); **itsasoko santa** (5); **itsasoko tresnen** (6); **itsasoko uhinak** (7); **itsasoko uhinek** (4); **itsasoko uhinen** (7); **itsasoko ur** (19); **itsasoko ura** (19); **itsasoko urak** (10); **itsasoko uraren** (6); **itsasoko uretan** (8); **kantauri itsasoko** (10); **zen itsasoko** (4)

**baina itsasora** (4); **bat itsasora** (6); **batek itsasora** (4); **da itsasora** (6); **dira itsasora** (6); **du itsasora** (4); **edo itsasora** (4); **ere itsasora** (7); **eta itsasora** (35); **itsasora begira** (15); **itsasora begiratzen** (5); **itsasora bidean** (6); **itsasora bota** (22); **itsasora bota zuen** (5); **itsasora botako** (4); **itsasora botatzea** (4); **itsasora botatzen** (5); **itsasora edo** (4); **itsasora ematen** (9); **itsasora ematen duen** (4); **itsasora erori** (11); **itsasora erori zen** (4); **itsasora erortzen** (5); **itsasora eta** (8); **itsasora iritsi** (4); **itsasora irten** (10); **itsasora irten zen** (4); **itsasora irteteko** (4); **itsasora isurtzen** (11); **itsasora isurtzen den** (4); **itsasora itzuli** (6); **itsasora jaurti** (8); **itsasora jaurtiki** (5); **itsasora joaten** (5); **itsasoraino hedatzen** (4); **itsasorako bidea** (5); **itsasorat eta** (5); **itsasotik itsasora** (5); **iturritik itsasora** (11); **mediterraneo itsasoraino** (11); **nuen itsasora** (4); **oihanetik itsasora** (9); **ziren itsasora** (4); **zuen itsasora** (7)

**dira itsasotik** (5); **edo itsasoz** (4); **eta itsasotik** (14); **eta itsasoz** (19); **itsasorik ez** (4); **itsasotik ateratzen** (5); **itsasotik gertu** (11); **itsasotik hurbil** (6); **itsasotik itsasora** (5); **itsasotik zetorren** (7); **itsasotik zetozen** (5); **itsasoz bestaldean** (6); **itsasoz bestaldeko** (22); **itsasoz bestaldera** (10); **itsasoz beste** (5); **itsasoz eta** (6); **itsasoz haraindiko** (6); **itsasoz itsaso** (11); **kaspio itsasotik** (4); **mediterraneo itsasotik** (4); **zen itsasotik** (4); **zen itsasoz** (4); **ziren itsasoz** (4)

---

# itsasoka *adlag* kopuru izugarrietan.

Burua berriro altxatu zuenean, lehen lerroko gizonak, gizon puskak inondik inora, pago bat bezainbat bai denak, negarrez ari zirela jakin zuen, **itsasoka** negarrez gainera. Felipe Juaristi

Gero, isiltasuna, hildakoen isiltasuna ibaika, **itsasoka,** eskuka, zabaldu zen Parisko karriketan barrena. Felipe Juaristi

---

# itsasondoar *(orobat **itsasondotar**)* *izlag* Itsasondokoa, Itsasondori dagokiona; Itsasondoko herritarra.

Joxe Luis Aramendi **itsasondoarrari** esker. Herria

Herriko erretorea bata, **itsasondoarra** baina Lazkaon fraide zegoena bigarrena. Xabier Mendiguren Elizegi

Sentipen arraro bat izan dut nik beti Itsasondon eta **itsasondotarrekin**. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# itsasontzi *(orobat **itsas ontzi** g.er., **itxasontzi** g.er. eta **itsasuntzi** g.er.)* **1** *iz*

Horra **itsasontzi** bat Alexandriako portuan sartzen. Jon Muñoz

*The Penguin* **itsasontziko** bidaiari mozkor batek tiro egin omen zion. J.M. Olaizola "Txiliku"

Bestea Inazio Iraurgi da, [...] Ainhoa **itsasontziko** kapitaina. Felipe Juaristi

**Itsasontziko** marinel zamaketariak Itsas armada amerikanoaren **itsasontziak** porturatu orduko, emakume-jendea itsasertzera biltzen zen saltoka. Karlos Zabala

Indietako eta Itsaso Gorriko **itsasontzi** ihiz egin batek hogei egunetan egiten zuen bidea. Iñaki Iñurrieta

Espainiako bandera zeraman **itsasontzi** batean. Felipe Juaristi

Gaur abiatuko da Repsol enpresaren Polar Prince **itsasontzia** Prestige hondoratu zen lekura. Berria - Gaiak

Espainiara abiatu ziren, **itsasontziak** Bartzelonako portuan utzi behar baitzituen kafea eta azukrea. Felipe Juaristi

Ez dakite noiz eta nora iritsiko diren, **itsasontziek** ibilbideak aldatzen dituztelako sarritan **Itsasontzia** lehorreratu eta atzetik jarraitzeko agindu nien. Juan Kruz Igerabide

**Itsasontziei** zeharka bultzatzen zien haizeak, masta-oihalak eteteraino. Juan Kruz Igerabide

**Itsasontzi** bat hondoratu da Egipton, ehunka bidaiarirekin. Berria - Mundua

Kortsarioen hiru **itsasontzi** bota zituela hondora. Felipe Juaristi

Begira, horra haizea bera, izadian den indarrik handiena [...] itsasoa malkorrak amilarazten dituzten mendi bihurturik jaikiarazten duena eta **itsasontziak** uharrietara jaurtitzen dituena. Josu Zabaleta

Bartzelonako portuan, egun berean eta biharamunekoan, dozena bat **itsasontzi** galdu eta hondoratu ziren. Pello Zabala

Ekaitz batek, hiriko kostaldetik hurbil, **itsasontzi** bat hondorarazi zuen. Aritz Gorrotxategi

Hantxe, mahai gainean, zegoen musika tresna, **itsasontzi** egin berria bezain distiratsua. munduarekin daukan harremana kapitainak bere **itsasontziarekin** daukana dela. Xabier Kintana

Hamar gizon zeuden **itsasontziaren** bizkarrean. Felipe Juaristi

Orkak sudurretik jaurtitzen zuen iturri zuri kizkurra zen odaiertzean ikusten zen lurrun hura, eta orkaren mutur beltza **itsasontziaren** branka. Koro Navarro

Nik **itsasontziaren** gilari eutsi nion bederatzi egunez; hamargarrenean, jainkoek Ogigia uhartera bota ninduten. Juan Kruz Igerabide

Bikoteen azpiko lurzorua kulunkan ari zen, **itsasontzi** baten bizkarraren gisa berean. Lopez de Arana

Mister Lewinek atzo gure **itsasontziko** makina-aretoa bisitatu zuela dio. Joxe Austin Arrieta

Joan daitezela batera zure eta nire itsasgizonak **itsas** ontzietan. Elizen arteko biblia

Beste batek, berriz, **itsasontzi** bat hartu zuen errentan, Krotonara joateko. Jon Muñoz

Kamioiak **itsasuntzietan** ezarririk bidaiatzeko. Herria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Hiru mastako **itsasontzi** handietan. Felipe Juaristi

Paperezko **itsasontzi** txikiak askatzen zituen urmaelean eta atseginez barre egiten zuen. Jose Morales

Zamaketari presoak gordetzeko erabiliko zuten **itsasontzi** herdoildu batean. Felipe Juaristi

Cervera **itsasontzi** faxista zebilela aste guztian Hondarribiatik Zarautza bitarteko itsasbidea egiten, eta alferrik zela. Inazio Mujika Iraola

**Itsasuntzi** beladun batean, munduaren itzulia bururatu du 233 egunez. Herria

Bizitza osoa zaborra biltzen eman nahi al duk **itsasontzi** zikin bateko sukaldean? Lopez de Arana

**Itsasontzi** urperatu bati buruzko kantu bat. Koro Navarro

Zurezko **itsasontzi** bat, goleta arin bat itxuraz. Felipe Juaristi

Oihanetako zuhaitzak erabiltzen ziren zurezko **itsasuntziak** eraikitzeko. Herria

Itsasoan ageri ziren hirurak, luxuzko **itsasontzi** batean etzanik. Pedro Alberdi

Okerreko **itsasontzia** hartu genuen. Bernardo Atxaga

Viktoria erreginaren banderapeko **itsasontzietan** zazpi ozeanoak korritu ostean. Xabier Mendiguren Elizegi

Armaz kargaturiko **itsasontzi** bat. Edorta Jimenez

Italiako Armadako **itsasontzi** bat. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa)

Joka segitzen zuen, poza bere begietara etorri arte, urre eta bitxiek **itsasontzi** sotoak betetzen zituen bezala pozak bere barneko zokoak bete arte. Felipe Juaristi

Azkenean, makinak ere gelditu ziren behingoz, eta **itsasontzi** gainaldera igo ginen. Mirentxu Larrañaga

Joan zitezen **itsasontzi** bizkarrera itsasoa zelatatzera. Felipe Juaristi

**Itsasontzi** puskak ageri ziren gure gainetik nahiz azpitik, egur masa handiak eta zuhaitz enborrak. Koro Navarro

**Itsasontzi** pilotuak nahasten eta okerreko bidera bidaltzen dituen laino sarria bezala. Felipe Juaristi

Haizeak leiho eta balkoietan zintzilik zeuden maindire eta arropa zuriak besarkatu zituen ibilian, eta, **itsasontzi** oihalak balira bezala, puztu. Felipe Juaristi

Portuan zegoen **itsasontzi** trafikoari buruzko iruzkinek. Josu Landa

Uharteen arteko **itsasontzi** zerbitzua ere geldiarazi dute. Berria - Mundua

Bere **itsasontzi** konpainia sortu zuen. Edorta Jimenez

Zaila zen oso, urte-sasoi hartan, Europarako **itsasontzi**-tokirik lortzea. Joxe Austin Arrieta

Europarako nire **itsasontzi**-txartela ezin izango zidatela erreserbatu. Joxe Austin Arrieta

**3** (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Veneziarrak laguntzaile bat bidali zuen merkatal **itsasontzi** batean metropoliraino. Felipe Juaristi

Alep-eko eta Suezko karabanek gure dirutik bi milioi eramaten diuzte hara, eta beste hainbeste pasatzen da iruzurrez; Suezko **errege**-itsasontziak ere bi milioi eramaten ditu hara. Iñaki Iñurrieta

Erietxe-**itsasontziak** portuan gora limurtzen ziren eta gauez isilgordeka deskargatzen zuten Jersey-ko nasa zaharretan. Lopez de Arana

Katedralaren dorre lirainek [...] plazaren hedadura zabala, kontrastearen medioz, urrunago barreiatzen dute, harri lauzek moldatu uhain eztiek katedral-**itsasontzi** mugiezinari ozeano bat eskaintzen diotela. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **ari zen itsasontzi** (5); **bandera zeraman itsasontzi** (5); **bat itsasontzi** (4); **beste itsasontzi** (4); **betetako itsasontzi** (4); **betetako itsasontzi bat** (4); **bi itsasontzi** (6); **da itsasontzi** (4); **den itsasontzi** (4); **doan itsasontzi** (4); **eta itsasontzi** (18); **eta itsasontzi batean** (4); **hiru itsasontzi** (6); **itsasontzi asko** (5); **itsasontzi bat** (73); **itsasontzi bat hartu** (5); **itsasontzi bat hondoratu** (9); **itsasontzi bat ikusi** (4); **itsasontzi batean** (50); **itsasontzi batean sartu** (4); **itsasontzi batek** (6); **itsasontzi bateko** (4); **itsasontzi baten** (22); **itsasontzi batetik** (4); **itsasontzi bati** (5); **itsasontzi berean** (6); **itsasontzi eta** (10); **itsasontzi handi** (12); **itsasontzi handiak** (7); **itsasontzi hartan** (4); **itsasontzi itxura** (4); **zen itsasontzi** (7); **zeraman itsasontzi** (5); **zihoan itsasontzi** (5); **zihoan itsasontzi batean** (4)
>
> **bounty itsasontziko lehen** (4); **eta itsasontzia** (12); **eta itsasontziak** (13); **eta itsasontziaren** (6); **eta itsasontzien** (4); **eta itsasontzietan** (5); **hms bounty itsasontziko** (4); **itsasontzia bezala** (4); **itsasontzia eta** (6); **itsasontzia hartu** (12); **itsasontzia hondoratu** (5); **itsasontziak eta** (8); **itsasontzian eta** (4); **itsasontzian sartu** (5); **itsasontziaren bizkarrean** (5); **itsasontziko kapitaina** (6); **itsasontziko lehen** (4); **itsasontziko sotoan** (4); **itsasontzira igo** (4); **prestige itsasontziaren** (4); **zen itsasontzia** (5); **zen itsasontziaren** (4); **ziren itsasontziak** (4); **zuen itsasontzia** (6); **zuen itsasontziaren** (4)

---

## itsasontzidi *(corpusean **itsas ontzidi** soilik)* *iz* itsasontzi multzoa ik **flota; itsasontziteria.**

Kubako **Itsas Ontzidiko** ontzietako batzuk. Edorta Jimenez

---

## itsasontzigintza *(orobat **itsasuntzigintza**)* *iz* itsasontziak egitea.

Lehengo denboretan, **itsasontzigintza** indartsu zagon Euskal Herrian. **Itsasontzigintzan** eta altzarigintzan erabiltzen da. Herria

Amberesera jo behar, Escalda ibaiak bitan zatitzen duen hirira -hiri aberats, noble eta burgesa bateko, **itsasontzigintzako** langile, merkatari txiki eta behartsu jendea bizi direnekoa besteko-, Uriel da Ruaren erorikoaren azken hurrena zein izan zen jakiteko. Felipe Juaristi

Arrantzaz, itsas-kirolez, **itsasuntzigintzaz** ala zernahitaz. Herria

---

## itsasontziratu, itsasontzira(tu), itsasontziratzen **1** da *ad* itsasontzira joan.

**Itsasontziratu** zenean, Parisera joatea pentsatu omen zuen. Joxe Austin Arrieta

**Itsasontziraturik,** Atenea mozorrotua Telemakoren alboan eseri zen. Juan Kruz Igerabide

**2** du *ad* itsasontzira eraman.

Portuan, zezenak **itsasontziratzen** ari: zezen beltz-nabar haiek lurrean zabaldutako sarearen gainera eramanak, gero gorantz altxatuak, eta haien izua, haien bat-bateko ezintasuna, airean zintzilik, lau hankak saretzarraren txuloetatik kanpora luze, haien begi guztiz epileptikoak. Joxe Austin Arrieta

Burdinarekin ezkontzen delako [eztainua], latorri malgu bilakaraziz eta horrenbestez "nocens ferrum" delako tasun odolgosea kenduz; feniziarrak zebiltzalako haren tratuan, eta oraindik ere herri amesgarri urrunetan erauzten, arazten eta **itsasontziratzen** delako. Juan Garzia

---

# itsasontziteria *(orobat **itsas ontziteria**)iz* itsasontzidia, flota.

Salomonek **itsas** ontziteria eginarazi zuen Etzion-Geberren. Elizen arteko biblia

Merkataritza hark **itsasontziteria** handia ematen ziela erromatarrei, hau da, botere handia. Iñaki Iñurrieta

---

# itsasontzitzar *iz pei* itsasontzi handia.

Han urrunean **itsasontzitzarra** ikusten da, Pessoaren olerki hartan legez, baina itsasora bidean. Edorta Jimenez

---

# itsasoratu, itsasora(tu), itsasoratzen **1** da *ad* itsasora joan, itsasoan sartu.

Zazpigarrenean, haizea baretu zuen, eta **itsasoratu** egin ginen. Juan Kruz Igerabide

-Sutearekin, presoak presaka ontziratu dituzte, eta **itsasoratu** dira. Elena Touyarou

Baina ez dut uste zure laguna bakarrik **itsasoratuko** zenik, ezta txalupa batean ere. Migel Angel Mintegi

Hamabost egun iragan ondoren **itsasoratu** ziren mastaberriturik. Felipe Juaristi

Miamin **itsasoratu** ziren, 1958ko otsailaren batean. Edorta Jimenez

Hendaiatik **itsasoratu** gintuan, Iparraldeko eta Bretainiako kostaldea atsegin omen dik. Migel Angel Mintegi

Luze gabe **itsasoratu** zen, baina [...] ekaitz zakarra altxatu, eta itsasontziak hondoa jo zuen. Patxi Zubizarreta

Jalidan erresumarako belaontzi batean **itsasoratu** zen. Patxi Zubizarreta

Ez du ontzirik, ez gizonik, **itsasoratzeko**. Juan Kruz Igerabide

Aurki ikusi zuen, belauntziaren bizkarrean jo eta ke **itsasoratzeko** lanean. Migel Angel Mintegi

Arraunik eta belarik gabeko txalupa batean **itsasoratua** izango da, bi egunetarako janariarekin. Joanes Urkixo

Urrats batzuk eman zituen belardi ertzeraino, ea han beheko hondartzan ikus zezakeen talde txiki hura **itsasoratzen**. Anton Garikano

· Ordubete geroago beste ontzi bat **itsasoratu** da. Berria - Harian

Goizerako, flota **itsasoratzeko** moduan zegoen. Agustin Otsoa

Eta *Golondrina* portuan geratu zen, noiz **itsasoratuko** zain. Felipe Juaristi

## **2** itsasora heldu.

Guadalquivir ibaia **itsasoratzen** den tokia padura omen da guztiz. Felipe Juaristi

Artibai erreka **itsasoratzen** den herrikoa. Berria - Euskal Herria

Sekula **itsasoratu** ez den ibaia. Berria - Kultura

Tenperatura hiru gradu igoz gero, ur hori **itsasoratzen** hasiko litzateke, apurka. Berria - Gaiak

## **3** itsasora erori.

Itsasoan ez dute herresto funtsik aurkiturik, itxuren arabera, kolpez **itsasoratzean** osoki zapartatu baita airekoa. Herria

## • **4** du *ad* itsasora eraman, itsasoan sartu.

Bizitza atera beharrak **itsasoratzen** zaitu askotan. Migel Angel Mintegi

Azkenean lortu zuten bultzaka popa **itsasoratzea**. Anton Garikano

Lokarriak askatu eta arraunlariek ontzia **itsasoratu** zutenean, Ulisesek lo sakona hartu zuen, hilik balego bezala. Juan Kruz Igerabide

Pasaian **itsasoratutako** 1,33 milioi tonetatik, 431.000 tona Erresuma Batura joan ziren. Berria - Ekonomia

## **5** itsasora bota.

Malaysiako ontzi batek milioi erdi litro erregai pasatxo **itsasoratu** ditu, ekaitzak erditik hautsi ondoren. Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta itsasoratu** (6); **eta itsasoratu egin** (4); **itsasoratu da** (4); **itsasoratu egin** (6); **itsasoratu eta** (6); **itsasoratu nintzen** (4); **itsasoratu zen** (11); **itsasoratu ziren** (12); **itsasoratzen den** (7)

---

# itsasoratze *iz* itsasora joatea, itsasoan sartzea.

Eta festa, estropada, mendiko irteera, karroza erakuste, ontzi berrien **itsasoratze,** herriko gertatu nagusi guztiak filmatu zituen [...] *Boilieu* kamerarekin. Koldo Izagirre

Eta, oro har, **itsasoratze** osoa, Manhattango bazterrak desagertu arte, eta gero kaioak, gure segizioan bidailagun. Joxe Austin Arrieta

Baina arrazoiren bat edo besterengatik **itsasoratzea** ia ordubetez atzeratu ei zen. Joxe Austin Arrieta

Ferryak **itsasoratzeaz** batera, Ellenek eskua eman zion autotik jauzi egiteko. Lopez de Arana

---

# itsasorratz *iz* itsasontzi iparrorratza.

Baziren itsasontziak; eta itsasontzietan, **itsasorratzak;** eta, itsasontzien azpian, itsasoa. Jon Muñoz

Eta itsasoa gehiegi mugitzen zenean, mugitu egiten zen **itsasorratza** ere, eta ez zuen, orduan, ezertarako balio izaten: iparra galtzen zuen ontziak. Jon Muñoz

Hartan, kutxa zabalduan **itsasorratza** ikusi nuen, bere mutur zorrotz biekin. Edorta Jimenez

---

# itsasote *iz* itsasoratzea.

Hamalau urte zituen eta huraxe zen bere lehenengo **itsasotea**. Edorta Jimenez

Urteetan, Bilboko kapitaina Habana-Camagüey-New Orleans **itsasoteak** egiten dabil eta, esku-ahurra bezain ondo ezagutzen ditu Kubako eta Estatu Batuetako bazter horiek. Edorta Jimenez

Ikusiak nituen nik karrakak, osaba Juanekin Lapurdira zein auzoko beste kantabresen aldera egin izaten genituen **itsasote** haietako askotan. Edorta Jimenez

Bazen-eta Ameriketako zein Ternuarako bidea ez ezik Filipinetakoa ere egina zuenik, halako **itsasote** luzeetan ageri izaten diren gaitzen eskarmentua hartuak baitziren. Edorta Jimenez

**Itsasote** horietan ez zaio lar kostatzen inguruetan nabigatzen diren beste ontzien berri idaztea, ez eta portuetan ikusten dituen faxista-zale banderadunen gorabeherak paperean ohar modura jasotzea ere. Edorta Jimenez

---

**itsasozale** *izond* itsasoaren zale dena.

**Itsasozale** porrokatua naizen donostiar hau. Txillardegi

Andrew bezalako **itsasozale** batentzat gogorra baitzen itsasoa betiko utzi beharra. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**itsaspe** *(orobat* ***itxaspe*** *g.er.) iz* itsasoaren azpialdea. ik **itsas azpi**.

Urazalean agertu gabe **itsaspea** itsutu eta nabigaziorako heriotza tranpa maltzurrak osatzen dituzten hondar pila menditsuak. Pako Aristi

Kanariak dira mundu osoan maniobra militarrek zetazeo gehien hildako lekua, bertako **itsaspe** malkartsua egokia delako militarrek saioak egiteko. Berria - Gaiak

Berrehun eguneko marea **itsaspean** basera itzuli barik. Koldo Izagirre

*20.000 legoa* ***itsaspean*** liburuan. Karlos Zabala

Hiria aspaldi batez **itsaspean** egon izan balitz bezala. Felipe Juaristi

Zer egin dezake administrazioak fuela **itsaspetik** kentzeko? Berria - Euskal Herria

**Itsaspetik** otoika. Patziku Perurena

Bat-batean esku moduko batek **itsaspetik** atera eta baltsara jaso zuen berriro. Askoren artean

Frantziako itsasertzeko Saint Nazaire muturreraino **itsaspeetan** arakatuz. Edorta Jimenez

Otso taldeak isilpean ari dira **itsaspeetan** barrena, gainean nahiz inguruetan igarotzen zaien edozeri mehatxu eginez. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **donostiako itsaspeko** (6); **itsaspeko zinema** (4)

---

**itsaspekari** *iz* itsaspean ibiltzen den urpekaria.

Urpekarien gaitza, ur gainera lasterregi itzultzen diren **itsaspekariek** izaten duten egoera mingarri eta inoiz hilgarria. Irene Aldasoro

Pilotu bat ikusi ahal izan genuen, **itsaspekari**-betaurreko eta guzti, kabinatik burua atera eta guri goitik behera begira. Mirentxu Larrañaga

---

**itsaspeko** 1 *izlag* itsaspeari dagokiona.

**Itsaspeko** haitzuloetako altxorrak zaunkaka gordetzeko ardura duen munstroa. Karlos Zabala

**itsaspeko** mendien mapa egitea da egitasmoaren helburuetako bat. Berria - Gaiak

1.500 kilometroko **itsaspeko** mendikatea. Berria - Gaiak

Baina igual entzungo da kanpai hotsa, pentsatuko duzu, **itsaspeko** sakontasun abisaletan. Joseba Sarrionandia

**Itsaspeko** logeletara banaka-banaka erretiratzen. Julen Gabiria

Zazpi herrialdetako 24 film emango dituzte Donostiako **Itsaspeko** Jaialdian hilaren 13tik 18ra. Berria - Kultura

**Itsaspeko** Zinemaldiko zuzendari Francisco Pizarrok azaldu duenez. Berria - Kultura

Donostiako **Itsaspeko** Zinema Zikloak 3.000 ikusletik gora izan ditu Berria - Kultura

**2** *iz* ur azpian murgilduta ibil daitekeen ontzia.

Jules Verneren harako *Nautilus* **itsaspeko** hura gogorarazten duen espazio harrigarri bat. Anjel Lertxundi

*U-boat* **itsaspekoak,** horra Hemingwayren eldarnio gaietako beste bat. Edorta Jimenez

Ez nuen espero ikusterik, eta nik ikusi egin **itsaspeko** bat azaleratzen neure mutur aurrean. Koldo Izagirre

Ur-azaleko borrokarako ez daude txarto horniturik *U* motako **itsaspekoak**. Edorta Jimenez

Spruille Bradenek geroago idatziko zuenez, **itsaspeko** edo otso haietako bat harrapatzekotan izan ei ziren. Edorta Jimenez

Hegazkinek **itsaspeko** bat begiztatu zutela eta gerraontziek jo eta hondora bota zutela. Edorta Jimenez

**Itsaspekoaren** zubira jaurtitzekoa. Edorta Jimenez

Misilek eta **itsaspekoek** erabiltzen duten orientazio-sistema inertzialarekin. Irene Aldasoro

Erresuma Batuko Armadako **itsaspekoetako** kapitan ohi batek idatzirikoa. Berria - Gaiak

Tiburtzio Izpitzuak Antonio Otsaren ahoan ipini zituen azken hitz horiek Kubako **itsaspeko**-ehiztariak dakartzate, ezinbestez, gogora. Edorta Jimenez

**3** (izenondoekin)

Han, *Trident* **itsaspeko** nuklearrak dituzte militarrek. Berria - Mundua

**Itsaspeko** militar bat. Berria - Mundua

Karibe aldean zamaontzien ehizean hainbeste **itsaspeko** aleman ibiltzearen gakoa non den jakin du. Edorta Jimenez

*Jeanne M.* ontzia […] joan zen hondora, *U-37* **itsaspeko** sonatuak torpedoz jota, 1940ko abenduan. Koldo Izagirre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itsaspeko zinema** (4)

---

**itsaspen** *iz* itsastea.

Gorputzaren parterik handienean, nahiko leuna da epidermisaren kanpoko aldea, baina ildo markatuak ditu oin azpietan eta ahurretan, **itsaspen** hobea izatearren. Irene Aldasoro

Lekedaren **itsaspena**. Xabier Amuriza

Gomaren **itsaspen** eskasagatik. Berria - Kirola

Zipreko Rallyak autoen erresistentzia eta gurpilen **itsaspena** neurtzen du. Berria - Kirola

Pneumatikoen **itsaspena** asko baldintzatzen du tenperaturak. Berria - Kirola

---

**itsasperatu,** itsaspera(tu), itsasperatzen da/du *ad* itsaspera joan; itsaspera eraman.

XIV. mendean lur-ikara batek **itsasperatua**. Herria

Sotaren Bayon **itsasperatu** "Batxiren arima galdua". Patziku Perurena

---

**itsasportu** *(9 agerraldi, 4 liburu eta 5 artikulutan; orobat* ***itsas(-)portu*** *28 agerraldi, 10 liburu eta 9 artikulutan) iz* portua, itsasbazterreko portua.

Zientzialaria ezin izango da aireportu, **itsasportu** eta enbaxadetara hurbildu, eta ez du pasaporterik izango. Berria - Mundua

Segurtasun kontrolak areagotu zituzten gune estrategikoetan, gobernu egoitzetan eta eraikin publiko, aireportu zein **itsas-portu,** tren geltoki eta bestelako garraio publikoetan. Berria - Harian

**Itsasportuetako** ontzien sarrera eta irteeren mugimendua. Jokin Urain

Kantauriko gure **itsas portuetatik** igarotzen ziren ontzien harat-honatak. Alberto Ladron Arana

**Itsasportu** bat sortuko dutela Gazako zerrendan. Herria

Azken balea Oriotarrek zuten bere **itsasporturat** bildu, duela ehun urte. Herria

Aita **itsas portutik** itzuli da, bakailao biltegi batean zamalanak egin eta gero. Javi Cillero

Ziburu eta Donibane Lohizune zirela, Bilborekin batera, Euskal Herriko **itsasportu** nagusiak garai hartan. Oi Tiro, **itsas** portuetako erregina, itsas herri askorekin merkataritzan aritzen zaren hori. Koldo Zuazo

Itxurari erreparatuz bat-batean iruditu zitzaion eragozpenik gabe izan zitekeela **itsasportuko** zamaketari greziar bat. Joxemari Iturralde

---

# itsastar *(orobat **itsastiar** g.er.)* **1** *izlag* itsasokoa; itsasaldekoa.

Esate baterako, urraburu **itsastarra** […] dastatzean izkira eta itsaskiaren ahogozoa sentitzen dugu, arrain horrek besterik jan ez duelako bere bizitza osoan. Edorta Agirre

Ez pentsa, beraz, Zentauroak gizakia eta zaldien hazia nahastetik etor daitezkeenik, ez txakur oldartiz inguraturiko gorputz erdi **itsastarreko** Eszilarik izan daitekeenik. Xabier Amuriza

Gizonek, lehortar zein **itsastar,** ingeles ontziaren taxu doitua, haren galaitasun erabatekoa […] aipatu zituzten. Edorta Jimenez

Jakin bedi mendian menditarra naizela eta itsasoan **itsastarra**. Koldo Izagirre

Ni ez naiz batere **itsastarra**. Txillardegi

Hirurak ere kresala bezain **itsastarrak**. Edorta Jimenez

• **2** *iz* itsasaldekoa den pertsona.

Arrantzaleak zein beste **itsastar** batzuk. Basetxeetakoek badakite, baina ez **itsastarrek**. Edorta Jimenez

**Itsastarren** artean, haur jaioberriari alkohol tanta batzuk jartzen zizkioten begietan, eta bedeinkapen berezia izaki, uretarako gai bihurtzen zuten. Patxi Zubizarreta

**Itsastarren** jaka zuriarekin. Koldo Izagirre

Sei puntu kardinaleko erreferentzia eduki nahi luke Queipok etorkizunean, **itsastarrek** bezala. Berria - Kultura

---

# itsastatu, itsasta, itsastatzen du *ad* itsasoz ibili. ik **nabigatu**.

Ordu arte gizadiak inoiz **itsastatu** gabeko itsaso zabalera irtetea. Iñaki Mendiguren

Ozeanoetan **itsastatzen** lorturiko trebetasun berriak Iñaki Mendiguren

---

# itsastatze *iz* itsasoz ibiltzea.

Lehenengoa **itsastatze** ozeanikoaren teknikaz nagusitzea izan zen. Iñaki Mendiguren

---

# itsastegi *iz*

Ziburuko itsas-**itsastegikoak** dira nagusitu bainan arraulari guziek hartzen dituzte goresmenak. Herria

---

# itsasturi **1** *iz* lanbidez itsasoan ibiltzen den pertsona. ik **itsasgizon**; **marinel**.

Vasco de Gama **itsasturia**. Herria

Duela 20 urte, lehen aldikoz Route du Rhum bela ontzi lasterraldian parte hartu zuen Didier Mundutegi euskal **itsasturiak**. Herria

1430-1540 urteen artean, europar merkatari-**itsasturi**-konkistatzaileek Afrikako kostaldeak esploratu eta azkenik inguratu zituzten. Koro Navarro

· **2** *izond* lanbidez itsasoan ibiltzen dena.

Tonneliers karrikatik iragan zen, zakuaren hartzeko eta Graxiri eta haren senar **itsasturiari** adio errateko. Elena Touyarou

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> itsasturia eta (3)

---

# itsasuar *izlag/iz* Itsasukoa, Itsasuri dagokiona; itsasuko herritarra.

Zaindu dute berea **itsasuar** gazteek, hendaiarren gostuz. Herria

**Itsasuar** akordeoi joile gazte batzuen laguntzarekin. Herria

Aitzin partidan, landestar balios batek batez garaitu du **itsasuar** indar haundiko hori. Herria

Patrick Ager **itsasuarra**. Berria - Kirola

Larunbatean ariko dira finalerdietan Aguerre-Ducassou **itsasuarrak**. Herria

Mixel Lastiri **itsasuar** sukaldari eta musikariak. Herria

Amaturrak ere baditugu goiti doatzinak, eta ez bakarrik gure **itsasuar** ttipi haundia. Herria

Buruz buruka hau [...] **itsasuarraren** alde joan da, bereziki garaztarra apaltzearekin ondarrerat. Herria

Eta Junior mailean **itsasuarrek** dituzte saratarrak garaitu. Herria

---

# itsasuntzi ik **itsasontzi**.

---

# itsatsarazi, itsatsaraz, itsatsarazten du *ad* itsastera behartu.

Hitz elkarketak batetik, eta aurrizki-atzizkiak gaineratzeak bestetik, ondorio berbera izan dezakete: ahariari, atzentzen, atzeratzera, estutu, etetea, ezerezera, ezezagun, hiztegigile, irteten, **itsatsarazi,** lapikoko, mukerkeria, pairarazi... Iñaki Arranz

---

**itsatsi**, itsats, itsasten **1** da/du *ad* tartean hutsunerik gertatzen ez dela lotu.

Gelditu gabe eragin behar zitzaion arrozari, aleak **itsats** ez zitezen. Jon Muñoz
Aurpegi bat **itsatsi** zen une batez leihoaren kontra eta desagertu egin zen gero. Monika Etxebarria
Haren hankartea nirearen kontra **itsasten** sentitu nuen. Juan Martin Elexpuru
Nire ezker eskua masailaren kontra **itsatsi** dut, azala tenkatu dut, imintzioka nago. Monika Etxebarria
Etenda geratutako zintaren bi muturrak zelorekin **itsatsi,** eta aurrera. Joxerra Garzia
Kolaz **itsatsi** behar izan zituen bidaiari lurtarrak jainko hauskorraren bi puskak. Imanol Zurutuza
Handiak txikiekin elkartuak nahi zituen, jakintsuak sinpleekin anai maitasunez batuak, urrutikoak urrutikoekin amodioaren lekedaz **itsatsiak**. Askoren artean
Gutunazal bat utzi zuen beretzat komisario-buruak, post-it bat **itsatsia** zuena. Harkaitz Cano
Orduan konturatu zen zinten emultsioak **itsatsiak,** kolatuak, geratu zirela eta bideo aparatuek ezin zituztela jiratu... Berria - Kultura
Gizon-usain minarekin batean, haren gorputzak **itsatsirik** zekarren Edurneren urrin gazi-gaztea. Aingeru Epaltza
Begiak itxi-itxita zituen, grinaz betetako malkoekin **itsatsita**. Julen Gabiria
Erretako etxeen usain isurkorra, **itsatsita** geratzen zena. Felipe Juaristi
Badakit internautak ez direla nirekin ados egongo baina "kopiatu- **itsatsi"** pentsakera gailentzen ari zaigu. Ana Urkiza
Orain ahotsak bilatu dituzte, eta haien neurrira egin euren *cut & paste* (moztu eta **itsatsi)** ariketak. Berria - Kultura

**2** (zeri osagaia adieraziz)

Sudurra leihoari **itsatsi** eta goitik behera amiltzen uzten nuen neure gogoa. Joxan Elosegi
Mihia ahosabaiari **itsatsi** eta ihartu egin zitzaion. Askoren artean
Hain zen lodia lokatza, ezen berehala **itsatsi** baitzitzaien gurpilei, feltrozko estalki bat balitz bezala. Jose Morales
Usain sakona **itsatsi** zitzaion musuzapiari. Ibon Uribarri
Begiak ur basoari **itsatsi** zitzaizkion. Joxemari Urteaga
Goroldio sentimentalik **itsatsi** ez zaion hitz soil batek. Anjel Lertxundi
Herasek eraso zain geratu zen, eta haren gurpilari **itsatsi** zitzaion. Berria - Kirola
Gorputza zakuaren kontra jausten utzi zuen [...] eta burua ere zakuari **itsatsi** zion, alboz. Josu Landa
Lianaren beste muturra, etxepean lo zegoen zerri baten hankari **itsatsi** diote. Pablo Sastre
Teknika horren bidez irudia atzeari **itsasten** zaio. Josu Zabaleta
Irteera-kableak bihotzaren kanpoaldeari **itsasten** zaizkio. Irene Aldasoro
Ibaia [...] ez da "toki" bat, eta bazterren izenak tokien izenak izan ohi dira, jendeak mendeetan barrena gizagirotutako bazter edo parajeei **itsatsi** dizkienak. Iñaki Segurola
Denek beren barreneko sua **itsasten** zioten beren adoratzailearen arimari. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Trikitilariek musikaren alaitasuna **itsatsi** zioten giroari. Berria - Harian
Beiratetik gertu, bazen bozgorailu bat paretari tinko **itsatsia**. Jon Muñoz
Saihetsei **itsatsia** dagoen gantza. Josetxo Azkona
Niri betiko -hala uste nuen- lotua, nire gorputzari **itsatsia,** nire biziarekin bat egina. Eduardo Matauko
Oinez zenbaitetan, zaldiz gehienetan, ni aitatxiren bizkarrari **itsatsirik**. Aingeru Epaltza
Buruz behera, ilea lokietako larruazalari **itsatsita** eta motots trinkoan bildua zuela. Karlos Zabala
Hiru hodi jarriko dira elkarri **itsatsitako** uharken barruan. Santiago Iruretagoiena

**3** (nori osagaia adieraziz)

Familia bati **itsatsi** zaion ospe txarra soberanoak ezaba dezakeela, errudunaren familia errugabeari bere ageriko elkartasuna agertuz. Juan Martin Elexpuru
Zer jarreraz lortuko zuen Jainko Jaunari osokiago **itsastea**. Askoren artean
Bataren ofizioa besteari **itsatsi** zaio, agi danean. Pello Zabala
Nondik nora **itsatsi** ote zaio gure hegaztirik ttipienari errege izate hori bere izenean? Patziku Perurena
Otso zakurrari ere grina gaizto hori **itsatsi** zitzaion. Gotzon Garate
Lurrezko ontzi hautsi bat berregiten den bezala, amets puskak bildu eta **itsatsi** behar genizkion elkarri. Joan Mari Irigoien
Zaudete niri **itsatsiak,** ni zuei bezala. Elizen arteko biblia
Zuri **itsatsia** nago oso-osorik, eta zure eskuinak eusten niri. Elizen arteko biblia
Niri **itsatsirik** ez dagoena kanpora botatzen dute. Elizen arteko biblia
Berehala ohartu nintzen nor zegoen hor niri **itsatsita**. Fernando Rey
Gero batbaten Viktoriari **itsatsita** ikusi nuen nire gorputza. Fernando Rey

**4** (nori osagaia isildurik)

Mundu-zalekeria hautsa bezala **itsasten** zaigulako. Askoren artean
Woolworth eraikinetik gertu, kalean bizi zen emakume bat **itsatsi** zitzaion. Harkaitz Cano
Lapa bat bezala **itsatsi** zitzaidan. Juan Martin Elexpuru
Urte askotarako **itsatsi** zidan izengoitia: Herrenko. Juan Kruz Igerabide
Gogoa Jugoslavian geratu zait **itsatsirik,** eta Sarajevoko eta Kosovoko izugarrikerietan pentsatzen ari naiz. Oskar Arana
Likido likits batek betileak **itsasten** zizkidan. Jon Maia

**5** (non osagaia adieraziz)

Nire mezua zuengan **itsasten** ez delako. Elizen arteko biblia
Treneko leihatilan kedarra **itsatsi** da. Bildu zuen besakada bat abar ihar, eta, sutara botatzean, sugegorri bat eskuan **itsatsi** zitzaion, berotik ihesi. Sonia Gonzalez
-Ez nuen paparrean **itsasteko** asmorik. Mirentxu Larrañaga
Oinetan **itsatsi** zaigun zuen herriko hautsa ere hor astintzen dizuegu. Elizen arteko biblia
Hezetasuna azalean **itsasten** da eta azala galtzetan. Unai Iturriaga
Harrezkero, galipota oinpean bezala **itsatsi** zitzaidan nire buruaz beste egiteko burutapen hura sabelean. Gero, Klararen ezpain gorri minak nireetan **itsatsi** ziren. Hasier Etxeberria
Txertoa ez da mentu onean **itsatsi,** eta ez du fruiturik ekarri geurean. Pello Zabala
Erakutsi diot nola, beira-xafla oraindik beroaren gainean berun urtua **itsats** daitekeen. Juan Garzia
Albumeko argazki hura norbaitek begi gainean **itsatsi** balio bezala. Iñaki Mendiguren
Bi gaztetxo kartelak hormetan **itsatsi** eta **itsatsi** zebiltzan. Patxi Zubizarreta
Egun batean, bere argazki bat, fotomatoian egina, ekarri zidan, eta paretan **itsatsi** nuen nik. Joxan Elosegi
Post-it-a [...] idazmahaian telefonoaren ondoan **itsatsi** nuenean. Oskar Arana
Gutunazalean bi zentaboko zigilu asko **itsatsi** zituen. Fernando Rey
Orratz batez horman **itsatsi** genuen kartoia. Koro Navarro
Hainbeste edertasun bere bihotzean txintxetaz **itsatsi** nahiko balu bezala. Argiei begira, ezerezean **itsatsi** zituen begiak, gorri eta more, more eta gorri. Jasone Osoro
Txoferrak Abeli **itsatsi** dizkio begiak. Pello Lizarralde

Begirada inon **itsatsi** gabe. Joxemari Urteaga

Jainkoak geure bihotzetan **itsatsi** duen errukiagatik. Juan Martin Elexpuru

Izan ere, oso gogorra da ohiko gauzak uztea eta behin gogoan **itsatsiak** ez dira erraz erauzten. Askoren artean

Baldokietan **itsatsia** zeukan ilea. Joxe Austin Arrieta

Berinetan axolagabeki **itsatsiriko** papertxoetan. Itxaro Borda

Harako krak hura, garezurraren barruan **itsatsirik,** sarrera-giltza bihurtu zen nire baitan. Juan Kruz Igerabide

Doilorkeriaren historia unibertsala geneetan **itsatsirik** daukagu. Juan Kruz Igerabide

Mingain sikua aho sabaian duzu **itsatsita** . Sonia Gonzalez

Gonan **itsatsitako** luma batzuk astindu zituen. Karlos Zabala

**Itsatsita** neukan xaguaren intziria gogoan. Bernardo Atxaga

Buru gainean txakurraren hondakinak zekartzatela, gorputzetan zakur-usaina **itsatsita** . Juan Kruz Igerabide

**6** (nora osagaia adieraziz)

Niregana **itsatsi** zen erabat. Fernando Rey

Furgonetaren leihora **itsatsirik** joan naizenean. Patxi Zubizarreta

Larrura **itsasten** hasi zaidan izerdiak. Anjel Lertxundi

Sudurretara **itsasten** zaidan plastiko honek. Koldo Izagirre

Arropa gorputzera **itsatsita** zeukanat. Xabier Paya

Eta handia nintzela ere esaten zidan, eta nire hitzak azalera **itsatsita** zituela ezpainak bailiran. Ramon Saizarbitoria

Laiseka gurpilera **itsatsi** zitzaion eta harekin egin zuen bidea. Berria - Kirola

Bere garraztasuna ez da malkoak lez kanporatzen, baina denboraldi luze batez begietara **itsatsita** geratzen da. Pako Aristi

Bentosa handi batzuen bitartez **itsasten** da lurrera, finko gera dadin. Berria - Kirola

· Hori izaten da zailena, arropak eta estalkiak erraietaraino **itsatsirik** egoten dira eta. Juan Kruz Igerabide

**7** (era burutua izenondo gisa)

Hitz **itsatsiak** . Iñaki Arranz

Bi argazki **itsatsiak** obalo gisa zeuden moztuta. Fernando Rey

Makillajea eman ezin zuela kexatu zenean, aitak apain-mahai gorri bat erosi zion, nakar **itsatsiekin** . Juan Kruz Igerabide

Erradiografiak ere bazituen liburuan paratuak, dozena erdiren bat, bakoitza bi orri **itsatsiren** tartean eta erdian lauko bat irekita, argitara ikusteko moduan. Pablo Sastre

**8** ***itsatsi-itsatsi eginda*** pega-pega eginda.

Oraintxe ere ikusten dut, bai, sudurra paperera **itsatsi-itsatsi** eginda, eta mihia hortz artetik kukuka duela. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat itsatsi** (6); **begietan itsatsi** (3); **bezala itsatsi** (4); **bezala itsatsi zitzaidan** (3); **elkarri itsatsi** (3); **eta itsatsi** (10); **gurpilari itsatsi** (5); **gurpilera itsatsi** (5); **gurpilera itsatsi zen** (3); **itsatsi behar** (8); **itsatsi behar izan** (3); **itsatsi ditu** (3); **itsatsi egiten** (6); **itsatsi eta** (18); **itsatsi gabe** (4); **itsatsi nahi** (3); **itsatsi nuen** (4); **itsatsi zaio** (3); **itsatsi zaion** (3); **itsatsi zen** (9); **itsatsi zion** (5); **itsatsi ziren** (4); **itsatsi zituen** (9); **itsatsi zituen begiak** (3); **itsatsi zituzten** (6); **itsatsi zitzaidan** (4); **itsatsi zitzaion** (16); **itsatsi zitzaizkion** (6); **itsatsi zuen** (3); **kartelak itsatsi** (3); **ondo itsatsi** (3)

**ahosabaiari itsatsia** (3); **furgonetaren leihora itsatsirik** (3); **gorputzari itsatsia** (3); **gorputzari itsatsirik** (5); **hormari itsatsia** (4); **itsatsia dagoen** (6); **itsatsia dagoen gantza** (5); **itsatsia eta** (4); **itsatsia ez** (3); **itsatsia gelditu** (3); **itsatsia geratu** (4); **itsatsia zegoen** (3); **itsatsia zeukan** (4); **itsatsia zuen** (3); **itsatsiak gelditu** (4); **itsatsirik geratu** (3); **itsatsirik zeuden** (3); **leihora itsatsirik** (3); **lurrari itsatsirik** (3); **niri itsatsirik** (3); **saihetsei itsatsia** (5); **saihetsei itsatsia dagoen** (5)

**atean itsatsita** (3); **azalean itsatsita** (5); **azalera itsatsita** (3); **bat itsatsita** (3); **batean itsatsita** (4); **bati itsatsita** (4); **bezala itsatsita** (4); **buruan itsatsita** (3); **elkarri itsatsita** (14); **elkarri itsatsita zeuden** (5); **erdi itsatsita** (3); **gorputzari itsatsita** (4); **gurpilari itsatsita** (3); **hormari itsatsita** (4); **ia itsatsita** (3); **ispiluan itsatsita** (3); **itsatsita bezala** (3); **itsatsita dago** (3); **itsatsita dagoen** (3); **itsatsita daude** (3); **itsatsita dauden** (3); **itsatsita eduki** (4); **itsatsita eta** (4); **itsatsita gelditu** (6); **itsatsita geratu** (11); **itsatsita geratuko** (3); **itsatsita geratzen** (11); **itsatsita jarraitzen** (3); **itsatsita utzi** (4); **itsatsita zegoen** (15); **itsatsita zeraman** (4); **itsatsita zeuden** (7); **itsatsita zuen** (4); **leihoari itsatsita** (3); **lurrari itsatsita** (4); **oroimenean itsatsita** (3); **paretari itsatsita** (4); **telefonoari itsatsita** (3); **zeuden itsatsita** (3); **zuen itsatsita** (3)

**bat itsasten** (5); **bezala itsasten** (3); **elkarri itsasten** (3); **itsasten ari** (9); **itsasten ari ziren** (3); **itsasten da** (5); **itsasten den** (3); **itsasten dio** (3); **itsasten dira** (7); **itsasten diren** (5); **itsasten ez** (3); **itsasten saiatu** (3); **itsasten zaio** (8); **itsasten zaizkie** (3); **itsasten ziren** (5); **itsasten zitzaion** (8); **itsasten zitzaizkion** (4); **kartelak itsasteko** (3); **ondo itsasten** (3)

---

# itseskatu, itseska, itseskazen da *ad*

Lakona ta? -galdatu zion kontrol kabinatik **itseskatzen** zen hodiaren isurian ahots metalikoak. Itxaro Borda

---

# itsu *(orobat **itxu** g.er.)* **1** *izond* ikusten ez duena.

Tom deritzon beltz **itsu** batek. Xabier Olarra

Gizon **itsu** bat hurbildu eta kopletan hasi zitzaion kantari. Felipe Juaristi

Altxor sekulako bat aurkitu zuen behin Maittieneko harkaitzetan, eta artzain **itsu** bati deitu zion laguntza eske, basoan bildutako ezkurra garraiatu behar zuela esanda. Anjel Lertxundi

Homero izeneko idazle **itsu** bati buruz. Felipe Juaristi

Gero turkiar neska **itsu** bat sartu da, neska-mutil biren eskutik. Edorta Jimenez

-Agure **itsu** bat duzu atarian, zure galdez. Eider Rodriguez

Geroztik, nere guztizko andregai sekretua izan da neskatila **itsu** euskaldun hori. Patziku Perurena

Lau kolpetan lau zati egin nion aurpegia polizia **itsu** putasemeari. Karlos Linazasoro

Zaldi **itsu** batekin. Karlos Zabala

Ez abere **itsurik** edo gorputz-atalen bat hautsia duenik. Elizen arteko biblia

Ilunpe hartantxe egiten duela ondoen igerian arrain **itsu** hiztunak. Iñaki Segurola

Xederik gabe zebilzkion betzuloetan begi **itsuak** . Xabier Olarra

Nire eri **itsuek** arrosarioa ezagutu zuten, zurezko bihi larri eta xeheetan harilkatua. Aingeru Epaltza

**Itsuenak** ere ikusten du hori. Aingeru Epaltza

**2** *irud*

Begi **itsuak** ziren, ezer gehiagorik ikusiko ez zutela zin egindakoak. Felipe Juaristi

Zita **itsu** haietako batean. Harkaitz Cano

Gaztelaniaren itzulpen **itsu** dira euskarazko literaturan erabili izan diren *ozen* eta *gor* terminoak. Lourdes Oñederra

Zorigaitz **itsu** baten itzal hormatuak. Janbattitt Dirassar

Larriaren eta txikiaren arteko bereizketak lege **itsu** eta inpartzialaren esku utzi behar dira, eta ez epaileen zuhurtzia arriskutsu eta arbitrarioaren iritzira. Juan Martin Elexpuru

Natura krudela da, **itsua** . Txillardegi

Nora garamatza lastertasun **itsuko** tren honek? Joxerra Garzia

**3** zentzuari edo adimenari jarraitzen ez diona.

Baina ez errebelde **itsu** eta fanatikoa, baizik eta lasaia, umoretsua, argia, bere joera eskandalagarria ondo baino hobeto defendatzen zekiena bere bibliotekari erudizioaz. Bernardo Atxaga

Ez dela ideia ona garai honetan alboko herrialdean sartzea, hor jende **itsu** eta fanatiko asko dagoela. Jon Arretxe

Mendozatarren zaldizainarekin izan nuen amorio **itsu** hargatik galdua nengoela. Joan Mari Irigoien

Lehen nion mirespen **itsua,** ordea, itzaltzen hasi zitzaidan. Joxean Agirre

Indar **itsu** batek herrestatzen zuen aurrera. Fernando Morillo

Iduri luke eskuineko belaunaldien ondotik etorri belaunaldi berriek ezkerreko muturretik ekarri diguten sorgin berrien katiximak eraman gaituela iragan mendeetako sabeltxuri-sabelgorrien borroka **itsuetara**. Piarres Xarriton

Washingtonek atentatu **itsuen** egiletzat jo duen Abu Mussab a-Zarkauiren taldea. Berria - Mundua

Atzerapenak sortu ziren, Mikel Strogoffen aurrera jo nahi **itsuak** ere ezin saihestu zituenak. Karlos Zabala

Zientzilari italiarrak uko **itsu** batekin ihardets baitziezaiokeen tribunalari. Joan Mari Irigoien

Eternitatea ez da handi, ez ttipi, esan liteke egun bateko edo instant bateko gertaldia dela, irudipen **itsu** batek hazia eta hiperbole bihurtua. Patziku Perurena

Ukaldi **itsu** bat besterik ez zen izan lurrera-behar hura niretzat, ahozpezko tupust egite bat konorte-galerarantz. Joxe Austin Arrieta

Martin handinahia zen, arriskuzalea eta uste **itsua** zuen bere patuan. Koro Navarro

Asmo **itsu** horrek gogortu eta zikoiztu egin zuen azkenerako. Karlos Zabala

Gurasoei errespetu **itsua** izatetik seme-alaben beldur izatera pasatu gara. Berria - Harian

Baina sendotasun hori fede **itsu** batetik edo pentsuaren sendotasunetik baizik ezin etor daiteke. Joan Mari Irigoien

Agnostizismotik sinesmen **itsura** eta sinesmen **itsutik** ezertxo ere ez sinestera iragan zela. Joan Mari Irigoien

Dirua **itsua** da eta itsugarria, fede guztien gisan. Iñaki Segurola

Kreazio guztia istripu **itsua** da, paper orri batean eroritako tintontzia eta tintak bere kabuz gutun bat idatzi duena, hitz bakoitza gezur bat, esaldiak kaosa. Koro Navarro

Indarkeria **itsura,** ia fanatikora. Alberto Ladron Arana

**4** zerbaiten erabateko zalea.

Luis Arruza, ezizenez "Ferrari", mutilzaharra eta automobilzale **itsua,** automobila noiznahi aldatzen zuena. Joan Mari Irigoien

Amona ere futbolzale **itsua** baitzen. Joan Mari Irigoien

-Eta ni ere, handik harat, pinturazale **itsua** egin ninduan, are gehiago Pariserat joan nintzenean. Joan Mari Irigoien

Ordenazale **itsuaz** gain, zuhurra, ernea eta begi-zolia. Joan Mari Irigoien

Zabaltasunerako **itsua** naiz. Josu Zabaleta

**5** ikusten uzten ez duena.

Halako hodei-multzo trinko **itsu** bat sortu zen berehala brankaren aurrez aurre. Anjel Lertxundi

Behe-laino **itsu** batek estali izan balitu bezala nire iraganaren zantzuak. Hasier Etxeberria

Ibaia, laino **itsu** hark ezkutatzen zidana, nire inguruan igerian zebilzkidan izaki bitxiz beterik zegokeela. Josu Zabaleta

Haiek beraiek izan ziren, ontzia lainoarte **itsuan** zetorrela sumaturik, itsas malden gailurretan argi faltsuak piztu zituztenak. Pako Aristi

Ilun **itsua** zen oraindik, ez baitziren izango hirurak ere. Josu Zabaleta

Bat-batean hiltzen dira gau **itsuan**. Elizen arteko biblia

Argi gorri, ilun, keinukari ezagun batzuk, zeru **itsu** urrutikoan galdu eta atzera azaltzen zirenak. Karlos Linazasoro

**5a** ikusten ez dena.

Bafleen bi kutxa handiek, baina, geldialditxoa egin zuten eskaileretan, zaindarien begiradatik ezkutuan zegoen bazter **itsu** batean. Berria - Harian

**6** gelez eta kidekoez mintzatuz leihorik ez duena.

Aitona ohean lotu beharra zegoela eta gela **itsu** batean hertsi, zeren jauregiko jendeak ez baitzuen zergatik haren biraorik entzun ez jasan. Joan Mari Irigoien

Denbora tortura tresna baita gela **itsu** batean. Felipe Juaristi

Ganbera **itsuko** ohatze eskasean. Aingeru Epaltza

Berogailu batek baino epeltzen ez zuen etxebizitza ilun eta **itsu** batean. Juan Garzia

Aitak astebeterako kondenatu zuen ziega **itsu** hartarat morroi bat, Urbiaindik mozkorturik itzuli zelako. Joan Mari Irigoien

Griluz loturik ekarri ditu gainera, bi jaunen animak arrastan, eta leotz **itsuan** sartuak dauzka. Patziku Perurena

**7** kaleez eta kidekoez minzatuz, aterabiderik ez duena.

Kamioi, orga edota gurdirik ez zen sartzen kale **itsu** hartara. Mirentxu Larrañaga

Erresistentzian hasi berritako gazte batek zabarki jarri zion hitzordua kale **itsu** batean. Joxan Elosegi

Liberalizazioan areagoatzeko Munduko Merkataritza Erakundeko herrialde kideen arteko negoziazioak kale **itsu** batean daude aspalditik. Berria - Ekonomia

Nola irten zulo **itsu** hartatik, hura zen asmatu behar nuena. Anjel Lertxundi

Bide **itsua**. Berria - Harian

Korridore **itsu** batera iritsi ziren, zulo itzaltsu batera. Karlos Zabala

Pixa egin zuen korridoreko amaiera **itsuan**. Koro Navarro

Zerbait egin nahi duena aise galtzen dela "labirinto" **itsu** batzuetan! Herria

Zirkulu **itsu** baten barruan gaude, beraz. Isabel Arrigain

**8** leihoez eta kidekoez, estalirik dagoena.

Ez zen leiho **itsurik** eta patio hutsik egon. Agustin Otsoa

Eder zait leiho **itsuen** luto zibil hau. Koldo Izagirre

Ohiko ezinegona jabetu zen Tsiganokez, baina orain, hormek estuturik, burdin hesiek eta ezer ikusten uzten ez zuten heriozko leiho **itsuek** hertsaturik, bere baitara bihurtu zuen amorru guztia. Jose Morales

Leihoa bera ere ateska **itsu** bat iruditu zitzaion. Jon Alonso

Izu-laborriak harturik, adimena nahasirik, harrizko horma **itsu** baten aurrean balego bezala. Jose Morales

**9** basoaz eta kidekoez mintzatuz, sarria.

Honela, Santo Domingoko baso **itsu** batera ihes egin zuen. Gotzon Garate

Baso **itsuan** aizkoran ari den egurgina ziruditen. Elizen arteko biblia

Egunsentiko argi grixkaran ere basoarte **itsua,** eguzkiaren lehen printzak oihaneko zeruertz ordokiaren gainetik [...] basoarte amaigabea, zarratua. Joxe Austin Arrieta

Oihan **itsua** besterik ez izaki, ordea, baztergabea, berde-urdina, laua, ozeanoa bezalakoxea... oihan **itsua**! Joxe Austin Arrieta

**10** (izan aditzarekin)

Orain Greg, **itsu** ez ezik, elbarri ere bazen, bai alde neurologikotik, bai gogamenekotik. Xabier Olarra

Kolorearekiko **itsu** zela erabat. ikusmendunontzat lotsagarria da jaiotzez **itsu** direnei begiratzea. Jose Morales

Begiak **itsu** dituzte eta ezin ikusi, burua ere ilun eta ezin konprenitu. Elizen arteko biblia

Jakin zuen da Ruak ez dutela itsuek **itsu** ez direnek bezala negar egiten. Felipe Juaristi

**Itsua** zela, zuzen ibiltzeko gai ez zela, gaixo zegoela. Xabier Olarra

**Itsua** banintz, neu konturatuko nintzateke beste inor baino lehen. Xabier Olarra

Demagun gizon bat **itsua** dela jaiotzatik, eta, heldua delarik, kuboa eta esfera ukimenaz bereizten erakutsi zaiola. Xabier Olarra

Erabat **itsua** balitz bezala tratatu dute. Xabier Olarra

Jauna, nire neba **itsua** duzu! Karlos Zabala

Eta ez dakit esan dizudan, baina **itsua** zen Santos, **itsu**-itsua. Unai Elorriaga

**Itsua** izanagatik ere, Borges idazleak begi ernea zuen topiko kulturalak eta literarioak biluzteko orduan. Anjel Lertxundi

· Izuagatik begia **itsu,** belarria gor, eta burua maingu. Felipe Juaristi

**Itsu** behar nikek ez konturatzeko. Anjel Lertxundi

• **11** *pred*

Ez zuen ezer ikusten: erabat **itsu** zegoen. Xabier Olarra

Maitemindurik baitzegoen, maitasunaren argiz **itsu** beraz. Felipe Juaristi

Txikitan **itsu** geldituko pertsonak. Xabier Olarra

Hiru egun eman zituen han **itsu,** ezer jan eta edan gabe **Itsu** eta gor ageri baitzen geroaren aurrean. Elizen arteko biblia

Nork egiten du gizakia mutu ala gor, **itsu** ala ikustun, nik, Jaun honek, izan ezik? Elizen arteko biblia

Jesusek **itsu** jaiotakoa sendatu. Elizen arteko biblia

Eta **itsu** sortuko ez zen semea ekarriko nuela mundura. Felipe Juaristi

Ez baitzen askorik kezkatzen norbait **itsu** edo besamotz uzteagatik. Josu Zabaleta

• **12** *iz* ikusten ez duen pertsona.

Hango argiak **itsuak** sendatzen bazituen ere, ikusteko gai zirenak itsutu egiten zituela. Anjel Lertxundi

Eta **itsua,** soldaduen begiez ikusiko balu bezala, bere aulkitik altxatu eta soldaduen aurrean jarri zen. Felipe Juaristi

Doinu bera behin eta berriro, Dowlanden *Pavan Lachrimae*, Damián **itsuak** jotzen zuen erara. Felipe Juaristi

Solferinoko **itsua**. Anjel Lertxundi

Aldez behintzat higiene eza dela eta, Indian 10 milioi **itsu** daude. Gotzon Garate

**Itsu** askori ikusmena itzuli zien. Elizen arteko biblia

Orduan, **itsuek** ikusi egingo dute berriro eta gorrek entzun. Elizen arteko biblia

**Itsuak** argitu, konkortuak zutitu, deabruak jaurti. Askoren artean

**Itsu,** gor eta mutuak. Askoren artean

Gerra Handiak eragindako zoro, **itsu,** maingu eta herren ugari ikusten zen bazterretan. Anjel Lertxundi

Hoa bizkor herriko plaza eta kaleetan barrena, eta ekarri hona behartsu, elbarri, **itsu** eta herrenak. Elizen arteko biblia

**Itsuentzako** eskola batera bidali zuten. Xabier Olarra

**Itsu** eskalearena eginez. Harkaitz Cano

Bat-batean, **itsu** baten inguruan biltzen hasi da jendea. Anjel Lertxundi

Ez, **itsu** guziek ez dute berdin ikusten. Patziku Perurena

Bada ikusi nahi ez duena baino **itsu** itsuagorik ere: ikusi nahi duen huraxe baizik ikusten ez duena. Joxerra Garzia

Ez madarikatu gorra, ez ipini **itsuari** bidean oztoporik. Elizen arteko biblia

**Itsuaren** begi bihurtu nintzen, elbarriaren oin. Elizen arteko biblia

Eta **itsuaren** gidaria **itsua** bada, biak zulora eroriko dira. Elizen arteko biblia

**Itsuak** itsuen itsumutil! Xabier Paya

**Itsu** batek ere ikusiko zuen Lajosenganako jeloskortasuna piztu zitzaiola Laciri, jeloskortasun irrigarria piztu ere. Ander Irizar

Diru biltzea **itsuen** xakurrak erosteko **itsuentzat**. Herria

*ik beherago* 25. Askoren artean

Once, Espainiako **itsuen** elkartea nork ez du ezagutzen? Herria

**Itsuen** futbolean 2-0 irabazi zuen Frantziaren aurka. Berria - Kirola

**13** itsualdia.

Gero, **itsuak** hartuta, urrats egin du niregana, eta eskua jaso du zaflaka hasteko bezala. Koldo Izagirre

Atea ireki, berea ez zirudien indarrez, eta bere **itsuan** Alessandro ikusi zuen Juvenaliaren gainean maitasunez larruz larru ilez ile urtzen. Felipe Juaristi

Hiri-hotsak hor bertan dauzkat / Eta preso neure **itsuan** / Zerua ilun beltz dakusat. Juan Garzia

**14** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Itsu**-makila eta eguzkitako betaurrekoak hartuta. Harkaitz Cano

Bi modu nabarmen zituen, beraz, **"itsu**-portaera" agertzeko edo "itsuarena" egiteko: [...]. Xabier Olarra

Iduri du Europa-mailean ere **itsu**-mandoko bezala dabiltzala batzuetan. Herria

Autodidaktaren arima bere **itsu**-begi ederretaraino igo da eta bertan azaleratzen da. Monika Etxebarria

Ikusmen inplizitu, oharkabe edo **itsu**-ikusmen deritzona. Xabier Olarra

Erietxean antzeman zioten **itsu**-ikuskera lehenbizikoz. Xabier Olarra

Hala eta guzi, **itsu** paperan ibilitako alfer jende pikaroa erruz izan da. Patziku Perurena

**Itsu** plantak egiten zituztelako. Karlos Linazasoro

Egunaren distira bikainak aztoraturik eta **itsu**-liluraturik. Juan Garzia

**15** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Etsai-gudaroste buru-**itsu** eta maltso baina kopuruz eta pisuz ikaragarri baten aurkako gerra azkengabe batean borrokatzen. Juan Garzia

• **16** *adlag* itsurik.

Zeren eta **itsu** sinesten duenak bizitzako arrazoin bihurtzen baitu bere sinestea. Joan Mari Irigoien

**Itsu** baino itsuago sinesten baitzuen Jainkoaren probidentzian. Joan Mari Irigoien

Naturaren senari **itsu** jarraitzea. Itxaro Borda

Lasterka abiatu nintzen, **itsu;** lurrera eroria zen norbaiten bizkarrean ipini nuen hanka, eta estropezuka jarraitu nuen, baina ez nintzen jausi. Juan Kruz Igerabide

Lokatzetan behera, burdinazko barren azpian, **itsu,** haztamuka. Anton Garikano

**17** ***itsuan*** *adlag* ikusi gabe.

Eskumuturrez jotzen saiatzen da **itsuan**. Lehen **itsuan** ari nintzen. Oskar Arana

Buruz behera zegoen gabardinan faltrikeraren bila ibili zen **itsuan**. Josu Landa

Zatiak ezkutuan gordetzen ziren, eta gidariak **itsuan** sartzen ziren errepidean. Berria - Kirola

Patata-sail bat zeharkatu behar dute **itsuan** eta behaztopaka etxaldera iritsi aurretik. Oskar Arana

Arrasto bakar hartaz at, oro zen **itsuan** egin beharreko igartze-lana. Oskar Arana

**18** ***itsura*** (*orobat* ***itsurat*** *g.er.*) *adlag ipar* itsuan.

**Itsura** hautatu zuen behar nuen luneta parea, beste anitzen artetik. Marzel Etxehandi

Hola jokatuz, erakutsi dute juduek ez direla gehiago **itsura** jokatzen lehenago bezala bainan beren ukaldiak nahi duten lekuan egiten ahal dituztela. Herria

Gure izialduraren emendatzeko S.S. sarjant bat [...] geritarat goiti doa eta **itsura** mitralleta kolpe bat igortzen du. Michel Oronoz

Ez da, egia erran, airerat eta **itsurat** egina galde hori. Herria

### 19 ***begi itsuan*** *adlag*

Begi-**itsuan** edozein bazter ezagutuko zuketen, hango urrina usaintze hutsarekin. Karlos Zabala

### 20 ***itsu-gidari*** itsuaurrekoa.

Itsu dira, eta **itsu** -gidari. Elizen arteko biblia

Badira ere, beste ainitz mailetan, xakur heziak: batzu **itsu gidari,** besteak droga ikerlari, edo jende bakartuen etxeko lagun. Herria

### 21 ***itsu-itsu*** *(**36** agerraldi, **7** liburu eta **10** artikulutan) adlag* itsu-itsuan.

Israelek **itsu-itsu** jarraitu gaiztakerian. Elizen arteko biblia

Ehiztari senaren mende jarria dagoeneko, gorputzak **itsu-itsu** bide ezagunetik jarraitzen du. Iñaki Iñurrieta

Agintariek esandako guztia bihotz-bihotzez sinetsi eta aginduak **itsu-itsu** betetzeko prest egotea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez, ez zen bi begi berderen atzetik **itsu-itsu** joan, ezkonberritan noizbait pentsatu izan zuen bezala. Jokin Muñoz

Garaipena gertu ikusten badu, **itsu-itsu** bilatuko du. Berria - Kirola

### 22 ***itsu-itsuan*** *(**153** agerraldi, **71** liburu eta **41** artikulutan) adlag* ezer ikusi gabe; aztertu edo hausnartu gabe.

Lasterka hasi zen **itsu** -itsuan aurrera. Felipe Juaristi

CRSak **itsu** -itsuan egin zuten eraso, aitzinean zeukaten guztiaren kontra. Berria - Harian

Ur handitan **itsu** -itsuan ez sartzeko. **-Itsu** -itsuan sartu nauk, eta ez haut ikusi. Migel Angel Mintegi

Baina gudari batek jaurtiki zuen gezia **itsu** -itsuan eta Israelgo erregea zauritu zuen bular-oskolaren junturartetik. Elizen arteko biblia

**Itsu** -itsuan bota nion tiroa, baina zuzen. Jon Muñoz

Zaudete, beraz, lasai, **itsu** -itsuan jokatu gabe. Elizen arteko biblia

**Itsu** -itsuan maitatzea. Felipe Juaristi

Nahikoa da dozena erdi liburu itsu-**itsuan** erostea, horretaz konturatzeko. Hasier Etxeberria

Geroztik **itsu** -itsuan enborrak ebakitzen jarraitzea besterik ez dudala egin. Pako Aristi

Ez itzazue **itsu** -itsuan sinetsi hitz dohakabe itxurakook, agian itxura besterik ez dira izango eta! Karlos Linazasoro

· **Itsu** -itsuan heltzen diogu nork bere egiatxoari, egia osoa bailitzan. Joxerra Garzia

### 23 *itsu-itsuka* ik **itsuka 2.**

### 24 ***itsu-itsuko*** *izlag*

Gure amona garai batean oso aberatsa izan zen, baina asko pobretu zen Mundu Gerran, zeren, Frantzisko Joserengan itsu-**itsuko** konfiantza izanik eta uste zuenez Italiak ez zuela irabaziko, gorde nahi izan baitzituen Austrian zituen hainbat titulu. Fernando Rey

### 25 ***itsu-lagun*** *iz*

Hiria ezezaguna zitzaion eta **itsu** lagunik gabe nekez ibiliko zen maldan gora jarrita dauden etxarteetatik barrena. Felipe Juaristi

**Itsu** -lagun lanetara behartzen nau berriro. Xabier Olarra

### 26 ***itsu-leiho*** lehio itsua.

Lau partetan partitu baitzuten haren gorputza, eta haren burua, berriz, Mauleko murrailetako **itsu** -leihotik eseki. Joan Mari Irigoien

Harresiaren inguruan lubakia zularazi zuen Migelek eta, atea hobeki defendatu beharrez, gainean **itsu** -leihoak irekiarazi. Aingeru Epaltza

**Itsu-leihoetatik** begiztatu nuen etsaia. Aingeru Epaltza

### 27 *itsu-mandoka* ik **itsumandoka.**

### 28 ***itsu-zakur*** itsu gidari den txakurra.

**Itsu** -zakurra, itsuen gidari paregabea. Herria

Bana beste, zortzi urtez ari dira gidaritza lan hortan **itsu** -zakurrak, beren 10 urteak arte. Herria

**Itsu** -zakur eskola. Herria

Badira **itsu** -zakurrak, zergatik ez gor-loroak? Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**agure itsu** (3); **agure itsu bat** (3); **batean itsu** (4); **begiak itsu** (6); **bezain itsu** (11); **bi itsu** (4); **da itsu** (8); **da itsu itsuan** (5); **dama itsu** (3); **du itsu** (3); **duen itsu** (3); **edo itsu** (7); **emakume itsu** (5); **emakume itsu bat** (3); **erabat itsu** (11); **erdi itsu** (7); **ere itsu** (11); **eta itsu** (54); **eta itsu batek** (3); **eta itsu itsuan** (11); **eta kale itsu** (3); **ez da itsu** (4); **ez itsu** (5); **fede itsu** (4); **gauzetan itsu** (3); **gela itsu** (4); **gela itsu batean** (3); **geratu zen itsu** (3); **gizajoa itsu** (3); **gizon itsu** (5); **gor eta itsu** (6); **guztiz itsu** (3); **hain itsu** (5); **hura itsu** (6); **hura itsu itsuan** (3); **ia itsu** (11); **ia itsu zegoen** (3)

**itsu bat** (43); **itsu batean** (15); **itsu batek** (22); **itsu batek ere** (6); **itsu batekin** (5); **itsu baten** (25); **itsu batera** (9); **itsu bati** (13); **itsu bezain** (3); **itsu bihurtu** (7); **itsu bihurtzen** (3); **itsu da** (6); **itsu dago** (6); **itsu direnei** (3); **itsu edo** (4); **itsu egon** (6); **itsu eta** (57); **itsu eta gor** (9); **itsu eta mutu** (3); **itsu ez** (6); **itsu gara** (4); **itsu gelditu** (6); **itsu gelditzea** (3); **itsu gelditzeko** (3); **itsu geratu** (11); **itsu geratu zen** (3); **itsu geratzen** (3); **itsu gisa** (4); **itsu hark** (3); **itsu hau** (3); **itsu hori** (4); **itsu horrek** (3); **itsu hura** (4); **itsu hutsa** (3); **itsu hutsa niz** (3); **itsu itsu** (17); **itsu itsuan** (153); **itsu itsuan egiten** (3); **itsu itsuan eta** (4); **itsu itsuan hartu** (3); **itsu itsuan jokatu** (3); **itsu itsuan sinesten** (13); **itsu itsuan sinetsi** (6); **itsu izan** (8); **itsu jaio** (3); **itsu makila** (4); **itsu mandoka** (4); **itsu nengoen** (5); **itsu sinesten** (4); **itsu utziko** (3); **itsu zakur** (4); **itsu zakurrak** (3); **itsu zegoen** (14); **itsu zen** (6)

**jaiotzez itsu** (3); **kale itsu** (20); **kale itsu batean** (7); **kale itsu batera** (6); **koloreekiko itsu** (4); **urteetan itsu** (3); **urtez itsu** (5); **zen itsu** (11); **zen itsu itsuan** (3); **zuen itsu** (3)

**agure itsua** (4); **angiozarko itsua** (4); **atxikimendu itsua** (3); **baina itsua** (3); **da itsua** (6); **edo itsua** (5); **erabat itsua** (5); **erdi itsua** (7); **eta itsua** (20); **euli itsua** (3); **ez da itsua** (4); **fede itsua** (13); **indar itsua** (6); **itsua baita** (3); **itsua baitzen** (3); **itsua balitz** (5); **itsua balitz bezala** (5); **itsua besterik** (3); **itsua besterik ez** (3); **itsua bezala** (4); **itsua da** (20); **itsua da eta** (3); **itsua dela** (5); **itsua egin** (3); **itsua ematen** (3); **itsua eta** (22); **itsua eta gorra** (3); **itsua ez** (6); **itsua izan** (12); **itsua izango** (3); **itsua izatea** (4); **itsua naiz** (5); **itsua sendatu** (3); **itsua zela** (13); **itsua zen** (26); **itsua zen santos** (3); **itsua zuen** (3); **jesusek itsua** (3); **jesusek itsua sendatu** (3); **konfiantza itsua** (9); **maitasun itsua** (3); **oihan itsua** (4); **solferinoko itsua** (4); **virgil itsua** (3); **zale itsua** (4); **zen itsua** (4)

**baino itsuago** (4); **begi itsuak** (12); **bezain itsuak** (4); **du itsuak** (3); **erantzun zuen itsuak** (3); **esan zuen itsuak** (5); **eta itsuago** (6); **eta itsuak** (11); **itsuago eta** (3); **itsuak bezala** (5); **itsuak dira** (6); **itsuak ere** (8); **itsuak ere ikusten** (3); **itsuak eta** (14); **itsuak eta herrenak** (3); **itsuak ez** (5); **itsuak gara** (3); **itsuak izan** (6); **itsuak jotzen** (3); **itsuak zirela** (3); **zuen itsuak** (13)

**da itsu itsuan** (5); **eta itsu itsuan** (11); **gela itsuan** (3); **hura itsu itsuan** (3); **ilunpe itsuan** (6); **itsu itsuan** (153); **itsu itsuan egiten** (3); **itsu itsuan eta** (4); **itsu itsuan hartu** (3); **itsu itsuan jokatu** (3); **itsu itsuan sinesten** (13); **itsu itsuan sinetsi** (6); **itsuan aukeratu** (3); **itsuan egin** (3); **itsuan egiten** (3); **itsuan eta** (6); **itsuan hartu** (3); **itsuan jokatu** (3); **itsuan sartu** (3); **itsuan sinesten** (14); **itsuan sinetsi** (6); **zen itsu itsuan** (3)

**eta itsuaren** (4); **eta itsuari** (3); **eta itsuek** (3); **eta itsuen** (3); **itsuaren bidez** (3); **itsuaren esku** (3); **itsuaren gidari** (3); **itsuaren gisan** (3); **itsuaren hatzak** (3); **itsuaren zubiko** (5); **itsuarena egin** (5); **itsuarena egiten** (3); **itsuei ikusmena** (3); **itsuek ikusi** (3); **itsuen begiak** (4); **itsuen eta** (3); **itsuenak ere** (5); **itsuz eta** (3)

---

## **itsualdi** *iz* itsutasunezko aldia.

Onartuko dugu honen guztiaren arrazoia nekea izan dela, ahalmenen **itsualdi** iragankor bat. Jon Alonso

Iluntasunaren arima sakonaren bidetik erabateko **itsualdira** iristen dela. Jon Alonso

Normalena izaten da galderari halako **itsualdi** bat jarraitzea, kolpetik esnatzean edota zerbaitekin ikaratzean bezala. Bernardo Atxaga

Pizturiko odolaren mintzaira entzuten hasia zen berriro, eta bazekien zer esan nahi zuen horrek: grinak zirikatutako **itsualdia** . Fernando Morillo

Buruhandiak sekulako **itsualdia** zeukan, edandako Guinness litroen eta olerkariari gorroneatutako porro ugarien kontura. Jon Arretxe

## **itsuarazi**, itsuaraz, itsuarazten *(orobat* ***itsutuarazi****)* du *ad* itsutzera behartu.

Bakardadeak eta deabruaren trikimailuek eta aztikeriek itsutu egin ohi dute marinela, eta horretara, haragiaren irritsarekin **itsuaraziz,** Sodoma galarazi zuen bekatuan erorarazi. Edorta Jimenez

Zerk **itsuarazi** hau hola. Eneko Bidegain

Nire burua plazeraren atakaraino neronek **itsutuarazi** behar nuelarik, hazi likitsa hatzekin bildu eta sudurrera eramaten nuen berak behin egin zuenez, kriskitin-keinu hark Almaren gomuta piztuko zidalakoan. Harkaitz Cano

---

## **itsuaurreko** *(orobat* ***itsu-aurreko****)* *iz* itsua gidatzen duena, itsu-laguna. ik **itsu 20; itsumutil**.

Gaztetxo nintzela Dodaka **itsuaurreko** izan zen niretzat, erreferente eta eredu. Jokin Urain

· *izlag* **-Itsu** aurreko txakurra izango naiz! -esan zuen bere artean. Karlos Zabala

---

## **itsubide** *iz* itsutzeko bidea.

Nola ahaztu kazetari batzuen eta ezkerreko intelektualen eldarnioak, beren ideologiak **itsubidera** ekarriak, arrazoimenari uko eta pentsamenduaz beste egitera hain lotsagarriro limurtuak? Juan Garzia

---

## **itsugarri** *izond* itsutzen duena.

Tximista **itsugarria** ikusi zen, eta atearen orriak lurrera erori ziren milaka zatitan. Agustin Otsoa

Argitasun **itsugarri** batez ikusten hasi nintzen segitu behar nuen jokabidea. Anjel Lertxundi

Paisaia argitzen du, argi **itsugarri,** ikaragarri, mila eguzki baino indartsuago batez. Juan Garzia

Orduan argi **itsugarri** batek biluztu ninduen bide erdian: ni besarkatzera heldu zen munstro orro-egilearen begiak. Aingeru Epaltza

Hauts hodei **itsugarriak** hegaldatu ziren norabide guztietan. Alberto Ladron Arana

Eguzkiaren distira **itsugarria** Azpimunduko atea irekitzean... Joanes Urkixo

-Barkatu, jaun-andreok, eta egun on -hasi zen, bere irribarrerik **itsugarriena** jantzita-. Alberto Ladron Arana

Garai bateko hiritar ilustratu edo argituaren argitasun hura [...] pantallak zuzen-zuzenean bi begietatik garuneko zulo beltzetaraino helarazten duen argitasun katodiko **itsugarria** besterik ez da gaur. Iñaki Segurola

Irudia indar **itsugarriz** iritsi zitzaion arkitektoari, flash baten moduan. Patxi Iturritegi

Dirua itsua da eta **itsugarria,** fede guztien gisan. Iñaki Segurola

Grina **itsugarri** batek erabat baliogabetu zion nahimena. Fernando Morillo

· Inprenta lanetan aritzen ez zenean, itzultzailearen nekeak hartzen zituen gainean, begien **itsugarri**. Felipe Juaristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **argi itsugarri** (8); **argi itsugarri bat** (3); **argi itsugarria** (6); **argi itsugarriaren** (3); **argitasun itsugarri** (4); **eta itsugarri** (3); **itsugarri bat** (9); **itsugarri batean** (3); **itsugarri batek** (6); **itsugarri batez** (3); **itsugarri eta** (3); **itsugarri hura** (3); **itsugarria izan** (4); **itsugarria izan daiteke** (4)

---

## **itsuka 1** *adlag* ikusi gabe; aztertu edo hausnartu gabe. ik **itsu 17.**

Astiro eta nekez, katuka jaitsi ziren itzaletan, **itsuka,** estropezuka, haitz, sasi eta adar idorren artetik arrastaka. Agustin Otsoa

Zelai zabalean barrena, belarrak eta loreak **itsuka** zapalduz, etsaiaren atzetik ibili ginen egun eta gau batez. Agustin Otsoa

**Itsuka** ari zen tiro egiten. Alberto Ladron Arana

Eskuak **itsuka** bilatu zuen ezpataren eskutokia. Agustin Otsoa

Bazekien Tom hibernazio-aldian zela, etsipenezko aingeru beltz baten aurka borrokan **itsuka**. Oskar Arana

Palestindarrak bezala jokatzen baitira **itsuka**; ez hain **itsuka** halere, ez baitira bakarrik joaiten Amerikarren kontra, bainan bereziki Irakiar poliziaren kontra eta polizia horretan sartu nahi duten Irakiarren kontra. Herria

**2** ***itsu-itsuka.*** itsu-itsuan.

**Itsu**-itsuka genbiltzan, gazteluko lubakiaren hondoan barrena. Alberto Ladron Arana

Denbora gehiegi daramagu **itsu**-itsuka, eta jakin badakigu hau ez dela biderik onena. Berria - Kultura

· Andereñoaren aholkuari jarraiki, **itsu**-itsukako jolasean banenbil bezala interpretatzen dut Colin-maillard. Anjel Lertxundi

Ez dago, itxurak direnez, itsu-**itsukako** maiteminik, izen orotarik haruntzago edo honuntzagokorik. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **itsuka bilatu zuen** (3)

---

## **itsukeria** *iz* grina biziak edo setakeriak sortzen duen adimenaren edo zentzuaren galera. ik **itsutasun**.

Ez dik axola zerk eraginda, koldarkeriak naiz **itsukeriak,** herrak nahiz harrokeriak. Xabier Olarra

Bihotzeko **itsukeria**. Elizen arteko biblia

Txokozalekeria eta **itsukeria** aspaldiko kontua dira gurean. Koldo Zuazo

Bere fanatiko **itsukeria** gorabehera. Karlos Zabala

**Itsukeria** tematuari. Berria - Euskal Herria

Arrazoikerizalearen **itsukeria** gaindiezina eta harrokeria. Ibon Uribarri

Luzaz emaztekirik ikusi barik egoteak batzuengan **itsukeria** modu bat eragiten du, alegia, emearen dohainak ikustea gizonezkoarengan, gehienbat mutilengan. Edorta Jimenez

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eta itsukeria** (3)

---

## **itsuki**[1] *adlag* itsu-itsuan.

Bera **itsuki** maite nuelako lehertarazi nuen Madrilgo Burtsa. Hasier Etxeberria

Salomon, hala ere, **itsuki** maitemindu zen haietaz. Jose Antonio Mujika

Baldin eta ustez dakien hori **itsuki** ez sinesteko zuhurtzia eta prudentzia eduki izan balitu. Jon Alonso

Nafarroako koroaren jabeak, bere inguruan, nekez aurkituko zuen bertze inor bere nahietara hain **itsuki** makurtua. Aingeru Epaltza

Lurraldetasunaren ideia integratzaileak Iparraldea Hegoaldeari **itsuki** beha jartzen du. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itsuki** (4); **itsuki maite** (4)

---

# itsuki² *iz* kolaioa.

Bisigua eta bainapatatak, txitxarroa eta arroza, **itsukia** eta garbantzua, lirioa eta berakazopa, arrantzontziek legatzetan ari zirela harrapaturiko beste arrain zantarrak, bentara ateratzeko gauza ez zirenak. Joseba Sarrionandia

---

# itsukor *izond* itsugarria.

Gero argi **itsukor** ikaragarria eta lur-ikara baten desmasiak. Herria

**Itsukorra** eta sendoa da gure begi ahulentzat. Joan Mari Lekuona

---

# itsulapiko *(orobat **itsu(-)lapiko** g.er.)* *iz* eltzeitsua.

Zurezko oilar gandor-gorri eder bat zen **itsulapiko** hori. Joxerra Garzia

Zure arrebak **itsulapikoan** sartzen ditu aurrezkiak. Itziar Otegi

Diru-bilketarako **itsulapiko** bakar bat. Iñaki Mendiguren

Goioren **itsulapikoa** hutsik zegoen beti, txerritxo lodi hura ia egunero abileziaz husten baitzuen bizkarreko zulotik. Joseba Sarrionandia

Arrebak txanponak sartu zituen [...] Santa Anak oinetan zeukan **itsulapikoaren** zirrikitutik. Anjel Lertxundi

Ingeles peto bat azaldu zen, ingeles petoak diren **itsulapiko** bat eskuan zuela [...], eta hotsa egiteko astinduz, libra bana eskatu zigun Marx-en mausoleoa ikusi ahal izateko. Ramon Saizarbitoria

Kubako goi-agintariek eskua **itsu** -lapikoan sartu nahi dute. Edorta Jimenez

---

# itsumando *iz* zen bait jokotan, begiak lotura batekin estaliak dituena.

Hala dirudi, baina hain **itsumando** nago, ezingo nuke ezagutu. Juan Garzia

---

# itsumandoka *(**24** agerraldi, **12** liburu eta **3** artikulutan; orobat **itsu-mandoka** g.er.)* *adlag* itsu-itsuan.

Idazteari ekin nion, **itsumandoka,** jalgitzen zitzaidanaz harritua. Itxaro Borda

**Itsumandoka** gurpil-aulkiaren burdinazko egitura ezaguna haztakatu eta, mugimendu sail neketsu baten ondoren, berriro aulki gainean jartzea erdietsi nuen. Alberto Ladron Arana

Gizakia munduko gainazalean **itsumandoka** dabilen espeziea baizik ez da. Jon Alonso

Geroak erranen ene gogoa eta ene bihotza, **itsu-mandoka** ibili ondoan, argi berri baterat helduko diren ala ez. Janbattitt Dirassar

Halaber lanotzen duenean eta, bidea galdurik, **itsumandoka** behar delarik ibili. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Itsumandoka** jotzen duen herioa injustua da zinez. Berria - Kultura

Neskak aurrera egiten zuen, **itsumandoka,** zarata kirrinkarien nahaspilan zehar. Lopez de Arana

Bidean **itsu-mandoka** nindoan. Daniel Landart

Hara eta hona puska batean **itsu-mandoka** gidatu ondotik, autoa geldiarazi nuen. Aingeru Epaltza

**Itsu-mandoka** irensten. Itxaro Borda

---

# itsumen 1 *iz* itsutasuna.

Hiri bereko emakume bat **itsumenak** jota zegoen. Askoren artean

Flashak sortutako **itsumenak** eta sustoak beste hainbeste segundoz utzi zuten paralizatuta bezala. Josu Landa

Hala nola eguzki betearen dirdaia **itsumen** iluna den begientzat. Joan Mari Lekuona

Handik puska batera, begien **itsumena** baretu eta inguruari erreparatu dio. Xabier Paya

Itsu sentitu zen, **itsumenik** okerraren jabe, gainera: argia ezagutu eta gero ilunpetara kondenatu izan denarena. Felipe Juaristi

Begirada galdua, berriz, **itsumenarenaz** gainera, hozkeriarena izan daiteke; gerra guztiak galdu egiten direla larrutik ikasi duenaren erremin gandutuarena. Anjel Lertxundi

Harrigarri zitzaidan Gregen itsutasunaren alde hori, bere itsutasunerako zuen **itsumen** berezia, alegia, "ikustea" edo "begiratzea" zer zen ahaztua izatea. Xabier Olarra

Ediporen antzera, gizakiok ez bi baino hiru edo anitz ahotsez mintzo gara: ni, zu, hura; identitaterik eza, **itsumenera** eramango gaituen jatorrizko bekatua. Juan Kruz Igerabide

**Itsumen** hura gogoratze hutsak lotsatu egiten nau orain; ez, ordea, garai hartako jakin-minak. Anjel Lertxundi

Dei egin didazu, dei eta oihu, eta nire gorreria hautsi; argi eta distira eginez uxatu duzu nire **itsumena**. Imanol Unzurrunzaga

**2** (hitz elkartuetan)

Linok **itsumen** momentu hori izan ez balu, txorakeria hori egin izan ez balu... Harkaitz Cano

Halako **itsumen** -sentipen bat sortzen da orduan, argi-dardara deitzen duguna. Josu Zabaleta

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **aizkolariaren itsumena** (4); **itsumen eta** (3)

---

# itsumendu *iz* itsumena.

"Hi baino gutiago ez diat izan behar!" erran ohi zietela gure arbasoek elkarri eta, menturaz, **itsumendu** horrek berak gaituela guhaur beti galdu! Piarres Xarriton

Eta nire **itsumenduan** zera pentsatu nuen: "Ai dirua banu, bertatik esango nioke nor naizen". Matías Múgica

Nahiz eta gerlak baduen beti, lehen eta orai, orai gehiago tresnaturik ere, bere basakeria, bere **itsumendua,** bere itsuskeria, zendako..., zendako... ez zen Peioren heriotzea Weimar-en eta ene heriotzea Weimar-en, heriotze bera izanen, ene galdeak zerbait zentsu balinbadu segurik? Michel Oronoz

---

# itsumustu *(orobat **itsu-mustu** g.er.)* **1** *iz* itsu-itsuan eginiko gauza.

Nik, kimikari gisa lanik ez eta alienazio beteko egoeran (orduan ez zen, ordea, "alienazio" hitz hori erabiltzen), han jarduten nuen **itsumustu** nahasian orriak eta orriak idazten pozoiturik nindukaten oroitzapenez, eta lankideek burutik egindako gizagaixo bati bezala egiten zidaten so begiaren ertzetik. Juan Garzia

Bai ederki gezurresten duela errealitateak arnasestukako **itsumustuaren** iruditeria hori! Josu Zabaleta

**2** *itsumustuko* ik **itsumustuan 3.**

**3** ***itsumustuzko*** *izlag* itsumustuan egiten dena.

Bakea egin nahi zien beste jendeak, baina ezin; zera baitzion euskaldunak bere **itsumustuzko** hizketan […]. Patxi Ezkiaga

Berehalaxe entzun nuen eskaileretan gora haren azkazalen hots **itsumustuzkoa,** eta han azaldu zen, pozik, isatsari eraginez. Josu Zabaleta

---

# itsumustuan *(101 agerraldi, 54 liburu eta 8 artikulutan)* **1** arrapaladan; itsu-itsuan. ik **itsumustuka.**

Ezer pentsatu gabe, gogoetarik egin gabe, ezer ulertu gabe **itsumustuan** hasi zen igerian bazterrerantz. Josu Zabaleta

Xehetasunetan galtzen zela iruditzen zitzaion, maparik gabe idazten zuela, gehienez ere iparrorratz ahul batekin zebilela ilunpean, **itsumustuan,** bide-galtze luzeak eginez. Joxean Agirre

Izen hura gidari, modu jabeago batean begiratu nion nire errealitateari, eta, batez ere, ordura arte **itsumustuan** egindako lana konprenitu nuen. Bernardo Atxaga

Ergelkeria baita -esan nuen- **itsumustuan** jarraitzea, harik eta gasolina erabat agortu arte. Joxe Austin Arrieta

Hamasei urteko neskarik ez da joango **itsumustuan** harengana, burtzoraturik eta grina sutsu batek eraginik. Jose Morales

Hor **itsumustuan** pilatzen dena, uholdetarako proportziotan joango ez da, ba? Pello Zabala

Bertso bat azpimarratzen dut, **itsumustuan,** zertan ari naizen begiratu gabe. Anjel Lertxundi

Andereak musu eman dio, zakila ukitu dio praken gainetik, eta gizon gaztea **itsumustuan** irten da. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

-Era bitxian mintzatu eta mugitzen ziren denak: **itsumustuan,** oldarka, edo astiroegi edo bizkorregi. Jose Morales

Marmolezko zorua zuen saloi handi bat, irudimenean dantza aretoa iruditu zitzaiona, zeharkatu zuen ilunpean **itsu** -mustuan. Felipe Juaristi

Badoa mendian bidea, zoroa bezala **itsumustuan**. Patziku Perurena

Ez egin ezer **itsumustuan**. Oskar Arana

**Itsumustuan** oldartu zitzaion Max. Jon Muñoz

Tourvel andrea, izuturik, **itsumustuan** altxa zen, hartu zuen suziri bat, eta irten zen. Jon Muñoz

**2** ustekabean.

Wolfgang? -oihukatu zuen Einsteinek, gainean metatutako pisu guztia **itsumustuan** arinduta eta etorri berriak ezagutuz-. Fernando Morillo

Deblauki gertatu da, **itsumustuan**. Pako Aristi

Halako baten, **itsumustuan,** ez non eta ez han, diruak hartu eta itzuri egin zen. Gotzon Garate

Eta ehiztari guztienak bezala, bereak ere bidera irtendako animalien enkontruz beterik daude, arrastoa jarraitu eta **itsumustuan** eraso egindako piztien begiradez oroimenean itsatsirik. Pako Aristi

Txito bustia, **itsumustuan** harrapatu duen eraso hark bere zentzua ustegabetu bailuen, basoaren bila hasi da, lurrean aztarrika. Pako Aristi

Orain, ezerezetik bat-batean jalgia, ezkutuko indar batek heriotzaren ilunpeetatik biziaren argira **itsumustuan** erauzia, plaza bateko bankuan eserita berpiztu berria zen. Juan Luis Zabala

**3** ***itsumustuko*** ustekabekoa

Aurpegia gorritua zeukan, batera eta bestera ibili beharrak eta, agian, **itsumustuko** beroak eraginda. Koro Navarro

**Itsumustuko** oinazea. Fernando Morillo

Arerioaren **itsumustuko** erasotik babesteko. Josu Zabaleta

Aski izango zukean begiradarik bakar bat, keinu ustekabeko bat, hitz **itsumustuko** bat. Xabier Olarra

Hizkuntza baten hotsen **itsumustuko** bilakaera. Isabel Arrigain

Beste alderantz egindako biraketa **itsumustuko** hark. Joxemari Iturralde

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itsumustuan** (4); **itsumustuan erantzun** (3); **itsumustuan eta** (5); **zen itsumustuan** (5); **zuen itsumustuan** (6)

---

# itsumustuka *(46 agerraldi 20 liburutan) adlag* itsu-itsuan. ik **itsumustuan.**

**Itsumustuka** gabiltza, hormari haztaka itsua bezala, **itsumustuka** bistagabea bezala. Elizen arteko biblia

Kirxak, ilunpetan, **itsumustuka** ekin zion itzulbideari. Patxi Zubizarreta

Horrela, egun-argi betean ilunpetan aurkitzen dira, eguerdian **itsumustuka** ibiltzen gauean bezala. Eta bertan, ilunperik beltzenean gelditu zen Elimas, eta **itsumustuka** zebilen, eskutik nork eramango. Elizen arteko biblia

Pattarrarengatik estropezuka eta bidetik oker, ardotan itota: ikuskariak dituztenean **itsumustuka** eta epaia ematean zanbuluka. ez genuen besterik behar, ilunbista hartan, pneumatiko-arrasto bila hirurok bide banatatik **itsumustuka** elkar galtzea baino. Elizen arteko biblia

Metafisikaren jardunbidea gaurdaino **itsumustuka** aritze hutsa baino ez da izan. Ibon Uribarri

**Itsumustuka** eta nahikoa kontrol metodikorik gabe. Xabier Arregi

Mendebalde modernoko arkeologi aurkikuntzak metaturiko jakintzak oraindik **itsumustuka** uzten du hogeigarren mendeko historialaria ilunabar historikoan. Iñaki Mendiguren

Ez da lan gozoa antzinako eran salerostea, errekardaritzan jardunez, nahiz ohitura horrek, arabiar herrietan, arkitekturaren logika berari erantzuten dion: prezioak gezurrezko fatxadak dira, eta elkarrizketa sigi-saga eta **itsumustuka** saiatzen da misteriora -produktuaren benetako preziora- iristen. Bernardo Atxaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itsumustuka** (7)

---

# itsumutil *(ETCn 91 agerraldi; orobat **itsu(-)mutil** ETCn 25 agerraldi)* **1** *iz* itsu bat gidatzen duen mutila, itsuaurrekoa.

Orduan, Sansomek esan zion eskutik zeraman **itsumutilari:** -Eraman nazak jauretxeari eusten dioten zutabeak ukitzeraino, haietan sostenga nadin. Elizen arteko biblia

Bere kasa moldatzen zen, espaloi zikinean zehar zeuden hesi hautsiak poliki-poliki haztatu eta **itsumutil** gisa baliatzen zituelarik. Mirentxu Larrañaga

Niniveko jendea, Tobit **itsumutilik** gabe, bakarrik eta sendo zebilela ikustean, txunditua gelditu zen. Elizen arteko biblia

Itsuak itsuen **itsumutil** ! Xabier Paya

**2** *irud*

Korridore ilun batean barneratu ginen, hura **itsu** -mutil isil, ni jarraikitzaile itsaskor. Aingeru Epaltza

Gramatikaren paradigma eta baso guztiak **itsu** mutilik gabe zeharkatzeko gai izan den jendeaz inguraturik gaude. Pello Salaburu

Itsumendu zuri hartan, radarra zen kapitainaren **itsumutila** . Joseba Sarrionandia

Neure ezkutalekua ikuskatzeari ekin nion, ilargiaren errainu ahulak **itsumutil** nituela pabiloiko beirate garaien artetik. Aingeru Epaltza

Ez zekien gaztetxo hark nora jo nahi zuen, eta horrelakoetan zigarreta bat **itsumutil** ona izaten da. Unai Iturriaga

Gurean, maitasuna sentitzearen eta maitasuna egitearen arteko bidean, irudia dugu bitartekari edo **itsumutil** nagusi, eta ez, beste garai eta lekuetan legez, usaina, aberastasuna edo kokapena gizartean. Xabier Mendiguren Elizegi

Amodio istorio askotan legez -nola Teruelen, hala Veronan-, maitasuna izan da patuaren **itsu** -mutil kontakizun honetan. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

# **itsumutsuka** *adlag* itsumustuka.

Zitarik ez zutenak ere, ilunean, **itsumutsuka** ibiltzen ziren, elkar usaindu, elkar ukitu, nor zen mutila, nor zen neska, ezagutu nahian. Pablo Sastre

---

# **itsumuturka** *adlag* itsumustuka, itsumustuan.

Gure bizian ere bide bat egin behar baldin badugu eta bide hortan partitzen baldin bazira, **itsumuturka** partitzen baldin bazira, mustupilka joanen zira berdin! Menane Oxandabaratz

Eta, beraz, jakitate hori xekatzen baldin baduzu **itsumuturka,** hola... Menane Oxandabaratz

---

# itsura ik **itsu 18**.

---

# **itsurik** *adlag* ezer ikusi gabe; ikusmenik gabe. ik **itsu 16**.

**Itsurik,** itoka, durundia belarrietan, urdaila estu-estu ikusitako guztiarengatik. Izan naizen su guztiek bat eginen balute, ez lirateke lur osoan kabituko eta aingeruak **itsurik** geratuko lirateke. Karlos Zabala

---

# **itsusgarri** *izond* itsusten duena.

Pasta lodi beltzeko begiorde **itsusgarri** horiek jakako poltsikoan neramatzan orain. Aingeru Epaltza

Estalgarri oro **itsusgarri:** soilik laxotasunari emana denean dago zinez zoragarri. Jon Muñoz

· Horregatik ez dute ikusi bi puntu zeruan, metalezkoak, bi sorgin-orratz erraldoi, hodei gero eta zuriagoen **itsusgarri** . Aingeru Epaltza

---

# **itsusi** *(orobat **itxusi** g.er.)* **1** *izond* bistari atsegin ez zaiona, edertasunik ez duena. ik **ezain.** (bizidunei buruz)

Zazpi edo zortzi atso **itsusi** zeuden kokoriko eta tarteka jarriak elizaren inguruan. Koldo Izagirre

Emakume **itsusi** eskarmentu gabeko bat zen. Oskar Arana

Umetxo jaio berri, lohitsu eta oso **itsusi** bat atera zen lurretik. Iñaki Mendiguren

Gizon txiki xuri **itsusi** eta pottoloa zen. Ramuntxo Etxeberri

Esaera horixe baitzerabilten ezkontza-artekariek neskato **itsusi** eta dotegabeez. Juan Garzia

Adiskide **itsusi** eta betaurrekodunak zituzten neska dotore ile-kizkurrak. Koro Navarro

Ezta, piztitzar **itsusi** hori? Iñaki Mendiguren

Zakur puska **itsusi** batekin ibiltzen da tipoa, badaezpada. Anjel Lertxundi

Dortoka **itsusi** eta potoloaren ontzia. Jasone Osoro

Ipuineko ahatetxo **itsusiaren** pareko sentitu izan naiz. Xabier Mendiguren Elizegi

Joan hadi ohera, **itsusi** hori, pentsatu zuen Thomas jaunak. Koro Navarro

**2** (gauzei buruz)

Etxe bati su eman edo holako gauza **itsusi** bat egingo dugula pentsatzen du jendeak. Bernardo Atxaga

Neska handia eta mardula zen, esku **itsusiekikoa** . Koro Navarro

Hautsitako zorro **itsusi** bat. Juan Kruz Igerabide

Pistola **itsusi** bat hotel **itsusi** bateko gela **itsusi** batean. Zauri **itsusi** hura sendatuta zegoen. Alberto Ladron Arana

Gau **itsusi** haiek ziren, hain zuzen, ahaztu ezin zituenak. Ibon Uribarri

Ume-jolasak iruditzen zitzaizkidan, ume-jolas **itsusi** beti-berdinak. Irene Aldasoro

Oihu **itsusi** bat gabe. Herria

Keinu **itsusi** bat egin nion. Joan Mari Irigoien

Tanto politek **itsusi** eta trabatuek bezain beste balio dute. Berria - Kirola

Hura guztia amarru **itsusi** bat zela adierazi zuen. Koro Navarro

Hartan, sekulako ezuste **itsusia** hartu genuen, herr Haspern ikusi baikenuen korridorean aurrera. Anjel Lertxundi

Ene bizi guzian ikusiko dudan itsuskeriarik **itsusienaren** testigu izan ninduan. Daniel Landart

Sekretu **itsusi** baten pisua pairatzen baikenuen. Juan Garzia

Baduk denbora hots **itsusiak** dabiltzala hiri buruz... ez genian sinetsi nahi... Juan Kruz Igerabide

Salaketa eta hitz **itsusi** bat baino gehiago bota zizkioten elkarri. Berria - Euskal Herria

Bakean utz ezazu atzerritar hitz larri **itsusi** hori... zer duzu, "mekauen"? Ramuntxo Etxeberri

Eraikin handi eta **itsusi,** adreilu gorriz apaindu batera. Felipe Juaristi

Uhain tzar **itsusi** batek biak eraman zituen! Janbattitt Dirassar

Elizatzar **itsusi** bat. Fernando Rey

Hori kale **itsusia** ! Fernando Rey

Zoriak, ordea, joko **itsusia** egin zion eta, itsas irakinetan barna, portu gabeko bidaia luzera iraitzi. Gotzon Garate

Dotoretasunik gabeko hotel bateko taberna **itsusian** . Koro Navarro

Galtzerdi-pare ezin **itsusiago** baten barruan sartu zuen salatoskopioa. Iñaki Mendiguren

Paperezko lore handi bezain **itsusiez** emokaturiko pareten artean. Aingeru Epaltza

**3** (beste adizlagun edo izenondo batekin)

Rollebon jauna oso **itsusia** zen. Monika Etxebarria

Oso **itsusia** egoten naiz alemaneko eskolaren ondoren. Antton Olano

Baina orain ez zait hain **itsusia** iruditzen Pallamaglio kalea. Fernando Rey

Renée **itsusi** samarra da, txikia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Biziki **itsusi** da-eta hola mintzatzea. Herria

Gorputz eta aurpegieraz arras **itsusia** zen. Itxaro Borda

-Bai, hitz **itsusia** benetan. Xabier Olarra

Andre zaharraren aurpegia, zeharo **itsusia**. Monika Etxebarria

Nire anaiek **itsusi** mortala zela esaten zuten. Fernando Rey

Begiak, batez ere, izugarri **itsusiak** dira hain hurbiletik ikusirik. Monika Etxebarria

Tramankulu harrigarri **itsusi** bat. Oskar Arana

Beso bakarraren errebeskada batean bi erraldoi erdibitu zituena, **itsusi** ikaragarriak biak. Patxi Ezkiaga

**Itsusi** amorratua izango haiz eta betiere. Xabier Olarra

**Itsusi** interesgarria izango zen batzuentzat, eta itsusia eta kito, beste batzuentzat. Karlos Zabala

Nik bazekiat **itsusi** aparta nagoela. Bernardo Atxaga

· Dendako enplegatu guztien uniformea janzten zuen, atorra urdin argia eta gona marroia, **itsusia** pestea. Aingeru Epaltza

**4** (izan, iruditu eta kideko aditzarekin; ik beherago **12**)

Edertasuna, bestalde, izan liteke polit nahiz **itsusi**. Markos Zapiain

Zé Luis ez zen polita, baina ezta **itsusia** ere. Karlos Zabala

Elurra polita da mendian, **itsusia** errepidean. Berria - Kirola

Halaz aldi berean kuraiosak eta lazoak ginen, ausartak eta herabeak, [...], **itsusiak** eta ederrak, gaiztoak eta onak. Itxaro Borda

Baina mutila ez zen **itsusia,** ez zen batere **itsusia**. Karlos Zabala

Lodia zen eta **itsusia**. Koro Navarro

Badakizu, juduak **itsusiak** dira denak. Fernando Rey

**Itsusia** zara, erotuta zaude! Iñaki Mendiguren

Paolak esaten zuen Mirandaren haurra **itsusia** zela. Fernando Rey

Heriotza **itsusia** da itoarena. Aingeru Epaltza

Arrakasta gauza **itsusia** da, eta beltza. Iñaki Segurola

Bere ustez oso ederra da, baina **itsusia** baino **itsusiagoa** da, izan, ergel hori. Josu Zabaleta

-Aurpegi **itsusia** duzu. Joan Mari Irigoien

Hazpegiak **itsusiak** ditu, zakarrak. Fernando Rey

Eta arretaz begiratu nion eta ez zitzaidan **itsusia** iruditu. Karlos Zabala

Oso **itsusia** iruditzen natzaion galdetu diot Margoti. Josu Zabaleta

Gainerakoak baino asko gorago zerraikan kantan, askoz gorago eta, **itsusiago** zena, okerrago. Itxaro Borda

Esan duzu ezin **itsusiagoa** iruditzen zitzaizula. Mirentxu Larrañaga

**5** *pred*

Ez zara polita, baina ezin esan **itsusi** zaudenik. Urtzi Urrutikoeetxea

Ez gara sesioan arituko, ez dugu elkarrekiko **itsusi** jokatuko, ezta antzekorik ere. Mirentxu Larrañaga

**Itsusi** deritzo guztiari, baina ez da leihotik aldentzen. Jose Morales

**-Itsusi** aurkitzen al nauzu, postariaren seme, bihotz-mamiak izotz mendia baino hotzagoak dituzun mutil horrek? Felipe Juaristi

**Itsusi** kausitzen zuen burua. Itxaro Borda

Arma [...] mesanotxe gainean zetzan, beltz eta **itsusi**. Alberto Ladron Arana

**6** (erkaketetan)

Atso zahar bat zen, bekatua bezain **itsusia**. Koro Navarro

Basurdea bezain **itsusia** zuan, zikina eta biboteduna. Aingeru Epaltza

Emakume furfuriatsua, sorgina **bezain itsusia**. Aingeru Epaltza

Aho handi hartako ezpainak gorriz margotuko balitu bezain **itsusi**. Mirentxu Larrañaga

-Mahaspasa baino **itsusiagoa** duk eta... Jon Maia

**7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa, izenondo betekizunaz)

Berrogeita hamar bat urteko emakume aurpegi **itsusi** batek. Anjel Lertxundi

Delikatuki ibiltzen oin behatz- **itsusi,** gorrien gainean. Koro Navarro

Ez zegoen kaiorik; 'moko- **itsusi'** esaten dieten txoriok baino ez. Juan Garzia

· Betaurreko lodi- **itsusiak**. Aingeru Epaltza

Bilbo hiri aberats- **itsusia** da, meatzaritzan diharduena. Felipe Juaristi

· **8** (-en atzikiaren eskuinean izen gisa)

Harmantako zoko horrek, bere **itsusian,** bazuen beste abantail bat luzaidarrentzat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Oi biziaren **itsusiaren itsusia**! Daniel Landart

**9** ***itsusi egin***

Loreak aspaldian zimelduak zirela eta... **itsusi** egiten zutela eta... handik kendu nahi zituen. Daniel Landart

**10** ***itsusi eman***

Badakizu, emakumeek ez dute builarik egin behar, **itsusi** ematen du. Berria - Kultura

Frijituak egiten saiatua nintzen, kotoi hidrofiloa labe elektriko baten xaflaren kontra zapaldurik edukiz: azukre errearen gustuaren arrasto bat bazuten, baina hain **itsusi** ematen zuten bistara, ezen ez baitzitzaizkidan iruditu merkaturatzeko modukoak. Juan Garzia

**Itsusi** ematen omen zuen lan guztiak neuk egiten nituela jartzea. Joxerra Garzia

Prostituzioa, nomadismoa eta pobrezia, esaterako, nabarmen hazi dira herrialde aberatsetan, eta **itsusi** ematen dute. Joxerra Garzia

Iritsi zen momentu bat pentsamendua debekatzeak **itsusiegi** ematen zuena, eta orduan egin zutena izan zen pentsamendua galaraztea, hots, galdu araztea, alferrik galtzea. Iñaki Segurola

**11** ***itsusi-itsusi***

Aitaren galtzerdiak pasaratzen ditudanean puntu **itsusi**-itsusiak ateratzen zaizkit eta gero Natalinak desegin egin behar izaten ditu Fernando Rey

**12** ***itsusi izan*** zaio *ad*

Kreditu-txartelak ez zitzaizkien **itsusi**. Aingeru Epaltza

Frantsesa nintzela jakitea ez zitzaion **itsusi**. Marzel Etxehandi

Errepublika hortan ez zaiku **itsusi**. Piarres Xarriton

Ez zaiku **itsusi** Afrikak eskura dezan holako sari bat. Herria

Kontent niz hemen baitzira, eta ene emazteari, jakinen duelarik, ez zaio **itsusi** izanen. Marzel Etxehandi

Goizak paseotxo bat egiteko gogoa ematen zuen eta **itsusi** zitzaidan gelan sartuta gelditzea. Matías Múgica

Iparraldeko bi bertsulari finalean, ez zaiku **itsusi**. Herria

Guztiei **itsusi** litzaieke alabaina, minduaren mina samintzea, justiziak ez duelarik horrelakorik eskatzen. Piarres Xarriton

Niri oso zitzaidan **itsusi** non eta Luteziaren logelan bi papagaio horiek usoen posturan ikustea. Matías Múgica

· Ezin naiz luzatu, **itsusi** da neska batentzat leku batean geldirik mintzatzen egotea. Berria - Harian

Bere lotsariak agerian jartzea, ez zen **harentzat** itsusi, eta itsustasuna bera ere ezin uler zezakeen. Xabier Kintana

### 13 *modu itsusian*

Gasteiztik **modu itsusian** alde egin zuen, Real Madrilen kontrako finalerdietako azken partidaren aurretik alde eginez. Berria - Kirola

Kendu zidan panpina eskutik, eman zion **modu itsusian** Maiderri, eta oihuka esan zidan: [...]. Joan Mari Irigoien

Bi gizon ikusi zituen fusilez armatuak, oso **modu itsusian** distiratzen zuten baionetekin. Koro Navarro

Damak haren kontra hitz egiten hasi ziren bazterretan, oso modu **itsusian** gainera. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **batere itsusi** (3); **edo itsusi** (4); **emakume itsusi** (3); **eta itsusi** (14); **eta oso itsusi** (3); **ez zaiku itsusi** (4); **gauza itsusi** (5); **gizon itsusi** (3); **hitz itsusi** (8); **hitz itsusi horiek** (3); **itsusi aurkitzen** (3); **itsusi bat** (49); **itsusi bat egin** (6); **itsusi bat izan** (3); **itsusi batean** (6); **itsusi batek** (4); **itsusi baten** (12); **itsusi batez** (4); **itsusi batzu** (3); **itsusi da** (4); **itsusi den** (3); **itsusi ematen** (4); **itsusi eta** (29); **itsusi haiek** (5); **itsusi haren** (3); **itsusi hori** (14); **itsusi horiek** (6); **itsusi hura** (9); **itsusi mortala** (3); **itsusi samarra** (5); **keinu itsusi** (7); **keinu itsusi bat** (5); **orban itsusi** (3); **oso itsusi** (7); **zaiku itsusi** (4); **zauri itsusi** (4)
>
> **ahate itsusia** (4); **ahatetxo itsusia** (4); **ala itsusia** (3); **aurpegi itsusia** (4); **baina itsusia** (7); **batere itsusia** (3); **bezain itsusia** (4); **da itsusia** (6); **ederra eta itsusia** (3); **edo itsusia** (3); **eta itsusia** (27); **eta itsusia da** (3); **eta itsusia ere** (3); **ez da itsusia** (3); **ez zen itsusia** (4); **gauza itsusia** (11); **hain itsusia** (3); **hitz itsusia** (6); **itsusia da** (27); **itsusia da eta** (3); **itsusia dela** (8); **itsusia den** (6); **itsusia duk** (4); **itsusia egin** (5); **itsusia egin zion** (4); **itsusia ere** (5); **itsusia ere ez** (3); **itsusia eta** (14); **itsusia ez** (7); **itsusia hartu** (5); **itsusia iruditu** (6); **itsusia iruditzen** (6); **itsusia izan** (12); **itsusia izan zen** (4); **itsusia izango** (3); **itsusia zara** (3); **itsusia zela** (6); **itsusia zen** (15); **itxura itsusia** (4); **kontu itsusia** (7); **nahiko itsusia** (3); **oso itsusia** (15); **oso itsusia da** (3); **sarrera itsusia** (3); **sarrera itsusia egin** (3); **zein itsusia** (6); **zen itsusia** (8)
>
> **baino itsusiago** (5); **baino itsusiagoa** (9); **baino itsusiagoak** (3); **eta itsusiak** (10); **ezin itsusiago** (4); **ezin itsusiagoa** (3); **gauza itsusiak** (6); **hitz itsusiak** (8); **itsusiago baten** (3); **itsusiagoa da** (3); **itsusiak dira** (4); **itsusiak esan** (3); **itsusiak eta** (10); **itsusienak eta** (3); **itsusiren bat** (3); **itsusitzat jotzen** (3); **modu itsusian** (6); **oso modu itsusian** (4); **politak eta itsusiak** (3)

---

## **itsusiagoka** *adlag*

Maskak ezartzen zituzten, aurpegiak itxuraz aldatuz, zein **itsusiagoka**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## **itsusiagotu**, itsusiago(tu), itsusiagotzen du *ad* itsusiago bihurtu.

Izan ere, barrura begira jartzen garenean, hain sentitzen gara batzuetan itsusiak, non besteak **itsusiagotzeko** jarrera hori errotzen baitzaigu. Joan Mari Irigoien

---

## itsusikeria ik **itsuskeria**.

---

## itsusitasun ik **itsustasun**.

---

## itsusitu ik **itsustu**.

---

## **itsuska** *izond* itsusi samarra.

**Itsuska** zelako mutilek ez zioten maitasun handirik erakusten. Gotzon Garate

---

## **itsuskeria** *(orobat **itsusikeria** g.er. eta **itxuskeri** g.er.)* **1** *iz* egintza itsusia.

Infernua merezi baitut anaiei egin eta esan dizkiedan **itsuskeria** eta irainengatik. Askoren artean

Ez esan **itsuskeriarik,** Pantxo! Bernardo Atxaga

Akademiako mutikoak nerabezaroan sartu eta **itsusikeriak** egiten hasi zirenean. Xabier Olarra

Umeek eta gazteek, horrela biluzik ikusi zutenean, burutik eginda zegoela pentsatuz, **itsuskeria** asko egin zizkioten, lokatz ugari gainera jaurtiz, harrika emanez, hara eta hona bultzatuz. Askoren artean

Egiten zizkioten keinuei eta esaten zizkioten **itsuskeriei**. Joxemari Iturralde

Ez genituzke, halere, SS-en **itsuskeriak** gutietsi behar... Eneko Bidegain

**Itsuskeria** izan zen Racheli egin zeniona, Nathan, hari horrela agiraka egitea ere. Oskar Arana

**Itsuskeria** bat izan da. Patxi Zubizarreta

Egindako mina jasotako mina da, eman ez genuena galdu genituen gauzen artean dago pilatuta, ulertzen jakin ez genuena gehiago da **itsusikeria** itsutasuna baino, errespetatu ez genuen hari deika ari da orain bihotza... Pako Aristi

### **2** (izenondoekin)

Ongitxo zekien **itsuskeria** galanta zela erregearen asmoei muzin egitea. Patxi Zubizarreta

Berriz ere salatu ditu gerla denborako **itsuskeria** ikaragarriak eta dei bat zabaldu bakearen alde. Herria

"Beste gizonezko batzuekin **itsuskeriarik** handienak egiteaz" salatu zuten. Antton Olano

Ene bizi guzian ikusiko dudan **itsuskeriarik** itsusienaren testigu izan ninduan. Daniel Landart

### **3** itsusia den gauza; itsustasun gaitzesgarria.

Atso zahar irrigarri bati **itsuskeria** bat erosarazteko makurkeriaz gozatzen. Ramon Etxezarreta

**Itsuskeriaren** infernutik atereak dirudite ostatuko parrokiano femenino bakanek. Aingeru Epaltza

Baina ederra da bere **itsuskerian**. Harkaitz Cano

Gizakia etengabe aurrera doa, begiak bere ahultasunean jarriz, bere ezinean, bere **itsuskerian,** bere ezerezean. Joan Mari Lekuona

Bekatuak pisatu, egindako bekatu larri bakoitzak berez dituen **itsuskeria** eta gaiztakeria begiratuz. Patxi Altuna

Ken ezan **itsuskeria** hori. Itxaro Borda

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **den itsuskeria** (3); **eta itsuskeria** (8); **eta itsuskeriak** (4; **itsuskeria bat** (8); **itsuskeria egin** (3); **itsuskeria eta** (4); **itsuskeria hori** (4); **itsuskeria horren** (3); **itsuskeria izan** (3)

---

# itsuski 1 *adlag* modu itsusian. ik **itsuskiro**.

**Itsuski** erabili zuten, harekin alde batetik bertzera ibili zirela eginen nuke... Aingeru Epaltza

Beste mutiko batekin musuka ari izana zela, eta **itsuski** musuka omen! Janbattitt Dirassar

Beren erretorearen hautatzeko mementoan, **itsuski** jokatu ziren beren artean: elegaiztoak, gezurrak, jukutriak, lehenik, kolpeak, gero, zauriak gorputz-arimetan, eta gertatu zen gizon bat hil zutela. Michel Oronoz

Eta horrek **itsuski** ematen gaur, jakina. Patziku Perurena

Ni **itsuski** engainatu izana ez askietsirik. Jon Muñoz

**Itsuski** lotu zitzaion, ukaldika, ateari. Aingeru Epaltza

Bi erizain emazte hilak, **itsuski** kolpatuak biak, batek lepoa moztua. Herria

**Itsuski** torturatua izan zela bost egunez segidan Herria

**2** *adkor* oso, ikaragarri.

Gizon eztia, **itsuski** ederra. Itxaro Borda

Koleratuko dun, **itsuski** koleratu ere, eta nitaz sekulakoak eta bat erranen. Aingeru Epaltza

Garai hartan hasi zen errealitatearen zentzumena galtzen eta **itsuski** edaten. Itxaro Borda

Hiru urte bazuen lelo bera errepikatzen zidala, ilargi aldaketetan bereziki, orduan, bizkar-hezur eta belaunetatik **itsuski** sufritzen baitzuen... Daniel Landart

Beraz prezioa **itsuski** goititu zitzaion. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hala, nire zink sulfatoa **itsuski** kontzentratu zen azkenerako, eta hausño zuri halako bilakatu. Juan Garzia

Uztailean, jendea bazen **itsuski** asteburuetan. Herria

Gutien ustean izurritea **itsuski** heda ditakeela. Herria

Lana xuhur batzuetan, lurra **itsuski** kariotzen ari, gure gaztek ezin erosizko heinerat helduak prezio apalenak ere. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batzu itsuski** (3); **eta itsuski** (3); **etxe lurrak itsuski** (3); **itsuski funditu** (4); **itsuski funditaak** (4); **itsuski mendekatu** (7); **itsuski mendekatu zela** (3); **lurrak itsuski** (3)

---

# itsuskiro *adlag* modu itsusian. ik **itsuski**.

Galtzerdi motzak zangoetan biribilkatzen zitzaizkidan, oinetakoen gainetik **itsuskiro** ageriz, lokarriak askatzen zitzaizkidan. Joxan Elosegi

Gainerako kaleetan ere, suteen ondorioz, etxaurreak belzturik; eta ateak eta leihoak [...] adreiluz hormaturik eta **itsuskiro** kukuturik. Txillardegi

---

# itsustasun *(orobat **itsusitasun** g.er.) iz* itsusia denaren nolakotasuna.

Zahartzaroaren **itsustasuna** berari ere hurbiltzen ari zitzaiola pentsatu zuen. Ibon Uribarri

Argi zen ez zela **itsustasuna** Louiseren bakardadearen arrazoia. Itxaro Borda

**Itsustasun** hura ez zuen emakume haien itxurak sortzen, baizik eta haien zorigaiztoko makurbideak. Ibon Uribarri

Ez dut sekula izan gizon gazte horri hain ongi ematen dion itxura txukuna, eta ezin esan nire **itsusitasuna** hunkigarria denik ere. Monika Etxebarria

Baina **itsustasuna** eta edertasuna gauza irizgarrietan gertatzen dira, eta ez adigarrietan. Xabier Kintana

Edertasun edo **itsustasun** kontzeptua soziala da eta arbitrarioa. Ana Urkiza

---

# itsustu, itsus, itsusten *(**59** agerraldi, **33** liburu eta **6** artikulutan; ETCn **430** agerraldi; orobat **itsusitu** **20** agerraldi, **12** liburu eta **5** artikulutan; ETCn **75** agerraldi; eta **itxusitu** g.er.)* **1** da/du *ad* itsusi edo itsusiago bihurtu.

Urteek ez dute ederrago bihurtu, baina ezta **itsustu** ere, pentsatu du, Beatrizek atea ireki orduko. Iban Zaldua

Nekez barkatzen ziotela gizonezkoek emakumezkoen begi-betegarri zenari [...] eta ahalegintzen zirela berez ederra zena **itsusten**. Felipe Juaristi

Neskatxak begirakunea ilundu zuen, aurpegiera **itsusteraino**. Patxi Zubizarreta

Aurpegia **itsusten** dute, barau egiten dutela jendeari azaltzeko. Elizen arteko biblia

Bi aldiz egin zuen laprast aldapan behera eta, lurra jota, lohiz **itsustu** zitzaizkion gaztaina koloreko prakak atzeko aldean. Hasier Etxeberria

Aire egokitura egokitu zirenetik, itxuragabe **itsusitu** dira mamuak. Joxerra Garzia

Eskuek **itsustu** egiten dute zure edertasuna. Patxi Zubizarreta

Badirudi zuzentasunak **itsustu** egiten duela eguneroko bizitza arrunt akatsez betea. Anjel Lertxundi

Azentu arrotzak ez dituela hitz ederrak **itsusten**. Agustin Otsoa

Ametsetan ikusitako toki haren edertasuna beste amets batek **itsustu** edo ezabatuko ote zion beldurrez. Felipe Juaristi

Edertasuna **itsusteko** modu haren aurka. gauzarik inportanteenak eta latzenak esaten ari den une berean hausten du bere gogoeta eta biraoekin dena **itsusitzen**. Pako Aristi

Halako batean eztabaida hura hainbeste **itsusitu** zen non segundo batzuez biak isilik geratu baitziren. Joxemari Iturralde

Taldearen inguruko giroa **itsusitu** egin da berriz ere. Berria - Kirola

Urtarrilean taldeak daraman ibilbideak ere ezin du **itsustu** Javier Aguirreren jokalariek lortutakoa. Berria - Kirola

Goseak gorputza higatzen du, baina kuraia ere, bai eta arima, **itsusterainokoan**. Marzel Etxehandi

Hiria aldatua aurkitu zuen, **itsustua**. Fernando Rey

Ez da harritzekoa Oscar saria hari eman izana, hain zuzen beti irabazten duelako bere burua **itsustu** duen antzezleren batek. Berria - Kultura

Hochedéren aurrean nire uko txiki guztiak, nire zabarkeriak, nire nagikeriak, denak **itsusten** dizkiot nire buruari. Josu Zabaleta

**2** (era burutua izenondo gisa)

Distiratze lan atergabeari esker jatorrizko edertasunera itzultzen ziren xarmarik gabeko objektu txiki zikin **itsustuak**. Joxan Elosegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itsustu egiten** (3)

**itsustuagotu**, itsustuago(tu), itsustuagotzen du *ad* gehiago itsustu.

Batzuetan espainolak baino frantsesak **itsustuago** bailezake euskara. Patziku Perurena

---

**itsutasun** **1** *iz* itsua denaren nolakotasuna.

**Itsutasuna** begien akatsa dela diogunean, begiek ikusmena berezkoa dutela aitortzen dugu. Imanol Unzurrunzaga

Ez dute onartzen pausatzea mugimendu gabezia dela, ez eta [...] **itsutasuna** ikusmen gabezia denik ere. Xabier Kintana

Ez zen heriotza izango, **itsutasuna** baizik, Mikel Strogoffen kondenazioa. Karlos Zabala

Erretinako gaitz horrek **itsutasuna** eragiten du. Berria - Gaiak

Zentzumen-organoetako akatsen ondorio izan ohi dira gehienetan gorreria eta **itsutasuna,** ez zentzumenoi dagozkien garuneko eremuetako akatsenak. **Itsutasuna,** hasieran gabezia eta galera latza izan badaiteke ere, leun daiteke denbora joan ahala. Irene Aldasoro

**Itsutasun** psikiko erabatekoa (Antonen sindromea esaten zaiona). Xabier Olarra

Garuneko lesioren batek eragindako koloreekiko **itsutasun** erabatekoa, garuneko akromatopsia deritzona. Xabier Olarra

**2** *irud*

Egindako mina jasotako mina da, eman ez genuena galdu genituen gauzen artean dago pilatuta, ulertzen jakin ez genuena gehiago da itsusikeria **itsutasuna** baino, errespetatu ez genuen hari deika ari da orain bihotza... Pako Aristi

Mendebaldean dietarik dieta gorputz idealaren atzetik lehiatzen diren horiek bezalakoxe grina eta **itsutasuna** erakusten zuela bere helburura iristeko. Bernardo Atxaga

Askotan aditu dut deitoratzen Frantzisko I.aren **itsutasuna** Kristobal Koloni ezetza eman ziolako, honek Indietara joatea proposatu zionean. Iñaki Iñurrieta

Soilik erlijio santuak eman dezakeela, bai mundu honetan ere, gizonen grinen **itsutasunean** alferretan bilatzen dugun zorion sendo iraunkorra. Jon Muñoz

Hori da **juduen** itsutasunaren sorburua, ez ikustea ebanjelioaren ekonomia Jainkoaren asmoen ordenan dagoela. Iñaki Iñurrieta

**Itsutasuna,** gidari txar! Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itsutasuna** (4); **haren itsutasuna** (3); **itsutasun erabatekoa** (4); **koloreekiko itsutasun** (5)

---

**itsutu**, itsu(tu), itsutzen *(orobat **itxutu** g.er.)* **1** da *ad* itsu bihurtu

Hirurogeita bi urte zituen **itsutu** zenean. Elizen arteko biblia

Halakoetan, nahiz eta ikusi, esaerak dioen bezala, **itsutu** egiten bainaiz. Joxe Austin Arrieta

Hamabigarren tronkoan **itsutu** egin zen, eta arratsaldeko bostetan esnatu ospitalean. Pako Aristi

Gizonari esanez bezala: **"Itsutu** zaitez, ni **itsutu** naiz!". Josu Zabaleta

**Itsutua** nago, ez dut egun-argirik ikusten. Elizen arteko biblia

Etxe atarian zeudenak, zahar nahiz gazte, **itsuturik** utzi zituzten. Elizen arteko biblia

Itsu zaitezte, **itsutu**! mozkortu, baina ez ardoz! Elizen arteko biblia

Tarteka gustatzen zaidan niri ere anfetatxo bat sartzea, baina kostoarekin **itsutzea** beste gauza bat dun, konstanteagoa bezala. Pako Aristi

Pertsona heldu goizik **itsutuak**. Xabier Olarra

· Eskua nire galtzen erdiko patrikan sartu orduko **itsutu** zitzaidan garuna; aise igarri zuen berak, nire hasperen txiliotxoa entzun eta bere alkandoraren eskumuturra heze sumatzean. Harkaitz Cano

Ihartu bekio besoa! **itsutu** bekio eskuineko begia! Elizen arteko biblia

Begiak aldapatik jaso gabe nindoan aurrera, elurraren distiraz **itsuturik**. Joseba Urteaga

Begiak **itsuturik** datzanaren gogapean pizten diren irudi eroen makulua. Iñaki Segurola

Nik kolpeka ekin nion harkaitzari begiak **itsututa**. Koldo Izagirre

Leiho bakarra oholekin **itsutua** zegoen. Bernardo Atxaga

Leihoak **itsutuak** eta lastoz beteak zeuzkaten fatxadak, adar hautsiekiko zuhaitzak. Koro Navarro

Tutueria **itsututa** dagoenean eta iturginak askatzen duen moduan egiten diagu guk. Joxemari Iturralde

• **2** du *ad* (norbaitek edo zerbaitek beste norbait)

Profetak otoitz egin zion Jaunari: **"Itsutu** jende hori!"; eta Jaunak **itsutu** egin zituen, Eliseok eskatu bezala. Elizen arteko biblia

Szythiarrek, begiak estaliz **itsutu** egiten dituzte esklaboak, beren lan nekosoetan aisego ari daitezen. Patziku Perurena

Atarian zeudenak, berriz, **itsutu** egin zituzten guztiak, zahar eta gazte, eta atea aurkitzeko gauza ez zirela utzi zituzten. Jose Antonio Mujika

· 'Jantzi' horrek ez gaitu, ordea, **itsutu** eta nahastu behar; ez ditugu, alegia, kontakizunok hitzez hitz hartu behar. Jose Antonio Mujika

Harrokeriak **itsututako** ezjakina da, eztabaida eta hitz-liskarretarako joera gaixoa duena. Elizen arteko biblia

Miren iruzurra egiteko gai ez zelakoan nago, diruak ez baitzuen **itsutzen,** ez zuen ematen behintzat. Migel Angel Mintegi

Ez onartu eskupekorik, **itsutu** egiten baititu pertsona jakintsuak ere eta hondatu egiten zintzoen epaia. Elizen arteko biblia

Inoiz ikusi dudan argi zurienak erdi **itsutu** ninduen. Anjel Lertxundi

Mila izarrek **itsutu** ninduten. Daniel Landart

Argiak **itsutua,** doi-doi ikusi nituen altxatzen lagundu ninduten besoak. Aingeru Epaltza

Argitasunak **itsutu** egin nau berriro. Koldo Izagirre

Urrutiko tximistak ez baitu sekula inor **itsutu** gaurdaino. Hasier Etxeberria

Hainbertzeraino **itsutu** ninduen izuak eta ikarak, non [...]. Joan Mari Irigoien

Itomenak **itsutu** egin zuen, baina gorputzak bere kasa lanean jarraitzeko indarra aurkitu zuen. Pako Aristi

Egiteak ematen du noski bere poza, baina, **itsutu** egiten du: aspertu edo biziatu; ez egiteak hainbestetsu. Patziku Perurena

Aspaldiko gerra zahar batean zorte etsaiak Solferinon **itsututako** soldadu hura. Anjel Lertxundi

Gaur, diruaren botereak **itsututakoak** dira izar, eurak ditugu gidari, eta gu, nahi eta ez, euren atzetik. Hasier Etxeberria

Zenbait egunetan zorionak **itsutua** egon zen. Patxi Zubizarreta

Begitanzio batek **itsutuak** bezala geunden. Koldo Izagirre

Maitasunak **itsuturik** zegoelako. J.M. Olaizola "Txiliku"

**3** (norbaitek edo zerbaitek beste zerbait)

Begiak **itsutu** zituen. Koldo Izagirre

Ukabilak **itsutu** nituen min emoteraino. Koldo Izagirre

Satanasek, mundu honetako jainkoak, **itsutu** egin baitie adimena. Elizen arteko biblia

Gero, sarrailak, eskuko lanpararen entxufea, tiraderetako zirrikituak, iturriko tutua **itsutu** genituen bikeaz. Anjel Lertxundi

Izan ere, Itakako jaunak bere abentura batean ziklopeari begi bakarra **itsutu** baitzion. Juan Kruz Igerabide

Intentsitatea jartzen zuen egiten zuen guztian, eta ni ez nintzen nor haren txeren iturri oparoa **itsutzeko**. Anjel Lertxundi

· Berehalako belztasunak **itsutu** zituen guztien begiak. Agustin Otsoa

Ilunpetan dabil eta ez daki nora doan, ilunak **itsutu** egin baitizkio begiak. Elizen arteko biblia

Nola ur arreek uholdeka zubi begiak **itsutzen** dituzten. Felipe Juaristi

Sarrerako harlosa tzarra astiro-astiro mugitzen hasi orduko, urrezko distira sekulako batek **itsutu** zuen eguna. Anjel Lertxundi

Gogoa zeharo **itsutzen** duen irudi batez. Patziku Perurena

Ezagutzen dituzue [...] urazalean agertu gabe itsaspea **itsutu** eta nabigaziorako heriotza tranpa maltzurrak osatzen dituzten hondar pila menditsuak. Pako Aristi

Haren ile horiek eguzkia **itsutzen** dute. Anjel Lertxundi

Iragan-min gehiegiak Europa **itsutu** duelakoan dago Roth. Anjel Lertxundi

Baditugu beirazko erlojuak, argia irentsi eta argia kanpora botatzen dutenak, bazterrak argiz **itsutuz**. Felipe Juaristi

**4** (era burutua izenondo gisa)

Zaldi **itsutuak** bildu eta dardar uztartu zituen eta euren bidetik bergidatu. Xabier Amuriza

Suge **itsutua** zabuka zebilen, nahasita. Iñaki Mendiguren

Haren begi **itsutuetatik** odola irteten zen bitartean. Iñaki Mendiguren

Ukabil **itsutu** haietan. Koldo Izagirre

Gela **itsutu** batean mila foku batera piztu balituzte bezala. Anjel Lertxundi

Ate **itsutu** bat dago hilerriaren aurrealdean. Koldo Izagirre

· Begi malkoz **itsutuak** jaso nituen izartegira. Karlos Linazasoro

· Zigorra betez begiak atera zizkiotenean, lurrera bota zituzten **itsutuaren** begiak. Askoren artean

Ez da hain aise jokatzea **itsutuen** edo integrista porrokatuen kontra. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **argiak itsutu** (4); **baina itsutu** (4); **batek itsutu** (7); **begiak itsutu** (5); **erabat itsutu** (5); **erabat itsutu zen** (3); **eta itsutu** (12); **ez gaitu itsutu** (3); **gaitu itsutu** (4); **gaitu itsutu behar** (3); **grinak itsutu** (3); **horrekin itsutu** (5); **ia itsutu** (3); **itsutu artean** (3); **itsutu begiak** (3); **itsutu behar** (8); **itsutu da** (3); **itsutu egin** (39); **itsutu egin nintzen** (3); **itsutu egin zuen** (6); **itsutu egingo** (5); **itsutu egiten** (36); **itsutu egiten baititu** (3); **itsutu egiten ninduen** (4); **itsutu egiten zuen** (4); **itsutu ere** (4); **itsutu eta** (12); **itsutu ez** (3); **itsutu gabe** (10); **itsutu nahi** (4); **itsutu ninduen** (10); **itsutu nintzen** (3); **itsutu zen** (6); **itsutu zituen** (5); **itsutu zuen** (5)
>
> **amorruak itsututa** (3); **argiak itsuturik** (6); **begiak itsuturik** (5); **begiak itsututa** (3); **begiak itsutzen** (8); **erdi itsuturik** (4); **erdi itsututa** (4); **eta begiak itsuturik** (3); **eta itsuturik** (3); **itsutuak eta** (3); **itsuturik eta** (3); **itsuturik utzi** (3); **itsututa egoten** (3); **itsututa eta** (4); **itsututa zegoen** (3); **itsutzeko moduko** (3); **itsutzen ari** (7); **itsutzen duen** (3); **itsutzen eta** (3); **itsutzen ez** (4); **itsutzen gaitu** (3); **itsutzen nau** (3); **itsutzen zuen** (3); **maitasunak itsuturik** (3)

---

# itsutuki *adlag* itsuki.

Ez-lekuan dabil, baina, paradoxikoki, edo ez hain paradoxikoki, hondarrean irakurle abstraktua konkretu bilakatzea nahi luke, **itsutuki**. Jose Angel Irigaray

Frantses katoliko zintzoek ongi ikasiko genuen amen erraten **itsutuki** Filipe Pétain gidari "zuhurrari". Piarres Xarriton

Bere izaite guziaz behardunen alde jokatuko da **itsutuki**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **eta itsutuki** (3)

---

# itsutzaile *izond* itsutzen duena.

Orain, azkenean, libre du Virgilek ez ikustea, ikusmenaren eta espazioaren mundu **itsutzaile** eta nahastailetik ihes egitea. Xabier Olarra

Sorginduta, liluratuta daude ETA-Batasunaren argi **itsutzailearekin,** legearen aplikazioa bezalako funtsezko oinarri bat zalantzan jartzeraino. Berria - Euskal Herria

---

# itsutze *iz* itsu bihurtzea.

Bat-batean, ordea, argitze bai izan nuen, edo **itsutze** bat -berdin da-, eta nire indar eta jakintza apurrak hizkuntza ukatuari eman behar nizkiola erabaki nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# itu 1 *iz* jomuga, jotzeko helburua.

Nahikoa izan zen birote batek **itua** jotzea beste gainerakoek berehala bidea ikas zezaten. **Ituaren** erdian jo zuela. Jon Alonso

Eskopetarekin joanen zarete, distantzia zurian **itu** beltza galdu gabe. Joseba Sarrionandia

Ondo agerian egon behar dugu, eta hala eskola-umeentzako moduko **itu** bat bilakatu alemaniarrentzat. Josu Zabaleta

Inazitok ogi kanika bat egin zuen [...] aurrerantz jaurti zuen eta lehen ilaran mahai parean zegoen Lodia garondoan jo zuen, hain **itu** zabalarekin ezinezkoa baitzen huts egitea. Joseba Sarrionandia

Literatura ez da tiro olinpikoa; ez duzu **itu** bakar bat eta hartara zenbat hurbildu zaren neurtzeko zirkulurik. Berria - Kultura

Adituek ezagutza teknikoan oinarriturik botatzen zituzten beren aurreikuspenak; eta kazetariek, berriz, dardoak, Wall Street burtsako baloreez osaturiko **itu** edo diana berezi bati. Iñaki Heras

Nazioen (Estatuen) psikologia hau da Caro Baroja-k bere kritika gehienen **ituan** duena. Joxe Azurmendi

**2** helburua.

Bigarren **itua** arrazaren hobekuntza da, proiektu eugeniko bat arraza espainol gaixoarentzat Ibilgailua, begirakune guztien **itu,** Gurija kalerantz abiatu zen. Joxe Azurmendi

**3** ***itu-ituan*** bete-betean.

**Itu**-ituan jotzeko. Iñigo Aranbarri

Eta **itu**-ituan asmatu. adituek ezagutza teknikoan oinarriturik botatzen zituzten beren aurreikuspenak; eta kazetariek, berriz, dardoak, Wall Street burtsako baloreez osaturiko **itu** edo diana berezi bati. Iñaki Heras

---

# itulari *iz* itaurrekoa.

"Ittulea" **itularia** da, itaurrekoa, idi aurrekoa: jubilatuek batetik bestera tokiak ikusteko euren aurretik ibili duten gida turistikoa, alegia. Iñigo Aranbarri

---

# itule *(corpusean **ittule** soilik)* itularia.

Itaurreko garaiak, artoa erein behar zeneko **ittule**-lanetakoak. Pello Zabala

Eta eman deun **ittulie**-re, ez huan txarra. **"Ittulea"** itularia da, itaurrekoa, idi aurrekoa: jubilatuek batetik bestera tokiak ikusteko euren aurretik ibili duten gida turistikoa, alegia. Iñigo Aranbarri

---

# itulean *(orobat* **itulan***)* *adlag* itaurrean.

Nik oso gogoko nuen mutikotan itaurrean, **ittulian,** itzuli eta itzuli, idien aurrean ibiltzea. Pello Zabala

Haur bakarra zuten eta, aita-amak lanean aritzen ziren bitartean, **itulan**-eta, semea batetik bestera, jolasean aurrena, barrabaskerietan hurrena. Xabier Mendiguren Elizegi

---

# itun[1] **1** *iz* elkar hartzea, hitzarmena.

**Itunak** berez obligatzen du; legeak obligatuta mantentzen gaitu obeditzeko **itun** unibertsalaren bidez. Esteban Antxustegi

**Ituna** promesa bat baita, eta legea agindu bat. Esteban Antxustegi

**Itunak** behartu egiten du gizona, hau da, promesaren izenean bete behar du. Esteban Antxustegi

Herri konkistatuek eta herri askeek betidanik hitzartu dute, euren arteko hitzarmen eta **itunetan,** bakoitzaren legeria zibila zaintzea. Andres Urrutia

Inor ez baita, **itun** batez, ezinezkoarekin lotzen. Esteban Antxustegi

Beraz, halako **itun** batek ezin du inortxo ere lotu, eta **itunen** izaeraren kontra doa. Esteban Antxustegi

**Itun** batez lotuta dagoenari sinetsi egin behar zaio, fedea bakarrik baita **itunen** lokailua. Esteban Antxustegi

Baina hiri ideala ez da **itun** batean oinarritzen, naturalki sortzen baizik. Askoren artean

Bion **itun** mutu hark sendotu egin zuen gure adiskidetasuna. Anjel Lertxundi

Bete arretaz **itun** honen xedapenak. Elizen arteko biblia

**Itunerako** baldintzak. Elizen arteko biblia

**Itun** hau onartezina da ikuspuntu nazionaletik zein sozialetik. Berria - Harian

Eman behar nizun musuak askoz garrantzi handiagoa zuen, halere, konpromiso bat zen, **itun** bat. Monika Etxebarria

AEB ek ez zuten Kiotoko Protokoloa berretsi **-itun** hori 1997 an izenpetu zen Kioton, eta helburua gas toxikoen emisioa murriztea zen [...]-.Inor ez dela, **itunen** bidez, lerratu beste baten boterearen menpera. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Koroa ezarri eta **itunaren** agiria eman zion. Elizen arteko biblia

-Hau da, bada, lurreko bizidun guztiekin egiten dudan **itunaren** ezaugarria. Elizen arteko biblia

Ondoren, santutegia, **itunaren** egoitza, ikusi nuen zeruan irekitzen. Elizen arteko biblia

Sutan zegoen menditik jaitsi nintzen, **itunaren** harlosak eskuetan nituela. Elizen arteko biblia

Gatazka horiek, denak, estatuarteko sistemaren berregituratze sakon batez amaitu ziren (Westfaliako **itunak,** Vienako biltzarra, Bretton Woods-eko hitzarmenak eta Nazio Batuen sistema). Koro Navarro

Maastrichteko **itunak** finkaturiko bost irizpideetatik. Koro Navarro

Maastricht-eko **Itunean** ezarri ziren bateratze baldintzak. Iñaki Heras

Egonkortasun **Ituna** malgutzeko erreforma aurkeztu du BruselakUdal eta foru administrazioetako lan **ituna** ezbaian dago Araba, Gipuzkoa eta Bizkaian.

Ajuria Eneko **itunak** manifestaldi baterako deia egin zuen martxoaren 18rako. Jokin Urain

Egonkortasun eta Hazkunde **Ituna** indarrean dagoenez. Iñaki Heras

NATO North Atlantic Treaty Organisation (Ipar Atlantikoko **Itunaren** Erakundea). Koro Navarro

· Egiptotik irten ondoren Jaunak israeldarrekin eginiko **itunaren** harlosak. Elizen arteko biblia

## **2** (izenondoekin)

Errege etxea edo armada finantzatzeko 487.722.613 euro ordaindu beharko dizkio Espainiako Gobernuari **Itun** Ekonomikoaren bidez. Gatazkak 2003ko **itun** kolektiboaren negoziazioan du jatorria. Berria - Harian

Gizarte industrialetan XX. mendean egin diren lorpenak (gizarte-babesa, gutxieneko soldata, **itun** kolektiboak, etab.). Koro Navarro

Enpresen arteko **itun** estrategikoak. Koro Navarro

XVIII. mendean, mugimendu askatzaileekin, Ilustrazioak baieztatu egin zuen herrien borondatetik jaiotzen zela hitzarmen edo **itun** sozial hori. Askoren artean

Europako **itun** konstituzionalari buruzko erreferenduma. Berria - Euskal Herria

Argi dago **itun** politiko bat dela, euskal abertzaletasunaren kontrako itun bat dela. Berria - Euskal Herria

Gaur **Itun** Antiterrorista berrestea, gerrarako ituna berrestea izan da eta ez inolaz bakerako ituna. Berria - Euskal Herria

**Itun** isila sinatu dute. Edorta Jimenez

Karolinjiar enperadoreek, PP-PSOE Itunaren ordez, bakerako **itun** berria. Berria - Euskal Herria

*ik beherago* 6. Askoren artean

## **3** (izenlagunekin)

Izan ere, ez zen terrorismoaren kontrako **itun** bat, nazionalismo demokratikoaren kontrakoa baizik. Berria - Euskal Herria

Jainkoak gure arbasoekin egindako **itunari** eutsiko diogu. Elizen arteko biblia

Emakume arteko **ituna**? ez: sinpleki, beren ustez guk uler ez dezakeguna aipatu ere ez digute egiten. Joxe Austin Arrieta

Estatuen eta merkatarien arteko **ituna**. Koro Navarro

Merkatarien klasearen eta estatuen arteko **itun** horretatik sortuko zen merkatu-ekonomiaren ezaugarria den konkurrentziazko sistema. Koro Navarro

Gure arteko **ituna** tazitoa zen. Bernardo Atxaga

Askatasunari Buruzko **Ituna** (*Freedom of Information Act,* edo FOIA). Edorta Jimenez

## **4** (aditzaren objektu zuzen gisa)

Eman dezagun bi hirik **itun** bat egiten dutela. Esteban Antxustegi

Era berean, ezin da animaliekin **itunik** egin. Esteban Antxustegi

Egin dezagun **ituna** bion artean. Elizen arteko biblia

Laster sektoreko **itunik** egin ezean, gure enpresei agindua emango diegu nork bere bidea jorratu dezan. Berria - Ekonomia

Ez ahaztu zuekin egin duen **ituna**. Elizen arteko biblia

Badirudi Espainiako indar nagusiak ez daudela prest **itun** konstituzional berri bat egiteko. Berria - Euskal Herria

Abrahamekin eginiko **ituna,** Isaaki emaniko zin-hitza. Elizen arteko biblia

Hau nire odola da, Jainkoarekiko **ituna** berrituko duena. Elizen arteko biblia

*ik beherago* 6. Askoren artean

**Ituna** hitzartu ondorengo otorduaren edertasuna. Askoren artean

ETArekin inolako **itunik** ez zuela sinatu ere nabarmendu zuen Carod-Rovirak. Berria - Euskal Herria

Azaroaren 14an, **itun** bat izenpetu zuen Brasilekin. Koro Navarro

Zuen arbasoei zin eginez hitz emandako **itunaz** . Elizen arteko biblia

**Itun** bat proposatu zidan. Anjel Lertxundi

«Nazioarteko terrorismoari» aurre egiteko **itun** bat adostea proposatu zien alderdi guztiei. Berria - Mundua

**Itun** bat eskainiko diat, bada: hire nagusia itzultzen bada, tunika eta soinganekoa emango dizkidak; itzultzen ez bada, esaiek zerbitzariei haitz handi batetik behera bota nazatela. Juan Kruz Igerabide

Nire esana betetzen baduzue eta nire **ituna** gordetzen. Elizen arteko biblia

PPren presidentegai Mariano Raxoik «Terrorismoaren Aurkako **Ituna** betetzeko» eskatu zion Rodriguez Zapaterori. Berria - Euskal Herria

Egonkortasun **Ituna** malgutzeko erreforma aurkeztu du Bruselak. Berria - Ekonomia

Ordura arte indarrean egondako **ituna** urratzen zutelako. Jon Alonso

Bide okerrera eramango ditu xurikeriazko promesez **ituna** hautsi dutenak. Elizen arteko biblia

**Ituna** hausteagatik merezi duzuen zigorra. Elizen arteko biblia

**Itunak** haustea debekatzen duen lege naturalaren indarrari esker. Esteban Antxustegi

Aurreko **itun** bat baliogabetzen duen geroko ituna baliogabea da. Esteban Antxustegi

Ondoren, oholtzaren gainean zutik, Jaunarekiko **ituna** berritu zuen erregeak. Elizen arteko biblia

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

*Caballito*ko langile gehienek ezetz esan diote berriro **itun** eskaintzari. Berria - Ekonomia

Han hasi zen, beraz, haien **itun** -harremana Pobretasun santuarekin. Askoren artean

Eta Jaunaren etxean aurkitutako **itun** -liburuak dioen guztia irakurri zien erregeak. Elizen arteko biblia

Jendetzak eman baitizkie gatibu edomdarrei, anaiarteko **itun** -hitzari eutsi gabe. Elizen arteko biblia

Beteko zituztela liburu hartan idatziak zeuden **itun** -arau guztiak. Elizen arteko biblia

**Itun** -lagunek kanpora botatzen zaituzte zeure lurraldetik, zurekin bakean zeudenek iruzur egin eta azpian hartzen zaituzte. Elizen arteko biblia

Neure artzain-makilapera ekarriko zaituztet eta **itun** -uztarrian sarraraziko. Elizen arteko biblia

Anaia txikiak ohartarazi eta aholkatu perfekzio-bideari ekin diezaioten, "Andre Pobretasunari **itun** -lokarriz" lotuz. Askoren artean

Hizkuntza zerbait bada, tresna konpartitua da, euskal hiztunen arteko **itun** itxurako konbentzio bat. Anjel Lertxundi

Elkar Bizitzarako **Itun** Politika berria Euskal Autonomi Erkidegoan Herria

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Horregatik, bake- **ituna** egin zuen Jaunak berarekin. Elizen arteko biblia

Europako Konstituzio **Itunaren** galdeketaren aurrean Sarkozy-k harturiko jarreraz. Iñigo Aranbarri

Ez zuten horretarako inolako "adiskidetasun- **itunik"** egin beharrik izan. Xabier Olarra

Basailuak, mendekoak, lur-zatia (feudoa) hartzen zuen bere jaunagandik (nobleagandik), leialtasun- **itunean** ezarritako baldintzak betetzen zituen bitartean. Askoren artean

Franco hil ondoren batzuek egin zuten isiltasun- **itunak** gerrako kontuak ez aipatzeko zioela. Edorta Jimenez

Iraultzaren Zuzendaritza eta Uztailaren 26ko Mugimenduaren arteko lankidetza **ituna** . Edorta Jimenez

Urrearen *pool* delakoaren sorrera 1961ean, urte berean izenpetutako mailegu- **itun** orokorrak. Koro Navarro

1850eko urteetan izenpeturiko merkataritza- **itunak** berrikustea lortu zuen. Koro Navarro

Kolonia- **itunak** [...] herrialde kolonizatua beharturik uzten zuen lehengaiak esportatzera eta bertako merkatua metropoliko manufaktura-ekoizpenetara zabaltzera. Koro Navarro

Esportazioen gaineko borondatezko murrizte- **itunak** . Koro Navarro

Legeak bakarrik ezarri ahal diola zigorra delituari, eta ahalmen hau legegilearen baitan baino ezin daitekeela egon, honek gizarte osoa ordezkatzen duelako gizarte- **itun** bat dela medio. Ibon Uribarri

Gizarte **Itun** basikoa. Joxe Azurmendi

· Bi sindikatuon lan **itun** eskaintzak LABek eta CGTk egindakoak baino 74 boto gehiago lortu ditu Berria - Ekonomia

## 7 *Itun Berri* Jesukristok azken afarian eraberritu zuen ituna; Bibliaren zatia, Jesukristo jaio ondoko liburuak biltzen dituena.

Horregatik, Jesu Kristo **itun berri** baten bitarteko da, bere heriotzaz antzinako itunaren garaian egindako hutsegiteak barkatu baititu. Elizen arteko biblia

Paulo **itun berriaren** zerbitzari. Elizen arteko biblia

Kopa hau **itun berria** da, Jainkoak nire odolaz ezarria. Elizen arteko biblia

**Itun** Berriko narrazioetatik harturiko izenak. Iñaki Mendiguren

Emaiozu geure amari **Itun Berria,** bere beharretarako sal dezan, liburuak berak agintzen baitigu behartsuei laguntzeko. Askoren artean

Kristauen **Itun Berrian** bada gai honi buruzko esaera bat, [...] ulerterraza ez dena. Jenaro Garate

Apokalipsia edo Agerpena, **Itun Berriko** azken liburua. Xabier Olarra

## 8 *Itun Zahar* Bibliaren zatia, Jesukristo jaio aurretiko liburuak biltzen dituena.

Bibliako **Itun Zaharrean** eta beste hainbat liburutan. Unai Elorriaga

Lau urte eman zituen han **Itun Zaharra** itzultzen. **Itun** zaharreko gizon-emakumeak sinesmen-eredu. Elizen arteko biblia

Begira, **Itun Zaharreko** (Rut 4,7-8) pasarte honi: [...]. Patziku Perurena

**Itun Zaharreko** Jainko krudel hura fetixe idolatra odolzale bat besterik ez zen. Joseba Zulaika

**Itun** Zaharrekoak bezalako patriarka prestua. Gotzon Garate

**Itun** Zaharreko errege eta epaileen espirituan, Jainkoaren herriari Jainkoaren legea aldarrikatuz eman zioten legea kristau-herri osoari. Iñaki Mendiguren

## 9 *Itunaren/Itun kutxa* hamar aginduen harlauzak eta beste zenbait gauza gordetzen zituen kutxa.

**Itunaren kutxa** aurretik zihoan, hiru egunetan, eta hark adierazten zien non gelditu. Jose Antonio Mujika

**Itun** -kutxa zeramaten apaizak Jordan ibaiaren erdian egon ziren geldi. Jaunaren **itun** -kutxaren aurrera sarturik, erre-opariak eta elkartasun-opariak eskaini zituen. Elizen arteko biblia

· Gure arbasoek bazuten basamortuan **itun** -agiriaren etxola. Elizen arteko biblia

Bere apaiz-zerbitzua Jainkoak egindako benetako santutegian betetzen du, eta ez gizakiek egindako **itun** -etxolan. Elizen arteko biblia

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**arteko itun** (20); **aurkako itun** (8); **beste itun** (10); **beste itun bat** (5); **bigarren itun** (5); **da itun** (8); **den itun** (7); **du itun** (8); **duen itun** (6); **edo itun** (5); **eta itun** (56); **europako itun** (18); **europako itun konstituzionalaren** (6); **itun agiria** (6); **itun agiriaren** (6); **itun antiterrorista** (12); **itun antiterroristan** (5); **itun antiterroristaren** (7); **itun bat** (86); **itun bat dela** (5); **itun bat sinatu** (5); **itun baten** (17); **itun batez** (6); **itun berri** (13); **itun berri bat** (7); **itun berria** (36); **itun berriak** (7); **itun berrian** (6); **itun berriaren** (11); **itun berriko** (9); **itun duina** (7); **itun eta** (9); **itun gehigarria** (5); **itun haren** (6); **itun hau** (6); **itun hori** (44); **itun horrek** (27); **itun horrekin** (7); **itun horren** (26); **itun horretan** (9); **itun kolektiboa** (10); **itun kolektiboaren** (5); **itun konstituzionala** (9); **itun konstituzionalak** (7); **itun konstituzionalaren** (12); **itun konstituzionalari** (8); **itun kutxa** (62); **itun kutxa eta** (6); **itun kutxa zeramaten** (10); **itun kutxaren** (10); **itun politiko** (15); **itun politikoa** (6); **itun santua** (6); **itun soziala** (5); **itun zaharra** (6); **itun zaharrean** (8); **itun zaharreko** (17); **jainkoaren itun** (5); **jaunaren itun** (33); **jaunaren itun kutxa** (27); **lan itun** (26); **lan itun duina** (5); **nazioarteko itun bat** (7); **psoek itun** (5); **zuten itun** (6)

**ajuria eneko ituna** (11); **aldeko ituna** (12); **arcachongo ituna** (5); **arteko ituna** (27); **aurkako ituna** (39); **bake ituna** (16); **bake ituna sinatu** (6); **basileako ituna** (6); **bere ituna** (7); **betiko ituna** (9); **buruzko ituna** (5); **debekatzeko ituna** (6); **du ituna** (10); **dudan ituna** (10); **duen ituna** (18); **dute ituna** (14); **duzun ituna** (5); **egin nuen ituna** (5); **egin zuen ituna** (5); **egindako ituna** (12); **egonkortasun ituna** (51); **egonkortasun ituna hausteagatik** (6); **egonkortasun ituna malgutzeko** (8); **eneko ituna** (11); **eskubideen ituna** (10); **estatu ituna** (16); **estradizio ituna** (5); **eta ituna** (32); **eta nire ituna** (5); **europako ituna** (18); **ez ugaltzeko ituna** (20); **garaziko ituna** (6); **genevako ituna** (6); **giza eskubideen ituna** (6); **gizarte ituna** (5); **gobernu ituna** (6); **gutxituen ituna** (14); **hitzartu dute ituna** (5); **hizkuntza gutxituen ituna** (13); **hizkuntzen europako ituna** (5)

**ituna baztertzailea** (5); **ituna bera** (6); **ituna bere** (5); **ituna berpizteko** (5); **ituna berresteari** (6); **ituna berresteko** (12); **ituna berretsi** (10); **ituna berritu** (6); **ituna bertan** (9); **ituna bertan behera** (9); **ituna beste** (9); **ituna bete** (9); **ituna betearazteko** (5); **ituna betetzea** (5); **ituna betetzeko** (8); **ituna betetzen** (7); **ituna da** (13); **ituna dela** (9); **ituna egin** (60); **ituna egin dute** (8); **ituna egin zuen** (8); **ituna egin zuten** (7); **ituna egingo** (18); **ituna egingo dut** (12); **ituna egitea** (12); **ituna egiteko** (21); **ituna egiten** (11); **ituna ere** (13); **ituna eta** (37); **ituna ez** (36); **ituna ez dela** (9); **ituna haustea** (7); **ituna hausteagatik** (7); **ituna hausten** (8); **ituna hautsi** (32); **ituna hautsiko** (7); **ituna hitzartu** (7); **ituna indarrean** (14); **ituna indartu** (10); **ituna izenpetu** (12); **ituna izenpetu zuten** (5); **ituna lortzeko** (7); **ituna malgutzeko** (8); **ituna negoziatzeko** (6); **ituna negoziatzen** (18); **ituna negoziatzera** (7); **ituna onartu** (13); **ituna proposatu** (6); **ituna sinatu** (100); **ituna sinatu dute** (5); **ituna sinatu dutenek** (5); **ituna sinatu ez** (5); **ituna sinatu zuen** (13); **ituna sinatu zuten** (16); **ituna sinatuko** (12); **ituna sinatzeko** (9); **ituna sinatzen** (5); **ituna urratu** (9); **ituna urratzen** (13)

**jainkoak ituna** (5); **jaunak ituna** (5); **konstituzio ituna** (7); **kontrako ituna** (9); **kyotoko ituna** (18); **lan ituna** (119); **lan ituna negoziatzeko** (6); **lan ituna negoziatzen** (13); **lan ituna negoziatzera** (7); **lan ituna sinatzeko** (5); **lizarra garaziko ituna** (6); **maastrichteko ituna** (8); **nazioarteko ituna** (7); **nire ituna** (21); **nire ituna hautsi** (5); **nizako ituna** (6); **nuen ituna** (6); **pp ituna** (5); **pp psoe ituna** (86); **psoe estatu ituna** (6); **psoe ituna** (88); **psoe ituna beste** (6); **psoe ituna eta** (6); **sektoreko ituna** (7); **sinatutako ituna** (7); **terrorismoaren aurkako ituna** (27); **terrorismoaren kontrako ituna** (5); **ugaltzeko ituna** (20); **ugaltzeko ituna sinatu** (6); **urteko ituna** (7); **urteko lan ituna** (6); **utrechteko ituna** (7); **zuen ituna** (22); **zuten ituna** (10)

**arteko itunak** (14); **ditu itunak** (6); **du itunak** (15); **egonkortasun itunak** (19); **eta itunak** (17); **europako itunak** (10); **europako konstituzio itunak** (5); **itunak dio** (9); **itunak egin** (11); **itunak eta** (14); **itunak ez** (28); **itunak ez du** (14); **itunak ez duela** (5); **konstituzio itunak** (14); **kyotoko itunak** (6); **lan itunak** (30); **nazioarteko itunak** (10); **pp psoe itunak** (10)

**ajuria eneko itunaren** (9); **arteko itunaren** (12); **askerako itunaren** (5); **atlantikoko itunaren** (7); **atlantikoko itunaren erakundeko** (5); **aurkako itunaren** (13); **du itunaren** (5); **dudan itunaren** (6); **duen itunaren** (9); **eginiko itunaren** (6); **egiten dudan itunaren** (5); **egonkortasun itunaren** (18); **eneko itunaren** (9); **estatu itunaren** (10); **eta itunaren** (19); **europako itunaren** (25); **europako konstituzio itunaren** (7); **ez ugaltzeko itunaren** (7); **garazi itunaren** (5); **gutxituen itunaren** (5); **ipar atlantikoko itunaren** (7); **itunarekin bat** (6); **itunaren agiria** (5); **itunaren alde** (12); **itunaren aldeko** (14); **itunaren arabera** (17); **itunaren aurka** (18); **itunaren aurkako** (14); **itunaren bidez** (10); **itunaren bilera** (7); **itunaren bileran** (8); **itunaren bilerara** (5); **itunaren erakundeko** (5); **itunaren erreforma** (6); **itunaren eta** (5); **itunaren ezaugarria** (7); **itunaren gaineko** (7); **itunaren garaian** (6); **itunaren harlosak** (5); **itunaren inguruan** (16); **itunaren jarraipen** (11); **itunaren kontra** (8); **itunaren kontrako** (10); **itunaren negoziazioa** (18); **itunaren negoziazioan** (9); **itunaren ondoren** (6); **itunaren protokolo** (12); **konstituzio itunaren** (12); **kyotoko itunaren** (9); **lan itunaren** (66); **lan itunaren negoziazioa** (17); **lan itunaren negoziazioan** (8); **lizarra garazi itunaren** (5); **merkataritza askerako itunaren** (5); **pp itunaren** (11); **pp psoe itunaren** (40); **psoe estatu itunaren** (5); **psoe itunaren** (40); **psoe pp itunaren** (11); **terrorismoaren aurkako itunaren** (12); **ugaltzeko itunaren** (7); **zuen itunaren** (7)

**europako itunari** (14); **europako konstituzio itunari** (18); **inolako itunik** (5); **itunari baiezkoa** (5); **itunari buruz** (12); **itunari buruzko** (27); **itunari emandako** (6); **itunari esker** (6); **itunari ezezkoa** (9); **itunari jarraiki** (5); **itunaz hitz** (5); **itunen bidez** (8); **itunetik at** (5); **itunetik kanpo** (5); **itunik egin** (11); **itunik egingo** (5); **itunik ez** (11); **konstituzio itunari** (31); **konstituzio itunari buruzko** (11); **konstituzio itunari ezezkoa** (5); **lan itunari** (7); **lan itunaz** (7); **lan itunean** (5); **lan itunen** (10); **lan itunik** (6); **nazioarteko itunetan** (5); **pp psoe itunari** (8); **pp psoe itunean** (8); **pp psoe itunekoak** (5); **psoe itunari** (8); **sektoreko lan itunen** (5)

---

## itun[2] *izond* iluna, goibela.

Begiak ordurako eginak ziren gelako giro **itun** beltz modurrira. Felipe Juaristi

Poesia **itun,** arrats-beherati eta ez horratik halako ederrak idaztea, inguruan mundua sugarretan zegoela ez zitzaigun iruditzen ez harrigarri eta ez lotsagarri ere. guztietariko jolasak, jokaerak eta izaerak hausnartzen dira: onak, bigunak, ederrak, gozoak, alaiak eta baita ere txarrak, gogorrak, lizunak, mingotsak eta **itunak..** . Juan Garzia

Aurki, hain eroankor nola uso-ama bere biki urrezkoak oskoletik irtetean, mintzultasun **itunera** zaigu atzera bilduko. Juan Garzia

---

## itundu[1], itun(du), ituntzen **1** da/du *ad* ituna egin, hitzartu.

Baldin arimak euren artean **itundu** ez badira, hegan lehenen iritsia lehenen sar dadin, elkar jo eta hausten ekin gabe. Xabier Amuriza

Aurrekontua **ituntzea** lortu dute PSE-EE, EAJ eta Eak. Berria - Euskal Herria

Atzo, ordea, behin-behineko su etena **itundu** zuten gobernuarekin. Berria - Ekonomia

Enpresek erantzun zieten ez zutela Gipuzkoako hitzarmenik **itunduko**, baldin eta Osakidetzak ez bazizkien diru ekarpenak handitzen. Berria - Ekonomia

ELA, LAB, CCOO, UGT eta LSB sektoreko patronalarekin negoziatzen hasi dira alorreko lehen lan hitzarmena **ituntzeko**. Berria - Ekonomia

Kalteordainak **itundu** dituzte. Berria - Ekonomia

Besteren batekin aurretik zerbait egitea edo ez aipatzea **itundu** ondoren. helburua ETArekin **ituntzeko** formulak bilatzea bada, ez dugu parte hartuko. Esteban Antxustegi

Monarkian bizi ziren pertsona eta nazioen arteko eskubideak **itunduta** zeuden; nazio bakoitzaren legeak emanda zeuden, baita idatziz jarrita ere. Iñaki Iñurrieta

Itunek ez dute behartzen **itundutako** gauza bera lortzera, indar guztiez saiatzera baizik. Esteban Antxustegi

Dibortzioa eskuratu duen ezkontideak gorde behar ditu, kalteordain moduan, ezkontza kontratuan **itundutako** abantailak. Andres Urrutia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Horietatik, 1.225 ikastetxe publikoetan matrikulatuta zeuden, eta 273 soilik ikastetxe **itunduetan**. D eredua da Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan sare publikoan zein **itunduan** handituko den bakarra. Berria - Euskal Herria

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak proportzioa orekatu nahi du 2010 urterako: %60 publikoetan eta %40 **itunduetan**. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**itundu dute** (5); **itundu zuten** (5)

---

## itundu[2], itun(du), ituntzen da/du *ad* ilundu, goibeldu.

Behera beharrak ez du inor **ituntzen,** goranahirik izan ez duenik. Joxerra Garzia

---

## itungile *iz* ituna egiten duen pertsona.

**Itungilearen** borondaterik gabe ez baitago itunik; eta borondatea da azken deliberamendu ekintza. Esteban Antxustegi

---

## itunki *adlag* goibelki.

Horra, baina, non datorren gizagaixoa **itunki** irakurriz. Juan Garzia

---

## itunkide *iz* itun bateko kidea.

**Itunkide** aldaketa honela azaldu zuen NNPk: «Gutxiengoek, hots, zuriek, mestizoek eta indiarren ondorengoek, Gobernuan ahotsa izango dutela ziurtatzeko egin dugu». Berria - Mundua

---

## itunpeko *izond* itun batek lotua dagoena.

Parekotasuna handia izan arren, oraindik ere **itunpeko** sareko ikasleek emaitza hobeak lortzen dituzte. Berria - Harian

**Itunpeko** ikastetxeetan, berriz, diru laguntza ematen zaie eurek behar duten irakaslea kontratatu ahal izateko. **Itunpeko** ikastetxe pribatuek. Berria - Harian

**Itunpekoak** diren ikastetxe guzti-guztiek dute erantzukizun bera gizartearen aurrean. Errepublika gizakiena denean, familia ez da agindupeko menpekotasuna, **itunpekoa** baizik. Juan Martin Elexpuru

---

# ituntze *iz* ituna egitea, hitzartzea.

Azkenik, promesa bat haustea irain da promesa bera zilegi bada, baina **ituntze** eskubiderik ez badago, ez da inolako eskubiderik transferitzen; ondorioz, ez da irainik egiten, II. ataleko 17. artikuluan esanda dagoen bezala. Esteban Antxustegi

---

# itunzale *izond* itunaren zale dena.

Proposamena «integratzailea, errealista, irekia eta **itunzalea»** dela nabarmendu zuen, eta horregatik «erabat dator abertzaletasunetik eraiki nahi dugun gizarte ereduarekin». Berria - Euskal Herria

---

# iturbegi 1 *iz* iturri baten begia. ik **ur 16**.

Elizaren atzealdetik gora joanda, berriz, Iturrigorriko **iturbegi** herdoil bitxitik edan nuen. Txillardegi

Baldin eta eztarri lehorrera **iturbegiko** ura isuriko baliote. Jose Morales

Sasien artetik bidea idekiz edo harkaitzaren itzulia eginez [...] nahi nuke **iturbegira** iragan, ikusteko nola sortu zen, menderen mende aitzinetan, lurraren xilotik ura. Piarres Aintziart

**2** iturburua.

Basauriko partean, [...] Nerbioi izenekoarekin bat egiten duen tokian, Ibaizabal izena ageri da, besteak beste, 1863ko Bonaparte printzearen mapa ezagunean, eta beharbada hor izan dezake ibai-izenak bere **iturbegia**. Iñaki Segurola

---

# iturburu 1 *iz* lur azpiko ura azaleratzen den aterabidea.

Hamabi **iturburu** eta hirurogeita hamar palmondo zeuden han. Elizen arteko biblia

Iturri batean geldituko zen, ur freskoko antzinako **iturburu** batean. Xabier Olarra

San Inazio **iturburua** gibel, besikula, gantzen liseriketa eta idorreria arazoetarako erabiltzen da batez ere. Berria - Euskal Herria

Gero, En-Xemex errekastotik igaroz, En-Rogel **iturburura** heltzen zen. Elizen arteko biblia

Iribasko **iturburuaren** egoerak ere kezka sortu du ekologisten artean: « **Iturburu** horretako ur guztia etxebizitzetan eta industrietan erabiltzen da; ondorioz, Ertzilla ibaia hutsik gelditzen da». Berria - Euskal Herria

Isaaken morroiek ibarrean zulatu eta **iturburu** bat aurkitu zuten. Elizen arteko biblia

Badaude beste **iturburu** batzuk ur azidoak ematen dituztenak. Santiago Iruretagoiena

Basamortua aintzira bihurtuko dut, lur lehorrean **iturburuak** sortaraziko. Elizen arteko biblia

Ur irakinezko **iturburu** bikainak sortzen ziren han-hemenka, izadiak aintziraren hondoan zulatutako putzu artesiar batzuetatik. Karlos Zabala

Ibaien **iturburuak** agorrarazi eta argitara ateratzen du ezkutuan zegoena. Elizen arteko biblia

Hiri gotortu eta hiri nagusi guztiak xehatuko dituzue, fruta-arbolak ebakiko, **iturburu** guztiak itxiko. Elizen arteko biblia

Zentrala jartzeko oinarrizkoa dugula presio handiko gasbidea eta **iturburu** bat gertu izatea. Berria - Euskal Herria

**2** uhinak igortzen dituen gorputz, gailu edo kidekoa.

**Iturburu** batetik (eguzkitik, adibidez) datozen argi-izpiek. Josu Zabaleta

**3** zerbaiti buruzko argibideak ematen dituen idazki, agiri, pertsona edo kidekoa. ik **iturri 6**.

Informatuta gaudelako sentsazioa dugu, baina **iturburu** apur batzuen emaria baino ez gara jasotzen ari. Txema Ramirez de la Piscina

**4** etorkia, hasiera.

Denbora eta espazioa, beraz, ezagutzaren bi **iturburu** dira. Ibon Uribarri

Sortzez **iturburu** beretik sortuak. Josu Zabaleta

**Iturburu** zelta duen eta ingelesez heldu zaigun idatzi batek. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ea agian horren bidez arrazoimena adigaien **iturburu** bihurtzen den. Ibon Uribarri

Izadiaren legeen **iturburua,** eta beraz, izadiaren batasun formalaren **iturburua** adimena bera dela. Ibon Uribarri

Gure ezagutza gogamenaren bi oinarrizko **iturburuetatik** sortzen da; lehena, errepresentazioak jasotzeko ahalmena da (zirraren harmena), bigarrena, errepresentazio horien bitartez objektu bat ezagutzeko ahalmena (adigaien berezkotasuna). Ibon Uribarri

Beharbada sormenaren **iturburu,** artearen jatorri sentitzeak hunkitzen ditu horrenbeste emakumeak. Joxean Agirre

Atsekabeek eta bihozminek beren **iturburu** nagusia daukatela [...] sekula osoki gureganatzen ahal ez dugun gauza baten aldeko Maitasun gehiegizkoan. Piarres Xarriton

Zapatak kendu eta hankak goian jarri zituen une batez, galtzerdi haragi-kolore finak eta izter biribilen **iturburua** erakutsiz. Felipe Juaristi

**5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Windowsen **iturburu** -kodea argitaratuko duela dio Microsoftek. Berria - Gaiak

**6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Jakinduriaren giza **iturburu** bakarrera jotzen ari ziren. Iñaki Mendiguren

Gure irudi- **iturburu** nagusiek, liburuek, diapositibek edota telebistaren pantailak arras berdintzen dituzte irudien neurriak. Josu Zabaleta

Ezagutza- **iturburu** berezia. Ibon Uribarri

Oro harrezko esperientzia baten ahalgarritasuna eta bere objektuen ezagutza hiru ezagutza- **iturburu** subjektiboetan funtsatzen dira: sentsua, irudimena eta apertzepzioa. Ibon Uribarri

Geroztik Mikel Goñi polemika **iturburu** bihurtu zen. Berria - Kirola

Zinema mutuak zenbaitetan gehiegi ere erabili zituen muntaketa-efektu hipertrofikoak dokumentu errealitatearen desitxuraketa bortitza ziren, baina ezin agortuzko adierazgarritasun- **iturburua** izan ziren bolada batean. Josu Zabaleta

Lege idatziaren lehentasunak, beraz, ez du aterik ixten bestelako arau **iturburuentzat**. Andres Urrutia

**7** ***iturburu izan***

Bere Nahia da bere aginduen **iturburu**. Joseba Zulaika

· Ez zen ohartu Ariannaren oinazeak bera, Alessandro, zuela **iturburu**. Felipe Juaristi

Mugimendu hura ez zen ohikoa; gertaeren larritasuna baizik ezin izan hark **iturburu**. Karlos Zabala

Holgerren gaineko elezaharrak Raimbert Pariskoak XII. mende hondarrean idatzitako poema epiko frantsesa omen **du iturburu** nagusi. Martin Anso

· *Adiskidetzea*-k, berriz, *La Clemeza di Tito* lanean **du iturburua,** eta *Oroitu*-k *Requiem*a ekartzen du gogora. Berria - Kultura

Guk geuk agerian ikusi ez arren, lur azpi-azpiko istiletan dute **iturburu** agerrezina halako errekastoek, eta ez dira inoiz agortzen. Edorta Jimenez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**beste iturburu** (3); **du iturburu** (4); **du iturburua** (3); **eta iturburu** (9); **eta iturburuaren** (3); **eta iturburuko** (4); **ezagutza iturburu** (5); **ezagutzaren iturburu** (3); **guztien iturburu** (5); **guztien iturburua** (3); **hamabi iturburu eta** (3); **iturburu bat** (4); **iturburu bera** (4); **iturburu eta** (10); **iturburu guztiak** (3); **iturburu izan** (5); **iturburu kodea** (5); **iturburu nagusia** (4); **iturburua da** (6); **iturburua ere** (4); **iturburua ez** (3); **iturburua izan** (4); **iturburua non** (3); **iturburuan dagoen** (3); **iturburuko ura** (3)

---

# iturendar *izlag/iz* Iturengoa, Itureni dagokiona; Iturengo herritarra.

Mizel Mateo bidarraitarra, Alazne Untxalo **iturendarra**. Herria

«1-2», Iker tolosarrak; «2-1», Josu **iturendarrak**. Berria - Kirola

Ez da, ordea, hor agortzen, inola ere, **iturendarrarekiko** dudan zorra. Patxi Altuna

---

# iturgin 1 *iz* etxeetan eta, ubideen, ur tresnen eta kidekoen instalatze, konpontze eta zaintzeaz arduratzen dena.

Thompson-i esango diot **iturgina** hona bidaltzeko zer gertatzen den ikus dezan... Lopez de Arana

Okin izan nintzen gero, eta **iturgin** ere izan nintzen. Anjel Lertxundi

Zu zeu izango zintudala etxeko okina, etxeko **iturgina,** etxeko elektrikaria, etxeko igeltseroa... Joan Mari Irigoien

Linternero apala, libertatearen **iturgina,** sasikorik handiena naiz oraintxe. Koldo Izagirre

Zelan egongo da amaituta -galdetu zuen **iturginak,** erdeinuz- ur beroa eta hotza instalatu barik? Julen Gabiria

Nire **iturginak** lanean ditudala momentu honetan eraikuntzan. Xabier Olarra

Tutueria itsututa dagoenean eta **iturginak** askatzen duen moduan egiten diagu guk. Joxemari Iturralde

**2** (hitz elkartuetan)

Lagungarri izango zatekeen buxadurak kentzeko **iturgin**-ziri bat, baina ez genuen horrelakorik. Oskar Arana

· Herriko iturririk erabiliena herdoildu zuen udal **iturginen** soseguak. Unai Elorriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta iturginak** (3); **ez naiz iturgina** (3); **iturgin bat** (3)

---

# iturgintza 1 *iz* iturginaren lanbidea; ubideen, ur tresnen eta kidekoen instalatze, konpontze eta zaintzea.

*Brasa* berogailuak, *Rueda* pneumatikoak, *Rayo* elektrotresnak, *El Caño* **iturgintza..**. Artean **iturgintzan** trebatu gabea izanagatik ere, ahaleginak eta bost egin zituen zorioneko gailua eta ur-hodiak ahalik txukunen jartzen. Iñigo Aranbarri

Petrusek ez du beraren beharrik hodiak jartzeari edo **iturgintzari** buruz aholku emateko. Oskar Arana

**Iturgintzako** nozioak. Unai Elorriaga

**Iturgintzako** hodi sinple eta pintatu gabez egindako gurutzeak. Iñaki Zabaleta

**2** (hitz elkartuetan)

Aitonak **iturgintza** eta elektrizitate arazo zailetan sartzen zituen atzaparrak. Jesus Mari Mendizabal

---

# iturketa *iz*

Bizi osoa du **iturketari** emana orain denbora-pasako motzailea izanagatik, hidrologo profesionala izan da. Koldo Izagirre

---

# iturri 1 *iz* ur jario bat ateratzen den gunea. ik **iturburu**.

**Iturri** bateko ura edatean, deabruek hartu zuten. Askoren artean

**Iturri** batena zirudien ur hotsa entzun nuen. Bernardo Atxaga

Gaurdaino iraun du **iturri** garbi hark. Askoren artean

Lur guztia urrea balitz; **iturri,** itsaso eta ibai guztiak baltsamozkoak balira. Askoren artean

Zuk sortarazi dituzu **iturri** eta errekak. Elizen arteko biblia

Oihanean **iturri** bat jaiotzen da. Santiago Iruretagoiena

Urbegi zikina, **iturri** ustela: halaxe gaiztoaren aurrean kikiltzen den zintzoa. Elizen arteko biblia

Badaude, gainera, lurraren zuku garratzetatik sortzen diren **iturriak** izugarri garratzak direnak. Santiago Iruretagoiena

Kumas ingurua, non mendiak ketan dagozen, sufre biziz beterik eta **iturri** beroz horniturik. Xabier Amuriza

Ur beroko **iturri** ugari. Santiago Iruretagoiena

**Iturria** putzu ireki berria balitz, eta [...] kalitate oneko brontzez egindako ontzian isuri ondoren, aztarnarik uzten ez badu, ur hori oso ona izango da. ahuntzak ere gera daitezela, **iturriko** ninfen ondoan, atseden hartzen. Santiago Iruretagoiena

Gero, **iturriko** zorrotari eskaini nion ahoa. Aingeru Epaltza

**2** irud/hed

Baina heriotzak gorputzeko **iturri** guztiak agortzen ditu. Juan Martin Elexpuru

Negar bizian lehertu zen, begiak **iturri**. Karlos Zabala

Ernest Hemingwayk **iturri** onetik edango ditu hango berriak. Edorta Jimenez

*ik beherago* 6. Askoren artean

**Iturri** klasiko haietatik edanda edo, Larramendik euskararen etimologiaren atea ireki zion euskal hausnarketari. Askoren artean

**Iturri** bertsutik edaten dute: zientzia, teknika, aurrerapena eta ekonomia determinismoaren uretatik, alegia. Iñaki Heras

Ezagutzen nuen jendeari gertatutako gauzak idatziko nituen, eta **iturri** hori ere agortutakoan, historiako gertakizunak hartuko nituen. hizkuntza onaren **iturriak** seinalatu, euskal nortasunaren ezaugarriak zehaztu. Oskar Arana

Hitzaren **iturri** bizia analfabetoena baita. Patziku Perurena

Amodioaren **iturria** enetzat agortu da azkarrenean beharko zuen tenorean. Janbattitt Dirassar

Alboan gizon handi bat genuelakoan geunden, eta nik neure artean, ahal nuen neurrian pentsatzen nuen zein **iturri** jainkozkotik isuri ote zitzaizkion egia horiek. Imanol Unzurrunzaga

Lurra tentuz, zentzuz eta modu eraginkorrean ustiatu beharko dugu, bera ere ez baita **iturri** agortezina. Edorta Agirre

Gure indarraren **iturri** agortezina. Urtzi Urrutikoetxea

**Iturri** isotopiko batek bidalitako gamma erradiazioa. Irene Aldasoro

EBko energia hornidura bermatzeko, ezinbestekoa da **iturri** berriztagarriak indartzea. Berria - Mundua

**3** ubidez ekarririko urei aterabidea emateko antolatzen den eraikuntza, gehienetan uhaskaz hornitua.

Gero, **iturriaren** karelean eserita, gauaren lanbrora arte aritzen ziren kalakan. Juan Garzia
Lorategi ederrak, eskultura ikusgarriak, **iturri** barrokoak. Iñaki Heras
Marmolezko **iturri** oso garai eta oso landu batetik ur hari bat isurtzen zen etengabe konketa batean. Karlos Zabala
Bi erromes plazako **iturri** ederrean ari dira edan eta edan. Piarres Aintziart
Eskea bukatu zutenean, biak herritik kanpora bildu ziren, jateko asmotan, **iturri** eder bat zen lekuan. Askoren artean
**Iturriaren** inguruko zementuzko koskatik kanpora irtenik. Juan Kruz Igerabide
Gathalonabes horrek bazituen hiru **iturri** handi, hiruak kristalez eta perlez apainduak. Aurelia Arkotxa
Kartagon ere bada **iturri** bat, gainean koipe moduko bat izaten duena igerian, eta limoiondo-azalaren antzeko usaina duena. Santiago Iruretagoiena
Plazako **iturriaren** ondotik pasatzean, uretara bota zuen gainerako soka puska. Koro Navarro
**Iturriko** burdin hesia. Jon Muñoz
Banoa ezker dauden **iturri** eta askari buruz. Piarres Aintziart
Lorkako plazan dagoen **iturriko** ura ona da. Piarres Aintziart
Sinesgaitz egiten da hemen **iturriko** ura ez edatekoa izatea. Edorta Jimenez
**Iturriko** ura bezain garbia. Janbattitt Dirassar
**Iturriko** tutua itsutu genituen bikeaz. Anjel Lertxundi

**4** txorrota.

**Iturria** irekita ere utzi zuen, etengabe ur-hari bat zeriola. Juan Kruz Igerabide
Dutxaren **iturriari** eragin zion. Jon Arretxe
Denbora apur bat pasatzen da **iturriko** giltzari eragin eta ura irteten hasten denera arte. Unai Elorriaga
Arazo bakarra du: sukaldean ez duela **iturririk**. Juan Kruz Igerabide
Lekuz aldatu dituzte goizean sukaldeko **iturria** ireki duen eskua eta orain irekitzen ari dena. Berria - Kultura
Sukaldeko **iturriari** tanta eternal bat zerion. Harkaitz Cano
Ikustekoa izango da etxe berriko **iturrietatik** zer irteten den. Unai Elorriaga
Iruñean etxe-barruetan **iturriak** jarri zituztelarik, etxetik ateratzeko arrazoi bat kendu ziotela emakumeari. Iñaki Segurola
· Gas **iturria** zabaldu zuen. Gotzon Garate

**5** jatorria, etorkia.

Horrelako gaitza bakarrik da erabateko gaitza, maitasunean bakarrik baitu bere **iturri** eta sorburu. Joan Mari Lekuona
Munduko sineste partikular guzien **iturrian,** horixe sumatzen dut: senezko gizaindar askatzaile basatia. Patziku Perurena
Bedeinkatua Jainkoa [...] Aita errukitsu eta kontsolamendu ororen **iturri** den Jainkoa! Elizen arteko biblia
Latinez, hitz horien **iturri** dirudiena, *aprilis* dugu. Pello Zabala
Alabaina, *right* delakoa da berarentzat justiziaren eta ordenaren **iturri**. Esteban Antxustegi
Beraz, ezagutzak beti bi **iturri** ditu (eta bi bakarrik): sentimena [...] eta adimena. Askoren artean
Ideal eta Jainko guzien **iturri** zaharra da Natura. Patziku Perurena
On guztia eta on guztien **iturri** den Jainkoari. Askoren artean
Idazle hauen mundu sinbolikoak eta hizkerak Biblian du bere **iturri** aberatsena. Askoren artean
Bilduma horren **iturri** ia bakarra Zelanoko Tomasen "Tractatus de miraculis" liburua da. Askoren artean
Washingtonek ez zuela onartuko araudi horren baliogabetzea, ezta islama lege nagusiaren **iturri** bakarra izatea ere. Berria - Mundua

**6** zerbaiti buruzko argibideak ematen dituen idazki, agiri, pertsona edo kidekoa.

Nere **iturria** martxoaren 26ko Eguneron ateratako elkarrizketa da. Iñaki Segurola
Informazioa **iturri** onekoa da, esan ohi da Osberno ospetsua bera dela **iturria**. Jon Alonso
**Iturri** dokumentalak al dira nobelak? Ana Urkiza
**"Iturri** konfidentzialen arabera", dio txostenak. Edorta Jimenez
**Iturriak** baieztatzeaz hitz egiten denean, zergatik ez da esaten **iturri** ofizialak berak direla maiz gezur iturri? Iñigo Aranbarri
AP berri agentziak **iturri** palestinarrak aipatuta zabaldutako informazioaren arabera. Berria - Mundua
Etxe Zuriko **iturriek** atzo jakinarazi zutenez.

**7** (hitz elkartuetan, lehen osagai gisa)

**Iturri**-txorrotak dena emanda irekiz gero. Mirentxu Larrañaga
Atera sagardoa **iturri**-askatik, banatu ogia eta gazta. Bernardo Atxaga
Gorputz asko, egarriak eraitsiak eta kalean iraulka, **iturri** tutuen azpian luze zeutzan, edari gozoaren gehiegiak itota. farola bat da, **iturri**-hartune bat da, eta nire begiradaren ahalmenaz eguneroko itxurara murrizten saiatzen nintzen. Xabier Amuriza

**8** (hitz elkartuetan, bigarren osagai gisa)

Itsasoa eta ur-**iturriak** egin zituena. Elizen arteko biblia
Eskualde osasungarrienak eta ur-**iturri** egokiak dituztenak. Santiago Iruretagoiena
Nork bihurtuko nire burua ur, nire begiak malko-**iturri**? Elizen arteko biblia
Negar **iturria** urrituz, jaiki nintzen ustez eta Jaungoikoak ez zidala besterik agintzen. Imanol Unzurrunzaga
Noizbait agortu zen Magaliren negar **iturria**. Janbattitt Dirassar
Lanceloten begietatik bi malko-**iturri** jaitsi ziren. Juan Kruz Igerabide
Pixa **iturri** baten ixurtzera joaiteko xutitzen da. Eneko Bidegain
Erdiko uharkatik hodiak eramango dira urmael eta plaza-**iturri** guztietara. Santiago Iruretagoiena
Bizi-**iturriaren** jarioa mehetzen hasten delarik. Iñaki Segurola
Landareak dira oinarrizko proteina-**iturria,** Bitamina-**iturri** berriak. Irene Aldasoro
Eguzkiaren erradiazioa da gure energia-**iturri** bakarra. Irene Aldasoro
Diseinu-ezaugarri burutsu ugari dituen energia-**iturri** autopropultsatu gisa ikusten du ingeniariak gorputza. Irene Aldasoro
Biolina baitzuen aho, biolina kanporako ate, biolina hots-**iturri**. Felipe Juaristi
Hots-**iturri** horren ingurua irudiztatu ahal izango bagenu ere, uhinak ikusiko genituzke erdigunetik biribilean urrutiratzen. Lourdes Oñederra
Ozta-ozta igartzen dira dilistaren neurriko argi-**iturri** bana mutilaren ninietan. Edorta Jimenez
Argi-**iturriaren** uhin-luzeraren arabera. Joan den mendean itxi ziren BATAN fabrikak, gero errota edo argindar **iturri** bihurtu ziren. Xabier Olarra
1819an sartu zen Egipton kotoigintza, eta herrialdeko dibisa-**iturri** nagusia bihurtuko zen hamarraldi batzuetan. Koro Navarro
Mutiritasun eta ausardiazko zurrunbiloa, jakintsua, berezkotasun- eta bihurrikeria-**iturri** agortezina. Oskar Arana
Hainbeste eta gehiago dira guztientzat hondamen-**iturri,** su hartzeko prestatutako zuzien antzeko baitira. Santiago Iruretagoiena
Baina, halaber, autoritatea ere bada, aginte-**iturri** nagusia. Iñaki Mendiguren
San Frantziskoren idazkiak dira zalantzarik gabe hura ezagutzeko kontsulta-**iturri** hoberena. Askoren artean

Viète inspirazio-**iturri** gertatu zitzaion Fermati, haren notazioen jarraitzaile izan baitzen. Jon Muñoz

Itxaropen-**iturri** den Jainkoak alaitasunez eta bakez bete dezala zuen fedea. Elizen arteko biblia

Baina odola ez duzue inola ere jango, bizi-**iturri** baita. Elizen arteko biblia

Ur sakon dira gizakiaren hitzak, erreka gainezka, zuhurtzi **iturri** ! Elizen arteko biblia

Lokarriak apurtzea gozamen-**iturri** baita beti. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Esperientziaren ezagutza-**iturri** imanenteak. Ibon Uribarri

Luzaro ur-lurrun **iturri** arin baina iraunkor baten eraginpean. Iban Zaldua

Kazetariok isilean eduki behar ditiagu geure berri-**iturriak** . Aingeru Epaltza

Betikoa da, "polizia **iturriak"** dira albistea idazteko berme nagusi: [...]. Iñigo Aranbarri

**9** ***informazio iturri***

Telebista informazio-**iturri** ia bakartzat duten pertsonak. Txema Ramirez de la Piscina

Holako pertsonak informazio **iturri** preziatuak ziren nazientzat. Eneko Bidegain

Guri bulkada elektriko gehiago heltzen zaizkigu zerebrora eta horregatik erabiltzen ditugu eskuak, informazio **iturri** direlako. Ana Urkiza

Informazioaren egiatasuna baieztatu informazio **iturriekin** argitara atera aurretik. Iñigo Aranbarri

AEBetako hedabide gehientsuenek informazio **iturri** ofizialekiko erakutsi zuten morrontza. Txema Ramirez de la Piscina

Informazio **iturri** bat baino gehiago zuela zehaztu arren. Berria - Mundua

**10** ***iturri belar*** belar landarea, leku urtsuetan hazten dena, jateko ona (*Nasturtium officinale* etab.). ik **berro**[2].

**Iturri** -belarrez inguratua legokeen iturria garo-**iturri** deituko ez litzatekeen modu berean. Jon Alonso

Ez da justu **iturri-belarra,** basoaren ertzetan hazten den belar gizen bat da, jateko ona, gero amets arraroak eragiten badizkizu ere: guk, hala ere, **iturri-belarra** esaten diogu.· Euskaraz **iturri** -belarra deitzen diegu, baina zientzialariek ematen dioten latinezko izena *Adiantum capellis-veneri* da, hau da, Venusen ileak. Juan Garzia

**Iturri** -belarraren txortenak behintzat beltz-beltzak dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aberastasun iturri** (9); **aebetako iturri** (5); **albiste iturri** (5); **amezketako zazpi iturri** (9); **arazo iturri** (13); **argi iturri** (15); **atsegin iturri** (9); **atzo iturri** (9); **baina iturri** (6); **bedeinkazio iturri** (5); **bere iturri** (6); **beste iturri** (49); **beste iturri batzuek** (12); **beste iturri batzuen** (7); **beste iturri batzuk** (8); **bi iturri** (20); **bizi iturri** (11); **da iturri** (9); **den iturri** (6); **dira iturri** (6); **diru iturri** (82); **diru iturri berriak** (6); **diru iturri nagusia** (10); **du iturri** (8); **dute iturri** (11); **edo iturri** (8); **energia iturri** (35); **erdian iturri** (5); **erdian iturri bat** (5); **ere iturri** (5); **esan zuten iturri** (6); **esperantza iturri** (5); **eta diru iturri** (9); **eta energia iturri** (5); **eta iturri** (47); **eztabaida iturri** (12); **gozamen iturri** (8); **guzien iturri** (6); **guztien iturri** (10); **hainbat iturri** (6); **hiru iturri** (6); **horien iturri** (6); **ika mika iturri** (6); **indar iturri** (8); **informazio iturri** (47); **informazio iturri izan** (6); **inspirazio iturri** (55); **inspirazio iturri izan** (7)

**iturri aberatsa** (5); **iturri agortezina** (7); **iturri askotatik** (6); **iturri bakar** (9); **iturri bakarra** (20); **iturri bat** (77); **iturri bat zegoen** (8); **iturri batean** (5); **iturri batek** (17); **iturri baten** (20); **iturri batetik** (8); **iturri batzuek** (28); **iturri batzuen** (32); **iturri batzuen arabera** (28); **iturri batzuk** (17); **iturri berberek** (8); **iturri berberen** (13); **iturri berberen arabera** (12); **iturri berek** (5); **iturri beretik** (5); **iturri berriak** (15); **iturri berriztagarriak** (7); **iturri berriztagarrietatik** (6); **iturri bihurtu** (9); **iturri bilakatu** (7); **iturri bilakatzen** (5); **iturri da** (26); **iturri den** (17); **iturri den jainkoak** (5); **iturri diplomatikoek** (12); **iturri diplomatikoen** (7); **iturri diplomatikoen arabera** (5); **iturri dira** (15); **iturri edo** (6); **iturri ere** (8); **iturri eta** (46); **iturri ez** (9); **iturri garrantzitsua** (5); **iturri gisa** (20); **iturri guztiak** (8); **iturri guztien** (5); **iturri hartan** (5); **iturri hori** (9); **iturri horiek** (18); **iturri horien** (23); **iturri horien arabera** (19); **iturri horietatik** (7); **iturri horrek** (5); **iturri horren** (15); **iturri horretatik** (8); **iturri hortarik** (5)

**iturri izan** (48); **iturri izan da** (5); **iturri izan zen** (5); **iturri izanen** (5); **iturri izango** (9); **iturri izaten** (6); **iturri militarrek** (9); **iturri militarren** (5); **iturri militarren arabera** (5); **iturri moduan** (5); **iturri nagusi** (18); **iturri nagusia** (53); **iturri nagusiak** (11); **iturri nagusietako** (6); **iturri nagusietako bat** (6); **iturri ofizialak** (6); **iturri ofizialek** (51); **iturri ofizialek azaldu** (7); **iturri ofizialen** (112); **iturri ofizialen arabera** (100); **iturri ofizialen esanetan** (7); **iturri ondoan** (15); **iturri ondoko** (5); **iturri onetik** (10); **iturri oparo** (6); **iturri oparoa** (12); **iturri palestinarrek** (14); **iturri palestinarren** (9); **iturri palestinarren arabera** (9); **iturri ugari** (5); **iturri zaharretik** (6)

**jakinarazi zuten iturri** (6); **kezka iturri** (39); **kezka iturri da** (7); **kezka iturri nagusia** (7); **kutsadura iturri** (5); **mika iturri** (6); **ororen iturri** (11); **plazer iturri** (5); **polemika iturri** (5); **poz iturri** (8); **ren iturri** (5); **zazpi iturri** (27); **zazpi iturri eta** (7); **zorion iturri** (5); **zuen iturri** (5); **zuten atzo iturri** (5); **zuten iturri** (29); **zuten iturri ofizialek** (12)

**argi iturria** (6); **bere iturriak** (6); **bestelako diru iturriak** (5); **den iturria** (6); **diru iturria** (14); **diru iturriak** (41); **energia iturriak** (14); **eta iturria** (7); **eta iturriak** (6); **guztien iturria** (8); **informazio iturria** (5); **informazio iturriak** (18); **inspirazio iturria** (15); **iturria da** (13); **iturria ere** (8); **iturria eta** (20); **iturria ez** (8); **iturria ireki** (5); **iturria itxi** (5); **iturria izan** (12); **iturriak aipatuta** (7); **iturriak aipatuz** (49); **iturriak aipatuz berri** (5); **iturriak aipatuz efe** (6); **iturriak aipatuz zabaldu** (9); **iturriak eta** (12); **iturriak ez** (8); **iturriak ezagutarazteari** (6); **iturriak ezagutarazteari uko** (5); **jean michel iturria** (5); **kezka iturria** (5); **michel iturria** (5); **polizia iturriak** (14); **polizia iturriak aipatuz** (11)

**iturriaren ondoan** (17); **meribako iturrian** (6); **ondoko iturrian** (5)

**aebetako iturriek** (7); **armadako iturriek** (9); **auzitegi nazionaleko iturriek** (6); **auzitegiko iturriek** (5); **barne ministerioko iturriek** (5); **batzordeko iturriek** (5); **enpresako iturriek** (5); **erietxeko iturriek** (6); **gobernuko iturriek** (21); **herrizaingo saileko iturriek** (7); **informazio iturriek** (19); **inguruko iturriek** (13); **iturriek adierazi** (36); **iturriek adierazi dutenez** (10); **iturriek adierazi zutenez** (21); **iturriek atzo** (29); **iturriek atzo jakinarazi** (6); **iturriek azaldu** (12); **iturriek azaldu zutenez** (8); **iturriek baieztatu** (5); **iturriek berriari** (9); **iturriek diote** (6); **iturriek diotenez** (9); **iturriek efe** (6); **iturriek esan** (16); **iturriek esan zuten** (6); **iturriek eta** (7); **iturriek ez** (11); **iturriek ez dute** (5); **iturriek jakinarazi** (42); **iturriek jakinarazi dutenez** (10); **iturriek jakinarazi zutenez** (27); **iturriek jakitera** (6); **iturriek jakitera eman** (6); **iturriek zehaztu** (5); **lehendakaritzako iturriek** (8); **ministerioko iturriek** (7); **nazionaleko iturriek** (7); **ospitaleko iturriek** (12); **palestinako iturriek** (5); **paneko iturriek** (6); **polizi iturriek** (9); **polizia iturriek** (50); **poliziako iturriek** (6); **poliziaren iturriek** (6); **saileko iturriek** (7); **washingtongo iturriek** (8); **zuten polizia iturriek** (14)

**aebetako iturrien** (5); **armadako iturrien** (8); **armadako iturrien arabera** (8); **diru iturrien** (5); **erietxeko iturrien** (16); **erietxeko iturrien arabera** (15); **gobernuko iturrien** (14); **gobernuko iturrien arabera** (13); **informazio iturrien** (11); **informazio iturrien arabera** (5); **israelgo iturrien** (9); **israelgo iturrien arabera** (8); **iturrien arabera** (285); **iturrien esanetan** (14); **iturrietako bat** (5); **ospitaleko iturrien** (20); **ospitaleko iturrien arabera** (20); **palestinako iturrien** (7); **palestinako iturrien arabera** (7); **polizia iturrien** (69); **polizia iturrien arabera** (64); **polizia iturrietatik** (5); **poliziako iturrien** (6); **poliziako iturrien arabera** (6); **poliziaren iturrien** (5)

**amezketako zazpi iturrik** (6); **hainbat informazio iturrik** (42); **hainbat informazio iturriren** (62); **hainbat iturrik** (21); **hainbat iturriren** (21); **hainbat iturriren arabera** (17); **informazio iturrik** (43); **informazio iturriren** (63); **informazio iturriren arabera** (62); **informazio iturririk** (6); **iturrik eta** (5); **iturriko ura** (17); **iturriren arabera** (137); **iturririk ez** (8); **iturritik edan** (5); **iturritik itsasora** (11); **iturritik ura** (5); **zazpi iturrik** (10); **zazpi iturriko** (5); **zenbait iturrik** (17); **zenbait iturriren** (59); **zenbait iturriren arabera** (58); **zuten hainbat iturrik** (7)

---

## iturridun *izond* iturria duena; iturriak dituena.

Jarraian aurkitzen dugun lehen objektua erloju **iturridun** bat da Joan Brossaren ikuste-poemetakoen antzekoa, eta haren azalpen errotuluak zera dio: «Hartu denbora». Berria - Kultura

---

## iturritxo *iz* iturri txikia.

Arte eta pago galantak, **iturritxoa** erdian, beti ura dariola. Txillardegi

Handik beheraxeago, Trinitateko kalean, San Bizenteko kantoia jotzen, bazen beste **iturritxo** bat. Askoren artean

Susan ere, Pertsiarren erreinuko hiriburuan, badago **iturritxo** bat, eta iturri horretatik edaten dutenek hortzak galtzen dituzte Santiago Iruretagoiena

---

## itute *iz* itogina. ik **itaxur**.

Bulegoaren leiho ondoko erretena trabatu eta **itutea** zegoen barrura; zeharo hondaturik zegoen alfonbra. Anton Garikano

---

## itxaro **1** *iz* itxaropena.

Etorkizun direnen **itxaroa** ikuskizun bilakatzen dela datozenean. Imanol Unzurrunzaga

Paradisurik gabeko munduan bizi ei gara, ikasi behar ote mundu hobea lortzeko **itxaro** barik bizitzen? Berria - Kultura

**2** ***itxaro izan*** espero izan.

Haren aintzazko etorrera maitasunez **itxaro** duten guztiei ere. Elizen arteko biblia

Eta **itxaro** duguna begien aurrean bagenu, hori ez litzateke itxaropena izango, inork ez baitu itxaroten begien aurrean duena. Elizen arteko biblia

Baina ikusten ez duguna **itxaro** badugu, iraupenez behar dugu zain egon. Elizen arteko biblia
Arimak, zoriona **itxaro** duen arren, ez du zorion galdua gogoratzen. Imanol Unzurrunzaga
Antsiaz **itxaro** dut nire bihotzera pakea ekar dezakeen hitz bakarra. Ramon Etxezarreta
Hemen hazia naiz eta hemen hilko naizela **itxaro** dut. Gotzon Garate
Baina urte amaierarako gerra bukatua izango dela **itxaro** dugu. Josu Zabaleta
Horda grisak ikustea **itxaro** dut, guregana hurbiltzen, "ez-inoren lur"etik zehar, baina ez da inortxo ageri. Mirentxu Larrañaga
Azken batean, ezin duzu **itxaro** horiek gertatzen ari denaz ezer jakiterik. Mirentxu Larrañaga
Hainbeste **itxaro** izan dugun askapena. Josu Zabaleta
· Huts egindako misio batetik ez dago zer **itxarorik**. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan; ik **itxaron 4**)

**Itxaro** -lekuaren erdi-erdian zegoen ordulari biribil tzarrari begiratu nion. Anjel Lertxundi

---

itxaroarazi ik **itxaronarazi 2**.

---

# itxarobide *(orobat **itxaropide**) iz* espero izateko motiboa.

Ahalegin guztiak egin zituen umearekin ahalik eta denbora gehiena pasatzeko, eta baita lortu ere, Ainhoaren **itxarobide** guztiak aise gaindituz. Iban Zaldua
Hiri ezezagunaren anonimotasun horrek bestelako **itxaropideak,** aukerak, ametsak piztu zitzakeen zure baitan, nahi gabe ere. Xabier Mendiguren Elizegi
Eta hala ere, santu honek sinetsi egin zuen inolako **itxarobiderik** ez zegoenean, munduaren oinorde izango zela. Askoren artean
Nire mintzoa izan dadila beti egiazkoa, zure erabakietan baitut **itxaropidea**. Elizen arteko biblia
Datu txarra da, eta ez dator bat Administrazioak [...] ematen ari diren balantzeekin eta **itxarobideekin**. Berria - Ekonomia
Zuk esana da poesiaren egitekoa ez dela inongo talderik salbatzea, baina **itxarobide** halako batzuk betetzeko egiten dela. Berria - Kultura
Espantuz eta lotsaz beteko dira beren **itxaropide** Etiopia eta beren harrotasun Egipto zutenak. Elizen arteko biblia

---

# itxarokizun *iz* espero izateko aukera.

Hala bada, irudi artistikoak berrezagutzeak lotura estua du ezagutza hutsarekin; baina ikusleak espero dituenekin ere egiten du topo, eta alda ditzake haren **itxarokizunak,** edota bestelako **itxarokizun** batzuk sortu: (ber-)ezagutza oroitzapenarekin batera doa. Josu Zabaleta
Kimikari izan behar genuen, baina gure **itxarokizun** eta esperantzak ezberdinak ziren. Juan Garzia

---

# itxaron *(2648 agerraldi, 203 liburu eta 519 artikulutan; orobat **itxoin** 328 agerraldi, 65 liburu eta 33 artikulutan)* , itxaroten **1** dio *ad* zain egon.

Otu zaio Leon Marty likits horrek agindu ote dion loreena umeari, eta meza ondoren **itxaron** dio eliz atarian. Pako Aristi
Bi gizonek **itxaroten** zioten Pedro Páramori atean. Juan Garzia
Bezperan berak kale hartan **itxaron** ziola oroitu zuen. Patxi Zubizarreta
Kalean zehar berandu ibiltzen denean, **itxaron** egiten diot. Itziar Otegi
Amari **itxaroteko** egongelan eseri ginenean. Josu Zabaleta
Ez nion luzaroan **itxaron** behar izan. Mirentxu Larrañaga
Baina hona iritsi eta hor kanpoko portxean eseri nintzenean, hiri **itxaroten,** zera jakin ninan [...]. Anton Garikano
Erantzunari **itxaron** gabe, bere gizonengana itzuli zen. Joanes Urkixo
Irakaslearen seinaleari **itxaron** gabe. Juan Kruz Igerabide
Irrikaz **itxaroten** nion une horri. Harkaitz Cano
Erabat ikaratu eta izuturik, elkarri **itxaron** gabe, denak batera sakabanatu eta ihesi joan ziren. Elizen arteko biblia
-Joan zintezkete oinez hurrengo geltokiraino, eta han Goriziarako trenari **itxaron**. Josu Zabaleta
**Itxaron,** aita, **itxaron** niri! Askoren artean
**Itxaron** iezadazu malekoian. Aritz Gorrotxategi
· Eserita **itxaron** duzu atea zabaldu arte. Rafa Egiguren
**Itxaron** hemen gu itzuli arte. Elizen arteko biblia
Ez **itxaron** heriotzako ordura arte. Elizen arteko biblia
Argia ilundu artean **itxaron** dugu, eta gaua beltzu egin da berriro bat-batean. Mirentxu Larrañaga
Egunero-egunero irrikaz **itxaroten** zuen kalean zeharreko osteratxoaz gozatu ahal izateko unea. Mirentxu Larrañaga
Bederatzietatik hamaikak arte **itxaron** beharrak liluraren erakargarritasuna indartu zuen. Ibon Uribarri
**Itxaron** zezala, nahikoa urduri jarria ninduen berak aurretik. Juan Kruz Igerabide
Baina **itxaron** dezagun, ea zer ateratzen den. Oskar Arana
Beste zazpi egun **itxaron** eta usoa bidali zuen; oraingoan ez zen itzuli. Elizen arteko biblia
Samuelek erabaki bezala, zazpi egunez **itxaron** zuen. Elizen arteko biblia
On Camillok beste ordu batez **itxaron** zuen. Koldo Biguri
Segundo batzuk **itxoin** ondoren. Joxemari Iturralde
Une batez ere **itxaron** gabe, eta niri ezer egiteko denborarik eman gabe, [...]. Juan Kruz Igerabide
Kasu hauetan garbikuntza egin beharko dute eta zazpi egun **itxaron**. Elizen arteko biblia
Nik orduan: **itxaron** dezagun beste pare bat aste. Joxe Austin Arrieta
Esan biezaio eguntxo batzuk **itxaroteko**. Juan Garzia
**Itxaron, itxaron** ezazu momentu bat! Migel Angel Mintegi
**-Itxaron** apur bat -esan zuen portzelana-merkatari batek-: platertxo bat ere emango dizut. Julen Gabiria
**Itxaron** apur batean, hortzak garbitzera noa. Lopez de Arana
Gizonak pixka batean **itxoiteko** keinua egin zuen eskuarekin. Bernardo Atxaga
Bizitza osoa **itxaron** ez dut ba…Tira, majo **itxaron** beharko du, horratik, nik berriro telefonoz deitzerako. Pako Aristi
Jainkoak luze **itxaroten** du, baina behar den bezala zigortzen du gero. Koro Navarro
**"Itxoin** pasilloan", esan zidan Joseba eta bion gelaren parera iritsi ginenean. Bernardo Atxaga
- **Itxaron** egik, beste botila ardo baten bila najoak. Unai Iturriaga
**-Itxoingo** diat. Koro Navarro

**Itxaron** gabe eragin dio maratilari. Rafa Egiguren

· Luzaro **itxaroten** egon ondoren. Askoren artean

Maletatxoan daramazu egurrezko fusila, **itxaroten** bera ere, zu bezala, noiz amaituko, noiz itzuliko, noiz desagertuko. Sonia Gonzalez

• **2** du *ad* espero izan, itxaro izan.

Zoaz bakean, eta **itxaron** duda-izpirik gabe aurki izango duzula zeure gizonaren aldetik nahi duzun kontsolamendua. Askoren artean

Bizi berria **itxaron**. Elizen arteko biblia

Nire bisitaldia **itxaroten** zuela esan zitekeen. Edorta Jimenez

Benetan hauxe da **itxaron** dugun profeta. Elizen arteko biblia

Benetako bertuteak ez du denbora-mugarik ezagutzen, **itxaron** duen saria betierekoa denean. Askoren artean

Esklaboa bezala, atsedenaren irrikan dago; jornalariak bezala, soldata **itxaroten** du. Elizen arteko biblia

Banekien erantzunik **itxaroten** ez zuena. Edorta Jimenez

Izan ere, maitasunik ederrena maitatua izatea **itxaroten** ez duena da. Markos Zapiain

Nire arrazoimenaren interes guztia hurrengo hiru galderetan bateratzen da: zer ezagut dezaket? zer egin behar dut? zer **itxaron** dezaket? Askoren artean

Nik, ordea, ba al nuen, gero, etorkizunetik ezer **itxaroterik,** ordurako ez nekienik? Joxe Austin Arrieta

Ezin da onura iraunkorrik **itxaron** politika moraletik, gizonaren berezko sentimenduetan oinarrituta ez badago. Juan Martin Elexpuru

Hor ere, nazioarteko aldaketarik **itxaron** gabe neurri zehatz batzuk hartu behar dira. Berria - Euskal Herria

Zoriontsuak harengan **itxaron** dutenak! Elizen arteko biblia

Niregan **itxaron** dutenei ez die inoiz usteak huts egingo. Elizen arteko biblia

Eta itxaro duguna begien aurrean bagenu, hori ez litzateke itxaropena izango, inork ez baitu **itxaroten** begien aurrean duena. Elizen arteko biblia

Espero ez duguna **itxaron** behar dugu. Berria - Euskal Herria

Gerra abentura honetatik zer **itxaronik** ez dut, prestamen geldi hauxe ez bada. Josu Zabaleta

**3** (era burutua izenondo gisa)

Badakit grekoen aurkikunde ilunak latinezko bertsoz argitzea zaila dela, [...] baina, hala ere, zure merezimenduak eta zure adiskidantza gozoaren atsegin **itxaronak** edozein lantegi harrarazten eta gau lasaiak ernai pasarazten dizkit, zure gogoa argiztatzeko hitzen eta bertsoen bila. Xabier Amuriza

**4** (era burutua hitz elkartuen lehen osagai gisa; ik **itxarongela**)

**Itxaron**-min geldigarri halako bat jabetu zen nitaz. Eduardo Matauko

Etxeek, plazek, hiri hartako bizitza osoak, azoka bateko urduritasun usteldu eta **itxoin**-giroa zuten ezaugarri. Xabier Olarra

**5** ***itxaron-zerrenda***

Izan ere, **itxaron-zerrendetan** neur daiteke osasun sistema baten eraginkortasuna. Berria - Euskal Herria

Kirurgiako **itxaron-zerrendak**. Berria - Euskal Herria

Donostiako Ospitalean, adibidez, 58 pertsona daude **itxaron-zerrendan** gaur egun. Berria - Euskal Herria

Lagundutako ernalketarako teknikak soilik Barakaldoko (Bizkaia) Gurutzetako Ospitalean egin daitezke eta, gainera, **itxaron zerrenda** luzeak daude. Berria - Harian

Lau hilabeteko **itxaron zerrenda** dago hodietako kirurgiarako. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**amaiera arte itxaron** (4); **amaitu arte itxaron** (11); **arte itxaron** (256); **arte itxaron behar** (58); **arte itxaron beharko** (62); **arte itxaron du** (5); **arte itxaron dut** (5); **arte itxaron duzu** (5); **arte itxaron gabe** (4); **arte itxaron nahi** (9); **arte itxaron nuen** (13); **arte itxaron zuen** (30); **arte itxaron zuten** (8); **artean itxaron** (6); **asko itxaron** (16); **asko itxaron behar** (8); **askorik itxaron** (5); **aste itxaron** (5); **atean itxaron** (4); **baina itxaron** (14); **baina itxaron egin** (5); **bat itxaron** (20); **bat itxaron behar** (6); **batean itxaron** (15); **batez itxaron** (11); **batez itxaron zuen** (4); **batzuk itxaron** (9); **batzuk itxaron behar** (4); **bertan itxaron** (4); **bi urte itxaron** (4); **bihar arte itxaron** (8); **bukatu arte itxaron** (7); **da itxaron** (8); **du itxaron** (4); **dugu gehiago itxaron** (4); **dugu itxaron** (4); **egin arte itxaron** (8); **egon arte itxaron** (8); **egun itxaron** (13); **egun itxaron behar** (4); **egun itxaron eta** (4); **erantzuna itxaron** (6); **erantzuna itxaron gabe** (4); **erantzunari itxaron** (7); **erantzunari itxaron gabe** (5); **erantzunik itxaron** (5); **erantzunik itxaron gabe** (4); **ere itxaron** (8); **eserita itxaron** (5); **eta itxaron** (57); **eta itxaron egin** (9); **eta itxaron egiten** (8); **etorri arte itxaron** (4); **ez itxaron** (5); **ez zuen itxaron** (7); **galdu arte itxaron** (5); **gehiago itxaron** (40); **gehiago itxaron behar** (8); **gehiago itxaron beharko** (4); **gehiago itxaron gabe** (4); **gehiegi itxaron** (11); **gutxiago itxaron** (5); **gutxiago itxaron behar** (5); **hainbeste itxaron** (7); **han itxaron** (4); **hilabete itxaron** (9); **hilabete itxaron behar** (5); **ikusi arte itxaron** (4); **iritsi arte itxaron** (9)

**itxaron ahal** (5); **itxaron apur** (25); **itxaron apur bat** (12); **itxaron apur batean** (10); **itxaron behar** (233); **itxaron behar da** (24); **itxaron behar du** (4); **itxaron behar dugu** (9); **itxaron behar dute** (6); **itxaron behar duzu** (4); **itxaron behar izan** (108); **itxaron behar izatea** (6); **itxaron behar izaten** (12); **itxaron beharko** (123); **itxaron beharko da** (15); **itxaron beharko dela** (7); **itxaron beharko du** (22); **itxaron beharko dugu** (14); **itxaron beharko dute** (15); **itxaron beharko dutela** (4); **itxaron beharko duzu** (6); **itxaron beharko zuen** (4); **itxaron beharra** (15); **itxaron beharrik** (14); **itxaron beharrik izan** (5); **itxaron beste** (5); **itxaron besterik** (7); **itxaron daitekeen** (7); **itxaron dezagun** (10); **itxaron dezaket** (9); **itxaron dezala** (7); **itxaron du** (21); **itxaron dut** (14); **itxaron dute** (6); **itxaron duzu** (10); **itxaron egin** (89); **itxaron egin behar** (26); **itxaron egin beharko** (36); **itxaron egin zuen** (8); **itxaron egin zuten** (4); **itxaron egingo** (14); **itxaron egiten** (19); **itxaron egiten du** (8); **itxaron ere** (6); **itxaron esan** (4); **itxaron eta** (31); **itxaron eta gero** (4); **itxaron eta itxaron** (5); **itxaron ez** (4); **itxaron ezak** (4); **itxaron ezazu** (4); **itxaron ezin** (6); **itxaron gabe** (64); **itxaron gela** (6); **itxaron gelan** (6); **itxaron genuen** (10); **itxaron hemen** (19); **itxaron iezadazu** (6); **itxaron izan** (9); **itxaron jaunarengan** (4); **itxaron nahi** (24); **itxaron nion** (5); **itxaron niri** (6); **itxaron nuen** (28); **itxaron ondoren** (5); **itxaron ostean** (10); **itxaron pixka** (22); **itxaron pixka bat** (12); **itxaron pixka batean** (10); **itxaron zerrenda** (12); **itxaron zerrendak** (11); **itxaron zerrendan** (4); **itxaron zerrendetan** (5); **itxaron zion** (9); **itxaron zuela** (4); **itxaron zuen** (84); **itxaron zuten** (19)

**izan arte itxaron** (5); **kanpoan itxaron** (6); **luzaro itxaron** (7); **luzaroan itxaron** (4); **luzaz itxaron** (10); **luzaz itxaron behar** (4); **luze itxaron** (18); **luze itxaron behar** (9); **luzea itxaron** (4); **minutu itxaron** (6); **oraindik itxaron** (6); **ordu itxaron** (4); **orduak itxaron** (4); **ordura arte itxaron** (6); **pixka bat itxaron** (5); **pixka batean itxaron** (8); **segundo batzuk itxaron** (4); **unera arte itxaron** (7); **urte itxaron** (23); **urte itxaron behar** (14); **urte itxaron beharko** (5); **urtebete itxaron** (7); **urtez itxaron** (5); **urtez itxaron behar** (5); **zazpi egun itxaron** (7); **zen itxaron** (5); **zer itxaron** (9); **zer itxaron dezaket** (5); **zergatik itxaron** (6); **zertan itxaron** (4); **zuen gehiago itxaron** (4); **zuen itxaron** (10); **zuregan itxaron** (4)

**arte itxarongo** (34); **arte itxarongo du** (4); **arte itxarongo dugu** (4); **arte itxarongo dut** (4); **arte itxarongo dute** (6); **etorri arte itxarongo** (4); **hainbeste itxarondako** (4); **han itxarongo** (4); **hemen itxarongo** (4); **itxaronez gero** (4); **itxarongo dizut** (9); **itxarongo du** (9); **itxarongo dugu** (10); **itxarongo dut** (22); **itxarongo dute** (10)

**arte itxarotea** (25); **arte itxarotea erabaki** (5); **arte itxaroteko** (19); **bat itxarotea** (6); **batean itxaroteko** (8); **eta itxarotea** (5); **eta itxaroteko** (9); **eta itxaroteko esan** (4); **han itxaroteko** (6); **itxarotea baino** (8); **itxarotea baino ez** (5); **itxarotea beste** (4); **itxarotea deliberatu** (5); **itxarotea erabaki** (21); **itxarotea erabaki du** (4); **itxarotea erabaki nuen** (4); **itxarotea erabaki zuen** (12); **itxarotea ez** (5); **itxaroteko agindu** (7); **itxaroteko esan** (25); **itxaroteko esan zidan** (4); **itxaroteko esan zion** (5); **itxaroteko eskatu** (13); **itxaroteko eskatu zion** (6); **kanpoan itxaroteko** (4)

**arte itxaroten** (13); **bat itxaroten** (7); **biziz itxaroten** (4); **ere itxaroten** (5); **eta itxaroten** (15); **gabe itxaroten** (5); **irrikaz itxaroten** (7); **itxaroten ari** (31); **itxaroten ari da** (5); **itxaroten ari zen** (4); **itxaroten ari ziren** (4); **itxaroten dago** (5); **itxaroten diot** (4); **itxaroten du** (13); **itxaroten duen** (6); **itxaroten dugun** (5); **itxaroten dut** (7); **itxaroten dute** (7); **itxaroten duzun** (4); **itxaroten egon** (17); **itxaroten eta** (4); **itxaroten ez** (7); **itxaroten gelditu** (5); **itxaroten genuen** (6); **itxaroten geratu** (4); **itxaroten nion** (4); **itxaroten nuen** (9); **itxaroten zeuden** (4); **itxaroten zion** (10); **itxaroten zuen** (26); **itxaroten zuten** (11); **zen itxaroten** (5); **zeukan itxaroten** (4)

---

# itxaronaldi *(orobat **itxoinaldi** g.er.)* **1** *iz* itxarotea; itxaroten den aldia.

Hogeita hamasei ordu trenez; **itxaronaldiak,** geldiuneak eginez, geltoki mortu eta hotzetan, eta inguruan bidaia-lagunak beti. **Itxaronaldiak** isilean sufriarazten zion. Eskarne Mujika

Naufragioaren berria Obabara iritsi zen unea imajinatzen nuen, Virginiaren **itxaronaldia** itsasoan galdutako gorpuaren bilaketak iraun zuen bitartean. Bernardo Atxaga

**-Itxaronaldi** gutzi-guztian ez diat hi beste pentsamendurik izan gogoan. Anjel Lertxundi

**Itxaronaldia** luzatuz joan zen arren, parada hartan ez zuen huts egin, hamaikak aldera Ostolaza azaldu baitzen atarian. Migel Angel Mintegi

**Itxaronaldia** noiz amaituko den ez du zehaztu Gonzalezek. Berria - Euskal Herria

Mantsotu egin zuen pausoa, **itxaronaldia** atseginagoa gerta zekien. Mirentxu Larrañaga

Ikusmiran egotea -denborapasa arintzeko modu bat baino ez, ordu arte- gure **itxaronaldietako** entretenimendu nagusi bilakatuko zen. Pedro Alberdi

Aldizkariak **itxaronaldia** eramangarriago egiten lagundu dit. Patxi Zubizarreta

Zigarro bat piztu nuen **itxoinaldia** arintzearren. Aingeru Epaltza

**Itxaronaldiak** estutasuna areagotu besterik ez baitzidan egingo. Ramon Saizarbitoria

**Itxaronaldiak** itxaropena berpizten du, halabeharrez, itxaroten duenarengan. Javi Cillero

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Debozioz besoak altxaturik, aurpegia sortalderantz bihurturik, **itxoinaldi** magikoan. Xabier Olarra

Erran zidanez, aspertua da aireportuetako **itxaronaldi** gogaikarriez. Hasier Etxeberria

Emaitzarik gabeko **itxaronaldi** luze hartaz nazkatzen hasita. Alberto Ladron Arana

Bost orduko **itxaronaldiaren** ostean. Joxe Austin Arrieta

Dena hagitz profesionala eta zibilizatua, hainbat ordutako **itxaronaldian** nire kontra egositako koleraz mingostuagatik ere. Aingeru Epaltza

**3** (erietxeetan)

Osakidetzako ebakuntza kirurgikoen batez besteko **itxaronaldia** 49 egunekoa izan da aurreko hilabeteetan. Berria - Euskal Herria

Bihotzeko ebakuntzetarako **itxaronaldiak** ezin izango ditu 90 egunak gainditu. Berria - Euskal Herria

**Itxaronaldi** luzeenak ginekologia, traumatologia, oftalmologia eta dermatologia espezialitateetan izaten direla adierazi zuen. Berria - Euskal Herria

Gaixoek pairatzen duten **itxaronaldia** murrizteko asmoa duen dekretua onartu du Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

**4** ehiza debekua.

Iazko abenduan, adibidez, hamar lagun salatu zituzten oilagorrak **itxaronaldietan** ehizatzeagatik. Berria - Euskal Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **batez besteko itxaronaldia** (4); **besteko itxaronaldia** (4); **itxaronaldi luze** (5); **itxaronaldi luzeak** (4); **itxaronaldiaren ondoren** (3)

---

**itxaronarazi**, itxaronaraz, itxaronarazten *(orobat **itxoinaarazi** g.er.)* **1** du *ad* zain egonarazi.

Beti **itxaronarazten** zioat pixka batean. Irene Aldasoro

Mingarria zaizu gazte gizagaixo horri gehiago **itxaronaraztea,** ala? Patxi Zubizarreta

Bada jenderik horrela, hotz-hotzean, hogeita hamar edo berrogei minutu **itxaronarazten** diona BEKOZari, aurrez hitzordua izendatua badu ere, hura mendean hartu eta hala bere nagusigoa inposatzeko xede berariazko nabarmenez. Juan Garzia

Lagunei zenbateraino **itxoinarazi** jakitea zen koxka. Aingeru Epaltza

Ez areagotu bihotz-saminduaren nahigabea, ez **itxaronarazi** zeure emaitza beharrean dagoenari. Elizen arteko biblia

Feofarren gudalburuak ez zien luzaro **itxaronarazi,** eta, bostak baino lehen, turuta zoliek iristen ari zela iragarri zuten. Karlos Zabala

**2** *(corpusean **itxaroarazi** soilik)* espero izatera behartu.

Nire izaera pentsatzailearen existentzia iraunkorra dela **itxaroarazten** didaten arrazoiak. Ibon Uribarri

---

**itxarongela** *(**53** agerraldi, **30** liburutan; orobat **itxaron(-)gela** **18** agerraldi, **12** liburu eta **5** artikulutan)* *iz* erietxe, geltoki eta kidekoetan, itxaroteko gela.

**Itxarongela** txiki eta pareta hutsekikoa jendez gainezka dago. Oskar Arana

Bitxia da Onkologiako **itxarongelako** eserlekuen antolamendua. Eritetxe bateko **itxaron** -gelan zaude, sendagilea noiz etorriko zain. Imanol Zurutuza

Ttipiren agentziako **itxarongelatik** ateratzea lortu ondotik. Aingeru Epaltza

**Itxarongelako** ateraino abiatu eta arestiko ibilbidea errepikatu du. Pello Lizarralde

Scheherazade ugari dagoela munduan, batik bat ospitale, zoroetxe eta **itxarongeletan**. Imanol Zurutuza

Luze mintzatzen ziren honetaz eta hartaz [...] **itxarongelan** zain zeudenez arduratu gabe. Imanol Zurutuza

Joana eta inspektorea, **itxaron** -gelan eserita, eztabaidan ari dira. Antton Olano

Harreragilea: bai, zoazte mesedez horko **itxarongelara,** eta deituko dizuegu. Xabier Mendiguren Elizegi

**Itxarongelan,** ikusia zuen komunio moduko bat sortzen zela gaixoen artean, lubaki berean dauden soldaduen artean bezala. Imanol Zurutuza

Lehengo eguneko **itxarongela** berberean sarrarazi ninduen. Aingeru Epaltza

**Itxaron** gelan bidaiari batzuk eta, ia beti bezala, tipo bitxiren bat ere bazegoen. Migel Angel Mintegi

---

**itxaropen** *(**3340** agerraldi, **205** liburu eta **1498** artikulutan; ETCn **28.099** agerraldi; cf **esperantza** **1911** agerraldi, **200** liburu eta **683** artikulutan; ETCn **13.205** agerraldi)* **1** *iz* nahi edo desiratzen duguna gertatuko delako edo lortuko dugulako uste ona. ik **esperantza**; **itxarobide**.

Eta itxaro duguna begien aurrean bagenu, hori ez litzateke **itxaropena** izango, inork ez baitu itxaroten begien aurrean duena. Elizen arteko biblia

Auroraren desagertzearen drama berdin nozitu zuten biek, etsipen eta **itxaropen** berberak, zorigaiztoko aurreikuspen berberak. Oskar Arana

**Itxaropen,** kimera, lilura horren atzetik gabiltza. Iñaki Iñurrieta

Izan ere, nor izango da gure **itxaropena** eta poza? Elizen arteko biblia

Hutsa da horien **itxaropena,** alferrikakoak horien nekeak, probetxugabeak egintzak. Elizen arteko biblia

Gurasoek amore emango zutela, hara haien **itxaropena**. Gotzon Garate

Beharrik **itxaropena** tematsua da; eta ahula da xutik egoiten, ahula delakotz. Piarres Aintziart

Lurraren tamainako planeta bat aurkitzeko **itxaropena** handiagoa da orain. Berria - Gaiak

Txerrien zelulak, diabetesa sendatzeko **itxaropena**. Berria - Gaiak

**-Itxaropenari** berari ere beldurra zaion garaietan bizi gara, Elizabeth. Anjel Lertxundi

Ihesbiderik inon bazen, hantxe zeukala **itxaropena**. Hasier Etxeberria

Dena bukatuko den **itxaropena,** bakea izango den **itxaropena**. Josu Zabaleta

Iritsi da **itxaropenari** leihoak zabaltzen hasteko ordua. Anjel Lertxundi

Hainbeste luzatuz gero mehetu ere egingo da **itxaropen** hori. Jokin Urain

Gogoz kartsu ziren, **itxaropenean** alai, ezbeharrean eraman handiko. Askoren artean

Apartamentu huts hartan bizi izan nintzen, zerbaiten **itxaropenetan**. Ander Irizar

**Itxaropenez** beteriko etorkizuna. Elizen arteko biblia

Bihar ere zu dardarka ikusteko irrikaz eta **itxaropenez**. Arantxa Iturbe

Agian helduden urte hortan kausituko duzue zuen nahikarien betea, maitasun eta **itxaropenez** osaturik. Herria

**2** (izenondoekin)

**Itxaropen** sutsua dut ez didala usteak huts egingo. Elizen arteko biblia

**Itxaropen** osoa dut eutsi egingo diogula Jakutskeko tropak iristen diren bitartean. Karlos Zabala

Lilura soilik, eta etorkizunerako **itxaropen** irmoa. Hasier Etxeberria

Buruko edo bihotzeko zoko ilunen batean bazuen halako **itxaropen** lauso eta zehaztugabe bat, gauzak aldatuko zirelakoa. Mirentxu Larrañaga
Ordu batzuk lehenagoko **itxaropen** ahula erabat galdua zuen. Migel Angel Mintegi
**Itxaropen** zirraragarriago baten sorrera. Koro Navarro
Ez du, ordea, bere burua engainatu nahi **itxaropen** antzuaren lilurapean. Felipe Juaristi
Ez iezadazu utz **itxaropen** ustelik izan dezadan. Mirentxu Larrañaga
Maitemintzeko aukera edukitzea da **itxaropen** gozo hori. Pako Aristi
Susmo arrazoizko eta zeken guztiak uxatu zituen **itxaropen** burugabe hark. Ander Irizar
Hark bizitzan **itxaropen** eta fede ona zeuzkaan. Pako Aristi
Agian neska zurekin maitemindu egin dela eta maitasunez beterik hartuko zaituela dioen **itxaropen** txikiak. **Itxaropen** haundia hemen ere geroari buruz. Pako Aristi
Ez dugu **itxaropen** handirik. Oskar Arana
Hasierako asmoak eta sentimenduak gogoratzen dituzte, hasierako itxaropenak eta **itxaropen** zapuztuak. Edurne Elizondo
Ahal bezala zuritu ditut fede galdua, errealitatearen ikuspegi laikoa, **itxaropen** etsia, errebeldia egoskorra, eta izerdi-iturriaren aldaketa, goldetik lumara. Xabier Mendiguren Elizegi
Ezer lortzeko **itxaropen** handirik gabe. Migel Angel Mintegi
Izua eta ikara guztiak ezabatzen dizkizun **itxaropen** gozo bat. Pako Aristi
Zalantzazko **itxaropen** ahul batekin. Urtzi Urrutikoetxea
Pozik oheratzen nintzen, biharamunerako **itxaropen** bare batez. Josu Zabaleta
Bakea lortzeko **«itxaropen** zuhurra» duela azaldu zuen PSE-EEko idazkari nagusiak.
Ene bakardade goibelera poz izpi bat dakar **itxaropen** dotore horrek. Juan Garzia
**Itxaropen** Oneko lurmuturra. Iñaki Iñurrieta
· Ohartu nintzen **itxaropen** alferreko batek eragin zuela nire iruzkin hura. Oskar Arana
**Itxaropen** huts eginak. Oskar Arana

## **3** (aditzekin)

**Itxaropena** neukan salbuespena egingo zuela nirekin. Oskar Arana
Berak ezin izan bazuen bizar-labana komunetik atera, ezin **itxaropen** handirik eduki nik lortuko nuela. Oskar Arana
Eta zuengan daukagun **itxaropenak** oinarri sendoak ditu. Elizen arteko biblia
Mikel Strogoff saiatzen zen Nadiari **itxaropen** pittin bat ematen. Karlos Zabala
Ez du zentzurik Stanleyri **itxaropena** ematen ibiltzeak Harry iritziz aldatu bada. Oskar Arana
**Itxaropen** berriak ematen dizkizuten eta gaztaroko ametsak berpizten dizkizuten goiz horietako bat. Josu Zabaleta
Badakizu, itxaronaldiak **itxaropena** berpizten du, halabeharrez, itxaroten duenarengan. Javi Cillero
Geroz eta **itxaropen** handiagoa sentitzen hasi nintzen. Oskar Arana
Jaunarengan jarria nuen **itxaropen** guztia. Elizen arteko biblia
Jar ezazue zeuen **itxaropen** osoa Jesu Kristoren agerpenak ekarriko dizuen dohainean. Elizen arteko biblia
Nik ez nion bere **itxaropena** zapuztu nahi. Joxe Austin Arrieta
Artean genuen **itxaropen** urria zapuztu zigun. Mirentxu Larrañaga
Jende asko ezin zen sartu eta kanpoan egoiten zen begira, barnean sartzeko **itxaropena** atxikiz. Ramuntxo Etxeberri
Aberasteko **itxaropena** galtzeko prest dagoenari. Iñaki Iñurrieta
Baina ez zuen **itxaropen** guzti-guztia ere galdu. Irene Aldasoro
Nire **itxaropen** eskas eta itxuraz azkena galtzeko ikaraz. Koro Navarro
**Itxaropena** galtzeko modukoak ziren albisteak. Migel Angel Mintegi
Zuen etsipenak **itxaropena** galtzera ere eramaten dituela ezjakinak. Imanol Unzurrunzaga
Handik askatzeko **itxaropen** oro galdua zuela. Askoren artean
Inork ez ditzala pitz **itxaropen** faltsuak. Berria - Ekonomia
Leialtasuna eta **itxaropena** suspertuz. Elizen arteko biblia
Gutxienez **itxaropena** berreskuratu dut. Jon Muñoz
2004eko urteak ekar dezagula **itxaropen,** zorion eta osagarri. Herria
· Etsipenak eta **itxaropenak** ginderabiltzan txandaka. Juan Garzia
Hemendik urtea bukatzerako gerta daitekeenaren **itxaropenak** iratzarririk gauzka. Josu Zabaleta
Eta **itxaropenak** ez du huts egiten, Jainkoak bere maitasuna isuri baitigu geure bihotzetara. Elizen arteko biblia
Eta langabetuak berehala jasotzen du bere **itxaropenak** iradokitako mezua. Pako Aristi
Mesias faltsuek sorturiko **itxaropenak** eta arazoak. Koro Navarro
· Eta hala ere **itxaropenari** eusten diot. Ramon Etxezarreta
Denbora beti **itxaropenari** aurka egiteko dago! Pako Aristi
· Tupustean, nire **itxaropena** berpiztu egin zen. Agustin Otsoa
Dena galduta dagoenean iristen da sarri **itxaropena** . Agustin Otsoa
Tupustean, nire **itxaropena** berpiztu egin zen. Agustin Otsoa
Berriro **itxaropena** piztu zait, gauzak bide onetik doaz berriro! Josu Zabaleta
**Itxaropena** erne zitzaion: ordura arte ikusi ez zuena ikusiko ote zuen? Iñaki Iñurrieta
Baina **itxaropen** horiek ustel gertatu ziren. Iñaki Mendiguren

## **4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Galdera askoren erantzun bilakatzen zen hondamendia eta **itxaropen** eza nagusi ziren garai haietan. Monika Etxebarria
**itxaropen** egunak ziren haiek. Josu Zabaleta
**Itxaropen** mezu batez amaitu zuen. Berria - Euskal Herria
Azkenetan zegoen, sendatzeko **itxaropen**-arrastorik gabe. Askoren artean
Bada **itxaropen**-zantzurik haren ahotsean. Eskarne Mujika
**Itxaropen** keinu bat piztu da bere begi ninietan. Sonia Gonzalez
**Itxaropen**-izpi bat eman dit horrek. Mirentxu Larrañaga
**Itxaropen**-oldar bat, dena egiteko zegoelako sentipena. Iñaki Iñurrieta
Esaldi bakoitzak handitu egiten zuen nire **itxaropen**-sentimendu zuhurra. Oskar Arana
**Itxaropen**-iturri den Jainkoak alaitasunez eta bakez bete dezala zuen fedea. Jerusalemi **itxaropen**-agintzaria. Elizen arteko biblia
Wanda Ford **itxaropen** eta etsipen uhinek gora eta behera zerabilten. Gotzon Garate
Zeharbidez **itxaropen** edo beldur kausa diren gauzak. Piarres Xarriton
Ia prozesu esperimentala da ikusmenezko pertzepzioa: **itxaropen**-sistema bat behar du aldez aurretik, eta itxaropen horien gainean osatzen dira hipotesiak, berehala egiaztatzen edo ezeztatzen direnak. Josu Zabaleta

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Bake- **itxaropen** hori zapuzteko. Agurtzane Juanena

Ezin zitzaiela animalia haiei garaipen- **itxaropen** txikienik eskaini. Fernando Morillo

Kristau- **itxaropena** eta betiko aintza. Elizen arteko biblia

Alemanei lurra eta garaipen- **itxaropena** poliki-poliki kenduz denen artean. Felipe Juaristi

Salbamen- **itxaropena** geroko. Elizen arteko biblia

Atzera begiratu dut, sorbalda gainetik, barkamen **itxaropenez** -edo. Mirentxu Larrañaga

Bost urtez ume- **itxaropenetan** egon ondoren ez zenidan huts egin. Eduardo Matauko

Sinesle Zaharren arabera, gizadiaren etorkizun- **itxaropenez** ernalduriko gizarte bakar izateari- uko egiten ari ziren. Iñaki Mendiguren

**6** hiru bertute teologaletako bat.

Hiru gauza ditugu oraindanik iraunkor direnak: sinesmena, **itxaropena** eta maitasuna. Elizen arteko biblia

**7** ***bizi itxaropen***

Eta Bilbao doktoreak, erradiologoak, zertxobait luzatu izan ez balu, bizi- **itxaropen** hura aspaldi agortua zegokeela pentsatzen zuen. Imanol Zurutuza

Inork ez dio esan zortzi hilabeteko bizi- **itxaropena** ematen diotela. Imanol Zurutuza

New York-eko Harlem ezagunean jaiotzen den ume batek Bangladesh-en jaiotzen den beste batek baino bizi **itxaropen** txikiagoa du. Iñaki Heras

Zimbaweko biztanleek dute bizi **itxaropen** txikiena munduan: 36 urte. Berria - Gaiak

Gaixotasunaren eragina gutxitu egin zen eta bizi- **itxaropena** luzatu. Iñaki Mendiguren

Haurren heriotza tasa hutsera jaitsi da eta bizi **itxaropena** 80 urte arte luzatu da. Luis Elberdin

Herrialde horietako batzuetan, bizi **itxaropena** ez da 40 urtera iristen. Berria - Gaiak

**8** ***itxaropen(a) izan*** du *ad* espero izan.

**Itxaropen** dugu ikustea luza gabe gure ezkila dorrea lehengo itxura ederraz apaindua. Herria

Badut **itxaropen** luzaroxeago egongo naizela zuekin. Elizen arteko biblia

Bera izango dute **itxaropen** nazioek. Elizen arteko biblia

Jauna, zuregan dut **itxaropen:** zuk erantzungo didazu, Jauna, ene Jainko! Elizen arteko biblia

Eguna argitu baino lehen, deiadar degizut laguntza eske: zure promesetan dut **itxaropen** ! Elizen arteko biblia

Batzar osoa oihuka hasi zen eta Jainkoa bedeinkatu zuen, berarengan **itxaropen** dutenak salbatzen dituelako. Elizen arteko biblia

Zu zaitugu geure **itxaropen** ! Elizen arteko biblia

Jaunaren zain nago, nahiz eta hark Jakoben herriari aurpegia gorde; harengan nik **itxaropen** . Elizen arteko biblia

· Timoteo laster zuengana bidaltzeko **itxaropena** dut. Elizen arteko biblia

Badut **itxaropena** aurrerantzean ere horrela izango dela. Josu Zabaleta

Hirugarrenean agidanez? **itxaropen** hori dute, behintzat. Berria - Harian

Beste **itxaropen** bat du ordea: turista horrekin egun gehiagotan gelditzea. Jon Muñoz

Ezbairik gabe, **itxaropen** hobea zuten marinelek. Bernardo Atxaga

Euren lan-gaitasunean **itxaropen** gutxi zuten guztiekin batera. Urtzi Urrutikoetxea

Plan eta **itxaropen** handiak genituenean, gogoratzen? Koro Navarro

**9** ***itxaropenezko***

**Itxaropenezko** irribarrea ezpainetan zuela. Anjel Lertxundi

Kirxak, pozarren eta alegera, **itxaropenezko** ahotsez galdegin zion: [...]. Patxi Zubizarreta

Haietako bat ezpainen artean jartzen ari nintzela, pozezko, **itxaropenezko** pentsamendu bat, erdizka taxutua, bururatu zitzaidan bat-batean. Koro Navarro

Ilusio punttu goxo eta **itxaropenezkoa** . Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**aurkitzeko itxaropen** (5); **badut itxaropen** (4); **baina itxaropen** (6); **bere itxaropen** (7); **bizi itxaropen** (10); **da itxaropen** (8); **du itxaropen** (9); **dugu itxaropen** (4); **dute itxaropen** (6); **egiteko itxaropen** (4); **ere itxaropen** (4); **eta itxaropen** (55); **ez du itxaropen** (4); **genuen itxaropen** (4); **gure itxaropen** (5); **halako itxaropen** (5); **itxaropen apur** (7); **itxaropen apur bat** (5); **itxaropen asko** (4); **itxaropen askorik** (4); **itxaropen bakarra** (13); **itxaropen bat** (8); **itxaropen baten** (4); **itxaropen berri** (4); **itxaropen edo** (8); **itxaropen eta** (35); **itxaropen eta maitasun** (4); **itxaropen faltsuak** (10); **itxaropen faltsurik** (5); **itxaropen garai** (4); **itxaropen garaian** (6); **itxaropen gehiago** (4); **itxaropen gutxi** (12); **itxaropen guztia** (10); **itxaropen guztiak** (26); **itxaropen handia** (33); **itxaropen handia piztu** (4); **itxaropen handiak** (20); **itxaropen handiena** (4); **itxaropen handirik** (44); **itxaropen handirik ez** (6); **itxaropen handirik gabe** (14); **itxaropen hori** (33); **itxaropen horiek** (7); **itxaropen horrekin** (6); **itxaropen hura** (4); **itxaropen iturri** (4); **itxaropen izpi** (14); **itxaropen izpi bat** (9); **itxaropen oro** (6); **itxaropen ororen** (4); **itxaropen osoa** (9); **itxaropen txiki** (4); **itxaropen txiki bat** (4); **itxaropen urria** (4); **itxaropen zuhurra** (4); **nik itxaropen** (4); **nire itxaropen** (8); **nuen itxaropen** (4); **zen itxaropen** (4); **zer itxaropen** (5); **ziren itxaropen** (4); **zituen itxaropen** (6); **zuen itxaropen** (8); **zuten itxaropen** (5)

**amaitzeko itxaropena** (4); **aurkitzeko itxaropena** (8); **aurkitzeko itxaropena galdu** (4); **azken itxaropena** (9); **badut itxaropena** (7); **baina itxaropena** (6); **bake itxaropena** (10); **baten itxaropena** (11); **baterako itxaropena** (4); **bere itxaropena** (8); **bizi itxaropena** (39); **den itxaropena** (29); **den itxaropena agertu** (5); **diren itxaropena** (13); **dituen itxaropena** (4); **dituzten itxaropena** (5); **du itxaropena** (12); **duen itxaropena** (23); **duen itxaropena agertu** (4); **dugu itxaropena** (5); **dugun itxaropena** (5); **dut itxaropena** (4); **dute itxaropena** (10); **duten itxaropena** (18); **duten itxaropena agertu** (4); **edo itxaropena** (4); **egiteko itxaropena** (16); **ere itxaropena** (5); **eta bizi itxaropena** (4); **eta itxaropena** (60); **ez du itxaropena** (4); **ez dute itxaropena** (5); **gure itxaropena** (10); **hasteko itxaropena** (4); **ikusteko itxaropena** (4); **indarkeria amaitzeko itxaropena** (4); **irabazteko itxaropena** (13); **iristeko itxaropena** (4)

**itxaropena agertu** (49); **itxaropena agertu du** (6); **itxaropena agertu zuen** (35); **itxaropena azaldu** (17); **itxaropena azaldu zuen** (9); **itxaropena azaldu zuten** (4); **itxaropena badu** (6); **itxaropena badut** (6); **itxaropena baino** (5); **itxaropena berreskuratu** (4); **itxaropena beti** (5); **itxaropena da** (8); **itxaropena dago** (5); **itxaropena dakar** (4); **itxaropena dauka** (5); **itxaropena daukat** (6); **itxaropena du** (28); **itxaropena duela** (15); **itxaropena duela esan** (7); **itxaropena dugu** (16); **itxaropena dut** (22); **itxaropena dute** (24); **itxaropena edukitzeko** (4); **itxaropena eman** (7); **itxaropena ematen** (10); **itxaropena ere** (31); **itxaropena ere agertu** (4); **itxaropena ere bai** (4); **itxaropena eta** (44); **itxaropena ez** (25); **itxaropena ezin** (5); **itxaropena ezin da** (4); **itxaropena galdu** (28); **itxaropena galdu gabe** (4); **itxaropena galdurik** (6); **itxaropena galduta** (5); **itxaropena galtzen** (16); **itxaropena hazten** (4); **itxaropena izan** (15); **itxaropena izan behar** (4); **itxaropena izatea** (4); **itxaropena izateko** (14); **itxaropena izateko arrazoiak** (4); **itxaropena kaleko** (6); **itxaropena luzatu** (4); **itxaropena piztu** (26); **itxaropena piztu du** (6); **itxaropena piztu zen** (4); **itxaropena piztu zuen** (5); **itxaropena sortu** (10); **itxaropena zabaldu** (5); **itxaropena zapuztu** (8); **itxaropena zuen** (7); **itxaropena zuten** (7)

**bake itxaropenak** (8); **baten itxaropenak** (4); **bere itxaropenak** (6); **eta itxaropenak** (16); **itxaropenak eta** (12); **itxaropenak ez** (7); **itxaropenak zapuzten** (5); **itxaropenak zapuztu** (8); **itxaropenak zapuztu zituen** (4); **itzultzeko itxaropena** (6); **izango den itxaropena** (6); **izateko itxaropena** (17); **jarraitzeko itxaropena** (4); **jasotzeko itxaropena** (4); **joateko itxaropena** (4); **jokatzeko itxaropena** (12); **konpontzeko itxaropena** (6); **lortzeko itxaropena** (23); **lortzeko itxaropena agertu** (4); **lortzeko itxaropena azaldu** (6); **nire itxaropena** (12); **nuen itxaropena** (4); **poza eta itxaropena** (5); **sailkatzeko itxaropena** (5); **zelako itxaropena** (4); **zen itxaropena** (6); **zuen itxaropena** (12)

**aurkitzeko itxaropenik** (8); **badu itxaropenik** (4); **badut itxaropenik** (4); **baina itxaropenari** (4); **baten itxaropenean** (5); **batere itxaropenik** (5); **den itxaropenarekin** (5); **du itxaropenik** (6); **duzu itxaropenik** (4); **egiteko itxaropenarekin** (4); **egiteko itxaropenik** (4); **eta itxaropenaren** (12); **eta itxaropenari** (7); **eta itxaropenerako** (10); **eta itxaropenetan** (4); **eta itxaropenez** (14); **eta itxaropenik** (13); **eta itxaropenik gabe** (5); **etorkizunari itxaropenez** (5); **ez du itxaropenik** (5); **ez itxaropenik** (6); **inolako itxaropenik** (6); **inongo itxaropenik** (4); **itxaropenaren atea** (4); **itxaropenaren bidez** (4); **itxaropenaren eta** (6); **itxaropenari ateak** (7); **itxaropenari eusteko** (6); **itxaropenari eusten** (4); **itxaropenari eutsi** (5); **itxaropenari leiho** (4); **itxaropenerako arrazoiak** (8); **itxaropenerako atea** (4); **itxaropenerako garaia** (6); **itxaropenez betea** (5); **itxaropenez beteak** (4); **itxaropenez beterik** (6); **itxaropenez beteta** (4); **itxaropenez eta** (5); **itxaropenez hartu** (6); **itxaropenik bai** (4); **itxaropenik ez** (31); **itxaropenik gabe** (33); **itxaropenik gabeko** (16); **itxaropenik galdu** (5); **itxaropenik handiena** (4); **itxaropenik izan** (4); **itxaropenik izango** (4); **lortzeko itxaropenik** (5); **oraindik itxaropenik** (5); **zuen itxaropenez** (5); **zuen itxaropenik** (4)

---

# **itxaropenaldi** *iz* itxaropenezko aldia.

**Itxaropenaldia** behin betiko itxaropena bihurtu dadin egin beharreko lana egitea eskatzen du; zuhurtziaz, gainera. Berria - Harian

---

## **itxaropengabe** *izond* itxaropenik gabekoa.

Hilabeteak iraun zituen erasoak, eta soldadu alemaniarrek haien egoera norainokoa zen txarra, krudela eta **itxaropengabea** kontatzen zieten euren senideei, euren emazteei. Pako Aristi

---

## **itxaropengabetu**, itxaropenga(tu), itxaropengabetzen da/du *ad* itxaropena galdu.

---

## **itxaropengarri** *izond* itxaropena pizten duena.

Hazparneko saltegiek indar bat egiten dute horrelako egunak antolatuz, jakinez ez dela egoera hain **itxaropengarri** sail hortan. Herria

Epaiketaren kontua oso modu mingarrian amaitu genuen eta, **itxaropengarri** bazaizu, jakizu Rakelek presidentearen errugabetasuna defendatu zuela. Patxi Zubizarreta

Alain Baluto lendakaria zoriontsu agertu da bildu arrakastaz eta geroa **itxaropengarri** dauka. Herria

---

## **itxaropentsu** **1** *izond* itxaropenez betea; itxaropena pizten duena.

Eta gizonik **itxaropentsuena** bilakaturik, atzera kemena bildu, eta hurrengo inkontrua prestatzeari lotu zitzaion. Patxi Zubizarreta

Esperimentu **itxaropentsu** baten berri eman zuten *The Journal of Expermiental Medicine* zientzia aldizkarian. Berria - Gaiak

Goldbergek goraipatu egin du ikertzaileen lana eta lortutako emaitzak **itxaropentsuak** direla esan du. Berria - Gaiak

Lekukotasun hunkigarri eta **itxaropentsua**. Herria

Etorkizun **itxaropentsua** edo iraganera itzultze etsigarri bat... Oskar Arana

Baionan iragan gozoa eta etorkizun **itxaropentsua** elkartuko dira, neurketa arras interesgarrian. Berria - Kirola

Bizitza bezain samurrak, etorkizuna bezain **itxaropentsuak**. Anjel Lertxundi

Bere hausnarketa **itxaropentsuen** zati batzuk aditu ditut. Urtzi Urrutikoetxea

Handik datozen berriak ez dira oso **itxaropentsuak**. Alberto Ladron Arana

Albert Matsonek eta bere emazteak esperoan sumatzen zituzten ahaideak, atezuan dagoen zelatariaren egonarri **itxaropentsuaz,** euren heriotzako orduaren alde otoika. Mirentxu Larrañaga

**2** (adizlagun gisa)

Etorkizunari **itxaropentsu** begiratzeko aukera dago. Berria - Harian

Bake aukeren inguruan **itxaropentsu** mintzatu zen Espainiako gobernuburua. Berria - Euskal Herria

Goiztirian esnatu ziren, lasai eta **itxaropentsu**. Agustin Otsoa

-Gaixo egongo da agian! -esan zuen Ronek **itxaropentsu**. Iñaki Mendiguren

Pozik ari dira laurak, pozik eta **itxaropentsu**. Felipe Juaristi

Erreginak baiezka entzun zizkion hitz haiek, **itxaropentsu**. Juan Kruz Igerabide

Agurtu egin dut, **itxaropentsu,** eta berehala etorri da niregana. Iban Zaldua

Hasi aurretik urduri, ohi denez, **baina** itxaropentsu. Berria - Harian

Aurreneko aldiz **itxaropentsu** naiz. Berria - Mundua

**Itxaropentsu** dago, 2001eko 134 milioiko zorra desagertuko delakoan. Berria - Ekonomia

Gauden **itxaropentsu**. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aukeraz itxaropentsu** (3); **baina itxaropentsu** (22); **baina itxaropentsu dago** (3); **baina itxaropentsu gaude** (5); **bake aukeraz itxaropentsu** (3); **begira itxaropentsu** (4); **donostia itxaropentsu** (3); **entrenatzailea itxaropentsu** (5); **entrenatzailea itxaropentsu dago** (4); **ere itxaropentsu** (6); **eta itxaropentsu** (29); **eta itxaropentsu agertu** (4); **etorkizunari itxaropentsu** (5); **irabazteko itxaropentsu** (3)
>
> **itxaropentsu ageri** (10); **itxaropentsu ageri da** (4); **itxaropentsu ageri dira** (3); **itxaropentsu agertu** (59); **itxaropentsu agertu da** (16); **itxaropentsu agertu dira** (6); **itxaropentsu agertu zen** (29); **itxaropentsu agertu ziren** (5); **itxaropentsu agertzen** (4); **itxaropentsu agertzen da** (3); **itxaropentsu al** (3); **itxaropentsu atera** (3); **itxaropentsu azaldu** (21); **itxaropentsu azaldu da** (4); **itxaropentsu azaldu zen** (11); **itxaropentsu azaldu ziren** (5); **itxaropentsu bat** (4); **itxaropentsu baten** (4); **itxaropentsu begiratu** (3); **itxaropentsu begiratzen** (11); **itxaropentsu begiratzen dio** (8); **itxaropentsu da** (18); **itxaropentsu dago** (34); **itxaropentsu dagoela** (3); **itxaropentsu daude** (20); **itxaropentsu dira** (9); **itxaropentsu egoteko** (9); **itxaropentsu eta** (12); **itxaropentsu gara** (3); **itxaropentsu gaude** (17); **itxaropentsu geunden** (3); **itxaropentsu hartu** (3); **itxaropentsu hartu dute** (3); **itxaropentsu izateko** (7); **itxaropentsu mintzatu** (11); **itxaropentsu mintzatu zen** (9); **itxaropentsu nago** (16); **itxaropentsu naiz** (4); **itxaropentsu zaude** (3); **itxaropentsu zegoen** (3); **itxaropentsu zen** (4); **itxaropentsu zeuden** (4)
>
> **eta itxaropentsua** (6); **eta itxaropentsuago** (3); **etorkizun itxaropentsua** (5); **itxaropentsua da** (6); **itxaropentsua dela** (9); **itxaropentsua ere** (4); **itxaropentsua eta** (4); **jokalariak itxaropentsu** (3); **oso itxaropentsu** (10); **oso itxaropentsua** (5); **oso itxaropentsuak** (3); **oso itxaropentsuak** (3); **portlandeko jokalariak itxaropentsu** (3); **pozik eta itxaropentsu** (4); **zuen itxaropentsu** (3)

---

## **itxaropentsuki** *adlag* itxaropentsu.

Ibilbide aberatsa! Euskaltasunaz ere ari zaiku Sarako apeza, liburuaren azken hitzetan Euskal Herriko Elizaren geroaz ere **itxaropentsuki** zaikularik mintzo. Herria

---

## **itxaropentxo** *iz* itxaropen txikia.

Hor zetzan nire **itxaropentxoa**. Berria - Kirola

Halatsu da irakurleak hartzen duen inpresioa, Baroja gaixoa sinesten ez duena sinetsi nahita dabilela, mespretxu guztiaren erdian **itxaropentxo** bat bezala adierazten dizunean: [...]. Joxe Azurmendi

---

## itxaropide ik **itxarobide**.

---

## **itxarote** *iz* zain egotea; espero izatea.

Ez zen jakin-mina, ziurtasunezko **itxarote** moduko zerbait baizik.. Monika Etxebarria

Asperdura, **itxarote** berezi horrekin batera: hori da, nire ustez, egiaz Auschwitzek azaltzen duen inpresioa -nire begitan gutxienez. Urtzi Urrutikoetxea

Berriro konturatzen naiz askoz ere gutxiago hunkitzen naizela ekintza honetan, **itxarote** absurdo batera mugatzen banau ere, janzten ari nintzenean baino. Josu Zabaleta

Jasan ezin den **itxarote** baten ondoren izaten den arintasuna neukan. Juan Kruz Igerabide

Horrek denboraren ezabatze bat dakar, ordea: bizitzaren zentzua azken eguna iritsi arte erabakitzerik ez badago, **itxoite** hori kenduta zentzu berri bat pizten da, denboraren iragan arruntarekin zerikusirik ez duena. Pako Aristi

Luzamendu bakarra, berriz ere hurrengoa bidali arteko **itxarote** hura izaten nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Baina arren, baiezkoa ez bazen ezezkoa, erantzun bat erregutzen zenidan, **itxarote** horren ur irakinean egon ezinik, nonbait. Xabier Mendiguren Elizegi
Hala ere, pentsatzen ari naiz orain, gutuna bidaltzeko **itxarote** horretan, dena ez zela eskrupulua eta zintzotasuna izango. Xabier Mendiguren Elizegi
Gure egoteak, gure **itxaroteak** xede bat izan du bederen. Xabier Montoia
**Itxarotearen itxaroteaz,** baina, berantetsi egin zuen eta, etsipena harturik, ilusio faltsuak baztertu, eta bizitza zegoenetan hartzea erabaki zuen. Patxi Zubizarreta
Izan ere, **itxarote** orok zorionarekin du zerikusia. Ibon Uribarri
Ez zen jakin-mina, ziurtasunezko **itxarote** moduko zerbait baizik. Monika Etxebarria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itxarote zerrendak** (3)

---

itxartu ik **itzartu**.

---

itxaso ik **itsaso**.

---

# itxes *(orobat **itxesa**)* *iz* zorigaitza, kaltea.

Horrek ere lazgarriko **itxes**, porrot, bankarrot eta malūrrak ekar ditzake. Herria
Ez gira **itxes** horiek egin dütüenen epaile agertü nahi, haatik entelegatü nahi dütügü egintza horien arrazoak. Herria
Bestetik badü zer egina bazterren **itxesetik** elkitzeko eta mündü berri baten eraikitzeko. Herria
Eskerrak bihurtuz gure Jainkoari bazter hautarik urruntzea horrelako **itxesa** ikaragarriak. Herria

---

# itxi[1] , ixten **1** du *ad* ate, lehio eta kidekoez mintzatuz, norabaiteko sarrera eta irteera eragozteko eran jarri. ik**hetsi**; **hertsi[1]**.

Hiri barruko bizilagunek, ordea, **itxi** egin zizkieten ateak. Elizen arteko biblia
Sartu etxean eta **itxi** ateak barrutik. Elizen arteko biblia
Goiko gelako ateak **itxi** eta maratila eman ondoren. Elizen arteko biblia
Egutxik giltzaz **itxi** zuen atea. Ibon Uribarri
Organo hau zabaldua edo **itxia** egon daitekeen ate bat da. Isabel Arrigain
Atera iritsi eta danbateko batez **itxi** zuen bere ostean. Josu Zabaleta
Morroiak kanpora bota zuen neska eta atea giltzaz **itxi**. Elizen arteko biblia
Atzo goizeko 09:07an **itxi** zituzten Itoizko azpiko isurbideetako ateak, lehenengoz. Berria - Euskal Herria
Ateak **itxi** nahi ez eta piketeei aurre egin zien nagusiak. *ik beherago* 15. Berria - Ekonomia
Bere kutxen estalkiak **itxi** eta giltza eman zien. Iñaki Mendiguren
Luisak leihoetako estalkiak **itxi** zituen eta plater txiki batean gauetarako zuen kandela piztu zuen. Jon Maia
Leihoa erabat **itxi** ala ez. Iñaki Mendiguren
Zaratarik gabe **itxi** zen berriz hesia, furgoneta igaro ondoren. Jon Muñoz
Ohean eseri, errezelak bere inguruan **itxi,** eta orriak pasatzen hasi zen. Iñaki Mendiguren
Jendea pertsianak **itxi** eta zirriztuetatik begira jarri zen. Koldo Biguri
Letagin zuriek distira egin zuten eta kolpe lehor batean **itxi** ziren kosk egiteko. Agustin Otsoa
Poliki **itxi** zuen maletaren kremailera. Harkaitz Cano
Aurpegia zurrun dauka, **ezpainak** itxita. Juan Kruz Igerabide
Aurrena musu batez **itxi** zizkidan ezpainak. Jon Muñoz
Betazalak **itxi** eta, eguna argitu arte, berriro zabaldu beharrik ez izatea desiratu zuen. Patxi Zubizarreta
Komuneko tapa **itxi** eta bertan jarri zen. Unai Iturriaga
· Harri ere besteen atzetik sartu eta giltzarrapoa **itxi** zuen. Iñaki Mendiguren
Eskua handik kendu zidan, botoia berriro **itxi** eta edaria hartu zuen atzera. Xabier Olarra
Gizonak leporaino lotu zuen zamarra, eta emakumeak hobeto **itxi** zuen berokia. Koro Navarro
· Ahoa zabalik, zakatzak **itxi** eta ireki. Koro Navarro

**2** ate, hesi, estalki edo kideko bat mugituz edo jarriaz, zerbaiten barne eta kanpoaldearen arteko bidea galarazi.

Kabina **itxi** eta komuneko katiluaren gainean jarri zen. Gotzon Garate
Apaizek **itxi** egin zuten jauretxea. Elizen arteko biblia
Irteteko esan zien, **itxi** egin behar baitzuten museoa. Jon Muñoz
Tiraderari bultza egin nion, eta altzaria **itxi** nuen. Josu Zabaleta
Laga itzazue hilak bakean eta **itxi** ezazue zerraldo hori. Josu Zabaleta
Amona Erikak labea **itxi** zuen. Anjel Lertxundi
Gero argia itzali eta denda **itxi** du. Pello Lizarralde
Liburu-denda **itxi** eta geltoki aldera abiatu ginen. Anjel Lertxundi
Ezin zen Perrette izan, zeren astelehenetan, bostak arte **itxi** denda, eta joan-etorri bat egiten baitzuen Auzo Latindarreko liburu-dendetara. Jon Muñoz
Kafetegia **itxi** arte ez zen leiho ondotik mugitu. Migel Angel Mintegi
Itsas leizea **itxi** nuen, haren urlasterrak eta ur handiak geldiaraziz. Elizen arteko biblia
Leize-zulo bat aurkitu eta bertara sartu zituen Jeremiasek oihal-etxola, kutxa eta usain-gozoen aldarea, eta leize-ahoa **itxi**. Elizen arteko biblia
Bere ama zenaren gorpuari ahoa **itxi** zion -begiak **itxita** zeuzkan jadanik-. Aitor Arana
*ik beherago* 13. Askoren artean
Begiak **itxi** dizkizue profetoi, burua estali ikusleoi. Elizen arteko biblia
Eskuekin belarriak **itxi** ditu. Itziar Otegi
*ik beherago* 17. Askoren artean
Bizitza galdu beldurrez, egun argiak logela luze-zabalean hartua zuenean, begi-belarriak **itxi** zituen. Felipe Juaristi
Begi-belarriak **itxi** eta sudurra erabiltzen hasi nintzen. Hasier Etxeberria
Ahoa **itxi** eta gogortu egin zitzaion. Elizen arteko biblia
Ergela ere, ahoa **itxi** eta isilik egoten bada, burutsu eta zuhurtzat hartzen dute. Elizen arteko biblia

Taibeleren sabela **itxi** egin zen, eta ezerk ezin izan zuen hura gehiago zabaldu. Koro Navarro
Krema potetxoa **itxi** eta ispilu atzeko armairutxoan gorde du. Jokin Muñoz
Soineko zuria zeraman jantzia, bular gainetan estu **itxia**. Felipe Juaristi
· Tiradera **itxi** zuen. Karlos Zabala
Orriak karpetan gorde eta kaxoia **itxi** zuen, berehala. Joxemari Urteaga

**3** heltzeko, igarotzeko, harremanetan jartzeko modua deuseztu edo erabiltzea eragotzi.

Sarrera giltzaz **itxi** eta zigilatu egin zuen. Elizen arteko biblia
A-63 Lapurdiko autobideko sarrerak **itxi** egin behar izan zituzten atzo goizean.
Hura irten ondoren, **itxi** egingo da berriro sarrera. Elizen arteko biblia
Irun erori eta muga **itxi** zenean. Jokin Urain
Gaztelura igotzeko bidea **itxi** zion harmailetan. Iñaki Mendiguren
Izozmendi erraldoi batek milaka pinguinori itsasorako bidea **itxi** ziela ohartarazi zuten Zeelanda Berriko zientzialariek. Berria - Gaiak
Jaunaren sumina geldiarazi zuen eta bizirik zirautenenganako bidea **itxi** zion. Elizen arteko biblia
Berak **itxi** dit bidea, ez dut irtenbiderik. Elizen arteko biblia
Aurrean zeuden pertsona batzuek, elkarren ondoan jarriz, aterabidea **itxi** zioten. Iñaki Zabaleta
Osgiliathen emango du kolpea, behin egin zuen bezala, Boromirrek pasabidea **itxi** zion hartan. Agustin Otsoa
Artxandako tunelak **itxi** behar izan dituzte, greba dela eta. Berria - Ekonomia
Egun hartan, Irati ibaiko tunela **itxi** zuten, eta soroak ur azpian gelditzen hasi ziren. Edurne Elizondo
Neofaxismoari bidea **itxi** behar zaiola eta. Hasier Etxeberria

**4** (zuloak eta)

Ate zirritua **itxi** zuten, mahai handia zutitu eta arasarekin tinkatuz. Josu Zabaleta
Atea silikonaz **itxi** zuten, kanpotik. Jon Alonso
Sudurzulo bat **itxi** eta bestetik zintz egin du. Pello Lizarralde
Eskuekin belarriak **itxi** ditu. Itziar Otegi
Txirula zuloak **itxi** eta ireki. Felipe Juaristi
Azken solairuko tranpa-zuloa **itxi** eta gero. Koldo Biguri

**5** (iturriak eta)

Alainek iturria **itxi** zuen. Harkaitz Cano
Gero txorrota **itxi** zuen. Fernando Morillo
Erretenak **itxi** eta beste batzuk ireki behar izan ziren, lur goldatua urez betetzeko. Koldo Biguri
Hiriak xehatu, lur landuak harriz bete, iturburuak **itxi** eta fruta-arbolak ebaki. Elizen arteko biblia
Gero, berriro kanila **itxi** samartuaren azpian ipini zuen edontzia. Lopez de Arana
**Itxi** ezan hire estolda eta ez gaitzan zikindu hire zikinkeriarekin! Patxi Zubizarreta

**6** zerbaiten osagai higikorrak elkarrengana hurbildu, bitarterik uzten ez dela.

Aldizkaria **itxi** eta zutitu egin zen. Koro Navarro
Beren eskola-liburuak **itxi** zituzten. Jon Muñoz
Izebak, berriz, kontuak eramateko liburua **itxi** zuen kolpean. Juan Kruz Igerabide
Gorde isilpean mezu hau eta **itxi** zigiluz liburua azken garaira arte. Elizen arteko biblia
Dokumentu bat zabaldu zuen eta atzera **itxi**. Unai Elorriaga
Elenak aterki gorria **itxi** du eta Irenerenean babestu da. Eider Rodriguez
Ni Macedonioren labanarekin jolasten nintzen; zabaldu eta atzera **itxi**. Juan Garzia
Eskua **itxi,** ukabila estutu eta babarrunei eragin zien. Koro Navarro
Ukabila **itxi** eta Marjolin konorte gabe utzi zuen. Karlos Zabala
Esku irmo **itxi** batek. Felipe Juaristi
Nik, diruari begiratu gabe, eskua **itxi** nuen. Anjel Lertxundi

**7** tratuez mintzatuz, egin.

Pentsio truke **itxi** zuten tratua. Josu Landa
Tratua **itxi** genuen, ez ahaztu, argi eta zabal hitz egin eta gero. Migel Angel Mintegi

**8** denda, lantegi eta kidekoez minzatuz dagokion zerbitzua ematetik gelditu.

Nik lan egiten nuen [...] esneki fabrika **itxi** zutenean, besoa moztuta bezala geratu nintzen. Juan Martin Elexpuru
Lebigre, ez ezak hire taberna arriskuan jar, **itxi** egingo diate bestela. Karlos Zabala
Liburu-denda **itxi** eta saldu egin zutela lastertxo. Josetxo Azkona
Apaizak kanpora bota eta haien saltokiak **itxi** behar zirela esaten zuen. Karlos Zabala
Astebete barru negozioa **itxi** dezaket etekinak lortuta... Lopez de Arana
Existentzia Hotela **itxi** egin zuten, eta handik urte batzuetara berriro ireki zutenean, [...]. Oskar Arana
· Langraizko espetxea **itxi** eta inguruetan beste bat eraikiko dute. Berria - Euskal Herria
San Markoseko zabortegia **itxi** eta errauste planta martxan jarri arte. Berria - Euskal Herria
*Euskaldunon Egunkaria* **itxi** zutenean. Berria - Euskal Herria
Dozenaka gaztek egin zuten bat kazetarien aurrean, gaztetxea **itxi** izana salatzeko. Berria - Euskal Herria

**9** norbait edo zerbait leku itxi batean sartu.

Emakumea eta haren zaindariak apaiz etxeko sukaldean **itxi** nituen. Josu Zabaleta
Neskatoari dantza egitean zerbait gertatuko ote zitzaion beldurrez, jauregiko gela batean **itxi** omen zuen. Felipe Juaristi
Denak ziegetan **itxi** eta guztiei ilea mozteko agindu zuen zuzendaritzak. Jokin Urain
Hangar hartan **itxi** gintuzten aurreneko aldietako batean. Monika Etxebarria
Haiek ni sotoan **itxi** baino lehenago. Anton Garikano
Presozain batek gauean esnatu eta patio batean **itxi** zuen beste laurehun eta gehiago gatiburekin. Karlos Zabala
Ez gaitu kartzela batean **itxi**. Josu Zabaleta
Osaba Vernonek giltzarrapoz **itxi** zuen kaiolan Harryren hontza. Iñaki Mendiguren

**10** (bestelakoak)

Zirkulua **itxi** da, zure militantziari buruzko azterketa egina dago. Rafa Egiguren
Gau osoan [...] jardun zuten medikuek odola garbitzen eta zauriak **itxi** nahian. Askoren artean
Arazoa zen mukiak **itxi** egiten zizkiola birikak arnasa galarazteraino. Bernardo Atxaga

Parentesia **itxi** ondoren, berriz hasi beharra zegoen. Jon Muñoz

• **11** da *ad* (norbaitek bere burua) leku itxi batean sartu edo gorde.

Etxeko gela bakarrean **itxi** zen bere emaztearekin. Juan Kruz Igerabide

Txikitatik kartzela estu batean **itxi** zen betiko Senarraren maitasunez. Askoren artean

Neure gelan **itxi** eta arnas ariketak egiten egoten nintzen. Joxan Elosegi

Neure baitan **itxi** naiz, neure buruari baizik ez diot begiratu. Josu Zabaleta

Ikaraturik bere baitan **itxi** zen. Migel Angel Mintegi

**12** (era burutua izenondo gisa)

Um Hamidak zure xarmaren gakoa du, ate **itxi** guztiak irekitzen dituena. Patxi Zubizarreta

Pertsiana erdi **itxien** zirrikituetatik. Xabier Olarra

Begi berdeak zabal-zabalik bere betazal **itxien** azpian. Koro Navarro

Lehen sexu jarduna ikasle gela **itxi** batean. Felipe Juaristi

Egotismoaren gela **itxi** eta itsua. Xabier Mendiguren Elizegi

Baratze **itxia** zara, ene arreba. Elizen arteko biblia

Gurditxo **itxi** batzuk, kaxa formakoak, zinkez estaliak eta arnasbidez beteak. Karlos Zabala

Heroiaren gorpua arakatu zuten polizi morroiek gutun **itxi** bat aurkitu zutela. Juan Garzia

Josebari begi **itxien** bistan agertzen zitzaizkion eszena eta elkarrizketa horiek. Iñaki Zabaleta

Pertsonen artean izaten diren hesi **itxi** horiek. Josu Zabaleta

Entropiak (desordenak) beti egingo du gora sistema **itxi** batean. Fernando Morillo

Alfabetoaren sistema **itxia** da, finkoa. Iñaki Arranz

Labirinto **itxi** batean elkarri bultzaka eta tiraka. Juan Martin Elexpuru

Mundu **itxi** horretan trinkoagoa ematen du denborak, lodiagoa. Rafa Egiguren

San Damiango Ordenako moja **itxientzat**. Askoren artean

· Elkorra zen Concha, eta oso **itxia**. Bernardo Atxaga

Giputzen jarrera **itxi** eta txokozaleak. Koldo Zuazo

Frankismo garaiko giro **itxi** integristak. Anjel Lertxundi

Nazionalismoaren aurpegirik **itxien,** dogmatikoen eta gogorrena. Pello Salaburu

Txoko-hizkera **itxienean** oinarriturikoak. Juan Garzia

· Dena da gau gurean, gau **itxi** eta itxaropentsua. Felipe Juaristi

Ilunbe **itxi** batek estali zuen Egipto osoa hiru egunez. Jose Antonio Mujika

Gau **itxi** lainotsu batez. Felipe Juaristi

Laino **itxi** batean aurkeztuko natzaizu. Elizen arteko biblia

Basoa oso **itxia** den lekura. Bernardo Atxaga

Tontorrik garaienetara eta basarterik **itxienetara** heldu naiz. Elizen arteko biblia

Zuhaitz-arte **itxi** batetik igarotzen ari zirela. Iñaki Mendiguren

Armaniren bibotea sarria zen, **itxia,** batek bertan edozer aurkitzea espero duen horietakoa. Jon Alonso

Aleman **itxian** mintzatzen ari ziren. Fernando Rey

· Beren parabola mugagabea kurba **itxi** bihurtzen zaie. Josu Zabaleta

Irudi lerrozuzen **itxien** artean sinpleena da triangelua. Jon Muñoz

· Bideak bihurgune **itxi** samarra egiten baitzuen. Anjel Lertxundi

Errebuelta **itxi** batera iritsia zelako. helmugatik gertu zegoen 180 graduko bihurgune **itxian** erori egin zen. Berria - Kirola

Han ibaia biragune **itxi-itxi** batetik irteten zen segidan beste bat osatzeko, askoz irekiagoa. Joanes Urkixo

Burgosera heltzen ari ginela, bihurgune **itxi** batean, erori egin nintzen bizikletatik. Berria - Kultura

Burdinbidearen bihurgune **itxi** batean zihoala, danbateko bortitz batek astindu zuen trena guztiz. Karlos Zabala

Bere bueltak gero eta **itxiagoak** zirelako. Bernardo Atxaga

· Hizkuntza batean azal daitezkeen bokal fonemak gutxienez bi dira (bata ahalik eta **itxiena,** bestea irekiena). Lourdes Oñederra

· Ez izan eskuzabal hartzeko eta esku-**itxi** emateko. Elizen arteko biblia

Galtza eta bota beltzak, atorra hori lepo-**itxi** bat. Felipe Juaristi

· **Itxi** -usainak edo usain itogarriak, freskotasunaren alderantzizkoak Irene Aldasoro

**13** ***itxian*** leku itxian; preso.

Gaixoak **itxian** eta hilak isilean hiltzen dira. Felipe Juaristi

Emakume elbarri bat, **itxian** sartua, bere leihoaren kontra gogoetan. Josu Zabaleta

Bisoi europarra **itxian** hazteko ekimena. Berria - Euskal Herria

Horrekin batera bere buruari lana eman nahi zion, barruan egonik barruan ez zegoela frogatzeko, gorputza **itxian** gordetzen bazuten ere, izpiritua aske ibil zitekeela jakinarazteko. Felipe Juaristi

Gotorlekuan Pragako eta Vienako musikaririk ospetsuenak zeudenez **itxian,** [...]. Felipe Juaristi

Sinesten lanak dituen arren, "jatorri islamiarrekoak" ziren poliziek **itxian** sartuak. Iñigo Aranbarri

**14** ***ahoa/ezpainak itxi*** isildu; isilarazi.

Ezin zuen ahoa **itxi,** hitzontzien bizioa zuen eta. Pello Lizarralde

Unaik beste biei ahoa **itxia** edukitzeko esan zien. Gotzon Garate

Quenuk kexu aurpegia ipini zuen, baina emazteak ahoa **itxi** zion, hitz hauek bortitz gehituta: [...]. Karlos Zabala

Beste herrialdeak salatzen ibili beharrean hobe lukete ahoa **itxi** eta ituna sinatu. Berria - Gaiak

**-Itxi** aho hori! -orro egin zion. Patxi Zubizarreta

-Ethel nirekin etorriko duk eta hik **itxi** ezak ahoa. Fernando Rey

Batzar nagusian iragarri dut zure salbazioa, ez ditut ezpainak **itxi**. arrebaren zureganako maitasunak eta halabeharrak ezpainak **itxi** ez balizkiote. Elizen arteko biblia

**15** ***atea(k) itxi*** *irud*

Sudurrean koxk egin diozu, barrenean hausten ari zaizun zerbait horri **atea ixteko**. Lourdes Oñederra

Bere askatasunari **atea ixten** tematzen da berori. Gipuzkoa aldetik sartu omen den euskara batuari ateak **itxi** nahirik. Juan Garzia

Baina guk zazpi ahalak egiten ditugu gazteriak deabruari **ateak itxi** diezazkion. Patxi Zubizarreta

Berak, berriz, labur erantzun ohi zuen azken aldian, funtsean ezer esaten ez zuten hitz arrunt haiek baliatuz errukiari **ateak itxi** nahi balizkio bezala. Imanol Zurutuza

Maiz, denek ohoratzen zutenean, biziki nahigabetzen zen, eta, giza goraipamenari **ateak itxiz,** ordainetan bezala bera irainez betetzeko eskatzen zion norbaiti. Askoren artean

**16** ***begien itxi-ireki batean***

Unetxo batean, begien **itxi**-ireki batean. Elizen arteko biblia

Begien **itxi-ireki** batean, harribitxirik baliotsuenak bildu, eta Samandalengana agertu zen. Patxi Zubizarreta

Begien **itxi-ireki** batean berrogeita hamar urte inguruko emakume bat ikusi dut nire aurrean esertzen Izan ere jeinuek dena begien **itxi-ireki** batean egin baitezakete. Anjel Lertxundi

Kabiarra begien **itxi**-ireki batean desagertu zen. Lopez de Arana

· Begi **itxi**-ireki batean desagertu ziren. Iñaki Mendiguren

Bat-batean galgatu, eta, begi **itxi**-ireki baten bitartean, espaloiaren ondo-ondoan utzi zuen Albertek autoa. Jon Muñoz

## 17 ***belarriak itxi*** entzungor egin.

Aho judu batetik bestera Alemaniako kontuak iristen dira, hain kontu izugarriak, non ausartuko banintz belarriak **itxiko** bainituzke, baina ezin dut. Ramon Etxezarreta

Ez diezazkiogun belarriak zeharo **itxi** zuhurtasunari. Agustin Otsoa

Belarriak **ixten** ez dituena eta jainkozko deiari adi dagoena, hura da salbatuko. Joan Mari Lekuona

## 18 ***itxi-ireki***

Langa asko ireki-**itxi** behar izan genituen Cuchilla Negra-ko basabideetan. Juan Garzia

Orduan begiratu egin zidan, begiak **itxi**-irekiz, bista enfokatu nahian. Fernando Rey

Gizon argal luzea zen bera, zain eta gihar, txikitan izandako istripu baten arrasto gisa, eskuineko begiaren betazalak tik batez etengabe **itxi**-irekitzen zitzaizkiona. Felipe Juaristi

Begiak **itxi**-irekitzen zituen ohi baino erritmo azkarragoan. Eider Rodriguez

Hiru emakumeen betazalak **itxi**-ireki egin ziren bizi-bizi. Karlos Zabala

· Hara begiratzen zuen begi **itxi**-irekirik egin gabe. Fernando Rey

Begien **itxi**-ireki azkarrak dira sentitzen. Joan Mari Lekuona

## 19 ***itxi-irekika***

[...] -esan zuen hitz etenez, begiak **itxi**-irekika zituela. Lopez de Arana

Mutilak begiak **itxi**-irekika begietsi zuen neska, masailak sutan. Lopez de Arana

Emakumea jiratu eta begira geratu zitzaion sudurzuloak etengabe **itxi**-irekika. Lopez de Arana

## 20 ***itxi-itxi***

Bizar zuri itxi-**itxia** bularrean behera jaisten zitzaion. Karlos Zabala

Landare-multzo **itxi-itxiari** ebakiak egiten. Jon Muñoz

Kokoriko makurtuko naiz hementxe, eta eskuekin **itxi-itxi** egingo ditut begiak. Mirentxu Larrañaga

Gelako atea morroiloz **itxi-itxi** egin ondoren. Gotzon Garate

Sudur-eztarriak **itxi-itxi** eginda. Anjel Lertxundi

Gerrarekin hasi eta emozionatu egin zen segituan gizona, eta swahili **itxi-itxi-itxi** batean ekin zion. Joxean Sagaztizabal

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**ahoa itxi** (30); **ahoa itxi eta** (7); **ahoak itxi** (6); **akordioa itxi** (17); **artean itxi** (7); **asko itxi** (9); **aspaldi itxi** (6); **ate guztiak itxi** (10); **ate itxi** (14); **atea giltzaz itxi** (17); **atea itxi** (303); **atea itxi aurretik** (7); **atea itxi baino** (8); **atea itxi bezain** (10); **atea itxi du** (6); **atea itxi egin** (8); **atea itxi eta** (64); **atea itxi nuen** (7); **atea itxi ondoren** (8); **atea itxi orduko** (9); **atea itxi zuen** (62); **atea itxi zuenean** (13); **atea itxi zuten** (8); **ateak itxi** (137); **ateak itxi egin** (9); **ateak itxi eta** (17); **ateak itxi zituen** (8); **ateak itxi zituzten** (9); **atzean itxi** (8); **atzera itxi** (8); **atzo itxi** (8); **auzia itxi** (7); **baina itxi** (7); **baitan itxi** (6); **bakarra itxi** (8); **bat itxi** (72); **bat itxi egin** (7); **bat itxi eta** (11); **bat itxi zuen** (11); **batasunaren egoitzak itxi** (6); **batean itxi** (20); **batek itxi** (6); **batez itxi** (43); **batez itxi zuen** (13); **batzuk itxi** (9); **begi bat itxi** (11); **begi itxi** (11); **begi itxi ireki** (6); **begiak erdi itxi** (7); **begiak itxi** (368); **begiak itxi ditu** (29); **begiak itxi ditut** (9); **begiak itxi eta** (85); **begiak itxi nituen** (44); **begiak itxi zituen** (98); **begien itxi** (27); **begien itxi ireki** (27); **begirik itxi** (8); **belarriak itxi** (6); **berehala itxi** (8); **berriro itxi** (27); **berriz itxi** (15); **bertan itxi** (7); **betazalak itxi** (6); **betiko itxi** (7); **bezala itxi** (6); **bidea itxi** (46); **bidea itxi zion** (7); **bihurgune itxi** (14); **bihurgune itxi batean** (7); **bulegoak itxi** (8); **da itxi** (6); **danbateko batez itxi** (16); **denda itxi** (25); **denda itxi eta** (8); **dendak itxi** (6); **dolarrean itxi** (6); **dolarrean itxi zuen** (6); **edo itxi** (6); **eginez itxi** (6); **egoitzak itxi** (10); **egunkaria itxi** (105); **egunkaria itxi eta** (16); **egunkaria itxi izana** (12); **egunkaria itxi zutela** (14); **egunkaria itxi zuten** (8); **egunkaria itxi zutenean** (16); **egunkaria itxi zutenetik** (6); **egunkariak itxi** (9); **enpresa itxi** (9); **erabat itxi** (37); **erabat itxi gabe** (7); **erdi itxi** (8); **ere itxi** (27); **ere itxi egin** (7); **errepidea itxi** (10); **errezelak itxi** (7); **estalkia itxi** (6); **eta atea itxi** (63); **eta ateak itxi** (7); **eta begiak itxi** (67); **eta berriro itxi** (7); **eta giltzaz itxi** (8); **eta itxi** (79); **eta itxi egin** (20); **eta itxi egiten** (10); **etxeko atea itxi** (7); **euskaldunon egunkaria itxi** (29); **ez itxi** (14); **gabe itxi** (9); **gaztetxea itxi** (11); **gela itxi** (19); **gela itxi batean** (7); **gelan itxi** (6); **gero itxi** (7); **geroago itxi** (6); **giltzaz itxi** (36); **giltzaz itxi eta** (10); **giltzaz itxi zuen** (8); **guztiak itxi** (40); **guztiak itxi zituzten** (6); **guztiz itxi** (8); **hau itxi** (8); **hori itxi** (8); **indarrez itxi** (7); **iratiko tunela itxi** (7); **ireki eta itxi** (16)

**itxi ahal** (12); **itxi aitzin** (6); **itxi arte** (17); **itxi atea** (10); **itxi aurretik** (35); **itxi baino** (41); **itxi baino lehen** (25); **itxi bat** (30); **itxi batean** (50); **itxi batek** (7); **itxi bateko** (7); **itxi baten** (7); **itxi begiak** (7); **itxi behar** (90); **itxi behar izan** (41); **itxi beharko** (22); **itxi berri** (7); **itxi berria** (7); **itxi bezain** (15); **itxi bezain laster** (12); **itxi da** (19); **itxi dira** (14); **itxi ditu** (60); **itxi ditut** (10); **itxi dituzte** (43); **itxi dizkio** (7); **itxi du** (72); **itxi du eta** (7); **itxi dut** (7); **itxi dute** (42); **itxi edo** (9); **itxi egin** (256); **itxi egin behar** (43); **itxi egin beharko** (9); **itxi egin du** (17); **itxi egin dute** (6); **itxi egin zen** (21); **itxi egin zituen** (7); **itxi egin zituzten** (17); **itxi egin zuen** (31); **itxi egin zuten** (26); **itxi egingo** (38); **itxi egingo dute** (6); **itxi egiten** (69); **itxi egiten da** (12); **itxi egiten dira** (9); **itxi ere** (8); **itxi eta** (538); **itxi eta bere** (6); **itxi eta berriro** (6); **itxi eta beste** (17); **itxi eta gero** (12); **itxi eta ireki** (13); **itxi ez** (25); **itxi gabe** (69); **itxi gabe dago** (8); **itxi gabeko** (9); **itxi genuen** (9); **itxi ireki** (36); **itxi ireki batean** (29); **itxi itxi** (11); **itxi itzazu** (6); **itxi izan** (6); **itxi izana** (31); **itxi izana salatu** (9); **itxi izanak** (7); **itxi nahi** (57); **itxi nahi du** (7); **itxi nahi izan** (8); **itxi nituen** (54); **itxi nuen** (34); **itxi ondoren** (50); **itxi orduko** (20); **itxi ostean** (24); **itxi zela** (7); **itxi zen** (73); **itxi zen atea** (8); **itxi zen eta** (7); **itxi zenean** (15); **itxi zidan** (6); **itxi zieten** (7); **itxi zion** (27); **itxi zioten** (7); **itxi ziren** (26); **itxi zituen** (180); **itxi zituen atzo** (8); **itxi zituen begiak** (7); **itxi zituen berriro** (6); **itxi zituen eta** (11); **itxi zituzten** (64); **itxi zizkion** (7); **itxi zuela** (9); **itxi zuen** (324); **itxi zuen atea** (18); **itxi zuen atzo** (6); **itxi zuen bere** (6); **itxi zuen eta** (12); **itxi zuenean** (18); **itxi zutela** (35); **itxi zuten** (123); **itxi zuten arte** (6); **itxi zutenean** (34); **itxi zutenetik** (14)

**atea itxia** (8); **ateak itxiak** (8); **kaleak itxi** (6); **koadernoa itxi** (6); **kolpe batez itxi** (7); **kolpean itxi** (10); **kutxa itxi** (8); **laino itxi** (11); **lantegia itxi** (22); **leihoa itxi** (31); **leihoa itxi eta** (6); **leihoa itxi zuen** (10); **leihoak itxi** (19); **leku itxi** (10); **liburua itxi** (43); **liburua itxi eta** (16); **liburua itxi zuen** (11); **morroiloz itxi** (7); **muga itxi** (7); **ondo itxi** (22); **ongi itxi** (9); **oraindik itxi** (13); **oraindik itxi gabe** (7); **planta itxi** (7); **poliki itxi** (7); **sarrera itxi** (7); **sumarioa itxi** (6); **taberna itxi** (13); **tabernak itxi** (6); **tunela itxi** (8); **ukabila itxi** (8); **ukabila itxi eta** (6); **zentrala itxi** (6); **zergatik itxi** (6); **zirkulua itxi** (7)

**atea itxiko** (7); **ateak itxiko** (18); **ateak itxiko ditu** (6); **bidea itxiko** (6); **guztiak itxiko** (6); **itxiko da** (26); **itxiko dira** (9); **itxiko ditu** (16); **itxiko dituzte** (13); **itxiko du** (47); **itxiko duela** (10); **itxiko duen** (9); **itxiko dute** (45); **itxiko dutela** (9); **itxiko duten** (6); **itxiko zuela** (6); **itxitzat eman** (11); **itxitzat eman du** (3); **itxitzat jo** (6)

**a ixteko** (8); **atea ixteko** (13); **ateak ixtea** (15); **ateak ixteko** (23); **auzia ixteko** (15); **auzia ixteko eskatu** (7); **bat ixtea** (13); **bat ixteko** (10); **begiak ixtea** (7); **begiak ixteko** (10); **behin betiko ixteko** (9); **berehala ixteko** (8); **betiko ixteko** (9); **bidea ixteko** (9); **egoitza ixteko** (7); **egunkaria auzia ixteko** (6); **egunkaria ixtea** (14); **egunkaria ixteko** (11); **elkartea ixteko** (11); **enpresa ixtea** (6); **enpresa ixteko** (6); **erakusketa ixteko** (6); **eta ixteko** (13); **ez ixtea** (8); **ez ixteko** (24); **ez ixteko eskatu** (7); **garoñ guantanamo ixteko** (7); **ixtea erabaki** (44); **ixtea erabaki du** (10); **ixtea erabaki zuen** (14); **ixtea ere** (6); **ixtea espero** (7); **ixtea eta** (16); **ixteko agindu** (36); **ixteko agindu du** (7); **ixteko agindu zuen** (10); **ixteko agindua** (17); **ixteko agindua eman** (9); **ixteko arriskua** (8); **ixteko asmoa** (19); **ixteko aukera** (12); **ixteko erabakia** (7); **ixteko eskatu** (54); **ixteko eskatu dio** (6); **ixteko eskatu du** (10); **ixteko eskatu dute** (8); **ixteko eskatu zuen** (10); **ixteko eskatu zuten** (7); **ixteko eskatzeko** (6); **ixteko eta** (24); **ixteko ordua** (29); **ixteko ordua baino** (6); **ixteko orduan** (9); **ixteko prest** (7); **ixteko zorian** (7); **lantegia ixtea** (10); **lantegia ixteko** (18); **lantokia ixteko** (6); **lehenbailehen ixteko** (7); **naval ixteko** (7); **nuklearrak ixteko** (7); **taberna ixteko** (9); **zabortegia ixteko** (10); **zentral nuklearrak ixteko** (7); **zentrala ixteko** (15)

**ahoa ixten** (6); **atea ixten** (62); **atea ixten du** (7); **atea ixten zuen** (6); **atea ixtera** (7); **ateak ixten** (35); **aterik ixten** (9); **bat ixten** (14); **batek ixten** (9); **batez ixten** (6); **begiak ixten** (68); **begiak ixten ditu** (12); **begiak ixten ditut** (14); **bidea ixten** (24); **erabat ixten** (6); **ere ixten** (6); **eta atea ixten** (10); **eta begiak ixten** (7); **eta ixten** (26); **giltzaz ixten** (11); **guztiak ixten** (14); **irekitzen eta ixten** (8); **ixten ari** (49); **ixten ari dira** (9); **ixten ari zen** (8); **ixten ari ziren** (7); **ixten da** (16); **ixten den** (11); **ixten dira** (10); **ixten ditu** (25); **ixten ditut** (18); **ixten dituzte** (11); **ixten dituzten** (6); **ixten dizkio** (8); **ixten du** (33); **ixten duen** (20); **ixten dut** (7); **ixten dute** (24); **ixten duten** (7); **ixten edo** (6); **ixten entzun** (6); **ixten eta** (11); **ixten ez** (16); **ixten hasi** (12); **ixten ikusi** (6); **ixten nituen** (6); **ixten saiatu** (8); **ixten zen** (17); **ixten zituen** (10); **ixten zituzten** (6); **ixten zuela** (6); **ixten zuen** (31); **ixten zuten** (13); **liburua ixten** (6); **nola ixten** (7)

---

# itxi[2] *izond* **1** itxia dagoena.

Um Hamidak zure xarmaren gakoa du, ate **itxi** guztiak irekitzen dituena. Patxi Zubizarreta

Pertsiana erdi **itxien** zirrikituetatik. Xabier Olarra

Begi berdeak zabal-zabalik bere betazal **itxien** azpian. Koro Navarro

Lehen sexu jarduna ikasle gela **itxi** batean. Felipe Juaristi

Egotismoaren gela **itxi** eta itsua. Xabier Mendiguren Elizegi

Baratze **itxia** zara, ene arreba. Elizen arteko biblia

Gurditxo **itxi** batzuk, kaxa formakoak, zinkez estaliak eta arnasbidez beteak. Karlos Zabala

Heroiaren gorpua arakatu zuten polizi morroiek gutun **itxi** bat aurkitu zutela. Juan Garzia
Josebari begi **itxien** bistan agertzen zitzaizkion eszena eta elkarrizketa horiek. Iñaki Zabaleta
Pertsonen artean izaten diren hesi **itxi** horiek. Josu Zabaleta
Labirinto **itxi** batean elkarri bultzaka eta tiraka. Juan Martin Elexpuru
Irudi lerrozuzen **itxien** artean sinpleena da triangelua. Jon Muñoz

**2** kanpoko eraginik ez duena edo onartzen dez duena..

Entropiak (desordenak) beti egingo du gora sistema **itxi** batean. Fernando Morillo
Mundu **itxi** horretan trinkoagoa ematen du denborak, lodiagoa. Rafa Egiguren
Alfabetoaren sistema **itxia** da, finkoa. Iñaki Arranz
· Elkorra zen Concha, eta oso **itxia** . Bernardo Atxaga
Giputzen jarrera **itxi** eta txokozaleak. Koldo Zuazo
Frankismo garaiko giro **itxi** integristak. Anjel Lertxundi
Nazionalismoaren aurpegirik **itxien,** dogmatikoen eta gogorrena. Pello Salaburu
Txoko-hizkera **itxienean** oinarriturikoak. Juan Garzia
Aleman **itxian** mintzatzen ari ziren. Fernando Rey

**3** barrutegian bizi dena.

San Damiango Ordenako moja **itxientzat** . Askoren artean

**4** trinkoa edo sarria dena.

Dena da gau gurean, gau **itxi** eta itxaropentsua. Felipe Juaristi
Ilunbe **itxi** batek estali zuen Egipto osoa hiru egunez. Jose Antonio Mujika
Gau **itxi** lainotsu batez. Felipe Juaristi
Laino **itxi** batean aurkeztuko natzaizu. Elizen arteko biblia
Basoa oso **itxia** den lekura. Bernardo Atxaga
Tontorrik garaienetara eta basarterik **itxienetara** heldu naiz. Elizen arteko biblia
Zuhaitz-arte **itxi** batetik igarotzen ari zirela. Iñaki Mendiguren
Armaniren bibotea sarria zen, **itxia,** batek bertan edozer aurkitzea espero duen horietakoa. Jon Alonso

**5** kurbez eta kidekoez minzatuz, irekiera angelu txikai duena.

Beren parabola mugagabea kurba **itxi** bihurtzen zaie. Josu Zabaleta
Bideak bihurgune **itxi** samarra egiten baitzuen. Anjel Lertxundi
Errebuelta **itxi** batera iritsia zelako. helmugatik gertu zegoen 180 graduko bihurgune **itxian** erori egin zen. Berria - Kirola
Han ibaia biragune **itxi-itxi** batetik irteten zen segidan beste bat osatzeko, askoz irekiagoa. Joanes Urkixo
Burgosera heltzen ari ginela, bihurgune **itxi** batean, erori egin nintzen bizikletatik. Berria - Kultura
Burdinbidearen bihurgune **itxi** batean zihoala, danbateko bortitz batek astindu zuen trena guztiz. Karlos Zabala
Bere bueltak gero eta **itxiagoak** zirelako. Bernardo Atxaga

**6** bokalez mintzatuz, aho-irekiera handienarekin ahoskatzen dena.

Hizkuntza batean azal daitezkeen bokal fonemak gutxienez bi dira (bata ahalik eta **itxiena,** bestea irekiena). Lourdes Oñederra

**7** (hitz elkartuetan, izenondo gisa)

Ez izan eskuzabal hartzeko eta esku- **itxi** emateko. Elizen arteko biblia
Galtza eta bota beltzak, atorra hori lepo- **itxi** bat. Felipe Juaristi
· **Itxi** -usainak edo usain itogarriak, freskotasunaren alderantzizkoak Irene Aldasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**eta itxia** (16); **aho itxiaren** (5); **ate itxiaren** (5); **ate itxiari** (3); **eta itxiago** (7); **eta itxiak** (8); **itxia da** (10); **itxia dela** (7); **itxia eta** (28); **itxia izan** (18); **itxia izango** (10); **itxia izango da** (7); **itxia zegoen** (9); **itxia zen** (10); **itxiago eta** (6); **itxiak daude** (7); **itxiak dira** (12); **itxiak ditu** (6); **itxiak eta** (10); **itxiak izan** (6); **itxiaren atzean** (3); **itxiaren eta** (3); **itxiaren kontra** (3); **jarrera itxia** (26); **laino itxia** (8); **lehia itxia** (6); **leiho itxiaren** (4); **oso itxia** (15)

---

# itxialdi

**1** *iz* ixtea; zerbait itxirik dagoen denbora. ik**itxiera**.

Madrilek aurreratu du Bruselak ziur aski **itxialdia** aginduko duela. Berria - Harian
Aldakak zabunka eta bularrak **itxialditik** alde egin nahirik zebilzkion. Migel Angel Mintegi
Fiskalak 'Egunkaria'-ren **itxialdia** luzatzeko eskatu du. Berria - Euskal Herria
· Hiru kardinal burutsuren aurrean aurkeztu behar izan zuen [...] eta haien epaia jaso: Perugia hiriko Mendiko Andre Mari komentu frantziskotarrean hamar urteko **itxialdia** . J.M. Olaizola "Txiliku"
Asteartekoak **itxialdia** jasandako juduak eramaten zituen, heriotza lekuren batera. Felipe Juaristi

**2** norbait edo talde bat leku itxi batean sartzea; sarturik ematen duen denbora.

Besteak laster ohartu ziren komunean egiten zituen **itxialdi** luzeez. Iñaki Iñurrieta
Orain, atzera begiratzean, neure burua eta besteak epaitzen saiatzen naizen honetan, konturatzen nauk handipuzkeria hura, **itxialdi** hura eta bakartze hura zenbaterainoko umekeriak izan ziren. Xabier Olarra
Beldur zara **itxialdia** luzatuz gero ez ote zaren erotzeko bidean sartuko. Rafa Egiguren
Bakarreko **itxialdiko** seigarren astean. Koldo Izagirre

**3** (zerbait salatzeko)

Presoen gose greba, **itxialdi** eta bestelako protestak. Jokin Urain
Gure ingurukoak eta konfiantzazkoak, parrandan bezala manifa eta **itxialdi** askotan parte hartutakoak. Xabier Mendiguren Elizegi
Pentsioen Berdintasunaren aldeko Plataformak, adibidez, **itxialdi** mugagabea hasi zuen ostiralean Iruñeko Nabarreria auzoko Zabaldi elkartean. Berria - Ekonomia
‘Egunkaria’-ren alde **itxialdia** egin zutelako. Berria - Euskal Herria
Beotegi [...] Baionako katedralean **itxialdia** egin zuen taldean zegoen Unibertsitateko Lege Organikoaren [...] aurka EHUren Leioako campusean iaz egindako **itxialdi** batean parte hartzeagatik. Berria - Euskal Herria
Maiatzaren 12an beste **itxialdi** bat egingo dute ikasleek, protesta gisa. Berria - Euskal Herria
AHTren Aurkako Asanbladak gaur amaituko du bi eguneko **itxialdia** . Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldeko itxialdian parte** (3); **beste itxialdi** (3); **campusean itxialdia** (5); **campusean itxialdia egiteagatik** (3); **catek itxialdira deitu** (3); **eta catek itxialdira** (3); **itxialdi bat** (7); **itxialdi batean** (4); **itxialdi batean parte** (3); **itxialdi eta** (3); **itxialdi horretan** (3); **itxialdia bertan** (3); **itxialdia bertan behera** (3); **itxialdia egin** (35); **itxialdia egin dute** (11); **itxialdia egin zuen** (4); **itxialdia egin zuten** (15); **itxialdia egingo** (15); **itxialdia egingo dute** (11); **itxialdia egiteagatik** (6); **itxialdia egiteko** (3); **itxialdia egiten** (15); **itxialdia egiten ari** (13); **itxialdia eta** (3); **itxialdia hasi** (8); **itxialdia luzatzeko** (3); **itxialdiak egin dituzte** (3); **itxialdian parte** (4); **itxialdira deitu** (5); **langileek itxialdia** (3);

**leioako campusean itxialdia** (5); **ordezkariek itxialdia** (3); **ordezkariek itxialdia egin** (3); **orduko itxialdia** (6)

---

## itxiarazi, itxiaraz, itxiarazten du *ad* ixtera behartu.

Bat-bateko hunkipenak egunkaria **itxiarazi** zidan, euria eta kazkabarra ari duela, aterkiak **itxiaraztea,** planoa ongi gera zedin. Aingeru Epaltza

Gehiegizko argiak begiak **itxiarazi** dizkio. Paddy Rekalde

Trenbidea hamar minutuz **itxiarazi** ondoren, 11:30ak inguruan manifestazioa egin zuten Bizkaiko hiriburuan. Berria - Ekonomia

Mosul hiriko gobernadore Duraid Kashmulak Tigris ibaiaren gaineko bost zubiak **itxiarazi** zituztela jakinarazi zuen. Berria - Mundua

Eskola eta elizetatik gertuko sex-shop eta top-less lokalak **itxiaraztea**. Harkaitz Cano

*Euskaldunon Egunkaria* **itxiarazi** ostean. Berria - Euskal Herria

Diru arazoek **itxiarazi** baitute hedabide hori. Berria - Euskal Herria

Elur ekaitzak 29 ikastetxe **itxiarazi** zituen atzo. Berria - Harian

Horrelakoa zen nire Veronica Lake, beti prest ahoa **itxiarazten** duten erantzunak emateko. Pello Lizarralde

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**begiak itxiarazi** (4); **begiak itxiarazi dizkio** (3); **egoitza itxiarazi** (3); **itxiarazi zituen** (5); **itxiarazi zituzten** (3); **itxiarazi zuen** (3)

---

## itxidura ik **itxitura**.

---

## itxiera 1 *iz* denda, lantegi eta kidekoez minzatuz dagokion zerbitzua ematetik gelditzea.

Ez da albiste, denda txiki baten irekiera (edo **itxiera)** albiste ez den bezala. Pako Aristi

Iragarki bat jarriko dut, bezeroek **itxieraren** berri izan dezaten. Jon Muñoz

Ziklo baten **itxiera** da. Joxe Azurmendi

Zentralaren **itxierak** gaur egun erdi hilda dagoen ingurua berpiztea ekarriko luke. Berria - Euskal Herria

Ufesaren **itxiera** gogor gaitzetsi du ESK sindikatuak. Berria - Ekonomia

Langileek erakunde publiko guztien babesa eskatu dute **itxiera** eragozteko.

Euskaldunon Egunkariaren **itxiera**. Berria - Kultura

Katalunian egunkari baten **itxiera** eraso kriminaltzat hartzen dugu. Berria - Euskal Herria

Behin-behineko **itxiera** sei hilabetez luzatzea bi aldiz erabaki du orain artean del Olmok. Berria - Euskal Herria

Ohrideko aireportuan pilatu zen 70 zentimetroko elurrak ere **itxiera** eragin zuen. Berria - Harian

Ostiralean 40,07 dolarrekoa izan zen **itxierako** balioa. Berria - Ekonomia

Azken xehetasun hori **Itxierako** erredaktoreak jakinarazi zidan. Aingeru Epaltza

**2** sarrera eta irteera eragozteko eran jartzea.

**Itxierari** inplosioa deitu zaio, eta irekierari esplosioa; *p* bati inplosiboa *(p> )* edo esplosiboa *(p< )* esaten zaio. Isabel Arrigain

**3** (hitz elkartuetan, itxi aditzaren hainbat adiera bilduz)

Lorategien **itxiera**-ordua adierazten duten panelak. Julen Gabiria

Gospel kontzertuen **itxiera** ekitaldi gisa, kontzertu berezi bat eskainiko dute. Berria - Kultura

Ipuruako zelaiak jaso zuen **itxiera** abisuak berebiziko garrantzia izan du erabakian.

Boladok sumarioaren **itxiera** autoa kaleratu beharko du. Berria - Euskal Herria

Ipini ezazu etxean ate blindatu bat, edo arrunta bada, gutxienez bi **itxiera**-puntu izan ditzala. Berria - Harian

· Kontratisten eta Eraikitzaileen Elkarteak lan-**itxiera** erabakiko du astelehenetik aurrera. Lopez de Arana

Arestian azaldu dugun meategi-**itxiera**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ikusmen-**itxiera** oso bestelako bat, berriz, atzerakada, emozio-estres handiarekin edo gatazkekin bide zegoen loturik. Xabier Olarra

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aren itxiera** (3); **baten itxiera** (7); **bere itxiera** (3); **du itxiera** (6); **dute itxiera** (5); **egunkari baten itxiera** (3); **egunkaria ren itxiera** (47); **egunkariaren itxiera** (15); **en itxiera** (4); **enpresaren itxiera** (3); **eta itxiera** (5); **euskaldunon egunkariaren itxiera** (5); **ezkutuko itxiera** (3); **garoñ itxiera bertan** (5); **itxiera bertan behera** (5); **itxiera beste** (5); **itxiera beste lau** (4); **itxiera da** (5); **itxiera dela** (6); **itxiera dela eta** (4); **itxiera ekarriko** (7); **itxiera ekarriko duela** (4); **itxiera errauste** (3); **itxiera esan** (3); **itxiera eta** (28); **itxiera eta berriaren** (3); **itxiera ez** (4); **itxiera gertuago** (3); **itxiera gertuago dago** (3); **itxiera hizpide** (3); **itxiera horiek** (3); **itxiera iragarri** (9); **itxiera justifikatzeko** (4); **itxiera luzatzea** (5); **itxiera patronala** (3); **itxiera salatu** (7); **itxiera salatu zuten** (3); **itxiera salatzeko** (9); **komunikabideen itxiera** (3); **lantegiaren itxiera** (6); **navalen itxiera** (12); **ren itxiera** (56); **ren itxiera eta** (16); **ren itxiera salatu** (3); **ren itxiera salatzeko** (6); **zabortegiaren itxiera** (5); **zabortegiaren itxiera errauste** (3); **zentralaren itxiera** (3); **zuen itxiera** (4)

**egunkaria ren itxieragatik** (3); **egunkaria ren itxierak** (3); **komunikabideen itxierak** (5); **ren itxierak** (4)

---

## itxigailu *iz* zerbait ixten duen gailua.

Larru sintetikozko maleta zuri zahar bat zen, **itxigailu** bat hautsia zuena. Koro Navarro

[Poltsaren] **itxigailua** haztatu zuen zeharo itxita zegoen egiaztatzeko. Mirentxu Larrañaga

Eskua jarri zuen nire bularretakoaren **itxigailuan**. Neskaren gorputza apur bat gehiago hurbilduz, bularretakoaren **itxigailuarekin** borrokan hasi zen. Karlos Zabala

Estalkiaren **itxigailuaren** mihia sakatu baino lehen. Koldo Izagirre

Gure arropetan gora eta behera erabiltzen dugun lerra **itxigailua** edo kremailera Pello Salaburu

---

## itxikeria *iz* amore emate edo aldaketa ororen aurkako jarrera gaitzesgarria.

Harrigarriena, dena dela, ez da elkarte horren **itxikeria**. Koldo Zuazo

Patronalaren **itxikeria** da sektoreko ituna egiteko traba. Berria - Ekonomia

Frantziako Gobernuak frantsesa ez diren hizkuntzekiko duen **itxikeria**. Berria - Mundua

Italiako egunkariak irekitze hutsarekin berehala sumatzen den kontua da hori: **itxikeria,** geure mugen barrenean, gure ideologiaren barrenean, eta horrela konbentzionala ez den guztia zokoratu egiten da. Berria - Kultura

Adegiri metaleko negoziazioan **«itxikeriaz»** jokatzea leporatu dio LABek. Berria - Ekonomia

Elizaren **itxikeriaz**. Joxe Azurmendi

---

## itxindi *(orobat* ***itxindu****)* *iz ipar* ilintia.

Sua piztu eta eskuetarik eskapatzen zenean, jakin behar zen gar eta **itxindietarik** ordu zeno ihes egiten. Itxaro Borda

Hor gertatu dena, zerbait ezinbertzezko zen, naski jendea hain minbera eta beldurti den huntan aise pizten ahal baitira **itxinditik** su kaltegarriak. Herria

Altzairutegiko zuzendaritzak esplikatu du morteroz egina den zoladurak zituen urradura batzuetatik elektrika kableetara sua hedatu dutela labe nagusiko **itxindi** batzuk. Herria

**Itxindu** bat sartzen zen uretan, suaren bidez ura garbitzeko. Berria - Euskal Herria

Zure langile haurrideen itxaropenaren **itxindu** izan zaite! Herria

---

## itxindu[1] *izond ipar* piztua.

Ahalkizungarriak gara! -zehaztu nion gogor belarri zulora, hira **itxinduak** gordetzen saiatuz eta ika-mika sugarrak nigan itzaliz. Itxaro Borda

---

itxindu[2] ik **itxindi**.

---

## itxitasun *iz* itxia denaren nolakotasuna.

Espetxeko **itxitasunarekin,** mugatasunarekin konparatuta eskerga zelako itsasoaren zabala. Berria - Kultura

Arte figuratiboetan, espazioaren irudikapenaren figura bera izango litzateke eszena, eta eremuz kanpoa [...] baliatzen delarik, ongi gauzatzen du espazioaren irekitasunaren eta **itxitasunaren** arteko konpromisoa. Josu Zabaleta

· *irud* Erlijioei arrazoiaren bidetik ibiltzeko eskatu behar diegu, bere **itxitasunetik** irten eta fundamentalismotik aska dadin. Askoren artean

Horixe da familia nuklearra deitzen dena, itxituraren eta **itxitasunaren** ispilua. Iñaki Segurola

Hirian bertan ere **itxitasuna** sentitzen dinat. Anton Garikano

Ezer ez zitzaion azaleratzen barne- **itxitasun** haren geruzatik kanpo. Juan Garzia

Komunitate txikien **itxitasunaren** eta hipokrisiaren kontra. Berria - Kultura

---

## itxitegi *iz* esparru itxia.

Bere burua eta bere **itxitegiaren** gela ezabatzeko asmatu dituen pertsonaia dramatikoak. Joseba Sarrionandia

Bere gela estuko **itxitegira** sartu, eta idazten jarraitu zuen. Joseba Sarrionandia

---

## itxitura *(orobat* ***itxidura*** *g.er.)* **1** *iz* barruti edo toki itxia.

Gatibuei zegokienez, **itxitura** batean sartu zituzten. Karlos Zabala

Inguruan **itxitura** bat zegoen, lurrean sarturiko harriz, pinuz eta arte handiz hesitua. Juan Kruz Igerabide

Bi behi zeuden, eta bazter batean, **itxitura** baten barruan, txahal bat. Josu Zabaleta

Aurreko hanketatik heldu eta **itxitura** batean sartu du ardia. Itziar Otegi

Elkarren kontra estutu ginen, ardiak **itxituran** bezala. Juan Kruz Igerabide

**Itxidura** honetan denok daramagu faxistek ikur gisa ezarri diguten zigilua. Felipe Juaristi

Sastrakaz eginiko **itxitura** bat dago ezkerraldean. Koldo Izagirre

Esmeraldazko **itxitura** bat, bi metro gora, basoan. Anton Garikano

Leku irekian egin beharreko **itxiturak** direla-eta. Santiago Iruretagoiena

**Itxiturapean** zulo bat eginez irtena zen kortatik. Josu Zabaleta

Animaliak azkar egin du ihes alanbreko **itxituraren** azpitik burua makurtuta. Patxi Iturritegi

[Ismukeko hiribilduko] lurren inguruak **itxitura** sinetsezin batekin daude mugatuta. Santiago Iruretagoiena

Internazionalista presoen barrutia inguratzen duen **itxiturako** hesolak harrapatzen dituzte gauez, etxolak egiteko. Jokin Urain

**Itxiturako** ate nagusian ikusi ez banu Adlerhaus zioen errotulu handi bat hegazkin baten marrazkiarekin, ez nuen asmatuko aerodromo bat zegoela burdinsarezko hesi altu herdoilduaren barrutian. Anjel Lertxundi

Helmuga guztiak estutzen zizkion harresien **itxituratik,** begirada etorkizunera zabaltzera igaro zen hiria. Askoren artean

Hobeki geundeke lehorrean, leku ongi egurasturen batean, **itxitura** kirastu honetan baino. Edorta Jimenez

Unibertso bat kartoizko **itxitura** txiki batean estu-estu gordea. Jon Muñoz

**2** *irud*

Gizakiaren bizitza existentziaren zirkunferentziaren ukitze-gunean ihesbide bat sortzeko ahalegina da, hain zuzen, existentzia berezi bat eraikitzeko seta, betiereko **itxitura** biribiletik ihesi. Gaztaroko lehen adiskideak izan nituen haiek, ez luzaroko, baina, gutxienez, nengoen **itxituratik** irteteko balio izan zidaten. Juan Kruz Igerabide

Beldur nintzen agerian geratuko ote zen barruan ezkutaturik neukan gorrotozko **itxitura** . Horixe da familia nuklearra deitzen dena, **itxituraren** eta itxitasunaren ispilua, eskizofreniaren mintegi oparoena. Juan Kruz Igerabide

Errazago etsitzen du bere egon-behar hartan, kartzela-barruko definizio izatezkoan eta **itxituraren** barruko **itxituran** . Iñaki Segurola

Zer **itxidura** metafisikotan dagoen bilduta euren oinarrizko positibismoa. Xabier Arregi

**3** ixten duen gauza.

Erakusleihoen aurrean jaitsirik daude burdinazko **itxiturak** . Monika Etxebarria

Kristalezko **itxitura** zuen korridorearen beste aldeko patioan. Joseba Urteaga

Kaskezurra baizik ez zuen babesten eta **itxitura** hondatua zuen. ik itxigailu. Aingeru Epaltza

Valentinak latexezko goanteak jantzi, goiko manta apartatu zuen usain gogorrari kasurik egin gabe, eta pixoihalaren **itxiturak** libratu zituen. Jon Alonso

Ameriketatik itzuli ondoren bururatu zitzaion **itxitura** elektrikoa jarraraztea, botoi bat sakatuz zabaltzen diren horietakoa. Bego Montorio

Zelai eta barrutietan, harrizko hesiak eta langak baztertu gabe arantzazko hesiak jartzen hasi zirenean txarrantxa deitu zioten **itxitura** hari. J.M. Olaizola "Txiliku"

Langak eta **itxiturak** lurrean, mundua denon baratze handia da, ken ditzagun hesiak eta txarrantxak. Koldo Izagirre

**4** ixtea; ixte sistema; ixtearen ondorioa.

[Xabier Lete] eritu zen, hestegorriaren **itxitura** bat ukan zuen eta ainitz mehetu. Herria

Kutxa blindatu bateko **itxitura** automatikoaren gailuarekin. Aingeru Epaltza

Itomenez zegoela, eta ezingo zuela gela txikiko **itxitura** eraman. Anjel Lertxundi

**5** (hitz elkartuetan)

Nire fruituak eta nire barazkiak lapurretatik gordetzen zituen **itxitura** horma baten atzean. Josu Zabaleta

Filmaren zuzendariak baimena eskatu zuen **itxitura** zelaietara joan eta txarrantxa-hesiaren beste aldetik Lamberten ahotsean falta ziren zatiak grabatzeko. Harkaitz Cano

**Itxitura** usain bitxiak eta goizeko osteak erantsitako kiratsak eraginik. Txillardegi

· Goragoko hodeien itzalak beheragokoen gainean, errezelak diruditen itzalak, eta haien artean goaz hegan, hodei-**itxitura** bat, gure aurrez aurreko eguzkiak argitua. Joxe Austin Arrieta

Lorategi zainaren aihotz zorrotzak etengabe ezartzen zituen lerroan adar **itxitura** haiek. Josu Zabaleta

**6** ***itxituran*** toki itxian

**Itxituran** ohitutako animaliei egunez ematen zaie bazka, [...], egunez betetzen zaie uraren aska, egunez parasitoen arakatzea, egunez albaiteroaren bisitak... eta gauez beraiek sartuko dira aterbean lotara, eguraldi txarra bada bederen. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itxitura** (4); **eta itxiturak** (3); **halako itxitura** (3); **itxitura bat** (7); **itxitura batean** (4); **itxitura elektrikoa** (3)

---

# itxitzaile *izond/iz* ixten duena.

Hots **itxitzaileez** eta hots irekitzaileez hitz egin dezakegu. Isabel Arrigain

Bokal irekitzaileen eta **itxitzaileen** arteko bereizketari. Isabel Arrigain

Hotsen igorpenerako beharrezkoak diren mugimendu irekitzaile eta **itxitzaileak**. Isabel Arrigain

Artikulazio irekitzaileen eta **itxitzaileen** artean. Isabel Arrigain

Eta arima baino gehiago, gogoa da bizi-langen **itxitzaile** eta biziaren jaun. Xabier Amuriza

---

# itxoin ik **itxaron**.

---

# itxura *iz* **1** zerbait edo norbait gure begien aurrean agertzen den era; zerbaitetik edo norbaitengandik ikusten dena.

Ez begiratu horren **itxura** eta luzerari. Elizen arteko biblia

**Itxura** da hiri honetan balio duen gauza bakarra. Lopez de Arana

Ezagutu nuenetik, beti saiatzen nintzen disimulatzen haren **itxurak** eragiten zidan larderia. Anjel Lertxundi

Zer diozue **itxurak**! errealitatea, errealitatea, jaunak, errealitatea! Josu Zabaleta

Gauzen aniztasuna, haien banakotasuna, **itxura,** berniza besterik ez zen. Monika Etxebarria

Hil ostean, ordea, guztiz ederra da haren **itxura**. Askoren artean

Neska goxoaren **itxura** zuen Magalik. Janbattitt Dirassar

Kontuz, haren **itxurak** ez zaitu nahasi behar: gizon hori dirudien baino hagitzez azkarragoa da... Alberto Ladron Arana

Hitzaren **itxurak** besterik iradokitzen badu ere, ez duela zer ikusirik *croix saint* edo antzeko ezerekin. Anjel Lertxundi

Kafkaren *Prozesua*k txosten forentse baten **itxura** guztia du. Anjel Lertxundi

**Itxura** guztietako gurdiek galtzadak oztopatzen zituzten; barazkiek espaloiak estaltzen. Karlos Zabala

Badirudi beste **itxura** bateko eta oso bestelako tenplua sortu dutela. Santiago Iruretagoiena

Baina, **itxura** haren azpian, bigarren Cesar bat ikusten nuen orain. Bernardo Atxaga

Sasoiz kanpoko laranjak, ordea, **itxura** bakarrik du laranjarena. Joxerra Garzia

Litekeena baitzen, **itxurak** besterik erakusten bazuen ere, Lisboa emakumezkoa izatea. Jon Alonso

**Itxurak** dio ez zuela hain gaizki egin. Aingeru Epaltza

Samurtasunaren irudia zela erantzun zion, kanpoko **itxuratik** behinik behin. Felipe Juaristi

**2** (pluralean)

Baina Peterri, mutila zenez, bost ardura zitzaizkion **itxurak,** eta saltoka hasi zen, pozez zoratzen. Julen Gabiria

Emakume **itxurak** galdu eta izaki ukiezin, sumagaitz, sotil, harrapaezin bilakatzen joan zen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Antigoaleko dama baten **itxurak** gustatzen zitzaizkion: ilea mototsean bildua; zetazko zapia lepoaren bueltan. Anjel Lertxundi

**3** (izenondoekin)

Ile horia zuen, begi ederrak, **itxura** bikaina. Elizen arteko biblia

Lehen begiratuan, **itxura** oneko gizona zen. Jose Morales

-Haren eztulak ez zuen **itxura** onik azkenekoz ikusi genuenean. Anjel Lertxundi

**Itxura** politeko trattoria bat ikusi nuen atzo arratsaldean inguru haietan. Anjel Lertxundi

Ez dut sekula izan gizon gazte horri hain ongi ematen dion **itxura** txukuna. Monika Etxebarria

Baina **itxura** zoragarriko dama hark mantu zarpail batez estaltzen zuen gorputza. Askoren artean

**Itxura** indartsuko giza irudi bat agertu zen. Irene Aldasoro

**Itxura** kaxkarreko gizona da eta hizlari eskasa. Elizen arteko biblia

**Itxura** xelebrea genuela gogoratu zitzaidan. Aingeru Epaltza

Mutil gaztearen arrebak **itxura** mozkotea zuen. Mirentxu Larrañaga

Oinazetan dagoenaren **itxura** txarra du. Monika Etxebarria

Egunak joan ahala, etxekoandre zaharrak sorgin gaizto nazkagarri baten gero eta **itxura** handiagoa zeukan. Juan Kruz Igerabide

Begiak tolesturik eta erdi barrez zegoen, **itxura** ergel eta gozo antzarekin. Monika Etxebarria

Edo zu mehatu... -pentsatu zuen Marik, bere adiskidearen **itxura** hitsak penaturik. Elena Touyarou

Autodidaktak **itxura** jostalari, misteriotsu samarra hartu du. Monika Etxebarria

Halako **itxura** aszetiko eta arretagaldukoa. Juan Garzia

Zenbait bidaiari halako moldez aldatu dira, **itxura** fisikoan eta moralean, non itzulitakoan haien ahaide gertukoenek ere ez dituzten ezagutu. Monika Etxebarria

Horixe da nire bizitzari **itxura** nahasi eta koherentziarik gabea eman diona. Monika Etxebarria

Ez dela **itxura** onekoa ni handikien jauregietan egotea. Askoren artean

**Itxura** gotorreko ateari iltzatutako txartel metalezkoak honela zioen: Anjel Urtxipia. Aingeru Epaltza

Jaten ikusten ninduzuenean, ez nintzen jaten ari; **itxura** hutsa zen. Elizen arteko biblia

-Dena **itxura** hutsa. Xabier Olarra

**Itxura** tamalgarrian zegoen. Karlos Zabala

· Kristinaren begitarteak garbi adierazten zidan **itxura** pena-emangarria behar nuela. Aingeru Epaltza

Gabardinak lerdendu egiten zion **itxura** berez lerdena. Anjel Lertxundi

**4** (aditzaren objektu gisa)

Zer da hau? -larritu zen petrikiloa, nire hankaren **itxura** ikusita. Juan Kruz Igerabide

Eta, otoitzean ari zela, aurpegiaren **itxura** aldatu egin zitzaion, eta jantziak zuri distiratsu bihurtu. Elizen arteko biblia

*ik* itxuraldatu.

Gero, **itxura** ahal zuen guztia aldatu eta hegoaldera joan zen Vienara oinez iristeko asmoz. Ramon Etxezarreta

Aldatu zuen Saulek bere **itxura** beste soineko batzuk jantziz. Gizon heldua, bere gainbeherara adoretsu doana, eta, bere buruaz arduragabetu nahi ez duelako, **itxura** zaintzen duena. Elizen arteko biblia

Tomek ulertu egin zuen, eta saio ahul bat baizik ez zuen egin, **itxurak** zaintzearren, alde egin ez zezan bairatzeko. Oskar Arana

Batzuetan iluntzen dut bekozkoa, onartzen dut, **itxurak** mantentzearren, baina gertatzen da. Itziar Otegi

Gorde ezan **itxura** bederen, arraioa!, ez dinat besterik eskatzen. Anjel Lertxundi

Begitartean marrazturik gelditu zitzaidan zozo aurpegiari, Ttipiren agerpenak itzularazi zion **itxura** pixka bat. Aingeru Epaltza

Haren **itxura** miresten genuen, beti tren batera igotzear egotearena. Fernando Rey

Ustez bestera, **itxura** ederragotu beharra daukazu. Patxi Zubizarreta

Italiako lege nagusiaren bederatzigarren artikuluak hirietako **itxura** ona babesten du. Anjel Lertxundi

Altzifre altuak, meheak eta espiritualak sortzen dira haien hesi berdexketatik, bazter honen florentziar **itxura** areago azpimarratuz. Koro Navarro

-Zure giza **itxura** utzi, eta mando pinto batena hartu! Patxi Zubizarreta

Ispiluak gure kanpoko **itxura** islatzen duten bezala. Joxerra Garzia

Neska hura, gauzen **itxurak** bere erara moldatzen zituen panpina. Lourdes Oñederra

**5** *ipar* irudia.

Emazte gorputz baten **itxura** agertu zen ostatuko atean. Elena Touyarou

Sakez aitaren **itxura** agertu zitzaidan. Daniel Landart

Han dago gizon baten **itxura,** etzanik, bi bazterretan laguntzaile batzuekin: Cize-ko bortuetan Konpostelako bidari bat hila. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Hor daukat saria: Santiagoren **itxura,** burdinezko zizelkadura moderno bat, Garesekoa gogorarazten didana. Piarres Aintziart

Harrizko **itxura** bat zirudien. Elena Touyarou

Bizpahiru urrats eginez neska gaztetxo baten **itxura** ikus dezakezu urrundik. Ramuntxo Etxeberri

Ene iduriko euskaldun taldeek ez dute show-business hortako **itxura** batzu hartu. Menane Oxandabaratz

Herrian gaindi ibili dira, horrela bilduz Luzaideko euskalkiaren **itxurak**. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Beste gela, liburu, mapa eta **itxuraz** betea dago. Piarres Aintziart

· Sinekdokearen **itxurak hartzen** baitu osoaren ordez zati soila. Piarres Xarriton

**6** funtsa; itxura egokia.

**Itxura** gabeko haragi-puxka ximel hura puztu egin zen artoa krispetetan bezala. Karlos Zabala

Honek ez du egiaren **itxura** handirik. Gotzon Garate

Ez zen-eta **itxura** horrela ibiltzea jendea oraindik gerraren ondorioak sufritzen ari zen garaian. Jokin Muñoz

Begitartean marrazturik gelditu zitzaidan zozo aurpegiari, Ttipiren agerpenak itzularazi zion **itxura pixka** bat. Aingeru Epaltza

**7** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eta azken bost asteak hala emanak zituen, objektuak aztertzen, haien **itxura**-gorabehera harrigarriak ikasten. zeren autistek -hala diote- ez baitute **itxura**-jokabiderik, eta hartan Templek, hotz-hotzean eta zalantza izpirik gabe, amarru bat erabaki, eta erabat prest baitzegoen ni kontrabandoz lantegian sartzeko. Xabier Olarra

Betidanik bizitza bitan zatitzen zion eta antzezpen baten tankerako bihurtzen zuen **itxura**-egite halabeharrezkoarekin jarraituz. Jose Morales

Harrezkero ez zutela eta **itxura**-antza haren beharrik izango. Patxi Ezkiaga

· Tranbiaren bidetik zihoan gizon **itxura**-txukun batek. Koro Navarro

Percy-k XVIII. mende **itxura**-apain horri errebelatu zizkion baladen txanda etorri zen gero. Juan Garzia

**8** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Irlandan itsas txakurrek emakume **itxura** har dezakete. Martin Anso

Neskatxa ttipi horren aurpegiaren ederrak, [...], haren haur **itxurak,** haren moldakaizkeriak berak gogoeta zuhur horiek indartzen zituzten. Jon Muñoz

Bazuen, bere birjina **itxura** ameslari haren azpian, halako egoskorkeria mutu bat. Karlos Zabala

Joycek zioen Nancyren gorputz-**itxura** bere azken senarrari zor zitzaiola. Oskar Arana

Halako handientza bat ere atzematen hasi ziren haren aurpegieran, halako gerlari-aire edo militar-**itxura** bat. Jose Morales

Hilobi-**itxura** iradokitzen zuten objektuz mukuru betea. Mirentxu Larrañaga

Nolabaiteko konplizitate **itxura**. Monika Etxebarria

Normaltasun **itxura** eman nahi baitio egiten ari den guztiari. Anjel Lertxundi

Gela guztiek zuten isiltasun-**itxura** bera. Josu Zabaleta

Zintzo **itxura** jarrita, bere hartan segitu zuen txirrina sakatu arte. Migel Angel Mintegi

Beldurtu egin nintzen neure zahar **itxura** ikusita, Exotiko **itxura** zuen besaulki batean eseri zen. Anjel Lertxundi

Nekatu **itxura** zeukan. Migel Angel Mintegi

Harritu **itxura** jarri, eta zuzenean begiratu zion Lisari. Migel Angel Mintegi

Gero eta *city* **itxura** handiagoko bazterrak. Aingeru Epaltza

Badakigu pasiboaren formaldatzea, *IS-Aditza-IS* **itxura** duen edozein kateri ezar dakiokeena. Itziar Laka

· Beti iraun zion bere zakur egurtu **itxura** horrek Fernando Rey

**9** ***itxurako***[1] *izond* ik **itxurako.**

Odolki-**itxurako** beso batzuen gainetik. Lopez de Arana

Kono **itxurako** txanoa jantzita agertu da. Urtzi Urrutikoetxea

Tren geltokian bihotz **itxurako** poltsa bero bat erosi du. Harkaitz Cano

Mahaian idazteko makina eta faktura **itxurako** paperak pilatzen ziren. Josu Landa

Ezkerretara hangar **itxurako** etxola txikia dago. Urtzi Urrutikoetxea

Atoiontziak, arnasestuka, kotoi **itxurako** kezko bafadak botatzen zituen. Lopez de Arana

Astia izan zuen hildakoa zubiaren erdian ikusteko: mutil aurpegi-zuri, arrain **itxurako** bat. Felipe Juaristi

Ilargi-erdi **itxurako** ezpata luzea hartu zuen. Xabier Aranburu

Zapata-kutxa **itxurako** gela hura. Lopez de Arana

Beti hein bat gogoz kontra zorri-zaku **itxurako** elkarte eta ekintzetan leporaino sartu naizelako. Itxaro Borda

Frantsesean eta *micmac* hizkuntza amerindioan iraun duten euskal **itxurako** zenbait hitz. Koldo Zuazo

Mutiko serioa nintzen hau gizon **itxurako** eta tximu aurpegiko ergela bihurtzen hasi nintzen. Pello Lizarralde

-Osasuna, kamarada! -esan zidan haiekin zegoen agure **itxurako** batek. Edorta Jimenez

Kamioizale **itxurako** hiru-lau gizon. Aingeru Epaltza
Buhame **itxurako** saltzaile batek. Anjel Lertxundi
Funtzionario **itxurako** apezarekin. Aingeru Epaltza
Falangista **itxurako** gazte batekin eserita. Bernardo Atxaga
Kinki **itxurako** lagunak irri maltzurra baina jatorra egin dit. Gotzon Garate
Lorategi-edo **itxurako** toki zabalago batzuk ageri ziren adreiluzko eraikuntza dotoreago batzuen atari. Anjel Lertxundi
Herabeti-**itxurako** gizon handi eta zurbil bat. Lopez de Arana
Beldur baitziren aitaren haserre-**itxurako** aurpegia ikusita. Askoren artean
Denak ziren erretiratu **itxurakoak,** hogeita hamar inguruko emakume bat izan ezik. Ramon Saizarbitoria
Nekatu-**itxurako** aittonen bat ikusiz gero oinez, gelditu eta igotzera gonbidatzen zuten. Fernando Rey
Horditu **itxurako** gizakote batekin. Anjel Lertxundi
Hurbiltzen da argazkilari bat ere, segaila eta moderno **itxurakoa** . Anjel Lertxundi
Orixek apal **itxurako** eskaintza horrekin garbi utzi nahi baitu bien poetiken desberdintasuna. Anjel Lertxundi
Bizi duen istant hori ez dela amesgaiztoa, amesgaizto **itxurako** errealitatea baizik. Imanol Zurutuza
Zortzi-**itxurako** opilak. Jose Morales
Zortzi zenbakiaren **itxurakoa** atera zain kiribil hori. Harkaitz Cano
J **itxurako** amuak baztertu eta G formakoak erabiltzeak. Berria - Gaiak
Taberna arlote-**itxurako** baten erakusleihoaren aurrean. Irene Aldasoro
Zer nolako sakonera eta zenbat adar ditu bizitza bezalako hitz soil **itxurako** batek? Anjel Lertxundi
Ihi grisen irudi berrosatu eta alderantzizkatuak, eta zuhaitz-enbor mamu modukoak, eta leiho begi-huts **itxurakoak** . Koro Navarro
Kontzertu-areto bateko aditu jendeari ari zitzaiola zirudien, eta ez ehiza-gela **itxurako** hartan bilduriko afaltiar urri eta erdi ezagunei. Anjel Lertxundi
Bikote adineko bat zegoen, senar-emazte **itxurakoak,** jangelaren beste aldeko mahaian eserita. Inazio Mujika Iraola

## 10 *itxurako*[2] (-en atzizkiaren eskuinean)

Han behean hori-hori, urrearen **itxurako** zerbait ikusi zuten. Patxi Zubizarreta
Gazte gehienak ziren susmagarri; are eta gehiago Josebaren **itxurakoak** . Bernardo Atxaga
Paperezko kutxen **itxurako** etxe grisak. Lopez de Arana
Elefante hanken **itxurako** galtza horiek. Pello Salaburu
Ihintza desagertu zenean, antzigarraren **itxurako** zerbait, xehea eta garautsua, gelditu zen lur gainean. Elizen arteko biblia
Zareak duen zirrikitu batetik azeri larruaren **itxurako** zerbait ageri da. Pello Lizarralde
Golf-pilota zabal baten **itxurako** egitura bat. Irene Aldasoro
Gelatina gogor samar baten **itxurakoa** da kolagenoa. Irene Aldasoro
Odolaren isla lauso bat da linfa: odol-plasmaren **itxurako** likido bat, funtsean. Irene Aldasoro
Ingelesek horrelaxe deitzen diote makila loratu baten **itxurako** zenbait landareri. J.M. Olaizola "Txiliku"
Nahi duzun **itxurako** zubia egin dezakezu eskura baduzu ingeniari on bat eta aski diru materialak erosteko eta jendeari ordaintzeko. Pello Salaburu
Neskalaguna, errusiarra, ilehoria, berari gustatzen zaion **itxurakoa** . Jon Arretxe
Dagokion kolore eta **itxurako** arrautza jartzen dute. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 11 *itxuran*[1] *adlag* ik **itxuran.**

Aita gaixo zegoen, **itxuran** nabari zitzaion, baina ez zion erretzeari utzi. Jon Maia
Dupin dandy bat da, **itxuran** nahiz arrazobidean. Koro Navarro
Jainkoak ez du gizakiek bezala begiratzen: hauek **itxuran** geratzen dira, Jaunak bihotzari begiratzen dio. Jose Antonio Mujika
Baina, **itxuran** behintzat, ba al dago ezer samurragorik? Xabier Arregi
Horrexegatik, hain zuzen, deskubrituko du **itxuran** aurkakoak diren sistema horien bateragarritasun sakona. Xabier Arregi
Horregatik, zuena **itxuran** bakarrik zuen berea, eta egiaz, beste nagusien mende zegoen jada. Josu Zabaleta
· *(hitz elkartuen bigarren osagai gisa)* Honela erantzun zion Ateneak, artzain **itxuran:** [...]. Juan Kruz Igerabide
Kapela bizkarrean eta makila eskuan, erromes eta behartsu **itxuran** . Askoren artean
Abiatu zen, bada, Siriarantz bake-**itxuran** . Elizen arteko biblia
Besoa luzatu, hatz erakuslea eta luzea V **itxuran** ipini, eta jiraka ibili zituen. Juan Kruz Igerabide
Neska-mutil taldea, aspertu **itxuran** bakoitzak bere eskuan atxikitzen zuen garagardo botilari begira. Aingeru Epaltza
Ez zaitzatela gaitzets apal-**itxuran** agertu eta aingeruen kultua atsegin duten horiek. Elizen arteko biblia
Norak aitari begiratu zion, baimen eske **itxuran** . Anjel Lertxundi

## 12 *itxuran*[2] (-en atzizkiaren eskuinean)

Atenea, Mentorren **itxuran,** biziki haserretu zen, eta Ulises xaxatu zuen, garai batean bezainbat kemen erakusten ez zuela esanez. Juan Kruz Igerabide
Kristo Jesus agertu zitzaion gurutziltzatuaren **itxuran** . Elizen arteko biblia
Non nahi ikusten dira alabaina aingeruak umetxoen **itxuran** margoturik. Piarres Xarriton
Aita prestu baten **itxuran** . Txillardegi
Atenea hurbildu zitzaion, artzain gazte baten **itxuran** . Juan Kruz Igerabide
Ilargia bezain handi eta eguzkia bezain distiratsu zen izar baten **itxuran** . Askoren artean
Bi mailatan artikulatzen den sistemaren **itxuran** . Piarres Xarriton
Munduko denbora guztia duenaren **itxuran** hurbildu da buruzagien aldera, patxadaz. Aingeru Epaltza
Dionisos haurra Da Vinci-k eman zion **itxuran** gogoratzea gustatzen zait. Ana Urkiza
Daukazun joeragatik dakit eta ibiltzeko duzun eran eta hitz egiteko duzun **itxuran** ikus dezaket eta tratatzen nauzun manerak baieztatzen dit; eta maita zaitzaket, baby, etsipenera arte. J.M. Olaizola "Txiliku"

## 13 *itxuraz*[1] *adlag* ik **itxuraz.**

Gezurra esaten da, gizaki batek bere jitez, kanpoko **itxuraz,** bere hitzez eta eginez bihotzean ez dituen sentipenak adierazten dituenean. Joan Mari Lekuona
Ez fidatu **itxuraz** . **-Itxuraz** aldatzen den zerbait -erantzun zion-; bere ustez jendea gehien ikaratuko duenaren forma hartzen du. Iñaki Mendiguren
Bigarrena zen egun hartan, arratsaldean bere arrano **itxurazko** totema zeru urdinean ikusi baitzuen. Aurelia Arkotxa

## 14 *itxuraz*[2] (-en atzizkiaren eskuinean)

Minbiziaren lehenengo abisua min bizi baten **itxuraz** agertu zen. Iñaki Arranz
Esker onaren **itxuraz** mozorrotua. Imanol Zurutuza
Han eseri zen hipaka, panpin handi eta oso itsusi baten **itxuraz** . Iñaki Mendiguren
Banekien nire **itxuraz** ari zirela. Aingeru Epaltza
Bere **itxuraz** Harryk atsegin zuen gauza bakarra bekokian zeukan orbain txiki-txikia zen, tximista-forma zeukana. Iñaki Mendiguren

Nbaten **itxuraz,** bizar jaioberria eta gaztetasunaren distira zituela. Juan Kruz Igerabide

Detektibea atezuan bizi da badaezpada, bizitzak erakutsi baitio ez duela fidatu behar ezeren **itxuraz,** inoren hitzez, edonolako mozorroz, distira txinpartatsuetako erretorikaz. Anjel Lertxundi

## 15 *itxuraz*[3] (hitz elkartuen bigarren osagai gisa)

Formula matematiko haiek guztiak eta haien garapenak zientzia-**itxuraz** mozorrotutako arrunkeriak baizik ez ziren. Josu Zabaleta

Etenik gabe mintzatzen zen, zentzudun **itxuraz**. Monika Etxebarria

Baina irribarreari eutsi zion, logale **itxuraz**. Monika Etxebarria

Eskua eraman zuen begietara nekatu **itxuraz,** eta burua inarrosi zuen. Monika Etxebarria

Abaildu **itxuraz** gogoetei emana egon zen pixka batean. Migel Angel Mintegi

· Bigarrena zen egun hartan, arratsaldean bere arrano **itxurazko** totema zeru urdinean ikusi baitzuen. Aurelia Arkotxa

*ik* itxurazko.

## 16 *itxura antzean* (*orobat* ***itxurantzean***) *adlag* ik **itxuran.**

Gure etxea **itxura antzean** gobernatzen saiatzen naiz -ihardesten zion zorrotz emazteak-. Mirentxu Larrañaga

Indartsu dagoen nola dakien galdetu diogu: «Bueno, Azpeitia inguruko mendateetan denborak eta bihotz taupada erritmoak ditut hartuta: Errezil, Beizama, Mandubia; **itxura antzean** ibili naiz han». Berria - Kirola

Erdoziak **itxurantzean** jardun zuela adierazi zuen saioaren amaieran, baina ez erabat gustura. Berria - Kirola

## 17 *itxura batean* *adlag*

**Itxura** batean, berdin zitzaion edozein lekutatik hastea. Xabier Olarra

Ikusi dugu **itxura** batean trinkoa dirudien hezurrak ere badituela halako barrunbe batzuk zelula bizientzat. Irene Aldasoro

**Itxura** batean akatsa dirudien horrek badu noski bere esplikazioa. Irene Aldasoro

**Itxura** batean birjina bat pertsona agorra da, baina bera da emankorrena ere bere bihotzean. Joan Mari Lekuona

Oximorona dirudi, ika-mikak **itxura** batean behintzat, nekez baitira elkarren aldekoak. Andoni Egaña

Stephenek neskenganako duen ardura, haiekiko fantasiak, oso normalak dira **itxura** batean; oso nerabe kutsukoak, nolabait esateko; eta, hala ere, giza eta gizarte aldetik falta sakona islatzen duen umetasun eta xalotasun nabarmena dute ezaugarri. Xabier Olarra

**Itxura** batean adimenaren mugak gainditzen zituen metamorfosi sekulako hori nolabait azaltzeko. Juan Garzia

Gero, hiruzpalau errezeta egin, eta hantxe joan zitzaidan atsoa, **itxura** batean pozik. Joan Mari Irigoien

Alegia, terapia genikoak ez du zentzurik, **itxura** batean, hor. Juan Garzia

Denak leku berean jarraitzen zuen, **itxura batean**. Jon Maia

## 18 *itxura batera* *adlag*

**Itxura** batera, ez zitzaion afariko haserrearen izpirik geratzen. Bernardo Atxaga

**Itxura batera,** ez zegoen haien artean inolako ezinikusirik. baina **itxura batera** zabarra den diseinu horrek badu bere arrazoia. Bernardo Atxaga

Haren hitz nagi eta ahopekoek, **itxura** batera, gai hartaz kokoteraino zegoela adierazi nahi zuten. Mirentxu Larrañaga

Izen asko lurralde bakarrarentzat, **itxura** batera. Bernardo Atxaga

Kanpalekuaren aurre-aurrean, hamahiru zaldi zeuden, sentiberak eta urduriak **itxura batera**. Felipe Juaristi

## 19 *itxura denez* *adlag*

**Itxura** denez, Gavard jauna ez da inoiz ordu bata baino lehen etxeratzen. Karlos Zabala

Aipatu ostiralean Donostian izan zen zure laguna, lekukoak daude, eta **itxura** denez gaua ere bertan igaro zuen. Migel Angel Mintegi

· Bereziki garbia zen hori Nadiaren kasuan, **itxura** zenez ez baitzituen pasatu zirrimarra, eskematizazio eta zapaburu faseak. Xabier Olarra

Ehunka konposatu antzemangaitzak, bestelako sedimentu anonimo, **itxura** zenez aspaldiko belaunaldietatik ukitu gabeak. Juan Garzia

## 20 *itxura egin*

Gainerakoa, jaten zuen **itxura** eginez, kolkoan gordetzen zuen. Askoren artean

Hura han zela ez zekitelako **itxura** egiten zuten. Monika Etxebarria

Elkar biziki maite zutelako **itxura** egiten zuten. Karlos Zabala

Hanka hautsia neukalako **itxura** egiten bainuen. Bernardo Atxaga

Haserretuaren **itxura** egin zuen Idoiak, agian pixka bat egon ere bazegoen eta. Juan Kruz Igerabide

Altxatu eta alde egiteko **itxura** egin zuen. Karlos Zabala

Gure amari, hori entzunda, alditxar antzeko bat etorri zitzaion, baina nik uste **itxura** egiten ari zela. Pello Lizarralde

## 21 *itxura eman*

Horrek madonnatxo gaizto baten **itxura** ematen zion. Irene Aldasoro

Aukera egiten zalantzan dabilenaren **itxura** ematen ahalegintzen. Migel Angel Mintegi

Nire ideiari purrustada baten **itxura** eman niezaiokeela pentsatu nuen. Monika Etxebarria

Betaurreko txiki batzuk zeramatzan, intelektual **itxura** ematen ziotenak. Bernardo Atxaga

Saioari seriotasun **itxura** emateko. Migel Angel Mintegi

Zuzen-zuzen doan gezi baten **itxura** eman zion ziurtasun erabatekoarekin. Jose Morales

Ez oso handia baina egokia, jende asko bildu gabe ere **itxura** emateko modukoa. Unai Iturriaga

## 22 *itxura gaizto*

Ez nuen lankide saltzaileak ikusteko gogorik izaten, **itxura gaiztoa** zuten, besterik ez esatearren. Joxan Elosegi

Erdi biluzik, galtzak eta alkandora tarratatuak, **itxura gaiztoan,** batere estalkirik gabe, ez manta ez zilarrezko paper ez kristorik, beste dozenaka edo ehunka gorpuren ondoan. Karlos Linazasoro

Amonak ageriko gogo txarrez esaten zigun sartzeko, eta jenderik gabeko gela haustsuzko ilara batean zehar eramaten gintuen, zeinetariko bat, **itxura gaiztoko** tresna hitsez josia, Doktorearen bulego erdi utzia baitzen. Juan Garzia

Glosolalia edo heterofasia edo buru-nahasmendu edo eldarnio **itxura gaiztoko** hura. Karlos Linazasoro

Hor ditugu lekuko Aragón bezalako izen itxuragabekoak; Araxes bezalako izen **itxuragaiztokoak**. Iñaki Segurola

· *izond* Borge jauna hilurren zen, odol-borbor **itxuragaiztoan,** bragetako botoiak lotsagabe irekita zituela. Karlos Linazasoro

## 23 *itxura galdu*

Gaur, etxeak hor daude, baina landa etxeen **itxura** galdu dute: eraikinak dira, ez besterik. Monika Etxebarria

Tamalgarria, gaztetako **itxura galdua** izana. Edorta Jimenez

Hiri **itxura galduz** doa ingurua. Lourdes Oñederra

Muxu eman bezain laster orein-**itxura galdu** eta printze eder bat bihurtuko haiz. Kolpetik, nire gizaki **itxura** galdu dut. Joan Mari Irigoien

· *(orobat itxuragaldu)* Hogeita hamartsu urterekin, haren berezko fintasuna, haren larruazal leuna, [...], haren hanka-beso arinak, loditzen eta **itxura galtzen** hasiko ziren, beirateko santu alfertu baten moduan. Karlos Zabala

Nik begiratu bizkor bat bota nion, eta ikusi nuen ongi zahartu zela, **itxuragaldu** gabe. Juan Garzia

Kale egin zuten aurrelariek, kale joko antolatzaileek, taldeak **itxura galdu** zuen, loturarik ez zeukan. Berria - Kirola

Paul ihartuta zegoen, **itxura galduta;** Minta lerden, axolarik gabe. Anton Garikano

## 24 *itxura-galdu* *(orobat* ***itxuragaldu****)* *izond*

Feltro beltzeko kapela zeraman buruan, kixkalia eta **itxura-galdua**. Karlos Zabala

Hara iritsi bezain pronto, Emmanuel ikusi baitzuen, inoiz baino **itxura galduago**. Joan Mari Irigoien

Gure errituen oihartzun **itxuragalduren** batek Tiber aldean atera bide du geroztik hotsik. Juan Garzia

Hazpegiak **itxuragaldu** samarrak. Juan Garzia

## 25 *itxurak gorde*

Ibiltzen jarraitzen du, **itxurak** gordetzearren, kopeta goian duela. Itziar Otegi

**Itxurak** gorde behar, Patri. Hasier Etxeberria

Halakoetan, kotxezain berritsuaren eskuek zabarki eusten zieten hedeei, eta zigorra **itxurak** gordetzeko soilik dantzatzen zen bizkar gainean. Jose Morales

**Itxurak** gordetzeko, Van Daandarren leiho parean geratu nintzen lehendabizi, baina handik pixka batera Peter ikustera igo nintzen. Josu Zabaleta

Faxistek, bonbardaketa egin ondoan, gasolina edo ezantzaz busti zuten hiria eta su eman, **itxurak** gordetzeko gisan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Itxurak** ondo gordetzea baino gehiago bazela uste dut, benetan nahigabetzen baitziren haserrealdiren bat zutenetan. Anjel Lertxundi

## 26 *itxura guztien arabera*

Zeren, **itxura** guztien arabera, mozkor-mozkor eginik baitzegoen, galdua zuten, **itxura** guztien arabera, oharmen erne eta argia. Jose Morales

Hilketa bat, **itxura** guztien ariora. Aingeru Epaltza

Bisitan etorri zitzaidaan, eta, **itxura** guztien arabera, sinistu egin zian nik kontatu niona. Anjel Lertxundi

**Itxura** guztien arabera, biziki ona zen bere emaztearentzat. Daniel Landart

## 27 *itxura hartu*

Ateneak, begiak dir-dir, Telemakoren **itxura** hartu zuen orduan. Juan Kruz Igerabide

**Itxura** hartzen ari zen panpina, eta Manu pozik zen. Jasone Osoro

Trantsilvaniaraino joan beharra al dago Drakularen **itxura** hartzeko gure Basa Jaunari? Anjel Lertxundi

Hain hauskorra zirudienak harkaitz baten **itxura** hartu zuen. Aingeru Epaltza

Gezur txiki bat ederreztatzea egia txiki baten **itxura** har dezan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Etsipenak, etsimenduak eta ernegazioak argialdiaren **itxura** ere har lezakete zenbaitetan. Iñaki Segurola

Aitortu behar dut ikasle zintzo eta atseginen **itxura** hartu dizuedala. Bernardo Atxaga

Haragiak ere bere ohiko **itxura** hartu zuen. Askoren artean

Poetek eta poesia-irakurleek aspaldi hartu zuten sekta **itxura** hartzen ari dira narratzaileak eta narrazio-irakurleak. Anjel Lertxundi

Ilargiak odol-**itxura** hartuko du. Elizen arteko biblia

· Ahotsa apaldu eta **itxura** maltzurra hartu du. Monika Etxebarria

Hau **itxura** itsusia hartu dudana! Jose Morales

Ez dakit nola erran, baina munduak, handik goiti, enetzat beste **itxura** bat hartu zuen. Janbattitt Dirassar

Gelak **itxura** erabat maskulinoa hartu zuela. Mirentxu Larrañaga

Ezbehar handi batek jo duen gizonaren **itxura** bihotz-eroria hartzen zuela. Karlos Zabala

## 28 *itxura-nahasi* du *ad*

Badaki harremanetarako paradigma litzatekeen gizonen amets hori [...] zenbat **itxura** -nahasten duten emakumeek. Pako Aristi

## 29 *itxurak egin*

Hara, ez dut zurekin **itxurak** egiten ibili nahi. Jon Muñoz

**Itxurak** egin, behintzat. Oskar Arana

**Itxurak** egiteko besterik ez bada ere. Patxi Zubizarreta

**Itxurak** egiten ez dakienak, bizitzen ere ez zakik. Patxi Zubizarreta

Lo bete-betean zegoen, noski, eta ez **itxurak** egiten. Ibon Uribarri

Gizon argiaren **itxurak** egiten ditu orain, baina amarrua baizik ez da hori. Oskar Arana

Oi, zu prefektua zara, Percy? -esan zion bikietako batek, harrituaren **itxurak** eginez-. Iñaki Mendiguren

Hortaz, ez nekienaren **itxurak** egin nituen hark ezagun nituen kontuak aletzen zizkidan bitartean. Oskar Arana

Eta zer demontre lortu nahi duk hik anaia bat duan **itxurak** eginez! Antton Olano

Giltza aurkitzen ez nuelako **itxurak** egin nituen, baina obeditu behar izan nion azkenik. Jon Muñoz

Txostena aztertzen ari zirelako **itxurak** egiten zituzten, eta dardaraka hasten ziren nagusia azaltzen zen bakoitzean. Jose Morales

Zer diogun badakigulako **itxurak** egiteko. Iñaki Segurola

Pentsatzeko **itxurak** egin nituen une batez, eta gero esan nuen: [...]. Xabier Olarra

**-Itxurak** egin ditzakezu ez dakizula ezer eta bakean utzi eurak. Oskar Arana

Ergelkeria horiek guztiak sinesten ditudalako **itxurak** beharko ditut bada egin, eta etsipenez beharko naiz akitu, andre horrek zorrotz antzean ibiltzea laket duelako! Jon Muñoz

· Ankerkeria erakusten zuen koldartasuna ezkutatzeko, zakarkeria tolesgabetasun-**itxurak** egiteko. Koro Navarro

Hurtadok lo **itxurak** egin zituen. Josu Zabaleta

Zoro-**itxurak** egin zituen haien aurrean, haien artean erotuak bezala jokatuz. Elizen arteko biblia

Emakumeen % 30 "zenbaitetan" orgasmo **itxurak** egitera behartuta sentitzen dira. ez nintzen **itxurak** egiten ari, ez egile **itxurak** ez ikusle **itxurak**. Luis Elberdin

Haatik, nire beldurrak uxatzeko eskatu dizudalarik ele bat, ele bat bakarra, ihardetsi beharrean, adituko ote zintuzten beldur **itxurak** egin dituzu Jon Muñoz

## 30 *itxurak hartu*

Esaten hasi zitzaidan nik askotan hitz egiten nuela "geroago" gertatuko zirenez, eta dama handien **itxurak** hartzen nituela. Josu Zabaleta

Europa, Amerika, Afrika, India, munduko xoko desberdinetan diren merkatuen **itxurak** hartuko ditu Kanboko Eguberriko merkatu honek. Herria

Hitz egiten dudanean handi **itxurak** hartzen ditudala. Josu Zabaleta

Gizon hark, gauza askorik ez bazekien ere, katedradun-**itxurak** hartu nahi zituen. Josu Zabaleta

## 31 *itxurak ixura*

Itxurak **itxura,** ni bezalako oilo koloka huen Senpe ere. Hasier Etxeberria

**Itxurak** itxura, berrogei bat urteko gizona zen. Patxi Zubizarreta

**Itxurak** itxura, Otsotzarmendi jaunari ez zion gertaerak mesederik egin. Karlos Linazasoro

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 7 aldiz agertzen direnak)**

**ari den itxura** (8); **arrunt beste itxura** (8); **baina itxura** (48); **bainan itxura** (8); **baino itxura** (28); **baino itxura hobea** (11); **batek itxura** (10); **baten itxura** (242); **baten itxura du** (10); **baten itxura eman** (7); **baten itxura ematen** (22); **baten itxura guztia** (7); **baten itxura hartu** (22); **baten itxura hartzen** (10); **baten itxura zeukan** (10); **baten itxura zuen** (18); **batere itxura** (24); **batere itxura onik** (16); **bere itxura** (69); **beren itxura** (14); **bertze itxura** (7); **bertze itxura bat** (7); **beste itxura** (61); **beste itxura bat** (47); **bestelako itxura** (19); **betiko itxura** (9); **bezalako itxura** (10); **da itxura** (25); **dagoen itxura** (7); **dagoenaren itxura** (7); **dauka itxura** (7); **den itxura** (23); **dena itxura** (7); **du itxura** (21); **duen itxura** (33); **duten itxura** (10); **edo itxura** (19); **egia itxura** (8); **emandako itxura** (15); **ere itxura** (30); **eta bere itxura** (7); **eta itxura** (221); **eta itxura guzien** (8); **eta itxura guztien** (15); **ez da itxura** (11); **ez dauka itxura** (7); **ez du itxura** (12); **ez itxura** (9); **ez zen itxura** (7); **ez zuen itxura** (10); **gero eta itxura** (7);

**giza itxura** (14); **haien itxura** (17); **hain itxura** (22); **halako itxura** (25); **haren itxura** (62); **horrek itxura** (9); **horren itxura** (15)

**itxura aldatu** (10); **itxura aldatzen** (7); **itxura baino** (13); **itxura baino ez** (7); **itxura bat** (96); **itxura bat eman** (10); **itxura bat ematen** (8); **itxura bat hartu** (10); **itxura batean** (225); **itxura batean behintzat** (11); **itxura baten** (8); **itxura batera** (40); **itxura batez** (9); **itxura beldurgarria** (12); **itxura bera** (28); **itxura berezia** (7); **itxura berri** (11); **itxura berria** (11); **itxura besterik** (19); **itxura besterik ez** (18); **itxura bikaina** (11); **itxura bitxia** (10); **itxura da** (15); **itxura dauka** (21); **itxura daukan** (8); **itxura denez** (114); **itxura du** (45); **itxura duela** (7); **itxura duen** (31); **itxura duena** (7); **itxura dute** (9); **itxura duten** (16); **itxura eder** (12); **itxura ederra** (42); **itxura ederreko** (14); **itxura ederrekoa** (10); **itxura ederrekoak** (8); **itxura edo** (11); **itxura eduki** (7); **itxura egin** (49); **itxura egin nuen** (10); **itxura egin zuen** (8); **itxura eginez** (27); **itxura egitea** (8); **itxura egiteko** (18); **itxura egiten** (54); **itxura egiten zuen** (7); **itxura eman** (75); **itxura eman nahi** (23); **itxura emanez** (18); **itxura emango** (9); **itxura ematea** (12); **itxura emateko** (30); **itxura ematen** (106); **itxura ematen dio** (10); **itxura ematen du** (9); **itxura ematen zion** (14); **itxura ematen zioten** (17); **itxura ere** (31); **itxura eskasa** (14); **itxura eta** (82); **itxura ez** (29); **itxura ezin** (19); **itxura gehiago** (9); **itxura guzien** (97); **itxura guzien arabera** (96); **itxura guztia** (22); **itxura guztiak** (13); **itxura guztien** (199); **itxura guztien arabera** (190); **itxura guztiz** (9)

**itxura handiagoa** (20); **itxura handirik** (12); **itxura har** (11); **itxura hartu** (97); **itxura hartu zuen** (41); **itxura hartua** (7); **itxura hartuko** (16); **itxura harturik** (8); **itxura hartuta** (9); **itxura hartzeko** (7); **itxura hartzen** (105); **itxura hartzen ari** (13); **itxura hartzen du** (19); **itxura hartzen zuen** (11); **itxura hartzeraino** (7); **itxura hobea** (38); **itxura hobea eman** (12); **itxura hori** (51); **itxura horrekin** (8); **itxura hutsa** (37); **itxura hutsa zen** (7); **itxura ikusi** (9); **itxura ikusita** (12); **itxura izan** (23); **itxura izango** (22); **itxura izango du** (8); **itxura izugarria** (8); **itxura kaskarra** (18); **itxura negargarria** (8); **itxura ona** (135); **itxura ona du** (8); **itxura ona eman** (31); **itxura ona ematen** (8); **itxura ona hartu** (7); **itxura onean** (9); **itxura oneko** (30); **itxura onekoa** (11); **itxura onik** (45); **itxura oso** (16); **itxura osoa** (10); **itxura penagarria** (12); **itxura pixka** (9); **itxura pixka bat** (7); **itxura polita** (8); **itxura soila** (10); **itxura transzendental** (7); **itxura tristea** (7); **itxura txarra** (46); **itxura txarra eman** (11); **itxura txarreko** (12); **itxura txarrik** (9); **itxura txukuna** (13); **itxura xelebrea** (10); **itxura zenez** (15); **itxura zeukan** (43); **itxura zuen** (104); **itxura zuena** (12); **itxura zuten** (35)

**izateko itxura** (15); **kanpoko itxura** (14); **kanpotik itxura** (7); **lehengo itxura** (11); **nekatu itxura** (10); **nire itxura** (12); **nolako itxura** (27); **normaltasun itxura** (10); **orduan itxura** (7); **oso bestelako itxura** (7); **oso itxura** (74); **oso itxura ona** (21); **oso itxura txarra** (9); **talde itxura** (12); **ze itxura** (12); **zein itxura** (7); **zelako itxura** (11); **zen itxura** (21); **zer itxura** (58); **zer itxura duen** (8); **zer itxura zuten** (7); **zerbaiten itxura** (7); **zion itxura** (7); **zuen itxura** (45); **zure itxura** (11); **zuten itxura** (7)

**baina itxuraz** (23); **baten itxurak** (10); **baten itxurako** (13); **baten itxurakoa** (9); **baten itxuran** (31); **baten itxurarik** (11); **baten itxuraz** (11); **beste itxurarik** (9); **bihotz itxurako** (11); **da itxuraz** (12); **ere itxuraz** (7); **eta itxurak** (18); **eta itxuraren** (7); **eta itxuraz** (87); **eta itxurazko** (14); **haren itxurak** (15); **itxurak egin** (91); **itxurak egin behar** (15); **itxurak egin nituen** (13); **itxurak egin zituen** (22); **itxurak eginez** (83); **itxurak egitea** (35); **itxurak egiteko** (26); **itxurak egiten** (111); **itxurak egiten ari** (17); **itxurak egiten hasi** (9); **itxurak egiten zituen** (13); **itxurak egitera** (9); **itxurak eta** (12); **itxurak ez** (7); **itxurak gordetzeko** (8); **itxurako bat** (23); **itxurako gizon** (22); **itxurako zerbait** (12); **itxurakoa eta** (7); **itxuraren arabera** (15); **itxurarik egin** (8); **itxurarik eman** (7); **itxurarik ere** (11); **itxurarik ez** (19); **itxurarik gabe** (7); **itxuraz bederen** (11); **itxuraz behintzat** (45); **itxuraz ere** (9); **itxuraz eta** (19); **itxuraz ez** (23); **itxuraz hain** (9); **itxuraz oso** (11); **itxurazko mugimendua** (8); **itxuren arabera** (55); **lehergailu itxurako** (8); **lo itxurak** (8); **nintzelako itxurak** (10); **zelako itxurak** (11); **zen itxuraz** (16); **zilar itxurako** (10); **zuen itxuraz** (13)

---

itxurabako ik **itxuragabe 3**.

---

**itxuraberritu**, itxuraberri(tu), itxuraberritzen du *ad* itxura eraberritu.

Ruche jaunak aurkeztu zien letraz goitik behera jositako idazkera hartan erabat irakurrezinak ziren formulak; **"itxuraberritu"** egingo zituzten J-eta-Lk. Jon Muñoz

---

**itxuradun 1** *izond* itxura (ona) duena.

Sandra naiz, bi bular ederreko 25 urteko neskatxa **itxuraduna**. Josetxo Azkona

Hala nola, eskerronezko bestak, xabalina jaurtiketak, zaldizkoen edo oinezkoen itzaleko gudukak, herensuge edo armagizon **itxuradunekin,** elkar joz beso batean beste besoan baitute min hartzen, ariketak arranbelekin, [...]. Piarres Xarriton

**2** *izlag* itxurako.

Itsas txakur **itxuradun** gizona. Urtzi Urrutikoetxea

Eraikuntza gotorrak dira, kubo **itxuradunak** eta tokiz alda daitezkeenak. Berria - Euskal Herria

---

**itxuragabe 1** *izond* itxurarik edo funtsik ez duena. ik **eragabe.**

Haurrak deformeak eta **itxuragabeak** baziren, abandonatzeko baimena ematen zien. Iñaki Iñurrieta

Lurrean, argizuloaren azpian, masa **itxuragabe** bat zetzan. Patxi Zubizarreta

Mamu **itxuragabeek** pertsegitzen zituzten. Elizen arteko biblia

Emakume guztiz gorrotagarri bat, deabru egiazko bat, urtero, nahita, haur **itxuragabeak,** nazkagarriak, beldurgarriak, munstroak, hitz batean, egiten dituena, eta gero munstro-erakusleei saltzen dizkiena. Josu Zabaleta

Poeman agertu arte, ideiak izengabe, **itxuragabeak** dira; sortzeko zorian daudela, sentitu egiten ditugu, eta izendatu egiten ditugu. Javi Cillero

Inguruan zituen emakumeen kapela **itxuragabeei** begira egon zen. Mirentxu Larrañaga

Dosier funsgabe eta **itxuragabe** baten bitartez. Berria - Mundua

Ia liburu guztiak **itxuragabeak** eta kaotikoak baitira, izan ere. Juan Garzia

Oroimenezko izaki guzti haien isiltasun metatuek multzo **itxuragabea,** multzo taxugabea, osatu balute bezala. Felipe Juaristi

Haren ordez, egiturarik gabeko formen aldeko joera nabari daiteke, bereizgarririk gabeko collage orokor **itxuragabearen** aldeko joera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Gertakizun **itxuragabea** eta sekula inori buruan pasatu gabea. Patxi Ezkiaga

Bukaera ona, Don Kijote kementsuak haize-errotetako borrokaizun ikaragarri eta **itxuragabe** hartan izan zuena. Patxi Ezkiaga

Atsegin **itxuragabe** baten bila zebilelako izan al zuen amets **itxuragabe** hura? Ibon Uribarri

Ameskeria **itxuragabeetarako** joera nabarmena. Ander Irizar

Zeregin **itxuragabea,** ilunetan eserita neska baten zelatan egotea. Oskar Arana

Hainbat gauza **itxuragabe** eta lizun esatera ez ezik, egitera ere behartzen dituzte. Askoren artean

Zaila zen ulertzea non izan ziren lehenago ilunpe kontaezin, **itxuragabe,** isil haiek guztiak, gauza mutuen arima mutu haiek. Jose Morales

Nolabait ere eraiki egin behar da nortasun bat, nork bere burua harturik buztintzat, berez **itxuragabea** dena landuaz izate horri forma bat emateko, muga eta irudi jakinak izango dituena. Xabier Mendiguren Elizegi

Bazookarena guztiz **itxuragabea** da, osoro neurriz kanpokoa. Karlos Linazasoro

Barojak ez zuen Unamunok baino fede gehiago euskararen biziberritzean eta gaitasunean, baina nabarmenkeria **itxuragabea** iruditu zitzaion Bilboko hitzaldia. Xabier Mendiguren Elizegi

**2** guztiz handia, izugarria.

Orduantxe jabetu nintzen dozenaka edo ehunka zirela, zinez, hildakoak, […] halako masa **itxuragabe** bat osatuz, itsaso zuri baten tankerakoa. Karlos Linazasoro

Etxetto zapal goibel hura egoniko lekuan egurrezko habe eta adreilu pila **itxuragabea** agertu omen zen. Alberto Ladron Arana

Zenbat disparate egin zituen Eliz Amak, ezinbesteko eta premiazko ez ziren aginddu-magindduei garrantzi **itxuragabea** emanez! Pello Zabala

Gonak ere handi zabalean **itxuragabeak**. Patxi Ezkiaga

**3** (adizlagun gisa) ik **itxuragabeki.**

**Itxuragabe** okertua eta burua sorbaldari itsatsia zuen. Askoren artean

Iikusia zuen Frantzisko bere ahaide eta ezagunen artean **itxuragabe** jokatzen eta bere zentzugabekeriaz beste guztien gainetik nabarmentzen. Askoren artean

Bere hiriko emakume **itxuragabe** konkortu bat ekarri zion gogora. Askoren artean

Minbizia bezala hazi da, **itxuragabe**. Javi Cillero

Aire egokitura egokitu zirenetik, **itxuragabe** itsusitu dira mamuak. Joxerra Garzia

Kontsumogaiak **itxuragabe** ugaltzearekin batera, neurri berean ari dira agertzen ezinaren ezinez zapuzturiko pertsonak. Iñaki Heras

**4** ***itxuragabeko*** *(orobat* ***itxurabako****)* *izlag* itxuragabea; guztiz handia.

Zalduneria liburu zoro horietan datozen **itxuragabeko** erokeria horiek. Patxi Ezkiaga

**Itxuragabeko** eta zuzengabeko egoera hortara ez heltzeko. Herria

Eta Jaungoikoaren goi-ardurak ez du horregatik desohorerik nozituko, bidegabekoak justiziaz tratatzen dituelako, eta **itxuragabekoak** ordenaren edertasunaz estaltzen dituelako. Imanol Unzurrunzaga

· **Itxuragabeko** kalteak. Pello Zabala

Uholde **itxuragabekoak** bazterrak garbitzen eta triskatzen. Pello Zabala

5.000 hildako utzi zituen eurite eta uholde **itxurabako** hark. Pello Zabala

160 kilometrotik gorako haize boladek, zuhaitz eta teilatu, bazter asko hankazgora utzi, eta triskantza **itxuragabekoak** eragin zituzten. Pello Zabala

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itxuragabe** (3); **eta itxuragabeak** (3); **hain itxuragabe** (3); **itxuragabe bat** (5); **itxuragabe baten** (3); **itxuragabe eta** (8); **itxuragabea da** (3)

---

# itxuragabekeria *iz* egite edo esate itxuragabea.

Gazteen hezkuntza telebistaren esku uztea **itxuragabekeria** beldurgarria da. Berria - Kultura

Ase eta bete egin zitzaion irudimena liburuetako gai haietaz: aztigintzak zirela edota auzi haserreak, guda borrokak, norgehiagokak, zauriak, maite-moduak, maiteminak, erasoak eta ezinezko **itxuragabekeriak**. Patxi Ezkiaga

Horrek ez badu halako **itxuragabekeriarik** sortzen. Santiago Iruretagoiena

Elgarretaratzen dira eta, denborak bere eragina baitauka, mintzatzen dira gerlaz, gerlaren **itxuragabekeriaz,** gerlaren ondorio latzez, biek pairatu dituztenak Herria

---

# itxuragabeki **1** *adlag* itxuragabe, eragabeki.

"Nondik dakik hik justu hidrogenoa eta oxigenoa direla?", esan zidan **itxuragabeki**. Juan Garzia

Zango itsusi baten ideia bera espekulazio filosofikoaren egintza bikainen artean bere lekua izateko bezain **itxuragabeki** orijinala zen! Xabier Olarra

Blanxadia gelditu da bakarrik, iparrak orraztatzen duen porroskaz betezko hondartza, eta behin, Portutxoa ezin ulertuz, frantsesek **itxuragabeki** Port aux Choix bataiatu zuten portu xumea. Aurelia Arkotxa

**2** txit asko, izugarri.

Doktorearen begiak urduri mugitzen ziren, eta haiek ere bi arrain arraro ziruditen, gorrituak, **itxuragabeki** puztuak. Alberto Ladron Arana

---

# itxuragabetasun *iz* itxuragabea denaren nolakotasuna.

Egia ziren horman eskegitako gona higatu eta zimurtu haiek, beren **itxuragabetasun** agerikoarekin. Jose Morales

Dibertitzeko elkartzen badira, bakoitzak gehiago atsegin ditu, ridikuluari erreparatuz, barregura sortzen duten gauzak, baldin eta bere izen ona indartuta irteten bada, besteen **itxuragabetasunarekin** edo ahuleziarekin konparatuz gero. Esteban Antxustegi

---

# itxuragabetu, itxuragabe(tu), itxuragabetzen **1** du *ad* itxuragabe bihurtu, itxura galdu. ik **desitxuratu; itxuratxartu**.

Bat-batean, amaren aurpegia modu ikaragarrian zimurtu zen, **itxuragabetu,** asaldatu, malkoz bete. Jose Morales

Gaitzak gorputza **itxuragabetu** eta itsusten du. Berria - Gaiak

Agure xahar musugorri bat zen, sendoa, eskuak lodi-lodiak zituena, lanak eta artritisak **itxuragabetuak**. Juan Garzia

Kirika eginez baso barren hartara non argi-itzalek den-dena laukitu eta forma guztiak **itxuragabetzen** baitituzte. Anton Garikano

Whittaker andrea beti moldatzen zen, nolabait, kontuak **itxuragabetu** baino lehen geldiarazten. Mirentxu Larrañaga

Batzuk zapalduta eta **itxuragabetuta** zeuden, eta beste batzuk labanaz basatiki sastatuak. Agustin Otsoa

Euskal toki izen asko **itxuragabetu** egin dira, erdarazko hitzak, artikuluak edo preposizioak gogoan: Larrun, La Rhune; Larraineta, La Reineta, […]. Iñaki Arranz

Denok dugu hitz berri bat asmatzeko edo hitz zahar bat **itxuragabetzeko** ahalmena. Iñaki Arranz

"Havertà" hebreerazko hitza da, bai formaren eta bai esanahiaren aldetik **itxuragabetua**. Juan Garzia

Hitz bete hauetan, berriz, formak bere horretan dirau, esanahia da eraldatu eta **itxuragabetua** agertzen zaiguna. Iñaki Arranz

Begiak zuloetatik ateratzeko zorian jarraitzen zuen, aurpegia oinazeak **itxuragabetuta**. Ramon Saizarbitoria

Betzuloak hustu zizkioten eta begiko nerbioak ere aiztoz ebaki; horrela **itxuragabetuta,** Frantzisko dohatsuaren aldare aurrera eraman zuten. Askoren artean

Sen estetikoa erabat **itxuragabetua** eta atrofiatua du hori dioenak. Karlos Zabala

**2** (era burutua izenondo gisa)

Rosalind-en begirada belarri **itxuragabetura** itzultzen da behin eta berriro. Oskar Arana

Karrikaren bestaldean zutik dagoen gizasemeak Lainezen isla **itxuragabetu** bat irudi lezake. Pello Lizarralde

Beste hizkuntza bateko hitz **itxuragabetuak**. Iñaki Arranz

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itxuragabetu egin** (4)

---

# itxuragabetze *iz* itxuragabe bihurtzea, itxura galtzea.

Gaixotasunak, **itxuragabetzeak,** usteltzeak mendean har dezakeen abere makina. Josu Zabaleta

Esanahia ere **itxuragabetzearen** oinarrian egon daiteke, ondoko adibideetan ikusiko dugunez. Iñaki Arranz

Gutunean Aznarrek esan zuen horrelako «gezurrak, gehiegikeriak eta **itxuragabetzeak»** PSOEk PP baztertzeko antolatu duen kanpaina baten zati direla. Berria - Mundua

---

# itxuragaitz *izond* itxura gaiztokoa.

Esan beharra dago bulegoko funtzionarioak izugarri itsusiak eta **itxuragaitzak** zirela. Jose Morales

Horrenbestez, bakea eman diezaiogun Plaza Eliptikoko munstro **itxuragaitzari,** ez dezagun oraingoz iratzar, helduko zaio-eta hiritar sinesgogorren aurrera agertzeko garaia. Patxi Iturritegi

---

itxuragaizto ik **itxura 22**.

---

**itxuragaiztu**, itxuragaitz, itxuragaizten da/du *ad* itxuratxartu.

Baliteke lirikarako bere barne-oldarra hilik ez izatea baina, hamarka urtetan ahitzen egon ondoan, narrasean baino ezin da atera leize-zulotik, higaturik, herbaldurik, **itxuragaizturik**. Oskar Arana

---

itxuragaldu ik **itxura 23; itxura 24**.

---

**itxuragile** *izond* itxurak egiten dituena.

Seguruenik Jordan bera da **itxuragilea**. Askoren artean

---

**itxurakeria** **1** *iz* itxuratiaren bizioa; itxurak egite gaitzesgarria.

**Itxurakeria** eta bikoizkeria. Elizen arteko biblia

Bertan dena da simulazioa, **itxurakeria,** bikoizketa eta mozorroa. Joxean Agirre

**Itxurakeriak,** azpikeriak, bide ilun eta okerrak, saihestu egiten dira gehienetan. Juan Martin Elexpuru

Utz ditzagun **itxurakeriak:** hi haiz zuhurrena eta buruz bizkorrena hilkorren artean; ni, aldiz, jainkoen artean. Juan Kruz Igerabide

Literatura fantastikoa, Borgesek berak idatzi zuenez, errealismoaren **itxurakeriak** baino zaharragoa eta egiazkoagoa dela. Bernardo Atxaga

Gogoratu, zeure burua engainatzen zenuen hitzekin, abentura esaten zenion **itxurakeriari,** bidaien, nesken, liskarren, itxurapenei eta gezurrezko dirdirari. Monika Etxebarria

Gauza hutsalei kasurik egin gabe, **itxurakeria** gezurtiei erreparatu gabe. Imanol Unzurrunzaga

**Itxurakeriarik** gabe, naturaltasunez. Ramon Saizarbitoria

**Itxurakeriarik** gabeko sinesmen benetakoa. Askoren artean

Beti txantxetan eta **itxurakeriatan** ibili behar dugu. Mirentxu Larrañaga

Neskak lehentxeago emandako estutuan bazegoen zerbait hika egiteko, konplimenduak esateko eta **itxurakeriatan** jarraitzeko gogoa kentzen ziona. Jose Morales

Konturatzen zara guztiak ez direla berdinak kontu horretan, gehienak **itxurakerietan** ibiltzen direla. Patxi Iturritegi

**2** ***itxurakerian***

Hori jasanen duen gizonik ez dago, nik uste, non eta **itxurakerian** ari ez den. Joxe Austin Arrieta

Edo bertzenaz, Gérard-ek badaki **itxurakerian** ibiltzen denbora guzian. Eneko Bidegain

**3** ***itxurakeriaz***

Lehen helburu hau beti mantendu da, zinez edo **itxurakeriaz,** kode guztien buruan. Juan Martin Elexpuru

Eta gorde bitez kanpora goibel eta **itxurakeriaz** kopetilun agertzetik. Askoren artean

Lege egitasmoaren **«itxurakeriaz»** ohartzeko onena da ikustea testuan ez dela diruari buruzko aipurik ageri. Berria - Euskal Herria

Edonola ere, **itxurakeriaz** nahiz egiaz, Kristo predikatzen dute, eta honek pozten nau. Elizen arteko biblia

**4** ***itxurakeria egin*** (orobat ***itxurakeriak***)

Anartean arrantza industrialeko jauntxoek, pelagikoek, arrain bankuak hondatu dituzten jende berak, **itxurakeria egin** dute. Berria - Euskal Herria

Euskal presoen eskubideen inguruan hirukoak **«itxurakeria» egiten** duela salatu du Jone Goirizelaiak. Berria - Euskal Herria

Ez nago ni **itxurakeriak** egiten hasteko moduan. Patxi Zubizarreta

**5** ***itxurakeriazko*** *izlag*

**Itxurakeriazko** eskabideak. Andres Urrutia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **edo itxurakeria** (3); **eta itxurakeria** (5); **eta itxurakeriak** (3); **eta itxurakeriarik** (3); **itxurakeria baino** (10); **itxurakeria baino ez** (10); **itxurakeria egiten** (3); **itxurakeria eta** (3); **itxurakeria hutsa** (12); **itxurakeria izan** (3); **itxurakeriarik gabe** (4); **itxurakeriatan dabiltza** (3); **itxurakeriatan ibili** (4)

---

**itxuraketa** **1** *iz* itxuratzea.

Ez zen ohartu itsua ez zela benetako itsu, begietako itsu, **itxuraketakoa** baizik. Felipe Juaristi

Gauza zen **itxuraketa** eta komiki dibertigarri eta bikainak egiteko. Xabier Olarra

Zortzi urte zituenean hasi zen Temple bereganatzen **itxuraketa**-jolasean aritzeko ahalmena. Xabier Olarra

**2** itxura ematea, egituratzea.

Esfera pribatuaren eta publikoaren artean diharduten sareen **itxuraketari** dagokionez. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Zentzuen bitartez, eta adimenak hor eskurik izan gabe, hautemaniko objektu baten itxura, hots, haren egitura eta **itxuraketa**. Xabier Kintana

---

**itxurako** **1** *izlag* itxura egokikoa. ik **itxurazko 2; itxura 9**.

Ari ahala ari izana nintzen erredakzioan, delako Felicitas/Amagoiaren adierazpenak **itxurako** erreportaia batera ekartzen. Aingeru Epaltza

Jendearen bulkadek barreiatu gintuzten, **itxurako** solasaldi baten ernamuina hozitu gabe. Aingeru Epaltza

Baina non? ba al du **itxurako** ekiporik? Berria - Kirola

**2** (izenondo gisa)

Emakume gazte bat, oso argala bera, beltzez jantzita, eta hiru gizon gazte, hiru gizon **itxurako,** eslabiar arraza peto-petoko erakusle hirurak, beltzez jantzita. Felipe Juaristi

---

**itxuraldaketa** **1** *iz* itxuraladatzea. ik **antzaldaketa**.

Guk abere baten azkena deitzen duguna ez da benetako azkena izango, **itxuraldaketa** baizik; eta **itxuraldaketaren** oinarrian betiereko mugimendua dago, materiaren benetako esentzia. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ez da **itxuraldaketa** handirik izan ez bataren ez bestearen izakeran. Eider Rodriguez

Larba horietatik imagoa jaiotzen da, **itxuraldaketa** edo metamorfosiaren bidez intsektu heldu bihurtuko dena. J.M. Olaizola "Txiliku"

-Garai hartan nire **itxuraldaketak..** . beldurgarriak ziren. Iñaki Mendiguren

**Itxuraldaketa** oso denbora laburraren buruan gauzatu zen. Patxi Zubizarreta

Gero, kafea prestatu, eta liburu bat irakurtzen jarri zen, Kafkaren ***Itxuraldaketa.*** Javi Cillero

**2** (hitz elkartuetan)

Asteburuan, atseden hartu zuen, berriz ere, **itxuraldaketa** prozesuak. Karlos Linazasoro

**Itxuraldaketa** prozesua oso-osorik buruturik [...]. Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itxuraldaketa hura** (3); **itxuraldaketa prozesua** (3); **kafkaren itxuraldaketa** (5)

---

**itxuraldatu**, itxuralda(tu), itxuraldatzen *(ETCn* ***1.945*** *agerraldi)* **1** du *ad* zerbaitek edo norbaitek beste itxura edo eite bat hartu. ik **eraldatu; antzaldatu**.

Gizonaren aurpegi aldagaitza beltzuri minbera batek **itxuraldatu** zuen; begiak altxatu zituen eta aho matrailak tinkatu. Elena Touyarou

Harik eta azkenean Baindarren egongela erabat **itxuraldatzea** lortu zuen arte, etxeko izugarrikerien ganbera bilakatzeraino. Mirentxu Larrañaga

Ahartza-lepoko borda honetan, petrola lanpa baten argi txarrak **itxuraldatzen** dituelarik inguruan diren presunak. Michel Oronoz

Ezin da erresuma bat **itxuraldatu,** iragana ezabatu, bidegabekeriak ezeztatu kriskitin-kraskitin bat eginez. Elena Touyarou

Erditzalean, leizezulo zabal batean bezala, kideen aurpegi loak eta ametsek **itxuraldatuak** bereizten ziren. Juan Garzia

Beltxargaren mozorroz **itxuraldatuta** hurbildu zitzaion Zeus handia. J.M. Olaizola "Txiliku"

Nahiz eta funtsean dantza etnikoan oinarritu erlijiozkoak, hasierako eta bukaerako jarrerak [...] zurien dantza garaikideko ekarpenak ziruditen, hirietako dantza laikoan **itxuraldatuak** . Berria - Kultura

Zinezko gauzak axalez **itxuraldatzen** eta apaintzen, haurttoak bezala libertitzen ziren. Patziku Perurena

· Honi esker Islamak sei mendetan bere burua **itxuraldatu** eta, beraz, bere zeregina ere eraldatu egin zuen. Iñaki Mendiguren

• **2** da *ad*

Hiru emakumeak bat-batean **itxuraldatu** ziren, ez beldurrez edo ironiaz, ustekabez baizik. Jon Muñoz

Hainbesteraino **itxuraldatu** zen, ezen bazirudien bi aurpegi desberdin izan zituela: lehengo aurpegi gaztea nonbaitera joana zen, eta haren lekuan aurpegi berria zeukan, ikaragarria, ilunpetik etorria. Jose Morales

Berdegunean, ordea, erabat **itxuraldatzen** da: jokalari beroa da, indartsua, markatzaile zorrotza, liderra. Zure aita beti orein bihurtzen zen **itxuraldatzen** zenean. Iñaki Mendiguren

Beraz, hango egoera jasanezina bihurtu zitzaidanean... neure gelan **itxuraldatu..** . eta txakur bihurtu nintzen. Iñaki Mendiguren

Neure buruaren jabe izaten segitzen dut **itxuraldatutakoan..** . Iñaki Mendiguren

Denok **itxuraldatzeko** gaitasuna genuen-eta. Iñaki Mendiguren

Orain, haizea ez zuten alde, gauzak **itxuraldatuak** ziren. Elena Touyarou

**3** (era burutua izenondo gisa)

Bilboko udaberrian harrapatu nau ETAren su-etenak, Bilbo **itxuraldatu** honetan, hondakinen eta arkitekturaren hiri fetixez betean. Joseba Zulaika

«Espazio **itxuraldatuan»** ariko dira Arrieta eta Hurtado, «gorputzei nortasuna» ematen dieten jantziak soinean dituztela. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erabat itxuraldatu** (4); **eta itxuraldatzen** (3); **hori itxuraldatu** (3); **itxuraldatu du** (4); **itxuraldatu dugu** (3); **itxuraldatu egin** (9); **itxuraldatu egin zen** (4); **itxuraldatu egiten** (8); **itxuraldatu eta** (6); **itxuraldatu zen** (3); **itxuraldatu zuen** (4); **itxuraldatua zegoen** (3); **itxuraldatuta zegoen** (4); **itxuraldatzen ari** (4); **itxuraldatzen ari da** (3); **itxuraldatzen eta** (3)

---

**itxuraldatzaile** *izond* itxuraldatzen duena.

Gauzen **itxura** -aldatzaile diren indartxo guztiek. Juan Martin Elexpuru

Eta zer egin behar du hurrena maitasunak erotutatako txoro batek?, galdetu zion bere islari isilka, Victoriako taberna hutseko ispilu **itxuraldatzailean** ikusten baitzuen. Koro Navarro

-Garbi dago aztikeria batek akabatu duela... ziur asko Tortura **Itxuraldatzaileak** . Iñaki Mendiguren

---

**itxuraldatze** *(orobat* ***itxura-aldatze*** *g.er.)* *iz* zerbaitek edo norabitek beste itxura edo eite bat hartzea. ik **metamorfosi**.

Gure Prometeok Prometeo izateari eutsiko dio; bera baino maila goragokoak badira, ordea, Ovidiok berak nekez irudikatuko zukeen **itxuraldatzea** jasango du: euli bihurtuko da, edo euli baino gutxiago, hondar-ale! Jose Morales

Eta **itxuraldatze** hura eta mudantza hura obra zedin eta konpli, zer on egin zidan zure jokabideak...! Joan Mari Irigoien

Geurean ere **itxuraldatze** ttipi bat suertatzen da hitzen artean. Iñaki Arranz

Baina "ipuin" horren forma unibertsalak subjektuarengan duen **itxuraldatze** erradikalari begiratzen dio Badiouk. Joseba Zulaika

**Itxuraldatze** harrigarri hori Europako edozein hiritan kokatuta egon daiteke. Berria - Kultura

Bazitekeela zakarrontziko kartzinoma ezkatadunaren **itxura** -aldatze etengabeko hura. Hasier Etxeberria

**Itxuraldatze** ilun eta misteriotsua. Koldo Izagirre

---

**itxuraldi** *iz*

Gizakia, harroaldi, itsualdi, pozaldi, eroaldi, urrialdi, **itxuraldi,** zintzoaldi... eta beste hutsaldi ugariz betetako zorro sintetikoa baita. Patziku Perurena

---

**itxuran** **1** *adlag* itxura onean, egoki. ik **itxura 11**.

Txukun, **itxuran** aritu zen defentsako eskuin albokoaren posizioan. Berria - Kirola

Joseba Albizu azpeitiarra indartsu dabil eta **itxuran** aritzeko asmoa du. Berria - Kirola

Contra **itxuran** aritu zen Milanen jokatu zuen denboraldian (29 partida jokatu zituen Ligan eta beste 10 UEFAn), baina Carlo Anccelotirentzat ez zen ezinbesteko jokalaria. Berria - Kirola

**2** ik **itxura 12**.

Asmatu egin behar nuen non zegoen zer, munduan **itxura** samarrean ibiliko banintzen behintzat. Anjel Lertxundi

---

## **itxuranitz** *iz*

Mundu **itxuranitz,** aldibereko eta ia eraman ezineko punturaino zehatz baten soegile bakarti eta oroikuslea zen. Juan Garzia

---

**itxuraño** *iz ipar* iruditxoa.

Lehenago ere ba omen zen, kasik toki berean, Ama Birjina baten **itxuraño** bat, bainan aise ttipiagoa eta arrunt beltxa, oraikoa xuri ta urdina delarik... Herria

---

itxurantzean ik **itxura 16**.

---

## **itxurapaindu,** itxurapain(du), itxurapaintzen du *ad*

Posta elektronikotik etorritakoa laburtzeko lan distiragabeari, hizkera periodistikoaren ustezko bizitasunaren kolorea baizik ez nion erantsi, Ttipi txostengile saiatuaren estilo zurrun eta sinoptikoaren gristasuna **itxurapaindu** beharrez. Aingeru Epaltza

---

## **itxurapen** 1 *iz* itxuratzea, itxurak egitea.

Hitzezko gezur-jarduna **itxurapen** koherente eta arrazoitsu batez gainzuritzen. haren irekitasun zuzen, argitsu hura agian **itxurapen** hutsa zela. Iñaki Segurola

Gogoratu, zeure burua engainatzen zenuen hitzekin, abentura esaten zenion itxurakeriari, bidaien, nesken, liskarren, **itxurapenei** eta gezurrezko dirdirari. Monika Etxebarria

Izan daitezkeen disputak eta eztabaida ustekoak Kongregazio barrurako egiten diren antzezpen eta **itxurapen** hutsak besterik ez dira, tamainako neurri polit baten barruan betiere. Iñaki Segurola

**2** irudikapena.

Arazoa beste bat da: mintzamenaren ekoizpenaren eta pertzepzioaren azpian dauden **itxurapen** mentalak eta **itxurapen** horiek mintzamenaren gertakari fisikoekin lotzen dituzten arauak aurkitzea. Itziar Laka

Gramatika ondoz ondoko **'itxurapen**-maila' abstraktuen segida bat da, eta maila bakoitzak perpausaren alderdi desberdinak biltzen ditu. Itziar Laka

Ezin dugu hierarkiarik eratu *the man hit the ball* hurrenkeraren **itxurapenen** artean; ezin dugu osagai-egitura sistema maila talde mugatutan zatitu, gorenetik beherenera ordenaturik, perpaus bakoitzeko **itxurapen** bakar bat bilduaz azpimaila bakoitzean. Itziar Laka

**3** itxura, irudia.

Filosofiaren eginbeharra sasi-interpretaziotik sortutako **itxurapena** gainditzea zen, horrek hainbeste goraipatzen eta maitatzen diren lilurakeriak apurtuko baditu ere. Ibon Uribarri

Iritsiko da Jainkoa "aurpegiz aurpegi" kontenplatzera, San Paulok esaten digun bezala, eta jadanik ez irudien edo **itxurapenen** arabera. Joan Mari Lekuona

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baten itxurapean** (10); **eta itxurapen** (4); **eta itxurapenen** (3); **itxurapen maila** (9); **itxurapen mailen** (3)

---

## **itxurarazi,** itxuraraz, itxurarazten du *ad* itxuratzera behartu.

Gizon aberatsa, drogaren irabaziak **itxurarazteko,** beste negozio handitan sartuta zebilen gizona. Gotzon Garate

---

## **itxuratasun** *iz* itxura.

Eta nork ez daki **itxuratasun** sentikorrak arrazoiaren indarra duela herri sinesbera eta txundierrazean? Juan Martin Elexpuru

Honek ez du esan nahi egia-**itxuratasunaren** irakaspena denik; izan ere, egia-itxura duena egia da, oinarri askiezaren bitartez ezagutzen bada ere, beraz, bere ezagutza akasduna da, baina ez horregatik iruzurtia, eta beraz, ez da baztertu behar Logikaren zati analitikotik. Ibon Uribarri

---

## **itxurati** 1 *izond* ona edo zintzoa izan ez eta itxurak egiten duena. ik **itxurazale**.

Ez diat nahi atzean geldituttakorik, ez eta sasigaixo **itxuratirik** ere; hitaz ari nauk, Peaceful. Mirentxu Larrañaga

Gizon **itxurati** klase horrek egin ohi duen bezala, zigarroari eskuan gorputzetik ahalik eta urrutien eutsiz. Ramon Saizarbitoria

Horrek eragin zion gogor borrokatzea Robespierreren ideien kontra, eta hura **itxurati** eta gezurtitzat jotzea, Iraultzaren benetako lotsagarritzat... J.M. Olaizola "Txiliku"

Ospe ona eta izen garbia garesti saltzen direlako gure gizarte **itxuratian**. Izugarri **itxuratia** da, fazati hutsa. Migel Angel Mintegi

Nahikoa da, **itxurati** hori! Itziar Otegi

Ez naiz gezurtien mahaikide izan, ez eta **itxuratiekin** batera ibili. Elizen arteko biblia

Ez ditiat **itxuratiak** gogoko. Mirentxu Larrañaga

**2** (gauzei buruz)

Bi umeak adierazten zaila den moduan aurkeztu zituen, keinu dramatiko eta **itxuratiz,** esanez bi umezurtz gaixo zirela. Ander Irizar

Elkartze-eszenak, adiskidetze-eszena pozezko eta hunkigarriak, hitz-erdika dena, elkartze haien benetako edukia eta esanahia talde-irudiaren giro **itxurati** eta antzerkizkoaren atzean ezkutatuz. Ander Irizar

Literatura eta hitzontzikeria **itxurati** baten hondarrez pozoiturik bizi direla. Josu Zabaleta

Hartarako beste bide bat aurkitu behar zuen, **itxuratiagoa** eta praktikoagoa. Joan Mari Irigoien

Halako ontasun **itxuratiz** eta gailentasunez hitz egin zuen. Ander Irizar

Ez anaia nagusi Felixen muzinak, ez Axenarioren isiltasun **itxuratiak,** Borondatezko komikotasun **itxuratiaren** atzean egiazko barregarrikeria disimulatzeko ahaleginean. Itziar Otegi

Zer da, orduan, moda berri barren huts **itxurati** nazkagarri hau? Karlos Linazasoro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itxurati eta** (3); **zein itxuratia** (3)

---

## **itxuratsu** *izond*

Zerbitzari bati ukondotik oratu, eta, ahal nuen modurik lasai-**itxuratsuenean,** emakumeaz galdetu nion, hari buruzko xehetasun fisikoak eta arropari buruzkoak eman eta gero. Anjel Lertxundi

## itxuratsuki *adlag*

Batasun baldintzatugabearen bere printzipioa **itxuratsuki** balioaraztea. Ibon Uribarri

## itxuratu, itxura(tu), itxuratzen **1** du *ad* itxurak egin.

Um Hamidak ere barre egin zuen, ezustea **itxuratuz,** baina bere buruari esan zion: "Emakumea, ez al dun lotsarik?". Patxi Zubizarreta

Eta niri damutu egin zait beste ateraldi hoberik eduki ez izana, hartara ez bainuen nire harridura ezkutatu, eta bozkarioa **itxuratu** behar izango. Patxi Zubizarreta

Ezkon etxea utzirik, semeenera jo izan baitzuen, ikustaldiak **itxuratuz,** baina zinez ihesaldiak eginez. Patxi Zubizarreta

Izu-ikara handitan nintzela **itxuratu** nuen, eta hura ere aise izutu zen. Jon Muñoz

Zaitak, axolagabekeria **itxuratuz,** hizketa molde nahigabetua antzeratu nahian: […]. Patxi Zubizarreta

Haritz autoan geratu zen, begiak itxita eta hartuko ez zuen loa **itxuratu** nahian. Fernando Morillo

-Bai, zer egingo huen? -galdetu zion Jonathanek, Léak eman behar zuen erantzuna entzuteko irrikaz zegoela **itxuraturik**. Jon Muñoz

**2** eratu.

Teoriak **itxuratu** eta ereduak eraikitzeko. Juan Garzia

Lana nahiko **itxuratua** nuen, bukatua esaterako. Xabier Mendiguren Elizegi

Gauza jakina da munduan badirela tankera horretako aurpegi ugari: naturak berehalako batean **itxuratu** ditu, azken ukituak emateko nekerik hartu gabe, karrakarik, ginbaletik edo bestelako lanabes finik erabili gabe; kolpe gogor batzuk emanez taxutu ditu, zirti-zarta. Jose Morales

Lurraldetasun printzipioa, indarraren monopolioaren kontrola eta ordezkaritzan oinarritutako botere politiko zilegia ziren estatu-nazio modernoa **itxuratzen** zutenak. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Deus ez zuen aipatu, ordea, lihozko maindirez eta damaskoz **itxuraturiko** zamauez. Joxan Elosegi

Jainko-tenploa eta jauretxea ezin da izan giza-eskuek egina, antolatua eta **itxuratua**. Pello Zabala

Adierazi ere egin zidaten inoiz ez zutela horren bitxi **itxuraturiko** uterorik ikusi. Joxan Elosegi

Ezusteak Edurneren bisaian ezpairik gabe **itxuratuko** zuen keinua nolakoa izanen ote buruan nerabilela. Aingeru Epaltza

Ximurrak, kreditu-txartelaz baliaturik, hiru lerro **itxuratu** zituen karpeta gainean. Aingeru Epaltza

Ondoren, ur bedeinkatu ugariz ihinztatu zuen Buru Nagusiaren erretratu handia, burumakurtze txiki bat **itxuratuz**. Koldo Biguri

**3** (-en) itxura eman; itxura hartu.

Edo helduek harako pasadizo hura hamaika aldiz kontatu eta horrela oroipen hura finkatu digutelako; finkatu eta **itxuratu,** edo desitxuratu bestela, izan ere, helduen bertsioak manipulatu egiten baitu haurrak gertakari hartaz eduki zezakeen berezko ikuspegia. Xabier Mendiguren Elizegi

Gogoetekin lehian balebil bezala, etorkizun hurbila **itxuratu** nahirik edo. Migel Angel Mintegi

Argizarizko madari ongi **itxuraturiko** bat sartu genuen benetako fruten artean. Xabier Olarra

Jendea pintatzen zuen, marra fin okerrez, aurpegiak zehaztu gabe, aurpegiak **itxuratu** gabe, aurpegiak biribildu gabe, aurpegiak desagertzeko zorian ikusten baitzituen. Felipe Juaristi

Euskal Mitologiako nor eta zer zirenak **itxuratuak** ziren denak beren lehengo iduriko eta itxurako jauntziekin: Tartaro, Basa jaun, Sorgin, Lamin, Basandere, bertze frango eta Zanpantzar. Herria

Beira gardenez eginiko ontziak ziren, emakume baten gerria **itxuratzen** zutenak. Jasone Osoro

Bestearen idazkera **itxuratu** beharra ere ez zitzaidan batere kostatzen, errazago egin ahal izateko egunero-egunero jarduten bainuen horretan, eta, azkenerako, ez dakit berea baino neureago ez ote nuen. Xabier Mendiguren Elizegi

Hona nola **itxuratzen** diren gauzak momentuko: Baionak gaztelu berrira erakar litazke bai liburutegi munizipalean, bai euskal erakustokian dituen artxiboak; Merkatal Ganbarak ere horra eraman lezake bere artxibo zerbitzua; azkenik Pauen kokatzen diren gure artxibo andana bat ere horra ekarriko lituzkete. Herria

Itxaropena hasia zen **itxuratzen:** hurbilago ikusten hasia zen ordura arte horren emaitza lazgarriak eman zituen zirkulu biziotsu baten [...] betiko amaiera. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

**4** irudikatu.

Zaldiak edertasuna eta libertatea **itxuratzen** ditu. Daniel Landart

Ez da gauza bera gogoan gorputzen irudiak **itxuratzea** eta gorputzaren bidez gorputzak ikustea. Imanol Unzurrunzaga

Zelak mailu txiki batzuk ageri zituen bi aldeetan, larru gorrixkan **itxuratuak**. Aingeru Epaltza

Hortakotz da **itxuratua** izaiten ezpata eskuan. Herria

Marra batzuk egin ditu kaierean, kartzela eta Olasoneko etxea **itxuratuz**. Koldo Izagirre

Nire haur irudimen gaixoa saiatzen zen haien kontaeren hutsuneak betetzen, amak bizi izan zuen izugarrikeria handi hura gogoan **itxuratu** nahian. Joxan Elosegi

Kode horietako batzuk ia unibertsalak izango dira (pertzepzioari dagozkionak), beste batzuk nahiko naturalak oraindik, baina gizarteak **itxuratuagoak** (analogia-kodeak, adibidez[...]), eta testuinguru sozialak erabat determinatzen dituenak beste batzuk. Josu Zabaleta

Imanolek belar-eskukada bi hartu, eta airean bota zituen, bortizki, landare-euri bat **itxuratuz**. Fernando Morillo

Beren ipuinak asmatu, **itxuratu** eta apaindu ostean. Anton Garikano

Egoera mugatuko gramatika "egoera-diagrama" bezala **itxura** daiteke grafikoki. Itziar Laka

Honela, *took* hitza, maila morfologikoan, *take+iragana* bezala **itxuraturik** dago. Itziar Laka

Hizkuntz egiturari buruzko teoria batek ezin duela azaldu edo **itxuratu** ingelesez mintzatzen den hiztunak duen gaitasuna. Itziar Laka

(36i) irudian, teoria lanabes gisa **itxuratzen** da: corpusa du sarreran (input), eta gramatika irteeran (output). Itziar Laka

· Ez nintzen sekula top-model moldean **itxuratu,** baina itsusia nintzela entzutea ez zitzaidan agradatzen. Itxaro Borda

**5** itxura hobea eman, itxurako bihurtu.

Eguna apur bat luzatzen eta **itxuratzen** doanez, tenperaturak ere egokitzearen aldera hasten dira. Pello Zabala

McLarenek, nolabait, denboraldia **itxuratu** du garaipen honekin, baina diru asko galduko du aurten, hala ere. Berria - Kirola

Azken jabetzetan Brownek meritu handiko saskiratze pare bat lortu zuen, emaitza **itxuratzeko** baino ez. Berria - Kirola

Biharamunean Euskal Telebistan agertu behar nintzen eta sudurra **itxuratzeko** nahiko estalgarri eman behar izan. Gotzon Garate

Aurrena komunetik pasa aurpegia **itxuratzera** eta segituan sukaldera joango zen bientzat afari goxo bat prestatzera. Joxemari Iturralde

**6** (era burutua izenondo gisa)

Alaitasun **itxuratuz** beteta. Josu Zabaleta

Letra gotiko **itxuratu** samar batez. Anjel Lertxundi

Lehen erranahian eta erranahi **itxuratuan**. Eneko Bidegain

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat itxuratu** (6); **bat itxuratzen** (6); **bitartez itxuratzen** (3); **denboraldia itxuratzeko** (3); **itxuratu du** (4); **itxuratu eta** (3); **itxuratu nahian** (3); **itxuratu nuen** (5); **itxuratu zuen** (6); **itxuratzen da** (5); **itxuratzen dituzten** (3); **itxuratzen du** (7); **itxuratzen nituen** (3); **itxuratzen zituen** (3); **itxuratzen zuen** (5); **itxuratzen zuten** (4)

**itxuratxarki** *adlag* gisagabeki.

Erramun, urte batzuk lehenago lankide izandakoa, mutil jatorra jatorrik bazen, on-puska, Herioak eramana zuen, **itxuratxarki** -Mitxelenak esango zukeen bezala-, erarik traketsenean, minbiziaren mozorropean. Imanol Zurutuza

Nik beti esaten nuen Urolako tren zaharrak **itxuratxarki** traizionatu zuela Aizarnazabal, Zumarragatik Zumaiarainoko bidea arinago egitearren Urola ibaiaren ondotik urrundu eta gure herria baztertuta utzirik. Juan Luis Zabala

Oinez zihoazen, dirurik ez zuten, itsu zegoen, eta Nadia gabe, bere gidari bakarra gabe, bide bazter batean etzan eta **itxuratxarki** hil besterik ezin egin! Karlos Zabala

---

**itxuratxartu,** itxuratxar(tu), itxuratxartzen da/du *ad* itxura txarra hartu edo eman. ik **itxuragaiztu; desbistatu.**

Orain **itxuratxartua** nago, baina ba al dakizu hamasei urterekin kantinera atera nintzela Altzako jaietako danborradan? Joan Mari Irigoien

Baina idazten hasi orduko, ideiak eraldatu, **itxuratxartu** egiten dira, eta dena faltsu bihurtzen. Eskarne Mujika

---

**itxuratxo** *iz adkor* itxura apurra.

Elizako organista zen, aldi berean; halako elizgizon-**itxuratxo** bat ematen zion horrek. Josu Zabaleta

Leunki-kudeaturiko-mendekotasun-luze-onartuaren **itxuratxo** hartaz Lourdes Oñederra

---

**itxuratzaile** *izond* itxuratzen duena.

Kate **itxuratzaileen** talde hau (15) erako diagramaren kidea da. Itziar Laka

---

**itxuratze** 1 *iz* irudikatzea.

Hargatik da gauza putz eta erraz xamarra euskaltzaleen "euskaraz bizitze" hori, edo bat zinez euskaraz bizi edo ari dela emate edo **itxuratze** hori. Iñaki Segurola

Ezkerreko zenbakiek erregelon hurrenkera egokia adierazten dute, **itxuratze** hau (35) ereduko gramatika bat dela onartuaz. Itziar Laka

**2** eratzea.

Antza denez, estiloaren **itxuratze** jardunean *(elocutio)* hartzen du zuzenean parte epe laburreko oroimenak. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

**itxuraz** 1 *adlag* itxurari dagokionez.

Neskatoa ez zen **itxuraz** oso garaia. Ibon Uribarri

Adinez eta **itxuraz** guztiz gizon sasoikoa bazen ere, [...]. Anjel Lertxundi

Zuraje gaitzeko laguna zen, **itxuraz** nahiz janzkeraz, lana bukatuta gimnasio bateko airea arnastera abiatzen den zamaketaria ematen zuena. Aingeru Epaltza

Barazki-saltzaileak magrebtarrak ziren gehienak, **itxuraz** ere antzematen zitzaien. Felipe Juaristi

Berdin tximistak ere: mendiak eta basoak kiskaltzera goitik bidalia denean, bete egiten du agindutakoa; idoloak, berriz, ez dira horien guztien pareko, ez **itxuraz,** ez indarrez. Elizen arteko biblia

Izan garbiki eta hondoraino apal, barruan eta kanpoan, ez **itxuraz** eta hitzez bakarrik, egian eta adimenaren oso-osoko ustean ere bai. Joan Mari Lekuona

**Itxuraz** antzekoak diren hitzekin ere osa daitezke horrelako bikoteak: argi eta garbi, [...]. Koldo Zuazo

**2** dirudienez, itxuren arabera.

**Itxuraz,** poztu egin da. Urtzi Urrutikoetxea

**Itxuraz,** nitaz aski dakiela iruditzen zaio. Monika Etxebarria

Ez dute, **itxuraz,** aspalditik elkar ezagutzen. Monika Etxebarria

Emakumeek, **itxuraz,** liskarren bat izan berria zuten, eta elkarri irainka ari ziren. Jose Morales

Eta, **itxuraz,** halaxe zen. Migel Angel Mintegi

Dutxatu berria, **itxuraz,** ile ilun bustia tantaka ari zitzaion oraino. Aingeru Epaltza

Horma bat zen, harriz egina **itxuraz,** oso leuna, irristakorra eta hotza. Koro Navarro

Beherean inor ez ageri, **itxuraz**. Txillardegi

Ez zuen oso aldatuta ikusi, **itxuraz** behintzat. Migel Angel Mintegi

Irrigarria ematen du egoerak, baina **itxuraz** bakarrik.Ostatu hartu zuen soldadu espainiar asko zituen toki argi eta, **itxuraz,** garbi batean. Felipe Juaristi

Bi gizon mehe baina **itxuraz** indarrekoak biak ala biak. Felipe Juaristi

Gertakari **itxuraz** hutsal hark Txitxikoven nahia betetzera makurtu zuen etxeko nagusia. Jose Morales

Ezpain ertzaren luzadura, ozta-ozta ohargarria bisaia **itxuraz** neutroan. Aingeru Epaltza

Gizon gazteak begietara begiratu zion Migeli, jakin-min **itxuraz** axolagabe batez. Aingeru Epaltza

**3** itxura onarekin, egoki, ganoraz.

Deus **itxuraz** eta benetan esaterik ez dago kasik haien aurrean. Iñaki Segurola

Ikusten duelarik hitzak maizegi daudela ideien merkatuari eta deus **itxuraz** ikasi ez eta dena dakiten teologoen lainezari salduak. Iñaki Segurola

Ez dakigu galdera horri erantzuten, zeren ez baitakigu gorpuzkia den ala uhinkia den: biak da (ikusten nola ez dagoen **itxuraz** esaterik?). Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
>
> **baina itxuraz** (23); **baina itxuraz bakarrik** (4); **bat itxuraz** (6); **baten itxuraz** (11); **bere itxuraz** (6); **da itxuraz** (12); **dira itxuraz** (4); **ere itxuraz** (7); **eta itxuraz** (87); **ez itxuraz** (6); **ez zuen itxuraz** (4); **itxuraz aldatzen** (4); **itxuraz bakarrik** (6); **itxuraz bederen** (11); **itxuraz behintzat** (45); **itxuraz behintzat ez** (4); **itxuraz bere** (4); **itxuraz ere** (9); **itxuraz eta** (19); **itxuraz ez** (23); **itxuraz ezer** (4); **itxuraz gure** (6); **itxuraz hain** (9); **itxuraz normalak** (4); **itxuraz normalak diren** (4); **itxuraz oso** (11); **itxuraz soilik** (5); **itxuraz xaloa** (4); **kanpoko itxuraz** (6); **nahiz itxuraz** (4); **zegoen itxuraz** (6); **zen itxuraz** (16); **ziren itxuraz** (4); **zuen itxuraz** (13)

---

**itxurazale** *(orobat* **itxura zale***)* *izond* itxuren zale dena.

Santutzat naukate eta gizon santuari dagokion biziera egingo ez banu, **itxurazale** nintzateke. Askoren artean

Ez izan **itxurazale** gizakien aurrean, zaindu esaten duzuna. Elizen arteko biblia

Bera apal apal hortxe dago orain, **itxura zale** harro horien mende. Patziku Perurena

Ez dakit nork hezi duen, baina sekula ez dut emakume **itxurazaleagorik** ikusi. Jose Morales

Beren barrua gogorturik duten maisu gezurti **itxurazaleez** baliatzen dira. Elizen arteko biblia

Ai zuek, lege-maisu eta fariseu **itxurazaleok**! Elizen arteko biblia

Barau egitean, ez zaitezte ager kopetilun, **itxurazaleek** ohi duten bezala. Askoren artean

Ezingo dio ihes bere garaiko irizpideari, bere garaikideen irizpen **itxurazale** eta sentiberatasunik gabeari. Jose Morales

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eta fariseu itxurazaleok** (6); **itxurazale eta** (3)

---

**itxurazalekeria** *iz* itxuren zaletasun gaitzesgarria.

Gaiztakeria guztiak -maltzurkeria, **itxurazalekeria,** bekaizkeria eta gaizki-esateak- alde batera utzirik. Elizen arteko biblia

Ibili kontuz fariseuen legamiarekin, hau da, **itxurazalekeriarekin** . Elizen arteko biblia

Handiustearen eta **itxurazalekeriaren** aurka. Askoren artean

---

**itxurazko** 1 *izlag* benetakotik itxura baino ez duena.

Hirukitxoek luminantzia bera dute denek, baina beren **itxurazko** argitasuna oso desberdina dute. Josu Zabaleta

**Itxurazko** mugimendua eta mugimendu erreala hartzaile berberei dagozkie? Josu Zabaleta

Ezagutza filosofiko osoa (egiazkoa eta **itxurazkoa)** . Ibon Uribarri

Almeida laster pasatu zen **itxurazko** lagun interesatua izatetik bene-benetako laguna izatera. Martin Anso

Bigarren ordena hori labirinto miragarri bat da, jenialki ordenatua **itxurazko** desordena baten barruan. Xabier Kintana

**Itxurazko** esperientzia (sentimenena) ez da benetako esperientzia, razionala. Askoren artean

**Itxurazkoak** baino ez diren kontraesanak. Ibon Uribarri

Hala ere, **itxurazko** gogo-bake hark ez zidan luzaro iraun. Alberto Ladron Arana

[Etsai] honen egitekoa baita alaitasun eta pozaldi espiritual horren aurka borrokatzea, **itxurazko** arrazoiak, zorrozkeria eta azpikeria pilo bat ekarriz. Patxi Altuna

Estatuaren etxe harrizko bat, arkitektura-estilo jakin baten eredukoa, leihoen erdiak **itxurazkoak** zeuzkana. Jose Morales

Sineskeria horrek jota daudenek estilotzat daukatena ez da orrialde baten eragingarritasun edo eragingarritasunik eza, idazlearen **itxurazko** trebezia han-hemenkakoak baizik: darabiltzan konparaketak. Juan Garzia

**2** itxura onekoa, itxura egokikoa. ik **itxurako**.

Marik ahantziko zuen; gaztea zen, eta denbora franko bazuen berriz maitemintzeko gizon **itxurazko** batez. Elena Touyarou

Ez daukazu denborarik **itxurazko** ezer asmatzeko. Rafa Egiguren

Gaua **itxurazko** oheetan igaro nahi bagenuen, berehalatik ekin behar zitzaion lanari. Josu Zabaleta

Lau oin horiekin ez dago **itxurazko** bertsorik osatzerik. Andoni Egaña

Eta **itxurazko** zerbait eman dezake egoki kantatuta. Andoni Egaña

Ohi bezain zarpail zegoen, baina [...] osasuntsuago ematen zuen, **itxurazko** jatordu batzuk egin izan balitu bezala. Iñaki Mendiguren

Ezin zuela **itxurazko** letrarik idatzi denda irekita baldin bazegoen. Anjel Lertxundi

Esaten dizuet ez dudala gehiago honela jokatu nahi, ez bailitzateke erlijiosoentzat **itxurazkoa** eta egokia. Fernando Morillo

Ez baitzen **itxurazkoa** hogeitaka urterekin artean gurasoei dirua eskatzen ibiltzea. Jon Arretxe

Arestian baino **itxurazkoagoa** iritzi nion prezioari, eta, eskatutakoa ordaindu eta gero [...]. Anjel Lertxundi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**ezer itxurazkorik** (5); **itxurazkoa baino** (3); **itxurazkoa baino ez** (3); **itxurazkoa baizik** (3); **itxurazkoa baizik ez** (3); **itxurazkoa da** (3); **itxurazkoa eta** (3)

---

**itxuroso** *(orobat* ***itsuroso*** *g.er.)* **1** *izond adkor* itxurazkoa, itxura onekoa.

Mahomatarren paradisuan bizi den eme **itxurosoa** . Xabier Olarra

Oso mutil **itxurosoa** eta ederra, euskaldun peto-petoa. Berria - Kultura

Mozkor **itxurosoak,** hori bai, mozkorrak ez balira bezalakoak. Alberto Barandiaren

Meharra zen eta, jilaba maiztu batez jantzirik egon arren [...] gorpuzkera **itxurosoa** eta duina zuen. Patxi Zubizarreta

Halakoxe sentsazioa izan dezake hainbat soineko edo galtza higatuen puska eta piltzarrekin jantzi **itxurosoa** lortzen duen jostunak ere. Patxi Zubizarreta

Bikoteak zuen aberastasun bakarra (antzara bat) hiltzeko prest agertu ziren etorri berriei janari **itxurosoa** emateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Estudiotik irten, eta jatetxe **itxuroso** batean bazkaldu nuen. Anjel Lertxundi

Beti eguraldi **itxurosoa** agintzen. Pello Zabala

Eraso **itxurosoak** egiten hasi zen Eibar. Berria - Kirola

Saltzailearekin tratu **itxurosoa** eginez, emakumea erosi eta jauregira eraman zuen. Felipe Juaristi

Azkenean, egin nuen tratua, prezio onean, kantitate **itxuroso** bat erostekotan. Juan Kruz Igerabide

Gelak **itxurosoak** dira. Eskarne Mujika

Paragrafoak: luzeegiak izatea ez da ez praktikoa ezta **itxurosoa** ere, ideia zuzen eta zehatz aurkeztea komeni baita. Askoren artean

Ondoren barreiaturik zeuden paperak korrika eta presaka bildu eta modu **itxurosoan** ipini zituen idazmahai gainean. Migel Angel Mintegi

Zein **itxurosoa** den Camel paketea, ezta? Sonia Gonzalez

Obra didaktiko hark mezuaz aparte ez baitzuen ezer **itxurosorik** eskaintzen. Anjel Lertxundi

**2** (adizlagun gisa)

Baliabide gutxirekin perpausak **itxuroso** moldatzeko. Ramon Saizarbitoria

Aski **itxuroso** konplitzen zuela egitekoa. Aingeru Epaltza

Mahai gainera ateratako guztia erakutsiko zion, banaka, jasotako ipuinekin ahalik eta egokien eta **itxurosoen** uztartuz. biharamunean guztiz sendaturik esnatu zen, **itxuroso** eta garbi. Joxemari Urteaga

Aberatsen suizidioa mila libera da, gainera; eta **itxuroso** hiltzen dira. Josu Zabaleta

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eta itxuroso** (3); **itxuroso bat** (5); **itxuroso eta** (4); **itxurosoa eta** (3); **zerbait itxurosoa** (3)

---

itxusi ik **itsusi**.

---

itxusitu ik **itsustu**.

itxuskeri ik **itsuskeria**.

itxutu ik **itsutu**.

**itzain** *(orobat **itzai** g.er.)* **1** *iz* idiak edo gurdiak gidatzen dituen pertsona.

Kanpoan, aidaka ari ziren **itzainak,** negarka orga zamatuak. Aingeru Epaltza

**Itzainak,** uztarriko idiak askatuta, beren gisara utzi zituen, lasai-lasai, leku berde atsegin hartan barrena. Patxi Ezkiaga

Gibelean, bortz orga karranka ari ziren, bakoitza bere **itzainarekin**. Aingeru Epaltza

Nire osaba eta ganaduaren **itzaina**. Bernardo Atxaga

Angel Mari Peñagarikano eta Andoni Egaña batto artzain eta **itzaina,** eta bertzea aldiz San Franziskotarra, hiritar fina. Herria

Ez zen geldia Mañexen "budismoa": beti aitzina bazoan, **itzain** baten urratsean. Herria

Ikatzak betetzen zuen aska erraldoi bat, ondotik **itzainek** betetzen zituzten beren brozelak eta jo Donibaneko geltokirat beren idien urratsean. Herria

Uztarri bakoitzak bi **itzain** izango ditu. Berria - Kirola

Alde bakoitzak 1.100 euro jokatuko ditu, eta jabeak izango dira **itzainak**. Berria - Kirola

Horra zergatik maite dizun artzaiak hurritz makila, **itzaiak** hurritzezko akuilua. Patziku Perurena

**2** (hitz elkartuetan)

Seiehun filistear hil zituen **itzain**-akuilu batez. Elizen arteko biblia

Haren olerkia ere beti aitzina doa **itzain** urratsean. Herria

**3** *irud* gidaria.

Artalde dohakabea, lau egun horietan Lorraine eskualdean ibilki ginen kurri eta kurri, ongi inguratuak eta zainduak, **itzain** akilu xorrotxez ongi hornituak.Trinket Xaharreko finalerdi huntan bazuten behari gibeleko bi gazte horiek ere beren **itzain** trebatuekin. kontua ez zen burutza berriak sortzen segitzea, administrazioan **itzainak** uztarrikoei nagusitzeraino. Herria

Hautetsien Kontseilua eta Garapen Kontseilua **itzain** nolazpait, norabide egokienak finkatzeko gogoa agertuz. Herria

Zortzi herrietako elizen **itzaina**. Herria

Badirudi, aldaketatxoaren **itzaina** dugula zeharhaize hego-mendebal kutsuko hau. Pello Zabala

**4** ***itzain joan/ibili.***

Pete Itçainak ere utzi zuen bere baserria ez **itzain** joateko, baizik artzain. Pello Salaburu

Jainkoaren kutxa Abinadaben etxetik hartu eta gurdi berrian ezarri zuten; Uza eta Ahio zihoazen **itzain**. Elizen arteko biblia

Mutikotan **itzain** ibilia naizelako edo. Patziku Perurena

**itzal** **1** *iz* argi iturri baten izpiek jotzen duten gorputz batek sortzen duen gune iluna; iluntasuna. ik**itzalpe**; **geriza**.

Axularren garaietan, gaizki ikusia zegoen inoren **itzala** zapaltzea. Anjel Lertxundi

Zuhaitz batetik gertu zegoen, **itzalaren** babesean. Koro Navarro

Zuhaitz handi baten **itzalean** eseria aurkitu zuen eta galdetu zion: [...]. Elizen arteko biblia

Han, gerezi-ondoak egin **itzalaren** eremuan. Daniel Landart

Hasia zen argia mahastien eta olibondoen **itzalak** seinalatzen. Koro Navarro

Orain bezala, gaztainondo garaien **itzala** eskertuko zuen 36ko uda hartan. Iñigo Aranbarri

Bere pentsamenduari segitzen dio, **itzalak** gorputzari nola... Anjel Lertxundi

Banoa ni, arratseko **itzalaren** antzera desagertuz. Elizen arteko biblia

[Antzarak] leihora etorriko zaizkigu pausatzera, argia eta **itzala** bereizten diren lekura. *ik beherago* 16. Hasier Etxeberria

Itzaletik argirat eta argitik **itzalerat,** hori da erakusketa arraro horren lema nagusia. Herria

Hiru gizonak kanpora atera ziren eta **itzaletik itzalera**, kontu handiz, bakoitza bere etxerantz abiatu zen. Jon Maia

**Itzalean** ezkutatu zen. Agustin Otsoa

Azofrako aterpean egon naiz, **itzalean,** eguzkia ezti zedin beha. Piarres Aintziart

Gaur ere berrogei gradu **itzalean**! Joxe Austin Arrieta

Erdi **itzaletan** dugu logela, lanpara gorriaren argitan. Javi Cillero

**2** (izenondoekin)

Gaztainondoen **itzal** beltzaren pean. Karlos Zabala

Haritz, arte edo ezki baten **itzal** babesgarria udako egun sargorietarako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Pinuek eta izeiek **itzal** handia egiten zuten. Jose Morales

Kanpoan bagoiaren **itzal** mugikorra ostertzerantz luzatzen zen. Juan Garzia

Dorreek eta etxeek **itzal** luze eta garbiak hedatzen zituzten mendebalderantz. Agustin Otsoa

Zuhaitz tzar **itzal** luze zabaleko baten gisara. Pello Zabala

Samek erraldoi baten antzera nabaritzen zuen bere burua, bere baitako **itzal** itzel eta desitxuratuan bilduta bezala. argi aratz, indartsu bat, ganbera borobilean **itzal** trinkoak sortzen zituena. Agustin Otsoa

Eta, haren atzean, **itzal** sakonek desitxuratuta, Angelaren aurpegi zurbila. Alberto Ladron Arana

Argiño dardarati batek **itzal** konkortuak sorrarazi zituen gelatxoan. Alberto Ladron Arana

Irribarre baten **itzal** lausoa marraztea lortu nuen. Alberto Ladron Arana

Neguan, herriko farol apurrak hotzaren **itzal** umelak argitu ezinik zeudela. Pako Aristi

Gizakia arnasaldi baten antzeko baita eta haren egunak **itzal** iheskorraren antzeko. Imanol Unzurrunzaga

Ikusminean gozo, sarean leiho, **itzal** hotzean bero. Karlos Linazasoro

**3** *irud*

Ulertezintasunezko **itzal** batez lausotu zitzaizkion Perretteri begiak. Jon Muñoz

Eguneroko bizitzak **itzal** handi hori zuen gainean, eta, beraz, egunak ez zuen berdin argitzen denentzat. Jon Maia

De Villepinen atzean Sarkozyren **itzal** iluna gero eta hurbilago dagoenean. Berria - Ekonomia

Bizitza hauek maiz izaten dute zoriaren argi-izpi guztiak iluntzeko gai den **itzal** handiren bat, amildegira daraman bidea ezkutatzen duen argi ederren bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zeren zuhurtzia baita itzalen artean bizi behar duenak bertze **itzal** bat izan dezan babes. Joan Mari Irigoien

Emazte leial edo ama ona izateko hezten da emakumea, senarraren **itzal** izateko. Berria - Gaiak

Eta ikusten nuelarik ezen arimaren leiho batetik beldurraren itzala ihesi zihoakidala, bertze **itzal** bat sartzen ikusi nuen bertze leiho batetik, hiraren eta koleraren itzala izan zitekeena. Joan Mari Irigoien

Zeren falta eta gabezia hura baitzen kalte guztien gaineko kaltea eta gaitzik gaitzena eta galgarriena, [...] egozten ninduena **itzal** galduen desertu fingabekorat. Joan Mari Irigoien

'Exxon Valdez'-en **itzal** beltza. Berria - Gaiak

U2 taldearen **itzal** luzeak dena estaltzen du. Berria - Harian

Heriotzaren **itzala** gainean duen izaki batek. Oskar Arana

Baina ordutik hona urte batzuk pasatu badira ere, Teresaren **itzal** luzeak sarritan harrapatzen nau (ametsetan, oroimenean, Starlux-usaina sentitzen dudan aldiko...). Anjel Lertxundi

Parrokiaren **itzalean** sortutako kirol talde baten ospea. Koldo Biguri

Zer ostia dago arimaren **itzalean** ezkutaturik, betiere ezustean baikaitu harrapatzen? Juan Kruz Igerabide

Hobe izanen nuela neure sentimenduen gordetzea eta **itzalean** mantentzea ezen ez haien agertzea. Joan Mari Irigoien

Araudi aldaketa horiei esker gauza batzu argitzen dira beste batzu aldiz **itzalean** daudelarik. Herria

Haiek nehork ez ditu aipatzen eta goresten, **itzaleko** lan baliosak ez duke gure irrati, telebixta edo kasetentzat espantagarrizko titulurik! ezkutuko harremanak lantzen, eta **itzaleko** lana egiten. Herria

**Itzaleko** ekonomia hori, baina, AEBetako ekonomiaren oinarria da. Berria - Mundua

## **4** (eragina edo)

Boterea duen gizon batentzat erraiten da **itzal** haundiko gizona dela. Herria

Beldurraren **itzal** luzea. Berria - Euskal Herria

Hipokondria ilunaren **itzal** latzak goibeldu egin zuen haren aurpegi bizia. Jose Morales

Geopolitikaren **itzal** luzea, Bashkim Sehuk ez du trenean segitzen. Edorta Jimenez

Frantsesaren eta espainolaren **itzal** handiek babes egiten zigutelakoan bizi ginen, eta ez genuen ikusten bi hizkuntza handi horien **itzal** zabalek geure itzala itzali eta estaltzen zutela. Anjel Lertxundi

Eragin eta **itzal** hori ukaezinak dira literaturaren alorrean ere. Anjel Lertxundi

Beste batean Edgar Allan Poeren **itzala** suma liteke. Xabier Mendiguren Elizegi

Etxe Zuriaren **itzal** iluna Caracasen. Berria - Mundua

Ezingo nizuke zuri horrelakorik egin, ez behintzat zure **itzalak** nigan argitzen dueino. Iñaki Segurola

Adelari zer edo zer gertatzen bazitzaion, Juliok larrutik ordainduko zuela, ziur nengoen-eta atxiloketa haien guztien atzean beraren **itzala** zebilela, nondik edo handik. Juan Kruz Igerabide

· Begi beltzak, **itzal** ilunez margotuak zituen. Josu Zabaleta

## **5** (babesa edo)

Askatasun indibiduala bermatuko zion **itzal** eta babes doi-doia. Anjel Lertxundi

Etsia **itzal** harturik, zerua eta zerutiar den oro madarikatzen hasi da Leonore, eta deiadar egin dio Heriori. Anjel Lertxundi

Bawtryko uhalgilearen kasuan Oliver Cromwel izan zen **itzal** babesletik iluntasun nahaskor bilakatu zen indar eragilea. J.M. Olaizola "Txiliku"

Halako irudien **itzalak** babesturik joatekoak ginen gudara, ostera. Edorta Jimenez

Garrüzen, aitatxiren **itzalak** babesten ninduen; Nabarrenkoxen, berriz, gazteena nintzen, ipurdi guri baten jabe. Aingeru Epaltza

Nafarroako erregeen **itzalean** zituzten beren egiteko politiko eta militarrak, erreinuko mariskal eta agramondar aitzindari bezala. Piarres Xarriton

Kapital multinazionala dute eta boterearen **itzalean** garatu dira. Txema Ramirez de la Piscina

Neskak aitaren **itzaletik** libratu nahi du? Anjel Lertxundi

## **6** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Kandelaren garrak dardar egin du, eta harekin batera aretoko **itzal**-argiek. Pello Lizarralde

Ibarrak arrastiriko zehar-argitan, **itzal**-mazelak, **itzal**-trokarteak, lats zuriak han behean, larre-pentzeak zehar-argitan, sarale-metak eguzki-argitan gorri. Joxe Austin Arrieta

Geldi bestean zure bularren eta zokogune ezkutuen **itzal** islada zeru urdinari begira. Patziku Perurena

Beren **itzal**-ingurua hautsi eta errealitate biziarekin nahasi behar zutelako iritzia. Fernando Rey

Haren belaren isla nabarmentzen ikusia genuen euripean, eta gero aire **itzal**-lausoan eta ilunbean desagertzen. Juan Garzia

Ulisesek egin zion eraso lehenik, lantza **itzal**-luzea altxatuz. Juan Kruz Igerabide

## **7** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gizon-**itzalak** borrokan ikusi zituen ontziralekuan; bortizki elkar jotzen ari ziren. Lopez de Arana

Magenta-**itzal** distiratsu bat. Iñaki Mendiguren

Bibote-**itzal** bat zuen potolo bizkarzabal batek. Monika Etxebarria

Jabetu bitez hartaz ilunpea eta herio-**itzala,** ezkuta bedi lainopean. basa txakurren artera bota gaituzu eta herio-**itzalean** murgildu. Elizen arteko biblia

Irakurketa aurrera, Hesterrek ez zuen gorputz-**itzal** zehatzik hartzen Noraren irudimenean. nabarmen agertzen da herio-**itzal** beltzak ezin dituela estali biziaren argiari bide zuzenez jarraitzen diotenak. Anjel Lertxundi

Irri-**itzal** litekeena sumatu uste du orduan Gabinek Marujaren begietan. Iñaki Iñurrieta

Damu-**itzal** bat hedatzen zaio barnean. Oskar Arana

Hereje-**itzal** horiek zupatu egiten zaituztete. Pablo Sastre

Hartz-**itzal** sekulakoa korridoreko paretetan barrena. Fernando Rey

Urdanga hau xehatuko bagenu ere, ez legoke horretan krimenaren **itzalik**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Miresgarria gertatzen da nola gnomoaren ekinokzio-**itzala** neurri desberdinekoa den Atenasen eta Alexandrian. Santiago Iruretagoiena

## **8** begirunea; begirune-eragingarria.

Duintasunik gutxieneko iruditzen zaizkigunak **itzal** eta begirune handienaz inguratzen eta zaintzen ditugu. Elizen arteko biblia

Erkinak baino prestago eta gaiago dira bere Egileari eta Jaunari begirune eta **itzal** egiteko. Patxi Altuna

*ik beherago* 20. Askoren artean

**Itzal** ona dugu auzoan, gauzak kontuz egitera behartzen gaitu horrek... Karlos Zabala

Izenak berekin zekarren guztia: ospea, **itzala,** dirua. Matías Múgica

Gerlak galdu du nazioartean zuen ospea eta **itzala**. Piarres Xarriton

Baginuen gorago Uztaritzeko Louis Dassance, orduan herri hortako auzapez zena eta Laborantzaz zauzkan diploma eta kargu politikoekin bere **itzala** bazuena politika munduan. Herria

Euskaltzaindiak beti izan du **itzal** akademikoa eta errespetua euskaltzaleen artean. Pello Salaburu

Émile Zola idazle handia zen ordurako, **itzal** luzekoa. Karlos Zabala

Jorge Oteizak euskal kulturaren alor guztietan izan dituen eragina eta **itzala**. Anjel Lertxundi

Basarrik bertsolaritzaren historian izan dituen **itzala** eta maila aztertzeko. Anjel Lertxundi

Zuen kulpaz galdu du Alemaniak bere **itzal** handia. Anjel Lertxundi

Erlijio-gizonaren aurazko **itzala** galduta gizaki soil, zahar eta gupidagarri bihurturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Esku bigunaren leuna erantsi behar diote beren kargu-**itzalari,** handizkien sehasketan hazi ez direnak. Patxi Ezkiaga

**9** *adkor* espetxea, presondegia.

Bere zeregina ez zen hiltzailea **itzalean** sartzea, txostena eskuratzea baino. Migel Angel Mintegi

Tira, ez zinateke errurik gabe **itzalean** usteltzen ari den bakarra izango. Migel Angel Mintegi

Badakizu, aitorpena ondo aterata ere, urte batzuk eman beharko dituzula **itzalean**. Rafa Egiguren

Ez dute ahanzten Gaizkile asko sartu duk **itzalera**? Migel Angel Mintegi

*ik* itzaleratu.

Segurtasuneko agenteek biraogiletzat zeukaten, eta aldian behin aste pare baterako **itzalera** eramaten zuten. Josu Zabaleta

Hamar hilabeteren presondegia bildua zuen alabainan eta gauzak legez-lege eginez **itzalerat** joan behar zuen beraz, ez da hortan haratik ez hunatik. Herria

Haren hiltzalea **itzalerat** bildu zutela. Herria

272 estasi dosi eta 100 speed dosi hatxeman dituzte eta hiru presuna **itzalerat** bildu. Herria

**10** gainazal batean eratzen den itzalgunea, argi izpien igarotzea galarazten duen gorputzaren ingurua, nolabait irudikatzen duena.

Ahotsak entzuten zituela eta **itzalak** ikusten. Juan Garzia

Atetxo bat zeharkatu zuen **itzalak**. Pello Lizarralde

Pasatu ahala meatze-zuloko erdi-ilunpera jarri zaio begia, eta bere aurrean hasi da **itzal** batzuk bereizten, gero **itzal** horiei gizon-emakumeen taxua hartzen, eta haien eskuetan, azkenean, pistola antzeko batzuk antzematen. Xabier Mendiguren Elizegi

Gavarden pistolaren **itzala** ikusi zuen, errebolber profil ikaragarri handi bat. Karlos Zabala

Paralelismo handi bat egiten du Baudryk film-ikuslearen eta Platonen mitoan haitzuloan kateatuta eta errealitatearenik beren aurreko horman proiektatzen zaizkien **itzalak** baizik ez ikustera kondenatuta dauden esklaboen artean. Josu Zabaleta

**Itzal** hauek sortzen dituzten txotxongiloak oso handiak izaten dira. Berria - Kultura

Ezpata borrokak, koreografiak eta **itzal** proiektatuen bidez emandako pasartea. Berria - Kultura

Zergatik dezake lurrak, halaber, ilargia argigabetu eta, bera gainean dela, eguzkia geldi atxiki, hilero konoaren **itzal** barruan zorrotz dabilen bitartean, Bere silueta irudikatzen du, hormaren kontra **itzal**-antzerki txinatarra egiten duenaren erara. Xabier Amuriza

**Itzal** bidezko ikuskizuna taularatuko du. Berria - Kultura

Jolas hau amets baten **itzal**-irudien gisara desagertuko litzateke. Ibon Uribarri

Festa hura bete-betera iristen zenean, sabaian **itzal** dantza harekin, eta urre koloreko musika bero harekin. Josu Zabaleta

**11** itxura, irudia, bereziki ahula edo hutsala.

Juanen gelan, gurutze baten aztarna, **itzala,** suma zitekeen ohe gaineko hormaren erdigunean. Jon Maia

Egun batean, gorputzik gabe aurkituko naiz, **itzal** bat izango naiz. Pablo Sastre

Pentsamendu izena ere ez zuen merezi; pentsakizun baten **itzala** zen beharbada, edo pentsakizun baten lehengaia, lehenagotik ere hantxe gordea zegoena. Ramon Saizarbitoria

Zeruko gauzen irudi eta **itzal** besterik ez da. Elizen arteko biblia

Bazitekeen Voldemort garai batean izandakoaren **itzal** hutsa izatea orduan. Iñaki Mendiguren

Whitek bere aitari begiratu zion, eta bizitzak suntsitutako **itzal** bat ikusi zuen. Pablo Sastre

Schenker doktoreak egon behar zuen tokian **itzal** luze bat baizik ez zen, **itzal** betaurrekodun bat. Alberto Ladron Arana

Intsigniak eta galoiak **itzal** hutsak ziren, baina han zeuden, soldadu espektral haiei buruz informaziorik eskaintzen ez bazuten ere. Iban Zaldua

Lubakietan mugitzen ziren **itzal** urrun haien artean, anaia zaharraren aurpegia ikusi uste zuen etengabe, hura ere izuturik, bera bezala. Juan Kruz Igerabide

Urbiaindik iragan **itzal** bat bezala agertzen baitzitzaidan Italian ezagutu nuen gizona. Joan Mari Irigoien

Ez zela mamu edo **itzal** baten gisa igaro mundu honetatik. Jose Morales

Bentaria **-itzal** zapuztua- ilunean desagertu zen. Felipe Juaristi

Amak ez likek bere seme hura aurkituko, **itzal** bat baizik, zeren mundua jan nahi zuen gazte hura munduak jan baitzuen. Joan Mari Irigoien

Zain geratzen da eta denbora **itzal** bihurtzen zaio, **itzal** iheskor. Felipe Juaristi

Idazketaren bidez atzeman nahi dugunean bizitza, iragan bihurtua, **itzal** batzuk besterik ez dugu eskuratzen, gutxi gorabeherako argazki lausoak onenean ere. Juan Kruz Igerabide

Neure ezbai eta buruhauste haiek guztiak, denbora batean enegan haragitzen zirenak eta haragiaren haragi bihurtzen, **itzal** bihurtu baitziren, finean, eta, azturaren azturaz itzalaren **itzal**. Joan Mari Irigoien

Utikan, baina, iraganeko **itzal** gaiztook! Edorta Jimenez

Abelek Joxe mugitzen hasi dela sumatu du, itzalean **itzal**. Pello Lizarralde

Haren begien kolore urdin distiratsu hartatik ez zen **itzalik** ere geratzen. Josu Zabaleta

**12** alde okerra, goibela edo bada-ezpadakoa.

Gizon berezia, dena argi eta **itzal**. Herria

*ik beherago* 16. Askoren artean

**Itzal** ilun bat zuen gainean amak, Charliek eta biok argi asko ikusten genuen, eta ez zen soilik aitaren heriotzagatiko **itzala**. Mirentxu Larrañaga

**Itzal** beltz batek gurutzatu zuen bere burua. Aritz Gorrotxategi

Une hartan **itzal** triste batek zeharkatu zuen emakumearen aurpegia. Aritz Gorrotxategi

Zeren bekatu mortalak beti uzten baitu ariman **itzal** bat, ezin ezaba daitekeena purgatorioan baizen. Joan Mari Irigoien

Ez dakit jeloskor zegoelako edo barrendik zalantza edo **itzal** batek jaten zuelako. Joan Mari Irigoien

**Itzal** batek betartea bat-batean ilundu balio bezala. Joan Mari Irigoien

Haren **itzal** bakarra: biziki handia eta zabala baitzen, bere oheaz bestalde, enearen parte bat ere hartzen zidala, lotarik! Marzel Etxehandi

Euskal gizarteak duen mamu, **itzal** eta zulo beltz bakarra ETA da. Berria - Euskal Herria

Gustura ibili nintzen, eta zu ere halaxe ibili zinelakoan nago, baina bazen, hala ere, **itzal** moduko bat, eguzkiaren gainean ipintzen tematzen diren hodei horien antzera. Xabier Mendiguren Elizegi

Azkenik, agur esan die **itzal** ekonomikoei, iaz azken hamahiru urteetako hazkunde tasarik handiena izan zuela baieztatu eta gero. Berria - Ekonomia

Itzalak **itzaltei,** balio ote du beraz bozka-legea Frantziak orai kanbiatzea, bestaldiko beharko badu gero berriz kanbiatu. Herria

Bainan batzuen ustez aintzinamendu handia da gisa guziz eta itzalak **itzaltei** onartzea hobeko da, ondotik eta denborarekin hobetzen ahalko dela zernahi gisaz. Herria

**13** hutsa, hobena.

**Itzalak** bazituen noski: emazte zalea zen, kristaua, Cochinos Badiako zorri-zakua debaldetan inarrosi zuen... Itxaro Borda

Oraiko bozka-legearen **itzal** handiena, Frantzia guzia bozgune bakar ekarria dela. Herria

**14** (erkaketetan)

Riddlek, **itzala bezain** isilik, atetik irten eta jarraitu egin zion. Orduan **itzala** baino argalago geratu nintzen. Iñaki Mendiguren

Haien bizkar biluziak, hain juxtu ere, platanondoen gerizpeko **itzala bezain** ilunak dira. Joxe Austin Arrieta

Nor besterik bizi izan duk higandik **itzala bezain** hurbil eta **itzala bezain** iheskor, hainbeste denboran? Hasier Etxeberria

Kontu haiek aspaldikoak baziren ere [...] arratseko **itzala baino** soka luzeagoa zekarkidaten. Joan Mari Irigoien

- **15** *izond* itzaltsua; iluna.

Edo eraman gaitzan bi-biok egoitza **itzal,** ahaltsura. Juan Garzia

Han ikusi zuen burdinlanga bultzatzen [...] eta patio **itzala** zeharkatzen. Juan Garzia

Goazen, zeren zain zaude?, esan zuen nire gibelean ahots **itzal** batek. Anjel Lertxundi

Ohitu nintzen irribarre **itzal** hartara. Matías Múgica

Orain arratsaldeko saihets **itzal** hura beste aldera mugitu du mahai gaineko argiak. Pello Salaburu

-Urkatu horien kinka baino askoz ere **itzalagoa** dinagu geurea. Anjel Lertxundi

**16** ***argi-itzal*** *pl* argiak eta itzalak. ik beherago **17.**

Argi-**itzalak** dantzatzen ari dira atalondoan. Xabier Olarra

Titaniozko alkatxofa globalaren argi **itzalak** ikusi ditut gortinen artetik. Patxi Iturritegi

Neskaren arnasaldi lasaiak bularraldeko argi-**itzalak** higitzen zituen, gora eta behera, modu akonpasatu batez. Anjel Lertxundi

Argi-**itzal** artean. Iñigo Aranbarri

XX. mendearen argi-**itzalak** eta paradoxak. Pello Salaburu

Gau-mahaiko lanpara txikiak sortzen duen argi-**itzalean**. Jokin Muñoz

Kaleko kriseiluen argi-**itzaletan**. Jon Maia

Giza izaeraren argi-**itzaletan**. Askoren artean

Filigrana gotiko argi-**itzalezko** hura. Karlos Linazasoro

**17** ***itzal-argi*** *(orobat* ***itzalargi****)* *pl* itzalak eta argiak. ik gorago **16.**

Kandelaren garrak dardar egin du, eta harekin batera aretoko **itzal-argiek**. Pello Lizarralde

Zoriona **itzal-argizkoa** da. Ana Urkiza

Etchevarriaren tresna arruntak barna, barneneraino, kasik ezin helduraino sartzen dira **itzal-argi** jokoetan begia eta gogoa haziz, bere sena guzia eman diola egin duenari. Herria

Arantza Aranaren gorputz soslaia **itzalargitan** ikusi zuten, zutik jarritako Tour-eko etapa menditsu baten mapa orografikoa bailitzan. Berria - Kultura

Mutil handiago batzuk han ari ziren dantzan, neskaren bati estu loturik, isilean, aurpegia gorrituta eta izerditurik **itzalargietan**. Joseba Sarrionandia

**18** ***itzal egin*** ik beherago **20.**

Herriko elizari **itzal** egiten zion kasik Donapaleuko tenplu berriak. Aingeru Epaltza

Simoniri **itzal** egingo dionik ez dagoela Giroan. Berria - Kirola

Spiritu Sainduak **itzal** eginen ziola... Joan Mari Irigoien

Gure literatura apalean leku bat eskuratzera ez ezik, beste guztiei **itzal** egitera iritsia zegoen. Joxean Agirre

Eskola giristinoetako fraide hori, mehe-mehea, isila, haro gutikoa, nehori **itzal** egiten ez ziona, gizon handi bat bezala agertu zitzaidan. Marzel Etxehandi

Hitzek **itzal** egingo diotela jakin gabe. Berria - Kultura

Airbusek garai hartan ez zuen gaitasunik Boeing taldeari **itzal** egiteko. Berria - Ekonomia

**19** ***itzal handiko*** errespetagarria, begirunetsua.

Hain nortasun nabarmen eta hain **itzal** handiko dama bat. Joxe Austin Arrieta

Eta logela ere **itzal** handiko pertsonen modukoa iruditu zitzaion. Karlos Zabala

Unibertsitateetako irakasleek eta hainbat alorretako **itzal** handiko profesionalek. Berria - Mundua

· Zaldun haietarik bat zen, bertzeen artean **itzal** handienekoa zirudiena. Joan Mari Irigoien

**20** ***itzala egin*** ik gorago **18.**

Eta gurutze haren parean, ostatu bat, ostatuaren saihetsean arbolpe batek gaitzeko **itzala egiten**. Janbattitt Dirassar

Idazmahai astunari izugarrizko palmondo baten hostoek **itzala egiten** zioten. Fernando Rey

-Alde egin ezak paretik, **itzala egiten** didak eta! Joxerra Garzia

Sukaldetik zetorren kriseiluko argiak **itzala egiten** zion sudurretik gora. Anjel Lertxundi

Ipuin bat idatz dezaket museo honetako koadroek elkarren artean duten lehiaz: nork nori **itzala egingo** daude, zeinek ikuslearen arreta bereganatuko. Anjel Lertxundi

**21** ***itzala eman***

Begiei eskuarekin **itzala emanez**. Anton Garikano

Arbola horiek ditugu ametzak, [...] mozkin izpirik emaiten ez dutenak, bainan inguramena edertzen dute, begiratzen ere euri ixalotak tupustez jeustetik eta kabaler **itzala emaiten**. Herria

Horrelako istorioak ere idatzi zituen, baina ez dira horiek ospea eta **itzala eman** zizkiotenak. Karlos Zabala

Prentsan argitaratu izaten dituen artikuluek beraren izenari ematen dioten **itzala**. Edorta Jimenez

Santo Domingoko Trujillo diktatoreak aldamenean ezin omen zuen **itzala egingo** zion gizonik eduki. Gotzon Garate

Nire etxe aurrean, etxea estaltzen, babesten eta **itzala ematen** dion albo erraldoiaren azpian belarretan etzanda eman dut goiz guztia. Josu Zabaleta

**22** ***itzalak itzaltei*** *ipar*

Itzalak **itzaltei,** balio ote du beraz bozka-legea Frantziak orai kanbiatzea, bestaldiko beharko badu gero berriz kanbiatu? Herria

Bainan batzuen ustez aintzinamendu handia da gisa guziz eta itzalak **itzaltei** onartzea hobeko da, ondotik eta denborarekin hobetzen ahalko dela zernahi gisaz. Herria

Oro har, aroa ere alde ukan dute bost egun eta bost gau horiek! itzalak **itzaltei,** azpimarratu dena da airostasun gaitza izan dela burutik buru, gauza ederra dela hoinbeste jende, xahar eta gazte, denak xuri ta gorriz jaunztea, ausagailu eta ikusgarriak ederki joan direla... Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**arbasoen itzal** (4); **arbasoen itzal gisa** (4); **argi eta itzal** (7); **argi itzal** (5); **artean itzal** (6); **baina itzal** (7); **baino itzal** (6); **batean itzal** (4); **batek itzal** (4); **baten itzal** (15); **bere itzal** (15); **beren itzal** (6); **beste itzal** (7); **bi itzal** (6); **da itzal** (5); **den itzal** (4); **dituen itzal** (4); **du itzal** (6); **edo itzal** (9); **ere itzal** (5); **eta bere itzal** (4); **eta itzal** (69); **eta itzal handiko** (6); **hainbat itzal** (4); **halako itzal** (5); **haren itzal** (9); **itzal artean** (5); **itzal bat** (70); **itzal bat bezala** (8); **itzal bat ikusi** (4); **itzal batek** (16); **itzal baten** (9); **itzal batzuk** (10); **itzal beltz** (12); **itzal beltza** (8); **itzal beltzak** (7); **itzal bihurtzen** (4); **itzal bila** (6); **itzal dezake** (4); **itzal edo** (4); **itzal egin** (9); **itzal egingo** (8); **itzal egiteko** (7); **itzal egiten** (12); **itzal eta** (25); **itzal ez** (4); **itzal ezak** (4); **itzal gehiago** (4); **itzal gisa** (5); **itzal handi** (6); **itzal handia** (42); **itzal handia du** (4); **itzal handia izan** (4); **itzal handiagoa** (4); **itzal handiak** (4); **itzal handiko** (47); **itzal handiko gizon** (4); **itzal handiko gizona** (7); **itzal handiko jaun** (5); **itzal handikoa** (6); **itzal handikoak** (5); **itzal haundia** (4); **itzal hegadunak** (5); **itzal hori** (10); **itzal horiek** (4); **itzal hura** (9); **itzal ilun** (7); **itzal iluna** (8); **itzal luze** (8); **itzal luzea** (35); **itzal luzeak** (8); **itzal moduko** (5); **zegoen itzal** (4); **zen itzal** (12); **zuen itzal** (12)

**argia eta itzala** (9); **baina itzala** (5); **baten itzala** (36); **bekatuaren itzala** (13); **bere itzala** (40); **da itzala** (4); **du itzala** (6); **duen itzala** (9); **edo itzala** (4); **eta bere itzala** (6); **eta itzala** (42); **faustoren itzala** (5); **haren itzala** (25); **herioren itzala** (5); **heriotzaren itzala** (10); **horren itzala** (6); **itzala agertu** (6); **itzala agertu zen** (4); **itzala baino** (14); **itzala baino ez** (4); **itzala baizik** (5); **itzala bere** (4); **itzala bezain** (6); **itzala bezala** (6); **itzala da** (5); **itzala duela** (4); **itzala egin** (8); **itzala egingo** (8); **itzala egiten** (10); **itzala eman** (4); **itzala ematen** (9); **itzala ere** (13); **itzala eta** (19); **itzala ez** (10); **itzala gero** (4); **itzala gero eta** (4); **itzala handia** (6); **itzala ikusi** (7); **itzala izan** (8); **itzala izango** (4); **itzala luzea** (9); **itzala luzea da** (4); **itzala oso** (4); **itzala sumatu** (4); **itzala sumatzen** (4); **itzala utzi** (5); **itzala zapaltzen** (4); **itzala zen** (4); **nire itzala** (8); **zen itzala** (4); **zenaren itzala** (4); **zuen itzala** (9); **zure itzala** (5)

**argi itzalak** (16); **argiak eta itzalak** (8); **baina itzalak** (5); **baten itzalak** (9); **batzuen itzalak** (4); **bere itzalak** (5); **eta itzalak** (24); **haren itzalak** (7); **itzalak bezala** (4); **itzalak ere** (11); **itzalak eta** (19); **itzalak hartu** (4); **itzalak ikusi** (5); **itzalak ikusten** (4); **itzalak luzatzen** (6); **itzalak sortzen** (4); **mendearen argi itzalak** (4); **zuen itzalak** (5)

**bere itzalaren** (4); **eta itzalaren** (12); **itzalaren baitan** (4); **itzalaren bila** (7); **itzalaren luzera** (4)

**argi eta itzalen** (5); **argi itzalen** (4); **argi itzaletan** (8); **baina itzalean** (5); **baten itzalean** (18); **beren itzalekin** (4); **erdi itzalean** (6); **erdi itzaletan** (4); **eta haren itzalean** (6); **eta herio itzalean** (5); **eta itzalean** (16); **eta itzalekin** (4); **eta itzalen** (13); **eta itzalez** (8); **haien itzalean** (5); **haren itzalean** (24); **herio itzalean** (5); **horren itzalean** (6); **itzalean bizi** (10); **itzalean bizi izan** (4); **itzalean egon** (17); **itzalean egonik** (4); **itzalean eseri** (4); **itzalean eta** (7); **itzalean geratu** (10); **itzalean hazi** (4); **itzalean lan** (6); **itzalean lo** (4); **itzalean utzi** (9); **itzalean uzten** (8); **itzalean zegoen** (4); **itzalen armada** (4); **itzalen artean** (13); **itzalen artetik** (5); **itzalen bat** (5); **itzalerat bildu** (4); **itzalez eta** (4)

## **itzalalde** *iz*

Gure artean orain **itzalaldean** dagoen belaunaldiak izango zituen bere akatsak, baina [...]. Irene Aldasoro

## **itzalaldi** 1 *iz* argindarraren etenaldia.

Asteartean haize bortitzak eragotzi zien NASAko teknikariei zunda jaurtitzea, eta, atzo, argindarraren **itzalaldi** batek. Berria - Gaiak

Iberdrolak sare elektrikoa ez du behar bezala zaindu eta **itzalaldiak** iraun zuen bitartean ez zien beharrezko arreta eskaini bezeroei. Berria - Harian

Iberdrola **itzalaldiaren** larritasunaz ohartu dela dio Jaurlaritzak. Berria - Euskal Herria

Dominikar Errepublikako erietxeek arazoak dituzte **itzalaldiekin**. Berria - Gaiak

Ezagunak dira New Yorkek jasandako **itzalaldiak**. Harkaitz Cano

Partida atsedenaldian bukatu izan balitz, San Mames beltz eta ilun utzi zuen **itzalaldia** izango zen kronika honetako hizpidea, 20 minutuko iluntasun hori izan baitzen lehen 45 minutuetako kontu aipagarriena. Berria - Kirola

**2** eklipsea.

Eguzkiaren **itzalaldia** (eklipsea) urriaren 3an. Herria

**3** zerbait itzaltzen den aldia.

Garuna oxigenorik gabe eta karbono dioxidoz pozoiturik, gorabeherak eta **itzalaldiak** izaten zituen Virgilen kontzientziak. Xabier Olarra

Arrazoiaren aldiroko **itzalaldi** hauek. Josu Zabaleta

Zaharra berritu du, lur jota zegoena bizkortu, ia hilik zegoen erlijioa berpiztu du, **itzalaldira** doan mundu honen arratsean. Askoren artean

## **itzalarazi**, itzalaraz, itzalarazten du *ad* itzaltzera behartu.

Eta orduan, ama sentimenduak **itzalaraziz,** pentsamendu bakar bat izan zuen: "Ez nuen galbidean jarriko nahi gabe?". Karlos Zabala

Ezpatak zorroan sarrarazi zituen, haatik, ez gorrotoak **itzalarazi**. Aingeru Epaltza

Cesarrek bere leihoko markoan **itzalarazten** zuen zigarrokin baten errautsa. Harkaitz Cano

## itzalargi ik **itzal 17**.

## itzaldu ik **itzali**.

## **itzaldun** *izond* itzala duena.

Sartzen diren zazpiak itzala zitean izena ematerakoan, sei baino ez dituk irteten **itzaldun,** maisua zazpigarrenaren itzalarekin gelditzen baituk. Anjel Lertxundi

Errekak jadanik eraman zuen uda mineko uharte **itzalduna**. Itxaro Borda

Bere garaian, itxuraz, oso ederra izandako emakume bat zen, begi beltz, handi, **itzaldunekoa**. Josu Zabaleta

## **itzaldura** *iz* itzaltzea.

Gaua zen ordurako, eta farolen argiak, **itzaldurak** ubelez mozorroturik, ez zuen lortzen lanbroari eta ilunbe beltzari nagusitzerik. Juan Garzia

## **itzaleratu**, itzalera(tu), itzaleratzen du *ad* espetxeratu, presondegiratu.

Han **itzaleratua** izaiteko, aski da kurdo herritarra izaitea, edo xihita, hots, ez batere Husseinen alderdikoa. Herria

Furgoi beltzean **itzaleratu** zutenean, gilotinaren mihi fin eta zorrotza lepondoan hotz lerratzen imajinatu eta trenputxartu zen. Itxaro Borda

## **itzalezin** 1 *izond* ezin itzalizkoa.

Argitsua da jakinduria, **itzalezina** haren distira. Elizen arteko biblia

Su eramangarriak eta uretan **itzalezinak** sortzea Hermioneren espezialitatea zen. Iñaki Mendiguren

Heldutasunera iritsi den zomorroari halako grina **itzalezin** bat pizten zaio. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** ***itzalezineko*** *izlag* itzalezina.

Jaunaren epaia **itzalezineko** labea da: gutarik nork jasan lezake haren su kiskalgarria? Anjel Lertxundi

Zeure etsaien esklabo egingo zaitut ezagutzen ez duzun lurralde batean, nire haserrearen sua harrotu baituzu **itzalezineko** sugarretan. Elizen arteko biblia

## **itzaleztadura** *iz* itzaleztatzea.

Era berean, aurrealdearen eta puntu baterantz iheska doazen alboen **itzaleztadura** da perspektiba, lerro guztiak zirkulu baten zentroa den puntu batera biltzen direla azalduz. Santiago Iruretagoiena

## **itzaleztatu**, itzalezta(tu), itzaleztatzen du *ad* itzalez hornitu.

Gero paseo bat eman zuten biek parrokian barrena, azaleek **itzaleztaturiko** korridoreetan zehar. Juan Garzia

Kalean elkartzen ginenean, **itzaleztaturik** egoten ziren etxeak. Irene Aldasoro

## **itzalgabe** 1 *izond* itzalik ez duena.

Hiria erretzen zuten egunero, **itzalgabe** ematen zuen suaz, erraiak kiskaltzen dituen suaz. Sonia Gonzalez

**2 *itzalgabeko*** *(orobat* ***itzalbako****)* *izlag* itzalgabea.

Bideak ez du deus eskasik, espazio zabala bezain **itzalgabekoa** da, ezer ez da hartarik kanpo geratzen. Itxaro Borda

Jende beldurtu eta plegatuen aurrean oihuka, bekatuari erdeinu eta uxaka bere denbora pasatzen zuen Axular **itzalbakoaren** moldean finitzeko. Itxaro Borda

---

# itzalgai *izond* itzaltzeko gaia.

Hasieran sua pizten zekien lurrin huraxe bera bilakatu zen **itzalgai** elkarren ondoan egindako egunak pilatu zirenean. Hasier Etxeberria

---

# itzalgailu 1 *iz* sua itzaltzeko gailua.

**Itzalgailuak** hartu eta sua amatatzeko aukera ere eman zieten bertara hubildu ziren haurrei. Berria - Gaiak

Hark **itzalgailu** kimiko bat mahai gaineko oihal ikaztu pilo baterantz destatzen zuen bitartean. Lopez de Arana

**-Itzalgailu** bat ere eskatu nioan suhiltzaile bati. Rafa Egiguren

· Su **itzalgailua** hartu, eta berak amatatu zuen sute txikia. Berria - Euskal Herria

Inguruko zutabe batera hurbildu eta, handik tamaina handiko su-**itzalgailu** bat erauzirik, Konstirengana joan zen kulunka. Josetxo Azkona

**2 *su itzalgailu*** *(orobat* ***suitzalgailu*** *g.er.)* su itzaltzeko erabiltzen den gailua.

**Su itzalgailua** hartu, eta berak amatatu zuen sute txikia. Berria - Euskal Herria

Tamaina erdiko **su-itzalgailu** bat zen. Josetxo Azkona

Inguruko zutabe batera hurbildu eta, handik tamaina handiko **su-itzalgailu** bat erauzirik, Konstirengana joan zen kulunka. Josetxo Azkona

Telefonoa erauzi diogu atzaparretatik, nahikotxo kostata, eta kameraren aurrean ostikoz zanpatu dugu, **su-itzalgailuz**, mailuz ere bai. Karlos Linazasoro

Kanbotarrak aitortu zuen ez duela lana besterik egiten ( **su-itzalgailu** saltzailea da), eta han duela burua. Berria - Kirola

Harrizko zolaren gainean Minimax markako **suitzalgailu** bat zegoen. Fernando Rey

Etxeko **su itzalgailuarekin** garrak amatatzen saiatu zen. Berria - Euskal Herria

---

# itzalgaitz *izond* itzaltzen zaila, ia itzalezina.

Baina neke horren azpian, artean bizirik zirauen, **itzalgaitz,** zu ikusteko eta zuri hitz egiteko borondate irmoak, handik ateraraz nintzaten baino lehen. Eduardo Matauko

---

# itzalgaizka 1 *adlag* ezkutuka, isilean, gordeka.

Inor ohartu gabe, halako jeneral bati atea ireki ziotela baliatuz, **itzalgaizka** sartu zen harrera-gelaraino bere egurrezko hankarekin. eta ni ere, enigmaren argitzeko, ezkutuka eta **itzalgaizka** ibili nintzen harat eta honat, Mattinen xerka. Jose Morales

Zein modu tentagarrian agertzen den, **itzalgaizka,** logalea! Jose Morales

Inork ez zezan **itzalgaizka** hortik tantarik ere edan. Jose Morales

Han zihoan hura **itzalgaizka,** benetako otso bat bezala hormen kontra narras. Juan Garzia

Heriotzara kondenatuko zuten bere azken urratsak kontatu nituen, **itzalgaizka** bere emazteari segika eman zituenak. Joxean Agirre

Etorri bezala, iheskor, uzkur eta **itzalgaizka** ikusi nuen, bere poltsa beltz zimurra magalean estutuz, kalean barrena ezkutatzen, zorigaitzak emakume ederrenei ere eransten dien patetismo puntu horrekin. Joxean Agirre

Nahigabeak, jakingo duk noski, ez dituk etortzen lauoinkako zalapartan, hunoen zalduneria bezala, baizik eta isilka, **itzalgaizka,** epidemiak bezala. Juan Garzia

**2 *itzalgaizkako*** *izlag*

Nire ehiza-zainek **itzalgaizkako** ehiztariak zaintzen ibiltzen baitziren... Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> eta itzalgaizka (4)

---

# itzalgarri *izond* errespetagarria, begiragarria.

Afanasi Vasilievitxek berezitasun **itzalgarri** asko ditu, baina baita ezin barkatuzko akats ugari ere. Jose Morales

Merkataria, **itzalgarria** bada, ez da merkatari hutsa, negozio-gizona ere bada nola edo hala. Jose Morales

Jainko **itzalgarriaren** ostotsa durundan. Pello Zabala

---

# itzalgune *(orobat* ***itzal(-)gune*** *eta* ***itzalune*** *g.er.)* 1 *iz* itzalpeko gunea.

Emazteek berriz, **itzalgune** bat bilatzen zuten, hats bahiturik. Elena Touyarou

Espazioari buruzko gogoetetan oinarritzen da Oteizaren gaurko lana: argi eta **itzal gunez** beterikako irudi karratuen eta esferoen bidez, espazioaren hustuketari buruzko ikerketa dauku eskaintzen artistak. Herria

**Itzalune** hezera begira. Josu Landa

Ilunbeltz sakonena barnagotzen dute kasik ikusezinak egiten dituen argi pindarrek, halaber eguerdi beteko argi eztandak dauzka bere **itzaluneak** koloreen ñabarduretan... Herria

**2** *irud*

**Itzalgune** nahigabetu batek zeharkatu zuen Domengaren behakoa, istant batez. Elena Touyarou

Aurten, hasteko, profesionalen kopuruan FIPAk **itzalgune** bat izan duela damu izan dira arduradunak. Berria - Kultura

Hona lana egina, bere argi eta **itzal** guneekin, gain hartarik begi onez onartuko digulakoan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Egun hortan berean, 90,5 MHZ neurriko frekuentzia berria baliatuz, *Gure Irratia*k estaliko ditu Azkainen, Urruñan eta Donibane Lohizunen zituen **itzal-guneak**. Herria

---

# itzali, itzal(i), itzaltzen *(orobat* ***itzaldu*** *g.er.)* 1 da/du *ad* erretzetik edo argitzetik gelditu edo geldiarazi. ik **iraungi**; **amatatu**.

**Itzaltzen** ari zen beheko suak oraindik argitzen zuen egongela. Iñaki Mendiguren

Marta eta Olatz suari begira egon ziren, erabat **itzali zen** arte, erritu baten parte balitz bezala. Nafarroako suhiltzaileek atzo goizaldean **itzali** zuten Aurino mendian [...] herenegun arratsaldean sortu zen sutea. Harkaitz Cano

Egurra amaitzean, sua **itzali;** iraintzailerik gabe, kito liskarra! Elizen arteko biblia

Sua ez dela gasolinaz **itzaltzen** ahal. Joxerra Garzia

Tximinia **itzalita** baitago. Anjel Lertxundi

Okre oneko mineral puska bat erretzen jartzen da gori-gori dagoen arte; ondoren ozpinarekin **itzaltzen** denean purpura-kolorea hartzen du. Santiago Iruretagoiena

Gizon zaharrenak zigarreta **itzali** zuen eta zaindariari begiratu zion. Koro Navarro

Marta, zigarrokina hautsontzian **itzali** eta salako sofan eseri zen. Harkaitz Cano

-Zure edertasun horrek eguzkia ere **itzaliko** luke, ama. Joan Mari Irigoien

Argiak piztu eta **itzali**. Koro Navarro

Argiontzia bizkor **itzali** zen. Jose Morales

Dupontek olio-lanpara piztu eta linterna **itzali** du. Xabier Montoia

Gas-lanpara **itzali** zuen. Lopez de Arana

Poxpoloa **itzali** egin zitzaion ordea. Harkaitz Cano

Ilundu egiten da haren etxeko argia, **itzali,** argi egiten zion kriseilua. Elizen arteko biblia

Ez baitu etorkizun onik gaizkileak: **itzali** egingo zaio biziaren kriseilua. Elizen arteko biblia

Ia ahituriko zuzia txinpartaka **itzali** zen. Agustin Otsoa

Begi nekatuak ditu, nahiz eta oraindik gordetzen duten halako distir fin bat, noiz edo noiz berpizten dena, **itzaltzear** dagoen ikatz-txinparta bezala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Iraganeko txingarrak ez dira **itzali**. Berria - Ekonomia

Epikuro ere, adimenean giza enda gainditu eta, eguzkiaren irteerak izarrak eterrean bezala, denak **itzali** zituena, biziaren argia iraungitzean, hil egin zuan. Xabier Amuriza

Orain arte, [Marteko] sumendiak duela 600 eta 500 milioi urte artean **itzali** zirela uste izan dute astronomoek. Berria - Gaiak

**2** karra, bizitasuna edo indarra ibitu edo desagertu.

Begietako distira **itzali** egin zitzaion. Xabier Mendiguren Elizegi

54 urte zituen, baina **itzali** gabe gaztetako pindarrak. Aingeru Epaltza

Baretu beroaldi hori, **itzali** zeure haserre-sua! Elizen arteko biblia

Azkenean estutasunezko intziriak eta poz basatizko deiadarrak erabat **itzali ziren** urrunean. Karlos Zabala

Festaren hotsak oraindik **itzali** gabe. Berria - Kirola

Bat-batean, **itzali** egin ziren haren aieneak; ez, ordea, astinduaren hotsak. Anjel Lertxundi

Oin-hotsak **itzali** ziren. Anjel Lertxundi

Aspaldi **itzali** zela Donostiako manifestazio erraldoien oihartzuna. Berria - Euskal Herria

Mel Gibsonen *The passion of Christ* filmak eragindako iskanbilak, borrokak eta haserreak ez dira **itzali** oraindik.

Pixkana-pixkana irribarrea **itzali** zitzaion eta begitartea zakartu. Anjel Lertxundi

Harritu egin ninduen haren begiradak: ez nion beldurrik ikusi, distira maiztu bat baizik, etengabeko mozkorraldiek **itzalia**. Juan Kruz Igerabide

Orduan **itzali** zen esperantza guztia. Agustin Otsoa

Uholdeak maitasuna ezin **itzali,** ez eta ibaiek ere ito. Elizen arteko biblia

Kanpotik ederki penatu bazen hotzez, barnean lizunkeriaren grina **itzali** egin zitzaion. Askoren artean

Idazlea eskueran izateak eman zidan poza iragarpen ilunago batzuek **itzaliko** zidatela sentitu nuen. Joxean Agirre

Beraren ospea ez dadila **itzal** inoiz lur emankorraren gainean. Juan Kruz Igerabide

Urteen amarauna osatzen doazen gau hauetako lilura ez da **itzali** oraindik bere baitan. Pako Aristi

Arnasa amaitzen ari zait, bizia **itzaltzen,** hilobia dagokit zain. Elizen arteko biblia

Kontrarioaren tanto sortak Xalaren adorea **itzali** zuen. Berria - Kirola

Egintza **itzaltzen** da; hitzak, berriz, irauten. Matías Múgica

**3** argindarrez aritzen diren tresna eta gailuez, edo motorrez mintzatuz, korrontea eten.

Irratia **itzali** zuen urduri. Harkaitz Cano

-Telebista **itzali** eta disko bat ipiniko dut -esan zuen gizonak-. Koro Navarro

Ahaztu egin zaio sakeleko telefonoa **itzaltzea**. Pako Aristi

Jonek grabagailua **itzali** duenean. Xabier Etxabe

Ordenagailua **itzali** eta sukaldera doa. Antton Olano

Ordenagailuak barnetik husten ari balitz bezalako txistu itoa atera zuen, unitatea **itzaltzean**. Aingeru Epaltza

Blanchek haizagailua **itzali** du. Xabier Paya

Sartu berri zen autoko gidariak motorra **itzali** eta maleteroa ireki zuen. Harkaitz Cano

Diesel-motorra **itzalitakoan**. Joxe Austin Arrieta

Zerrategiko makinak **itzalita** zeuden. Bernardo Atxaga

Baina **itzali** traste hori. Arantxa Iturbe

**4** (bistatik) desagertu edo desagerrarazi.

Alois Miedl berehala **itzali zen** gerraosteko zalapartaren artean, eta ez zuen arrastorik utzi Goudstikker-margolanei zegokienez. Javi Cillero

Hola **itzali** zen *Eskualduna,* 1887-an sortua, eta sortu beraz HERRIA, Piarres Lafitte apeza sustatzaile. Herria

Lankide guztiak lekutuak ziren, desagertuak, aienatuak, **itzaliak,** irentsiak, hogei, berrogei, hirurogei edo ehun errublo sakelaratuta. Matías Múgica

Adierazpen- eta esanahi-sistema osoak **itzaliagatik** bere baitan, beste batzuk sortu zitzaizkion, erabat berriak. Xabier Olarra

**5** hil.

Igande aratsean **itzali** da, 92 urtetan, Bordaberriko Naũi Iturbide. Herria

Joan den ilabetean **itzali** zauzku bi herritar. Herria

Teuleriko etxekandere xaharra, Marie Errecart, bizi izan den bezala, ixil-ixila **itzali** zauku 86 urtetan. Herria

Loratzerat zoan landarea **itzali** zaiku, Ostankoa Haixpeko Mattin Idiart, 16garren urtean, luzaz pairatu ondoan bainan familiak eta lagunek inguraturik zendu da. Herria

20 urte du Manex Erdozaintzi Etxart baxenabartar frantziskotar idazle-erakaslea **itzali** zela. Herria

Atzerrian, erregina Katalina anartean **itzalia** zen, eta berdin Joanes Albretekoa. Aingeru Epaltza

**Itzaltzean,** gorputza hauts bihurtuko da eta espiritua haize iheskorra bezala desagertuko. Elizen arteko biblia

**6** (era burutua izenondo gisa)

Tiro hotsa aditu zen eta gar **itzali** batek uniformea kiskali zion. Fernando Rey

Pipa **itzali** bati eusten zion esku luzean. Alberto Ladron Arana

Zigarro **itzalia** ezpainetan, zangoak gurutzaturik. Fernando Rey

Agureak bere begi **itzaliak** musika tresnatik jaso, eta Kirxa bistatu zuen. Patxi Zubizarreta

Begirada akitu batekin egin du topo, inoiz bizi-bizi zelatatu duten begi sarkorren distira **itzaliarekin**. Urtzi Urrutikoetxea

Barren-barrenean, gure gainean, domoak, krater **itzaliak**. Josu Zabaleta

Hiru *brie* gazta, ohol biribil batzuen gainean, malenkoniatsu ageri ziren, ilargi **itzaliak** iduri. Karlos Zabala

Gero, gogamen **itzalia** berpiztu zitzaion. Jose Morales

Horixe baita adimenaren aurreiritzien eta argitasun **itzaliaren** azken ondorioa. Xabier Kintana

Kafe-makina **itzaliaren** ondoan, transistore txiki bat piztuta zegoen. Pablo Sastre

Ordenagailu **itzaliari** begira geratu nintzaion. Hasier Etxeberria

### 7 *ezin itzalizko*

Buruan ezin **itzalizko** pentsamendu bakarra zeukala: ihesa, askatasuna, bizitza. Jose Morales

Bolbora irazekiaren abaila ezin **itzalizkoan**. Karlos Linazasoro

### 8 *piztu-itzali* piztu eta itzali.

Argiak piztu- **itzali** egin dira bi aldiz. Alberto Barandiaren

Ganbera itxi baten barnean bat-batean **piztu-itzali** egiten den sugarra bertze argirik gabeak iruditzen zaizkit gaur egun. Aingeru Epaltza

Neonezko errotulu izugarri handi bat piztu-**itzalian** zen. Fernando Rey

*ik* itzalika.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ahotsa itzali** (4); **argi guztiak itzali** (7); **argia itzali** (89); **argia itzali aurretik** (5); **argia itzali behar** (4); **argia itzali du** (3); **argia itzali egin** (4); **argia itzali eta** (23); **argia itzali ondoren** (3); **argia itzali zen** (5); **argia itzali zuen** (4); **argiak itzali** (41); **argiak itzali egin** (5); **argiak itzali eta** (8); **argiak itzali ziren** (4); **argiak itzali zituen** (3); **argiak itzali zituzten** (3); **aspaldi itzali** (3); **baina itzali** (6); **bat itzali** (11); **batean itzali** (4); **batera itzali** (4); **begi itzali** (5); **berak itzali** (4); **berak itzali zuen** (3); **berehala itzali** (13); **berehala itzali zuen** (4); **berez itzali** (3); **berriro itzali** (3); **bezala itzali** (5); **bizia itzali** (3); **da itzali** (4); **denak itzali** (3); **dira itzali** (6); **distira itzali** (3); **erabat itzali** (10); **ere itzali** (7); **esku argia itzali** (3); **eta argia itzali** (4); **eta argiak itzali** (4); **eta itzali** (36); **eta itzali egin** (15); **eta itzali egiten** (3); **eta motorra itzali** (4); **eta telebista itzali** (4); **ez da itzali** (4); **ez dira itzali** (3); **ezin itzali** (4); **garra itzali** (4); **garra itzali eta** (3); **gero itzali** (3); **guziak itzali** (3); **guztiak itzali** (11); **guztiz itzali** (8); **hautsontzian itzali** (5); **hogoi urtetan itzali** (3); **hori itzali** (5); **hura itzali** (4); **inork itzali** (3); **irratia itzali** (10); **irratia itzali zuen** (6)

**itzali ahal** (8); **itzali ahal izan** (4); **itzali argi** (3); **itzali argia** (5); **itzali arte** (8); **itzali aurretik** (8); **itzali baitzuen** (3); **itzali bat** (8); **itzali behar** (20); **itzali behar izan** (5); **itzali berria** (3); **itzali bezain** (6); **itzali bezain laster** (5); **itzali da** (28); **itzali dena** (14); **itzali dira** (7); **itzali ditu** (3); **itzali du** (22); **itzali duenean** (3); **itzali dut** (7); **itzali egin** (84); **itzali egin da** (8); **itzali egin du** (3); **itzali egin dut** (3); **itzali egin zen** (24); **itzali egin ziren** (15); **itzali egin zitzaion** (6); **itzali egin zuen** (6); **itzali egingo** (6); **itzali egiten** (35); **itzali egiten da** (10); **itzali egiten zen** (3); **itzali egiten ziren** (3); **itzali ere** (3); **itzali eta** (92); **itzali eta bere** (4); **itzali eta gero** (4); **itzali ez** (4); **itzali gabe** (17); **itzali genituen** (3); **itzali nahi** (10); **itzali nuen** (8); **itzali ondoren** (9); **itzali orduko** (5); **itzali zauku** (9); **itzali zauku uste** (3); **itzali zela** (4); **itzali zelako** (3); **itzali zen** (39); **itzali zen arte** (4); **itzali zenean** (6); **itzali ziren** (32); **itzali ziren argiak** (3); **itzali ziren eta** (4); **itzali zirenean** (3); **itzali zituen** (6); **itzali zituzten** (6); **itzali zitzaion** (11); **itzali zuen** (64); **itzali zuen eta** (3); **itzali zuen sua** (4); **itzali zuten** (17)

**kandela bat itzali** (3); **kandela itzali** (8); **kandela itzali zuen** (3); **lanpara itzali** (3); **lilura itzali** (3); **linterna itzali** (4); **motorea itzali** (3); **motorra itzali** (17); **motorra itzali eta** (6); **motorra itzali gabe** (3); **motorrak itzali** (3); **oraindik itzali** (7); **ordenagailua itzali** (3); **orduko itzali** (4); **piztu eta itzali** (4); **sua itzali** (27); **sua itzali eta** (6); **sua itzali zuten** (3); **suak itzali** (5); **sutea itzali** (9); **telebisioa itzali** (3); **telebista itzali** (15); **telebista itzali eta** (4); **telebista itzali zuen** (4); **telefonoa itzali** (4); **urtetan itzali** (15); **urtetan itzali da** (4); **urtetan itzali dena** (11); **zerbait itzali** (3); **zigarroa hautsontzian itzali** (3); **zigarroa itzali** (13); **zigarroa itzali eta** (3); **zigarroa itzali zuen** (6)

**argia itzaliko** (5); **argia itzalita** (8); **argiak itzaliak** (3); **argiak itzalita** (13); **argiak itzalita zeuden** (3); **da itzaliko** (5); **erabat itzalita** (4); **erdi itzalita** (4); **ere itzaliko** (4); **ez da itzaliko** (5); **gaizki itzalitako** (6); **gaizki itzalitako zigarro** (3); **guztiak itzalirik** (3); **hori itzalita** (3); **inoiz itzaliko** (5); **itzaliko da** (7); **itzaliko dut** (3); **itzaliko ez** (6); **itzaliko ez den** (4); **itzaliko zen** (4); **itzaliko zuen** (3); **itzalita dago** (5); **itzalita daude** (3); **itzalita egon** (3); **itzalita eta** (3); **itzalita ez** (3); **itzalita zegoela** (3); **itzalita zegoen** (7); **itzalita zeudela** (3); **itzalita zeuden** (10); **itzalitako argi** (4); **itzalitako argi bakoitzeko** (4); **itzalitako zigarro** (3); **itzaliz joan** (5); **itzaliz joan zen** (4); **sua itzaliko** (3); **telebista itzalita** (5)

**argia itzaltzea** (4); **argiak itzaltzea** (3); **argiak itzaltzeko** (3); **espiritua ez itzaltzeko** (3); **eta itzaltzeko** (4); **ez itzaltzeko** (6); **ez itzaltzeko moduan** (3); **itzaltzea eta** (4); **itzaltzea lortu** (4); **itzaltzeko ahaleginean** (3); **itzaltzeko eta** (3); **itzaltzeko lanetan** (6); **itzaltzeko moduan** (3); **sua itzaltzea** (3); **sua itzaltzeko** (12); **sua itzaltzeko lanetan** (4); **sutea itzaltzea** (3); **sutea itzaltzeko** (6); **telebista itzaltzeko** (3)

**argia itzaltzen** (13); **argia itzaltzera** (4); **argiak itzaltzen** (11); **argiak itzaltzen ari** (3); **berehala itzaltzen** (5); **distira itzaltzen** (5); **edo itzaltzen** (4); **edo itzaltzen ahalko** (3); **erabat itzaltzen** (3); **ere sua itzaltzen** (3); **eta itzaltzen** (15); **hertsatzen edo itzaltzen** (3); **inoiz itzaltzen** (3); **itzaltzen ahal** (4); **itzaltzen ahalko** (4); **itzaltzen ari** (27); **itzaltzen ari den** (3); **itzaltzen ari zen** (5); **itzaltzen ari ziren** (6); **itzaltzen bada** (3); **itzaltzen da** (5); **itzaltzen den** (6); **itzaltzen dira** (6); **itzaltzen diren** (4); **itzaltzen dituzten** (3); **itzaltzen du** (10); **itzaltzen duen** (3); **itzaltzen dute** (3); **itzaltzen eta** (8); **itzaltzen ez** (10); **itzaltzen hasi** (7); **itzaltzen hasi zen** (3); **itzaltzen hasten** (3); **itzaltzen ikusi** (4); **itzaltzen joan** (16); **itzaltzen joan zen** (11); **itzaltzen saiatu** (5); **itzaltzen saiatu zen** (3); **itzaltzen utzi** (8); **itzaltzen zen** (7); **itzaltzen ziren** (5); **itzaltzen zituen** (7); **itzaltzen zuen** (5); **itzaltzera joan** (3); **kandela itzaltzen** (3); **motorra itzaltzen** (3); **nola itzaltzen** (5); **orduko itzaltzen** (3); **pizten eta itzaltzen** (3); **piztu eta itzaltzen** (3); **sekula itzaltzen** (3); **sua itzaltzen** (24); **sua itzaltzera** (8)

---

## itzalika *adlag*

Teknikariak azken konexioak egiten ari dira oholtzan, argiak **piztu-itzalika**. Javi Cillero

Hala ere, irudi erdi osatu erdi galdu hori ager-**itzalika** dabilkit gogoan, beste hamaika irudirekin batera. Javi Cillero

Uhartera heldu eta handik ikusita, San Francisco ageri-**itzalika** zebilen gandu espektral batez bildua. Javi Cillero

---

## itzalitasun *iz* itzalia denaren nolakotasuna.

Nirwana edo **itzalitasun** guztizko batean dena zeharo berdin-berdin mortutzeraino (bata eta berdina bat-berdinak izateraino). Joxe Azurmendi

---

## itzalixe *izond* apur bat itzalia.

Gerriz arno zahagi betea ematen zuen; aurpegiz, kandela zimurtu **itzalixea**. · Negar arrastoak **itzalixeak** zituen bisaiatik, eta makillaje paratu berriak halako distira bat sorrarazten zion larru-azalean. Aingeru Epaltza

---

## itzalixetu, itzalixe(tu), itzalixetzen da/du *ad* apur bat itzali.

Gaztetako grinaldi eroska haiek ari baitira **itzalixetzen**. Patziku Perurena

Ardo zuri ordez, noski, erabili liteke uxuala (patarra), alkohol hutsa, edo txanpana baitare, ondotik likore gozoren batetik xorta bat gehituz alkohola **itzalixetzeko**. Patziku Perurena

---

## itzalketa *iz* itzaltzea.

Neguko **itzalketa** saihesterik ez ei zegoen, [Iberdrolako] Oriolen arabera. Berria - Ekonomia

Bost urte **itzalketa** eta bonbardaketekin, horra gure bekatuengatik ordaindu beharreko zorra. Patxi Zubizarreta

Eguberriz **itzalketan** dabilanak, bilatuko du Pazkoan supazterra. Pello Zabala

---

## itzalkin *iz* eguzkitik babesteko aterki modukoa.

Igandeko jantzia zeraman jendea, lastozko kapelak, **itzalkinak**. Lopez de Arana

Hondartza aldera ihes egin eta **itzalkin** baten azpian gordetzea beste aukerarik ez geneukan. Bernardo Atxaga

Behin, buruhas zihoan dama bat pasatu zen aldamenetik, **itzalkin** farfailazko bat zabalik. Xabier Olarra

Eraikinaren atzealdeko tegi hutsean habia antzeko bat egiten du, Shaw-tarrei hartutako mahai batekin eta besaulki zahar batekin, eta eguzkirik txarrenetik babesteko hondartzako **itzalkin** batekin. Oskar Arana

Atea zeharkatzean, Ellenek ireki zuen bere **itzalkina,** alde batean txirrinak eta bestean postontziak zituela. Lopez de Arana

## itzalkor *izond*

Irauteko esperantza gutxiena daukan sasoian -iraungikorrena, **itzalkorrena** eta erorkorrena den garaian- egiten da bere nortasuna egundo ez bezain iraunkor eta are behin-betikoa. Iñaki Segurola

Distira hirukunetan bezala agertzen eta desagertzen zitzaizkidan, argi-balek lekuko **itzalkor** bihurturik. Txillardegi

---

## itzalño *iz* itzaltxoa.

**-Itzalño** bat baitu halere? Janbattitt Dirassar

Dudaren **itzalño** bat. Jose Angel Irigaray

---

## itzalpe 1 *iz* zuhaitz batek edo kideko zerbaitek eratzen duen itzala; iltzalean dagoen tokia. ik**gerizpe**.

Deskantsu poxi bat kausitu beharrez **itzalpe** argi batean paratua. Janbattitt Dirassar

Arte, urki eta haritzen **itzalpe** ederrean. Elizen arteko biblia

Pagoen **itzalpe** hezean. Berria - Kultura

Zurzurien **itzalpe** isilean barrena. Aritz Gorrotxategi

Arbolen **itzalpe** urrunari. Xabier Mendiguren Elizegi

Belabeltzez eta hautsez betetako **itzalpe** horretatik alde egiteko gogoz. Xabier Mendiguren Elizegi

Ilunabarreko **itzalpe** leunean bilduta zegoen neska. Mirentxu Larrañaga

Distira handia eta **itzalpe** galanta. Pello Salaburu

Nolatan hago hodei-**itzalpe** ilunak harturik oraindik? Juan Garzia

· Inkisizioaren oskurantismo zapaltzailea behin betiko **itzalpera** bidali duen goiaingerua. Xabier Mendiguren Elizegi

**Itzalpetik itzalpera** egin dut via Ribiteletik [...] Piazza Chanoux-era. Anjel Lertxundi

**2** espetxea, presondegia. ik **itzal 9**.

Hilabeteko **itzalpea** izan zen txantxa haren ordaina. Joan Mari Irigoien

Presoa **itzalpetik** irtengo ote den. Juan Garzia

**3** ***itzalpean***

Berrogei gradu **itzalpean**. Xabier Mendiguren Elizegi

Goiz partean, kalezuloa **itzalpean** egoten da, hotzak eta hezetasunak hartua. Patxi Zubizarreta

**Itzalpean** ezkutatu zen Nadia. Karlos Zabala

Hartzazue atseden bitartean, zuhaitzaren **itzalpean**. Elizen arteko biblia

Atzerritar batzuk ikusi nituen toldo hori eta zuriaren **itzalpean** eserita. Bernardo Atxaga

Jaiotzaz ez zen hirikoa, ez zen onddo kapelaren **itzalpean** bizi, zuek eta ni bezala. Koro Navarro

Brankako gazteluaren **itzalpean** gorderik, ezin inor konturatu han zegoela. seme bat ere bazuen, hor, eliza horren **itzalpean** ehortzia. Karlos Zabala

Ordura arte lozulo izana nuen zokondoa, artilleria pieza haietako baten **itzalpean** atondua nuena. Edorta Jimenez

Krimenak burutu dituen gaizkilea zergatik ohoretan goresten den eta desohorearen **itzalpean** estaltzen pertsona akasgabea. Imanol Unzurrunzaga

Beti anaien **itzalpean** bizi izan denez. Iñaki Mendiguren

Aitaordeak atzeman ahal izanen zion oraino anaiarik gabeko emazterik, bertze norbaiten **itzalpean** hutsetik hasi ahal izateko. Aingeru Epaltza

**Itzalpean** bizi zirenei argiak egin die distira. Elizen arteko biblia

Zatozte, babestu nire **itzalpean**. Elizen arteko biblia

Krimenak burutu dituen gaizkilea zergatik ohoretan goresten den eta desohorearen **itzalpean** estaltzen pertsona akasgabea. Imanol Unzurrunzaga

Mallarmé poeta sinbolistaren **itzalpean** antolatutako hizketaldietan. Juan Garzia

Horrela agertzen zaigu arimaren dimentsio orain arte **itzalpean** utzitako bat. · Dena dela, biak bizi izan ziren isilpe eta **itzalpe** samarrean, haien lanak ez zirelako XX. mendea arte argitara atera. Piarres Xarriton

**4** ***itzalpeko*** *izlag*

Gaurko asfalto eguzki gogorrak **itzalpeko** toki eroso baten tirria piztu baitidate. Piarres Aintziart

Ilargiaren **itzalpeko** aldea. Oskar Arana

Santxo Azkarrak kiskali eginen zuen San Nikolasen **itzalpeko** burgo osoa. Patziku Perurena

Washingtonen **itzalpeko** ALCA Ameriketako Merkataritza Gune Librearen inguruan **Itzalpeko** güdari ezezagünak hobeki biziarazi nahiz. Berria - Mundua

Haitza bustirik zegoen eguzkiak jotzen zuen isurkian, eta lei beltzez estalia **itzalpekoan**. Juan Garzia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **bartzelonaren itzalpean** (3); **baten itzalpean** (9); **batzuen itzalpean** (3); **eta itzalpean** (4); **gazteluaren itzalpean** (3); **haren itzalpean** (11); **hegalen itzalpean** (5); **horren itzalpean** (3); **itzalpean bizi** (13); **itzalpean bizi zirenei** (3); **itzalpean dagoen** (3); **itzalpean egon** (3); **itzalpean eta** (3); **itzalpean gelditu** (4); **itzalpean sartu** (3); **itzalpean utzi** (5); **itzalpetik atera** (3); **zuhaitzaren itzalpean** (3); **zure hegalen itzalpean** (3)

---

## itzalperatu, itzalpera(tu), itzalperatzen du *ad* itzalpera eraman.

Gizon bat, bada, eta bizitza bat, bere historia handi-txikiekin, Historiak [...] kontutxo horiek guztiak **itzalperatu** nahi izan zituen garai latzaren bihotzetik. Juan Garzia

Bizi den herri batek bere memoria historikoa eskuratzeko nahia eta eskubidea du, anitzetan **itzalperaturik** dena, ez bakarrik auzoko beste potentzia batzuengatik, baina ere guhaurek ahantzi, baztertu, galarazi dugulako edo batzuek digutelako. Berria - Kultura

---

## itzalpetu, itzalpe(tu), itzalpetzen 1 du *ad* itzalpean jarri.

Esaguzue zer egin, hartu zeuen gain gure defentsa; **itzalpetu** eguerdi betea eta egizue gauaren antzeko, erbesteratuak gordetzeko, ihesi doazenak aurki ez ditzaten. Elizen arteko biblia

Mendebalde modernoko gizarteak, pentsaeraz nazionalista eta klase ertainekoa izanik, Erdi Aroko atal ilun samarretik irten eta munduaren gainerako guztia **itzalpetu** zuen laster. Iñaki Mendiguren

Elizaren baitako barne-eztabaidak kristau eta juduen arteko polemikak **itzalpetzera** jo zuen. Iñaki Mendiguren

**2** (era burutua izen gisa) espetxeratua, presondegiratua.

Urtean zehar, zenbat bazkari, afari eta ekintza ez dute muntatzen familiakoek eta gazteek, **itzalpetuak** laguntzeko eta ikustera joiateko, hoin urrun, sar-atera baten esperantzan. Herria

**itzaltegi** *iz* itzalpea.

Bebarruko arkuaren aurrez aurre **itzaltegi** bat zegoen, makilaz eratua, eta haren gainean basa-arrosondo baten adarrak bermatzen ziren; haren hostaila, loretxo zuriz apaindua, hain zen sarria non eguzkiaren argiari ez baitzion igarotzen uzten. Josu Zabaleta

Goizean, ohetik jaikitzean, dutxa hotz bat hartzen zuen Flora eta Pomonaren **itzaltegian**. Josu Zabaleta

Andresek ureztagailu handi bat jarri zuen **itzaltegiaren** sabaitik zintzilik, eta kirtenetik soka bat lotu zion, txirrika batetik igaro eta beste aldetik aulki baten gainean jarritako harri bati lotua. Josu Zabaleta

---

itzaltei ik **itzal 19**.

---

**itzaltsu** **1** *izond* itzalez betea; iluna.

Bide hori hartzen ausartzen zirenak berehala iritsiko ziren Oihan **Itzaltsura**. Agustin Otsoa

Gimnasioko zuhaitz-lerro **itzaltsuen** azpian. Jon Muñoz

Kasernako alde **itzaltsuenen** abaroa bilatuz beti. Xabier Montoia

Korridore itsu batera iritsi ziren, zulo **itzaltsu** batera. Karlos Zabala

Non gero eta luzeagoak -eta ikusezinagoak- baitira kausaren eta efektuen arteko tarte **itzaltsuak**. Anjel Lertxundi

Greziar estilo peto-petoko eraikinak, lorategiz inguratuak eta barruko patio **itzaltsuz** ongi hornituak. Jon Muñoz

Zoko **itzaltsu** batean gorde zuen. Iñaki Mendiguren

Argia ilean kontzentraturik ere, gogoa ahora joaten zitzaidan; bular argitutik alu **itzaltsura**. Anjel Lertxundi

Geratu zen ikusmiran katedrale antzeko leku batean, oso iluna, oso **itzaltsua**. Anton Garikano

Beti geratuko zaigu alderdi bat itzalpean, eta alderdi mugagaitz eta **itzaltsu** horretan sartzeko herabe gara, barne-debeku moduko bat daukagu ilunpe horren muinean barneratzeko. Xabier Mendiguren Elizegi

Harryk Sirius Blacken begi goibel **itzaltsuetara** begiratu zuen, haietxek baitziren haren aurpegi abailduan bizi-arrastoa erakusten zuten atal bakarrak. Iñaki Mendiguren

**2** begirunea eragiten duena.

Zuzendari txit agurgarriari bidali nahi diogun Adierazpen Deskribatzaile Akritikoa (ADA), beren sinadura **itzaltsuekin** babes dezaten. Anjel Lertxundi

Jainkoa eta Erregea zerbitzatu ondoren, guztien begiramena irabazirik, erretiroa hartu, egoitzaz aldatu, eta lurjabe bihurtzen dira, Errusiako handiki **itzaltsu** eta abegi oneko jaun. Jose Morales

Egun on, Lipmann jaun **itzaltsua**. Fernando Rey

Gure K.L.-ri begiratzea besterik ez dago, gure herriko idazlerik **itzaltsuenari**. Karlos Linazasoro

Nolatan nahasi zen afera hartan karabanen xeke **itzaltsu** eta agurgarria? Fernando Rey

Begiramen **itzaltsu** batez hitz egin zion agureak mutilari: […]. Anjel Lertxundi

Irrati-uhinetako izar **itzaltsuak,** Joxerra Garzia

**3** (adizlagun gisa)

Herio agertu da, mutilak behar zuen tokian, zurbil eta **itzaltsu**. Anjel Lertxundi

Eguzkiak argiturik, oihan sasitsua zabaldu egiten zen leku batzuetan, eta bere barrunbeak erakusten zituen, **itzaltsu,** laiotz, piztia baten ahutz ilunak bailiran. Jose Morales

Batzuk zutik, **itzaltsu,** edertasun bete-betean, beren eguneroko bizitzan luzaro mantendu ezin izan duten halako goitasun aire batez. Josu Zabaleta

Suschitzky andreak bat-batean esan zuen, serio eta **itzaltsu,** otoitz egiten bezala: […]. Anton Garikano

Bidexkak betikoan: umel, **itzaltsu**. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itzaltsu** (3); **itzaltsu bat** (3); **itzaltsu batean** (4); **itzaltsu eta** (5); **itzaltsu horretan** (4); **lipmann jaun itzaltsua** (4)

---

**itzaltxo** *iz* itzal txikia.

**Itzaltxo** bat, azkenean, hegiko buztingorri horren ondoan ikusi dut. Piarres Aintziart

---

**itzaltzaile** *(orobat **itzaltzaille**)* *iz* itzaltzen duena.

Jauna deitzen zidan gizon hark eztulka, eta halaxe esan zuen, **itzaltzaileagoak,** eta ez nuen zer esan nahi zuen konprenitu. Joseba Sarrionandia

Erromatar Inperioak arazoaldi baten **itzaltzaile** gisa bere estatu unibertsalaren bake grisa ezarri aurreko egunetan. Iñaki Mendiguren

Bion lanak garbi erakutsiz ez dela beti itzultzailea **itzaltzailea**. Iñaki Arranz

---

**itzaltze** *iz* erretzetik edo argitzetik gelditzea.

Ez da ohartzen gau-argien **itzaltze** hori egunaren itzuleraren seinale dela. Iñaki Mendiguren

Ikusten ditudanean gorriz tindaturiko lainoak, arrosen **itzaltze** arina eta urretxindorren kanta sakon eta tristea ostargi-belarren girlanden artean. Fernando Morillo

Suteen detekzio eta **itzaltze** sistema, **Itzaltze** lanetan Iruñeko, Tafallako eta Zangotzako suhiltzaileek parte hartu dute. Berria - Ekonomia

Argi-**itzaltze** horrexek markatzen baitu haurren loaren hastapena. Xabier Mendiguren Elizegi

---

itzalune ik **itzalgune**.

---

**itzarrera** *iz* itzartzea.

Hurrengo eguneko **itzarrera** makala eta biharamun itzela. Sonia Gonzalez

---

**itzarri**[1], itzar, itzartzen *(**216** agerraldi, **58** liburu eta **8** artikulutan)* **1** da *ad* esnatu. ik **itzartu; iratzarri.**

Hurrengo goizean, ohi ez bezala, goiz **itzarri** zen. Migel Angel Mintegi

Hurrengo goizean ezkor **itzarri** zen, eta goiz gainera. Migel Angel Mintegi

Hamaikak aldera **itzarri** zen. Migel Angel Mintegi

Baina printzesa ez zen **itzarri**. Felipe Juaristi

Ordu laurdena besterik ez nuen egin lo, lepagogortuta **itzarri** nintzen. Koldo Izagirre

Zakurra ere **itzarri** da, eta aztarrika ari da. Koldo Izagirre

Nola esango genuke... barruan daramagun animalia **itzarri** da aurrena, gu ondoren. Iñigo Aranbarri

Ia lozorroan zegoen gizona **itzarri**-edo egiten da, eta aurrena grogi samar marmarrez "e?, e?" galdetu ondoren, "bai, bai; bai" erantzuten du, aztoratuta baina bizkor. Xabier Mendiguren Elizegi

**Itzarri** zenean beste saialdi bat egin zuen. Migel Angel Mintegi

-Baina zertan ari zara? -botatzen dio Martak, bat-batean **itzarri** eta bere erdi-biluztasunaz izuturik. Xabier Mendiguren Elizegi

Ni haren ondoan geratu nintzen beilan, noiz **itzarriko** zain. Felipe Juaristi

**Itzarri** berria zegoen, ezagun zuen. Fernando Rey

Amets-lilura hartatik **itzartzean** purruskatua nuen bihotza, lur joa bizi-gogoa. Xabier Mendiguren Elizegi

Ez dezagun horrelakorik sinets; ameskeria horretatik **itzarriak** gara dagoeneko, eta ateismoa da arrazoitzen dakien jende ororen sistema bakarra. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Goizean goiz lokartu nintzen eta, **itzarritakoan,** tristura sakona sentitu nuen. Felipe Juaristi

**Itzarritakoan,** Pesk hirian zegoen. Felipe Juaristi

**Itzarri,** mesedez, **itzarri**! Jon Arretxe

Esna, **itzar** zaitez, Debora, **itzarri,** esnatu, kanta ezazu! Elizen arteko biblia

**2** irud/hed

Baina eguzkia gordetzen delarik, beirak eta kriseiluak pizten direneko, hiria **itzarri** egiten da, biziaren dardara hautematen da nonahi. Koldo Izagirre

Nigan lo zegoen mundu oso bat **itzarri,** piztu eta irakiten zait oroimenean. Koldo Izagirre

• **3** du *ad*

Kokotsak bularra ukitzen duela egon da lepoko minak **itzarri** duen arte. Pello Lizarralde

Liluramendu hartatik soil-soilik kafeteraren ziztuak **itzarri** ninduen. Patxi Zubizarreta

Gure ama **itzartzen** zuen doilorkeria latzak aurpegiratzeko. Pello Lizarralde

Baina nire anaiak ez ninduen inoiz bakean uzten bere istorio haiekin, eta aldiro **itzartzen** ninduen berriketan jarduteko. Pello Lizarralde

Ez zintudan **itzarri** nahi -esan zuen etxekoandreak-. Monika Etxebarria

**4** (era burutua izenondo gisa)

Artegatasun **itzarri** horren ezinegonean kulunkan nengoela. Juan Luis Zabala

Uda hurbildu ahala, arratsaldeak luzatu ahala, hondartzatik paseatu eta putzuan aztarrikatu bitartean, itxaropentsu eta **itzarrien** baitan irudipen arraroenak jaio ziren. Anton Garikano

**5** ***itzarririk*** *adlag* itzarrik, esna.

Ez naiz segur **itzarririk** egon ote nintzen denbora osoan. Loak hartu gabe iragaten zituen gauak oro, begiak erdi hertsirik, edozein zaratots edo marruma entzun bezain pronto **itzarririk,** erne, ohoinak zitezkeelakoan gaueko mamuen zelatan. Xabier Montoia

Gure aita bere seme guztien etorkizunaz kezkatzen zen eta, gauaz **itzarririk,** amari esaten zion: "zer eginen du Ginok? Fernando Rey

**6** ***itzarrita*** *adlag* itzarrik, esna.

Haren argi ahula besterik ez geneukan, eta nik, tarte bat neramanez **itzarrita,** gauzen soslaiei behinik antzematen banien ere, Oriol esnatu berriarentzat dena izango zen ilunpe beltz. Xabier Mendiguren Elizegi

Pauli bere txokoan mugitu eta burua altxatu zuen, **itzarrita**. Fernando Morillo

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bat batean itzarri** (3); **batean itzarri** (7); **batean itzarri eta** (3); **ere itzarri** (3); **eta itzarri** (6); **eta itzartzen** (3); **itzarri borondatezko** (3); **itzarri da** (5); **itzarri egin** (3); **itzarri egiten** (5); **itzarri eta** (7); **itzarri nahi** (7); **itzarri nahi ez** (6); **itzarri naiz** (3); **itzarri nintzen** (10); **itzarri orduko** (4); **itzarri zen** (7); **itzartzen dira** (3)

---

# itzarri[2] *adlag* itzarrik, esna.

Gora eta behera, lo eta **itzarri,** horrela egin zuten bidaia. Xabier Montoia

---

# itzarrik *adlag* esna.

**Itzarrik** zein lotan gagozela. Xabier Amuriza

**Itzarrik** edo lotan ote zegoen. Julen Gabiria

**Itzarrik** da, ohean, izara kokotseraino igota, betazpitsu. Oskar Arana

Gogo-adimenek **itzarrik** segi dezaten. Xabier Amuriza

Esparruko gainontzeko biztanleoi, ostera, erregutu zigun **itzarrik** irauteko, gauerdira arte beharrezkoa izanez gero, gulash sendoa prestatzen hasi behar zutelako. Urtzi Urrutikoetxea

Erdi **itzarrik** nengoen. Urtzi Urrutikoeetxea

Gau osoa emango zuela **itzarrik**. Unai Elorriaga

Ohean egon arren **itzarrik** zegoela eta guztiari begiratzen ziola, ilunpetan. Unai Elorriaga

---

# itzartu *(102 agerraldi, 18 liburu eta 4 artikulutan)* itzar, itzartzen **1** da *ad* esnatu. ik **itzarri**[1]; **iratzartu.**

Eta hartantxe **itzartu** nintzen. Edorta Jimenez

Txalupan **itzartu** zen, mindutako eskua igurtziz. Joanes Urkixo

Izerditan **itzartu** nintzen. Edorta Jimenez

Halako batean nekeak eskua laxatu-edo egin zuen eta **itzartu** egin nintzen. Edorta Jimenez

Anestesiak eragindako loalditik sekula **itzartu** izan ez bazina ere. Hasier Etxeberria

**Itzartu** bezain laster. Unai Iturriaga

Amets gaiztoren bat izan denean, gero norbera **itzartzean** ohekoak zelan ageri diren, halaxe zeuden hango burusia eta izarak. Edorta Jimenez

Noiz arte egongo zara etzanda, alfer hori? noiz **itzartuko** zeure loalditik? Elizen arteko biblia

**Itzartu** orduko eguzkia askoz goxoagoa da iratzargailu madarikatua baino. Sonia Gonzalez

**2** irud/hed

Bihotzaren txoko ahaztu eta aspaldian lokartu hori **itzartu** egin dela iruditu zaio. Paddy Rekalde

Mundua **itzartzen** hasia zen, ostatuko leihoetako batean kutxa saldu zidan gizona agertu zen. Edorta Jimenez

Orduan beste gaitz batzuek gure bularrean itota zeukaten larritasun hura **itzartzen** eta burua jasotzen saiatzen da. **-Itzar** daitezela, bada, beraren botereak! Xabier Amuriza

• **3** du *ad*

Danbada haren hotsak **itzartu** ninduen ni ere. Edorta Jimenez

Aldameneko gizonaren berbek **itzartu** egin dute Joxan. Paddy Rekalde

Mugimenduak eta asaldurak **itzartu** naute jarraian. Urtzi Urrutikoetxea

Eta uste dut argitxo hark **itzartu** zuela Darling andrea. Julen Gabiria

Umeak **itzartu,** korta garbitu, garbigailua ipini, abereak larreratu. Joxerra Garzia

**4** ***itzarturik*** *adlag* itzarrik, esna.

Inor ez baita **itzarturik** jaikitzen, behin biziaren eten hotza gertatuz gero. Xabier Amuriza

Felicitas, ostera, ondo **itzarturik** doa. Edorta Jimenez

---

# itzatu *(ETCn 46 agerraldi)*, itza, itzatzen **1** du *ad ipar* iltzatu.

Ferreiros herrian baziren ferratzaileak, zaldien aztaparrak eta erromesen oinetakoak **itzatzen** zituztenak. Piarres Aintziart

Murruan dago **itzatua** zurezko ikurra: "Albergue Trinidad de Arre". Piarres Aintziart

Ni aldiz harritua han egoki tente, lurrari **itzatua** izan banintz bezala. Janbattitt Dirassar

Bainan iduritzen zait, bera hantxe ohean ezindua zagolarik, etxekotu zela kurutzeari **itzatua** ikusten zuen bere lagunarekin. Herria

Geroan, gizon eginik, utziko ditu bere eskuak gurutzean **itzatzera:** gizon egin den Jainkoaren maitasuna munduaren lau hegaletarat agertzeko. Herria

Zola hori ez zedin higa, **itzatzen** zioten gomazko tira bat edo berdin dozena bat itze. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**2** *irud*

Begia **itzatua** baitzuen ostia eta kalitzari, mixteriozko so bat botatzen zuela. Herria

Joanesek geroztik ere sekulan ikusi ez zuen begirada baten indarra zeukan, hain sarkorra, behin betirako, argazki bat paretan bezala, oroimenean **itzaturik** gelditu zitzaiona. Eneko Bidegain

Benen buruan **itzaturik** geldituko da izan dela tsunami aitzineko garaia... eta tsunami ondokoa. Herria

Agian ez da sobera denbora egonen ohean **itzaturik**. Herria

Bake bitxi batek **itzatu** nau hemen. Piarres Aintziart

**3** (era burutua izenondo gisa)

Bazuen zenbait urte eri zela eta kadera **itzatu** baten gainean, ibiltzen zela. Herria

Kadera **itzatu** batetan egoiten zen, arta haundienarekin laguntzen baitzuten erizain eta familiakoek. Herria

---

# itze **1** *iz* iltzea.

Apainduraren osatzeko, hegia zabala zuen aita zenaren lapurtar boneta hartu zuen, **itze** batean tilingo zegoena. Elena Touyarou

**Itzea** sartzen da jo eta jo arizanaren bortxaz. Herria

Gaitzeko borta, zeruraino doan borta, zeruko atea, zura **itzez** izarreztatua, 585 **itze** kasko beltz, mugimendu gabeko konstelazioa, zur gorrian landatua. Michel Oronoz

Kristoren beso mehe eta luzeek, gorputz hilaren pisuak **itzetatik** ateratzekotan balire bezala, Kurutzefikatuaren hauskortasuna gehitzen dute. Piarres Aintziart

**Itze** sailtzaile batek iragarki egile bati galdegin zion marrazki baten bitartez bere ekoizpenaren aipamena egitea. Herria

**2** (pilotariena)

**Itzeak** izanikan ere, hala hala segitu zuen pilotan eta partida irabazi. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**3** ***itze-belar*** iltze belarra.

Horma-harrietan ernetzen den **itze** belarraz. Elizen arteko biblia

Landareei buruz ere mintzatu zen, Libanoko zedrotik hasi eta hormetako **itze**-belarreraino. Jose Antonio Mujika

Jarri naiz eukalitu edo, izen pollitagoa baita, **itze**-belarrei so ziri mehe luze horiek noraino joan nahi dute, zeru barnean ausikika bezala ari direla. Piarres Aintziart

**4** ***itze-kanela*** iltze kanela.

Han biper eta **itze**-kanela garestien merkataritzan aritzeko. Ramuntxo Etxeberri

**Itze**-kanela kargatu ondotik, etxeratzen dira eta Sevillara itzultzen 1522ko irailaren 8an Ramuntxo Etxeberri

**5** ***itzeak egin***

Hogeigarren mende hastapenean ari ziren **itze** egiten. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**Itze** egiteko mekanika hori. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

# itzel **1** *izond* guztiz handia, ikaragarria.

Mexikon, 1985ean lurrikara **itzel** baten ondorioz 5.000 lagunetik gora hil ziren. Berria - Kirola

Bala zaparrada **itzela** zen. Edorta Jimenez

Condor Legioko liztor **itzelek** Gernika suntsitu zuten iluntzean. Edorta Jimenez

Fossalta di Piave-n andari zereginean ziharduela, beraren inguruan leherketa **itzela** gertatu eta hantxe amaitu zitzaion guda. Edorta Jimenez

Mozkor **itzela** harrapatuta. Unai Iturriaga

Danbada **itzela** izan zen. Edorta Jimenez

Agirre hori putakume **itzela** duk! Paddy Rekalde

Biografia ahantzien liburutegi **itzel** bat da gaurko hiria. Iñaki Segurola

**Itzelak** dira, inondik ere, imajinazioaren ahalmenak. Jon Alonso

Niretzat ha ezagutzea **itzela** izan zan. Xabier Amuriza

Jendilaje **itzela** dabil. Sonia Gonzalez

Gertrudis emakume erraldoiaren beso **itzeletan** bukatu nuen. Bernardo Atxaga

Ikusita nago ni portuan ale **itzel** askoak, kristoren zuhaitz puskak, zera. Jon Muñoz

Hura bai giza indarraren zarrastelkeria ergela, primitibokeria **itzela,** gero. Joxe Austin Arrieta

**Itzelak** kontatuko nituen sasoi batean. Unai Elorriaga

Neurri **itzeleko** katu arre bat zeukan beso artean. Karlos Zabala

Gizon eretxia zan, nortasun **itzelekoa**. Xabier Amuriza

Balio sinboliko **itzelekoa**. Xabier Montoia

**2** (adizlagun gisa)

Emakumea **itzel** hunkitu da. Edorta Jimenez

Gerran **itzel** sufritutako mutila. Edorta Jimenez

**Itzel** portatu behar izan dut. Mirentxu Larrañaga

Telefono dei batek **itzel** formaldu ditzake gauzak. Sonia Gonzalez

**-Itzel** pasatuko dut -esan zuen Peterrek. Julen Gabiria

Hasierako sarreran kontrabaxua eta fagota, esate baterako, **itzel** aritu ziren, baita oboea ere bere kontrakanto ironiaz betetako horretan. Berria - Kultura

Kuban, ostera, **itzel**. Xabier Amuriza

**3** (izenondo baten ezkerrean)

Arrain **itzel** handia harrapatu ondoren. Edorta Jimenez

Ikaragarri, **itzel** handiak dira gizon biak. Edorta Jimenez

**4** ***itzelezko*** *izlag* itzela.

**Itzelezko** lorategi gris hotza da Bilbo. Sonia Gonzalez

**Itzelezko** ondasunak zituen. Monika Etxebarria

Horko horrek, Johnek, **itzelezko** amorrua digu. Julen Gabiria

Disgustua baino, **itzelezko** poza hartu zuen. Sonia Gonzalez

Askok uste dute idazleak **itzelezko** erraztasuna duela idazteko eta hitz egiteko, eseri eta barra-barra betetzen dituela paperak eta horregatik dela idazle. Xabier Mendiguren Elizegi

Leihotik begira-begira egona zen, erabat liluratuta, eguraldiak higatutako panel **itzelezkoek** goraipatzen zituzten iragarkiei adi. Mirentxu Larrañaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gertakari itzel** (3); **isiltasun itzel** (3); **itzel bat** (23); **itzel batean** (7); **itzel batek** (4); **itzel baten** (14); **itzel eta** (11); **itzel hau** (3); **itzel honen** (3); **itzel hori** (4); **itzel horretan** (3); **itzel hura** (8); **krimen itzel** (5)

**ahalegin itzela** (12); **ahalegin itzela egin** (7); **alde itzela** (4); **aldea itzela** (3); **anabasa itzela** (3); **arrakasta itzela** (19); **arrakasta itzela izan** (7); **arrakasta itzela lortu** (4); **arrisku itzela** (3); **astakeria itzela** (3); **astindu itzela** (5); **aukera itzela** (5); **aurrerapauso itzela** (8); **beldur itzela** (5); **buruhauste itzela** (4); **eragin itzela** (12); **eragin itzela du** (4); **eragin itzela dute** (3); **ezusteko itzela** (3); **falta itzela** (4); **gaitasun itzela** (7); **garrantzi itzela** (15); **garrantzi itzela izan** (4); **gauza itzela** (3); **gogo itzela** (6); **ikusmin itzela** (4)

**itzela baita** (4); **itzela da** (67); **itzela dago** (8); **itzela dauka** (8); **itzela daukagu** (3); **itzela dela** (11); **itzela delako** (3); **itzela du** (18); **itzela duela** (3); **itzela dugu** (3); **itzela dute** (12); **itzela duten** (3); **itzela egin** (48); **itzela egin behar** (4); **itzela egin du** (5); **itzela egin duela** (3); **itzela egin dute** (4); **itzela egin eta** (3); **itzela egin zuen** (10); **itzela egin zuten** (5); **itzela egiten** (9); **itzela eman** (9); **itzela ematen** (5); **itzela eragin** (7); **itzela eragiten** (3); **itzela ere** (3); **itzela eta** (10); **itzela hartu** (4); **itzela izan** (68); **itzela izan da** (12); **itzela izan dute** (3); **itzela izan zela** (3); **itzela izan zen** (24); **itzela izan zuen** (6); **itzela izango** (10); **itzela izango da** (3); **itzela izango litzateke** (3); **itzela izaten** (4); **itzela jaso** (3); **itzela litzateke** (6); **itzela litzatekeela** (3); **itzela lortu** (5); **itzela lortu zuen** (3); **itzela piztu** (3); **itzela sentitu** (5); **itzela sentitu zuen** (4); **itzela sortu** (6); **itzela zegoen** (5); **itzela zen** (17); **itzela zeukala** (3)

**ahalegin itzelak** (3); **itzelak dira** (8); **itzelak egin** (6); **itzelak eta** (5); **itzelak izan** (4); **itzelak ziren** (5); **itzelaren ondorioz** (4); **jauzi itzela** (4); **jokalari itzela** (4); **kalitate itzela** (7); **kalte itzela** (5); **kolpe itzela** (6); **kopuru itzela** (3); **lan itzela** (24); **lan itzela egin** (12); **maila itzela** (3); **masa itzela** (3); **meritu itzela** (3); **min itzela** (3); **negozio itzela** (7); **ondorio itzelak** (3); **parranda itzela** (5); **parranda itzela egin** (3); **partida itzela** (4); **politiko itzela** (5); **presio itzela** (8); **presio itzela egin** (5); **sarraski itzela** (3); **talde itzela** (4); **tentsio itzela** (3); **zama itzela** (4); **zaparrada itzela** (3)

**da itzelezko** (3); **eta itzelezko** (16); **eta itzelezko arrakasta** (3); **itzelezko arrakasta** (6); **itzelezko gogoa** (5); **itzelezko poza** (5)

---

## itzeltasun *iz* itzela denaren nolakotasuna.

Hil berri den emakumeak beti soinean zeraman koipe zaharraren usaina lurrin gozoagoa da heriotzaren **itzeltasuna** arintzeko bazterrik bazter barreiatzen den intsentsu zerutiarrarena baino. Anjel Lertxundi

---

itzi ik **utzi**.

---

## itziartar *izlag/iz* Itziarkoa, Itziarri dagokiona; Itziarko hiritarra.

Bertze euskal txirrindularietan, Unai Osa **itziartarra** eta Patxi Villa beratarra hoberenen artean ibili dira. Herria

*Liberty*ko **itziartarra** zazpigarren postuan helmugaratu zen. Berria - Kirola

Unai Osa *Illes Balears* taldeko txirrindulari **itziartarraren** *Nire Itzulia* atala. Berria - Harian

Igeldotarrek eta **itziartarrek** ere urteak daramatzate udalerri propioa lortzeko lanean. Berria - Euskal Herria

**Itziartarren** interesak Deban defendatzeko. Berria - Euskal Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**osa itziartarra** (4)

---

itzul ik **itzuli**[1] **10**.

---

## itzul-amilka *iz* itzulipurdia.

Talde handietan-eta egin beharreko zilipurdi eta **itzul-amilkak** bezala, gorputz guztia minberatzen zait oroitze hutsarekin. Karlos Zabala

---

## itzul-bidaia *iz* itzulerako bidaia.

Ausartu zineten halako **itzul** bidaia luzea egitera, izeba ezongi egonda. Aingeru Epaltza

Gainera, **itzul**-bidaiarako ondo etorriko zitzaion maleta hura. Joxemari Iturralde

Hegazkinari erregaia berritu diote, eta prest gelditu da **itzul**-bidaiarako. Xabier Olarra

---

## itzulaldi *iz* itzultzea.

Gau itogarri bateko goiz aldera zendu zen, noizbait berarena izana zen ohitura baten **itzulaldi** bitxi batengatik. Juan Garzia

---

**itzularazi**, itzularaz, itzularazten *(orobat* ***itzulerazi*** *g.er.,* ***itzuliarazi*** *g.er. eta* ***itzul(-)arazi*** *g.er.)* du *ad* itzultzera behartu.

Kolpeka, ukabilkadaka eta irainka **itzuliarazi** zituzten hirira. Jon Alonso

**Itzularaz** ditzan Irakiarat igorriak dituzten 1.500 ukrainar soldadoak. Herria

Irain, **itzularaz** nazazu zeuregana, zu baitzaitut Jauna. Elizen arteko biblia

Zerk gaitu bada, lur huntarik gorago altxatuko, Jainkoaren ganat **itzul** -araziko? Herria

Egunotan 20.000 iheslari **itzuliarazi** dituztela zehaztu zuen. Berria - Mundua

Eta berdin dut espero zure bertuteek bide egokira **itzularaz** dezaten printzea, zuen bion ohorearen mesedetan. Juan Garzia

Herri-agintarien jauregira joan zen, bere semeari auzia jartzera eta etxetik ostu zuen dirua **itzularaz** ziezaiola eskatzera. Askoren artean

Horren gatik ote du Arbelbidek Lavieuxville apezpikuaren katixima hartzen eta ez de Loison apezpikuak euskarara **itzul** arazi zuen Napoleonena? Xipri Arbelbide

---

# itzulbide *(orobat* ***itzul-bide*** *g.er.)* **1** *iz* norabait edo zerbaitetara itzultzeko bidea.

**Itzulbidea** geldoa eta nekagarria izan zen. Joanes Urkixo

**Itzulbidean,** geldialdia egin nuen esekitokiaren parean. Aingeru Epaltza

Ez genuen hitzik egin **itzulbidean**. Bernardo Atxaga

Entzun zuen Cartaphilus itsasoan hila zela, Esmirnara **itzul** bidean, eta los uhartean ehortzi zutela. Juan Garzia

Seihileko bat egin berria Yalen, *scholarship*, eta orain etxerako **itzulbidean** amarengana. Joxe Austin Arrieta

Kanpalekurako **itzulbidean** hartu nuen erabakia. Mirentxu Larrañaga

**Itzulbidean** da Hamlet. Juan Garzia

Inor igarotzen ez den eta **itzulbiderik** ez duen lurrean. Elizen arteko biblia

Norberaren bizitzak une batetik aurrera ez duela **itzulbiderik** pentsatu zuen. Felipe Juaristi

Hori guztia destenorez eta **itzulbiderik** ez zegoela gogoratu zitzaidan, ordea. Aingeru Epaltza

Gure aitatxik gogoa berriturik egin zuen **itzulbidea**. Aingeru Epaltza

Kirxak, ilunpetan, itsumustuka ekin zion **itzulbideari**. Patxi Zubizarreta

Orkoen osteek moztuko digute **itzulbidea**. Agustin Otsoa

Orduan, uhartean zehar ibiltzen hasi nintzen, jainkoei laguntza eske, **itzulbidea** erakuts ziezadaten. Juan Kruz Igerabide

1941eko urtarrilean Europaren eta munduaren zorteak **itzulbiderik** gabeak ziruditen. Juan Garzia

**Itzulbiderik** gabeko bidaiarako txartela hartua nuen. Aingeru Epaltza

**Itzulbiderik** eta atzerabiderik gabeko desastrea. Jon Alonso

Konpondu ezinezko, **itzulbiderik** gabeko kalteak gertatuko ziren. Iñaki Iñurrieta

**2** itzulia.

Eginbidez ez baldin bada, automakikoki bederen iragan dut ja ezagutzen dudan elizaren barneko **itzulbidea**. Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itzulbidea hartu** (3); **itzulbiderik ez** (3); **itzulbiderik gabeko** (4)

---

# itzulbira *iz* zerbaiten inguruan egiten den itzulia.

Zeru-ertz batetik irten eta beste ertzeraino haren **itzulbira:** haren berotik ezin libratu ezer! Elizen arteko biblia

---

# itzulbiraka *adlag* itzulbirak eginez.

Horregatik bi orduz baino gehiago aireportuaren gainean **itzulbiraka** ibili zen, erregai guztia erre arte. Gotzon Garate

---

# itzulbiratu, itzulbira(tu), itzulbiratzen du *ad* biratu.

Denda zabalik zegoelako adierazle ziren eragiketa guztiak egin zituen: errotulutxoa **itzulbiratu,** pertsianak jaso, eta erakusleihoko argitxoak isiotu. Josu Landa

---

# itzulera **1** *iz* norabait edo zerbaitetara itzultzea.

Ihesak eta **itzulerak** ez dira denak berdinak. Jokin Urain

Erregearen **itzulera**. Juan Kruz Igerabide

Horregatik kalkula dezakegu kometa periodikoaren **itzulera**. Josu Zabaleta

Inoiz gauzatuko ez den bigarren **itzulera**. Markos Zapiain

Agian zuk atzeratu bakarrik egin duzu haren **itzulera** boterera. Iñaki Mendiguren

**Itzulera** errepide nagusitik egin zuen. Migel Angel Mintegi

Berriz Irisarrira itzuli nahi balute, **itzulera** ere pagatuko ziela. Herria

Zuen **itzulera** ospatzera etorri gara. Jon Muñoz

Berarekin afaldu ahal izateko bi aldiz atzeratu nuela **itzulera**. Ramon Saizarbitoria

Errefuxiatu zipretar-greziarren **itzulera** onartzen ez zuelako. Berria - Mundua

Sendero Luminosok **'itzulera'** iragarri du. Berria - Mundua

Bizkarrean neukan tatuajea, ordea, **itzulerarik** gabeko bidaiaren antzekoa zen. Javi Cillero

Eta nire **itzulerako** zer-nolako guztiak etorri zitzaizkidan berriro gogora. Josu Zabaleta

**Itzulerako** bidea hartu zuten. Felipe Juaristi

Biharamun eguerdiko hamabi eta erdietan nuen **itzulerako** hegaldia. Anjel Lertxundi

**Itzulerako** partida San Mamesen jokatuko dute. Berria - Kirola

**Itzulerako** txartelak erostera. Bernardo Atxaga

**Itzulerako** bidea egin genuen dendarantz. Ramon Saizarbitoria

**Itzulerako** bidaia osoan ez zuten hitz bakar bat egin. Agustin Otsoa

**Itzulerako** autobusik ez neukan. Pako Aristi

**Itzulerarako** prestakizunak hasi zituzten atzo. Berria - Gaiak

Niretzako bideak jada ez du **itzulerarik**. Berria - Mundua

Oreka egonkorrak eta hauskaitzak, **itzulera** gabeko prozesuak, amaigabeko arauketak. Xabier Arregi

**2** (izenondo edo izenlagunekin)

Orain nire **itzulera** gaiztoa kontatuko dizuet, Troiatik honantza Zeusek eskaini didana. Juan Kruz Igerabide

Hamaika erretolika luze Jainko zaharren **itzulera** saihestezinari buruz (H-bonbaren jaurtiketaren ondoren!). Joxe Austin Arrieta

Kurt Cobainen heriotza tamalgarria edota Rolling Stones mitikoen **itzulera** irrikatua. Patxi Iturritegi

**Itzulera** gogoangarria. Berria - Kirola

**Itzulera** gazi-gozoan pentsatuz. Jon Arretxe

Etengabeko **itzuleraren** bertsio txiki bat ditugu literaturako kontakizun laburrak. Javi Cillero

Euskal arkeologiak eta antropologiak lagundu digu Ama Lurrarenganako **itzulera** horretan. Joseba Zulaika

Ekitatea lege naturalerako **itzulera** da, lege positiboen isilune. Andres Urrutia

Odolaren bihotzerako **itzulera** eragozten bada, garunerako garraioak ere sufritu egiten du. Irene Aldasoro

Baina antropologiaranzko **itzulera** honen benetako "aita" Kant izan zen. Askoren artean

Haren balizko **itzulera** alferrikakoa lukek. Patxi Zubizarreta

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Raduan Husainiren **itzulera** eguna heldu zelarik, inork ez zuen ongi etorria beste konturik izan. Patxi Zubizarreta

Denbora luzea du **itzulera**-ordua iritsi arte. Iban Zaldua

Azken zuzenketak egin, ohiko klabea idatzi eta behar baino indar handiagoaz zanpatu nuen **itzulera**-tekla. Aingeru Epaltza

Hamaika aldiz aurkitzen gara **itzulera**-bidea hartzeko beharrean, bideak nahi dugun lekura ez daramala dakusagulako. Ibon Uribarri

**itzulera** bidaian atzean geratuko zarete Edna eta biok. Joseba Sarrionandia

Jasser Arafatek errefuxiatu palestinarren **itzulera** eskubidea bermatu behar dela berretsi zuen atzo Ramalan. Berria - Mundua

Nolakoa izan zen **itzulera** partida? Berria - Kirola

Egunkariek deitoratzen zituzten "irteera edo **itzulera** operazioaren" minean bagina bezala. Itxaro Borda

*Clitemnestra*-ren **itzulera** lanarekin lortu duen [sari] hau. Berria - Kultura

Goizeko zazpiak aldera, askatuko du Stardust zundak **itzulera** kapsula. Berria - Gaiak

Etxerako **itzulera**-txartela. Mirentxu Larrañaga

Arau berri hauetatik abiatuta deskriba eta azter daitezke jarraitasun, **itzulera** eta errepikapen-fenomenoak. Xabier Arregi

Inflexio-puntuak: kurbak kurbadura aldatzen duen lekua, gorantz irekia izatetik beherantz irekia izatera; **itzulera**-puntuak, eta abar. Jon Muñoz

**Itzulera** Legearen arabera, Israelera joateko eta hango herritartasun agiria lortu ahal izateko eskubidea dute diasporan bizi diren judu guztiek. Berria - Mundua

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Liga **itzulera** prestatzeko. Berria - Kirola

**5** itzulketa.

Diru laguntza horien **itzulera** atzeratu edo epeka ordaintzeko. Berria - Ekonomia

**6** ***itzulerakoan*** itzultzean, itzulerako bidaian.

**Itzulerakoan** ez genuen geldialdirik egin. Joxe Austin Arrieta

Behin batean, heriotza-trena, **itzulerakoan** zihoala, [...]. Felipe Juaristi

Joaneko partidan galdutakoa **itzulerakoan** berreskuratu dezakegula. Berria - Kirola

Lehengo ile kirrua [...] motz-motz eginik zekarren **itzulerakoan** eta erabat urdindua. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argentinarraren itzulera** (3); **casanovaren itzulera** (3); **errefuxiatuen itzulera** (12); **erregearen itzulera** (6); **etxerako itzulera** (5); **greziarren itzulera** (3); **ilararen itzulera** (3); **itzulera bidea** (7); **itzulera egunean** (3); **itzulera enpiriko** (5); **itzulera enpirikoa** (4); **itzulera enpirikoan** (7); **itzulera enpirikoaren** (3); **itzulera eskubidea** (15); **itzulera ona** (3); **itzulera operazioa** (12); **itzulera operazioetan** (3); **itzulera partida** (3); **palestinarren itzulera** (5)

**agerpenen ilararen itzulera** (3); **aste santuko itzulera** (3); **errefuxiatu palestinarren itzulera** (3); **eta itzulera operazioetan** (3); **irteera eta itzulera** (3); **itzulera ororen aurretik** (4)

**itzulerako bidaia** (9); **itzulerako bidaian** (3); **itzulerako bidea** (20); **itzulerako bidea hartu** (4); **itzulerako bidean** (10); **itzulerako lehia** (3); **itzulerako neurketa** (3); **itzulerako partida** (11); **itzulerako partidan** (3)

**errefuxiatuen itzuleraren** (3); **errefuxiatuen itzuleraren** (3); **eskolatik itzuleran** (3); **etxerako itzuleran** (3); **handik itzuleran** (3); **itzuleraren aurretik** (3); **itzuleraren aurretik** (3); **itzuleraren bitartez** (5); **itzuleraren bitartez** (5)

---

## itzuleragabe *(corpusean **itzulera gabe** soilik) izond* itzulerarik ez duena.

Zabalik zuen bidea periferizazio-prozesu **itzulera** gabeak. Koro Navarro

---

## itzulerdi *iz* itzuli osoaren erdia.

**Itzulerdi** egin du Bittorrek branka aldera. Koldo Izagirre

Ezkerrean geratua zen eskuineko zangoari **itzulerdia** eginarazi zion orduan indarka, belaunak eskatzen zuen posizio naturalera ekarriz. Koldo Izagirre

---

## itzulezin *(orobat **itzuliezin** g.er.)* **1** *izond* itzuliko ez dena, berriro gertatuko ez dena.

Aukera bakoitzak bere prezioa duela eta **itzulezina** dela. Lourdes Oñederra

Denbora ez al da beti **itzulezina**? Monika Etxebarria

Hemen ez baitago fenomeno **itzulezinik**. Iñaki Heras

**2** beste hizkuntza batera ezin itzuli dena.

Badira **pasarte** itzulezinak, baina horrelako liburu batek aukera ematen du ordezko testu bat sartzeko. Berria - Kultura

Hitz hauek **itzulezinak** izango dira, idiolekto honek itzelezko antza izango du isiltasunarena. sentsazio eta sentimendu horiek hitzetan **itzulezinak** balira bezala. Joseba Sarrionandia

**Itzulezinak** itzultzen hasteko ariketak. Iñaki Iñurrieta

**3** [adiera nahasgarria: ik lehen adiera; cf **itzulgarri**] atzerakorik ez duena.

**Bakea** itzulezina egiteko. Berria - Euskal Herria

**Itzuliezina** da prozesua? Berria - Harian

Guretzat su-**etenak** itzulezina eta unibertsala behar du izan. Berria - Euskal Herria

Normalizaziorako **agertoki** itzulezina lortzea. Berria - Euskal Herria

Ondorio posible horien ezkortasun gradua katastrofikoa edo **itzulezina** izatea. Berria - Gaiak

Kantariaren egoera **itzulezina** da, baina makina bati lotuta dagoenez, ez dago jakiterik zenbat denbora iraun dezakeen bizirik. Berria - Kultura

**4** ***itzulezinezko*** *izlag* bertatik ezin itzul daitekena.

Bide luzea eta nekea segur bainan **itzul** -ezinezko bidea. Herria

**Itzulezinezko** mugetaraino dituzte eramanak hizkuntza txikiak, hizkuntza bazterrekoak. Hasier Etxeberria

---

# itzulezintasun 1 *iz* itzulezina denaren nolakotasuna.

Abentura sentimendua denboraren **itzulezintasunarena** izanen litzateke, besterik ez. Monika Etxebarria

Arrazoiaren amespideak munstroak sortzen ditu noski, baina jolas kontsolagarriak dira horiek munduaren **itzulezintasunaren** aldean. Juan Garzia

Ez dakit itzulera baten historia soila den Marioren amaginarrebarena, eta ez den, baita ere, historiaren beraren **itzulezintasunaren** lagin garden samarra. Jokin Urain

**2** beste hizkuntza batera ezin itzuli denaren nolakotasuna.

Beste zenbait testutan, **itzulezintasunak** darama idazlea jatorrizkotik erabat aldentzera. Berria - Kultura

**3** [adiera nahasgarria; ik **itzulezin 3**] atzerakorik ez duenaren nolakotasuna.

Prozesu demokratikoaren **itzulezintasuna** eta arrakasta berma ditzan. Berria - Harian

---

# itzulgai *iz* itzuli behar den testua.

Diru premia tarteko ez dela, itzultzailea barne beharrak bultzatzen du **itzulgaiak** aukeratzera. Markos Zapiain

**-Itzulgaiaren** erredaktoreak 100 metrotik hartu duela zati hori? Iñaki Iñurrieta

**Itzulgaiko** esaldiaz gogoratu zen Gabin. Iñaki Iñurrieta

CATetik iritsitako **itzulgaien** bila joan zenean. Iñaki Iñurrieta

Ustez **itzulgai** huts zen hartatik hasita, horra noraino diren helduak. Iñaki Iñurrieta

Egun hartan, Huarte Donibanekoaren pasarte bat eman zion **itzulgai** Enrikek, izaeraren eta alderdi organikoaren, hots, gogoaren eta haragiaren arteko atxikimenduaz. Iñaki Iñurrieta

Itzultzailearen **itzulgaiarekiko** maitasun gehiegiak ere sor ditzake itzulpena itsu ditzaketen beroaren lamarak eta lurrunak. Anjel Lertxundi

---

# itzulgailu *iz* testuak itzultzeko gailua.

Eskuko **itzulgailua** esatea arruntegi eta baldar egiten zaio baten bati eta horregatik itzultzaile mugikorrak jarriko du hitzaldietan esaten dena ulertzeko ematen dizuten tresnatxo horren azpian. Pello Salaburu

---

# itzulgaitz *izond* ia itzulezina.

Lukrezioren denbora denbora **itzulgaitza** dela eta haren naturak, beraz, historia bat daukala esan beharko litzateke, estoikoena itzulgarria eta historia gabea den bitartean. Xabier Amuriza

Zeren gertakarion jabe izan ziren gizaldi haiek dagoeneko irentsiak baititu iragan **itzulgaitzak**. Xabier Amuriza

---

# itzulgarri 1 *izond* itzul daitekeena, berriro gerta daitekeena.

**Itzulgarria** zen denbora, iragana eta geroa ezertan bereizten ez ziren unibertso aldaezin batean. Juan Garzia

Palingenesiak denbora arbuiatzera daramatza, prozesuetan iraunkor denarekin bat egitean, haien errepikatzearen eta, beraz, betiraunaren jakile: naturaren legeak **itzulgarriak** direla baiesteko euren era berezia da. Xabier Amuriza

Lukrezioren denbora denbora itzulgaitza dela eta haren naturak, beraz, historia bat daukala esan beharko litzateke, estoikoena **itzulgarria** eta historia gabea den bitartean. Xabier Amuriza

**2** diruaz eta kidekoez mintzatuz itzul daitekena.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak ikus-entzunezko proiektuak diru laguntza **itzulgarriekin** sustatzeko harturiko bideak «aurrerapen esanguratsua» adierazten duen arren, «egoera kezkagarria» dela salatu dute. Berria - Kultura

**3** beste hizkuntza batera itzul daitekeena.

**Itzulgarritzat** jo duten itzultzaileen artean, bada orain *Exercices de style* euskarara itzuli duen bat: Xabier Olarra. Berria - Kultura

**4** [adiera nahasgarria: ik lehen adiera; cf **itzulezin**] atzerakorik baduena.

Gizonengan esterilizazioa eragiteko modua aurkitu dutela, haien osasunean edo libidoan kalterik sortu gabe, eta, gainera, metodo **itzulgarria** dela. Luis Elberdin

Ea kondenatuekin heriotza **itzulgarriak** lor ditzaken, alegia ez betikoak. Karlos Linazasoro

Gainera, txertoak abantaila handi bat du: **itzulgarria** da. Berria - Gaiak

Ni neu mendizalea naiz baina argi daukat energia eolikoak ez duela kutsatzen eta, gainera, inoiz atzera egin nahi izanez gero, inpaktua **itzulgarria** dela. Berria - Euskal Herria

---

# itzulgarritasun *iz* itzulgarria denaren nolakotasuna.

Bereizi behar da, beraz, hizkuntza analogiaren (edo **itzulgarritasunaren),** berberatasun logikoaren (edo baliokidetasunaren) eta enuntziazio-homogeneotasunaren artean. Xabier Arregi

Raymond Queneauren liburu **honen** itzulgarritasunaz eztabaida franko izan da. Berria - Kultura

---

# itzulgune *(orobat **itzul(-)gune**) iz ipar* itzulia egiteko gunea.

Erdaraz "Rond Point" erraiten den gauza hori **"Itzulgunea"** deitzen da euskaraz. Herria

Baiona Santespietarik San Andresera heltzean, Lapurdiko zubi aitzineko **itzulgunea** "Rond point de l'Aquitaine" deitzen da. Herria

**Itzulgune** berri bat ezarri dute hor eta iduriz hola akulatu arramoldaketa arras egokia da. Herria

**Itzul** gune berria sei errepide desberdinetatik hartzen ahalko da. Herria

Intermarché saltegiko **itzulgune** ondoan. Herria

Miarritzeko autopistako **itzul** -gunean. Herria

· Miarritze nire amets eta gogoeten **itzulgunea** da. Berria - Kultura

## **itzuli-mitzuli** 1 *iz adkor* itzulia, intzulingurua.

Ez zitzaion psikologiaren **itzuli** mitzulietan ibiltzen batere laket. Piarres Aintziart

Mattuk, alimaleko bularrak esku ahurrez haztatu zituen, gorputz **itzuli**-mitzuli zabala obratzen zuen oroz. Itxaro Borda

Errepidearen **itzuli-mitzuli** patartsuak iragaiten ditut. Piarres Aintziart

Hau da, sortu-hil, sortu-hil etengabeko **itzuli**-mitzuliari bukaera ematea. Gotzon Garate

**Itzuli**-mitzulirik gabe erraiteko: ero-etxe batean. Michel Oronoz

Hilketa horren **itzuli**-mitzulietan sartu gabe [...]. Jose Angel Irigaray

Orain arte dena **itzuli mitzuli** zitzaidan bidea zurgin baten eskuaire bat bezain xuxena dut aitzinean. Piarres Aintziart

Dena **itzuli-mitzuli,** dena bihurri eta salbuespen, eta hori batere beharrik gabe gehiago dena... Herria

• **2** *adlag* itzuli-mitzulika.

Olinpiar jokoetan gimnastek hagetan **itzuli**-mitzuli ibili ondoren egiten duten bezala. Gotzon Garate

Ez zela gehiago koldarkeriatan **itzuli-mitzuli** ibiliko. Harkaitz Cano

Etxera bueltatu zen etsi-etsian, espiritua askeagoa zuela, Quenu andrearen lehengusuaren irudia **itzuli**-mitzuli oroimenean. Karlos Zabala

Errepidea dena **itzuli mitzuli** doa, landare eta lore mota guziak hunkitu edo perekatu zein milikatu nahi balitu bezala. Piarres Aintziart

---

## **itzuli-mitzulika** *adlag adkor* itzulika.

**Itzuli**-mitzulika harat-honat ibilita ere, ezin oroitu non utzi nuen madarikatua. Aingeru Epaltza

Gazteari, berriki jakin zuen xehetasuna **itzuli**-mitzulika zebilkion gogoan. Elena Touyarou

Mutila, besarkatu nahian neskatxari darraikio eta biok zuhaitzaren inguruan **itzuli**-mitzulika ibiliko dira, etengabeko kantuan. Gotzon Garate

Goizean, Rafa eta Egiptorekiko mugaren artean kokatua den errefuxiatu bizigunearen bost auzunetan sartuta ziren Tsahalen soldadu eta tankeak, Apache helikopteroek **itzuli-mitzulika** zihardutelarik airean. Berria - Mundua

---

## **itzuli-mitzulikatu,** itzuli-mitzulika(tu), itzuli-mitzulikatzen da *ad adkor* itzulikatu.

**Itzuli-mitzulikatzen** ziren bere begi hetsien aitzinean... aireportuarekin hasteko! Ramuntxo Etxeberri

---

## **itzuli**[1]. itzul, itzultzen *(orobat **utzuli** g.er.)* **1** da *ad* lehenagoko tokira berriro joan. ik **bihurtu**.

Hegazkinak berriro **itzuli** ziren. Juan Kruz Igerabide

Orduan iluntasuna **itzuli** zen. Juan Garzia

Izerdiz belztua dagoenean, **itzul** bedi jauregira, har beza bainualdi eder bat eta bihoa lotara. Patxi Zubizarreta

Etxera ez **itzultzea** pentsatu nuen, gurasoek egingo zidatenaren beldur. Juan Kruz Igerabide

Hori ikustean, ihesi joandako gizonak Jonatanengana **itzuli** eta etsaien ondoren joan ziren. Elizen arteko biblia

Bihar goizean ene xoko goxora **itzuli** bitartean. Aingeru Epaltza

Baina usoa, hankak non pausaturik izan ez eta, ontzira **itzuli** zen, artean ura baitzegoen lurrazalean. Jose Antonio Mujika

-Noizbait **itzuli** haiz harat? Elena Touyarou

Handik bost bat minutura, ordea, nire izaren artera **itzuli** zen. Anjel Lertxundi

Ez jan ogirik han, ez edan urik, ez **itzuli** joan zaren bide beretik. Elizen arteko biblia

Mezulariak **itzuli** zirenean, erregeak galdetu zien: -zergatik **itzuli** zarete? Elizen arteko biblia

Ebakuntza gelatik **itzuli** berritan. Hasier Etxeberria

Solasean hasi orduko, dendako neskamea, Augustine, erosketetatik **itzuli** zen. Karlos Zabala

Hamar urteren buruan erbestetik **itzuli,** eta [...]. Juan Kruz Igerabide

Zoritxarrez, arrats hartan bertan **itzuli** behar nik Thunera. Joxe Austin Arrieta

Gelditzeko **itzuli** zen. Anjel Lertxundi

**Itzul** zaitez etxera, onik eta osorik, eta aurki. Mirentxu Larrañaga

Gertatua ikusirik, bular-joka **itzuli** zen hirira. Elizen arteko biblia

Harik eta ni borrokatik garaile **itzuli** arte. Elizen arteko biblia

Garbi **itzuli** naiz. Jose Antonio Mujika

Beren arteko bat ere galdu gabe onik **itzuli** zirelako. Elizen arteko biblia

Mutila whiskia urarekin zekarrela **itzuli** zen. Koro Navarro

Inondik inora ezin izango nintzen nire erresumara haurdun **itzuli..** . Patxi Zubizarreta

Trenez **itzuli** ginen. Juan Kruz Igerabide

**Itzuli** zitzaizkion mezulariak Jakobi, esanez: "Esau zure anaiarekin egon gara; bera ere bidera datorkizu laurehun gizonekin". Elizen arteko biblia

Ez dakit zer pentsatu nuen neskatxa **itzuli** arteko hamar minutuko bitarte hartan. Joxe Austin Arrieta

Bidera **itzuli** berri-berritan agertu zen Ana. Aingeru Epaltza

Bidaltzaileari **itzulia** -esan zuen ozenki-. Koldo Biguri

**2** irud/hed

Arrastora **itzuli** dena. Juan Kruz Igerabide

Onbidera **itzuli** dela iruditzen zaidan bakoitzean, eskandalu berri bat ekartzen dit. Patxi Zubizarreta

Nik uste dudanez, Frantzisko hasierako errugabetasunera **itzulia** zen. **Itzuli** niregana, herri fedegabe hori. Askoren artean

Gogor eusten dio bere makurkeriari, ez du **itzuli** nahi atzera. Elizen arteko biblia

Nire aginduak onartu ez zituzten arbasoen erruetara **itzuli** dira. Elizen arteko biblia

Honela, kapitulu honetako bigarren paragrafoan egin dugun galdera hartara **itzuliaz** [...]. Itziar Laka

Baina gatozen harira, **itzul** gaitezen 1938. urtera. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hiroshi 1963ko apirilera **itzuli** da eta, ondo gogoan duenez, abuztuan aitak familia abandonatuko zuen: ez zuten ezer gehiago jakin hari buruz. Berria - Kultura

Argia **itzulia** zen eta txoriak goratik ari ziren. Aingeru Epaltza

Argia nire begietara **itzuli** zelarik. Aingeru Epaltza

Brigada Zientifikokoak oporretatik **itzuli** dituk. Aingeru Epaltza

**3** norbait edo zerbait, lehenago zegoen egoeran edo egitekoan berriro gertatu.

Xaflako bat ipurmazelean [...] eta galtzontziloa bere lehengora **itzuli** zen. Aingeru Epaltza

Nire lastategiko bakardadera **itzuli** naiz. Mirentxu Larrañaga
Berehala **itzuli** zen, ordea, lehenera. Anjel Lertxundi
Zoriontsu zegoela zirudien, haurtzarora **itzuli** balitz bezala. Juan Kruz Igerabide
Nehoiz ez bide zen bidaia hartarik zinez errealitatera **itzuli**. Itxaro Borda
Gero, bere seriostasunera **itzuli** zen eta burua hazkatu berriz mintzatzen hasi aitzin. Elena Touyarou
Astiro makurtu zuen burua, ezker-eskuin eragin, harik eta lehengo jarrera tinko berberera **itzuli** arte. Patxi Zubizarreta
Bazkal ondoan, bakoitza bere lanera **itzuli** zen. Elena Touyarou
Eman ezazue epaia, eta **itzul** gaitezen nor bere egitekoetara. Oskar Arana
Gaiari heldu ordez, gerraren aurkako bere betiko jardunera **itzuli** zen. Anjel Lertxundi
Behin, lasterka abiatzer da, [...] baina segidan urrats eztira **itzuli**. Piarres Aintziart
Edo nahiago ote zuen Michigan osteko bere jatorrizko egitasmora **itzuli** eta bigarren hezkuntzako ingelesezko irakasle izateko lanpostua bilatu? Oskar Arana
Baina gauez senar eta aita arduratsuaren eginkizunera **itzultzen** zen isilean. Oskar Arana
**Itzul** gaitezen orain ehun urteko Hondarribiko eta Hendaiako bileretara. Iñigo Aranbarri
**Itzul** gaitezen, alabaina, Kode Zibilaren autuetara. Andres Urrutia
Ontziko kapitaina, gure artean zigarro bat erretzen ari zela, afariko solasera **itzuli** zen berriro bat-batean. eta ez du sinesten bera berrikustera ez bestetara **itzulia** naizenik. Josu Zabaleta
Odola bere baitara **itzuli** gabe zegoen oraino. Aingeru Epaltza
Zelatan egotetik **itzuli** eta lurpeko gure babeslekuan gaude ostera. Mirentxu Larrañaga
· Apurka-apurka **itzuli** zaio hitz jarioa, eta zorigaiztoko abentura kontatu die ikusleei. Itziar Otegi
Harrotasuna **itzuli** zitzaion. Jon Muñoz

## **4** bira egin; nork bere burua beste norabide batera zuzendu.

Nor zetorren ikusteko **itzuli** zen. Elena Touyarou
Berari begiratzeko **itzultzen** naizenean, esku biekin musuak igortzen ari zait. Oskar Arana
Joantto bat-batean **itzuli** zen zaharo batek zafratu balu bezala. Elena Touyarou
Erregina beste aldera **itzuli** zen, bere gelara joateko, aurpegia malkoz bustirik. Juan Kruz Igerabide
Emakumeen ondo-ondotik iragan zen, emakumeen ur gozoaren lurrina usainduz, baina ez zen haiengana **itzuli,** ez zituen begiak haiengan jarri. Felipe Juaristi
Hautagaia orduan osaba Kamilengana **itzuli** zen, eta esan zion: […]. Patxi Zubizarreta
Burua ezustean jasorik eta Kirxari begiratzeko **itzuli** gabe, esan zuen: [...]. Patxi Zubizarreta
Don Pedrorengana **itzuli** zen-: nik esango dizut. Bernardo Atxaga
Epailea harengana **itzuli** zen: [...].· Erran genezake kontrako aldera **itzulia** dela izen hori. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren
Hura da eskuara bastarta, oro erdararat **itzulia,** gure hizkuntza ederraren iduripen zerbait beizik ez duena. Xipri Arbelbide

## • **5** du *ad* zerbait biratu edo beste norabide batera zuzendu.

Ez zuen burua **itzuli** eta ez zen higitu ere sartu zirenean. Elena Touyarou
Bat-batean, nire izena entzun nuen, burua **itzuli** nuen, eta ez nuen ezer ikusi nire inguruan. Juan Kruz Igerabide
Ondoren gizonak eskuak poltsikoetan sartu eta alde egin du burua **itzuli** gabe. Monika Etxebarria
Gizonak burua **itzuli** zuen harengana. Elena Touyarou
Hori, ez nion aise barkatuko eta, ehorzketetan ikusi nuelarik, burua bestaldera **itzuli** nuen. Daniel Landart
Gizonak begiak pagoari buruz **itzuli** zituen. Elena Touyarou
**Itzul** belarria niregana, Jauna. Elizen arteko biblia
Etxejabeak oinak **itzuli** eta sartu bezalaxe atera zen. Josu Zabaleta
Armaren aho beltza nire aldera **itzuli** aitzin jalgi zen botila ene eskutik. Aingeru Epaltza
· Burua **itzuli** zion lehenengo gizonarekin ezkondu zen; basozain ziztrin batekin, alajaina. Mirentxu Larrañaga

## **5a** filmatu.

Palermo hirira joan gara ikusiz han diren palazio edo jauregi ederrak, hain zuzen Gangi deitzen dena, hango saloi handian Visconti Italiar zinegileak **itzulia** zuela "Le Guépard" filma. Herria

## **6** zegoen tokira edo egoerara bihurtu.

Orduko, Madame Beylek **itzulia** zuen Calvinoren Collezione di sabbia bere apalera. Anjel Lertxundi
Louiseren giltza sarrailan entzun nuenean, ahal bezala itxi eta arrapataka **itzuli** nuen bere lekura begiratzen niharduen argazki album lodi bat. Hasier Etxeberria
Uretara begira zigarroa isiotu eta berriro patrikara **itzuli** du eskua. Paddy Rekalde
Hasperen egin du, indarrez, begiak itxi, eta besoak bere tokira **itzuli** ditu. Lander Garro
Artzainek harria mugitu ohi zuten putzuko aho gainetik eta, ardiei edanarazi ondoren, harria bere lekura, putzu-ahora, **itzuli**. Elizen arteko biblia
Likorrak, itxuraz, bizitasuna **itzuli** zion. Koro Navarro
Huskeriek **itzultzen** didate niri bizipoza. Aingeru Epaltza
Auzokoei zergak ezarriz, beti bortxa erabiliz, Urrutiko etxeari **itzuli** dio garai bateko distira. Martin Anso
Elkarrekin egoteak adorea eta indarra **itzuli** zizkien. Jose Morales
Anjelen berbek barrara **itzuli** dute Joxanen arreta. Paddy Rekalde
Berak **itzuliko** dizkizue bere errukiaz arnasa eta bizia. Elizen arteko biblia

## **7** norbaiti hartu edo kendu zaiona bihurtu; norbaitek jaso duena bihurtu.

Osorik irakurri gabe **itzuli** nion. Aingeru Epaltza
**itzuli** zuen hartutako dirua. Patxi Ezkiaga
**-Itzuli** txanponetan. Juan Kruz Igerabide
**-Itzuli** egingo dizkizut gure aitak zuenari kendu zizkion hiriak. Elizen arteko biblia
Ez **itzuli** jabeari berarengandik ihes egin eta zuenean babesturiko esklaboa. Elizen arteko biblia
Hona telebista; **itzuli** niri dirua. Juan Kruz Igerabide
Eta **itzul** ezazue zeuen zaku-muturretan utzi zutena; okarkabean-edo egingo zuten. Jose Antonio Mujika
98,5 milioi euro **itzuli** ditu Nafarroako Ogasunak. Berria - Ekonomia
Astearte gauera bitarteko epea eman zion Jukosi, zor dituen 2.750 milioi euroak **itzul** ditzan. Berria - Ekonomia
Gure Errege jaunak hitzemana ziola bere aitaginarreba Enrike II.ari **itzultzea** delako erreinua. Piarres Xarriton
Suaren Lurraldeko Gobernuak Argentina hegoaldean 35.000 hektarea **itzuli** dizkie hango aborigenei. Berria - Gaiak
Bertan preso zeuzkaten bahituak Jonatani eman zizkioten; honek, gero, beren gurasoei **itzuli** zizkien. Elizen arteko biblia
Edithek senarrari **itzuli** zion kartoi sorta, eta hark mahaiaren beste aldean utzi zuen. Koro Navarro
Lukulok, Sinope eta Amisa hartu zituelarik, askatasuna **itzuli** zien. Iñaki Iñurrieta
Elizgizonek beti eskuratu dute, beti **itzuli** dute eskuratutakoa. Iñaki Iñurrieta

Billetea **itzuli** ziolarik, ezagunen arteko seinalea beharbada, gizonak irri bat eskaini zion. Itxaro Borda

Batzuek **itzuli** egin zuten jarauntsia. Iñaki Iñurrieta

Hura ez zen geldirik egon eta, ustekabean, musua **itzuli** zidan. Karlos Zabala

Burua makurtu egin behar dela, eta ez dagoela zertan kolpea **itzuli,** bereziki aurkaria handiagoa bada. Mirentxu Larrañaga

Eskuei eragin nien, eta eskurik gabeko gizonak agurra **itzuli** zidan kakoak astinduz. Koro Navarro

Nik, pentsaturik artean gazte eta sasoiko ikusi nauela [...] irribarrea **itzuli** zionat eta nire ondoko aulkia seinalatu. Anjel Lertxundi

Lisa ederrarekin topo egin eta haren mespretxu begirada **itzuli** zion. Karlos Zabala

Irriño batez **itzuli** didate agurra. Koldo Izagirre

Zergatik **itzuli** didazue gaizkia ongiaren truke? Jose Antonio Mujika

Berak **itzuli** digu guk gizakiaren erruz paradisuan galdu genuena. Joan Mari Lekuona

· Neure irudi unatua **itzuli** zidan poliziaren betaurreko beltzen islak. Aingeru Epaltza

## 8 hizkuntza batean esan edo idatzi dena beste hizkuntza batean esan edo idatzi.

Ingelesa ulertzen zuen, eta grekeraz erantzuten; Hannak **itzuli** zidan funtsezkoena. Joxe Austin Arrieta

Koro Navarrok **itzuli** du, eta Erein argitaletxeak kaleratu, Bioleta sailean. Berria - Kultura

Joxe Austin Arrietak **itzulia**. Joxe Austin Arrieta

-Esan du ikaragarri gustatzen zaiola zitala izatea **-itzuli** zuen Peterrek. Julen Gabiria

Nola **itzuli** bat-batean, ahoz edo idatziz? Berria - Kultura

Bertrand Russellen *Filosofiaren arazoak* (Klasikoak, 2002) **itzuli** berria du. Askoren artean

*Moll Flanders* nobela **itzuli** zuen, eta *Altxor Uhartea*-ren egilea miretsi. Juan Garzia

"Bi testu labur ari naiz **itzultzen",** esan dit berak. Bernardo Atxaga

Honelatsu **itzuli** nion euskaraz ene irakasleari bere erranaldia: "Bakoitza Gizartearentzat, Gizartea Presonarentzat". Piarres Xarriton

Vitruvioren "symmetria", guk proportzioa **itzuli** duguna. Santiago Iruretagoiena

Frantsesez, "cet homme a un penchant pour la boisson" **itzul** ginezake. Herria

Dirudienez, zerbitzu sekretuetako ofizial batek oker **itzuli** zuen alemanei irratiz harrapatutako mezu bat. Iñigo Aranbarri

Luterok Biblia **itzuli** zuen alemanera. Aingeru Epaltza

1950-1965 artean Kawabata, Tanizaki eta Mixima izan ziren ingelesera gehien **itzuli** ziren idazleak. Ibon Uribarri

Euskaraz argitaratu eta sei hilabetera, katalanera eta espainolera **itzuli** zen. Ana Urkiza

Euskarara **itzuli** behar izan nuen dokumental batek gezurrik ez bazioen. Anjel Lertxundi

Ikus gutuna, alemanetik euskarara **itzulia,** I. Eranskinean. Lourdes Oñederra

**Itzuli** -pentsatu duzu- euskaratik **itzuli..**. Rafa Egiguren

Isidorak, ordea, **itzulia** dauka hori guztia bere hizkuntza xehera. Pako Aristi

· Eta Windows bera ere euskaraz erabil dezakegun garai honetan (egin ote du euskarak horiek baino aurrerapen nabarmenagorik?, azkarki aitzinatu gara, bistan denez, programa informatikoak **itzuliaz)** beldur naiz euskal gaietan gauzak ez diren denak xalo eta laño. Pello Salaburu

## 9 (era burutua izenondo gisa)

Sethek aurre egin ahalko zion espiritu **itzuliari,** baina Kitok ez zuen uste Denver gai izango zenik. Anton Garikano

Anbulantzia bat dator astiro, eta tristea da anbulantzia, bere izen **itzuliarekin**. Joseba Sarrionandia

Hagun hori-gorri bat ahotik zariola, begiak **itzuli** -zurituak... Michel Oronoz

Bi horiek dira munduko liburурik **itzulienak**. Jon Muñoz

30 titulutik gora ditu eta euskal idazlerik **itzulienetakoa** da. Ana Urkiza

## 10 (**itzul** hitz elkartuen lehen osagai gisa)

Ortzian zeharreko eguzkiaren **itzul** -ibil ugarietan, piztien era nahaskorrean arrastatu zuten bizia. Xabier Amuriza

**Itzul** -iraulka lorik egin ez, / egunez arlo zakarra. Pello Zabala

Georgiarren kondairak, Tamara erreginaren **itzul** -minez onduak. Felipe Juaristi

**Itzul** molderen bat edo beste agian hobetu litekeela? baliteke, baina, zein lanetan ez? Berria - Kultura

Horrek emaiten zeien nolazpaiteko lehentasun eta dretxoa mementoko **itzul** -sari batentzat. Herria

· Brentanoren Lore Layren **itzul** -egokitzapen frantsesa alegia. Koldo Izagirre

Bi hitzak azaltzen ziren orrian, Jacques Tati maitearen erretratu bat ikusi nuen, eta, beti gertatzen zaidan bezala, areago **itzul-** edo idaz-nekea daukadanean, ezin izan nion tentazioari eutsi. Bernardo Atxaga

## 11 *(norbait)* ***bere onera/senera itzuli*** da/du *ad*

Afarian ere ez zen bere onera **itzuli**. Jose Morales

Hauxe dakit bakarrik: neure onera **itzuli** nintzenean, emakume beltz gizen hura neukala aldamenean belauniko. Joxe Austin Arrieta

Hiria bere onera **itzuli** ezinik dabil oraino. Aingeru Epaltza

Minutu batzuk pasatu ondoren, pixkanaka, gorputza lasaitzen hasi eta arnasa bere onera **itzuli** zaizu. Rafa Egiguren

Jarkera bitxi hartan sakon hartu zuen arnasa eta [...] besoak euren onera **itzuli** zituen. Josu Landa

Baina odol hotzeko gizona naiz, eta berehalaxe **itzuli** nintzen nire senera. Josu Zabaleta

· Eta hark sartu zuen eta ferekatu zidan, senetik aterea, eta, **itzuli** nintzenean, ordaina hartu nahi izan zuen. Karlos Zabala

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)

**baina itzul** (21); **baina itzul gaitezen** (11); **eta itzul** (39); **etxera itzul** (14); **itzul bedi** (13); **itzul dadin** (20); **itzul daiteke** (39); **itzul daitezen** (15); **itzul ez** (10); **itzul gaitezen** (79); **itzul gaitezen orain** (10); **itzul hadi** (15); **itzul nadin** (16); **itzul zaitez** (80); **itzul zaitez zeure** (15); **itzul zaitezte** (41); **itzul zedin** (22); **itzul zitezen** (9)

**aldera itzuli** (41); **aldera itzuli zen** (16); **alemaniara itzuli** (9); **andrea itzuli** (8); **apartamentura itzuli** (10); **asisa itzuli** (8); **atera itzuli** (8); **atzera itzuli** (53); **atzera itzuli eta** (14); **atzo itzuli** (16); **atzo itzuli zen** (9); **aulkira itzuli** (9); **autora itzuli** (10); **baina itzuli** (23); **baitara itzuli** (11); **barrura itzuli** (22); **barrura itzuli zen** (8); **bat batean itzuli** (9); **bat itzuli** (36); **batean itzuli** (19); **batekin itzuli** (36); **batekin itzuli zen** (18); **batera itzuli** (19); **batetik itzuli** (8); **batzuk itzuli** (8); **begiak itzuli** (9); **bera itzuli** (8); **bere etxera itzuli** (12); **bere gelara itzuli** (15); **bere herrira itzuli** (15); **bere lekura itzuli** (16); **bere onera itzuli** (41); **bere senera itzuli** (8); **berean itzuli** (8); **berehala itzuli** (42); **berehala itzuli zen** (20); **berehalaxe itzuli** (8); **berriro itzuli** (50); **berriz itzuli** (36); **berriz itzuli zen** (9); **bertan itzuli** (11)

**beterik itzuli** (11); **bezala itzuli** (8); **bidera itzuli** (10); **bidetik itzuli** (9); **bila itzuli** (9); **bilbora itzuli** (9); **bizimodura itzuli** (8); **bulegora itzuli** (19); **bulegora itzuli zen** (8); **burua itzuli** (52); **burua itzuli eta** (11); **burua itzuli gabe** (9); **burua itzuli zuen** (9); **buruan itzuli** (8); **buruz itzuli** (16); **da itzuli** (33); **dena itzuli** (13); **dira itzuli** (11); **diru laguntzak itzuli** (8); **dirua itzuli** (30); **dirua itzuli beharko** (9); **du itzuli** (18); **dute itzuli** (9)

**egiptora itzuli** (11); **egoerara itzuli** (11); **egongelara itzuli** (20); **elizara itzuli** (9); **emaitzarekin itzuli** (9); **era itzuli** (9); **erbestetik itzuli** (12); **erdira itzuli** (10); **ere itzuli** (38); **eskolara itzuli** (12); **esku hutsik itzuli** (14); **espainiara itzuli** (9); **eta etxera itzuli** (52); **eta gero itzuli** (11); **eta itzuli** (168); **eta itzuli egin** (24); **eta itzuli zen** (8); **etxeetara itzuli** (15); **etxera itzuli** (378); **etxera itzuli ahal** (9); **etxera itzuli behar** (12); **etxera itzuli da** (8); **etxera itzuli eta** (43); **etxera itzuli ginen** (11); **etxera itzuli nahi** (29); **etxera itzuli naiz** (10); **etxera itzuli nintzen** (23); **etxera itzuli nintzenean** (12); **etxera itzuli zen** (57); **etxera itzuli zenean** (13); **etxera itzuli ziren** (20); **etxerat itzuli** (33); **euro itzuli** (20); **euskal herrira itzuli** (38); **euskal herrirat itzuli** (8); **euskarara itzuli** (15); **ez da itzuli** (15); **ez itzuli** (26); **ez zen itzuli** (44); **ez ziren itzuli** (8); **frantsesera itzuli** (9); **frantziara itzuli** (11); **gabe itzuli** (55); **gabe itzuli zen** (11); **gabe itzuli ziren** (8); **garaile itzuli** (13); **garaira itzuli** (8); **gaztelaniara itzuli** (19); **gaztelura itzuli** (10); **gehiago itzuli** (12); **gelara itzuli** (65); **gelara itzuli eta** (9); **gelara itzuli zen** (29); **gero itzuli** (22); **geroago itzuli** (17); **geroago itzuli zen** (9); **gibelera itzuli** (13); **gibelerat itzuli** (9); **gutxira itzuli** (8); **guztia itzuli** (10); **guztiak itzuli** (8); **handik itzuli** (14); **hara itzuli** (28); **harengana itzuli** (14); **hartara itzuli** (15); **hartuta itzuli** (10); **haurtzarora itzuli** (9); **herrialdera itzuli** (11); **herrira itzuli** (98); **herrira itzuli eta** (13); **herrira itzuli zen** (26); **herrirat itzuli** (19); **hirira itzuli** (33); **hirira itzuli ziren** (8); **hizkuntzatara itzuli** (12); **honela itzuli** (8); **hotelera itzuli** (27); **hura itzuli** (11); **hutsik itzuli** (18); **inguruan itzuli** (9); **inoiz itzuli** (15); **italiara itzuli** (11)

**itzuli ahal** (66); **itzuli ahal izan** (19); **itzuli ahal izango** (16); **itzuli ahal izateko** (21); **itzuli aitzin** (17); **itzuli arte** (75); **itzuli artean** (11); **itzuli aurretik** (42); **itzuli baino** (34); **itzuli baino lehen** (17); **itzuli baitzen** (15); **itzuli behar** (318); **itzuli behar du** (14); **itzuli behar dugu** (9); **itzuli behar dut** (21); **itzuli behar dute** (8); **itzuli behar izan** (57); **itzuli behar zuela** (10); **itzuli behar zuen** (11); **itzuli beharko** (128); **itzuli beharko du** (15); **itzuli beharko dute** (9); **itzuli beharra** (54); **itzuli beharrean** (12); **itzuli**

**beharreko** (20); **itzuli beharrik** (8); **itzuli berri** (15); **itzuli berria** (17); **itzuli berritan** (8); **itzuli bezain** (23); **itzuli bezain laster** (17); **itzuli bitartean** (13); **itzuli da** (385); **itzuli da eta** (13); **itzuli dela** (38); **itzuli den** (20); **itzuli denean** (22); **itzuli dio** (18); **itzuli dira** (136); **itzuli dira etxera** (10); **itzuli direla** (8); **itzuli diren** (14); **itzuli ditu** (14); **itzuli dituzte** (10); **itzuli du** (39); **itzuli dut** (8); **itzuli dute** (19); **itzuli edo** (11); **itzuli egin** (195); **itzuli egin behar** (20); **itzuli egin beharko** (14); **itzuli egin da** (12); **itzuli egin nintzen** (9); **itzuli egin zen** (59); **itzuli egin ziren** (16); **itzuli egingo** (50); **itzuli egingo da** (8); **itzuli egiten** (47); **itzuli egiten da** (8)

**itzuli ere** (30); **itzuli eta** (568); **itzuli eta bere** (15); **itzuli eta esan** (26); **itzuli eta gero** (16); **itzuli etxera** (10); **itzuli ez** (52); **itzuli ezean** (9); **itzuli ezin** (9); **itzuli gabe** (65); **itzuli gabea** (11); **itzuli gara** (34); **itzuli ginen** (92); **itzuli ginenean** (12); **itzuli gira** (8); **itzuli haiz** (13); **itzuli hona** (8); **itzuli izan** (13); **itzuli izana** (9); **itzuli mitzuli** (36); **itzuli mitzulika** (8); **itzuli nahi** (224); **itzuli nahi du** (14); **itzuli nahi dut** (9); **itzuli nahi izan** (23); **itzuli nahi nuen** (9); **itzuli nahian** (9); **itzuli nahiko** (12); **itzuli naiz** (87); **itzuli naizenean** (13); **itzuli nintzen** (256); **itzuli nintzen berriro** (9); **itzuli nintzen eta** (11); **itzuli nintzen etxera** (12); **itzuli nintzenean** (97); **itzuli nion** (16); **itzuli nituen** (8); **itzuli nuen** (16); **itzuli ohi** (12); **itzuli omen** (11); **itzuli ondoan** (31); **itzuli ondoren** (31); **itzuli orduko** (28); **itzuli ostean** (10); **itzuli zara** (24); **itzuli zela** (40); **itzuli zelako** (10); **itzuli zelarik** (50); **itzuli zen** (1535); **itzuli zen aita** (8); **itzuli zen arte** (11); **itzuli zen bere** (30); **itzuli zen berriro** (25); **itzuli zen eta** (69); **itzuli zen etxera** (32); **itzuli zen euskal** (8); **itzuli zenean** (219); **itzuli zenerako** (17); **itzuli zenetik** (14); **itzuli zidan** (23); **itzuli zinen** (11); **itzuli zion** (78); **itzuli zirela** (8); **itzuli ziren** (416); **itzuli ziren eta** (20); **itzuli zirenean** (38); **itzuli zituen** (31); **itzuli zituzten** (12); **itzuli zitzaion** (18); **itzuli zizkion** (14); **itzuli zuen** (78); **itzuli zuten** (21)

**jaioterrira itzuli** (12); **jangelara itzuli** (8); **jaunarengana itzuli** (9); **jauregira itzuli** (19); **jerusalemera itzuli** (34); **jerusalemera itzuli zen** (14); **jerusalemera itzuli ziren** (11); **kanpalekura itzuli** (8); **kontra itzuli** (9); **laguntzak itzuli** (9); **lanera itzuli** (52); **lanera itzuli behar** (8); **laster itzuli** (21); **lasterka itzuli** (10); **lehen itzuli** (38); **lehen mailara itzuli** (8); **lehengora itzuli** (19); **lekura itzuli** (39); **lekura itzuli zen** (19); **lekura itzuli ziren** (9); **logelara itzuli** (12); **lurraldera itzuli** (9); **madrilera itzuli** (9); **mahaira itzuli** (24); **mailara itzuli** (15); **milioi euro itzuli** (16); **mundura itzuli** (15); **naiz itzuli** (8); **new yorkera itzuli** (11); **ni itzuli** (18); **ni itzuli arte** (11); **nigana itzuli** (14); **niregana itzuli** (20); **noiz itzuli** (8); **nola itzuli** (21); **normaltasunera itzuli** (13); **ohera itzuli** (20); **oinez itzuli** (10); **ondora itzuli** (18); **ondora itzuli zen** (9); **ondoren itzuli** (14); **onera itzuli** (53); **onera itzuli zen** (13); **orduan itzuli** (10); **ostatura itzuli** (14); **parisa itzuli** (10); **plazara itzuli** (10); **pozik itzuli** (14); **ra itzuli** (8); **sekula itzuli** (11); **senera itzuli** (10); **sorterrira itzuli** (20); **sukaldera itzuli** (25); **sukaldera itzuli zen** (11); **taldera itzuli** (17); **tokira itzuli** (15); **yorkera itzuli** (11); **zen itzuli** (48); **zereginetara itzuli** (9); **zergatik itzuli** (23); **ziren itzuli** (10); **zuela itzuli** (17); **zuela itzuli zen** (11); **zuen itzuli** (9)

**arte itzuliko** (11); **baina itzuliko** (12); **barru itzuliko** (14); **batean itzuliko** (18); **batean itzuliko naiz** (8); **berehala itzuliko** (25); **berehala itzuliko naiz** (10); **berriro itzuliko** (27); **berriz itzuliko** (22); **bihar itzuliko** (24); **da itzuliko** (25); **dela itzuliko** (9); **dira itzuliko** (13); **dirua itzuliko** (12); **du itzuliko** (14); **egunen batean itzuliko** (11); **ere itzuliko** (16); **eta itzuliko** (41); **etxera itzuliko** (55); **etxera itzuliko da** (8); **euskal herrira itzuliko** (8); **ez da itzuliko** (12); **ez dela itzuliko** (9); **ez dira itzuliko** (10); **ez zela itzuliko** (15); **gaur itzuliko** (26); **gaur itzuliko da** (10); **gaur itzuliko dira** (12); **gehiago itzuliko** (13); **gero itzuliko** (10); **guztiak itzuliko** (8); **hamaikakora itzuliko** (15); **hamaikakora itzuliko da** (8); **hara itzuliko** (16); **hasierako hamaikakora itzuliko** (9); **herrira itzuliko** (18); **inoiz itzuliko** (21)

**itzuliko balitz** (12); **itzuliko da** (340); **itzuliko da gaur** (12); **itzuliko dela** (37); **itzuliko den** (20); **itzuliko dira** (156); **itzuliko dira lanera** (13); **itzuliko direla** (26); **itzuliko ditu** (10); **itzuliko dituzte** (8); **itzuliko dizut** (8); **itzuliko du** (13); **itzuliko dute** (13); **itzuliko ez** (27); **itzuliko gara** (79); **itzuliko haiz** (8); **itzuliko litzateke** (8); **itzuliko naiz** (153); **itzuliko naizela** (16); **itzuliko nauk** (16); **itzuliko nintzela** (14); **itzuliko nintzen** (21); **itzuliko ote** (27); **itzuliko zain** (14); **itzuliko zara** (33); **itzuliko zarete** (15); **itzuliko zela** (54); **itzuliko zen** (48); **itzuliko zirela** (11); **itzuliko ziren** (12); **lanera itzuliko** (16); **laster itzuliko** (41); **laster itzuliko da** (8); **laster itzuliko naiz** (14); **ligara itzuliko** (9); **noiz itzuliko** (67); **noiz itzuliko da** (8); **noiz itzuliko zain** (14); **nola itzuliko** (16); **sekula itzuliko** (17); **taldera itzuliko** (9); **zela itzuliko** (15); **zen itzuliko** (11); **zuen itzuliko** (8)

**atzera itzultzeko** (10); **batera itzultzeko** (10); **beren etxeetara itzultzeko** (8); **berriro itzultzeko** (15); **berriz itzultzeko** (13); **dirua itzultzea** (9); **dirua itzultzeko** (11); **eta etxera itzultzeko** (18); **eta itzultzean** (10); **eta itzultzeko** (18); **etxeetara itzultzeko** (14); **etxera itzultzea** (54); **etxera itzultzean** (43); **etxera itzultzeko** (112); **euskal herrira itzultzea** (10); **euskarara itzultzeko** (12); **ez itzultzea** (20); **ez itzultzeko** (38); **handik itzultzean** (20); **hara itzultzeko** (10); **herrira itzultzea** (16); **herrira itzultzeko** (18); **itzultzea baino** (11); **itzultzea da** (17); **itzultzea erabaki** (61); **itzultzea erabaki du** (8); **itzultzea erabaki zuen** (22); **itzultzea eta** (26); **itzultzea izan** (11); **itzultzea lortu** (16); **itzultzea nahi** (13); **itzultzea zen** (8); **itzultzearen alde** (9); **itzultzeko agindu** (29); **itzultzeko agindua** (11); **itzultzeko asmoa** (28); **itzultzeko asmorik** (17); **itzultzeko asmotan** (10); **itzultzeko asmoz** (9); **itzultzeko aukera** (47); **itzultzeko baimena** (20); **itzultzeko baimena eman** (8); **itzultzeko bidea** (9); **itzultzeko erabakia** (13); **itzultzeko esan** (9); **itzultzeko eskatu** (57); **itzultzeko eskatu zion** (11); **itzultzeko eskatuz** (8); **itzultzeko eskatzen** (16); **itzultzeko eskubidea** (21); **itzultzeko eta** (24); **itzultzeko exijitu** (10); **itzultzeko garaia** (10); **itzultzeko gogoa** (13); **itzultzeko gogorik** (9); **itzultzeko gogoz** (11); **itzultzeko irrikaz** (11); **itzultzeko ordua** (21); **itzultzeko orduan** (10); **itzultzeko prest** (29); **itzultzeko tenorea** (9); **laguntzak itzultzeko** (15); **lanera itzultzea** (16); **lanera itzultzeko** (15); **lehen mailara itzultzea** (8); **lehen mailara itzultzeko** (13); **mailara itzultzea** (8); **mailara itzultzeko** (15); **onera itzultzeko** (8); **sorterrira itzultzeko** (11)

**aldera itzultzen** (11); **atzera itzultzen** (13); **bat itzultzen** (9); **batean itzultzen** (8); **berandu itzultzen** (8); **bere onera itzultzen** (13); **berehala itzultzen** (9); **berriro itzultzen** (21); **berriz itzultzen** (23); **beti itzultzen** (24); **buruz itzultzen** (10); **da itzultzen** (12); **dira itzultzen** (9); **ere itzultzen** (8); **eta berriro itzultzen** (8); **eta itzultzen** (19); **etxeetara itzultzen** (8); **etxera itzultzen** (102); **etxera itzultzen da** (9); **etxera itzultzen den** (8); **etxera itzultzen zen** (10); **ez da itzultzen** (8); **ez zen itzultzen** (8); **gabe itzultzen** (13); **gaztelaniara itzultzen** (8); **hara itzultzen** (9); **herrira itzultzen** (10); **itzultzen ahal** (16); **itzultzen ari** (95); **itzultzen ari da** (13); **itzultzen ari dira** (10); **itzultzen ari zela** (10); **itzultzen ari zen** (9); **itzultzen bada** (34); **itzultzen bazara** (8); **itzultzen bazarete** (8); **itzultzen bazen** (16); **itzultzen da** (157); **itzultzen da eta** (9); **itzultzen dela** (12); **itzultzen den** (39); **itzultzen denean** (43); **itzultzen dira** (66); **itzultzen direla** (11); **itzultzen diren** (22); **itzultzen direnean** (12); **itzultzen ditu** (10); **itzultzen du** (19); **itzultzen eta** (10); **itzultzen ez** (59); **itzultzen ez den** (9); **itzultzen gara** (22); **itzultzen garenean** (9); **itzultzen ginen** (8); **itzultzen hasi** (26); **itzultzen ikusi** (14); **itzultzen naiz** (32); **itzultzen naizenean** (21); **itzultzen nintzen** (32); **itzultzen nintzenean** (13); **itzultzen utzi** (11); **itzultzen zara** (8); **itzultzen zarenean** (10); **itzultzen zela** (21); **itzultzen zelarik** (8); **itzultzen zen** (132); **itzultzen zenean** (30); **itzultzen zion** (11); **itzultzen ziren** (71); **itzultzerik izan** (8); **itzultzerik izango** (8); **nola itzultzen** (13); **okadara itzultzen** (8); **onera itzultzen** (15); **zen itzultzen** (10)

---

**itzuli**[2] **1** *iz* zerbaiten inguruan, edo zenbait lekutatik igaroz, abiapuntura bihurtu arte dagoen ibilbidea.

[Zeldako] begi xilokatik begiratuz, klixka! klixka! klixka! eta **itzulia** bururatua denean, dena isilik dagonean, azma! azma!, kalaka berritz haste... Filipe Bidart

Ermita eta Basoi gidari, [...], Baigorrin gaindi, **itzuli** aberats eta zoragarri bat hasten du, mendeetan zehar. Michel Oronoz

Munduari **itzulia** laurogei egunetan. Jose Antonio Mujika

*Tro Breiz* deitzen zaio Bretainiako **itzuliari,** eta Erdi Aroan erromesaldi luze bat adierazteko erabiltzen zen izen hori (600 km-ko itzulia da). J.M. Olaizola "Txiliku"

Pasarte hori dela Nietzschek eskaini digun betiereko **itzuliaren** azalpenik bilduena. Juan Kruz Igerabide

**2** (egin aditzarekin)

Enkanteen ondoren, ikuskatzaile berria bere **itzulia** egiten hasten zen blai-blai eginiko kaleetan barrena pauso laburrez. Karlos Zabala

Oren erdi guziz, zaintzaleek beren **itzulia** egiten dute kartierreko zelda guzietan. Filipe Bidart

Gero, bi ogi pusken artean arroltze moleta baratzeko biperrekin janik, xahakoak hiruzpalau **itzuli** eginik [...] abiatu ziren berriz beheiti gizonak. Michel Oronoz

Sasien artetik bidea idekiz edo harkaitzaren **itzulia** eginez [...] nahi nuke iturbegira iragan, ikusteko nola sortu zen, menderen mende aitzinetan, lurraren xilotik ura. Piarres Aintziart

Hiru aldiz karrikako **itzulia** egiten dute, hiru lerrotan, jendeen iziarazteko doia. Michel Oronoz

Bakarrik nahi nuke gaineko karrikaren **itzulia** ere egin eta beldur niz denbora ari zaukula laburtzen. Michel Oronoz

Zazpigarren egunean, zazpi aldiz egingo duzu hiriaren **itzulia**. Jose Antonio Mujika

Egunsentian jaiki eta **itzulia** egin zuten hiriaren inguruan. Elizen arteko biblia

Behin berriro, uharriaren **itzulia** egin zuen Algerreko Arrosak. Juan Garzia

Handik gutxira, berriz hasi nintzen presondegiaren **itzulia** egiten. Koro Navarro

Beraz, norbaitek lurraren **itzulia** egin nahi balu, aski luke beti haratago jarraikitzea partitu den lekura heltzeko. Aurelia Arkotxa

Munduaren **itzulia** lehenengoz egin zuena Sir Francis Drake da ingeles askoren ustez. Edorta Jimenez

Afrikako **itzulia** egiteko, gakoa Esperantza Oneko lurmuturra aurkitu eta biratzea zen. Iñaki Iñurrieta

Baratze osoari **itzulia** egin zion. Gotzon Garate

Jean-Pierre Curutchet Heletako gure berriketariak gaitzeko **itzulia** egin berri du Ipar-Ameriketan gaindi. Herria

· Gero, haren inguru-**itzulia** egin, eta altxorra zegoeneko piramide berdeari erreparatu zion. Juan Garzia

*ik* itzulinguru.

**3** bira.

Bi **itzuli** egin zituen gelan garrasika. Josu Zabaleta

Ez zen gelditzera ausartzen, gelditasunak sortzen baitzion orduan izua, eta gero eta bizkorrago ibiltzen zen, gero eta **itzuli** azkarragoak egiten zituen. Jose Morales

Lurrak bere inguruan **itzuli** osoa egiteko behar duena. Pello Salaburu

Lurrak eguzkiaren inguruan egiten duen **itzuliaren** iraupena. Pello Salaburu

Soka lodi bat dauka **itzuli** osoan tatuatua. Koldo Izagirre

Aldapa gogorrik gabeko 16,8 kilometroko zirkuitu bati 11 **itzuli** eman behar zizkioten, 185,3 kilometro guztira. Berria - Kirola

'Match Omnium' Joane Somarriba Zoulfia Zabirovaren aurka (10 **itzuli** jazarpenean). Berria - Kirola

32 kilometro ditu **itzuli** horrek, eta txirrindulariek hiru aldiz egin beharko dute. Berria - Kirola

Gibernauk hirugarren **itzulian** utzi zuen karrera mekanika arazo bategatik. Berria - Kirola

Azken aurreko **itzulian** zirkuituko errekorra ondu zuen. Berria - Kirola

**Itzuli** zut bat egin zuen, eta gureganantz hegaldatu zen zuzenean. Mirentxu Larrañaga

Zerbaiti heldu nahi zion bakoitzeko, **itzuli** bizkor bat egiten zion eskuak. Josu Zabaleta

Konturatu zenean ezin genuela pagatu, ehun eta laurogei graduko **itzulia** egin zuen Davidek beste aldera. Oskar Arana

Palankaren **itzuliaren** doinu gozoa borreroaren eskupean. Koldo Izagirre

**Itzuli** kopuruaren arabera sailka daitezke 1 Formulako autoen potentziak. Berria - Kirola

Azken urteetan, 1 Formularen garapena ez da **itzuli** denboran bakarrik islatu. Berria - Kirola

Eguzkiaren urte- **itzuli** askorekin. Xabier Amuriza

**3** *irud*

Errotak **itzulia** egin zuen laster: 1803tik 1812rat 9 apez berri baizik ez zelarik izan, 1813tik 1823rat 58 izan ziren, 1823tik 1832rat 75, 1833tik 1842rat 88. Xipri Arbelbide

**4** joan-etorria.

Begiak xurituak eni dago eta asteburuetako **itzuli** hori zor diot. Janbattitt Dirassar

Gernikara **itzuli** bat. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pariseko **itzulia** egiten nuen frangotan nehorekin solas bakar bat ere erabili gabe. Janbattitt Dirassar

Alabaina guztien artetik egiazki *très heureux* zegoen bakarra ni nintzen han, Pariseko **itzuliari** halako etekina aterata: futbol estadio oso bat hankaz gora botatzeko lain leherkari neukan ipurpean, gainera merkea eta segurantziaz erabiltzeko modukoa. Hasier Etxeberria

Beraz, atzeratu egingo nuela Bilboko **itzulia**. Ramon Saizarbitoria

Gisa guziz, igandean etxeko **itzulia** eginen dut usaian bezala. Janbattitt Dirassar

Ai misioetako erreinu haiek! niri ere gogoratu zitzaidan ene lur honetako **itzulia** horrela bururatzea Piarres Xarriton

**5** itzulingurua.

Norabide bakarrekoak izanik, **itzuli handia** behar du Nerearen etxera joateko. ozta-ozta baina libratu egin ziren harri beltza jotzetik, autoa **itzuli handi** bat eginez jiratu baitzen. Urtzi Urrutikoetxea

· *irud* Lehenbiziko orrialdeetan halako **itzuli** handi bat egin dut, bide batez, mendeak eta urteak neurtzeko egunero erabiltzen ditugun sistemak nolakoak diren, kuriositate gisa baizik ez bada ere, oroitarazteko. Pello Salaburu

Baina barkatu, berriz ere bat-bateko **itzulian** sartu naizelako. Pello Salaburu

**6** txirrindularitzan eta kidekoetan, lurralde batean zehar egiten den etapakako norgehiagoka.

**Itzuli** handietan, Giroan, Tourrean eta Vueltan. Berria - Kirola

Anquetil izan zen lehena bost aldiz Frantziako **Itzulia** irabazten. Pello Salaburu

Euskal Herriko **itzuliak** ibilbide berria duelako aurten. Berria - Kirola

Dotore ari da Robert Hunter hegoafrikarra Suitzako **Itzulian**. Berria - Kirola

2005eko Espainiako **Itzulian** sei etapa amaituko dira gailurretan. Berria - Kirola

Georgiako **Itzulian** Lance Armstrongek irabazi zuen hirugarren etapako goizeko atala, esprintean. Berria - Kirola

Sanchez egun bateko probetan eta **itzuli** txikietan ahaleginduko da. Berria - Kirola

Bederatzi **itzuli** ageri dira bere palmaresean, ia denak maila handikoak. Berria - Kirola

Oscar Freirek irabazi du Mallorcako **Itzuliko** bigarren etapa, esprintean. Berria - Kirola

*ik* itzuliko.

Gaur, hirugarren etapa jokatuko da, Andaluziako **Itzuliko** etapa nagusia. Berria - Kirola

Bihar jokatuko da **itzuli** honetako azken etapa. Berria - Kirola

Petacchik 24 garaipen lortu zituen iaz, horietatik 15 **itzuli** handietako etapak. Berria - Kirola

**7** hainbat unetan egiten den prozesu baten zatia.

Irailaren 20an egingo diren presidentetzarako hauteskundeen bigarren **itzulian**. Berria - Mundua

Bozka-lege berria berme, bigarren **itzulian** barne izaiteko lixta batek beharko ditu bozen % 10 bederen ukanak lehen igandean. Herria

Lehendabiziko **itzulian** hautatu zuten 1885eko urriaren 4an, eta behin eta berriz hautatu zuten gero. Monika Etxebarria

Ainitzen gostuko, Kirchner-ek du haatik bigarren **itzulian** nagusitzeko mentura handiena, maiatzaren 18-an. Herria

Bigarren itzulia gertatuko da, lehen **itzulian** zerrenda bakar batek ere ez badu gehiengo absolutua lortu. Berria - Euskal Herria

Lehen **itzulian** hautatzen da, bigarrenean aldiz baztertzen. Herria

Ezusteko handia izan zen atzo Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) errektorea aukeratzeko lehen **itzulian**. Berria - Euskal Herria

Lehen **itzulian** Mari Carmen Gallastegiren aldekoen zati handi batek bigarren **itzulian** Monteroren alde egin izanak. Berria - Euskal Herria

Lehenengo **itzulian** uribatzarrek hautagaiak proposatuko dituzte eta, bi herriren sostengua duten hautagaien artean aukeratuko dute afiliatuek bigarren **itzulian**. Berria - Euskal Herria

Gauderen liburua botazioen laugarren **itzulian** gailendu zitzaion, lau botorekin, Alan Jauberten *Val Paradis* lanari. Berria - Kultura

Lehen **itzuliko** lau lixtak egundainokotan plantatuak ziren bozketa eta emaitzak hein bertsukoak izan dira. Herria

Finalerdietako bigarren **itzuliko** bi saio jokatu dira iragan asteburuan [bertsulari xapelketan]. Herria

Prest dago [errektore kargua hartzeko] bigarren **itzulikoak** negoziatzen hasteko. Berria - Euskal Herria

**8** (kirol txapelkeketan)

Frantziako kopako lehenengo **itzulian**. Josu Zabaleta

Asobal Ligako bigarren **itzuliak** emozioa izango du. Berria - Kirola

Txapeldunen Ligan jokatzeko batez beste lehen **itzulian** 33 puntu behar dira, eta denboraldi amaieran 63 puntu. Berria - Kirola

Joaneko **itzulian** Baskoniak aise irabazi zuen Granadan (76-93), gaurkoa, baina, partida desberdina izango da. Berria - Kirola

Lehen **itzuli** ikaragarri ona egin genuen, eta bigarren itzulia ikaragarri txarra izaten ari da. Berria - Kirola

Realak bigarren **itzuli** lasaiagoa izango duela dirudi une honetan. Berria - Kirola

Lapurtarrek nahitaezkoa ukanen dute puntu kopuru hori lortzea bigarren **itzuliko** lehen partidan sailkapeneko lehen postua lortu ahal izateko. Berria - Kirola

Futbolean, Frantziako kopako seigarren **itzuliko** txartela eskuratu du Aviron-ek. Herria

**9** ***itzulian***[1] inguruan.

Ez dute elkar ezagutzen mahai bakoitzaren **itzulian** jarriak diren jendeek. Piarres Aintziart

Ziloaren **itzulian** plantatu ginen, errondan. Daniel Landart

Nagusiaren **itzulian** bildurik biltzarraren egitera gindoazela, telefonoak jo zuen. Daniel Landart

Igandean, Herri Urrats Senpereko aintziraren **itzulian**. Herria

Beraz herriko hautetsiak elgarretaratu dira abuztuaren 31 an Roger Gamoy auzapezaren **itzulian**. Herria

Funtsean, aski da gure **itzulian** begiratzea. Menane Oxandabaratz

Elgarretaratzea eguerdi **itzulian** Beandozeko plazan. Herria

**10** ***itzulian***[2] itzuleran, itzultzean.

Erregina Joana eta printze Henrike bidean dituk, **itzulian**. Eta abiatzen dira **itzulian**. Heldu da haiengana mezularia, baina ez dator **itzulian**. Aingeru Epaltza

Hor dator **itzulian,** bi coca-cola lata eta plastikozko bi edalontzi handirekin. Pako Aristi

Samariara **itzulian** zetorren gudarosteari bidera atera eta esan zien: [...]. Elizen arteko biblia

Bisirrak eta soldaduek Aladin hiritik bospasei legoatara topatu zuten, ehizalditik **itzulian,** Kolonbiatik **itzulian** gatoz, eta Caracaseko aireportuan gaude berriro. Patxi Zubizarreta

Nik, Itakatik **itzulian** bainentorren, dibisa bat jarri nuen etxeko atean: itzulpena itzulera da. Anjel Lertxundi

Oihuka zihoazen herrira **itzulian,** zerri garbitu berriak aurretik zituztela. Anjel Lertxundi

## 11 ***itzulietara*** *adlag* alderantziz.

**Itzulietara** jarrarazia zuen, eta jostorratz-hariak behar zituen tokietan pasarazia. Patxi Zubizarreta

## 12 ***itzuliko*** *izlag* ik **itzuliko.** ingurukoa.

Beren **itzuliko** auzoguneek ere izen horiek hartuak baitituzte. Herria

Hain zuen maite bere sort-etxea eta **itzuliko** mendiak. Herria

Itsas horren **itzuliko** herrialde guziak beharko dira oraino elgarrekin bermatu, denen artean elgar aditurik. Herria

Gertatu dena da senar emazte horiek [...] zernahi jende, beren **itzulikoetarik,** salatu dituztela, heiek ere itsuskeria heietan partzuer izanak zirela erranez. Herria

## 13 ***ezin itzulizko*** [adiera nahasgarria: ik **itzulezin**] atzerakorik gabekoa.

Harrezkeroztik, **ezin itzulizkoa** ematen zuen botere politikoaren, militarraren, fiskalaren eta monetarioaren zentralizazio-prozesuak. Koro Navarro

ETAren su-etena **ezin itzulizkoa** izatea lortzeko, Espainiako Gobernuari lankidetza eta babesa eskaintzera joan zen Josu Jon Imaz Madrilera, atzo. Berria - Euskal Herria

## 14 ***itzuli bat egin***

Gudagizon guztiak joan eta inguratu ezazue hiria, **itzuli** bat eginaz haren jiran. Jose Antonio Mujika

-Joan hadi heure kasa **itzuli** bat egitera. Txillardegi

Gero, **itzuli** bat egin genuen kaian zehar, ilun-bistaren urdin gero eta ilunagoa barneratuz. Juan Kruz Igerabide

Asteburuetan, amarenganat **itzuli** bat egiten nuelarik, ahal bezain **itzuli** laburra egia erran, [...]. Janbattitt Dirassar

Trenean bidaiatzea haurtzarora **itzuli** bat egitea da. Pako Aristi

Hiru mila eta bostehun **itzuli:** puskatzeko arriskua. Josu Zabaleta

## 15 *itzuli-mitzuli* ik **itzuli-mitzuli.**

## 16 ***joan-itzuliko*** *adlag*

Ondorioz, 2004-2005 sasoian 16 talde ariko dira lehian, **joan-itzuliko** sailkapen ligan, eta ondoan, finalerdiak eta finala jokatuko dira. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 8 aldiz agertzen direnak)**

**beste itzuli** (12); **beste itzuli bat** (8); **bi itzuli** (24); **bigarren itzuli** (48); **hiru itzuli** (37); **itzuli bat** (153); **itzuli bat egin** (47); **itzuli bat eginen** (8); **itzuli bat egiten** (15); **itzuli bat egitera** (8); **itzuli baten** (29); **itzuli batera** (21); **itzuli batzuk** (8); **itzuli ederra** (12); **itzuli eman** (14); **itzuli handi** (23); **itzuli handi bat** (11); **itzuli handiak** (17); **itzuli handien** (10); **itzuli handietako** (25); **itzuli handietan** (30); **itzuli hori** (19); **itzuli hortako** (10); **itzuli hortan** (17), itzuli oso (8); **itzuli osoa** (33); **itzuli osoa egin** (8); **itzuli osoan** (11); **itzuli txikietan** (11)

**alemaniako itzulia** (11); **andaluziako itzulia** (11); **aragoiko itzulia** (8); **asturiasko itzulia** (11); **bere itzulia** (12); **bigarren itzulia** (118); **bigarren itzulia egin** (10); **bigarren itzulia hasi** (10); **errioxako itzulia** (10); **espainiako itzulia** (12); **eta itzulia** (32); **euskal herriko itzulia** (80); **euskal herriko itzuliak** (8); **frantziako itzulia** (92); **gaitzeko itzulia** (8); **gaztela leongo itzulia** (14); **herriko itzulia** (83); **italiako itzulia** (8); **itzulia bukatu** (14); **itzulia bururatu** (9); **itzulia egin** (76); **itzulia eginen** (10); **itzulia eginez** (11); **itzulia egingo** (9); **itzulia eginik** (11); **itzulia egiteko** (8); **itzulia egiten** (36); **itzulia eman** (9); **itzulia ere** (21); **itzulia eta** (46); **itzulia gaur** (15); **itzulia gaur hasiko** (9); **itzulia hasi** (20); **itzulia irabazi** (24); **itzulia irabazteko** (44); **itzulia izan** (15); **itzulia korrituko** (17); **itzulia korrituko du** (8); **itzulia korritzeko** (8); **itzulia zela** (13); **itzulia zen** (35); **lehen itzulia** (117); **munduaren itzulia** (15); **munduari itzulia** (10); **murtziako itzulia** (16); **romandiako itzulia** (8); **suitzako itzulia** (17); **valentziako itzulia** (13)

**aste bateko itzulietan** (8); **auzapezaren itzulian** (19); **azken itzulian** (9); **bateko itzulietan** (8); **baten itzulian** (11); **bigarren itzulian** (165); **bigarren itzuliaren** (15); **bigarren itzuliari** (12); **espainiako itzulian** (10); **euskal herriko itzulian** (70); **frantziako itzulian** (29); **frantziako itzuliaren** (13); **gamoy auzapezaren itzulian** (18); **herriko itzulian** (70); **itzulian berean** (9); **itzulian ere** (27); **itzulian eta** (20); **itzulian ez** (15); **itzulian lortu** (8); **itzulian parte** (13); **itzuliaren hasieran** (10); **lehen itzulian** (196); **lehen itzulian berean** (9); **lehen itzuliaren** (15); **lehenengo itzulian** (14); **murtziako itzulian** (12); **suitzako itzulian** (13); **valentziako itzulian** (18)

**alemaniako itzuliko** (11); **andaluziako itzuliko** (10); **asturiasko itzuliko** (8); **bigarren itzuliko** (39); **bigarren itzuliko lehen** (8); **down under itzuliko** (10); **euskal herriko itzuliko** (21); **final laurdenetako itzuliko** (8); **final zortzirenetako itzuliko** (9)

**itzuliko azken** (29); **itzuliko bigarren** (30); **itzuliko bigarren etapa** (15); **itzuliko bosgarren** (8); **itzuliko etapa** (27); **itzuliko garailea** (10); **itzuliko garaipena** (10); **itzuliko hirugarren** (21); **itzuliko hirugarren etapa** (15); **itzuliko laugarren** (10); **itzuliko lehen** (43); **itzuliko lehen etapa** (16); **itzuliko lehen etapan** (8); **itzuliko partida** (72); **itzuliko partida jokatuko** (10); **itzuliko partidak** (18); **itzuliko partidan** (37); **itzuliko partidarako** (14)

**bigarren itzulira** (30); **bigarren itzulirako** (23), lehen itzulitik (21); **joaneko eta itzuliko** (8); **laurdenetako itzuliko** (8); **lehen itzuliko** (57); **lehen itzuliko azken** (14); **mallorcako itzuliko** (8); **murtziako itzuliko** (11); **romandiako itzuliko** (8); **suitzako itzuliko** (11); **valentziako itzuliko** (9); **zortzirenetako itzuliko** (9)

---

# itzuliarazi ik **itzularazi.**

---

# itzuliezin ik **itzulezin.**

---

# **itzulika** 1 *adlag* biraka, itzuliak eginez.

Zakurra gela inguruan **itzulika** hasi zen, hormetan usainka, eta intzirika denbora guztian. Josu Zabaleta

Koilara **itzulika** erabili nuen kafearen barnean. Aingeru Epaltza

Baziren ere alegiazko paradisuko xoriak maxina bati esker **itzulika** eta kantari zebiltzanak. Aurelia Arkotxa

Bazirudien goietako lekuren batetik hegazti bat erori zela eta beherantz zetorrela, airean **itzulika** hego arinei eraginez. Jose Morales

Halaber, **itzulika** eta **itzulika** zebilen dorreko argia, Cape St. Mary'sko harresi ikaragarrien kontra zartatzeko lanjerrean zebiltzan ontzien abisatzen. Aurelia Arkotxa

Burua **itzulika** hasi zitzaidan eta oroitu nintzen herenegun gaueko amesgaixtoaz. Daniel Landart

Gobernurik gehiago ez duen eta olaturik olatu **itzulika** doan ontzi bateko eskifaia bezala aztoraturik. Josu Zabaleta

Elurretan **itzulika** eta iraulka ibili ginen, odolaren arrasto gorriak uzten zurian. Jon Maia

Gauaz aditzen zuen ohean **itzulika,** baina ez zen hitzik errateko gai izan. Elena Touyarou

Goma soil bat da orain, kasik gogoz kontra darabilzu ahoan **itzulika**. Iñaki Segurola

Barnea **itzulika** ari zaio, ordea. Eneko Bidegain

Kontxako badian jokatu zen, eta **itzulika,** ez joan-etorrian. Berria - Kirola

## 2 *irud*

Bainan zonbait jendendako, zerbaitetara heltzeko, nahiago dute **itzulika** ibili. Menane Oxandabaratz

## • 3 *iz* bira.

Eta geroxeago, bidearen **itzulika** batean... etortzen hasi nintzen. Iñaki Segurola

Itsasorantz urrutiratzen ari zen gurpilaren **itzulika** hotsa entzuten. Josu Zabaleta

## 4 *irud*

Gauzak bere izen zuzenez izendatzeko beldurrak bezala, zenbat imintzio eta zehar-ibilera, zenbat **itzulika** eta inguruka, esan beharreko hartarik ihesi beti, esan nahi eta esan ezinez. Iñaki Segurola

## 5 ***itzulikako*** *izlag*

Hura ez zen gehiago zirimola, ezpada erortze amaigabea mendi amaigabe batean behera, **itzulikako** hegaldia kolore ikusgarriz margotutako mundu zabalean barrena. Jose Morales

**6** ***itzulika-mitzulika*** *adkor* itzulika. ik **itzuli-mitzulika**.

**Itzulika**-mitzulika zebiltzan ene izpirituan, galderak sortuz. Daniel Landart

Konprenitu nuen beraz, **itzulika**-mitzulika ibili gabe, galdetu behar niola psikanalistarik ezagutzen zuenetz. Daniel Landart

**7** ***joan-itzulika***

Inguruan behatze lanetan joan-**itzulika** zeuden polizia batzuek nortasun txartela eskatu zieten bi gazteei. Pello Salaburu

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itzulika** (4); **gainean itzulika** (4); **inguruan itzulika** (4); **itzulika ari** (4); **itzulika eta** (11); **itzulika hasi** (6); **itzulika hasi zen** (4); **itzulika hasten** (3); **itzulika ibili** (7); **lurrean itzulika** (3)

---

# itzulikarazi, itzulikaraz, itzulikarazten da *ad* itzulikatzera behartu.

Madeleinek bilbe-orrazia **itzulikarazi** zuen, harien astalkatzeko, geldirik egon ezinik. Elena Touyarou

Herrian berriz, beste iturri bat: errota alimale bat behar da **itzulikarazi** eta ura nasaiki dario txorrotatik. Piarres Aintziart

Eta, azkenean, beti ideia beren inguruan ibilarazten ditu gogoetak, motor bat hutsean **itzulikarazten** balu bezala, azkenean obsesione bilakatu arte. Filipe Bidart

2003an hasi zuten zentral termiko hori eraikitzen eta aurten hasi dira zentrala **itzulikarazteko** entseguak. Herria

Ez nion begiratu nahi baina kontrola ez nezakeen indar batek, beti, ene begiak hari buruz **itzulikarazten** zizkidan. Daniel Landart

Tripak **itzulikarazten** zizkion. Eneko Bidegain

---

# itzulikaraztaile *iz* itzulikarazten duena.

Errotaren **itzulikaraztailea** Jean Bruno bere iloba izan du. Herria

---

# itzulikari *(orobat **itzulkari**)* *izond* itzulikatzen dena.

Halabeharraren ebazpenei men egiten die, bere bizitza ematen die, bere esperantza, bere izu guztizkoa, baina ez zaio bururatzen haren lege labirintoz beteak edo eta haren agerpide diren esfera **itzulkariak** ikertzerik. Juan Garzia

Batto bada **itzulikaria,** mendi harritsu bat erakusten duena, dena harpe eta dena zoko, zernahi jende ibilki bidez-bide mendian goiti eta beheiti... Herria

---

# itzulikatu, itzulika, itzulikatzen *(orobat **itzulkatu** g.er.)* **1** da *ad* gertatu, moldatu.

Haatik gauzak ez ziren berak nahi bezala **itzulikatu** eta Frantzia behere horretan higatu zituen azken urteak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Berriro ere, gauzak ez ziren guk asmatu bezala **itzulikatu**. Daniel Landart

Gauzak ongi **itzulikatu** balira, Josefa Fernanda-k bizitza ospetsu bat eramanen zukeen Espainiako gortean. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ikusiko beraz igandean gauzak nola **itzulikatzen** diren... Herria

Nork daki nola **itzulikatuko** zen gerla, Franco-k baia eman bazion? Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bizkitartean Baionan manifestaldi bat gehiago egin zuten, gaizki **itzulikatu** zena anitzentzat baina hiru lagunek ez zuten berdin pentsatzen: karrikak sutan miretsi zituzten, zikin ontziak lurrean erretzen, [...]. Itxaro Borda

Ordukotz haatik, etsi bat hartua nuen eta egina nuen enetzat, denen buru, hobe baizik ez zela hori, gauzak gisa horretarat **itzulikaturik**. Janbattitt Dirassar

Nehork ez baitzekien gehiago gauzak nola **itzulikatuko** ziren, orduan da Lur zutitzen. Michel Oronoz

Nola barneratuko zuen neskato txiki batek gauzak hain harrigarriro **itzulikatzea** errua norbaiti egozteko beharra hein batean bederen sentitu gabe? Oskar Arana

Bainan hortan girea? edo galde hori bestela **itzulikatuz,** zertan gira xuxen? Herria

Arrangurak ere hor gaindi gobernuaren konduko zerbitzu frango enpleatu gutiagorekin **itzulikatu** beharko direlakotz. Herria

Sindikatak hasarre, lanaren arrangura pisu batekin, beldur France-Télécom **itzulikatu** nahiko dela langile gutiagorekin, erretretarat doatzinak ez ordainduz eta hola... Herria

**Itzulikatzeko** diruketa 1 380 000 koa izanen da guti eskas, horietarik 490 000 baztertuak direlarik mailegu itzultze eta obrentzat. Herria

**2** (du aditz gisa)

Erraiten ahal dugu bere erakasle lagunekin eta gazte horiekin lan ederra **itzulikatu** duela. Herria

**3** da *ad* biratu, itzuli.

Segitzailerik bazuenez ikusteko noizbehinka, laburki **itzulikatzen** zen. Itxaro Borda

Lehenik burua ongi busti nuen, gero hiruzpalau aldiz **itzulikatu** nintzen ur irakituaren azpian, bizkarra, papoa, hots gorputzaren xoko-moko guztiak behar bezala zipatuz. Daniel Landart

Zirimola, hodeian barnaturik, estuan **itzulkatzen** da eta sutegi gori horren barruan oinaztua zorrozten du. Xabier Amuriza

Gorputza berez **itzulikatu** zitzaidan oheko mutur batetik bertzera: boz logaletu hori ez zen Josurena, emakume batena baizik. Aingeru Epaltza

Bizkaiko orga ttipia esan nahi dut, bi idi eta bi gurpil sendokoa, ardatzarekin batean **itzulikatuz** mendian legoa bete barne entzuten den soinu ikaragarria ateratzen duena. Koldo Izagirre

Animaleko mekanikeria honek trabarik gabe **itzulikatu** behar du. Marzel Etxehandi

Denbora errota bezala **itzulikatzen** da eta, beharba, elgar berriz ikusiko dugu geroan. Herria

• **3** du *ad* biratu, itzuli.

Burua **itzulikatuz,** ohartuko zinateke neska horrek saltegi osoa zeharkatzen duela, diskoen arlora joateko. Ramuntxo Etxeberri

Gizonak begitartea **itzulikatu** eta begiz bakarrik ihardetsi zion. Itxaro Borda

Lurrean belaunikatuta, bi eskuekin indar eginez **itzulikatu** nuen hila. Aingeru Epaltza

Hodeietan zehar orroak batera eta bestera bildaltzen dituzte eta irteera bila iraulkatzen dira, hodeiei su haziak atera eta erruz pilatzen dituzte eta garra sutegiaren barrunbean **itzulkatzen** dute, hodei urratua txinpartaka distiratu arte. Xabier Amuriza

Soa **itzulikatu** nuen, hantxe berean zegoela, Zangozatik berehala, Aragoiko Sos del Rey Catoliko. Piarres Aintziart

Jaka askatu, besaburuen mugimenduez soinetik irristatzen utzi, eta mahuka batetik heldurik airean **itzulikatu** ondoren, [...]. Ramon Saizarbitoria

Koadernoa bere aldera **itzulikatu** nuen, ikus zezan ez nuela espezialisten oporren konturik jaso. Aingeru Epaltza

Orrialdeak **itzulikatzen** dituzu... beti bezala, eta ohidura horretaz oraintxet ohartzen zara, lehen eta azken orrialdeak irakurtzen dituzu... Ramuntxo Etxeberri

Berriro **itzulikatzen** dut hegazkina ezkerrerantz, eta gero eskuinerantz. Josu Zabaleta

Sukar batek, ezin egon batek, barne guzia **itzulikatu** zion. Xipri Arbelbide

•**4** ad/du *ad* irauli, itzulipurdikatu.

Ohitura asko **itzulikatu** dira Indian. Gotzon Garate

Aieneka aritzen zen, ipurdiz gora **itzulikatzen** zuen etxe guztia, ondoezik txikiena izan orduko. Karlos Zabala

Denbora hetan Frantziako erresuma ederra azpizgora **itzulikatua** zen eta osoki nahasia. Xipri Arbelbide

Bihotza **itzulikatu** zitzaidan ustekabeko galdera harekin. Inazio Mujika Iraola

**5** *irud*

Baina Frantziako administrazioneak ontsa baino hobeki badaki bere legeak **itzulikatzen,** eta presoak urte luzez bakartasunean atxikitzeko, lege-irudiak gordez, hiru hilabeteko bakartasunera kondenatzen ditu bakarrik, baina hiru hilabetez behin beste hiru hilabeterentzat kondenatuz, eta behin eta berritz eta berritz... Filipe Bidart

**6** (era burutua izenondo gisa)

Hantxe jolasten ginen goizetik, soropil berdeko hegietan, argia belarretan, kanoi **itzulikatuen** eta muturrez beheiti landaturiko morteroen artean. Koldo Izagirre

Gizon gazte batek, irribarre zabala ezpainetan, beraren buruaren gainean paperontzi **itzulikatu** bati eusten dio. Oskar Arana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bezala itzulikatu** (3); **bezala itzulikatzen** (3); **gauzak nola itzulikatu** (3); **gauzak nola itzulikatuko** (20); **gauzak nola itzulikatzen** (6); **itzulikatu diren** (3); **itzulikatu eta** (3); **itzulikatu nuen** (4); **itzulikatu zen** (4); **itzulikatuko diren** (19); **itzulikatuko diren ondoko** (4); **itzulikatuko ote** (3); **itzulikatzeko diruketa** (4); **itzulikatzen ahalko** (3); **itzulikatzen da** (3); **itzulikatzen diren** (4); **itzulikatzen zen** (3); **nola itzulikatu** (5); **nola itzulikatu diren** (3); **nola itzulikatuko** (26); **nola itzulikatuko diren** (18); **nola itzulikatuko ote** (3); **nola itzulikatzen** (9); **nola itzulikatzen ahalko** (3); **nola itzulikatzen diren** (4; **ongi itzulikatu** (3)

---

# **itzulikatze** *iz* ***itzulikatu*** aditzaren atiz izena.

**Itzulikatze** horrek dit baltsea erabiltzeko ideia piztu. Berria - Kultura

---

# **itzuliko** 1 *izlag* partidez mintzatuz, bitara jokatzen diren norgehiagoketan bigarrena.

Benetako Europako Kopa otsailaren 22an eta 23an jokatzen hasiko da, aurrera egin duten hamasei taldeekin **itzuliko** partidak, martxoaren 8an eta 9an. Berria - Kirola

**itzuliko** partida abantaila horrekin jokatzeko. Berria - Kirola

Gol horrekin **itzuliko** partidan sailkapena aise lortuko zuela zirudien. Berria - Kirola

Txapeldunen Ligako finaleko **itzuliko** partida jokatu zuen Montpellierren (Frantzia), etxeko taldearen aurka. Berria - Kirola

Errekopako **Itzuliko** partida. Berria - Kirola

Interrek astebete geroago jokatuko du final-zortzirenetako **itzuliko** partida. Joaneko partida Lizarran jokatuko dute, eta **itzulikoa,** Norvegian. Berria - Kirola

Bihar Kopako joanekoa, urtarrilaren 14ean (21:30ean) Kopako **itzulikoa,** eta urtarrilaren 25ean Ligako **itzulikoa**. Inolako presiorik gabe goaz **itzulikoa** jokatzera. Berria - Kirola

Getxok **itzulikoa** irabazi du, baina Espainiako Kopatik at geratu da. Berria - Kirola

Etxean jokatuko dugu **itzulikoa,** baina finala Iruñean erabakiko. Joanekoan 0-0 amaitu zen partida Sevillan, eta **itzulikoan** 3-1 gailendu zen Osasuna Iruñean. Berria - Kirola

**Itzulikoek** zehaztuko dute finala, finalerdietako bi joanekoak hutsean amaitu ondoren. · Ordukoaren **itzulikoa** egin da beraz orai Azkoitin. Herria

• **2** *iz*

Aldaik **itzulikoa** egin, eta: […]. Pablo Sastre

Beraz, oraindik **itzulikoa** falta da, ezta? -ez daukak ugazabandrearekin muturtzeko inolako asmorik. Pedro Alberdi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**ean jokatuko** (3); **final zortzirenetako itzulikoa** (3); **itzuliko partida** (72); **itzuliko partidak** (18); **itzuliko partidan** (37); **itzuliko partidarako** (14); **itzulikoa etxean jokatuko** (4); **itzulikoa etxean jokatzea** (4); **itzulikoa iruñ itzulikoa jokatuko** (3); **kopako itzulikoa** (3); **zortzirenetako itzulikoa** (3)

---

# **itzulimurdika** *adlag* itzulipurdika.

Hor dago Istillaga anaietako bat, mostradorearen luzerak zabalerarekin osatzen duen ertzean erdiz erdi, hanka bat eskuinaldera, bestea ezkerrera, aulkian eseririk; Kandido Mier eta Eladio mingainari **itzulimurdika..**. Pako Aristi

---

# **itzulingo** *iz* itzulipurdia.

Israelen Ariel Sharon lehen ministroak ere, jadanik eginak dituen politikako **itzulingoen** gainera, itxurak emaiten ditu beste buruzgainkatze baten bezperan ez ote den. Herria

---

# **itzulinguratu,** itzulingura, itzulinguratzen da *ad* inguratu.

Kontua da, itsasertza **itzulinguratuz** heldu nintzela hara -whiskyari tragoxka bat eman, eta lagunei so geratu zen. Aritz Gorrotxategi

Mendia **itzulinguratzen** zuen xendra estu bati jarraitu ostean, errepide batekin egin zuen topo. Aritz Gorrotxategi

Harrobitzat jo nituen halako sakan irregular batzuk **itzulinguratu** behar izan nituen. Juan Garzia

---

# **itzulinguru** *(orobat* ***itzul(-)inguru*** *g.er.)* **1** *iz* bide zuzenetik urruntzen den bidea.

Bide laburra behar zuen nire etxerakoak eta **itzulinguru** ederra egin du auzoko kaleetan. Urtzi Urrutikoetxea

Egunkarira bueltatzean, **itzulinguru** handia egin nuen Kristinaren atariari itzurtzeko. Aingeru Epaltza

Hala gertatu zen helmugara iritsi ginela **itzulinguru** luzea egin ondoren. Imanol Unzurrunzaga

Izotz zolako arrakalak direla eta 29 kilometroko **itzulingurua** egin beharko dela. Joseba Sarrionandia

Handik **itzulingurua** eginda pasatzen ginen, mendira joaten ginenetan. Anjel Lertxundi

Ongi oroit ditzaket aldi hartako joan-jinak eta **itzul-inguruak**. Joan Mari Irigoien

Bitartean, Jeroboamek gudari-talde bat bidali zuen, **itzulingurua** eginez, Judakoak atzetik harrapa zitzan. Elizen arteko biblia

Gurditzarra, kalez kale hainbat **itzulinguru** egin ondoren, kalezulo ilun batean sartu zen azkenean. Jose Morales

Saihestu egin ziren israeldarrak bidetik, **itzul-inguru** bat eginez. Jose Antonio Mujika

Belardietan barna hainbat **itzulinguru** eginik. Jose Morales

Baina ez, handik askoz gertuago egon arren, Tolosatik, Andoaindik abiatuta baizik, eta handik ere ez zuzenean, **itzulinguru** luze askoa eginda baizik. Juan Luis Zabala

**2** zerbaiten inguruan egiten den itzulia.

Taxia Plaza Eliptikoari **itzulingurua** ematen hasia zen jadanik. Unai Iturriaga

Taldearen aurrean zaldiari **itzulinguruak** eragin, danborraren konpasean aurrera eginez denak... Koro Navarro

Patxadaz hartu nahi ditu gauzak, futbolak **itzulinguru** asko ematen dituela bai baitaki. Berria - Kirola

· Munduari bira egiten ez dion **itzulinguruko** esferarik ba ote den jakiteari dagokionez, halaber, ikerkizun dago. Xabier Kintana

Eskolara joateko, **itzulinguruko** bidea hartzen du, lagunek nondik datorren jakin ez dezaten. Gotzon Garate

**3** *irud* zeharkako era edo bidea.

Abortu bat izan nuela jakinarazi nion **itzulinguru** askorekin. Joseba Urteaga

**Itzulinguruak** alde batera utzirik, gaiari zuzenean heltzea erabaki zuen. Patxi Zubizarreta

- **Itzulingururik** ez, mesedez. Jose Morales

Bonino ez zen kontalari ona: adarretatik joaten zen, errepikatzen, **itzulinguru** luzeak eta **itzulinguruen itzulinguruak** egiten. Juan Garzia

Baina ez zuen, antza, **itzulinguruetan** denbora galtzen ibiltzeko astirik. Ramon Saizarbitoria

**Itzulinguru** edo ihesbideren bat erabiliko zuela telebistako filmetako hiltze haietaz mintzatzeko. Imanol Zurutuza

Hitz bihurri eta **itzulinguruak,** apaindura hutsalak, nabarmenkeriak eta jakingurak. Askoren artean

Husainek, amak albistea emateko erabili zuen **itzulinguru** gabeko moldearekin haserre, hau besterik ezin izan zuen esan: [...]. Patxi Zubizarreta

**4 *itzulingururik gabe***

**Itzulingururik** gabe esan zion: [...]. Patxi Zubizarreta

**Itzulingururik** gabe esateko, guzti-guztia aldatu zen harentzat **Itzulingururik** gabe kexatu zitzaion. Oskar Arana

· Baina, orain, utz dezagun alde batera hori guztia eta gatozen harira **itzulinguru** gehiagorik gabe. Jose Morales

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eta itzulinguru** (5); **eta itzulinguruak** (4); **eta itzulingururik** (8); **eta itzulingururik gabe** (7); **hainbat itzulinguru** (3); **itzulinguru bat** (7); **itzulinguru bat egin** (3); **itzulingurua egin** (3); **itzulingurua eginez** (4); **itzulingururik gabe** (19)

---

## itzulinguruka *(orobat **itzul(-)inguruka** g.er.)* **1** *adlag* itzulinguruak eginez.

Estepan barrena oldartu behar eta Irkutskera **itzulinguruka** iritsi. Karlos Zabala

Ilunabar aldera iritsi zen, azkenean, agindutako hegazkina, kirol-aparatu bat, luzaroan **itzulinguruka** ibili zena. Joxe Austin Arrieta

**Itzulinguruka** ibili zen, gero eta beherago, zuhaitzen adar gorenak ukituz. Iñaki Mendiguren

Han ibili zen luzaroan **itzul** -inguruka gure gainean. Joxe Austin Arrieta

Batzuetan **itzulinguruka** ibili bada ere, ondo etorri da berriz ere arrastora, idazle zailduek egiten duten moduan. Berria - Kultura

**2** itzulika.

**-Itzulinguruka** ibili ginen parkean, jira eta bira -esan zuen neskak-. Mirentxu Larrañaga

**3** *irud*

**Itzulinguruka** ibili gabe: zure senarrak joera homosexualak ditu. Haren menera heltzean, aberea gelditu zen eta jantziak usnatu zizkion, haren oinetan itzul- **inguruka** zebilela, beti zaunkaka. Migel Angel Mintegi

Beti **itzulinguruka** erantzuten zioten. Harkaitz Cano

Aitak ez baitzuen gehiago holako solasik atera edo bertzenaz, zinez itzul- **inguruka** eta Sophie ez gaitzitzeko hartzen zuen zuhurtasun guziarekin. Eneko Bidegain

Hurrengo, **itzulinguruka** zebilkion beste kontua ekarri zuen hizpidera Bain andreak. Mirentxu Larrañaga

**4 *itzulingurukako*** *izlag*

Porrota dute zigor testua bera baino luzeagoak diren **itzulingurukako** ahaleginek. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **itzulinguruka hasi** (3); **itzulinguruka ibili** (13)

---

## itzulingurutsu *izond* itzulinguruz betea.

Nazismoaren gaitzespen modu hura herabe eta **itzulingurutsua** zen, baina ez zuen zuribiderik bilatu. Juan Garzia

---

## itzuliño *(orobat **itzulino**)* *iz* itzulitxoa.

Soldaduek beren **itzuliñoa** bururaturik, iheslariek bidea libre zuten aitzina segitzeko. Eneko Bidegain

Argitasun zenbait parke hortarat **itzuliño** bat egin nahi dutenentzat. Herria

Ez zenuke nahi nik ere **itzuliño** bat egin baneza zure herrirat? Janbattitt Dirassar

Jakes handiak artetan **itzuliño** batzu egiten ditu Frantzian gaindi, batean hunat eta bestean harat. Herria

Zinez balioko du **itzuliño** bat egitea. Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **du itzuliño** (3); **gaindi itzuliño** (3); **itzuliño bat** (38); **itzuliño bat egin** (15); **itzuliño bat egiten** (3); **itzuliño baten** (12); **itzuliño baten egitea** (4); **itzuliño baten egiteko** (4)

---

## itzulipurdi **1** *iz* hankaz gorako itzulia. ik **zilipurdi**.

Hura saihesteko jotzaileak **itzulipurdi** bat egin behar izan zuen airean. Iñaki Mendiguren

**Itzulipurdiak** eta agoniazko murgilak egiten ikusteak. Josu Zabaleta

Hango bidaztien **itzulipurdiak** eta erorikoak! Karlos Zabala

Batek buruz behera eta **itzulipurdiak** eginez airean, beste batek tripa plastada galanta joko zuen uraren kontra. Joseba Sarrionandia

Airean **itzulipurdiak** egiten baditu ere. Berria - Euskal Herria

Bizpahiru **itzulipurdi** eginik, azkenean ikasi zuen kurri ibiltzen. Daniel Landart

Halako batean Berndek Émileri eskutik heldu nahi, hura baitzihoan lehenengo, eta **itzulipurdi** egin eta dena, eskailerak, Bernd eta Émile, denak hankaz gora zulo barrenera! Josu Zabaleta

**2** *irud*

Apostuetako dirua 100-50i irten zen Koteto ezkurraren alde, diruak **itzulipurdi** ugari izan zituen partida guztian.

Oso urte gutxi beharko dira egoera honek **itzulipurdia** eman dezan: 27 baino besterik ez. Pako Aristi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**itzulipurdi bat** (5); **itzulipurdi bat egin** (4); **itzulipurdi egin** (3); **itzulipurdiak eta** (3)

---

# itzulipurdika 1 *adlag* itzulipurdiak eginez.ik **zilipurdika.**

Erreka zolaraino eraman zuen bere laguna, errestan, **itzulipurdika** . Michel Oronoz

Jira eta bira ibili zen, kiribilean, sigi-saga, **itzulipurdika** . Iñaki Mendiguren

Krater sakon batean murgil egin dugu, eta **itzulipurdika** zeharkatu dugu izotza, zalaparta bizian, hondo urtsuraino. Mirentxu Larrañaga

Basurdeak Adonis harrapatu eta **itzulipurdika** bota zuenean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Konortea galdu ez galdu bainengoen, eskaileretan behera **itzulipurdika** erori ez erori. Juan Kruz Igerabide

Muturreko bat eman eta eskaileretan behera **itzulipurdika** joango zen. Josu Zabaleta

Eza nagusituz, Europaren karroa **itzulipurdika** joanen dela erreka ilun baten zola-zolarat eta handik ateratzeko gero ederrak ikusiko direla! Herria

Hontza oso txikia zen, eta airean **itzulipurdika** zebilen, trenaren ziztuak hara eta hona astintzen baitzuen. Iñaki Mendiguren

**Itzulipurdika** ibili dira, jirabiran, elkarri ukabilka eta madarikazioka. Mirentxu Larrañaga

Bizitza hari-matazarekin nahasturik **itzulipurdika** ibiltzen den katu bihurria da batzuetan. Pako Aristi

• **2** *iz* itzulipurdia.

Angelinak puntuatu zuenean, Harryk **itzulipurdika** batzuk egin zituen bere sentimenduak adierazteko. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**eta itzulipurdika** (3)

---

# itzulipurdikatu, itzulipurdika(tu), itzulipurdikatzen *(orobat **itzul ipurdikatu** g.er.)* **1** da *ad* itzulipurdiak egin. ik **zilipurdikatu.**

Ahate zaharra aldi oroz **itzulipurdikatzen** zen. Piarres Aintziart

• **2** du *ad* azpikoz gora jarri, gainazpikatu.

Bortz minutu geroago, fitsik erosi eta probatu gabe alde egin zuten, arropa-denda guztia **itzulipurdikatu** ondotik. Aingeru Epaltza

Hark bi lanak uztartzen ditik, seme-alabak munduratzea eta mundua **itzulipurdikatzea** . Aingeru Epaltza

Atzeraka egin zuen batean, neskari adatsa ur jauzi baten gisara erori zitzaion eta, haren aurpegia ikusterik izan ez bazuen ere, ile parrasta hark liluratu egin zuen Bruno, bere zentzumenak **itzulipurdikatu** . Programa osoa **itzul** ipurdikatua. Patxi Zubizarreta

Azken aldi bat atakatzera abiatzen dira eta aitzin hortan bezala **itzulipurdikatzen** ditugu, segitzen eta 500 preso egiten, gu ginen baino gehiago! Michel Oronoz

Bi orri **itzulipurdikatu** nituen ordu erdian. Aingeru Epaltza

Hantxe aldatu da **-itzulipurdikatu,** esango nuke- nik bidaia honetaz nuen irudipena. Patxi Zubizarreta

Dena hankaz gora **itzulipurdikatzen** Pello Zabala

**3** *irud*

Horrek guztiak **itzulipurdikatu** egiten ditu ohorearen ideiak, moralarenak eta erlijioarenak. Iñaki Iñurrieta

Pedroren bat-bateko heriotzak **itzulipurdikatu** zion patua. Aingeru Epaltza

Usain onak, izerdiak eta jatekoen baporeak nahasten ziren, Edmearen burua **itzulipurdikatuz** . Itxaro Borda

Egoeraren logika **itzulipurdikatuz** . Jon Alonso

**4** (era burutua izenondo gisa)

Kontziente zen bere sentimendu **itzulipurdikatuez,** edo bere izatearen gabezia hartaz. Patxi Zubizarreta

Alabainan, mahain gainean ditugun elikagaiek hain dituzte gostu **itzulipurdikatuak,** beren kolorante eta guziekin! Herria

---

# itzulipurdikatze *iz* azpikoz gora jartzea.

Peio Iralour-ek bere aldetik ikertu ditu etxalde batek azken 40 urte hauetan ezagutu diruen **itzulipurdikatze** handiak, ardurenean txarrerenako. Herria

**Adierazpenaren** itzulipurdikatze honek ez dakar Rousseauren ikuskeraren beste muturrerantz jotzea. Berria - Kultura

---

# itzulitto *iz* itzulitxoa.

Baina ene **itzulittoa** alferretan izan zen... Janbattitt Dirassar

---

# itzulitxo *iz* itzuli txikia.

Parisainoko **itzulitxoak** . Txillardegi

-Gregoire, egingo dugu **itzulitxo** bat Leonlandiara. Jesus Mari Mendizabal

6etan Oñatin **itzulitxo** bat, hiriaren ezagutzeko. Herria

---

# itzulixka *iz* itzulitxoa.

Montevideon **itzulixka** bat egin orduko afaltzeko tenorea baita, juaiten gira denak elgarrekin jatetxe batetarat. Herria

---

# itzulkari ik **itzulikari.**

---

# itzulketa 1 *iz* jaso edo hartu dena itzultzea.

Eztabaidak haiekin batera atzemandako material militarraren **itzulketaren** ingurukoak ziren. Berria - Mundua

Goiz-goizetik hasi eta ondo berandu arte, buru-belarri emanik egoten zen: bezeroak, hornitzaileak, eskaerak, salmenta, sailkapena, kontuak, **itzulketak** . Jon Muñoz

EBk urte bateko epea eman zion dirulaguntzen **itzulketa** osatzeko eta epe hori gaur amaitu da. Berria - Ekonomia

PFEZaren 529.321 aitorpen espero ditu Aldundiak, 431.111 **itzulketa** . Berria - Ekonomia

800 eta 1.100 milioien artean ibiliko da itzuli beharreko dirutza, Batzordeak inoiz behartutako **itzulketa** handienetako bat. Berria - Ekonomia

Hau **itzulketa** sinbolikoa besterik ez duk. Agustin Otsoa

**2** (hitz elkartuetan)

Gordailu interesak, akzio eta dibidenduak, kapital **itzulketak,** finantza aukerak, inbertsio funtsak, pentsio funtsak. Berria - Ekonomia

Lehenbiziko egunetako itzulketarako, diru **itzulketarako** alegia, baneukan nahikoa nire kontu korrontean. Xabier Olarra

---

## itzulkizun *iz* itzulgaia.

Hartzen dugu **itzulkizun** edo jatorrizko testu bat (A): *Behi euskaldun baten memoriak*; eta ondoren haren ustezko, eta izatezko, itzulpena (B): *Memorias de una vaca*. Iñaki Segurola

---

## itzulkor *izond* norabait edo zerbaitetara itzultzeko joera duena.

Baldintzen aldetiko ilara baten sintesiari, hots, agerpen jakinaren baldintza hurbilenetik urrunenera doanari, **itzulkorra** deitu nahi diot, baldintzatuaren aldetikoari, berriz, ondorio hurbilenetik urrunenera doanari, sintesi aurrerakorra. Ibon Uribarri

Espazioari dagokionez, bertan ez dago bere baitan aurrerakorraren eta **itzulkorraren** arteko ezberdintasunik, zeren berak agregatu bat osatzen baitu. Ibon Uribarri

Ideia kosmologikoek, beraz, sintesi **itzulkorraren** totalitateaz jarduten dute. Ibon Uribarri

Baldintzen ilara sintesi **itzulkorrean** bertan aurkitzen da. Ibon Uribarri

Badituk elementu batzuk pertsona batzuen bizitzan **itzulkor** eta galgarriak; musika, konparazio batera. Xabier Olarra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> sintesi itzulkorraren (3)

---

## itzulkorki *adlag* era itzulkorrean.

Agerpenen arteko hartueman errealen kategoriei dagokienez, substantziaren kategoria bere akzidenteekin batera ez da egokia gertatzen ideia transzendental bateko, h. d., arrazoimenak ez du oinarririk beraiei dagokienez **itzulkorki** baldintzetara joateko. Ibon Uribarri

---

## itzulmin *iz* inorabait itzultzeko mina.

Baina gure arbasoek ez zuten haren esanik egin nahi izan; aitzitik, baztertu egin zuten eta, Egiptora **itzulminez** [...]. Elizen arteko biblia

"Ez dira jada nire ardiak", esan zion bere buruari, **itzulminik** sentitu gabe. Xabier Aranburu

---

## itzulpen 1 *iz* hizkuntza batetik beste batera itzultzea.

**Itzulpen** batek itzultzailearen garaira ekartzen du testua. Anjel Lertxundi

**Itzulpen** okerrak, *el pols,* hots, pultsua, *la pols* bihurtu du, hautsa. Iñigo Aranbarri

Fitzgerald taldekideak egin zizkion ariketen azalpenen **itzulpenak**. Berria - Kirola

Urtero honelako hiru edo lau **itzulpen** argitaratzea. Berria - Kultura

Dr. G. F. Savage-Armstrong-ek (London 1907, Bell) ingelesera egindako **itzulpenetik** euskaratua. Iñaki Mendiguren

Idazmahaian zegoen Hauptmann-en Michael Krameren **itzulpen** baten eskuizkribua ere. Irene Aldasoro

Euskarazko testuen **itzulpen** diren lau liburu argitaratu berri ditu Alga argitaletxeak. Berria - Kultura

**Itzulpen** hau 1766an argitaratu zen 5. edizioarena da. Juan Martin Elexpuru

Mikel Lasak Rimbauden *Denboraldi bat infernuan* **itzulpenari** egin zion hitzaurretik hartutako hitzak dira. Anjel Lertxundi

Testamentu Berriaren **itzulpenaren** amaieran. Koldo Zuazo

Kritikak behin betikotzat hartzen duen argitalpen hau hartu dugu guk ere, **itzulpen** honetarako oinarri gisa, jatorrizko testuari albait hurbiletik lotuz. Josu Zabaleta

Horren arabera, *moenia* terminoaren **itzulpena** hobeto lotzen zaio beti 'barru harresitu' gisako esamolde bati. Santiago Iruretagoiena

Gure zibilizazioa, neurri handi batean, **itzulpenean** oinarritua dago. Anjel Lertxundi

Gozatu gehiago ematen du jatorrizkoak, ez du **itzulpeneko** hizkeraren bereizitasunik. Anjel Lertxundi

Nik, Itakatik itzulian bainentorren, dibisa bat jarri nuen etxeko atean: **itzulpena** itzulera da. Anjel Lertxundi

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Itzulpen** literal barregarri hauek ezjakintasuna adierazten dute: [...]. Iñaki Arranz

*altavista.com* bilatzailearen **itzulpen** automatikoko sistemak Babel Fish izena du. Berria - Gaiak

Gaztelaniaren **itzulpen** itsu dira euskarazko literaturan erabili izan diren *ozen* eta *gor* terminoak. Lourdes Oñederra

Frantses **itzulpen** negargarri batetik. Juan Garzia

**Itzulpen** kaxkar hori baino ez zuen irakurri. Juan Garzia

Hona gutxi gorabeherako **itzulpen** egokituan. Lourdes Oñederra

Gaur-gaurko **itzulpen** askok gozatu gehiago ematen dit niri, jatorriz euskaraz idatzitako gaur-gaurko zenbaitek baino. Anjel Lertxundi

Niccoló Tartagliaren italierazko **itzulpen** bat, 1543an Venezian argitaratua. Jon Muñoz

Euskarazko filma hauek badute frantses **itzulpen** bat. Herria

**Itzulpena** taxuz egitekotan. Lopez de Arana

Gainera, ingelesetiko **itzulpenak** egiten zituen. Fernando Rey

Aramera ikasi zuen, Bibliaren jatorrizko bertsiotik egiteko euskararako **itzulpena**. Berria - Harian

**3** *hed*

Proportzio maskulino idealen **itzulpen** aritmetikoa da doriarra, "emakumearen lerdentasun eta xumetasunarena" joniarra, eta "neskato baten xumetasunarena" korintoarra. Santiago Iruretagoiena

Enuntziatuen arloa ez dela deskribatu behar beste inon (gizakien pentsamenduan, konstituzio transzendentalen eremuan) garatzen diren eragiketen edo prozesuen **"itzulpen"** gisara. Xabier Arregi

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Behar-beharrezkoa dugu **itzulpen**-politika bat, hiru alorretan bereziki. Anjel Lertxundi

**Itzulpen** lana izan delako tradizioaren eta hizkuntza-ren arteko osmosiaren eragile nagusi. Bernardo Atxaga

Axularren *Gero* euskara batuan jarriko bagenu bezalako zerbait egiten du **itzulpen**-lan batek. Anjel Lertxundi

**Itzulpen** saria Anton Garikanok jaso du. Berria - Kultura

**Itzulpen** zerbitzua muntatu zuten. Iñaki Iñurrieta

**Itzulpen** -teknologien balio estrategikoa. Berria - Kultura

Bapateko **itzulpen** zerbitzua segurtatua izanen da, euskaratik frantseserat eta frantsesetik euskararat. Herria

Tarazonako **itzulpen** mintegiari amaiera emateko. Berria - Kultura

Orixeren *Aitorkizunak* dut gogoan: agian ez da, testuarekiko leialtasunari dagokionez, **itzulpen** -eredu izango [...] baina prosazko jarioaren eredu bikaina aurkituko dugu guztiok ere orri horietan. Anjel Lertxundi

Hiztun elebidunon **itzulpen** -gaitasunak. Lourdes Oñederra

**Itzulpen** premiak asko garatuko zirela hurrengo urteetan. Iñaki Iñurrieta

**Itzulpen** ariketa gisa. Juan Garzia

**Itzulpen** saioetako aurkikuntzak. Iñaki Iñurrieta

**Itzulpen** agentzia horrekin. Iñaki Iñurrieta

Euskarazko "Literatura Unibertsala" deritzan **itzulpen** bilduma. Koldo Biguri

Elkar argitaletxeak eta Arrasateko AED elkarteak eratutako Jokin **Zaitegi** itzulpen lehiaketa. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Euskarazko literatur **itzulpen** gehienak gaztelaniatik egin ohi dira.ç Berria - Kultura

**6** *aldi bereko itzulpen* ik **aldibereko itzulpen**.

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aldi bereko itzulpen** (4); **bat bateko itzulpen** (3); **bateko itzulpen** (3); **bereko itzulpen** (4); **bereko itzulpen zerbitzua** (3); **beste itzulpen** (8); **beste itzulpen bat** (5); **bi itzulpen** (4); **da itzulpen** (10); **du itzulpen** (7); **du itzulpen lan** (3); **egindako itzulpen** (4); **eta itzulpen** (15); **euskarazko itzulpen** (16); **euskarazko itzulpen berria** (3); **eusko legebiltzarreko itzulpen** (3); **ez da itzulpen** (3); **frantses itzulpen** (3); **haren itzulpen** (5); **irekiko itzulpen** (3)

**itzulpen asko** (4); **itzulpen automatikoa** (4); **itzulpen automatikoko** (4); **itzulpen automatikoko sistema** (3); **itzulpen automatikorako** (5); **itzulpen automatikorako sistema** (3); **itzulpen bat** (13); **itzulpen bat egin** (4); **itzulpen batek** (3); **itzulpen baten** (8); **itzulpen batzuk** (4); **itzulpen batzuk ere** (3); **itzulpen berria** (6); **itzulpen egin** (3); **itzulpen eta** (8); **itzulpen eta guzti** (3); **itzulpen gehienak** (4); **itzulpen hau** (8); **itzulpen honek** (3); **itzulpen honen** (6); **itzulpen honetan** (6); **itzulpen hori** (7); **itzulpen horiek** (6); **itzulpen horrek** (4); **itzulpen lan** (10); **itzulpen lana** (9); **itzulpen lanak** (7); **itzulpen lanak eta** (3); **itzulpen lanetan** (6); **itzulpen lehiaketa** (3); **itzulpen oker** (3); **itzulpen okerrak** (4); **itzulpen sistema** (4); **itzulpen zerbitzua** (11); **itzulpen zerbitzuko** (5); **itzulpen zuzena** (3)

**jokin zaitegi itzulpen** (3); **kode irekiko itzulpen** (3); **lau itzulpen** (3); **legearen itzulpen** (3); **legebiltzarreko itzulpen** (4); **legebiltzarreko itzulpen zerbitzuko** (3); **obraren itzulpen** (5); **ren itzulpen** (5); **zaitegi itzulpen** (3); **zuen itzulpen** (3)

**aldi bereko itzulpena** (5); **bat bateko itzulpena** (3); **bateko itzulpena** (3); **baten itzulpena** (7); **bere itzulpena** (4); **bereko itzulpena** (5); **da itzulpena** (10); **den itzulpena** (4); **du itzulpena** (10); **dut itzulpena** (4); **dute itzulpena** (3); **egin du itzulpena** (7); **egindako itzulpena** (5); **eta itzulpena** (14); **euskal itzulpena** (3); **euskarazko itzulpena** (24); **frantses itzulpena** (4); **frantsesezko itzulpena** (5); **gaztelaniazko itzulpena** (21); **gaztelerazko itzulpena** (3); **haren itzulpena** (3); **honen itzulpena** (5); **honen itzulpena eusko** (4); **itzulpena argitaratu** (3); **itzulpena baino** (3); **itzulpena bera** (6); **itzulpena da** (10); **itzulpena dela** (3); **itzulpena egin** (16); **itzulpena egin zuen** (3); **itzulpena egitean** (3); **itzulpena egiteko** (3); **itzulpena egiten** (3); **itzulpena eman** (5); **itzulpena ere** (8); **itzulpena eta** (4); **itzulpena eusko** (4); **itzulpena eusko jaurlaritzako** (4); **itzulpena ez** (8); **itzulpena ez da** (3); **itzulpena itzulera** (3); **itzulpena kaleratu** (4); **lanaren itzulpena** (3); **lehenengo itzulpena** (3); **liburu honen itzulpena** (4); **liburuaren itzulpena** (5); **ren itzulpena** (5); **testuaren itzulpena** (4)

**bere itzulpenean** (3); **egindako itzulpenak** (3); **egindako itzulpenean** (5); **egindako itzulpenetik** (12); **egindako itzulpenetik euskaratua** (12); **ere itzulpenak** (3); **eta gaztelaniazko itzulpenak** (3); **eta itzulpenak** (4); **eta itzulpenen** (3); **euskarazko itzulpenak** (12); **frantsesezko itzulpenaren** (4); **gaztelaniazko itzulpenak** (9); **gaztelaniazko itzulpenen** (3); **ingelesera egindako itzulpenetik** (12); **itzulpenak dira** (4); **itzulpenak egin** (7); **itzulpenak egin behar** (3); **itzulpenak egiteko** (3); **itzulpenak egiten** (5); **itzulpenak ere** (7); **itzulpenak eta** (9); **itzulpenak ez** (3); **itzulpenaren egilea** (4); **itzulpenari buruzko** (4); **itzulpenari esker** (6); **itzulpenean ere** (6); **itzulpenei esker** (3); **itzulpenen bat** (3); **itzulpenen bidez** (5); **itzulpenetik euskaratua** (12); **itzulpenez gain** (3), euskarazko itzulpenik (4); **itzulpenik ez** (3); **itzulpenik gabe** (5); **lanen itzulpenak** (3)

---

# itzulpengintza

**1** *iz* itzulpenak egitea.

Pelikulen bikoizketa gauza berria da euskaraz, eta liburuen **itzulpengintza** ere (sistema bezala, jakina) orain dela gutxiko kontua. Julen Gabiria

Poesia, narratiba, saiakera, haur eta gazte literatura eta **itzulpengintza** landu ditu batik bat. Koldo Izagirre

*Senez* euskal **itzulpengintzaren** modernizazioarekin batera etorri da. Berria - Kultura

**Itzulpengintza,** bikoizketa, sinkronizazio ostea eta azpitituluen erabilera sustatu. Berria - Kultura

Euskarazko **itzulpengintzak** azken urte guztiotan egindako bide benetan joria. Berria - Euskal Herria

Kultura guztiek izaten dute **itzulpengintzaren** premia. Berria - Euskal Herria

Luis Angeli piztu zitzaion ideia: **itzulpengintzan** zuten irtenbidea. Iñaki Iñurrieta

Mahai zabal baten inguruan jarrita daude besteak, hiztegi artean, **itzulpengintzan**. Iñaki Iñurrieta

**Itzulpengintzan,** Castelao, Uxio Novoneira, Vladimir Maiakovski, Joan Salvat-Papasseit, Merimée edota Victor Hugo euskaratu ditu. Koldo Izagirre

Azken urteotan literatur eta ikus-entzunezkoen **itzulpengintzan,** zineman eta literaturan izan diren aurrerapenak. Berria - Kultura

Euskal filologian, **itzulpengintzan** eta interpretaritzan lizentziatua da Errasti. Berria - Kultura

**Itzulpengintzako** Grinzane Cavour saria, berriz, Hado Lyriarentzat izan da aurten. Berria - Kultura

EIZIEk **itzulpengintzarako** azpiegitura bat sortzea lortu du urte hauetan. Berria - Kultura

Ez dago, ordea, **itzulpengintzaren** ezintasunaz izan diren muturreko hain iritzi ezkorretara jo beharrik onartzeko ezin direla jatorrizko oihartzunak ehuneko ehunean jaso. Anjel Lertxundi

Irizpideetan eta norabideetan adostutako **itzulpengintzak** [...] erakutsiko liguke polimeroei buruzko azken berrikuntza itzultzea baino eragingarriagoa dela kimikaren alde desberdinei buruzko esku-liburu onenak itzultzea. Anjel Lertxundi

**Itzulpengintzako** Euskadi sariaren irabazlea. Berria - Kultura

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

EHUko Filologia Fakultateko Ingeles, Aleman Filologia eta **Itzulpengintza** eta Interpretazio Sailak. Berria - Kultura

**Itzulpengintza** lizentziaturako 1. mailako Ziortza Aiensa. Berria - Harian

**Itzulpengintza** tailerrak arabieraz, euskaraz, ingelesez, alemanez, gaztelaniaz, frantsesez eta italieraz eskainiko dituzte. Berria - Kultura

Victor Hugoren *Idi orgaren karranka* liburuarekin **itzulpengintza** arloko finalera heldu zen Izagirre. Berria - Kultura

East Angliako **itzulpengintza** jardunaldietan. Berria - Kultura

Hango poesia jaialdian poesia eta **itzulpengintza** mintegian izango da. Berria - Kultura

*Senez* **itzulpengintza** aldizkariaren 26. aleak. Berria - Kultura

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Literatur **itzulpengintzari** berriro lotzeko gogo faltarik ez du Aranak. Berria - Kultura

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eta itzulpengintza** (5); **euskal itzulpengintzaren** (3); **itzulpengintza arloko** (4); **itzulpengintza eta** (3); **itzulpengintzan eta** (3)

---

# itzultzaile

*(orobat* ***itzultzale*** *g.er.)* **1** *iz* itzulpengintzan aritzen den pertsona.

Demagun gaztelaniazko **itzultzaile** bat, Valverderenari desegokia iritzita, Hamlet berriro itzultzen hasten dela. Anjel Lertxundi

Nire andregaia ingeleseko **itzultzailea** da eta etxean egiten du lan. Juan Martin Elexpuru

Vazquez Montalbanen liburuen italierazko **itzultzailea** da Lyria. Berria - Kultura

Euskal idazlea, bertzeak bertze Testamentu Berriaren **itzultzailea** . Aingeru Epaltza

Aurrekontu ofizialen **itzultzailea** baino gehiago asper zaitezke. Markos Zapiain

Itzulpen batek **itzultzailearen** garaira ekartzen du testua. Anjel Lertxundi

Gaztelaniazko **itzultzaileak** bere alde zituen tradizioa, hizkuntzaren normalkuntza eta nahi den guztia, baina Irene Aldasorok, euskal **itzultzaile** askok bezala, euskarazkoak motelagoa behar lukeela dioen logika hautsi du. Anjel Lertxundi

**Itzultzaileen** sortzaile-lana ahanzten da itzulpenez ari garen guztietan. Anjel Lertxundi

**Itzultzaileak** errusierazko argitalpenetik harturiko oharra. Jose Morales

Fernando Rey **itzultzaileak** euskaraturiko *Gure etxeko kontuak* liburuan. Berria - Kultura

Herri oso bat **itzultzaile** bihurtzeak baditu bere arriskuak, ongi agerikoak gainera. Anjel Lertxundi

Aristoteles: *Kategoriak,* Donostia, *Gaiak,* 2000; **itzultzailea:** Gotzon Arrizabalaga. Askoren artean

**-Itzultzaile** bat eskatzen dut, jauna. Koldo Izagirre

**Itzultzaileekin** egindako epaiketak legezkoak diren galdetu dute. Berria - Euskal Herria

Epaiketa euskara hutsean eta **itzultzaile** gabe egiteko eskaera. Berria - Euskal Herria

Katharine Gun Londresko Gobernuaren **itzultzaile** ohiaren aurkako epaiketarik ez da izango azkenean. Berria - Mundua

EIZIE Euskal **Itzultzaile,** Zuzentzaile eta Interpreteen elkarteak eta IZO **Itzultzaile** Zerbitzu Ofizialak antolatuta.

**2** (adizlagun gisa)

**Itzultzaile** ibili zen: Breton, Eluard eta Crevelen lanak itzuli zituen. Berria - Kultura

Filologia Frantsesa ikasi du, baina **itzultzaile** jarduteko beste bi urteko master bat egin beharko luke Vilniusen. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Anoush farmazialariak egin du **itzultzaile** lana. Jon Arretxe

**Itzultzaile** lanetan diharduelako. Edorta Jimenez

Andres bere **itzultzaile**-lanbide berria ongi betetzeko prest zegoen. Josu Zabaleta

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak eta EIZIE **itzultzaile** elkarteak ere jasoko dituzte diru laguntzak. Berria - Kultura

Jakintzaren Etxeko **itzultzaile** taldea zen hango aberastasunik handiena. Jon Muñoz

Horrelako aldizkariak unibertsitateei eta **itzultzaile** eskolei lotuak egoten dira. Berria - Kultura

Neure **itzultzaile**-halabeharrek eragindako paranoiatxo hola-halako batek baino zerbait funtsezkoagoak. **Itzultzaile** bidezko epaiketek hizkuntz eskubideak urratzen dituzten ala ez argitzeko asmoz. Juan Garzia

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina hausnarketa hori ez da literatura **itzultzaile** batena, ezpada idazle izan nahi duen batena. Berria - Kultura

**5** itzulpenak egiten dituen tresna.

Zerbitzu plataforma bat izango da: posta elektronikoa, Interneteko guneen **itzultzaile** bat, weblog bat, txosten bereziak PDF formatuan... Berria - Gaiak

Noiz lortuko ote da izurdeen hizkuntzaren **itzultzailea**? oso aspaldian, Kanariar Uharteetan guantxeek izurdeekin txistuka hitz egiten bazuten, zergatik ez lortu gaur egun gailuen bidezko harremana gizakien eta izurdeen artean? Berria - Gaiak

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**aguer itzultzaile** (7); **baina itzultzaile** (4); **bat itzultzaile** (3); **du itzultzaile** (3); **eizie euskal itzultzaile** (6); **eta itzultzaile** (22); **eta itzultzaile gabe** (11); **euskal itzultzaile** (17); **euskaraz eta itzultzaile** (12); **hermine aguer itzultzaile** (7); **idazle eta itzultzaile** (3); **itzultzaile askok** (3); **itzultzaile bat** (13); **itzultzaile batekin** (3); **itzultzaile baten** (5); **itzultzaile eta** (12); **itzultzaile gabe** (13); **itzultzaile gabe deklaratu** (5); **itzultzaile gabe egin** (4); **itzultzaile gisa** (8); **itzultzaile izan** (5); **itzultzaile lana** (7); **itzultzaile lanak** (5); **itzultzaile lanak egiten** (3); **itzultzaile lanetan** (6); **sailak euskal itzultzaile** (4)

**bere itzultzailea** (3); **bereziartu itzultzailea** (3); **dira itzultzaileak** (3); **du itzultzailea** (4); **du itzultzaileak** (8); **eta bere itzultzailea** (3); **eta itzultzailea** (9); **eta itzultzaileak** (18); **eta itzultzailearen** (6); **eta itzultzaileari** (4); **eta itzultzaileek** (3); **eta itzultzaileen** (3); **eta itzultzailerik** (5); **eta itzultzailerik gabe** (5); **euskal itzultzaileak** (3); **euskaraz eta itzultzailerik** (5); **euskarazko itzultzailea** (6); **idazle eta itzultzaileak** (6); **idazlea eta itzultzailea** (3); **itzultzailea da** (5); **itzultzailea ere** (5); **itzultzailea eta** (6); **itzultzaileak berak** (4); **itzultzaileak bere** (4); **itzultzaileak errusierazko** (18); **itzultzaileak errusierazko argitalpenetik** (18); **itzultzaileak ez** (6); **itzultzailearen arabera** (5); **itzultzailearen lana** (3); **itzultzailearen oharra** (15); **itzultzailearen ustez** (3); **itzultzaileari egindako** (3); **itzultzaileen artean** (6); **itzultzailerik ez** (5); **itzultzailerik gabe** (10); **itzultzailerik gabe deklaratu** (3); **itzultzailerik gabe eta** (3); **mendiguren bereziartu itzultzailea** (3); **nire itzultzailea** (3); **tarazonako itzultzailearen** (4); **zuen itzultzaileak** (3)

---

**itzultze** 1 *iz* lehenagoko tokira edo egoerara bihurtzea. ik **itzulera.**

Etorkizun itxaropentsua edo iraganera **itzultze** etsigarri bat... Oskar Arana

Estatu ez diren autogobernuak ez dira "tribalismo"ra **itzultze** bat, "forma politiko berrien aitzindari" baizik. Joseba Zulaika

**Itzultze** amaigabea. Karlos Linazasoro

Eta errealitatera **itzultze** horrek, halako arbuio ezkutua piztu zuen nigan. Txillardegi

Egunari buruz, Sabethen etxera **itzultze**-eguna izaki, hitzik ere ez. Joxe Austin Arrieta

**2** biratzea.

Eta, buru-**itzultze** baten bitartean, ikusi zuenean ezen indiar gorriak lurrerat egin zuela, irri-karkaraka hasi zen hain haserre zirudiena, bere doilorkeriaz loriaturik-edo. Joan Mari Irigoien

**3** norbaiti hartu edo kendu zaiona bihurtzea; ik **itzulketa.**

Besteenak diren ontasunak ez dira itzuli behar hortik kalte handiagoak aterako balira, horra zergatik ez diren errazegi Erregeak kondenatu behar, besteen ontasunak, berenak ez direla jakinik ere, atxikitzen dituztelarik, sinesten dutelako menturaz **itzultze** horrek kalte handiegiak sor litzakeela beren erreinuetan. Piarres Xarriton

**Itzultze** prozesuaren negoziaketak hasi zirelarik, erran gabe doa txinatarrek Hong Kong osatzen duten hiru eskualde horiek eskatu zituztela. Ramuntxo Etxeberri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**itzultze horrek** (5)

---

**itzungi,** itzungitzen da/du *ad* itzali. ik **iraungi.**

Gure urdailean pilatzen eta hura sutzen duten bero-gorputz ugariak ere, ura etorkeran, ezabatu eta sua bezala **itzungitzen** dira. Xabier Amuriza

Gorputzeko garra **itzungi**. Xabier Amuriza

Honelaxe **itzungitzen** da egarri bizia gure gorputzean. Xabier Amuriza

Zeruko eguzki distiratsua **itzungi** gura dutenek. Xabier Amuriza

Kriseilu **itzungi** berriak. Xabier Amuriza

---

**itzurarazi,** itzuraraz, itzurarazten du *ad* itzurtzera behartu.

Hark **itzurarazi** naik hire bihozberatasunetik, haren justiziari min emanen ziolakoan. Jon Muñoz

Zure sufrimenduak eta beste gizonenak ez dizkizu matematikak **itzuraraziko**. Jon Muñoz

---

# itzurbide *(orobat **itzurpide** g.er.)* *iz* ihesbidea.

Nik ez diat **itzurbiderik,** zeren eta hegaldatu egin nahi bainuke, bai, baina ez zekiat norat. Joan Mari Irigoien

Ez uste nire hutsegitea barkatzeko edo gutxitzeko **itzurbide** baten bila ari naizenik; erruduna naizela aitortzen dut. Jon Muñoz

Alde eta bazter guztietarik atzemanik eta katez loturik, ihesbiderik eta **itzurpiderik** gabe. Joan Mari Irigoien

Baiespen bakoitza sendotzeko, hortik heldu diren zalantzak argitzeko eta egiten zaien gezurtapenaren nabarmentasuna saihesteko ere, liburuak izkiriatu eta eztabaidak egiteko premian aurkitzen dira, bestelako **itzurbiderik** ez bada. Xabier Kintana

---

# itzuri *(orobat **izuri** g.er.)*, itzur, itzurtzen **1** da *ad* norbaiten edo zerbaiten eskuetatik edo mendetik ihes egin. ik **eskapatu**.

-Mugimendu zakar bat egin, eta eskuetatik **itzuri** zitzaion animatzaileari mikroa. Jon Muñoz

Beso artetik **itzuri** zitzaidan. Jon Muñoz

Eta denbora hatzen artean ihes egiten sentitzen nuen, gorputzetik **itzurtzen** minutuz minutu, odoluste jadanik geldiezin bat bezala. Juan Garzia

Baina behar zutela bipilki zin egin elizgizonak zirela, erregearen jendeari **itzuri** eta Elizaren justizia erreklamatzearren. Juan Garzia

Behin perla beltza norberaren eskuetan eduki eta gero ezin zaiola **itzuri** patuari. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezin zitzaion **itzuri** harri eta argizko ziklope hari. Alberto Ladron Arana

Ba al da gauzarik nire pentsamenduari **itzurtzen** zaionik? Jon Muñoz

Erantzun automatikoak, gehientsuenak gure nahimenari **itzurtzen** zaizkionak, erreflexuak, alegia, Nola **itzuriko** natzaio Jainkoaren aurpegiari? Joxe Austin Arrieta

Objektu sentikor asko **itzuri** egiten zaizkie. Xabier Kintana

-O, bai! **-itzuri** zitzaion Léari. Jon Muñoz

Hasperen sakon bat **itzuri** zait. Txillardegi

Zergatik begiratzen didazu horrela? -egin zuen oihu neskak, zakar, eta birao gordin bat **itzuri** zitzaion ezustean. Jose Morales

Ea, ez al zaizu irribarretxorik **itzuriko**? Mirentxu Larrañaga

Ruche jauna ezin izan zitzaion pentsakizun horri **itzuri**. Jon Muñoz

Haren mintzoari nahigabe **itzuri** zaion hunkidura. Jon Muñoz

Lau osaba, hiru izeba eta hamasei lehengusuren begi-luzeei ezin **itzuriz** ibiltzea. Aingeru Epaltza

Sexismoari **itzuri** ezinik. Iñigo Aranbarri

Hala, bada, ezin **itzuri** nolabaiteko kezka horri. Xabier Mendiguren Elizegi

Errotuladore horiz markatuak nituen bart **itzuri** zitzaizkidan xehetasunak. Aingeru Epaltza

Ordurako haiek jabetuta baitzeuden niri **itzuri** zitzaidan gauza batez: ja ez ginela gizaki libreak. Karlos Linazasoro

Beldurtu eta Miamira **itzuri** zen iloba. Gotzon Garate

Familiako besteren bat atzeko irteera zaintzen gelditzen da, sugea handik **itzur** ez dadin. Gotzon Garate

Alemanak hurbiltzearekin, 1940an, frantsesen eskuetarik **itzuri** zen judua zelakotz. Piarres Xarriton

Gela hartatik, eta etxe hartatik, ikaraz **itzuri** nintzen. Koro Navarro

Arrain-saltzaile baten saskitik **itzuri** zen karramarro bat. Joan Mari Irigoien

Burbuila bat bezala **itzuri** zen harengandik bizia. Juan Garzia

Guk ere badakigu gauzek nola behar duten izan gaur (nahiz eta, barrendik, beti lehengora **itzurtzen** zaigun gogoa eder bila). Iñaki Segurola

• **2** du *ad*

Hemen ezerk ezin digu **itzuri,** zeren arrazoimenak osoro bere baitatik sortzen duena ezin baitzaio berari ezkutatu, aitzitik, arrazoimen berak dakar argitara bere printzipio komuna aurkitu ahala. Ibon Uribarri

Guk ezin izango diegula zartakoari eta zauriari **itzuri,** punteria onez jaurti bazen. Jon Alonso

Bertze ukaldi bati nekerik gabe **itzuri** nion, hala ere. Aingeru Epaltza

Zigorrari itzuri egiten badiot ere, ezingo zionat **itzuri** sariari. Jon Alonso

### 3 *ezin itzurizko*

Ezin **itzurizko** asturuari itzuriko zaiola sinetsarazten dion uste ergelak. Jon Muñoz

Jakin badakigu inork ezin diola **itzuri** egin bere patuari. Jon Alonso

Eta oharkabean **itzuri** egin nion kristalezko begiratu hari. Koro Navarro

Egia da musika-erritmo batek [...] eragin fisikoagoa, ezin **itzurizkoagoa** duela guregan irudiaren edozein elementuk baino. Josu Zabaleta

### 4 *itzuri egin* (orobat *itzur egin* g.er.) ihes egin.

Eta hastapenari estu lotu behar hori da, salbuespen nahasleei **itzuri** eginez, lor daitekeen egiaren parterik handienera iristeko modurik egokiena. Koro Navarro

[...] -esan zuen Evans jaunak, surtara begira oraindik ere, lagunen begiei **itzuri** eginez eta erretzen ari ziren irudiei mintzatuz-. Koro Navarro

Genetika molekularraren metodoek aukera ematen zuten, gainera, genetika klasikoarenei **itzuri** egiteko. Juan Garzia

Lehen ekinaldia nik irabazia nuela, **itzur** egin bainion, berrogei minutuz bederen, halabeharraren mesede bati esker bederen, nire aurkariaren erasoari. Juan Garzia

Ezerk ez zion hari **itzuri** egiten. Koro Navarro

Baina ordurako zaila zen sakrifizioaren tentazioari **itzuri** egitea. Joseba Zulaika

Zergatik behartu behar gaituzte alemaniarrek, Dantzig berentzat eskatzean, Dantzig salbatzera ez bada, ezinezkoa baita, lotsari **itzuri** egiteko geure buruaz beste egitera? Josu Zabaleta

Migel Mailuk apezei **itzuri** egiten zien eta fraideei eskapo. Aingeru Epaltza

### 5 *itzuri joan, ibili*

Zeharbidea hartuko dute, **itzuri** joango dira puska batean, ihes egitea ezinezko dutela jakin arren. Imanol Zurutuza

Bertakoak Jeniseisk probintziara **itzuri joan** ziren tatariarren beldurrez. Karlos Zabala

Behin eta berriz **itzuri** doazkigun asmo ezkutu horiek. Anjel Lertxundi

Poliziak turisten **itzuri zebiltzan,** zaldizkoak ez du ezinbestean zalduna zertan izan. Lutxo Egia

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **artetik itzuri** (5); **baina itzuri** (3); **bat itzuri** (15); **bat itzuri zitzaion** (6); **begiei itzuri** (3); **ere itzuri** (5); **eta itzuri** (3); **ezin itzur** (3); **ezin itzurizko** (3); **itzuri ahal** (3); **itzuri behar** (4); **itzuri egin** (33); **itzuri egin eta** (3); **itzuri egin nahi** (3); **itzuri egin zion** (3); **itzuri eginez** (7); **itzuri egitea** (4); **itzuri egiteko** (21); **itzuri egiten** (22); **itzuri eta** (9); **itzuri nahi** (5); **itzuri zaio** (5); **itzuri zait** (3); **itzuri zen** (9); **itzuri zitzaidan** (8); **itzuri zitzaion** (18); **itzuri zitzaion ruche** (4); **oihu bat itzuri** (3); **zitzaion itzuri** (3)

---

# itzuriezin *(orobat **itzuri ezin**)* **1** *izond* ezin itzurizkoa.

Ez hil behar **itzuri** ezinaren aurrean, ez bestelako arrisku modu ezagunen aurrean. Josu Zabaleta

Sei lagunendako sarrerak gehi barneko erosketa **itzuriezinak,** Espazioaren dedukzio transzendentala ere bilatzeko premia **itzuriezina** . Aingeru Epaltza

Haien erasoa **itzuri** ezina zenean. Josu Zabaleta

Haien kode genetikoan idatzirik zegoen patu **itzuriezina** . Xabier Mendiguren Elizegi

Sistema arrazionalistan ere idealismoa **itzuriezina** dela. Ibon Uribarri

Adimenaren adigaia esperientzia ahalgarriaren zedarriztapen **itzuriezinetatik** askatzen duela. Ibon Uribarri

**2** ***itzuriezineko*** *(corpusean* ***itzuri ezineko*** *soilik)* *izlag* itzuriezina.

**Itzuri** ezineko pentsamendua iltzatu diote gogoan: ilargiak distira egitean helduko da, akaso, nire ordua. Imanol Zurutuza

---

## itzuriezinki *adlag* ezin itzurizko eran.

**Itzuriezinki** finkatua. Ibon Uribarri

---

## itzurika *adlag* itzuri eginez.

Ni emaztearen oroimen urdinetik ihesi nentorren, bere lili irazekiaren berotasunetik **itzurika,** hona, bidaia honetara. Karlos Linazasoro

---

## itzurkor *izond* iheskorra.

Onbera, nabarmen errukiturik, urduri, **itzurkor,** bere sotoan ostatu eman izana eskertu nion Carlos Argentino Daneri-ri. Juan Garzia

---

## itzurle *iz* iheslea.

Intxixu gorde hari, nikel-Nikolas apetatsu hari, noiz hemen noiz han egiten baitu jauzi, **itzurle** eta maltzur, belarri luzeak tente, erne beti pikotxa ikertzailearen kolpetik ihes egiteko, sudurra bete hortz uzteko. Juan Garzia

---

itzurpide ik **itzurbide**.

---

## iurretar *izlag/iz* Iurretako, Iurretari dagokiona; Iurretako herritarra.

Iñaki Aramaio Sarrionandiarekin kartzelan urte asko pasatutako Ondarruko preso ohia da egun, **iurretarrari** testuak makinaz jotzen zizkion laguna. Iñigo Aranbarri

---

## iusnaturalismo *iz* Zuzenbide naturalaren teoria.

**Iusnaturalismo** eta zuzenbide positiboaren arteko harremanei buruzko galdera. Askoren artean

---

## ixa *iz (euskal alfabetoko letra)*

Maelen marrazkia orlegi koloreko **ixa** lodi batez zirriborratu zuen. Joanes Urkixo

Ugariak ziren, alde guztietan, bandera gorriak **ixa** berdearekin. Joanes Urkixo

Ohar bedi irakurlea hemen perpaus-zatia "x" **(ixa)** dela, ezezaguna, alegia. Xabier Olarra

---

## ixi *interj* ixo.

**-Ixi** ! -agindu nion, harekin lehenengoz benetan haserre. Edorta Jimenez

---

ixil ik **isil**.

---

ixiotu ik **isiotu**.

---

ixipu ik **isipu**.

---

ixkilima ik **iskilinba**.

---

ixkione ik **izkirio**.

---

ixkiriatu ik **izkiriatu**.

---

## ixo *interj* **1** norbaiti isil dadin eskatzeko erabiltzen den hitza.

- **Ixo** biok! Lopez de Arana

- **Ixo,** eta ez galderarik egin. Juan Kruz Igerabide

- **Ixo,** ez egin hainbesteko zalapartarik... Lopez de Arana

-Zu **ixo!,** bestela zu ere gurekin etorriko zara! Jon Maia

**-Ixo** ! -agindu zidan ahapeka, niganantz braust bihurtuz. Alberto Ladron Arana

-Ai, **ixo** ! -esaten du Llumek, Daniri ahoa ixten diolarik-. Antton Olano

**-Ixo** ! -bota zion Snapek hotz eta motz-. Iñaki Mendiguren

**-Ixo** ! -eten zion On Camillok-. Xipri Arbelbide

**-Ixo!** ! –nik. Txillardegi

- **Ixo,** Txiki -atsoak-. Xabier Mendiguren Elizegi

**-Ixo** ! -zakarki. Txillardegi

-Pasaidak birra, Txapli, eta **ixo** ! Unai Iturriaga

**-Ixo,** norbait dator. Patxi Iturritegi

Ez, ezin liteke eta **ixo** . Iñaki Segurola

**Ixo** ! -Humphries jaunak mahaia jo zuen betaurrekoekin-. Koro Navarro

**-Ixo, ixo,** Jim! -esan zuen Anniek-. Koro Navarro

Lasai maite, lasai, tori karta bat jolasteko, **ixo** eder hori, lasai bihotz hori... Harkaitz Cano

Zientzia horretaraino iristen ez den artean, **ixo** . Josu Zabaleta

· Hurrengoan **"ixo!"** erantzungo diot neuk ere. Josu Zabaleta

Ron Lupini hitza kentzera zihoan, baina **"ixo!"** esan zion Hermionek, Lupini begira zegoelarik adi-adi. Iñaki Mendiguren

-Zergatik **ixo** ? Txillardegi

**2** (arreta erakartzeko edo)

Baina **ixo,** bagenekien zehazki, zergatik ez genuen hilen berpiztean gehiago sinesten! Itxaro Borda

Bainan, **ixo,** zuek behar duzue irakurtu! Herria

**Ixo,** trumoika hasi al du? Patziku Perurena

Errolan gaixoa estonatuko zen, eta xuxen mintzatzeko, harrituko, asmatu ahal izan balu geroxago, makur bertsuak harrapatuko zuela, baina **ixo,** ez da leienda bera, historia baizik. Piarres Aintziart

Eta azpeitiano autozentratuen azpeitiarrismoak, eta kosmopolitta merkeak, eta europano barrenustelak, eta... **ixo, ixo,** aski da gaurkoz. Iñaki Segurola

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **baina ixo** (5); **eta ixo** (9); **ixo eta** (3)

---

## ixtaklok *(orobat **istaklok** g.er.) adlag* zangalatrau. ik **istapeka**.

Aitzina joaki, zaldiaren gainean **ixtaklok** , abereak baitzekien berak nora joan. Piarres Aintziart

Belaunikaturik dago, **istaklok** zaldunaren zangoen gainean. Michel Oronoz

Arnasa nekez hartzen zuen astoaren gainean **ixtaklok** urruntzen ikusi zuten. Elena Touyarou

“ **Ixtaklok** ” zaldidun batasuna. Herria

---

## ixtan ik **istant**.

---

## **ixtaño** *iz adkor ipar* instantea.

**Ixtaño bat** egoiten dira berriz hatsa hartzeko doia, bur-zoratuak bezala, holako jauziak gain beheiti izigarriko efetua baitu. Michel Oronoz

Hortarako lantegier galdatua zaie 15 egun barne **ixtaño bat** hartzea galdeketa bete eta itzultzeko. Herria

Eta kanpotik norbait sartzen den guziz, ate irekiaren gibeleko argi saminarengatik, **ixtaño bat** behar du nor den segurtatzeko. Eneko Bidegain

---

## ixtant ik **istant**.

---

## ixtape ik **istape**.

---

## ixtapeka ik **istapeka**.

---

## **ixte** *iz **itxi*** aditzaren aditz izena.

Dardarkariak dardarkari izateko, nahikoa da **ixte** lasterraren errepikapen bat, baina gehiago ere izan daitezke. Lourdes Oñederra

Aireari igarotzen uzten dion aho barrunbearen **ixte** ez-osoa. Isabel Arrigain

Kaleko atearen **ixte** hotsak eten zuen elkarrizketa. Fernando Morillo

Une hartan bertan ate baten zabaltze lasterraren hotsa zirudiena etorri zen nire gainetik, eta hura bezain ate- **ixte** bizkor batena. Koro Navarro

Ezin direla [fluktuazioak] esplikatu "kanpoko" kausengatik: eguraldiak eragindako uzta txar, gaitz, greba orokor, lantegi- **ixte,** lurrikara [,,,] eta antzekoengatik. Iñaki Mendiguren

Objektu bat beste objektu batzuei buruz mugitzen denean, esate baterako, erretinako proiekzioak begi- **ixte** zinetiko batekin lotu ohi den perspektibazko aldakuntza bat duenean pertzibitzen da mugimendu hori. Josu Zabaleta

Begi-zirkin egin zuela iruditu zitzaion Joanesi: begi-kliska, ustez, begi ireki eta **ixte** ikusezin bat ia. Felipe Juaristi

Hanken **ixte** -irekitze akonpasatuak. Eider Rodriguez

Irekitze- **ixte** laster eta erregularki errepikatuek. Lourdes Oñederra

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **egunkaria ren ixtea** (9); **ren ixtea** (11)

---

**ixtegi** *iz* ukuilua.

Etxaldeen, jantokien, **ixtegien**, hiltegien diseinua: askotariko sistemak, azienda kudeatzeko. Xabier Olarra

---

ixter ik **izter**.

---

ixtil ik **istil**.

---

ixtorio ik **istorio**.

---

ixtripu ik **istripu**.

---

ixtudiatu ik **estudiatu**.

---

ixun ik **isun**.

---

ixuri ik **isuri**[1].

---

**izabar** *iz/izond* Izabakoa, Izabari dagokiona; Izabako biztanlea.

Ez daude, esaterako, Koldo Artolak Antonia Anaut **izabarrari** hartutako hitzak, erronkarieraren testigantzarik garrantzitsuena. Berria - Kultura

---

**izadi** *(812 agerraldi, 49 liburu eta 38 artikulutan; cf* ***natura*** *2508 agerraldi, 186 liburu eta 353 artikulutan)* **1** *iz* izatasun fisikoa duten gauza guztien multzoa, osotasuntzat hartua, eta bereziki izaki biziduntzat hartua, *gizadi*-ren aurrez aurre. ik **natura**.

**Izadia** nahiz gizadia gobernatzen zituen Logos unibertsal objektiboa. Joxe Azurmendi

**Izadia** gaztea eta munduaren izaera oraintsukoa da eta ez zuen hastapena antzina izan. Xabier Amuriza

Gizakiaren eta **izadiaren** arteko batasuna. Joan Mari Irigoien

Izan ere, **izadia** ala gizartea, zein nagusitzen da zientzia-gertakariaren eraketan? Askoren artean

**izadiko** konplexutasuna elementu kopuru txiki baten konbinatoriari zor zaio. Juan Garzia

Lehenengo filosofo grekoek, lege naturala **izadiaren** ordenan sartu zutenez, ez zituzten lege naturalak lege fisikoetatik aldentzen (**izadia** *physis* baitzen). Askoren artean

Adimenik gabe ez legoke **izadirik**. Ibon Uribarri

**Izadiaren** indarretan pentsatzeak, lurreko, aireko eta uretako ernamuin guztiak gauaren erdian haziz nola egon zitezkeen pentsatzeak, zorabioa sortzen zion askotan. Josu Zabaleta

Horrela duk, **izadiaren** legea duk. Xabier Olarra

Sexu bat bestearengana gerturatzen duen guraria, **izadiaren** ordena fisikoari dagokio. Andres Urrutia

**Izadiaren** osotasun erabatekoan desagertzeraino. Hasier Etxeberria

Beraz, lege jakin batzuk dira, eta apriorizkoak gainera, lehen-lehenik **izadi** bat ahalbidetzen dutenak. Ibon Uribarri

Substantzia bakar bat baizik ez dela **Izadian** eta hura absolutuki mugagabea dela. Piarres Xarriton

Edertasun naturala **Izadiaren** helburuen forma da. Askoren artean

**Izadiko** indar askok ikergaitz dirau guretzat. Ibon Uribarri

**2** (kalifikatzaileekin)

Gizakiak **izadi** apal baina eder honetan zorioneko izan daitezen nahi duela Jainkoak. Josu Zabaleta

Beroak eta hango **izadi** aberatsak pizten du horrenbeste animalia eta piztia. Gotzon Garate

Zuen olerkietako **izadi** liluragarria etengabe hondatzen ari dira. Juan Luis Zabala

**Izadi** fisikoaren gaineko boterea, geografi esplorazioetan eta zientzi aurkikuntzetan adierazia. Iñaki Mendiguren

Jarduera ekonomikoak **izadi** edo baliabide fisikoei kalte nabarmenak egiten dizkienez [...]. Iñaki Heras

**Izadi** ez-gizatiarraren gaineko boterearen gehitze potentzial izugarri horren prezioa. Iñaki Mendiguren

Sorkariaren edo Sortzailearen maitasunak ernaltzen du hitz hau, hots, **izadi** galkorraren, edo egia aldaezinaren maitasunak. Imanol Unzurrunzaga

**Izadi** gorpuzduna. Ibon Uribarri

**Izadi** bizigabean. Ibon Uribarri

**Izadi** pentsatzailearen Metafisikak. Ibon Uribarri

**3** (oso-rekin)

Gizakiak, hots, **izadi** osoa sentsuen bitartez ezagutzen duen zerizanak. Ibon Uribarri

Gogoratu behar duzu gauzadia amaigabea dela eta konturatu ortzia **izadi** osoaren zatitxo bat [...] besterik ez dela. Xabier Amuriza

Eguraldiaren itxurari tankera ematerakoan, **izadi** osoa maite dudalako, argiaren eta garbiaren aldera jokatzen dut, beti halaxe. Pello Zabala

Badakigu, izan ere, **izadi** osoa erdiminetan intzirika dagoela orain arte. Elizen arteko biblia

Gauzen lehenkitzat jaiotzen eta hiltzen ikusten ditugun gorputz bigunak hartuz gero, **izadi** osoak hutsera itzuli behar du eta gauza guztiak hutsetik birjaio eta hazi. Xabier Amuriza

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **natural**.

**Izadi**-adigai transzendenteak. Ibon Uribarri

Horregatik ez zenuen desiratzen **izadi**-mundu hartako beste izaki txiki eta arrunt bat izatea baizik. Hasier Etxeberria

Aldian aldika gizakiari berez eta **izadi** legez datozkion gerta behar horiek. Imanol Unzurrunzaga

Ustez transzendentala den kausalitatearen **izadi**-legean. Ibon Uribarri

Bere hiru lankide eta **izadi** jakintzetako lau jakintsuri. Josu Zabaleta

### 4 *izadi isil/hil* margolan mota bat.

Laket izan zaizkidanak : bi **izadi** -ixilak eta bien artean gustagarriena niretzat xuri ta beltzean lau zatitan landu etxe barnea, Anne-k hor ixiltasuna margotu baitu. Herria

Ametzaenea ostatuko salan aurkezten du margolan bilduma figuratiboa Aitziber Akerreta-k, ederretan ederrena zait ostatuko ontzi eta gauzak gogoan egin duen **izadi** ixila... Herria

Béla Balàzsek fisionomia aipatzen duenean, aurpegia bezalaxe, paisaia, **izadi** hila eta gauza baten lehen planoa ere baditu gogoan. Josu Zabaleta

### 5 *izadiaz goiti*

Metafisikak ez ditu ideiak behar Natur Zientziaren mesedetan, baizik **izadiaz goiti** joateko. Ibon Uribarri

### 6 *izadiaz gaindiko/goitiko*

Poeren unibertsoa ez baitago ez benetako munduan ez **izadiaz** gaindikoan: adimenaren mundua da harena, gogoarena, errealitate objektiboaren gainean eraikia. Koro Navarro

**Izadiaz** gaindikoaren erdi-sineste lauso baina hala ere zirraragarri batek. Koro Navarro

Hiru sistema bakarrak ondorengo hauek dira: eragin fisikoarena, aurrez determinatutako harmoniarena eta **izadiaz goitiko** laguntzarena. Ibon Uribarri

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arrazoimenak izadiaren** (3); **baina izadiaren** (3); **baita izadiaren** (3); **berean izadiaren** (3); **da izadiak** (3); **da izadiaren** (7); **dela eta izadia** (4); **dela izadiaren** (4); **den izadia** (3); **den izadiaren** (6); **du izadiaren** (3); **duen izadiaren** (3); **dugu izadiaren** (3); **edo izadia** (3); **edo izadiaren** (3); **ere izadia** (3); **eta izadi** (3); **eta izadia** (11); **eta izadiaren** (19); **ez izadia** (3); **izadi ez** (3); **izadi osoa** (13); **izadi osoan** (3); **izadi osoaren** (3); **izadia baino** (4); **izadia berak** (3); **izadia bere** (5); **izadia da** (3); **izadia deitzen** (3); **izadia eta** (10); **izadia eta askatasuna** (3); **izadiak berak** (7); **izadian bertan** (3); **izadian den** (4); **izadian den indarrik** (3); **izadian ez** (4)

**eta izadiari** (3); **eta izadiaz** (4); **eta izadiko** (4); **izadiaren batasun** (12); **izadiaren batasun sistematikoa** (4); **izadiaren batasuna** (3); **izadiaren beharrezkotasun** (3); **izadiaren edo** (3); **izadiaren eta** (15); **izadiaren ezagutza** (3); **izadiaren helburuen** (4); **izadiaren helburuen forma** (4); **izadiaren ikerkuntzan** (3); **izadiaren ikertzaileen** (3); **izadiaren irakaspenak** (3); **izadiaren kausa** (6); **izadiaren kausen** (6); **izadiaren lege** (22); **izadiaren lege orokor** (3); **izadiaren lege orokorren** (3); **izadiaren legea** (6); **izadiaren legeak** (3); **izadiaren legeen** (12); **izadiaren legeen arabera** (5); **izadiaren metafisika** (5); **izadiaren ordena** (9); **izadiaren ordenaren** (6); **izadiari buruzko** (3); **izadiari dagokionez** (3); **izadiari kalte** (3); **izadiaz eta** (3); **izadiaz goiti** (3); **izadiko gauza** (3); **orduan izadiaren** (3); **zeren izadiaren** (3)

---

# izadilari *iz* naturalista.

**Izadilari** eta zaldun hura benetan hila izanik, nolaz aritzen da orain, bizirik balego bezala, hasperenka eta aieneka? Patxi Ezkiaga

---

# izaera *(orobat **izakera** g.er.)* 1 *iz* izaki bat tankeratzen duten nolakotasun eta ezaugarrien multzoa; izateko modua edo era.

Jainkoaren **izaera** gizakiaren **izaerarekin** nahastekatzen dutenek errazki egozten dizkiote Jainkoari gizakiaren afektuak. Piarres Xarriton

Giza arima Jaungoikoaren **izaera** berekoa ez den arren, **izaera** hobe ezineko haren irudia gure **izaeraren** atalik nobleenean bilatu eta aurkitu behar da. Imanol Unzurrunzaga

Orainokoan Jainkoaren **izaera** eta Haren propietateak azaldu ditut. Piarres Xarriton

Izpirituaren **izaeraz** eta etorkiaz. Markos Zapiain

Substantziaren **izaerari** dagokio existitzea. Ibon Uribarri

Adimenaren **izaerari** dagokio gauzen egokiro hautematea. Piarres Xarriton

Batasun edo menpetasun horretan datzala Estatuaren **izaera**. Esteban Antxustegi

Hizkuntzaren Filosofian, hizkuntzaren **izaera** argitzeko aztertzen da hizkuntza. Askoren artean

Nire **izaera** garraztu eta gozakaiztu egin dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zabarkeriarik gabe, ordea: testuen **izaera** gordetzen saiatu gara beti ere. Jose Antonio Mujika

Kitcherren liburuak [...] *summa* baten **izaera** du. Askoren artean

Gauzen **izaeran** ez da izaten ahal, **izaera** bereko edo atributu bereko bi substantziarik edo gehiagorik. Piarres Xarriton

Substantzia, aldiz, zergatik existitzen den, hori ere haren izaera soiletik dator, **izaera** horrek existentzia baitauka bere baitan. Piarres Xarriton

Irudi hori, oraindik **izaeraz** optikoa baizik ez dena, tratatu, eta guztiz bestelako **izaera** bat duen informazioa bihurtzen duela erretinako sistema kimikoak. Josu Zabaleta

Susmoa baitut izen adina **izaera** eta **izaera** adina atributu bereko izan nituela bizian bizi izan nintzenean. Felipe Juaristi

Inondik ere, **izakeraz** (eta odolez ere) ijitoa behar duela. Patziku Perurena

**Izaeraz,** bere afekzioak baino lehen da substantzia. Piarres Xarriton

### 2 (izenondo eta izenlagunekin)

Torturaren **izaera** okerra/zuzena bertutearen arabera arrazoitzea. Askoren artean

Argi dago, bada, gogoaren **izaera** hirukoitza dela. Xabier Amuriza

Arimaren **izaera** hilkorra dela uste baitugu. Xabier Amuriza

Donostiar **izaera** alaia da, jostagarria. Askoren artean

Hizketaren **izaera** akustikoa da. Lourdes Oñederra

Giza izaeraz bestelako **izaera** duten gauzekin. Piarres Xarriton

Gurea bezalako bekatuzko **izaeran** bidali du bere Semea eta honek, bere burua barkamen-oparitzat eskainiz, kondenatu egin du bekatua bere giza **izaera** hilkorrean. Elizen arteko biblia

Hobe zuen itxaron, itxaron harik eta haren berezko **izaera** erakusten zuen arte, eta orduan... Patxi Zubizarreta

Barne egituraz ahozko **izaera** duten idatzizko lan motei buruz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Batak bestea suntsitzen ahal duen neurrian, gauzak kontrako **izaerakoak** dira, hots, ez daitezke subjektu berean izan. Piarres Xarriton

Giza izaeraz bestelako **izaera** duten gauzekin. Piarres Xarriton

Ezabaezina izango balitz bezala hiritar **izaera,** hiritar izateak esklabo izatea edo txarragoa esan nahiko balu bezala. Juan Martin Elexpuru

### 3 izatea.

Gauzen **izaera** ezinezkoa dela arimarik gabe. Imanol Unzurrunzaga

Izadia gaztea eta munduaren **izaera** oraintsukoa da eta ez zuen hastapena antzina izan. Xabier Amuriza

Baina teoriak ez dio deus haren izateaz, zer-izanaz edo **izaera** esentzialaz: ez dago horrelakorik. Iñaki Segurola

*Gauza* hitzak intensio eskasa du (oso ezaugarri gutxi ditu bere baitan edo **izaeran)** eta estensioa berriz oso handia, ia edozeri aplika baitakioke. Iñaki Segurola

Tren espresoari **izaera** ematen diona irtetzeko ordua da, bere ibilbidea, eta oro har gainerako tren espresoetatik bereizten duten zertzelada guztiak. Isabel Arrigain

Jaungoikoarengan bizitza dioguna bere esentzia eta **izaera** dira. Imanol Unzurrunzaga

Hustu egin zen bere handi izateaz eta esklabo- **izaera** hartu. Elizen arteko biblia

Burdinak bere **izaera** aldatu eta egurraren arintasuna hartu balu bezala. Askoren artean

Zehatz-mehatz ezagutzen eta bereizten zuen ikusten ari zen hura, bakoitzaren izen, **izaera** eta egoera argi eta garbi ezagutuz.. Askoren artean

Errusiarra zen, izatez, baina ez zioten errusiar **izaera** onartu. Felipe Juaristi

### 4 (izenondoekin)

Jainkoaren **izaera** mugagabetik formalki datorren guztia. Piarres Xarriton

Existentziaren **izaera** propioaz naiz ari. Piarres Xarriton

Gauzen **izaera** agortezina. Ibon Uribarri

Gauzen sorkuntzan lehenkiek **izaera** isila eta ezkutua gorde behar dute. Xabier Amuriza

Giza gorputza **izaera** desberdineko atalez osatua dela: jariakor, bigun eta gogorrez. Piarres Xarriton

**Izaera** hauskorrekoak direnez gero. Xabier Amuriza

Izan ere, ondo **izaera** zitala du Sirius Black horrek. Iñaki Mendiguren

Ezberdintasunak kontaezinak eta oso **izaera** ezberdinekoak dira. Xabier Arregi

Gizabanakoaren **izaera** soziala. Askoren artean

Bertan erabilitako ezagutzaren **izaera** berezia kontsideratu gabe. Ibon Uribarri

**Izaera** pribatu nahiz publikoa duten erakundeek osatzen dute sistema osoa. ederki defendatu zuela botere politikoaren herri etorkia, haren **izaera** eta oinarri demokratikoa. Juan Ignacio Pérez / Pello Salaburu

Boterearen **izaera** elitista. Askoren artean

Oso zapalduta egonda ere, **izaera** primitiboak kontzientziaren sakonean irauten du... Iñaki Mendiguren

Montanerrek ere gehiago zuen **izaera** semitikotik iberikotik baino. Josu Zabaleta

Ttipiren **izaera** patxadatsu eta lasaiak, haren manera eztiek, [...]. Aingeru Epaltza

Bere **izaera** grinatsua. Askoren artean

Haren **izaera** pipertuaren eta eztabaida amaiezinen hotsa luze gabe heldu zen nagusiengana. Patxi Zubizarreta

Atxilotuen **"izaera** zibila" azpimarratzeko. Iñigo Aranbarri

Nire herritarren **izaera** bekaizkeriazkoa. Jose Antonio Mujika

Zer-esango-ote-duten horrekiko mesprezua bere **izaera** betizutik eta amaren axolagabekeriatik zetorkion. Patxi Zubizarreta

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Izaera** mailan duten aldea sakonagoa da. Isabel Arrigain

**Izaera**-aldaketa nabarmena eta autokontrola galtzea. Xabier Olarra

Ulertu nuen ez zela **izaera** kontua bakarrik, ezta nire gaztetako irakurketen eragin hutsa ere. Bernardo Atxaga

**Izaera**-desberdintasuna haien indar desberdinaren ondorioa da. Xabier Olarra

Gure oinordekoak ez dira fitsik ere oroitzen **izaera**-egoera hartaz... Jose Angel Irigaray

Portugalen historia aldatzeaz gainera, nagusiei, argitaletxeari, historialariari, eta batez ere bere **izaera**-bizimoduei esan die ez, ez eta ez. Markos Zapiain

Garapen edo inboluzio mailak, ingurunearí erantzuteko erak, **izaera**-motak, eskuratutakoak, jaiotzezkoak edo herentziazkoak. Xabier Arregi

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gauza kreatuen esentziari dagokiola Jainko **izaera**. Piarres Xarriton

Jainko **izaera** mugagabekoaren betegintzarrea gozatzen duela. Piarres Xarriton

Giza **izaeratik** datorren guztia giza **izaera** soil horren arabera ulertu behar da. Piarres Xarriton

Giza **izaerako** legeen eremura igarotzen garenean. Iñaki Mendiguren

Gizon-**izaera,** bai. Arantxa Iturbe

Errazago sartu zitzaien neskame soinekoa neskame **izaera** baino, arima ez baita gorputza bezain mozorrozale. Felipe Juaristi

Nire judu **izaera** deskubritu berriak azaleratutako oroitzapena, dudarik gabe. Anjel Lertxundi

Giza aberearen otso-**izaera**. Askoren artean

Norengan dago benetako nazio-**izaera**? Edorta Jimenez

Herri interesen ordez, alderdi **izaerako** ikuspegi estrategikoak. Berria - Euskal Herria

Borondatezko testamentuari lege **izaera** eman nahi dio Londresek. Berria - Gaiak

Kultur **izaera** bertsuko botereen arteko barne-liskar politikoetarako. Iñaki Mendiguren

Inolako oztoporik gabe onartuko dugu bertso mota hauen formula-**izaera**. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertsolaritza erretorika-genero gisa aztertuta, ez dugu deblauki haren literatura-**izaera** baztertuko. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Bertso bakoitza, bere diskurtso-**izaera** galdu gabe, diskurtso-segmentu bilakatzen den (makro)diskurtsoa sorrarazten da antolabide horri esker. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Begian eratzen den irudi optikoaren proiekzio **izaera** hori Antzinarotik ezagutzen da. Josu Zabaleta

Zenbat eta gehiago ahazten den irudiaren irudi-**izaera** orduan eta gehiago sinetsiko baita, uste horren arabera, irudian irudikatzen dena errealitatea dela. Josu Zabaleta

Colinek bere lanari nahita ematen dion hipotesi-**izaera** horrek. Josu Zabaleta

Lehen ere aipatu dugu argazkiaren zantzu-**izaera**. Josu Zabaleta

Irudiaren margolan-**izaera** ahazturik. Josu Zabaleta

Hizkuntza komunitate bateko partaide-**izaera** hiztun osotik hasi eta hizkuntzaren ezaguerarik ez dueneraino doan continuum bat da-. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

Kristo Jesusek, Jainko-**izaerako** izanik, ez zion gogor eutsi nahi izan. Elizen arteko biblia

## 6 *izaeratsuko*

Emakume atseginak ziren, adeitsuak eta lagunkoiak, eta emagin sendoen **izaeratsukoak** halabeharrez. Mirentxu Larrañaga

### hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)

**arimaren izaera** (14); **arte izaera** (5); **baina izaera** (12); **bakoitzak bere izaera** (14); **bakoitzaren izaera** (10); **baten izaera** (26); **benetako izaera** (35); **bere izaera** (173); **bere izaera eta** (8); **beren izaera** (22); **berezko izaera** (28); **beste izaera** (21); **beste izaera bat** (11); **bestelako izaera** (8); **bi izaera** (8); **den izaera** (6); **du izaera** (8); **duen izaera** (22); **duten izaera** (7); **edo izaera** (17); **egiazko izaera** (22); **ere izaera** (10); **errealitatearen izaera** (5); **estatuaren izaera** (7); **eta bere izaera** (11); **eta beren izaera** (5); **eta giza izaera** (7); **eta haren izaera** (8); **eta izaera** (123); **euren izaera** (19); **euskal presoen izaera** (7); **funtsezko izaera** (6); **gatazkaren izaera** (21); **gatazkaren izaera politikoa** (14); **gauzaren izaera** (7); **gauzen izaera** (33); **giza gorputzaren izaera** (5); **giza izaera** (57); **giza izpirituaren izaera** (9); **gizakiaren izaera** (12); **gizakien izaera** (5); **gogoaren izaera** (5); **gorputzaren izaera** (17); **gorputzen izaera** (5); **gure izaera** (31); **guztien izaera** (5); **haien izaera** (22); **haien izaera politikoa** (5); **haren izaera** (58); **hauen izaera** (5); **herri izaera** (20); **herriaren izaera** (5); **hizkuntzaren izaera** (6); **honen izaera** (13); **horien izaera** (10); **horren izaera** (25); **israelen izaera** (25); **israelen izaera eta** (5)

**izaera adierazten** (7); **izaera agerian** (5); **izaera aldatu** (10); **izaera aldatzen** (7); **izaera azaltzen** (6); **izaera baino** (11); **izaera barne** (11); **izaera barne hartzen** (11); **izaera bat** (24); **izaera bera** (38); **izaera berak** (7); **izaera bereko** (15); **izaera berekoa** (6); **izaera berekoak** (8); **izaera berezi** (7); **izaera berezia** (27); **izaera berreskuratu** (6); **izaera berria** (5); **izaera da** (10); **izaera dela** (7); **izaera desberdineko** (7); **izaera du** (11); **izaera duen** (9); **izaera duten** (8); **izaera edo** (14); **izaera eman** (10); **izaera ematen** (6); **izaera enpiriko** (6); **izaera enpirikoa** (8); **izaera erabat** (5); **izaera erakusten** (9); **izaera erakutsi** (8); **izaera ere** (24); **izaera eta** (153); **izaera ez** (37); **izaera ez da** (7); **izaera ez duten** (5)

**izaera ezagutzeko** (6); **izaera ezagutzen** (7); **izaera ezberdina** (5); **izaera ezberdineko** (9); **izaera galdu** (5); **izaera gogorra** (6); **izaera guztiz** (8); **izaera handiko** (5); **izaera hartu** (7); **izaera hau** (6); **izaera hori** (34); **izaera horrek** (13); **izaera horri** (7); **izaera izan** (9); **izaera izango** (6); **izaera juridikoa** (13); **izaera militarra** (5); **izaera nazionala** (12); **izaera ofiziala** (11); **izaera ona** (5); **izaera onartu** (7); **izaera onartzea** (8); **izaera onartzen** (7); **izaera osatzen** (6); **izaera oso** (8); **izaera osoa** (7); **izaera parte** (5); **izaera politiko** (13); **izaera politikoa** (91); **izaera politikoa aitortzea** (5); **izaera politikoa aldarrikatu** (7); **izaera politikoa duen** (5); **izaera politikoa eta** (8); **izaera propioa** (11); **izaera publikoa** (9); **izaera soziala** (9); **izaera sozialaren** (5); **izaera zaharra** (5); **izaera zein** (9); **izaera zein den** (6); **izaera zuen** (6)

**izpirituaren izaera** (11); **izpirituaren izaera osatzen** (5); **jainkoaren izaera** (22); **jatorrizko izaera** (6); **kanpoko gorputzaren izaera** (6); **kataluniaren nazio izaera** (17); **lege izaera** (9); **legeen izaera** (5); **munduaren izaera** (5); **nafarroako izaera** (5); **nafarroaren izaera** (13); **navalen izaera** (5); **nazio izaera** (48); **nazio izaera eta** (7); **nazioarteko izaera** (8); **nire izaera** (25); **norberaren izaera** (7); **nork bere izaera** (5); **objektuaren izaera** (5); **oso izaera** (11); **pertsonaien izaera** (5); **politikoen izaera** (6); **politikoen izaera politikoa** (5); **preso politikoen izaera** (6); **presoen izaera** (22); **presoen izaera politikoa** (18); **prozesuaren izaera** (5); **talde izaera** (35); **taldearen izaera** (6); **zein izaera** (6); **zuen izaera** (7); **zure izaera** (6)

**arrazoimenaren izaeran** (5); **bere izaeragatik** (8); **bere izaerak** (15); **bere izaeran** (13); **eta izaerak** (8); **gauzen izaerak** (8); **gauzen izaeran** (13); **giza izaerak** (11); **giza izaeran** (5); **gizarte izaerako** (5); **gure izaerak** (6); **haren izaerak** (7); **izaerak berak** (11); **izaerak eskatzen** (5); **izaerak eta** (9); **izaerak ez** (6); **izaeran bat** (7); **izaeran eta** (6);

**izaeran ez** (5)

**baten izaeraren** (8); **bere izaerarekin** (7); **bere izaeraren** (64); **bere izaeraren arabera** (7); **bere izaeraren legeen** (5); **beren izaeraren** (7); **eta izaeraren** (9); **giza izaeraren** (41); **gure izaerarekin** (14); **gure izaerarekin bat** (6); **gure izaeraren** (20); **gure izaeraren kontrako** (5); **haren izaeraren** (15); **izaerarekin bat** (20); **izaerarekin bat datorren** (5); **izaeraren alde** (6); **izaeraren alderdi** (6); **izaeraren arabera** (24); **izaeraren araberako** (5); **izaeraren beharrezkotasunetik** (7); **izaeraren eta** (15); **izaeraren ezaugarri** (5); **izaeraren ezinbestekotasunetik** (7); **izaeraren gaineko** (5); **izaeraren inguruan** (5); **izaeraren kontrako** (6); **izaeraren lege** (6); **izaeraren legeen** (5); **izaeraren legeen arabera** (5); **jainko izaeraren** (11); **jainkoaren izaeraren** (6); **nazio izaeraren** (10); **nire izaerarekin** (7); **nire izaeraren** (8)

**adimenaren izaerari** (5); **baten izaerari** (5); **bere izaerari** (15); **bere izaeraz** (11); **beren izaeraz** (6); **da izaeraz** (6); **eta izaeraz** (14); **gauzen izaerari** (9); **gauzen izaeraz** (6); **giza izaerari** (12); **giza izaeraz** (6); **gure izaerari** (6); **haren izaerari** (12); **izaerari berari** (8); **izaerari buruz** (17); **izaerari buruzko** (15); **izaerari dagokio** (10); **izaerari dagokion** (5); **izaerari dagokionez** (11); **izaerari eta** (11); **izaerari ez** (8); **izaeratik datorren** (5); **izaeraz eta** (22); **izpirituaren izaeraz** (7); **jainkoaren izaerari** (10); **jainkoaren izaeratik** (6); **substantziaren izaerari** (5)

**bere izakera** (3); **eta izakera** (3); **izakera eta** (3)

---

## izaeradun *izlag* izaerako.

Zergatik ez areago onartu badirela halako **izaeradun** gorputzak, sua sortu duten bezala, zer txikiak ken-ezarriz, ordena eta mugida aldatuz, airearen aurak ere eragin ditzaketenak, honela bata bestetik gauza guztiak mutatuz? Xabier Amuriza

---

## izai ik **izei**.

---

## izain **1** *iz* zizare mota xurgatzailea, ur gezetan bizi dena eta gorputzetik odola ateratzeko erabiltzen zena *(Hiduro medicinalis)*.

Botikariarengana joaten zen **izain** eta ukendu bila. Koro Navarro

**Izaina** bezala itsatsiko litzaidake. Koro Navarro

Bertzeen odoletik xurgaka eta hurrupaka dabiltzanak, nola **izainak** eta parasitoak. hori ez zen oztopo izan gizonari leku delikatu batean **izainak** jartzeko. Joan Mari Irigoien

Berrogei **izain** jarri behar izan baitzizkioten lokietan. Jose Morales

Machlathek **izain** baten aurpegia zuen. Koro Navarro

**Izain** xurgatzailetzat zeukaten gehienek Lenehan, baina, fama hori gorabehera, azkarra eta ele-ederra zenari esker gorde ziren lagunak erabat haren kontrako jarrera hartzetik. Irene Aldasoro

**2** (hitz elkartuetan)

Ez al dut argi utzi **izain**-zukuaren txurrustada bat nahikoa zela? Iñaki Mendiguren

**Izain**-izurrite biblikoa. Alberto Barandiaren

Mantxatar pedante eta orojakin bat, drogeriako saltzailea, sendalaria eta **izain**-jartzailea. Josu Zabaleta

**3** (irain gisa)

Ramirez Bakedanokoaren arrebarenean ere **izain** lodi eta ezdeus horiek ez ziren salaketatik urrun ibiliko. Aingeru Epaltza

Kazetariak **izainak** zirela adierazi zuen beste batean, eta batzuk pertsonalki iraindu ditu. Berria - Kirola

**Izainak** halakoak! Gotzon Garate

---

## izaite ik **izate**.

---

## izakari *iz* izakia.

Nire ni ausartak barre egiten zion nire ni beldurtiari, eta inoiz ez dut egun hartan bezala sumatu gure baitan ditugun bi **izakari** horien arteko kontrakotasuna, batek baietz, nahi zuela, besteak ezetz, aurka eginez, aurrena bat, hurrena bestea, gailentzen zirela. Josu Zabaleta

Begira egoten zaizkit, ikusten naute, **izakari** harrigarri, sinestezinezko horiek, maitagarriak, lur sakratuaren, aire ukiezinaren eta munduaren ama den argi beroaren alabak. Josu Zabaleta

Guri aingeruak bezala margotu zaizkigun **izakari** hegodun handiak. Josu Zabaleta

**Izakari** goragoko bat bilakatua nintzen, mendera ezinezko adimen batez armatua. Josu Zabaleta

Era guztietako **izakari** ikusezinak. Josu Zabaleta

---

## izakera ik **izaera**.

---

## izaki[1] **1** *iz* izatasuna duen zernahi gauza, banakotzat hartua.

Zientziaren eginkizuna, hain zuzen, munduaren, **izakien** eta gauzen irudikapen bat eskaintzea da. Juan Garzia

Kreazioko gainerako **izakietatik** bereizten du horrek gizakia. Irene Aldasoro

Jainkoa deitzen dut, absolutuki mugagabea den **izakia**. Piarres Xarriton

Lurretik kanpoko **izakien** agerpenei buruzko filmeetan. Jon Alonso

Espezie horiek iraunkorrak, ongi arautuak eta existentzia egonkorrekoak, zeruko **izakiak** bezala. Xabier Kintana

Bi **izaki** direla edo bi substantzia ezberdin osatzen dituztela. Piarres Xarriton

**2** (izenondoekin)

Arima hori **izaki** hilezkorra da. Xabier Kintana

Gizona **izaki** zital eta mespretxagarria baita. Xabier Kintana

**Izaki** odolzaleen, hiltzaileen eta borreroen izaera misteriozko horretatik zerbait zeukan gizon hark. Koro Navarro

Zure amaginarreba baino **izaki** gorrotagarriagorik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Eta ikusten dut fede doilor horretako Jainkoa **izaki** arduragabe eta basatia dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**Izaki** mitologikoen arrastoak harri eta harkaitz askotan ageri dira. J.M. Olaizola "Txiliku"

Lau **izaki** bizidunek "Amen" erantzun zuten. Elizen arteko biblia

**Izaki** txanoduna desagertua zen handik-. Iñaki Mendiguren

Bi **izaki** hegadun egingo dituzu, urretan landuak. Elizen arteko biblia

Sortutakoa eta **izaki** sortzailea ezin daitezke gauza bera izan: erlojua eta erlojugilea gauza bera izan al daitezke? Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Behe-mailako **izaki** adimengabeei. Askoren artean

Bestelako **izaki** zentzudun ala zentzugabeetara. Askoren artean

Espazioko **izaki** matematikoak identifikatuko ditu Euklidesek: solidoak: piramidea, prisma, konoa, zilindroa, eta esfera, jakina; eta horiez gainera, poliedro erregularrak ere bai. Jon Muñoz

**Izaki** aljebraiko gisa "ikusten" zen **izaki** geometrikoa: M puntua zenbaki bikote bilakatu zen (x, y). Jon Muñoz

-Kontuan hartu **izaki** idealak direla geometriako irudiak; ezin dira miazkatu. Jon Muñoz

**Izaki** idealei baizik ez dagozkie teoremak. Jon Muñoz

· Azazkal berritzea, narrastien larru berritzea bezala, gu **izaki** dilubioaz aurrekoekin lotzen gaituen aztarna bat da. Iñaki Iñurrieta

### **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ontologia aristoteliko batean, beraz, hiru **izaki**-mota bereizi ditugu: banakoak, motak eta propietateak. Askoren artean

Hortaz, zer **izaki** mota da Luzifer hau? Oskar Arana

Nola barruko hala kanpoko hormetan, inguru guztian, hegadun **izaki**-irudiak, palmondo eta lore-xorta-irudiak zizelkatu zituen. Elizen arteko biblia

### **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **izakiez** ari gara. Jon Alonso

Kontzientziak gure giza-**izakiaren** jardunak epaitzen ditu. Jenaro Garate

Diruarena, amodioarena, zenbaki guztien multzoarena, unibertso hedakorrarena eta beste ezin-**izaki** askotxorena. Iñaki Segurola

Jainkoa edo Unibertsoa mutur batean, partikula elementalak bestean, eta tarteko ezin-**izaki** guztiak tarteko, aideko izan-behar baten eta berezko ezin-izanaren artean lehertzen dira etengabe. Iñaki Segurola

Gure munduan dena den, dakien eta dezakeen ez-**izakiari** Jainkoa deitzen zitzaion. Iñaki Segurola

### **5** ***izaki goren***

Gnostikoek erabiltzen duten hitz kabalistikoa da abraxas delakoa, eta **Izaki Gorena** adierazten omen du. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mahomatarren **Izaki Gorena,** Teologia morala, ostera, lege etikoetan oinarritzen den **izaki** goren baten izatearen uste osoa da. Ibon Uribarri

Gizonen arteko harremanetan lege-esparru batzuen barruan joka daitekeelako, **Izaki gorenaren** eskuhartze bereziaren premiarik gabe. Juan Martin Elexpuru

Gehienek onartzen baitute **izaki goren** bat dagoela. · Gorengo **Izakiaren** kontrakoa, beraz, ez-izatea soilik izan daiteke. Imanol Unzurrunzaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**beste izaki** (40); **bezalako izaki** (8); **bi izaki** (21); **edozein izaki** (6); **hainbat izaki** (5); **halako izaki** (6); **hegadun izaki** (12)

**izaki arriskutsuen** (9); **izaki asko** (4); **izaki bakar** (6); **izaki bakarra** (11); **izaki bakoitza** (4); **izaki bera** (6); **izaki berezi** (4); **izaki berri** (7); **izaki bitxi** (4); **izaki bizi** (14); **izaki bizia** (5); **izaki bizidun** (37); **izaki biziduna** (12); **izaki bizidunak** (11); **izaki bizidunek** (7); **izaki bizidunen** (15); **izaki bizidunik** (4); **izaki biziek** (4); **izaki bizirik** (6); **izaki goren** (7); **izaki gorena** (4); **izaki guztiak** (33); **izaki guztiei** (9); **izaki guztiek** (7); **izaki guztiekin** (4); **izaki guztien** (14); **izaki hegadun** (10); **izaki hipotetikoen** (4); **izaki ikusezin** (4); **izaki magikoen** (14); **izaki mota** (10); **izaki oro** (6); **izaki orok** (4); **izaki sentikor** (4); **izaki txiki** (9)

**izeneko izaki** (4); **kanpoko izaki** (5); **lau izaki** (9); **munduko izaki** (10)

**beste izaki bat** (4); **beste izaki batzuk** (4); **bi izaki hegadun** (5); **hegadun izaki haiek** (5); **izaki arriskutsuen azterketarako** (8); **izaki bizidun baten** (4); **izaki magikoen zainketako** (7); **munduko izaki guztiak** (6)

**beharrezko izakia** (4); **edozein izakiren** (6); **hegadun izakiak** (5); **hegadun izakiak** (5); **izakiak oro** (6); **zeruko izakiak** (4); **zeruko izakiak** (4)

---

## izaki[2] *(orobat* ***izanki****)* **1** *adlag* izanik; d(ir)elako, z(ir)elako.

Deabrua, gaizkiaren irudi **izaki,** ez da errealitate, gabetasuna da, falta den zerbait. Xabier Kintana

Frantziskok, etxegile zuhur **izaki,** etxea harkaitz sendoaren gainean eraiki zuen. Askoren artean

Herri berekoak **izanki,** elkar ez genuen haatik bakan baizik ikusten. Janbattitt Dirassar

Ark ere, ordea, etsai gaiztoak **izaki,** eta aien atzaparretan erortzen dek askotan. Patziku Perurena

Filosofia handiko haurra **izaki,** halere, erabaki zuen kontu hura guztia Jainkoaren esku uztea. Mirentxu Larrañaga

Paris hain handia **izanki,** mirakuilua izanen zela Elenarekin buruz buru gertatzea. Janbattitt Dirassar

Ez naute sentitzen, ukitzen, fantasma hegaldun **izaki,** baina desterratu eginen nindukete pozik beren gogotik. Patziku Perurena

Honako hau antologia **izaki,** haren ipuin batzuk besterik ez ditugu hautatu; bertsioa **izaki,** ezin, bada, haren kontamoldea zehatz-mehatz azaldu. Patxi Zubizarreta

Zuk, sagua **izaki,** jale onaren fama daukazu eta ez zenuke pastel bakar bat ere arbuiatu behar. Patxi Ezkiaga

Eta horratx: irain gorriagorik ez **izaki** neretzako. Patziku Perurena

Nahiz eta ordurako ondotxo jabetua behar zuen ez zeukala salbabiderik, abantaila nirea **izaki** nabarmen. Joxe Austin Arrieta

Izanez ere, haurra **izaki** familiaren enbrioia, eta nola jasan bada inork, gai edo ezgai, estatuarentzako antzu izate horrenik?... Patziku Perurena

Anaiaren bizi sakratua arriskuan **izanki** eta nik, burua erabat hustua, ez jakin nor behar nuen deitu. Daniel Landart

Beroa **izaki,** zinez, sala tiki horretan! Aingeru Epaltza

Loa eta gaua, bistan da, batera datozela, eta ageri denez, Txomin ere gautar **izaki**. Patziku Perurena

Eta gure goizoilandak, "pottottobero" samarren fama **izaki,** berriz, auzo herrietan! Patziku Perurena

Lastima, usainarena ez ziaten denek hain ondo jasoko, aretoa handiegia **izaki,** eta ikusleenganako distantzia ere bai... Iñaki Iñurrieta

### **2** ***izaki eta***

Fama gotorra **izaki eta,** Sarlat-eko elizan Gure Aitak entzuleak ditu plazerrez gainditu. Herria

Mister Lewinek ez zeraman soinean, jakina, inolako etiketa-jantzi ilunik, eta dantzatu ere mazurka modura egiten zuen dena, Polonian jaioa **izaki eta** haurtzaroa ghettoan bizi izana eta abar. Joxe Austin Arrieta

Orain, bidearen mugari arras hurbil **izanki** eta, karriken izenei kasu egiten diet. Piarres Aintziart

Aroa ederrenetarik **izaki eta,** arrakasta gaitza izan dute ondartzek. Herria

Asteazken gehienetan, arratsaldeko bostetarik harat libro **izanki-eta,** itzuli bat egiten nuela Pariserat. Janbattitt Dirassar

Pentsamendu hauengatik, alabaina, gehienik gose direnek dute gehienik pairatzen, gutiziatzen duten ohoreraino ezin helduz etsitzen dutelarik, eta, haserre gorrian **izanki-eta,** prestu iduri nahiz lehiatzen direlarik. Piarres Xarriton

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**amorratua izaki** (4); **bakarra izaki** (5); **bera izaki** (6); **berezia izaki** (5); **egia izaki** (7); **egina izaki** (4); **eguna izaki** (4); **gabea izaki** (6); **garaia izaki** (5); **gaztea izaki** (6); **handia izaki** (6); **horixe izaki** (5); **horrela izaki** (4); **huraxe izaki** (5); **hutsa izaki** (4); **jaioa izaki** (5); **kontuan izaki** (8); **nagusia izaki** (4); **ona izaki** (7); **onak izaki** (4); **onekoa izaki** (4); **ostirala izaki** (4); **semea izaki** (4); **soila izaki** (4); **soilik izaki** (4); **txikia izaki** (8)

**[3] azkena izanki** (3); **bi urratsetan izanki** (3); **debekatua izanki** (3); **egia izanki** (3); **eguna izanki** (4); **frango izanki** (3); **gehiago izanki** (3); **han izanki** (5); **herria izanki** (4); **hor izanki** (6); **urratsetan izanki** (3); **urtea izanki** (4)

---

## izakin *iz* toki jakin batean salgai batetik dagoen kopurua.

Baina bada beste datu deigarri bat: 41,6 milioi euroko ezohiko doikuntza sartu behar izan du azken hiruhilekoan **izakinen** balioan, nikel **izakinenak** izandako jaitsieragatik. Berria - Ekonomia

Urteko **izakinak** berritzeko unea. Joxan Elosegi

Baliabide berriztaezinak erabiltzen diren neurrian, horien **izakinen** murriztea alternatiba berriztagarriez konpentsatuko da. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Baliabide berriztaezinen kasuan ez du garrantzi handirik, jakina, zeren eta horien erabilerak jaitsarazi egiten baitu, betiko, agortze bidean dauden baliabide horien **izakin** maila; hauxe gertatzen da, besteak beste, erregai fosilekin, petrolioarekin alegia. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Izakinak** pilatzen hasi ziren dendaren atzealdean eta begiz joak nituen orduruko hurrengo **izakin**-berrikuntzan neuretzat gordeko nituenak. Joxan Elosegi

---

# izakitu *izond* izaki bihurtua.

Denboraren poderioz **izakitua** da berriz, helburu eta egiteko bakarrarekin: iturriplanetarat eta iturrigurasoen ondorat itzultzea. Jose Angel Irigaray

---

# izakitxo *iz* izaki txikia.

Bien bitartean, sorbidean den **izakitxo** horren baitan, horra agertu zenbait zelula poliki-poliki nerbio-zelula masatxo bat osatuz doazenak. Juan Garzia

Eta **izakitxo** haiei buruzko galdera piloa egin zionean, Peter harritu egin zen, gogaikarriak iruditzen baitzitzaizkion, beti ibiltzen zirelako bere kontuetan muturra sartzen eta horrela. Julen Gabiria

---

# izamen *iz* izatea, izateko ahalmena.

Entzuna ere badut, eltzegilearen antzekoa dela **izamena,** eta eltze eder bat egin dezakeenak, berdin ditzake bi, hiru, eta ehun ere. Patxi Ezkiaga

Ez dira ez betikoak gizonen gauzak; beren bukaerara doaz denak, hasierako **izamena** galduan-galduan. Patxi Ezkiaga

---

# izamolde *iz* izateko modua.

Geneak eta proteinak ez dira jada bakoitza berdinik gabeko objektu, espezie batek berezko duen **izamolde** berezi. Juan Garzia

Mila beso, mila ezpain, mila... **izamolde** nahi nituzke izan izakari xarmagarri garrantzi gabeko horietako saldo oso bat aldi berean besarkatu ahal izateko. Horrexek ematen dio espezieari halako aniztasun aberats, halako **izamolde**-aukera zabala. Josu Zabaleta

---

# izan[1], izaten, izango/izanen *(ETCn* ***24.372.883*** *agerraldi)* 1 da/du *ad* izatasunaren jabe gertatu. (ikus beheko konbinatorian izan aditzaren agerraldi maizkoenak)

## 2 (era burutua izen gisa) ik **izan**[2].

## 3 ***izan ere***[1] (izan (da) aditzeko perpaus batean)

**"Izan ere** hala izango da agian", pentsatu nuen neurekiko, aingeru guardakoarekin gogoratuz. Bernardo Atxaga

**Izan ere**, zer da espainola izate edo ez izatea? Joxe Azurmendi

**Izan ere**, hautsa zara / eta hautsera itzuliko zara. Jose Antonio Mujika

**Izan ere**, Frantziako Kode Zibila zerbait bada, aurreko erregimen politikoaren lege haustura da. Andres Urrutia

**Izan ere**, gizonen arteko "zintzoa" gauza bakoitzari berea ematen diona da. Xabier Kintana

**Izan ere**, aurtengo Gabonak izango dira, okerrik ezean, etxe honetan bizitzen emango ditudan azkenak. Xabier Mendiguren Elizegi

**Izan ere**, gurasoen ameskeria hutsak dira lizunkeriaren bidean aurkitu omen daitezkeen zorigaitzak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Utziozu, beraz, galdetzeari batek daki zein doktore edo irakasle gaiztori buruz; **izan ere**, gaiztoa bada ez da doktorea, eta doktorea bada ez da gaiztoa. Imanol Unzurrunzaga

Zer da psikiatra bat, **izan ere**, ikaragarri eta ezin sinetsi ahala dakien gizona edo emakumea ez bada? Iñaki Segurola

Huraxe zen, **izan ere**, inguruetako herrixka eta auzo apalagoen "hiriburu" koxkorra. Juan Kruz Igerabide

Karbonoa, **izan ere**, elementu berezi-berezia da. Juan Garzia

Interpretazio mota hau da, **izan ere**, epaileari galarazten zaion bakarra. Andres Urrutia

Gerraren izugarrikeria, basatikeria: gizakiarengan bada, **izan ere**, halako suntsitzeko gogo bat, besteak hiltzeko eta piztia bat izateko gogo bat. Josu Zabaleta

Ez dira, **izan ere**, gauza bera garbitasuna eta garbia; eta ildo horretatik hainbat adibide. Imanol Unzurrunzaga

**Izan ere**, kontua ez da, inondik inora, zer sentitzen duen naturak eta legeak bestearen momentuko gurariak asetzera kondenatutako objektuak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Horrek ez zion asko laguntzen, ordea: aurrean ikusten zuena bezain beltza zen, **izan ere**, gogamenean tomateaz egiten zuen irudia. Xabier Olarra

Tamala da zuk niri ez sinestea, **izan ere** errugabea bainaiz. Patxi Zubizarreta

**Izan ere**, antigoaleko jende askorentzat, bihotza baitzen kontzientziaren organoa eta burua sentimenduena. Patziku Perurena

Nor da **izan ere**, gaurregun, familiko buru, haurra bera ez bada? Patziku Perurena

**Izan ere**, eskuratu eta gorde ezin ditugun gauzen gabezia gogo nare eta berdinez pairatzen duena baino sendoago nor izan daiteke? Imanol Unzurrunzaga

Izaki bizidunen ekintzarik arrunten eta beharrezkoenetariko bat, **izan ere**, aurrera begiratzea da. Juan Garzia

Ikustekoa baitzen, **izan ere**. Josu Zabaleta

## • (izan (du) aditzeko perpaus batean)

Annek, **izan ere**, bere egunkaria idatzi zuenean hamahiru-hamabost urte zituen. Josu Zabaleta

Nazio barneko merkataritzak, **izan ere**, trukea eragozten zuten oztopo ugari zituen. Koro Navarro

Bizitza zoriontsua zuen **izan ere**, funtsean, dena aldeko zitzaion. Patxi Zubizarreta

**Izan ere**, herri bakoitzak bere izpiritua dizu, bere nortasuna. Joxe Azurmendi

**Izan ere**, kristauek, barne-barnetik gorroto zioten, ez baitzuten Gabriel Ruaren kristautasunaz sinesten, Felipe Juaristi

## 4 ***izan ere***[2] (bestelako aditzeko perpaus batean)

**Izan ere**, auzi hura neuk sortua zen. Bernardo Atxaga

**Izan ere**, 'itzuli' egin ditugu testuak, ez [...] haiek hartu eta gure erara edo gogara berridatzi. Jose Antonio Mujika

**Izan ere**, dinamika hori gero eta urrunago dago estatuen kontroletik, eta eraso egiten die estatuen subiranotasunaren funtsezko zenbait ezaugarriri. Koro Navarro

**Izan ere**, horiek ez gaituzte jartzen moral oinarri baten eta Estatu lege baten arteko desberdintasuna nabarmentzeko tenorean. Andres Urrutia

**Izan ere**, erromatarrek kartagotarrenganako gorrotoa gorde zuten baita haiek suntsitu eta gero ere. Iñaki Iñurrieta

**Izan ere**, ez zuen uste berriro elkar ikusiko zutenik, kasualitatez ez bazen. Iban Zaldua

**Izan ere**, itzultzeko asmoarekin jo aten baitziren. Juan Garzia

**Izan ere**, egia argitaratzea sarri askotan arriskugarria zela uste zuen hark. Xabier Kintana

**Izan ere**, pentsatzen nuen elkarrekin aztertu behar genuela I. jaunaren egoera konplexua, eta, ahal izanez gero, laguntza eman hari. Xabier Olarra

**Izan ere**, betiko gauzen maitasunak zoriontsu egiten dituenak betiko legearen arabera bizi dira. Imanol Unzurrunzaga

**Izan ere**, non aurki heldulekurik argiari? Iñaki Segurola

Hemen, **izan ere**, landutako sororik apenas dagoen, eta lurra elkorra da, azalean bai behinik behin. Karlos Zabala

Baina arraza ariarra goratzeko haien arrazoi guztiak moralak eta kulturalak dira: **izan ere**, "historia" egiten dute, ez zoologia. Joxe Azurmendi

Jende artean, beste pertsona berezi bat juxtu-juxtu ezagutu nuen; **izan ere**, garai batean ile eta bizar luze-luzeak zeuzkan. Juan Kruz Igerabide

Badakizu, **izan ere**, nola jokatzen duen jende azal-ilun askok, norbaitek hatz bat eskainiz gero, besondoa hartzen diote. Mirentxu Larrañaga

Antzutasuna, **izan ere**, semen lodiegiak eragiten du eta, bestela, behar baino likido meheagoak. Xabier Amuriza

Miepek, **izan ere**, hain hunkigarriro kontatzen ditu gauza horiek guztiak; bera ere asaldatuta dago oso. Josu Zabaleta

Etxe honetan, **izan ere**, ez gaude seguru, ez ni eta ezta zeu ere. Migel Angel Mintegi

Bakoitzak erdiaren jabe baino ez izate horrek, **izan ere**, beste erdia bilatzeari denbora eta energia asko eskaintzera behartzen du. Juan Garzia

Alabaina, halabeharrak aurrea hartu zion, **izan ere** Darruitxek ministerioko zuzendari orokorrarekin elkarrizketatzea eskatu baitzuen. Patxi Zubizarreta

Halaxe baitzirudien, **izan ere**: inoiz ez zela han inor ibili, berrogeita bi pasaiariok eta eskifaiako bost kideek osatzen genuen taldearen arrastorik txikiena ere ez. Joxe Austin Arrieta

**"Izan ere**! ia ahaztu nintzen! -hots egin zuen amak-.

---

# izan[2] **1** *iz* izatea.

Norbere **izana** eta munduaren omena irabazteko asko erakutsi behar da eta asko ezkutatu. Iñaki Segurola

Garapen Iraunkorraren **izana,** sustraiak eta adarrak azaltzeko saio xumea da, beraz, liburu hau. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Gauza singularrei eta, beraz, gizakiari beren **izana** atxikarazten dien ahalmena, Jainkoaren ahalmena da, hots, Naturarena. Euskararen berezitasuntzat hartuak izan diren ergatiboari edo deklinabide mugagabeari, izatearekin edo **izanarekin** zer ikusi gutxi dutela esan bailiteke. Piarres Xarriton

**2** (izen hitzarekin hitz jokoa eginez)

Izenak ez du **izanarekin** zerikusirik, ezta izanak izenarekin ere, hitz onomatopeikoetan izan ezik. Joan Mari Irigoien

Objektuaren izena subjektuaren **izanarekin** loturik dagoen hotsezko ezaugarri ezin doiagoa eta ezin zehatzagoa balitz bezala. Joan Mari Irigoien

Izena duen orok omen du izana (hala uste omen dute euskaldunek), baina **izana duen** orok al du izena? Iñaki Segurola

Ontzian marinel eta zirujau zetorrenak Hendrike Frantziako zuela bataiarriko bere grazia, baina denek, fede ezin hobez, Mihurubiko Martin irizten ziotela, gurean **izana duen** orok ezizena ere baduelako. Edorta Jimenez

**Izanarekin** izenarekin ari nauk, ez izenaren **izanarekin**! Patziku Perurena

Izenak izen, bat bera da **izana**. Koldo Zuazo

Prezisio jakin batetik haruntzago, hau da, xehekiago behatu ezkero, lausotu egiten dira, lurrundu: izen-**izanak** galtzeko arrisku latzean amiltzen dira. Iñaki Segurola

**3** norbaitek duena.

Izen baten jabe eta diru baten jabe egitea da arrakasta; hau da: letra eta numero gizenez idaztea pertsona baten **izana,** balioa eta prezioa. Iñaki Segurola

---

# izanaldi *iz* existentzia.

Horrelako idazleak agerian jartzen du gure bizitza biltzen duten huskerien lupetz izugarri, ikaragarria; azalera ekartzen du mundu honetako gure **izanaldi** hainbatetan mingots eta gogaikarrian nonahi aurkitzen diren izaera hotz, arrunt eta xeheen hondoa. Jose Morales

---

# izanarazi, izanaraz, izanarazten du *ad* izatera behartu.

Heriotzak ontzen du bizia; (nere) heriotzak **izanarazten** du (nere) bizia, eta alderantziz. Iñaki Segurola

Harengan ez dela aniztasunik, ez eta Berarengandik kanpoan dagoena **izanarazteko** ezintasunik ere, eta munduarekin daukan harremana kapitainak bere itsasontziarekin daukana dela. Xabier Kintana

Bestela esanda: ingurua barrua dela, edo gauzaren ingurua gauza bera dela, zein baita ezin litekeen gauza, baina nor denak halaxe **izanarazten** duena. Iñaki Segurola

Ondorioz, Jainkoa bera eta gauza guztiak **izanarazten** eta eragiten dituen Jainkoaren ahalmena Haren esentzia bera da. Piarres Xarriton

---

# izanberritze *iz* izatea berritzea.

Asisko frantziskotarren **izanberritzea** deitu duena, erakutsiz nola ziren anai horiek Euskal Herri guzian zabaldu Bermeo eta Arantzazutik Donapaleura. Herria

---

# izandun *izond* ondasunak dituena.

Jende **izandun** nobleengan errukia sortzeko. Patziku Perurena

Jauntxo **izandun** batek haurdun utzi ondoren. Patziku Perurena

Nolabait bertako jende **izanduna** liluratzeko. Patziku Perurena

---

# izangai *iz* izateko gaia.

Baina zintzotasunak alde batera lagata, egiazkotasunaz atzendurik, gatozen egiantzekotasuna deritzan tranpa mortalera; balizko, baginako eta balirako mundura, hots, zientziara eta bere errealitatera, eta egin dezagun galdera ezina **izangai** bihurtzen duen beste era xume, arlote eta zientifiko honetan: zer da fotoia? Iñaki Segurola

---

# izangura *iz* izateko gura.

Izatea eman zion Harenganako konbertsio irrika duen arimak aurrena existitu beharra zuen; izan aurretik ez baitago **izangurarik**. Imanol Unzurrunzaga

---

# izanki ik **izaki**[2].

---

# izankide *izond* izan berekoa.

Estatuan, bere izaeran, lurraldean eta abar gezurrezkoetan sekula sinetsi ez [...] eta orain zer duk, eta estatugaien (Euskal Herria eta bere lehengusu eta **izankide** guztien) lurraldean eta bere tasunean, batasunean, kulturan, historian, izaeran, fedabideetan eta abar gezurrezkoetan sinetsiko dugula, ala? Iñaki Segurola

**izankidetasun** *iz* izankidea denaren nolakotasuna.

Objektu urrutienen **izankidetasuna**. Ibon Uribarri

**Izankidetasun** -arlo hauek guztiak elkarren artean uztartzen dituen sistema. Xabier Arregi

Berari lotutako arloa (formulazioaren benetako testuingurua ez dena, ezta bera artikulatua izan den egoera ere, baizik eta beste enuntziatuentzako **izankidetasun** -eremua). Xabier Arregi

Bera ez baita enuntziatuarentzat ahalbide-baldintza, baizik eta **izankidetasun** -legea. Xabier Arregi

---

**izankizun** *iz* izateko dena.

Jende askotxo bizi da -badakit- ez-izaki edo **izankizun** horren eguzkipean etzana, eta -neurera nator- ezin hilez bixirik dagoen euskara, halabeharrez, ezerez ideal horren estalkitzat daukana. Iñaki Segurola

---

**izankor** *izond* izateko joera duena.

Gauza, **izankor** gauzatzen ekilearen bidez; ekilea, gauza dela medio, ekile bilakatzen da. Itxaro Borda

---

**izantsu** *izond*

Osaeraz ere xelebre xamarra da hitza, oso gutxi baitira partizipio bati -tsu atzizkia erantsita sortzen diren hitzak: **izantsu** eta edukitsu -"asko duena, daukana"- gogoratzen zaizkit kolpera eta inon begira ibili gabe, eta baliteke halabehar hutsa izatea, baina baliteke halabehar bete-betea izatea ere. Iñaki Segurola

---

**izantza** *iz* izatea.

Euskal Herriaren bizi-partaide naiz, eta guztiz aintzakotzat hartzen dut Euskal Herriaren berezko **izantza,** eta beregain bizitzeko borondatea, egungoa eta etorkizunekoa. Herria

Lehenbizi ohean etsitzen ikasi zuen tximinoak, artean zeharo beratu gabeko tximino hark, ikaragarrizko desengainua hartu zuen bere egoitza eta **izantza** berri hartan [...], eta orduan zer egin zuen?: laguna bilatu, ohe-barruraino karriatu eta harekin larrutan egin, ohearen erruz galdu berria zuen animaliatasunari ez erabat uko egiteagatik, animaliatasun haren oroiminez eta galminez. Iñaki Segurola

---

**izapide** 1 *iz* zuzemena, urratsa. ik **diligentzia**[2].

Hainbat **izapide** bete behar zituzten abiatu baino lehen. Karlos Zabala

Legeak ezartzen dituen epeak eta **izapideak** betetzea ezinbestekoa dela ohartarazi zuen atzo Ciampik. Berria - Mundua

Kontua da, laguntzak eskatzeko **izapideak** hilaren 28rako bete behar dituztela ezinbestean. Berria - Ekonomia

Iturbidek ere jakingo zuen nora jo **izapideak** bizkortzeko. Migel Angel Mintegi

Abbey erosteko **izapideak** azkartuko ditu. Berria - Ekonomia

Behin umeari [...] izena emateko **izapideetan** lagundutakoan, itzuli eta han utziko nuen. Oskar Arana

Harryren testamentua balioztatzeko **izapide** zaila. Oskar Arana

Notarioarentzat "pentsioa lortzeko **izapideekin** zerikusirik ez zuten xehetasun alferrikakoak" ziren haiek. Ramon Saizarbitoria

Diruari bere zikin, gaitz edo bekatu fundazionala ritual edo **izapide** merke batekin barka dakiokeela erakutsi nahiz bezala. Iñaki Segurola

**2** ***izapideak egin.***

Bailiek ez zuten epaitzen; **izapideak** egiten zituzten, eta bitartekarien epaia esaten zuten, baina bitartekariek epaitu ezin bazuten, bailiek berek epaitzen zuten. Iñaki Iñurrieta

Administrazioan **edozein** izapide egin edo agiri bete behar dutenean gaztelaniaz egin behar izaten dute. Berria - Harian

Espainiako Gobernuko Sustapen Ministerioak **«izapideak** gaizki» egin zituelako. Berria - Euskal Herria

Zeintzuk ziren Benito zenaren hezurrak lortzeko modua eta Artaxonara eramateko egin behar nituen **izapideak**. Ramon Saizarbitoria

---

**izapidetu,** izapide(tu), izapidetzen da *ad* zuzemenak, izapideak egin.

Egoera irregularrean daudenen baimen eskaerak ez dira **izapidetzeko** onartuko, ez dira aintzat hartu ere egingo. Berria - Euskal Herria

Suitza herrialde txikia dela, ez dagoela lekurik ezin konta ahala iheslarirentzat, aterpe-eskubidea, bai noski, baina Hannak aski denbora izan zuela bere erbesteratzea **izapidetzeko**. Joxe Austin Arrieta

---

**izapidetza** *iz*

AEIPSPk antzeko legedia landuko du Europan sakabanatutako elkarte guztientzako, **«izapidetzak** ez ditzan pentsiodunen eskubideak lotu». Berria - Ekonomia

---

**izar** 1 *iz* zeruan distiratzen ikusten den zernahi argizagi, Eguzkia edo Ilargia izan ezik.

Eguzki, ilargi, **izar** eta astro guztiak ikustean. Elizen arteko biblia

**Izar** hori Venus da, inondik ere. Bernardo Atxaga

Zeruko **izar** eta konstelazioek ez dute gehiago argirik emango. Elizen arteko biblia

**Izar** bat bera ere ez zen ageri zeruan. Han da Sirio izarra, mordoxka honetako 8 **izarretako** bat, distira handien erakusten duena, Txakur handi deitu 8 **izar** horietako eta izartegi osoko distiratsuena bera, gainera. Agustin Otsoa

**Izar** azpian mundua. Joxerra Garzia

Haizeak ilentiari ateratzen zizkion txinpartak zeruko **izar** bilakatu zirela. Pako Aristi

Beste anitz **izar** bada Zaldixuriaren konstelazioan. Michel Oronoz

**Izar** horren aurrez aurre ere beste **izar** bat aurkitzen da zaindariaren belaunen artean: Arcturus izena du eta oso kolore fina du. Santiago Iruretagoiena

Bost izarrez osatua zela uste genuen, baina oker genbiltzan horretan: zazpi **izar** dira, Hartz Handia bezala. Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

Eta gau itxia zenez, **izar** argirik gabea, [...]. Felipe Juaristi

Zerutik **izar** handi bat jausi zen. Elizen arteko biblia

Belarraren berde biziaren gainean, gailurreko **izar** ñirñirkarien azpian. Fernando Rey
**Izar** iheskorrak, betikotasun guztirako ilunpe beltzak zain dauzkatenak. Elizen arteko biblia
Bere tristura-pleinuz **izar** alderraiak konjuratu eta haiek geldiarazirik. Juan Garzia
Fenomenorik ohikoena **izar** erratuena izaten da. Berria - Gaiak
Arima zoriontsu hura ikusi zuen, **izar** distiratsu baten itxuran. Askoren artean
Noiz eta begia bere lekuan ipini eta Scorpio-ko **izar** distiratsu hura ikusi bainuen. Joan Mari Irigoien

**3** *irud*

Nahiz eta estepa elur bigunez estaliak bizkor ibiltzea eragozten dion eta **izar** zilarkarak jaurtitzen dizkion ahora. Jose Morales
Osaba Joanikot izan nuen luzaroan neure gaueko **izar** eta ipar. Joan Mari Irigoien
Besarkatu behar nuela ene bihotzeko **izar** berria. Janbattitt Dirassar
**Izar** distiratsu bat jaio da, bai, gure auzoan, aurki futbolaren mundu zabalean dir-dir egingo duena! Joan Mari Irigoien
*ik beherago* 7. Askoren artean
Ia **izar** bakar legez agertzen dira idazleen ortzadarrean. Iñigo Aranbarri

**4** (astronomian) energia sortzen eta igortzen duen argizagia.

**Izar** finkoen esferarekin. Xabier Kintana
Izan ere, Eguzkia **izar** distiratsu bat baino ez da Plutonetik begiratuta. Berria - Gaiak
Bertako **izar** batzu gure Eguzkia baino ehun aldiz astunagoak dira. Berria - Gaiak
Teleskopioarekin argi ikusten da zeru laino horiek **izar** askotaz osatuta daudela. Berria - Gaiak
Argitasun une bat besterik izan ez bazen, **izar** baten lehertzearen modukoa. Xabier Aranburu
Desagertzear dagoen **izar** bat inguratzen duen eraztuna. Berria - Gaiak
Esne Bidean sortu ziren **izar** zaharrenen adina zehaztea lortu dute. Berria - Gaiak
**Izar** baten inguruan birak ematen dituen ustezko planeta baten irudiak lortu ditu Hubblek.
**Izar** horren inguruan beste hiru planeta ere badira. Berria - Gaiak
Teoriaren arabera, **izar** erraldoiak kataklismo baten bidez kolapsa daitezke, barruko erreakzio nuklearrek grabitatearen aurka egiteko behar adinako indarra sortzean. Berria - Gaiak

**5** (erkaketetan)

**Izarra** bezain argi. Anton Garikano
[Begiak] bizi-biziak zituen, **izarrak** bezain argitsuak. Ilargia bezain handi eta eguzkia bezain distiratsu zen **izar** bat bezalakoa zen. Askoren artean
Zeruko **izarra** bezain ederra. Janbattitt Dirassar
Jaunak esana baitzuen zeruko **izarrak** bezain ugari eginen zuela Israel herria. Elizen arteko biblia
Wendyren azken irudia leihokoa da, umeak zeruan urruntzen ikusten, **izarrak** bezain txiki bihurtu arte. Julen Gabiria
**Izarrak** baino gehiago dira. Fernando Rey
Zeruraino igoko naiz; **izarrik** garaienak **baino** gorago jarriko dut tronua. Elizen arteko biblia
Kezko gorputz bat zeruko hodei grisen artetik gora, mitxeleta bat bezala, **izar** bat bezala, gatz-lorea bezala. Felipe Juaristi

**6** izar baten irudikapena; izarrak irudikatzen diren itxura duen gauzaki puntaduna.

Zapalgailuaren gorenean, dena **izar** eta dena barra, Estatu Batuetako bandera. Joxerra Garzia
Asteburuan, paperezko **izar** laranjak banatuko dituzte kolonoen artean. Berria - Mundua
Anai Bernardok oso **izar** ederrezko koroa zuen buruan. Askoren artean
Burua estaltzeko zeraman kasketak, berriz, zilarrezko **izar** txikia zeukan aurrealdean txertaturik. Agustin Otsoa
Sebastianen atarira iritsi ginenean, hiru **izar** margotu nituen. Anjel Lertxundi
Ordutik aurrerakoa ezaguna da: **izar** horia jantzi beharra, kalera ordu jakin batzuetan soilik irten ahal izatea, merkataritzan jarduteko debekua, e.a. Urtzi Urrutikoetxea
Daviden **izar** horia zeramatenek ez baitzuten aberririk. Felipe Juaristi
Michelin Gidak bi **izar** ematen baitizkio. Ramon Saizarbitoria
**Izar**-itxurako lore batzuek dir-dir egiten zuten fosforeszentzia argiz. Lopez de Arana
Mila ezproiren **izar** puntadunak. Karlos Zabala
Uniformeko paparrean **izar** gorria zeraman, bere karguaren adierazgarri. Felipe Juaristi
Luxuzko hotela da, bost **izar** ditu, gida guztietan ageri da. Anjel Lertxundi

**7** zaldi baten kopetako zuriunea.

Bi zaldi gazte, lau ankak zuri, **izar** zuri bekokia. Patziku Perurena

**8** zineman, kiroletan edo gainerako lanbideetan nabarmentzen den edo jendeak miresten duen pertsona.

Uste dut ez dudala behin ere ikusi zu bezalako gazte lerdenik, eta oraindik ere zine mutuaren garaian bagina, **izar** bihurtuko zintuzket astebete baino lehenago. Fernando Rey
Eguzkia Beverly Hillsen atzetik sartzen ari zen, **izar** ospetsu guztiak bizi ziren tokitik. Fernando Rey
Jende gehiago sartzen ari zen eta ohartu nintzen horietako bat Grace Briscoe zela, **izar** handia, une hartan Smithers andreari eta Sami bostekoa ematen ari zitzaiena. Fernando Rey
Nire herrian egunkarietako ebakinetan nire izena **izar** handienen ondoan ikusten zutenean. Fernando Rey
Bai, **izar** bat izango haiz, beharbada, eta jende guztia esku-igurtzika ibiliko zaik, orain bezala. Joan Mari Irigoien
Telebistako **izar** batek ezagutzen ez nuen gizon zahar bat elkarrizketatzen zuen. Ramon Saizarbitoria
Portlandek bi **izar** izan zituen Valladoliden aurka: Rivero eta Boesen. Berria - Kirola
Alessandro Petacchi da Fassa Bortoloko **izar** distiratsuena, baina ez bakarra. Berria - Kirola
Hango zaleek nahiago dituzte jokalari langileak **izar** nagiak baino. Berria - Kirola
Goizean zakur gosekilen moduan ibili garen idazleok **izar** jatun bilakatu gara hemen. Edorta Jimenez
Irain, mespretxu eta jauntxokeria merkea barra-barra darabilen irrati-uhinetako **izar** itzaltsuak. Joxerra Garzia
[Bertsolaria] alde batetik **izar** mediatikoa da eta bestetik nonahi ia lagunartekoa. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua
**Izar** berri bat intelektualen artean. Oskar Arana

**9** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Arcturus **izar**-sisteman piztutako gerraren ondoren ihes egindako lehenengo espaziontzien etorrera. Iban Zaldua
Ba, **izar**-euri edo **izar**-jario hori, benetan da ikustekoa, egia. Pello Zabala
Ilberritik gertuko egunetan izango dira **izar**-euri ikusgarrienak. Berria - Gaiak
**Izar**-kumeak deituko die baten batek. Pello Zabala
Tximino hori ez da **izar**-igarlea, egi-egia hori. Patxi Ezkiaga
Astronomiarako **izar**-mapak egiten ari zirela. Iñaki Mendiguren
**Izar** ihintz eztiak busti belardian pausatzeko. Itxaro Borda

**Izar** hautsa. Idazle apal ezezagunok ibili ginen moduan ibiltzeko prest ziratekeen **izar** -idazleak. Edorta Jimenez

Historia osoko pentsalaririk bikainenetakoak zeuden han bilduta, **izar** -kumulu miresgarri baten eran. Fernando Morillo

**10** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abar gorri horietan bertan, begi ernamuin ttikiak han daude prest, ile- **izar** ttiki gorrixkak zabalik, hauts ttattar horietakoren bat harrapatuko duten zain. begiak betaurreko beltz lodiz estaliak zituen, uniformeko paparrean nabarmen komisario **izar** gorria zegoen. Pello Zabala

Zinema- **izar** eta abarren bisitak jasotzen zituen. Julen Gabiria

Telebista **izar** izan zeneko garaitik. Edorta Jimenez

Futbol **izar** bat izateko bidean nengoelako. Joan Mari Irigoien

**11** ***itsas izar*** itsas hondoan bizi den izar itxurako ekinodermoa.

Goizetan, itsasoak behera egiten zuenean, harkaitzetako zuloak atzapar iletsuko itsas armiarmaz, malba-koloreko **itsas izar** likaz eta sabelalde gorriko karramarroz betetzen ziren. Xabier Olarra

Itsas trikuen fosilak -bost puntako **itsas izarraren** antzeko irudia izaten duten sagar baten antzeko harri biribilak-.Zenbaitzuetan neskatoak bere eskutxo itsas **izar** tankerakoa luzatzen zion. J.M. Olaizola "Txiliku"

**12** ***izar egon***

**Izar** dago gaua, eta dar-dar dagite urruti, urdin, argizagiek. Imanol Zurutuza

**13** ***izar loka*** *(orobat* ***izarloka*** *g.er.)*

Etorri zen eta alde egin zuen, **izar** lokaren modura. Felipe Juaristi

Handik goizeko lauretara, zirkinik ttikien eta xehatxenak ere apuntatu, bai haize xafladaren bat balin bada, edo **izar** -lokaren bat azaldu denentz. Pello Zabala

Horietako batzuk izango ote dira guk **izar** -loka deitzen ditugunak? Pello Zabala

Ikusiko ditudalakotz, abuztuaren une honetako fenomenoak: ortzi kapa ilunean, **izar-lokak** jauzika. Piarres Aintziart

Kanpoan, **izarloka** baten isats iheskorra dirdaitu zen abuztuko izartegian. Aingeru Epaltza

Gauaren hastapena izarrei begira eman dugu, eta nahikariren bat eskatzeko esan diot **izar** lokaren bat ikusi orduko. Javi Cillero

· Duela gutxi, telebistako izar horietako bat izan zen zepoan erori zena: Ana Rosa Quintana, bigarren izena behintzat ezin hobeto jarria duen tele- **izar loka** . Joxerra Garzia

**14** *izar-kume* ik **izarkume.**

**15** ***izar multzo***

Zeru-sabai garbi horretara begiak luzatu orduko, gau argia denean, noski, **izar** multzoak ikusten ditugu, eta badakizue multzoxka horiei izen bereziak eman zizkietela aspaldítik: Hartz handia eta Hartz ttikia, adibidez, hor dira goian ongi kokatuta. Pello Zabala

Lot al ditzakezu zuk **izar** -multzoak edo konstelazioen loturak aska [...]? Elizen arteko biblia

Cancer konstelazioan **izar** multzo ugari daude: begi bistaz zerbait lainotsua bezala agertzean dira. Berria - Gaiak

**16** ***izar uxo*** izar iheskorra.

**Izar uxoak** zebiltzan. Juan Garzia

Hontzak... **izar uxoak** ... eta gaur itxura xelebreko jendea ere bazebilen hirian... Iñaki Mendiguren

Bakar--bakarrik **izar uxo** baten antzeko zerbait. Julen Gabiria

Kent, Yorkshire eta Dundee bezain urrutiko ikusleek deitu didate esanez atzo agindu nuen euriaren ordez, **izar uxoak** izan dituztela bota ahala. Iñaki Mendiguren

**Izar uxoak** Kenten erortzen... apustu egingo nuke Dedalus Diggle-ren kontua izan dela hori; ez du inoiz zentzu handirik izan. Iñaki Mendiguren

Taldearen entrenamenduetan ikastetxeko erratzetako bat erabiltzen zuen orain, **Izar uxo** zaharretako bat, oso geldo eta estropezuka hegan egiten zuena. Iñaki Mendiguren

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 5 aldiz agertzen direnak)**

**futbol izar** (8); **gure izar** (5); **itsas izar** (5)

**izar berri** (8); **izar berria** (24); **izar berriak** (11); **izar berritik** (5); **izar bilakatu** (8); **izar distiratsu** (12); **izar gorria** (7); **izar handi** (13); **izar handia** (8); **izar handiak** (5); **izar handien** (5); **izar horia** (20); **izar horiak** (7); **izar izan** (5); **izar multzo** (5); **izar nagusia** (11); **izar nagusiak** (9); **izar ontzigintza** (6); **izar ontziola** (10); **izar ontziolak** (6); **izar ontzioletako** (8); **izar talde** (11); **izar taldea** (41); **izar taldeak** (13); **izar taldearen** (16); **izar taldeko** (35); **izar uxo** (5); **izar uxoak** (7)

**munduko izar** (5); **taldeko izar** (7); **zeruko izar** (10)

**futbol izar bat** (7); **izar bat izango** (5); **izar bat zen** (5); **izar baten inguruan** (8); **izar distiratsu bat** (5); **izar taldea zatitzeko** (6)

**goizeko izarra** (28); **gure izarra** (5); **izarra izan** (13); **izarra izateko** (5); **kanboko izarra** (11); **partidako izarra** (7); **taldeko izarra** (17)

**goizeko izarrak** (7); **irñ irka** (5); **izarrak ñ izarrak bezain** (13); **izarrak bezala** (8); **izarrak ikusi** (6); **izarrak ikusten** (7); **izarrak ikustera** (5); **izarrak izan** (6); **izarrak txapelketa** (11); **izarrak zeruan** (5)

**izarrak bezain ugari** (9); **taldeko izarrak** (6); **zazpi izarrak** (5); **zeruko izarrak** (20)

**izarrei begira** (18); **izarrei beha** (12); **izarren argia** (7); **izarren artean** (12); **izarren arteko** (7); **izarren azpian** (9); **izarren hautsa** (29); **izarren liga** (5); **izarren ligan** (15); **izarren moduan** (7); **izarren odola** (8); **izarrez betea** (5); **izarrez beteriko** (6); **izarrez betetako** (5)

---

# izara 1 *iz* maindirea.

Ez tapaki ez **izara,** elkarren alboan larrugorritan esnatu gara. Patxi Zubizarreta

Burusiak altxatuko zituela, **izarak** atera, lastairari buelta eman, eta aireberritzen ipiniko zuela. Juan Kruz Igerabide

**Izarak** aldatu behar ditu. Xabier Paya

Bi **izara** lotuak soka moduan luzatu ditugu leihotik behera. Joseba Sarrionandia

Zapiaren ordez **izara** bat astintzen azaldu zen atarian. Ramon Saizarbitoria

**Izara** batetik zintzilik aurkitu zuten hilda, ziegan. Berria - Euskal Herria

Elaine Oglethorpe, **izara** batean bilduta, gelan sartu zen. Lopez de Arana

Orduak neramatzan lo egin ezinik, ohean jira eta bira, **izara** artean korapilatzen. Jasone Osoro

Etxera ondo asetuta helduko zelakoan, ondo hustuta, esan nahi dut, **izara** azpiko jokoetarako grina barik... Paddy Rekalde

Ez zuen aurpegia **izaren** azpitik atera. Julen Gabiria

*ik* izarape.

Nork harrapatuko **izaren** azpian! Migel Angel Mintegi

Hura doi-doia gelara sartu eta **izaren** artera nirekin batera sartzekotan zela, bere haragi leun beroa nirean kiribiltzeko irrikaz. Oskar Arana

**Izara** mutur batetik heldu eta hilotza agerian utzi zuen. Harkaitz Cano

Izotz blokeak batuz zabalduko da elurtea **izara** bat bezala itsasoaren gainean. Joseba Sarrionandia

Gauaren **izaretan** zegoen bilduta. Julen Gabiria

Ez zuen aurpegia **izaren** azpitik atera Julen Gabiria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Aurrena pozoitu egin zuen, bigarrena ito **izara** busti batez. Gotzon Garate

J.L.R. Josek, gorpua harturik, **izara** garbi batean bildu zuen. Elizen arteko biblia

**Izara** zurien artean etzanda. Ramon Saizarbitoria

**Izara** zimurtsuen artean aztoraturik mugitzen zen, ezeroso. Lopez de Arana

Hezetasunez lizundutako **izara** artean. Iñaki Mendiguren

Eskumutur biak heldu zizkion samurki Martak Patakiri, oheburuan **izara** hautsi batekin eskulotzera balihoa bezala. Harkaitz Cano

Ematen zuen isiltasunak, **izara** erraldoia bailitzan, hotela biltzen zuela. Bernardo Atxaga

Ilunaren **izara** beltzaren pean. Karlos Linazasoro

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Eskuetan zeukan **izara** saila komoda batean utzita eskaileran behera jaitsi zen Antonia. Josu Landa

**Izara** zati bat gerrian lotu eta Bilboraino joan zen oinez. Joseba Sarrionandia

Leihotik behera **izara** soka zintzilik. Joseba Sarrionandia

Bere ukabiltxo arrosak **izara** -ertzaren kontra estututa. Lopez de Arana

**Izara** izkina ohearen zangoan lotzen duen artean. Joseba Sarrionandia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mendi kaskoek ordurako ohi zuten elur-**izara** falta izan arren. Jon Alonso

Neskaren azal argia elur **izara** bezalakoa zen, hain zegoen zurbil. Fernando Morillo

Euriaren zilar-**izaran** zehar Gryffindorreko zutoinak ikusten ahaleginduz. Iñaki Mendiguren

Ana Morena han goran eserita ikusirik, erruki-**izara** batek estali zituen nire begi argi unatuak. Karlos Linazasoro

**5** ***hil-izara***

Aldare aurreko eztei-jantzia bezain eder edo ederragoa ageri zen organdizko hil-**izara** uraren gainean. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **elur izara** (3); **izara artean** (23); **izara batean bilduta** (4); **izara gainean** (7); **izara zuri** (7); **izara zuriak** (4); **izara zuriz** (3); **izaren artean** (10); **izaren azpian** (4); **izaren azpitik** (3); **izaren keinua** (3); **kotoizko izara** (3); **oheko izarak** (4); **zetazko izara** (3); **zetazko izara artean** (3)

---

## **izarape** *iz* izara azpia.

Baina han, **izarape** bukagaitz hartan, bakardadearen mamu galanta zegoen kizkurturik eta irentsi egin ninduen, zurp, urreburuak zizarea bezala. Hasier Etxeberria

Gero, ohean hainbat buelta emango dut lo egin ezinik, **izarapean** biluzik. Joseba Sarrionandia

Ohe barruan irakurtzen nuen nik, **izarapean,** linterna txiki baten laguntzarekin. Anjel Lertxundi

Eberen gorputz uzkurtua alferrik saiatzen da **izarapean** beroa topatzen. Sonia Gonzalez

Mamorroaren beldur **izarapean** ezkutatzen den haurraren antzera. Sonia Gonzalez

Eskuineko zapata eta galtzerdia kendu eta Lucasen **izarapera** sartu zuen Mariak oina. Unai Elorriaga

---

## **izaratxo** *iz* izara txikia.

Beste egun batean, finean, Mariasun Landaren Txan fantasma irakurri, eta berak bere interpretazioa egin zuen, errotuladorez esku bat marrazten zuela, bere bost hatzekin, hatz-punta bakoitza fantasma txiki baten **izaratxoak** estalirik. Joan Mari Irigoien

---

## **izarbel** *iz* planeta.

Lurra, gure **izarbel** urdina. Herria

Hasteko eta bat, delako izar hori ez da egiazko izar bat bainan **izarbel** bat. Herria

Ez naiz X3C **izarbeletik** etorri eta idazlez itxuraldatu den V kuskandela ikaragarria. Itxaro Borda

Beste **izarbel** batetako jende bat baldin bada. Menane Oxandabaratz

Xinak ere bere lekua nahi du **izarbel** -espazioan. Herria

---

## izardi ik **izerdi**.

---

## **izardun** *izond* izarra duena; izarrak dituena.

Itsasoa, basoa, zeru **izarduna**. Jenaro Garate

"Ermita" auzoko hotel **izarduna** zen. Ramuntxo Etxeberri

Sukaldari haundiekin ginen joan den astezkenean, jatetxe **izardun** horietan. Herria

Che Guevara zeritzon morroi bizartsu baten poster zaharkitua ikus zitekeen, txano **izarduna** buruan eta begirada hodeiertzean. Jon Arretxe

Ohe **izardunei,** zisne lepoko aulkiei, esfinge itxurako su-burdinei Gosaltzen ari nintzen beste **izardun** batekin, portugaldar bat. Koldo Izagirre

---

## **izari** 1 *iz* neurria, tamaina.

Denboraren **izaria,** erritmoaren aldaketa... Filipe Bidart

Gelaren **izaria** bi metro karratu. Michel Oronoz

Aldizkariaren **izaria** handitzen da, A4 formatua ukanen baitu hemendik aitzina. Herria

Ohoinak gogorki gaztigatuak ziren, **izariz** kanpo. Marzel Etxehandi

**Izariz** kanpoko fedea. Itxaro Borda

Batean **izariz** kanpoko beroak, ondotik gaitzeko hotzaldiak! Herria

Elgar aditu zuten ogiaren eta artoaren prezioa goratzeko **izariz** goiti. Xipri Arbelbide

Zuen zorra pagatu duzue ezin ederkiago, **izariz** gaindi. Herria

Ofizioko gizonak badira hor begi kolpe batez **izaria** hartzen dizutenak. Marzel Etxehandi

**Izari** bereko orratz guztiek. Piarres Xarriton

Orduan zituen baigorriarrak garaztarraren **izariak** hartuak eta hamar kintze hartu ere, 20-10. Herria

Beharrik denboran gure eliza handian **izariak** ongi asmatuak ziren holakoetan bederen jendearen kokatzeko. Herria

Beraien baitako gerla-kanta baten **izariak** markatuz ari zirela ematen zuen. Itxaro Borda

Heineko **izari** bat behar dela izan induljentziaren eta haren emateko arrazoiaren artean. Piarres Xarriton

Duela mila urte, leku honen garrantzia Orreaga eta Cebreiroren **izarikoa** zen. Piarres Aintziart

Gogoan hartuz geroz fedegabeen aurkako gerlaren helburu orokorra eta kristautasunaren eta erlisionearen defentsa dela Bulda deitu emaitzaren oinarri nagusia, gauza gutxia eta erraza baita amoina berezi hura, erraten ahalko da [...] delako emaitza ez dela araberakoa ez behar den **izarikoa** . Piarres Xarriton

Ez genuela euskaldunek nehongo faboreen aiduru egoiterik gure nazioari bere **izariko** estatuaren orkoia moldatzeko. Piarres Xarriton

· Bulgarian lurrikara izan dute iragan astean, 4,4 neurrikoa Richter **izarietan** . Herria

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Bagoira sarrarazten gaituzte bosnaka, kondatzen behin eta bietan, barne hura bete-bete arte 100 preso **-izari** betea, zapatua- eta bagoia hesten dute eta ontsa hesten. Marzel Etxehandi

Bainan gertakari horiek ez ditazke ere gorde… izari bat behar litakeela atxiki? bainan nun da **izari** ona? Armen kargatze hori guti gorabehera egiten zuten, ez zutelakotz **izari** xuxenik. Herria

Nun den **izari** egokia, hortan da auzia. Herria

Heineko **izari** bat behar dela izan induljentziaren eta haren emateko arrazoiaren artean. Piarres Xarriton

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Hori da españolez *fanega* eta frantsesez *arpent* deitu aspaldiko lur **izaria** . Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Pertsona horiek Albert eta ni ginen, ezkutu, egitekotsu, multiforme, beste denbora- **izari** batzuetan. Juan Garzia

Gizonak aldiz, gizon delakotz, baditu gizonaren mugak bezala, bere neurri- **izariak** eta hauek sort ditzazketen aberastasun batzu ere, ordainez! Herria

**3** ***izarian*** neurriz.

Gizon zuhurrari dagokiola, janari eta edari goxoak hartuz, **izarian,** bere burua indarberritzea eta suspertzea. Piarres Xarriton

Arno xorta bat on baizik ez dela gorputzarentzat, **izarian** edanez. Herria

Behar dela mugitu, gorputza ez «herdoiltzerat» uzteko, mugitu egun guziz bainan **izarian** . Herria

Aise gehiago hartuko omen zuen haatik, gure Kostaldean ala bestalde, diru gehiago ukan balu, bainan sosa **izarian** du eta denetarat ez da beraz hola eta hola heltzen ahal... Herria

Alde batetik Hamaseko terroristak eta bestetik Israelen armada bipila **izarian** egoiterat deituz. Herria

**4** ***izari batean*** neurri batean.

Untzi haundi batzu egin baitira eta ainitz arrain betan hartzen ahal dutenak, behar litake kasu egin eta **izari** batean egon. Menane Oxandabaratz

Erretretan diren batzueri ere gogotik eman lezakioke lan zerbaiti legez-lege lotzeko moldea, **izari** batean halere... Herria

Turismoaren beharra bainan **izari** batean. Herria

Denek behar dutela aintzina segitu, bainan denek kasu eginez eta **izari** batean. Herria

Egia ere izaiten ahal da, **izari** batean bixtan da... Herria

Ainitzek nahiago halere atea ideki bainan **izari** batean eta muga batzu atxikiz, orai arte bezala edo bezalatsu... Herria

**5** ***izariko zapata atzeman*** bikotekide egokia aurkitu.

Eta oraikoan Mutxurdin eta Karlosek atxemanen dute **izariko** zapeta! bixtan da gomita hau auzo herrietako ezkont-gaientzat ere bali dela! Herria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **denboraren izaria** (4); **izariz kanpo** (3); **izariz kanpoko** (8)

---

**izarigabe** 1 neurrigabea.

Aitaren egiteko moldeak zinez harritzen ninduen, eta deblauki errateko, **izarigabea** kausitzen nuen. Daniel Landart

**2** ***izarigabeko*** *izlag* izarigabea.

Faraonen piramida **izarigabekoek** Faraonen jainkotasun beldurgarria adierazten zutela. Piarres Aintziart

---

**izariño** *iz* izar txikia.

Nahiz denek badakigun [...] garapen hobea ez dela hola eta hola jiten, ainitz gisetarat lagundua izaiten ahal dela, trabatua ere ba, hori dela alde bat gertatzen, gobernuaren eragina ezin ukatua izanki segur bainan **izariño** batean...! Herria

Gauaz bereziki eta argitu arte gainerat, ainitzek ez baitakite **izariño** batean gelditzen. Herria

---

**izarkari** *iz ipar* neurtzailea. ik **izartzaile**.

Hego Lapurdin, arraintza sailetan, Departamenduak 12000 euro bozkatu ditu arrain **izarkari** baten erosteko Donibane / Ziburuko portuan; Arta eta Zokoako dike azpiko mugimenduen neurtzeko tresneria berri iraultzaile batentzat 102 000 euro. Herria

---

**izarkume** *(orobat **izar-kume**)* *iz* asteroidea.

**Izar-kumeak** deituko die baten batek; *Herria* aldizkarian, "satelite" ttiki gizakiak igorritako horiei ilargikuma deitu zitzaien gisara, eta ez dago gaizki: ilargikume batzuk, izarkume hauek jo ez jo, hortxe arrisku bizian ibiliko direlako. Pello Zabala

---

**izarlari** *iz ipar* kosmonauta.

Huna zertsu dioten hor gaindi erabili **izarlari** batzuek, lehen aldikotz, 1961 ean, Youri Gagarine errusoa altxatuz geroztik. Herria

Handik hamar urteren buruan [...] "Mission Apollo 15"-en aldi, eta hor James Irwin **izarlariak** [...]. Herria

---

izarloka ik **izar 13**.

---

**izarniadura** *iz* argitasun aldakorreko distira.

Txispa baten **izarniadura** bordaren barruan, kandela baten argia. Errekako uretako **izarniadura** zuri horiak itsutu baitu istant batez. Koldo Izagirre

Harrez gero izarrak **izarniadura** galdu zuen. Edorta Jimenez

Euriaren ondoko gardentasuna giroan, bustiaren distira gauza guztietan, **izarniadura** hori eta Rosamari ezagutu izanaren harri ukaldia kopetaren erdian, aspaldi ez bezalako

astelehen egunsenti ederra. Koldo Izagirre

---

**izarniatsu** *izond* argitasun aldakorrez distiratsua.

Begiak, betikoak, ilun eta **izarniatsuak**. Aingeru Epaltza

Alabaina, gure arteko tartea hain zen tikia, neurtzen ahal bainion begietako kolorea, iluna eta **izarniatsua**. Aingeru Epaltza

Betaurreko **izarniatsuekiko** gizonei. Xabier Olarra

Orga urrundua zen, zarata ahuldua zen emeki, eta mendian galtzen zen heinean haurtzaroaren berragertze **izarniatsua** itzali egiten zen ene gogoan. Koldo Izagirre

Ehun leiho handi zabaldu eta biziki **izarniatuetarik** datorren leinuru leun batek argitzen du plaza eztiki. Koldo Izagirre

---

**izarniatu**, izarnia(tu), izarniatzen **1** da/du *ad* argitasun aldakorrez distiratu.

Orduero **izarniatzen** ziren ehunka laser-izpi zeru hartan, Txaikovskiren musikaz lagunduta. Berria - Kultura

Hegoaldeko Gizakien zimitarra biluziek izarren distiraz **izarniatu** zuten. Agustin Otsoa

Pinakuluak kristal landuzko bitxiaren antzera **izarniatzen** zuen. Agustin Otsoa

Gaztelako zeruak **izarniaturik** zeuden, eta unibertsoaren sakonak Jainkoaren eztarria zirudien. Juan Kruz Igerabide

Niri bakarrik zuzendu zitzaidan Olinpiaren maitasunezko begirada, eta sentimen eta pentsamenduak **izarniatzen** zizkidan; Olinpiaren maitasunean bakarrik aurkitzen dut neure nortasuna. Anjel Lertxundi

Xahartuko dira, nolabait esatearren, pindarrak eta txinpartak, eta orduan ikusi ahal izanen duzu odol tanta bat, menturaz bi, goiko ilunpetik zuregana **izarniatzen,** baratxe amiltzen. Koldo Izagirre

**2** (era burutua izenondo gisa)

Baratzeak mortu zeuden, eta zeru **izarniatua** berehalako izozte bati begira zegoela ematen zuen. Juan Kruz Igerabide

---

**izarniatzaile** *izond* argitasun aldakorrez distiratzen duena.

Urrunean, haranaren sakontasunean, bost bat legoara zuzen-zuzen, Ibai Handia zihoan, gris eta distiratsu ipar-mendebaldetik, hegoalderako bihurgune zabala marraztuz eta, lanbro **izarniatzailean** galdu aurretik, mendebaldera itzuliz. Agustin Otsoa

---

**izarño** *iz* izartxoa.

Bere aurrean, gauean **izarñoak** egondako leku berean, datilondo ilara luzea, amaiezina, ageri zen. Xabier Aranburu

Egundaino ez dut geroztik ukan gauazko treinean hain goxoki mintzatua nuen **izarño** haren berririk. Janbattitt Dirassar

Kanpoko argiak bizi laburreko **izarñoak** piztarazten zizkion behiala soildurik ezagututako buru gaineko mataza gominaztatuan. Aingeru Epaltza

Osagairen baten %0,9a transgenikoa bada [...] hala adierazi beharko du **(izarño** baten bitartez jakinarazi beharko dio erosleari). Berria - Euskal Herria

---

**izarpe** *iz* gaueko zeruaren azpiko lurra.

"Ederra da **izarpe** honetan hiltzea", esan zuen Vladimirrek bat-batean hasperen eginez. Bernardo Atxaga

Hain daude nekeak jota errailok; trena gelditu egiten da **izarpe** zabalean. Eskarne Mujika

Jenderik gehienak **izarpean** egin du lo, burua ezkutuaren gainean. Jon Alonso

Artzain batek gaua **izarpean** pasatzetik salbatu gintuen. Bernardo Atxaga

Ariketa zirtzil horretan aurkitu nuen nabarmentzeko bidea, nola edo hala nabarmentzeak bakartasunaren **izarpetik** lagun-multzoaren aterpera dagoen tartea finkatzen ahal zuen garaietan. Aingeru Epaltza

Ekitaldi nagusi gisa, **izarpeko** opera emanaldi bat iragarri zen. Alberto Ladron Arana

---

**izarradura** *iz*

Ez zuen asko behar **izarradura** tapatzeko. Koldo Izagirre

---

**izarralde** *iz* izar taldea.

Kide haren irriaren oihartzuna gozo zitzaidala oroitzen naiz, zeru hondoan, desiraren biderkagarri zitekeen Hartzaren **Izarraldea** bilatzen nuen bitartean. Itxaro Borda

---

**izarramentu** *iz*

'Gau **izarramentua,'** oroituko duzu Kalaportuko arrantzaleen berbamodua, eta errime esango duzu, 'bihar izorramentua!' Joseba Sarrionandia

---

**izarrarte** *iz* ortzia, izarren izarren egoitzatzat hartua. ik **izartegi**.

Ni ere gaueko **izarrarteari** beha nengoen. Fernando Rey

Eguzkia ez da egunero toki berean ateratzen **izarrartean,** pixkanaka-pixkanaka leku aldatuz doalako. Pello Salaburu

Izarrak ñirñirka ari ziren Araraten gainean, eta gailurrak bat egiten zuen **izarrartearekin**. Fernando Rey

Orain dela 6.000 urte konturatu zen norbait Egipto aldean horrenbesteko denbora pasatu ondoren, halako batean izar berezi bat ageri zela goizean urruneko **izarrartean**. Pello Salaburu

Eta badira ere Filosofo batzuk **izarrarteko** mugimenduek harmonia bat osatzen dutela uste dutenak. Piarres Xarriton

Begira **izarrarteko** distira. Imanol Unzurrunzaga

Zehazki esateko, **izarrarteko** espazioan 450 milioi kilometro barrurago. Berria - Gaiak

Aerogela erabili ohi du NASAk **izarrarteko** hautsa «aldatu gabe» jasotzeko. Berria - Gaiak

---

**izarratu**, izarra(tu), izarratzen **1** da/du izartu.

Hainbeste ez balira -apaizak esan- estimagarriagoak izango lirateke; **izarratu** egin behar da liburu hau, eta zikinkeriaren batzuk garbitu behar zaizkio gauza zoragarri horien

artean dauzkanak. Patxi Ezkiaga

**2** (era burutua izenondo gisa)

Gau **izarratua** zegoen. Unai Iturriaga

Gau **izarratuan,** Mary Landford Rubenekin doa zaldi gainean. Patxi Zubizarreta

Kolpetik bezala, zeru **izarratua** utzi zuen, airea garden garbitu berritan. Pello Zabala

Zeru **izarratua** gainean, harri freskoa azpian, Aioraren larru epela zentimetro batera. Xabier Mendiguren Elizegi

Eter **izarratuaren** beroak. Xabier Amuriza

• **3** *iz* gau izarratua.

Zeruan **izarratu** ederra zegoen eta elurrarekin bazterrak franko ongi ikusi eta Aireko errebueltan ezkutatu ziren arte egon ziren begira. Pablo Sastre

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zeru izarratua** (3)

---

# izarreztatu **1** *ond* izarrez betea.

Gau hotza duzue, **izarreztatua**. Xabier Montoia

Harryk gora begiratu eta belusezko sabai beltza ikusi zuen, **izarreztatua**. Iñaki Mendiguren

**2** *irud*

Gaitzeko borta, zeruraino doan borta, zeruko atea, zura itzez **izarreztatua,** 585 itze kasko beltz, mugimendu gabeko konstelazioa, zur gorrian landatua. Michel Oronoz

Belarra artean berdetasun trinko leunekoa, etxearen berdetasuna pasio lore purpurez **izarreztatua**. Anton Garikano

---

# izarrontzi *(corpusean* ***izarruntzi*** *soilik)* espaziontzia.

Otsailaren 1ak ekarri duen bertze berri guzien artean, [...] harrigarriena, izigarriena, Columbia **izarruntziaren** zapartatzea Texas-eko zeru gainean, barnean ziren zazpi espazio-presunak xirtxikatuz. Herria

---

# izartasun *iz* izarra izateko tasuna.

Norbaitek pentsa dezake, gure herri txiki honetan, **izartasunak** demaiola bertsolariari edozein hedabidetan azaltzeko aukera. Andoni Egaña

Rufino bere **izartasunaz** harro eta seguru ibiliko zan, jentearen aldetik be, halantxe hartua izateko karismea eukan eta. Xabier Amuriza

---

# izartegi **1** *iz* ortzia, izarren egoitzatzat hartua. ik **izarrarte**.

Kanpoan, izarloka baten isats iheskorra dirdaitu zen abuztuko **izartegian**. Aingeru Epaltza

Begi malkoz itsutuak jaso nituen **izartegira**. Karlos Linazasoro

Han da Sirio izarra, mordoxka honetako 8 izarretako bat, distira handien erakusten duena, *Txakur handi* deitu 8 izar horietako eta **izartegi** osoko distiratsuena bera, gainera. Pello Zabala

**Izartegiaren** mugimendu harmoniko eternalean arimak bere harmoniaren ideala kontenplatzen zuen. Joxe Azurmendi

Badakizu lurraren eta **izartegiaren** artean zazpi direla zirrikak, Ilargiarena *Lunæ*, Merkurusena *Mercurii*, Venusena *Veneris*, Eguzkiarena *Solis*, Marsena *Martis*, Jupiterrena *Iovis* eta Saturnusena *Saturni*, eta izar geldiak dituen zirrikari bederatzigarren bat gehitzen zaiola izarrik gabe dena eta esferaren forma duena. Aurelia Arkotxa

Bai ederra zu, ene laztana, Tirtza hiria bezain ederra, Jerusalem bezain zoragarria, **izartegia** bezain izugarria! Elizen arteko biblia

**Izartegiko** musikaren til-tila entzuten zuela iruditu zitzaion Joanesi Felipe Juaristi

**2** *irud*

Aldi hartan, Frantzisko zoriontsuak, bere mirari harrigarriengatik, Elizaren **izartegian** izar berri bezala distiratzen zuen Asis hirian. Askoren artean

Hara nola jaio zen Odei "euskal mitologia" izenekoaren **izartegira**. Iñaki Segurola

Pop musikaren **izartegiko** supernobarik distiratsuena bihurtu zela *Creaming My Jeans* taldea Patxi Iturritegi

---

# izartsu *izond* izarrez betea.

Gau **izartsua** zen; munduko lehen gaua zirudien, hain zen apala. udaberriko gau **izartsu** eta epeletan. Pako Aristi

Basoa maite dut, itsasoa maite dut, Kantek eta denok zeru **izartsua** maite dugu. Jenaro Garate

Erraunts mineralen ilunpe **izartsuen** sabaiaren maldan. Itxaro Borda

Zerua **izartsua** zegoen orain. Koro Navarro

Egunak luzeak zirelako eta **izartsu** zegoelako zerua. harea ekaitzen indarra eta gau **izartsuen** gardentasuna uztartzen ditu Tartiten musikak. Ramon Saizarbitoria

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **zeru izartsu** (3); **zeru izartsua** (7); **zeru izartsuaren pean** (3)

---

# izartu[1], izar(tu), izartzen **1** da *ad* izarrez (irud) bete.

Gangak dekorazio aberatsa zuen eta [...] argi puntuz **izartuta** zegoela irudi zuen. Karlos Zabala

Mahaikideetako batek, bost minutu baitzeramatzan, hitzik egin gabe, bulebar asaldatu, gas-argiz **izartu,** zurrumurrutsuari begira. Josu Zabaleta

**2** izarniatu.

Hara, gutaz akordatu dela alkatea -esan zuen sarjentuak pozaren pozez, botilak ikusi eta begiak **izartuta**. Felipe Juaristi

Piak zabalik, **izartuta** eta busti samarrik zituen begiak. Josu Zabaleta

**3** izar (irud) bihurtu.

Aurrelari espainiarra noblea zen aldez aurretik, Madrilen urdindu zuen odola, baina Monakon ez da **izartu**. Berria - Kirola

**4** (era burutua izenondo gisa)

Goiargia iritsi zitzaidan, zinetan, ezin konta ahala izar zituen zeru **izartua** ikustean. Fernando Rey

Paris, lur beltzaren gainera eroritako zeru **izartu** puska bat iduri, latz agertzen zitzaion, gogor, haserre antzean, bertara itzultzen ari zelako. Karlos Zabala

---

**izartu**[2], izar(tu), izartzen **1** du *ad ipar* neurtu.

Tresna horiek **izartzen** dute zenbat euri egin duen gauaz, zenbatekoa den haizearen abiadura edo airearen tenperatura. Herria

Markok eta bere lagunek ikertuko dute hori guzia, **izartuko,** argazkitan hartuko... Herria

Oro har, **izartzen** diren sail gehienetan kutsadura hein berean edo apaltxagoa ezagutzen dugu momentu hauetan. Herria

Eskaintza eta eskaeraren arteko ezberdintasuna saiatuko gara **izartzen**. Herria

Hor laster egin duten guzien neurriak zerrendatuz 3865 kilometro **izartuak** izan dira. Herria

Analisia franko egin zizkioten han: odola, burezurra, mihia, ahots sokak, papoa, belarriaren malguak, aire hartzeko haragizko hodiak, eskuetako eta oinetako eri puntak **izartu** eta zenbakiak oro ordenadoreetan sartu, neurtzera utzi ez zuen behereko txistu teleskopikoarenak salbu. Itxaro Borda

Apez gaztearen gorputza hatsak abandonatu zuela konturatu zenean, haren soako urdinean bere desesperantza propioaren hondoa **izartu** zuen: nehoiz eta nehori ez zion adiskidantzak zitzifrikatzen zituen gerla hau aipatuko. Itxaro Borda

**2** ***ezin izartuzko***

Ezin **izartuzkoak** dira "Gure Aita"ren mezuak, eta lehenik Jesus Jainko Semeak erakutsia dauku "Gure Aita, zeruetan zirena" berri ezin prezatuzkoa: [...]. Herria

---

**izartxo** **1** *iz* izar txikia.

Baina Ermela, zuk ez bazenu neretzako maitasunik, / **izartxo** baten gainera igoz joango nintzake mundutik. Pako Aristi

Kolpe bakoitzean zirtots motel bat entzuten zen, eta **izartxo** hori xorta bat ernatzen ikusten zen. Juan Garzia

**2** *(corpusean ez dago; ETCn* ***127*** *agerraldi; orobat* ***asterisko*** *ETCn* ***90*** *agerraldi)* *iz* izar formako ortografia-marka (*), hitz edo esaldi bat nolabait markatzeko erabiltzen dena. ik **asterisko**.

Ohar bakoitza **izartxo** baten bidez adierazi da testu nagusian. ETC-literatura, saiakera

Testuko **izartxoek** liburuaren amaieran oharra doala esan nahi dute. ETC-literatura, saiakera

Horietan **izartxo** baten bidez adierazten dute geroko ikerketek finkatuko dutela. ETC-prentsa

Gogoko berriak markatzeko, **izartxoa** erabiltzen da; berriren bat gogoko izanez gero, **izartxoarekin** markatzen da, eta horrela gogoko berriak ikusi nahi direnean, berri **izartxodunak** eskatzearekin nahikoa da. ETC-prentsa

Gauza da bertan, esaterako, poliziari dagokion hitza behar lukeen lekuan **izartxoak** agertzen direla. ETC-prentsa

Izar formakoa da, eta, broma dirudien arren, medikuaren analisietan zerbait gaizki dagoenean agertzen den **izartxoaren** berdina da. ETC-prentsa

Izen horiek nahiz glosategian jasotako terminoek **izartxoa** daramate, testuan lehenengo aldiz agertzen direnean. ETC-zientzia, zuzenbidea

**Izartxoa** erabiltzen da hizkuntza jakin batean ezinezko den segida adierazteko. ETC-zientzia, zuzenbidea

**3** *irud*

Okerreko negoziora dedikatu ez izanaren segurantzia, konpetentziak ematen duen adrenalina, egun batzuetako **izartxo** izatearena, idazleez gain eurak ere hor direla erakustearena... Hasier Etxeberria

Horien ordez, **izartxo** kaskarrak fitxatu zituzten: Robbie Fowler, Nick Barmby, Roque Junior, eta abar. Berria - Kirola

Oroit ahal zara, Loretxu, nola galdu nuen Maite, Garazi aldeko **izartxo** hura. Janbattitt Dirassar

---

**izartzaile** *iz ipar* neurtzailea. ik **izarkari**.

Kanboko "Foucault Dufourg" lur **izartzaileak** dira hautatuak izan lanaren egiteko. Herria

Orai lur **izartzaile** bat pasatu eta beharko da ikusi zer gero eman lur huni. Herria

---

**izartze** *iz ipar* neurtzea.

Kabinet "Lalague" hautatua izan da **izartzearen** egiteko. Herria

Kanboko "Foucault-Dufour" da hautatua izan lur **izartzearendako**. Herria

---

**izarzale** *(corpusean* ***izar zale*** *soilik)* *iz*

**Izar-zale** madarikatu horreek. Iñaki Mendiguren

Epaile itzal- eta **izar-zale** horrek karguak zeinen arinki banatzen dituen jakinda, nik hauxe opa diot neure lankideari: izan dezala lehenbailehen epaiketa, eta izan dadila epaiketa hori gaur zortzi egin zuen oposiziokoa bezain garbia. Joxerra Garzia

---

**izatasun** *(orobat* ***izatetasun*** *g.er.)* *iz* denaren, izatea duenaren nolakotasuna; izatearen muina.

Nik bistaz soilik ezagutzen dudan jendeak baino **izatasun** gehiago du Jim Hawkinsek niretzat, haren talaiatik eta haren larruan egin bainuen [...] altxorraren uharterainoko bidaia. Anjel Lertxundi

Herritarrak, gazteak batez ere, mundu zabalean izateko hainbeste modu dagoela ikusita, euren **izatasunaz** jabetu dira, dituzten ezberdintasunez ohartu dira. Berria - Harian

Etxebarrietaren martirioan aurkitu zuen ETAk bere **izatasuna**. Joseba Zulaika

Baina akats orok **izatasuna** kutsatzen du; beraz, izaeraren kontrakoa da. Imanol Unzurrunzaga

Jakituria jakin aditzetik (*sapientia-sapere*) dator; zientzia (*scientia*), berriz, latinezko *scire* aditzetik eta esentzia (edo **izatasuna)** *izan*-etik. Imanol Unzurrunzaga

Ondorioz, Jainkoa unibertsoari dagokio, forma gauza formadunari, eta formagatik bera badena denari, doakion bezalaxe, horren egiazko **izatasuna** formak eratzen baitu. Xabier Kintana

Sistema horrek aurkakotasunean, bere barruan ezartzen diren balio arbitrarioetan, funtsatzen du bere **izatasuna:** balio hutsez osaturiko egitura bat dugu aurrean [...] ikurren arteko erlazioek [...] eraturikoa. Isabel Arrigain

Linguistikoa denaren **izatasuna** ez da substantzia, forma baizik. Isabel Arrigain

Nola eta zer erlazioaren arabera gure arima, esentzia eta existentziari dagokionez, jarraitzen zaion **izatasun** jainkozkoari eta etengabe Jainkoaren baitan dagoen. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **bere izatasuna** (5); **izatasun gehiago** (3); **izatasuna inplikatzen** (3)

---

**izate** **1** *iz* ik **izatasun**.

Metafora honen bidez adierazi nahi da gizakiaren baitan bi **izate** daudela: **izate** arrazionala, alde batetik, eta, bestetik, **izate** animaliazkoa. Martin Anso

Sortzez duzun **izate** biologikoak eragina du diskriminazioan, ez zure inteligentziak, zure abileziak edo kreaziorako duzun talentuak ematen dizun **izateak**. Ana Urkiza

Azken batean, maitasunaren osagarri nagusietako bat eraikuntza ere bada, ez buruz egina soilik, baizik eta **izate** osoa hartzen duena. Juan Kruz Igerabide

Ezkontzaren **izate,** ezaugarri eta xedea. Andres Urrutia

Zuzenbidea arrazoi unibertsala da, gauzen **izate** horretan bertan oinarrituriko arrazoi gorena. Andres Urrutia

**Izate** oro da ona, **Izate** gorena Ongi gorena delako. Imanol Unzurrunzaga

Izakiak **izate** diren teoria, edo metafisika, besterik gabe, teologia bihurtu da, hau da, **izate** gorenaren ikerketa. Askoren artean

## 2 (izenondoekin)

Izen handiak **izate** handia dakarrela uste du, nonbait, zenbaitek. Koldo Zuazo

Bere Jainkoa, halako **Izate** inpertsonal bat, Osotasun batean murgildua, Naturarekin bat. Piarres Aintziart

Gure **izate** ustelkorrak bizi ustelezinez jantzi behar du, eta **izate** hilkorrak hilezkortasunez. Elizen arteko biblia

Jainkoaren edo **Izate** betierekoaren eta mugagabearen esentziatik nahitaez etorri behar izan diren gauzen azaltzen. Piarres Xarriton

Giza Izpirituaren **izate** formala osatzen duen ideia ez da bakuna, baina, bai, biziki anitz ideiaz osatua. Piarres Xarriton

Ideien **izate** formalak Jainkoa onartzen du bere kausatzat. Piarres Xarriton

Hagitz interesgarria izanen litzateke, norbaitek entsegu eder bat eginen balu, *afeminatu, fanatiko extu, matxista* eta *nahinolako artista publiko* hitzen azpiko **izate** zinezkoak elkarri dioten zorra egungo semantikan aztertuz. Patziku Perurena

Nahimena eta adimena beste deusik ez dira nahi **izate** singularrak eta ideia singularrak baizik. Piarres Xarriton

Etxez etxe joan behar **izate** nekoso horretan. Josetxo Azkona

## 3 (predikatu edo objektuarekin)

Horrela, bada, lotsati **izate** hori lan tresna garrantzizkoa bihurtu zitzaion. Fernando Rey

Gizakiek gizaki **izate** hutsagatik eskubideak baldin badituzte, orduan osasuntsu bizitzeko eskubidea dute. Berria - Gaiak

Baina nago, denok berdinak **izate** horretan ez ote diren batzuk berdinago, beste batzuk baino. Joxerra Garzia

Haurdunaldi edo ernarialdi gaizto, ume **izate** bihurri eta jaiotze elbarri asko. Patziku Perurena

Inor ohartu ote da bereziki "baratzako pikoak hiru txorten" **izate** horrek funtsean lukeenaz? Patziku Perurena

Hau da ezer ez **izate** tristea! Iñaki Segurola

## 4 (hitz elkartuetan)

**-Izate** forma orok sufrimendua eta oinazea dakar berekin -dio Budak. Imanol Zurutuza

Gero, zuen arraza Noeren ontzian gorde zuen, munduan zuen **izate**-mota gal ez zedin. Askoren artean

· Sare ezkutu horretantxe itotzen da giza **izate** guzia. Patziku Perurena

## 5 *izatez* *adlag* berez, izaeraz.

Begien mugimenduei buruz dugun informazioa ez da, **izatez**, batere zehatza, eta ezin du eginkizun hori izan. Josu Zabaleta

Alemaniar Erdi Aroko Mistika Aro Garaitik Aro Behererako iragaitzaren fruitu, ordurako aski umotu eta berantiarra da **izatez**. Joan Mari Lekuona

Badakigu, ezen, **izatez** borobilaren edozein puntutan gurutzatzen diren zuzenkiek osatzen dituzten lauki zuzen guziak neurri berekoak direla. Piarres Xarriton

**Izatez**, gure herririk gehienak erregeren, elizaren edo jauntxoren baten morrontzapeko petxero izanak ziren. Patziku Perurena

## 6 *izatezko* *izlag*

Eta orduan gaztea ONG batean sartzen da edo **izatezko** ezkertiarra edo modagoko zerbait egiten da zerbait izateko. Iñaki Segurola

Ezagun dute ustezko (eta **izatezko**) ibai-izen askok eta askok ezin izan daitezkeela herri-jendeak asmatuak. Iñaki Segurola

Lehorraldian dagoenak gogoan eduki beza Jainkoak bere **izatezko** indar hutsetan utzi nahi izan duela, etsaien astinaldiei eta tentaldiei oldar dakien. Patxi Altuna

Ba al dauka **izatezko** eta esistentziazko zerei buruzko arrazoiketa esperimentalen bat? Patziku Perurena

Errealitatearen benetako izate **izatezkoa,** ordea, ametsetan bakarrik agertzen da. Joxerra Garzia

Orduan, haren zatikien ezberdintasuna ez da **izatezkoa,** moduzkoa baizik. Piarres Xarriton

## 7 *izatezko bikote*

**Izatezko bikoteak** eta ezkontzak parekotzat hartzea. Berria - Euskal Herria

**Izatezko bikoteek** ezkonduen eskubide berak dituztela. Berria - Euskal Herria

Legezko eta **izatezko bikoteak** berdin Eroski taldearentzat. Berria - Ekonomia

Ezkontideek, **izatezko bikote** heterosexualek eta ezkongabeek izanen dute haur bat adoptatzeko eskubidea. Berria - Euskal Herria

Orain arte **izatezko bikote** homosexualek haurrak adoptatu ahal izateko bikotekideetako batek adoptatu behar izaten zituen. Berria - Harian

Mutil-laguna eta biok **izatezko bikoteen** zerrendan izena ematera joan ginenean. Berria - Euskal Herria

Hau da, Barañaingo Ignacio Javier Azkonaren **izatezko bikote** denez, legeak lotura hori onartu eta hemen bizitzeko baimena eman beharko liokeela. Berria - Euskal Herria

**Izatezko bikoteek** Estatuko legeekin topo egiten zuten sarritan. Berria - Euskal Herria

**Izatezko Bikoteen** Legeari helegitea jartzea. Berria - Euskal Herria

Nafarroako **Izatezko Bikoteen** Legea indarrean sartu zenean. Berria - Euskal Herria

Santiagoko Unibertsitateko biologia irakasle hau Anxo Quintanaren **izatezko bikote** politikoa da eta etorkizunean idazkari nagusia izateko hautagai faboritoa. Berria - Harian

· **Izatezko** hirukotea ginen kasik. Berria - Kirola

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**arimaren izate** (3); **bere izate** (39); **beren izate** (4); **beste izate** (5); **bi izate** (4); **emakume izate** (4); **ene izate** (3); **euskal izate** (3); **gauzen izate** (4); **giza izate** (3); **gure izate** (8); **haien izate** (5); **haren izate** (5); **ideien izate** (4)

**izate bat** (18); **izate baten** (6); **izate bereziaren** (5); **izate formala** (5); **izate formalak** (3); **izate gorena** (3); **izate guzia** (3); **izate guztia** (19); **izate guztiak** (3); **izate guztien** (4); **izate guztitik** (3); **izate hau** (5); **izate honek** (4); **izate honen** (3); **izate hori** (62); **izate horrek** (30); **izate horren** (5); **izate horretan** (12); **izate horri** (5); **izate hura** (6); **izate hutsa** (12); **izate hutsagatik** (15); **izate hutsak** (7); **izate hutsarekin** (4); **izate hutsaz** (3); **izate jakin** (3); **izate maila** (3); **izate oro** (7); **izate ororen** (6); **izate osoa** (17); **izate osoan** (5); **izate osoaren** (4); **izate politikoa** (7); **izate soila** (3)

**kide izate** (3); **lotsati izate** (4); **neure izate** (6); **nire izate** (17); **ongi izate** (3); **presoen izate** (3); **zuen izate** (3)

**ahal izate hori** (4); **behar izate hori** (4); **behar izate horrek** (3); **bere izate guztia** (6); **bere izate osoa** (5); **ez izate bat** (3); **ez izate hori** (5); **ez izate horrek** (4); **ideien izate formalak** (3); **izate eta aiurri** (4); **izate hori da** (4); **nahi izate hori** (5); **nahi izate horrek** (3); **nire izate guztia** (4); **nire izate osoa** (3); **presoen izate politikoa** (3)

**eaeko izatezko bikoteen** (9); **izatezko bikote** (8); **izatezko bikotea** (5); **izatezko bikoteak** (11); **izatezko bikoteek** (7); **izatezko bikoteen** (62); **izatezko bikoteen legea** (14); **izatezko bikoteen legeak** (3); **izatezko bikoteen legearen** (14); **izatezko bikoteen legeari** (8); **izatezko bikoteen zerrendan** (4); **nafarroako izatezko bikoteen** (10)

---

# izatedun *izond* izatea duena.

Ondasunak salerosian erabiltzen dituzte, jabetza erabatekoaren **izatedunak** dira. Andres Urrutia

Izenak horditu bezala egiten du adimena, sutu irudimena: izenak sinets-errazago bilakatzen ditu aurrena eta ezin dudatuzko hurrena, azkenerako mundua mundu denetik beti hor egon direla iruditzerainokoan, jakinak eta **izatedunak**. Iñaki Segurola

Gu **izatedunak,** sinestedunak eta lausogabeak garen aldetik. Iñaki Segurola

Bere baitako kausa deitzen dut, haren esentziak bere existentzia barne hartzen duen hura; edo bestela, **izatedun** bezala baizik haren izaera pentsa ez daitekeena. Piarres

Xarriton

---

**izategabekotasun** *iz* izategabea denaren nolakotasuna.

Harritzekoa al litzateke, hortaz, nire baitan haluzinazio batzuen **izategabekotasuna** kontrolatzeko ahalmena une honetan zurrundurik egotea! Josu Zabaleta

---

**izategintza** *iz*

Munduak darabilen etengabeko izangintza edo **izategintza** hazkorrak ateratzen duen burrunbaren erdian. Iñaki Segurola

---

**izateke** *adlag* izan gabe.

Morroi edo peoi huts **izateke** profesional egin beharko da. Edorta Agirre

Gainera, beste era batean, ni neuretzat ez naiz beste bat, errepresentazioaren objektu bat, baizik eta neure kontzientziari berehala presente nagokion zerbait, errepresentazioaren bitartekotza behar **izateke**. Askoren artean

---

**izateki** *iz*

Antzin Aroko pentsamenduan jakite-diziplina nagusia ontologia zen ( *onto-logia:* **izatekiaren** jakitea). Askoren artean

---

izatetasun ik **izatasun**.

---

**izba** *(orobat **isba** g.er.)* *iz* izei zurezko landetxe txikia, Ipar Errusiakoa. ik **datxa**.

**Izbetako** enborrak ilunak eta zaharrak ziren, teilatu askok galbaheak baino zulo gehiago zituzten, gailurreko habea eta -saihets hezurren irudiko- albo banatako gapirioak besterik ez zen geratzen haietako batzuetan. Jose Morales

**Izbetako** leihoek ez zuten kristalik, haietako batzuk piltzarrez edo nekazarien oihal latzezko beroki lodiez estalirik zeuden. Jose Morales

**Izba** bateko oharkan etzanda pentsa eta pentsa egon ondoren, Muinoaren oinean [...] enborrezko **izba** grisak zeuden inguru guztian barreiaturik. Jose Morales

Soldadu batzuk amona baten **isban** gelditu ziren. Felipe Juaristi

Ostatua **izba** baten antzekoa zen, baina handiagoa. Jose Morales

Inork eraikitzen al du hiru ertzeko **izbarik**? Jose Morales

---

**izeba** *(1244 agerraldi, 125 liburu eta 40 artikulutan)* **1** *iz* aitaren arreba edo amaren ahizpa; orobat osabaren emaztea. ik **izeko**.

-Baina, **izeba** -esan zion neskak-, traba egiten didazu. -Hori ez da horrela, **izeba** -esan zuen La Sarriettek-. Karlos Zabala

Aitaren aldetiko **izebak** esan zigun hori. Juan Kruz Igerabide

-Tira, atera pitin bat **-izebak** barrez-. Iñaki Mendiguren

Etxebizitza bat konfiskatu zieten **izebei** anaia EAJkoa zelako. Mikel Hernandez Abaitua

**Izeben** arteko berriketa haietako batean -Nire **izebarenean** jarraitzen duk? -galdetu zion Claudek-. Xabier Mendiguren Elizegi

Igandeetan **izebarenera** noa. Gotzon Garate

Bere garaian ez nuen jakin **izebarengana** hurbiltzen, eta orain berandu da. Jose Morales

**Izeba** Kate biziagoa zen. Irene Aldasoro

**Izeba** Juliak oportoa edo jereza eskaini zien gonbidatu guztiei. Irene Aldasoro

**Izeba** Mabelen urtebetetzea. Iñaki Mendiguren

Gure amak **izeba** Emilianirekin ezkondu nahi zuela osaba Joanikot, baina honek ez zuela nahi Motz eta latz azaldu nion Unairi amatxirekin eta **izeba** Gloriarekin bakarrik gelditu behar zuela. Joan Mari Irigoien

Han hasi zen euskararen ikasten, ahantzia baitzuen haur haurretik, aitamak goizik zendurik eta bera biarnes **izeba** baten etxean egonik, Ithorrotzen. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Bere ama egiaz **izeba** zuela esan zioten. Aitor Arana

-Jainkoak daki zer-nolako **izeba** duzun hori: senarraren aldetikoa... Jose Morales

Eta etxeko **izeba** Gracy Kelly eta Rainiero ezkondu ziren egun berean ezkondu zen. Arantxa Iturbe

**Izeba** oso emakume irmoa da. Jose Morales

Atzean utzi genituen, aitona-**izeba** eta haien inguruan zuten guztia. Jon Muñoz

**Izeba**-lehengusinak asteburu askotan etortzen ziren gurera, **izeba** alargundu zenetik batez ere, igandeetan batik bat. Joan Mari Irigoien

**2** (izenondoekin)

Gehienetan Baionako **izeba** mutxurdinaren etxean bizi zela. Daniel Landart

Neba-arreben umeen **izeba** ezkongabe moldakaitza, bere familiaren erdigunean trabatuta geratutako erbesteratua. Oskar Arana

**Izeba** neskazaharraren ateraldi pozoitsuak. altxatu egin ziren ia denak, Margarita, don Leonardo alkatearen **izeba** pinpirina, izan ezik. Felipe Juaristi

Deboziozko elkarrizketak nire **izeba** xaharrarekin. Jon Muñoz

**Izeba** negarti eta histerikoena. Aitor Arana

**3** ***izeba-iloba*** *pl* izebak eta ilobak.

Urte batzuk pasata **izeba**-iloben etxean instalatu zen. Mikel Hernandez Abaitua

**Izeba**-iloben arteko harremana sendotu baino ez da egin urteekin. Xabier Etxabe

Agudo zebiltzan, ilaran, **izeba**-ilobei sakela beteen zamak traba egiten ziela. Karlos Zabala

Erabat ziur nago elkarrekin konpontzen diren neba-arrebak, osaba-ilobak eta **izeba**-ilobak, aita-alabak eta ama-semeak, ad infinitum, askoz ere gehiago direla gure hipokrisiak onartzen duena baino. Karlos Zabala

Rimski-Korsakov, Schriabin, Borodin, Tchaikovskiren doinuak jotzen zituzten, Tchaikovskirenak batez ere, **izeba**-ilobek oso maitea baitzuten. Felipe Juaristi

**4** ***izeba-osaba*** *(18 agerraldi, 11 liburu eta 4 artikulutan)* *pl* izebak eta osabak. ik beherago **6**.

Baina **izeba**-osabek ez zidaten baimen-orria izenpetu. Iñaki Mendiguren

Pentsatu zuen hobe zela **izeba-osabekin** hitz egitea. Iñaki Mendiguren

Haurtzarako eta lehen gaztaroko pertsonaiak **izeba-osabak**, lehengusua, aitona, eskola lagunak, adiskideak, egunkariko lankideak, lehenengo amodioak). Koro Navarro

Amonaz eta amonaren etxeaz gogoratu naiz, izeba Fermina eta osaba Juliánez, bueno amaren **izeba-osabak** ziren. Lourdes Oñederra

Gaztedanik Aldudera joan zen, han baitzituen alabaina **izeba-osebak**: Laurence Arrospide eta Martin Inda. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

15 ilabetetan Indako Elenaren joaiteak Agnés eta Jean François aitamak, aitatxi-amatxiak, **izeba-osebak** eta ahaideak dolu izigarrian utzi ditu. Herria

**5** ***izeba txiki*** aitaren edo amaren lehengusina.

Eta berorien bi alabak, bukatzeko, Itziar eta Amélie nire bi **izeba** txikiak, oraindik ezkongai. Txillardegi

Amélie Sagardia, ene **izeba** txikia nolabait esateko (izeba-amona delako), eta Amaren lehengusina propioa, Akizen bizi dena. Txillardegi

-Baina Praskovia Fiodorovna ez da arrotza, **izeba txikia** dut. Jose Morales

Izeba bat **izeba txikia** ez izateko arrazoirik ez zagok, ados; baina izeba batek, izan txikia edo izan handia, bere ilobari osaba deitzea, hori ez diat ulertzen. Antton Olano

**Izeba**-osaben etxean emango zidatela bazkaltzen, ez kezkatzeko horregatik. Arantxa Iturbe

**6** ***osaba-izeba*** *(**96** agerraldi, **35** liburu eta **4** artikulutan)* *pl* osabak eta izebak. ik gorago **4.**

Marina, hemen eguberriak direlako etorri da, amaren parteko familia ezagutzera: aitona-amonak, **osaba-izebak,** lehengusuak eta, batez ere, Maria Bautista, 104 urteko amona, birramona. Patxi Zubizarreta

Galdetu nahi nion zenbat emakume izan zituen, zenbat osaba-**izeba,** lehengusu-lehengusina nituen nik Kuba osoan barrena. Jon Muñoz

Haren hiru seme-alabak, berriz ere ponpox-ponpox jantziak, **osaba-izebek** eta lehengusuek inguraturik zeuden. Aingeru Epaltza

Ixtanteko bururat jin zitzaidan Magaliren **osaba-izebak** izaten ahal zirela. bertako nagusiak **osaba-izeba** nituen eta haien seme-alabak lehengusu. Janbattitt Dirassar

Kontatuko dut nola bizi ziren, zer zaletasun eta ohitura zituzten osaba-**izeba** haiek. Pello Lizarralde

**Osaba-izebak** jende on eta amultsuak ziren, baina haien eta bere artean zerbait bitxi bazen. Elena Touyarou

Ni sortzez zuberotarra, baina Milafrangan bizi naiz, **osaba**-izebekin. Txillardegi

· Ttipiren **osaba**-izeba-lehengusuen kutsua harrapatu nien batzuei. Aingeru Epaltza

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**alkatearen izeba** (10); **bere izeba** (16); **ene izeba** (6); **gure izeba** (6); **hire izeba** (8)

**izeba augusta** (25); **izeba cecilia** (19); **izeba ceciliak** (18); **izeba ceciliari** (4); **izeba emily** (13); **izeba emilyk** (14); **izeba emilyren** (4); **izeba ilobak** (5); **izeba joana** (4); **izeba julia** (13); **izeba juliak** (17); **izeba juliaren** (6); **izeba kate** (25); **izeba katek** (45); **izeba kontxi** (4); **izeba marge** (14); **izeba margek** (26); **izeba margeren** (8); **izeba margeri** (4); **izeba maria** (5); **izeba matilde** (4); **izeba milagros** (6); **izeba milagrosen** (9); **izeba osaba** (4); **izeba osabak** (5); **izeba petunia** (26); **izeba petuniak** (50); **izeba petuniaren** (8); **izeba petuniari** (11); **izeba pinpirina** (4); **izeba reginak** (5); **izeba tula** (4); **izeba xaharraren** (4); **izeba zahar** (7)

**neure izeba** (4); **nire izeba** (35); **osaba izeba** (11); **ximurraren izeba** (4); **zure izeba** (10)

**alkatearen izeba pinpirina** (4); **ama eta izeba** (4); **bere izebaren** (7); **bere izebari** (4); **esan zuen izebak** (10); **izebaren etxean** (7); **izebaren etxera** (8); **izeben etxera** (14); **osaba izebak** (10); **osaba izebei** (6); **osaba izebek** (22); **osaba izebekin** (10); **osaba izeben** (29); **osaba izeben etxera** (12).

---

# izebatxo *iz adkor* izeba.

Aski izango dik amatxok eta **izebatxoek** beren ardurapean hartzea. Jose Morales

---

izeber, izeberg ik **iceberg**.

---

# izei *(**83** agerraldi, **21** liburu eta **3** artikulutan; ETCn **609** agerraldi; orobat **izai** **34** agerraldi, **9** liburu eta **11** artikulutan; ETCn **120** agerraldi)* **1** *iz* pinuaren familiako zuhaitz handia, zurtoina zuzena eta abarrak zeharretara dituena, berez mendi goretan hazten dena *(Abies* sp.).

Landareetan gertatzen dena ikusiz, komeni da horretan ere natura imitatzea, adibidez zuhaitz biribiletan gertatzen dena, hala nola **izei,** altzifre eta pinuetan. Santiago Iruretagoiena

Egiptoko Osiris jainkoa, Biblos hirian, **Izei** baten itzalean jaio zen. Pello Zabala

Ülünpeko **izei** beltza. Herria

Pinu eta **izai** tantai ederrak. Josu Zabaleta

Iluntasuna mendi-magalak janzten zituzten **izei** xuxurlarien azpian ezkutatuta zegoen ordurako. Agustin Otsoa

Han zeuden, marmolezko ontzien barnean, hil batzuen errautsak, lore eta **izei** ttikien erdian. Daniel Landart

Lore sorta animaleen artetik doi-doia ageri zen Maddalenen **izei** merkezko hilkutxa. Itxaro Borda

Arbola asko desagertu egin ziren, beste batzuk erbesteratu, gaur egun Alpeetan soilik aurki daitekeen gabonetako **izeia** kasu. Pako Aristi

Iritsi zaigu Gabon-Eguberritan **izeia** nahiz gorostia etxean zutik landatzeko ohitura ere. Pello Zabala

Garraioa ontzi gainean edota **izeiaz** egindako baltsetan egin behar izaten da. Santiago Iruretagoiena

**2** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Izai** oihan handiak iparraldean. **Izai** abar huntzez lotuak eskuetan zituztela. Pello Zabala

Itxura biribil hori lortzen da **izai** adar lodienak gurutzatuz, gero **izai** adar meheagoak, eta azkenik adar hostodunez arteka guziak betez. Aurelia Arkotxa

Berehala lokartu ziren **izai** hostoek botatzen zuten usain goxoz sudur ziloak ferekaturik. Aurelia Arkotxa

Troiako zaldia, Atenea jainkosari eskainitako opari galanta, **izei** oholez egina omen zen. Pello Zabala

**Izei** eta pinu enborrak, itsaslasterrak urperatuta, erruz azaleratzen dira, baina txiki-txiki eginda denak, ezpal mordo baten gisara. Koro Navarro

**Izei** eta pinu ilara ilunekin. Jose Morales

Malfoy, Crabbe eta Goyle zakar pasatu ziren arbola ondotik, **izei**-orratzak alde guztietara barreiatuz eta pozik irribarre eginez. Iñaki Mendiguren

Haurra jaiotzean, **izei**-kandela piztu, eta erditu duen amaren ohe-jiran hiru itzuli eman, ama eta haurra, biak hala biak sendatzeko eta sendotzeko. Pello Zabala

· Hildakoak besterik ez dira etzaten **izei**-marmolezko logeletan. Koldo Izagirre

**3** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Zuhaitz **izai** eder eta osoki argituak. Herria

**4** ***izei hispaniar*** batez ere Espainiako hegoaldean hazten dena *(Abies pinsapo)*.

Leku guztietan ez dira harrobiko area, hartxintxarra, izeia, **izei** hispaniarra eta marmola nahi adina aurkitzen. Santiago Iruretagoiena

Egurra, berriz, luzea da, landu-erraza eta barruko arotz-lanetan erabiltzeko **izei** hispaniarrarena bezain egokia. Santiago Iruretagoiena

---

# izeidi *iz* izei oihana.

Goroldioz estaliriko muino txikiak, **izeidi** bat, pinu gazte txikiz osaturiko sastraka ziztrinak, suak kiskalitako pinu-enbor zaharrak, basatxilarrak eta horrelako huskeriak."Baso Beltza" esaten genion baso baten ertzean bizi ginen -izena ez zen oso egokia, urkidiak ere bai-baitziren, zuri askoak, eta gure inguruan **izeidiak**-. Jose Morales

---

**izeki**, izekitzen **1** da/du *ad* piztu.

Adelarekin ez nengoenean, amorrua **izekitzen** zitzaidan, gero eta sutsuagoa. Juan Kruz Igerabide

Jauregitik eta osaba Joanikotenganik ihes egiteko gogoa **izeki** zitzaidan. Joan Mari Irigoien

Pospoloa **izekitzeko** . Jon Alonso

Nire pipa **izekitzeko** gogoa nuen. Monika Etxebarria

Gero, aldare gainean intsentsua erre, eta **izeki** zituzten argimutileko kriseiluak, tenpluan argi egin zezaten. Elizen arteko biblia

Salan **izekirik** zeuden argimutiletako bat harturik. Felipe Juaristi

Joanez gero, esperantza gehiegi **izeki** zezakeen lehengusuarengan. Joxemari Urteaga

Zuzi **izeki** berrien argipean. Joan Mari Irigoien

**2** (era burutua izenondo gisa)

Zurdazko zuzi **izeki** bat astinduz eskuan. Juan Garzia

Metxa **izekia** hurbildu zuen barreneko ertzera. Juan Garzia

Eguzkiak urrezko eta brontzezko babeskiak jo zituenean, distirak argitu egin zituen mendiak, lastargi **izekiak** bailiran. Elizen arteko biblia

Ahoan musu emateko faborea lortu Becchinarengandik, eta soneto **izeki** bat ondu zuen. Juan Garzia

---

**izekitzaile** *izond* izekitzen duena.

Ez dut uste haien arteko suak, **izekitzaile,** hedatu beharreko inolako pomadarik zuenik. Aingeru Epaltza

---

**izeko** *(83 agerraldi, 21 liburu eta 3 artikulutan) iz* izeba.

**Izeko** mezatik heldu zen, beti bezala bakarrik, mantelina beltzez babestuta. Alberto Barandiaren

**Izeko** espiritu ihar eta hits bat zen, bere zorroztasunaren labanak ezpel horian egindako irudi zurbil eta izu bat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Banekien, **izekok** esanda, herriko etxe handian egon zela hainbat urtez, gerra bukatu ostean. Alberto Barandiaren

Nire amak, aitonak, osabak, **izekok..** . denek fabrika berean egin zuten lan. Berria - Kultura

**Izekori** entzunda nekien hori. Alberto Barandiaren

**Izekorik** hurrekoenak. Unai Elorriaga

**Izeko** Alicek berehala sumatu zuen etxekoandrearen malezia eta maltzurkeria. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Izeko** Rosaren jostundegia. Berria - Kultura

Bizpahiru **izeko** alargun edota neskazahar saiatu dira etxe hartan bizitzen, baina alferrik. Pako Aristi

Gaixorik dudan **izeko** bat bisitatu behar nuela esan diot. Harkaitz Cano

Laster itzuli gara, ordea, osaba- **izekok** susmorik ote duten beldur baita Annamaria. Urtzi Urrutikoetxea

Batzuentzat Sabino Aranaren hobi sakratuaren gordeleku eta niretzat **izeko** -osaben atsedentoki. Edorta Jimenez

---

**izen** **1** *iz* gauza bat aipatzen edo adierazten duen edozein hitz; banako bat aipatzeko eta kidekoetatik bereizteko erabiltzen den hitza edo hitz multzoa.

Ez, ez da erraza gauzen **izenetan** sinestea. Iñaki Segurola

Eta orain menturaz ulertzen hasia zara paisajea natura hilaren beste **izen** bat dela, eta bizi ahantziarena. Iñaki Segurola

**Izen** banaren jabe dira, eta **izenak** horditu bezala egiten du adimena, sutu irudimena: **izenak** sinets-errazago bilakatzen ditu aurrena eta ezin dudatuzko hurrena, azkenerako mundua mundu denetik beti hor egon direla iruditzerainokoan, jakinak eta izatedunak. Iñaki Segurola

Fregeren esanetan, **izen** batek bere erreferentzia designatzen du, **izena** objektuaren ordezko bat da hizkuntzan. Askoren artean

Sequoyah, beste **izen** batez George Guess edo George Gist deitua, 1760. urtean jaio zen Tuskegeen, cherokee herrixka batean. J.M. Olaizola "Txiliku"

Hartu nuen hari batetik zintzilik zegoen entzungailua, eta ahots ezezagun bat entzun nuen nire **izena** esaten. Koro Navarro

-Ambrosio Spinola da nire **izena,** baina Markesa deitzen didate. Felipe Juaristi

*ik beherago* 19. Askoren artean

"Zein da zure **izena?",** galdetu zidan nire txanda heldutakoan. Bernardo Atxaga

Haren **izena,** Miroszaw Czyiykiewicz. Edorta Jimenez

Bi **izen** datozkit gogora: Mikel Azurmendi eta Ramon Etxezarreta. Joxerra Garzia

Ez zegoen **izen** hartako ez hotelik, ez clubik. Bernardo Atxaga

Omsk hirian bizi izan zen, **izen** bereko probintzian. Karlos Zabala

Itsasoa ere ura da, ur handia, eta gauza bat da kostako bazter bati "ezdakitnongo punta" esatea, eta oso bestelako gauza itsasoari (eta itsasoei) **izena** jartzea. Iñaki Segurola

Lehen baino ere gehiago amorrarazten ninduen Golubtxik **izen** horrek. Matías Múgica

1973tik 1990era indarkeria politikoz hildako militar guztien **izenak** . Iñigo Aranbarri

**Izen** bat esan dio, baina ez da inongo herrirena, mendi batena baizik. Bernardo Atxaga

Ezin esango dugu behintzat zintzo jokatu ez zuenik sortzaile horrek bere sorkarientzat **izena** bereizterakoan. Iñaki Segurola

Jakobek leku hari Penuel -hau da, 'Jainkoaren Aurpegia'- eman zion **izena** . Jose Antonio Mujika

*ik beherago* 16. Askoren artean

Detektibeek **izenak** hartu zizkieten. Lopez de Arana

Iritzian edo iriztean, gainera, bat eginak daude ustea eta **izena** ematea (hola edo hala deritzana bihurtzea). Iñaki Segurola

Eta sabaiari "zeru" eman zion **izena** . Jose Antonio Mujika

Gauza guztiek al dute **izena** ? *ik beherago* 19. Iñaki Segurola

Leku hari Tabera -hau da, 'Sute'- jarri zioten **izena** . Elizen arteko biblia

Zer **izen** jarri diote azkenean? Jon Muñoz

**2** (izenondoekin)

Gauzak bere **izen** zuzenez izendatzeko. Iñaki Segurola

Gauzek **izen** egoki bat dutela eta **izenek** gauza jakin bat adierazten dutela sinestea. Iñaki Segurola

Jainkoa dena den, dakien eta dezakeen Diruaren **izen** zaharra baizik ez dela. Iñaki Segurola

Osaba, berriz, **izen** berrien bila zebilen, **izen** berriak sentipenak berrituko zizkiolakoan. *Nesken Mendebaldeko Ikastetxea,* **izen** bikaina, ez da hala? Joxerra Garzia

Hor ditugu lekuko *Aragón* bezalako **izen** itxuragabekoak; *Araxes* bezalako **izen** itxuragaiztokoak; *Ibaieder, Ibaizabal* edo *Uréderra* bezalako **izen** pinpirin ezin sinetsizkoak. Iñaki Segurola

**3** kategoria edo mota bateko izakiak edo gauzak adierazteko erabiltzen den hitza.

Estatu baten nominan zeuden lapur "ofizialak" ziren, eta *kortsario* **izen** ohoretsua zeramaten. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta orduan Jainko Jaunak landako abere guztiak eta zeruko hegazti guztiak lurrez moldatu eta aurrean ipini zizkion gizonari, ea zein **izen** ematen zien. Jose Antonio Mujika

Milaka animalia- eta landare-espezieren **izenak**. Askoren artean

Euliak latinezko **izen** oso adierazgarri du: *Musca domestica*. J.M. Olaizola "Txiliku"

Txitxarraren **izen** zientifikoa. Ramon Saizarbitoria

Berari esker jakin nuen zizareei buruz, edota, **izen** zientifikoa erabiliz, poliketoei buruz dakidan guztia. Hasier Etxeberria

*Adonis* izena hainbat landare edo loreren **izen** latinoa da. J.M. Olaizola "Txiliku"

Mendietako arranoen **izen** ohoretsua ez zuten zikintzen bide nagusiko "arrano" haiek. Karlos Zabala

Ene ustez, gure lanbideari dagokion **izen** bakarra *ikertzaile* duk. Joxemari Iturralde

Luxuzkoa izanagatik ere, bere ogibideak **izen** zehatza baitzuen, **izen** zaharra eta arrunt samarra, baina markatua. Migel Angel Mintegi

Ea, hasteko, esan hiru edariren **izenak**. Patxi Zubizarreta

Zuek merezi duzue santu euskaldunen **izena,** eta ez orain aldarean dauden horiek. Iñaki Segurola

Zuek merezi duzue santu euskaldunen **izena,** eta ez orain aldarean dauden horiek Iñaki Segurola

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Edozein hizkuntza, hitz-zorro bat edo **izen**-zaku bat baizik ez balitz bezala. Piarres Xarriton

Ia-ia epaiketa militarra egin zidaten itsas mapa sorta baten **izen**-etiketak nahasteagatik. Oskar Arana

Seguru asko **izen**-aldaketa transkripzio-errua da. Askoren artean

Kalte sikologiko berezirik ez dit eragin, nik dakidala, **izen**-dantza horrek. Joxerra Garzia

Administrazioko kide batekin elkarrizketa zorrotz bat izan arte, **izen**-ematea ez da, ez onartzen, ez ukatzen. Jon Muñoz

Adigai honen **izen**-definizioa ematea oso erraza da, hots, bere ez-izatea ezinezkoa den gauza. letra harrigarri handiz idatzita nire **izen**-helbideak, eta guztiz ezezaguna igorlearen deitura. Ibon Uribarri

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Idazle-**izen** goratsuak dituzten kalez osatutako auzo batean dago hotela. Anjel Lertxundi

Norak ez zuen entzutez ere ezagutzen hiri-**izen** hura. Anjel Lertxundi

Hiri edo herri **izen** bat behar duzu? Jon Muñoz

Herri eta leku **izenak** frantsestu zituen. Hasier Etxeberria

Ezagun dute ustezko (eta izatezko) ibai-**izen** askok eta askok ezin izan daitezkeela herri-jendeak asmatuak. Iñaki Segurola

Ikasi toki-**izen** horiek ongi, Joanes. Felipe Juaristi

Bazkaldu genuena ere ez zen kartako jaki-**izen** puztuek iradokitzen zutenaren galgakoa izan. Anjel Lertxundi

Iribarrenek aipatzen dituen *abozo* edo *agozo* landare **izenak**. Patziku Perurena

Beste Soraya batekin igarotzen du arrats bat -merkataritza-**izen** ezaguna bihurtu da Soraya, antza-. Oskar Arana

Zure bataio-**izenak** eutsi ezineko indar batez erakartzen nau. Antton Olano

**6** bataio izena.

Irabazlea zure **izen** eta abizen berekoa da. Ana Urkiza

*ik beherago* 12. Askoren artean

Nor da Antton? -jakin nahi izan zuen Lucyk, ordura arte ez baitzion inoiz **izen** hori aipatu. Joxemari Iturralde

Jack, esate baterako, **izen** xarmagarria da nire iritziz. Antton Olano

**Izen** ezinezkoa duen emakume bat. Oskar Arana

Gezi bat aski da bihotz bat odolustutzeko, baina bi **izen** behar dira bihotz bat zulatzeko. Iñaki Segurola

**Izen** bat, helbide bat, telefono bat. Ramuntxo Etxeberri

Egunen batean alabaren bat badut, **izen** hori jarriko diot. Harkaitz Cano

Horregatik, Juda jarri zion **izena**. Jose Antonio Mujika

-Zein **izen** ipini nahi diozue? -galdetu zion On Camillok Pepponeren emazteari. Koldo Biguri

Neure **izen** burgesa baztertu, eta *Liberto* bataiatu ninduten Donostiako CNTko egoitzan! Inazio Mujika Iraola

Ezabatu egiten dut Pamelaren **izena** zerrendatik, eta Lucyren aldi baterako zaindari izendatzen dut neure burua. Oskar Arana

· **Izen** batek asko lotzen du: txakurra edozein da, baina Lixta ez, Lixta ez da edozein. Iñaki Segurola

**7** izenburua.

**Izen** bereko ipuineko protagonistari. Iñaki Arranz

Jeltzaleak sortu zituen neskatxa garbi eredugarri haiek ere, poxpoliñak genituen, **izen** bereko aldizkari eta guzi. Patziku Perurena

Bilintxen "Biyotz eritua" **izena** duten bertsoetan. Iñaki Segurola

Joxe Manuel Lujanbiok 1931n atera zuen bertso-sail bat, bere gehienek bezala **izen** hauxe zeramana: "Bertso berriyak Txirritak jarriyak". Xabier Mendiguren Elizegi

**Izen** bat atean: Miss Clevendon. Txillardegi

Taberna eta denda askok **izen** espainiarrak zituzten. Koldo Izagirre

Uda honen aurretxoan kaleratu da *Un escorpión en su madriguera* **izeneko** liburua, azpi-izenburu hauxe duena: "Indoeuropeo y euskara: mito e identidad". Xabier Mendiguren Elizegi

**8** omena, entzutea.

Gezurrez zikindu nahi dute haren **izen** garbi eta oroipen gardena. Juan Garzia

**Izen** eta ospe handiko hizkuntzalaria. Koldo Zuazo

Rottweilerrak ere gero eta **izen** handiagoa hartzen ari dira. Gotzon Garate

Bidezko eta beharrezko iruditu zitzaion, bai bere **izen** onaren handirako eta bai herriaren zerbitzurako, zaldun ibiltari egingo zela. Patxi Ezkiaga

Horrelakoxe kontuekin, pikutara bidaliko duk nire **izen** ona. Jon Muñoz

Eta kalte egin diot neure alderdiaren **izen** onari! Koldo Biguri

Brighton-eko akuario hain **izen** onekotik ez urruti zegoen etxe bat, turkiar bainuak eskaintzen zituena. Juan Garzia

Sugegorriek oso **izen** txarra izan dute aspaldidanik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Buenos Airesen, italiar aihenekoa izatea **izen** txarrekoa zen artean; Londresen konturatu nintzen askorentzat halako atributu erromantiko bat zela. Juan Garzia

Gizon gorriak ostera **izen** gaiztoaren jabeak dira. Xabier Mendiguren Elizegi

**Izen** handiak izate handia dakarrela uste du, nonbait, zenbaitek. Koldo Zuazo

**9** (gramatikan) izaki edo izaki mota, edo gauza edo ideia bati dagokion hitza.

Hitz bakoitza bere adiera jatorrez erabili duk, eta **izen** substantibo bakoitza lehen poetek eman zioten epitetoaz hornitu. Juan Garzia

**Izen,** izenordain eta adjektiboetan ez ezik, adizkietan eta atzizkietan ere suertatzen dira aldakuntzak. Koldo Zuazo

Ingelesez, **izen** sintagmak aditz sintagmen barnean egon daitezke. Itziar Laka

**10** (izan hitzarekin hitz jokoa eginez)

**Izenak** ez du izanarekin zerikusirik, ezta izanak izenarekin ere, hitz onomatopeikoetan izan ezik. Joan Mari Irigoien

Objektuaren **izena** subjektuaren izanarekin loturik dagoen hotsezko ezaugarri ezin doiagoa eta ezin zehatzagoa balitz bezala. Joan Mari Irigoien

**Izena** duen orok omen du izana (hala uste omen dute euskaldunek), baina izana duen orok al du **izena** ? Iñaki Segurola

Ontzian marinel eta zirujau zetorrenak Hendrike Frantziako zuela bataiarriko bere grazia, baina denek, fede ezin hobez, Mihurubiko Martin irizten ziotela, gurean izana duen orok **ezizena** ere baduelako. Edorta Jimenez

Izanaren **izenarekin** ari nauk, ez **izenaren** izanarekin! Patziku Perurena

**Izenak** izen, bat bera da izana. Koldo Zuazo

Prezisio jakin batetik haruntzago, hau da, xehekiago behatu ezkero, lausotu egiten dira, lurrundu: **izen** -izanak galtzeko arrisku latzean amiltzen dira. Iñaki Segurola

**11** *-en* ***izenean***

Bion **izenean** errejistratuko dut negozio hori. Hasier Etxeberria

-Agurtu Lancelot nire **izenean** . Juan Kruz Igerabide

-Zeure **izenean** hitz egin, Sokrates. Oskar Arana

Izan zuen Mardokeok horren berri eta Ester erreginari pasatu zion berehala abisua; honek, berriz, erregeari jakinarazi zion, Mardokeoren **izenean** . Jose Antonio Mujika

Eta hona hemen gu, irabazleak; hona hemen gu, haiei esker eta haien **izenean,** arrazoi guztiaren jabe eginak. Iñaki Segurola

· Ez nuen botorik ematen, zerga batzuk ordaintzen nituen, besterik ez: ezin nintzen harrotu zergadunaren eskubideen **izenean,** ez hauteslearenen **izenean,** ezta hogei urtetako esanekotasunak enplegatuari emaniko ohorerako eskubide apalaren **izenean** ere. Monika Etxebarria

Berdin dio lurraldearen **izenean** lurra, lur-gaina eta lurpea hustu, zulatu, itzulipurdikatu, desegin edo txikitzen badira ere; berdin dio lurraldea lurraren etsai handiena izanda ere. Iñaki Segurola

Berdintasunaren **izenean** onartu zen Pariseko Asanblada Nazionalean, Toubon legea, hizkuntza gutxituak itotzeko bidea. Hasier Etxeberria

Gaur egun badakigu ez direla fidagarri populuaren ala herriaren **izenean** mintzo zaizkigun alderdi popular demokrata asko. Piarres Xarriton

Alemaniako bi estatuek, egunetik biharrera, autodeterminazio printzipioaren **izenean** bat egiten zutela eta, Europako Federakuntza jaio nahiaren altzo birtualean bat eginik jartzen. Piarres Xarriton

Ni Jaun ahalguztidunaren **izenean** natorkizu, zuk desafiatu dituzun israeldar gudarosteen Jainkoaren **izenean** . Elizen arteko biblia

-Legearen **izenean,** zabaldu atea! Anton Garikano

Ala-ren **izenean,** zin egiten diat ez dudala ukitu aparatu hori. Juan Kruz Igerabide

Jainkoaren **izenean!,** ez nukeen tartean muturrik sartuko, baldinbaitere. Mirentxu Larrañaga

**12** ***izen-abizen*** (*151 agerraldi, 49 liburu eta 56 artikulutan*) *pl* ik beherago **14.**

Lanaren izenburu osoa, irakaslearen **izen-abizenak** , ikasgaiaren izena, zure **izen** -abizenak, [...]. Askoren artean

Bere legezko **izen-abizenak** omen zerabiltzan bere harreman sozialetan, ez kaxakoak. Koldo Izagirre

Orduan komandanteak nor zen galdetu zion, eta Hucken aitak **izen-abizenak** eman zizkion, desagertutako mutiko haietarik baten aita. Koldo Izagirre

Baina emakumeok ez dugu **izen-abizenik,** ondorioz, ez gara existitzen. Berria - Kultura

· Horien osasunari eta bizimoduari buruzko **izen-abizendun** datuetan oinarritzen da. Berria - Gaiak

**13** ***izen berezi***

Multzoxka horiei **izen** bereziak eman zizkietela aspalditik: Hartz handia eta Hartz ttikia, adibidez. Pello Zabala

**Izen** bereziak eta abstraktuak bereizten dituen edozein gramatikak. Itziar Laka

Bere irudiko, alemaniar **izen** bereziaren eta frantses zehatzailearen arteko loturak halako nahasmendu txundigarri eta arras atsegingarri bat eragingo zuen bere bezeroen gogoetan. Oskar Arana

**14** ***izen-deitura*** (*62 agerraldi, 40 liburu eta 6 artikulutan*) *pl* ik gorago **12.**

Igorlearen **izen** -deiturak eta helbidea. Joxemari Iturralde

Nire **izen** -deiturak telefono-gidan zeuden. Oskar Arana

Sarrera-orria betetzerakoan, errepikatu eta letraz letra eman behar izan zituen **izen** -deiturak. **Izen** -deiturarik gabeko atso bat ugaldean itoa, munduan milaka bezala. Nagusiak fitxa ekarri zion betetzeko eta bere **izen** -deiturak bertan idazteko eskatu. Juan Garzia

Emaztea eta semeak atzerrira joan ziren beste **izen** -deitura batzuk hartuta. Antton Olano

· Harpidetzari esker izaten dugu goizero, bakoitzarendako ale **izen** -deituraduna etxeko postontzian sartuta. Aingeru Epaltza

**15** ***izen-emaile*** (*orobat* ***izenemaile***) *izond*

Errealitatea behatzailearen ekoizpena da, behatzaile **izen** -emaile batena (hizkuntza arruntean eta orobat fisikarenean). Iñaki Segurola

**16** *–n* ***izen(a) eman*** helburu jakin bat duen zerrenda batean izena idatzi.

Charliek armadan **izen** eman beharko duela, edo gu guztiok landetxetik botako gaituela. Mirentxu Larrañaga

Ez ditek **izen** ematen utziko hamazazpi urte bete. Mirentxu Larrañaga

Jimmy Parsonsek **izen** eman du. Mirentxu Larrañaga

· Biak Sorbonan zeuden **izena** emanda. Jon Muñoz

Aurten taxi-erregistroan **izena** emanda zaudela adierazten du orri horrek. Jon Muñoz

Ez nuen sekula aitaren baimena lortuko aerodromo batean **izena** eman eta hegazkinlari izateko. Anjel Lertxundi

Armadan **izena** eman nahi zuten hiriko gazte boluntarioen arduradunetako bat zela. Anjel Lertxundi

Bazkarian parte hartzeko **izenak** behar dira eman aintzinetik ostatuan berean. Herria

· Hoa eta emak **izena,** agian hik uste baino lehen deituko diate. Anjel Lertxundi

Baina **izena** orain ematea komeni da. Anjel Lertxundi

Horregatik komeni zela **izena** ahal zen lasterren ematea. Anjel Lertxundi

Noiz duzu **izena** emateko asmoa? Anjel Lertxundi

Ondotik bazkaria Idioinzaharretan, eman **izenak** . Herria

**17** ***izen-emate***

Udaleku horietako batzuen **izen** -emate orrialdeak ere eskaini zizkion. Iban Zaldua

Bera izan zitekeen nire **izen** -emateaz arduratuko zen militarra! Anjel Lertxundi

Ordu laurden bat inguru iraun zuten haren **izen** -emate eta galdeketak. Anjel Lertxundi

**18** ***izen propio*** izen berezia.

XIII. mendean bai, **izen** propio gisa agertzen zaigu *Orçi* bat. Iñaki Segurola

Oro bat gertatzen da autoreen **izen** propioekin. Lourdes Oñederra

**Izen** propioek banakoak izendatzen dituzte: "Greta"k Greta izendatzen du eta "Belle"k Belle.Russellen ustez, **izen** propio puru batek denotatu egingo du soilik, eta ez du inolako arrasto konnotatiborik izango. Askoren artean

Egiazko **izen** propioak, hots, **izen** logikoki propioak, denotatu egiten du soilik. Askoren artean

**19** ***izena izan*** du *ad*

Ismael Jaurrieta Tirapu zuen **izena** . Ramon Saizarbitoria

-Bide batez, Nathan dut **izena** -esan nuen-, Nathan Glass. Oskar Arana

**Izena** Mitridates zuen eta botere-gosea inork baino gehiago. J.M. Olaizola "Txiliku"

Algy banu **izena,** ez nindukezu maitatuko? Antton Olano

-Hemendik aurrera ez diozu zeure emazteari *Sarai* esango, *Sara* izango du **izena**. Anttoni zuen **izena**, ez oso izen euskalduna, bide batez esanda... Jose Antonio Mujika

Floraren aitak Benito zuen **izena**. Ramon Saizarbitoria

Damokles zuen **izena** kortesanoak. Jon Muñoz

*Gallo nero* zuen **izena** ardoak. Jon Muñoz

Noiz jaio ginen, nola **izena** duen gure amak eta bestela jakingo ez genituzkeen kontu horiek denak. Ingelesez Edinburgh **izena** duen hiri horretan. Iñaki Segurola

-Ez dago **izen** hori duen lekurik, Lucy. Oskar Arana

"Okotz Cormenzana kixkaldurik hil zen atzo", irakurtzen zen *Egiaren ispilua* **izena** zuen hiriko egunkari salduenean. Iñaki Segurola

-Nola duzu **izena**? Jose Morales

Eta hire emazteak nola du **izena**? Jon Muñoz

Nola zuen **izena** ipurtaundi beltzaran horrek, nik egunkaritik martxa egin baino urtebete lehenago etorri baitzitzaigun...? Aingeru Epaltza

· Ceferino Xemein, luma-**izena** Amandarro zuen polemista eta burukidea. · *(zer galdetzaileaz)* Baina berak zer **izen** du? Ramon Saizarbitoria

Eta zuk? zer **izen** duzu zuk? Bernardo Atxaga

Zer **izen** du belaontziak? Anjel Lertxundi

## 20 ***izenezko*** *izlag* izen hutsezkoa (ez egiazkoa)

Mundu heleniko jentilak kristau-aroko laugarren mendean **izenezko** konbertsioa, en masse, egin ondoren. Iñaki Mendiguren

Hau da, "Jainkoaren atributuak" deituak ahalmen multzo bat besterik ez dira, beren artean **izenezko** ezberdintasuna besterik ez daukatenak. Xabier Kintana

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 11 aldiz agertzen direnak)**

**euskal izen** (16)

**izen abizen** (13); **izen abizenak** (102); **izen abizenekin** (11); **izen aldaketa** (17); **izen arrunta** (11); **izen bakarra** (21); **izen bera** (51); **izen berbera** (12); **izen bereko** (150); **izen berezi** (22); **izen bereziak** (16); **izen berri** (28); **izen berria** (35); **izen berriak** (16); **izen bilketa** (23); **izen bitxi** (15); **izen deiturak** (32); **izen ederra** (15); **izen egokia** (13); **izen emaite** (24); **izen emaitea** (16); **izen emaiteak** (26); **izen eman** (18); **izen emate** (12); **izen ematea** (26); **izen emateko** (19); **izen ezagun** (16); **izen gisa** (11); **izen handi** (18); **izen handia** (39); **izen handiak** (22); **izen handiko** (116); **izen handikoak** (12); **izen ofiziala** (24); **izen ona** (150); **izen onaren** (26); **izen ospetsua** (16); **izen polita** (23); **izen propio** (21); **izen propioa** (17); **izen propioak** (130); **izen santua** (17); **izen sintagma** (14); **izen txarra** (17); **izen zaharra** (12); **izen zerrenda** (17); **izenak izen** (12)

**jaunaren izen** (11); **leku izen** (15); **nire izen** (46); **zein izen** (27); **zer izen** (61); **zion izen** (54); **zioten izen** (19); **zure izen** (29)

**bere izen ona** (13); **beste izen bat** (65); **beste izen batekin** (12); **beste izen batzuk** (17); **eman zion izen** (43); **eman zioten izen** (13); **izen bat eman** (14); **izen berri bat** (15); **izen eta guzti** (18); **izen hori bera** (11); **zer izen zuen** (14)

**aitaren izena** (24); **amaren izena** (12); **benetako izena** (66); **bere izena** (386); **beren izena** (37); **egilearen izena** (11); **eman izena** (14); **ene izena** (11); **enpresaren izena** (11); **etxearen izena** (18); **euskal izena** (13); **gizonaren izena** (14); **gure izena** (17); **haien izena** (14); **haren izena** (272); **herriaren izena** (35); **hire izena** (27)

**izena ageri** (16); **izena agertzen** (17); **izena aipatu** (53); **izena aipatzen** (20); **izena aldatu** (64); **izena daraman** (35); **izena eman** (428); **izena emana** (41); **izena emanda** (43); **izena emanez** (12); **izena emango** (26); **izena ematea** (37); **izena emateko** (129); **izena ematen** (93); **izena ematera** (21); **izena entzun** (37); **izena entzutean** (16); **izena esan** (58); **izena esaten** (26); **izena ezarri** (22); **izena galdetu** (28); **izena gogoratzen** (11); **izena hartu** (80); **izena hartuko** (19); **izena hartzen** (27); **izena ikusi** (14); **izena ipini** (12); **izena irakurri** (14); **izena izan** (20); **izena izango** (26); **izena jarri** (123); **izena jarriko** (11); **izena jartzea** (14); **izena jartzeko** (19); **izena jartzen** (16); **izena jaso** (16); **izena merezi** (21

**jainkoaren izena** (29); **jatorri izena** (12); **jatorrizko izena** (17); **jaunaren izena** (33); **neskaren izena** (16); **neure izena** (16); **nire izena** (245); **taldearen izena** (23); **zure izena** (142)

**bere benetako izena** (12); **bere izena daraman** (11); **bere izena eman** (21); **da bere izena** (14); **du bere izena** (14); **eman dakote izena** (12); **eman diote izena** (25); **eman dute izena** (71); **eman zion izena** (15); **eman zuten izena** (21); **izena eman behar** (26); **izena eman diote** (21); **izena eman duten** (21); **izena eman nahi** (23); **izena eman zion** (33); **izena eman zioten** (18); **izena eman zuen** (22); **izena eman zuten** (12); **izena emateko epea** (49); **izena esan zuen** (11); **izena eta izana** (27); **izena ezarri zion** (11); **izena hartu zuen** (40); **izena izango du** (11); **izena jarri diote** (37); **izena jarri zion** (13); **izena jarri zioten** (23); **jarri zion izena** (29); **jarri zioten izena** (18); **nola du izena** (36); **nola duk izena** (15); **nola duzu izena** (41); **nola zuen izena** (21); **zen bere izena** (13)

**bere izenak** (20); **beren izenak** (24); **gure izenak** (13); **guztien izenak** (36); **haien izenak** (41); **herrien izenak** (14); **izenak agertzen** (19); **izenak aipatzen** (11); **izenak berak** (65); **izenak emaiteko** (11); **izenak emaiten** (14); **izenak eman** (281); **izenak emanez** (11); **izenak emateko** (14); **izenak ematen** (15); **izenak esaten** (12); **izenak hartzen** (14); **izenak izen** (12); **lagunen izenak** (11); **leku izenak** (16)

**bere izenarekin** (13); **bere izenaren** (22); **bere izenaz** (19); **haren izenaren** (12); **haren izenaz** (12); **izenaren jabe** (13); **izenaren pean** (13); **izenaz deitzen** (16)

**ahalguztidunaren izenean** (12); **askatasunaren izenean** (26); **batasunaren izenean** (41); **bere izenean** (49); **demokraziaren izenean** (17); **denen izenean** (24); **eajren izenean** (14); **elkartearen izenean** (37); **erregearen izenean** (13); **etaren izenean** (42); **gobernuaren izenean** (23); **haren izenean** (40); **herriaren izenean** (31); **jainkoaren izenean** (154); **jaunaren izenean** (97); **jaurlaritzaren izenean** (24); **kontseiluaren izenean** (13); **kristoren izenean** (22); **legearen izenean** (14); **nire izenean** (101); **noren izenean** (14); **plataformaren izenean** (14); **santuaren izenean** (28); **segurtasunaren izenean** (13); **taldearen izenean** (27); **zure izenean** (27)

**egin nire izenean** (25); **gure jaunaren izenean** (11); **herritar guztien izenean** (18)

**agustin izeneko** (14); **agustin izeneko agure** (13); **izeneko agure** (18); **izeneko anaia** (12); **izeneko bat** (61); **izeneko batek** (23); **izeneko baten** (16); **izeneko bere** (22); **izeneko beste** (26); **izeneko elkarteak** (12); **izeneko emakume** (30); **izeneko erakusketa** (17); **izeneko gazte** (12); **izeneko gizon** (67); **izeneko herri** (22); **izeneko hitzaldia** (11); **izeneko lan** (17); **izeneko lana** (24); **izeneko leku** (16); **izeneko liburu** (17); **izeneko liburua** (28); **izeneko liburuan** (32); **izeneko mutil** (11); **izeneko neska** (26); **izeneko pertsonaia** (11); **izeneko talde** (35); **izeneko talde batek** (12); **izeneko taldeak** (12); **izeneko tranbia** (11); **izeneko txostena** (21); **izeneko txostenean** (14); **jatorri izeneko** (11); **pedro izeneko** (11)

**izenen artean** (22); **izenen bat** (21); **izenen emaitea** (30); **izenen emaiteko** (47)

**bere izenez** (37); **beste izenez** (20); **ez du izenik** (15); **izenez bataiatu** (11); **izenez deitu** (31); **izenez deitzen** (26); **izenez ezagutzen** (38); **izenik aipatu gabe** (11); **izenik ez duen** (13); **izenik gabe** (46); **izenik gabeko** (57)

---

# izenburu 1 *iz* liburu edo idazlan bati hasieran edo buruan ezartzen zaion izena, gehienetan haren gaia nolabait adierazten duena. ik **izen 7**.

Lanaren **izenburu** osoa. Askoren artean

Idazlanean agertzen diren kapitulu, atal eta azpiatalen **izenburu** guztiek. Askoren artean

Kontakizun honen amaierara heldu naiz, eta [...] oraindik ez dakit zein **izenburu** jarriko diodan. Iban Zaldua

Liburu honen **izenburua** hautatzeko orduan, [...]. Patxi Zubizarreta

**Izenburu** bat ere pentsatu dut, oraintxe bertan gainera. Pako Aristi

**Izenburu** osoak honela dio: *Izadiaren historia orokorra eta zeruaren teoria edo mundu-eraikin osoaren sorkuntzari eta jatorri mekanikoari buruzko saialdia newtondar printzipioen arabera*. "Ez da inorentzat sekretua laster hildakoren bat izango dugula", zioen **izenburu** batek. Ibon Uribarri

*Borroka galduetatik gatoz* dik **izenburu** Urtzi Urrutikoetxea poeta gaztearen lehen liburuak. Juan Luis Zabala

Batak (edo besteak, ordenak ez baitu deus esan nahi) "Isiltasuna ez da aterpe" du **izenburu**. Joxerra Garzia

Aitaren olerki-liburukoa zen; "Neskatxa kurdua" zuen **izenburu,** eta Sami izeneko batek izenpetzen zuen. Juan Kruz Igerabide

Egunkaritik ebakitako puska bat, **izenburu** hau zuena: [...]. Jon Muñoz

*De caelo* (Zeruari buruz) **izenburua** duen liburuaren lehenengo atalean. Askoren artean

*Next* din **izenburua;** globalizazioari buruzkoa dun. Iban Zaldua

*Konikoak* zuen **izenburua** haren lan nagusiak. Jon Muñoz

Zentsurak pasarte batzuk eta **izenburua** bera aldarazi zizkion. Jose Morales

"Zuretzat, inoiz ezagutu ez nauzun horrentzat", ageri zen orriaren goialdean, **izenburu** gisa. Eduardo Matauko

## 2 (izenondo eta izenlagunekin)

**Izenburu** motz-zorrotzak egitera beharturik gaude. Aingeru Epaltza

Proiektua xumea zen arren, **izenburu** nabarmen eta apur bat arranditsua ematea erabaki nuen. Oskar Arana

1972an *Meadows Txostena* atera zen argitara, "Hazkundearen mugak" **izenburu** adierazgarriaz. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

**Izenburu** bikain bat bururatu zait oraintxe kapitulu honentzat: [...]. Josu Zabaleta

**Izenburu** luzea zuen egitarauak: [...]. Josu Landa

Horrela dio liburuaren jatorrizko **izenburuak**. Ibon Uribarri

Axolagabe irakurri zuen hizki larriko **izenburu** bat: "Kargua utzi du Hungariako Presidenteak". Anton Garikano

**3** (hitz elkartuetan)

**Izenburu**-orriaren eta hitzaurrearen artean sartu nuen grabatua. [...], zioen ostiraleko egunkariak. Anjel Lertxundi

"Bihar, 16:00etarako, presoak ez badituzte Euskal Herrira ekartzen, hil egingo dutela ohartarazi du ETAk", jarraitzen zuen berriak, letra txikiagoan, **izenburu** azpiko tituluan. Pedro Alberdi

· Olerki eta narrazio **izenburu** hauek ere esanguratsuak dira: *Kosmo polita, [...].* Artikuluetan, literatur lanetan, liburu **izenburuetan,** publizitate esaldietan. Iñaki Arranz

**4** ***azpi-izenburu*** ik **izenburuazpi**.

Uda honen aurretxoan kaleratu da *Un escorpión en su madriguera* izeneko liburua, azpi-**izenburu** hauxe duena: "Indoeuropeo y euskara: mito e identidad". *De Cive*-ren azpi-**izenburu** luzeak behin baino gehiagotan aipatzen ditu jainko-ordena eta erlijioa. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**du izenburu** (31); **honako izenburu hau** (5); **izenburu bereko** (19); **izenburu egokia** (4); **izenburu hori jarri** (4); **izenburu osoak** (4)

**diskoaren izenburua** (5); **du izenburua** (27); **erakusketaren izenburua** (4); **hitzaldiaren izenburua** (8); **izenburua bera** (11); **izenburua du** (10); **izenburua eman** (6); **izenburua ematen** (6); **izenburua irakurri** (6); **izenburua jarri** (21); **izenburua zeraman** (4); **izenburua zuen** (5); **jatorrizko izenburua** (21); **liburua izenburua** (10); **liburuaren izenburua** (33)

**izenburuak adierazten duen** (9); **izenburuak berak** (13); **izenburuak dioen** (10); **izenburuak dioen bezala** (5); **izenburuak iradokitzen duen** (4); **liburuaren izenburuak** (4); **zioen izenburuak** (4)

**izenburuko hitzaldia** (11); **izenburuko liburu** (5); **izenburuko liburua** (9); **izenburuko liburuan** (4); **izenburuko mahai** (4); **izenburuko mahai inguruan** (4); **izenburuko txostena** (7); **izenburuko txostenean** (6)

---

# izenburuazpi *iz* ik **izenburu 4**.

Izenburu eta **izenburuazpiaren** edukia trukatua ageri zen lehen orrialdearekiko, hots, hatz nagi murriztua izenburuari zegokion, eta gogorkeri zantzuak, berriz, **izenburuazpiari**. Aingeru Epaltza

Eta are gehiago **izenburuazpiak:** "Arrazoi naturalez hil bazen ere, uretara nork eta zergatik bota zuen ikertzen ari da orain polizia". Aingeru Epaltza

---

# izenburudun **1** *izond* izenburua duena.

Bufanda beltz bat lepotik zintzilik, liburu bat eskuan... espainolezko **izenburuduna**! Unai Iturriaga

**2** *izlag* izenburuko.

Bestetik, Ipar Hegoa fundazioak *Klase borroka Europako Batasun berrian: Europaren eraikuntzarako estrategia sindikala* **izenburudun** txostena kaleratu berri duela jakinarazi zuen atzo LABeko eta fundazio horretako kide Pazis Garciak. Berria - Euskal Herria

Biharkoan, *Eskubideak, askatasunak eta Estatu arrazoia* **izenburudun** lehen jardunaldia hasiko da, 16:30ean. Berria - Harian

---

# izendaezin **1** *izond* ezin izendatuzkoa.

Hots nahasi **izendaezin** bat! Josu Zabaleta

Artega nengoen, biziki artega, izanez ere jostetak bazuen aldi berean erakarri eta uxatu egiten ninduen zer **izendaezin** bat. Patxi Zubizarreta

Frantzisko agortu ezineko hitz-jarioz saiatzen da **izendaezina** den "Goi-goiko, ahalguztidun, Jaun ona" abesten eta ospatzen. Askoren artean

Ideia hor da, betiere, **izendaezin**. Monika Etxebarria

**2** ***izendaezine(z)ko*** izendaezina.

**Izendaezineko** idoloen kultua baita gaitz ororen hasiera, zergatia eta jomuga. Elizen arteko biblia

Bere tasun **izendaezinezko** eta barnera ezinezkoengatik, bere jatorriagatik, bere etorkizunagatik edo bere helburuengatik. Josu Zabaleta

---

# izendagarri **1** *izond* izendatzea merezi duena.

Eta gatazkaren antzeztokian gertatutako aldaketa **izendagarrienak** hiru asmorekin egin direla aurkitzen dut. Ibon Uribarri

**2** izenda daitekeena.

Hortxe, lehen bereizketaren eremu horietan, hor agertzen diren distantzietan, etenuneetan eta atalaseetan diskurtso psikiatrikoak aurkituko du bere esparrua mugatzeko aukera, zertaz hitz egiten duen definitzekoa, berari objektuaren estatutua ematekoa -hau da, bera agerrarazteko eta **izendagarria** eta deskribagarria bihurtzeko-. Xabier Arregi

---

# izendaketa *iz* izendatzea.

Martinen hitzak dakartzat pinu usaineko gela honetara: kementsua zarelako maite zaitut, polita, arrazionala, askea... Memoria arakatu dut, bere nire **izendaketa** helduleku; maite nau, esan dut; polita zara, dio; eta ispiluan konprobatu dut. Eider Rodriguez

---

# izendapen **1** *iz* kargu baterako izendatzea.

Andresek, **izendapen** hori jaso bezain laster, bere bagajea prestatu eta Hegoaldeko geltokirantz jo zuen. Josu Zabaleta

Baina honek, **izendapena** ez zuela hartu eta, ez zuen kargua onartu. Askoren artean

Hainbeste kopla, bertso, bertsopaper eta txapelketa, hainbeste sariketa, antologia, **izendapen,** omenaldi, hileta eta urteurren... Juan Luis Zabala

Hantxe bertan izendatu zuen Mem Ramires mendebaldeko fronteko kapitain, gainerako buruzagien **izendapena** geroko utziz. Jon Alonso

Arartekoaren **izendapenak** gehiengo zabala behar du, hots, 75 legebiltzarkideetako 45, gutxienik.

PSE-EE alderdiak ere babestu zuen Lamarkaren hautagaitza eta PPk adierazi du jada ez duela **izendapena** eragotziko. Berria - Euskal Herria

Txillardegi-k ez du onartu ohorezko euskaltzain izateko **izendapena**.

Bere **izendapenaren** jakinarazpena etorri zitzaion egunetik. Aingeru Epaltza

EAJ-EA taldea ados agertu da Kortaren **izendapenarekin;** ez, ordea, Josep Ramonedarenarekin. Berria - Kultura

Galesko Legebiltzarrak berriki izendatutako Hizkuntza Galeserako Batzordeburu berri Meri Huwsen **izendapena** ikertuko du. Berria - Mundua

Batzordekide hauen **izendapena** «alderdikeriarik gabe» egin dela zehaztu zuen Perettik. Berria - Mundua

Henrike esker txarrekoa izaten ahal zen sariak emateko tenorean, baina ez ergela **izendapenak** egitean. Aingeru Epaltza

**Izendapena** patronatuak onetsi behar du orain. Berria - Kultura

Eta **izendapena** berresten da. Jose Angel Irigaray

Hugolino Ostiako gotzainaren **izendapena** Ordenaren aita eta zaindari izateko. Askoren artean

Babiloniako akademia talmudikoetako buruei emandako ohorezko **izendapena**. Xabier Kintana

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Apeztu berri hartan, ez zuen **izendapen** ospetsu baten menturarik, baina bere kalifikazio onak ikusiz Baionan gelditzeko baimena bederen emanen ziotelakoan zegoen. Elena Touyarou

Niri zegokidan Gertakarietako kazetari saldoarendako **izendapen** gordin horren aitatasuna. Aingeru Epaltza

Berruezoren dimisioak **izendapen** berriak eragin ditu. Berria - Euskal Herria

**Izendapen** Publikoetarako Batzordeak. Berria - Mundua

Ohorezko **izendapen** asko jasotzen ari da egunotan Juan Jose Ibarretxe lehendakaria Argentinan. Berria - Euskal Herria

**3** oskarretako eta kideko sarietako hautagai aukeratzea.

Oscarretarako 11 **izendapen** jaso ditu 'The Lord of the rings'-ek. Berria - Kultura

Oscarretarako zazpi **izendapen** izan zituen arren, bat ere ez zuen eskuratu. Berria - Kultura

Oscarretako film onenaren **izendapena** duten bost filmen diru sarrera ehuneko 20 igotzen da. Berria - Kultura

*Brokeback Mountain*-ek, Ang Leeren film miretsiak, zortzi **izendapen** jaso ditu, eta, horrenbestez, faborito bihurtu dute. Berria - Kultura

Taiwango zinemagile horren filmak zortzi **izendapen** lortu ditu. Berria - Kultura

Zinemako ekoizle daniarren elkarteak Lars Von Trierren filmaren Oscar sarietarako **izendapena** atzera botatzeko eskatu dio Danimarkako Institutu Zinematografikoari. Berria - Kultura

Ez dut uste saria jasoko dudanik, baina **izendapen** hutsarekin gustura nago. Berria - Kultura

'Bon voyage' lanak ditu Frantziako zinema jaialdirako **izendapen** gehien. Berria - Kultura

Heath Ledgerrek, aktore onenaren **izendapena** jaso du. Berria - Kultura

Sei **izendapen** zituen eta bostetan gailendu zen; besteak beste, *rhythm and blues*-eko diskorik eta abestirik onenaren sariak lortu zituen, *Dangerously in Love* lanarekin eta *Crazy in Love* abestiarekin. Berria - Kultura

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Baina anaia honen apaltasuna ezagutuz, ez zion **izendapen**-gutuna bidali nahi izan, bere apaltasunagatik kargua onartuko ez zuen eta, gainera, berarengana joko zuen beldur baitzen. Askoren artean

"Ikono bidezko **izendapen** kode" kontzeptuarekin. Josu Zabaleta

Paltoko sakelatik atera zuen beti berekin zeraman **izendapen** ageria eta irakurrarazi zion. Elena Touyarou

Sarrera ekitaldiaren amaieran, euskaltzain berriari domina eta **izendapen** agiria emango dizkiote. Berria - Kultura

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Handiki bat urrutiko herrialde batera joan zen, errege-**izendapena** hartzera. *Honoris causa* doktore **izendapena** jaso zuenean. Elizen arteko biblia

Herriko jendeak lehenengo printzeari, printze **izendapen** aurretik ere, [...]. Felipe Juaristi

**6** zerbaiti edo norbaiti izena ematea; izena.

**Izendapen** haietatik guztietarik, *Peaceful* deitura erabili zuen gehienbat. Mirentxu Larrañaga

Inork galdetuko balit, ezingo nuke esan izengoiti huraxe zuelako bataiatu zuen horrela taberna, ala ostatuari **izendapen** horixe eman ziolako hartu zuen beretzako goitizena. Xabier Mendiguren Elizegi

Ezagutu nuenean, "Oroimen-artista"tzat iragartzen zuten Franco, eta Proustekin -"oroimenaren poeta"- zituen parekotasunak azpimarratu nahi ziren, antza, **izendapen** horrekin. Xabier Olarra

Egileak aipatzen duen "Lehen Kausa" **izendapen** hau, filosofo arabiar eta eskolastikoek oso erabilia, Aristotelesen sistemarekin erabat loturik dago. Xabier Kintana

"Dama" **izendapena** hitzetik hortzera zerabilen. Mirentxu Larrañaga

Ez dago ezberdintasunik [ikuspegi honetan] "zurgin" eta "aditu" edo "jakintsu" **izendapenen** artean. Xabier Kintana

**7** (izenondo eta izenlagunekin)

*Manga* da Japonian komikiari ematen zaion **izendapen** generikoa. Bata zein bestea **izendapen** egokiak dira, bi hitz horiek "gerriko" esan nahi baitute. Berria - Kultura

Ez dauka **izendapen** hoberik. Iban Zaldua

Arrotza ere igandean bertsuaren bihotz izanen den *Bilbao Exhibition Center* antzokia, inglesezko **izendapen** bitxi horrekin. Herria

**8** deklarazioa.

Sanzek hondamen eremu **izendapena** eskatuko du. Berria - Euskal Herria

Baserriaz gain, monumentu **izendapenak** haren ingurunea ere babestuko du aurrerantzean. Berria - Euskal Herria

**9** ***jatorri(zko) izendapen*** sor-marka.

Euler zen, matematikari guztien artean, "jatorri-**izendapen"** gehien sortu zituena, zerrenda ikaragarri bati eman baitzion izena: formulak, teoremak, metodoak, irizpideak, erlazioak, ekuazioak... Jon Muñoz

Hor ditugu, adibidez, musikan, *canción española, euskal musika, jota navarra, brit pop* edo saldu beharrak asmatutako ezin konta ahala label, etiketa edo jatorrizko **izendapen**. Iñaki Segurola

*Getariako Txakolina* Jatorrizko **Izendapena** elkarteak sustaturik, huntan biltzen direlarik 16 sototako mahatsak. Herria

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**artekoaren izendapenak** (3); **hondamen eremu izendapena** (3); **izateko izendapena** (3); **izendapen berriak** (4); **izendapena ematea** (3); **izendapena izan** (3); **izendapena jaso** (13); **izendapenak atzera botatzea** (3); **izendapenaren kontra** (4); **printze izendapena** (3); **sarietarako izendapena** (3); **sarirako izendapena** (3)

---

**izendarazi**, izendaraz, izendarazten du *ad* izendatzera behartu.

Auzitegietara jo zuten herritarrek, eta Quilish muinoa Babestutako Gune **izendaraztea** lortu zuten. Berria - Gaiak

---

**izendatu**, izenda, izendatzen **1** du *ad* norbait kargu edo egiteko baterako, horretarako esku duenak hautatu. ik **xedatu**.

Urte hartan, herriko bi zahar **izendatu** zituzten epaile. Elizen arteko biblia

Pio V. Aita Sainduak kardinale **izendatu** nahi izan zuen 1570ean. Piarres Xarriton

Moskuk orain arteko lehen ministro Sergei Abramov **izendatu** zuen behin-behineko presidente. Berria - Mundua

Gero Arbelbide **izendatu** zuen zuzendari, Hiriart zuzendari lagun eta Soubelet nobizioen buru. Xipri Arbelbide

Hagit-en seme Adoniasek bere burua errege **izendatu** duela. Elizen arteko biblia

Berrogei egunean problema gehien ebatziko zituena **izendatuko** zuten garaile, eta hark sakelaratuko zuen dirua. Jon Muñoz

1792. urteko abuztuaren 25ean Frantziako hiritar **izendatu** zuten, eta bi departamendutako ordezkari **izendatu** zuten Konbentziorako (Oise eta Sa(tm)ne-et-Loire, non ondasun ugari erosi baitzituen). J.M. Olaizola "Txiliku"

Komisario **izendatu** zuteneko dokumentua beiratua zuen, baina ez zekien, Baionan egin zuen gisan, berriz erabiltzen ahalko zuenetz. Elena Touyarou

Euskaltzaindiak 1965ean **izendatu** zuen euskaltzain urgazle, eta euskaltzain oso, berriz, 1980ko uztailaren 31n, Jose Maria Lojendioren ordez. Berria - Kultura

Haiekin batera, Jose Luis Alvarez Enparantza Txillardegi ere ohorezko euskaltzain **izendatzea** erabaki zuen Euskaltzaindiak. Berria - Kultura

2001ean, Azpeitiko *Baitte* Euskara Elkarteak ohorezko bazkide **izendatu** zuen. Berria - Kultura

Karia hortara Juan Jose Ibarretxe, Euskal Gobernuko Presidenta *Doctor Honoris Causa* **izendatu** dute La Platako unibertsitatean. Herria

BNG alderdiko zuzendaritza berria **izendatu** du Quintanak. Berria - Mundua

Alexandrek polizia buru berri bat **izendatu** zuen. Berria - Mundua

Onena komisarioak **izendatzea** delako, lege-hausleak sala ditzaten herriaren izenean. Juan Martin Elexpuru

**2** (nora adieraziz)

Pirinioetako herrixka hartara **izendatu** zuten Larresoroko seminarioan ikasketak burutu orduko. Elena Touyarou

XIX.ean, Lacroix, Baionako apezpikuak, Arnegira **izendatu** zuen Errecart erretore berriari galdegin zion Ondarrolako lana ere egin zezan. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ithorrotzeko Dassance erretorea Arnegira **izendatua** izan baitzen, Piarres-i galdegin zion otoi haurreri katixima egin ziezaien. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

**3** oskarretako eta kideko sarietako hautagai aukeratu.

Ang Leeren *Brokeback Mountaine* eta Paul Haggisen *Crash*, berriz, bederatzina saritarako hautagai **izendatu** dituzte. Berria - Kultura

Sei hautagaitza izanda ere, George Clooneyren *Good night and good luck* saririk gabe geratu da, eta gauza bera gertatu zaio Steven Spielbergen *Munich*-i bost alorretan **izendatu** eta gero.

Pablo Malo zuzendari onenaren Goya sarirako **izendatu** dute. Berria - Kultura

Rachel Weisz eta Ralph Fiennes dira filmeko aktore nagusiak, eta biak **izendatu** dituzte, zein bere sailean, aktore onenaren BAFTA saria irabazteko hautagai. Berria - Kultura

Pablo Malo donostiarra zuzendari berririk onenaren sarirako **izendatu** dute, *Frio sol de invierno* lanagatik. Berria - Kultura

**4** izenez aipatu edo adierazi.

Gauza **izendatu,** esan zuen al Khuarizmik. Jon Muñoz

Izen propioek banakoak **izendatzen** dituzte: "Greta"k Greta **izendatzen** du eta "Belle"k Belle. Askoren artean

Gauzak bere izen zuzenez **izendatzeko** beldurrak bezala. Iñaki Segurola

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Beherea eta Garaia) eta Zuberoa batera **izendatzeko** erabil bedi Euskal Herria. Herria

Buruz **izendatu** zituen izenburuak don Ottaviok, Tavio txikiak bere haurtzaroko kantuak errepikatuko zituen bezalaxe. Jon Muñoz

Festa egun handi haren ekimenak bederazka **izendatuz** eta deskribatuz. Elena Touyarou

Luzeegi litzateke gero handik Perzepolizera arribatzeko trebesatu behar diren ziutate eta hiri guzien **izendatzea** eta deskribatzea. Aurelia Arkotxa

-Duela zenbait aste etorri ziren bi tipoek -jarraiki zuen kusiak, Pinet eta Cavaignac **izendatu** gabe aipatuz- pikoan emana dute "Osasun publikoaren komitea" edo horrelako zerbait... Elena Touyarou

Hamasei urterekin atxilotu zuten lehen aldiz, geroztik ezagutu dituen kartzelak **izendatzen** ditu. Jokin Urain

Euskaratutako olerkiak aipatzean Bertolt Brecht, Goethe, Heinrich Heine **izendatzen** ditu, besteak beste. Berria - Kultura

Ondarrola Cestau etxea, Irauzketa eta Ardandegia, hiruak **izendatuak** ziren "casas vecinales" bezala, erran nahi baita Erro ibarrekoak zirela. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Parisko auzitegiko epaileak bideratu zuen azterketak ez zuen atentatu horren egile bezala 11 epaitutakoetatik bakar bat ere **izendatu**. Berria - Mundua

[...] Homerorenak, batez ere -zilegi bazaigu, oraingoz, deitura horren bidez autore bat **izendatzea-**. Askoren artean

Atalak osotasuna **izendatzen** duen sinekdoke berezi horretan. Piarres Xarriton

**5** delako izena eman; delako izan izan. ik**deitu**.

Itxaro eta Uxue lehen 2 alaben ondotik, horra seme batekin direla aldi huntan, Amets **izendatu** dutena. Herria

Senar-emazte **izendatzen** zaituztet. Askoren artean

Pritxiaineko Marcel eta Genevieve-n familia emendatu da bigarren haur batez, nexkatxa bat, **izendatu** dutena Miren. Herria

Pomare V.a erregeak Frantziari eman zion uhartea eta ofizialki kolonia **izendatu** zuten. Berria - Mundua

Zubi bat egin omen zuen, zeina **izendatu** baitzuten *Esteberen zubi;* euskarak laket baitu hitzen laburtzea, hizkiak janez, horrek eman zuen *Ezterenzubi,* herri guziari ezarri zitzaiona. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Jendeak *Herriko Plaza* eta agintari berriek *Errepublika Enparantza* **izendatzen** zuten lekura iritsi zen Joanes. Felipe Juaristi

PAN Palestinako Aginte Nazionalak, berriz, «haserre egun» **izendatu** du nazioarteko auzitegiaren saio hasierako eguna. Berria - Mundua

Jean Grenet auzapezak «nazioarteko izarra» **izendatu** duenak lau urte daramatza diskorik kaleratu gabe. Berria - Kultura

Poliziak eta epaileek pertsona arriskutsu **izendatu** naute. Berria - Mundua

Ezkontza-nahasle **izendatuko** dute eta urdanga deitura ezarriko harekin nahasi denari. Aingeru Epaltza

Pasio igandea, aspalditik, *Lazaro eguna* **izendatu** zuten, egun horretan mezetan lehenago Lazaroren pasarte ezagun hura irakurtzen zelako. Pello Zabala

O. Casmannek berak "Fabrica humani corporis" **izendatzen** du tratatuaren bigarren zatia. Askoren artean

Eibarrera joan ginen, *Henry Bengoa Inventarium* **izendatu** genuen irakurketa hura ematera. Berria - Kultura

Idazleak sortutako lanen zerrenda «bibliografia aktiboa» **izendatu** dute Susako arduradunek, eta ondoan «bibliografia pasiboa» erantsi diote; hots, «beste egile batzuek idazle horren inguruan idatzi dutena jasotzen duen atala». Berria - Kultura

Hainbat liburu argitaratzeko ausardia lotsagabea izan dudala, horrek, noski, nire buruari *idazle* **izendatzeko** eskubidea ematen ez didala badakidan arren. Karlos Linazasoro

"Aberats" epitetoaz **izendatzen** du Korinto. Iñaki Iñurrieta

Kapitala mugagabe metatzera bideratua dagoen sistema **izendatzen** du *kapitalismo* hitzak. Koro Navarro

**6** sari jakin bateko saridun aukeratu.

*Medicis* sarien epaimahaiak Marie Nimierren *La reine du silence* eleberria **izendatu** du frantziar obrarik onena.

'Xivaren malkoak' eta 'Egiaren jokoa' **izendatu** dituzte 2003-04ko Liburu Gazteak. Berria - Kultura

Kepa Junkeraren Oliene kantua **izendatu** du Espainiako Musikaren Akademiak iazko euskarazko kanturik onena. Berria - Kultura

**7** deklaratu.

Debako Udalak herria hondamen eremu **izendatzeko** eskatuko du gaurko udal batzarrean. Berria - Euskal Herria

Eremua Itsas Gune Bereziki Hauskorra **izendatzeko** eskatu diote zientzialariek IMO erakundeari. Berria - Gaiak

Baltiko itsasoko hondoa babestutako naturgune **izendatzeko** proposamena eztabaidatuko du Nazioarteko Itsas Erakundearen menpeko Ingurumena Babesteko Batzordeak, datorren astean. Berria - Gaiak

Gasteizko Mendiak natur parke **izendatzeko** egitasmoa prest du Udalak. Berria - Euskal Herria

Aieteko jauregia monumentu **izendatzeko** prozedura abian jarri du Jaurlaritzak. Berria - Kultura

Gasteizko *Betiko* elkarteak San Frantzisko komentua egon zeneko orubea Ondare Kultural **izendatzeko** eskaera igorri berri dio Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari. Berria - Kultura

8 norbaiti edo zerbaiti dagokiona adierazi; zerbait norbaiti dagokiola adierazi. ik **esleitu**.

Estatus arrunta **izendatu** zitzaion ikur horri: zifra bilakatu zen. Jon Muñoz

**Izendatu** zioten, beraz, egun bat. Elizen arteko biblia

1908.eko otsailaren 10a **izendatu** zuten mozketako eguna. J.M. Olaizola "Txiliku"

1980ko gobernuak jaiegun **izendatu** zuenetik ospatzen dute sandinistek egun hau. Berria - Mundua

Adiskide leialari Grosrouvrek hain zuzen **izendatu** zion zeregina. Jon Muñoz

Bakoitzari obedientziak **izendatzen** zion arloa emateko pobreen lurraldean, Jainkoak erabakitako banaketaren arabera. Askoren artean

NDFri zegokion, lehen bezala, ikuskaritza makroekonomikoaren ardura, eta Munduko Bankuari egotzi zitzaion baliabideak **izendatzeko** eginkizuna eta egiturazko berrikuntzak sustatzekoa. Koro Navarro

· Artean jakiten dut presoak komandoetara **izendatzen** dituen bulegoko buruzagia txekiar bat dela. Marzel Etxehandi

**9 *ezin izendatuzko***

Eta xehe-xehea aipatzea gaitz luketenak, baina artoski obratu beharrekoak, eta zehatz aipatu gabe banan-banan ezin **izendatuzkoak,** baina garrantzitsuak direnez usu baliatu beharrekoak. Jon Muñoz

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 6 aldiz agertzen direnak)**

**alkate izendatu** (8); **buru izendatu** (38); **buruzagi izendatu** (7); **errege izendatu** (28); **euskaltzain izendatu** (6); **hautagai izendatu** (14); **jenerala izendatu** (6); **kide izendatu** (13); **kontseilari izendatu** (6); **lehendakari izendatu** (21); **ministro izendatu** (42); **nagusi izendatu** (22); **ondorengo izendatu** (6); **onena izendatu** (38); **ordezkari izendatu** (11); **oso izendatu** (9); **presidente izendatu** (42); **santu izendatu** (6); **urgazle izendatu** (7); **urtea izendatu** (6); **zuzendari izendatu** (14)

**barne ministro izendatu** (9); **errege izendatu zuten** (6); **euskaltzain oso izendatu** (9); **euskaltzain urgazle izendatu** (7); **idazkari nagusi izendatu** (8); **izendatu zuen errege** (9); **jokalari onena izendatu** (9); **lehen ministro izendatu** (17); **lehendakari izendatu zuten** (7); **presidente izendatu zuten** (21)

**izendatua izan** (80); **izendatuak izan** (14); **izendatutako administrari** (7); **izendatzea erabaki** (8); **izendatzea proposatu** (6)

---

## **izendatuki** *adlag* berariaz izendatuz.

Hor aipatzen dira **izendatuki** Herbart, Steinthal, Lazarus eta euren aldizkaria Zeitschrift für Völkerpsychologie und Sprachwissenschaft. Joxe Azurmendi

Herriaren arimaren kontzeptuari Ortega lehen aldiz, oker ez banago, beren-beregi eta **izendatuki** erreferitzen zaion pasartean. Joxe Azurmendi

Eta jakin zuenean ezen dukeak gonbita onartu zuela, Donibane Lohizunetik ekarri baitzuen, **izendatuki** eta espreski, dukea jauregiratu baino bi hilabete eskas lehenago. Joan Mari Irigoien

---

## **izendatzaile** 1 *iz* izendatzen duena.

Jatorriz, [...]-z bukaturiko **aditz** izendatzaileekin dago erlazionatua. Isabel Arrigain

Filologoak beti behar baititu mintzagai bat eta galdegai bat, baina berdintsu ari gintezkeen beste edozein jardun **izendatzaile** edo errealitate-sortzailez. Iñaki Segurola

Jakintza (ez "zuhurtzia") etsipen **izendatzaile** bat da, eta **izendatzaile** bezain sortzaile eta asmatzailea. Iñaki Segurola

• **2** *iz* zatikitean, behealdeko zenbakia.

Nicolas Oresmek, Ehun Urteko gerraren garaian, *zenbatzaile* eta ***izendatzaile*** hitzak sortu zituen. Jon Muñoz

Barraren azpian, **izendatzaileak** izendatu egiten du; gainean, berriz, zenbatu egiten du zenbatzaileak. Jon Muñoz

Zatikiak batu, **izendatzaile** berera eraman, sinplifikatu. Jon Muñoz

**3 *izendatzaile komun***

Egia esateko, eta matematikazko esapidea erabiliko dut, **izendatzaile** komun bakar bat besterik ez da izan nire bizitzan kasik: nire luxuria asebetetzeko zeregin osasungarrian eman ditut nire egunak, funtsean. Karlos Zabala

Elkarren oso desberdinak dira, baina **izendatzaile** komuna dute: Txillida. Berria - Kultura

**Izendatzaile** komun mitiko horren bizimodua, kaleko gizonarena alegia, putzu bateko ura bezain aspergarria da, Roberts jauna. Koro Navarro

Hala ere, umekiaren izaeraren inguruan, **«izendatzaile** komunetako txikiena» zein zen zehaztua dagoela esan zuen Estrasburgok: «Umekiaren potentzialtasuna eta gizaki bihurtzeko ahalmena babestea; horrek bizitzeko eskubidea izango lukeen gizaki bihurtu barik». Berria - Gaiak

---

## **izendatze** 1 *iz* norbait kargu edo egiteko baterako, horretarako esku duenak hautatzea.

Zuzendaritza batzordearen **izendatzea** . Herria

Beste **izendatze** guztiak uzten ditut zure enbaxadorearen gain. Piarres Xarriton

Kardinale berrien **izendatzeaz** mintzatu nintzen Aita Sainduarekin. **Izendatze** hau ziurrenik 1220. urteko bigarren zatian gertatu zen. Piarres Xarriton

Zihauren artean egin baduzue **izendatze** hori, ez diot den gutieneko baliorik ezagutzen. Marzel Etxehandi

Pepinen errege **izendatzearen** formulan ikusten denez, Karlos eta Karloman ere gantzutu eta bedeinkatuak izan ziren. Iñaki Iñurrieta

Auzapez eta axuant **izendatzeak** egin dira. Herria

Kargu- **izendatzeetan,** Bulegoko kideak heldu den urtarrilaren 27an hautatuko dira. Herria

**2** delako izena ematea; delako izan izatea.

450 sor-marka eta 127 **izendatze** ezberdin existitzen dira Frantziako arnoarentzat. Berria - Harian

Mapa egiten duen eskuaren indarrean dago gorabehera guztia, ez baitu herriak edo jendeak **izendatze** horretan parterik. Iñaki Segurola

Hiztun komunaren neurriko **izendatzetik** autoritateak ezarritako izen edo rotuloetara darabilgun txango honetan [...]. Iñaki Segurola

Izen politikoak eta geografikoak bereizi gabe, **izendatze** modu berberaren fruituak baitira nola batzuk hala besteak. Iñaki Segurola

Badela [...] "giza neurri edo tamaina izendatzaile bat" (gutxigorabeherakoa, jakina), herri-jendearen edo hiztun komunaren neurriko **izendatze** modu bat, eta badirela, horren gainetik, "mapak eta dokumentuak". Iñaki Segurola

---

## **izendegi** *iz* izenak biltzen dituen zerrenda.

Duela hiruzpalau urte hasi zen oihanzaingoaz mintzaldi zenbaiten eskaintzen, bai-eta Lapurdi Irratian Baionako familien **izendegiaz** kronika jarraikiak zabaltzen, telefonoko urtekaritik hartuz deituak. Herria

Egia da, UZEI.k presakako kirtenkeria asko asmatu du euskal lexikoa zehaztekoan, baina, Biologia **Izendegian** behiala ikusi nuen liztor hura ez zitzaidan batere arrotz egin; bai ordea, haren erabilera taxonomikoa. Patziku Perurena

Beste toki batzuetan bezala, kale **izendegiari** erantsi nahi izan zioten Sarriegiren izena. Askoren artean

Euskal Herriko udalen **izendegia** herrialdeka, Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak, departamenduak eta hiriburuak. Berria - Euskal Herria

---

## **izendun** 1 *izond* izena duena.

Parisko anatomista **izendun** guztiek, zehaztasun eta oinarri sendoen falta direla-eta, barregarri utzi dituzte, gaizkileen kopuruari dagokionez, gai honi buruz argitaratu diren dedukzioak. Koro Navarro

**Izendun** lege eta erabaki judizialek kalte egingo diote Batasunari, ia seguru, baina askoz kalte handiagoa egiten diote demokraziari (sic) berari. Berria - Euskal Herria

Tolosak ia talde osoa du internazionala, **izendun** jokalariez osatua, alegia. Berria - Kirola

**2** (izen gisa)

Idazlea ez zen egun horretan zezen-plazara etorria zen **izendun** bakarra. Edorta Jimenez

---

## izengabe 1 *izond* izena ezagutzen ez dena; izena ezagutarazten ez duena..

Aurkikuntza mamitsurik izan ezean, ugaldeko atso **izengabearen** afera ez zen gehiago albiste. Aingeru Epaltza

Bertan, inoiz ez bezalako gauza ederrak esateaz gainera, maitale **izengabeak** hitzordua jartzen zion. Berria - Kultura

Betarte izerditsuan eskultore **izengabe** batek oinazearen iduria zizelkatu balio bezala. Joan Mari Irigoien

Atzean utzitako jende **izengabeari**. Anton Garikano

Alferrikako gerletan bizia -besterik ezin eta- galdu zuten **izengabeen** izenak. Joxerra Garzia

**2** irud/hed

Behor zahar eta zabal hura, otzana eta **izengabea**. Koro Navarro

Zein itsaso **izengabetan** egin nahi dut igeri? Iñaki Segurola

Gu bion artean bazen errotiko gorroto bat, grina ilun eta **izengabe** bat, eta haren sorburua galdua zen urteen joanarekin. Ander Irizar

Jendea "hemengoa", muga jakinik gabeko "hemen" batekoa -zein bere "hemen"ekoa- izateak eta sentitzeak dakarrela zinezko unibertsaltasun hemengotarra edo hemengotasun unibertsal **izengabea**. Iñaki Segurola

Titanic aipatzen da, baina zenbat eta zenbat naufragio **izengabe,** hitzen icebergetan erpina baizik ez ikustearren. Joxerra Garzia

**3** egile izengabea duena. ik **anonimo**.

Gutun **izengabea** Danceny jaun zaldunari. Jon Muñoz

Gezurrezko zurrumurru **izengabeek**. Juan Garzia

**4** ***izengabeko*** *izlag* izengabea.

Jende doilorra zen, **izengabeko** jendea, herrialdetik makilaka jaurtikia. Elizen arteko biblia

**Izengabeko** mendietarik zetorren buztin-urak erreka loditzen zuen. Itxaro Borda

Liburuetan sekula ikusia ez nuen **izengabeko** kabala bat zegoen. Itxaro Borda

**-Izengabeko** esku batek idatziko lukeena behin eta betiko. Xabier Arregi

---

## izengabetasun *iz* izengabea denaren nolakotasuna.

Inoiz ez nuen hiltzen ikusteko, haren heriotzako unean bertan egoteko beldurra sentitu; hala eskatua zidan berak, hitz emanarazteraino, haren ondoan egongo nintzen, prest egongo nintzen, ez nuen utziko, ez eta ospitaleko gelako **izengabetasun** antzuan ere. Joxan Elosegi

---

## izengaizto *iz* ezizena.

Potroak gero, sindikalista bati Armani deitzea, fabrikako sugegorriek ezarritako **izengaiztoa** zen, maltzurki, gero sekzioko kideek ere onartua, maltzurki eta maiteki aldi berean. Jon Alonso

Izan du **izengaiztorik** ere: tradizio oso zabaldua erantsi izan zaio mendeen harilean. Pello Zabala

---

## izengoiti *iz* norbait izendatzeko bataio eta familia izenen ordez erabiltzen den izena.

Bi aurkeztu zituzten: Jose, deituraz Barsaba, **izengoitiz** Zintzo, eta Matias. Elizen arteko biblia

Manuel Sarasa Gonzalez, **izengoitiz** "Kalpar-latz", **izengoitiz** "Sagarroi", **izengoitiz** "Manolo Potzolo". Aingeru Epaltza

Urte askotarako itsatsi zidan **izengoitia:** Herrenko. Juan Kruz Igerabide

Haur denborako **izengoitia** nuen "Zimino". Menane Oxandabaratz

Von Hardenburg-en idazle **izengoitia**. Koro Navarro

**Izengoitia** paratu zidan: "Nabarrenkoxeko zezenkoa". Aingeru Epaltza

Nik ezarri **izengoitia** aise hedatu zen lantokian: "Eskalatzailea". Aingeru Epaltza

Inork ez zidan eragozten **izengoitiak** ezartzea haien non, nola, zertan edo garaitiko zerei ohartuta. Aingeru Epaltza

---

## izenka *adlag* izenak aipatuz.

Kondatuak izan ginen behin eta berriz, deia egin zuten **izenka,** manuak ukan genituen eta lanean hasi ginen: botoinak josi behar ziren, eta botoin xiloak inguruan bordatu. Marzel Etxehandi

---

## izenkide 1 *izond* izen bera duena.

Triskantzaren gomutak egun ere estatubatuarrei bihotza erretzen die Sthepen Benet-en *Ehortzi Ezazue Ene Bihotza Wounded Kneen* poemari eta Dee Brownen 1970.eko eleberri **izenkideari** esker. Berria - Kultura

Alemaniako analisten eta inbertsiogileen artean egiten den ZEW ekonomia analisi zentro **izenkidearen** inkestaren emaitzak oso txarrak direla jakin zen atzo. Berria - Ekonomia

**2** (-en atzizkiaren eskuinean)

Elkanok, ene **izenkide** Sebastianek. Edorta Jimenez

-Hemengo aldi, Joanes -agurtu ninduen nire **izenkide** Leizarragak. Aingeru Epaltza

Carlos (Karl Marx-en **izenkide** izatea ere ez duk kasualitatea, jakina) hiltzearekin ez al du idazleak iradoki nahi gizarte sozialistaren ilusioa hilda dagoela (Botereak hil duela) edo horrelako zerbait? Mikel Hernandez Abaitua

---

## izenkidetasun *iz* izenkidea denaren nolakotasuna.

Ez duzu sinetsi behar Haren esentzian gauza gehigarririk denik, gure esentziari eransten zaizkien atributuen antzekorik, (atributu mota) horien artean **izenkidetasun** hutsa

dagoelako. Xabier Kintana

---

# izenlagun *(orobat **izen-lagun** g.er.)* *iz* izenaren ezkerrean ezartzen den adjektiboa.

"Argal" **izenlaguna** Peñagarikano pertsonaren estereotipoaren zati da beraz. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

*Francus* **izenlagunak,** berriz, "noble", "aske", "eskuzabal" esan nahi du. Askoren artean

Gazteentzako lehen lan kontratuaren legea iruzur hutsa da, beste **izenlagunik** ez du, *lotsagarria*. Berria - Ekonomia

Eta ez du onartzen apaingarririk, ez luzapenik, ez alferreko **izenlagunik** . Karlos Linazasoro

Lokailuak mota askotakoak daude: esapide konjuntiboak, **izenlagunak,** juntagailuak, loturako esaldiak, etab. Askoren artean

Alferreko berbarik ez idatzi -sobera dauden adjektiboak, **izenlagunak** edo hitz-jokoak, adibidez-. Askoren artean

Badaki 2. multzoan **izen** -lagun ere bihur daitezkeen substantiboak dituela. J. Garzia / A. Egaña / J. Sarasua

---

# izenondo *iz* izenaren eskuinean ezartzen den adjektiboa.

Hainbeste izen eta hainbeste **izenondo** , horiek denek osatzen dutena sare-arte polita da eta, ez da zaila horretan harrapaturik geratzea. Edorta Jimenez

Gauza hura ezin zitekeen irudikatu hainbat **izenondorekin** : luze, labur, biribil, gogor, bigun... Zer hots ateratzen ote zuen? Juan Kruz Igerabide

Har dezagun, esaterako, perpausaren zatien saila: Zertan oinarritzen da izenetan, **izenondoetan** eta abarretan bereizturiko hitzen sailkapena? Isabel Arrigain

Izenik gabeko **izenondoen** pilatze bat da, eta **izenondo** horiek sinonimo kontestualtzat jo daitezkeelarik, alferrikako pilatze bat da. Iñaki Segurola

Beste **izenondoa** Beltza dugu: gure artean parte gaiztoko guzia adierazten zuena, erlijio sinestetarik hasi eta jende kasta bereiztuak sinalatzerainokoan. Patziku Perurena

Hala ere, gehienetan inbertsioak ondorioak dakartza berekin, tartean dauden hitzak izenak, **izenondoak** , aditzak edo direnak direlakoak direla. Iñaki Arranz

Honek esan nahi du ezen gizakiek, oro har, lehenbiziko ahaleginean uler dezaketen eta irudika dakiekeen guztia Jainkoari (gorets bedi!) egotzi izan zaiola, eta, Bera, horrexegatik, gorpuztasuna adierazten duten **izenondoekin** kalifikatu izan dela, horrela Bera (gorets bedi!) badela frogatzeko. Xabier Kintana

**IZENONDOAK** : bete, inguratu, handi, libre, luze, txirikordatu. Xabier Olarra

---

# izenondotasun *iz* izenondoaren izaera.

Badakigu, Jainkoari eskerrak, helburu anitzak ditugula gizarte moderno honetan, orain arte anitz helburu (edo helburu anitz) besterik gabe, genituen tokian, hitz horren **izenondotasuna** eta izenordaintasuna nahasiz. Pello Salaburu

---

# izenordain **1** *iz* gramatikan, gauza bat, bere izena aipatu gabe adierazteko erabiltzen den hitza, mugatzailerik onartzen ez duena.

Munduko mintzaira guzietan aurkitzen dira izenak, **izenordainak** , aditzak, aditzondoak, eta abarrak; horiek mintzairaren gramatika bereziak kudeatzen dituela. Herria

Morfologia, hitzen kategoria desberdinez (aditz, izen, adjektibo, **izenordain** eta abarrez) arduratzen da. Isabel Arrigain

Gramatika eranskinean alfabetoa, zenbakien idazkera, deklinabidea eta aditz laguntzaile eta **izenordainen** taulak agertzen dira. Berria - Euskal Herria

") adberbio batez ("perfektuki") edo **izenordain** batez (zuek!). Xabier Arregi

Ene ingeles eta gaztelania hizkuntz pobreak ahal bezala darabiltzat, "Yo" eta "I" **izenordainak** nahasiz! Piarres Aintziart

Joan Mari Irigoienek *ni* **izenordaina** osatzen duten bi letrak esanahiz betetzen ditu, *n* zubi batekin eta *i* itsasargi batekin alderatuta. Iñaki Arranz

Gramatikan, lehen pertsonaren **izenordaina** da, eta numeroz singularra. Xabier Olarra

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

**Izenordain** pertsonalak ingelesez hiru kasu ditu, menpekoa, aurkagarria eta jasalea. Xabier Olarra

Bazuen, gainera, perpaus batzuen subjektua jateko bizio bitxia, **izenordain** pertsonalez ordezkaturik, eta horrek are lausoagoa bilakarazten zuen beraren berbeta. Juan Garzia

Bazuen, gainera, perpaus batzuen subjektua jateko bizio bitxia, **izenordain** pertsonalez ordezkaturik, eta horrek are lausoagoa bilakarazten zuen beraren berbeta. Juan Garzia

Galderari ere **izenordain** galdetzaileari jarraipena emanez erantzun liezaioke batek, iseka aire batez: [...]. Iñaki Arranz

**Izenordain** indargarrien alorrean hiru sail daude euskalkien arabera: mendebaleko *neuk,* Iparraldeko *nihaurk,* eta gainerako hizkeretako *neronek*. Koldo Zuazo

Hitzaren hasierako *his* hori eta genero maskulinoko edutezko **izenordaina** gauza bera balira bezala. Karlos Zabala

## **3** (hitz elkartuetan)

Eta *p-n-iw* hitzaren **izenordain** atzizkia Moises gure maisuari buruzkotzat jotzen du. Xabier Kintana

Diskurtsoari dagokionez, esan behar da aditzek ez dutela pertsona markarik, eta benetako pertsona-**izenordainik** ez dagoela. Ibon Uribarri

## izen *(orobat **izen(-)orde**)* **1** *iz* ordezko izena. ik **izengoiti**.

Maria edo izatekotz Loretxu, **izen** -orde horrekin agertu beharra baitzen. **Izen** -orde alegera daukat eta beti atxikitzen dut. Janbattitt Dirassar

Sekulako olerki andana du idatziko bere bizian, "Oianburu" **izenordearekin** . Herria

Hamar, hamabi urte geroago, 1943an, haatik, Xabier Gazteiz **izenordearekin** argitaratu nuelarik Eskualdunak ene lehen liburuxka, 4. orrian sartu nuen behialako hostoaren kopia. Piarres Xarriton

**Izenordez** Musia zeritzon neska gazte zurbil ezezagunak ere hara begiratzen zuen, zerura. Jose Morales

Joan den astean zendu da Alphonse Lupiac *Gure Etxola*koa, ainitzek *Fonfon* **izen ordeaz** deitzen zutena. Herria

Pedro Zumalde Ezpeleta, **izenordez** Lodia. Joseba Sarrionandia

## **2** izenordaina.

Sekulan santan ez du *zein* galdezkako **izenordea** erabiliko *bait* gabe, orai modan sartzen ari den bezala. *You* **izenordearen** plurala, hizkuntza-maila apaleko hitza. Xipri Arbelbide

## **3** ***izenordeko*** *iz* izenordaina.

Izena bera ere, *Mykael* hebreerazkoa, 3 hitzez osatua dator: *My*, "nor" **izenordekoa,** *Ka,* "bezain" edo "bezala" aditzondoa duguna, eta *El,* hainbat hitz hebreerazkoetan ageri den "Jainko". Pello Zabala

---

# izenpe *iz* sinadura.

Enperadore Horiaren **izenpe** eta zigiluarekin. Felipe Juaristi

Desafioa euskal departamenduaren aldeko 46.000 **izenpe** biltzea izan daiteke. Berria - Euskal Herria

Gai horri buruzko herri kontsulta antolatzea departamenduaren eskumena izan ala ez, **izenpe** guztiak lortuz gero «urrats politiko bat» hasiko dela zehaztu du. Berria - Euskal Herria

**Izenpe** horiek auzapezari helaraziko dizkiote ondoren. Berria - Kultura

Berandu baino lehen, Eihartzeako kideek **izenpe** bilketa abiatu dute. Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **izenpeak biltzeko** (4)

---

**izenpearazi**, izenpearaz, izenpearazten du *ad* izenpetzera behartu. ik **sinarazi**.

Zuetarik bakoitzak zuen inguruko hamar pertsonari **izenpearazten** badiozue, aste baten buruan 1.500 izenpetzaile izan gaitezkeAldi berean, merkataritza-itunak **izenpearazi** zizkien Tunisiari eta Marokori, trukeen gaineko tokiko monopolioak ezabatzen eta muga-sariak behereneko mailetaraino murrizten zituztenak. Koro Navarro

FIDL Lizeoko ikasleen sindikatuak Dimitry, 19 urteko gazteari, CPE kontratu bat **izenpearazi** dio, sindikatuak ezagutzen dituen juristen laguntzarekin, 25 minuturen buruan kanporatzeko. Berria - Ekonomia

---

**izenpedura** 1 *iz ipar* sinadura, izenpea.

Gobernuaren **izenpedura** da falta. Herria

Gaur hasiko dute 46.000 **izenpedura** biltzeko kanpaina, Ezpeletan. Berria - Euskal Herria

Urria baino lehen bildu behar dira **izenpedura** guztiak. Berria - Euskal Herria

46.000 **izenpedura** biltzeak indar handia emango die kontsultaren aldekoei. Berria - Euskal Herria

*Anaiartea*k oroit-arazi du kanpaina frango badituela eginak eta **izenpedura** anitz bilduak euskal presoak hemendik hurbilago atxikiak izan daitezen.

Burasoen **izenpedura** faltsuen trafikoa. Ramuntxo Etxeberri

Ez zen dokumenturik, ez agiririk, ez **izenpedurarik,** eta, legearen aitzinean, Mari beti emazte ezkongabea zen, seme baten ama. Elena Touyarou

**2** (hitz elkartuetan)

Baldintza zorrotzak bete behar dira **izenpedura** kanpainak legezko balioa ukan dezan. Berria - Euskal Herria

Zerbait egin behar genuela eta lizeoko ikasleen artean **izenpedura** kanpaina bat abiatu genuen ostegunean ikusteko nor zegoen ikastetxea ixtearen alde eta nor aurka. Berria - Ekonomia

Datozen hauteskundeak baino sei hilabete lehenago bukatu behar da **izenpedura** biltzea.

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **izenpedura biltzeko kanpaina** (3); **izenpedura kanpainak** (3)

---

**izenpetu**, izenpe(tu), izenpetzen *(1080 agerraldi, 79 liburu eta 597 artikulutan)* **1** du *ad* norbaitek izkribu baten azpian, egilea dela edo adierazten denaz bat datorrela aditzera emateko, bere izenpea ezarri; zerbait onartzen dela izenpea ezarriz adierazi. ik **sinatu**.

Ez nuen inolako gogorik neure izenez **izenpetutako** libururik kalean jartzeko. Joxean Agirre

Liburua, izengoitiz **izenpetua** argitaratu zena, *La Voz de Guipúzcoa* egunkari errepublikanoan argitaratu zituen tokiko historiako kronika batzuen emaitza zen. Askoren artean

Ofizialak orri bat eman zion nire tutoreari **izenpetzeko**. Juan Kruz Igerabide

Gabilondok "Calei-cale" izengoitiaz **izenpetzen** zituen bere lanak. Askoren artean

Baimen-orria eman aitari edo zaintzaileari, **izenpetu** dezan. Iñaki Mendiguren

Hagrid, zuk hemen **izenpetu..** . Iñaki Mendiguren

Irakurri agiria **izenpetu** aurretik. Ander Irizar

New Yorkeko Plaza Hotelean bildurik, adierazpen bat **izenpetu** zuten, dolarrak gehiegizko balioa zuela onartuz eta bost herrialdeetako agintariek dolarraren balioa jaitsarazteko egin beharrekoak egingo zituztela aginduz. Koro Navarro

Gaur gauean **izenpetu** eta bidaliko dizut. Iñaki Mendiguren

1961ean, "121en manifestu" ospetsua **izenpetu** zuen, Aljeriako gerrari intsumisioa egiteko eskubidearen aldekoa. Monika Etxebarria

Itun hori 1997an **izenpetu** zen Kioton, eta helburua gas toxikoen emisioa murriztea zen, planetaren berotze efektua saihesteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Departamenduaren aurkakoek ere eskaera hori **izenpetu** behar luketela uste dute *Batera*-koek. Berria - Euskal Herria

Trenbideetako 173 langilek agiri bat **izenpetu** zuten SNCFari euskararen erabilpena susta zezan eskatuz. Berria - Euskal Herria

Euskal Konfederazioak proposatu hizarmena **izenpetzea** onartu du. Herria

Egipto eta Israelen artean duela 25 urte **izenpetu** zen **bakea** ospatzeko. Berria - Mundua

1850eko urteetan **izenpeturiko** merkataritza-itunak berrikustea lortu zuen. Koro Navarro

To ageri hau! **izenpetua** eta zigiluz hornitua duk. Elena Touyarou

**Izenpetu** gabeko paperak eskuratu zituzten. Itxaro Borda

**2** (era burutua izenondo gisa)

Nagusiari kontatu zion Martinek bere burua eskaintzen zuela espedizio zail hura egiteko, alegia, alde karlistan sartu eta letra**izenpetuekin** itzultzeko. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**
> **agiria izenpetu** (6); **akordio bat izenpetu** (7); **akordioa izenpetu** (23); **hitzarmen bat izenpetu** (31); **hitzarmena izenpetu** (41); **hitzarmena izenpetu zuten** (7); **hitzarmena izenpetuko dute** (4); **hitzarmena izenpetzen** (7); **hitzarmenak izenpetu** (5); **ituna izenpetu** (12); **izenpetu beharra** (6); **izenpetu dute hitzarmena** (4); **izenpetu zuten atzo** (9); **izenpetutako akordioa** (4); **kontratua izenpetu** (13); **mozioa izenpetu** (4)

---

**izenpetzaile** *iz* zerbait izenpetzen duen pertsona.

**Izenpetzaileen** izenak. Txillardegi

Heldu diren hilabete hauetan, Akordioaren **izenpetzaileeri** galdegina zaie neurri konkretuan abiatzea. Herria

Bartzelonako Adierazpenaren **izenpetzaileek** atzo Madrilen egin zuten bileraren ondoren. Berria - Euskal Herria

**Izenpetzaile** horietatik bat dugu Baionako MAIF asurantza bulegoa. Herria

Polizia ikerketa ohar honen **izenpetzaile** zen Frizon komisarioak eta garai hartan DNATeko buruzagi goren zen Roger marion komisarioak «idazketa akats bat» izan zela argudiatu zuten. Berria - Mundua

---

**izenpetze** 1 *iz* sinatzea, sinadura.

46.000 **izenpetze** bildu nahi ditu herri galdeketa egiteko. Berria - Euskal Herria

Dagoeneko 750 **izenpetze** lortu dituztela azaldu zuen Miguel Torrek. Berria - Euskal Herria

Gizarte Segurantza ez hunkitzeko eskatzen zuten 10.000 **izenpetze** aurkeztu zuen Legebiltzarrean Alain Bocquet diputatu komunistak. Berria - Euskal Herria

Irailaren 1etik lanean hasiko dira, **izenpetze** ofizialaren zain egon gabe. Berria - Euskal Herria

Hauteskunde Batzorde Nazionalak dio oraingoz 1.800.000 **izenpetze** inguru balioztatu dituela. Berria - Mundua

Badirudi apirilaren zigilu eta **izenpetze** urez brodatua, *Abril aguas mil* betiko topiko hori dela. Pello Zabala

**2** (hitz elkartuetan)

Herriko Etxe guztietan **izenpetze** eguna antolatuko dute ekainean. Berria - Euskal Herria

Ondoko aste eta hilabeteotan **izenpetze** bilketa kanpaina burutuko dute. Berria - Euskal Herria

Herriko Etxe guztietan antolatuko dituzte **izenpetze** ekitaldiak. Berria - Euskal Herria

Pirinio Atlantikoetan erreferenduma antolatzea eskatzeko **izenpetze** biltze kanpaina abiatuko dute. Berria - Harian

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **izenpetze bilketa** (6); **izenpetze kanpaina** (5); **izenpetzeak bildu** (3); **kontratuaren izenpetzea** (3)

---

## izentazio *iz* izendatzea.

Notarioen jardunek eta euskal herritarren jaidurek luzaroan ahalbideratu zuten, Code Civil horren azpian, baserriak oso-osorik zaintzea, ezkontza kontratuak eta oinordeko bakarraren **izentazioa** tartean zirela. Andres Urrutia

Bonaparteren garaia agortu, eta, aldaketa batzuen ostean, Kode Zibil soilaren **izentazioa** jaso zuen hark. Andres Urrutia

---

## izentsu *izond* izen handikoa.

Uda, berriz, aterpez aterpe, eguzkiz, nekez eta haizez mozkortzeko, eta hatz-mamietako larruazala giza eskuk sekula ukitu gabeko haitzen igurtziz leuntzeko: ez, ordea, gailur **izentsuetan,** ezta egitate gogoangarri bila; horretaz deusen axolarik ere ez zuen. Juan Garzia

---

## izentxo *iz adkor* izena.

Sakonean alderatu ditu gizakiak eta ardiak, eta bildotsen **izentxoak** ezagutzeko gogoa sortu zaio. Itziar Otegi

---

## izerbera *izond* erraz izerditzen dena.

**Izerbera** haiz ala zer demontre gertatzen zaik, motel? Jose Morales

Ixabel **izerbera** zen, orduan ere ttantta distiratsuz betea zegoen. Joxean Sagaztizabal

---

## izerdi *(orobat **izardi** g.er.)* **1** *iz* gorputzari darion isurkari gazi eta usaintsua, beroaren, lanaren edo sukarraren eraginez larruazalean tantak eratuz agertzen dena.

**Izerdiak** gorputza garbitzen omen du. Bernardo Atxaga

Belarrien atzean eta lepondoan behera zetorkion **izerdi** koipetsua lehortzeko. Juan Kruz Igerabide

**Izerdi** garbiaren usainak eszitatu egiten ditu maitaleak. Luis Elberdin

Egunetako **izerdi** itsaskorraren gazia. Xabier Montoia

Bederatzi eguneko **izerdi** lehorra eta ihes egindako pixa metatu zaizkizu azalean. Rafa Egiguren

Eta bada tristura more bat, idorra, iharra, **izerdi** larria bezain hotza. Iñaki Segurola

Aspirina **izerdia** botatzeko duk. Koldo Biguri

Nik nahiko **izerdi** bota diat, baita bion partez ere. Joan Mari Irigoien

Uretan egarria hiltzen, nekea leuntzen eta **izerdia** garbitzen. Felipe Juaristi

**Izerdia** azaleratu orduko izozten zitzaien. Agustin Otsoa

Eskua bekokitik pasa zuen **izerdia** kentzeko. Unai Iturriaga

**Izerdia** xukatu zuen eskuin eskuaz; arnasa hartu zuen sakon. Felipe Juaristi

Odol-tantak bezalako **izerdia** zerion. Patxi Altuna

Ezinegon lazgarri baten **izerdi** hotzak On Camillo **izerdi** hotzetan pats zegoen, berak altxatu baitzuen eskua. Iñaki Segurola

*ik beherago* 13. Askoren artean

Ukuilutik behien deabruzko marruma iristen zen, eta **izerdi** hotza botatzeko modukoa zen. Koldo Biguri

Lepoa **izerdi** loditan blai. Xabier Amuriza

**Izerdi** zuri bat lerratzen hasi zitzaidan bizkarrean beheiti. Aingeru Epaltza

Ile beltz bustiak ikusten nizkion, **izerdiz** beteak. Juan Kruz Igerabide

**Izerdiz** blai berriro nik bekoki eta lepo aldeak. Joxe Austin Arrieta

**Izerdizko** mikaztasuna amorruz bilatu duzu. Sonia Gonzalez

Azkenean lortu du, **izerdi** batean baina, edaria. Anjel Lertxundi

**2** irud/hed

Hezetasunak **izerdiz** blaitzen zituen bazterrak. Karlos Zabala

Amodioa **izerdizko** odola da. Sonia Gonzalez

**3** (testuinguru teknikoagoetan)

**Izerdia** kanporatzen denean, gorputza hoztu egiten da, neurri batean, **izerdi** horren lurrunketaz. J.M. Olaizola "Txiliku"

Egoera normalean, egunean kilo erdi ur baino gehiago lurruntzen da larruazaletik ikusten ez den **izerdian**. Irene Aldasoro

**Izerdia** ez da beti agerikoa izaten; **izerdiaren** ekoizpen-tasa lurruntze-tasa baino handiagoa denean baino ez da bustitzen larruazala. Irene Aldasoro

Txakurrak ezin du beroa **izerdiaren** bidez galdu, baina arnasestuka eginez galtzen du. Irene Aldasoro

Esfortzu gogor batean, litro bat **izerdi** sor daiteke orduko. **Izerdi** ekrinoak ez du usainik, baina gorputzak baditu izerdi-guruin apokrinoak ere. Irene Aldasoro

Beroaren eraginez gorputzak **izerdi** egiten du, freskatze aldera, eta likido galtze hau berreskuratu beharra dago. Berria - Harian

**4** (lanaren edo nekearen irudi gisa)

Zeure bekokiko **izerdiz** jango duzu ogia, lurrera itzuli arte. Elizen arteko biblia

Berdabiok ez daki [...] urteko egunak adina zulo egin dituela Trabukok -aitzur eta pala, **izerdi** eta neke, madarikazio eta behazun- ahuntzen larreetan. Anjel Lertxundi

Sos anitz **izerdi** soberarik gabe: Xarlesen filosofia zen. Itxaro Borda

Azken **izerdi** eder bat eta "Albergue de los Pergrinos", eskuin. Piarres Aintziart

Eta zenbat **izerdi,** bere esku sakratua dela medio, gizonak hurritzetan utzia. Patziku Perurena

Euskararen inguruan zebiltzan hainbat lagun, elkarte eta erakunderen neke, **izerdi** eta diruari esker sortu dena. Txema Ramirez de la Piscina

Ez dakit zergatik egin behar diogun uko **izerdi** askorekin irabazitako tratamendu horri. Joan Mari Irigoien

Jin ziren lehenek lekua garbitu zuten, block-ak eraiki **izerdi** anitzen gostuz, bai eta gizon bizi anitzen gostuz. Marzel Etxehandi

Minutuko aldea lortzeko **izerdi** franko bota behar izan zuten. Berria - Kirola

Makina bat **izerdi,** malko eta barre izan dira, urteotan guztiotan, astero-astero *Irutxulo* kaleratzeko. Berria - Harian

Irabazi arren, **izerdia** bota behar izan zuten puntuak eskuratzeko. Berria - Kirola

Uste baikenuen hura guztia herriaren **izerdiarekin** eraikia zela. eguneroko musika, neke eta **izerdiz** egina, odolaren aldarean isuria. Juan Kruz Igerabide

**Izerdia** botaraziko zidak emakume madarikatu honek! Jose Morales

## 5 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

**Izerdi** arrastorik ez haren kopetan. Aingeru Epaltza

Alkohol, pixa eta **izerdi** urrina. Itxaro Borda

-Maitemindu egingo zaitut -esan zion Bibik ke, **izerdi** eta sexu usainak nahasian. Paddy Rekalde

Igeltsero **izerdi**-usaineko hura gure aita zen. Juan Kruz Igerabide

**Izerdi**-parrasta, sauna batean bezala. Joxe Austin Arrieta

**Izerdi** zurruzta ederra isuri nuen denbora gutian. Aingeru Epaltza

Asteoroko aitortza derrigorrezkoan, **izerdi** uharrak abiatzen zitzaizkidan bizkarrean behera. Aingeru Epaltza

**Izerdi** malko batzuek zain hezeak marraztu zizkidaten kopetan. Aingeru Epaltza

Kamiseta laburrak agerian uzten duen gerrialdean **izerdi**-geruza mehea, azal leunaren distiragarri... Xabier Mendiguren Elizegi

**Izerdi** i-patsa zerion eta erabat busti zuen haurra. Anton Garikano

*ik* pats 2.

**Izerdi** negarrek kopetan beheiti egiten zidaten. Aingeru Epaltza

Badira bi **izerdi** mota, larruazaleko guruinek sortuak biak. Irene Aldasoro

Denetan estimatuena zakurrena omen zen, **izerdi**-xularmerik ez zuelako. J.M. Olaizola "Txiliku"

Guruin ekrinoak dira **izerdi**-sortzaile handienak. Irene Aldasoro

Ur hori **izerdi**-forman agertzen da larruazalean, eta, lurruntzean, berekin eramaten du beroa. Irene Aldasoro

## 6 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Neke-**izerdi** askoren artean. Iñaki Arranz

Jendeen hats tepoa, perfume eta salboin merkeen usain gohaingarria, besapeetarik jauki kabala **izerdi** nazkagarria. Itxaro Borda

Badirudi haren arropei eta gorputz-adarrei olio-**izerdia** dariela. Itziar Otegi

Sukarrez kordegabe egon zen luzaro, herio-**izerdi** hotzetan. Imanol Unzurrunzaga

## 7 landareek sustraien bidez lurretik ateratzen duten isurkari hazkurritsua, zurtoinean eta adar-abarren zehar gorantz eta beherantz dabilena.

**Izerdia** pixkanaka igotzen zen zainetan gora, gogorik gabe, eta sustraiak geldiro barneratzen ziren lurrean. Monika Etxebarria

Berrikitzeko beti sapa grinatsua duen altza, **izerdi** aberatseko altsumak dituen altza. Pello Zabala

Egutera gozoki egonik, axkar demonio bere zainetan gora **izerdi** sapatsua altxatzen eta axkartzen zaion bat maitagarri zait oso. Pello Zabala

Zuhaitz zaurituak **izerdia** botatzen duen bezala. Felipe Juaristi

Landare eta baso, kanpoaz gozatzen dakienak badaki beste pentsamendu honek biltzen duen beherakada honena ere: Uztailaren erditik eta aboztuaren erditsuraino, **izerdia** geldi-aldian izaten da. Pello Zabala

Landareak berak ere sofritu egiten baitu: **izerdi** betean badabil, sapa eta barruko lurruna goraka duela, nola ebakiko diozu bada, bere punttetako muttur bigunena? Pello Zabala

**Izerdi**-tantaka, negar batean egon ohi da, adarño gajoa, egun batzuetan, lur zorua, pare-parean, tindatuta uzten duela... Pello Zabala

Behin aurkituta, sustraiak zulatzen ditu, landarearen absortzioa eta **izerdi** landugabearen garraioa oztopatuz. Berria - Gaiak

Mahai berean egiten zuten topa, bene-benetako Cliquot bat edaten zutela, zortzi errubloan botila, inguruetako urkien **izerdi** freskotik oparo aterea. Karlos Zabala

Landarea eta bizidun gizakia, barru-garbitzen, zurruntasuna lijerotzen, zalutzen eta malgutzen, **izerdia** medio lixiba egiten ari dira. Pello Zabala

Hara hemen enborra: gorria eta erdibitua, **izerdiz** betea, eta hemendik ateratzen ditun adarrak. Anton Garikano

Urkiaren **izerdi**-sapa edaten zuten, batez ere udaberrian, osasun garbi fina mantentzeko. Pello Zabala

Zuhaitz-**izerdiaren** gorakada udaberrian. Joxan Elosegi

## 8 *irud*

Biziaren **izerdia** eta ongarri bakarra gogoa da, bizitzeko gogoa. Iñaki Segurola

## 9 (adizlagun gisa) izerditan.

Esnatu zen punpan, **izerdi**. Itxaro Borda

Amets egiten zuen makur-ekarleak zitezkeelakoan haurrak urkatzen zituela sortu arau eta tanpez iratzartzen zen, **izerdi** eta hatsanka. Itxaro Borda

Berezkoetan asteleheneko partidaren berriak ditugu baina Baionattipikorik ez, hango trinketa **izerdi** baitzen ortzegunean. Herria

## 10 *izerditan*

Eguzkiak gogor jotzen du, **izerditan** zaude. Lerroan zabaldu ziren; eta Aubervillek **izerditan** zeudela ikusi zuen, **izerditan** paraje kupidagabe hartan. Felipe Juaristi

Justina lo dagoen ganberara iritsitakoan, **izerditan** da. Felipe Juaristi

Telefonoa pausatu zuenean, eskuak igurtzi zituen galtzetan, **izerditan** balitu bezala. **Izerditan** esnatu naiz. Anjel Lertxundi

Gida **izerditan** zihoan. Aingeru Epaltza

**Izerditan** eta ahoa lehor-lehor nuelarik iritsi nintzen. Anjel Lertxundi

**Izerditan** neuzkan eskuak, komun hartan giro hotz samarra egon arren. Joxe Austin Arrieta

Berriro hasi nintzen **izerditan**. Joxe Austin Arrieta

**Izerditan** jarri nintzen. Bernardo Atxaga

Lisak gaztea **izerditan** ikusi zuen, ordura arte inoiz hauteman ez zion sugar batek begiak dirdirarazten zizkiola. Karlos Zabala

Nolanahi ere -berokirik gaberik, esan nahi dut-, **izerditan** segitu nuen. Edorta Jimenez

Ronan eta Bane arrapaladan agertu ziren zuhaitz artetik, arnasestuka eta **izerditan**. Iñaki Mendiguren

Behorraren lepo gainean okertuta etxeratu zen Garner jauna, **izerditan** eta kolorea zuri-urdin. Anton Garikano

**Izerditan** eta ahoa lehor-lehor nuelarik iritsi nintzen. Anjel Lertxundi

Sabaia hezetasunez **izerditan** zegoen. Josu Zabaleta

Leihopeko maindire sagarrez betea **izerditan** hasi da. Anjel Lertxundi

· **Izerditan** blai zegoen, eta bazirudien une batetik bestera lehertu behar zuela. Koldo Biguri

Eta sentimendu kontraesankorren arteko borroka zela medio, **izerditan** blai jarri nintzen. Ramon Saizarbitoria

Elastikoa **izerditan** blai utzi arte. Joan Mari Irigoien

Meharra lehena iritsi zen, baina gero arnasketa artifiziala egin behar izan zioten **izerditan** itota zegoelako. Koldo Biguri

Peppone **izerditan** pats zegoen. Koldo Biguri

*ik beherago* 13; *ik* pats 4. Askoren artean

Meharrak **izerditan** pats zeukan aurpegia. Koldo Biguri

### 11 *izerdi guruin*

Zakurrek oin azpietan -horregatik beren urrats hezeak- eta muturrean bakarrik dituzte **izerdi** guruinak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Larruazalaren parterik handiena dermisa da, geruza mamitsuago bat [...] odolhodi, nerbio-zuntz eta **izerdi** -guruinez ongi hornitua. Irene Aldasoro

Gizakiek **izerdi** -guruinen bidez galtzen dute, batez ere, gehiegizko beroa. Irene Aldasoro

Ekonomia horren adibide adierazgarriena zera da beharbada: emakumezkoaren bularra, izatez, **izerdi** -guruin eraldatu bat izatea. Irene Aldasoro

Gorputzak baditu **izerdi** -guruin apokrinoak ere. Irene Aldasoro

Txinan pneumonia atipikoak jota hildako gaixo baten **izerdi** guruinetan aurkitu dute SARSaren birusa. Berria - Gaiak

### 12 *izerdi lapetan* *(10 esaldi, 5 liburu eta artikulu 1ean)* izerdi patsetan.

**Izerdi** lapetan zara, baina izerdiak, zikindu ordez, ikuzi egiten zaitu. **Izerdi** lapetan zen, margul. Xabier Montoia

Gizonak **izerdi** lapetan zeuden oihal lodiz egin palto eta xenilak soinean. Elena Touyarou

Hamar minutuz oraino, toki berean egon ninduan, mugitu gabe, hotzez ikaran eta **izerdi** -lapetan. Daniel Landart

Beribil zabal dirdiradunean zabilan ixil ixilik lehena... eta harri hausten ari bigarrena **izerdi** lapetan. Herria

### 13 *izerdi patsetan* *(77 esaldi, 54 liburu eta 9 artikulutan)* izerdi asko dariola.

**Izerdi** patsetan heldu zen etxera. Unai Iturriaga

**Izerdi** patsetan itzartzen zen Herbert, lehen baino askozaz artega eta urduriago. Xabier Mendiguren Elizegi

Pala hartu zuenerako **izerdi** patsetan zegoen baso-guarda. Joxemari Urteaga

Saunan bezalakoxe **izerdi** -patsetan biok, larruzko nire sakela-xakearen gainean makurturik. Joxe Austin Arrieta

Metalezko teilatua eguzkiak berotu, eta **izerdi** patsetan ematen genuen eguna. Xabier Montoia

### 14 *izerdi tanta*

**Izerdi** tantak bildu zitzaizkidan kopetan eta lepo gibelean. Aingeru Epaltza

Emakumearen kopetan **izerdi** -tanta txikiak agertu ziren. Fernando Morillo

Dendako apaletan edo okindegitik eskura etorri zaion ogi berri horretan eskulan askotxo eta **izerdi** -tanta dezente, bere kideenak, daudela gordeta... Pello Zabala

**Izerdi** tantak xukatzeko mokanesa. Elena Touyarou

Goibelaldi samin hark ez zuen **izerdi** tantarik ere bota nire bihotzean. Imanol Unzurrunzaga

· Haren kezka bakarra, ordea: ez zedila **izerdi** -ttantta bat bera ere eror bere paperaren gainera! Joxe Austin Arrieta

· Bost Heinneken bere legezko **izerdi** tantekin barra gainean. Unai Iturriaga

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**izerdi asko** (6); **izerdi franko** (5); **izerdi gehiago** (6); **izerdi hotz** (5); **izerdi hotza** (17); **izerdi hotzetan** (11); **izerdi hotzetan blai** (5); **izerdi lapetan** (10); **izerdi likina** (5); **izerdi patsetan** (78); **izerdi patsetan zegoen** (5); **izerdi tanta** (16); **izerdi tantak** (22); **izerdi tantarik** (4); **izerdi tantek** (4); **izerdi usain** (6); **izerdi usaina** (12); **zenbat izerdi** (6)

**aurpegiko izerdia** (6); **bekokiko izerdia** (6); **izerdia ateratzen** (8); **izerdia bota** (12); **izerdia botatzeko** (5); **izerdia botatzen** (4); **izerdia lehortu** (8); **izerdia lehortuz** (4); **izerdia tantaka** (5); **izerdia xukatu** (10); **izerdia xukatu zuen** (5); **izerdia xukatzen** (5); **izerdia zerion** (5); **kopetako izerdia** (17); **kopetako izerdia lehortu** (4)

**izerditan blai** (55); **izerditan blai nengoen** (4); **izerditan blai zegoen** (6); **izerditan dago** (5); **izerditan esnatu** (4); **izerditan hasi** (10); **izerditan hasi zen** (5); **izerditan hastea** (4); **izerditan hasten** (6); **izerditan nengoen** (7); **izerditan zegoen** (19)

---

## izerdialdi *(corpusean **izertaldi** soilik)* *iz* izerditzea.

Lorategi loratu berrian lorategi ipotx gordin, itifaliko bat topatzean sentituko luketen bat-bateko **izertaldia** . Josu Zabaleta

---

## izerdiarazi, izerdiaraz, izerdiarazten du *ad* izerditzera behertu.

Egiaztapen harekin lana gogora ekartzeak **izerdiarazi** egin zuen antza. Ramon Saizarbitoria

Ilbeherak desintoxikatu egiten digu gorputza, garbitzearen aldera jotzen du, barruko sapak mugitu, ureztatu eta **izerdiarazi** . Pello Zabala

---

## izerdidun *izond* izerdia duena.

Horixe dukezu, irakurle, artikulu bilduma honen irudirik osatuena: zain **izerdidun** elorriondo arantzatsua loretan. Patziku Perurena

---

## izerdika *adlag* izerditan.

Eguzkipean **izerdika,** ni; korbata eta trajearen gainean bero lodiak labain egiten ziola, hura. Aingeru Epaltza

Kulunka eta **izerdika** ari naiz, palmondo berdea hagaxka bat bezain malgua da. Joxe Austin Arrieta

---

## izerdikatu, izerdika(tu), izerdikatzen du *ad*

Adituentzat gauza jakina da jariakin (latinez *secretio*) guztiak kaltegarri edo toxiko direla: hala, baldintza patologikotan, ez da harrigarri agiria, enpresak isilka (*secretum*) jariatzen duen papera, gehiegiko neurrian xurga dadin ostera, eta lokartaraz, geldiaraz edo zuzenean hil dezan bera **izerdikatu** duen organismoa. Juan Garzia

---

## izerditsu 1 *izond* izerdiz betea.

Musika-banda batek dir-dir egiten zuen eguzkitan, txapel zuriak, aurpegi gorri **izerditsuak,** *Yankee Doole* jotzen. Lopez de Arana

Hotzikara bortitz batek astindu zidan gorputz osoa esku **izerditsu** bat berna gainean ipini zidanean. Sonia Gonzalez

Bere esku bero, haragitsu eta apur bat **izerditsuaren** estutze lagunkoia sentitu nuen. Urtzi Urrutikoetxea

Bularreko ile **izerditsuetan** . Sonia Gonzalez

Gorputz **izerditsuen** marea gora gainditzeko. Felipe Juaristi

*Western Union* kapela **izerditsua** buruaren beste aldera joan zitzaion. Lopez de Arana

Hiru eguneko bidaia **izerditsua** egin genuen. Aingeru Epaltza

Bikotearen saio **izerditsuak**. Anjel Lertxundi

Umeltasun **izerditsu** hori. Sonia Gonzalez

Inoiz baino ederrago iruditu zitzaion mutila, eguzkiak distirarazten zion gerritik gorako biluztasun **izerditsu** hartan. Anjel Lertxundi

Haitzaren horma **izerditsua,** goroldio, iratze eta zuhaixkaz estalia. Pello Lizarralde

**2** (adizlagun gisa)

Eguzkipean, **izerditsu,** gona laburrak jantzita, tenisean ari diren neska gazteak etorri zaizkio gogora. **Izerditsu** nabaritzen dituzu ahurrak ere. Pako Aristi

---

## **izerditu**, izerdi(tu), izerditzen **1** da *ad* izerdia isuri, izerditan egon.

Bodegako hautsetan **izerditzen** diren zamaketariei ura ematera. Koldo Izagirre

Pertsona gizenak argalak baino gehiago **izerditzen** dira, eta bada arrazoi bat baino gehiago horretarako. Lihozko buru-zapia jantziko dute, eta lihozko galtzak, baina gerrikorik gabe, **izerdi** ez daitezen. Irene Aldasoro

Eskuak **izerdituko** zaizkio, mingaina lodituko, begirada lotsatuko. Anjel Lertxundi

Bat-batean eskuak eta galtzarbeak **izerditzen** hasi zitzaizkiolako. Jon Alonso

Ikasteko pilotako karra eta bizitasuna, nola den lehenik **izerditzen** pilotan, eta gero irabazten. Herria

Ondoeza egin zitzaidan ia, Florak eta bere amak gertaturikoaren berri ematen nienean zer esango zidaten pentsatuz: **izerditu** egin nintzen, tentsioa jaitsi zitzaidan, odola hoztu. Ramon Saizarbitoria

Barrua garbitzen du, diuretikoa da, **izerditzen** eta toxinak botatzen laguntzen du. Pello Zabala

Lau pilotariek huts gutxi egin zituzten, galdutako tantoak oso gutxi izan ziren; majo **izerditu** behar izan zen atzo Beotibarren tantoa irabazi ahal izateko. Berria - Kirola

Baina gauean zaldiak **izerditu** eta hoztu egin ziren. Koro Navarro

Eta hantxe, ardi galdu baten pare, aztoratua, ibili nintzen ibili, **izerditu** arte. Daniel Landart

Potoloa, berriz, urduriaren urduriz **izerditurik,** ausartu da halako batean bere begiko ilehori xarmantari dantzan egiteko eskatzera. Xabier Mendiguren Elizegi

Gorputzaren azaletik ur asko galtzen da **izerditzean**. Irene Aldasoro

Lurrun-bainuen aretoak eta **izerditzeko** gelak bainu beroen ondoko gelan egon behar dute. Santiago Iruretagoiena

**Izerditzeko** elastiko txanoduna, nylonezko zamarra, azazkal-moztekoa. Oskar Arana

Hotz zeukan esku leuna, urduritasunak edo **izerditua**. Migel Angel Mintegi

Edo pulmonia bat harrapatuko ote zenuen, trenaren zain zeundela, bizikletan **izerdituta**. Bernardo Atxaga

Ez zuela amets hartaz deus oroitzen, bere gorputz odolez **izerditua** ez bazen... Joan Mari Irigoien

Poltsatik **izerditutako** elastiko eta galtzerdiak atera zituen. Josu Landa

Arropa zahar, maiztu eta **izerditutakoak** erosten. Felipe Juaristi

• **2** du *ad* izerdi gisa isuri.

Haitzuloan goiko harriek hezetasuna **izerditzen** eta tantak destilatzen dituzte. Xabier Amuriza

Azido pirubikoa **izerditzen** eta ezpain-margo fabrikatzaile anbiguo halakoen atzetik lasterka egiten. Juan Garzia

**3** izerdiz bete.

Ordu erdi luzez aritzen nintzen flexioak eta ariketa fisikoak egiten, batzuetan gehiago ere bai, harik eta indarrak eten eta elastikoa eta galtzen gerribueltakoa guztiz **izerditzen** nituen arte. Anjel Lertxundi

**4** (era burutua izenondo gisa)

Esku **izerdituak** txirristaren alboetan irristatzen zitzaizkion. Iñaki Mendiguren

Bekoki **izerditua** esku dardaratiaz lehortuz. Ilea kopeta **izerdituan** behera erortzen eta bizkarrean arrasto bero bat zabaltzen zitzaionean. Iñaki Mendiguren

Langile **izerdituek** adreiluak eraman dituzte orgatiletan. Eider Rodriguez

Likrazko kamiseta **izerditua** erantzi du. Aingeru Epaltza

Arratsalde sargori batean, sexu sukartsuaren osteko solas **izerdituan,** zure izena aipatu nuen. Eider Rodriguez

Bafada bat etorri zitzaion bat-batean sudur zuloak mintzera, mingotsa oso, janari gaziaren eta giza isuri **izerdituaren** arteko nahasmenaren adierazle. Felipe Juaristi

Baso iluneko sarobe **izerdituak,** larreko artzaitxabola isilduak. Patziku Perurena

**5** (era burutua izen gisa)

Horrek gogora ekarri dizkio garai batean soinua jotzen hartzen zituen **izerdituak,** eta ondorengo hoztualdiak. Pako Aristi

---

## **izerditze** *iz* izerdia isurtzea, izerditan egotea.

Begiradak, musuak, laztanak, desioa, jolasak, **izerditzeak,** beroaldiak... plazer partekatua. Luis Elberdin

---

## **izerdiztatu**, izerdizta, izerdiztatzen da *ad* izerditu.

Utz, bada, alferrik nekaturik, odolez **izerdizta** daitezen, anbizioaren bide estuko deman. Xabier Amuriza

---

## **izerdizulo** *iz* poroa.

Traba egiten zidaten jantziak kentzen hasi nintzen ahal nuen bezala, dena sentitu nahi nuen nire larruaren **izerdizulo** guztiekin. Juan Martin Elexpuru

---

## **izertu**, **izer, izertzen 1** ad *ad ipar* izerditu.

Oraiko laneko eta bizitzeko manerekin, norberak edozoin adinetan, **izertzeko,** mugitzeko ala kirolaren egiteko beharra senditzen du, bakarrik edo berdin taldean lagunekin. Herria

**2** (era burutua izenondo gisa)

Pilotariak bezala, trinketak **izertuak**. Herria

---

## **izertzan** *adlag* izerditan.

Lasterketako pilotua zenez, ez zegoen arriskurik, teorian behintzat, eta hala ere bira-kontagailuari begiratzen nion aldiro, **izertzan** hasten nintzen Edorta Jimenez

---

**izetu**, ize, izetzen du *ad* izeki.

Ohera itzuli beharrean, telebista **izetuko** du, ia oharkabean. Joseba Sarrionandia

Ontzi batzuetako bonbillak **izetuta** daude oraindik. Joseba Sarrionandia

Zuek ere motorrak berriz **izetu** eta martxan jarraituko duzue itsasoko ur ordokietan barrena. Joseba Sarrionandia

---

**izialdi** *iz ipar* izualdia.

**Izialdi** bat ederra eta kitto! Daniel Landart

---

**izialdura** *iz* izua.

Haatik zer **izialdura**! urrats bat hurbiltzen ari zen. Michel Oronoz

Ez zen mirespena izan, baizik **izialdura**. Marzel Etxehandi

Martxek, hotzak, akidurak, gauaz mendian ibiltzeak, artetan **izialdurak,** deusek ez ninduen baitezpada egiazki sofriarazten. Piarres Aintziart

**Izialdurak** zidan naski atea jo. Piarres Aintziart

Bigarren motorra ere derrepente gelditu zenean, **izialdura** sortu zen. Joxe Austin Arrieta

Garratoinak ihes atera dira, tropan, jauzika, urbideetan itoak ez izaiteko, beldurturik, panikaturik, zaintzale gaixo hari sekulako **izialdura** emanez. Filipe Bidart

Gauzak eta nakasketak eztitu ziren dena den, hango frantsesen **izialdura** ere ttipitu. Herria

---

**iziarazi** *(orobat* ***izi-arazi*** *g.er.)* du *ad ipar* izuarazi.

IK-k behar ditu ere salatariak **iziarazi**. Herria

Artileriako tiratzaile bat bezala armatua, bat baino gehiago **iziaraziko** du oraino. Herria

Ainitzek diote ere jendea funts hortan **izi-arazten** dela oraino gehiago eta arrazoinik gabe. Herria

Goiti ari dira orroaz oihuka gu **iziarazteko**. Michel Oronoz

Urruñarraren tanto pollit batzu ez dira aski izan biriatuarraren **iziarazteko**. Herria

---

**iziarazte** *iz ipar* izitzera behartzea.

Gaizki erabiltze, tortura, arrobatze, **iziarazte,** buluzte, bortxatxe zernahi pairatzen dute poliza-gizonen ganik. Herria

---

**izidura** *(orobat* ***iziadura****)* *iz ipar* izialdura.

Ez dakit nundik ateratzen den, bainan **izidurak** indarra ekartzen du. Menane Oxandabaratz

---

**izigarri** 1 *izond ipar* izugarria.

Nietzschen jeinu **izigarria** hunkitu banu bezala. Piarres Aintziart

Zintzurrean banuen koropilo bat **izigarria**. Janbattitt Dirassar

Lotsa **izigarri** batek edo beldur nahasi bitxi batek hartu ninduela. Janbattitt Dirassar

Gerla **izigarria,** sekulan ez bezala odoltsua. Michel Oronoz

Orduan dira sortzen bidaia loriagarrienak, borroka **izigarrienak,** plazer eztienak, beldur lazgarrienak. Michel Oronoz

Seigarrena da deabruen begiratze eta etengabeko buruz buru lazgarria eta hain **izigarria,** non saindu batek, behin haietarik bat ikusi ondoan, erran baitzuen, hura berriz ikusi baino, nahiago zuela labe gorrian sartu. Piarres Xarriton

Myrran diren ardoak dira ezin hobeak, **izigarri** azkarrak. Aurelia Arkotxa

Diote ere badirela han alimalia miresgarriak, elefante zuriak, adar-bakardunak, eta ortzadarren kolorea duten xori **izigarri** ederrak. Aurelia Arkotxa

Jendeen odol edaleak dira eta beraz **izigarri** gerlara eta hilketara emanak. Aurelia Arkotxa

**2** (adizlagun gisa)

**Izigarri** maite nituen lagunak, han. Piarres Aintziart

Beste gauza honek **izigarri** soleitzen nau, hots, jakiteak Jainko onak baduela aski indar zure arima sainduaren eta zure idurien nasaiki sariztatzeko ene ordez. Piarres Xarriton

Aldi berean, bere baitan modu zehatz batean sortzen ahal dituen irudien kopurua **izigarri** gainditzen baldin bada, irudi guztiak elkarren artean nahasten dira osoki. Piarres Xarriton

**3** ***izigarriko*** *izlag* izigarria.

Nere aitormenak **izigarriko** goxoa jautsarazi zidan bihotz barne barnean. Piarres Aintziart

**Izigarriko** etsipenak itotzen ari ninduen. Janbattitt Dirassar

Argentinan **izigarriko** beharrak zituztela. Xipri Arbelbide

**-Izigarriko** oroitzapen onak, bai. Menane Oxandabaratz

Iñaki Arrosagaray joko horretan **izigarriko** pilotari trebea agertu zaigu, begia xorrotx eta zangoak zalu. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Ondoan pasatu zitzaien **izigarriko** azantza eginik eta lasterrean, batere behatu gabe. Aurelia Arkotxa

Egun batez, ikusi ditut, oihanbide batean, bi senar-emazte, **izigarriko** abiaduran joaki, abantxu lasterka. Piarres Aintziart

Eskuarazko liburuetan ez da **izigarriko** hauturik. Menane Oxandabaratz

**Izigarriko** sinusitis krisiak ukaiten nituen. Menane Oxandabaratz

**4** ***izigarrizko*** *izlag* izigarria, izigarrikoa.

**Izigarrizko** elegantziaz mugitzen zuen bere gorputza. Piarres Aintziart

Amak ere **izigarrizko** boz polita du. Menane Oxandabaratz

Frantses jakobinismoak **izigarrizko** kalteak eragin ditu gure Herrian. Herria

---

**izigarrikeria** *iz ipar* izugarrikeria.

Hameka hil eta kolpatu parrasta bat, zinezko **izigarrikeria...**! Erokeria izateko garesti samarra, hamar mila dolar; baina, egia erran, ez **izigarrikeria**. Herria

Naziek gaitzeko **izigarrikeriak** egin bazituzten ere, geroztik **izigarrikeria** ttipi anitzek inarrosi dute mundua... eta ez dira telebistak erakusten dituenak zorigaitzik handienak. Eneko Bidegain

**Izigarrikeriak** egiten zizkieten gutariko zaharrenei. Jokin Urain

Baina Joseperentzat ezin ilunagoko **izigarrikeria** ! Janbattitt Dirassar

Ordu arte munduan inork gutik sinets zezakeen halako **izigarrikeriarik** gertatzen ari zenik Europan. Eneko Bidegain

Herritar guziak bildu ziren plazan eta aipatua izan zen beren arbasoek jasan zuten **izigarrikeria,** etxe bakoitzak ukaiten zuela liburu bat oroitzapen gisa. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

---

## **izigarriki** *adlag* izigarri.

Eta egun ikusten ditugu elizetan fededunak bakantzen, apez gaiak **izigarriki** eskasten, bataioak ttipitzen. Herria

Oraiko martxan, **izigarriki** emendatuko da Alzheimerren eritasuna ondoko hamarkadetan. Herria

---

## iziotu ik **iziotu**.

---

## **izitu**, izi, izitzen da/du *ad ipar* izutu.

1902-an, lurra bi aldiz ikaratu zela Baionako alde hortan, maiatzean eta irailean, eta jendea azkarki **izitu** zela. Herria

Ez da makur handirik izan bainan han bizi den guarda ederki **izitu** da... Herria

*Menditarrak* deitu iraultzaileak ohartu zirelarik ez zituztela haien ideiak onartzen ez herritarrek, ez auzo herriek, ideien bataila gal beldurrez, **izitu** ziren eta etsaiak bilatzen eta ehizatzen hasi, bazter guztietan. Piarres Xarriton

Jendea **izitzen** ere da, gero eta usuago badirela holakoak eta iduriz gero eta bortizkiago. Herria

Lagunak **izitu,** ez jakin nork igortzen zioten hori. Herria

Egunaren antolatzaileak euriak ez ditu **izitu** . Herria

Ez nau **izitzen** orain isiltasunak. Piarres Aintziart

**Izituak** baitzeuden borroka horri so. Michel Oronoz

Harriturik eta **izituririk** zegoen, *j'ai jamais vu çà!* erraiten zidan. Filipe Bidart

**Izitzekoa** ere bada bestalde oraino ikusiz zonbat molde txar baden bazterretan, zonbat gazte atrebitzen diren zernahi lan tzarren egiterat, deusen ez nehoren errespetu mikorik gabe. Herria

Eta berritasunak badu beti, sorpresaz ari baita, gizonaren **izitzekoa** . Michel Oronoz

---

## **izitze** *iz ipar* izutzea.

Batean Israelek dio dei egin Nazioneen Batasunaren Biltzar Nagusiaren karietara, deitoratuz Israelgo haurren **izitze** eta harridura palestindarren abrekeriek oihesturik. Herria

---

## izkilu ik **iskilu**.

---

## **izkina** *(orobat **izkin, iskin** eta **ezkin** g.er.)* **1** *iz* bazterra; angelu bat osatzen duen bazterra.

Lau **izkinetan** soldadu bana zeukaten zaindari, metraileta presoei buruz itzulirik. Eneko Bidegain

Arditegiko **izkinetik** so egiten dudalarik ibarrari, beldurrak hartzen nau. Piarres Aintziart

Bide **izkinean** jarririk, ari ziren kanibeten xorroxten. Piarres Aintziart

Negarraren beroa oldartu zitzaion betazalen **izkinan** . Itxaro Borda

Kaiaren **izkina** batetik ikusi zuten barkurantz zetorren gizon eta emazte talde bat, eskuak loturik, guarda nazionalez inguraturik. Elena Touyarou

Ate ondoko **izkina** batean komunak, ondoan txorrota. Filipe Bidart

Eta han zegoan Ubanbe bakarrik, mostradorearen **izkina** batean edari horizta bat edaten. Bernardo Atxaga

Sofaren **izkina** batean eseri nintzen. Joan Mari Irigoien

Herri hilaren erdian, elizaren hondarkinak, pareta batzu dorrearenak izanak, alderdi bat oraino abantxu bere goratasunean zutik, ganga parte bat, aldarearen zoladura, **izkin** batean txapel harri zizelkatu bat belartzarrek gordea, bataio untzia lurrez betea. Michel Oronoz

Haren itzala agertzen ikusten zuen **izkina** guztietan. Fernando Rey

Aldareak eraiki zituen Jerusalemgo **izkin** guztietan. Elizen arteko biblia

Beste batzuk etapa bat eginen dute beribilez (dixit Jato) eta makina **izkin** batean utzirik, oinez helduko dira aterpera. Piarres Aintziart

Bakarrik egoten da Omar, tabernako **izkina** berean beti. Iban Zaldua

Somera kaleko Morga tabernan eseri ziren, **izkinako** mahaian. Unai Iturriaga

Gelako **izkina** batean zokoratuta. Mirentxu Larrañaga

Gelaren **izkina** batean, beste itogin baten zarata entzuten zen. Juan Kruz Igerabide

Adela ere han izaten zen batzarretan, **izkina** batean isilik. Juan Kruz Igerabide

Plazaren **izkina** batean gelditu zen orduan Santos. Unai Elorriaga

Musika nire maitasun-nahiaren mezularia bilakatu zen, dei ozen bat jadanik nire ezinegonari eutsi ezin zion haurtzaroko denboraren **izkina** herdoilduen erdian. Pako Aristi

Amultsuki entzuten gaituen belarri eta ahots lasaiak lanaren, amodioaren nahiz exilioaren **izkinak** leuntzen ditu. Itxaro Borda

**2** kantoia.

**Izkinako** kafetegira joan, eta biziberriturik itzuli zen. Jon Muñoz

Egunkaria erosten diot **izkinako** saltzaileari. Iñaki Zabaleta

Ikatz kaleko **izkinakoa** . Txillardegi

Manifestazioan Goienkale eta Zeharkale **izkinan** airera panfletoak bota zituen gazte hura bezala. Joseba Sarrionandia

Moulins-Gémeaux kalezuloaren eta Tournebride karrikaren arteko **izkinan** . Monika Etxebarria

**Izkinan** buelta hartuko du, buelta hartzen ari da luzaz, oso luzaz. Monika Etxebarria

Harry **izkinan** geratu zenean, Nancy Mazzucehlli ari zen **izkina** hartantxe biratzen eta bere aspaldiko nagusiarengana hurbiltzen. Oskar Arana

Orduan, gainean beste enbor batzuk jarriz txandakatuta lau aldeetan, **izkinak** egiten dituzte. Santiago Iruretagoiena

Komisariaren lau **izkinatan** dinamita paketeak plazatu zituzten. Itxaro Borda

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Hiru puta bazeuden karrika **izkina** batean. Janbattitt Dirassar

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mokanesa hartu eta begi-**izkinan** loratu malko-muskila idortu zuen. Itxaro Borda

Ezpain **izkinan** irri bat marraztuz. Itxaro Borda

Marikarekin ongi date Maddi pentsatu zuen Jessicak, artean apezak seinalea eman ondoan, musu arina pausatzen zuela Theoren aho-**izkinan**. Itxaro Borda

Baina hari entzutea belarri **izkinan** ume bat xuxurlaka edukitzea bezala zen. Anton Garikano

Mahai **izkinan** jarri nintzen. Itxaro Borda

Errekari hurbil zeuden borda eta etxe **izkin** zenbait ere eraman zituen uholdeak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Postalak zine irudia zuen, Charles Chaplin eta ume pobre bat harresi **izkinan** zeuden larritasunez begira. Joseba Sarrionandia

Putazain-papera egiten zuen antzezle txar bat; edo eta kale **izkinako** erronkajole horietako bat. Juan Garzia

Ur korrontearen eraginez, almadia ur **izkinatik** hurbil hasi zen nabigatzen. Karlos Zabala

Armiarma sarerik gabeko sabai-**izkinak**. Iban Zaldua

**5** ***Frantzia izkina.***

Frantzia **izkinako** herri gehien-gehienetan, Hondarribiatik Luzaideraino, izaten zuten pertsonaren bat beren kontrabandoko negozioetarako. Koro Navarro

Errepublikako gobernuak, suprefetek eta Frantzia **izkinako** gainerako funtzionarioek matxinatuei pasatzen uzten zieten; eta Elizondoko kotxeetan, Aldudetik, Baigorritik, Ainhoatik, igarotzen ziren buruzagi karlistak, beren uniformeekin eta aginte-ezaugarriekin. Koro Navarro

**6** ***izkin egin***[1] (*21 esaldi, 6 liburu eta 14 artikulutan; orobat* ***izkina egin*** *2 esaldi, 2 liburutan*) higidura egokia eginez saiestu.

Basurderen arreta erakartzea lortu zuen; segidan alde batera keinu egin eta kontrako aldera **izkin** egin zuen, erasoa galaraziz eta aldi berean Belasko salbatuz. Joanes Urkixo

Eta Weldon andrea ez zen, ez, behin ekindako lanbideari **izkin** egiten zioten horietakoa. Mirentxu Larrañaga

Aleman ez-duin asko zegoela istripu probokatu batean bere burua zauritu, gerrari **izkina egin** eta gerra-pentsioa kobratzen zuena. Anjel Lertxundi

Horrek aitzakia bat eman zuen legeari **izkin** egiteko. Iñaki Iñurrieta

Baina Peppone haserreegi zegoen arrazoitzeko, eta besteak erraz egin zion **izkin**. Koldo Biguri

Doinuak **izkin** egiten zuen. Andoni Egaña

Hiru aldiz egin zioten **izkin** dopin kontrolari Kenterisek eta Thanouk. Berria - Kirola

Jaitsierari **izkin** egiteko partida erabakigarriak jokatuko dituzte bihar Barakaldok eta Arratek. Berria - Kirola

**7** ***izkin egin***[2] (futbolean, saskibaloian eta kidekoetan) ik **iskintxo.**

Gazteak hegaleko ohiko jokalaria dela adierazi zuen, «abiadura baliatuta **izkin egiten** ona, eta gainera defenditzen duena». Berria - Kirola

Oso indartsua da, baloiarekin **izkin** egiten oso abila. Berria - Kirola

Geldiezina da aurkariei **izkin** egiten hasten denean. Berria - Kirola

Atzelari biri **izkin** egin, gogor jaurti eta barrura. Berria - Kirola

Lebron Jamesek lau jokalariri **izkin** egin eta saskiraketa bikaina lortu ondoren. Berria - Kirola

Kortinak Albertori **izkin** egin eta atera jaurti zuen. Berria - Kirola

· Aurrera, atzera, erdiraketa bat, beste bat, **izkin** honi, **izkin** besteari, [...]. Berria - Kirola

**8** ***izkin harri***

Orbaizetan, Fabrikako auzoan dauden etxe, eliza, ostatu, lantoki eta hainbat lekutan, ikustekoak dira harri pikatuz eginak izan diren **izkin** harriak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Harresiek eta ongi kurutzatuak diren **izkin** harri ederrek. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

Etxaintzineko ezker aldean, azken bi metrotan, **izkin** harriak zuriak dira, beherean gorriak direlarik: etxea berritu zenekoa? Xipri Arbelbide

**9** ***izkin-motz*** *ipar (pilotan)*

Orduan hunek nahi zuen lekurat manatzen zuen bere jo fina, ala taula, ala sare ondo hura ala eskuineko xoko edo **izkin**-motzerat. Herria

Hola aise ari gibelean Martiarena, batean taula, bestean arte-sare eta ondarrean **izkin**-motz batzu lurretik ezin bilduak. Herria

39tan **izkin**-motz Biscoubyk, ez dakit zenbatgarrena, baina ekarri botea Aramburuk bere aire zoragarriarekin, atxiki pilota ontsa taulatuz gibeleko batek bezala eta ondarrean bi-paret labur batekin bururatu. Herria

Hor da jokoan sartu Oçafrain, batean sare, bestean punpa-sare, edo **izkin**-motz eta guziz 8 bote ixtant batez, batean azpiz ezker, edo gainez, eta beti xuxen. Herria

Ez dute amor eman nahi galtzaleek, baina ez dira sartzen Aramburuen boteak (biga bakarrik), huts bakar batzu ere bai biek tenore txarrean, eta xilo eta **izkin**-motzak ere irabazleen alde. Herria

Itsasuarra alabaina beti aintzinean zuen 24-18 arte, batean taula luzea, bestean **izkin**-motza, ez halere nahi bezain usu sare hura. Herria

Denaden, azken hauk dira lehenik berotu, 9-4 eta 19-8, ordukotz bi bote, Belascainen sarea, eta airez moztu bat, Teilleryren sarea, **izkin** motza eta eskuin pausatu batekin. Herria

**10** ***izkina-izkinan***

Fogarty jaunak, aulkiaren izkina-**izkinan** eserita, jakin-min berezia erakusten zuen. nahi zuen tokian jartzea zeukan bakoitzak, eta ni azken-azkeneko lerroan jarri nintzen, leiho ondoan, **izkina-izkinan;** irakaslearengandik urrutieneko txokoan beraz. Xabier Mendiguren Elizegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**barraren izkina** (3); **gelaren izkina** (3); **izkin batean** (7); **izkin egin** (21); **izkin egitea** (5); **izkin egiteko** (11); **izkin egiten** (11); **izkin motz** (6); **izkina aldera** (3); **izkina bakoitzean** (3); **izkina bat** (7); **izkina batean** (105); **izkina baten** (3); **izkina batera** (4); **izkina batetik** (12); **izkina berean** (3); **izkina egiten** (5); **izkina guztietan** (5); **izkina hartan** (3); **izkina honetan** (3); **izkina ilun** (3); **jaitsierari izkin egitea** (3); **jaitsierari izkin egiteko** (4); **kaleko izkina** (3); **karrika izkina** (4); **plazako izkina** (5); **plazaren izkina** (4); **teilatu izkina** (3)

**barra izkinan** (3); **begi izkinan** (3); **beste izkinan** (3); **edozein izkinatan** (3); **ezpain izkinan** (4); **izkinako mahaian** (3); **izkinan bertan** (4); **izkinan eserita** (3); **izkinara iritsi** (5); **izkinaz bestaldera** (4); **kale izkinan** (4); **kalearen izkinan** (4); **kaleko izkinan** (7); **kaleko izkinara** (3); **lau izkinetan** (4); **pabiloiaren izkinan** (3)

---

# izkinada *iz*

Enbarkatu gara eta itsasora irtenda lehorreko **izkinada** bistan dela goaz, mangle zerrenda luzea dugula istriborreko bandan, eta itsaso zabala ikusten dela ababorretik. Joseba Sarrionandia

**Izkinadatik** hurbil jarraituko duzue itsasketa, harri hegalen masa iluna luzatuko da itsaso grisaren gainean istriborreko bandatik. Joseba Sarrionandia

Harrizorrotzetako **izkinadatik** ababorrera egin zuten apur bat, urdinberdea ilundu eta gaua koloreen materiaz jabetzen zela eta lehorreko argi bonbillak, geroago eta urrunago, pizten ziren artean. Joseba Sarrionandia

---

# izkinaratu, izkinara(tu), izkinaratzen du *ad* izkinara eraman.

Gortinak **izkinaratu** zituen orduan. Unai Elorriaga

**izkinatu**, izkina(tu), izkinatzen du *ad* izkinara eraman. ik **izkinaratu**.

Gaixoren bat eramango ote zuten eta gure laguntzaren beharrean ote zeuden bururatu zaio norbaiti, baina ez: furgoneta roulottearen atzealdean gelditu, errepidean **izkinatu,** eta, bertako aitona-amonekin batera, ez zaigu ba Luis azaldu!!! Patxi Zubizarreta

---

**izkinatxo** *iz adkor* izkina.

Eskaparateen neoien aurrean, BBKkoen ekimen hau **izkinatxotik** etorritako argi izpia da: linternaren begitik dianaren zentro-zentrora doana. Berria - Kultura

Ez idurika, euskarak SNCF delakoaren dorreko **izkinatxo** bat zilatu baitu, tren berriari euskarazko izen bat emana izaitearekin. Herria

---

**izkintxo**

**1** ***izkintxo egin*** *(7 esaldi, 3 liburu eta artikulu 1ean)* izkin egin.

Begi-kolpe batez ezagutu nituen, **izkintxo** egin nien. Fernando Rey

Begi-kolpe batez ezagutu nituen, **izkintxo** egin nien. Fernando Rey

Piztia azkenean tranpan, ordu arte **izkintxo** egindako tranpan erori dela ikusten duen ehiztaria bezala sentitzen zen. Xabier Olarra

Haurrei eta gaztetxoei zuzendutako literaturak ez diela zertan **izkintxo** egin bizitzaren gai nagusiei; heriotzari, edo minari, eta ezta gazteen kezka eta egonezinei ere. Berria - Kultura

---

**izkira** **1** *iz* otarraintxoa bezalakoak baino tamainaz askozaz txikiagoak diren itsas oskoldun batzuei ematen zaien izena *(Subord. Natantia)*.

Urraburu itsastarra [...] dastatzean **izkira** eta itsaskiaren ahogozoa sentitzen dugu, arrain horrek besterik jan ez duelako bere bizitza osoan; itsaski bilakatu da, jatunarentzat. Edorta Agirre

Ez atzera eta ez aurrera, inolako erabakirik ezin hartuta ibili nintzen, putzuan geratutako **izkira** bezala. Hasier Etxeberria

**Izkirak** erosi ditut afari hasierarako. Eskarne Mujika

Aitaren batean irentsi nituen atarikoak eta albahakaz ondu **izkirak**. Oskar Arana

Jan genuena: **izkirak** plantxan eta txibia saltsan. Edorta Jimenez

Aita santuak hain gustura jaten zituen **izkirazko** pasteltxoak. Askoren artean

· Nolatan ausartzen da **izkira** e[g]osi hori niri esatera gaueko zein ordutan zerbitzatu behar zaion emakume bati? Lopez de Arana

**2** (hitz elkartuetan)

Aldaketa nabarmena izan da; **izkira** mota bi agertu dira, eta karramarroa ere bai. Berria - Euskal Herria

Emakume bat zen, otzara bete ogi eder, arrain, **izkira**-pastel, ezti eta mahats bildu berriak ekarriz. mahaian **izkira**-entsalada. Oskar Arana

Northern Ospray da ontzi goibel ikaragarriaren izena eta hiruzpalau hilabeterentzako **izkira** arrantzara badoa orain berriz Groenlandiara. Aurelia Arkotxa

**3** ***izkira zuri*** kolorez arre-zutixka dena *(Crangon crangon)*

Ganba eta **izkira** zuriek, otzaren barrutik, beren milaka begien atxabitxizko botoi ia ikusezinak jartzen zituzten pila haien emetasun lausoaren erdian. Karlos Zabala

---

**izkiratxo** *iz adkor* izkira.

**Izkiratxo** izoztuak bezalaxe gelditukо ginateke. Karlos Linazasoro

---

**izkiriarazi**, izkiriaraz, izkiriarazen du *ad* izkiriatzera behartu.

**Izkiriarazi** dion gertakaria nik obratua da, eta huraxe da, nire iduriko, nire maisu lanik handiena. Jon Muñoz

-Ze trikimailu erabili duk gure aitari paper horretan direnak **izkiriarazteko** eta giltza kentzeko? -papera eskutik kentzen nion artean esan zuen. Edorta Jimenez

---

**izkiriatu** *(508 esaldi, 49 liburu eta 52 artikulutan; orobat* ***iskiriatu*** *g.er.,* ***izkiribatu*** *g.er.,* ***izkribatu*** *g.er.* ***ezkiribatu*** *g.er. eta* ***ixkiriatu*** *g.er.)* **1** idatzi.

Otoitz-liburua barkatu zidaten, imaia guziak bereizirik: gibela xuria zuten guziak kanpora, haietan **izkiria** ez nezan norbaiti ene berrien heltzeko. Marzel Etxehandi

**Izkiriatzen** ere ez dakite eta eguneroko lanendako gerletan irabaziak dituzten esklaboak dituzte erabiltzen. Aurelia Arkotxa

Batuketak eta kenketak egiten eta bere izena **izkiriatzen** ikasia zuen bere baitatik. Aingeru Epaltza

Berri haiek frantsesak ziren, baina ostoaren bestalderdian, alemanez **izkiriaturik,** sekulako mehatxuak baziren presoen biziaren kontra deusik egin ez zedin. Marzel Etxehandi

Eskuz **izkiriatuak** ziren, letra handi zuzenetan. Aingeru Epaltza

Han gure letretarik arras ezberdinak diren hizkiz da **izkiriatzen**. Aurelia Arkotxa

Valmont jaunak gehitu omen die bere eleei gutun parrasta bat, emakume horrek eta berak egunean-egunean elkarri **izkiriatuak** zizkioten gutun multzo bat osatzen zutenak. Jon Muñoz

Aski ardura **izkiriatzen** genuen elgarri. Marzel Etxehandi

Hara hemen nagoela anaiok Jerusamelen zuei **izkiriatzen** eta erregutzen ez dezazuen gehiago bekaturik egin. Itxaro Borda

Gero **izkiria** ezak gutun bat, gure *Ánimas* honetan ontziratu hintzanez geroztikoak azalduz. Edorta Jimenez

Zuk sinetsi ala ez, liburu bat **izkiriatzen** ari naiz. Aingeru Epaltza

Olerki batzuk **izkiriatzen** nituen, errimatuak, frantsesez, euskararekin topo egin aurretik. Ana Urkiza

Hiru testu hauek gure historia hurbilaren une ezberdinetan **izkiriatu** ditut. Itxaro Borda

-Eskritura sainduetan **izkiriatua** da: "ez da sehirik bi nagusiekikoa egin dezakeenik" -aitatxi Migel, Agaramonteko etxeaz mintzo. Aingeru Epaltza

Xinatarrek, beren arbasoen izenak, zur peza batzuen gainean **izkiriatzen** dituzte. Herria

Komuneko paretan **izkiriaturik** aurkitu dudan ene poema. Iñaki Arranz

Jainkoa eta Euskal Herria goresten duten idazki hunkigarriak, euskara erretxean **izkiriatuak**. Herria

Buzoiko plakan **izkiriaturik** zegoen izenari begira. Harkaitz Cano

Erraldoiek pago eta haritzetan **izkiriatutako** letrak begien parean zeuzkan orain. Anton Garikano

Behar ditiat segidan egungoak **izkiriatu**. Piarres Aintziart

Geroago haren bizia **izkiriatuko** da. Marzel Etxehandi

**2** (era burutua izenondo gisa)

Senarrarengana hurbildu zen eta paper **izkiriatua** esku artetik kendu zion jostalari. Mirentxu Larrañaga

Senarra zain-zain zegoen, eskuak paper **izkiriatura** atxiki-atxikita. Mirentxu Larrañaga

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **erromantzez izkiriatua** (3); **gutuna izkiriatu** (4); **izkiriatzeko baimena** (6); **izkiriatzen ari natzaizun** (4); **izkiriatzen hasi zen** (4); **jainkoaren hatzaz izkiriatuak** (3); **niri izkiriatzeko baimena** (3)

---

**izkiriatzaile** *(8 agerraldi 4 liburu eta 2 artikulutan; orobat* ***izkribatzaile*** *12 agerraldi 7 liburutan,* ***izkiribatzaile*** *g.er. eta* ***izkribatzale*** *g.er.) iz* idazlea.

Haur bat badute, semea, eta liburuaren ardatz bilakatuko den alabaz esperantzetan dago Marie Riviere **izkiriatzailea**. Berria - Kultura

**Izkribatzaile** trebatu gabe baten lana zen nabarmen: erretorikoa, erdizka zintzoa, digresioz eta laudorio neurrigabez betea, hunkigarria, pedantea eta trabatsua. Juan Garzia

Pentsatzen ere hasita nagon ez ote den **izkribatzaile** fede gaiztoren bat izan gure kondena makur hau asmatu zuena. Anjel Lertxundi

Kalitate eta eraman handiko **izkiriatzaile** bati. Berria - Kultura

Urte franko bete beharko nituen oraino **izkribatzailearen** oinazearen funtsa konprenitzeko. Aingeru Epaltza

Egunero, Leizarragak otoitza zuzentzen zuen, bere **izkiriatzaile** lanak uzten zion denboran. Aingeru Epaltza

---

**izkiriatze** *(corpusean* ***izkribatze*** *soilik) iz* idaztea.

Ezkongai guztiei zergatik ez eskatu, nazio hizkuntzaren ahoskatze, irakurtze eta **izkribatze** probak egitea. Piarres Xarriton

---

**izkiribaino** *iz ipar* eskribaua.

Eta **izkiribaino** horrentzat, «XIX. menteko idazle mistikoenetarik» da Hugo. Manuel Inchauspe kalonje **izkiribainoa,** ospitaleko apeza izan zen, eta gero diosesako bikari jenerala. Herria

---

izkiribatu ik **izkiriatu**.

---

**izkiriera** *iz* idazkera.

Baina zinezko eskolumekeria egin duzu **izkiriera** makurturik. Jon Muñoz

---

**izkirimiri** *iz* denbora-pasa kontatzen den ipuintxo edo gertaera, batez ere barre eragitekoa.

Algara bat bota genuen, **izkirimiri** bat kontatu izan balu bezala. Josu Zabaleta

Ohiturik zegoen, antza, **izkirimiri** hura esaten, eta baita entzuleriaren barre esker onekoa jasotzen ere. Ramon Saizarbitoria

Bi sainetegileek **izkirimiri** zahar, gastatu sail bat kontatuz erakutsi zuten beren gatza eta piperra. Josu Zabaleta

Badakigu nola bukatzen diren **izkirimiri** guztiak, eta kontatzen dituenak baizik ez du barre egiten. Josu Zabaleta

Goizeko zortzi eta erdietatik eguerdia ondo jo zuen arte, hitz-jasa batek harrapatu ninduen, istorio, **izkirimiri** eta gai zentzuzko nahiz zentzugabeen gaineko hitz-uholde zinezko batek. Oskar Arana

Hogei bat obra idatzi zuen, komedia, tragedia, nobela, ipuin, **izkirimiri**-bilduma eta filosofia tratatuen artean Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

**izkirimiritxo** *iz*

**Izkirimiritxoekin** hartu duen atsedenaren ondoren, biografoak ez du orri horiek idazten hasi arteko onik. Anjel Lertxundi

---

**izkirio** *(orobat* ***ixkione****)* **1** *iz* idazkuna.

Eta beherean **izkirio** hau: "Patrocinio de la Virgen". Txillardegi

Banderak egin dituzte **ixkione** batzuek diotela: "La libertad o la muerte... Del infierno al cielo!". Marzel Etxehandi

· Eta bertan, "Sr." edo "jauna" aurre-**izkiriorik** gabe, hitz soil hau irakurri bainuen: "Jose Mari Arruabarrena". Txillardegi

**2** letra moldea.

Bestalde, kontsultako arrapostuetan, jendeak molde librean egin dituen kritika eta oharpenak lerrokatuz, hogei orrialde bete dituzte, **izkirio** xehenean. Herria

Ene ixkionea ezagutzen dut **letra** batzutan. Marzel Etxehandi

**3** ***izkirioz*** idatziz, izkribuz.

Errepostu xuxenik ez baitzen eman, berriz jende hauek **izkirioz** galde egin dute abokat baten bidez. Herria

Gure murru paretak, lekuka edo momentoka, betetzen dira **izkirioz**. Herria

Frantses gobernuak **izkirioz** hitz emanak zituen FEDER diru laguntzak kendu dizkio bat batean Baiona/Angelu/Miarritze hiri elkargoari joan den udaberrian. Herria

---

izkribatzaile ik **izkiriatzaile**.

---

**izkribu** **1** *iz* idazkia, idazlana.

**Izkribuetarik** batzuk Gaztelako erromantzean idatziak ziren, bertzeak Garaziko mintzairan. Aingeru Epaltza

Lurra borobil-borobila baita Aristotelek eta Euklideren **izkribuen** arabera eta bederatzi zeruen erdi-erdian kokatua. Aurelia Arkotxa

Wilderen ondasun guztiak, argitaratutako eta argitaragabeko **izkribuak** barne, enkantean saldu zituzten epaiketako gastuak eta ordaintzeko. Antton Olano

Wilderen ondasun guztiak, argitaratutako eta argitaragabeko **izkribuak** barne, enkantean saldu zituzten epaiketako gastuak eta ordaintzeko. Antton Olano

Huarte kalonjearen **izkribuek** diote Arnegik, oraino berantean, 1612an, dotzena bat etxe baizik ez zituela, denak ere arras xumeak. Angel Aintziburu / Jean Baptiste Etxarren

*Rabbi A-i*-ren lehen **izkribuan** halako adieraren alde egiten du, eta bigarren **izkribuan,** beste baten alde. Xabier Kintana

Halaxe agertzen omen zen antzinako **izkribuetan**. Koldo Zuazo

Grezia klasikotik iritsi diren **izkribuen** idazkuntza bera ere oso duda-mudazkoa da. Berria - Kultura

Ontziburuaren **izkribuak** atontzen dihardut -herabetasunez erantzun nion. Edorta Jimenez

Azkenean anitz ohar eta **izkribu** gelditu ziren argitaratu gabe. Piarres Xarriton

Bulegoko liburuak eta **izkribuak** oro miatzen. Txillardegi

*Aspektua euskal aditzean* izeneko **izkribua** topatu dut; Piarres Lafitte kalonjearena. Txillardegi

**Izkribu** sakratuak irakurtzeko. Edorta Jimenez

Talmudari buruzko ene **izkribuetan** arazo honi buruz orotariko ohar batzuk azaldu nituen. Xabier Kintana

Egin ezak **izkribu** hauen kopia -ontziko kontuak zirenak erakutsi zizkidan-. Edorta Jimenez

-Aldatu al dituk numeroak hire **izkribura** ? Edorta Jimenez

Leizarraga bere ganbera ñimiñoan zegoen, mahai **izkribuz** betera makurtua. Aingeru Epaltza

**2** (hitz elkartuetan)

Itzuliak berak bost kapitulutan egituratzen dio izkiriatzaileari bere idaztaraua eta kapitulu beraren barnean bakoitzak sar ditzake, bata bestearen ondotik, **izkribu** mota ezberdinenak. Piarres Aintziart

· Bisitariak tarte bat isilik eman zuen, eskuizkribua eta makina- **izkribua** elkarri alderatzen. Edorta Jimenez

Hil- **izkribuak** ez dira, eskuarki, hildakoak idatziak, ezpada handik edo hemendik hartuak. Xabier Mendiguren Elizegi

Zoroa ni, ezko- **izkribu** honen egilea! Anjel Lertxundi

Ezko- **izkribua** erlauntza da; nagusia, zentzutasuna; erleak, hitzak; eztena, izkribatzailea. Anjel Lertxundi

**3** idazkuna.

Beti lurrunen artean galduta, "Bains Caulet" **izkribu** kaskarra irakur zitekeen noiztenka. Txillardegi

Baita **izkribu** soil hau ere: "Margarita de Parma / Reina de España". Txillardegi

Ba, zuri lur eman zizuten egunean honako **izkribu** hau agertu zelako Errenteriako elizako paretan: "Mitxelena zerura!". Iñaki Segurola

Liburu bat ikusten du herriko liburu-dendako erakusleihoan [...] eta deigarria egiten zaio liburu-azalean dakarren **izkribua:** [...]. Xabier Mendiguren Elizegi

Eskuin, gibelaxago, kurutze beltz sinple bat ere bada, **izkribu** honekin: "Descansen en paz"; "Bakean daudela!". Piarres Aintziart

Logelako horma irudi eta **izkribuz** beterik du Josuk. Joseba Sarrionandia

*ik beherago* 5. Askoren artean

**4** *irud*

Maitearen gorputza eta adierazpenak **izkribu** sekretuak dira maitatzailearentzat. Markos Zapiain

**5** ***izkribuz*** idatziz.

Bai ahoz edo bai **izkribuz**. Xabier Kintana

Neronek ahoz esan dizkizudan hitzak ez duzu zilegi **izkribuz** adieraztea. Xabier Kintana

Jainkoak (gorets bedi!) badaki beldur handiaz egon naizela Tratatu honetan sartu nahi nituen gauzak **izkribuz** jartzean. Xabier Kintana

Izan ere, idazteko gutxieneko gaitasuna duenarentzat bederen, errazago baita **izkribuz** aritzea. Ramon Saizarbitoria

Errazago dela horrelako gauzak **izkribuz** esatea. Ramon Saizarbitoria

Eta nola esan nezake nik zerbait berririk eta hori **izkribuz** eman? Xabier Kintana

**6** ***Izkribu Santu/Saindu***

Gainera, errabinoaren gelaren atea gurutzatzera ere ez naiz ausartzen, **Izkribu** Santuek beldurtu egiten naute. Koro Navarro

Horrexegatik diotsu era ilunez **Izkribu** Santuak: [...]. Xabier Kintana

"Hamar gauza sortu ziren [...] eguzkia ezkutatzean...", horien artean **"Izkribu** Santua" eta "(harlauzetako) idazkia". Xabier Kintana

Jainkoaren ezkutatze hau **Izkribu** Santuetako pasarte askotan aipatzen da. Xabier Kintana

Mezak, meditazioak, **Izkribu** Sainduen irakurketak, Piarres Aintziart

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **izkribu zaharrenetarik hasita** (3); **izkribu zaharretan** (4)

---

# izkributxo *iz* izkribu laburra.

Miranderen pentsamenduan sartzen hasteko, **izkributxo** bi aipa niezazueke beharbada lagungarri, nahi baduzue nahikoa desberdinak bata eta bestea: Pio Barojaren *La Leyenda de Jaun de Alzate* eta J. Ortega y Gasseten *Mirabeau o el político*, 1922ko eta 1927koak, bion aipatzeko ordena horretan. Joxe Azurmendi

---

izkutu ik **ezkutu**[1].

---

# izokin **1** *iz* itsas arrain hezurduna, mamia arrosa duena eta arrautzak erruteko ibaietan gora igotzen dena, sukaldaritzan oso aintzat hartua *(Salmo salar)*.

**Izokina,** zilar landua iduri, ezkatak metal leunduan gubilez joka eginda dauzkana; korrokoia, ezkata handiagokoa, eta zakarrago zizelatua. Karlos Zabala

Charliek kontatu zienez, **izokina** arrautzak errutera etorri bide zen errekan gora. Mirentxu Larrañaga

Jada ez genuen **izokinik** harrapatzen isil-gordean, amak hala hitzemanarazi zigun. Mirentxu Larrañaga

Bazen han, marmolaren gainean, **izokin** bikain bat, hasia, bere haragiaren kolore hori-arrosa erakusten zuena. Karlos Zabala

Arratsalde batean, latako **izokina** jan eta kafe beroa hartzen ari ginela. Bernardo Atxaga

Ez da ulertzekoa Bidasoako **izokinak** metal kopuru hori izatea bere baitan. Hasier Etxeberria

**Izokin** bati amuarrain baten enbrioia txertatu, eta amuarrain bat jaio da. Berria - Gaiak

**Izokin** transgenikoak lortzeko, Atlantikoko **izokinari** Pazifiko itsasoko **izokinaren** hazkuntza hormona ezarri zaio, eta modu honetan izugarrizko hazkuntza-tasak lortu dituzte. *Chinook* **izokina** da beste **izokinei** oldartzen zaien bakarra. Hasier Etxeberria

**2** (jaki gisa)

Zopa eta **izokina** jan bitartean. Iñaki Mendiguren

Eta apalean txanpain botila eta **izokizko** pasteltxoak. Juan Martin Elexpuru

Etxerakoan, han ekarri ohi genuen untxi-pila, eta amuarrain zenbait; behin, hamalau libra **izokin** ere bai. Mirentxu Larrañaga

**Izokina** 7,5 eurotan kiloa. Berria - Mundua

**3** (hitz elkartuetan lehen izenondo gisa)

**Izokin** -buruz eginiko pastel bat. Jose Morales

Europako **izokin** ibairik handiena. Berria - Gaiak

Kamtchatkako **izokin** kaviarra du 6 eurotan lata, izokina 7,5 eurotan kiloa. Berria - Mundua

**Izokin** arraintza arras gostukoa dutenak badira. Izugarri gogorra da **izokin** mota hori. Herria

Koronelaren ibaian, non itsas amuarrain mordoa eta **izokin** mordoa baitzegoen. Mirentxu Larrañaga

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Gure amarena izan zen xal **izokin** -kolore batez bilduta. Fernando Rey

Irteeran, bide bazterreko etxe eder **izokin** -kolore batean, leihatilak ubelez margotzen ikusi ditu pintore batzuk. Hasier Etxeberria

Goizeko zortzietarako bideo pornoak eskaintzen zituen taberna, **izokin** -kolorez margotu eta dastaleku bihurtu dute. Iban Zaldua

Neska ilehori hortz luze bat, **izokin** -koloreko beroki batean bildurik. Lopez de Arana

**Izokin** koloreko egunkari zimurtu bat Batzuk grisak, besteak **izokin** ala esmeralda kolorekoak. Patxi Iturritegi

**5 *izokin keztatu/ketu***

Atzeko lorategian eserita geundelarik eraztun-opilak eta **izokin** keztatua jaten. Oskar Arana

Pepinoa ogi tartean gauero, eta noizbehinka, **izokin** keztatua. Ramon Saizarbitoria

Limoi saskitxoen urrin saminak, bakailao bilduen usain latzak, **izokin** ketuenak. Karlos Zabala

---

## izor (hitz elkartuetan lehen osagai gisa; cf **izorratu**. )

**Izor** -hazia isur dezan nahi dut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Plazer handia sentitzen badut ere, alde egin beharrean naiz, nahitaez, jainkosa-aho honetatik..., bestela bertan utziko dut nire **izor** -esnea! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

ZUreztatu zure **izor** -esnez ireki dizkidazun zauriak... Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Zuk haren hankartean jarriko duzu burua, eta berak bere klitoria eskainiko dit milika diezaiodan: horrela, bigarrenez isuraraziko diot **izor** -zukua. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Nola aztoratzen duzun nire **izor** -zukua, nola azkartzen duzun isurketa zure berbekin eta zure ipurdiaren berotasun neurrigabearekin. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## izorgaitz *izond* gaitz benereoa.

Eta bidean ez zaitez andereari txorta jotzen hasi, oroitu josita dagoela eta **izorgaitza** duela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hor behean zerbitzari bat dut, naturak inoiz eman duen tramankulu ederrenez hornitua, baina zoritxarrez pasmoa dario, munduan ezagutu den **izorgaitz** txarrenetariko batek jota dago eta. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

---

## izorra *adlag* haurdun.

Baina ez nuen **izorra** gelditzerik lortu. Joxan Elosegi

Gau horretan, hain zuzen ere, bigarren haurraz **izorra** gelditu zela. Gotzon Garate

Apiril arte onena hantxe lehorrean egotea dela, horditzea, alkandora jokatzea dadoetara, eta **izorra** uztea portuko neskatoak. Juan Garzia

Gustu handiz ikusiko ninduen horren ederra, horren gaztea, horren osasuntsua, denek zioten bezala, eta bereziki sustatuko zuen, ez dakit garbi nola adierazi, haren barrua ni **izorra** nengoela jakiteak. Joxan Elosegi

---

## izorragarri *izond* izorratzen duena.

*Arrecho* asko erabiltzen da bazter guztietan, "estoy arrecho" molestatua nago, deseroso, haserre; edo zerbait *arrecho* bada, **izorragarria** dela esan nahi du, itsusia, latza. Pako Aristi

---

## izorraldi **1** *iz* haurdunaldia.

Andreen **izorraldiak** ez zuela irauten hiru egun baizik. Juan Garzia

**2** izorramena.

Sabela hutsik eta ergelkeria haietan izerdia atera behar; hura zen, hura, **izorraldia** . Eneko Bidegain

---

## izorramen **1** *iz* larru-jotzea.

Ai! hau **izorramena** ! isur gaitezen laurok batera! Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** izorramendua.

-Hau **izorramena** ! Patxi Iturritegi

Ahal zuten **izorramenik** handienaren bila aritzen ziren. Jokin Urain

---

## izorramendu *(orobat **izorramentu** g.er.)* *iz* gauza guztiz gogaikarria.

-Badakit **izorramendu** bat izan zela zuretzat eta zure arrebarentzat hain berandu ailegatu izana. Aingeru Epaltza

Eta horiek zirela-eta galdetzen zenion zure buruari zenbat iraungo ote zuen sekula bukatzen ez zen **izorramendu** historia luze hark, egunero beste bat sortzen baitzen. Pello Lizarralde

Berorri nork gutsietsi berorren gizontasuna; baina **izorramendu** aluko suak hartzen nau berorren nagusi zikin, ama zirinaren seme horrekin, hara. Juan Garzia

Azken batean, zure gutunak jasotzea bera halako estortsio bat zen niretzat, nahi ez nuen **izorramendua,** bilatu ez nuena, merezi ez nuena. Xabier Mendiguren Elizegi

'Gau izarramentua,' oroituko duzu Kalaportuko arrantzaleen berbamodua, eta errime esango duzu, 'bihar **izorramentua!'** Joseba Sarrionandia

---

## izorrante *izond/iz adkor* izorratzailea, gogaitarazlea.

"Zergatik amaitu behar dut beti tipo **izorranteenekin?",** oihukatzen zuen berekiko. Fernando Morillo

Egia da neskak bart **izorrante** utsak zeudela, eta aldegin zutenean gu naiko ozpinduta eta zapuztuta geratu ginela. Xabier Mendiguren Elizegi

**izorratu**, izorra, izorratzen *(orobat* **izurratu** *g.er.)* **1** du *ad* larrua jo.

Aberatsa nintzen: ezagutzen ez ninduten mutil gazteei ordaintzen nien **izorra** nintzaten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Ni bezala pentsatzen duenak alde guztietatik **izorra** dezaten nahi izaten du, eta tramankulu batek zulatzen duen partea edozein izanik ere, zoriontsu zara hura sentitzen duzun bitartean. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Hogeita lau orduan laurogeita hamar aldiz **izorratu** ninduten aurretik eta atzetik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Izugarri maite dut ipurdi neuk **izorratu** berria musukatzea. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

• **2** da/ gogaitarazia edo hondatua gertatu.

**-Izorra** dadila! Patxi Zubizarreta

Bestela ere, **izorra** dadila, hain leloa izateagatik. Jon Arretxe

**Izorra** hadi Piarres! Aingeru Epaltza

**Izorra** daitezela munduko golflari guztiak. Hasier Etxeberria

Ederki **izorratuta** gaude. Patxi Iturritegi

Eta hantxe **izorratu** zen dena. Patxi Iturritegi

**Izorratuko** haiz ederki, pentsatu nuen neure artean, eta mantsoago jarraitu nuen janzten. Inazio Mujika Iraola

Konpondu gabeko -eta ondorioz, oraindik **izorratu** gabeko- asuntoak. Harkaitz Cano

Ez daukagu izotzik: izotz-makina **izorratuta** daukagu. Harkaitz Cano

• **3** du *ad* biziki gogaitarazi; hondatu.

-Kaka zaharra! bapo **izorratu** gaitik. Patxi Iturritegi

-Ez nazazu **izorra,** Gofi, ez nazazu **izorra** . Harkaitz Cano

Ni ez **izorratu,** ez batak ez besteak. Sonia Gonzalez

Ai, zer ez nuke egingo kurrinka buruloka horrekin! **izorra** nazatela motxin-bero horietako bat ez bada. Patxi Iturritegi

Norbaiten autoa **izorratu** nahi baduzu, modu lasterragorik edo errazagorik ez dago. Oskar Arana

-Zoritxarrez klixeak **izorratu** zizkioat lehen traste honi. Josu Landa

Azukrea tamaina-tamainan duena gainera, eta hortz-haginik **izorratzen** ez duena. Iñaki Segurola

Eta Jainkoak libra gaitzala elkar **izorratzen** hastetik, ezin da horrelakorik onartu. Karlos Zabala

-Church horrek dena **izorra** dezake. Xabier Olarra

Gaztaroa hondatu ondoren helduaroa ere **izorratuko** diotelarik zikoizkeria hutsez. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Guk, aberatsok, munduko pobreak **izorratu** ditugu, eta elkar hiltzera bortxatu. Jon Alonso

Euren etorkizuna bermatzen dute horrela, gurea **izorratuz** . Pako Aristi

**Izorratu** didazue bizitzako ametsa! Joan Mari Irigoien

Droga gehiegiak **izorratutako** puta bat. Iñaki Segurola

Zerra **izurratzeko** zer asmatuko eta, zerraren hortz bat alde batera okertu zion eta bestea beste aldera, erabat estropeatu ziolakoan, baina entrama galanta eman zion eta, indarrez eta abilidadez, trontza asmarazi horrela. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**bizitza izorratu** (3); **bizitza izorratzen** (3); **ederki izorratu** (3); **gu izorratzeko** (5); **izorra dadila** (14); **izorra daitezela** (4); **izorra hadi** (24); **izorra zaitez** (4); **izorratu beharra** (4); **izorratu zioten** (3); **izorratu zituzten** (3); **izorratu zuen** (4); **izorratuta dago** (5); **izorratuta dagoela** (3); **izorratuta egon** (5); **izorratuta nago** (4); **izorratzen du** (4); **izorratzen nau** (4)

---

**izorratzaile** **1** *iz* larru-jotzailea.

Modu honetara lortzen da plazerik handiena: emakumea bere **izorratzailearen** gainean etzaten da, honen alderantzizko zentzuan [...]. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Tira, madame, popatik emaiozu zure nebari... horra hor Agustinen zakila zurean sartzeko prest-prest, eta, niri dagokidanez, ez dut gupidarik izango zure **izorratzailearekin..** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**2** norbait haurdun utzi duen pertsona.

Joanesen ehorzketa egunean, bere interes bakarra zuen bere alabaren **izorratzailearen** harrapatzea, baina hobenduna ez zen azaldu. Elena Touyarou

**3** gogaitarazlea. ik **izorrante**.

-Zer dela eta etorri behar zuen gurekin **izorratzaile** horrek? -lehertu egin da azkenean Lola-. Patxi Iturritegi

Izan ere, Braun kontularia, ugazabaren absentzian haren ordezko zena, Mister Brown, bada, ez zen **izorratzaile** bat. Anton Garikano

---

**izotz** **1** *iz* tenperatura uraren izozte puntutik beherakoa deneko giroa, uraren izoztea dakarrena. ik**horma**[2]; **lei**; **jela**.

**Izotza** ari duenean, eta besteak irristaketan dabiltzanean, pista txiki bat antolatzen du berarentzat, aparte. Itziar Otegi

Toki gehienetan **izotza** egingo du, batez ere gauean. Berria - Harian

Negu gorrian, kanpoan begiak ateratzeko moduko **izotza egiten** zuenean. Pako Aristi

Aire-pistan, **izotza** botatzen ari du ia, eta iparrak jotzen du. Xabier Olarra

Zabaldu zuenean hego haizeak **izotza** zekarrela begitandu zitzaidan-. Jasone Osoro

**Izotz** gogorrak etorriko dira, bai, eta elurteak. Anjel Lertxundi

Elurteak izoztea ekarri zuen trailan eta **izotz** gogorrak iraun zuen 75 egunen segidan, martxoko Ama Birjina inguru artio. Pello Zabala

Donostiako hotzena, **izotz** polit horietako bat, 1986ko 11an suertatu zen, -5.8 gradutara hotza makurtu zenean. Pello Zabala

Edozein **izotzek** alferrik galtzen baititu oraindik erabat zabaldu gabeko kukuluak. J.M. Olaizola "Txiliku"

**2** giroaren hoztearen ondorioz kristalezko masa bat osatuz trinkotzen den ura.

Ura beti ur den moduan, izan **izotz,** izan likido edo izan lurrun. Hasier Etxeberria

Horren ondorioz, arropak bustitzen zizkidan ur zikina **izotz** bihurtu da. Jon Arretxe

Uste baino **izotz** gehiago Marten. Berria - Gaiak

Ur gazi horrek ipar poloko **izotz** hormatuak ere urtu egingo ditu. Pello Zabala

Herrixken gainean, oihanen gainean bezala, ke geldi bat baizik ez baitago, **izotz** zurixka bat bezalakoa. Josu Zabaleta

Ikastetxe inguruko mendiek **izotzaren** kolore grisa hartu zuten. Iñaki Mendiguren

**Izotza** urtu egin zen eta ibaiak gainezka egin zuen. Koro Navarro

**Izotza** desegiteko, pixa egin zuen. Anjel Lertxundi

Eguzkiaren erradiazioa da kometaren **izotza** lurruntzeko arrazoi nagusia. Berria - Gaiak

Kontu handiz eta nazkaz, **izotzetan** balebil bezala, jaitsi zen Farr jauna eskailera estu ilunetan behera. Koro Navarro

Eta elur malutak **izotzezko** orratzen modukoak izanen dira ontziaren bizkarrean geratu behar direnentzat. Joseba Sarrionandia

*ik beherago* 20. Askoren artean

Uhartearen gaineko **izotzezko** geruza zuri-urdina. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Izotzezko** pista batetik eraman ninduten ateraino. Koro Navarro

**Izotzezko** estatua bihurtuta gelditukoa nintzela bulego ilun hartan. Alberto Ladron Arana

**Izotzetan** biluzik baino hozkirri minagoa sentitu zuen Norak bizkarrezurretik gora. Anjel Lertxundi

Eskuak **izotzetan** sartzea. Pako Aristi

Zelai-sasiak, **izotzetan** zuri. Anjel Lertxundi

## **3** izotz koskorra.

Santa Teresa txupito bi, baso luzean eta **izotz** barik. Sonia Gonzalez

-Kafea **izotzarekin**. Xabier Mendiguren Elizegi

Ginebra **izotzarekin** edanez. Joseba Sarrionandia

Tonikak lagundutako ginebra desagertu eta edalontzi hutsak hasi ziren ilunpeko mahaia betetzen, bata bestearen atzean, limoi zatitxoak **izotz** urtuetan ito arte. Sonia Gonzalez

Wisky bat, kopa handi batean, **izotzez** beteta. Pako Aristi

Sukaldera joan zen **izotz** bila. Migel Angel Mintegi

Sabelean ontzikada bete **izotz** bota baliote bezala sentitu zuen. Iñaki Mendiguren

Ourenseko oruxoa, portuko whiskeya... besterik ez bada gintonika **izotz** mordoaz. Paddy Rekalde

## **4** *irud*

Beroa dago, bai -erantzun nion, umore punttu batekin **izotza** urtu nahirik. Juan Kruz Igerabide

-Egingo al dugu dardotan? -galdetu zion azkenean, lehen enkontru hartako **izotza** hausteko asmoz-edo. Iñaki Iñurrieta

Hainbestenarekin, ene bihotza **izotzak** hartua egon zen hilabete luze eta mindu batzuen ondotik. Janbattitt Dirassar

## **5** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Iparraldean, **Izotz** Ozeanoa, Karako itsasotik Beringeko itsasarteraino. Karlos Zabala

Tatariatik **Izotz** Ozeanora mintzatzen ziren ia hizkuntza guztiak ulertzen zituen. Karlos Zabala

Hartz siberiarra, alajaina, piztia izugarria, **izotz** itsasoetan bizi direnak bezain handia eta sardez edo ganibetaz baizik hil ezin dena. Karlos Zabala

Artikoko **izotz** eremu handiak satelite bidez kontrolatzen dituzte zientzialariek. Berria - Gaiak

Ur gaineko **izotz**-zelaien artean. Julen Gabiria

Haren lana gogor-gogorra zen neguan, **izotz** egunetan. Karlos Zabala

**Izotz** barra bat. Berria - Kultura

Diziplina behar omen dugu [...] **izotz** hormetan goiti egiteko bezain handia. Xabier Montoia

Iturriko urak **izotz** xafla bat egin zuen, egunetik egunera lodiagoa. Juan Kruz Igerabide

Ekaitz batean 2.000 kilometro koadroko **izotz** plaka bat desegin zela ikusi zuten zientzialariek. Berria - Gaiak

**Izotz**-geruza batez estalitako ur putzuak. Urtzi Urrutikoetxea

Mikel Strogoff eta biak azkar lerratu ziren **izotz** bankuaren gainazalean aurrera. Karlos Zabala

Itsastxakurrak **izotz** blokeen gainean lotan. Joseba Sarrionandia

Hilobiz hilobi neure burua deseginez, hilobien gainetan atseden hartu eta etzanez, lore berriak, **izotz** kristalak, txori nekatuak bezala. Felipe Juaristi

Sethek kanpotarren zapata guztiak jiratu zituen **izotz**-patinen bila, seguru baitzegoen han zeudela. Anton Garikano

Neguan, gaixoek **izotz**-pista egiten zuten, eta eskietan edo irristailuetan ibiltzen ziren. Jose Morales

**Izotz** fabrikaren motor marruma apala baino ez da entzuten. Koldo Izagirre

Ez daukagu izotzik: **izotz**-makina izorratuta daukagu. Harkaitz Cano

Artean **izotz**-putzu batetik libratu gabe, beste elurzulo batean leporaino sartuta nengoela konturatu nintzen. Inazio Mujika Iraola

Bestelako arazoak ere eragin ditu, baina, **izotz**-galtze horrek erakunde ekologistak ohartarazi duenez: [...]. Berria - Gaiak

Saunak, Vichy dutxak, dutxa ziklonikoak, **izotz** iturria, yoga aretoa, gimnasioa, aldagelak eta kafetegia. Berria - Euskal Herria

## **6** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Mutiko xarmantak banilia **izotz** bat eskaini ziolarik, Maddalenek konturatu gabe baietz erran zion. Ramuntxo Etxeberri

Ibarreko zuhaitzak, udaberriz jantzirik ordurako, gu bezalakoak ziren, haiek ere jende, hitzik gabea baina bero-**izotzak** sentitzen dituena. Juan Garzia

## **7** (erkaketetan)

**Izotza** baino hotzago zeukan eskua Velascoren alaba baltsamatuak. Anjel Lertxundi

Eroslerik den bitartean bihotza **izotza baino** hotzago duten horiek animaliak torturatzeko prest egongo dira. Gotzon Garate

Gau hartan, afaritan, **izotza** bezain hotz agertu zen. Karlos Zabala

Gaueko haizea mendi-gailurretatik **izotza bezain** hotz zetorren arren, [...]. Agustin Otsoa

## **8** ***izotz-apurtzaile*** *iz* itsasontzi izotz-hauslea. ik beherago **13.**

Ipar-mendebaldeko lurraldeetan eta Yukonen lan egin zuen mediku orokor gisa, eta, halaber, Artikoan dabiltzan **izotz**-apurtzaileetan. Xabier Olarra

## **9** ***izotz-aro*** *(orobat* ***izoztaro*** *g.er.)*

Azken 700.000 urtean zortzi **izotz**-aro eta zortzi bero-aro izan direla da atera duten ondorio nagusia. Berria - Gaiak

Orain 1100 urte-edo, Erdi Aroan, beroaldi ttiki bat izan genuen bezala, orain 400 urte inguru, **izotz**-aro ttiki bat izan genuen. Pello Zabala

**Izotz Aroa** berriz etorriko ote den ipar Europara aipatzen da batzuetan, eta zantzu zientifikoak badira hori pentsatzeko. Berria - Gaiak

Arkeologoen esanetan, azken **Izotz Aroa** baino lehenago iritsi zen gizona Amerikara, orain 30.000 urte inguru. Berria - Gaiak

Geroago ekarri genituen iparraldetik hemen **izoztaroan** bizi ziren abereak. Berria - Euskal Herria

## **10** ***izotz beltz*** intzigarrik gabeko izotza, lurra gogortzen duena, oskarbi ez denean gertatzen dena.

Izotz zuri jelatua, goiak argi dituztenean; **izotz beltz** hormatua, lainotua dutenean ere. Pello Zabala

Iparraldeko haizeak bisuts izoztua dakar goialdetik; eguna argitzeak ez du, agidanean, **izotz** beltzaren mamua uxatuko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Gau grisa zen, elur-ur xehea ari zuen, ziri-ziri, eta kaleak distiratsu ageri ziren **izotz beltzetan**. Mirentxu Larrañaga

Gurasoek oparitu zidaten kimua hamasei urte bete nituenean, eta ni arduratzen nintzen hura zaintzeaz, inguruko belar txarrak kentzeaz, **izotz beltza** egiten zuenean zapi saretu batez estaltzeaz. Anjel Lertxundi

## **11** ***izotz burruntzi*** *(orobat* ***burduntzi****)*

Ez dira urtu egun osoan atzoko **izotz-burruntziak**. Jon Arretxe

Teilatuetako **izotz burruntzietatik** ura tantaka-tantaka. Pablo Sastre

Burdinazko barroteak, barruko arnasaren lurrunaren eraginez, **izotz-burruntziz** eta antzigarrez estalita zeuden une oro. gutxienez dozena bat Gabon-arbola handi zeuden gelaren inguruan, batzuk dirdirka **izotz-burduntzi** txikiekin eta beste batzuk dizdizka ehundaka kandelarekin. Urtzi Urrutikoetxea

## **12** ***izotz haize***

**Izotz** haizeak erraztatu plazan hitz egiteko premia ankerra piztu zitzaidan. Itxaro Borda

Haize bilauak eta beldurgarriak izaki, izen asko erantsi zaizkie: Ipar-gorria, Haize gorria, gose haizea, **izotz haizea..** . Pello Zabala

**13** ***izotz-hausle*** *(orobat* ***izotzausle****)* *izond/iz* itsasontziez mintzatuz, itsaso edo ibaietako izotz geruza hausteko tresnak dituena. ik gorago **8.**

Zenbait lekutan Errusiatik joandako itsasontzi **izotz**-hauslearen laguntza behar izan zuten, izotzak 10 metroko lodiera zuelako. Berria - Gaiak

Ontzi **izotzauslea** helduko dela abisatuko dizuete. Joseba Sarrionandia

Datorren hilean Ameriketako Estatu Batuetako ontzi **izotz**-hausle bat eta hiru zamaontzi dira heltzekoak badiara. Berria - Gaiak

**Izotzauslea** ezin da honaino heldu eta airetik erreskatatuko gaituzte. Joseba Sarrionandia

Bere kale iluna itxi den lekuetan, **izotzausleak** maniobrak egin beharko ditu beste bide bat zabaltzeko. Joseba Sarrionandia

*Iceblink* **izotzauslea** . Joseba Sarrionandia

**14** ***izotz-hausteko*** *(orobat* ***izotzausteko****)* *izlag* izotz-hauslea. ik gorago **8.**

*Artic Sunrise* Greenpeacen **izotz**-hausteko ontziak lau aste egin ditu Patagonian. Berria - Gaiak

Izotz kapa hau apurtu eta honaino iristea oso zaila izango da **izotzausteko** ontziarentzat. Joseba Sarrionandia

**15** ***izotz hockey*** *(orobat* ***hokei****)* izotzetan jokatzen den hockeya.

Eski artistikoa, **izotz** hockeya, patinaje artistikoa. **Izotz** hockeya: Lehen ligaxka (emakumezkoak). Berria - Harian

Fabio Capello eta Pavel Nedved esatari ariko dira **izotz** hockeyan. Berria - Kirola

Jean-Crhistophe Filippinek Hormadin amaitu du bere **izotz** hockeyko ibilbide profesional luzea. Berria - Kirola

Angeluko Hormadi **izotz hokeiko** talde nagusiko jokolariek. Herria

**Izotz-hockey** taldeak. Berria - Mundua

Lehen saria, pidaia bat Tunisian bi lagunentzat, aste batez, [...] gero mikro labe bat, irensgailu bat (errauts biltzeko tresneri), 2 ahuntx erdi, bildotx, izotz **okei** partidetako sartze eta abar... Herria

· Angeluko Hormadi **izotz** hokeilariek. Herria

**16** ***izotz jauregi*** izotz kiroletan jokatzen den eraikina.

Gasteizek eta Txuri Urdinek Espainiako Kopako finalerdiak jokatuko dituzte gaur, Arabako hiriburuko **izotz** jauregian.

Txuri-urdin **izotz** jauregian irristaketan ibiltzeko aukerari ez zioten muzin egin ikasleek. Berria - Euskal Herria

15 pertsona hil ziren Bad Reichenhallen, Alemanian, **izotz jauregiko** teilatua erorita. Berria - Mundua

**17** ***izotz kirol***

Eskaera gehien **izotz** kirolek izan dute. Berria - Kirola

Angeluko ASG **izotz** kirol elkarteari. Herria

Angelura etorria da FFSG **izotz kiroletako** federakuntzak igorririk. Herria

Emmanuel Caule SAGAko **izotz kirol** erakasleak. Herria

**18** ***izotz koskor*** *(orobat* ***kozkor*** *eta* ***koxkor****)* edariak hozteko erabiltzen den izotz zatia.

Izozkailutik atera berri den **izotz** koskorra hatzei itsasten zaie. Berria - Kirola

Teacher's-aren kondarrak basoetara atera eta **izotz** kozkorrak eta ur zurrusta bat eransten ditut. Koro Navarro

**Izotz** kozkor bat eta lima zati bat erantsi zituen. Koro Navarro

Bihotz formako **izotz** koxkorrak egiten zituen plastikozko kubitera hautatu zuen, gehiegi pentsatu gabe. Harkaitz Cano

Sapa malapartatu hark **izotz**-kozkorrez freskatutako bainua hartzera gonbidatzen zuen. Joxemari Urteaga

**19** ***izotz ontzi*** edariak hozteko izotz koskorren ontzia.

**Izotz** ontzi bat zegoen mahaiaren gainean. Koro Navarro

Nagusia ateraino laguntzera joan da: bezero garrantzitsuak dira, botila bat ardo zerbitzatu diete **izotz** ontzi batean. Monika Etxebarria

Azken botila xanpainari zerbitzu-mahaiaren gainean zegoen nikelezko **izotz**-ontzi batean eragiten ari zitzaion. Lopez de Arana

**20** ***izotz orratz***

Zein proiekzio egiten zuten **izotz** orratzek, zein usain zetorren zeru ertzaren azken mugetatik. Karlos Zabala

**21** ***izotz puska****[1]* izotz zatia.

Elurtea pasatu, bazterretako azken zuriguneak desegin, eta azken **izotz** puskak urtzen direnean. Berria - Kirola

**Izotz** puska batzuk sortuak ziren Baikaleko ur gainean. Karlos Zabala

Haize polarrak, **izotz** puskak noraezean eta iceberg batzuen puntek Antarktikaren hurbiltasuna iragartzen dute. Patxi Zubizarreta

Jolas erotikoak imajinatzen, ezagun ditek aurpegian, otutzen zaio Gabini, **izotz** puskak azal kanelaren gainetik pasatzen... Iñaki Iñurrieta

Zainetan zeuzkan **izotz**-puskak urtu eta gorputzean zehar barreiatu zaizkio. Itziar Otegi

**22** ***izotz puska****[2]* izotz koskorra.

Di-da batean **izotz** puskak bota eta beste di-da batean ginebra eta tonika. Paddy Rekalde

Jarraian, erretilutik ere ginebra-botila hartu eta zurrusta luze bat hustu zuen edalontzian, **izotz**-puskak erabat estali zituen arte. Josetxo Azkona

Yolande kantuan aritzen da sukaldean; whiskia ekartzen dit, **izotz**-puskekin; nik egunkaria irakurtzen dut. Eskarne Mujika

**23** ***izotz-txikitzeko*** *iz* izotza txikitzeko tresna.

Honetan datza teknika: gaixoei konortea galarazten zaie kolpe batez, eta, "anestesia" horren eraginpean daudela, **izotz**-txikitzeko bat indarrez sartzen zaie begi-globoaren eta betazalaren artetik orbitaren gainaldean barrena lobulu frontaleraino; puntu horretan, ebaki bat egiten da alderik alde, tresna alde batetik bestera mugituz. Xabier Olarra

**Izotz-txikitzeko** bat besterik ez zen behar. Xabier Olarra

**24** ***izotz zuri*** *(orobat* ***txuri****)*

Kondentsazio hori hotzean gertatuz gero, ur-lurrina bertan izozten da, eta tokian tokiko txuritasuna gauzatu, **izotz** zuriz dena apainduta. Pello Zabala

Neguko giroa bada, gehiegi hozten da: orduan, kondentsazio hori ur-kristal txuri hotz jelatuan izan ohi da; **izotz** txuria, edo intzigarra. Pello Zabala

Lurrin umel hauen pilaketa gertatu ez den tokian, **izotz** txuria egonen da ziurrenik. Pello Zabala

Gatza bezala zabaltzen du **izotz** zuria lur gainean, jelatu eta belar-puntak arantzak bezala zorroztuz. Elizen arteko biblia

**Izotz** zuria, eurien mandataria. Pello Zabala

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**artikoko izotz** (4); **hormadi izotz** (5); **izotz artean** (5); **izotz bloke** (13); **izotz blokeak** (4); **izotz gainean** (5); **izotz gaineko** (8); **izotz geruza** (10); **izotz hockeya** (126); **izotz hokeian** (23); **izotz hokeiko** (4); **izotz jauregian** (4); **izotz kapa** (4); **izotz ondoko** (4); **izotz pista** (5); **izotz plaka** (12); **izotz plakak** (6); **izotz puska** (39); **izotz puskak** (32); **izotz pusken** (6); **izotz taldearekin** (5); **izotz tontor** (6); **izotz tontorrak** (4); **izotz zati** (8); **izotz zatia** (4); **izotz zatiak** (7); **izotz zuria** (6

**elur eta izotz** (9); **izotz bloke bat** (4); **izotz puska bat** (10)

**elurra eta izotza** (12); **elurrak eta izotzak** (12); **izotza baino** (4); **izotza bezain** (5); **izotza urtu** (7); **izotza urtzen** (8); **izotzaren azpian** (4); **izotzaren gainean** (5); **izotzen artean** (4)

## **izotzaldi** 1 *iz* izozte larriak dauden aldia. ik **hormaldi**.

Tajo ibaia Toledon jela-jela hormatuta utzi zuen **izotzaldi** makur batek. Pello Zabala

Nolanahi ere, bai urtarrilean eta bai otsailean, efemerideen zakuan errepasorik botaz gero, nabarmen hazita eta lodiduta dator aipatu dugun hotzaldi edo **izotzaldi** XVI-XVII. mendeko hori. Pello Zabala

Frango hotz handiak hor gaindi, **izotzaldi** eder batzuekin. Herria

Ondo prestatuta etorriak ginen, mendi bidearen nekeak ez ezik, elur eta **izotzaldiak** jasateko prest ere bai. Felipe Juaristi

Baina bera ahuntzei gailendu zitzaien, erauntsiei, **izotzaldiei,** gizakiei. Bernardo Atxaga

**2** *irud*

-Ez naiz hemengoa -abiatu zen, azkenean, Dianne, **izotzaldia** urtzeko unea zela deliberatuta-. Fernando Morillo

---

## **izotzarte** *iz* izotz arteko eremua.

Kumea eramaten baduzue, ama atzetik etorriko da, bere kexu kantu nekatuarekin, tarraz, bere odol lorratza **izotzarte** zakarrean luzatuz. Joseba Sarrionandia

---

## izotzausle ik **izotz 13**.

---

## izotzausteko ik **izotz 14**.

---

## **izotzdun** *izond*

Oxobik ederki erran zigun urtatseko lehen hilabete **izotzdun** honen berri: [...]. Pello Zabala

---

## **izotzgarri** *izond*

Nehoiz ez nuen nabaritu eliza honetan sartu nintzenean bezalako zirrara **izotzgarria**. Koldo Izagirre

---

## **izotzil** *iz* urtarrila.

1971ko **izotzilaren** 4an. Pello Zabala

**Izotzilaren** lehenbiziko 12 egunak. Pello Zabala

---

## **izotztsu** *izond*

Nola negu argi **izotztsua** egiten duenean, negu lehor harrik eta zizarerik bakoa datorrenean. Pello Zabala

---

## izozgailu ik **izozkailu**.

---

## **izozkailu** *(orobat **izozgailu** g.er.)* *iz* ura eta janariak izozteko tresna.

Labea (elikagaien berogailua), **izozkailua** (luze kontserbatzeko) eta hozkailua (egun batzuetan mantentzekoa) aparatu bakar eta bera izango da. Edorta Agirre

**Izozkailu** azkarrak: nitrogeno likidoa baliatuz, elikagaiak -195º C-tara jelatuko ditu etxekoandreak edo sukaldeko nagusiak segundo gutxitan. Edorta Agirre

Etxerako erosketak egiteko aprobetxatu nuen, **izozkailua** hornitzeko. Eskarne Mujika

Langile-jendeak [...] diru apur bat eskuetan izan orduko, **izozkailuak,** irratiak, eta antzeko etxe-tresna elektrikoak erosten zituzten. Mirentxu Larrañaga

Johnsonen burua Sale Mohammed al Aufiren etxeko **izozkailu** batean aurkitu zuten poliziek atzoko operazioan. Berria - Mundua

Haur bihurriak freskagarrien **izozgailua** seinalatu zigun. Berria - Kirola

Inor ez da ausartzen Alemaniatik ekarritako **izozkailuko** atetzar zuria irekitzen. Javi Cillero

· Ondoren laginak **izozkailu** berezietan sartuko dituzte eta, arazorik ezean, ADNak milaka urte iraungo ditu bertan. Berria - Gaiak

---

## **izozkailutxo** *iz* izozkailu txikia.

Horretatik ez zen falta izan, **izozkailutxo** bat puntaraino beteta baitzeukaten zerbeza botilaz. Joxemari Iturralde

---

## **izozkara** *izond* izotz tankerakoa.

Gelan bakardadeak hartu ninduen ostera, leihozulotik zorrotz sartzen zen mendien hats **izozkara** aratzak, eta geroaren larriak. Juan Garzia

Gogo eskasean Valperga Caluso kalean gora nentorrela, Valentinotik laino **izozkarazko** boladak iristen eta paretik pasatzen zitzaizkidan. Juan Garzia

---

## **izozketa** 1 *iz* izoztea.

Banuen gisako **izozketa** anitzen berri eta ongi nekien hain tenperatura muturrekoek ezin osatuzko kalteak eragiten dituztela edonoren eskuetan. Xabier Montoia

Behatzetan **izozketa**-sintomak hasi zaizkit, hori bai. Unai Elorriaga

**2** *irud*

Erromatar Legearen kodetzerantz egindako lehen urratsa, K.o. 131n, *Edictum Perpetuum* delakoaren **"izozketa"** izan zen. Iñaki Mendiguren

---

## **izozki** 1 *iz* gozoki izoztua.

**Izozkiaren** gainean txokolate-krema beroa zegoen. Lopez de Arana
Niri ere gustatzen zaizkidala marrubizko **izozkiak**. Patxi Zubizarreta
Erretiluaren erdian txokolatezko **izozki** sugartua dago, gar urdin eta horien artean bildurik. Xabier Olarra
Ordu-erdiro dohainik ematen zion frutazko **izozki** bat, kremarekin eta karameluarekin. Iñaki Mendiguren
Marrubi eta kakahuete-gurinezko hiru **izozki** handi erosi zituen. Iñaki Mendiguren
**Izozki** makiladunez asebetetzen. Jon Muñoz
Neska-mutil guztiak, **izozki** bana eskuetan. Xabier Mendiguren Elizegi
Berthillon-enean txokolatezko eta marrubizko **izozki** bat dastatzera. Patxi Zubizarreta
Ea zergatik ez ginen ateratzen **izozki** bat hartu eta Kontxan zehar buelta bat ematera. Ramon Saizarbitoria
Zofia Glazer eta bere lagun bat beste eliza baten ondoan daude eserita, **izozki** bana jaten. Berria - Mundua
**Izozkia** milikatuz ibili ginen uhartean barrena. Patxi Zubizarreta
Arratseko 8etarik goiti, hurrupaldiaren ondotik izan da afaria: salda, zizka-mizka, oiloa errizarekin, gasna, **izozkia,** kafe eta ttotta. Herria
Tomate saltsa, **izozki** industriala. Edorta Agirre

**2** (hitz elkatutetan)

Eguzki-argitan Florean Fortescue-ren **izozki**-dendaren kanpoaldean esertzen zen. Iñaki Mendiguren
**Izozki**-postuko emakume irribarretsuak zer nahi zuen galdetu ziolako. Iñaki Mendiguren
**Izozki** txosnaren aurrean gelditzean, sekula ez bezala, bi txartela atereaz, zirta hormatua erosi nuen. Itxaro Borda
**Izozki**-saltzailearen trizikloa. Bernardo Atxaga
**Izozki** puska handi bat ebaki dut biontzat, bestelako jakirik ezean. Javi Cillero
Koilara luze likatsu batez baliatuta, Anna **izozki**-puska batzuk arrantzatzen ari zen bere edontziko likido sendo apartsuan. Lopez de Arana
Armiarma **izozki**-baso txiki batean paratzen eta estalkian zulo batzuk egiten lagundu diot. Xabier Olarra
**Izozki** marka nagusietako bat. Lutxo Egia
· Goizean hondartzara joan gara jogurt **izozki** italiar bat jatera Eider Rodriguez

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
**bi izozki** (3); **izozki bana** (5); **izozkia jaten ari** (3); **marrubizko izozki** (5); **txokolatezko izozki** (5); **txokolatezko izozki bat** (3)

---

**izozkigile** *iz* izozkiak egiten dituen pertsona.

Gero, ordea, **izozkigile** baten orgatxoa topatu genuen, eta orduan nire anaia gelditu egin zen eta esan zidan: izozki bat hartzera gonbidatuko haut. Pello Lizarralde
Gozogile italiar handi-handia, sekulako ospea zuena mundu guztian **izozkigile** gisa. Fernando Rey

---

**izozmendi** *(45 esaldi, 8 liburu eta 21 artikulutan; orobat* ***izotz(-)mendi*** *8 esaldi, 2 liburu eta 2 artikulutan)* *iz* Iparburu edo Hegoburu aldeko hormaguneetatik askatzen den izotzezko masa, itsasoan igeri doana. ik **iceberg**.

baitzuen alde hartan ugariak ziren **izotz** mendiak arrakalatzen ari zirela. Felipe Juaristi
Ezin da ahaztu **izotz**-mendiaren azpikaldea itsasgainekoa baino askoz handiagoa dela beti. Berria - Euskal Herria
Harentzat, **izozmendien** tankerakoak ziren hotsak: entzuten zena ez zen ageriko zatia baizik. Jon Muñoz
Gutarik batzu oinez ibili dira **izotz mendi** kaskoan eta tokiko izozkiarekin whisky hurrupa bat edan ere gidariak eskainirik. Herria
-Itsusi aurkitzen al nauzu, postariaren seme, bihotz-mamiak **izotz** mendia baino hotzagoak dituzun mutil horrek? Felipe Juaristi

---

izoztaldi ik **izotzaldi**.

---

izoztaro ik **izotz 9**.

---

**izozte** **1** *iz* tenperatura zero gradutik behera jaistea.

Baratzeak mortu zeuden, eta zeru izarniatua berehalako **izozte** bati begira zegoela ematen zuen. Juan Kruz Igerabide
**Izozteek** eta antzigarrak jotzen dutenean. Santiago Iruretagoiena
Uholde eta **izozte** makurrak. Pello Zabala
Negu azkenaldeko edo udaberriko **izozteak** dira kaltegarrienak. Bernardo Atxaga
Horregatik, **izozte** gogorrak direnean […] ezin da lanik egin, ze zulatu orduko berriro hormatzen hasten baita leia. Juan Garzia
Araban **izozte** arinak izango direla iragarri dute. Berria - Euskal Herria
1596an, adibidez, maiatzaren 21ean, Toledoko lurraldean, **izozte** beldurgarria gertatu zen, mahastiak denak ihar erreta utzi zituen **izozte** latz berandukoa. Pello Zabala
Olot aldean, 1579ko martxoaren 30ean, egundoko **izoztea** bota zuen. Pello Zabala
Gau oskarbiak **izozte** zuri sanoak dakartza, lur azala saretzeko dohaina dutenak. Pello Zabala
Urdaitegian sartzen zen, egun hotzetan, zimur-zimur egina, **izozteak** uzkurturik. Karlos Zabala
Otsailean, **izozteek** otsoak jaitsarazi zituzten mendi zurituetatik. Xabier Olarra
· Maiz jaisten baita termometroaren hodia merkurioaren **izozte** punturaino. Karlos Zabala
Martxoko arrantzaldiak goraino bete ohi du Bermeoko **izozte** planta. Berria - Harian
Denbora luzez izoztuta izatean obuluek eta haziek ezaugarriak galtzen zituzten usteagatik, zenbait herrialdetan **izozte** aldia mugatu zuten. Berria - Gaiak
*ik* izozaldi.

**2** gai organikoen isurkariak izoztu arte hoztea.

**Izozte** larriak ditu Oiarzabalek. Berria - Kirola
Gainera, Pasabanek berak etxekoei azaldutakoaren arabera, **izozteak** ez dira hasieran uste bezainbestekoak, arin samarrak baizik. Berria - Kirola
K-2 menditik jaisterakoan izandako **izozteen** ondorioz zenbait behatz moztuko dizkiete biei. Berria - Kirola
Oso argi daukat bi behatzetako falangeak galdu egingo ditudala **izozteak** direla eta. Berria - Kirola
Bigarren eta hirugarren mailako **izozteak** ditut, eta hilabete beharko da gutxienez tratamendu honekin jakiteko zirugia beharko den edo ez. Berria - Kirola

**3** *irud*

"Izoztuta" geratzen den iheslariaren historia dela, eta parametroak galdu dituenaren egoeraren moduan ulertzen dudala **izozte** hori. Jokin Urain

Soldatak **izozten** ez badira 30.000 lanpostu arriskuan daudela dio VWk. Berria - Ekonomia

Pentsioen igoerak **izoztea** eta erretiratzeko adina 65 urtetik 67ra atzeratzea erabaki du. Berria - Ekonomia

El Baradeik herenegun Irani dei egin zion uranioa aberasteko prozesua 10 urtez bertan behera utz dezan **«izozte** tartea» hitzak erabilita, Mendebaldearekiko tirabirak murrizte aldera. Berria - Mundua

---

**izoztegi** *(9 agerraldi, 4 liburu eta artikulu 1ean; cf* ***hormagune*** *10 agerraldi, 2 liburu eta 3 artikulutan)* **1** *iz* hormagunea, glaziarra.

Hormategi edo **izoztegiek** estaltzen dute ia osorik lurraldea. Bernardo Atxaga

**Izoztegiak** eskalatzen zituen. Josu Zabaleta

**Izoztegiaren** ertzera iritsi zenean gelditu egin zen. Josu Zabaleta

Alpe Garaietan, **izoztegien** oinetan, mendien gailur zuriak ebakitzen dituzten harkaitzezko mendiarte gorrietan. Josu Zabaleta

Eskuinetara Daubenhorn mendiak bere harkaitz beltz zutak erakusten zituen Wildstrubel gaineko Loemmern **izoztegiko** morrena erraldoien ondoan. Josu Zabaleta

**2** izozte planta.

Ohargarri dira **izoztegiaren** inguruko hiru elkarteek eskuratzen dituzten 166 000 euroak, ASG ek berak 15 000 eskuratzen ditu, aldiz honekin lehian den SAGA ez da lagunduetan ekarria. Herria

---

**izoztu,** izotz/izoztu, izozten du *ad* **1** izotz egin.

**Izozten** ari zuen. Alberto Barandiaren

• 2 da/du *ad* ura edo beste isurkari bat hotzaren eraginez egoera solidora igaro, izotz bihurtu.

Tutu barruko ura **izozten** denean. Xabier Mendiguren Elizegi

Lurruna leihatiletako beiretan **izozten** zen, eta haize izoztua sartzen zen ateko zirrikituetatik. Josu Zabaleta

Itsasoa eta fiordoa **izoztu** egiten dira urritik aurrera eta hala jarraitzen dute uztailaren amaiera arte. J.M. Olaizola "Txiliku"

1989an, Lugo aldean, Monforte de Lemosen, Cabe ibaia **izoztu** zen. Pello Zabala

Ez duzu jakingo nora joaten diren ahate horiek aintzira **izozten** denean, ezta? Bernardo Atxaga

Central Park-era itzultzea ahateen urmaela **izoztuta** ote zegoen ikustera. Bernardo Atxaga

Elurra **izoztu** egiten da erori ahala, eta lokatza gogortzen du. Mirentxu Larrañaga

Olioa, izan ere, ez da komeni **izoztea,** eguraldi beroarekin mehetzea baizik. Santiago Iruretagoiena

**3** zerbait, daukan ura edo isurkaria izoztu arte hoztu.

Izebak atariko kanila Uilen alkandora horiaz bildu zuen, **izoztu** ez zedin. Juan Kruz Igerabide

Gure pausoen hotsak sentitzen genituen zoru **izozten** hasian. Anjel Lertxundi

Ba, aginte-kontrolak **izozten** ari dira gaur ere; bolantea gogor-gogor dago; lema-kontrola berriz, trabatuta dago erabat! Josu Zabaleta

· Hotz etengabeak ikatza **izozten** zuen, eta, sutara botatzean, puztu egiten ziren zatiak, eta usain txarra botatzen zuten. Juan Kruz Igerabide

Mars Express espazio zundak izotza eta **izoztutako** karbono dioxidoa atzeman ditu Marteko hegoburuan.

**4** (gai organikoak)

Bidean jasandako hotzarengatik ezker eskua **izoztu** eta moztu egin omen zioten. Felipe Juaristi

Hankak **izoztu** egin zitzaizkion Siberian. Koro Navarro

Oinak, berriz, **izozturik,** eta erreduraz beterik atzamarrak. Juan Garzia

Andre bat ama izan da, 21 urtez **izoztuta** izandako hazia erabilita.

Minbiziaren kontrako tratamenduak hasi behar zituzten emakumeen obulutegiko ehunak **izoztu** zituzten. Berria - Gaiak

Sei urte geroago [...] berriro jarri zizkioten **izoztuta** gorde zituzten ehunak. Berria - Gaiak

Emultsionagailuak, **izozturiko** elikagaiak pure edo krema bihurtzen ditu. Edorta Agirre

ADN laginez gain, zelulak eta esperma ere **izozteko** asmoa dute proiektuaren bultzatzaileek. Berria - Gaiak

**5** *irud*

**-Izoztuta** nago -esan zuen Ronek-. Iñaki Mendiguren

**-Izoztu** egiten dizute barrua, ezta? -esan zuen Fredek. Iñaki Mendiguren

Tila **izozturik** dago. Eider Rodriguez

Zaldunak urrundu ahala, itzalak jausten ziren berriro haien gainean, bihotzak **izoztuz,** eta Gondorko adorea errautsetan zimelduz. Agustin Otsoa

Tupustean, hotz ezezagun eta misteriotsu batek **izoztu** zion bihotza, metalezko esku ikusezin batek arima laztanduko balio bezala. Aritz Gorrotxategi

Asaldatu nintzen, eta izerdi hotz batek **izoztu** ninduen oinetatik bururaino. Josu Zabaleta

Aspalditik **izoztutako** bihotz hari bero apur bat emateko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ahots bat zen, hezurretako muina **izozteko** modukoa. Iñaki Mendiguren

Aurrera begira segitu zuen, denboran **izoztutako** irudi bat bezala. Fernando Morillo

Denbora? **izoztuta** dago, erlojua geldirik. Berria - Kultura

Albisteak **izoztuta** utzi zituen denak, kanpaleku nagusian. Berria - Kirola

· **Izozturik** geratu zitzaidan "baina" bat ezpain ertzean. Inazio Mujika Iraola

Ezpainetan **izoztu** zitzaidan irria. Joan Mari Irigoien

Eta, orduan, arestian bor-bor zuèn odola berriro **izoztu** zitzaion. Joan Mari Irigoien

Odola zainetan **izozten** zuten izaki nazkagarriak. Agustin Otsoa

Logela erabili gabe egongo balitz bezala, denbora bertan **izoztu** izan balitz bezala. Jasone Osoro

**6** soldatez, aurrekontuez eta kidekoez mintzatuz, bere hartan utzi.

Txentxo Jimenezek 2004ko aurrekontutik 65 milioi euro **izoztuta** daudela salatu zuen. Berria - Euskal Herria

PSOEko gobernuak legearen artikulu horiek **izoztuak** dituen arren. Berria - Harian

Liberalak eta enpresa txiki zein ertainen esparrua erreformatuko du eta soldatak **izoztuko**. Berria - Harian

Aktibo likidoenak gauzatzeko lasterketa hasten da orduan, eta lasterketa horrek berehala ekartzen du merkatu espekulatiboen erorikoa, kapitalen ihesa eta kanpoko kreditu-lineak **izoztea**. Koro Navarro

SEPIk **«izoztu»** egin du, behin behinean, Izarren industri plana. Berria - Ekonomia

Khanek eta bere laguntzaileak, Mohammed Farooqek, kontu korronteak **izozturik** dituzte. Berria - Mundua

Amodioaren zoroa arrazoiz bete eta **izoztu** egin zela aitortu zion, desiraren beroa aspaldian urtu eta agortu zitzaiola. Jasone Osoro

· Teherani uranioa aberasteko prozesua **izozteko** eskatua zion IAEAk. Berria - Mundua

Kosovoren azken estatusa finkatzea 20 urtez **izoztea** eskatu zion Serbiak NBEri. Berria - Mundua

Legeak **izozteko** eta demokrazia hibernazio egoeran jartzeko. Berria - Euskal Herria

Proiektua baztertzeko edo **izozteko** eskatu. Berria - Euskal Herria

**7** (era burutua izenondo gisa)

Eta ontzitik lehorrera bezala jaitsiko zarete, hotzaren lanari esker, itsaso **izoztura**. Joseba Sarrionandia

Nire itzala ilunpean urtzen ikustean ur **izoztuan** murgiltzen ari naizen sentsazioa dut. Monika Etxebarria

Askoz larriagoa da ur **izoztuan** murgilduriko gorputz baten bero-galera. Irene Aldasoro

Eremu argienak ur **izoztuzko** eskualdeak direla uste dute. Berria - Gaiak

Kolore urdin ahuleko lurralde **izoztu** bat. Iban Zaldua

Thailandiakoa zen oilasko haragi **izoztua**. Berria - Harian

Nik legatz **izoztuarekin** segitzen diat. Harkaitz Cano

Elikagai **izoztuak** poltsa berezietan gorde behar dira kontserbatzea errazteko. Berria - Harian

Ametsak iparralde **izoztuan**. Noizbehinka, lorategi hartara joan eta eserleku **izoztuan** jartzen nintzen. Alberto Ladron Arana

Errepide erabat **izoztuan** nekez zebilen autobus zaharrean. Jon Arretxe

Baso arbatsuetako sekretuak lanbro **izoztuen** artean gordez. Alberto Ladron Arana

Egurats **izoztuan** zuzen-zuzen goratzen ziren ke-haritxo meheen bidez. Josu Zabaleta

Esperma **izoztuz** emakumeak "artifizialki" ernaltzea. Juan Garzia

**8** *irud*

Gizonak bere hatsarekin berotzen ditu esku **izoztuak**. Berria - Kultura

Goian ilargi **izoztu** eta zahar-zaharra ñirñirka ari zen. Fernando Rey

Argi baitago poloko konstelazio **izoztuetatik** datozen haizeok ibaiaz kontra dihardutela. Xabier Amuriza

Neguaren amaiera **izoztu** hark amaigabea zirudien. Juan Kruz Igerabide

Dama zuriaren hats **izoztua** zuen gogoan. J.M. Olaizola "Txiliku"

Indioilar haragizko sandwich bikoitzak eta kafe **izoztuak** zerbitzatu zizkigun. Oskar Arana

Izeba Emilyren ahoa estutu zen irri **izoztu** bat osatuz. Lopez de Arana

Irribarre **izoztuak** zituen herriko guztientzat. J.M. Olaizola "Txiliku"

Zorionez, Lepic andrearen begiratu **izoztupean,** seko isildu da. agindu zien pailazo-txanoak eramateko, Dukearen bihotz **izoztua** urtu arte. Julen Gabiria

Izu ziztada **izoztu** bat sentitu nuen garondoan. Alberto Ladron Arana

Florent noizik behinka agertzen zen, eta bostekoa estutzen zion anaiari, Lisaren isiltasun **izoztuaren** ondoan. Karlos Zabala

Hitz haiek oroimen **izoztuaren** erdian bizitzaren aldeko musika bat berritu baliete bezala. Pako Aristi

Materia galkorren eldarnio horri aurre egiteko, kristalaren araztasun **izoztuan** murgildu ninduan. Jon Muñoz

Polo aldeko bakardade **izoztuetan**. Anton Garikano

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**desira izoztuak** (4); **elur izoztua** (4); **elur izoztuan** (4); **esku izoztuak** (4); **gau izoztu** (3); **haize izoztua** (3); **iparralde izoztuan** (3); **itsaso izoztua** (3); **lagun izoztua** (30); **lur izoztua** (4); **ur izoztua** (9); **ur izoztuan** (4); **ur izoztuaren** (3); **ura izoztu** (4)

**bihotza izozten** (4); **erabat izoztuta** (4); **eskuak izoztuta** (3); **izozturik dago** (3); **izozturik gelditu** (3); **izozturik geratu** (3); **izozturik utzi** (4); **izozturik zegoen** (4); **izoztuta dago** (3); **izoztuta dagoenean** (3); **izoztuta daude** (4); **izoztuta egon** (4); **izoztuta gelditu** (7); **izoztuta geratu** (3); **izoztuta gorde** (8); **izoztuta nago** (3); **izoztuta utzi** (3); **izoztuta zegoen** (8); **izoztutako hazia** (3); **izoztutako karbono** (3); **odola izozten** (4); **seko izoztuta** (3); **soldatak izoztea** (4); **ur izoztuz** (3)

---

# izparringi *iz* egunkaria.

Kafe kikararen ondoan laga zuen **izparringia,** tolestuta. Koldo Izagirre

Guk irakurri genuen **izparringian** ez zetorren haren argazkirik. Koldo Izagirre

Ez, *Eguna* **izparringian** irakurri zuen albisteagatik jakin zuen, lehen orrialdean zetorren. Koldo Izagirre

---

# izpi **1** *iz* gauza edo gai baten zatiki txiki, mehe eta luzea. ik**printza**; **zuntz**.

Artile kizkurreko **izpi** luzeez egindako alfonbra harro horietako bat. Karlos Zabala

**Izpi** mehe bakar bat, armiarma baten haria bezalakoxea. Koro Navarro

Azken urteetan, urdindu egin zitzaidan pixka bat ilea; **izpi** zuri bakanak, hala ere, ez ziren deigarri gertatzen beti ezaugarri nagusi izan dudan ile hori argizko adatsean tartekatuak. Ander Irizar

Mika hasi zen inguruetako ehun, hari, **izpi** eta belartxoak biltzen eta habia haiekin apaintzen. J.M. Olaizola "Txiliku"

Kobrezko **izpi** batzuekin. Josu Zabaleta

Neure arnasak itolarritzen nau eta mila **izpitan** xehatzen naiz, listen naiz, baina **izpi** eta lits horiek oro neure gorputzaren erdi-erdiko muinean biltzen dira atzera, indarka bezala. Iñaki Segurola

**2** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Espartzu **izpi** batzuk jateagatik ez da inor hilko eta! Fernando Morillo

Koltxoiaren txulo batean mugitzen zen hari-**izpi** moduko bat jo nuen begiz. Bernardo Atxaga

Oraindik ere eusten zion esperantzari, hari-**izpi** mehe batez besterik ez bazen ere. Xabier Mendiguren Elizegi

Beti ufatzen duen haize firrindak uzkurrarazten ditu belar **izpi** luzeak. Aurelia Arkotxa

Kontzientzia zuhaitz baten gisa, belar **izpi** baten gisa existitzen da. Monika Etxebarria

Atsegina eta lasaigarria zaio lasto **izpi** lehorrak usaindu eta ukitzea. Harkaitz Cano

Ile-**izpi** harroak, errotik mingarriro erauzirik. Jose Morales

Bazkaritako zopa trinkoan okela **izpi** gorriak topa daitezke. Urtzi Urrutikoetxea

Arraia handia usteldurik zegoen, isatsa erortzen zitzaion, haren hegatsen hezur **izpiek** azal latza zulatzen zuten. Karlos Zabala

**3** argiaz mintzatuz, zernahi argi arrasto zuzen, adibidez gela ilun batean zulo txiki baten zehar heltzen dena. ik**printza 3**.

Argi gorrizko **izpi** ahul batzuk sartzen ziren leiho hesidunetatik. Koro Navarro

Errotulu argidunek **izpi** gorriak, urreztatuak eta berdeak bilbatzen zituzten. Lopez de Arana

Hala ere bazen **izpi** indartsuzko argi isuri bat. Koro Navarro

Eguzkiak **izpi** erreak laino atzean ezkutuan dituela. Berria - Kultura

Eguzkiak bere lehenengo printza igorri zuen mendi urrunen gainetik, eta **izpi** ahul batek Lia Fail harri sakratua busti zuen. Joanes Urkixo

Ilargi betearen **izpiak**. Koro Navarro

Ilargiaren **izpi** batek argitu zion aurpegia. Iñaki Mendiguren

Neska erromantiko eskoziar batek agintzen die bere tutoreei ez dela ezkonduko **izpi** berdea ikusi aurretik. Iñaki Iñurrieta

Nire aurrean, iluntasuna zipriztinduz, milaka **izpi** argitsu zeudela, izarrak eta planetak, asteroideak eta kometak. Bernardo Atxaga

Eta, bat-batean, **izpi** epel batek argitu zion aurpegi zurruna. Jose Morales

Mutil baten aurpegi gaztea itzalean zelatan, itsasargiaren **izpiak,** esku baten mugimendua zigarro punta hartzera. Koro Navarro

Linterna baten **izpia,** konturatu zen. Fernando Morillo

Logela ilun samar dago, leihoko pertsianek iragazten dituzten kaleko **izpiek** baino ez baitute argitzen. Xabier Paya

Ez zuela batere dudarik Izpiritu Santuaren **izpi** batek argitu zuela. Bego Montorio

· Cyril Tourner-en biziaren amaiera **izpi** -jario ilun batean galtzen da. Juan Garzia

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Urrutiko kaleetan goiztiriaren argi- **izpi** urdinak urtzen ari ziren. Lopez de Arana

Argi **izpi** gorrizta haien pean. Karlos Linazasoro

Burua zeharkatu zidan argi **izpi** iheskor bat izan zen. Ramon Saizarbitoria

Eguzki **izpi** batek laztantzen ditu Evaren bularra eta burua. Javi Cillero

Eguzki **izpi** txiki batzuk itsaso ilun eta hotz baten azalean. Monika Etxebarria

Apur bat ibiltzera edo neguko eguzki **izpi** urriez hezurrak berotzera. Jokin Urain

Ilargi **izpi** batek sudurra laztantzen ziola. Monika Etxebarria

Irakurlearen gogoan horrelako argitasun- **izpi** bat piztea lortuz gero. Xabier Mendiguren Elizegi

Laser **izpi** horrek bi atomoak batzen zituen. Berria - Gaiak

Handik urte batzuetara bonba horiek laser **izpi** batek gidatuko zituen. Pello Salaburu

Neskatoaren ile muturrek elektrizitate **izpi** txikiak isurtzen zituzten Egutxiren hatzetara. Ibon Uribarri

Armagintza arloan bero- **izpiek** berunezko balak ordezkatu dituzte. Berria - Kultura

## **5** zati guztiz txikia

-Zer ez nuke emango zuen bihotzen **izpi** bat, **izpi** bat besterik ez, nirearen ordez edukitzearren! Juan Kruz Igerabide

Itsasotik ez zetorren haize **izpi** ñimiñoena ere. Xabier Montoia

Katilu bat salda gorde, eta hara bota zituen azafrai- **izpiak** . Jon Muñoz

Egunaren argi iragaziak oroimena desegiten du, bihurtzen du hauts- **izpi,** argitan igeri. Anton Garikano

Hauts- **izpi** batzuk haizatu zizkion uniformearen sorbaldetatik. Alberto Ladron Arana

Lurrean barreiatutako tabako- **izpiak** jasotzen hasi zen. Josu Landa

Segundo **izpi** batez ez nintzen arrazoiaz ohartu. Xabier Olarra

Geratzen zaidan kemen- **izpia** edo baretasun apurra. Mirentxu Larrañaga

## **6** *irud*

Kanpotik iristen zaizkigun informazio- **izpi** ugariak etengabe irazten dira. Irene Aldasoro

Ordu arteko zalantza **izpia,** Teresak esandakoa gezurra ote zen, desegina zegoen betiko. Bernardo Atxaga

Errealitatearen **izpi** haiek ez zuten jada eraginik nire gogoan, ez zuten markarik uzten bertan. Baina hozitutako esperantza **izpi** hura, berehala ihartu zen. Bernardo Atxaga

Gari aleak bezala xehatzen zituen denboraren **izpi** guztiak. Bernardo Atxaga

Ba, nik uste hainbat poesia **izpi** geldituko liratekeela eskoletako koadernoetan. Bernardo Atxaga

Adiskidetzearen errainu- **izpiak** hasiko ote dira, oraindik ilunbistan, argi egiten? Berria - Euskal Herria

## **7** gurpil barne-huts bateko ardatza eta uztaia lotzen dituen hagatxoetako bakoitza.

Lauoinka bizian hasten dira zaldiak, gurpiletako **izpiak** elkarrekin nahasten dira biribilki oroberdin batean, dar-dar egiten du bideak, eta beldurrezko oihuak jaulkitzen zaizkie bide bazterrean geldirik geratu diren oinezkoei. Jose Morales

Gurpil eskerga bat da, mendirik garaienaren gailurrean finkatua, zeinaren **izpi** erraldoiei hamar mila atal apurrago baitaude ahokatu eta atxikirik. Juan Garzia

Jainko-jainkosok, osoko biltzarrean kendu horri boterea; **izpi** -makolak oro hautsi haren gurpilari, eta amilarazi abatza zeruko muinoan behera eta infernu zuloraino! Juan Garzia

Zalgurdien gurpil- **izpietan** . Koldo Biguri

Itzainaren aginduetara egurrezko **gurpil izpiak** makal asko birarazten zituzten idien atzean. Pako Aristi

## **8** *pl* irradak.

**Izpi** katodikoen izaerari buruzko urteetako eztabaida luze baten erantzun bila ari zelarik aurkitu zuen elektroia. Pello Salaburu

Larruazala babesten du substantzia horrek: **izpi** ultramoreak harrapatzen ditu, kalte egin dezaten baino lehen. Irene Aldasoro

**Izpi** infragorrizko berokuntza. Joxe Austin Arrieta

Unibertsoaren mikrouhin **izpiak** . Berria - Gaiak

**Izpi** kosmikoen jatorria aurkitu omen dute astronomoek. Berria - Gaiak

X **izpiak** eta hatz-markak. Irene Aldasoro

Galaxiatik datozen X **izpi** distiratsuen kausa argitu nahi dute astronomoek. Berria - Gaiak

Akabo manikura, UVA **izpiak** eta prestaturiko diskurtsoak oro. Jon Alonso

X eta gamma **izpien** uhin luzera atomoak baino txikiagoa da. Berria - Gaiak

Zulo beltzen gertutasunaz ohartarazten gaituzten gamma **izpiak** ziren, agian. Harkaitz Cano

· *sing* Gamma **izpi** bat zer demonio zen jakitea desiratu zuen, ze itxura ote zuen. Harkaitz Cano

## **9** ***izpi bat*** apur bat.

Begi beltzak **izpi** bat zabaltzen zirenean. Anton Garikano

Aizkora enborrean bezalaxe sartu nuen belarretan, sakon-sakon, tiratu eta **izpi** bat ere ez zen mugitu. Joxean Sagaztizabal

"Onenak gazterik hiltzen dira", pentsatzen du haraino ekarritako alaitasunaren **izpi** bat galduz. Bernardo Atxaga

· Horietariko proteina **izpi** bat gorputzean sartuko balitz, bazterturik geratuko litzateke berehalaxe. Irene Aldasoro

Egia **izpi** bat besterik ez zeukaan liburu bakoitzak. Xabier Olarra

Hasia zen beldur- **izpi** bat sentitzen Zuk Dakizuna aipatzen zutenean. Iñaki Mendiguren

Mikaztasun **izpi** bat antzeman nuen bere hitzetan. Bernardo Atxaga

Gabinek errezelo **izpi** batez begiratu zion Xereali. Iñaki Iñurrieta

Gaiztakeria- **izpi** bat ez dauka bihotzean. Oskar Arana

Gaitzespen **izpi** batez begiratzen zien gure denbora-pasa arloteei eta gure bizimoduei. Ander Irizar

Liluraz gain, egonezina eta lotsa **izpi** bat ere baneramatzan parke hartatik bueltan, etxerako bidean. Hasier Etxeberria

Bekaitz **izpi** bat ernetzen zaio inoiz ere ikusi ez duen senarrarengana. Oskar Arana

Izan zuen Bartzelonak erreakzio **izpi** bat, baina hori baino ez zen izan. Berria - Kirola

Berehala gure atzetik etorri ez izanak [...] oraindik lotsa- **izpiren** bat geratzen zaiela erakusten din, nik uste. Antton Olano

## **10** ***izpirik*** (ezezko esaldietan) ezer ere ez. ik **fits 2.**

Maginot Lerroak ez du **izpirik** balio. Koro Navarro

Ez dut **izpirik** ere mugatu nahi Oteizaren diskurtsoa, baina baliabideak jarri behar ditugu hura ulertzeko. Berria - Kultura

Arrazaren balio biologista, beraz ("das physische Moment"), ez da **izpirik** ukatzen. Joxe Azurmendi

Lehen erbitan eta galeperretan aritzen ziren, orain ez dago **izpirik**. Pako Aristi

Itxura batera, ez zitzaion afariko haserrearen **izpirik** geratzen. Bernardo Atxaga

Erreginak berrogeita hamarren bat urte izango zituen ordurako, baina edertasunaren **izpirik** ere galdu gabe zegoen artean. Juan Kruz Igerabide

Berak ez zian trukean eman nahi bere askatasun eta beregaintasun desira horren **izpirik** ere. Xabier Olarra

Ezta **izpirik** ere! Xabier Paya

Baina hala gertatu da, eta ez dut damurik, ezta **izpirik** ere. Pako Aristi

"Ez dut eguzki **izpirik** galduko", aurreratu zuen Elsek. Patxi Iturritegi

Bat-batean, ez dut gogo **izpirik** ere deus kontatzeko. Monika Etxebarria

Baina, horrek ez dio axola- **izpirik**. Mirentxu Larrañaga

Orduko ez zegoen zalantza **izpirik**. Fernando Rey

Bular aldean ageri zaion odol arrastoak ez dio duda **izpirik** uzten. Aingeru Epaltza

-Aldi honetan ere irabazten ari naiz -aldarrikatu zuen, alaitasun **izpirik** gabe. Elena Touyarou

Irakur ditzakegu ehun poema liburu poesia **izpirik** aurkitu gabe. Bernardo Atxaga

Borobilak, sendoak, erditze batengatik ere zelulitis **izpirik** gabeak. Aingeru Epaltza

Gizatasun **izpirik** gabeko keinu batek giza aurpegi hori desitxuratuko du. Jose Morales

**11** ***izpi mutur*** *(corpusean* ***izpimutur*** *soilik)*

Bazkalondoko eguzkiak teila-zuloak bilatzen ditu, eta **izpimuturrak** itzal freskotan bustitzen. Itziar Otegi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**argi izpi** (78); **belar izpi** (18); **duda izpi** (5); **eguzki izpi** (33); **eguzkiaren izpi** (4); **esperantza izpi** (13); **hauts izpi** (12); **iguzki izpi** (3); **ilargi izpi** (5); **itxaropen izpi** (14); **izpi ahul** (8); **izpi bakarra** (4); **izpi berde** (3); **izpi berdea** (7); **izpi labur** (3); **izpi mehe** (4); **izpi ultramore** (3); **izpi ultramoreek** (4); **izpi ultramoreen** (3); **laser izpi** (5); **lasto izpi** (3); **zalantza izpi** (6)

**argi izpi ahul** (3); **argi izpi bat** (31); **argi izpi batek** (4); **belar izpi bat** (3); **duda izpi bat** (3); **eguzki izpi batek** (12); **esperantza izpi bat** (11); **hauts izpi bat** (3); **itxaropen izpi bat** (9); **izpi bat ikusi** (4); **izpi bat sortu** (3); **izpi berdea ikusi** (3); **zalantza izpi bat** (3)

**argi izpia** (12); **argi izpiak** (27); **argi izpiaren** (4); **argi izpiek** (11); **argi izpien** (7); **belar izpiak** (8); **eguzki izpiak** (24); **eguzki izpiek** (18); **eguzki izpiekin** (3); **eguzki izpien** (6); **eguzkiaren izpiak** (9); **eguzkiaren izpiek** (8); **gamma izpiak** (6); **gamma izpien** (6); **hauts izpiak** (12); **laser izpiak** (7); **lasto izpia** (6); **lehen argi izpiak** (3); **tabako izpiak** (3); **x izpiak** (8); **x izpiekin** (3); **x izpien** (22); **x izpien bidez** (3)

**arazo izpirik** (4); **argi izpirik** (16); **arrasto izpirik** (3); **asmo izpirik** (3); **aukera izpirik** (5); **axola izpirik** (5); **belar izpirik** (3); **beldur izpirik** (5); **denbora izpirik** (6); **duda izpirik** (95); **egia izpirik** (3); **eguzki izpirik** (6); **erruki izpirik** (5); **froga izpirik** (3); **garrantzi izpirik** (3); **gizatasun izpirik** (4); **gogo izpirik** (14); **haize izpirik** (5); **hauts izpirik** (4); **ideia izpirik** (3); **interes izpirik** (4); **izpirik ez** (44); **izpirik gabe** (157); **izpirik gabeko** (8); **izpirik txikiena** (5); **jaramon izpirik** (3); **kasu izpirik** (8); **leku izpirik** (3); **lotsa izpirik** (10); **susmo izpirik** (3); **zalantza izpirik** (107); **zalantzarako izpirik** (9)

**argi izpirik ez** (3); **argi izpirik gabeko** (3); **duda izpirik ez** (5); **duda izpirik gabe** (53); **lotsa izpirik gabe** (6); **zalantza izpirik ez** (4); **zalantza izpirik gabe** (50)

---

# izpidun *izond* izpiak dituena.

Ostia **izpidun** baten marrazkia erliebean. Koldo Biguri

Sonanbuluen loak hartua zuen, eguzki santu urrezko **izpidunari** begira luzaro egonak hipnotizaturik. Josu Zabaleta

Ellenen begi gris urrezko **izpidunetan** begirada finkatzen zuen bitartean. Lopez de Arana

---

# izpika *adlag* apurka, izpietan.

Poesia **izpika** azaltzen zela? Bernardo Atxaga

---

# izpikatu, izpika(tu), izpikatzen du *ad*

Ontzi preziatu batzuen barruan, narraska zebiltzan piztia mehe batzuk, zeinek ezkata arin dirdaitsuak baitzituzten eta zohardiz **izpikaturiko** begiak. Juan Garzia

---

# izpil *iz* orbana, kolore desberdineko zatitxoa.

Askotariko zakurrak ikusi zituzten, iletsuak eta odolgarbiak denak, kolore eta ile-antz guztietakoak: arre-gorrixkak, beltzak **izpil** zurixkekin, zuriak orban gaztainkara argiekin, [...]. Jose Morales

-Kolore ilunen bat, olibakara edo botila-berdea, txilar koloreko **izpilekin** -esan zuen Txitxikovek. Jose Morales

**Izpilekiko** janzki gaztainkarei eta gorrixkei ederretsi zien handik aurrera. Jose Morales

---

# izpildun *izond* izpilak dituena.

Txilar koloreko frak **izpilduna** eta otso-larruzko longaina jantzi. Jose Morales

Askatu zituzten hedeak; atzera eragin zioten zaldi **izpildunari,** muturrean zartako batzuk emanez. Jose Morales

---

# izpiliku 1 *iz* landare ezpainduna, zurtoin-gogorra, buruxketan biltzen diren lore urdinak dituena*(Lavandula officinalis).*

Hamaika usain-belarrek perfumatutako airea biriketaratu -ezkaiak eta erromeroak, salbiak eta errudak, **izpilikuak** eta berbenak-, besoak zabaldu... Joan Mari Irigoien

Herritik hurbil bazen mendi bat […] harritzaz osatua, arrakaletan estrepak, erromeroak eta **izpilikuak** sortzen zirena. Josu Zabaleta

**Izpilikuaren** lurrin onean. Joxan Elosegi

**Izpilikuaren** koloreko kaxa txiki bat atera du maletatik. Pello Lizarralde

Kolpean, bainila-usaina nagusitzen zaio **izpilikuarenari**. Anjel Lertxundi

Hortzak zituen zuriak, zeruak uda partean **izpilikuz** egina dirudienean bezala. Felipe Juaristi

**2** (hitz elkartuetan)

Lixiba egiterakoan amak xaboiari eransten dion **izpiliku**-usaina. Anjel Lertxundi

**Izpiliku**-uraren lurrina zerion haren ileari. Anjel Lertxundi

Ilehoria hirian bizitzen egona zen eta, horregatik, batzuetan emakume finen **izpiliku** perfumea jartzen zuen. Pello Lizarralde

**Izpiliku**-urez lurrindua. Anjel Lertxundi

· Txapin **izpiliku**-koloreak ziren, erromes-maskor eta lore-irudi soilez apainduak. Mirentxu Larrañaga

Frak-jaka eta **izpiliku**-koloreko galtzaz dotore jantzirik. Irene Aldasoro

---

# **izpimarra** *iz*

"Carmen Diaz" irakurtzean atzera eta aurrera egin zuen birritan linternaren **izpimarra** batez. Josu Landa

---

# izpimutur ik **izpi 11**.

---

**izpiño 1** *iz adkor* izpia. ik **izpitxo**.

Harri kixkil bat, expal ttar bat, bellar **izpiño** bat, lizta muttur bat... Patziku Perurena

**2** apurtxoa.

Besoak dilindan, buru-makur, herrestan, aitzinekoari segi, SSen oihuek ikaraturik, itxaropena galdurik eta argi **izpiño** bat atxiki nahirik oraino... Eneko Bidegain

Txomini esperantza **izpiño** bat pizten zaio, baina ez da gehiagoren galdegitera menturatzen. Eneko Bidegain

---

# **izpiritu** *(1812 agerraldi, 109 liburu eta 203 artikulutan; ETCn 6.092 agerraldi; orobat* ***ispiritu*** *g.er. eta* ***ezpiritu*** *g.er.; cf* ***espiritu*** *2131 agerraldi, 121 liburu eta 201 artikulutan -gehien-gehienak Herria aldiakarikoak-; ETCn 11.063 agerraldi)* **1** *iz* espìritua.

Ni ez bainauzu lurtarra, baizik eta **izpiritua**. Aurelia Arkotxa

**Izpiritua** larrutik hurbilago dago askozaz ere, betiere urrunegi gelditzen zaizkigun barrunbe ezezagun horietatik baino. Iñaki Segurola

Herder-entzat "herriaren **izpiritua"** herri xumearen **izpiritua** da. Joxe Azurmendi

Iraultzaren **izpiritua**. Andres Urrutia

Ideia bakar bat zuen **izpirituan:** eliza aitzinean abandonatu haur bastarta Sarara itzuliko zen. Elena Touyarou

Ez dut uste delako maiatzeko **izpiritu** hori 1968koa den, bainan bai 2002koa. Herria

Nazioa "arima bat" omen da, **"izpiritu"** bat. Joxe Azurmendi

**2** (izenondoekin)

Baina Lucy bere baitara bildurik zegoen oso barna, axolagabetasunezko laino baten gainean igeri pisurik ez baleuka bezala, **izpiritu** huts bat gorputzetik erauzia. Oskar Arana

Esferetako adimenak edo goi mailako **izpiritu** abstraktuak. Xabier Kintana

**Izpiritu** jainkozkoa duena bakarrik da gai batzuk besteetatik bereizteko. Joan Mari Lekuona

Artisau eskuak zituen eta **izpiritu** landua. Juan Garzia

Bai, badu zerbait **izpiritu** burgesak, Afrikako desertura edo Himalayara eragiten gaituena. Patziku Perurena

Eta non zen gaia, **izpiritu** argi eta ideki horrentzat balio etzuena? Herria

Gaur ere, **izpiritu** argitu eta positiboentzat, metafisika "ilargi zahar bat" [...] baizik ez da; fede ahul baten ume baxtarta, hots **izpiritu** hertsi eta kezkatien kontsolamendua. Piarres Aintziart

Matxinada-garai haietan, **izpiritu** kontserbatzaile eta hego-laburra erakutsi zuen. Juan Garzia

Bada hor egiazko kristau gerrazaletasun bat, gerra santuaren **izpiritu** gaizto bat, dioena: "Gerra, borondate txarreko gizonei!" Jaisten da orobat **Izpiritu** Santua usoaren itxurapean. Piarres Xarriton

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa) ik **espiritual**.

Andres Untzain idazlearen **izpiritu**-zuzendaria da. Edorta Jimenez

Urguilu eta **izpiritu** gogortasun handia du. Itxaro Borda

Haserre gorria, minoritate [...] ekile baten bekaizkeria, **izpiritu** hertsikeria, burugabekeria, bortizkeria, atzerakoikeria etengabe salatzearren. Itxaro Borda

Sentimendu-nahasketa hartan borrokan egonagatik oraindik bazuen **izpiritu**-hoztasuna. Jon Alonso

Ekonomiak, santua edo ez, **izpiritu** arrasto bat baduen seinale. Berria - Ekonomia

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Giza **Izpiritua** osatzen duen ideiaren objektua Gorputza da. Piarres Xarriton

Nahiz eta kazetari sentimental horiek herri **izpiritua** usteltzen duten [...]. Lopez de Arana

Enpresa-**izpiritua** bultzatzeari. Iban Zaldua

Hartly, hik bai dakiala zer den elkartasun-**izpiritua,** hiritar eredugarri horrek. Lopez de Arana

Erakutsi zaizue, Jesusen egiaren arabera, zuen adimen-**izpiritua** berritu dezazuela. Joan Mari Lekuona

Intolerantzia **izpiritu** berberaren ekoizpenak dira Inkisizioa eta gurutzadak, Joxe Azurmendi

**5** ***izpirituzko*** *izlag* ik **izpiritual**.

Indian **izpirituzko** balioak mendebaldean baino preziatuagoak dira. Gotzon Garate

Berriro arrotz gertatzen zaizkie **izpirituzko** kontsolamendu eta gozoak. Joan Mari Lekuona

Hain jaiotza prestu eta **izpirituzkoa** bere baitan gertatzen ikusi nahi duenak. Joan Mari Lekuona

Zertan datza biluztasun **izpirituzkoa**? Joan Mari Lekuona

Zeren eta izaki **izpirituzkoak** eta gorpuzgabeak ez baitituzte gorputzeko begiek ikusten ahal, egiazki diren bezala. Piarres Xarriton

Egintza **izpirituzkoak** areago betetzeko. Joan Mari Lekuona

Ez direla materiazkoak, ez dutela itxura egonkorrik ez gorputzezkorik, ez bada **izpirituzkoa**. Xabier Kintana

Garapen intelektual, moral, sozial eta **izpirituzkoan** aurrera egiteko. Itziar Eizagirre / Amaia Lizarralde

Hala ondasun materialetan, ez baita konparatzerik mairu hauek daukaten aberastasuna turkoek daukatenarekin, nola **izpirituzkoetan,** han izpiriztuko ondasunak fededunaren bizkarraren gainean hedatzen baitira oina lurrean paratu orduko. Jon Alonso

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 4 aldiz agertzen direnak)**

**arrazaren izpiritu** (5); **izpiritu espainol** (7); **izpiritu espainola** (8); **izpiritu espainolaren** (10); **izpiritu saindua** (18); **izpiritu sainduak** (10); **izpiritu sainduaren** (13); **izpiritu santua** (24); **izpiritu santuak** (6); **izpiritu santuaren** (15); **izpiritu santuari** (6); **izpiritu soilari** (4); **izpiritu xorrotxa** (6)

---

# **izpiritual** *(orobat* ***ezpiritual****) izond* espirituala.

Alferrikako mila kezka material eta **izpiritual** burutik uxatzeko. Patziku Perurena

Bizitza **izpiritualaren** bultzatzaile gisara. Joan Mari Lekuona

Gorde ezazu bake **izpirituala,** eta izan zaitez gaiztoa. Anjel Lertxundi

Atzean utzi nahi zituen gerrako oroitzapenek eta europar erraiek hozkatzen zuten minbizi **izpirituala**. Aritz Gorrotxategi

Gizaki arima aldiz gorpuzgabea da eta guztiz **izpirituala**. Piarres Xarriton

Eta, bestalde, hortik dator ere zorion hura **izpirituala** izatea eta gorputzeko edozein sentsurentzat ikusi ezina. Piarres Xarriton

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **arraza izpiritual** (3); **gai izpiritualak** (3)

---

# izpiritualdu, izpiritual(du), izpiritualtzen da *ad* izpiritual bihurtu.

Bilduma haragikoi hori, egunak jin eta egunak joan, ganbararen isiltasunean **izpiritualtzen** da, hazten ere idazketa hurri eta goxo baten kostuz. Piarres Aintziart

---

# izpiritualismo *iz* espiritualismoa.

Unamuno-ren kasuan susmoa du [Ortegak], haren **izpiritualismo** eta mistizismo guztiak funtsezko materialismo enas bat disimulatzen duela. Joxe Azurmendi

---

# izpiritualista *izond* espiritualisa.

Ortega ez da eta ez da bihurtu behar **izpiritualista** kulturalista hutsa, horrela maisua arrazismoaren orbanetik salba litekeela pentsatzen bada ere. Joxe Azurmendi

---

# izpiritualitate *iz* espiritualitatea.

Komentu horiek dira **izpiritualitate** mistikoaren benetako zentroak. Joan Mari Lekuona

Hemengo etxeko **izpiritualitatea,** ordea, hutsaren hurrena... Urtzi Urrutikoeetxea

**Izpiritualitate** gose batek hartua delakotz. Herria

---

# izpiritualizazio *iz* espiritualizazioa.

Asko dira zentralismo politikoaren **"izpiritualizazio"** modu hauek. Joxe Azurmendi

---

# izpiritualki *adlag* espiritualki.

Hirugarren jaiotza arima santu bakoitzean gertatzen da, non Jainkoa **izpiritualki** jaiotzen ari baita beti maitasunaren eta graziaren bidez. Joan Mari Lekuona

Koloniak galdu arren, [...] Inperioak "arraza **izpiritualki"** batua izaten jarraitzen duela sinetsi gura da. Joxe Azurmendi

Izpiritu Santua bidaltzea, ikasleen mesedetan Pentekostes egunean gertatu zena, **izpiritualki** egunero eraberritzen da sakonki prestatzen direnengan. Joan Mari Lekuona

---

# izpiritualtasun *iz* espiritualtasuna.

Baina zuk ez daukazuna (mintzatu zitzaion Bankes jaunari) dauka berak: **izpiritualtasun** basatia; ez daki ezer huskerietaz; zakurrak eta seme-alabak maite ditu. Gure garaiko egoera ezberdinak zailtzen dute **izpiritualtasun** berria lortzeko ahalegina. Anton Garikano

Udaberriaren **izpiritualtasuna..**. Lopez de Arana

**Izpiritualtasun** gosea. Herria

---

# izpiritudun *izond* izpiritua duena.

Orain arte demonstratu ditugunak gauza arruntak dira, eta ez dagozkie gizakiei beste Izaki guztiei baino gehiago, hauek guztiak **izpiritudunak** baitira, nahiz ez denak maila berean. Piarres Xarriton

---

# izpirituratu, izpiritura(tu), izpirituratzen da *ad* izpiritura etorri.

Bet-betan, hogei hitzeko otoitz bat **izpirituratu** zitzaion. Juan Garzia

---

# izpiritutasun *iz* izpiritualtasuna.

Monasterio frango ere bisitatu ditu, toki horietako **izpiritutasunaz** gustaturik. Herria

---

# izpiritutsu *izond* izpirituz betea.

Izerdia izpirituari gozoro darion zuku bat da, inork bedeinkatu gabeko ur **izpiritutsu** bat. Iñaki Segurola

---

# izpirituzale *izond* izpirituaren zale dena.

Arima espainolaren bikoiztasunaren gai hori Maeztuk bi Espainien maneran garatuko du: Don Quixote-rena, **izpirituzalea,** Santxorena, materialista, elkarrekin borrokan historian zehar. Joxe Azurmendi

---

# izpitsu *izond* izpi asko duena.

Konturatu zen erretxina nabarmen sendotzen zela xehe-xehe egindako gai **izpitsuren** bat gehitzen bazitzaion, hala nola zerrautsa, erabat gogortu baino lehen. Irene Aldasoro

Ileorde esekien punta **izpitsuen** azpian, emakume bustu bat biraka zebilen. Karlos Zabala

---

**izpitu**, izpi(tu), izpitzen da *ad* izpitan desegin.

Itsasertzetik hurbil erabiliz gero ere, [harri bigunak] kresalarekin hondatuz **izpitu** egiten dira, eta berorik ez dute jasaten. Santiago Iruretagoiena

---

**izpitxo** **1** *iz adkor* izpia. ik **izpiño**.

Mundu osoa zure aurrean balantza alde batera okertzen duen **izpitxoa** da, lurrean pausatzen den goizeko ihintz-tanta. Elizen arteko biblia

Bazuten urdinetik, baina agian grisetik gehiago; bazuten berdetik ere, eta marroi ukituak, **izpitxo** -txinpartak. Iñaki Iñurrieta

**2** apurtxoa.

Berehala konturatu zen Snaperen sentimenduak berarekiko **izpitxo** bat ere ez zirela aldatu. Iñaki Mendiguren

Horrexegatik ahal zuen denbora gehiena ematen zuen Harryk etxetik kanpora, noraezean eta oporraldiaren bukaeran pentsatzen, itxaropen- **izpitxo** bat ikusten baitzuen orduan. Iñaki Mendiguren

Gizonak bizi- **izpitxo** bat zuen oraindik eta, medikuen aholkuari jarraituz, ez zioten ezpata eztarritik atera. Askoren artean

---

**izpuratar** *(orobat* ***izpurar****)* *izlag/iz* Izpurakoa, Izpurari dagokiona; Izpurako herritarra.

Jean Pierre Goiti, **Izpurar** laboraria eta Paueko laborantza ganbarako president ordea. Herria

**Izpurar** euskaltzale hori independente gisa aurkeztu zen duela sei urte.

Buruilaren 13an ezkontzako sakramenduaz elgarretaratu dira Izpurako elizan Gilbert Oçafrain eta Karine Etchezahar **Izpurarra** ezteiak ere hor berean zituzten Faustin Bentaberry salan omorerik hoberenean. Herria

Baxenabartar batzu ari direla Etorburu abesbatzan, hala nola suhuskundar bat, **izpuratar** bat, urepeltar bat eta aldudar bat. Herria

Ez dira haatik **izpuratarrak** ados, kalte handiak ekar bailezazke horrek herriari. Herria

Manifestalarien aintzinean, bertzeak bertze, **izpuratar** andana ederra, Frantxua Maitia-ren inguruan. Herria

---

izraeldar ik **israeldar**.

---

**iztai** *iz* izterra eta sabela elkartzen diren gunea. ik **iztarte; istape**.

Miriamek, ohe kidearen keinu xumea ulertu balu bezala, izterraren gorako bihurgunea zeharkatu zuen ezpainekin **iztairaino** . Aritz Gorrotxategi

Goio astiro sartu zen eta aittitte aulki txikian eserita burua behiaren **iztaian** pausatuta topatu zuen. Joseba Sarrionandia

---

iztape ik **istape**.

---

iztar ik **izter**.

---

**iztarte** *iz* hankartea.

Behean, gizonezko bat **iztartea** afeitatzen ari zaio. Berria - Kultura

Istant bat gabe, **iztartea** harrotzen sumatu nuen. Aingeru Epaltza

Gogoa berriz ere izarapera itzuli orduko, **iztarteko** ene lagunak bere ohiko izaera apala berreskuratua zuen. Aingeru Epaltza

---

**izter** *(orobat* ***iztar*** *g.er. eta* ***ixter*** *g.er.)* **1** *iz* zangoaren edo hankaren zatia, belaunaren eta enborraren artekoa.

**Izterrak** egundoko mina ematen zidan. Txillardegi

Zauri arina zuen **izterrean** . Berria - Euskal Herria

Gero ta fiteago nabil, zangoak eta **izterrak,** egun osoan, zanpa-zanpa asfaltoan ibilirik, gogortzen ari baitzaizkit. Piarres Aintziart

Bi emazte, mendiak bezain azkarrak, **izterrak,** sorbaldak, bizkarrak gizonen parekoak. Herria

Lehen askoz ere arruntagoa zen emakumeak **izter** bat bestearen kontra igurtziz gozatzea. Karlos Zabala

Haren hankak luzeak ziren eta **izterrak** haragitsuak. Juan Martin Elexpuru

Nire **iztarren** zuritasuna nabarmen geratzen zen gona-atzealde beltzean. Juan Martin Elexpuru

Orduan, delako arrotzak tiro eman dio eta **ixter** batean kolpatu du. Herria

Arianek esertzean **izterrak** ia osorik erakutsi zizkion. Joseba Sarrionandia

**Izterrak** zabaltzen dizkit irribarre eginez. Javi Cillero

Ondo bereiz itzazu **izterrak** . Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Gehienak erdi biluziak, **ixterrak** eta papoa dena ageritan. Janbattitt Dirassar

Mokorrak pixka bat atzera eramanarazten nizkion nire **izterren** artean goza zezan. Karlos Zabala

Une batez eta zeharka ikusi nuen zakila **izter** baten gainean zeukala, tentagarri etzanda. Aitor Arana

Bizkarra zurrun, **izterren** gainean jarriak ditu eskuak. Pello Lizarralde

Neskaren **izterrak** nola korapilatzen zaizkion, eta zein indartsu sentitzen dituen horrelakoetan. Alberto Barandiaren

**Izterrak** tolestuta. Itziar Otegi

Panpina aulkitxo batean eseri zen, **izterrak** elkartuta eta eskuak belaunetan. Juan Martin Elexpuru

Zuk gosaltzen duzun bitartean nik **izterrak** depilatuko ditut. Jasone Osoro

Kilika sakon bat sentitu nuen **izterretatik** sabelera igotzen. Karlos Zabala

Soa desbideratu zuen **izterren** hondoan ikusgai zegoen paradisuko... edo infernuko ahotik. Migel Angel Mintegi

Haietako batek tiro egin zion **izterrean** . Berria - Kultura

**Izterretik** herrenka zebilen. Elizen arteko biblia

**2** (izenondo eta izenlagunekin)

Zapatak kendu eta hankak goian jarri zituen une batez, galtzerdi haragi-kolore finak eta **izter** biribilen iturburua erakutsiz. Felipe Juaristi

Gona motzak agerian utziriko **izter** sendoak. Migel Angel Mintegi

Eguzkiak belztutako **izter** gihartsu eta bilo horidun haien azal leun eta otzana. Urtzi Urrutikoetxea

Zure **izter** esnetsuak irudikatzen ditut. Eider Rodriguez

Hark munduko marka hautsi zinan bere bular eta **izter** silikonatuekin! Itxaro Borda

Ene! zelako jainkosa-bularrak, zelako **izter** leun eta guriak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Irrikak dardarazten ninduela, eskuak **izter** gantzatsu horien gainean ezarri nituen. Aingeru Epaltza

Ene buztan harroa emearen **izter** beroen artetik sartzen saiatu ninduan. Aitor Arana

Eskuineko **izterrean** zekarren ezpata hartu eta sabelean sartu zion erregeari. Elizen arteko biblia

Azken bi asteak ezker **izterrean** zuen tendinitisa osatzen Frantzian eman ostean. Berria - Kirola

Eskuin **izterreko** aduktorean zaintiratua dauka Martin Mauricio Astudillo Alaveseko jokalariak. Berria - Kirola

## 3 (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Lurrera jaitsi nituen begiak eta debozio handiz, pausatuki, joan nintzaion zangoak eskalatzen, orkatilaren borobiltasuna lehenik eta **izter** -mamiak gero miretsiz. Joxean Agirre

Borrokaldian **izter** -giltza ukitu zion Jakobi eta koloka jarri. Elizen arteko biblia

**Ixter** -hezurra hautsia, ukondoko hezurra ere ba... Herria

Hantxe **izter** erdira bitarteko galtzerdiak ikusi zituen, gorriak. Jasone Osoro

Minigona beltz zabala, **izter** erdirainoko koloretako galtzerdiak. Sonia Gonzalez

Erdiko parteari **izter** forma emango zaio, grekoek *meros* deitzen dutena egiteko. Santiago Iruretagoiena

· Gutizia sartu zitzaidan neskatxaren beso-**izterrak** ikusteko. Javi Cillero

· Ramona, larru-beltz, **izter** -guri. Aingeru Epaltza

· Bezero baten gainean **izter** -koloka jarri nintzen lehenengo aldian, oso gaizki pasatu nuen. Joxan Elosegi

## 4 (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Eguzkitara atera dira Kixoren saihets-**izterrak,** oro hezur eta larru. Aingeru Epaltza

## 5 (animaliena)

Altzinook idi bat hil zuen Zeusen ohorez, **izterrak** erre, eta oturuntza eder bat egin zuten. Juan Kruz Igerabide

Erretilu batean ahari-**izterrak** dakartzatela ikusirik [...]. Koro Navarro

Arrosen emazteak berak eman zidan afaltzera: ardi **izter** bat osorik eta pinta bat arno. Aingeru Epaltza

Arkume **izter** gazitu bat. Josu Zabaleta

Ahate **ixterrak** baratzekariekin. Herria

Eztainuzko azpiltxo bat dagoela eta bertan, saltsa ilun batean igerian, oilasko **izter** bat. Monika Etxebarria

Oilasko **izter** txikia amaituta barrako gizonari galdetu diote pakistandarrei buruz. Berria - Harian

Kordoi jarraitu batzuk ere baziren, **izter** tolestuz eta bularki hanpatuz beteak. Karlos Zabala

Oilo txiki beltz bat ikusi zuen, etxeko usoen antzekoa, hanka-**izterrak** lumaz estaliak zituena. Askoren artean

## 6 *izterreko iz* txirrindularien galtza mota, izterrak ere estaltzen dituena.

Afizionatuetan inoiz ez nituen jantzi **izterrekoak,** beti kulote motzak, eta profesionaletan, nola hasiko naiz ba **izterrekoekin** korritzen? Berria - Kirola

Txirrindulari denak arropa guztia zeramaten jantzita: txanoa, eskularruak, lepokoa, **izterrekoak,** besokoak... aurpegi arraroarekin begiratzen zidaten, kulote motzekin zihoan tipo hura nor zen galdetuko balute bezala. Berria - Kirola

Eskukoekin bai, baina **izterrekorik** ez. Berria - Kirola

## 7 *izter alde* (*orobat* ***izterralde***)

Gerrikoaz astintzen zizkion **izterraldeak** . Juan Garzia

Gaur du Lizasok entrenamendua **izterraldeak** eutsiko dion edo ez jakiteko. Berria - Kirola

Estaltzen ninduten tapakiak baztertu nituen eta eskuak eraman nituen **izter** aldera. Xabier Mendiguren Elizegi

· Ipini okela-zatiak, zatirik onenak, **izter** eta bizkarraldea Elizen arteko biblia

## 8 *izter arte* (*orobat* ***izterrarte*** *eta* ***iztarrarte***) hankartea.

Nik ere **izter** artea haztatu nahi nien txantxa moduan. Pello Lizarralde

Seriotasun osoz, **izterrartea** ukitzen diote denek elkarri, laburki. Xabier Mendiguren Elizegi

Azkenik, nire **izterrartean** pausatu zuen bere ahoa. Juan Martin Elexpuru

Bertze eskua nire **izter** arte harrotura eraman zuen. Aingeru Epaltza

Une horixe hautatu baitzuen nire lagun berriak ene esku herabea bere **izter** artera eramateko. Aingeru Epaltza

Esku bat [...] nire gerrian pausatu zen, eta **iztarrartean** behera labanduz, hauen erdian sartu eta nire arrakalan irristatzen hasi zen. Juan Martin Elexpuru

Nigandik bereizi gabe, eta zakila nire **izterrartean,** bainugelara eraman ninduen. Juan Martin Elexpuru

Nire garaipenaz segur, **izter** arteko pasabide heze anarteraino ahantzia esploratzera abiatu nintzen, gutizios. Aingeru Epaltza

Bere tresna **izter** artean laztandu zuen, ahora ere eraman zuen [...] eta azkenik ahuspez eta arnasestuka amaitu zuen emakumearen oinetan. Patxi Zubizarreta

**Izter** artean ikusi nion bere hura handiturik, eskuan, egonezinik. Juan Kruz Igerabide

· Lancelotek, kolpe ikaragarri batez, lurrera bota zuen Börs, zaldiaren zela **izter** artean zuela, uhalak etenda. Juan Kruz Igerabide

Zaldi zuri ikusgarria zeraman **izter** artean eta larruzko kapa beltza bizkar gainean. Aingeru Epaltza

Gurinak irrist egiten zidan **izter** artetik. Jasone Osoro

Urkatuaren gorputza zurrundu eta haren **izter** artetik errekasto ilun kiratsa etortzen zen arte. Aingeru Epaltza

Motoa da konfiantzaren bigarren pausoa, gorputzaren igurtzia sentitzea, zure ipurtaldea bestearen **izter** artean, bere eskuak zure gerri inguruan, lotsati. Pako Aristi

## 9 *izter barren*

Musuka ari zitzaiola, kuleroak jaitsi, eta esku batez **izter** -barrenak laztandu zizkion-. Fernando Morillo

Ohe gainean egongo zara biluzik zetazko maindire artean, **izter** barrenak sutan, ni, botila bat xanpain hotza eskuan, heltzen naizenean. Ramon Saizarbitoria

## 10 *izter barru* (*orobat* ***izterbarru***)

Beren mihiak adostasun osoz ibili ziren nire klitorisean eta ezpaintxoetan, perineoan eta uzkian, **izterbarruetan** eta ipurmasailetan. Juan Martin Elexpuru

Begiak itxita, irristatzen sentitu nuen nire **izter** barruetan, mokorretan, ipurdietan. Juan Martin Elexpuru

Haietako batek dutxako alkatxofa hartu zuen eta bizkarretik, ipurditik, **izterbarruetatik,** larruazal guztitik pasatu zidan. Juan Martin Elexpuru

## 11 *izter gain* (*orobat* ***iztergain***)

**"Izter** gainak arranpez josiak ditut!" zion bertze batek, ibilaldiaren bururapena sekula ikusiko zuenez gogoetatua. Herria

Gogoz kantatu zuen, **iztergainak** kulunkatuz, dantzatuz, keinuak eta imintzioak eginez. Xabier Olarra

Zakila **izter** gainean neukan eta izterrean hazia. Aitor Arana

Azpil batean jarri dena, eta bere **izter** gainean ipini zuen azpila. Jon Muñoz

Eta drogerian, erakusgai, maniki bat, emakume gazte baten **iztergaina** tamaina naturalean. Fernando Rey

-Lagako didazu **izter** gaineko ileak nik kentzen? Jasone Osoro

### 12 *izter-lehengusu* (*orobat* ***izterlehengusu***) lehengusu propioa.

Ea, Hondarribiko **izter** -lehengusuen kontuekin batera, gaur gertatutakoa ere ahazten zaion. Xabier Etxabe

Oheak bereizten gaitu gure lehengusu eta **izterlehengusuetarik,** eta aldi berean, haiekin batzen. Iñaki Segurola

### 13 *izter masail* (*orobat* ***mazela***)

Berriz ere nabarmenki, erotikoki mugitu zituen **izter** masailak ibiltzean. Iñaki Zabaleta

Han noa, bi eskuekin sokari heldu eta, behitik goiti igoaldiro haritzaren gerrian bi **iztermasailak** estutuz. Patziku Perurena

**Izter** masail barrualdeak odol-jarioan hasi zitzaizkidan, ez nituen gorputz giltzadurak sentitu ere egiten. Jesus Mari Mendizabal

Soinekoa bi eskuez **izter** -mazelatara egokitu, eta eseri egin zen. Anjel Lertxundi

### 14 *izter ondo* (*orobat* ***izterrondo***)

Orduan, erabaki sendoa harturik, **izter** ondotik ezpata atera eta bularrean sartu nahi izan nion. Juan Kruz Igerabide

Emakumea **izterrondoak** doi-doi estaltzen zizkion minigona zimurtua lisatzen saiatu omen zen bi eskuekin. Joxean Agirre

Eta ez ditut gustuko gandorra ematen duten horiek ere, bi **izterrondoetako** ileak moztu-moztuak eta erdikoak hantxe, indio seminola baten burua balitz bezala. Karlos Zabala

Irentsi ahal nuen guztia irentsi nuen makila tente hartatik, gero **izterrondoak** usaindu nizkion, gero barrabilak miazkatu. Karlos Zabala

Labanaz moztuko dizue Jaunak buruko ilea, kenduko bizarra eta **izterrondoko** ilea. Elizen arteko biblia

Haren **izterrondoko** zaina teinkatzen sumatzen duenean, gozamen eta irrika oldar bat sentitzen du bere barnean. Oskar Arana

Frantzisko dohatsuak **izterrondoko** hernia sortu zitzaion Pedro izeneko gizon bat miragarriro sendatu zuen. Askoren artean

### 15 *izter txoko* (*orobat* ***iztertxoko*** *eta* ***izterzoko)***

Musuz betetzen zizkidan **izter** -txokoak, eta ni, begiak itxi, eta zeruraino igotzen nintzen, zeruraino! Karlos Zabala

Gauza bakar batek ematen zidan pena, aleman hari sabelean tiro egin izanak, eskuak **iztertxokoan** zituela segitzen zuelako, bota haiekin ibili eta ibili segitzen zuelako, eta nik banekien berari ere ez ziola inork lagundu behar, sabelean tiro bat hartuz gero ez dagoelako bizirik ateratzerik. Fernando Rey

Besape eta **izter** -txokoetatik zintzilik zituen haragi puska marroixka batzuk. Xabier Olarra

Gaitzena eta okerrena biharamunekoa izan zen, noiz eta txankro mingarri haiek atera baitzitzaizkidan, zuk dakizun tokian, **izterzokoetako** gongoilak ere handitzen zitzaizkidala... Joan Mari Irigoien

### 16 *izter-zabal* izond

Ile hori bikaina nuen arren, **izterzabala** eta hankokerra nintzen. · *aldag* Hura ohatzean **izter** -zabal etzateko. Joan Mari Irigoien

Ron lurrean zegoen **izter** -zabal, baina Scabbers sakelan zuen berriro. Iñaki Mendiguren

Hura etzaulkian, eta ni bere aldamenean kukulumuxu, **izter** -zabal... Joxe Austin Arrieta

### 17 *izter-zabalik* adlag

Geltokiko buruaren bulegora sartu nintzen eta dama sofan etzanda zegoen ahoz goiti... biluzik eta zangoak honela **izterzabalik** ! Fernando Rey

### 18 *izter zain* ik **iztezain**.

Burtziak sartu ondoren, **izter** -zainak ebaki zizkiola, dagaz, eta horrela paralizatu eta hebaindu zuela dukeak zezen hura. Joan Mari Irigoien

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **aparte utzitako izterra** (3); **ardi izterra** (4); **arkume izter** (4); **eskuin izterrean** (11); **eskuin izterreko** (5); **eskuineko izterra** (4); **eskuineko izterrean** (8); **ezker hankako izterrean** (6); **ezker izterrean** (5); **ezker izterreko** (6); **ezkerreko izterrean** (8); **hartu zuen izterrean** (3); **izan zuen izterrean** (3); **izter artean** (15); **izter arteko** (5); **izter artetik** (4); **izter barrenak** (3); **izter esnetsuak** (4); **izter eta** (8); **izter gainean** (12); **izter giltza** (3); **izter ondotik** (5); **izter zabal** (4); **izter zuri** (3); **izterrak eta besoak** (3); **izterrak ireki** (3); **izterrak ukitzen** (3); **izterrak zabaldu** (6); **izterrak zabaltzen** (3); **izterraren gainean** (8); **izterraren gainean jarri** (3); **izterraren kontra** (8); **izterren artean** (29); **izterren artean sartu** (4); **izterren gainean** (6); **izterretan behera** (3); **izterretan gora** (5); **nire izterraren gainean** (4); **sentitu zuen izterrean** (3); **zure izter esnetsuak** (4)

---

## izterbarru ik **izter 10**.

---

## **izterbegi** *iz* etsaia, arerioa.

Begiak gure **izterbegiaren** armatik kendu gabe, eskua eskaini nion neure andreari. Aingeru Epaltza

Cesare Cremonini zeritzan bertze gizon jakintsu bat -Galileoren laguna, nahiz eta ideietan etsai eta **izterbegi-,** teleskopiotik behatzerat ere ausartu ez zena. Joan Mari Irigoien

Alferrik dela horren ahal gutxiko **izterbegi** baten kontra horrenbertze ardura hartzea? Jon Muñoz

Errugabeak, mendeku egiteko, errukigabe hilko ditu bere **izterbegiak** . Gotzon Garate

Egun haietan ikasi nuen betiko espainola ez ezik frantsesa ere izan genezakeela **izterbegi** . Aingeru Epaltza

---

## iztergain ik **izter 11**.

---

## **izterkada** *iz* izterrez emandako kolpea.

Zarata txiki batek asaldatu zuen arte -senarra bere buruari **izterkada** jotzen. Anton Garikano

---

## izterlehengusu ik **izter 12**.

---

## iztermasail ik **izter 13**.

---

## **izterpe** (*orobat* ***iztarpe***) *iz* istapea.

-Maite banauzu, jar ezazu eskua nire **iztarpean** eta zin egidazu zintzoa eta leiala izango zarela nirekin. Jose Antonio Mujika

Morroiak, orduan, bere nagusi Abrahanen **izterpean** eskua jarri eta horrela egingo zuela zin egin zion. Jose Antonio Mujika

Esku bat deabruaren **izterpean** ipini, zin egin, eta munstroak agindu zizkion guztiak egin zituen. Koro Navarro

Emakumeek egunero ile bat erauzi behar zuten **izterpetik** eta gizonaren omenez eraman behar zuten. Pello Lizarralde

Ukuiluko ilunetan aittitte behiaren **izterpean** bere aulkitxoan eserita igarri eta, hurreratzean, entzun zuen behiaren apatxa lurrean eta esne epela par par erortzen metalezko

kantinera. Joseba Sarrionandia

Herri tipietan, ordea, askok oihaltxo bat, **iztarpetik** sartu eta gerriari buelta emanda. Gotzon Garate

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **eskua nire izterpean** (3)

---

## izterralde ik **izter 7**.

---

## izterrarte ik **izter 8**.

---

## **izterrezur** *(orobat* ***izter-hezur*** *g.er.)*

Esku batean koati baten **izterrezurra** ezarri zion. Josetxo Azkona

Kupula hemisferiko bat da femur edo **izterrezurraren** burua. **Izterrezurraren** lepo hori hautsiz gero, bi hezur zatiak bereizi egiten dira muskuluen eraginez, eta ez dira berez osatzen. Irene Aldasoro

**Izterrezurrari** lotutako metalezko euskarri batez sendotu daiteke aldaka-giltzadura ahul bat. Irene Aldasoro

Zaila da hezurraren eta altzairuaren arteko lotura estu eta iraunkorra lortzea, **izterrezurrean** batez ere,karga astunei eutsi behar baitie **izterrezurrak**. Irene Aldasoro

Hezur luze arrunt batean **-izterrezurrean,** adibidez-, hezur-makilaren erradioaren erdia inguru da hormaren lodiera. Irene Aldasoro

Zaharretxetik irten eta pasioan **izter** -hezurra hautsi duen agurea, ospitaleko leihotik haurrek bezala elur malutak tximeleta lokartuak bailiran erortzen ikusten dituena. Berria - Kultura

**Izterrezur** -buruaren zeharkako ebakidura Irene Aldasoro

---

## izterrondo ik **izter 14**.

---

## iztertxoko ik **izter 15**.

---

## izterzabal ik **izter 16**.

---

## izterzoko ik **izter 15**.

---

## **iztezain** *iz* belaunpea.

Ferekatuko nizkion, behar bezala ferekatu ere, eskua belaunpean pausatuz, **iztezainean,** emeki-emeki. Iñaki Iñurrieta

---

## **iztuku** *iz* estukoa.

**Iztukuak,** izan ere, bere zuritasunaren fintasunagatik bertako keak hartzeaz gainera beste eraikinetakoak ere hartzen baititu. Santiago Iruretagoiena

Hain ondo leunduta daude **iztukuzko** zarpeatuarekin non, […]. Santiago Iruretagoiena

Arotz-lan finez edo **iztukuz** egindako erlaitzez. Santiago Iruretagoiena

---

## **iztupa** *(orobat* ***istupa*** *g.er.) iz* lihoa edo kalamua zehatzean bereizten den zati larria, sokak eta soineko latzak egiteko erabiltzen dena.

**Iztupa** zakarreko oihalak. Juan Garzia

Haietako baten lepokoa -larruzko azalaren azpian **iztupa** agerian uzteraino urratua aspalditik- trebetasun handiz josirik zegoen. Jose Morales

Bolbora finez blaitutako **iztupa** apur bati su eman, eta ibaira bota zuen... Karlos Zabala

Oholen arteko zirrikituak **iztupaz** bete. Edorta Jimenez

Sudur luzearen azpian, **iztupa** -koloreko bibote baten punta zorrotzak ageri ziren. Lopez de Arana

**Iztupa** -haria sutara inguratzean eteten den bezala. Jose Antonio Mujika

---

## **izturiztar** *izlag/iz* Izturitzekoa, Izturitzi dagokiona; Izturitzeko herritarra.

Hiru hilabete geroago Damien Lapeyre azkaindarra eta Laurent Etxeverry **izturiztar** gaztearen aldi izanen zen. Xipri Arbelbide

Salvat Monho **izturiztar** olerkari handi eta Irisarriko erretorak. Herria

Goresmenak **izturiztar** berriak diren burrasoeri eta zorionak sortu berriari. Herria

Ainitz **izturiztar** joaitekoak baitira, hitzordua 2ak 30etan finkatua da trinketean. Herria

40 bat **izturiztar** eta aihertar, Beltzuntze herrirat pidaiaz. Herria

---

## **izu** **1** *iz* beldur larria eta bizia, bereziki zerbait egitea eragozten duena. ik**izialdura**.

Higuina zen, edo **izua,** ez dakit. Ramon Saizarbitoria

Irudi sortzaile abila da **Izua**. Patziku Perurena

**Izua** torloju itogarria da, begirada lausotzen duena. Karlos Linazasoro

Nire **izua,** neskatxa hilik ote zen. Joxe Austin Arrieta

Hamar soldaduk, sarjentuak eta preso batek egiten omen zuten itzulerako bidea, **izua** begietan. Joxemari Urteaga

**Izua** aurpegian, kukuka bezala eta isilean hitz eginez ari dira hurbiltzen. Anjel Lertxundi
Loliren alabaren begietako **izua**. Itxaro Borda
Baina **izua nuen** akuilu. Aingeru Epaltza
**Izua** nagusitu zen kanpaleku eta zelaian, jende guztiarengan. Elizen arteko biblia
**Izua** ikusi nuen amaren begietan. Anjel Lertxundi
Inoiz gertutik ikusi gabeko piztia izan arren, gorputz osoa hartzen zuen **izua** pizten zuen. Imanol Zurutuza
Gela ilunaren zokoan, erregin etsitu eta hieratiko zegoen amatxik **izua** eragiten zion. Itxaro Borda
Horregatik bakarrik nahi nuke nire hitz hauek zalantzaren **izua** eragitea dirua daukatenengan. Pako Aristi
Jakin dut segurantzaren ondoren **izua** sortzen, borrokari ekin baino lehen. Jon Muñoz
-Zer behar du? -galdetu nion halako posturan barregarri, haserre izan nahi, eta **izua** besterik erakusten ez zuen tonuaz. Inazio Mujika Iraola
**Izua** baretu ezinik, hizketan jardun dugu. Pako Aristi
Burutik jotako gizaseme azal-ilun batek, ondoko hiri batean, lana eman zion emakumea erail zuen, eta **izua** barreiatu zen sasitzan sua bezala. Mirentxu Larrañaga
Lehendabiziko hiru egunak igaro zirenean, tristura eta **izua** desariltzen hasi zitzaizkion, leihatilatik ikusitako laino trinkoenak ere halako batean desegin, eta lits urratu bihurtzen ikusten zituen modu berean. Anjel Lertxundi
Bakea eta atsegina sentitzen zituen, baina **izua** eta harridura aldi berean. Xabier Olarra
Temango gudariak **izuak** hartuko ditu, Esauren lurraldean ez da inor bizirik geldituko. Elizen arteko biblia
Orduan Eta gaztetxo barregarriak, **izuak** harturik, eserleku libre baterantz ospa egingo dik, bestea musuhuts utzita. Xabier Olarra
Zangoak dardarka zeuzkan, eta arnasa estu eta larri, **izuak** eraginik. Xabier Olarra
**Izuak** eraginda jokatzen dute enpresek. Berria - Gaiak
Weasley jaun-andreek pentsatzen zuten **izuak** joko zuela Harry, egia jakiten bazuen. Iñaki Mendiguren
Muxir, **izuak** jota, teilatu gainean kukuturik zegoen. Juan Kruz Igerabide
**Izuak** harrapatua nauka gela zikin honetan. Pako Aristi
**Izuak** akabatzen nengoen. Alberto Ladron Arana
Agureak, berriz, **izuak** dardarka: […]. Imanol Zurutuza
**Izuak** ez dio begiratzen uzten. Antton Olano
**Izuak** distira egin zuen Juana Bixentaren begietan. Anjel Lertxundi
Gerrak, **izuak,** horroreak bizi gaituzte. Berria - Kultura
Gorri-separatisten **izutik** ihesi zihoala, istripu zoritxarreko bat izan, eta hanka hautsi zuen. Inazio Mujika Iraola

## **2** (izenondo eta izenlagunekin)

Ikara eta **izu** gaindiezinak. Fernando Rey
**Izu** gorriak hartuta, ihes egin nuen St. Michael Strassetik. Alberto Ladron Arana
Baina sakabanatuak izan ziren, **izu** beldurgarriak jota, ikuskari ikaragarriek asaldaturik. Elizen arteko biblia
Hain izaki ahaltsuak ez ote du jainkoek eurek baino **izu** handiagoa eragingo? Xabier Amuriza
Aho barnean **izu** gozoaren zapore elektrikoa dastatzen. Alberto Ladron Arana
Ez zuen pentsatzen [...] halako **izu** mutu baten mende zegoen burmuina erdi bi egiten zion kontraesan horren aurrean. Jose Morales
Eguzkia sartzera zihoala, lozorro sakonean murgildu zen Abran eta **izu** larri eta ilun batek mendean hartu zuen. Jose Antonio Mujika
Eromenezko **izu** zorabiagarri batek hartu zuen. Jose Morales
**Izu** ezkutu batek estutzen zidan zintzurra. Joxean Agirre
Baldin **izu** osasungarri hori atxikitzeko arrazoi berrien premiarik banu, [...]. Jon Muñoz
Heziketa katolikoak eragindako izuak ez dio inbidiarik **izu** politikoari. Berria - Kultura
Hegaldi aurreko **izua** da. Joxean Agirre
· Ohe nahasiak eta burusi lurrera eroriak soilik salatzen zuten halako **izu** oraindik guztiz iraungi gabe bat. Jose Morales

## **3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Ceciliak **izu** aurpegia zuen. Josu Zabaleta
**Izu**-deiadarrak entzuten dira: beldur-ikara, eta onik ez! Elizen arteko biblia
Inork ez dik nahita **izu**-oihu bat botatzen. Pako Aristi
**Izu**-garrasi batek astindu zuen gela. Juan Kruz Igerabide
Bat-bateko topaketak **izu**-dardara sakona eragin zion. Askoren artean
Doi-doi baina sumatu izan nuen nire penetako lagunaren **izu**-begirada. Pistolak eragindako **izu**-lilurak estali zituen denak. Joxan Elosegi
Halako **izu** sentimendu lauso bat. Jon Muñoz
Gabarroia oraindik urrun, hondartza ere bai honezkero, erdian nago eta une batez **izu** kolpea sentitzen dut, arnasa paralizatzen dit. Iñaki Iñurrieta
Saminez mozkor-mozkor egingo zara; **izu-** eta hondamen-kopa da zure ahizpa Samariaren kopa. Elizen arteko biblia
AEBetako Kongresua aztertzen ari da lurralde palestinarrak «**izu** eremu» izendatzea, Hamasek nazioartearen eskaerak betetzen ez baditu. Berria - Mundua
Inkisizioaren **izu**-sarea . Anjel Lertxundi
-Gure imaginarioan, zinean adibidez, Antillak **izu**-lekuak dira, menturarako egokiak, indioz edo beltzez beteak. Edorta Jimenez
· Haren begi **izu**-larrituak, haren ile urdin eta zuriak, haren bekokia, haren sudurra. Joxe Austin Arrieta

## **4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Abere-**izu** irrazional sendaezin bat sorrarazteko. Joxan Elosegi
Kontakizun hauen bidez jabe daiteke irakurlea zer nolako zigor-**izua** erabiltzen zuten orduko monarkia absolutoek. Juan Martin Elexpuru
Banku jakin baten arazoek eragiten dute gehienetan banku-**izua,** eta krisia berehala zabal daiteke sistema osora, baldin agintari publikoek ez badute gordailuen likidotasuna bermatzen. Koro Navarro

## **5** (izenondo gisa)

Nire debot **izu** hori segika letorkidake, baldin ni baratuko banintz hari segitzetik. Jon Muñoz
Urrutian, beheiti, Beyaziteko ibarrean, zaldi bat irrintzika ari zen, eroturik, urduri, **izu**. Fernando Rey
Ez zuen sekula sentsazio **izu**-gozo hura bizi izan. Anjel Lertxundi
Izeko espiritu ihar eta hits bat zen, bere zorroztasunaren labanak ezpel horian egindako irudi zurbil eta **izu** bat. J.M. Olaizola "Txiliku"
Gurasoen ondoan aspertzen den haur **izu** kale-beldur eta jende-beldur bat. inork ez baitzuen lortzen Barbarak bere baitan kuxkuldurik zeukan animaliatxo **izu** hura suspertzerik. Iñaki Segurola
Begiak **izu,** bizi eta alai zituen. Fernando Rey

## **6** (adizlagun gisa)

Larba eta lamien herri batean nengoela iduritzen zitzaidan, eta errainu hauek guztiek herraz eta **izu** behatzen zioten bizidunari. Koldo Izagirre
[Haurra] kokoriko jarria zen pikor-harrizko xirrixtan, belaunak bularrean estututa eta besoak belaunen gainean antxumatuta, eta begiak **izu** egiten zigun so. Koldo Izagirre

• **7** *izond* abereez mintzatuz, mukerra, hezigaitza.

Diana adar-txordo hau beti izan da animalia moldakaitza, azken boladan izan duen **behirik izuena**. Patxi Iturritegi

*ik* betizu.

Inork ez baitzuen lortzen Barbarak bere baitan kuxkuldurik zeukan **animaliatxo izu** hura suspertzerik. J.M. Olaizola "Txiliku"

Eta susmoa dut sasoi hartan hemendik ibili zela, izara eta kazola hauen artean ezkutaturik, plater eta liburu hauen artean disimuluan ibili zela zoriona deitzen den **animalia izu** eta muker hori. Joseba Sarrionandia

· *(pertsonei buruz)* Oso **izua** zen nirekin, eta kalean egokitzen ginenean ez ikusia egiten zidan. Bernardo Atxaga

## 8 *izuzko* ik izumen 4.

Ozta-ozta eutsi ahal izan diot **izuzko** deiadar bat egiteari. Edorta Jimenez

Begiak zabal-zabalik eta **izuzko** begirada espazio hutsean galdurik. Jose Morales

**Izuzko** ipuinetan gehiago nabarmentzen da izakia lekua baino, sentsazioa objektua baino. Koro Navarro

Gorrimin biziago batek hartu zituen **izuzko** irudi odoltsuak. Koro Navarro

Orro txiki bat jaulki zuen, **izuzkoa**. Karlos Linazasoro

Tankeak atera zituzten kalera, kamioi metrailetadunak, bazookak, eta desfile **izuzkoa** antolatu zuten, pauso irmoz, sorbaldak zut, begiradak aurrera. Karlos Linazasoro

Gure asaba zaharrek errespetu handia zioten […] halako begirune erdi-**izuzko** bat sortu zitzaielako: gehienbat, ekaitzak sortutako miresmen eta ikara guztiengatik. Pello Zabala

## 9 *izu batean* adlag

Ume-koskor betizu baten gisa hasi zen Nora negarrez eta **izu** batean, "zure kanta hori, zure kanta hori" esan eta esan, bere burubidearen jabe egin ezinez. Anjel Lertxundi

Müller jaunari dagokionez, **izu** batean egin zuen bidea, gidariak saihesbideren bat hartzen zuenean tranparen batera ginderamatzala uste baitzuen. Anjel Lertxundi

Baina nik uste dut ez duela kemenik zu artzanoren artean ikusteko, **izu** batean bizi da gizajoa, uste dut hori dela zinezko arrazoia, badakizu zakarkeria izaten dela askotan ahultasunak ezkutatzeko modua. Koldo Izagirre

## 10 *izu-eragile* (orobat *izueragile* g.er.) *izond*

Deiadar luzeak, haize firin mehe bat bezalakoak, sarkorrak, **izu**-eragileak, ia. Jon Alonso

Haize beltzak, haize **izu**-eragileak. Felipe Juaristi

## 11 *izu giro* (orobat *izugiro*)

Patronalari **«izu** giroa» hedatu nahi izatea egotzi zion. Berria - Ekonomia

## 12 *izu-ikara* (orobat *izuikara* g.er.) *iz*

**Izu-ikara** batek jo zuen Nora Andreasek ukalondoetatik oratu orduko. Anjel Lertxundi

Ihes egin behar ero batek hartu ninduen orduan, heriozko **izu ikara** bat, guduetako **izu ikara** egiazkoa. Josu Zabaleta

Benetan **izu-ikara** ematen zidan haurdun gelditzeak. Karlos Zabala

Eta **izu-ikara** izango Etiopian, Egipton hildakoak erortzean. Elizen arteko biblia

Pentsatze hutsak, izu-**ikara** sortzen zuen. Karlos Linazasoro

**Izu-ikara** ezartzen zuten bizidunen artean. Elizen arteko biblia

Nik barre egingo dizuet zeuen zoritxarraz, iseka, **izu-ikara** sartzen zaizuenean. Elizen arteko biblia

**Izu-ikara** batek zeharkatu balu bezala zen. Ibon Uribarri

Dolu-jantzia jarriko dute soinean, **izu-ikarak** harrapatuko ditu. Elizen arteko biblia

Horien ondoren, milaka arima hasi ziren agertzen, eta **izuikarak** hartu zidan barrena. Juan Kruz Igerabide

Hobe gutxi eduki eta Jaunarenganako begirunean bizi, altxor handia eduki eta **izu-ikaraz** bizi baino. Elizen arteko biblia

Ezin ulertuzko latzikarak eta **izuikara** estuagarriak. Joan Mari Lekuona

Izadiak **izuikara** dio hustasunari, hala diote. Joan Mari Lekuona

**Izuikarek** habia duten lekuraino iritsirik. Juan Garzia

**Izu-ikarazko** keinu bat egin eta kolpe zakar bat eman zidan bizkarrean. Anjel Lertxundi

Ezpain **izuikararen** eraginez geldi-geldirik irekiak. Jose Morales

**Izuikara**-kliskada bat ikusi diot begietan. Mirentxu Larrañaga

## 13 *izu-ikaratu* (orobat *izuikaratu* g.er.) da/du *ad* ikaratu.

Zuzenbidea betetzean, zintzoa poztu; gaizkilea, ordea, izu-**ikaratu**. Elizen arteko biblia

Anitzek, ikusi, eta ihes egin zuten, haren buru gainean hegaldatzen ziren argiluma urdinxkek **izuikaraturik**. Juan Garzia

Izu-**ikaraturik** zegoen Belxatzar eta erabat zurbildurik. Elizen arteko biblia

Korobotxka izeneko lurjabe bat azaldu zitzaion etxera, **izuikaraturik** eta herioa baino zurbilago. Jose Morales

Ametsez beldurtzen nauzu eta ikuskari gaiztoz izu-**ikaratzen**. Elizen arteko biblia

## 14 *izu izan* da *ad*

Saltzailea, lehendabiziko aldiz bizitzan, **izu izan** zen, kezkaz bete zitzaion bihotza, ikusi baitzuen bestearen begi arreetan hark nahi zuen ametsa. Felipe Juaristi

Eta **izu gara,** ahalke gara, gaizki gara. Felipe Juaristi

**Izu dira,** beldur dira, espantuz dira, ikusitakoaz. Hasier Etxeberria

Txundi zaitezte, beraz, zeruok! **izu zaitezte** eta ikaratu! Elizen arteko biblia

## 15 *izu-izu* adlag

Ezohiko agerkari hau, desgaraian eta bakardade hartan, bera aski zen Santxoren barrena **izu-izu** jartzeko. **Izu-izu** egina zegoen euskalduna, hitzik erantzuteko gauza ez zela. Patxi Ezkiaga

Iheska abiatu zen **izu-izu** egina. Patxi Ezkiaga

Belasko eta besteak Basurderen inguruan zeuden jadanik, nahiz eta batzuk **izu-izu** eginda, halako izaki beldurgarriaren aurrean. Joanes Urkixo

Neskamea guardian erne **izu-izu** eta inbidiak erretzen. Patxi Ezkiaga

## 16 *izu-laborri* (orobat *izulaborri* g.er.) *iz* izua.

Eta une hartan, [...] etxe zahar hartako isiltasun beldurgarrian, hots hark, hain bitxia izanik, ezin menderatuzko **izu-laborria** sortu zidan. Koro Navarro

Haren boz hutsak bihotzik ausartenari ere eragiten dio **izu-laborria**... aditu! Koro Navarro

Buruari eragin nion, **izu-laborria** uxatu nahiz. Alberto Ladron Arana

Une batez, **izu-laborriak** jota geratu gara, erabat izoztuta. Mirentxu Larrañaga

Orain, gauez, **izu-laborriak** hartzen nau eta bihotza izozten dit. Felipe Juaristi

Gogor jipoiturik eta **izu-laborriak** hartuta, zaldia lasterka joaten zen lau hanken eginahal guztian, deabrudun baten gisan. Jose Morales

Pentsatzen ahalegindu naiz, nire **izu-laborri** handia baretzearren. Mirentxu Larrañaga

Armak bertan utzi eta **izulaborrian** ihesi joan ziren harkaitzen artera babesleku bila. Joanes Urkixo

Ahantzi gabeko laboratorio jelaz, itxaropenez eta **izulaborriz** bete batean. Juan Garzia

Eta orduan pairatu nituen **izu-laborrizko** sei orduek txiki-txiki eginda utzi zizkidaten gorputz-arimak. Koro Navarro

## 17 *izu-laborritu* (orobat *izulaborritu* g.er.) da/du *ad* izutu.

Ukatu egiten dut, ordea, gaur egun ere, Hannak garai hartan leporatu zidana, alegia, bere albistea entzun eta heriotza-punturaino **izu-laborritu** omen nintzelakoa. Joxe Austin Arrieta

Pailazo batek Tarleton-en zorakeriak imitatzen zituen, eta beste batek maindire batean bildurik Hamlet printzea **izulaborritzen** zuen. Juan Garzia

**Izu laborriturik**, neska aulkian agondu, eta Abasi begi herratsuz begiratu zion. Patxi Zubizarreta

**18** *–i* ***izua izan*** du *ad*

**Izua** die txakurrei. Alberto Barandiaren

**Izua zien** siglei, esaten zuen deabruaren mozorroak direla. Anjel Lertxundi

Sekulako **izua nion** oinaze fisikoari, gorputzaren sofrimendu lazgarriari, eta bestetik, **izua nion** akabera ezduin bati, desagertze komiko zantarrari. Karlos Linazasoro

Hizketan zekien arren, hitzei **izua ziela** ematen zuen, gehiago mintzatzen baitzen esku-begiekin hitzekin baino. Anjel Lertxundi

Berrikuntzei **izua dien** baten egonezina erakusten zuen. Anjel Lertxundi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
>
> **izu aurpegia** (5); **izu begiekin** (4); **izu egina** (4); **izu handi** (4); **izu handia** (6); **izu ikara** (55); **izu ikara ematen** (6); **izu ikara ezartzen** (5); **izu ikarak** (13); **izu ikaraturik** (7); **izu ikaraz** (30); **izu ikarazko** (5); **izu izu** (6); **izu laborri** (8); **izu laborria** (21); **izu laborriak** (22); **izu laborriak jota** (8); **izu laborrian** (12); **izu laborriaren** (6); **izu laborrizko** (4)
>
> **begietan izua** (4); **beldurra eta izua** (7); **izua aurpegian** (4); **izua ematen** (5); **izua eragin** (13); **izua eragiten** (8); **izua eta ikara** (6); **izua pizten** (4); **izua sentitu** (5); **izua sortzen** (6); **izua zabaldu** (8); **izuak eraginda** (6); **izuak hartu** (14); **izuak hartu zuen** (7); **izuak hartuko** (4); **izuak harturik** (10); **izuak hartuta** (22); **izuak jota** (23); **izuaren eraginez** (4); **izuaren izuaz** (7); **izuaren izuz** (34); **izuaren mende** (5); **izuen gordelekuetan barrena** (4); **sekulako izua** (6)

---

## izualdi **1** *iz* izua sentitzen den aldia.

Baina gizonaren ausardia handia izanda ere, badira **izualdi** batzuk ausardiarik bulartsuenak ere balaz bezala zulatzen dituztenak. Josu Zabaleta

**Izualdi** bat baino ez da izan, eta kolorea poliki-poliki badatorkionez, kezka, izu-ikara, arinduz doaz familiaren bihotzetan. Itziar Otegi

Istant bateko **izualdia** baizik ez zen izan, bertzalde. Aingeru Epaltza

Zenbaitzuetan **izualdi** txikiek jotzen zuten emakumea, bere lanpostua zela-eta. Mirentxu Larrañaga

Neure burua ere aurkeztu dut, **izualdia** gaindituta. Jon Arretxe

Riadek esan zuen, alta, gas negar-eragileak baino ez zituela bota, eta horrek **izualdia** eragin zuela. Berria - Mundua

Uste da norbaitek «bonba! bonba!» oihukatu zuela eta horrek eragindako ikarak **izualdia** piztu izana. Berria - Mundua

Alprazolan: Lasaigarria da, eta antsietate eta **izualdi** egoeretan erabiltzen da. Berria - Euskal Herria

**2** izua eragiten den aldia.

Bazen, ordea, familian, aspaldi Paristik Petersburgorako bidea egin zuenik, Berlinetik barrena igaroz, Robespierreren garaiko **izualditik** ihesi. Felipe Juaristi

Moskuk Txetxenian darabilen politikaren erantzuna beste **izualdi** bat baldin bada, horrek esan nahi du akatsen bat dagoela politika horretan. Berria - Mundua

Gerra galdua izan arren, **izualdiari** ekin zioten. Urtzi Urrutikoetxea

**Izualdia** etortzean, bakea bilatuko dute, baina alferrik! Elizen arteko biblia

---

## izualditxo *iz* izualdi arina.

Bart gauean beste **izualditxo** bat izan dugu, bat-batean aldameneko horma jotzen hasi baitziren. Josu Zabaleta

---

## izualdura *iz* izua, izualdura.

**Izualdia** etortzean, bakea bilatuko dute, baina alferrik! Elizen arteko biblia

---

## izuarazi, izuaraz, izuarazten du *ad* izutzera behartu.

Baina Paxkal, **izuarazten** nauk. Daniel Landart

Hara, ni ez nau inongo arrisku txarrak **izuaraziko,** baina kezka bizitan nago oraindik, bolbora eta beruna gogoratu hutsarekin. Patxi Ezkiaga

Berak, bere anaiak eta etxekoek arratoiak eta mamorroak sartzen zizkidaten gelan, ni **izuarazteko**. Gotzon Garate

Bildotsak **izuaraziko** dizkiguk hik! Itxaro Borda

Bozaren doinua ez zitzaion aldatu, baina, azken aldian hainbeste **izuarazi** zuen gizon haren begietako so beltz hura berriz ikustean, emaztea ikaratu zen. Elena Touyarou

---

## izuarazle *izond* izuarazten duena.

Zer den itzarrik gaisotasunak jota edo loaren golkoan gagozela datorkigun gogo **izuarazle** hori, heriotzaz handikoak, euren hezurrak lurrak besarkatzen dituenak, entzuten eta aurrez aurre ikusten ditugula iruditzeraino. Xabier Amuriza

---

## izubera *izond* izutzeko joera duena.

Uler dezazun zer-nolako ahala irabazia zenuen hasieratik, ni nintzen ume lotsati eta **izuberarengan**. Eduardo Matauko

Zeren, zortea lagun, agian ate horietako batean dagoen batailoia **izubera** izango baita, eta hala balitz gatazka denbora laburrean irabazita legoke. Jon Alonso

Hurreratu egin naiz labana eskuan, kontzientzia **izubera** akabatzeko prest. Koldo Izagirre

---

## izubide *iz* izutzeko motiboa.

Odol jario hura zen nire **izubide** bakarra, giza buru batetik atera daitekeen odol kantidade izugarria. Matías Múgica

---

## izuerdi *iz (cf.* ***izu; izerdi****)*

Bart **izuerdi** zuritan iratzarri nau inoiz eduki ez dudan itotasun batek: psikopatak lepoan tinkatua zidan atzaparra. Koldo Izagirre

**Izuerditan** hasi zen gero eta gorriago, goitu egin zitzaizkion odolak eta tunpalahara erori zen pultsuak saltatuta. Koldo Izagirre

Ohartu naizenerako dena blai eginda nago **izuerditan**. Koldo Izagirre

---

**izugai** *iz* izutzeko gai dena.

**Izugai** bihurtuko zaitut, eta kito zurea; zure bila ibiliko dira, baina sekula ez aurkituko. Elizen arteko biblia

· Lotsaren lotsaz bizkarra eman du! auzokoen **izu** eta isekagai bihurtu da. Elizen arteko biblia

izugaitz ik **izukaitz**.

**izugarri** **1** *izond* izutzen duena, guztiz beldurgarria. ik **ikaragarri**.

Hasperen egin nuen: zalantza **izugarri** harekin bizi beharko nuen. Alberto Ladron Arana

Del Valleri ideia **izugarri** bat pasatu zitzaion burutik: gizon hark, moduren batez, bere pentsamenduak irakurtzen ahal zituela. Alberto Ladron Arana

Krimen **izugarri** horiek salatu eta gaitzesten ditugu. Berria - Mundua

Egun **izugarri** hauetan nire bihotza, ama bat bezala, hunkituta dago judu herria ikustean. Felipe Juaristi

Animaliak gara, egoera **izugarrietan** iheserako fisikoki eta biokimikoki egokituta gaudenak. Ramon Saizarbitoria

Nire gau-ikuskarietan laugarren piztia bat ikusi nuen: beldurgarria zen, **izugarria** eta guztiz indartsua. Elizen arteko biblia

Mihi urdin handitua lore **izugarri** eta ezezagun baten antzera ahotik aterata. Jose Morales

Gaztetxoek, irudiokin heziak, begirik kliskatu gabe dakusate bortizkeriarik **izugarrienak** . Pako Aristi

Goibeltasun **izugarri** eta itxaropenik gabearen har aseezina bihotzaren alboan kiribildu zitzaion. Jose Morales

Edozer egiteko prest nengoen, bizimodu **izugarri** hartatik urrunduko ninduen edozer. Alberto Ladron Arana

Beldur izateko moduko hainbeste gauza ezezagun **izugarri** zeudenean hor zehar. Julen Gabiria

Etsaien lerroez haraindi emaniko egun **izugarri** haietan. Alberto Ladron Arana

Tortura **izugarriak** eragiten ditugula, infernuaren atari direla etxeotako sotoak. Anjel Lertxundi

Amesgaizto **izugarria** izan zen. Ibon Uribarri

Gerra ondoan, aldiz, mundua **izugarri,** ezezagun eta mugagabe ageri zen. Fernando Rey

Etsaiek inguratzen naute, [...] basabere **izugarriak** bailiran. Elizen arteko biblia

Baina Jainkoak ipinitako bidetik okertu zenean, era **izugarrian** erraustu zuten etsaiek gerrate askotan eta gatibu eraman atzerrira. Elizen arteko biblia

**2** *adkor*

-Walter! -diost-, **izugarria** zara benetan! Baina Llum hori **izugarria** da gero, atentzioa eman behar beti! Antton Olano

Ez dakik nolako irudimena duen Joanek, **izugarria** duk, putakeria bikainak asmatzen ditik. Antton Olano

- **Izugarria** da haien ezjakintasuna! -esan zuen azkenean Koshkariov koronelak-. Jose Morales

Hurrengo denboraldia ere **izugarria** izan zen, futbolean egin dudan denboraldirik onena. Joan Mari Irigoien

**3** oso handia.

Hurrengo gauean gurutze guztiz **izugarri** bat ikusi zuen ametsetan: haren gailurrak zerua ukitzen zuen. Iñaki Mendiguren

Haren kargak ondoko gas argiontzi **izugarri** baten garaiera gainditzen zuen. Karlos Zabala

1887an amaituriko eraikin **izugarri** horrek hamalau milioiko kostua izan zuen gutxienez. Monika Etxebarria

Garai batean Annyk maleta **izugarri** bat eramaten zuen bidaia guztietara, xalez, turbantez, mantelinaz, maskara japoniarrez, kromoz betea... Monika Etxebarria

Eta hona, nire iragana zulo **izugarri** bat besterik ez da. Monika Etxebarria

Pankreako sasi-kiste **izugarri** bat garatu zitzaion. Xabier Olarra

Beste morroiak, handiak, sumindurik, ukabilkada **izugarri** bat eman zion buruan loroari. Jon Muñoz

Jakin-min **izugarri** hori ez balu. Josu Zabaleta

Arreta osoz zaindu beharreko altxor **izugarri** baten aurrean banengo bezala ari zitzaidan ikazkina. Anjel Lertxundi

Jendetza **izugarria** zuen zerbitzari, milaka eta milaka zeuden haren aurrean zutik. Elizen arteko biblia

Gure inguruetako jentil guztiak bildu zaizkio Timoteori eta gudaroste **izugarria** eratu dute. Elizen arteko biblia

Urte hartan janaria ahitu zen hirian eta jendearen gosea **izugarria** zen. Elizen arteko biblia

Begi-zorroztasun **izugarria** nuen. Xabier Olarra

Japoniako egoeraren asimetria **izugarria** azpimarratu behar da. Koro Navarro

Min **izugarria** nuen berriro gerrian. Joxan Elosegi

Balio estetiko **izugarria** duten ekuazioen bidez. Iñaki Heras

Eta ezustekoa **izugarria** izan da, zu ikusi zaitugunean... -gaineratu zuen Sarak. Joan Mari Irigoien

Udan bero **izugarria** pasatu genuen, eta neguan, berriz, berealdiko hotza egin zuen urte hartan. Juan Kruz Igerabide

• **4** *iz* izutzen duen pertsona edo gauza.

Galdera da: zergatik bihurtu zen hiltzaile hura ume-**izugarri** ? Bernardo Atxaga

Ez zunan agertu; ordu bata jo, artean iritsi ez, eta ohartu nindunan ez zuela zentzurik han txori-**izugarri** segitzeak. Anton Garikano

Txoritokieta zabal bat izandako mundua, txori-**izugarri** handitzar bat izatera etorri, txoriak estratosferan itotzeraino uxatuz. Iñaki Segurola

**Izugarri** gisa, beharbada, euskal ikasleen **izugarri** . Koldo Zuazo

Pepinitoren manien artean **izugarri**-itxurak egitea zuen bat. Josu Zabaleta

• **5** *adlag* oso, asko, guztiz. ik **izugarriro**. (aditzekin)

Eta **izugarri** maite dugu elkar. Luis Elberdin

**Izugarri** atsegin nuen kirol-egunkari eta aldizkariei gainbegiratu bat ematea. Pedro Alberdi

**Izugarri** beldurtzen hasi zen, erosle hark iruzur egingo ote zion. Jose Morales

**Izugarri** poztu zen bisitariak iritsi zirenean. Jose Morales

**Izugarri** gustatzen zaio uretan ibiltzea. Gotzon Garate

Zaharrenari **izugarri** eragin dio aitaren heriotzak. Bernardo Atxaga

**Izugarri** nahasi ziren gauzak. Jose Morales

Zangoak **izugarri** handitzen hasi zitzaizkion hidropesiagatik, eta larriki gaixotu zen. Askoren artean

Diru-masa **izugarri** murrizten da, beraz, debaluazioaren aurretik. Koro Navarro

Eta une hartan **izugarri** sumatu nuen Monaren falta, arratsalde guztian baino gehiago. Fernando Rey

Bihotza **izugarri** estutzen zion galdera horrek, erantzuna ematen ausartzeke. Karlos Zabala

Lizasok **izugarri** egin du gora azken egunetan. Berria - Kirola

Nork bere burua maitakor azaltzeko bizioa, disimulo horrexetatik ugaldu da, eta zinez inor maite ez duen jendeagan gailendu **izugarri** . Patziku Perurena

**6** (izenondoekin)

Diru kopurua **izugarri** handia izan zen, bera baitzen asmatzaile bakarra. Joxemari Iturralde

Amestu egin al nuen presentzia **izugarri** handi hura? **Izugarri** itxuratia da, fazati hutsa. Monika Etxebarria
**Izugarri** arriskutsua da atzera begiratu eta Jainkoari iseka egitea. Askoren artean
Haren masailek kolore arrosa, **izugarri** itsusia dute. Monika Etxebarria
Arauak **izugarri** zorrotzak, gogorrak eta ankerrak ziren. Jose Morales
Jimmyrenean biltzen ziren emakume guztiak **izugarri** antzekoak ziren itxuraz, harrigarriro. Mirentxu Larrañaga
· Aiztoaren ahoa bezain estua zen mendi-lerro **izugarri** garai batetik zihoan. Jose Morales
Kale **izugarri** zabaletan barrena. Jose Morales
Egun **izugarri** beroa zen. Xabier Olarra
Itzal **izugarri** handi bat dardaratu zen paretan eta sabaian. Koro Navarro
Jende **izugarri** onak. Itxaro Borda
Prezio **izugarri** altuetan. Iban Zaldua
Laguntzaile **izugarri** txarrez inguraturik nago · *(cf oso)* **Izugarri** pieza politak egiten zituen. Juan Garzia
Ene!, **izugarri** gizaseme atsegina da. Mirentxu Larrañaga
**Izugarri** txakurtxo eme zintzoa dirudi, benetan. Mirentxu Larrañaga
**Izugarri** begi ona duzu! Matías Múgica
**Izugarri** borroka odoltsua izan zen. Martin Anso
Kubak **izugarri** aukera ona galdu du. Berria - Mundua

## 7 (aldizlagunekin)

-O, Buck, **izugarri** ondo pasatzen ari naiz. Lopez de Arana
**Izugarri** sutu duk. Aingeru Epaltza
Ni **izugarri** gaizki sentitzen nintzelako. Joan Mari Irigoien
**Izugarri** asko dela ere esan daiteke, baina zifra hutsean adierazita ez digu ikararik sorrarazten. Joxerra Garzia
Maria Bautista ere **izugarri** pozik dago gaur. Patxi Zubizarreta
**Izugarri** zurbil zegoela iruditu zitzaion Del Valleri, gaixorik balego bezala. Alberto Ladron Arana
Unibertsoa **izugarri** azkar puztu zela. Berria - Gaiak
**Izugarri** gaizto jokatzen ari naiz zurekin. Mirentxu Larrañaga
Ekaitza **izugarri** indartsu jotzen ari zen, eta bizitza salbatzeko ere zalantzaz, aingurak bota zituzten. Askoren artean

## 8 *izugarriko*[1] (izen baten eskuinean)

Ez omen zen hala ere balio **izugarriko** eraikina. Xabier Mendiguren Elizegi
Tentsio **izugarriko** une horretan. Berria - Kultura
Garrantzi **izugarriko** arma bat kenduko diet Alemaniaren suntsipena bilbatzen ari diren traidoreei. Alberto Ladron Arana
Vargas Llosa emankortasun **izugarriko** idazle handia da. Berria - Kultura

## 9 *izugarriko*[2] *izlag* ik beherago **10.**

Ez dira urratsak gertatu, **izugarriko** jauziak baizik. Pello Salaburu
**Izugarriko** ahala eta xantza badute adin hortakoek non-nahi eta ordu delarik lokartzen baitira. Michel Oronoz
Estatu Batuetako Defentsa sailak bere komunikazio sistemak garatzeko **izugarriko** inbestimenduak egin izan ez balitu. Pello Salaburu
Laborantza ganberak **izugarriko** garrantzia duela pentsatzen dutelako. Berria - Euskal Herria
Sakonera **izugarrikoa,** gerra horien ondorengo amildegi espirituala. Anjel Lertxundi
Fikziozko lanei buruz **izugarriko** kritika gogorra. Berria - Kultura

## 10 *izugarrizko*[1] *izlag*

Hondamena eta **izugarrizko** ezbeharra. Elizen arteko biblia
**Izugarrizko** amorrazioa eman zion marrazkiak. Bernardo Atxaga
**Izugarrizko** ikara genion, bakarrik zegoela sumatzen genuelako. Monika Etxebarria
Liburutegiaren **izugarrizko** tamaina zen beste arazoa. Iñaki Mendiguren
**Izugarrizko** diamantea zuen eraztun bat zeramala hatzean. Koro Navarro
Gozokiek **izugarrizko** egarria sortu zieten eta ez zeukaten zer edanik. Iñaki Mendiguren
Egia da zure izebaren egongelan ikusi zintudanean **izugarrizko** zirrara eragin zenidala. Koro Navarro
Egungo logikatik begiratuta, Fregek **izugarrizko** garrantzia hartu du. Askoren artean
Informazio zehatza jakiteko eta errepikatzeko **izugarrizko** ahala daukate, baina gainerakoan deus ikasteko eta ulertzeko gauza ez diren idiotak dira. Iñaki Segurola
Harryk nahiko garbi ikusi zuen irudi itzel bat, **izugarrizkoa,** begi distiratsu eta handiak zituena. Iñaki Mendiguren

## 11 *izugarrizko*[2] *izond*

Ekialdeko Lander-entzat, alabaina, mendebaldeko konkurrentzia ere **izugarrizkoa** zen. Koro Navarro
Portugaldar, espainiar, holandar, ingeles eta frantses beltz-tratulariek eramaten zituzten esklaboak, garraio-baldintza **izugarrizkoetan**. Koro Navarro
Gauza **izugarrizkoren** bat behar zuen izan. Josu Zabaleta
**Izugarrizkoak** egiten, tiroak ematen, jipoitzen, atxilotzen, polizia faxistak baino okerrago, zakur amorratuak bezala. Berria - Harian

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 9 aldiz agertzen direnak)**

**hutsune izugarri** (9); **izugarri aldatu** (11); **izugarri areagotu** (11); **izugarri azkar** (10); **izugarri eskertzen** (9); **izugarri gogorra** (10); **izugarri gustatu** (29); **izugarri gustatuko** (9); **izugarri gustatzen** (102); **izugarri handi** (24); **izugarri handia** (44); **izugarri handiak** (12); **izugarri handitu** (21); **izugarri hazi** (14); **izugarri luzea** (14); **izugarri maite** (69); **izugarri ona** (21); **izugarri ondo** (17); **izugarri pozten** (17); **izugarri poztu** (20); **izugarri sufritu** (13); **kolpe izugarri** (9)

**izugarri gustatzen zait** (27); **izugarri handi bat** (9); **izugarri maite dut** (10); **izugarri poztu zen** (10)

**ahalmen izugarria** (12); **antz izugarria** (11); **arrakasta izugarria** (11); **eragin izugarria** (15); **falta izugarria** (14); **gauza izugarriak** (11); **gogo izugarria** (10); **kolpe izugarria** (12); **kopuru izugarria** (10); **lan izugarria** (22); **lan izugarria egin** (13); **maila izugarrian** (10); **min izugarria** (19)

**izugarrizko arrakasta** (11); **izugarrizko beldurra** (9); **izugarrizko garrantzia** (17); **izugarrizko gogoa** (16); **izugarrizko indarra** (9); **izugarrizko kaltea** (10); **izugarrizko mina** (10); **izugarrizko poza** (16)

---

# izugarrikeria *iz* egintza izugarria, gaitzesgarritzat hartua.

Heriotza-zigorraren **izugarrikeria**. Auschwitzeko **izugarrikeriak** errotik pitzatu zuen mendebaldeko zibilizazioaren historiaren haria. Hasier Etxeberria
Gerrako **izugarrikeriek**. Alberto Ladron Arana
Nik ez dut ez sarraskirik eta ez atzerriratzerik proposatzen; **izugarrikeria** horiek urrunegi daude nire arimatik, eta burutik pasatu ere ez zaizkit egiten. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio
Inglaterran *sukaldaritza* deitzen zaiona **izugarrikeria** bat da. Anton Garikano
**Izugarrikeria** zela hiri grekoa suntsitzea. Lizunkerian ez dagoela **izugarrikeriarik,** lizunkeriak iradokitzen duen oro naturak iradokitakoa delako. Iñaki Iñurrieta

Sozialistek **izugarrikeria** deritzote legeari. Berria - Euskal Herria

Osaba militar erretiratu batek aberriaren aintzak eta **izugarrikeriak** kontatzen zizkion Rufini. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Izugarrikeriak** esaten ditu. J.M. Olaizola "Txiliku"

**Izugarrikeriaren** bat ikusten ari zela ematen zuen. Anjel Lertxundi

Beldur bainintzen zein **izugarrikeria** idatz zezakeen nitaz. Ramon Saizarbitoria

Baliagarritasunaren ideia horrek, hasieran bakuna, kaltegabea iruditu lezakeen arren, **izugarrikeriarik** handienak zilegizta litzake. Josu Zabaleta

NBEren auzi humanitarioetarako buru Jan Egelandek Ugandari eta erakundeko beste kideei herrialdearen iparraldeko **«izugarrikeria»** bukatzeko gehiago egitea galdegin die. Berria - Mundua

Kasu hau Morgue kaleko **izugarrikeria** gertatu eta bi urte geroago izan zen. Koro Navarro

Bazirudien prozesuaren **izugarrikeria** salatu baino, bere burua zuritu nahi zuela Hathorne epailearen aurrean. Anjel Lertxundi

Edozein **izugarrikeria** egiteko prest zegoela. J.M. Olaizola "Txiliku"

"Zer nolako **izugarrikeria** egin ote du hemen atxilotua egoteko?", egin zuen bere baitan. Patxi Zubizarreta

Erlijio buruzagiek erresistentzia zilegitzat jo dute «okupazio indarrek **izugarrikeriak»** egin dituztelako. Berria - Mundua

Egitera zihoan **izugarrikeriak** inolako aringarririk izan ez zezan. Juan Garzia

Celari ez zaizkio pertsonaiak interesatzen, haiek egindako **izugarrikeriak** baino. Anjel Lertxundi

**2** (izenondoekin)

Ez dut uste zuk **izugarrikeria** handirik egingo zenuenik. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Benetan, andere, **izugarrikeria** galantak egin ditut. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haren tiraniaren biktimentzat, bazen heriotza mota bat herstura fisiko beldurgarrienez betea, baina bazen beste bat ere, **izugarrikeria** moral are higuingarriagoak zekartzana. Koro Navarro

Haren tiraniaren biktimentzat, bazen heriotza mota bat herstura fisiko beldurgarrienez betea, baina bazen beste bat ere, **izugarrikeria** moral are higuingarriagoak zekartzana. Koro Navarro

Hilketa izugarrikeria da, baina **izugarrikeria** beharrezkoa sarri, inoiz ere ez kriminala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Haren **"izugarrikeria** higuingarrietatik" libratzea. Iñaki Mendiguren

PPri **«izugarrikeria** politikoa» alboratzeko eskatu zion. Berria - Euskal Herria

Ez al ninduen, bada, ezinbestekotasunaren **izugarrikeria** katoliko hura sinetsi -eta jasan- ezinak fedetik urrundu [...]? Anjel Lertxundi

**Izugarrikeria** naziaren iragarpenak eta oroitzapenak menderatutako bizitza bat Berria - Kultura

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> **izugarrikeria asko** (3); **izugarrikeria bat** (14); **izugarrikeria bat da** (3); **izugarrikeria bat iruditzen** (3); **izugarrikeria guztiak** (4); **izugarrikeriak egin** (3); **izugarrikeriak egiten** (3); **izugarrikeriak kontatzen** (3); **izugarrikeriaren bat gertatu** (3); **izugarrikeriarik handienak** (4); **zer izugarrikeria** (4)

---

## **izugarriro** *adlag* era izugarrian.

Heriotza hasi ginen denok **izugarriro** aditzen. Joxan Elosegi

Hain ezagunak eta hala ere hain **izugarriro** arrotzak. Ander Irizar

---

## **izugarritasun** *iz* izugarria denaren nolakotasuna.

Bere egoeraren larriaz eta **izugarritasunaz** jabetzen saiatu zen. Jose Morales

Daviden lekuan jarri nintzen, bera bizirik eta ni hilda banengo bezala, eta galeraren **izugarritasuna** nabarmendu zitzaidan. Bernardo Atxaga

**Izugarritasunaren** irrikaz dagoen ausardia bat. Iñaki Segurola

Nik sentitua dut izumen hori bere **izugarritasun** osoan. Josu Zabaleta

Itsasoari edo suari begira jartzen zen guztietan gai zen orduak eta orduak isilik emateko, ezertan pentsatu gabe, naturaren **izugarritasunean** eta haren elementuen indarrean murgildurik. Xabier Aranburu

---

## **izugile** 1 *izond* terrorista.

Montjuichek badu historia siniestro bat, eta hori oso oinordetza onuragarria da estatuak ankerkeria **izugilea** erabili behar duenerako Koldo Izagirre

**2** *iz* terrorista.

Gaztea da psikologoa, menturaz bokazioa dauka presoaren patu dohakabea hobetzeko, haren sofrikarioa eztitzeko, psikopatak sendatzeko edo **izugileak** ontzeko. Koldo Izagirre

Ni euskalduna nauk, eta denek uste ditek **izugile** bat naizela. Koldo Izagirre

Bera presoa laguntzeko zegoelako beti, presoa **izugilea** izanda ere. Koldo Izagirre

---

## izuikara ik **izu 12**.

---

## izuikaratu ik **izu 13**.

---

## **izukaitz** *(orobat **izugaitz** g.er.)* **1** *izond* nekez izutzen dena.

Urruneko printzesa konkistatzera etorri den abenturazale **izukaitz** honen grina. Fernando Rey

Bahitu egin beharko nuen zaldun **izukaitzen** gisara. Fernando Rey

Adorea bildu eta bere arerio **izukaitzarengana** oldartu da ezpata aurretik daramala. Eder-ederra zen eta siberiar zaharra bezain jasankorra eta **izukaitza** . Karlos Zabala

Horregatik, era batera prestatu behar dira makinak ausart eta **izukaitz** direnentzat, beste batera arduratsuentzat, eta beste modu batera izutientzat ere. Santiago Iruretagoiena

Hamabosgarren mendeko hilobi miresgarria da, Bruge-n egoteko duina Flandriako Mariaren eta Karlos **Izukaitzaren** hilobiekin. Koldo Izagirre

**2** (gauzei buruz)

Odol hotz **izukaitza** eta zinezko kemena erakusten zituzten beti lanean. Karlos Zabala

Osasun gordin nabarmen baten distira zuen aurpegian, masaila gorri marduletan eta begi urdin **izukaitzetan** . Irene Aldasoro

**3** (adizlagun gisa)

Hura zutik eta **izukaitz** ikustean adorea berreskuratzen zuten. -Esan bai asko! -erantzun du anaia nagusi Felixek, destainaz eta **izukaitz**. Agustin Otsoa

Bi italiar jo nituen begiz, eta haiengana joan nintzen zalantzarik egin gabe, **izukaitz,** eta galde egin nien: ezagutzen duzue zuek Tino? Fernando Rey

---

# izukari *iz* izularia.

Albistea non sortu den datorkizu, nola heldu den teletipoaren bitartez, kontrola kontrolaren ostean igarota, horren albiste **izukaria** mundu guztiko erredakzioetara, eta nola eman dugun, bere horretan baina euskaraz, bulego politiko-militar batean sortu den bezalaxe. Iñigo Aranbarri

---

# izukide *iz* izu berean kidea.

Oraindik ere hala dut, **izukide** izanak gotortu egiten baitu adiskidetasuna: ez distantziak ez denborak eraisten ahal dute adin horretan muturreraino eramandako konplizitatea. Joxerra Garzia

---

# izukor *izond* izutia.

Larratxori **izukorrek**. Patziku Perurena

Itzal bat, mesfidantzazko itzal **izukor** bat. Eduardo Matauko

Zure laguntzeko modu urduri, **izukor,** esker onetik iheskor hori ez dut sekula ahaztu. Eduardo Matauko

---

izulaborri ik **izu 16**.

---

izulaborritu ik **izu 17**.

---

# izulari *izond* izutzailea.

Urriaren kaxkotik, udazkenari udaren ukittua malgutzen eta ahultzen zihoakioneko egun baketsuak zegozkion, batetik; eta negu gogorxeagoaren beldurra zetorkion **izulari,** bestetik. Pello Zabala

---

# izumen **1** *iz* izua.

Nik sentitua dut **izumen** hori bere izugarritasun osoan. Josu Zabaleta

Handik gutxira **izumena** zabaldu zen probintzia osoan. Josu Zabaleta

Hartan guztian bazen aldez aurretik saiatutako zerbait, **izumena** sorrarazi nahi zuena. Koro Navarro

Doktorea zutik geratu zen, zurbil, **izumenak** harturik. Josu Zabaleta

**Izumenak** betetzen zuen hala ere denboraldi haren oroitzapena, eta **izumen** are ikaragarriagoa zen lausoa zelako, eta, anbiguoa zelako, handiagoa zen beldurra. Koro Navarro

**Izumenez** egoten naiz loa noiz etorriko. Josu Zabaleta

**2** (izenondoekin)

Nire ahalegin guztiak gorabehera, nabari sumatzen nuen **izumen** handi batek hartuak zituela etxe hartakoak. Josu Zabaleta

Ikusleentzat ez zegoen arriskurik, baina **izumen** burugabe batek irteerara joatera bultzatu zituen denak itsumustuan. Koro Navarro

**Izumen** ergel batek eroturik, ihes egiteko prest. Josu Zabaleta

Beldurraren beldur; nire gogoa asaldatzen zaidanean haren esturen beldur, **izumen** ulertezinezko sentipen izugarri horren beldur. Josu Zabaleta

**3** (hitz elkartuetan)

Hemen ez dugu inola ere **izumen** girorik arnasten. Josu Zabaleta

Gau horretan iritsi nintzelako eta sineskeriazko **izumen** ikuskari hura ikusi ahal izango nuelako pozez. Josu Zabaleta

Henrik eta Émilek ez zitean ulertzen **izumen** zurrunbilo hori. Josu Zabaleta

**4** ***izumenezko*** ik **izu 8**.

Beldurra [...] **izumenezko** gauza bat da, sentipen lazgarri bat, arimaren andeatzea bezala, pentsamenduaren eta bihotzaren estura ikaragarri bat, gogoratzeak berak larriminezko ikarak eragiten dituena. Josu Zabaleta

Halako oihu ozenak bota zituen non **izumenezko** ikara bat zabaldu baitzen elizan. Josu Zabaleta

Eta oso bizkor nindoan arren, hotza nuen besoetan eta zangoetan: **izumenezko** hotz doilor bat. Josu Zabaleta

**Izumenezko** eleberria genero herrikoia eta tradizio handikoa da ingeles hizkuntzazko erromantizismoan. Koro Navarro

Lehen begiratuan, klasikoak bezalakoxeak dira Poeren **izumenezko** ipuinak. Koro Navarro

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> izumenak harturik (4)

---

# izun *izond* faltsua.

Lousianako balada **izuna**. Harkaitz Cano

Franco hil eta gutxira, 1976ko udan, kaleratu ziren lehen presoak amnistia haietako batekin, hurrengo martxoan beste batzuk hasi ziren irteten, beste indulto **izun** bat bitarteko. Jokin Urain

Agindu zuen notarioak zin egin zezala jabetza-titulua ez zela **izuna**. Iñaki Iñurrieta

---

# izur **1** *iz* oihaleko toles paralekoetako bakoitza.

Soinean jantzi luze iluna, **izur** zabalez apaindua. Karlos Zabala

Maiteak erortzen utzi zien gonaren **izurrei**. Anton Garikano

Errezelen eta ate-oihalen brokatuak, **izur** bikain-bikainekoak. Karlos Zabala

Bi **izur** eginez josten dira, muxarradura zabalak dituzte goiko aldean... Jose Morales

Gure larruazaleko edozein tolesduratan, gure jantzietako edozein **izurretan**. Mirentxu Larrañaga

Xala soinean lerraturik, **izur** txikiz egindako papar jantzi bat agerian uzten zuela. Karlos Zabala

Zurrunbilo baten antzera, akordeoi-**izurrekiko** soineko gorri bat igaro zen haien aurretik. Lopez de Arana

Beste inori entzuten ez zitzaizkion hitz miragarriak esaten zituen: gipura, izurdurak, Txinako krepa, larrugaina, ozkar puntua, **izur** zeharra, gona-taulak, bolantak... Joxan Elosegi

**2** tolesa.

Norbaitek ikusiko balu nolako haserre bat-batekoek zimurtzen zizkioten bekokiko **izur** eratsuak [...]. Jose Morales

**Izur** sakonez zimurtzen zuen bekoki hartan. Josu Zabaleta

Haren aurpegia, ahizparena baino osasuntsuagoa, dena zen **izur** eta toles, sagar gorri zimeldu baten antzera. Irene Aldasoro

Zimur eta **izurrez** betetako aurpegia. Urtzi Urrutikoetxea

Haren masail grisaren arrakala luzeak eta haren aho ertzean hasten zen **izur** sakonak halako angelu bat osatzen zuten. Lopez de Arana

**3** *irud*

Gure barruko **izur** guztiak erakutsi izan bagenizkio bezala mintzo dela. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

**4** uretan edo ilean eratzen diren uhin modukoetako bakoitza. ik **kirru**.

Aldi berean ikus daitezkeenean uraren **izurrak** eta harri txintxarrak. Anton Garikano

Ura emeki zetorren, **izur** txikiak osatuz. Jose Morales

Gaztaina-koloreko adatsa zuen, gorabeherarik gabeko **izur** faltsuetan bildua. Lopez de Arana

Burua, ordurako errulorik gabea, indarrez inarrosi eta gaztaina argi-koloreko **izur** berriak orraztu zituen. Lopez de Arana

**5** (hitz elkartuetan)

Arroparen toles bat, ezpain **izur** bat, margolariak deigarri jarria. Josu Zabaleta

Kezka-**izur** bat ageri zuen begitartean. Mirentxu Larrañaga

• **6** *izond* ileaz mintzatuz, izurrak dituena. ik **kizkur**.

Bere ile **izurra,** gaztaina-kolorekoa, txukun-txukuna. Lopez de Arana

---

# izuratar *izlag* Izurakoa, Izurari dagokiona; Izurako herritarra.

Bigarren, Xavier Dacosta-Bray, Londres-en bizi den **izuratar** semea. Herria

Evelyne Mainhaguiet Ibarrebordakoak senartzat hartu du Christian Breton **Izuratarra**. Herria

Ama **Izuratarra** duen jaun baten ahotik. Herria

**Izuratarraren** aldarrikapenak berriz Zoé Bray eta Arantxa Idieder herritarren eskutik- Herria

---

# izurde **1** *iz* itsaso epel eta beroetako ugaztun haragijalea, handia, ahoa moko itxurakoa eta horzduna, gaina beltza eta azpia zuria dituena, taldeetan bizi dena *(Delphinus delphis* etab.).

**Izurdeak** hiltzeko arpoia beste armarik ezagutzen ez genuenon artean laster agertu ziren pistolak eta fusilak. Koldo Izagirre

Ikusmirari erreparatzen hasi nintzen, eta **izurdeen** jauziekin gozatzen, hiru **izurdek** aise eta axolarik gabe segitzen baitzioten ontziari. Bernardo Atxaga

**Izurde** amaren deiak bere umeari. ik izurdekume. Koldo Izagirre

Hasieran lehorrean garatu eta eboluzioan zehar atzera uretara itzulitako itsas ugaztun askok, hala nola **izurdeak** eta mazopak, oso usaimen eskasa dute. Irene Aldasoro

Berak ere ez dakiela zergatik etorri zen Francisco Franco autoz, hainbat **izurde** harrapatua zen Azor yatean edo hari eskolta ematen zion *Hernán Cortés* destroierrean etorri ordez. Koldo Izagirre

Maizago, ordea, zutik ikusten zuen, eskuak haztegien hondoan sartuta, arrainak ontzi batetik bestera aldatzen, edo jostalari, kobrezko **izurde** txikiak biratuz, ahotik behera ur xirripa bota zezaten. Karlos Zabala

Kantauri itsasora hiltzera etorri den **izurdearen** igerialdiak ikustera. Eider Rodriguez

Ezin baita sekula pentsatu, **izurdeak** marrazoaren hortzak dituela edo ni bezalako morroi gezak halako balentria burutu dezakeela. Hasier Etxeberria

Munduan 300.000 **izurde,** bale, eta mazopa hiltzen dira arraste-arrantzaren ondorioz. Berria - Gaiak

Irrawady **izurdea** *(Orcaella brevirostris)* bigarren babes mailatik lehenera jaso dute. Berria - Gaiak

Antzeko galera gertatzear da Amazonasko eta Mekongeko siluruekin, Gangesko **izurdeekin** eta Mara ibaiko ñu urdinekin. Berria - Gaiak

**2** (erkaketetan)

Mandeulia bezain nazkagarria, **izurdea** bezain argia, Akiles bezain heroikoa. Jon Alonso

**3** (hitz elkartuetan)

Horietako **izurde** espezie batzuk, gainera, galtzeko arriskuan daude. Berria - Gaiak

**4** konstelazio baten izena.

Capricornioren gainetik Arranoa eta **Izurdea**. Santiago Iruretagoiena

---

# izurdekume *iz* izurdearen kumea.

Handiegia zirudien arauzkoa izateko, eta hain basatia... ile eta bizar beltz luze eta nahasiek aurpegi gehiena ezkutatzen zioten, haren eskuak zaborrontzien estalkien tamainakoak ziren, eta oinak, larruzko botekin, **izurdekumeak** bezalakoak Iñaki Mendiguren

---

# izurdun *izond* izurrak dituena.

Tonu griseko gona **izurdun** bat jantzirik. Eskarne Mujika

Shantung zetazko soineko **izurduna,** Kapela **izurdunez** eta alkandora lazodunez apaindua. Josu Zabaleta

Zinta arrosa koloreko **izurdun** bat jarri diot osatzeko. Josu Zabaleta

---

# izurdura **1** *iz* izurra.

Gauza bera ezkilen arrabotsak egiten ahal omen lezazke onda **izurdura** batzu airean eta hok urruntzen orzantza. Herria

Beste inori entzuten ez zitzaizkion hitz miragarriak esaten zituen: gipura, **izurdurak,** Txinako krepa, larrugaina, ozkar puntua, izur zeharra, gona-taulak, bolantak... Joxan Elosegi

**2** *irud*

Bide erraza eta iduriz dena **izurdura**. Piarres Aintziart

**izurka** *iz*

Sabeth mistral haizearen kontra ibiliz, terraza hura, Aita Santuaren loratergia, dena **izurka:** bere ilea, bere gona globo baten antzera, Sabeth barandari helduta, Sabeth agurkeinuka. Joxe Austin Arrieta

izurratu ik **izorratu**.

**izurri** (*515 agerraldi, 59 liburu eta 88 artikulutan*) **1** *iz* lurralde eta denbora berean biztanleen zati handi bati erasotzen dion eritasun kutsakor oro, eta eskuarki Yersin-en baziloak eraginikoa. ik **izurrite**.

Lastertasun beldurgarriaz zabaldu zen **izurria** kontinente osoan. Koro Navarro

Esponentziala nonahi aurkitzen diagu, izadian nahiz gizartean: landare baten hazialdian, **izurri** baten hedaduran, [...]. Jon Muñoz

Azkenean, **izurriaren** mendean erori zen hura ere. Jon Muñoz

Hemezortzi urterekin, **izurria** harrapatu zuen. Jon Muñoz

**Izurriari** aurre egiteko azpiegiturarik ez dagoelako. Berria - Gaiak

Txertoa da **izurria** geldiarazteko era bakarra. Berria - Gaiak

**Izurriari** bezala egiten zien ihes. Jon Muñoz

Protestantismoa aipatzea **izurria** aipatzea bezalakoa baitzen gure aurkientza hartan. Joan Mari Irigoien

Zerk eragin du, baina, gaitz horiek **izurri** bihurtzeraino zabaltzea? Berria - Gaiak

Birusa azkar eta asko zabaldu da, hiesa **izurri** bihurtzeraino. Berria - Gaiak

Hegaztien gripea mundu mailako **izurri** bihurtzeko arriskua ikusten dutelako. Berria - Harian

**Izurria** pandemia bihurtu dela. Berria - Gaiak

Negu hartan **izurria** izan zen hirian. Koro Navarro

**Izurriaren** kontrako erremediorik onena garbitasuna dela. Gotzon Garate

**2** (izenondoekin)

Goseak akituko ditu, sukar eta **izurri** gaiztoek erasango. Elizen arteko biblia

Ez dizkizue bidaliko ongi ezagutzen dituzuen Egiptoko **izurri** ikaragarriak. Elizen arteko biblia

**Izurri** ikaragarriz zigortu zituen. Elizen arteko biblia

Baldintza haietan, otia azkar ugaldu zen, eta hark **«izurri** biblikoaren» tamaina hartu zuen. Berria - Gaiak

Gujarateko **izurri** neumonikoa, izurri beltza baino gaiztoagoa zen. Gotzon Garate

Hegazti gripea -H5N1 aldaera bereziki- gizakien artean ere **izurri** arriskutsu bihur daitekeela gogorarazi dute berriro ere. Berria - Gaiak

OMEk dio diabetesa **«izurri** isila» bihurtzeko arriskua handia dela. Berria - Gaiak

Bihotz hodietako gaitzen **izurria** zabaldu da munduan, eta Erdi Aroko **izurri** bubonikoa baino askoz hilgarriagoa da. Berria - Gaiak

**3** *irud*

Izan ere, **izurri** gaizto bat zen, haien ustez, hilezkortasuna, eta hil beharra, berriz, **izurri** hartatik libratzea. Juan Garzia

Bizkarreko mina da XXI. mendeko **izurria** erosokeriaren erresuma bilakaturiko herrialde garatuetan. Berria - Gaiak

Bazen "euskal zibilizazio" bat antzinako Europan [...], gizarte baino gehiago emarte edo ema-gizartea zena, matriarkala, ekologista, auzolangilea, berdinzalea, ekialdetikako **izurri** hondatzaile, menderatzaile, gerrazale, patriarkal, zakil-harroak desegin zuena, baina ez zeharo. Iñaki Segurola

Depresioa, **izurri** berria. Berria - Gaiak

Bakardadea XXI. mendeko **izurritzat** jo dute zenbait autorek. Berria - Gaiak

· Lehen **izurria:** ura odol bihurtu. Jose Antonio Mujika

Hamargarren **izurria:** lehen-semeen hilketa. Elizen arteko biblia

**4** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Karrikaz karrika ibiltzen zen **izurri-** eta ekaitz-gauetan. Juan Garzia

Mendebaldeko Europan gaur **izurri** arriskua oso-oso txikia da hegaztien artean, eta gaitza gizakietara pasatzekoa oraindik ere txikiagoa. Berria - Harian

Georgiako **Izurri** Zentroko zuzendariak, Paata Imnadzek. Berria - Gaiak

· Hain zen sakona ilunpea, non erretxinazko zuzi batez argitu behar izan baitzuen ehorzleak etxe **izurri** -joaren sarbidea. Juan Garzia

**5** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Frantses osteek haren herria mendean hartu, eta legen -edo tifus- **izurri** bat ekarri zuten, ez naiz ondo oroitzen zerena. Jon Muñoz

Badakigu 40 milioitik gora pertsona hil zituela 1918ko gripe **izurriak,** eta bi milioi inguru azken **izurriek**. Berria - Harian

658 lagun hil dira Indonesian denge **izurri** baten ondorioz. Berria - Gaiak

Martinen aita nekazaria zen, gizon iluna eta betizua, eta baztanga-**izurri** batean hil zen. Koro Navarro

1960etan zabaldu zen errubeola **izurri** batean. Xabier Olarra

Hegaztien gripe **izurri** baterako prestatzeko eskatu du EBk. Berria - Harian

San Elias herrian **behi** -izurria sortu zen ("Basabove" deitzen dio herriak, eta ez du abelgorririk bizirik uzten). Askoren artean

Egiptoko hauts guztia gizaki eta abereentzat gogaikarri zen eltxo-**izurri** bihurtu zen. Elizen arteko biblia

Oti **izurri** horrek, udazkenean, Maroko hegoaldeko eta Aljeriako larre eta soroak suntsitu zituen. Berria - Gaiak

· Ihauteriak alaitasun-**izurri** arin bat bezala lehertu ziren negu hartan. Xabier Olarra

Badirudi eromen **izurri** bat zabaldu dela azkenaldi honetan Sao Paoloko probintzian. Josu Zabaleta

**6** (erkaketetan)

Beldurra **izurria** baino kutsakorragoa da eta aitaren batean zabaltzen da. Jose Morales

Izan ere, heresia **izurria** baino kutsakorragoa da. Joan Mari Irigoien

**7** ***izurri beltz*** izurri bubonikoa.

Halako batean, Florentzian agerrarazi ninduen, 1348an, **Izurri** Beltzaren erasoaren erdian. Iban Zaldua

Izurririk entzutetsuena, beharbada, **"izurri** beltza" izan zen, han, 1348-1350 urteetan. Gotzon Garate

Okerrena ordea **Izurri** Beltza izan zen, 1348an hasita, izugarrizko beheraldi demografikoa eragin baitzuen. Koro Navarro

Gujarateko izurri neumonikoa, **izurri** beltza baino gaiztoagoa zen. Gotzon Garate

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**gosea eta izurria** (3); **goseak eta izurriak** (3); **gripe izurri** (3); **gripe izurriak** (4); **izurri beltza** (4); **izurri guztiak** (3); **izurri larria** (3); **izurria baino** (3); **izurria bidaliko** (3); **izurria geldiarazteko** (4); **izurria saihesteko** (5); **izurriak jota** (4); **izurriaren aurka** (3); **izurriaren beldur** (3); **izurriaren kontrako** (3); **izurriari aurre egiteko** (13)

**izurrialdi** *iz* izurria dagoen aldia.

Gogoan izan 1347az geroztik **izurrialdiak** Europa osoan ohizkoak zirela, eta 1546an bertan, museoan dauden hainbat margolan egiten ari ziren garai beretsuan, Bartzelonak gaitz hilgarriaren erasoa pairatu zuela Bernardo Atxaga

---

**izurribide** *iz* izurri bat hedatzeko bidea.

Eulia **izurribide** izan daiteke eta gaixotasun asko kutsa ditzake -tifusa, disenteria, kolera, antraxa eta agian gehiago ere bai- hanketako iletxoetan eraman baititzake gaixotasun horiek sortzen dituzten bakterioak. J.M. Olaizola "Txiliku"

---

**izurridun** *iz* izurriak jotako pertsona.

**Izurridunen** begi sutuak. Xabier Amuriza

**Izurriduna** banintz bezala sentiarazten naute. Lopez de Arana

Epifanio deunaren eliza harrez gero, jai egunetan ez ezik, astegunetan ere korualderaino beterik egoten zen jende behartsuz, gizon-emakume gaixo eta ezinduz, neska-mutil gaixo eta ahulduz, itsuz eta gorrez, mainguz eta herrenez, legenardunez eta **izurridunez** . Felipe Juaristi

Bat-batean **izurridun** bilakatu nintzen. Berria - Kirola

---

**izurritasun** *iz*

Eta gaixoen indar eta **izurritasun** hau guztia edo ortzian zehar kanpotik dator, hodeiak eta lainoak bezala, edo sarritan lurrean bertan biltzen eta sortzen da, zoru hezea, euri eta bero ezgaraikoen eraginez, usteltzen hasten denean. Xabier Amuriza

---

**izurrite** *(**372** agerraldi, **70** liburu eta **102** artikulutan)* **1** *iz* izurria; izurri denbora.

Barrabas belarrek irentsita daude ia bazter guztiak, Lekeitio belarra ere deitzen diote **izurrite** horri zenbait lekutan. Hasier Etxeberria

Arazoa zen estorninoak saldo handietan zebiltzala parkeetan, **izurrite** bihurtuta, eta bazter guztiak zirinez zikintzen zituztela. Jon Alonso

Soro eta barruti emankorrenetan, horrelaxe, ekaitz eta **izurrite** guztietatik libro suerta zitezen. Pello Zabala

**Izurritea** gertaturik gaitzeko lana egin zuen erien alde, kutsatua izateko beldurrik gabe. Xipri Arbelbide

-Zein jainkok bidali ote digu **izurrite** hori? Juan Kruz Igerabide

Ez ziren hara helduak gure gizarte hau joa duten gaitz eta **izurriteak** . Xabier Mendiguren Elizegi

HIESak jota dago Hegoafrika, sekulako **izurritea** da han gaixotasun hori. Joxerra Garzia

**Izurrite,** gerrate eta gosetearen ondoren bizirik geldititako hiritarrak. Elizen arteko biblia

Lurrikara handiak izango dira, eta **izurrite** eta goseteak han eta hemen. Elizen arteko biblia

-Zer nahi duzu: zazpi urteko gosealdia zeure lurraldean, hiru hilabeteko ihesaldia etsaia ondoren duzularik, ala hiru eguneko **izurritea** zeure lurraldean? Elizen arteko biblia

Lagun hurkoa suntsitzen duen gizona gosetea edo **izurritearen** antzekoa da, naturaren eskuak bidalia besteak bezala. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Konturatu bainintzen zenbateraino zen ustela zerria hilik **izurritea** amaitu zelako ustea. Joxerra Garzia

**2** *irud*

-Prostituzioa, Parisen, Manilan, Baionan edo Bilbon **izurrite** bat da. Itxaro Borda

O, hipokrisia, gizateriaren **izurritea,** noiz arte? Karlos Zabala

Eta, beraz, halako ongiaren ideia bera **izurrite** bilakatu zen, gaizkia bera baino are gaiztoagoa oraindik. Felipe Juaristi

**Izurrite** erreakzionarioa da. Bernardo Atxaga

Are, hiru aginte modu klasikoei eratxikitzen badiegu laugarren aginte modu bat, azkena eta menturaz orotarik txarrena, erran nahi baita Burokrazia, bazter guztietan sartzera utziz geroz belar gaiztoak bezala hedatzen dena eta maiz izenik gabeko **izurrite** anonimoa bilakatzen, ez gara horrengatik nehoiz aterako boterearen kontzepzio gaiztoenetik. Piarres Xarriton

Historia osoan zehar ez da izan **izurrite** latzagorik gure gaurko munduari gainera erori zaion paperak nahasteko ahulezia hori baino! Anjel Lertxundi

**3** (hitz elkartuetan lehen osagai gisa)

Uholdeei ihes egiten ari dira milaka pertsona, eta **izurrite** arriskua dago. Berria - Mundua

Darfurren giza laguntza sendotu dute, lehenbiziko **izurrite** agerraldien ondoren. Berria - Mundua

**Izurrite** eta hondamendi egoerentzako. Berria - Euskal Herria

**4** (hitz elkartuetan bigarren osagai gisa)

Balioko zuen izotz eta hotzak, landatik har eta zomorro **izurriteak** uxatzeko. Pello Zabala

XIX. mendearen bukaera aldera, kotoiaren samu- **izurrite** batek erabat galdu zituen Alabamako kotoi-soroak. J.M. Olaizola "Txiliku"

Oti berde edo matxinsalto handi horien **izurrite** berri latz batek Valentzia aldea gorritu zuen. Pello Zabala

Lurraren inbasioa kontatzen da bertan, zorri **izurrite** baten inbasioa hain zuzen ere. Iñaki Arranz

Izain- **izurrite** biblikoa. Alberto Barandiaren

Rieti haraneko ganadu- **izurritea** . Askoren artean

Kolera **izurritea** . Berria - Gaiak

Ez dago hies **izurrite** bakarra, baizik eta tokian tokiko izurriteak.

2002an denge **izurrite** handia gertatu zen Brasilen eta 150 lagunek galdu zuten bizia. Berria - Gaiak

Iraganean **gripe** izurrite larriek -1918an eta 1957an, esate baterako- eragindako galerak aztertu dituzte orain izan daitezkeen ondorioak aztertzeko. Berria - Gaiak

Baionako erietxeko osasun arduradunek bronkiolitis **izurriteak** okerrera eginen duela iragarri dute. Berria - Euskal Herria

· Giza **izurrite** baten birus ugalkor moduan baizik ezin litezke hartu eskolak. Patziku Perurena

Lesio **izurriteak** barneko jokoa baliatzera behartuko ditu Ivanovicen jokalariak. Berria - Kirola

Badirudi eromen bat, Erdi Aroan Europako herriak jo zituen eromen kutsakorraren antzeko eromen **izurrite** bat zabaldu dela Sao Pauloko probintzian. Josu Zabaleta

**5** (erkaketetan)

Noiz arte Egiptoko **izurriteak** baino makurragoa den gerla hau? Xabier Montoia

Haren hatsa **izurritea** bezalakoa da Ander Irizar

**6** ***izurrite beltz*** izurri bubonikoa.

Gero, Venezian barrena zabaldu zen, **izurrite beltza** zabaltzen den bezala, bazela Errepublikaren barrutian deabru etsaiak egindako biolina jotzen zuen gizona. Felipe Juaristi

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**eritasun izurrite** (3); **eta izurrite** (13); **goseak eta izurriz** (3); **gosez eta izurriz** (5); **hiesaren izurritea** (3); **izurrite arriskua** (3); **izurritea zabaltzea** (3); **izurriteak eragindako** (3); **izurriz hilko** (6); **izurriz hilko da** (4); **izurriz joko** (5); **kolera izurritea** (3); **lesio izurriteak** (3); **matxinsalto izurritea** (3)

---

**izurritsu** *izond* ik **izurridun**.

Medikuak bere bizia arriskuan jarri beharra zuen **izurritsurik** arruntena ere zaintzeko. Josu Zabaleta

---

**izurritu**, izurri(tu), izurritzen **1** du *ad* izurriz kutsatsu.

Horra hor zure senarra, buruxka harjoa legez bere anaia osasuntsua **izurritzen**. Juan Garzia

1451n Berna inguruko putzuak **izurritzen** zituzten izainak auzipetu zituzten, eta Lausanako Apezpikuak [...] agindu zuen "uretako har" haietako batzuk herriko epailearen aurrera ekartzeko. Xabier Olarra

Halaxe egin zen, eta izainei, bai bertan eta bai kanpoan zirenei, hiru egun eman zitzaizkien **izurritutako** lekuak husteko "Jainkoaren madarikazioaren" zigorra ezartzeko mehatxupean. Xabier Olarra

**2** (era burutua izenondo gisa) izurriak joa. ik **izurriztatu**.

Emakume herren bat geratu zait parean, eta goitik behera begiratu dit, neuk nahasi izan banu bezala hiriko ordena edo **izurritua** banintz baino okerrago. Mondragoetik eta inguruko korta eta gari-sailetatik zetorren erre-usain **izurrituak** hartuak zituen bazterrak, keak eta harrapariek belztutako zeru astun baten pean. Anjel Lertxundi

---

**izurriztatu** *izond* izurriak joa.

Gurasoek beren haur **izurriztatuak** bazterrean hiltzen uzten zituzten eta alde egiten zuten nora edo nora, kutsamenaren beldurrez. Gotzon Garate

---

**izurtsu** *izond* izur asko duena.

Lepotik behera zeukan zintzilik, antzokiko oihal baten antzera, eta itsaso **izurtsu** haren azpian ezkutatzen ziren sorbalda, eskuak, besoak eta hankak. Anton Garikano

Zelula-geruza **izurtsua** leundu egiten da; zelulek elkar hartzen dute, nolabait esateko, lerroa babestearren. Irene Aldasoro

Kanpo-belarria (guk ikusten duguna) belarri-hegala da, larruazal eta kartilagozko hegal **izurtsu** bat. Irene Aldasoro

Dermisaren goiko aldea **izurtsua** da, eta haren formari egokitzen zaio epidermisaren azpiko aldea (geruza basala). Irene Aldasoro

Hiru egitura **izurtsu** dira gorputz turbinalak: bat hezurrezkoa eta beste biak kartilagozkoak. Irene Aldasoro

---

**izurtu**, izur(tu), izurtzen **1** du *ad* izurrak eragin.

Mathilderen brusa bat hartu zuen Norak aulki baten bizkarretik, sukaldera jaitsi eta han **izurtzeko**. Noizean behin aire ahul batek **izurtzen** zituen belak. Anjel Lertxundi

Baso eta belar usaineko haize hotz batek putzuak **izurtzen** zituen euriak garbitutako kaleetan. Lopez de Arana

Nire izen-deiturak entzun zituenean, ezpainak **izurtu** zituen espero zuen erantzuna eman izan banio bezala. Anjel Lertxundi

Irribarre egin zion, ezpain-ertz bat zoragarriro **izurtuz**. Mirentxu Larrañaga

Zeren buruan orraztatu gabeko bi ile baitzituen, biak ere nahasirik eta **izurturik**. Joan Mari Irigoien

Hire xerlo dotore **izurtuok**. Juan Garzia

**2** (era burutua izenondo gisa)

Ibaiaren ur **izurtuaren** gainean. Lopez de Arana

Haren ile-xerlo gris **izurtuak**. Lopez de Arana

Itxura oneko azti bat zen, ile hori **izurtua** eta begi urdin distiratsuak zituena. Iñaki Mendiguren

Etxea barraka amerikar bat zen, xafla **izurtuz** estalia. Joxe Austin Arrieta

Nonbaiteko latorrizko sabai **izurtu** hura. Joxe Austin Arrieta

Paper **izurtuzko** ohe batean. Irene Aldasoro

Adarki **izurtuzko** marko batean. Irene Aldasoro

Txakurraren sudurra ez da gurea baino askoz handiagoa, baina haren mukosa sentikorra oso **izurtua** eta tolestua da, eta horrek ahalbidetzen dio leku txikian azalera handia hartzea. Irene Aldasoro

Haien aurpegi **izurtu** eta zurbilduetan miseriaren tristura zegoen markatuta. Josu Zabaleta

Azal **izurtuetako** nork jakin nongo tolesturetan emazte gaztearen koloreak berriro aurkitzeko. Josu Zabaleta

Izurra **izurtua**. Jon Muñoz

---

**izurtzar** *izlag/iz* Izurtzakoa, Izurtzari dagokiona; Izurtzako herritarra.

**Izurtzarra** eta iruindarra partida bakarra galdu ostean iritsi ziren finalera. Berria - Kirola

---

**izuti** **1** *izond* erraz izuten dena, izutezko joera duena. ik **beldurti**.

Maitatua sentitzea baino gura ez zuen haur **izuti** eta zalantzatsu baten zalapartak. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

Herioren aldarrikari zela, esan zien marinel **izutiak** lagun **izutiei** malkoak begietan. Felipe Juaristi

Martxela izeneko biolontxelo-jotzaile mehe **izuti** bati. Felipe Juaristi

Neska bitxi samarra da; **izuti** samarra, normalean, eta etxean lotsagabea oso. Josu Zabaleta

Xagu **izutiaren** itxura dik -pentsatu nuen-, bere zuloan ezkutatzen den xagu gris bat. Alberto Ladron Arana

Egoera horietan gogoa ihesean alde batetik bestera salto egiten duen pizti **izutia** baita. Ramon Saizarbitoria

Hitzezko jauregi gotorra eraiki zuen izuaren aurka, izua **izutien** alde erabiliz, **izutiak** defendi zitezen izu-eragilearengandik. Felipe Juaristi

**2** *hed*

Esertzeko esan nion eta begi borobil **izuti** sarkorrekin begiratu zidan. Gotzon Garate

Bere jarrera **izuti** hura ikusita, urtu behar nuela iruditzen zitzaidan. Josu Zabaleta

Agur **izuti** bat elkarri esan, eta ostatura sartu zen bera. Txillardegi

Harlemgo gau pisu, busti, **izutian**. Iñaki Zabaleta

Denbora **izutiaren** mozorro. Felipe Juaristi

Latsaren xuxmur **izuti** etengabea ari, Arhane etxeraino hurbildu nintzen. Txillardegi

Orbel **izutia** ere haizean. Anjel Lertxundi

**3** (erkaketetan)

Azeria bezain maltzurra da eta erbia bezain **izutia**. Jon Alonso

Txahal bat baino **izutiago,** baietz egin nion buruarekin. Juan Kruz Igerabide

Ihesi abiatu ziren aretoan zehar, behi **izutiak** bezala. Juan Kruz Igerabide

**4** (adizlagun gisa)

Bakardadeak egiten gaitu **izuti,** bakardadeak ahuldu egiten baikaitu. Pako Aristi

**Izuti** jokatzen duzula berarekin. Bernardo Atxaga

Oinaze goibeletan itotako morrosko sendo haien aurpegi minduetan [...] goiztiri esperantzatsu baten irribarre gozo-eztia hozitzen bide zen, **izuti**. Txillardegi

-Printzea ikusi nahi nuke -esan nuen **izuti** eta apal. Matías Múgica

Eta geroxeago, **izuti:** [...]. Txillardegi

> **hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**
> erbia bezain izutia (3)

---

# izutikeria *iz* izutiari dagokion ekintza gaitzesgarria.

Eta ordurarteko neure zalantzak eta **izutikeriak** madarikatu nituen Txillardegi

---

# izutu, izu(tu), izutzen **1** da *ad* izua sentitu.

Erizainak ispilu bat ekarri dit azkenean: **izutu** naiz. Joxe Austin Arrieta

Hondarra ikusi nuenean, harea hain hurbil, **izutu** egin nintzen une batez, batere motiborik gabe. Joxe Austin Arrieta

Gaixotzen naizenean, **izutu** egiten nauk, nirea ez den zerbait gastatzen ariko banintz bezala. Xabier Olarra

Aldian behin, haurraren soiltasuna urratu ahala, susmatzen genituen inguruan, ezkutuko armiarma batenak bailiran, gogortasunaren, erruki ezaren edo krudelkeriaren hariak, eta **izutu** ere egiten ginen heriotza aurrez aurre jartzen zigutenean. Bernardo Atxaga

Ez **izutu,** ez izan beldur jendetza izugarri horren aurrean. Elizen arteko biblia

Txundi zaitezte, beraz, zeruok! **Izu** zaitezte eta ikaratu! Elizen arteko biblia

**Izutu** beharrean, harrotu egin zen, eta mendekua nondik hartuko zebilen. Juan Kruz Igerabide

Teknologia berriekin **izutu** beharrean, gure alde jartzen saiatu gara. Berria - Kultura

-Harrapatu gaituzte! **-izutu** zen Ginebra-. Juan Kruz Igerabide

Zamako abereak suaren inguruan jartzen direnean **izutu** egiten baitira. Santiago Iruretagoiena

Ez zegoen **izutua,** haserre baizik. Juan Kruz Igerabide

Prokuradoreak urrats bat egin zuen, gibelera, **izuturik**. Elena Touyarou

Arrebak, nebaren jarreraz **izuturik** bazegoen ere, ahalik sosegatuen hitz egin zion: [...]. Anjel Lertxundi

Marquesito ere **izututa** atera zela ihesi, benetako koldar bat bezala, gainera, Susana bakar-bakarrik utzita. Bernardo Atxaga

Halere, inauteri bera baino, aratuste kontuak gehiago astindu izan dira gure inguruotan, garizumako barau eta bijiliak **izututa**. Pello Zabala

**Izututako** tximu eroa bezala oihuka. Jesus Mari Mendizabal

**Izutzeko** negua egin zuen urte hartan. Josu Zabaleta

**2** (nola adizlagunekin)

Etxekoandrea ikaragarri **izutu** zen deabruaren aipamena entzutean. Jose Morales

Izugarri **izutu** zela, noski, *red skin* haiek atzetik segika zituela ohartzean. Bernardo Atxaga

Trelawney andereñoa oso **izutu** zen. Iñaki Mendiguren

Lagunak zeharo **izutu** ziren; eskuetatik arraunak askatu, eta uretara erori zitzaizkien. Juan Kruz Igerabide

Erabat **izutua** zegoen eta gorputza dardar, bihotzean nolako atsekabea zuen begira zeudenek igartzeko eran. Elizen arteko biblia

Erabat **izuturik** eta ikaraturik, sakanean barrena barreiatu ziren denak ihesi, elkarri itxaron gabe. Jose Antonio Mujika

• **3** du *ad* izua sentiarazi.

Eginkizunaren zailtasun guztiak azaldu nizkion Dolmancéri; ezerk ez zuen **izutu**. Juan Martin Elexpuru / Bego Montorio

CNTko partida bat zebilela gerra beren aldetik egin nahian, inguruko baserritar guztiak **izutzen**. Inazio Mujika Iraola

Erle artera sartu beharrak arras **izutu** nau. Pako Aristi

Ikusi ikusten baitzuen otsoen ipuinek ez gintuztela askorik **izutzen**. Xabier Mendiguren Elizegi

Apur bat **izutu** ninduen haren aurpegiak; ez soilik hazpegi gogorrak, nolabait gizontasun gehiegizkoak, zizelez landua bailitzan, ezpada haren azalaren ubel biziak, [...] haragi bizia islatzen zuenak. Urtzi Urrutikoetxea

**Izutu** egin du Luis telefono hotsak. Lourdes Oñederra

Orain esanda hain zaila ez dirudien arren, hartan pentsatze hutsak **izutu** egiten ninduen. Ramon Saizarbitoria

Iraganak erakartzen nau, orainak **izutzen,** etorkizuna heriotza delako. Josu Zabaleta

Etorkizun jakina aspergarri mortala delako eta etorkizun ez-jakina **izutzeko** moduko muturrarekin agertu ohi delako. Iñaki Segurola

-Jaso buru hori! -agindu zidan, gainerakoak erabat **izutu** zituen doinuaz; amaituak ziren txantxak. Juan Kruz Igerabide

Gero apur bat **izutu** ninduen gauza bat gaineratu zidan. Hasier Etxeberria

Isiltasunak **izutu** egiten gaitu. Pako Aristi

Hasieran bizitasun hura harrigarria gertatu bazitzaidan ere, azkenean nahasi, menderatu eta guztiz **izutu** ninduen. Koro Navarro

Ez zaitzatela zeure burutazioek **izutu;** ez daukazu zertan zurbildurik. Elizen arteko biblia

**Izutu** eta uxatu ez ezik, gizonak mututu ere egin ditu txoriak. Iñaki Segurola

Sinesberak **izutzeko** asmaturiko ipuina da. Iñaki Mendiguren

Hilotza kanpora atera, eta aurre egin ziotenei beste erasoaldi bat egin zien, denak **izutzeko** modukoa. Juan Kruz Igerabide

**4** (era burutua izenondo gisa)

Krinolinaz jantzitako emakume-talde **izutu** baten aurrean agertzen ikusi zuten berriro. Iñaki Mendiguren

Bi emakume menperatu, **izutu** eta zorigaiztoko. J.M. Olaizola "Txiliku"

Ez zen hiritar **izutu** eta melenga haietarik. Itxaro Borda

Musu eman zidan bertan, ezpain **izutuetan**. Aritz Gorrotxategi

Marisak mutu besarkatzen zuen, niri begi ertzetik begira, orein **izutu** batek bezala. Juan Kruz Igerabide

Bere hezurduraren hotzikara sorgorra, piztia **izutu** batenaren antzekoa. Joxean Agirre

Begirada **izutu** eta beldurrezko batez. Xabier Olarra

Erabateko isiltasuna egin zen, garrasi **izutu** txiki batek bakarrik hautsi zuena. Iñaki Mendiguren

Zaldien irrintzi **izutua** entzun zen tupustean. Anjel Lertxundi

Zeruko aingeruek eskua eman ziezaiotela bere arima **izutuari,** horrenbertzez. Aingeru Epaltza

Norak, errezelo **izutua** begietan, keinu egin zuen bekaina jasorik Andreasek zer adierazi nahi ote zuen jakiteko. Anjel Lertxundi

Gogoratzen dudan bakarra, oso larri ibili nintzela, gero eta **izutuago** Ashbury eta Frederick kaleen gurutzean sortutako kidetasuna galduko genuelakoan. Bernardo Atxaga

· Banekien nahita egina zela, baina harritu eta **izutu** itxura egin nuen. Josu Zabaleta

Han zegoen bera, ispiluan islatuta, zurbil eta **izutu** -itxuraz. Iñaki Mendiguren

**Izutuarena** egin behar nuen, baina ez larregi. Koldo Izagirre

### 5 ***izutuxe*** izutu xamar.

Sofi denbora tarte luzean egon zen geldirik zaldiaren ondoan: isilik, harriturik, **izutuxea** . Fernando Rey

Ez, ez duk hori -pentsatu nuen agudo, **izutuxea** konparatzeagatik gertatuko zitzaidana eta hodeitzar beltz horietako batek mehatxatutako hiriari gertatu behar zitzaiona-. Fernando Rey

**hitz multzoen maiztasunak (gutxienez 3 aldiz agertzen direnak)**

**begi izutuak** (5); **begirada izutu** (3); **benetan izutu** (4); **biziki izutu** (3); **erabat izutu** (10); **gehiago izutu** (3); **izutu egin naiz** (9); **izutu egiten nau** (9); **izutu gabe** (6); **izutu ninduen** (12); **izutu nintzen** (13); **izutu zen** (23); **izutu ziren** (10); **izutu zituen** (5); **izutu zuen** (12); **izutu zuten** (3); **neska izutu** (3); **zeharo izutu** (5)

**arrunt izutua** (3); **aurpegi izutua** (3); **erabat izutua** (3); **izutua zegoen** (6)

**arras izuturik** (5); **beti izuturik** (3); **erabat izuturik** (6); **guztiz izuturik** (5); **izuturik begiratu** (7); **izuturik esnatu** (3); **izuturik gelditu** (8); **izuturik ikusi** (3); **izuturik zegoen** (6)

**erabat izututa** (13); **guztiz izututa** (5); **izututa atera** (3); **izututa begira** (3); **izututa begiratu** (6); **izututa begiratzen** (3); **izututa bezala** (4); **izututa bizi** (3); **izututa esnatu** (3); **izututa gelditu** (6); **izututa geratu** (9); **izututa utzi** (3); **izututa zegoen** (11); **izututa zirudien** (4); **oso izututa** (4); **zeharo izututa** (5)

**gehien izutzen** (3); **guztiak izutzen** (3); **horrek izutzen** (5); **izutzeko arrazoirik** (3); **izutzeko modukoa** (3); **izutzen hasi zen** (4); **jendea izutzen** (3); **ni izutzeko** (3; **zerk izutzen** (3)

---

## **izutzaile** *iz* izutzen duena.

«Jardun **terrorista** izutzailearekin» ezer ez duela lortuko. Berria - Euskal Herria

Ospea, ordea, ume-**izutzaile** bezala etorri zitzaion, Euskal Herri eta beste zenbait tokitako gurasoek bere izena erabiltzen zutelako -beste leku batzuetan El Coco, El hombre del saco edo Le Croque-mitaine direlakoak bezala- umeei beldur apur bat sartzeko. Bernardo Atxaga

---